

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA

IDAZLAN GUZTIAK

Edizio kritikoa

Julen Urkiza

Luis Baraiazarra

Euskararen Lekukoak- 20

Karmel Sorta - 12

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

EDICIONES EL CARMEN

Bilbao 2000

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA

IDAZLAN GUZTIAK

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK- 20
KARMEL SORTA - 12



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Cultura



© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO

© EDICIONES EL CARMEN
c/ Manuel Iradier, 2 - 01006 VITORIA-GASTEIZ

I.S.B.N.: 84-95438-01-1
Legezko Gordailua: BI-1401-00

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 BILBO

Moldiztegia: A.G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO

AURKIBIDEA

<i>Aurkezpena</i> , Andres Urrutia.....	25
---	----

SARRERA OROKORRA

I. BIZITZA	32
1. XVIII eta XIX. mendeen arteko egoera sozio-erlijioso-politikoa	32
2. Madariaga-Garate familia.....	35
<i>Hiru anaia eta hiru iloba karmeldar</i>	39
a. Jose Madariaga Garate (Fraile Jose S. Migelena).....	39
b. Kristobal Pedro (Fraile Pedro S. Joserena)	41
c. Hiru iloba karmeldarrak	42
3. Bartolome Madariaga Garate: Hautzaroa eta gaztaroa.....	43
a. Etxebarrin jaio eta Markinan bizi izan zen.....	43
b. Erlijio-egoera: Markinako Karmengo komentua.....	46
4. Karmeldar: nobiziatua eta ikasketak (1789-1799).....	48
a. Nobizio Korellan (1789)	48
b. Filosofia eta teologiako ikasle (1790-1799).....	52
c. Bartolome ikasle zeneko gertaera sozial eta pertsonal batzuk.....	61
5. Aita Bartolome Markinan: predikari eta idazle	62
a. Fraile Bartolome Markinan.....	62
b. Predikari	65
c. Idazle.....	72
6. Komentuak ixtea Frantsesteetan (1809-1813). Bartolome atxilotua.....	79
a. Egoera politikoa frantsestearen hasieran.....	79
b. Komentuaren aurkako salaketak.....	80
c. Karmeldarren kanporatzea	83
d. Fraile Bartolome Santa Teresa, atxilotua, eta Etxebarrin konfinatua	84
e. Komentu eta elizaren egoera.....	88
7. Fraile Bartolomek Karmengo komentua berreskuratzen du (1813).....	89
8. Karmengo Nagusi (1817-1820).....	93
a. Fraile Bartolome kargu berrian.....	93
b. Prioreari dagozkion lanetan.....	94
1) Arazo ekonomiko batzuk	94
2) Udalarekin eztabaidak.....	95

aa. Teilapea.....	95
bb. Osasuna.....	97
cc. Erlojua.....	99
c) Frai Bartolomerren ospea.....	99
d) Frai Bartolomerren leheneago pausoak egoera politiko-erlijioso berrian .	100
9. "Isla"ko basamortuko nagusi (Sestao, 1820-1824)	101
a. "Isla"ko Basamortu historikoko priore	102
b. Egoera sozio-politiko.....	103
c. Aldakuntza problematikoak Basamortuan egoera politiko berrian.....	107
d. Hiru urteko konstituzio aldian, komentua salbatzeko ahaleginetan...	113
c. Prioretzako lau urteen amaieran.....	118
10. Probintzialaren aholkulari (Burgos, 1824-1826)	120
a. Egoera sozio-politiko-erlijioso hoberantz.....	120
b. Probintzialaren aholkulari karguan berriro	121
11. Santanderko apezpiku-jauregian, apezpikuaren aitor-entzule eta aholkulari (1827-1829).....	124
a. Santanderko apezpikutegian izan zuen ekintza	124
b. Euskal kulturazko ekintza.....	125
c. Málaga-ra.....	126
12. Lazkaon, nobizioen maisu (1832), bere heriotzararte (1835-XII-11)	126

II. EUSKARAZKO IDAZLANAK – SERMOIGINTZA. ITURRIAK

1. Argitaratutako idazlanak	131
A) Euscal-errijetaco olgueeta.....	131
1. Lehen argitalpena: 1816an.....	131
2. Beste argitalpenak.....	134
a. 1904ko (1914ko) argitalpena. E.S. Dodgson.....	134
b. Facsimila	135
c. 1986ko edizioa. L.M. Mujika.....	135
d. 1987ko edizioa. P. Altuna	137
e. Aita Lon Arteaga.....	138
f. Euskari informatikoetako testuak: EJIE - Josu Lavin.....	138
3. Edizioen arteko menpekotasuna	138
a. E.S. Dodgson.....	138
b. Josu Lavin - L.M.Mujika eta faksimila	138
c. Altunaren testua.....	140
d. Eskema eta ondorioak	142
B) Icasiquizunac.....	143
1. Liburukia.....	143
2. Liburukia.....	147
3. Liburukia.....	149
C) Sermoiak.....	151

1. Sermolari.....	151
a. Predikari-ofizioa Ordena barruan.....	152
b. Albiste batzuk.....	152
2. Gorde diren eta galdu diren sermoiak.....	152
– Sermoa gurasuen ta umeen oneraco.....	153
– Ama Santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia.....	154
– Ama Virginiaren jaijotzia.....	154
3. Iturriak eta sermioen estiloa (Oratoria).....	156
D) Beste era batera “Argitaratutako” edo prestatutako idazlanak.....	157
1. Euskarri informatikoan dauden testuak (EJIE - Josu Lavin)	157
2. Argitaratzeko prestatutako idazlanak: Aita Lon.....	157
2. Iturriak	159
1. Ikasketa ofizialak: filosofia eta teologia	159
2. Markinako biblioteca, eta estudio pertsonala.....	160
3. Haren lanetan agertzen diren autoreak, aipamenak	166
a. Bibliako iturriak.....	168
b) Eliz Gurasoen iturriak.....	169
c) Eliz Irakaspenekoak.....	169
d) Maite zituen autoreen iturriak.....	170
III. ERDARAZKO IDAZLANAK	171
1. Plauto bascongado (1828)	171
2. Anti-Plauto polígloto (1829)	174
3. Apuntaciones... 1815 (1992)	176
4. Gutunak, txostenak, idazkiak.....	179
5. Bartolomeren ofiziozko beste idazki autografoak	183
IV. FRAI BARTOLOMEREN EUSKARA	191
1. Grafia	192
a. Bokalak.....	192
b. Kontsonanteak.....	194
b. Puntuazio-markak.....	198
aa. Galdera-markak eta harridura-markak.....	199
bb.Azentuak.....	199
cc. Komak.....	199
dd.Puntu eta komak.....	201
ee. Bi puntuak.....	202
ff. Eten-puntuak.....	204
gg. Marratxoa.....	205

c. Hitzen elkarketa eta banaketa.....	206
aa. Hitzen elkarketa.....	206
bb. Hitzen banaketa.....	209
2. Fonetika	215
a. Bokalak.....	215
b. Kontsonanteak	223
aa. s / z txistukarien alternantzia.....	223
bb. n, l, r kontsonanteen ondoko txistukariak.....	225
cc. F / P ezpainkarien trukaketa.....	228
dd. Ahostun bihurtzen diren barneko kontsonanteak.....	228
ee. Kontsonante sabaikariak.....	230
ff. Disimilazioak eta zenbait kontsonanteren aldaketa	230
gg. Etimologiari gehiegi atxikirik	236
hh. Gune horietan ohikoak ez diren kontsonante afrikariak.....	236
ii. Gune jakinetako aldaketa fonikoak.....	238
jj. Kontsonante ahostun eta ahoskabeak /n/ eta /l/-ren ondoren....	240
kk. Bokal arteko kontsonante ahostun batzuen galtzea.....	241
ll. Dardarkarien galtzea zenbait gunetan.....	243
mm. Hitz-hasierako dardarkarien aurreko protesia.....	243
3. Morfologia	244
a. Deklinabidea.....	244
aa. Deklinabideko kasuen eskema.....	245
bb. Deklinabideko kasuen azalpena.....	248
b. Erakusleak.....	268
c. Izenordain pertsonalak.....	270
d. Atzizkiak	270
e. Zenbatzaileak.....	275
f. Izenordain zehaztugabeak.....	279
g. Determinatzaile zehaztugabeak.....	280
h. Aditz-multzoko partikula modalak.....	281
i. Juntagailuak.....	283
j. Zenbait aditzondo, posposizio etab.....	287
k. Adizkiak.....	290
4. Sintasia	294
a. Aditz-sintagmako zenbait osagaiaren erabilera.....	294
b. Perpaus koordinatu distributiboak.....	296
c. Ezezko perpausen joskera.....	298
d. Denborazkoak.....	298
e. Konparazio-perpausak.....	300
f. Ondorio-perpausak.....	303
g. Perpaus kontzetsiboak.....	304
h. Perpaus erlatiboak.....	304
i. Perpaus osagarriak.....	305

5. Lexikoaren inguruko zenbait zehaztasun	310
6. Haren estiloaz zenbait iruzkin	345
V. BIBLIOGRAFIA	361
1. Artxiboak eta dokumentazioa.....	361
a. Artxiboen zerrenda	361
b. Haren testuen eskuizkribuak	362
2. Argitalpenen zerrenda eta azalpenak.....	371
a. Zerrenda bibliografikoa	372
– Bartolomeri buruz.....	372
– Bartolomeren idazlanen bibliografia	374
b. Ikertzaile garrantzitsuenak eta haien ekarpenak.....	375
c. Argitaratzeko bideak: aldizkariak.....	378
VI. KRONOLOGIA: BIZITZA - IDAZLANAK – GARAIA	379
VII. ARGITALPEN HONETAZ	391

T E S T U A K

EUSKARAZKO TESTUAK

EUSCAL-ERRIETACO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZKO -GATZ-OZPINDUBA

<i>Sarrera</i>	407
Jesucristo gueure Jaun curutzian josijari.....	419
I. Capituluba: Olguetiaren gainian.....	423
§. I. Nosbait zetan edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena da...	423
§. II. Errazuazco olgueetiac ez dau eragozten Jaungoicua servidutia.....	425
§. III. Cristinauba aleguere izatia ez da berez gauza chaarra	427
II. Capituluba	431
§. I. Jaungoicua opendidu bagaric, celan divertidu leitequian, olgueetiaren parteti.....	431
§. II. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian, demporiaren parteti.....	435

III. Capituluba: Amaija.....	439
§. I. Plaza-piestaraco gentia celan presteetan dan.....	439
§. II. Plazaco piestia celan eguiten dan.....	445
§. III. Escritura Sagradubac eta Eleisiaren Gurasuac naasteco dantzaac gaiti dinuena.....	449
§. IV. Theologubac ta errazoiac naasteco dantzaac gaiti dinuana.....	452
Errazoiac.....	455
IV. Capituluba: Erromedijen, biguiren ta saraubeen gainian	459
§. I. Cer dirian erromedijac	459
§. II. Cer dirian biguiraac.....	460
§. III. Saraubac cer dirian.....	462
V. Capituluba: Dantceen pavoreco errazoiac ta erantzunac.....	469
§. I. Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzatequez.....	469
§. II. Santo Tomasesc dino dantzan eguitia berez ez dala pecatu.....	476
§. III. San Francisco Salesec Philoteari ez eutsan gutiz eragotzi dantzan eguitia.....	477
§. IV. Abadiac eta prailiac bere juaten dira piestara... Chaarrac balira, ez litzaatequez juango.....	479
§. V. Piesteetara ta dantceetara juan arren, ez dot nic peccaturic eguiten..	482
§. VI. Dantceetan ez eze eleisaan bere pecatu eguin legui nai davenac Ara bere ez juan	486
§. VII. Gaztiac cetan edo atan olgau biar davee.....	487
§. VIII. Oba da alcarregaz plazaan edo sarauban edo biguiraan olgheetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino.....	489
Uts - eguiteen ezauberia	493

**JANGOICUAREN LEGUECO LELENGO BOST AGUINDUBEN
OGUETA BOST LECINOE TA SERMOE BAT**

<i>Sarrera</i>	497
Vizcai gutiz noble ta gutiz lejialeco cura jaunai.....	509
Iracurliarenzat	513
Jangoicuaen legueco mandamentuben asieraraco lecinoia, ceñetan eracusten dan dotrinia icasteco dauan preminia	515
Bigarren lecinoia, ceñetan eracusten dan mundubaren asieria, guizonaren noblecia ta cristandadiaren balijua.....	521

[Lelengo mandamentuba]

Jangoicuar en legueco amar mandamentuben lelengo lecinoia, ceñetan eracusten dan mandamentubac zer dirian, ceinbat modutacuac dirian, Jangoicuar en legueco mandamentubac zeintzuc dirian eta nos asi cirian	531
Bigarren lecinoia, Lelengo mandamentubac cer aguinduten doscun; ta celan biar dirian pedia ta esperantzia Jangoicua ameeaco.....	536
Irugarr en lecinoia, ceñetan eracusten dan celan dan Jangoicua guztiz maitegarrija ta cegaiti.....	541
Laugarren lecinoia, ceinetan eracusten dan amau biar dogula Jangoicua gauza guztia baño gueijago, lauba, andija ta indartsuba dalaco.....	548
Bostgarren lecinoia, ceñetan eracusten dan Jangoicua dala adisquide pirmia, emonzallia ta parcazallia	555
Seigarren lecinoia, ceñetan eracusten dan Jangoicua dala adisquide biguna, carinosua, guztien eracua ta beticua.....	562
Zazpigarren lecinoia, ceñetan eracusten dan gueure burubac celan amau biar ditugun, ta gueure projimuac nortzuc dirian.....	569
Zortzigarren lecinoia, ceñetan eracusten dan cer dan projimua ameeitia, ta ce ordenagaz amau biar dan.....	575
Bereratzigarr en lecinoia, ceñetan eracusten dan gueure arerijuai zor deutsegun amodijua.....	580

[Bigarren mandamentuba]

Bigarren mandamentuco lelengo lecinoia, ceñetan eracusten dan cer dan juramentu eguitia, juramentu nos eguin biar dan ta juramentubaren beian aguindutaco gauzaac celan cunplidu biar dirian.....	589
Bigarr en lecinoia, ceñetan eracusten dan guzurrezco juramentubac ce injurija andija eguiten deutan Jangoicuari ta juezaren aurrian guzurrezco juramentuba eguin davenac, ce obligacinoe daucan.....	594
Irugarr en lecinoia, ceñetan eracusten dan cer dirian votuac edo promesac, celan cunplidu biar dirian ta celan quentceen dan euren obligacinoia	599

[Irugarren mandamentuba]

Irugarren mandamentuco lelengo lecinoia, ceñetan eracusten dan ce biar eraozten doscun Jangoicua domequeetan ta jai osuetan, celan eraozten daven ta ce necesidadegaz biarra eguin leijan egun areetan .	607
---	-----

- Bigarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan cer dan mecia, ceintzuc dirian meciaren parteric nautsijenac, nortzuc dauqueen mecia entzuteco obli-gacinoia ta celan entzun biar dan 613
- Irugarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan domeeca ta jai osuetan asco dan meza osua entzutia, biarric ez eguitea ta pecaturic ez eguitia, egun santu oneec Jangoicuac aguinduten daven moduban gordeetaco..... 619

[Laugarren mandamentuba]

- Laugarren mandamentubaren lelengo lecinoia,** ceñetan eracusten dan Aita Santu Erromacuari, obispo ta cura jaunei, erreguiari ta juezai zor deutseguna..... 629
- Bigarren lecinoia,** ceinetan eracusten dan ceintzuc dirian mandamentu onen contra gurasuac, asco aintzat artu bagaric, eguin oi dituben peca-tubac..... 635
- Irugarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan seme alabac gurasuai zor deu-tsen ondria ta obedentcija..... 640
- Laugarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan ugazabaac celan portau biar daveen otseguinequin; ta otseguinac euren ugazabeequin..... 646
- Eguiliaren izenbagaco sermoe barija, seme alaba dongadunen con-sueologarija** 653

[Bostgarren mandamentuba]

- Bostgarren mandamentuco lelengo lecinoia,** ceñetan eracusten dan lelengo, noberaren vizitzia ez galtceia gaiti, nos eta celan il leijan pro-jimua. Bigarrenian, descuidoazco erijotzaac ia pecatu dirian. Irugarren-ian, celan pecatu eiten daveen, bata bestia joteco ocasinioietan sartcen dirianac..... 669
- Bigarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan lelengo ia cleituba gaiti inor ill leijan. Bigarrenian, ia onestidadia gaiti inor ill leijan. Irugarrenian, ia ondasunac gaiti inor ill leijan 675
- Irugarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan celan pecatu eguiten daveen mandamentu onen contra, indarrac proveetan davizanac ta codicija gaiti gorputzari tratu charrac emoten deutseezanac..... 681
- Laugarren lecinoia,** ceñetan eracusten dan nos eta celan ordijac pecatu eguiten daveen..... 687
- Liburu onetaco dotrinen topa lecuba** 694

**JAUNGOICUAREN AMAR AGUINDUBEETACO
LELENGO BOSTEEN ICASIQIZUNAC**

Sarrera	699
Eusqueera errijeetaco eleisa-guizonai	703
Iracurliari.....	705
Jaungoicuar en legueco amar aguindubeen asieraco lelengo icasiqizuna, ceinetan eracusten dan dotrinia icasteco daguan preminia.....	711
Jaungoicuar en legueco aguindubeen asieraco bigarren icasiqizuna, ceinetan eracusten dan mundubaren asieria; guizonaren andi izatia; ta cristandadiaren balijua.....	716

Lelengo aguinduba

Jaungoicuar en legueco amar aguindubeen lelengo icasiqizuna, ceñetan eracusten dan: 1. Mandamentubac cer dirian. 2. Ceimbat modutacuac dirian. 3. Jaungoicuar en legueco mandamentubac ceintzuc dirian. 4. Nos asi cirian	725
II. Icasiqizuna . Lelengo mandamentubac aguinduten davena cer dan ta pediaren ta esperantziaren biarra, Jaungoicua ameeetaco	731
III. Icasiqizuna, ceñetan eracusten dan celan dan Jaungoicua guztiz maitegarrija. Ta cegaiti.....	736
IV. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan Jaungoicuari zor deutsagun amodijua, lauba, andija ta indartsuba dalaco.....	742
V. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan Jaungoicua dala adisquide pirmia, emonzailia ta parcazailia.....	749
VI. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan Jaungoicua dala adisquide carinosua, guztien eraracua ta beticua.....	755
VII. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan cer dan novera ameeetia. Ta ceintzuc dirian gue[u]re proximuac.....	761
VIII. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan: 1. Arerijo ez dirian proximuac ameeetia cer dan. 2. Ce ordenagaz amau biar dirian.....	766
IX. Icasiqizuna, ceinetan eracusten dan gueure arerijuari zor deutsagun amodijua.....	771

Bigarren aguinduba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan cer dan juramentu eguitia. Juramentu nos eguin biar dan. Ta juramentuco aguinduba celan cumplidu biar dan..... 779
- II. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan guzurrezco juramentubac Jaungoicuari eguiten deutsan injuria; ta inori eguin oi deutzazan caltiac..... 785
- III. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan cer dirian votuac edo promesac. Celan votozco aguinduba eguin biar dan. Ta celan quenduten dan eureen eguinbiarra..... 791
- IV. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan cer dirian blaspemijaac, maldecinoiac ta bidauac..... 797

Irugarren aguinduba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan aguindu onetan Jaungoicuac cer eragozten deutcun; ta celan eragozten deutcun..... 807
- II. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan cer dan meza santuba; ceintzuc dirian meziaren zati edo parte nausijac; nortzuc entzun biar daveen ta celan entzun biar dan..... 813
- III. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan domeeca ta jai osuetan cer eguin biar dan..... 819

Laugarren aguinduba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan gurasuac umiai zor deutsen azieria... 829
- II. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan seme alabaac gurasuai zor deutseena..... 836
- III. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan Aita Santu Erromacuari, obispo jaunai... erregue jaunai... zor deutseegun ondria ta aguindubac eguitia... 842
- IV. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan ugazaabac otseguinai zor deutseena, ta otseguinac ugazabai zor deutseena..... 848

Bostgarren aguinduba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan celan aitu biar dan inor ez illtia. Nos ez dan pecatu inor illtia. Ta ce pecatu andija dan inor illtia..... 857
- II. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan ez dala inor ill biar ondria zaintutia gaiti, ondasunac gordeetia gaiti..... 864

III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan celan paltetan dan noberaren viztiziaren edo osasunaren contra.....	871
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan cer dan orditutia	877
Sermoa gurasuen ta umeen oneraco	885
Topa-lecuba	899
Uts-eguiteen ezauberia	900

**JAUNGOICUAREN AMAR AGUINDUBEETACO
AZQUENECO BOSTEEN ICASIQUIZUNAC**

<i>Sarrera</i>	903
Iracurliari.....	907

VI. Aguinduba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer eragozten daven Jaungoicuac aguindu onetan. 2. Ce premina andicua dan, cristinaubac ondo jaquitia aguindu onetaco eracutsija.....	911
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ce ondotsuba, zabala, lucia ta altuba dan castidadiaren contraco pecatubaren echia.....	917
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan Jaungoicuac lotsarizco pecatubari celan beguiratuten deutsan	923
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan lotsarizco pecatubari celan beguiratuten jacon impernuban.....	930
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan pecatu loijac mundubari ce echuria emon deutsan.....	935
VI. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Lotsarizco pecatubac goitu ditubeneen exemplubac. 2. Pecatuba bera goitu davenen exemplubac.	946
VII. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ceintzuc dirian castidadiaren contraco eguitezco pecatubac.....	958
VIII. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Verbaz nos austen dan seigarren aguinduba. 2. Nai utsez edo consentimentuz nos austen dan...	963
IX. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Virginidadiaren edertasuna. 2. Castidadiaren balijua.....	939

VII. Aguiduba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan lapurretia. 2. Ceibat modutacua dan. 3. Ce pecatu dan	979
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan cetan daguan logrerijaco lapurretia..	984
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan tratubetan oi dan lapurretia	990
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan pisu ta neurri gaistoco lapurretia...	996
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan nos eta celan pecatu eguiten daveen aguindu onen contra gurasuac, umiac ta oseguinac	1002
VI. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan celan erremedijau biar dan inori aciendaan eguindaco caltia.....	1008

VIII. Aguiduba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Ce ezaina dan testigantza palsua. 2. Ce zuzenac izan biar daveen juezac. 3. Cer eguin biar daveen le-traubac, escribaubac eta procuradoriac.....	1017
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan guzorra esatia. 2. Ce pecatu dan.....	1024
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Celan pecatu eguiten dan inoren paltac esanagaz edo inor gaiti deungaro esanagaz. 2. Nos ez dan pecatu, inoren paltac esatia	1031
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan gaisqui esaliari entzutia. 2. Gaisqui esatiaren entzunlarijac cer eguin biar daven.....	1038
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ce gauza charra dan, miinagaz la-gun arteco baquia ta adisquidetasuna galdutia.....	1044
VI. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan cer dan juzgu gaistua edo inor gaiti deungaro pensetia.....	1050
VII. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan cer eguin biar daven cristinau-bac inor gaisqui ez juzguetaco.....	1057

IX. ta X. Aguidubac

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Bederatzi ta amargarren aguidubac cer escatuten deuscubeen. 2. Celan aguindu oneec bat ez dirian zazpigarren ta zortcigarrenagaz. 3. Celan bat ez dirian alcarren artian.....	1067
---	------

II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer aituten dan gurarijaren ickenagaz. 2. Ceimbat modutaracuac dirian gurarijac. 3. Nos dirian onac eta nos charrac.....	1073
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cetati datoza gueur gogora gurari charrac. 2. Cegaiti dirian deungac edo eragotzijac.....	1079
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan gurari deungac goituteco cer eguin biar dogun.....	1087
Ama Santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia	1097
Topa-lecuba	1110
Uts eguiteen ezauberia.....	1111

**ELEISACO ZAZPI SACRAMENTUBEN
ICASIQUIZUNAC**

<i>Sarrera</i>	1115
AL Ilustrísimo Señor D. D. Atanasio de Puyal y Poveda, obispo de Calahorra y La Calzada, del Consejo de S. M., señor de Arnedillo.....	1119
Sacramentu guztiai jagocuen icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dirian sacramentubac. 2. Noc ichi euscuzan. 3. Ceimbat dirian Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuzan sacramentubac. 4. Cetaraco ichi euscuzan.....	1123

Bautismoco sacramentuba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Adanec celan pecatu eguin evan. 2. Ce caltiac ecarri zituban Adanen pecatubac. 3. Celan erremedijau zan.	1133
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan bautismua. 2. Ceimbat modutacua dan. 3. Ce preminatacua dan.....	1140
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cegaz eguiten dan baustismoco sacramentuba. 2. Celan eguiten dan. 3. Noc eguin leguijan.....	1147
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Arimia gaiti cer sinistu biar dogun; ta celan pensau daiquegun bere asieriaren gainian. 2. Ce gaiti galdu oi dirian ascotan seinac amaren sabelian.....	1153
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Demporia baino leenago jaijoten dirian edo galduten dirian seinai, celan lagundu biar jacuen	

- bautismo santubagaz 2. Ce gauza biarrecua dan cristinaubac ondo jaquitia, seinari eche bautismua emoten..... 1159
- VI. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cetaraco dirian batioco eguite santubac edo ceremonijac. 2. Celan gorde biar ditugun bautismoco aguindubac..... 1164
- VII. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cetaraco batiuan emoten jacozan seinari aita ta ama besuetaco. 2. Ceintzuc dirian oneen eguinbiarrac. 1171

Compirmacioeco sacramentuba

- Icasiquizun bacarra**, ceinetan eracusten dan bigarren sacramentubaren izatiari ta eguitiari jagocana..... 1179

Penitencijaco sacramentuba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan penitencija 2. Ceimbat modutacua dan. 3. Ce preminatacua dan..... 1189
- II. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan celan pecatubac gogoratu biar dirian, compesinoian autortuteco..... 1195
- III. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan pecatubaren damu eguijazcua. 2. Ceimbat modutacua dan. 3. Celacuac izan biar daven... 1202
- IV. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Celacuac izan biar daven ostera pecaturic ez eguiteco propositubac edo goguac. 2. Celan ezautuco dan noc daucan, ostera pecaturic ez eguiteco propositu edo asmo eguijazcua. 1209
- V. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan aozco compesinoia ta ce biarrecua dan. 2. Ce pecatu compesau biar dirian..... 1215
- VI. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cetaraco dan compesoriac emoten daven penitencija. 2. Celan cobru emon biar jacon penitencijari.. 1222
- VII. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Norentzat dan biarrecua ta nora ececuca pecatu guztia era batera compesetia edo compesinoe generala. 2. Norentzat dan gauza ona. 3. Norentzat dan chaarra 1228
- VIII. **Icasiquizuna**, Ceinetan eracusten dan: 1. Ce premina andicua dan gureu gorputzac peneetia. 2. Celan penau dituben cristinau ascoc.... 1235

Comunioeco sacramentuba

- I. **Icasiquizuna**, ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan comunioeco sacramentuba. 2. Ce icenegaz aituten emoten dan. 3. Nos ichi euscun Jesucristo gureu Jaunac sacramentu au..... 1247

II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan, comuninoeco sacramentubaren gainian cristinaubac sinistu biar davena.	1254
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Celan prestau biar dan comulguetaco, arimiaren parteti. 2. Celan, gorputzaren parteti.....	1262
IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ondo comulgaubac arimara daccarren mesedia.....	1269
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan, ce erru andico pecatuba dan gaisqui comulguetia.....	1276
VI. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan sacerdotiaren mezataco eguiquizunac cer esan gura daveen	1282
VII. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan Eleisiari cristinaubac zor deutsan erreberencija ta moduba	1288

Extrema-Uncinoeco sacramentuba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cegaiti Jaungoicua bialduten deuscuzan gorputzeco gachac. 2. Celan irago biar ditugun.....	1297
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan oleacinoeco sacramentu santuba. 2. Cetaraco dan. 3. Celan artu biar dan.....	1304

Ordiao edo Sacerdotetzaco sacramentuba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer dan sacerdotetzaco sacramentuba. 2. Ceintzuc diran sacramentu onen gradubac edo mallac.....	1313
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ce andija ta zabala dan ordiao sacramentuban guizonari emoten jacon alizate espirituzcua.....	1319
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ceintzuc dirian ordiao sacramentubac dacarguzan mesediac.....	1325

Ezcontzaco sacramentuba

I. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Celan prestau biar daven cristinaubac viziera barrija artuteco. 2. Ez jagocan vizieria artubac oi daczan caltiac.....	1333
II. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan celan pensau biar dan ezcontzaco vizieriaren gainian	1339
III. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Cer eguin biar daven cristinaubac ezcontzaco sacramentuba artuteco. 2. Celan irago biar dan escubac emoteco eguna.....	1346

IV. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ceintzuc dirian ezcontzaco sacramentubaren onerac.....	1352
V. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Arriscu andicuaq diriala diruba gaiti eguiten dirian ezcontzac. 2. Baita inoren ederra ta empeinuba gaiti eguiten dirianac bere	1356
VI. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan: 1. Ce arriscutacuac dirian jueza- ren aurreti eguiten dirian ezcontzac. 2. Celacuac oi dirian Jaungoicua opendiduta eguiten dirianac. 3. Celacuac oi dirian senide ezcontzac...	1363
VII. Icasiquizuna , ceinetan eracusten dan ezcontzan uts eguin evenac, cer eguin biar daveen.....	1369
Topa-lecuba	1376
Uts-eguiten ezauberia.....	1378

SERMOIAC

1. Ama Virginiaren jaijotzia	1381
2. Sermoia gurasuen ta umeen oneraco	1393
3. Sermoia gurasuen ta umeen oneraco	1393
4. Ama Santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia	1393

ERDARAZKO TESTUAK

APUNTACIONES DE LO OCURRIDO EN EL CONBENTO DE LOS CARMELITAS DESCAL- ZOS DE LA VILLA DE MARQUINA DESDE EL AÑO 1808 HASTA EL DE 1815	1395
PLAUTO BASCONGADO O EL BASCUENCE DE PLAUTO EN SU COMEDIA <i>POENULO</i>. ACTO 5º, ESCENA 1ª	1415
Advertencia del editor.....	1419
Texto de Plauto en la comedia <i>Poenulo</i> , Acto 5º, escena 1ª.....	1421
Carta primera	1424
Carta segunda.....	1431

Carta tercera.....	1438
Carta cuarta.....	1451
ANTI-PLAUTO POLÍGLOTO O DEFENSA DE PLAUTO BASCONGADO	1455
GUTUNAK ETA OROIT-IDAZKIAK . TESTUAK ETA AIPAMENAK	1469
1. Kalahorrako Gotzaindegira. <i>Markina, 1804ko abuztuaren 2a.....</i>	1471
2. Markinako udalari. <i>Markina, 1809ko urriaren 16a</i>	1471
3. Kalahorrako Gotzaindegira. <i>Markina, 1812ko abuztuaren 19a.....</i>	1472
4. Kalahorrako Gotzaindegira. <i>Markina, 1813ko apirilaren 28a</i>	1473
5. Frantzisko Xavier de Castaños jeneralari. <i>Markina, 1813ko uztailaren 8a ..</i>	1473
6. Ordenako Definitorio Jeneralari. <i>Reus 1816ko maiatzaren 20a.....</i>	1474
7. Ordenako Definitorio Jeneralari. <i>1817ko maiatzaren 10a.....</i>	1475
8. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Burgo de Osma, 1817ko azaroa-</i> <i>ren 4a.....</i>	1475
9. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1818ko apirilaren 13a.....</i>	1476
10. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1818ko apirilaren 13a.....</i>	1478
11. Zeledon Axpe jaunari. <i>Markina, 1818ko apirilaren 16a.....</i>	1480
12. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Iruñea, 1818ko maiatzaren 4a ..</i>	1482
13. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Iruñea, 1818ko maiatzaren 5a ..</i>	1482
14. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1818ko maiatzaren 5a.....</i>	1483
15. Ordenako Probintzialari (edo Zeledon Axpe jaunari). <i>Markina, 1818ko</i> <i>maiatza.....</i>	1484
16. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Kalahorra, 1818ko azar oaren 4a ...</i>	1484
17. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Kalahorra, 1818ko azar oaren 5a ..</i>	1485
18. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Kalahorra, 1818ko azar oaren 6a ..</i>	1485
19. Ordenako Definitorio Jeneralari. <i>Palentzia, 1818ko azar oaren 26a....</i>	1486
20. Kalahorrako Gotzaindegira. <i>Markina, 1819ko irailaren 6a</i>	1487
21. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1819ko urriaren 31a.....</i>	1487
22. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1819ko urriaren 31a.....</i>	1488
23. Ordenako Probintzialari (?). <i>Markina, 1819ko aben duaren 17a.....</i>	1489
24. Ordenako Probintzialari (?). <i>Markina, 1819ko abendua (?)</i>	1490
25. Markinako alkate jaunari. <i>Etxebarri, 1819ko abenduaren 20a</i>	1491
26. Kalahorrako gotzain jaunari. <i>Markina, 1820ko martxoaren 23a</i>	1492
27. Markinako alkate jaunari. <i>Markina, 1820ko apirilaren 11a.....</i>	1493
28. Madrileko Karmeldar Teresiaren Jeneralari. <i>Isla (Sestao), 1820ko maia-</i> <i>tzaren 16a.....</i>	1494
29. Santanderko apezpikuari. <i>Isla (Sestao), 1821ko otsailaren 1a</i>	1495
30. Santanderko apezpikuari. <i>Isla (Sestao), 1821ko otsailaren 26a</i>	1497
31. Santanderko apezpikuari. <i>Isla (Sestao), 1821ko otsailaren 26a</i>	1498

32. Giacomo Giustiniani, Madrilen Aita Santuaren Nunzioari. <i>Isla (Sestao), 1821ko urriaren 19a</i>	1499
33. Santanderko apezpikuari. <i>Isla (Sestao), 1821ko azaroaren 29a</i>	1500
34. Bilboko buruzagi politikoari. <i>Isla (Sestao), 1822ko irailaren 12a</i>	1502
35. Bilboko buruzagi politikoari. <i>Isla (Sestao), 1822ko azar oaren 6a</i>	1504
36. Giacomo Gustiniani, Madrilen Aita Santuaren Nunzioari. <i>Isla (Sestao), 1822ko azaroaren 15a</i>	1506
37. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Kalahorra, 1823ko irailaren 27a</i> .	1507
38. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Kalahorra, 1823ko irailaren 30a</i> .	1507
39. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Logroño, 1829ko azaroaren 11a.</i>	1508
40. Ordenako Definitorio Probintzialari. <i>Iruñea, 1831ko azaroak 14a.</i>	1508

GEHIGARRIAK

I. Haren bizitzari dagokion dokumentazio historikoa:	1509
II. Haren liburutako erreferentzia edo aipamenak:.....	1513
III. Izenen aurkibidea.....	1529
Aurkibide laburra.....	1557

AURKEZPENA

Frai Bartolome Santa Teresaren *idazlan guztiak:* klasiko baten argitan

Eskuetan duzun liburu lodikote hau, hemezortzigarren eta hemeretzigarren mende arteko karmeldar batena da. Haren izena, euskal letretan ibilia bazara behinik behin, ezaguna izango zaizu. Frai Bartolome Santa Teresa zen hura; “markinarra” eta euskaraz nahiz erdaraz testu askoren egilea. Testuok eurok ere, nonbait, jakinekotzat jo behar, batik bat, «Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba» sonatuari baga-gozkio. Hala ere, liburutxo hori bakarrik aintzat hartuz gero, galera eta ahanztura handia jasan behar, alboratu eta bazter utziko zenituzkeelako haren ekarririk zolien eta mamitsuenak.

«Icasiquizunac» idazlana, hain zuzen, zokondoratuko zenuke eta hori berori, besterik ez bada ere, nahikoa da Frai Bartolomeren aipuak ugaltzeko, euskarazko idazleen artean. Aipuak ez ezik, diosalak eta olesak ere bai, «Icasiquizunac» hiru tomo horiek bete-betea asmatzen dituztelako, XIX. mende hasieran, gerogarrenean euskal alorrera etorriko diren hainbat lanen lorratza eta bidea.

Frai Bartolome bera ere bada, azalari eta mamiari dagokienez, aspalditik zetorren euskal tradizio baten jarraitzaile eta bidegile. Iparraldean nahiz Hegoaldean bazituen aurrelariak eta baditu, jakina, ondorengoak ere, hala nola, Agirre Asteasukoa, Gerriko eta abarren idaztiak.

Zertan bereizten dira, alabaina, liburu zahar horiek? Non izan dezakete indarra erlijio kutsuko sermoi bilduma horiek? Nolakoa euren eitea? Zertara euren jorana? Menturaz, doktrina zehatzaren eta irakurle/entzule horien arteko lotura hertsian? Aipamen ugaritsuetan?

Sarri askotan esan ohi zaigu euskal literatura ez dela izan zinezkoa, erlijio liburu huts batzuen hurrenkera baino. Kontraesanekoa badirudi ere, bistan da Frai Bartolomerenak erakarri eta lotu egiten gaituela, eta bere

esparrura hurreratu. Haren doinura garamatza, haren erritmo eta jarraitutasun kontuetara.

Non, beraz, horretarako arrazoiak?

1) Lehendabizikoz, euskararen jatorra eta zentzua. Den pasarterik zailenean ere, Frai Bartolomek irtenbide egokiak asmatzen daki, euskaratik bertatik abiatuta, inolako azalkeria eta largakerietan jausi gabe. Jator eta zentzu horiek dakartzate, besteak beste, esamolde zehatz, garden, sendo eta kalitadedunak, didaktika eta edukia eroso uztarturik erakutsi nahiak gidatua.

2) Horren menera, diskurtsoa, euskal diskurtso propioa, hats luzeko berbaro nahiz idaztaroa, hizkuntzari berari aukera ematen diona, ñabardurak eta nondik norakoak egoki eta artez azaltzeko. Frai Bartolome karmeldarrak ez du horretan inoren lotsarik. Askoren hitzetan, erretorika deritzo horri. Hala da eta hala legokioke Frai Bartolomeren idazlanari ere: benetako erretorika, ez erretolika azaluts eta antzua.

3) Bada bestelakorik ere Frai Bartolomeren idazlanetan. Fraide karmeldar hori bizkaieraren eratze garaian bizi da. Horren jakitun dago. Badaki egundo ere ez dela idatziz landu Mendebaldeko euskara eta beren beregi aitortzen du bere egitekoa: *Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana*. Aitortze zabala eta tradizio jakin baten erroetan sartzen gaituena. Beto, bide beretik ere, Mogeldarrak, Añibarro, Zabala, Uriarte eta bestelakoak.

Hitz gutxitan esateko, hizkuntzaren jakituria, erlijioaren zerbitzupeko euskal diskurtso jatorra eta Mendebaldeko euskararen hastapenetan partaidetza.

Aurrekoa gutxi balitz ere, sorkuntza eta sustrai lana eta, horren harira, doktrina osoa, autore, hautazko pasarte eta abarrekoekin ondo hornituta. Horra hor klasiko baten esangura eta paradigma: hizkuntza finkatua, esamolde trinkoa eta eredugarritasuna.

Klasikotasunaren zantzua nondik-nahi dario eta noranahi isuri. «Klasiko baten argitan» jarri da honen goiburua. Halaxe da, Frai Bartolome zena argigarri gerta dakigukeelako euskararen berrikuntza giro honetan. Egun, hizkuntz kalitatea darabilgu guztion ahotan; euskararenak, batez ere, bizi kezkaten gaitu. Eguneroko entzuten dira horri buruzko intziriak eta inkesak. Orobat, Mendebaldeko klasikoaren nahia, gazte nahiz zaharrek aldarrikatua.

Bi-biok batzen dira Frai Bartolomeregana. Kalitatea, tradizioa eta euskararen esparru zabala.

Erakusgarria, berebat, liburu honetan burutu den Frai Bartolomeren argitalpena. Kritikarik gabeko laudorioak, maiz-sarri, itxurakeria hutsak izan ohi dira. Argitalpen horretan, ordea, laudorioak ez dira besterik txukun-txukun ondutako lanaren goralpenak baino. Lan hori paratu dutenak gora ditzagun, Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldarrak. Aurretiaz ezagutu ditugu euren jakite eta trebezia ugariak. Jakin bagenekien aukerakoenak zirela lan horri ekiteko. Erruz erakutsi dituzte euren dohaiak liburu honekin eta, bide batez, mesede galanta egin digute euskaldunoi eta Frai Bartolomeri berari ere, berriro haren lanak argitan eta gure eskuetan jarritz.

Labur-zurrean esanda, irakurle hori: baduzu zeri heldu. Hartu eta irakurri, Elizaren doktore aipatu bati esan omen zitzaion legez: *Tolle et lege*.

Andres Urrutia
Euskaltzaina

SARRERA OROKORRA

Liburu handi honetan egiten denez, norbaiten idazkiak edizio kritikoan argitaratzen direnean, hura nor den galdetzen diogu geure buruari. Hemen, batez ere, haren nortasunaren bi alde adierazgarri agertzen zaizkigu: Frai Bartolome *sermoni* eta *euskal idazle* da bereziki.

Hain zuzen ere, luzaro jardun dugu alde hori aztertu nahirik eta orain, ikerlan historiko eta linguistiko zorrotz baten ondoren, argi eta garbi agertzen dugu haren nortasuna.

Ikerketa historikoan zehar, Frai Bartolomeren bizitza eta ekintzaren berri jakin ahal izan dugu, eta haren nortasun historiko eta linguistikoaren garrantziaz jabetuko gara. Izan ere, haren bizitza bere garaiko egoera sozio-politikoan kokatu beharra dago. Egoera guztiz zailetan bizi izatea egokitu zitzaion: lehenengo eta behin, Napoleonen gerrak berta-bertatik bizi izan zituen; hauetan, komentutik alde egin beharra izan zuen eta bere jaioterrian, Etxebarrin, konfinatu zuten. Urte batzuk geroago, Isla-ko basamortuko nagusi izendatzen dute (1820-1824); konstituzio garaiko hiru urteak ziren; hauetan Isla-ko komunitate-bizitza onez gordetzeko lan eskerga egingo zuen... Eta Espainiako Gobernuak agindutako erlijiosoen kanporatze nagusia baino pixka bat lehenago hilko da...

Erljioaren aurkako giro politikoa gogortu ahala, Elizbarrutiak herriaren euskarazko kristau-heziera sendotu nahi zuenean, lan ederra egin zuen Frai Bartolomek kristau-herri euskaldunean... predikari eta idazle gisa.

Hain zuzen ere, haren sermoi eta hitzaldiak, berberak liburuetan argitaratuak, dira oraingo argitalpen honen xedea, euskaldun askoren gogoko izango den ustea dugularik.

I. BIZITZA

Historian zehar, hainbat datu bilduz joan dira historialari eta ikertzaileak, Karmeldarrak batez ere. Bibliografian agertzen ditugu hartaz argitaratu diren idazlanak. Baina datu biografiko ugarien bildu eta argitaratu dituztenak Lino Akesolo¹ eta Xabier Altzibar² izan dira, besteak beste.

Dena dela, badira beste lan batzuk ere Frai Bartolomeri buruz; aipatzekoak dira, adibidez, A. Antonio Unzueta, Euskal Herriko Karmeldarren artxibozainaren argitaratu gabeko lan labur bat eta oharra; guk haietaz baliatzeko abagunea izan dugu eta esker ona agertzen diogu bere paperak utzi dizkigulako³.

Frai Bartolomeren idazkiei egiten diegun sarrera orokor honetan, gure asmoa haren datu biografikoak bilatu eta haietan oraindik gehiago sakontzea da; hau da, haren nortasuna eta haren egintzak, bai Ordena barruan eta bai Ordenaz kanpo, argiago aurkeztea... hau guztiau hura bizi izan zen eta lan egin zuen garaia kontuan izanik, egokitu zitzaion egoera sozio-politiko eta erlijioso gogoan dugula betiere, hau da, XIX. mendeko lehen bi hamarkadetan: Napoleon-en gerrak eta haien ondorioz jasan behar izan zuten komentuetatik kanporatzea, eta gero, gobernu liberalen agintealdian, Frai Bartolome bizi zen komentua noiz itxiko zieten beti beldurrez egon beharra...

1. XVIII ETA XIX. MENDEEN ARTEKO EGOERA SOZIO-ERLIJOSO-POLITIKOA

Frai Bartolomeren bizitzari ekin aurretik, haren garaiko egoera sozio-politiko eta erlijiosoaz zertzelada labur batzuk emateari egoki deritzogu, Bizkaian eta bereziki Etxebarrin, Xemeinen (elizatea), Markinan (hiribildua) eragin handi samarra izan zuten datuak gogoratuz, merindade honetan jaio eta bizi izan baitzen Bartolome Madariaga.

¹ *Aita Bartolome Santa Teresa: Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa)*, Karmel 1987-2, 49-52. (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 350-354); *Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongada*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 323-338); *Miscelanea de noticias sobre el P. Bartolomé de Santa Teresa*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 26 (1970) 321-327). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 339-345); *Nuevos datos sobre Fr. Bartolomé de Santa Teresa (1768-1835)*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 40 (1984) 425-429). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 346-349).

² *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbao, 1992, 259-285.

³ Antonio Unzuetak 32 orrialdeko lan bat du argitara eman gabe, *Santa Teresa en la literatura vasca* izenburuaz; haietatik 9 orrialde Frai Bartolome-ri buruzkoak dira.

XVIII. mendearen bigarren erdian, ingurune honek, demografia eta ekonomia-ri dagokionez, garapen eta zabalkuntza nahiko handiak izan zituen⁴. Burdinolek (6 Xemeinen, 2 Ziortzan⁵) zerikusi handia izan zuten horretan... Bartolome jaio zenean Markina eta Xemeinek 1.761 biztanle⁶ zituzten gutxi gorabehera bien artean; 35 urte geroago, inguru honek guztiak 574 etxe⁷ zituen... 1766. urtean, Bartolomeren gurusoak ezkondu ziren urtean, “matxinada” gertatu zen (labore eta beste salgai batzuen prezioak merkatze eskatuz...), Gipuzkoan oihartzun zabala izanik, baina baita haren auzoko Markina eta Xemeinen ere.

1767an, Frai Bartolome jaio baino urtebete lehenago, Karlos III.ak (1759-1788) jesulagunak kanporatzeko errege-dekretua onartu zuen. Erregearen erabaki honi Aita Santu Klemente XII.ak “Inter acerbissima” brebearekin erantzun zion... Borbondarren berrikuntzaren barruan Espainiako eliz bizitzan indartsu sartzeko asmoa zen, eta Espainiaren batasun sozio-politikoa indartzeko hartaz baliatzeko xedea zuen, horretarako bereziki irakaskuntza erabiliz: Karlos III.a bere aurrekoak baino gehiago saiatu zen “hizkuntza nagusi bakar bat” erabil zedin, gaztelania, gainerako guztiak baztertuz eta “nazio” hitzaren esanahia ere aldatuz...

Nazio osoa berdintzeko asmotan gauzatu zen Floridablanka-ren lurralde-zatiketa, Gobernuaren ekintza eragingarriago egitearren (1789); dena dela, horrek ez zuen eraginik izan Euskal Herrian.

Beste mugimendu kultural eta sozio-politikoek bai izango dute eragina Markinan, Xemeinen eta Euskal Herri osoan. Alde batetik, kultur mugimendu berriek, esaterako, ilustrazioak (Aufklärung), XVII. mendeko filosofoen kulturaz alde batzuk zabaltzen lagundu zuten; eta bestetik, gertakari politiko-militarrek euskal gizartea eta euskal Eliza unean uneko egoera sozio-politiko eta erlijiosoak eskatzen zuen erako jarrerak hartzera eraman zituzten, eta, beraz, Frai Bartolome-engan ere eragina izango zuen honek guztiak.

Frantziako Iraultzak lehenengo eta Napoleon-ek gero, eragin zuzena izan zuten Espainian eta Euskal Herrian. Frai Bartolomek biziki jasan zituen Independentzi gerra deritzonaren ondorioak, Markinako Karmeldarren kanporatzearekin (1809-1813)... 1810.eko otsailean Euskal Herria, Aragoa eta Katalunia gobernu militar bihurtu ziren; hiru foru-probintzietako buru enperadoreak Thouvenot jarri zuen eta Nafarroako buru Dufour, horrela Jose erregearen aginpidetik nolabait askatuta geraturik Bizkaian gerrillak oztopatu zuen jardunbidea, haren aurka herri-guardia sortu zelarik.

1814an tradiziozko erregetza berrezarri zen. Jesulagunei itzulerako baimena eman zitzaien... Bizkaiko Forua berretsi zen, hala ere 1808 aurretik zen egoera ber-

⁴ Felicitas A. LORENZO VILLAMOR, *Markina-Xemein. Estudio histórico-artístico*, Bilbao, 1996, 40-44.or. Jaime KEREXETA, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbao, 1992...

⁵ Jaime KEREXETA, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbao, 1992, 566, 658-661. or.

⁶ Felicitas A. LORENZO VILLAMOR, *Markina-Xemein. Estudio histórico-artístico*, Bilbao, 1996, 44.or.

⁷ Jaime KEREXETA, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbao, 1992, 688. or.

dina ez da izango... Liberalen berdinkeriazko joerak nahiko sustraitu dira 1817, 1818. urteetan... Bizkaiko erakunde politiko-administratiboari eraso egin zioten. Riego-k Kadizko Konstituzioa berrezarri zuen, iraultza liberalari jarraituz... Bizkaian nahiko gogor aurre egin zioten. Altxamenturako saioak nabari ziren, esaterako, Abandon, Agurainen, etab.. 1823an gobernu absolutua ezarri zuten..., eta harekin egonkortasun handiagoa izan zen Bizkaian... Hala ere, estatu liberal berdintzailearen eta euskal estilo sozio-politikoaren artean tirabirak izan ziren eta hortik sortu ziren karlistadak (1833...), Frai Bartolome hil baino pixka bat lehenago (1835).

Maila erlijioso-unibertsaletik begiraturaz, XVIII. mendearen bukaeran (azken hamarkadan) eta XIX. mendearen lehen hamarkadetan misiolaritzak indar handia hartu zuela gogoratu behar dugu, misioen garapenerako etab. elkarte edo kongregazioak sortuz.

Baina ez maila unibertsalean soilik, Euskal Herri mailan ere garai hau euskaldunentzat handia, esanguratsua izan zen hitzaren apostolutza, prediku eta misioei dagokienez. Frai Bartolomeren garaia pertsona aipagarriak beterik dugu euskal Elizan; misiolari eta santuz beterik batez ere. Pertsona aipagarri hauek ohar gaitzen, banaka batzuk gogoratuko ditugu, euskal Elizan berebiziko marka utzi dutenak: *Misiolarien artean* :

Jesulagunak: Julian Lizardi (Asteasukoa, 1696-1735), martiria, Frantzisko Ugalde (Larrabetzukoa, 1727-1780), J. Manuel Uriarte (Zurbanokoa, Araba, 1720-1801); Frantziskotarrak: Fermin Frantzisko Lasuen (Gasteizkoa, 1736-1803), Jose Arlegi (Biasterikoa, +1752), Jose Frantzisko Ganzabal (Gasteizkoa, 1711-1752), Jose Santisteban (Solana-ko Muniain-goa, +1756), martiria, Pedro López Mezquia (Gasteizkoa (+1764), Joan Antonio Joakin Barrenetxe (Lekarozkoa, 1749-1781), martiria... Frantziako Iraultza garaiko martiri euskalduna ere ezin dugu ahaztu: Frantses Dardan dohatsua (Isturitzekoa, 1733-1792). Apezpiku eta misiolarien artean hauek aipa genitzake: Migel Iruñekoa (1719-1792), kaputxinoa; Joan Bautista Zengotita-Bengoa (Berrizkoa, 1731-1802), apezpiku Puerto Rico-n; Jean Labartette (Ainhoakoa, 1744-1823); Balentin Berriotxo santua (Elorriokoa, 1827-1867), domingotar martiria; Charles Lavigerie (Baionakoa, 1825-1892). Gainera, Euskal Herrian bertan edo inguruan lan egin zuten pertsona ospetsu eta santuak gogoratu behar ditugu: Jean Daguerre (Larresorokoa, 1703-1785); Dominique Elizagaray (Ahaxekoa, 1758-1822); Arnaud Hiraboure (Baionakoa, 1805-1959); Michel Garicoits santua (Ibarrakoa, 1797-1863); Louis Edouard Cestac (Baionakoa, 1801-1868); Esteban Adoain-goa (1808-1880), kaputxino, misiolari, predikari eta berriztatzaila; Frantzisko Javier Antonio Gardoki (Bilbokoakoa, 1747-1820), kardinala; Domingo San Joserena (Gareskoa, 1799-1870), karmeldarra...

Emakumeen artean, mesedetako bi moja aipatuko ditugu: Maria Ignazia Santa Magdalenarena (Markinakoa, 1768-1798) eta Maria Josefa Arrosariokoa (Ermukoa, 1766-1805); baita beste bi fundatzaile hauek ere: Dominique d'Etcheberry (Urruñakoa, 1706-1746) eta Elise Cestac (Baionakoa, 1811-1849).

2. MADARIAGA-GARATE FAMILIA

Euskararen klasiko den aldetik, Frai Bartolomeren garrantzia gogoan izanik, haren guraso eta aitona-amonen jatorria, eta famili giroaren berri jakitea egoki izango da.

Aitaren aldeko aitona-amonak (Joan Bautista Madariaga y Urtsula Bildasolo) Markinan bizi ziren, baina Eibarko seme-alabak ziren. Amaren aldeko aitona-amonak (Santiago Garate eta Maria Kruz Arrieta) Etxebarrin bizi ziren, baina Elgoibarko seme-alabak ziren.

Dokumentu askotatik dakigu Bartolomeren aita Markinakoa zela eta ama Elgoibarkoa⁸. Kosme Markina-Xemeinen jaio zen 1744ko irailaren 27an egun berean bataiatua izanik⁹, eta 1754ko irailaren 26an hartu zuen sendotzako sakramentua¹⁰.

Bartolomeren gurasoak, Kosme eta Maria Ines Markinan ezkondu ziren 1766ko otsailaren 2an, eta Markinan bizi izan ziren. Dena dela, Etxebarrin ere bizi izan ziren garai batean. Seme nagusia Markinan¹¹ jaio zen 1766ko abenduaren 23an. Bartolome, berriz, Etxebarrin jaio zen 1768ko abenduaren 21ean¹². Maria Inesen gurasoak Etxebarrin bizi izan ziren urte luzeetan, ama, Maria Kruz han hil baitzen 80 urte zituela, 1791ko urriaren 12an, eta aita, Santiago, 86 urte zituela 1793ko urtarrilaren 24an¹³, baina Bartolomeren gurasoak Markinako¹⁴ bizilagunak eta Xemeingo Andre Mariako eliztarrak ziren. Hurrengo bi seme-alaben, Ignazia eta Joseren, jaio-

⁸ Kontuan izatekoa da datu hau: Markina inguruko parroketako agirietan Ines bi aldiz Elgoibarkotzat agertzen da, bi aldiz Eibarkotzat eta beste bi aldiz Ermukotzat...

⁹ BEHA, Markina-Xemein, (25-02), Bataioak, 1728-1751, 90^a or.

¹⁰ BEHA, Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 204^a or.

¹¹ BEHA, Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 120i or.

Batzuetan "Markina" erabiltzen dugu gaurko Markina-Xemeinen ordez, baina kontuan hartzekoa da garai hartan Markina eta Xemein bi udalerrri desberdin zirela; baserri batzuk Markinakoak ziren eta beste batzuk Xemeingoak. Gaur egun nahastetsu agertzen bada ere, orduan argi zegoen baserri bakoitza zein udalerritakoa zen; adibidez, Bartolome jaio zen Sagarminaga baserria Etxebarrikoa zen eta Bartolome bizi izan zen Sakoneta baserria Xemeingoa, baina biak zeuden Markinako lur-esparruan (37 orrialdeko mapan ikusten denez); inguru guztian sarri gertatzen ziren horrelakoak. Guk batzuetan Markina-Xemein jartzen dugu, nongoa den zehaztu gabe..., adibidez, gaurko erara jartzen dugu Bartolome Markina-Xemeinen bizi izan zela...

¹² BEHA, Etxebarri, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31ⁱ. Maria Inesek, Bartolomeren jaiotzarako, bere amaren laguntza nahiko zuela pentsatzea berezkoa da, eta horregatik joango zela Etxebarrira, han bizi baitziren beraren gurasoak, Santiago Garate eta Maria Kruz Arrieta.

¹³ BEHA, Etxebarri, (07-01), Ilak, 1784-1865, 9^a, 10ⁱ or.

Badakigu jakin, gaztelaniazko paperetan Echevarria edo San Andrés de Echevarria dena, euskaraz, gureganaino heldu diren kanta zahar eta ahozko tradizioan, Markin-Etxebarri edota, Euskaltzaindiaren arabera, (Markin-) Etxebarri dela; hala ere, gaur egun udalean darabilten izen ofiziala Etxebarri da eta guk ere hala erabiliko dugu liburu hone-tan.

¹⁴ BEHA, Etxebarri, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31ⁱ; Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 120ⁱ or., (02-01) Bataioak, 1777-1796, 48ⁱ, etab.

tzaz eta bataioaz ohar txo hauek egitea komeni da: Non jaio ziren zehazki ez bada kigu ere (ziur aski Iturreta inguruan), non bataiatu ziren bai badakigu. Ignazia, 1772ko urtarrilaren 20an bataiatu zuten Barinagako San Pedro Apostoluaren elizan¹⁵; eta Jose ere hementxe bataiatu zuten, 1775eko¹⁶ martxoaren 3an. Argi dago, beraz, Ignazia eta Jose Markinako/Xemeingo seme-alabak zirela.

Baina argibide bitxi bat dugu: alaba Maria Teresa 1778ko abuztuaren 21ean jaio zenean Etxebarrin, gurasoak, Kosme eta Maria Ines San Andres Etxebarriko bizilagun eta eliztarrak ziren ("moradores y parroquianos actuales de San Andrés de Echevarría"), hau da, garai horretan Etxebarrin bizi ziren (Sagarminaga baserrian?). Hala ere, pixka bat geroago, 1782 inguruan, berritri ditugu Markinan (Iturreta auzoan)¹⁷.

Kosmek, dirudienez, harremanak izan zituen Teresa Urriolabeitiarekin¹⁸ 1765eko abuztuan; baina hala ere Maria Ines Garaterekin ezkondu zen Xemeingo Andre Maria elizan 1766ko¹⁹ otsailaren 2an, eta 6 seme-alaba izan zituzten; haietatik lau Xemeinen (Markina) jaiok (Sakoneta baserrian, ala Iturreta inguruko beste etxeren batean?) eta bi Etxebarrin (Sagarminaga baserrian): Joan Bautista (Markina, 1766-XII-23), Bartolome (Etxebarri, 1768-XII-21), Ignazia (Markina, 1772-I-20), Jose (Markina, 1775-III-3), Maria Teresa (Etxebarri, 1778-VIII-21), Kristobal Pedro (Markina, 1782-VII-8).

Kosme eta Maria Inesen bizilekua kokatzeko orduan bada zailtasunik: baina Etxebarrin bizi izan ziren urte gutxi batzuk (1776-1780? inguruan) izan ezik, gainetakoan Xemeinen edo Markinan izan zuten bizilekua, baina bi lekutan, dirudienez: lehenengo Iturran goikoa edo Sakoneta baserrian, eta geroago Iturreta auzoko beste baserri batean, hau da, Iturretara bidean zen baserriren batean...²⁰.

¹⁴ BEHA, Etxebarri, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31ⁱ; Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 120ⁱ or., (02-01) Bataioak, 1777-1796, 48ⁱ, etab.

¹⁵ BEHA, Markina-Barinaga, (03-03) Bataioak, 1714-1781, 181ⁱ. Agiri honetan nahasbidera eramane lezaketen esaldi batzuk datoz; ama, Maria Ines, Etxebarriko alaba zela dio, baina Elgoibarkoa zen; okerra, Maria Inesen gurasoak aspaldiko urteetan Etxebarrin bizi izanak eragingo zuen. Kosme eta Maria Ines hemengo eliztarrak direla dio, "parroquianos de esta [parroquia]"; dena dela, argitasunik ez da hor: Barinagako eliztarrak, baina Markinako herritarrak esane nahi ote du? Agiri horretan bertan irakurtzen baitugu ondorengo hau: "Dⁿ Pedro de Aguirre Amalloa Cura Rector de Sⁿ Pedro de Barinaga Jurisdicción de la villa de Markina".


¹⁶ BEHA, Markina-Barinaga, (03-03) Bataioak, 1714-1781, 221ⁱ-222^a. Honen araba Ignaziaren agirian bezala, hemen ere ez da zehaztasunik, Joserene gurasoak "naturales y parroquianos de esta Iglesia" direla esatean. Hemen ere, "de esta Iglesia", Xemeingo Andre Mariako eliztarrak zirela uler daiteke.

¹⁷ BEHA, Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1777-1796, 48ⁱ; GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1789-1825, 10.or.



¹⁸ Kosme eta Teresak seme bat izan zuten, 1766ko maiatzaren 12an jaioa, eta Domingo jarri zioten izena: BEHA, Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 122.or.

¹⁹ BEHA, Markina-Xemein, (28-03), Eskontzak, 1746-1836, 48i.

²⁰ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1789-1825, 10.or.: -1792ko ekainaren 16an Jose San Migelenak abitua hartzen du (eta honen gurasoak Kosme eta Maria Ines direla, Markinako bizilagunak dio agiriak...) (Beste datu argigarri bat ere badugu: Madariaga familiarik ez da inor Etxebarrin hiltzen; bai, ordea, Markina-Xemeinen...).



*Etxebarri eta Markinako mapa, Markina-Xemeingo udaletxean dagoena.
Goiko biribilean, Sagarminaga baserria.
Beheko biribilean, Sakoneta baserria.*



Hiru anaia eta hiru iloba karmeldar

Historian zehar, Frai Bartolomeren nortasuna azpimarratu izan dute, idazle eta semolari zen aldetik bereziki; baina ez dira aintzat hartu karmeldar izan ziren haren anaia. Noizbehinka aipatu izan dute beste anaia karmeldar bat, Jose San Migelena²¹, hala ere bi anaia karmeldar izan zituen Bartolomek... Baina orain arte ia inork ez zekiena haren etxeko artean beste hiru karmeldar izan zirena da, hau da, Bartolomeren anaia nagusia zen Joan Bautistaren hiru seme ere karmeldar izan zirena.

Bartolomek beste hiru anaia eta bi arreba izan zituen: zaharrena izan ezik, gainerako hirurak karmeldar egin ziren: neba-arreben artean bigarrena, Bartolome, laugarrena, Jose, eta seigarrena, Kristobal Pedro.

a. Jose Madariaga Garate (Frai Jose S. Migelena)

Jose Markina-Xemeinen jaio zen 1775eko martxoaren 3an, Barinagako elizan²² bataiatua izanik. 1792ko ekainaren 16an hartzen du abitua La Isla-n (Sestao), 17 urte zituela (haren gurasoak Kosme eta Maria Ines dira, Markinako²³ bizilagunak, eta La Isla-ko komentu berean egiten du profesia 1793ko apirilaren 7an)²⁴.

Logroñon, Iruñean eta Burgosen egin zituen eliz ikasketei dagokienez, ikus geroago honen anaia Frai Bartolomeri buruz datorrena...

Iruñean hartu zituen Ordena Sakratuak: subdiakonotza 1796ko²⁵ irailaren 24an; diakonotza 1797ko²⁶ ekainaren 10ean; eta apaizgintza 1799ko²⁷ martxoaren 9an.

1808ko azaroaren 9an Lazkaoko predikari izendatzen dute; lehenago Logroñon izan zuen kargu bera... Irailaren 21ean, Frantziako "gobernu arrotza"ren aginduz, Lazkaoko fraideak komentutik egotziak izan ziren. Hala ere, Jose San Migelenak eginahalak egiten ditu, frantsestearen ondoren, Lazkaoko komentua berreskuratzeko, eta 1813ko azaroaren 4an hartzen du hango jabetza; baina une hartan portugaldarren ospitale zenez gero, hurrengo urteko maiatzera arte Bernardotar fraideen ostatu-etxean bizi izan zen. 1814ko azaroaren 30az gero, Jose Lazkaoko²⁸ karmeldarren komunitateko kontuak sinatzen aurkitzen dugu.

²¹ Ik. ALTZIBAR, Xabier, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbao, 1992, 264-265.

²² BEHA, Markina-Barinaga, (03-03) Bataioak, 1714-1781, 221: "En tres de Marzo de mil setecientos y setenta y cinco yo Dⁿ Pedro de Aguirre Amalloa Cura Rector de Sⁿ Pedro de Barinaga Jurisdiccion de la Villa de Marquina Bautizé"

²³ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D.; 1789-1825, 10^a. or.:

²⁴ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D.; 1789-1825, Profesiones... 5^a or.: (Kontuan hartzekoa da dato hau: Ordenan izen bereko beste bat dago, Jose San Migelena, Korellakoa eta Lazkaon 1831ko irailaren 23an hil zena).

²⁵ IEA, Libro 14 (Libro de matrículas), 43^a-44ⁱ.

²⁶ IEA, Libro 14 (Libro de matrículas), 81^a-83^a.

²⁷ IEA, Libro 14 (Libro de matrículas), 144^a-146^a.

²⁸ GKPA, *Libro de Recibo de este comv^o de CarDescalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

Hain zuzen ere, frantseste garai honetan Markinan ageri zaigu. Udalak 1809ko urrian “irakasle”²⁹ izendatzen du... 1812ko otsailaren 28an, Josek gutun bat igorri zion Udalarari “irakasle lanagatik” diru gutxiegi jasotzen zuela-eta (urtean 50 dukat “por la más rigurosa sugestión, y un egercicio el más molesto en instruir en la Latinidad unos muchachos de poca escuela y de ningún conocimiento del idioma castellano”). Horregatik, 150 dukat³⁰ eskatzen zituen gutxienez...; orduan, udalak bukatutzat eman zuen Jose Madariagaren lana urte horretako martxoaren 1ean. 1812ko urte horretan Andre Maria elizan³¹ dugu Jose hitzaldiak egiten.

1814ko ekainaren 8an Lazkaoko sermolari izendatzen dute. (Eta Bartolome Markinako sermolari)³². Irunen, Bilbon... izan zituen sermoiak. 1816an Legution, Azpeitian... Berriro ere Lazkaoko komunitateak sermolari izendatzen du 1817ko³³ maiatzaren 6an.

1820ko apirilaren 23an Lazkaoko³⁴ priore izendatzen dute. (Hiru urte hauetan Bartolome bere anaiak mezetako dirua bidaltzen dio)³⁵..

Ondorengo hiru urteetan (1824-1826) nobizioen maisu³⁶ kargua izan zuen. Hurrengoan Lazkaoko³⁷ komentukoa eta bertako sermolaria izaten jarraituko du. 1829-1832ko hiru urteetan, Lazkaoko³⁸ karmeldarren komunitateko diruzain dugu. Badakigu moraleko³⁹ irakasle ere izan zela.

Bartolome gaixorik zenean, honen anaia Josek sinatzen ditu, diruzain-orde gisa, hark egindako botika-gastuak. Eta Bartolome hil ondoren, diruzain gisa, 1836ko⁴⁰ urrirra arte. Urte horretatik aurrera ez du gehiago sinatuko..., baina komunitate honetan bizi izango da gero ere, fraideen zorigaiztoko esklaustroziora arte (1839...).

Esklaustrazio garaian, 1844an, Iruñeko Elizbarrutiko apaiz diozesiar gisa ageri zaigu, Olaberriako⁴¹ San Joan Bataiatzailearen parrokiako behin-behineko bikario

²⁹ MUA, C. 19 (*Libro de Decreto*), 233^a or.

³⁰ MUA, C. 20 (*Libro de decreto*), 134^a or.

³¹ MUA, C. 31 (*Libro de Cuentas*): 232^a. or.: Udalak 220 erreal ordaintzen zizkion garizumako igandeetan egindako sermoiengatik; 260^o or.: “2230 reales por la renta de preceptor de Gramática que tenía que haber del año pasado hasta marzo con 30 reales del sermón del día 15 de agosto”; 261^a or.: “180 reales que se le pagaron a D. José de Madariaga Preceptor y al Hermano que estuvieron presos por reenes de raciones”.

³² GKPA, *Libro del Definitorio*..., 40.or.

³³ GKPA, *Libro del Definitorio*..., 139.or.

³⁴ GKPA, *Libro de Fundación... de Lazcano*, 45-46^a or.

³⁵ GKPA, *Libro de Recibo de este conv^o de CarDescalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

³⁶ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1789-1825, 97^a-110^a; GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1825-1833, 1-45.

³⁷ GKPA, *Libro de Recibo de este conv^o de CarDescalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

³⁸ GKPA, *Libro de Recibo de este conv^o de CarDescalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

³⁹ IEA, Caja 115, n^o 1. A.

⁴⁰ GKPA, *Libro de Recibo de este conv^o de CarDescalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

⁴¹ IEA, Caja 346, n^o 21.

karguarekin. Argibide zehatzago eta ziurragoak aurkitzen ditugu Olaberriako parrokiako liburu ofizialetan: orrialde asko daude Jose San Migelenak bere eskuz idatzia, esaterako, hilen liburuan, ezkontzetakoan, bataioetakoan, etab... Bataioetako liburuan berberak jarri zuen ohar hau: "En once de Nov^e de 1840 entré de Vicario interino en esta parroquia de San Juan Bautista de Olaverria yo el infraescrito religioso Carmelita Desc^{co} exclaustado con este nombre tengo D^{on} Fr. José Miguel Madariaga"⁴². Iruñeko Elizbarrutiko parroketan edo eliz benefizioetan zeuden klaustrotik kanporatutako erlijiosoen zerrenda baten ere ageri da Jose San Migelena, Madariaga, 77 urtekoa, Olaberriako⁴³ bikario karguarekin.

Jose San Migelena 1852ko apirilaren 10ean hil zen, goizeko zazpitan, behin-behineko bikario⁴⁴ zela.

Datu labur hauetatik, Joserena izatera eta haren anaia Bartolomerena antz-antzekoak zirela ateratzen dugu: ekintza eta kargu berdinak dituzte biek; dirudienez, antzeko gaitasunak zituzten: biak izan ziren predikariak ofizioz; biek izan zituzten priore eta nobizioen maisu karguak; frantsesearen ondoren, biek saiatu ziren komentuz berriro jabetzen eta baita lortu ere (Bartolomek Markinako komentua berreskuratzen du, eta Josek Lazkaokoa). Bataren eta bestearen ospe edo sona ezberdina, Bartolome ofizioz idazle izan zela eta Jose ez; horretan datza, batez ere, aldea. Predikari gisa zuen etorria eta egokitasuna euskal idazle gisa ere izango zukeela pentsatzekoa da. Hori egiaztatzeko abagune ona izan genezakeen Aita Jose San Migelenaren sermoi ugarietariko batzuk gorde izan balira.

b. **Kristobal Pedro (Frai Pedro S. Joserena).**

Bartolomeren anaia gazteena zen Kristobal Pedro Madariaga; honen berri askorik ez dakigu, gazterik hil zelako. Markinan jaio zen 1782ko⁴⁵ ekainaren 8an.

Lazkaoko nobiziatuan sartu zen 1800go⁴⁶ abenduaren 10ean; 18 urte, bost hila-bete eta zortzi egun zituen; eta hurrengo urteko abenduaren 17an egin zuen profesia, Pedro San Joserena⁴⁷ izena harturik. Garai honetan behintzat haren gurasoak, "Markinako bizilagunak" zirenak, Iturretan bizi ziren.

Filosofiako ikasle zela hil zen 1803ko maiatzaren 30ean Logroñon, bularretiko jarri eta gaitzak txarrera egin ondoren ("un tabardillo complicado de mal de pecho"⁴⁸).

⁴² DEA, Olaberria, 1/1/1: Libro de Bautizos (1819-1859), 84ⁱ.

⁴³ IEA, Caja 115, n^o 1 A.

⁴⁴ DEA, Olaberria, 1/4/1 (Libro de finados, 1774-1870), 113ⁱ.

⁴⁵ Markina-Xemein, (02-01) Bataioak, 1777-1796, 48^a.

⁴⁶ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1789-1825, 43^a.

⁴⁷ GKPA, Hábitos - Prov. Navarra O.C.D., 1789-1825, 25^a.

⁴⁸ LOKA., *Libro de la Fundación... de Logroña* n^o 168: "En 30 de Mayo de 1803 a las 5 de la mañana murió en este Colegio el H^o Fr. Pedro de Sⁿ Jph. colegial, natural de Marquina, Obispado de Calahorra, de edad de 21 años y e de Religión; profeso de Lazcano: su enfermedad fue un tabardillo complicado del mal de pecho, que a los catorce días le despojó de la vida; fue la de este Religioso de un verdadero Carmelita Descalzo, como lo acreditaron

c. Hiru iloba karmeldarrak

Bartolomeren anaia zaharrena, Joan Bautista, Josefa Maguregirekin ezkondu zen Xemeingo Andre Mariaren elizan 1791ko⁴⁹ ekainaren 12an. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Lehenengo laurak Xemeingo Andre Mariaren elizan bataiatuak izan ziren eta gainerako laurak Bolibarren: Jose Esteban (1792), Maria Teresa (1795), Josefa (1796), Jose Manuel (1799), Joan Andres (1801), Angel Frantzisko (1804), Maria Estefania (1806), Antselmo (1809).

Zortzi hauetatik lehenengoa, Jose Esteban, bosgarrena, Joan Andres eta azkenengoa, Antselmo, karmeldar egin ziren, hiru osaben biderei jarraituz. Josek Lazkaoko nobiziatuan hartu zuen abitua 1816ko uztailaren 13an, Jose San Antonioren⁵⁰ izenaz (1817ko⁵¹ uztailaren 14an profesa eginez). Beste biek ere Lazkaon egin zuten abitu-hartzea; Joan Andresek, 1819ko⁵² irailaren 28an Joan Andres San Eliasena izenaz (Gobernuak beharturik, kanporatua izan ondoren, berriro itzuli zen, 1823ko⁵³ azaroaren 23an profesa eginez), eta Antselmok 1826ko⁵⁴ irailaren 14an, Antselmo San Kristobalena izenaz (profesa 1827ko⁵⁵ irailaren 14an eginez). Filofofia eta teologiako ikasketen ondoren eta apaiztu ondoren, bakoitza bere komentuan bizi izan zen eta laster esklaustrazio luzea jasan behar izan zuten: Espainiako gobernuak komentuez jabetu zen eta fraideak kanporatuak izan ziren... Egoera horretan ditugu, 1839az gero.

Jose San Antonioren sermolaria izan zen; hala agertzen zaigu 1833an Lazkaoko komentuan, nobizioen maisu kargua zuen Bartolome bere osabarekin batera, eta batzarretako buru⁵⁶ zen Jose San Migelenarekin batera. Klaustrotik kanpora egon ziren garaian oso elkarturik bizi izan ziren Jose San Migelena eta honen ilobetariko bi: Jose San Antonioren eta Antselmo San Kristobalena.

sus virtudes en el cumplimiento de los votos , obvservancia de la Regla, constituciones, y costumbres s^{tas}. En los oficios era muy puntual a desempeñarlos, con exactitud, y así se balía el Prelado de el para aquellos de más miramiento, y confianza como de frutero, ayudante de ospedero, y otros; en el estudio empezaba a descubrir talento, y aplicación; estas y otras prendas que en él residían, nos causó a todos los Religiosos un totala sentimiento su ausencia: pues el S^r quiso galaardonarle sus ser icios con los b ienes eternos; pues esperamos en él, que lo tiene en sus tabernáculos: recibió a tiempo todos los S^{tos} Sacramentos, y el de la penitencia muchas veces, hasta en las últimas oras de su vi[d]a, en la última fue asistido de la Comunidad. Se enterró en la capilla de N. S^a del Carmen, en la sepultura 16^{ta}.

⁴⁹ BEHA, Markina-Xemein, (28-03), Eskontzak, 1746-1836, 122.or.

⁵⁰ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1789-1825*, 73^{or}.

⁵¹ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1789-1825*, 40.or.

⁵² GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1789-1825*, 88^{or}.

⁵³ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1789-1825*, 46^a,47^a.or.

⁵⁴ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1825-1833*, 12.or.

⁵⁵ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1825-1833*, 17.or.

⁵⁶ IEA, Libro 34, Libro 2^o de Notas de Visita del Illmo. S^r D^r Dⁿ Severo Andriani , obispo de Pamplona, 207^a.

Jose San Antoniorenak Lazkaon bizi izaten jarraitu zuen, inguruko tokietan: klaustrotik egotzitako fraideei buruzko txostenetan, Jose predikari tituluaz ageri da, eta 1847an berri hau dator: “Fr. José de San Antonio a Beasain en busca de su subsistencia y sin orden Superior”⁵⁷; 1850ean Lazkaoko⁵⁸ lekaimeen bikario da; Lazkaoko lekaime zistertarren komentuan ere bada Jose San Antoniorenak bere eskuz idatzitako beste agiri bat, lekaimeen bikario⁵⁹ zela adierazten duena; 1854an⁶⁰ Beasainen ageri zaigu, hango behin-behineko benefiziodun; Lazkaon hil zen, Lazkaoko San Migel parrokiako hilen liburuetan datorrenez. 1855eko⁶¹ irailaren 3a zen; 63 urte zituen.

A. Antselmo San Kristobalenari esklaustrazioa Nafarroako Alesbesen zegoela egokitu zitzaion, eta 1848an, oraindik Alesbesen aurkitzen dugu, baina gero 1850ean Zabaldika-ko⁶² erretore karguaz ageri zaigu eta 1854an Larrasoña-ko⁶³ behin-behineko erretore karguaz, eta kargu horretan izan zen urte gehiago ere. 1876an oraindik Larrasoña-n zela badakigu, hor bizi zela lortu baitzuen deboziozko meza emateko baimena, ikusmena galduz zihoalako⁶⁴. Markinara itzuli zen eta hemen hil zen 71 urte zituela, 1880ko⁶⁵ urtarrilaren 25ean.

Joan Andres San Eliasenari buruz gauza gutxiago dakigu. Ziur aski Bizkaira itzuliko zen, Iruñeko elizbarrutiko erlijioso kanporatuei buruzko paperetan ez baita agertzen.

3. BARTOLOME MADARIAGA GARATE: HAURTZAROA ETA GAZTAROA

a. Etxebainin jaio eta Markina-Xemeinen bizi izan zen

Euskaldun klasiko honen jatorriaz duda-muda batzuk izan dira bai hartaz idatzi duten idazle ugariengan eta bai hartaz iritsi zaizkigun eskuz idatzitako agirietan⁶⁶ ere. Haren jaioterri eta haurtzaroko bizilekuaz izan dira duda-muda horiek, herrien izenak behar luketen zehaztasunik gabe erabili izan direlako, nahasketa eraginik. Etxebarrikoa dela, Markinakoa dela, Markin-Etxebarrikoa dela... Guztitarik irakurri izan dugu. Hala ere ez dago honetaz inolako zalantzarik.

⁵⁷ DEA, Lazkao, 4/99.

⁵⁸ IEA, Caja 115, nº 1. A.

⁵⁹ LZMA, dokumentu autografoak 1850eko urriaren 6ko data du.

⁶⁰ IEA, Caja 352, nº 8.

⁶¹ DEA, Lazkao, Libro 4º de Difuntos de finados, 5º.

⁶² IEA, Caja 115, nº 1. A.

⁶³ IEA, Caja 352, nº 8.

⁶⁴ GKPA, II, Jerarquía Ecl., Santa Sede, extractos del “Regestum Procurae Generalis Congregationis Italicae”, 1873-1880, (1876-VI-21).

⁶⁵ BEHA, Markina-Xemein, (31-01), Ilak, 1849-1883, 231º.

Bartolome Etxebarri udalerrian jaio zen 1768ko abenduaren 21ean, San Andres Etxebarriko eliztarra izanik. Honela dio bataioko agiriak: “En veinte y uno de diciembre de mil setecientos sesenta y ocho, yo Dⁿ Joseph de Arribalzaga cura de la Iglesia Parroquial de Sⁿ. Andrés de Echavarria bautizé en ella a un niño, que le puse por nombre Bartolomé, (que nació a las diez de la mañana del mismo día), hijo legítimo de Cosme de Madariaga y Maria Inés de Garate su legitima muger, naturales él de Marquina y ella de Elgoibar, y a la sazón vecinos y parroquianos de la villa de Marquina. Abuelos paternos: Bautista de Madariaga y Ursola de Vildasolo su muger, naturales de Eybar, y parroquianos de Marquina. Maternos: Santiago de Garate y Maria Cruz de Arrieta su muger, naturales uno y otro de Elgoibar, parroquianos de Marquina-Echavarria”⁶⁷.

Ez dugu berri zuzenik haren haurtzaro eta gaztaroko garaiaz, baina zeharkako berri batzuekin, herriko bizitzari buruzkoekin, hurbil gintezke hark gaztaroan bizi izan zuen errealitatera...

Lehenago esan dugunez, Bartolomerren gurasoak etxe bat baino gehiagotan bizi izan ziren. Ziurrenik, Bartolome amaren aldetiko aitona-amonen etxean jaio zatekeen, gaur egun desagertua den eta Etxebarrikoa zen Sagarminaga baserrian; Etxebarriko bizilagunen zerrenda batean, 1770eko martxoaren 15eko data duenean, hots, Bartolome jaio eta urtebete baino pixka bat gehiagora egindakoan, honako hau dator: “Santiago de Garate inquilino de Sagarminaga”⁶⁸. Eta amaren aldeko haren aitona-amonak hil daitezenean, 1791n eta 1793an hurrenez hurren, Sagarminagako hilobian⁶⁹ emango zaie lurra.

Sei neba-arrebetarik bi Etxebarrin jaio ziren, eta gainerakoak Xemeinen (Markina). Horrek Bartolomerren gurasoak bizi ziren etxea auzo-auzoan zela pentsarazten digu. Eta halaxe da: oso hurbil zegoen Sakoneta baserrian bizi ziren, eta hementxe bizi izan zen gure geroko euskaldun klasikoa. Arestian aipaturiko zerrendan berri hau ageri da: “Cosme de Madariaga inquilino de Saconeta”⁷⁰.

Bartolome zein auzotakoa den zehazteko, bi baserriak Iturreta aldean daudela izan behar dugu gogoan, hau da, Markinan; baina bi enklabe edo mutur sartzen ziren hor: Sagarminagakoa, Etxebarriko udalerrikoa zena, eta Sakonetakoa, Xemeingoa zena. Hala ere, urte batzuk geroago, Sagarminagan ez da bizi Garate edo Madariagatarrik⁷¹; ez eta Sakonetan ere Madariagatarrik⁷². Horrek, Bartolomerren

⁶⁶ Esaterako, hilei buruz idazten diren berrietan, Lazkaoko kartularioan, Bartolome Markinakoa dela dator: “era natural de la Villa de Marquina”, baina beste norbaitek (haren anaia Josek, beharbada?) zuzendu egin zuen, gainean “Echevarria” jarritz, 76.or.


⁶⁷ BEHA, Etxebarri, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31^a.

⁶⁸ EUA, caja 209.

⁶⁹ BEHA, Etxebarri, (07-01), Ilak, 1784-1865, 9^a, 10^a or.

⁷⁰ EUA, caja 209. Baina esaldi hau gainetik marratua dago, Sakoneta baserria ez zela Etxebarrikoa ohartu zirelako.

⁷¹ Amaren aldetiko aitona-amonak hilez gero, Maria Kruz Arrieta (1791) eta Santiago Garate (1793), Garate familia ez zen jadanik Sagarminagan bizi, 1799an, Sagarminaga baserrian Domingo Iriguen maizterra bizi baitzen, beraren jabea Joan Fernando Ugarte izanik



*Goian, Bartolome bizi izan zen Sakoneta baserria, orain dela 50 bat urte zegoen eran.
Behean, Sakoneta baserriaren hondakinak, gaur egun ikus daitezkeen eran.*

anaiak XVIII. mendearen amaieran beste etxeren batean, ziur aski Iturreta aldeko-
ren batean, bizi zirela pentsatzera garamatza.

Familian, aipatzekoak diren gertaera batzuk bizi izan zituen; hauek, esate bate-
rako: 6 urte zituela, bere anaia Joseren jaiotza (1775), eta 9 urte zituela, bere arre-
ba Maria Teresarena (1778), eta 13 urte zituela, Kristobal Pedro bere anaia gaztee-
naren jaiotza (1782).

Haren haurtzaroen, 1774-1779 inguruan, Markinan eskola-umeen maisua
Antonio Sagarribai zen eta honen ondoren Pedro Antonio Mihoura-k hartu zuen
kargu hori, 1000 errealeko⁷³ soldata jasoz...

Garai honetan herriko bizitza gorabehera handirik gabe zihoan aurrera.
Udaleko aktetara begiraturaz, eguneroko arazo eta arduetan sarturik zebilela ohar-
tzen gara: Bideak, basoak, zuhaitzak eta zura, ikatza, olioak, ardoa, okela... 1770-
1771 inguruan, eskekoen eta gaizki bizi zirenen kezka agertzen du udalak ("vaga-
bundos y gentes de mal vivir") (1770-II-22), hurrengo urtean, alkatearen agiri-
rik gabe, eskeak aterik ate ibiltzea debekatuz (1771-VII-1)... Beste batean, ganaduen
izurrite bategatik ageri dira kezkaturik 1774.eko bigarren erdian, eta Jaurerriak
emandako aholkuei men eginez, Gipuzkoan ganadurik ez erostekotan dira (1774-
VIII-14, 1774-XII-14).

Erregearen aginduz, Asturiasko Printzesak sein-egite edo erditze zoriontsua
izan zezan otoitzaldiak antolatzen dira (1771-IX-10) eta gero kanpaiak jotzeko eta
"Te Deum" kantatzeko agintzen da Karlos Klementeren jaiotzagatik (1771-X-5).

Udala erlijio-ekintzaz ere arduratzen zen; esaterako, Etxebarrin sermoiak egi-
ten ziharduten misiolariak nola harrera egin (1770-Y-18), haien mantenurako 300
erreal emanez... Eta bereziki Xemeingo parroki elizako konponketaz (1770, 1771,
etab.). 1779.eko urtean alkatea herriko erlijio-ekintzetarako misiolari batzuk bila-
tzeaz arduratu zen (1779-IV-11), etab.

b. Erlijio-egoera: Markinako Karmengo komentua

Ezbairik gabe, karmeldar ospetsua izango zenaren gaztaroa Markinako karmel-
darekin harreman estuan izango zen. Alde batetik, fraideen bizitza sozio-erlijioso kultu-
ralaren oihartzuna komentuan eta Karmengo elizan nahiko aintzat hartzekoa zen.

(EUA, caja 188-1, *Libro de Decretos* ik. Jaime de KEREXETA, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbao, 1992, 585., or.: 1796an kondea ageri da Sagarmingaren jabetzat), eta geroago, 1809 inguruan, Jose Joakin Loiola eta honen emazte Josefa Barinaga Rementeria eta berauen semea bizi ziren (EUA, caja 188-1, *Libro de Decretos*).

⁷² Ez dira nahastatu behar Iturretako Sakoneta baserria Amalloako Sakoneta baserriare-
kin; ik. Jaime de KEREXETA, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Bilbao, 1992, 382, 658; Augustin ZUBIKARAI – Juan FERNANDEZ EGIGUREN, *Markina-Xemein. I. Ziortza, Bolibar, Barinaga, Iturreta*. Bilbao, 1991, 327; Augustin ZUBIKARAI – Juan FERNANDEZ EGIGUREN, *Markina-Xemein. II. Amalloa, Arretxiñaga, Atxondo, Erdotza, Idarraga, Illunzar, Meabe, Urberuaga*. Bilbao, 1991, 222.

⁷³ Mila errealeko soldata zuen, MUA, C. 30 (*Libro de Quantas*), 195^a.or.)

Markinako Karmeldarren fundazio-data 1691koa, eta hango eliza berriaren estreinaldia 1724an⁷⁴ izan zen.

Baina, beste aldetik, fundazioaren hasieratik esango genuke, Karmeldarren ardu-retariko bat izan ohi zen urtero Xemeingo parrokiaren sermoiak egitea, udaleko urteroko kontuetan⁷⁵ behin eta berriro agertzen denez... Sermoiak egiteaz gain, hasierahasierarik, saiatzen ziren fraideak aitortzako sakramentuaz eta hil zorian zirenei elizakoak eman eta laguntzeaz, herriari bere beharrezanetan leialki erantzunez⁷⁶.

Apostolutzari dagokionez, eliza Karmengo Amarena izanik, Andre Mariarenganako debozioa, eta bereziki Karmengo Amarenganakoa, zabaltzea izan da fraideen lanaren xedea. Bartolomek 6 edo 7 urte zituenean, 1775 inguruan, debozio handia zen; udala, aktetan agertzen denez, Karmen jaian biltzen zen jendetza handiaz kezkatu zegoen; hainbesteko jendetza etortzeak ardura handia sortuz eta herrian zegoen gari apurra amaitzeko arriskua ikusirik, udalak hilaren 12an, azteazkenean, prezioei zegokienez, okinei uztailearen 15-17ko larunbata-astelehenerako arauak eman zizkien⁷⁷.

Hain zuzen ere, Bartolomek 9 urte zituela, 1777an, sortu zuten Markinako Karmengo kofradia⁷⁸. Kofradia honen helburua, Andre Mariarenganako maitasunaren eta santifikazio-bidearen ezaugarri gisa, Eskapulario Santuaren debozioa bizi eta zabaltzea izan zen. Izan ere, kofradiako kideen liburuan milaka izen datoz, Bizkaiko herririk gehienetakoak, eta baita Gipuzkoako askotakoak ere. Eta Markinan Karmengo Amaren maitale eta kofradiako kideen artean Bartolomeren aitaren izena ageri da: "Cosme de Madariaga"⁷⁹. Argi dago Madariaga familia, beste asko bezala, ez zela Karmenen nagusi zen Andre Mariaganako atxikimendu horretatik at geratu; eta, beraz, Bartolome eta honen anai-arrebak ere giro horretan bizi izango ziren.

⁷⁴ Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 42-57.

⁷⁵ Esaterako, XVIII. Mendean, 1702, 1704, 1706 eta abarretan. MUA, (C. 16), *Libro de decretos... 1689-1708*, 224, 269, 269-270, 301.or. eta abarretan; eta geroago, MUA, (C. 30), *Libro de Quentas...*, 1747-1789, 1, 6, 14, 23, 28, 32, 36, 42, 44, 47, 49, 55, 62, 74, 77, 82, 86, 93, 100, 108, 111, 121, 129, 134, 142, 195, 203, 209, 210, 216, 225, 229, 236, 238, 241, 245, 251, 270, 271... or.

⁷⁶ GKPA, Markina 3, Antonio Idiakez jaunak Bartolome Ramirez jaunari eginiko gutuna, 1722-III-14 (Fotokopia).

⁷⁷ MUA, *Libro de decretos...1768-1778*, 253ⁱ-254^a. (MKA, A-I-50).

⁷⁸ Karmengo komentuko antzinako dokumentazio aberatsetik, frantsesean galdu zenetik, hain zuzen ere, eskuizkribu preziatu bat gorde zen, dokumentu zehatz hau dakarrena: *Libro de la Archicofradía de N.M. SS^{as}. Del Carmen. Fundada en este conv^o de Marquina. A. De 1777, Por Comisión de N.M.R.G[enera]l F. Frar^o de la Present[aci]ón*, [24].or. Ik. ondorengo hau ere: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 68, 375-378.or.

⁷⁹ MKA, *Libro de la Archicofradía*, 29ⁱ. Orrialde berean, lerro bat geroago, dator kofradiako kideen artean "D^a Vicenta de Moguel", eta orrialde berean irakurtzen dugu "Dⁿ. Juan Antonio Moguel" ere.

Debozio honekin batera, Markinako karmeldarrek San Joseenganako debozioa zabaldu zuten. Karmengo fraideek, Santa Teresaren semei dagokienez, barrubarruan sarturik zuten San Joseenganako maitasuna. Eta Markina dugu debozio⁸⁰ horretan aurrengoetarikoa. Horren adierazgarri dugu hainbeste gizon eta emakumek Jose edo Josefa izena izatea... Haren anaietariko bik ere halaxe dute: bat Jose deitzen da (Ordenan Jose San Migelena), eta beste batek, Kristobal Pedro zeritzonak, Ordenan Pedro San Joserena izen-deiturak hartuko ditu.

Bartolome ia 14 urtekoa zela, honengan eta honen anaiengan eragina izan zezakeen idazki bat zabaldu zen Ordena barruan. Karmeldarren Probintzialak, Jose Jainkoaren Amarenak, gutun bat igorri zien Markinatik komentuetako nagusiei, meza-laguntzaile izateko haur euskaldunak komentuetan har zituzaten, eta gutuna komunitatearen aurrean⁸¹ irakur zezatela eskatzen zitzaie; haur eta gaztetxo euskaldunak erakartzea eta haiei karmendar bizitza ezagutaraztea zen asmoa, horrela Karmelerako geroko bokazio berriei bideak irekitzeko. Eta erlijioso euskaldunak behar-beharrezkoak ziren jende euskaldunaren beharizan espiritualei erantzuteko. Bartolomeren haurtzaroan, Markinako Karmeldarren komentuek fraide ugari zituen; 1777. urtean 29 ziren guztiz, 23 mezako eta 6 anaia ez-mezako⁸²; hauen artean Ordenako historialari ospetsu eta Markinan Karmengo Kofradiaren fundatzailea izan zen Andres Gizakundekoa genuen priore... Ez dezagun ahaztu Karmengo Amaren omenez⁸³ larunbat guztietan izan ohi zen meza nagusi kantatu zirrargarria ere... askorentzat hauxe izan baita Jainkoaren deia entzuteko une garrantzitsua...

4. KARMELDAR: NOBIZIATUA ETA IKASKETAK (1789-1799)

a. Nobizio Korellan (1789)

Izan ere, etxeko eta herriko erlijio-giro honetan, eta Karmeldarrek eragindako Andre Mariaren, zehatzago esanik, Karmengo Amaren deboziozko giro horretan, erakarpen berezia somatuko zuen Bartolome gazteak...

Karmengo Ordenan sartzeko gogoia zuen; eta, beraz, latin ikasten ere jardungo zuen, ziur aski Karmengo fraideren batekin; koruko izateko asmoz nobiziatuan sartzeko latin⁸⁴ jakin beharra baitzegoen.

⁸⁰ Ik. HIGINIO DE SANTA TERESA, *Devoción al Patriarca San José en la villa de Marquina (Vizcaya)*, Estudios Josefinos 23 (1969, 45.zk.) 231-262.

⁸¹ BAS, 65/P, carta de 1782-IX-13.

⁸² MKA, *Libro de la Archicofradía*, 24.

⁸³ *Constitutiones...*, 123-124.or.

⁸⁴ *Constitutiones*107.or: "Nemo ex iis, qui Choro deputantur, admittatur, nisi linguam latinam sciat, ita tu possit facultatem aliam profiteri". (Urte batzuk geroago, klaustrotik kanporatuak zeuden garaian, haren anaia Josek latin irakatsiko zien mutikoei... MUA, C. 20 (*Libro de decretos.*), 134^a, Jose San Migelenak Markinako Udalari egindako gutuna, 1812.II-27.

Ziur aski Markinako Karmengo komunitate ugarian izango zuen karmeldar bizitzaren berri. Han karmeldarrek egiten zuten bizieraren lekuko izango zen. Haien bizitzan ikusi ahal izango zuen fraide haiek, Erregelak dioenez, “Jesukristoren mende euren buruak jarritz, eta bihotz garbia eta barne zintzoa zutela haren zerbitzari leial izanez”, “Jaunaren legea hausnartzen eta otoitzean erne” bizi zirela, pobretasunean eta elkarrekiko bizitzan. Jesusen Amak haien bizitzan esanahi aparta zuela, eta beren otoitz eta maitasun bizitzaren eredu zutela ere ohar-tuko zen. Sarri entzungo zuen batez ere, Eliz irakasle handi Santa Teresa Jesusenak eta San Joan Gurutzekoak ezarritako biziera berrituaz hitz egiten: Elizaren barruan Jainko-esperientzia bizi izateko era berriaz...

20 urte zituela, 1789ko otsailean dei egin zuen Korellako karmeldarren nobiziatuko atarian. Eta hilabetean hango bizimodua probatuz, karmeldar abitua hartu zuen 1789ko martxoaren 18an. Gertakari hau dakarren agiriak hari buruzko berri batzuk ere badakartza:

“El Herm^o. Fr. Bartholomé de S^{ta} Theresa que en el siglo se llamaba Bartholomé de Madariaga, hijo legítimo de Cosme de Madariaga (natural de Marquina) y de María Inés de Garate (natural de Elgoybar), vecinos y parroquianos de la villa de Marquina, obispado de Calahorra, tomó el S^{to} Hábito para corista (haviendo precedido un mes de observación, hechas y aprobadas las informaciones), oy día diez y ocho de marzo de mil setecientos ochenta y nueve entre cinco y seis de la mañana, teniendo de edad veinte años y dos meses; y para que conste lo firmé en este S^{to} Noviciado de Carmelitas Descalzos de la ciudad de Corella dicho día, mes y año. Fr. Manuel de Sⁿ. Joaquín, Maestro de Novicios”⁸⁵.

Korellako komentuak historia luzea du. Euskal Herriko karmeldar gizonezkoen bigarren fundazioa da. Lehenengoa Iruñekoa izan zen (1587) eta gero Korellakoa 1595ean, honen laugarren mendeurrena orain dela urte gutxi ospatu zelarik⁸⁶. Komentu honetan izan den bizierari edo hark izan duen egitekoari dagokienez, garai batzuetan nobiziatua izan dela gogoratu behar dugu; esaterako, Karmeldarren Probintziako nobiziatua izan zen 1733-1790, 1796-1808, 1826-1834. urteetan. Frai Bartolome, hain zuzen ere, lehenengo aldiko azken urtean izan zen nobizio Korellan. Eta A. Manuel San Joakinena izan zuen nobizioen maisu.

Han izan zuen komentu-bizitza nolakoa zen antzematea erraza da, garai hartako legeek zehatz-mehatz adierazten baitute. Egin-eginean ere bi urte lehenago argitaratu ziren Konstituzioak⁸⁷.

⁸⁵ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1732-1834*, 172.or.

⁸⁶ Joaquín M^a MAQUIRRIAN, *Los Carmelitas Descalzos en Corella* Corella, 1995, 109 or.

⁸⁷ *Constitutiones Fratrum Discalceatorum Beatissimae Virginis Mariae de Monte Carmelo primitivae observantiae. Congregationes Hispaniae, a SS.D.N. Papa VI. Confirmatae die XIV. Martii Anno M.DCCC.LXXXVI. Pontificatus sui anno duodecimo*. Madrid, 1787, 412 or. Obra honen gaztelaniazko itzulpena urtebete geroago agertuko zen: *Regla primitiva y constituciones de los religiosos descalzos de la Orden de Nuestra Madre Santísima la Bienaventurada Virgen María del Monte Carmelo, de la Primitiva Observancia. En esta*

Erlijosoen bizitza hau eta bereziki nobizioena, laztasun ingurumari batean betiere, otoitzak markatua zen; bi erataro egindako otoitzak: orduen liturgiako otoitza eta barneko otoitza. Eguzero bi ordu eman ohi ziren barneko otoitzean, goizean ordubete eta arratsaldean⁸⁸ beste bat. Komunitateko mezan emandako denboraz gainera, orduen liturgian beste bi ordu eta erdi ematen zituzten. Honela banatzen ziren orduen liturgiako otoitzaldiak: maitinak edo irakurgaien ordua gauerdian, goizean gorespenak eta “lau ordu txikiak”, eta arratsaldean bezperak eta konpletak edo arratsako otoitza⁸⁹... Nobizioen eguneroko bizitza koruko otoitzaz, gelako bakarraldiaz, nobizioen maisuak ematen zituen irakasaldi eta abarrez osatzen zen.

Nobiziatuan Bartolomek karmeldarren tradizioak eta haien bizitza-araua bereganatu zituen. Ama Teresaren Ordenan maite-maite zen tradizioaren arabera hezi ohi ziren nobizioak; bereziki *Instrucción de novicios*⁹⁰ delakoaren arabera. *Instrucción* delako honi, Ordenako lehenengo nagusien eta hauen artean San Joan Gurutzekoaren onarpena izateak aparteko entzutea ematen zion. Vademecum bezalako zerbeit zen hori eta horrela Ordenako nobizio guztien heziera antz-antzekoa izango zen.

Nobizioaren bizitza ongi zehaztua eta arautua zen, lau kapitulutan sailkatua zen *Intrucción* delako horretan ikus daitekeenez: “Esta presente obra se divide en tres capítulos, cada uno de los cuales se distingue con párrafos en números diversos. El primer capítulo, en que se trata del oficio del Maestro de novicios y de otros algunos que ha de haber en cada noviciado, contiene tres párrafos. El segundo, en que se ponen los diferentes ejercicios de cada tiempo, primero del año, luego sucesivamente de los meses, semanas, días y horas de él, va repartido en cuatro párrafos. El tercero y último, en que se dan algunas advertencias generales para todo el tiempo acerca de las virtudes, consta de nueve párrafos”⁹¹. Laster (1624, 1677) laugarren kapitulua gehitu zitzaion: “De cómo se han de ejercitar los Hermanos en las virtudes para mejor y más fácilmente alcanzarlas”⁹².

Instrucción de novicios delakoarekin batera, Karmeldarren hezierarako oinarriko beste liburuxka bat ere bazen, *Costumbres Santas* izenekoa. Ohitura hauek ziren nobizioaren bizitzaren ispilu, zehatz-mehatz betetzen baitziren: haiek arautzen zuten eguneroko bizitza, otoitzaren lehen urratsetan nola jardun behar den,

Congregación de España, e Indias, Confirmadas por N.M.SS. P. y S. Pio Papa VI, en el día 14. de Marzo del año de 1786, año duodécimo de su Pontificado. Traducidas del idioma latino al Castellano. Madrid, 1788.

⁸⁸ *Constitutiones...*, 28.or.

⁸⁹ *Constitutiones...*, 20, 22, 24.or.

⁹⁰ *Instrucción de Novicios Descalzos de la Virgen María del Monte Carmelo: Conforme a las costumbres de la misma Orden*, Madrid, 1591. Gaztelaniazko argitalpen honek hainbat argitaldi izan ditu zenbait hiritan: 1624, 1677, 1691, 1725, etab.. Guk aipamenak egiteko ondorengo argitalpen hau erabiltzen dugu: SIMEON A S. FAMILIA, *Enchiridion de instituciones novitiorum Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*, Romae, 1961, 141-179.or.

⁹¹ *Instrucción de Novicios...*, 145-146.

⁹² *Instrucción de Novicios...*, 226-237.

nolako gorputz-jarrerak izan behar diren ere hortxe adieraziz, esaterako, ibileran, esertzean, eskuak nola jarri etab.⁹³.

Bartolome nobizioak ezagutu zituen Ordenako autoreen beste idazki batzuk ere, nobizioen hezierari buruzkoak. Esaterako, Joan Iragarkundekoaren liburua (*Avisos religiosos, que a los Descalzos de Nuestra Señora del Carmen escribe en carta pastoral su General*); lan horretako lehen artikulua, 28 orrialdekoa, nobizioei⁹⁴ buruzkoa da...

Ez dago esan beharrik Santa Teresaren idazalana maiz izango zituela esku artean, geroago bere idazlanetan aipatzen dituelarik, eta Joan Gurutzekoarenak ere bai ...

Nobizioen bizitza etxeko hainbat lan eginez eta erlijio eta karmeldar bizitzari buruzko irakaspenak jasoz zihoan aurrera. Nobizioen maisuak espiritualki haiek zuzentzeko eginkizun garrantzitsua zuen. Irakaspen horrek hainbat alde⁹⁵ izan ohi zituen: legeak eta Ordenako ohiturak irakastea, erlijio-eginbideetan zintzoa izateko eta botoak betetzeko gogoia berotzea; baina nobizioei bizitza espiritualaren berri izaten eta norbere bokazioa ezagutzen ere laguntzen zien.

Urtean zehar hiru aldiz aztertu ohi zen komunitateko batzarrean nobizio bakoitzaren garapen espirituala eta haren portaera⁹⁶; eta Bartolomek ere hiru azterraldi horiek jasan behar izan zituen, eta ongi irten zen hiruretan⁹⁷. Aldi horren bukaeran profesa egin zuen, Bartolome Santa Teresarena izenez botoak eginez; 1790eko⁹⁸ martxoan zen hori.

⁹³ *Costumbres Santas* izeneko obra honek eragin handia zuen eguneroko bizitzan eta, argitaratzeko ahaleginak egin ziren arren (esaterako 1831.ean, BAS, O letra) ez zen argitaratu 1900era arte (*Instrucción y Costumbres santas de los novicios Carmelitas Descalzos, copiladas y arregladas por el R. P. Fr. Berardo de San José*, Bilbao, 1900, VIII - 440 or.). Lau atal hauetan banaturik zegoen: 1. "De las pasiones", 2. "De las virtudes", 3. "De los ejercicios monásticos", 4. "Oficios y Deberes". 1900era arte liburua argitaratu ez arren, ohitura santu horiek guztiz ezagunak ziren eta bizitzan betetzen zirenak. Nobiziatu guztietan zeuden eskuizkribuak. Honela, esaterako, Alberto Pachok dioenez, (*El P. Manuel de S. Tomás (Traggia) 1751-1817, último historiador oficial del Carmelo Teresiano en España*, Roma 1979, 60.or.) BAS-en eskuizkribu bat dago (esk. 90) : A. Frantzisko Jainkoaren Amarenak 80 orriko eskuizkribuan kopiatu zituen obra honen zatirik garrantzitsuenak, eta honako izenburu hau du: *Costumbres santas que se usan en este santo noviciado de Corella* Korellan hasitako kopia hau Iruñean burutu zuen 1737. urtetik 1747.era bitartean.

⁹⁴ Madrilen 1698.ean argitaratutako liburua, 1758.ean jadanik bazen Markinako Karmeldarren bibliotekan, eta gaur egun ere bada. Frai Bartolomek, Markinako komentukoa zenean, eskura izan zuen liburu hau.

⁹⁵ *Constitutiones...*, 104-114.or.

⁹⁶ *Constitutiones...*, 112.or.

⁹⁷ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1732-1834*, 172.or.

⁹⁸ Profesak dakartzan Korellako liburu orijinalean 241. orritik 256.era artekoak falta dira; hain zuzen ere, honelako orrietariko batean zen Frai Bartolomeren profesa; profesetako aktak 1788.eko apiriletik 1790.eko abendura pasatzen dira; martxoaren 18az gero izan zen haren profesa; ziur aski 19an.

Ziur aski Korellan jarraituko zuen irailera arte. Legeek, profesa egin berriak, nobiziatuan bertan edota beretzat⁹⁹ egokia zen beste komenturen batean, aldikada bat igaro zezala agintzen zuten, nagusien iritziz ikastetxera bidaltzeko ordua heldu arte. 1790eko urriaren 1ean, hain zuzen ere, Nafarroako San Joakin Karmeldar Probintziako nagusien erabakiz, nobiziatua Tuterara¹⁰⁰ aldatu zen.

b. **Filosofia eta teologiako ikasle (1790-1799)**

Bartolomeren bizitzan badira beraren berri gutxi ditugun garaiak, eta berezko denez, horrelakoa izan zen ikasle zenekoa. Hala ere, orduko legeen jarraibideen harira atera genitzake haren bizitzako gauzarik funtsezkoenak; hau da, zer ikasi zuen eta non ikasi zuen.

Hiru urterik behin izendatzen ziren ikasleak eta irakasleak. Legeek hiru ikastetxe izatea eskatzen zuten: a. filosofiakoa, b. teologia eskolastikokoa, eta c. teologia moral eta zuzenbide kanonikokoa¹⁰¹. Eta beharrezkotzat jotzen zen hiru ikastetxe horietako prioreak jakintsuak eta letretan¹⁰² jantziak izatea. Egin-eginean ere, 1790ean kapitulu probintziala egin zen, eta horren ondoren Probintzial eta honen aholkularien batzarrean erabaki ziren ikasketako kurso berriak, hau da, ikastetxeak, irakasleak eta abar. Horrela izan ziren, bada, Frai Bartolomeren ikasketetako bederatzi urteak:

aa) *Karmeldarren ikasketak XVIII. mendearen bigarren erdian, eta haien berri -kuntza.*

Espainiako Kongregazioko Karmeldarrek filosofia eta teologiako maisu bikainak izan zituzten; Akinoko Tomas santuaren lan nagusia oinarritzat hartuz, *Complutense*¹⁰³ eta *Salmanticense*¹⁰⁴ kurtsuetako lan handiak prestatu zituzten libu-

⁹⁹ *Constitutiones...*, 113-114.or.

¹⁰⁰ GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D: 1789-1825*, 1^a. or.

¹⁰¹ *Constitutiones...*, 120 or.

¹⁰² *Constitutiones...*, 121 or.

¹⁰³ Horrela deritzo Alcalá de Henares-ko karmeldar ikastetxeko irakasleek idatzitako filosofiako kursoari. Karmeldar Teresiarrek filosofia arloan egindako ekarpen gorena izan zen. Egile aipagarrienak Migel Hirutasunarena, Joan Santuena eta Antonio Jainkoaren Amarena izan ziren. Lehen argitalpena Alcalá eta Madrilen agertu zen (1624-1628) lau liburukitan, geroago osatuz joan zirelarik... Blas Sortzez Garbiarenak metafisikako liburukia egin zuen 1640an... A. Joan Iragakundekoak Lyon-en argitaratu zuen 1670ean Complutensea orrazturik *Resumpta Complutense*izenburuarekin. Argitalpen honetatik gehiago ere egin ziren Paduan, Kolonian... Ik. FLORENCIO DEL NIÑO JESÚS, *Los complutenses. Su vida y su obra*. Madrid, 1962, 241 or.

¹⁰⁴ Kurtso teologiko handi honi, agertu zen lekutik dator kio izena; obra hau XVII. mendean eta XVIII.aren hasieran Salamanca-ko San Elias Ikastetxeko Karmeldar Oinutsek egin da. Teologia dogmatikoak 12 liburuki hartzen ditu, 1631tik 1712ra bitartean argitaratuak. Egileak

ruki ugari eta marduletan. Obra izugarritzko honen laburpena egin zen gero hiru hauen artean: *Complutensæren* laburpena Joan Iragarkundekoak¹⁰⁵ egin zuen bost liburukitan, eta *Salmanticense*arena bi euskaldunek egin zuten: *Salmanticense*aren dogmatika partea nafar batek laburtu zuen lau liburukitan, Paulo Sortzez Garbiarenak (1634-1707)¹⁰⁶; *Salmanticense*aren moral partea, berriz, Antonio San Joserena bizkaitarrak (1716-1794), bi liburukitan¹⁰⁷.

Dena dela, XVIII. mendearen erdirantz ikasketa-programak pixka bat zaharkituak zeudelako ustea zabaldu zen; beraz, batzuek berrikuntza nahi zuten. Hala ere, 1748ko Kapitulu Jeneralak zeharo baztertu zituen berrikuntza-ahaleginak. Horrela, mende horren bigarren erdian krisia larriago bilakatu zen, ez Karmeldarren Ordenan soilik, baita gainerako unibertsitate guztietan ere. Testu modernoagoak sartzea geroago eta beharrezkoagoztat jotzen zen; esaterako, zuzenbideko hainbat gauza berri zihozten sartuz, eta filosofiako gaietan ere autore berriei leku egiten zitzaien...

Baina ikasketen berrikuntza, Karmeldar Teresiarren artean, kanpotik bultzatua izan zen. Hau da, Madrilén Aita Santuaren Nuntzioa zen Nicolas Colonna-k eragin zuen berrikuntza, Erregearen eta Rodas Ministroaren laguntzarekin. Horrela, erdi behartu egin zuen Ordenako Jeneralak, Gregorio San Joakinena, programa berria sartzera. Nuntzioak A. Jose Antonio San Albertorenaren laguntza eskatu zuen 1778ko abuztuaren 5ean (urte horretan bertan apezpiku izendatua izan zen). Honek ikasketen egoeraz txostenak bidaltzen zizkion, eta horien arabera, Ordenako kultura filosofikoa eta teologikoa nahiko urria zen¹⁰⁸. Nuntzioak A. Manuel San Bizenterenari agindu zion ikasketetako egitasmo berria burutzeko. Nuntzioak onartu zuen A. Manuelek egindako egitasmoa eta Aita Jeneralari,

hauek izan ziren: Antonio Jainkoaren Amarena, Domingo Santa Teresarena, Antonio Donibanerena, eta bereziki Joan Iragarkundekoa (1633-1701). Argitalpen ugari izan zituen. Parisen 1870etik 1883ra bitartean egindakoak 20 liburuki zituen. Baina sei liburuki marduletan egindako Teologia Moraleko kurtso bat ere bazen, beste liburuki bat bezala har daitekeen eranskina zuena. Obra handi honek argitalpen ugari izan zituen; lehenengoa 1665etik 1723ra bitartean egina. Honen egileak Frantzisko Jesus Mariarena, Andres Jainkoaren Amarena, Sebastian San Joakinena, Ildefonso Aingeruena, Jose Jesus Mariarena eta Antonio Sakramentu Santuarena izan ziren. Teologia Moraleko kurtso honen edizio bat baino gehiago gordetzen dira Markinako Karmeldarren bibliotekan, batzuk ez osorik; hauetariko lau liburukitan Frai Bartolomeren ohar autografoa dator, esanez: "librería del Carmen de Marquina". Ik. ENRIQUE DEL SAGRADO CORAZÓN, *Los salmanticenses: su vida y su obra. Ensayo histórico y proceso inquisitorial de su doctrina sobre la Inmaculada*. Madrid, 1955, 278 or.

¹⁰⁵ *Collegii Complutensis Fr. Discalceatorum B.M. de Monte Carmelo artium cursus, ad breviorum forma collectus et novo ordine atque faciliore stylo dispositus* Coloniae 1693. (Lyon 1670, Colonia 1732)...

¹⁰⁶ *Tractatus theologicus juxta D. Thomae et cursus Salmanticensis Fratrum Discalceatorum...*, Madrid, 4 t., 1722-1729.

¹⁰⁷ *Compendium Salmanticense in duos tomos distributum universae theologiae moralis...*, Romae, 2 t. 1779; (Pamplona, 1779; Pamplona 1797).

¹⁰⁸ MBN, esk. 7290.

Gregorio San Joakinenari, Ordenan ezarrazazi zion. 1781ean, Aita Jeneralak, 1780ko urriaren 28ko zirkular bat argitaratu zuen, Nuntzioak ezarritako ikasketagindua berri emanaz.

Irakasleei hainbat gomendio egiten zaie; hauen artean, iturrietara jotzea, Platon, Aristoteles, Zizeron, Seneka eta Plutarko irakurtzea antzinako artean, eta modernoan artean Vives, Frantzisko Bacon, Gassendi, Newton, Leibnitz... Ikasliburuei dagokienez, filosofian Goudin gomendatzen zen; teologian, berriz, Akinoko Tomas santuaren *Summa*, eta beste teologi gai batzuetan Melchor Cano edota Gaspar Juenin; teologia moralari dagokionez, Tomas santua aipatzen da, baita Gennet, eta Natal Alejandro ere; erretorikan Frai Luis Granadakoa... Eliz Gurasoak (Patrologia), Eliz historia, Eskritura Santua etab. aztertzea azpimarratzen da ¹⁰⁹.

Egitasmo honek aldakuntza garrantzitsua eragin zuen Ordenako ohituretan eta tradizioan: Salmanticenseak utzi eta haien ordean autore berriagoak aintzat hartzea ekarri zuen... Ondorioak onak izan ziren. Ordenako Jeneral berriak, Andres Igozkondekoak, balantzea egin zuen 1785eko zirkular batean...

Ordenako lege berrietan, hau da, 1786an egin eta 1787an argitaratutako Konstituzioetan, programa berria jasotzen zen funtsean, gero Karmeldarren 110 ikastetxeetarako beren-beregi egindako 1790eko *Instrucción* delakoan zehatz-mehatz agertzen delarik. Izan ere, 1787ko Konstituzio eta 1790eko *Instrucción* delako hauen arabera egokitu zitzaion Bartolome Santa Teresarenari ikasketak egitea. Hortik atera liteke haien garrantzia eta esanahia. 1790eko Instrukzio hau Ordenako Jeneral berria A. Joan Espiritu Santuarena zela onartu eta argitaratu zen.

Orain honezkeroko arau eta lege bihurturik da egitasmo berria; hainbeste urtetan indarrean izan zen aurrekoarekin alderatuz, nahiko ezberdina. Instrukzio hau, garrantziaren arabera, katedrak mailaz maila sailkatuz hasten da: orain Teologia eskolastikoa eta Eskritura Santua dira goren mailakoak (lehenago Morala eta Zuzenbide Kanonikoa Eskritura Santua baino gorago zeuden), hurrengo Morala eta Zuzenbide Kanonikoa datoz, eta azkenez, filosofia¹¹¹.

Bigarren artikuluan, irakurle edo irakasleentzat oinarriak ezartzen dira: "Siendo de tanta consecuencia el empleo de un Lector, qualquiera que sea, como que ha de criar a los Jóvenes en las doctrinas fundamentales de la Santa Fé, y es como el

¹⁰⁹ Ikasketen berrikuntzaz ikus: SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*, 12.t., Burgos, 1944, 289-319. Alberto PACHO, *El P. Manuel de S. Tomás (Traggia) 1751-1817, último historiador oficial del Carmelo Teresiano en España*, Roma 1979, 66-84. Purificación GATO CASTAÑO, *La educación en el virreinato del Río de la Plata. Acción de José Antonio de San Alberto en la audiencia de Charcas, 1768-1819*, Zaragoza, 1990, 31-38.

¹¹⁰ *Instrucción de los colegios de Carmelitas Descalzas formada y presentada en su capítulo general celebrado en el convento de San Hermenegildo de Madrid a 25 de Septiembre de 1790. Por N. M.R.P. Fr. Andrés de la Ascensión. Aprobada por su Difinitorio General de Comisión de dicho Capítulo*, Madrid, 1790, 70 or.

¹¹¹ *Instrucción de los colegios...*, 11.or.

arca que encierra las aguas que han de regar las tiernas plantas de la Orden, conviene en primer lugar que a la entrada o posesión de su oficio, haga la protesta de la fé ante sus Discípulos y Comunidad del Colegio, al modo que la hacen los Prelados en el Capitulo Provincial, o al tiempo de tomar posesión de sus empleos. En segundo lugar procurará por medio de una constante aplicación hacer un caudaloso depósito de virtud y de doctrina, bebida o recogida de los manantiales de la Santa Escritura, Concilios y Padres, entre quienes tendrá el primer lugar el Angélico Doctor Santo Tomás en materias opinables¹¹².

Bi ertz dira saihestekoak: “la curiosidad por doctrinas nuevas y peregrinas, y la desidia, madre fecunda de la ignorancia y de los vicios”. Gomendioen artean hona zer dioen: “un estudio tenaz, sólido, y folosófico sobre las fuentes, como pretendía el famoso Luis Vives, mas ha de dos siglos, aunque sin todo el fruto que deseaba”¹¹³.

Bigarren artikulua honetan beste bi puntu garrantzitsu dira; Frai Bartolome sermolari handiarengan eragina izan zezaketenak, gainera. Lehenengoan, ikasle- bizi- tzak eta otoitz-bizitzak batera joan behar dutela esaten da; Tomas santua¹¹⁴ eredu- tzat jarriz goraiatzen da bien arteko harmonia hori.. Bigarren puntuan, hizkuntza ongi menderatzeak duen garrantzia azpimarratzen da. Hizkuntza eta literatura ongi ezagutu eta erabiltzea ezinbestekoa dela bai irakaskuntzarako eta bai sermoigintza eta apostolutzarako... Honetaz gomendio batzuk egiten dira, esaterako, aintzat hartzeko ondorengo tratatu hauek: *Corruptarum artium causis, et de tradendis disciplinae*, Juan Luis Vives-enak¹¹⁵. Eta irakasleei aholku ematen zaie, ahalik eta emaitza hobereak lortzeko, ikasleei lagun diezaieten liburuak aukeratzen.

bb) *Filosofiako ikasle Logroñon eta Ordena Sakratuak hartzea (1790-1793)*.

Bartolomeri zegokion Karmeldarren Probintziak Logroñon zuen filosofiako ikastetxea. Nobiziatua bukatu eta beste hilabete batzuk igaro ondoren, Errioxako hiriburura joan zen ikasketak hastera. Komentu hau 1628ko irailean fundatua zen; lehenengo nagusia, hemen, A. Frantzisko San Eliasena¹¹⁶ izan zen.

Errioxan, filosofiako ikasketaz gainera, beste gertakari hunkigarri batzuk ere bizi izan zituen Frai Bartolomek, esaterako, Ordena sakratuak hartzea, haren apaiz eta sermolari bizitza intelektualki nahiz espiritualki markaturik utziko zutenak.

¹¹² *Instrucción de los colegios...*,17.or.

¹¹³ *Instrucción de los colegios...*,21.or.

¹¹⁴ *Instrucción de los colegios...*,23.or. : “¿Perderá el tiempo un Carmelita Descalzo a quien se dan por Estatuto muchas horas de estudio, porque se le obligye a la asistencia de la oración, y otros algunos actos de Comunidad? No por cierto: ni errarán en seguir aquellos ilustres exemplos, ni perderán tiempo en cumplir con los deberes de los Colegios. Aprovechen todos las horas destinadas al estudios, y no desmayen jamás en la aplicación”.

¹¹⁵ *Instrucción de los colegios...*,26.or.

¹¹⁶ LOKA, A-II-2 (fotokopia; originala BASn): *Libro de fundación...*; SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo...*, IX.t., Burgos, 1940, 436-442.

Ikasturtea irailaren 30ean, San Jeronimoren egunean, hasten zen eta Mendekoste bezperan¹¹⁷ bukatu. Ikasketako era eta gaiak goian aipatutako Instrukzioan zehazten direnak dira. Garai hartan Arteak eta gaur egun filosofia deitzen diren hiru urteko ikasketa hauetan, garrantzi handikoa zen ikasten eta pentsatzen irakastea: “a leer con método, a meditar, reflexionar y conferenciar de un modo juicioso las doctrinas estampadas en los libros, y trasladadas a la memoria”; garrantzitsua zen dialektikan aditua eta trebea izatea erroreer¹¹⁸ bidea eragozteko.

Urte hauetan ikasiko zuen Bartolomek, legeak dioenez, geroko bizialdi guztirako balio izango diona: egia bilatzen, haren alde egiten eta egia sinesgarri egiteko dotoretasunez janzten; hau da, metodo eskolastikoa eta oratoria. Eliz Gurasoek agertutako egia azaldu behar ziren, baina metodo modernoa¹¹⁹ erabiliz. Irakasleek metodo eskolastikoaren beharraz jabetzen eta eztabaida intelektualetan nola jokatu behar den irakasten zien ikasleei. Honetaz ongi zetorren Vives, Mabillon, Liberio eta Frai Joan Jesus Mariarenak irakasten zutena. Helburua egia aurkitzea zen. Eta horretarako bideak hauek ziren: “el estudio incesante que ha de preceder a las disputas; la conferencia juiciosa que debe acompañarlas; la ingenuidad y buena fe de parte del que arguye, y del que sustenta”¹²⁰.

Urte hauetan Frai Bartolomek hizlaritzako artea ikasten du. Ikasleek sermoiak idatzi behar zituzten eta, trebakuntzarako, lagunen aurrean aldarrikatu. Horretarako, Frai Luis Leongoaren *Retórica* ikasten zuten. Egoki hitz egiteko arteak gramatikari, filosofian eta erretorikan jantzia izatea eskatzen du; hau da, hitz-etorria, arrazoi onak, apainduria (“supone la gramática, la Filosofía, y la Retórica: esto es, palabras, sentencias, y adorno”¹²¹). Ariketa hauek oporraldietan egin ohi ziren, ikasturtean zehar ikasitakoa osatzeko¹²² abagune ona baitzen.

Ikasketa eta metodo hauen bidez ikasleak filosofo kritikiko bihurtu nahi ziren, iritzien eta sistemak ezartzeko oinarrien nondik norakoak aztertzeke gai (“unos Filósofos críticos, que sepan hacer juicio recto de las opiniones y fundamentos sobre que se han establecido los sistemas”¹²³).

Filosofiako ikastetxean, igandeetan, ageriko jardunaldi akademikoak ospatzen ziren “tesiak” edo “ondorioak” zeritzenak, baina kanpoko entzule sekularrik gabe,

¹¹⁷ *Constitutiones...*, 126.or.

¹¹⁸ *Instrucción de los colegios...*, 34.or.

¹¹⁹ *Instrucción de los colegios...*, 35-38.or.

¹²⁰ *Instrucción de los colegios...*, 39.or.

¹²¹ *Instrucción de los colegios...*, 44.or.

¹²² *Instrucción de los colegios...*, 45.or.: “En el mismo [tiempo de vacaciones] podrá el Lector instruir a sus Discípulos en aquellas reglas de Crítica que faltan al curso del P. Goudin, y que se hallan en las Lógicas del P. Roseli, y de N.Fr. Tomás Aquino de la Natividad: Autores que no ha de separar de sí el P. Lector de Artes, porque debiendo caminar nuestra literatura con la del siglo que no alcanzó el P. Goudin, ellos podrán suplir su falta”. Ik. ere 56.or.

¹²³ *Instrucción de los colegios...*, 45.or.

beste Ordena erlijioso bateko lau edo sei izan zitezkeen bertan soilik eta zentzuzko bizpahiru sekular¹²⁴.

Fisika, Logika, eta Metafisikako gaietan Akinoko Tomas santuari jarraitu behar zitzaion zuzenki...; ez zegoen ikasleari diktatzerik; Tomas santua irakurri behar zen ikasketetako araubide edo metodo berriaren arabera. Erretorikari zegokionez, Frai Luis Granadakoari¹²⁵ jarraitu behar zitzaion, Instrukzioak ere gomendatzen duenez.

Bartolomek izan zituen nagusi eta irakasleei dagokienez, ez dugu hain berri zehatzik. Badakigu etxeko edo ikastetxeko priorea A. Manuel San Joakinena izan zela, Korellan nobizioen maisu izan zuena. Logroñon egin zen 1790eko kapitulu probintzian hautatu zuten priore kargurako; aurretik sei urtean izan zen moraleko irakasle, eta Sestaoko¹²⁶ La Isla Basamortuko nagusi ere izan zen. Gobernurako oso egokia zen, eta buru argikoa izanez gain, bihotz handikoa ere bazen.

Baina Bartolomerentzat, eguneroko bizitzan, hurbilagokoa zen ikasleen maisua; eta garai hartan, komentuko prioreordeak¹²⁷, Pedro Karmelekoak zuen kargu hori.

Bartolome 20 urte zituela sartu zen Korellako nobiziatuan; beraz, Logroñon filosofia ikasten hasi zenean ia 22 urte zituen. Logroñon ikasten jardun zuen hiru urteen buruan 25 urte izatera iritsiko zen. Horrela, urte hauetan Ordena Sakratuak hartzea ongi ulertzekoa da. Legeek agintzen zutenez, erlijiosoak ezin zitezkeen diakono edo subdiakono ordenatuak izan profesa egin ondoren urte eta erdi igaro arte, ez eta apaiz ordenatuak izan ere, hiru urte igaro arte¹²⁸.

Ordenak hartzeko zirenak, Prioreak eta Probintzialak izendaturiko beste bi erlijiosok aztertuko zituzten; hau da, haien gaitasuna kontuan izanik, isileko botoz onartu nahiz gaitzetsi egingo zituzten, eta gero komunitateko batzarrean azalduko zen iritzi hori... Apaizgintzarako onartuak zirenak, hamar eguneko gogo-jardunak eginez prestatuko ziren sakramentua hartzeko; eta meza berria ezin eman izango zen komentutik kanpo¹²⁹.

Bartolomek Kalahorran eta Logroñon hartu zituen Ordena Sakratuak: Ordena txikiak 1790eko¹³⁰ irailaren 17an edo 18an; subdiakonotza Logroñoko apezpiku-jau-regiko kaperan hartu zuen urte bereko¹³¹ abenduaren 17 edo 18an; diakonotza, Kalahorrako apezpiku-jau-regiko kaperan 1791ko¹³² apirilaren 8 edo 9an; eta apaiz-

¹²⁴ *Constitutiones...*, 128-129.or.

¹²⁵ *Constitutiones...*, 129-130.or.

¹²⁶ LOKA, A-II-2: *Libro de fundación...*, 79.or.

¹²⁷ LOKA, A-II-2: *Libro de fundación...*, 365-366.or.

¹²⁸ *Constitutiones...*, 148.or.

¹²⁹ *Constitutiones...*, 149-150.or.

¹³⁰ KEA, 9/401: *Libro de Registro ordenes generales y particulares conferidas por el Itmo. Señor D^e Francisco Matheo Aguiriano y Gomez...*, 8^a.

¹³¹ KEA, 9/401: *Libro de Registro de ordenes...*, 10^a.

¹³² KEA, 9/401: *Libro de Registro ordenes...*, 15^a.

gintzako sakramentua 1792ko abenduaren 21 edo 22an hartu zuen Logroñoko¹³³ Agustindar lekaimen komentuko elizan, Frantzisko Mateo Agiriano apezpikuaren eskutik; Bartolomek 24 urte eta egun bat zituen.

Komentu barruko gertaerei dagokienez, Frai Bartolomek bost hileta-elizkizunetan esku hartu zuen. Hil ziren horien arteko bat A.Domingo San Joserena izan zen, Markinako priore zela Errioxako komentu honetan hil baitzen 1792ko¹³⁴ urrian.

cc) *Teologia Eskolastiko eta Eskritura Santuko ikasle Iruñean (1793-1796).*

Logroñon filosofiako hiru urteak bukatu ondoren, Bartolome Iruñera joan zen Teologia Eskolastikoa eta Eskritura Santua ikastera. Eta ikasturtea 1793ko irailaren 30ean, San Jeronimo egunez, hasten zen.

Iruñeko karmeldarren komentua 1587an fundatua izan zen; historian zehar xede ezberdinetako komunitateak hartu zituen bere baitan; hau da, urte askotan komunitate normala izan zen; baina beste garai batzuetan nobizioen etxea izan zen, eta baita ikastetxea ere. Iruñeko komentua Ordenako ikastetxe nagusia izan zen bost garaitan (1682-1809, 1816-1836, 1900-1916, 1930-1948, 1961-1964)... 1682ean¹³⁵ bilakatu zen lehen aldiz teologiako ikastetxe...

Ordenako Konstituzio berriek (1787) eta ikastetxeetako Instrukzioek (1790) ematen dizkigute Frai Bartolomeren ikasle-bizitza ezagutzeko zertzeladak.

Teologiarako Probintziako Definitorioak hiru irakasle hautatzen zituen, baina hautaketa hau egin orduko, lehiaketa literarioak izaten ziren. Bik teologia eskolastikoa azalduko zuten, eta hirugarrenak Eskritura Santua. Hemen Akinoko Tomas santuari jarraitu behar zioten batez ere; alde batetik haren *Summa*, eta bestetik Eskriturari buruzko haren doktrina... Azken honi dagokionean, Trentoko Kontzilioak¹³⁶ irakatsitakoa hartu behar zen aintzat¹³⁷. Baina ondorengo hauek ere gomendatzen dira: Diego S. Antoniorenaren Eskritura Santuko eskuliburua (*Enchiridion Scripturistico Trip.*) eta Melchor Cano-ren¹³⁸ "lugares teológicos".

Instrukzioak zehatzago aipatzen ditu gauza batzuk, bai gaiet dagokienez eta bai ikasteko erari dagokionez ere. Honela, Doktore Santuaren *Summa* lan handitik garrantzitsuena aukera dezatela esaten die irakasleei, eta Instrukzioaren amaieran, ikasteko komenigarrienak diren artikulua ere zehazten dizkie. 665 artikulua guztiz (Teologia Morala ere barne dela)¹³⁹. Eta ikasketetako aurreko egitasmoaren muina guz-

¹³³ KEA, 9/401: *Libro de Registro ordenes.*, 41¹.

¹³⁴ LOKA, A-II-2: *Libro de fundación...*, 141-146.zenbakiak

¹³⁵ Ik. Joaquin M^a MAQUIRRIAIN, *Historia de los conventos de carmelitas descalzos en Pamplona*, Pamplona, 1994, 221-227.

¹³⁶ Ik. Joaquin M^a MAQUIRRIAIN, *Historia de los conventos de carmelitas descalzos en Pamplona*, Pamplona, 1994, 221-227.

¹³⁷ *Constitutiones...*, 130-131.or.

¹³⁸ *Constitutiones...*, 131.or.

¹³⁹ *Instrucción de los colegios...*, 46, 65-70.or.

tiz baztertu gabe, Santuak iritzi argirik ez duen puntuetan edota ulertzeko eran haren eskolakoak bat ez datozenetan, gure Salmanticenseei jarraitzeko esaten da, eta hauen faltan, teologo domingotarrei (“cuando la mente del Santo no esté decidida dentro de la misma letra, y sobre todo cuya inteligencia hay división en la Esqüela Tomística deba seguirse la parte de nuestros Salmanticenses, y quando ésta falte la de los Teólogos Dominicanos”¹⁴⁰). Eta pedagogiazko aholkuak ematerakoan, ikasleen artean gaitasun ezberdinak izaten direnez gero, testuak buruz ikastea ez zaiela zorrozki eskatu behar, dio Instrukzioak: “El trabajo de aprender *ad literam* para algunos será casi imposible, y para otros perjudicial. Un genio vivo y trascendente que desde luego entiende el artículo, lo reduce sustancialmente, lo digiere, y produce a su modo; perdería ciertamente el precioso tiempo de estudiar otros artículos, si indispensablemente ha de fixar materialmente a la letra uno, que al fin vendrá a olvidarse”¹⁴¹.

Teologian ere ia astero izan ohi ziren ageriko jardunaldi akademikoak... Tesietan, ikasleei ez zaiela argudioetan galtzen utzi behar, esango digu, baizik eta jo dezatela zuzenki gaira; erroreak azaltzen eta Eskritura Santuaren, Tradizioaren, Kontzilioen eta Guraso Santuen bidez haiek hausten ikasteko, Kastro, Liberio, Waldense, Wan-Ranst, eta abarren testuetara¹⁴² ohitzea komeni dela ere esango digu Instrukzioak.

Teologiako ikasleek, oporraldian zehar, beren burua trebatuz joan behar zuten tesia defendatzen zuenaren aurkari izateko; eta hori nola egin ere zehazten da: “Al que ha de leer se le sorteará una de las questões ya estudiadas. Para repararla, hacer su lección y tomarla de memoria se le concederá el tiempo de quarenta y ocho horas, y en las veinte y quatro últimas se le exonerará de la asistencia a los actos de Comunidad, como también el día de la lección para que descansa. En el primer año será la lección de solo un cuarto de hora, en el segundo de cuarto y medio, y en el tercero de media hora; pero los Argumentos siempre serán de media hora; y serán asignados en la misma hora de sortear la lección, esto es dos días antes”¹⁴³. Jardunaldi horretara ikastetxeko irakasle eta ikasle guztiak joango ziren. Honela, burulan ugari egin behar izango zituen Bartolomek ere.

Iruñeko ikastetxe honetan, Frai Bartolomek A. Manuel Sakramentu Santuarena izan zuen priore eta A. Tomas San Gregoriorena prioreorde.

Urte hauetan komentu horretakoa zen A. Manuel San Joserena ere, DEAn (Donostiko Elizbarrutiko Artxiboa)¹⁴⁴ gordetzen diren bi eskuizkribu baliotsu utzi zizkiguna.

¹⁴⁰ *Instrucción de los colegios...*, 47.or.

¹⁴¹ *Instrucción de los colegios...*, 48.or. Eta lerro batzuk geroago honako hau dio: “La memoria es sin duda el gran tesoro de la literatura; pero sin comparación es más precioso el acopio de las verdades, que el de las palabras. Éstas pueden suplirse por otras: aquellas no tienen equivalentes. No se exija, pues, escrupulosamente a todos los Estudiantes el artículo o lección *ad literam*”.

¹⁴² *Instrucción de los colegios...*, 49-50.or.

¹⁴³ *Instrucción de los colegios...*, 57.or.

¹⁴⁴ Bi eskuizkribu edo kantu-liburu hauek, koloretan idatziak daudenak, bitxi preziatuak dira: 1) *Cantore vespertinum eta matutinum romanum, hispanicum, et carmelitanum. Dispositum, ordinatum, et ex multis et variis exemplaribus editum...* Pampilonae M.DCC.XCVI, 446 -XLII -106 or. 2) *Cantore missale romanum, hispanicum, et carmelita - num...*, hurrengo urteko data darama, 1797, 414 -XC - 37 - 31 or.

dd) *Moraleko ikasle Burgosen (1796-1799)*.

Teologia Eskolastiko eta Eskritura Santuko hiru urteak Iruñean bukatu ondoren, Bartolome Burgosera joan zen Teologia Morala eta Zuzenbide Kanonikoa ikastera. Ikasturtea 1796ko irailaren 30ean hasten zen, S. Jeronimo egunean.

Moraleko ikastetxe honetako jokaera, ikasketa-erari dagokionez, filosofia eta teologia eskolastikoan egiten zenaren antzekoa zen. Hemen ere hiru irakasle zeuden Probintziako Definitorioak izendatuak, hauek ere lehiaketa antzeko bat egin ondoren hautatuak. Haietatik bik teologia morala irakasten zuten, eta besteak Zuzenbide Kanonikoa. Eta guztia Eliz Gurasoen eta, bereziki, Akinoko Tomas santuaren doktrina jarraituz.

Instrukzioak zertzelada gehiago agertzen ditu. Lehenago buruz ikasteaz esan dena Moraleko¹⁴⁵ irakasleei berriro eta bereziki gogorarazten zaie gai honetan; muina eta gaia menderatzeak egiten dituela handi Moralistak. Bakoitzaren esku-hartzea ongi zehazten da; hau da, bi irakasleei eta ikasleei¹⁴⁶ dagokiena.

¹⁴⁵ *Instrucción de los colegios...*,50.or.: “el aprovechamiento de los Moralistas padecería notabilísimo atraso, si sus Lectores exigiesen la letra de las autoridades de Concilios y Padres que fecundan el Moral”.

¹⁴⁶ *Instrucción de los colegios...*51-52.or.: Interesgarria da erabili den metodoa: “Los dos Lectores de Teología reparten entre sí los tratados. Uno se hace cargo de enseñar las proposiciones condenadas, y otro las difiniciones y divisiones. El primero anuncia a sus Discípulos, que va a tratarse desde el día siguiente de la materia de Sacramentos v.gr. Previene igualmente que cada uno traiga de memoria al pie de la letra quatro proposiciones condenadas las primeras v.gr. de Inocencio XI., y que cada día sucesivamente han de traer otras quatro hasta que a fuerza de días se acaben de aprender las de Inocencio. Después señala otras de otro Pontífice en la misma conformidad, hasta que perfectamente se saben, y retienen todas con la facilidad que vamos a decir. Este Lector abre su hora el primer día, preguntando a uno de los Estudiantes la primera proposición: dícela, manda al que se sigue decir la segunda, al otro la tercera, al otro la quarta, al otro la primera etc. etc. hasta que todos hayan recitado la que le tocó. Al día siguiente comienza un Estudiante la primera, y turnan las ocho: al siguiente se recitan doce, al siguiente diez y seis hasta concluir las; con cuya diaria repetición se fixan de tal suerte en la memoria que apenas se hace una pregunta alusiva a la materia de una proposición condenada, quando ya ella se presenta a la memoria. Estándose aprendiendo las de un Pontífice: no es necesario embarazar diariamente el tiempo en repetir las de otro que ya se saben; pero mientras dure el Curso habrá en la semana un día señalado para hacer recolección de todas ellas, incluyendo las de Miguel de Molinos, cuya impugnación trae N.Fr. Ginés de la Madre de Dios. Recitadas las proposiciones que pertenecen al día, comienza desde luego el Lector a exercitar a los Estudiantes en el tratado que señaló por preguntas y respuestas, explicando entonces lo que ocurra difícil de entender, pidiendo la razón de las respuestas, y escusando que se objeten argumentos, como no sea alguno muy obvio, corto y que aclare la respuesta. Y este mismo método de exercicio seguirá el otro Lector así en las divisiones y difiniciones (que igualmente deberán los Estudiantes decir de memoria) como en el tratado que exercita”.

Egitasmo berrian legegintza modernoaren aurrerapena aitortzen da... Zuzenbide Kanonikoa ikasterakoan, Joan Lorentzo Selvagio-ren¹⁴⁷ "Instituciones Canónicas" jarraitzea gomendatzen da...

Ekintza akademikoak edo tesiak defendatzeko ageriko eztabaidak, lehenago esan dugun eran, obligaziozkoak ziren.

Frai Bartolomeren kasuan hizlaritza edo sermoigintza oso garrantzitsua zen. Lege berriak Moral eta Zuzenbide Kanonikoa ikasten zen hiru urte hauetarako uzten zuen sermoigintzan trebatzeko saioak egitea. Filosofian erretorikako arauak ikasi zituzten, baina orain ariketa praktikoen¹⁴⁸ garaia da. Saio hauek oporraldian egin ohi ziren eta komunitate osoaren aurrean; jantokian nahiz koruan.

Horretarako erabiltzen zen metodoa jakingarri zaigu, geroago, hain ospetsu bihurtuko duten sermoi eta hitzaldietan ispiatzen baita hori guztiori: "A cada uno de los Estudiantes se le dará por suerte una cédula, en la qual estará escrito el asunto del Sermón o Plática, y el día en que ha de pronunciarse. Los asuntos serán varios, ora la explicación y ponderación de algun Misterio, ora el elogio de algun Santo, ora las excelencias y efectos de una virtud, y ora la fealdad o relatos del pecado, o en común, o en particular. Este sorteo se hará un mes antes, para que tengan tiempo de prevenirse; pero no por eso faltarán a los actos de Comunidad, sino el día en que prediquen, y después que descansen, deberán dar razón de la organización de su discurso, nivelado por las reglas del V.P.Maestro Fr. Luis de Granada"¹⁴⁹.

Ikasketa, ikastetxe hauetan, gogorra izan ohi zen; hala ere, otoitza eta liturgi bizitza, Konstituzioek agintzen zuten bezala, ez ziren horregatik alde batera uzten. Honela banatzen ziren eguneko ordu eta zereginak: goizeko otoitza (?? gorespesak) bostetan, eta horren ondoren Orduen Liturgiako lau ordu txikiak erreztatzen ziren; gero meza, igandeetan kantatua; larunbatetan ere meza kantatua izan ohi zen, handikiro, Andre Mariaren ohoretan. Bazkaria hamaikak eta erdietan izan ohi zen. Bezperak arratsaldeko ordu bietan; jai batzuetan, kantatuak. Barneko otoitza, 60 minutukoa, arratsaldeko bostetan (irailaren 30etik Jaunaren Piztuera egunera arte, baina seietatik zazpietara arte gainerakoan edo udako ordutegian); eta horren ondoren, arratseko otoitza edo kompletak erreztatzen ziren, beti Andre Mariaren kantu batekin bukatuz; bi ordu ikasten egin ondoren maitinak erreztatzen ziren, eta azkenez afaria¹⁵⁰ zeterren.

c. **Bartolome ikasle zeneko gertaera sozial eta pertsonal batzuk**

Ikasle zela, Bartolomek familiako hainbat gertaera bizi izan zituen; batzuk pozgarriak eta beste batzuk samingarriak.

¹⁴⁷ *Instrucción de los colegios...*, 53.or.

¹⁴⁸ *Instrucción de los colegios...*, 58.or.

¹⁴⁹ *Instrucción de los colegios...*, 59-60.or.

¹⁵⁰ *Constitutiones...*, 123-127.or.

Logroñon filosofiako ikasle zela hil zitzaizkion amaren aldetiko aitona-amonak: Maria Kruz Arrieta 80 urte zituela (1791-X-12) eta Santiago Garate 86 urterekin (1793-I-24)¹⁵¹.

Familiako beste gertaera garrantzitsu bat, hasieran berarekin zerikusia izan zeze-keena, beraren anaia Jose Madariaga Sestaoko La Islako Karmeldarretan sartzea izan zen. Proba bezala hilabete igaro ondoren, 1792ko ekainaren 16an hartu zuen Josek karmeldar abitua¹⁵², eta hurrengo urteko ekainaren 17an egin zuen profesia.

Frai Bartolome ikasle zeneko gertaera sozio-politiko eta kultural esanguratsuen eta harengan eragina izan zezaketenen artean, ondorengo hauek aipa genitzake: hura gazte zela, Karlos III.ak elizen eta santuen aurrean dantza egitea debekatzen du 1778. urtean; 1784an agintariak zenbait neurri hartuko dituzte *Encyclopedie* delakoaren irakurketa eta zabalkundea eragozteko. 1879ko ekainaren 11n, Bastilla hartu zuten mende Parisen eta horren ondoren matxinadak gertatu ziren... Espainian 1791ko otsailaren 24an, ofizialak ez ziren egunkari guztiak debekatu ziren. Hurrengo hilean, Aita Santuak apaizteriaren erakuntza zibila Frantzia eta apaizei ezarritako konstituzioari zin-egitea gaitzetsi egin zituen. 1793ko martxoaren 7an, Frantziak gerra deklaratu zion Espainiari; eta horren ondorioz gudatalde frantsesak hartu zituen Hondarribia (VII-24) eta Donostia (VII-25). 1798an frantsesek Erroma hartu zuten eta Aita Santua Frantziara deportatu (II-15)...

5. AITA BARTOLOME MARKINAN: PREDIKARI ETA IDAZLE

Frai Bartolomeren bizitzan, euskararen klasiko gisa, ospe handia eman dioten bi jarduera izan dira: predikari-jarduera alde batetik eta idazlearena bestetik. Eta bi jarduera hauek burutu zituen lekua Markina izango da, haren haurtzaroko eta gaztaroko herria. Hemen du sorburua haren euskara klasikoak, hemen izan zen predikari eta idazle, hemen jasan zituen klaustrotik kanporatzea eta kartzela, hemen saiatu zen komentua berreskuratzen, hementxe izango da Karmengo priore...

a. Frai Bartolome Markinan

Bederatzi urteko ikasketak burutu ondoren, Frai Bartolomeri komentu bat ezartzen diote bizilekutzat. Oraingoz, haren lehenengo destinatutzat, guk dakigunez, Markinako komentua dugu, data ziur eta zehatzik ez badakigu ere. Dena dela, Bartolomek, 1815ean, "Apuntaciones" delako kontaezan... azken 13 urteetan, hau

¹⁵¹ BEHA, Etxebarri, (07-01), Ilak, 1784-1865, 9^a, 10^a or.

¹⁵² GKPA, *Hábitos - Prov. Navarra O.C.D.*, 1789-1825 , 10.or.

da, 1802. urteaz gero, predikari-kargua¹⁵³ izan zuela diosku; litekeena da lehenago ere Markinan egotea, baina predikari-kargurik gabe; alabaina azken posibilitate honek ez du aukera handirik.

Litekeena da lehenago Larrean egon izatea. Bada, Bartolome 1820an Sestaoko La Isla Basamortuko priore izendatua denean, nagusi berriaz hau dio hango kartularioak: "Fue electo Prior de este S^o desierto N.R.P. Fr. Bartolome de Santa Teresa, natural de Marquina-Echevarria. Fue Predicador de oficio 12 años en los conventos de Larrea y Markina"¹⁵⁴. Egia esan, urteak ez datoz bat, Markinan soilik 12 urtean izan baitzen predikari-karguarekin (edota 15, frantsesean klaustroz kanpo izan ziren urteak zenbatuz gero)... Baina Bartolomeren prioretzako hiru urteei dagokien orrialde bakarreko kontaketa labur-laburrean, Larrean egon zelako berria ematea adierazgarria da eta kontuan hartzekoa.

Eman ditzagun Markinan egon zen lehen urteetako, hots, 1808ra arteko, datu-rik interesgarrienak.

Lehenengo eta behin, Bartolome Markinako karmengo komunitatera doanean, hau erlijioso ugariz osatzen zela gogoratu behar dugu. Honela, esaterako, 1804ko urrian 24 fraide ziren (18 mezako eta 6 ez-mezako),...eta bi zerbitzari (bata baratzaina eta bestea organista)¹⁵⁵...

Bartolomeren lehenengo nagusia Blas San Mateorena izan zen (1799-1802); honen ondoren, Pedro Santa Teresarena (1802-1805) eta Joan Natibitatekoa (1805-1808) izan ziren priore-karguan...

Komunitateak gizarteko erakundeekin izan zituen gorabeheren artean, interesgarria da 1804. urtean Markinako Sanitate Batzordearen eta Karmeldarren Komunitatearen artean gertaturikoa. Auzi hori komentuko atarian jarri beharreko guardiari buruz zen. Auzi honetan Frai Bartolomek zeregin garrantzitsua izan zuen...

Agirietan ikus daitekeenez, izurritea sortu zen, eta Udalak berehala babes-lanari ekin zion: Hiriko Sanitate Batzordea eratu zen, buru une hartan alkate zen Frantzisko Alzaa zuelarik.. Hiriko sarrera-irteerarako hiru gune garrantzizuenetan guardia eta kontrola jartzea erabaki zuten. 3.a Goiko Portala deritzon Durango-Bilborako bidean. Postu honetako zainzaileak komentuko atarian kokatu ziren 1804ko azaroaren 22ko arratsaldeko ordu bietan. Baina hau Batzordearen alde aurretiko baimenik gabe eta komentuko prioreari ezer esan gabe egin zen. Hortik gatazka sortu zen Batzorde, Komentu eta Diputazioaren artean¹⁵⁶.

Aita Prioreak, Hiriko Sanitate Batzordearen gogortasuna ikusiz, txosten bat bidali zion Probintziako Batzordeari eragozpenak eta oztupoak azalduz. Eta predikaria,

¹⁵³ *Apuntaciones...*, in: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 768.or.

¹⁵⁴ HAKA, A-III-2: *Libro de Becerro del Desierto de la Isla* prelado, nº 34.

¹⁵⁵ GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido entre la Junta subalterna de sanidad de la N. Villa de Marquina y esta Comunidad sobre fixar la guardia en la Portería del Convento": 1804 (1819). (MKA, A-I-55).

¹⁵⁶ GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido..." (MKA, A-I-55).

Frai Bartolome Santa Teresarena, joan zen Bilbora eginbideak egitera, Prioreak, Pedro Santa Teresarenak, azaroaren 26an sinatutako beste txosten bat zeramala¹⁵⁷.

Behin Batzordeak Ondarroatik datorren bidean guardia egiteko agindu zien Prioreari eta Frai Bartolomeri...

Eragozpenak eta oker-ulertzeak zuzenduz zihoazen... Eta 30ean, Batzordeak kontuan izan zituen komentuko gaixoak eta onartu egin zuen Prioreak guardia egiteko berari egokienak iruditzen zitzaizkion ordezeko erlijiosoak izendatzea¹⁵⁸. Bestalde, Julian Argaiz Diputazioko idazkariak, azaroaren 29an agindu zuen guardia komentuko "atarian berriro ezartzeko"¹⁵⁹.

Azkenean gatazka hau abenduaren 2an komunitateak aurkeztu eta Diputazioak 4an onartutako proposamenaren bidez amaitu zen: sortzen zituen eragozpen handiak zirela eta, "atari hartan jarritako zaingoa, lastategiko teilapera aldatzea" kome-ni zela erabakiz; horrela konponduta geratu zen sanitate-guardiaren postua edo kokalekua¹⁶⁰.

Garai honetan bere tarteko eta adiskideei zegozkien barneko gertaerek ukitu zuten Bartolomeren bizitza. Haren bi anaia karmeldarren hariari berriro helduz, Kristobal Pedro Madariaga, anaia gazteena, karmeldar sartu zen Lazkaon 18 urte zituela (1800-XII-16); hala ere, handik hiru urtera, hil zelako albiste samingarria jaso zuen. 1803ko¹⁶¹ maiatzaren 30ean hil zen Logroñon, filosofiako ikasle zela eta 21 urte baizik ez zituela... Beste berri samingarri bat ere jaso zuen: bere amaren heriotzarena; Maria Ines Garate 1806ko¹⁶² apirilaren 23an zendu zen.

Bi data hauen artean, idazle klasiko handi bat hil zen Markinan: Joan Antonio Mogel (1745-1804), Frai Bartolomek Markinako Karmengo predikari-karguan oraindik urte gutxi zeramatzala. Hain zuzen ere, Joan Antonio Mogelen heriotzari dago-kionez, Frai Bartolomeren gutun bat gordetzen da, Kalahorrara idatzia, moral-ikas-keretan, geroago bere adiskide min izango zen Joan Jose Mogelen prestutasuna agertzen zuela; gutun horretan adierazten digu, Joan Josek bere osaba Joan Antonioren eskolak hartzen zituela honen heriotzara arte, 1804ko¹⁶³ maiatzaren 16ra arte; eta harrezkero, Karmengo komentura joan ohi zela Bartolomerengana.

Ez dugu bizkaieraren bi klasiko hauen, Joan Antonio eta Bartolomeren, artean izan zitekeen ezagupide edo adiskidetasunaren berri zehatzik. Joan Jose gazteak, 23 urtekoak, bere osaba hil eta berehala Bartolomerengana jo izana, honengandik moraleko eskolak hartzeko, nahiko adierazgarria da, ordea. Osabak ere aintza-

¹⁵⁷ GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido..." (MKA, A-I-55, 9-10. or.).

¹⁵⁸ GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido..." (MKA, A-I-55, 25. or.).

¹⁵⁹ GKPA, Markina 4.

¹⁶⁰ *Ibid.* (Ik. GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido..."; Bartolomeren 1819ko abenduaren 17ko gutuna).

¹⁶¹ LOKA, *Libro de la fundación... de Logroño...*, 168.zk.

¹⁶² BEHA, Markina-Xemein, (02-01), Ilak, 1796-1816, 246^a).

¹⁶³ KEA, 1/102/1, Bartolomeren 1804-VIII-2 datako gutuna.

kotzat zuela, eta biek elkar ezagutzen eta estimatzen zutela esan nahiko luke horrek.

Bartolome, kanpoan hamar urte baino gehiago egin ondoren, Markinara dato-renean, 1802 inguruan, edo ziur aski bi urte lehenago, garai horretan da (1800-1804), hain zuzen ere, emankorra Joan Antonio Mogelen emaitza literarioa, edo behintzat haren argitalpenak. Hona haren lan batzuen izenburu eta datak: *Confessio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac* (1800). *Cristinaubaren Eracuspena* (1800, argitaratugabe), *Cristaubaren Icasbidea* (1800), *Peru Abarca* (1801-1802 [argit.: 1880]), *Confesino Ona* (1802-1803), *Cristiñau dotriña* (1802), etab.¹⁶⁴ Lan hauetariko batzuk ziur ezagutu zituela Bartolomek, berau izan baitzen haren oinordeko prestua dotrinaren irakaskuntza-lanetan eta euskara bizi eta klasikoaren erabileran. Beren-beregi aipatzen du behin Joan Antonio Mogel dantzei buruzko gaian¹⁶⁵.

Garai honetan Joan Jose Mogelek harreman handia zuen Bartolomerekin, gutun honek agertzen digunez... biak adiskide minak izango ziren eta lan batzuk argitaratzeko nolabaiteko elkarlanean arituko ziren, gero ikusiko dugunez.

b. Predikari

Bartolomeren alderik ospetsuena predikari izatearena da, hitzaldi kateketikoen argitalpenean izan zuen jarduerarekin batera... Beraz, jarduera hau Karmengo Ordenaren barruan eta garai honetan izan ziren euskal predikari bikainen ingurumarian kokatu behar da.

Predikari-lana karmeldarren komentuetan izan ohi zen ofizioetariko bat zen; kargu oso garrantzitsua, izan ere. Komentu bakoitzean, predikari ofizial¹⁶⁶ bat izan ohi zen gutxienez. Konstituzioek kapitulu bat eskaintzen diote predikari-ofizioari; eta Ebanjelioa aldarrikatzeko zereginak, predikariarengan, prestutasuna eta jakinduria eskatzen dituela esanez hasten da; beraz, filosofiako hiru urte egin behar ziren, teologia eskolastikoko beste hiru eta teologia moral eta zuzenbide kanonikoko¹⁶⁷ beste hiru. Igandero arratsaldeko otoitzaldian ordu erdiko hitzaldia egin behar zuen, kristau-doktrina herriari aldarrikatuz. Gainera, beste festaburu batzuetan ere predikatu behar zuen, esaterako, S. Elias, Karmengo Ama, S. Jose, Santa Teresa eta S. Joan Gurutzekoaren¹⁶⁸ jaietan. Baina, Trentoko Kontzilioak agintzen zuenez, ezin zezakeen inork sermoirik egin apezpikuaren baimenik gabe.

¹⁶⁴ Xabier ALTZIBAR, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbao, 1992, 149-160, 195-196.or.

¹⁶⁵ *Euscal-errijetaco olgueeta...*, 93.or.

¹⁶⁶ *Constitutiones...*, 164.or.

¹⁶⁷ *Constitutiones...*, 162.or.

¹⁶⁸ *Constitutiones...*, 164-165.or.

Ordenak (Probintziako Definitorioak) izendatzen zuen, eskuarki hiru urterako, komentu bakoitzeko predikaria. Eta Ordenako dokumentu asko galdu badira ere, Nafarroako San Joakin Probintziako Definitorioetako aktak gordetzen dira, 1807-1824. urteetakoak, eta hauetan ageri da zenbat aldiz izendatua izan zen predikari ofiziorako.

Bartolomek berak diosku 1615. urtean 13 urte zeramatzala Markinako¹⁶⁹ Karmengo predikari karguan, hau da, 1802an hasita gutxienez. Ziur dakigu, 1808ko ekainaren 4ko Probintziako Definitorioan Bartolome izendatu zutela Markinako¹⁷⁰ predikari. Baina data hori baino lehenago ere predikari ofiziala zen, 1807ko martxoaren 23ko predikari eta aitor-entzuleen zerrenda batean ere Bartolome agertzen baita legezko predikari (“predicador de oficio”¹⁷¹). Sei urte geroago ere, 1814ko maiatzaren 5ean, predikari¹⁷² izendaturik ageri zaigu. Baina priore izatea eta predikari izatea bateraezinak zirenez gero, Bartolome Markinako Karmengo priore hautatzerakoan, A. Jose Gurutzekoa¹⁷³ izendatu zuten predikari 1817ko maiatzaren 5ean.

Predikariak liburutegi ona behar zuen, eta legeek bibliotekaz arduratzea eskatzen zuten, beharrezan arabera. Nagusiek, bai erlijiosoen beharretarako eta bai arimen onerako, beharrezko ziren liburuak erosi behar zituzten; batez ere liburu espiritualak eta deboziozkoak; gorde eta gehi bitez egunetik egunera honelakoak eta bestelakoak eta eros bitez argitara daitezen¹⁷⁴ autore serio eta garrantzitsuen liburu berriak...

Egin-eginean ere, fundazioaz gero (1691) 1809ra arte, hau da, 118 urtetan zehar, Markinako komentuko biblioteka aberastuz joan zen. 1809an, frantseste garaian, komentuko artxiboko alderik handiena galdu zen bezalaxe, bibliotekak ere hondamen negargarria jasan zuen. Bartolomek berak¹⁷⁵ ematen digu galera handi hauen berri. Komentuko biblioteka Probintziako aberatsenatarikoa zela esango digu: (“era una de las más enriquecidas de la Provincia”); ezkutuka salbatu ahal izan zituen Frai Bartolomek Eliz Guraso santuen liburuak eta beste batzuk. Halaxe diosku berak: “se pudieron sacar furtivamente los SS. Padres y otros libros”¹⁷⁶.

Beraz, Bartolomek liburutegi ederra izan zuen bere ikasketetarako, 1809ra arte, eta gero ere Eliz Guraso santuen liburu garrantzitsu batzuk gorde ahal izan zituen.

¹⁶⁹ *Apuntaciones...*, (in: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 768.or.).

¹⁷⁰ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio de la Provincia de San Joaquín de Navarra*, 7.or.

¹⁷¹ KEA, 4/111/15.

¹⁷² BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 40.or.

¹⁷³ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 139.or.

¹⁷⁴ *Constitutiones...*, 145-147.or.

¹⁷⁵ MKA, A-I-70: *Apuntaciones...*, 18, 23, 26.or. (in: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 760,762, 764. or.)

¹⁷⁶ MKA, A-I-70: *Apuntaciones...*18.or. (in: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 760.or.).



Markinako Karmeldarren komentua eta eliza

Bere sermoi eta liburuetarako erabili zituen iturriei buruz, gero ikusiko dugunez, Bibliako testuez gainera, Eliz Gurasoak erabiltzen eta aipatzen ditu sari-sari eta bere garaiko maisu handiak ere bai. Eliz Gurasoen artean, San Agustín eta S. Joan Krisostomo agertzen dira gehien, eta hauen ondoren, Jeronimo, Ambrosio, Basilio, etab.; eta maisu handien artean Akinoko Tomas santua...

Liburutan galera handia eragin zuen frantsestearen ondorengo urteetan, biblioteka berriro bere onerantz zihoan Frai Bartolome priore zela, 1819 inguruan erosi eta lortu ziren liburuetan ikus daitekeenez (datu hau hainbat liburutan dator; haietako askotan, Bartolome beraren letraz); baina 1835-1836ko Estatuaren dekretuen ondorioz, Markinako karmeldarrek utzi egin behar izan zuten komentua 1839ko irailean. Kanporatzeak, desamortizazioak..., ia 30 urte iraun zuenak, hots, 1868ko errestituzioa arte iraun zuenak, galera larri-larriak eragin zituen komentuko bibliotekan. Baina errestituzioaren hasieraz gero, Markinako komentua nobizioen etxe eta aldi berean filosofia eta teologiako ikastetxe bihurtu zenean, karmeldarrek era guztitako liburuak erosi beharra izan zuten, bereziki filosofia eta teologiakoak eta sermoietakoak... Gaur egun bibliotekan dauden liburuetatik, batez ere sermoietakoetatik, atera genezake zeintzuk ziren, gutxi gorabehera, Bartolomek eskura izan zituen sermoietako liburuak; haietariko batzuk bera priore zela erosiak dira, beste batzuk, ziur aski, geroago¹⁷⁷ erosiak izan litezke. Esaterako, Frai Bartolomek,

¹⁷⁷ Bartolomek bibliotekan eskura izan zitzakeen liburuaz ohar gaitezen, haren garaiko eta lehenagoko sermoi-liburuak aipatzen ditugu hemen, gaur egun ere Markinako Karmeldarren bibliotekan gordetzen direnak: XVII. mendekoetatik ondorengo autore hauenak daude:

Diego MURILLO, *Discursos predicables...*, Lisboa, 1604; Miguel PÉREZ DE HEREDIA, *Libro de los sermones...*, Salamanca, 1605; Ioannes THAULER, *Sermones...*, Coloniae, 1615; Diego LÓPEZ DANDRADE, *Los tratados...*, Barcelona, 1622; Antonio DAUROULTIO, *Flores exemplorum* Coloniae, 1614-1629; Diego MISENO, *Asuntos predicables...*, Madrid, 1639; Martín de RIAÑO, *Sermones de santos...*, Madrid, 1643; Ignacio de COUTIÑO, *Marial...*, Madrid, 1647; Manuel de NAXERA, *Sermones panegíricos...*, Madrid, 1649; *Excelencias de San Pedro...*, Madrid, 1659; Juan de PALAFOX, *Obras...*, Madrid, 1762; Francisco de LINAZA, *Discursos panegíricos...*, Madrid, 1664; Andrés MENDO, *Assumptos predicables...*, Madrid, 1664; *Quaresma complutense...*, Alcalá, 1674; Juan MARTÍNEZ DE LLANO, *Marial...*, Madrid 1682; Joseph BARCÍA, *Despertador christiano...*, Madrid, 1684; *Compendia...*, Lisboa, 1684; *Quaresma...*, Perpiñan, 1686; Santo TOMÁS DE VILLANUEVA, *Concionum...*, Coloniae, 1687.

XVIII. mendekoetatik hauek aipa genitzake: FRANCISCO DE LA MADRE DE DIOS, *Theatro trinitario...*, Pamplona, 1705; Pablo SEÑERI, *El christiano...*, Zaragoza, 1733; Joseph Antonio YBÁÑEZ DE LA RENTERÍA, *Luz concionatoria...*, Paris, 1712; Antonio de VIEYRA, *Sermones...*, Madrid, 1712; Jacinto de ARANAZ, *Quaresma...*, Pamplona, 1713; Manoel de LIMA, *Ideas sagradas...*, Lisboa, 1720; Manoel de GOUVEA, *Sermones varios...*, Lisboa, 1723; Juan BLÁZQUEZ, *Trompeta evangélica...*, Madrid, 1724; Miguel Bernardino de la FUENTE Y ROXAS, *Pláticas dominicales...*, Madrid, 1729; Joseph de NIEVES AVENDAÑO, *Pláticas doctrinales...*, Valencia, 1729; Juan Bautista de MURCIA, *Clarín evangélico panegírico...*, Valencia, 1732; (Barcelona, 1753); *Sermones...*, Valencia, 1727; (Barcelona, 1743); Thomas MADALENA, *Año evangélico...*, Zaragoza, 1735-1743; Francisco Miguel de ECHEVERZ, *Pláticas dominicales...*,

Icasiquizunac eta *Euscal-errijetaco olgueeta...* bere argitalpenetan, aipatzen dituen autore eta liburuak direla oharitzen gara, eta batzuk oraindik Markinako Karmengo Bibliotekan daude, esaterako: San Tomas Villanueva-koa, San Karlos Borromeo, Aita Santu Benedicto XIV.a, San Frantzisko Saleskoa, L. Bourdaloue, etab.

Nortzuk izan ziren Frai Bartolomeren maisuak? Erretorikan, legeek diotenez, Frai Luis Granadako izan zuen maisu... Baina sermoigintzan, jarduera gisa harturik, ezin dugu ahaztu Euskal Herriko sermolarien ingurumaria, eta bereziki euskarazko sermolariena, horretan nabarmendu baitzen, hain zuzen ere, Bartolome...

Madrid, 1758; *Pláticas doctrinales* ..., Madrid, 1739, 1763-1765; *Quaresma de sermones para las dominicas*..., Madrid, 1755; Agustín de CASTEJÓN, *Sermones varios*..., Madrid 1738; Josephus Ignatius CLAUS, *Spicilegium catechetico-concinatorium* ..., Augustae Vindelicorum, 1740-1741; Pedro de CALATAYUD, *Doctrinas prácticas* ..., Valladolid, 1754; *Misiones y sermones*..., Madrid, 1754; Zacharis LASELVE, *Annus apostolicus*, Venetiis, 1755, 1774; S. CAROLUS BORROMEUS, *Homiliae*..., XVIII.mendekoa; BENEDICTUS XIV, *De festis*..., Patavii, 1758; JOSEPH DE JESÚS, *Historia de la vida, y excelencias de la Sacratísima Virgen María* ..., Madrid 1761; LOURENÇO DE SANTA THERESIA, *Sermones varios*..., Lisboa, 1761-1766; Antonio ANDRÉS, *Sermones panegíricos* Valencia, 1762-1771; *Quaresma*, Valencia, 1777-1778; *Christianus animarum excitator sive sermones doctrinales*..., Augustae Vindelicorum, 1765; Juan CROISSET, *Discursos espirituales*..., Barcelona, 1768; San FRANCISCO DE SALES, *Sermones familiares*, Madrid, 1770; *Sermones*..., (frantzetik Nicolas de Labarre-k itzulia), Madrid, 1773; CHEVASSU, *Misionero parroquial o sermones*..., Madrid, 1773-1785, Madrid, 1819; REGUIS, *La voz del pastor*..., Madrid, 1776; Vicentius HOUDRY, *Bibliotheca concionatoria* ..., Venetiis, 1764; Carlos REY DE NEUVILLE, *Sermones*..., Madrid, 1777-1789; Juan Bautista MASSILLON, *Sermones*..., Madrid, 1778-1787; L. BOURDALOUE, *Los dos adventos* Madrid, 1779-1780; *Quaresma* ..., Madrid, 1777-1778; *Ceuvres*, Paris, 1837; BENITO VICENTE, *Conferencias monásticas*..., Madrid, 1780; Juan Francisco SENAULT, *Sermones panegyricos*..., Madrid, 1784; P. ELISEO, *Sermones*, Madrid, 1786; Joseph MANSI, *Bibliotheca Moralis praedicabilis*..., Venetiis, 1787; César CALINO, *Discursos morales*..., Madrid, 1786-1789; Gerónimo Bautista LANUZA, *Discursos predicables o las homilias* Salamanca, 1790; Joseph Francisco de ISLA, *Sermones morales*, Madrid, 1792; FRANCISCO ARMAÑA, *Sermones* Tarragona, 1796-1803; Diego Josef de CÁDIZ, *Colección de las obras*..., Madrid, 1796-1799; Gerónimo TRENTO, *Quaresma* ..., Madrid, 1797; Theodoro ALMEYDA, *El Pastor evangélico*..., Madrid, 1798-1799.

Eta XIX. mendetik hauek aurkitzen ditugu: Sebastián SÁNCHEZ SOBRINO, *Sermones varios panegíricos y morales* Madrid, 1800-1819; Joseph CLIMENT, *Sermones*, Barcelona, 1801; Pedro DÍAZ DE GUERENU, *Año panegírico*..., Madrid, 1803; José del SALVADOR, *Pláticas*..., Madrid, 1803-1805; E.S. REYBAZ, *Sermones* Salamanca, 1804; Miguel SANTANDER, *Sermones dogmáticos*..., Madrid, 1805; *Doctrinas y sermones para misión*, Madrid, 1808; *Sermones panegíricos*..., Madrid, 1814; Pantaleón GARCÍA, *Sermones panegíricos*..., Madrid, 1805-1807; *Sermones sobre las verdades más importantes de la Religión* Madrid, 1807 (frantzetik Francisco Vazquez-ek itzulia); Joaquín Antonio de EGUILITA, *Sermones*..., Madrid, 1814; *Pláticas doctrinales* ..., Madrid, 1817; Adeodato TURCHI, *Colección de las Homilias más interesantes*..., Madrid, 1823; FELIPE DE LA VIRGEN DEL CARMEN, *El párroco. Pláticas*..., Zaragoza, 1828...

Frai Bartolomek ezagutu zituen sermolari euskaldunak*Markinan:*

Bartolomek, oraindik gazte zela, ezagutu zituen Markinan bertan bi sermolari eta idazle. Ongi dakigu Joan Antonio Mogel ezagutu zuela, hau Xemeingo Andre Mariako erretore zela; eta ez zion entzun soilik egin bere elizan, baita irakurri ere haren liburu kateketikoak, XVIII-XIX. mendeetan hain oihartzun handia zutenak eta lehenago aipatu ditugunak.

Gaztaroan, karmeldar izateko asmotan zela, ezagutu zuen geroago berarekin komunitate berean bizi izango zena: Aita Migel San Frantziskorena (Migel Zuzaeta, 1745-1814). Gorde diren haren sermoi batzuetatik atera daitekeenez, 1776-1792. urteetan Markinako Karmengo predikaria izan zela dirudi. Urte batzuk geroago, 1808 inguruan, Frai Bartolomek hartuko zuen haren lekua predikari-karguan; Frai Migelen sermoiak orain dela gutxi izan dira argitaratuak¹⁷⁸. Frai Bartolomeren ondoren, honen komunitateko bi lagun agertzen dira predikari karguan: 1817an A. Jose Gurutzekoa¹⁷⁹, eta 1820an A. Jose San Joakinena¹⁸⁰... Eta urteak joan urteak etorri, sermolari bikainak izan dira Markinako Karmenen¹⁸¹.

Euskal Herrian:

Baina Euskal Herrian zehar ospe handia zuten hainbat predikari zeuden. Bartolomek ezagutuko zituen hauek, ez sermoiengatik soilik, baita sermoi eta hitzaldi kateketikoekin argitaratutako liburuengatik ere. Eskuarki predikari ospetsuak izan ohi ziren gero, jarduera horren ondorio legez, gai hauei buruzko liburuak argitaratzen zituztenak; baina hemen euskaraz nahiz erdaraz hainbat idazle diren arren, Euskal Herriko esparruan nahiz hemendik kanpora, esaterako, Espainian eta Frantzian entzute handikoak izan ziren predikari gutxi batzuk aipatuko ditugu soilik.

Egia esan, euskaldun sermolari ospetsuen kopurua nahiko ugaria da, eta Frai Bartolome hauetariko bat da. Hala ere hemen haren garaiko batzuk, baina hura baino lehenagokoak gogoratuko ditugu. Euskaraz oso ospetsua zen Agustin Kardaberaz (Hernakikoa, 1703-1770), Jesulaguna; honek sekulako eragina izan zuen espiritualitatean; Euskal Herriko, batez ere Gipuzkoako, herri gehienetan sermoiak egiten ibilia eta santutasun-famagatik toki askotatik deitua. Beste predikari

¹⁷⁸ Ik. Fr. MIGEL SAN FRANTZISKORENA - FR. JOSE JESUS-MARIArena, *Idazlanak*, Markina-Xemein, 1997, 11-225 (Edizioaren Prestatzaileak: Frantzisko Ondarra - Antonio Unzueta), (Karmel-Sorta, 10).

¹⁷⁹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 139.or.

¹⁸⁰ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 240.or.

¹⁸¹ Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza, 1992, 400-411, 490-494.

entzutetsu bat A. Sebastian Mendiburu izan zen; hau ere Jesulaguna, Oiartzuarra (1708-1782). Gure artean, aipaturiko hauen osperik ez bazuen ere, herri-sermolari gisa ezaguna zen Frantzisko Antonio Palacios Oinatarra eta Frantziskotarra (1727-1804)... Zerrenda hau asko luza genezake, baina geroxeago aipatuko ditugu beste batzuk, idazleez mintza gaitzezenean. Entzute handia izan zuen, erdaraz egiten zen lurraldeetan, Pedro Antonio Kalatayud Jesulagun iruinxemeak (1689-1773). Kardaberaz Euskal Herrian zehar zebilen bitartean, hura Espainian zehar zebilen, bata nahiz bestea Jesusen Bihotzaren debozioa zabaltzen. Garai horretan ospe handia lortu zuen Frantzia osoan Clement d'Ascain (Jean Duhalde) (1693-1781) kaputxino azkaindarrak...

Bartolome Markinako Karmengo komentuko predikari ofiziala izan zen 1802-1817 bitartean; Markinako gainerako elizetan, ingurukoetan eta Bizkai osoko elizetan ere asko ibilia zen... Sestaoko La Isla Basamortuko priore hautatua izan zenean, hura Santanderko elizbarrutikoa zen-eta, Frai Bartolomek baimena eskatu zion Kalahorrako apezpikuari, 1820ko martxoaren 23an, Abadinon eta Fikan¹⁸² misioak emateko. Haren hitzaldiak ezagunak ziren eta pulpituetatik irakurri ohi ziren, Kalahorrako apezpikuak¹⁸³ hala egiteko agindu zuenez gero.

Izan ere, *Plauto Bascongado* lanaren argitaratzaileak (Joan Jose Mogel), Frai Bartolomeraren adiskide mina eta hau ongi ezagutzen zuenak, idazkiaren egilea, Frai Bartolome, aurkeztean hitz hauek esango ditu: "Carmelita Descalzo, natural de San Andres de Echevarria del Señorío de Bizcaya. Bien conocido en el país bascongado de la parte de España, no sólo por sus escritos, que ha dado a luz en dialecto bascongado, sino también por haber corrido él mismo muchos de los pueblos de la Bizcaya, Guipucua, y Navarra basca, en los que en desempeño de sus religiosos deberes ha tratado por necesidad con toda clase de personas bascongadas"¹⁸⁴.

¹⁸² KEA, 4/109/8.

¹⁸³ KEA, "Y por lo que mira a las parroquias de las provincias bascongadas, en que se usa su propio idioma para las cuales no había hasta ahora publicados tales cathecismos, en atención a que ya se ha socorrido esta falta, con no pequeño consuelo nuestro, habiéndose publicado en nuestros días dos obras impresas en lengua basquenze, una en Bilbao por el R.P.D.F. Pedro de Astarloa de la Orden de S^a Francisco, y otra en Irun[a] por el R.P.F. Bartolomé de S^a Teresa, Carmelita Descalzo, las cuales contienen pláticas doctrinales y morales, en que se explican con mucha claridad y solidez las quatro partes de la doctrina, acomodadas a el uso de los párrocos, con cuyo auxilio quedan desvanecidas todas las excusas, que han podido alegar éstos para omitir dicha explicación, y por tanto encargamos y ordenamos a todos, que procuren proveerse de alguna de dichas obras, para que quando les falta tiempo o disposición para tomarlas de memoria, las lean por el libro a el pueblo, pero con sentido y con claridad y despacio."...

¹⁸⁴ *Plauto Bascongado*, 4-5.or.

c. **Idazle**

Idazle den aldetik aztertzen dugun kapitulu garrantzitsu honetan, jarduera honetako hainbat zertzelada izan behar ditugu gogoan: 1) Karmeldar izatea: horrek alde batetik erraztu egingo dio bere lana; baina bestetik, idazle-lanerako zeuden barruko arauetara makurtu beharra izango zuen. 2) Elizbarruti batekoa izatea, lan kateketikoa apezpikuen esanera burutu behar zuelarik. 3) Apostolutzari emana izatea, euskara egiten den eta bereziki bizkaieraz egiten den ingurumarian.

1) *Lan kateketikoa euskaraz*

Frai Bartolomek geroko mendeetan ospea lortu badu, hitzaldi kateketikoak idatzi eta argitaratu zituelako izan da. Horrek euskararen eta, bereziki, bizkaieraren klasikoan artean jartzeko adinako izena eman dio. Idazle-eginkizun hau haren predikari karguarekin estu-estu loturik dago, arestian aipatu dugunez. Baina idazle-jarduera hau, XVIII. mendearen hasierako giroan kokatu behar da, aurreko mendetik datorrena bada ere. Horregatik, labur bilduz edo historia gogoratuz, zerk eraman zuen Frai Bartolome idazki kateketikoak argitaratzera aipatuko dugu. Hori Elizaren nahia zen eta Karmeldarra¹⁸⁵ haren esanera eta zerbitzura jarri zen betiere.

Trentoko Kontzilioaren erabaki eta irakatsiek gune garrantzitsu bat markatzen dute kristau-bizitzarako Euskal Herrian eta, beraz, baita euskarazko liburu kateketikoak idazterakoan ere. Kristauen erlijio-hezieren zerikusi zuzena zuten Kontzilioko erabaki ugarien artean, igande eta jaiegunetan sermoiak egiteko agintzen duena dago; elizetako erretoreei ezartzen zitzaien egin behar hori; hau da, baztertu behar diren joera txarrei buruz eta praktikatu¹⁸⁶ behar diren bertutei buruz kristauei predikuak egitea. Kontzilioak berak ireki zuen bidea, Bartolomek¹⁸⁷ hainbat bider aipatzen duen Erromako Kristau-ikasbidea argitaratuz. Eta lehia honetan gailenduko zen Bartolome Karrantza nafar entzutetsua 1558an Anberes-en argitaraturiko "*Comentarios... Sobre el catechismo Christiano*"... lanarekin.

Baiona, Iruñea eta Kalahorrako elizbarrutiek bat egin zuten lehia honetan, baina guretzat pozgarriena, eta bestalde behar-beharrezkoa, argitalpen kateketiko hauek euskarazkoak izatea da. XVI. mendean Euskal Herriko elizbarruti bakoitzean kristau-ikasbide bana argitaratu ziren euskaraz.

¹⁸⁵ Euskarazko argitalpen kateketikoetako bibliografiarako batez ere oso baliagarri gertatu zaigun lan bat aipatu nahi dugu hemen: Jose Maria REMENTERIA IBARLUCEA, *Aita Prai Bartolomeren "Ikasikizunak"*, Madrid, 1971. XL - 158 or. (Instituto Superior de Pastoral, Departamento de Catequética). Argitaratu gabeko tesina.

¹⁸⁶ C. de Trento, s. 5, de reformatione, c. 2. (Ik. Luis RESINES, *La catequesis en España. Historia y textos*, Madrid 1997, 187-189, 412-435.or.; BAC maior 56).

¹⁸⁷ *Cahechismus ex decreto Concilii Tridentini ad Parochos, Pii Quinti Pont. Max. iussu editus*, Roma, 1566. Frai Bartolomek bere *Icasquizuna* liburuetan 38 bider aipatzen du.

Euskarazko lehenengo liburutzat jotzen den Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* obran lehenengo olerkia, guztietarik luzeena, kristau-doktrinari buruzkoa da; “Doctrina Christiana”¹⁸⁸ du izenburua. Iruñeko elizbarrutian S. Elso-ren¹⁸⁹ kristauikasbidea agertzen da 1561ean. Eta Kalahorran, Pedro Manso-ren¹⁹⁰ aginduz, Betolazaren¹⁹¹ *Doctrina Christiana* burutuko zen 1596an. Kalahorrako beste apezpiku batzuek ere, esaterako, Pedro Gonzalez de Castillo-k¹⁹², Pedro Lepe-k¹⁹³ eta abarrek, euskarazko material kateketikoa argitaratzera eragin zuten.

Euskarazko argitalpen kateketiko pastoral hauek XVII. mendean izango zuten jarraipena beste 8 euskal obrarekin¹⁹⁴, eta XVIII. mendean beste¹⁹⁵ 14 argitalpene-

¹⁸⁸ *Linguae Vasconum Primitiae*, (Bordele'n), 1545. Protestantismoaren barruan beste liburu hau aipatzekoa da: Joannes LEIZARRAGA, *A B C, edo Christinoen instructionea, otoiiz eguiteco formarequin*, La Rochela, 1571.

¹⁸⁹ Sancius de ELISO, *Doctrina Christiana y pasto espiritual del alma para los que tiene cargo de alma y para todos estados, en Castellano y Vazcuence* Iruña, 1561.

¹⁹⁰ Apezpiku honek 1600. urtean honako hau eskatzen zuen: “que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impressa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vasquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Estatuímus, y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros Successores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según el uso de las dichas Provincias, para que los Curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia” (Constitución X.), (Madrid, 1700, 126. or.)

¹⁹¹ *Doctrina Christiana en Romance y en Basquence*. Bilbao, 1596.

¹⁹² Apezpiku honek ere agindu hau eman zuen 1698an: “Que quando se explica la Doctrina Christiana [...] se haga explicación en forma, de la Doctrina que han recitado; lo qual si el Cura, o la persona que la explica, tiene suficiente caudal de Sciencia, hará en forma conveniente, para que todos entiendan lo que deben saber. Y en caso de que no se quiera aventurar a hazer razonamiento en la manera insinuada, leerá un Cathecismo, de los muchos que ay escritos” (Madrid, 1700, 118. or.).

¹⁹³ 1620an Pedro Gonzalez de Castillo apezpikuak ere argi adierazten zuen: “Establecemos, ordenamos y mandamos, que los Curas de este nuestro Obispado todos los Domingos, y dias de Fiesta, al tiempo de Ofertorio de la Misa Mayor, quando no huviere sermon, enseñen la Doctrina Christiana a sus feligreses: enseñándoles a persignar, y santiguar, y diziendo con ellos en alta voz las quatro oraciones, y los Artículos de la Fe, y los Mandamientos de la Ley de Dios, y los Mandamientos de la Santa Madre Iglesia, y los siete Sacramentos; y esto no en latin, sino en lengua vulgar materna de cada uno, aunque sea Vascongada, de manera que todos lo entiendan, y lo puedan aprender” (Madrid, 1700, 117. or.).

¹⁹⁴ Estebe MATERRE, *Doctrina Christiana*. Bordelen, 1617; Juan de BERIAIN, *Doctrina Christiana en castellano y bascuence, lenguajes de este obispado de Pamplona* Iruña, 1626; Martin OCHOA DE CAPANAGA, *Exposición breve de la Doctrina Christiana*, Bilbao, 1656; *Viva Jesus, IHS. Y sea para Honra y Gloria suya este Compendio, o suma breve dela Doctrina Christiana...*[Titulua erderaz izan arren, beste guztia euskeraz, bizkaieraz idatzia da]; Silvain POUVREAU, *Guiristinoæen Dotrina*, Paris, 1656; (?), *Catechisme en Suletin*, 1686; Nicolas ZUBIA, *Doctrina Christiana en Bazquence*, Donostia, 1691; Athanase de BELAPEYRE, *Catechima laburra, eta Jesus-Christ Goure ginco jaunaren eçatotcia, Salvatu içateco*, Pau, 1696.

¹⁹⁵ Jacques de MAYTIE, *Catechima Oloroeco Diocesaren cerbutchuçq* Pau, 1706; Jose OCHOA DE ARIN, *Doctrina Christianaren Explicacioa, Villa Franca Guipuzcoaco onetan eus-*

kin. hauen artean, Frai Bartolomerekiko hurbiltasunagatik, hauek aipatuko ditugu: Agustín Kardaberaz¹⁹⁶, Bartolome Olaetxea¹⁹⁷ eta Joan Antonio Ubillos¹⁹⁸.

Baina, gure ustez, interesgarrienak Frai Bartolome apaiz gazte eta ofizioz sermolari zen urteetan argitaratu ziren lan kateketikoak dira, eta bereziki bizkaieraz argitaratutakoak. XIX. mendean Bartolome hil zen arte (1835), 21 lan idatzi ziren. Baina Frai Bartolomeren azken liburua agertu arte argitaratu zirenak azpimarratu nahi genituzke, hau da, 1819ra arte argitaratuak, geroago beste batzuk agertu arren, harentzat ezagunak izan zitezkeenak¹⁹⁹.

Berezko denez, Bartolomerentzat baliotsuenetarikoa "bere" erretore zen Joan Antonio Mogelen liburua izango ziren. Honek sei edo zazpi liburu ditu gai horretaz, baina horietatik hiru argitaratu gabe zeuden²⁰⁰. J.A. Mogelek eta

caraz itceguiten dan moduan, Donostia, 1713; Martin de ARZADUN, *Doctrina Cristianeen esplicacinoa eusquerez*, Gasteiz, 1731; LAVIEUXVILLE [Baiona-ko Obispoaren aginduz], *Guiristinoen doctrina laburra, haur-gazte irachasteco*, Baiona, 1731; LAVIEUXVILLE, *Bayonaco Diocesaco bigarren Catichima, lehenbico Comunionea eguitera preparatzen diren Haur ençat*, Baiona, 1733; F. ELEIZALDE, *Apecendaco doctrina Cristiana uscaraz*, Iruña, 1735; Juan de IRAZUZTA, *Doctrina Christiana*, Iruña, 1742; SUAREZ DE AULAN [Dax-ko Obispoaren aginduz], *Catichima edo fediaen eta guiristino eguien explicacione laburra*, Pau, [c. 1745]; Manuel LARRAMENDI (edo Sebastian MENDIBURU), *Icascbidea. Christauen doctrina azalqueta laburraquin galdeaz, ta eran-zuteaz*, Burgos, 1747 [Astete gipuzkeraz]; Xabier de LARIZ, *Cristau Doctrinaren explicacioa aurentzat ta andientzat. Explicación de la Doctrina cristian para niños y adultos*, Madrid 1757 [Astete euskeraz ta erderaz]; Francisco Antonio AGUIRRE, *Christavaen Doctrina, Aita Astete ta beste jaquinsu batzuetatik bere contuco aurentzat aterea, ta compondu zuena (alde artaco cequitenen usaria) ...*, 1759 [Paris, 1906].

¹⁹⁶ *Christinauaren doctrina*, Donostia, 1760. (Astete gipuzkeraz). 1762an ere agertu zan bizkaieraz *Doctrina Christiana edo Cristinau doctrinea bizcaitarren eusquerez*, Iruña, 1762.

¹⁹⁷ *Doctrina Cristiana. D. Bartolome Olaechea Laucarizco Cureak bere Elesatean Jai Domeca guzietan expliquestan davena leguez*, Gasteiz, 1763. Askotan berrargitaratua.

¹⁹⁸ *Cristau Doctriñ berri-ecarlea, Christauari dagozcan Eguia-sinis-beharren-berria dacarrena*, ... Tolosa, 1785.

¹⁹⁹ Jose Cruz ECHEBERRIA, *Cristau Doctrina Euscaraz*, Tolosa, 1822; P.-T. DAVID d'ASTROS [Baionako apezpikuaren aginduz], *Catichima edo Fedea laburzki*, Baiona, 1824; BAZTANGO VALLECO PARROCO BATEC, *Cristau doctrina Aita Gaspar Astetec erdaraz escriptua eta orai Escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Valleco Parroco batec, Cristau Fielen instruccionearen deseyuz*, Iruña, 1828; LAUDYOKO ABADE JAUNAK, *Aita Gaspar Astete-n Cristinau Doctrinia, d. Gabriel Menendez Luarcac gauza asco erantzita atera ebana. Orain eusquerara biyortuta urteiten dau arguitara cerbait gueiyagoturic ...*, Bilbao, 1828.

²⁰⁰ *Confessio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*, Iruña, 1800; *Cristiñau dotriñea bere explicacino laburragaz itaune ta eranzueracaz aita Asteteren liburuchutic aterea bizcaitar barrucuentzat*, Bilbao, 1802; *Confesino Ona edo cembait gauzac lagundu bear dutseen Confesionari ondo eguiña izateco*, Gasteiz, 1803; *Cristinaubaren jaquinvidea*, Vitoria, 1805; *El Catequista Vascongado - Cristau Eracaste Euscalduna*, (c. 1802, Argitaratu gabe); *Cristinaubaren Eracuspenea edo Doctrina christiana. Ceñian aguertu, ta adierazo ten dirian astiro itaune eranzunacas Christinaubaren ezaguerara eldu ezquero sinistu, escatu, eguin, ta artu biar ditubanac*, (c. 1800, Derioko kodizea, argitaratu gabe); *Cristaubaren Icascbidea* (c. 1800, Arantzazuko kodizea, argitaratu gabe).

Frai Bartolomek idazten duten garai berean, beste lau idazle ditugu beren idazki eta argitalpenengatik aipagarriak direnak: Pedro Antonio Añibarro, argitalpen birekin; hauetatik lehenengoa, *Cristau Dotriña*, 1802koa, ezaguna zitzaien Bartolomeri²⁰¹; Joan Bautista Agirre, *Confesioco*. lanarekin, 1803koa²⁰². Baionan²⁰³ ere beste katexima bat agertu zen 1812an. Azkenez, Pedro Astarloaren²⁰⁴ liburua gelditzen zaigu aipatzeko, Bartolomereren *Icasiquizunac* saileko lehenengo liburukia agertu zen urte berean, 1816an, argitaratua.

Hauxe da euskarazko argitalpen kateketikoen egoera; horretan Bartolomek ere bere ekarpena egingo du euskarazko apostolutzaren arloan, euskal prosa aberatsa, ezpal eta hari ederrekoa erabiliz, bestalde. Gainera Bartolome, gero ikusiko dugunez, aipaturiko gehienak baino originalagoa da bere lanean, haien lanak, kasurik gehienetan, gaztelaniazko edo frantsesezko lanen itzulpenak edo moldaketak baitira; benetako predikari eta hizlariak, ordea, bere-beretik ematen daki eta horrek askoz ere burulan handiagoa eskatzen du...

2) Karmengo Ordenaren barruan.

Bartolomek, karmeldar zenez, zenbait betebehari aurre egin behar zien liburua idatzi eta argitaratzeko. Idazle-agiria behar zuen lehenengo eta behin. Eta liburua argitaratu aurretik Definitorio Jeneralari aurkeztu behar zion. Honek, bi zentsoreen iritzia jakin ondoren, onetsi nahiz gaitzetsi egingo zuen. Bi zentsoreetariko batek teologia eskolastikoan aditua izan behar zuen. "Nihil obstat" edo baiezkoa erdietsi ondoren, egi-leak ez zeukan ezer aldatzerik, Definitorio²⁰⁵ beraren baimenik gabe.

²⁰¹ *Cristau Dotrina, ceñetan eracusten baitire gure fede sanduco gauzaric bearr enak*, Iruña, 1802 (Astete Nafarroako euskarari). Hala ere bigarren liburua ez zen argitaratu askoz ere geroagora arte: *Curutze Santearen Aita Gure ta Ave marien geneco Eracusaldiac. Aita Frai Pedro Antonio Añibarroc ifiniac, eta orain moldera emoten diranac. Cristiñau euscaldunen oneraco* Durango, 1897. Lan hau berak idatzitako beste liburu honetan argitaratutako zati bat da: *Misiolari Euscalduna, Cristau Doctriña ta sermoiac Bizcai-errietan iracas ten*.

²⁰² *Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac, lenvicio Comunioraco prestatu bear diran Aurrentzat, eta bidez Cristau acientzat-ere bai*, Tolosa, 1803. Aguirrek beste bi ere idatzi zituen, baina bera hil ondoren argitaratutakoak: *Jesu cristoc bere Eleizeari utzi ciozcan Zazpi Sacramentuen gañean Eracusaldiac*, Tolosa, 1850; *Jaungoicuaren legueco amar Aguinteen gañean Eracusaldiac*, Tolosa, 1850. Hemen aipa genezake Jose Ignacio GUERRICO-ren liburua ere, 1805ean idatzia, baina geroago argitaratua: *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera*, Tolosa, 1858.

²⁰³ J.J.Loison, Baionako apezpikuaren aginduz argitaratua: *Doctrina Khiristia haurren ins-truccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza or oren usageco catichimati*, Baiona, 1812.

²⁰⁴ *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua. Eurretan aurquituco dabe Arimazain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu biar deuten icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen*, Bilbao, 1816.

²⁰⁵ *Constitutiones...*, 239-240.or.

Gauzak horrela, 1815ean idazle-agiria eskatzen agertzen zaigu Bartolome: “Se leyó otro [memorial] del P.Fr. Bartolomé de Sta. Teresa, que pide el pase a N.Ve. Definitorio General, en el que pide patente de Escritor, o se le renueve la que obtuvo en el año de 1815 despachado en nuestro convento de Nules: este Ve. Definitorio decretó por votos secretos, pase a N.Ve. Definitorio General con la advertencia de que si en el próximo Capítulo Provincial fuese elegido Prior, podría suspendersele si a SS.RR. les pareciere justo”²⁰⁶. Baimena berritu edota berretsi egingo diote ondorengo urteetan, 1816, 1817an²⁰⁷, etab. Alabaina 1817ko maiatzean ez diote agiria berritzen, Frai Bartolome Markinako komentuko Priore hautatu zutelako, kargu hau idazle-karguarekin bateraezina baitzen; dena dela, horrelakoetan, lan hori egoki bete dezakeen ordezeko bat jartzeko ahalmena ematen dio, honako esalditxo hau gehituz: “podrá valerse por lo que respecta a las impresiones de algún religioso inteligente que haga sus veces”²⁰⁸.

Probintziako Definitorioko aktetan, liburuak argitaratzeko eskabideak ageri dira. Honela, Bartolomek erantzuna ematen die zentsoreek egindako oharrei, eta 1816ko maiatzaren 20an, Definitorioak baimena ematen dio liburu inprimatzeko; “sobre los Bayles del País”²⁰⁹ dio hitzez hitz.. *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurizco-gatz-ozpinduba* ... liburuaz, 1816an Iruñean argitaratuaz, dihardu agiri horrek.

Maiatzaren 20ko Probintziako Definitorioan, Bartolomek hitzaldi kateketikoak dituen idazki bat aurkeztu zuela dio: “presenta un escrito de pláticas doctrinales conforme a lo mandado para continuar en el uso de la Patente de escritor, y por votos secretos se le concedió licencia para imprimir la mencionada obrita con las notas y encomiendas puestas por los Revisores”²¹⁰. Alde batetik, *Icasiquizunac* saileko lehen liburukia aurkezten du argitaratzeko baimen eske, baina bestetik, *Euscal-errijetaco olgueta*... liburutxo argitaratzeko baimena ematen diote agiri berean. Baina *Icasiquizunac* saileko lehen liburukia 1807rako idatzia zuen jadanik, gordetzen den²¹¹ eskuizkribu originaletik atera dezakegunez; 1816an argitaratuko zen, ordea, eta Iruñean, ez Bizkaian, 1807ko eskuizkribuaren hasierako eskaintzan Bizkaian argitaratzekoa zela dirudien arren.

Kalahorrako apezpikuen aholkuak eta Euskal Herriaren premiak gogoan hartuz, Bartolomeren asmoa, *Icasiquizunac* saileko lehen liburuki honen sarreran dioenez, apaizei laguntzea zen Jainkoaren Hitza euskaraz aldarrikatzen. Eta bigarren liburuan ere lehenengoan hasitako bide beretik joko du, bestelako zurrumuru batzuk entzun bazituen ere; hau da, hobe zitekeela azalpenak iganderoko

²⁰⁶ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 525.or.

²⁰⁷ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*15, 20.or.

²⁰⁸ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*20.

²⁰⁹ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*4.or.

²¹⁰ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*4.or.

²¹¹ MHA (Madrileko Historiaren Erret Akademia), 9 / 2549.

ebanjelioei lorturik ematea... Baina Bartolomek, eginkizun hori beste batzuei²¹² utziz, lehengo biderei eutsiko dio. Frai Bartolomek, teologian eta Elizaren irakaspenean eta autore ezagunengan oinarrituz, irakasten zuen. Horrela diotso hirugarren liburukiaren aurkezpenean, 1819ko abuztuaren 13ko dataz, Kalahorrako apezpikuari, Atanasio Puyal eta Poveda-ri gaztelaniaz zuzentzen dizkion lehen sei orrialdeetan: “Yo no he hecho, Ilustrísimo Señor, en estas pláticas más que reunir a un orden predicable analítico, claro y breve, en cuanto le es permitido al catequista, lo que es propio, urgente y necesario a la gente de mi País, que casi toda ella vive de trabajo de manos en las montañas, como V.S.I. la ha visto en sus santas visitas, teniendo siempre a la mano el dogma de la sagrada teología y el Catecismo Romano. Me he desviado con todo estudio de las materias abstraídas y opinables. He cargado la mano sobre los abusos, ignorancias o relajaciones más comunes y más difíciles de corregir, después de explicar la verdadera doctrina de cada materia. Sólo resta, Ilustrísimo Señor, para que el cielo bendiga estas sencillas pláticas, las riegue y fecunde la divina gracia, y produzcan copiosos frutos”.

Izan ere, apezpikuak ofizialki aitortzen zituen hitzaldi horien fruituak: 1819ko irailean elizbarrutiaren egoeraz Aita Santuari kontuak ematean, Atanasio Puyal eta Poveda apezpikuak, Bartolomek hitzaurrean edo aurkezpenean dioena bera errepikatzen du: Ebanjelioa predikatzeaz apezpikuak duen ardura adierazten du, eta apezpikuak azaltzen du misiolariak bidali dituela elizbarruti osoan zehar, erlijioso jakintsu, bertutetsu eta apostolu-garrez beteak, eta lortu diren fruituak ugariak izan direla eta konbertsioak ere ugari; herrian fedea biziberritzea ekarri duela horrek guztiorrek²¹³.

1816ko azaroaren 29an Definitorioak Markinako prioreordeari, Frantzisko Jainkoaren Amarenari jakinarazi zion, Predikariak sendotza eta penitentziako sakramentuez hitzaldiak idatzi zituela (“las pláticas de los sacramentos de la Confirmación y Penitencia”²¹⁴...). *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburua da edota haren parte bat. Hilabete batzuk geroago Probintziako Definitorioan zentsoreek sermoiei jarritako oharra irakurtzen dira, eta ohar horiekin sermoi horien egileari igortzea erabakitzen da (“se leen las notas que los PP. Revisores han puesto a los Sermones, y se acuerda remitirlas al autor de dichos sermones”²¹⁵).

²¹² “Batzuc gura leuquee, *Icasiquizun* oneec urte barruco domequetaco evangelijuagaz catiatuta egotia. Ez dinot gaiquijago egongo litzaatequezala. Baina, ene ustez, ez leuquee onera gueijago euquico au gaiti. Erromaco Catecismua cura jaunentzat ta eleisa-guizonentzat cristinauben eracutsi osoraco eguin zan. Elisaco Batzaar ta jaquitun nausijen ondo esatez jantzita, jasota dago, besteric ez eduban. Trentoco Batzaar santubaren aguinduz urten evan arguitara. Baina orregaiti ez dago Catecismo aren eracutsija domeequetaco evangelijuagaz lotuta”... (*Icasiquizunac*, II, (II.or.).

²¹³ J.I. TELLECHEA IDIGORAS, *Diócesis de Calahorra y Santo. Las Relaciones de Visitas “ad limina” (1598-1890)*, Roma, 1991, 125-128. or.

²¹⁴ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*,15.or.

²¹⁵ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*,17.or.

Probintziako Definitorioari zuzenduriko beste idazki batean, 1817ko maiatzaren 10ekoan, Bartolomek azken sei hilabeteetan idatzi dituen hitzaldiak komentu hartako buru egiten duenaren esku utzi dituela dio, Definitorio Jeneralak agintzen duenez, idazle-agiriaren jabedun jarraitzeko; honela dio: “Bartolomé da parte de haver entregado al R.P. Presidente de aquel convento [Markina] las pláticas que ha compuesto en el semestre presente a consecuencia de lo madado por el Difinitorio General para continuar en el uso de la Patente de escritor”²¹⁶.

Hurrengo urtean Frai Bartolomek, Markinako Karmengo prioreak, beste idazki bat agertzen du, 1818ko azaroaren 26an Definitorioak Palentzian eginiko batzarrean; honela dio: “solicita licencia para imprimir un libro de doctrinas catequéticas escrito por su razón en lengua Bascongada, y en V. Difinitorio por votos secretos mandó se diese a censura al R.P. Damián de S.Teresa, Difinidor de quella provincia residente en Lazcano y al P.Fr. Manuel de Jesús, lector de vísperas en Pamplona”²¹⁷. *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburukia dugu hau.

Datu interesgari hau ere badugu: Frai Bartolomek, 63 urte zituela, idazki bat igortzen dio Probintziako Definitorioari, 1831ko azaroaren 14an irakurtzen delarik: “pide patente de escritor, o se le renueve la que obtubo en el años 1815, y se dió pase para el Definitorio General, con la advertencia de que si en el próximo Capítulo Provincial fuese elegido prior, podría suspendersele”²¹⁸. Hurrengo urtean Lazkaoko nobizioen maisu hautatuko dute. Baina guk jakin nahi genukeena hau da: zer dela-eta eskatzen duen idazle-agiria, hori libururen bat argitaratzeko asmotan zebilen seinale argia baita. Baina zer liburu? Galdera honek euskal letrentzat galdua den zerbaiten susmoan jartzen gaitu; bere sermoien batzuen argitalpena izan liteke, edo, beharbada, garai hartan egiten ziren erako dotrinaren baten argitalpena... Dena dela, gaur egun ez da gordetzen berak euskaraz argitaratu zuena baino besterik...

Frai Bartolomeri buruz, eta Markinako Karmengo idazle den aldetik, hitz egitean, ezin dugu ahaztu komentu honetan bazirela beste idazle batzuk ere garai horretan; horrek Karmengo komentua gune intelektual nahiko bizia zela esan nahi du. Lehenxeago aipatu dugu Frai Migel San Frantziskorena, Markinan hainbeste urtetan predikari izana, eta garai honetan frantsestera arte Frai Bartolomeraren lagun izan zena, beraren sermoiak oraintsu argitaratu direlarik. Baina beste bi fraide ere baziren komunitate honetan, natur zientzietako gaietan ikerlanak egiten ari zirenak eta libururen batzuk argitaratzeko ahaleginetan ari zirenak. Honela dio 1817ko azaroaren 29ko Definitorio Jeneraleko aktak: “Se presentó un memorial a que acompañan dos folletos manuscritos del P.Fr. Francisco de la Cruz, conventual del nuestro de Marquina en la Prov. de Navarra, en que se solicita poder dar a la prensa los dichos,

²¹⁶ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*20.or.

²¹⁷ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*81.or.

²¹⁸ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 525.or.

que son un tratado de colmenas u otro, según se titula, de huertas de secano”²¹⁹. Markinako komentukoa zen Joakin Santa Barbararen liburua dugu hau, 1827. urtean gaztelaniaz eta euskaraz argitaratua: *Guía de colmeneros o tratado práctico de abejas*..eta *Erle Gobernatzalleen Guidariya, edo erleac gobernatzeco modua*...²²⁰.

6. KOMENTUAK IXTEA FRANTSESTEAN (1809-1813). BARTOLOME A TXILOTUA

Frai Bartolomeren bizitzan eragin handia izan zuen frantsesteak, bere ondorio kaltegarri guztiekin, bai Bartolome berarentzat eta bai Markinako karmeldarrentzat, erlijioari eta kulturari dagokionez. Karmengo gertaera sozio-politiko eta erlijioso horien erdian Bartolome aurkitzen dugu, haietariko askotan protagonista.

Aski ongi ezagutzen ditugu gertaera hauek, Bartolomek berak bi eskuizkribu gutxienez utzi dizkigulako, lekuko gisa, Markinako Karmenen 1808-1815 bitartean²²¹ gertatutakoei buruz. Kontaketa hori gaztelaniaz idatzirik dago, Ordenako nagusiei zuzendua dagoelako, komentuan sufritu behar izan zituztenak jasota gera zitezen. Eta Bartolomek emandako datuak Markinako udalean aurkitzen direnekin osatzen dira.

a. Egoera politikoa frantsestearen hasieran

Egoera sozio-politiko eta erlijiosoa gaiztotu egin zen. Alde batetik, Ilustrazioak ateak irekitzen zizkien iraultza-mugimenduei; eta bestetik, irautzak piztu eta Napoleonek bere onerako erabilitako frantses abertzalekeriak erlijioarentzat eta

²¹⁹ MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales*...48.or.. Bi egun geroago, abenduaren 1ean, eskuz idatzitako liburuxkak Nafarroako San Joakin Probintziako Probintzialari igortzea erabakitzen da, honek haiek aztertuko dituzten bi erlijioso izenda ditzan (MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales*..., 48.or.). 1818-1919. urteetako aktetan, bai Definitorio Jeneralekoetan eta bai Definitorio Probintzialekoetan, gai hau agertzen da (MBN, esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales*..., 66, 82.or.; BAS, esk.194, *Libro del Definitorio*..., 200-201, 214-215.or.)

²²⁰ Ik. Honetaz: L. AKESOLO, *Una obra vasca ignorada "Erle gobernatzalleen guidariya"*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 20 (1964)367-374; Idem, *Fue un alavés el autor de Erle gobernatzalleen guidariya*, in: *Homenaje a Odon Apraiz*..., Vitoria 1981, 27-32. (Ik. L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornota, 1989, 308-314, 317-322). Ik. Ere J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza, 1992, 415-416.

²²¹ Idazki autografoa komentuko artxiboan gordetzen da (MKA, A-I-70); Burgosen kopia originala dago (BAS), eta honen fotokopia bat Markinako artxiboan (MKA, A-I-69). Idazki hau J.Urkizak argitaratu zuen (*Karmeldarrak Markinan*, 752-768.or.: *Apuntaciones de lo ocurrido*...); hain zuzen ere, Bartolomeren idazki honen aipamenak *Karmeldarrak Markinan* argitalpen honetakoak dira.

Euskal Herriarentzat oso ondorio ezkorrak ekarriko zituen; gerrate urteak, erasoaldiak eta zalaparta sozio-politikoak zetoze iragartzen zuen horrek guztiak.

Napoleonek hainbat garaipen zituen lortuak Europako bere etsaien aurka. Eta Espainiara bere armadak sartzen hasi zen 1807ko urriaren 18an Bidasoa zeharkatzean. Horretarako aitzakia Portugal erasotzea izan zen. Egiaitan, Napoleonen koinatu izanik aurreko hilean beraren Espainiako ordezkoi izendatutako Murat mariskala, armada indartsu baten buru zela Madrilen sartu zen 1808ko martxoaren 23an. Fernando VII.a errege zen ordurako bere aita Karlos IV.ak tronuari uko egin ondoren, eta Madrilen sartu zen 1808ko martxoaren 24an. Otsailean eta martxoan Iruñea, Bartzelona eta Donostia etab. hartzen dituzte.

Markinako parrokian, apirilaren 5ean, Fernandoren erregetzaren hasieragatik eskerrak emateko *Te Deum* bat kantatu zen handikiro; eta 21ean salvea eta meza nagusia kantatu ziren Napoleon enperadorearen eta Fernando²²² erregearen arteko bilerak ondorio onak izan zitzaizkion. Urte bereko uztailaren 25ean Jose Bonaparte Espainiako errege izendatu zuten.

b. Komentuaren aurkako salaketak

Frantsesearen zalaparta sozio-politiko-militarra Bizkairaino iritsi zen 1808an, eta abuztuaren 4an Bizkaiko Gobernuaren Batzorde Nagusia eratu zen hiriburu eta elizate gehienek altxamenduaren ondorioz. Batzorde horrek bizkaitarrek soldadutzarako izenak eman ditzatela erabaki zuen; eta horrela, abuztuaren 8an, 16-40 urte arteko ezkongabe eta seme-alabarik gabeko alargunek osaturiko bi konpainia armatu eratu ziren Markinan. Udalak hil bereko 20an hiribildua janariz horni dadila agindu zuen, frantses tropek herria zeharkatzen bazuten ere badaezpada, eta inork haiei irainik ez egiteko²²³...

Irailaren azken egunetan sartu ziren Bizkaian estatuko tropak, eta urrian ingelesak gehitu zitzaizkien, Black jenerala buruzagi zutela. Frantsesek Durango eta Zornotza hartu zituzten; eta azaroaren 1ean gudua izan zen, frantsesen armada garaile irtenik²²⁴.

Bien bitartean Frai Bartolomek Markinako karmeldar komunitate osoarekin batera, euria eskatzeko aitzakiaz, Andre Mariari, San Joseri eta Santa Teresari bede-

²²² MUA, C.19: *Libro de decretos... que empezó en 6 de Febrero de 1806 y finalizó en 21 de Julio de 1810*, 93¹-94^a.

²²³ MUA, C.19: *Libro de decretos...* (1806-1810), f.112v.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184.or.

²²⁴ MUA, C.19: *Ibd.*, 135¹.or.; MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 2.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754.or.); J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184.or.

ratziurrenak egiten ziharduen: eta hau “eskualdean ugari zebiltzan salatariengandik geure buruak babestearren”, dio Bartolomek²²⁵.

Ez zebilen oker gure klasiko hau; hain zuzen ere, 1808ko abenduaren 30ean, J.J. Avril, gobernadore jeneralak bere ernegu bizia agertzen zion udalari jakin zituzten berriengatik, Markinara bere tropak eramateko mehatxu eginez; eta berehala barruti hartan²²⁶ zeuden armak entregatu eta bidaltzea eskatu zuen. Baina salaketa nagusia Aita Karmeldarren aurka zen: Markinako komentuko fraideek ordena publikoa arriskuan jartzen zutela eta herriarengan zuten eragina probintziako²²⁷ “frantses” gobernuaren aurka erabiltzen zutela.

Udalak, bere konfiantza erakutsiz, Prioreari jakinarazi zion Gobernadorearen gutun-agindu hau. Frai Bartolomek, Markinako fraide guztiak atxilotu eta Bilbora²²⁸ eramateko asmotan zihardutela kontatzen digu. Halako arrisku eta salaketan aurrean, komunitateak Aita Frai Bartolome Santa Teresarena predikaria bidali zuen Bilbora 1809ko urtarrilaren 2an, arazoa konpontzera, eta salaketak nondik zetozen jakitera. Eta horrela salatzailea ezagutu ahal izan zuen eta Gobernadoreak Markinara informatzaile bat bidal dezala lortu. Hain zuzen ere, 1809ko urtarrilaren 11n, Lino de Zaroa jauna, Dantzic-eko mariskalaren kapilaua etorri zen Markinara, bertako “Aita Karmeldar Oinutsen komentuko desakordioak zuzendu eta konpontzera”. Eta udal-batzarrak, udaletxean urtarrilaren 12an bildurik, lau punturi erantzun behar izan zien. Hauek ziren hitzez hitz:

1º. Si dichos religiosos han hablado mal del Emperador Napoleón y de su Hermano José Primero Rey de España.

2º. Si han aconsejado a las jentes de estos pueblos de Vizcaya que no reconozcan a José por Rey y que no les obedezcan en nada.

3º. Si hacen rogatibas públicas para que Napoleón y su hermano José con todos sus Ministros oficiales generales, grandes y todos sus Ejércitos perezcan en la presente guerra.

*4º. Y finalmente si aquellos malos frailes blasfeman y protejen por toda esta Vizcaya especies y noticias, tan ridículas que las jentes de todos estos Países acometerían luego si tuviesen armas contra las tropas de aquellos dos príncipes Hermanos*²²⁹.

²²⁵ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754.or.).

²²⁶ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 155.or.

²²⁷ MUA, C.19: *Ibd.*, 155, 166.or.; MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754.or.).

²²⁸ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3-4.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754.or.).

²²⁹ MUA, C.19: *Ibd.*, 165¹-166¹; Frai Bartolomek udaleko akta honen kopia zeukan, bere azalpenean lau puntuko testua hitzez hitz ematen baitu: MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 6-7.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 755-756.or.); J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184.or.

Udalak ezetza erantzun zion guztiari (ez zuela inolako berririk haiei egozten zitzaienaz), fraideen alde eginez. Era berean Etxebarri, Barinaga, Berriatu eta Ziortzako elizate eta kabildoak ere haien alde irten ziren. Esandakoaz gainera, frantsesen beldurrez, zilarrezko gauza baliotsuak, kalizak, ekisainduak etab. ezkutatzea ere egozten zitzaien.

Frai Bartolomek irri xuri eta maltzurrez eransten du: “oinarri-oinarrian ez zen guztiz gezurrezkoa lau salaketetan adierazia; baina erlijiosoak ez ziren beren jokera abertzalea jende aurrean ez gordetzeko bezain burugabeak; eta frantsesari salatzeari beti zen gaizki ikusia. Egia da bai, komunitate honetako erlijiosoak, ahal izan zuten neurrian, sinestudunen artean erlijio, aberri eta gatibu zegoen benetako erregeaganako atxikimenduari eusten saiatu zirela, bai elkarrizketetan, bai aitortokietan, bai beren buruak arriskuan jarriz hitzaldietan ere”²³⁰. (“Tampoco era falso en la sustancia la acusación de los cuatro capítulos expresados; pero no eran religiosos tan necios que no guardasen circunspección en su conducta patriótica; y el hecho de acusarlos al Francés siempre era feísimo. Es verdad que los religiosos de esta comunidad trabajaron quanto pudieron en mantener en los fieles el amor a la religión, a la patria, y a su verdadero Rey cautivo; ya en las conversaciones, ya en el confesonario, ya también en el púlpito con sobrado riesgo de sus personas”).

Frai Bartolomek iruzurti salataria nola aurkitu zuen kontatzen digu; komunitate bereko fraide bat zen hau²³¹. Auzia argitzeko eginbideen artean Lino Tavoia jaunak komunitatea bildu zuenean, 1809ko urtarrilaren 13an, salatariaren izena agerian jarri zen; A. Tomas Santa Teresarena zen, miaketan egitean frantsesen banderak, dirua, dagak etab. aurkitu zitzaizkiolarik²³².

²³⁰ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 9.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 756-757.or.).

²³¹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 4-5.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 755.or.): “Quiso Dios que el resultado de sus primeras diligencias [de Bartolomé] fuese el hacerse con una carta que el ympostor escribía a Avril, antes que llegase a manos de éste; la que abrió con cautela, y en ella descubrió el autor principal de nuestra persecución. Cerrada la carta y puesta en su curso el dicho P.Predicador, en virtud de sus memoriales y otras diligencias consiguió del Governador Abril, de que viniese a esta villa de Marquina un informante de la conducta de los religiosos”.

²³² Frai Bartolomek A. Tomas honen izaera makurra deskribatzen digu: Castañares-ko semea zen (Errioxa), guztiz maltzurra eta karmeldar probintzia osoan ezaguna. 17 bat urte lehenago, Burgosko komentuko zela, zigortua izan zen portaera txarragatik. Peñaranda-ko komentura bidali zuten gero; han auzipetua, eta Burgo de Osma-n kartzelan sartua izan zen. Komentu honetan Aita Prioreari mehatxu egin zion, eta delituak egin zituen, horregatik zigorra betetzera Larreako (Zornotza) komentura bidali zuten. Larrean ere egundokoak egin zituen: “repitió sus acostumbradas maldades, y para colmo de ellas incendió una noche al convento por dos parajes”; auzipetua izanik, Isla-ko (Sestao) basamortura bidali zuten; bereak eta bost eginez jarraitu zuen, eta azkenez Markinara konfinatu zuten. Pertsona gaiztoa zen, zoro garbia, gure Probintziako zazpi-zortzi komentu zeuden herri eta inguruetan eskan-

c. **Karmeldarren kanporatzea**

Komentua kentzeko gorabeherak oso interesgarriak dira Frai Bartolomek kontatzen dizkigunez. Indarrez sartutako frantziarren bortxa handituz joan zen eta pertsona batzuk izendatu zituzten, esaterako, Lekeitioko Santiago Unzueta eta beste bat, Karmeldarren komunitatea ixtera behartzeko, baina batzuek uko egin zioten halako zeregin desatsegin eta bidegabekoari. Eta egiteko hori beren gain hartu zutenek ere, hartzeko, kreditu eta abarren arloetarako Jose Goxeaskoetxea jaunak, Markinako alkateak, eta biblioteca, sakristia, eliza eta antzeko arloetarako Domingo Uriona jaunak, Bolibarko bikarioak..., fintasunez bete zuten beren lana. Jaun hauek 1809ko irailaren 30ean agertu ziren komentura, eta komunitateari dei eginez, etxea kentzeko agindua jakinarazi zioten. 15 egun barru alde egin beharko zuten erlijio-soek komentutik.

Berehala jaun haiek komunitatearen bitxi eta ondasun guztiak zerrendatzen hasi ziren; egiteko hori oso zorrotz bete zuten, Frai Bartolomek dioskunez: “Ez zen ezer zerrendatu gabe geratu, ezta saskiz estalitako pitxer bateko tinta hondarrik ere...” (“nada se libró de sus manos, sin inventariar, hasta un poco de tinta que encontraron en una jarra esportillada”). “Komunitateak ez zuela laguntza emateko gelarik eta mezarik eman ezinda oheratuak eta ezinduak aurkitzen ziren hiru edo lau erlijiosorekin erruki izateko eskatu zitzaaien”... Jaun haiek “ez zutela ezer uzteko ahalmenik” erantzun zuten...; eta predikariak ironia pitin batez erantzuten du: “jaun mandatariak ahalik eta ondoen portatu ziren Napoleonen alde. Batak oho-rezko xingola merezi zuen eta besteak mitra. Eta baliteke beraien ametsen artean halako zerbaiten bila ibiltzea” (“Los señores comisionados se portaron lo mejor que pudieron en beneficio de Napoleón. El uno merecía una banda de honor, y el otro una mitra. Y puédesse que no eutuvieran muy lejos de sus sueños”²³³).

daluak eman zituena (“causaba grandes escándalos en los pueblos e inmediaciones de siete u ocho conventos nuestros de la Provincia”). Frantsesen aldeko egiten zuen bere burua, eskualde osoan Enperadorearen alde egiteko garra zuelarik... Baina Avril jaunaren idazkari Luis Echevarria eta Berrueta-ren begikoa zen eta..., urtarrilaren 30ean libre utzi eta Basamortura bidali zuten ... Hemen ere fraideen aurka salaketak egin eta egin jarraitu zuen... Gobernariak eta honen idazkariak, hainbeste salaketa-gutunez guztiz asperturik, sekularizatu eta Castañares-ko bere jaioterrira bidaltzea erabaki zuten. Azkenez ihes egin zuen Frantziara, frantsesekin (MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 11-15.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 757-759.or.).

²³³ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 16-17.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 760.or.); Frai Bartolomek honako adierazpenak egin zituen pertsona bi hauek: “La fatalidad fue, que al primero de haver querido serbir a Dios sin ofender al diablo, le arrestó el Francés antes de nuestra salida, aunque por su mística se libró demasiado bien. El 2º, perseguido de los voluntarios por afrancesado, no hallava seguridad en ninguna parte; al fin cayó en sus manos, y bajo un puente medio muerto o medio aogado, y bien baldado le dejaron con la vida, después de saquear la casa y la bolsa con bastantes onzas de oro. Aún viven sus mercedes en nuestra vecindad”.

1809ko urriaren 14an utzi zuten komentua Aita Karmeldarrek, ohi zuten ospetz Santa Teresaren bederatzizurrena eta jaia ospatu ondoren, baina ospakizun horiek bi egunez aurreraturik. Frai Bartolomek komentuko erlijiosoen zerrenda osoa ematen digu: 20 erlijioso koruko eta 6 anaia ez-koruko ziren; beraien artean pertsona aipagarriak ere baziren, predikariak, idazleak, baita gaixo eta zaharrak ere²³⁴...

Honi beste eragozpen bat gehitu behar zaio; hain zuzen ere, 1808ko maiatzean, aurrez Iruñean zen teologiako ikastetxea 17 ikasle eta hiru irakaslekin Markinara aldatua izatea; hori frantses armadak Iruñeko²³⁵ ikastetxea okupatzearen ondorioz izan zen. Eta 1809ko maiatzean Markina teologiako ikastetxe egin zuten²³⁶.

Frai Bartolomek hunkipenez eta tristuraz kontatzen ditu karmeldarrek komentuan igarotako azken minutuak: “Alde egiteko egunean denok bazkaldu genuen jantokian abitu santuz jantzirik eta arratsaldean batzuk besteengandik banatu. Burua galduta eta gaixorik zegoen Aita Frantzisko Jainkoaren Amarena ohetik atera eta fraide batek besoz beso ostatura eraman zuen *Jainkoaren izenean*, inork ez zuelako haren ardura hartzen” (“El día de la partida todos comieron en el refectorio con sus santos hábitos, y a la tarde se separaron los unos de los otros. Al P.Fr. Francisco de la madre de Dios asimulado y encamando sacándole de la cama le llevó del brazo a la posada un religioso a las Ave Marias, porque nadie hacía caso de él”²³⁷).

Ziur aski Bartolomek berak, beste fraide batzuen laguntzaz, lortuko zuen azken orduan gauza batzuk salbatzea. Isilean atera ahal izan zirela Eliz Guraso Santuen liburuak eta beste liburu batzuk, baita eliz jantzi batzuk, Ama Birjinaren zilarrezko koroa²³⁸ etab. Hala diosku berak: “se pudieron sacar furtivamente los SS.Padres y otros libros”.

d. Frai Bartolome Santa Teresa, atxilotua, eta Etxebarrin konfinatua

Frai Bartolomek, bera eta Anaia Fernando Santa Teresarena, burua galduta zuena izan ezik, Markinako komentutik kanporatutako beste inor ez zuela aurrean erabili Gobernu frantsesak, aitortzen digu.

Orduko egoera larria aipatzean, batzuek beren buruak arriskutan jartzen zituztela diosku sermoietan esandakoengatik: “algunos hablaban en el púlpito con

²³⁴ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 1.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 753, 761.or.).

²³⁵ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 15.or.

²³⁶ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 2.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 753.or.).

²³⁷ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 17-18.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 760.or.).

²³⁸ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 18.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 760.or.).

sobrado riesgo de sus personas [...], que la criminalidad de Bilbao formó contra el P.Predicador de este Convento, que fue arrestado y sentenciado por un sermón”²³⁹.

1809ko abenduaren 17an atxilotu zuten Frantzisko Antonio Alzaa jaunaren etxean Bilboko Auzitegi Kriminaleko Ambrosio Egia Irigoien jaunak eta honen eskribaua zen Fernando Etxebarri jaunak; eta Bilbora eramán zuten; Frai Bartolomek, Etxebarrin, Pedro Alzaa jaunaren etxean zituen paperak eskuratu zituzten eta era guztitako lekukoak hartu ere bai. Honela diosku berak: “hasta a las mujerzuelas preguntaban aquellos Jueces de lo que el P. Predicador enseñaba en el confesonario”. Atxilotzearen arrazoia 1809ko urriaren 14an, Santa Teresaren aurreraturiko jaián egindako sermoia izan zen; komentutik alde egin behar izan zuten eguna zen hau.

Bartolome Madariaga jaunaren aurkako auzibidearen ondorioz, honek 1810eko urtarrilaren 5eko epaia bete behar izan zuen; hau da, “aitortzak eta sermoiak egitea debekaturik izan zuen erreinuko baketze orokorra lortu arte”; eta Etxebarrin, bera jaió zen herrian, egon beharko zuen, beti ere jagonda, “inolako okertzerik somatuz gero, Buruari adierazi beharra izanik”. Eta bere eskuizkributik epaiaren azken zatia kopia-tuz, honela dio hitzez hitz: “Y por este su auto con fuerza y efectos de difinitivo, y condenándole en las costas, así los Sres. Presidente y Vocales del Tribunal criminal lo acordaron, mandaron y firmaron a cinco de enero de 1810. Bilbao. Tiburcio García Gallardo; Luis Juan de Elexaga; Juan José de Vildosola; Manuel María de Aurrecochea; Ambrosio de Eguia e Irigoien; ante mí José Ramón de Zamalloa”²⁴⁰.

Epaiaren ondorioz, Etxebarri bere jaioterrian izan zen Bartolome konfinatu-rik²⁴¹. Gainera, dekretu baten agintzen zenez, komentutik kanporatuek beren jaioterri- ra joan behar zuten. Etxebarriko udaleko aktetan, 1810eko apirilaren 8an esaten zenez, “erlijiosoek” aitortzak entzutera eta sermoiak egitera joateko, Herrialdeko Kontseiluaren oniritzia behar zuten²⁴². Horregatik, haren anaia Jose San Migelena Markinara joan zen, eta bera Etxebarrira. Pedro Valentin Alzaa, San Andres Etxebarriko²⁴³ bikarioak jaso zuen bere etxean.

Klaustrotik kanpora izan zen urteotan Etxebarriko parrokián ageri zaigu lanean. Honela, bere diru-saria jasotzen eta parrokiako “sakristautzan” dugu 1811, 1812 eta 1813.²⁴⁴ urteetan.

²³⁹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 9.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 757.or.).

²⁴⁰ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 21.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 762.or.).

²⁴¹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 21.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 762.or.).

²⁴² EUA, Caja 188-2, Libro de Decertos, 1809-1822.

²⁴³ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 19.or. (J. URKIZA, *Karmel - darrak Markinan*, 761.or.).

²⁴⁴ BEHA, Etxebarria, (04-01), *Libro de cuentas de la S^a Fábrica de la Parroquia de la Antig^a de S^a. Andrés de Echevarria, principiado en el año de 1804*, 62, 66, 70, 72.or. “Sakristau” zeregineán ageri da Kalahorrako apezpikutekira 1813-IV-28ko dataz igorritako Frai Bartolomeren dokumentu autografoan (KEA).

Bataioak ematen ere ageri da: 1810eko urtarrilaren 26an Maria Josefa Paula Barinaga haurtxoa bataiatu zuen, eta 1813ko ekainaren 30ean Paulo Muniozguren²⁴⁵.

Bartolomek klaustrotik kanpora dauden Markinako komunitatekoen berri ematen du. Baina haietariko batek kezkatzen du bereziki; Frantzisko Meñika, Etxanoko (Zornotza) semea zen hau, gaixorik egoera tamalgarrian eta ibili ezinik aurkitzen zena. Kanporatuak izan eta biharamunean, hilaren 15ean, udalak ahalik eta erosoen zaldiz eraman zezatela zegokion lekura agintzen du²⁴⁶. Biharamunean, hilaren 16an, gai bera erabili zuten berriro. Udalak, A. Frantziskok bazuela Markinan bizi izaten jarraitzeko eskubiderik, aitortzen du, baina "haren mantenua ostatuan bere gain hartzeko obligaziorik ez zuela²⁴⁷". Egun berean A. Frantziskoren izenean A. Bartolomek haren eskubideen alde egindako idazkia irakurtzen da; eta alkateari zuzenduriko idazkia honela bukatzen da: "En atención a lo referido, Suplica a V.S. el exponente rendidamente se digne proveher, que el dictado Dn. Francisco de Meñica persevere en esta villa interin la superioridad disponga otra cosa de él: en que recibirá especial caridad y merced. Dios guarde a V.S. muchos años como desea su más humilde capellán. Marquina y octubre diez y seis de mil ochocientos y nueve: Bartolomé de Madariaga, ex Carmelita"²⁴⁸. Bartolome Donostiaraino joan zen, Thouvenot jeneralarekin egoteko asmoz, agiri eta gomendioak aldean zera-matzala, Frantziskoren alde hari hitz egiteko; baina Gobernu frantsesarengandik²⁴⁹ ez zuen ezer lortu.

Etxebarrin konfinaturik egon zenean izan zuen lanbide bitxi baten berri jakin ahal izan dugu; lanbide bitxia batez ere han zigorturik zegoela kontuan hartzen badugu: era ez-ofizialez udaleko idazkari-lana egin zuen. Berak idatzitako aktak 1812ko abuztuaren 21ean hasten dira eta urte horren azkenean bukatzen dira²⁵⁰.

Zein zen Markinako egoera sozio-politiko militarra? Frantsesak Bizkaian sarturik zeuden, indar militarrek hiriburuan eta herri nagusietan ezarririk... Baina 1809an frantsesen aurka Bizkaian han eta hemen jarduten zuten boluntarioen taldeak anto-

²⁴⁵ BEHA, Etxebarria, (08-02), Bataioak, 1762-1821, 192^a-192i, 205^a.

²⁴⁶ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 227ⁱ.

²⁴⁷ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 228ⁱ-229^a.

²⁴⁸ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 229ⁱ-230^a.

²⁴⁹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 19.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 761.or.). Baina 1810eko urriaren 18an Frantziskok Etxanora (Zornotza) joan behar izan zuen, eta Markinatik irten orduko, mutiko batek herrian haren bidaiarako lismosna eska zezan baimena eman zuten (MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 21^a-22^a; MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 19-20.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 761.or.).

²⁵⁰ EUA, Caja 188-2, Libro de Decretos, 1809-1822; Frai Bartolomeren 25 orrialde autografo dira. Artxibo berean daude berak idatzitako 1814. urteko beste bi dokumentu ere, Etxebarriko konstituzioko alkateari eginak (EUA, caja 202); sei orrialdeko testua da, pertsona batzuen mesederako idatzia...

latu ziren, baina askotan herriaren kalte handitarako, lapurreta eta arpilaketak zirela eta. Honelako talde armatu batekoak agertu ziren Markinan Pedro Pérez buruzagi zutela 1809ko azaroaren 25ean, baina herritarrek ez zituzten onartu. Herri-guardia bat sortu zen, haiengandik babesteko²⁵¹. Frai Bartolomek ere “boluntario” haiek Karmengo komentuan eta elizan egindako triskantzen berri ematen digu.

1810aren hasieran, Bizkaiko gobernu “frantsesa” eratzekoan, udal-kontseiluak ere eratu ziren, baita Markinan ere. Baina boluntario edo gerrillari taldeak, erasotua edo jazarriak izan arren, ugarituz zihoazen Markina aldean ere. Bere aldeetik, Bizkaiko gobernadore zen Thouvenot jeneralak, Markinako herriari 70.000 errealetik gora exigitu zizkion 1810eko gastuei aurre egiteko²⁵², udalak, hori lortzeko, bere jabetzapeko baso batzuk saldu beharra izanik...

Udalaren ondasunak urritzea zela eta, herri-guardia mantentzea zail bihurtu zen; horregatik komandante nagusiarengana jo zuten herri-guardia hori ezin zutela luzarago mantendu eta harrapaketa-mehatxuak etengabeak zirela adieraziz. Oso gogorra izan zen Jeneralaren erantzuna 1811ko uztailaren hasieran: herri-guardia mantentzen ez bazen, pertsonarik garrantzitsuenak atxilotuko zituela²⁵³. Baina zergatia ez zen izan diru-ondasunen urritzea soilik, baita gerrillari-talde gero eta indartsuagoei zieten beldurra ere, 500 inguru baitziren Markina²⁵⁴ inguruan zebiltzanak.

Udaleko batzarrak, 1811ko abuztuaren 10ean, kuarztelean (Karmengo komentuan) jarrita zegoen tropa frantsesen guarnizioak ez zituztela behar bezala babesten eta, guardia²⁵⁵ kentzea eskatzen dio agintari frantsesari. Eta honen erantzunaren zain egon gabe, abuztuaren 12an guardia hori²⁵⁶ kentzea erabakitzen du udalak.

Azkenez, 1813an amaitu zen frantsesen nagusitasuna. Gasteizko borrokaldian frantsesen gain lortutako garaipenaren berri uztailaren 27ko batzarrean eman zuten Markinan, hori ospe handiz *Te Deum* kantatuz eta jaialdiak eginez ospatzea erabakiz....

Frai Bartolome Etxebarrin zen garai hartan eta han jakin zuen frantsestearen azkena inguru honetan; udaleko aktetan egoera hori azaltzen da eta askapena lortzeak herritarrei eman zien poza, elizan ere handikiro *Te Deum* kantatuz adierazi zena. Honela, 1813ko ekainaren 26ko aktan ondorengo ohar hau dator, izenburu honekin “Fuga de los gachos”:

²⁵¹ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 237ⁱ-238ⁱ; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 188-189.orr

²⁵² MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 241-243, 245.or. etab.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 191.orr

²⁵³ MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 69.or.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 192-194.orr

²⁵⁴ MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 71-73.or.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 197-198.orr

²⁵⁵ MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 74ⁱ-75ⁱ; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 200-201.orr

²⁵⁶ MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 75ⁱ-76^a.

“En este día se celebró en el aiuntamiento con un extraordinario regocijo y repique de las campanas la fuga arrastrada, precipitada y bergonzosa de toda caba-chería y de muchos Españoles que indignamente y bajamente les habían serbido a ellos contra su madre nación.

Después de haver ocupado una coluna gruesa de ellos Marquina, Lequeitio y sus imediaciones por algunos días en cobranzas de sus contribuciones el seis del corriente por ésta a la Provincia, el beinte y uno fueron au[e]ntados en Vitoria dejando las calles y los caminos llenos de oro y de tesoro hasta Pamplona. Antes de ate aier hebacuaron Bilbao, Durango, Mondragón, etc. hasta Tolosa hechos unos atolondrados o fatuos sin poder azertar por el camino donde puede escapar. Y hase dice que los han echao de Tolosa. Este es día alegre en que se a recobra-do nuestra deseada libertad, y para dar gracias a Dios se prepara el Pueblo y el Clero a celebrar funciones solemnes de la iglesia y Te Deum. Y se pone aquí para la noticia de la posteridad bajo la firma de los que supieron e yo el resente secre-tario lo hago en fe de todo”²⁵⁷.

e. **Komentu eta elizaren egoera**

Frai Bartolomek diosku kabildoko jaunak garaiz arduratu zirela, hau da, hon-damendi handia baino lehen, Karmengo elizako erretaulak eta aldare-mahaiak ate-ratzeaz: 12 erretaula eta 11 mahai eraman zituzten Xemeingo Andre Mariaren parro-ki elizara, eta Mesedetako elizara; bi San Andres Etxebarrikora eraman zituzten; eta honako hau eransten du predikariak: “Guztiak elizetan erabiliak izan ziren, herriak debozio handia ziela”... Geroago Karmengo elizarako berreskuratzea lortu zuten. Eta kontalariak dio elizan geratu ziren aldare nagusiko erretaula baliotsua eta San Jose eta San Joan Gurutzekoaren erretaulek, sua, kea eta egurginak izan ziren arren, ez zutela “hondamenik izan eta haien gaineko urreztadurak ere ez zuela ino-lako kalterik izan”.

Dorreko bi kanpaiak Bilbora eraman zituzten frantsesen aginduz; eta geroago, babesetxeko komentukoa zen A. Ignazio San Frantziskorenaren bitartez, eta beste batzuen laguntzaz berreskuratzea lortu zen.

Organoa, gobernu frantsesari eskatu eta Mundakara eraman zuten eta bertako elizan jarri. Baina “azkenez, komunitate honi erosi zioten, berriro bildu zenean, 17.500 dukatetan”.

Artxiboak kalte handia izan zuen, erregearen mandatariaren esku gelditu zen eta...; eta haren zati handi bat betiko galdu zen; eta honela dio Frai Bartolomek: “solo se ha encontrado en un camarote del Bilbao algunos instrumentos por las diligencias de N.R.P. Prior presente”.

Komentua ixtean hala diosku baratzari buruz: “tomaron en arriendo la otra huerta Juan de Pradea Francés, y Pedro de Aguirre Sarasua vezinos de esta Villa,

²⁵⁷ EUA, 188-2: *Libro de Decretos* 1809-1822.

que a cara descubierta han seguido al Yntruso"... Lau urtez izan zuten bidegabekeriak baratzaren jabetza, eta Diputazioko auzitegian haren gain eskubidea zutela alegatu zuten; eta Bartolomek hau eranstean du: "se cree que se vendió la huerta, pero no se ha sabido el comprador"²⁵⁸.

Komentua, gerrate honen amaieran, 1813an, egoera negargarrian zegoen: alde guztietatik zuloz beterik, hormak erorita, eskailera guztiak deseginda... Ezin dugu ahaztu "Gaspar Jauregi artzainaren boluntarioek" ere, gerrillari bidelapurrez osaturiko taldekoek, komentua alderdi batzuk desegin zituztela 1811ko ekainean; eta frantsesek guarnizio bat jarri zutela bertan; eta lehen solairutik, azoteatik eta elizako hainbat aldetatik ateratako adreiluz "kanoi-zuloak, gordelekuak eta tximinia batzuk egin zituzten", komentua egoera negargarri horretara eramaten lagunduz²⁵⁹.

Komentua ixteko aginduaren ondoren, udala kezkatu zegoen elizaren etorkizunaz. Udalak 1809ko irailaren 30ean Karmeldarrei adierazi zien eta 1809ko urriaren 5ean erabaki zuen Karmengo eliza Xemeingo Parrokiaren lagungarri izan zedila, eta elizkizunak ospa zitezela herriaren onerako²⁶⁰.

Komentuko beste gauza batzuk, baina balio txikiagokoak, esaterako, platerak, botilak, aulkiak, etab. salgai jarri ziren; hauen erosleak ere ezagutzen ditugu udaleko akten bitartez²⁶¹.

7. FRAI BARTOLOMEK KARMENGO KOMENTUA BERRESKURATZEN DU (1813)

Frai Bartolomek komentua berreskuratzeko izan zuen ardura goresgarria zen. Esklaustrazio aurretik ere izan zuen ardura hori; gero kanpora egotziak ongi izan zitezten ere saiatu zen, eta adi egon zen frantsestean zehar komentua egoeraz,

²⁵⁸ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 24-27.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 763-764.or.).

²⁵⁹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 23-25, 27-28.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 762-763.or.).

²⁶⁰ MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 225^a; itxitako gainerako komentuetan bezala, "queden en el de esta villa [...] unos seis que han sido Individuos de la misma comunidad surprimida como algunos legos de su confianza que les sirva de coadjutor a efecto de que todos los días y en especial los Domingos y fiestas de guardar a horas savidas digan y celebren sus Misas y pueden surtirse de ellas en la basta feligresía de esta villa y d[ic]ha Anteiglesia de Jemein por quanto la Parroquia tenemos como es publico y notorio a mucha distancia del Pueblo especialmente para de parte del Inbierno y no todos con tiempos tempestuosos puedan pasar a ella a oír Misa entendiendose todo esto con la precisa condicion de que los tales no formen comunidad y traigan abito clerical". Eta hamar egun geroago, komentua utzita biharamunean, hau da, urriaren 15ean, udalak hilaren 5ean erabakitakoa berretsi zuen, eta Karmengo eliza irekitzeko beharrezko eskabidea Gobernariari eta Kalahorrako Apezpikuari egitea deliberatu zuen (MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 227^a-228^a).

²⁶¹ MUA, 50. Erregistroa, 9.zk.).

eta aukerarik txikiena agertu orduko Karmengo komentua berreskuratzeko behar ziren urratsak ematen hasi zen. Gauza harrigarria da honen anaia Josek ere antzeko ardura izan zuela jakitea Lazkaoko komentua berreskuratzeko. Bi anaiek lortu zuten beren helburua.

Fernando VII.ak Napoleonekin hitzarmena sinatu zuenean Valençay-en 1813ko abenduaren 11n, haren bitartez Espainiako erregetza berreskuratzen zuelarik, bake-itxaropena somatzen zen eta egoera sozio-erlijiosoa lehengo onera zetorrela zirudien... Gorteak ez zeuden erregea onartzeko prest aurretik Konstituzioari zin egin ezik. Baina liberalek ez zuten aginte zibil eta militarren oinarri sendorik eta bigarren mailan geratu ziren. Fernando VII.a Kataluniatik sartu zen Espainian 1814ko martxoaren 24an. Erregeak, urte bereko ekainean, aldakuntza batzuk ezarri zituen Espainiako gizartearen Antzinako Gobernamentua berreskuratzeko, komentuei ere kendutako ondarea itzuliz... Euskal Herrian ere sistema forala ezarri zen. Egoera sozio-politiko hori egokia zen Markinako Karmenen berriro komentu-bizitza egiten hasteko.

Bere komentuaz zuen ardura handiak eragin zion Frai Bartolomeri hura berreskuratzeko lehian presa hartzera...; eta gauzak al bait lasterren egitea garrantzi handikoa izan ohi da horrelakoetan.

Frantsesak joan zirenean, Predikaria Etxebarrin bizi zen eta, komentuaz jabetu zen ahalik eta lasterren; "hondakin eta zikinkeriaz beterik, kanoizulo eta antzekoak zituela aurkitu zuen. Eta baratzea Aberriaren traidore agerikoek harrapatu eta hartua. Eliza, berriz, mandategi bihurturik"²⁶².

Komentuko fraideak handik urrun samar zeuden, kanporatu zituztenean han eta hemen asko barreiatu baitziren... Garai honetan, hau da, 1813ko bigarren erdian, lege aldetik zalantza handiak zeuden komentuaz, elizaz eta abarrez. Bestalde, esklaustrazio-egoera hartan, Frai Bartolomek ez zuen nagusien baimenik komentuaren berreskuratze lan zail horri ekiteko.

Baina Castaños Jenerala erregeorde gisa zuzenbide eta gobernu arazoetarako Gipuzkoan sartu zela jakin zuenean, Frai Bartolomek berak kontatzen digun bezala, 1813ko uztailaren 8an txosten bat aurkeztu zion Hernaniko hiribilduan; eta kanporatutako erlijiosoen egoera eta jasandako oinazeak kontatu ondoren, frantses harraparien "falsukeria, gezur eta gaiztakeriari" aurre egiteagatik hainbat erlijioso gaizki erabiliak eta atxilotuak izan zirela jakinaraziz..., "Jaun Txit Goren horri Markinako Karmengo etxekoei, izan ditzaten ondasun apurrak bilduz, komentuan sartu eta Komunitatean bizi izateko baimena eskatzen dizu"²⁶³.

Bi egun barru, uztailaren 10ean, erantzun zuen Castaños Jeneralak honela: "luego que esta provincia disfrute alguna tranquilidad, se atenderá como es justo

²⁶² MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 27-28.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 765.or.).

²⁶³ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 28-29.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 765-766.or.).

esta solicitud, oyendo al Ayuntamiento de Marquina, e informando la Diputación para poner en ejecución los soberanos decretos de las Cortes”²⁶⁴.

Jakina, Bartolome ez zen pozik geratu erantzun honekin, komentuan lehenbailehen sartzeko irrikaz baitzegoen; eta luzapen hori zela-eta beldur zen, Gorbernuak komentuaren egoera negargarria ikusirik, habitaezinekotzat jo zezake-elako, teilatuak konpondu ezik neguan behera etortzeko arrisku handia batzuen. Horregatik Predikari ausartak, 1813ko abuztuaren 17an, komentuan sartzea erabaki zuen, komentuko eta baratzeko giltzak eskuraturik, eta aldi berean alkateari, Martin Lauzirika jaunari, jakinaraziz. Honek, kontalari berak dioenez, “berri on horregatik pozez beterik, ogerleko bat eman zion Aita horri Komentuan emango zen lehenengo mezarako limosnatzat”²⁶⁵.

Biharamunean Frai Bartolome, abitua jantzirik, komentua garbitzen hasi zen: jendeak hala ikusi zuenean, bere kabuz joan zen komentura laguntza ematera, “eta eskualde osotik joan ziren beren aitzur, saski eta erratzekin komentuko garbi-ikuzia egitera, guztia garbi-garbi utzi zuten arte”²⁶⁶. Gero, teilatuak sendo jarri zituzten eta eliza prestatu beren ate eta sarrailekin urriaren 3rako. Egun horretan Frai Bartolomek “lehen meza nagusia eman zuen pozez beterik Kabildo Txit Argia, herria eta eskualdeko jendea bertan zirela eta orduz gero egunero meza eman izan da”²⁶⁷. Predikariak, Frai Bartolomek, ohi zuenez, ahalik eta osperik handienaz egin zuen Santa Teresaren bederatziruena. Bederatziruenean, urriaren 10ean, Aita Domingo San Millanena etorri zen; 14an priorea eta prioreordea etorri ziren. Priorea eta Aita Domingo Larreako komentura joan ziren, Markinako komentuan gela bakarra baitzen une hartan bizi izateko eran egokitua; prioreordeari Dominga Alzaa andrearen etxean eman zioten ostatu...

1814ko urtarilaren 4an jarri zuten Gure Jauna elizan; eta 13an itzuli ziren komentura priorea eta prioreordea; eta honela, apurka-apurka gainerakoak ere etortzen hasi ziren, Frai Bartolomek 14 erligiosorentzat-edo gelak prest baitzeuzkan²⁶⁸.

Gauzak itzultzen ere hasi ziren. Herriko parrokiatik Karmengo Ama Birjina ekarri zen bere egonlekura; handikiro ekarri ere, herriak eta kabildoak elizbiran lagun eginez eta guztia Joan Jose Mogel, Markinako erretorearen hitzaldi batez amaiturik... Gero, hurrenez hurren, gainerako erretaula guztiak itzuli ziren zegozkien

²⁶⁴ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30.or. (J. URKIZA, *Kar - meldarrak Markinan*, 766.or.).

²⁶⁵ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30.or. (J. URKIZA, *Kar - meldarrak Markinan*, 766.or.).

²⁶⁶ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30.or. (J. URKIZA, *Kar - meldarrak Markinan*, 766.or.).

²⁶⁷ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30-31.or. (J. URKIZA, *Kar - meldarrak Markinan*, 766.or.).

²⁶⁸ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30-31.or. (J. URKIZA, *Kar - meldarrak Markinan*, 766.or.).

tokietan jarriz... Kabildo, Mesedetako lekaiame eta gauza sakratuak eta Karmengo beste ondasunak halako maitasunez gorde zituzten pertsoneri nola eskertu ez zekielako zegoen²⁶⁹ komunitatea ...

Frai Bartolomek Markinako Karmengo Amaren komentuarekin eskualde osoak agertu zuen elkartasuna azpimarratzen du; eta bere 1815eko azaroko kontakizunean honako hau dio: "pues con haber quedado la comunidad sin una blanca en el día de su separación, y no haver pedido ni en común, ni en particular más limosnas que las acostumbradas de por siempre, está hoy en día el Convento casi reedificado todo su interior, y con los ajuares, a lo menos precisos para sus oficinas, en que se han invertido muchos miles de reales, sin quedar considerablemente grabada la Comunidad. Y no se puede dudar que todo esto es el fruto de la caridad de los fieles a una con la vigilancia del Prelado"²⁷⁰.

Jakina denez, konponketa-zeregin honetan agintari zibilek emaniko laguntza garrantzitsua izan zen. Gorago aipatu dugu alkateak adore eman ziola komentua berreskuratzeko unean; udalean, esaterako, 1814ko martxoaren 21ean Frai Bartolomereren idazki bat irakurri zenugarria eskatuz; eta udalbatzak Elexabarriko biltegian tropentzako zen egurretik ematea erabaki zuen²⁷¹... Honela jarraitu ahal izan zuten Aita Karmeldarrek komentu barrua eraikitzen...

Arazo handiagoak izan zituzten baratzearekin. 1813eko irailean, etxea konpontzeaz pozez beterik zegoen Frai Bartolomek Jose Domingo Gabiola, errege-eskribau jaunaren ikustaldia izan zuen Jaurerriko Diputazioaren mezu bat ematen ziola. Mezu horretan Diputazioara joan zedila agintzen zitzaion, Joan Pradea eta Pedro Aguirre Sarasua, Markinako herritarrek komentuko baratzearen gainean jarritako demandari erantzuteko. Predikaria berehala joan zen Bilbora eta "Diputazioari demanda-jartzaileen arrazoigabekeria jakinarazi zion"; eta urte bereko irailaren 17an honako ebazpen hau eman zuen Diputazioak: "Prefiérase en la entrega, y arriendo del Convento de Marquina y su huerta al P. Fr. Bartolome de Sta. Teresa, conventual de él, según el encargo hecho anteriormente al Administrador de bienes Nacionales, quien dispondrá el cumplimiento de este decreto, y por el que se separen del arriendo y cuidado de la huerta y Convento de Markina, Pedro de Aguirre Sarasua y Juan de Pradea, y den sus cuentas prontamente al mismo Administrador"²⁷².

Horrela onez burutu zen, Karmengo komentu, eliza eta baratzearen berreskuratzea Predikaria, Frai Bartolome Santa Teresarena, bitarteko zela lortua.

²⁶⁹ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 31-32.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 766-767.or.).

²⁷⁰ MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 32.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 767.or.).

²⁷¹ MUA, C.20: *Libro de decretos...*, 193^a.

²⁷² MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 33.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 767.or.).

8. KARMENGO NAGUSI (1817-1820)

a. Frai Bartolome kargu berrian

Korellan martxoaren 26tik apirilaren 4ra bitartean egin zen Probintziako kapituluaren Frai Bartolome Markinako Karmengo priore hautatua izan zen 1817ko apirilean²⁷³. Horregatik, kargu hau beste kargu batzuekin bateraezina zen eta, esaterako, predikari, idazle eta abarrekin, Probintziako Definitorioak Markinako komentuko predikari ofizial A. Jose Gurutzekoa²⁷⁴ izendatzen du 1817ko maiatzaren 5ean; eta bederatzi egun geroago, 1817ko maiatzaren 14an, Definitorio Jeneralak, "prie-re izatea eta idazle-agiria pertsona berarengan bateraezinak izanik, isileko botoz, idazle-agiri hori aldi baterako baliorik gabe uztea erabakitzen du, tarte horretan argitalpenik egingo balitz, erlijioso burutsuren batez horretarako baliatuz"²⁷⁵.

Izan ere, hiru urteko aldi horretan argitaratu ahal izan zituen *Icasiquizunac* sailleko bigarren (1817) eta hirugarren (1819) liburukiak. Hala ere, bigarrena egin zue-nean oraindik ez zen priore, predikari baizik.

Hiru urte hauetan eta ondorengo hiruretan priore-kargua izango du Frai Bartolomek. Eta komentuko buru bezala izan zuen jardueraz ohar gaitezen, ikus dezagun labor bada ere, Legeek zer eginkizun ezartzen zioten prioreari, zehatz-mehatz betetzen baitzen²⁷⁶.

Prioreak komunitateko pertsonen osasun eta on espiritualaz arduratu behar zuten, baita komunitateko eguneroko bizitza ongi betetzeaz ere. Helburu hauek erdiesteko asteroko batzarrak egin ohi ziren komentuan, eguneroko bizitza aztertzen zelarik. Komentuko administrazioaren gorabeherak, ofizio ezberdinetan nola jokatzen zen, etxeko tokiak nola zeuden, esaterako, sakristia, administrazio-gela etab. Gaixoen ardura berezia, haiei maitasun handia erakustea. Prioreak Probintzialaren laguntzaz hautatzen zuten prioreordea; honek prioreari lagundu ohi zion zeregin batzuetan; esaterako, bizitza liturgikoan, hau da, Orduen Liturgian, mezan... ; korua zuzentzea eta beste ekintza liturgiko batzuk dira komunitate-bizitzan arretarik handiena eskatzen diotenak. Baina beste arazo batzuek ere arduratu behar du, pertsona batzuekin, bereziki Markinako herri-agintariekin, harremanak izateaz.

Lehentxoago komentua berreskuratu eta konpontze-lanetan ikusi dugu Frai Bartolome. Eta priore zela, 1818an, eraikuntza berriak egiten ikusi ahal izango dugu, hau da, lehenago azken gerratean erre zuten lastategi-teilapean eraikin berria egiten. Hala ere eraikin honek, hain zuzen ere, buruhauste handiak ekarriko zizkion, laster ikusiko dugunez.

²⁷³ Kapituluetak aktak galduak dira, baina aurreko azken definitorioa apirilaren 26an izan zen; Probintziako kapitulu ondoren egindako definitorio berriaren lehenengoa, berriz, maiatzaren 4an, ik.: BAS, esk.194, *Libro del Definitorio...*, 136-138.or.

²⁷⁴ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 139.or.

²⁷⁵ MBN, esk. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales.*, 20^o.

²⁷⁶ *Constitutiones...*, 48-49, 84-86, 200-201, 300-305.or., etab.

b. Prioreari dagozkion lanetan

Gauza askorik ez dakigu haren prioretzako ekintzaz 1817-1820 bitarteko hiru urteetan, baina hala ere gauza ofizial batzuek utzi dute lorratza, bai udaleko herri-aktetan eta bai Ordenakoetan ere, batez ere udalarekin izan zituen auzi edo eztabaida batzuei buruzko gaietan.

1) *Arazo ekonomiko batzuk*

Probintziako Definitorioko aktetan, Frai Bartolomek, Markinako Karmengo priore zen aldetik, Nafarroako San Joakin Probintzia Karmeldarrera bidalitako idazki batzuen albisteak datoz.

Lehenengo idazkia 1817ko azaroaren 5eko Definitorioan irakurri zen, eta bertan Markinako komunitateak Teresa Ituartek²⁷⁷ egindako fundazioaren agiria hartu ahal izatea eskatzen du. Hurrengo urteko maiatzaren 4an, Burgosko²⁷⁸ ikastetxerako eman beharreko 400 errealak barkatzea eskatzen du; hurrengo egunean Markinako Priorearen beste idazki bat irakurri zen, hamaika mila erreal²⁷⁹ zentsutzat hartzeko baimena eskatzen duelarik.

1818ko urte honetan azaroaren 4ko Probintziako Definitorioan Frai Bartolomek idazki bat irakurri zen, "A. Baltasar Salbatzailearenaren²⁸⁰ ihes egite eta kausa kriminalagatik sorturiko gastuak ordaintzea eskatzen zuelarik", baina Batzarrak honelako gastuak ezin direla ordaindu, erantzun zion, Probintziako Kapituluak egin arte... Eta biharamuneko bileran Markinako Karmengo Priorearen beste idazki bat irakurri zen, "bi fundazio sortzeko baimena eskatzen zuela": "lehenengo fundazioa Jose Donesteve markinarrarena zen; hila zen ordurako eta bostehun dukat utzi zituen gure komentuan oroipenezko fundazio bat sortzeko"...; eta bigarrena "Pedro Gandiaga eta Teresa Mandiola, Etxebarriko herritarrek sorturikoa da, horretarako laurogei dukat utzirik²⁸¹. Eta egun berean Frai Bartolomek beste txosten bat irakurri zen, Definitorio agurgarriari honako hau jakinaraziz: "komunitatea mantentzen egindako hamabi mila eta bostehun errealeko zorra ordaindu beharrean izanik, Pedro Vadiolaren oroipenezko fundaziotik hartu zuela kopuru hori eta gainera mailegu gisa hartu zituela bi mila berrehun eta berrogei erreal %ko $3\frac{1}{2}$ ²⁸² ordainduz".

²⁷⁷ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 158.or.

²⁷⁸ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 166.or.

²⁷⁹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 167.or.

²⁸⁰ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 180.or.

²⁸¹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 181-182.or.

²⁸² BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 182.or.

2) **Udalarekin eztabaidak**

Karmengo komunitatearen eta Udalaren arteko harremanak onak ziren, eta bien artean elkar-aitzea izan zedin kontu handiz jokatzeko zen. Hala ere, beste pertsona batzuk tarteko zirela, udalak bere iritzia ezarri nahi izaten zuen. Frai Bartolomeren garaian, hain zuzen ere, hiru gaitan-edo eztabaidak izan ziren, alderdi bakoitzak bereari gogor eutsiz. Hala gertatu zen, esaterako, komentuarien zati bat berreraikitzeke auzian, sanitatari zegokion auzian eta erlojua zela eta ez zela sortu zen gorabeheran, udalak komentuan ezarri nahi baitzuen erlojua.

aa. Teilapea

Komentuko oraingo atariaren ondoan, hainbeste urtetan ikastolaren zati bat izan den alde horretan, lastategi bat zegoen; hau da, ataritik hasi eta Bilborako errepidean 15 metrotan zehar. Hala ere Napoleonen gerratean erre eta guztia deseginik geratu zen. Komunitateak, Frai Bartolome buru zela, diruz oso urri egon arren, berriro eraikitzea erabaki zuen, baina era berean, Erregearen gogoa zenez, ekintza sozialetarako erabiltzea.

Beraz, komunitateak elizaren hegaleko teilatuaren alturan eraikuntza egiteko asmoa zuen. Bazela ordua, uste zuten, Frai Bartolomek bere txostenean dioenez, “guraso pobreen seme-alabentzat karitatezko eskola bat egiteko”.

1817ko abenduaren lehenengoetan eman zitzaion hasiera. Jose Malaxetxebarria zen obra horren arduraduna. 1818ko urtarrilaren hasieran sarrerako atea egin zioten. Eta martxoaren erdirantz eraikin hori ia amaiturik zegoen. Eta ustekabean, auzi bat bitarteko zela, obra gelditu beharra izan zen²⁸³.

Udalak 1818ko martxoaren 16an Jabier Ignazio Astarloa Sindiko Prokuradoreari Karmeldarren aurka salaketa jarri eta behar ziren auzibideak aurrera eramateko agindua eman zion, ate eta leihoekin, eraikuntza berri eta guztiz ezberdina egiteagatik, herriko bideari kalte egiten ziolakoan²⁸⁴. Eta Astarloak demanda jarri zuen egun berean, eraikin berrian ate eta leihoak egiteagatik, lanak²⁸⁵ berehala gelditu zitezela eskatu zuen. Egun horretan bertan, arratsaldeko lau terdian, langileei jakinarazten die, eta hauek utzi egiten diote lanari, horretan aurrera ez zutela egingo hitz emanez²⁸⁶. Frai Bartolome harriturik dago, “aurrez arte gaietan aditua zen jendearekin hitz egin eta asmo hura ontzat eman baitzioten”, beste gauza batzuk ere tentuz aztertirik²⁸⁷.

²⁸³ GKPA, G. Markina, “Motivo de la suspensión de la obra del pajar viejo en 1818” (Hainbat dokumentu), Frai Bartolomeren datarik gabeko txostena.

²⁸⁴ GKPA, G. Markina, *Ibd.*

²⁸⁵ GKPA, G. Markina, *Ibd.*

²⁸⁶ GKPA, G. Markina, *Ibd.*

²⁸⁷ GKPA, G. Markina, *Ibd.*, Frai Bartolomeren datarik gabeko txostena.

Frai Bartolomek Udalak hartutako erabakiaren kopia testifikatu bat eskatzen du bere komunitateari aurkeztu eta hartaz hitz egin ahal izateko²⁸⁸.

Apirilaren bian Pedro Bascaran eskribaua komentura dator Aita Bartolomerekin egotera eta aipaturiko autoa hari ematera²⁸⁹.

Komentuko nagusiak txosten bat agertu zuen gertatu zen guztiaz; obra hartan izan zuten asmo ona kontatzen zen txosten hartan, nola egin zen guztia herriaren ona kontuan izanik eta ordurarte egina izan zena²⁹⁰.

Astarloa Sindikoak, apirilaren 4an, geroko haserreak eta auziak saihestearren, ireki duten atea ixteko aholkua ematen dio Frai Bartolomeri, edota bestela hitz eman dezatela ate hori ez dutela erabiliko gurdiak pasatzeko; arazoa barruko uretan zegoen, bide nagusira ez iristea gerta zitekeelako²⁹¹.

Apirilaren 13an Astarloa Sindikoak honela idazten zion Frai Bartolomeri: “si a su R^d le son desagradables las diferencias que se ofrecen en el indicado espediente entre su B^{ble} Comunidad y esta N. Villa como turbatibas de la uena armonía, e inteligencia que hasta ahora se a guardado entre ambas, no la son menos sensibles a la misma Villa”; eta obra horren izaera udalaren interesetarako kaltegarri zela gogorarazten zion²⁹².

Aita Probintzialak 1818ko apirilaren 25eko gutunean iritzi hauek agertzen dizkio Aita Priore Bartolomeri: ongi deritzola “karitateko eskola” eraikitzeari, baina ez gai honetan udalaren aurka demanda egiteari; beraz, haren eskaerei amore eman ez, elkartasun handian iraun dezatela, eta ez dezala eraikuntza horretan aurrera egin, hiribildu horren iritzi guztien onerako den baldintzetan izan ezik (“no le parecía bien que se siga demanda contra la N.Villa en este punto, sino que cediendo a sus instancias, trate de guardar armonía, y de no seguir la fábrica sino del modo, y con las condiciones que a essa Noble [Villa] le parecieren más conformes al bien común”²⁹³).

Egun gutxi geroago, maiatzaren 5ean, Frai Bartolomek alkateari idazten dio, komunitateak obra geldiaraztea erabaki duela jakinaraziz, horrela udalarekin harmonian eta bake onear²⁹⁴ irauteko gogoa berretsiz; obra hura irakaskuntzarako izatekoa zela, 1815eko azaroaren 30eko errege-dekretuaren arabera. Eta Jose Frantzisko Alzaa-k pozez erantzuten dio biharamunean, Karmengo Komunitatearen jarrera ona goraiapatuz²⁹⁵.

Dena dela, Frai Bartolomek ezin du ezkutatu udalaren jokaera horrek eragin dion barruko samina; hala agertzen digu bere eskuz idatzitako testu honetan: “Esta

²⁸⁸ GKPA, G. Markina, Ibd.

²⁸⁹ GKPA, G. Markina, Ibd.

²⁹⁰ GKPA, G. Markina, Ibd., Frai Bartolomeren datarik gabeko txostena.

²⁹¹ GKPA, G. Markina, Ibd.

²⁹² GKPA, G. Markina, Ibd., 1818ko apirilaren 13ko data duen dokumentua.

²⁹³ GKPA, G. Markina, Ibd., A. Jose Jesus Mariarenaren gutuna, 1818-IV-25.

²⁹⁴ GKPA, G. Markina, Ibd., 1818ko apirilaren 5ko data duen dokumentua.

²⁹⁵ GKPA, G. Markina, Ibd., 1818ko apirilaren 6ko data duen dokumentua.

demanda de la villa fue de mala fe desde el principio. Hasta levantar las paredes no hablaron nada. Sabían todos para qué objeto era. Y suspendieron en el tiempo cristiano de la semana santa atropellando con todo”²⁹⁶.

bb. *Osasuna*

Osasun-arazo hau, edo hobeki esan, herriko osasun-zerbitzuan noizbehinka guardia egin beharra 15 urte lehenago ere izan zen, 1804an, orain 1819an, geroago 1833-1834 urteetan, etab.

Sevillan gangeria edo izurria agertu eta zabaltzean, Bizkaiko Osasun Batzorde Nagusiak araudi bat onartu zuen 1819ko urriaren 12an, hobeki bete ahal izateko 27 artikuluko instrukzio bat lagun zuela: besteak beste, harategi eta arrandegietan garbi-ikuzi handia eskatzen du; kontu handia animaliekin etab., baina bereziki udal-letan osasun-batzordeak sortzea gomendatzen du; hauen egitekoa arreta handiz guztia jagotea eta beharrezko diren guardiak antolatzea izango da; guardia hauek kutsaturiko herrialdeetatik etorrira herrian sartu diren eta ezkutaturik nahiz agerian dabiltzan pertsonak salatuko dituzte (“delatar las personas que se han introducido, y se mantienen ocultas, o en público procedentes de payses contagiados”)... Herrialde edo probintzien mugan zeuden herriei eskatzen zitzaaien hau guztia batez ere...

Hortaz, urriaren 29an, Osasun Batzorde Nagusiaren Araudia jarraituz, Markinako Udalak hark dioena aintzat hartu eta betetzea erabaki zuen, eta guardia antolatzekeo zerrenda egitea Alkate jaunaren ardurapean utzi zuen (“el Ayuntamiento de Markina acordó guardar y cumplir su contenido y nombró para formar la lista al Señor Alcalde para arreglar la guardia”²⁹⁷).

Berehala, urriaren 31n, “batetik bestera bidez zebiltzanak arakatzeko guardiak ezarri beharra izan zuten” eta “hori betetzeko herriko pertsonen zerrendak egin beharra”..., eta, Instrukzioak esaten zuenez, erlijiosoak ez ziren guardia egitetik at gelditzen. Beraz, Prioreari esan zitzaion zenbat erlijioso izan zitezkeen zerrenda osatzeko eran zeudenak²⁹⁸.

Egun horretan Frai Bartolomek “laster jarri behar zen osasun-guardiarako egokitzen jotzen zituen Markinako Karmengo erlijiosoen zerrenda ematen dio”; hamabost izen doaz zerrendan, hamaika erlijioso mezakoenak eta gainerako laurak ez-mezakoenak²⁹⁹. Egun berean Frai Bartolomek bere eskuz idatzirik gutun bat zuzentzen dio alkateari, eskaturiko zerrenda nola bidali dion adieraziz eta komunitateko hiru zahar ez dituela sartu, eta zerrendako hamabostetik bat, Baltasar

²⁹⁶ GKPA, G. Markina, *Ibd.*, 1818ko apirilaren 5ko data duen dokumentua (data bereko beste gutunarekin ez du zerikusirik). Gaur egun ere bada eraikin hori, baina harrizko ate itsua du.

²⁹⁷ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 5.or.

²⁹⁸ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 6.or.

²⁹⁹ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 7.or.

Salbatzailearena, kanpora joatekoa zela, eta gainera beste lau zeudela zeregin ezberdinetan han eta hemen eta hurrengo hilabete osoan ez zirela komentura itzuliko; horregatik guardia egitetik aske uzteko eskatzen dio³⁰⁰.

Baina Udalaren eta Karmengo komentuaren artean eztabaida sortu zuena ez zen guardia egiteko zerrenda hori izan, guardia ezartzeko tokia eta egiteko denbora baizik. Azaroaren bian gutun batzuk egin zizkien batak besteari. Batzordeak, azaroaren bian, guardia ezartzeko tokirik egokiena, hain zuzen ere, komentuko ataria zela uste izan zuen, etorbide batzuen erdi-erdian dagoelako, eta “goizaldean hasita gaueko zortziak aldera arte”³⁰¹ egunero zabalik egon zedila agintzen zuten. Aita prioreordeak, Bartolome etxetik kanpo zen eta, hilaren bian bertan agindu horrekin ez zetorrela bat adierazi zion Joan Luis Goxeaskoetxea alkate jaunari, gaueko orduetan komentuetako atarietan kanpoko pertsonak egotea Ordenako Legeek eta Aita Santuen dekretuek debekatzen baitute (“porque las Constituciones de la Orden y decretos Pontificios prohiben qualquiera estancia de gentes extrañas en las porterías de los conventos en las horas nocturnas”³⁰²).

Alkateak ere egun berean erantzun zuen, esanez: premiak hala eraginda, ezinbestekoa zela guardia atarian ezartzea tokirik erosoena zelako, eta Legeek ez zutela horretarako eragozpen izan behar; eta eskaera hau egiten zuen: “pronta contestación si tengo a mi disposición la Portería de ese Combento para todas las horas de día y noche que se me ofresca mandar colocar en ella la Guardia de Sanidad cuya contestación aguardo para en su vista tomar las medidas conducentes al Real serbicio encomendado a mi empleo”³⁰³... Berehala, egun berean, prioreordeak, Aita Ignazio San Frantziskorenak, Frai Bartolomereren ordeaz arazo hau zeramanak, erantzuten dio, alkateak ataria oso-osoan beraien esku, baita gauez ere, uztea eskatzen zuenez gero, berak ez duela horretarako ahalmenik; priorea, Frai Bartolome kanpotik zela eta hurrengo egunean etortzeko zela³⁰⁴. Alkateak, gerorako utzi gabe, gutun bat idazten dio prioreordeari, era gogor samarrean idatzi ere. Prioreordearen pentsaera eta jokaera, oraingo egoeran, beste komentu batzuek inolako eragozpenik gabe ateak ireki dituztenean, “ziztrina eta desegokia” iruditzen zitzaiola, eta nahiko harrigarria, gehiago oraindik, berak hango nagusiarekin, guardia egin zezaiketen erlijiosoei buruz hain begirune handiz jokatuta gero³⁰⁵...

Frai Bartolomek bere eskuz idatzitako 1819ko abenduaren 17ko gutun batean jasotzen da 1804ko une historikoa osasunari eta atarian guardia egiteari dagokionez. Orduan guardia egiteko tokia metro batzuk gorago, hots, lastategira eramanez

³⁰⁰ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 8.or.

³⁰¹ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 13.or.

³⁰² MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 14.or.

³⁰³ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 17.or.

³⁰⁴ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 18.or.

³⁰⁵ MUA, 47. Erregistroa, 10.zk., 20-21.or. (Zirriborroa dela dirudi, ikus dok. originala GKPA, G. Markina, Juan Luis de Goxeacochea-ren dok.: 1918-XI.2.

konpondu zen arazoa. Oraingoan bera etxetik kanpo zela, Lekeition³⁰⁶ sermoiak egiten zela, piztu dela arazoa dio Frai Bartolomek.

cc. *Erlojua*

Hirugarren arazoa, garrantzi txikiagokoa bada ere, erlojuarena da. Osasun-guardiaren auzia amaitzen denean sortzen da, hain zuzen ere. Joan Luis Goxeaskoetxea alkateak, Frai Bartolome kanpoan zela, komunitatearekin pixka bat hitz egin ondoren, gutun batean tratu bat egiteko asmoa agertuz batera, Karmengo komunitateak erloju bat herriaren bistan jar dezala nahi du. (“Quería que la comunidad del Carmen se sirba colocar el reloj en la parte de su convento que cae hacia la calle de la misma Villa para que de esto modo sus vecinos y moradores que no pueden disfrutar del reloj de la Parroquia que se halla a la parte opuesta tenga este beneficio que tornaría en tal caso el Ayuntamiento en consideración para tratar del arriendo de su tejera en los términos más ventajosos a esa Comunidad”³⁰⁷).

Frai Bartolomek, bere zereginak bete eta etxera itzultzean, abenduaren 20an bertan erantzuten dio alkateari. Lazkaon gertatutakoaz erremindurik: “Devo decirle a V sencillamente, que según estoy instruido (pues me hallaba ausente del convento quando se trató este punto) la Comunidad se negó a la pretension de la N. Villa, escarmentada de los muchos insultos y enredos que ha padecido, y está padeciendo nuestro combento de Lazcano, sufriendo un incómodo pleito en el consejo de Castilla, si no se ha faltado estos días, por igual caso. A poco que se adelantase, o atrasase, o parase el reloj, o se le figurase así a qualquier vecino, iba al convento a mandar con imperio a que compusieran el reloj”³⁰⁸. Izan ere, Aita Bizente Santa Mariarena priore zela (1814-1817) ezarri zen erlojua³⁰⁹. Lazkaoko udalak asko estimatu zuen Karmeldarrek urteetan komentuko dorrean erlojua eduki izana³¹⁰. Hala ere, hurrengo hiru urteetan (1817-1820), Lazkaoko Karmeldarren priore A. Jose Jesus Mariarena zela, arazoak sortu ziren erlojua zela eta ez zela³¹¹.

c. **Frai Bartolomeren ospea**

Frai Bartolomek, batez ere sermolari eta idazle zen aldetik, geroago eta itzal handiagoa zuen Markina eta inguruetan; gizon zentzudun, aditu eta prestatzat zuten. Honetaz, adibide gisa, Ondarroan gertaturikoa aipatuko dugu.

1819ko otsailaren 7an bilera batean zeuden udal-aretoan eta korrituak ordaintzeko moduaz ziharduten eta aholku bila Frai Bartolomeregana jotzea erabaki zuten. Honela dator agirian: “Y así estando juntos y congregados por mi fe, se hiço presente por su mrd el señr Alc^e sobre los veinte y quatro mil rrs que se recibieron

³⁰⁶ GKPA, G. Markina, Bartolomeren gutun autografoa, 17-XII-1819.

³⁰⁷ GKPA, G. Markina, 21-XII-1819

³⁰⁸ GKPA, G. Markina, Bartolomeren gutun autografoa, 20-XII-1819

³⁰⁹ GKPA, *Libro de la Fundación... de Lazcano*, 45¹.

el día deiz y ocho de julio del año de mil ochocientos y siete de la testamentaria de Dn Franco. Xavier de Armaolea sobre el modo de realizar el pago y si se deben pagar los intereses de quatro por ciento o no de la dha cantidad, y enterado el Aiuntamiento acordó consultar el punto con el R.P.Prior Fr. Bartolome de Santa Teresa del Combenito de Carmelitas descalzos de la Villa de Marquina; y para el efecto pongan el Señor Vicario como Testamentario de dha testamentaria, esta Villa y algún otro vecino que quiera, los datos que tubieren por combenientes en su razón, y con lo que resolviere dho P.Prior se conforme esta Villa”³¹².

d. **Frai Bartolomeren lehenego pausoak egoera politiko-erlijioso berrian**

Frai Bartolomek bere prioretzako aldia bukatzeko aste batzuk baizik falta ez zirenean, aldakuntza etorri zen egoera sozio-politikoan.

Errege Fernando VII.a, mugimendu iraultzaileari ezin eutsita, 1812ko Konstituzioari zin egin beharrean izan zen; eta 1820ko martxoaren 7an konstituzio-bidea ezarri zuen Espainiarentzat, eta bide horretatik aurrera egitera gonbidatzen zituen guztiak. Honela, sistema liberala behin betiko ezarria izango zela zirudien Espainian, eta bake eta aurrerapenaren garaia ziurtatuz joango zela.

Eliza ere berregituratze garaian zegoen. Baina apaizen artean, gizarte osoan bezala, jarrera ezberdinak zeuden gobernu-era berriaren aurrean; nahiko ertzekoak ziren bi talde zeuden, liberalismoaren aldeko sutsuak batetik eta kontserbadoreak bestetik, baina gehienak itxaroten bezala zeuden gauzek zertara joko... Lehen hilabeteek itxaropen pixka baterako biderik eskaintzen zuten...

Nuntzioak, Aulki Gorenaren izenean, Gobernu berriaren esana egiteko aholkua eman zuen. Honela Espainiako elizarik gehienetan, zalaparta handirik gabe zin egin zioten konstituzioari.

Baina laster sortu zen erlijio-jazarpena. Hau datu estatistikoetan antzematen da: Napoleon indarrez sartu eta izandako komentuen hondamena eta elijiosoen kanporatzeak gertatu ondoren, Elizak, 1814tik aurrera berriro indartzea lortu zuen, gerra aurrean 49.365 erlijioso eta 2.051 komentu izatetik, 1820an 33.546 erlijioso eta 2.012 komentu izatera iritsiz. Eta orain, bi urtean, 1820an gobernuak komentuak kenduz eta erlijiosoen kanporatzeak eraginez, erlijiosoen kopurua 7.244³¹³ izateraino jaitsi zen. 1822an Gorteek kleroaren aurkako zapalkuntza-neurriak hartu zituzten, apirilaren 26an, agindu berriak eman arte apaizgintzak debekatuz...

1820ko martxoan konstituzioa ezarri eta Bizkaiko Jaurerriko buru Antonio Leonardo Letona jauna izendatu ondoren, honek mezu bat igorri zion Markinako

³¹⁰ DEA, Lazkao, 6/2.

³¹¹ GKPA, *Libro de la Fundación... de Lazcano*, 45¹. Ik. ere DEA, Lazkao, 2/8/3.

³¹² BFAA, OUA, 4B, L/009: *Libro de Decretos, 1812-1826*, 168^a.

³¹³ Ik. Manuel REVUERTA GONZALEZ, *La exclaustación (1833-1840)*, Madrid, 1976, 13-24.or.; Idem, *Política religiosa de los liberales..*

udalari, apirilaren 6an irakurria izanik: udalbatza berria hautatzea agintzen zuen. Honela, apirilaren 9an honako hauek hautatu zituzten: alkate Joan Jose Mugartegi; errejidore, Javier Ignacio Astarloa eta Jose Antonio Mentxaka; prokuradore-sindiko, Jose Frantzisko Alzaa³¹⁴.

1812ko martxoaren 18ko dekretua betearaziz, konstituziozko alkateak, 1820ko apirilaren 11n, komentuko Prioreari Konstituzioari zin egiteko agindu zion. A. Bartolomek egun berean erantzun zion esanez, erregeordetzaren dekretu hura Erlijosoen Ordenak ez zeudela emana izanik, erlijiosoen elkarteei errege-zedulak jakinarazteko ohiko bidetik ez zetorrela eta..., Nagusien aginduen zain egongo zirela hura betetzeko...³¹⁵

Hiribilduan 1820ko apirilaren 14an egin zen Konstituzioaren ageriko aldarrikapena udaletxearen aurrean (kontzejupean) herritar ugari bildu zelarik. Egintza honi bere ospea emateko, herri-jaialdiak eta kanpai-errepikaldiak egin ziren, baita Karmenen ere.

16an, alkateak iragarri zuenez, Konstituzioari zin egitea egin zen parrokiako meza nagusian. Erretorea, Ignazio Luis Astarloa, udalbatzarekin joan zen parrokiara. Pedro Isidro Urionabarrenetxea jaunak eman zuen meza, eskaintza unean Gobernuaren dekretuak irakuriz; eta azkenez, gurutzearen eta ebanjelio santuen aurrean Udalak eta herriak Konstituzioari zin egin zioten, ondoren *Te Deum*³¹⁶ kantatuz.

9. "ISLA"KO BASAMORTUKO NAGUSI (SESTAO, 1820-1824)

Markinan priore zela hiru urteen azkenerantz hasi zen egoera sozio-politiko aldakorra, bere betetasunean bizi izango du orain Isla-ko Basamortua (Sestao) deitzen dioten komentuan, karmeldar komunitatearen buru izan zen lau urteetan. Eta, hain zuzen ere, egoera latz honetan erakutsiko du Frai Bartolomek bere nortasuna. Harreman biziak eta zabalak izango ditu garai hartako pertsonekin, bai herri-agintariekin eta bai eliz agintariekin... Santanderko apezpikua ere miretsirik utziko du aholku emateko eta gobernurako zuen gaitasunarekin. Gobernu zibilak basamortuko komunitatea desegiteko asmotan ziharduen, eta asmo hori baztertera utziarazteko lan zaila izango du Bartolomek bere gain.

³¹⁴ MUA, C.21: *Libro de decretos... 1815-1825*, 114^a-117; J. J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 215.or.

³¹⁵ MUA, C.21: *Libro de decretos... 1815-1825*, 118^a-119^a.

³¹⁶ MUA, C.21: *Libro de decretos... 1815-1825*, 119^a-121^a.; J. J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 217-218.or.

a. **Isla-ko Basamortu historikoko prior e**

1820ko apirilean egin zen kapitulu probintzianean Frai Bartolome Isla-ko Basamortuko³¹⁷ priore izendatua izan zen; eta haren anaia Jose San Migelena Lazkaoko komentuko priore. Markinako komentutik Isla-ko basamortura alde handi samarra zegoen, Basamortuko biziera nahiko berezia baitzen, gainerako komentuekin alderatuz.

Basamortuak esanahi berezia du Karmeldarren Ordenan, eta oso komentu gutxi dira izendapen hori dutenak; hauetan bakardade handian bizi ohi da erlijioso eta otoiitari guztiz emana. Karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintzia edo Karmeldarren Euskal Probintzia eraiki zenean (1706), horretarako eginbide batzuk egin arren, ez zen horrelako fundaziorik egiterik Sestaon 1719an egin zen arte³¹⁸... 1695eko martxoaren 13an erosi zen lursaila Isla-ko Basamortu hau egiteko³¹⁹. 1718ko abenduaren 9an lortu zen Burgosko artzapezpikuaren baimena fundazioa egiteko³²⁰, eta egun batzuk geroago, 1719ko urtarrilaren 7an, Karmeldar Oinutsen Jeneralarena³²¹... Bizkaiko Jaurreriko baimena, Enkarterrietakoa, Errepubliketakoa eta Burgosko Artzapezpikuarena Gaztelako³²² Kontseiluan aurkeztu ziren, fundazioa egiteko Erregearen baimena lortuz, 1719ko apirilaren 19ko dataz³²³.

Karmeldar plano-egile ospetsua zen Anaia Markos Santa Teresarenak, Markinako Karmenen planoak eta Korellako Karmeldarren elizarenak egin zituen berberak, erai-ki zuen komentua 1722tik 1724ra bitartean, 1719an jadanik eginak zituen planoekin, 1719ko azaroaren 22an onartu baitzuen A. Sebastian Sortzez Garbiarena Ordenako Jeneralak³²⁴. Hainbat gorabeheraren artean ere laztasun handiko bizitza egiten ahalegintzen ziren. Baina Markinan gertatu zenez, frantsesean komentua utzi beharra izan zuten, 1813ko urrian bertara itzuliz. Geroago ere garai latzak etorriko ziren eta haien erdian ikusiko dugu Frai Bartolomek nola jokatzeko duen.

Frai Bartolomerengaraikide benetakoa zen Wilhelm Humbolt hizkuntzalari ospetsua Basamortu honetatik igaro zen 1801ean, eta komentuaren kokapenaz eta hark eragin zizkion bihotz-zirrarak utzi zizkigun idatzirik: "El Desierto está unido por este lado con la tierra firme y viniendo de Bilbao ha de hacerse uno pasar a él a través del río. Hacia este lado es también la vista hermosísima"... "También este sitio, en efecto celeste, se ha consagrado, como otros muchos en la Europa meridional, al recogimiento devoto, y 16 frailes Carmelitas hacen aquí una vida solitaria"³²⁵... Urte

³¹⁷ HAKA, A-III-2: *Libro de Becero del Desierto de la Isla*^{88a} (Prelado 34).

³¹⁸ Ik. JUAN JOSE DE LA INMACULADA, *El Desierto de la Provincia de San Joaquín*, Vitoria, 1956, 73-204. or.

³¹⁹ HAKA, A-II-1.

³²⁰ HAKA, A-II-3.

³²¹ HAKA, A-II-5.

³²² HAKA, A-II-8.

³²³ HAKA, A-II-6.

³²⁴ HAKA, H-U-1.

³²⁵ Wilhelm HUMBOLT *Los Vascos*. Donostia, ²1999, 173-174.or. (Roger).

batzuk lehenago, alegigile ospetsu eta Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen sortzaileetarikoa batek, Felix Maria Samaniegok, Basamortu honetan kartzelaturik garai bat igaro zuenak, 24 erlijioso zirela diosku XVIII. mendearen amaieran.

Basamortuko eguneroko bizitza bereziki arautua dago *Legeetan*, honela, adibidez, 1787ko *Legeek* 11. kapitulua, nahiko luzea, eskaintzen diote bigarren partean³²⁶. “Basamortuko Konstituzio” bereziei buruz hitz egiten digu; hango erlijiosoek otoitzari emanda, bizimodu latzean sakrifizioak eginez eta bizitza espiritualari emanda bizi izateko helburua dutela, elizaren onerako, ofizio liturgikoa zeregin guztien ardatz dutela. Kapitulu honek zortzi atal ditu: 1. Etengabeko otoitza. 2. Etengabeko isiltasuna. 3. Basamortuko klausuraren hautsiezina. 4. Jan-edanean eta gainerako gauzetan neurritasuna. 5. Basamorturako gai diren erlijiosoak. 6. Basamortuko kanpoaldean bizi direnen eginbeharrak. 7. Basamortu diren monasterioen araubidea. 8. Bertako legeen hautsiezina.

Haren eliz kokapenari dagokionez, herriz Bizkaian egon arren, garai hartan elizaz Santanderko elizbarrutikoa zela gogoratu behar dugu; horregatik ikusiko dugu Frai Bartolome hiri horretako apezpikuarekin harreman oso onetan.

b. Egoera sozio-politikoa

Konstituzio garaiko une honetaz zerbait aipatu dugu Markinan Frai Bartolomeren prioretza amaitzeaz zegoenean.


Hain interesgarria zen garai honek³²⁷ berotasun aparta sortzen du ideien eta ohituen arteko borrokagatik (liberalak zeritzen talde politikoeekin, kontserbadoreekin, erregezaleekin, eta abarrekin), jasan beharreko zuzengabekeriengatik, askatasunaren izenean ezarri zen diktadura totalitarioagatik.

Garai hau eta ondorengoa segurtasunik ezaz eta ezegongonkortasunaz markaturik daude; iraultzako eta iraultza aurreko garaien ezaugarriak dira horiek...

Hiru urte hauetan Gobernuak bere eduki ideologikoari ematen dio garrantzi berezia: honek, Konstituzioa zein beharrezko eta zein ona den sartu nahi zion gizarteari buruan, eta bere aldekoen bidez herria eskolatzeari ekin zion. Areago oraindik: Gobernuak, elizetako erretoreak, igande eta jaiegunetako homiliari Konstituzioaren artikulua bat eranstera behartzeko erabakia hartu zuen. Honela, eliz-

³²⁶ *Constitutiones*, 165-190.

³²⁷ Ik. Manuel REVUELTA GONZALEZ, *Política religiosa de los liberales en el siglo XIX. Trienio constitucional*, Madrid, 1973, XV-527.or.; Idem, *La Iglesia española ante la crisis del Antiguo Régimen (1808-1833)*, in: *Historia de la Iglesia de España*, 5.t., Madrid, 1979, 3-113.or. (BAC, maior 20); Jose Manuel CUENCA TORIBIO, *La Iglesia española en el trienio constitucional (1820-1823). Notas para su estudios*, Hispania Sacra 18 (1965) 333-362; Idem, *Sociedad y clero en el siglo XIX* Córdoba, 1980, 416 or.; Vicente CÁRCEL ORTÍ, *El archivo del nuncio en España, Giacomo Giustiniani (1817-1827)*, Escritos del Vedat 6 (1976) 265-300; Pío de MONTOYA, *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-1823)*, Donostia, 1971, 479.or.



Isla-ko San Jose komentuaren marrazkia

gizonei burua makurraraztea lortuko zen. Gainera, honetan indar handiko bitartekoak erabili ohi zituen: prentsa eta elkarte abertzaleak. Prentsak oso-osoa eman zion erlijioaren aurkako zabalkundeari... inolako zigorrrik jaso gabe.

Gorteak eliz erreformak egiten hasi ziren, horrela erlijio eta eliz erakundeen desegitea lorturik. Hain zuzen ere, 1820ko abuztuaren 15ean Jesusen Lagundia kendu zuten; Erregeak horrekin erlijiosoen gainerako Ordenak salbatuko zituela uste izan zuen. Baina, 1820ko urrian kenduak izan ziren Monako-ordenak, errege-lapeko Kalojeak, Ordena Ostalariak eta Ordena Militarrak. Era berean, itxi egin beharko ziren 12 erlijioso ez zituzten komentua herrian bakarrak zirenean, eta 24 kide izatera heltzen ez zirenak ere bai, herrian komentu bat baino gehiago zeudenean... Debekatu egin zen, era berean, nobizioak hartzea... 1822an bakardadean zeuden komentua ixteko agindua eman zen. Honek guztiak egundoko eragina izan zuen.

Bai erregezaleek eta bai eliz taldeek indar handiz jarki ziren... Egonezin orokorraren sustraia ekonomian, politikan eta gizarteko egoeran ezartzen bazen ere, ez zen eragin txikiagokoa Gobernuak bai Elizan eta bai gizartean eragindako erlijio-krisia.

Eliza eta Estatuaren arteko banakuntza eragin beharrean, azken honek eliza mende hartu eta bere esanera erabili nahi zuen, Elizaren eskumena bidegabeki bere esku hartuz... Protestak izan ziren alde guztietan, eta horien guztien ondorioz, 15 apezpiku-hiri bete gabe zeuden, 11 apezpiku ihes eginda, hauen artean Iruñekoa eta beste 6 Estatuaren esku-hartze horren ondorioz zisma-egoeran zeuden... Eta 1823ko urtarrilean Espainiatik kanpora bidalia izan zen Aita Santuaren Nuntzioa...

Egoera larri honetan oposizioan zeudenak iraultetarako bidea hartu zuten... eta erregezaleen altxamenduak hasi ziren, bereziki Penintsulako iparraldean, Euskal Herritik hasi eta Kataluniara arte, Gaztela, Valentzia, Murtzia... tartean zirela...

Errege Fernando VII.ak berak ere, Gobernu liberalak eragindako erradikaltzearen beldur zelarik... 1822ko otsailaren 7an 'Elkargo Santuari' (Santa alianza) laguntza eskatu zion; hura osatzen zuten estatuek Veronako Kongresuan bildurik, liberalak agintaritzatik bota eta Fernando VII.a, ahalmen osoa bere esku zuela, agintean berrezartzea erabaki zuten.

Horrela, 1823ko apirilaren 7an, Angulema-ko dukeak Bidasoa zeharkatu zuen 60.000 soldadu frantsesekin, 30.000 boluntario espainiar gehitu zitzaizkielarik: "San Luisen ehun mila semeak" zeritzenak Madrilen sartu ziren maiatzaren 23an. Gobernu liberala Cadiz-en errendatu zen... Horrela amaitu zen Elizaz alderdi batekoak nahiz bestekoak era negargarrian baliaturik egin zen gerratea. Honen guztioen ondorioa erlijio aldetik nahaste-borraste handi bat izan zen...

Historiaren gunen nahasi honetan egokitu zitzaion Frai Bartolomeri Isla-ko (Sestao) Basamortuko priore gisa lan egitea, haren ahaleginik handiena komentuko komunitate-bizitza salbatzea izanik.

c. Aldakuntza problematikoak Basamortuan egoera politiko berrian

1) Bizimoldearen aldakuntza

Apirila oso garrantzitsua izan zen karmeldar Basamortuaren bizitzarako. Espainiako Gobernua konstituzioari zin egiteaz arauak ematen hasten da, horrela erlijioaren aurkako jazarpenari hasiera emanez. Bestalde, Karmeldarren Probintziako kapitulua egin zen, bi urrats erabakigarri emanik: Frai Bartolome Basamortuko priore izendatzea, eta komunitate honetako biziera aldatzea.

Garai hau ongi dokumentaturik dugu; beraz, laburki aztertuko ditugu eten gabe pilatuz doazen hainbeste dekretu, gutun etab...

Basamortuko prioreari Jeneralaren gutunak iristen zaizkio, Gobernuko dekretu berriekin. Honela, Probintziako Kapitulu bano pixka bat lehenago, 1820ko martxoaren 16ko errege-agindua jasotzen du, "Espainiako Konstituzioa" gordetzeko agintzen ziola eta "nazio osoan aldarrikatu eta berriro hari zin egiteko agintzen du, 1812. urtean egin zenez"³²⁸.

Beste dekretu batek, apirilaren 20koak dioenez, elizetako erretore izateko oposizioetan, "parrokien buru apaizik hoberenak eta jakintsuenak izan daitezzen", eta horretarako gai zirenak apaiz sekularren artean gutxi izanik, apaiz erlijiosoak ere oposizio horietara aurkez daitezela agintzen da³²⁹. Maiatzaren lehenengoetan jaso zuen dekretu hau Frai Bartolome, priore berriak.

Astebete geroago, Gobernuaren beste agindu bat jaso zuen Bartolomek apirilaren 27an; agindu hauek ematen ziren: frantsestean emandako sekularizazioak indarrean egon daitezela, "eta horren ondorioz, dagokienak goza ditzatela egoera horrek ematen dizkien eskubideak"; eta "espedientea irekirik zuten erregelapekoek aurrera jo dezaketela beren asmoetan"³³⁰.

Egoera honetan, Euskal Herriko Probintziako Kapituluak Basamortuko fundazioa ziurtatu nahi izan zuen eta txosten bat igorri zuen Definitorio Jeneralera, maiatzaren 6an irakurri zelarik; honela zioen: "en atención al corto número de religiosos que hay en el Sto. Desierto de S. José de la Isla y dificultad de que se aumente, se solicita que se dispense la rigurosa vida de Desierto para poder enviar algunos religiosos a fin de conservar aquel sitio". Eta Definitorio Jeneralak bide hori zabalik uzten du, Nafarroako San Joakin Probintziarekin elkarriketa irekiz eta honi gaia pixka bat gehiago zehazteko eskatuz³³¹. Berriro erabili zen gai hori hilabete bereko 24 eta 25eko definitorioan eta eskaria onartu zen, baina komentu hau, gainerako Basamortu guztiak bezala, zuzenki Aita Jeneral Txit Agurgarriaren menpean geratzekotan ("con la condición de que este convento quede a la dirección

³²⁸ HAKA, E-I-21 (2), inprimaturik.

³²⁹ HAKA, E-I-22.

³³⁰ HAKA, E-I-23. Eta maiatzaren 31ko errege-dekretu honetan argitzen da, sekularizazio-erregulazio honetan, anaia ez-korukoak ere sartzen direla.

³³¹ MBN, esk. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales.*, 206^o.

inmediata de N.M.R.P.General como todos los Desiertos”³³²). Beraz, komentatu hartan Frai Bartolomeren ardurapean egingo zen bizitza Markinako komunitatean egiten zenaren antz-antzekoa izango zen.

Frai Bartolomek Gobernutik geroago eta agindu okerragoak jasotzen zituen: 1820ko maiatzaren 16ko errege-dekretuaren arabera, “komunitate erlijiosoetan profesarik ez egitea agintzen da, Gorteen batzarra egin arte”; eta era berean “beren lursailak saltzea, trukatzea nahiz bestereganatzea”³³³ debekatzen zaie.

2) *Konstituzioari leial izateko zina* .

Gainera zetozen arazo larriek hartaraturik, Frai Bartolome prioreak al bait lasterren bete zuen Konstituzioari zin egiteko Gobernuaren agindua³³⁴. Eta horren lekukotasun argia gera zedin, agiri hau idatzi zuen:

“Certificamos y confesamos los infraescritos R. P. Prior, y PP. Clavarios de este Santo Desierto del Carmen Descalzo, de San José de la Isla de la jurisdicción del Concejo de Sestao en la Provincia de San Joaquín de Navarra, como pr. Madado de N.M.R.P.Gral. Fr. Antonio de la Soledad después de haber leído a la Comunidad la Constitución Política de la Monarquía Española, y a consecuencia de haber tomado posesión de su oficio prioral e infrascrito Prelado hoy día diez, y seis de mayo de 1820, tanto por el dicho Prelado, como por toda la Comunidad se ha celebrado la solemnidad de la juramentación de la Constitución Política de la Monarquía Española que y otros prescribe el Real Decreto de 16 de mayo próximo con Misa solemne, Te Deum , repique de campanas, y lo demás dispuesto.

Desierto de S. José de la Isla. Mayo 16 de Mayo de 1820. Fr. Bartolomé de Sta. Teresa, Prior.- Fr. Domingo de San José, Suprior.- Fr. Agustín de San Miguel, Clavario.- Fr. Domingo de la Presentación, Clavario”³³⁵.

3) *Komentua Santanderko apezpikuaren eskumenean*.

Gobernuaren aginduz Ordenako goi-agintariak euren karguetatik kenduak izan ziren eta haien lekuan apezpikuak ezarri ziren; beraz, komunitate bakoitzak bere priorea hautatu behar zuen konstituzio garaian³³⁶. Horrela adierazten zuen Ordenako Jeneralak gobernu arrotzaren portaeraz ari dela: urtarrilaren 29an jaso zuen “bere kargua utzi egin behar zuela jakinarazten zioten Dekretua”³³⁷.

Santanderko apezpikuak urtarrilaren 25ean gutun bat igorri zion Frai Bartolomeren komunitateari, urtarrilaren 17ko Gobernuaren agindua jakinaraziz;

³³² MBN, esk. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales.*, 212^a

³³³ HAKA, E-I-24.

³³⁴ HAKA, E-I-21 (1820-III-16, 1820-IV-5 eta 1820-IV-13).

³³⁵ HAKA, C-II-24.

³³⁶ HAKA, B-XI-9.

³³⁷ HAKA, D-I-11.

horren arabera, erlijiosorik ez da onartzen apezpikuaren agindupean izan ezik, eta erlijiosoen arteko goi-agintaririk ere ez da aurrerantzean onartuko, komentu bakoitzeko burua izan ezik”; “hauxe berau jakinaraziko zitzaien Ordena Erlijiosoetako Jeneral eta Probintzialesi ere, beren karguetatik kenduak izango baitira lehenengo eta behin”; beraz, aurrerantzean, Gobernuak Santanderko apezpikuarekin zuzenean jardungo du honen elizbarrutiko komentuei dagozkien arazoetan.³³⁸

Egoera berri honen aurrean, Frai Bartolomek hainbat kontsulta egiten ditu, karmeldar priore batzuei eta beste Ordena batzuetakoei idatziz; eta laster jasoko ditu hain arazo zailean urrats ziurrak eman ahal izateko erantzunak.

Burgosko komentutik A. Bizente Santa Mariarenak erantzuten dio otsailaren 1ean, Burgosko apezpikuak ez diola inolako agindurik jakinarazi esanez, “eta ez dut uste jakinaraziko duenik ere”. Eta aholku hau ematen dio: apezpikuari erantzuteko “jaso duela haren mezua, eta haren edukiaz jakitun dagoela”³³⁹. Egun berean Frai Bartolomek idatzirik zuen Santanderko apezpikuari zuzenduriko gutun bat: begirunez adierazten dio “jaso duela haren idazkia”; bi erlijioso kanpotik direnez gero, “haiek itzuli arte egun batzuk itxarotea pentsatu duela, gero komunitateko batzarra egin eta guztiei jakinarazio diela”³⁴⁰.

Otsailaren 3an Frai Frantzisko Guaty, Laredoko kaputxinoak erantzuten dio. Honen aholkua, gainera, elizbarruti berekoa izanik, interesgarriago izan behar Bartolomerentzat: “su dolor es igual al mío. Pienso contestar al recibo, e intimación mas a lo demás ni por pienso, interin no se me presenten letras pontificias dispensatorias. Se que así proceden en Santander”³⁴¹. Hiru egun geroago, 6an, Santanderko kaputxinoen San Frantzisko komentutik, Frai Joan Martinek, bere maitasun eta estimu handia Frai Bartolomeri agertu ondoren, honela diotso: “al decreto de nuestra sujeción a la autoridad ordinaria esta Comunidad esta en pie y pie firme de observar lo que nos dice nuestro Padre y Patriarca S. Francisco”³⁴².

Hilaren 7an, 11n eta 12an Iruñea, Tuter eta Osmako karmeldarrek idazten diote. Iruñetik A. Markos Santa Teresarenak honako aholku hau ematen dio: apezpikuari adieraz diezaiola soilik jakitun dagoela, eta “ez dela komeni idatziz kontsultak egiten aritzea”; eta Iruñeko egoerari dagokionez, beraiei ez diela ezer adierazi apezpikuak, baina gai horren berri ederki asko dakitela³⁴³. Frai Domingo Santa Teresarenak, Tuteratik diotso, bere apezpikuak “beste guztiek bezala pentsatzen duela gai honi dagokionez, hots, Aita Santuaren baimenik gabe ezin duela inork bere agindupean egotera behartu. Horretarako Tarazonakoak agiri bat egin du, Zaragozako artzapezpikuak, honen menpekoak eta beste batzuek sinatu dutena. Eta honako hau eransten du: “N. Provincial me escribe que el Arzobispo de Burgos

³³⁸ HAKA, B-XI-9.

³³⁹ HAKA, C-XV-6.

³⁴⁰ HAKA, B-XI-10.

³⁴¹ HAKA, D-I-12.

³⁴² HAKA, D-I-13. Aste batzuk geroago, otsailaren 23an, beste gutun bat egin zion.

³⁴³ HAKA, C-XV-7.

no hace especial novedad, entre tanto se va barageando. Aquí por orden del Juez Político quedamos los Descalzos y Franciscanos pero pienso, que será poniendo 24 sacerdotes lo que será dificultoso, pero por la existencia del convento será preciso vercerlo todo. Paciencia”³⁴⁴. Eta Osmatik Frai Paulok honela erantzuten dio otsailaren 12an: “Antes de ayer nos puso este Illmo. Obispo el Oficio cuya copia incluyo, dejado el encabezamiento sus miras son religiosas, y trata de dar largas y que se conserven las Comunidades religiosas en paz”³⁴⁵.

Kalahorratik aurrekoaren antzekoak esanez erantzuten dio Markos Mendivil-ek: “No me determino a hablar con nadie del asunto de su carta ni menos con el Jefe, quien se halla penetrado de iguales sentimiento que V. md. Y que ha juzgado siempre lo mismo, siendo opinión de los más sensatos no poder dar jurisdicción a otro que el que no la tenga, y que de lo que se trata deberá venir de la Silla Apostólica; no obstante pide mucho pulso, prudencia y detención todo lo que V. m. pregunta”³⁴⁶.

Bilbotik, Frai Frantzisko San Joan Krisostomoren karmeldarrak Frai Bartolomerentzat interesgarri izan litekeena idazten dio: “El Sr. Obispo de Santander a escrito al P. Guardián de allí, que con arreglo a los decretos reales deben reconocer las Comunidades religiosas por su Prelado a su Señoría; y que le ha respondido después de haberlo conferido con su Comunidad que en conformidad con lo dispuesto por los Sagrados Concilios, y Pontífices están sujetos los religiosos a sus Prelados regulares, y que no viniéndoles orden contraria por medio de Su Santidad no se resuelven a acceder a que S. I. les participa”³⁴⁷.

Otsailaren 13an Frai Bartolomek Iruñeko kaputxinoen erantzuna jasotzen du, A. Joan Aguillo-ren bidez, Madrileko bere Nagusiagandik jaso duen erantzuna jakinaraziz: “que en todas ocurrencias en las actuales violentas circunstancias se conduzca (y lo mismo todos los otros religiosos) MERE PASIVE y qual se conducirá en una invasión enemiga; de modo que todos los actos exteriores sean enteramente materiales: se cede a la fuerza; y en este sentido se nos contesta de Roma hasta que S.S. determine otra cosa. Con esto he quedado tranquilo con todos mis frayles; V. P.R. puede tranquilizarse con sus súbditos”³⁴⁸.

Hilaren 19an Valladolid-eko karmeldarren erantzuna jaso zuen, A. Antonio San Joan Gurutzekoarenaren bidez; bere komunitatea oso lasai dagoela diotso, apezpiku berriaren jokaera onarengatik: “Luego que le llegó la orden, de la Superioridad que se le confería sobre todos los Regulares, nos ofició a todos según le mandaban, y a todos nos dijo: que nada se innovase de nuestros ejercicios monásticos, y a mí me ha asegurado hará lo posible para que subsista este Convento”³⁴⁹.

³⁴⁴ HAKA, C-XV-9.

³⁴⁵ HAKA, C-XV-10.

³⁴⁶ HAKA, C-XV-8.

³⁴⁷ HAKA, C-XV-11, Bilbao, 1821-II-12.

³⁴⁸ HAKA, D-I-14, 1821-II-13

³⁴⁹ HAKA, C-XV-13, 1821-II-19.

Frai Bartolome hainbat komunitate erlijiosotan gai honen berri gehiago lortu nahirik ari den bitartean, Santanderko apezpikuak lerro batzuk idazten dizkio, komunitatearen erantzuna eskatuz: “Desde el día 1 de Febrero esperaba yo que estubiese reunida la Comunidad y me hubiese U. dicho estaba pronta a obedecer la orden, que con fecha de 25 le comuniqué. Espero lo haga V. inmediatamente y haga presente a esa Comunidad mis deseos de contribuir a su felicidad, tranquilidad de conciencia”³⁵⁰.

Egun gutxi geroago, otsailaren 26an, komunitateak Frai Bartolome buru zela erantzuten zion: “La comunidad religiosa del Sto. Desierto del Carmen Descalzo de San José de la Isla del Concejo de Sestao, reunido por llamamiento de su R.P. prior en el lugar acostumbrado para sus deliberaciones, ha recibido con la mayor sumisión, y respeto la circular de V.S.I. de fecha de 25 del mes próximo pasado, y habiéndola leído en voz clara e inteligible uno de los Padres del Capítulo por orden expresa del R. P. prior, y héchose cargo por menor de todo su contenido, dijeron todos: que quedaban enterados de la disposición del Gobierno, y de la orden de V.S.I. y que su Prelado actual el R.P. Bartolome de Sta. Teresa había sido electo en Nro Capítulo Provincial celebrado en la ciudad de Corella con arreglo a nuestras Constituciones”. Gutuna prioreak, prioreordeak eta komunitatean kargua zuten beste bi erlijiosok sinatua zegoen³⁵¹.

Frai Bartolomek data berean bere gutun pertsonal bat idazten zion Apezpikuari; honela zioen: “He conseguido unicamente de estos PP. la respuesta que acompaña. Me es sensible en parte, que no sea más satisfactoria a la orden de V.S.I. Pero como tanto ha sonado en la nación este punto, sumamente delicado en la práctica, y expuesto a muchas nulidades en materia de tanta trascendencia, fundado en aquel principio: de que el que no tiene, no puede dar; de aqué es, que estos religiosos, que se han recogido a este Desierto, para atender mejor unicamente a su eterna salvación, posponiendo todos los respetos, y acontecimientos humanos a la seguridad de su conciencia, pudiéndose decir de ellos, lo que se decía de San Juan Crisóstomo, que solo el pecado era, lo que temía, y siendo muchos de ellos los que han regentado cátedras, y que por sí mismo pueden discernir muchas dudas, no se resuelven a dar a otra contestación a la circular de V.S.I. asta tanto que V.S.I. se autorice por el conducto lexítico para gobernarnos, como Prelado Superior. En este caso le aseguro a V.S.I., y acreditará el tiempo, que aquí tendrá una Comunidad de corderos que le obedecerán ciegamente a V.S.I. y su mayor satisfacción será tenerle por nuestro Padre, y Prelado a V.S.I. a quien de corazón le amamos, y para su larga vida suplicamos incensantemente como verdaderos hijos de Sta. Teresa de Jesús”³⁵².

Frai Bartolomeri erantzun gehiago iritsiz zihoakion: Logroñoko Karmeldarrena³⁵³, eta Laredoko Kaputxinoen nagusiarena. Honek albiste interesgarriak

³⁵⁰ HAKA, B-XI-11, 1821-II-20.

³⁵¹ HAKA, B-XI-13, 1821-II-26.

³⁵² HAKA, B-XI-12, 1821-II-26.

³⁵³ HAKA, C-XIV-25, datarik gabea, (1821.eko martxoaren lehenengotakoa).

ematen dizkio; interesgarria da, behintzat, lerro hauetan datorrena: “Se por persona condecorada, que el [obispo] de Santander ha recurrido al Nuncio Apostólico”³⁵⁴.

4) *Basamortuko nagusiaren izendapena* .

Konstituzio garaiko giro honek berekin zekarren beste arazoetariko bat, Ordenako goi-agintariak kendu eta Ordena apezpikuaren agindupean ezartzearekin batera, etxe bakoitzeko nagusia izendatu beharra zen. Gorago esan dugunez, Frai Bartolome Basamortuko Priore izendatua izan zen 1820ko apirilko Kapituluari.

Frai Bartolomerren dokumentazio ugarian badator arazo hau eta nola bete zuten erabaki politiko hau.

Elizbarrutiko Apezpikuaren menpean komentuak ezartzearekin batera, aipaturiko dokumentazioan, legezko nagusiaren arazoa dator. Burgostik honela erantzuten dio A. Bizente Santa Mariarenak 1821eko otsailaren 1eko datuz: “en ninguna parte se hacen nuevos Piores, y el hacerlos señala un transtorno”³⁵⁵. Osmatik A. Paulok apezpikuaren jokaera kontatzen dio: “Siente el que inciten a elegir Prelados y mucho más el no elijan a los actuales, pues todo lo demás lo reputa por nulo: tiene escrito al Nuncio a S.S. pues no se considera con facultades para admitirnos sin este paso”³⁵⁶. Bestalde, bazekien, A. Bizente Santa Teresarenak esan baitzion, Nuntzioak nagusia hautatzea nahi zuela apezpikuak hala aginduz gero³⁵⁷.

Santanderko apezpikuak, irailaren 24an, idazki bat igortzen zuen komentueta-ko nagusiak hautatzeko aginduz, era berean hauteskunde hori egiteko arauak ematen zituen, haiek urriaren 19an egin behar zirelarik³⁵⁸. Baina hilaren 19an bertan, Frai Bartolomek Aita Santuaren Nuntzioari idatzi zion, hiru galdera hauek eginez: “1º Si la nueva elección, que hiciese la Comunidad de su Prelado local en virtud de la orden de su Illmo. Prelado, podrá conferir al nuevo Prelado local la jurisdicción anexa a su ministerio? 2º. Si al punto que sea elegido nuevo Prelado local y con arreglo a las presentes determinaciones del Gobierno, cesa la jurisdicción del Prelado anterior, aunque no haya concluído su trienio en el oficio? 3º. Si la Comunidad podrá elegir para su Prelado local en las presentes circunstancias a cualquier de sus religiosos sacerdotes expuestos, o deberá elegir a alguno de los habilitados por las Constituciones de la Orden para Prelados locales?”³⁵⁹

³⁵⁴ HAKA, D-I-16, 1821-III-7.

³⁵⁵ HAKA, C-XV-6, 1821-II-1. Eta honako hau eransten zuen: “Si ordenan que sea nuevamente elegido Prior es un punto de mucha consideración, si atendemos al fuero de la conciencia así en los que han de votar, como en el elegido en este caso se debe elegir al mismo, por no exponerse en elfuero interno a muchas nulidades”.

³⁵⁶ HAKA, C-XV-10, 1821-II-12.

³⁵⁷ HAKA, C-XV-14, 1821-IX-3.

³⁵⁸ HAKA, B-XI-6, 1821-IX-24.

³⁵⁹ HAKA, B-X-6, 1821-X-19.

Pixka bat geroago, urriaren 4an apezpikuak bi erlijioso (Jose San Migelena eta Jose Jesus Mariarena) izendatu zituen Basamortuko komenturako, eta Frai Bartolome Prioreak komunitateari aurkezten dizkio³⁶⁰. Azaroaren 28an egin ziren hauteskundeak Basamortuko komunitatean, baina Frai Bartolomek adierazi zion Apezpikuari, bere gutunean aipaturiko bi berriek ez zutela hauteskunderan esku hartu “para mayor seguridad de las elecciones; aunque al presente, en la misma carta están admitidos por V.S.I. de que nos alegramos, y le agradecemos a V.S.I. este nuevo favor”³⁶¹.

Basamortuko Priorearen akta originala dugu: 13 erlijioso apaiz ziren: azaroaren 24an bildu ziren kapituluan, eta A. Bartolome Santa Teresarena³⁶² izan zen priore hautatua. Hautespen hau Santanderko apezpiku Joanek berretsia izan zen abenduaren 4an³⁶³.

d. Hiru urteko konstituzio aldian, komentua salbatzeko ahaleginetan

Frai Bartolomeren ekintzarik garrantzitsuena hain egoera sozio-politiko zailean komentua salbatzea izan zen; hau da, Isla Basamortuko komentua ez zezatela kendu. Horretarako lan eskerga egingo du, agintari zibil eta elizakoekin harremanetan jarritz.

1820aren amaieran eta 1821aren hasieran, komentuetako antolaketa arautuz, dekretu eta idazkiak agertu zirenean, lehenago ere frantsestean itxia izan zen eta berriro itxiko zuten mamua airean zebilen. Gorago ikusia dugu nola eman zuten 12 erlijioso ez zituzten komentuak ixteko agindua herrian bakarra izanez gero, eta 24 ez zituztenak ixteko agindua, herrian bat baino gehiago izanez gero.

1821eko apirilaren 6an, Santanderko apezpikuak, bere iritzia agertu zion agintari politikoari. Balmasedako Karmeldarren komentua, erdi-eroria zegoenez gero, onartzen zuela ixtea, baina Ordena bereko Sestaoko Basamortua ixtea ez zuela inola ere onartuko bere aldetik (“nunca convendré, por lo que hace a mí en la del Desierto de Sestao de la misma Orden”), eta, orain ez da hori gertatzen, baina erlijiosorik nahikoa ez balego, berberak bidaliko lituzkeela legea betetzeko behar direnak. Apezpikuak garbi aitortzen zuen fraideek han egiten zuten lan ederra eta bere elizbarrutiko komentu hark egin zezakeen zerbitzua³⁶⁴. Hauxe berau jakinarazten dio Bartolome Santa Teresarena Prioreari, honako hau erantsiz: “Yo sentiré mucho que el Gobierno no aprecie sus razones, porque me faltara un auxilio con que contaba para llevar mejor tanta carga”³⁶⁵.

³⁶⁰ HAKA, B-XI-18, 1821-X-4.

³⁶¹ HAKA, B-X-19, 1821-XI-29.

³⁶² HAKA, B-XI-20, 1821-XI-28.

³⁶³ HAKA, B-XI-20, 1821-XII-4.

³⁶⁴ HAKA, B-XI-14, 1821-IV-6.

³⁶⁵ HAKA, B-XI-17, 1821-IV-27.

Hilabete batzuk geroago, urriaren 3an, apezpikuak irailaren 20ko errege-agin-dua jakinarazten du, komentu batzuk ixteko jarraitu behar diren arau batzuei buruz³⁶⁶.

Hurrengo urtean, Bilboko gobernu politikoak albait lasterren zehaztasunak eskatu zizkion Basamortuko Prioreari komentuan zeuden pertsoneri buruz, zenbat erlijioso mezako ziren, zenbat ez-mezako, beraien izen-deiturekin, eta komunitate-tik at lan ezberdinetan aurki zitezenak, eta sekularituak zenbat ziren³⁶⁷... Frai Bartolomek egun berean, hau da, 1822ko irailaren 12an, erantzun zion: 16 erlijioso mezakoren izenak eta 3 ez-mezakorenak eman zizkion, haien egoera zehatz-mehatz azalduz: “Todos los 19 están siempre en el convento, sin que ninguno se haya ausentado de él en este nuevo Gobierno Constitucional ni por vía de secularización ni con otro objeto”³⁶⁸.

Bi aste geroago gobernu politikoak gutun bat idatzi zion Frai Bartolomeri esanez, Abandoko Frantziskotarren San Mames komentua itxi egin dutela eta, haiei joan behar zuten toki berrirako pasaporte ematerakoan, haietariko bi, zaharrak eta gaixoak izanik, “Karmeldarren komentu horretara bidali behar izan dira, beste Ordena ezberdin batekoak izan arren”³⁶⁹. Frai Bartolomek egun berean³⁷⁰ erantzun zion, baina ez dakigu gutunak zer zioen.

Egun haietan konstituzioko gobernuaren aurka altxamendua egiteko saioak izan ziren, eta Frai Bartolomek parte-hartze esanguratsua izan zuen bakeari eta konstituzioko ordenari eusteko. Frai Bartolomek buruzagi politikoari idatzi zion, zeharka bada ere, bere komentua ez ixtea lortu nahian, eta Ezkerraldearen egoera sozio-politikoa eta berak izan zuen esku-hartzea azaldu zizkion. Eta Frai Bartolomeri buruzko albiste zuzen eta berberak kontatuak gutxi ditugunez gero, 1821eko azaroaren 6ko gutun honetan datorren testu *autobiografikoaren* atal handi bat jarriko dugu hemen:

“La localidad de nuestro Convento, puesto en el centro de una dilatada población de los Concejos de Sestao, Somorrostro, Baracaldo, Erandio y Lejona, de cuyos avitantes en sus dudas y apuros nuestro convento es su desahogo, nos han proporcionado en estos críticos y aciagados tiempos mil ocasiones de favorecer a la causa de la Nación, o a la odiosa facción. No me es permitido, Sr. En este sencillo y reberente escrito molestar la atención de V.S. con el detalle de estos hechos que ofresco justificarlos ni V.S. tubiere a bien. Con todo no omitiré unas reseñas en globo de nuestra conducta.

Ningún religioso de nuestro convento se ha desbiado ni un momento de las ordenes dela superioridad. Todos, todos son Constitucionales, y aborrecen el

³⁶⁶ HAKA, B-XI-17, 1821-X-3.

³⁶⁷ HAKA, E-I-29, 1822-IX-9.

³⁶⁸ HAKA, E-I-30, 1822-IX-12.

³⁶⁹ HAKA, E-I-31, 1822-IX-26.

³⁷⁰ HAKA, E-I-31, 1822-IX-26: ertzean Frai Bartolomek ohar hau jarri zuen: Se le contestó el 26 del mismo mes”.

Absolutismo, y despotismo. A esto se debe atribuir, como dice la pública opinión, en gran parte, de que no ha tomado armas para la facción, que yo sepa, ninguno de los Consejos de Sestao, ni de Portugaleta, ni de Santurce ni del balle, de los bandos de Lejona, Erandio, y Baracaldo, que se sirven de nuestro convento, a excepción de uno, con quien tube una rina, y luego oy, que fue a la facción. Por navidades del año pasado sofoqué en su origen con mis razones y exsortos el levantamiento de 50 o 60 hombres, según me comunicaron, que estaban a toda prisa reuniendo harnas para levantar el grito de la insurrección. Los convencí, los convertí y estuvieron por mí tranquilos en sus casas, y hoy es el día que están. He libertado mozos, ocultándolos y guardándolos en mi convento de la persecusión de los facciosos; y están en sus casas. He aconsejado a varios Padres, e interesados de los facciosos, a que exsorten a los suyos, se valgan del indulto, lo que se a verificado en algunos, aunque no en otros. No a entrado ningún faccioso en nuestro convento. Ni se le a dado asilo al servilísimo. En los lanzes que se me han ofrecido con más publicidad y no los e podido remediar por mi mano, al punto e dado parte al Gobierno, como pueden acreditar el S^{or} Vedea y el S^{or} Secretario de V.S.³⁷¹.

Hala ere Frai Bartolomeren komentuaeren etorkizuna kili-kolo zegoen, Santanderko apezpikuak, azaroaren 8an, Bizkaiko Buruzagi Politikoari Basamortuko komentuaeren alde idazten baitio: “No puedo disimular la pena que me causa la supresión casi inevitable de el del Carmelitas de Sestao, conocido con el nombre de Desierto que aunque se halla en el distrino de ese Gobierno político, pertenece a mi diócesis”; eta komentu horren iraupenaren aldeko hainbat arrazoi eman zizkion: konstituzioaren aldeko jokaera; udalbatza guztiakin bakean bizi izana; hura ixteak oraindik zailago bihurtuko zukeela apezpikuaren lana³⁷².

Frai Bartolomek, bere aldetik, ahalegin handiak egin zituen bere komentuaeren alde. Santanderko apezpikuarengana soilik ez, beste eliz agintari eta herri-agintariarengana ere jo zuen. Esaterako, Espainian Aita Santuaren Nuntzio zenari idatzi zion honako hau esanez: komentuaek ia mirariz irauten zuela, eta orain Gorteetako azken dekretuen mehatxupearan dagoela. Eta konpromiso larri batean aurkitzen zela: Basamortuak zuen araudi bereziagatik eta aurreko garaietan eliz kabildoekin egindako hitzarmenagatik (eskumikupearan), Basamortuko karmeldarrek ez zuten apostolutza egitera joaterik; hala ere orain auzi-barruti honetako agintari zibil batek, lehen auzialdiko epaileak, sermoi bat egiteko agindu ziola... eta baietza eman orduko argia eskatzen zuela, bere aldetik ez baitzuen inguruetako³⁷³ kabildoekiko estatusa hautsi nahi.

³⁷¹ HAKA, E-I-32, 1822-XI-6.

³⁷² HAKA, B-XI-21, 1822-XI-8.

³⁷³ HAKA, B-X-7, 1822-XI-15. Ertzean erantzun hau dator: “Madrid 25 de noviembre de 1822. En esta Nunciatura no hay 7 facultades para revocar una sentencia de la Sagrada Congregación de Obispos y Regulares dada en juicio contradictorio con la pena de censura de transgresión de ella”.

Gutun honek Frai Bartolomek sermolari gisa inguru honetan zuen arrakasta eta ospe handia erakusten ditu, sermoi hori soldaduei egitekoa baitzen; Frai Bartolomek berak agintarien zerbitzari izan nahi du, bere komentua ixteko arriskuan baitzegoen.

Frai Bartolomeren komentuarien egoera larri honetan, Sestaoko Konstituzio-udala Karmeldarrek Islako komentuan jarraitzearen alde agertu zen. Horrela jakinarazten zien aipaturiko udalak goi-agintariei 1822ko azaroaren 9an³⁷⁴.

Joan, Santanderko apezpiku jaunak, Gobernari politikoarengandik, Gorteetako azaroaren 15eko dekretua jaso zuen, bakardadean egon zitezen komentu guztiak edota 450 biztanlera irits ez zitezen herrietan zeudenak ixteari buruz, eta behar diren neurriak har ditzala, esaten dio, erlijioso guztiei elizbarrutian kokatzeko bideak eskaintzeko... Apezpikuak, bestalde, 1823ko urtarrilaren 9an erantzuten dio, era honetara: "Me encuentro en el mismo caso que V.S. por no hallar en mi diócesis convento alguno de Carmelitas Descalzos, que es el correspondiente por Instituto al del Pueblo de Sestao Partido de Sopena comprendido en la Ley de 1 de diciembre último. Por lo tanto no acerto cómo proporcionarles cuando llegue el caso en que deban salir de su convento casa religiosa a que sean agregados en obispado (...) Ninguna Real Orden me ha sido aun dirigida sobre este particular: cuando llegue el caso, lo hare igualmente presente al Gobierno"³⁷⁵...

Isla-ko Basamortutik hurbileko udalek lege honen berri izan zutenean, Frai Bartolomeren komentua ere ixteko arriskuan zegoela oharturik, hara eta hona jotzen hasten dira Karmeldarrak han gera zitezen, bereziki beren herrientzat mesedegarri zirelako. Honela, goian ikusi dugunez Sestaoko udalaz gainera, ondorengo konstituzio-udal hauek dira Bilboko Buruzagi Politikoari eta Bizkaiko Diputazioari Isla-ko Basamortuko Karmeldarrek han jarrai dezatela eskatu ziotenak: Barakaldo³⁷⁶, Portugalete³⁷⁷, Plentzia³⁷⁸, eta Leioa, Erandio, Trapaga eta

³⁷⁴ HAKA, E-III-3, 1822-XI-9. Azalpenean, beste gauza batzuen artean, bere bizitza erdugarriagatik zuen estimuaz gain, honako hau gogorarazten da: "No cumpliría el ayuntamiento con las obligaciones que reconoce en las actuales circunstancias, si limitase a lo expuesto su informe, y por lo mismo añade que la repetida comunidad ha explicado la Constitución en los días festivos, y haber oído que ha livertado a algunos mozos de la persecución de los facciosos, y dado además su actual Prior consejos privados a diferentes padres de familias de extraña Jurisdicción para que sus hijos no pasen a las facciones, y regresen a sus casas los incorporados en las bandas".

³⁷⁵ HAKA, E-I-33, 1822-XII-31, 1823-I-9.

³⁷⁶ HAKA, E-I-35, 1823: "El Alcalde constitucional y demás individuos del Ayuntamiento de Baracaldo a V.S. con el debido respecto representan la sorpresa de sus vecinos y asistentes, quando han llegado a oír la traslación de los Carmelitas Descalzos del Convento llamado S. José de la Isla a otra Provincia; particularmente en el día que se ben privados de los Mercedarios Calzados que existían en Burceña, pues siendo una de las Ante-Iglesias de la mayor población que tiene la Provincia, les había quedado el recurso a dichos Carmelitas inmediatos o contiguos a esta dilatada Ante-Iglesia, en donde un considerable número de personas de este Pueblo, se mantienen con jornales y otros ejercicios, a que se dedican en

Santurtze³⁷⁹; eta kontuan izatekoa da udal hauek arrazoiak ematerakoan eta haien alde hain sutsu jartzerakoan, hein handi baten Frai Bartolomek 1820tik 1823ra bitartean egindako lanagatik dela; hau da, beren-beregi aipatu gabe, sermolari bikainaren lana dute gogoan... Gutun hauetan argiago antz ematen da Frai Bartolomeren nortasuna.

aquel conbento por sus propios intereses. Otros han allado en él el remedio de sus apuros. Muchos le preguntan para el cumplimiento de sus obligaciones cristianas; especialmente en el día que está diminuto el número de sus curas parroquiales. Con esta exposición de los daños, que preveen de estos religiosos adictos según lo que se a visto hasta aquí, a las muchas instituciones aplicados a su ministerio y al fomento de la labranza, alrededor de una multitud de Pueblos que los estiman, necesitan, buscan y encuentran en todos sus negocios, Señor, sería la traslación de dicha comunidad de una transcendencia perjudicial de gravedad para estos havitantes y demás individuos”...

³⁷⁷ HAKA, E-III-4, 1823: Parrafo batzuk aipatzen ditut: “Estando nosotros en todo tiempo a la puerta del dicho convento no nos es dado el ignorar la conducta, la ilustración, las opiniones, la aplicación y la adhesión al sistema de aquellos Religiosos. Y aun cuando nosotros callásemos o ignorásemos la voz común de toda la comarca está publicando su caridad, su justificación, su celo para la paz de los pueblos y su constante laboriosidad en aconsejar y propagar las luces del día y amor a las nuevas instituciones con una multitud de hechos positivos que han prestado a la buena causa constitucional, que no dejamos de admirarnos y estimarlos. Pues acaso será la única comunidad religiosa en la Nación que sin perder un paso han caminado con esta notoria aplicación al sistema desde el principio hasta el presente. La localidad del convento en ningún punto de esta comarca puede ser más cómoda para que muchos ciudadanos se aprovechen con toda conveniencia de los distinguidos beneficios que prestan aquellos egemplares religiosos a la sociedad. Hasta ocho o nueve pueblos lo tienen en su centro el sobre dicho convento, único ya en muchas leguas de contorno (...). En esta fiel relación Señor ve V.S. que la dicha comunidad es laboriosa, ilustrada y decidida para nuestras sabias instituciones. Es útil y benéfico sin para una numerosa multitud de habitantes de estos pueblos y aun de los de las costas de esta Provincia y está revestida de las condiciones de tal y para su permanencia en todo buen sentido. Por lo mismo hacemos presente a V.S. que nos parece poco conducente el aplicar la sobredicha medida de supresión a esta benemérita comunidad”...

³⁷⁸ HAKA, E-III-7, 1823: Dokumentuak Barakaldok eta Portugaletek aldezen duten gauza bera aldezen du, baina beren-beregi aipatzen du merkataria, itsasgizona, itsasontzi eta abarri dagokienez, haiek duten garrantzia... “(...) está en peligro o en duda la supresión de los Carmelitas Descalzos de S. José de la Isla, que vulgarmente llamamos de S. Nicolás del Carmen. El Ayuntamiento conoce que no es de su atribución el examen del vecindario territorial de aquella comunidad. Pero no puede disimular, de recurrir a V.S. y hacerle presente la suma falta, que aquella comunidad haría al comercio, y en especial al ramo principal de esta Provincia, reducido al tráfico y transporte de venas de la rica vena de Somorrostro”...

³⁷⁹ HAKA, E-III-5, 1823: Frai Bartolomeren testu autografo labur bat dago, ohar hau eginez: “+. Lexona, Erandio El Valle, y Santurce igualmente representaron a favor de esta comunidad al Gefe Político, y a la Diputación Provincial de Vizcaya, por el mismo tiempo”.

e. **Prioretzako lau urteen amaieran**

1) *Priore apostolua*

Goiago esan dugunez, Basamortua otoitz-bizitarako tokia da soil-soilik, baina Frai Bartolomerekin, aipaturiko egoera hartan, komunitateak liturgi lanari eta apostolutzari eman zion. Frai Bartolome bere komunitatearen zerbitzura egon zen, priore zen aldetik, eta herriaren zerbitzura apostolutza-lanean.

Ikusi dugu zenbat arazo larritan murgildurik ibili zen Frai Bartolome eta haren jokaera zintzoa bere komunitatearen onerako; ekintza hori zela eta jende askorentzat ezagun bihurtu zen, bai herrian eta bai agintarien artean, bereziki eliz agintarien artean estimua eta oniritzia lortuz.

Ia ez dugu ezer esan sermolari gisa egin zuen lanaz, berez priore izanik ez baitzen hori haren ofizioa, baina ikusi dugu nola behartzen zuten soldaduei sermoiak egitera; altxamendurako prest zeuden jendetza handiari hitz egiten dio dotore eta arrakasta handiz, bake-bidera eraginez... Garai berezi hartan, egoerak berak ere predikatzeraz eragiten zion. Honela, adibidez, Gaminizko udalak Basamortuko komunitatera jo zuen 1823ko martxoaren 10ean Aste Santuan Bakardade, Nekaldi eta Agindu Berriaren sermoiak egiteko (“para predicar en Semana Santa los sermones de la Soledad, Pasión y Mandato”³⁸⁰).

Basamortuko prioretzaren hasieran, 1820ko ekainean, misioak ematera joango zen Abadiño eta Fikara; Markinan zegoela bere gain hartutako egitekoa izan zen hau, 1820ko martxoaren 23an, aipaturiko misio horiek emateko baimena eskatuz, Kalahorrara igorritako gutunean ageri denez³⁸¹.

Komunitatearen barruko bizitzari dagokionez, Frai Bartolomeren prioretzaz, honako lerro adierazgarriak aurkitzen ditugu: “El prelado, con su prudencia y fervorosa y continua asistencia a los maitines de media noche, los mantuvo los cuatro años que fue Prelado, asistiendo en persona casi continuamente, para aliviar a los súbditos y tenerlos contentos, y no se resfriasen en esta observancia de nuestro Instituto principal”³⁸².

2) *Haren lau urteen laburpena Kartularioan*

Egia esan, Frai Bartolome Isla-ko komentuak izan zuen priorerik ospetsuenetarikoa izatera iritsi zen. “Isla-ko Basamortuko Kartularioan” prioretza bakoitzaren laburpen txiki-txikia dator. Frai Bartolome hango 34. priorea izan zen, eta 40 lerro eskaintzen dizkio; lerro hauek, gehienetan, formalismo kutsukoak eta aspergarriak izan ohi dira; baina historia honetan zehar hartaz zuzenki hitz egiten diguten testuak hain gutxi aurkiturik, hemen ezarriko ditugu:

³⁸⁰ HAKA, E-III-8, 1823-III-10.

³⁸¹ KEA, 4/109/8.

³⁸² HAKA, A-III-2: *Libro de Becerro del Desierto de la Isla* 88ª.

“Prelado 34.

En el Capítulo Provincial celebrado en nuestro convento de Corella en el año 1820 fue electo Prior de este Santo Desierto N.R. P. Fr. Bartolome de Santa Teresa, natural de Marquina-Echevarria. Fue predicador de oficio 12 años en los conventos de Larrea y Marquina y un trienio Prior de Marquina de donde [vino de] Prelado a esta casa. Luego que vino cesó la observancia eremítica por disposición de N.V^e.Definitorio general solicitada por el Definitorio de [la] provincia para que viniesen Religiosos hasta llenar el número de 12 que pedía el Gobierno para no ser comprendidos en el decreto de extinción vinieron más religiosos, se llenó el número y no se extinguió el convento. Se dio principio a la observancia regular y siguió con tanto tesón, como si no hubiera en las Religiones los trastornos que hubo en tiempos tan calamitosos y perjudiciales a las mismas religiones y al estado. El Prelado con su prudencia y fervorosa y continua asistencia a los maitines de media noche los mantuvo los 4 años que fue prelado, asistiendo en persona casi continuamente para aliviar a los ´subditos y tenerlos contentos, no se resfriasen en esta observancia de nuestro Instituto tan principal. Trabajó sobre manera para que no se suprimiese este convento quando salió el 2º Decreto relativo a que se quitasen los conventos que estaban en despoblado en Pueblos que no llegaban a 450 vezinos. Como se puede ver en las Representaciones de los Pueblos que paran en el Archivo. Imitó a su antecesor en economizar los jornaleros de las labores del Desierto, con lo que logró que se ahorrasen muchos gastos, asistió con honor y bien a la comunidad en sus necesidades, así en salud como en enfermedad y en Refectorio: compró 34 mantas del al^a lino. 2. plantíos (?) de robles en el monte, plantó también algunos frutales, retexó todo el convento, pero en la Iglesia hizo retejo general en toda formalidad. Con el dinero que encontró con el de los magres (?) y chacolí que vendió justo (?) 210 reales de zensos a favor de nuestras religiosas de Yepes y Talavera. Con lo que ahorrando con su economía dejó separados en la Arca, con parecer de la comunidad por votos secretos 34080 reales para reponer el resto de las mer^s (?) comunidad (?) y lo necesario para los gastos ordinarios, y 10) fanegas de mayz para vender. Fue su Prelacia mui trabajosa por las Revoluciones de la Nación, y tuvo mucho que negociar con las autoridades civiles y eclesiásticas, sin perdonar (?) alguna para que en casos tan adversos subsistiera este Santo Desierto; poniendo siempre por intercesor a Nuestro glorioso Padre y Patriarca S. José, en cuya protección ponía toda su confianza, y en reconocimiento de los beneficios recibidos por tan poderosa intercesión le celebró una función solemnísima con sermón predicando su Reverencia. Todo sea para mayor honra y gloria del Señor. Amén, y de Nuestra Madre Santísima y de su glorioso esposo san José. Amén”³⁸³.

³⁸³ HAKA, A-III-2: *Libro de Becerro del Desierto de la Isla* 88^a.

10. PROBINTZIALAREN AHOLKULARI (BURGOS, 1824-1826)

Isla-ko Basamortuan priore zela, garai hartako gertaera historiko-politikoengatik, dokumentazio ugaria dugu Frai Bartolomeren jokaeraz; orain, ordea, urte batzuetan ez dugu ia haren bizitzako inolako berririk. Izan zuen kargutik soilik atera genezake zerbait haren jarduerari buruz, baina orokorki besterik ez, hark parte hartu zuen kontseiluko aktak ditugulako.

a. Egoera sozio-politiko-erlijiosoa hoberantz

Frai Bartolome kargu berri honetan zegoen bitartean, aldakuntza sozio-politiko batzuk gertatu ziren, baina onerako, karlisten hamarkada (1823-1833)³⁸⁴ hasia baitzen; horregatik agerikoa zen erlijio eta gizarte aldetik gauzak bere onerantz zihoazela.

Errege Fernando VII.ak 1823ko urriaren 1ean hartu zuen agintaritza bere buruz, eta "konstituzio-gobernua deiturikoaren ekintza guztiak indargabeak eta baliorik gabeak aldarrikatzen zituen" dekretua sinatu zuen... Oartzungo Batzordeak emana zuen ordurako (1823-IV-28) sekulartuak izan ondoren parrokiak eta kapilautzak beren ardurapean zituzten guztiei karguak eta sermoiak egiteko nahiz aitortzeko baimenak kentzeko agindua.

Hiru urteko konstituzio aldiaren aurkako kontraekintza gisa, bigarren susperraldi honetan joera atzerakoi itxia nabarmendu zen... Honek guztionek politika arloan, nagusikeriazko joera nahiko itsua ekarri zuen..., konstituzio garaiaren aldekoen eta erantzuleen aurkako erasoaldi gogorra sortuz. Elizaren bozeramaleak, bestalde, ez ziren herrietako injustizia eta bidegabekeria hauen aurka agertu...

Apezpikuen ekintza pastoralak estatuaren esku-hartze honek baldintzaturik zegoen. Apezpikuek era bateko nahiz besteko gutun pastoralak idaztea exigitzen zien gobernuaren funtzionarioak ziruditen... Tiberi Nuntzioak, Kontseiluaren erregezaletasuna bezainbeste apezpiku batzuen gogortasuna eta beraien arteko bata-sunik eza sentitzen zuen³⁸⁵.

Hala ere, oneranzko joera nabari zen pastoral jarretan. Pastoral joerak apai-zak bere-bereak zituen ekintza-arloan bilatu nahi zuen egoeraren konponbidea... Jesulagunek, liberalengandik hain jazartuak izanik, espiritualitate gogor samarra erakusten zuten eta beren ahalegin guztiak gazteriaren hezieran jartzen zituzten... Herri-misioek geroago eta gehiago jotzen zuten pertsona bakoitzaren barru-alda-

³⁸⁴ Ik. Manuel REVUELTA GONZÁLEZ, *La excomunión (1833-1840)*, Madrid, 1976, 13-24; Francisco RODRÍGUEZ DE CORO, *La Iglesia vasca en la época liberal (1808-1840)*, in: IX Congreso de Estudios Vascos (Donostia, 1984) 193-216; Idem, *País Vasco, Iglesia y Revolución liberal*, Gasteiz, 1978, 430 or. Ik ere 327. Oharra.

³⁸⁵ V. CARCEL ORTÍ, *Correspondencia diplomática del Nuncio Tiberi (1827-1834)*, Iruñea, 1976, 344-346.or. Bidalpena Albani-ri (Madrid, 1827-X-24).

keta eta kristau-bizitzaren berritzea lortzera. Adibide argia dugu A. Jose Aresorengan.

Erlijosoen Ordenek urrats garrantzitsuak ematen zituzten barruko berrikuntzan eta espirituzko gainbeherakoa gainditzen...; dena dela, barruko zenbait zatiketa oraindik nabari ziren. Tiberi Nuntzioak egoera sozio-erlijiosoa nola zegoen adierazten du 1827an: Erljioak sustrai sakonak ditu herrian; erlijiosoak espiritu bikaina erakusten dute; apezpikuak, oro har, nahiko onak dira, baina apaiz soil eta herri txikietako apaizen artean ezjakintasuna nabarmena da³⁸⁶.

Karmeldar Teresiarren Ordenak arnasa hartu zuen 1823an erlijio-askatasuna berreskuratzean, eta Aita Jeneralak 1824ko otsailaren 14an Kapitulu Jenerala bildu ahal izan zuen Alcalá de Henares-en. Aita Andres Jesus Mariarena kataluniarra izan zen hautatua Jeneral berri, eta batzarkideek hiru urteko konstituzioaldian gainbehera egindako komentuetako bizitza bere onera ekartzeko neurriak hartu zituzten. Gazteen heziera izan zen batzarrak aparteko arretaz aztertu zuen arloetariko bat, bereziki nobizioen eta pofesa egin berrien maisuei horretara dei eginez.

Dena dela, 1824ko Definitorio Jeneraleko aktetan "Konstituzio-Sistemari atxikirik zeuden batzuei buruzko arazoak agertzen dira"³⁸⁷.

b. Probintzialaren Aholkulari karguan berri o

1824ko maiatzaren 8an Burgosen hasi zen Nafarroko San Joakin Probintziako kapituluan Frai Bartolome Probintzialaren 4. aholkulari hautatua izan zen. A. Bizente Santa Teresarena hautatu zuten Probintzial, lehenengo aholkulari Meltxor Hirutasunarena, bigarrena Santos San Domingorena, eta hirugarrena Jose San Bizenterena. Euskal Herriko Probintzia edo Nafarroako San Joakin, agintealdi honetan, 15 komentuz osatzen zen (Iruñea, Osma, Korella, Tutera, Peñaranda, Kalahorra, Burgos, Lerma, Logroño, Lazkano, Markina, Isla-ko Basamortua, Larrea, Balmaseda eta Alesbes. Prioretxe hauei Bilboko babes-etxea gehitu behar zaie), 339 erlijiosorekin (270 mezako, eta 67 ez-mezako)³⁸⁸; agintealdi honen hasieran, hau da, 1824ko maiatzean 14 komentu ziren eta 306 erlijioso³⁸⁹. Euskal probintzia hau zen ugariena Aragoi-Valentziarekin batera, batez ere apaizei dagokienez; Espainian karmeldarren 8 probintzia zeuden, guztiz 1592 erlijiosorekin.

Frai Bartolomek nola jokatu zuen jakiteko bi iturri ditugu: alde batetik Ordenako Konstituzioak, kontseilua haren esanetara baitabil, eta bestetik gordetzen diren Kontseiluko aktak eurak.

Konstituzioen arabera³⁹⁰, aholkularia, kargu horretan dagoen bitartean, ezin da izan priore edo etxe bateko nagusi. Kontseiluak urtean bi aldiz bildu behar zuen,

³⁸⁶ Ibid., 58-59. or. Della Somaglia-ri bidalia (Madrid, 1829-VIII-4).

³⁸⁷ MBN, esk. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales.*, 280, 285, 290, 297, 317...

³⁸⁸ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, folio ageno entre los ff. 461-462.

³⁸⁹ MBN, esk. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales.*, 332^a.

³⁹⁰ *Constitutiones...*, 272-279.or.

hau da, sei hilabeterik behin; zortzi egun irauten zuten bakoitzean. Hartarako arrazoirik izanez gero, Probintzialak hiru urteko agintealdian zehar beste bi aldiz bil zezakeen. Zortzi eguneko kontseilu horretan egunero bilera bat gutxienez egin ohi zen bi ordukoa; eskuarki bi bilera izan ohi ziren, bata goizean eta bestea arratsaldean. Hark zituen eskumenen artean, filosofia eta teologiako irakasleak, ikasleen maisuak eta hauen laguntzaileak, etxe bakoitzeko predikariak etab. izendatzea zegoen.

Probintzialaren bi urteko agintealdi honetan bost aldiz bildu zen Probintziako Kontseilua. Ikus ditzagun aztertu ziren gaietariko batzuk, Frai Bartolomek bi urte hauetan zertan jardun zuen ohartzeko.

Lehenengo kontseilua Burgosko komentuko bibliotekan izan zen 1824ko maiatzaren 15etik ekainaren 5era. 16 bilera egin zituzten³⁹¹. Hainbat txosten aztertu ziren; haietariko bat Soriako karmeldar lekaimeena zen, eta beste hainbat fraide karmeldarrenak, zehazki esanda, Gregorio J.M.J.renak, Benito Karmelekoak, Joan Gurutzekoak, Agustin San Migelenak, Paulo San Bernardorenak..., anaia Ildefonso San Joserenak igorriak. Komentuetako nagusiak eta predikariak izendatu ziren, baita filosofia eta teologiako irakasleak, ikasleen maisuak etab. ere. Definidore Jeneral berria ere hautatu zuten, kargu horretarako Markos Santa Teresarena izendaturik. Bigarren bileran Bilbon beste etxe bat eraikitzea komeni zen ala ez aztertu zen Probintziak hiri hartan zuen lekuan... Aktak kontseiluko bost batzarkideek sinaturik daude, haien artean Frai Bartolome Santa Teresarena ere agertzen dela.

Bigarren kontseilua 1824ko azaroaren 3tik 12ra bitartean egin zen. Larreako³⁹² komentuko biblioteka izan zen 10 bilera hauek egiteko tokia. Burgos eta Kalahorrako lekaimeen txostenak irakurri eta aztertu ziren, baita Korella, Markina, Basamortu, Larrea, Lazkao, Alesbesko karmeldarrenak... eta beste fraide batzuenak ere. Baina guztien artean hiru gai hauek azpimarratuko genituzke: Hiru urteko konstituzioaldiaren ondoren komentuak Ordenako goi nagusirik gabe eta apezpikuaren menpean gelditu ziren. Garai latz horretan komentuek ahal zuten bezala aurre egin zioten gainera etorri zitzaizen ekaitzari; baina orain Probintzialak lehenengo erlijio-bizitza eredugarria itzultzeko gogoia berotu nahi zien erlijiosoei, eta zehazki, gauerdiko maitinak berriro ezartzeko, arauak agintzen zuten; eta aholkulariek "gai interesgarri hau"³⁹³ erabili zuten. Beste gai garrantzitsu bat ere izan zuten: hain egoera negargarrian³⁹⁴ zegoen "Balmasedako Komunitatea berriro ezartzekoa". Markos Santa Teresarena, Definidore Jeneralak egindako eskabidea ere aztertu zen; Probintziako Kontseiluak *Catecismo de los Realistas o el Pueblo Español instruido en sus deberes religiosos y políticos* burutxoa argitaratzeko gastuak ordain zitzakeen galdetzen zuen hark; batzarrak pozik onartu zuen eskabide hau ("se accedió gustoso a esta solicitud"³⁹⁵).

³⁹¹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 301-320.or.

³⁹² BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 320-343.or.

³⁹³ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 336.or.

³⁹⁴ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 338, 341-342.or.

³⁹⁵ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 333.or.

Hirugarren definitorioa 1825eko maiatzaren 4tik 11ra bitartean izan zen. Hamar bilerak egin ziren tokia Markinako Karmengo komentuko biblioteka izan zen³⁹⁶. Erabili zen lehenengo gaia, garrantzitsuena eta luzeen aztertu zena Balmasedako karmeldar komunitatea berrezartzearena izan zen. Lehen hiru bilerak horretan joan ziren: “hondaturik zegoen Balmasedako³⁹⁷ komentua berriro eraikitzeko arazo garrantzitsu eta korapilatsuaren harian”. Honela berriro heldu zioten Larrean izan zen aurreko definitorian hasitakoari; hainbat idazki eta txosten aurkeztu eta aztertu ziren; batzorde bat eratu zen asmo horretan aurrera egiteko. Hurrengo bileretan komentu eta erlijioso batzuen idazkiak aztertu ziren. Eta pozik ikusi izan zen komentu-bizitzako hainbat gauza, esaterako maitinak gauerdian erreztatzea, bere onerantz zihoazela...

1825eko azaroaren 3tik 10era bitartean izan zen laugarren definitorio probintziala; zortzi bilerak Burgos de Osmako³⁹⁸ karmeldarren komentuko bibliotekan egin ziren. Definitorio honetan ere gai nagusia “Balmaseda hiriko gure komentua- ren berreraikitzearen arazo guztiz garrantzitsua izan zen”; dokumentu berriak aztertu ziren, gutunak eta Balmasedako udalak eta karmeldarren batzordeak egindako hainbat txosten eta Madrilen zegoen Ordenako Kontseilu Jeneralari honako hau eskatzea erabaki zen: “se dignase aprobar y confirmar por su parte lo convenido por los RR.Comisionados de S.R^a y los Señores Cosmionados de Ayuntamiento con las nuevas explicaciones de nuestro V^e Definitori Provincial”³⁹⁹. Hurrengo bileretan komentuetatik eta erlijioso banakoengandik jasotako idazkiak aztertu ziren, eta izendapen batzuk egin. Probintzialari ere pozik entzun zitzaion komentu batzuetara egindako bisitaren ondorioak eman zituenean: komentuko bizitzak, erlijio- betekizunetan, erlijiosoen arteko bake eta batasunean, zahar eta gaixoekiko maitasunean aurrerakada handia egin zuela.

Azkenengo kontseilua, bosgarrena, Iruñeko komentuko bibliotekan izan zen 1826ko apirilaren 7tik 14ra bitartean; hamar bilera egin ziren⁴⁰⁰. Kontseiluak komentuetako hainbat agiri eta txosten aztertu zituen, baina azpimarragarriena Santanderko apezpikuaren txosten luze baten irakurketa izan zen, “Balmasedako Komentua- ren berrezartzeari buruz hark erregearen aginduz Valladolid-eko Kantzelaritzako Zuzendari jaunarentzat egina”.

Hauek dira 1824tik 1826ra bitartean Frai Bartolomek izan zituen eginkizun ofizialak. Hala ere ia ez dakigu ezer ere haren bizitzaz. Nekez jakin ahal izan dugu urte hauetan non bizi izan zen ere. Sestaoko Basamortuan izan zen profesa bateko zeremonian ageri da Frai Bartolome eta agiri horretan Burgosko komentuan zegoela eta hango komentukoa zela esaten da. Lino Akesolok dioenez, beharbada, han eman ohi ziren moraleko eta zuzenbide kanonikoko irakasle ere izango zen

³⁹⁶ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 344-364.or.

³⁹⁷ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 344-352.or.

³⁹⁸ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 365-383.or.

³⁹⁹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 367-370.or.

⁴⁰⁰ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 384-395.or.

("probablemente regentaba también alguna lectoria en los cursos de Moral y cánones que allí se daban"⁴⁰¹).

11. SANTANDERKO APEZPIKU-JAUREGIAN, APEZPIKUAREN AITOR-ENTZULE ETIA AHOLKULARI (1827-1829)

Santanderren bizi izandako urte hauen ezaugarritzat han izan zituen bi ekintza hartuko genituzke: hiriko apezpikuari buruz buru zerbitzatzea alde batetik, eta euskarari buruzko lan batzuk egitea bestetik.

a. Santanderko apezpikutegian izan zuen ekintza

Santanderko Elizbarrutia berriki sortua zen, 1754. urtean. 1819ko otsailaren 21ean Juan Nepomuceno Gómez Durán izan zen Santanderko apezpiku izendatua; Toledoko Val de Santo Domingo-ko semea zen, bertako Santa Katalina seminarioan ikasketak egina. Haren apezpikualdiko lehen urteak konstituzio garaiko hiru urteei dagozkien garai sozio-politiko zailak ziren; garai horretan ezagutu zuen Frai Bartolome. Gorago ikusi dugu Basamortuko prioreak eta apezpikuak izan zuten jokaera, haien arteko gutun-harremana, biek elkarturik Isla-ko komentua salbatzearen egindako lana.

Orduan harri eta zur gelditu zen apezpikua euskaldun predikari ospetsuaren giza mailaz, haren nortasun intelektual eta espiritualaz. Isla-ko prioretza 1824ko apirilean bukatu, Frai Bartolome Probintzialaren aholkulari izan zen hautatua gorago ikusi dugunez, Burgosen egoitza izanik. Aholkulari izan zen bi urte hauetan (1824-1826) ere, apezpikuak harremanak izan zituen Euskal Herriko Definitorio Probintzialarekin, hain zuzen ere, Balmasedako komentuen berriztatze-arazo garrantzitsua zela eta. Eta aholkulari izatea bukatu zuenean, Santanderko apezpikuak, hain gizon prestua beragandik hurbil izan nahirik, goi-nagusiekin ahaleginak egiten ditu Frai Bartolome bere aholkulari eta aitor-entzule gisa Santanderko apezpiku-jauregian bizi dadin; eta baita lortu ere.

Tamalgarría da garai honetako dokumentazioa galdu izana, jakina denez, 1941eko sute handian Santanderko apezpikutegiko artxiboa suntsitu baitzen. Ziur aski izango ziren han Frai Bartolome paperak edota berari buruzkoak, bi edo hiru urte bizi izan baitzen apezpiku-jauregian, apezpikuaren zerbitzura, haren aholkulari eta aitor-entzule gisa. Horregatik ezin ezer esan Frai Bartolomek apezpikutegian izan zuen ekintzaz..., ez baitugu beste inolako iturririk Santanderren bizi izandako urte hauen berri eman diezagukeenik.

⁴⁰¹ Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I, 347.

Garai honetan ez ditu ahanzten bere anaia Joseren komunitateko, Lazkaoko komentuko, premiak, eta ahal zuen laguntzatxoa bidali ohi zion noizbehinka, eskupeko eta meza-diru gisa⁴⁰².

b. Euskal kulturazko ekintza

Hala ere euskal kulturaren garai honetan egin zuen lanaren berri badakigu zer bait, Markinako bere adiskideari, bera bezala idazle zen Joan Jose Mogeli egin ohi zizkion gutun luzeetatik, hain zuzen ere.. Honek bi liburutzotan argitaratu zituen.

1828an argitaratutako *Plauto Bascongado*, 125 orrialdeko liburutzoa Frai Bartolomek 1827an Santanderren idatziriko lau gutunez osatzen da. Gutun hauek ekainaren 14, uztailearen 12, abuztuaren 10 eta abuztuaren 30eko data dute hurrenez hurren. "Argitaratzailearen oharrean", Joan Josek garbi aitortzen du gutun hauek adiskide baten eskabideari erantzunez idatzi zirela ("las cuatro cartas escritas con esta ocasión a súplicas de un amigo suyo"). Adiskide hau argitaratzailea da, hau da, Joan Jose Mogel. Honek zenbait galdera eta zalantza agertzen zizkion, eta euskara eta Euskal Herriari zegokien hainbat gairi buruz bere iritzia eskatzen zion Frai Bartolomeri. Lan honen muina, euskararen bidez, Plautoren iragan ilun eta korapilatsua, Lino Akesolok dioskunez "tormento de filólogos y orientalistas"⁴⁰³ argitzea.

Ez zen, hala ere, Frai Bartoloren asmoa aipaturiko gaiei eta euskarari buruzko gutun haiek argitara eman zitezen, J.J.Mogel bere adiskide eta ikasleak egin zue- nez; honen gogoia zein zen jakinik, hau idazten dio Bartolomek: "Para qué quiere V., que mis borrones vayan a la prensa y que se ría el público a mi costa? Poco favor me hace V. en esto, sobre ser inútil, y escusado. Yo le he comunicado a V. mis pensamientos, por habérmelos pedido V. con ocasion de los dichosos versos de Plauto. Empeñé aquel trabajo a ruegos de los amigos. Y su consecuencia han sido las tres cartas que le he escrito á V. Pero no son mas, que una cifra mal formada de lo mucho, que ofrece la materia para ilustrar más sus objetos. Ninguna utilidad veo en su publicación. A no ser el texto de Plauto en bascuence y castellano, y la primera carta que le escribí a V. con la exposición de los motivos de mi trabajo. El contenido de la segunda radicalmente está en la primera. El de la tercera puede V. comunicar a su amigo, futuro traductor de la Gramática vasca de M^r Lécuse, y no hay necesidad de más"⁴⁰⁴.

Argitalpen honen ondorioak zirela-eta, hauxe diotso Anti-Plautoan: "Es verdad que ambos estabamos a la espera, hacía ya tiempo, de alguna cosa de provecho sobre los diez versos de *Plauto Bascongado* e *Impugnacion* del Manual basco por

⁴⁰² GKPA, Libro de Recibo de este conv^o de Car^{as} Descalzos de Lazcano, comienza año 1814, 1812ko azaroa, 1929ko maiatza...

⁴⁰³ Akesolo, Lino, *Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongado* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 323-338).

⁴⁰⁴ *Plauto Bascongado*, 123-124. or.

los grandes campaneos que habían precedido a cerca de esto. En especial el Señor Cónsul deseaba mucho, y desea, que algún Savio basco trate y examine el *púnico* basco de Plauto para en su vista corregir y retificar o corroborar con mayores fundamentos sus laboriosas tareas de la interesante y casi concluida obra que tienen inmediata relación con el lenguaje púnico de Plauto y con el basco, y darla a luz con la posible perfección. El Señor Cónsul no tiene aún el placer de ver cumplidos sus estudiosos deseos. Nosotros ya hemos visto lo que nos dicen. V. repara en ellos, en qué pararon las fiestas. No le dije a V. que no diera a la prensa mis borrones? Lo mismo que si yo hubiera adivinado”⁴⁰⁵.

Plauto Bascongado argitaratzeak beste idazle batzuen erantzuna eragin zuen, esaterako, M^r Fleury Lécuse idazlearena (*Plauto Poligloto*, 1828), eta, era berean, honi ihardestera dator Frai Bartolomeren *Anti-Plauto Poligloto*.

c. Málaga-ra

Juan Apezpikua 1829ko uztailaren 27an Málaga-ko apezpiku izendatua izan zen eta urte bereko azaroaren 17an hartu zuen kargua. Eta egun batzuk lehenago, azaroaren 11n, Probintziako Definitorioan Frai Bartolomeren txosten bat irakurri zen. Honela dator akta-liburuan: “se leía un memorial del R.P.Fr. Bartolomé de Santa Teresa, confesor y consultor del S^{or} Ill^{mo} De Málaga en que pedía el pase al V^e. Definitorio de Provincia para poder permanecer en el Palacio de su Ill^{ma}”. Eta jarraian hauxe dator: “El V^e Definitorio de la Provincia de Navarra deseoso de complacer al S^{or} Obispo nuestro particular bienhechor dio muy gustoso el pase por votos secretos”⁴⁰⁶.

Hortaz, Frai Bartolome Málaga-rantz abiatu zen, eman zioten egiteko hori betetzeko. Ez dakigu zenbat denboran egongo zen han. Ziur aski urtebete edo igaro ondoren, alde egingo zuen Málaga-tik, Juan Nepomuceno apezpikua 1830eko irailaren 30ean hil baitzen⁴⁰⁷.

12. LAZKAON, NOBIZIOEN MAISU (1832), BERE HERIOTZARARTE (1835-XII-11)

1830-1831 urteei dagokienez, hau da, 1830eko irailaren 30ean hil zen Málaga-ko apezpikuaren aitor-entzule eta aholkulari izateari utzi zionez gero, ez dakigu ia ezer ere haren bizitzaz.

⁴⁰⁵ *Anti-Plauto Poligloto*, 3-4.or.

⁴⁰⁶ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 483.or.

⁴⁰⁷ Beste datu bat ere aztertu beharrekoa da: 1830eko apirilaren 30ean bildu zen azkenengoz Espainiako Kongregazioko Kapitulu Jenerala Pastranan, nagusi jeneralak izendatze-ko; eta hautatu ziren definidore jeneralen izenen artean Fr. Bartolomé de Santa Teresa dator “y entre los definidores generales salió por toda la Orden, Fr. Bartolomé de Santa Teresa, maestro de novicios en Madrid” (SILVERIO DE S. TERESA, *Historia del Carmen Descalzo...* XIII, 113-114); baina ziur asko Bartolome hau ez da gure euskalduna.

Hain zuzen ere lan edo kargu berezirik gabe gelditu zelako, lehenxeago esan dugunez, Frai Bartolome, idazteko oraindik adin onean 53 urte zituela, idazki bat bidali zuen Probintziako Definitoria idazle-agiria eskatzen, 1831ko azaroaren 14an irakurri zelarik. Definitorioak baietza eman zion, baina Frai Bartolomek gobernurako gaitasuna erakutsi zuen eta idale-agiri hori indarrik gabe gera zitekeela adierazi zioten, hurrengo kapitulu probintzian priorre hautatua izango balitz⁴⁰⁸.

Kapitulua 1832ko maiatzean egin zen. Frai Bartolome ez zen priorre hautatua izan, baina lehen definitorio probintzialak Lazkaoko nobizioen maisu izendatu zuen 1832ko uztailaren 7an⁴⁰⁹. Ez dakigu ordurako Lazkaoko komentukoa zen ala ez.

Nobizioen maisu izateak hartara buru-belarri emanda egotea eskatzen zuen. Kargu honekin osatzen da hark aurretik Ordena barruan eta Ordenatik kanpo izan zituen ofizio eta karguen zerrenda: Predikari, idazle, priorre, ahokulari probintzial, Santanderko Apezpikuaren aholkulari eta aitor-entzule, (agian Burgosen irakasle ere bai), eta orain, bere bizitzan izan zuen azkenengo kargua, nobizioen maisuarena.

Nobizioen maisu kargua oso kontuzkoa eta estimatua izan ohi da eta hori betetzeko pertsonak arreta handiz hautatzen dira. Konstituzioek bi kapitulu eskaintzen dizkiote gai honi; bata nobizio korukoei eta bestea ez-korukoei⁴¹⁰. Nobizioen maisuak espiritu, debozio, jakinduria, zentzu on eta Konstituzioek eskatzen duten beste dohain batzuek ongi horniturikoa izan behar du; hau da, noiz eta norekin den kontuan izanik, leun nahiz zorrotz jokatzeko dakiene; pertsonen gaitasunak eza gutzen dituen; komunitateko ekintzetan tertzioz esku hartzen duena; nobizioei hitzez soilik ez, bere bizitzaz ere irakasten diena. Nobizioen maisuaren eginkizun garrantzitsu hau bi partez osatzen dela esan genezake: Ordenako bizitza eta tradizioei buruzko irakaspena alde batetik eta zuzendaritza espiritual bestetik...

Lazkaoko nobiziatuko abitu-hartzeko aktetatik atera dezakegunez, Frai Bartolomek lan handia izan zuen nobizioekin, hauek asko zirelako batez ere. Frai Bartolomek kargu berri horri ekin zioenean, 1832ko uztailan edo, 13 nobizio zituen bere ardurapean. Abuztuan nobizio gazteen onarpen-agiriak sinatzen hasten da. 13 nobizio koruko ziren. Eta geroago, 1832ko urte berean eta 1833an zehar beste 33 nobizio koruko hartu zituen. 46 gazte hauetatik 28 bizkaitarrak ziren, 6 gipuzkoarrak, 5 arabarrak, 3 nafarrak, eta 4 Burgosko elizbarrutikoak⁴¹¹...

Nobizio ez-korukoei dagokienez, bi urte egin behar zituzten hauek nobiziatuan⁴¹², eta goian aipaturiko irakaspenaz gain, oinarritzko gaiak eman ohi zizkien:

⁴⁰⁸ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 525.or.

⁴⁰⁹ BAS, esk. 194, *Libro del Definitorio...*, 71, 82.or.

⁴¹⁰ *Constitutiones...*, 104-114, 115-119.

⁴¹¹ GKPA, *Este Libro de Aprobaciones... Lazcano* 81-128.or. 81.orrialdetik 129.era artekoak, osorik edo zati batez nobizioen maisuak, Frai Bartolomek, idatziak dira.

⁴¹² *Constitutiones...*, 115.

nobizioen maisua, maitasun eta ardura handiz, kristau-ikasbidea eta Jainkoaren Legeko Aginduak, sakramentuak hartzea eta gainerako ekintza espiritualak..., eta bokazioaren esanahia⁴¹³ behin eta berriro haiei buruan sartzen saiatzen zen. Frai Bartolomek bi nobizio ez-koruko izan zituen soilik⁴¹⁴.

Lazkaoko Karmelen nabari zen bokazioen loratzea harrigarria zen, gobernua-
ren jarrera antikerikalaren eraginez etenda gelditu zena. 1832ko uztailen 13 nobi-
zio ziren jadanik, eta urte bereko ondorengo hilabeteetan beste 11 gazte sartu
ziren; 1833an Frai Bartolomek beste 23 gazte hartu zituen; 1834an, ordea, ez zuen
bat ere hartu eta 1835ean bat hartu zuen anaia ez-koruko izateko. 1833an gober-
nua erlijioaren aurkako jarrera erakusten hasi zen, eta gainera karlista gerratearen
hasierak ziren. 1834ko urtarrileko gobernu espainiar berria erlijioaren aurkako neu-
rriak hartzen hasi zen... komentuak itxi eta desamortizaziora eramango zutenak ...

Haren 48 nobizioen artean, historian zehar izan zuen garrantziagatik, bat aipa-
tuko genuke, Lazkaoko semea bera: Manuel Santa Teresarena⁴¹⁵; honek, ikasle zela,
esklaustrazioaren ondorioak jasan behar izan zituen; Frantziara joan zen, eta han-
dik berriro itzuliko zen 1867. urtean eta beste euskaldun batzuekin batera karmel-
darren eraberritze edo errestaurazioari emango zion hasiera Markinako Karmengo
komentuan (1868ko uztailen); gero, Markinatik zabaldu zen berriro Karmeldarren
Ordena Euskal Herrira, Espainiara, Indiara, Ameriketara, etab.⁴¹⁶

Lazkaon utzi zuen lekukotasunari dagokionez, haietariko bat 1832ko uztailaren
7an⁴¹⁷ nobizioen maisu gisa ematen duen sinadura da. Eta azkenengoz, 1835eko
abuztuaren 12an agertzen da sinatzen⁴¹⁸. Hain zuzen ere Frai Bartolome nobizioen
maisua zela eta aurreko hileetan hainbeste nobizio sartu zirelako, Bartolomek akta
ugari idatzi behar izan zituen: abitu-hartzeen eta onarpenen liburuan 50 bat orrial-
de idatzi zituen; profesetako aktetan beste 45 orrialde...

⁴¹³ *Constitutiones...*, 115.

⁴¹⁴ GKPA, *Este Libro de Aprobaciones... Lazcano* 116, 129.or.

⁴¹⁵ GKPA, *Este Libro de Aprobaciones... Lazcano* 108.or. Frai Bartolomek idatzi zuen
1833ko urtarrilaren 24an izan zen Manuelen abitu-hartzearen akta; Manuel Antonio Santa
Teresarena hartu zuen izena, 15 urte, 9 hilabete eta egun bat zituela (haren gurasoak Ignacio
Elosegi eta Ana Maria Alvisu ziren).

⁴¹⁶ Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea -
Zornotza, 1992, 122-241.

⁴¹⁷ GKPA, *Este Libro de Aprobaciones... Lazcano* 71.or. 88. folioan, 1831-VIII-30ko
datatz, profesatza bat dator, akta Frai Bartolomek bere eskuz idatzia izanik; baina oker egon
behar du, 1832-VI-18ko datan oraindik nobizioen maisu A. Leon S. Tirsorena baitzen.

⁴¹⁸ GKPA, *Este Libro de Aprobaciones... Lazcano* 129.or. Hala ere hiru hilabete geroa-
go, onarpenetako aktetan, bere azken nobizio Jose San Joakinenaren bigarren onarpenean,
Bartolomek ezin izan zuen esku hartu gaixorik zegoelako, eta Frai Jose Karmelekoak sina-
tu zuen haren ordeaz. Eta gauza bitxia! nobizio honen hirugarren onarpena, 1836ko otsaila-
ren 12an, nobizioen maisu berria zenez gero, Bartolomeren anaiak, Jose San Migelenak sina-
tu zuen.

Baina hilabete lehenagoko eta geroagoko beste agirietan ere agertzen da haren sinadura: 1832ko ekainean eta 1835eko urrian (ziur asko azaroan sinatua)⁴¹⁹.

Garai honetako gauza jakingarria, azken urte hauek bere anaia Joseren ondoran bizi izana da. Lehenago esanda utzi dugunez, Josek ia apaiz erlijioso bizitza osoa Lazkaon igaro zuen; izatez 1808tik geroko guztia... Jose San Migelena ez zen soilik Lazkaoko priore izan (1820-1820), hain zuzen ere, Frai Bartolome Markinako priore zen garai berean, baizik eta Frai Bartolome hara joan orduko, Jose Lazkaoko nobizioen maisu zen (1824-1826), eta Bartolome Lazkaora iristen denean, honen anaia komunitateko prioreordea zen ((1829-1832)...

Eta Bartolomeraren bizitzako azken hilabeteetan, beraren anaia arduratzen zen hartaz; horrela, Frai Bartolomek hartzen zituen botiken gastuak sinatzen ageri zaigu.

Uda ondoren Bartolome gaixorik dugu, ziur asko buruko atakeak jota, hil aurreko azken hilabeteetan erdi elbarriturik baitzen. Ongi dator gogoratzea pixka bat lehenago, maiatzaren 5ean, beraren arreba Teresa hil zela Markinan 57 urte egin gabe; Bartolome 67 urte laster betetzeko zela hil zen.

Lazkaoko Kartularioak haren gaixotasun eta heriotzaren berri zehatza ematen digu. 1835eko abenduaren 11n hil zen arratsaldeko 4 t´erdietan. Testuaren garrantzi handiagatik, osorik agertuko dugu:

“El día 11 de diciembre de 1835 en entre las cuatro y media de la tarde murió en este convento y santo noviciado el P. Maestro de novicios Fr. Bartolo[mé] de Santa Teresa de perlesía, que después de haverle molestado por espacio de un mes, al cabo [le privó *idazten du beste esku batek*] de la vida, en todo el tiempo de su enfermedad sufrió con mucha paciencia y conformidad en la voluntad divina, y dio muestras de verdadero Carmelita Descalzo en los años que vivió. Fue Prior en el convento de Marquina y en el Santo Desierto y a más fue definidor de Provincia y últimamente maestro de novicios. Recibió muy a tiempo los santos sacramentos de penitencia, viático y extrema unción, el de la penitencia repetidas veces, y fue asistido de la comunidad en su última hora. Era natural de la villa de Marquina [*beste esku batek*Echevarria *jartzen du lerro artean*], Señorío de Vizcaia y obispado de Calahorra. Tenía de edad 67 y de religión 44 años. Su cuerpo está enterrado en la sepultura nº 9, separada de las antiguas”⁴²⁰.

⁴¹⁹ GKPA, Lazkaoko *Libro de Recibo* eta *Libro de Gastos* Lazkaoko beste eskuizkribu batean ere, urriko mezen kontuetan sinatzen du, ziur asko azaroan (BAS, 189).

⁴²⁰ GKPA, *Libro de la fundación deste Convento... de Lazcana*, 76^a.

II. EUSKARAZKO IDAZLANAK - SERMOIGINTZA ITURRIAK

Frai Bartolomek bere liburuak argitaratzean, euskal idazle gisa bere maila agertzen digu. Eta guri orain argitalpen hauek aztertzea eta deskribatzea dagokigu, historia laburra eginez, edukia deskribatuz eta haren idazkien jatorri eta zergatia emanez. Hauek, bere muinean hitzaldiak edo sermoiak dira, hau da, helburu kateketikoa zuten, garai hartan hain beharrezko eta onartua zena.

Liburu hauei dagokienez, eskuizkribuak non gordetzen diren eta batez ere hark erabili zituen iturriak aipatuko ditugu...

1. ARGITARATUTAKO IDAZLANAK

Lau dira Frai Bartolomek argitaratutako euskal liburuak, *idazle klasiko* izena merezi izaterainoko ospea eman diotenak. Guk argitaratu ziren ordenan aztertuko ditugu; beharbada, bat etorriko dira idatzi ziren ordena eta argitaratu zirenekoa, *Icasiquizunac* saileko lehenengo liburukia eta *Euscal-errijetaco olgueeta* garai berean edo bateratsu idatziak direla badirudi ere, hau da, 1806-1807. urteetan gutxi gorabehera. Baina ez ditugu liburutan argitaratutako haren idazkiak soilik aintzat hartuko, baita disketetan egindako argitalpenak eta, argitaratzeko asmoz prestatua izan arren, horretarako zoririk izan ez zuen lan handi bat ere...

A) *Euscal-errijetaco olgueeta*

Hau da Frai Bartolomeren libururik aipatuena eta ezagunena, eta haren lan guztietarik argitalpenik gehien izan dituen, agian garrantzitsuena izan ez arren... Egileak 1816. urtean argitaratu zuen.

1. *Lehen argitalpena: 1816an*

“*Euscal-errijetaco / olgueeta, ta dantzeen / neurrizco-gatz-ozpinduba / Aita Prai Bartolome / Santa Teresa, / Marquinaco Carmen / Ortozeco / Predicadoriac pretauba. / ——— / Iruñean. Joaquin Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan. / Biar dan ondo izatiagaz. / 1816 urtian.*”, 208 orr., 13'5 x 0'9 cm (azala: 14 x 10 cm).

Liburua, “Jesus-Cristo gueure Jaun Curutzian josijari” (3-6.orr.) izeneko eskaintzarekin hasten da; horren ondoren bost orrialde datoz sarrera gisa. Bost kapitulu-

tan banatua dago liburua: 1) “Olguetiaren gainian”. Kapituluak hiru artikulua hartzen ditu (11-26. orr.). 2) Bigarren kapituluak, era berean bi artikulua hartzen dituenak, “Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau” (20-43.orr.) du izenburua. 3) Hirugarren kapituluak aurreko bien ondorioa bezala da, eta “Amajja” izenburua jartzeko dio. Euskal Herriko jaiak nola egin ohi ziren azaltzen digu eta liburu santuen eta teologiaren ikuspegitik haien izaera morala aztertzen du; lau artikulutan banatua dago (43-104.orr.). 4) Laugarren kapituluak honako izenburua du: “Erromedijen, Biguiren, ta Saraubeen gainian”, eta hiru artikulua ditu (105-132.orr.). 5) Bosgarren eta azken kapituluak da guztietarik luzeena: “Dantzeen pavoreco errazoiac ta erantzunac”; zortzi artikulua hartzen ditu (133-207.orr.). Eta 208. orrialdea inprimategiko huts batzuk agerian jartzera dator: “Uts-eguiteen ezauberia”.


Liburu hau noiz idatzia den zehatz-mehatz ez dakigu; argibide urri batzuk ditugu soilik nahiko hurbileko datara eraman gaitzaketenak. Gorago adierazi dugu nola Probintziako Definitorioak, Frai Bartolomek zentsoreen oharrei erantzun ondoren, 1816ko maiatzaren 20an baimena eman zuen dantzei buruzko liburua inprimatzeko (“dio la licencia de impresión del libro sobre los Bayles del País”⁴²¹). Eta urte horretan bertan argitaratu zen. Hala ere, lana jadanik idatzirik eta argitaratzeko prest zegoen 1807. urterako. Nondik dakigun hori? *Icasiquizunac* saileko lehen liburukiari dagokion Frai Bartolomeren eskuizkribu eder eta originalean, *Euscal-errijetaco olgueeta* liburuxoaren aipamen jakingarri bat aurkitzen dugulako; honek dio: “Au aguinduten deutseezu ceuben umiai piestara, erromedijara, saraura, comedijara edo biguirara aguinduten deutseezun guztian. Gauza onen gañian icutsi dot, cerbait gueijago escribiduta gueure eusqueeran, arguitara etarateco ustiagaz, ta an topauco davee gueijago, nai daveenac”⁴²². *Icasiquizunac* saileko eskuizkribu honek, letra garbiz idatzia eta dirudienez inprimategirako prestatuturik zenak, 1807ko data darama. Honen zirriborroa, ziur aski, 1806rako idatzirik izango zen, eta *Euscal-errijetaco olgueeta* ere bai, agian.

— *Eskuizkribuak eta 1816ko argitaraldia*

Bartolomek eskuz idatzirik egindako lehen hitzalditik hasi, eta 1816ko argitalpena arteko bidea luzea izan zen. Bide horretan, gutxienez, hiru edo lau eskuizkribu izango ziren: a. Hasieran, hitzaldi banaka batzuk. b. Geroago, Bartolomek eskuizkribu osoa idatzi behar izan zuen Ordenako nagusientzat eta zentsoreentzat. c. Hurrengo, Ordenako Nagusiak argitaratzeko baimena emango dio Bartolomeri, baina era berean zentsoreen zuzenketak liburuan sartzeko aginduko dio; beraz, honek berriro idatzi beharko zuen. d. Eta, azkenik, inprimategirako kaligrafia onean kopiatuko zuen, *Icasiquizunac* liburua kasuan egindakoaren antzera.

⁴²¹ MBN, esk. 1650: *Libro de los Difinitorios Generales...*,4.or.

⁴²² MHA, (Biblioteca) R./2549, BARTOLOME S^{ta} TERESA, *Jaungoicuaren legueco lelenga...*, 253-254.or.



*Euscal-errijetaco... liburuaren portada,
bere tamaina naturalean*

Uste dut beste eskuizkriburen bat ere idatziko zuela... Luzaro eduki zuen lana idatzirik, argitaratu orduko. Liburu hau argitaratu 1816an egin zen, baina ziur aski 1806rako eginik izango zuen. *Icasiquizunac* saileko lehen liburuaren eskuizkribuan (1807, 253, 254 orr.), argitaratzeko prest zuela “piesta”, erromeria eta abarreko gaiak dituen lana esaten digu. Hau da, ziur aski, *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburua.

Horrela, Bartolomek, gutxienez, bost idazketa egingo zituela dirudi 1816ko behin betiko argitalpena burutu orduko: a. Hitzaldi banaka batzuk. b. Liburuaren eskuizkribu autografoa (c. 1806). c. Lan osoaren 2. idazketa (1816). d. Inprimategirako jatorrizko kopia (1816). e. 1816ko argitaraldia.

2. *Beste argitalpenak*

Liburu honen beste lau argitalpen ditugu; bereziki azken bi hamarkadetan hiru egin direla gogorarazi nahi dugu. Hemen, nolabait “facsimil” dei genezakeen argitalpenaren aipamen laburra baizik ez dugu egingo; Lur Argitaletxeak argitaratu zuen Donostian, 1978an, *Hordago* argitalpenen bilduman (Euskal klasikoak, 2). Baina kontuan hartzekoa da liburuaren neurriak ez direla originalarenak, hainbat handiagoak baizik⁴²³.

a. 1904ko (1914ko) argitalpena. E.S. Dodgson

“*Euscal-errijetaco / olgueeta, ta dantzeen / neurrizco-gatz-ozpinduba / Aita Frai Bartolome / Santa Teresa, / Marquinaco Carmen / Ortozeco / Predicadoriac prestatu - ba. / ——— / Iruñean. Joaquin Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan. / Biar dan ondo izatiagaz. / 1816 urtian.*”, [Dodgson-en argitalpena (A. Kanpionen oharrekin). Iruñea, 1904, 219 orr., 140 x 0’95 mm (azala: 14’5 x 10’2 cm)].

Testua, orrialde, tamaina eta abarri dagokionez, Frai Bartolomek 1816an egingdakoaren antz-antzekoa da, hau da, 207 orrialdetan dator, baina gero “uts-eguiteen ezauberia” eransten dio, 1816ko argitalpenekoa baino askoz luzeagoa, 208. orrialdetik 213. erainokoa hartzen duela; horren ondoren, ohar bibliografikoa dator (214-217), Arturo Kanpion-en esker onezko testuaz buruturik eta 1904ko azaroaren 6an Iruñean sinaturik. Eta azken orrialdean [219] lau lerro daude inprimategiko hutsekin.

Baina bada hemen gauza bitxi samar bat: 218. eta [219.] orrialdeen artean beste orri bat dago aurrealdetik soilik idatzia eta orrialde-zenbakirik gabe; hemen inpri-

⁴²³ Horregatik lehen argitalpena eskura ez izatearen ondorioz, huts egin liteke liburuaren neurriak ematerakoan, eta 1978ko edizio honen neurriak (20’5 x 14 cm) eman, lehen argitalpenekoarenak eman beharrean, Xabier Altzibarri gertatu zaionez. Xabier ALTZIBAR, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbao, 1992, 78.or.

mategiko beste huts batzuk datoz, eta honako izenburu hau darama: “CORRIGENDA en la edición impresa en 1904 y publicada en 20 de Mayo de 1914”. Dirudienez, 1914ko orri inprimatu hau 1904ko argitalpenean tartekatu zen, gainerako orriekin batera josia balego bezala, bertan itsatsirik. Baina dirudienez, liburua (edo haren parte handi bat) 1914an “argitaratu zen”, horrela jartzen baitu paper morezko azalean, portadakoaren izenburu berditsuaren ondoren honako hau erantsirik: “Durangon / Federico Soloaga-ren sillutokijan / 1914 urtian”. 1904an inprimatu eta 1914an saldu eta argitaratu ote zen? Ez da hain erraza arazoa; hau litekeena da, baina oztopo batekin aurkitzen gara argitalpen hau ulertu ahal izateko: gehitutako orrialdean [219] 152. orrialdeari dagokion zuzenketa egin ondoren, hitz hauek datoz: “en algunos exemplares”. Baina nola izan liteke 1904ko (1914ko) testuan ale batzuk besteetatik desberdinak izatea? Edota, agian, 1904an argitaratzean ale bana-ka batzuk banatuko ziren, eta 1914an zenbait zuzenketa erantsirik salmentarako behin betiko argitalpena inprimatuko zen?

Dodgson-en testua nahiko ona da, baina ondorengo argitaratzaileek ez zioten behar adinako garrantzirik eman. Haren testua aski zehatza da. Transkripzioa pixka bat gaurkotua dago, hau da, puntuazio-markak aldatzen ditu pixka bat, garaiko usadioaren arabera hitzak elkarturik zein bereiz jartzen ditu, letra batzuk ere aldatzen edo bere garaiko erara ematen ditu, esaterako, *b* jartzen du Frai Bartolomek erabiltzen duen *v* letraren ordez. Inprimategiko huts batzuk ere zuzentzen ditu, batzuetan huts berriak eginez oker zuzentzen badu ere ...

Dodgson-ek goi-mailako argitalpena egiteko uzirik ez bazuen ere..., lan ona burutu zuen. Eta 1986an eta 1987an edizio “kritikotzat” agertu ziren biek oinarriko akats bat izan dute: Dodgson-en edizio hau kontuan hartu ez izatearena.

b. Facsimila

Geroago beste argitaraldi bat agertu zen, hainbatean 1816koaren kopia izanik “faksimila” deitu daitekeena. Lur argitaletxeak 1978an, Donostian, Hordago (Euskal klasikoak, 2) sortan (20'5 x 14 cm) argitara emana. Hala ere, argitalpen hau 1816ko lehen argitalpenarekin bat ez datorrelako -neurri handiagoak ditunahasteak sortu dira, geroxeago, 1986ko eta 1987ko argitalpenekin konparatzean ikusiko dugunez.

c. 1986.eko edizioa. L.M. Mujika.

Euscal-errijetaco olgüeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba ..., Bilbao, 1986, 197 orr. (Edizio kritikoa: Luis Maria Mujika). (Colección Euskararen lekukoak-12).

L.M. Mujikaren argitalpen honek historia gorabeheratsua izan du. Lehenengo eta behin, liburua argitaratu aurretik sarreraren parte handi bat “Anuario del Seminario Julio de Urquijo”n argitaratu zuen 1983. urtean *“Euscal -errijetaco olgüeta -*

ta...” *obraren azterketa fonetiko*” (215-262.orr.) izenburuaz. Eta liburuaz laster agertzeko zela, Blanca Urgel-ek kritika zorrotza egin zion L.M. Mujikaren⁴²⁴ artikuluari. Hor ageri denez, Mujikak ez zituen Frai Bartolomereren hainbat hitz ulertu, ez eta Karmeldarraren hizkuntzaren fonetika-muina behar bezala jaso ere... Dena dela, liburuaren sarrerako ikerketa asko hobetu zen, hain zuzen ere, Luis Baraiazarrak⁴²⁵ egindako ohar ugariengatik. Hala ere liburuak, “edizio kritikoa” kalifikazioaz agerturik gainera, ez zuen bizkaieran ongi jantziak direnen oniritziarik jaso; hala nabari da aipaturiko Blanca Urgel-en artikulua bukaeran, Alfonso Irigoienek⁴²⁶ lerro bakanetan eta bereziki zehatzago aztertzen duen Lino Akesoloren⁴²⁷ artikuluan, edizioa “tamalgarrizat” hartzen baitu. Kontuan hartu behar da Luis Baraiazarrak sarrera ukitu edo zuzendu zuela soilik, eta ez Bartolomereren testua bera, ez eta Mujikak jarritako orri barreneko oharra ere; eta, hain zuzen ere, bi atal hauetan ageri dira batez ere hutsak...

Guk ez ditugu egin diren hutsak hemen ezarriko, hori argi eta garbi agertuko baita Frai Bartolomereren testuari erantsiko diogun aparatua kritikoa. Guri orain dagokiguna, argitaratzaileak zer asmo duen, nola gauzatzen duen eta zer metodo darabilen oharraraztea da.. Argitaratzaileak bere liburuaz “edizio kritikotzat” hartzeak, hitz horrek adierazten duen guztia bete nahi duela esan nahi du. Baina liburu honi ezin diezaiokegu “edizio kritikoa” dei, ez baititu horretarako funtsezko diren baldintzak betetzen bere hiru ataletako batean ere: ez sarreran, ez liburuaren muinean, hots, Bartolomereren testuan, eta ez ezarri beharko zizkion aurkibideetan ere...

Sarreran bete-bete sartu da ikerketa linguistikoa, bidezko denez, baina edizio kritikoa on bat izatekotan, beste arlo batzuk ere ikertu beharra dago. Testuari dagokionez, edizio kritikoa arauak ez dakizkiela dirudi, testuan zuzendurik eman eta aparatua kritikoa edo oharretan inprimategiko nahiz Bartolome beraren hutsa seinatu beharrean, alderantziz egiten baitu, hots, testuan seinatu hutsa eta oharretan zuzendu...; testuan ez ditu kontuan hartzen Frai Bartolomek berak egindako zuzenketak ere, 1816ko argitalpenean azkenengo orrialdean datozenak. Batzuetan gaizki zuzentzen du; beste batzuetan testuan zuzentzen du, baina gero oharretan ez du azaltzen; behin baino gehiagotan lehen argitaraldiko hutsak errepikatzen ditu etab.

⁴²⁴ *Frai Bartolomereren hiztegiak zertxobait: L.M. Mujikaren “Euscal Errijetaco Olgeeta...obraren azterketa fonetiko”ren inguruan*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XX-3 (1986) 857-866.

⁴²⁵ Luis Baraiazarra-ri Euskaltzanditok etorri zitzaion sarrerako testua orrazteko eta aztertzeko eskaera, eta 43 orrialdeko lan batean bete zuen egiteko hori; paper hauek L.M.Mujikaren eskuetara iritsi ziren, hark liburuaz ohar batean esker ona agertuz (13.or.).

⁴²⁶ *Aita Prai Bartolome eta bere olgeta ta dantzez egin berri edizioa*, in: *De Re Philologica Linguae Uasconicae*, II, Bilbao, 1987, 239-241.

⁴²⁷ *Aita Bartolome Santa Teresa: Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa)*, Karmel 1987-1, 77-82. (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 350-354).

Dena dela, L.M.Mujikak egindako ahalegina eskertzekoa da; eta liburuari “edizio kritikoa” etiketa jarri ez balio eta Frai Bartolomeren hizkuntza ulertzean hainbat huts saihestu izan balitu, liburu ontzat izango genuke.

d. 1987ko edizioa. P. Altuna.

Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba (1816) . Bilbao (Universidad de Deusto), 1987. (Edizio kritikoa: P.Altuna), 126 orr.

Altunak aurkeztutako testua Mujikarena baino hobeki zaindua da... Liburu honen agerpenak bide eman zion Alfonso Irigoieni iruzkin labur-labur bat egiteko. Lantxo horretan, Altunak aldatzen edota zuzentzen dituen Frai Bartolomeren forma batzuk azpimarratzen dira, iruzkingilearen iritziz inondik inora ere aldatu behar ez zirenak⁴²⁸.

Hala ere Mujikaren edizioaz esan duguna bera esan behar dugu Altunaren edizio honetaz ere: argitaratzaileak bere liburua “edizio kritikotzat” jotzen duenean, edozein edizio kritikok eskatzen dituen arauak bete beharra du. Honek, ordea, ez ditu betetzen beharrezko arau horiek hiru ataletariko batean ere: ez sarreran, ez liburuaren muinean, hots, Bartolomeren testuan, ez eta aurkibideetan ere...

Mujikaren edizioaz esan dugunez, honetan ere, bidezko denez, hizkuntz arloari garrantzi handi-handia ematen zaio, baina edizio kritikoa izateko behar-beharrezko diren beste hainbat arlo baztertzen dira. Sarrera oso urria da, hizkuntz-forma batzuk besterik azaltzen ez dituenak. Harritzekoa da Dodgson-en edizioaz inolako aipamenik ez agertzea, hura hainbat kasutan lagungarri gerta baitzitzaiokeen...

Transkripzio-metodoari dagokionez, Dodgson-ek egin zuenez, grafia, puntuazio-markak etab. pixka bat oraingo erara jartzen ditu; hori egitea bidezko da eta edizio kritikoa bat datorrena... Ezin onartuzkoa dena argitaratzaileak egile den Frai Bartolomeren ohar guztiak baztertzea da, egileak bere argudio-hariaren bermagarritzat jartzen dituenak hain zuzen.

Testuan Altunak inprimategiko hainbat huts zuzendu ditu, baina berak ere egin ditu beste batzuk, eta beste batzuetan gaizki zuzentzen du, *Euscal-errijetako...* liburutxo honi dagokion aparatua kritikoa ikus dezakegunez.

Altunak eranskin labur batekin burutzen du bere argitalpena, *Liburuko adiz - kien zerrenda* izenburutzat duela. Eranskinean beste hainbat sail falta dira, esaterako, izenen aurkibidea, tokiena etab.

Ageri denez, Altunaren ardura ia linguistikoa da soilik; bidezkoa eta aintzat hartzekoa bestalde, “edizio kritikoa” delako etiketa jarri ez balio. Testu nahiko ona aurkeztu du, eta euskal hizkuntzako unibertsitateko ikasleentzat prestatua dela dirudi.

⁴²⁸ *Aita Prai Bartolome II*, in: *De Re Philologica Linguae Uasconicae*, II, Bilbao, 1987, 243-245.

e.) Aita Lon Arteaga

Frai Bartolomez aditua den hau geroago aipatuko badugu ere, orain Aita Lonek Frai Bartolomeren lan hau ere argitaratzeko prest zuela adierazi behar dugu. Eskuizkribu horri honako izenburu hau jarri zion: “*Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Madariaga Garate’ren / Idazlanak / (1768-1835) / GER TATZAILLE: ARTEA - GA’TAR LON, K.O. Jakina, Euscal errijetaco olgueeta...* 1986an (L.M. Mujikak) eta 1987an (P. Altunak) argitaratzerakoan ez zuten Aita Lonen eskuizkribu horren berri-rik izan.

f) Euskarri informatikoetako testuak: EJIÉ - Josu Lavin

Ezin ditugu ahaztu, era berean, gero ikusiko dugunez, hain eragin handia izan duten beste argitaraldi batzuk (testu informatizatuak, edo testu konputerizatuak).

a) Lehenengo eta behin, Euskaltzaindiak daukan EJIÉren (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte) testua. Iruñea, 1816 (de. facsímil, San Sebastián 1978). P. Altunaren 1987ko argitalpena ere, Bibon eginikoa, erabili dutela adierazten da. Ez du testu osoa ematen; hizkuntzari dagokionez bai, baina latinezko aipamenak eta beste xehetasun txiki batzuk falta dira; bestalde, idazkera modernoan jasota dago.

b) Josu Lavin jaunak 1995ean disketean “argitaratu” zuen kopia; oso zehatza da. Geroago aztertuko dugu testu hori, L.M. Mujikaren argitaraldiari dagozkion zerak argitzerakoan.

3. **Edizioen arteko menpekotasuna**a. *E.S. Dodgson*

Argi dago Dodgson-en edizioak 1816koaren berdina izan nahi zuela; bai neurrietan eta bai orrialde bakoitzaren edukietan bat datoz... Hala ere bien artean badi-
tuzte desberdintasunak, zuzenketak, hutsak etab.

b. *Josu Lavin - L.M. Mujika eta faksimila.*

Josu Lavinek Bartolomeren liburua euskarri informatikoan argitaratu zuen 1995an, eta L.M. Mujikak bere “edizio kritikoa” 1986an. “Faksimila”, ordea, 1978an argitaratu zen. Hiruren artean oso-osoko menpekotasuna ageri da.

1) Hasteko, Josu Lavinek bere lanerako “faksimila” erabili zuela, eta ez 1816ko liburu originala esan behar dugu. Hau, J. Lavinek jasotzen dituen faksimileko akats txiki bitan ageri zaigu:

aa. 59. orrialdean, 10. lerroan “darjola” (horrela jaso dute L.M. Mujikak eta J. Lavinek) irakurtzen da, faksimilean *dar* eta *jola* artean tarte txiki bat ageri den arren. Hala ere, 1816ko jatorrizkoan *darjola* ageri da, *i* beste letrak baino motela-

go inprimaturik ageri bada ere. Dodgsonen argitaraldira begiratu balute, *darjola* hitza argiro inprimaturik aurkituko zuketena.

bb. Antzeko zerbait, baina oraingoan alderantziz: 77. orrialdean, 14. lerroan *alabao* "ageri" da (hala dakarte Mujikak eta Lavinek). Hala ere, jatorrizko testuan *alabac* ageri da, nahiz eta *c* gainean orbantxo bat duela agertu; faksimilak, behar den gardentasunez egina ez izatean, *c* hori *o* bihurtu zuen. Kasu honetan ere Dodgsonen zuzen dakar: *alabac*.

2) Mujikak eta Lavinek eskaintako testuak aztertu ondoren, honako hau esan daiteke: bete-beteko menpekotasuna ageri da bi hauen artean; argi eta garbi esan dezakegu bata bestearen iturri dela edota biak informatizatutako beste testu bakar batetik jasoak izan direla; baina jakin dugunez, Lavinek Mujikagandik jaso zuen testua eta hobetzen asko saiatu zen.

Hori, batez ere, nabariago ageri da biek dituzten hutsetan, biek huts berdinak baitituzte. Esaterako, Lavinen hutsak (bere gogoz kontra 1816ko testutik aldenduz) Mujikaren testuan ageri dira. Huts batzuk jasotzen ditugu jarraian: (aipatzen diren orrialdeak jatorrizko 1816ko testuari dagozkionak dira):

- 5. or.: laarregui (Lavin+Mujika: laarregi)
- 12: ta (L+M: to)
- 12: Eleisa (L+M: Elesia)
- 21: pozgarrijac (L+M: pozgarrijaz)
- 24: ta (L+M: ta)
- 28: Erreguia (L+M: Erregina)
- 29: diversisinoia [diversinoia] (L+M: diversisinoia)
- 33: *Dantziaren* gainian (L+M: Dantziaren)
- 33: gainian (L+M: *ez-aip.*)
- 33: baino (L+M: bano)
- 53: bein (L+M: bien)
- 59: darjola (L+M: darjola)
- 61: zorzigarren (L+M: zotzigarren)
- 65: Icusten da (L+M: Icusten an)
- 66: edu (L+M: edo)
- 78: loreen lecuban calva gorrija (L+M: *Bartolomeren testuari gehitua*)
- 87: Aguitari [aguintari] (L+M: Aguintari)
- 88: aldejetacuac [aldijetacuac] (L+M: aldejetacuac)
- 99: emacumeai, (L+M: emacumeai.),
- 103: pecatubeetati (L+M: pecatubeetari)
- 106: icentau (L+M: incentau)
- 110: baten (L+M: batan)
- 110: eehe (L+M: eeche),
- 112: ta (L+M: to)
- 120-121: ezainac (L+M: zainac),

- 130: cegaz (L+M: cergaz)
- 140: galduba (L+M: galduta)
- 142: Apostolubac (L+M: Apostulubac),
- 144: Eleisaan (L+M: Eleissan),
- 149: deutsee (L+M: deutsee.)
- 153: Juaten (L+M: juanen),
- 154: da (L+M: ba),
- 155: *ezagaz*. (L+M: *ezagaz*),
- 157: albadai (L+M: albadiz),
- 163: eguiten (L+M: egiten)
- 167: ezdala (L+M: ez dala), etab.
- 169: izan (L+M: iza)
- 183: eguin (L+M: *ez-aip*.)
- 190: Santuban (L+M: Santubac)
- 195: ezcutubeetan (L+M: ezcutubeeran)

c. *Altunaren testua*

Patxi Altunak beste “edizio kritiko” bat argitaratu zuen 1987an; hau ere ez da kritiko-kritikoa; eskolan erabiltzeko testu on bat baizik ez da; itxura denez, L.M. Mujikak bere argitaraldia 1986an argitaratu zueneko, Altunak prestatua zuen lan hau.

Jarraian, zehatzak ez diren Altunaren gauzatxo batzuk edota ohartu gabe Bartolomeri egindako zuzenketak (oharretan, beste kasu batzuetan bezala, jakinarazi gabeak) ekarriko ditugu, testua nondik hartu zuen edota nondik transkribatu zuen jakinarazteko.

Beraz, hurrengo lerroetan, Altunak, beste batzuetan egin izan duenez, “oharretan ezer adierazi gabe” eginiko zuzenketen (edo berak egindako hutsen) zerrenda jarriko dugu; batzuk ongi zuzendurik daude, baina beste batzuk ez; Bartolomek, zuzen nahiz oker, baina horrela idatzi zuela testua jakinarazteko jasotzen ditugu; dena dela, zerrenda honen arrazoi nagusia Altunak erabilitako testua zein izan zen jakinaraztea da.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu ez direla hemen jasotzen, Altunak oharretan gaizki azaldurik dakartzan hitz edo esakuneak; ez dira kontuan hartuko hitzen artean egindako banatze eta lotze batzuk, ez eta puntuazio-markei dagozkien zerak eta abar ere.

- 8.or: estalguijagaz (Altuna: estalquijagaz),
- 13: olguetiaren (A: olgueetiaren),
- 14: obligacinoiai (A: obligacinoai),
- 17: diversinojac (A: diversinoiac),
- 21: lecuban (A: lecuan),
- 22: viotzeco (A: vijotzeco),


- 26: olgüetiaren (A: olgüetiaren),
 29: diversisinoia, (A: diversinoia; y Mujikak ere berdin),
 35: Israel (A: Israel),
 37: babacocharentzat, (A: bacocharentzat; Mujikak ere berdin)
 47: tanbolinagaz (A: tambolinagaz),
 48: endamas (A: endemas),
 49: *Altunak ia orrialde osoa kentzen du: eta ongi deritzogu horri, errakuntzaz aurreko orrialdea bi aldiz datorrelako, baina ez du kendu duenik esaten .*
 60: baño (A: baino),
 60: Conpesore (A: compesore),
 61: piestiari (A. piestari),
 61: gueratuteco (A: gueratutaco),
 73: bidian (A: bidean),
 86: Virgineen (A: Virginen),
 87: ordenaac (A: ordenac),
 92: Com. (A: Caomp.),
 92: choreo as (A: choeas),
 92: Bendicto (A: Benedicto),
 102: egninac (A: eguinac, Mujikak ere berdin),
 102: omoten (A: emoten),
 106: Errijetaco (A: errijeetaco),
 108: badau (A: bada),
 111: ezpada (A: ezpada),
 112: to (A: ta),
 123: gustoz (A: guztöz),
 126: orreec (A: orrec),
 132: XiV (A: XIV, Mujikak ere berdin),
 135: icentauta (A: incentauta),
 139: daviltz (A: davilz, Mujikak ere berdin),
 149: chaarrian (A: charrian),
 152: Castigubaren (A: Castiguaren),
 154: ez arren (A: ez arren, Mujikak ere berdin).
 170: Santubaren, (A-n falta da),
 174: ézdala (A: ez dala),
 180: lò (A: lo),
 182: sentiduten (A: santiduten),
 186: lò (A: lo),

Zerrenda hau egin, eta akats batzuetan Mujikaren testuarekin bat datorrela ikusten da. Baina ezin dugu ziurtasun osoz atera Altunak nondik hartu zuen bere testua; 1816ko testua nahiz faksimila erabil zezakeen. Bada faksimila erabiliko zuela pentsarazten duen arrazoirik, baina baita kontrakoa pentsaraztera eraman gaitzakeen ere. Esaterako, 139. orrialdeko 9. lerroan daviltz ageri da; hala ere,

Altunak (baita faksimilari jarraitzen dion Mujikak ere) davilz dakar; baliteke faksimilari jarraitu izatea, 1816ko argitaraldian argi ageri den daviltz formaren t, faksimilean nekez irakurtzen baita; beharbada, hortik izango da biek t galduz davilz erabiltzea.

d. *Eskema eta ondorioak*

Argitaraldien, hau da, testuaren azterketa historiko labur honen eta haien artean izandako menpekotasun eta erlazioen ondorio gisa, hurrengo eskema hau aurrez dezakegu:



B) Icasiquizunac

Hiru liburukitan dagoen obra handi hau da Frai Bartolomeren lanik garrantzitsuena. Apaiz gazte zela idatzitako lana da gehien bat, hau da, 35-38 urte zituela, Markinako Karmengo komentuan predikari ofizial zen lehen urteetan egindakoa. Ez ditugu bere eskuz idatziriko eskuizkribuak ezagutzen, baina lehen liburukiaren eskuizkribua bai gordetzen da eta hortik dakigu obra hori bere fase ezberdinetan hainbat aldiz idatzia izan zela: lehenbizi Bartolomek zirriborroa idazten zuen; gero garbian idatziko zuen; horren ondoren besteren batek idazten zuen letra garbiz inprimategirako; idazketa hau egileak berak osatzen zuen bere eskuz, eta azkenez liburua argitaratzen zen guk ezagutzen dugun eran. Dena dela, bidea luzeago ere izan zitekeen, *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian ikus daitekeenez.

1. Liburukia

“ + / *Jaungoicoaren / amar aguindubeetaco / lelengo bosteen / icasiquizunac, / aita prai Bartolome Santa / Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco / Predicatoriac ateraac. / I. Zatiija / —/ Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1816 Urtean.*” X - 278 -32 orr., 18'5 x 12'7 cm (pasta:19 x 13'5 cm).

Lehen liburuki honetaz ari garela, bereiz hitz egin behar dugu argitaratutako liburukiaz eta liburuki honi dagokion Frai Bartolomeren eskuizkribu originalaz, baina lehenago idatzia denaz.

Argitaratutako liburukia mandamentuka sailkaturik dago, eta obra osoa “Icasiquizunac” deituriko kapituluka, baina kontuan izan behar da aurkibide orokorreko zenbaketa ez datorrela bat testuaren zenbaketarekin... Eskaintzaren ondoren (*Eusqueera errijeetaco eleisa-guizonai*, III-v.orr.) eta *Iracurliari* (VI-X.orr.), eta sarrerako hiru hitzaldi-sermoiren (1-38.orr.) ondoren, lehenengo mandamentua dator zazpi ikasikizunetan (39-106.orr.); bigarren mandamentua, lau ikasikizunetan (106-150 orr.); hirugarrena, hirutan (151-186 orr.); laugarrena, lautan (186-231 orr.); eta bosgarrena, lau ikasikizunetan (232-278 orr.). Eta liburuari sermoi bat erantsi zaio amaieran orrialde-zenbaketa bereziarekin (*Sermoia gurasuen ta umeen one-raco*, 1-30 orr.) eta aurkibidea (*Topa-lecuba*, 31-32 orr.), honen orrialdeak eta liburuko ikasikizunenak bat ez datozela. Aurkibidean orrialde-zenbaketak jarraitu egiten du; liburuan zehar, ordea, mandamentu bakoitzak bere zenbaketa berezia du batetik hasita, lehenengo mandamentuan izan ezik. Aurkibidearen amaieran, 32. orrialdean bertan, lerro batzuk gehitzen dira liburua hutsak zuzentzeko.

Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen den eskuizkribua (M) (9 / 2549) argitaratutako *Icasiquizunac* I liburukia baino lehenago idatzia da:

“ + / *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguin / duben ogueta bost Lecinoe, ta sermoe / bat / Aita prai Bartolome § Teresa Marquinaco / Carmen oinustuco /*



Jamponuaren lequico letergo bat Aguin-
duben ogueta bat Lecinoe, ta Seanoe

bat

Aitu Frai Bartolome ^{Sa. Teresa} Marguibraco

Caamen oinustuco

predicadoriac etaxaco.

Mandamentuberz

I Partia.

1807. Ultiarz.

predicatoriac etaraac. / Mandamentuben / I. Partia. 1807. urtian". ([10] + 296 + [6 + 14] orrialde.

Eskuizkribua (21'6 x 15'5 cm), hariz josia, eta koloretako paperez azaleztatua da eta goialdean "9 / 2549" katalogo-zenbakia du. Azal honi itsatsirik folio bat dago. Lehenengo folioan antzinako katalogo-zenbakia dago soilik idatzita: "Est. 12 gr. 6^a n^o 370". Eskuizkribuaren bizkarrean ere "370" jartzen du.

Eskuizkribu hau, beroni dagokion *Icasiquizunac* saileko lehen liburua baino hamar bat urte lehenago idatzia da, eta idazketa bera ere desberdina da, bien arteko alde txikiak oso ugari direlarik... Izenburua pixka bat ezberdina da, sarrerak ezberdinak; sailkapena, ordea, ia berdina da, baina kapitulu bakoitzari *icasiquizu* -*na* deitu beharrean *lecinoia* deritzo eskuizkribuan; hemen laugarren mandamentuko laugarren *lecinoiaren* ondoren datorren sermoia, argitaratutakoan, liburuaren amaieran dator. Liburuan eta eskuizkribuan barrena, Bibliako aipamenak eta gainerako autoreenak pixka bat ezberdinak dira, eta batzuetan gehitu nahiz kendu egiten dira...

Eskuizkribu honetan Frai Bartolomek bere eskuz idatziriko testuak daude: izenburua dakarren orrialdea eta ondorengo sei orrialdeak (eskaintza eta hitzaurrea) oso-osoa bere eskuz idatziak dira; orrialde bakoitzeko idazpuruak ere gehienak autografoak dira, eta baita aurkibideak ere.

Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen den *Icasiquizunac* liburuki honen eskuizkribua, letra onez idatzia da, eta dirudienez inprimategirako prest-prest zegoen; 1807ko data du; baina, uste denez, Madrileko Ordenako nagusiei bidalia izan zen aztertzeko edo zentsurarako.

Baina nola agertu ote zen eskuizkribu hau Madrilen? Gaur egun, adierazi dugunez, Historiako Errege-Akademian dago, eta hona Madrileko Gorteetako Bibliotekako beste liburu askorekin batera etorri zen, eta hona, era berean, Madrileko Jesulagunen San Isidro Bibliotekatik. Hau da, Frai Bartolomeren eskuizkribu originala Madrileko Jesulagunetan zegoen. Zail egiten zaigu honen zergatia ulertzen. Susmo-izpi bat, ordea, badugu eta hauxe da: 1807 inguruan, Madrilen euskal gaietan aditua eta ospe handikoa zen jesulagunen bat izatea eta Karmeldarren Ordenako nagusiek eskuizkribua haren esku utzi izatea zentsurarako...



JAUNGOICOAREN

AMAR AGUINDUBEETACO

LELENGO BOSTEEN

ICASIQUIZUNAC,

LAITA PRAI BARTOLOME SANTA

Teresac Marquinaco Carmen Ortoseca

Predicadoriac ateraac.


I. ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ.

Iruñean: Rada Alarguaren Liburu-guillaan.
1816 Urtean.

Icas-Ien portada, tamaina naturalean



2. Liburukia

“ + / *Jaungoicuaren / amar aguidubeetaco / azqueneco bosteen / icasiquizu - nac, / aita prai Bartolome Santa / Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco / Predicadoriac ateraac. / II. Zatiija / — / Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1817 Urtean.*” IV - 301 orr., 18'5 x 12'5 cm (pasta:19 x 13'5 cm).

Bigarren liburuki hau, zatiketa eta estiloari dagokionez, lehenengoaren bide beretik doa. Sarrerako lau orrialdetan egindako eskaintzaren ondoren (*Iracurliari*, I-IV.orr.), seigarren mandamentua dakar bederatzi ikasikizunetan (3-95.orr.); zazpi-garren mandamentua sei ikasikizunetan darabil (96-158. orr.), zortzigarrena zazpi-tan (159-237. orr.) eta bederatzigarren eta hamargarren mandamentuak, biak bate-ra, lautan (238-282. orr.). Amaieran Santa Teresari buruzko sermoi bat eransten dio (*Ama santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia*, 283-298. orr.); eta honen ondoren, aurkibideko hiru orrialde datoz (*Topa-lecuba*, 299-301.orr.); eta azkenen-go orrialdean, 301.ean, 21 lerro datoz liburuko hutsak zuzentzeko.

✠

JAUNGOICUAREN
AMAR AGUINDUBEETACO
AZQUENECO BOSTEEN
ICASIQUIZUNAC,
'AITAPRAI BARTOLOME SANTA
Teresae Marquinaco Carmen Ortozeco

Predicatoriac aterag

IL ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ



Irtelean: Rada Argunaren Liburu-guillaan,
1817 Urtean.

Icas-Ilren portada, tamaina naturalean

Liburuki hau 18 erreal zela badakigu, Markinako Karmengo liburu batean honela jartzen baitu: “Este libro es de Josef Antonio Mariano de Ansotegui, vecino de la Anteyg^a de Zenarruza, resid^e en la villa de Motrico, compró en el conbento de los Carmelitas de Marquina, a 18^o cada tomo y es el seg^o. Año de 1818. Ansotegui”⁴²⁹.

3. Liburukia

“ + / *Eleisaco zazpi / sacramentuben / icasiquizunac, / aita prai Bartolome / Santa Teresac Marquinaco Carmen / Ortozeco / Prioriac ateraac. / III. Zatiya / — / Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1819 Urtean.*” VI - 376 orr., 20 x 14 cm (20'7 x15 cm).

Hirugarren liburuki hau Frai Bartolomeren sermoi eta hitzaldi kateketikoen jarraipena da. Hemen Elizako zazpi sakramentuen gaia darabil. Gaien banaketa kapitulu edo ikasikizunetan eta estiloa aurreko bi liburukietakoaren antzekoak dira. Baina oraingoan Kalahorrako bere apezpikuari, Atanasio Puyal eta Poveda-ri, egindako eskaintza gaztelaniaz dago (I-VI. orr.) eta 1819ko abuztuaren 13ko data du. Gaietan sartu orduko, sakramentuei buruzko kapitulu bat dakar (3-13.orr.). Bataioko sakramentua zazpi ikasikizunetan dakar (14-84.orr.); sendotzakoa, ikasikizun bakarrean (84-96.orr.); penitentziako sakramentua zortzitan (96-184.orr.); Eukaristiakoa, zazpitan (184-259.orr.); oliadura, bitan (260-280.orr.); apaizgintzako sakramentua, hirutan (280-310.orr.); eta ezkontzako sakramentua zazpi ikasikizunetan (311-376.orr.). Azkenik, lau orrialde datoz aurkibidearekin (*Topa-lecuba*, 377-380.orr.); eta azken orrialdean, 380.ean, 16 lerro eransten dira liburuaren hutsak zuzentzeko.

Icasiquizunac liburukien sorrera:

Icasiquizunac liburukien sorrera garai hartako giro sozio-erlijiosoan jarri behar da, katekesi ekintza pil-pil baitzen orduan eta horren nahia ere biziki sentitzen baitzen euskaldunen artean.

Hasierako eragina Trentoko Kontzilioaren erabakitik zetorren batez ere, kristau-ikasbide bat⁴³⁰ egiteko gomendioa eman baitzuen; era berean Eskritura Santuko katedrak sortzeko agintzen zuen; apezpikuei Ebanjelioa predikatzeko zeregina ematen zien edota predikari hautatu eta horretarako gai zirenen bidez⁴³¹ bete zeza-tela eginkizun hori... Kalahorrako apezpiku batzuek bene-benetan hartu zuten eginkizun hori, eta katekesi arazo horretaz kezkatu, kristau-dotrinak argitaratze-

⁴²⁹ Markinako Karmeldarren biblioteka, 1-M / 43-f.


⁴³⁰ *El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento* (traducido al idioma castellano por Don Ignacio Lopez de Ayala)...Madrid, 1785, 567.or.

⁴³¹ *El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento...* Madrid, 1785,52-57.or

✠

ELEISACO ZAZPI
 SACRAMENTUBEN
ICASIQUIZUNAC,
AITA PRAI BARTOLOME
Santa Teresac Marquinaco Carmen
Ortoceco Prioriac ateraac.

III. ZATIJA.



BIKAR TAN ONDO TZATYAGAZ.

Institucian: Rada Alargunaren liburuguiñaan.
 1819 Urtean.

Icas-IIIren portada, tamaina naturalean

ko agindua eman zuten... baita euskaraz argitaratzeko ere⁴³². Frai Bartolomeren garaian bertan kristau-dotrinek jaiki handia zuten, lehenago ikusi dugunez. Eta berak ere gogotsu esku hartu zuen kristau euskaldunen artean katekesi lana egiten, eta gainera oso arrakastatsu jardun zuen horretan, apezpikuak berak 1818ko urtarrilaren 8an Frai Bartolomeren hitzaldi kateketikoak pulpituetatik⁴³³ irakurtzeko gomendioa egin baitzuen.

C) *Sermoiak*

1. *Sermolari*

Frai Bartolomeren bizitzako jarduera nagusienetarikoa sermolaritza izan zen, eta horretatik, hots, gorde izan diren bere sermoi edo hitzaldietatik egin da entzute handiko historian zehar, euskal idazle gisa batez ere.

Benetan sermolari handia izan zen euskaraz, baina baita gaztelaniaz ere; hala erakusten du ondorengo gertakari honek: behin gizon talde handi bat, 50 edo 60, armak hartzeko eta altxamendurako prest zeudela, hitzaldi sutsu bat eginda, burutik kendu zien asmo hori, bake-bakean etxera joan zirelarik... 1821eko gabonetan izan zen, hura Isla-ko Basamortuko (Sestao)⁴³⁴ priore zela.

Frai Bartolomeren idazkiak batez ere hiltzaldiak dira, hau da, entzutekoak. Hau oso garrantzitsua da. Hori kontuan izanik hobeki azter daitezke haren idazki edo hitzaldiak.

Lehenago, haren bizitza kontatzean ikusi dugu haren sermolari-alderdi hori. Dirudienez, Madarigatarrek odoletik dute predikari edo hizlari izateko ezpal ona, Frai Bartolome soilik ez baitzen sermolari bikaina, baita honen anaia Jose San Migelena eta iloba Jose San Antoniorena ere, hirurak karmeldarrak.

⁴³² Honela, adibidez, On Pedro Mansok agindu hau eman zuen 1600ean: "Y porque es conveniente, que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impressa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Estatuimos, y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros Sucesores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según el uso de las dichas Provincias, para que los Curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia: porque Nos así lo avemos comenzado a hazer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance. Dase forma de como se han de hazer los Catecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas" (*Constituciones Synodales antiguas, y modernas del obispado de Calahorra, y la Calzada ...*, Madrid, 1700, 126. or.). 1603, 1616, 1620, 1634, 1698, 1742, 1769. urteetan etab. ere ekintza kateketikoa egoera onean nabari da Bizkaian, euskarazkoa batez ere, Kalahorrako apezpikuen *Ad limina* kontaketetatik atera daitekeenez...

⁴³³ KEA, Logroño idatzitako gutuna.

⁴³⁴ HAKA, E-I-32, 1822-XI-6.

Frai Bartolomek lan eskerga izan zuen sermolari gisa; hori garbi ikusten dugu ez haren liburuetan eta emaitza ederretan soilik, baita hainbeste lekutan izan zituen sermoiei buruzko albisteetan ere.

a. Predikari-ofizioa Ordena barruan

Frai Bartolomek hainbat urtetan izan zuen predikari-ofizioa; Ordena barruan kargu ofiziala zen; hau da, karmeldarren komunitate bakoitzak bere predikari ofiziala izan ohi zuen; batzuetan bi ere bai. Izatez, XIX. mendeko lehen 17 urteak izan ziren, 1817ra arte, urte horretan izan baitzen hautatua Markinako Karmengo priore. Hala ere, noizbehinka, sermoiak egiten jarraitu zuen, batez ere komentutik kanpo...

Karmeldar Teresiarren Ordenako legeak agintzen zuenez⁴³⁵, predikariak ordu erdi hitz egin behar zion herriari urteko igande arratsaldeetan, kristau-dotrinaren azalpena emanez. Horrez gain, komentuko elizan predikatu behar zuen ondorengo jai hauetan: Karmengo Amaren egunez, San Jose, San Elias, Santa Teresa eta San Joan Gurutzeakoaren egunez...

b. Albiste batzuk

Komentuko elizan egin zituen sermoiez gain, Frai Bartolome herri eta hiri askotan izana da sermolari, bere garaiko ezagunenetarikoa izatera iritsiz.

Hark egindako hainbeste sermoitatik, banaka batzuen albiste zuzena dugu soilik: Isla-n (Sestao), Markina-Xemeinen, Etxebarrian, Abadinon, Fikan, Lekeition... egindakoak

2. Gorde diren eta galdu diren sermoiak

Frai Bartolomek egundoko lana egin zuen katekesi arloan eta sermoigintzan, baina guztiotatik berak argitaraturiko liburuak baizik ez dira gorde...

Baina gogoan izan behar dugu *Icasiquizunac* saileko hiru liburukiez gain, Frai Bartolomek beste bi liburuki zituela prestatu, hau da, *Kredoari* buruzko hitzaldiak, eta batez be beste bat sermoiena⁴³⁶; hau 1807rako prest zeukan.

Hainbeste sermoitatik bi besterik ez dira gorde. Ikasikizunetako lehen bi liburukietan Frai Bartolomek argitaratu zituenak: bata, lehen liburukiaren amaieran 1-30 or. (eskuizkribuan: 239-262. orr.), eta bestea, bigarren liburukiaren 283-298. orr.

Baina iaz, 1999. urtean, aurkitu da sermoi bat. Inon izatekotan, Donostiako Elizbarrutiko artxiboan izan litezkeelako susmoa hartu genuen, eta han jardun genuen bila eta bila. Bartolomeren anaiaren eta iloben idazki batzuk bai, baina

⁴³⁵ *Constitutiones...*, 163-165.

⁴³⁶ MHA, 9/2549, [V^a-V].orr.

Bartolome berarenik ez genuen aurkitu, nahiz eta sermoi asko gainetik ikusi... Hala ere, zorionez, orain dela gutxi (1999ko martxoan edo) Fidel Altuna ikertzaile gazteak, sermoi askoren artean, Frai Bartolomeren sermoi autografo bat aurkitu zuen.

Galera handia. Galerarik handienetarikoa inprimatzeko prest zuen sermoinen liburukiarena zen... *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian datorrena, prestatuturik zituen sermoinen ale edo lagin bat besterik ez da...

Gorde diren sermoietatik, bata honako hau da: "Sermoi gurasuen ta umeen oneraco" (*Icasiquisunac*, I. liburuaaren amaieran, 1-30.or.), eta bestea: "Ama Santa Teresa Jesusenaren ondrarako ondo esatia" (*Icasiquisunac*, II. liburuaaren amaieran, 283-298.or.).

- "**Sermoi gurasuen, ta umeen oneraco**"

30 orrialdeko sermoi hau, argitaratzeko asmotan zen sermoi-bildumakoen antzeko ale bat dugu...

Sermoi hau, garai hartan ohi zenez, Bibliako testu batekin hasten da (latinez dago, euskarazko itzulpenarekin): *Curva cervicem eius...* (Eccl. 30, 12). Lehen atalean seme-alaben heziera onaren beharraz eta horretarako nahitaezko den doktrinaz dihardu, Bibliako aipamenekin eta autore jentil-latindarren lekukotasunekin eta Eskritura Santuaren adierazle bikain batekin (Cornelio a Lapide)... Hurrengo, ohiko Agur Maria dator. Horren ondoren, azalpen luze bat egiten du, heziera ona eman beharraz; haur eta gazteak garaiz hartu behar direla, haiei ohitura onak irakatsiz, seme-alaben eta gurasoen onerako. Azalpena estilo bizi-bizi eta ikusgarrian dago, adibide praktiko eta zehatzekin ongi lotuz; ironia, berriz, egundoko idarrez erabiltzen daki... Seme-alabeei buruz gurasoei egindako galderei erantzunez doa, bana-banaka: 1. Cer esan deutseezu? 2. Cer eracutsi... 3. Cer agundu...4. Cer parcatu... 5. Cer entzun... 6. Cer icutsi... Azalpena hain bizia da, non ez baita erraz ikara egin gabe irakurtzea. Gorde izan den eskuizkribu originalean, sermoia, liburuan ez datozen eta sermoiazen laburpen antzera den ahapaldi honekin bukatzen da:

Gurasuac jaquin biar davee,
chit ondo daveela merecidu,
umiac gaisqui azi ezquero,
isilic egon, ta padecidu.

Sermoi honen iturri nagusia, lehenengo partean batez ere, Frai Bartolomek aipatzen duen autore da: Cornelius a Lapide, *Commentaria in Ecclesiasticum, indicibus necessariis illustrata* (Lugduni, 1732). Lebitarren liburuko lehen 30 txatalen iruzkinetik hartzen du (508-514.or.). Hain zuzen ere orrialde hauetan ditugu Bibliako aipamen batzuek gain, Frai Bartolomek bere testuan aipatzen dituen autoreen lekukotasuna: Platon, Aristoteles, Plutarko, Zizeron etab. Hemendik ateratzen denez, Frai Bartolome Cornelio a Lapide-ren orrialde hauetaz baliatu zen, honen liburu handiak oraindik Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen direlarik.

- **“Ama Santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia”**

Santa Teresari buruz egindako 16 orrialdeko sermoi honen estilo, egitura eta iturriez aurreko sermoiaz esan dugunaren antzekoa esan beharko genuke.

Sermoi hau, ohi denez, Bibliako testu batekin hasten da (latinezko testua, euskarazko itzulpenarekin): *Mulierem fortem quis inveniet?* (Prov. 31, 10). Sermoi honetan, aipamen guztiak, Cornelio a Lapide-rena⁴³⁷ izan ezik, Bibliakoak dira: Itun Zaharrekoak eta San Paulorenak.

Esan dugunez, aurreko sermoiaren antzeko estiloa du. Edukia: 1. Teresaren pentsamendu handiak, goi-goikoak, santuak... 2. Haren maitasun-garra, haren egintza handiak, eragozpen guztiak gorabehera: haren handitasuna.

Maria Virginiaren jaijotzia

Donostiako Elizbarrutiko artxiboan dago Frai Bartolomeren sermoi autografo hau, euskarazko sermoien kutxa batean. Gehienak Tolosa inguruko sermoiak dira. Frai Bartolomeren sermoia Larraulgo parrokiako artxiboko paperen artean zegoen, dirudienez.

Hiru plegu dira, tolestuak eta hariz josiak: sei folio osatzen dituzte (20,6 x 15 cm); lehen 11 orrialdeak daude idatzirik. Azkenengo folioak zulo bat du eta Frai Bartolomek idatzi zuenean ere bazuen. Zuzenketa txiki batzuk ditu. Egoera onean da.

Ez da erraz sermoi hau noiz idatzi eta noiz predikatu zuen zehaztea. Hura predikari zeneko lehen garaikoa izan daiteke, hau da, 1805 ingurukoa. Idazkerari begiraturik, hala dirudi: jarraian idatzia, marra ziurrez, letra-molde txiki samarrez... Bestalde, sermoian dantzak aipatzen ditu; garai horretan “*Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe ta sermoe bat... I. Partia. 1807. urtian*” (eskuizkribua) lanean aztertzen ari zen gai bera, hain zuzen ere. Ordurako idatzia izango zuen “*Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpin -duba*”... lana ere (1816an argitaratua).

Sermoiaren euskarazko izenburua gurea da, berak *Sermon de la Na^a de N. S.* jarri baitzuen goian. Guk *Maria Virginiaren jaijotzia* izenburua jartzea erabaki dugu, sermoiaren lehen lerroetan *Ama Virginiaren... bere jaijotzia* idazten zuelako.

Eskuizkribuak non dauden

Esan dugunez, argitaratutako liburuak eta agitaratzeko prestatutako eskuizkribuak, zirriborrotan behintzat, 1806-1810 ingururako gertu zeuzkan... 1816tik 1818ra bitartean argitaratu zituen liburuez gain, beste batzuk ere argitaratzeko asmoa zuen.

⁴³⁷ *Commentaria in Proverbia Salomonis, indicibus necessariis illustrata*, Lugduni, 1732, 684-685.or.

Sermoen cebera eta... ce. 3.^a
 Sicut tenebrę ciyita et tamen ciy...
 Tangimaren auzuan agur illana, eta gau z...
 boudinao diuala, aruten emotea, coaten deuse...
 tustinauba, Espiritu Santuba sicut tenebrę ciy...
 et tamen...; ihua daguan modubaz, dagaala angu...
 ja bene Tangimaren vegugetan. Tangimari, ta...
 cuito gauen parravi jaccoran mistinjai alde bato...
 ta rebi egueta, utaria santissima da gauen at...
 ino, ta... gugia dakorari, ta beari tague...
 tan jaccor mure arata ar...
 va, sicut tenebrę ciyita et tamen ciy...
 quaten jaccor, ihua ta angueta, atuba ta tague...
 gija, ta... daga, ta...
 tan dagara laa Tangimaren...
 tague ta jaccor, sicut...
 illana... ihua bigre...
 gugia, ut...
 ta Tangimaren...
 parravi...
 unnao legue...
 parravi...
 ca, parravi...
 tenebrę ciy...
 ja, sicut...
 ihua...

1999an aurkitutako sermoiaren lehen orrialdea, tamaina txikiagoan

1831n idazle-agiria eskatu zien Ordenako nagusiei, eta horrek argi adierazten du libururen bat argitaratzeko asmotan ziharduela... Hala ere ez zuen gehiago ezer argitaratu...

Beraz, haren liburu, sermoi eta hitzaldi kateketiko eta dotrinazkoen eskuizkribuak non ote dauden galdetzen diogu geure buruari... Bere bizitzako azken lau urteetan Lazkaoko komentuan bizi izan zen (1832-1835) nobizioen maisu karguan. 1835eko abenduaren 11n hil zen. Azken lau urte hauetan bere anaia Jose San Migelena izan zuen komentuko lagun; hau urte luzeetan bizi izan zen Lazkaoko komentuan eta, Bartolomek bezala, priore, predikari eta nobizioen maisu karguak izan zituen. Gogoan hartzekoa da Lazkaoko komentuko zela haren iloba Jose San Antonioren ere; bi osabak bezala, sermolaria hau ere... Nork jaso ote zituen Frai Bartolomerren eskuizkribuak? Argi dago haren anaia eta iloba ere sermolaria izanik, ongi etorriko zitzaizkiela Frai Bartolomerren sermoiak; beraz, honen eskuizkribuak beraiek jasotzea ez da batere harritzekoa... Litekeena da komentuko artxiboan gorde izatea ere... Baina Bartolome hil eta bi urtera, desamortizazio eta esklaustrazioaren gertaera sozio-politiko eta erlijioso negargarria izan zen...

Esklaustrazio garaian Jose bien urratsak jarraitu ditugu: Jose San Migelena Olaberriako parrokiaren buru izan zen urte askotan eta 1852an hil zen; Jose San Antonioren, berriz, Beasain eta Lazkaoko parroketan aurkitzen dugu; Lazkaoko San Migel parrokiaren hil zen 1855ean, hainbat urtetan bertan apaiz-lanetan egon ondoren... Elizbarrutiko artxiboan dauden Olaberria eta Lazkaoko parroketako paperak arakatzeko jardun dugu, baina haietaz hainbeste albiste jakin ditugun arren, ez dugu aurkitu Frai Bartolomerren sermoien paperik, ez eta Jose bien sermoienik ere...

Egunen batean, zorionez, sermoi horiek aurki bagenitza, hura poza! Euskararen historiarako altxor preziatua bailitzateke.

3. Iturriak eta sermoien estiloa (Oratoria)

Karmeldar gazteen ikasketa garaian, argi dago Frai Luis Granadako hartzen zela eliz hizlaritzako maisu handientzat. Honela zioten beren-beregi Ordenako Konstituzioek: “curabitque in triennii decursu, quando aptius ipsi videatur, Reticam V.F.Ludovici Granatensis discipulis addiscendam tradere, et explicare”⁴³⁸.

Eta honi dagokiola, Ikastetxeetako irakaspen-liburuan Konstituzioek diotena gogorarazten da eta Frai Luis Granadako maisutzat hartzeko agintzen, haren oratoriako erregelak gidari izanik, honako hau erantsiz: “Oratoriak Gramatika, Filosofia eta Erretorika ditu oinarritzat; hau da, hitzak, sententziak eta apaindura. Arteen ikasketa garaian ez da gutxi izango oratoriaren atal hauek teoriari ongi ikastea, gero bere garaian praktikara eraman ahal izateko”⁴³⁹.

⁴³⁸ *Constitutiones...*, 129-130.or.

⁴³⁹ *Instrucción de los colegios...*, 44.or.

Markinako Karmengo bibliotekan, Frai Luis Leongoaren idazlanen argitalpen batzuez gain, badira Frai Bartolomek ezagutu eta erabili beharko zituen beste batzuk ere: *Los seis libros dela rhetorica eclesiastica, escritos en latin por el V.P.M.Fr Luis de Granada, vertidos en español, y dados a luz de orden, y a costa del ilustrisimo señor obispo de Barcelona, para instruccion de sus feligreses: con destino del producto al socorro de su Seminario Espiscopal*(Barcelona, 1770)⁴⁴⁰. Areago oraindik: Frai Luis Granadakoaren latinezko sermoien liburukietariko batean, dirudienez 1581eko argitalpenean (izenburua duen orria kendurik du), Frai Bartolomek “Carmen de Marquina” idatzi zuen⁴⁴¹ bere eskuz.

Egia esan, argi eta garbi ikus daiteke Frai Bartolomeren sermoietan ondo baino hobeto ematen direla Frai Luis Granadakoak markatzen dituen urratsak, eta karmeldarrak oratoriako lau bertuteak batez ere betetzen dituela: esaldien gramatikazko erabilera zuzena, argitasuna, apaindura eta metafora nahiz alegorien erabilera, profetek egiten zutenez⁴⁴².

D) Beste era batera “argitaratutako” edo prestatutako idazlanak

1. Euskarri informatikoan dauden testuak (EJJE - Josu Lavin)

Arestian, Frai Bartolomeren *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuaz hitz egiterakoan, lan hau euskarri informatikoan ere badagoela adierazi dugu. Josu Lavinek “argitaratu” zuen 1995ean eta salgai jarri Frai Bartolomeren liburutxo hau, testua karmeldarrak berak argitaratu zuen bezala zabaltzeko ahaleginetan, eta baita lortu ere. Alabaina EJJE-k (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte) aspaldidanik zituen euskarri informatikoan jarriak Frai Bartolomeren lau euskal liburuak⁴⁴³. Baina testu hauek hizkuntz gaietan erabiltzeko kopia ziren soilik, alde historikoa eta dokumentala edo iturriei dagokiena etab. kontuan izan gabe. Bestalde, ez dira testu osoak, eta grafia gaurkotuaren aldeko aukera egin dute...

2. Argitaratzeko prestatutako idazlanak: Aita Lon

Karmeldar hau ere aipatu dugu Frai Bartolomeren *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburutxoaz jardun dugunean. Hala ere Aita Lonen lana hori baino zabalago eta osoagoa izan zen.

⁴⁴⁰ Markinako Karmeldarren bibliotekan laugarren argitalpena (Bartzelona, 1778), eta bosgarrena ere badaude (Bartzelona, 1778)...

⁴⁴¹ Markinako Karmeldarren biblioteka, 2-MG / 22-d).

⁴⁴² Fr. LUIS DE GRANADA, *Los seis libros dela rhetorica eclesiastica...*293-301. or.

⁴⁴³ Euskaltzaindiak utzi zizkigun euskarri informatikoan dauden testu hauek; horregatik esker ona agertzen diogu; hala ere kopia honen izaera dela eta, ez dugu erabili, edizio kritikoa egitea baitzen gure asmoa...

Frai Bartolomeren idazkiei buruz egindako lan aipagarrien artean Lorentzo Santa Teresatxorena edo Lon Arteagaren ⁴⁴⁴ lana azpimarratu behar dugu. Bere bizitzako azken urteetan Frai Bartolomeren euskal lanari buru eta bihotz emanik bizi izan zen. Azken bi urteetan *Karmel* aldizkarian Bartolomeren euskal aditzaz hainbat idazlan argitaratu zituen⁴⁴⁵.

Baina zortzi bat urte lehenago, hau da, 1971rako jadanik prestatua zuen, lan eskerga baten ondoren, Frai Bartolomeren idazlanen argitalpen bat⁴⁴⁶. Hau guztiau komentuko kronikariaren bidez ere argi geratu da, 1969-1972ko hiru urteetan, hau da, 1972ko martxoan Aita Lorentzo Santa Teresatxorenaz honako hau dio-eta: “ya terminado, de preparar una reedición en grafía vasca moderna de las Obras completas de Fr. Bartolomé de Sta Teresa. OCD, uno de los clásicos de la literatura vasca”⁴⁴⁷. Lan handi honek ez zuen argirik ikusi. Karmengo artxiboan gordetzen den eskuizkribuak 452 orri ditu, nahiko estu idatziak eta Frai Bartolomek argitaratutako lau euskal liburuak, hura bizi zela argitaratutako gaztelaniazko idazki laburrak (*Plauto Bascongado...*, eta *Anti-Plauto...*), eta garai hartan argitaratu gabe egonik, geroago 1992an argitaratu ziren *Apuntaciones* deritzona... Inprimategirako prest-prest zegoen lanak zortzi orriko eranskin bat du azkenean; hor idazlanetan aipaturik dauden izenen aurkibidea, eta Bibliako aipamen ugari eta eliz autoreen beste hainbat datoz.

⁴⁴⁴ Lon Arteaga Mañarian jaio zen 1917ko maiatzaren 16an; Karmeldarren Ordenan sartu zen, 1932ko Karmen bezperan, Larrean (Zornotza) abitua hartuz. Markinako urtearen ondoren, Iruñean eta Gasteizen ikasketak eginik, Indian bukatu zituen. Apaiz egin eta Always-ko seminarioan (India) teologiako irakasle izan zen 1941etik 1948ra arte. Osasun arazoengatik Euskal Herrira etorri zen Indiara itzultzeko asmotan; asmo horiek ez ziren bete, eta Zornotzako Ikastetxean gelditu zen latineko irakasle (1948-1951); Larrean urte batzuk egin ondoren (1951-1954), 1954ko uztaillean Perura bidali zuten. 1964.ean Euskal Herrira itzuli zen. Hiru urte baino pixka bat gehiago egin zuen Zornotzako Ikastetxeko bikario izanez (1966-1969); eta urte horien ondoren, Markinara bidali zuten; hemen igaro zituen bere bizitzako azken urteak (11 urte gutxi gorabehera), 1980ko urtarrilaren 23an hilik. Ordenako aldizkarietan idatzi ohi zituen zenbait idazlan... Azken urteak Markinako Karmeldarren biblioteka antolatzen eman zituen. (Ik. Pedro María DUÑABETIA, *P. Lorenzo de Sta. Teresita (Lon Arteaga y Bilbao) (1917-1980)*, Boletín Oficial de la Provincia de S. Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos (Vitoria 1980, 90.zk.) 75-79; MKA, A-XII-1: *Memoria de los religiosos...*, 118-123.or.)

⁴⁴⁵ *Euskal aditza Prai Bartolome'gan (1768-1835)*, Karmel 1978-3, 65-74; 1978-4, 59-68; 1979-1, 65-74; 1979-2, 71-80.

⁴⁴⁶ Hala ematen digu aditzera idazlan labur batean: *Prai Bartolo jantzi barriagaz?*, Karmel 1971-1, 49-52: “Gure Bartoloren euskerazko idazlanok (baita besterik aurkitzen bada be, euskeraz egiña), gutun lodikote baten alkartuta, barriro argitaratzeko asmotan ei dabiltz Markiñako karmeldarrak, bere anaiak. Ordua zan izan be!”; eta honela amaitzen du bere idazlana: “Dana dala, jaiobarri dogun 1971 urte au ez bedi amaitu praille zar jator oni, bere soiñeko barrian, gure bostekoa luzatzeko erarik gabe”.

⁴⁴⁷ MKA, A-II-1^a: *Libro de Crónicas*, 124.or.

Eskuizkribuak ondorengo izenburu hau darama: “*Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Madariaga Garate'ren / Idazlanak / (1768-1835) / GER TATZAILLE: ARTEA - GA'TAR LON, K.O'*”

Lan hau izan da Frai Bartolomeren idazlan “guztiak” argitaratzeko saiorik garrantzitsuenen... Jakina, 1987ko (L.M. Mujika) eta 1988ko (P. Altuna) *Euscal-erri - jetaco olgueeta...* liburuaren argitaratzaileentzat ez zen ezaguna Aita Lonen eskuizkribu hau..., eta ez dago esan beharrik ongi etorriko zitzaiekeela.

Ez du edizio kritikoa izateko uzirik; baina Aita Lonek, bizkaiera gutxi bezala ezagutzen zuen eta, testu oso ona utzi zigun. Frai Bartolomeren testua transkribatzeko, arrazoizkoa den aukera egin zuen: ortografia, puntuazio-markak, hitzen banaketa eta abar gaurkotzera jo zuen, oraingo irakurleari haren irakurketa errazago bihurtzearren; irizpide hau ere onargarria da edizio kritiko batean. Testu originalarekiko leialtasuna ukazina da...

2. ITURRIAK

Argitalpen honen helbururik behinenetarikoa Frai Bartolomeren testuak ongi transkribatzea izanik, testu kateketikoak, teologia eta moraleko edukiz ongi hornituak bestalde, nahitanahiezko dirudi bere liburuak idazteko erabili zituen iturriez geure buruari galde egitea. Beraz, egoki dator hark izan zuen heziera gogoratzea, bere burua janzteko egin ohi zuen estudioa eta bere liburuak idatzi zituen Markinako Karmengo Bibliotekan eskura izan zuen materiala gogoratzea. Hauetatik guztietatik geratu da lekukotasunik asko bere liburuetan jartzen dituen aipamen ugarietan, haien bidez bere baieztapenak eta iritziak bermatzen dituelarik.

1. Ikasketa ofizialak: filosofia eta teologia

Haren bizitzako uneak aztertzerakoan ikusi dugu nola egin zituen ikasketak bederatzi urtez karmeldarren ikastetxeetan: Logroñon (1790-1793), Iruñean (1793-1796) eta Burgosen (1796-1799) filosofia, teologia eskolastikoa eta morala, zuzenbide kanonikoa eta Eskritura Santua. Bederatzi urte luze. Eta urte horietan prestatuko zen bere apostolu eta espiritu jarduerarako, Ordenako Konstituzioek agintzen dutenez, berriaz agintzen baitute zein autoreren gidaritzapean ikasi behar zen diziplina bakoitza.

Ikasketetako bederatzi urteetan, hau da, filosofia eta teologiako hiru ikastetxeetan beti gidaritzat zuten autorea S. Tomas Akinokoa zen. S. Tomasi jarraitzen zitzaion filosofian (bereziki “*Physica*”, “*Logica*”, eta “*Metaphysica*”n), teologia eskolastikoan (bereziki haren “*Summa*” ikasi ohi zen) eta Eskritura Santuan, eta teologia moralean... Haren garrantzia egundokoa zen... Horrela, Karmeldarrak, filosofo eta teologo handiak beraien artean zituztela, tomismoaren eskolarik ospetsuenetarikoa izatea lortu zuten, *Complutense* eta *Salmanticense* deituriko obra handiak argitaratu ondoren batez ere.

Urte hauetan eskritura santuan eta patristikan hartzen zuten heziera ere sakona zen, haren aipamen ugarietan antzeman daitekeenez. Horrez gain, ez dakigu ikasle zela edo gero bere kasa egindako estudioari esker, (ziur aski azkenengo hau izango da), baina autore zahar eta berrien ezagutza du, baita garaikideena ere, eta sarri samar aipatzen ditu.

Baina esan dugunez, haren hezieran S.Tomas zen gorengo maisua; heziera honek bazituen beste oinarri batzuk ere; hauek Eskritura Santua eta Eliz Gurasoak ziren.

Dena dela, teologiako ikasketetan, Konstituzioek⁴⁴⁸ diotenez beste autore batzuk ere aintzat hartzen ziren, baina hala ere Frai Bartolomek ez ditu bere liburuetan egundo ere aipatzen; esaterako, Frai Luis Granadakoa, Melchor Cano, Diego San Antonioren eta.

2. Markinako biblioteca, eta estudio pertsonala ...

Lehenago adierazi dugu Bartolomek berak dioena Markinako Karmengo bibliotekari buruz bera han bizi izatera joan zenean, hau da, Karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintziako aberatsenatarikoa zela. Alabaina, urte gutxi batzuk geroago, 1809an frantsesetan ia guztia galdu zen⁴⁴⁹. Markinako bibliotekan teologiako material ugari zuen kontsultak egin eta estudiantzeko. Badakigu Joan Jose Mogel, 1804 inguruan, Karmengo bibliotekara etorri ohi zela ere, Frai Bartolomerengidarrizapean zenbait gai estudiantzeko. Ziur aski frantseseta orduko, biblioteka 1809an suntsitu orduko, Frai Bartolomek idatziak izango zituen bere lau euskal liburu eza-gunak, urte batzuk geroago argitaratu bazituen ere. Jakin ere ziur dakigu 1807rako idatziak zituela *Icasiquizunac* saileko lehen liburukia eta *Euscal-errijetaco*...

Egia da Frai Bartolomek biblioteka ona zuela bere estudio pertsonalerako eta bere liburuak idazteko. Gaur egun ere gordetzen dira hark sarri-sarri aipatzen dituen liburuetariko batzuk, hein batean, Frai Bartolome beraren esku-hartzeaz, azken orduan Eliz Guraso Santuenak eta beste liburu asko isilpean atera ahal izan zirelako⁴⁵⁰.

Frai Bartolome baliatu zen iturriei dagokienez, interesgarria da biblioteka aberasteko hark izan zuen arretaz ohartzea. Gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan 157 liburu-edo daude Frai Bartolomerengidaren esaldi autograforen bat dutenak, "es de la libreria del Carmen de Marquina" edo antzeko zerbait jartzen duelarik. Eta 60 kasu baino gehiagotan, bera priore zela, hau da, 1819an erositako liburuetan esal-

⁴⁴⁸ *Constitutiones*..., 129-131.orr

⁴⁴⁹ MKA, A-I-70: *Apuntaciones*...23.or. (Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, p. 762.or.)

⁴⁵⁰ MKA, A-I-70: *Apuntaciones*...18.or. (Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*.... Larrea - Zornotza, 1992, 760. or.).

di hau edo antzekoa idazten du bere eskuz: “Se compro p^a la libreria del Carmen de Marquina, 1819”.

La gai guztiek erakartzen zuten; aipaturiko bi oharretariko bat aurkituko dugu honako gai nagusietako liburuetan: Eskritura Santu⁴⁵¹, Dogmatika⁴⁵²,

⁴⁵¹ Benedictus PERERIUS VALENTINUS, *Commentariorum in Daniele prophetam libri sex - decim.* Lugduni, 1595, (“Carmen de Marquina”), (2-A / 22); ANTHONIUS A KONYGSTEYN, *Concordantiae breviores omnium ferme materiarum ex sacris bibliorum libris ...* Coloniae, 1533, (2-ME/17) “Carmen de Marquina”; MARCUS DE LA CAMARA, *Questionarium conciliatio - nis simul et expositionis locorum difficilium Sacrae Scripturae*, Compluti 158[8?], (2-ME/18) “Carmen de Marquina”; JACOBUS TIRINUS, *Commentarius in sacram scripturam ...*, 1.t., Lugduni, 1723, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 168); JACOBUS TIRINUS, *Commentarius in sacram scripturam ...*, 2.t., Lugduni, 1723, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 168-b); JOANNES LORINUS, *Commentarii in Librum Psalmorum ...*, 1.t., Venetiis, 1737, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 174); JOANNES LORINUS, *Commentarii in Librum Psalmorum ...*, 2.t., Venetiis, 1737, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 174-b); JOANNES LORINUS, *Commentarii in Librum Psalmorum ...*, 3.t., Venetiis, 1737, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 174-c); JOANNES LORINUS, *Commentarii in Librum Psalmorum ...*, 4.t., Venetiis, 1737, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-A / 174-d).

⁴⁵² B.RAYMUNDUS LULLIUS, *Liber apologeticus artis magnae...*, Salmanticae, 1746, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819”) (2-C / 9); JACOBUS PLATELIUS, *Synopsis totius cursus theologici... Pars Quarta*, Coloniae Agrippinae, 1730, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819”) (2-C / 20); JACOBUS PLATELIUS, *Synopsis totius cursus theologici... Pars Secunda* Coloniae Agrippinae, 1729, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819”) (2-C / 20); F.BELLILLI - J.L.BERTI, *Augustinianum Systema de Gratia... Pars Prima ...* Romae, 1747, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-C / 62); F. BELLILLI - J.L. BERTI, *Augustinianum Systema de Gratia ... Pars Altera ...* Romae, 1747, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819”) (2-C / 62-b); DANIELIS CONCINA, *Ad theologiam christianam dogmatico-moralem apparatus ...*, 1.t., Romae, 1768, (“Es de la librería del Carmen de Marquina”) (2-C / 114-b), + 2.t., Romae 1768 (2-C / 114-b); DANIELIS CONCINA, *Theologia christiana dogmatico-moralis...*, 3.t., Romae, 1768, (“Es de la librería del Carmen de Marquina”) (2-C / 114); DANIELIS CONCINA, *Theologia christiana dogmatico-moralis...*, 6.t., Romae, 1768, (“Es de la librería del Carmen de Marquina”) (2-C / 114-d), + 7.t., Romae, 1768, (2-C / 114-d); DANIELIS CONCINA, *Theologia christiana dogmatico-moralis...*, 8.t., Romae, 1768, (“Es de la librería del Carmen de Marquina”) (2-C / 114-e), + 9.t., Romae, 1768, (2-C / 114-e); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum...*, 1.t., [1742 ?] [orria apurtuta] (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-Cx / 9); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum...*, 2.t., [1742 ?] [orria apurtuta] (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-Cx / 9-b); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum...*, 3.t., [1742 ?] [orria apurtuta] (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-Cx / 9-c); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum...*, 4.t., [1742 ?] [orria apurtuta] (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-Cx / 9-d); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum...*, 5.t., [1742 ?] [orria apurtuta] (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-Cx / 9-e); LIBERIUS A JESU, *Controver-*

Moral⁴⁵³, Zuzenbide Zibil eta Kanoniko⁴⁵⁴, Hagiografia⁴⁵⁵, Sermoigintza eta

siarum scholastico-polemico-historico-criticarum ..., 6.t., [1742 ?] [orria apurtuta] ("Librería del Carmen de Marquina") (2-Cx / 9-f); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholasti-co-polemico-historico-criticarum* ..., 7.t., [1742 ?] [orria apurtuta] ("Librería del Carmen de Marquina") (2-Cx / 9-g); LIBERIUS A JESU, *Controversiarum scholastico-polemico-historico-criticarum* ..., 8.t., [1742 ?] [orria apurtuta] ("Librería del Carmen de Marquina") (2-Cx / 9-h); (S.THOMAS AQUINATIS, *Prima secundæ partis summæ sacræ theologiæ*..., Antwerpiae, 1576, (Bartolomeren idazkeraren aztarnak daudeladirudi; apurturik dago...) (2-Cx / 17); (S.THOMAS AQUINATIS, *Secunda secundæ partis summæ sacræ theologiæ*..., Antwerpiae, 1576, (Bartolomeren idazkeraren aztarnak daudela dirudi; apurturik dago...) (2-Cx / 17-b).

Donostiako Karmeldarren bibliotekan dago Frai Bartolomek bere eskuz idatzitako oharra duen liburua ("Librería del Carmen de Marquina"): Symbolo de la fe, que trata del misterio de nuestra redempción... Salamanca 1585.

⁴⁵³ R.P.F.FELIX, *Potestatis panormitani Ordinis Minorum S.Francisci de Observantia Ministri Provincialis* ..., Mutinae, 1737, ("Es de la librería del Carmen de Marquina") (2-E / 133); P. PEDRO DE CALATAYUD, *Tratados, y doctrinas prácticas, sobre ventas, y compras de lanas merinas, y otros generos; y sobre el juego de naypes, y dados* Toledo, [1761 ?], ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819" (2-E / 11); JOSEPH A IESU MARIA - ANTONIUS A SS. SACRAMENTO, *Appendix tractatus VI. Cursus Salmanticensis Moralis* ... Matriti, 1753, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-E / 142-g); ANDREAS A MATRE DEI, *Collegii Salmanticensis FF.Discalceatorum B.Mariæ de Monte Carmeli Primitivæ Observantiæ Cursus Theologiæ*., (ez dakigu bat datorren izenburuarekin..., guztiz puskaturik dago), 3.t., Ma[triti] (1679 ?), ("Librería del Carmen de Marquina"), (2-E / 142-c); ANDREAS A MATRE DEI, *Collegii Salmanticensis FF.Discalceatorum B.Mariæ de Monte Carmeli Primitivæ Observantiæ Cursus Theologiæ Moralis. Tomus Quartus*..., 4.t., Barcinone 1695, ("Librería del Carmen de Marquina"), (2-E / 20-c); ANDREAS A MATRE DEI, *Collegii Salmanticensis FF.Discalceatorum B.Mariæ de Monte Carmeli Primitivæ Observantiæ Cursus Theologiæ Moralis. Tomus Quintus*..., 5.t., Matriti 1730, ("Librería del Carmen de Marquina"), (2-E / 20-d); GENESIO LUDOVICO A MATRE DEI, *Praelectiones in universam theologiam moralem*..., IV.t., Matriti, 1788, ("Es de la librería del Carmen de Marquina" (2-E / 16-d); GENESIO LUDOVICO A MATRE DEI, *Praelectiones in universam theologiam moralem*..., III.t., Matriti, 1788, ("Es de la librería del Carmen de Marquina": haren hondakinak daude soilik... (2-E / 16-c); GENESIO LUDOVICO A MATRE DEI, *Praelectiones in universam theologiam moralem*..., II.t., Matriti, 1788, ("Es de la librería del Carmen de Marquina" (2-E / 16-b); GENESIO LUDOVICO A MATRE DEI, *Praelectiones in universam theologiam moralem*..., I.t., Matriti, 1788, ("Es de la librería del Carmen de Marquina" (2-E / 16); FRANCISCO ANTONIO DE PALACIOS, *Viva Jesus. Respuesta satisfactoria del Colegio de Misioneros de N.P.San Francisco de la N.Villa de Zarauz a la consulta, y dictámenes impresos por la N.Villa de Balmaseda, con ocasión de una proposición sobre bailes equívocadamente atribuida a dos Misioneros del sobre dicho Colegio en la Misión que últimamente predicaron en la mencionada N.Villa*..., Pamplona, 1791, ("Del Carmen de Ma[rquin]a") (1-N / 45); FRANCISCUS TOLETI, *Instructio Sacerdotum in libros octo distributa* [izenburua falta du; eskuz idatzirik dago], Lugduni 1620, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819"), (2-E / 157).

⁴⁵⁴ Theodoro VOPISCO, *Perfectissima juris publici civilis et ecclesiastici notitia in quinque partes distributa in commodum illorum conscripta*..., Francof & Lipsiae, 1755, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina") (2-F / 53); Theodoro VOPISCO, *Perfectissima juris*

Kateketika⁴⁵⁶, Zientziak⁴⁵⁷, Literatura⁴⁵⁸, Historia⁴⁵⁹, Elizaren histo-

publici civilis et ecclesiastici notitia in quinque partes distributa in commodum illorum conscripta... Pars II. De cura regni et qualitatibus boni principis., Francof & Lipsiae, 1755, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819") (2-F / 53-b); Theodoro VOPISCO, *Perfectissima juris publici civilis et ecclesiastici notitia in quinque partes distributa in commodum illorum conscripta... Pars III. De religione controversistica.*, Francof & Lipsiae, 1755, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819") (2-F / 53-c); Theodoro VOPISCO, *Perfectissima juris publici civilis et ecclesiastici notitia in quinque partes distributa in commodum illorum conscripta... Pars IV. De jure belli et obligatione subditorum.*, Francof & Lipsiae, 1755, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina 1819") (2-F / 53-d), (Bosgarren liburukiak ez du Bartolomeren autograforik); [Liburua izenburua falta duela; orria apurtuta...] ("De la librería del Carmen de Marquina" (2-F / 192-c); *Recopilacion de las leyes destos Reynos, hecha por mandado de la Magestad Católica del Rey don Felipe Segundo.* Madrid, 1640, ("Librería del Carmen de Marquina, comp^{do} en 1819" (2-F / 183); *[Recopilación de las leyes destos Reynos, hecha por mandado de la Magestad Católica del Rey don Felipe Segundo...]. Segunda parte de las leyes del Reyno. Libro quinto* Madrid, 1640, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819" (2-F / 183-b); *[Recopilación de las leyes destos Reynos, hecha por mandado de la Magestad Católica del Rey don Felipe Segundo...]. Tercera parte de las leyes del Reyno. Libro nono* Madrid, 1640, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819" (2-F / 183-c); [Lucius FERRARIS, *Prompta Bibliotheca, canonica, juridica, moralis, teológica ...*, Bononiae, 1763], ("De la librería del Carmen de Marquina") (2-F / 192-c); Franciscus SCHMALZGRUEBER, *Jus ecclesiasticum univ - sum, brevi methodo ad discentium Utilitatem explicatum, seu lucubrationes canonicae...*, Tomus primus, Neapoli, 1738, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819" (2-F / 196); FRANCISCUS SCHMALZGRUEBER, *Jus ecclesiasticum univ - sum, brevi methodo ad discentium Utilitatem explicatum, seu lucubrationes canonicae... Tomus tertius*, Neapoli, 1738, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en el 1819" (2-F / 196-c); Franciscus SCHMALZGRUEBER, *Jus ecclesiasticum univ - sum, brevi methodo ad discentium Utilitatem explicatum, seu lucubrationes canonicae... Tomus quartus.*, Neapoli, 1738, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en el 1819" (2-F / 196-b); Augustinus BARBOSA, *Praxis methodica exigendi pensiones, adversus calumniantes...*, Lugduni, 1702, ("Es de la librería del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} 1819") (2-F / 197); Augustinus BARBOSA, *Votorum decisivo - rum, et consultivorum canonicorum, Tomus secundus...*, Lugduni, 1702, ("Es de la librería del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819") (2-F / 198); Augustinus BARBOSA, *Collectanea doc - torum, tam veterum quam recentiorum, in jus pontificium univ - sum, Tomus secundus...*, Lugduni, 1716, ("Es de la librería del Carmen de Marquina. Comp^{do} año 1819") (2-F / 201-b); Augustinus BARBOSA, *Collectanea doctorum, tam veterum quam recentiorum, in jus pon - tificium univ - sum, Tomus tertius...*, Lugduni, 1716, ("Es de la lib^a del Carmen de Marq^a. Comp^{do} año 1819") (2-F / 201-c); Augustinus BARBOSA, *Collectanea doctorum, tam veterum quam recentiorum, in jus pontificium univ - sum, Tomus quartus...*, Lugduni, 1716, ("Es de la librería del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819") (2-F / 201-d); Augustinus BARBOSA, *Collectanea doctorum, tam veterum quam recentiorum, in jus pontificium univ - sum, Tomus quintus...*, Lugduni, 1716, ("Es de la lib^a del Carmen de Marq^{na}. Comprado año 1819") (2-F / 201-e); Augustinus BARBOSA, *Juris canonici interpretationes selectae... Tomus sextus...*, Lugduni, 1716, ("Es de la librería del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819") (2-F / 201-f); Augustinus BARBOSA, *Juris ecclesiastici univ - s. Libri tres...*, Lugduni, 1718, ("Es

ria⁴⁶⁰, Autore Karmeldarrak⁴⁶¹, Espiritualitatea⁴⁶² eta Euskal histo-

de la librería del Carmen de Marq^{na}. Comprado el año 1819”) (2-F / 202); Augustinus BARBOSA, *Tractatus varii...*, Lugduni, 1718, (“Es de la librería del Carmen de Marquina, Comp^{do} año 1819”) (2-F / 203); Augustinus BARBOSA, *Juris ecclesiastici universi. Pars altera...*, Lugduni, 1718, (“Es de la lib^a del Carmen de Marquina. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 204); Augustinus BARBOSA, *Tractatus de canonicis et dignitatibus...*, Lugduni, 1718, (“Es de la lib^a del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 205); Augustinus BARBOSA, *Collectanea in codicum justiniani, Ex Doctoribus tum priscis, tum neotericis, Tomus primus...*, Lugduni, 1720, (“Es de la lib^a del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 206); Augustinus BARBOSA, *Collectanea in codicum justiniani, Ex Doctoribus tum priscis, tum neotericis. Tomus secundus...*, Lugduni, 1720, (“Es de la lib^a del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 206-b); Augustinus BARBOSA, *Summa apostolicarum decisionum, extra jus commune vagantium...*, Lugduni, 1722, (“Es de la lib^a del Carmen de Marquina. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 208); Augustinus BARBOSA, *Pastoralis sollicitudinis, sive tripartita descriptio...*, Lugduni, 1724, (“Es de la lib^a del Carmen de Marq^{na}. Comp^{do} año 1819”) (2-F / 209); Augustinus BARBOSA, *Pastoralis sollicitudinis, sive de officio, et potestate episcopi, Pars Tertia...*, Lugduni, 1724, (“Se compró p^a la lib^{ria} del Carmen de Marquina. 1819”) (2-F / 209-b).

⁴⁵⁵ Jacinto de PARRA, *La bienaventurada Rosa peruana de S.Maria ...* Madrid, 1668, (“Es del Carmen de Marquina”) (2-G / 7); WILHELMUS AB ERLHOFF, *Gazophylacium locupletissimum: sive in omnes per totum annum sanctorum...*, Coloniae, 1687, (“Se compró p^a la lib^{ria} del Carmen de Marquina. 1819”) (2-G / 8); Caesar BARONIUS SORANUS, *Martyrologium romanum...*, Moguntiae, 1631, (“Carmen de Marquina”) (2-G / 20); Juan de LOYOLA, *Vida del V.Hermano Juan Berchmans, joven angel de la Compañía de Jesus*, Valladolid, 1739, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819”) (2-G / 150); Francisco CANO, *Historia de la vida maravillosa, y admirable de la seraphica Madre S^{ta} Cathalina de Sena*, Logroño, 1728, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819”) (2-G / 151).

⁴⁵⁶ Juan de GAMIZ - Josef Bernardo de la PARRA, *Sentimientos reales celebrados en solemnes exequias, que al Ser^o Sr. Luis de Borbon y Austria...*, [1711?], (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819”), (2-H / 9); [izenburuaren orria falta du...] (“Librería del Carmen de Marquina”), (2-H / 220), (XVII. mendekoa); Andres SEMPLÉ DE TOUAR, *Sermones de santos, y festividades*, Madrid, 1643, (“Se compró p^a librería del Carmen de Marquina. 1819”) (2-H / 222); P.ELISEO, *Sermones*, 1.t., Madrid, 1786, (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 135); P.ELISEO, *Sermones*, 2.t., Madrid, 1786, (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 135-b); P.ELISEO, *Sermones*, 3.t., Madrid, 1787, (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 135-c); P.ELISEO, *Sermones* 4.t., Madrid, 1787, (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 135-d); LUIS BOURDALUE, [izenburuaren orria falta du...], 2.t., [Madrid, 1780 ?] (“Esta obra tiene p^a su uso Fr. Bartolome de S^{ta} Teresa con licencia de los superiores. Y lo dedica a la librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 154-b); Luis BOURDALUE, [izenburuaren orria falta du...], 3.t., [Madrid, 1780 ?] (“Esta obra tiene p^a su uso Fr. Bartolome de S^{ta} Teresa con licencia de los superiores. Y lo dedica a la librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 154-c); Luis BOURDALUE, [izenburuaren orria falta du...], 3.t., [Madrid, 1780 ?] (“Esta obra la compró Fr. Bartolome de S^{ta} Teresa p^a su uso con licencia de los superiores”) (2-H / 154-d); [izenburuaren orria falta du, ustez:] HOUDRY, *Bibl. Conc. Theol. de Mistę* tomo I, (c. 1771) (“Librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 130); Joseph Antonio YBAÑEZ DE LA RENTERIA, *Luz concionatoria de varios discursos panegyricos y morales*, Paris, 1712, (“Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina”) (2-H / 223-b); Joseph Antonio YBAÑEZ DE LA RENTERIA, *Luz*

ria⁴⁶³ gaietako liburuetan.

concionatoria de varios discursos panegyricos y morales, Paris, 1712, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-MG / 23); Mathias FABRI, *Concionum operis tripartiti Pars yemalis. de Dominicis...*, Coloniae Agrippinae, 1693, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina") (2-H / 227-b); Benito VICENTE, *Conferencias monasticas para la dominica en la octava del nacimiento, lad dominicas despues de epiphania y la dominica de la septuagesima.*, Salamanca, [1780], ("Librería del Carmen de Marquina") (2-H / 245); Benito VICENTE, *Conferencias monasticas para las dominicas de sexagesima...*, Salamanca, 1780, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-H / 245-b); Benito VICENTE, *Conferencias monasticas para la dominica en la octava del Corpus, y las dominicas...*, Salamanca, 1780, ("Librería del Carmen de Marq^a") (2-H / 245-c); Juan Bautista de MURCIA, *Sermones para todos los domingos del año, y para las Ferias mayores de la Quaresma y asuntos de la Semana Santa ...* Barcelona, 1742, ("Del Carmen de Marquina") (2-H / 250); Nicolas CAUSINO, *Reyno de Dios. Compendio, y medula de toda la corte santa. Segunda parte...* Madrid, 1672, ("Carmen de Marquina").(2-MC / 19); Carlos Antonio ERRA, *Historia del viejo y nuevo testamento* 6.t., Madrid, 1775, ("Es de la librería del Carmen de Marquina") (2-MC / 21); Carlos Antonio ERRA, *Historia del viejo y nuevo testamento*, 6.t., Madrid, 1775, ("Es de la librería del Carmen de Marquina") (2-MC / 21-b); Fr. THOMAS MADALENA, *Año evangelico, panegyrico, y moral, en que se contienen 70 sermones...*, 1.t., Zaragoza, 1735, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-H / 278); Fr. THOMAS MADALENA, *Año evangélico, y panegyrico, y moral, en que se comprenden las dominicas de todo el año...*, 3.t., Zaragoza, 1743, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-H / 278-b); Joseph de BARZIA Y ZAMBRANA, *Despertador christiano de sermones doctrinales...*, 2.t., Madrid 1687, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-H / 269-b); Sanctus THOMAS A VILLA NOVA, *Concionum sacrarum in dominicas anni eta festa. Tomi Duo...* Coloniae Agrippinae, 1687, ("Librería del Carmen de Marquina"), (2-H / 262); Francisco AMADO POUGET, *Instrucciones generales en forma de catecismo...*, 1.t., Madrid, 1784, ("Es de la librería del Carmen de Markina") (2-J / 7); Francisco AMADO POUGET, *Instrucciones generales en forma de catecismo...*, 2.t., Madrid, 1784, ("Es de la librería del Carmen de Markina") (2-J / 7-b); Francisco AMADO POUGET, *Instrucciones generales en forma de catecismo...*, 4.t., Madrid, 1784, ("Es de la librería del Carmen de Markina") (2-J / 7-d); LUDOVICUS GRANATENSIS, *[Quartus Tomus Concionum...* Salmanticae, 1581] ("Carmen de Marquina") (2-MG / 22-d).

⁴⁵⁷ Hieronymus MERCURIALIS FOROLIVIENSIS, *Tractatus varii de re medica ...*, Lugduni, 1623, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819), (2-OB / 2); Pedro MURILLO, *Geographia histórica, de Alemania, Flandes, Inglaterra, Dinamarca, Noruega, Suecia, Moscovia, y Polonia*, 4. t., Madrid, 1752, ("Es del uso de Fr.Bartolome de S^{ta} Teresa Carm^{ia}", ez da Bartolomeren autografoa) (2-OG / 10); Pedro MURILLO, *Geographia historica. Libro IX. De la America, y de las islas adyacentes...*, Madrid, 1752, ("Es del uso de Fr.Bartolome de S^{ta} Teresa Carm^{ia}", ez da Bartolomeren autografoa) (2-OG / 10-b); Pedro MURILLO, *Geographia histórica, en que se hace una compendiosa memoria de los varones más insignes del mundo...*, 10. t., Madrid, [1752 ?], ("Es del uso de Fr.Bartolome de S^{ta} Teresa Carmelita", ez da Bartolomeren autografoa) (2-OG / 10-c).

⁴⁵⁸ [Izenburua puskaturik, izenburuaren orria falta du:] SENECA, *Epistolae* [1602 ?], ("De la librería del Carmen de Marquina"), (2-E / 560).

⁴⁵⁹ [izenburuaren orria falta du:] *Tomo segundo de los comentarios de la guerra de España...*, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marq^a. 1819") (2-T / 10); Juan de

3. Haren lanetan agertzen diren autoreak, aipamenak...

Haren liburuetan ageri diren aipamen ugarietarako erreferentziak, Frai Bartolomek benetan eskola handia, jakintza zabalak zuela ateratzen ditu. Autore

MARIANA, *Historia general de España...*, Madrid, 1617, ("1 tomo", Bartolomerena dela dirudi) (2-T / 79); [izenburuaren orria falta du:] *Historia de las Guerras civiles de Francia...*, ("Es de la librería del Carmen de Marquina") (2-T / 80).

⁴⁰⁰ Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 1.t., Madrid, 1754, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 2.t., Madrid, 1754, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-b); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 3.t., Madrid, 1754, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-c); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 5.t., Madrid, 1754, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-e); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 6.t., Madrid, 1754, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-f); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 7.t., Madrid, 1755, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-g.); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 8.t., Madrid, 1755, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-h.); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 9.t., Madrid, 1755, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-i); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 10.t., Madrid, 1755, ("Lib^{na} del Carmen de Marquina") (2-U / 72-j); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 11.t., Madrid, 1755, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-k); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 12.t., Madrid, 1755, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-l); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 13.t., Madrid, 1756, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-m); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 14.t., Madrid, 1756, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-n); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 15.t., Madrid, 1756, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-ñ); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 16.t., Madrid, 1756, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-o); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 17.t., Madrid, 1757, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-q); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 18.t., Madrid, 1757, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-r); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 19.t., Madrid, 1758, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-p); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 20.t., Madrid, 1758, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-s); Joseph Agustin ORSI, *Historia eclesiástica.*, 21.t., Madrid, 1759, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-U / 72-t); Nicephorus Callistus XANTHOPULI, *Ecclesiasticæ historiæ libri decem et octo* Parisiis, 1574, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en el año 1819") (2-U / 75); Fray JUAN DE PINEDA, *Los Treyntra Libro de la Monarchia eclesiástica, o historia universal del Mundo, divididos en Cinco Tomos.*, 1.t., Barcelona, 1606, ("De la librería del Carmen de Marq^{na}") (2-U / 82); P. Joannes DREWS, *Fasti Societatis Jesu, res, et personas memorabiles ejusdem Societatis, Pars III.*, Sevilla, 1753, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819"), (2-U / 90); P. Joannes DREWS, *Fasti Societatis Jesu, res, et personas memorabiles ejusdem Societatis, Pars IV.*, Sevilla, 1753, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marq^{na}. 1819"), (2-U / 90-b); IOANNES DOMINICUS MUSANCIUS, *Fax chronologica ad omnigenam historiã...*, Romae, 1701, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-U / 93).

⁴⁰¹ JOSEPH ANTONIO DE S. ALBERTO, *Coleccion de instrucciones pastorales.*, Madrid, 1786, ("Librería del Carmen de Marquina"), (2-D / 1); JOSEPH ANTONIO DE S. ALBERTO, *Coleccion de instrucciones pastorales.*, Parte segunda., Madrid, 1786, ("Librería del Carmen de Marq^{na}"), (2-D / 1-b); Juan de ROJAS Y AUSA, *Representaciones de la verdad vestida, misticas, morales,*

ugari darabiltza, antzinako nahiz oraintsuko, eta hori guztia ikaskizun kateketikoe-tako gaietan hari-harira eta ongi ekarririk...

Baina azpimarragarriak dira haren adimen-prestakuntzaren eta aipamenen zenbait alderdi, erabili zituen iturrien eta gogokoan zituen haren kultura filosofiko-teologikoaren lekuko baitira...: Eskritura Santua, Eliz Gurasoak, Elizaren irakaskuntza kontzilioen eta Aita santuen doktrinaren arabera, eta antzinako eta oraintsuko autoreak...

y alegroicas, sobre las siete Moradas de Santa Teresa de Jesus, Madrid, 1679, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819"), (2-D / 2); FR. ANTONIO DA EXPECTAÇÃO, *A estrellada d'Alva a sublimissima, e sapientissima mestra da Santa Igreja, S^{ta} Theresa de Jesus.*, Lisboa, 1758, ("De la librería del Carmen de Marquina"), (2-D / 33); FR. FRANCISCO DE S.ELIAS, *Commentarios, y doctrina sobre la relga primitiva de la Orden de Nuestra Señora del Carmen...*, Segovia, 1638, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-D / 36); FR. FRANCISCO DE S.ELIAS, *Commentarios, y doctrina sobre la relga primitiva de la Orden de Nuestra Señora del Carmen...*, Segovia, 1638, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-D / 36-b), (aurreko liburuaren berdina da); Santa TERESA DE JESUS, *Cartas... con notas del excellentissimo, y Reverendissimo D.Juan de Palafox.*, 1.t., Madrid, 1678, ("Es de la lib^{ria} del Carmen de Marq^{na}") (2-D / 11); Santa TERESA DE JESUS, *Cartas... con notas de el Padre Fray Pedro de la Anunciación...*, 2.t., Madrid, 1678, ("Librería del Carmen de Marq^{na}") (2-D / 13-b).

⁴⁶² Fr. Miguel de la FUENTE, *Libro de las tres vidas de el hombre, corporal, racional, y espíritu ritual...* Madrid, 1710, ("Del Carmen de Marquina") (2-I / 742); Juan de PALAFOX, *Varón de deseos, en que se declaran las tres vías de la vida espiritual. Purgativa, Illuminativa, y Unitiva...*, Madrid, 1663, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819") (2-U / 753); [izenburuaren orria falta du:] Luis de la PUENTE, *Guía espiritual...*, (galdua den orrian Frai Bartolomek idatzitako zerbait zegoen) (2-I / 763); Fray Antonio de MOLINA, *Instrucción de sacerdotes, en que se les da doctrina muy importante.*, Madrid, 1657, ("Del Carmen de Marquina") (2-I / 791); (Miguel MANESCAL), *Mystica ciudad de Dios, milagro de su omnipotencia, y abismo de la gracia. Historia divina, y vida de la Virgen Madre de Dios... manifestada en estos últimos siglos por la misma Señora a su Esclava Soror María de Jesús... Segunda parte...*, Lisboa, 1684, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-L / 4-b); (Miguel MANESCAL), *Mystica ciudad de Dios, milagro de su omnipotencia, y abismo de la gracia. Historia divina, y vida de la Virgen Madre de Dios... manifestada en estos últimos siglos por la misma Señora a su Esclava Soror Maria de Jesus... Tercera parte...*, Lisboa, 1684, ("Librería del Carmen de Marquina") (2-L / 4-c); Luis de la PUENTE, *Obras espirituales... Tomo primero...*, Madrid, 1690, ("Comp^{do} 1819" ?), (2-I / 818); Luis de la PUENTE, *Obras espirituales... Tomo segundo...*, Madrid, 1690, ("Comp^{do} 1819" ?), (2-I / 818-b); Luis de la PUENTE, *Obras espirituales... Tomo tercero...*, Madrid, 1690, ("Comprado 1819"), (2-I / 818-c); Luis de la PUENTE, *Obras espirituales... Tomo quarto...*, Madrid, 1690, ("Comprado 1819"), (2-I / 818-d); Luis de la PUENTE, *Obras espirituales... Tomo quinto...*, Madrid, 1690, ("Comp^{do} 1819"), (2-I / 818-c); P. Juan Eusebio NIEREMBERG, *Obras christianas ...*, 2.t., Madrid, 1665, ("De la librería del Carmen de Marquina") (2-I / 814-b).

⁴⁶³ Agustín de BAZTERRICA, *Nueva demostración del derecho de Vergara, sobre la patria, y apellido secular de San Martín de la Ascensión y Aguirre...*, Madrid, 1745, ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina, 1819") (1-M / 7). Bada Frai Bartolomek erositako beste liburu bat ere, zenbait eduki ezberdinez osatua, bakoitza bere orrialde-zerrendarekin; zuzenbideko gai edo arazoak datoz, hauen artean Kalahorrari dagozkionak, pertsonaia euskaldun batzuei dagozkienak ere bai besteak beste. (1-M / 5) ("Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina. 1819").

a) **Bibliako iturriak**

Kristau-doktrinaren irakasle edo teologo batentzat ezinbestekoa da Biblia erro-tik ezagutzea; eta Frai Bartolomek Biblia ongi ezagutu eta bere gaietan altxor hori erabiltzen badakiela erakusten du. Bibliako aipamenik gehienak *Icasiquizunac* sail-leko liburukietan datozenak dira.

Haren Bibliaren ezagutza orokorra da, beraren testuetan ia Bibliako liburu guz-tietako aipamenak ageri baitira: Itun Zaharreko 35 liburutako aipamenak daude, eta Itun Berriko 20 liburutakoak.

Frai Bartolomeren idazlanetan gehien aipatzen den liburua Kohelet (*Ecclesiastes*) da; 30 aldiz ageri da; Esaera Zaharrak deritzon liburua 24 aldiz, Irteera 20 aldiz, eta gainerako liburuak gutxiagotan: Salmoak (18 aldiz), Deuteronomioa (14 aldiz), Jeremias (10 aldiz), Hasiera (9 aldiz), Tobit (9 aldiz), etab. Guztitara Itun Zaharraren 212 aipamen ageri dira.

Itun Berrian ebanjelioetatik aipatuena San Mateorena da, 51 aldiz dator; San Joanen ebanjelioa 23 aldiz, San Lukasena 9 aldiz eta San Markos 6 aldiz; Santiagoren gutuna 8 aldiz. Baina guztietarik aipatuena San Paulo da; honen gutunetatik 75 aipamen aurkitzen ditugu... Guztitara 181 aipamen ditugu Itun Berriak.

Frai Bartolomek erabilitako Bibliako argitalpenei eta hark ezagutzen zituen Eskritura Santuko estudioei dagokienez, berak egiten dituen adierazpen txiki bat-zuek at, ez dugu ziurtasunik; baina oraindik Markinako Karmengo bibliotekan dagoena kontuan izanik, gutxi gorabehera atera genezake komentuan hark eskue-ran izan zezakeena... Honela, adibidez, hark eskueran izan zitzakeen biblietatik, "Biblia Sacra Vulgatae editionis" delakoaren hainbat argitalpen izango zirela uste izatekoa da (Anverpiae 1715, 1716; Lugduni 1604, 1609, 1692, 1727; Parisiis 1702, 1731; Venetiis 1740, 1765, 1741; Matriti 1799; hainbat argitalpen izan dituen Phelipe Scio de San Miguel-en gaztelaniazko itzulpena, esaterako, zazpi liburukitan, Valentzia 1791-1793; edo *Epístolas de San Pabla* Frantzisko Ximenez-ek gaztela-niara itzuliak, etab.). Eta Bibliako iruzkinen artean, besteak beste, Augustinus Calmet-en iruzkin ezagunak dira Markinako Karmeldarren bibliotekan (8 liburuki, 1755-1760), Joannes da Sylveira (1697-1701), Cornelius a Lapide, Joannes Maldonatus, etab. eta bereziki Benedictus Pererius Valentinus-ek Danielez eginda-ko iruzkinak, liburu honetan idatzi baitzuen Frai Bartolomek ohar hau: "Carmen de Marquina", eta Jacobus Tirinus-en iruzkinak (Ludguni, 1723) eta Joannes Lorinus-enak (Venetiis, 1737), hauetan idatzi baitzuen ondorengo oharra: "Se compró p^a la libreria del Carmen de Marquina en 1819", etab. Aipatzekoa da Markinako Karmengo bibliotekako libururik zaharrenetarikoa gai biblikoa duena dela (ANTHONIUS A KONYGSTEYN, *Concordantiae breviores omnium ferme materiarum ex sacris bibliorum libris...* Coloniae, 1533) eta honek ere Bartolomeren ohar ezagun hau darama: "Carmen de Marquina"

b) **Eliz Gurasoen iturriak**

Arestian ikusi dugunez, hain zuzen ere Frai Bartolomek bere ikasketak hasi zituenean, Karmeldar Teresiarren Ordenak bere filosofia eta teologiako ikasketen araudia berritu egin zuen, Eskritura Santuaren ikasketa, teologia eskolastikoarekin⁴⁶⁴ batera, goren mailan ezarria izan zelarik; Eskritura Santua, Tradizioa, Kontzilio eta Eliz Gurasoak ongi ezagutzea behar-beharrezkoa zen.

Konstituzioetan Eliz Gurasoen⁴⁶⁵ doktrinaren berri jakitea ere agintzen zen; eta, egia esan, Eliz Gurasoen estudio honek aztarna bizia utzi zuen Frai Bartolomerengan; esaterako, erabili zituen gaietan, 15 bat Eliz Guraso aipatzen ditu, guztitara 101 aipamen... (Batzuetan zuzenki aipatzen ditu, eta beste batzuetan beste autore batzuen bidez...). Gogoan izatekoa da gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen diren XVI. mendeko Eliz Gurasoen liburu handiak, hain zuzen ere, Frai Bartolomek salbatu zituela frantseseak eragin zuen hondamenditik.

San Agustin da guztietarik nagusi, gutxi gorabehera 34 aldiz aipatzen duelarik; San Joan Krisostomo 24 aldiz aipatzen du; gainerakoak gutxiago agertzen dira, esaterako, San Jeronimo (9), San Ambrosio (8), San Basilio (7), San Gregorio (6), San Zipriano (5), etab.

Frai Bartolomek frantsesean hondamenditik salbatu zituela Eliz Gurasoen liburu batzuk adierazi dugu lehenxeago. Horrela gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen dira XVI. mendeko Eliz Gurasoen liburu handi eta dotoreak: San Zipriano, San Agustin, San Jeronimo, San Joan Krisostomo, San Basilio, San Joan Damaszeno, San Gregorio, San Isidro, San Ambrosio, etab. Ezagut zezakeen biblioteka horretan gordetzen den Tricalet jaunaren 10 liburukitako bilduma ere (*Biblioteca portátil de los Padres y Doctores de la Iglesia* Madrid, 1790-1791).

c) **Eliz Irakaspenekoak**

Eliz Irakaspeneko autoritateari dagokionez, bizpahiru autore dira Frai Bartolomek eten gabe aipatzen dituenak.

Lehenengo eta behin sarri-sarri dakar Erromako Katixima; 40 aldiz aipatzen du...

Markinako Karmeldarretan badira oraindik Bartolomek erabil zitzakeen liburuak: latinezko argitalpen batzuez gain, Bartolome Markinan zen garaian, hots, XIX. mendearen hasieran, hemen zeuden itzulpenik garrantzitsuenak gordetzen dira: Lorentzo Agustin Manterola-rena (*Catecismo de Trento*), lehen aldiz Iruñean argita-

⁴⁶⁴ *Instrucción de los colegios de Carmelitas Descalzos formada y presentada en su capítulo general celebrado en el convento de San Hermenegildo de Madrid a 25 de Septiembre de 1790. Por N. M.R.P. Fr. Andrés de la Ascensión. Aprobada por su Difinitorio General de Comisión de dicho Capítulo*, Madrid, 1790, 45-50.or.

⁴⁶⁵ *Constituciones...*, 130.or.

ratu zena (1777, 1780, 1786) eta geroago Madrilen (1785, 1797, 1805), eta Agustin Zorita-rena (Valentzia, 1782, 1783, Madril 1786, 1791, 1802, etab.). Markinako Karmeldarretan badira oraindik 1777, 1786, eta 1791ko argitalpenak, eta halakoren batez balia zitekeen Frai Bartolome.

Haren ondoren, berezko denez, Trentoko Kontzilioa aipatzen du, 29 aldiz, aipatu ere... Markinako Karmeldarretan bada oraindik Bartolomek erabil zezakeen liburua: Ignazio Lopez de Ayala-ren bigarren argitalpena, elebiduna, latinez eta gaztelaniaz (*El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento, traducido al idioma castellano*), Madrilen 1785. urtean argitaratua. Badira gainera, ziur aski Frai Bartolomerengatik, *Sacrosanctum, œcumenicum concilium tridentinum ...* (Madrid, 1762, 1779) obraren bi argitalpen, Johannes Gallemart, Augustinus Barbosa-k eta Cardenal de Luca-k eginak.

Aita Santu Benedikto XIV.aren aipamen batzuk ere ageri dira; 8 aldiz aipatzen du (1740-1758), eta honen liburuak ere gaur egun Markinako Karmengo bibliotekan⁴⁶⁶ gordetzen dira...

d) Maite zituen autoreen iturriak

Aipatzen dituen XII. mendetik XVIII.era arteko teologo, idazle, santu eta abarren artean, 60 bat autore, guztien gainetik teologo, filosofo eta eskriturista bikain S. Tomas Akinokoa ageri da batez ere, 42 aldiz aipatzen baitu Frai Bartolomek; beste batzuk gutxiago ageri dira, esaterako, San Karlos Borromeo (10 aldiz), Marchant (9 aldiz), Pouget (9), San Bernardo (7), Cornelio a Lapide (7), San Frantzisko Saleskoa (4), etab.

Euskal Herriko autoreetatik hauek aipatzen ditu beren-beregi: Frantzisko Antonio Palacios⁴⁶⁷ (*Euscal-errijetaco...*, 93) eta Joan Antonio Mogel (*Euscal-errijetaco...*, 93); dena dela, beste euskal idazle batzuk ere ezagutu zituen, goraxeago adierazi dugunez.

⁴⁶⁶ Markinako Karmeldarren bibliotekan Benedicto XIV.aren hainbat liburu daude; hauen artean, idazlan guztiak liburuki ugaritan (*Opera omnia*, Venetiis, 1767). Frai Bartolomek ondorengo hau aipatzen du bereziki: *De Synodo Diocesana* Matriti, 1778; *Pastoral... e instrucciones eclesiásticas...*, Madrid, 1769.

⁴⁶⁷ Areago oraindik, Markinako Karmeldarren bibliotekan (1-M / 45) Frantzisko Antonio Palacios-en liburua gordetzen da (*Viva Jesús. Respuesta satisfactoria del Colegio de Misioneros... Una disertación sobre lo lícito, ó no de los bailes regulares de las Plazas, y de Saraos...* Pamplona, 1791), Frai Bartolomerengatik ohar autografo hau duena: "Del Carmen de Marquina"

III. ERDARAZKO IDAZLANAK

Frai Bartolomeren beste testu interesgarri batzuk ere, gaztelaniaz idatziak, ezagunak zaizkigu. Funtsean hizkuntz iruzkinak, gutunak, txosten eta kontaktak dira, baina badira zenbait testu ofizial ere... Hauetarik asko galduak dira, baina beste asko gorde izan dira; batzuk argitaratu ere egin dira, Frai Bartolomeren asmoetan horrelako xederik ez bazen ere.

Egoki eta beharrezko iritzi diogu honelako idazki batzuk ere argitaratzeari, Frai Bartolomeren nortasun eta kultura agerrarazteko. Honela, lagungarri gerta daitezke testu hauek Bartolome bere osotasunean, idazle eta Ordenako gobernu-gizon gisa, ezagutzeko...

1) Plauto bascongado (1828)

Bera bizi zela argitaratutako gaztelaniazko bi idazki edo liburuxka ditugu, haren asmoa argitaratzea izan ez bazen ere. Bien edukia Frai Bartolomek Joan Jose Mogeli egindako gutunak dira, honek argitara eman zituelarik... Lehenengoa hauexek da:

“Plauto bascongado / ó el bascuence de Plauto / en su comedia Poenulo / acto 5.º escena 1.ª ... / Y / La impugnación de Manual de la / lengua basca impreso en Bayona / de Francia año 1826 por M.ª / Lecluse, Profesor de las lenguas / hebrea, y griega... / por el presbitero D. Juan José / Moguel / —/ con las licencias necesarias. / Año de 1828.” 125 or., 14’5 x 10 cm

Ale bat Arantzazuko Frantziskotarren bibliotekan gordetzen da (J / 2-8-4). Beste liburuxka batzuekin batera azalezaturik dago; hauexek dira: 1. *Reflexiones filosóficas en defensa de la apología de la lengua bascongada..* Paulo Pedro Astarloa-rena, Madril, 1804. 2. *Carta de un bascongado al Sr. D. Tomás de Sorreguieta...* Paulo Pedro Astarloa-rena, Madril, 1804. 3. *Plauto bascongado...* Frai Bartolome-rena, Joan Jose Mogel-ek 1828an argitaratua. 4. *Plauto poligloto...* “Urhersigarria”rena (Lécluse jaunaren izenordea), Tolosa, 1828. 5. *Anti-Plauto poligloto...*, Frai Bartolome-rena, Santander, 1829.

Arantzazun gordetzen den *Plauto bascongadoren* alea interesgarria da, Joan Mateo Zabala frantziskotarrak zeukana zelako batez ere; hau Frai Bartolomeren garaikoa zen, eta Plautoren bertso “punikoen” gorabeheran sorturiko eztabaida guztiaren jakitun zegoen. Interesgarria batez ere liburuxkan idatzi zituen ohar eta gehiketengatik. Esaterako, izenburua jartzen duen orrialdean liburuxkaren egilea-

ren izena (eskuz idatzia) jartzen du: “escrito por el R.P.Fr. Bartolomé de Sta. Teresa”; dirudienez, berak sartu zituen ortografiako zuzenketa txiki batzuk testuan zehar, adibidez, “v” eta “b”ren artekoak; eta kontuan hartzekoak dira batez ere 32. orrialdean gehitu zituen hiru lerroak, antza denez, testuan falta ziren-eta. A. Zabalak, Karmeldarraren bizitzaren berri ongi zekien-eta, liburuxkaren hasieran ohartxo hau ezarri zuen: “Murió el P.Fr. Bartolomé de S^a Teresa en 1835”.

*Plauto bascongadore*n testua berriro argitaratu dute oraintsu Joseba Lakarra eta Blanka Urgelek: *Plauto Bascongadore*n *eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 494-519. Argitaratzaileek, gainera, bete-betean asmatu dute, haren inguruko testuekin batera argitaratzean, hau da, Plautoren bertso ospetsuei buruzko eztabaida zela-eta idatzi ziren testuekin batera: 1. *Plauto bascongado*, 1828 (J.J.Moguel-Fr.Bartolome), 494-519. or.; 2. *Plauto polígloto* Lecluse-rena, 1828, 531-534. or. 3. *Carta* J.I.Iztuetac a J.J. Mogueli, 1829, 520-529. or.; 4. *Anti-Plauto polígloto* Frai Bartolome-rena, 1829, 486-493. or.

Bi argitaratzaile hauek eskaintzen diguten *Plauto bascongadore*n testua oso ona da; garbi nabari da 1828an argitaratutakoarekiko leialtasun osoa gordetzeko ahalegina. Hala ere, bi testuen artean badira alde txiki batzuk; hitz banaka batzuk falta dira etab. Bestalde, eztabaidagarria da erabili duten metodoa, hau da, lehen edizioarekiko leial izan beharraren izan beharrez, inprimategiko hutsak ere bere hartan uztea, edo azentu-markarik ezagatik sortzen diren duda-mudako kasuak ez argitzea, edota hitz batzuk bereiz ez idaztea etab. kasu hauetan testua gaizki ulertua edo nekez ulertua izan daitekeelarik...

Testuaren jatorri eta hedapenak historia oso bitxi eta berezia izan dute.

Santanderren Frantziako kontsul zen Luis Frantzisko Graslin hainbat urtetan ari zen *Poenulusen* bosgarren ekitaldiko lehen agerraldian datozen hamar bertso misteriotsuak argitu nahian.

Hainbat pertsona jakintsuren erantzun ugari jaso arren, ez zuen haietariko batek ere asetzen... Halako batean, adiskide baten bitartez, Frai Bartolomerekin harremanetan jarri zen. Honek ezin izan zion mesede hori ukatu, eta bere iritzia igorri zion, euskararen bidez Plautoren bertso misteriotsuen korapiloa askatzen saiatuz.

Dirudienez, Graslin-en gogokoa izan zen, inprimatu egin zuen-eta. Karmeldarraren interpretazioa ezaguna zen gai horretaz interesa zuten Euskal Herriko pertsonen artean.

Tolosan Iparraldeko euskaldun talde bat bildu zen Frai Bartolomeren lana aztertzeko.... Lecluse jaunak 1826an⁴⁶⁸ argitaratutako bere Euskal Gramatikan aipatzen du.

Orduan Joan Jose Mogel, Karmeldarraren ikasle eta adiskidea, sartzen da auzi horretan. Plautoren bertsoen eztabaidaren nondik norakoa ongi zekien, eta Frai Bartolomerengana jotzen du, hau Santanderren zela, gai horretaz galdera asko egi-

⁴⁶⁸ *Grammaire basque*. Toulouse, 1826.

PLAUTO BASCONGADO,

Ó

EL BASCUENCE DE PLAUTO
EN SU COMEDIA POENULO
ACTO 5.º ESCENA 1.ª

Y

La impugnacion del *Manual de la
lengua basca* impreso en Bayona
de Francia año 1826 por M.^{te}
Lectusc, Profesor de las lenguas
hebraica, y griega...

impugnacion de M. de Arantzazu, de la Basca

POR EL PRESBITERO D. JUAN JOSÉ
MOQUEL.

175.º 3.º

CON LAS LICENCIAS NECESARIAS.

Año de 1828.

*"Plauto Bascongado"ren portada, tamaina naturalean
(Arantzazun)*

nez... Eta Frai Bartolomek lau gutun luzetan ematen dio bere iritzia: 1827-VI-17, 1827-VII-12, 1827-VIII-10, 1827-VIII-30.

Ez zuen nahi Frai Bartolomek Joan Jose Mogelek gutun hauek argitara zitzan, lehenik "zirriborro" edo ohar xumeak baizik ez zirelako..., eta bigarrenik gai honezta Graslin-i eman zizkiolako idatziriko paper batzuk, honek argitaratzeko asmoa zuelarik..., baina bere adiskideak ekin eta ekin egiten zion eta, azkenean amore eman zuen Karmeldarrak.

Frai Bartolomereren eskuizkribu hauen historia laburraz hauxe esan genezake: 1. Karmeldarraren eduki txikiko paperak ziren lehenengotan, Graslin-ek argitaratu zituenak; bai eskuizkribua eta bai argitaratutakoa galduak dira. 2. Paper gehiago eta eduki handiagokoak eman zizkion Graslin jaunari; honek liburu baten argitaratzeko asmoa zuen; eskuizkribua galdua da. 3. Frai Bartolomereren lau gutunen eskuizkribu autografoa; galdua da. 4. Gordetzen den eta ezaguna den 1828ko argitalpena: *Plauto bascongado ó el bascuence de Plauto en su comedia Pœnulo...*

Plauto bascongado honetaz, Plautoren bertso "puniko"en edukiaz, eta hortik sortutako eztabaidaz argi gehiago egin nahirik jardun dute batzuek, bereziki A.Lino Akesolak; honezkero badira 30 urte artikulua bat idatzi zuela *Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongado*⁴⁶⁹ izenburuarekin; eta azken urteotan, 1988an, Joseba Lakarra eta Blanka Urgel ere horretan saiatu dira idazki⁴⁷⁰ honen argitalpeneko sarreran.

2. *Anti-Plauto polígloto (1829)*

Karmeldar idazle klasikoa bizi zela argitaratu zen gaztelaniazko bigarren liburuxka ondorengo hau zen:

"*Anti-Plauto polígloto, / ó / defensa de Plauto / bascongado, / Y / de la impugnacion del / Manual de la lengua / basca de M.^r Léc||juse. / — Santander 1829*".
29 or., 14'5 x 10 cm

Liburuxka hau Arantzazuko frantziskotarren bibliotekan dago, eta *Plauto bascongado* delakoaz esan dugun era berean egon ere. Joan Mateo Zabalak zeukan eta hemen ere badira hark egindako ohar batzuk...


Liburuxka hau ere Joan Jose Mogelek argitaratu zuen; oraingoan ez du bere izenik jartzen, baina ezta Frai Bartolomeretik ere...

Eskuizkribuaren historia eta haren argitalpena.

Bere adiskide Joan Jose Mogeli aditzera eman zion ez zitzala argitara bere zi-

⁴⁶⁹ Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1*.t., 323-338).

⁴⁷⁰ *Plauto Bascongadorez eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 479-486.



"Anti-Plauto Poligloto"ren portada, tamaina naturalean
 (Arantzazun)

rimarrak (“que no diera a la prensa mis borrones”). Beldur zen eta gero gerta-erek zuzen zebilela erakutsi zuten. *Plauto bascongado* delakoak hautsa ederki astindu zuen haren “aurkakoen” artean, Lécluse eta abarren artean... Erantzunak han eta hemen sortu ziren: Lecluse-n *Plauto poligloto* 1828an, eta J.I.Iztueta-ren gutuna J.J. Mogel-i, 1829an... Orain, J.J.Mogelen eskariz, ihardespena ematekotan da karmeldarra.

Frai Bartolomereren eskuizkribua ez da guregana iritsi, baina bai 1929. urtean Santanderren argitaratutako testua.

Eztabaidaren edukiari buruz, *Plauto bascongadori* buruz, aipaturiko bi idazlanetara jo beharko genuke: Lino Akesolok eta J. A. Lakarra - B. Urgel-ek egindako idazlanetara.

3) **Apuntaciones... 1815 (1992)**

Frai Bartolomereren idazki honetaz, haren eskuizkribuak gorde izanaren zoriona dugu eta baita 1992an argitaratu izanaren zoriona ere.

Eskuizkribuak

Testu honen bi eskuizkribu ditugu batez ere: bata, oso-osorik Frai Bartolomereren testu autografoa da (MKA, A-I-70), eta bestea, besteren baten eskuz idatzia dena, baina Frai Bartolomek bere eskuz sinatua eta egiaztatua; eskuizkribu original hau BASen gordetzen da; MKA-n testu original honen fotokopia dago (A-I-69).

a. *Testu autografoa* (MKA, A-I-70)

Eskuizkribuak 10 plegu hartzen ditu, hau da, 20 orri, hari zuriz josiak, hasieran orri zuri bat gehitu zaio, eta azala paper urdinezkoa da, bertan eskuizkribuaren data, gordetzen den artxiboaren katalogo-zenbakia eta izenburua agertzen direla.

20 orrietatik 18 lehenenak daude idatzirik; eskuizkribuak askoz ere geroago ezarritako orrialde-zenbakiak ditu, 1. orrialdetik 34.era, baina lehen orriak ez du orrialde-zenbakirik, ezta azken biek ere, zuri agertzen baitira.

Eskuizkribua, ertz desberdinak dituena (31 x 21 cm), egoera onean dago, hezetasunaren eragina jasan badu ere; hori dela-eta, orrien gorengo lerroak ia ezin dira irakurri; horregatik, geroago beste norbaitek sartu du hor eskua falta dena berri-dazteko, baina batzuetan ez hain zuzen.

Idatzitako lehen orrian, eta orrialde-zenbakirik gabe, izenburu autografoa dator, baina letra larriz idatzia:

“Apuntaciones de lo ocurrido en el / Combento de los Carm^{tas} Desc^{zos} de la / Villa de Marquina desde el año / 1808. hasta el de 1815”. Eta orrian zehar batetik bestera dauden bi lerro paraleloen ondoren, beste batek (Frai Frantzisko Jainkoaren Amarena, prioreak) hau idatzi zuen: “La copia de estas apuntaciones, firmada por el P. Predicador Fr. Bartolomé / de S^a Teresa se embió a N.R.P.Provincial el 16 de Noviembre de / 1815”. Horren ondoren Frai Bartolomeren hiru lerro autografo datoz, eskuizkribu honetako edukiaren gai ezberdinei dagozkienak: “Suspension de la obra del pajar: Guardia de la / sanidad en la porteria: Pretensión de la colo / cación del Relox en la torre”. Eta hurrengo lerroan hauxe jartzen du letra larriz: “Numero Unico”. Beherago, Markinako Karmengo Komentuko zigilu-marka dator; eta behe-behean honako ohar hau jarri zuen norbaitek: “Tien[e] 16 folios”.

Kontaktetan zehar, Frai Bartolomek, ezkerreko ertzean jartzen ditu barruan datozen gaiak. Ezkuizkribuan bi pertsonak egindako zuzenketak ageri dira: bata, bere garaikoa da (Frai Frantzisko Jainkoaren Amarena), eta bestea, askoz ere beranduagokoa, hezetasunaren eraginez ilundurik dauden goiko lerroak berridatzi nahi izan zituena.

b. *Testu originala* (BAS, 52,i)

Frai Bartolomeren testu honen kopia original bat ere bada, Burgosko “Archivo Silveriano” delakoan gordetzen dena.

4 pleguko eskuizkribua da, hau da, zortzi foliokoa (305 x 215 mm) eta hariz josia; hauetatik lehen 14 orrialdeak idatzirik daude. Zortzigarren folioan, besteren batek (A. Frantzisko Jainkoaren Amarenak, dirudienez) “Marquina” idatzi zuen, eta azpian “invasión”.

Kopia honek egilearen sinadura autografoa dakar: “Fr. Bartolome de S^a Teresa”, bai kontaktetaren amaieran eta bai amaierako 10 lerroen ondoren ere, egilea gertakari horien lekuko dela ziurtatuz.

Frai Bartolomeren testu hau kopiatu zuena nor izan zen ere jakin dugu; A. Frai Frantzisko Jainkoaren Amarena, priorea; eta hori honen beste testu autografo batzuetatik ateratzen dugu. Esaterako, eskuz idatzitako *Libro de las Memorias Perpetuas y sus Certificaciones: Año 1805* (MKA, G-III-30) delakoan, BSAko kopia-tzaile berak eskuz idatzitako hainbat orrialde aurkitzen ditugu (75^a, 75ⁱ, 76ⁱ, 77ⁱ, 78ⁱ, (...)); orrialde horietan A. Frantzisko Jainkoaren Amarenak, prioreak, idatzen eta sinatzen du, karguan honen ondorengoa Frai Bartolome Santa Teresarena⁴⁷¹ izanik.

⁴⁷¹ BAS-n bertan (Caja 2, Letra A; Caja 52, Letra i) daude *Apuntaciones* delako testuaren bi kopia...

Haien argitalpena

Oraintsu arte testu hau argitara gabe⁴⁷² zegoen; orain dela zazpi urte J. Urkizak argitaratu zuen-eta (*Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea - Zornotza, 1992, 752-768).

Transkizio honetan, eskuizkribu autografo originalarekiko leial den honetan, laburdura batzuk argitu dira eta azentu-markak jarri ere bai, oraingo erregelen arabera...

Eskuizkribuaren jatorria eta edukia eta beraren garrantzia

Bidezkoa zen komentu bakoitzak bere nagusiei frantsestan⁴⁷³ gertaturikoen txostena edo kontaketa bidaltzea, komentu askok lau urteko esklaustrazioa jasan baitzuten, hauen artean Markinakoak. Berri emateko agindua Ordenako Aita Jeneralarengandik zetorren, Frai Bartolomek bere kontaketa amaieran adierazten duenez.

Hain zuzen ere, agindu hori betetzearren, Frai Bartolomeren kontaketa honen kopia, Markinako Karmeldarren prioreak, Frai Frantzisko Jainkoaren Amarenak egina eta Frai Bartolomek benetakotua, A. Probintzialari igorri zitzaion 1815eko azaroaren 16an, Frai Bartolomeren eskuizkribuaren lehen orrialdean irakur daitekeenez.

Kontaketa hau, Bartolomek berak dioenez, egia desitxuratzeko nahiz aldatzeko inolako asmorik gabe egina da ("sin interés alguno, ni pasión a exagerar o desfigurar la verdad de los hechos"). Frai Bartolome Santa Teresarenak, 1808tik 1815.era bitartean, frantseste garaian, Markinako Karmeldarretan gertaturikoaren lekuko gisa idatzitako kontaketa da.

Kontaketa honek interes berezia du Markinako Karmeldarren historiarako, hain zuzen ere, gertaturikoak leialtasun osoz dakartzalako eta gordetzen diren gauzei buruz berri ugari ematen digulako, gordetzen diren gauza horiek, hein handi batez, Frai Bartolome beraren esku-hartze azkar eta ausartari zor izanik. Baliotsuak dira elizaz, erretaulez, ornamentuez eta bereziki biblioteka eta artxiboaz ematen dizkigun albisteak.

4) Gutunak, txostenak, idazkiak

Frai Bartolomeren gaztelaniazko idazkien artean, jadanik argitaratuak diren bi liburuxka eta frantseste garaiko gertakariei buruzko txostenaren ondoren, idazki

⁴⁷² Hala ere noizbehinka aipatua eta erabilia izan da, esaterako, A. Silverio Santa Teresarena bere *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*, t. XII, Burgos, 1944, 857-860.

⁴⁷³ Irakurleak aipatutako A. Silverio Santa Teresarenaren XII. liburukian aurkitu ahal izango ditu kontaketa ugari hauen albisteak.

labur batzuei buruz hitz egitea dagokigu orain, esaterako, txosten, oroit-idazki, gutun eta abarri buruz. Idazki labur hauek argitaratu gabe egon dira gaur arte, eta egoki eta bidezko dirudi argitaratzea, Frai Bartolomeren jarduera eta nortasuna hobeki ezagutuak izan daitezten. Bestalde, ez dugu ahaztu behar hauetariko gehienak haren priore kargua zela bide idatzitako idazki eta gutunak direla; hau da, ia beti arazoren bat konpontzea edo korapiloak askatzea dute xede...

Baina irakurleari oharraraztea komeni da era honetako idazki ugarietatik eta orobat bere-bereak zituenetik ere, parte txiki bat baizik ez dela gelditzen; bereziki gutunak dira gordetzen direnak...

Orain idazki hauen guztien zerrenda aurkeztuko dugu: a) gordetzen direnak, neurri handi batez autografoak eta liburu honetan argitaratuak; hauek letra arruntez ematen ditugu; b) beste idazki batzuei buruz albistaren batzuk iritsi zaizkigu soilik; albistaren iturria non dagoen, eta hauek *kurtsibaz* agertuko dira. Frai Bartolomek Ordenako nagusiei igorritako idazki, sermoi nahiz hitzaldiei buruzko albisteak ere emango dira.

1804-VIII-4: Frai Bartolomeren gutun autografoa, Joan Jose Mogel-i buruz (KEA, 1/102/1).

1809-X-16: Frai Bartolomeren gutuna Markinako Alkateari (MUA, C.19, f.229ⁱ-230^a).

1812-VIII-19: Frai Bartolomeren ziurtagiri autografoa (KEA).

1813-IV-28: Frai Bartolomeren ziurtagiri autografoa (KEA).

1813-VII-8: Frai Bartolomek Francisco Javier Castaños Jeneralari egindako oroit-idazkia (*Apuntaciones* deritzon kontaketaen barruan dago).

1816-V-20: *Ordenako Definitorio Jeneralak baimena ematen dio Bartolomeri, dantzei buruzko liburua inprimatzeko (licencia para imprimir su libro "sobre los Bayles del País"). Definitorio berean onarpen eske hitzaldi kateketikoen idazki bat jaso dutela ziurtatzen da...*(MBN, Esk. 1650, 4^a).

1817-V-10: *Frai Bartolomeren idazkia Definitorio Jeneralari, hitzaldiak komen - tuko Buruaren esku utzi dituela jakinaraziz...* (MBN, Esk. 1650, 20^a).

1817-XI-4: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen du* (BAS, Esk. 194, 158.or.).

[1818-IV-13]: Frai Bartolomeren gutuna Markinako alkateari (GKPA, G. Markina).

[1818-IV-13]: Frai Bartolomeren gutun autografoa Markinako alkateari (GKPA, G. Markina).

1818-IV-16: Frai Bartolomeren gutun autografoa Zeledonio Axpe jaunari (GKPA, G. Markina).

1818-V-4: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen du* (BAS, Esk. 194, 166.or.).

1818-V-5: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen du* (BAS, Esk. 194, 167.or.).

1818-V-5: Frai Bartolomeren gutun originala Markinako Alkateari (GKPA, G. Markina).

[1818-V]: Frai Bartolomeren gutun (GKPA, G. Markina).

1818-XI-4: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren beste idazki bat irakurtzen du (BAS, Esk. 194, 180.or.).*

1818-XI-5: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen du (BAS, Esk. 194, 181-182.or.).*

1818-XI-6: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren beste idazki bat irakurtzen du (BAS, Esk. 194, 182-184.or.).*

1818-XI-26: *Definitorio Jeneralak Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen du, liburu bat inprimatzeko baimena eskatzeko egina (MBN, Esk. 1650, 81^a).*

1819-IX-6: Frai Bartolomeren gutun autografoa Kalahorrako Apezpikuari (KEA, 4/109/8).

1819-X-31: Frai Bartolomeren gutun originala Markinako Alkateari (MUA, 47. Erregistroa, 10.zb., 7.or.).

1819-X-31: Frai Bartolomeren gutun originala Markinako Alkateari (MUA, 47. Erregistroa, 10.zb., 8.or.).

1819-XII-17: Frai Bartolomeren gutun autografoa (GKPA, G. Markina).

[1819-XII ?]: Frai Bartolomeren testu autografoa (GKPA, G. Markina).

1819-XII-20: Frai Bartolomeren testu autografoa Markinako Alkateari (GKPA, G. Markina).

1820-III-23: Frai Bartolomeren gutun autografoa Kalahorrako Apezpikuari (KEA, 4/109/8).

1820-IV-11: Frai Bartolomeren gutuna Markinako Alkateari. (MUA, C.21, 119^a).

1820-V-16: Frai Bartolomeren gutun autografoa Ordenako A. Jeneralari: Konstituzioa betetzea zin egitearen ziurtagiria (HAKA, C-II-24).

1821-II-1: Frai Bartolomeren gutun autografoa Santanderko Apezpikuari (HAKA, B-XI-10).

1821-II-26: Frai Bartolomeren gutun autografoa Santanderko Apezpikuari, komunitatearen izenean (HAKA, B-XI-12).

1821-II-26: Frai Bartolomeren gutun autografoa Santanderko Apezpikuari, komunitatearen izenean (HAKA, B-XI-13).

1821-X-19: Frai Bartolomeren gutun autografoa Madrilen Aita Santuaren Nuntzio zenari (HAKA, B-X-6).

1821-XI-29: Frai Bartolomeren gutun autografoa Santanderko Apezpikuari (HAKA, B-XI-19).

1822-IX-12: Frai Bartolomeren testu autografoa komentuan izan ziren hauteskunde konstituzionaletako akta jasoz, Bilboko Buruzagi Politikoarentzat (HAKA, E-I-30).

1822-XI-6: Frai Bartolomeren gutun originala Bilboko Buruzagi Politikoari (HAKA, E-I-32).

1822-XI-15: Frai Bartolomeren gutun autografoa Madrilen Aita Santuaren Nuntzio zenari (HAKA, B-X-7).

1823-IX-27: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren beste idazki bat irakurtzen du (BAS, Esk. 194, 280^a.or.).*

1823-IX-30: *Definitorio Probintzialak Frai Bartolomeren beste idazki bat irakurtzen du (BAS, Esk. 194, 284^a.or.*

1829-XI-11: *Frai Bartolomeren idazki bat irakurtzen da Definitorio Probintzian (BAS, Esk. 194, 483. or.).*

1831-XI-14: *Frai Bartolomek idazle-agiria eskatuz egindako idazki bat irakurtzen da Definitorio Probintzian (BAS, Esk. 194, 525.or.).*

5) Bartolomeren ofiziozko beste idazki autografoak

Orain arte, berak edo geroago argitaratutako Frai Bartolomeren testuak, eta lehen aldiz liburu honetan argitaratzen direnak aztertu ditugu: *Euscal-errijetaco olgueeta...*, *Icasiquizunac ...*, kontakizunak, txostenak, gutunak..., etab.

Hala ere oso ugari dira liburu honetan argitaratzen ez ditugun Frai Bartolomeren orrialde autografoak; horietatik batzuk gutxi ezagutzen direnak dira eta beste batzuk batere ezagutzen ez direnak. 400 orrialdetik gora dira hauek, ia guztiak autografoak, batzuk hark sinatuak soilik, eta nolabaiteko interesa dutenak.

Gaztelaniazko testuak dira; Ordena barruan hark izan zuen karguarekin zerikusia dutenak; hau da, priore, probintzialaren aholkulari, nobizioen maisu, Etxebarriko udaleko idazkari ez-ofizial izatearekin zerikusia duten testuak. Gehienak, beraz, aktak, kontuak eta antzekoak dira; hots, ofiziozko testu erlijiosoa (Ordenakoak) nahiz zibilak...

Testu hauetatik (gehienak osorik autografoak), haren jarduera pertsonala nola izan zen ateratzen dugu hainbat komunitate erlijioso nahiz zibiletan...

Orain, artxiboetako iturriak erabiliz, Frai Bartolomeren idazki hauen argibide zehatzak emango ditugu...

a) BEHA, Etxebarria, San Andres, Bateoak 1762-1821

192. orrian (1810-I-22 eta 1810-I-26) eta 205. orrian (1813-VI-30) Frai Bartolomek bataiatutako hiru umeren aktak datoz, berak sinaturik: "D^o Bartolome de Madariaga".

b) EUA, 188-2 kutxa, *Libro de Decretos, [1809-1822]*

Etxebarriko udaleko idazkari izan zen; ez dakigu zergatik (agian ofizioz idazkari zenaren osasun-arazoengatik⁴⁷⁴), baina Bartolome idazkariaren ordezkari izan

⁴⁷⁴ Bartolomeren testuaren hasiera bitxiagatik diogu hau, esaldi baten barruan hasten baita idazten; hau da, aurreko kopiazaile edo idazkariak honela hasi zuen esaldia "Otro con fecha de treinta de mismo mes y año pidiendo cuatro ciento ciento [sic] y cincuenta y tres raciones en dinero," eta Bartolomek honela bukatzen du: "para aprontar al mismo punto de Mendata".

zen; eta Udaleko *libro de Decretos* delako aktetan 24 orrialde idatzi zituen. Frai Bartolomeren testu autografo hau pergaminoz azalezaturik eta eskuz idatzirik dagoen liburu lodi batean (297 x 210 mm) dago.

Bartolomeren testu autografoa data hauetakoa da: 1812-VIII-21etik 1812-XII-12ra bitartekoa.

- c) EUA, 202 kutxa. "Planes y memorias de gestión. Legajo que contiene expedientes del año 1814".

Jositako paper-sorta batean, 1814koetan, hauek aurkitzen ditugu:

1. Bartolomek bi aldeetan idatzitako orri bat (300 x 212 mm); eskabide-orri hau Etxebarri Elizateko Konstituzio-Alkateari Josef Ugarteburuk egina da, 1814ko urtarilaren 12an.

2. Eta Bartolomek lau aldeetan idatzitako beste plegu bat (300 x 207 mm); hau ere konstituzio-alkate berari Domingo Barinaga Rementeriak egina, 1814ko urtarilaren 19an.

- d) MKA, Esk. G-IV-48: *Certificación y licencia para tomar a censo 11.650 reales a esta Comunidad...*

Bi dokumentu dira (4 orri: 305 x 210 mm), 1814koak, komunitateko ordezkariak sinatuak, hauen artean A.Bartolome dagoela.

- e) MKA, Esk. G-III-30: *Libro de las Memorias Perpetuas y sus Certificaciones: Año 1805.*

Zenbakitutako 217 orriko eskuizkribua (295 x 205 mm), pergaminoz azalezatua. Bartolomek sinatutako testuak 75. orritik 82.era artean daude, baina ondorengo orri hauetako testuak, hau da, 79^a, 81^a, 82^a-82ⁱ berberak idatziak dira. Testu sinatuak nahiz autografoak 1814tik 1820ra bitartekoak dira. 36^a orrialdeko ertzeko oharra ere Bartolomeren dela dirudi.

- f) MKA, Esk. G-IV-64: *Indice de Censos*

Paper urdinez azaleztatutako [12] + 242 orriko (295 x 210 mm) eskuizkribua, orriak zenbakiturik dituena. Eskuizkribuan 1799tik 1839ra bitartean idatzi zuten esku asko ageri dira. Frai Bartolomeren parrafo autografoak ere badira (batzuetan zenbakiak), 1816tik 1820ra bitartekoak. Parrafo hauek ondorengo orrialde hauetan daude: [1^a], [2^a], [8^a], 3^a, 5^a, 9^a, 13^a, 17^a, 21^a, 30^a, 37^a, 41^a, 45^a, 54^a, 57^a, 61^a, 65^a, 69^a, 73^a, 77^a, 81^a, 85^a, 90^a, 94^a, 100^a, 103^a, 107^a, 111^a, 119^a, 123^a, 131^a, 139^a, 143^a, 147^a, 152^a, 166^a, 168^a, 171^a, 173^a, 175^a, 179^a, 183^a, 187^a, 191^a, 192^a, 195^a, 196^a, 204^a, 208^a, 212^a, 216^a, 220^a, 224^a, 228^a, 232^a.

- g) MKA, Esk. G-VII-1: *Libro de Misas (Libro de recibo y aplicacion de Misas de este convento de N.M.S^{sa} del Carmen de la Villa de Marquina en el M.N. y M. L. Señorío de Vizcaya, siendo Provincial de esta [§] Provincia de Sn Joaquin de Navarra N.R.P.Fr Vicente de S^a Maria, y Prior del dho Convento N.R.P.Fr Fran^{co} de la Madre de Dios: y dió principio con el año de 1815*.

148 orriko (290 x 207 mm) eskuizkribua, kartoi (j) urdinez azaleztatua eta orrialdeak zenbakiturik dituena. Bartolomek, komentuko aholkulari zen aldetik, sinaturiko testuak ageri dira (2. orritik 19.era), 1815etik 1817ra bitartekoak, eta beraren testu autografoak (20. orritik 40.era), 1817tik 1820ra bitartekoak.

- h) MKA, Esk. G-VI-2: *Libro de los oficiales de este Convento de Marquina donde se trasientan quanto salario llevan el Médico y Cirujano, Labandera Albaytar , Boticario y Criados de la Huerta, etc.*

77 orriko (305 x 215 mm) eskuizkribua, paper marroi horixkaz (?) azaleztatua, orrialdeak oraintsu lapitzez zenbakiak dituena. Eskuizkribuan 1800etik 1839ra bitartean idatzi zuten esku asko ageri dira. Frai Bartolomeren parrafo autografoak ere ageri dira, 1817tik 1820ra bitartean idatziak. Parrafo hauek ondorengo orrialde hauetan datoz: 1^a, 3^a, 10ⁱ, 14ⁱ, 20^a, 20ⁱ, 31^a, 43^a, 56^a.

- i) MKA, Esk. G-IV-65: *LIBRO DE CAJA DE CENSOS, JUROS Y MEMORIAS Perpetuas que tiene este Combento de Carmelitas Descalzos de Marquina, Y se ordenó Por mandato de n^o Padre Provinzial Frai Lorenzo del Santísimo Sacramento. Año de 1759.*

[8] + 221 orriko (360 x 230 mm) eskuizkribu handi hau, pergaminoz azaleztatua dago; eskuizkribua ez dago egoera onean. Eskuizkribuan 1800etik 1839ra bitartean idatzi zuten esku asko ageri dira. Frai Bartolomeren parrafo autografoak ere badira, 1818tik 1819ra bitartekoak... Parrafo hauek ondorengo orrialde hauetan datoz: 7^a, 13^a, 36^a, 37^a, 71^a, 77^a, 87^a, 94^a, 98^a, 99^a, 100^a, 194^a, 210^a, 211^a.

- j) MKA, Esk. G-III-34: *Misas perpetuas que están a cargo de la Comunidad del Carmen, 1819.*

8 orriko (305 x 210 mm) eskuizkribua, kartoi mehe arrosa koloreko azaleztatua. Eskuizkribua honela hasten da: “+ J.M.J. Razon de las mem^s perpetuas de misas q^e estan a cargo de la Comunidad del Carmen Descalzo de la Villa de Marquina segun sus fundaciones y estado actual. Año 1819”. Eskuizkribuaren 16 orrialdeak Frai Bartolomek idatzi eta sinatuak dira (“Fr Bartolome de S.Teresa, prior”, y por “Fr. Ant^o de la Virgen, clav^o”).

- k) MKA, Esk. G-IV-52: *Fundación de cesno redimible de 100 ducados vellón principal...*

1819ko dokumentua, jositako zortzi orriz osatua (305 x 215 mm). Frai Bartolomek 12 lerroko oharra idatzi zuen, dokumentuaren edukiaz, zortzigarren orriaren itzulian.

- l) MKA, Esk. C-XCVIII-1: *Libro de la Archicofradía de N. M. Ss. Del Carmen. Fundada En Este Conv^o De Marquina. A. De 1777 Por Comission De N. M. R. P G F. Fran^{co} De La Present.*

415 orriko (310 x 210 mm) eskuizkribu handi pergaminoz azalezatu honek, fundazioko dokumentu historikoez gain, kofradiako kideen milaka izen ditu (50.000 inguru izango dira gutxi gorabehera) bereziki Markina eta inguruetakoenak, baina baita Bizkaiko herri askotakoen eta beste probintzia batzuetakoen izenak ere...

Kofradiko kideen zerrenda handi hau belaunaldi askotako hainbat erlijiosok egin da, gehienak XVIII. mendearen azken hamarkadetakoak eta XIX. enekoak; eta zerrenda hau egiten esku hartu dutenen artean Frai Bartolome dugu: horrela, haren letra ezagun egiten zaigu ondorengo orri hauetan: 30^l-32^a, 33^l-36^a, 37^a, 40^a-40^l, 221^l, 224^a, etab.

- ll) HAKA, G-II-9: Notario-agiria.

Frai Bartolome Santa Teresarenak, Isla-ko (Sestao) Karmeldarren Basamortuko Prioreak, emandako eskubidea elkar-aditze baterako, Villarias Markesak Basamortuari zor ziona pixka bat gutxituz.

Lehenengo zazpi orrialdeetan idatzitako bi plegu dira (305 x 210 mm). 1820-VIII-5 eta 1820-VIII-7ko dokumentuak dauzka.

Dokumentuaren bukaeran, zazpigarren orrialdean, Frai Bartolomek honako hau idazten du bere eskuz: "Se cobraron los 10 platos de este instrum^{to} y se otorgó la carta de pago de su razón ante Dⁿ Juan B^{ta} de Arias Esc^{no} de Guecho en 29 de en^o de 1824".

- m) HAKA, G-II-10: Notario-agiria.

Frai Bartolome Santa Teresarenak, Isla-ko (Sestao) Karmeldarren Basamortuko Priorearen eta Sestaoko Udalaren artean egindako elkar-aditzea, zazpi mila dukat zirela eta, Juan Ventura de Llano apaiz jaunak utzitako bi errentaren korritua, Udal horrek Basamortuari eskatzen baitzizkion.

Lehenengo sei orrialdeetan idatzitako bi plegu dira (310 x 215 mm). Dokumentuak 1820-XI- 26ko data du.

n) HAKA, G-II-10: Notario-agiria.

Basamortuko Komunitateak bertako Priore zen Frai Bartolome Santa Teresarenari emandako eskubideaa, 1820ko azaroaren 26an egin zen elkar-aditzea bete dadila eska dezan.

1821-VIII-27ko data duen dokumentu hau, bi orri bikoitzeko (312 x 215 mm) lehenengo sei orrialdeetan dator.

ñ) HAKA, G-VII-13: “*Cuentas del Sto. Desierto Carmelitano de la Isla (Bilbao) con otros conventos de la Provincia de San Joaquín*”.

Komunitateko gastuak eta sarrerak datozen eskuz idatzitako 18 orriko (200 x 150 mm) koaderno txiki honetan, orrialde batzuetan Bartolomerena diruditen hainbat lerro daude. Haren prioretzako hiru urteei dagozkie.

o) HAKA, E-I-31.

Antonio Seoane jaunak, Bilboko Buruzagi Politikoak, A.Bartolome Santa Teresarena, Isla-ko San Jose Karmeldarren Basamortuko Prioreari igorritako ofizioa duen dokumentu labur honetan, Frai Bartolomek honako hau gehitu zuen: “Se le contesto el 28 del mismo mes”. 1822ko irailaren 26ko data duen testua, lau orrialde dituen pleguan lehen orrialdean (290 x 203 mm) dator.

p) HAKA, E-III-5.

Frai Bartolomerena ohar autografo batean gorde izan da Leioa, Erandio, Trapaga eta Santurtziko Udalek emandako botoa Karmeldar Oinutsek Isla-ko (Sestao) San Jose Basamortuan jarrai zezaten: “+. Lexona, Erandio, El Valle, y Santurce igualm^e representaron a favor de esta com^d al Gefe Politico, y a la diputacion Prov^l de Vizcaya p^r el mismo tpo”.

1822. urtekoa den ohar hau mozturik dagoen orri baten (150 x 215 mm) aurrealdean dator.

q) HAKA, G-VII-14: “*Diversas cuentas del Santo Desierto Carmelitano de la Isla*”.

Komunitateko gastuak eta sarrerak datozen eskuz idatzitako zortzi orriko (200 x 145 mm) koaderno txiki honetan, 1823ko Bartolomerena lerroren bat dagoela dirudi.

r) HAKA, A-III-2: Libro Becerro del Desierto de la Isla: *Libro de la Fundación del Santo Desierto Carmelitano de la Isla (Bilbao)*.

362 orriko (300 x 200 mm) eskuizkribu handi honek orrialde-marka bat baino gehiago ditu... Bi testu ofizial daude Frai Bartolomek sinaturik, eta orrialde oso bat hark bere eskuz idatzia da (143-144), 1823-1824. urteei dagokiena.

- s) BAS, Esk. 194: *Libro del Definitorio de la Provincia de San Joaquín de Navarra. Año de 1807.*

Eskuz idatzitako 579 orrialdeko (295 x 207 mm) liburua da, ... azaleztatua, 1807tik 1832ra bitarteko Probintziako Definitorioko aktak dituena. Frai Bartolome Probintziako laugarren aholkulari hautatua izan zen 1824ko maiatzaren 8an. Frai Bartolome aholkulari zen kontseiluko aktek 301. orrialdetik 395.era artekoa hartzen dute, 1824-1826ko urteei dagozkie, eta probintzialak eta lau aholkulariek, Frai Bartolomek ere bai, sinaturik daude.

- t) BAS, 189. Esk.: “+. *Libro de Missas de este convento de Carmelitas Desde Lazc° de N. M^a Teresa de Jesús, comienza año de 1814.*

Pergaminoz azalezaturiko Lazkaoko karmeldarren komentuko eskuizkribu honetan (295 x 203 mm) Frai Bartolomereren sinadura batzuk datoz: 1832-1835. urte-etako 24 orrialdeetan daude haren eskuz idatzitako sinadurak (Lehenengoz 1832ko ekainean, eta azkenengoz 1835eko urrian).

- u) GKPA, Esk.: “*Habitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833*”

Eskuz idatzitako liburu hau, 130 orrikoa (302 x 212 mm), bizkarra pergaminoz eta gainerakoa ehunez estalitako kartoiz azalezaturik dagoena, izenburu honekin hasten da: “Este libro de aprobaciones dio principio en este año de 1825, siendo M^o de Novicios el R.P. fr. Josef de S. Miguel, y Ayudante fr. Domingo de S. Josepf. Lazcano año de 1825”.

Abitu-hartze eta onarpenetako atal honetan, Jose San Migelena, Bartolomereren anaiaren hainbat orrialde autografoz gainera, honek idatzitako aktak daude 81. orrialdetik 129.era bitartean, 1832tik 1835era arteko urteei dagozkienak.

- v) GKPA, Esk.: “*Habitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833*”

Eskuz idatzitako liburu hau berau, alderantziz hartuta, hau da, beste aldetik, izenburu honekin hasten da: “Libro que dio principio en este año de 1825, con las Profesiones que adelante se dirán, siendo M^o de Novicios, el R. P. fr. Josef de S^o Miguel, y Ayudante el P. fr. Domingo de S^o Josef. Lazcano. Año de 1825”.

Nobizioen profesetako aktak dira; Bartolomereren testu autografoek 71. orrialdetik 115.era arteko orrialdeak hartzen dituzte eta 1832tik 1834ra arteko urteei dagozkie.

- w) GKPA, Esk.: “*Habitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833*”

Eskuz idatzitako liburu honen (302 x 212 mm.) hasieran plegu bat dago itsatsirik, A.Bruno San Joserenak Markinatik, 1832ko uztailaren 14an, Lazkaoko

komentuko prioreari egindako gutuna duena. Eta plegu honen bigarren orrian Frai Bartolomeren ohar autografo bat dago: “+. El 25 de Ag^{to} de 1832 se leyo a la com^d en el Capitulo”.

x) GKPA, Esk.: “*Libro de Recibo de este con^{ve}de Car^{as} Descalzos de Lazcano, comienza año de 1814*”.

Eskuz idatzitako liburu honek (285 x 190 mm.), ... azalezatuak eta orrialdezenbakirik gabeak, eduki ezberdinak dauzka. *Libro de Recibodelakoari* dagokionez, Frai Bartolomek 1832tik 1835era bitartean (bi orrialdeetan) sinatutako testuak daudela adierazi behar dugu

y) GKPA, Esk.: “Libro de Gastos de este convento de Carmelitas descalzos de N.M^e S^a Teresa de Jesus, q^e comienza desde el primer día del año de 1814, Lazcano”.

Deskribatu berri dugun liburu berbera da, hau da, “Libro de Recibo” delakoaren jarraipena... Hemen ere Frai Bartolomek sinatutako kontuak ageri dira; sinadura hauek 1832. etik 1835.era bitarteko urteetakoak dira (8 orrialdeetan)... Eta paragrafo batzuk Bartolomek berak idatziak dira...

z) Markinako Karmeldarren Biblioteka.

Liburu ugari dira Markinako Karmeldarren bibliotekan (157 inguru) Frai Bartolomeren ohar autografo hauetarikoren bat dutenak: “Es de la libreria del Carmen de Marquina”, “Carmen de Marquina”, “Se compró p^a la libreria del Carmen de Marquina en 1819”... eta antzeko esaldiak. Ia liburu hauek guztiak 449.etik 460.era bitarteko oharretan aipatuak dira.

IV. FRAI BARTOLOMEREN EUSKARA

Frai Bartolomeren izaera ahalik eta ongien jaso nahirik, haren bizitza-zertzeladak, ingurumaria, haren lanak, izan zitzakeen eraginak eta abar aztertu ditugu orain arte. Baina oraindik, horrekin soilik, zirriborro itxuragabea baizik ez litzateke. Haren alderik garrantzitsuena falta zaigu: hizkuntzari dagokiona. Frai Bartolome aipatzean, ezinbestean haren euskara datorkigu hitzetik hortzera nahiz burmuinetik lumara. Beste ikuspegiren batetik dihardugula ere, hizkuntzarena beti dago azpian edo atzean...

Bere garaiko gainerako idazleek bezala, salbuespenak salbuespen, kristau-doktrina da bere euskarazko lau liburuetan dakarkigun gaia. Gaur egun "helduen katekesia" deitzen zaionaren antzeko zerbaite dela, esango genuke, liburu hauen muina. Kristau-teologia, eta bereziki teologia moralak, da herriaren mahaira dakarren jakia. Herriaren mahaira ekartzeko, jakina, herria elikatzeko erakoa izan behar; haren izaerara, mailara egokituriko jaki espiritualak. Beraz, euskaraz zerbitzatua.

Frai Bartolomeren euskara hortxe gelditu zaigu, kristau apostolu baten tesi erako hitzaldi arrazoitsuetan. Bere-berea den arloan dihardu: hizlari edo predikariaren arloan. Gogara dabilela dirudi, eta hitz-oldea iturburu sakonetik datorkiola oparo eta erraz gaiak eta arrazoiak ezin hobeki jantziz.

Bere herriko euskara darabil, berak dakiena, barnetik dariona. Dena dela, erlijio-gaietako euskara, kutsatua eta nahiko mordoiloa dela diosku. Elizgizonen zabarkeriaz euskalgaiztoak jota omen dago arlo hau. Bestetan ez bezala, arlo honetan, hitz mordoiloen bitartez izan ezik ez omen du herriak ulertzen kristau-doktrina. Horregatik ezinbestean sartu dituela diosku, gogoz kontra, sartu ere, hainbat hitz arrotz. Hona hitzez hitz Bartolomek dioena:

"Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindu-beena, ederreena ta eztiitubeena izan ez arren, izan leiteque, euscaldunen baztar bateti bestera eche guztietan dei eguinda, iragota, cer nai daven, onduen zaarrai ta gaztai aituco deutseena ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Naparruan, Quiputzetan ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeetan.

Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira gueure erruz, ervesteti etorrijac. Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc eleisa guizonoc verba ascotan naastau ta ezaindu dogu eusqueria. Gueuri entzunda daquijeez baseerrijeta-cuac *Jaungoico omnipotentia, poderosua... Virginia clementisima... misericordia-josia... mandamentubac... absolvicinoia... doloria..., errestitucinoia...* ta beste

onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ez daujueen euscaldunac, eureen echeetan ta artu emoneetan biar daveen guztia, esaten davee eusqueera garbijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gaistuac. Ez da au eusqueeraren erruba, ezpada gueuria. Ta ain dauqueez ya artubac erdeera edo latin verba batzuc, ece euraquin ezpada, aituten ez davee ondo dotrinia edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste verba batzuc icasiquizuneetan. Bada, cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia leenago da, verbeetan eracustia baino” (*Icas-I, VIII-IX*).

Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel eta beste euskaldun garbi asko irakurtzera ohituko bagina, laster galduko lirakekeela, diosku, hainbeste hitz arrotz. Euskararen alde jaiki ziren jakintsuak ere aipatzen dizkigu:

“Astarloa bat, Ervas bat, Erro bat ta beste jaquitun asco jagui ezbalira gueure eusqueera jausija iracoitera, uste dot, gueuc galduco gueuntsala laster bere ontasun ta edertasun guztia” (*Icas-I, IX-X*).

Kristau-mezua euskaraz gauza berria dela ere badiosku; horregatik, ageri diren izenak ere berriak direla eta haietariko asko kristautasunarekin batera urrunetik etorriak. Hauetariko izen hartuak euskara garbira aldatzea on den ala ez jakintsuek esan behar dutela. Ez litzatekeela zeregin zaila:

“Egüija da, Jesucristo gueure Jaunagan sinistutia ta ari darraicon guztia dan leguez chito barrija eusqueriagazco, gueure cristinautzaco gauza barri ascoren icenac bere barrijac dira. Ta areetati ez guichi cristandadiagaz beragaz urrin errijeetati etorrijac. Onetarico ya icen artubac, *bautismua... conpirmacinoia... peni-tencija...* guere eusqueera garbira aldatutia ondo litzaatequian edo ez, jaquitunac esango davee. Ez da ain biar gacha, eusqueera garbico iceneetan imintia” (*Icas-I, X*).

Frai Bartolomeren idazle-joera, estiloa aztertzekeo sartu-irrentxoa geroko utzita, goazen orain haren euskararen berezitasunei ahalik eta begirada zehatzena egitera. Grafia, fonetika, morfologia, sintaxia, lexikoa... izango ditugu ikerketa burutzekeo arloak. Beraz, barneko gramatikaren argitan arakatuko dugu gure idazlearen ekarria. Harekin erkatuz, parekatuz, batzuetan ondorio garbietara iritsiz, eta beste batzuetan, halabeharrez, argi-ilun artean utzi eta idazlearen baitara itzuliz...

1. GRAFIA

a. Bokalak

Grafiari dagokionez, ez du bokaletan azpimarratzeko gauzarik. Bokal guztiak bere ohiko balioaz darabiltza. “Y” ez du erabiltzen ez hitz barnean eta ez amaieran. Hitz barnean yod deritzana aurkitzen dugu, baina “j” grafiaz betiere. Hitz hasie-

ran, “y” badarabil; *ya* idazten du soilik horrela. Forma honetan biltzen ditu hiruzpalau esanahiko elementuak:

- Denborazko partikula, gaur egungo euskaran *ja* / *jadantik* forman erabili ohi dena:

Yá dagoz dantza atan guizonezcoric edu emacume, edo mutilic edu nesca (*Euscal-errijetaco...*, 66).

Yá dacutszu, cristinaubac, celan cobru emon biar jacon, votuagaz edo prome - sagaz Jaungoicuari eguindaco aguindubari (*Icas-I*, 136).

[...] *yá caliza consagraduba dan artian, á edoceinec escubetan erabili ecin legui, ta jaubiác bere beragaz nai davena ecin legui, mezataraco consagrauta dagan caliza santuba ta bedeíncatuba dalaco* (*Icas-I*, 181)

Yá edadian jausita, zaartuta, cansauta, sepulturara bidian dagan gurasua icerdi ascogaz ta nequez azi dituban sabeleco prutubac, bere semiac edo alabaac gaizqui tratetia da, duda bagaric pena andijeetati ez chiquijena (*Icas-I* 6 serm.).

Yá voto onen vitartez, Teresa beti da Jesusena(*Icas-I*, 291).

Yá ez dira bi, ezbada aragui bat (*Icas-III*, 345).

Yá gauza aguirija da, gurari galdubac goituteo, Jaungoicuari erregutu biar deusaguna edo oracinoia eguin biar doguna (*Icas-II*, 280).

Yá ez daucazu, noc ostatuba emon luurraren gainian (*Icas-II*, 289).

Yá ez nas neu vici, ezbada Jesus vici da nigaz. Neu nago Jesusegaz, ta Jesus dago neugaz (*Icas-III*, 221)

- *Bai... bai; nahiz... nahiz* eta antzekoen ordeez ere erabiltzen du:

Yá pamparrerijaz, yá gorrotoz, yá amodijo chaarrez, yá ecandu gaistoz (*Icas-I*, 113).

Yá ez jagocuen carga astunaquin; yá asarre arrabijaubaquin; yá dantzeetaco ibilteequin, sarritan galdu oi ditubee seinac (*Icas-I*, 251).

- Zehargalderazko elementu izan ohi da. Gaur egungo euskara estandarrean “ea” forman erabiltzen dena. Ez da perpausaren muinari dagokiona, gainerako elementuen sendogarri, ipini nahiz ken daitekeena baizik. Sendogarri izanez gain, perpausaren luze-laburrekin ere zerikusia duela dio L.Villasantek, -(e)n erlazio-hizkia urrun denean, haren iragarle bat aurrean ongi datorrelako. Frai Bartolomek *yá* idazten du. Hona zenbait adibide:

Ceubec pensau, neure cristinaubac, yá errazoa dan edo ez (*Icas-III*, 253).

ya emacume indartsu bat noc topauco daven? ¿Mulierem fortem quis inveniet? (Icas-II, 283).

[...]esan deutzazu, *ya arri bat artuta, musturrac cetaco ausi ez deutzazan lotsa galducuari* (Icas-I, 15 serm.).

Codicijac itanduten evan, ya nun eguan Potosi, ango urria ta zidarra, poltsa an ondo gordetaco (Icas-I, 19 serm.).

Ya Jaungoicuac ceruti celan beguiratuten deutzan lotsarizco pecatu-dunari. Baita, ya impernuban celan beguiratuten deutzan bere (Icas-II, 23).

Ta entzun daguijogun, ya cer esaten deuscun bere demporaco penadunac gaiti (Icas-III, 176).

- Inperatiboaren ondoren, eskuarki bokatibo bat tartean dela, haren indargarri erabiltzen den interjekzio gisakoa:

Eguizuz ya, umia, esanac ondo ondo, neuc aguinuoco deutzut piestara (Icas-I, 18, serm.).

Ya betoz Teresaren aurrera ezin al guztiac (Icas-II, 293).

Dena dela, geroxeago ikusiko dugunez, morfologian eta bokalen harmonia deritzona betetzera... hain arau zehatzak baditu ere, grafiari dagokionez oso aldakorra dugu. Horregatik, *ya* elementu horrekin lehian agertzen da haren testuetan *ija*; baita denborazkoa (gure *ja, jadanik*) denean ere. Eta alderantziz: gehienetan, zehargalderazkoa (gure *ea*) *ya* formaz idazten digu Bartolomek, baina batzuetan baita *ija* ere. Nahasketa horren oinarria, agian, i maiuskularen idazkera izan daiteke; izan ere, eskuizkribuetan i maiuskula beti idazten du i grekoaren zeinu grafikoaz eta ez latinoarenaz, eta askotan bi puntutxo gainean dituela.

Guk, "argitalpen honetaz" deritzon atalean esaten denez, denborazkoa denean (gure *ja, jadanik*) eta distributiboa denean (*bai... bai* edo *nahiz... nahiz* partikulen baliokidea) jarriko dugu soilik *ya*, gaztelaniazko "casi" aditzondoaren adiera duenean *ija*, eta gainerakoetan *ia* erabiliko dugu, autorearen beraren asmoa interpretatuz.

U bokala *v* grafiaz agertzen du behin edo behin, baina gehienetan ez...

Bokalekin aldaera fonetiko ugari agertzen ditu, baina hori beren-beregi aztertuko dugu fonetikari dagokiona aztertzean.

b. Kontsonanteak

Kontsonante batzuen erabileran, dirudienez, ez du arau zehatzik eta grafema bat baino gehiago darabil fonema berarentzat. Esaterako: b/v; c/z; tc/tz...

Joera batzuk, hala ere, oso garbiak dira. Esaterako, lexema *u* nahiz *i* bokalez bukatzen denean, beti erabiliko ditu *b* eta *j* hurrenez hurren, lexemaren eta morfemaren artean lotura egiteko: *argitsu ba*, *argui ja*. Adizkiekin erlatibozkoak eta eratorriak egiterakoan eta hitz barnean ere grafema hauek ageri ohi dira Frai Bartolomerengan *u* nahiz *i* bokalen ondoren: *citu ban*; *escatuten deuscu bez* / *abi jada baten*; *equi jala*; *bi jotzeco*.

Aditz laguntzaile iragankorrean *b/v*-ren alternantzia ageri da, baina *v* da gehien ageri dena: *davenac* (*dauan*ak, hark); *daveenac* (*daben*ak, haiek).

Behin edo behin *u* erabiltzen du bokal artean *v* nahiz *b*-ren ordeaz: *Cristandade guztia desondreetan dauen gachac*. / *eureen gainian verba eguin dauenac*. / *bes-teen desprecijua eracusten dauenac*...

Gaztelaniazko balio berberaz darabil *gue*, *gui* / *ge*, *gi*: *gueijago*; *gueure*; *aguin* - *dubac*; *izan da guijala* / *gentiagaz*; *evan gelijo*; *gentilen*; *gera bigunagaz*; *er egiac*; *erliginoe*...

Alternantzia ageri du *c* eta *z*-ren artean eta baita *tc* eta *tz*-ren artean ere: *Zeuc dakuszu*; *zelo santubaguagaz*; *errijeetaco zeceneen*; *tintiagaz zetacatuta*; *icasi zitubeen*; *beti ziatz*, *beti zintzoro*; *ceubec eracusten deutzazu*; *icen artubac*; *gau cja da*; *vide zucenetati*; *esquintcen deutsee*; *gueure vijaceetara*; *vitzitcia gordeetia gaiti*; *jai osuetan erago citaco biarrac*... Jakina, hau *e* eta *i* bokalen aurretik dauden kontsonante frikari eta afrikarietan gertatzen da soilik.

Obra osoan behin agertzen da *tx* kontsonantea: *Gaixuac osasuna, gosiac jana, otzac berua, bilotxac jantcija* (*Icas-II*, 257); gainerako guztietan beti darabil *ch*.

H-rik nekez ikus daiteke, kasu bakan batzuetan izan ezik. Honako hauetan darabil:

- "humilde", "humildade" ... hitzetan: *guztioc gatoz asiera humilde onetati mun dura* (*Icas-III*, 60). // *Humildadez luurra jota, negarrez sicutata, tristetuta egoza nac* (*Icas-III*, 178). // *Ch*, *Jesus andija ta humildia!* (*Icas-III*, 206).

- Interjekzioetan: *ah!*, *oh!*

- "herege" hitzean (hau "h" gabe ere badarabil): *Baita beste herege ascorenac bere* (*Icas-III*, 343). // *Ez daheregeric aguertu mundura* (*Euscal-errijetaco*... 134). // *Esan beguije, impernuban dagozan herege ta gaisqui esalac, ce sarija ecarri deutseen miinac* (*Icas-II*, 182). // *Ez heregiac ta gentilac, ez bada euren burubac zucentzat ta cristinau ontzat euqueezanac* (*Icas-II*, 233). / *Judegubac, moruac, eta eregiac, batzuc, pederic eta bautismoric ez dauqueelaco* (*Icas-I*, 19). // *Orregaiti Eleisati campora dagozan guizon eta emacumiac, ceintzuc dirian judegu, gentil, moro ta erege guztia* (*Icas-I*, 34).

- Izen berezietan: *Hermenegildo*

- Latinezko aipamenetan: *vult omnes homines salvos fieri*.

Beste horrenbeste eta areago esan daiteke *f* letraren erabileraz. J.A. Moglek luze dihardu *Peru Abarca*ren sarreran kontsonante hori euskarari arrotz zaiola azaltzen; ezaguna da Pedro A. Añibarroekin honetaz izan zuen eztabaida ere. Frai Bartolome Mogelen eta Markina aldeko joeraren bidetik doa. J.A.Moglek *Peru Abarca*ren sarreran ematen ditu, adierazi dugunez, *f* kontsonantea *p-z* trukatzearen aldeko argudioak. Frai Bartolomek *Icas-II*, "Iracurliari" deituriko sailean hitz egiten du honetaz, baina *p* dela euskararena eta ez *f* dioten jakintsuen iritzia onartzen du bete-betean, bere argudiorik eman gabe. Honela dio: "*Eguiija da, erantzun eustan batec, p. iminten nevala flecuban, baina, jaquitunac dinuenez, ta euscaldun utsai entzuten jacuenez, ez dauca f cer eguinic gueure eusqueran*".

"Jaquitunac dinuenez" esatean, J.A.Mogel bera ez ote du gogoan...? Izan liteke, *Peru Abarca*ren egileak itzal handia baitzuen euskaltzale gazteagoen artean eta gai horietan jakintsu fama ere bai; bestalde, bera zen *f / p* kontsonanteen auzian, *p*-ren aldeko sutsuenetarikoa...

"Uriartek, Astarloak eta Juan Jose Moglek ez dute engararik, maileguzko hitzetan behintzat, "f" erabiltzeko. Frai Bartolomek zeharo baztertzen du kontsonante hori, eta "f" dun maileguzko hitzak ugari erabili arren, "p"z trukatzeko beti: opendidu, oitura impamiac, propeta paltsuen, San Francisco Sales, opicijoz, popuertza, apicinoia, paltia, paltau, piestia, pabore, pandanguan, compesetan, prutia, copradijeetaco, pornicacinoia, pamelija... empin"⁴⁷⁵.

Dena dela kasu bakan batzuetan badarabil *f*. Hona hemen:

- "Faraon" hitzean: *Faraonen escu gogorretati Israel librau zanian (Euscal-errijetaco... 35)*. / *EgitocoFaraon Erreguiagaz baino (Icas-I, 51)*. / *Israeltarrai icha - sua liortuten deutsee, Faraoneganic libreetaco (Icas-I, 57)*. / *Moisec ez eucan Faraonen bildurric (Icas-I, 58)*.

Baina hitz hau maiz agertzen da *p-z* idatzirik ere: *Molijsec ez eutsan inos esan Paraoni (Icas-II, 180)*. / *Iru eguneco vidian juan biar evala bere gente guztiagaz, Jaungoicuari mendijan esquinija eguitera, esaten eutsan Paraoni (Icas-II, 180)*. / *Paraonec Jose ainchinacuari emon eutsazan leguez (Icas-III, 293)*.

- Inprimategiko hutsak agertzean, "Fol." laburduran: *Fol. 12 lin. 17. condenan. lease condenau. Fol. 20. lin. 1 . traco. lease: tzaco. Fol. 36. lin. 15. cinaan. lease: cinuan.*

- Izen berezietan, ez beti: *Ferraris (Euscal-errijetaco... 92)*. / *R. P. Fr. Francisco Antonio de Palacios (Euscal-errijetaco... 92)*. / *Milango Obispo Jauna, Francisco Geneto (Euscal-errijetaco... 146)*.

⁴⁷⁵ L. BARAIAZARRA TXERTUDI, *Markina-Xemeingo euskara aztertzen*, Euskera XXXI (2. aldia) (1986, 1)

Baina *p-z* maiz agertzen du “Prancisco”: *San Prancisco Salesec Philoteari (Euscal-errijetaco... 159)*. / *San Prancisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz era -gotzi dantzan eguitia (Euscal-errijetaco... 159)*. / *Begaz ez da pecatu, dantzan eguitia San Prancisco Salesen erichijan (Euscal-errijetaco... 159-160)*. / *Au guztiau da San Prancisco Salesena (Euscal-errijetaco... 161)*. / *¡Oh, San Benito, San Bernardo, San Prancisco, Santo Domingo, San Ignacio, Santa Teresa, Santa Rosa, Santa Catalina... (Icas-I, 70) / Ezda San Prancisco Xavier bere... (Icas-II, 61)*.

- Latinezko aipamenetan: *Primo, ocasiones exterioresfugiendo... (Icas-II, 275)*

K grafema ez du erabiltzen. Honen ordez *ca, que, qui, co, cu* darabiltza. Bere obra osoan behin dakar soilik eta bera beti horrela ezagutzen dugun hitz arrotzean: *Onen ondoric esaten dau Kyrieelison ta Christeeleison (...)* (*Icas-III, 240*)

Ss ere noizbehinka ageri da, baina gutxitan eta ez da adierazgarria. Nahi gabe itzuri zaizkionak dirudite. Hona hemen, latinezko hitzetatik at, agertzen diren guztiak: *Santo Tomassegaz (Euscal-errijetaco... 30)*. / *Eleissan Santubac ondruta (Euscal-errijetaco... 144)*. / *Jaungoicua bera da asseraric, eta amairic ez daucana (Icas-I, 22)*. / *lotsatu eveen naturalecia (Icas-II, 45)*. / *assarre aldi baten ondoric (Icas-III, 53)*. / *Ta igortzen deussaz belarriac (...)* (*Icas-III, 66*).

Tt “battasuna” izenean dator hiruzpalau aldiz. Eratorrietan lexemaren bukaerako kontsonanteari eusteko duen joeragatik izan liteke... Bokalekin ere badakigu horrela jokatu ohi duena, “a” berezkoa duten hitzetan ageri-agerikoa denez: *nescaac: battasunaren lotugarrija (Icas-II, 189)*. / *alcarregaz dauquen ba ttasuna (Icas-III, 249)*. / *guztiac dauqueen battasuna (Icas-III, 249)*. / *senar emazten battasuna (...)* (*Icas-III, 344*).

X (ixa), hizki nahiz hitz zehatz eta jakinetan darabil; ez forma adierazgarriak, txikikariak etab. sortzeko. Hona grafema horrekin idazten dituen hitz eta hizki batzuk: *ixioquiija, i xio* (eta eratorriak), *ixil* (eta eratorriak), *exemplu, examina, e xa -minau, lu xurija, goi x, goixtarra, ari xe* (beguira), *a xe* (huraxe), *ara xe, oraindi xe, alaco xiac, bai xen, biloxic, gaixo* (eta eratorriak), *muxilla, Exodo, aixe, aixetsu, ai xaatu, pr oximua, que xa, quexau, ba xubac* (apalak), *baxubena, elexa, uxalagaz, Benxamin, Xavier, Alexandrijaco, Ale xandro, Sa xonia, Felix, muxac* (ibaico zazpi muxac), *extrema uncinoia, itu xurecua, u xaatuta, e xcomulgauba, ca xia* (Jesus gordetaco Caxia), *exorcistia...*

X kontsonantearen aurrean, batzuetan, *i* bokala tartekatzen du eta beste batzuetan ez. Hau ez da, ziur aski, grafia kontu hutsa; bizkaierazko ohiko hotsei grafiaz ahalik eta zehatzen erantzun nahia nabari dela esango genuke, aitzitik: (...) *goxian / goxeric arrats / goxic gueijena / goxaago contuban jausten dira / goxago edo berandubago*.

Baina: *goix parteti / jaquiturija goixtarra gaiti / goixeti / gacheraco goixartu*. Dena dela, *i* gabekoak askoz ere ugariago dira.

“Gaixo” eta eratorriak, ordea, honela erabiltzen ditu ia beti. Inoiz edo behin “gaxo”...

Ñ-ren ordez *in* idaztea eta *il* eta *ill* nahiz *ll*-ren arteko alternantzia, berriz, grafia kontua dela dirudi, haren euskaran horrelakoetan sabaikari egiteko joera nabaria baita. Behin edo behin agertzen da *ñ*. Askoz ere ugariago *in*. *Baina* darabil ia beti; *baiña* behin; *baña* hamasei aldiz. *Baino* darabil gehienetan; *baiño* hiru aldiz; *baño* hogeita bi aldiz.

“L”ren kasuan, ez du joera zehatzik. Dena dela, “*ilgarri*” behin bakarrik agertzen den bitartean, “*ilgarri*” txitean-pitean dator; Gauza bera esan genezake “*ilun*” hitzari buruz ere: bi aldiz agertzen da “l” bakarrak: *buruco iluntasuna*. / *limbo ilunian*; “l” bikoitzaz, berriz, sarri. “Mutil” hitza, bokala ondoren duela, hogeita hiru aldiz dator *il-z* eta bost aldiz soilik *ill-z*...

“Ibili” hitza horrelaxe dator ia beti. Bi aldiz dator soilik *ill* grafiaz: *zaar ib illi ezin dirianac*. / *Ezda ocasinioietan bere guraz inor ib illi bere, jausi bagaric*. -*il* da grafia normala hitz honetan.

“Neskatila” hitza: behin dator soilik *nescatila*; eta hamahiru aldiz *nescatilla*. Hau da grafia normala hitz honetan

“Mila” hiru aldiz dator; “*milla*” hirurogeita zazpi aldiz. Beraz, hau da grafia normala.

ill-z idazten ditu gehienetan, esandakoez gainera, hauek: *billa*, *billatu* (20 aldiz), *bilatu* (2 aldiz); *pillar* (beti honela); *dedilla* (43 aldiz), *dedila* (5 aldiz); *nadilla*, *cedilla*; “ill” (hil) eta eratorriak beti idazten ditu horrela, baita kontsonantea ondoren dutenean ere: *illarguija*, *illainian*, *illainecua*; *ad illa* (adimena), *adilaac* (behin); *na illa* / *nadilla* (borondatea); *capillau*; *cart illa*; *villancico*. “-le” eta “-gile” atzizkidunak, Bartolomek “-la” eta “-guilla” egiten dituenak, gehienetan *ill-z* ematen dizkigu: *liburugilla*; *onguillaac* (5 aldiz), *ongila* (behin); *gacheguilla*; *emonzaillac*; *eguiilla* (3 aldiz), *eguiila* (behin); *illzaillac* (behin), *ilzaila* (behin); *galzaillac* (behin), *gailzailaac* (behin); *sentizailla*; *alzailla*; *arzaillac*; *eragilla*; *estalzaillac*; *garbilla*; baina *salzaillac* (bi aldiz); *gordezailac*; *esquinzaillac*; *serbitzailaac*. *oillarra*; *se illatu*; *argu illarija*; *aguac illa* (behin), *aguacila* (behin).

il-z idazten ditu gehienetan: *maquila* eta eratorriak, *saila* (17 aldiz), *saila* (10 aldiz), *maila* (13 aldiz), *maila* (behin); *gentila* (27 aldiz), *gentilla* (behin); *isila* (8 aldiz), hiru aldiz *x-z* eta bost aldiz *s-z*; *ucabila*; *sena ilauta* (5 aldiz), *senailaria*; *teila*, *teilatuba*; *co ilara*; *matr eila*; *quereila* (behin), *quereilla* (behin); *milagro* (6 aldiz), *millagro* (behin); *cuchiladia*...

c. Puntuazio-markak

Puntuazio-markak nola darabiltzan adieraziko dugu sail honetan labur-labur. Dena dela, hauek irakurlearen lagungarri izan ohi dira, honek edukiaren esanahia

albait ondoen eta errazen jaso dezan. Ohiturak eta joerak aldatu egin ohi dira denborarekin. Horregatik, gaur egungo irakurleei euskara zaharrea barnertzeko eragozgarri izan ez dakien, zenbait ukitu egin ditugu; baita hitzen elkarketa eta banaketari dagokienean ere. Baina hori guztiori zehatz-mehatz azaltzen da “argitalpen honetaz” hitz egiten den atalean.

aa. Galdera-markak eta harridura-markak

- Galdera-markak eta harridura-markak, hasieran eta amaieran jartzen ditu:

¿Nori, Jauna, ceuri baino besteri esquini neguijo nic, cartilla edo liburu chiqui onetan lagunai opa deusedan prutu guichija ? (Euscal-errietaco... 3).

¡Ojala, mundutarrac ezautuco balevee eguija onen indar guztia ! (Euscal-erri - jetaco... 21).

- Zehargalderazko perpausetan ere galdera-markak jartzeko joera du...

bb. Azentuak

Hitz bakan batzuetan azentua darabil Frai Bartolomek. Hauek *lò* eta *à / á* erakuslearen forma dira; hau era bietako azentu-markaz darabil. Beraz, silaba bakarrekoak, azentuz behin agertzen den *òostu* izan ezik. Gorputz txikiko unitateak dira eta markatu beharra izan zuen, dirudienez... Erakuslea ez da batere harritzekoa, bokal bat testuaren erdian erdi galdurik gertatuko baitzitekeen. Ez bata ez bestea ez ditu beti-beti azentuaz markatzen:

Engainuz gauza á saldutera jaubia ecarrita, noberaganatuten da inoren aciendia, edo erramientia, edo laboria. edo jantcija, edo beste gauza balijocoren bat (Icas-II, 246).

Bada, gacha ondo ezautu ezquero, lasterrago ta zucenago artuco ditugu à osa tuteco medijuac (Icas-II, 270).

Duda bagaric, chito cristinau asco vici dira, neure entzula onac, urte lucee - tan, pecatubaren besuetan lò eguiten daveela, penitencija eguijazcuaren azaleco ezaubera illun bat baino ez dauqueelaco (Icas-III, 97).

Ez dogu iracurten Virginia necijo areec iñor ill evenic. Ezda iñori ezer òostu eutseenic bere (Icas-I, 94).

cc. Komak

- Komak jartzerakoan bere garaiko ohiturari darraio. Euskaraz nahiz gaztelaniaz ohitura berari eusten dio. Gaur egungo irakurleari bitxi eta eragozgarri gerta dakizkioke, batez ere, *eta / edo* juntagailuen aurretik jartzen dituen batzuk; azken kasu honetan, bigarren hitza lehenengoaren sinonimo edo azalpen legez datorrenean,

komaren bidez bereiztea ez dator gure ohituraren erara. Gauza bera esan genezake esamolde batzuetan ageri diren koma batzuez ere:

Echeco cereguineen, edo osasunaren caltian ez bada (Euscal-errijetaco... 31) (hemen bigarrena ez da lehenengoaren sinonimoa edo azalpena).

Nai davenac, jocuan eguiteco, echia, edo lecuba gau, ta egun prest euquitia, pecatuzat condeneetan davee Eracuslaac (Euscal-errijetaco... 30) (hemen “gau ta egun”, esapide antzekoa dena eta batasun estua duena komaz bereiztea, ez zaigu lagungarri testuaren irakurtze errazerako).

Norbera baino aurrerago inor bada cetan, edo atan (Icas-II, 196).

¿Ceimbat cristinau dagoz, auzua, laguna, edo proximua, santuba bada bere, cetan, edo atan deungatzat ez dauquenac? (Icas-II, 222).

Goitu biar ditugu gurari deungac, pecatu ez dan biarran cetan, edo atan demporia iraguagaz (Icas-III, 281).

Jauna, tratuban, edo cetan, edo atan irabatzico nevan, ari emon neutsan diru, bagaz, emon ez baneutsa (Icas-II, 115) (“zetan edo atan” beti idazten du koma bitartean dela, esapidea etenda utziz...)

[...] gauza chaarragoric esan, edo, eguiten ezdaveela, ezdala pecatu (Euscal-errijetaco... 35) (“edo” koma artean...)

[...] ta canta, edo soinu indecente bagaric dantzan, edo pandanguan olgueetia, ez dala pecatu (Euscal-errijetaco... 35) (sinonimotzat edo bigarrena lehenaren azalpentzat har daiteke).

Ibiltia, edo olgueetia, berez izan ez arren chaarra, edo pecatuzcua (Euscal-errijetaco... 37).

Olgueetia, edo diversinoia inocentia izan arren, eragotzitaco demporaan bada, malecijaz jazten da (Euscal-errijetaco... 40).

Au eguinagaz urtengo dau berecautan leguez goijan imini dan amaijac, edo conclusinoiac, nire erichijan (Euscal-errijetaco... 45).

Errazoe arguijagua, ta jaquiturija altubagua dauqueenac ezautuco davee, ondo ataria dan, edo ez (Euscal-errijetaco... 45).

Despeida, edo conclusinoe oneec guztioac batera joten davee, edo ceinec dacusen leguez (Euscal-errijetaco... 46).

Gueijenac, edo guztiac guichi, edo asco edan daveela (Euscal-errijetaco... 48).

[...] urtian bein, edo birritan, ta orduban celanbait, baño ez compeseetia (Euscal-errijetaco... 53).

Ta juntagailu kopulatiboaren aurretik ere koma jartzeko joera argia du. Haren lehen liburuaren izenburua bera dugu honen lekuko:

Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac prestauba.

Curutze orretan ceure Gorputz biguna, ederra, garbija, ta Jaungoicozcua arantzaz, ta ultzez zulotuta, colpez zaurituta, azotez eratzita, autsez, ta luurrez ezainduta, biaztunez, ta ozpinez mingochtuta, odoltuta, illunduta, minduta, ese

guita, burlaz, ta desondraz estalduta, oinac, ta besuac burdina zorrotzez josita, gueu gaiti illten zacustazanian bateti; [...] (Euscal-errijetaco... 4)

Belarmino Cardenal, Jesuita Veneragarriac dino: Adulterijua, ta pornicaci - noia pecatu badira, ez daquijala berac, guizon, ta emacume naaste dantzan ibil - tia, celan pecatu izango ez dan (Euscal-errijetaco... 90).

¿Cer esango cenduque zubez Jaungoicuaren vijotz biguna, ta parcatuteco, presta gaiti? (Icas-I, 67) (Azken sintagma hau, erdian koma duela, etenda geratzen dela dirudi...).

dd. Puntu eta komak

- Frai Bartolomeren puntu eta koma erabiltzeko joera batzuk ere arrotz egiten zaizkigu beste usadio batzuetakoak garenoi. Hona zenbait adibide:

Mundu guztiac daqui bada, ardao pusca bat edanac, ta endemas cerbait guei - jago edanac, errazoia illundu, gogua alegueretu, odola berotu, ta luxurijaren suba viztu eraguiten davena (Euscal-errijetaco... 48).

Santu onen erichijan; ¿nos contauco ete cituban Eleisa Ama Santiac, edo nos iminico ete lituque virgineen artian, Erri oneetaco piesteetan, ta naasteco dancee - tan ibili dirian emacume libriac, guero santa andi eguingo balira bere? (Euscal-errijetaco... 82)

[...] ta; imini dan Errazoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala, ta ondo amai - tuten ezdavela (Euscal-errijetaco... 104).

Hauk, ia multzoan hartu eta nolabait hautatu ditugun adibide bakan batzuk besterik ez dira. Gehiago ere badira; baina gehienetan, harian ongi datozenak eta argigarriak direla esango genuke. Puntu eta koma, puntua bezala perpausen bukarako geldiene izatera iritsi gabe, etenaldi nagusiak markatzeko erabiltzen du; esaterako:

- Perpaus adbertsatiboetan erabiltzen du:

Baina ez, guichituta, mudauta, noberac gura daven moduban; ezbada Jaungoicuac, ta Elesia Ama Santiaren Espiritubac eracusten daven moduban (Euscal-errijetaco... 12).

Ez da olgueetia, edo diversinoia artu biar opicijoz, ta gogoz popuertzaco lana, edo cereguina balitz leguez; ezbada gorputzari, ta entendimentubari atseen era - guiteco, ta gogo barrijagaz, ta animo gueijagogaz bere eguiquizunari jarraituteco (Euscal-errijetaco... 19-20).

Olgueeta asco dirian leguez pecatuzcuac, cristinaubac inos bere eguin biar ezditubanac; beste asco dagoz inocentiac, arimara gachic ez dacarreenac, ta naturaleciac escatuten ditubanac, errazoiaren legueti urten bagaric (Euscal-errijetaco... 13-14).

- Baldintzazko perpaus baten ondorioaren hasiera markatzen du:

Baina, jagui bagaric beti jardum biar baleu, diruba conteetan, ta gordeetan ; egun guichi barru gurataco litzaateque, biarra mudeetan . (Euscal-errijetaco... 14-15).

- Ezezko perpaus berdintsuak elkarren jarraian doazenean, bakoitzaren amaieran puntu eta koma jartzen du:

Bada ez olgueeta guztiac dira onac ; ez guztiac dira chaarrac, edo pecatuz - cuac (Euscal-errijetaco... 17).

- Konparaziozko perpausetan, lehen partea bukatzean:

Lanian diarduban gorputzac, nosbait atseen biar daven leguez ; alan arimiac bere nosbait sosegau, atseen, edo arindu biar davela bere nequia, guero gogo obiagaz ostera equiteco bere cereguinai (Euscal-errijetaco... 17).

- Erlatibozko perpausen hasiera markatzen du:

Ta ecarten ditu exempluzat San Carlos Milangua, San Ignacio Loijolacua, ta Santa Isabel Ungajaco Erreguina ; ceintzuc nosbait jocuan, edo beste guaza ino - centeetan divertituten cirian, Jaungoicuaren adisquide, ta Santu izatia atzeratu bagaric (Euscal-errijetaco... 18).

ee. Bi puntuak

Bi puntuei ohiko balioa ematen die batzuetan, baina beste batzuetan gure usadiotik at jarriak daude:

- Aipamen zuzen nahiz zeharkakoetan:

Areec esan dauee; dantzia berez ezdala pecatu (Euscal-errijetaco... 9).

Ta bestiac; dantzia berez pecatu izan ez arren, eguiten dan moduban, ta naturaleza jausijac guizon, ta emacume naaste eguin leijan moduban, pecatu dala, edo pecatuco ocasino urrecua dala (Euscal-errijetaco... 9-10).

Escatuten duseet guztiai; au iracurri, noberari ezbajuaco leguez, naasteco dantzai beguiratu, tan dantzarijac ondo ondo esaminau artian, ez najela simple - zat euqui (Euscal-errijetaco... 11).

Santo Tomas, Eleisiaren Eracusliac San Juan Evangelistiaren jazuagaz, ta Casianogaz esaten dau ; Lanian diarduban gorputzac, nosbait atseen biar daven leguez; alan arimiac bere nosbait sosegau, atseen, edo arindu biar davela bere nequia, guero gogo obiagaz ostera equiteco bere cereguinai (Euscal-errijetaco... 17).

Esaten dau; aleguere izatia dala devocinoiaren, ta vijotz onaren señalía (Euscal-errijetaco... 24).

Ta Dinot; Dantzan eguitia berez ez dala pecatu (Euscal-errijetaco... 34).

Dinot; eureen estaduco cereguinai cobru emoteco, biar daveen demporia, ira - goten badavee oneec guztioe olgheetan, eguingo dabeela pecatu (Euscal-errijeta - co... 40).

Ez da asco aobetian esatia; plazaco naasteco dantzaac avemarijetan gueratu - ten dirianac, tambolina isilduta, useetan dirian moduban, edo eguiten dirian moduban, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala, errazoiagaz proveetan ez bada (Euscal-errijetaco... 44).

Tambolinac dino; gura davenac, gura davena eguiteco, orduba dala (Euscal-errijetaco... 66).

Dino Espiritu Santubac lecu baten; Ganadu aldriac leguez, urteten davee peca - tarijeen umiac soinubagaz; dantzan, ta saltoca daviltz soinubaren otsian; eureen egunac iragoten ditubee aleguere, ta pozic, ta istante baten jausten dira impemu - ra (Euscal-errijetaco... 77).

- Ondoren datorren zerbait iragartzen denean:

Pecatu ez dan moduban, celan olgau leitequian esatera orduco, jaquin biar da; Cristinau bacochac daucan leguez, aparteco echuria, aparteco guenijua, ta aparteco penseeta moduba; alan dauqueela gueijeena aparteco gogua, bata gauza batian, ta bestia bestian divertiduteco, ta olgheetaco (Euscal-errijetaco... 27).

Juicijo on baten erreguela pera ecarri leguizan, ta casic gueijeena nai oi ditu - been olgheetaac dira; Jocua, Eitza, Pasiua, Soinuba, ta dantzia (Euscal-errijetaco... 28)

Onetaraco popuerzacia da examinetia; celan useetan dirian, edo eguiten dirian, ta, Espiritu Santubac, Eleisiaren gurasuac, Eracuslaac, ta errazoiac eurac gaiti cer dinuen; ta despeidaan dantzarijen errazoiac ce entzute merceduten daveen (Euscal-errijetaco... 44).

Aleguere izatia gauza ona da; baina Jaungoicuagan, ta Jaungoicuagaz, ez pecatubagan, ta pecatubagaz (Euscal-errijetaco... 25-26). (Hemen bi puntu barik, puntu eta koma izango litzateke gure usadioaren erakoa).

Eguija da; Dantza galdubac noc zaintu asco dauqueez (Euscal-errijetaco... 33-34) (Hau ere gure usadioz at dago...)

Eguijazco examina onetati ezaututen da arguir o; Piestara duazanac, diriala, luxurijaren suric gueijeena dauqueenac edadiaren parteti. Luxurijazco gauceetara gogua gueijen convideetan daveenac apaindurijaren parteti; Castidadia galdubac penaric guichien emoten deutseenac, conciencia nasajaren parteti; Ta condecino - noa verdecuac estadubaren parteti (Euscal-errijetaco... 56).

¡Oh! Au piesta santuba da; esango davee dantza zalliac (Euscal-errijetaco... 62). (Aipua hemen aurretik jarri du; baina honelakoetan, komatxo artean, marra artean nahiz koma artean jarriko genuke orain).

Beste guich; ¡Ta nos palta dira piesta egunian plazaan, gavac ordubac emon - da bere, gizonac, eta emacumiac? (Euscal-errijetaco... 62) (Bi puntu hauek, per - pausaren haria eta ulerpidea argitu baino ilundu gehiago egiten dutela dirudi).

Icusten da: dantzia ez davilen demporean, nesca bat, bi, edo iru mutil bate - gaz, bigaz, edo irugaz alcarri escubac solbardaan, edo... iminita, verbeetan, ta maitequerijeetan dagozala. (Euscal-errijetaco... 64) (Ez da gure usadiokoa).

Icusten da: dantzia asi dedinian, nescaac armatuta dagozala, avijan goseri - c dagan chorija amaren janarijaren zain leguez, nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen leunquerija, ondo eracusten daveela (Euscal-errijeta - co... 65). (Aurrekoa bezalakoa).

Argi dago, haren bi puntuak erabiltzeko joera bitxi samar egiten zaigula gaur egungo irakurleoi. Guk koma hutsa edota, gehienez, puntu eta koma jarriko genukeen lekuan maiz erabiltzen ditu bi puntuak. Esaterako, zeharkako estiloa izan arren ere, bi puntu jarri ohi ditu ondoren datorren esaldia iragartzeko.

ff. Eten-puntuak

Eten-puntuak, handi-handika aztertuz, honelakoetan erabiltzen ditu Frai Bartolomek:

- Zenbaketa gehiago ere luza daitekeela adierazteko.
- Molde bereko perpausak elkarren jarraian datozenean, bakoitzaren ondoren eten-puntuak jartzen ditu batzuetan.
- Ironia edo antzeko zerbait adierazi nahi duenean.
- Irakurlearen arreta erakarri nahi duenean.
- Batzuetan ez dakigu zer dela-eta sartzen dituen; adierazpenari indarra emateko...?

Eten-puntuak hiru badira ere, Bartolomek gehiago jartzen ditu: lau, bost...

Hona, aurreko guztiak orokorki harturik, adibide batzuk:

¿Conteetan deutzazuz inori, dantza orreetan, biguira orreetan, Sarau orree - tan... eraguin deutzabeezan pecatubac? (Euscal-errijetaco... 130-131)

Bada Eusqueeraz, Erdeeraz, Prances, Italiano, Teutonico, ta beste ascotan, dinueenez, dantzia, dantza, danse, danser ... esaten jaco olgueeta indecente ari (Euscal-errijetaco... 140).

Orregaiti Santo Tomasec esatendau ainbeste lecutan, ta beti: alaco ocasinoera juatia pecatu dala. Dantzia pecatu eguiteco ocasinoia bada, dantzara juatia peca - tu dala ... Domeecan dantzan eguitia, soluan nabasen eguitia baino, pecatu andi - jagua dala ... (Euscal-errijetaco... 158).

«Dantzan eguizu bada guichi, ta guichitan, Philotea ... ta orduban ondo prestauta. ¿Baina celan prestauta? Modestijaz, juicijoz, ta intencinoe onagaz.» (Euscal-errijetaco... 161).

Pensau eguizu irugarrenian: Zuc dantzan eguin dozun artian, ceimbat illda beste mundura jua dirian. Ceimbat ospitaleetan padeciduten egon dirian ... (Euscal-errijetaco... 162).

*Abadiac, eta Prailiac bere juaten dira piestara ... Charrac balira ez litzaate -
quez juango (Euscal-errijetaco... 165).*

*Laugarren lecuban dinue dantzaarjac: Abadiac, eta Prailiac bere juaten
diriala dantcetara; Saraubetan dantzan bere eguiten daveela batzuc; chaarrac
balira, Sacerdote Jaunac ez leuqueela eguingo... (Euscal-errijetaco... 165-166).*

*Au gaiti esaten dira chito gauza asco sacerdote Jaunac, ta religiosuac gaiti. Au
eguin davena ... onan ibili dana ... an izan eizana ... Onaco guzurrac laster sinis -
tuten dira Eleisa guizonen contra (Euscal-errijetaco... 169).*

*Pecatuco ocasinoti, ta peligruti igues eguiteco, bertan galdu ez gaitazan.
Gorputzari gurarijac ucatuteco ... Penitencija eguiteco... Curutzari jarraituteco ...
Au da aguinduba. Au da, biar dana (Euscal-errijetaco... 191).*

*Ta ez dauca inoc cetan buruba cansau, Dantza zalai piestaan ... ondo ibilte -
co esaten. Ondo ibiltia bada, Jaungoicua opendidu bagaric, esan dirian dantcee -
tan, ta piesteetan (Euscal-errijetaco... 193-194).*

*¿Nortzuc dira, an beecuen icen madaricatuba sarrijeen auan darabileenac?
¿Nortzuc dira ... ¿Baina nortzuc izango dira oneec guztioac? (Euscal-errijetaco...
204)*

gg. Marratxo

Ez du, beharbada, oraingo idazkeran bezain sarri erabiltzen, baina kasu ba-
tzuetan bai uste ez genuen testuinguruetan. Hona adibide batzuk:

*Euscal-errijetaco Olgueeta ta Dantzeen Neurrizco -Gatz-Ozpinduba (Euscal-
errijetaco... 1).*

Jesu-Cristo guere Jaun Curutzian josijari (Euscal-errijetaco... 3)

*[...] ta ez-jaquin lainotsu bategaz etsaijac beretuta daucazala zoro zororic (...)
(Euscal-errijetaco... 4)*

*Emon eguijozu bada, Jesus Maitia, Neurrizco Gatz-Ozpin oni ceure amodijua -
ren su vitzija, ixio, ta erre daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac
(Euscal-errijetaco... 6)*

Euscal-errijetan usetan dirian moduban (Euscal-errijetaco... 43).

Plaza -piestaraco gentia celan presteetan dan (Euscal-errijetaco... 44).

Nasai-tasuna (Euscal-errijetaco... 52)

*Plazaco piestiari Erri -oneetan berez leguez darraicozan gauza oneen ondoric,
icusi daigun, celan eguiten dan plazaan piestia (Euscal-errijetaco... 61).*

*Ta ez dira emen contuban sartuten, dantzia emon jacuelaco, edo emon ez
jacuelaco, Copradijeetaco, ta albo-errijeetaco gentiac atera oidituban ocasinotac,
gorrotuac, vengantzaac, burrucac, maquilacaac, ta guizon illtiac bere bai, izan
arren casic piesta guztietan guchiago, edo gueijago (Euscal-errijetaco... 74-75).*

*Au ondo ezaututa, ondo sinistuta, Jaungoicuaren Mandatari areec eureen
liburubeetan esanda ichi evenen cristinau guztienzat naasteco dantzaac gaiti. ordi -
querija, gorrotua, murmuracinoia, sobervija, Batio -ucaturia, sacrilegijua, luxurija,*

pornicacinoia, ta beste pecatu ezainac gaiti esan evenen baixen deungar o (Euscal-errijetaco... 85).

[...] dantza -zaliac absolvidutia (Euscal-errijetaco... 125).

¿Oneec ibilico diriala, piesteetan, erromedijectan, ta saraubeetan nesca artian, ta mutil artian erdi -comico eguinda olgueetan? (Euscal-errijetaco... 170-171).

Naasteco dantzaac berarjaz icustia, ta arei beguira egotia bere, eragotzita dago aparteco leguiagaz, Eleisa-guizonai, pecatu mortalaren beian, dinue Eracuslac (Euscal-errijetaco... 171)

¿Sinistuco ete dau au alaco Eleisa-guizonac, descuiduan inor bada, onan dana?

Guc au esatia, nai -leuquee Dantzazaliac (Euscal-errijetaco... 171-172).

¿Nortzuc dira, eureen ibili -eraan, ta egon -eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija, dotorerija, ta besteen desprecijua eracusten daueenac? (Euscal-errijetaco... 199-200).

Uts - eguiteen ezauberia (Icas-I, 32).

Eusqueera-Erri guztietan argui eguindau, ta eguitendau ceubeen Evangelijoco zelo eguijazcuac, ta iracatsi garbijac (Icas-I, III).

Alcar zaintzaan, Guerra -guintzaan, Sendotasunian, Iraunzalian, Odol noblian, ta Verbaco izatian (Icas-I, III).

Ezdau gueure Erri idalgubeetan inos oinic gueratu, ez Judeguc, ez Moroc, ez Heregec, ez Jaungoico-bagacoc, ezda, entzute oneco ascoren erichijan, Jaungoico ascodunec bere (Icas-I, IV).

Ta emon eutseen Jaungoicuac onei guztioi, baita arbola, ta bedarra bere, eureen ericuac sortuteco, ta ondorenguetara atzija iragoteco virtutia, beti mundu -ban iraun dagujeen vitzi -dun guztia (Icas-I, 11).

Ageri denez, hauetariko marratxo batzuk oraingo idazteko erarekin erraz bat etor daitezkeenak dira; beste batzuk, berriz, desegokitizat jo ohi ditugunak... Esaterako, izena eta atzizkia marratxoz banatzea.

d. **Hitzen elkarketa eta banaketa**

Hitzen elkarketa eta banaketa, garaiko joera, konbentzio, erabaki eta arauak loturik izan ohi da. Beraz, aldakorra da. Horregatik iragan urteetako idazkerak eta oraingo "estandarra" dei genezakeenak alde handia dute horretan. Frai Bartolomeren hiruzpalau lerro irakurri orduko ohartzen gara honetaz. Ikus dezagun handi-handika:

aa. **Hitzen elkarketa**

-Ez: Ezezko esaldietako adizlagun hau adizkiari loturik erabiltzen du maiz; elkartzeko gehienak aditz trikoekin eta "izan" aditzarekin eginak dira, ondorengo adibide hauetan ikus daitezkeenez:

*Baita nire eguina ezer ezdana bere; / dantzetan ezdan olguetiac, ezdauca gatzic, ezdauca gustoric; / areec esan dauee: dantzia berez ezdala pecatu; / menturaz ezda Crisandade guztian dantza desonestubagoric; / casic ezer bere escribiduta ezdagualaco dantza galduben gainian; / noberari e z**ba**juaco leguez; / errazoezco olguetiac ez**da**u eragozten Jangoicoa servidutia; / cristinaubac inos bere eguin biar ez**di**tubanac; / arimara gachic e z**da**carreenac; / e**z**dago ezer**be**re munduban*

-Ezin: Askotan, ondoren datorren adizkiarekin lotzen du:

*esan ezin**le**ijan, viotzeco nasaitasun bat, eta libertade bat; / joco aldi baco chian ogueta amar ducat, baino gueijago jocatu ezi n**le**guiz; / ta templura juan ezin**da**nac; / ta, an eguin ezi n**da**na, eguiten da guero ezcutubeetan; / ta gorrotua ren gorrotoz icusi bere ezin**do**zula projimo à; / munduba galduba daguana, ta ija inoc iraun ezi n**da**vena, Escritura Sagradubac lecu ascotan esango e z**ba**leutscu bere; / ezin**da**vena; / ezin**do**zun; / ta icusi bere ezin**gu**inai, espirituzcua dalaco (...)*

Jakina, adberbio-sintagma denean, hots, “ezinik” formaren adiera duenean, loturik idazten du beti, oraingo erara: *ta zaartzan, besteric ezi n**da**, ezcontza guin tziari emoten deutseenac (Euscal-errijetaco... 54).*

-Oi: Aditzari ohiturazko esanahia emateko erabiltzen den partikula hau adizkiari loturik idazten du ia beti:

*ta ain guichi, pecatubac, eta pecatuzco gauzaac munduco zoruai emon oid**de**utseen contentuba, edo alegrija gaiti (Euscal-errijetaco... 25); / a**di**tubeen olgueetaac dira: Jocua, Eitza, Pasiua, Soinuba, ta dantzia (Euscal-errijetaco... 28); / soinubari oid**dar**raico dantzia (Euscal-errijetaco... 33); / amajari duda guztia, edo, aituten oid**tu**been, achaquijaac quenduteco, esate n**da** (Euscal-errijetaco... 45); / eurac esan o**id**daveen leguez ija pusca bat ardauac alegueretuta (Euscal-errijetaco... 48); / nundi, eta celan oid**dir**ian piestaraco jantzijac, eta gala ac emacume ascoren soinian, sobre daqui mundubac (Euscal-errijetaco... 58); / eurac esan o**id**daveen legueez, impernucuen vitzitzia echian diriala piesta mada ricatubac gaiti (Euscal-errijetaco... 58); / ez, gueratu o**id**alaco piesta egunic erdi jeetan, ta guichijagotan bere (Euscal-errijetaco... 71); / urteten davee, o**id**danez, leenago plazati (Euscal-errijetaco... 72); / atera o**id**ituban ocasinoiac (Euscal-errijetaco... 75) (...)*

-Ei: Hiztunak partikula hau erabiltzen duenean, entzundako zerbait, berak ziurtasunez ezagutzen ez duen zerbait adierazten du. Bartolomek ondorengo adizkiari loturik idazten du partikula hau. Hona adibide batzuk:

*edo euretati ascoc esaten a**di**davee (Icas-II, 50); / batian: au entzun davena; bestian: au e **di**nuela; bestian: alan e izala (Icas-II, 190); / Oraindino, ez a**di**deutsu atan ichico (Icas-II, 211); / Alexandro Andijac negar eguiten eijeban, mundu bat baino,*

ez egualaco (Icas-II, 250); / Ez daquit nor baiti bere garbatu eijacola (Icas-III, 329); / au eguin davena... onan ibili dana... an izan eizana... Onaco guzurrac laster sinis - tuten dira Eleisa guizonen contra (Euscal-errijetaco... 169) (...)

-Cein: Hizkuntza erromanikoetako eredu jarraituz eraikitzen diren perpaus erlatiboetako juntagailu izan ohi da batzuetan. Halakoetan, Frai Bartolomek ondoren datorren aditzari loturik idazten du:

Dantziaren giraac bere guztiac dira ezquerreracuac, cei ndan, pausu eguitemo, ta ibilteco, alde madaricatuba Escritura Sagraduban (Euscal-errijetaco... 139); / areetati naijeen eveena zan Comedija, Sarauba, naasteco dantzia, cei ndan luxu - rijaren Ama (Euscal-errijetaco... 145); / ta azquenian, bardin jango ditubee luu - rreco arrac aberatsen, ta andijen gorputzac, zei nda probreenac, ta munduban beetuta vizi dirianenac (Icas-III, 60) ("zeinda" honek ez du markatzen perpaus erlatiboaren hasiera, konparaziozkoarena baizik)...

-Bere: Partikula hau, ezezko esaldietan aurreko hitzari loturik darabil maiz, era enklitikoan. Hitz hauekin bereziki: "inos", "ecer" / "ezer", "inor", "edola":

inosbere, inorbere, ecerbere / ezabere, edohbere. Baina beste batzuk ere agertzen dira, bereziki eskuizkribuan: *naibale ubere, edoceinbere, absolbidubere ...*

-Biar: Noizbehinka, ondoren datorren adizkiarekin loturik idazten du; bereiz eta oraingo joeraren arabera sarriago. Hona loturik idazten dituen batzuk:

alegrija eguijazcua gura davenac, topau bia rdau, daguan lecuban (Euscal-errijetaco... 26); / jococo diversisinoia artu biarda, demporia iragoteco, ez ango ira - bacija gaiti (Euscal-errijetaco... 29); / legue oneen contra jocuan irabazten dana, atzera biurtu bia rda concienjian, maisuric jaquituneenac dinuenez Santo Tomassegaz (Euscal-errijetaco... 30); / ta olgueetiac bere euqui biardau bere erra - zuazco tercijua (Euscal-errijetaco... 38); / leleengo lecuba errazoiagaz euqui biardau Benedicto XIV. ez estutzat, ez nasaizat iracurla batec bere ezdaucanac (Euscal-errijetaco... 89); / au obeto aituteco, gogoratu biardogu naasteco dantceen asi eria, ta celan cristinau errijeetara etorri zirian (Euscal-errijetaco... 137); / gen - tiac cetan, edo atan olgau bia rdau (Euscal-errijetaco... 191); / olgau biardaveen izquierdo, ezda pecatu izango, nescaac, ta mutilac gau, ta egun naaste dantzan, nai daveen moduban ibiltia (Euscal-errijetaco... 192); / (guichien sinistu biardana) (Euscal-errijetaco... 194); / asco castau biarda (Icas-I, VI); / ezdau inoc arduraric iminten, dotrinia bia rdan moduban, icasteco (Icas-I, 4) (...)

-bat: Aurreko hitzari loturik darabil batzuetan, "puscabat" sintagman bereziki; hala ere gutxienak dira loturik datozenak:

Oneec, icusten badabee Praile bat, edo Monja bat, edo Sacerdote bat, nos bait barre eguiten, edo puscabat olgueetan galduba da (Euscal-errijetaco... 16)

Eurac esan oidaveen leguez, ya puscabat ardauc alegueretuta (Euscal-errijetaco... 48).

Piastati echeruz nequez dua inor bacarric, ordir enbat ezpada (Euscal-errijetaco... 72).

Edo nescabat mutil biren erdijan; edo mutil bat nesca biren erdijan, alcarri dautseela, esandan moduban (Euscal-errijetaco... 73).

Ta oraindino puscabat estuchubago laugarren parteco seigarren capituluban, nun condeneetan dituban Santubac pecatuzat, emen esan dirian baino echura arinagoco, ta chiquijagoco paltac ber e (Euscal-errijetaco... 165). (...)

-Aditza eta honen laguntzailea ere maiz idazten ditu loturik; gehienetan adizki laburrak dira:

Begaz esandan dantza loi, ta naastaubetara (Euscal-errijetaco... 122); / Errazoe onec, ustedot, ezdauca uts uneric Evangelijo Santuco eracutsijan (Euscal-errijetaco... 124); / Icusidot, eldunasan Euscal errijeetan, ta ez guichitan, gogo bat, nasaitasun bat, ta e zdaqit celaco empeinu bat, esan dirian olgueeta lotsarizcuetan, ta pecatuzcuetan, cristinaubac piesta eguneetan, ta gauric gueijeenan ibilteco, ta daviltzala chito ezain (Euscal-errijetaco... 125); / ontzat emandavelaco; / aimbat moduric oneenagaz ibilidan guizona, nai emacumia (Euscal-errijetaco... 129); / ta eguindozu sarritan dantza (Euscal-errijetaco... 130); / au da, zuc dantzara juanda, emo ndozun escandaluba (Euscal-errijetaco... 131); / esandan baisen pecatuzcuac izan arren, ez dira quenduten (Euscal-errijetaco... 137); / ceimbat alequin eguindan guiza aldi guztietan, dantza naastaubac condeneetaco (Euscal-errijetaco... 146-147) (...)

-**Ete:** Galdera nahiz zalantza adierazteko partikula hau bereiz idazten du beti, oraingo erabileran bezala.

bb. Hitzen banaketa

-**gaiti:** Bereiz idazten du beti, “orregaiti”, “cegaiti” eta, batzuetan, “augaiti” izan ezik. Azken hau ere bereiz idaztea da normalena, baina eskuizkribuan loturik idazten du, behin edo izan ezik. Gainerakoetan bereiz; *Icas-III*-an batik bat badaude loturik idatzirikoak ere, baina gutxi. Absolutiboaren gainean eraikitzen du. Izena edo aditz-izena denean, gehienetan, mugatuan; inoiz mugagabeen ere bai; pluralean ere absolutiboan doa, eta ez genitiboan. Hona era guztietako adibide batzuk:

Ez beste gauza gaiti, neure entzula onac (Icas-III, 62) (mug.).

¿Cer esango dogu bada, seina, batiatu bagaric, escubetan ill jacuen lau lagunac gaiti? (Icas-III, 63) (pl.).

¿Cer esango guenduque Sacerdote arec gaiti? (Icas-III, 64) (pl.).

Ta biar ordu guztian bere Aitaren ondri a gaiti arpeguija ateratia (Icas-III, 65) (sing.)

Orregaiti itanduten jaco (Icas-III, 68).

Au gaiti, eurenez, cristinau condenaubac euquico davee impernuban pena gueijago, batiatu bagacuac baino (Icas-III, 70) (sing.).

Jaungoicu a gaiti gueure proximuac ameatara, gueure burubac leguez (Icas-I, 25) (sing.).

Au berau gaiti inoc bere quendu ezin legui, guichitu ezin legui, ta ausi ezin legui amar mandamentubeetaco leguia, pecatu eguin bagaric (Icas-I, 27) (sing.).

Cegaiti, edo celan etediran jaquiteco, errazoiac topeetan ibili bagaric .

[...]edo eguiteco ustia daucagun obra onac gaiti (Icas-I, 36) (pl.).

Escatu daijogun bada Jaungoico guztiz onari Jesusen merecimentuba c gaiti (Icas-I, 38) (pl.).

Izango ete da, galduco ete dogun bildurra gaiti? (Esku 94) (sing.).

Ez dau eiten Jangoicuaren amodiju a gaiti, ezda bere burubaren amodiju a gaiti bere; ezpada, edo ondasunac gaiti, edo vanidadi a gaiti, edo zequenquerija gaiti (Esku 100).

¿Ceinbatec eureen burubac causeetan ditubee, ta aciendac casteetan ditubee, cerbait gueijago jaquiti a gaiti? (Icas-I, 41).

Eguija esateco, guizon, eta emacume guztiac pensauco balebee ondo, ta sarri: Cer dirian, cetati dirian, no r gaiti dirian, cetaraguino dirian, ta cetan azquenian guera - tuc dirian, ez leuquee eguiten daveen beste zaata munduban eguingo. (Icas-I, 3).

Jaungoicuac sobrehijazco pecatu á gaiti bota cituban impernubetara (Icas-I, 12)

(Hemen “a” hori, azentu-marka eta guzti, argi dago erakuslea dena, artikulua balitz, *pecatuba* egingo baitzukeen).

-aldi: Testuinguru batzuetan aurreko izenetik bereiz idazten du; esaterako “guiza aldi” idazten du ia beti; lau bat aldiz “guizaaldi” eta “guizaldi” behin ere ez. Hona bakoitzetik adibide pare bat:

Ta ez dira luxurijaren eguitade oneec guiz a aldi batecuac, ezpada dempora guztietacuac (Icas-II, 44).

Leenagoco guiza aldijac saltoca iraguaz, gogoratuco ditut batzuc, nundi ezau - tuc dozun pecatu loijaren erru madaricatuba (Icas-II, 44).

Oneec dira, neure entzula onac, luxurijaren eguitadiac guiz a aldi guztietan, ta mundubaren baztar guztietan (Icas-II, 53-54).

¿Baina, ceimbat onaco gach negargarri zabaldu dira guiz aaldijetan asitaco Ezcontza bat, edo eguindaco bat dala medijo? (Icas-III, 327).

Munduba edu, zabal da. Guiz aaldi guztiac edu, luzetuten da (Icas-II, 17).

-bait: Bereiz idazten du “nos bait” denborazko adizlaguna, baita “celan bait” / “zelan bait” ere; “-bait”dun beste hitz batzuk bietara idazten ditu, loturik eta bereiz. Hona guztitariko adibide batzuk:

Nos bait zetan, edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena, da (Euscal-errietaco... 11).

Oneec, icusten badabee Praile bat, edo Monja bat, edo Sacerdote bat, n_o bait barre eguiten, edo puscabat olgheetan galduba da (Euscal-errijetaco... 16).

[...] urtian bein, edo birritan, ta orduban cela n_o bait, baño ez compeseetia (Euscal-errijetaco... 53).

Azartuten nas, gurasuac, esaten, gauza on asco ezdeutsubela ceubeen umiac icutsi. Jaidomeequetan cela n_o bait mecia entzutia (Icas-I, 23).

[...] alan barristetan dira Mezaan zela n_o bait Jesusen jaustiac, colpiac, cutzutcia lepuan eruatia, gorputcian eguin eutseezan zaurijac, ta Aita Cerucuari vijotza jasota, pena guztiaquin eguin eutsazan esquinijac, gueure pecatuben zorra pague - taco (Icas-III, 243).

Gach bat jatorcunian, naibague bat sentiduten dogunian, ce r_o bait jadichi gura dogunian (Icas-II/, 254).

Ezconduteco laguna dote onecua izatia, ce r_o bait gueijago daucana, edo abe - ratsa nai izatia, ez dau inoc deungatzat emoten, jagocuen balijua dirubai, ta euquijari emon ezquero (Icas-III, 349).

Nor_o bait gaixotuten danian, dei eguijezu Eleiza-guizonai (Icas-III, 260).

Ara emen cer_o bait arguituta, asieraan imini neban amaija, edo Conclusinoia (Euscal-errijetaco... 103).

Arerijua izan arren, ta no r_o bait gueuri calte eguin guraric ibili arren, zor deu - tsagu vorondate ona, Jaungoicuac aguinduten davelaco (Icas-I, 105).

-Ainbeste: “Ain beste” lau bat aldiz idazten du bereiz; loturik idazten du ia beti, “b”ren aurretik “m” duela nahiz “n” duela.

-eguin / -eguite: Hauek, izen gisa, aurrekoari loturik erabili ohi ditu gehienetan, baina “uts eguite” nahiz “utseguite” berdintsu darabiltza. “Cereguin”, ordea, ia beti darabil loturik; bakanak dira bereiz agertzen dituen kasuak; hona bat edo beste:

Ta menturaz ezda, ascoc uste daven baixen ce r_o eguin gacha, munduba err e - medijeetia (Icas-I, 1).

Baña Cristinaubaren ce r_o eguinac, edo eguin biarrac, escolau anditzat eureen burubac dauqueezanac bere, ascoc ez (Icas-I, 4).

Beingo erijotzaco utseguitia betico utseguitia dala (Icas-III, 268-269).

Verbeeta onec utseguite bi daucaz (Euscal-errijetaco... 189).

Jangoico ona da bacarric, ut s_o eguiteric ez daucana (Icas-I, 45) .

Ainbeste inporta doscun gauzaan inoc bere uts_o eguiteric euqui ez daijan (Esku 120).

-Cein bat; ain bat: Bietara agertzen dira; baina oso gutxi dira bereiz datozenak; ia ez dira aipatzekoak ere. Loturik idazten du normalean, “b”ren aurretik “m” duela nahiz “n” duela; hona bereiz idazten dituen esaldi bakan batzuk:

Bada cein_o bat eurac gueijago ameeetan even Jangoicua, ainbat topeetan even laubago, carinosuago, ta bigunago (Esku 89).

¿Cein bat bidar Eleisa Ama Santiac combideetan gaitu, aleguere egotera?
(Euscal-errijetaco... 22)

-Ez bada: Juntagailu adbertsatiboa bereiz nahiz loturik idatzi ohi du:

Ez domeeca bacoheco ordu erdi bat, edo ordu bete bat; zbada astian egun bat, domeeca guztia santu eguiteco, aguinduten deutsut (Icas-I, 181).

Ez ordu erdijan, ez bada egun guztian (Icas-I, 184-185)

Umeen aziera ona da, neure cristinaubac, ez bacarric cristandadian, e z bada baita mundu guztian (Icas-I, 188).

Gueure gurasuac euqui arren paltac, ta izan arren deungaac, ez ditugu euren pal - tac conta, edo azaldau biar; e z bada Jaungoicuari erregutu eurac gaiti (Icas-I, 200).

-ez da: Ezezko esaldi kopulatiboetako adizlaguna, oraingo usadioz “ez eta” / “ezta” idatzi ohi dena, bietara idazten du. Loturik idazten duenean ere, ez du aldaketa fonikorik agertzen idazkeran; beste horrenbeste esan dezakegu “ez bada” / “ezbada” adbertsatiboaz ere:

Ez ditu ugazabac otseguinac biar alperrerijaraco, leen esan dan leguez. Baina, ez da gau, ta egun etenaz, arrastaca, vitsa darijuela, biarrian beti erabilteco bere.

Ez deutzazu inori calteric eguingo, ez vitzitzaan, ez osasunian, ez gorputzian, ez ceure eguinagaz, ez inori eguiten eracutsijagaz, ez aguindubagaz, ez lagundu - bagaz, ta ez da ecetara bere.

Baina ez da libreetan illtet. Ez da impernuti bere.

Ez zan gorputz bat errebagaric gueratu. E z da eche bat bere.

Honako adibide honetako “ez da” beste era batekoa da; moduzko adizki baten elipsiak edo, eragina: ezertarako ez eta / ez direla... esan nahi du:

Baita uatuta, edo ezertaco ez da dagozanai bere ascotan.

-Eztabaida: Ez du inoiz ere idazten horrela, hiru zatitan baizik:

Ondo esandaco verba bati oratuta, ateraten davee ez da baidia.

Oneec ecerbere balijo ez balebee leguez, itsu itsuban azaleco gracia e da bai - daco bati beguiratuta, bertati ezcontzaco verbia emoten da.

Pecaturic ostera ez eguiteco, gogo erdi ill, e da baidaco bategaz urteten badau batec compesinoeti, lelengo eraan dago pecatuban jausita.

Jueza dan leguez, ta lagun artian oidirian e z da baidaac, erabagui biar ditu - ban leguez, cer eguin biar daven, esatia da oraingo saila.

-Nora ezeco: Hitz hau era askotara idazten du: “nora ezeco” / “noraezeco”; “nora ececo” / “noraececo”... kasu bakoitzeko deklinazio-atzizkiekin. Gehien agertzen dena, beharbada, “nora ececo” izan liteke...

Gauza sicu bat, otz bat, derrigorrezco bat, edo nora e zeco bat, balitz leguiz, beguiratuten deutsee, ascoc Jaungoicua ameeitiari.

Alan, pecatu guztien compesinoia eguitia bere, batzubentzaco nor a ezeua da. Sinistu biar dogu bada, neure entzula onac, pedeco gauzatat, nor a ezeua dala ura, batiatuteco.

-Atzizkia aurreko izenetik bereiz eta hau bere deklinazio-markarekin idazteko joera nabaria du. Atzizkiak diogun gauza bera esan genezake deklinazio-atzizki eta atzizki bezala erabili ohi diren zenbait elementuz ere, esaterako: -gana, -(r)en beian, -pian, -guin, -guintza, -guino, -era, -zale, -tegui, -une, -gaiti (goian berariaz adierazia), -aldi (goian adierazia, "guiza aldi" hitza azaltzerakoan, baina beste batzuetan ere maiz ematen du bereiz).

Errotik bereizitako atzizkiak aipatuz, hona zer dioen L.M. Mujikak: "Honetan, Pr. Bartolome-ren joera etimologistak nabarmenak dira, hots, konposagaien islada-pena hobeto adieraztearren elementuak bereiztea. Eratorpenean (deribazioan) ere partizipioa ez galtzea, nolabait, joera horietan sartzen da"⁴⁷⁶

-gana: Ia beti loturik ematen du. Bost hauetan bereiz:

[...] vorondatia, ta gogua Jaungoicu a gana jasota euqui ezquero.

Ta ceinec bere ontasuna gueijago maite dauen, á gana dua Jesus

Ceu gana gatoz bada guztio.

Juaten dira Juez nausijagu a gana, ta esaten dau ac errico baquia gaiti:

Useetan dana, eguin dedilla.

Artutecua daucan a gana juanda, esaten deutzazu: laster cobrau, edo beretu - ten ez badau, agan daucan artutecua, menturaz guztia galduco davela.

-(r)en beian: Beti idazten du bereiz; testuinguruak ere zehatzak dira:

-pecatu mortalar en beian; / pena andijeen beian; / juramentubar en beian; / pecatu andijar en beian; / pecatu illgarrijar en beian eragotzija (...).

-pian: Loturik idazten du, ondorengo bi hauetan izan ezik:

bere aguindu pian daguanari; / pecatarija alaco calte andico penitencij a pian imintia./

-guin: Ia beti bereiz idazten du, ihartutako hitz batzuetan izan ezik; honelakoak dira, esaterako, "buruguin", "otseguin", "atseguin" etab. "Legueguin" eta "calteguin" bietara idazten ditu:

Baco arda o guina ondreetaco.

Guerra guinac bere gueitu ditubee Comedijac, dantzaac, ta olgueeta pecatuz - cuac.

Orreec dira, Piestazaliac dira aguirico, ta ezcutuco pecat u guinac, ta pecatu eraguinguinac.

⁴⁷⁶ Ik. L.M. МУЖИКА: *Euscal-errijetaco...* 35. or.

Sermoetara juaten badira descuiduan, sermoiari, ta sermo eguinari burla eguiten deutsee.

Munduban zabaldua egozan espiritu gac hguinac, batu ziri~~l~~ala lecubatera Contetan citubela euren gachageuinac, ta pecatu eraguinac guztiac.

Jaungoicuac aguindu evan bere leguian, guizon, edo emacume adulterij oguina illteco.

-gintza: Atzizki hau dutenak era bitara eta hirutara ere idazten ditu: loturik, bereiz eta marratxoarekin:

*¿Cer izango da, egunian egunian Jesus Maitiac Altaran bere guizo n-eguintza -
co jazo bedeincatuba, ta maitetsuba barristetia?*

Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardaa edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac, ta zaartzan, besteric ezinda, ezcontza guintziari emoten deutseenac.

Legue guintzaan, Asmobarrijeetan, Alcar zaintzaan, Guerr a-guintzaan, Sendotasunian, Iraunzalian, Odol noblian, ta Verbaco izatian.

-guino: Gehienetan loturik idazten du. Hona bereiz itzuri zaizkion forma bakan batzuk:

Leza andija, ta ondotsuba dala emacume loija, dino Salomec, ta bere oinac elduten diriala impernu a guino.

*¿Ceimbat nescatilla gaztec burla eguin deutsee borregubai, batzuc artcen, ta otsuen artian, beste batzuc orijo iraaquinezco galdaretan, beste batzuc azote gogo -
rretan, ta beste ascoc lotsarizco milla pena garratzen artian, vicitcia galduter a-
guino, Jesucristoren icen bedeincatuba, amodijo garbija, ta verbia zaintutia gaiti?*

*Elesiaren bostgarren guizaalditi asita, andi T rentoco Concilijora guino asco icenteetan ditu Benedicto XIV. Eleisa-guizonai naasteco dantceetara juatia, ta icus -
tia bere, pena andijeen beian eragozten deutseenac.*

-era: Bereiz idazteko joera du:

[...] ez dongaro esanagaz, ezpada arpegu ieriagaz.

Oneetati leleengo argumentuba, edo urteneria da, esatia.

Au obeto aituteco, gogoratu biardogu naasteco dantceen asieria.

*Ara emen gueure errijeetaco zeceneen, ezpata dantzeen, desapijozco burru -
queen, maquilaqueen, ezpataqueen, comedijeen dantzeen, ta convidau teguijeen
sartu eria, edo etorri eria cristandadera.*

[...] ez dongaro esanagaz, ezpada arpegu ieriagaz.

Baina “asieria” eta “ezauberia” idatziko du, formaz ongi finkaturiko hitzak izanik...

-zale: Bereiz idazten du:

Cer Jesu Cristori, arda o zalia, ta edaalia zala juzguetaco?

Diru zaliac, ta zequenac alperric dauqueela gauzia.

Piesta zaliac egun atan, mezatan Eleisaan egon arren, mezaric entzun ezda veela, sinistu guinai, juzgu gaistoric eguin bagaric, gogua beste ardureetan euqui daveelaco.

-tegui: Bereiz idazten du, “arteguia” bezalako ongi finkaturiko hitzetan izan ezik; ia beti multzo, talde, kolektibitate adiera du Frai Bartolomerengan eta ez tokiarena:

Ezda bada sinistuten, Abad e teguija, ta Prail e teguija juaten diriala piestetara, edo eguiten daveela dantzan, gentiac esan gura leusquegun moduban.

¿Atertu bagaric ceubeen echeetan nai asarriagaz, ta nai aimbagaric esaten dozun bida o teguija?

¡Endamas gazt e teguijac!

Casiodoroc esaten badau: eurac diriala, bein quereiliagaz doianaren poltsia ri, usain eguin ezquero, Argoc baino, begui gueijago dauqueezanac; Brearioren escu teguija, ta trip a teguija dauqueenac.

alan, zazpi pecatu oneec, bacoachac bere aldran pecatu tegui andija, ta gurar i tegui andija dauqueelaco, imini jacuen pecatu buruben izena.

-une: Bereiz idazten du:

Eracusleen liburubetati atera dirian esanac, guzurac diriala: ta; imini dan Errazoiac bere zatijeetan ut s uniac daucazala, ta ondo amaituten ezdavela.

Au da, lagunaren pobrecia, premina orduba, edo ez unia diru truque saldu tia.

-arren: Perpaus kontzesiboak eta zergatikakoak eratzeko erabili ohi den morfema hau bereiz ematen du ia beti; loturik: “ezarren” hamabi bider agertzen da; lau bider *Eucal-errijetaco...* eta zortzi bider eskuizkribuan; hau da, bere lehenengo lanetan; gerora zuzendu egin zuen eta *Icasiquizunac* saileko hiru liburukietan behin ere ez da agertzen. “Esatiarren” lau aldiz dator eta “imintiarren” behin. Horretan, beraz, gaur eguneko joerarekin bat datorrela esan genezake, “Jainkoarren”, “pozarren” eta antzeko sintagma finkatueta izan ezik, bereiz idazten baita; Bartolomek berak ez du erabiltzen “Jaungoicuarren” forma eta “pozarren” behin darabil, horrelaxe, bereiz...

2. Fonetika

a. Bokalak

J.A. Mogel eta Frai Bartolomerren idazlanei iraztean begiratzea aski da bokalen bikoizteak ugari dituztela ohartzeko. Ekialdeko bizkaiera darabilten idazle zaharrak

bat datoz horretan. Jakina denez, grafian, fonetikan, morfologian, lexikoan... elkar janzen dute J.A. Mogelek eta Frai Bartolomek. Horregatik, Frai Bartolomeren euskara aztertzean, J.A. Mogelekkin erkatzea eta esaten direnen sendogarri noizbehinka hau aipatzea, berez-berezkoa izan daiteke. Izan ere, askoren iritziz, *Peru Abarca* ren egilea da ekialdeko bizkaiera zaharraren eskola sortu zuena.

Grafiaz jardun dugunean, “u”ren ondorik bokala datorrenean, loturazko “b” tar-tekatzen duela esan dugu; eta era berean, “i”ren ondorik bokala datorrenean, “j” edo yod loturazkoa sartu ohi duela. Honek guztionek bokalen harmonia deritzon gaira garamatza:

Hiatuan, hots, diptongoa osatu gabe elkarren ondoan gertatzen diren bokalen artean aldaketak eragiten dituzte zenbait idazlek, kidekoak ez diren bokal-bikoteen ordez kidekoagoak ezarriz. Hau, lexemari artikulua eransterakoan gertatzen da batez ere, baina baita bokalez amaitutako lexemari bokalez hasten den morfema gehitzaerakoan ere. Hitz barnean bakanagoa da, baina hitz barnean ere hala gertatu ohi da, adibidez, erroan “-oa-” nahiz “-go-” duten adizkietan “-ua-” eginez: *nua* / *euatenco* / *ezbajuaco* / *juango balira* / *eguan* / *daguanian* / *juateco*...

Ikus ditzagun bokal ezberdinez amaitutako lexemari “-a” artikulua eransterakoan gure idazleak nola lortzen duen bokalen harmonia hori:

- A + a = -ia (sing.) nesquia
- A + ak = -aac (pl.) nescaac
- E + a = -ia (sing.) echia
- E + ak = -iac (pl.) echiac
- I + a = -ija (sing.) choriija
- I + ak = -ijac (pl.) chorijac
- O + a = -ua (sing.) gurasua
- O + ak = -uac (pl.) gurasuac
- U + a = -uba (sing.) buruba
- U + ak = -ubac (pl.) burubac

Ondorio hauek atera daitezke eskema honetatik: “a” itsatsia duten hitzei artikulua eransterakoan, singularrean, bizkaierazko joeraren arabera, *-ea* egin beharko zukeen: *alaba* *alabea*, baina inguru honetako idazle zaharrek ez dute onartzen bokal bikote hau eta *-ia* egingo dute, pluralean bi bokalei -lexemarenari eta artikularenari- utsiz. Jakina, inesiboan ere gauza bera gertatzen da: *plazaa* *n* (sing.); pluralean, berriz, -A + e = -ee: plazaetan = *placeetan*. Deklinabideko kasuei dago-kienez, badu azaldu beharreko beste zertzeladarik ere, baina hemen fonetikaz eta bokalen harmoniaz dihardugu soilik. Morfologia aztertzerakoan emango dugu deklinabideko kasuez eskema zehatzagoa.

“-Oa” bikotea ez du onartzen gure idazleak, -ua eginez. “Oe” ere aldatu egin ohi du, -ue eginez, latinezko “-one(m) / -tione(m)” atzizkidun hitzen maileguetan izan ezik. Hauetan, bokal arteko “n” galduz nahiz tokiz aldatuz, -oe egiten du: *ser-moe, ocasinoe, coroe, errazoe* “Ocasino” bi aldiz itzuri zaio horrela: *edo pecatuco ocasino urrecua dala (Euscal-errijetaco... 10). / pecatu mortaleco ocasino urrecuac izatia (Euscal-errijetaco... 120)*; “itzuri” diogu, obra osoan barna bi aldiz soilik datorelako eta “ocasinoe” berrogeita zazpi aldiz...

Artikulua eransterakoan, lexema “e”z amaitzen den gainerako hitzetan bezala, -ia egingo du, J.A. Mogel eta inguru honetako idazle zahar guztiek bezala: “bide” *bidia*, “etxe” *echia* egiten dutenez, “ocasinoe” *ocasin^oia*, “erliginoe” *erligin^oia*, “diversinoe” *diversin^oia*, “devocinoe” *devocin^oia*... Beraz, “-oe”, salbuespen hauetan izan ezik, -ue egiten du: *Ta au esaten jacue cristinaubai. / din ue dantza zaliac. / Ta gurasuac galarazo ezin leguij ue umiari estaduco libertadia. / Ezin umiai emon zinaj ue aziera peligruczuagoric codicijarena baino. / Esan bequij ue bada emeti aurrera. / Logrerubac ez derichue ain deungaro bere tratu engainuzcuari, ta codicijari. / gurasuac bere ezleusquijue seina besuetara emongo, edoecin lelengo aguir dani ...*

“-Ea” ere, esan dugunez, ez du onartzen, eta -ia egiten du beti. Berez “-ia” denean, yod bat tartekatzen du: -ija; baita hitz barnean ere; “i”ren ondoko bokala beste edozein izanik ere, yod hori tartekatzen du: *vijamoneco. / tercijuan. / juicj-jozcoc.*

“Guztia” maiz darabil, eta horrelaxe idazten du, zazpitan izan ezik; “guztija” idazten duen zazpi horiek *Icasiqizunac* saileko I. liburukian datoz 13, 40, 86, 166, 188, 191 eta 200. orrialdeetan, hurrenez hurren; gainerakoan, ehundaka bider “guztia”. Beste bi hitzetan ere ez du beti betetzen yod erabiltzeko joera hori: *neurria* (behin), *neurria* (lau aldiz): *Provincia* (bi aldiz, bietan Gipuzkoa esan nahi du): *Baina Vizcaico ta Provinc iaco piesteetan au ta utsa bat dira. / Vizcaijan ta Provincian. Provincia* (bi aldiz, batean Gipuzkoa esan nahi du eta bestean herrialde bat): *Nic incentau bagaric, daqui gentiac ondo, onetarico ermita asco dagoza -na Vizcaijan ta Provinc ijan. / ¿Gueratuco ete da erri baten, provincija baten edo erreinu baten lotsarizco pecatubaren pestia?*

Berez “-ua” denean, behin eta berriro esana dugu, loturazko “b” edo wau deritzona tartekatzen duela. Honetan, guk dakigula, ez du salbuespenik egiten. Beraz, lexemaren bukaera “u” duten hitzak eta “o” dutenak ongi bereizten ditu. Esaterako, harentzat argi dago “desonestu” dela hitza eta ez “desonesto”, *desonestubac* idazten baitu. “Lutu” dela, eta ez “luto”, *lutubac* idazten baitu... Arau hau hitz barnean ere gordetzen du, baina hitz barnean baditu zalantza, alternantzia edo dena-delako batzuk, “prestuez” hitzean ageri denez. Ez du beti berdin idazten. *Prestubeza* eta *prestubesquerija* dira normalak haren joeran, baina horiez gainera, *prestueza, prestuezquerija, prestu ez(a)* ere agertzen dira. Gutxi dira, dena dela; honako hauek dira guztiak: *gueure arerijuen prestuezquerijac (Icas-I, 243). Entzun deu -tsubeez: ipoin verdia, verba zatarrac, contu lojjac, errazoe bajubac, prest uezac, ta*

guizatasunaren lotsagarrijac (Icas-I, 23 serm.). *Ugazaben prestuezquerija oneetati dator, errenterubac ugazabai lapurretan eguitia gueijenian* (Icas-II, 147). *Ta esa ten deutzazu: Ezertaco eza dala, coitau epela dala, alaco prest u ezari alan isten badeutsa* (Icas-II, 154). *Onaco gentia ez da bacarric conciencija nasaicua. Ezbada baita vijotz doilerrecua, ta erne prestu ececuca bere* (Icas-II, 178). *Premina bagaric lagun arteetan sortuten ez dana gaiti: prest u ez cequena dala* (Icas-II, 223). *¿Noc zure intencioe prestu ezac?* (Icas-II, 234).

Bokalen bikoiztea, goiko eskeman ikusi dugunez, “a” itsatsiak eragiten du, gehienetan, idazle hauek lexemaren amaierako “-a”ri eta deklinazio-atzizkikoari, biei eusten baitiete: *aa* singularreko inesiboan: *plazaan*, baita pluraleko absolutiboan eta ergatiboan ere: *nescaac*...

“A” itsatsia dutenetan eta lexema “-e”z amaitua dutenetan, eeegingo digu pluraleko genitiboan eta pluraleko tokizko kasuetan: *nesqueen / echen / pla~~e~~etan / placeetaco / eche~~e~~taruz / eguitadeetan / dantzeen / dantzeetan / verbeetan / eleiseetan / legueetan* (hau euskara estandarrean bezala) etab. “A” itsatsia dutenetan honako hau gertatzen da: -a + e = ee: plaza + etan = *placeetan*. Gauza bera gertatzen da partizipioa “-au” duten aditz-izenetan ere; ia guztiak dira maileguzko hitzak, partizipioan “-au” amaiera dutenak, garai zaharragoetan, adituek diotenez, bizkaierazko joerarari jarraituz, “-adu” izan eta bokal arteko “d” galduz “-au” izatera etorri direnak. Hona adibide batzuk: *olgau > olgueeta; / desondrau > desonde~~e~~etan; / condenau > condeneetan; / conta~~u~~ > conteetan; / predicau > prediqueetan; gustau > gusteetan; > gorde > gordeetan; mudau > mud~~e~~etan; combidau > combideetan; / quesau > que~~e~~etan; pen(t)sau > pens~~e~~etan (penseeta moduba); usau > use~~e~~etan...*

Ez dugu uste “gorde”, garai zaharragoetan, “gordadu” > “gordau” izango zenik. Gainerakoetan: *-adu > -au > -a > -a + -etan = -eetan*. “Gorde” partizipioa salbuespena da forma aldetik eta “-e”z amaitzen den edozein hitzen antzera egiten du: “eche” > “echeetan” bezala...

Dena dela, arau hau ez du beti betetzen; batzuetan gutxiegi eta besteetan gehiegiz huts egiten du; ia beti gehiegiz. “Gutxiegi” diogunean, beraren arau edo joerarekiko esan nahi dugu gutxiegi, ez euskara batuarekiko. Esaterako, gutxiegi: *dantzetan; / dantzetara*, baina bi “e”z askoz ugariago. *Olgueeta* sarri agertzen da honela, baina bi “e”z sarriago. “Eleisa” hitza, ordea, bokal-bikoitzik gabe askoz ere maizago ageri da: *eleiseetan / eleiseetara* baina *eleisetan*... maizago; *eleisan / eleisaan* bietara... Pluraleko absolutiboan eta ergatiboan behin ere ez da agertzen *eleisaac*. “Gorde”ren aditz-izenak bietara datoz, eta bietara ugari: *gordetaco / gordeetaco; gordetia / gordeetia; gordetan / gordeetan*... *Icas-III*n gutxiegi huts egiten du hainbat aldiz.

Gehiegizko bikoizteak dira, hala ere, nabarmenenak: *cereguineen, laneetan, gueijeena, santubeen, cristinaubeen, zorrotzeen, indartsubeen*.

Haren arautik at dauden bikoizteak adizkietan aurkitzen ditugu, agian, beste-lakoetan baino gehiago. Analogiak daramala dirudi horretan huts egitera. Esaterako: (...) *eguiten davela pecatu* (hark), baina (...) *eguiten daveela pecatu* (haiek): “*ala pecatu mortala, ala veniala eguin daven*” (*Euscal-errijetaco...* 98) (hark); baina “*plazaan piestia eguiten daveenac*” (*Euscal-errijetaco...* 53) (haiek). Kasu hauetan, “u”ren eraginez ondorengo bokala gradu bat ixten denez gero, bikoiztea bereizgarri da; baina beste batzuetan, honen analogiaz edo, behar ez denean ere egiten du batzuetan... Iraganean ez du ondoko bokala ixten; beraz, honako bikoizte hau ez legoke zuzen: “*ez da esaten apostolubac saldu evæla, ez bada apostolu batec saldu evala*” (*Euscal-errijetaco...* 167).

“I” bikoizta honako hitz hauetan dator batez ere: *eguiija*, *miina*, *priisia*, *jadii* - *chi*, *Ostijja*, *aleguiinaz*, *eguiiten* / *eguiijezu*, *iia*. Lehenengo biak maiz agertzen dira. “Eguiija” bietara dator eta sarri. “Miin” (“mihi”) idazten du beti alde batetik, “min”, “mingoch”, “minbera” etab. bestetik.

“Eguiija” hainbeste aldiz agertzen da, non hipotesi hau egin baitugu: hitz honek “a” itsatsia du; beraz, Frai Bartolomeren arabera, “eguiija” egin beharko luke absolutibo singularrean eta “eguija” mugagabeen. Absolutibo singularreko “-ia” osatzen duen “i” hori baliteke lekuz aldatzea; hau da, atzera pasatzea: *eguiija* > *eguiija* (?)... Edo ebakera sabaikaria markatzeko baliabide bat ere izan daiteke, horrelako guneetan baitator ia beti. Beharbada, azken honek izan dezake egiantzik handiena... Kasu batzuetan argi dago bokalen asimilazioa gertatu dela: *priisia* (< *priesia*?), *jadiichi* / *jadiisteco* (< *jadeichi* / *jadeisteco*?); eskuizkribuko *barriin barri* (< *barrien barri* < *barriren barri*?)..

“U” bikoizta ere agertzen da noizbehinka. “Suur” eta “zuur” normalak dira, baina “luur” ezin konta ahala aldiz dator Bartolomeren liburuetan barna; “lur” hamar bat aldiz dator. Hemen, beharbada, egitura labur eta ahuleko hitzak indartzearen jarriko du bokal bikoizta... Dena dela, Luis Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca* liburuan kontuan izateko iritziak ditu honetaz. Hemen ohar bat edo beste jarriko dugu harenetik. Gure hizkuntzalari jakintsuak dioenez, bizkaierazko zenbait testutan bokal bikoitzak jartzen direnean, hizkuntzak garai zaharretan zuenari eutsi baino ez zaio egiten; hau da, testu hauetan gorde egin da, gainerako euskalkietan galdu dena. Beraz, euskararen garai zaharretako aztarnak lirateke. Bestalde, silaba bakarreko hitzak direnetan maiz agertzen dira bizkaierazko testuetan bokal bikoitzak. Silaba bakarreko aditzetan ia normala da, baita *r* kontsonantearen aurrean ere.

Beste hitz batzuk ere hala ematen dizkigu eta bestela, azalpen zaila lukete... *Luur*, *chaar*, *laarregui*, *belaarri*...

Beste kasu batzuetan, “*edaari*”, “*lotsaari*”, “*jaaten*” eta *edaaten*” hitzetan, esaterako, erroaren marka eta atzizkiarena hobeki bereiztearen izan liteke. Gauza bera “*litzaateque*” adizkian ere. Etimologiazko letra nahiz hizkiei eusteko joera bere-berea du Frai Bartolomek.

Behar ez denean, bere idaztaraua bete gabe, bokal bikoitzak sartzearen arrazoiak hauek izan daitezke:

- Hitzak “a” itsatsia duen ala ez ziur ez jakitea.
- Adizkietan bereziki, bokal bikoitza bereizgarri eta beharrezko dutenen analogia.
- Egitura labur eta ahuleko hitzak indartzea.
- Hitzaren erroa eta atzizkia hobeto bereiztea.
- Inguru honetako fonetika-joerari hobeki erantzutea.

Hala ere, gai honek, oso nabaria baita, beti erakarri izan du hizkuntza gaietan adituak direnen arreta. Arestian esan dugu Ekialdeko bizkaiera zaharra darabiltenek eskola antzeko bat sortu zutela, J.A. Mogelen aitzindaritzapean, ziur asko. Baina honelako joera finkatuak ez dira gehiagoko barik sortzen. Inguru honetako ahoskeran oinarritzen zirena ziurtzat jo dezakegu. Frai Bartolome bera ere ez zegoen hain sendo idazkeraren eta, bereziki, bokalen bizkoiztearen arazo honetan. Gehienetan bokal bikoitzak egitera jotzen du, ustez herrietako euskaldunik gehien joera jarraituz eta, bide batez, hiztunen baitan zeuden arau batzuk betez, esaterako, “a” itsatsiarena... baina horretaz beren-beregi gogoetarik egin gabe. Dena dela, zalantzak zituen eta, bokal bikoitzen alde bazen ere, zalantza horiek eraginda, bietara jokutzen du. Hurrengorako, gai hauetan jakintsuak direnen iritzia entzuteko prest dago, hala ere. Honela diosku hitzez hitz:

“Iracurlaac icusico davee Icasiquizun oneetan, verba batzuc dagozala bituta - co letriagaz: aa, ee, ij, arimaan, deutseen, jadiichi... Beste batzubetan verba eurac ta euretaricuac letra bacarragaz: poltsan, dave, eguija... Euscal erri guztietaco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui, verbiaren luce laburra, ascotasuna ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. Menturaz ascoc erichico deuta astun. Baina verbeeta guztien gacha da au. Urrenguan entzungo da jaquitunen erichija”.

Goranzko diptongoak, jakina denez, gaztelaniak bere-bereak ditu. Horietatik latinezko “e” eta “o” labur azentudunetatik datozenak, gaztelaniaz hurrenez hurren “ie” eta “ue” egiten dutenak, bereziki arrotz zaizkio euskarari.

“[...] mailebu zaharrak gurera diptongapenik gabe iritxi dira *pOrtu* (pUerto orde), *eskOla* (eskUEla orde), *festa/besta* (fiEsta orde) latinezko bokalismoari eutsiz. Frai Bartolome-ren idazkian aurkitzen diren *piEsta*, *prIEsa* gisakoak gaztelaniar fonetikaren ukituak dira”⁴⁷⁷

Hala ere maileguzko hitzetan, bizkaiera mintzatuan batez ere, nahiko sartuak daude horrelako hainbat hitz. Gure idazleak ere badarabiltza; “ie” dutenetatik bixiena, agian, bizkaieraduna ez denari “piestia” forma egingo zaio, beste euskal-

⁴⁷⁷ Ik. L.M. MUIJKA: *Euscal-errietaco... 77*. or.

kietakoek *fiesta* / *fiesta* erabiltzen baitute; maiztasun handikoa da, gainera, haren lehen liburuan txitean-pitean agertzen dena.

“Ue” diptongoa dutenen artean bada beste forma bat nahiko bitxia eta Bartolomek ondo hartua duena: “popuertza” / “popuertzacua”... Forma hau *f/p* kontsonanteen trukaketa dela eta ere maiz aipatua da. “Errespuesta” forma ere hainbat aldiz dator, baina *Euscal-errijetako*... eta Eskuizkribuan soilik; inprimaturiko *Icasiquizunac* saileko liburuetan behin ere ez dator: *bestiac errespuesta chaa - rra emoten deutsalala. // bestiac cerbait esan orduco, aoti atzera errespuestia sartce - en deutsalala*. Bestalde, “suerte” / “suerteco” darabiltza; oraingo euskara estandarrean onarturik dauden formak. Pixka bat harrigarri dirudien arren, hitz honetan ez du “u”ren ondoren “b” tartekatzen, Bizkaiko mendebaldean “suberte”, eta sarriago “sugerte” egiten baita. Bestalde, “consuelo” hitza ageri da, gaztelaniaren erara eta euskarara egokitu gabe: *Gorde bedi legue santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus ta gauza guztiac biurtuco dira gueure oneraco, gueur e consueloraco ta ale - grija eguijazcoraco ...*

Bokalen aldatetaz, gehitzeaz etab. baditu kontuan izateko beste xehetasun batzuk ere; esaterako, hitz-hasieran *a* eta *n*-ren artean zenbait kasutan agertzen nahiz desagertzen den *i* bokala, edota bokalak ixtea nahiz irekitzea. Ikus ditzagun horrelako kasu batzuk:

- *ainchina* / *ainchinaco* : Hauxe da gehienetan darabilen forma, baina “i” gabekoa ere zazpi bat bider agertzen da:

ainchinaco gentilac bere lotsaz baino, eguiten ez citubeen pecatubac.

Emeti ezaututen dozu, neure cristinaubac, ce a inchinacuac, errazac, ta argui - jac dirian, Jaungoicuac gueuri aguindutaco eguin biarrac .

Ainchinati zabaldu zituban bere vegui misecordijacuac gueu gana .

Ez dogu entzuten, dino San Juan Crisostomoc, anchinaco Patriarca Santuben eztegubetan, orain leguezco arroquerijaric, pamparrerijaric, ta nasaitasunic .

- *chicar*: “Chiqui” eta “chicar” darabiltza. Gaur egun ere biak erabiltzen dira bizkaieraz egiten den tokirik gehienetan; mendebalderantz hurreratu ahala maizago, ziur aski; baina “txiker” dela, esango genuke, gaur egun entzuten dena. Frai Bartolomek ez dakar behin ere “e” bokalarekin:

Baita laster oi da, alaco alcarri leijaltasuna, ta legue ona galdu deutseen senar emazten echia, impenu chiqui bat dirudijana bere, alcarri bidaoca, ta alcar joca .

Parcatu biar deutsez alcarri bata bestiaren vicitzaco palta chicarrac baque san - tuba gaiti .

- *erichi/erechi*. Bere forma normala *erichi* du, baina *erechi* ere badarabil noiz-behinka. Bizkaieraz bien arteko alternantzia dago, baina gaur egun ere “eritxi” dela dirudi gehien entzuten dena...:

Orregaiti alacuac oidira, euren er ichijan, mesede guinac, ta guizon ondrau - bac.

Ta verbiagaz zucen esan arren gauzia, er ichijaz, ta goguaz bestera esaten badau, guzurra esaten dau.

Menturaz ascoc erichico deutsa astun.

Ta dinozu ceure artian gauza on ari ondo er echita, nai goguagaz bacarric, ta nai verbiagaz, ta goguagaz: Eguingo dot bada Jaungoicuaren, edo Santubaren ondraan.

- *achequiija*: Horrelaxe darabil, “e” bokalarekin eta amaierako “a” itsatsiarekin: *Ara emen, cristinaubac, pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua, asmo osua, eguijazcua, vijotcecu, ta achequiija bagacua (...)*

Areec dagoz pecatuban lotsa bagaric erri guztiaren jaquinian, ta cer esanian, alcarregaz ezcontceco achequiijagaz.

Ez da, eztegubaren achequiijagaz, nasaitasunari, ordiquerijari, ta berdequeri - jari lecu emoteco eguna.

- *esquini*: Horrela dakar eta ez *ei / ai* diptongoarekin:

¿Nori, Jauna, ceuri, baino besteri esquini neguijo nic, cartilla, edo liburu chi - qui onetan lagunai opa deusedan prutu guichija?

Erregue Jaunaren esquini ugarija nai ez da, ateric ate davilela esqueco á gose - ric, eta erdi biloxic.

- *jaurtegui*: Bokalen disimilazioa gertatu da hemen: *i > e*, eta horrez gainera, bokal arteko kontsonante ahostuna. Bizkaieraz normala da gune horietan kontsonante ahostuna izatea; hala gertatzen da beste partizipio nahiz aditzoin batzuetan ere, esaterako: *ebagi, jagi, idigi, eregi*. Horrelakoetan, jakina, laburdurak gertatzen dira, bokal arteko kontsonante ahostunak galkorrak baitira. Euskara estandarrean *jaurti* hobetsi da. Honen aurrekoa, ziur aski, *jaurtigi* izango da: *jaurti(g)i > jaurti*; “jaurtiki”tik ere etor daiteke, azentu ondoko silabak indarra galdurik, azken silaba osoa gal baitaiteke, baina kontsonante ahoskabea nekezago galtzen da...:

Sarritan lantzadia jaurtegui eutsan, bertan illteco Davidi.

Oian macal zagozan lecura, arto pusca bat nequez gogo bagaric jaurteguiten badeutsu: isilic egon, ta padecidu.

Oguija escatuten deutsu; ta ezpatia jaurteguiten deutsazu.

- *etzin*: Hauxe da darabilen forma bakarra. Horrela gainerako euskalki eta bizkaieraz ohikoak diren formatatik alden du egiten da pixka bat. Gainerako euskalkietan *etzan* da forma nagusia, bizkaieraz egiten den ekialdean *etzun* eta mendebaldean *etxun / itxun*. Dena dela, aditz trinkoa *datza*, *datzanac* egiten du:

Beste ascotan batsatza baten, vide baten, edo carcaba baten etzinda lò datza, edo jagui ezinda dago.

Naguitasuna sartu zan corta illun baten, ta an gueratu zan etzinda, luurrera beguira.

Guizon asco indar oneequin gavian oian etzin dira, ta bijaamon goxeco il dira.

¿Bide baten, edo basatza baten, edo taberna baztar baten noren seme edo alaba dan ez daqujala, ordituta datzanac?

Hitz-amaieran eta atzizki batzuetan “a” egiten du “e”ren ordeaz; esaterako, *-le / -tzaille* atzizkiak *-la / -tzaila* bihurtzen ditu. Joera hau bere-berea du, baina honelako gehiago ere baditu, esaterako, *aldatza* idazten du gure *aldatze* edo *aldaketa* adierazteko. Hona adibide batzuk:

- eracusla: *Ta erantzun eutseen Jesus, gueure Ceruco eracusla onac*
- entzula: *¿Cegaiti bada au guztiau, neure entzu la onac?*
- salzaila: *Alan salzai lac, edo eroslac alcar artuten davenian, eurac iminten davee saldu erosijaren leguia, ta precijua.*
- erosla: *Eurac dira lecu ascotan labore sobriaren, ta endamas garijaren eros laac.*
- onguilla: *Miina Ongui lla andija da, ondo erabili ezquer o.*
- gaisqui esala: *Esan beguije, impernuban dagozan herege, ta gaisqui esalac, ce sarija ecarri deutseen miinac .*
- alzailla: *Vorondatiari obeiduten eutseen zuden gorputzac, ta arimiac, ta gor putzeco, ta arimaco alzai lla, ta sentizai lla guztiac .*
- eguilla: *Erreinu batec ceimbat arerijo, ceimbat gachegui lla, ta ceimbat ardu ra quizun daucazan, esaten, ez da errez .*
- jaola: *Bada zuben arimen Jao la Jaunac, ta Eleisa guizonac ez davee ene esa naren biarric, euren eguin biarra ondo cobru emoteco .*
- eraguilla: *Jaungoicuaeren naija da gorputceco, ta espirituco gira guztien lelen go, ta azqueneco Eragui lla nausija .*
- iracurla: *Leleengo lecuba errazoigaz euqui biardau Benedicto XIV. ez estut zat, ez nasaizat iracur la batec bere ezdaucanac .*
- galzaila: *Ta ez guichi emazte buruguinac, ta eche galzailac .*
- estalzailla: *Lapur estalzai llac.*
- aldatza: *Emeti ezautuco dozu, ce aldatza andija, ta arrigarrija eguiten daven arimiac, batiatu bagaric dagueaneti, ta batiatutacora .*

b. Kontsonanteak

aa. s / z txistukarien altemantzia

L. Mitxelenaren parrafo bat aipatzea ongi etorriko da atal honen sarreran. Euskaraz txistukari multzo bi ditugu: frikariak eta afrikariak. Hauetariko bakoitzak beste hiru sail ditu; frikariak: dorsala /z/, apikala /s/ eta sabaikaria /x/; afrikariak: /tz/, /ts/ eta /tx/. Saillkapena idazkera fonologikoan honela izanik, hona L.Mitxelenaren hitzak:

“La confusión total de los dos órdenes de sibilantes es hoy general en Vizcaya, salvo, a lo que se indica, en Marquina-Echevarría y Bolívar: la fricativa es apical, /s/ pero la africada predorsal. La confusión gana terreno en Guipúzcoa, sobre todo en las poblaciones de alguna importancia: no es infrecuente que la distinción se mantenga bien en los caseríos vecinos cuando se ha perdido en el casco de la población. Ambos órdenes se mantienen bien distintos en toda Navarra, incluso donde la lengua está moribunda: en palabras residuales, vasc. z se reproduce por la interdental castellana, mientras que en Vizcaya y Guipúzcoa suele usarse /s/. No hay indicios de confusión en el país vasco-francés”⁴⁷⁸.

L. Mitxelenak kontsonante txistukarien nahasketa eta ez-bereizte honetan salbuespentzat jotzen du ekialdeko bizkaieraren ingurune hau. Hori gure idazlearen garaian ukaezina da eta gaur egun ere entzumena zoli duenak, ingurune horretan, soma dezake bereizketa nahiko garbi, baserri inguruetan behintzat...

Norbaitzuek nahasketa horren seinale izan zitezkeenak ikusi dituzte gure idazlearen zenbait hitzetan; txistukariak ongi bereizten dituzten gainerako euskalkietakoek hutsik gabe “z” darabilten hitzetan gure idazleak “s” darabilela; esaterako, *nas, nos, eleisa/elexa, inos, baisen, gaisto*(eta eratorriak), *gox / goix / goi*“gox” da gehien darabilena; “goix” gutxiago eta “gois” bi aldiz edo; “gos” eskuizkribuan behin...). Hitz bakan horiek “s” kontsonantez idazten dituelako ezin esan genezake Frai Bartolomek txistukarien bereizketa galdua zuenik. Bestera esango genuke: bere obra osoan barrena ongi frogatzen digu era bateko eta besteko txistukariak egoki bereizten zituela. Baina bizkaieraz hitz bakan hauek bilakaera ezberdina izan dute. Hitz horietan, bizkaieraz /xtik /srako bilakaera gertatu da. Hori, garbi ikus liteke J.A. Mogelen *Peru Abarca*-ren lehen argitalpenean. Han “x”z idatzirik datoz beste euskalkietan “iz”z idatzi ohi diren hitz batzuk. Kasurik nabarienetarikoak, “izan” aditzaren orainaldiko lehen pertsonakoa izan daiteke: *nax*; geroago, *na* siza-tera dator, eta hauxe litzateke bizkaierazko bilakaera normala. Baina adizki hau maiztasun handikoa izanik, beste euskalkien eragina jasan du eta bizkaiera moder-noan beste urrats bat eman da eta *na* z idatzi ohi da...

Kontsonante afrikarietan ere beste horrenbeste gertatzen da: gainerako euskalkietan “-itz” dena, bizkaieraz “-tx” da; esaterako: *(h)ar itz / aretx; (h)a itz / atx; gaitz / gatx; bakoitz / bakotx* (hau ez bizkaieraz soilik, baita Iparraldeko euskalkietan ere).

Egia esan, badu beste hitz bat ere beti “s”z idazten duena: “barristau”; ez daki-gu zergatik, baina jasota uzten dugu hala dela; hona zenbait adibide:

Baita gauza ona da, guero naustubago ta edadian sartubago eguin diteza - nian, guztia era batera ostera barristetia bere (Icas-III, 168). // ¿Cer izango da, egunian egunian Jesus maitiac altaran bere guizon-eguintzaco jazo bedeincatuba, ta maitetsuba barristetia? (Icas-III, 247) // Meza santuco esquinia balijotsuba izate -

⁴⁷⁸ Ik. L. MITXELENA: *Fonética Histórica Vasca*, (282)

co, edo Jesusen erijotza odoldu bagacua Altaraan *barristetaco* popuertzacua da oguija ta ardaua consagretia ta sacerdotiac errecibidutia edo artutia (Icas-III, 167).

bb. n, l, r kontsonanteen ondoko txistukariak

L. Mitxelenak dioskuna argigarria da:

“Detrás de *l, n* y en menor grado de *r* la oposición se neutraliza, aunque las realizaciones de los archifonemas son africadas en unas partes y fricativas en otras. En guipuzcoano (y al menos en parte del alto-navarro, labortano y vizcaíno) se pronuncia *tz, ts* (y *tx*) detrás de esas tres consonantes: *galtzak* ‘pantalones’, *in - tsentsu, kontzientzia, paltso, pentsatu, pultsu, bertso*, etc.”⁴⁷⁹

Gaur egun, gune horretan kontsonante afrikariak /*ts/*, /*tz/*, /*tx*éuskalki nagusienetan eta euskara estandarrean ere ongi finkatuak egon arren, idazle zaharregan zalantza somatzen da. Ikus dezagun, handi-handika bada ere, nola darabiltzan gure idazleak:

(LS)

- itzalsuba: *oraindino balitz aren divina Magestadia, bera ameean davee - nentzaco, asarria, gogorra, zitala, itzalsuba, edo inoc beragaz iraun ecin daven genijo chaarrecua, ez lituquez paltaco cristinaubac achequijaac, Jangoicuari ichi - ta munduco gustuac ameeaco* (Esku, 85).

Aitu, cristinaubac, ce verba itzalsubac, ta bildurgarrijac dirian oneec Jaungoico vitzijaren auan (Icas-I, 241).

- salsa: *Ez bere arijaz; ezpada errico naaste guztiac, ta salsa guztiac ceubec umeen aurrian sarri erraparau bagaric contaute, ta eurac esaten ditubeenian, ceu - bec aua zabalic eurei entzunda, dotrinia esaten balegoz baitsen vijotz arruagaz* (Esku, 251).

Parcatu deutseezu, zorti amar urteti inguruban dirian nauscontubac, endr e - duac, salsaac, vanidadiac, ezcontzaac, nescamutileen arteco tratubac, amoriac, ta beste enbusteriya guztiac esaten (Esku, 254).

- palsua: *Ce ezaina dan testigantza palsua* (Icas-II, 161).

- alsuba: *Ta Janngoico guztiz alsubac emon eusan Jesus bere Seme, guizon eguinari Ceruco, ta lureco alizate guztia* (Icas-III, 7).

- molsua: *Beste batzuc, euren ule molsuac adartuta, paper zaar batzuquin lotura, becoquijan armatuta dauquezala duaz ¿baina ceren echuriagaz? Comulguetara* (Icas-III, 217).

⁴⁷⁹ ik. L. MITXELENA: *Fonética Histórica Vasca*, (290)

(LTS)

- paltso: *Guraso batec ezin ichi leijo bere cleitu onari jausten bere burubaren, ta ondorenguen caltian, paltso batec, edo enbusteru batec nai davelaco* (Esku, 128).

- itzaltsuba: *Ta imini daijogun biar darian, pecatu erain gura doscunari arpe - gui itzaltsuba, ta becoqui iluna, lotsatu dein, contuban jausi dein, ta erremedijau dein, Jangoicuaren bildurric ez daucana* (Esku 131).

- altsuba: *Egon gaitezala guztioac duda bagaric Jaungoicuaren promes andije - etan; sinistu daigula duda bagaric, Jaungoicua ona, misericordijosua, zucena, ta altsuba dana, esan daven guztia eguiteco* (Icas-I, 36).

- odoltsuba: *Icara eguiten davee oraindino gueure vijotzac, leengo eguneetaco gueure guerra odoltsubac gogoratuta* (Icas-I, 237).

- poltsa: *Codicijac nai euquian, bestiai odolac, eta munac, uzanac leguez, chupauta, balijo guztia ber e poltsaan euquitia* (Icas-II, 18).

(LZ)

- davilzanac: *ta auan chito sarri davilzanac* (Euscal-errijetaco... 7).

- calzada: *Baina, calzada lauban, ala aldapa labanian, lasterrago?* (Euscal-errijetaco... 187).

- mortalzat: *ez dau inoc beinguan pecatu mortalzat emoten* (Esku 237).

- ulzia: *ceure escu santuba, emoten deutzazu, edo ereztuna, edo ulzia, edo amodijo Santubaren senalle aguri bat, ta betico bat* (Icas-I, 70).

(Azken forma hori adibide horretan dator soilik; gainerakoetan beti *ultze / ultzia*...)

(LTZ)

- daviltzanac: *Leleengo: oian gaisoric dagozanac, edo oian egon ez arren, gaiso erdi, edo macal daviltzanac; ta osanaren calte andi bagaric Eleisara jua ecin dirianac* (Icas-I, 171).

- mortaltzat: *ez da pecatu mortaltzat beinguan eracusten* (Icas-I, 170).

- ultzia: *Cerbait inoc oostu ez daijon, ultziac ortuban, edo soluan imintia, erri - jari, edo auzuei jaquin erain bagaric, pecatu da* (Esku 268).

Ikus daitekeenez, hitz berberak idazten ditu zenbait kasutan batera nahiz bestera, baina askoz ere gehiago ageri dira azken hauetarikoak, hots, afrikariaz.

(NS)

- cansauba: *Eureen izenagaz batiatuten dira, bai gorputz cansaubari atseen eraguiteco, bai buru necatuba arinduteco, ta bai osasun jausija sendotuteco, dago - zan olgueta modu inocentiac* (Euscal-errijetaco... 7).

- pensau: *Olgueeta guztien artian lecuric zabalena ta cer pensau guejjeen dau - cana, da dantzia* (Euscal-errijetaco... 9).

- pensamentu: *Castidadiaren contra pensamentu, verba, gurari, edo eguitade loi bati pusca baten vijotzian ezauberaz, ta naiz lecu emon deutzanac* (Euscal-erri - jetaco... 98).

- consolau: *Escritura Sagradubac esaten deuscu, poztu gaitezala, consolau gaitezala (Euscal-errijetaco... 22).*
- consentidu: *ocasinoe atan sartutia consentiduten davenian, eguiten davela pecatu (Euscal-errijetaco... 46).*
- jaquinsuba: *Domeequia egun bedeincatuba, egun santuba, egun consagrau - ba, ta beste eguneti apartautaco eguna da, dino Cornelio à Lapide jaquinsubac (Esku 196).*
- conseju: *Jaungoicuaren izenian, ta Jaungoicuaren amodijuagaz; desio san - tubat, eguitade zucen bat, conseju on bat, limosna chiquibat, baso bete ur carida - dez emotia (Icas-I, 45).*
- mansotu: *Jaungoicuac, bere adisquidiac zaintuteco, ichasuac liortuten ditu, Eguzquiya gueratuten dau, laba gorrijac oztuten ditu, artzac, eta leoiac mansotu - ten ditu, ta naturaleciaren legue guztiac aldatuten ditu (Icas-I, 57).*
- mansua: *Ceu zara duda bagaric aitaric oneena, amaric biguneena, esposoric lejaleena, eracuslaric erruquiorreena, ugazabaric mansuena, Jauberic zintzuee - na, laguníc atseguinezcuena, ta adisquideric carinosuena (Icas-I, 70).*
- consagrau: *Jaungoicuari consagrautaco egunian (Icas-I, 155).*

(NTS)

- mantsua: *Emon daigula espiritu mantsua, espiritu biguna, iraun andico gogua (Icas-I, 243).*
- jaquinsuba: *Cristinautza barrijan, Evangelijo santubaren asieraan ez jacon Eleisan sartuten isten adulterijo guinari, dino Bona Cardenal jaquinsubac (Icas-II, 68).*
- Centso: *Centso bat aterateco, neucan diruba, emon neutsan; ta à gaiti egon zan neure contra centsua (Icas-II, 113).*
- osasuntsu: *Jesus Bere Seme guizon eguinaren erijotza osasuntsuba (Icas-III, 203).*

(NZ)

- lagunzailia: *Lelengo laurac dira. Ate-jaolia, Iracurlia, Etsai-bildurzailia, ta Meza-lagunzailia. Edo esango deutsegu: Ostiarijua, Lectoria, Exorcistia, ta Acolituba (Icas-III, 284).*
- quenzailia: *Au gaiti, esan leguijo Sacramentu oni, Exorcista esaten jacon leguez, etsai-bildurzailia, nai Etsai- quenzailia (Icas-III, 285).*
- Lorenzo: *Baita San Estevan, ta San Lorenzo Martiri Diaconuben vizitcetan bere (Icas-III, 288).*
- esanzan: *Onen gainian cerbait esanzan bautismoco sacramentuban (Icas-III, 303).*
- chanza: *Luxurijaz, ta nasaitasunez betetaco verbaric, eta chanzaric, inos bere ez (Icas-III, 338).*

(NTZ)

- entzula: *neure entzula onac (Icas-III, 339).*
- dantza: *Orregaiti aimbeste gauza esan dira, ta escribidu dira, Moisen dem - porati ona dantziaren gainian (Euscal-errijetaco... 9).*
- centzun: *gorde dagujela lotsa ona, centzun ona, cristinautasuna, ta Jaungoicuaren vildur santuba (Icas-III, 339).*
- ceintzuc: *Eureen Biguireetaco musica, ta canta indecente, ta odolberozailiac gaiti, ceintzuc dirian luxurijaren azoguia, ta aragujaren sugarria (Euscal-errijetaco... 118).*

Bi sail hauen artean, afrikariak dira normalak, baina frikariak ere ugari erabiltzen ditu...

(RS) / (RTS) multzoen artean, maileguzko hitzen artean batez ere, “rs” dutenak agertzen dira eta nekez “rts” dutenak; esaterako, “perrsona” hainbeste bider agertzen da eta “pertsona” behin ere ez; “persecucinors” dator eta ez “persecucinots”; “diversinors” eta ez “diversinots”...

(RZ) / (RTZ) kontsonanteen artean normalenak bigarrenak edo afrikariak dira. Lehenengoak hitz banaka batzuetan agertzen dira; esaterako: “arzain”, “carzela”, “arrain arzailiac”, “norzuc”, “dacarzu”, “esque jatorzunagaz”, “Jaun bacarzat”...

cc. **F / P ezpainkarien trukaketa**

Grafiaren arloan nahiko argi adierazi ditugu Frai Bartolomeren pentsaera eta jokaera kontsonante hauei dagokienez. Ondorengo parrafo hau eranstea ongi etorriko da, hala ere:

/F/ez da izan, dirudienez, Gipuzkoa aldeko eta Markina aldeko euskaldunen begiko. Behin honezkero, nahiko erroturik dagoela ematen du, euskara mintzatuan */F/eta /P/*en arteko alternantzia nabari delarik. Bizkaiko idazle zaharregana joz gero, joera bietakoak aurkituko ditugu: */F/*en aldekoak eta fonema hori arrotz eta baztergarritzat dutenak. J.A.Mogel eta Frai Bartolome */F/*en aurkakoak dira, gora-gora adierazi dugunez. Bakoitzak bere arrazoiak jartzen ditu; J.A.Mogelek luze agertzen ditu *Peru Abarca* ren sarreran eta Frai Bartolomek labur-labur *Icasiquizunac* saileko II. liburukiaren sarreran; jakintsuek ematen dituen arrazoietan oinarritzen da. P. Añibarro, ordea, */F/*fonemaren alde dago argi eta garbi, Euskal Herriko toki-rik gehienetan ongi errotua dagoela argudiatuz.

dd. **Ahostun bihurtzen diren barmeko kontsonanteak**

Dirudienez, latinezko *-itum / -atum* bukaeratik datozen mailegu berantak, gaztelaniaren bidez igaro dira bizkaierara. Horregatik dute gaztelaniazko fonetika-

kutsu garbia, bokal arteko kontsonante ahostunetan. Hortik: *servidu*, *escribidu*, *atrevidu*, *consentidu*... Beste horrenbeste aditz-partizipioak ez diren hitzetan ere: *estaduco*, *libertadía*, *desonestidadia*, *virgini dadía*... Mailegu zaharretan, ordea, ez da horrelako joerarik nabari: *parcatu*, *bedeincatu*...

Pixka bat harritzen gaituena “zaintu” forma da; horrelaxe erabiltzen baitu beti, eta ez edonork uste zezakeenez, “zaindu”. “N” eta “l” kontsonanteen ondoren, ahostun bihurtu ohi dira kontsonante ahoskabeak: *ondu* eta ez *ontu*, *zaildu* eta ez *zailtu*. Ez dakigu zerk eragingo zion forma hori hautatzera, inguru honetako euskararen ez baita nabari horren aztarnarik...

Latinezko *-atum* bukaera duten partizipioetatik datozen maileguetan ere, gaztelaniaren bilakaera nabari da. Lehen unean, kontsonante ahostuna ageri da gune horietan, *-itum* bukaerakoetan bezala, baina haiek hauek baino mailegu zaharra goak dira eta eboluzioan urrats bat gehiago emanik, sinkopa gertatzen da, bokal arteko “d” oso kontsonante ahula eta galkorra baita. Beraz, *olgadu* > *olgau*; *pen-sadu* > *pensau*; *esaminadu* > *esaminau*; *consoladu* > *consolau*; *alegradu* > *alegrau*; *topadu* > *topau*; *faltadu* > *faltau* > (Bart.) *paltau*... Bilakaera hori izan dutenak ugari dira Frai Bartolomeren gan; aipatu besterik ez egiteko, hona goikoez gain, beste zenbait: *condenau*; *librau*; *naastau*; *señalau*; *erremedijau*; *amau*; *apartau*; *provau*; *cansau*; *salvau*; *pornicau*; *cantau*; *icentau*; *desiau*; *adorau*; *castigau*; *javou*; *descuidau*; *santipicau*; *compesau*; *erraparau*; *murmurau*; *acertau*; *prestau*; *pormau*; *ordenau*; *consagrau*; *acordau*; *covernau*; *portau*; *estimau*; *estropezau*; *domau*; *sosegau*; *sobrau*; *adabau*; *ezcutau*; *barristau*; *desterrau*; *manchau*; *mortipicau*; *castau*; *quexau*...

Bada horien artean euskaldunok mailegutzat hartzen ez dugunik ere; esaterako, “naastau”, “ezcutau”, “barristau”. Analogiak bere eragina izan ohi du; gogora dezagun gaur egun Gipuzkoako Urola aldean erabiltzen den “eskau”. Beste batzuetan, ordea, honelako zenbait forma, euskararen zeharo erroturik daudenak bestalde, orain gaztelaniaren zaharkiturik dauden hitz batzuen maileguak izan ohi dira; esaterako, “asmau”, “olgau”.

Hauen bilakaera bera izan duten beste hitz asko ere agertzen dira testu haueetan barrena, baina aditz-partizipio ez direnak; esaterako, “escolau”: izena nahiz izenondoa izan daiteke: *Escolau batzuc leguez*; “ondrau”: aditz-partizipioa ere izan daiteke, baina gehienetan, agian, izenondoa izango da: *¿Naico zenduque, erruric ez daucazula, ceu destierrura bialduta, lapur bat, edo gaisto bat errijan libre, ta ondrau gueratutia?* (*Icas-I*, 125); “soldau”: izena; horrelaxe idazten du, eta ez “soldadu”; bestalde “ganadu” dakar beti eta sekula ere ez “ganau”: *Ceruti jatsitaco subac bertan erre eban capitana soldau guztiaquin* (*Icas-I*, 216); “letrau”: izena nahiz izenondoa: *Ascotan Sacerdote jaquitun baten consejubagaz, ta modu onagaz, escribauric escribau, ta Letrauric Letrau vengantzia, ta gorrotua darijuaela ibilico litzaatequezan auci ascori, samia ebaten jacue guztien esquer onagaz* (*Esku*, 206); “enparau”: izen nahiz izenondo izan ohi da. Frai Bartolomeren obra inprimatuan ez da agertzen, baina bai eskuizkribuan eta hainbat aldiz: *¿ya cer eguin leijan, edo cer eguin biar daven cristinaubac, mezia entzunda enparauban egun*

oneetan? (Esku 189). // *Elexan egon ezquero, besteⁿparauba olgheetaco dala* (Esku 189).

“-au” bukaeradun zenbait hitzek ez dute zerikusirik aipaturiko latinezko *-atum* / *-itum* partizipioetatik datozen maileguekin, *-anu(m)* bukaera dutenekin baizik. Hauek, bokal arteko “n”a galdurik nahiz lekuz aldatu hartzten ditu euskarak; esaterako: capellanu(m) > *capellau* > *capillau*: *Onegaz artuco dau neurri bagaco atse -guina ceubeen Capillau humilde, ta prestu Prai Bartolome Santa Teresa, Carmilita Ortozac (Icas-I, V)*; “escribau”: scribanu(m) > *escribau* *Ceure umiac inori eguin deutzazan caltiac, ta atsecabaac gaiti, Escribau batec echian dozuna, embar gauta eruaten badeutsu: isilic egon, ta irago (Icas-II, 27)*. “Cristinau” hitza ere horrelakoa da, baina “kristau” forma, bokal arteko “n”a galdurik hartzten du euskarak; “kristinau”, ordea, “n”a lekuz aldatu; gauza bera “girstino” forma ere, baina honetan euskarak, bereganatu orduko, beste ukitu batzuk egin dizkio jatorrizko formari.

ee. **Kontsonante sabaikariak**

Hizkuntza arruntean bustiduraz mintzatu ohi gara kontsonante sabaikariez baino gehiago. Edonork dakikeenez, bizkaieran bustidurak egiteko joera oso hedatua da. Arratia eta Txorierriko azpi-euskalkietan izan ezik, bustidurak nabari dira bizkaieradunen fonetikan. J.A. Mogel eta Frai Bartolomeren euskualdean oso markatua da joera hori. Hala ere, lehenago grafia eta kontsonante txistukariak azterterakoan adierazi dugunez, Frai Bartolomeren grafian ez da kontsonante sabaikarien ugaritasun nabarmenik ageri. Ikus grafian, “-il” / “-ill”ren arteko alternantzia. Bestalde, “-in” askoz ere ugariago darabil “-ñ” / “-iñ” baino. Honek ez dio erantzuten, gure ustez, hizkerako fonetikari, idazkeran finkatuz zihoazen joerei baizik; hau da, grafia kontua da, fonetika kontua baino gehiago...

ff. **Disimilazioak eta zenbait kontsonanteren aldaketa**

Idatzi berri dugunaren aurkako fenomeno bat ere antzeman daiteke; hau da, herri-hizkeraren fonetika-joerak erakusten dituzten hainbat xehetasun:

- *Verena*: Hauxe da bizkaierazko forma arrunta; disimilazioa gertatu da hemen. Baina *veneno* ere badarabil:

Bere venozco miin zorrotzagaz, labanagaz ta epelagaz galdu davela asco -ren ondria ta cleituba (Icas-II, 213). // Basoco suga ta pristija venotsubac oin -duari verenua ezarten deutseen leguez, dantzarijac albocuari belarrijan esaten deutzazan verba desonestubac, veguiracune maitiac ta escuca loijac, sartuten deutseela vijotzian pecatubaren verenua (Euscal-errijetaco... 160). // Zoraquerijac, ton -taquerijac, necedadiac, arriscu andicucac, peligru andicucac, beti gauza chaarr e -racuac, vanidadezcuac, vijotzaren ve renozco illgarrijac, ta oneenac bere bapere valiyo ez daveenac diriala dantzaac, dino Santubac (Euscal-errijetaco... 164).

- *Gobait egin*. Hau ere kontsonanteen disimilazio-kasua da. Honela idazten du beti; ez “gogait”, “gogaicari” etab.:

Vitzitziaz go bait eguiten da (Icas-I, 258). // atsecaba mingochagoric, nai bague minaagoric ta vitzi izateco go baitgarrijagoric, berac nequez azi dituban umiac, modu onetan zaartzan berari erantzutia baino (Icas-I, 7 serm.). // Laster gobaituten dira alcarregaz egoten (Icas-III, 209). // Ez beste gauza gaiti, ez bada gueure genijuac, condecinoiac edo naturaleciac beti sen baten, biar baten edo gauza baten, go bait eguin bagaric, iraun ecin davelaco (Euscal-errijetaco... 15).

- *Aloverecuac*. G/Bren arteko trukaketa gertatu da forma honetan. Berez “g” dagokio hitz horri, erabilera eta tradizioa kontuan hartzen badugu. Hala ere, gure idazleak ez du behin ere erabiltzen “g”duna, “b”duna baizik:

Otseguinen ordecuac leguez dira aloberecuac (Icas-II, 144).

Ugazabac pecatu eguiten davee, errenteruba, errentiaz gainera, ta alober bagaric biarrian, ta beste balijo gaucetan cansetan daveenian (Icas-II, 146).

Aloverecuac uste dau, biar gueijago eguiten davela, alovera emoten deutseen baino. Ta aloverecuac daucazanac, uste dau, aloveric erdija bere irabazten ez daveela (Icas-II, 145).

Ta aloverecuac daucazanac, uste dau, aloveric erdija bere irabazten ez davee - la. Errenterubac uste dau, errenta andijeguija daucala (Icas-II, 145).

*L/N*ren arteko alternantzia:

- *Onan, onaco*. . Forma hauek dira normalenak Frai Bartolomerengan, baina “olan” ere hainbat aldiz erabiltzen du; “olaco”, ordea, behin edo bakarrik:

Ez dago olacoric (Icas-III, 317).

Ceubec olan portau bacinian ceuben gurasuaquin, ondo merceduba, edo ira - batzija daucazu, ceubei beste aimbeste umiac eguitia (Icas-I, 205).

Ez dozu olan aitu biar dotrina au (Icas-II, 139).

Ez dago onaco legueric, proximuaren cleituba aotan erabilteco (Icas-II, 184-185).

Onaco gach eguite andijac ceintzuc dirian, esango deutsut laster (Icas-II, 185).

Onan portauco baguina, neure entzula onac, norbait gueure aurrian inoren paltac esaten asten danian; laster amatauco guenduque murmurazinoiaren suba (Icas-II, 200).

Au onan jazoten dana, guztioac daquigu (Icas-II, 202).

- *Ultze*. Bere eskualdean gaur egun ere erabiltzen den forma bera darabil, hau da, “l”duna eta ez “n”duna, bizkaieradun gehienek ohi dutenez. Gainerako euskalkietako *iltze* formara hurbiltzen da. Aipaturiko *onan / onaco* formen kasuan aldeantzez egin du, *l/n* kontsonanteen artean, “n” hobetsiz...

*P/M // B/M*en arteko alternantzia:

- *Imini*: Hau du bere forma normala; hain zuzen ere, Bizkaiko mendebaldean erabiltzen den forma ia bakarra. Bost bat aldiz, *ipini/ipintia* ere agertzen dira... Pixka bat harritzekoa dena Frai Bartolomeren eskualdean, Bizkaiko ekialdean *ipini* forma besterik ez dela entzuten gaur egun...:

Cristandadeco, Eracutsijaren lau zatijac, pulpitoti esateco, edo prediqueetaco duinaan, tertcijo baten, Icasiquizuneetan, edo platiqueetan, edo Sermoetan imin - tia, eguija esateco, ene alizatia, baino lan andijagua da (Icas-I, VI).

Zati onen azquenian imini dot Sermoe bat, euqui daquizun, Iracurlaac, beste ateraco nituquianen ezagun garrizat (Icas-I, VII).

Icasiquizunac berarjaz imini ditut laburchubac (Icas-I, VII).

Uts eguite atreviduba, ta pena andija meraciduten dauena, da, cristinaubari Jangoicuc imini deuscan, baino legue astunagua, ta carga andijagua ipintia (Euscal-errijetaco... 12).

- *Vende / vendetu* Partizipio gisa forma honetan darabil soilik; "mendian" behin edo behin ageri da:

¡Aimbeste arima, Jesu cristoren erijotziagaz, ta odol santubagaz irabatzitaco, daucaz vendetuta, luurtuta, loituta, impernuraco prestauta, irago dirian amabi guiza alditan! (Icas-II, 49).

Munduco Altsubac vendetu leguijez guizonac, lotu, ta carcelatu leguijez, Erodesec San Pedro eguin evan leguez (Icas-III, 293).

Bein artuten badavee vendian guizona, edo emacumia: Eruango ditubee, ez arrazioa dan lecura, ez vorondatiac juan viar daven lecura, ez bada gurari charac eurac gura daveen lecura (Icas-II, 258).

Ta, batiatu ezquero pecatuban jausita, diabrubaren vendian euren arimai imini ditubenai bere, ichi deutsee compesinoeco Sacramentuba (Icas-III, 107-108).

Pecatubaren leza loijan sartuta, dauque euren vendian, inoc bere ondo begiratu ezin deuscan tercijuan (Icas-III, 232).

¡Nun egongo da gogo guichiagogaz Jesus, demoninuaren vendian daguan pecatuzco ariman baino? (Icas-III, 233).

Icusi citubanian guztiac luxurijac ber e mendian, ta esanian, entero verba leunaquin, ta gera bigunagaz esan eutsen guztiai, ta bacochari, celan bera servidu biar even (Icas-II, 20).

*R/D*ren arteko alternantzia ageri duten hainbat adibide datoz haren obran barrera:

- *Iruri*: "Iruri", "iduri" eta "irudi" hirurak darabiltza. Lerro buruan datorren forma gainerako bietarik zein duen abiapuntu ez da jakiten erraz... Kasu batean nahiz bestean, *d/r*-ren trukatzea gertatu da:

Pecatarijac aleguere i ruri arren, vijotza tristia, ta illuna dauca (Euscal-errijetaco... 25). // (...) nesquiaren, edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco, edo

baso asto batzuc dirurijeela (Euscal-errijetaco... 65). // Jaungoicua ameeetan dave nari, gauza guztiac erraztuten jacoz, gachac i ruri arren (Icas-I, 59).

- *Laudeun / seideun...*: Bietara darabiltza “ehun” zenbatzailearen osagai direnak; beste zenbatzaile batzuetan ere nabari da kontsonante-aldaketa:

Begoz bada orain pusca baten plazaan tambolinagaz, esan dan moduco eun, berreun, lau deun, edo gueijago guizon, ta emacume (Euscal-errijetaco... 56). // Vijotza tristetu bagaric, ta negarragaz veguijac busti bagaric, ezin gogoratu gui - naiz bosteun, edo seideun urteco gueure erreinuco jazo tristiciac (Icas-II, 50). // Baita Espainaren urrian iru deun, ta iru dogueta amabost milla egun baten ill zitubenac bere (Icas-II, 52). // Erri baten beegozan berreun, edo irureun cristinau barri (Euscal-errijetaco... 143). // beste bost eun, edo seiun gentilac cirian (Euscal-erri - jetaco... 143).

- *Bederatzi / beredatzi* formen arteko alternantzia: *Beredatzi ta amar garren Aguindubac cer escatuten deuscubeen (Icas-II, 238). // Beste aguindubac obeto, ta ziurrago gorde daiguzan, emon euscuzan Jaungoicucac beredatzi ta amar ga - rrena (Icas-II, 242). // Onan verba eguiten dau, neure entzula onac, Espiritu Santubac gueure gurari gaisto, beredatzi ta amar garren aguinduban eragotzita dagozanac gaiti (Icas-II, 261). // Alan galdu oi dira seinac amaren sabelian beder - ratzi ileen barruban edocein demporatan (Icas-III, 57). // ;Oh gurasuac, gura - suac! ;Zortzi, bederatziurteco umiac meza entzun bagaric echian daucazuza - nac! (Icas-I, 169).*

- *bigar*: Behin eta berriro adierazi dugu “i” bokalaren ondoren, loturazko yod (grafiaz j) erabiltzen duela, baina lerroburuko hitz hau salbuespena da; behin dator soilik “bijar”; gainerako guztietan “bigar”: *Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua, ta bijar ececuca (Icas-III, 343). // Gaur sendua dana, bigar gaixoric, edo andaan egon leitequiala (Icas-I, 261). // Esan oidan leguez, gaur zuri, ta bigar neuri jazo - ten da (Icas-II, 108). // Bigarcua baino, gaurcua leenago dalaco, esan oidan leguez (Icas-II, 124). // Bigar, edo etzi eguin biar daveen baru batec, gaurti bildurtuten ditu (Icas-III, 182).*

- *Bidao*: Hemen, hauxe da darabilen forma; “r” dunik ez da agertzen behin ere: *bidauac, ta maldecinoiac ezarten ditudalaco (Euscal-errijetaco... 177). // ;Ta cer ateraten dozu zuc, ari bi daoca, gach opa deutzazula, aren gorrotuan, ta odi - juan su artuta egonagaz? (Icas-I, 103). // Bidaua ez da berez, ez blaspemija, ez maldecinoia; ez bada gacharen izena premina bagaric esatia (Icas-I, 148).*

- *Irun / idun*: Forma biak darabiltza beste euskalkietako lepoadierazteko. Gaur egun bizkaieraz bizirik dagoen hitza dugu, “idun” forman, jakina; baina sama doakio tokia janez; hala ere, honek esanahi zabalagoa du, Bizkaiko mendebaldean behintzat, *samak lepca eta eztarri* a hartzen ditu: *Dantzati urtetan davee sarritan nescaac, eureen iruneco zapijac ascatura, ta burucuac oquertuta, icusi bagaric sinistu ezin leguijan moduban (Euscal-errijetaco... 68). // Lelengo iuneti guerrira*

iminten daven zapijac, edo amitubac, esan gura dau: Jesus maitiari, preso artu eveen gavian, veguijac tapetaco, ta burla eguiteco, imini eutseezan trapubac (Icas-III, 239). // Eci eijozu umiari iruna gaztetan, ta domau eijozuz sajjetsac chiquija dan artian, güero gogortuta ceure contra lotsagalducotu ez dedin, ta arimaco penia ecarri ez daizun (Esku, 239). // Beeratu eguijozu umiari i duna gaztetan, ta domau eguijozuz sajjetsac, chiquija dan artian, descuiduan gogortu ez dedin, ta sinistutia ucatu ez daguizun, eta arimaco penia izan ez daguizun (Icas-I, 1). // Ez dinot ecer, araco bularrac, i dunac, ta besuac aguirijan, edo guztiz aguirijan baino, araguijaren sugarijago, Andiquijeen Biguirara daruezan andra, edo nesca loijac gaiti (Eucal-Errijetaco... 117-118). (...)

- *Erromedija*: Bi bider dator “erromerija”, baina forma normala hura du; berrogei bat bider ageri da:

vengueetaco atajadiaren zain urrengo piesta egunera, edo errome dija egune - ra artian egotiac (Euscal-errijetaco... 95). // ¿Cer dirian Erromedijac? (Euscal-erri - jetaco... 105).

- *Eran / edan*: Inprimaturiko lanetan ez da alternantziarik. Bere liburuetan beti idazten du “edan”, “edana” etab. Alabaina, eskuizkribua herriko ahoskeratik hurbilago dago, geroago honen sarreran adierazten dugunez; eta hemen bai, hemen forma normala “eran” da; “edan” lau bider dator soilik, “eran”, berriz, oso ugari.

“Usadijo” darabil beti, eta ez “usarijo”...

- *Adin on / arin on*: Biak darabiltza; baina ez dute adiera bera. Hark zentzu ona esan nahi du:

Orregaiti, autortu biar deutsa amac illteco peligruban compesinoeti campora Cura Jaunari, edo adin oneco persona bati, seina eguiteco daguana, edo, alan uste davena, dempora guichicua, edo sortu barrija izan arren seina (Icas-III, 61).

“Arin on” forma bere-berea du Bartolomek; txitean-pitean darabil. Testuinguru zehatzetan agertzen da; izenondoa edo adjektiboa da eta nolakotasunez, tamainaz etab. erdizkakoa adierazten duela diote hiztegiek; guk, testuinguruak aztertuz, ez hain ona, badaezpadakoa eta are gehiago, txarra ere esan nahi duela ateratzen dugu...:

Nai ona izan, ta nai arin ona izan, nai gogocua izan, ta nai gorrotocua izan, nai asarre izan, ta nai aleguere izan, nai nasaija izan, ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan moducua dala (Icas-III, 372). // Onaco aparteco bacocharen gogoco olgueetac gaiti, ezin erreguela seguru bat imini legui. Izan leitequez onac, baita arin onac bere (Euscal-errijetaco... 28). // Modu onetan amau biar ditugu gurasuac, cein onac, eta cein arin onac, cein zaarrac, eta cein gaztiac (Esku 223).

- *Aredijo*: Normalean “arerijo” eta “etsai” darabiltza. Behin dakar “aredijo”. Ez dakigu hutsa edo nahi gabe itzuri zaiona den:

Nai ona izan, nai pecatarija izan Sacerdotia, nai Jaungoicuaren adisquidia izan, nai ar edijua izan, nai sinistute onecua izan, nai Eregia izan, dana dala, dan moducua dala, mezaz ordenauba bada, mundura aguertu dan guizonic deunguena izan arren Sacerdotia, ceruban Jaungoicuac obeiduco deutsa aren esa nari, oguija, ta ardaua consagretan ditubanian, ta beste Sacramentubac eguiten ditubanian (Icas-III, 295).

- *Aguidaca / aguiraca* : Bien arteko alternantzia dago, bakoitzetik hiruzpalau datozelarik: *Senarra aguidaca asten danian, Emaztiac isten badau aoco atia, bertati juango da asarriaren aisia (Icas-III, 376). // Errosarijo bat erdi luan, edo erdi aguidaca, ta priisaca erreceetia (Icas-I, 23). // bestiacaguiraca, ta jotera bere eguiten deutsala (Icas-I, 7). // ¿Ez davee urteten echeti gavaz, ta egunaz, nai daveen lecura, gurasuac aguiraca, ta diadarca dagozala? (Icas-III, 204).*

R/G-ren arteko aldaketa:

- *Begaz*. Perpauz ilatiboetan, “beraz” forma da nagusitu dena tradizioz eta gaur egun ere hala erabiltzen dugu. Hala ere, gure idazleak behin ere ez du erabiltzen bere obra osoan barrena. “Begaz” da haren forma bakarra:

Begaz Plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta Sarauco dantza naastaubac, cas tidadiaren contraco pecatu mortala dirian gauza desonestubac, esateco, entzute co, ta sentiduteco ocasinoe urrecuac dira (Euscal-errijetaco... 121). // Ez dira guztiz quenduten: Begaz ez dira deunguac, edo pecatuzcuac (Euscal-errijetaco... 137). // Begaz amau biar ditugu gueure burubac Jaungoicua gaiti, ta Jaungoicuarentzat (Icas-I, 78). // Begaz Jaungoicuari esquer onac, ta gracijac, emon biar deutsaguz, eguiten deuscuzan, ta eguin biar deuscuzan mesede andijac gaiti . (Icas-I, 175) (...)

*L/R*ren arteko aldaketa:

- *Estari*: Bere ohiko forma “estaldu” du, maiz darabilena; baina behin dakar “estari”:

Irunac, eta bularra ondo estari bagaric.

Honen aztarna “lohi-estari” hitzean somatzen da Markina aldeko euskaran. “Lohi-estaria” zikina edo lohia gutxi antzematen zaion arropaz esaten da batez ere.

Kontsonanteen lekualdatzea:

- *Alemanija* : Horrela idazten du, ziur aski herri-ahoskerari jarraituz:

Seigarren egunian, edo istantian eguin cituban Jaungoicuac luurreco a lema nija, ta gauza vitzi guztiac, ta emon eutseen arei bere euretariacuac sortuteco alizatia, edo virtutia (Icas-I, 12). // Alemanijaac, arrainac, chorijac, Cerubac, luurrac, eta beste criatura guztiac dagoz beti pirme, Jaungoicuari obeiduten deutsee la, ta Jaungoicuaren anditasuna, jaquiturija, ta providencija beti prediqueetan daveela (Icas-I, 12). // Nai leuquee, gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela, ta,

licencia emon daquijuen, piestaric piesta, erromedjaric erromedija, biguiraric biguira, sarauric sarau, ta dantzaric dantza nesca, ta mutil, guizon, ta andra naaste a lemanijeen guisaan luxurijotsu ibilteco . (Euscal-errijetaco 192-193) (...)

- *Solbarda*: Hitz hau behin dator eta horrelaxe idatzirik:

Icusten da: dantzia ez davilen demporean, nesca bat, bi, edo iru mutil bate - gaz, bigaz, edo irugaz alcarri escubac so lbar^udaan, edo... iminita, verbeetan, ta maitequerijeetan dagozala (Euscal-errijetaco... 64).

- *Irago*: Gure idazleak hutsik gabe darabil forma hau, eta ez "igaro". Forma zaharra hura dela dirudi, ekialdeko "iragan" formaren kidekoa eta aditz-arazlearen aztarna ageri duena: *Castigubaren trumoe aldi^uja irago dedinian, nasajjac, ta deso - nestubac leengo pecatubeetara (Euscal-errijetaco... 152) . // Gomutiagaz, iragotaco guiza aldi^ujac, ecarten ditu bere aurrera (Icas-I, 15).*

gg. Etimologiari gehiegi atxikirik

Ohikoak ez diren kontsonante multzoak agertzen zaizkigu batzuetan Bartolomeren testuetan, batez ere adizki batzuetan:

- *deutsu*: *Au guztiau Espiritu Santubac sarritan prediqueetan deutsu (Icas-I, 5).*

- *dacuszu*: *Jazo oneetan dacuszu, cristinaubac, jausi zirianac, ez ziriala edo - cein, ez bada santu andijac (Icas-II, 58).*

- *eutscun*: *Ta izanic miina, aimbeste bidar biar doguna; au emon eutscun ate bigaz ichita, aguinaquin, ta ezpanaquin barrututa (Icas-II, 183).*

- *jantzten*: *Deungaro eguiten davee gurasuac, seme alabei isten deutsenian; gura daven lecubetara juaten: nai daveen lagunaquin ibiltan; nai daveen modu - ban jantzten (Icas-I, 194).*

- *eutsquijon*: *Au gaiti esan eutsquijon miin gaisqui esaliari Jeremias Propeta santubac saeta zaurilarija: Sagitta vulnerans (Icas-II, 192).*

- *jatgaucia / jatbitartian*: Hauek nahiko bitxiak dira. Eskuizkribuan agertzen dira. Hitz-elkartuetako tradizioko hitzetan, "jatordu" bezalakoetan, "jat-" ageri da, baina ez dirudi lerroburuko hitzak horrela sortzea bidezko denik, hauek elkarketa libreak baitira...

hh. Gune horietan ohikoak ez diren kontsonante afrikariak

Markina aldeko euskararen, zenbait hitzetan, orain ere nabari da joera hori; z-ren ahoskera markatuak utzitako arrastoa izan liteke...? Dena dela, "erretza" (erraza), "barritz" (berriz, orde, oster...) horrelaxe ebakitzen dira. Horregatik, Frai Bartolomeren *vitzi, irabatzi, eitza, atzi, lutzar o* eta abar ez dugu uste gogoak hala

eman ziolako asmatuak direnik. Dena dela, *icutsi* ere hainbat aldiz ageri da eta horrek ez du zerikusirik aipatu dugun hipotesiarekin, baina izan daiteke hau ere herri-ahoskeraren aztarna...? Bera bizi izan zen inguruneko euskararen ahoskera izango zuen ezbairik gabe gogoan, baina, bokalen bikoiztearen arazoan bezala, hemen ere zalantzak izan zituen eta forma bietakoak dakartza. Liburu batzuetan bataren alde makurtzen da argi eta garbi eta beste batzuetan bestearen alde. Hau da agertzen diguna: “Vitzi” eta honen eratorriak dira formarik normalenak *Euscal-errijetaco...* eta *Icas-I* liburuetan. *Icas-II* liburuan, ordea, “vizi” forma da nagusi eta eskuizkribuan eta *Icas-III*-an, “vizi”/“vici” da forma bakarra; hobeki esan, *Icas-III*-an behin bakarrik dator “vitzi” forma. Zenbakietara joz, “vizi”/“vici”: *Euscal-Errijetaco...* 6 bider; *Esku* 148 bider; *Icas-I* 10 bider; *Icas-II* 125 bider; *Icas-III* 436 bider. Guztira 725 bider. “Vitzi”/“vitci”: *Euscal-errijetaco...* 17 bider; *Esku* 0 (behin ere ez); *Icas-I* 229 bider; *Icas-II* 39 bider; *Icas-III* 1 (behin). Guztira 286. Beste horrenbeste esan dezakegu “irabatzi” formaz. “Irabazi”/“irabaci” honela banaturik dator haren obran barrena: *Euscal-errijetaco...* 1 (behin); *Esku*, 3 bider; *Icas-I* 4 bider; *Icas-II* 8 bider; *Icas-III* 24 bider. Guztira 40. “Irabatzi”/“irabatci”: *Euscal-errijetaco...* 3 bider; *Esku* 4 bider; *Icas-I* 17; *Icas-II* 32 bider; *Icas-III* 8 bider. Guztira 64. Ikusten denez, haxe da gehien darabilen forma, baina “t” gabekoak ere maiz darabiltza; hitz hau, hiru edo lau erataria idazten du: *irabatzi* (gehlen darabilen forma), *irabatci*, *irabazi* eta *irabaci* (askotan):

- *vitzi*; *vitzi moduba*; *vitzi jagaz*; *vitzi zia*; *vitzi ric*; *vitzi izateco*; *vitzi garrija*; *vitzi o...*

- *irabatzi*; *irabatzi ja*; *irabatciraco ...*

- *atzi*: Hitz honetan ere zalantza nabari du, baina forma normala “azi” da, 118 aldiz baitator haren obra osoan barrena; “atzi”, ordea, 13 aldiz soilik. Hona azken hauetariko adibide batzuk: *Vizcai dichoso onetan ez dau secula illuneco Aguintarijac atzi charra erinda, pruturic batu (Esku, III). // gaurco egunin umiac, cein atzijac, eta cein chiquijac gurasuenzat ez lotsaric, ez bildurric, ez errespetoric ez dauqueena, nic esan bagaric, zeubec autor dozuna da (Esku, 225). // Gurasuac izan leitequez, semealabac gaisqui atzi ditubeenac (Esku, 227) (...)*

- *eitza*: *Jocua, Eitza, Pasiua, Soinuba, ta dantzia (Euscal-errijetaco... 28). // Echeo cereguineen, edo osasunaren caltian ez bada, libre dan demporan eitziän, ta arrainac artuten olgueetia, ezin inoc condenau legui (Euscal-errijetaco... 31).*

- *lutzar* α. “Luzaro” idazten du gehienetan, baina hiru bider edo “lutzaro”: *Errazoe au ezaututeco, ez daiguzan contuban sartu, gueure placeetaco dantzaac diriala medijo zucen, errijeetan, Copradijeetan, ta pamelijetan jagui oidirian oca - sinoiac, burrucac ta lutzar oco gorrotuac (Euscal-errijetaco... 95). // Onei jazoten jacue, guela estu baten lutzar o oian daguan gaisuarena (Euscal-errijetaco... 182). // Gueure Ama ona da, bere sabelian arduraz, ta contuz lutzar o erabili guindu zana (Icas-I, 198).*

- *icutsi*: Forma hau 49 aldiz agertzen da. *Icas-I*-ean gehien: 35 aldiz eta *Icas-III*-an behin ere ez. Bere obra osoan barrena, “*icusi*” forma da, alde handiz, gehien datorrena.

ii. Gune jakinetako aldaketa fonikoak

Adizkiek aurretik *ez* adizlaguna dutenean, euskaraz aldaketa fonikoak egiteko joera bizia dago; gehiago edo gutxiago, euskalki guztietan gordetzen dena. Aldaketa foniko hauei *sandhi* deitzen diete hizkuntzalari batzuek. Horrelako aldaketa fonikoak ongi egitea araua da jendeaurreko mintzaera jasoan; baina idatziz beste erregela eta konbentzioak daude, eta egungo idazkera arautuan ez dira egiten ahoz ohikoak diren *sandhi* horiek, gunerik gehienetan behintzat. Gure idazleak ere ez ditu egiten. Agian, bere eskualdeko euskaraz joera hori hain markatua ez delako...? Garai hartan ez zen euskaraz nola idatzi behar zen esateko erakunderik eta, horrelakoetan, herriak edo idazlerik hoberenek egiten zutena imitatzen ahaleginduko ziren... Euskarazko ahoskera gozo eta jasoak, *ez dira > eztira; ez da > ezta; ez gara > ezkara; ez bada > ezpada* egitea eskatzen du; “l” eta “n”ren aurrean *ez* adizlagunaren “z” hori galdu egiten da: *ez luke > eluke; ez nator > enator*, bi “z” elkartzean “tz” egin ohi du: *ez zara > etzara*. Aditza eta bere laguntzailearen arteko loturan ere gertatzen dira aldaketa fonikoak, esaterako, “n” eta “z” lotzen direnean: *izan zen > izantzen...* Ikus dezagun gure idazleak nola egiten duen. Lerroburuan jarriko dugu Bartolomek dakarren forma eta gako artean aldaketa fonikoak ongi eginez gero, nola izan beharko zukeen:

- *ez dirianac* (eztirianak)
- *ezdauca* (eztauka)
- *ezdala pecatu* (eztala pekatu)
- *ezda* (ezta)
- *ezdagualaco* (eztagualako)
- *ezbajuaco* (ezpajuako)
- *ez najela* (enajjela)
- *ezleusquijue* (eleuskijue)
- *ezbada* (ezpada)

Frai Bartolomerengan ez da agertzen, euskalki guztietan euskara mintzatuan ohikoak diren aldaketa foniko horietakorik. Grafian adierazi dugunez, *ez* adizlaguna, ondoren datorren adizkiari loturik nahiz bereiz idatziko du, baina aldaketa fonikorik egin gabe. Bi hitz aipatu behar ditugu berariaz: *ez da / ezda* eta *ez bada / ezpada*; adizkiak izan daitezke biak nahiz hurrenez hurren esaldi elkartuetako eta adbertsatiboetako juntagailuak. Juntagailuak direnean ere loturik nahiz bereiz idazten ditu, baina aldaketa fonikorik egin gabe. Azken juntagailu hau, *ezpada* (gure ...baizik/baino), eskuizkribuan idazten du soilik aldaketa fonikoa eginez. Esaldi adbertsatiboetan erabiltzen den beste lokailu bat *ezpabere* dogu. Forma honetan

darabil gehienetan, hamaika aldiz, baina behin edo behin idazten du aldaketa fonikorik gabea ere, *ez* bereiz nahiz loturik duela: *ez babere* hiru aldiz eta *ezbabere* behin. Lokailu hau, gaur eguneko euskaran, Frai Bartolomek *ezbada* erabiltzen duen testuinguru berean erabili ohi da inguru honetan, baina Bartolomek berak ongi bereizten ditu biak: *ezbada* = ...baino / baizik: *Ez da á, olgheetaco demporia; ezbada templu Santuban Jaungoicua alaveetaco demporia (Euscal-errijetaco... 41); ezpabere* = bestela / osterantzean / horrela ez bada; gaztelaniazko `de lo contrario': *Baita eguija da, dantza naastauti urteten daveela edo dantza zaliac diriala gueijenian ezcutubeetaco, ta aguirico oquerrijaguinac, ta gaisquinac. Ezpabere, betoz guztioac esaminara (Euscal-errijetaco... 199). Ez da / ezda, esaldi elkartueta-ko juntagailua, gaur egunean "ez eta ...ere" / "ezta ...ere" formaz erabiltzen da: *Ez da gauza barrija, ta ezda guichitan jazo oi dana ber e ((Icas-I, 8, serm.).**

Dena dela, beti darabil *bapere*.. "Bere", gainerako euskalkietako "ere" horrelaxe, osorik darabil, Bizkaiko mendebaldeko eskualderik gehienetan bezala, eta ez "be" laburturik, Bizkaiko ekialdean gaur egun erabiltzen den bezala...:

Ta orregaiti bapere obaac ez dira (Euscal-errijetaco... 155).

Onei erantzuten jacue bapere pena bagaric: Eleisaan bere pecatu eguin leguijala. Baijetz. Luciperrec ceruban bere eguin evala pecatu. (Euscal-errijetaco... 186).

Bestalde, *ez* adizlagunaren *z* eta adizkiaren *j*, hau da, *z + j* lotzen direnean, bizkaiera mintzatuan berez-berezkoa da *z* galdu eta aldaketa fonikoa *tx* egitea: *ez jat > etxat; ez jaku > etxaku*. Gure idazleak inprimaturiko liburuetan ez du horrelakorik egiten; behin itzuri zaio soilik: *Echazu ari emonagaz calteric etorri, asmo orreec cegaz erremedijau, ostian daucazunian (Icas-II, 114-115).*

Gainerakoetan, beti darabiltza aldaketa fonikorik gabeko formak: *ezjacozone -quin: adisquide ezjacozonequin davilena (Icas-II, 220); ezjacon: inos galduco ezjacon espirituco marquia (Icas-III, 300); ezjacola: beguiratuten ezjacola (Euscal-errijetaco... 33); ezjaco: Oraingo dantzeetan ezjaco samia ebaten San Juan Boutistari (Euscal-errijetaco... 79); ezjacue: Bada Ainguerubai ezjacue emon, bein ondo, edo gaisqui eguinagaz, garbatuteco, ta erremedijetaco libertadia (Icas-I, 16); ezjagocan: Parcatuten deutseezu: Ceuben euquijari, ta vitzi modubari ezjagocan moduban jantzten ((Icas-I, 21, serm.).*

Inprimaturiko lanetan, berak ala zentsoreek ez dakigu, baina horrelako aldaketa fonikorik ager ez dadin kontu handia izan zuela dirudi; eskuizkribuan, ordea, *ezpada*juntagailu adbertsatiboa agertzen dela esan dugu arestian; honelakoak ere maiz agertzen dira: *echat Neuc arguitara etarataco liburuba chaarra dala esatia, echat niri toquetan (EskuVI); echaco Gueijen daquijenari, bapere sobreetan echaco (Esku 13); echacuen echacuen garbatuco bein eguin even pecatuba (Esku23); echacue Bada Ainguerubai echacue emon, ondo, edo gaisqui, bein eguina erremedijetaco, libertaderic (Esku23); echaco baña noberar en gogocua ezpada, echaco casu andiric eguiten (Esku50); echazu. Gu dongac izan*

arren, echazu zubei toquetean, gu juzqueetia, ta gugaiti dongaro esatia (Esku 208)...

jj. Kontsonante ahostun eta ahoskabeak /n/ eta /l/-ren ondoren

Gauza jakina denez, kontsonante horien ondoren /b/, /d/, /g/ ahostunak egiteko joera dago euskaraz, zubereraz izan ezik, eta ez /p/, /t/, /k/ ahoskabeak. Hitz askotan, hala ere, ez da joera orokor hori betetzen eta alternantziak gertatzen dira. Ikus dezagun horretan nola jokatzen duen gure idazleak:

- *estalgui*: Joera orokorraren arabera *-lge*giten du; behin bakarrik dakar “estalqui”, baina ez inprimaturiko liburuetan, eskuizkribuan baizik:

bada caridadiaren esta lqui zabalac ez dau inor bere batu bagaric isten (Esku, 114)

Caridadiaren esta lgui zabalac guztiac batuten ditu (Icas-I, 92).

Ez dago usadijoric, ta ezdago estalguiric, mosuca, escuca, oratute, ta beste azalquerija desonestubac pecatuti libretan ditubanic (Icas-II, 73).

Ija esta lgui baten azpijan ezcutauta, gueratuten dira araguizcuentzat, seiga - rren aguindu santubac eragozten dituban ustelgarri, esaten, ta entzuten gachac (Icas-II, 85).

- *zaintu*: Hemen, ostera, bestera egingo zuela uste genuenean, “n”ren ondoren ahoskabea egin digu. Hitz hori horrelaxe idazten du beti:

Ez da asco, Jesusec berac virgina bere Esposaczaintuteco, ta osoric gordetaco, legue guztiac urratutia, ta mundubari, ta impernubari burla egutia (Icas-II, 93).

Zaintu dau bere ondra santuba, ta altuba. Zaintu dau guraso, ta nautsijen lotsa ona. Zaintu dau guizonen vitzitzia. Zaintu dau guizonaren sortu era, ta azi biarreca onestidadiaren, ta garbitasunaren leguiagaz . (Icas-II, 96)(...)

- *illgo*: Hala idazten du beti, eta ez “illco”:

¿nos azartuco litzateque peccatu eguiten, bertan illgo dan, edo ez, ezdaquija - la? (Icas-I, 8).

Bostgarrenian: Ez dozu inor ilgo (Icas-I, 23).

Ez dozu illgo, dino Jaungoico andijac (Icas-I, 233).

Edocean gauza guichi bat gaiti, edo calte chiqui bat gaiti esaten daveee: bere - no bategaz illgo neuque: tiro bategaz illgo neuque (Icas-I, 249) (...)

- *Isrraelgo/Israelgo*: *Ta lapurreta á gaiti, Jaungoicuac aguinduta, errico, edo Isrraelgo gentiac arrica ill even Acan (Icas-II, 100).*

Ceu zara Israelgo alegrija, ta poza (Icas-II, 298).

Bera da Isrraelgo Judatarren Leoe sendua (Icas-III, 205) (...)

- *gentia*: Bizkaieraz ohikoa denez, horrela darabil beti, hau da, *nt > nd* egokitze fonikoa egin gabe:

gentia jarrita egoten da mezatan (Icas-III, 241).

Eleisaco gentiari esaten eutseen (Icas-III, 248).

Areetan entzuten ditu Erreguiac gentiar en escarijac (Icas-III, 251) (...)

- *pensamentu*: Mailegu hau ere aldaketa fonikorik gabe hartzen du, bizkaieraz ohikoa den bezala:

pensamentu on bat emongo deutesen gauzai, veguira gogua Jaungoicuagana jasoten lagundu daguijen veguijac (Icas-III, 257).

¿Ta celan euqui biarditu cristinaubac Eleisan bere najjac, bere gogua, ta pen-samentubac? (Icas-III, 257).

Baina ez derichue obeto Jesusec, gueure Eleisetan euren gogua, tapensamen-tubac munduco tratubetan, ta sailetan dauquezanai, Jerusalengo Eleisia deson - dretan ebeenai baino (Icas-III, 257) (...)

Iparraldeko euskaldunek “elgar” / “algar” erabiltzen dituzte eskuarki. Gure idazleak behin dakar *algarregaz* forma; ez dakigu ohartu gabe itzuri zaion hutsa den ala ez, esaldi berean *lg* eta *lc*-dunak baitarabiltza; hona adibidea: *Adisquidiac bere algarr egaz aaztuten dira, edo* alcarreganic *aparteetan dira (Icas-I, 61).*

- *errenga*: *erren* hainbat aldiz badator ere, adizlagun gisa behin aurkitu dugu soilik eta forma horretantxe:

Beti davil errenga (Icas-III, 318) (...)

kk. **Bokal arteko kontsonante ahostun batzuen galtzea**

Horretan ere bada alderik inprimaturiko liburuen eta eskuizkribuaren artean. Azken honetan, kontsonante horietako asko galtzen dira; behin eta berriro esan dugunez, eskuizkribua, fonetikari dagokionez batez ere, herriko euskaratik hurbilago dago. Frai Bartolomeren euskararen ezaugarriak ematerakoan, ostera, haren liburuetaoak eman nahi ditugu bereziki, eta ez hainbeste eskuizkribukoak. Honi egin diogun sarreratxoan ematen ditugu dituen berezitasunak eta inprimaturiko lanekin erkatuz nabari diren aldeak; baina irazean bizpahiru aipatuko ditugu:

Inprimaturiko lanetan *leguez* idazten du beti, gainerako euskalkietako “bezala” adierazteko. Eskuizkribuan, ordea, *leez* dator hutsik gabe; sekula ere ez *leguez* Gaur egunean bizkaieraz erabili ohi den *lez* forma laburtuaren aztarnarik ez dago; liburuetan *leguez* eta eskuizkribuan *leez*.. Kontuan izatekoa da, gainera, konparaziozko adizlagun hau idazle honengan maiztasun handikoa dela. *Legui* adizkia ere horrelaxe osorik dator liburuetan; eskuizkribuan, ostera, *lei*, oraingo bizkaieradunok erabiltzen dugun moduan:

(cer eguiten daveen, ta nora duazan ezdaquijeen inurri aldra bat leguez) (Icas-I, 3)

Jaungoicua serviduten ez dogun artian, gueure vizitzaac izango dira penaz - cuac, atsecabazcuac, estubac, gusto bagacuac, sosigu bagacuac suguia leguez luurreco gauceetan tatarasca, ta arrastaca beti daviltzanac (Icas-I, 5)

Munduco vaztar guichic, buruba jasota, esan leije, vizcaijac leez, ainbeste gui - zalditan illundu bagaric, lausotu bagaric, ta naastau bagaric beti eutsjaz, beti zietz, beti zintzoro, beti bardin, ta beti garbiro gorde daveela Jangoico bacarraren, ta Jesu-Cristo gueure Jaunaren pede santuba (Esku III)

¡Ojala, nire desiua eguijazcua dan leez, euroen jaquiturija altubaren ondo eichicuac balira oneec! (Esku IV)

Inprimaturiko liburuetan, lexikoan ez, berak ematen dituen arrazoiengatik, “*Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure Eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira gueure erruz, ervesteti etorrijac(...)*”, baina gainerakoan forma jantziak, jasoak erabiltzen ahalegintzen dela argi dago. Hala ere, Frai Bartolome bezalako euskaldun peto bati nahitaez itzuri behar herriko euskararen gauzatxo batzuk. Honelakoak dira, esaterako, sinkopa eginez nahiz bokal arteko kontsonanteren bat galduz datozen formak: *bagoz, baqui, zaatia, ezautu, illaineco...*

Mundubaren usadijo paltsuac, eta legue zoriguestocuac zortzi, amar urteco umiac ber e baquijeez (Icas-I, 4).

¿Baquijee, cer dan doloria, edo damuba? ¿Baquijee, cer biar dan, damuba euquiteco? ¿Baquijee, damubaren paltaz compesinoia cetan gueratuten dan? ¿Baquijee, jadisteco, celan prestau biar dan? Baquijee, proposituba cer dan? (Icas-I, 9)

¿Bago bada gauza errazagoric, au baño? (Icas-I, 25).

¿Bago inor Jaungoicuaeren contra quexau leitequianic? (Icas-I, 45).

Gueuc jaquin ez arren, nortzuc, eta ceimbat dirian, bagoz cristinau ez diria - neen artian cristinaubac (Icas-I, 84).

Orduban da ondria jasotia, ta beste sarri entzun oidirian zaatac (Icas-III 358).

ez leuquee eguiten daveen best~~z~~aaata munduban eguingo (Icas-I, 3).

¿Edo, ez eveela ezautu Evangelijoco Espirituba? (Euscal-errijetaco... 19).

¡Ojala, mundutarrac ezautuco balevee eguija onen indar guztia! (Euscal-erri - jetaco... 21).

Forma batzuetan ez da erraz forma jatorra bokal arteko kontsonanteduna den ala ez jakiten; esaterako, *illainian / illainecuac / ill ainian* idazten du hutsik gabe:

Aguinduten deutsa indartsubari; ta isten dau macalduta, gaisotuta, orituta, ija illainian (Icas-II, 16).

¿Noc igortzico ditu gaixo illainecuac Orijo Santubagaz? (Icas-III, 305).

Agonijan ija ill ainian eguanian, juan jacon santubari emacume bat ber e aurrera, ondo biarrez mesede eguitera (Icas-II, 60) (...)

Nailla / nadilla biak erabiltzen ditu:

Jauna, gura badozu, ni vici izatia, vici nailla. Emen nago, munduco neque, ta

naibagac iragoteco ceure icenian. Ta, Jauna, nai badozu, ni illtia, ill nailla (Icas-III, 270).

Ta ill nadilla mila bidar ni, ceu ostera opendidu baino leenago, ta ceure amo - dijo Santuba neure vijotzeti apartau baino leenago (Icas-I, 68).

Ez nadilla cansau inos, esquer onac, ta gracijac neure Jaun cerucuari emoten (Icas-III, 35) (...)

II. Dardarkarien galtzea zenbait gunetan

Bizkaieraren ezaugarrietariko bat da galdetzaille, izenordain zehaztugabe, erakusleetako zenbait gunetan kontsonante dardarkariak galtzea: nok, eta ez *nork*; edonok eta ez *edonork*; inok, ez *inork*; zek, eta ez *zerk*; zetan, eta ez *zertan*; ezeta(ra)ko, eta ez *ezerta(ra)ko*; atan, eta ez *artan* eta abar. Bartolomek ere bizkaierazko forma horiek darabiltza ia beti, baina *ezeitaco* darabil, kontsonante dardarkariduna...:

Baina bein pusca baten baino, ez eban Santia inoc icutsi triste (Euscal-errijetaco... 23).

Jocua da olgueeta bat berez, inoc bere condeneetan ez davena (Euscal-errijetaco... 28).

Dantza galdubac noc zaintu asco dauqueez (Euscal-errijetaco... 33-34).

Ez daquit, cec emoten deutsan aimeste su gueure vijotzari, proximuren contra gorrotua, icusi ezina, gaisqui esatia, ta gaisqui opa izatia euquiteco (Icas-I, 89).

Baina orain ez daquigu utsian betian baino, ez, cec gach eguin guinaigun, ez, cec galdu guinaizan (Icas-III, 18).

¿Cetan dagoz, ta cetan gueratuco dira areen arima tristiciac, ta gorputzac, batiatuta, Cristinau eguiten ez badira? (Icas-I, 32).

Ez da gauza barrija, guraso sobraubac, tercijo atan bere buruba icusita, egu nian milla bidao, ta maldecinoe umiai ezartia (Icas-I, 8, serm.).

Zubi atan umiac labanduten dira (Icas-II, 10).

Jauna, tratuban, edo cetan edo atan irabatzico nevan (Icas-II, 115).

Orregaiti, ezeitaco ez danari, coitaubari, luur jota daganari, entzute guichi emoten deutsagu (Icas-I, 56).

Baita uatuta, edo ezeitaco ezda dagozanai bere ascotan (Icas-I, 253).

III. Hitz-hasierako dardarkarien aurreko protesia

Euskarak berezkoa du jatorrizko hizkuntzan “r” kontsonantez hasten diren hitzen maileguei bokal bat aurretik ezartzea. Hau, oraingo arauak diotenez, mailegu zaharretan egin behar da, ez berri-berrietan... Joera horrek tradizio luzea du bere alde, B.Etxepare eta batez ere J.Leizarragaren zenbait forma alde batera uzten baditugu, idazle zaharrengandik hasita gaur arte bete izan dena; “a” eta “e” izan ohi dira

gehienetan, baina euskalkien arabera bada alderik; bizkaieraz, “arrisku” bezalako hitz guztiz hartuetan izan ezik, “e” erabiltzen da gainerako euskalkietakoek “a” darabilten kasuetan: “erropa”, “errazoi”, “errosario”... Frai Bartolomek ere halaxe egiten du; mailegu berriztat dituenetan ez du protesirik jartzen, esaterako *reumatismo* dakar, eta ez *erreumatismo*:

Penagarriric andijena da, oquerreriya impame onetati, bein atan icasi ezque - ro, guichi erremedijetia (Icas-I, 267).

Visitau beguijee bere gorputza sequeriac, umore chaarrac, edo reumatismo zolijac, urte lucetaco colicuac, edo errevesetiac, vijotceco minac, eraitecuac, albo - renguac, palta bagaco buruco alaac, jan ezinac, loric ezinac, ta beste asmau legui - zan gorputceco gachac (Icas-II, 293).

Ain laster Erromaraco cartac escribiduten, ta ain laster aloverecuac topeetan (Icas-II, 297).

Samuel bat dirudi, Erraguai, ta andijari, cer eguin biar daveen, eracusten (Icas-II, 297).

Cristinaubac jaquinda egon ditezan: celan prestau biar daveen, Sacramentu Santubac errecibiduteco (Icas-III, 3).

Ta bijac batiatuteco errazoa bere bardina da (Icas-III, 57) (...)

3. Morfologia

a. Deklinabidea

Deklinabideko kasu batzuek ez dute gauza berezirik Frai Bartolomeren idazkeran. Horregatik, haren euskararen ezaugarri morfologikoak adierazteko esanguratsua direnak azalduko ditugu soilik eta gainerakoak eskema osatzeko aipatu besterik ez. Fonetikaren arloan, eskema bat jarri dugu lexema “a” itsatsiaz nahiz gainerako edozein bokalez amaituak nola egiten duten singularreko eta pluraleko absolutiboa adierazteko; bide batez, deklinabideko beste kasu batzuk ere aipatu ditugu erara etorri ahala; esaterako, bokalen bikoizteak adieraztean...

Absolutiboa, jakina denez, kasu-markarik gabea da. “Kasu honen barnean bada beste bat gramatikan normalean autonomotzat jo izan dena, baina absolutiboaren azpisail batean sartu beharko litzatekeena: *partitiboa*. Kasu honek absolutiboaren distribuzioa du, baina absolutiboak ez dituen bestelako baldintza batzuen barnean ageri da”⁴⁸⁰

⁴⁸⁰ *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Euskaltzaindia (Bilbo, 1993, 185. or.)

aa. **Deklinabideko kasuen eskema****Absolutiboa (-Ø)**

Absolutiboak kasu-markarik ez du, baina artikulua har dezake; jakina denez, mugagabeen ezta artikulurik ere. Bartolomek honela egingo digu, lexemaren amaiera kontuan izanik:

- konts.	(sing.)	-a	(pl.)	-ac
- a	(sing.)	-ia	(pl.)	-aac
- e	(sing.)	-ia	(pl.)	-iac
- i	(sing.)	-ija	(pl.)	-ijac
- o	(sing.)	-ua	(pl.)	-uac
- u	(sing.)	-uba	(pl.)	-ubac

Bokatiboa ere kasu honetaz baliaturik adierazten da. Badakigu artikuluekin eta artikulurik gabe agertu ohi dena, baina gure idazleak artikuluekin erabiltzen du, bai singularrean eta bai pluralean: *¡Oh pecatari tristi a!* (*Icas-I*, 26); / *neure en -tzula on a* (*Icas-I*, 32) (...)

Partitiboa mugagabea da beti. Ez du ezer berezirik Frai Bartolomerengan:

- konts.	-ic	(guizonic)
- bok.	-ric	(echeric)

Ergatiboa (- k)

Mug.	-(e)c	(guizonec / emacumec / ehec / alabac)
Sing.	-ac	(guizonac / echiac / alabiac / errijac)
Pl.	-ac	(guizonac / echiac / alabaac / errijac)

Jabego genitiboa (-en)

Mug.	-(r)en	(guizonen / zaarren / echeren / alabaren / aguinduren)
Sing.	-aren	(guizonaren / echiaren / alabiaren)
Pl.	-en	(guizonen / echeen / alabeen)

Datiboa (-i)

Mug.	-(r)i	(guizoni / echeri / alabari)
Sing.	-ari	(guizonari / echiari / alabiari)
Pl.	-ai	(guizonai / echiari / alabai)

Inesiboa (-n)

Mug.	-(e)n	(leku-izenekin) (Belenen / Erroman)
------	-------	-------------------------------------

	-[gan]	⁴⁸¹
	-tan	(echetan / aotan / gauzatan / lecutan / ordutan / leguetan)
Sing.	-an	(luurrian / plazaan / echian / errijan / auzuan / buruban)
	-agan	(Jaungoicuagan / Jaunagan)
Pl.	-etan	(bularretan / placeetan / echeetan / errijetan / auzueta / burubetan)
	-egan	(euregan)

Leku genitiboa (-ko)

Mug.	-(e)co / -go	(leku-izen berezietan) (Israelgo)
	-(e)taco	(echetaco / erritaco)
Sing.	-co	(echeco / errico)
Pl.	-etaco	(echeetaco / errijetaco)

Adlatiboa (-ra)

Mug. ...	-(e)tara	(auzitara / eratarara)
	-[gana]
Sing.	-(e)ra	(egunera / plazara / echera / urcamendira / basora / burura)
	-agana	(Jaungoicuagana)
Pl.	-etara	(vijotceetara / cerubetara / errijetara / santubeetara)
	-egana	(alcarregana)

Hurbiltze adlatiboa (-rutz / ruz)

Mug.	[-(e)tarutz]
	[-ganutz?]
Sing.	-rutz / ruz	(cerurutz / ceruruz / Piestaruz / Apricaruz)
	[-aganutz?]
Pl.	[-etarutz]
	[-eganutz?]

Muga adlatiboa (-ragino)

Mug. ...	-(e)taraguino	(Cetaraguino)
	[-ganaguino]
Sing.	-(e)raguino	(ogueiraguino / impernuraguino / ceruraguino)
	[-aganaguino]

⁴⁸¹ (ez dakar kasu-forma hau; ustez, izan behar lukeena jartzen dugu hemen eta ondorengo batzuetan...)

Pl. *-etaraguino* (pecatuzcuetaraguino / umeetaraguino)
 [-eganaguino?]

Ablatiboa (-ti)

Mug. ... *-ti* (leku-izen bereziekin) Erromati
 -(e)tati (chiquitati, umetati)
 -(e)ganic (Faraoneganic / Evaganic / Jesuseganic / alcarreganic)
 Sing. *-(e)ti* (echeti / aoti / arimati / impernuti / ceruti / sustraiti)
 -aganic (illunaganic / laguna ganic / pasmua ganic / arerijuaganic)
 Pl. *-etati* (beguijetati / lecubetati / pecatubetati / guztietati)
 [-eganic]

Soziatiboa (-gaz / -kin)

Mug. ... *-(e)gaz* (generatorgaz / pecatu mortalegaz)
 Sig. ... *-agaz* (odolagaz / Jaungoicuagaz / gracijagaz / mundubagaz)
 Pl. ... *-aquin* (loraquin / gurasuaquin / escubaquin / atzamarraquin)

Instrumentala (-z / -gaz / -kin)

Mug. *-(e)z* (erruz / ustez / nequez / aoz / negarrez / ardaoz / penaz
 / lotsaz / cartaz / mandatariz / verbaz / gavaz / egunaz /
 atsecabaz)
 Sing. *-az / -gaz* (damubaz / goguagaz / pecatubagaz / sacramentubagaz)
 Pl. *-aquin* (gurarijaquin / ezpanaquin / escubaquin)

Motibatiboa (gaiti)

Mug. *gaiti* (iru gauza gaiti / novija gaiti / Dan gaiti)
 Sing. *-a gaiti* (diruba gaiti / euquija gaiti / Jaungoicua gaiti / ezcontzia gaiti)
 Pl. *-ac gaiti* (guizonac gaiti / pecatarijoc gaiti / dantzaac gaiti / paltac gaiti)
 -arren (aberastutiarren / emotiarren / ez esatiarren...)
 (izenekin... idazle honek bereiz: poz arren / atsa arren / bildurra arren)
 (kasu batzuetan helburu zentzua izaten du honek...)

Destinatiboa (-entzat) (bizidunak)

Mug. *-(r)entzat* (cristinaurentzat / pecatarirentzat)
 Sing. *-arentzat* (guizonarentzat / personiarentzat / Jaungoicuarentzat / dia-
 brubarentzat / bacoarentzat / mundubarentzat / vijotza-
 rentzat)
 Pl. *-entzat* (alaveentzat / adisquideentzat / Judegubeentzat / arimeentzat)

Destinatiboa (prolatiboa -tzat / -zat)

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra* liburuari jarraituz, *-tzat* atzizkia, gramatikari gehienek kasu-markatzat hartzen dutena, destinatiboaren barruan kokatzen dugu. Atzizki hau mugagabeko sintagmei eransten zaie; aditzondoei ere bai. Forma aldetik, ez du gainerako kasuek mugagabeen hartzen duten loturazko bokalik onartzen; gainera, aditz bakan batzuk dira *-tzat* atzizki hau eskatzen dutenak: *eman, hartu, eskaini, eduki, etab.*

-tzat / -zat: ontzat emoten ditubalaco (Euscal-errijetaco... 41).

Ez dauqueez compesaquizuntzat bere (Euscal-errijetaco... 61).

inoc aintzat artu ez ditubalaco (Euscal-errijetaco... 70).

Leleengo lecuba errazoiagaz euqui biar dau Benedicto XIV. ez estutzat, ez nasaizat iracurla batec bere ez daucanac (Euscal-errijetaco... 89).

pobriari arpegui asarria eracutsi; bestiac ecertaco eztzat, edo pecataritzat, ta gaistoizat euqui; ta sari comulgau: Ez da cristinautza eguijazcuagaz bat eguiten (Icas-III, 223).

Destinatiboa (-rako) (bizigabeak)

Mug. *-(e)taraco* (auzitaraco / arguitaraco / bitaraco / mezataraco)

Sing. *-raco* (bururaco / soineraco / munduraco / ceruraco / Erromaraco)

Pl. *-etaraco* (errijetaraco / jaijetaraco / domeequetaraco / gaucetaraco)

Destinatiboa (banatzailea -ko)

Banaketa batean bakoitzari dagokiona adierazteko *-ko* atzizkia erabiltzen da. Atzizki hau sintagma mugagabeei eransten zaie, prolatiboa bezala; baina banatzailea loturazko bokalez baliatzen da eta prolatiboa ez:

Baquidaz Vizcaijan, eurac zinuenez, piesta egun bacocheço castuba eun ducategaz eguiten ez dabeen baseerri echiac (Euscal-errijetaco... 96).

Eguija da, legueguinac libretan ditubee perija batzuc, tratu bacocheço auzi bat izan ez dedin (Icas-II, 123).

Amar escudoço bat, edo ogueiço bat emongo deusut (Icas-II, 121).

(Azken adibideko hauek forma guztiz hartuak dira, eta banatzaile zentzua galdua dutela dirudi, “ontzako urre bat”, “hamarreko bat” eta hauek bezala...)

bb. Deklinabideko kasuen azalpena**Absolutiboa**

Kasu honetaz gorago esandakoa aski da; baina ikus mugagabeko adibideok:

(...) *bata batiatuten da, edocein sein ondo jaijo leguez. Ta gueuro beste dudacua, esanagaz: Batiatuta ez bazagoz, nic batiatuten zaitut....* (Icas-III, 58).

Deungaro da edocein pecatu illgarri eguitia (Icas-III, 147).

Ta esan biar dau compesinoian, beste pecatuben gainera, ugazabaren aguin -dubaren contra eguin evana onaco, edo alaco gauza (Icas-I, 222).

Madaricatuba legue zaarrian edocein emacume adulterijoguin lotsarizko pekatuba gaiti (Icas-II, 25).

Ergatiboa

Forma aldetik berdinak dira singularreko ergatiboa eta pluralekoa, "a" itsatsiaz amaiturikoa izan ezik; hauek, singularrean *-iac* egiten dute eta pluralean *-aac*: ala - viac / alavaac hurrenez hurren. Fonetika arloan behin eta berriro esan dugunez, "a" itsatsiak eragiten ditu gehienetan bokal-bikoizte horiek, lexemaren amaierako bokala eta kasu-markarena elkartzean, biei eusten baitie idazle honek. Baina bikoizte hau ez da pluraleko ergatiboan soilik gertatzen, baita pluraleko absolutiboan ere. Beraz, "a" itsatsia duten hitzetan, pluraleko absolutiboa eta pluraleko ergatiboa, formari dagokionez, berdinak dira.

Irakurle bat baino gehiago harrituko da, agian, Frai Bartolomerengan *-ec* bukaerako ergatibo batzuk ikustean; esaterako, *semec* / *sinistuten davenec*. Baina...ez, ez ditu bereizten singularra eta plurala, hura *-ac* eginez eta hau *-ec*. Adibide haue-tan agertzen diren *-ec* bukaeradun horiek ez dira ergatibo pluralak, mugagabekoa-ak baizik. Izan ere, mugagabea erabiltzen maisu dugu gure idazlea. Ezezko nahiz galderazko sintagma jarraituak mugagabea erabiltzeko joera du. Egungo idazleen artean honezkero galdua da joera hori, eta galdetzaille, izenlagun zehaztugabe, zenbatzaille, osagarri mugagabea eskatzen duten aditzeekin eta abar erabiltzen da soilik. Ikus ditzagun adibideok testuinguru osoan:

Ez davee beste asieraric euqui ez erreguiac, ez erreguinac, ez guerraguinac, ez caballeruac, ezda beste Adanen semec edo alabec bere. Andi ta chiqui, guztioac gatoz asiera humilde onetati mundura (Icas-III, 60).

¿Ta au onan izan ezquero, esango dau, Evangelijua sinuistuten davenec edo Eleisa Ama Santiaren semec, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ez dala pecatu? (Euscal-errijetaco... 102).

Esan daigun gueijago: Ez daucala compesorec Eleisaco dotriniaren erreguela edo neurgarriric, ez eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen juana garbatu ta ostera ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu edo absolvidu leguizala, esaten deusanic (Euscal-errijetaco... 103).

Ezin compesorec pecatubeetati librau legui, alan pecatu dan ocasinoc jaquinera bere guraz doiana, ocasinolari isteco verbia emon artian (Euscal-errijetaco... 103).

euren burubac mutildu ta arpeguijac ezaindu zitubeen, guizonez coren beguic ondo erichi ez eguijen ta gogoz beguiratu ez eguijen (Icas-II, 63).

Enpin ez munducoç, ez impernucoç, ez ezeç bere ezin leiquegu ecer bee gachic, gueu Jaungoicuaren adisquidiac izan ezquer o (Icas-I, 57).

Ta ez dau aren ontasun altubac gura, luurrecoç inori gauza onetan icutu dagujon, bere aguindu santuba edo alizatia bagaric (Icas-II, 233-234).

Sinistu biar dogu, edocein sacerdote eguijazcoç, guztiz gaistua ta deunguia izan arren, eregia nai excomulgauba izan arren, comuninoeco sacramentuba eguiteco ustiagaz esaten baditu oguijaren nai ardauren gainian, Jesucristoc ata raco ichi cituban verbac, oguija ta ardaui viurtuten diriala Jesusen gorputz ta odol vici izatera (Icas-III, 198).

Ondorengo adibidean, *ceinec bestec* mugagabeen eta biak kasu-markarekin... Jakina, lehenengo esaldian bien bitartean “munduban” jartzen duela, beharrezkoztat jo daiteke biei kasu-marka jartzea, baina bigarrenean *cein bestec* ere erabil zezakeen... Bestalde, testuinguru hauetan bizkaieraz, mendebaldean behintzat, “no(r)k” da erabiliago...:

¿Ceinec munduban bestec eguin eusquezun á mesedia? ¿Ceinec bestec emon eusquion orduban zure arima triste ta larrijari á baquia? ¿A poza? ¿A atsegaina? ¿A sosiguba? ¿A segurutasuna? Munduco bat ec bere ez. Compesore batc baino bestec inoç bere ez luurraren gainian (Icas-I, 212-213).

Ez letrauc, ez escribauc, ez procuradorec ez deutsee entzuteriç emon biar ez empeinubari, ez vitartecuari, ez erregalubari, ez dirubari, euren contura daguan auzi zaintzaan bigunduteco, laututeco edo errazoiazen indarra macalduteco, aucija jaocanaren nai aguirija bagaric (Icas-II, 169).

Ez navee icaratuco, dino, ez impernubac, ez erijotciac, ez carcelac, ez deson driac, ez zamaijac, ez nire contra jagui al dedinec, millaca badira bere. Non time bo millia populi circundantis me (Icas-II, 294-295).

Ez dau cristandadeco legueguinec ez uriric, ez ciudaderic, ez erriric castigue etan, bere luurreco dantza nastecuac quendu ditubalaco. Erege batec edo ateista [153] batec castigau legui, prancesac eguin daveen leguez. Baina ez parte oneco aguintaric (Euscal-errijetaco... 152-153).

Datiboa

Pluralean datiboaren kasu-marka *-ai* da; garai horretako Bizkaiko idazle gehienek ere, J.A. Mogelek, Añibarrok, Astarloak, Uriartek... *-ai* egiten dute, *-ei* ere noiz-behinka itzuri arren. J.J. Mogel da *-ei* forma gehientsuenetan darabilena. Bartolomerengan joera argi dago, baina ez da erabatekoa; han-hor-hemen itzuri zaizkio *-ei* batzuk ere; esaterako, *Icas-I*-en: *seme alabej* (bi aldiz); *Icas-II*-an: *esanej*, *egitoarrej*; *Icas-III*-an: *atej*, *philisteotarrej* (lerro batzuk beherago *philisteotarra*), *adisquidej*, *sacerdotej*. Baina eskuizkribua da *-ei* formako gehien dakarrena; *-ai* baino gutxiago badakar ere, ugari dira: *Israeltar ej* (hiru bider), *cristinau pielej*, *cristinaub ej* (bi bider), *adisquidej*, *gaucej* (hiru bider), *santej* (*santai* ere bai), *loijej*, *esanej*, *erreguej*, *seme alabej* (17 bider), *alab ej* (bi bider), *mutilej*, *aureracu ej*, *besteerej*, *donguej*, *auzu ej*, *emacumej* (*emacumi ai* ere bai)...

Azpimarragarria da paradisukoa kontatzen ari dela, hango arbola bizidun gisa-
edo hartzen duela, datiboaz baliatuz. Ablatiboa zitekeen era normala eta hala egi-
ten du, gainerako arbolez ari dela, baina ez erdiko hartaz ari dela:

*Erantzun eutsan Evac: Beste gustietati jaaten dogu, Baina, ari erdico arboliar*ri*
ez jaateco ta icuturic ez eguiteco esan deutsco Jaungoicuac, ill ez gaitezcan (Icas-
-III, 15-16).*

Mugagabeak ere bikain egiten ditu:

*ta gurasuac bere ez leusquijue seina besuetara emongo, edochein lelengo aguiri
dani (Icas-III, 78)*

*Edochein gentil, judegu nai heregeri emon ceuntsan escubidia, seinac batiatu -
teco (Icas-III, 45)*

*Batzubetan esaten jaco sacramentuba edochein gauza santuri, santuba dalaco
beste bagaric (Icas-III, 5).*

*Orijua da, nai burdiniari, nai zurari, nai arrijari, nai beste edochein gauzari
echuria edertuten deutsana, zaltasuna ta pirmecia gordetan deutsana (Icas-III,
87).*

*San Simon Estilitac, Jaungoicuagana viurtu zan ezquero, ez eutsan emacume-
ri aurpeguira zucen beguiratu (Icas-II, 60).*

*¿Celan beguiratuco deutsa ezconduteco eguiten dan pecatubari? Dinot, aim -
beste gorroto badeutsa edochein pecatandiri (Icas-III, 362).*

Jabego genitiboa

Ez du gauza berezirik. Ikus ditzagun, hala ere, mugagabearen erabileraren adi-
bide batzuk:

Ez da gauza vitziren edo eguinen errasturic ber e (Icas-II, 46).

Hurrengo adibidean “erregue” hitza bi aldiz dator: batean, tradizioan maiz ageri
denez, izen berezi gisa eta bestean, mugagabearen:

*Erreguen soldaubac darabilezan leguez seinala aguirijac cein ce erregueren
soldau dirian ezaututeco, alan Jesucristoc marcau ta seinaletan ditu ariman ber e
soldau cristinaubac bautismuagaz, bet,i dagozan lecuban dagozala, ezagun izan
ditezcan (Icas-III, 70).*

Inesiboa

Gorago aipaturiko bokal-bikoizteak eta beste xehetasun txiki batzuk izan ezik,
ez du azpimarratzekorik. Hitza “a” itsatsiaz amaitu badadi, singularrean bokalak
bikoizturik emango dizkigu: dantza an, plaza an, piestaan...

Gauza bera, pluralean ere: dantza + etan > dantz eetan; plaza + etan > place-
etan; piesta + etan > piestetan...

Fonetikaren atalean adierazi dugunez, partizipioa *-au* egiten duten aditz-ize-
nek ere bilakaera bera dute...

- Maiztasuna adieraztean, *-ero*, *-oro* atzizkiez gainera, inesiboaz ere baliatzen da:

*Mana zan leguez egun ian eguniangua, Jesus bere <ltara santuban egun ero -
cua da (Icas-III, 190).*

Ta egunian egunian arimaco zorrac eguiten ditugula (Icas-III, 225).

*¿Cer izango da, egun ian egunian Jesus maitiac altaran bere guizon-eguintza -
co jazo bedeincatuba ta maitetsuba barristetia? (Icas-III, 247).*

*¡Ah! Diabrubac, mundubac ta araguijac goituta; egun ian egunian pecatubari
pecatuba ezarrita; ceure esan santubac ta betico eguijac ¡Oh, Jesus maitia! burla -
garrizat artuta; vizico nintzan munduban, ganadu baten guisa an (Icas-III, 34).*

-Zenbatzailedun sintagmekin denbora adierazteko inesibo singularra darabil,
eta ez mugagabea:

*Ta janari agaz beste bagaric ibili zan propeta santuba sendo berroquei egu -
nian ta berroquei gavian, Horetco mendi santura igon artian (Icas-III, 190-191).*

*ceure emaztiagaz bacarric eguingo dozu oracinoia bijoc iru egunian... (Icas-
-III, 339).*

*Jonas bere adisquidia arrain baten tripan dauca vitziric iru egunian ta andi
aterata, bialduten dau prediqueetara (Icas-I, 57).*

*Berroquei urtian jardun euala, praile bati luxurijazco burutacinoiac ta gura -
rijac gogora eruaten (Icas-II, 37).*

*Jesusec curutce santan iru orduban irago cituban pena modubac (Icas-III,
245).*

Inesibo kasu honek, euskal gramatiketan ikus daitekeenez, hainbat arlo ezber-
din hartzen ditu: lekua, denbora, jarduera, modua, aditz-izenen formak, adizlagu-
nez osaturiko hainbat esapide; horrez gain, zenbait aditzek osagarri gisa eskatzen
dute kasu-marka hau. Bartolomeren testuetan ere ugari dira. Esanguratsuenak
diruditenak aipatuko ditugu:

(Denbora): *Au eguin ezquero, uste davee pecatarijac, beste guztia berez etorri-
co jacuela escura erijotzaco ordu ban edo zaartzan (Icas-III, 183).*

(Jarduera): *Legue guintzaan, asmo barrije etan, alcar zaintza an, guerraguint -
za an (Icas-I, III).*

- Denbora adierazten duten aditz trinko nahiz laguntzaileekin. Azken hauekin
subjuntibo forma darabil oraindik gertatu ez dena, baina gero gerta daitekeena
denean; forma aldetik, berriz, bizkaieraz ohikoa den *daitenean*... erakoak erabili
beharrean, *dedinian*... erakoak erabiliko ditu:

¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? Ill dedinian (Icas-II, 250).

Baina comulguetara orduco dan leguez pecatubagaz garbatutia ta al dedi -

nian compesetia, au gaiti imini dot irugarren lecuban compesinoeco sacramentu -
ba (Icas-III, 184).

Baina bildurra jua dedin *ian*, estualdija irago dedin *ian*, ez dauquee contu -
ric, Jaungoicuari ta santubai eguindaco promesaquin (Icas-I, 138).

Ta ill nendin *ian*, juango nintzan zucen impenuco ondarretara betico ¡Oh,
neure entzula onac! Au izan zaatequian zuben guztion ta nire azquen penaga -
rrija ta bildugarrija (Icas-III, 34).

Ta azqueneco egunian ostera gorputza viztu dedin *ian*, bat eguingo dala ari -
mia bere gorputzagaz (Icas-III, 49).

Ta esaten eveela, aguiduten dot sein au errazoiaren usura eldu dedin *ian*
esango deusadala sarritan ta eguingo dodala aleguina, diabrubaganic ta pecatu -
baganic alde eguin daguijan ta orain aguidu daven guztiari cobru emon dagui -
jon (Icas-III, 77).

- Mugimendua adierazten duten aditzen mendeko aditz-izena adlatibo-markaz
dakar ia beti, ekialdeko bizkaieran ohi denez, baina mendebaldeko bizkaieran
bezala inesiboan dauden esaldi bakan batzuk ere aurkitu ditugu:

Ta *betor* nai davena; ia alcarregaz bat eguin al daguizan icuste *n* (Euscal-erri -
jetaco... 157).

Ta aguidu eusquegun Jesu-Cristoc, gueure salvazailiac, persona bacar aree -
tara *juateco* sacramentubac artute *n*, salvau gura davena (Icas-III, 10-11).

- Egintza bera gertatzen den une bakoitza eta guztiak adierazi nahi direnean,
hots, gaztelaniazko "siempre que", "cada vez que" esateko, perpaus erlatiboa +
guztian formaz baliatzen da: -n + *guztian* (beti inesibo singularrean, bizkaieraz ohi
denez, eta ez pluralean):

Edo beste baten: al dajjan *guztian*, esan dan piesta dantzara *juateco* voronda -
te presta ta gogua ezauberaz daucanac ta jua ezin dalaco peniagaz gueratuten
danac, ocasinoe atan sartutia consentiduten davenian, eguiten davela pecatu
(Euscal-errijetaco... 46).

Baita da eguiija, plazaco piestara ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac eta
gorrac edo umiac ezbadira) ondo daquiyeela bigarren juate aldico, juaten diria n
guztian, edo piestaruz, edo piestaan, edo piestia amaituta, edo obeto esateco, lele
engoti azquenera luxurija guztiaren testigu izatera duazana (Euscal-errijetaco...
99-100).

ondo daquiyeela, dinot, bai guizonac ta bai andraac, bai mutilac ta bai nes -
caac, duaza n *guztian*, luxurijaren sutegui ta ats ziquin au guztiau ta gueijago icu -
sico daveena, entzungo daveena ta sentiduco daveena (Euscal-errijetaco... 100).

Exodoco liburuban Espiritu Santubari entzuten deusadazan verba batzuc ira -
curten dituda n *guztian*, neure entzula onac, icara eguiten deust vijotzac (Esku 3).

Baina ez da, biar eragotzija eguiten da n *guztian* pecatu mortala eguiten (Icas -
-I, 157).

- “Arte” / “artian” eta antzeko amaiera duten esaldien buruan, inesiboaren kasu markaz arian da [*arian eta*] erabiltzen du, guretzat ezagunago den harik eta... esapidearen aldaera dena:

Orregaiti itanduten jaco: ¿Naidozu, batiatu zaidazan? T a arian da berac edo bere ordecuac erantzun artian baietz, volo, ez da batiatuten cristinau gueija (Icas-III, 68-69).

Ta ondo compesau bere ezin leitequezala, arian da dotrinia icasi, pecatu mor talac ainzat artu, areequin garbatu ta pecatuco ocasinoe urrecuai isteeco asmo sendua artu artian (Euscal-errijetaco... 183).

¿Ta parcatu eutseen Jaungoicuac Evari ta Adani, inori erruba ezarrita autortu evene pecatuba? Batari bere ez, arian da euren pecatutzat ezaututa, ondo garbata, barriro obeto autortu artian (Icas-III, 167).

- Aditz batzuen osagarri legez agertzen da: goguan irago, tratuban irago, itsu itsuan (*artu/sinistu/bizi...*), aotan artu, contuban jausi, contuban sartu, apapuban vizi, ichanian emon, -en gainian (*berba eguin...*), arpeguijan esan/ezarri... :

Irago buruban sarri (Icas-III, 128).

¡Ah, cristinaubac! Goguan iragoco baguendu pusca bat, ceimbat gauza on ta andi daucazan meza santubac gueure arimetaraco, ez litzateque guretzat meza luceric izango (Icas-III, 243).

Ugazabac zor deutsa otseguinari, beste gauzaric tratuban irago ez beeben. Otseguinzaco errazoiac au escatuten dau. Erabaguita dauquen soldatia emon biar deutsee otseguinai zuzen (Icas-I, 228).

Itsu itsuban, cristinaubac, sinistu biar ditugu pedeco misterijo guztiac, andijac eta altubac izan arren. Cegaiti edo celan ete diran jaquiteco errazoiac topeetan ibili bagaric (Icas-I, 35).

Batzubetan itsu itsuban dua lapurretara mendira, edo bidera, edo inoren eche ra, al daguijan lecuban ostutera, bere buruba, pamelija, ondria ta vizitzia arris cuban iminita (Icas-II, 127).

Bildur nas, asco vici ete dirian itsu itsuban edo zoro zororic condenetaco vidian (Icas-III, 138).

Baina ez bedi secula aotan artu Santo Tomas, Escolleetaco Aingueruba ta virgini dadiaren mirarizco ispilluba, gueure errijeetaco dantza nasajac ta desonestu bac ontzat emoteco (Euscal-errijetaco... 158-159).

Contuban jausi zirianeti aurrera, negar mingoch asco eguin evene, alan olgau cirialaco (Euscal-errijetaco... 190).

Ez daigun contuban sartu, piestia ta dantzia dala medijo baseerri echeetan eguiten dirian castu alperricacuac, vanidadezcuac ta neurri bagacuac (Euscal-errijetaco... 96).

Aberatsa aberatsago eguiteco modubac dira orreec. Apapuban vizi dana esque ra bialduteco vidiac dira orreec (Icas-II, 112).

Onetara joten davee, cristinaubac, proximuari cerbait ichanian emonagaz euqui zinaizan calte guztiac (Icas-II, 113).

Asi nintzan dantza zaliac esamineetan, baita Eleisiaren Eracuslaac, dantce en gainian cer dinuen iracurten bere (Euscal-errijetaco... 125-126).

Ta au berau, orain aita dogun sailar en gainian (Euscal-errijetaco... 135).

[...]bestiac bere gaztetaco paltiac burlaz arpeguijan esaten deutzazala (Icas-I, 7 serm.).

Lotsatu eguin biar da gaisqui esalia, bere paltia ta gaisqui esaneco pecatuba berari arpeguijan ezarrijagaz (Icas-II, 199).

- Zenbait esapidetan: *nire erichijan, esquer gaistuan, premina bardinian, orduban, ostian...* :

Au eguinagaz urtengo dau berecautan leguez goijan imini dan amajiac edo conclusnoiac, nire erichijan (Euscal-errijetaco... 45).

Premina bardinian leenago da gueure burubac socorridutia, inorena baino (Icas-I, 93).

¿Ez davee beste ascoc nai daveena eguiten echian, gurasuen esquer gaistuan? (Icas-I, 204).

- “Orduban” forma hiru adieratan-edo erabiltzen du: *-ko* genitiboa edo izenlaguna ezkerrean dela: *erijotzaco orduban*. Perpaus ilatiboetako juntagailu gisa, *beraz, bada, hortaz...* eta abarren antzekoa: *Orduban salzailiac engainetan dau erosla ez jaquina milla guzurregaz (Icas-II, 124)*. Ordu oro edo ordu guztietan esan nahi duela: *orduban orduban*:

Verba gogorrac ta errazoe citalac ta minveraac becoqui illunagaz ta asarria - gaz esaten badeutsuz orduban orduban, edo belarri ondoco bat esquintcen badeutsu, isilic egon ta padecidu (Icas-I, 26-27, serm.).

Zentzu berean edo antzekoan darabil *lecuban lecuban* esapidea:

¿Ce dicha andija, neure cristinaubac, orduban orduban ta lecuban lecuban sacerdote jaunac prest euquitia, gueure arimaco gachac eta quezcac err emedijetaco! Eguzquijac gira eguiten daven lecu guztietan dagoz sacerdotiac (Icas-III, 305-306).

- “Ostian”, gehinetan, *-az ostian* forman darabil, hau da, lehen osagaia instrumentalean dela; esaterako, *onezaz ostian* eta honetaz gain, honetaz aparte... esan nahi du. Beste batzuetan, *-an eta ostian / ...ostian* darabiltza, eta “bestela”, “osterrantzean” esan nahi du: Hona adibide batzuk:

Ta onezaz ostian dauca gaisqui eguina erremedijetaco ta gacheti onera biur - tuteco al izatia, beste criaturac ez daucana (Icas-I, 16).

¿Cegaz naicotu guinai gueure vijotza Jaungoicua gaz ostian? (Icas-I, 49).

Nosbait adisquide izan arren, ez dago adisquide pirmeric munduban Jaungoicuz ostian (Icas-I, 61).

Baita galduten jaco proximuari pamia, juezaren aurri an ez ece ostian bere (Icas-II, 160-161).

Oituco baguina gueu, eleisa-guizonoc, Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu, Moguel ta beste euscaldun garbijac iracurtera ta areen erara gueure sinisquizunac ta eguizunac verbeeta garbijan pulpitu an ta ostian cristinaubai eracustera (Icas-I, IX).

luurreco gauzac gaiti ezcondutia, ostian eguingo ez litzatequian lagunagaz, arriscoo ezcontcia da (Icas-III, 349). (bestela/osterantzean egingo ez litzatekeen lagunarekin...).

- Inesiboaz baliatzen da banatzaile edo distributibo-edukia duena adierazteko ere; hau da, *-ko* kasu-marka erabili beharrean, *-an* erabiltzen du askotan, esaldia jatorrago bihurtuz; ez digu jartzen “berba bacochecho”, ezta “berbaco” ere, “berba-an berbaan” baizik. Baina testuinguru berdintsuetan, lehen osagaia partitiboan ere badaki erabiltzen:

Ta cristinau asco vitzi dira, casic verbaan verbaan juramentu eguiteco ecan - du gaistuagaz ta pecatuzcuagaz (Icas-I, 108).

Ecandu chaarra artuten davee, verbaan verbaan juramentu eguiteco ta inos ez dira dendatuten oitura pecatuzcuaren contra (Icas-I, 116).

(Part.) *¿Ceimbat cristinau desdichauc verba biric baten dauque auan maldeci - noia? (Icas-II, 147).*

- “artian”, denborazko posposizioa, *-ra artian* forman darabil ia beti; inoiz edo behin elkarketa gisa, aurreko hitza absolutiboan duela... baina “ordu” hitzarekin *ordu artian* eta ez *ordura artian* :

Eguiija da, Moisen demporara artian ez egozan escribiduta amar mandamentubac paperian edo olian; baina bai guizonaren errazoian eta vijotzian (Icas-I, 26).

Orraco piesta artian, sarau artian, biguira artian, erromedija artian ta dan - tza artian sortu, azi ta vitzi dirian gurasuac ta umiac (Euscal-errietaco... 205).

Ordu artian ezin inor zucen juzgau guinai (Icas-II, 229).

Ordu artian sinistu biar dogu, chiquijac ta guichiracuac gariana (Icas-III, 201).

Erijotzaco ordu artian ez dozu jaquingo (Euscal-errietaco... 130).

- Mugagabea kasu honetan ere ederki darabil:

¿Iracurri dau inoc cristandadeco liburutān, alaco ocasinoc jaquinerā premina bagaric bere naiz juatia ez dala pecatu mortala? (Euscal-errietaco... 102).

Estutasun bategaz, naibague bategaz, buruco min bategaz, edocein premina orduān, nai auzi bat, nai empeñu bat, nai ganadu baten gaiso bat danian, laster eguiten da promesa (Icas-I, 137).

¿Ta cein leguetān ontzat emoten dau Jaungoicuac au? (Icas-I, 263).

Gainerako mugagabeak esapide hartu eta ohikoetan datoz: *ascotan, sarritan, guichitan, mezatan, umetan, chiquitan, gatzetan, sutan, berecautan* ...

Genitiboa (-ko)

Genitibo hau, batez ere mugagabeen, izenaren eskuinaldean jartzeko joera du. Hauetariko batzuk, guztiz hartuak dira forma horretan, esaterako, Bartolomek berak darabilen *aita ta ama besuetaco*. Hau, jatorriz genitibo leku-denborazkoa bada ere, honezkero *gerriko, belarritako* eta antzekoak bezala, hiztegiko edozein izentzat har genezake eta *-ko*-ren ondoren duen kasu-markaren arabera, kasu bateko edo besteko izango da; esaterako, hurrengo adibideotan, lehenengoa absolutiboa dugu eta bigarrena ergatiboa:

¡Cetaraco batiuan emoten jacozan seinari aita ta ama besuetacø(Icas-III, 74).

Au esaten evenen ta aguinduten evenen aita ta ama besuetaco, seina besuetan [78] artuten evenian (Icas-III, 77-78).

Baina beste hainbat testuingurutan ere horrelaxe darabil genitibo hau mugagabeen:

Onezaz ostian, edocein ur berezco da asco ta da ona seina batiatuteco (Icas-III, 39).

Ta alan jazoten dira guero aimbeste ezcontza cer esaneco (Icas-III, 329).

Ta bera gaiti oi dira aimbeste ezcontza edo ezcondu garbatu. Aimbeste senar emazte vicitza chaarreco. Aimbeste seme alava lotsa chaarreco ta esquer chaarreco. Aimbeste auci, naibaga ta cer esan senar emazten ta umen arteco (Icas-III, 366).

¡Oh, impernuti urtendaco luxurijaren su madaricatuba! ¡Aimbeste arima, Jesu cristoen erijotziagaz ta odol santubagaz irabatziaco, daucaz vendetuta, luurtuta, loituta, impernuraco pretauta, irago dirian amabi guiza alditan! (Icas-II, 49-50).

Emacumiac galduten daven seina edo seinaren ernia, viziric badago, batiatu ura ezarrita, beste edocein sein ondo jaijo tacho leguez (Icas-III, 58).

Hala ere *-ko* genitiboa izenaren eskuinean daramatenak ez dira beti sintagma mugagabeak, ezta esaldi hartuak ere:

dantza plazaco orreec (Euscal-erijetaco... 104).

Eleisiac ez dau eragozten, palta asco daucazan emacume bat bai garbitasu nian ta bai gorputceco echuran, diru gaisqui irabacija ugari daucalaco, mutil cleitu oneco bategaz ezcondutia (Icas-III, 335).

Espirituzcua ta gracijazcua da bada, neure entzula onac, Jesuse gazco bat eguite arimaco au (Icas-III, 219-220).

Izenlagun hau ezkerretara eta honen eta izenaren artean beste elementu batzuk tartekaturik dituela eraikirik dugu ondorengo esaldi hau:

Birrinduco deutseez combentu barrico asi dituban ormaac (Icas-II, 294).

- Ezin dugu aipatu gabe utzi, izenlagunak egiteko erabiltzen den -kogenitibo hau beste kasu-marka batzuen gainean ere eraikitzen dela. Bartolomek ere maiz darabiltza, esaterako, inesiboaren, soziatiboaren, prolatiboaren... gainean eraikitakoak:

Inesiboaren gainean:

Endamas jaijan jaijangua edo sarritacua bada (Icas-I, 158).

Ta lapurreta bacocha gauza guichija izan arren, egunian eguniangua edo sarritacua dan leguez, alcarri dautsez lapurreta chiqui areec (Icas-II, 129-130).

Onetaraco ichi euscun bautismo gueitzat ur ugarija ta lecuban lecubangua (Icas-III, 62).

Mana zan leguez egunian eguniangua, Jesus bere altara santuban egunerocua da (Icas-III, 190).

Bada, bildur izan aren comunioiaquin, astian astianguac badira bere. Baita astian birritacuac ta gueijagocua badira bere. Chaarrago (Icas-III, 223).

Orraco ceubeen verbaan verbaango oiturazco juramentuboc, destajuban, eri chira, ondo ez daquizula, chantzaan, bada ez badaan edo barre eraguiteco esa ten dituzun errazoioic, (...) orreec dira Jaungoico eguijazcua desondretan davee nac (Icas-I, 122).

Soziatiboaren gainean:

Umiac pecatu mortalian egon arren, ez deutsee ardura, plaziagazcua ta mundubagazcua eguin ezquero (Euscal-errijetaco... 59).

Baña adisquidia bada sendua, indartsuba, arriscu guztietati librau guinaiza na ta gueu ondo zaintu guinaizana, à chito asco estimeetan dogu, ta agazcua ez galtceiarren, ascotan canseetan gara (Esku, 70). Ta agazcua ez galdutia gaiti beste bagaric, sarritan causeetan gara (Icas-I, 56).

¿Ta derichazu ordu erdi baten meza bat prisaca entzunagaz, eguingo dogula Jaungoicuagazcua? (Icas-I, 185).

Eguiija da, Jesucristo gueure Jaunagan sinistutia ta ari darraicon guztia dan leguez chito barrija Eusqueriagazco, gueure cristinautzaco gauza barri ascoren icenac bere barrijac dira (Icas-I, X).

Ogui salzailliac ta ardao salzailliac erregalu lodijaquin juezagazcua eguinda, bestiai nai daveen pisu ta neurricua emonda, burla eguin. Au guztiau lapurretia da (Icas-II, 134).

Legue onetan sartuten diriala, ez bacarric inoren emazteric edo senarric ez desietia, ezbada baita pornicacinoeco, seniqueraco, noberagazco, naturaleciaren contraco, sodomijaco, ganadubagazco, verbazco ta cantazco pecatu loi guztien desiuu ta gurarija ber e (Icas-II, 269).

Arimac gaiti cer sinistu biar dogun, ta celan pensau daiquegun arimen gorputzagazco bat eguitiagaiti (Icas-III, 47).

¿Ya cer dirian luurreco andi ta aberats guztia Jesus ceruco Erreguiagazco? (Icas-III, 217).

Espirituzcua ta gracijazcua da bada, neure entzula onac, Jesusegazco bat eguite arimaco au (Icas-III, 219-220).

Dotia ez galdutia gaiti, ugazabagazcua ez galdutia gaiti, andiquijagazcua ez galdutia gaiti ezconduten da, inos maite izango davela sinistu ezin daven laguna -gaz (Icas-III, 355).

Ez dago esan beharrik sozietiboaren gainean eraikitako *-ko* kasu-markadun hauek ez direla guztiak berdinak: batzuk *-gazkoa egin* esapidearen harikoak dira; beste batzuek sozietibo normala dute oinarrian: *...Jesusegazco bat eguite // ...arimen gorputzagazco bat eguitiagaiti*. Errepara dezagun, bide batez, *gaiti* hemen aurreko hitzari loturik datorrela. Nahiko harrigarria, esana baitugu “orregaiti” eta “cegaiti” soilik idazten dituela loturik eta Eskuizkribuan *augaiti*... Horrelako adibide batean *-gazco* horrek erlazioa adierazten du: *chito barrija eusqueriagazco*. Eta azkenik, bada bat konparatiboa dena: *cer dirian (...)* aberats guztiac Jesus ceruco *Erreguiagazco*...

Instrumentalaren gainean eraikitako *-ko* genitibo hauek ezin konta ahala dira; lerroan-lerroan agertzen dira: *eguijazco, gracijazco, penazco, atsecabazco, priisazco, soberbijazco, cartazco*...

Prolatiboaren gainean:

Quexau jacozan juezari Joseran contra. Jose sartu even carcelan. Ta azaldau zan bere pecatutzacua (Icas-II, 230).

pecatarija badua bere ariz compesore bere uestezco nasaijetara, erreztuago, penitencija guichigaz ta pecatarijaren beraren naira irago daguijon ta pena gui chigaz pecatubetati ascaturzacua eguin daguijon, ez daucala cetan pijau alaco compesinoiagaz (Icas-III, 155).

Jazo leiteque, alaco praileric edo abaderic bada, zeubeen dantceetaco ta pies teetaco pecatubeetati zubei absolvidutzaco bat edo ascaturzacu bat compesinoian errezto eguitia ta pecatuco ocasinoe jaquin orretan zubei ibilten istia (Euscal-erri -jetaco... 177-178).

Baina bada gueur eadisquidetatzacua animosua, sendua, jarquiya, indartsuba, inoren bildurric ez daucana ta arerijo guztietati librau guinaizana, entero maite dogu (Icas-I, 56).

Adlatiboa

Adlatiboaz ondorengo xehetasunak azpimarratuko genituzke:

- Mugagabea, beste kasuetan bezala, egoki darabil:

Juaten dira lapurretara. Juaten dira... ¿Baina ce pecatu tara ez? (Icas-III, 160).

Baina ez daquit, neure entzula onac, cein alde tara beguiratu, nun topetan ez dituban Teresaren eguite santubac ta mirarizcuac (Icas-II, 298).

- Bizidunen singularreko kasu-marka behar den guztian darabil: *Au, adisquide deungui agana juan ez dedin da (Icas-III, 157)*. Pluralekoa, ordea, nekez aurki daiteke; bizidunekin ere bizigabekoen kasu-marka erabiltzen du ia beti, bereziki multzo gisa hartzen dituenean; hurrengo bi adibideetan, batean *etxera* jarriko du eta bestean *seme alavetara* edo *ondorenguetara*; bigarrenean, berriz, *Jaungoicu agana* (bizidunen singularreko marka), baina jarraian *ceruco santubeetara*; ondorik datozenak ere molde berekoak edo antzekoak dira:

Etorten bajatzu ceuben echerà, seme alavetara, edo ondorenguetara baque chaarra, lotsa chaarra, naibaguia, gacha edo atsecabia (...) (Icas-III, 363).

Premina ordu estu batec jo artian, nequez elduten dira cristinaubac Jaungoicu agana, edo ceruco santubeetara (Icas-I, 138).

Ez bera bacarric, ez bada bere ondorenguetara, bere seme alabeetara bere eldu zan Jaungoicuaren maldecinoia (Icas-I, 203).

¿ya burutacinoe areec euquico cenduzan lecu ra ta lagunetara, premina baga - ric ceure guraz juan zarian edo ez? (Icas-III, 117).

Bestia bildur da, mundubac cer esango daven, leengo echerà, leengo adisquidia - gana, leengo pecatu lecu ra ta lagun chaarr etara juaten ez bada (Icas-III, 160).

Isten jacue mutilei alabeequin bacarric egoten; edo alabei mutile etara juaten. ¡O lastimia! ¡O negargarrija! dino San Bernardoc, ¡otsuac bildotse etara bialdulia edo bildosac otsuari emotia! (Esku, 120-121).

- Alderantzizko kasu bat ere badugu: "ura", bataioko ura bizidunen kasu-markaz deklinatzen du. Beharbada, irtenbide baten beharrean aurkitu da idazlea: ezin-ingo zuen idatzi Iparraldekoek bezala *urera* eta gure *uretara* mugagabea ez zitzaion egoki irudituko kasu horretarako eta *ura gana* jarriko du...:

Verbia elduten da ura gana, ta eguiten da baustismoco sacramentuba, esaten deuscu San Agustinegaz Erromaco Catecismuac. Alan ura ta verbac, bitzubac biar dira batiatuteco (Icas-III, 38).

- Mugimendua adierazten duten aditzen mendeko aditz-izena adlatibo-markaz dakar ia beti, ekialdeko bizkaieran ohi denez. Hona adibide batzuk:

Berau gaiti, ainchinaco burrucarijac bere orijuagaz gorputzac igortzita juan oi cirian alcarregaz pelietara (Icas-III, 87).

Oneec gaiti esan legui, mecia entzutera juateco edu prestetan diriala, compe setara juateco (Icas-III, 117).

[...] badator deunga bat neu illtera ta librau ezin badot neure vitzitzia aren escu gaistuetati bera illda baino, ez da pecatu á illtia (Icas-I, 239).

Hurbiltze-adlatiboa

Singularreko izen-sintagmekin eta toki-izen bereziekin agertzen da soilik. Eta horren forma *-ruz/rutz* da; "n" gabe beti:

Jaso daiguzan, cristinaubac, luurezco gauza oneetati ceru rutz gueure vegui - jac (Icas-II, 74).

Veguijac sosiguz, gueijenian luurr erutz. Ta beti onestidadiaren ta modestijaren aixe lotsa oneco gracijotso bategaz (Icas-II, 90).

Ta jaguita, juan cirian Jesusegaz Judasez bestiac Gesemanico Ortu ruz (Icas-III, 194).

Muga-adlatiboa, eskeman ikusi dugunez, *-raguino / -etaraguino* da Bartolomeren inprimaturiko lanetan; eskuizkribuan, ordea, *-raño (raino) / -etara - ño*. Denbora adierazten duenean ere kasu-marka hau darabil; batzuetan, “-arte” denborazkoari erantsita eta beste batzuetan, hainbarik. Ondoren datozen adibide-atariko bigarrenean, “orduraguinoco” dator eta “ordurarteco”:

Bautismo urezcuac parcatuten dituban leguez, bera artu arteraguinoco peca - tu guztia (Icas-III, 27).

leenago ondo compesau zaneti orduraguinoco pecatu illgarri guztia ziatz gomutatutia, compesoriari esateco (Icas-III, 112).

Ablatiboa

Ablatiboaren marka, bizigabea denean, *-ti* da eta biziduna denean *-ganic*; hau aurreko hitzetik bereiz nahiz loturik agertu ohi da idazle honengan. J.A. Mogel eta Añibarrok ere azken kontsonanterik gabe emateko joera dute. Beraz, argi eta garbi nabari da zenbait joera berdintsu finkatuz zihoazela orduko idazleen artean. Luis Mitxelenak badakar arazo hau bere *Fonética Histórica Vasca*-n (236-237. or.). Honela dio:

“Es interesante el problema que plantea el suf. de ablativo (de prosecutivo en vizc. ant.) *-tik*, que presenta una variante *-ti* en vizc. y sul., que se repite en *-ga(i)ti* junto a *-ga(i)tik* ‘por, a causa de’ (...). Resulta difícil admitir una caída en posición final cuando otros sufijos, y en particular *-(r)ik* que une las funciones de ablativo a las de partitivo, carecen de variantes sin oclusiva final. (...) Este *-ti* puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de determinaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial: *beheiti*, guip. vizc. *barru - ti*, *gaindi* (sul. *gáinti*), *goiti*, *urruti* ‘lejos’, de *be(h)e* ‘parte inferior’, *barru* ‘interior’, *gain* ‘superficie’, *goi* ‘parte superior’. La oclusiva final no es más que un elemento sufijado a *-ti*, o lo que queda de él, sin que esta adición fuera común”.

Azpimarratzekoa litzateke, beharbada, ekialdeko bizkaiera erabili zuten idazle hauen eta mendebaldekoa erabili zutenen artean badela alderik ablatibo zahararren erabileran. Markina aldeko euskara darabilten idazle zaharregan *-rik* formak bakanak dira ablatiboa adierazteko. Añibarrok, ordea, oso dotore darabiltza forma horiek:

“Ondo daquizu zuc (...) liburu santuen iracurtze ric arimari sortu ta etorri yoa - quezala onura, irabazi ta zorion ugari gozoac” (Escu Liburua, 3. or.).

“Ecin esan lei, liburu on orrec ceimbat becatari gaihso, Deabruaren escuperic, eta bere aguintza gogor gogaicarric, edo orretaraco bide labaner^{ic} atera ta, eca rri izan dituezan ondutera, eta ceruraco bide artecean ibiltera” (Escu Liburua, 3. or.).

Oraindik forma zaharragoaren arrastoa ageri da beste esaldi honetan:

“(…) gosherean^{ic} eta arratsera eguin bear dozuzan gauzac” (Escu Liburua, 5. or.)

Frai Bartolomek ablatibo zaharra darabilen kasu bakanetarikoa *ondoric* adizlaguna da; urri bada ere, badarabil beste batzuetan ere. Hona zenbait adibide:

Baita aren ondo ric sacramentubac, credua ta Aita gueuria ber e (Icas-I, VII).

Jesus maitiac berac verba oneen ond^{ric} ecarten deultscu gogora, ce gaiti amau biar ditugun gueure arerijuac (Icas-I, 97).

Izan bitez ceuben verbaac: ez edo bai. Onezaz gaineracua gache^{ric} datorrena da, dino Jesucristo gueure Jaunac (Icas-I, 109-110).

Aste guztia iragoten jacue ascori, pecatu mortal bat eguin bagaric. Ta jai san tuban goxe^{ric} arrats dagoz pecatu eguiten (Icas-I, 155).

¿Eragotzi ete deultscu, bada, biarra eguitia, jai domeecac libre euqui daiguzan goxeric arrats jocoraco, tabernaraco, danza eragotzietaraco, mundutarren visite etan, peligruzco pasietan ta ordena bagaco jan edanetan iragoteco? (Icas-I, 179).

Bada, Jaungoicua escatuten deultscu domeeca ta jajegun osuetan, goxeric arratseraco biar onac eguitia; memento ut diem sabbati santifices (Icas-I, 185).

Baina ez. Mundubaren asierati ona badirau. Adanen loba bat galdu evan lelen go pecatu lotsarizco onec. Taaric ona zaartu edo cansau biarrian, egunian baino egunian dauca indar gueijago, campo gueijago, crijado ta crijada gueijago. Guiza aldiric guiza aldira sendotuten da ta boteetan ditu sustrai barijac (Icas-II, 15-16).

Esapide batzuetako forma hartuak, berriz, sarri darabiltza. Egia esan, maiz darabilen *goxeric arrats* ere halakotzat har genezake, baina euskaraz oso zabal dabilzan *gizaldirik gizaldi, herririk herri* eta antzekoak esan nahi dugu hemen. Horrelakoetan, bizkaierazko joerari jarraituz, *-ric* erabiliko du eta ez instrumentala. Noizbehinka esapidearen bigarren osagaia absolutibo mugagabeen jarri beharrea adlatiboan jartzen du; beste urrats txiki bat emanez, gaur egun haren eskualdean *kale^{ic} kalera, menditik mendira...* entzuten dira, *kalerik kale, mendirik mendi* esapideen ordez:

Eurac sacerdote eguin biar ditubee guizonac, beti oinian egon dedin ordiaco sacramentu santuba, ta vizi dedin guiza aldiric guiza aldi ra mundubaren amai raguino cristindadia edo Jesucristoren Eleisia (Icas-I, 211).

Esan dan errazoia gaiti, juezaren iguesi erriric erri edo mendiric mendi davi len gaisquina juezaren aguindubagaz illtia ez da pecatu (Icas-II, 236).

Biguiraric biguira, erromedijaric erromedija ta dantzaric dantza ibili dirianac ta davilzanac (Euscal-errietaco... 201).

- Ablatiboan ere, adlatiboan ikusi dugunez, bizidunen plurala bizigabekoen kasu-markaz ematen digu:

Emon daigula, castidadia galduteco ocasinoe impametati, ordiquerijetati, emacume dantzaarij etati, cantarij etati, nasaij etati, comedijetati, dantza naastau - betati, iracurte desonestubetati, jantzi indecentetati ta lagun chaarr eti alde eguite - co gracia (Icas-II, 84).

- Singularrean, baina bizigabekoen kasu markaz dator *lagun chaarr eti* hori. Ez, ordea, ondorengo hau:

Beste lecu baten dino:Emacume dantzaarijaganic apartau zaitte, bere artia gaz ta encantubagaz galdu ez zaguizan. Ne forte pereas in efficacia illius. *Beste batzuc ira - curten davee: Cantaarijaganic (Euscal-errijetaco... 77).*

- Alderantziz ere bai, hau da, bizigabea bizidun gisa deklinaturik:

Ta esaten eveela: aguiduten dot, sein au errazoiaren usura eldu dedinian, esango deutsadala sarritan ta egingo dodala aleguina, diabrub aganic ta pecatu - baganic alde eguin daguijan ta orain aguidu daven guztiari cobru emon dagui - jon (Icas-III, 77).

Baita Adanen pecatub aganic jatorcun gurariric indartsubenaren ta gaistue - naren erremedijoraco bere, dino San Paulo apostolubac (Icas-III, 322).

Nora juango nas, esaten deutsa Jangoicuari erregue santubac berac, nora juango nas ceure espiritubaganic, ta nora igues egingo dot ceure arpegujaganic (Esku, 67).

Dena dela, bizidun eta bizigabeen deklinabidearen gaiaz Euskaltzaindiak azalpen hau dakar:

“Ekialdean, gehienetan singularrean bakarrik erabiltzen da [-ga-] eta “bizidun” direlakoekin ere -ta- atzizkia ageri da gehien bat pluralean eta mugagabeen. Gainera, singularrean ere sarri askotan *baita* erabiltzen da -ga- horren ordez, batez ere inesibo kasuan, gainerakoetan *niganik* eta *ni baitarik* ikusiko ditugula, nahiz ez diren berdin-berdinak. Nolanahi ere den, badirudi errazago erabiltzen direla bizidunak bizigabeen deklinabide atzizkiekin alderantziz baino”⁴⁸²

Izen bereziki kontsonantez amaituriko tokizko kasu-markak loturazko “e” bokalik gabe eratzen ditu: *Israelgo, Belengo, Jerusalem* eta abar.

Soziatiboa / instrumentala

Soziatiboa eta instrumentala nahasi egiten dira gipuzkera eta bizkaieraren eremuetan. Gipuzkera egiten den inguruetan, kasu bietarako, -kin marka erabiltzen da; bizkaiera egiten den inguruetan, berriz, -gaz. Baina Markina aldeko euskaran,

⁴⁸² *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* . Euskaltzaindia (Bilbo, 1993, 465. or.)

eta Gipuzkoako bizkaieran ere hala uste dugu, joera berezia dago honetaz: Kasu bata nahiz bestea, mugagabea, *-(g)az* da: *zein alabaz joan zara?* ("g" bokal artekoa galdu egin ohi da eta "a" biak bat izatera etorri); singularrean, *-a(g)az*: *neure alabiaz*. Ageri denez, lexema "a"z amaitzen denean bereizten dira soilik mugagabea eta singularra. Plurala, sozietiboan nahiz instrumentalean, *-akin* da; *-ekin* ere entzuten da, baina gutxiago... Frai Bartolomerengana jotzen badugu, gauza bera ikusiko dugu; hau da, bi kasuak ez dituela bereizten, baina singularrerako *-gaz* eta pluralerako *-aquin* egitea hutsik gabe betetzen du; egia esan, eskuizkribuan *-equin* da pluraleko marka hau, eta gainerakoetan *-aquin* nagusi dela, *-equin* ere hainbat aldiz agertzen da...

Idazle zaharren artean, singularrean eta pluralaren arteko bereizketa hori gure karmeldar honengan eta *"Manual Vascongado que contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos"* liburutxoaren egileagan aurkitu ditugu soilik. J.A. Mogelek, J.J. Mogelek eta Uriartek *-agaz* singularra eta *-acaz* plurala egiten dute ia beti. Ondorengo adibideotan ageri denez, batzuk sozietibo erakoak dira adierari dagokionez eta beste batzuk instrumentalak, formaz ez baititu bereizten bata eta bestea:

Escubaquin, veguijaquin ta arpeguico geriagaz guztia luxurijaren suba dari jona (Euscal-errijetaco... 64-65).

Gueratuco zara damu á gaiti damubagaz, garbajagaz, peniagaz, pecatubaren caltiagaz ta pecatubagaz beragaz Jaungoicuaren gorrotuan, compesau arren (Icas-III, 124-125).

Propeta paltsuen lecuban conteetan ditu Jangoicuac ta zamai andijaquin castiguetan ditu, eureen burutacinoiagaz leguia eguinda, Jangoicuaren esana balitz leguez, prediqueetan daveenac (Euscal-errijetaco... 13).

Cesar Augusto, mundu guztiaren aguintarija umiaquin donez ala parezca olgueetan zan (Euscal-errijetaco... 27-28).

Batian dantza lucian arin aringa gorputzaquin alcar joten. Bestian pandan guan nos arpeguijaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco bai joco nesca ta mutil, menio desonestubac ta lotsarizcuac gueratu bagaric eguiten deutseezala alcarri (Euscal-errijetaco... 67).

Ez beste gauza gaiti, ez bada chito gauza aguirija ta ezaguna dalaco, doctri niaren paltiac dacazan negargarriac, bai erliginoe sagraduba, Jaungoicuaren ta Eleisa Ama Santiaren espiritubari jarraituta, ez da aspertuten oracinoiagaz, penitencijagaz ta beste piedade ta caridadezco obra onaquin cristindadiari lagundu bagaz (Icas-I, 6-7).

¿Inos etorten bajatzu ez juacona, ondo gura baleutsu leguez, miin zorrotzagaz ta verba labanaquin embusterijac contetara? (Icas-II, 215).

Au jaquiteco, balijetan da testigubaquin. Areec cer dinuen jaquiteco, escribau baquin. Ta areen esanac leguiagaz neurtuteco, letraubaquin. Aucilarijac artuten dau bere laguntzat norbait. Ta oni esaten jaco procuradoria. Onec, aleguin guztia bagaz beguiratuta, zaintu biar dau bere partiaeren errazoa juezaren aurrian (Icas-II, 167).

Lecu guztietan ta dempora guztietan dago Jaungoicua guztiaquin ta bacocha -gaz (Icas-I, 54).

-Hona soziatiboa izan behar lukeen kasu bat mugagabeen:

Ursino santubac inos bere ez evanemacumegaz verbetatic euqui (Icas-II, 60).

“Bat” eta “beste” sintagmei dagokiena aurrez aipatua edo finkatua ez denean, mugagabea darabil:

¿Auzo bategaz edobestegaz egarrija, gorrotua, embidija ta icusi ezina edo asarria nequez paltau oi jacuenac? (Euscal-errijetaco... 204).

Dena dela, sintagma modalak -z / -az instrumentalaren ohiko kasu-markaz erakitzen ditu. Gauza bera, modua adierazten duten aditz-partizipioaz moldaturikoak; hauek *partizipioa + -az* egiten ditu eta ez *partizipioa + -z*. Ikus goiko adibidean (...) *crisindadiari lagundubaz*. Beste horrenbeste esan genezake *-az jua* erako sintagmak ere. Honelakoetan, adibidez, *-tuten jua* formarik ez dakar inoiz: *osa -suna jausijaz juacuela*.

Ondorengo adibidean, goikoetan bezala, intrumentala (sing.) *-agaz* eta (pl.) *-aquin* agertuko zaigu, baina sintagma modala, *-z / -az* formaz:

¿Uste badozu, iracurlaac, verba guichigaz ta eurac ondo toloztuta, Escritura Sagraduco loraz apainduta, Eleisaco Gurasuen ta Batzaarren esanezedertuta, jazo jaquineen gracijaz gozatuta, errazoe arguijaquin sendotuta, campo andico eracutsi -jac ta erabaguijac esan biar diriala icasiquizun labur bacoedian? (Icas-I, VIII).

Onetario verbaz ta esanez, luxurijaren ixiogarriz ta arimen illgarriz gaixotu ta dagoz dempora triste onetan cristinau ascoren vijotzac eta miinac (Icas-II, 77-78).

Dotriniaren paltaz dira compesinoe paltsuetati gueijeenac. Dotriniaren paltaz dagoz cristinaubac engainauta, itsututa, cerura zucen duazalacuan, impurnura co bideti pausu bat bere uts eguiten ez dabeela (Icas-I, 8).

Ta daquijana bere, (pediaz osterantzecua) utseguitez naastauta baino ez daqui (Icas-I, 43).

Lazaro illda laugarren egunian viztuten dau. San Pedr o catiaz lotuta ta soldauz ingurututa daguan lecuti libreetan dau, inoc igarri bagaric... (Icas-I, 57).

Bilatuten dogu gueure ondo egotia ez daguan lecuban, ta biarren dogunian gueratuten gara utsic eta penaz beteric (Icas-I, 58).

Ez dira guraso guztiac, euren naiz sabeleco seinac galduten ditubeenac. Baina bai asco biar dan arduriaren paltaz, seinu galduteco gauzaac pena bagaric eguiten ditubeenac (Icas-III, 52-53).

¿ya burutacinoe areec euquico cenduzan lecura ta lagunetara, premina bagaric ceure guraz jua zarian edo ez? (Icas-III, 117).

Agonijan ija ill ainian eguanian jua jacon santubari emacume bat bere aurrera, ondo biarrez, mesede guitera (Icas-II, 60).

- (*r*)en bildurrez eta antzekoak ohikoak dira literaturan eta Frai Bartolomek ere erruz darabiltza.

- Esapide-kutsua du *Jaungoicoz* adizlagun modalak ere; “zorionez” esan nahi du, gaztelaniazko ‘afortunadamente’, ‘en buena hora’. Ez du maiz erabiltzen; ondorengo bi hauetan aurkitu dugu soilik: *Eguiija esateco, penagarrija da, nobe - rac nequez bere icerdijagaz irabatzita edo eguinda Jaungoicoz daucan gauzia, alper batec, buruguin batec edo codicijoso batec artuta eruatia (Icas-II, 104). ¿Ceimbat ezcontza galduten ditubee miin gaistuac, Jaungoicoz eguingo zirianac? (Icas-II, 212).*

- Instrumentalaz eraikitzen diren adizlagun modaletariko bat era berezian erabili ohi du idazle honek: *berez* eta *eurenez*. Literaturaren tradizioan *berez* forma hartua edo ihartua da eta forma horretan erabili izan da, dagokion subjektua singularra izan nahiz plurala izan. Frai Bartolomek, ostera, *berez* subjektu singularrari dagokionean erabiltzen du soilik eta *eurenez* pluralari dagokionean.

- Ikus zein ederki adierazten duen, instrumentala erabiliz, “urlia izan ezik gainerakoak” edo antzeko kontzeptua:

Ta jaguita, juan cirian Jesusegaz, Judasez bestiac Gesemanico Orturuz (Icas-III, 194).

- Bizkaieraz hain hartua den forma darabil ondorengo honetan, aditzaren elipsia eginez:

Adisquide pobriac intencinoia ta desiua euqui arren mesede eguiteco, gauza andiric ezin leijo inori, ce gaz ez daucalaco (Esku 66-67).

Motibatiboa

Esana dugu motibatiboaren marka, *gaiti*, bere izenetik bereiz idazten duela *orregaiti* eta *cegaiti* izan ezik. Ablatiboaren marka bezala, beti amaierako *t*-rik gabe.

Ez dugu honetaz adibiderik emango, ez baitago ezer argitu beharrik. Hala ere, gai batez hitz egitea eta antzeko ideiak adierazteko, gorago esan dugunez, inesi-boaz baliatzen da *-en gainean verba eguin...* Baina aipatzen dena gai bat izan beharrea, pertsona denean, batez ere izenordain pertsonalak erabiltzen direnean, ez du instrumentala erabiltzen tradizioan ohi denez, motibatiboa baizik; hau da, *zutaz, zutzaz* erabili beharrea *zu gaiti* erabiliko du:

Zu gaiti urlijainac au zinuac (Icas-II, 211).

¿ta ez dot nic zu gaiti gauza chaarric pensauco? (Euscal-errijetaco... 90).

Baina, nai esquina bateti, nai besteti, nai erditi jua, beti dua à bideti. A gaiti ezin esan legui, oquer doiala (Icas-II, 120).

Bestalde, *arren*, perpaus kontzesiboetan maiz erabilia dena, motibatiboaren markatzat erabilia da, bizkaierazko idazleen artean batez ere; honek helburuzko zentzua hartzen du maiz eta aditz-izenari erantsirik erabiltzen da gehienetan, singularreko izen-sintagmak eratuz. Esapide batzuetan izenari erantsirik ere bai; esaterako, *pozarren*, *bildurrarren* ...; gure idazleak azken hauetarikoak izenetik bereiz idazten ditu:

Oneec dira araco aberastuti arr en beti groputza biarpian ta osasuna galdubaz darabileenac (Esku, 283).

Zu zara pobren contra beti deungaro esaten diarduzuna, arei limosna chiqui bat ez emotia arr en (Icas-II, 235).

Dinot asco, gueijenac ez esatiarr en (Icas-III, 160).

Baita Jesus bere etorri alaco arimara, bere verbiagaz cumpliduti arr en, Judas enera juan zan leguez (Icas-III, 210).

Atertu bagaric esesten deutsee juacuenac ta ez juacuenac conventu batera Jaungoicua serbidutera juan gura davenari, axe buruti quendu eraiti arr en (Icas-III, 329).

Dinot, nescaac, ezcondubagaco emacumiac gaiti, nescatillaac ez esati arr en. Bada nescatilliaren izenac, guztiac ondo daquijeen leguez, beragaz dauca erres - petua, modestija, onestidadia ta lotsoorra izatia (Euscal-errijetaco... 50).

Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztiac paperian ez iminti arr en (Euscal-errijetaco... 74).

¿Celan librauco ditubee, plazaco, erromedijaco, biguiraco ta sarauco dantza desonestura eureen guraz, poz arr en armatuta, aguineetati ura darijuela duazan guizonac eta emacumiac? (Euscal-errijetaco... 129).

Campoti sartuten dirianac, ezin egon dira atsa arren (Euscal-errijetaco... 182).

Onen bildurra arr en imini ditut erbeste verba batzuc icasiquizuneetan. Bada, cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia leenago da, verbeetan eracustia baino (Icas-I, IX).

Pertsona-izen bereziak era mugatuan

Normala da santuen izenak aipatzean, San Andres Corsinocua, San Luis Gonzagacua, Santo Tomas Aquinocua eta San Ignacio Loijolacua erabiltzea, baina pixka bat bitxia da *Aita San Pranciscuba*... Santu honen izena aipatzean ez du jar-tzen, gainerakoetan bezala, *Asiscua*... eta izenari berari eransten dio artikulua:

Aita San Pranciscuba gaiti esaten da, emacume bat bere ez evala arpeguiz ezaututen, verbaz baino (Icas-II, 61).

Alan eguiten euan Aita San Pranciscubac. Alan ene Ama Santa Teresac. Alan beste millac (Icas-II, 199).

Aita San Pranciscuba bere aitac eucan deungatzat ta eche galzailletzat (Icas-II, 233).

Aita San Pranciscuba ordenau zan diaconu. Baina ez zan azartu meزاز ordenetara, inoc eugin eutsan aleguin gaiti (Icas-III, 303).

Onan beguiratuten eutseen Aita San Pranciscubac sacerdote jaunai (Icas-III, 309).

b. Erakusleak

- Absolutiboa (sing.) *au / ori / a* (pl.) *oneec / orreec / areec*
- Ergatiboa (sing.) *onec / orrec / ac/(arec)*(pl.) *oneec / orreec / areec*
- Datiboa (sing.) *oni / ari* (pl.) *onei / orrei / arei*
- Genitiboa (sing.) *onen / orren / aren* (pl.) *oneen / orreen / areen*
- Soziat./instrum. (sing.) *onegaz / agaz* (pl.) *oneequin / orreequin / areequin*
- Instrumentala esapide batzuetan: *onezaz gainera, onezaz ostian, onezaz gai - neracua, azaz gainera...* (Hauetariko besterik ez du erabiltzen eta hauen aldaerarik ere ez)

- *Nola / nolako* aditzondo eta izenlagunaren erantzunak, erakusleekin, honela agertzen dira Frai Bartolomerengan: *onan (olan) / onaco; alan / alaco ...*

- Ablatibo zaharra ageri da noiz edo behin, *aric ona* esapide antzekoan: *Ta aric ona zaartu edo cansau biarrian, egunian baino egunian dauca indar gueijago, campo gueijago, crijado ta crijada gueijago (Icas-II, 15-16).*

Azpirarratzekoa da *á* erakuslea. Artikuluaren forma bera izanik, berariaz markatu nahi izan duela dirudi, dagokion izenetik bereiz idatzirik eta ia beti azentu eta guzti. Pixka bat harrigarri gerta dakiguke beste joera batekoak garenoi, hainbeste bider darabilen *á gaiti*; hots, azentudun bokal hori soil-soilik; baina adierazia dugu *gaiti* bereiz idazten duela beti, *orregaiti* eta *cegaiti* hitzetan izan ezik: *¡Oh! Chito asco esango guenduque á gaiti (Icas-II, 272). Bada, errazoe bagaric inor gaiti gaisqui pensetia da, norberari testigantza paltsua á gaiti emotia (Icas-II, 216). Jaungoicuac sobrebijazco pecatu á gaiti bota cituban impernubetara (Icas-I, 12).*

“Guztia” erakuslearekin erabiltzen duenean, beti darabil erakuslearen ondoren, biak deklinaturik; absolutiboan, erakuslea aurretik eta ondoren era enklitikoan: *au guztiau*; plurala denean, plural hurbileko forma agertzen da: *oneec guztioac*. Lehen graduko erakuslea erabiltzen duenean, gehienetan egiten duenez, hurbiltasuna markatzen du erakuslea ezkerrean eta eskuinean era enklitikoan jarritz; euskal gramatiketan “plural hurbila” aipatzen da soilik, baina singular hurbila ere aipa genezake. Egia esan, era enklitikoan erabiltzen den erakusle delako honek artikuluaren zeregina betetzen du⁴⁸³:

Oneetan guztietan Jaungoicuari eguiten jaco injuria, bere izen santuba, aluba ta bedeinatuba aotan artuta, testigutzat earrita, edo guzuzra esaten dalaco,

⁴⁸³ Luis VILLASANTE, *La declinación del vasco literario común*, Oñate, 1972, 75. or. Mikel ZARATE, *Euskal deklinabidea*, Bilbao, 1975, 23. or.

edo premina bagaric esaten dalaco, edo gauza chaarreraco esaten dalaco (Icas-I, 112-113).

Au guztiau zuc juezaren aurrian eguin duzun guzurrezco juramentuba gaiti (Icas-I, 124).

Au guztiau esaten dogu, alaco agundu ta ez eguin eguiten davena gaiti (Icas-I, 134).

blasphemijaco pecatubac dira oneec guztioç (Icas-I, 141).

Onei guztioi zor deutseequ bacochari bere lecuban ta moduban ondria ta lot - sia (Icas-I, 188).

Maldicinoe oneec guztioç eta guejjago ezarten deutseez, neure cristinaubac Jaungoico andijac bere Escritura Sagraduban lotsa chaarreco, esquer chaarreco ta ezi gaistoco seme alavai (Icas-I, 203).

Jaungoicuac agunduten deuscu, onei guztioi, jagocuen moduban ta lecuban, lotsa ona ta errespeto ona ecarteco (Icas-I, 209).

Eguitade oneec guztioç dira bostgarren agundubaren contra, ta mereci davee cristinaubaren ardura guztia (Icas-I, 251).

Oneec guztioç dira persona zarraren illgarrijac (Icas-I, 253).

Icen onec guztioç emoten jacoç castidadiaren contraco pecatubari (Icas-II, 14).

Beste izen batzuekin ere erabiltzen du erakuslea haien ezkeraldeen; hori, euskara mintzatuan, ez da batere bitxia bizkaieraz. Dena dela, bere ahozko euskaran horrelakoak nahiko normal erabiliko bazituen ere, idatziz salbuespen hutsak dira, parrafo horretan kokatuak ia guztiak; adierazpenaren indarra lortzearen eta markatzearen ordena aldatuan jarriak, ziur aski. Hona zenbait adibide:

¿Cinec munduban bestec eguin eusquezun á mesedia? (Icas-I, 212).

¿Cinec bestec emon eusquion orduban zure arima triste ta larrijari á baquia? ¿A poza? ¿A atseguna? ¿A sosigubá? ¿A segurutasuná? Munduco batec bere ez. Compesore batec baino bestec inoc bere ez luurraren gainian (Icas-I, 212-213).

- Euskara mintzatuan ohikoa denez, *ara emen* esapidea darabil, eta ez gramatikari zorrotz askok gomendatzen duten *ona emen*...

- *Orregaiti* genitiboaren gainean eraikitzen du; *au gaiti* eta *á gaiti*, beti absolutiboaren gainean. Beraz, ez da *onegaiti* edo *aregaiti* formarik agertzen. Esana dugu *au gaiti* era horretan, bereiz, idazten duela ia beti; ez, ordea, Eskuizkribuan, hemen loturik ematen baitu.

- Erakusle indartuak deklinatzeko era bat baino gehiago da kasu batzuetan euskaldunon artean; esaterako datiboan, batzuek *harexeri* darabilte eta beste batzuek *harixe*. Bartolomek bigarren forma hau darabil:

(...) ta gente guztia arixe beguira chaloca (Euscal-errijetaco... 69).

(...) ta ez dauquee araxe juan baño, lagun oneequin egotera (Esku, 271).

Auxe izango da ari emon cineijon errespuestaric oneena (Esku, 282).

Ezertaco danac, axe ostu biar leusquiola (Icas-II, 154).

Nic alacuari axe eguingo neusquijo... (Icas-II, 211).

Icusgarri edo entzungarri aleguere bat edo jan edan on bat iragoten bajacue, eurac parte izan bagaric, gaineco egunetaco penia edo inoren gorrotua, gusto axe veguijai, edo belaarrijai, edo sabelari emon ez eutseelaco (Icas-III, 182).

(...)penaz dagoz, gorputzari gusto axe emon ez deuteselaco edo ezin deuteselaco... (Icas-III, 182).

Iragoco jaco bere vijotzian ez guichitan, vizi era batari ondo eristia; ainche ceruba erreztuago irabazten dalaco arguija ta ezauberia; ainche Jaungoicua ondo serbiduco leuquiala pensauta vijotza poztutia; vizi era axe, berecautan leguez, sari gogora etortia; edo gogoti quendu ezin izatia... (Icas-III, 316).

c. Izenordain pertsonalak

*-Ni / neu; zu / ceu; à / bera; gu / gueu; zube / ceube (zeube); arec / euec
-Nic / neuc; zuc / ceuc (zeuc); ac / berac; guc / gueuc; zube / ceube (zeube);
arec / euec*

*-Nire/ene / neure; zure / zeure; aren / bere; gure / gueure; zuben/zubeen / zeu
ben/zeubeen; areen / eureen/euren*

*-Niri / neuri; zuri / ceuri (zeuri); ari / berari; guri / gueuri; zubei / ceubei (zeu -
bei); ari / euri*

*-Nigaz / neugaz; zugaz / ceugaz (zeugaz); agaz / beragaz; gugaz / gueugaz;
areequin / eurequin/eureequin*

*-Niret / neuret; zuret / ceuret (zeuret); arent / berarent; guret / gueuret;
arent / berarent; guret / gueuret*

-Nigan; zagan / zeugan; agan / beragan; gagan / gueugan; euegan

-Nigana; zugana / ceugana/zeugana; gueugana

-Niganic; ceu ganic; à ganic / beraganic; gueu ganic

(Ez dugu beste formarik aurkitu)

d. Atzizkiak

Atzizkietan oso ugaria dugu Frai Bartolome. Hona hemen darabiltzan atzizkie-
tariko batzuk:

-ari: *Emacume dantza arijaganic apartau zaite, bere artiaz ta encantuba -
gaz galdu ez zaguizan. Ne forte pears in efficacia illius.*

-kari: *Burrucarijac, maquila caarijac ta ocasinotsubac pecatu eiten davee.*

-dun: *Oituco baguina gueu, eleisa-guizonoc, Larramendi, Car daveraz,
Mendiburu, Moguel ta beste euscahun garbijac iracurtera.*

-gin/-kin: *Ez dauca votoguinac edo promeguina escubideric, eguin daven
promesa edo votua luzatuteo, ez beste gauza batera aldatuteo / gaisquin*

- le/-la**: *Monteru esaten jacuen baso-jao le batzuc*; / *neure entzula onac*
- gile**: “-gilla” *darabil: on guillac*; / *Rada Alargunaren Liburu guillaan*
- tzaille/-tzaila**: *Jesus gueure Salvatzaille maitia*; / *paga tzaille chaarra*; / *zorpa - gazaille atzerac*; / *Jaungoicua da emon zaille eguijazcua*
- zain**: *Gueure Arzaina*; / *sein zain a*
- bide**: *escubidia*; / *auzi bide*; / *Asco da, cristinau batec zucen bide pusca bat artutia*
- gintza**: *ugazaben pecatu-guintzac, ta pecatu-era guintzac*; / *Jaungoico palt - suac serbidutiac, gach guintzac, asarriac, gorrotuac, odijuac, ordiquerijac, jaate andijac ta onetariacuac*
- (k)eria**: *ordiquerijac, / zequenquerijac, / zoraquerija; / araguijaren laban - querijac, / gaistoquerija; / prestubezquerija; / oquerrerija; panparr erijac; alperr erija; / dotorerija*
- kune/-une**: *veguiracune; / argui une; / illun une; / ez dauca uts uneric*
- pen**: *munduco gachac luzaro irauteco asi pen bat*
- mendi**: *urca mendi; / galdumendi; / ondamendi; / itsumendi*
- (t)asun**: *zabal tasun; / leijaltasun; / zuzen tasun; / guiza tasun; / ugari tasun; / prestutasun; / ontasun; / ondasun*
- tza**: *testigantza; / ezcontza; / erijotza; / (mugatuan) prailetzia; / abadetzia; / diaconutzia; / subadiaconutzia; / obispotzia; / artzobispotzia*
- eta**: *olgueeta; pensæta moduba; verbeeta; (mugatuan) ezpatetiaren, edo goru - betiaren*
- eria**: *urr erija; / perlerija; / gazte eria*
- kada**: *erremuscada; / osticada; / botacada; / arri cada*
- kotx**: *bacocha*
- tsu**: *ardura tsu; / ugari tsu; / odoltsu; / irauntsu; / aixetsu; / baquetsu; / pist - su; barri tsu*
- turia**: *jaqui turija*
- era**: *azi era; / asiera; / ezaubera; / arpeguiera; / prestæra; / (mugatuan) vici eria*
- kizun**: *icasi quizun; / sinisquizun; / eguiquizun; / etorquizun; / pensaquizun; / contu emoquizun; / escaquizun; / artu quizun; / eracusquizun; / esanquizun; / juan quizun*
- gei**: *gorputz guei; / guizon guei; / pecatu guei; / monja guei*
- gani**: *negar garri; / lotsagarri; / illgarri; / lotugarri; pozgarri; / neurgarri; / gal - dugarri*
- gi**: *estalgui*
- ti**: *guzur ti; / bildur ti*
- zale**: *odol zale; / piesta zale; / dantza zale*
- tegi**: *abade tegui; / sutegui; / convidaui tegui; / praille teguija; / bidao teguija*
- aldi**: *assarr e aldi; / guiza aldi; / verba aldi; / egunaldi; / jardun aldi*
- kor + -tza**: *gaixocortzia, ill cortzia, ta beste onaco asco*

- ero**: *egunero/egun oro/egunoro; / ordu ero; / verbaoro*
- ro**: *luzaro; / deungaro; arguaro; / astiro; / zintzoro; / barriro; / vizito; / garburo*
- kin**: *ondoquinac*
- sko**: *andiscote; / idisco*
- tila**: *nescatilla*
- txa**: *nescacha*
- eta**: *lapur eta*
- to**: *chito; / obato; / errazto*

Atzizki hauetariko batzuk oso emankorrak dira Frai Bartolomeren; esaterako, *-gari; -kizun; -keria/-eria; -tasun; -gin; -gile; -tzaile; -la; -ro; -era; -tsu; -tza* (...)

Beste batzuk gutxi erabiltzen ditu. Esaterako, gaur egun egintzak adierazteko hainbeste agertzen diren *-keta* eta *-pen*. Hauen orde, askotan, aditz-izena nahiz partizipioa erabiltzen du izen gisa: *eracuste oneco liburubetan*. Baina: *¿Ta nun dauquee gurari gaisto oneec euren asipena, edo sustraija?* Gehien erabiltzen dituen batzuen adibide batzuk jarriko ditugu jarraian, nola darabiltzan errepara dezagun:

-gari: *Guizon ta emacumen naasteco dantziari esaten deutsee Eleisaco san tubac verbaan verbaan: impernucio pozuba, Babilonijaco labia, errijetaco pestia, pecatu guztien erne lecuba, luxurijaren escolia castidadiaren galdugarrija, dia brubaren chirrintolia, satanasaren saria, demoninuen jocua, piestia, sortia, Jesucristoren desondragarrija, cristinaubeen lotsagarrija, bautizmoco promeseen ucagarrija, anguerubeen tristecia, virgineen ondamedija, adulterijoguina, lapur guina, gorrotoguina, zeloguina... (Euscal-errijetaco... 85-86).*

Eleisa Ama Santiaren Batzaarretaco neurgarrija ta cristandadeco aguintata ri jaunen ordenaac bere bardin condeneetan ditubee naasteco dantzaac (Euscal-errijetaco... 87).

Baina piesta zaleen concienciaac oitura chaarren tintiagaz zetacatuta dago zan leguez, sacrilegijo bat, adulterijo bat, edo aitagarri ta amagarri bat osotu artian, beste castidadiaren contraco desonestidade nasaija ez dauquee pecatutzat (Euscal-errijetaco... 181-182).

¿Nortzuc dira, eureen jantzijan vanidadia, modia, indecencia ta luxurijaren convitgarrija daravileenac; ta auzuai cer esan ta cer pensau emoten deutseenac? (Euscal-errijetaco... 200).

Alperric jaguico dira nire contra galdugarri guztia (Icas-I, 57).

¿Ceimbat doncella argalec desapijau ditubee aguintarijac, erreguiac, verdigubac, carcelaac, laba gorijac ta penagarri guztia bildur bagaric? (Icas-I, 58).

¿Ta au sinistuta, Jaungoicuaaren gorrotuan egotia, peccatu mortalian vitzi izatia, ez da izan leitequian zoraqueriaric andijeena edo negargarriic andijeena? (Icas-I, 65).

-quizun: *¿Baina noc dauca onaco gauzaac cristinaubai eracutsiquizuna, cura jaunac baino? (Icas-III, 59).*

Nasaitasun au guztiau, dinot, edo obeto esateco, pecatutequi au guztiau ez escrupulutzat, ez compesaquizuntzat bere artuten ez ditubeenac dira plazaan piestia eguiten daveenac (Euscal-errijetaco... 53).

Cristinautzaco sinisquizunac, eguiquizunac, escaquizunac ta artuquizunac dira Eleisa guizonen lelengo eracusquizunac ta cristinauben icasiquizunac (Icas-II, III).

Ez dago verba bat, ez eguite bat bautismuan aparteco eracutsija ta artuquizun cerucua ta arimiaren oneracua ez daucanic (Icas-II, 69).

Obispo jaunac dira gueure arimen gurasuac, ardura andijac, cereguin andi jac ta contu emoquizun estubac dauquezanac (Icas-I, 211).

-queria/-eria: *Dacuscuna da, cristinau asco domeequiaren edo jai egunaren zain dagozala, pecatubaren nasaitasun guztiari jarraituteco. Nos ocasioia, nos joco gaistua, nos ordiquerija, nos desonestidadia, nos escandaluba (Icas-I, 155).*

Guraso arro ascoc, umen zazpi zortzi urteco pecatubac, lotsagalduco querija ac ta verba ezainac vanidadez contau oi ditubee, gauza andi batzuc balira leguez (Icas-192).

Bada, cristinaubac, munduco jaquiturija guztia Jaungoicuaren aurrera jaso ezquero, zoraquerija ta ezjaquite utsa baiño ez da (Icas-I, 42).

Beste aldeti, paltsaquerijac, engainubac, naastiac ta arpeguiera bi lagun artian darabiltzan cristinauba, ez dau inoc icusi gura (Icas-I, 44).

Escatu daijogun Jaungoicuari, emon daigula espiritu mantsua, espiritu bigu na, iraun andico gogua ta vijotza, gueure arerijuen prestuezquerijac ta azalqueri ja mingarrijac caridade santia galdu bagaric iragoteco (Icas-I, 243).

-guin: *Aingerubeen tristecia, virgineen ondamendija, adulterijoguina, lapurguina, gorrotoguina, zeloguina... (Euscal-errijetaco... 86).*

Marte guerraguina ondreetaco (Euscal-errijetaco... 141-142).

Erregue jaunac ta legueguinac ichi leguijue errijetaco gentiari piestaac ta dantzaac eguiten, pecatu diriana eurac jaquin arren, eurac pecaturic eguin baga ric, dino Santo Tomasec (Euscal-errijetaco... 147).

Eurac dira gueuri cer eguin biar dogun eracusteco ispilubac, gueure peligruben celatarijac, gueure concienzien jaubiac ta jaolaac, gueure pecatuben parca zailiac, pecatarijagaz Jaungoicuaren arteco baqueguinac (Icas-I, 211-212).

Ez dauca votoguina edopromesguinac escubideric, eguin daven promesa edo votua luzatuteco, ez beste gauza batera aldatuteco (Icas-I, 135).

Oraingo joeratik Frai Bartolomerenera badago alderik atzizkien erabilerari dagokionez. Harengan atzizkiak, batzuk bereziki, oso emankorrek dira, biziak; esaterako, *-garri*, *-kizun* eta batez ere *-gin* atzizkiei etekin aparta ateratzen die. Baina oraingo joerarekiko aldea hobeki ikusteko, esan dezagun "jazoera" ez duela erabiltzen forma eta adiera horretan. Horren orde "jazo" darabil izen gisa: *Jesus alta* -

racuaren jazo gozuac; / Jazo triste ta negargarri oneec eracusten deuscubez aim - beste eregec. "Jazo era" forma bai agertzen da noiz edo behin, "kasuak" esan nahi duela.

"Zaartzaro" forma ere ez da agertzen haren idazkietan; "zaartza" / "zaartzan" bai: *bagoz, inoren upaco ardaua edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac ta zaartzan, beneric ezinda, ezcontza guintziari emoten deutseenac (Euscal-errietaco... 54). Orregaiti nequez topeetan dira, gaztetati zaartzaraño beti adisquide izan dirian bi (Esku, 74). izango dira ceuben zaartza - co desondragarriac ta negargarriac ta ez guichitan condenagarriac (Icas-I, 196). Opa biar deutsegu gurasuai baquia, osasuna, vitzi izateco dicha ona ta zaartza lucia (Icas-I, 198).*

-tegui atzizkiak, ia beti multzoa edo taldea adierazten du eta ez tokia: *conví - dau teguijeen sartu eria edo etorri eria cristandadera (Euscal-errietaco... 145). Ez da, bada, sinistuten, abade teguija ta praile teguija juaten diriala piestetara edo eguiten daveela dantzan, gentiac esan gura leusquegun moduban (Euscal-errietaco... 169). Dena dela, "sutegui" eta "arrastegui" salbuespen gisa hartu beharko genituzke: *Atsuac badira, ta endamas seme alabaac an dauqueezanac, azerija ollua jaaten baino pozagoric dagoz plaza baztar bateti edo bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui guztian cansau bagaric (Euscal-errietaco... 69). ondo daquijeela, dinot, bai guizonac ta bai andraac, bai mutilac ta bai nescaac, dua - zan guztian luxurijaren sutegui ta ats ziquin au guztiau ta gueijago icusico dave - ena, entzungo daveena ta sentiduco daveena (Euscal-errietaco... 100).**

Atzizkiak, ia beti, tradizioaren arabera erabiltzen ditu. Esaterako, -gari-k eragile-adiera du tradizioan, eta hala darabil eta ez gaztelaniazko -ble atzizkiaren balio-kide gisa. Ikus goian jarri ditugun adibideak. -Kizun-ek etorkizunean burutzekoa den egintza adierazten du; batzuetan baita eginbeharra ere: *eguiquizuna* = egitekoa; *artuquizuna* = hartzekoa; *juanquizuna* = joan beharra; *compesaquizuntzat* = konfesatu beharreko zat... Hala ere, zenbait kasutan, atzizkiei eman ahal dutena baino gehiago eskatzen diela dirudi. Horrela, hitz bakan batzuk osaera bitxia dute eta ez hain erraz onartzekoa. Horrelakoak dira, esaterako, goian ageri diren *gaixo - cortzia, ill cortzia*, gaztelaniazko "enfermedad" eta "mortandad" adierazteko, ziur aski. Oraingo euskaldunontzat irensten zailago direnak ere baditu bat edo beste: *adilla* = adimena (adi/aditu + la) / *nailla* = borondatea, nahimena (nai + la): *acien - diaren gainian erabaguija emotera doian guizonac, adilla edo entendimentu arguija ta zurra, vorondate edo nailla arteza ta ondrauba*. Aldaerak ere badituzte forma hauek: "adilari" eta "nailaari": *Gueure arimia ta arimaco adilarija edo enten - dimentuba, ta nailaarija edo borondatia, ta gorputza bere sentidu guztiaquin Jaungoicuac gueuri duaric emonac dira*.

Beste batzuetan ongi asmatu duela esan behar; esaterako, "buruguin" hitza. Bere burua ederki gobernatzen duena, gaztelaniazko "vividor" esan nahi du eta bete-betekoa dirudi: *Eguija esateco, pena garrija da noberac nequez bere icerdi - jagaz irabatziata edo eguinda Jaungoicoz daucan gauzia, alper batec, buruguin*

batec edo codicijoso batec artuta eruatia (Icas-II, 104). Alperrerija da besteti gach ta oquererija guztien ama, alperra jaalia, alperra edaalia, alperra jocolarija, alpe rra asmotsuba, alperra castalarija, alperra buruguina ta alperra zorpagazaile cha arra (Icas-II, 105).

c. Zenbatzaileak

- *Bat* zenbatzailea ugari samar ageri da haren testuetan. Zenbatzaile honen oraingo erabilera gehiegizkotzat jo izan dute behin baino sarriago gure aditu askok. Alabaina, Bartolomeren erabilera, bizkaieraz mintzatzen diren euskaldun zaharrentzat, ez da batere bitxia horretan... Ez dugu zertan zehazturik hau, baina bizkaieradunon euskal senarekin guztiz bat dator gure karmeldarraren erabilera.

Era mugatuan ere egoki darabil: *Bada, batac eragozten ditu gurari batzuc ta bestiac beste batzuc (Icas-II, 244).*

Gurarijetati oratuten deutsa diabrubic guizonari edo emacumiari. Berac ira coi edo sortuten ditu gueure goguan gurari deungaac, batian bata ta bestian bestia (Icas-II, 250).

- *Bi* Bizkaiko joerari eutsiz, dagokion izenaren ondorik erabiltzen du, baina *bi* zenbatzailedun sintagmak erakuslea duenean, izenaren eta erakuslearen artean kokatzen du zenbatzailea:

Beste aldeti, paltsaquerijac, engainubac, naastiac ta arpeguiera bi lagun artian darabiltzan cristinauba, ez dau inoc icusi gura (Icas-I, 44).

Gauza bi escatuten deuscuz, bada, Jaungoicuac aguindu onetan (Icas-I, 152).

Alan, ez dira bat eguinac azqueneco aguindu bi oneec bestiaquin (Icas-II, 242).

- Zenbatzaile zehaztugabeetatik *batzuc*, *asco*, *guichi*, *ainbeste* (*onenbeste*), *ainbat* agertzen dira haren idazkietan; *beste ainbeste* esapidea darabil eta ez *beste orrenbeste*, egia esan, erakusleen artean hirugarren gradukoa erabiltzeko joera du; *asco*-k ekialdeko *aski* edo mendebaldeko *nahikoren* adiera ere badu harengan. Dena dela *naico* ere badator haren testuetan. *Zenbait*, oster, ez du erabiltzen. *Guejjenetan* adizlaguna erabiltzen du noizean behin, baina askoz ere sarriago singularrean, *guejjenian*. *Guichi* konparaziozko perpausetan maiz erabilia da, baina izenondo ere bada harengan testuinguru batzuetan:

Beste ocasinobatzuc guztientzat dira ocasinoiac (Icas-II, 276).

Senaile batzuc euren izatez aitu eraguiten davee, aguiri daveenaz gainera cer bait (Icas-III, 6).

Beste senaile batzuc, euren ez davee aguiri daveenaz gainera ecer aitu era guiten (Icas-III, 6).

Ta alan beste senaile aintzat artu asco (Icas-III, 7).

Sacramentubetan bagoz gauza asco, eleisa guizonai bacarric jagocuezanac (Icas-III, 5).

Alan beste ascoc, ezer bere ez dirian gauzac artuten dituvee diversinoetzat (Euscal-errijetaco... 28).

Asco = nahiko:

Beste ascoren artian ene Ama Santa Teresa bat da asco, mundu guztiari ale - guere izaten eracusteco (Euscal-errijetaco... 23).

Ez da asco aobetian esatia, plazaco naasteco dantzaac avemarijetan gueratu - ten dirianac, tambolina isilduta useetan dirian moduban edo eguiten dirian moduban, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala, errazoagaz proveetan ez bada (Euscal-errijetaco... 44).

Inoc eguingo baleu promesa ez jaquinian, erromedija egunian santuba edo santia visiteeco, uste dot egun atan esan dan moduco piesta ta dantza nasaija an eguitia asco dala, promesa beste egun bateraco isteeco, ocasinoera ez juatia gaiti (Euscal-errijetaco... 108).

Ezcondu asco, celan ezcondu, alan vici, baque chaarra, gozo gaistua, celo minverac, alcarren gorrotua ta cer esana naicua echian dauqueela (Icas-III, 328).

Impernubac inos esaten ez daven leguez: naicua eguin dot edo asco da, ezba - da beti dagan leguez esque ta tiraca, alan, dino santubac, daguala codicijotsu - baren vijotza inos diruz naicotu bagaric, beti esque ta beti tiraca (Icas-II, 127).

Tratu utsa bere, lagundu bagaric, sobre da liorra, lapurrari naicua eraguiteco (Icas-II, 128).

Imini daigun exemplu bat, ta ez guichitan jazoten dana (Icas-I, 9).

Ta au gaiti dagoz cristinau guichi, Jaungoicua bene benetan ameean davee - nac (Icas-I, 39).

Ta oraindino guichiago nai dau, bere eche aberatsian sartu daquijon guraso pobria (Icas-I, 50).

(guichi izenondoa): Orduban alaco votozco gauza guichi á ez eguitia, pecatu arina edo veniala da (Icas-I, 136).

Beste pecatubac onegaz bat eguin ezquero, gauza guichija dira (Icas-I, 142).

Maldecinoia bada gauza guichijan, vorondate gaisto bagaric, adrede esaten davela edo cer esaten daven ez daquijala ta entzuten daveenac escandalizau baga - ric, ez da esaten beinguan alaco maldecinoia pecatu mortala dala (Icas-I, 146).

¿Ez dagoz asco, bai guizonac ta bai emacumiac, edozein naibague jazoten jacuenian, gauza guichija bada bere, auan artutia merceduten ez davena bada bere, maldecinoeca luurrari icara eraguiten deutseenac? (Icas-I, 147).

Ainbat eta ainbeste ugari darabiltza, baina onenbestehiru bat aldiz baino ez da agertzen; bitan konparaziozko perpausa da, onenbestebaino ... -ago egiturakoa:

Au da lagun bic edo guejagoc alcar artutia, eurac bacarric salduteco dau - queen gauzia, onenbeste baino merquiago batec bere ez salduteco (Icas-II, 118).

Edo da alcar artutia, eurac bacarric erosico daveen gauzia onenbeste baino goraago batec bere ez erostec(Icas-II, 118).

Ta onenbestegaz, iracurlia, aintzat artuten banozu, zeure adisquidetzat neur e buruba ezaututa, esquintzen deusut vijotz prestubagaz (Icas-I, X).

Ainbeste-*ren* antzeko testuinguruetan ageri da *allaguina* ere, baina badu ñabar-duratxo bat: *hainbesteraino*, *horrenbesteraino* edo antzeko adiera du, gaztelaniaz-ko "hasta tal punto", "hasta tal grado":

¿Cec, bada, allaguina engainau ta itsutu ditu ceubeen umiac? (Icas-I, 14 serm.).

¿Cec allaguina engañau ta itsutu ditu, bada, ceuben seme alabaac? (Esku, 249).

Zenbatzaile zehaztugabeekin zerikusia dutenak dira kopurua adierazten duten zenbait izen, esapide bihurturik eta adizlagun nahiz izen legez erabiltzen direnak: *apur bat*, *pusca bat*. Bartolomek sarri darabil azken hau; batzuetan adizlagun legez eta beste batzuetan izen legez:

Pusca bat eguiten asi ezquero, gueijago gura dozu (Icas-I, 158).

Inudiac subaren onduan ichi evan seina ardura guichigaz ta erre jacon arpe - guija pusca bat (Icas-I, 190).

Estomaguco gacha gaiti ta bere sarritaco gaixuac gaiti edan daguijala ardao pusca bat, esaten deutsa (Icas-I, 269).

Baina bein pusca baten baino ez eban Santia inoc icutsi triste (Euscal-errijeta - co... 23).

Eurac esan oi daveen leguez: ija pusca bat ardauc alegueretuta (Euscal-errije - taco... 48).

- *Gutziz, chito, entero* darabiltza maila adberbioen artean; ezezko perpausetan *bapere...* (*ez*) darabil. Hau kategoria gramatikal ezberdinetakoa izan ohi da, testuinguruaren arabera: aurrekoak bezala, maila-adberbioa, izenondo nahiz aditzondoari dagokiola; aditzondo, aditzari dagokiola eta azkenez, izenordaina. Maila-adberbioak, jakina denez, izenondo eta aditzondoekin agertzen dira. *Entero* maila-adberbioaz gain, adberbio edo aditzondo ere bada noiz edo behin. *Oso* eta *chit* behin bakarrik agertzen dira obra osoan barrena; azken hau eskuizkribuko bertsoan. Euskal Herriko mendebaldean gaur egun hainbeste erabili ohi den *osoez* du erabiltzen behin ere zentzu horretan. *Sobre* formak ere honen antzeko erabile-*ra* du; maila-adberbio izan daiteke nahiz adberbio soila:

Sermoe guztiz orraztu baten zatijac ta zatijeen zatijac ezbadaucaz bere; izate oin onecua, ituraco sailaren zucentasuna, errazoiaren indarra, ta eracutsi elduba ez ditu palta (Icas-I, VII).

Jaungoicuaren legue santuba guztiz da errazuazcua, zuzena, erraza ta guere oneracua (Icas-I, 20).

Orduban adoretan dau ta alaveetan dau Jaungoico guztiz ona (Icas-I, 31).

Gurasuac jaquin biar davee, / chit ondo daveela merecidu, // Vmiac gaisqui azi ezquero, / Isilic egon ta padecidu (Esku, 262).

Au chito gauza ona da, jai santuba gordeetaco (Icas-I, 182).

Seme alabei gurasuac zor deutesen aziera onaren contra ta chito deungaro eguina da, lau bost urtera eldu ezquero edo leenagoti, umiac eurequin oian era - tzotia (Icas-I, 191).

Beste auzo inguruco ta errico contu guztia, ta bai asco onac ez dirianac bere, icasten ditubee umiac ziatz ta chito laster (Icas-I, 193).

Batzuetan entero adizlaguna da eta ez maila-adberbioa. Bigarren adibidean, esaterako:

Icusi citubanian guztia luxurijac bere mendian ta esanian, entero verba leu-naquin ta gera bigunagaz esan eutsen guztiai ta bacochari, celan bera servidu biar even (Icas-II, 20).

Ta au gaiti nai davela entero diabrubac, lotsarizco pectubac guc eguitia (Icas-II, 41).

Entero contu gogorra, dino, artuco jacuela juezai (Icas-II, 165).

Descuiduan izan arren bere, ustez uste bagaric izan arren bere, bere ardura bagatasunez ta osoro beguiratu ezaz eguin badau erijotzia, pecatu da (Icas-I, 238).

Tratu utsa bere, lagundu bagaric, sobre da liorra (Icas-II, 128).

Nundi eta celan oi dirian piestaraco jantzijac eta galaac emacume ascoren soi - nian, sobre daqui mundubac (Euscal-erijetaco... 58).

Ta orregaiti bapere obaac ez dira (Euscal-erijetaco... 155).

Aita edu eguindaco seme alabac dagoz asco, dotrinaric bapere sustancijaz ez daquijenac (Esku, 216).

- Zenbatzaile orokorrak. Guztia ugari ageri da haren obran barrena, singularean eta pluralean, dagozkion kasu-markekin; erakusleez jardun dugunean esana gelditu da hauen eskuinean kokatzen duela guztia, batzuetan honen ondoren era enklitikoan erakuslea bera errepikaturik. Osoa, guztia-ren adieraz erabiltzen du, baina zatiari kontrajarria. Dana, bere esanahi etimologikoan izan ezik ez du erabiltzen; hau da, Biblian Jahweh agertzen den adieran dakar. Alde bakarra, Jainkoak Biblian lehen pertsonan agertzen duela bere izaera, bera nor den: Ego sum qui sum, eta hemen hirugarren pertsonan datorrela; hau da, ez nazana, dana baizik. Pluralean ez du erabiltzen danac, dirianac baizik. Guztiak eta dirianac testuinguru berdintsuetan datoz batzuetan; beste batzuetan, berriz, hura izena ezkerretara duela agertzen da, eta hau bakarrik. Ikus ditzagun adibide batzuk guztietarik:

Berez da dana Jaungoicua, ez inoc emonda (Icas-I, 62).

Ta dirianac topauco dituzu Jaungoicuagan. Dirianac daucaz Jaungoicuac berez. Ta daucaz, bera ameean daveneentzat. Adisquide oso baten condecinoe guztia daucaz Jaungoicuac (Icas-I, 41).

Munduban dagozan guizon eta emacume guztiac, entzute andija dauqueenac ta bapere ez dauqueenac, ondasun andijac dauqueezanac ta ateric ate esquian davizanac, destierruban dagozanac eta tronubetan jarrita dagozanac, dirianac bardin estimeetan ditu ta bardin ameeetan ditu Jangoicuac, eurac bardin ameeetan badabee (Esku, 65).

Bedeincatu cituban dirianac, esanagaz: Azi zaitez ta gueitu zaitez (Icas-I, 11-12).

Eleisa Ama santiaren catecismuac, batzaarrac ta gurasuac ao bategaz diria - nac esaten davee, domeeca ta jai osuac ez diriala, ez alperrerijaco, ez ordiquerija - raco, ez jaate laarreguijetaraco, ez probeetaraco, ez desapijuetaraco, ez comedije - taraco, ez saraubetaraco, ez biguiretaraco, ez olgueeta naastaubetaraco, ez mun - duco vanidade ta nasaitasunetan iragoteco (Icas-I, 179-180).

Envidijac gura evan, dirianac orituta, sicututa, igartuta egotia. Gulerijac, ezta - arriraguino beteta, aseta guztiac egotia (Icas-II, 18).

Juan cirian dirianac luxurijaren aurrera ta aguindu eutsen, berari obeiduco eutseela beti (Icas-II, 20).

f. **Izenordain zehaztugabeak**

Izenordain zehaztugabeetatik, besteak beste, hauek agertzen dira: *nor* (*cein*), *zer*, *norbait*, *cerbait*, *nobera*, *inor*, *ecer*, *bapere*... *Edocer* behin dator Eskuizkribuan, baina ez izenordain legez, determinatzaile legez baizik: "edocer gauza". Eskuizkribuan agertzen da bi edo hiru aldiz *cer* edo *cerizenordain* zehaztugabea ere. *Nornai* / *zernai* ez dira agertzen...:

Ez nor dan, ez cetaraco dan daqui (Icas-I, 270).

Mendi luce, astun, lapur lecu bat diru ascogaz irago biar davenac zur entzu - ten dau, mendi atan lapurac nor galdu daveen ta celan galdu daveen; nor lapu - rreetati librau dan (Icas-II, 55).

Cer eguin daveen, araguijaren galdu bideti jausi bagaric irago dirianac (Icas-II, 55).

Pensetan badau, Jesus nor dan, Jesusec cer esan daven, cer eguin daven, cer eracutsi daven, cer aguindu daven, cer esquini daven ta cer escatuten daven pen - setan dau (Icas-II, 89-90).

Ta cein dan guzurraren aita (Icas-II, 174).

Gueijenian gurasuac obeto daquije seme alava gaztiac baino, cein dan eurai onduen juacuen laguna (Icas-III, 354).

Ez neuc asco icusten ez deusadazalaco, ezpada bestiac cein paltazat euquico daveen ez daquidalaco (Esku, VII).

Arerijua izan arren ta norbait gueuri calte eguin guraric ibili arren, zor deu - tsagu vorondate ona, Jaungoicuac aguinduten davelaco (Icas-I, 105).

Ta laugarrenian errazoe gueijagogaz, nobera edo norbait pecatuco ocasinoti libreetaco biar danian (Icas-I, 112).

Onaco maldecinoiac ezarten jacz arerijuari, cerbait esan deusnari, cerbait oostu deusnari nai lagunari (Icas-I, 147).

Amaren sabelian daguan seina galduteo cerbait eguitia (Icas-I, 250).

Escatuten deutseet guztiai, au iracurri, noberari ezbujuaco leguez naasteco dantzai beguiratu ta dantzarijac ondo ondo esaminau artian, ez naijela simplezat euqui (Euscal-errietaco... 11).

Baina ez guichituta, mudauta, noberac gura daven moduban, ezpada Jaungoicuac ta Elesia Ama Santiaren espiubac eracusten daven moduban (Euscal-errietaco... 12).

Olgueetia da, noberaren cer eguin nausijai ta obligacinoiai ichita, goguac escatuten deusn beste gauza baten demporia iragotia (Euscal-errietaco... 14).

Inor izenordaina, ezezko nahiz galderazko eta baiezko perpausetan erabiltzen da; ezezkoetan, bere lagun duela dator maiz; baiezkoetan, norbera ez den norbait adierazten du:

Inos bere ez olgueetia ta inor olgueetan ez icusi gura izatia, diñue Santo Tomasec ta San Franciscoc, dala vijotz gogorraren, baso usainecuaeren ta galdu - baren señalía (Euscal-errietaco... 18).

Nai davenac jocuan eguiteo echia edo lecuba gau ta egun prest euquitia, pecatuzat condeneetan davee eracuslaac San Carlos Milanguagaz, inori pecatu eraguiteo ocasinoia dalaco (Euscal-errietaco... 30-31).

Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardaa edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac ta zaartzan, besteric ezinda, ezcontza guintziari emoten deutseenac (Euscal-errietaco... 54).

Guztiac daquijeen ta escatau ezin dozun pecatu bat eguiten badau ceur e semiac edo alaviac, aren erruba ber e inori ezarten deusazu (Icas-I, 15, serm.).

Inor erabili beharrean ezer erabiltzen da pertsonaz ari ez garenean; partitiboa eskatzen du batzuetan, eta honen orde besteribait erabiltzen denean ere, partitiboa lagun duela agertzen da sarri, ondorengo bigarren testu-atalean ikus daitekeenez:

Ecer badauca onic, ceuria da esquina guztietati. Bestia neuria (Euscal-errietaco... 3-4).

Gauza onic badauca, Jangoicuari esquerrac emon; bapere ezpadauca, inori bere ez (Esku, VII).

Verbeeta onetan ecer gueituta ez daguana, piesta zale guztiac daquijee (Euscal-errietaco... 55).

Ecer bere ezdot esan gueituta (Euscal-errietaco... 74).

g. Determinatzaile zehaztugabeak

Ez ditu zeinai / zeingura, zernai / zergura erabiltzen. Azken hau Bizkaiko mendebaldean erruz erabilia da. Zein, zer, edocein, edoceragertzen dira haren testuetan.

Zein eta zer, determinatzaile zehaztugabeak ez eze, galdetzaileak ere izan ohi dira:

Baina ez daquit, neure entzula onac, cein aldetara beguiratu, nun topetan ez dituban Teresaren eguite santubac ta mirarizcuac (Icas-II, 298).

Erreguen soldaubac darabilezan leguez seinale aguirijac cein ce erregueren soldau dirian ezaututeco, alan Jesucristoc marcau ta seinaletan ditu ariman ber e soldau cristinaubac bautismuagaz, beti, dagozan lecuban dagozala, ezagun izan ditezan (Icas-III, 70).

Beguiratu daigun bada, cristinaubac, cein videtati guazan (Icas-III, 183).

Baina aituten emoten dau cein dan ceruraco vide segurubagua, cein dan seguruba ta cein dan peligrucua (Icas-III, .

Ainguerubac cein egunetan Jaungoicuac criadu cituban, ezdavee bardin era - custen maisu guztiac (Icas-II, 12).

[...] ta despeidaan dantzarijen errazoiac ce entzute merceduten daveen (Euscal-errijetaco... 45).

Mundu guztiac daqui, edade atan ce cereguin ta lan andija dan, ixioquiya suba - ri urreratu bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac goitutia (Euscal-errijetaco... 47).

Lecu ascotan esaten deuscu Escritura Sagradubac, ce condicinoetacuac dirian naasteco dantzaac (Euscal-errijetaco... 75).

Ta icusi daigun ce indar dauqueen dantza zaleen urteneraac edo argumen - tubac (Euscal-errijetaco... 132).

Ta ez au beste gauzagaiti, ezpada bacoachac bere idiagaz libertade gueijago daucalaco edocer gauza esateco edo eguiteco (Esku, 90).

Au gaiti olguetiaren gainian verba eguiten danian, alderatu biar dira uts egi - teco esquina bijac, beste edocein gauzatan leguez. Bata laarreguija ta bestia gui - chijeguija (Euscal-errijetaco... 13).

Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat (Euscal-errijetaco... 140).

Abadentzat ta prailentzat bere baguala impernuba, gaisqui eguiten badabee ta escandaluba emoten badabee, beste edocein pecatarir entzat leguez (Euscal-errije - taco... 167).

“Zein” eta “edocein” izenordain legez ere erabiltzen ditu; *edoceinec daqui* eta antzeko esamoldeak erruz datoz haren testuetan...

h. Aditz-multzoko partikula modalak

Egia esan, sail hau eta ondoren datozen biak ere sintasiarekin estu-estu lotuak dira, eta morfosintasiaren barruan sailkatzea zatekeen, agian, bidezkoena; baina hemen gure xedea batez ere gure idazleak darabiltzan formak ongi bereiztea da batez ere, eta esaldietan hartzen duten tokia etab. bidenabar aztertzen ditugu soilik...

Aditzaren ñabarduraren bat adierazten dute partikula hauek: *oi, ei, ete, al* Bartolomek, aditzaren ohikotasuna adierazteko *oi* partikula darabil. Hau, gure

oraingo ohituraz aditz trinkoekin ez da hain erabilia, baina Bartolomek dotore agertzen ditu "oi darraico" eta antzekoak. Gauza bera "oi ditubee", "oi dira", eta ez "izan oi ditubee", "izan oi dira"... Nekez itzurtzen zaio lumatik J.A. Mogelengan ia normala den *darua* adizkia; behin dakar soilik adizki hori, Eskuizkribuko esaldi batean:

Orregaiti ascoc esan darue adisquide pobrerir ez daveela gura (Esku, 67).

Ta ain guichi, pecatubac eta pecatuzco gauzaac munduco zoruai emon oi deutseen contentuba edo alegrija gaiti (Euscal-errijetaco... 25).

Juicijo on baten erreguela pera ecarri leguizan ta casic gueijenac nai oi ditubeen olgueetaac dira jocua, eitza, pasiu, soinuba ta dantzia (Euscal-errijetaco... 28).

Soinubari oi darraico dantzia (Euscal-errijetaco... 33).

Ez oi da ezcaratceco suba baino beste arguiric, ta bera bere ez beti ixiota (Euscal-errijetaco... 110).

¡Oh, dantzaric dantza, piestarc piesta, erromedjaric erromedija, biguiraric biguira ta sarauric sarau nesca ta mutil, andra ta guizon naaste gau ta egun oi zabiltzan moduban ibilita, pecaturic eguiten ez dozun bedeincatuboc! (Euscal-errijetaco... 179).

Eurac esan oi daveen leguez: ya pusca bat ardauc alegueretuta (Euscal-errijetaco... 48).

Ez, gueratu oi dalaco piesta egunic erdijectan ta guichijagotan ber e (Euscal-errijetaco... 71).

Ei partikula erabiltzean, hiztunak ez du beregain hartzen esaten duena, inori edo hor zehar entzundakotzat adierazi baizik:

Eurac edo euretati ascoc esaten ei davee, castidadia gordetaco aguinduco ez baleu Evangelijo santubac, viurtuco litzaatequezela Jesucristo gueure Jaunaren Eleisara ta sinistute eguijzcora (Icas-II, 50).

Ez daquit norbaiti bere garbatu ei jacola... (Icas-III, 329).

Oraindino ez ei deuscu atan ichico... Jesus, ce miina daucan... (Icas-II, 211).

Ete partikulak galderazko perpausari zalantza-kutsua eransten dio:

Contu amaituba ez bada, ez da juzguba; ez bada izango da dudia edo sospeschia. Alan ete dan bildurra (Icas-II, 217).

¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? (Icas-II, 250).

¿Nos aspertuco ete da araguizcua gorputzaren gustoz? Zaartuta bere ez (Icas-II, 250-251).

Bildur nas, asco vici ete dirian itsu itsuban edo zoro zororic condenetaco vidian (Icas-III, 138).

Beste batzuc: ¡Euquico ete dau Jaungoicuac gugaz misericordija! ¡Viurtuco ete gaitu bere argui santura! ¡Cer izango ete da gugaz! ¡Ce sentencija entzungo ete dogu bere aoti! ¡Aurreratuten ete dogu ecer onan! ¡Entzungo ete deuscu Jaungoicuac! (Icas-III, 180).

¡Al partikulak, idazle honengan, guraria adierazten du eta madarikazioak zer diren eta horretarako erabiltzen diren esaldiak adieraztean agertzen da batez ere; zehar estiloan hemen:

Diabrubac eruan daguijeela; Jaungoicuac parcatuco ez al deutsalā; Impernuban erretan egongo al dala; Ceruban sartuco ez al dala, ta beste arimia - ren gacha escatuten daveen verbaac (Icas-I, 144).

Ilgo al dala; itoco al dala; vitziric pausuric eguingo ez al davela: oeti jaguico ez al dala; voticaco gaistotan artuco al davela; miñac urtengo al deutsalā; gozo onic izango ez al davela; su gaistoc erreco al davela... (Icas-I, 144).

plaguiaaren icena, barrabasa, arrajua, diabruba, vitziric etorrico ez al dala, itoco al dala... (Icas-I, 14, serm.).

i. Juntagailuak

- Perpausak eta perpaus barneko elementuak lotzeko *ta / eta* erabiltzen ditu; lehenengoa sarriago. Bere idazkeran, koma batez ezkerreko hitzetik bereizirik darabil.

- *Edo* eta *ala* lokailuen bereizketa nahiko garbia da; joera, behintzat, argi dago. Bildutako adibide hauetariko batzuetan ikusten denez, iritziz batean, hark jaten dio tokia honi; honelako batean, *ala* lokailuarekin hasten da, baina ondoren *edo*-ra pasatzen da... (*ala ezcondubagaz, edo senidiagaz, edo senide ezcondubagaz*). Dena dela, gramatikariek diotenez, bien arteko lehia *edo* beti omen da zilegi, baina ez alderantziz. Beheko adibideetan ageri denez, *edo* hori elementu ezberdinen lokailu da:

a) hitz sinonimo edo antzekoen artean erabiltzen du: *guizonaren anditasuna edo noblecia*.

b) bata-bestearen antzeko esaldi-atalen hasieran nahiz segidako elementuen artean ezartzen du: *edo gauza naastaubac dirialaco, edo verba ezainen batec aoti urten ez daguijuen bildurragaz ... // edo ondraan, edo aciendan, edo beste gauza balijocoren baten*.

c) nolabaiteko kontrastea duten elementuen artean darabil: *Gauza ona edo chaarra // alde batera edo vestera*. Horrelakoetan, oraingo zenbait idazlek *nahiz / zein* erabiliko lituzkete. Bartolomek ere badarabil esaldi honetan “*guizona nai emacumia*”, baina gehienetan, “*guizona edo emacumea*” idatziko du.

Zehargalderazko perpausa honetan, oraingo joeraz behintzat *ala* zuzenago zirudienean (?), *edo* jartzen du: *contuba euqui biar da, compesinoian autortuteco ezconduba dan, senidia dan, pertsona consagrauba dan, edo garbitasuneco pro - mesduna dan, ta lecu sagraduban dan edo ez dan*. Hona zenbait adibide, testuinguru osoan:

Ta ara emen, neure entzula onac, verba guichitan aituten emonda munduba - ren asieria, guizonaren anditasuna edo noblecia ta gueure sinistutiaren edo cris - tindadiaren balijua (Icas-I, 19).

Pensamentuba edo burutacinoia edo gogoracinoia guztia da bat (Icas-II, 78). [...] edo gauza naastaubac dirialaco, edo verba ezainen batec aoti urten ez daguijuen bildurragaz, edo Erromaco Catecismuac dinuan leguez, erremedijuaren lecuban verenua zabaldu ez daquijen arduraz (Icas-II, 67).

Bere buruba illten davena, edo dago zoratuta, cer eguiten daven ez daquijala, edo dago desesperauta, diabrubac indarra ariman artuta (Icas-I, 257).

Baina ascoc pensau leguijee vanidadiaren uts eguite bategaz, calte andi bat eguin deutsunari, edo ondraan edo aciendan edo beste gauza balijocoren baten, opa izan leguijola illtia. Edo menturaz ill bere eguin leguijala alaco arerijo deun - guia (Icas-I, 245).

Gauza ona edo chaarra, berac nai davena eguiteco libertadiagaz Jaungoicuac eguin davena da (Icas-I, 15).

Aingerubai ezjacue emon bein ondo edo gaisqui eguinagaz garbatuteco ta erremedijetaco libertadia (Icas-I, 16).

Aixiac alde batera edo vestera ontzija itzuli gura davenian boteetan deutsa ichaso guizonac ontzijari ancoria, itzuli ez dedin ta pirme euqui daguijan ontzija (Icas-I, 37).

Bada, ardauc ecarten badau guizona nai emacumia, edanda eguanian cer esan evan edo cer eguin evan vijamonian gomutau ezin dan edura (...) (Icas-I, 272).

Oneec bere compesau biar dira, ala ezcondubagaz, edo senidiagaz, edo seni - de ezcondubagaz eguin ziriana (Icas-II, 70).

Esan dirian castidadiaren contraco pecatu modu guztietan, contuba euqui biar da, compesinoian autortuteco ezconduba dan, senidia dan, pertsona consa - grauba dan, edo garbitasuneco promesduna dan, ta lecu sagraduban dan edo ez dan (Icas-II, 73-74).

Azquenian, ala seina eguin evan; ala inoren cleitu galdubaren sarija artutera eguin bagaric beste mundura juan zan, ez daquigu (Icas-II, 192).

Zuc esaten dituzun proximuaren palta orreec, guzurrac ala eguijac dirian ez daquigu; baina ceu murmuradoria ta gaisqui esalia zariana, zucen dacusgu (Icas-II, 199).

¿Celan juzgauco dau laguna deunguia dan ala ona dan? (Icas-II, 229).

- Bere, aurreko atal batean adierazia dugunez, osorik idazten du beti; inoiz ere ez be era laburtuan. Esaldian nola darabilen eta kokatzen duen erreparatuz, horretan maisua dugula ohartzen gara. *Baita / ezda* esaldi hasieran jartzen duenean bere azkenean jarriko du beti, bien artean gainerako elementuak ezarriz. Oso ugari darabil eta hainbat testuingurutan:

a) Izenordainekin: *Ecer bere ez (Icas-II, 292). // Ez dago inor bere curutce baga - ric, ta ez da egongo bere (Icas-III, 370) // Jesucristo gure Jaunac berac ichi euscuzana sacramentu santubac, inoic bere ucatu ezin legui, pedian faltau bagaric (Icas-III, 7). // Entzun eguizu guztioic zurtasun guztiagaz, ecer bere oquer aitu ez daguizun (Icas-III, 197).*

b) Erakusleekin: *Oneec bere izaten dira modu bitara (Icas-III, 145). // Ta, Espiritu Santubaren gracjaz beste mirarijac eguin dituban leguez, au bere Jaungoicuac berac eguina dala (Icas-III, 201).*

c) Zenbatzaileekin: *Ez davee gachac atceratuco pausu bat bere eguitade andi - jetan (Icas-II, 293).*

d) Hainbat eratako adizlagunekin: *¿Ta, ceinbat pecatari inos bere juan baga - ric, illgo cirian (Icas-III, 11). // Orduban bere ez jacoj parcatuten pecatubac (Icas-III, 144).*

e) Partizipioa ezkerrean eta gainerako aditz-elementuak eskuinean dituela: *Ta icusi bere ezin guinai, espirituzcua dalaco (Icas-III, 6).*

f) Adiera aldetik markatuak diren izenekin: *Guizonen ta aingueruben jaquitu - rija bere ez da elduten gauza au ondo ezaututera (Icas-III, 10). // Cainec bere autortu cituban bere pecatubac. Saulec bere bai. Antiococ bere bai. Judasec bere bai (Icas-III, 138). // Jaungoicuac bere esanac dira (Icas-III, 196). // Jesusen gorpu - tza jaten davena ta odola edaten davena, Jesusegaz beragaz daguala ta Jesus bere bere bai jaten davenagaz (Icas-III, 203).*

g) Baiezko perpausetan baita eta ezezkoetan ezda partikulez hasten direnekin: *Ez egujezu chacurrai bota gauza santuba; ezda joija ederrac bota bere lau oine - cuen artera (Icas-III, 3). // Baita judegubac jan biar evene pazcuaco bildots garbi - jagaz bere (Icas-III, 191). // Baita nos gueratu zan bere guizonaren janaritzat alta - raco sacramentu santuban (Icas-III, 194). // Ezda ule oquertubac veguijetan ditu - bela bere; non crinibus inaniter intortis. Ezda arpeguija berarijaz coloretuta bere; non fisco, aut pigmentis vultu illito. Ezda bularrac aguirijan bere (Icas-III, 216). // Ez sartu ain lecu loijan Jesus garbija. Ezda iruntsi bere comunioe chaarragaz, ceubec condenetaco sentencija (Icas-III, 236).*

h) Orregaitino juntagailu adbertsatiboarekin (hala eta guzti ere... edo antzeko adiera du): *Ta orregaitino bere esquer andijac zorco gueuntsazan Jesus gueure Salvazaille maitiari, zan moduban zala, costetan zana costetan zala ta bere, sal - vetaco vidiac prestau euscuzalaco ta ceruco ate santubac edegui euscuzalaco (Icas-III, 11). // Baina orregaitino bere esaten davee Eleisaco Eracuslac (Icas-III, 136).*

i) Determinatzaile zehaztugabe batzuekin edocein, inoren... Kokapena bitxi samar gerta dakiguke, agian. Eskuizkribuan ageri dira batez ere honelako formak, baina Icas-I-ean ere aurkitzen ditugu banaka batzuk: *Ta au edocein bere ardao generogaz (Icas-I, 272). // Inoc bere ucatu ecin lei, neure cristinaubac, orditutia pecatu dana. Ta ez edocein bere pecatu, ezpada pecatu ezaina, lotsarizcua ta chito Jangoicuaren gorroto andicua (Esku, 292).*

¿Noren bildur zan ene Santa Teresa impernuco demonino guztiac desapijetan zitubanian Santo Cristo bategaz? Inoren bere ez. (Icas-I, 58). // Onetaraco gogora - tu biar dogu, Jaungoicuac ez daucala inoren bere preminaric (Icas-I, 62). // ez daucagu cetan bildurric euqui inoren bere. Jangoicuaren adisquidia banas, libr e nago arerijo guztietati (Esku, 70).

- *Baita* / *ezda* kopulatiboen erabilera lerro batzuk gorago ikusi dugu, *bere* lokailuarekin batera. *Baita* horrelaxe idazten du, *ta* ezkerrean duela nahiz hainbarrik. *Ezda*, berriz, aldaketa fonikorik gabe eta loturik nahiz bereiz.

- *Bada*, perpausak lotzeko erabiltzen den lokailu ilatibotzat ageri zaigu gramatiketan, baina gure idazlearen erabileran, kausazkoa ere izan ohi da; euskara mintzatuan erabiltzen den *ze* edota idatziz gehiago agertzen den *ezen* lokailuen hariakoa; horrelakoetan, aurrez esandako zerbaiten azalpena edo arrazoia ematera dator. Bartolomek puntua jartzen du, eskuarki, aurreko esaldiaren amaieran, baina haren jarraikoa izan ohi da lokailu honekin hasten dena. Ilatiboa denean, ordea, ez du perpaus hasieran jartzen, beste sintagmaren baten jarraian baizik; hortaz, hurrengo adibide hauetatik lehenengoa eta laugarrena ilatiboak dirateke; bigarrena eta hirugarrena, kausazkoak:

Emon eguijozu bada, Jesus Maitia, Neurrizco Gatz-Ozpin oni ceure amodijua ren su vitzija, ixio ta erre daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac ta sortu daguijan gueure arimeetan ceure vildur santuba ta gracija (*Euscal-errijeta* - *co...* 5-6).

Bada, izanic euscal errijetaco gentia cristinautasun andicua euren tratu, artu emon ta eguitade guztietan, dira chito nasajac euren olganzaco dantzeetan (*Euscal-errijetaco...* 10).

Bitzubic uts eguiten davee. Bada, ez olgueeta guztia dira onac, ez guztia dira chaarrac edo pecatuzcuac (*Euscal-errijetaco...* 17).

Errazuazco olgueetiac, esaten da bada, ez dabela eragozten Jaungoicua servi dutia (*Euscal-errijetaco...* 20).

- *Begaz* lokailu ilatiboa da. Argudio baten ondorioa markatzen du; silogismoetan erabili ohi den latinezko “*ergo*”ren harikoa. Esana dugu horrelaxe idazten duela beti, eta ez *beraz*. Perpaus hasieran nahiz perpaus parte baten hasieran kokatu ohi du :

¡Oh sacerdote jaungoicotuba! ¡Begaz, ceure zain dagoz munduco pecatu guztien paracinoiac? ¡Begaz, ez dau Jaungoicua ceruban parcatuco, sacerdotiac munduban parcatuten ez daven peaturic? (*Icas-III*, 297-298).

¡Begaz, esango dozu, beti esan biar dogu eguija? ¡Begaz, esan biar ez dan gauza bat inoc itanduten badeuscu bere, esan biar deusagu? (*Icas-II*, 179).

Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo lituqueez guztiz; ez dira guztiz quenduten; begaz, ez dira deungaac edo pecatuzcuac (*Euscal-errijetaco...* 137).

- Juntagailu adbertsatiboen artean badira Bartolomek bere-bereak dituen hiru edo lau: *baina*, ...*baino*, *ezbada*, *ezpabere*. Azken bi hauetatik esana dugu, antzekoak izan arren, ez dutela adiera berbera (ikus 238-239.or.).

Baina juntagailuak ez du ezer berezirik, ez forma aldetik, forma estandarra baita (ez *baie* / *baia* Bizkaiko mendebaldean legez), eta ez kokapen aldetik.

Ez ece nahiz *ecesoilik* darabil, “no solo... sino también” adierazteko:

Baino, beste euskalki batzuetako *baizik*, *bestetik* izan ezik juntagailuen hari-koa da. Testuinguru askotan bera bakarrik erabiltzen du eta beste batzuetan eskui-
nean *bestetik* lagun duela. Molde ederreko esaldiak lortzen ditu honekin:

*badator deunga bat neu illtera ta librau ezin badot neure vitzitzia aren escu
gaistuetati bera illda baino, ez da pecatu á illtia (Icas-I, 239).*

*Baina eguno gauza on bat eguin ez baleutscubee bere gueure gurasuac, sor -
tutia ta eguitia baino: gurasuac dira ta gurasuac dirialaco zor deutseegu: 1.
Maitetasuna. 2. Ondria. 3. Obeidutia (Icas-I, 199).*

Compesore batecbaino bestec inoc bere ez luurraren gainian (Icas-I, 213).

Andijagua escatu baino ez dauca (Icas-I, 233).

*Escubac eta oinac ebaguita, gorputza moztuta baino ez bada bere, vitzi gura
dau guizonac (Icas-I, 238).*

Ezbada: "...baino", "baizik" juntagailuen hari-koa. Ondorengo egitura hau izan
ohi du perpausak: *ez...*, *ezbada...*:

*Ez bein bacarric, ez egun baten, ez urte betian, ezbada eureen dempora guz -
tian (Icas-I, 24-25, serm.).*

Ez gueuc uste dogun moduban, ezbada dan moduban (Icas-II, 30).

*Baina ez berac aguinduta, ezbada bere amodijua gaiti gueuc nai dogula.
Gueuc auqueratuta (Icas-II, 87).*

Ezpabere "bestela", / "osterantzean" / horrela ez bada; (gaztelaniazko `de lo
contrario`) esan nahi du:

*Astian bein, ta ascotan gueijagotan mezia entzun biar dogu, al izan ezquero.
Ta ezpabere pecatu illgarrija eguiten dogu (Icas-III, 239).*

*Vgazabac eguin biar davena da, otseguina chaarra bada, ondu bere pacienci -
jagaz ta eracutsi onagaz; ta ezpabere denporia danian echeti atara ta aren palta -
ac isilic euqui (Esku, 234).*

j. **Zenbait aditzondo, posposizio etab.**

- Gaur eguneko irakurleari bitxi samar egingo zaio Bartolomek darabilen *ain
guichi* aditzondo. Hala ere literatura zaharrean nahiko erabilia izan da; Joannes
Étcheberri Ziburukoagandik hasi eta Gasteluçar, Iztueta, Xenpelar, Arrese-Beitia eta
Txirritaraino dator. 1940az gero ez omen da agertzen...

Adiera aldetik, testuinguruaren arabera, baditu zenbait ñabardura txiki: ba-
tzuetan, "ezta ... ere" esan nahi du; beste batzuetan, berriz, "oraindik gutxiago", "are
gutxiago". Betiere, ezezko perpaus baten nahiz gehiagoren amaiera bezala erabil-
tzen du:

*Ez da emen ezer esaten pecatu eguinac arimara dacarren tristecia ta penia
gaiti. Ta ain guichi pecatubac eta pecatuzco gauzaac munduco zoruai emon oi
deutseen contentuba edo alegrija gaiti (Euscal-errijetaco... 25).*

Alan biguiraco olgueeta desonestuban daviltzanac, inoc absolvidu ezin leguiz,

eguinac garbatu ta ez eguiteco asmua edo proposituba artu artian. Ta ain guichi, bere echian biguiria eguiten davena (Euscal-errijetaco... 114).

Sovervijac ezin icutsi zituban asiac, ezda luurrera veguira etzinda egozanac bere, ta ain guichi guztia chupau gura evenac (Icas-II, 18).

- *Endamas* ere maiz darabil. *Batez ere, bereziki, are gehiago, gainera...* eta hauen antzekoa; aukera batzuen gainetik bat azpimarratzen denean erabilia. Beheko adibideetariko azkenak “eta gainera”, “horrez gainera”... esan nahi du. Forma aldetik, *endemas* behin dakar soilik; gainerako guztietan *endamas*. Lokailu hau oraindik bizi-bizi dago, ez haren eskualdean soilik, baita Bizkai eta Gipuzkoako ingurune zabal batean ere; dena dela, euskaldun jantziek edo jantzi ustekoek engara izaten dute, dirudienez, idatziz erabiltzeko... :

Mundu guztia daqui, bada, ardao pusca bat edanac, ta end emas cerbait gueijago edanac, errazoia illundu, gogua alegueretu, odola berotu ta luxurijaren suba viztu eraguiten davena. Ta endamas guchitan edaaten davenari (Euscal-errijetaco... 48).

Ta gueijenian (ta endamas baseerijetan) aguinduten deutsee gurasuac eta ugazabac gaztiai piestara, jai osua izan arren, onaco ta alaco cer eguinac eguin da, andi aurrera, gura badavee (Euscal-errijetaco... 57).

Baina guzurragaz eguiten bada, ta endamas juezaren aurrian, calte icaraga rrijac dacaz bai arimaraco ta bai munduraco (Icas-I, 125).

Baina endamas amar, amalau, amazortzi, ogei urtian irago artian, ta Jaungoicuaen bildur santubac euren arimetan sustraijac eguin artian (Icas-I, 195).

- *Menturaz*: iritzi-adberbioen artean sartzen dute oraingo gramatikariak; hau da, nolabait hiztunaren iritzia edo jarrera adierazten duten aditzondoa litzateke. Oso berea du Bartolomek; gehienetan, aurrez esandako arrazoiarekin edo lotzen du, ta *menturaz* forma erabiliz, baina ez beti:

Ta menturaz compesaquizuntzat bere artuten ez ditubee onetarico lapurreta ac (Icas-II, 157).

Ta menturaz, bere buruba garbituteco, esango dau alacuac compesinoian, ez deutsala gachic opa (Icas-II, 197).

Ta ecarten dozu, echian biar euquian ta euqui euquian gaucia ceuri emotera. Ta menturaz balijua baino merquiago (Icas-II, 247).

Pensau neban, menturaz illunac alderatuco nindubala ceu ganic ta gavac ezcutauro nindubala ceure aurreti (Icas-I, 54).

- *Ostian*: Deklinabidearen atalean inesiboaz hitz egitean adierazi dugu nola darabilen eta zer adiera duen (ik. 255.or.). Han esandakoaz gain, zehaztopen txiki bat: guk dakigula, ez du inoiz *atzean* esan nahi Frai Bartolomerengan. Ondorengo adibide honek, agian, okerbidera eraman dezake irakurle bat baino gehiago: *Baita galduten jaco proximuari pamia, juezaren aurrian ez ece ostian bere (Icas-II, 161).* Horren esanahia hauxe da: (...) juezaren aurrean ez-eze bestela ere (*osterantzean* ere).

- *Ostera*: Aditzondoa da beti harengan, *berriro* esan nahi du; jakina, joan-etorria ere bai; orduan, izena da. Juntagailu legez, *ordea* esan nahi duena eta oraingo bizkaieran guttiz ohikoa dena, ez da ageri behin ere haren obran barrena.

- *Beriala, beinguan*: denborazko aditzondo biak darabiltza; hura hiru aldiz soilik; hau, berriz, maizago. Erabileraz eta formaz ez dute ezer berezirik. Ikus ditzagun adibide bana:

Azqueneco Aparija janda guero, berialacomulgau zituban Jesusec apostolubac bere gorputz ta odol santubagaz (Icas-III, 188).

Beguiratu bada, neure entzula onac, estaduco uts-eguitia ez dala beinguan adavetan (Icas-III, 319).

“comulgau” aditzaren erabilera bitxi samarra da: *comulgau zituban Jesusec apostolubac (...).*

- *Leendanaz*: denborazko aditzondoa dugu; Frai Bartolome, Agirre Asteasuko, Iztueta eta geroagoko beste batzuegan aurkitzen dugu. Bost aldiz dakar Bartolomek. “Aurretik”, “aurrez”, “aurretiaz”... esan nahi du:

Leendanaz, anchinati Jaungoicuac guizonai aitu emon gura izan eutseen celanbait sacramentu santuben ezauberia, euren gracia ta ontasun esan ezin leguizanac (Icas-III, 4).

Ezcontzia asmetan davenian leendanaz celan prestau biar daven ezcondute - co (Icas-III, 331).

Ez eguin juramenturic, leendanaz ondo jaquin bagaric (Icas-I, 116).

- *Ainbagaric*: hura gabe, aipatzen dena gabe. Bizkaieraz bizirik dagoen aditzondoa:

Urte bi edo iru zitubeenetu amalau amasei urtera artian, dala nai chaarragaz, dala ainbagaric, casic egunian egunian, ta ascotan egun bacochian sarri esan deutseezu ceure umiai (...) (Icas-I, 14, serm.).

Ez da inor icentau biar compesinoian, ainbagaric pecatuba compesau al dedilla (Icas-III, 149).

Boticacua artuten da biar danian. Gaixo danian. Ainbagaric osasuna jadii - chi ezin danian (Icas-II, 115).

- *Edola bere*: idazle klasikoen artean, Iparraldeko eta bizkaitarren artean batez ere, maiz erabilia. Forma aldetik badira alde txikiak batzuen eta besteen artean; *edola bere, edolan bere, edola ere*..dira literaturan agertzen diren aldaerak. Loturik idatzi zuten gehienetan. “Gutxienez”, “behintzat” esan nahi du:

Eguizu, bada, edola bere ceuben arimen osalarijagaz, gorputcen osalarijagaz eguiten dozuna (Icas-III, 149).

Esnaatu zaite, cristinaubac, entzuteco edola bere (Icas-III, 176).

Ez aitatu edola bere, cristinaubac, senide arteco ezcontzaric, eguiija ondo esango deutsun jaquitun bategaz leenago astiro irago bagaric (Icas-III, 365).

- *Bague, bagaric*: posposizio hau usu darabil, *bagaric* forman bereziki. J.A. Mogel-ek darabilen *baga*, behin bakarrik dator Frai Bartolomerengan, “amai бага” aditzondoan. Partizipio nahiz izen baten ondorik darabil; sintagma mugatuarekin gutxitan, baina agertzen da noizean behin. Esapide edo lokuzio antzeko batzuetan ere agertzen da, esaterako, *duda bagaric*, *beste bagaric*, *gueijagoco bagaric*, *lotsa bagaric*, *sosigu bagaric*. Izenlagun gisa, *bagacua* maiz agertzen da haren testuetan: *Ta emaztia ecarten da echera, celacua dan jaquin bagaric* (*Icas-III*, 333).

Apostolu santuben miinac duda bagaric izango dira ceruban glorijaz apain dubac (*Icas-II*, 182).

(Sintagma mugatuarekin) *Jangoicuaren bildur santub a bagaric* (*Icas-I*, 2). // *Bada, pedia bagaric inoc Jaungoicua amau ezin legui, dino Apostolubac* (*Icas-I*, 32). // *Ez daqui inoc bere, ceruco aparteco abisula bagaric, pecatuban ala graci jan daguan, Jaungoicuaren adisquidia ala arerijua dan, salbaucio dan ala conde nauco dan* (*Icas-I*, 37).

(*bague*) *Ez, Jaungoicuac gueu vitzi izateco emon deutcuna ar dura bague egun baten castau biar dogula* (*Icas-I*, 263). // *Bada, umeen moduban, garbi ta gach bague egon biar dau comulgau dan arimiac, guero esango dan leguez* (*Icas-III*, 189).

Popuertza eta enpin: erdaratiko aditzondoak ditugu, Frai Bartolomek oso hartuak dituenak. Erdarazko testuinguru berberetan darabiltza. Hura lehenago ere aipatua dugu fonetikaren sailean; izenlagun legez ere agertzen da: *popuertzaco*, “nahitaez”, “ezinbestean” esan nahi du. *Enpin*, *p*-ren aurretik *n* nahiz *m* duela idatziz ohi du; zenbaketa oraindik gehiago luza daitekeela adierazteko erabiltzen du...

k. Adizkiak

- Aditzei gagozkiola, bizkaieratik at eta idatziz bizkaieraz ere gutxi erabiltzen diren adizki batzuk ageri zaizkigu:

. *negui*: baina ezin ucatu *negui*

. *legui*: baina Cerubac prestau davela esan *legui*

. *guinai*: ezin ucatu *guinai*, chito balijo andicua ta premina andicua dala au cristinaubarentzat.

. *zinai*: zuc ezin mudau *zinai* Evangelijoco leguia. // euqui *zinaizan* calte guttiac.

. *zinajue*: ezin umiai emon *zinajue* aziera peligrucuaagoric codicijarena baino.

. *leguijee*: otseginari zanetaco odola bere chupauco leusquijuenac, alba*legui*-*jee*!

Ahal erako aditz laguntzaile iragankorra da beti, pertsona ezberdinekin komunztaduran darabilena. Inpersonal gisa ere agertzen da; esaterako, goraxeago dugun *esan legui* horrelakoa dugu. Ez dira agertzen “egin” aditza lagun dutela, dirudenez, adizki forma hauek “egin” beren baitan dutelako: *Baquit ugazaba ascoc esango daveena, ¡lastima andijan! otsegunai esija iminten asi ezquero edo euren ibiltiac galarazo ezquero, areequin baqueric ecin leguijala (Icas-I, 226) = bakerik ezin egin litekeela (euskara batuan). // *Baina domeeca ta jai osuetan, pecaturic eguin ez arren, nai davena ecin legui cristinaubac (Icas-I, 182) = nahi duena ezin egin lezake kristauak (euskara batuan).**

Adizki hauek oraindik bizirik daude bizkaieraz, bereziki mendebaldean; dena dela, gaur egun gehiago erabiltzen dira horien baliokide diren *neike / leike / geinke / zeinke / zeinkie (zeinkee) / leikie (leikee)* formak. Hauek askoz ere bakanagoak dira Bartolomerengan, baina batzuk agertzen dira, bereziki flexiodunak. Ondorengo hauek dira aurkitu ditugun forma guztiak:

Gauza bat esan neique, lecu ascotan eguiten diriala lotsa gichigaz (Icas-II, 70).

Au gaiti esan evan Jesucristoc, gorputcian baino gach ecin leiquegubenai, bil - durric ez euquiteco (Icas-III, 294).

Enpin ez munducoc, ez impernucoc, ez ezec bere ezin leiquegu ecer bere gachic, gueu Jaungoicuaren adisquidiac izan ezquer o (Icas-I, 57).

Miin gaistuac munduraco galdu leiquegubee ondria. Baina ez Jaungoicuaren aurreraco (Icas-I, 247).

ortubetara ta soluetara guizona ill leiquen tiruac inori jaurteguiten deutseza - nac (Icas-I, 249).

Darabilen beste adizki bat ere azpimarratzekoa da: *neuque / leuque / guenduque / cenduque / leuque* hauek ohikoak dira bizkaieraz, baina objektua plurala denean, gaur egun erabiltzen ditugun *neukez / leukez / geunkez / zeunkez / zeunkeez/zeunkiez / leukeez/leukieez* formen ordez, beste hauek darabiltza: *nituque / lituque / guenduquez / cenduquez / lituqueez*

Gaur egun bizkaieraz zabalen dabilzan *naiten / daiten / naitela / daitela...* formen ordez, gainerako euskalkietan ezagunagoak diren *nadin / dedin (dein) / nadilla / dedilla (deilla) ...* erabiltzen ditu.

Nork-Nori-Zersaileko aditz laguntzailea orainaldian, beti da *deu-* eta ez *dau-*; hau ez da Frai Bartolomerena soilik. J.A. Mogel, Añibarro, Astarloa eta bizkaierazko idazle zahar onenek hala egiten dute inolako zalantzarik gabe. Bizkaiko ekialdekoak izan nahiz mendebaldekoak, horretan bat datoz. Honela egiten ditu adizki hauek: (niri) *deust / deustazu / deustee* //(hari) *deutsat / deutsa / deutsa - gu / deustazu / deustee* //(guri) *deuscu / deuscuzu / deuscubee* //(zuri) *deutsut / deutsu / deustugu / deustubee* //(haiei) *deutseet / deutsee / deutseegu/deutsegu / deutseezu/deutsezu / deutsee*. Objektu plurala denean, “z” eransten zaie aurreko formei.

Hauek, goian esan dugunez, *Nork-Nori-Zer* aditz laguntzailearen adizkiak dira. Frai Bartolomek *dau-* formako adizkiak ere badarabiltza, baina hauek aditz trinkoak eta *Nor-Nori*erakoak dira beti. Bereizketa, beraz, garbi-garbia da: aditz laguntzailea: *deu-* eta aditz trinkoa: *dau-*. Aditz trinkoa testuinguru nahiko finkatu eta antzekoetan darabil, *bata besteari loturik egon, batak bestearekin zerikusia izan...* esanahia izaten dute ia beti. Honetan ere guztiz bat dator J.A.Mogelekin. Hiru edo lau adibide jarriko ditugu; hauetariko bitan aditz laguntzailea eta trinkoa biak agertzen dira:

Ascotan dantza arinian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita gueratuten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ez d eutseen moduban, escuti dautsanac, colpez jaso artian; ta gente guztia arixte beguira chaloca (Euscal-Errietaco...69).

Baña pecatuban vitzi, peccatu eguin ardura bagaric, pecatuti urteteco ezer eguin ez ta cerura juango nas, pensau, alcarri ez dautsa, utseguitia da, engainu - ba da, Jaungoicua tenteetia da (Icas-I, 38).

gauza jaquina da, juramentu gaistuac, blasphemijaac, maldecinoiac ta bidauac alcarri dautseena (Icas-I, 149).

Espiritu Santubac San Paulo apostolubaren aoti esandaco verba oneetan agui - ri da, cristinaubac, arguir o otseguinac cer zor deutseen euren ugazabai ta ugaza - bac cer zor deutseen euren otseguinai. Alcarri dautseez bitzubeen eguin biarrac (Icas-I, 221).

Beste xehetasun bat ere bere-berea du Bartolomek: *dozu* adizkiaren subjektua "zu" nahiz "zuek" izan daitekeela. Eta ez *dozu* adizkiarena soilik, baita beste adizki batzuen ere. Honelakoak ugari agertzen dira, batez ere *Icasiquizunac* liburu-kietan. Hau ondare zaharraren aztarnatzat dute adituek:

Sinistu biar dozu, neure entzula onac, dotrina labur baten ezin erabagui leguizala sail zabal andi oni darraicozan gauza guztiac (Icas-III, 148).

Bada, orduban iminten dozu ceuben partez umia impernucio vidian (Icas-III, 321).

Emeti ezautuco dozu, cristinaubac, ezcontzaco sacramentubac ce gracia emo - ten deutseen ezcondubai, biar dan prestaeriagaz artuten daveenian (Icas-III, 341-342).

Balijau bada, neure cristinaubac, estadu à artu gura dozunoc sacramentu santubaren gracia osuagaz (Icas-III, 342).

Penitencia eguiten ez badozu, guztioc modu batera galduco zara (Icas-III, 99)..

Ainbat hizkuntzalari harritu izan da, gure idazleak zein ugari eta dotore darabiltzan tradizio zaharreko adizkiak ohartzerakoan. Hauek aipatuko genituzke, besteak beste: zenbait aditz trinko, *albadedi* baldintzazkoa, *zaatequian*, *euquian* iraganeko ahalerazkoak, denborazkoak subjuntiboa erabiliz ... *dedinian* (ik. inesiboz az esana 252-253. orrialdeetan).

Hogeita hiru aditz trinko hartu dizkio Lon Arteagak⁴⁸⁴; haietarik zortzi iragan-gaitzak dira eta hamabost iragankorrak. *Egon* aditza bizkaieraz klasikoek beti erabili izan duten eran jokatzen du, eta ez berriki, batzuek (gainerako euskalkien formetara hurbildu nahirik edo) egin ohi dutenez, *-ki-* artizkiarekin. Hauek dira Frai Bartolomeren formak: (niri) *jaot* / (hari) *jagoca* (*jaoca* / *jagoco* / *jaoco*) / (guri) *jagocu* / (zuri/zuei) *jaotzu/jagotzu* (*jagozu*) / (haiei) *jagocue* (*jaocue*). Zenbait aldaera agertzen dira, baina bokal arteko *g*-ri eusten dio gehienetan eta *jagoca* du bere forma normala... Testuinguru batzuetan, *juan* aditz trinkoa ere honen sinonimo legez edo antzeko balioaz darabil. Ikus ditzagun adibideok:

Esaten dozu zuc ezauberaz guzur bat novijo edo novija gaiti, ceindan asco escontzia galduteco, juaconac jaquin edo entzun ezquer o (*Icas-II*, 177).

Ecer bere ezjuacuen gauzac jaquin artian, beti itanduten dagozanac. Alaco ez juacon itaunliari, ez guzurric erantzun; baina ezda eguijjaric bere, berac nai leuquian moduban (*Icas-II*, 179).

Badira errijetan ta auzuetan alaco guizon ta emacume vijotz galduciac, inoren vizitzac jaquiten ta banatuten, ecer ez juacuela davilzanac (*Icas-II*, 195).

Ezerbere ezjuacola baztarretaco guzur ta saltsa guztiac batuta, areec baco chari bere erara ta guztiai min emongo deutseen modura contetia da adisquideta sun ta baque on guztiac galdutia (*Icas-II*, 210-211).

Jarraitu, datiboari begira, singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonako flexioetan darabil: (hari) *darraico/darraicoz* / (haiei) *darraicue/darraicuez*. Ikus ondorengo esaldiak duen indarra:

Bada, luxurijari orpuetan darraico beti bildurra, celua, sospechia, icutsi ezina, cer esana, gorrotua, vengantzia, penia, tristecia ta larrija, ceintzuc dirian embidijaren ta su-gorrotuaren seme alabaac (*Icas-II*, 21).

Errazoiari, guizatasunari ta Evangelijo santubari darraicona da (*Icas-II*, 108).

Onei darraicuez, oi danez, auzi guztietan empeñubac ta vitaartecuac alde bijetati (*Icas-II*, 167).

Zaatequian: Ezin ascatu zaatequian guizona bere aleguinagaz Adanen pecatubaren cateiati (*Icas-III*, 21).

Au izan zaatequian zuben guztion ta nire azquen penagarrija ta bildurgarrija (*Icas-III*, 34).

An egongo da beti Jaungoicuaren gorrotuan, ceruban egon zaatequian arimia (*Icas-III*, 63).

Euquian: batzuetan konparazio-perpausak sortzeko erabiltzen da; begira zein molde ederrekoa bigarren hori... :

Orduban nai euquian Jaungoicoric ez egotia, beti pecatu eguiten egotecd (*Icas-III*, 101).

⁴⁸⁴ Karmel, 1978, 151. zenb.

Naijago leuque ill balitz edo pausuric eguin ezinda gueratu balitz, pecatu eguin euquian baino (Icas-III, 131).

Pilatosec bere nai euquian Jesus ascatu judeguben escubetati ta erijotzati (Icas-III, 133).

Sovervijac mundu guztia imini gura euquian andituta, aixaatuta, arrotuta. Codicijac nai euquian bestiai odolac eta munac, uzanac leguez, chupauta, balijo guztia bere poltsaan euquitia (Icas-II, 18).

Albadedi: gaur egun gure inguruneko euskaran, tamalez, galduak dira forma jaso eta euskara jantziko hauek... :

Seina besuetara emon biar jacue dotrinia ondo daquijenai, cristinau pielai, albadedi, conpirmauta dagozanai, ecandu ta cristinautza onac dauquezanai ta umetaco demporia iragotacuai (Icas-III, 76).

Osatu, bada, lelengo arimia. Ta guero gorputza, albadedi (Icas-III, 266).

Bada, ezetara librau albadedi alaco arerijo gaistoaganic nor bera vitziric, ez dau ill biar (Icas-I, 239).

4. Sintasia

Juntagailuak, aditzondoak, partikula modalak etab. aztertzean, sintasiako gauzatxo batzuk ere ikusi ditugu irazezan. Horregatik, perpaus adbertsatibo eta ilatibo ez dugu besterik esango. Zerbait azaldu beharra duten gainerako perpaus motak beren-beregi aztertuko ditugu gure idazlearengan.

a. Aditz-sintagmako zenbait osagaien erabilera

Ezin, aal, biar osagai diren aditz-sintagmak gure idazleak nola darabiltzan aztertuko dugu labur-labur.

- *Ezin* maiz agertzen da haren testuetan, *ezin legui* esamoldea osatuz batez ere; ez partikula bezala, aditz nagusiaren eta laguntzailearen erdian kokatzen du. Joera hori oso markatua da, baina testuinguru batzuetan perpaus-hasieran kokatzen du, eta orduan aldatu egiten da hurrenkera hori. *Ezin legui* bezalako esamoldeetan, partizipioak *eguin* izan behar zukeenean, ez du jartzen, *legui* horrek bere baitan hartzen baitu hura. *Ezin* honek ez du aditz laguntzailearen erabilera eraginik, aditz nagusiak baizik; hau da, aditz nagusia iragankorra bada, laguntzailea ere iragankorra izango da, eta alderantziz. Batzuetan era inpersonalean agertzen da eta, jakina, aditz laguntzaileak iragangaitza izan behar; halakoetan hurrenkera normala hau da: “ezin da” / “ezin danian”... Ikus ditzagun adibide batzuk:

(“Eguin” ez dago agerian) *Baina domeeca ta jai osuetan, pecaturic eguin ez arren, nai davena ecin legui cristinaubac (Icas-I, 182). // Gaixoric daguanac, baruric ezin legui (Icas-III, 158).*

(Aditz iragangaitza) *Edoceanentzat, edo meza nausitara, vesperetara edo sermoetara juan ecin dirianentzat, eguinquizun santuba ta ona da jai domeequeta - raco, Jaungoicuaren dotrinia icastia edo eracustia; gaixuac visiteetia; tristiciac con seletia (Icas-I, 183). // Compesau ecin bada, damutu biar dau vijotz vijotceti ber e pecatu guztiaquin, aldaguijarian compesetaco uste osuagaz (Icas-III, 278).*

(Hurrenkera aldatua) ¡Ah! Ecín ucatu guinai, cerubac, eta luurac diadar egui ten daveela (Icas-III, 63). // Ecín acertau eveen Philisteotarrac, Sansonen Itaune illunac cer esan gura evan, arian da Sansonen beraren Esposiac esan artian (Icas-III, 204).

(Era inperzonalean) Ezin danian, ez dago eguiquizunic (Icas-III, 158).

(Hurrenkera normala) *Compesoriac aguindu arren, ez daucanac diruric emon ecin legui (Icas-III, 158). // Preso daguanac, mezaric entzun ecin legui (Icas-III, 158).*

- Al, guraria adierazten duen aditz-sintagmako partikula modala, gorago ikusia dugu. Hemen, gure *ahal* (*izan / ukan*) nola darabilen aztertu nahi dugu. Aditz jokatugabeetan *al izan ezker* o esamoldea ageri da. Era inperzonalean "eguin al bada" bezalakorik ez da agertzen; honen ordeztu, gorago aipaturiko *al badedi / al baledi* formak datoz. *Egin*-en forma trinkoak oso erabiliak dira: *al badagui / al badai*... Edota *ba-* gabe *al dagujala* eta antzekoak. Aditz nagusia *al* partikularen ezkerrean dela nahiz hainbarik. Aditz nagusia iragankorra denean, *al*-en ondoko laguntzailea ere iragankorra izango da; hura iragangaitza denean, berriz, hau ere iragangaitza. Beste batzuetan, *egin + al daiguna* edo antzeko egitura agertuko zaigu; honek geroaldi kutsua du. Kokapena ezaguna da: aditz nagusiaren eskuinean dator beti:

Piestara, biguirara, erromedijara, saraura ta tambolin dantzara, al izan ezquero, inos paltau ez daveenac (Euscal-errietaco... 203).

Seina besuetara emon biar jacue dotrinia ondo daquijenai, cristinau pielai, al badedi conpirmauta dagozanai, ecandu ta cristinautza onac dauquezanai ta umetaco demporia iragotacuai (Icas-III, 76).

Areec bere inundi al badaguijee, piestaan izango dira (Euscal-errietaco... 54).

Inundi al badedi meza nausija, ta bacoachac bere parroquijan (Icas-I, 182).

Igues eguinda alderatu al badedi arerijuaganic, ez dau ill biar. Lagunai ots eguinda, diadar eguinda librau al badedi, ez dau ill biar, nor bera illtera datorr e-na zucen jaquin arren. Colpe batzuc emonda apartau al badedi arerijuaganic, ez dau ill biar (Icas-I, 239).

Asco zala eurentzat impernura ez juatia, cerura juan ez arren, izan al balei-teque (Icas-III, 178).

Areec bere, oina al badaguijee, an izango dira piestaan vegui zolijaquin (Euscal-errietaco... 55).

legua bat bidian, edo legua erdijan, edo gueijaguan eheetara artian cer eguin al daguijeen, amar urteco umiac bere baquijee (Euscal-errietaco... 73).

Guztiac gaiti eguin al daiguna, guztiai zor deutseege (Icas-I, 92).

Ta denporia neurtu al bacinai bere, ez da errez zuzen jaquiten ceinbat minu - tu biar dirian (Esku, 171).

Bada, lapurretara doianac inor ilteco intencioneric eruan ez arren, estututen badabee ta norbait illda edo banatuta librau al badai bere buruba, egingo dau (Esku, 268).

Ojala aitu al bacinai, cristinaubac, au celan dan (Icas-III, 219).

Emacume ordija daucan echiac edo erriac, diabru baten truque emon al balei edo quendu al balei, tratu ona egingo leuque nire eichijan (Esku, 296).

Ez litzateque Jaungoicua Jaungoico izango, guzur chiqui bat esan al balegui (Icas-I, 33).

Urtu zaite bada, al badaizu, neure vijotz liorra, ceure Jaungoico onaren amo - dijuan ta ondo esatian, ain lauba ta maitegarrija dalaco (Icas-I, 53).

Azken adibide honetan “neure vijotz liorra” dator aposizioan edo bokatiboan. Hala ere ez da beste pertsona bat; zuka hitz egiten dio bere arimari.

- *Biar*, tradizioaren haritik, laguntzaile iragankorrarekin darabil beti, era inper-sonalean ez darabilenean; horretarako, ez du eraginik aditz nagusia iragankorra edo iragangaitza izanak; *biar* da aditz laguntzailea gobernatzan duena eta ez aditz nagusia. Kokapena eskuarki honelakoa da: *aditz nagusia + biar + aditz lagun - tzailea*. Ezezko perpausa denean: *aditz nagusia + biar + ez + aditz laguntzailea*. Ez da beti hala, baina joera hori da. Bada Iparraldeko erabileraren airea duenik ere. Ikus ditzagun hiru edo lau adibide:

Ta bata bere eguin biar ez dira (Euscal-errijetaco... 197).

Icasteco juan biar dogu eracusten dan lecura, ezpabere secula icasico ez dogu (Icas-I, 9).

Ondo pobretuba topauco dau Jesus, bai Belenerjajio biar davenian, ostaturic edo liorperic inoc emon gura ezda batera jajotera doianian, ta bai alemani - jeeen erdijan jajota, asca baten daguanian (Icas-I, 73).

Ez da asco, cristinaubac, pecatarija ondo compesetaco, pecaturic ez eguitia nai neuque esatia edo pecatubari isteco gogo motel bat artutia. Biar da, compesinoia ona izango bada ta pecatuba parcatuco bajaco, pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua ta eguitia. Baita zala ta pirmia ber e (Icas-III, 133).

b. Perpaus koordinatu distributiboak

Baliabide erretorikoak erabiltzen ohitua den idazlea dugu Bartolome. Horregatik, maiz jotzen du horrelako esaldietara. Lotura-hitz gisa, honelakoak darabiltza: *nai... nai; cein... cein; bai... bai; dala... dala; nai dala ... nai dala; ya... ya*. Batzuetan, hauetarikoekin batera, *edo* ere erabiltzen du; ezezkoetan ez... ez, azken kasu hauetan maiz jotzen du sintagma mugagabeak erabiltzera:

*Aita, nai ama, nai umia, nai senidia, nai adisquidia, nai gueure aciendia, nai gueure cleituba, nai beste edocein gauza, *dana dala leenago galdu biar dogula, pecatu eguin baino (Icas-I, 81).**

Nai urrecuac ta nai urrinecuac, nai erricuac ta nai erbestecuac, nai adisqui - diac ta nai arerijuac, nai senidiac ta nai atziac, guztiac dira gueure proximuac (Icas-I, 83).

Emeti ateraten da contuba, cristinaubac, gorputza ta arimia dauqueen guizon ta emacume guztiac, nai diriala eregiac, nai judegubac, nai moruac, nai gentilic, nai Jaungoico bagacuac, nai beste edocein castatacuac, gueure lagunac ta proxi - muac dira (Icas-II, 84).

Ostu ezquero, nai aberatsari ta nai danari dala, beti da lapurretia ta beti da pecatu (Icas-II, 102).

Ta bardin eguingo deutsubee zuri bidao, cein eureen umiai, cein beste edocei - ni (Icas-I, 149).

Bardin da, cein garija, cein artua, edo beste edocein gauza (Icas-II, 119).

Bada, cein era batera ta bati izan, cein puscaca ta ascori izan, gauza andija ostuteco ustia edo gogua daucana, vorondatez lapurra da ta pecatu mortalian dago (Icas-II, 130).

Gurasuen bai aitaren ta bai amaren eguinbiar andija da, sabelian daguan seinari ondo contu eguitia (Icas-III, 54).

Bai aguirira atera dituzunac, ta bai ceure vijotzian barruban ezcutauta, Jaungoicuac ta ceuc baino bestec jaquin bagaric euqui dituzunac (Icas-II, 234).

Garbitutia izan leiteque modu ascotaracua, bai arimaco gaucetan ta bai gor - putcecuetan (Icas-III, 25).

Urte bi edo iru zitubeeneti amalau amasei urtera artian, dala nai chaarragaz, dala ainbagaric, casic egunian egunian ta ascotan egun bacochian sarri esan deutseezu ceure umiai (Icas-I, 14 serm.).

Nai dala Danen casta galduba, nai dala demoninua, nai dala ordiquerija, nai dala zoraquerija dantzaac asmau ditubana, guraso ondraubac dauqueez dant - zarillac (Euscal-errijetaco... 140).

Arerijua preminaan icusi ezquero, euqui biar dogu vijotzeco presteera ona, lagunduteco guere arerijuari biar orduban; nai dala arimaco preminaan, nai dala osasanian, nai dala cleituban, nai dala pamelijaan, edo aciendan (Icas-I, 100).

Baina bagoz cristinau asco, edo dala pamparrerija ta arroquerija bat gaiti, edo dala codicija sicu bat ta gorrotogarri bat gaiti euren vitzitziari ta osasanari calte eguiten deutseenac ta bosgarren aguindu santuba austen daveenac (Icas-I, 258).

¡Oh, ceimbat juramentu chaar entzuten dirian! Ya pamparrerijaz, ya gorrotoz, ya amodijo chaarrez, ya ecandu gaistoz (Icas-I, 113).

Ya ez jagocuen carga astunaquin, ya asarre arrabijaubaquin, ya dantzeetaco ibilteequin, sarritan galdu oi ditubee seinac (Icas-I, 251).

Ez dau gueure erri idalgubeetan inos oinic gueratu, ez judeguc, ez moroc, ez heregec, ez Jaungoicobagacoç, ezda, entzute oneco ascoren erichijan (1), Jaungoico ascodunec bere (Icas-I, IV).

c. Ezezko perpausen joskera

Ezezko perpausetan darabilen joskera, batzuetan, ez dator gure oraingo joera-ekin bat. Bartolomek hurrenkera hau darabil askotan: ADITZ NAGUSIA + EZ PARTIKULA + ADITZ LAGUNTZAILEA. Oraingo joera, berriz, beste hau da: EZ PARTIKULA + ADITZ LAGUNTZAILEA + ADITZ NAGUSIA. Batzuetan, aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean objektua tartekatzen da: *ez zuen hitzik esan / ez zuen esan hitzik...*; ez genuke esango gehienetan darabilen hurrenkera denik... Dena dela, lehen liburuan sarriago antzematen da gerokoetan baino; *ezin legui* bezalako esamoldeekin mai-zago ez partikula soilarekin baino. Ikus ditzagun zenbait adibide:

Piesta zaliac egun atan, mezatan eleisaan egon arren, mezaric entzun ez daveela sinistu guinai juzgu gaistoric eguin bagaric, gogua beste arduretan euqui daveelaco (Euscal-errijetaco... 57).

Bada, beste gauzaric escribidu daveenac inoc iracurten ez ditu, eureen ino -cencijari ta penseeta modubari barre eguiteco baino (Euscal-errijetaco... 88-89).

imini dan Errazoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala ta ondo amaituten ez davela (Euscal-errijetaco... 104).

Nai ez balebee, bestec ber eraguingo ez leusquijue (Euscal-errijetaco... 114).

Ta echuria daucanez, guztiz quenducobere ez dira (Euscal-errijetaco... 137).

¿cetaco dantzaac guztiz quenduten ez dira, ain deungaac badira? (Euscal-errijetaco... 154).

gentia cetan edo atan olgau bagaric egongoez da penseetia, erregue, aguinta -ri edo legueguin batentzat ondo da (Euscal-errijetaco... 191).

umiac ta otseguinac compesetan ez dira (Icas-III, 146).

Batzuetan ez partikularekin perpaus koordinatu distributibo antzekoak eraikitzen ditu, eta orduan ez eta honi dagokion aditza aldendu egin ohi ditu batzuetan elkarren ondotik, beste elementu batzuk tartean ezarriz:

Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten dau, ez otzac zurituten dau, EZ edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau gueure Jaungoico ona (Icas-I, 61).

Bada, ez olgueeta guztiac dira onac, ez guztiac dira chaarrac edo pecatuz -cuac (Euscal-errijetaco... 17).

d. Denborazkoak

Denborazko perpausak, berezko denez, era askotara adierazten ditu. Aditz jokatuari *-nian* atzizkia erantsiz sortzen dena da ohikoena, baina horrek ez du ezer azaldu beharrik, guztiz ezaguna baita. Inesibo kasua azaltzerakoan eman dugu subjuntiboa erabiliz eraikitzen dituen denborazko batzuen berri, *dedinian* etab. (ik. 252-253 or.); inesiboaren atalean azaldurik geratu da baita *-en guztian*, gaztelaniera "siempre que" itzultzen diren horietarikoak ere (ik. 253.or.). Aditz-izenetatik sortzen direnak, hots, *-tian* / *-racuan* ez ditugu aurkitu. Aditz jokatuari *-neco* erantsiz

eraikitzen ditu beste batzuk; eta azkenez, *orduco* darabil denborazko perpausak adierazteko, bizkaieraz oso hartua dena. *Orduco* horrek, perpaus nagusiarekiko iragana nahiz segidako denbora adieraz dezake, testuinguruaren arabera. Oraingo bizkaieran ere hala da. Forma hauetan agertzen da Bartolomerengan: PARTIZIPIOA + ORDUCO / -TERA + ORDUCO. Ikus ditzagun guztietariko adibide batzuk:

Buruco min bat da neco, edo beste naibague bat echian edo aciendaan dato rre neco, Jangoicuari edo santubai eiten jacuez promesac (Esku, 161).

Onaco promesic gueijenac izaten dira gachac jo daiza nian, estu estuban arin aringa ta ondo pensau bagaric eguiten dirianac (Esku, 161).

Salomon gaiti esaten da, amaeca urte cituba neco aita zala (Icas-I, 192).

Ta mendi soilian ceruti bialduten deutsee janari gozua, gose diria neco (Icas-I, 57).

Baina zazpi urte ditubee neco, gueijenian ta gueijenac eracusten davee ezau -beria, bai gauza on batzubetaraco, bai echeco oneraco ta bai eureen paltaac ezcu -tetaco bere (Icas-I, 169).

Ceubec esaten dozu ceuben umiac gaiti, sei zazpi urte ditubee neco, esanac egui -teco, echeco gauzai begiratuteco ta contu artuteco, acordu onecuac diriala ta nausi batec leeche eguiten daveela (Icas-I, 170).

Gauza onetan gurasuen eguinbiarra da, zazpi urte ditube neco, eracutsi dotri -na santuba, edade atan izan leitequian onduen (Icas-I, 194).

Cain madaricatuba leguez, arimaco gurasuen descuido bat icusi daijeeneco, arin aringa, pozca ta barreca duaz, aguri dirianai contetara (Icas-I, 214).

Ez mundutarrac leguez, sacerdote baten palta bat icusi edo entzun dagujee -neco, barre, chistu, gueitu, zabaldu ta sacerdote guztiai ezarri (Icas-I, 215).

inoc gach bat eguin daigu neco, jaguiten da gueure vijotzetan aren contra suba, gorrotua ta venguetaco gurarija (Icas-I, 243-244).

¿Ceimbat opicijoco, alover ona irabazten daveela ta osasuna dauqueela, beti arlote ta beti nequez, peseta bat davee neco jocuari emoten deutseeela ta emaztia ta umiac gosez ta biloxic dauqueezala? (Icas-II, 140).

Zazpi urte dituba neco oratuten deutsa Jesusen amodijo itsubac ta ixiuac Teresari bere vijotzian (Icas-II, 287).

Piestara duazanac, piestia erdiz erdi da neco, trago bat edanda dagoz, bai gui -zonezcuac ta bai emacumiac (Euscal-errietaco... 47).

Ondorengo adibide hauek pixka bat ezberdinak dira; izan ere, *-neco* amaiera-dun hauek ez dute menpeko perpausarik markatzen; aitzitik, denborazko aditz-sintagmak izenlagun bihurturik daude: *Alan ichi euscun Jesucristoc, arimia gaixotu -ten daneco osagarritzat. compesinoeco sacramentuba (Icas-III, 12).* // *Aita orde-cuen seina batiatuten daneco eguinbiarrac dira: Lelengo: aita ta ama besuetacoc esquini edo oprecidu biar deutsee seina batiuan Jaungoicuari ta Eleisa Ama Santiari (Icas-III, 78).* // *¡Ai nire tristia! Dantzan ibili nasa neco demporia jua jat (Euscal-errietaco... 163).* // *Bere parroquijan dauca cristinau eguin za neco ari -miaren garbi lecuba (Icas-I, 182).*

Pecatu ez dan moduban celan olgau leitequian esatera orduco, jaquin biar da: (...) (Euscal-errijetaco... 27).

Dantza zaleen urtenerai edo argumentubai erantzutera orduco, pensau dot, erabagui biar ditudala cer dirian erromedijac, biguirac ta saraubac (Euscal-erri - jetaco... 105).

Orduban itandu biar deutsa, albadai, dudia daucanac daquijanari, jura - mentu eguitera orduco (Icas-I, 111).

(...) bestiac verba bat esan orduco, erremuscadiagaz atzera sartuten deutsalala (Icas-II, 7).

Ascotan, gueu contuban jausi orduco dua gure pensamentuba, uste ez dogun lecura (Icas-II, 79).

Ta gueijago guichitu gura nituque, asmau dodan saila amaitu orduco (Icas-I, IX).

Juramentu eguitera orduco beguiratu, dino, ondo ia gauza ac merceduten daven edo ez juramentu eguitia (Icas-I, 126).

Inor acordau orduco, ixilic eztena sartu, verenua ezarri ta gaisotu edo ill (Icas-II, 190).

Inoc juzgu gaisto bat ceu gaiti eguin davela entzun orduco, vijotcian gorro - tuaren suba jaguiten jazu aren contra (Icas-II, 225).

Adibideotan ikus daitekeenez, batzuetan ... *baino lehen* esan nahi du: *inor aco - dau orduco*; beste batzuetan, berriz, ... *-en une berean*, gaztelaniaz "en cuanto...": *verba bat esan orduco*.

Aric eta... artian forma ez du erabiltzen; bai, ostera, honen ordezkoa den *arian da... artian* : *Ecín acertau even philisteotarrac Sansonen Itaune illunac cer esan gura evan, arian da Sansonen beraren esposiac esan artian* (Icas-III, 204). // *¶ ondo compesau bere ezin leitequezala, arian da dotrinia icasi, pecatu mortalac ainzat artu, areequin garbatu ta pecatuco ocasinoe urrecuai isteeco asmo sendua artu artian* (Euscal-errijetaco... 183). // *Arian da* compesoriaren ta beraren erichi - jan guztiac ziatz esan artian (Icas-III, 162).

e. Konparazio-perpauusak

Konparazio-perpausetan ugaria dugu. ...*baino* ... -ago ohiko egituraz gainera, *edu, duin* darabiltza kopurua adierazten duten elementuekin berdintasunezko konparazio-perpauusak eraikitzeke; gaur egun bizkaieraz ohikoa den *besteez* dugu aurkitu behin ere hauen artean. Zenbakarriak ez direnean, *baixen* erabiliko du. Modua konparatzen duenean, berriz, *leguez, moduban*... Berezi samarrak dira ez... *ceinda* egituraz eraikitzen dituenak. Superlatibo absolutuak izenondoa nahiz aditzondoa errepikatuz nahiz maila-adberbioak erabiliz egin ohi ditu. Superlatibo erlatiboak adierazteko ez dugu aurkitu *alic/aalic* ... -en(a); *albait* ... -en(a) bezalakorik; horien ordez *aimbat* ... -en(a) darabil, eta baita *danic* ... -en(a) formaz osatutakoak ere. Baina horrelakoetan ez du sekula ere *eta* tartean sartzen.

- Desberdintasunezko konparazioak:

Bada, Escritura Sagraduban castigu guichi iracurten dira, erru gogorragoric ta bildur garrijagoric juzgu gaistuarena baino (Icas-II, 226).

Ez aoz esanda bacarric, ascoc sobervija pin bategaz esan oi daveen leguez: neu baino obia da mundu guztia (Icas-II, 228).

Gogoratu bada, crisrinaubac, inor juzgau baino leenago (Icas-II, 229).

¿Nos oi dira senaille aguirijaguac inor deungatzat euquiteco, Jose, Jacoren seme erru baguiaren contra azaldau zirianac baino? (Icas-II, 230).

Uts eguite atreviduba ta pena andija merceduten dauena da, crisrinaubari Jangoicuac imini deutsan baino legue astunagua ta carga andijagua ipintia (Euscal-errijetaco... 12).

Joco aldi bacochian ogueta amar ducat baino gueijago jocatu ezin leguin (Euscal-errijetaco... 29-30).

¿Ete dira dantzaari oneec Sanson baino senduago? ¿David baino santubago? Salomon baino jaquitunago? Areec ocasinoe chiquijaguan jausi cirian (Euscal-errijetaco... 47-48).

(Ozta aditzondoa, konparazio-morfemaz) Baina gueratu zan [...]gauza onera - co, crisrinautza zuceneraco, Jaungoicua ondretaco, gaixotuta, argalduta, macal - duta, leen baino oztaago Jaungoicuaren ta errazoiaren vidiai jarraituten deutsee - la (Icas-III, 20-21).

(Erdal kutsuko konparazio-perpaua...?) ¿Oh, ce obeto eguin daveen areec zuc baino! (Euscal-errijetaco... 162).

(Aditzaren elipsiaz) Bada zu deungago, á baino (Icas-II, 234).

(Egitura desberdina: konparazio-perpaua aurreko esalditik dator, puntuaz banaturik egon arren...) Deungaro eguin evan Judasec Jesus saldutia. Baina ez evan obeto eguin pecatuban comulguetia. Deungaro eguin even judegubac Jesus illtia. Baina pozagoric juan zan Jesus curutzian illtera, pecatuzco arimara doian baino (Icas-III, 232).

(Elkarrekin erlazioan dauden hitzak: ceimbat... ainbat / ain... zein) Ta ceimbat indecencia gueijago eguiten deutseen, ainbat dago nesquia pozagoric labanqueri - jaren ta liquinquerijaren vitsa darijola (Euscal-errijetaco... 66). // Ceimbat gavaren urrago, aimbat ezainago, nasaijago ta zatarrago dantza bacocho (Euscal-errijeta - co... 68). // Ain gusto andijagaz berba eguiten deutsa Jangoicuac uretara doian Samariaco emacume pecatarijari, cein Israelgo legueguin aguintari ta obispuai (Esku, 65).

azerija ollua jaaten baino pozagoric dagoz plaza baztar bateti edo bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui guztian cansau bagaric (Euscal-errijeta - co... 69).

- Berdintasunezko konparazioak, neurria, kopurua adierazten dutenekin (duina, edu):

Ta ez dauca inoc cetan pensau, crisrinaubac baquijeela salbeetaco duina dotrina (Icas-I, 8).

Bere semiac castigau ez citubalaco biar zan duina. Jaungoicuac ill evan Eli seme bijaquin (Icas-I, 197).

Bada, ardauc ecarten badau guizona nai emacumia, edanda eguanian cer esan evan edo cer eguin evan vijamonian gomutau ezin dan edura; besteetan eguin ez oi dituban zoraquerijac edo gaistoquerijac eguitera; gauza onac ta charrac bere burubagaz ta errazoiagaz garbitu ta erabagui ezin dituban duinara (Icas-I, 272-273).

Noberac daquijala ta ezaututen davela, (leenago sarritan jazo jacolaco) ber e guraz esan dirian tercijuetati batera nai beste batera, bere errazoa edo gorputza ecarteco duina ardao edaten davenac, eguiten davela pecatu mortala edo illgarri ja (Icas-I, 274).

Ez ceruco aingeru guztiac, ez patriarca ta propeta guztiac, ez apostolu ta beste arima on guztiac bat eguinda bere, ezin euqueen ta ezin leguije gueuri pecatubac parcatuteco ta gracia emoteco duinaco sacramentu bat (Icas-III, 8).

Ascotan gurasuac eguiten ditubee gauza batzuc, gach uste bagaric, celan ez daquijela ta jaquin biar leuqueela, sabeleco seinari vizitzia quenduteco duinacuac (Icas-III, 53).

ia damutu zan edo ez, pecatubaren parcacinoia jadisteco duinaan? (Icas-III, 104).

Ezautu biar zirian edo ez, ala pecaturaco duina ezaubera eguan edo ez, au da dudia (Icas-III, 168).

ta areetati asco, salbeetaco duina dotrina ez daquijenac (Euscal-errijetaco... 136).

Ya dagoz dantza atan guizonezcoric edu emacume, edo mutilic edu nesca (Euscal-errijetaco... 66).

Aita edu eguindaco seme alabac dagoz asco, dotrinaric bapere sustancijaz ez daquijenac (Esku, 216).

Orregaiti meza bacoachac balijo dau, Jesusen Calvarioco erijotziac berac edu (Icas-I, 163).

Ceure arimia edu costa jacon Jesus maitiari (Icas-I, 250).

Elisaco Batzaar ta jaquitun nausijen ondo esatez jantzita, jasota dago, besteric ez eduban (Icas-II, II).

Mundubac daucan edu zabalera dauca pecatubac berac (Icas-II, 15).

Impernuraguinoco sustraijac daucaz. Munduba edu zabal da. Guizaaldi guztiac edu luzetuten da (Icas-II, 17).

¿Zan da arri gaistoric edo elementuric prancesac edu negar errijetan eraguin davenic? (Icas-II, 53).

Lagun bi edo iru alcarregana batu ezquero, verba aldi guichi izaten dira lagu nari guichi edo asco ondran icutu bagaric. Eurac gaiti inoc esatia guraco ez leuqueen edu norbait gaiti esan bagaric (Icas-II, 192).

Bada, ac edu pecatu edo gueijago zuc eguiten dozu, ceuc proximua gaiti deun garoric esan ez arren (Icas-II, 195).

Pobreen arimac bere costa jacozan Jaungoicuari, aberatsenacedu (Icas-III, 60).

Dira andi guria, ondasun guria, gorputzaren gusto guria, lagunac bera edu-tzat ez euquitia (Icas-III, 72).

Mecia entzutera juatecoedu prestetan diriala, compesetara juateco (Icas-III, 117).

Oneec eta beste contau ezin guinaizan educ, ezcontzaco estaduban jadichi evene santu izatia ta Eleisa Ama Santiac Altaretan iminita ondretia (Icas-III, 323).

Zorroztu, dino, miina, sierpiarena baixen zorroz eguin artian; sicut serpentis (Icas-II, 205).

Ta basoco loria baixen galducorra dala munduco dicha ta atseguin guztia (Icas-II, 290).

Ta eurac uste davee anguerubacbaixen garbi dagozala (Euscal-errijetaco... 183).

- Konparazio-perpau berezi samarrak (... ceinda...):

Baina ez dira aimbete crisinau guztiai jagocazenac, ceinda eleisa guizonai (Icas-III, 110).

¿Nor izango da, bada, ain zorua, ceinda bere pecatubac guztiac compesauco ez dituban? (Icas-III, 142).

Ama on batec alaba bacar bat ezin artu lei vijoz bigunauagaz ta maitetasun andjauagaz, ceinda Jangoicuac artzeen dituban ta trateetan dituban bere adisqui - diac (Esku, 86).

- Superlatibo erlatiboak (aimbat ... -en(a) / danic ... -en(a)):

Ez da nire gogua sail au luzatutia, ez bada aimbat laburr en ta arguiruen imintia (Euscal-errijetaco... 88).

Prestau egizu, crisinaubac, entzutia aimbat gogoric zurrenagaz (Icas-II, 24).

Entzun eguidazu aimbat gogoric oneenagaz (Icas-II, 138).

Baina entzun dozu, danic guzurric chicarena bere pecatu dala (Icas-II, 179).

Nai ta ez lotsatuco da, danic lotsa galducuena bere (Icas-II, 201).

f. Ondorio-perpauak

Hauetan, gehienetan, honako egitura hau agertzen da: ain ... ece (ce)+ aditza -n morfemarik gabe; batzuetan ain agertzen da soilik eta aditza; beste batzuetan, ain ... zeinda ... Azken hauek konparazio-perpauetara hurbiltzen direla dirudi:

Beste batzuc ain dira condicinoe latcecuac, estubac, iraacijac eta sicubac, ece uste davee olgueeta guztiac diriala chaarrac (Euscal-errijetaco... 16).

Biguireetan eguiten dira gauza batzuc ain lojjac eta desonestubac eze turcu - bac eurac bere lotsatuco litzatequez, icusico balitubee (Euscal-errijetaco... 111).

Ta ain dauqueez ya artubac erdeera edo latin verba batzuc, ece euraquin ez bada aituten ez davee ondo dotrinia edo crisinautzaco eracutsija (Icas-I, IX).

Baina ardaa dan leguez, gueure sabelian sartu ezquero, ain biarguin presta, sutsuba ta indartsuba gorputceco odolac ta ur bitzigarrijac erabilteco, verotuteco ta

asarratuteco, esaten jaco cristinaubari, ardaua edan biar dala voticacua leguez (Icas-I, 269).

Baina ain atsituba ta pestetsuba ce eguno ez arrainic, ez gauza vitziric emon dau (Icas-II, 46).

Ez dago inor bere, neure cristinaubac, ain zororic, ain itsuric edo ain necijoric, ceinda, gauza bat guttiz ona dana jaquin ezquero, ameetan ez davenic (Icas-I, 40). // Ez dago inor bere luurraren gainian ain zucenic, ceinda egunian egunian ascotan uts eguiten ez davenic (Icas-I, 45).

g. Perpaus kontzetsiboak

Ez dugu aurkitu bereziki aipatzea merezi duen forma bitxi edo ezezagunik. Ia lerroan-lerroan agertzen den egitura hau da: *Partizipioa + arren / partizipioa + ez + arren*. Beti da partizipio hutsa eta ez partizipioa eta aditz laguntzailea. Askotan, kontzetsiboari dagokion objektua nahiz kalitatea *arren* juntagailuaren eskuinean jarri ohi du; esaterako, *Olgueetia berez izan arr en ona, izan leiteque chaarra era gotzitaco demporaan dalaco* (Euscal-errijetaco... 40). Ezezko perpausa denean, goian jarri dugun hurrenkera darabil beti, eta ez: *ez + partizipioa + arren*. Bizkaieraz, guk dakigula, Bartolomek darabilen forma bera izan da gure betiko euskarakoa; hau da: *izan ez arren* da guk txikitatik entzun eta erabili izan duguna. Bestea orain sartu zaiguna da; *aditz jokatua + arren* ere guretzat berria da. Hona Frai Bartolomeren hurrenkera eta egitura: *asco izan arr en ceruraco deitubac, gui chi izango diriala ceruracuac* (Euscal-errijetaco... 150). // *Adisquide pobriac intencinoia ta desiuia euqui arr en mesede eguiteco, gauza andiric ezin leijo inori, cegaz ez daucalaco* (Esku, 67). // *Ta deungaac izan arr en gurasuac, gurasuac dira* (Icas-I, 206). // *Bada, zuc oneraric euqui ez arr en lapurreta atati, pagau biar dozu, lapurraren paltan, ac ostuba* (Icas-II, 154).

Beste batzuetan *ba- + aditza + bere* nahiz *-ta/-da amaitutako partizipioa + bere* erabiltzen du: *Oitu beti eguija esatera, ceuben contra bada bere* (Icas-II, 181). // *Preminan icusi ezquero adisquidia, inoc esan bagaric dua lagundutera, asco costata bada bere* (Icas-II, 207). // *Guztiac bat eguinda bere, ezin conjurau leguije endemoniadu bat* (Icas-III, 294).

Beste batzuetan, partikula distributiboak erabiliz adierazten ditu perpaus kontzetsiboak: *Nai ona izan, nai pecatarija izan sacerdotia, nai Jaungoicuaren adis quidia izan, nai aredijua izan, nai sinistute onecua izan, nai eregia izan, dana dala, dan moducua dala, mezz ordenauba bada, [...]* (Icas-III, 295).

h. Perpaus erlatiboak

Bere garaiko idazleen artean, ezbairik gabe, Frai Bartolome izango da molderik oneneko joskera ageri duena eta hizkuntza erromanikoen kutsuko esaldirik gutxien darabilena. Horri dagokionez, J.A. Mogel eta gainerako klasikoak baino jato-

rrago dabil herri-euskararen bidetik. Perpaus erlatiboetan, hala ere, euskaraz ohi-koak direnekin batera, *cein*, *nun* eta antzekoekin eraikitakoak aurkitzen ditugu haren testuetan. Beraz, ohiko formetara joko du normalki perpaus erlatiboak egiteko, baina erara datorkionean beste moldekoak egiteko ere ez du engararik. Hona azken hauetariko adibide batzuk:

Erregue guztien Erreguia ta Jaun guztien Jauna da bere Aita, cein dan Aita Beticua (Icas-I, 72).

Mundubaren beguijetan palta andi aguiricoric euqui ez arren, vorondatiaren nai ona edo caridade santia ez euqueelaco, cein dan arimiaren lamparia ixioteco orijua (Icas-I, 95).

Ta onen ondoric gueure arimaco gracia ta ceruco betico dicha andija, cein opa deutsudan guztioi: Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. AMEN (Icas-I, 30 serm.).

Luxurijotsubac bai guizonac ta bai emacumiac, bai ezcondubac ta bai libriac euren pecatuco adisquidequin sartuten ditubela oe ixiiuetan, laba gorijetan ta gal -dara iraaquinetan, nun egon biarco daveen condenau loijac demoninuen burla -garrizat, alcar zatituten ta alcar erretan (Icas-II, 40).

Leenagoco guiza aldijac saltoca iraguaz, gogoratuco ditut batzuc, nundi ezau tuco dozun pecatu loijaren erru madaricatuba (Icas-II, 44).

Leengo leguiian aguindu euan Jaungoicuac caxa bat eguiteco, nun gor de biar zan israeltarren mana, Jesus comuninoecuaren irudija (Icas-III, 209).

i. Perpaus osagarriak

Perpaus osagarriez, askoren gogotan izan daitekeen ilununera argi-izpitxo bat igortzen saiaturiko gara; testuak aurrean direla sortu zaizkigun iritzi edo susmo batzuk agertuko ditugu besterik ezean. Testuinguru batzuetan, perpaus osagarrietan, *-la / -na* alternantzia agertzen da batez ere bizkaieraz idazten duten batzuegan. Azken urteotan egindako zenbait ikerketaren arabera, uste baino hedatuago omen dago *-na* egiteko joera: Gipuzkoako Goierri, Irunen, Manuel Lasarteren bertsoetan... Joera hori oso markatua da Frai Bartolomerengan. J.A. Mogel eta gainerako idazle klasikoek ez diote horretan hurrik ematen gure karmeldarrari. Hainbat aditu ahalegindu da joera horren legea aurkitzen edo gure literaturaren ilunune txiki hau argitzen, guk dakigula behintzat, guztiz lortu gabe. Zertan datza hain ugaria den *-la / -na* alternantzia horren gakoa? Frai Bartolomek herriko euskara du oinarri eta bere euskal sena. Hitzak eta aditzak bai sortzen ditu atzizkiez baliatuz, baina gramatikako formak herriko iturrikoak dituela pentsa genezake. Hark kontuz-kontuz jaso eta bere testuetara eramango zituen. Beraz, alternantzia hori herriko euskaran zegoena da eta gaur egun ere badagoena, gramatika-arau estuetan zehazki nola kokatu ez badakigu ere... Argi dago *-na* forma markatua dena eta *-la* arrunta; hura zerbait ziurtzat, ageritzat, jakintzat jotzen denean darabil, baita zerbait eginbeharizat, obligaziotzat agertzen duenean ere; hau, berriz, besterik gabe zerbait baiez

tatzen denean. Batzuek hitz-hurrenkeran edo joskeran aurkitu nahi izan dute horren gakoa. Guk geuk, testuak aztertu ondoren, joskeraren eragin garbirik ez dugu ikusi. Agian, arrazoi bat baino gehiago izan daitezke orokorragoa den *-la* morfemaren ordeztasun *-na* erabiltzeko. Batzuetan, arrazoi horiek elkarrekin loturik edota elkarrekin zerikusia dutenak ere izan litezke. Esaterako, hauek jarriko genituzke hipotesi gisa baino ez bada ere:

- Morfematizat *-na* duena forma markatua da.

- Morfematizat *-na* duen menpeko perpausa osoa, esaldi nagusiko aditzaren galdegaia da.

- Morfematizat *-na* duen menpeko perpausak objektu zuzenaren lekua betetzen du; "harako hura", "delako hura" edo antzeko esanahia izan ohi du; hau da, gaztelaniazko "aquello de que..." (es cosa sabida / ya ha quedado dicho etc.): (...) *erri areec gueratu ziri ana, esan da bostgarren icasiquizunian* (Icas-II, 75).

- Menpeko aditza gobernatzen duen aditz nagusiak eragin dezake haren aditzak morfema bata edo bestea, *-la* / *-na*, hartzea.

- Gerta daiteke aurreko arrazoi hauek, gutxi-asko, eragina izatea *-na* morfema aukeratzeko orduan. Gerta daiteke batek ere eraginik ez izatea eta gure idazleak, horretaz beren-beregi gogoetarik egin gabe, euskal senak eta herriko euskarak erakusten dion bidetik jo izatea... Eman ditzagun zenbait adibide beren testuinguruan:

Ezin ucatu legui, arriscu gueijago dauquee na edade ataco persona libriac, bai guizonezcuac ta bai emacumiac, arimaco ta gorputzeco onestidadia galduteco (Euscal-errijetaco... 54).

Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten euee na Jaungoicotzat (Euscal-errijetaco... 140).

Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua ta arteza da na. Baita nire eguina ezer ez dana bere (Euscal-errijetaco... 6).

Nic icentau bagaric daqui gentiac ondo, onetarico ermita asco dagoza na Vizcaijan ta Provincijan. Ta urrin errijetati legua ascuan gentia juan oi da na erro - medijara piesta egunian . (Euscal-errijetaco... 106).

Bada, au irugarren aguindubaren contra berez pecatu mortala da na, edocei - nec daqui edo jaquin biar dau (Euscal-errijetaco... 109).

Baquijee cristandadeco aguintari jaunac, lecuban lecuban dagoza na nasai - jac, Jaungoicuaren bildur bagacuac, ceruba galdubac edo irabatzijac penaric emoten ez deutseenac, odolaren ta araguijaren artian loituta vitzi gura daveenac (Euscal-errijetaco... 149-150).

Santo Tomasec dino [...]gauza jaquina dala, pecatu da na (Euscal-errijetaco... 157).

Eguiija da, nosbait olgueetia naturaleciac escatuten dave na (Euscal-errijeta - co... 189).

Baña pedeco eguiija da, Jaungoicuac mundubaren asieran ezer bere ezeti eguindaco espirituzco criaturaac diria na ainguerubac (Icas-I, 12).

Gueure Jaungoico onac beequijan, Adanen pecatubagaz guztioi etorri jacu na naguitasuna, alperreriya ta sosiguz egoteco desiuia (Icas-I, 25).

Baina ezautu evan, gaisqui eguin evana (Icas-I, 27).

Bada, Jaungoicuaren beraren esana da, Eleisa Ama Santiari berac eracutsi deutsana, pedeco gauceetan Eleisiac engainau ezin guinaiza na; ta cristinaubeen Eleisia eguijaren cimentu seguruba ta pillar sendua da na (Icas-I, 33).

Ta al dagujala eguiten ez baditu, gauza aguirija da, arerjuarentzat voron - date chaarra dauca na ta ametan ez dave na (Icas-I, 101).

Ezin, bada, dudaan imini guinai, cristinaubac, arerjuac gaistuac, luzar o - cuac ta gach andijac eguin deutchubeezanac izan arren, amau biar ditugu na Jaungoicua gaiti ta Jaungoicuaren izenian, salbauco bagara (Icas-I, 101).

Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, chito oitura galduba ta zabala dagua - na cristinaubeen artian juramentubac eguiteco (Icas-I, 114).

Baina gauza jaquina da, maldecinoiac diria na chito bildurgarrijac (Icas-I, 146).

gauza jaquina da, juramentu gaistuac, blasphemijaac, maldecinoiac ta bidauac alcarri dautsee na (Icas-I, 149).

Ya gauza jaquina da, domeequetan ta jai osuetan biarra eguiten davenac, austen davena Jaungoicuaren aguinduba (Icas-I, 157).

Seme alabac gurasuai obeidu biar deutse na gauza jaquina da, cristinaubac (Icas-I, 206).

Besteen caltian diriana ezautu ezquero, quendu biar ditu (Icas-I, 235).

Sinistu evan, ceruba ta lurra diadarca eucazana bere contra (Icas-I, 242).

gauza jaquina da, dinot, tercijo onetara ardao laarreguijac ecarri dave na, orditu da na (Icas-I, 273).

Baina ezin ucatu negui, aparteco poza artu dave na nire vijotzac, eleisa-guzo - nac ene neque pusquia ontzat emon daveenian (Icas-II, 1).

¿Ez dira acordauco cristinau loijac, euren gorputzac diria na edo izan biar davena Espiritu Santubaren templu edo egon lecu vitzijac? (Icas-II, 27).

Edoceanec dacuts, gogoratuta beste bagaric, icara eraguiten dave na pecatu ezain onec (Icas-II, 32).

Beste pecatubac baino escubide gueijago lotsarizco pecatubac berez diabrubai emoten deutse na bere, impernuban condenauben arimac ta gorputzac penetaco, gauza aguirija da (Icas-II, 38).

Persona libriac alcarregaz araguizco gauza loijac eguitia pecatu mortala da na, pedecoerabaguija da (Icas-II, 69).

Oneec bere compesau biar dira, ala ezcondubagaz, edo senidiagaz, edo seni - de ezcondubagaz eguin ziria na (Icas-II, 70).

Seniden arteco araguizco pecatubac autortu biar dira, bada, compesinoian. Ez bacarric pecatu eguin da na, ezbada baita senidiagaz ta ce gradutacuagaz eguin dan bere (Icas-II, 71).

Bada, eracusla ascoc dinuen leguez, eguija bada seigarren aguindu santuba - ren contra berez pecatu venialic edo gauza guichiric ez dagua na (Icas-II, 83).

Ceinegaz eracutsi euan Jesu Cristoc, lapurretia pecatu andija edo illgarrija dana (Icas-II, 99).

Baquizu zure auzuac, aza bat nai porru bat ostu deutseelaco, eguingo ditu - bana luurrari icara eraguiteco bidauac ta maldecinoiac (Icas-II, 104).

Ola jaun bic edo iruc edo gueijagoc baquijee, euren oleetara inguruco iquetzic gueijenac edo guztia eruan biar ditubee na, beste olaac urrin dagozalaco (Icas-II, 119).

Ta, saldu biar dave na icusita, esquintcen deutzazuz ogueta amalau ducat (Icas-II, 125).

Baquizu diruba biar dave na, ta nai gora ta nai merque, saldu biar dave na (Icas-II, 125).

- Baditu, gure ustez, aipaturiko arauetan ongi sartzen ez direnak edota haien aurka joan daitezkeenak ere; esaterako, *-la* egin beharko zuela uste genuenean *-na* egiten digunak nahiz alderantziz; baita aditz nagusi bera gobernatzaile dela, morfema biak, *-la* eta *-na*, dituenak ere. Hauetariko batzuk inprimategiko hutsak izan daitezkeela, edota estiloaren zera izan daitezkeela pentsatzeari bide eman gabe, dagoen-dagoenean jaso eta irakurlearen bahepean ezarriko ditugu:

(Bi morfemak agertzen dira aditz nagusi beraren menpean...) *Ez da errez sinis - tuten, sacerdote jaunac ta religiosuac, eureen estadu santubagaz aaztuta (gentiac esaten daven leguez ta sarritan arpegujan ezarten deutzun leguez) saraubeetan dantzan eguiten davee la. Ta ezda, orraco esan dirian piestetara ta erromedijeeta - ra juanda, guizon ta emacumen artian, nesca ta mutilen artian naastian sartuta, olgheetan ibiltzen diria na bere (Euscal-errietaco... 168).*

(Biak agertzen dira, *-la* soilik behar zuela uste genuenean...) *¿Ta cer eguiten dau miin gaisqui esaliac? Sugiaren beraren eguin eguina. Batian, au entzun davena; bestian, au ei dinue la; bestian, alan ei za la; bestian, zanac emon eutsa la; ta bestian, alan da la esanda (Icas-II, 190).*

(*-la* egiten du, *-na* beharko zuela uste genuenean; erlatibozko *seindun dana* sintagmarekin nahasbiderik ez sortzearren...?) *Emacume batec badaqui, illteco peli - gruban dagua la seindun dana (Icas-III, 61).*

(*-la* egiten du, *-na* beharko zuela uste genuenean...) *Gauza aguirija da, chito ezaina ta seina galduteco peligru andicua da la, alan dagan emacumiac dan - tzan edo pandanguan eguitia, nai bacarric ta nai lagunaquin (Icas-III, 54). // Bada, gauza jaquina da, ez dala ceruban sartuco pecatubaren ugarric ez gui - chiric ta ez ascoric (Icas-III, 265). // Ezin ucatu guinai, erijotzaco orduban cristi - naubac izaten dituba la tentacinoeric andijenac Jaungoicua galduteco (Icas-III, 276). // Tercijo atara eldu ez arren, gauza jaquina da gurasuaren, seniadiar en, ugazabaren edo nausi baten erregubac, empeinubac ta zamai erdijac gir etan daveda asco, aguindupian daganaren gogua (Icas-III, 353). // Gauza jaquina da, cristinaubac, dotrinia ondo daquijanac dauca la Jaungoicuaen ezaubera gueijago (Icas-I, 7).*

(Bien alternantzia; *-la* beharko zuela dirudi...) *Au entzutun da, emaztiac sena - rra ill dave na. Bestian, senarrac emaztia ill dave la. Beste aldian, senar-emaztiac auzitan daviza la. Guerochuago, alcarregaz izan ezinda, apartau diria la. Bata, lagunari burla eguinda, adisquide deunguequin adulterijotzan sacramentubaren lotsagarrijan vici da la. Bestiac emaztia saltcen tratu loijan imini dave na (Icas-III, 328).*

(*-na* egiten du, *-la* izan beharko zuela uste genuenean...) *Santo Tomasec ta beste juicijua dauqueen guztiac esaten davee, dantzan eguitia berez pecatu ez dana (Euscal-errijetaco... 156).*

Goian jarritako adibideez gain, ikus *Euscal-errijetaco...* 100, 149; *Icas-I*, 39, 222, 239, 4 serm.; *Icas-II*, 44, 63, 83, 96, 119, 124, 125, 131, 140, 143, 148, 151, 152, 153, 154, 168, 172, 180, 181, 183, 184, 187, 187, 192, 193, 193, 195, 198, 199, 201, 233, 237, 246, 271, 272, 279, 280, 280, 289, 291, 291, 291; *Icas-III*, 8, 16, 16, 16, 36, 37, 39,50, 53, 59, 61, 61, 62, 89, 91, 94, 98, 98, 100, 100, 108, 109, 111, 112, 122, 122, 128, 142, 144, 144, 144, 166, 172, 190, 192, 195, 196, 199, 201, 219, 262, 263, 272, 277, 283, 303, 313, 316, 331, 335, 343, 347, 350, 355, 361, 363, 369, 375...

Ezezko perpaus osagarri batzuetan *-nic* morfema ageri da:

Ez dogu iracurten Jesucristo olgau zanic (Euscal-errijetaco... 190)..

Ez dogu iracurten, virgina necijo areec iñor ill eveenic (Icas-I, 94).

ez daquigu zucun, dempora seinalauric euquee nic (Icas-I, 176).

Ta penagarri andija da gueijenac ez pensetia lapurrac diria nic (Icas-II, 98).

ez eutseen erantzun, David erregue eguitera joianic, ez bada Jaungoicuari sacripiketara joiala . (Icas-II, 180).

Moisec ez eutsan inos esan Paraoni, Egitoti gentia aterata atcera biurtuco ez za nic (Icas-II, 180).

Baina ez euan esaten Marinoc, seina beria ez euanic (Icas-II, 232).

Baina pecatu chicarretan ta arinetan jausi ez da nic ez daquigu (Icas-III, 224).

ez dau inoc uste ezcontzia aita danian, ezcondu ezquero, gachac joco ditu - banic (Icas-III, 330).

(Ondorengo hauetan, berriz, *-nic* itzaroten genuela *-la* egiten du) *Ez da esa - ten, ezteguco egunian senide bat edo adisquide bat convidau biar ez dala (Icas-III, 339). // (...) ez da esaten beinguan, alaco maldecinoia pecatu mortala dala (Icas-I, 146).*

Beraz, *esaten dau / dinot / esaten da / esan daigun / uste dabe / entzun dot / icusico dau / gogoratuten bajacu / eguija da...* aditz nagusi denean, *-la* morfema ageri da gehienetan. *Gauza jaquina da / ecin ucatu legui / zeuc dacuszu / autor - tu biar dira / ondo daquijeela / ez da errez sinistuten / pedeco eguija da / Jaungoico onac beequijan / ezautu euan / Jaungoicuaren beraren esana da / esanda gueratu da / gauza aguirija da / ezin dudaan imini guinai / sinistu euan / ez dira acor - dauco / edoceinec dacus / ceinegaz eracutsi euan / eleisiaren sinistutia da / contuban jausten bazara / ixilic euqui / zucun dacusgu / eguija da...* aditz nagusi denean, berriz, *-na* morfema ageri da gehienetan. Esaterako, ondorengo adibide hone-

tan biak ageri dira bakoitza bere aditz nagusiarekin; salbuspenak salbuespen, adibide honetakoa da haren joera:

Jauna nic ondo daquit, á deunguia da na. Neuri ostu deust; neuri ucatu deust; neuri erruba guzurragaz ezarri deust; neuri calte andijac eguin deustaz; neuc en - tzun deustat; neuc icusi nevan; guztiac dinue, á deunguia da la.. (Icas-II, 233).

“Eguija da” bi sailetan agertu zaigu: *Baita da eguija, plazaco piestara ta dan - tzara duazanac, (gutziz itsubac eta gorrac edo umiac ezbadira) ondo daquijeela bigarren juate aldico, juaten dirian guztian, edo piestaruz, edo piestaan, edo pies - tia amaituta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxurija guztiaren testigu iza - tera duaza na (Euscal-errijetaco... 99-100).*

Eguija da, nosbait olgueetia naturaleciac escatuten dave na. Baita cetan edo atan olgau leitequia na bere (Euscal-errijetaco... 189).

Goiko bigarren *eguija da* hori *gauza jaquina da* esaldiaren harikoa da.

5. Lexikoaren inguruko zenbait zehaztasun

Sail honetan ere, aurrekoetan bezala, Frai Bartolomek nahiko hartuak dituen eta haren lexikoan esanguratsuak, adierazgarriak diren hitzak jarriko ditugu:

- **aazu:** arazoa, lana, zeregina; (behin bakarrik dator eta horrelaxe; haren gan aazu da hitz honen forma, *aazuba* egiten baitu); “*Guraso uatubac edo balijoco ez dirianac, echian emoten daveen aazuba gaiti, illtia opa deutseenac*” (Icas-I, 253).

- **abonau:** goratu, goraipatu, aupatu; “*Amac joten evanian, aitac abonau umia; aitac lotsia emon gura deustanian, amac beste aimbeste*” (Icas-I, serm. 20).

- **abonu:** gorespenna, laudorioa; “*bidauac, icen gaistuac, errazoe chaarrac, palagu aixetsubac, guzurrezco abonubac, zamai gorrotozcuac ta eracutsi peca - tuzcuac dira zuri seme alavaac umetati entzun deustubeezan verbaac*” (Icas-I, serm. 15).

- **achitu:** hartu, harrapatu; “*Escutauba da Jaungoicua, veguijaquin icusteco. Ezcutauba da, guizonaren errazoe laburrac achituteco” (Icas-III, 196). // ¡Ce icus - garri icaragarrija izango zan guizonac eta emacumiac, al eguijenac, uraren igue - si ta ura euren ondoric achituten. Batzuc igongo even teilaatubetara; an ber e achitu luxurijaren zigorrac. Beste batzuc arbola altubetara; an ber e achitu. Beste batzuc torren puntara; an ber e achitu (Icas-II, 44, 45).*

- **acordau:** gogoratu, gomutatu, oroitu; “*Acordau zaitte, dino, memento, edo goguan euqui eguizu zapatuba santututia*” (Icas-I, 180). // bizia, argia, ernea; “*¡Lastimia! Dotrinia icasten dira atzerachubac, ece zuben umiac baño obaric eta acordaubagoric ez dago inun bere*” (Esku, 254).

- **aculu gan:** akuiluaren muturreko eztena edo burdinazko ziri zorrotza; “*San Paulo apostoluba bildur bajacon bere araguijaren aculu ganari, nor bildur izan - go ez jaco beriarenari?*” (Icas-II, 265).

- **adabau:** urraturik dagoena, batez ere arropak konpondu; (irudiz ere badarabil, egindako kalteak ordaindu esan nahi du halakoan); “*Zor deutsee, bada, uga - zabaac otseguinari euren erropaac tercijo baten adaveetaco denporia; edo adabau biar deutseez euren lepoti*” (Esku, 234). // “*Ta bereti adabau biar dau eguin daven calte guztia, salvauco bada*” (Icas-II, 156).

- **adin / adin on:** adimena, zentzua; zentzu ona; “*Irugarren caltia da, gurari charrac guizonari juicijua oquertutia ta adina illundutia*” (Icas-II, 272). // “*Orregaiti, autortu biar deutsa amac illteco peligruban compesinoeti campora cura jaunari edo adin oneco persona bati, seinu eguitemo daguana, edo alan uste dave - na, dempora guichicua edo sortu barrija izan arren seinu*” (Icas-III, 61).

- **agoe:** oletako burdin masa gorria; (agoia forman darabil, baina hau ohiko bokalen harmoniagatik egiten du; hitza mugagabeen agoe dena argi dago); “*gauer - dija baño pusca bat leenago agoiari su emotia...*” (Esku, 174).

- **aguindunaico:** inguruko gaintetik egotea gogoko duena; “*Ac guizonac eucan emaztia citala, miin gaistocua, buruguina ta aguindunaicua*” (Icas-III, 374).

- **aguinte:** indarra, adorea, kemena; (esanahi onekin dakar soilik); “*Gach onduan gueratuten da gorputza coloria zurituta, aguintia juanda, jaateco gogo bagaric*” (Icas-III, 273). // “*Gachac gorputz guztia aguinteti aterata, argalduta, macalduta ichi deusalaco*” (Icas-III, 273).

- **aimbagaric:** aipatzen den hura gabe; (loturik idazten du beti, b-*ren* aurretik *n* duela nahiz *m* duela); “*Ez da inor icentau biar compesinoian, aimbagaric peca - tuba compesau al dedilla*” (Icas-III, 149).

- **aintzat eza:** gutxiespena, mespretxua; “*Ez dago verbaric, alaco guizonac nai emacumiac Jesus virginen espoco garbijari eguiten deusan injurija ta aintzat eza aitu eraguiteco*” (Icas-II, 70).

- **aisaatu:** (s-z nahiz x-z idatzirik dator) uxatu, haizatu, aldendu; “*Gomuta one - gaz aisaatu daiqueez munduco jaunac, aberatsac ta ugazabaac euren burubetan vanidadiac sortu oi dituban queiac, erichi arruac ta andiari irago gaistocua*” (Icas-I, 224-225). // puztu, harrotu; “*Ez daiguzan aixaatu ta arrotu gueure buru - bac, indar gueijago ta gorputzeco alizate gueijago daucagulaco*” (Icas-I, 266). // “*Gueijago crijadu lejial ta zuzenari, ugazaba aisaatubari ta vijotz gogorreuari baino*” (Icas-I, 225).

- **aise / aixe:** haizea; “*Olgueetia, ibiltia, demporia iragotia, aisia artutia*” (*Euscal-errijetaco...* 7). // “*aise prescuac esquina guztietati joten davela*” (*Icas-II, 86*). // “*¿Ta cer eguiten dau autsari auagaz aixe emoten deutsanac?*” (*Icas-II, 228*).

- **aitu:** ulertu; entzun; “*Aitu, ce gorroto andija deutsan Jaungoicuac guizon ill - tiari*” (*Icas-I, 241*). // “*Orregaitlij aitu biar da dotrina au ardura andijagaz*” (*Icas-I, 239*). // aditua, jakintsua; (aditz irangaitzez eta nori komunztaduraz adierazten du ideia hori eta sarri agertzen da haren obran barrena); “*Precijo eguinic leguez ez dauquen gauzac salduteco edo erosteco, beguiratu biar jaco aituten jacuen gui - zon eldubac ce balijo emoten deutsen guichi gora bera*” (*Icas-II, 120*). // “*Onezaz gaineracua, erabaguico davee basoco lapurreta ta calten gainian, obeto aituten jacuenac*” (*Icas-II, 158*).

- **ala:** mina; (asko darabilen hitza da); “*Minagaz ta aliagaz seinac eguin biar - co dituzu*” (*Icas-III, 363*). // “*Ez da au, neure cristinaubac, gorputceco mina, alia edo naibaguia*” (*Icas-III, 119*).

- **alborengo:** biriketako gaixoa; “*alborenguc, palta bagaco buruco alaac, jan ezinac, loric ezinac ta beste asmau leguizan gorputceco gachac*” (*Icas-II, 293*).

- **alcar estaldu:** elkarri laguntza eman, elkar babestu; “*Au da cristinaubac biar orduban alcar estaldutia, alcarri lagundutia ta alcar maitetutia, Evangelijuac aguinduten deustcun leguez*” (*Icas-II, 108*).

- **alcarren gozo bagaric:** elkarrekin bekozkoaz; “*Conturic zucenenian jazo leiteque, alaco gurasuac eta umiac munduban alcarr en gozo bagaric, poz bagaric, edo obeto esateco, alcarren gorrotuan, gach onec belauneti belaunera luzaro irau - tia*” (*Icas-I, 206*).

- **alcautz:** suzko arma bat; “*Bete leguijez erriyac soldauz, polvoraz, cainoez ta alcautzez, alcarren contra pelietaco*” (*Icas-III, 293*).

- **alda batera:** era batera, guztia bat-batera; (berak loturik idazten du); “*¿Ipini lei munducoc demoninuaren ichura aguirijagoric, ordi batec aldabatera ipinten daven baño?*” (*Esku, 287*).

- **alderatu:** apartatu, aldendu, urrundu; “*Ceubec alderatuten dozu otso deun - gueetati*” (*Icas-I, IV*). // “*Lelengo egunian edo istantian eguin evan Jaungoicuac arguija, ta alderatu evan illunaganic*” (*Icas-I, 11*).

- **aldia onetati / aldia bateti:** alde honetatik / alde batetik; (Bartolomek “a” eta guzti darabil); “*Ez, aldia bateti edo besteti erreguelati campora daguan olgueue - tia gaiti*” (*Euscal-errijetaco...* 20). // “*Beguiratu dajjogun bada, neure entzula onac, miin gaistuari aldia onetati*” (*Icas-II, 206*).

- **alguin:** ahalmena; (atzizki bidez berak sortuak diruditen hitz bitxi samarrak ditu: *alguin, adila, nadila, sentitzaille...* guztiak pertsonaren ahalmenak adierazte-

ko; hauen ondoan beti darabil gainerako hitza ere); “Adina ta nailia, edo entendi - mentuba ta vorondatia dira guizonaren alguin edo potencija nausijac” (Icas-III, 18).

- **alizate**: ahalmena; “Onetaraco Jaungoicuac emon deuscu guztioi, seinac batiatuteco alizatia” (Icas-III, 62).

- **allaguina**: hainbeste, hainbesteraino; “¿Cec, bada, allaguina engainau ta itsutu ditu ceubeen umiac?” (Icas-I, 14 serm.)

- **alover / alovereco**: soldata / sodatapeco langilea; “Ta aloverecuac dauca - zana, uste dau, aloveric erdija bere irabazten ez daveela” (Icas-II, 145). // “¿Ceimbat opicijoco, alover ona irabazten daveela ta osasuna dauqueela, beti arlo - te ta beti nequez, peseta bat daveeneco, jocuari emoten deutseela ta emazia ta umiac gosez ta biloxic dauqueezala?” (Icas-II, 140).

- **alperrerija**: alferkeria; (ez du behin ere erabiltzen *alperquerija*); “Beti izan - go da eguija, alperrerijac ta olgueeta utsac dacazala asmo chaarrac ta burutaci - noe gaistua” (Euscal-errijetaco... 39).

- **anda**: hilkutxa, zerraldoa; “Gaur sendua dana, bigar gaixoric edo andaan egon leitequiala” (Icas-I, 261). // “¿Ce bedeincatubac Abraan, Tobias Aita semiac ta Macabeo anaien ama santia, euren umiac pecatubac eguitia baino andaan icustia naijago evenac!” (Icas-I, 197).

- **andiari**: handitasuna; “Agustin baten Ceruco espirituba, arguija ta gracia, gorputzetzco Aingeruben andiarijac ta ondo esanquizunac zubei aituten emote - co” (Icas-II, 86). // handikeria; “Andiari utsa ta sobervija utsa da au” (Icas-I, 50).

- **anega**: laboreak eta beste gauza batzuk pisatzeko erabiltzen den neurri zaharra, 50 kilokoa; “¿Emon deusazuz anega batzuc labore?” (Icas-II, 109).

- **apapuban bizi**: ozta-ozta bizi, pobretasunean bizi; “Apapuban vizi dana, esquera bialduteco vidiac dira orreec” (Icas-II, 112).

- **apartau**: -en salbuespena egin; “Ta araguija, arimia apartau ezquero, luu - rra da” (Icas-II, 27). // alde egin; “Colpe batzuc emonda, apartau al badedi areri - juaganic, ez dau ill biar” (Icas-I, 239).

- **aparteco persona**: pertsona pribatua, agintaria ez dena; “Au aparteco perso - nac ezin legui. Aguintarijaren escubidia da bacarric” (Icas-II, 118).

- **apio // apiau**: zutoina // gaineko zamari eusteko zutoina ezarri; (berez, “apeo” / “apeau” izango zen; ikus bokalen harmonia 216-217.or.); “Cimentu oque - rra daucan echia, apiauta baino ezin egon da. Ta apiuai bultzaca dago beti” (Icas-III, 318).

- **aratu:** arakatu, aztertu; (forma hau dakar eta ez "aracatu"); "*Aztertu ta aratu ondo ceuben vijotcen izurturaac*" (Icas-III, 116).

- **ardauac galdu // ardaua darijola:** orditu, mozkortu // ardoz beterik; "*Onec bere, besteetan juicijua galdu bagaric eran oi daven beste eran ezpadau, ta berac ain - tzat ez eucala galdu badau ardauac, ez dau pecaturic eguiten, pecatu mortalic ez beintzet*" (Esku, 292). // "*Ta beste batzubetan basatza edo bide baten etzinda, aoti bitsa ta ardaua darijola, ta gorputza oñen gañian euqui ezin davela*" (Esku, 287).

- **ardundu:** hardun bihurtu, harrez bete; (partizipio edo adjektibo gisa darabil); "*¿Cer esango dau, ain aberats, ain pamau ta ain ondo bere buruba icusi davenac, colpe baten guztia galduta, gorputz ustel ardundubagaz carcaba loijan dagua nian?*" (Icas-III, 267).

- **arian da:** harik eta (ikus 254 eta 300.or.).

- **arin (buruco):** burua nahastea edo une bateko burua galtzea; (eskuarki ondoeza, zorabioa esan nahi du hitz honek eta hiztegiek hala jaso dute, baina gure idazlearen testuan bere juizio onean ez egotea adierazten du...); "*Beste edocein gach iragotera leenago etorten dira guizonac illtera baino, juicijo onian dagoza nian. [...] Buruco arinac edo etsajaren tentacinoiac ecarri legui bat bere buruba itotera edo illtera*" (Icas-I, 238).

- **arindu:** zerbaiten nekea gutxitu, eramankorrango bihurtu; ("penak arindu" adieran darabil batez ere); "*Duda bagaric, gomuta onegaz gozatu ta arinduco ditu gaixuac bere gorputceco minac ta alaac*" (Icas-III, 268). // (Izenondoa edo adjektiboa) andeatua, bere izaera pixka bat galdua duena, erdi irotua, iragoa, pasatua; "*Ta labore zaar arinduba ta erdi irotuba onagaz nastauta salduten deutsee pobria ri onaren precijuan. Au lapurretia da*" (Icas-II, 123). // "*Engainuzco tratuba da, lenagoco urteco arto edo gari arinduba ta iragua, urte ataco ona balitz leguez edo urte atacuagaz naastauta, esan bagaric, saldutia*" (Icas-II, 123).

- **arin on / arin oneco:** erdizkakoa, badaezpadakoa, txarra (erdi-mailakoa dela diote hiztegirik gehienek, baina Frai Bartolomeren testuetatik, badaezpadakoa esan nahi duela ateratzen dugu eta batzuetan txarra ere bai...); "*Nai ona izan ta nai arin ona izan, nai gogocua izan ta nai gorrotocua izan, nai asarre izan ta nai aleguere izan, nai nasaja izan ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan moducua dala, ¿bat eguin cinian ceure lagunagaz? bada, agaz vici biarco dozu, batori edo bestiori ill artian*" (Icas-III, 372). // "*Baita bazuc gorputzez bere ocotzeraguinoco sabelagaz justicijaren lotsa arin onian ta natura leciaren desondraan*" (Euscal-errijetaco... 69-70). // "*Izan leitequez onac, baita arin onac bere*" (Euscal-errijetaco... 28). // "*Oneec zubei eracusten ni cansetia, alperricuaz gainera, izango litzaateque azartu lotsa arin onecua*" (Icas-III, 5).

- **arre:** zikina, lohia, aratza ez dena; (uraz hitz egiterakoan darabil); "*Alan, nai errecacua, nai iturricua, nai pozucua, nai ituxurecua, nai ichasocua, nai izun*"

guraan edo bidian gueratuta daguana, nai otza ta nai berua, nai garbija ta nai arria, edoecin ur berezco da asco ta da ona biar orduban batiatuteco” (Icas-III, 39). // “Aguertu zan ur arria euren lecuban. Baina ain atsituba ta pestetsuba, ce eguno ez arrainic, ez gauza vitziric emon dau” (Icas-II, 46).

- **arricari:** harrika egiten duena; *“Illten eguan lecuban belaunbico jarrita, Santubac Jaungoicuari erregututen eutsan bere illzaile arricarijac gaiti” (Icas-I, 102).*

- **artetsu:** trebea, iaioa, abila; *“Caridadia chito artetsuba da” (Icas-II, 203). // “Ce jaquituna, ce ona, ce artetsuba zarian gueure oneraco!” (Icas-III, 45). // “Oh emacumiaren arte artetsuba, guizonaren vijotza ta naija beretuteco!” (Icas-II, 56).*

- **artuquizun:** hartzekoa; *“Ez dago verba bat, ez eguite bat bautismuan apar-teco eracutsija ta artuquizun cerucua ta arimiaren oneracua ez daucanic” (Icas-III, 69).*

- **artzuqueta:** artoa, garia nahiz beste edozein ale mota artzan eralkitzea; (Fra Bartolomek horrela darabil; behin agertzen da soilik; hiztegietan “artzaketa” dator...); *“Artzuquetia, carga andijac erabiltia edo buruba jaso ezin da necatu tia..... asco dira sabelian dagan seina galduteco” (Icas-III, 54).*

- **ascotaco:** gauza askotarako balio duena; *“ez da errez, emacume sendo bat, indartsu bat ta ascotaco bat topetan” (Icas-II, 284).*

- **asetasun:** neurria, nahikotzea, konforme izatea; (templanza, conformidad, satisfacción itzuli ohi dute hiztegiek adiera honetan); *“Guztia onestidadia, guztia asetasuna ta guztia juicijozcua” (Icas-III, 338). // modu ona, gehiegikeriarik gabea; “Soinian prestaera andi bagaco jasotasuna, asetasuna, zintzotasuna ta ber e goguan ta vijotzian daucan virginidadia ta Jesusen amodijua berecautan autor davena” (Icas-II, 91).*

- **asipena:** asiera; (hainbat aldiz dator; J.A. Mogelek ere badakar); *“Compesinoe edo autortce onaren asipena da, pecatubac guztia gogora ecartia” (Icas-III, 111).*

- **asmau:** sortu, izatea eman, pentsamenduz sortu; *“Ceimbat arte ta modu asmau dituban alperrerijac, gulerijac ta codicijac, inorena ostuteco” (Icas-II, 158). // “Proxiuaren ondria benetan maite dogunian, gauza asco asmauco ditugu a jasoteco, bata ez bada, bestia” (Icas-II, 303).*

- **asmotsu:** maltzurra, amarrutsua; *“An icasten dira inor engaineetaco arte asmotsubac” (Euscal-errijetaco... 198).*

- **atajada:** abagune, aukera; *“Batzubetan atajadiac ecarrita. Beste batzubetan berarijaz topauta” (Icas-I, 4 serm.)*

- **atsa // atsitu:** kiratsa // kirastu; (ez du erabiltzen ingurune honetan, berezi-

ki Ondarroarantz, entzun ohi den *antza*, bizkaieraz normala den *atsa* / *atsitu* bai- zik): “*zabalduco deutsee luxurijaren atsa, sarritan icusten dan leguez*” (*Euscal-errijetaco...* 54). // “*Guela guztia atsituta dago*” (*Euscal-errijetaco...* 182).

- **atseenago**: lasaiago, bareago, trankilago; “*Lamet, Cain bera ill evana, ascoc dinuenez, ez zan atseenago vitzi muduban, guizon illzailia ta deunguia izan arren ill evana*” (*Icas-I*, 244).

- **atseeta**: atsedena; (“atsedeta” formaz dator OEHN. Bartolomek aditz-izena “atseete” egiten du “*atseetia*”, “atseden” aditzetik datorrena, *d* bokal artekoa galdu- rik); “*gorputceraco gauza leunen ta labanen gurarija, atseeta onaren ta sarrita cuaren gurarija*” (*Icas-II*, 253).

- **atze**: etxekoa edo senidea ez dena; “*Nai dala senidia, nai dala atcia. Nai dala adisquidia, nai dala arerijua*” (*Icas-II*, 166). // “*Nai urrecuac ta nai urrine cuac, nai erricuac ta nai erbestecuac, nai adisquidiac ta nai arerijuac, nai seni diac ta nai atziac, guztia dira gueure proximuac*” (*Icas-I*, 83).

- **aurbideguin**: aitzindaria, gidaria, aurretik doana; (J.A.Mogelek “aurbide”; *aurbidia artutia* : aurea hartzea); “*Cura Jaunac eta sacerdotiac dira gueure argi jac, gueure eracslaac, gueure vitartecuac, gueure arimen ispillubac, gueure con ciencijen jaubiach, gueure gracijaren aurbideguinac*” (*Esku*, 205).

- **aurra**: ea!; “*aurra zuaz lagunequin*” (*Esku*, 255).

- **ausaa**: beharbada, agian; (Frai Bartolomek behin dakar eta Eskuizkribuan; gainerakoetan “menturaz” erabiltzen du. Bizkaiko hitza da; *ausaa, ausa, ausaz* for- man agertzen da [Lino AKESOLO - Manu SOTA], *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* hiztegian); “*Emen acabeetan dira ausaa ceuben aguinduteric onee nac*” (*Esku*, 252).

- **ausilari**: legeren bat edo antzeko zerbait hausten duena; (gaztelaniara “infrac- tor” itzultzen dute); “*Eguiija da, mundubaren beraren asierati euqui ditubee ausi larijac Jaungoicuaren aguindubac ta dauqueez gaur bere ta euquico ditubee mun dubaren azqueneraguino*” (*Icas-I*, 27).

- **auzo eraan / auzoeraan**: hurbil, auzoan; “*Auzo eraan egon ezquero, gaiso- ric daguan arerijua ez visitetia*” (*Icas-I*, 100).

- **azaldau**: azaldu, azalpenak eman, agertu; (“azaldau” forma darabil eta *-au* amaiera duten gainerakoek bezala, *azaldeetia* egingo du aditz-izena eta ez *-tutia*); “*Bigarrenac dira orain azaldauco dirianac*” (*Icas-II*, 138). // “*Aren ezcutuco pal- tia ceure miinagaz ceuc azaldetan badozu, lagunaren ondria ceuc galdu dozu*” (*Icas-II*, 184).

- **azgarni / aazcarni**: ahantzarazten duena; gainerako guztiak txiki uzten ditue- na; “*Baina guztien azgarni da, Amonimo veneragarrizagaz jazo zana*” (*Icas-III*,

303). // “*Bada despeidaco gentiaren urteneria da guztien aazcarrija”* (Euscal-erri - jetaco... 71).

- **bacartu**: bereizi, banandu, desberdindu; (*erabagui* ere testuinguru batzuetan haren sinonimoa da, ondorengo adibidean ikus genezakeenez); “*Onan erabagui edo bacartuten dira aguindu bi oneec beste zortciretati. Ta eurac bijac alcarren artian ber e bacartuten dira*” (Icas-II, 244).

- **baico**: bai esatekoa edo baietz esatekoa; “*Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececua. Ez da urteca eguiten dan tratuba*” (Icas-III, 343).

- **baisen / baixen**: berdintasunezko konparazio-perpauzetan zenbakarriak ez direnetan darabilen hitza; (grafia horrekin darabil eta ez “baizen”, “baicen”); “*Bere lagunarenac, ac uste daven baisen andijac izango ez diriala*” (Icas-III, 373). // “*Ta eurac uste davee, ainguerubac baixen garbi dagozala*” (Euscal-errijetaco... 183).

- **baltzutu**: beltz bihurtu, belztu; (oraingo forma normalena “baltzitu” dugu bizkaieraz); “*Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten dau, ez otzac zuri - tuten dau, ez edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau gueure Jaungoico ona*” (Icas-I, 61).

- **banatu**: norbait hautsi, erdi hilik, zauriturik edo kolpaturik utzi; (“maltratar”, “dejar lisiado” itzultzen dute hiztegiek; adiera horretan dakar soilik eta sarri); “*Bestelan eguingo ez evala, zure esana edo burlia dala medijo, banatuten dau bere arerijua*” (Icas-II, 154). // “*Badira errijetan ta auzuetan alaco guizon ta emacume vijotz galducuac, inoren vizitzac jaquiten ta banatuten, ecer ez juacuela, davilza - nac*” (Icas-II, 195).

- **baque**: (maiz darabil ondorik adjektiboren bat lagun duela: *baque santuba, baque ona, baque chaarra...*); “*Onec esan gura dau, meza santuban parte dau - queenac, baque onagaz ta caridadiagaz bat eguinda euqui biar ditubeela vijotzac*” (Icas-III, 246). // “*Au da, Jesusec ceruti ecarri euscun caridade ta baque santuba”* (Icas-III, 246). // “*Alan bere, ezconduben vici gaistuac ta baque charrac sarritan oi dau sustrajan gacha*” (Icas-III, 348).

- **barauts (bits)**: bitsa; (Esku-n *barautsa* dator eta Icas-I-en, *bitsa*); “*ez ditu otseguinac erabili biar ugazabac gau ta egun beti biarran arrastaca ta barautsa darijuela*” (Esku, 233). // “*Ez ditu ugazabac otseguinac biar alperrerijaraco, leen esan dan leguez. Baina ezda gau ta egun etenaz, arrastaca, vitsa darijuela bia - rrian beti erabilteco bere*” (Icas-I, 227).

- **barberu / barber**: odol-ateratzailea; (lehenengo forma agertzen da batez ere; bost bider guztitara; “barber” bi aldiz dator. OEHN Iparraldeko eta Nafarroako formatzat hartzen da); “*azquenian ceure gaisqui esaaldijari ezarten deutzazu chaplatia, barberak sangrijari leguez*” (Icas-II, 190-191.or.).

- **barjacu**: barikua, ostirala; (ez du ezer berezirik forma honek, gaur egun ere hauxe baita inguru honetan forma ohikoena; Bizkaian zabalena, ostera, “bariku” da); “*¿Aguinduten deutsu, barjacuban barau eguiteco?*” (Icas-III, 155).

- **barutu:** barruan hartu nahiz sartu; *“Ta izanic miina aimbeste bidar biar doguna, au emon eutscun ate bigaz ichita, aguinaquin ta ezpanaquin barrututa”* (Icas-II, 183).

- **baru:** baraua; *“Gurari charrezco demonino castia ez dala goituten baruba - gaz ta oracinoiagaz baino”* (Icas-II, 279).

- **barua atera:** barau egin; (idazle zaharrengan forma hau ez da arrotza; J.A. Ubillosengan ere ageri da); *“¿Aguinduten dozu juramentubagaz erliginoian sartu - tia, castidadia gordeetia, meza bat entzutia, limosna bat eguitia edo baru bat ate - ratia?”* (Icas-I, 113).

- **batio // batiatu:** bataioa // bataiatu; (“bautismo” ere badarabil); *“Batiuan icusten da seina uragaz garbituten ta entzuten dira bautismoco verbac”* (Icas-III, 6). // *“Ichi euquian mundu guztian persona bat bacarric batiatuteco”* (Icas-III, 10).

- **beguiracune:** begirada, behakoa, soa; (Bizkaiko mendebaldeko adikunea ez da ageri); *“Beguiracuniaceta alcarren geraac desonestubac”* (Euscal-errijetaco... 68).

- **beguitandu:** iruditu, iritzi; (ez du ezer berezirik hitz honek, gaur egun ere horrelaxe erabiltzen baita inguru honetan); *“Leza baten galduta, euliz beteta daguan abere bat beguitanduten jat pecatuban daguan arimia”* (Icas-III, 232).

- **bein bariz:** berriro ere, beste behin; *“Ta jazo leiteque ta bein barriz jazo da, ondasunac eruan ez daguijozan lapurra illtia”* (Icas-I, 248).

- **bere arjaz:** berez; *“Ez bere arjaz, ezpada errico naaste guztia ta salsa guz - tiac ceubec umeen aurrian sarri erraparu bagaric contaute ta eurac esaten ditu - beenian ceubec aua zabaliz eurei entzunda, dotrinia esaten balegoz baitsen vijotz arruagaz”* (Esku, 251).

- **berecautan:** berez-berez; (esanahi hau du haren testuetan eta sarri dator, batez ere legezondorik duela; “de por sí”, “espontáneamente” itzuliko genuke gaztelania-ra); *“Berecautan leguez sortuten jaco ariman ceruraco ustia”* (Icas-III, 221).

- **bertatiko baten:** bat-batean, laster batean; *“Moro loi ta odoltsuz estaldu zanguere erreinu guztia bertatiko baten”* (Icas-II, 50).

- **biar eragotzi:** behar edo lan debekatua; *“Eleisa Ama santiaren batzarrac ta eracuslaac conteetan ditubee onetarico biar eragotzijac”* (Icas-I, 156).

- **bidao:** biraoa; (*blasfemija*, *maldecinoia* eta *bidaua* bereiztu egiten ditu Bartolomek); *“Bidaua ez da berez, ez blasphemija, ez maldecinoia: ezbada gacha - ren izena premina bagaric esatia. Bada, blasphemijac Jaungoicuari edo santubai quenduten deutsee ondria. Maldecinoiac noberaren edo proximuaren contra esca - tuten dau ta desietan dau gauza gacha”* (Icas-I, 148).

- **bideguin:** bideak egin nahiz konpontzen dituenak; “*Sacerdotiac dira gueu re arimen arguijac, gueure eraculaac, gueure graciaren bideguinac, gueure are rijuen bildurgarrijac*” (Icas-I, 211).

- **bitu:** halako bi bihurtu, bikoiztu; “*Iracurlaac icusico davee Icasiquizun one etan, verba batzuc dagozala bitutaco letriagaz: aa, ee, ii, arimaan, deutseen, jadii chi...*” (Icas-I, 278).

- **bizieraco erren:** bizi-egoera hautatzean egiten den okerra; “*Baina cer bali jo deutsee oneec, contentuz egotecovici eraco errena vijotzian daucanari ta artu daven estadubaren contra bere gogua beti bultzaca daucanari?*” (Icas-III, 318).

- **boticaco:** sendagaia, botikan edo farmazian saltzen den gauza; “*Artu ditubee boticacuac, agortu ditubee edatecuac, estutu ditubee euren sabelac... ill nai izan ditubee sabelian euren umiac; baina Jaungoicuac zaintu ditu ascotan sein sortubac ama gogorraren escubetati*” (Icas-III, 52).

- **brunada:** burrunba, burrundada; “*Ez eutsan Senecac emaztiaren miin gais ta ascaturari eulijaren brunadiari baino gueijago jaamoten*” (Icas-III, 374).

- **buru erichija:** bere buruaz harrotuta dagoena; “*Andiarija, buru erichija ta noberac edu ondasun, jaquiturija edo entzute ez dauqueenai, casuric ez eguitia ta ozta verba bat edo bi baino ez eguitia da, guiza artian sarrijen icusten doguna*” (Icas-I, 50).

- **buru erichitu:** harrotu, harropuztu; “*Alaco senar emazte suerte onecuac ez davee arrotu ta buru erichitu biar, eureenez dicha á dauqueela sinistuta*” (Icas-III, 367).

- **buruguin:** bere burua besterik gogoan ez duena; “*¿Ceibat seme ta alava alper ta buruguin icusten dira, azita, orreetan?*” (Icas-II, 141).

- **burutsu:** pertsona argia, buru onekoa // ohiko adiera honetaz gain, burura egiten duen ardo nahiz edari bizia adierazten du; “*Nosbait ustez uste bagaric, edo bustita dagualaco, edo janzaarian dagualaco, edo ezaututen ez daven ardao burutsuba dalaco, edanac eratsotia edo orditutia jazo leitequiala pecatu bagaric*” (Icas-I, 274).

- **cabu:** zamariaren tresnak, uhalaria; (“aparejos” itzultzen dute gaztelanaiara); “*Ta andi guerochubago itandu eutseen arima erosliac guztiai, ia zaldija erosten davenac cabubac beriac ez dituban. Bada, nic erosi dodan arima onen cabuba gorputza da esanda, gorputz ta arima, ordi tristia guztien vistan gora gora jasota eruan evan demoninuac impemura*” (Icas-I, 277).

- **caelau:** higaturiko arropak sareztatu; gaztelaniazko “zurcir”; (hitza *ka(r)elau* da); “*Painueluac javoneetia, almidootutia; oineraco ta gorputceraco jantzijari puntubac artutia, caeleetia...*” (Euscal-errietaco... 57).

- **caltzaidu:** altzairua; “*Catiac eten dira, caltzaidubacbigundu dira, subac oztu dira, otsuac mansotu dira, aguintarijac goitu dira, borregubac cansau dira*” (Icas-II, 93).

- **ceinatu:** gurutze santuaren seinalea egin; “*Prepacijua esanda , andi aurrera meza esaliac ostijaren ta caliciaren gainian eguiten dituban curutziaac, ceinatu - tiaac, bularra jotiac, buruba ta espaldac macurtutiac ta betibee veguijac gorutz jaso - tiaac, guztiac dira, Jesusen penazco iraguac ta erijotza tristia guri aitu eraguiteco*” (Icas-III, 243).

- **cerbaitan:** zelanbait, zeozelan, nolabait; “*Bada, gueure arimaco bildur zoli ta triste au cerbaitan osatuteco, Jesucristo gueure Jaunac ichi euscun compesinoe-co sacramentuba*” (Icas-III, 104).

- **cer esaneco:** badaezpadakoa, zeresanak dakartzana; “*Ta alan jazoten dira guero aimbeste ezcontza cer esaneco*” (Icas-III, 329).

- **ceruruztu:** zerurantz zuzendu; “*Ce gauza ondugarijaquin gueure aua, suu - rrac ta belarrijac santutu ta ceruruztu zituban*” (Icas-III, 73).

- **chico:** zaldikume hazi samarra; “*nesquiaren edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco edo baso asto batzuc dirurijeela*” (Euscal-errijetaco... 65).

- **chiqui erichico:** apala, handikeriarik gabea; (honen antonimotzat “andi erichicua” darabil); “*Baita ondo chiqui erichicua ta ondo batuba zara, Jesus maitia, ni leguezco pecatari baten miinaren gainian, eztarrijan ta bularrian zagozarian*” (Icas-III, 206).

- **chopin:** eskuaz emandako kolpe txiki bat; “*Lagun batec descuiduan chopin bat eguinda negarrez icutsi badozu ceuben umia, altzuan artuta, ondo palagauta esaten deutzazu, ia cetaco arri bategaz musturrac ausi ez deutzazan beste lotsa - galduco zaar ari, edo onaco berba chaarren bat*” (Esku, 250).

- **chopinga:** eskuaz kolpetxoak emanaz; “*Amaren bularrian egozan artian aitari ta amari chopinga eguitia, jotera eguitia, sinu eguitia ta zamaitutia*” (Icas-I, 20 serm.).

- **cinca eguin:** huts egin, atzera egin, etsi; “*Zala da, nequez paltetan davena. Zala da, nequez ucatu edo cinca eguiten davena*” (Icas-III, 134).

- **cintzoro:** zintzoki, zintzotasunez; “*Leenagoco guiza aldijetan chito ciur ta cintzoro gordetan cituben bacoachac bere eguiquizunac*” (Icas-III, 286).

- **cirzillu:** belarritakoa; “*urragorrizco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguin - da*” (Euscal-errijetaco... 138).

- **coitautu:** makaldu, adore gabe utzi; “*Coitautu evan ta macaldu evan cari - no chaarragaz Dalilac Sanson*” (Icas-II, 56).

- **compesaquizun:** konfesatu beharrekoa; “*Ez dauqueez compesaquizuntzat bere*” (*Euscal-errijetaco...* 61).

- **comulgau (du):** Gure Jauna eman, komunioa eman; (aditz iragankor gisa darabil testu honetan); “*Sinistu biar dogu, gau dichoso atan comulgau citubala Jesusec apostolubac bere gorputz ta odol vicijagaz, cein izan zan lelengo comuni-noia*” (*Icas-III*, 197).

- **conturatu (du):** gogora ekarri; (aditz iragankor gisa darabil testu honetan; “recordar”, “traer a la memoria” itzultzen dute); “*Azertu eguizu ceure vijotza. Examinau eguizu ceure conciencia. Conturatu eguizuz ceure vizico egun guztia*” (*Icas-II*, 234).

- **contuic ez euqui:** ezin kontatuzkoa izan; “*¿Ta nun dira, Can, Ruben, Judas, Anez, Onan, Absalon, Amon, Zambri ta beste ascoc ainchinaco legueco dempoætan luxurija gaiti eraguin zituben negarrac ta euren errijetara ecarri zitubeen naibagaac? ¡Ah, cristinaubac! Ez dauqueconturic*” (*Icas-II*, 48). // “*Conturicez dauqueevirginen lora oneec*” (*Icas-II*, 94). // Zerikusirik ez izan; “*Luxurijac, legue santubagaz conturicez daucanac ta vicijo guztiai ernia emoten deutseenac*” (*Icas-II*, 4).

- **cristandade:** kristautasuna, kristauen multzoa; “*Menturaz ez da cristandade guztian dantza desonestubagoric ta lotsa guichiagocoric eguiten egun arguiz, euscal errijetan baino*” (*Euscal-errijetaco...* 10).

- **cristinautza:** kristau-bizitza; “*Inos lagun aurrian lotsatu ez dedin cristinau tziagaz*” (*Icas-III*, 89).

- **damu:** zerbait eginaren, ez eginaren nahiz gaizki eginaren samina; (*amodiozco damuba* eta *bildurrezco damuba* bereizten ditu, gaztelaniazko “contrición” eta “atrición” adierazteko); “*Batari esaten jaco contricinoia. Ta bestiari atricinoia. Edo batari esaten jaco, amodijozco damuba. Ta bestiari, bildurrezco damuba*” (*Icas-III*, 121).

- **damutu / damu izan:** ikus *garbatu*; “*Pecatu eguina ondo damutu ta garbatu bagaric, ez deusta inos Jaungoicuac pecatu andiric edo illgarriric parcatu inori*” (*Icas-III*, 123). // “*Damu dau bide oquerreti juana*” (*Icas-III*, 121).

- **danian dala:** dena delakoan; (*edozein preziotan* esan nahi du testu honetan); “*Edo laboria, edo ganaduba, edo soinecua, edo tresnia, edo beste gauzaren bat jaubiari preminiac, danian dala, saldu eraguitia*” (*Icas-II*, 124).

- **despeida:** ondorioa, konklusioa; “*Despeida edo conclusinoe oneec guztioac batera joten davee, edoceinec dacusen leguez*” (*Euscal-errijetaco...* 46). // amaiera; “*lapurrari, edo ondorenguai despeida errucarrija emoten deutsee munduban bertan bere*” (*Icas-II*, 100).

- **deunga / deungatu / deungaro:** gaiztoa; (Eskuizkribuan *donga, dongatu, dongaro*, oraingo euskara mintzatuan ere entzuten da hitz hau, eta beti forma

honetan); “*Gauza deunga bi eguin ditubee nire gentiac*” (Icas-II, 65). // “*¿Lotsagalducotu edo deungatu ete dira eurac eureen artian ta eureen bacarrian?*” (Icas-I, 12 serm.). // “*deungar o esate asco*” (Icas-I, 1).

- **dirianac**: guztiak; “*Ta dirianac topauco dituzu Jangoicuagan, dirianac dau - caz Jangoicuac berez ta dirianac daucaz ameean davenarentzaco*” (Esku, 52).

- **dirunaico**: diruzalea; “*¿Ta cer jazo oi jacue alaco dirunaico ezcondubai?*” (Icas-III, 350).

- **duaric**: dohainik; “*¿Oh, ceimbat mesede andi duaric orduban orduban egui - ten deuscuzan gueure Jaungoico onac!*” (Icas-I, 64).

- **dudacotu**: dudan edo zalantzan jarri; “*Edertuta, guichituta, dudacotuta, apainduta, nai ez dituzun tentacinoe batzuc balira leguez compensau oi dituzu ceuben pensamentu ezauberazco ta naizco pecatu loi ezainac*” (Icas-II, 81).

- **duina**: beste, adina; “*Ta ez dauca inoc cetan pensau, cristinaubac baquijee - la, salbeetaco duina dotrina*” (Icas-I, 8).

- **ealgui**: eralki, irina eta antzeko gaiak garbitzeko bahean pasatu; “*Zorruac errotara eruatia, uruna ealguitia,... ganadu jaatecoric gacheena batceia ta beste asco, leenago edo gueruago eguin leizanac ta eguin biar dirianac*” (Esku, 169).

- **ecandu**: ohitura; “*Ta ascoc zaartuta bere euraquin dauquee, premina бага - ric juramentu eguiteco ecandu gaistua*” (Icas-I, 115).

- **ecertaco**: edozertakoa, denerakoa, trebea; (antzeko esanahia du ascotacohitzak ere: gauza askotakoa, baliokoa); “*Leen, auzoeraan zirian umeric esanecuenac, ecerta-cuenac Jaungoicozcuenac ta carinosuenac ceubeen umiac*” (Icas-I, 13 Serm.). // “*ez da errez emacume sendo bat, indartsu bat ta ascotacobat topetan*” (Icas-II, 284).

- **echagun**: etxejaun, etxea berea duena, maizterra ez dena; (testuinguru batzuetan “oinordeko” esan nahi du); “*Onegaz izango gara duda bagaric guztioc ceruco betico echagunac*” (Icas-III, 84). // “*¿Ceimbat echagun ordi, echiac concur - sauta, umiac esqueraco bidian isten ditubeela?*” (Icas-II, 140).

- **edegui**: ireki; (aditz-izena **edete** egiten du); “*ceruco ate santubac edegui eus - cuzalaco*” (Icas-III, 11). // “*Ta ceruco atia edeten badeuscu, izan dedilla ordu onian*” (Icas-III, 180).

- **edu**: beste, adina, duina; “*Pobreen arimac bere costa jacozan Jaungoicuari, aberatsenac edu*” (Icas-III, 60).

- **egubenguren**: ostegun santua; “*Orduban barristetan da encarnacinoeco misterijo andija, Jesucristo gueure Jaunaren vizitzia, apostolu santubequin Egubenguren gavian jan evan aparija*” (Esku, 181).

- **eguin eguineco:** bete-betekoa, halakoxea doi-doi; “*ogujaren gusto eguin eguineco gauza bat*” (*Icas-III*, 199).

- **elbitz:** belar mota bat; “*Azalac azurrai oratuta euqueezan ta eurac bere sica - tuta euqueezan, elbitza leguez*” (*Icas-III*, 179).

- **eleisacoac eraguin:** heriotz arriskuan dagoenari elizakoak edo azken sakramentuak eman; (esapide hau dator eta ez gaur egun zabalago dabilen “eleisacoak emon / artu”...); “*Nos vicijago gogoratuten jacu erijotcia, bataren agonijacua, bes - tiaren eleisacuac eraguitia, bestiaren seina eguin ecina, bestiaren bularreco gacha, bestiaren torre bateti jaustia edo tiro bat emotia entzuten dogunian edo icusten dogunian baino?*” (*Icas-III*, 263).

- **eltzaca:** heldugabea; “*Alaco guraso eltzaquiac edoceinegaz ta edocein modu - tan ezconduco dau umia*” (*Icas-III*, 354).

- **endamas:** (ikus 288.or.).

- **enpadu:** higuina, nazka; “*Gogo betia ta enpaduba emoten deutsen laguna - quin*” (*Icas-III*, 355).

- **enparau:** gainerakoa; (behin bakarrik dator Eskuizkribuan); “*ia cer eguin lei - jan edo cer eguin biar daven cristinaubac mezia entzunda enparauban egun one - etan*” (*Esku*, 189).

- **enpeinu:** interesa; “*Bada, guztiac gaiti esaten da, onaco inoren enpeinuba edo ederra gaiti, noberaren gogoco ez dan lagunagaz ezcondutia, arriscu andicua dala*” (*Icas-III*, 347). //nahi dena lortu ahal izateko goiko norbaiten laguntza, ukon - doa, “entxufea”...; “*Ez cenduzan topau enpeinubac erregalubaquin? ¿Celan bada galdu dozu errazoezco aucija?*” (*Icas-II*, 168).

- **entzute:** ospe, izen ona, fama; “*Andiarija, burubaren eichija ta noberac edu ondosun, jaquiturija edo entzute ez dauqueenac desprecijetia ta alacuequin berba contaubac baño ez eguitia da, guztiac enpaduba emoten deutseen soberbija ta vanidadia*” (*Esku*, 63). //arreta, esaten dena jasotzeko adi egotea; (hurrengo esal - dian “egon zaitez adi” esan nahi du); “*Egon zaitez entzute onagaz*” (*Icas-I*, 49).

- **epai:** zauria, ebakia; “*Ta nequez gaisqui esanaren epaija osatuten da*” (*Icas-II*, 192).

- **erabagui:** erabaki, ebatzi; “*Au bere erabaguita dauca Jesucristoc bere evan - gelijo santuban*” (*Icas-I*, 81). //bata eta bestea bereizi; “*Onan erabaguiten ditu Jesucristo gueure Jaunac asarre gaistuaren ta gorrotuaren chiquitati andiraco pausubac*” (*Icas-I*, 254). //aldea, ezberdintasuna; “*Votuaren ta ustiaren edo gogua - ren artian erabagui andija dago*” (*Icas-I*, 131). //juzgua, erabakia, deliberoa; “*Eguijezu guztiac erabagui edo juzgu zucena*” (*Icas-II*, 166).

- **erabildu:** erabili behin eta berriro; “Aztertu bada, cristinaubac, ta erabildu ondo goguan” (Icas-III, 115).

- **eragotzi:** debekatu; “San Francisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz era - gotzi dantzan eguitia” (Euscal-errijetaco... 159).

- **eraiteco:** sukarrak mota bat, hiru egunik behin berriro ematen duena, gaztelaniaz “terciana”; (ondorengo adibidean gaixotasun askoren izenak ageri dira); “Visitau beguijee bere gorputza sequeriac, umore chaarrac edo reumatismo zolijac, urte lucetaco colicuac edo errevesetiac, vijotceco minac, eraitecuac, alborenguac, palta bagaco buruco alaac, jan ezinac, loric ezinac ta beste asmau leguizan gor - putceco gachac” (Icas-II, 293).

- **eraraco:** egokia, ongi datorrena, neurri onekoa, hartarakoa; “Jaungoicua da guztien eraraco adisquidia” (Icas-I, 71).

- **eraso:** esanarazi; “Juezac dauca escubidia, eguiija jaquin biar davenian, jura - mentubaren beian erasotecbere aguindupecuai, sail atan daujjeena” (Icas-I, 123).

- **eratz:** larruzala askatu nahiz urratu; “¿Ceimbat bidar egon zara pozez ta atseguinez vijotzac zabaldua, arpegui alegueriagaz Jesusen canta barriac esaten lava ixiuetan, carcela illunetan, galdautaco burdina saretan, orijo urtuzco galda - retan, candela garretan erretan, azotetz eratzita, alambrezco orrazi zorrotzez urratuta ta catiaz estuta?” (Icas-II, 94).

- **eratz:** ohean ezarri norbait; “Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, sein chicarrac cuidado guichigaz eurequin oian eratzota, itoteco arriscuban dauquee - zanian” (Esku, 213).

- **erbera:** herriaren behealdea, ibarra, batez ere erreka ondoan dagoena; “Ez da cale aldetan, erreca aldetan edo ervereetan iminija. Ez da virginen hortuba gentiaren arnasiac, bidetaco autsac edo basiac edo ur onduetaco lausuac eta laino astunac zetacatuba, zimelduba edo orri igartuba” (Icas-II, 85,86).

- **erbeste:** norbere herritik at dagoen beste edozein herriz esaten da; (atzerri ere esan nahi du testuinguru batzuetan, baina gehienetan ez); “Nai urrecuac ta nai urrinecuac, nai erricuac ta nai erbestecuac, nai adisquidiac ta nai arerijuac, nai senidiac ta nai atziac, guztiac dira gueure proximuac” (Icas-I, 83). // “Onen bil - durra arren, imini ditut erbeste verba batzuc Icasiquizeetan” (Icas-I, IX).

- **erdu:** zatoz; (Bizkaieraz sarri erabiltzen den aginterazko forma normala); “Jagui zaitte laster, neure maitia ta erdu guazan ortura lorac batceera” (Esku, 87).

- **erri:** mota, izaera; (“clase”, “especie”, “género” itzultzen dute); “Eguin daijo - gun bere erico laguna” (Icas-III, 310).

- **errija:** feria; “errijaric errija, traturic tratu, probaric proba, tabernaric taberna davizanac” (Esku, 271).

- **erijo:** jarioa, itogina; *“Sinistu biar dogu, cristinaubac, gauza ascotan palte - tan dogula; sarri jausten gariala; gueure vijotceco gurarijetan ta gorputceco senga - rrijetan pecatubaren erijo asco daucaguzala”* (Icas-III, 225).

- **erijotza:** giza hiltzea, krimena; (biziaren amaia esan nahi du eskuarki, baina baita beste norbait hiltzea ere); *“Descuiduan izan arren bere, ustez uste bagaric izan arren bere, bere ardura bagatasunez ta osoro beguiratu ezaz eguin badau erijotzia, pecatu da”* (Icas-I, 238).

- **eme:** sortu; (aditz iragankorra da testu honetan); *“Gorrotuac ernetan ditu - bana”* (Icas-II, 173). //Azaki bizia sortzeko hasiera, ernamuina...; *“Onaco gentia ez da bacarric conciençija nasaicua. Ezbada baita vijotz doilorrecua ta erne prestu ececu bere”* (Icas-II, 178). // *“seinaren ernia viziric badago, batiatu ura ezarrita”* (Icas-III, 58).

- **erquin:** kaskarra, txiki geratutako gorputza duena; *“Sustraijan gacha dau - can landaria beti izango da erquina, luur onian egon arren”* (Icas-III, 348).

- **errazoe gaistoco:** aho txarrekoa, behar ez den hizketa modua erabiltzen duena; *“Eguija da, gurasuac izan leitequez deungac, ordijac, lapurrac, bidaotijac, ocasinoetsubac, baque charreacuac, desonestubac ta errazoe gaistocuetacuac”* (Icas-I, 205).

- **erromedija:** erbestetik, hau da, inguruko herrietatik joanez, bidean eta santutegi edo ermita baten ondoan egiten diren dantza eta gainerakoei deritze; (ageri denez, *jaija, piestia eta erromedija* ez dira harentzat gauza bera; azken biak antzeko esanahia dute, baina *erromedijak* bideko joan-etorria ere hartzen du); *“Erricuentzaco da piesta eguna, ta ervestecuentzaco Errromedija eguna”* (Euscal-errijetaco... 106). // *“Erromedija gaiti ez da emen beste gauzaric aituten, ezbada promesaren, santubaren edo santiaren achequijagaz ervestera juanda, errico ta ervesteco guizon emacume naaste, vidian ta erromedijaco lecuban eguiten daveen piestia ta dantzia”* (Euscal-errijetaco 106).

- **escolari:** ikaslea, eskolakoa; *“¿Cer esan biar ete dau, bada, Jesusen escolari batec?”* (Icas-I, 4 serm.).

- **escribau:** auzi batean testiguen esanak idatziz jasotzen dituen; *“Au jaqui - teco, balijetan da testigubaquin. Areec cer dinuen jaquiteco, escribaubaquin”* (Icas-II, 167).

- **escuperatu:** norbaiten mende jarri; *“Ez aaztu, lotsarizco pecatu araguizcuac, luurrezcuac, baxubac, ezainac ta loijac guztiz diabrubaren escuperatuten davela gorputza ta arimia impernuban”* (Icas-II, 41).

- **escuratu:** otzandu, hezi, mantsotu, baretu; *“¿Ez dago Ester bat, bere vizi - tziagaz aaztuta, Asueroren vijotza escuratu, soldauben ta Amanen colpe odoltsu - bac gueratu ta bere gentia salvau evana?”* (Icas-II, 284).

- **esegui:** eseki, eskegi; “*Tripac urten eutseen esegui zan lecuban gorputz loiti luurrera ta arimiac impemura*” (Icas-III, 236).

- **esetsi:** eraso // erasoia; (aditz eta izen gisa darabil); “*Ordu guichi eucazan senarrac echian, emaztiaren jarduna ta esetsi lotsa chaarrecua entzuten ez citu - banac*” (Icas-III, 374). // “*Bein batian esetsi eutsan senarrari, inos baino errazoe guichiagogaz ta gana gueijagogaz*” (Icas-III, 374).

- **esqueratu:** norbait eskale izatera eraman, eskeko edo eskale bihurtu; (guk dakigula Frai Bartolomek bakarrik darabil; “esquera bialdu” dakar beste toki batean...); “*Cerbait ondo vizi dirianen poltsac betetaco, pobrechu daguan gentia esque - ratuteco, logrerijac gueituteco ta arimac condenetaco dira alaco tratubac ta asmuc*” (Icas-II, 121).

- **esquintzari / esquini:** oparia, eskaintza; (ez du erabiltzen *esquintza* hitza; bai, oster, *esquini* izen gisa); “*Arerijuaren gorrotuan gagozan artian, ez ditu Jaungoicucac estimeetan gueur e esquintzarijac*” (Icas-I, 104). // “*Meza santuba da, Jaungoicuari eguin guinajozan esquini edo oprecimentu guztietati estimaubeena ta balijocuena*” (Icas-I, 164).

- **estalgui:** estaltzen duen zerbait; (irudizko zentzuan darabil gehienetan, aitzakia, zerbait tapatzeko edo zuritzekoa esan nahi du); “*Tratuba lapurren estalgui zabala da*” (Icas-II, 117). // “*Estalgui arinac dira oneec, neure cristinaubac, esan dirian lapurretac ontzat emoteco*” (Icas-II, 126).

- **estari:** estali, tapatu; “*Irunac eta bularra ondo estari bagaric*” (Icas-III, 216).

- **etzin:** etzan; “*Guizon asco indar oneequin gavian oian etzin dira ta bijaa - mon goxeco il dira*” (Esku, 282).

- **euqui:** ondasunak; (aditzaz gain, izena da); “*Ta guztia gueure baquia, vitzi - tzia, osasuna, ondria ta euquija zaintuteco*” (Icas-I, 217).

- **ezain / ezaintasun / ezaindu:** itsusia / itsusitasuna / itsusitu; (*itsusija* eta *zatarra* ere badarabiltza, baina hura du bere hitz normala); “*¿Celan, Jauna, azar - tuco nas ni ceu neure vijotcian artuten, neure pecatu aldra lotsarizcuari, ezaina - ri ta ichusijari beguiratu ezquero?*” (Icas-III, 213). // “*Sobervijac ez evan bat eguin gura luxurijaren ezaintasun lotsarizcuaquin*” (Icas-II, 19). // “*Pecatubaren ustel - tasunagaz ezaindu ez dedin*” (Icas-III, 88).

- **ezbada:** (ikus 238-239 eta 286.or.).

- **ezcaatz:** sukaldea; “*Ain laster echiac erosten ta ain laster ezcaatceco cer egui - nac eguiten*” (Icas-II, 297).

- **ezcabi:** azaleko eritasuna, legena...?; “*¿Ceimbat lepra edo ezcabi, ceimbat sarna, ceimbat materija atsitu, ceimbat usteltasun, ceimbat ur berde ta mingoch ta ceimbat lizuntasun ez dacuscuz or ceure ariman, ceure conciencijan ta ceur e*

vijotzian?” (Icas-II, 234). // “Naamanec Jordango ibaijan ezcavija garbitu evanian” (Icas-III, 26).

- **ezcontzaca:** ezkongabea; “Zaar ta gazte, ezcondu ta ezcontzaca, guizon ta emacume asco, zein garbijago dirian esan ecin legui, euren miin loijai beguiratu ezquero” (Icas-II, 75). // “Virginen vizitzia dala baque osocua; Ezcontzaquena gue - rran irabacitaco baquezcua; ta ezcondubena presuen baquezcua” (Icas-III, 326).

- **ezpabere:** (ikus 238-239 eta 286.or.).

- **eztaca:** landare arantzatsua, gaztelaniaz “abrojo”; “Eztacac, arantzac ta larrac emongo deutzuz. Icerdijagaz ta nequiagaz jango dozu oguija, ill ta luur biurtu artian” (Icas-III, 17).

- **eztacatu:** eztakaz bete, gogortu, lakartu; (OEHan honako hau dator: “ezta - ka, eztakatu figuran en f. Bartolomé; probablemente erratas por zetaka y zetakatu (q.v.). Azkue da el *eztakatu* de f. Bartolomé con el sentido de “endurecer”; guk tes- tuak aztertuz -eta *eztacaren* esanahia argi dago- Azkueren aldera makurtzen gara); “Gurari gaistuac eztacatu ta liortu eguiten davee gueure vijotza, ceruco verba ta avisubac an jarteco” (Icas-II, 273).

- **eztegu:** ezteia; “Canaango eztegubetara jua zanian, nun eguin evan Ama Virginiaren erreguz lelengo milagrua, ura ardao viurtuta” (Icas-III, 322).

- **ez urte:** urte urria, txarra, uzta kaskarrekoa; “Eguija da, euriyac edo liortiac, baquiac edo guerriac, ez urtiac edo ugaritasunac, salzaila guichi edo asco egonac, erosla gueijago edo guichiago egonac goratu edo beeratu leguije gaucen balijua ta precijua” (Icas-II, 119)..

- **gaistoquerija / gaiztoquerija:** gaiztakeria; (-z idazten du behin izan ezik; a- dunik ez da ageri); “Gaistoquerijan sartu ez dirian umiac” (Icas-III, 105).

- **galdau:** burdina eta metalak goritu; “¿Ceimbat bidar egon zara pozez ta atse - guinez vijotzac zabaldua, arpegui alegueriagaz Jesusen canta barrijac esaten lava ixiuetan, carcela illunetan, galdautaco burdina saretan, orijo urtuzco galdaretan, candela garretan erretan, azotex eratzita, alambrezco orrazi zorrotzez urratuta ta catiaz estuta?” (Icas-II, 94).

- **galdu gordeco:** ziuerra ez dena; “Erichicuac, destajucuac, menturazcuac edo galdu gordecuac dira” (Icas-II, 114).

- **gan:** punta zorrotza, eztena; (akuiluaren punta zorrotzari deitzen zaio Bizkaiko zenbait tokitan); “Baina estaduco uts eguitia dan leguez vici guztico uts eguitia, beragaz dauca beti gan zorroz bat vijotzaren erdijan, ceinec esaten deu - tsan gau ta egun urtiac iragota bere: Oquer nua” (Icas-III, 320).

- **ganadutu:** ganadu bihurtu; “Guizonac ganadututen ditubana” (Icas-II, 11).

- **garbai:** damua; “*noberac vijotzian artuten daven penia, damuba edo gar - baija da penitencija* (Icas-III, 98).

- **garbatu:** damutu; (“damutu” bezala, *nor-nori* eran darabil eskuarki eta aditz-partizipioa datorrean, adjektibo eran: ...*juana / eguina*); “*Leenago nai izan daven gauzia damututen jaconian ta garbatuten jaconian, dauca vijotzac penia*” (Icas-III, 99). // “*Pecatu eguina garbatutia*” (Icas-III, 100).

- **genijo:** izaera, berezko izateko era; (adiera honetan dakar ia beti); “*Contu equi biar dau, berac laguntzat nai leuquiana edo ataraco erara jatorcona ce ecandutacua, ce azieracua ta ce genijotacua dan*” (Icas-III, 333). // “*Ez beste gauza gaiti, ezpada gueur e genijuac, condecinoiac edo naturaleciac beti sen baten, biar baten edo gauza baten gobait eguin bagaric iraun ecin davelaco*”.

- **gera:** txera, harrera, abegia; (“jera” ahoskatzen da; aurpegiko onginahizko keinua esan nahi du gehinetan); “*Beguiracuniac eta alcarren geraac desonestu - bac*” (Euscal-errijetaco... 68). // “*Icusi citubanian guztiac luxurijac bere mendian ta esanian, entero verba leunaquin ta gera bigunagaz esan eutsen guztiai ta baco - chari, celan bera servidu biar even*” (Icas-II, 20).

- **gogo bete:** gehiegizko asebetetzea, biguina; “*Gogo betia ta empaduba emo - ten deutsen lagunaquin*” (Icas-III, 355).

- **goguan irago:** gogoan erabili, pentsatzen jardun; “*Goguan iragoco baguen - du pusca bat, ceimbat gauza on ta andi daucazan Meza Santubac gueure arime - taraco, ez litzateque gureztat Meza luceric izango*” (Icas-III, 243).

- **goitu:** gairiditu, mende hartu; “*Oh, ceimbat bidar araguijac goituten daven espirituba!*” (Icas-II, 9).

- **goixtartu:** goiztar bihurtu; “*Ta uste dozu, ez deusula Jaungoicuac contu artuco bai gurasuoi ta bai ugazaboi, ume inocenten arimac alan gacheraco goix - tartu ta arguitu dituzulaco?*” (Icas-I, 192).

- **gomuta / gomutatu:** gogorapena, oroipena // gogoratu, oroitu; (partizipioa-ren forma *gomutatu* eta *gomutauren* arteko alternantzia ageri da; *gomutagarri*, *gomutaquizun*, *gomutan* formak ere badatoz); “*Duda bagaric gomuta onegaz gozatu ta arinduco ditu gaixuac bere gorputceco minac ta alaac*” (Icas-III, 268). // “*Gomutatu, vijotz ondraubaren ta prestubaren senailia dala, beti eguija esatia*” (Icas-II, 181). // “*Guztiac dira, gueuri gauza oneen bat aitu edo gomutau eraguite - co*” (Icas-III, 239).

- **gomutari:** oroimena, oroitzeko edo gomutatzeiko ahalmena; “*Noc emon deuscz ta gordeetan deuscz adizailia, vorondatia ta gomutarija?*” (Icas-I, 63).

- **gora:** altuera handikoa; “*Ta auzuetaco nequezari jaquitun guztiac dinue, errenta goria daucala ac echiac*” (Icas-II, 146).

- **gorrototu (da):** norbaiti nahiz zerbaiti gorrotoa hartu; (“gorroto izan” forma sarri-sarri dator, baina testu honetan “-ren kontra gorrototu” dator *enemistarse contra alguien o contra algo* esan nahi duela); “*Gorrototu, bada, cristinaubac, lotsa - rizzo pecatubaren contra*” (*Icas-II*, 32).

- **gueratu:** pausatu, gelditu; “*Colperic indartsubeenac airian gueratuten dira*” (*Euscal-errijetaco...* 34). //beretzat hartu (aditz iragankor gisa darabil testu honetan); “*Bada, beretzat gueratuten badau gauza topauba gueijagoco bagaric, ostuba leguez da*” (*Icas-II*, 156).

- **guichi asco:** gutxi samar; (“gehiago edo gutxiago” adieran erabili ohi dugu gaur egun, baina testu honetan “gutxi samar”, “gutxitxo” edo antzeko esanahia du); “*Jesusen vegui garbijac ondo erichi daguijuen, aleguin guztia da guichiasco*” (*Icas-I*, 21 serm.).

- **guijau:** soroak landu; “*Soluac guijau ez, pruta arbola bat imini ez, leen dago - zanic galdu, basuac triscau, iquezgueijac ta materijalqueijac erre edo saldu ta eche barruba birindu eguin oi davee errenteru ascoc concienjijaco pena bagaric*” (*Icas-II*, 147).

- **gurari:** nahia, gogoia; “*Emon daigula garbitasunaren gurari sutsuba*” (*Icas-II*, 84).

- **gurazco:** gurata, nahita egiten dena; “*Alaco gurasuac dira euren gurazco sein Illzaillac*” (*Icas-III*, 51).

- **ichanian:** epeka; “*¿Emon deutzazuz ichanian eun ducat proximuari? Eun ducatac atcera artuta, quitu*” (*Icas-II*, 108-109).

- **ide:** kidea, laguna, norberaren antzekoa; “*Lagun bat gaiti edo norberaren ide bat gaiti gaisqui esatia, deungaro da*” (*Icas-III*, 147). // *Aberatsac bere beste aberats bat najjago dau adisquidezat, pobria baño. Andiquijac andiquija, pobriac pobria, ta alan beste condecinoetacuac. Ta ez au beste gauzagaiti, ezpada bacoachac bere idiagaz libertade gueijago daucalaco edocer gauza esateco edo eguiteco*(Esku, 90).

- **idun / irun:** lepoa; “*Ez dinot ecer, araco bularrac, idunac ta besuac aguiri - jan, edo guztiz aguirijan baino, aragujaren sugarijago, Andiquijeen Biguirara daruezan andra edo nesca loijac gaiti*” (*Euscal-errijetaco...* 117-118).

- **ileti:** guztiz ikaztu gabeko egur zatia edo egur zati erdi errea; “*sutaco iletija - gaz arin quendu evan bere aurreti*” (*Icas-II*, 61).

- **illainian:** hil zorian, hiltamuan; (gaur egun “hilaginean” forma erabiltzen da batez ere); “*Aguinduten deutsa indartsubari ta isten dau macalduta, gaisotuta, orituta, ija illainian*” (*Icas-II*, 16).

- **illeta:** kantu tristea, negarra; “*Adanen pecatubac guizonari ecarri eutsan beti - co cantia edo illetia*” (*Icas-III*, 20).

- **illqueta:** erailearen egintza; “*Erodesec Jesusen gorrotoz sein erru bagacuetan eguin evan illtia edo illquetia*” (Icas-III, 51).

- **inutsein:** oihaleko sein, bularreko umea; “*Quendu evan inutsein eguijaz - cua ta azi evan beste ume bat aren lecuban*” (Icas-I, 190).

- **inuztu:** ihinzatu, zipriztindu; (“asperjar” itzultzen dute gaztelaniara); “*Alta - riaren zazpi inuztutiac*” (Icas-III, 4).

- **ipoin:** ipuin, kontu; “*Ordijen ipoinac andijac dira*” (Icas-I, 266).

- **iraascor:** itsasten edo kutsatzen dena; “*icen bategaz, edo beste bategaz era - cutsi biar jaco cristinaubari pecatu loijaren vereno iraascorra*” (Icas-II, 14).

- **iraatsi:** itsatsi; “*Eurac cerbait alcarri iraatsi arren, arguitara ateratiac, cer eguin dauca*” (Icas-I, VI). // “*Seniqueria izan leiteque, edo berez etorrija edo iraatsija*” (Icas-II, 71).

- **iracoi:** jaso // eragin, sortu; “*Iracoiten dozu, jausten dana*” (Icas-I, V). // “*Eurac iracoico davee guerria, aucija ta naastia*” (Icas-II, 170).

- **irago:** iragan, pasatu bereziki denbora; “*¿Cetan iragoten jatzu Eleisan zagozan demporia?*” (Icas-III, 258). // sufrimenduak jasan; “*Jesus Maitiac bere gor - putz santuban irago cituban bost lllagaac edo zaurijac*” (Icas-III, 244). // (iz.) eroa - penen, egonarria, pazientzia; “*Humildia gaiti dino bere artian gaistuac, simple bat dala. [...] Irago onecua ta mansua gaiti, ardura baguecua dala*” (Icas-II, 223). // Ara - gana, joandako denbora; “*Burutacinoia dan leguez guttiz arina, ain laster ceru - ban nai impernuban, etorquizunian nai iraguan, aguiduban nai eragotzijan, gauza onian nai chaarrian davilena, inoc bere guttiz esiric imini ezin leguijo burutacinoiari edo pensamentubari*” (Icas-II, 79). // (adj.) pasatutakoa, zaharra, erdi galdurik dagoena, balio txikikoa; “*Engainuzco tratuba da, lenagoco urteco arto edo gari arinduba ta iragua, urte ataco ona balitz leguez edo urte atacuagaz naastau - ta, esan bagaric, saldutia*” (Icas-II, 123).

- **irago dan...:** iragan den...; (Bizkaiko mendebaldeko toki batzuetan erabiltzen den *ioako hamar urtean* etabarren harikoa; Bartolomek aditz laguntzailearekin darabil; hau singularrean nahiz pluralean ager daiteke: *irago dan / irago dirian*); “*¿Ceinbatec osasuna ta juicijua galdu ditubee irago dan sei edo zazpi milla urtian baquian ta guerraan, osasunian ta gaixuan, Ceruban ta impernuban, ichasuan ta luurrian, cer jazo dan ta jazoten dan, jaquiten?*” (Icas-I, 42).

- **irago gaistoco:** galtzen zaila dena, iraunkorra; (“persistente” itzultzen dute gaztelaniara); “*Gomuta onegaz aisaatu daiqueez muduco jaunac, aberatsac ta ugazabaac euren burubetan vanidadiac sortu oi dituban queiac, erichi arruac ta andiari irago gaistocuc*” (Icas-I, 224-225).

- **iraiz baten:** lipar batean, instant batean; "*Iraiz baten, bertatico baten, edo ondo conciencia aztertuta, pecatubac gogora aimbat ciatzen ecarri bagaric, com pesau dirianac, eguin ditubee compesinoe chaarrac*" (Icas-III, 164).

- **iraun andico:** iraunkorra; "*Escatu daijogun Jaungoicuari, emon daigula espi ritu mantsua, espiritu biguna, iraun andico gogua ta vijotza, gueure arerijuen prestuezquerijac ta azalquerija mingarrijac caridade santia galdu bagaric, irago teco*" (Icas-I, 243).

- **irauntsu:** iraupen handikoa; "*Bigarrena da irauntsuba izatia*" (Icas-III, 342).

- **irotu:** usteldu, andeatu, galdu; "*Ta labore zaar arinduba ta erdi irotuba ona gaz nastauta salduten deutsee pobriari onaren precijuan*" (Icas-II, 123).

- **isilgauza:** isilik gorde behar dena; "*Euren ontasunari jagoca, echian jazoten dirian paltaac, descuiduac ta isilgauzaac laatzac ezcutau biar ditubanac, cam puan ez esatia ta ugazaben ondra ona ta cleitu ona ona gordetia*" (Icas-I, 224).

- **isqui:** gauza arina, balio gutxikoa, txikia; "*¿Ez da zoraquerija andija, mun duco gauza on isquijen billa ibilitia ta areen envidija euquitia, gauza on guztietia ti andijena ta gauza on guztiac beragaz daucazan Jangoocua gueugaz euqui ezquero?*" (Esku, 68-69).

- **iten:** broma, txantxa; "*Baina beti amodijo loizco jazuac, adisquidetasun lo tsarizcuac, ipoin verdiac, burla desonestubac, chantza edo iten araguizcuac ta castidadiaren contraco panparrerijac auan*" (Icas-II, 75).

- **itsumendi:** itsukeria; "*Itsumendi andija da, cristinaubac, lapurretiaren zabaltasuna*" (Icas-II, 98).

- **itu:** xedea, helburua, jopuntua; (testuinguru batzuetan "helburua", "xedea" esan nahi du eta beste batzuetan zehazki "jopuntua"); "*Tiroric zucenenac ez dira itura elduten. Colperic indartsubeenac airian gueratuten dira*" (Euscal-errijetaco... 34). // "*Bada, beste aguindubetaco eguinbiar nausija ta ituba da, inori calteric ez eguitia*" (Icas-II, 247). // "*Sermoe guztiz orraztu baten zatijac ta zatijeen zatijac ez badaucaz bere, izate oin onecua, ituraco sailaren zuentasuna, errazoiaren indarra ta eracutsi elduba ez ditu palta*" (Icas-I, VII).

- **itzuli (da, du):** irauli; "*Aixiac alde batera edo vesteria ontzija itzuli gura davenian, boteetan deutsa ichaso guizonac ontzijari ancoria, itzuli ez dedin ta pirme euqui daguijan ontzija*" (Icas-I, 37). //erori, jausi; "*Emacume bati cuidadoz ta carino chaarrez beguiratu eutsalaco, itzuli zan David santuba ta Jaungoicuaeren vijotzaren neurrira eguina pecatuban*" (Icas-II, 57).

- **ixio:** piztu; (*ixio / ixiota / ixioten* formak hartzen ditu); "*Ixio daguijala gueure vijotcetaren bere amodijo garbijaren suba*" (Icas-III, 195). // "*¿Oh ce mendi andija ixioten daven!*" (Icas-II, 159). // "*caridadiaren subagaz ixiota*" (Icas-III, 69).

- **izcune:** ohitura; “*Orraco taberneetan, orraco jocuetan, orraco ocasinietan, ascoc dauque izcune madaricatuba blaspemijaco verbaac esateco*” (Icas-I, 143).

- **izungura:** ur geldituzko urtegia, aintzira; “*Alan, nai errecacua, nai iturricua, nai pozucua, nai ituxurecua, nai ichasocua, nai izunguraan edo bidian gueratu ta daguana*” (Icas-III, 39).

- **izurtura:** izurra, zimurra; “*Pecatubaren izurtura, loi edo mancha bagaric guztia santia, ederra, garbija ta gracijaz apainduba eracusteco*” (Icas-III, 37).

- **jadiichi:** erdietsi, lortu; “*Oneec eta beste conta ezin guinaizan educ, ezcon tzaco estaduban jadiichi evene santu izatia ta eleisa ama santiac altaretan iminita ondretia*” (Icas-III, 323). //heldu, iritsi; (aditz iragangaitza da testuinguru honetan); “*Pecatuba damututa, compesauta ber e jadiichi jacon testigantza paltsuaren casti guba*” (Icas-II, 163).

- **jaguigari:** legamia; “*Ogui jaguigarri bagacuen zazpi egunac*” (Icas-III, 4).

- **jai / jai egun (jaijegin):** meza entzun eta atsedean hartzeko festa erlijiosoa; (esanahi hori du Bartolomerentzat; bestelako festei *piestia, piesta eguna, erromedi ja eguna, tanbolin eguna* etab. deitzen die. Jai edo jai egunetan ere, bidezko denez, bereizketak egiten ditu: *jai osuac, jai erdijac* edo *jai arinac*); “*Urte barru co jaijac batzuc dira osuac ta areetan domequeetaco eguinbiarrac dagoz. Beste batzuc dira jai arinac edo jai erdijac*” (Icas-I, 152). // “*Ez daigun contuban sartu, piesta eguna jaijeguna bada, egun guztia diabruba, munduba ta araguija serbi duten iragotia; Jaungoicuagaz bere ez acordeetia; ta, verbeeta onian, mezaric ber ez entzutia*” (Euscal-errietaco... 95).

- **jandu:** janaritu, elikatu, mantendu; “*Aita bat icerdija darijola davil, bere vizi moduban cerbait irabazten, emaztia ta umiac jandu, jantzi, jaso ta lagun artian vizi izaten iminteco*” (Icas-II, 142).

- **janzaar:** jan dela denbora luzea igaro ondoren; (aditzondo gisa erabiltzen du); “*Nosbait ustez uste bagaric, edo bustita dagualaco, edo janzaarian daguala co, edo ezaututen ez daven ardao burutsuba dalaco, edanac eratsotia edo orditu tia jazo leitequiala pecatu bagaric*” (Icas-I, 274).

- **jaola / jaole:** zaintzen, gordetzen duena; “*Obispo jaunac dira gueure arimen jaolaac*” (Icas-III, 289). // *Baso jaube batzuc ta monteru esaten jacuen baso jaole batzuc, chito dira estubac* (Icas-II, 156).

- **jaote:** zaintzea, gordetzea; (*jagon / jaon* partizipioa ez dugu aurkitu); “*Lelengo laurac dira: Ate- jaotia, iracurlia, etsai-bildurzailia ta meza-lagunzailia. Edo esan go deutsegu: Ostiarjua, lectoria, exorcistia ta acolituba*” (Icas-III, 284).

- **jaquin andico:** oso zuhurra, egokia; “*Erremedijo jaquin andicua ta erremeredijo jaguruba*” (Icas-III, 275).

- **jaramon:** kasu egin; (**jaamoten** forma darabil); “*Ez eutsan Senecac emaz - tiaren miin gaisto ascatubari eulijaren brunadiari baino gueijago jaamoten” (Icas-III, 374).*

- **gardun:** zerbaitetan ari izan; “*beti barriquetan gardun bagaric, isilic egon dedilla” (Icas-I, 9 serm.). //gaizki esatea; “Ordu guichi eucazan senarrac echian, emaztiaren garduna ta esetsi lotsa charrecua entzuten ez citubanac” (Icas-III, 374).*

- **jarquera:** jarrera; “*Cimentuban paltia daucan ormia, beti dago jarquera cha - arragaz jausteco arriscuban, azaleti echura ona euqui arren” (Icas-III, 348).*

- **jaso:** zor dena ordaindu; (ohiko adieraz gain, esanahi hau du testuinguru batzuetan); “*Ta bere erruz eguin jacozanac jaso biar deutzaz otseguinac” (Icas-II, 146).*

- **jaso on:** itxura ona, aire ona; “*Batzuc edocein modutan, jaso on bagaric, soi - nac moduztau bagaric, botoiac euren lecuban lotu bagaric, chito nasai juaten dira, comunioe santuba artutera, bai guizonezcuac ta bai emacumiac” (Icas-III, 216).*

- **jazo:** gertatu // gertakaria; (aditzaz gain, izena da testuinguru askotan); “*¿Ez da au, guizon bati jazo lequijon penagarriric andijena?” (Icas-II, 143). // Jazo triste ta negargari oneec eracusten deuscubez aimbeste Eregec” (Icas-III, 201).*

- **jorrajia:** barazkien oina jorrazeko erabiltzen den aitzur txikia; (hitx hau oraindik bizi-bizi dago Bizkaiko euskaran); “*Jesusec jorrazuten dau ta erragarijetan dau virginen ortu samurra ta loratsuba. Batian, bere jaijotza gozoco negarragaz. Bestian, bidetan cansauta gu gaiti emon euan icerdijagaz. Bestian, bere arantza, azote, curutze ta ultzezco jorrajagaz.” (Icas-II, 92).*

- **juanzuzun:** joan beharra; “*Etorri da ija demporia, esaten eutsan Jesus onac (2), Samariaco emacumiari, ez mendi onetara, ez Jerusalem juanzuzunic izan - go ez dana, espiriubagaz ta eguijagaz Jaungoicua adoretaco” (Icas-III, 251).*

- **juralari:** zin egiten duena, juramentua egiten duena; “*Zu zara lapurra ta juralari paltsua” (Icas-III, 136).*

- **juzgu:** buruan gauzatu ohi den iritzia, eta bereziki norbaiten jokabideari buruzko iritzia; (*txar / gaizto* adjektiboa lagun duela darabil askotan, eta orduan, norbaiten jokabideaz gaizki pentsatzea, susmo txarra izatea adierazten du); “*Piesta zaliac egun atan, mezatan eleisaan egon arren, mezaric entzun ez daveela sinis - tu guinai, juzgu gaistoric eguin bagaric, gogua beste arduretan euqui daveelaco” (Euscal-errijetaco... 57).*

- **labore:** soroan hartzen den garau edo aledun jeneroa; “*Esan oi dan leguez, gaur zuri ta bigar neuri jazoten da, edo ogeico bat, edo eun ducat, edo anega bat*

labore, edo beste preminaco gauza bat proximuari plazura emonda, mesede eguitia” (Icas-II, 108).

- **laumai**: antzinako dirua; “Batian *laumai*, bestian *zortzimarai*” (Esku, 237).

- **leendanaz**: aurrez, aldez aurretik; (horrelaxe loturik nahiz bereiz idazten du); “Ez eguin juramenturic, *leendanaz* ondo jaquin bagaric” (Icas-I, 116).

- **legue on**: begirunea, itzala, errespetua; “Atseguin andicua, Jaungoicuaren vidur santuban ta alcarren *legue onian* vici dirian senar emaztentzat” (Icas-III, 343). // “Iregarrena da, senar emaztiac alcarri *legue ona* gordetia” (Icas-III, 344).

- **letratu**: letraz hornitu, inprimatu; “Eusqueeran liburu eguitia, marqueeetia edo ondo *letratutia*, asco costata bere sarri uts eguin” (Icas-I, VI).

- **letrau**: auzi batean testiguen esanak legearekin neurtu ohi dituen aditua; “Ta areen esanac *leguiagaz* neurtuteco *letraubaquin*” (Icas-II, 167).

- **liorpe**: estalpean, euririk sartzen ez den tokia; (irudiz, ostatua); “Ondo pobæ - tuba topauco dau Jesus, bai Belenen jaijo biar davenian, ostaturic edo *liorperic* inoc emon gura ezda, corta batera jajotera doianian” (Icas-I, 73).

- **liquin**: gai itsaskorra, lizuna; (izen gisa darabil); “*liquina* erijola” (Icas-II, 19).

- **liquindu**: igurtzi, eskuztatu, bigundu; “*piestatic* *piestara* ta *dantzatic* *dantza* guizon escu artian *liquinduta*” (Euscal-errijetaco... 50).

- **liquinquerija**: lizunkeria, zantarkeria; “*liquinquerijar en vitsa* darijola” (Eus - cal-errijetaco... 66).

- **logre ru**: lukuraria, lukurrerua; “*Logreruben* asmuac dira oneec. Euren logre - rija edo lapurreta desondrauba edertuteco, asmetan ditubee alacuac” (Icas-II, 113).

- **lor**: proba, sufrimendua, lan neketsua; “Errazago da, neure entzula onac, juramenturic ez eguitia, alaco *lor* bildurgarrijeetan gueratutia baino” (Icas-I, 126).

- **lorrotz**: aztarna, lorratz; (bokalen asimilazior “o” ageri da; oraingo euskara mintzatuan ere bai); “¿Ce *lorrotz* carinosuac eguiten dituban munduban pecatu ezainac?” (Icas-II, 47).

- **lotsa**: hainbat arrazoiengatik sortzen den sentimendu mingarria // itzala, begirunea, errespetua; “Asco *lotsatuteco* guzurra esaten bajaco arpeguijan persona *lotsa* ta *cleitu* oneco bati, *chiquija* iruri arren, izan leiteque pecatu mortala, *lotsa* - ari andija emon jacolaco guzurragaz” (Icas-II, 177).

- **lotsagalduco / lotsa gaistoco**: lotsagabea; “Bestia asarratuta, asten da *lotsagalduco* diadarca” (Euscal-errijetaco... 72).

- **lotsagalducoquerija**: egintza lotsagarria; “Guztia maldadia, guztia liberta -

dia, guztia lotsagalducoquerija, guztia nasaiatasuna, guztia pecatuba, guztia dia - brubarena, guztia mundubarena, guztia araguijarena” (Esku, 258).

- **lotsagalducotu / lotsa gaistocotu:** lotsagabe bihurtu; “Adanen pecatubac azcortu ta lotsa gaistocotu cituban” (Icas-II, 257). // “Endamas dempora triste onetan lapurrac gueitu ta lotsagalducotu; ta guizon illtiaren itzala ta bildurra guichi - tuta dacusgunian” (Icas-I, 251).

- **lotsagari:** lotsa ematekoa; (testu honetan izen gisa darabil); *Prenuba, lotsagarrija, lotugarrija, bildur santuba ta eracutsi ona umiari gaztetan” (Icas-I, 4 serm.).*

- **lotsa oneco:** ohoretsua, onradua, zintzoa; “Ta beti onestidadiaren ta modes - tijaren aixe lotsa oneco gracijotso bategaz” (Icas-II, 90).

- **lotsari:** lotsa, desohorea; “naastau ciriala lotsarizco vicijo ta pecatu guztie - tan” (Icas-I, 28).

- **lotu:** gelditu; (ohiko adieraz darabil gehienetan, baina hemen Bizkaiko Mendebaldean duen esanahia du); “Oh Jaungoico parcatzailia! Lotu eguizu ceure zamai bildurgarrija” (Icas-I, 197).

- **lotute:** legea, araua; “Ta au zintzoro gorde daigun emon deuscuz lotute edo legue oneco aguindubac” (Icas-I, 187).

- **luurtu:** lurreko bihurtu; (hainbat aldiz darabil eta zeruaren oroipena galdurik, lurrean arrastaka dabilenari ezartzen dio); “Arima galduba, arima illa, arima luurtuba ta arima loituba da, pecatuban daguana” (Icas-III, 231).

- **maina:** joera eta trikimailuak, batez ere nagusiengandik nahi dena lortzeko umeen mihizkinkeriak; “Gueure guraso zintzuac dira, gueure umetaco mainaac, min bagaco negarrac ta iletac, gurari ta tema ernegarri guztia, iru edo lau urte osuetan edo gueijaguan, ixilic ta carinoz, parcatu eutscubezanac” (Icas-I, 197). // “aixetsuba ta maina gaistuetan acija” (Icas-III, 350).

- **maitequerija:** gaitzesgarritzat hartzen den maitasuna; “Vanidade atati urte - ten daveela maitequerija charrac ta peligruzco carinuac” (Euscal-errijetaco... 160).

- **malpecau:** zoritxarrez, zorigaitzez; (lau aldiz dakar Frai Bartolomek gaztelaniazko testu zaharretan datorren harridura-hitza: “Desde tan común dolor todas somos ¡mal pecado!, maestras”, *Celestina*, I, 251, 50.- ¡Mal pecado! s. XIII. Exclamación de Berceo: Milagros . in *Diccionario Medieval Español*); “Baina ez, malpecau” (Icas-I, serm. 21). // *Icusten dogu, malpecau, beste pecatubac bere sus - trai andijac ta aguindute zabala dauqueela gueure vijotcetan” (Icas-II, 36).*

- **mandatari:** mezularia; “Au ondo ezaututa, ondo sinistuta, Jaungoicuaren mandatari areec eureen liburubeetan esanda ichi evenen cristinau guztienzat naas - teco dantzaac gaiti” (Euscal-errijetaco... 85).

- **menturaz:** (ikus 288.or.)
- **mezütü:** hila jantzi; “*Ta mezütuten ezautu even emacumia zana*” (Icas-II, 232).
 - **moduztau:** txukundu; “*Batzuc, edochein modutan, jaso on bagaric, soinac moduztau bagaric, botoiac euren lecuban lotu bagaric, chito nasai juaten dira Comuninoe Santuba artutera, bai guizonezcuac ta bai emacumiac*” (Icas-III, 216).
 - **muchicau:** nahaspildu, lorrindu; “*ganadu guztiac sartuta, muchicauta, zapalduta, ziquinduta ichi dituben ortubac*” (Icas-II, 85).
 - **muquer:** gogorra; “*Baita gogoratu daigun beste asco celan librau dirian ar e - rijo muquer; zal, iraascor, lotsa gaistoco onetati*” (Icas-II, 59). // txarra; “*Jaungoicuaren esana eguiteco ta gauza oneetaraco atzera pena ta gogo muque - rra*” (Icas-III, 20).
 - **mutildu:** ilea moztu; “*Alan ibili dirialaco, Jaungoicuac quenduco deutseeza - la siongo alabai eureen apaindurijaac, mutilduco deutseezala eureen burubac*” (Euscal-errijetaco... 78).
 - **mux:** uretan murgiltzea; (inguru honetan, bereziki Ondarroan ezaguna da hitz hau); “*Naaman garbituteco, Jordango Ibaico zazpi muxac*” (Icas-III, 4).
 - **muxila:** poltsa, sakela; “*dendaraco ta beste tratu chaarretaraco ta impamee - taraco, patricaraan edo muxilleetan laboria edo aldaguijeena eheti oostuta, alca - boetiai emoten deutseenac*” (Euscal-errijetaco... 201).
 - **nabasen:** nabasaiaz lanean; (*nabasaia* soroa lantzeko lanabesa da, lau horzkeko golde-mota bat); “*Santo Tomasec dino San Agustinegaz: Domequeetan ta jai egunetan dantzan eguitia, pecatu andijagua dala soluan nabasen edo echian gorubetan eguitia baino*” (Euscal-errijetaco... 81).
 - **naicotu:** ase, bete; “*Codicijosuac ezin ase edo naicotu dira inos diruz edo ondasunez*” (Icas-II, 104). // “*¿Cegaz naicotu guinai gueure vijotza Jaungoicuagaz ostian?*” (Icas-I, 49).
 - **naitu:** nahi izan, guraria izan; (nahiko normal darabil...); “*Ez naitu, ez desiau, ez vijotcian lecuric emon inoren gauciaren gurarijari*” (Icas-II, 247).
 - **naizco:** nahita, nahi dela egiten dena; “*naizco pecatu loi ezainac*” (Icas-II, 81).
 - **nasai:** kontzientziako inolako kezkarik ez duena; (adiera gaitzesgarria du ia beti; *nasaitasun* hitza ere horrela darabil); “*Alaco erromedijeetaco dantcetara ta piestara genteric nasaijeena ta galdubeena juan oi dalaco*” (Euscal-errijetaco... 107).

- **nausi:** txikia ez dena; pertsonari buruz, heldua; (hauxe da darabilen forma bakarra; behin ere ez *nagusi*).

- **nauscontu / nauscontu:** umeak, hizkeran eta jokaeran, egin ohi duen pertsona nagusien imitazioa, gehienetan gaitzesgarritzat hartzen dena; (Eskuizkribuan *nauscontu* darabil); "*Parcatuten deutseezu: chiqui chiquitati auzo inguruban dirian nauscontu guztiac, gorrotuac, quereilaac, cer esanac, escandalubac, nesca mutileen arteco adisquidetasunac, amoriac, jazotiac ta beste secula umiac entzun biar ez ditubeen saltsa guztiac, ceuben aurrian conteetan*" (*Icas-I*, 20 serm.).

- **neurgari:** elizako erregela edo kanona; "*Jaungoicuaren videti ta Eleisa Ama santiaren erreguela edo neurgari santubetati ez dan ezcontcia, arriscuco ezcontcia da*" (*Icas-III*, 349).

- **noraececo:** behar-beharrezkoa, ezinbestekoa, premiazkoa; (adiera hau baino ez du); "*Bada onezaz ostian, noraececu da salvetaco ostuba atcera biurtutia; ta inori euquijan edo aciendaan eguin jacon caltia*" (*Icas-II*, 148).

- **obatu:** hobetu, hobe bihurtu; "*Baita eria datorrela, bestiac obatuteco ardu ria artu bere*" (*Icas-I*, VIII).

- **ocasinoe:** arriskua, batez ere bekatu egiteko arriskua; "*Bada, ocasinoia nai davena, ocasinoian galduco da*" (*Icas-II*, 276). //eztabaida, demanda, borroka, liskarra; (ez dugu aurkitu Bizkaiko hainbat tokitan duen adieran, hots, *hileta, ehorz-keta, lur-emate* adieran...); "*Echeetan bai asarre andijac ta pecatu mortaler a eldu ten dirian ocasinoiac ta escandalubac, ascotan auzuac igarten deutseen tercijuan, gurasuen ta umeen artian, piestati berandu echera jua dirialaco*" (*Euscal-errijetaco... 63*).

- **ocasinoetsu:** borrokazalea, liskartia; "*Alaco guizon ocasinoetsubac, baque gaistocuac, beti burrucaraco edo maquilacaraco prest dagozanac, ezin esan legui ce caltegarriac dirian echian, auzuan ta errijan*" (*Icas-I*, 252).

- **odoltsu:** odol askokoa, ankerra, krudela; "*guerra odoltsubetan ta impernuco ateetan*" (*Icas-II*, 51).

- **ondo esandu:** goratu, goraipatu; "*Maitetu dagujela, jaso dagujela ta ondo esandu dagujela Jesus maitegarrija ceruban ainguerubac ta santubac*" (*Icas-III*, 306).

- **ondoric:** ondoren; "*Ta orduban bere Jesusen billa, edo Jesusen ondoric*" (*Icas-II*, 91).

- **ondotsu:** hondo handikoa, sakona, azpi sendokoa; "*Oinaz ez daquijan sein chicar bat leza ondotsu batera jausi ezquero, inoc ateraten ez badau, popuerza illgo dan leguez, alan gueratu zan guizona Adanen pecatubagaz*" (*Icas-III*, 21).

- **ondotu:** sakondu; “Alaco Jaungoicuaren gauza goitsubac ta estaldubac erra - zoiagaz ondotu ta neurtu gura izan ditubeenac, urten davee errazoeti campora ta jausi dira Jaungoicuaren contraco utseguite andi ta negargarrijetan” (Icas-III, 201).

- **onera:** onura, probetxua; “Baina, ene ustez, ez leuquee onera gueijago euqui - co au gaiti” (Icas-II, II).

- **opa:** gurari, desira; “Ezautuco baguenduz Jesusec deuscuzan opa onac” (Icas-III, 230). // “Oneec dira Jesusenopa onac” (Icas-III, 230).

- **oquerrenja:** gaiztakeria; “Penagarriric andijena da, oquerrenja impame onetati, bein atan icasi ezquero, guichi erremedijeta” (Icas-I, 267).

- **oratu:** kutsatu, itsatsi; (ohiko esanahiaz gain, hots, “heldu”, “atxiki” adieraz gain, zerbait kutsatu edo itsatsi esan nahi du eta aditz iragangaitz gisa darabil); “¡Oh, ce gui - chi oratutenjacozan munduco aixe gaixuaren autsac eta lausuac!” (Icas-II, 90).

- **ordi / orditu / ordiquerija:** hordia, mozkorra // horditu, mozkortu // mozkorreria; (mozkor / mozkortuez ditugu aurkitu); “Zuc daucazu, sarri pecatu era - guiten deuntsun adisquide bat auzuan: Baita sarri ordituten zarian tabernia bere” (Icas-III, 135). // “Ordija ordituten dala, leenago leguez” (Icas-III, 137). // “Ceimbat joco ordena bagaco, ibilera desonestu, ordiquerija nasai ta ocasinoe gaisto jai domequetan?” (Icas-I, 161).

- **ordia:** elizaren seigarren sakramentua; (berez *ordea* da, baina *ordia* idazten du bokalen harmoniagatik); “Batiua, Ordia ta Compirmacinoia ez dira barristetan, beste Sacramentubac leguez” (Icas-III, 86).

- **ostera:** berriro; “Alaco tratalarijac topetan baditubee pobriac ta preminan dagozanac, ostera bere laster ibili biarco davee oneec esquian, dauquen pusquia galdubaz” (Icas-II, 126).

- **osterantzian:** bestela, hala ez bada; (ikus honetaz 255-256.or.); “Osterantzian, gorroto bagaric, odijo bagaric, bere arimaan, osasunian, pamelija - an, cleituban edo aciendaan gachic opa bagaric, neuri calte eguin deutstanari, escatu beguijo Juezaren aurreti, eguin deustan caltiaren erremedijua” (Icas-I, 104).

- **ostian:** (ikus 255 eta 288.or.)

- **osticari:** ostikoka egiten duena, ostikalaria; “Da arerijo muquerra, eci gais - tocuca, osticarija, sutsuba ta zala” (Icas-III, 264).

- **otseguin:** morroia; (*crijadu* eta *otseguin* darabiltza, baina ez *morroi*); “Beste ainbeste esaten da, nai Eleisiaren burubac cristinaubai, nai juezac bere aguindu - pecuai, nai ugazabaac otseguinai, nai gurasuac umiai eragotzita dauqueen dem - poraan, olgweetia gaiti” (Euscal-errijetaco... 42).

- **oztaago:** nekezagoa, zailagoa; “*Baina gueratu zan gueure oneraco ta gache raco alizate andi au, gauza oneraco, cristinautza zuceneraco, Jaungoicua ondretaco gaixotuta, argalduta, macalduta, leen baino oztaago Jaungoicuaren ta errazoiaren vidiai jarraituten deutseela*” (Icas-III, 20-21).

- **palacijo:** jauregia; “*Oba evala, bere palacijora eruanda, guztiaquin balijau*” (Icas-II, 20).

- **palagau:** losintxatu, lausengatu, balakatu; “*Lagun batec descuiduan chopin eguinda negarrez icusi badozu ceubeen umia, altzuan artuta, palagauta, esan deutzazu, ia arri bat artuta musturrac cetaco ausi ez deutzazan lotsa galducuari*” (Icas-I, 14-15 serm.).

- **presijo:** fariseua; “*Ain pozic sartuten da Jaungoicua Lazaro, Marta ta Madalenaren eche humildian cein presijo aberatsarenian*” (Icas-I, 51).

- **pasmu:** gangrena; “*Gorputzac pasmua ganic libretaco ta usteldu bagaric gor-detaco balsamotuten dira*” (Icas-III, 88).

- **pecataritu:** bekatari bihurtu; “*ceubeen ume inocentiac, gach bagacuac, graciajazuac, santubac, ainguerubac, arguizai biguna leguez edocein eratarra ecarten chito errez cirianac, galduteco, deungatuteco, nasaituteco, vijotz gogortuteco, lotsa gaistotuteco ta pecatarituteco*” (Icas-I, 25 serm.).

- **pecatutu:** bekatuz bete; “*Luxurijac loitu, ezaindu ta pecatututen davela gorputz ta arima gizon guztia bere zati guztietan*” (Icas-II, 41).

- **penadun:** penitentea, penitentzia egiten duena; “*David penadunac autzagaz buruba estalduta, cilicijuagaz gorputza lotuta, negarragaz oe baztarra bustita, escatuten eutsan Jaungoicuari bere pecatubaren paracinoia*” (Icas-III, 175).

- **piadadeczo:** deboziozkoa; “*Aita Looner, Jesuita piadadeczuac esaten dau*” (Icas-II, 35).

- **piel:** herrietaco agintariari, elizateetako buruari garai batean eman ohi zitzaion izena; (Fraibartolomek bereizi egiten ditu *pielak* eta *alkateak*: herrietako buru *pielak* ziren eta hiribilduetakoak *alkateak*); “*urijeetaco alcate jaunac ta erri-jetaco piel jaunac nai balebee bere, quendu ezin leguijeez, urijac edo errijac nai ez davela, sarritan icusi dogun leguez*” (Euscal-errijetaco... 151).

- **piesta:** festa; (*piesta eguna* eta *jai eguna* ongi bereizten ditu; “*piesta*” hitzak, plazako nahiz erminta ondoko jolasa, dantza eta ikuskizunak hartzen ditu; *erro-medija eguna, tanbolin eguna...* hitzek antzeko esanahia dute; badute ñabardura txiki bat, bigarren adibidetik atera genezakeenez); “*Plazaco piestia darabilleenac dira esan dan edadeczuac*” (Euscal-errijetaco... 47). // “*Erricuentzaco da piesta eguna, ta ervestecuentzaco erromedija eguna*” (Euscal-errijetaco... 106).

- **pique:** bikea, gai erretxinatsu eta itsaskorra; “*Piquiari icututen deutsana, beragaz loituten da, dino Salomonec*” (*Icas-III*, 115).

- **pozu chistar:** ur geldizko putzu txiki eta zikina; “*¡Ojala, pozu chistarr etaco ur berdial ta mingochai ichita, juango balira vizitzaco iturri gozoco ur garbijac ta pozgarijaz edaatera!*” (*Euscal-errijetaco...* 21).

- **prenu:** frenua, galga, balazta; “*Areetati batec dino, umiac prenuba biar dave -ela gaztetati. Prenuba, lotsagarrija, lotugarrija, bildur santuba ta eracutsi ona umiari gaztetan*” (*Icas-I*, 4 serm.).

- **propijan (alcarren):** elkarren lehian; (gaztelaniazko “a porfia” esamoldearen parekoa); “*Dantzara duazanac alcarren propijan vanidadez duazala*” (*Euscal-errijetaco...* 160).

- **queiza:** geriza, itzala; (batzuetan irudiz erabiltzen du, eta *-en aitzakiaz* esan nahi du; beste toki batean datorren *-en estalgujagaz* sintagmaren baliokidea da); “*Bere queiziac bere icara eraguiten deutsal, esan legui, guizon illzailiari*” (*Icas-I*, 244). // “*Oneec, inori seguru ostutecoqueizgarritzat equiten deutsee tratubari*” (*Icas-II*, 127). // “*¿Ceimbat ezcongueic, alcar jasotecoqueiciagaz, onestidadia galdu ta asarratuten ete davee Jaungoico santuba, eurai gracia emon biar deutseena?*” (*Icas-III*, 337).

- **sardaquijsa:** izua, beldur-ikara; “*bestiac diadar gogor bategaz sardaquijsa, eurac esan oi daveen leez, sartceen deutsa*” (*Esku*, 225).

- **secretas:** komuna; “*Ladiceaco doncella edo nescatilla batzuc, gaistuen escu -betan jausteco peligruban euren burubac icusi zitubenian, secretas loijan euren gorputzac ezcutauta, garbitasunaren loria osoric gorde even*” (*Icas-II*, 62).

- **sein:** ume txikia; (amaren sabelean dagoena ere bai); “*Amaren sabelian gal -duten dirian seinac*” (*Icas-III*, 31).

- **seinzain:** inudea; “*Amac edo seinzainac, beragaz oian daatzala, itoten badau seiña eguiten davela pecatu*” (*Esku*, 268).

- **sen baten:** egoera berean; “*Ez beste gauza gaiti, ez bada gueure genijuac, condecinoiac edo naturaleciac beti sen baten, biar baten edo gauza baten gobait eguin bagaric iraun ecin davelaco*” (*Euscal-errijetaco...* 15).

- **seniquera:** familiartea; “*galdu deutsal ceure echeco edo seniqueraco baquia embusterijagaz, guzurragaz edo chimerijagaz*” (*Icas-I*, 103). // *senide-erlazioa, ahaidetasuna*; “*Ta bautismuac dacarren Espirituzco Seniqueria dacar compirmaci -noiac*” (*Icas-III*, 93). // “*Seniqueria izan leiteque, edo berez etorrija, edo iraatsija*” (*Icas-II*, 71).

- **sequera:** sukarra; “*¿Baina sequeradunagaz lò eguiten davena ala campo eche osasuntsu baten vitzi dana leenago ta sarijago?*” (*Euscal-errijetaco...* 186).

- **sistu**: sitsak jo; “*Orijua da, gauzac usteldu bagaric, ugartu bagaric, sistu edo irotu bagaric gordetan ditubana*” (Icas-III, 87).

- **sobrau**: behar ez dena, alferrekoa; (“sobrauba”, “sobrauta” formak darabiltza batez ere); “*Ez dogu entzuten orduco eztegubetan ez gauza sobrauric, ez biar ez zanic*” (Icas-III, 338). // “*Euren guraso errucarijac zaartzan sobrauta echian dau queezanac. Guraso uatubac edo balijoco ez dirianac, echian emoten daveen aazu - ba gaiti illtia opa deutseenac*” (Icas-I, 253). // “*Eurac dira ni baztartuta, sobrauta nauqueenac*” (Icas-II, 8 serm.).

- **soildu**: lehortu, antzutu; “*An icusi zirian sein bagaco andraac era batera soilduta, ama izateco ustiac galduta*” (Icas-II, 47). // “*Ichi leguijez campuac soilduta, guztiz galduta, gatz emonda, noc negar eguin ez dauqueela, guerraguin ascoc, esaten danez, alcarren gorrotoz eguin daveen leguez*” (Icas-III, 293-294).

- **soin**: gorputza; (baina beti darabil *jantzi* edo antzeko hitzen bat lagun duela; *soinian*, *soineco* formak agertzen dira batez ere); “*guztiac biarra eguin biar davee, euren echiac janduteco, soinac jantzteco ta pamelijari cegaz vitzi emoteco*” (Icas-II, 139). // “*Dendan zorra, compiterijan zorra, zapataricuan zorra, lecu guztietan zorra, areec peguetaco moduric ez ta beti moda barrija ta ez jagocan jantzija soinian*” (Icas-II, 140). // jantzia, soinekoa; (ondoren datorren lehen adibidean hori esan nahi duela dirudi; bigarrenean, ordea, ez dago argi; kanpoko itxura, ikus daitekeena, gaztelaniazko “porte exterior” izan daiteke): “*Bada, gauza jaquina da guraso ta ume ascoren arteco baque chaarrac, asarriac, bidauac ta, eurac esan oidaveen legueez, impernucuen vitzizia echian diriala piesta madaricatabac gaiti. Gurasuac umiai nai daveen piesteetan ta nai daveen lagunaquin gau ta egun ibil ten isteen ez deutseelaco. Ta gura leuqueensoina eguiten ez deutseelaco*” (Euscal-errijetaco... 58). // “*Soinian prestaera andi bagaco jasotasuna, asetasuna, zintzo - tasuna ta bere goguan ta vijotzian daucan virginidadia ta Jesusen amodijua ber e - cauten autor davena*” (Icas-II, 91).

- **soineco**: jantzita edo soinean eramaten den arropa; (bigarren adibideko *soineco* hitza ez da izena, izenlaguna baizik); “*Ezin inoc euqui legui suba colcuan, soinecua erre bagaric. Ezda ocasinioietan bere guraz inor ibilli bere, jausi bagaric*” (Icas-II, 275). // “*¿Cer esan gura davee meza esaliaren soineco jantcijac?*” (Icas-III, 239).

- **sustancijaz**: behar den bezala, ganoraz; (*ganoraz* hitza, Bizkaian hain erabilia dena, ez dugu aurkitu...); “*Aita edu eguindaco seme alabac dagoz asco, dotri - naric baper e sustancijaz ez daquijenac*” (Esku, 216).

- **tambolin egun**: txistu eta danbolinaz erromeria egiten den eguna; “*Cale barruco dantzarijac ez dira segurubago gueratuten eureen tambolin egunetan, bestiac baino*” (Euscal-errijetaco... 73).

- **tema:** nork bere iritziari gogor eta amore eman gabe eustea; *“Baña peccatori - jaren temia da, Jaungoicuac eguiteco esaten daven pusquia ez eguitia”* (Icas-I, 26). //dema, proba, erronka; *“Alaco desapijuac, temaac ta gorputzezco proba neurri bagacuac eguiten ditubenac”* (Icas-I, 261).

- **tertzijo:** neurria; *“Ermitetaco erromedijac nos asi zirian, cegaiti asi zirian ta dagozan tercijora celan etorri dirian, esatia, sail luciagua da ta orain paltarac eguiten ez davena* (Euscal-errijetaco... 107).

- **testigantza:** lekukotasuna; *“Baso bete ardaogaz edocein tratu, logrerija, testigantza paltso, desonestidade ta peccatura ecarten da ordija”* (Icas-I, 276).

- **toloztu:** paper, oihal eta antzekoak beren gain bildu; (irudiz ere erabiltzen du, “ezkutatu”, “gorde”, “estali” sentzuan...); *“Cristinaubac baguina eguijazcuac ta zucenac, daquiguna daquigun leguez, gueitu, guichitu, edertu, toloztu, ezaindu edo estaldu bagaric, gueure goguan dagan leguez, beti esaten dogunac, ez lego- que preminaric inos bere, juramentu eguiteco”* (Icas-I, 119).

- **toloztura:** zerbait tolesturik edo bildurik izan den parte edo atal bakoitza, baita tolesturik egonak utzitako markak ere; (irudizko esanahia du; *toloztura* ere idazten du, beti darabil “z”z); *“beste ascotan guztia ucatuten daveenac ta inos bere euren vijotzeco tolozturaac ondo zabaldu ta icusi ecin leizanac”* (Esku, 145). // “Ez da tolozturaric bere euren vijotcetac” (Icas-II, 207).

- **tratalari:** merkatari, salerosle; *“Tratalarijac alcar artuta eguiten dira lapu - rretaco tratubac”* (Icas-II, 118).

- **traza:** antza, itxura; *“Zuben umiac zortzi amar urtegaz bere dotrinaric ez equijen, conpeseetan ez equijen, meza bat entzuten ez equijen ta oraindino bere (tracia daucanez) ez daquije”* (Esku, 251).

- **uatu:** oheratu; (partizipio gisa erabilia; gaixo delako oheratua dagoenaz esaten du); *“Erruquiric gueijen emoten daveenac, dira guraso zaar uatubac edo ibili ezin dirianac”* (Icas-I, 205).

- **ucatu:** ezetz esan; *“Baina ezin ucatu negui, aparteco poza artu davena nire vijotzac, Eleisa-guzonac ene neque pusquia ontzat emon daveenian”* (Icas-II, I). //eskatutakoari, eskubideari ezezkoa eman; erlijio, sineste eta abar baztertu, halakoari uko egin; *“Bada, San Ger onimoren esanian gentiltasuna ta er egija edo Jaungoicua ta Evangelijua ucatutia luxurijac ecarri ditu mundura”* (Icas-II, 48). //hartutako asmo edo erabakietan atzera egin edo bide erdian pot egin, helburua lortu gabe; *“Zala da, nequez ucatu edo cinca eguiten davena”* (Icas-III, 134).

- **upa:** upel edo barrika handia; *“Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardaa edaaten daveenac”* (Euscal-errijetaco... 54).

- **upatei:** upak gordetzen diren tokia; *“Jagui zaita ta erdu neugaz ardao gozoz beteta dauan upatei edo bodega batera”* (Esku, 87).
- **urca:** urkamendia, urkabea; *“Ama gaistua ta deunguia izan arren ta urquia ondo mercedu arren, seina sabelian daucan artian, vitzitzia parcatuten jaco”* (Icas-I, 251).
- **urlijaina:** urlia; *“Zu gaiti urlijainac au zinuan”* (Icas-II, 211).
- **urragoni:** metal preziatua; (behin bakarrik dakar; gainerakoetan beti *urria* eta *cidarra*; Bizkaiko mendebaldeko toki batzuetan bezala ez da *urregorri* eta *urr e - zuri* oposiziorik ageri); *“urragorizco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda”* (Euscal-errijetaco... 138).
- **urrenja:** urrezko gauza edo bitxi multzoa; *“Indijeetaco ondasun estimau guztiac, erregueen ta andijeen echeetaco ta soinecurrerija, seda, damasco, carmesi ta perleri - ja guztia beria dau Jaungoicua, ta nai davenari emoteco dauca”* (Icas-I, 48).
- **urtica:** botatzen, jaurtitzen; *“Triste Caipasen echian, guzurrac ezarten deu - tseezala, ule tiraca, chistu urtica ta burla minbera guztiac eguiten deutseezala”* (Icas-I, 72).
- **usal / uxal:** uholdea, uriola; *“Mundubari pecatu loijac emon eutsan echura ezaina icusten da lelengo dilubijo edo mundu guztico usaletan”* (Icas-II, 44). // *“Madaricatubac guizon eta emacumiac, lotsaarizco pecatu nasajjaquin munduba loituta, Jaungoico andija uxalagaz guztiac itotera ecarri evenac”* (Icas-II, 24).
- **uzan:** izaina, odol-xurgatzailea den har edo zizare mota bat; *“Codicijac nai euquian bestiai odolac eta munac, uzanac leguez, chupauta, balijo guztia ber e poltsaan euquitia”* (Icas-II, 18).
- **uzi:** gogoa, xedea, lortu nahi dena; (gaztelaniazko “deseo”, “pretensión”, “ambición” esan nahi du; bi eratara idazten du: *uzija / usija*; noizbait *utsija* ere bai; ez dakigu garbi hitzak “a” berea duen ala ez; lehenengo adibidean baietz dirudi...); *“campora aguertuteco uzija ixia dauqueenac”* (Euscal-errijetaco... 202). // *“β beti ostuteco usijan”* (Icas-II, 100).
- **vendetu:** menderatu, mende hartu; *“¡Aimbeste arima, Jesucristoren erijotzia - gaz ta odol santubagaz irabatzitaco, daucaz vendetuta, luurtuta, loituta, imper - nuraco pretauta, irago dirian amabi guiza alditan!”* (Icas-II, 49-50) // *“Munduco altsubac vendetu leguijez guizonac, lotu ta carcelatu leguijez, Erodesec san Pedro eguin evan leguez”* (Icas-III, 293).
- **vendian:** mendean; *“Pecatubaren leza loijan sartuta dauque euren vendian, inoc ere ondo beguiratu ezin deutsan tercijuan”* (Icas-III, 232).
- **verdequerija:** lizunkeria, bereziki berbazkoa; *“Pornicacinoia, loiquerija, verdequerija, luxurija...”* (Icas-II, 253).

- **vereno:** pozoia, edena; (ikus 230.or.); “*Basoco suga ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez*” (*Euscal-errijetaco...* 160).

- **vicior:** bere izaeraz bizitzekoa dena, heriotzaren mende ez dena; (“hilkor” hitzaren antonimoa da); “*Gorputza luurra da ta arimia espirituba. Gorputza illo - rra da ta arimia vizicorra*” (*Icas-III*, 174).

- **viguira:** gaueko festa; “*Soinubagaz ta dantziagaz eguiten da piestia, sarau - ba, viguiria...*” (*Euscal-errijetaco...* 33).

- **zaatari:** sentimenak adierazteko darabil; “*Egon biar da mezatan gogua Jaungoicuagana jasota, gorputceco sentidubac edo zaatarijac batuta, soina moduz jantcita, vijotzagaz Jesusen jazo santubac maitetuten ta adoretan ditubala*” (*Icas-III*, 247).

- **zainga:** intzirika; “*Oneen artian batzuc beegozan negar malcuaquin luurra bustiten eveenac. Beste batzuc, negarric eguiten ez eveelaco zainga ta penaz ego - zanic*” (*Icas-III*, 177).

- **zaipeco:** maltzurra; “*Verbetan beguiratuba ta gueratuba gaiti, zaipecua ta zitala dala, edo buru erichija ta dotoria dala*” (*Icas-II*, 223).

- **zal:** sendoa, gogorra, iraun handikoa; “*Biar da, compesinoia ona izango bada ta pecatuba parcatuco bajaco, pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua ta eguilia. Baita zala ta pirmia bere*” (*Icas-III*, 133).

- **zaldu:** gogortu, sendotu; “*Onegaz aituten da, compir macinoeco Sacramentubac sendotu, edertu, osotu ta zaldu eguiten davela gueure arimetaco gracija*” (*Icas-III*, 88).

- **zaldun:** itzal handiko gizona; (*seinora* eta *dama* izenekin batera darabil gehienetan); “*erreguiac, erreguinac, caballeruac, seinorac, zaldunac, damac, sol - daubac, nequezarijac ta opicjuetacuac*” (*Icas-II*, 279).

- **zaltasun:** sendotasuna, gogortasuna; “*Orijua da, nai burdiniari, nai zurari, nai arrijari, nai beste edocein gauzari echuria edertuten deutsana, zaltasuna ta pirmecia gordetan deutsana*” (*Icas-III*, 87).

- **zamai:** mehatxua; “*Ez navee icaratuco, dino, ez impernubac, ez erijotciac, ez carcelac, ez desondriac, ez zamajac, ez nire contra jagui al dedinec, millaca badi - ra bere*” (*Icas-II*, 294).

- **zamaitu:** mehatxatu; “*Zamaituco davee inquisicinoiagaz*” (*Icas-II*, 294).

- **zetaca:** mantxa, lohia; “*Orduban gueratuten da cristinau barrijaren arimia pecatubaren zetaca bagaric, illun edo arretasun bagaric, guztia gracijaz zurituta, loratuta, arguituta, santa eguinda*” (*Icas-III*, 37-38).

- **zetacatu:** zikindu, lohitu; “*Luxurijac ixiota, luxurijac itsututa, zoratuta, peca - tu loiz zetacatuta, ucatu davee gizonac Jaun cerucua*” (*Icas-II*, 48).

- **zorpagatzaile:** zorra pagatzeko duena; (adjektiboren bat lagun duela darabil gehienetan: *zorpagatzaile atzerac...*, gaztelaniaz “deudor moroso”); “*Alperra jaa - lia, alperra edaalía, alperra jocularija, alperra asmotsuba, alperra castalarija, alpe - rra buruguina ta alperra zorpagatzaile chaarra*” (*Icas-II*, 105).

- **zuzmari:** sentimenak; (hiztegietan ez dator hitz hau); “*Celan gueure vegui - jac, miina ta sentidubac edo zuzmaarijac gorde biar ditugun, arimia ta gorputza loitu leguijeen gaucetati*” (*Icas-II*, 33).

Atzizkiz baliaturik, hitz eratorriak sortzeko joera handia du, bereziki *-tu* eran- tsiz aditzak sortzeko: *buru erichitu, lotsagalducotu, deungatu, naicotu, ganadutu, apiau, naitu, obatu, sistu, irotu, gorrototu, goixtartu, jandu, luurtu...*

6. Haren estiloaz zenbait iruzkin

L. Mitxelenak *Historia de la Literatura Vasca* liburuan hitz gutxitan jasotzen du haren estiloa. Honelaxe dio:

“Frai Bartolomé fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extraordinaria riqueza y variedad”.

Haren ondora hurbiltzean, ez dakigu zer den zuzenago esatea, haren iturrira etorri garela ala oihan sarratuan sartu garela... Izan ere, biak dira irudi ederrak, indartsuak. Berbalduna, hiztun ona eta sermolaria zen aldetik, iturria dator hobeki. Iturriak hizlariaren etorria adierazten digu. Ezin agortuzko isuri ugari berezkoa. Edota iturriak bezain ur garbia ekarri ez arren, zuhaitz sustraiak eta harkaitz pus- kak leunduz goialdetik indartsu datorren erreka bezala ikus genezake haren hitz- oldea...

Alabaina, sermolari eta idazle honen ondoan, iturri ugari eta korronte handiko erreka batera ez-eze, oihan sarratu baten barnean sartzen garen irudipena ere izan genezake. Oihana bizitzaren seinale da. Bizidun ugariren sorleku, bazkatoki. Askatasun berezkoaren erreinua; izadiko nahaste harmoniatsuaeren altzoa... Frai Bartolomereren liburuetan euskara bizi, adierazpen indartsu eta molde oneko biz- kaiera zaharraren eredia aurkitu digu.

Bere irakatsietan, garai hartako sermolari-airea hartuz, bekozkoz diharduela dirudi... Halakoetan ohi zenez, irakatsi garratzak, trumoi-burrundaran ehoak, infer- nuaren zemaipen oretuak dakarzkigu askotan. Orduko sermolarien ezaugarria zen, antza. Joera hori bere-berea zuen; Bizkaiko Elizaren gurasoetariko bat genuen, erlijioako maisu... Herria maite-maite zuen, baita herriko hizkuntza ere. Euskal gizar- tea oso erlijioso somatzen zuen, kristau-fedean sendo sustraitua; baina ohitura ba-

tzuetan jentilen aztarnak ere antzematen zituen. Horregatik, ohitura ezainak galdu nahirik, Erromako Kristau-ikasbidea eta moral katolikoa aldarrikatzeari ekin zion buru eta bihotz. Sermolari bikaina zen aldetik dohain ezin hobeak zituen horretarako. Hor dugu, bada, Frai Bartolome berak uste zuen egitekoa betetzeko apostolu-garrez eta hizkuntzaren baliabidez ongi hornitua...

Baina ataltxo honen sarreran ezin gogorarazi gabe utzi Frai Luis Granadakoaren eragina gure predikari honengan, eta are gehiago, predikari-belau-naldi ugaritan. Hain zuzen ere, haren biografia atalean adierazi denez, Karmeldar gazteen ikasketa garaian, Frai Luis Granadako hartzen zen hizlaritzako maisu gorentzat. Ordenako Konstituzioek ere beren-beregi agintzen zuten haren Erretorika Karmeldarren teologiako ikastetxeetan irakasteko (ikus 61 eta 156.or.). Beraz, Frai Bartolomerentzat, sermoigintzarako, oinarrizko liburua izan zen haren *Los seis libros de la rhetórica eclesiástica*obra. Argi eta garbi ikusten da, gainera, obra hori ongi aztertua eta hartua zuela gure karmeldar idazleak, beronen sermoi eta hitzaldi kateketiko guztietan ia goitik behera betetzen baititu haren erretorikako arauak.

Hitzaldiak behar dituen ezaugarrien artean zuzentasuna, argitasuna eta apaindura agertzen dira. Gure idazleak ezin hobeki betetzen ditu. Lehenengo bi ezaugarrietan jartzen du batez ere bere arreta, dirudinez. Hizkuntzaren aldetik zuzena da; gehienetan idatzizko maila jantziari eusten badio ere, herri-euskararen eta euskara mintzatuaren baliabideak maisuki darabiltza, ondoren datozen iruzkin txikietan ikus daitekeenez. Hau da, herri-hizkeraren isuri berezkoaren eta bidea urratuz zihoan euskara idatziaren konbentzioen artean oreka zaintzen jakin zuena dugu gure karmeldarra. Garai hartako eta aurreko idazle gorenak baino zuzenago eta herriarengandik hurbilago ikusten dugu Frai Bartolome. Egia da, erlatibozko perpausetan makurtu zela pixka bat hizkuntza erromanikoen alderantz... Baina bigarren ezaugarria, argitasuna, da harengan azpimarragarriena. Idazlearen helburu didaktikoa ageri-agerian dago. Gainerako alde onak, esaterako, indarra, deskripzioen xehetasun koloretsuak... argitasunaren lagungarri direla esan daiteke. Apaindura ez dirudi berariaz bilatua denik, berezko freskotasunak, gatzak, koloreak, indarrak ematen diona baizik.

Frai Luis Granadakoaren arauak ongi barneratuak eta hartuak ditu; hala ere, hori guztia hesi estutzat hartu beharrean, lagungarritzat hartzen du... Gainerakoan bere etorri ugaria, bere sena du gidari. Egia da, baliabide erretoriko klasikoak ugari aurkitzen dituguna haren testuetan. Baina horiek ez dira buruz ikasi eta kolpeka edo behartuta sartutakoak, barne-iturriari berez-berez darizkionak baizik. Hona aipagarritzat jo ditugun batzuk:

- Elkarren antzeko sintagma eta esaldiak bata bestearen ondoren tolestea.
- Izenondo eta epitetoen ugaritasuna.
- Galdera erretorikoak eta harridurazko esaldiak.
- Hiperboleak eta superlatiboen erabilera.
- Konparazio egoki eta bizi-biziak.
- Metafora eta alegoriak.

- Ironia.
- Irudimen distiratsua, pintore batek bezain deskripzio koloretsuak egiteko.
- Ezin ihardetsizko argudioak...
- Unean uneko erritmoa: motelago edo biziagoa, unearen arabera.
- Bibliako parrafoen eta Eliz Guraso santuen aipamen ugari.

(Latinetik egindako itzulpenetan edukiari ongi heltzen dio, baina bere erara itzultzen du gero, hitzak eta esaldiak entzuleen ulertze-mailara egokituz).

Ikus ditzagun atal batzuk hur-hurretik:

Dantzen jatorria azaldu nahi du ondorengo lerroetan eta beren jainkoen ome-
nez era guztitako festak egiten zituzten jentilen aro eta ingurumarira darama ira-
kurlea. Hasiera indartsua du pasarte honek, galdera erretoriko bikoitzaz. Zenbait
hitz esanguratsu, ondorengo parrafoetan bezala, azpimarratu egin ditugu:

*¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madaricatu orreec?
¿Celan? Etorri cirian, bada, gentileetati cristinaubeetara. Ta guero gurasuetati
umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edochein izate artuten eveena Jaungoicotzat.
Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac. Jaungoico paltso areec
ondreetaco, eguiten zitubeen eureen egunetan piestaac, dantzaac ta beste olgueeta
itchusi lotsarizcuac, Jaungoicuaren Ciudadeco Liburuban San Agustinec dinuan
leguez. Oneec dira, araco ar daoazco, odolezco ta luxuriya utsezco gentilen olgueeta
lojjac ta guizatasunaren desondragarrijac, zeintzubetan guizonac, piestia eguite
- co, pelietan cirian artzaquin, otsoaquin ta tigreequin, alcar ill artian (Euscal-erri -
jetaco... 140-141).*

*Alan olgueetiaren izenagaz ta estalgujjagaz eguiten dira cristandade guztia
desondreetan daueen gachac, ta ainchinaco gentilac bere lotsaz baino eguiten ez
citubeen pecatubac. Oneen contra ixildu bagaric diadar eguiten davee Eleisiaren
guiza aldi guztietaco Gurasuac eta eracuslaac. Baita Espiritu Santubac bere lecu
ascotan, aitu gura dauenarentzat (Euscal-errijetaco... 8).*

Bere-berea du Frai Bartolomek adjektiboak hiru, lau, bost... jarraian kokatzea.
Hemen, adjektibo soilak ez ditu erabiltzen, hauen egitekoa betetzen duten esaldiak
baizik. Begira zein ongi datorren harira *zaartuta bere berdiac* hori. Eta amaiera
elipsi eta guzti, herri-esapide indartsuz:

*Baina alaco gurasuac, eurac ber e piestatic piestara ibili zirianac, edo orain -
dino dabilzanac. Desonestidadeco escolaan atzijac, ondo eldu bagacuac, zaartu -
ta bere berdiac. Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac. Aita verdjar en semia, ver -
dia. Ama lojjar en alavia, lojja (Euscal-errijetaco... 59).*

Pintore batek pintzel-ukituz bezala agertzen digu guztia koloretsu; xehetasunez
jantzia; ikusten ari garela dirudi... Irudimenez begira jarriz gero, guztia dugu aurre-
an. Izenak bata bestearen ondoren direla, higidura azkarra lortzen du, izaditik jaso-
tako konparazio polit bat jarri du amaiera aldera. Begira zein egoki sartu dituen
azken hitz horiek: ... *mutilez edo guizonez*.

¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deusnac, alboti bere entzun biar ez ditubanac. ¿Ta ce maitequerija? Escubaquin, veguijaquin ta arpeguico geriagaz guztia luxurijar en suba darijona. Icusten da dantzia asi dedinian, nescaac arma tuta dagozala, avijan goseri daguan chorija amar en janarijar en zain leguez nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen leunquerija, ondo eracusten daveela. Erri batzubetan nescaac asten davee ta cumpliduten davee mutilez edo guizonez dantzia (Euscal-errijetaco... 64-65).

Frantziako Entziklopedisten lana aipatzen digu, erlijio-bizitzarako guztiz kaltegarritzat joz. Antzinako Epikuro, Zenon, Pirro eta abarren oinordeko egiten ditu. Esaldien indarra txundigarria da; ez dugu uste beste inork, euskal idazleen artean, hurrik ematen dionik. Begira, azpimarratu ditugun zatiak eta bereziki amaiera, hiru adjektiboz eta beste hainbeste superlatiboz osatua:

¿Ceimbat zoraquerija negargarri icusi ez ditugu gueuc egun oneetan Prancija tristian ta alvo erreinubetan? Oraindino pranzas odolezco errecac ta pozubac casic lurruna darijuela dagoz orreetan. ¿Ce gaiti negargarri oneec? ¡Ah! Gauza jaquina da. ¿Ta ujala jaquin ez baguendu! Orraco Voltaire, Espinosa... ta beste Prancijaco jaquitun cantauboc barristau ditubee ainchinaco Epicuro, Zenon, Pirro... ta beste guizon loi, desonestu guztienarima bagaco ta espiritu bagaco aragui utsezco legue madaricatubac ta escola atsituba Prancijaren erdijan lotsa bagaric. Ta atzo cristi nau zan erreinuba imini dau gaurco, esateco moduban, luxurijac ta libertadiaren amodijuac eleisa bagaric, altara bagaric, sacerdote bagaric, Jaungoico bagaric, luurtuta, araguituta, odoltuta, icusi leguijanic tristeena, errucarijena, lotsariz cuena ta negargarijena (Icas-II, 52).

Bekatu-buruen izaera eta jarduera adierazteko, hainbat baliabide darabil: irudiak, konparazioak, adjektiboak. Alegoriazko kontaketa da. Bekatu-buruen arteko gerra, autore espiritualetan behin baino gehiagotan erabili zutena da, baina Bartolomeren kontaketa berdingabea dela esan genezake. Testu-atal txiki bat jartzen dugu beheko lerroetan, adibide gisa; baina iruzkin honetan, besterik ezean, kontaketa haria euskara batuan idatzirik jartzea ongi datorrela uste dugu:

Adanen bekatuaz gero, infernutik zazpi agintari irten omen ziren. Zazpiak gaiztoak, okerrak. Munduaz jabetzeko zein baino zein irrika biziagoz zeuden-eta, bakoitzak bere soldadu eta zerbitzariak ekarri eta gerra egin zien gainerakoiei. Guleriak eta Nagitasunak elkar hartu zuten, kontizu. Eta gerran hasi ziren Soberbiaren, Kodiziaren, Enbidiaren eta Su gorrotoaren kontra. Baina Guleria aseta zegoenez gero eta Nagitasuna alferra zenez gero, laster utzi zioten gerra egiteari. Luxuria lasai zegoen, gainerakoek nola gerra egiten zuten begira. Eta esan zuen bere artean: *gero ere hauen arteko bakeak neuk egin beharko ditut*. Hala, Soberbiak eta Kodiziak gerrara jo zuten Luxuriaren aurka. Soberbiak ez zuen bat egin nahi Luxuriaren itsusitasun lotsagarriarekin. Kodiziak ez zuen luxuriarentzat dirurik eman nahi. Luxuria lehenengotan aurpegiera onekoa, alai eta erakargarria denez gero, Soberbia eta Kodiziarekin gerran ziharduena bitartean, hura bisitatzerantz joan

ohi ziren asko eta haren hizketa labainari, guztien nahia egiteko zuen moduari on irizten zieten. Batzuek kiratsa zeriola zioten, geroxo ondorioa zuela zikina, likina zeriola; beste batzuek, pozoia kutsatzen zuela. Baina esames hauei ere gehienek ez zien jaramonik egiten; eta herri guztietan zabaldu zen, zazpi agintarrietatik Luxuria zela alaiena, biguina, ugariena, eta guztien nahia betetzeko azkarrena. Horrela, erreinu guztiak joan ziren elkarren lehian Luxuriari eskuan mun egitera eta haren esana egitera. Orduan gainerako agintariei hiltzea edo ihes egitea besterik ez zitzaizkien gelditzen. Ihes egin zuten, bada, baina bakoitzari zegozkion egintzak burutuz.

Luxuriak esan zuen bere kautan, agintari txar haiek galduta ez zeukala konturirik. Hobe zitekeela bere jauregira eraman eta bere zerbitzari egitea. Esan eta egin! Bere jauregira joateko dei egin zien eta hitz biguinekin esan zien guztiei eta bakoitzari nola zerbitzatu behar zuten bera. Harrezkero, Luxuriaren lagun eta haren zerbitzari dira gainerako agintari txar guztiak...:

Sovervijac mundu guztia imini gura euquian andituta, aixaatuta, arrotuta Codicijac nai euquian bestiai odolaceta munac, uzanac leguez chupauta bali - jo guztia bere poltsaan euquitia. Luxurijac guztiac icusi gura cituquian loituta atsituta, aragui artian lizunduten Envidijac gura evan dirianac orituta, sicatu - ta, igartuta egotia. Gulerijac, eztaarriraguino beteta, aseta guztiac egotia. Su gorrotuac guztiac icutsi gura cituquian ixiota, alcar erreetan Ta naguitasunac, guztiac etzinda luurrera beguira egotia. Sovervijac ezin icutsi zituban asiac: Ezda, luurrera veguira etzinda egozanac bere, ta ain guichi, guztia chupau gura evenac. Alan Sovervijac imini eutsen guerria Gulerijari, Codicijari ta Naguitasunari.

Gulerijac ta Naguitasunac ez even alcar galdu gura. Baina ezin icutsi even inor orituta, igartuta ta ixiota egotia. Ta ain guichi, diruba gordetia gaiti, gosia irago - tia ta gorputza arro ta sabela zimur euquitia. Alan Gulerijac ta Naguitasunac ira - coi even guerria Sobervijaren, Codicijaren, Embidijaren ta Su gorrotuaren contra. Baina Gulerija aseta eguan leguez ta Naguitasuna alperra dan leguez, bertati can - sau cirian, ta ichi eutsen guerriari (Icas-II, 18).

Inoren aurkako jardunak, gaizki esateak jorratuko dizkigu ondoko lerroetan, hau da, mihi pozoitsuen lan galgarria. Azpimarragarriak dira esaldi batzuk: *Ezer bere ez juacola, baztarretaco guzur ta saltsa guztiac batuta.* Eta hurrengo paragrafoan: *Guztia verenez betia.* Amaierako ataltxoak ere errealismoz jantzia:

Au da embusterija. Au da miin verenotsuba. Au da adisquide galtze madari - catuba. Ezer bere ez juacola, baztarr etaco guzur ta saltsa guztiac batuta, arec bacochari bere erara, ta guztiai min emongo deutseen modura, contetia da, adis - quidetasun ta baque on guztiac galdutia. (...)

Ara emen, cristinaubac, embusterubaren, adisquide galzailliar en ta baque on galzailliar en verbetia. Guztia verenez betia. Batzubetan esango deusuz onaco verba minverac ceure senarraren contra. Beste batzubetan emaztiaren contra.

Beste ascotan, edo otseguinaren contra, edo ugazabaren contra, edo senidiaren contra, edo auzo ondrau baten contra. (...)Ascotan izango dira alaco embusteru - baren verbac asmaubac. Ez guichitan erdi entzunac. Ta beti gueitubac ta echura guztia galdubac, adisquidia gueijago penetaco (Icas-II, 211).

Ezkontzako lotura hautsiezinez ari da. Beste pasarte batzuetan adjektiboen bidez egin duena, oraingoan esaldi elkartu distributiboz egiten du. Azkenez, galdera erretorikoa eta ondorioa. Ondorioa, bertso bikainen azken puntua bezala, oso esanguratsua eta indartsua.

Hurrengo testu-atalean argudio indartsuak datoz eta hizkuntza guztiz adierazgarria; begira, batez ere esaldi hau: *Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececu*. Eta azkenerantz, ergatibo mugagabeaz eraikitako sintagma hori: *munducoc ascatu ecin leguiz* (...). Bi sintagmaren arteko oposizioa ere garbia da: *Jaungoicuac* (...) batetik eta *munducoc* (...) bestetik. Ondorioa oraindik adierazgarriago egiteko San Mateoren aipamena dakar, latinez emana:

Nai ona izan ta nai arin ona izan, nai gogocua izan ta nai gorrotocua izan, nai asarre izan ta nai aleguere izan, nai nasaja izan ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan moducua dala, ¿bat eguin cinian ceure lagunagaz? bada, agaz vici biarco dozu, batoriedobestiorill artian (Icas-III, 372).

Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececu. *Ez da urteca eguiten dan tratuba*. *Ez da nai danian artu, ta nai danian ichi eguiten jacona ezcontza - co bat eguitia*. *Jaungoicuac bat eguin ditu ezcondubac*. *Bada, munducoc ascatu ecin leguiz, eurac alcarri, escubac emonda, imini deutseen lotugarriti*. *Quod Deus conjunxit, homo non separet, dino San Mateo Apostolubac* (Icas-III, 343).

San Bernardino Sienakoaren aipamena dakar, gorrotoaren eta ikusiezinenaren seinaleak zein diren agertuz. Hitz eta sintagma batzuk egokiak eta hari-harira datozenak dira...:

Auzo eraan egon ezquero, *gaisoric daguan arerijua ez visitetia*; *agaz verba ez eguitia gaiti, bidia austia, ezcuteetia, arpegui ez emotia*; *verbaric alcarri eguin gura ezda egotia*; *ta beste onaco cristinau arteco artu emonac, leenago alcarregaz eguiten citubeenac, bata bestiari ucatutia da gorrotuaren, icutsi ezinaren ta opa chaarrar en senalia, dino san Bernardino Senacuac* (Icas-I, 100-101).

Garai hartan, bereziki handikien etxeetan, ezkontzak goitik eratzea, ezkongaiak elkarren gogoko izan ez arren, beste interes batzuenatik, hartara behartzea... salatzeko ditu. Aditz-izenez baliatzen da egoera agertzeko. Azpimarratzekoa da hor ager den baliabide erretorikoa; hots, haria hartu eta ideiak birbilduz doala, oraindik zenbait xehetasun gehitzeko izanik, *dinot* tartean ezarriz, berriro heltzen dio hariari. Hau beste askotan ere egin ohi du. Hizlariaren baliabide ezaguna da esan nahi duen guztia esateko eta, bide batez, esaldi zailak eta korapilatsuegiak saihesteko:

Jaungoicuac umiai emondaco escubide onen contra da, gurasuac nai beste edoceinec, euren aparteco irabacija gaiti, empeinuba edo temia gaiti, eurac deri - chuenagaz edo euren ederrecuagaz inor ezcontcera ecartia, ar en gogocua ez dana

ezautu arren. (...) Ecarten ditubee ezcontcera, batzubetan gurasuac euren ume tristiciac; beste batzubetan ugazabac euren errenteruben umiac; beste batzubetan otseguinac, batez bere andi echeetaquac; ecarten ditubee ezcontcera, dinot, euren gogoco ez dirian lagunaquin. Icusi bere gura ez lituquen lagunaquin. Gogo betia ta empaduba emoten deuten lagunaquin. Dotia ez galdutia gaiti, ugazabagazcua ez galdutia gaiti, andiquijagazcua ez galdutia gaiti ezconduten da inos maite izango davela sinistu ezin daven lagunagaz (Icas-III, 355).

Ohi duenez, hemen ere bost bat izenondo dakartza jarraian, eta guztia biribiltzeko, lurrean arrastaka dabilen sugearen irudia:

Jaungoicua serviduten ez dogun artian, gueure vizitzaac izango dira penaz-cuac, atsecabazcuac estubac gustobagacuac, sosigubagacuac suguia leguez, luu - rrecogauceetantatarrasca ta arrastaca beti daviltzanac (Icas-I, 5).

Birjinen barne-indarra adierazten digu Jainkoaren graziak eutsita. Horretarako, lege naturalen joerak gainditzea eta kontrastez beteriko gauza harrigarriak dakartzkigu; paragrafoa ohiko erritmoan hasten da, baina gero azken aurreko puntura arte arinduz eta bizituz doa. Horretarako aditzak erabiltzen ditu, berez adjektiboak direnak aditz bihurtuz; hauxe da, hain zuzen ere, hizkuntzari dagokionez azpimarraztekoa: ... iruntz prescotu dira ta laba ixiuac bainu epeldutu Azken hau bi aldiz aditz-partizipio bilakatua: *epel > epeldu > epeldutu*

Ez da asco, Jesusec berac virgina bere esposac zaintuteco ta osoric gordetaco, legue guztiac urratutia ta mundubari ta impernubari burla eguitia. Catiac eten dira, caltzaidubac bigundu dira, subac oztu dira, otsuac mansotu dira, aguinta - rriac goitu dira, borregubac cansau dira, orijo ta verun urtu gorijac iruntz prescotu dira, ta laba ixiuac bainu epeldutu dira, virginen gorputz garbi osuac ausi ezin da, zatitu ezinda, penau ezinda, galdu ezinda. Ez da asco Jesus maitiac virgina ar galai, bigunai, azal meecuai, eurenaz bildurtijai, ta ascotan umiai ta gatziai indarra ta espirituba emotia, mundu guztia ta penagarri guztiac goituteco ta ira - goteco, tristetu bagaric (Icas-II, 93).

Hona zortzi izenondo edo adjektibo-sintagma elkarren jarraian dituen esaldia:

Badaucazu emazte barritsuba, citala, temosia, alperra, buruguina, ar dura baguia, errazoe minverac arpeguijan esaten deusuzana, bere adisquidiai zuri baino arpegui arguijagua eracusten deutseena... (Icas-III, 363).

Hizkuntzari dagozkion baliabide adierazgarriak ikusiko ditugu hemen. Esaldi kontzetsibo batez hasten da, aditz nagusia ezin ucatu guinai -na amaieradun esaldi osagarriaz osaturik. Lexikoari dagokionez, kontuan izan "ez jaquin" hitza ez dela gure "ezjakin", gure "ezjakintasun" baizik:

Dan moduban dala, ezin ucatu guinai, aguindu onetan chito ez jaquin andi - ja dagua na cristinauben artian (Icas-II, 67).

Balitzko egoera bat zirrimarratzen du eskema antzera. Horretarako, ohiko jokera edo hurrenkera aldatu egiten du pixka bat, *egin dezagun zu zarela lapurra* esango balu bezala; ondorioa konparazio-perpauaz eta aditzaren elipsiaz dator:

Laguna da lapurra, echetan, soluetan ta basuetan aldaguijana ostuten dave - na. Zu zara logreruba, engainuzco tratubac, al daguizunian eguiten dituzuna. Zu zara pobren contra beti deungaro esaten diarduzuna, arei limosna chiqui bat ez emotia arren. Zu zara zequenquerijaz ta codicijaz vijotza liortuta daucazuna. Bada, zu ez obia, lapurra baino (Icas-II, 235).

Lerro batean sartzen den esaldi labur hau toleskera zuzen eta gozoagatik hautatu du gu batez ere; joskera onagatik. Hau ere haren estiloaren ezaugarrietariko bat da, garai hartako klasikoen artean, gozoen begian nahiz belarrian sartzen dena gure karmeldarra baita, ezpairik gabe:

Noberaren gogocua bada persona bat, á pozic eta gustoz ameeetan da.

Mana eta Jesus aldarekoaren arteko konparazio jarraitu eta anaforikoa dator:

Mana zan leguez, ceruti etorrija; Jesus altaracua bere ceruti etorrija da. Mana zan leguez, guztiac duaric ta necatu bagaric euqueen janarija; Jesus bere altara santuban duaric eta neque bagaric guztientzat prest daguan janari gozua da. Mana zan leguez egunian eguniangua; Jesus bere altara santuban egunerocua da. Mana zan leguez, jaten evanaren gusto eracua; comunioe santuba bere alan da. Celan artuten dan, alan izaten da. Batzubentzat gozua ta beste batzubentzat min gocha (Icas-III, 190).

Ezkontzeko hitza elkarri eman eta sakramentua hartu arteko harremanez ari zaigu gure sermolaria. Esaldi dotoreak eta joskera gozua azpimarra daitezke; ez hainbeste *ezcontzia bein eguin ezquero* esaldian... Galderazko eta harridurazko esaldiez hasten zaigu; izatez, galdera erretorikoa eta apostrofea dira:

¿Ceimbat ezcongueic, alcar jasoteco queiciagaz, onestidadia galdu ta asarra - tuten ete davee Jaungoico santuba, eurai gracia emon biar deutseena? ¡Ah, cristi - nauba! Asmodeo demoninuac, Sararen lelengo zazpi senarrac ito citubanac, dauca escubidia alaco ezcongueijen vijotcetan ta arimetan: Diadar eguiten jacue gurasuai ta juacuen guztiai; alderatu daguijezala ezcongueijac alcarreganic urrin, ezcontzia bein eguin ezquer o (Icas-III, 337).

Lehen bi lerroetan sententzia antzeko esaldi indartsuak datoz. Gero, ezkongai txarraren deskripzioa egingo digu ia hiru lerro izenondo hutsez osaturik:

Bide bagacua ta sail gaistocua da, norberaren gogoco ez danagaz ezcondutia, aberatsa dalaco. Alaco ezcontciac asiera errena darua beragaz. Ecarri eguizu gogora: ezconguei bat dala, edo ordija, edo ocasinotsuba, edo jocolarija, edo aixetsuba ta maina gaistuetan acija, edo oitura nasaijetacua ta cristinau usain gui - chicua, edo alperra ta buruguina, edo odol cer esanecua, edo osasun guichicua (Icas-III, 350).

Tratua berez gauza legorra dela diosku; lagundu egin behar zaiola hizketa leun eta gozua erabiliz, jendea liluratu eta errazago lapurretan egiteko. Hasieran ironia antzekoa nabari zaio, baina azkenean salaketa gordina egiten du tratalarien joko maltzurra agerian jarritz:

Tratu utsa bere, lagundu bagaric, sobre da liorra lapurrari naicua eraguiteco. Lagundu biar jaco, bada, tratubari, lapurretan seguru ta luzaro eguiteco. ¿Baina celan? Verbetaco modubagaz. Tratubac gueitutia ta verbeta eder echura oneco palt - suac bere orduban esaten jaquitia, tratalarijac lapurr etan seguru ta luzar o errije - tan eguiteco campo andija. (Icas-II, 128).

Dantzaren deskripzioa egiten du, haren birak eta mugimendu kiribilduak sugearenarekin parekatuz eta konparazioari parrafo osoan eutsiz. Irudiak hari-harira datoz, hitzak ezin hobeki ekarrita; “sierpe” hitza berariaz sartuta dago, beste hainbat testuingurutan bezala, eta konnotazio berezia du:

Dantzaarijac daviltz, suguia leguez edosierpia leguez, giraca ta oquerca, buru zitala (Aurescuduna) an sartu ta emen atera, batian ezcutau ta bestian aguertu, ain laster onduan, cein guerrijan daravilela (Euscal-errijetaco... 139).

Hizkuntzaren erabilera bizi-bizia, ongi esatearen eredia, bizkaieraren baliabide jatorrak ezin hobeki jasotzen dituen, batez ere partitibo horietan nabari dena: *noc jaso andiric, cegaz poztu andiric, ez cer galdu andirik...* Joskera onagatik azpimarragarria *au gaiti da (...)* hurrenkera hori. Ondoren ezarri dugun testu atalean ere bizkaieraren baliabide politik aurkitu ditugu; goiko horien antzekoak, baina partitiborik gabe edo elipsia eginez: *nogaz ez daucalaco:*

Bada nai jatorrizcua ta nai norberac irabatzija, cleituba, ondria edo entzute ona galdu ezquero, ez dauca cristinaubac munduban, noc jaso andiric, cegaz poztu andiric, ez cer galdu andiric. Au gaiti da gauza guztiz mingarrija, erruba garic guzurragaz ta embusterijagaz inori ondria galdutia (Icas-I, 245).

Ecelan bere compesau ezin danari, edo nogaz ez daucalaco, edo verbaric ezin davelaco, edo osteranzian, artuten badau bere vijotzian pecatubaren damu egui jazcua ta Jaungoicuaren amodijo santuba, parcatuten deutzaz Jaungoicuac pecatubac (Icas-III, 141).

Ironiaz baliatzen da, dantzarien eta festazaleen kontzientzia garbia eta errugabetasuna irri xuriz goraiatuz...

Hurrengo testu-atala ere hari berekoa da eta formaz ere honen antzekoa. Oso adierazgarria, juntagailu adbertsatiboz hasten den sintagma: *Orraitino naico davee dantza zaliac ta piestarijac, presco prescoric ta merque merque sinistu daijegun (...)*. Gogoan izan idazle klasiko hauek *naico devee* darabiltela, eta ez berriagoa den *nai izango davee*:

¡Oh, dantzaric dantza, piestatic piesta, erromedijaric erromedija, biguiraric biguira ta sarauric sarau nesca ta mutil, andra ta guizon naaste gau ta egun oi zabiltzan moduban ibilita, pecaturic eguiten ez dozun bedeincatuboc! (Euscal-errijetaco... 179).

Orraitino naico daveedantza zaliac ta piestarijac, prescoprescorida merque merque sinistu daijegun, orraco piestetan, erromedijeetan, biguireetan ta sarabeetan daviltzan moduban ibili arren, ez daveela pecaturic eguiten (Euscal-errijetaco. 184).

Joskera ona, esaldi dotoreak, egoki tolestuak, erdarez kutsatu gabeko euskaldunek esango lituzkeen erakoak. Gaur eguneko pentsaeraz hiperbole edo gehiegizko usaina hartzen diegu zenbait pasarteri, baina hark fin-fin ziharduen garai hartako apostolu eta sermolarien garraz... Begira dezagun, esaterako, *diabrubac indarra ariman artuta* sintagma:

Bere buruba illten davena, edo dago zoratuta, cer eguiten daven ez daquijala, edo dago desesperauta, diabrubac indarra ariman artuta (Icas-I, 257).

Sermolari-etorria eta joera, argi eta garbi nabari dira hurrengo paragrafo honetan. Galderak eta erantzunak borborka darizkio. Hau, entzuleei pentsarazteko, ohiko baliabidea zen predikuetan; batzuetan erantzunik behar ez duten galdera erretorikoak dira, beste batzuetan, berriz, hizlariak berak, sententzia gisa, erantzuten dituenak...:

¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? Ill dedinian ¿Nos esango ete dau aguiduguriac, orainche ondo nago? Inos bere ez. Alexandro Andijac negar eguiten eijeban, mundu bat baino ez egualaco. Guizonac illaz ta luurra odoldubaz, erreinuasco irabatzi zituban. Munduco guztiac irabazteco ustia evan (Icas-II, 250).

Bibliako aipamenen indarra; esaldi egokiak; aditz-forma zahar ongi ekarriak...:

¿Nos aspertuco ete da araguizcua gorputzaren gustoz? Zaartuta bere ez. Agura zaarrac ta juezac, lotsa pusca bat euqui biar eveenac, cirian santa Susana garbi ja galdu gura euqueen guizon bijac. Baina zaartuta bere, gurari loijac ixiota eucazan euren goguac. Nos in concupiscentia tui sumus. Zugaz pecatu eguiteco amodijo loijac erreetan gaucaz, esan eutseen juez zaar biac santa Susana garbijari. T a eguiten ez badozu gueugaz pecatu, gueuc esango dogu, beste bategaz pecatu eguiten topau zaitugula ta arrica ilgo zaitubee gente guztiaren aurrian (Icas-II, 251).

Esaldi indartsuak, sermolariaren ahotan berez-berezkoak, entzuleen kontzientziak biguntzekoak eta damura eragitekoak. Azpimarragarria *gacherako goixtartu ta arguitu* sintagma:

¿Ta uste dozu, ez deusula Jaungoicucac contu artuco bai gurasuoi ta bai ugazaboi, ume inocenten arimac alan gacheraco goixtartu ta arguitu dituzulaco? (Icas-I, 192).

Esaldi labur hauetan, haren joskera zuzena; esanahiaren arabera, hitzen toleskera gozoa dira kontuan hartzekoak. Galdegaiaz euskal gramatiketan esaten dena bete-betean egiaztatzen da hemen. *Ona* izenodoa da, "Jaungoico" izenaren ondoran ia berez-berez jarri ohi duena. Hurrengo esaldian hitz-jokoa egiten du *zana, dana, izango da* adizkiekin. Hirugarrena honen jarraipena da; ez partikuladun esaldi koordinatu distributiboekin osatua. Hitz-ordena egokia hemen ere; "baltzuten" dator; z ezkerretara aldatu ohi da gure artean horrelakoetan, hots, "balztuten":

Jaungoico ona da bacarric, uts eguiteric ez daucana (Icas-I, 45).

Atzo zana da gaur; ta gaur dana izan da ta izango da beti (Icas-I, 60).

Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten dau, ez otzac zurituten dau, ez edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau gueure Jaungoico ona (Icas-I, 61).

Harridurazko esaldi dotoreak; bigarrena konparaziozko perpausa da. Bizkaieraz ohikoak dira molde honetako esaldiak: *...-ren errucarria! ...-ren zorua!* :

¡Oh, Jaungoicuari ichita, munduban gustuac nai ditubanar en itsuba ta erru - carrija! ¡Oh, munduco ondasuna, ondria, estimacinoia ta atseguina, Jaungoicua baino gueijago ameean daven cristinaubar en zorua! (Icas-I, 65).

Esamoldeak, kontuan hartzeko hitzak, perpaus korrelatiboak: *ceimbat... ain - bat...*, joskera ona. Gaur egun *zenbat eta...* erabili ohi da perpaus buruan. Baina Bartolomek nekez erabiltzen du *eta* hori, *arian da*, gure *harik eta* esapidetan-edo izan ezik; *urraago*, hemen, ez da aditzondoa, izenondoa baizik. Lehen adibide honetan, adi *burutsu* hitzaren adierari! hau da, burura egiten duten ardo eta edari biziez esaten du...:

Nosbait ustez uste bagaric, edo bustita dagualaco, edo janzaarian dagualaco, edo ezaututen ez daven ar dao burutsuba dalaco, edanac eratsotia, edo orditutia, jazo leitequiála pecatu bagaric (Icas-I, 274).

Ceimbat persona andijaguari, edo urraaguari eguiten jacon maldecinoia, aim - bat da pecatu andijagua (Icas-I, 145).

Zin egitea, juramentua, ez dela nolnahi eta noiznahi egitekoa esango digu, beharrezko denean eta ongi pentsaturik baizik. Horretarako, konparazio bat jarriko du: botikakoarena. Konparazio argigarria da, didaktikoa, galdera eta erantzunez, harridurazko perpausaz... bien arteko parekotasuna argituz:

¡Oh, ce eracutsi ona! Boticacua leguez juramentuba. ¿Nos artuten da botica - cua? ¿Celan artuten da? ¿Ceimbat artuten da? Boticacua artuten da, biar danian. Gaixo danian. Aimbagaric osasuna jadjichi ezin danian. ¿Ta celan? ¡Ah! Gacha ondo examinauta, medicubai itanduta, ac aguinduten daven moduban ta ordu - beetan artuten da boticacua. ¿Ta ceimbat? Ez gueijago ta ez guichiago, gachac escatuten daven beste edo escatuten davela uste dan beste ta medicuabac aguinduten daven beste baino (Icas-I, 115).

Indarra nabari da hemen, beste pasarte askotan bezala. Galdera erretorikoaz hasten da eta elkarrekin loturik dauden sintagma mailakatuen hurrenkeraz osatzen du testu-atala: *Euren biarra, euren nequia, euren osasuna ta vitzitzia bera ber e...*:

¿Ta ez da au dirubari, edo arguiruago esateco, diabrubari bere vitzitzia ta osasuna consagretia? Bai. Diabrubaren martirijac dira alaco cristinaubac. Euren biarra, euren nequia, euren osasuna ta vitzitzia bera bere laburtuta dirubar en Jaungoicuari, satanasari gordeetan deutsee. (Icas-I, 264).

Perpaus kontsekutiboa bata eta konparaziozkoa bestea. Hari galderazko egiturak eta honi ezezkoak indar berezia ematen diete:

¿Nor izango da bada ain zorua, ceinda bere pecatubac guztiac compesauco ez dituban? (Icas-III, 142).

Ez da ecer bere, Jaungoicuac gorroto gueijago deutsanic ta guichiago icusi gura davenic, pecatuban daguan arimia baino (Icas-III, 231).

Konparaziozko perpausa eta hitzen errepikapena: *Ta aric ona zaartu edo can - sau biarrian, egunian baino egunian... gueijago, ... gueijago, ...* Hasierako horrek taxu adierazgarria eta indartsua du; *aric ona* esapideak ondare zaharrekoa dirudi. Joskera ona; *dauca* adizkia ongi kokatua...

Ondorengo atalean, ezezko perpausa dugu. Partitiboan dagoen *gauza guichi - ric* eta perpaus osagarriaren *-na* bukaera ditugu, agian, azpimarratzekoak. (Kontuan hartzekoa da *guichi* hitza, hemen, izenondoa dela eta ez aditzondoa:

Ta aric ona zaartu edo cansau biarrian, egunian baino egunian dauca indar gueijago, campo gueijago, crijadu ta crijada gueijago. Guiza aldiric guiza aldira sendotuten da ta boteetan ditu sustrai barriac (Icas-II, 16).

Bada, eracusla ascoc dinuen leguez, eguija bada seigarren aguindu santuba - ren contra berez pecatu venialic edo gauza guichiric ez daguana, edoceinec dacuts, ce arriscu andijan daguan gueure arimaco gracia pensamentuzco peca - tubetan bertan (Icas-II, 83).

Argudio ederrak, indarra, joskera ona. Izenondo egokia eta hari-harira datorrena, eta esaldia ere halakoxea: *¿Cer eguingo dau, cegaz diruba eguin ez daucan zordun tristiciac?* Orobat beraxeago datorren ... *tratalari paltsuac atara ecarri dave - laco*. Ironia usaina du gero datorren ataltxo honek: *Pagazaille charra bere bazala, ta pusca bat gorachuago saldu eutsala*. Zenbaketa eta progresioa bikain darabiltza hurrengo esaldian: *Pisuba ta neurrija, precijua ta verbetia, guztia da engainuzcua alaco tratalarijen echian*. Hona hemen testu-atala bere osotasunean:

¿Ez jaco gueijago contu eguingo, zorra paguetaco garija edo artua dacarrena - ri? Tratalari ascoc ez. Verba ederraquin leen gaucia saldu eutsanac, esango deutsa orain: laboria precijo atan artuten davela; ta gura badau, atan ichi daguijala, ta ezpabere diruba ecarri daguijola. ¿Cer eguingo dau, cegaz diruba eguin ez dau - can zordun tristiciac? Larga labore zati bat zorraren alderaco, emacume ordi batec imilaun bat saldu daven precijuan, tratalari paltsuac atara ecarri davelaco. Ta ez daguijala gura izan Jaungoicuac, alaco tratalarijac compesinoian esatia: Pagazaille charra bere bazala, ta pusca bat gorachuago saldu eutsala; la laboria corriduten evan precijua contu eguin eutsala. Au alde guztietati ostutia da. T a ojala, guichiago balira onetarico lapurrac. Ta endamas erri chiquijetan, gentiac nora ezian leguez, euretara gauzac eroatera, juan biar daven lecuban. Pisuba ta neurrija, precijua ta verbetia, guztia da engainuzcua alaco tratalarijen echian (Icas-II, 132-133).

Aipamen baten iruzkina da. Mihi gaiztoen aurka Dabit erregeak esandakoak gogoratzen dizkigu, horko konparazio egokia azpimarratuz. Ironia zorrotza dago aipaturiko testu horretan, *zorrotzu miina, sierpiarena baixen zorrotz eguin artian,*

sicut serpentis dioenean... Amaierarantz, sinonimoekin jokutzen du, mailaka edo gradazio antzera ezarriz: *pama ona, cleitu ona ta ondra ona ebaguiteco, ezaindu - teco ta osticopetuteco*. Berriro heltzen dio paragrafo honetan ideia nagusiar: *Onetaraco biar davee gaisqui esalac sierpiaren miin zorrotza* . Eta gehiago luzatzen du ideia hori, “aspijaren” zertzelada erantsiz eta pozoia non duen ere adieraziz:

Menturaz gueijago ezin esan euquian verba guichiagotan miin deunguen con - tra. Zorroztu, dino, miina, sierpiarena baixen zorroz eguin artian, sicut serpentis. ¿Ta zetaco? Proximuaeren pama ona, cleitu ona ta ondra ona ebaguiteco, ezain - duteco ta osticopetuteco. Onetaraco biar davee gaisqui esalac sierpiaren miin zorrotza. Ta Aspijaren verenua ezpanpian, edo miinian . (Icas-II, 205).

Galderazko eta harridurazko esaldiak, predikariaren baliabide erretoriko eza- gunak, Bartolomek guztiz hartuak dituenak. Baldintzazko perpausaz osatzen du erantzuna. Azpimarragarria *ascoco litzaateque* aditz-forma; gure “aski/nahiko izan- go litzateke” formaren baliokidea; baina Frai Bartolomek, horrelakoetan, nekez sar- tuko du “izan”...:

¿Cetaraco derichazu bada, cristinaubac, ichi euscuzala Eleisa santan Jesus maitiac sacramentubac? ¿Ah, neure entzula onac! Ondo ezautu al baguinai au, berau ascoco litzaateque, gueure vijotzac Jesusen amodijo santubagaz ixioteco (Icas-III, 10).

Esaldi bete-betekoa, adierazgarria: *gabac denporaac emon bagaric*; izenondo egokiak, indar handikoak: *macal, epel...*

¿Tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat juaten dirian echera, gavac demporaac emon bagaric? Gueijeenez bere, inoc casuric eguin ez deutsan nesca epelbat edo mutil macal bat (Euscal-errijetaco... 62).

Kontrastea eta arrazoi onak ageri dira... bata bestearen antzeko sintagma saila; “asarria” izenondoa da hemen:

pobriari arpegui asarria eracutsi; bestiac ecertaco eztat edo pecataritzat ta gaistotzat euqui ta sarri comulgau, ez da cristinautza eguijazcuagaz bat eguiten (Icas-III, 223).

Argudio onak, umore pitin batez egindako eztenkadak... bere-bereak ditu Frai Bartolomek. Ataltxo honetan ezin hobeki agertzen du hori *lapur jaquitunac, segu - ruti ta esquer onian ostuten daveenac* aipatzean. Ongi esatearen eta adierazpen biziaren eredutzat har genezake amaiera berdintsuko sintagmaz osatutako zati hau: *Batac andijaguari, bestiac chiquijaguari ta aldaquijanac bere duinari*. Erritmoa bizia du zati horrek. Ondorioa pixka bat motelagoa erritmoz, baina logika beteaa agertuz:

Seguruti ta esquer onian ostuten daveenac, dira lapur jaquitunac, obeto irau - ten daveenac ta ez chiquijenac. Oneec, inori seguru ostuteco queizgarritzat equi - ten deutsee tratubari. Batac andijaguari, bestiac chiquijaguari ta al daquijanac bere duinari. Alan icusten dira erriric chicarrenac bere tratalariz beteta (Icas-II, 127-128).

Argitasuna da azpimarratu beharko genukeena. Lehen-lehenik, gertaera edo etsenplu bat agertzen digu: apaiz bat badaezpadako emakume baten etxean sartzen ikustea... Juzgu gaiztoa zer den era oso didaktikoan azaltzen du, aurrez gerta daitekeen kasu bat aurkeztuz. Hizkuntzaren aldetik interesgarria da *-ko* genitiboaren izenaren eskuinean jarrita... “arinoneco” hitzak, hemen, badaezpadako edo antzeko zerbait esan nahi du. Arrazoi onak eta argiak:

Icusten dozu sacerdote bat, emacume cleitu arinoneco baten echian sartuten. Gueijagoco bagaric juzquetan dozu agaz pecatu eguitera doiala. Au juzgu gaistua da. Bada, jua zatequian eche atara gauza on bat eguitera. Ta bide gueijago baga ric ez da inor deungatzat euqui biar (Icas-II, 218).

Leku-denborazko *-ko* izenlagunen gainean segidako sintagmetan eraikitako errepikapenak datoz: *caltiac*. Esaldi amaieran *caltiac*, sinonimo antzeko hiru izenondo osatzen du. Aipaturiko izenlagunetariko bat aditz nominalizatuaz eraikitakoa da; adierazgarria eta indar handikoa dugu *cer eguingo nevan ez daquidaneco caltiac* sintagma:

Ustezco caltiac, menturazco caltiac, cer eguingo nevan ez daquidaneco caltiac, ez dira, ez calte jaquinac, ez ciartubac, ez zucenac (Icas-II, 114).

Aditzez jositako parrafoa dugu; molde originala duena. Aditez erritmo bizi ematen diote atal honi. Kontrasteak ugari daude. Izen eta izenondoak aditz bihurturik aipaturiko erritmoa lortzen du alde batetik eta gaizki-esalearen lan galgarria indar handiagoz adieraztea bestetik. *Lapurtu* aditzak, hemen, ez du *ostu*, *lapurretan egin*, *ebatsi* esan nahi, *lapur egin*, *lapurtzat jo* baizik:

Gaisqui esaliac, bere echia covernetaco ez bada bere, esaminetan dau erre guia, juzquetan dau obispua, tachetan ditu abadiac, deungatuten ditu prailiac, lapurtuten ditu juezac, logrerututen ditu caballeruac, guzurtituten ditu predicado riac, zequenduten ditu ugarijac, zitalduten ditu baquetsubac, zelotsotuten ditu ezcondubac ta lotsagarriz estalduten ditu libriac (Icas-II, 191).

Horditasuna zehaztasun interesgarritz adierazten du. Prosopopeia deritzon baliabide literarioa darabil, ardoa bizidun balitz bezala agertuz; oso polita da esaldiaren azken parte hori: *echiac eta arbolac eurecautan balebilz leez*:

Bostagarrenian: Esaten da orditu dala, oñen gañian zuzen jua ezin dan tertcijoraa ta albo alboca eguitera, ar dauac ecarten davenian. Ta baita icusten ditu ban gauzac, echiac eta arbolac eurecautan balebilz leez, beguitanduten jacoza nian ber e (Esku, 291).

Bi paragrafo txiki hauetan ederresteko erako xehetasun batzuk ditugu, ongi esatearen eredutzat har daitezkeenak: *bijac bateratuta, nun goi beia dauqueen* (...). Bigarren paragrafoan, berriz, subjuntiboaren erabilera egoki eta jaso; bestalde, joskera ona: *Ecelan bere compesau al dedin pecatuba*

Pecatubac ziaz gogora ecarteco, beguiratu biar deusa cristinaubac astiro ber e arimiari ta Jaungoicuaren aguindubari, bijac bateratuta, nun goi beia dauqueen, gogoan artuteo (Icas-III, 111).

Ecelan bere compesau al dedin pecatuba, ez dau Jaungoicuac parcatuco, com - pesau bagaric (Icas-III, 141).

Baldintzazko adizkia ageri zaigu, perpaus kontzesiboaren egitekoa betez. Interesgarriak, hizkuntzari dagokionez, *gueuc gueurez...* forma bihurkariak.

Ondorengo esaldian, *ezin legui* adizkia ageri da errepikaturik eta guztia osatu eta biribiltzeko, izen gisa dakarkigu *ezin*:

Gueuc gueurez ez badaucagu animoric gorputzac ezteco, edola bere domau ta eci daiguzan ceruti jatorcuzan gachaquin (Icas-III, 264).

Compesoriac aguindu arren, ez daucanac diruric emon ecin legui. Gaixoric daguanac baruric ezin legui. Preso daguanac mezaric entzun ecin legui. Ta modu onetan beste ecin eguijazco asco. Vicitziaren, osasunaren ta cleitubaren calte jaquin andijan, nequez izango da compesoriaren gogua, pecatarija alaco calte andico penitencia pian imintia (Icas-III, 158).

Adibide eta iruzkin txiki hauek aski dira Frai Bartolomeren estiloa pixka bat dastatzeko. Uholde baten antzera da haren ekarria: izenlagunak, adizlagunak, aditzak, izenak... borborka darizkio. Baina ez da ugarian nahasten eta galtzen den testua. Bere etorri handi hori ongi bideratzen daki, osagai bakoitza bere testuinguruan egoki sartzen eta esaldiei toles bizi-bizia ematen. Horretan maisu dugu Frai Bartolome. Haren lanak irakurriz, kapitulu bakoitza tesi antzera goitik behera arrazoitsu eta ongi moldatua dagoela ohartzen gara. Idazle honetaz hitz egiterakoan, indarra da beti aipatzen dena. Izan ere, hori bere-berea du. Txukuntasunean edo, nahi bada, dotoretasunean bai, baina horretan ez dio inork hurrik ematen. Gutxiago aipatzen bada ere, ezin azpimarratu gabe utzi haren testuen beste ezau-garri bat: argitasuna. Helburu didaktikoa beti gogoan zerabilela dirudi. Horregatik, molde zaharreko forma batzuk erabili arren, gurpil ona ematen daki esaldiei eta haria galtzera nekez eramango du irakurlea. Puntuazio-markak oraingo usadiora egokituz gero, haren testua indartsua ez ezik, garbia ere bada. Sintaxia ere lagun-garri da horretarako, eta behin eta berriro esana dugunez, bere garaiko gainerakoak baino joskera berezkoago eta naturalagoa darabil. Joskera euskaldunagoa duela esaten, agian, ez ginateke ausartuko, baina latinaren eta erdaren moldeetara hain lerratua ez dena duela esaten bai...

V. BIBLIOGRAFIA

1. ARTXIBOAK ETA DOKUMENTAZIOA.

Erabilitako artxiboei dagokionez, Frai Bartolomez garrantzitsuenak direnak eta haren bizitza eta idazkiei buruz albisteak jaso ditugun beste batzuk bereiztu behar-ko lirateke; lehenengoen artean, esaterako, Markinakoa, Gasteizkoa, Hoz de Anero-koa, etab. daude. Baina berariak eta zehatz-mehatz aipatuko ditugu karmeldar eus-
kal idazle klasikoaren idazkiak gordetzen dituzten artxiboak.

a. Artxiboen zerrenda:

Hauek dira Frai Bartolomez ikerketa egiteko baliagarri izan zaizkigun artxibo-
ak:

- Bilbo: Begoñako Karmeldarren Artxiboa (BKA).
- Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa (BFAA).
- Burgos: Burgosko Archivo Silveriano (BAS).
- Kalahorra: Kalahorrako Elizbarrutiko Artxiboa (KEA).
- Derio: Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa -Archivo Historico Eclesiástico de Vizcaya (BEHA).
- Donostia: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa (DEA).
- Etxebarri: Etxebarriko Udal Artxiboa (EUA).
- Gasteiz: Gasteizko Karmeldarren Probintzi Artxiboa (GKPA).
- Hoz de Anero: Hoz de Anero-ko Karmeldarren Artxiboa (HAKA).
- Iruñea: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (IEA).
- Iruñea: IKA: Iruñeko Karmeldarren Artxiboa
- Korella: Korellako Aita Karmeldarren Artxiboa (KKA).
- Larrea (Zornotza): Larreako Karmeldarren Artxiboa (LKA).
- Lazkao: Lazkaoko Zistertarren Monasterioko Artxiboa (LZMA).
- Logroño: Logroñoeko Karmeldarren Artxiboa (LOKA).
- Madril: Madrileko Biblioteca Nazionala (MBN).
- Madril: Madrileko Historiaren Erret Akademia (MHA).
- Markina: Markinako Karmeldarren Artxiboa (MKA).
- Markina: Markinako Udal Artxiboa (MUA).
- Ondarroako Udal Artxiboa (OUA).

b. Haren testuen eskuizkribuak**Markina: MKA**

1. A-I-70: *Apuntaciones...*: testu autografoa, 1815ekoa.
2. G-IV-48: *Certificación y licencia para tomar a censo 11.650 reales a esta Comunidad...* 1814ko bi dokumentu komunitateko ordezkarien sinadurarekin, haien artean A.Bartolome zela.
3. G-III-30: *Libro de las Memorias Perpetuas y sus Certificaciones: Año 1805* Bartolomek sinatutako testuak 75. orritik 82.era artean daude, baina 79^a, 81^a, 82^a-82ⁱ testuak berak idatziak dira. 1814tik 1820ra artekoak. 36^a orrian datorren ertzeko oharra ere Bartolomerena dela dirudi.
4. G-IV-64: *Indice de Censos*
Frai Bartolomeraren autografoak, 1816tik 1820ra artekoak, honako orrialde hauetan daude: [1^a], [2^a], [8^a], 3^a, 5^a, 9^a, 13^a, 17^a, 21^a, 30^a, 37^a, 41^a, 45^a, 54^a, 57^a, 61^a, 65^a, 69^a, 73^a, 77^a, 81^a, 85^a, 90^a, 94^a, 100^a, 103^a, 107^a, 111^a, 119^a, 123^a, 131^a, 139^a, 143^a, 147^a, 152^a, 166^a, 168^a, 171^a, 173^a, 175^a, 179^a, 183^a, 187^a, 191^a, 192^a, 195^a, 196^a, 204^a, 208^a, 212^a, 216^a, 220^a, 224^a, 228^a, 232^a.
5. G-VII-1: *Libro de Misas... dió principio con el año de 1815* Frai Bartolomeraren testu autografoak (20. orritik 40.era artean) 1817tik 1820era artekoak dira.
6. G-VI-2: *Libro de los oficiales de este Convento de Marquina...* Frai Bartolomeraren parrafo autografoak 1817. urtetik 1820.era artekoak dira, eta honako orri hauetan daude: 1^a, 3^a, 10ⁱ, 14ⁱ, 20^a, 20ⁱ, 31^a, 43^a, 56^a.
7. G-IV-65: *Libro de caja de censos, juros y memorias Perpetuas... Año de 1759.* Frai Bartolomeraren parrafo autografoak, 1818. urtetik 1819.era artekoak dira..., eta honako orri hauetan daude: 7^a, 13^a, 36^a, 37^a, 71^a, 77^a, 87^a, 94^a, 98^a, 99^a, 100^a, 194^a, 210^a, 211^a.
8. G-III-34: *Misas perpetuas..., 1819.* Eskuizkribuaren 16 orrialdeak Frai Bartolomek idatziak eta berak sinatuak dira.
9. G-IV-52: *Fundación de censo...* Frai Bartolomek zortzigarren orriaren itzulian 12 lerroko ohar bat idatzi zuen dokumentuaren edukiaz.
10. C-XCVIII-1: *Libro de la Archicofradía de N. M. S^ñ. Del Carmen...* Zerrenda hauek egin zituztenen artean Frai Bartolome dugu. Honako orri hauetan idatzi zuten: 30ⁱ-32^a, 33ⁱ-36^a, 37^a, 40^a-40ⁱ, 221ⁱ, 224^a, etab.
11. Markinako Karmeldarren Biblioteka.
Liburu ugari dira Markinako Karmeldarren bibliotekan (157 inguru) Frai Bartolomeraren ohar autografoa dutenak: "Es de la librería del Carmen de Marquina", "Carmen de Marquina", "Se compró p^a la librería del Carmen de Marquina en 1819"... edo antzeko esaldiren bat: 2-A / 22; 2-ME/17; 2-ME/18; 2-A / 168; 2-A / 168-b); 2-A / 174; 2-A / 174-b; 2-A / 174-c; 2-A / 174-d; 2-C / 9; 2-C / 20; 2-C / 20; 2-C / 62; 2-C / 62-b; 2-C / 114-b; 2-C / 114; 2-C / 114-d; 2-C / 114-d; 2-C / 114-e; 2-C / 114-e; 2-Cx / 9; 2-Cx / 9-b; 2-Cx / 9-c; 2-Cx / 9-d; 2-Cx / 9-e; 2-Cx / 9-f; 2-Cx / 9-g; 2-Cx / 9-h; 2-Cx / 17; 2-Cx / 17-b; 2-E / 133; 2-E / 11; 2-E / 142-g; 2-E /

142-c; 2-E / 20-c; 2-E / 20-d; 2-E / 16-d; 2-E / 16-c; 2-E / 16-b; 2-E / 16; 1-N / 45; 2-E / 157; 2-F / 53; 2-F / 53-b; 2-F / 53-c; 2-F / 53-d; 2-F / 192-c; 2-F / 183; 2-F / 183-b; 2-F / 183-c; 2-F / 192-c; 2-F / 196; 2-F / 196-c; 2-F / 196-b; 2-F / 197; 2-F / 198; 2-F / 201-b; 2-F / 201-c; 2-F / 201-d; 2-F / 201-e; 2-F / 201-f; 2-F / 202; 2-F / 203; 2-F / 204; 2-F / 205; 2-F / 206; 2-F / 206-b; 2-F / 208; 2-F / 209; 2-F / 209-b; 2-G / 7; 2-G / 8; 2-G / 20; 2-G / 150; 2-G / 151; 2-H / 9; 2-H / 220; 2-H / 222; 2-H / 135; 2-H / 135-b; 2-H / 135-c; 2-H / 135-d; 2-H / 154-b; 2-H / 154-c; 2-H / 154-d; 2-H / 130; 2-H / 223-b; 2-MG / 23; 2-H / 227-b; 2-H / 245; 2-H / 245-b; 2-H / 245-c; 2-H / 250; 2-MC / 19; 2-MC / 21; 2-MC / 21-b; 2-H / 278; 2-H / 278-b; 2-H / 269-b; 2-H / 262; 2-MG / 22-d; 2-J / 7; 2-J / 7-b; 2-J / 7-d; 2-OB / 2; 2-OG / 10; 2-OG / 10-b; 2-OG / 10-c; 2-E / 560; 2-T / 10; 2-T / 79; (2-T / 80; 2-U / 72; 2-U / 72-b; 2-U / 72-c; 2-U / 72-e; 2-U / 72-f; 2-U / 72-g; 2-U / 72-h; 2-U / 72-i; 2-U / 72-j; 2-U / 72-k; 2-U / 72-l; 2-U / 72-m; 2-U / 72-n; 2-U / 72-ñ; 2-U / 72-o; 2-U / 72-q; 2-U / 72-r; 2-U / 72-p; 2-U / 72-s; 2-U / 72-t; 2-U / 75; 2-U / 82; 2-U / 90; 2-U / 90-b; 2-U / 93; 2-D / 1; 2-D / 1-b; 2-D / 2; 2-D / 33; 2-D / 36; 2-D / 36-b; 2-D / 11; 2-D / 13-b; 2-I / 742; 2-U / 753; 2-I / 763; 2-I / 791; 2-L / 4-b; 2-L / 4-c; 2-I / 818; 2-I / 818-b; 2-I / 818-c; 2-I / 818-d; 2-I / 818-c; 2-I / 814-b; 1-M / 7; 1-M / 5.

Markina: MUA

1. MUA, C.19, f.229^a-230^a: 1809-X-16: Markinako udalari egindako gutuna.
2. MUA, 47. Erregistroa, 10.zb., 7.or.: 1819-X-31: Markinako Alkateari egindako gutuna.
3. MUA, 47. Erregistroa, 10.zb., 8.or.: 1819-X-31: Markinako Alkateari egindako gutuna.
4. MUA, C.21, 119^a: 1820-IV-11: Markinako Alkateari egindako gutuna.

Madril: MHA

(9 / 2549) esk. *Icasiquizunac* saileko I. liburukiaren lehenagoko idazketari dagokio: “ + / *Jaungoicuaeren legueco lelengo bost Aguinduben... I. Partia. 1807. urtian*”.

Gasteiz: GKPA

1. G. Markina: Gutun autografoa (1818-IV-16) Zeledonio Axpe jaunari.
2. G. Markina: Gutuna (1818-IV-13) Markinako Udalari.
3. G. Markina: Gutun autografoa (1818-IV-13) Markinako Udalari.
4. G. Markina: Gutun originala (1818-V-5) Markinako Alkateari.
5. G. Markina: Gutun autografoa (1818-V) Markinako Udalari.
6. G. Markina: Gutun autografoa (1819-XII-17).
7. G. Markina: Testu autografoa (1819-XII ?).

8. G. Markina: Testu autografoa (1819-XII-20) Markinako Alkateari.

9. Esk.: "Hábitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833". Abitu-hartze eta onarpe-
netan Bartolomek 81. orrialdetik 129.era arteko aktak idatzi zituen, 1832tik 1835era
arteko urteei dagozkienak.

10. Esk.: "Hábitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833". Nobizioen profesetako-
ak dira; Bartolomerren testu autografoek 71. orrialdetik 115.era artekoa hartzen
dute, eta 1832tik 1834ra arteko urteei dagozkie.

11. Esk.: "Hábitos. Prov. Navarra /O.C.D. /1825-1833". Pleguaren bigarren
orrian, eskuz idatzitako liburuaren hasieran itsatsirik, Frai Bartolomerren ohar auto-
grafo bat dago.

12. Esk.: "Libro de Recibo... de Lazcano, comienza año de 1814". Hemen Frai
1822-IX-26: Antonio Seoane jaunaren ofizioa Frai Bartolomeri (Bartolomek ohar hau jartzen du: "se lo contesto el 28 del mismo mes" (HAKA, E-I-31).

1822-XI-6: Bartolomeren gutun originala Bilboko Buruzagi Politikoari (HAKA, E-I-32).

1822-XI-8: Santanderko Apezpikuaren gutuna Bizkaiko Buruzagi Politikoari.

1822-XI-9: Sestaoko Konstituziopeko Udala Karmeldarrek Isla-ko komentuan irautearen alde agertu zen.

1822-XI-15 : Frai Bartolomeren gutun autografoa Madrilen Aita Santuaren Nuntzio zenari.

1822-XII-31 (1823-I-9): Gobernari Politikoak Santanderko Apezpikuari egindako gutuna, eta honen erantzuna.

1822-I-27: Lurraldearen zatiketa probintzietan.

1822-IV-V: Erregezaleen altxamenduak Katalunian, Valentzian eta Euskal Herrian.

1822: Jose Cruz de Echeverria: *Cristau Doctrina Euscaraz* , Tolosa, 1822.

1822-1823: Barakaldoko Konstituziopeko Udalak Isla-ko Karmeldarrek han jarraitzea eskatu zuen.

1822-1823: Portugaleteko Konstituziopeko Udalak Isla-ko Karmeldarrek han jarraitzea eskatu zuen.

1822-1823: Leioa eta Erandioko Konstituziopeko Udalek Isla-ko Karmeldarrek han jarraitzea eskatu zuten.

1822-1823: Plentziako Konstituziopeko Udalak Isla-ko Karmeldarrek han jarraitzea eskatu zuen.

1822-1823: Plentziako Udalak sermoi batzuk egiteko karmeldar bat eskatu zion Prioreari (Bartolome).

1823-III-IV: Erregea eta Gorteak Madril utzi eta Sevillarantz abiatu ziren (III-2); eta San Luisen 100.000 semeak Espainian sartu ziren (IV-7).

1823-IV-6: Errege-dekretua, Konstituzio garaian egindakoa indargabe uzten duela.

1823-VII-11: Karmeldar Oinutsak berriro lehengo bizimodu normalera itzuli ziren alde guztietan, beren komentuak, lursailak, eskubideak etab. berreskuratuz... (Prioreari).

1823-IX-29 : Probintziako Definitorioak Frai Bartolomerren idazki bat irakurri zuen.

1823-IX-30 : Probintziako Definitorioak Frai Bartolomerren idazki bat irakurri zuen.

1823-X-1: Fernando VII.ak, errege-agintean berrezarria izan ondoren, dekretu bat eman zuen, konstituziopeko gobernuaren egintza guztiak baliorik eta indarrrik gabekotzat joz ("nulos y sin ningún valor todos los actos del gobierno llamado constitucional").

1823-XI-13: Riegoren hiltzea.

1823-XI-13: Fernando VII.a Madrilan sartu zen.

1824-I-8 : Bartolomerren testu autografoa: Basamortuko Kartularioa, f., abitu-hartzea)

1824-1826: Burgosen (?) Probintzialaren Aholkulari karguan (1824-1826)

1824-1826: Jose San Migelena nobizioen maisu.

1824-V: Bartolome Probintzialaren 4. Aholkulari izendatua da eta kargu horretan iraungo du 1626ko apirilerarte

1824-V-5: *Ubi primum*: Errore modernoaren gaitzespena: indiferentismoa, "tolerantismoa" eta liberalismoa.

1824: Jose Cruz de Echeverria: *Ongui bizitzeco ta ongui iltceco laguntza*, Tolosa, 1824.

1824: J.I. Iztueta: *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia*, San Sebastian, 1824.

1825-V-11: hirugarren definitorioa Markinan izan zen.

1826: A. Kardaberaz: *Escu liburua, ceinetan ...*, Tolosa, 1826.

1826: Fleury Lécuse: *Manuel de la langue basque*, Toulouse, 1826.

1826: Fleury Lécuse: *Examen critique du Manuel de la langue basque*, Bayonne, 1826.

1827-1829: Santanderko apezpiku-jauregian dago apezpikuaren aitorle eta aholkulari izanez (1827-1829)

1828: Juan Jose MOGUEL, *Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su come - dia Poenulo...*, 1828, 125 or. J.A. LAKARRA - B. URGEL, *Plauto Bascongadoren eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 494-519.

1829: Fleury Lecluse: *Plauto Poligloto...*, Tolosa, 1829.

1829-1832, Jose San Migelena Lazkaoko prioreorde da.

1829-VII-27: Santanderko Apezpiku Juan Nepomuceno Gómez Durán Malagara aldatzen dute 1829ko uztailaren 27an, baina Santanderren jarraitu zuen aldi batean...

1829-XI-11 : Probintziako Definitorioan Bartolomeren idazki bat irakurri zuten.

1829: *Anti-Plauto poligloto o Defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua vasca de Mr. Lécluse, [?]*, 1829. / LAKARRA, J.A. - URGEL, B., *Plauto Bascongadoren eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 486'-493.

1829: Jose Cruz de Echeverria: *Jesusen imitacioco eda...*, Tolosa, 1829.

1829: J.I. Iztueta: *Carta eguiten diona don Juan Ignacio Iztuetac apez don Juan José Mogueli* San Sebastian, 1829.

1831-XI-14 : Probintziako Definitorioan Frai Bartolomeren idazki bat irakurri zen, hark idazle-agiria eskatzeko egindakoa.

1831-VIII-7: Sollicitudo Ecclesiarum: Eliza inongo erakunde politikori lotua egon gabe bere burujabe dela adierazten duen Agiria.

1831-XI-14 : Bartolomeren txostena, idazle-agiri berria edota 1815ean zuena berritzeko eskatuz... Definitorio Jeneralari pasatu zitzaion, geroago nagusi hautatua izango balitz, idazle-agiri hori indarrik gabe utz daitekeelako oharra erantsiz.

1832 Bartolome Lazkaoko nobizioen maisu izendatua da.

1833ko abuztuaren 31n Bartolomek nobizioen maisu bezala sinatzen du...; azken sinadura 1834ko azaroaren 22koa da.

1833-VI-20: Isabel printzesak Espainiako tronurako erreginagai legez sinatzen du.

1833-IX-29: Fernando VII.aren heriotza

1833-X-9: Markinako udalak aho batez errege aldarrikatzen du Karlos Jauna.

1833-X: Karlisten altxamendua.

1833-XI-30: Espainia 49 probintzian zatikatua.

1833-1840: Karlisten altxamendua.

1835-V-5: Haren arreba Teresa Madariaga hil zen.

1835-VI / VII: Bilboren lehen setioaren hasiera (VI-10 / VII).

1835-VII-25: Komentuak ixtea.

1835-XII-11: Bartolome arratsaldeko lau t'erdietan hil zen.

VII. ARGITALPEN HONETAZ

Frai Bartolomeren idazlanen edizio kritiko hau lan eskergaitz baten emaitza dugu. Honen aurrekoa, hala ere, asmo eta gogo onez beteriko ibilbidea izan da. 1992an idazten genuenez, lan hau lazaro gabe burutzekotan geunden: "Laster beraren idazlan guztien argitarapen osoa liburuki bakar batetan egiteko asmoa dugu Karmel-Sortan"⁴⁸⁵. Lehenago, edizio honen asmoa nolabait zehaztu ere egin genuen; Luis Baraiazarrak eta Julen Urkizak esku hartuko zuten horretan, Lino Akesoloren laguntzarekin... Ez genuen horretan aurrera egin, gure gogoaz kontrako arrazoiengatik; Lino Akesoloren heriotzak (1991-IX-17) eta gure beste lan batzuk atzeratu zuten lan garrantzitsu hau. Hala ere, 1998-1999. urteak emankorrak izan dira edizio kritiko hau egiteko.

FRAI BARTOLOMEREN IDAZLANEN ARGITALPENAK

1. Dauden argitalpenak..

Sarrera orokorrean azaldu dugu Frai Bartolomeren idazlanen egoera urteen joan-etorrian; hau da, berak argitaratutako liburuena, Joan Jose Mogelek argitaratutako haren gaztelaniazko testuena, dauden eskuizkribuena, beste eskuizkribu eta galduak diren lan garrantzitsu batzuen etab.

Bartolomek argitaratutako euskarazko lanei, hau da, lau liburuei dagokienez (1. *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* Iruñean, 1816, 208 or. 2. *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac*. Iruñean, 1816, X - 278 -32 or. 3. *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac*. Iruñean, 1817, IV - 301 or. 4. *Eleisaco zazpi sacramentu - ben icasiquizunac*. Iruñean, 1819, VI - 376 or.), zori ezberdina izan dutela esan behar dugu. "Lehenengoak" ("*Euscal-errijetaco olgueeta*"..., lehenengotzat jotzen da..., *Icas-I* eta hura urte berean, 1816an, argitaratuak badira ere) hainbat argitalpen izan ditu; gainerako hirurek, berriz, Frai Bartolomek berak egindako edizioa baizik ez dute izan.

⁴⁸⁵ Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak* . Larrea-Zornotza, 1992, 420.or. nota 241.

“Lehenengoak” hainbat argitalpen eta, beraz, edizioei dagokienez, historia luzeagoa izanak lan handiagoa eman digu edizio kritikoa egiterakoan, edizio horiek guztiak erkatu behar izan direlako Frai Bartolome beraren edizioarekin.

Hala ere, testu “originalarekiko” zehaztasunari dagokionez, Frai Bartolomeren testuan bertan dauden inprimategiko hutsak, eta beste argitaratzaile batzuek haren testuan egindako interpretazio okerrak nahiz inprimategiko hutsak kontuan izanik (*Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuaz ari gara, jakina), behar-beharrezkoa zen argitalpen berri eta oso bat egitea.

Sarrera orokorrean argi eta garbi ikusi dira nola egin diren argitalpen horiek. Eta ezin uka genezake, Frai Bartolomeren idazlanen argitalpenek akats ugari dituztena, bai berberak argitaratuek eta bai geroagoko argitaratzaileek argitaratuek.

2. Argitalpen berriaren beharra

Frai Bartolomek, idazle klasiko handietarikoa izanik, ongi merezia zuen argitalpen serio eta berri bat. Ez haren idazlanetan aipaturiko akats horiek daudelako soilik, baita orain arteko haren idazlanen argitalpenak osoak ez direlako ere... Izan ere, argitaratu gabe zeuden *Icasiquizunac La* baino lehenagoko bertsio bat, argitalpen honetan lehen aldiz argia ikusi duena hizkuntz ekarpen interesgarriarekin, ... eta haren gaztelaniazko beste idazki eta dokumentu batzuk.

Horrez gainera, Frai Bartolomeren liburuak nahiko eskuragaitz daude orain, batez ere euskal filologiako irakasle eta ikasleentzat.

Argitalpen hau egiteko eragingarririk handiena, hala ere, Frai Bartolomeren testuen egoera txarra izan da, goian aipatu dugunez. Eta hau oraindik larriago bihurtu da haren obra bat orain dela gutxi berrargitaratzean; edizio kritikotzat argitaratu badute ere, Frai Bartolomeren testuen errealitate linguistikoa, hein batean, nahasiago gelditu baita. Horregatik larria zen edizio berri, serio, kritiko eta oso baten beharra, Frai Bartolome bezalako klasiko batek hala eskatzen baitu.

Eta hauxe izan da, hain zuzen ere, gure asmoa: edizio kritikoa eta osoa egitea, testu leiala eta zuzena emateko. Horretarako frai Bartolomeren hizkuntza, haren hizkuntz arauak, haren estiloa eta joera aztertu dira... Eta hau guztiau haren biografia berrituarekin, haren idazlanei buruzko kontaketa nahiko osoarekin eta berrari buruzko dokumentazioarekin osatu da.

Hau guztiau ezinbestekoa zen, Frai Bartolome Santa Teresa bezalako euskal klasikoari, hori eta gehiago zor baikenion.

Hain zuzen ere, hori kontuan harturik, A. Lon Arteagak, Frai Bartolome eta haren euskara ongi ezagutzen zituenak, prestatu zuen Markina-Xemeinen, 1969-1972 urteetan, haren idazlanen argitalpen nahiko osoa, baina zorigaitzez argirik ikusi ez zuena...

ARGITALPEN HONETAN ERABILI DIREN ARAU METODOLOGIKOAK

Frai Bartolomeren idazlanak, bai inprimatuak eta bai eskuz idatziak, oraingo joerekin konparatuz, nahiko bitxi egiten zaizkigu, ortografia, puntuazio-marka, hitzen banaketa eta abarri dagokienez batez ere.

Hizkuntzaren barnealdeari begiratuz gero, berriz, arau nahiko finkoak eta ziu-rrak aurkitzen ditugu, inprimategiko huts asko egon arren; beste batzuetan, zalan-tzak zituela dirudi eta ez die beti forma berdinei eusten, alternantziak agertuz; hala ere, bere gogoko formak zein diren nahiko argi dago, estatistikek erakusten dutenez.

Ortografia, puntuazio-marka eta abarri dagokienez, Frai Bartolomek bere garai-ko joera agertzen digu, gutxi gorabehera. Bai latinezko liburuetan, bai gaztelaniaz-koetan eta bai euskarazkoetan antzeko joerak nabari dira. Orduko arauak ez dute oraingoekin zerikusirik, eta gainera Frai Bartolomek bere erara betetzen ditu. Hortik edizio berria egin beharra, azaleko zenbait gauzatxo egokiturik, testua zuzen ulertua eta jasoa izan dadin. Ez da ahaztu behar, ez Bartolomek berak eta ez kopia-tzaileek ez zutela arau finkorik forma aldakor batzuetan, puntuazio-marketan, orto-grafian eta abarretan. Egin-eginean ere, arlo horietan, hau da, puntuazio-marketan, hitzen lotze-banatzetan eta maiuskula-minuskuletan egin dugu aldaketarik sakone-na...; beharrezkoa, bestalde, testuari bere zentzu jatorra, benetakoa eta ulergarria itzultzeko.

Edizio on baterako arau nagusia, autoreak irakurtzea nahi zuen bezalako tes-tua agertzea da; hau da, autorearen testua argi eta garbi ematea. Bestalde, ezin-bestekoa da testu sinesgarria eta leiala eskaintzea; eta hori testu originala leialki eta zehazki ematean lortzen da. Hori eginez gero, testu berria originala bera baino ira-kurtzeko errazago eta zuzenago gertatuko da, autoreak ezin saihestu izan zituen akatsak saihestu ahal izango direlako... Hau ortografian, puntuazio-marketan... ukitu txiki batzuk eginez lortzen da. Horrek ez du esan nahi testu originala alda-tzea, erabilera modernorako behar diren egokitzeak eta originalaren baliokideak egitea baizik.

Gure asmoa testu guztiz leiala ematea da. Egin behar izan diren aldaketak unean-unean adierazten dira aparatu kritikoan edo oharretan eta osotasunean Sarrera orokorrean...

1. Testuen transkripzioa

Testuen transkripzioari dagokionez, ahal den guztia errespetatzea izan dugu xede. Balio linguistiko handiko testuak izanik, ahal den guztia, haren formak etab. dauden daudenean uztea litzateke hoberena.

a. *Ortografia*

Labur-labur adierazten ditugu hemen edizioan jarraitu ditugun arauak; azalpen zehatzagoa eta zabalagoa nahi dezanak, sarrera orokorreko IV. kapitulura, *Frai Bartolomeren euskara* deritzonera, jo dezake.

Oro har, ortografia guztiz errespetatzen dugu, puntuazio-markak, hitzen lotze eta banatzeak, laburdurak, azentuak etab. izan ezik.

Esaterako, errespetatu dugu *m* eta *n*, *b* eta *p*-ren aurrean, berak gogara darabiltzanak (*mb / nb, mp / np.*); baita errespetatu dugu *c*, *z*, *s* kontsonanteen erabilera ere (kasu banaka batzuetan izan ezik, eta orduan beti adierazten dugu aparatu kritikoa). *l / ll h, ñ / n, u / v* dauden-daudenean utzi ditugu, baita *v / bren* arteko alternantzia ere. Duda-muda batzuen ondoren, *deuscu / deuscueta vizi / vitz* bezalako bikoteak ere halaxe utzi ditugu. Testuetan ugariak direnean batez ere, autorearen zalantzen lekuko gisa utzi nahi izan ditugu.

Hala ere salbuespen batzuk egin dira:

aa. *i, y, ÿ, ija*

Bai argitaratutako euskarazko eta gaztelaniazko testuetan eta bai argitaratu gabeko euskarazko eta gaztelaniazko eskuizkribuetan *i* maiuskula *Y*dator beti eta ez *I*. Horrelakoetan guk *i* maiuskula *I* idazten dugu eta ez *Y*, esaterako, euskarazko testuetan *Yracurlia* idazten duenean edota gaztelaniazkoetan *Yglesia* idazten duenean.

Kasu berezia da *ya* edo *ija*. Batzuetan, esaldi hasieran *Ya* idazten du edo *ÿa*, bi puntu gainean dituela. Adiera bat baino gehiago biltzen dira *ya* edo *ija* formaren baitan: 1) Denborazko aditzondoa izan ohi da, *jada, jadanik* hitzen baliokidea. 2) Juntagailu distributiboa izan ohi da, gaztelaniazko *ya... ya* edo euskarazko *nahiz... nahiz; bai... bai; zein... zein; dela... dela* hitzen baliokidea. 3) Zehargalderazko partikula izan ohi da; euskara batuan *ea* partikulaz adierazten dena. 4) Azkenez, inperatibozko esaldi baten aurrean erabili ohi den interjekzio antzekoa izan ohi da. Lehen kasu bietan, Frai Bartolomeren *ya / ija* guztiak *ya* transkribatzen ditugu; azken kasu bietan, berriz, *ia*. Eta zer gertatzen da Frai Bartolomek *ija* idazten duen horrekin? Hark arau zehatz-zehatzak ditu bokalen harmonia bilatzerakoan; beraz, euskara batuko *ea* zehargalderazkoa eta interjekzio antzekoa *ia* egin beharko lituzke, baina ez ditu egiten... Eskuz idazterakoan, *y* eta *ÿ*-ren artean pixka bat nahasi egin dela dirudi. Frai Bartolomek gaztelaniazko “casi” aditzondoa idatziko luke *ija*, baina adiera horretan, gehienbat, “casic” darabil...

bb. *Maiuskulak – minuskulak*

Maiuskula sarri darabil izen batzuk, esaterako, *Zerua, Ainguerua* etab. idazteko, baita goi-mailako ofiziodunak adierazteko ere, esaterako, *Juez, Cura* etab. Hala ere, ez du beti berdin egiten eta maiuskulak eta minuskulak nonahi agertzen dira; hau da, maiuskulak gogara erabiltzen ditu eta horretan aldakorra da...

Beraz, irregulartasun hori dela eta oraingo erara egokitu egin ditugu maiuskulak, edizio kritikoaaren arauak jarraituz...

b. **Puntuazio-markak eta hitzen banatze eta bereizteak**

Gai hau ere luze erabili da sarrera honetako IV. kapituluan, *Frai Bartolomeren euskara* deritzon. Hala ere, Frai Bartolomeren idazkietan, bai inprimaturikoetan eta bai eskuizkribuetan, puntuazio-markak nahiko nahasgarriak eta testuaren ulerpena eragozten dutenak direla aitortu behar dugu. Askotan, oraingo arauak diotenaren alderantziz erabiltzen ditu komak; batzuetan, puntu eta koma jartzen du bi puntu jarri beharrean, eta alderantziz. Zeharkako estiloan ari denean ere bi puntu jartzeko joera du. Guk, horrelakoetan, bi puntuak kendu eta koma jartzen dugu. Hainbat bider, puntua tartean jarrita, esaldia etenda uzten digu. Perpaus adbertsatiboetan eta segidako ezezkoetan maiz egiten du hori. Hona adibide bat: *Ez cenduban gura izan, Erroman bedeincatu biarrecua izatia* . *Ezda diru ascogaz erositacua izatia ber e, Ezbada edoecin berezco ur, nai errecacua, nai pozucua, nai ituxurecua... ichi cencuban bautismo gueitzat* (*Icas-III*, 45). Beste gauza bitxi bat ere aurkitu dugu haren testuetan: zehargalderazko perpausari galdera-marka jartzea: *Ceinetan eracusten dan: 1. ¿Cetaraco dirian batioco eguite Santubac, edo Ceremonijac? 2. ¿Celan gorde biar ditugun bautismoco aguinubac?* (*Icas-III*, 64).

Beraz, gauzarik behinenetakotzat jo dugu puntuazio-markak aldatzea; hau da, puntuazio-markak oraingo arauetara egokitzea, testuaren argitasunerako eta ulertze errazagoaren mesedetan. Horrela, edizio kritiko honetan agertzen den testua, kasurik gehienetan, argiagoa eta haren pentsamentuarekin leialagoa da Bartolome berberak argitaratu zuena baino.

Hitzen lotze eta bereizteari dagokienez, arazoa pixka bat nahasiagoa da. Astiro aztertu da gai hau ere sarrerako IV. kapituluan, *Frai Bartolomeren euskara* izenekoan. Bartolomeren euskarazko idazkietan, bai argitaratuetan eta bai eskuizkribuetan, hitzen lotze eta bereizte batzuk testua zuzen eta erraz irakurtzeko eragozgarri dira; hau da, zaildu egiten dute irakurketa. Horregatik, hitzen lotze eta bereiztea oraingo erara egokitzea erabaki dugu, Frai Bartolomek bere-berea duen eta ia beti halaxe egiten duen kasuren bat edo beste errespetatuz. Esaterako, *gaiti*, motibatiboa egiteko erabiltzen den morfema bereiz utzi diogu, salbuespenak salbuespen, halaxe darabilelako beti. Gainerakoan, atzizkiak lexemari loturik eman ditugu. Beste ukitu bat *ez* partikularekin sortzen diren multzoei egin diegu. Ondoren aditza duenean, bereiz jarri dugu; juntagailua denean, berriz, loturik: *ez bada* (bal-dintzazko adizkia) / *ezbada* (juntagailu adbertsatiboa); *ez da* (adizkia) / *ezda* (juntagailua, gure “ezta”, “ez eta”).

Dena dela, gai jakinen bat aztertzerakoan interesgarri izan daitekeelako, aparatatu kritikoa adierazi egiten dugu guk aldatu dugun Bartolomeren lotze edo bereizte zehatza, ikertzailearentzat garbi gera dadin.

Gai honetaz bada kasu bat, hemen esanda argi geratuko delakoan, aparatu kritikoan adierazi ez duguna. Jesucristo edo Jesu Cristo izena. Bartolomek biak darabiltza: 201 bider dator *Jesu Cristo*, 26 bider *Jesu-Cristo*, 214 bider *Jesucristo* (noiz edo noiz *JesuCristo*), eta behin bakarrik *Jesus Cristo*, inprimategiko hutsa dirudiena. Hala ere, Eskuizkribuan ia beti berdin darabil (78 bider *Jesu Cristo* 3 bider *Jesu-Cristo* eta behin *JesuCristo*). Guk *Jesucristo* erabiltzea hobetsi dugu.

Puntuazio-markak gaurko erara egokitu arren, Frai Bartolomek bere-bereak dituen bi xehetasun ez ditugu aldatu; bata, esaldi hasierako harridura-markak eta galdera-markak gordetzea izan da; eta bestea, bi puntuen ondoren maiuskula jartzea.

c. **Azentuak eta zeinu batzuk...**

Frai Bartolomeren testuetan, bai inprimatuetan eta bai eskuizkribuetan, azentu banaka batzuk agertzen dira hitz jakin batzuetan, baina ez beti, esaterako, *á / à* (erakuslea), *lò, òostu* etab. Horretan Frai Bartolomek, oharkabean bada ere, garai hartako joera jarraitzen du, gaztelaniazko, euskarazko... argitalpenetan ikus daitekeenez

Guk, oraingo joerari eutsiz, azentuak baztertzea erabaki dugu.

Galdera-markei dagokienez, Frai Bartolomek galderazko perpausen hasieran eta amaieran darabiltza. Hori zegoenean utzi dugu; baina, gorago adierazi dugunez, zehargalderazkoetan ere, hainbat kasutan, galdera-markak jartzen ditu gure idazleak. Horrelakoetan guk baztertu egin ditugu...

d. **Laburdurak eta siglak...**

Laburdurak (gaztelaniazko testuetan).

Frai Bartolomek nekez erabiltzen ditu laburdurak euskarazko testuetan (bai oharretan, hitz batzuk, izen bereziak, tituluak eta abar laburtzen baititu; gauza bera egiten du "Topa-lecuba"-n: Icasiquizuna], Icasiquizuna], fol., num., lin.); gaztelaniazko idazkietan, ordea, erabiltzen ditu, bai testu argitaratuetan eta bai eskuizkribuetan.

Baina gaztelaniazko testuetan ere bada alderik argitaratutakoen eta eskuizkribuen artean. Haietan laburdura gutxi aurkitzen ditugu (A.A., D., M.M. eta M.L., M', P.D., PP., Q.S.M.B., S', V.); eskuizkribuak, oster, (*Apuntaciones...*, *cartas*, *memoriales*, eta abar) laburduraz josita daude, bai bere eskuz idatziak direnak eta bai kopiak.

Guk labudurarik gehienak askatzea eta hitza osorik ematea erabaki dugu, testuaren irakurketa errazteko; banaka batzuk utzi ditugu bere hartan, ondorengo zerrendan azpimarraturik daudenak hain zuzen:

adj ^{ia} = adjunta	dhro = derecho
af ^{tos} = afectos	dic ^e = diciembre
ag ^{to} = agosto	diligenc ^s = diligencias
Aiuntam ^o = Aiuntamiento	Dipn = Diputación
Alc ^{de} = alcalde	Diputac ⁿ = Diputación
alg ⁿ = algún	Diput ⁿ = diputación
alg ^o = alguno	<u>Dⁿ = Don</u>
Ant ^o = Antonio a ^S = años	D ^s = Dios
aunq ^e = aunque	eccl ^{co} = eclesiástico
Ayuntam ^o = ayuntamiento (ez-aut.)	eccl ^o = eclesiástico
Bart ^{me} = Bartolomé	emigra ⁿ = emigración
Baup ^{ia} = Bautista	en ^o = enero
benef ^{do} = beneficiado	escp ^{on} = escepción
benef ^o = beneficio	escriv ^o = escrivano
B ^{me} = Bartolomé	español ^s = españoles
Cap ^o = capítulo (ez-aut.)	espd ^{le} = espediente
Capp ⁿ = capellán	Exc ^a = excelencia
Capp ⁿ = capellán	<u>Exc^{mo} = Excelentísimo</u> (ondoren izena
Carm ^{ias} = Carmelitas	duenean gordetzen da laburdura)
Carm ^{ias} Desc ^{zos} = Carmelitas Descalzos	exérc ^{tos} = ejércitos
cav ^{do} = cavildo	<u>Ex^{mo} = Excelentísimo</u> (ondoren izena
ciegam ^{te} = ciegamente	duenean gordetzen da laburdura)
Clav ^o = clavario	fallecim ^{to} = fallecimiento
comand ^{te} = Comandante	fav ^{do} = favorecido
comb ^l = conbentual	fha = fecha
comb ^{to} = combento	Fr. = Fray (ondoren izena duenean gor-
com ^d = comunidad	detzen da laburdura)
com ^{do} = comunicado	Franc ^o = Francisco
Concep ^{cn} = Concepción	franc ^s = franceses
cond ^{ta} = conducta	govern ^{dor} = gobernador
conocim ^{to} = conocimiento	gra = gracia
considerac ⁿ = consideración	G ^{ral} = general
consig ^{te} = consiguiente	gu ^e = guarde (ez-aut.)
conv ^{to} = convento (ez-aut.)	H. (H ^o) = hermano (ondoren izena due-
cop ^a = copia	nean gordetzen da laburdura)
correg ^r = corregidor	herman ^s = hermanos
cumplim ^{to} = Cumplimiento (ez-aut.)	igl ^a = iglesia
D ^a = Doña	igl ^s = iglesias
dcho = dicho	Ignc ^o = Ignacio
Defin ^o = Definitorio (ez-aut.)	Ill ^{mo} = Ilustrísimo
Desc ^{zo} = descalzo	incompat ^{ble} = incompatible
desprec ^{do} = despreciados	infraesc ^{to} = infraescrito
dho = dicho	Juaq ⁿ = Joaquín

jurisd ^{on} = jurisdicción	p ^a = para
justificac ⁿ = justificación	pedim ^o = pedimiento
m = muy	p ^{or} = predicador (ez-aut.)
M. = Madre	p ^r = por
M.N. y M. L. = muy noble y muy leal (ondoren "Señorio" duenean gorde da laburdura)	p ^{rior} = prior
Marq ^a = Marquina	pred ^{ic} = predicador
Marq ^{ua} = Marquina	present ^{on} = presentación (beste baten autog.)
mem ^a = memoria	presid ^{te} = presidente
mem ^l = memorial	prim ^o = primero
mem ^l = memorial (ez-aut.)	pral = principal
Mig ^l = Miguel	Pr ^{or} = Procurador
mrdes = mercedes	prov ^a = provincia
mrds = mercedes	prov ^{cia} = provincia
m ^s = maravedies	Provid ^a = Providencia
m ^s a ^s = muchos años	prov ^l = provincial
nr ^e = mente (-mente amaitzen diren agintuek...: imediatam ^{te} , decentem ^{te} , furtivam ^{te} , actualm ^{te} , continuam ^{te} , sobradam ^{te} , etab.)	Prov ^{or} = Provisor
N. = nuestro-a	prud ^e = prudente
N. = Noble	que ^{te} = que
N. S ^r = Nuestro Señor	q ^{te} = que Dios guarde (ez-aut.)
N.M. = nuestra Madre	q. b. l. m. = que besa la mano
N.M.R.P. = Nuestro Muy Reverendo Padre (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)	q. s. m. b. = que su mano besa
(ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)	q ⁿ = quien
nob ^e = nobiembre	qualq ^{ua} = cualquiera
nom ^e = nomina	R.P. = Reverendo Padre (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)
notific ^{on} = notificación	Reverencia
nro = nuestro	reedif ^{on} = reedificación (ez-aut.)
N.R.P. = nuestro Reverendo Padre (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)	relig ^s = religiosos
Obpado. = Obispado	rendidam ^{te} = rendidamente
Obpo = obispado	resp ^{ia} = respuesta
oct ^e = octubre	r ^l = real
ord ^a = ordinario	rea ^{les} = reales
orn. = orden	rea ^{les} vellón (ez-aut.)
ot ^e = octubre	S. = San-Santo (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)
ot ^e = octubre	S. M. = Su Majestad
P. = Padre (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)	Sactan = sacristán
	S ^a = Santa
	S ^a = señora
	satisf ^{on} = satisfacción
	secre ^t = secretario
	seg ^{do} = segundo

seg^o serb^{or} = seguro serbador (ez-aut.)

separ^{on} = separación

sep^e = septiembre

septe = *septiembre*

serv^r = servidor

sig^{er} = *siguiente*

S^h = *San*

Sⁿ = San

S^{or} = Señor (ondoren izena duenean gordetzen da laburdura)

spre = *siempre*

S^{es} = *señores*

Srio = Secretario (ez-aut.)

SS^a = Santísima

SS^{no} = *Santísimo*

S^a = *santa*

S.S. = Su Señoría

S.E. = Su Excelencia

subd^{to} = súbdito

Sup^r = *subprior*

testim^r = *testimonio*

tpo. = *tiempo*

V.E. = Vuestra Excelencia

V. Em^a = Vuestra Eminencia

v.m. = vuestra merced

V.S. = Vuestra Señoría

V.S.Y = Vuestra Señoría Ilustrísima

V^e = Venerable (ez-aut.)

venerⁿ = veneración

vⁿ = vellón

Sarreran eta testuetan guk geuk erabilitako sigla eta laburdurak:

Esk.: Eskuizkribua

Frai Bartolomeren liburuak:

Euskal Errijetaco... = *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* Iruñean. 1816, 208 or.

Esku = *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguiduben ogueta bost Lecinoe, ta semoe bat Aita prai Bartolome S^a Teresa Marquinaco Carmen oinustuco pr edicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. 1807. urtian.* ([10] + 296 + [6 + 14] orrialde.

Icas-I = *Jaungoicoaren amar aguidubeetaco lelengo bosteen icasiqizunac.* Iruñean, 1816, X - 278 -32 or.

Icas-II = *Jaungoicoaren amar aguidubeetaco azqueneco bosteen icasiqizu - nac.* Iruñean, 1817, IV - 301 or.

Icas-III = *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiqizunac.* Iruñean, 1819, VI - 376 or.

[] = Testu zatia gehitu dela esan nahi du; hau da, falta dena bistakoa denean, geure kontura osatu dugula, irakurketa erraztu ahal izateko.

> lehen formaren aurrekoa

< eratorriaren aurrekoa

/ = Inprimaturiko eta eskuz idatziriko obra batzuen izenburuen lerro bakoitza seinalatzeko erabiltzen da.

// beste adiera bat edo beste adibide bat gehitzeko erabiltzen da.

Artxiboak

BAS:	Burgosko Archivo Silveriano.
BEHA:	Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa - Archivo Historico Eclesiástico de Vizcaya (Derio).
BFAA:	Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.
BKA:	Begoñako Karmeldarren Artxiboa.
DEA:	Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa.
EUA:	Etxebarriko Udal Artxiboa.
GKPA:	Gasteizko Karmeldarren Probintzi Artxiboa.
HAKA:	Hoz de Aneroko Karmeldarren Artxiboa.
IEA:	Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (IEA).
IKA:	Iruñeko Karmeldarren Artxiboa
KEA:	Kalahorrako Elizbarrutiko Artxiboa.
KKa:	Korellako Aita Karmeldarren Artxiboa.
LKA:	Larreko Karmeldarren Artxiboa (Zornotza).
LOKA:	Logroñoeko Karmeldarren Artxiboa.
LZMA:	Lazkaoko Zistertarren Monasterioko Artxiboa.
MBN:	Madrieko Biblioteka Nazionala.
MHA:	Madrieko Historiaren Erret Akademia.
MKA:	Markinako Karmeldarren Artxiboa.
MUA:	Markinako Udal Artxiboa.
OUA:	Ondarroako Udal Artxiboa.

2. Aparatu kritikoa

Lehen-lehenik, ertzeko zenbakiak, aparatu kritikoa erreferentzia egiten zaion testuaren zenbatgarren lerroa den esan nahi dute (Frai Bartolomeren oharrak ere testu bezala zenbatzen dira), esaterako, 420 deuten] dentzen *Ba*; hau da, 420. lerroan *deut-sen* dator, baina Bartolomeren testuan *dentsen* zetorren.

Aparatu kritikoa, guk proposatzen dugun testuaren aurreko argitalpen eta eskuizkribuen artean dauden desberdintasunak agertzen ditugu. Desberdinak direnean, proposaturiko testua ematen dugu eta ikurra gehitzen diogu (]) eta horren ondoren, eskuizkribuko edo aurreko argitalpenetako testuak; esaterako, Nescatiliari] Nescatiliari *Ba*. Beste batzuetan, ikurraren aurretik, proposaturiko testu bera ematen duten autoreen izen laburtuak gehitzen ditugu, esaterako, jantzijagaz *Do Al Ld* jantijagaz *Ba (in-hu) Mu*.

Hala ere, desberdintasun horiek hitzen lotze edo bereizteari dagozkionak izanez gero, ez dugu ikurra erabiltzen (]), ez eta proposaturiko irakurketa aparatu kritikoa errepikatu ere; horrelakoan, eskuizkribuak edo halako autoreak dakarren bertsio ezberdina jartzen dugu; esaterako, guk *ez dala* irakurtzea proposatzen dugunean, aparatu kritikoa hau jartzen da soilik: ezdala *Ba*. Horrela gauzak behin eta berriro errepikatu beharrik ez da, ez baitago inolako eragozpenik zuzen ulertzeko.

Hona hemen erabili ditugun laburdura eta zeinuak:

ezab. = ezabatu

ez-aip. = ez aipatua

geh = gehitua

in-hu = inprimategiko hutsa

ler. artian : lerro artean gehitutako testua

ler.gain. : lerro gainean gehitutako testua

zuzen. = zuzendurik datorren testua

Al = Altuna

Ba = Bartolome

Do = Dodgson

Lo = Lon

Mu = Mujika

] = ikurra

| = aparatu kritikoan testuaren lerro bereko aldaerak bereiz jartzeko da.

3. Oharrak eta aipamenak

Oharrei buruz, testuaren behealdean, orrialderik gehienetan, hiru ohar mota hauek datozela adierazi behar dugu: 1) Frai Bartolomek berak jartzen dituen hainbat autore eta liburutako ohar eta aipamenak. 2) Adierazi berri dugun aparatu kritikoari dagozkionak. 3) Gure ohar historikoak eta linguistikoak.

Lehenengoei eta hirugarrenei buruz, zertxobait argitzea komeni da.

Frai Bartolomeren oharrak testuaren ondoren berehala datoz; eta berberak liburuetan argitaratu zituen bezala agertzen ditugu; errespetatzen dugu haren aipatzeko era ez hain ona, bere laburdura eta estiloarekin. Hala ere, argitasunaren mesedetan eta ediziorako eragozpenak ez gehitzearren, zenbaketa aldatu egin dugu; hau da, ez dugu Bartolomek bezala orrialde bakoitzean zenbaketa berria hasten, liburu bakoitzean hasieratik azkeneraino zenbaketa jarraitu baizik.

Argigarri jarri diren gure ohar historiko eta linguistikoek ere zenbaketa jarraitua dute Frai Bartolomeren liburu bakoitzean.

Ohar hauek Frai Bartolomeren iturriei dagozkienak dira, baina hark aipatzen ez dituenak; esaterako, Eskritura Santuko hainbat pasarte, edota Eliz Gurasoen iturriak, berak orokorki aipatzen dituenak. Iturri hauetariko asko aurkitu ahal izan ditugu guk eta aipatu, baina beste batzuk, Frai Bartolomeren aipamenak zehatzak ez direlako batez ere, ezin identifikatu izan ditugu.

Datuen bila, Bartolomek berak eduki zituen edo eskura izan zitzakeen liburuak erabiltzen saiatu gara. Beste batzuetan, datu osagarrien bila, hiztegi ezagun batzuek baliatu gara, esaterako, *Lexikon für Theologie und Kirche* 11 t., Freiburg, 1986, LThK laburduraz aipaturik.

Frai Bartolomeren aipamenei dagokienez, gogoan izan behar dugu, hark Biblia aipatzen duen guztian, latinezko Vulgataren arabera egiten duela; guk hori errespetatzen dugu; hala ere oharretan datozen Bibliaren aipamenak guk geuk egiten ditugunean, oraingo erara egiten ditugu; zehazki esanik, *Elizen Arteko Biblia*, Iruñea-Tutera-Baiona-Bilbo, Donostia-Gasteiz, 1994 darabilgu; eta era berean Biblia honetan datozen biblia-liburuak laburdurak jarraitzen ditugu.

Eliz Gurasoen aipamenei dagokienez, batzuetan Frai Bartolomek berak erabili zituen XVI. mendeko liburu berberak erabiltzen ditugu; hala ere, ezin aipatu gabe utzi MIGNE-k egin zuen Eliz Gurasoen edizio berdingabea.

Aipamenak egiterakoan, Frai Bartolomeren liburu orijinaletako orrialdeak agertzen dira, baina orrialde barreneko oharretan, irakurlearen lagungarritzat, liburu honen orrialdeak jartzen ditugu kako artean.

ARGITALPEN HONEN BERRITASUN ETA EKARPENAK

Argitalpen honek berritasun eta ekarpen ugari agertzen ditu:

- Lehenengo eta behin edizio *osoa* da, orain arte inoiz egin ez dena. Hau da, Frai Bartolomeren garaian argitaratutako idazkiez gain (*Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba ...*, Iruñea, 1816, 209 or.; *Jaungoicuaren amar aguidubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac ...* Iruñea, 1816, X - 278 -32 or.; *Jaungoicoaren amar aguidubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac ...* Iruñea, 1817, IV - 301 or.; *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac ...* Iruñea, 1918, VI - 376 or.; Juan Jose MOGUEL, *Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su comedia Pœnulo...*, 1828, 125 or.; *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua vasca de Mr. Lécluse*, 1829, 29 or.) eta orain dela urte gutxi argitaratutako *Apuntaciones...* (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan, 1691-1991. Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 752-768) izenekoaz gain, lehen aldiz argitaratzen ditugu ondorengo hauek:

1. Eskuizkribu handi hau: *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguiduberen ogueta bost Lecinoe, ta sermoe bat Aita prai Bartolome \$ Teresa Marquinaco Carmen oinustuco predicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. 1807. urtian*. [10] + 296 + [6 + 14] orrialde. 1816an argitaratu zenaren lehenagoko bertsio ezberdin bat dugu.

2. Sermoi bat, izenburu honekin: *Sermón de la Na' de N. S. (Maria Birginiaren jaijotzia)*, orain dela gutxi Fidel Altunak aurkitua; *Karmel* gure aldizkarian argitaratzera gonbidatu genuen, baina ordurako hitz emanda zegoen *Anuario del Seminario Julio de Urquijon* argitaratzeko.

3. Hainbat gutun eta oroit-idazki, Frai Bartolomek, Ordena barruan izan zituen kargu eta zereginengatik batez ere, gaztelaniaz idatziak.

Hala ere jakinaraztea komeni da, gordetzen diren haren eskuizkribu guztiak ez ditugula argitaratzen, halako idazki asko ez baitira haren gauza pertsonalak; esaterako, Etxebarriko udaleko aktak, bera nobizioen maisu zenean idatzitako Ordenako abitu-hartze eta profesetako aktak, kontu-liburu, mezetako liburu eta abarretako hainbat eta hainbat orrialde. Eskuizkribu hauen guztien berri ematen da sarrera orokorrean.

- *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuaren argitalpen guztiak ahalik zehatzen aztertu dira, gurearekin dituzten ezberdintasunez oharrak idatziz.

- Gainera, edizio kritikoa da; orain arte halakorik ez da egin izan, haren argitaratzaileen iritziz, *Euscal-errijetaco olgueeta...* obrarena baino.

- Testu leiala eta ulergarria ematen da.

- Hau guztiau, haren biografia eta hizkuntza sakonki ikertuz burutu da.

ARGITALPEN HONEN ARDURADUNAK

Frai Bartolomeren idazlanen edizio kritikoa Luis Baraiazarrak eta Julen Urkizak lankidetzan egindako ahaleginaren fruitua dugu. Lankidetzeta edo elkarlan hau estu-estu eta emankorra izan da; biak Markinako karmeldarren komentuan, Frai Bartolome bera bizi izan zen eta bere obrak idatzi zituen komentu berean, bizi eta lan egin izanak erraztu die lankidetzeta eta elkar-hartze estu hori.

Lan zail honi ekin orduko, biek elkarrizketa luze eta etengabeak izan zituzten, argitalpen honen nondik norakoa astiro hausnartuz. Oso-osoan bat etorri ziren laster.

Baina agerian uztea komeni da, obraren parte batzuk gehiago direla batarenak bestearenak baino. Horrela, batari edo besteari bereziki dagokion parte zein den adieraziko dugu, lana biona izan dela behin eta berriz aitortu arren. Bereziki J.Urkizaren ardura izan da edizioaren alde historikoa eta teknikoa; L. Baraiazarrarena, berriz, Frai Bartolomeren euskarazko testuen alde linguistikoa. Bai bata eta bai bestea adituak dira honelako lanetan, eta orain arte ere eginak dituzte honen antzeko lanak.

Bakoitzaren lana zehatzago adieraztearren, hau esan daiteke:

Julen Urkiza-ren ardura izan da batez ere:

-edizioaren zuzendaritza eta lan teknikoa,

-sarrera orokorra, IV. kapitulu luze eta garrantzitsua izan ezik, eta obra bakoitzaren sarrera bereziak,

-euskarazko eta gaztelaniazko testu guztien kopia eta transkripzioa,

-aparatu kritikoa eta azpiko ohar historikoak,

-gehigarriak (izenen aurkibidea)....

Luis Baraiazarra -k, berriz, honako lan hauek izan ditu bere gain:
-sarrera orokorreko IV. kapitulua (*Frai Bartolomeren euskara*),
-testu guztien behin betiko azterketa eta zuzenketa,
-ohar linguistikoak,
-obra bakoitzaren sarrera bereziak osatzea,
-eta J. Urkizak egindako lan guztiaren behin betiko euskal idazketa...

Luis Baraiazarra

Julen Urkiza

**EUSCAL-ERRIJETACO
OLGUEETA TA DANTZEEN
NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA**

SARRERA

Idazki honetaz jardun dugu *Sarrera orokorrean*, bereziki honen argitalpen ezberdinak aztertuz... Orain idazki honen une historiko eta soziala, beronen zergatia eta helburua, argitzea dagokigu. Izan ere, ez da zuzena, batzuetan, arinkeriaz eta alderdikeriaz eman ohi den iritzia..., Frai Bartolomek liburu hau idaztean zer helburu izan zuen kontuan hartu gabe... Aparatu kritikoan erabili dugun metodoa ere azalduko dugu, irakurtzeko errazagoa izan dadin.

1. Dantzen eta hauei buruzko haren liburuaren lehen aipuak

“Euscal-Errijetaco olgüeeta ta dantzeen”... liburua bere hasierako liburua da. Honen lehen aipu argia *Icasiquizunac* eskuizkribuan aurkitzen dugu; eskuizkribu hau inprimategirako prest izan zuen, baina oraintxe arte argitaratu gabe izan da; argitaratu zena honen bertsio berriagoa da, dantzen liburua argitaratu zen urte berean, hots, 1816an... argitaratu zena. *Icasiquizunac* saileko lehen idazkiaren eskuizkribua (“*Jaungoicuaren legüeco lelengo bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe ta sermoe bat... I. Partia. 1807. urtian*”) ziur aski prestaturik izango zen 1806. urterako... Horrela, haren dantza-liburuaren aipua 1806koa izan liteke; aipu hau eskuizkribuaren 254. orrialdean dator: “Gauza onen gañian icutsi dot cerbait gueijago escribiduta guere eusqueeran, arguitara etarateco ustiagaz, ta an topauco davee gueijago, nai daveenac”.

Antza denez, garai berekoa da (1805-1806) orain dela gutxi aurkitutako Frai Bartolomeren sermoi autografoa ere: *Maria Birginiaren jaijotzia*. Sermoi honetan, dantzei buruz hitz egiten du pasarte batean, moral aldetik etab. Ikusten denez, dantzak zirela-eta kezkatuak zebilen Bartolome eta, Kalahorrako apezpikuak emandako aholkuei men eginez, kristau-familietako moral-bizitza hobetzeko aukerarik ez zuen inoiz alferrik galtzen...

2. Idazki honen abiapuntua edo zentzua

Esan dugu, dantzei buruz Frai Bartolomek zuen jarrera kritikoaz iritzia ematerakoan, huts egin izan dela irizpide horretarako oinarri baliagarriak kontuan ez hartzeaz; hauek dira, esaterako, zergatik eta zertarako idatzi zuen; hau

da, idazkiaren zergatia eta helburua, haren garaiko ikuspegi sozial eta erlijioso orokorra, eta predikari zen aldetik bere gain zuen betebeharra...

a) *Elizaren irakaskuntza*

Predikari eta moralistengan, baita Frai Bartolomerengan eragina izan zuten XVII. eta XVIII. mendeetako elizbarrutietako sinodoetan ere, ohitura txarrak sustraitik atera eta onak ezartzeko ahalegina ageri da.

Esaterako, Kalahorrako apezpiku ospetsua zen Pedro de Lepe-k, 1691n debekatu egiten ditu gauzez goizaldera arte egiten diren dantzak, eta baita elizpe eta eliz atarietan¹ egiten direnak ere.

Eta urte gutxi lehenago, 1686an, Kalahorrako elizbarrutiko Sinodoak, Pedro de Lepe apezpiku zela, predikariaren eginbehar hau honela gogorazten du: "Que su predicación la dirijan llanamente a desarraygar los vicios, y plantar las virtudes en las almas"...²

Izan ere, irakatsi hau Elizaren kontzilioetan oinarriturik dago, bereziki Trentokoan; Kontzilio honetan, jaiegunak gordetzea agintzen da eta apaiz eta elizgizonei jan-edan handietan, jolas eta dantzetan...³ esku hartzea debekatzen zaie. Eta pastoral lanaren arduradunek igandero labur eta argi iragarri behar zuten salbatzeko beharrezko dena, kristauei grina txarrak baztertzeraz deituz eta bertuterako gogoia berotuz⁴. Era berean, Erromako Katiximak, jan-edan handietan, dantzetan, irakurgai lizunetan eta abarretan⁵ dagoen gaiztakeriaz, jakinean jartzen ditu kristauak.

Boloniako artzapezpiku Lambertini Kardinalak ere, gerora Aita Santu Benedikto XIV.a izango zenak, debekatu egin zien elizgizonei, 1737an, dantzara joatea eta gehiago oraindik dantzan egitea⁶; bestalde, handia izan zen haren testuek Frai Bartolomerengan izan zuten eragina.

Frai Bartolome teologiako ikasle zela, Kalahorrako apezpikuak fraide frantziskotarrak eta kaputxinoak bidali ohi zituen bere elizbarrutian misioak em-

¹ PEDRO DE LEPE Y DORANTES, *Cartas pastorales*, Valladolid, 1721, 220-223.or.

² *Constituciones synodales antiguas, y modernas del obispado de Calahorra, y la Calzada...* Madrid 1700, 136.or.

³ *Sacrosanctum, Œcumenicum Concilium Tridentinum, additis declarationibus cardena - lium...* (I. Gallemart - A. Barbosa - Cardinalis de Luca), Matriti, 1762, Sessio XXII, Decretum de Reformatione, cap. 1, 162.or.

⁴ *Sacrosanctum, Œcumenicum Concilium Tridentinum, additis declarationibus cardena - lium...* (I. Gallemart - A. Barbosa - Cardinalis de Luca), Matriti, 1762, Sessio V, cap. 2, 23.or.

⁵ *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita..., Madrid, 1791, 254.or.

⁶ *Pastoral de N. Ssmo. Padre Benedicto XIV.*, Madrid, 1769, 126.or.

tera, karmeldar batek elizgizon gazteei irakasten zien bitartean...⁷. Beste horrenbeste egin ohi zuen Atanasio Puyal eta Poveda apezpikuak, Frai Bartolomek bere *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburua eskaintzen dionak. Aita Santuari jakinarazten zion, 1819an, herrietako grina gaiztoak baztertzea, eta jainkozaletasuna eta ohitura onak berritzea lortu zela⁸.

Hain zuzen ere, Elizaren ardura handi horri erantzunez hasi zen Frai Bartolome sermoiak egiten, XIX. mendearen hasieran. Kezkatua zen, zehazki esateko, bere lurraldearen, Euskal Herriaren, moral-egoeraz eta biziki esku hartu zuen berak sermolari legez zituen dohain apartekin ohitura onak irakasten, kristau-familientzat, hau da, seme-alaben heziketarako, hain beharrezkoa zena irakasten.

Izan ere, dantzen gehiegikerien inguruan sorturiko egoera sozio-erlijioso eta moralak bide eman zion dantzei buruz liburu hau idazteko; berberak kontatzen digu horren sorrera izan daitekeena:

“Apostolubac gentil asco viurtu edo ecarri arren Evangelijoco sinistute ta legue garbira ta zucenera, gueratuten cirian cristinau barrijac gentileen artian. Esateco moduban, erri baten beegozan berreun edo irureun cristinau barri, beste bost eun edo seireun gentilac cirian. Evangelijo santura viurtu ez cirianac. Eureen Jaungoico paltso eguneetan, leenago leguez, olgueeta ardaotsu-bac, loijac ta odoltsu-bac euqueezanac. Au eracusten deuscube mundu guztico jazuac. Ta au berau iracurten dogu gueure Españacuetan. Evangelijo santubac ta Eleisa Ama santiaren ordenaac eragozten eutseen cristinau barrijai, gentileen diversinoetara juatia. Ta aguindu eutseen devocinoe santuATEGAZ ta espiritu eguijazcuagaz ondrau eguijeezala Jesucristo gueure Jaunaren, Ama Virgina guztiz santiaren, apostolu santubeen ta martirijeon egunac, cerubari gracijac emonagaz ta caridadezco ta onestidadezco alegrija santaATEGAZ, gentileen itsutasuneetati ta pecatubeetati Jesucristoc librau zitubalaco. Au onan Eleisiac aguinduta egon arren, cristinau barri guztiac ez cirian santubac. Gusteetan jacuezan sabelaren ta araguijaren eraco olgueetac. Ta icusteen citubeen leguez cristinau barrijac eureen senidiac, auzuac ta erritar gentilac Jaungoico paltso eguneetan olgueetan nasai, eurac bere asi cirian, euren santu eguneetan eleisaan santubac ondrauta, eleisacua eguinda guero, plazaan gentileen olgueetac eguiten. Onaco gueure santu egunetaco olgueetac, gurasueta-ti umeetara, guiza aldiric guiza aldira, eldu dira gueure demporaraguino. Ara emen gueure errijeetaco zeceneen, ezpata dantzeen, desapijozco burruqueen,

⁷ J. Ignacio TELLECHEA IDIGORAS, *Diócesis de Calahorra y Santo Domingo. Las Relaciones de visitas “ad limina” (1598-1890)*, Roma, 1991, 117.or.

⁸ J. Ignacio TELLECHEA IDIGORAS, *Diócesis de Calahorra y Santo Domingo. Las Relaciones de visitas “ad limina” (1598-1890)*, Roma, 1991, 126.or.

maquilaqueen, ezpataqueen, comedijeen, dantzeen ta convidauteguijeen sar-tueria edo etorrieria cristandadera”⁹.

b) Moraltasuna: ohitura onak...

Eliza unibertsalak eta Kalahorrako bere elizbarrutiak emandako aginduak jarraituz, Frai Bartolomek kristau-morala, moral osoa, irakasten du pulpitutik: pertsona banakoari dagokiona eta gizarteari dagokiona; hau batez ere Jainkoaren legeko aginduen eta sakramentuen irakaskuntza kateketikoan egiten du...; gauza bera egiten du dantzei dagokienean ere.

Dantzen aurka hitz egiten duenean, kristau-moralaren ikuspegitik egiten du soilik eta berberak Euskal Herrian ezagutzen dituen dantzen errealitatearen ikuspegitik. Dantzen aurka hitz egiten duenean, beti ditu gogoan, eta berenberegi esaten du, gehiegikeriazko dantzak, dantza lizunak eta moralaren kontrakoak, familietan hainbeste nahigabe sortzen dituztenak.

Lehenengo eta behin, positiboki mintzatzen da Frai Bartolome igandea gordetzeaz, hau da, igandea Jainko Aitarekin harremanak izateko, hura gores-teko eta Elizarekin bat egiteko dela esango digu. Horrexegatik ematen dio min, hain zuzen ere, Jainkoa iraintzeko igandeetako jaiaz baliatzeak: “Jai domeque-etaco biarra chaarra bada, milla vidar chaarruac dira, neure entzula onac, egun santu oneetan eguiten dirian dantzaac, piestaac, desonestidadiac, ordi-querijac eta jocuac. Oneec dira, san Agustinec, san Carlos Milanguac ta beste santu ta maisu ascoc dinuen leez, jai ta domeeca santubac desondreetan ditubeenac”¹⁰. Orrialde batzuk beherago gauza bera errepikatuko du: “¿Eraotzi ete doscu, bada, jai domequetan biarra eguitia, egun areec euqui daiguzan libre jororaco, tabernaraco, dantzaraco, piestaraco, cunplimentuzco visitetaraco, pasioraco eta jan edaneetaraco?”¹¹

Frai Bartolomek bere liburu guztietan gogoratuko du gehigikeriazko dan-tzen ezmoraltasuna eta honelako izenak darabiltza haientzat: “dantza desonestubac”, “dantza naastubac”, “dantza galdubac”...: “Ez daquit au dan lecuba cerbait esateco, orraco eleisapetan ta ermintapetan piesta egunetan ta beste ascotan guizon ta emacume naaste eguiten dituben dantza desonestubac gaiti. Gauza bat esan neique, lecu ascotan eguiten diriala lotsa guichigaz. Cura jau-nac eta errijetaco burubac quendu leguijee Jaungoicuari bere eche santuban eguiten jacan desondra andi au. Castidadiaren contraco sacrileijo oneec [...]”¹².

⁹ *Euscal errijetaco...*, 142-145.or.

¹⁰ Esku: *Jangoicuaren legueco lelengo bost Aguiduben ogueta bost Lecinoe... I. Partia. 1807. Urtian*, 174-175.or.

¹¹ *Ibd.* 194.or.

¹² *Icas-II*, 70.or.

“Emon daigula castidadia galduteco ocasinoe impametati, ordiquerijetati, emacume dantzaarijetati, cantarijetati, nasaijetati, comedijetati, dantza naastaubeta-ti, iracurte desonestubetati, jantzi indecentetati ta lagun chaarreti alde eguiteco gracia”¹³. “Dantzan edo pandanguan ibilijagaz. Gauza agurija da, chito ezaina ta seina galduteco peligru andicua dala, alan daguan emacumiac dantzan edo pandanguan eguitia, nai bacarric ta nai lagunaquin. Ez leusquijo senarrac ichi biar”¹⁴. “Ez da, Jaungoico bagaco gentilac leguez, verba lotsagarrijetan, jan edan laarreguijetan, dantza desonestubetan ta olgueta zatarretan iragoteco eguna”¹⁵

Seme-alaben heziketa du batez ere gogoan eta haiei ohitura onak irakastea. Eta min ematen dio kristauak festetara eta jokoetara buru eta bihotz emanda bizi izateak: “¿Euren vizi edo demporaric gueijena plazaric plaza, piestatic piesta, dantzaric danza, comedijaric comedija, sarauric sarau, biguiraric biguira, zecenetic cecenetara, joric joco ta maitequeric maitequerijara iragoten daveela? Dinot, cristinaubac, ¿onan? ¿onan vizi? ¿Ta gurari deungac goitu?”¹⁶. Gurasoei erantzunkizun handia ezartzen die honetaz: “Gurasuac ez daucazu beste gauzaric, ceuben ume inocentiac animeetaco, poztuteco, biarra eraiteco edo isilic euquiteco, piesta batera, sarau batera, dantzaco ibilte batera, biguira batera, erromedija batera edo pecatuco ocasinoe batera aguingutia baño”¹⁷. Eta bere azken liburuan berriro gogoraraziko du gauza bera: “Comedijetara, sarau ta viguira nasaijetara, dantza galdubetara ta beste pecatuco ocasinoe jaquine-tara gavaz ta egunaz umiai juaten ichi deutsen gurasuac eguin ditubee compesinoe chaarrac”¹⁸

Eta kezka honen arrazoi edo zio espirituala *Euscal-errijetaco*... liburuaren hasieran agertzen du, Jesukristo gurutzean josiari zuzentzen zaionean, honela: “¿Nori, Jauna, ceuri baino besteri esquini neguijo nic, cartilla edo liburu chiqui onetan lagunai opa deusedan prutu guichija? Ecer badauca onic, ceuria da esquina guztietati. Bestia neuria. Curutze orretan ceure Gorputz biguna, ederra, garbija ta Jaungoicozcua arantzaz ta ultzez zulotuta, colpez zaurituta, azotetz eratzita, autsez ta luurrez ezainduta, biazturez ta ozpinez mingochtuta, odoltuta, illunduta, minduta, eseguita, burlaz ta desondraz estalduta, oinac ta besuac burdina zorrotzez josita, gueu gaiti illten zacustazanian bateti; ta besteti, itsutasun zorigaistoco bategaz ta ez-jaquin lainotsu bategaz etsaijac beretuta daucazala zoro zororic, ceure Odol Santubaren balijuagaz erosi ta garbitutaco arimac ibiliera ta olgueta sarritaco nasaijetan, eureen luurrezco gorputz ustelcorrai nai ta gusto laarregui emotia gaiti; Ceuc ondo daquizun ustiagaz, ta

¹³ *Icas-II*, 84.or.

¹⁴ *Icas-III*, 54.or.

¹⁵ *Icas-III*, 338.or.

¹⁶ *Icas-II*, 278.or.

¹⁷ Esku: *Jangoicuaren legueco...*, 253.or.

¹⁸ *Icas-III*, 165.or.

neure arimaco ta vijotceco gogoric zintzuenagaz, ceure escu jotsijeetara bialduten dot, Jesus Curutzecua, ibiliera ta olgueta santubeen *Neurria*, euqui leguizaneen *Gatza*, ta ezin leguizaneen *Ozpina*. Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua ta arteza dana. Baita nire eguina ezer ez dana bere. Emon eguijozu bada, Jesus Maitia, *Neurrizco Gatz-Ozpin* oni ceure amodijuaren su vitzija, ixio ta erre daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac, ta sortu daguijan gueure arimeetan ceure vildur santuba ta graciaja. Parcatu, Jauna, niri, Ceuri verba eguiten azartuba”.

Hala ere Frai Bartolomek bazekien gustu ona ederresten, bai literaturaren aldetik eta bai dantzarenetik, Iztuetaren argitalpenaren inguruan agertzen duenez.

Bere garaiko sermolari askok bezala (eta Frai Bartolome baino zorrotzagoak alde horretatik), adierazi dugunez, Karmeldarrak dantzak eta batez ere dantzetako gehiegikeriak moralitate aldetik aztertzen ditu. Horrela, Iztuetak *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia...* liburua argitaratuta, geroago honekin eztabaida izaten duenean, klasiko bizkaitarrak Euskal Herriko jende on askoren iritzia agertzen du moralitatearen inguruan: “Y no espere el Autor por su obra mas respetos del religioso, y honesto país bascongado. Pregunte V. a sus paisanos el concepto que ha formado el público de la dicha obra de bayles... y verá V. que no me engaño en mi juicio”¹⁹.

Baina alde artistiko eta etnografikotik begiraturik, Frai Bartolomek fintasun handiagoa eskatzen du, bai literaturari dagokionez eta baita arteari dagokionez ere; Euskal Herriko hainbat lekutan badirela beste dantza eta kanta asko ere esango digu, Iztuetak²⁰ agertzen dituenak baino politagoak direnak.

3. Iturriak

Frai Bartolomek berak aipatzen ditu beren-beregi, dantzen moralitateaz, idazki honetan erabilitako iturriak.

¹⁹ *Plauto bascongado ó el bascuence de Plauto en su comedia...*, 114.

²⁰ *Plauto bascongado ó el bascuence de Plauto en su comedia...*, 114-115: “Si considera V. la dicha obra, por lo que tiene de estilo y pureza del idioma bascongado, tendrá U. que corregirla, y expurgarla en muchísimos pasajes y puntos, principiando desde su título, de donde se deben borrar: *historia... versoaquin*. Si examina U. en ella la ciencia del arte o modos de diversiones... sones... que presenta al país; en las muchachas de los separados caseríos de entre las montañas de la Guipuzcoa, Bizcaya y Navarra hallará U. más modos y más graciosas y más encantadoras artes de diversiones, que en el Autor de bailes. Estas sin conocer una letra, y a pesar del celo de sus padres y ministros evangélicos, pueden ser maestras del Sr. Iztueta en la invención y gracia de las diversiones de su país”.

Lehenik Eskritura Santuaren lekukotasuna darabil, Bibliako hainbat liburu aipatuz, Itun Zaharrekoak soilik (Siraken Jakind., Irteera, Deuteronomioa, Erregeak, Isaias, Jeremias, Job, Tobit).

Eliz Gurasoak aipatzen ditu: San Agustin, San Krisostomo, San Efren, San Basilio, San Isidoro, Tertuliano... 92. orrialdean hainbat teologo eta moralistaren izenak dakartza, XVII-XVIII. mendeetan asko erabiltzen zirenak, (Frai Bartolomek batez ere hauek aipatzen ditu behin baino gehiagotan: Natal Alexandro, Lamet, Marchant...); hauetariko batzuk bere garaikoak zituen eta haien liburuak Euskal Herrian argitaratuak ziren, esaterako, Frantzisko Antonio Palacios, J. Antonio Mogel... Baina guztien artean bereziki gogoan hartzekoak, San Tomas Akinokoa eta San Frantzisko Saleskoa dira, haren garaian maisu handitzat zeudenak.

Hala ere, Frai Bartolomerentzat eta honen garaikoentzat iturri nagusia, gai honetan, Aita Santu Benedikto XIV.a da, Boloniako²¹ kardinal artzapezpiku zene-ko idazki pastoraletako bere *Instructio*76rekin. 1737ko *Instructio*76 honek izenburu hau zuen: “Carta circular a los arciprestes, Vicarios, Foráneos y Curas de la Diocesi, en orden a los Bayles; y si son por su naturaleza pecaminosos. Si peca el Secular, que va a los Bayles. Del gran rigor y penas, con que les está prohibido a los Eclesiásticos el asistir a los Bayles y mucho más el baylar”.

Instructio hau beste autore batzuek ere aipatzen dute, esaterako, Frantzisko Antonio Palacios-ek. Areago oraindik, Bartolomek aipatzen dituen hainbat autore *Instructio* honetatik hartuak daude, esaterako: Señeri, Carlos Borromeo, Francolino, Marcancio, Langio etab. Liburutxo honetan Frai Bartolomek 9 bider aipatzen du Benedikto XIV.a.

Frai Bartolomek oso ongi ezagutzen zuen Aita Frantzisko Antonio Palacios-en liburua, Iruñean 1791n argitaratua: *Viva Jesus. Respuesta satisfactoria del colegio de Misioneros de N.P.San Francisco de la N.Villa de Zarauz a la consulta...* Liburuan, Bartolomek bere eskuz idatzitako esaldi bat dagoelako, daki-gu hori. Liburu honetan aipatzen diren autore asko Frai Bartolomek ere aipatzen ditu berean.

Frai Bartolomek dantza, bigira eta abarren berri, moralaren ikuspegitik hain zuzen, dakarren euskarazko liburu bat ere aipatzen du, urte batzuk lehenago, hau da, 1803an bere adiskide J.A. Mogelek Gasteizen argitaratua; honela aipatzen du: “Iracaste. 10”. *Confesino ona edo, ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo eguiña izateco* liburuaren 10. kapitulua dugu.

Bai J.A. Mogelek eta bai Bartolomek gai horretaz idatzi zuten Markinan urte gutxiren aldeaz. Erara dator hemen J.A. Mogelen pentsamendua gogoratzeari. Hona “Iracaste X”etik hartutako pasarte batzuk: “Nescatilla zoruac egui-

²¹ *Carta pastoral de N.SS^{mo} Padre Benedicto XIV, de gloriosa memoria, siendo cardenal arzobispo de la Santa Iglesia de Bolonia; e Instrucciones Eclesiásticas de su diocesis* (traducidas del toscano por el R^{mo} P. M.Fr. Juan Facundo Raulin...), 2.t., Madrid, 1769, 126-136.or.

ten ditube barre gozuac; eragotzi biar leuqueen guizon ta andra naustubac, ez dabee damuric artuten, ta uste dabee gazteetan guztia ondo dirudijala. Alan, ascotan guzti guztiac, zar ta gaztiac beteten dira pecatuz ¿Ceimbat danza modu dongaco? ¿Celango escu ezarte, ta laztanac? Ordu osuac gabaz pecatu asco eguiten iragota, duaz euren echetara illunian nescatillac ta mutillac, ta aitatu bere biar ez dira alcarren artian eguin daruezan ciquinquerijac, ta duaz oera pecatuz aseta. Oney deituten deutsee biguirac: icusten dira cristinau errijetan: gurasuac largaten deutsee seme alabay alango biarguintzetara juaten; bay, euren zorigaistuan” (130-131). Eta geroxeago, ermiten ondoan egin ohi ziren festei buruz honela dio: “¿Ce guaza on icusten da vide orreetan? ¿Mutil ta nescatillac celan dabilta? ¿Ce verbac esan daruez? ¿Ceimbat escu ezarte, ta mosuca gaisto? ¿Ceimbat conversacinoe lotsagarri? ¿Ceimbat algara gozo enzunda verba chaarrac?” (132). Eta dantzaz lizunei buruz: “Ez dago iñor accinoe donga oneec librauco ditubanic pecatu mortaleti, dala emoten deutseelaco pecatu vidia nestatilla danza lagunari, dala icusten dagozanai. Onelango dancetati alde eguin gura ez dabeenac, vici dira pecatubetaco ocasio ezagutuban. ¡O guraso euren echeetan onelango biguira ta danza lotsabaguiac euquiten dituzubenac!” (134)

Pixka bat laburrago azaltzen zituen gauzak, lehenago, *Christinaubaren Eracuspenea edo Doctrina christiana* bere liburuan, orain dela gutxi beste eskuizkribu baten izenburuaz argitaratua: *Cristinaubaren Icasbidea edo Doctrina cristiana* ²². Esaterako, bihotza garbi zaintzeko zer egin behar den esango digu. Honela dator 172. orrialdean: “Igues eguin danza, biguira, ta lagun deungueen batzar guztietati”. Eta gaizpidea dakarrena zer den esango digu gero: “Euren Echetan artazuriqueta ospetsu, ta biguira infernucac isten, edo permitietan ditubenac. Jaincuak berac daqui ceimbat lotsagabaqueria, ta pecatu datoza onelako batzar madaricatubetatic” (205.or.).

Beraz, bi markinartzakoak bat datoz arazo hau moral aldetik aztertzerakotan. Frai Bartolomek astiroago eta zehatzago egingo du liburu honetan, baina gero ere behin eta berriro gogoratuko du gainerako liburuetan eta bere sermoinetan; bestalde, bere adiskide ospetsu eta *Peru Abarcaren* egileak baino estilo biziago eta distiratsua egingo du.

4. Siglak eta aureko argitalpenak

Frai Bartolomeren liburu hau, haren obra guztietarik ezagunena eta argitaratua izan denez gero, aparatua kritikoko oharrak ere asko ugaritzen dira, agertu diren edizioen arteko ezberdintasunak adierazten ditugulako...

²² Juan Antonio MOGUEL TA URQUIZA, *Cristinaubaren icasbidea edo doctrina cristiana* . (Edizio kritikoa: Fr. Luis Villasante), Bilbao, 1987, 316 or. (Euskararen lekukoak - 14)

Sarrera orokorrean agertzen ditugu geure argitalpen honen handi-handikako argibideak; baita aparatu kritikoan ez datozen zenbait gauza ere, esaterako, puntuazio-markei dagozkienak, hor aldaketak sartu baititugu; komei dagozkienak batez ere ugari...

Aparatu kritikoan sigla hauek darabilzkigu:

- Ba *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac prestauba*. Iruñean, 1816 urtian.
- Do *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac prestauba*. Iruñean, 1816 urtian. [Dodgsonen argitalpena (A. Kanpionen oharrekin). Iruña, 1904 (1914)].
- Lo *Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Madariaga Garate'ren Idazlanak (1768-1835)*. Gertatzaille: Arteaga'tar Lon, K.O.; argitaratu gabea.
- Mu *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba ...*, Bilbao, 1986. (Edizio kritikoa: Luis Maria Mujika).
- Al *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba (1816)*. Bilbao, 1987. (Edizio kritikoa: P. Altuna).

EUSCAL-ERRIJETACO
OLGUEETA TA DANTZEEN
NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA
AITA PRAI BARTOLOME
SANTA TERESA,
MARQUINACO CARMEN
ORTOZECO
PREDICADORIAC PRESTAUBA.

5

IRUÑEAN. JOAQUIN DOMINGO
Nausijaren eta Gaztiaren
Liburuguillaan.
Biar dan ondo izatiagaz.
1816 urtian.

10

¿Nori, Jauna, ceuri baino besteri esquini neguijo nic, cartilla edo liburu chi-
 qui onetan lagunai opa deutesdan prutu guichija? Ecer badauca onic, ceuria da
 esquina [4] guztietati. Bestia neuria. Curutze orretan ceure Gorputz biguna,
 ederra, garbija ta Jaungoicozcua arantzaz ta ultzez zulotuta, colpez zaurituta, 20
 azotez eratzita, autsez ta luurrez ezainduta, biazturez ta ozpinez mingochtuta,
 odolotuta, illunduta, minduta, eseguita, burlaz ta desondraz estalduta, oinac ta
 besuac burdina zorrotzez josita, gueu gaiti illten zacustazanian bateti; ta beste-
 ti, itsutasun zorigaistoco bategaz ta ez-jaquin lainotsu bategaz etsaijac beretuta 25
 daucazala zoro zororic, ceure odol santubaren balijuagaz erosi ta [5] garbituta-
 co arimac ibiliera ta olgueeta sarritaco nasaijetan, eureen luurrezco gorputz
 ustelcorrai nai ta gusto laarregui emotia gaiti; Ceuc ondo daquizun ustiagaz, ta
 neure arimaco ta vijotceco gogoric zintzuenagaz, ceure escu jotsijeetara bial-
 duten dot, Jesus Curutzecua, ibiliera ta olgueta santubeen *neurria*, euqui legui-
 zaneen *gatza*, ta ezin leguizaneen *ozpina*. Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua 30
 ta arteza dana. Baita nire eguina ezer ez dana bere. Emon eguijozu bada, Jesus
 maitia, *neurrizco gatz-oz-* [6]*pin* oni ceure amodijuaren su vitzija², ixio ta erre
 daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac, ta sortu daguijan gueure
 arimeetan ceure vildur santuba ta gracia. Parcatu, Jauna, niri, Ceuri verba egui-
 ten azartuba. 35

[7] Olgueetia, ibiltia, demporia iragotia, aisia artutia ta divertidutia dira, cristi-
 naubeen goguan, eguitadeetan ta auan chito sarri davilzanac, ta oitura onai
 edo galdubai ascotan izatia emoten deutseenac. Au gaiti aimbeste gauza esa-
 ten dira eureen gainian Escritura Sagraduban, theologijaco ta eracuste oneco 40
 liburubetan. Eureen izenagaz batiatuten dira, bai gorputz cansaubari atseen
 eraguiteco, bai buru necatuba arinduteco ta bai osasun jausija sendotuteco
 dagozan olgueta modu inocentiac. Ta bai, pecatuba, nasaitasuna, libertadia,

24 zorigaistoco *Do Al Lq* zorigaistico *Ba (in-hu) Mu* 27 laarregui] laarregui *Mu* 30
 dacuszu] dacuzu *Do* 31 ez dana *Lq* ezdana *Ba Do Mu Al*

¹ *Jesucristo* da gehien darabilen forma eta guk hauxe hobestea erabaki dugu (ik. 396.or.).

² *t*-dun idazkerak eta *t* gabekoak, biak utzi ditugu halaxe (ik. 236-238.or.).

desonestidadia ta oitura impamiac beti oinian euquiteco ta gueitubaz eruateco, arimeen arerijuac asmau dituban olgueeta gal-[8]dubac bere. Icenac ez dirian
 45 leguez eureenez pecatuzcuac, ta dagozan leguez olgueeta batzuc ez chaarrac, pecatu ez dirianac, guztiac onzat emon gura lituquee mundubac, diabrubic eta araguijac.

Alan olgueetiaren izenagaz ta estalguijagaz eguiten dira, cristandade³ guztia desondreetan daueen gachac, ta ainchinaco gentilac bere lotsaz baino eguiten ez citubeen pecatubac. Oneen contra ixildu bagaric diadar eguiten davee
 50 Eleisiaren⁴ guiza aldi guztietaco Gurasuac eta Eracuslaac. Baita Espiritu Santubac bere lecu ascotan, aitu gura dauenarentzat (1).

[9] Olgueeta guztien artian lecuric zabalena ta cer pensau gueijeen daucana da dantzia. Lenago edo gueruago, modu batera edo bestera, guichiago edo
 55 gueijago dantzetan ez dan olguetiac, ez dauca gatzic, ez dauca gustoric. Orregaiti aimbeste gauza esan dira ta escribidu dira, Moisen demporati ona dantziaren gainian. Batzuc lau ormaren artian sartuta, dantziac berezco izatian daucazan asmo utsai jarraituta, escribidu evenac. Ta bestiac, guizonaren naturaleza jausijari beguiratuta, Evangelijoco espiritubagaz naasteco dantzia eguiten
 60 daveen moduban esaminauta, eureen gainian verba eguin daueenac. Areec esan dauee, dantzia berez ez dala pecatu. Ta bestiac, dantzia berez pecatu izan ez arren, eguiten [10] dan moduban ta naturaleza jausijac guizon ta emacume naaste eguin leijan moduban, pecatu dala edo pecatuco ocasino urrecua dala.

Menturaz ez da cristandade guztian dantza desonestubagoric ta lotsa guichiagocoric eguiten egun arguiz, euscal errijetan baino. Jazo leiteque au gueure⁵
 65

 (1) Ecll. 9. Isai. 3. Job. 21. Exod. 32. Tob. 3. Jerem. 15.

46 dirianac *Do* (213.or.) *Lo Al* diaranac *Ba* (*in-hu*) *Mu* 55 ez dan *Do Lq* ezdan *Ba Mu Al* | ez dauca gatzic, ez dauca *Lq* ezdauca gatzic, ezdauca *Ba Do Mu Al* 61 ez dala *Do Lq* ezdala *Ba Mu Al* 64 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu*

³ Liburu honetan Frai Bartolomek *cristandade* hitza darabil gehienetan (12 bider edo), behin *cristindade* eta beste behin *cristautasun*. Hala ere, *cristinau* edo *cristinauba* etab. sarri-sarri agertzen dira. *Cristandade* hitzaren barnean den esanahia nahiko finkatua da Errege katolikoak ezkerro eta Erromak onartua izan ondoren: kristauen artean osatutako multzoa da, berariaz erlijiosoak edo elizakoak diren estamentuez gain, hau da, apezpiku, apaiz, sermolari, bikario eta abarrez gain, izaera zibileko beste batzuk ere, esaterako, epaileak eta bereziki erregeak barne hartzen dituen; izan ere, erregea eskumen erlijioso z jantzia izaten zen *Cristandadea* deritzon horren barnean, nolabait esateko, apaiza baino goragoko eskumenez.

⁴ Hauxe da hitz hau idazteko liburu honetan darabilen ohiko grafia; beste liburuetan *elexa* ere badarabil (ik. kontsonante txistukariez esan dena, 223-224.or.).

⁵ Jakina denez, izenordain hauek bi forma dituzte: forma arruntak eta indartuak: *gure* eta *geure*. Forma indartua, perpausan *nor*, *nork* nahiz *nori* osagaitzat aipatua dena berari dagokionean erabiltzen da. Hau da Iparraldeko idazle klasikoengandik hasita datorren joera. Hala ere,

eusqueran casic ezer bere escribiduta⁶ ez dagualaco dantza galduben gainian. Bada, izanic euscal errijetaco gentia cristinautasun andicua euren tratu, artu emon ta eguitade guztietan, dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan.

Au gaiti pensau dot, azartu biar dodala naasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara, euscal errijetaco cristinau itsubac contuban jausi ditezan eureen uts eguite andi onetan. [11] Ta ene ondoric beste batec argui gueijagogaz, pluma obiaguagaz ta zelo santubaguagaz amaitu daguijan sail au. Escatuten deutseet guztiai: au iracurri, noberari ez bajuaco leguez, naasteco dantzai beguiratu ta dantzarijac ondo ondo esaminau artian, ez naijela simplezat euqui.

67 ez dagualaco *Ba* ezdagualaco 69 olganzaco| olgantzaco *Do* 74 deutseet *Al* duseet (*in-hu*) *Ba*, deuseet *Do* deutset *Mu Lo* | ez bajuaco *Do(?) Lq* ezbajuaco *Ba Mu Al* 75 ta *Do Al Lq* tan *Ba* (*in-hu*) *Mu* | simplezat| simpletatzat *Do* (212.or.)

hauen erabileran bada alderik euskalkitik euskalkira. Bizkaierazko tradizioan forma indartuak erabiltzeko joera besteetan baino markatuagoa da, eta goian adierazitako kasuaz gain, beste batzuetan ere agertzen da, hiztunak elementu hori nolabait azpimarratu edo nabarmendu nahi duenean. Horrela, gure idazleak *gueure eusqueran casic ezer bere escribiduta ez dagualaco*, idatziko digu.

⁶ Egia da gai honetaz ez zela ezer idatzi euskaraz; hala ere, gaztelaniaz bazegoen Euskal Herrian zerbait argitaraturik gai horri buruz, esaterako, Aita Frantzisko Antonio Palacios-en (*Viva Jesus. Respuesta satisfactoria del colegio de Misioneros de N.P.San Francisco de la N.Villa de Zarauz a la consulta ...*), Iruñean 1791n argitaratua. Komeni da adieraztea, Frai Bartolomek Markinako Karmengo liburutegiko liburu honetan ohar autografo hau idatzi zuela: "Del Carmen de Marquina". Geroago, 1824an, agertu zen Juan Ignacio de Izuetaeren lana (*Guipuzcoaco dantzaz gogoangarrien condaira edo historia ...* Donostia, 1824), hain zuzen ere, Frai Bartolomek kritika egin ziona, bai jolas politagoak, gustagarriagoak liburuan jaso gabe utzi zituelako eta baita darabilen idazkera eta euskara traketsak iruditzen zaizkiolako ere (*Plauto Bascongado ó el bascuence de Plauto en su comedia...*, 114-115.or.).

1. CAPITULUBA

Olguetiaren gainian

§. I. Nosbait zetan edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena da.

§. II. Errazoezco olguetiac ez dau eragozten Jangoicua servidutia.

§. III. Cristinauba Jangoicuagan aleguere izatia, gauza ona da.

5

[12]

§. I.

Nosbait zetan edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena da

Uts eguite atreviduba ta pena andija merceduten dauena da, cristinaubari Jangoicuac imini deutsan baino legue astunagua ta carga andijagua ipintia. Jangoicuaren leguia ta ordenia arteza, arguija ta santuba da. Cristinau guztiac 10
icasi ta gorde biar daveena da. Baina ez, guichituta, mudauta, noberac gura daven moduban, ezpada Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiaren espiritubac eracusten daven moduban. Jaungoicuac condeneetan davena, guizonac onzat emon ezin leguijee. Ezda Jaungoicuac onzat emoten davena bere, guizonac condenau.

[13] Maldicinoe baten azpijan eragotzita dauca Jaungoicuac, gauza ona charra 15
dala, ta gauza charra ona dala eracustia (2). Propeta paltsuen lecuban conteetan ditu Jangoicuac ta zamai andijaquin castiguetan ditu, eureen burutacinoiagaz leguia eguinda, Jangoicuaren esana balitz leguez prediqueetan daveenac (3).

Au gaiti olguetiaren gainian verba eguiten danian, alderatu biar dira uts 20
eguiteco esquina bijac, beste edocein gauzatan leguez. Bata *laarreguija*, ta bestia *guichijeguija*. Batzuc zabalduten dituee olgueetaac pecatuzcuetaraguino. Ta beste batzuc laburtuten ditubee gach bagacuac bere. Olgueeta asco

(2) Isai 5. (3) Jerem. 3.

3 Nosbait *Al Lq* Nos bait *Ba Do Mu* 4 ez dau *Do Lq* ezdau *Ba Mu Al* | Jangoicua *Lo* (Jaungoikua) Jangoicoa *Ba (in-hu ?) Do Mu Al* 7 Nosbait *Al Lq* Nos bait *Ba Do Mu* 8 ta *Do Al Lq* to *Bar (in-hu) Mu* 12 ezpada *Al* ez bada *Ba Do Mu Lo* | Espiritubac *Do Mu Lq* Espiriubac *Ba (in-hu)* 14 Ezda *Al Lq* Ez da *Ba Do Mu* | condenau *Do Al Lq* condenan *Ba (in-hu, 208.or.: condenau) Mu* 21 eguiteco *Al* egiteco *Ba (in-hu) Do Mu Lo* 22 olgueetaac *Al* olgeetaac *Ba (in-hu), Do Mu* | pecatuzcuetaraguino] pecutuzcuetaraguino *Do (in-hu, 213.or.: pecatuzcuetaraguino)*

25 dirian leguez pecatuzcuac, cris-[14]tinaubac inos bere eguin biar ez ditubanac, beste asco dagoz inocentiac, arimara gachic ez dacarreenac ta naturaleciac escatuten ditubanac, errazoiaren legueti urten bagaric.

Olgueetia da, noberaren cereguin nausijai ta obligacinoiai ichita, goguc escatuten deusnan beste gauza baten, demporia iragotia. Ta au, nosic beinaco
30 batzubetan naturaleciac escatuten daveena, da. Ez dago ezer bere munduban, inos ichi bagaric jarduteco, guizonac artuco leuquian cereguinic. Asmau vedi naijeen dan gauzia, gueijeen gusteetan jacona, ta berari ichi bagaric beti vici biar badau, laster cansauco da. Codicijoso batec gueijen nai davena da diruba conteetia ta poltsaan gordeetia. Baina, jagui bagaric beti jardun biar baleu diru-
35 ba con-[15]teetan ta gordeetan, egun guichi barru guratuco⁷ litzaateque, biarra mudeetan. Guleru batec janian ta edanian dauca bere poz ta gusto guztia. Baina, beti jaaten ta edaaten egon biar baleu, laster aspertuco litzaateque. Jocolari batec jocuan dauca bere gogua. Baina, urte osuan egon biar baleu jocuari ichi bagaric, gania⁸ etorrigo lichaquo jocuari isteco.

40 Beste ainbeste dauquee, ta gogo betia⁹ emoten dabee, inos ichi bagaric equin ezquero, estudijuac, lanac, oracinoiac, errazubac, biarrac, luac, soinubac, dantziac ta beste gauza guztia. Ez beste gauza gaiti, ez bada gueure genijuac, condecinoiac edo naturaleciac beti sen baten biar baten edo gauza baten, gobait eguin bagaric, iraun ecin davelaco. Orregaiti cein ari-[16]maco ta cein
45 gorputzeco lanetan, arei ichita, nosbait atseetia ta soseguetia, gueure izatiac edo naturaleciac escatuten daven gaucia da.

25 ez ditubanac *Al Lq* ezditubanac *Ba Do Mu* 26 dagoz inocentiac] dogoz inotiac *Do (in-hu)* | ez dacarreenac *Al Lq* ezdacarreenac *Ba Do Mu* 27 ditubanac *Do Al Lq* ditu banac *Ba (in-hu ?)*, *Mu* 28 cereguin *Lo Dq(?)*] cer eguin *Ba Mu Al* 30 Ez dago *Lq* Ezdago *Ba Do Mu Al* | ezer bere *Al Lq* ezerbere *Ba Do Mu* 33 cansauco da *Do Al Lq* cansaucoda *Ba Mu* 34 jardun *Al Lq* jardun *Ba Do Mu* 35 guratuco *Dq* guratuco *Ba (in-hu) Mu Al (?)*, geratuko *Lo* 37 beti] bati *Do (213.or.: beti)* 39 gania *Lq* gainia *Ba (in-hu) Do Mu Al (?)* 40 ainbeste *Al Lq* ain beste *Ba Do Mu* 43 ez bada *Al* ez bada *Ba Do Mu Lo* 44 gobait] gogait *Mu Al (oharrear)* | ecin davelaco *Do Al Lq* ecindavelaco *Ba Mu* 45 nosbait] nos bait *Do*

⁷ Inprimategiko hutsa edo izan behar du originalean datorren *gurataco*. Guk *guratuco* eman dugu. Hiztegi batzuek jasotzen dute forma hau; era irangaitzean “zaletu” esan nahiko luke, gaztelaniaz “aficionarse”; era irangankorrear, berriz, “nahi izan”, “gura izan”. Hemen aditz laguntzaile irangaitzarekin dator... Bere obra osoan barrena hementxe darabil soilik; bestalde, “naitu” nahiko normala da gure idazlearengan, aditz laguntzaile irangankorreakin, noski.

⁸ Larramendik euskarazko hitza dela dio. Bartolomek behin baino gehiagotan dakar, baina ez sarri. Gaur egun, haren eskualdean nekez entzun daiteke; horren ordeez, “gogoa” erabiltzen da. Bizkaiko mendebaldean, berriz, eguneroko hitza da: “gana barik”, “jateko ganea”...

⁹ Oraingo idazleengan, eskuarki, “gogobete”, “gogobeteko” hitzak guztiz gogokoa, atsegina adierazteko erabiltzen dira, baina Bartolomerengan horren alderantzizko esanahia du beti, gehiegizko asebetetzea, higuina... (ik. 328.or.).

§. II.

Errazuazco olgueetiac ez dau eragozten Jaungoicua servidutia.

Batzuc uste davee, olgueeta guztiac diriala libre cristinaubarenzat. Beste batzuc, ain dira condicinoe latcecuac, estubac, iraciac eta sicubac, ece, uste davee, olgueeta guztiac diriala chaarrac; ta beti vijotz sicu, illun bategaz ez davillenac, ezin Jaungoicua servidu leijala. Oneec, icusten badabee praille bat, edo monja bat, edo sacerdote bat, nosbait barre eguiten, edo pusca bat olgueetan gal-[17]duba da. Ya ez dauca (oneen erechijan) ez erliginoric, ez Jaungoicuaren bildurric, ibiltia ta olgueetia baino.

Bitzubic uts eguiten davee. Bada, ez olgueeta guztiac dira onac, ez guztiac dira chaarrac edo pecatuzcuac. Errazuazco olgueetiac ta diversinoiac ez dau eragozten Jaungoicua servidutia. Juicijozco Eracusla guztiac autor davee eguija au. Santo Tomas, Eleisiaren eracusliac san Juan Evangelistiaren jazuagaz, ta Casianogaz esaten dau (4): Lanian diarduban gorputzac nosbait atseen biar daven leguez, alan arimiac bere nosbait sosegau, atseen edo arindu biar da-[18]vela bere nequia, guero gogo obiagaz ostera equiteco bere cereguinai¹⁰. San Francisco Salesec beste ainbeste esaten dau (5). Ta ecarten ditu exempluzat san Carlos Milangua, san Ignacio Loijolacua ta santa Isabel Ungarijaco erreguina¹¹, ceintzuc nosbait jocuan, edo beste gauza inocenteetan divertituten cirian,

(4) 2. 2, q. 168, a. 2. (5) *Intr. á la vid. dev.*, p. 3, c. 33.

48 ez dau *Do Al Lq* ezdau *Ba Mu* | Jaungoicua *Ba Jaungoioia (in-hu)* 51 illun *Lq* illum *Ba Do Mu Al* 51-52 ez davillenac *Al Lq* ezdavillenac *Ba Do Mu* 53 nosbait *Al Lq* nos bait *Ba Do Mu* | pusca bat *Do Lq* puscabat *Ba Mu Al* 54 Ya] lia *Ba Do Al, ia Mu Lo* 55 Jaungoicuaren *Lo*/Jaungoicoaren *Ba Do Al Mu* 56 uts *Do Al Lq* ust *Ba (in-hu)*, uste *Mu* 57 ez dau *Do Al Lq* ezdau *Ba Mu* 60 nosbait *Al Lq* nos bait *Ba Do Mu* 61 nosbait *Al Lq* nos bait *Ba Do Mu* 63 ainbeste *Al Lq* ain beste *Ba Do Mu* 64 Ungarijaco *Dq* Ungaijaco *Ba (in-hu)* *Mu Al*, Ungriako *Lo* 65 gauza *Do Al Lq* guaza *Ba (in-hu)* *Mu*

¹⁰ S.Tomasen idazkien aipamenetarako Anberesko 1576ko edizioa darabilgu (*Secunda secun dae partis summae sacrae theologiae...*), Frai Bartolomek eskura izan zuena delako, bere eskuz idatzitako oharretik dakigunez. Frai Bartolomek berak egiten du S.Tomasen testuaren "2.2. q.168.a.2" aipamena, 590-591. orrialdeetan dagoena. Hala ere, S.Tomasek ez du hemen Kasiano aipatzen, baizik eta "collationibus Patrum" dela eta hitz egiten du eta ertzean daukagu aipamena "In colla. 24. c. 21". Testu ospetsu hau, S. Frantzisko Saleskoak ere gogoratzen duena, baina honek Casiano aipatuz, eta Frai Bartolomek ondoren aipatzen duena, honako obra honetan aurki daiteke: J. CASIANO, *Collatio XXIV*, cap. 21: PL, Migne, 49, col. 1312-1315.

¹¹ Frai Bartolomek eskura izan zezekeen 1737ko edizioan (*Introducción a la vida devota...*, Madrid, 1737) aipamen hau, 34. kapituluan (170-171.or.) dago. Interresgarria da adieraztea, F.A.Palacios-ek ere, aipatua dugun *Viva Jesus. Respuesta satisfactoria del colegio de Misioneros*. bere liburuan, egiten duela 33. kapituluko 42, 55 orrialdeen aipua. S.Frantzisko Saleskoaren tes-

Jaungoicuaren adisquide ta santu izatia atzeratu bagaric. Inos bere ez olgueetia ta inor olgueetan ez icusi gura izatia, diñue santo Tomasec ta san Franciscoc, dala vijotz gogorraren, baso usainecuaren ta galdubaren señalia.
 70 Beti tiraan dagan arija, laster eteten da. Beti postaan davilen zaldija, laster amaituten da. Ta beti gauza bati [19] ichi bagaric darraicon gogua, buruba ta gorputza bere, laster galduten dira eurenez. Au ezaututa, erliginoe santubeen burubac eta gurasuac, santu izatiari ichi bagaric, eureen erregueleetan ta ordenetan ipini evenen, batzuc gueijago ta beste batzuc guichiago, religiosuac eta
 75 religiosaac atsetaco ta eureen neque egunianguac arinduteco demporia¹².

¿Esango dogu, santu andi areec ez eveela euqui ceruco arguija? ¿Edo, ez eveela ezautu evangelijoco espirituba? ¿Edo, ez citubeela ichi mediijo segurubac eureen erliginoetan, gura davena, santu izateco? Ezin esan guinai uts eguite andi baten beian.

80 Ez da olgueetia edo diversinoia artu biar opicijoz ta gogoz popuer-[20]tzaco lana edo cereguina balitz leguez; ez bada gorputzari ta entendimentubari atseen eraguiteco, ta gogo barrijagaz ta animo gueijagogaz bere eguiquizunari jarraituteco. Gurariz ta gogoz artuten badira olgueetaac, eurenez onac izan

70 eteten da *Do Al Lq* etetenda *Ba Mu* 71 amaituten da *Do Al Lq* amaitutenda *Ba Mu*
 75 egunianguac] egunianguac *Do* 80 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* | porpuertzaco *Do*
Mu Al Lq porpuertzaco *Ba (in-hu)* 81 ez bada *Al Lq* ez bada *Ba Do Mu*

tua, Frantzisko Cubillas-en itzulpenaren arabera, honako hau da: "Hame consolado aver leído en la vida de S.Carlos Borromeo, que condescendia con los Suizos en ciertas cosas, en las cuales por otra parte era muy severo. Y que el Beato Ignacio de Loyola, estando combidado a jugar, lo aceptó. Santa Isabel de Ungría tambien a veces jugaba, y danzaba, hallándose en las juntas de passatiempo, sin menoscabo de su devoción"... (171.or.). Eta S.Casianoren kontaketari dagokion aipamena hirugarren parte honetako 31. kapitulan (167.or.) dator.

¹² Frai Bartolomek orokorki aipatzen ditu Guraso Santuen erregelak; hala ere erregelan bertan, esaterako, S. Benitorean eta abarretan, honelako jolasen aipamen zehatzik etorri ez arren, Ordena erlijiosoetako geroke konstituzioetan bai agertzen da. Dena dela, tradiziozko ideia baten aipua ere izan daiteke, Johannes Casianus-en *collationes Patrum* delakoan oinarritzen dena; horren arabera, lege-betetzearen soka ez omen da gehiegi estutu behar... (ik. PL, Migne, 49, col. 1312-1315).

Honi dagokionez, Frai Bartolomek ezagutzen zituen S.Teresaren konstituzioak eta kapitulu honetan behin baino gehiagotan aipatzen du S.Teresa: "Salidas de comer, podrá la madre priora dispensar que todas juntas puedan hablar en lo que más gusto les diere"... (*Constituciones*, nº 26). Baina beste atal batzuetan oraindik zehatzago dator: "Mas hay muchas cosas adonde se sufre -como he dicho- tomar recreación aun para tornar a la oración más fuertes" (*Vida*, 13,1); "Procurar también holgaros con las hermanas cuando tienen recreación con necesidad de ella y el rato que es de costumbre"... (*Camino de Perfección* 7,7); ..."estilo de hermandad y recreación que tenemos juntos; que todo es con tanta moderación, que sólo sirve de entender allí las faltas de las hermanas y tomar un poco de alivio para llevar el rigor de la Regla" (*Libro de las Fundaciones*, 13, 5).

arren, olgheetaco borondate laarreguija gaiti, ez dira izango onac. Ta guichia-
go edo gueijago eragotzico davee Jaungoicua servidutia. Baina alaco olgheetaco
apicinoia edo gurari laarreguija ez da errazuazcua arimaraco, evangelijo 85
santubac eragotzita daucalaco. Errazuazco olgheetiac esaten da, bada, ez dabe-
la eragotzen Jaungoicua servidutia. Ez, aldia bateti edo besteti, erregelati cam-
pora daguan olgheetia gaiti.

[21]

§. III.

90

Cristinauba aleguere izatia ez da berez gauza charra

¡Ojala, mundutarrac ezautuco balevee eguija onen indar guztia! ¡Ojala,
topauco balevee daguan lecuban alegrija eguijazcua! ¡Ojala, pozu chistarretaco
ur berdiai ta mingochai ichita, juango balira vizitzaco iturri gozoco ur garbijac
ta pozgarrijac edaatera! ¡Egitoco quipula garratzai larga, ta Ceruco Mana gozua 95
gusteetara!¹³ Orduban ezautuco leuquee cristinaubac, ce gozua, ce alegueria ta
ce atseguinezcua dan gueure vizitzia.

Ez da gueure Jaungoicua ez zitala, ez urrija, ez prestubeza, ez tristia; ezba-
da arteza, zuzena, zabala, [22] ugarija, vijotz nasaicua ta alegueria, biar dan
moduban aitu ezquero. Ez dau Jaungoicuac condeneetan aleguere izatia ta 100
umore ona euquitia. Conciencia garbijac beragaz dacar, ez daquit celaco con-
tentu bat, poz bat, alegrija bat, ta esan ezin leijan vijotzeco nasaitasun bat eta
libertade bat. Espiritu Santubac lecu ascotan encargueetan deuscu
Jaungoicuaren bildur santuba¹⁴; baina ez dau onec gueure vijotzetati quendu-
ten alegrija eguijazcua. ¿Ceinbat lecutan Escritura Sagradubac esaten deuscu 105
poztu gaitetzala, consolau gaitetzala ta alegrau gaitetzala? ¿Ceinbat bidar Eleisa

84 ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* 86 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 87 ez dabela *Do Al Lq* ezdabela *Ba Mu* 88 aldia] alde *Do* 89 gaiti *Do (Mu) Al Lq* gastü *Ba (in-hu)* 95 pozgarrijac] pozgarrijaz *Mu* 98-99 ezpada *Al* ez bada *Ba Do Mu Lo* 100 Ez dau *Do Al Lq* ezdau *Ba Mu* 101 ez daquit *Al Lq* ez daquit *Ba Do Mu* 102 ezin leijan *Do Al Lq* ezinleijan *Ba Mu* | vijotzeco *Al* viotzeco *Ba (in-hu) Do Mu Lo* 103 deuscu] deuscu *Mu* 104 ez dau *Do Al Lq* ezdau *Ba Mu* 105 deuscu] deuscu *Mu* 106 Ceinbat *Al Lq* Cein bat *Ba Do Mu*

¹³ Ik. Ir 16, 1-35; Zen 11, 5-7; Jn 6, 31-32.

¹⁴ *Timor Domini* edo *Beldur santua*. Ez du Eskritura Santuan barrena hainbeste bider ahotan harten den zorigaitzaren, sufrimenduaren... beldurra esan nahi, hori guztia gaintitzen duen Jainkoaren beldurra baizik (Is 8,13; Sal 112,1.8); hau da, debozioarekin, maitasunezko erlijiotasun edo santutasunarekin estu-estu erlazonaturik dagoen Jainkoaren beldurra... Jainkoaren beldurrak bekatuaren beldurra dakar (Ir 20,20), haren ustez (Has 3,10; Jl 2,11) ... ; horrela, Jainkoaren beldurra haren aginduak betetzearekin bat egiten da (Dt 10,12.20). Itun Berrian beldur hau maitasunaren atzetik gelditzen da (1Jn 4,18).

- ama santiac combideetan gaitu, aleguere egotera? Ez dogu santubeen vizitzetan iracurten, mundubari bildur jacon tristeza larriric ta vijotz illu-[23]nic. Bai, arpeguijan aguiri jacuen alegrija ta poza. Beste ascoren artian ene ama santa
- 110 Teresa bat da asco, mundu guztiari aleguere izaten eracusteco¹⁵. Batec irago euquezan trabajuric andijenac ta luceenac irago cituban santa Teresac, bai persecucinoiac, gorputzeco gaisoac ta alaac, bai cereguin estubac ta andijac, bai penitencijac, ta bai concienacijaco dudaac, quezcaac eta penaac. Baina bein pusca baten baino, ez eban Santia inoc icutsi¹⁶ triste.
- 115 Sarri iragoten cituban santa Teresac gau osuac oracinoian negarrez celdaan, edo coru baztar baten Jesus maitiaren aurrian¹⁷, inoc ez ecusala. Baina andi jaguiten zan, inos pena bat irago ez baleu leguez arpegui alegueriagaz. Sarri evilen cilicijoz ta [24] alambre zorrotzez bere gorputz virginia lotuta. Baina Teresaren vijotzian, arpeguijan ta verbeetan ez eguan secula tristeza illunic.
- 120 Alegrija gracijosa bat da santa Teresaren marca agurija. Au berau errenta orde ichi eutseen escribiduta Santiac bere monjai ta cristinau guztiai. Esaten dau: aleguere izatia dala devocinoiaren ta vijotz onaren señalial¹⁸... Poz artuten dave

107 Ez dogu *Do Al Lq* Ezdogu *Ba Mu* 108 mundubari *Ba (in-hu) Mu* munda, munduari *Do Lq* munduba *Al* 114 icutsi| icusi *Do Mu (diño: in-hu) Lo* 115 Teresac *Do Mu Al Lq* Teresac *Ba (in-hu)* 116 ez ecusala *Lq* ezecusala *Ba Do Mu Al* 118 lotuta *Al Lq* lotu ta *Ba Do Mu* 119 secula| secular *Do*

¹⁵ Frai Bartolomek guztiz alaia zen S.Teresa hartzen du eredutzat... Hark horretaz egiten dituen adierazpenak oso ugariak dira; hona hemen batzuk: "Procúrese a los principios andar con alegría y libertad" (*Vida* 13,1); "otras veces tenía males corporales más graves, y como no tenía los del alma, los pasaba con mucha alegría" (*Vida* 30, 8); "andar alegres sirviendo en lo que les mandan" (*Camino de Perfección* 18, 5); "tan alegremente tomemos lo sabroso como lo amargo" (*Fundaciones* 5, 10); "con alegría pasaba los trabajos corporales" (*Fundaciones* 27, 17); "procuren estar alegres" (*Carta* 1579-I-31); "mucho me huelgo procure que se alegren las hermanas" (*Carta* 1581-XI-8), etab. Izan ere, Teresaren izaera alaiaren berri Ana San Bartolome dohatsuak ematen digu inork baino hobeki, haren adiskide, gaixozain eta idazkari izanez berbertati ezagutu baitzuen (*Últimos años de la madre Teresa de Jesús* II, 9. 20: *Obras completas* 1.t. Roma, 1981, 16. 21. or.).

¹⁶ *t*-dun forma liburu honetan oso urria da; hiru aldiz dator soilik, baina obra osoan barrena 51 bider edo dator. Egia esan, *tz*-ren erabilera *z*-ren orde ("bitzi"...) normalagoa dirudi, eta honen nolabaiteko aztarnak ere badaude Markina aldeko hizkeran...

¹⁷ Hemen S.Teresaren une larriez ari da gure idazlea, hark bere fundazio-lana desegiteko ahalgina somatzean igarotako une larriez; izan ere, haren fraideak kartzelan sartzen zituzten, bera ere komentu batean barneratu zuten, etengabe iristen zitzaizkion albisteak eta guztiak txarrak... 1577ko abendua zen. Honela kontatzen digu haren lagun Ana San Bartolomerenak: "io lo bi por mis ojos, que en todos los maitines desta bendita noche [de Navidad] sus ojos eran fuentes que corrian asta el suelo" (*Noticias sobre los comienzos del Carmelo Teresiano*, 12; 1.t., 66. or.).

¹⁸ S.Teresaren idazkietan ez dator aipamen hori; ez horrela behintzat... hala ere horren antzeko ideia eta esamoldeak bai badatoz (v.g. *Vida* 36,29; *Fundaciones* 18, 5; 24, 6...); baina ziur aski, S.Teresaren kanonizazio prozesuetan lekaimereren batek emandako lekukotasuna izan liteke...

la bere monjaac aleguere icusijagaz... Vizi ditezala espiritu alegueriagaz...
 Guztiequin tratau daguijeela, ta verba eguin daguijeela modu oneco alegrija-
 gaz... Maria de San Josef, Sevilaco priorari¹⁹ queseetan jacon santa Teresa, 125
 villancicuac bialdu ez eutsazalaco. *Bada nai dot nic*, esaten deutsa, *ceuben*
artian olgweetia ta alegreetia modu onagaz. Luurrezco vijotz tristiac [25] eta
 illunac ez dauca ain prestaera ona, Jaungoicuari lecu zabala, nasaija, ta amo-
 dijozcua emoteco. Vijotz arguija, samurra ta alegueria, pirmia ta sendua izan
 ezquero, prestaera obacua da milla vidar Jaungoicua serviduteco. Ez da emen 130
 ezer esaten, pecatu eguinac arimara dacarren tristecia ta penia gaiti. Ta ain gui-
 chi, pecatubac eta pecatuzco gauzaac munduco zoruai emon oi deutseen con-
 tentuba edo alegrija gaiti. Pecatu eguinac dacarren penia, Jaungoicua gaiti
 bada, arimia alegrau ta poztuten davena da. Ta pecatubac dacarren poza ta
 pusca bateco alegrija, eguijazco tristecia, penia ta larrija baino besteric ez da. 135
 Pecatarijac aleguere iruri arren, vijotza tristia ta illuna dauca. Aleguere izatia
 gauza [26] ona da: baina Jaungoicuagan ta Jaungoicuagaz, ez pecatubagan ta
 pecatubagaz.

Alegrija eguijazcua gura davenac, topau biar dau daguan lecuban:
 Jaungoicuagan, ceruco ondasunetan ta virtute santubetan. Beti izango da eguii- 140
 ja, nosbait modu onian olgweetia, gueure naturaleciac escatuten davena dala;
 ta vijotz triste illuna baino, arguija ta alegueria berez, Jaungoicua serviduteco,
 prestaera obacua dala.

126 nai dot *Al Lđ* naidot *Ba Do Mu* 128 prestaera *Al Lđ* presta era *Ba Do Mu* 130 pres-
 taera *Al Lđ* presta era *Ba Do Mu* 131 pecatu| pecutu *Do (in-hu; 219.or.: pecatu)* 131-133
 tristecia — dacarren *Lo ez-aip.* 132 oi deutseen *Al* oideutseen *Ba Do Mu* 135 ez da *Do Al*
Lđ ezda *Ba Mu* 139 biar dau *Do Al Lđ* biardau *Ba Mu* 140 izango da *Do Al Lđ* izangoda
Ba Mu | eguiija] eguija *Do* 141 nosbait *Al Lđ* nos bait *Ba Do Mu* | gueure *Do Al*
Lđ guere *Ba (in-hu) Mu* 143 prestaera *Al Lđ* presta era *Ba Do Mu*

¹⁹ *Carta* 1580-II-1: "He mirado cómo no me envían ningún villancico, que a usadas no habrá pocos a la elección, que yo amiga soy que se alegren en su casa con moderación"... Maria San Joserena (Salazar), 1548an Toledon jaioa; priorerik baliotsuenetarikoa, santa Teresarentzat maite- enetarikoa, santa honek idatzi zizkion hainbeste gutunetatik atera daitekeenez Sevillako eta Lisboako komentuetako priore izan zen. Cuerva-ko komentuan hil zen, 1603ko urriaren 19an.

II. CAPITULUBA

§. I. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian olgueetiaren beraren parteti.

§. II. Jaungoicua opendidu bagaric, [27] celan olgau leitequian demporiaren parteti.

5

§. I.

*Jaungoicua opendidu bagaric,
celan divertidu leitequian, olgueetiaren parteti.*

Pecatu ez dan moduban celan olgau leitequian esatera orduco, jaquin biar da: cristinau bacochar daucan leguez aparteco echuria, aparteco genijua ta aparteco penseeta moduba, alan dauqueela gueijeenc aparteco gogua, bata gauza batian ta bestia bestian divertiduteco ta olgueetaco. Batzuc simpleza bategaz olgueetan dira²⁰, comedija baten edo cecenetan baisen ondo. Cesar Augusto²¹, [28] mundu guztiaren aguintarija, umiaquin *donez ala perezca*²² olgueetan zan. Vianto²³, Lidiaco erreguia, ugarasijuac artuten. Domiciano²⁴, eulijac ilten. Artajerjes erreguia²⁵, gorubetan. Alan beste ascoc, ezer bere ez dirian

10

15

2 olgueetiaren] olguetiaren *Al* 9 ez dan *Do Al Lq* ezdan *Ba Mu* 10 genijua *Lo* (jenia)] guenijua *Ba Do Mu Al* 16 (artajerjes) erreguia] Erregina *Mu* | ez dirian *Do Al Lq* ezdirian *Ba Mu*

²⁰ Aditz laguntzaile iragangaitzarekin darabil. Tradizioak hala eskatzen duela dirudi, baina gaur egun bestera entzuten da gehiago...

²¹ Cesar Augusto (Cayo Julio César, 100-44 a.C).

²² *Euskalerriko Atlas etnografikoa: Juegos infantiles en Vasconia* (Bilbao, 1993, 195. or) "a pares o nones" jolasa dator, antzina Portugaleten, Elosuan, Hondarribian, Monrealen, Donamartiri-Untzen... egin ohi zela gogoratuz; Frai Bartolomek "donez ala perezca" euskal esamoldea dakarrenez, beharbada jolas hau Markina aldean ohikoa izan zitekeen. Erromatarrek "par impar" deitzen zioten jolas honi.

²³ Frai Bartolomek Vianto idazten du; zalantza handiak ditugu izen hau aipatzen duen pertsona horri dagokiona ote den; dena dela, ezin dugu jakin nor den.

²⁴ Tito Flavio Domiciano (51-96), Erromako enperadorea (81-96). Tirano zapaltzailea izan zen; kristauak ankerki jazarri zituen. Azkenez hil egin zuten.

²⁵ Ez dakigu ondorengo hiru erregeetatik zeinetaz ari den: Artajerjes I.a, Pertiako erregea (+ 425 a.C.), Artajerjes II.a, Pertiako erregea (+ 359 a.C.), Artajerjes III.a, Pertiako erregea (+ 338 a.C.).

gauzac artuten dituee diversinoetzat. Onaco aparteco bacocharen gogoco olgheetac gaiti, ezin erreguela seguru bat imini legui. Izan leitequez onac, baita arin onac bere.

20 Juicijo on baten erregelapera ecarri leguizan ta casic gueijenac nai oi ditubeen olgheetaac dira: *jocua, eitza, pasiu, soinuba ta dantzia*. Ta eurac examinau biar dira, celan ez dirian charrac.

25 *Jocua* da olgheeta bat, berez, inoc bere condeneetan ez davena. Guraari laarreguijagaz ta gogotasun vitzijagaz [29] jocatuten bada, beti izango da paltia Jaungoicuaren veguijetan, guichiago edo gueijago. Bacochara bere laneetan cansauta daguean, pusca baten jocuan olgheeta, berez pecatu dala, ez dau inoc esaten. Baina bagoz legue batzuc, jocuaren gainian gorde biar dirianac, ona izango bada.

30 1. Suerteco jocuac eragotzita dagoz legue guztietan, descuido utsecuac dirialaco. 2. Jococo diversinoia artu biar da demporia iragoteco, ez ango irabacija gaiti. 3. Jococo ornidute, edo tantu bacocharian errial bat baino gueijaco jocatutia, eragotzita dago Espainaco legueetan²⁶ aberatseentzat ta guztientzat. Ta erriala bera escuban dala, ez guero pagueetacuan. Joco aldi bacocharian ogueta amar ducat baino gueijago jocatu [30] ezin leguiz. Alan aguinduten dau
35 Carlos III. gueure errege jaunac, leenagoco gueure erregue jaun guztien jocuaren contraco leguiac onzat emonaz. Legue oneen contra jocuan irabazten dana, atzera biurtu biar da conciencijan, maisuric jaquituneenac dinuenez santo Tomassegaz (6). 4. Suerteco jocuaz gainera beste jocu modu asco eragotzita

(6) 2. 2, q. 32, a. 7.

20-21 oi ditubeen *Do Al Lq* oiditubeen *Ba Mu* 23 ez davena *Al* ez dabena *Do Al* ezdavena *Ba Mu* 26 ez dau *Do(?) Al Lq* ezdau *Ba Mu* 30 diversinoia *Al Lq* diversinoia *Ba (in-hu) Do Mu* | biar da *Do Al Lq* biarda *Ba Mu* 34 ezin leguiz *Do Al Lq* ezinleguiz *Ba Mu* | aguinduten dau *Do (219.or.) Al Lq* aguindutendau *Ba Mu* 35 gueure *Do Al Lq* guere *Bar (in-hu) Mu* | gueure *Do Al Lq* guere *Bar (in-hu) Mu* 36 irabazten] irabatzen *Do* 37 biar da *Do Al Lq* biarda *Ba Mu* 38 Tomassegaz] Tomasegaz *Do (212.or.)*

²⁶ Zenbait jolas egiteko debekuei dagokienez, Frai Bartolomek oraindik Markinako Karmengo liburutegian dauden liburuetariko batean irakur zezakeen, esaterako, *Doctrinas prácticas, que solía explicar en sus misiones el V.P. Pedro de Calatayud.*, 6.t., 1798, 122-171 (Sobre el juego de dados y naipes, y sobre las respectivas leyes civiles y eclesiásticas).

Izan ere, ezaguna da 1771n Karlos III.ak eman zuen idazki ospetsua, "Novísima Recopilación" deritzonaren 15. legea, 23. tit., 12. lib. osatu zuena. Lege honen arabera, ondasun higigarriak nahiz higiezinak bitarte zirela, aduzko edo suertezko jokoak egitea guztiz debekaturik zen...; berariaz debekaturiko kasuetan izan ezik, jokoetan esku har zitekeen, baina jokatzeko kopuruak ez zuen erreal batetik gorakoa izan behar...(Ik. Joaquín ESCRICHE, *Diccionario razonado de legislación y jurisprudencia*, 2.t. Madrid, 1847, 242.or.).

dagoz sacerdote jaunai ta Eleisa guizonai (7). 5. Engañuzco jocusac beti dira 40
 chaarrac. 6. Eragotzitaco lecuban jocuan eguitia, jocua ona izan arren, ez da
 ondo. Nai davenac jocuan eguiteco, echia edo lecuba gau ta egun prest euqui-
 tia, pecatuzat condenee-[31]tan davee eracuslaac san Carlos Milanguagaz (8),
 inori pecatu eraguiteco ocasinoia dalaco.

Esan dirian gauzeetan paltau bagaric, jocuan olgueetia ez da berez gauza 45
 chaarra. Erri batzubetan egoten dira pelota lecubac ta bolaa lecubac, gentia
 divertiduteco. Au gauza chaarra ez da.

Eitza ta arraincatzia dira olgueeta inocentiac ta ascotan provechucua. 50
 Echeco cereguineen edo osasunaren caltian ez bada, libre dan demporan ei-
 tzian ta arrainac artuten olgueetia, ezin inoc condenau legui.

Pasiua berez ez ona ta ez chaarra da. Ascotan izango da ona. [32] Buru 55
 necatuba arinduteco edo osasuneraco pasietia gauza ona da, ta ascotan bia-
 rrecua.

Baina inoc ucatu ezin legui, pasiuaren achaujagaz gauza chaar asco egui- 55
 ten diriana. Gurasuac eta ugazabaac ez davee lo egon biar, seme alavaac ta
 otseguinac pasiora duazanian.

Soinuba da beste olgueeta bat berez inocentia. Edoceinec soinuba jo legui, 60
 pecatu eguin bagaric. Ainguerubac bere jo evene Jesus jaijo zanian. Ceruban
 bere joten davee. Eleiseetan bere joten da. Soinuba joteco erramientac bardi-
 nac izan ez arren, soinu guztiac dira bardinac, orain toqueetan danez. Cein 60
 organuba, cein biolina, cein guitarria, cein tambolina, cein trompia, cein sar-
 tain zaar bat, (baseerrijetaco viguireetan usee-[33]tan dan leguez) guztiequin
 joten da soinuba. Soinuba bada ona ta oneracua, joiquijac bere onac dira.
 Soinuba bada pecaturacua, joiquijac eta jotia bere pecatuzcuac dira orduban.
 Jo bedi bada soinuba, gentia alegueretaco, baina ez pecaturaco. 65

Soinubari oi darraico dantzia. Soinubagaz ta dantziagaz eguiten da piestia,
 sarauba, viguiria...

Dantziaren ganian gauza asco escribedu dira. Dantziari bere izate utsian,
 edo oinaquin soinubari celan jarraituten jacon baino beguiratuten ez jacola,

 (7) Trid., sess. 22, c. 1, *de reform.* (8) Instru[c]t. §

70

40 sacerdote *Do Mu Al Lq* Sercerdote *Ba (in-hu)* 41 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 46
 egoten dira *Do Al Lq* egotendira *Ba Mu* | bolaa lecubac *Do Al Lq* bolaalecubac *Ba Mu* 47
 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 49 ez bada *Do Lq* ez bada *Ba Mu Al* 56 otseguinac *Do Mu Al*
Lq otseguinac *Ba (in-hu)* 57 jo legui *Do Al Lq* jolegui *Ba Mu* 59 joten davee *Do Al Lq* jotend-
 davee *Ba Mu* | joten da *Do Al Lq* jotenda *Ba Mu* 60 ez arren *Do Al Lq* ezarren *Ba Mu*
 62 baseerrijetaco] baseerijetaco *Mu* 63 joten da *Do Al Lq* jotenda *Ba Mu* 64 bere] berez *Do*
 65 Jo bedi *Do Al Lq* Jobedi *Ba Mu* 66 oi darraico *Do Al Lq* jodarraico *Ba Mu* | eguiten
 da *Do Al Lq* eguitenda *Ba Mu* 68 gainian *Mu ez-aip.* 69 baino] bano *Mu* | ez jacola
Do Al Lq ezjacola *Ba Mu*

mila abonu esan leguiz bere pabore, ezertan paltau bagaric. Ta, jazo oi dan ta jazoten dan moduban beguiratu ezquero, mila maldecinoe ezarten jacoza errazoiagaz. Eguiija da: Dantza galdubac noc zaintu asco [34] dauqueez. Dantzazaliac azala lodija dauquee. Erremientaric zorrotzeenac dira motzac, 75 pecatuzco dantzaac quenduteco. Tiroric zucenenac ez dira itura elduten. Colperic indartsubeenac airian gueratuten dira. Au buruban sartuta euqui arren, euscal errijetan daguan baino ez jaquite guichiago egon dein pecatuzco dantzeen gainian, ta cristinaubac vitci ditezan jaquinaren gainera, pensau dot eguiija batzuc arguitara ateratia.

80 *Ta Dinot*: I. Dantzan eguitia berez ez dala pecatu (9). Berez pecatu balitz, beti izango litzaateque. II. Persona batec bacarran, nai [35] guizonezcuac, ta nai emacumiac dantzan eguitia berez ez dala pecatu. David Erreguiac bere eguin euan Arca santubaren aurrian (10). III. Guizonezcuac alcarregaz, emacume bagaric dantzan eguitia, gauza chaarragoric esan edo eguiten ez daveela, ez dala pecatu. IV. Emacumiac alcarregaz, guizonezco bagaric ta canta edo 85 soinu indecente bagaric dantzan edo pandanguan olgueetia, ez dala pecatu. Aaronen arreba Mariac²⁷ bere eguin eban beste emacumeequin, soinuba jota, Faraonen escu gogorretati Israel librau zanian (11). Esan dirian modubetan dantzan eguitia ta [36] olgueetia, ez dau juicijozcoc condeneetan. Piloteac²⁸ 90 bere eguin euquian, caridadia galdu bagaric; ta cristinau guztiac bere eguin leguijee. Catigu dagozan emacumiai eragozten jacue dantzan bacarric eguitia, seiña galduteco dauqueen arriscuba gaiti.

Beste guizon ta emacumeen artian naaste eguiten dirian dantzaac, cer icusi asco dauquee.

95 Jazo leiteque, nos edo nos, pecatu ez izatia. Baina esan legui alaco dantzaac gaiti, ene ama santa Teresac eun guzurren arteco eguiija gaiti esaten

(9) S. Thom., 2. 2, q. 168, a. 3. S. Franc. Sal., *Intr. á vid. dev.*, p. 3. c. 33. Bened. XIV, *Instr.* 76. (10) Reg. 2, c. 6. (11) Colect., 6. precept., art. 5, Sect. 2. Exod. 15.

71 oi dan *Do Al Lq* oidan *Ba Mu* 74 Dantzazaliac *Al* Dantza zaliac *Ba Do Mu Lo* 76-77 euqui arren *Do Al Lq* euquiarren *Ba Mu* 80 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 82 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 84 ez daveela *Do Al Lq* ezdaveela *Ba Mu* 85 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 88 Israel| Israel *Do Al Lo* 89 ez dau *Do Al Lq* ezdau *Ba Mu* 91 bacarric eguitia| eguitia bacarric *Do* 96 gaiti *Do Al Lq* giati *Ba (in-hu) Mu*

²⁷ Ik. Ir 15, 20.

²⁸ *Pilotea* da S.Frantzisko Saleskoak *Introducción a la vida devota* bere liburuan sartzen duen pertsonaia garrantzitsua. Hona hirugarren parteko 34. kapituluari datorrena: "Mas en una palabra te digo, danza, y juega, según las condiciones que te he apuntado"... (170.or.).

evana: *ez da erraz*, cinuan, *eun guzurren artian eguiija bat aparteetan* ²⁹. Bada, 100
 ez da asco errazago izango, guizon ta emacumeen naasteco dantzeen artian, 100
 pecatu bagaco bat aparteetan. Ezin ipini legui ordu baco-[37]cheraco, lecu
 bacoheraco, lagun bacoherentzat ta dantza naastau bacoherentzat erregue-
 la bat, nos dan pecatu mortala, nos dan veniala, edo nos ez dan pecatu esate-
 co. Esanda gueratuten da, celan olgau leitequian Jaungoicua opendidu baga-
 ric, olgheetiaren beraren parteti. 105

§. II.

*Jaungoicua opendidu bagaric,
 celan olgau leitequian, demporiaren parteti.*

Ibiltia edo olgheetia, berez izan ez arren chaarra edo pecatuzcua, izan lei-
 teque demporiaren parteti. Ta au modu bitara: edo dempora gueijegui olgheetan 110
 iragoten dalaco, edo era-[38]gotzitaco demporaan olgheetan dalaco. 110
 Dempora laarreguijan irauten badau olgheetiac, izango da pecatu, edo morta-
 la edo veniala. Gauza guztiac dauquee eureen demporia, dino Espiritu
 Santubac³⁰. Ta olgheetiac bere euqui biar dau bere errazuazco terciijua. 115
 Cristinaubeen estadubac eta condicinoiac ez dira bardinac. Opicijucac eta cere-
 guinac bere ez. Osasuna ta genijua bere ez. Ta orregaiti ezin seinalau legui
 guztientzat erreguela bat, olgheeta laarreguijagaz, nos eta cetaraguiño pecatu
 eguiten dan esateco. Beti izango da eguiija, Jaungoicucac ez gaitubala mundu-
 ra ecarri, alperrierijan ta olgheetan vizitzia iragoteco; ezbada, bacocharac bere 120
 estaduban ta opicijuan biarra eguiteco. Beti izango da eguiija, errazoe [39] 120
 zuzeneti aurreraco olgheetia, edo errazoiac ta estadubac escatuten daven baino
 dempora gueijago olgheetan iragotia, pecatu dala; veniala beti, ta ascotan mor-
 тала. Beti izango da eguiija, alperrieriac ta olgheeta utsac dacazala asmo cha-
 rrac ta burutacinoe gaistuac. Beti izango da eguiija, caballeruac, aciendia
 governeetaco, errijai exemplu ona emoteco, ta arimaac santututeco; señoaraac, 125

99 ez da *Do Al Lq ezda Ba Mu* | cinuan *Do Al Lq cinaan Ba (in-hu) Mu* 100 ez da
Do Al Lq ezda Ba Mu 102 (lagun) bacoherentzat *Do Mu Al Lq* babacoherentzat *Ba (in-hu)*
 103 ez dan *Do Al Lq ezdan Ba Mu* 108 leitequian] leitequean *Do (in-hu; 213.or.: leitequian)*
 109 ez arren *Do Al Lq ezarren Ba Mu* 114 biar dau *Do Al Lq* biar dau *Ba Mu* | bere] dere
Do (in-hu, 213.or: bere) 116 genijua *Lo (jeniuia)] guenijua Ba Do Mu Al* 118 ez gaitubala *Do*
Al Lq ezgaitubala *Ba Mu* 119 ezbada *A]* ez bada *Ba Do Mu Lo*

²⁹ S. Teresaren esalditzat hartzen da, beste esaldi asko bezala; egia esan, ez da haren idaz-
 kietan agertzen.

³⁰ Ik. Koh 31, 1-8.

- echeco gauzai cobru emoteco, seme alavei³¹, ta otseguinai dotrinia ta Jaungoicua serviduten eracusteco, ta eureen arimai obeto cuidado eguiteco; sacerdote jaunac, liburu onac iracurteco, Jaungoicuaren Verbia eracusteco, sacramentu santubac Jesucristoren izenian eguiteco, ta cristinaubeen conciencijetaco dudaac erabaguiten tercijo [40] baten jaquiteco; nequezarijac, opicialiac, prailiac, monjaac... Dinot: eureen estaduco cereguinai cobru emoteco
- 130 biar daveen demporia, iragoten badavee oneec guztioic olgheetan, eguingo dabeela pecatu. ¡Oh, ce asco dirian, ta ce guichi compesetan dirian onetarico pecatubac! ¡Oh, ce guichi estimetan dan dempora santuba!
- 135 Olgueetia berez izan arren ona, izan leiteque chaarra, eragotzitaco demporea dalaco. Aguirico olgheetac eta diversinoe publicuac eragotzita dagoz domeeca ta jai osuetan, meza nausitaco, sermoetaco, visperetaco, procesinoeco, ta Altaraco Sacramentuban Jesus aguirijan dagan arteco demporeetan. Olgueetia edo diversinoia inocentia izan arren, [41] eragotzitaco demporea
- 140 bada, malecijaz jazten da. Erri guztiaren oneraco Eleisaan cereguin santubac eguiten dirian artian, ez dau Eleisa Ama santiac parcatuten aguirico olgheetaric. Dinot: *aguirico olgheetaric*. Ez, ezcutubetacuac, echezulo edo tabernetaacuac ontzat emoten ditubalaco, ez bada, oneec erremedijau ezinda, areec eragotzen ditubalaco. Ez da a olgheetaco demporia, ez bada templu santuban
- 145 Jaungoicua alaveetaco demporia. Ta templura juan ezin danac, bere echian edo egon lecuban Jaungoicuari graciajac emoteco ta misericordijac escatuteco demporia. Iracurri bitez Eleisiaren batzaarretaco erreguelaac³². Inocencio XI. garren, Aita Santu Erromacuaren³³ ta cristandadeco erregue jaun ascoren ordenaac, ta

130 dudaac *Do A|* duduac *Ba* (in-hu) *Mu*, dudak *Lo* 133 ce asco *Do Al Lq* ceasco *Ba Mu* 140 jazten da *Do Al Lq* jaztenda *Ba Mu* 141 ez dau *Do Al Lq* ez dau *Ba Mu* 143 ez bada| ez bada *Do Lo* 144 Ez da *Do Al Lq* Ez da *Ba Mu* | ez bada| ez bada *Do Lo* 145 ezin danac *Do Al Lq* Ezindanac *Ba Mu* 148 cristandadeco *Do A|* Cristandadeco *Ba* (in-hu?) *Mu Lo*

³¹ Sarrera orokorrean zehatz-mehatz hitz egiten da deklinabideaz. Pluraleko *nori* kasua edo datiboa *-ai* da Frai Bartolomerengan, baina joera garbia hori izan arren, ez da erabatekoa; *-ei* ere agertzen da noizbehinka, *Eskuizkribuan* bien arteko alternantzia nabariagoa izanik.

³² Frai Bartolomek orokorki aipatzen ditu Eliz Gurasoak eta Elizaren Irakaskuntza edo Kontzilioak, jaiak gordetzeari buruz. Hark oso gogoan hartzen zuen Erromako Katixima (hirugarren parte, IV. kapitulua), esaterako, Lorenzo Agustin Manterola-ren gaztelaniazko itzulpenean (*Catecismo Romano: compuesto por decreto del sagrado Concilio Tridentino para los párrocos* 2.t. Pamplona, 1777, 60-79); hain zuzen ere, liburu horretan irakur zezakeen Eliz Gurasoek eta Kontzilioek gai honetaz diotena, zehazki esateko, S. Agustinek, S.Tomasek, lekuan lekuko hainbat Kontzilioak eta batez ere Trentoko Kontzilio ospetsuak diotena.

³³ Inozentzio XI.a Dohatsua, (1676-1689 urteetan izan zen Aita Santu); bere bizitza pertsonalean neurritsua eta jainkotiarra zen. Aita Santu honek moral eta administrazio-bizitzako gehiegikeriak erroitik kentzeko ahaleginak egin zituen; ebanjelioan oinarritutako sermoigintza eta katekesia eskatzen zituen, onestasun publikoaren alde lan handia egin zuen, inauterietako gehiegikeriak bazterrarazteko ere ahaleginak eginez etab. (J.N.D., KELLY, *Diccionario des Papes*, Brepols 1994, 598-602).

[42] guztietan icusico da, ce gauza charra ta Jangoicuaren gorrotocua dan, alaco demporaan olgueetia. 150

Beste ainbeste esaten da, nai Eleisiaren burubac cristinaubai, nai juezac bere aguindupecai, nai ugazabaac otseguinai, nai gurasuac umiai eragotzita dauqueen demporaan, olgueetia gaiti. Bada, oneec guztioac dauquee escubidia, bacochar bere lecuban, aguinduteco; ta aguinduban dagozanac, obeidu biar deutsee errazuazco ordeneetan. Ninivetarrac eguin eveen leguez³⁴. Evangelijo 155 santubac aguinduten deuscuna, arina, viguna, erraza ta alegueria da, Jaungoicua ameeetan davenarentzat³⁵. Gorde bedi legue santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza guztiaac biurtuco dira gueure oneraco, [43] gueure consueloraco ta alegrija eguijazcoraco.

149 icusico da *Do Al Ld* icusicoda *Ba Mu* 151 ainbeste *Al Ld* ain beste *Ba Do Mu* | juezac] Juezac *Do*

³⁴ Jon 3.

³⁵ Ik. Mt 11,28-30; 1Jn 5, 1-4.

III. CAPITULUBA

AMAIJA

*Placeetan guizon ta emacume naaste eguiten dirian dantzaac,
avemarijetan tambolina isilduta amaituten dirianac,
Euscal-errijetan usetan dirian moduban, 5
pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac dira.*

§. I. Plazaco piestaraco gentia celan presteetan dan.

§. II. Plazaco piestia celan eguiten dan.

§. III. Escritura Sagradubac ta Eleisiaren Gurasuac naasteco dantzaac gaiti
dinuena. 10

[44] §. IV. Teologija sagradubaren eracuslaac ta errazoiac eurac gaiti dinuena.

§. I.

Plaza-piestaraco gentia celan presteetan dan.

Ez da asco aobetian esatia: *plazaco naasteco dantzaac, avemarijetan gue -
ratuten dirianac, tambolina isilduta , useetan dirian moduban edo eguiten 15
dirian moduban, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala, errazoiagaz pro-
veetan ez bada. Onetaraco popuerzacua da examinertia: celan useetan dirian
edo eguiten dirian, ta Espiritu Santubac, Eleisiaren Gurasuac, eracuslaac [45] ta
errazoiac eurac gaiti cer dinuen; ta despeidaan dantzarijen errazoiac ce entzu-
te merceduten daveen. Au eguinagaz urtengo dau berecautan leguez goijan 20
imini dan amaijac edo *conclusinoiac*, nire erichijan. Errazoe arguijagua ta jaqui-
turija altubagua dauqueenac ezautuco davee, ondo ataria dan edo ez. Amaijari
duda guztia, edo aituten oi ditubeen achaquiiaac quenduteco, esaten da:
*Plazaan arguitan tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzaac, ave -
marijetan tambolina isilduta gueratuten dirianac, Vizcajian ta euscal errije - 25**

3 guizon Al] gizon Ba Do Mu Lo 4 isilduta] isulduta Do (in-hu, 213.or: isilduta) 14 Ez
da Do Al Lq Ezda Ba Mu 15 isilduta Do Mu Al Lq isilduia Ba (in-hu) 17 ez bada Do Lq
ezbada Bar Mu Al 21 imini dan Do Al Lq iminidan Ba Mu | conclusinoiac Do Mu Al Lq
conclusnoiac Ba (in-hu) 23 oi ditubeen Do Al Lq oiditubeen Ba Mu | esaten da Do Al
Lq esatenda Ba Mu

*tan useetan ta eguiten dirian moduban, diriala eurenez pecatu mortaleco oca -
sinoe urrecuac.* Bardin esaten da beste modu baten: *Dantzan eguitia berez
pecatu izan ez arren, euscal errijetaco pies-[46]teetan eguiten dan moduban,
pecatu dala.* Nai beste modu baten: *Jazo oi danez, pecatu mortalaren beian
30 dauqueela cristinaubac obligacinoia, esan dirian dantzeetati apartetaco.* Edo
beste baten: *Al daijan guztian, esan dan piesta dantzara juateco vorondate
presta ta gogua ezauberaz daucanac, ta jua ezin dalaco peniagaz gueratu -
ten danac, ocasinoe atan sartutia consentiduten davenian, eguiten davela
35 pecatu.* Despeida edo conclusinoe oneec guztioac batera joten davee, edocei-
nec dacusen leguez. Gogoratu daigun, bada, celan gentia presteetan dan eus-
cal errijetan piestaraco, ta guero celan eguiten dirian.

Onetaraco zurtu belaarriac, arguitu beguijac, ta ezautu ceuben pecaturic
gueijenen erne lecuba. Pla-[47]zaco dantzara duazanac, luxurijaren suba garre-
tan euquiteco gueiric presteenac batuten ditubee eureetara. *Edadia, edana,
40 jantzija, nasaitasuna ta estaduba.*

I. *Edadia.* Plazaan tanbolinagaz dantzan eguiten daveenac, bai guizonac ta
bai emacumiac, amazortzi urtetu berrogueta amarrecuac dira. Egon leitequez
gaziaguac ta zaarraguac bere; baina guichi. Plazaco piestia darabilleenac, dira,
esan dan edadecuac. Mundu guztiaac daqui, edade atan ce cereguin ta lan andi-
45 ja dan, ixioquiija subari urreratu bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac goitutia.
¿Ete dira dantzaari oneec Sanson³⁶ baino senduago? ¿David³⁷ baino santubago?
Salomon³⁸ baino jaquitu-[48]nago? Areec ocasinoe chiquijaguan jausi cirian.

II. *Edana.* Piestara duazanac, piestia erdiz erdi daneco, trago bat edanda
dagoz; bai guizonezcuac, ta bai emacumiac. Ez dinot ordituta dagozala, ezba-
50 da ardaa edateco eria guztiaac edo gueijeenac euqui daveela. Gueijenac edo
guztiaac guichi edo asco edan daveela. Ta areetati ascoc biar leuqueen baino
gueijago bere bai. Eurac esan oi daveen leguez: *Ya pusca bat ardauac ale -
gueretuta.* Mundu guztiaac daqui, bada, ardao pusca bat edanac, ta endamas
cerbait gueijago edanac, errazoa illundu, gogua alegueretu, odola berotu ta
55 luxurijaren suba viztu eraguiten davena. Ta endamas guichitan edaaten dave-
nari.

29 oi danez *Do Al Lq* oidanez *Ba Mu* 31 al daijan *Do Lq* aldaijan *Ba Mu Al* 35-36 eus-
cal errijetan *Al* (Euscal errijetan) Euscalerrijetan *Ba Do Mu Lo* 41 tanbolinagaz] tambolinagaz
Do Al 49-50 ezbada] ez bada *Do Lo* 50 Gueijenac] gueijeenac *Do* 52 oi daveen *Do Al Lq*
oidaveen *Ba Mu* 53 endamas *Lq* endemas *Ba Do Al Mu* 55 endamas] endemas *Do Al*

³⁶ Ep 13-16.

³⁷ Ik. 2Sm 22,21-22.51.

³⁸ 1Erg 5, 9-14.

[49] (...) ³⁹ III. *Jantzija*. Plazaco piestara eruaten dan jantzija da ainbat eder-
 [50]reena ta edertuen iminija. Ainbat onduen buruti biatzera apainduta,
 moduztauta, garbituta, orraztuta, al daguijanac larrosia, cabelinia, ispliguba, 60
 edo beste bedar usain gozoco bat buruban, paparrian edo escuban daveela,
 juaten dira plaza piestara, bai guizonac ta bai mutillac, bai andraac ta bai nes-
 caac.

Dinot, *nescaac*, ezcondubagaco emacumiac gaiti, nescatillaac ez esatiarren.
 Bada, nescatilliaren izenac, guztiaac ondo daquijeen leguez, beragaz dauca
 errespetua, modestija, onestidadia ta lotsoorra izatia. Ta modu atan piestatic 66
 piestara ta dantzatic dantza guizon escu artian liquinduta dabilzan emacume
 ezcondu bagacuac, ez dauqueen leguez ez lotsaric, ez modestijaric, ez onesti-
 daderic, ezin [51] emon leguijue eguijazco errazoian *nescatilliaren* izen
 ondrauba, ez bada nesquiaren izena. Ez jaco beliari usua esaten, ez bada belia.

Dinot, bada, piestara duazan guztiaac diriala ainbat onduen apaindubac; 70
 guztiaac bacochari ta bacocharic guztiaac ondo beguiratu daguijue, erechi dagui-
 juen ta amau daguijezan. Au autor ez daven dantzariric ez dago piestaan,
 eguija esan gura davenian. ¿Ta ez da gauza jaquina, plazaco apaindurijac ta
 gorputza ondo prestaubac luxurijari sarri dei eguiten deutsana, ta su gueijago
 emoten deutsana? 75

Ez da orain ezer esaten araco, edo bularrac berarjaz jasota, edo armatuta,
 edo paparra aguirijan, edo besuac bilosic, edo bilosic baino ez [52] asco obeto
 daroiezan nesca edo andraac gaiti. Dirianac diriala, coru loijagocuac dira
 oneec.

IV. *Nasaitasuna*. Dantziari ta piestiari jarraituten deutseenac, beste manda- 80
 mentubac bere ardura guichigaz austen ditubeenac. Conciencia nasaicuac.
 Beguiratu errazoe onetan. Orraco plazaco piestetara uts eguiten ez daveenac,
 dinot, diriala pecatubaren bildur guichi dauqueenac. Bidao bat edo juramentu
 bat alperric eguitia; meza bat ondo entzuten ez jaquitia; erdi entzunian edo 85
 ondo entzun bagaric gueratutia; jaijegun santubetan jocuan, tavernaan, dantzan
 edo errietaan egunic gueijena ta gau zati bat iragotia; umiai aziera galduba

57 ainbat *Al Lq* ain bat *Ba Mu Do* 59 al daguijanac *Lq* aldaquijanac *Ba Mu*, aldaguijanac
Al 63 esatiarren] esati arren (212.or: esate arren) *Do* 69 (ondrauba,) ez bada] ez bada *Do Lo*
 71 erechi daguijue *Al*] erechi daquijue *Ba Do Mu (Lo)* 72 ez daven *Do Al Lq* ez daven *Ba*
Mu | ez dago *Do Al Lq* ez dago *Ba Mu* 73 ez da *Do Al Lq* ez da *Ba Mu* 76 Ez da *Do*
Al Lq Ez da *Ba Mu* 77 ez asco *Do Al Lq* ez asco *Ba Mu* 82 uts eguiten *Lq* utseguiten *Ba Do*
Mu Al | ez daveenac *Do Al Lq* ez daveenac *Ba Mu*

³⁹ Inprimategiko hutsegitearen eraginez, testuaren 18 lerroak, "II. *Edana* ... – Davenari", erre-
 pikaturik daude.

emotia; gurasuac gaiti gura daveena umiac eguitia; justici-[53]jari ta cura jaunai
 lotsaric ez artutia; inori ezer ez parcatutia; edocein gaiti deungaro esatia; urtian
 bein, edo birritan, ta orduban celanbait baño ez compeseetia; sarrijago com-
 90 peseetan dirianai, Eleisaco cereguin santubetara juaten dirianai, ta, eurac
 leguez, nasai ez dirianai, barre ta burla eguitia; Jaungoicuaren verbia edo ser-
 moeetan esaten dana, chanzatzat ta barregueitzat artutia; verbeetan ta eguita-
 deetan, elduten dirian lecu guztian, verdetasuna ta indecencia eracustia...
 Nasaitasun au guztiau, dinot, edo, obeto esateco, pecatutequi au guztiau ez
 95 escrupulutzat, ez compesaquizuntzat bere artuten ez ditubeenac, dira, plazaan
 piestia eguiten daveenac.

V. *Estaduba*. Juaten dirianetati, [54] gueijeenac dira libriac. Ezin ucatu legui,
 arriscu gueijago dauqueena edade ataco persona libriac, bai guizonezcuac ta
 bai emacumiac, arimaco ta gorputzeco onestidadia galduteco. Eguija da, gui-
 100 zon ezcondu batzuc bere bagoz, zaartuta, buruba urdinduta euqui arren, gaz-
 tiac baisen berdiac. Areec bere inundi al badaguijee, piestaan izango dira. Ta
 parian iragoten dan nesca bati, gueijago ezin badavee, maquiliaren puntiagaz
 bada bere, zabalduco deutsee luxurijaren atsa, sarritan icusten dan leguez.
 Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardauda edaaten daveenac,
 105 ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac, ta zaartzan, besteric ezin-
 da, ezcontzaguintziari emoten deutseenac. Areec bere, oina [55] jaso al bada-
 guijee, an izango dira piestaan vegui zolijaquin. Verbeeta onetan ecer gueituta
 ez daguana, piesta zale guztia daquijee. Ta eguija esateco lecuban, au ta guei-
 jago eurac autor davee.

110 Emeti ateraten da contuba, ume condo batzuc apartau ezquero, beste pla-
 zara piestia eguitera batuten dan gentia, dala, luxurijazco gauza loijai inos
 gogua illundu ez deutseenac. Castidadia galduteco tentacinoe bat Jaungoicua
 gaiti bacarric goitutia cer dan ondo ez daquijeenac. Desonestidadeco esolaan
 atzijac ta ibilijac; edo ataraco presteetan dirianac, bai ezcondubac ta bai alar-
 115 gunac, bai mutillac ta bai nescaac ta bai beste estaducoric badago bere.

Eguijazco examina onetati ezaututen da arguiro: Piestara duazanac, di-
 [56]riala, luxurijaren suric gueijeen dauqueenac edadiaren parteti. Luxurijazco
 gauceetara gogua gueijen convideetan daveenac apaindurijaren parteti.

88 ez parcatutia *Do Al Lq* ezparcatutia *Ba Mu* 89 bein] bien *Mu* | celanbait *Al Lq*
 celan bait *Ba Do Mu* 90 cereguin *Al Lq* cer eguin *Ba Mu Do* 101 al badaguijee *Lq* albadaguijee
Ba Do Mu Al 106 ezcontzaguintziari *Al Lq* ezcontza guintziari *Ba Do Mu* | al bada-
 guijee *Lq* albadaguijee *Ba Do Mu Al* 108 ez daguana *Do Al Lq* ezdaguana *Ba Mu* 111-112
 inos gogua] inosgogua *Do* 112 ez deutseenac *Do Al Lq* ezdeutseenac *Ba Mu* 113 cer dan
Do Al Lq cerdan *Ba Mu* | ez daquijeenac *Do Al Lq* ezdaquijeenac *Ba Mu* 116 ezaututen
 da *Do Al Lq* ezaututenda *Ba Mu* 117 luxurijaren *Do Al Lq* luxurijaren *Ba (in-hu) Mu*

Castidadia galdubac penaric guichien emoten deutseenac, conciencia nasaija-
ren parteti. Ta condecinoa verdecuac, estadubaren parteti. 120

Begoz, bada, orain pusca baten plazaan tambolinagaz, esan dan moduco
eun, berreun, laudeun, edo gueijago guizon ta emacume, sartueraan trago bat
artuten, edo alcarri carinozco ezauberia emoten, beste plazaco dantziari ta
piestiari berez leguez, darraicozan gauza batzuc gogoratuten ditugun artian.

Piesta zaleentzat ez dago piesta eguna baino priesacuagoric. Orduban dira, 125
goix parteti eche viarrac gaz-[57]tiac egutia. Egun ataco ta ascotan vijamoneco
ganadu jaatecua echera batutia. Painueluac javoneetia, almidootutia; oineraco
ta gorputceraco jantzijari puntubac artutia, caeleetia... Guztia da priesia piesta
eguna, arrasteguijan piestara juatia gaiti. Ta gueijenian (ta endamas baseerijet-
tan) aguinduten deutsee gurasuac eta ugazabac gaztiari piestara, jai osua izan 130
arren, onaco ta alaco cereguinac eguinda andi aurrera, gura badavee. Piesta
zaliac egun atan, mezatan eleisaan egon arren, mezaric entzun ez daveela
sinistu guinai, juzgu gaistoric eguin bagaric, gogua beste ardureetan equi
daveelaco. Itandu bequijue ondo ta eurac esango davee.

Asco juaten dira piestara, gurasuac [58] nai ez daveela. Beste asco, aita edo 135
ama eurai bidaoca dagozala. Beste asco, echecuac (endamas aitac) ez daquije-
ela, ixilic eguindaco jantzijagaz. Nundi eta celan oi dirian piestaraco jantzijac
eta galaac emacume ascoren soinian, sobre daqui mundubac. Bada, gauza
jaquina da, guraso ta ume ascoren arteco baque chaarrac, asarriac, bidauac ta,
eurac esan oi daveen legueez, impernucuen vitzitzia echian diriala piesta 140
madaricatubac gaiti. Gurasuac umiai nai daveen piesteetan ta nai daveen lagu-
naquin, gau ta egun ibilten isteen ez deutseelaco. Ta gura leuqueen soina⁴⁰
eguiten ez deutseelaco. Ez dira gauza onec aaztu biar, piestaco dantceen gai-
nian verba eguiteco.

121 pusca baten *Do Al Lq* puscabaten *Ba Mu* | esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu*
125 Piesta zaleentzat| Piestazaleentzat *Al* | ez dago *Do Al Lq* ezdago *Ba Mu* 126 gaz-
tiac| guztia *Do* 128 jantzijari *Do Al Lq* jantijari *Ba (in-hu) Mu* | caeleetia *Ba*, celetia
Mu, aleetia *Al*, kalzetia *Lo* 129-130 baseerijetan *Do Al Lq* baseerijetan *Ba (in-hu) Mu* 131
cereguinac *Al Lo* cer eguinac *Ba Do Mu* 132 ez daveela *Do Al Lq* ezdaveela *Ba Mu* 136
endamas| endamas *Do* | ez daquijeela *Do Al Lq* ezdaquijeela *Ba Mu* 137 jantzijagaz *Do Al*
Lq jantijagaz *Ba (in-hu) Mu* | oi dirian *Do Al Lq* oidirian *Ba Mu* 140 oi daveen *Do Al Lq*
oidaveen *Mu* | legueez| leguez *Do Al* | vitzitzia| vitzitzia *Do Lo* 141 nai daveen *Do Al*
Lq naidaveen *Ba Mu* | nai daveen *Do Al Lq* naidaveen *Ba Mu* 142 ez deutseelaco *Do*
Al Lq ezdeutseela *Ba Mu* 143 ez deutseelaco *Do Al Lq* ezdeutseela *Ba Mu* | Ez dira *Do*
Al Lq Ezdira *Ba Mu* | aaztu biar *Do Al Lq* aaztubiar *Ba Mu* 144 verba *Do Al Lq* verbe *Ba*
(in-hu) Mu

⁴⁰ Hemen *soina*-k jantzia edo soinekoa esan nahi du, eta ez gorputza; beste testuinguru ba-
tzuetatik ere iritzi hori atera dugu, baina ez dira hau bezain argiak (ik. lexikoa *soin*, 341.or.).

145 Beste asco juaten dira gurasuen vo-[59]rondatiagaz ta echian eguindaco
 jantzijagaz. Baina alaco gurasuac, eurac bere piestatic piestara ibili zirianac,
 edo oraindino dabilzanac. Desonestidadeco escolaan atzijac, ondo eldu baga-
 cuac, zaartuta bere berdiac. Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac. Aita verdia-
 150 ren semia verdia. Ama loijaren alavia loija. Alaco guraso⁴¹ galdubac, aguinee-
 tati ura darijola, itanduco deutsa arratsian alaviari ia dantzara ceinec eruan
 daven. Loba barriric echera ez badacarree, beste desonestidade guztia umiac
 erabili arren adisquide chaarrequin, ez jaco alaco gurasuari coloreric mudau-
 co. Umiac pecatu mortalian egon arren, ez deutsee ardura, plaziagazcua ta
 mundubagazcua eguin ezquero. Dinodan guztia eguija dana ezautu-[60]teco,
 155 inoc dudaric badauca, contu imini begui, ta icusico dau: Seme alabai ta otse-
 guinai piestetara ta naasteco dantzeetara juateco libertadia ardura bagaric emo-
 ten deutseen gurasuac ta ugazabaac, edoecin lagun artetan esaten ditubeela
 verba desonestubac ta lotsarizco errazoiac, ta eguiten ditubeela, arei darrai-
 cuezan azalquerija verdiac. Ez da beste testigantzaric biar, areec cer izan dirian,
 160 ezaututeco.

Aparteco arduria euqui dot beti, piesta ta dantza zalai dotrinia itanduteco.
 Ta ez davee sinistuco provau ez daveenac, ce palta andija dauqueen. Ez daqui-
 jee gueijeenac, salvetaco biar daveena. (Dei eguiten jaco emen cura jauneeen ta
 conpesore jauneeen zelo santubari). Au gaiti [61] bigarren, irugarren, laugarren,
 165 bostgarren, seigarren ta zortzigarren Jaungoicuaren aguindubetan pecatu mor-
 taltzat edo illgarritzat Eleisaco jaquitunac eracusten ditubeen ta eurai jagocue-
 zan gauza asco, chochaquerijac ta simplezaac diriala, uste davee piesta zale
 ascoc. Ez dauqueez compesaquizuntzat bere. ¡Oh, ez jaquinaren sail madari-
 catubac! Plazaco piestiari erri-oneetan berez leguez darraicozan gauza oneen
 170 ondoric, icusi daigun, celan eguiten dan plazaan piestia.

145 juaten dira *Do Al Lq* juatendira *Ba Mu* 150 darijola] darjola *Mu* | ia *Lq* ya *Ba Do Al Mu* 151 ez badacarree *Al Lq* ezbadacarree *Ba Do Mu* 155-156 otseguinai *Al Lq* oseguinai *Ba Do Mu* 159 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* 162 Ez daqujee *Do Al Lq* Ezdaqujee *Ba Mu* 164 Conpesore] conpesore *Al Do* (212.or) *Mu* 165 zortzigarren *Lq* zortzigarren *Ba Do Al* zortzigarren *Mu* 164 Ez dauqueez *Do Al* Ezdauqueez *Ba* | ez jaquinaren] ezjaquinaren *Al*

⁴¹ *Guraso* hitza singularra nahiz plurala izan daiteke; hemen singularra da, aita edo ama orokorki adierazteko baitarabil.

§. II.

Plazaco piestia celan eguiten dan.

Avemarijeetan tambolina ixilduta, gueratuteco piestia da, emen exa-
 [62]mineetan dana. ¡Oh! Au piesta santuba da, esango davee dantzazaliac. Ta
 pensau legui cerbait, gueijago ez daquijanac. Baina Vizcaico ta Provinciaco 175
 piesteetan au ta utsa bat dira. Bideetaco echiac, celaijac ta sasi onduac atera-
 ten davee placiaren paltia. Ta nesca baten trompiac edo soinubac tambolina-
 rena. Ezpabere esan daguijeela, tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat
 juaten dirian echera gavac⁴² demporaac emon bagaric. Gueijeenaz bere, inoc
 casuric eguin ez deutsan nesca epel bat, edo mutil macal bat. Beste guichi. ¿Ta 180
 nos palta dira piesta egunian plazaan, gavac ordubac emonda bere, guizonac
 eta emacumiac? ¿Nun dauqueez echiac ta noraguino juan biar davee, avemari-
 jetan [63] tambolina ixildu arren? ¡Ah! Au edoceinec daqui. Estalgui chaarra da,
 piestia ontzat emoteco, avemarijeetan tambolina ixilduten dala esatia, Vizcaijan
 ta Provincian. Justicijac bere au erremedijau ezin legui. Echeetan bai asarre 185
 andijac, ta pecatu mortalera elduten dirian ocasinioiac ta escandalubac, asco-
 tan, auzuac igarten deutseen tercijuan, gurasuen ta umeen artian, piestati
 berandu echera juan dirialaco.

Gomuta onegaz guazan plazaco piestiari beguiratutera. Ez gente pilluari
 mordo baten, ezpada gauza oneraco edo chaarreraco jazoten dan moduban. 190
 Teologija sagradubac guizonaren vorondatezco eguitade bacochari beguiratu-
 ten deutsan moduban. Beguiratu daijegun bacochari banaan, edo bi-[64]naan,
 edo irunaan, dagozan moduban ta daviltzan moduban. Ia cer eguiten daveen;
 ia cer esaten daveen. ¿Ta cer icutsico dogu plazaco gente pilluaren artian?
 Dinot arima arimati; latsa nasala escribiduten. Baina aguirico pecatubac dira, 195
 ta esan biar dira. An icusten da, edade arriscucuac, ardauc, apaindurijac, con-
 ciencija nasaijac, ta oitura desonestubac daucan luxurija osua. Icusten da: dan-
 tzia ez davilen demporaan, nesca bat, bi edo iru, mutil bategaz, bigaz edo iru-
 gaz alcarri escubac solbardaan edo... iminita, verbeetan ta maitequerijeetan
 dagozala. ¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deutsanac, alboti bere entzun 200
 biar ez ditubanac. ¿Ta ce maitequerija? Escubaquin, veguijaquin ta [65] arpe-
 guico geriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Icusten da: dantzia asi dedi-

173 tambolina *Do Mu Al Lq* tambolina *Ba (in-hu)* 174 dantzazaliac *Al* dantzazalliac *Ba Mu*, dantza zaliac *Do Lo* 176 au *Al Lq* aut *Ba (in-hu) Mu*, autsa *Do* 181 guizonac *Do Al* gizonac *Ba (in-hu) Mu* 190 Ezpada] ez bada *Do Lo* 192 64 *Ba* 46 (*in-hu*) 193 Ia *Lq* Ya *Ba Do Al Mu* | daveen *Do Mu Al Lq* daveen *Ba (in-hu)* 194 ia *Lq* ya *Ba Do Al Mu* | icutsico] icusico *Do Lo* 197 nasaijac *Do Al Lq* nasijac *Ba (in-hu) Mu* 201 ez ditubanac *Do Al Lq* ezditubanac *Ba Mu* 202 geriagaz] geraagaz *Do* | Icusten da] Icusten an *Mu*

⁴² Ikus zein egoki dioen eta zein indartsu *gavac demporaac emon bagaric* esaldia ergatibo horrekin.

nian, nescaac armatuta dagozala, avijan goseric daguan choriya amaren janarijaren zain leguez, nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen
 205 leunquerija ondo eracusten daveela. Erri batzubetan nescaac asten davee ta cumpliduten davee mutilez edo guizonez dantzia. Itchusijago ta lotsa galducuago baino ez da. Icusten da: dantzaraco esque juacozan andriari edo nesquiari, eguiten deutzazala milla acinoe ta menio indecente, daroianac, bai escuti oratuten deutzanian, ta bai dantzarijari entregueetan deutzanian, nesquiaren
 210 edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco edo baso asto batzuc dirurijela. Ta ceimbat inde-[66]cencija gueijago eguiten deutseen, ainbat dago nesquia pozagoric labanquerijaren ta liquinquerijaren vitsa darijola.

Modu onetan plazaan dantzia cumpliduten da. Dantzia cumpliduta laster, tambolinac esaten dau: *Nai davenac nai davena eguin daguijala*, naastia, arin
 215 aringua, arreatua ta pandangua joten ditubanian. Ya dagoz dantza atan guizonezcoric edu emacume, edo mutilic edu nesca. Guztia, esan dan leguez, onestidadia galduteco ondo prestauta, escuz escu alcarri oratuta, naaste mutil biren erdijan nesca bat dala, noren seme edo alaba dirian, asco gomuta ez daveela.

Tambolinac dino: Gura davenac gura davena eguiteco orduba dala. [67] Ta eguija esateco, eguzquijari beguir bertan pecatu eguingo ez badavee, beste desonestidade guztia lotsa bagaric airian darabeele dantza atan. Naaste atan entzuten dan ta icusten dan guztia, da luxurijaren suba ta queia. Batian, dantza lucian arin aringa gorputzaquin alcar joten. Bestian pandangan nos arpeguiaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco, bai
 225 joco nesca ta mutil, menio desonestubac ta lotsarizcuac gueratu bagaric eguiten deutseezala alcarri. Ta bestian, cazubelaan erlia leguez, mordo baten guizon ta andra naaste. Ni esaten azartuten ez nasan ezaintasunac, alcarri eguiten deutseezala. Nescaac eurac bere, alacuac izan arren, ascotan coloriac gorrituta
 230 urteten daveela, an-[68]discotiac dirialaco mordo ataco pecatubac gente arteraco. Dantza atan esaten dirian ta entzuten dirian verba banacaac desonestubac. Beguiracuniac eta alcarren geraac desonestubac. Mosu eguiteco ta oratuteco meniuac ta oratutiac desonestubac. Gorputzaquin alcar jotiac desonestubac. Oinaquin magal jotiac desonestubac. Escu estututiac desonestubac... Ta au
 235 guztiau dantza bacochian gueratu bagaric nescaac mutilai ta mutilac nescai.

Ceimbat gavaren urrago, aimbat ezainago, nasaijago ta zatarrago dantza bacocha. Dantzati urteten davee sarritan nescaac, eureen iruneco zapijac asca-

207 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 209 deutzanian] deutzanai *Do (in-hu, 221.or.: deutzanian)* 213 cumpliduten da *Do Al Lq* cumplidutenda *Ba Mu* | cumpliduta *Do (Mu) Al Lq* cumpliduta *Ba (in-hu)* 214 esaten dau *Do Al Lq* esatendau *Ba Mu* 215-216 (guizonezcoric) edu] edo *Mu Al* 216 (mutilic) edu] edo *Mu Al* 218-219 ez daveela *Do Al Lq* ez daveela *Ba Mu* 221 eguija] eguija *Ba (in-hu) Mu*, eguija *Do Al* | ez badavee *Do Al Lq* ez badavee *Ba Mu*

tuta ta burucuac oquertuta, icusi bagaric sinistu ezin leguijan moduban. Ascotan dantza ari-[69]nian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita
 gueratuten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ez deutseen moduban, escuti 240
 dautsanac, colpez jaso artian; ta gente guztia arixe beguira chaloca. Dantzaan
 sartuten ez dirianac, edo dira, lutubac dauqueezanac; ta areec bere gogoz an
 dagoz. Edo dira, zaar ibilli ezin dirianac. Oneen condecinoia esanda gueratu
 da. Aguraac badira, ordituta asco. Atsuac badira, ta endamas seme alabaac an
 dauqueezanac, azerija ollua jaaten baino pozagoric dagoz plaza baztar bateti 245
 edo bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui guztian cansau bagaric.
 Edo dira, seinu eguitemo andi dagozanac. Oneec bere vorondatez dantzaan
 dagoz. Baita batzuc gorputzez bere ocotzeraguinoco [70] sabelagaz justicijaren
 lotsa arin onian ta naturaleciaren desondraan. Edo dira, dantzara inoc eruan ez
 ditubanac. Oneec embidijaz ta zeloz murmuretan ta ernegueetan dagoz, inoc 250
 aintzat artu ez ditubalaco. Ez davee bein bacarric topau nescaac dirubagaz,
 dantzara noc eruan. Edo dira, adisquide maite bategaz bacarrian astirochuba-
 go egon gura daveenac, bestiac dantzan daviltzan artian. Oneec bere ya ezau-
 tubac dira, cer dirian. Beste guztiac dantzan daviltz.

Dantziaren despeidaan edo amaijan, ascotan edo gueijeenan, mutila dua, 255
 dantzan erabili daven nesquiagaz, ta dagoz alcarregaz beste dantzara artian,
 endamas bere devocinoecua bada, prutia edo erroscac artuta. Areec dantza-
 an berotu-[71]ta, carinua alcarri eracutsita, dantzara eruan daveelaco, nesqui-
 ac mutilari esker ona carinoz emonda, bacarrian cer esango daveen ta cer ira-
 goco daveen, pensau begui, alaco ordubeen barri obeto daquijanac. 260
 Avemarijeetan gueratu dedilla tambolina. Ez, gueratu oi dalaco piesta egunic
 erdijeetan ta guichijagotan bere. Baina izan dedilla alan. Bada, despedaco gen-
 tiaren urteneria da guztien aazcarrija. Guztiac dacuseela ta dantzubeela, egui-
 ten dira urtenera ziquin atan nesqueen ta mutileen artian, noc nori asco ez
 daquijala naastian, tocamentu loijac, oratute loijac, mosuca loijac, escuca loijac, 265
 pecaturaco convit erabaguijac ta beste luxurijaren asmuac topau dituban ta
 esan leguizan verdequerija altubac, [72] clarubac ta zatarrac. Nesca batac egui-
 ten dau garraasi bat. Bestiac silijo bat. Bestia asarratuta, asten da lotsagalduco
 diadarca. Bestiac bardin eguiten deutsa bidao bat, oratu deutsan mutilari edo
 guizonari, orducua ya guztizcua dalaco. Alan duaz plazati echeruz aldi baten 270
 naastian ta morduan ajuica, diadarca, barreca ta oratuca, luxurijaren pestia ta

240 ez deutseen *Do Al Lq* ezdeutseen *Ba Mu* 242 ez dirianac *Do Al Lq* ezdirianac *Ba Mu*
 243-244 gueratu da *Do Al Lq* gueratuda *Ba Mu* 248 batzuc *Do Al Lq* bazuc *Ba (in-hu) Mu*
 249-250 ez ditubanac *Do Al Lq* ezditubanac *Ba Mu* 251 ez ditubalaco *Do Al Lq* ezditubalaco
Ba Mu | Ez davee *Do Al Lq* Ezdavee *Ba Mu* 253 ya] ija *Ba Do Al Mu*, ia *Lo* 257 enda-
 mas] endemas *Do* 261 oi dalaco *Do Al Lq* oidalaco *Ba Mu* 266-267 eguiten *Do Al* egiten *Ba*
(in-hu) Mu Lo

atsa darijuela, bacocho bere lagunagana ta bidera batu artian. Echia urrinago dauqueenac, urteten davee, oi danez, leenago plazati. Urraago dauqueenac, berandubago. Baina gavac ordubac emonda bere, ez dira palta, ez plazaan ta ez bideetan nescaac eta mutilac. Piestati echeruz nequez dua inor bacarric, ordiren bat ez bada. Gueijenian nesca bat ta mutil bat al-[73]carri escuti edo samati oratuta. Edo nesca bat mutil biren erdijan; edo mutil bat nesca biren erdijan, alcarri dautseela, esan dan moduban. Ta gueijeenc, aurrecuac ondorenguai ta ondoric duazanac, aurrerago duazanai, burla desonestubac alcarri eguiten. Nesca bat, mutil bat albuan ez davela, piestati echera nequez. Areec bidian illunian (bada avemarijeetan tambolina ixildu zanian, plazati urten eveen leenenaz) edo legua bat bidian, edo legua erdijan, edo gueijaguan eche-etara artian cer eguin al daguijeen, amar urteco umiac bere baquijee.

275
280
285
Cale barruco dantzarijac ez dira segurubago gueratuten eureen tambolin egunetan, bestiac baino. Ta onen errazoia emongo da zortzigar-[74]ren erres-
puestaan, emen esaten danaz gainera, itsuba ta gorra ez daguanac aituteco ta ezauteco tercijuan.

Ara emen, celan eguiten dirian placeetaco piestaac. Ecer bere ez dot esan, gueituta. Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztiac paperian ez imintiarren. Gueure errijeetaco piesta bat edo bi asi ta amaitu contuz icusi ditubana-
290
295
nac, ta euscal errijeetaco gentiaren ta echeen barri daquijanac, ez deust ucatuco, esan dodan verba bat. Piestetan sarri gogoz ibili dana bada, esango dau: dauqueen baino echura obia emon deutseedala. Ta ez dira emen contuban sartuten, dantzia emon jacuelaco edo emon ez jacuelaco, copradijeetaco ta albo-
errijeetaco gen-[75]tiac atera oi dituban ocasinoiac, gorrotuac, vengantzaac, burrucac, maquilacaac ta guizon illtiac bere bai, izan arren casic piesta guztietan guichiago edo gueijago. Ichi daguijeegun, bada, tertcijo onetan Plazaco Dantzai. Ta icusi daigun, Espiritu Santubac ta Eleisiaren Gurasuac cer dinuen naasteco dantzaac gaiti.

272 lagunagana *Al Lq* laguna gana *Ba Do Mu* 273 oi danez *Do Al Lq* oidanez *Ba Mu* 276 ordiren bat *Do Al Lq* ordirenbat *Ba Mu* | ez bada *Al Lq* ez bada *Ba Do Mu* 277 nesca bat *Do Al Lq* nescabat *Ba Mu* 278 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 280 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 283 al daguijeen (*Lo*) aldaguijeen *Ba Do Mu Al* 288 ez dot *Do Al Lq* ezdot *Ba Mu* 289-290 imintiarren] iminti arren *Do* 291 deust *Do Al Lq* deust *Ba (in-hu) Mu* 295 oi dituban *Do Al Lq* oidituban *Ba Mu*

§. III.

300

*Escritura Sagradubac eta Eleisiaren Gurasuac
naasteco dantzaac gaiti dinuena.*

Lecu ascotan esaten deuscu Escritura Sagradubac, ce condicinoetacuac dirian naasteco dantzaac. Ez da nire gogua, guztiac ez ece guchiago [76] bere emen imintia. Testamentu zaarreco ta barrico liburu guztietan dagoz sentenci- 305
ja edo esan era batzuc, pedia daucan cristinaubari icara eraguin leguijueenac. Iracurri bediz Job, Isaias, Daniel, Salomon, Evangelijua ta san Paulo, ta eurac quenduco deutsee, salvau gura davenari, ocasinoe galdu areetan ta arei darrai-
cuezan pecatu impameetan sartuteco gogua. Esan bat edo bi gogoratuco ditut, gueure placeetaco dantceen sarija ondo autor daveenac. Dino Espiritu 310
Santubac lecu baten (12): *Ganadu aldriac leguez, urteten davee pecatarijeen umiac soinubagaz; dantzan ta saltoca daviltz soinubaren [77] otsian; eureen egunac iragoten ditubee aleguere ta pozic, ta istante baten jausten dira imper - nura. Et in puncto ad inferna descendunt.* Beste lecu baten dino (13): *Emacume dantzaarijaganic apartau zaite, bere artia gaz ta encantubagaz 315 galdu ez zaguizan. Ne forte pears in efficacia illius.* Beste batzuc iracurten davee: *Cantaarijaganic.* San Ciprianoren erichijan bijac, emacume dantzarija ta cantarija bardinac dira, guizonac galduteco. Beste lecu baten dino Espiritu Santubac (14): *Siongo alabac ibili ziriala, eureen burubac jasota, samaac 320 armatuta, apainduta veguiracune maiteetan escubaquin chaloca ta oinaquin [78] dantzan. Alan ibili dirialaco, Jaungoicuac quenduco deutseezala Siongo alabai eureen apaindurijaac, mutilduco deutseezala eureen burubac, ta emongo deutsee la buruco apaindurijaren lecuban calva gorrija, loreen lecu - ban atsa, ta cinteen lecuban cordelac ta cilicijua.* Escritura Sagraduco lecu oneetan (beste jazo ta esan ascori ichita) gueure piesteetaco dantza madaricatubac 325
Jaungoicuaren gorrotua ta zamaija eureen gainian dauqueena, edoceinec dacuts.

Naasteco dantza impameen gainian Eleisiaren Gurasuac ta santubac dace-
reezan errazoe asarriac, esatez amaitu ezin leguiz. San Juan Crisostomoc esa-
ten dau (15): *Dantza [79] nasaija daguan lecuban, dago diabruba. Ez eutsu -
zan Jaungoicuac oinac emon, dantzan eguiteco; ez bada modestijaz pausu 330
eguiteco. Piesta orreetan diabrubac dantzan eguiten dau; ta demoninuen aguacillac engaineetan ditubee guizonac... Oraingo dantzeetan ez jaco samia*

(12) Job 21. (13) Eccl. 9. (14) Isaias 3. (15) Hom. 49, in 14. Math.

314 lecu baten *Do Mu Al Lq* lecubaten *Ba* 318 lecu baten *Do Al Lq* lecubaten *Ba Mu*
319 alabac| alabao *Mu* 321 Siongo *Do Mu Al Lq* siongo *Ba (in-hu)* 330 ez bada| ez bada
Do Lo 333 ez jaco *Do Al Lq* ezjaco *Ba Mu* 334 Eccl.| Escl. *Ba*

ebaten san Juan Bautistari⁴³; baina illten dira cristinaubeen arimac. San
 335 Efrenece dino (16): *Ez dedilla inor engainau. Inoc bere ezin servidu leguizala
 ugazaba bi. Inoc bere ezin leguizala Jaungoicua serbidu ta diabrubagaz dan
 tzaan eguin... Dantzia daguan lecuban, dagozala oquerrerija guztiac. An
 daguala emacume galdu lecuba, aingueruben tristecia ta diabru- [80]been
 poza ta piestia. Goxian eleisan ta arratsaldian dantzan diardubana, goxian
 340 Jaungoicuagaz ta arratsaldian diabrubagaz daguala. San Ambrosioc, san
 Ciprianoc ta Tertulianoc gueijago escribidu evene piesta galdubeen ta naaste-
 co dantceen contra. Gueure errijetaco piesteetan ta dantzeetan icusten da,
 areec condeneetan ditubeen pecatubac ta oquerrerijac. San Ambrosioc dino
 (17): *juicijua ta modestija daucanac, ez davela dantzan eguiten...*
 345 *Adulterijuaren alabia dala, dantzan eguiten davena...* San Ciprianoc dino
 (18): *¿Ce zoraquerijac artu ete ditu cristinaubac... demoninuac asmautaco [81]
 dantza loijac, onac diriala esateco?* Santo Tomasec dino san Agustinegaz (19):
*Domequeetan ta jai egunetan dantzan eguitia, pecatu andijagua dala, soluan
 nabasen edo echian gorubetan eguitia baino.* Obeto gordeco eveela, (edo
 350 pecatu guchiagogaz) judegubac zapatuba nabasen⁴⁴ edo gorubetan eguinagaz,
 dantzan eguinagaz baino.*

San Basilioc dino (20) naasteco dantceetan daviltzan emacumiac gaiti:
*¿Ceintzuc gaiti negar eguingo ete [82] dot? ¿Ala ezcondu bagacuac gaiti, ala
 ezcondubac gaiti? Ezcondu bagacuac virginidadia galduta, viurtuten dira
 355 echeetara. Ta ezcondubac ez deutsee castidadia gordeetan senarrai. Bada,
 dantzan daviltzan emacumeetati, banacaren batzuc gueratuten badira gor
 putz osuagaz (pornicau bagaric), areec bere arimaco castidadia galduta, loi
 tuten dira. Santu onen erichijan, ¿nos contauco ete cituban Eleisa Ama santiac,*

(16) *De Ludis fugiend.* (17) Lib. 3, *De Virg.* (18) Lib. de Spectac. (19) 2. 2,
 360 q. 122, a. 4. (20) Orat. 8. de temperant. et lib. de Elia, et jejun., c. 18.

334 Bautistari *Do Al Lq* Boutistari *Ba (in-hu) Mu* 339 arratsaldian *Al Lq* arratsaldian *Ba
 Do Mu* 340 arratsaldian *Al Lq* arratsaldian *Ba Do Mu* 342 da] dira *Do Al Lq* arratsaldian
Ba Do Mu 344 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 355 ez deutsee *Al Do Lq* ezdeu-
 tsee *Ba Mu* 360 temperant.] temparant. *Ba*

⁴³ Ik. Mt 14, 1-12.

⁴⁴ Izan ere, S.Tomasen aipaturiko testuan (*Summa theologica, Secunda Secundae*, quaestio CXXII, art. IV) S. Agustinen aipamen esplizitu bat dator, S. Tomasek honela aipatzen duena: (“*De decem Chordis serm.* IX, c. III, col. 77, t. 5”); S. Agustinen testu hau PL, Migne, 38, col. 77an dator (“*Melius enim faceret Judaeus in agro suo aliquid utile, quam in theatro ceditiosus existeret: et melius feminae eorum die sabbati lanam facerent, quam toto die maenianis suis impudice saltarent*”); eta honen antzeko beste testu bat ere bada haren beste obra honetan: “In Joannis Evangelium tractatus CXXIV”, PL, Migne, 55, col. 1404 (“*Judei enim serviliter observant diem sabbati, ad luxuriam, ad ebrietatem. Quanto melius feminae eorum lanam faceret, quam illo die in maenianis saltarent?*”, Tractatus IV, 19).

edo nos iminico ete lituque virgineen artian, erri oneetaco piesteetan ta naas-
 teco dantceetan ibili dirian emacume libriac, guero santa andi eguingo balira
 bere? Bada, dinuanez, inoc ezautu ezin leguizan banacaac⁴⁵ baino ez da gue-
 ratuten gorputz osuagaz. Ta areec bere arimaco castidadia galduten da-[83]vee 365
 dantceetan. San Antoninoc dino (21): Dantzarijac diabrubari bidia presteetan
 deutseela, diabrubagaz impernuban aguertuco diriala... Soloco coco saltocari-
 jac laboria galduten daven leguez, emacume dantzarijac arimaac galduten ditu-
 beela... Dantziac impernuco pozuti urten davela... Impernuco labati quee atsi-
 tubac urteten daven leguez, naasteco dantzeetati luxurijaren subac urteten
 davela... Guizon ta emacumeen naasteco dantzia demoninuac darabilela, ari- 370
 mac galduteco... San Carlos Millango obispo andijac ta guiza aldi oneetaco
 Eleisiaren arguijac liburu oso bat escribidu evan dantza naaste-[84]cuen contra
 emeretci capitulugaz ta amairu *conclusinoe* edo amaigaz. An eracusten dau
 Santubac Eleisaco Gurasuen, jaquituneen ta errazoiaren goitute osuagaz, esan
 dirian naasteco dantzai jarraitutia pecatu mortala dana. Ta dino (22): *Naasteco* 375
dantzaan oi dan nasaitasunari ta ocasinoiari veguiratu ezquero, ez dauca
inoc cetan pensau, estubac garijala, naasteco dantziari jarraitutia pecatu mor
tala dala, eracusten dogunian.

Au da Eleisiaren Gurasuen verbetia naasteco dantza galdubeen contra. Ez
 cirian Guraso santu ta ceruco dotriniaren eracusla jaquitun areec, guero 380
 escolau batzuc le-[85]guez, dantzaac *per seta per accidens, secundum seta per*
abusum, in genere suota per malitiam erabaguiten ibili. Ezbada beguiratu eu-
 tseen guizon ta emacumeen arteco naasteco dantziari, guiza aldi guztietan jazo
 dan moduban, jazoten dan moduban ta jazoco dan moduban, (eguiten bada) 385
 Adanen seme alabaac vitzi dirian artian. Au ondo ezaututa, ondo sinistuta,
 Jaungoicuaaren mandatari areec eureen liburubeetan esanda ichi evenen cristi-
 nau guztientzat naasteco dantzaac gaiti, ordiquerija, gorrotua, murmuracinoa,
 sobervija, batio-ucaturia, sacrilegijua, luxurija, pornicacinoa ta beste pecatu

 (21) P. 2, tit. 6, c. 6. (22) *De Choreis*, c. 16.

361 ete lituque *Do Al Lq* etelituque *Ba Mu* 362 dantceetan *Al Do Lq* danceetan *Ba (in-*
hu) Mu 372 84 *Ba ez-aip. (in-hu)* 373 amairu] amaitu *Do (in-hu, 221.or: amairu)* | An]
 Au *Do (in-hu, 221.or: an)* 376 oi dan *Do Al Lq* oidan *Ba Mu* 382 Ezbada] ez bada *Do Lo*
 383 dantziari] dantzai *Do* 387 guztientzat] guztientzat *Do Lo*

⁴⁵ Irakurle bat baino gehiago harrituko da, agian, komunztadura singularrean egiten duela-
 ko. Pluralean egitea zuzen ez denik ez genuke esango, baina multzo gisa harturik, ongi hartzen
 da singularreko komunztadura.ere. Perpaus nagusia baiezkoa balitz, pluralean egin beharko
 zukeen: [*inoc ezautu ezin leguizan banacaac gueratuten dira gorputz osuagaz*]; ezezkoan eta
baino juntagailua tartean dela, singularreko komunztadurari egoki deritzogu: "*inoc ezautu ezin*
leguizan banacaac baino ez da gueratuten gorputz osuagaz"

390 ezainac gaiti esan even baixen deungaro. Guizon ta emacu-[86]men naasteco dantziari esaten deutsee Eleisaco santubac verbaan verbaan: Impernuco pozuba, Babilonijaco labia, errijetaco pestia, pecatu guztien erne lecuba, luxurijaren escolia, castidadiaren galdugarrija, diabrubaren chirrintolia, satanasaren saria, demoninuen jocua, piestia, sortia, Jesucristoren desondragarrija, cristinaubeen
395 lotsagarrija, bautismoco promeseen ucagarrija, ainguerubeen tristecia, virgineen ondandemendija, adulterijoguina, lapurguina, gorrotoguina, zeloguina...

Au esaten davee santubac naasteco dantzaac gaiti. ¿Cer esango even, gueure placeetaco dantza desondraubac asi ta amaitu, echian urteten daneti ta sartu artian, [87] icusi balitubee? ¿Nos absolviduco even guraso bat edo ume
400 bat, berarijaz olguetia gaiti dantza madaricatu orreetan davilena ta ibilteco ustia daucana? Eurai itandu. Eleisa Ama santiaren Batzaarretaco neurgarrijac ta cristandadeco aguintari jaunen ordenaac bere bardin condeneetan ditubee naasteco dantzaac. Baina, ¿ce cristandadeco? Erromaco gentileenac iracurten dira dantza galdubeen contra, errijeetaco ta pamelijetaco baquia ta matrimoniuac
405 galduten ditubeelaco. Esan danagaz aaztu bagaric, icusi daigun, teologija sagra-dubaren eracuslaac ta errazoiac eurac gaiti dinuena⁴⁶.

[88]

§. IV.

Theologubac ta errazoiac naasteco dantzaac gaiti dinuena.

Ez da nire gogua, sail au luzatutia; ezbada aimbat laburren ta arguiruen
410 imintia. Liburu andijac escribidu leguiz, asco cansau bagaric, leenagoco guiza aldijetacuac esan daveena, batuten asi ezquero. Eleisiaren Gurasuac gorrotoz beguiratu badeutsee naasteco dantzai, areen ondorengo teologu edo *moralis-taric* juicijozcuenac ez deutsee obeto beguiratuten. Dinot: *Juicijozcuenac*. Bada, beste gauzaric escribidu daveenac, inoc iracurten ez ditu, eureen inocen-
415 [89]cijari ta penseeta modubari barre eguiteco baino. Bat edo biren esanac nic iminico ditut, ta beste batzuc icentau.

Leleengo lecuba errazoiagaz euqui biar dau Benedicto XIV. ez estutzat, ez nasaizat iracurla batec bere ez daucanac. Onec dino, beste santu ta eracusla

395 Bautismoco *Lq* Bautismoco *Ba (in-hu) Mu* 402 aguintari *Do Al* Aguintari *Ba (in-hu) Mu* | ordenaac] ordenac *Al Lo* 405 Esan danagaz *Do Al Lq* Esandanagaz *Ba Mu* 406 dinuena *Do* dinuana *Ba Mu Al Lo* 408 dinuena *Do* dinuana *Ba Mu Al Lo* 409 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* | ezbada] Ez bada *Do Lo* 411 aldijetacuac *Do Al Lq* aldeijetacuac *Ba (in-hu) Mu* | esan daveena *Do Al Lq* esandaveena *Ba Mu* 417 biar dau *Al Do Lq* biardau *Ba Mu* 418 nasaizat] nasaizat *Do Lo* | ez daucanac *Al Do Lq* Ezdaucanac *Ba Mu*

⁴⁶ Dino egiten du, baina din *ue*, ez din *oe*. Gure idazleak honetan arau finkoak ditu: *-oe* maileru batzuen bukaeretan egiten du soilik: *sermo_{oe}*, *maldicin_{oe}*, *condicin_{oe}*, *erligin_{oe}*, *diversin_{oe}*..

asco icentauta (23): *Guizon ta emacumeen arteco dantza naastaubac, eurenez pecatu izan ez arren, eguiten dirian moduban, pecatu diriala. Cura jaunai ta compesore jaunai jagocuela, guizon ta emacume guztiai ondo aituten emotia: ce ocasinoe andija ta peligruba daguan naasteco dantceetan; ta pecatu eguiteco peligru andira dua-[90]zala, ara duazanac.* Belarmino cardenal⁴⁷, jesuita veneragarrijac dino (24): *Adulterijua ta pornicacinoia pecatu badira, ez daqui jala berac, guizon ta emacume naaste dantzan ibiltia, celan pecatu izango ez dan; dantziac atara convideetan davela ta...* Zuc, dino cardenal jaunac, *gaz tetasunaren subari ezarten deutzazu ardauaren suba, juan ta etorri, egon ta ibili ta cantau eguiten dozu nescaaquin, ¿ta ez dot nic zu gaiti gauza charric pensauco?*

Aita Paulo Seineri⁴⁸, Italiac misinoe jaquitunac ta zelotsubac, leenagoco eracusleen esan era guztia bardinduta ta alcartuta, eracusten [91] dau (25): *Dantzia berez pecatu izan ez arren, eguiten dan moduban, naasteco dantzia luxurijaren viztugarrija ta berogarrija dala; ta chito errazto iragoten dala pecatu izatera. Casuistaac bere ez daveela au ucatu; ez bada, naasteco dantzaan pecatu eguiteco daguan ocasinoia gaiti, guztia eracutsi daveela Eleisaco santubaquin, dantzaac pecatu mortalecuac diriana.* Aita Baltasar Francolinoc dino (26): *Eguzquijaren urten erati sartu eraraguinoco jaquitun guztia condeneetan ditubeela naasteco dantzaac Jaungoicuaren contraco pecatu anditzat.* Dotrina au berau eracusten davee, bacoachac bere lecuban ta bere sailari jagocan moduban: [92] Natal Alexandro (27), Juan Pontas (28), Lamet (29),

 (23) *Instruct* 76. (24) *Ibid.* (25) *Ibid.* (26) *Ibid.* (27) *Theol. Dom. Moral.*, t. 2, l. 4. de Decalog., c. 8, a. 2. Reg. 8. (28) *Dicc. casu.*, t. 3, v. Saltat. casu 2. (29) *Dicc. cas.* t. 1. v. Choreæ, cas. unico.

424-425 ez daquiiala *Do Al Lq* ezdaquiiala *Ba Mu* 426 ez dan *Do Al Lq* ezdan *Ba Mu* 432 eguiten dan *Do Al Lq* eguitendan *Ba Mu* | ez arren *Do Al Lq* ezarren *Ba Mu* 434 ez bada *Al Ez bada Ba Mu Lo* 436 Francolinoc *Do Mu Al Lq* francolinoc *Ba (in hu)*

⁴⁷ Roberto Bellarmino santua (1542-1621), Montepulzianon (Toskana) jaioa, Aita Santu Marcellus II.aren iloba; jesulaguna, predikaria, teologoa; asko idatzi zuen, hainbat eztabaida teologiko-juridikotan esku hartuz. Kardinala izan zen... 1930ean kanonizatua (Ik. S. TROMP, *Bellarmin, Robert Franz Romulus, hl.*, in: LThK 2 (1986) 160-162). Bellarminori dagokion aipamen hau eta beste zenbaitzuk, Benedikto XIV.aren Instrukziotik harturik daude eta *Pastoral de N. SS^o Padre Benedicto XIV. De gloriosa memoria, siendo cardenal arzobispo de la Santa Iglesia de Bolonia; e instrucciones eclesiásticas para su diócesis* obraren bigarren liburukian aurkitzen dira.

⁴⁸ Paulo Segneri (1624-1692), jesulaguna, sermolari handia (Ik. B. SCHNEIDER, *Segneri, Paulo. d. Ä.*, in: LThK 9 (1986) 596).

Gerson (30), Salviano (31), Juan Nider (32), Colet (33), Reiffest (34), Ferraris
 445 (35), Geneto (36), Marchant (37), Comp. Salm. (38), El R. [93] P. Fr. Diego de
 Cadiz (39), Mansi (40), Pouget (41), R. P. Fr. Francisco Antonio de Palacios
 (42), D. Juan Antonio de Moguel (43)... Empin, esan daigun era batera san
 Carlos Milango obispo jaunagaz (44): *neque vero hodie quisquam est paulo*
prudenter, qui choreas non detestetur Edo, esan daigun Benedicto XIV. (45):
 450 Eleisaco erregueleen, santubeen ta [94] eracusleen dotriniari ichita, libertadia ta
 nasaitasuna gura daveenac, verba eguiten daveela naasteco dantzeen pavore.
*Infelices Abogados del libertinage*esaten deutsee alacuai Benedicto XIV⁴⁹. Ez
 dago, Jaungoicuaaren leguia eracusteco uste onagaz plumia escuban artu dave-
 nic, ez *casuistic*, ez *provabilistic*⁵⁰, celan eguiten dirian entzun ezquero

 455 (30) P. 4, Dom. 3. adv. (31) Ap. D. Carol. de choreis. (32) *In instru[ct]*. 76.
 Bened. XIV. (33) Moral. trat. 6. praecept., c. 6, Sect. 2, conclus. 3. (34) *Theol. Moral.*
 trat. 9, dist. 4, q. 7, n. 84, adic. 4. et 5. (35) *Bibliot.v.* Choreae. (36) Tom. 3. de san-
 tific. fest., c. 3, q. 4. (37) Hort. past., lib. 3, trat. 3, l. 10. (38) Tom. 1, trat. 9, c. 6,
 punto 2. (39) Cart. Consul. N. impr. en San Sebastián año 1803. (40) *Bibliot. Pred.*,
 460 t. 1, trat. 9, disc. 5. (41) Inst. Chat., t. 4, Part. 2, Sect. 1, c. 2, §. 3. et lit. F. impr. Lovan.
 año 1774. (42) *Contra bailes*. c. 3. (43) Iracaste, 10. (44) *De choreis*, c. 17. (45)
Instru[ct].76.

445 Comp.] Caomp. *Al* 447 era batera *Do Al* erabatera *Ba Mu Lo* 449 choreas *Do*
 choeas *Ba (in-hu)*, choeas *Mu*, choeas *Al*, choreas *Lo* | Benedicto *Do Al Lq* Bendicto *Ba*
Mu 452-453 Ez dago *Do Al Lq* Ezdago *Ba Mu*

⁴⁹ Benedikto XIV.a (1740-1758), Bolognan 1675ean jaioa; ospetsua da santuen kanonizazio-
 ari buruzko idazki klasikoagatik (De servorum Dei beatificatione et beatorum canonizatione,
 1734-1738), lege-liburu garrantzitsua utzi zion Elizari. (J.N.D., KELLY, *Diccionario des Papes*,
 Brepols 1994, 619-623. or.). Frai Bartolomek sarri samar aipatzen du Aita Santu hau; gaur egun
 ere gordetzen dira Aita Santu honen idazlan guztiak Markinako Karmengo liburutegian.

Aipamen honetatik atera daitekeenez, Frai Bartolomek Aita Santu Benedikto XIV.aren gaztela-
 niatzko testua erabili zuen; gure idazle karmeldarrak aipatzen duen *Instruct* obra hau oraindik
 Markinako Karmengo liburutegian gordetzen da: *Pastoral de N. S^{mo} Padre Benedicto XIV. De glo-
 riosa memoria, siendo cardenal arzobispo de la Santa Iglesia de Bolonia; e instrucciones eclesiásti-
 cas para su diócesi*. 2 t. Madrid, 1761-1769. 76. irakaspena (*Carta circular a los ar ciprestes, Vcarios*
Foraneos, y Curas de la Diócesi, en orden a los Bayles.) bigarren liburukiko 126-136. orrialdeetan
 dator. Hala ere, Benedikto XIV.aren testua "abogados infelices del Libertinage" da (126. or.).

⁵⁰ Frai Bartolome, garai hartan moralean, kasuisten eta probabilisten artean zegoen eztabai-
 daz ari da hemen. Moraleko arau orokorrak, inguruko zertzeladak kontuan izanik, nola ezarri
 kasu konkretuei (kontzientziako kasuei), hori da arazoaren muina. Probabilismoaren arabera,
 egintza baten moralitasunaz zalantza serioa dagoenean, ongi oinarrituriko iritzia jarrai daiteke, ziu-
 rrena izan ez aren. Frai Bartolomek ongi ikasi zuen gai hau bere teologiako urteetan, baina
 oraindik Markinako Karmengo liburutegian dago Frai Daniel Concina-ren lehen liburukia *Historia*
del probabilismo, y rigorismo. Disertaciones theologicas, morales, y críticas en que se explican, y
defienden de las sutilezas de los modernos probabilistas los principios fundamentales de la theo-
logía cristiana. Madrid, 1772.

gueure placeetaco dantza naastaubac, pecatu mortalaren beeco ocasinotzat emoten ez ditubanic. ¿Baina cer eguingo davee guichiago, dotrinia daquijee-
nac ta juicijua dauqueenac, berarjaz gentia engaineetara ez baduaz, pecatu
eraguiteco? ¿Ez dau Evangelijoco eracutsijaren errazoe aguirijac au esaten? Icusi 465
daigun.

[95]

ERRAZOIA

Errazoe au ezaututeco, ez daiguzan contuban sartu, gueure placeetaco dantzaac diriala medijo zucen, errijeetan, copradijeetan ta pamelijetan jagui oi
dirian ocasinotac, burrucac ta lutzaroco gorrotuac; vengueetaco atajadiaren 470
zain urrengo piesta egunera edo erromedija egunera artian egotiac; gurasuen
ta umeen arteco bidauac, baque chaarra ta gaineco eguneetan alcarri verbaric
eguin gura eza... Ez daigun contuban sartu, piesta eguna jaijeguna bada, egun
guztia diabrubu, munduba ta araguija serbiduten iragotia; Jaungoicuagaz bere
ez acordeetia; ta, verbeeta onian, mezaric [96] bere ez entzutia. Ez daigun con- 475
tuban sartu, piestia ta dantzia dala medijo baseerri echeetan eguiten dirian
castu alperricacuac, vanidadezcuac ta neurri bagacuac. Baquidaz Vizcaijan,
eurac zinuenez, piesta egun bacoheco castuba eun ducategaz eguiten ez
dabeen baseerri echiac. Ta urte ascotan alan. Ez daiguzan contuban sartu, pla-
zaraco ta piestaraco eguiten dirian lapurretac ta andi ateraten dirian ordiquerijac, 480
joco chaarrac ta beste maldadiac. Alderatu daiguzan oneec guztioic buruti
simplezatzat ta chochaquerijatzat, errijetaco dantza egun guztietan, bat ichi
bagaric, jazo arren.

Ta esan daigun, castidadiaren contra diriala pecatu mortaleco ocasinote
urrecuac. Ez gaitazan aaztu, erri one-[97]etaco placeetaco dantzaac celan egui- 485
ten dirian. Gogoratu daigun, Escritura Sagradubac, Eleisaco santubac ta jaqui-
tunac eurac gaiti dinuena. Iracurri daiguzan, Eleisiac condenauta daucazan,
luxurijari su emoten deutseen ta aren ocasinotac parcatuten ditubeen esanera
galdubac, *proposicinoe*condenaubac. Alexandro VII. 40, ta 41. Inozencio XI. 1,
51, 57, 58, 60, 62 ta 63. Alexandro VIII. 2.... Nasaitu daigun dotrina au, al dai- 490
gun guztia, dantza zaliac gusto emoteco. Ta, eracuslaric oneenac ta gueijeena
esan arren, vorondatez ta ezauberaz izan ezquero, ez daguala seigarren aguin-

463 ez ditubanic *Do Al Lq* ezditubanic *Ba Mu* 464 ez baduaz *Al Lq* ezbaduaz *Ba Do Mu*
465 Ez dau *Do Al Lq* Ezdau *Ba Mu* 467 Errazoia *Mu ez-aip.* 469-470 oi dirian *Do Al Lq* oidir-
rian *Ba Mu* 473 Ez daigun *Do Al Lq* Ezdaigun *Ba Mu* 475 Ez daigun *Al Lq* Ezdaigun *Ba Mu*,
Ez daiguzan *Do* 478-479 ez dabeen *Do Al Lq* ezdabeen *Ba Mu* 479 Ez daiguzan *Do Al Lq*
Ezdaiguzan *Ba Mu* 481 chaarrac] charrac *Mu Lo* 485 Ez gaitazan *Do Al Lq* Ezgaitazan *Ba Mu*
490 al daigun *Al Lq* aldaigun *Ba Do Mu* 492 ez daguala *Do Al Lq* ezdaguala *Ba Mu*

du santubaren contra, beste agundu ascotan leguez, gauza guichiric edo pecatu venialic. Imini daigun dudaan gauza au. [98] Ta esan daigun: Castidadiaren
 495 contra pensamentu, verba, gurari edo eguitade loi bati pusca baten vijotzian ezauberaz ta naiz lecu emon deutzanac, guichija ta ecer eza dala berac uste izan arren, ez davela jaquingo erijotzaco ordu artian, ala pecatu mortala ala veniala eguin daven. Evangelijoco eracutsiti asco urten bagaric, eracuslaric gueiljeenac esango deutseeela: *Pecatu mortala dala, alan castidadiaren contra* -
 500 *co gauza loijari ezauberaz vijotzian lecu emotia*. Baina onei guztioi erabatera ichita, guazan gueure sailaren itura zucen zucen ta esan daigun.

Cristinaubeen dotrinaan castidadiaren contraco pecatu mortala da, premi-na bagaric verba desonestubac esatia, gustoz barre eguinda entzu-[99]tia, oratute edo tocamentu desonestubac eguitia, inoc eguin daguijozan istia, escuca
 505 loijac eguitia ta noberari eguiten bestiai istia; endamas guizonezcuac emacumiai, ta emacumiac guizonezcuai. Baita pecatu mortala da, alaco gauza loijac esateco, eguiteco, entzuteco, icusteco, erasoteco ta eraguiteco ocasinoera ta peligrura bere guraz vorondatez ta ezauberaz premina bagaric juatia, ta alaco lecuban egotia bere.

Baita da eguija, plazaco piestara ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac eta gorrac edo umiac ez badira) ondo daquijeela bigarren juate aldico: juaten dirian guztian, edo piestaruz, edo piestaan, edo piestia amaituta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxurija guztiaren [100] testigu izatera duazana. Ondo daquijeela: Castidadiaren contraco pecatu mortalac, verba loijac eta zatar-
 515 rrac; escuca ezainac eta desonestubac gorputzaquin alcar jote lotsarizcuac; chanceetan venetan pecatu eguiteco convit clarubac; mosuca ziquinac ta errazoe indecentiac ta itchusijac; ondo daquijeela, dinot, bai guizonac ta bai andrac, bai mutilac ta bai nescaac, duazan guztian, luxurijaren sutegui ta ats ziquin au guztiau ta gueiljago icusico daveena, entzungo daveena ta sentiduco daveena. Ondo daquijeela (beticua dalaco) eurai bere sarritan, edo gueiljeenian, edo beti esan deutseezana, ta eguin deutseezana pecatu zatar, loi areec guztiac.
 520 Baita: ez guichitan, ez bada gueiljeenian, ta [101] gueiljeenac beti, eurac bere esan ditubeela ta eguin ditubeela loiquerija areec; ta besteen esanagaz ta eguinagaz barre eguinda alegrau diriala. Ezin inoc ucatu legui, dantza zaliac au
 525 ondo daquijeena.

Baita eguija da, guizonac eta emacumiac, mutilac ta nescaac eceren bere premina bagaric, ez cleituban, ez aciendaa, ez osasunian oneraric edo provechuric ez dauqueela, eureen guraz ta naiz, veguijai, belarrijai ta gorputzari gusto emotia gaiti, eureen burubac eracustia gaiti, ta esan dan saltsa ziquin

496 guichija *A*] guichiia *Ba Mu*, guichia *Do*, gitxia *Lo* 497 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 505 endamas] endemas *Do* 511 ez badira *Al Lq*] ezbadira *Ba Do Mu* 522 ez bada] ez bada *Do Lo* 529 esan dan *Do Al Lq*] esandan *Ba Mu*

pecatuzcuan ibiltia gaiti, duazala dantzara. Duazala, luxurijazco pecatu mortala 530
 lac esaten dirian, entzuten dirian, penseetan dirian, icusten dirian, eguiten [102]
 dirian ta eraguiten dirian ocasinoe jaquinera. Ta, esanac, eguinac ta eraguina
 ontzat emoten ditubeen lecura edo bidera.

¿Ta au onan izan ezquero, esango dau evangelijua sinistuten davenec, edo 535
 Eleisa Ama santiaren semec, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ez
 dala pecatu? ¿Iracurri dau inoc cristandadeco liburutan, alaco ocasinoe jaqui-
 nera premina bagaric bere naiz juatia, ez dala pecatu mortala? Esan daigun,
 bada, euscal errijetan, esan dan moduban ta jazoten dan moduban, plazaan
 tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzaac, avemarijeetan tambolina ixildu 540
 arren, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala. Necesidade ta premina
 bagaric, ondo daquijeela, juaten dirialaco, castidadiaren contraco [103] pecatu
 mortalac aguirijan beti eguiten dirian olgуетara ta dantzara.

Esan daigun gueijago: Ez daucala compesorec Eleisaco dotriniaren erre- 545
 guela edo neurgarriric, ez eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen
 juana garbatu ta ostera ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu edo
 absolvidu leguizala, esaten deutsanic. Ez dago onaco eracutsiric Eleisa Ama
 santaan. Ezin compesorec pecatubeetati librau legui, alan pecatu dan ocasinoe
 jaquinera bere guraz doiana, ocasinoiari isteco verbia emon artian.

Ara emen cerbait arguituta, asieraan imini neban amaija edo *conclusinoia*. 550
 Plazaco dantzaac celan eguiten dirian esanagaz; Espiritu Santubari ta Eleisiaren
 Gurasuai entzu-[104]nagaz; ta gueure sinistuquizunen eraculac ta errazoiac
 eurac gaiti dinuenagaz. Bitati bat: Edo provau, dantza plazaco orreec, esan dan
 moduban eguiten ez diriala; ta, Escritura Sagradubaren, Eleisaco Gurasuen ta
 eracusleen liburubetati atera dirian esanac guzurrac diriala; ta, imini dan erra- 555
 zoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala ta ondo amaituten ez davela. Edo
 autortu ta compesau, esan dirian dantzaac, pecatu mortaleco ocasinoe urre-
 cuac diriala; ta oni darraicona.

532 eguinac *Do Mu Al Lq* egninac *Ba (in-hu)* 533 emoten *Do Al Lq* omoten *Ba (in-hu)*
Mu 534 sinistuten *Do Mu Al Lq* sinuistuten *Ba (in-hu)* 535-536 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba*
Mu 537 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* | Esan daigun *Do Al Lq* Esandaigun *Ba Mu* 538
 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 543 Esan daigun *Do Al Lq* Esandaigun *Ba Mu* 546 Ez
 dago *Do Al Lq* Ezdago *Ba Mu* 547 pecatubeetati] pecatubeetari *Mu* 552 esan dan *Do Al Lq*
 esandan *Ba Mu* 553 ez diriala *Do Al Lq* ezdiriala *Ba Mu* 554 atera dirian *Do Al Lq* ateradi-
 rian *Ba Mu* 555 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 556 esan dirian *Do Al Lq* esandirian *Ba*
Mu

Erromedijen, biguiren ta saraubeen gainian

§. I. Cer dirian erromedijac.

§. II. Cer dirian biguiraac.

§. III. Cer dirian saraubac.

5

§. I.

Cer dirian erromedijac

Dantzazaleen urten erai edo argumentubai erantzutera orduco, pensau dot, erabagui biar ditudala, cer dirian erromedijac, biguiraac ta saraubac. Oneen ondoric eranzungo [106] jacue era batera guztien eraparubai. 10

Erromedija gaiti ez da emen beste gauzaric aituten, ezbada promesaren, santubaren edo santiaren achequijagaz ervestera juanda, errico ta ervesteco guizon emacume naaste, vidian ta erromedijaco lecuban eguiten daveen piestia ta dantzia. Erricuentzaco da piesta eguna, ta ervestecuentzaco⁵¹ erromedija eguna. Erromedija batzuc eguiten dira errijetaco eleiseetara. Baina gueijeenc basoco edo mendiren bateco ermitara. Nic icentau bagaric daqui gentiac ondo, onetarico ermita asco dagozana Vizcaijan ta Provincijan. Ta urrin errijetati legua ascuan gentia jua oi dana erromedijara piesta egunian. Ermitetaco erromedijac nos asi zirian, cegaiti asi zirian ta da-[107]gozan tercijora celan etorri dirian esatia, sail luciagua da ta orain paltaric eguiten ez davena. 20

8 Dantzazaleen *A|* Dantza zaleen *Ba Do Mu Lo* 9 ditudala] dodala *Do* 10 era batera *Dd* erabatera *Ba Mu Al Lo* 11 ez da *Do Al Ld* ezda *Ba Mu* | ezbada] ez bada *Do Lo* 16 icentau] incentau *Mu* 18 oi dana *Do Al Ld* oidana *Ba Mu* 20 ez davena *Do Al Ld* ezdavena *Ba Mu*

⁵¹ Oraindik gure artean bizirik dagoen adiera du, hemen, *erbestehitzak*. Sarrera orokorreko lexikoaren atalean honela diogu: “norbere herritik at dagoen beste edozein herriz esaten da; (*atzerr*i ere esan nahi du testuinguru batzuetan, baina gehienetan ez)” (ik. 324.or.). Bestalde, *erromedija* eta *piestia* esanahi aldetik antzekoak izan arren, badute alde txiki bat, aurreko testu honetan eta beste batzuetan ikus daitekeenez. *Erromedija* deritze frai Bartolomek, erbestetik, hau da, inguruko beste herrietatik “piestia” egiten den lekura etortzeari eta han egiten diren dantza eta jolasei; beraz, ermita edo dena delako lekuan egin ohi diren dantza eta jolasez gain, bideko joan-etorria hartzen du batez ere (ik. 325.or.).

Esaten da, bada: Tambolinagaz piestia ta naasteco dantzia eguiten dan erromedijara, dantzan naaste eguitera, olgheetara ta ibiltera juatia, inocenteen bat ez bada, pecatu mortala dala besteentzat. I. Plazaco dantceen contra esan dirian errazoiac gaiti. II. Erromedijeetaco piestaac vide luciagocuac dirialaco. 25 Juan edo etorri, ta ascotan jua ta etorri gavaz eguiten dirialaco. III. Alaco erromedijeetaco dantceetara ta piestara genteric nasaijeena ta galdubeena jua oi dalaco. IV. Guizonezcuac ta emacumiac naaste lotsa bagaric, escandaluba emoten daveela, videetan bere irago oi dirialaco. Au gaiti, pla-[108]zaco dantza naastauba ocasinoe urrecua bada, esan dan leguez, erromedijeetacua deungagua da. Inoc eguingo baleu promesa ez jaquinian, erromedija egunian santuba edo santia visiteeco, uste dot, egun atan esan dan moduco piesta ta dantza 30 nasaija an eguitia asco dala, promesa beste egun bateraco isteeco, ocasinuera ez juatia gaiti. Erromedijara juanda, an ibilteco achequijatzat eguin badau promesa, gazte ascoc gurasuac engaineetaco eguin oi ditubeen leguez, uste dot, ez dala promes valijocua ta ez daguala cobru emonquizunic. Ez da santuba edo 35 santia ondreetan alaco piesta ta dantzeetan, ezbada diabruba (46). Ez da [109] emen ecer esaten, erromedija eguna domeequia edo jai osua bada, egun a videetan ta vertan guizon ta emacume naaste dantzan chilibituen, pandereten, trompeen edo nesqueen soinubagaz iragotia gaiti. Bada, au irugarren aguin 40 dubaren contra berez pecatu mortala dana, edoceinec daqui edo jaquin biar dau (47).

§. II.

Cer dirian biguiraac

Biguiraac dira beste olgheeta bat-[110]zuc baseerri echeetan mutilac eta 45 nescaac gavaz eguiten ditubeenac. Olgheeta oneec guttiz dira ezainac ta galdubac.

Eguija da, ya eche guichitan eguiten dira. Ta auzuac ondo derichuela, baten bere ez. Onetarico biguiraac izaten dira baseerrijeetan, edo ezpatetiaren,

(46) Illm. Valero, *Cart. Past.* mot. 11. n. 105... (47) S. Anton., P. 4, Q. 11, a. 2. S. Carlos Borrom., *de Choreis*, c. 11. 12.

21 eguiten dan *Do Al Lq* eguitendan *Ba Mu* 23 ez bada *Do Al Lq* ezbada *Ba Mu* 27 oi dalaco *Do Al Lq* oidalaco *Ba Mu* 28 oi dirialaco *Do Al Lq* oidirialaco *Ba Mu* 34 oi ditubeen *Do Al Lq* oiditubeen *Ba Mu* 35 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* | ez daguala *Do Al Lq* ezdaguala *Ba Mu* | Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* 36 ezbada| ez bada *Do Lo* 36-37 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* 37 jai osua *Do Al Lq* jaiosua *Ba Mu* 47 eche *Do Al Lq* eehe *Ba* (*in-hu*), eeche *Mu*

edo gorubetiaren, artozuritutiaren, edo gazteen apari-merijenda baten ondoric. Auzo eraco ta urrinagoco nescaac eta mutilac batuten dira biguiria eguiten dan echera gavaz, ta naaste eguiten davee lotsa bagaric, nai daveen guztia. Ez oi da ezcaratceco suba baino beste arguiric ta bera bere ez beti ixiota. Gente guztia dago edo dabil nastian. Batian campora urten, bestian barrura sartu. Bestian ezcaratz baztar baten illunian; bestian [111] dantzan edo pandanguan edo beste asmo chaarragoren bat eguiten. Biguireetan eguiten dira gauza batzuc ain loijac eta desonestubac, eze turcubac eurac bere lotsatuco litzatequez, icusico balitubee.

Umia nintzarian biguira baten edo bitan neuc icusi ta entzun nituban ziquinquerijaac, ez ezcaratz baztar baten edo apartian isilic, ez bada olguetaz lagun asco nesca ta mutil egozan ezcaratz betian, claru guztien aurrian, ezin esan legui, ce ezainac cirian. Ume condua nintzan, baina ondo daucat goguan noc cer esan evan ta cer eguin evan ta celan guztiac olguetean cirian. Ez dira, bada, predicadoreen pulpitoco esanagaz inocenteen veguijac arguituten, ez bada ceubeen echeetaco verba ta [112] eguite deungueequin. Biguiriaren demporia da gava. Gavaz juan, gavaz ibili ta gavaz etorri. Emacume ezconduric inos bere ez edo chito nequez. Guizon ezconduric bere ez, berdescaren batzuc ez bada. Mutilac eta nescaac dira, illuna baino beste testiguric ez dauqueela, cein baino cein nasajago ta lotsa galducuago, biguiria eguiten daveenac. Biguiraan eguiten dira olgueeta modu asco dantziac ta pandanguaz ostian. Oneen icenac ondo daquijeez baseerritarac, nic esan bagaric bere. Baina guztiac dira desonestubac ta chito ezainac.

Biguiria gaiti esaten da, bada: I. Bere echian biguiria eguiten inori isteen deutzanac eguiten davela pecatu mortala, echian lecu emon deutseelaco. II. Besteen pecatubac bere [113] eheco burubaren conciencijara duazala. III. Biguiraan alan dantzan, pandanguan ta asmo lojjeetan dabilzanac eguiten daveela pecatu mortala. Ataraco gauzaac entzuteco, icusteco, eguiteco... ocasinoe aguirian ta jaquinian eureen guraz sartuten dirialaco. Ta ez da asco esatia: gueldi nenguan lecuti artuta, dantzara biguiraan eruan nindubeen, emacume ascoc esan oi daveen leguez, eureen burubac garbituteco. Lotsa guichico mutil edo guizon batec atera legui colpez artuta, dantzara edo pandangora biguiraan, bere lecuban gueldi daguan emacumia edo nescatillia. Baina, gura badau,

51 artozuritutiaren] arto zuritutiaren *Do* | baten] batan *Mu* 53 nai daveen *Do Al Lq* naidaveen *Ba Mu* 53-54 oi da *Do Al Lq* oida *Ba Mu* 54 ezcaratceco *Do Al Lq* ezcaratceo *Ba (in-hu) Mu* 61 ez bada] ez bada *Do Lq* ezpada *Al* | olguetaz] olguetaz *Mu* 64 Ez dira *Do Al Lq* Ezdira *Ba Mu* 65 veguijac *Al* vegijac *Ba (in-hu) Do Mu* | ez bada] ez bada *Do Lo* 69 ez bada *Do Lq* ez bada *Ba Mu Al* 69-70 ez dauqueela *Do Al Lq* ezdauqueela *Ba Mu* 70 ta *Do (Mu) Al Lq* to *Ba (in-hu)* 79 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 80 gueldi *Do Mu Al Lq* guedil *Ba (in-hu)* 81 oi daveen *Do Al Lq* oidaveen *Ba Mu*

laster librauco da naaste atati. Bada, derrigorrian ta berac nai ez davela, ez
 85 dantzan ta ez pandanguan eguingo [114] dau inoc agaz. Onaco achaquiiaac ez
 deutzaz inos sinistuten emacumiari juicijua daucanac. Eurac nai daveelaco dira
 eureen dantzaac ta pecatubac. ¡Ce guichi eguingo leuqueen alaco nescaac
 dantzan... morrosco bategaz! ¡Cegaiti? Morroscuagaz olgau gura ez daveelaco.
 90 Nai ez balebee, bestec bere eraguingo ez leusquijue. IV. Alan biguiraco olgue-
 eta desonestuban daviltzanac inoc absolvidu ezin leguiz, eguinac garbatu ta ez
 eguiteco asmua edo proposituba artu artian. Ta ain guichi, bere echian bigui-
 ria eguiten davena.

Ezpatetara, gorubetara edo beste gau biar batera juatia ta an, esan dan
 moduban, biguiraan ibiltia gauza bi dira. Bata emacume ta nescatilla ondrau
 95 ascoc eguiten davee, [115] bestia eguin bagaric. Ascoc auzo eraco artu emonai
 cobru emoten deutsee, biguiraco naaste loiric eureen echeetan eguiten ichi
 bagaric ta inoren echera duazanian eguin bagaric. Bestiac bere eguin leguijee,
 nai izan ezquero.

§. III.

100 *Saraubac cer dirian.*

Sarauba, esaten da emen dala andi eche baten, guizon eta emacume naas-
 te, gavaz eguiten daveen dantzia ta olgueetia, ehecho ta campoco, eureetarico
 edocein barruban sartuten diriala. Onetarico saraubac eta biguiraac alcarren
 lagunac dira. Biguirara [116] auzo eracuac duazan leguez, sarauba bere auzo
 105 eracuac duaz. Biguiria gavaz eguiten dan leguez, sarauba bere bai. Biguirara
 gaztiac duazan leguez gueijeenan, sarauba bere bai. Nequezarijeen sarauba da
 biguiria. Ta andiquijeen biguiria da sarauba. Icenac mudeetan dira. Olgueetia
 ta desonestidadia bijeetan davil airian. Ez dago Jaungoicuaren aurrian donic ez
 doinaric, ez bada eguite onac edo chaarrac. Baseerrico mutilac eta nescaac eche
 110 baten sartuta gavaz olgueeta loijeetan ibiltia pecatu bada, andi echeetaco jau-
 nac eta seinorac, zaldunac eta damaac gavian alcarregana batuta dantza ta
 olgueeta nasajeetan naaste ibiltia bere pecatu da. Itanduco baleustee cein

84 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 85-86 ez deutzaz *Do Al Lq* ezdeutzaz *Ba Mu* 86
 nai daveelaco *Do Al Lq* naidaveelaco *Ba Mu* 88 ez daveelaco *Do Al Lq* ezdaveelaco *Ba Mu*
 89 ez balebee *Al Lq* ez balebee *Ba Do Mu* 93 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 101 esa-
 ten da *Do Al Lq* esatenda *Ba Mu* 108 Ez dago *Do Al Lq* Ezdago *Ba Mu* 109 ez bada| ez bada
Do Lo

dirian chaarrago, bi-[117]guiria ala sarauba⁵², esango neuque: Biguiria zatarrago ta itchusijago, baina sarauba chaarrago ta gachtsubago edo malecijotsubago. Biguiraan colpe baten emoten jacue veguijai ta belarrijai castidadiaren 115
 contraco lotsaari andijagua; baina sarauban emoten jacue araguijari ta luxurijari su gorijagua. Bijeetan, bai biguiraan ta bai sarauban, dauca luxurijac mai presta janari ugarijagaz. Baina sarauban obeto guisauba ta gozuagua. Ta au errazoe asco gaiti.

I. Sarauco gentiaren jantzi armatuba gaiti. Bada, gente apainduba ta ondo 120
 baino obeto apainduba juaten da andiquijeen biguirara. Ez dinot ecer araco bularrac, idunac ta besuac aguirijan edo guztiz aguirijan baino araguijaren sugarijago, an-[118]diquijeen biguirara daruezan andra edo nesca loijac gaiti; ez bada, dinot, caballero edo zaldun, señora edo dama, dana dala, juaten dala ondo apainduta biguirara. II. Andiquijeen aziera biguna ta leuna gaiti. III. 125
 Eureen malecija aurreratuba ta gacheraco jaquiturija goixtarra gaiti. IV. Eureen gorputz atseenac ta guichi domaubic gaiti. V. Eureen biguireetaco musica ta canta indecente ta odolberozailiac gaiti, ceintzuc dirian luxurijaren azogua ta araguijaren sugaria. Saraubari darraicozan condecinoe oneec, airian darabilee olgueeta galdu areetan luxurijaren suba ta desonestidadia. Ta oraindino guei- 130
 jago, Tertulianoc dinuan leguez (48), [119] eureen saraubetaco luxurija inos oztu ez daquijuen, neguban bere jantzita euquiten ditubee andiquijac eureen biguira edo saraulecubac. Bada, baseerrijeetaco biguiraac badira pecatu mortalecuac, esan dirian errazoiac gaiti, andieheetaco saraubac malecija gueijago, luxurija sutsubago ta pecatu gueijago dauqueenac dira. Alan pecatu mortala 135
 da, esan dan leguez, sarauba eguiteco salia edo echia gentiari emotia. Pecatu mortaleraco vidia inori emoten jacolaco. Pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da alaco sarauco dantza nastia ta olgueeta indecentia. Baita, bere naiz, alaco dantza naastau loijan ibiltia bere. Ta eguina garbatuta, ostera ez eguiteco asmua

 (48) *Apolog*, c. 16.

140

121 juaten da *Do Al Lq* juatenda *Ba Mu* | Ez dinot *Do Al Lq* Ezdinot *Ba Mu* 124
 ez bada] ez bada *Do Lo* 128 odolberozailiac] odolberotzailiac *Al* 132 ez daquijuen *Do Al Lq*
 ezdaquijuen *Ba Mu* 134 esan dirian *Do Al Lq* esandirian *Ba Mu* | gaiti, an diecheetaco *Al*
 (*Do Lq*) gaiti. Andieheetaco *Ba Mu* 136 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu*

⁵² Erdal mailegua da; gaztelaniazko akademiaren hiztegian "sarao" dator (del port. *sarão* y este del lat. **serānum*, de *serum*, la tarde). Argi dago gure idazleak "sarau" forman jaso duela hitz hau eta ez "sarao" forman, *sarauba* egiten baitu. Honelakoetan, bokal arteko *n* etimologiko zaharra galdu denean, *-ao* egiteko joera du, "ardao" hitzean ikusten denez. Bestalde, *ala* lokailua egoki darabil testu-atal honetan. Sarrera orokorrean honako hau idatzi genuen: "edoeta *ala* lokailuen bereizketa nahiko garbia da; joera, behintzat, argi dago. Bildutako adibide hauetariko batzuetan ikusten denez, iritzi batean, hark jaten dio tokia honi" (ik. 283-284.or.).

artu artian, ez caballeruac, ez seinoraac, ez zal-[120]dunac, ez damaac ez dagoz prest compeseetaco; ezin inoc absolvidu leguiz. Iracurri bedi, erraza da ta, leen izentau dan Aita Cadizen⁵³ carta juicijozcua. Noverac obeto ez badaqui, an icu-sico dau cer dirian saraubac ta saraudunac.

- 145 Emeti ateraten dan contuba da plazaco naasteco, erromedijetaco, bigui-reetaco ta saraubeetaco esan dirian dantzai jarraitutia, pecatu mortala edo illgarrija dala. Onen errazoa da esan dirian olgueetaac pecatu mortaleco oca-sino urrecuac izatia. Plazaco, erromedijaco, biguiraco ta sarauco dantzaan, gui-zon ta emacume naaste eguiten danian, beti dagoz verba loijac, escuca deso-
 150 nestubac, eguitade torpiac, menio lotsarizcuac ta luxurijaren azalqueria [121] ezainac. Onaco Eleisa Ama santiac pecatu mortaltzat eracusita daucazan gauza desonestubac edo castidadiaren contracuac esan, entzun, icusi ta, edo nobera-ri edo albocuari, nai davela edo nai ez davela, eguiten sentidu bagaric, ez da olgueeta impernucio areetati echian sartuten inor amarreti irutan; begaz, plaza-
 155 co, erromedijaco, biguiraco ta sarauco dantza naastubac, castidadiaren con-traco pecatu mortala dirian gauza desonestubac esateco, entzuteco ta sentidu-teco ocasinoe urrecuac dira. Pecatu mortalaren beian eragotzita dagozan casti-dadiaren con-traco gauzaac esateco edo eguiteco edo entzuteco edo eraguite-co ocasinoe urrecora bere guraz juatia, olgueetia gaiti ta gorputzari gusto emo-
 160 [122]tia gaiti beste premina edo necesidade andiren bat bagaric, beti da pecatu mortala. Begaz, esan dan dantza loi ta naastubetara, premina andi bat baga-ric eureen gustoz olgueetia gaiti duazanac, eguiten davee pecatu mortala. Bitati bat: edo esan noberaren naizco ta vorondatezco escuca, mosuca, oratute ta verba desonestubac mutil ta nesca, zaar ta gazteen artian eguitia edo eguiten
 165 istia ez dala pecatu mortala, edo autortu, icentau dirian olgueeta desonestube-etara bere guraz premina bagaric juatia, pecatu mortala dala. Leleengua esaten ez da cristinauric azartuten. Bada, sinistu bigarrena. Ta euqui plazaco, errome-dijaco, biguiraco ta sarauco dantza desonestu orreec pecatu mortaltzat edo pecatu [123] mortaleco ocasinoe urrecotzat.

141 ez dagoz *Do Al Lq* ezdagoz *Ba Mu* 143 ez badaqui *Al Lq* ezbadaqui *Ba Do Mu* 150 lotsarizcuac *Do Al Lq* lotsarizuac *Ba (in-hu) Mu* 151 ezainac] zainac *Mu* 153 nai davela *Do Al Lq* naidavela *Ba Mu* | ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* 161 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 165 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* | mortala, edo *Al (Do)* mortala. Edo *Ba Mu Al* 167 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu*

⁵³ Aita Diego José de Cádiz, dohatsua (1743-1801); kaputxinoa eta herri-misiolaria; bere garai-ko sermolaririk ospetsuena izan zen... Asko idatzi zuen, ia guztia sermoi-liburu eran; bizi zela argitaratu ziren haren idazlan guztiak bost liburukitan, Madrilen, 1796tik 1799ra arteko urteetan. Hil ondoren, argitalpen gehiago ere egin ziren (Ik. L. DE ASPURZ, *Cádiz, Diego José de* in DHEE 1 (1972) 301-302).

Esan dan ibilteetara olgheetia gaiti, gorputzari gusto emotia gaiti duazanac, 170
 nai davee pecatuco ocasinoe urrecua. Pecatuco ocasinoe urrecua nai davenac
 nai dau pecatu peligruba. Pecatu peligruba nai davenac nai dau pecatuba.
 Pecatuba nai davenac ez dauca pecatubaren gorrotoric, ez damuric.
 Pecatubaren gorrotoric eta damuric ez daucana inoc pecatuti absolvidu edo
 librau ezin legui. Begaz, esan dan plazaco, erromedijaco, biguiraco ta sarauco 175
 dantzeetara ta olgheeta lojjeetara eureen gustoz ibiltia gaiti, olgheetia gaiti ta
 gorputzari gusto emotia gaiti jaquinaz duazanac, leen juana garbatu ta ostera
 ez juateco verbia emon artian, inoc pecatuti [124] ascatu edo absolvidu ezin
 leguiz.

Zurtu, compesore jaunac, ta contu ceubeen arimac ta dantzarijeenac imper- 180
 nura eruan ez daguizuzan. Errazoe onec, uste dot, ez dauca uts uneric evan-
 gelijo santuco eracutsijan. Esan dot leen, *amarreti iru bidar* ez diriala echian
 sartuten pecatu mortala dan gauza ezainen bat irago bagaric, ene errazoa pro-
 veetaco asco dalaco. Baina oi danez, ta izan leitequianez, (itsubac ta gorrac ez
 badira) juaten dirian bacochian, ez bein ta birritan, ez bada zortzi edo amar 185
 bidar bere, jazoten jacuez esan dirian desonestidadiac ta pecatubac. Ta au
 eurac autor davee juicijo onera elduten dirianian edo Jaungoicuc vijotzian icu-
 tuten deutseenian ondo compeseetaco.

[125] Errazoe onen errespuestaric ezin topau izan dot nic neure concien- 190
 cianaren deijac ixilduteco, sarri gura izan arren. Icusi dot eldu nasan euscal errijee-
 tan, ta ez guichitan, gogo bat, nasaitasun bat ta ez daquit celaco empeinu bat,
 esan dirian olgheeta lotsarizcuetan, ta pecatuzcuetan, cristinaubac piesta egu-
 neetan ta gauric gueijeenan ibilteco, ta daviltzala chito ezain. Neure estadu-
 baren cer eguin nausi bategaz aaztu bagaric, ezin apartau izan nas compesinoe
 asco entzuteti. Emen zan nire lana ta concien- 195
 cian isildu ezina. Nai neuquian ta
 ascotan (ta dinot cerubaren aurrian) dantzazaliac absolvidutia, ostera ez egui-
 teco verbia escatu edo emon eraguin bagaric. Asi nintzan dantzazaliac esami-
 neetan, baita E-[126]leisiaren eracuslaac dantceen gainian cer dinuen iracurten
 bere. Ta ceinbat gueijago iracurrijago ta ceinbat gueijago esaminaubago con-
 decinoe ta edade guztietaco persona dantzazaliac, aimbat topau dot ezainago, 200
 itchusijago ta desonestubago dala liburubac esaten daveena baino naasteco

170 Esan dan *Do Al Lq* Esandan *Ba Mu* 172 davenac] dabeenac *Do (in-hu, 219.or.: dabe-*
nac) 174 ez daucana *Do Al Lq* ezdaucana *Ba Mu* 175 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu*
 181 ez daguizuzan *Do Al Lq* ezdaguizuzan *Ba Mu* | uste dot *Do Al Lq* ustedot *Ba Mu* |
 ez dauca *Do Al Lq* ezdauca *Ba Mu* 182 ez diriala *Do Al Lq* ezdiriala *Ba Mu* 184 oi danez
Do Al Lq oidanez *Ba Mu* 184-185 ez badira *Al Lq* ezbadira *Ba Do Mu* 185 ez bada] ez bada
Do Lo 190 Icusi dot, eldu nasan *Do Al Lq* Icusidot, eldunasan *Ba Mu* 191 ez daquit *Do Al Lq*
 ezdaquit *Ba Mu* 196 dantzazaliac Al] dantza-zaliac *Ba Do Mu Lo* 197 dantzazaliac Al (Lo)]
 dantza zaliac *Ba Mu Do* 199-200 condecinoe] condicinoe *Do*

dantzetan eguiten dana. Sinistuten dot, olgueeta madaricatu orreequin dauca-
la satanasac itsututa euscal errijetaco genteric gueijeena. Sinistuten dot, erri
oneetan condeneetan dirianeetati gueijeenac condeneetan diriala, olgueeta
205 pecatuzco orreec diriala medijo.

Cerbait gaiti eracutsi evene Alexandro Alex, jaquitun andijac ta Guillermo
Rodonacuac (ta dacar-[127]reez san Carlos Milanguac (49), Lametec (50) ta
beste ascoc), batac emacumia ta bestiac guizonezcua exemplutzat artuta, dotri-
na bat dantzazale guztiac goguan euqui daiqueena, eureen arimai ondo gura
210 badeutsee. Itandu jacuen jaquitun andi arei ia emacume bat edo guizonezco
bat goguaz contrara, juan baino ez juan naijago leuquiala, gurasuac edo erres-
petozco personaren batec erregututen deusalaco, nos edo noscoren baten,
banacaren baten, naasteco dantzara juaten danac ta dantzaan aimbat onestida-
deric oneena-[128]gaz davilenac eguiten daven pecatu mortala ala veniala. Au
215 itandu jacuen jaquitun andi arei. Ta erantzun evene: ez ziriala eurac azartuten
erabaguiten ez pecatu mortala eguiten eveela ta ezda eguiten ez eveela bere.
Descuidoco baten baino ez dalaco, dantziari gorroto deusalaco ta goguaz con-
trara dalaco ta aimbat moduric oneenagaz ibili dalaco, esan legui, dinuee, ez
davela pecatu mortalic eguin alan naasteco dantzara juan dan guizonac edo
220 emacumiac. Baina *besteequin naasteco dantzaan sartu dalaco, ocasioian
bere buruba imini davelaco, besteen dantzia bera sartubagaz ontzat emon
davelaco ta bera dala medijo bestiac pecatu eguin euqueelaco, ez dot pecatu
mortaleti libreetan alaco emacumia*, dino Alexandro [129] Alexec. Ta *ezda gui -
zona bere*, dino Guillermo Rodonacuac.

225 Nequezco baten edo nosic beinaco descuidoren baten (*raro*) goguaz con-
trara edoecin naasteco dantzatan sartuta aimbat moduric oneenagaz ibili dan
guizona nai emacumia libreetan ez badavee pecatu mortaleti, icentau dirian
eracusla pamaubac, ta beste ascoc, ¿celan librauco ditubee plazaco, erromedi-
jaco, biguiraco ta sarauco dantza desonestura eureen guraz, poz arren armatu-
230 ta, aguiteetati ura darijuela duazan guizonac eta emacumiac? ¿Mutilac eta
Nescaac? Ecelan bere ez. Inundi bere ez. Inoc bere ez. Dantza areec ta olgue-
eta areec cer dirian daquijanec⁵⁴, inos bere ez.

(49) *Opusc. de Choreis*, c. 16. (50) Dicc. v. Chor. cas. único.

206 gaiti *ez-aip. Lo* 209 dantzazale *Al Lø* dantza zale *Ba Do Mu* | guztiac *Al Lø*
gustiac *Ba (in-hu) Do Mu* 206 ez dalaco *Do Al Lø* ezdalaco *Ba Mu* 218 dinuee] dinue *Do* 218-
219 ez davela *Do Al Lø* ezdavela *Ba Mu* 221-222 emon davelaco *Do Al Lø* emondavelaco *Ba*
Mu 226 ibili dan *Do Al Lø* ibilidan *Ba Mu* 227 ez badavee *Al Lø* ezbadavee *Ba Do Mu* |
icentau *Do Al Lø* Icentau *Ba (in-hu) Mu* 232 daquijanec] daquijanac *Do* 233 v] u *Ba*

⁵⁴ Ergatibo mugagabea darabil hemen, beste pasarte batzuetan bezala. Horretan maisu dugu Frai Bartolome.

Ez da naasteco dantza areetan pe-[130]catu bat bacarric eguiten, ezbada
 asco escandaluco malecijagaz. Erijotzaco ordu artian ez dozu jaquingo zu ibili 235
 zarian dantza ta piesta orreetan, zu zariala medijo, bestiac ceimbat pecatu mor-
 tal eguin ditubeen, zuc igarri ez arren ta aintzat equi ez arren. ¿Cer desiau
 dozu ceuc? ¿Cer pensau dozu? ¿Cer amau dozu? ¿Cegaz vijotza poztuta, barre
 eguinda, gozatu dozu? ¿Cer consentidu dozu ta eguin dozu sarritan dantza ta
 olgüeeta galdu orreetan bestiai entzunda ta icusita? ¿Esan deutseezu bestiai 240
 ceimbat pensamentu, gurari ta desio pecatuzcori lecu emon deutzazun vijo-
 tzian, inoren eguinac icusita ta esanac entzunda? ¿Conteetan deutzazuz inori
 dantza orreetan, biguira orreetan, sarau orreetan... [131] eraguin deutzabeezan
 pecatubac? Bada, zu zariala medijo, bestiac eguin ditubeenac bere zuc ez ditu-
 zu jaquingo erijotzaco ordu artian. Orduban bai. Orduban jaquingo dozu ceim- 245
 bat pecatu ta ceintzuc eguin citubeen piesta, erromediya, biguira ta sarau orre-
 etan zuri icusita, zuri entzunda, zuc ataraco vidia ta escandaluba emonda.
 Orduban, erijotza erremediyo bagacuan, jaquingo dozu ceimbat arima diabru-
 baren sareperatu dituzun ceure dantza lojjeetaco ibiltiagaz. Au da, zuc dantza-
 ra juanda emon dozun escandaluba. Onan galdu dituzu laguneen arimac. Au 250
 dauquizula jua zara. Premina bagaric jua zara; olgüeetia gaiti ta ceure gor-
 putzari gusto emotia gaiti jua zara. Bada, besteen pecatubetan bere parte za-
 [132]ra. Au gaiti beste bagaric, dino san Carlos, Milango obispo jaunac (51)
 santo Tomas ta beste eracuslaquin, pecatu mortala eguiten daveela alaco dan-
 tceetara duazanac. Esan daigun, bada, ostera bere Santu andijagaz beragaz: *Ez* 255
gaizala inoc equi estutzat olgüeeta madaricatu orreec pecatu mortalecotzat
condeneetan ditugunian, edo Benedicto XIV: Pecatuba, libertadia ta nasaita -
suna nai daveen desdichaubac verba eguiten daveela naasteco dantceen pavo -
re. Ta icusi daigun ce indar dauqueen dantzazaleen urteneraac edo argumen-
 tubac.

 (51) Ubi supra c. 7.

234 Ez da *Do Al Lq Ezda Ba Mu* | eguiten, ezbada *Al (Do)* eguiten. Ezbada *Ba Mu (Lo)*
 | ezbada] Ez bada *Lo* 235 ez dozu *Do Al Lq* ezdozu *Ba Mu* 239 eguin dozu *Do Al Lq*
 eguindo zu *Ba Mu* 244-245 ez dituzu *Do Al Lq* ezdituzu *Ba Mu* 245-246 ceimbat *Do Mu Al*
 (*irakurri zuen cienbat*) *Lq* ciembat *Ba (in-hu)* 249 Au da *Do Al Lq Auda Ba Mu* 250 emon
 dozun *Do Al Lq* emondozun *Ba Mu* 253 Jaunac *Mu Al Lo*] Juanac *Ba (in-hu) Do* 255-256
 Ez gaizala *Do Al Lq Ezgaizala Ba Mu* 257 XIV *Do Mu Al Lq XiV Ba (in-hu)* 259 dantzaza-
 leen *Al* dantza zaleen *Ba Do Mu Lo*

Dantceen pavoreco errazoiac ta erantzunac.

- §. I. Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzaatequez.
 §. II. Santo Tomasec dino, dantzan eguitia ez dala pecatu.
 §. III. San Francisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia. 5
 §. IV. Abadiac ta prailiac bere juaten dira piesteetara ta saraubetan dantzan bere eguiten davee batzuc. Ain chaarrac balira, ez leuquee eguingo.
 §. V. Piestetara ta dantcetara juan arren, ez dot nic peccaturic eguiten.
 [134] §. VI. Dantceetan ez ece, eleisaan bere pecatu eguin legui nai davenac. 10
 Ara bere ez juan.
 §. VII. Gaztiac cetan edo atan olgau biar davee.
 §. VIII. Oba da alcarregaz plazaan edo biguiraan edo sarauban olgueetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino.

§. I.

15

Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzatequez

Ez da heregeric aguertu mundura, eguijaren coloria-gaz bere guzurrac jantzita, inocente ez jaquin asco engaineetaco asmua artu ez dave-[135]nic. Beste aimbeste jazoten da cristinaubeen arteco ecandu pecatuzco ta oitura galdu ascogaz. Ta au berau orain aita dogun sailaren gainian. Asco dagoz munduban dantceetaco nasaitasuna, libertadia ta luxuriya zaintu ta jaso gura daveenac, di-brubeen irabatzija guichitu ez dedin. Au jadisteco, guzurrai emoten deutsee eguijaren coloria. Burla eguiten deutsee pulpitoco evangelijoco esanai. Trateetan ditubee simpletzat compesoreric eldubeenac ta errazoezcuenac. Conteetan ditubee chochaquerijazat pecatu mortal aguirijac. Pinteetan ditubee milla guzur ta ipoin naastaugaz, santubac ta santaac icentauta, castidadia aaztu eraguiten daveen ta pecatuz josita dagotzan olgueeta zorigaistocuac, biarrecuac, inocentiac [136] ta onac balira leguez. Ta engaineetan davee oneraco 20 25

4 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 8 batzuc *Do Al Lq* butzuc *Ba (in-hu) Mu* 13 Oba da *Do Al Lq* Obada *Ba Mu* 17 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* 22 jadisteco *Do Lq* jadjisteco *Ba (in-hu) (Mu) Al* 23 Evangelijoco *Do Al Lq* Evengelijoco *Ba (in-hu) Mu* 25 chochaquerijazat] chochaquerijatzat *Do* 26 icentauta] icentauta *Al*

30 baino gacheraco prestaago dagan gente guichi-jaquin guztia condeneetaco
 bidera. Oneec badira pelucadunac edo coroedunac, ¡oh! ce predicadoriac dia-
 brubarentzat. Ez dira eureen sermoiac irabatzi guichigaz gueratuco. Ara emen
 aitatuta ecandu ta oitura galdu asco beti oinian euquiteco sustraija. *Qui habet*
aves audiendi, audiat. Emen imini ditudan ta esaminau gura ditudan dantza-
 35 zaleen argumentubac neuri ascotan ta chito sarritan guizonac eta emacumiac,
 zaarrac eta gaztiac, ta areetati asco salbeetaco duina dotrina ez daquijenac,
 compesonarijuan iminijac dira. Oneetati leleengo argumentuba edo urteneria
 da, esatia:

[137]Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo lituqueez⁵⁵ guztiz; ez dira
 guztiz quenduten; begaz, ez dira deungaac edo pecatuzcuac.

40 Esan dan baisen pecatuzcuac izan arren, ez dira quenduten. Ta echuria
 daucanez, guztiz quenduco bere ez dira.

Au obeto aituteco gogoratu biar dogu naasteco dantceen aseria ta celan
 cristinau errijeetara etorri zirian. San Ciprianoc (52) ta san Isidoroc (53) esaten
 davee guizonac eta emacumiac engaineetaco, bere sarian sartuteco ta imper-
 45 nura eruateco, de-[138]moniuac asmau citubala dantzaac. San Ambrosioc dino
 (54) munduco jaquitunen erichijan ordiquerijac ta zoraquerijac ecarri ditubala
 dantzaac. Beste batzuc (55) seinalleetan deutsee dantzai ernelecuba ta esaten
 davee: Danen tribu edo castati datozala dantzaac. Oneec dinue, danen casta-
 cuac ziriala, araco urragorritzco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda,
 50 isrraeltarrai mendijan Jaungoicotzat adorau eraguin eutseenac; ta Jaungoico
 eguijazcua ucatuta, dantzan eraguin eutseenac. Dan gaiti Espiritu Santubac
 esanda dauca suguia leguez [139] edo sierpia leguez izango dala bere castia.

 (52) *In Epist. ad Donat.* (53) *Origin.*, l. 18, cap. 50. (54) Lib. 3. de Virg. (55)
 Marchant., Ort. Past. l. 3, Trat. 3, Lect. 10.

30 Pelucadunac *Do Al Lq* Peluca dunac *Ba (in-hu) Mu* | Coroedunac *Al Lq* Coroe dunac
Ba (in-hu) Do Mu 31 Ez dira *Do Al Lq* Ezdira *Ba Mu* 33-34 dantzazaleen *Al* dantza zaleen
Ba Do Mu Lo 35 ez daquijenac *Do Al Lq* ezdaquijenac *Ba Mu* 38 ez dira *Do Al Lq* Ez dira
Ba Mu 39 ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* 40 Esan dan *Do Al Lq* Esandan *Ba Mu* 41 ez
 dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* 42 biar dogu *Do(?) Al Lq* biardogu *Ba Mu* | aseria *Al Lq* asi
 eria *Ba Do Mu* 47 seinalleetan] seinalleetan *Al* | ernelecuba *Al* erne lecuba *Ba Do Mu*
Lo 48-49 castacuac *Do Mu Al Lq* castacuac *Ba (in-hu)* 50 Isrraeltarrai] Isrraeltarrai *Do* |
 Jaungoicotzat *Do Mu Al Lq* Jaungoicotzat *Ba (in-hu)*

⁵⁵ Ahalerazko alegiazko adizkia dugu; objektu zuzena plurala izanez gero, J.A. Moglek beza-
 la, bizkaierazko ohiko formatik aldentzen den forma darabil; hau da, *neukez, leukez, leukeez...*
 formak erabili beharrean, *nituke, lituke, litukee...* egiten du. Hemen amaierako -z ageri da, ana-
 logiak edo eraginda ziur aski... (lk. 291.or.).

*Fiat Dan, sicut coluber in via, et sicut cerastes in semita*⁵⁶. Danen casta galdu- 55
bari ezarri eutsan Jaungoicuac maldecinoia: suguiac leguez edo sierpiac leguez
pauus eguiteco ta ibilteco. Bada, munduban bada guiza castaric suguia leguez
davilenic, dantzaarijac dira. Dantzaarijac daviltz suguia leguez edo sierpia
leguez giraca ta oquerca, buru zitala (aurescuduna) an sartu ta emen atera, 60
batian ezcutau ta bestian aguertu, ain laster onduran cein guerrijan daravilela.
Dantziaren giraac bere guztiac dira ezquerreracuac, cein dan pauus eguiteco ta
ibilteco alde madaricatuba Escritura Sagraduban. Danen casta gaistoti datorre-
laco, emoten jaco dantziari oneetaco ver-[140]beeta ascotan bere erico icena.
Bada, eusqueeraz, erdeeraz, prances, italiano, teutonico ta beste ascotan, 65
dinueenez, *dantzia, dantza, danse, danser*⁵⁷... esaten jaco olgueeta indecente
ari. Nai dala Danen casta galduba, nai dala demoninua, nai dala ordiquerija,
nai dala zoraquerija dantzaac asmau ditubana, guraso ondraubac dauqueez
dantzaarijac.

¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madaricatu orreec?
¿Celan? Etorri cirian, bada, gentileetati cristinaubeetara. Ta guero gurasuetati 70
umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena
Jaungoicotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac.
Jaungoico paltsu areec ondreetaco eguiten zitubeen eureen egunetan piestaac,
[141] dantzaac ta beste olgueeta itchusi lotsarizcuac, *Jaungoicuaren Ciudadeco*
liburuban san Agustinec dinuan leguez⁵⁸. Oneec dira araco ardaoazco, odolez- 75
co ta luxurija utsezco gentilen olgueeta loijac ta guizatasunaren desondragarri-
jac, zeintzubetan guizonac piestia eguiteco pelietan cirian artzaquin, otsoaquin,
ta tigreequin, alcar ill artian.

Apostolu santubac evangelijua prediqueetara zabaldu cirianian, Isrraelgo ta 80
Judeaco erreinu chiqui bijac ichita, beste mundu guztia zan gentileena.
Olgueeta odoltsubaquin, luxurijotsubaquin ta ardaotsubaquin Jaungoico paltsu
asco, Marte, Jupiter, Baco, Venus⁵⁹ ta beste milla gauza loi Jaungoicotzat ado-

55 coluber *Do Lq colober Ba (in-hu) Mu Al* 56 maldecinoia] maldicinoia *Do* 59 aures-
cuduna *Do Mu Al Lq* Aur-escuduna *Ba (in-hu)* 61 cein dan *Do Al Lq* ceindan *Ba Mu* 63
erico] errico *Do* 65 dinueenez] dinueenez *Do Lo* 67 dauqueez *Do Al Lq* dagqueez *Ba (in-
hu) Mu* 79 Isrraelgo *Al* Isrraelgo *Ba Mu, Isrraelgo Do Lo*

⁵⁶ Has 49,17: *Fiat Dan coluber in via, cerastes in semita.*

⁵⁷ Frai Bartolomek hizkuntza bat baino gehiago aipatzen ditu, baina ez behar bezain zehatz:
frantsesez *danse* eta *danser*, alemanez *tanz* eta *tanzen*, italieraz besteak beste hitz hauek ere era-
biltzen dira *danza* eta *danzar e*.

⁵⁸ San Agustinen pentsamendu hauek aipaturiko honen obran aurki daitezke *De civitate Dei*
(Lib. II, cap. 4, cap. 5, cap. 6; Liber IV, cap. 16); ik. PL, Migne, 41, col. 49-52, 125.

⁵⁹ Frai Bartolomek Olinpoko greziar jainkoetako lau aipatzen dizkigu hemen; hauek dira
Grezia eta Erromako mitologian izenik ospetsuenetakoak: Jupiter, Apolo, Bako, Marte, Merkurio,
Neptuno, Vulkan, Zeres, Diana, Junon, Minerva, Venus, Vesta...

reetan citubeenena. Marte guerraguina ondre-[142]taco, guizonac pelietan
 cirian alcar ill artian ezpataca alcarregaz; edo otsuaquin ta artzaquin, batzuba⁶⁰
 85 ill artian. Baco ardaoguina ondreetaco, guizonac eta emacumiac maats mordoz
 ta pampanuz jantzita, ordituta ibiltan cirian dantzan naaste plazaric plaza, cale-
 ric cale. Venus loija ondreetaco, guizon ta emacume ordituta, biloxic ibiltan
 cirian naaste, guztien aguirijan dantzan ta edochein gauza loi eguiten. Ta onan
 beste Jaungoico paltso eguneetan. Au zan gentileen sinistutia ta erliginoia.
 90 Onan topau even apostolu santubac munduba.

Apostolubac gentil asco viurtu edo ecarri arren evangelijoco sinistute ta
 legue garbira ta zucenera, gueratuten cirian cristinau barriac [143] gentileen
 artian. Esateco moduban, erri baten beegozan berreun edo irureun cristinau
 barri, beste bosteun edo seireun gentilac cirian. Evangelijo santura viurtu ez
 95 cirianac. Eureen Jaungoico paltso eguneetan, leenago leguez, olgueeta ardao-
 tsubac, loijac ta odoltsubac euqueezanac. Au eracusten deuscubee mundu guz-
 tico jazuac. Ta au berau iracurten dogu gueure Españacuetan. Evangelijo san-
 tubac ta Eleisa Ama santiaren ordenaac eragozten eutseen cristinau barrijai,
 gentileen diversinoetara juatia. Ta aguindu eutseen devocinoe santu bategaz ta
 100 espiritu eguijazcuagaz ondrau eguijeezala Jesucristo gueure Jaunaren, Ama
 Virgina guztiz santiaren, apostolu santubeen ta martirijeon egunac, cerubari
 gracijac e-[144]monagaz ta caridadezco ta onestidadezco alegrija santa bategaz,
 gentileen itsutasuneetati ta pecatubeeati Jesucristoc librau zitubalaco. Au onan
 Eleisiac aguinduta egon arren, cristinau barri guztiac ez cirian santubac.
 105 Gusteetan jacuezan sabelaren ta araguijaren eraco olgueetac. Ta icusteen citu-
 been leguez cristinau barriac eureen senidiac, auzuac ta erritar gentilac
 Jaungoico paltso eguneetan olgueetan nasai, eurac bere asi cirian, euren santu
 eguneetan eleisaan santubac ondrauta, eleisacua eguinda guero, plazaan gen-

85 ardaoguina *Do Al (Lo)* ardao guina *Ba Mu* | mordoz *Al Lq* mordotz *Ba Do Mu* 91
 Apostolubac] Apostulubac *Mu* 92 gentileen *Do Al Lq* gentileen *Ba (in-hu) Mu* 93 beegozan]
 baegozan *Al* | cristinau *Do Al Lq* cristsnau *Ba (in-hu) Mu* 94 Bosteun *Lq* bost eun *Ba*
do Mu Al 95 Eureen *Do Mu Al Lq* Ereen *Ba (in-hu) Mu* 98 eutseen *Do Mu Al Lq* cutseen
Ba (in-hu) 100 eguijazcuagaz *Al* egijazcuagaz *Ba (in-hu) Do Mu Lo* 103 zitubalaco *Do Mu*
Al Lq zitubaco *Ba (in-hu)* 105 icusteen] icusten *Do Al Lo* 106 cristinau barriac *Do Al Lq*
 Cristinaubarriac *Ba Mu* 107 euren] eureen *Do* 108 Eleisaan] Eleissan *Mu*

⁶⁰ Antzinako zenbait idazlerengan *batzuak* forma agertzen da, *besteak*ondorik duela ia beti; hala ere, singular mugatuan *bata* eta *bestea*egitea ohikoa den bitartean, gutxi dira plural mugatuan bereizketa horri eusten diotenak. Hala aurkitzen ditugu Mikoleta eta Tartasengan. Frai Bartolomek bi aldiz dakar bere obra osoan barrena *batzuba*, baina ez dirudi plural mugatua berariaz markartzearen denik...Gainera, ez da agertzen ondorik *bestiac* duela; testinguru honetan, mugatu gisa har daiteke... Beste esaldian "inork ere...ez" esan nahi du: "*Condenuata dago - zana, edo dira diabruba, edo dira guizon eta emacumen arima condenuaba. Batzuba bere ez davee gura pecatu loija imperuban eurentzat*" (*Jcas-II*, 34).

tileen olgheetac eguiten. Onaco gueure santu egunetaco olgheetac, gurasueta-
ti umeetara, guiza aldiric guiza aldira, eldu dira gueure demporaraguino. Ara 110
emen gueure errijeetaco zece-[145]neen, ezpata dantzeen, desapijizco burru-
queen, maquilaqueen, ezpataqueen, comedijeen, dantzeen ta convidauteguije-
en sartueria edo etorrieria cristandadera.

Au gaiti esaten deutsee Eleisiaren Gurasuac verbaoro gueure errijeetaco
cecenai, dantzai ta comedijai: Gentilidadiaren zatijac, reliquijac edo ondoqui- 115
nac, *idolatrijac*, Jaungoico ucazalliac. Guerraguinac bere gueitu ditubee come-
dijac, dantzaac ta olgheeta pecatuzcuac. Soldau aldraac sartuten cirian ezpata
odoltsubaquin errijeetan, ta cirian leguez gueiyeenac gente guztiz nasaija, eure-
en gusto guztiac escatuten citubeen gau ta egun. Areetati naijeen eveena zan
comedija, sarauba, naasteco dantzia, cein dan luxurijaren ama. Onan [146] eto- 120
rri da ta zabaldu da cristinau errijeetan, diabrubic gentileen artian erein evan
azi impamiaren prutu madaricatuba dantza desonestu orreetan.

Icusi ezquero, ce asiera ondrauba dauqueen naasteco dantzaac ta celan
zabaldu dirian cristandadian, esan biar da cegaiti quenduten ez dirian. Esaten 125
da, bada: I. Eleisiaren batzarrac, eracusla santubac, ta cristandadeco erregue
jaun ascoren (baita gentileenac bere batzuc) ordenaac, eguin daveela alegui-
na, errijeetati dantza galdubac quenduteco. Iracurri bediz san Carlos, Milango
obispo jauna, Francisco Geneto, obispo jauna, ta beste, casic edocein pensee-
ta oneco eracusla, ta eurac esango davee ceimbat aleguin eguin dan guiza aldi
guztietan dant-[147]za naastubac condeneetaco. II. Ez obispoc, ez curac, ez 130
rreguec, ez juecec ez deutsa inori aguinduten, ez piestara juateco, ez naaste-
co dantzaan sartuteco. Ez da inor carcelara eruaten, ez multeetan, dantzan
eguin ez davelaco. Eleisiaren burubac ta erregue jaunac asco estimauc leu-
quee, cristinaubac Jaungoicuaren vildur santuba gaiti, ta egun aretaco castu
alperricacuac gaiti, dantza orreetati ta arimac galduteco piesta orreetati alde 135
eguitia. III. Erregue jaunac ta legueguinac ichi leguijue errijetaco gentiari pies-
taac ta dantzaac eguiten, pecatu diriana eurac jaquin arren, eurac pecaturic
eguin bagaric, dino santo Tomasec (56). Gauza [148] bat da pecatu eguitico
aguindutia ta beste bat da, guztia erremedijau ezin danian, pecatu eguiten istia.
Pecatu eguitico aguindutia guztientzat ta beti da pecatu. Pecatu eguiten istia, 140

(56) *De Regim. Princip.*, l. 4, c. 12.

110 aldiric *Do Al Lq* aldiric *Ba (in-hu) Mu* (?) 113 sartueria edo etorrieria *Lq* sartu eria,
edo etorri eria *Ba Do Mu Al* 114 verbaoro] verba oro *Do* 116 Jaungoico ucazalliac *Al Lq*
Jaungoico-ucazalliac *Ba Do Mu* | Guerraguinac *Do Al Lq* Guerra guinac *Ba Mu* | guei-
tu] deitu *Al* 120 cein dan *Do Al Lq* ceindan guinac *Ba Mu* 123 asiera *Al Lq* asi era *Ba Do*
Mu 124 ez dirian *Do Al Lq* ezdirian *Ba Mu* 129 eguin dan *Do Al Lq* eguindan *Ba Mu* 133
ez davelaco *Do Al Lq* ezdavelaco *Ba Mu*

gueijago ezin danian, ez da pecatu. Munducua ezin erremedijau leguijeez pecatu guztiaz. Orregaiti erregue jaunac ta legueguinac, daquijeela, pecatu ascori jazoten isteen deutsee (57).

- 145 Moisec emon eutseen libertadia judegubai, leleengo emaztiari ichita, beste bategaz ezconduteco (58). Baita campotarra logrerijan aurriz cerbait [149] presteetaco bere (59). Legueguinac parcatu leguijee, emacume galdubac euren tratu chaarrian vitzi izateco, eche jaquina ta aguirija (60). Baita comedijac eguitaco licencia emon bere, opicijo impamia ta pecatuzcua izan arren (61).
- 150 Alaco gauzaac pecatu diriana jaquin arren, jazoten isteen deutsee legueguinac, eurac pecatu eguin bagaric. Baquijee cristandadeco aguintari jaunac lecuban lecuban dagozana nasaijac, Jaungoicuaren bildur bagacuac, ceruba galdubac edo [150] irabatziac penaric emoten ez deutseenac, odolaren ta araguijaren artian loituta vitzi gura daveenac; ta asco izan arren ceruraco deitubac, guichi
- 155 izango diriala ceruracuac.

- Au berau jazoten da, bada, gueure errijeetaco piesta ta dantza naastaubaquin. Ez dira quenduten; ta ez dira obaago quenduten ez dirialaco. Ezpabere esan eguidazu: ¿Noc guztiz quendu leguiz edo quenduco ditu gueure placeetaco dantza lotsagarriac? Edo ¿noc dauca obligacinoia quenduteco, ain chaarrac izan arren? Obispo jaunac, cura jaunac, predicadoriac ta compesoriac, ascoc aleguina eguin davee ta eguiten davee quenduteco, baina ezin quendu ditubee. Erregue jaunac ta legueguinac eracutsi davee euren voron-[151]datia (62) ta gueijago cereguin ez dauquee, santo Tomasegaz esan dirian errazoiac gaiti. Urijeetaco alcate jaunac ta errijeetaco piel jaunac nai balebee bere, quendu ezin leguijeez, urijac edo errijac nai ez davela, sarritan icusi dogun leguez. ¿Noc ditu, bada, guztiz quendutecuac? ¿Nai dozu Jaungoicua etorri daquizun⁶¹ dantzazale bacochari esatera *dantza orreec pecatuzcua diriala ta ez juateco?* ¿Edo nai dozu cerubac gorroto deutseen seinale batzuc emon daguizuzan? Iracurri eguizuz, bada, Benedicto XIV., Marcancio, Seineri, Looner, Valero ta

170

 (57) D. Tom. 2. 2, Q. 78, A. 1. (58) Deuter. 24. (59) Ibid. 23. (60) D. Tom., 2. 2, q. 10, a. 11. (61) Decr. Phil. V. Arbiol, *Estragos de la lujuria*. (62) Pontast. V. Saltatio.

141 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 145 Moisec] Moisesec *Do* 153 araguijaren *Do Mu Al Lq* arguijaren *Ba (in-hu) Mu* 157 Ez dira *Do Al Lq* Ezdira *Ba Mu* | ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* | ez dirialaco *Do Al Lq* ezdirialaco *Ba Mu* 161 eguin davee *Do Al Lq* eguindavee *Ba Mu* 163 ez dauquee *Do Al Lq* ezdauquee *Ba Mu* 165 ez davela *Do Al Lq* ezdavela *Ba Mu* | icusi dogun *Do Al Lq* icusidogun *Ba Mu* 166 nai dozu *Do Al Lq* naidozu *Ba Mu* 167 dantzazale *Al* dantza zale *Ba Do Mu Lo* 170 Deuter.] Deutor. *Ba*

⁶¹ Komunztadurari erreparatuz, pixka bat harrigarri gertatzen zaigu hau: batetik, ... *daquizun* [zuri] eta bestetik *dantza zale bacochari* [hari]. Patxi Altunak ataltxo honetan zukako aditza darabilela diosku. Hala izan ezik, azalpen zaila luke... Garai batean ohikoago zatekeen zukako aditzaren aztarna izan daiteke, ez baitugu halako besterik aurkitu.

beste edocein [152] eracusla, dantceen gainian pusca bat sustraiz verba eguiten daveenac. Areetan icusico dozu ceimbat castigu icaragarri eguin dituban cerubac guiza aldi ascotan ta casic erreinu guztietan, pecatuzco dantza, ta olgueeta madaricatu orretati cristinaubac aparteetaco. ¿Ta quendu ditu guztiz? 175
Ez, por cierto. Castigubaren trumoe aldiya irago dedinian, nasaijac ta desonestubac leengo pecatubeetara.

¿Noc ditu, bada, guztiz quendutecuac? Ciudadiac, urijac eta erriac quendu leguijez eureen luurrecuac, gura balebee. Ez dau cristandadeco legueguinec ez uriric, ez ciudaderic, ez erriric castigueetan, bere luurreco dantza nastecuac 180
quendu ditubalaco. Erege batec edo ateista [153] batec castigau legui, Prancesac eguin daveen leguez. Baina ez parte oneco aguintaric⁶². Alan, errico gentiac gura balebee, quendu leguijez guztiz eureen erricuac eta luur barrucuac. Quendu biar ditubeen edo ez, eurac jaquingo davee. ¿Baina nos gura 185
izan davee uri bateco edo erri bateco auzo edo vecino guztiac, eureen errico dantza naastubac eta pecatuzcuac guztiz quendutia? Auzo batzuc beti. Beste batzuc inos bere ez. Batzuc esaten badabee ez dala eguin biar pecatuzco dantza edo piesta nasairic, beste batzuc dinue leen bere eguiten ciriala ta orain bere eguin biar diriala. Jaguiten da auzi bat erricuen eureen artian. Juaten dira 190
juez nausijaguagana ta esaten dau ac errico baquia gaiti: [154] *useetan dana, eguin dedilla*. Ara emen dantzazaleen gau ta egun piesta galduco edo dantza nasaijeetaco, eurac esan oi daveen, libertadia edo licencia. Sarritan au jazo da gueure errijeetan. Ta gueratu dira dantza desonestubac leengo tercijuan, aguintarijac erriric ez dauqueela.

Emeti ezaututen da cegaiti quenduten ez dirian naasteco dantzaac, pecatuzcuac izan arren. Deungaac dira ta quenduten ez dira. Ta quendu ez arren, ez da pecatu chiquijagua, daquijala, dantza areetara juatia. Quendu ezac ez ditu guichituten, ez chiquituten naaste impame ataco pecatubac. 195

Alperric da, bada, esatia: *¿cetaco dantzaac guztiz quenduten ez dira, ain deungaac badira?* Ez dira quenduten [155] ta, echuria daucanez, quenduco 200
bere ez dira guztiz. Ta orregaiti bapere obaac ez dira. Beste modu baten quendu leguiz guztiz. Ta chito errazto. ¿Celan? *Juan ezagaz*. Inor juaten ez bada,

179 leguijez] leguijez *Do* | Ez dau *Do Al Lq* Ezdau *Ba Mu* | Legueguinec] Legueguinic *Do* 185 izan davee *Do Al Lq* izandavee *Ba Mu* 187 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 189 Juaten] Juanen *Mu* 191 dantzazaleen *Al*] dantza zaleen *Ba Do Mu Lo* 192 oi daveen *Do Al Lq* oidaveen *Ba Mu* 194 ez dauqueela *Do Al Lq* ezdauqueela *Ba Mu* 195 ez dirian *Do Al Lq* ezdirian *Ba Mu* 196 ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* | ez arren *Do Mu Al Lq* ez arren *Ba (in-hu)* 197 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 197-198 ez ditu *Do Al Lq* ezditu *Ba Mu* 199 da] *ba Mu* | ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* 200 155 *Ba ez-aip. (in-hu)* 201 ez dira *Do Al Lq* ezdira *Ba Mu* 202 ez bada *Lo*] ez bada *Ba Mu Al*

⁶² Ikus 54. oharra (466.or.).

quenduta dagoz. Ascorentzat quenduta dagoz. Bestiac bere juan ezagaz quendu leguijez. Ta au esaten jacue cristinaubai eguin biar daveela pecatu mortalaren beian.

§. II.

*Santo*⁶³ *Tomasec dino dantzan eguitia berez ez dala pecatu*

Bigarren lecuban santo Tomas, Eleisiaren eracusla andija dacarree testiguzat dantzarijac, eureen olgueeta nasaijac oinian euquiteco. Santu gloriosua
 210 aotan artuta, coipaatu [156] ta leundu gura lituquee dantza desonestubac, leen dirian baino gueijago. Santo Tomasec ta beste juicijua dauqueen guztiac esaten davee dantzan eguitia berez pecatu ez dana. ¿Ta cer daucagu onegaz? ¿Placeetaco, erromedijeetaco, biguireetaco ta saraubeetaco dantza leen icentaubac pecatu ez diriala? Au ez. Errezago da ceruba luurragaz batuten, oneec
 215 bijoc bat eguiten baino. Santo Tomasec dino (63) canta onestubagaz, soinu onestubagaz ta eguitade indecente bagaric ta beste onestidadia ezaindu leguijan gauza bagaric, persona eldubac ta modes-[157]tijazcuac, aparteco motivo andi bategaz, dantzan eguitia ez dala pecatu. Baina sartuten bada edo naastetan bada indecencijazco gauzaric dantzaan, gauza jaquina dala pecatu dana.
 220 Au ta gueijago escatuten dau Santubac dantzia pecatu ez izateco, *et si quae hujus modi* esanagaz. Beguiratu bequijo, bada, verbeeta oni ta orraco placeetaco, erromedijeetaco, biguireetaco ta saraubeetaco dantza ederroi bere bai, leleengoti azquenera. Ta betor nai davena ia alcarregaz bat eguin al daguizan icusten. Bat eguin al badaiz Cristo ta diabruba, gracia ta pecatuba, gava ta
 225 eguna, onestidadia ta desonestidadia, castidadia ta luxuriya, santo Tomasen esana bere bat eguingo dau esan dirian dantceequin.
 [158] Dantzan eguitia berez pecatu ez da; baina eguiten dan ta useetan dan moduban eguitia, pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da. Orregaiti santo Tomasec esaten dau ainbeste lecutan ta beti alaco ocasinoera juatia pecatu

 230 (63) In Isai. c. 3.

204 leguijez] leguijeez *Do* 208 andija *A| Andia Ba Do Mu Lo* 212 ez dana *Do Al Lq* ezdana *Ba Mu* 214 ez diriala *Do Al Lq* ezdiriala *Ba Mu* | Errezago] Errezago *Do* (213.or: errezago) 215 bijoc *Do Al Lo*] bijot *Ba (in-hu) Mu* 218 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 219 dantzaan *Do Al Lq* danzaan *Ba Mu* 223 ia *Lq ya Ba Do Mu Al* | al daguizan *Al Lo*] aldaguizan *Ba Do Mu* 224 al badaiz *Lq* al badaiz *Ba Do Al* al badiz *Mu* 227 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* | useetan dan *Do Al Lq* useetendan *Ba Mu* 229 esaten dau *Do Al Lq* esatendau *Ba Mu*

⁶³ *Santo* hitzaren ezkerretara "II." dator, aurreko lerroan idatzitakoaren errepikapena izanik. Guk ez diogu huts horri berriro lekurik eman nahi izan.

dala (64). Dantzia pecatu eguiteco ocasinioia bada, dantzara juatia pecatu dala... Domeecan dantzan eguitia, soluan nabasen eguitia baino pecatu andijagua dala...

Eguin bedi, bada, dantzan, eguin biar bada. Loitu bediz gorputzac ta condenau bitez arimac, dantzaarijac alan gura badavee. Baina ez bedi se-[159]cula aotan artu santo Tomas, escolleetaco aingueruba ta virginidadiaren mirarizco ispilluba, gueure errijeetaco dantza nasaijac ta desonestubac ontzat emoteco. 235

§. III.

San Francisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia.

Irugarren lecuban dinue dantzazaliac san Francisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz eragotzi dantzan eguitia. Ezin esan guinai Santubac emongo eutsala libertadia pecatu eguiteco. Begaz, ez da pecatu dantzan eguitia san Francisco Salesen eri-[160]chijan. Au da Santu andi aganic dantzaarijac ateraten daveen contuba. Ta onan javonau gura lituquee dantza impamiac, Santubac eracutsijac ta ontzat emonac balira leguez. Onei esaten jacue, itsututa ez bada- goz, iracurri daguijeela Santuba bera. Berac dino: «Dantzan eguitia berez pecatu ez dala... Dantzaric oneenac bere utsa balijo daveela... Eguiten dirian moduban, gauza chaarren ta pecatubaren entero urrecuac diriala; ta orregaiti arriscu ta peligru andicuac diriala... Dantzara duazanac alcarren propijan⁶⁴ vanidadez duazala. Vanidade atati urteten daveela maitequerija charrac ta peligruzco carinuac. Basoco suga ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez, dantzarijac albo-[161]cuari belaarrijan esaten deutzazan verba desonestubac, veguiracune maitiac ta escuca loijac sartuten deutseela vijotzian pecatubaren verenua. ¿Noc ez daqui orduban vijotza pretauta daguana pecatuban jausteco, pecatubari obeiduteco ta verenuagaz ilteco? 240 245 250 255

«Dantzan eguizu, bada, guichi ta guichitan, Philotea... ta orduban ondo pretauta. ¿Baina celan pretauta? Modestijaz, juicijoz ta intencinoe onagaz.» (65).

(64) 2. 2, q. 43, a. 1, ad. 4, a. 7, q. 122, a. 4. ad 3... (65) *Introd. á la vid dev.*, p. 3, c. 32. 260

239 San *Al Lq* III. San *Ba (in-hu) Do Mu* 240 dantzazaliac *Al* dantza zaliac *Ba Do Mu Lo* 242 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 243 Au da *Do Al Lq* Auda *Ba Mu* 245 ez badagoz *Al Lq* ezbadagoz *Ba Mu Do* 247 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 253 escuca loijac *Do Al Lq* escucaloijac *Ba Mu* 254 ez daqui *Do Al Lq* ezdaqui *Ba Mu*

⁶⁴ Gure "elkarren lehian" esan nahi du; gaztelaniazko "a porfia" esamoldearen parekoa (ik. 340.or.).

Au guztiau da san Francisco Salesena. Ta oraindino gueijago [dino] Santu [162] andijac⁶⁵ ta garbijac, dantziac gach eguin ez daguijon. ¿Baina cer gueijago? Pensau gauza batzuc. ¿Baina cer pensau? Ara beraren verbaac: «Pensau eguizu leleengo, zu dantzan cenbizan artian ceimbat arima impernuban erreetan egongo cirian, dantzan ta dantzia zala medijo eguin zituben pecatubac gaiti. Pensau eguizu bigarrenian, ceimbat praile ta cristinau on egozan ordu-
 265 ban Jaungoicua alaveetan. ¡Oh, ce obeto eguin daveen areec zuc baino! Pensau eguizu irugarrenian, zuc dantzan eguin dozun artian ceimbat illda beste mundura jua dirian. Ceimbat ospitaleetan padeciduten egon dirian... ¡Ah, tristiciac!
 270 ¿Ez zara erruquituten areequin? ¿Derichazu ez dozula negar eguingo, [163] areec leguez, egunen baten beste batzuc dantzan daviltzanian? Pensau eguizu laugarrenian, Jesusec, Ama Virginiac, ainguerubac ta santubac icusi zaitubeela dantzan. Duda bagaric lastima izan deutesubee, icusita zure vijotza ain gogoz ta zur alaco zoraquerijan ta tontaquerijan. Pensau eguizu bostgarrenian, ¡ai, nire
 275 tristia! Dantzan ibili nasaneco demporia jua jat. Erijotzia leen baino urrago daucat... Bere dantzara dei eguiten deust onec. Orduco soinuba izango da nire zuzpiruba. Ta orduco dantziaren azqueneco giria vitzitzati eternidadera. Oneec imini deutesudaz, pensau daizuzan. Baina (Jaungoicuaren vildurric badago zuga) berac ecarrico deutesuz beste pensauquizun [164] batzuc ataraco» (66).
 280 Ara emen san Francisco Salesec Philoteari emon eutsan, dantzan eguiteco licencijsa. Zoraquerijac, tontaquerijac, necedadiac, arriscu andicuac, peligru andicuac, beti gauza chaarreracuac, vanidadezcuac, vijotzaren verenezco illgarrijac ta, oneenac bere, bapere valijo ez daveenac diriala dantzaac, dino Santubac. Modestijaz, errespetoz, juicijoz, intencinoe onagaz ta motibuagaz
 285 guichitan ta guichi dantzan eguiteco, esaten deutsa san Francisco Salesec Philoteari. Ta eguiten daven banacaan esan dirian bost gauzaac ta gueijago penseetaco, dantzeetaco [165] verenuac ill ez daguijan. Au dino Santu andijac icentau dan capituluban ta aren urreenguan. Ta oraindino pusca bat estuchubago laugarren parteco seigarren capituluban, nun condeneetan dituban
 290 Santubac pecatuzat emen esan dirian baino echura arinagoco ta chiquijagoco paltac bere. Eguin bequijo, bada, ondria Eleisiaren santu ta obispo andijari. Ta ez bedi aotan artu, dantza pecatuzcuac ontzat emoteco.

 (66) Ut supr.

261 dino *Dd Ba Mu Al Lo ez-aip.* 262 ez daguijon *Al* ezdagijon *Ba (in-hu) Mu*, ez dagijon *Do*, ez dagion *Lo* 270 ez dozula *Do Al Ld* ezdozula *Ba Mu* 275 jua jat *Do Al Ld* jua jat *Ba Mu* 276 eguiten] egiten *Mu* 284 juicijoz *Do Mu(?) Al Ld* juicijotz *Ba (in-hu)* | motibuagaz *Do Al(?)* moribuagaz *Ba (in-hu) Mu Lo* 287 ez daguijan *Do Al Ld* ezdaguijan *Ba Mu* 288 pusca bat *Do Al Ld* puscabat *Ba Mu* 290 pecatuzat] pecatuztat *Do Lo*

⁶⁵ Ohi duenez, juntagailu kopulatiboaz loturik doazen bi izenondoei jartzen die hondarkia, eta ez bigarrenari soilik.

§. IV.

Abadiac eta prailiac bere juaten dira piestara...

295

Charrac balira, ez litzaatequez juango.

Laugarren lecuban dinue dantzaa-[166]rijac abadiac eta prailiac bere juaten diriala dantcetara; saraubetan dantzan bere eguiten daveela batzuc; chaarrac balira, sacerdote jaunac ez leuqueela eguingo...

Erantzuten jacue abade bat nai praile bat juan leitequiala (edo juan biar davela) piesta egunian piesta eguiten dan lecura, edo sermoia eguitera, edo mecia esatera, edo meciari lagundutera, edo beste jagocan biar bat eguitera. Ta baita egun atan gueratu bere estadubari jagocan echian ta lagunaquin. Abade batec edo praile batec piesta egunian au eguiten davelaco inor escandalizetan bada, parisijuen escandaluba da. Ta ez dau merceduten casuric eguitia.

Ez dogu ori gaiti esaten, dinue [167] dantzarijac, ez bada abadiac eta prailiac piestara juanda, gente artian sartuta, gueu leguez olgуетan bertan ta arutz ta onutz icusten ditugulaco. Oni erantzuten jaco ez diriala guztiac izango. Ezda guchiago ta guchiago bere. Batzuc eguiten daveena ez dala guztiac gaiti esan biar. Judasec Jesus saldu evalaco ez da esaten apostolubac saldu eveela, ez bada apostolu batec saldu evala edo Judasec saldu evala. Bigarrenian erantzuten jacue abadiac eta prailiac bere pecatu eguin leguijeela. Abadentzat ta prailentzat bere baguala impernuba, gaisqui eguiten badabee, ta escandaluba emoten badabee beste edocein pecatarirentzat leguez. Abitubac soinian jancijac ta sotania iminita coroa edeguijac sal-[168]vauc baguinduz, ondo guengoquez prailiac eta abadioc. Baina ez. Gueure estadu santuco ta altuco cereguinac gordiac salvau biarco gaitu ceruco gracijagaz.

Irugarrenian erantzuten jacue esan dirian dantzaac ta piestac, bestentzat libre balira bere, abadentzat ta prailentzat pecatu diriala. Ez da errez sinistuten sacerdote jaunac ta religiosuac, eureen estadu santubagaz aaztuta (gentiac esaten daven leguez ta sarritan arpeguijan ezarten deitscun leguez) saraubeetan dantzan eguiten daveela; ta ezda orraco esan dirian piestetara ta erromedijetara juanda, guizon ta emacumen artian, nesca ta mutilen artian naastian sartuta, olgуетan ibilten diriana bere. Emen [169] egon leiteque engainu andija eleiza guizonen cleitu onaren caltian. Dantzazaliac lagunac gura ditubee. Ta

295 Abadiac *Al Lq* IV. Abadiac *Ba (in-hu) Do Mu* 296 litzaatequez] litzatequez *Do Lo* 305 ez dau *Do Al Lq* ez dau *Ba Mu* 306 Ez dogu *Do Al Lq* Ezdogu *Ba Mu* | ez bada] ez bada *Do Lo* 307 juanda *Lq* juan da *Ba Do Mu Al* 308 ez diriala *Do Al Lq* Ezdiriala *Ba Mu* 309 ez dala *Do(?) Mu Al Lq* ezdala *Ba* 310 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* | esaten] es ten *Mu irakurri zuen* 310-311 ez bada] ez bada *Do Lo* 313 gaisqui *Do Mu Al Lq* guisqui *Ba (in-hu)* 318 esan dirian *Do Al Lq* esandirian *Ba Mu* 319 Ez da *Do Al Lq* Ez da *Ba Mu* 322 esan dirian *Do Al Lq* esandirian *Ba Mu* 325 Dantzazaliac *Al* Dantza zaliac *Ba Do Mu Lo*

ceimbat estadu altubagocuaç, aimbat naijago, eureen dantza loijac noc jaso euquiteco. Au gaiti esaten dira chito gauza asco sacerdote jaunac ta religiosuac gaiti. *Au eguin davena... onan ibili dana... an izan ei zana...* Onaco guzurrac laster sinistuten dira eleisa guizonen contra. Ta lasterrago zabalduten dira.

330 Norbait inos icusi badavee gauza guichi baten descuideetan, aoric aora gueitubaz zabalduten da bertati. Ez da, bada, sinistuten, abadeteguija ta praileteguija juaten diriala piestetara, edo eguiten daveela dantzan, gentiac esan gura leusquegun moduban; ezda guichiago bere euscal errijetan, ez Es-[170]paina guztian.

335 ¿Bada, sinistuco dau inoc sacerdote bat (ta oraindino ezainago religioso bat) bere estadu altubaren, santubaren ta garbijaren lotsarijan ta ordiaco sacramentubaren desondraan ibilico dala piestetetan ta dantzeetan? ¿Ez eguitia, eze icustia bere Eleisiac eurai pena andijaquin eragotzita daucan olgueeta impameetan? ¿Jaungoicuaç bere echia zaintuteco esleidu dituban guizonac?

340 ¿Pecatarijagaz Jaungoicuaren arteco baqueguinac? ¿Jesus gueure Salvadore maitia ta garbija ceruti eratsita, egunian egunian escubetan daravileenac? ¿Altara gainian guztioen osasuna gaiti Aita Beticuari Bildots garbija esquintzen deuseenac? ¿Sacerdote jaunac? ¿Oneec ibilico di-[171]riala piesteetan, erromedijee-tan ta saraubeetan nesca artian ta mutil artian erdi-comico eguinda olgueetan?

345 Ez da errez sinistuten.

Baina badago abaderic edo praileric, ain diabrubaç itsuturic edo ez jaquinic, esaten jaco trago mingocha arimiari emoten deutsalac, doian bacochian. Eracuslen esanian pecatu mortala eguiten davela, doian bacochian, juatia bera gaiti ta alaco piesta desonestuba berarijaz icustia gaiti. Naasteco dantzaac berarijaz icustia ta arei beguira egotia bere eragotzita dago aparteco leguiagaz eleisa-guizonai, pecatu mortalaren beian, dinue eracuslac. ¿Sinistuco ete dau au alaco eleisa-guizonac, descuiduan inor bada, onan dana? Jazo leiteque guztiz itsututa egotia edo [172] chito guichi jaquina izatia.

355 Bada, Eleisaco concilijo ta eracusla guztien dotrinia da. Eleisiaren bostgarrren guiza alditu asita andi Trentoco concilijora guino asco icenteetan ditu Benedicto XIV. (67) eleisa-guizonai naasteco dantceetara juatia ta icustia bere

(67) Sinod. Dioces., lib. 15, c. 10.

327 esaten dira *Do Al Lq* esatendira *Ba Mu* | gauza *Do Al Lq* ezda *Ba (in-hu) Mu* | Au eguin *Do Mu Al Lq Bar* Auguin (*in-hu, 208.or.:* Au eguin) 328 izan] iza *Mu* | ei zana *Do Al Lq* eizana *Ba Mu* 331 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* | sinistuten] (errez) sinistuten *Al* | abadeteguija ta praileteguija *Al (Lo)* Abade teguija, ta Praile teguija *Ba Do Mu* 336 santubaren *Al ez-aip.* 337 eze] ez *Do* 342 guztioen] guztion *Al* 345 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* 348 Eracuslen] eracusleac *Do* | bacochian *Do Mu Al Lq* bachian *Ba (in-hu)* 354 Eleisiaren *Al Lq* Eleisiaren *Ba (in-hu) Do (in-hu, 219.or.:* Eleisiaren) *Mu* 355 guiza alditu *Do Lq* guizalditu *Ba Mu Al*

pena andijeen beian eragozten deutseenac. Eleisiaren neurgarri edo *canon*, ta congregacinoe sagraducuaeren ordena asco bere icenteetan ditu Aita Santubac berac (68); ceintzubetan eragozten jacuen eleisa-guizonai ez bacarric alaco 360 lecubetan dantzan egui-[173]tia, ezbada baita besteen naasteco dantzia berarijaz icustia bere, pecatu mortalaren beeco aguindutzat. Natal Alexandroc dino pecatu mortala eguiten daveela eleisa-guizonac alaco olgueeta naastauti aparteetan ez dirianian (69). Bederatzi concilijoren esanac iminten ditu eracusliac berac, nun aguirri dan Eleisiaren aguinduba arguiro. San Antoninoc pecatu mortalaren beian eragozten deutseez eleisa guizonai alaco dantzaac, dino 365 Benedicto XIV. Baita san Carlos Milango obispo jaunac bere. San Francisco Salesec eragotzi eutsezan, Elei-[174]saco opicijuac ez eguitiaren beian. Antoinec beste aimbeste dino (70) san Buenabenturagaz. Santo Tomasec beste aimbeste dino (71). ¿Baina cetaraco da cansetia? Eguija topau gura davenac ira- 370 curri beguiz Benedicto XIV., sinodo diocesana ta instrucinoiac, erdera ta latin guztien escubetan davizanac. An topauco da ezetara bere ez dala libreetan pecatu mortaleti, berarijaz pistetara ta dantcetara olgueetan doian abadia, ez prailia.

Ta esaten badau inoc, leen ez arren, orain usetan dala ta ez da-[175]la pecatu abadiac eta prailiac alan ibiltia, Trentoco concilijuan declarauta ta aguinduta dauca (72) abadiac eta prailiac piestetara ta dantcetara ez juateco; leenago Eleisiac ta concilijuac aguindu dituben ordenac gordetaco, ta usadijuaren edo oituriaren achauquijac ez daguijeela balijo legue onen contra... Ta obispo jaunai aguinduten deutsee concilijuac pecatu mortalaren beian, dino Benedicto XIV., 380 castigau daguijezala, leguiac aguinduten daven moduban, piesta edo dantzetara juaten dirian eleisa guizonac (73). Ez dago usadijoric, ez dago achauquijaric, ez dago [176] urteeraric eleisa guizonac berarijaz dantza ta piestetara juateco. Atiac guztiac ichita dagoz. Ez dago sinodalic eleisa guizonai alaco escandaluba parcatuten deutseenic. Alan icusten dogu gorde bere eguiten diriala legue 385 santu oneec eleisa guizonen exemplu andijagaz. Descuiduan ezjaquin triseen bat nosbait descuidau bada, orduban dantzazaliac santipicau gura lituquee eureen nasaitasunac, *abadiac ta prailiac bere eguiten daveela* esanda.

 (68) *Instru[ct].* 37. et 76. (69) *Teol[o]g. Dom. et Mor.* l. 2, Sacram. Ord., c. 5. Reg. 5. (70) Tom. 4. trat: de oblig. C. 1. et tom. 5. de poenit., c. 3, a. 3. (71) In [I]sai. 390 (72) Sess. 22, *de Reform.* c. 1. (73) *Instru[ct].* 37.

361 ez bada *Al* ez bada *Ba Do Mu Lo* 364 ez dirianian *Do Al Lq* ezdirianian *Ba Mu* 339 iminten *Do Al Lq* imiten *Ba (in-hu) Mu* 365 aguirri dan *Do Al Lq* aguirridan *Ba Mu* 372 davizanac] dabilznanac *Do*, davilznanac *Al* | ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 375 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 378 Eleisiac *Do Al Lq* Elisiac *Ba (in-hu) Mu* | aguindu *Do Mu Al Lq* agiundu *Ba (in-hu)* 379 ez daguijeela *Do Al Lq* ezdaguijeela *Ba Mu* 382 Ez dago *Do Al Lq* Ezdago *Ba Mu* | ez dago *Do Al Lq* ezdago *Ba Mu* 383 ez dago *Do Al Lq* ezdago *Ba Mu* 384 Ez dago *Do Al Lq* Ezdago *Ba Mu* 386 triseen bat *Do Al Lq* triseenbat *Ba Mu* 387 nosbait *Al (Lo)* nos bait *Ba Do Mu* 391 Reform.] Refsrm. *Ba*

395 ¿Ta izango da au achequiya ona dantzarijenzat eurac juateco ta ibilteco, oi
 daviltzan moduban? Ez. Alperric esango davee. Ez deutsee balijo. Ez ditubee
 edertuco ta guichituco au esanagaz eureen dantcetaco pecatu loijac. Baina
 400 gusto emon dai-[177]jeegun onei. Ta esan daigun, gura badabee abaderic ta
 praileric gueijeena juaten gariala piesteetara, erromedijeetara, saraubeetara ta
 naasteco dantcetara. ¿Cer daucagu onegaz? Nic lapurretan eguiten dodalaco;
 bidauac ta maldecinoiac ezarten ditudalaco; logreruba nasalaco edo pecatuban
 405 comulgueetan nasalaco, ¿esango cenduque gauza oneec eguitia ez dala peca-
 tu? ¿Esango cenduque abadiac eta prailiac bere eguiten ditubeela ta ceuc bere
 eguin zinaizala? Bada, beste aimbete⁶⁶. Abadiac ta prailiac piestetara ta dan-
 tceetara juango balira bere, zubece eguitia esan dan moduban pecatu da.
 Abadeena ta praileena andijagua (juaten badira); baita zubeena bere condene-
 etaco duina. Jazo leiteque alaco praileric edo a-[178]baderic bada, zeubeen
 410 dantcetaco ta piesteetaco pecatubeetati zubei absolvidutzatco bat edo asca-
 tutzaco bat compesinoian erreztu eguitia ta pecatuco ocasinoe jaquin orretan
 zubei ibiltzen istia. Baita jazo leiteque (ta erremedio bagaric jazoco da, peni-
 tencia eguijazcua eguiten ez bada) areec eta zubece, compesore ta penitente
 410 guztioc, alcarregaz impenuco dantzara juatia bere. Au da alaco guztiai Espiritu
 Santubac esaten deutseena: *Ducunt in bonis dies suos et in puncto ad inferna
 descendunt*. Esan daneti aituco dozu ez deusula balijo abadiac eta prailiac
 bere juaten diriala esanac, ceubec dantza naastaubeetan ibilteco.

[179]

§.V.

Piesteetara ta dantcetara juan arren, ez dot nic pecaturic eguiten.

415 Bostgarren lecuban piestazaliac edo dantzaarijac aguertuten dira beste
 urtenera bategaz ta esaten davee *piesteetara ta dantzeetara juan arren, ez
 daveela pecaturic eguiten*. ¡Ai, au gauza ederra da! ¡Dichosuac eta zorijonecua
 alaco semiac eta alabaac! ¡Oh, dantzaric dantza, piestaric piesta, erromedijaric
 erromedija, biguiraric biguira ta sarauric sarau nesca ta mutil, andra ta guizon

392 izango da *Do Al Lq* izangoda *Ba Mu* 392-393 oi daviltzan *Do Al Lq* oidaviltzan *Ba Mu* 393 Ez deutsee *Do Al Lq* Ezdeutsee *Ba Mu* 395 esan daigun *Do Al Lq* esandaigun *Ba Mu* 399 ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 402 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 405 absolvidutzatco] absolvidutzaco *Do* 408 ez bada *Al Lq* ez bada *Ba Do Mu* 411 Esan daneti *Do Al Lq* Esandaneti *Ba Mu* 414 Piesteetara *Al Lq* V. Piesteetara *Ba (in-hu) Do Mu* | ez dot *Do Al Lq* ezdot *Ba Mu* 415 piestazaliac *Al* piesta zaliac *Ba Do Mu Lo* 416-417 ez daveela *Do Al Lq* ezdaveela *Ba Mu*

⁶⁶ Oraingo idazleen artean, agian, gehiago erabiltzen den *beste horrenbesteez* du behin ere erabiltzen; beti *beste aimbete*.

naaste, gau ta egun oi zabiltzan moduban ibilita, pecaturic eguiten ez dozun 420
 bedeincatuboc! ¡Lastimia nortzuc zarian [180] ez jaquitia! Duda bagaric Eleisiac
 altareetan iminico lituque, ango leengo santubai alde eraguinda, balequi nor-
 tzuc dirian alaco gorputzezco ainguerubac, sutan sartuta erreetan ez dirianac;
 batsatzen ibilita, loituten ez dirianac; piquiagaz lo eguinda, garbi jaguiten diria-
 nac. ¡Lastimia! Orraco dantzari santu orreec, piestazale bedeincatu orreec oca- 425
 sinoeric sutsbeenetan eureen gustoz ibilita, pecaturic eguiten ez daveen orre-
 ec, gure ao lotsa galducuetati aimbeste picaerdija entzun biarra. ¡Oh, ce guichi
 jaquinac cirian san Anton⁶⁷ bat, san Geronimo⁶⁸ bat, san Agustin⁶⁹ bat, Arsenio⁷⁰

420 oi zabiltzan *Do Al Lq* oizabiltzan *Ba Mu* 422 Santubai alde] Santuabai alde *Do* 423
 ez dirianac *Do Al Lq* ezdirianac *Ba Mu* 424 batsatzen] baltsatzen *Do* | ez dirianac *Do Al*
Lq ezdirianac *Ba Mu* 426 ez daveen *Do Al Lq* ezdaveen *Ba Mu*

⁶⁷ San Anton. Egiptoarra (251/252-357); oraindik gazte zela, Ebanjelioari jarraiturik, banatu egin zituen bere ondasunak, eta bizimodu latzari emanda bizi izan zen, lehenengo bere sorterritik hurbil, geroago Libiako itsasaldean, eta azkenez, mendiko bakardadera jo zuen Nilo ibaiaz beste aldera. Oso ospetsua egin zen, eta ikasle ugari batu zitzaizkion. Hala ere, bakardadea utzi eta Alexandrian aurrean erabiliak ziren kristauei laguntza ematera joan zen... ondoren berriro basamortura itzultzeko. Era askotako pertsonekin izan zituen harremanak, enperadorearengandik hasita, gotzain, apaiz eta herriko jende xehearenganaino. Eragin handia izan zuen, batez ere gero-ko monakotzan. Frai Bartolomek hainbat bider aipatzen du santu hau bere idazkietan, haren bizimodu latza eta sakrifiziozkoa azpimarratuz. Frai Bartolomek honako obra honetatik jakin zezakeen haren berri: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 24-57.or.

⁶⁸ San Jeronimo (Dalmazia, 347-420), Eliz Irakaslea. 354. urtean Erromara joan zen, gramatika, erretorika eta filosofia ikastera; filosofiako ikasle zela bataioa hartu zuen. Frantzian monakoen bizitza ezagutu zuen. Batera eta bestera neke artean erromes ibili ondoren, Chalkis-ko basamortura baztertu zen, han bizimodu oso latza eginez. Baina urte batzuen buruan, basamortutik irten eta ikasteari eman zion. Damaso I.ak deitutako sinodora joan zen, eta Aita Santu horrekin bizi izan zen hiru urtean. Eragin handia izan zuen Erroman, batez ere andre handikiengan, bizitza aszetikoaren eredu izanez. Damaso I.a hil ondoren, alde egin behar izan zuen Erromatik eta Belenen jarri zen bizitzen, gizonezkoen monasterio bat eta emakumezkoenak hiru eraikiz. Gogoz ekin zion ikasteari. Asko ere asko idatzi zuen. Entzute handikoa dugu batez ere Biblia itzuli zuelako, *Vulgata* (Ik. P.-Th. CAMELOT, *Hieronymus, Sophronius Eusebius, hl*, in: LThK 5 (1986) 326-329).

⁶⁹ San Agustin, Eliz Irakaslea (Tagaste 354 - Hipona 430). Aita jentila zuen eta ama kristaua (Santa Monika). Ikasketak egiten ari zen garaian bere amaren erlijiotik aldendu egin zen. 18 urterekin seme bat izan zuen, Adeodato. Literatura eta filosofia ikasteari eman zion. Berriro kristau-erlijiora bihurtuz, monako-bizitzari ekin zion eta bataioa hartu zuen (386). 391n apaiz egin zen, eta 395ean gotzain sagaratu zuten, lehenengo gotzain laguntzaile eta gero Hiponako gotzain nagusi. Bandaloeek haren hiria inguratua zeukaten unean hil zen. Elizak izan duen idazle latindarretatik handienetarikoa dugu; eta Elizaren bizitzan eta doktrinan eraginik handienetarikoa izan duen Eliz Gurasoa dugu. Oso ugariak dira haren idazkiak eta era askotakoak (Ik. E. HENDRIKX, *Augustinus, Heiliger u. Kirchenlehrer*, in: LThK 1 (1986) 1094-1101).

bat, Paulo⁷¹ bat, Benito⁷² bat, Madalena⁷³ bat, Pelagia⁷⁴ bat, Tais⁷⁵ bat ta beste

⁷⁰ San Arsenio Handia (354-445), Erromako senadoreen semea izan zen; Aita Santu Damaso I.ak diakono ordenatu zuen eta Libiako itsasaldera joan zen bakardadean bizi izatera, baina gertaera sozio-politikoengatik Egiptora joan behar izan zuen... Frai Bartolomek honako obra honetatik jakin zezakeen haren bizitzaren berri: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, y en Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2. t., Coloniae Agrippinae, 1700, 239-242. or.

⁷¹ San Paulo apostolua, Tarsus-ko semea, fariseua eta kristauen jazarlea; Damaskorako bidean Jaunagana bihurtu zen eta urte batzuk basamortuko bakardadean eman zituen..., gero Turkia eta Europako apostolu handia izan zen, lehen kristau-komunitateen bizitzan eta irakaskuntzan itzelezko garrantzia izan zuena. Neron enperadorearen agintealdian martiri hil zen 64. urteik 68.era bitartean. (Honen bizitzaren iturririk garrantzitsuenak *Apostoluen Eginak* liburua eta beraren epistolak dira).

⁷² San Benito Nursiako, Europako zaindaria (c. 480-547). Erromara joan zen ikastera, baina ikasketak amaitu orduko, alde egin zuen lagun arteko giro lizun usteletik, eta bizimodu latz eta espiritualari eman zion. Subiakoko haitzulo batean bizi izan zen hiru urtez bakardade osoan, otoitz eta penitentzi bizitza eginez. 529. urte inguruan Montecassinora joan zen lagun batzuekin; hantxe idatzi zuen, gerora beneditarrek bizitza-arautzat hartuko zuten erregela. Santutasun-ispilu eta jakinduri iturri zen haren bizitzak gazte asko erakarri zituen, monako-bizitzari egundoko indarra emanaz. Frai Bartolomek haren bizitza obra honetan ezautuko zuen, ziur aski: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2. t., Coloniae Agrippinae, 1700, 163-169. or.

⁷³ Askok eztabaidatu da Maria Magdalena (Lk 8,2), Maria Betaniako (Martaren ahizpa eta Lazaroren arreba, Lk 10,38-40; Jn 11,20; 12,2) eta bekataria (Lk 7,36-50) zehazki identifikatu nahirik. Mendebaldeko Elizak, Gregorio I. agandik hasita, hirurak pertsona bat eta bera direla esan ohi du. Ekialdeko Elizaren tradizioak, oster, hiru emakume ezberdin direla diosku. Hirurak bat eta bera direla esateko oinarria, ebanjelioetako testuen hurbiltasunak ematen du: Lk 7,36-50 eta Lk 8,2, eta, bestalde, Jn 11,2 testuan egiten den interpretazio bitxiak ere horretarako bide ematen duela dirudi, Lk 7,36-50eko bekatariarekin berdintzen baitu. Esaterako, bekataria Maria Magdalenarekin berdintzen du Cornelio a Lapide-k (*Commentaria in quatuor evangelia...*, Lugduni, 1732, 537. or.). Gaur eguneko exegesiak hirurak pertsona ezberdinak direlako iritzia iriztari eusten dio. Esaterako, Heinz Schürmann-en iritziz (*Das Lukas-evangelium: erster Teil*, Freiburg, 1969, 446. or.) bekataria (Lk 7) eta Maria Magdalena (Lk 8,2) emakume ezberdinak dira. Mendeetan zehar izan den ikonografiak eragin du, batez ere, bekataria eta Maria Magdalena bat eta bera direlako iritzia herrian zabal dadin (ik. M. ANSTETT-JANSSSEN, *Maria Magdalena*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 515-542).

⁷⁴ Santa Pelagia Jerusalemgoa (V. mendea). Antiokian bizimodu librea zeraman dantzari bat dugu... Baina Jainkoagana bihurtu zen, eta penitentzia handiko bizitza egin zuen gero, komentu batean sarturik. 530. urteaz gero santatzat gurtzen zuten. Frai Bartolomek obra hauetan jakin zezakeen haren bizitzaren berri: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 155, 287-291; Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2. t., Coloniae Agrippinae, 1700, 304-305. or.

⁷⁵ Santa Thais, IV. mendeko penitente egiptoarra; Jainkoagana bihurtu ondoren, hiru urte bizi izan zen komentu batean sarturik. Honen bizitzako kontakizunak legendaz kutsaturik daude. Frai Bartolomek ondorengo obra honetan jakin zezakeen haren berri: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes...opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 286-287, 372. or.

milla onaco! Ez jaquinac, dinot, dantzarijen burlaz. Bada, areec, [181] ocasinoti igues eguinda, gorputzac ondo ta sarri zurrata, lua ta jana laburtuta, veguijac ta sentidubac contu andi bategaz erabilita bere, nequez goitu zitubeen araguijaren tentacinoiac. Ta dantzarijac ocasinocer vitzijenian ta sutsubeenian eureen guraz aimbat onduen apainduta, janda, edanda, gau ta egun naaste ibilita, ez davee pecaturic eguiten. 430 435

¿Cetaraguino diabrubac itsutu ete legui cristinauba? Esaten jacue, bada, onei itsututa vitzi diriala. Gorputza ta odola euquitia asco dala. Adanen semia edo alabia izatia asco dala, alaco ocasinorian bere guraz sartuta, pecatu eguin bagaric ez irauteco. Ta bere naiz, premina bagaric, ocasinoc jaquinera juatia bera dala pecatu. Baina piestazaleen concienci-[182]jaac oitura chaarren tintiaz zetacatuta dagozan leguez, sacrilegijo bat, adulterijo bat edo aitagarri ta amagarri bat osotu artian, beste castidadiaren contraco desonestidade nasajia ez dauquee pecatuzat. Ta lotsarizco zatarquerija guztia eguin ta eraguinda guero, esaten davee ez daveela dantceetan pecaturic eguiten. Onei jazoten jacue guela estu baten lutzaro oian daguan gaisuarena. Guela guztia atsituta dago. Campoti sartuten dirianac ezin egon dira atsa arren. Ta oian daguanac esaten dau ez davela atsic sentiduten. Piestazalen arimac milla pecatu mortal entzun, esan, icusi, pensau, naitu, eguin ta eraguin ditubee dantza ta piesta orreetan eureen guraz. Beste guztia urrineti bere sentidu-[183]ten davee eureen pecatubeen atsa. Ta eurac uste davee, ainguerubac baixen garbi dagozala. Ez daveela pecaturic eguiten. 440 445 450

Onei esaten jacue otera bere ez daukjeela dotrinaric. Ez dauqueezala pecatu mortalac pecatu mortaltzat; ezda ascoc venialtzat bere. Ezin alan esamaric eguin leguijeela. Aituten ez ditubeen ta aintzat ez dauqueezan pecatubeen damuric artu ezin leguijeela. Sarri compesau arren, bein bere ondo compesetan ez diriala. Ta ondo compesau bere ezin leitequeezala, arian da, dotrinia icasi, pecatu mortalac aintzat artu, areequin garbatu ta pecatuco ocasinoc urrecuai isteeco asmo sendua artu artian. Compesau beguijee oneec guztic, bai zaarrac, bai gaztiac, bai guizonac [184] ta bai emacumiac orrac piesteetaco, erromedijetaco, biguireetaco ta saraubeetaco dantceetan ta ibilteetan cer entzun daveen, cer icusi daveen, cer esan daveen, cer desiau daveen, cer eguin daveen, bestiai cer eraguin deutseen, cer eratso deutseen, ce gogogaz, ce vorondategaz, ce carinogaz, ce arpegui eragaz ta ceimbat bidar eguin ta era- 455 460

435 ez davee *Do Al Lq* ezdavee *Ba Mu* 440 piestazaleen *Al* piesta zaleen *Ba Do Mu Lc*
 443 ez dauquee *Al Lq* ezdauquee *Ba Mu* 444 ez daveela *Do Al Lq* ezdaveela *Ba Mu* 447
 Piestazalen *Al* Piesta zalen *Ba Mu*, Piesta zaleen *Do Lo* 449 sentiduten] santiduten *Al* | atsa
Do Mu Al Lq atsta *Ba (in-hu)* 452 ez daukjeela *Do Al Lq* ezdaukjeela *Ba Mu* | Ez dau-
 queezala *Do Al Lq* ezdauqueezala *Ba Mu* 454 eguin *Mu ez-aip.* | ez ditubeen *Do Al Lq*
 ezditubeen *Ba Mu* | ez dauqueezan *Do Al Lq* ezdauqueezan *Ba Mu* 455 bein bere *Do Al*
Lq beinbere *Ba Mu* 456 ez diriala *Do Al Lq* ezdiriala *Ba Mu* 457 aintzat] aintzat *Do Lo*

465 guin, esan ta eratso, entzun ta icusi, pensau ta desiau, lecu emon ta nai izan
 daveen eureen vijotzian. Ta aguertuco da eureen conciençija. ¿Baina celacua?
 ¡Ah! Eurac bere lotsatuten ditubana. Orraitino naico davee dantzazaliac ta pies-
 tarijac presco prescoric ta merque merque sinistu daijegun, orraco piestetan,
 erromedijeetan, biguireetan ta saraubeetan daviltzan moduban ibili [185] arren,
 ez daveela pecaturic eguiten. ¡Eh! Zeubeen lagunai ori burloori. Gueijago ez
 470 esatiarren.

§. VI.

*Dantceetan ez eze eleisaan bere pecatu eguin legui nai davenac.
 Ara bere ez juan.*

475 Piestazaleen seigarren argumentuba edo urteeria da eleisaan bere nai dave-
 nac, pecatu eguin leguijala. Bada, naasteco dantzara juan biar ez bada pecatu-
 co ocasioia dalaco, eleisia bere pecatu eguiteco ocasioia izan leiteque ta ara
 bere ez da juan biarco, edo piesteetara bere bai, pecatuco ocasioia izan arren.
 Dantza-[186]raco libertadia gura leuquee, eleisaan bere pecatu eguin leguijala
 esanagaz.

480 Onei erantzuten jacue bapere pena bagaric eleisaan bere pecatu eguin
 leguijala; baijetz. Luciperrec ceruban bere eguin evala pecatu. Ta guizonac nai
 emacumiac eleisaan bere eguin leguijala, echian bere bai, soluan bere bai, alta-
 raan bere bai; edocein lecutan, vitzi dan artian. Baita illten dagueanian bere,
 gura badau eguingo dau pecatu. ¿Ta cer daucagu onegaz? ¿Au eguiija izan
 485 arren, lecu guztiac dira bardinac pecatu eguiteco? Nun nai gaixotu leitequee.
 ¿Baina sequeradunagaz lo eguiten davena ala campo eche osasuntsu baten
 vitzi dana leenago ta sarrijago? Nunnai ill leiteque. ¿Baina gaixo deunga bat
 sartu dan errijan, ala o-[187]sasun onecuan dago illteco peligru gueijago?
 490 Nunnai guizona galdu leiteque. Baina lapurrez beteta dagan portuti doianac
 ala bere eche onian dagueanac dauca galduteco arriscu gueijago? Nunnai jausi
 leiteque. Baina calzada lauban ala aldapa labanian lasterrago? Oneen erres-
 puestia ceubec daquizu.

466 dantzazaliac A| dantza zaliac Ba Do Mu Lo 467 daijegun] daijeegun Do 469 ez dave-
 ela Do Al Lq ezdaveela Ba Mu | ori burloori] ori, burla ori Do 472 Dantceetan Al Lq VI.
 Dantceetan Ba (in-hu) Do Mu | nai davenac Do Al Lq naidavecan Ba Mu 474 Piestazaleen
 A| Piesta zaleen Ba Do Mu Lo 474-475 nai davenac Do Al Lq naidavenac Ba Mu 475 ez
 bada Al Lq ez bada Ba Do Mu 483 edocein Al Lq edo cein Ba Do Mu 485 leitequee] leite-
 que Do Al Lo 486 sequeradunagaz Do Al Lq sequera dunagaz Ba Mu 487 Nunnai A| Nun
 nai Ba Do Mu Lo 489 Nunnai A| Nun nai Ba Do Mu Lo 490 galduteco] galduteco Do
 (219.or: galduteco) | Nunnai A| Nun nai Ba Do Mu Lo 491-492 errespuestia Do Al Lo]
 erespuestia Ba Mu

Beste aimbeste ta milla bidar gueijago dira, bada, eleisia ta naasteco dancia edo piestia pecatu eguiteco. Eleisia Jaungoicua ezaututeco, alabeetaco ta ameeetaco lecuba da. Naasteco dantzia diabruba, munduba ta araguija serbiduteco lecuba ta opicijua da. Eleisia pecaturic eguin bagaric vitzi izateco, descuiduan eguiten bada erremedijeetaco, arimac onduteco ta cerura eruateco lecu-[188]ba da. Piestia ta dantzia pecatubac gueituteco, arimac condeneetaco ta impernuba beteteco lecuba da. Eleisia Jaungoicuaren, ainguerubeen ta santubeen lecu estimauba ta santuba da. Naasteco dantzia diabrubac ta pecatarijac olgueetaco, Jaungoicua ucatuteco, santubac desondreetaco ta ceruba tristetuteco toqui apartecua ta billatuba da. Eleisia arimac cerura igoteco esquelaria da. Dantzia arimac impernura jasteco vidia da. Eleisaan bere pecatu eguin legui. Bai. Baina eleisaan euneti bic pecatu eguiten badabee, dantzati ta piestati euneti iru echera juaten ez dira, pecatu eguin edo eraguin bagaric. Ez da, bada, cetan esan: *Eleisaan bere pecatu eguin legui, dantza loijeetera juateco.*

[189]

§. VII.

Gaztiac cetan edo atan olgau biar davee.

Zazpigarren lecuban dinue dantzaarijac, *gaztiac cetan edo atan olgau biar daveela*. Verbeeta onec utseguite bi daucaz. Bata da gaztiac cetan edo atan olgau biar daveena. Ez da au eguiija. Eguiija da nosbait olgueetia naturaleciac escatuten davena. Baita cetan edo atan olgau leitequiana bere, bai zaarrac ta bai gaztiac, bai prailiac ta monjaac bere. Au esanda gueratu da leen. Baina olgau biar dana, edo gaztiac olgau biar daveena, ez deuscu inoc e-[190]racusten. Ez dogu iracurten Jesucristo olgau zanic. Ezda Ama Virginia olgau zanic bere. Ezda san Juan Bautista olgau zanic bere. Santubac ez cirian dantzariac uste daveen moduban olgau. Ta inos olgau bazirian alan, ez santu zirianian. Contuban jausi zirianeti aurrera, negar mingoch asco eguin evenen, alan olgau cirialaco. Madalena⁷⁶ bat, Maria egiciaca⁷⁷ bat, san Agustin⁷⁸ bat, san Andres

505 Ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 506 loijeetera] lojeetara *Do (213.or.) Al Lo* 508 Gaztiac *Al Lq* VII. Gaztiac *Ba (in-hu) Do Mu* 511 Ez da *Do Al Lq* Ezda *Ba Mu* | nosbait *Lo* (noz-bait)] nos bait *Ba Do Mu Al* 515 Ez dogu *Do Al Lq* ezdogu *Ba Mu* | Ezda *Al Lq* Ez da *Ba Mu Do* 516 Ezda] Ez da *Do* 517 bazirian *Al Lq* batzirian *Ba Do Mu*

⁷⁶ Magdalena, ik. 73.oharra (484.or.).

⁷⁷ "Maria Egiciaca"; Palestinan penitentzia eginez bizi zen bakarzalea dugu; haren hilobia VI. mendeaz gero gurtzen zen. Gero legendaz jantzi zen haren bizitza... Frai Bartolome, Mariaren bekatari izan zeneko garaiaz ari da hemen; ondorengo obra honetan jakin zezakeen haren berri: *Vitae Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes.. opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 291-299.

⁷⁸ San Agustin, 69. oharra (483.or.).

520 Corsino⁷⁹ bat, san Abertano⁸⁰ bat ta beste asco dira onen testigubac. Bautismo santuban ez guenduban aguindu olgüeetia, ez bada mundubaren, araguijaren ta diabrubaren contra beti pelietia. Ez deuscu evangelijuac aguinduten olgüeetaco, ez bada gau ta egun contuban egoteco, arerijuac artu ez gaizan. Gueratu bagaric oracinoia [191] eguitemo, tentacinoian jausi ez gaitez. Pecatuco oca-

525 sinoeti ta peligruti igues eguitemo, bertan galdu ez gaitez. Gorputzari gurarijac ucatuteco... Penitencia eguitemo... Curutzari jarraituteco... Au da aguinduba. Au da biar dana. Ez olgüeetia. Gentiac cetan edo atan olgau biar dau; edo gentia cetan edo atan olgau bagaric egongo ez da penseetia, erregue, aguintari edo legueguin batentzat ondo da. Cristinau bacoherentzat ta arimia salveetaco, ez olgüeetia ta penitencia eguitia oba da.

Bigarren utseguitia da gaztiac cetan edo atan olgau biar daveela ta piestac, erromedijac, biguiraac ta saraubac ontzat emotia. Oneen contuban, gaztiac cetan edo atan olgau biar davee ta olgau biar da-[192]veen ezquero, olgau leitequeez pecatu eguiten. Olgau biar daveen ezquero, ez da pecatu izango, nescaac ta mutilac gau ta egun naaste dantzian, nai daveen moduban ibiltia. Olgau

535 biar daveen ezquero, ez da pecatu izango leen esan dan desonestidade guztia esatia, eguitia, entzutia, icustia, goguan erabiltia ta nai izatia. Gaztiac olgau biar davee ta, olgau biar daveen ezquero, ez da pecatu izango pecatu eguiten olgüeetia. Guc au esatia nai leuquee dantzazaliac. Nai leuquee gaztiac cetan

540 edo atan olgau biar daveela ta, licencia emon daquijuen piestatic piesta, erromedijaric erromedija, biguiraric biguira, sarauric sarau ta dantzaric dantza nesca ta mutil, guizon ta andra naaste alemanijeen gui-[193]saan luxurijotsu ibiltico. Edo verba baten esateco, nai leuquee licencia emon daquijuen Jaungoicuaeren legue santuba austeco. Edo, esan daquijuen pecatu eguitia ez dala pecatu. ¡Oh,

545 madaricatubac, dino Spiritu Santubac, gauza onari chaarra ta chaarrari ona esaten deutseenac!

521 santuban] Santubac *Mu* | Ez bada] Ez bada *Do Lo* 522 Ez deuscu *Do Al Lq* Ezdeuscu *Ba Mu* 523 Ez bada] Ez bada *Do Lo* 527 biar dau *Do Al Lq* biardau *Ba Mu* 528 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 531 utseguitia *Al Lq* uts eguitia *Ba Do Mu* 534 biar daveen *Do Al Lq* biardaveen *Ba Mu* | ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 536 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 538 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 544 daquijuen *Do Al Lq* daquijen *Ba Mu* | ez dala *Do Al Lq* ezdala *Ba Mu* 545 Spiritu] Espiritu *Mu Lo*

⁷⁹ San Andres Korsini (c.1301-1374), Florentziako semea, erreforma aurreko karmeldarra, Toskanako Karmeldarren Probintziala, eta geroago Fiesole-ko apezpikua. Frai Bartolomek Andresen gazetako bizimodu libre eta bekatuzkoa aipatzen digu hemen (ik. Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2. t., Coloniae Agrippinae, 1700, 28.or.); baina hau ez da historikoa (ik. L. SAGGI, *Santos del Carmelo*, Madrid, 1982, 230-240. or.

⁸⁰ San Abertano karmeldarraren bizitzaz (XIII. mendea), oraindik Markinako Karmeldarren liburutegian gordetzen den liburu ezagun honetan irakur zezakeen Frai Bartolomek: DANIELIS A VIRGINE MARIA, *Speculum Carmelitanum ...* 2. t., Antverpiae, 1680, 273-282. or.

Entzun dot, ta ez bein bacarric, (menturaz guzurra) compesore batzuc emoten deutseela licencia gientiari icentau dirian olgheetara juateco, *ondo ibili zaitte* esanda. Au eguiija bada, ezin aitu dot nic celan dan *ondo ibilte* au. Bada, ondo ibiltia bada mundubaren ta araguijaren erara, eurac eguiten davee compesorec⁸¹ aguindu bagaric, chito ondo ta aimbat onduen. Ta ez dauca inoc cetan buruba cansau dantzazaliai [194] piestaan... ondo ibilteco esaten. Ondo ibiltia bada Jaungoicua opendidu bagaric esan dirian dantceetan ta piesteetan, oraindino guchiago aituten dot. Dinot bene benetan ez dodala aituten celan dan ondo ibilte au. Leenago esango neuque, ondo ibilteco esanda alaco oca-sinoe desonestura juateco licencia cristinaubai emoten deutsanac, edo ez daquijala cer dirian olgheeta areec, edo ez daquijala *moral*a derichon dotri-niaren asieraric, edo (guichien sinistu biar dana) dala lagun dantzarijai pecatu eguitia pecatu ez dala esaten deutseena. Ez da, bada, cetan esan gaztiac cetan edo atan olgau biar daveela, olgheeta pecatuzcuac oinian euquiteco.

[195]

§. VIII.

Oba da alcarregaz plazaan edo sarauban edo biguiraan olgheetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino

Azquenian dinue dantzazaliac oba dala piestara plazara edo biguirara edo saraura juanda an guztien artian olgheetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino. Oneec autor davee piestaac eta erromedijac eta biguiraac eta saraubac chaarrac diriana. Ezaututen davee olgheeta areetan arimac osasun onic ez dauqueena. Baina bildur dira, pecatuzco olgheeta arei ichita, arimac [196] gaixotubago eguin ez ditezan. Orregaiti dinue oba dala, ara juanda, an ibiltia. Onei erantzuten jacue: I. Bata bere ez diriala onac. Bijac diriala chaarrac. Bata bere ez diriala eguin biar. Pecatu mortal andijaguari ichita mortal chiquijagua eguin davelaco, ez da inor salvauc. Zaldi bat oostutia baino guizon bat illtia pecatu andijagua da. ¿Ta oostu legui zaldija, pecatu chiquijagua dalaco? Basuan oostutia baino eleisaan oostutia pecatu andijagua da. ¿Ta basuan

552 dantzazaliai A] Dantza zaliai Ba Do Mu Lo 554 Ez dodala Do Al Lq Ezdodala Ba Mu 556-557 ez daquijala Do Al Lq ezdaquijala Ba Mu 557 ez daquijala Do Al Lq ezdaquijala Ba Mu 558 biar dana Do Al Lq biardana Ba Mu 559 ez dala Do Al Lq ezdala Ba Mu | Ez da Do Al Lq Ezda Ba Mu 563 Oba Al Lq VIII. Oba Ba (in-hu) Do Mu 564 dantzazaliac A] dantza zaliac Ba Do Mu Lo 570 I.] 1. Al 572 ez da Do Al Lq ezda Ba Mu

⁸¹ Aurreko ohar batzuetan ere ikusi dugu ergatibo mugagabea zein ongi darabilen gure idazleak. Oraingo idazleengan, honezkero galdua da honelako mugagabeak egiteko joera; mugagabea erabiltzekotan, ezkerretara *inongo*, *inolako*, *ezelako* edo antzeko izenlagun zehaztugaberen bat beharko du lagun; esaterako, Frai Bartolomeren sintagma mugagabe hau, *inongo konfesorek*, idatziko genuke gaur egun...

575 lapurretan eguitia ez da pecatu? Libriagaz pecatu eguitia baino ezcondubagaz
 eguitia chaarrago da. ¿Ta libriagaz eguitia ondo da? ¿Guizonic ill ez arren zal-
 dija oostu davena, eleisan ez arren lapurretan eguin davena, ezcondubai
 baquian ichi [197] arren libriagaz pecatu eguin davena, erremedijeetan ez bada,
 nora juango da? Beste aimbeste esaten da, bada, olgueeta galdu orreec gaiti ta
 580 ezcutubeetaco gauza chaarraguac gaiti. (Badago eurac baino chaarragoric).
 Bitzubic dira chaarrac. Ta bata bere eguin biar ez dira. II. Esaten jacue engai-
 nauta dagozala. Ez dira ezcutubeetaco gauza chaarraguac erremedijeetan pla-
 zaco dantza naastaura juanagaz, ez biguria eguinagaz, ez saraubagaz. Dantzara
 juanac dacarz gueijeenan ezcutubeetaco ta aguirico gauza chaar ta chaarrago
 585 guztiac. Naasteco dantzia da pecatu guztien erne lecuba ta toquiija. An icasten
 dira oquerrerija guztiac. An batuten dira adisquide chaarrac. An iraaften da
 luxurijaren gaixua. An e-[198]zaututen dira vijotzeco carinuac ta maitequerija-
 ac. An eguiten dira isil mandatubac ta batuten da araguijaren gosia. An icasten
 dira inor engaineetaco arte asmotsubac. An topeetan dira guztiraco lagun jaqui-
 590 tunac. Ta an eguin ezin dana, eguiten da guero ezcutubeetan.

Au ezaututeco ez da jaquiturija andiric biar. Errijeetaco gentiari pusca bat
 veguiratutia da asco. Piestaco ta naasteco dantzati alde eguiten daveen cristi-
 naubac, bai, ocasinoe areetan sartu ez oi dirianac, cer esan guichi emoten
 davee errijan, sentimentu guichi gurasuai, ta cereguin guichi justicijari.
 595 Beguiratu bequijue orraco plazaco dantceetan, biguireetan ta saraubeetan oinic
 iminten ez daveen cristinaubai, bai zaarrai ta [199] bai gaztiai, bai guizonezcuai
 ta bai emacumiai. Ta icusico da edocein lagun artetan eracusten daveela eure-
 en egoneriagaz, ibiliteriagaz, verbeetiagaz ta geriagaz eldutasuna, atsetasuna,
 juicijua, lotsa ona ta cristinau usaina. Ez zaarrac bacarric au, ezbada baita mutil
 600 gaztiac ta nescatilla gaztiac, edadiaren loracuac ta munduraco ezer galduta ez
 dauqueenac bere. Edoceinec errijeetan erraparau daiquien eguiija da au.

Baita eguiija da dantza naastauti urteten daveela edo dantzazaliac diriala
 gueijenian ezcutubeetaco ta aguirico oquerrijaguinac ta gaisquinac. Ezpabere,
 betoz guztioc esaminara. Esan beit: ¿Nortzuc dira euren ibili-eraan ta egon-
 eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija, do-[200]torerija ta besteen despre-
 605 cijua eracusten daueenac? Piestazaliac. ¿Nortzuc dira euren verbeeta ta

575 ez da *Do Al Lq* ezda *Ba Mu* 576 ez arren *Do Al Lq* ezarren *Ba Mu* 578 ez bada *Al Lq* ezbada *Ba Do Mu* 582 Ez dira *Do Al Lq* Ezdira *Ba Mu* 586 iraaften da *Do Al Lq* iraaften da *Ba Mu* 588 batuten da *Do Al Lq* batutenda *Ba Mu* 590 ezin dana *Do Al* ezindana *Ba Mu*, ezin bada *Lo* 593 oi dirianac *Do Al Lq* oidirianac *Ba Mu* 594 cereguin *Lo* (zeregin) cer eguin *Ba Do Mu Al* 596 ez daveen *Do Al Lq* ezdaveen *Ba Mu* | cristinaubai *Do Al Lq* cristinanbai *Ba (in-hu) Mu* 599 ezbada | ez bada *Do Lo* 602 dantzazaliac *Al* dantza zaliac *Ba Do Mu Lo* 603 oquerrerijaguinac *Do Al Lo* oquerrijaguinac *Ba (in-hu) Mu* | gaisquinac] gaisquiguinac *Al* 604 beit] bekit *Do* 605 buruerichija] buru-erichija *Do*, buru erichija *Al* 606 Piestazaliac *Al* Piesta zaliac *Ba Do Mu Lo*

meniuetan azalquerija, verdequerija, errazoe eltzacaac, ezicen desonestubac ta lotsarizco maitequerijaac edonun esan ta eguiten ditubeenac? Dantzazaliac. ¿Nortzuc dira, eureen jantzijan vanidadia, modia, indecencia ta luxurijaren convitgarrija daravileenac ta auzuai cer esan ta cer pensau emoten deutseenac? 610 Piestaric piesta ta sarauric sarau daviltzanac. ¿Nortzuc dira, eureen lagun arteco tratu ta artu emon popuertzacuetan guzurra, embusterija, esquer charra, deungaro esatia, inoren vitzitzaac jaquitia, areec conteetia, sospecha ta juzcu gaistuac zabaldua ta gente guztia aotan erabiltia, jaijotzaco ecan-[201]dutzat ta cereguintzat artuta dauqueenac? Biguiraric biguira, erromedjaric erromedija ta 615 dantzaric dantza ibili dirianac ta davilzanac. ¿Nortzuc dira eureen echeetan dotrinaric ez daquijeenac, senar emazteen artian baque charra, alcar jotiac, alcarreganic aparteetiac, celuac, alcar icusi ezinac ta escandaluba zabalduen daveenac? ¿Nortzuc dira gaisqui azitaco umiac, lotsa galducuac, gurasuai carinoric ez deutseenac, deungaro erantzuten deutseenac, nai daveenian baino 620 obeiduten ez deutseenac, beti jantzi barrijaren esque dagozanac, dendaraco ta beste tratu chaarretaraco ta impameetaraco, patricaraan edo muxilleetan laboria edo al daguijeena eheti oostuta alcaboetiai emoten deutseenac, eche-[202]raco ta gurasuentzaco gozo gaistua dauqueenac ta plazeetara ta campora aguertuteco uzija ixuia dauqueenac? Piesteetan, erromedijeetan, saraubeetan ta 625 biguireetan ezcontzaac asi zitubeen gurasuac ta umiac. ¿Nortzuc dira errijetan cer esana ta cer eguina emoten daveenac? ¿Adisquide galdubac dauqueezanac? ¿Sospechaco echeetan sartu urtena dauqueenac? ¿Murmurau eraguiten daveen lagunaquin ezcutubeetan, sasi arteetan edo solo baztarreetan daviltzanac? ¿Justicia aurrera ta cura jauneen aurrera alcar eruaten daviltzanac? Nortzuc dira 630 seinaren aitaric topau ezinda daviltzanac? ¿Esan beeban ezbeeban, edo emon beeban ezbeebango ezcontzaco verba bat gaiti auzitan daviltzanac? ¿Justicia aurreti der-[203]rigorrian leguez ezconduten dirianac? ¿Nortzuc dira jocalarijac, eche galtzailiac, castalarijac, desapijoguinaac, lapurrac ta euren echeen ta errijeen pestiac? Piestara, biguirara, erromedijara, saraura ta tambolin dantzara, al 635 izan ezquero, inos paltau ez daveenac.

¿Nortzuc dira eureen concienzia nasaicuac? ¿Jaungoicuagaz guichien gomutatuten dirianac? ¿Sacramentu santubac errecibidutera nequezeen elduten dirianac? ¿Jaungoicuaren verbia guichien entzuten daveenac? ¿Compesinoiari, sermoiari, Eleisa santubaren oitura onai, eureen gustoco ez dirian cura jaunai, 640 sacerdotiai ta justicijari burlaric guejeen eguiten deutseenac? ¿Nortzuc dira

607 ezicen *Al* ez icen *Ba Mu Lo*, ez-icen *Do* 608 Dantzazaliac *Al* Dantza zaliac *Ba Do Mu Lo* 617 ez daquijeenac *Do Al Lq* ezdaquijeenac *Ba Mu* 621 ez deutseenac *Al Lq* ezdeutseenac *Ba Do Mu* 623 al daguijeena *Lo* (al dagiena)] aldaguijeena *Ba Do Mu Al* 634 euren] eureen *Al* 636 ez daveenac *Do Al Lq* ezdaveenac *Ba Mu* 637 nasaicuac *Do Mu Al Lq* nacaiacuac *Ba (in-hu)* 640 ez dirian *Do Al Lq* ezdirian *Ba Mu*

gueure cristandadeco gauza ta eguiija [204] santubac barre eguiteco ta eragui-
 teco baino aotan artuten ez ditubeenac? ¿Eurac leguez piestaric piesta ta dan-
 tzaric dantza ez davilen guztiari, beti guerra armauta dauqueenac? ¿Nai sacer-
 645 dotia dala, nai caballerua dala, nai compesoria dala, nai ezconduba dala, nai
 libria dala, eureen olgueeta nasaijeen ta pecatuzcuen contra ezer esan edo era-
 custen davenari, al daguijuezan guzur ta embusterija mingarriac pena bagaric
 ezarten deutseezanac? ¿Nortzuc dira eleisaan nequezeen sartu ta andi lasterre-
 650 en urteten daveenac? ¿Auzo bategaz edo bestegaz egarrija, gorrotua, embidija
 ta icusi ezina edo asarria nequez paltau oi jacuenac? ¿Nortzuc dira an beecuen
 icen madaricatuba sarijeen auan darabileenac? ¿Nortzuc dira...? [205] ¿Baina
 nortzuc izango dira oneec guztio? Orraco piesta artian, sarau artian, biguira
 artian, erromedija artian ta dantza artian sortu, azi ta vitzi dirian gurasuac ta
 umiac. Orreec dira gueijeeno mundu guztiaren vistaan. Orreec dira errijeeta-
 655 co pestiac. Orreec dira Jaungoicuaren legueric gueijeena osticopian daravilee-
 nac. Orreec dira pecatu eguitia pecatutzat ez dauqueenac. Orrec dira nos pecatu
 eguiten daveen ta nos ez daveen ez daquijeeno. Orrec dira cristinaubeen
 sinistutia ta gentileen eguitadiac dauqueezanac. Orreec dira umetati echeco ta
 auzoco sarau ta biguireetan icusi ta icasi zitubeen piquerdija ta oquerrerija
 660 desonestubac, pusca bat azichubago eguinda plazaco ta erromedijaco piestee-
 tan barriro [206] entzun ta esan ta icusi ditubeenac, guero ezcutubeetan egui-
 ten ditubeenac. Orreec dira gurasuen exemplu chaarrac malecija ta piestaraco
 gurarija emon eutseenac. Piestaraco gurarijac lapurretaac, maina gaistuac, alca-
 boeterijaac ta carino loijac vijotzian imini eutseezanac. Piestaan ta dantzan
 665 naaste ibilijac. Jaungoicua aaztu eraguin eutseenac ta diabbrubaren crijadu ta cri-
 jada eguin zitubanac. Orreec dira, piestazaliac dira, aguirico ta ezcutuco peca-
 tuguinac ta pecatu eraguinguinac. Cerbait gaiti gentilac eurac bere, Catonec⁸²

643 ez ditubeenac *Do Al Lđ* ezditubeenac *Ba Mu* 644 ez davilen *Do Al Lđ* ezdavilen *Ba Mu*
 647 al daguijuezan *Lo* (al dagiezan) aldaguijuezan *Ba Do Mu Al* 650 oi jacuenac *Al Lđ*
 oijacuenac *Ba Do Mu* 654 dira errijeetaco *Do Mu Al Lđ* diraErrijeetaco *Ba* 656 ezdauquee-
 nac *Do Al Lđ* ezdauqueenac *Ba Mu* | Orrec| Orreec *Do Al Lo* | pecatu *Do Mu Al Lđ*
 pacatu *Ba (in-hu)* 657 ez daveen ez daquijeeno *Do Al Lđ* ezdaveen, ezdaqujeeno *Ba Mu*
 | Orrec| Orreec *Do Al Lo* 665 aaztu eraguin *Lđ* aaztueraguin *Ba Do Mu Al* 666-667 peca-
 tuguinac *Al Lđ* pecatu guinac *Ba Do(?) Mu*

⁸² Marko Portzio Katon-i buruz ari da: a) Katon Zentsorea (234-149 K.a.), politikari eta mili-
 tar erromatarra, hizlaria; edo b) haren birbiloba Katon Utikakoa (95-46 K.a.), filosofo erromata-
 rra, estoikoa; hau ere politikaria eta militarra, hizlari handienetarikoa; Zizeronekin batera, azpila-
 nean ari zirenak heriotzara gaitzetsiak izatea lortu zuen; ustelkeriaren aurka egin zuen borroka,
 triunbiratuaren aurka jaiki zen; Zesarren despotismoaren aurrean makurtu nahi ez eta, bere burua
 hil zuen.

ta beste ascoc, quendu gura izan zitubeen Erromati naasteco dantzaac. Errijeetan ta echeetan gorde zedin naturaleciaren modu ta guiza usain pusca bat.

670

Engainatuta vitzi dira, bada; edo [207] engainau eguin gura gaitubee icen-tau dirian olgueeta nasaijaquin ezcutubeetaco gauza chaarrac erremedijeetan diriala esaten deutchubeenian. Ez dira erremedijeetan. Dantziaren ta piestiaren umiac dira ezcutubeetaco pecatubac. Baina guichituten balira bere, pecatu da alaco dantceetan ibiltia, leen esan dan leguez. Ta ara emen zortzigarren urteeriaren errespuestia.

675

AMAIJA⁸³

[208]

UTS - EGUITEEN EZAUBERIA

Fol. 12 lin. 17. condenan. *léase condenau.*

Fol. 20. lin. 1. traco, *léase: tzaco.*

680

Fol. 36. lin. 15. cinaan, *léase: cinuan.*

Fol. 61. lin. 16. tambilina, *léase: Tambolina.*

Fol. 140. lin. 10. dagqueez, *léase: dauqueez.*

Fol. 169. lin. 9. Auguin, *léase: Au eguin.*

Fol. 203. lin. 10. nacaicucac, *léase: nasaicucac.*

685

673 Ez dira *Al Lq Ezdira Ba Do Mu* 675 esan dan *Do Al Lq* esandan *Ba Mu* 680 tzaco] izaco *Mu*

⁸³ Honen ondoren, hurrengo orrialdean, *Uts-eguiteen ezauberia* gehitu zitzaion; guk hemen ere jartzen dugu, orrialdeen zenbakiak 1816ko liburutxo originalari dagozkionak direla oharraraziz; lerroak, jakina, edizio honetakoak eta hangoak ezin etor daitezke bat. Ongi izango da adieraztea beste hau ere: guk seinlatu ditugun hutsak banaka batzuk baino ez dira; liburutxoan askoz ere gehiago daude.

**JANGOICUAREN LEGUECO
LELENGO BOST AGUINDUBEN
OGUETA BOST LECINOE TA SERMOE BA T**

SARRERA

Sarrera Orokorrean *Icasiquizunac* I. liburuaren deskripzioa egiten da (*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco leleno bosteen icasiquizunac, aita prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac atera - ac. I. Zatiya. Biar dan ondo izatiagaz.* Iruñean, 1816), baita liburu horren aurreko eskuizkribuarena ere (*Jaungoicuaren legueco leleno bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe ta sermoe bat Aita prai Bartolome S Teresa Marquinaco Carmen oinustuco predicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. 1807. urtian*). Eskuizkribu hau Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen da (9 / 2549).

Orain, idazki honen edukian eta hizkuntz estiloan sartzea dagokigu batez ere, eta bestalde, eskuizkribu honen eta *Icasiquizunac* saileko lehen liburu-kiaren artean den lotura estutik sortutako galderei erantzutea.

1. Desberdintasunak

Lehen aldiz eskuizkribua argitaratzean, zergatik argitaratzen den azaldu beharra dago, Frai Bartolomek lehenengo liburukian eskuizkribu honen birmoldatzea egin baitzuen.

Gaur egun, egileak berak idazki hartan zuen interes pertsonalaz eta sozio-erlijiosoaz gain, guk beste hainbat gauzogatik ere gogoko dugu idazki hau; bereziki, haren edukiagatik eta idazkeragatik.

a) *Edukia.*

Bi idazketen artean, hau da, 1807ko eskuizkribuaren eta 1816an argitaratu zenaren artean, desberdintasun ugari dira.

Hasiera batean, bertsio bakarra argitara emateko asmoa genuen, ager zitezkeen desberdintasunak aparatatu kritikoan azalduz. Baina desberdintasunez josita zeudela ohartu ginen lehen-lehenengotik eta ezin izango zela asmo hura burutu. Beraz, banan inprimatzea erabaki genuen. Izan ere, bi testu dira; biak bata bestearen antzekoak, baina idazkerari dagokionez nahiko desberdinak; biak alderatuz gero, eskuizkribuan alde handi samarra nabari da bestearekiko;

esaterako, testu-atal eta ohar batzuk kendu nahiz gehitu egiten dira, kapituluaren ordena ere aldaturik dator etab.

- Liburuaren hasieran bertan (Esk [II-V.]or. *Vizcai guztiz noble ta guztiz lei - jaleco cura jaunai* idazpuruaz ez du inolako zerikusirik 1816ko argitalpeneko *Eusqueera errijeetaco eleisa-guizonai* idazpuruak (III-V. or.); *Iracurlearenzat* [VI-VII] dator eskuizkribuan; 1816ko argitalpenean, berriz, *Iracurliari* (VI-X-or.)...

- Eskuizkribuan, Jainkoaren Legeko Aginduak sailkatzeko atal bakoitza, "lecinoiac" dira; argitaratutako liburuetan, berriz, "icasiquizunac".

Santa Teresa Jesusenaren aipamenak hiru bider gehiago dira eskuizkribuan argitaratutako liburuan baino. Beste zenbait autoreren aipuak ere pixka bat aldaturik datoze; beste batzuetan, testu batetik kendu eta beste testu batean jarzen ditu, etab.

Paragrafo luzeen ordena ere aldatu egiten du batzuetan; adibiderik argiena sermoia dugu: eskuizkribuan bosgarren aginduaren aurrean jartzen du, eta 1816ko argitalpenean, liburuaren amaieran...

Esaterako, 1816ko argitalpeneko 58. orrialdean datorren paragrafo luzea ez da agertzen 1807ko eskuizkribuan. Beste batzuetan, liburuaren hasieran bezala (2-3 or.), paragrafoak guztiz aldatzen ditu...

1816an argitaratutako *Icas-I* liburuaren *Euscal-errijetaco*... liburuaren aipamenik ez da agertzen, baina bai Eskuizkribuan (*Esku* 253-254.or.), hala ere, geroago *Aita gueuria* egiteko asmoa agertzen digu (*Icas-I*, VII. or., *Esku*, IV. or.).

Azpimarratzekoa da eskuizkribuaren hasieran nola jartzen dituen ohar argigarriak; hau da, azpiko oharretan, testuko euskarazko hitz batzuen esanahia ematen du gaztelaniaz, argitaratutako gainerako liburuetan egiten ez duena...

Beste zertzelada txiki batean ere ikusten dugu bien arteko desberdintasuna: Gorde izan den eskuizkribu originalean, liburuan ez bezala, sermoia beronen laburpen antzera den ahapaldi honekin bukatzen da:

Gurasuac jaquin biar davee,
chit ondo daveela merecidu,
umiac gaisqui azi ezquero,
isilic egon, ta padecidu.

b. *Hizkuntzari dagozkion desberdintasunak.*

Eskuizkribuari gainbegiratu bat eginez gero, lehen-lehenik azaleko hainbat

desberdintasunez ohartzen gara; esaterako, zenbait hitz lotzeko joera hemen nabarmenagoa da inprimaturiko liburuetan baino. Ahozko hizkeraren fonetika, kontsonante-galtzea, laburdurak etab. askoz ere argiago agertzen dira eskuizkribuan gainerako liburuetan baino. Zenbait hitz elkarrekin lotzea nahiko zabaldua zen joera dugu. Adibidez, aditza eta aditz-laguntzailea, *ez* eta adizkia... Sarrera orokorrean hitz egin dugu honetaz eta gainerakoaz; baina, hemen, eskuizkribuarekin zerikusia duten xehetasun txikiok gehituko dizkiogu:

Loturik

Ondorengo hauek, esaterako, ia beti loturik ageri zaizkigu idazle honengan:

- *inosbere*, *inorbere*, *ecabere* / *ezabere*, *edobere*. Baina beste batzuk ere agertzen dira, bereziki eskuizkribuan: *naibale ubere*, *edoceinbere*, *absolbidubere*, *beriburuba*...

(-) *gaiti*: Bereiz idazten du beti, “orregaiti”, “cegaiti” eta, batzuetan, “augaiti” izan ezik. Azken hau ere bereiz idaztea da normalena, baina eskuizkribuan loturik idazten du, behin edo izan ezik.

Fonetikako xehetasunak

- Kasu batzuetan argi dago bokalen asimilazioa gertatu dena: eskuizkribuko *barri in barri* (< barrien barri < barriren barri ?)...

- *ue* diptongoa: “errespuesta” forma hainbat aldiz dator, baina *Euscal-Errijetako*... eta eskuizkribuan soilik; inprimaturiko *Icasiquizunac* saileko liburuetan behin ere ez dator: *bestiac errespuesta chaarra emoten deutsal* (*Esku*, 243). // *bestiac cerbait esan orduco*, *aoti atzera errespuestia sartceen deutsal* (*Esku*, 243).

- *ñ* sarri agertzen da; gainerakoetan *-in* da grafia nagusia, salbuespen batzuk tartean direla: *ezaña*, *baña*, *baño*, *oñian*, *gañian*, *engañetan*, *erreñuba*, *ceñegaz*. Baina: *kristinauba*, *dinot*, *erliginoe*, *dotrinia*, *inoc*, *obligacinoiac*, *imini*...

- Kontsonante txistukariak zenbait hitzetan:

“gox” da gehien darabilena; “goix” gutxiago eta “gois” bi aldiz edo; “gos” eskuizkribuan behin...

“baisen” da gehien darabilen forma; 19 bider obra osoan barrena, 5 bider eskuizkribuan; “baixen” 16 bider obra osoan, eta 3 bider eskuizkribuan; “baitsen” 3 bider eskuizkribuan, besteetan ez dator...

- Bokal arteko kontsonante ahostunen galtzea:

Inprimaturiko lanetan *leguez* idazten du beti, gainerako euskalkietako "bezala" adierazteko. Eskuizkribuan, ordea, *leez* dator hutsik gabe; sekula ere ez *leguez* Gaur egunean bizkaieraz erabili ohi den *lez* forma laburtuaren aztar- narik ez dago; liburuetan *leguez* eta eskuizkribuan *leez*...: *¡Ojala, nire desiua eguijazcua dan leez, euroen jaquiturija altubaren ondo eichicuac balira oneec! (Esku, IV).*

"Legui" adizkia ere horrelaxe osorik dator liburuetan; eskuizkribuan, oster- ra, *lei*, oraingo bizkaieradunok erabiltzen dugun moduan: *Ascoc esan leije: onan bizi baño, illda egon oba da (Esku, 265).* // *Esango dot, obatulejiala (Esku, VI).* // *edoceinbere modutara girau lei escubetan dauan arti-artian, balequi batec guztien edo gueijenen gustua cein dan (Esku, VII).*

"Eguin" aditzoin edo partizipioa, hutsik gabe, osorik idazten du inprimatu- riko liburuetan, baina eskuizkribuan alternantzia ageri da, batetik: *ein, eitia, eiteco, eiten, eitera, eizu...* baina, bestetik: *ceruric edo munduric eguin ezpa - leu bere, aingueruric edo santuric ezpalego bere, criaturaren errasturic erne, sortu edo jaijo ezpalitz bere, Jangoicua Jangoico izango zan beti (Esku, 77).*

Muga-adlatiboa, sarrera orokorreko eskeman ikusi dugunez, *-raguino / - etaraguino* da Bartolomeren inprimaturiko lanetan; eskuizkribuan, ordea, *- raño (raino) / -etaraño: Nos eta cetaraño gurasuai obedidu biar jacuen da eracutsi biar dana (Esku, 227).*

"Dedilla" da forma normala eta bakarra haren liburuetan; eskuizkribuan, oster- ra, "della" da forma bakarra: *Alan izan della. Amen (Esku, 62).* // *izan della madaricatuba, izan della escomulgauba, izan della eternidade guztian con - denauba (Esku, 95).*

Era berean, "cirian" da liburuetan darabilen forma; baina eskuizkribuan "cian" agertzen da batez ere, baina "cirian" ere agertzen behin edo behin: *Samuel ta Saul adisquidiac cian (Esku, 75).* // *Abel ta Cain anaiac cian leez, duda bagaric adisquidiac cian (Esku, 75).* Baina: *Jangoicuc zucenac, humil - diac, inocentiac, onac eta santubac emon otsuzan batiatu cirianian (Esku, 260).*

Gauza bera esan behar dugu *zedin* formari buruz ere. Hori dugu liburue- tan datorrena, baina eskuizkribuan *zein* dator: *Adan bacarric egon ez zein (Esku, 20)* // *Adan bacarric egon ez cedin (Icas-I, 13).*

"Eguiquizun" eta "eguinquizun" agertzen dira haren liburu- etako testuetan, batez ere hura. Eskuizkribuan *eicuzun* ageri da, horrela idatzirik; Bizkaiko apaizei eskainitako atalean dator bi aldiz eta badu ñabardura txiki bat esanahi aldetik, gaztelaniazko "misión", "cometido"... esan nahi du: *Errazoe guztiagaz escatuten dau euroen Meseden eicuzun altubac eta santubac, nic vorondate osuagaz eta vijotz pinagaz amar mandamentuben lelengo parteco dotrinac euroen Evangelijoco zelo eguijazcuari ta aguirijari oprecidutia (Esku, II).* //

Nire poz eta ondraric andijena izango litzaateque, Jaunac, euroen Mesedioi dauqueen eicuzun altuban, Jangoicozcuan ta pisutsuban, celanbit lagundutia (Esku, IV).

“Derichat” da forma bakarra haren liburuetan. Eskuizkribuan, oster, “deichat” baino ez dator: *Gurasuac umeen contra eguiten dituben pecatubetati andijena dala deichat, cristinaubac, guztiz engañetan ezpanas, umiac don garo aztia (Esku, 3).*

Era berean eskuizkribuan *eichijan, eichicuac, eichita...* ageri dira.

Liburuetan “eragotzi” eta eskuizkribuan “eraotzi”: *Cura jaunac au eraotzi leije; ta ez leusquijue mesede chiquija eguingo euren cargura dagozan arimai (Esku, 187).*

“Eguzquija” da forma bakarra haren liburuetan, baina “euzquija” eskuizkribuan: *Euzquija egunari argui eguiteco ta Ilarguija gaveraco (Esku, 17).*

Bokal arteko kontsonante ahostuna galdurik idazten ditu beti, bai liburuan eta bai eskuizkribuan, hitz hauek: *nausi* eta *ezautu*.

- Zenbait fonetismo ere bere-bereak ditu Frai Bartolomek. Hauetariko batzuek etimologiaren aztarnak markatu nahirik eginak dirudite, esaterako, zenbait adizkitan agertzen direnak: *deutscu*, *eutstan...* Hauetarikoak liburuetan datoz soilik, behin ere ez eskuizkribuan.

“Bitzi” / “vitzi” formaz geure hipotesia egin dugu sarrera orokorrean, hau da, Markina inguruko herriko ahoskera zaharrean izan dezakeela sustraia... Baina *s*-dun beste partizipio batzuetan ere ageri *t* hori eta gure arazoibideak badu hor oztopo txiki bat... Bestalde, liburuetako formak, ustez behintzat, kontzionalagoak dira eta eskuizkribukoak herriko ahoskeratik hurbilagokoak. Baina *bitzi* / *vitzi* forma *Euscal-Errietaco...* eta *Icas*. *I*-eko forma normalak dira. *Icas*. *III*-an behin edo agertzen da eta eskuizkribuan behin ere ez. Baina gure arazoibidea nahasiago egiteko, *jatzo* ageri zaigu eskuizkribuan, *jazo* askoz ere ugariagoa bada ere eta *atzi* ere bai: *gaurco egunian umiac, cein atzijac eta cein chiquijac gurasuenzat ez lotsaric, ez bildurric, ez errespetoric ez dauque ena, nic esan bagaric, zeubec autor dozuna da (Esku, 225).*

Eskuizkribuko euskara, oro har, ahozko hizkeraren fonetikatik hurrago dagoela huts egiteko beldur gabe esan daiteke. Hainbeste xehetasunetan ageri da hori; esaterako, *ezpada* (gure ...baizik/baino), eskuizkribuan idazten du soilik aldaketa fonikoa eginez. Era berean, honelakoak ere maiz agertzen dira eskuizkribuan eta liburuetan behin ere ez: *echat: Neuc arguitara etarataco liburuba chaarra dala esatia, echat niri toqueetan (Esku, VI); echaco: Gueijen daquijenari, bapere sobreetan echaco (Esku, 13); echacuen: echacuen garba tuco bein eguin even pecatuba (Esku, 23); echacue: Bada Ainguerubai echa cue emon, ondo, edo gaisqui, bein eguina erremedijetaco, libertaderic (Esku, 23); echaco: baña noberaren gogocua ezpada, echaco casu andiric eguiten*

(Esku, 50); *echazu*: *Gu dongac izan arren, echazu zubei toqueetan, gu juz - queetia, ta gugaiti dongaro esatia* (Esku, 208); *ezpadau*: *Pecatu eiten ezpadau ilgo davela guizonezcuac esan arren, pecatu eiten istia pecatu dala* (Esku, 277)...

Bere liburuetan beti idazten du “edan”, “edana” etab. Eskuizkribuan, ostera, forma normala “eran” da; “edan” lau bider dator soilik, “eran”, berriz, oso ugari.

Liburuetan “orain”; eskuizkribuan “oan”...

Forma nahiko bitxiak ditugu eskuizkribuan datozen bi hauek: “jatgaucia” / “jatbitartian”. Hitz-elkartuetako tradizioko hitzetan, “jatordu” bezalakoetan, “jat-” ageri da, baina haiek elkarketa libreak dira...

“Estalgui”: Joera orokorraren arabera *-lg* egiten du; behin bakarrik dakar “estalqui”, baina ez inprimaturiko liburuetan, eskuizkribuan baizik: *bada cari - dadiaren esta lqui zabalac ez dau inor bere batu bagaric isten* (Esku, 114)

Caridadiaren esta lgui zabalac guztiac batuten ditu (Icas-I, 92).

Liburuetan “atera” darabil beti; eskuizkribuan “etara”.

Ahozko euskararen eragina adizkietan

Sarrera orokorrean adierazi denez, bere liburuetan darabiltzan adizkien formak guztiz finkatuak dira, ia guztian bat dator J.A.Mogelek darabiltzanekin. Baina eskuizkribuan *doscu, dotsube, otsuzan...* ageri zaizkigu: *Au guztiau Espiritu Santubac sarri prediqueetan doscu* (Esku, 8). // *Areec esatendotsuben guztia eizu; baña aren obrac onac ez badira, ez eizu eguin eurac eiten dave - ena* (Esku, 208). // *Jangoicuc onac, humildiac, cintcuac, lotsa onecuac, ino - centiac, isilac eta santubac entregau otsuzan ceubei, batiatu cenduzanian* (Esku, 246).

Zenbait aditz trinko eta izenetan ere nabari da herri-hizkeraren eragina. Honelakoak dira, esaterako, sinkopa eginez nahiz bokal arteko kontsonante- ren bat galduz datozen formak, baina hauek inprimaturiko liburuetan ere hala- xe darabiltza: *bagoz, baqui, zaatia, ezautu, illaineco ...: Mundubaren usadijo paltsuac, eta legue zoriguestocuac zortzi, amar urteco umiac ber e baquijeez* (Icas-I, 4). // *Bago bada gauza errazagoric, au baño?* (Icas-I, 25).

Deklinabideko xehetasunak

Pluraleko datiboaren marka *-ai* da. Baina joera hau ez da erabatekoa. Inoiz edo behin *-ei* ere egiten du. Eskuizkribua da *-ei* formako gehien dakarrena; *-ai* baino gutxiago badakar ere, ugari dira: *Israeltarr ei* (hiru bider), *cristinau pielei, cristinaub ei* (bi bider), *adisquidei, gaucei* (hiru bider), *sant ei* (*sant ai* ere

bai), *loije*, *esane*, *erregue*, *seme alabe* (17 bider), *alabe* (bi bider), *mutile*, *aurreracu* *ei*, *besteere*, *dongue*, *auzu* *ei*, *emacume* (*emacumiai* ere bai)...

Soziatibo kasua eta instrumentala ez ditu bereizten, baina singularerako -*gaz* eta pluralerako -*aquin* egitea hutsik gabe betetzen du; egia esan, eskuizkribuan -*aquin* da pluraleko marka hau, eta gainerakoetan -*aquin* nagusi dela, -*aquin* ere hainbat aldiz agertzen da... Begirunezko plural hurbila erabiltzen du Bizkaiko apaizei egindako eskuizkribuaren eskaintzan; *euroen*, ia beti *mesede* hitza ondorik duela; gaztelaniazko “vuestra merced” sintagmaren baliokidea.

Zenbait hitz liburuetan eta eskuizkribuan

Icasiquizunac liburuetakoko forma bakarra *Jaungoico* / *Jaungoicua*... da; eskuizkribuan *Jangoico* / *Jangoicua* baino ez dugu; *Euscal-errijetaco*... liburuan bien alternantzia ageri da.

Eskuizkribuan *donga*, *dongatu*, *dongar* α , oraingo euskara mintzatuan ere entzuten da hitz hau, eta beti forma honetan; gainerako liburuetan *deunga* darabil beti...

Marquinaco Carmen oinustuco (Esku). // *Marquinaco Carmen ortozeco* (Icas-)

“Enparau”: izen nahiz izenondo izan ohi da. Frai Bartolomeren obra inprimatuan ez da agertzen, baina bai eskuizkribuan eta hainbat aldiz: *ia cer eguin leijan edo cer eguin biar daven cristinaubac, mezia entzunda enparauban egun oneetan?* (Esku, 189). // *Elexan egon ezquero, bestenparauba olgueeta -co dala* (Esku, 189).

Kristoren izena idazteko era bat baino gehiago darabiltza. Liburuetan *Jesu Cristo* da gehien ageri dena. Eskuizkribuan ia beti berdin darabil (78 bider *Jesu Cristo*, 3 bider *Jesu-Cristo* eta behin *JesuCristo*).

Eskuizkribuan bi bider dator *nau scontu*, *Icasiquizunac* I ean behin *nau scontu* eta beste behin *nau sicontu*.

Ausaa, Frai Bartolomek behin dakar eta eskuizkribuan; gainerakoetan “menturaz” erabiltzen du. Bizkaiko hitza da; *ausaa*, *ausa*, *ausaz* forman agertzen da [Lino AKESOLO - Manu SOTA] *Diccionario Retana de Autoridades de la lengua vasca*, Bilbao, 1976-1989, hiztegian.

“Osoro” eta “chit” behin bakarrik agertzen dira obra osoan barrena; azken hau eskuizkribuko bertsoan.

“Edocer” behin dator eskuizkribuan, baina ez izenordain legez, determinatzaile legez baizik: “edocer gauza”. Eskuizkribuan agertzen da bi edo hiru aldiz *cer edo cerizenordain* zehaztugabea ere. *Nornai* / *zernai* ez dira agertzen...

“Celanbit” forma agertzen da, bai liburuetan eta bai eskuizkribuan. Baina azken honetan *zetaraco bit* ageri da, “zerbaitetarako” esan nahi duena: *Bada*,

eraotzi ezquero Jangoicuac guri ain legue gogorragaz domeequetan eta jai osuetan biarra eguitia, conpesau biar dogu erremedijo bagaric, cetaraco bit eraotzi doscula (Esku, 193). Erabilera hori Agirre Asteasukoarengan ere aurkitzen dugu: Cergatic bait esan zuan Jesu-Cristoc: Jaungoicoarena danac enzu - ten ditu Jaungoicoaren itzac (Eracus. III, 188).

Nekez itzurtzen zaio lumatik J.A. Mogelengan ia normala den *darua* adizkia; behin dakar soilik adizki hori, eskuizkribuko esaldi batean: *Orregaiti ascoc esan darue adisquide pobreris ez daveela gura (Esku, 67).*

Determinatzaile zehaztugabe batzuen (*edocein, inoren... + bere*) kokapena bitxi samar gerta dakiguke, agian. Eskuizkribuan ageri dira batez ere honelako formak, baina *Icas-Jean* ere aurkitzen ditugu banaka batzuk: *Ta au edocein bere ardao generogaz (Icas-I, 272). // Inoc bere ucatu ecin lei, neure cristi-naubac, orditutia pecatu dana. Ta ez edocein bere pecatu, ezpada pecatu ezai - na, lotsarizcua ta chito Jangoicuaren gorroto andicua (Esku, 292). //ez dau - cagu cetan bildurric euqui inoren bere (Esku, 70).*

c. Zer dela-eta hainbeste desberdintasun?

Testuaren edukian dauden desberdintasunak gogoan hartuz, galdera batzuk datozkigu berehala:

1816an argitaratutako testua, 1807ko eskuizkribuarekin zerikusirik ez duen beste idazketa bat ote da, ala geroago egindako haren birmoldaketa besterik ez?, edo igandeetan kristauei azaltzeko ikasgaiak ote ziren, gai berberak era berean ez ematearren aldatuak? edota zentsoreen esku-hartzeaz sortu ote ziren aldaera hauek guztiak? Azken honek ez du egiantzik...

Hizkuntz desberdintasunei gagozkiela eta goian esandakoak laburbilduz, hau esan daiteke:

1816ko argitalpenean darabilen euskara nahiko urruntzen da 1807ko eskuizkribukotik. Hura, Markina inguruan, batez ere J.A.Mogelekin hasita eratuz doan bizkaiera idatzian ezarriko genuke, Frai Bartolomek bere-bereak zituen joera eta estiloa izan arren; eskuizkribuko euskara, berriz, ahozko hizkeratik hurragokoa da. Argi dagoenez, ez da ahozko hizkera bere gordinean idatziz emana. Hainbat ukitu dituela ageri da, baina herriak, entzunez beste gabe, erraz jasotzekoa da oro har. Kontraesan antzekoak aurkitzen ditugu 1807ko eskuizkribuko euskara pixka bat aztertuz: alde batetik, inguru muga-tuagorako idatzi dela ematen du, Markina alderako, hain zuzen. Baina gero, *Vizcai guztiz noble ta guztiz leijaleco cura jaunai* eskaintzen die. Eskuizkribukoak jendaurrean irakurtzeko egina dirudi. Baina argitaratzeko asmoa ere bazuen; hori argi dago, eskaintza, sarrera, idazpuruak, aurkibidea

etab. jarri zizkionez gero. Baliteke lehen asmoak apalagoak izatea, eta egitasmoa helduz-helduz joatea, gerora gauzatu zena izateraino... Dena dela, zentsoreen eragina ez zen hain handia izango; ez, 1807ko eskuizkributik 1816ko argitalpenera dauden desberdintasunak eragiteko adinakoa, behintzat. Badakigu J.A.Mogelen lanak ezagutzen zituena, eta honek bai izan zezakeen eragina, 1816ko argitalpena hala idatzia izan zedin, hau da, bideratuz zihoan bizkaiera idatziaren ildotik.

Harira dator honetaz Xabier Altzibarrek dioena: “Euskararen aldetik 1807ko testuaren eta 1816koaren artean dagozan desberdintasunak aztertzeari probetxugarri deritzot, alde askotatik. Besteak beste, bizkaiera idatziaren -eta tertzio baten euskara idatziaren- joerak, arazoak eta idazleak emondako aterabideak ikusten laguntzen dau. Sermoilari izanik, jendaurrean irakurteko liburua idazterakoan zer euskara modu eta zelan idazten dauan, jendearen ahoko hizkuntzan oinarritzen dan ala euskara idatzia maila goragokotzat jotzen eban jakiteko, etab.”¹

2. Aparatu kritikoa: hitzen banaketa

Aparatu kritikoa geuk testuan egindako aldaketak agertzen ditugu, puntuazio-markenak izan ezik (eta maiuskula-minuskula batzuk...); hitzen banaketak agertzen ditugu bereziki. Hala ere, eskuizkribuak letra garbi eta ona badu ere, hitzetik hitzerako tartea txikia da eta, ez da beti erraz izaten hitzak loturik ala bereiz dauden jakitea; horregatik, gure banaketek gogara egindakoen antza izan dezakete batzuetan...

Aparatu kritikoa eskuizkribuko testuari *Ba* (Bartolome) izena ematen diogu.

Kontuan hartzekoa da, argitaratutako testuan bezala, dirudienez inprimategirako prestatu zen eskuizkribu honetan ere, kopiatzaileak hainbat huts egi ten dituela; bada, guk beti adierazten ditugu huts horiek aparatu kritikoa.

Y / I, eta *ya / ia* edota *ija / ya* transkripzioaz ikus Sarrera orokorrean idatzitakoa (VIII: *Argitarapen honetaz*).

Kopiatzaileak egindako hutsak ez direla hainbeste adierazi behar dugu; 50 edo kontatu ditugu; inprimaturiko liburuetan, berriz, askoz ere ugariago dira (*Icas-I*ean 117, *Icas-II*ean 169 eta *Icas-III*ean 80).

¹ Xabier ALTZIBAR, *Frai Bartolomeren liburuetako euskara*, Karmel, 1999-1, 200. or.

[I]

†

Jangoicuaren legueco lelengo bost Aguin-
duben ogueta bost lecinoe ta sermoe
bat

5

Aita Pray Bartolome S^{ta} Teresa Marquinaco
Carmen oinustuco
predicadoriac etaraac.
Mandamentuben

I. Partia.

10

1807. urtian.

[III] Vizcai¹ guztiz noble ta guztiz leijaleco cura jaunai.

Cura jaunac.

Errazoe guztiagaz escatuten dau euroen² meseden eicuzun³ altubac eta santubac, nic vorondate osuagaz eta vijotz pinagaz amar mandamentuben lelengo parteco dotrinac euroen evangelijoco zelo eguijazcuari ta aguirijari oprecidutia gueure Vizcai guztiz noblia ta guztiz leijala bada Europa osuan ta arutzago bere pama andicua bai governuban, bai eutsi-indartsuban (1), bai peliadaan (2), bai iraun-onian (3), bai asmo-biarrian (4)⁴, bai jaquiturijan ta bai leijaltasunian, oraindino arguijago, icusgarrijago ta erabaguijago da cristandadian, Elexaco eguitaden osotasunian, oitura santubetan, pedeco sinistute eguijazcuan, legue santubaren eracustian ta vizcaitarrac eurenez leez gauza oneraco, zuceneraco, erruquiorreraco ta maiteena errazuazcoraco dauqueen jaijoquera ta vijotz pres-tian ta zabalian. 5 10

Santijagoc, san Pabloc eta areen ondorengo obispo santubac zorijonian gueure gurasuai ecarri eutseen Jangoicuaren ta Jesucristoren sinistute eguijaz- 15

(1) Valor con fuerza (2) Milicia. (3) Constancia. (4) Industria.

3 euroen *Ba zuzen.* 5 euroen *Ba o ler.gain*

¹ Bere sinaduraz amaitzen duen Frai Bartolomeren aurkezpen hau, hark bere eskuz idatzia da, baina gero ez zen agertu *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian.

² Begirunezko plural hurbila darabil, *mesedehitza* ondorik duela, gaztelaniazko "vuestra merced" sintagmaren baliokidea (ik. 268.or.).

³ Bi aldiz dator Bizkaiko apaizei eskainitako atal honetan eta bietan antzeko testuinguruan. Gainerako liburuetan, "eguiquizun" / "eguinquizun" formak datoz. Hala ere, "eicuzun" hitza darabil hemen, inongo hiztegitan ageri ez dena, formaz eta edukiz ñabardura txiki bat eman nahirik edo; gaztelaniazko "misión", "cometido" esan nahi duela dirudi.

⁴ Frai Bartolomek, hemen, oharrak jartzeko darabilen era berezia azpimarratu nahi dugu, inprimaturiko bere lau euskal liburuetan ez baitu horrela egiten: hau da, lau ohar jartzen ditu hemen oharra eramango duten hitzen aurrean; eta ondorengo paragrafoan ere gauza bera egingo du beste hiru oharrekin, baina, gero, ohar bat gehitzen du gain-letratxoaz idatzirik... Gain-zenbakitxoak, hitz haien gaztelaniazko esanahiei dagozkie; gain-letratxoa, berriz, aipamen bibliografiko bati. Guk, haren gainerako oharrak bezala, dagozkien zenbakiekin kako artean jartzen ditugu.

cua⁵; gaurco egunian gordeetan da España vazterreco Vizcai guz-[III]tiz noblian lelengo egunian sartu zan baixen zuzena, arguitsuba, eutsija, vizija ta obra onguina. Vizcai dichoso onetan ez dau secula illuneco aguintarijac atzi chaarra erinda, pruturic batu. Ez dau gueure erri nobleetan inos oinagaz luurric berotu ez judeguc, ez moroc, ez sinistute-barricoc (5), ez burubagaco-elexadunec (6), ez jaquitun-descuidotarrec (7) ta ezda, juicijo oneco ascoren eichijan, Jangoico-ascodunec (8) bere (9). Munduco vaztar guichic buruba jasota esan leije vizcailjac leez ainbeste guizaalditan illundu bagaric, lausotu bagaric ta naastau bagaric beti eutsijaz, beti zietz, beti zintzoro, beti bardin ta beti garbi-ro gorde daveela Jangoico bacarraren ta Jesucristo gueure Jaunaren pede santuba.

Gueure Vizcai pamaubaren illargui beteco argui une guztiz altu onec euroen mesedeetan dauca, jaunac, bere arrimuba, edertasuna, sendogarrija, aurre-rabidia ta atseena. Euroc jasoten davee gueure cristandadeco obra gracijazco au. Euroc janarija emoten deutsee Jangoicuaren verbiagaz Jesucristoren vijotzeco ardi aldra oni. Euroc eracusten deutsee Jangoicuari, proximuari ta noberrari zor deutseena. Euroc zaintu ta gordeetan [IV] davee otso gaistuetati. Euroc osatuten ditubee pecatubaren sarniagaz gaixotuten dirianac, iracoiten ditubee jausijac, aurreratuten ditubee zutinic dagozanac, gogo viztuten ditubee guztiac ta eruaten ditube beti ondo izateco ceruco vizitzara.

Nire poz eta ondraric andijena izango litzaateque, jaunac, euroen mesedioi dauqueen eicuzun altuban, jangoicozcuan ta pisutsuban celanbit lagundutia. Neque guztiagaz aaztuc nintzaateque, dicha au jadiistiagaiti. Chito zorijonian salduco nituque neure indarrac, jaquite pusquia ta aleguin gogozcua euroen mesedeen ondra jasuaen apur bategaz gueratutia gaiti. Nire vorondate onac ta entendimentu laburrac lelengo arguitara etaraten daven prutuba da amar

 (5) Herejes. (6) Cismáticos. (7) Ateistas y Deistas. (8) Gentiles. (9) Tert., *Apolog*, cap. 16. e Ill^{mo} Maner. en las notas del cit. cap.

17 da *Ba ler.gain.geh* 18 sartuzan *Ba* 19 ezdau *Ba* 20 Ezdau *Ba* 28 Vizcai *Ba ler.gain.geh* 28-29 euroen *baina* o *ler.gain*. 31-32 vijotzeco *int.lin*. 33 zordeutseena *Ba* 37 euroen *sed* o *sup lin*. 40 Euroen *Ba* o *ler.gain.geh*.

⁵ Frai Bartolomek, hemen, Santiago eta san Paulo Espainian izan zirelako uste edo tradizioa agertzen digu. San Paulo Espainian izateak badu nolabaiteko oinarria (Santuak berak agertzen duelako Espainiara joateko asmoa, ik. Erm 15,24.28); Santiagorenak (Herodesek hil baitzuen laster, ik. Eg 12,2) ez du inolako oinarrik. Dena dela, Santiagoren tradizioa zaharra da eta jadanik VII. mendeko testu latinoetan, martirologioetan eta abarretan jasotzen da; eta, san Isidororenak omen diren testuetan ere (*De ortu et obitu Patrum...*), uste horrek indarra hartzen du... Tradizio sendoa duena eta historiako datuetan oinarritua dena Santiagoren gurtza da IX. mendeaz gero. Horrek haren hezurak distantzia handira ekartzea esan nahi du; hau da, gero erromes-leku izango zenera haren gorpua ekartzea. (Ik. DHHE, IV, 2183-2191).

Mandamentuben lelengo partia, ogueta bost lecinoetan zabalduta, sermoe bat 45
 erdijan daveela. Ta oneec esquintcen deutseedaz oan euroen mesedioi, mandamentuben bigarren partia, sacramentuben ta creduaren lecinoiac⁶ cerbait gueijagogaz laster etarateco ustian gueratuta. ¡Ojala, nire desiua eguijazcua dan leez, euroen jaquiturija altubaren ondo eichicuac balira oneec!

Artu beije bada, jaunac, nire vijotz zintzuac eta samurrac euroen mesedioi 50
 eguiten deutseen neque labur au. [V] Beguiratu beijue ez onen balijo chiquijari, ezpada gustoz esquintzen davenaren vorondate pinari, ceñegaz euquico daven neurribagaco poza euroen capillau humilde ta prestu.

Prai Bartolome Santa Teresac.

45 sermoebat *Ba* 46 euroen *Ba o ler.gain.geh.* 49 euroen *Ba o ler.gain.geh.*

⁶ Beraz, Frai Bartolomek 1806rako, hitzaldi kateketikoei zegokienez, bere asmo handiak zituen eta bere erara gehienak landuak ere bai, hainbat liburukitan argitaratzeko xede argia izanik. Hemen iragartzen dituen mandamentuen bigarren zatia eta sakramentuena 1817an eta 1819an argitaratu zituen. Ez zuen argitaratu, ostera, *Credoarena*, eta gainera ez dugu inon izan litekeen arrastorik ere. Hau eta prestaturik zituen sermoiena batez ere, galera handitzat dugu euskal letrentzat.

Liburubac poz gueijagogaz erosi ta iracurri ditezan, euren asieraan imi[ni] oi jacuez lora andi batzuc *iracurliarenzat* . Onaco asierai beguiratuten bajacue (Quevedo batenac ichi ezquero⁷), liburu guztiac dira onac edo oneenac. Alperric guero mundu guztiac diadar eguingo dau liburu a gati: bapere gauza ez dala edo iracurtia merecietan ez davela; asieraco berbetan chito guztizcua izango da. Esaten dotsut bada, *iracurlia* , bene benetan neuri au jazo daquidan ez dodala gura. Neuc arguitara etarataco liburuba chaarra dala esatia echat niri toqueetan. Baña ona dala bere ez dot esango. Esango dot gueure eusqueraan oraindino onetaricoc urten ez davela. Esango dot palta asco daucazala. Esango dot obatu leijala. Esango dot Quipuz-erri ascotaraco bere ez dala. Ta dinot mandamentuben bigarren partia, sacramentuben ta creduaren dotri-[VII]nac ta beste sermoe gauza batzuc arguitara etarateco chito nai neuquiala lelengo onen paltaac ezautia. Ez neuc asco icusten ez deutsadazalaco, ezpada bestiac cein paltazat euquico daveen ez daquidalaco. Dotrinac laburrac badira, luzatuco nituque. Berbeeta astuna badauca, arinduco neusquijo. Arina badauca, pisu gueijago emon bere bai. Quipuz aire bategaz oba balitz, a bere emongo neusquijo, guztiz ondo ez arren. Enpin, edochein bere modutara girau lei escu-

56 ditezan] ditetezan *Ba* 57 oijacuez *Ba* 60 ezdavela *Ba* | asieraco *Ba* co *ler.gain.geh*
61 esatendotsut *Ba* | benebenetan *Ba* 62 ezdodala *Ba* 64 ezdavela *Ba* 65
Erriascotaraco *Ba* | ezdala *Ba* 67 naineuquiala *Ba* 68 ezdeutsadazalaco *Ba* 72
ezarren *Ba* | edocheinbere *Ba*

⁷ Francisco de Quevedo y Villegas (1580-1645). Poesia, lan espiritual eta hagiografikoak, politikoak, satirikoak, eleberriak... idatzi zituen. Testuan, *Quevedó*zenaren *vezuzendurik* dator. Dirudienez, Quevedo berak "Los Sueños" izeneko bere liburuaren eskaintza egitean idatzi zue-nagatik esaten du Frai Bartolomek hori. Izan ere, liburuaren erosle eta irakurlearentzat ez dira batere gozoak hitz horiek, eta hain zuzen ere, horretaz ari da, hemen, gure idazlea. Quevedok honela ematen dio hasiera bere liburuaren eskaintzari: "Habiendo considerado que todos dedican sus libros con fines, que pocas veces se apartan: el uno, de que la tal persona ayude para impresión con su bendita limosna; el otro, de que ampare la obra de los murmuradores; y considerando, por haber sido yo murmurador muchos años, que esto no sirve sino de tener dos de quien murmurar: del necio que se persuade que hay autoridad de que los maldicientes hagan caso, y del presumido, que paga con su dinero esta lisonja, me he determinado a escribirle atrocimoche y a dedicarle a tontas y a locas, y suceda lo que sucediera. Quien le compra y murmura, primero hace burla de sí, que gastó mal el dinero, que del autor, que se le hizo gastar mal".

betan dauan arti-artian, balequi batec guztien edo gueijenen gustua cein dan. Claru gaucia esatiarren (bada ez da etara jaquitunai eracusteco, ezpada jaquitunac daquijena ez daquijenai eusqueraz erreztuago eracutsi daijuen) ta 75 Vizcaico berbeetiarri daucan indarra emotiarren, letra batzuc doblauta imini dira, gainian erraijagaz baño obeto eichita. Gauza onic badauca, Jangoicuari esquerrac emon; bapere ezpadauca, inori bere ez. Agur.

73 ceindan *Ba* 74 ezda *Ba* 75 ezdaquijenai *Ba*

**JANGOICUAREN LEGUECO MANDAMENTUBEN
ASIERARACO LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
dotrinia icasteco dauan preminia.

5

Munduba galduta dauana ta ya inoc iraun ezin davena Escritura Sagradubac lecu ascotan esango ezpaleuscu bere, gueuc sarri esaten dogun gauzia da, neure entzula onac. Gueuc esaten dogu casic isildu bagaric cristinauben artian dauala pede charra, conpijantza guichi, codicija asco⁸, malecija andija, munduco gauceen amodijo itsuba, inoren gauceen invidija, [2] alcar icusi ezina, panparrerija, vanidadia, ocasinodiac, entzute charra, murmuracinoia, neurribagaco desonestidadia, pecatubaren bildurric-eza ta conciençija arinonac. Gach oneec eta gueijago cristinauben artian ugari dagozana guztioç autor doguna da. Ya esan guinai David erreguiagaz (10), gente guztia vide zucenetati apartau dala ta gauza ona eguin gura davenic inor bere ez dauala. Edo san Juan Evangelistiagaz (11), mundu guztia malecijaren ta gacharen gañian iminita dauala.

¡Oh, ceinbat estimaucò litzaatequian gach oneec erremedijetia! Ta menturaz ez da ascoc uste daven baisen obra gacha mundubaren erremedijetia.

(10) Psalm. 13. (11) 1 Epist. c. 5.

20

4 eracustendan *Esk* 6 ya] ija *Esk* | ezindavena *Esk* 7 lecuascotan *Esk* 8 esatendogu *Esk* | isildubagaric *Esk* 13 ugaridagozana *Esk* | autordoguna *Esk* 14 Ýae-sanguinai *Esk* 14-15 apartaudala *Esk* 15 inorbere ezdauala *Esk* 18-19 Tamenturaz ezda *Esk* 19 ustedaven *Esk* | baisen] baitsen *Esk* | obragacha *Esk*

⁸ *Codicija asco* idazten du alde batetik eta *malecija andija* bestetik. Zenbakarriak ez diren izenen adjektibo gisa, "andi" edo antzekoa erabili behar dela eta ez "asco" esan ohi dute oraingo gramatikariek; gure idazleak, dirudienez, ez du iritzi argirik honetaz, bata eta bestea sartzen baititu ustez "andija" behar zukeenean.

Bacochac beretzaco ona dan moduban, edolabere erremedijau lei. Baña onetaraco, [3] ezautu biar dau cristinaubac lelengo, cegaiti daucan edo cetati jatorcon mundubari ain ichura ezaña ta errucarija. Ta au da dotrina onetan lelen-
 25 berari toqueetan jacona.

I.

Exodoco liburuban Espiritu Santubari entzuten deusadazan verba batzuc iracurten ditudan guztian, neure entzula onac, icara eguiten deust vijotzac. Irugarren ta laugarren belauneraño, dino Jangoicuac (12), castigauco ditubala
 30 gurasuac umeen contra eguiten dituben pecatubac. Gurasuac umeen contra eguiten dituben pecatubetati andijena dala deichat, cristinaubac, guztiz engañetan ezpanas, umiac dongaro aztia. Seme alabac lotsa chaarragaz, libertade andijagaz, vanidade osuagaz, dotrina on bagaric, Jangoicuaren [4] bildur santuba bagaric mundubarentzat ta munduco aixe paltsuarenzat aztia da guraso
 35 batec Jangoicuaren aurrian euquico daven cargu icaragarrija. Ta gurasoric gueijenac, guztiac ez esatiarren, dirian leez gauza onetan ardura bagacuac, ara emen celan dauan beti oñian Jangoicuac ainbeste gorroto deusnan pecatuba, ceñegati dinuan irugarren ta laugarren belauneraino castigauco ditubala gueure gurasuen pecatubac. Ta onaco gurasuen pecatubac beti dirauben leez,
 40 Jangoicuaren castigubac bere badirau gure contra. Izan leiteque, bada, gurasuac lotsa bagaric ta Jangoicuaren bildur santuba bagaric seme alabac azten dituben artian, mundubac daucan baisen ichura ezaina ta galduba euquitea. Ara emen munduco [5] gachen asiera bat.

Oraindino esan lei Jeremias propeta santubagaz (13) pensamentu on baten
 45 paltiac daucala mundu guztia galduta. Bacochac bere artian ondo pensauco balitu gauzaac, erremedijauta leoquiala munduba. Eguija esateco guizon ta emacume guztiac pensauco balebee ondo ta sarri cer dirian, cetati dirian, nor gaiti dirian, ceteraño dirian ta cetan parauco dirian, ez leuquee eguiten daveen beste zaata munduban eguingo ta ez leuquee emoten daveen beste cereguin, sentimentu ta ceresan emongo. Pensamentu on baten paltiac apartetan ditu cristinaubac vide zuzenetati ta ecarten ditu luurreco gauceetan euren gogo, amodijo ta desio guztia imintera. Ta ara emen beste sustrai bat mundu-

 (12) Cap. 20. (13) Cap. 12.

21 onadan *Esk* | erremedijau zuzen. 22 biardau *Esk* 23 auda *Esk* 33 onbagaric *Esk* 33-34 santubabagaric *Esk* 34 aixe| aitse Ba 36 dirianlez *Esk* 37 celandauan *Esk* 40 Izanleiteque *Esk* 44 onbaten *Esk* 47 cerdirian *Esk* 47-48 norgaiti *Esk* 50-51 apartetanditu *Esk*

co gentia beti naastauta, oquertuta, sosigu bagaric [6] ta alcarregaz bat eguin bagaric, cer eiten daveen ta nora duazan ez daquijen inurri pilo bat leez vizi izateco. Ara emen asiera bi, sustrai andijac dauqueezanac ta munduba dauan oñian euquiteco asco dirianac. Seme alaben aziera chaarra ta cer garian ondo ez pensetia. Oneec erremedijetan ez dirian artian, ez da munduba asco onduco.

Baña oraindino beste gauza bat deichat, neure entzula onac, dala munduco baque chaarrari, vizi izateco nequiari, arimaco quezquiari ta larrijari, gorputzaren penai, nasaitasunari, usadijo gaistuai ta illteco peniari lecuric gueijen emoten deutseena. Au da, cristinau izaten ez jaquitia. Cristinau asco dagoz, baña ez daquije gueijenac cer dan cristinau izatia. Ez daquijez naturalezia, errazoiac eta Jangoicuac imini deutseezan obligacinoiac; ez daquijezan artian, cumplidu [7] ezin leijez ta bacoachac bere obligacinoiagaz cumpliduten ez daven artian, munduba leengo bestian egongo da; edo guero baño guero chaarrago izango da. Alperric da intencinoe ona ta desio ona euquitia. Ez daquijenac descuiduan baño acertau ezin lei ta gaurco egunian casuric guichien eguiten jacon gauzia da cristinaubaren obligacionoiac icastia. Mundubaren usadijo paltsuac eta legue zoriguestocuac zortzi amar urteco umiac bere baquijez; baña cristinaubaren obligacinoiac escolau andijac bere ascoc ez. Ez dau inoc cansau gura Jangoicuari, proximuari ta bere burubari cer zor deutsan jaquiten. Ez dau inoc dendatu gura, Jangoicuac gueugaiti cer eguin daven ta cer eguiten daven ta gueuri cer aguiduten doscun icasten.

Berba baten, neure cristinaubaac, ez dau inoc arduraric iminten dotrinia biar dan moduban icasteco. Dotrinia biar dan moduban ez daquijenac Jangoicua servidu ezin lei. Jangoicua [8] serbietan ez dan artian, munduba leen dauan baisen ezaina, oquerra ta naastauba egongo da. Jangoicua serbietan⁹ ez dan artian, gueure vizitzaac izango dira penazcuac, atsecabazcuac, priisazcuac, gusto bagacuac, sosigu bagacuac, suguia leez luurreco gauceetan tatarrasca ta arrastaca gavizanac. Jangoicua serbietan ez dogun artian, gueure arimaac egongo dira pecatuz naastauta, ilunduta, loituta diabruben aguiduban; gueure erijotzia izango da estuba, larrija ta icaragarrija; ta gueure betico despeida, despeida bagacua, inpernuco suba. Au da dotriniaren paltiac cristinaubari ecar-

54 sosigubagaric *Esk* | bateguin *Esk* 55 ezdaquijen *Esk* 58 ezdirian *Esk* | ezda *Esk* 60 gauzabat *Esk* 63 Auda *Esk* 64 ezdaquije *Esk* | cerdan *Esk* | Ezdaquijez *Esk* 65 iminideutseezan *Esk* | ezdaquijezan *Esk* 66-67 ezdaven *Esk* 68 izangoda *Esk* | Ezdaquijenac *Esk* 72 Ezdau *Esk* 73 cansau *zuzen.* | zordeutsan *Esk* 74 Ezdau *Esk* | dendatugura *Esk* | cereguin *Esk* 76 ezdau *Esk* 77 biardan *Esk* | ezdaquijenac *Esk* 78 ezdan *Esk* 79 egongoda *Esk* 79-80 ezdan *Esk* 81 sosigubagacuac *Esk* 82 ezdogun *Esk* 85 Auda *Esk*

⁹ *Jangoicua serbietan* idazten du beti eskuizkribuan; *Icasiquizunac* liburuetan, berriz, *Jaungoicua serbi duten*.

ten deutsan prutu mingocha. Au guztiau Espiritu Santuabac sarri prediqueetan doscu. Orregaiti bada, neure entzula onac, dago chito premina andija dotrinia ondo icasteco. Gauza onetan cristinauben artian dauan paltia ta dotrinia ondo jaquin ezac dacazan [9] negargarrijac esan ezin leiz.

90

II.

Jangoicuac beti eracutsi doscu guizonaren entendimentuba berez laburra dana ceruco misterijuac ezaututeco. Beraren Magestadia etorri da guri ceruraco vidiac eracustera. Adan, lelengo gueure gurasuari Jangoicuac berac eracutsi eutsan inocencijaco estaduban beti dichoso izateco asco evan dotrinia¹⁰.
 95 Naturalecian leguiian patriarca santubai eracutsi eutseezan Jangoicuac, jazo baño ascozaz leenago, guc oan entzuten ditugun ta sinistuten ditugun pedeco gauzaac. Moisen leguiac iraun evan artian, denporaric denporara bialduten eutseezan Jangoicuac isrraeltarrei propeta santubac, bere leguia ta dotrinia eracusteco. Jesucristo gueure Jauna etorri bazan ceruti mundura, Aita Eternuac
 100 bialdu evan. ¿Ta cetaraco? Munduco guizon eta emacume guztiai cer sinistu biar daveen, zer eguin biar daveen, cer escatu biar daveen ta cer errecibidu biar daveen eracusteco. Apostoluben, obispo [10] ta cura jaunen cargubeetati andijen bat edo bacarra da cristinau pielei dotrina eguijazcua ta ceruraco vide zuzena eracustia. Esan lei cristinaubac, Jangoicuac Escritura sagraduban esaten
 105 doscunari ta Elesa Ama santiaren leguiai beguiratu ezquero, Elesa guizonen cereguinic andijena dala cristinaubei dotrinia eracustia. Lecuban lecuban berba gogorrequin zamaituten gaitu Jangoicuac ta pena andijequin Elesiac gauza onetan coroedunoc eguiten ditugun paltaac gaiti. ¿Cegaiti au guztiau? Ez beste gauza gaiti, neure cristinaubac, ezpada Jangoico onac eta bere Esposa Elesa
 110 Ama santiac ezaututen daveelaco dotriniaren paltiac dacazan negargarrijac ce andijac dirian.

Ene Erliginoe sagraduba, Jangoicuaren ta Elesa Ama santiaren intencinoiari ta espiritubari jarraituta, ez da contenteetan oracinoiagaz, penitencijagaz ta beste piedadezco ta caridadezco obra onequin crilandadiari lagundubagaz.

86 Auguztiau *Esk* 91 eracutsidoscu *Esk* 92 etorrida *Esk* 94 ascoevan *Esk* 96 entzuditugun *Esk* 99 etorribazan *Esk* 100-101 sinistubiardaveen *Esk* 101 eguinbiar *Esk* | escatubiardaveen *Esk* 101-102 errecibidubiardaveen *Esk* 103 andijenbat *Esk* 104 Esanlei *Esk* 104-105 esatendoscunari *Esk* 107 zamaitutengaitu *Esk* 108 (paltaac) gaiti *ler. artian. geh.* | auguztiau *Esk* 109 gauzagaiti *Esk* 110 ezaututendaveelaco *Esk* 113 ezda *Esk*

¹⁰ Ik. Has 2,15-17. (Ik. obra hau ere: *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párricos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita... Primera Parte, cap. 3, n. 2, Madrid, 1791).

[11] Ezaututen dau dotriniaren paltia dala munduco gach ascoren ta nequez 115
 erremedijetan dirianen sustrai indartsuba. Ta aleguin guztiagaz lagunduteco
 cristinau pielei ta cura jaunei dotriniaren paltia erremedijetan, aguinduten dau
 ene Erliginoe sagradubac (14); domeequetaco arratsalde guztietan prediqueta-
 co ordu erdijan pulpitoti dotrinia, gueure comentubetaco eleseetara datoza
 cristinaubei, desiartubez osterantzeco guztietan. 120

Gauza jaquina da, neure entzula onac, dotrinia ondo daquijenac daucala
 Jangoicuaren ezaubera gueijago. Ta ceinbat Jangoicuaren ezaubera gueijago
 daucan cristinaubac, ainbat dago urrinago pecatubetati ta condenetaco vide-
 ti. Bada, jaquin ezquero ondo Jangoicuac gueugaiti eguin dituban amodijozco
 obraac; Jangoicuac gueugaz daucan ontasuna, pinecia ta pacientcija; gueuri 125
 ceruco Erreñuba emoteco daucan [12] desio vizija; Jesus gueure Salbadore mai-
 tiac bere jaijotzan, vizitzan, pasinoian, erijotzan ta altaraco sacramentu santu-
 ban eracusten doscun biguntasuna, humildadia ta carino laarreguija; jaquin
 ezquero cristinaubac bere ezereza, miserija ta argaltasuna; berba eguingo
 badau, pausu eguingo badau, arnasa artuco badau ta vizico bada, popuertza 130
 Jangoicuaren gracia ta socorruba biar davena; erremedijo bagaric ill bia[r]co
 davena; erijotzaco ordu estuban bere vizi guztico pensamentu, berba ta obren
 contu zuzena ta gogorra artuco deutseena; oneentzaco ceruba ta donguentza-
 co inpernuba dauana, dinot neure entzula onac, cristinaubac ondo jaquin
 ezquero ta ezautu ezquero dotrinaco eguija oneec ¿nor azartuco litzaateque 135
 pecatu eguiten, bertan illgo dan edo ez ez daquijela?

Onezaz ostian, dotrinia biar dan moduban ez daquijena beti dago pecatu
 mortalian. Nai izan arren, ondo conpesau bere ezin leiteque, celan ez daqui-
 jelaco. Inoc asolbidu [13] bere ezin lei ta salbau bere ezin leiteque. Dotrinia
 ondo ez daquijenac pecatu eitia cer dan ez daqui. Bera da lelengo pecatuban 140
 jausten dana ta nequezeen jaguiten dana edo secula jaguiten ez dana, pecatu-
 baren ezaintasuna, pecatubaren caltiac, Jangoicuari eguin deutsan injurija ta
 pecatuti jaguiteco cer biar dan ez daquijelaco. Dotriniaren paltaz dira conpesi-
 noe paltsuetati gueijenac. Dotriniaren paltaz dagoz cristinaubac engañauta,
 itsututa, cerura zucen duazalacuan, inpernuraco videti pausu bat bere uts egui- 145
 ten ez daveela.

 (14) Nra. const. Part. 2, c. 10, n. 5.

117 pielei] pialei *Esk* | aguindutendau *Esk* 118 arratsaldeguztietan *Esk* 121 jaquinada
Esk 124 jaquinezquero *Esk* | gueugaiti 2. u *ler.gain. geh.* | eguindituban *Esk* 130
 pausueguingo *Esk* 132 ordu *ler.gain. geh.* | viziguztico *Esk* 133 artucodeutseena *Esk*
 134-135 jaquinezquero, ta ezautuezquero *Esk* 136 ezdaquijela *Esk* 137 biardan *Esk* | ezda-
 quijena, betidago *Esk* 138-139 ezdaquijelaco *Esk* 141 asolbidubere ezinlei *Esk* 140 ezda-
 quijenac *Esk* | cerdan ezdaqui. Berada *Esk* 141 jaustendana *Esk* | ezdana *Esk* 143
 cerbiardan, ezdaquijelaco *Esk* 145 uts *ler.gain. geh.*

Ta ez dauca inoc cetan pensau cristinaubac baquijela salbeetaco duin dotri-
na. Gueijen daquijenari bapere sobreetan echaco; ta palta daveenac milla vidar
150 gueijago dira, popuertzacua daquijeenac baño. Aitagueuria, avemarija, credua,
mandamentubac, nipecatarija, neure Jesucristo jaun, salbia, sacramentubac ta
beste onaco umetan ozta buruz icasi cian oracinoe batzuc aoz esatia ez da biar
dan moduban [14] dotrinia jaquitia (15). Umeentzaco popuertzacua da oraci-
noe areec buruz icastia, baña nausijentzaco ez da asco buruz jaquitia, maisu
155 ascoc esaten daveen leez. Aitu biar davee ta jaquin biar davee berba areec cer
esan gura daveen ta cetaraco dirian, itandu ezquero, edoceini contu emoteco
tertcijuan. ¿Ta ceinbat cristinau dira au eguingo leuqueenac? Atrivietan nas esa-
ten: ezda erdijac bere.

Imini daigun exemplu bat ta ez guichitan jazoten dana. Cristinauric gueije-
160 nac aoz esango ditubee ondo conpeseetaco bost gauzaac. Esaminia, doloria,
proposituba... ¿Ta aituten ditubee cer dirian? ¿Baquijee cer dan doloria edo
damuba? ¿Baquijee cer biar dan damuba euquiteco? ¿Baquijee damubaren pal-
taz conpesinoia cetan gueratuten dan? ¿Baquijee damuba jadiisteco celan pres-
tau biar daveen? ¿Baquije proposituba cer dan? ¿ce premina andicua dan?
165 ¿Euquiteco cer eguin biar dan? ¿ta eguijazcua [15] danian ariman cer eguiten
daven propositubac? Bigarrena doloria, irugarrena proposituba; aoz esaten
guztiac edo gueijenac daquije, baña cer esaten daveen ta esaten daveena aitu-
ten erdijac bere ez.

Gauza jaquina da bada, neure cristinaubac, dotriniaren paltiac mundubari
170 ichura charra emoten deutsal ta icasico balitu cristinaubac bere obligacinoiac
ondo, munduraco ta eternidaderaco gach asco erremedijauco litzaatequiala.
Dendatu gaitezcan bada, cristinaubac, dotrinia icastera ta icasteco juan gaitezcan
eracusten dan lecura. Escatu daijogun Jangoicuari bere berba santuba entzute-
co ta arimeetan gordeetaco gracia. Amen.

175 (15) Véase en los prólogos de Pouget, Fleuri, Evangelio en triunfo, y la única
Religión. tom. 3. Lecc. 8.

148 ezdauca *Esk* 149 paltadaveenac milavidar *Esk* 152-153 ezda, biardan *Esk* 154 ezda
Esk 155 esatendaveen *Esk* | Aitubiardavee, ta jaquinbiardavee *Esk* 155-156 keresangu-
ra *Esk* 159 Iminidaigun *Esk* | jazotendana *Esk* 161 aitutenditubee, cerdirian *Esk* | cer-
dan *Esk* 162 cerbiardan *Esk* 163 gueratutendan *Esk* 164 biardaveen *Esk* | cerdan?
¿cepremina *Esk* 168 cereguin biardan *Esk* | cereguiten *Esk* 167 esatendaveen, ta esa-
tendaveena *Esk* 168 bereez *Esk* 172 Dendatugaitezcan *Esk* 172-173 juangaitezcan, eracus-
tendan *Esk* 173 Escatudaijogun *Esk*

**JANGOICUAREN LEGUECO MA[N]DAMENTUBEN ASIERARACO
BIGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
mundubaren asieria, guizonaren noblecia 180
ta cristandadiaren balijua.

[16]

Jangoicuac gueue gaiti eguin dituban obraac euqui biar ditu cristinaubac beti veguijen aurrian, bere obligacinoiac icasteco. Eurac dira gueure vijotzetan Jangoicuaren errespetua ta amodijua onduen iminten daveenac. Andi andica, 185 edo salto saltoca leez esango dotsut bada, cristinaubac, dotrina onetan: *Mundubaren asieria, gueure izatiaren noblecia ta cristandadiaren balijua.*

I.

San Pablo apostolubac esan ezquero munduco gaucei beguiratuta ezaututen diriala cerucucac (16), chito gauza biarrecua da mundubaren asieraco obra 190 arrigarrija cristinaubac jaquitia. Onetaraco sinistu biar dogu, neure cristinaubac, oan zazpi milla ta sei urte artian (Elesiaren contubari jarraituta (17)), ez euala criaturaren errasturic Jangoicuaren entendimentuti canpora. Jangoicua bera euan bacarric beragan ta beste gauzaric ecer bere ez euan. Jangoicuac ecer bere eceti etara cituban bere virtute edo nai bategaz [17] cerubac eta luurrac, 195 eta ceruban eta luurrian aguiiri dirian ta aguiiri ez dirian gauza guztiac.

Lelengo egunian edo instantian¹¹ eguin evan Jangoicuac arguija ta apartau evan ilunaganic; imini eutsan arguijari egunaren icena ta ilunari gavarena.

(16) Ad Rom. c. 1. (17) Martirol. Rom.

183 gueugaiti *Esk* | euquiarditu *Esk* 185 imintendaveenac *Esk* | Andiandica *Esk*
186 saltocaleez *Esk* 191 biardogu *Esk* 192-193 ezeuala *Esk* 194 ecerbere ezeuan *Esk* 195
ecerbere *zuzen*. 196 ezdirian *Esk* 198 iminieutsan *Esk*

¹¹ Ik. Has 1,3. "Egunian edo instantian" dio Frai Bartolomek, bai Bibliako esamoldea eta bai bere garaiko interpretazioa jasoz... Bibliak sei egunetan laburbiltzen duen kreazioaren kontaketak badu bere erritmo artistikoa, eta 6 ahapalditan banaturik dago. Hala ere, testuak fantasia eta lirikotasunik eza salatzen du, eta helburu dogmatiko eta liturgikoekin egina dirudi... Kreazioaz

200 Bigarren egunian edo instantian eguin cituban cerubac ta apartau cituban ceru
gañeco urac cerupecuetati. Irugarren egunian edo instantian batu cituban
Jangoicuac cerupeco urac guztia lecu batera ta aguertu evan liorra. Liorrari
imini eutsan luurraren icena ta urac egozanari ichasuarena. Ta egun atan eguin
205 cituban luurreco arbola ta bedar genero guztia. Laugarren egunian edo instan-
tian eguin cituban Jangoicuac euzquiya, ilarguiya ta izarrac ta imini eutseezan
euren ibileraco leguiac, egunac, illac eta urtiac neurtuteco. Euzquiya egunari
argui eguiteco ta ilarguiya gaveraco. Bostgarren egunian edo instantian eguin
cituban Jangoicuac uretaco arrain genero guztia ta egaan davizan chori gene-
ro guztia. Ta emon eutseen Jangoicuac [18] onei guztioi, baita arbola ta beda-
210 rrai bere, euren ericuac¹² sortuteco edo ondorenguetara azija iragoteco virtutia,
beti munduban iraun daijen genero guztia. Ta bedeincau cituban Jangoicuac
guztia esanagaz: *Azi zaite ta gueitu zaite*.

Seigarren egunian edo instantian eguin cituban Jangoicuac luurreco alema-
nija guztia ta emon eutseen arei bere virtutia euretaicuac sortuteco.
215 Ainguerubac cein egunetan criadu cituban Jangoicuac ez davee Elesaco era-
cusla guztia bardin esaten. Baña pedeco gauria da Jangoicuac mundubaren
asieran ecer bere eceti eguindaco espirituco criaturaac dirala ainguerubac.
Areetati batzuc, san Miguel aingueruba aurrerengo zala, obeidu eutseen
Jangoicuari, errazoia zan leez¹³, ta dira ceruban Jangoicua goceetan dagozan
220 ainguerubac. Beste batzuc, Luciper aurrerengo zala, euren andiarriac arrotuta,
soberbijaz beteta, ez eutseen Jangoicuari obeidu gura izan; ta Jangoicuac
soberbijazco pecatuba à gaiti bota [19] cituban inpernubetara ta dira ango dia-
brubac eta demoniuac.

Luurreco criatura guztia zuzen ta artez gordeetan ditubee, neure entzula
225 onac, Jangoicuac imini eutseezan ordena, legue ta eguite edo izate modubac.
Alemanijaac, arrañac, choriac, cerubac, luurac eta luurreco gauza guztia
dagoz beti pirme, Jangoicuari obeiduten deutseela ta Jangoicuaren anditasuna,
jaquituriya ta providencia prediquetan daveela. Au da cristinaubac beti goguan

200 eguincituban *Esk* | apartaucituban *Esk* 202 lecubatera *Esk* 207 argueguiteco
Esk 209 oneiguztioi *Esk* 210 ericuac] erricuac *Esk* 211 iraundaijen *Esk* 212 Azizaite, ta
gueituzaita *Esk* 213 eguincituban *Esk* 214 areibere *Esk* 215 ceinegunetan criaducituban *Esk*
| ezdavee *Esk* 217 ecerbere *Esk* 219 errazoiazan *Esk* 225 iminieutseezan *Esk* 228
prediquetandaveela. Auda *Esk*

hainbat interpretazio daude eta Frai Bartolomek Cornelius a Lapide-ren iruzkinetik ezagutzen
zitzen batez ere (*Commentaria in Pentateuchum Mosis...*, Lugduni, 1732, 32.or.) etab. Hain zuzen
ere, hemen, Bibliako sei egunetako kreazioaren azalpena datorren honetan, San Agustinen inter-
pretazioa ere gehitzen da, Jainkoak guztia bat-batean egin zuela, hau da, lehenengo egunean egin
zuela dioena...

¹² *Mota* esan nahi du: *euren ericuac* = euren motakoak (ik. 324.or.).

¹³ Ik. Ju 9; (Ap 12,7).

euqui biar davena. Arrimutubetaranoco guztiac Jangoicuari obeiduta, berac ez obeidutia. ¡Oh, celan lotsatuco dan Jangoicuaren aurrian pecatari errucarrija, beste guztiac euren moduban Jangoicua ciur serbiduta, berac serbidu ez davelaco! (18). 230

II.

Seigarren egunian edo seigarren instantian eguin evan Jangoicuac guizona. Pormau evan Jangoicuac luur zati bategaz gorputz bat (19); criadu evan ecer bere eceti espirituzco arima bat; imini evan luurragaz eguin evan gorputz atan espirituzco arimia ta gueratu zan Jangoicuaren echurara eguindaco guizona, ceini derichon *Adan*¹⁴. [20] Au da lelengo guizona, lelengo gurasua ta munduco guizon eta emacume guztiac moduren baten izatia zor deutseena. Jangoicuac berac, leengo dotrinan esan zan leez, Adani emon eutsan ceruco gauceen ezauberia, entendimentu arguija, vorondate leijala ta zuzena, ta beti dichoso izateco biar evan guztia. Ichi cituban Jangoicuac Adanen escubetan ta Adanentzat beste criatura guztiac, alemanija, arrain, chori ta batez beste pruta genero guztiac ta imini evan munduban inoc euqui leizan gusto, atseguin, ondasun ta dicha guztien artian paradisuban¹⁵. Adan bacarric egon ez zein, bera lo eguala, etara eutsan Jangoicuac saijets azur bat, berari minic emon bagaric ta Adanen saijets azurragaz pormau evan Jangoicuac emacume baten gorputza. Criadu evan arima bat ecer bere eceti, imini evan gorputz atan ta pormau evan leleengo emacumia, ceini derichon *Eva*. Lelengo emacumia ta lelengo ama¹⁶. Ta Eva bere imini evan paraisuban Adanegaz inocencijaco estadu dichosuan ta zorijonecuan (20). Ara emen, neure [21] cristinaubac, celan 235 240 245 250

 (18) Genes. c. 1. (19) Ibid. c. 2. (20) Genes. c. 2.

229 euquibiardavena *Esk* 230 lotsatucodan *Esk* 231-232 ezdavelaco *Esk* 234 guizona *geh.* bere *baina ken.* 235 lurzati *Esk* 235-236 criaduevan ecerbere *Esk* 236 iminievan *Esk* 237 gueratuzan *Esk* 238-239 tamunduco *Esk* 239 zordeutseena *Esk* 240 esanzan *Esk* 242 biarevan *Esk* 244 iminievan *Esk* 246 eguala *baina g ler.art.* | azur *baina z ler.art.* 248 ecerbere *Esk* 250 iminievan *Esk*

¹⁴ Ik. Has 2,19. Gogoan izan behar da, Frai Bartolomek, orduan ohikoa eta beharrezkoa zenez, S. Jeronimoren latinezko itzulpena erabili zuela, hau da, *Vulgata* ospetsua. Horregatik, esaldi eta hitz batzuk ez datoz oraingo itzulpen zehatzagoekin bat. Esaterako, horrelakoa da Adam izenarekin gertatua.

Adam=gizakia, izena Has 4,25 - 5,5ean... Lehenengoetan izen orokorra zen (gizakia); Septuaginta-k, ez hain egoki, izen propiotzat hartu zuen Has 2-4an. *Adam* izena estu-estu loturik dago *Adama-lurra* izenarekin.

¹⁵ Ik. Has 2, 7-20.

¹⁶ Ik. Has 3,20. Ik. 14. oharra. Hala ere, aurreko testuetan gizonaren izen berarekin ageri da (isch - *ischa*: Has 2,23), bi pertsonen arteko harreman estu-estua eta bien oinarrizko berdintasuna adierazi nahirik...; autore biblikoak emakumea, jatorriagatik eta hala erabakita zegoelako, guz-

izan zan gueure lelengo gurasuen asieria. Guizona da (ta bardin da emacumia) espirituzco arimia ta luurrezco gorputza bat eguindaco gauza bat. Guizona da
 255 aparteco pensamentubagaz Jangoicuac bere echurara eguina. Guizona da, Jangoicuaren atencinoe guztia daroiana. Jangoicuac beste criatura guztia eguin cituban guizonarentzaco ta ichi cituban guizonaren escupian. Ta Adanec pecatu eguin ez baleu, gaur bere alanche egongo cian.

Guizonaren izatiari imini deutsa Jangoicuac bere naturaleciaren silluba.
 260 Guizonac bere entendimentubagaz igoten dau ceruraño, jasten da inpernubetaraño ta gorputza gueldi daucala davil pensamentubagaz mundu guztian beste criaturac baño altubago. Izatia dauqueen gauza guztiai beguiratuten deutsee guizonac, guztia esamineetan ditu banaan banaan ta ez da ezegaz bere sosegueetan, Jangoicua topau artian. Vorondatiagaz ameeetan ditu urrineco gauza
 265 onac urrecuac leez ta criatura guztien ontasuna [22] ezautu arren, gosez dago Jangoicua vijotz guztiagaz ameeetan ez daven artian. Gomutiagaz iragotaco guiza aldijac ecarten ditu bere aurrera ta juicijuagaz etorquizonai beguiratuten deutsee, jazotaco gauzaac balira leez.

Guizonac asieria bauca beste criaturaac leez, baña despeidaric ez dauca.
 270 Beste criatura guztia amaituta utsera biurtuta bere, guizonaren gorputza ta arimia vizico dira eternidade guztian, irabazten daveen lecuban. Guizon bacocho mundu guztia baño gueijago balijo davena da; Jesucristo gueure Jaunaren odolagaz ta erijotziagaz erosita dauana da; Jangoicua ezaututeco, Jangoicua ameeetaco ta Jangoicua goceetan ceruban eternidade guztian egoteco jaijo dana
 275 da. Gauza ona edo chaarra, berac nai davena eguiteco libertadiagaz Jangoicuac pormau davena da.

¿Cer gueijago? Oraindino bauca guizonac gauza bat, beste criaturac ez daucana. Au da, gaisqui eguinagaz garbatuteco condecinoia. Ura, suba, aisia, luurra, arbolac eta arrijac Jangoicuaren criaturaac dira, baña ez deutsee Jangoicuac
 280 arei emon sentiduric, izatia baño. Alemanijai, [23] arrainai ta chorijai emon deutseez Jangoicuac, batari gueijago ta bestiai guichiago, izatia ta sentidubac; (naturalista itsubac ucatu arren) baña ez deutseez emon entendimentuba ta vorondatia. Orregaiti, alemanijaac ez dauquee ezaubera ta amodijo eguijazcoric. Ainguerubai emon eutsen Jangoicuac entendimentuba ta vorondatia, baña

253 Guizonada *Esk* 254 Guizonada *Esk* 255 Guizonada *Esk* 257 eguincituban *Esk* |
 ichicituban *Esk* 258 ezbaleu *Esk* | egongocian *Esk* 260 igotendau *Esk* | jastenda *Esk*
 261 munduguztian *Esk* 262 gauzaguztiai *Esk* 263 ezda *Esk* 266 ezdaven *Esk* 267 ecarten-
 ditu *Esk* 269 ezdauca *Esk* 275 naidavena *Esk* 277 Cergueijago *Esk* 277-278 ezdaucana.
 Auda, gaisquieguinagaz *Esk* 279 ezdeutsee *Esk* 282 ezdeutseez *Esk* 283 ezdauquee *Esk*

tiz bat dela gizonarekin adierazten digu. Baina, bestalde, bidezko zen izena pertsona beraren egitekoarekin egoki etortzea; horregatik, *Eva* (bizitza ematea) izango du izena... Has 4,1. 25ean irakurtzen dugunez, *Eva* Kain, Abel eta Set-en ama izan zen.

ez eutseen Jangoicuac ainguerubai emon ondo edo chaarto eguinagaz garba- 285
 tuteco libertadia. Orregaiti diabrubic, juicijoco egun artian condenau bagaric
 egon balira bere, echacuen garbutuco bein eguin even pecatuba. Ta ceruco
 ainguerubac, juicijoco egun artian ceruban sartu ez balira bere, bein amau
 even Jangoicua ameeitari ez eutseen secula ichico. Bada, ainguerubai echa- 290
 cue emon ondo edo gaisqui bein eguina erremedijetaco libertaderic. Baña gui-
 zonaren noblecia ta condecinoiac guztien artian dira apartecucac. Guizonac,
 dino san Gregorijoc (21), dauca izatia luurrac eta arrijac leez, sentidubac eta
 vizitzia alemanijaac leez, entendimentuba ta vorondatia ainguerubac leez. Ta
 onezaz ostian dauca guizonac gaisqui eguina erremedijetaco, [24] garbatuteco 295
 ta atzera biurtuteco libertadia, criatura guztien artian batec bere ez daucana.
 Libertade onetan asten da obra oneen ta dongueen merecimentuba, leguiaren
 necesidadia, grazijaren preminia ta bacoachac cer eguin biar daven jaquin bia-
 rra. Ta ara emen icusita, ce altuba ta zabala dan guizonaren izate noblia. Oni
 darraicona da, legue santu baten edo erliginoe eguijazco baten preminia ta
 necesidadia. Ta au icusico dogu irugarren aldiyan esanagaz, ceinbat balijo dos- 300
 cun cristinau izatiac.

III.

Jangoicuac guizonari emon arren esan dan nobleza guztia, eracutsi ezpa-
 leutsa cer eguin biar evan ta imini ezpaleutsaz erreguela zucenac eta clarubac, 305
 arei beguiratuta bere pensamentubac, verbaac eta obraac beti zucenac izan
 citezan, ez evan ecer bere eguingo. Jangoicuaren legue edo erreguela bagaric
 gueratuco zan guizona, aixe guztietara gira eiten daven cañabera bat leez. Ez
 evan berez secula gauza on bat eguingo ta ez zan secula ceruban sartuco. Baña
 Jangoicuaren ontasuna ta misericordija ez zan contentau guizonari alaco per- 310
 pecinoe andija ta izate noblia emonagaz, [25] ezbada onezaz gañera emon eu-
 tsazan legue arguijac eta erreguela segurubac, arei beguiratuta bere eguitiac eta
 desiuac zuzenac izateco.

Jangoicuaren legue edo erreguela guztia encerretan da amar mandamen-
 tubetan. Eurac esaten deutsee guizonari eguin biar daven guztia ta eurac baño 315
 gauza zucenagoric eta arguijagoric ecer bere ez dago, guero esango dan leez.

 (21) *Homil. 29. in evangel.*

285 ezeutseen *Esk* 286 condenaubagaric *Esk* 288 ezbalira *Esk* 289 echacue *zuzen.* 294
 dauca *baina c ler.art* 295 ezdaucana *Esk* 296 astenda *Esk* 297 biardaven *Esk* 303 esandan
Esk 304 cereguin biarevan *Esk* 305 areibeguiratuta *Esk* 305-306 izancitezan, ezevan ecerbe-
 re *Esk* 307-308 Ezevan *Esk* 308 onbat *Esk* | ezzan *Esk* 309 ezzan *Esk* 313 encerre-
 tanda *Esk* 314 Euracesatendeutsee *Esk* | eguinbiardaven *Esk* 315 ecerbere ezdago *Esk*

320 Berba bigaz amaitu euan Jangoicuac bere legue guztia: Jangoicua bera amee-
tia beste gauza guztiac baño gueijago ta gueure projimua gueure buruba leez¹⁷.
Jangoicua ameataco, ezautu biar dogu lelengo; bada, entendimentubac ezau-
tuten ez daven gauzarik, vorondatiac amau ecin lei. Jangoicuaren ezauberia
325 inoc bere guizonari emon ezin leiyo, Jangoicuac berac baño. Ta orregaiti
Jangoicuac berac artu dau carguba, guri bera nor dan eracusteco (22).

Guizonaren obligacinoe bacarra ta nausijena da Jangoicuari verba eguiten
deutsanian, entzutia ta sinistutia; ta guizonaren utseguiteric andijena da [26]
325 Jangoicuari ez entzutia ta ez sinistutia. Dempora guztietan Jangoicuac verba
eguin deutsee guizonai, ta denpora guztietan izan dira guizonac Jangoicuari
entzun, sinistu ta obeidu deutseenac; ta baita ez entzun, ez sinistu, ez obeidu
gura izan ez deutseenac bere. Orregaiti denpora guztietan izan dira justubac
eta pecatarijac, santubac eta condenaubac. Naturaleciaren leguian Adan, Eva,
330 Abel, Noe, Abraan... justubac eta santubac cian. Escribidutaco leguian Moises,
Josue, David... santubac eta justubac cian, Jangoicuari entzun, sinistu ta obei-
du eutseelaco. Ta Caindi asita, beste denpora guztietaco asco dira pecatarijac
eta condenaubac, Jangoicuari entzun eta sinistu gura izan ez deutseelaco¹⁸.

(22) Exod. c. 3.

317 Berba *baina* r *lerart*. | amaituevan *Esk* 319 biardogu *Esk* 320 ezdaven *Esk* |
amauecinlei *Esk* 322 artudau *Esk* 325 ezentzutia *Esk* | ezsinistutia *Esk* 326 izandira *Esk*
327 obeidudeutseenac *Esk* 328 izanezdeutseenac *Esk* | izandira *Esk* 333 ezdeutseelaco *Esk*

¹⁷ Mt 22,37 (Dt 6,5; Lb 19,18).

¹⁸ Ik. Has 4,1-16. Kain, bere anai Abelen hiltzailea, desobedientziaren eta gaiztakeriaren arketipoa da. Izan ere, Jainkoak ez dirudi Kainen eskaintzak onartzen dituenik, bekatuengatik, haren bizitza ez zitzaioalako gogoko. Horrela ulertzen du juduen esegesiak, eta baita Itun Berriko autoreek ere (Mt 23,35; Ju 11; 1 Jn 3,12; Heb 11,4).

Frai Bartolomek Bibliako pertsoneri buruz hitz egiten duenean, batzuk ontzat dituela dirudi (Abel, Samuel, Jakob, etab.) eta beste batzuk gaiztotzat (Kain, Saul, Esau, etab.), haiek salbatuak direla eta hauek gitzetsiak, lehenengoak zerurako eta azkenengoak infernurako... Hala ere, hizketa gordin horren azpian dagoen pentsamentua zehaztu beharko litzateke... Harrigarri gertatzen zaigu Esau-ri buruz dioena... Itun Zaharreak galtzeaz edo hondamendiaz hitz egiten denean, lurreko desegite edo hondamendia adierazi nahi da..., geroko bizitza pertsonalaren ideia pixka bat geroagokoa baita... (Ik. Dn 12,1-3). Honela, galera eta desegiteaz hitz egiten denean, batzuetan, santutegiak, idoloak, pertsona banakoak, familiak etab. galtzea esan nahi du. Itun Berrian, Itun Zaharretik abiatuz neurri batean, Jesus Mesiazat onartzen ez dutenak Jainkoaren Herritik egotziak direla esaten da (Eg 3,23; Lb 23,29 aipatuz). *Galtzea* eta *infernua* bat egiten diren ideiak (Ik. Jb 28,22; Es 15,11), hauengan doaz gorputza hartuz: Jn 17,12; Eg 8,20; Erm 9,22; 2Ts 2,3; 1Tm 6,9; 2P 2,1;3,7; Ap 17,8,11; beraz, *galtzea* eta *kondenatzea* gauza bera dira; heriotza eta itxaropenik eza ere antzekotzat jotzen dira... Itun Zaharreak *infernuaren* ideia ageri da (*Scheol*, *hades* hilen erreinua); gerora bereizi egiten dira hildako zintzoen lekua eta hildako gaiztoen lekua. Erbestealdiaren ondoren, indarra hartuz doa fede-ukatzzaileen eta bekatarien zigor-leku eskatologikoaren ideia (Is 66,24); zigor hori betiko sua da (*Gehena*). Itun Berriak ere onartu zituen, neurri batean, hitz eta ideia hauek. Infernua bekatarien eta aingeru gaiztoen zigor-leku

Jangoicuairen Seme vicijac guizon eguinda, Jesucristo gueure Jaunac eracutsi doscu, leenaoco guztiac baño clarubago ta arguijago, gueuc entzun, jaquin, sinistu ta eguin biar dogun guztia. Evangelijoco berbia da Jesucristo gueure Jaunaren berbia; ta evangelijuac esaten davena entzutia, sinistutia ta eguitia da Jesucristoren discipulu edo cristinau izatia, *creduaren* azqueneco berbeetan esango dan leez¹⁹. cristinaubac euqui biar davee [27] pede bat, bautismo bat eta Elesa bat. Pede bagaric, bautismo bagaric ta Elesa bagaric inor bere salbau ezin leiteque²⁰. Ta orregaiti gentilac, judegubac, moruac eta erejiac, batzuc pederic eta bautismoric ez dauqueelaco ta bestiac Elesa eguijazcoric ez dauqueelaco, guztiac condenaoco dira. Cristinau izatia da ceruraco vide segu-ruba, noberac gura izan ezquero. 335 340 345

Ara emen, neure cristinaubac, berba guichitan aituten emonda, mundubaren asieria, guizonaren noblecia ta gueure cristandadiaren balijua. Escatu daijogun Jangoicuari gracia... Amen.

337 eguinbiardogun *Esk* 340 euquiubiardavee *Esk* 343 ezdauqueelaco *Esk* 343-344 ezdauqueelaco *Esk* 347 Escatudaijogun *Esk*

behin betikoa da (Mt 25,41; Ap 19,20; 21,8.10). Eta infernuaren ezaugarritzat sua ageri da (Mt 3,12; 5,22; 13,42.50; 18,8; Mk 9,43-47; Lk 3,17; Jd 7; Ap 19,20; 20,10.14; 21,8), su itzalezina (Mt 3,12; Mk 9,43-47; Lk 3,17), betikoa (Mt 18,8; 25,41; Ju 7). Elizaren irakatsiak ere infernuaz hitz egiten du... Hala ere, ez da teologiari dagokiona, zenbat diren kondenatuak, nolako oinazea izango duten etab. zehaztea. Itun Berrian, Jesusek eta Elizak azken epaiketari buruz hitz egitean, batzuek benetan gaitzetsiak direla esaten bada, beti inolako izenik aipatu gabe hitz egin arren, betiko ona galtzeko arriskua benetakoa dela jakinaraztearren da...

Beraz, Frai Bartolomek, bere garaiko sermolarien estilo garratzarekin zenbait pertsona infernuan jartzen dituenean, Itun Zaharreko esaerak erabiliz eta sermolarien estiloaz eta tradiziozko literaturaz baliatuz egiten du...

¹⁹ Ik. 6. oharra (511.or.). Hemen, liburuaren hasieran baino zehatzago hitz egiten du galdutako *Credoari* buruzko idazkiaz.

²⁰ Frai Bartolomek, hemen, bere garaiko eta, san Ziprianogandik hasita, aurreko mendeetako ideia teologikoa jasotzen du ("salus extra Ecclesiam non est"), Elizaren hainbeste dokumentutan, bai aita santuen, bai kontzilio nazionalen eta orokorren irakatsian oinarriturik dagoena (esaterako, Toledoko XVI.a kontz., Inozentzio III.a, Laterango IV. kontz., Bonifazio VIII.a, Konstantzako kon., Florentziako kon., Leon XII.a, Gregorio XVI.a, Pio IX.a, Leon XIII.a, Pio XII.a, etab.; dena dela, Elizatik at ere badela Jainkoaren grazia aitortuz, Klemente XI.a)... Historian zehar, Elizan bizi izan den ideiarik garrantzitsuenetakoa dugu hau, batez ere misio-bizitzan... Hala ere, Elizan, bereziki Vatikanoko II. Kontzilioan, interpretazio zabalago eta argigarriagoa izan du... Baina argi dago, gaur eta beti, salbamenik ezin daitekeela lortu *Elizaren bururik gabe*; hau da, Kristo Jesus gabe; izan ere, inor ez da salbatzen, san Pauloren teologiaren arabera, berariaz Jesusen bitartez izan ezik. Gaur egun, arazo hau behar bezain argi gelditu da Vatikanoko II. Kontzilioaren irakatsiaz (*Lumen gentium* 2.16, etab., *Nostra aetate*, etab.).

[LELENGO MANDAMENTUBA]

**JANGOICUAREN LEGUECO AMAR MANDAMENTUBEN
LELENGO LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
mandamentubac cer dirian, ceinbat modutacuac dirian, 5
Jangoicua[28]ren legueco mandamentubac zeintzuc dirian
eta nos asi cirian?

Caridadiaren ta salbacinoiaren senalle bacarra da, neure entzula onac, legue santuba gordeetia. Neure leguia icasten davenac ta gordeetan davenac, dino Jesucristo gueure Jaunac (23), ameean nau Ni. Sinistu ecin lei caridadia 10 daucala Jangoicuari obeidu gura ez deutsanac; ta ezda Jangoicuaren leguia gordeetan ez davenac Jangoicua ameean davela bere. Adisquidiaren esana, errazuazcua izan ezquero, eguin gura ez davenac galtceen dau adisquidetasuna. Jangoicuaren legue santuba guztiz da errazuazcua, zuzena, erraza ta gueure oneracua. Ta orregaiti Jangoicuaren adisquide danac, Jangoicuari ondo gura 15 deutsanac ta ameean davenac pocic eta gustoz eguiten dau Jangoicuaren aguinduba; [29] ta eguiten ezpadau, gauza jaquina Jangoicuaren adisquidia ez dana ta caridaderic ez daucana. Caridadiaren jantcija arimaan gura davenac edo salbau gura davenac, gorde biar ditu, bada, Jangoicuaren legueco mandamentu santubac. Pedeco articulubeetati bat da, etorrigo dala Jesucristo gueure 20 Jauna juicijoco egunian illac eta vicijac juzgueetara, onai emoteco ceruco glorija, bere mandamentu santubac gorde citubeelaco; ta dongai inpernucio penia, bere mandamentubac gorde ez citubeelaco.

Emeti ezaututen da, ceinbat balijo deutsan cristinaubari mandamentu guztijetan eta bacochian Jangoicuac cer aguinduten deutsan jaquitiac, guztia 25 bacocha ciatz gordeetaco. Bada, bat austen davenari guztijen erruba ezarrico jaco, dino Santiago apostolubac (24). Onetaraco esango da, mandamentu baco-

(23) Joan. c. 14. (24) In epist. cath. c. 2.

5 cerdirian *Esk* 7 asicirian *Esk* 9 leguesantuba *Esk* 11 ezdeutsanac *Esk* 12 ezdavenac *Esk*
13 eguingura ezdavenac, galtceendau *Esk* 14 guztizda *Esk* 16 eguitendau *Esk* 17-18 ezdana *Esk*
18 ezdaucana *Esk* 18-19 guradavenac, edosalbaugauradavenac, gordebiarditu *Esk*
22 gordecitubeelaco *Esk* 23 ezcitubeelaco *Esk* 24 ezaututenda *Esk* 28 cath.] chat. *Esk*

chian Jangoicuac cer aguinduten doscun eta cer eraozten doscun. Ta guztiai
 30 asieria emoteco, dotrina onetan eracutsico da lelengo, cer dirian mandamen-
 tubac; [30] bigarrenian, ceinbat modutacuac dirian; irugarrenian, Jangoicuaren
 legueco mandamentubac ceintzuc dirian; laugarrenian, nos asi cirian.

I.

Mandamentuba edo mandamentubac ez dira beste gauzaric, neure entzu-
 35 la onac, ezpada inori aguinduteco escubidia daucan ta bestiac covernau biar
 dituban Nausijac iminitaco leguiac edo aguindubac. Ta alan mandamentuba,
 aguinduba, leguia ta ordenia bardin dira edo gauza bat esan gura davee gure-
 tzaco. Mandamentu, legue edo aguindu oneec eracusten doscube cer eguin
 40 biar dogun ta cer eguin biar ez dogun. Esaten doscubeeg gauza batzuc eguite-
 co ta beste batzuc ez eguiteco. Ta orregaiti, gueure acinoiac, pensamentubac
 eta verbaac zucenduteco erreguelaac dirian leez, esaten jacue batzubetan man-
 damentubac, eta beste batzubetan leguiac edo ordenaac.

II.

Gueuri aguinduteco escubidia dauqueenac modu ascotaracuac dirian leez,
 45 mandamentubac eta leguiac bere modu ascotaracuac dira. [31] Elesa Ama santi-
 ac dauca escubidia pedeco dotriniari ta costunbre onai jaocuezan gauceetan,
 cristinaubac ceruraco vidian covernetaco. Ta alan dagoz beste ascoren artian
 Elesa Ama santiaren bost mandamentubac. Erreguiac eta erreñubac covernau
 50 biar ditubeenac dauque escubidia euren aguinduban dagozanei bata bestiaren
 arteco artuemonetan, cleituco, aciendaco ta baque oneco gauceetan, cer eguin
 biar daveen ta cer eguin biar ez daveen ordenetaco ta aguinduteco. Ta oneta-
 raco dagoz erreguiac eta erreñuben burubac iminitaco leguiac.

Onezaz ostian, Jangoicua da criatura guztijen Eguilia, guztien Aguintarija,
 Legueguin nausija, guztiaac obeidu biar deutseena ta guztiai cer eguin biar
 55 daveen ta cer eguin biar ez daveen aguindu biar deutseena. Ta augaiti, mun-
 duco erreguiac, aguintarijac, jaunac, aberatsac eta pobriac, guztiaac eguin biar
 davee Jangoicuaren esana ta guztiaac gorde biar davee Jangoicuaren leguia. Ez
 deutsa Jangoicuac begui bigunauequin beguiratuco mundoce errege bati,
 aguintari bati, jaun bati edo [32] aberats bati, erreguia, aguintarija edo jauna

29 eraoztendoscun *Esk* 30 cerdirian *Esk* 32 nosasicirian *Esk* 34 ezdira *Esk* 35-36
 covernaubiardituban *Esk* 37 esanguradavee *Esk* 39 biardogun *Esk* | ezdogun.
 Esatendoscubee *Esk* 45 moduascotaracuac *Esk* 48-49 covernaubiarditubeenac *Esk* 51 biar-
 daveen, ta cereguin *Esk* | biarezdaveen *Esk* 53 Jangoicuada *Esk* 54 obeidubiardeutse-
 ena *Esk* 54-55 cereguinbiardaveen, ta cereguinbiarezdaveen *Esk* 55 aguindubiardeutseena
Esk 56-57 biardavee *Esk* 57 biardavee *Esk* 57-58 Ezdeutsa *Esk* 59 Jaunbati *Esk*

izan dalaco, osterantzian bere legue santuba gorde ezpadau. Andijac eta chi- 60
quijac, leguia bardin austen daveenac, bardin castigauco ditu Jangoicuac; ta
bardin gordeetan daveenai, bardin emongo deutsee ceruco gloriya (25).

Jangoicua bera da asieraric ta despeidaric ez daucana, naturaleziari izatia 60
ta condecinoiac emon deutzazana eta guizacume guztijac ondo edo gaisqui
eguiteco libertadiagaz ta errazoiagaz eguin ditubana. Orregaiti legue batzubei 65
esaten jacue asiera bagacuac, Jangoicuagaz beragaz izatia dauqueelaco. Beste
batzubei errazuazcuac edo naturaleziarenac. Beste batzubei Jangoicuarenac.
Baña guztijac dira moduren baten Jangoicuarenac. Ta guri oan toqueetan jacu-
nez, asco da jaquitia iru modutaracuac diriala leguiac edo mandamentubac:
Jangoicuarenac, Elesa Ama santiarenac ta munduco aguintarijenac. 70

III

Jangoicuaren legueco mandamentubac dira amar ta amarrac izenteetan
ditu Escritura Sagradubac (26). Lelengo dino: Neu nas ceure Jauna ta [33]
Jangoicua, Egitoco cautiverijoti librau zaitudana. Ez dozu euquico neu baño 75
beste Jangoicoric. Neu nas ceure Jangoico indartsuba ta celotsuba. Bigarrenian:
Ez dozu ceure Jangoicuaren Izen santuba premina bagaric auan artuco; edo,
ez dozu juramentu bide bagacoric eguingo. Irugarrenian: Acordauco zara zapa-
tubagaz. Sei egunian biarra eguindo dozu, zazpigarrena ceure Jangoicuaren
eguna da. Ez dozu zapatuco egunian (oan domeecaan) biarric eguingo ez
ceuc, ez ceure semiac, ez alabiac, ez crijadubac, ez alemanijac. Laugarrenian: 80
Ondrau eizuz ceure aita ta ama, izan daizun vizitza lucia Jangoicuac aguindu-
ta dauan luurrian. Bostgarrenian: Ez dozu inor illgo. Seigarrenian: Ez dozu
adulterijoco pecaturic eguingo. Zazpigarrenian: Ez dozu ecer ostuco.
Zortzigarrenian: Ez dozu projimuaren contra guzurric edo testigantza paltsoric
esango. Bereratzigarrenian: Ez dozu projimuaren emazteric desiauco. 85
Amargarrenian: Ez dozu inoren aciendaric desiauco.

Oneec dira, neure cristinaubac, Jangoicuaren legueco amar mandamentu-
bac. Lelengo irurac jaocaz [34] Jangoicuaren ondriari. Ta beste zazpirac proj-
muen ta gueure provechuraco aguindubac dira. Orregaiti esaten da
Jangoicuaren legueco mandamentubac encerretan diriala berba bitan: Jangoico 90
bacarra gauza guztijac baño gueijago ameeitia ta gueure projimua guere buru-

(25) S. Pabl., ad Rom. c. 2. (26) Exod. c. 20. Deuter. c. 5.

60 izandalaco *Esk* 61 austendaveenac *Esk* 63 berada *Esk* | ezdaucana 64 emon-
deutzazana *Esk* 69 Irumodutaracuac *Esk* *baina* ra *Ier.art* 73 Neunas *Esk* 74 Ezdozu *Esk* |
neubaño *Esk* 75 Neunas *Esk* 76 Ezdozu *Esk* 77 ezdozu *Esk* | bidebagacoric *Esk* 79
Ezdozu *Esk* 79-80 ezceuc, ezceure *Esk* 81 ondraueizuz *Esk* | izandaizun *Esk* 82
Ezdozu *Esk* | Ezdozu *Esk* 83 Ezdozu *Esk* 84 Ezdozu *Esk* 85 Ezdozu *Esk* 86 Ezdozu
Esk 89 esatenda *Esk* 91 Deuter.] Deutor. *Esk*

ba leez amee²¹. Ez doscu bere legue guztijan Jangoicuac beste gauzaric aguin-
 95 duten, dino san Agustinec (27), caridadia baño; Jangoicua amee²¹ ta pro-
 jimua amee²¹. Jangoicua gauza guztijac baño gueijago ta projimua gueure
 buruba leez amau ezquero, legue guztijagaz cumpletan da. Escritura
 Sagradubac esaten daven guztia, propeta santuben esanac, Eles^a Ama santia-
 ren ta erregue jauneen aguindubac ta liburu guztietan iracurten dana ez da
 100 beste gauzataraco, ezpada Jangoicua gauza guztijac baño gueijago ta gueure
 projimua gueure buruba leez amee²¹aco.

Orregaiti esaten doscu Jesucristo gueure Jaunac (28), gauza bi oneec egui-
 ten ditubanac cumpliduten davela legue guztijagaz. Ta san Pablo apostolubac
 esaten doscu (29) projimua biar dan moduban amee²¹tan davenac gordeetan
 davela legue guztija. [35] Bada, projimua amau bagaric, Jangoicua bere amau
 105 ecin lei; ta Jangoicua amau bagaric gauza guztijac baño gueijago, projimua
 bere amau ezin lei biar dan moduban. Ta azqueneraco, mandamentu guztijac
 casic gauza batera joten davee: edo Jangoicua amee²¹tara gauza guztijac baño
 gueijago, edo Jangoicua gaiti gueure projimuac amee²¹tara gueure burubac leez.

¿Egon leiteque, bada, gauza errezagoric eta errazuaocoric, Jangoicuaren
 110 legueco mandamentu santubac baño? ¿Jangoicua ta gueure projimua amee²¹ta
 baño? Amar mandamentubetati leleenguac, irugarrenac, eta laugarrenac aguin-
 duten doscubee cerbait eguiteco. Areec aguin²¹duten doscubee²¹na casi geldi
 gagozala eguin guinai. Bada, Jangoicua amee²¹aco, jaijegunac gordeetaco ta
 gurasuac ondreetaco, icerdi andiric cetan bota ez daucagu. Beste zazpirac ez
 115 doscubee aguin²¹duten ecer eguiteco, ezpada ez eguiteco; ez juramentu gaisto-
 ric eguiteco, ez inori gorrotoric euquiteco, ez araguijazco pecaturic eguiteco...
 ¿Bago gauza errazagoric au baño?

Jangoicuaren Magestadiac beequijan Adanen peca-[36]tubagaz guztioi eto-
 rri jacuna naguitasuna, alperrerija ta sosiguz egoteco desiua; ta a gaiti errez-
 120 tuago ta pozagoric gorde guinaizan bere mandamentu santubac, gueijenetan
 aguin²¹duten doscuna da ez ecer eguitia, gueldi egotia, gueuc naijen dogun gau-
 cia. ¿Ce achequija emongo dau, bada, cristinaubac, mandamentu santubac ez
 gordeetaco? ¿Oh, errazoiagaz esaten doscu Jesucristo gueure Jaunac (30) Berac

 (27) Lib. contra Faust., c. 4. (28) Math. c. 22. (29) Ad Rom. c. 13. 30 Math. 11.

96 Ezdoscu *Esk* 97 cumpletanda *Esk* | essatendaven *Esk* 98 ezda *Esk* 102 cum-
 plidutendavela *Esk* 103 biardan *Esk* 104 amaubagaric *Esk* 105 amaubagaric *Esk* 106 biar-
 dan *Esk* 106-107 mandamentuguztjaccasic *Esk* 114 ezdaucagu *Esk* 114-115 ezdoscubee *Esk*
 115 ezeguiteco; ezjuramentu *Esk* 116 ezinori *Esk* | ezaraguijazco *Esk* 118-119 etorrija-
 cuna *Esk* 119 agaiti *Esk* 120 gordeguinaizan *Esk* 121 ezecer *Esk* 122-123 ezgordeetaco
Esk 123 esatendoscú *Esk*

²¹ Mk 12,28-34; Erm 13,8-10; St 2,8.

imini doscun leguia biguna dala ta bere carguia bere arina dala! Esango baleu 125
 leez, mandamentu santubac aguinduten doscubeena eguiten errez dala. Baña
 pecatarijaren temia²² da Jangoicuac eguiteco esaten daven pusquia ez eguitia;
 ta Jangoicuac ez eguiteco esaten davena eguitia. Oneraco alperra, gacheraco
 biarguina. ¡Oh, pecatari tristia!

IV.

130

Amar mandamentubetan Jangoicuac aguinduten doscuna, naturaleciac eta
 errazoiac mundubaren asierati acaburaño eracutsi ta aguinduten daveena da.
 Jangoicuaren arguijac gueure arimeetan josita imini evan leguia ta dotrinia da,
 mandamentubac encerretan daveen guztia. Eguija da, Moisen [37] denporara 135
 artian ez egozan escribiduta amar mandamentubac; baña orraitino ez even
 leenago guchiago escatuten oan baño. Guizon eta emacumeen libertade laa-
 rreguijac ilundu even errazoiaren arguija, naastau even utseguite ascogaz
 naturaleciaren legue zuzena, loitu even, esateco moduban, mundu guztija
 pecatuz ta obligau even Jangoicua, leenago gueure errazoiaren josita leez eucan 140
 legue santuba, Moisi escribidu eraitera²³. Baña, eurenaz, mundubagaz beragaz
 atsijac dira mandamentu santubac ta iraungo davee mundubaren despedaraño.

¡Noc eracutsi dotsu (itanduten dau san Agustinec) (31) inor ez illteco, ecer
 ez ostuteco, ceuretzaco gura ez dozuna projimuari ez eguiteco...? 145
 Naturaleziaren leguiac eta errazoiaren leguiac eracutsi dotsu, erantzuten dau
 Santubac. Jangoicuac gueure vijotzetan josita imini daven leguia da aguindu-
 ten doscubeen guztija, dino san Pabloc (32). Ta ara emen aituten emonda, leci-
 noe onetan aguindu nevana. Dendatu gaitazan, bada, guztioac legue santuba
 icastera eta gueure aleguin guztijagaz ainbat cietzen gordeetara, ceñegaz jadi-
 chico dogun arimaco gracia ta guero ceruco gloria. Amen.

 (31) In Psalm. 57. (32) 2 ad Cor. c. 3.

150

125 iminidoscun *Esk* 127 esatendaven *Esk* | ezeguitia *Esk* 131 aguindutendoscuna
Esk 135 ezegozan *Esk* 137 ilundueveen *Esk* | naastaeveen *Esk* 139 obligaeveen
Esk 142-143 ecerez *Esk* 143 ceuretzaco *baina* u *Ier.art.* | ezdozuna *Esk* 144 erantzu-
 tendau *Esk* 147 Dendatugaitazan *Esk* 150 Cor.] chor. *Esk*

²² "Tema" hitzak adiera bat baino gehiago ditu gure idazlearengan; hemen, nork bere iritzia-
 ri gogor eta amore eman gabe eustea, esan nahi du.

²³ Ik. Ir 24,3-4; 34,1.

[38]

BIGARREN LECINOIA

*Lelengo mandamentubac cer aguinduten doscun;
ta celan biar dirian pedia ta esperantzia Jangoicua ameeaco.*

I.

155 Jangoicuaren legueco lelengo mandamentubac aguinduten davena da,
neure entzula onac, Jangoicua bera ameeitia gauza guztijac baño gueijago. Alan
esaten doscu Espiritu Santubac (33): amauco docu zeure Jaun eta Jangoicua
vijotz guztijagaz arima guztijagaz, ta gogo guztijagaz. Au da zuri oan aguindu-
160 ten dotsudana. Au berau eracutsico deutsezu ceure semiai eta semien semiai,
ta berba oneec pensaucu dituzu denpora guztietan ta lecu guztietan. Jesucristo
[39] guere Jaunac arrezquero barriin barri²⁴ au berau erantzun eutseen judegu-
bai, itandu eutseenian ia cein zan mandamentu guztietati nauksijena. Lelengo
mandamentuba ta nauksijena da, diño Jesucristoc (34), vijotz guztijagaz, arima
guztijagaz eta gogo guztijagaz Jangoicua ameeitia.

165 Mandamentu santu onec dinuan leez Jangoicua ameeaco, popuertzacua
da gueure vijotzeco desio guztiac, intencinoe guztiac, ezauberazco pensamen-
tu ta eguite guztiac Jangoicuari oprecietia, ta Jangoicuaren ondraco gauceeta-
ra ordenatia. Codicijoso edo laster aberastu gura daven batec, bere contu, artu
170 emon ta tratu guztiac eguiten dituban leez irabazteco intencinoiagaz, alan
lelengo mandamentu santuba ondo gorde gura daven cristinaubac, ezauberaz
eta advertencijaz eguiten daven guztia ordenau biar deutsa Jangoicuaren
ondriari bacarric. Ez dau gura Jangoicuac, cristinaubaren vijotza partiduta ego-
tia ceruco gaureen ta luurrecuen artian, Jangoicuaren ta criaturen artian, ezpa-
da berarenzat gura dau guztia. Ta orregaiti esaten dau Jesucristo gueure jaunac
175 (35): Inoc bere servidu ezin leizala ugazaba bi. Esango baleu [40] leez: inoc

(33) Deuter. c. 6. (34) S.Math. c. 22. (35) S.Math. c. 6.

152 ceraguindutendoscun *Esk* 153 biardirian *Esk* 157 esatendoscu *Esk* 158 Auda *Esk*
159 Auberau *Esk* 160 lecu guztietan *Esk* 161 auberau *Esk* 162 ia] ya *Esk* | ceinzan *baina*
2. n ler.gain. 163 vijotz guztijagaz *Esk* 164 etagogo *Esk* 169 eguitendituban *Esk* 170 gor-
degura *Esk* 171 eta *ler.art.* | eguitendaven *Esk* | biardeutsa *Esk* 172 Ezdaugura *Esk*
174 esatendau *Esk* 176 Deuter.] Deutor *Esk*

²⁴ Ahozko hizkeraren eragina salatzen du forma honek; gure ustez, asimilazioz egindakoa
(Ik. liburu honen sarieran 219. orrialdean esaten dena).

bere amau ezin leiz Jangoicua ta munduba. Jangoicua ameeetan badau, mundubaren gorrotua euquico dau; ta munduba ameeetan badau, Jangoicuaren gorrotuan vizico da. Munduco gauceetan bere gogua ta amodijua daucanac, Jangoicua amau ecin lei. 180

Jangoicua ameeetaco gauza guztiac baño gueijago, prest egon biar dau cristinaubac munduco gauza guztiac eta vizitzia bere, biarbada, leenago galtceeco Jangoicua opendidu baño. Onaco presteera santuba daucanian, ezaututen dau cristinaubac Jangoicua bere Jaun bacarzat, bere eguilazat ta gauza guztien buruzat. Orduban adoretan dau ta alabeetan dau Jangoico guztiz ona ta autor-tuten dau, gauza on guztiac Jangoicuac bacarric merecietan ditubana. Orduban ustuten dau cristinaubac bere vijotza luurreco gauceetati; ta emoten deutsa lecu osua Jangoicuari bere arimaan. Orduban sinistuten dau ta ezaututen dau Jangoico bat baño ez dauana, luurreco gauza guztiac beriac ditubana, cerubac eta munduba bere escubetan daucazana, asieraric eta acaburic ez daucana, ona, misericordijazcua, zuzena, jaquituna ta guzrien maitega-[41]rrija bera dana. Orduban gordeetan ditu cristinaubac Jangoicuaren aguindubac guztiac; ta desietan dau guizon eta emacume guztiac Jangoicua bera bacarric estimateia, serbietia, ameeitia ta alabeetia. Ta au da Jangoicuac lelengo mandamentuban aguinduten doscun amodijua ta vijotzeco presteria. Onetaraco euqui biar dau cristinaubac pedia ta esperantzia. Bada, san Pablo apostolubac dinuan leez (36), pedia bagaric inoc ecin lei Jangoicuaren gustoco gauzaric. Ta orregaiti esaten dau san Agustinec (37) pediagaz, esperantziagaz ta caridadiagaz adoretan dala Jangoicua ta gordeetan dala lelengo mandamentu santuba. 185 190 195

II. 200

Pedia da, neure entzula onac, Jangoicuac duaric gueure entendimentuban iminitaco doe bat, ceñegaz sinistuten dogun Jangoicuagan ta Jangoicuac Elesa Ama santiari eracutsi deutsan guztia[n], beguijequin icusico baguendu baño ciurrago. Batiatu guindubeezarian, emon oscun Jangoicuac pede santuba; ta bera dala medijo daucagu ceruraco esperantzia ta gara Elesiaren semiac. [42] Pedia da icusi ez doguna sinistutia, Jangoicuac esan davelaco. Ez mundubac 205

(36) Ad Hebr. c. 2. (37) In Henchirid. ad Laur., c. 3.

178 euquicodau *Esk* 181 biardau *Esk* 183 ezaututendau *Esk* 185 adoretandau *Esk* 185-186 autortutendau *Esk* 186 ustutendau *Esk* 189 ezdauana *Esk* 190 ezdaucana *Esk* 193 desietandau *Esk* 194 auda *Esk* 195 euquibiardau *Esk* 197 ecinlei *Esk* 198 esatendau *Esk* 205 medijo *int.lin.* 206 ezdoguna *Esk* | esandavelaco *Esk*

edo munducoc²⁵ esaten doscubeelaco, ezpada Jangoicuac esan davelaco. Jangoicuac berac berba eguin doscu ta Elesa Ama santiac eracusten doscu
 210 Jangoicuac cer esan doscun. Bada, san Pablo apostolubac dinuan leez (38), Jangoicuac guzurric esan ecin lei. Ez litzaateque Jangoicua Jangoico izango, guzur chiqui bat esan al balei. Ta Jangoicuaren beraren esana da, Elesa Ama santiari berac eracutsi deutsana, pedeco gauceetan engañau ecin guinaizana ta Jangoicuaren Elesia eguijaren cimentu pirmia ta pilar sendua dana (39). Elesa
 215 guztiac nai baleu bere, cristandadiari pedeco gauceetan guzur chiqui bat eracutsi ezin leijo, Espiritu Santubac coverneetan davelaco.

Promes andi au lelengo eguin eutsan Jesucristo ceruco Maisubac san Pedro apostolubari, lelengo Aita Santu Erromaco eguin evanian, Elesa guztiaren carguba emon eutsanian ta bere ordecozat, ta cristinau guztien buruzat [43] munduban ichi evanian. San Pedrori ta aren ondorengo Aita Santu Erromaco guztiai esan eutseen Jesus gueure Salbadore maitiac (40), eureen pediaren gañian pormau evala bere Elesia ta inpernuco atiac edo persecucinoiac ez eveela inos bere galduco Elesiaren pedia ta dotrinia. Elesiaren esana sinistuten davenac, Jesucristoren esana sinistuten davela; ta Elesiari sinistu ta obeidu gura ez deutsanac, ez davela sinistu gura Jesucristoren esana ta ez deutsala obeidu gura
 220 Jesucristori (41). Mundubac dirauban arte guztian Espiritu Santuba egongo dala bere Elesiagaz ta beste onaco promes andijac eguiten deutsaz, neure entzula onac, Jesucristo gueure Jaunac Elesa Ama santiari, gueure pedia ta esperantzia sendotuteco.

Ta emeti ezaututen da cristinaubac Elesiari sinistuteco ta obeiduteco daucan obligacinoia. Bada, Elesa Ama santiac eracusten doscuzan pedeco misterijo guztiac dira Jangoicuac esanac. Jangoico bacar bat baño ez dauana, naturalectiaren ta gracijaren Eguilia bera dana, Trinidadeco misterijo santuba, Jesucristo gueure Jaunaren encarnacinoia, [44] jaiotia, vizitzia, curutzeco erijotzia, illen arteti eguin evan viztutia, cerubetara igotia, gracijaren necesidadia, sacramentuben izatia, obra oneen probechuba, pecatubaren caltia, gueure oneraco nai gacheraco libertadia, arimiaren acaburic eza, araguijaren viztueria, eri-

 (38) Ad Hebr. c. 6. (39) Ad Timoth. c. 3. (40) S.Math. c. 16. (41) S.Luc. c. 10.

208 munducoc] munducac *Esk* | esandavenlaco *Esk* 210 ceresandoscun *Esk* 211 Ezlitzaateque *Esk* 212 albalei *Esk* 215 naibaleubere *Esk* 220 arenondorengo *Esk* 222 pormaevala *Esk* 222-223 ezeveela inosberegalduco *Esk* 224-225 ezdeutsanac, ezdavela sinistugura *Esk* 225 ezdeutsala obeidugura *Esk* 226 arteguztian *Esk* 227 eguitendeutsaz *Esk* 231 eracustendoscuzan *Esk* 232 bacarbat *Esk* | ezdauana *Esk* 235 eguinevan *Esk*

²⁵ Honelakoetan ohi duenez, ergatibo mugagabea darabil; oraingo idazleek, agian, *ez mun - duak edo munduko inork...* idatziko lukete, gure idazle zaharren antzera mugagabe horiek egitekoko joera ia galdua baitago.

jotzia, juicijua, ceruba, inpernuba ta beste Elesiac eracusten doscuzan pedeco gauzaac, guztiac dira Jangoicuac esanac. 240

Misterijo santu oneec Elesiac eracusten dituban moduban sinistu bagaric, Jangoicua inoc amau ecin lei. Orregaiti judegubac, gentilac, moruac eta eresiac euren utseguitetan ta engañuban dagozan artian, ecin Jangoicua amau leije, ecin lelengo mandamentu santubac aguinduten davena eguin leije ta ecin salbau leitequez. ¿Celan salbauco dira, salbeetaco eguijac eta dotrinia sinistuten ezpadavee? ¿Celan amauco davee Jangoicua, Jangoicuaren esana sinistuten ezpadavee? ¿Celan cerura juan leitequez desdichau [45] areec, ceruraco vidia, cein dan Elesia Ama santiaren pedia guzurzat eta engañuzat badauquee? ¡Oh, ce errucarijac dirian Jangoicuari ta Elesia Ama santiari sinistu ta obeidu gura ez deutseenac! Itsu itsuban cristinaubac sinistu biar ditu pedeco misterijo guztiac, andijac eta altubac izan arren, cegaiti edo celan ete diran jaquiteco errazoiac topeetan ibili bagaric. Jangoicuac esatia eta Elesia Ama santiac eracustia asco da guc ciur ta pirme guztiac sinistuteco. Bestelan ecin euqui guinai gueure Jangoicuagan ez conpijantzaric, ez amodijoric. Dudiagaz, sospechiagaz ta pede chaarragaz beguiratuco gueunquijo Jangoicuari gueure salbacinoeco gauceetan, itsu itsuban sinistuco ezpaguenduz bere promes andijac. Ta orregaiti esaten da biar dala pedia Jangoicua ameataco. 255

III.

Beste ainbeste esaten da esperantzia gati. Esperantzia da Jangoicuac gueuri duaric emondaco virtute bat, ceñegaz daucagun ustia, gueure pecatuben paracinoia ta ceruco glorija zabala jadiisteco. [46] Ez gueure merecimentubac gaiti bacarric, ezpada Jangoicuaren misericordija gaiti, Jesucristo gueure Jaunaren pasinoeco ta erijotzaco merecimentubac gaiti, Ama Virgina maitia vitarteco dala ta gueure obra onen medijoz. Esperantza santa au equiteco eracutsi doscu Jangoicuac bere ontasuna ta misericordija. Jangoicuaren Seme vizija guizon eguitiac, doncella baten sabelian encerrauta egotiac, Jesusen Belengo jaijotza pobriac, penazco vizitziac, curutzeco erijotziac, pecatubac parcatuteco dagozan sacramentu santubac ta Ama Virgina Santissimiaren erraija bigunac eta erruquiorrac obligueetan gaitubee, Jangoicuagan esperantza pirme bat equitera. 265

Amodijuaren ta misericordijaren senalle aguiari oneec emon ezquero, Jangoicuac berac bere nai dau ta aguinduten doscu, beragan conpiantza oso bat equiteco, gueure arimaco salbacinoia berari escatuteco, berari erregutute-

239 eracustendoscuzan *Esk* 241 sinistubagaric *Esk* 244 aguindutendavena *Esk* 247 juanleitequez *Esk* 248 ceindan *Esk* 249-250 ezdeutseenac *Esk* 250 biarditu *Esk* 251 ete-diran *Esk* 252-253 ascoda *Esk* 259 esatenda, esperantziagaiti *Esk* 262 misericordijagaiti *Esk* 271 naidau *Esk* | aguindutendoscu *Esk* 271-272 osobat *Esk*

co ta gueuc gueure partez aleguina eguin ezquero, ardura bagaric bere escu-
 betan gueure salbacinoia isteco. [47] Alan animeetan ditu Espiritu Santubac
 275 cristinau guztiaz Jangoicuagan salbeetaco esperantzia euquitera, esaten doscu-
 nian (42) egon gaitezala guztioz duda bagaric Jangoicuaren promes andijetan.
 Sinistu daigula duda bagaric, Jangoicua ona, misericordijosua, zuzena ta altsu-
 ba dala, esan daven guztia cumpletaco. Eldu gariala (43) ceruraco ustia euqui-
 280 tera, ceñegaz balijetan garian ancora pirme ta seguru bategaz leez. Ancora
 batec ichasoco ontzizagaz eguiten davena, dino san Agustinec (44), eguiten
 davela gueugaz ceruraco esperantziac. Aisiac alde batera edo bestera ontzia
 itzuli gura davenian ichasuan, boteetan jaco ancoria ta ac eraozten deutsa on-
 tziari itzultia; ta cristinauba bere ceruco glorijaren esperantziac pecatu eguin
 bagaric euquiten dau munduco aise chaar, tentacinoe ta pelleburu gaistueta.
 285 Eguija da, cerura juateco esperantza pirmiaco ez dau quentceen arimaco bil-
 dur guztia. Jangoicuaren misericordijac eta Jesucristo gueure Jaunaren mereci-
 mentubac emoten deutsee cristinaubari, [48] bateti, uste osua salbeetaco; ta
 besteti, bere pecatubac ta aurrera jausico dan edo ez dan jaquinezac bildurtu-
 ten davee, salbaucio ete dan edo ez. Ez daqui inoc bere, ceruco aparteco abi-
 290 suba bagaric, pecatuban dauan ala gracijan dauan; Jangoicuaren adisquidia
 dan ala arerijua dan; salbaucio dan ala condenaucio dan. Ta orregaiti esaten dau
 san Pablo apostolubac (45) bildurragaz eta icariagaz jadisteco gueure arimaco
 salbacinoia. Ta san Agustinec dino (46), bildur bagaric cerura juateco ustia dau-
 cana, ardura bagacua dala ta ardura bagaric galduco dala; ta bildurra gaiti espe-
 295 rantzia galtcen davena, galduta dauala ta jasten dala inpernubetara. Bildur izan
 biar dogu pecatu eguiten, condenaucio ez gaitezcan pecatubagaz; baña pecatu
 eguin arren, viurtu biar dogu parcacinoia jadisteco uste osuagaz Jangoicuaren
 misericordijara; ta sinistu biar dogu Jangoicuac parcatuco doscuzala gueure
 pecatu guztiaz, damu eguijazcuagaz ta esperantza osuagaz escatuten badeu-
 300 tsagu. Escatu [49] daijogun, bada, Jangoico guztiz onari Jesusen mercimentu-
 bac gaiti pede vizi bat, esperantza oso bat ta caridade sutsu bat mundu oneta-
 raco ta gueroco ceruco gloria. Amen.

(42) S.Pab., Ad Rom. c. 4. (43) Id. ad Hebr. c. 6. (44) In Psalm. 64. (45) Ad Philip. c. 2. (46) Serm. 10 ad Trat.

273 ardurabagaric *Esk* 276 egongaitezala *Esk* | duda bagaric *Esk* 277 Sinistudaigula
 dudabagaric *Esk* 277-278 altzubadala esandaven *Esk* 279 Ancora *baina n ler.art.* 280 egui-
 tendavena *Esk* 280-281 eguitendavela *Esk* 281 alde batera *Esk* 282 guradavenian *Esk* |
 eraoztendeutsa *Esk* 283-284 eguinbagaric euquitendau *Esk* 285 ezdau *Esk* 288 ezdan *Esk*
 289 Ezdaqui *Esk* 291 arerijuadan; salbaucodan *Esk* | Taorregaiti esatendau *Esk* 293 bil-
 durbagaric *Esk* 295 ardurabagacua *Esk* | ardurabagaric *Esk* 295 galtcendavena *Esk* 296
 biardogu pecatueguiten, condenauezgaitzan *Esk* 296-297 pecatueguinarren, viurtubiardogu *Esk*
 298 biardogu *Esk* 300 Escatudaijogun *Esk* 301 osobat *Esk* | sutsubat *Esk*

ceñetan eracusten dan
celan dan Jangoicua guztiz maitegarrija ta cegaiti.

Esanda gueratu da, neure entzula onac, leengo dotrinaan, leengo mandamentu santubac celan aguinduten doscun cristinau guztioi Jangoicua amee-
 taco beste gauza guztiac baño gueijago; ta baita [50] pedia ta esperantzia biar 310
 diriana bere, mandamentu onec aguinduten davena eguiteco. Ta oan esango
 da, cegaiti amau biar dogun Jangoicua beste gauza guztiac baño gueijago.

Cristinau guztiac daquijee leengo mandamentubac aguinduten davena
 Jangoicua beste gauza guztijac baño gueijago amee-taco; guztiac daquije, 315
 Jangoicua amau bagaric, ceruric ez dauana. Baña ez ditubee guztiac, ece gui-
 chiagoc bere ezaututen ta penseetan, Jangoicua amee-taco daucaguzan erra-
 zoiac. Ta augaiti dagoz cristinau guichi Jangoicua bene benetan amee-tan dave-
 enac.

Gauza sicu bat, otz bat, derrigorreco bat edo nora ececo bat balitz leez 320
 beguiratuten deutsee ascoc Jangoicua amee-tiari. Noberaren gogocua bada per-
 sona bat, a pocic eta gustoz amee-tan da; baña noberaren gogocua ezpada,
 echaco casu andiric eguiten. Gueijen bere gachic ez desietia da noberaren gus-
 toco ez dan personiarentzaco dauan amodijo guztia. Inori gachic ez gura iza-
 tia ta amee-tia bi dira.

Ez da asco Jangoicua amee-taco Jangoicuari [51] gachic ez gura izatia, ezpa- 325
 bere onezaz ostian, ondo gura izan biar jaco Jangoicuari, amau biar da, alabau
 biar da ta maite izan biar da Jangoicua beste gauza guztiac baño gueijago.
 Bada, cristinau guztiac pocic, gustoz ta erre-zto, berecauten leez, ecer bere
 costa bagaric ta pena bagaric amau daijen gueure Jangoico guztiz ona, imini-
 co ditut errazoe batzuc, edoceñec aitu leizanac; eta Jangoicua amee-tara obli- 330
 gueetan gaitubeenac. Alcarri oratuta leez egongo dira mandamentu onetaco
 dotrinaac eta ez aaztu bategaz bere, guztiac entzun artian.

308 gueratuda *Esk* 312 biardogun *Esk* | bestegauza *Esk* 315 amaubagaric *Esk* |
 ezdauana *Esk* 317 benebenetan *Esk* 319 sicubat, otzbat, derrigorrecobat *Esk* 320-321 per-
 sonabat *Esk* 321 amee-tanda *Esk* 322 ezdesietia *Esk* 323 ezdan *Esk* | ezgura *Esk* 325
 Ezda *Esk* | ezgura *Esk* 326 ondoguraizanbiarjaco *Esk* 326-327 amaubiarda, alabau biar-
 da *Esk* 327 biarda *Esk* 328 ecerbere *Esk* 329 penabagaric amaudaijen *Esk*

Ez dago inor bere, neure cristinaubac, ain zororic, ain itsuric edo ain tontoric, gauza bat guztiz ona dana jaquin ezquero ameeetan ez davenic. Ta ceinbat dan onagua, gogocuagua ta palta guichiago daucazana gauza a, ainbat izaten da arentzaco carinua ta amodijua andijagua. Ta bada esquina guztietati acabauba, chito guztizcua ta bapere tacha bagacua, orduban arentzaco amodijua, carinua ta vorondate ona bere osua, guztizcua ta acabauba da. Pensau eizuz bada, cristinaubac, ceubei guraarija emoten dotsuben gauza on guztiac; ceubec desietan dituzun edo onac diriala deichazun condecinoe ta circunstancija [52] guztiac; icusteco, esateco, entzuteco, euquiteco edo goceetaco goguan jausten jatzuzan maitegarri guztiac. Ta dirianac topauco dituzu Jangoicuagan, dirianac daucaz Jangoicuac berez ta dirianac daucaz ameeetan davenarentzaco. Adisquide acabau baten condecinoe guztiac daucaz Jangoicuac. *Bera da jaqui - tuna; bera da zuzena; bera da aberatsa; bera da lauba; bera andija; bera da sendua; bera da pirmia; bera da emonzallia; bera da parcazallia; bera da gracijosua; bera da carinosua; bera da guztien eracua; ta bera da beticua.* Deichat, neure cristinaubac, condecinoe oneec guztioac daucazan persona bat icusico bazendu, guztioac pocic, guztioz, carinoz eta vorondate osuagaz amauco cenduquiala persona a. Bada, artu eizu paciencija Jangoicuaren amodijua gaiti ta icusico dozu claru, guztiac eta gueijago daucazala Jangoico maitiac zeubentzaco ta niretzaco.

I.

Jangoicua jaquituna dalaco, amau biar dogu. Jaquiturija da, neure entzule onac, munduban chito asco estimeetan dan gauzia. ¿Ceinbatec euren burubac canseetan ditubee eta aciendac casteetan ditubee, cerbait gueijago jaquitia gaiti? ¿Ceinbatec egunazco icasijari guichi eichita, gavac galtcen di-[53]tubee liburubac iracurten, izarrac conteetan, bedarrac esaminetan, ichasuac neurutzen, alemanijac zaintuten, luurrac aztertuten, cidarrac eta metalac topeetan ta piseetan? ¿Ceinbatec osasuna ta juicijua galdu ditubee irago dan sei edo zazpi mila urtian, baquian ta guerraan, osasunian ta gaisuan, ceruban ta inpernuban, ichasuan ta liorrian cer jazo dan ta jazoten dan jaquiten? Guraso baten contentu ta poz guztia da, seme edo alaba jaquitun bat euquitia. Castau daven guztia bapere sentietan ez dau, seme alabac cerbait gueijago icasten davenian. Erri baten badago jaquitun andi bat, guztiac estimeetan davee; ta canpuetan bere

333 Ezdago inorbere *Esk* 334 onadana *Esk* | ezdavenic *Esk* 335-336 izatenda *Esk*
 338 tavorondate *Esk* | Pensaueizuz *Esk* 339 emotendotsuben *Esk* 344 acabaubaten *Esk*
 | Berada *Esk* 345 berada *Esk* | berada *Esk* | berada *Esk* | berada *Esk* 346
 berada *Esk* | berada *Esk* | berada *Esk* | berada *Esk* 347 berada *Esk* | berada
 da *Esk* | berada *Esk* 350 artueizu *Esk* 354 amaubiardogu *Esk* 360 galduditubee *Esk*
 362 jazodan, ta jazotendan *Esk* 363 guztiada *Esk* | Castaudavenguztia *Esk* 364 ezdau *Esk*
 364-365 icastendaveenian. Erribaten *Esk*

conteetan davee ce jaquitun andija dauan euren errijan. Guztia desietan davee jaquitunaren adisquide izatia; urrineti escribedutaco carta bat baño ezpada bere, aren gaucia euquitia; beragaz berba eguitia edo cerbait bere aoti entzutia. Illda guero bere, alaco jaquitun andijaren senidiac, adisquidiac eta ezagunac ez dira aaztuten beragaz, ezpada esaten davee: ¡Ah, ce jaquituna zan! 370
¡Neure senidia zan, neure adisquidia zan!

¿Cegaiti, bada, au gustiau, neure cristinaubac? Jaquiturija ta jaquituna guztia estimetan daveelaco, ameean daveelaco, ta chito asco desietan daveelaco edo jaquiturija [54] euquitia edo jaquitun aren adisquide izatia. Edo obeto esateco, Salomonec dinuan leez (47), munduco gauza guztia baño jaquiturija acabauba gueijago ameean dalaco. 375

Bada, cristinaubac, munduco jaquiturija guztia Jangoicuaren aurrera jaso ezquero, zoraquerija utsa baño ez da. Jangoicua da jaquitun bacarra. Jaquitun guztien Jaquituna ta jaquiturija guztiaren eracustia. Icasten ibili bagaric daqui Jangoicuac ceruban, inpernuban, ichasuan ta luurrian jazoten dan guztia. 380
Cansau bagaric conteetan ditu Jangoicuac ceruban dagozan ainguerubac eta santubac, inpernuban dagozan condenaubac, linbuan dagozan arimaac, ichasuan dagozan arrainac eta ariaac, luurrian dagozan bedarrac ta munduban jaijo dirian ta jaijoco dirian persona guztia. Mundubaren asierati ona guizon ta emacume guztia cer esan daveen, cer eguin daveen, cer pensau daveen ta cer 385
esan, eguin edo pensauco daveen guztia daqui Jangoicuac. Urrinecua daqui urrecua leez, ainchinacua oangua leez ta etorquizuna iragotacua leez; ez destajuban, eichijan, dudaan edo guzurrez naastauta munduco jaquitunac leez, ezpada zucen, artez, arguiro [55] ta claru daquiz Jangoicuac gauza guztia, nos, 390
nun, celan, cegaiti ta cetaraño dirian. Munduban inoc ecer badaqui, Jangoicuac eracustitaco pusquia baño ez daqui; ta daquijena bere (pediaz osterantzecua) guzurrez naastauta baño ez daqui. Jangoicua da jaquitun bacarra edo jaquiturija utsa.

Bada, cristinaubac, munduco persona bat ainbeste ameean bada ta estimetan bada jaquituna dalaco; ta ainbeste desietan bada aren adisquide izatia, ¿ceinbat gueijago amau biar dogu ta estimau biar dogu gueure Jangoicua, jaquitun guztien jaquituna dalaco? ¿Gauza guztiaac berac daquizalaco ta daquingun pusquia bere, berac eracusten dosculaco? Ordu lauren baten edo istante baten gueijago eracusten deutsa Jangoicuac guere arimiari munduco liburu ta 395

(47) Sapient. c. 7.

400

370 esatendavee *Esk* 371 adisquidiazan *Esk* 373 desietandaveelaco *Esk* 376 ameean-dalaco *Esk* 378 ezda *Esk* 379 ibilibagaric *Esk* 381 Cansaubagaric *Esk* 385 cereguindaveen, cerpensaudaveen, tacer *Esk* 389 gauzaguztiac *Esk* 391 ezdaqui *Esk* | daquijenabere *Esk* 392 ezdaqui *Esk* 396 amaubiardogu *Esk* | biardogu *Esk*

maisu guztiac eracutsi leijuen baño. Merecietan dau, bada, Jangoicuac beste gauza guztiac baño gueijago gueuc bera ameeitia, jaquitun acabauba ta guztizcua dalaco.

II.

405 Zucena dalaco bere amau biar dogu Jangoocua, beste gauza guztiac baño
gueijago. Zucentasuna da, munduban chito asco estimatean dan gauza bat.
Berbetan, [56] tratuban ta artu emonian zucen izatiac beragaz dacar guztien
estimacinoia, errespetua ta amodijua. Ta paltsaquerijac, engañubac, malecijac
410 eta arpeguiera bi eguitiac dacar guztien gorrotua ta icusi ezina. Paltsuagaz ta
engañuba darabilenagaz ez dau inoc artu emonic gura ta ez dau inoc barbaric
bere eguin gura, nora ezian edo Jangoicuac aguinduten davelaco baño. Baña
persona zucen bategaz, cintzo bategaz, bere contra bada bere beti eguija es-
aten davenagaz, guztiac euqui gura leuquee ezauberia, artu emona ta adisqui-
detasuna. Zucenari guztiac beguiratuten deutsee vijotz onagaz, amodijuagaz ta
415 carinuagaz. Ta au ceubec guztioac esaten dozuna ta sarritan jazoten jatzuna da.
Pocic eta gustoz juaten zara zuzenagaz trateetara, ta paltsuagana nora ecian
baño ez.

Bada, cristinaubac, munduco zucentasun guztia guzurra, engañuba ta pal-
tsaquerija baño ez da, Jangoicuaren zucentasunagaz bat eguin ezquero.
420 Jangoicua da berez zucena, arteza ta eguijazcua. Guizacume guztiac dira eure-
nez guzturtijac, dino David erreguiac (48). Jangoicua da bacarric justuba ta bere
juicijua da bacarric zucena (49). Ez dago luurraren gañian inor bere [57] ain
zucenic, egunian sarritan uts eguiten ez davenic. Jangoicua da bacarric uts
eguiteric ez daucana. Mundura etorri dirian guizon eta emacume guztiequin,
425 ceruban dagozan aingueru guztiequin ta inpernuban dagozan diabru guztie-
quin euqui dau Jangoicuac contubac eguinquizuna; ta ez dago guztien artian
bat bere Jangoicuaren quexia daucanic edo Jangoicuac engañau davenic. Ez
dago guztien artian bat bere, Jangoicuac beria zucen emon ez deusala dinua-
nic. Ez dau secula inoc berba on bat esan, ez dau secula inoc pensamentu on
430 bat, desio on bat edo intencinoe on bat euqui edo obra on bat eguin,

(48) Psalm. 115. (49) Psalm. 118.

401 Merecietandau *Esk* 405 amaubiardogu *Esk* 409 arpeguierabi *Esk* 410 ezdau *Esk* |
ezdau *Esk* 413 euquiguraleuquee *Esk* 415 esatendozuna *Esk* 416 juatenzara *Esk* 419 ezda
Esk | zucentasunagazbateguin *Esk* 422 Ezdago *Esk* | inorbere *Esk* 423 utseguiten
ezdavenic *Esk* 423-424 utseguiteric ezdaucana *Esk* 424 etorridirian *Esk* 425 inpernuban-
dagozan *Esk* 426 euquidau *Esk* | ezdago *Esk* 427 engañaudavenic. Ezdago *Esk* 428
ezdeusala *Esk* 429 Ezdau *Esk* | onbat esan, ezdau *Esk* 429-430 onbat, desio onbat *Esk*
430 onbat *Esk* | onbat *Esk*

Jangoicuac zucen ta ciur pagau ez deutsanic. Ez bacarric ceruban dagozanai, baita inpernuban dagozanai bere ta baita inpernura juango diriana daquijanai bere. Ez dau secula, ez gentilec, ez judeguc, ez eregec, ez cristinauc gauza on bat eguin, aren paguba zucen Jangoicuac emon bagaric. Euren pecatubac gaiti 435 condenuco dirianai, pecatu mortalian dagozala eguiten baditubee obra onen batzuc, pagueetan deutseez Jangoicuac mundu onetan ciur, edo osasunagaz, edo ondasunequin, edo beste munduco portunen bategaz, il baño leenago. Ez da inor bere gueratuco, bere obra on guztien sarija zucen artu bagaric, edo [58] mundu onetan edo bestian. Ta ez deutsa inori bere escatuco Jangoicuac, zor 440 daven baño gueijago. Gueijago emon deutsanari, gueijago escatuco deutsa; guichiago emon deutsanari, guichiago; baña guztiai ta bacochari zucen ta artez emongo deutsee contuba ta errazoiia, cegaiti gueijago ta cegaiti guichiago emon deutsen ta baita emongo deutsee guztiai zucen eureen merceduba bere. 445 Au guztiau da pedeco eguija.

¿Noc amauco ez dau bada, neure entzula onac, ain Jangoico zucena ta arteza? ¿Ez dau merecietan Jangoicuac gueure amodijo guztia, carino guztia ta vijotz guztia ain zucena ta justuba dalaco? ¿Ez deutsagu entregauco Jaun guztiz zucenari gueure vorondatia oso osoric, jaquin ezquero bera dala contubac zucen emongo doscuzana, bera gaiti eguiten dogun guztia edo esaten dogun 450 guztia ecer bere aaztu bagaric eta guichitu bagaric pagauco doscuna? ¿Egon leiteque gauza bat maitegarrijaua ta gueure vijotza gueijago beragana eruaten davena, ain Jangoico zucena baño? Errazoiaren usura eltceen garianeti erijotzaco ordurañoco pensamentu, berba ta obra guztien contuba berari emon biaco deutsagu. Conturic nausijenac, conturic [59] naastaubenac eta conturic 455 balijotsubenac Jangoicuagaz eguin biaco ditugu erremedio bagaric. ¿Ceinbat estimau biar dogu bada, neure cristinaubac, Jangoicua guztiz zucena, ciurra eta arteza izatia, gueure contubac guztia beragaz eguiteco? ¡Oh, neure Jangoico zucena, beste prenda onic ezpaceunca bere, Zeu guztiz zucena izatia da asconic vijotz guztia 460 guztia guztia zeu beti ameeaco!

432 ezdeutsanic. Ezbacarric *Esk* 433 dagozanaibere *Esk* 433-434 daquijanaibere. Ezdau *Esk* 434-435 onbat *Esk* 435 pecatubacgaiti *Esk* 436 baditubee *baina* ba *ler.art.* 438 ondasunequin *baina* u *zuzen.* | ilbaño *Esk* 438-439 Ezda inorbere *Esk* 440 ezdeutsa inoribere *Esk* 440-441 zordaven *Esk* 441 emondeutsanari *Esk* 442 emondeutsanari *Esk* 444 emondeutsen *Esk* 446 ezdau *Esk* 447 Ezdau *Esk* 448 Ezdeutsagu *Esk* 449 beradala *Esk* 450 beragaiti eguuitendogun *Esk* 451 ecerbereàaztubagaric *Esk* | guichitubagaric *Esk* 454-455 berariemonbiaco *Esk* 456 eguinbiaco *Esk* 457 estimaubiardogu *Esk* 459 ezpaceunca-bere, Zeuguztiz *Esk* 460 zeubeti *Esk*

III.

Aberatsa da Jangoicua, ta augaiti bere merecietan dau gueure amodijo guztia. Errazoe au ezaututeco, ez dago pusca bat beguijac zabalduta beguiratu baño, cer iragoten dan cristinau guztien goguan. (Oan bacarric esaten da
 465 Jangoicua jaquituna, zucena, aberatsa... dana, errazoiac garbiruago imintia gaiti; guero esango da, dan leez, guztia ameean davenarentzaco dana). Dinot, bada, aberatsa izan ezquero Jangoicua, ez dauala beguiratu baño cer iragoten dan cristinauben vijotzetan, gueure amodijo guztia merecietan daven edo ez ezaututeco. Inoc bere ucatu ecin lei ondasunac geure vijotza laster pencietan²⁶
 470 daveena. Ondasunac senduac domeetan ditubee, altubac beeratuten ditubee, chiquijac azten ditubee ta andijac chiquituten [60] ditubee. Ondasunac veguijac arguituten ditubee, gogua alegueretuten davee, vijotza poztcen²⁷ davee ta, dagozan lecuban dagozala, gueure amodijua eureetara daroie. Beti da eguija, ondasunac asco ameean diriala ta dirubari guztiac obeiduten deutseea (50).
 475 Diruba ta ondasunac Jangoico chiqui batzuc diriala (51). Aberats bati guztiac ondo esaten deutsee, guztiac obeiduten deutsee, guztiac serbietan davee ta aberats izatia baño beste paltaric ezpadauca, guztiac estimeetan davee ta amee-taan davee.

Erdu²⁸, bada, oan errazoera, neure cristinaubac. Ondasunac eta aberatsa
 480 ainbeste ameean badira, Jangoicua da ondasun guztiac daucazan aberatsa. Basuac²⁹ guztiac, soluac guztiac, echiac guztiac, palaciuac guztiac ta erreñubac

 (50) Eccl. 10. (51) Oseas 11.

463 ezdago puscabat *Esk* 464 iragotendan *Esk* | esatenda *Esk* 466 danleez *Esk* 467 ezdauala *Esk* 471 chiquitutenditubee *Esk* 472 poztcendavee *Esk* 475 chiquibatuc *Esk* 476 serbietandavee *Esk* 477 ameeandavee *Esk* 479 Erdubada *Esk*

²⁶ Idazki honetan darabil bi bider-edo hitz hau; gainerako guztietan *goitu*. Eskuizkribu honetan, maileguzko aditz-izen hauen amaiera *-etan* da; lerro bat gorago *merecietan* dator eta pixka bat beherago, *serbietan*.

²⁷ Gainerako liburuetan, *poztuten* dator. Hemen, ahozko hizkeraren eraginez edo, *poztcen* forma jartzen du; gaur egun, inguru honetan, *pozten* entzuten da.

²⁸ Eskuizkribuan agertzen da hiru-lau aldiz; gainerako liburuetan ez dator bizkaieradunontzat hain normala den hitz hau. Hemen, subjektu pluralarekin dator. "(...) gauza jakina da batez ere ekialdeko bizkaieraz idazten duten idazle klasikoek, aditz batzuetan, antzinako forma zaharrei eusten dietena; horrela *dozu* adizkiaren subjektua "zu" nahiz "zuek" izan daiteke. Eta ez *dozu* adizkiarena soilik, baita beste adizki batzuen ere. Mogel eta Markina aldeko euskara darabilten idazle zaharengan ezaguna da joera hori, baina Frai Bartolomerengan, joera ez eze, ia gauzarik normalentzat joenezake" (Luis Baraiazarra: *Karmel*, 1999-2, 99. or.). Eskuizkribu honetako beste adibide argigarri bat hauxe dugu: *Erdu*, *bada*, *cristinaubac*, *errazoe onetara ta pensau eizu*.. Beraz, idazle honek, *dozu* ez ezik, *erdu*, *eizu* eta beste adizki batzuk ere horrelaxe erabiltzen ditu, subjektu batarekin nahiz bestearekin, hau da, singularrekin nahiz pluralarekin...

²⁹ Hondarkia, hots, deklinazioaren eta numeroaren marka, sintagma osoari bakarrik jarri beharrean, izen bakoitzari ere jartzen dio. Hori beste testu-atal batzuetan ere agertzen da.

guztiac beriac ditu Jangoicuac ta nai davenari emoteco daucaz. Ganadubac
guztiac, choriyac guztiac ta arrainac guztiac beriac ditu Jangoicuac ta nai dave-
nari emoteco daucaz. cidar, urre, diamante ta esmaralda guztiac beriac ditu ta 485
nai davenari emoteco daucaz. Indijetaco ondasun estimau guztiac, erreguen ta
andijen palacijuetaco ta soineco urrerija, seda, damasco, grana, carmesi ta per-
lerija guztia [61] beria dau ta nai davenari emoteco dauca. Munduban dagozan
guizon eta emacume guztiac, erregue, caballero, obispo, sacerdote, señora ta
despeidengo³⁰ pobrerañoco guztiac beriac ditu ta nai davena eguiteco daucaz. 490
Ondasun oneec guztioac beriac ditu Jangoicuac, bere escubetan daucaz ta nai
davena eguiteco daucaz; baña oraindino ez davee merecietan, santa Teresa
ene Amac dinuan leez (52), zapatapeco simaurrac baño estimacinoe guejago,
Jangoicuaren beste ondasunequin bat eguin ezquero. Jangoicuac bera ameean
daveenentzat ceruban daucazan ondasunac icutsi cituban, baña ez da atrevie- 495
tan san Pablo apostoluba celacuac dirian esaten (53). Apostolu santuba conten-
tetau zan esanagaz, ez beguijac icusi, ez belaarriyac entzun, ez entendimen-
tubac aitu euquezala ondasun andija areec. Bada, cristinaubac, ugarra darijon
diru pusca bat ta sitsac jaaten daven tresna bat ainbeste ameean baditugu,
¿ceinbat gueijago ta gueijago amau biar dogu gueure Jangoico aberatsa? ¡Oh, 500
neure Jangoico guztiz aberatsa, emon eidazu niri ceure ondasunen gosia ta
areec bacarric ameeataco gogua ta vijotza! Ez dot beste ondasunic gura, [62]
neure Jangoico ona, ceu baño. Ceugaz contentetan da neure vijotza ta ceu
goceetan egon gura dau eternidade guztian ceruban. Alan izan della. Amen.

(52) *Vid.*, c. 38. n. 2. (53) [1.] Ad Corinth. c. 2.

505

483 beriacditu *Esk* | naidavenari *Esk* 484-485 naidavenari *Esk* 486 naidavenari *Esk*
490 naidavena *Esk* 491-492 naidavena *Esk* 492 ezdavee *Esk* 494 bateguinezquero *Esk* 495
ezda *Esk* 497 ezbelaarriyac *Esk* 499 puscabat *Esk* 500 amaubiardogu *Esk* 501 emoneida-
zu *Esk* 502 Ezdot *Esk* 503 contentetanda *Esk* 504 egonguradau *Esk* 505 Corint.] Chorint.
Esk

³⁰ Hitz hau hiru bat adieraz erabili ohi du; hemen *azkena* esan nahi du, *azkenengoa*.

**LELENGO MANDAMENTUBAREN
LAUGARREN LECINOIA,**

ceinetan eracusten dan
amau biar dogula Jangoicua gauza guztiac baño gueijago,
510 *lauba, andija ta indartsuba dalaco.*

Jangoicuac merecietan badau, leen esan dana gaiti beste gauza guztiac baño gueijago ameeitia, ez dau guichiago merecietan *lauba dalaco, andija dalaco ta indartsuba dalaco.*

[63]

I.

515 Lauba da Jangoicua ta au gaiti bere merecietan dau gueure amodijo guztia. Deichat ez daucadala cetan esplicau lau izatiac cer esan gura daven. Bada, ceubei sarri entzuten jatzun³¹ gaurcia da cer dan lau izatia. Caballero edo beste persona aparteco bat gaiti ondo esan gura dozunian, lelengo lelengo esaten
520 dozun da: *entero lauba da, andiari bagacua da.* Aberatsac eta pobriac, andijac eta chiquijac ta edocein bere condecinoeco personaac bardin estimeetan baditu ta bardin berba eguiten badeutsee, guztiac projimuac dirian leez, orduban esaten da dala lauba.

525 Ta au da prenda bat, chito asco estimeetan dana. Andiarija, burubaren eichija ta noberac edu ondosun, jaquiturija edo entzute ez dauqueenac desprecijetia ta alacuequin berba contaubac baño ez eguitia da, guztiai enpaduba emoten deutseen soberbija ta vanidadia. Vicijo guztiac sustriajac zabalauta dauqueez ta vanidadiac eta andiarijac ez dauqueez chicarrenac. Lau errial daucazana lotsatuten da bi baño ez daucazanagaz trateetan. Aberats batec uste dau, mesede andi bat eguiten deusala pobriari berba bat edo agur bat eguinagaz.

509 biardogula *Esk* 511 leenesandana *Esk* 512 ezdau *Esk* 515 augaiti bere merecietandau *Esk* 516 keresanguradaven *Esk* 517 cerdan *Esk* 518 apartecobat *Esk* | gura dozunian *Esk* 520 edoceinbere *Esk* 522 esatenda *Esk* 523 auda *Esk* 524 ezdauqueenac *Esk* 525 ezeguitia *Esk* 527 ezdauqueez *Esk* 528 lotsatutenda *Esk* | ezdaucazanagaz *Esk* | ustedau *Esk* 529 andibat *Esk*

³¹ Ik. 28. oharra (546.or.), *ceubei (...)* sarri entzuten ja *tzun* komunztadura dela-eta.

[64] Guraso pobreen ume bat descuiduan aberatstuten bada, lotsatuten da bere 530
 aitagaz ta amagaz; ez dau areen icenic bere entzun gura, ezda echian sartu
 daquijozan bere. Esquian ibili dan bati portune chiqui bat etorten bajaco, las-
 ter aaztuten da leenago berari ateetan limosnia emoten eutseen onguilleequin.
 Onaco sobervijaric, buru eichiric edo entzunda bere enpaduba emoten daven
 vicijo inpameric ez dauqueen cristinauba, guztientzaco arpeguiera bardina 535
 dauqueena, urrecuari ta urrinecuari, pobriari ta aberatsari, jausita dauanari ta
 zutinic davilenari gogo bardinagaz ta vorondate onagaz lagunduten deutseena,
 guztiac estimatean davee ta ameeetan davee, lauba dalaco.

Jangoicua da bada, neure cristinaubac, vanidade bagacua, andiari bagacua
 ta guztiz lauba. Jangoicua ez da inogaz bere lotsatuten, ez dau inor bere des- 540
 precijetan, ez deutsa inori bere ezentzunic eguiten. Andijentzat, chiquijentzat,
 ondraubenzat ta desondraubenzat, guztientzat da bardina Jangoicua, bera amau
 ezquero. Ain vorondate onagaz erantzuten deutsa Jangoicuc curutzian josita
 dauan lapur desondraubari³² cein Jerusalengo [65] juez nausijari³³. Ain pocic
 sartzeen da Jangoicua Lazaroren, Martaren ta Marija Madalenaren eche humil- 545
 dian³⁴ cein paresijo aberatsarenian³⁵. Ain gusto andijagaz berba eguiten deutsa
 Jangoicuc uretara doian Samariaco emacume pecatarijari³⁶ cein Isrraelgo
 legueguin, aguintari ta obispuai³⁷. Ain poz andijagaz beguiratuten deutsa

530 aberatstutenbada *Esk* 531 ezdau *Esk* 532 daquijozanbere *Esk* 533 aaztutenda *Esk*
 535 ezdauqueen *Esk* 538 ameeetandavee *Esk* 540 ezda inogazbere *Esk* | ezdau inorber-
 e *Esk* 541 ezdeutsa inoribere *Esk*

³² Ik. Lk 23,43.

³³ Ik. Jn 18,19-23.

³⁴ Ik. Lk 10,38-41; Jn 11,1-32; 12,2.

³⁵ Ik. Lk 14,1...

³⁶ Ik. Jn 4,7-26.

³⁷ Ik. Mt 27,11-26; Lk 22,66 - 23,5; Mk 15,1-5; Jn 18,12-14.19-24.28-38. Frai Bartolomek "Isrraelgo legueguin, aguintari ta obispuai" dio atal honetan. Hitz hauek pixka bat bitxiak irudituko zaizkigu, beharbada, baina bat datoz *Vulgata*k itzulpenean datozenekin: "praesidem" (Mt 27,11), "summi sacerdotes cum senioribus" (Mk 15,1), "seniores plebis et principes sacerdotum" (Lk 22,66). Hala ere benetan harritzen gaituena, Isrraelgo apaizburuei deitzeko "obispua" esatea da (grekozko *archiereus* *Vulgata*k "summus sacerdos" itzultzen du batzuetan eta "pontifex" beste batzuetan; beraz, San Markosek (15,11, ἀρχιερέως - *archiereus*) "pontifex - pontifices" dakar, "apaizburuei" dagokiela, eta batez ere san Joaneke hainbat bider dakar "pontifices" hitza, haiei dagokiela (7,45; 11,47.49.51.57; 18,3.10.13.15.16.19.22.24.35; 19,6.15.21. Horregatik, bidezko da *Pontifex* eta *Obispren* artean erlazioa ikustea gure idazleak. Baina gogoan izatea komeni da, Platonek ere episcopus hitza, hau da, Bartolomeren obispo, erabili zuela jagole edo zaintzaile adierazteko; beste batzuek, esaterako, Homerok ikustaile, aztertzzaile adierazteko; Pindar-ek izen hori eman zien jainkoei, esaterako, Zeus, Poseidon, Apolo-ri... Izen hau zabaldu zen *gobernadoe* esateko, hau da, ordena zaindu behar zuten arduradunei deitzeko... Adiera hauek Septuaginta-k jaso zituen, eta, neurri batean, Itun Berriak ere bai... (Ik. L. COENEN, Bischof - επισκοπος, in: L. COENEN [Zuz.], *Theologisches Begriffslexikon zum Neuen Testament*(R.Brockhaus Verlag) 1993, 123-127.

Jangoicuac Elea guztia perseguidu daven Pablori³⁸ cein Elisiaren buru eguin
 550 daven san Pedrori³⁹. Milla exemplu dagoz, neure entzula onac, Escritura
 Sagraduban Jangoicuaren vijotz lauba ta bardina eracusteco, gueuc bera amau
 ezquero. Moises arzain pobriagaz berbeeta luciauac daucaz Jangoicuac⁴⁰
 Faraon Egitoco erregue andijagaz baño. David arzainagaz obeto divertietan da
 555 Jangoicua⁴¹ Saul Israelgo erreguiagaz baño. Samuel mutil gaztiari obeto zabal-
 duten deutsaz Jangoicuac ceruco misterijuac⁴² Eli sacerdote nausijari baño.

Munduban dagozan guizon eta emacume guztiac, entzute andija dauquee-
 nac ta bapere ez dauqueenac, ondasun andijac dauqueezanac ta ateric ate
 esquian davizanac, destierruban dagozanac eta tronubetan jarrita dagozanac,
 dirianac⁴³ bardin estimeetan ditu ta bardin ameeetan ditu Jangoicuac, eurac bar-
 560 din ameeetan badabee. Ain pocic dua Jangoicua mendiarteco chavola baten
 dauan iquezguin pobria consoleetara cein palacijo andi baten dauan erreguia-
 [66]gana; caarcela baten dauan presuagana cein seda artian ta urre artian dauan
 caballero nausijagana.

¡Oh, neure cristinaubac! Ez daquit cetara viurtuten daven pensamentu onec
 565 gueure arimia ta guere vijotza. ¡Jangoicua bera, inori bere ezer zor ez deusta-
 na, inoren bere preminaric ez daucana, ain lauba, ain humildia ta ain conde-
 cinoe onecua pecatarijarenzat! ¡Oh, ainguerubac, alabau eizu⁴⁴ ta amau eizu
 ceuben Jangoico altuba, humildia ta lauba! ¡Oh, ene arima pobria, beguiratu
 570 eijozu ceure Jangoicuari, bai cerubetan ta luurreco aberats ta pobre guztietan;
 ta urtu zaita al badaizu bere amodijo santuban! Bada, guztia merecietan dau
 Jangoicuac, lauba dalaco.

II.

Jangoicua da Andija. Ta au gaiti bere merecietan dau beste gauza guztiac
 baño gueijago ameeitia. Guztioe ezaututen dozuna da, neure cristinaubac,

549 perseguidudaven *Esk* 549-550 eguindaven *Esk* 552 luciauac *baina* ua *ler.art* 553
 divertietanda *Esk* 554-555 zabalduendeutsaz *Esk* 557 ezdauqueenac *Esk* 560 ameeetanba-
 dabee *Esk* 564 Ezdaquit *Esk* 565 ezerzor ezdeutsana *Esk* 566 ezdaucana *Esk* 570 urtu-
 zaita al badaizu *Esk* | merecietandau *Esk* 573 augaiti *Esk*

³⁸ Ik. Eg 9,1-16.

³⁹ Ik. Mk 14; Jn 21,15-19.

⁴⁰ Ik. Ir 3-11.

⁴¹ Ik. 1Sm 16....

⁴² Ik. 1Sm 3.

⁴³ Gure "denak" edo "guztiak"... (Ik. 278-279.or.).

⁴⁴ Begira pluralean dagoen *ainguerubac* hartzen duen adizkia: *alabau ei zu ta amau ei zu ceu - ben Jangoico altuba...* Komunztadura honetaz ikus 29. oharra.

gauza bat ona izan ezquero, ceinbat andijago, ainbat dala obiago. Urre pillo 575
 bat ceinbat andijago, ainbat da obiago. Gari pillo bat ceinbat andijago, ainbat
 da obiago. Adisquide bat ceinbat dan aberatsagua ta entzute andijaocua, ain-
 bat gueijago ameeetan da ta estimeetan da. Adisquide pobriac intencinoia ta
 desiua euqui arren mesede eguiteco, [67] gauza andiric ezin leiyo inori, cegaz
 ez daucalaco. Orregaiti ascoc esan darue adisquide pobrerac ez daveela gura. 580
 Adisquide pobria adisquide chiquija da ta orregaiti pobreentzaco palacijo gui-
 chi munduban iminten dira, ta adisquide asco bere ez davee topeetan. Gauza
 guichijac berez ona izan arren, estimacinoe chiquija dauca; baña berez ona
 izan ezquero, andija bada, guztia estimeteetan davee ta ameeetan davee.

Jangoicua da bada, neure entzula onac, gauza on guztien artian andijena. 585
 Andija da Jangoicua ta chito guztiz ondo alabeetia merecietan davena, dino
 David erreguiac (54). Nora juango nas, esaten deutsa Jangoicuari Erregue
 santubac berac (55), nora juango nas ceure espiritubaganic ta nora igues
 eguingo dot ceure arpeguijaganic. Cerubetaraño igoten badot, zu an zagoz;
 inpernubetaraño jasten banas, an bere prest zagoz. Ego batzuc artuta egun- 590
 sentijan iragoten banas ichasuen esquinaraño, zure escubac an bere gueratut-
 en nau. Pensau neban, menturaz ilunac apartuco nindubala zure aurreti ta
 gavac ezcutauro nindubala zuganic; baña gavac egunac leez argui eguiten
 dotsu zuri; gava ta eguna bardin dira zuretzaco. Berba oneec guztioac dira
 David erreguiarenac⁴⁵. 595

[68] Jangoicuaren anditasunac despediaric ez dauca. Lecu guztietan ta denpo-
 ra guztietan dago Jangoicua guztiequin ta dago bacoçagaz. Jaaten bagagoz,
 gueugaz dago; lo eiten bagagoz, gueugaz dago, ta eitzartuta bagagoz bere,
 gueugaz dago gueure Jangoico maitia. Ain contuz zaintuten dau, gordeetan
 dau ta beguiratuten deutsa Jangoicuac Erroman daucan adisquidiari cein 600
 Indijetaco baztarrian daucanari cein Elesa onetan daucanari. Cerubac eta lu-
 rrac baño andijago da Jangoicua ta orregaiti dago lecu guztietan edo, obeto
 esateco, beragaz daucaz gauza guztia eta lecu guztia. Jangoicuagaz vizi gara,
 Jangoicuagaz gaviz ta Jangoicuagaz gara gariana, dino Espiritu Santubac (56).

 (54) Psalm. 47. (55) Psalm. 138. (56) Act. Apost. c. 17.

605

575 izanezquero *Esk* 576 Urrepillobat *Esk* 576 Garipillobat *Esk* 577 Adisquidebat *Esk*
 577-578 ainbatgueijago ameeetanda, ta estimeetanda *Esk* 580 ezdaucalaco *Esk* 582 imintendi-
 ra *Esk* | ezdaveetopeetan *Esk* 584 ameeetandavee *Esk* 585 dabada *Esk* | onguztien
Esk 587 esatendeutsa *baina* 1. a *ler.art.* 589 igotenbadot, zu anzagoz *Esk* 590 jastenbanas
Esk | zagoz *baina* a *ler.art.* 590-591 egun sentijan *Esk* 591-592 gueratutennau *Esk* 592
 apartuconindubala *Esk* 596 ezdauca *Esk* 599-600 zaintutendau, gordeetandau, ta beguiratu-
 tendeuca *Esk* 602 lecu guztietan *Esk* 603 vizigara *Esk* 605 Act.] Actor. *Esk*

⁴⁵ Ik. Sal 139 [138], 7-12.

Erdu bada, cristinaubac, errazoe onetara ta pensau eizu, ia Jangoicuac, izan ezquero gauza on guztietati andijena, lecu guztietan ta denpora guztietan gueugaz dauana, merecietan daven, edo ez gueure amodijo guztia ta vijotz guztia. Ia Jangoicua dan edo ez guztioz topau biar doguna, estimau biar dogu-
 610 na ta amau biar doguna. ¡Ez da zoraquerija andija, munduco gauza on isquijen billa ibiltia [69] ta areen envidija euquitia, gauza on guztietati andijena ta gauza on guztiaz beragaz daucazan Jangoicua gueugaz euqui ezquero? Ameetan badogu Jangoicua, guztia gueuria da; ta ameean ezpadogu, andija izan arren ta gueugaz egon arren, bapere ez da gueuria Jangoicua, gueu casti-
 615 gueetaco baño. ¡Oh, cristinaubaren itsutasuna, ain Jangoico andijaren contra vizi izatia, aren legue santuba austia ta pecatuban egotia! ¡Oh, Jangoicuagaz dagozan pobre aberatsac! ¡Oh, pecatuban dagozan aberats pobriac! Ceu amee-
 620 tan zaitut, Jauna; ta ceu amau gura zaitut neure vijotz guztiagaz, gauza on guztietati andijena ta bacarra zarialaco.

III.

Ain da acabauba gueure Jangoicua gauza guztietan, ce edocean bere gauza on icusten dogunian edo acordeetan jacunian, guztia ondo cumpliduta topeetan dogu beragan. Gogoratu daiguzan oraindino, neure cristinaubac, adisquide guztizco batec euquitia ondo dan circustancijaac. Inoc bere ucatu ecin lei
 625 chito gauza ona ta estimauba dana, gueure adisquidia sendua ta indartsuba izatia. Adisquide senduagaz gagozan artian, bildur bagaric eta seguru gagoz. Baña adisquidia argala, macala ta indar bagacua bada, [70] laster goituten davee are-
 630 rijuac ta gueratuten gara lagun bagaric. Errazoe au, bapere contuba etara ezquero, guztiaz ezaututen daveena da, neure entzula onac. Ezertaco ez danari edo gauza guichi bat baño ecin leijonari, ez deuta inoc erregu andiric eguiten adisquide izateco, ezpada nai badau izan della ta nai ezpadau ez. Baña adisquidia bada sendua, indartsuba, arriscu guztietati librau guinaizana ta gueu ondo zaintu guinaizana, a chito asco estimeetan dogu ta agazcua ez galtceiarren, ascotan canseetan gara.

635 Jangoicua da, bada, bacarric, neure cristinaubac, adisquide sendua ta indartsuba. Jangoicuaren adisquidiac bagara, Jangoicua ameean badogu, ez daucagu cetan bildurric euqui inoren bere⁴⁶. Jangoicuaren adisquidia banas,

606 ia] ya *Esk* 607 izanezquero *Esk* 609 Ia] Ya *Esk* | Jangoicuan *Esk* 609-610 topaubiardioguna, estimaubiardioguna, ta amaubiardioguna? ¡Ezda *Esk* 612 euquiezquero *Esk* 618 amaugura *Esk* 621 Aina *Esk* | edoceanbere *Esk* 622 icustendogunian *Esk* 622-623 topeetandogu *Esk* 626 bildurbagaric *Esk* 627 indarbagacua *Esk* 629-630 ezdanari *Esk* 630 ezdeutsa *Esk* 631 naibadau izandella, ta naiezpadauez *Esk* 633 estimeetandogu *Esk* 634 canseetangara *Esk* 636-637 ezdaucagu *Esk* 637 inorenbere *Esk*

⁴⁶ Genitiboko izenlagunaren ondoren *bere* erabiltzea nahiko normala da gure idazleagan. Gaur egun ez genuke horrela egingo; (ez daukagu inoren bildurric zetan euki / ez daukagu bildurric zetan euki inori bere...).

libre nago arerijo guztietati. Alperric jaguico dira nire contra persecucinoiac; alperric munduco aguintari ta juez guztiac galdu naico navee; alperric inpernuco diabru guztiac su artuta abijauco dira nire ondoric buruco ule bat bere 640 quenduco ez deustee. Munduco aguintari, juez, soldau ta verdigu⁴⁷ guztiac eureen armeequin ez dira elcho bat edu⁴⁸ bere, Jangoicuaren indarrequin bat eguin ezquero. Jangoicuac bere adisquidiac zaintuteco, ichasuac [71] agortu ditu⁴⁹, euzquija gueratu dau⁵⁰, subac oztu ditu⁵¹, artzac eta leoiac mansotu ditu⁵². Jonas arrainen tripaan dauca Jangoicuac viziric⁵³, Daniel artz gosian artian gordeetan dau⁵⁴, Babilonijaco umiac laba gorijan daucaz erre bagaric⁵⁵. Isrraeltarrei 645 ichasua liortuten deutsee⁵⁶, oñaz iragoteco ta mendi soilian ceruti bialduten deutsee janari prestauba⁵⁷, Elias bela bat bialduta mantenitan dau⁵⁸, Lazaro ilda laugarren egunian viztuta, sepulturati etaraten dau⁵⁹; san Pablo ichasuaren onduan dauca ito bagaric⁶⁰; san Pedrori oñetaco catia senduac berecauten urraturen deutzaz⁶¹; ez erijotziac, ez mundubac, ez inpernubac, ez inoc bere ecer ecin leijo Jangoicuaren adisquidiari, Jangoicua vijotz osuagaz ameean davenari (57).

Esaidazu, bada, oan ceuben vizitzia gaiti: ¿euqui guinai dicha andijagoric arerijo guztietati libre egotia baño? ¿Inoren bere bildur bagaric vizi izatia baño? 655 Jangoicua ameean davenac ta Jangoicuagan bere conpijantza guztia iminten

(57) San Pabl., ad Rom. c. 8; Ad Heb. c. 11.

639 galdunaico *Esk* 640 suartuta *Esk* | ulebat *Esk* 641 ezdeustee *Esk* 642 ezdira, elchobat *Esk* 642-643 bateguin *Esk* 644 oztuditu *Esk* 646 labagorijan *Esk* | errebagaric *Esk* 648 belabat *Esk* | mantenitandau *baina* 3. n *Ier.art.* 650 itobagaric *Esk* 651 inocbere *Esk* 654 euquiguinai *Esk* 655 bildurbagaric *Esk*

⁴⁷ *Verdigu* bost bider dator obra osoan barrena eta *borregu* zazpi bider.

⁴⁸ Tamaina, kantitatea erabiliz berdintasunezko konparazio-perpausak eraikitzeke *edu* eta *duin* erabiltzen ditu; gaur egun bizkaieraz ohikoa den *besteez* dugu aurkitu behin ere; hemen datorren *edu*-k "adina"ren esanahia du.

⁴⁹ Ik. Ir 14,21-22.

⁵⁰ Ik. Jos 10,12-13.

⁵¹ Ik. Ik. Dn 3,46-50.

⁵² Ik. Dn 6,20-28.

⁵³ Ik. Jon 2,1-11.

⁵⁴ Ik. Dn 6,18-23.

⁵⁵ Ik. Dn 3. Frai Bartolomek "Babiloniaco *umiac*" aipatzen ditu; Xadra, Mexa eta Abed-Nego gazteez ari da.

⁵⁶ Ik. Ir 14,26-29.

⁵⁷ Ik. Ir 16,1-36.

⁵⁸ Ik. 1Erg 17,5.

⁵⁹ Ik. Jn 11,38-44.

⁶⁰ Ik. 2Ko 11,25.

⁶¹ Ik. Eg 12,6.11.

davenac, ez dauca inoren bere bildurric. Ta ceinbat dauca Jangoicuaren amodijo gueijago ta conpijantza gueijago, ainbat dauca bildur guichiago ta ardura guichiago. ¡Oh, cer esango ete eban ene ama Teresac, inpernuco demo-
660 [72]nino guztiac Santo-Cristo bat escuban evala desapijetan citubanian!⁶² ¿Ceen bildur izango ete zan emacume seraphin a? Ez besteren, Jangoicua opendidu ez eijan baño.

Jangoicuaren bildurric ezac, Jangoicuaren amodijoric eta conpijantzaric
665 ezac dacaz gueugana bildurric, larriac eta icaraac. Trumoe batec, ots batec, tiro batec, gaiso batec edo queiza⁶³ batec bildurtu ta icaratuten gaitu. ¿Cegaiti? Jangoicuaren adisquide onac ez garialaco, Jangoicua gueure aldeti ez dauca-gulaco ta beste munduco socorro guztiac Jangoicua bagaric utsa dirialaco. Topau daigun bada, cristinaubac, Jangoicuaren adisquidetasuna ta gorde dai-
670 gun bere legue santuba; euqui daigun conpijantza andi bat gueure Jangoico indartsubagan, ta amau daigun vijotz guztiagaz vizitzan ta erijotzan aren divina Magestadia beste criatura guztiac baño gueijago, gueure adisquide lauba, andija ta sendua dalaco. Onan seguru iragoco dogu destierru tristiau⁶⁴, ta jadiichico dogu ceruban eternidadeco gloriya. Amen.

658 ezdauca *Esk* 659 ainbatdauca *Esk* 662 Ezbesteren *Esk* 665 dacazgueugana *Esk*
666 tirobatec, gaisobatec *Esk* 667 ezgarialaco *Esk* 667-668 ezdaucagulaco *Esk* 669
Topaudaigun *Esk* 669-670 gordedaigun *Esk* 670 euquidaigun *Esk* | andibat *Esk* 671
taamaudaigun *Esk*

⁶² Ik. SANTA TERESA, *Vida* 25,14-22.

⁶³ Esanahi berdintsuz darabiltza idazki honetan *queiza*, *queixa* eta *quezca*...

⁶⁴ Erakuslea egoera enklitikoan dator, bestela gure idazleak *triste au* idatziko zukeen...

ceñetan eracusten dan
Jangoicua dala adisquide pirmia, emonzallia ta parcazallia.

Jangoicua serbietan gauza gacha dirurijen guztiac dira errazac eta bigunac amodijua daucanarenzat, dino, neure entzula onac, san Agustinec (58). 680
Jangoicua vijotz guztiagaz ameeetan davenarenzat ez dago, ez gauza gachic, ez legue gogorric, ez eguin ezinic. Ta Jangoicua errezto ta gustoz ameeataco, ez dago jarraitu baño adisquide on baten circustancijai, leen esan danaren gañera. Jangoicua da adisquide *pirmia, emonzallia ta parcazallia.*

I.

685

Jangoicua da adisquide pirmia, ta augaiti bere merecietan dau gueure amodijo osua. Gauza jaquina da, neure cristinaubac, adisquide ona izateco, pirmiac izan biar davena. Ez dot nic oan ecer bere esaten adisquidetasun [74] chaarrac eta pecatuzcuac gaiti, ezpada eurenaz garbijac eta onac dirianac gaiti. Errazuazcuac eta onac izan arren, ez dira guztizcuac umeen ta gazteen arteco adisquidetasunac, umiac eta gaztiac laster mudeetan dirialaco. Ta ceinbat dan eureen arteco amodijua ta carinua andijagua, ainbat dauquee galduco ete jacuen edo ichico ete deutseen bildur eta pena andijagua. Irauten badau puscabat luzaruago, zaartuten da ta zaartubaz doian leez, dua oztubaz ta galdubaz alcarren arteco amodijua ta adisquidetasuna. Orregaiti nequez topeetan dira 690
gaztetati zaartzaraño beti adisquide izan dirian bi. Ta topeetan badira bere, bata edo bestia (oi danez) leenago ilgo dira ta gueratuten danac euquico dau galdu 695

(58) In Psalm. 68. n. 18.

681 ezdago, ezgauza *Esk* 681-682 ezlegue *Esk* 682 ezeguín *Esk* 682-683 ezdago *Esk* 687 jaquinada *Esk* 688 biardavena. Ezdotnic oan ecerbere *Esk* 690 ezdira *Esk* 691 mudeetandirialaco *Esk* 692-693 etejacuen *Esk* 693 etedeutseen *Esk* 693-694 puscabat *Esk* 694 zaartutenda *Esk* 697 oidanez *Esk* | gueratutendanac *Esk*

700 jacolaco penia. Munduban dagozan adisquide guztiac, edadiaren ta denporia-
ren partez, beti dauquee paltauco ete daveen, mudauco ete dir[ijan, ichico ete
deutseen edo galduco ete dirian bildurra. Ta ceinbat adisquidetasun andijaua,
ainbat pena ta bildur andijaua.

Jangoicua da bada, neure cristinaubac, adisquide bat onaco penaric eta bil-
durric ez dacarrena. Jangoicua ez umia da, ez gazteeguija da, ez zaarreguija da.
705 Ez da mudeetan dana Jangoicua. Atzo ta gaur [75] ta beti modu baten dago
Jangoicua, dino san Pablo apostolubac (59). Munduba baño leenago zana
mundubaren asieraan zana ta gaurco egunian dana izango da eternidade guz-
tian Jangoicua. Ez gaisuac argalduten dau, ez euzquijac balztuten dau, ez otzac
zurituten dau, ez biarrac canseetan dau, ez edadiac zaartuten dau Jangoicua;
710 beti dago tercijo baten ta modu baten. Munduco guizaaldijac mudeetan dira;
erreñubac eta ciudadiac mudeetan dira; aciendac eta ondasunac mudeetan
dira; osasuna, ondria, gustuac, atseginac, opicijuac eta adisquidiac mudeetan
dira ta acabeetan dira; baña Jangoicua ez da mudeetan, ez da guichituten, ez
da gueituten, ez da acabeetan. Munduco adisquidiac aparteetan dira, aaztuten
715 dira, galtceen dira ta ilten dira, ta ascotan batzuc inpernuraco ta bestiac ceru-
raco. Samuel ta Saul adisquidiac cian. Samuel ceruban dago ta Saul inpernu-
ban. Abel ta Cain anaiac cian leez, duda bagaric adisquidiac cian. Abel ceru-
ban dago ta Cain inpernuban. Jacob eta Esau ta beste milla ta gueijagori jatzo
jacue beste ainbeste⁶⁵. Oneec guztioac eracusten doscube ez dauala munduban
720 ecer, gueure amodijo osua merecietan davenic. Secula mudeetan ez dan ta beti
pirme dauan Jangoicua amau biar dogula gauza guztiac [76] baño gueijago. Ez
bacarric adisquide seguruba ta pirmia dalaco, ezpada baita emonzalle ugarija
dalaco bere.

II.

725 Jangoicuac bere adisquidei ez deutsee ecer bere ucatuten. Daucan guztia
emoten deutsee neurri bagaric. Ta augaiti bere, esquer charrecuac izatiaren
beian, amau biar dogu beste gauza guztiac baño gueijago.

(59) Ad Hebr. c. 13.

700 etedaveen *Esk* | etediran *Esk* 703 adisquidebat *Esk* 704 ezdacarrena *Esk* |
ezgazteeguijada *Esk* | zaarreguijada *Esk* 705 modubaten *Esk* 707 izangoda *Esk* 708
Ezgisuac argaldutendau *Esk* 709 zuritutendau *Esk* 710 modubaten *Esk* 711 erreñubac]
erreñubuc *Esk* 713-714 ezdamudeetan, ezdaguichituten, ezdagueituten, ezda *Esk* 718 dago]
dogo *Esk* 720 ezdan *Esk* 721 amaubiardogula *Esk* 721-722 ezbacarric *Esk* 726 neurriba-
garic *Esk* 727 amaubiardogu *Esk*

⁶⁵ Ik. 275.or..

Munduban icusten dogunez, gauzia emoten daveenac estimaubac dira. Ta ceinbat gueijago emoten daveen, ainbat estimaubago. Adisquidia izan arren, urrija ta zequena bada ta ecer emoten ezpadaqui, laster esaten dau *beretzaco dala obia, inorentzaco baño alaco adisquidia*. Baña orduba danian edo preminaan dauanian emoten badaqui gauzia ugari, alaco adisquidia duda bagaric ameeetaco ta estimeetaco da; ta secula atcera ecer artceeco esperantza bagaric emoten badau, oraindino milla bidar gueijago ameeetan da ta estimeetan da.

Beguiratu eizu⁶⁶ bada oan, cristinaubac, errazoiaren pusca bategaz, ia Jangoicuac merecietan daven edo ez guc ameeetia ta estimeetia, gueuri gauria emoten daukielaco. Onetaraco jaquin [77] biar dozu lelengo, Jangoicuac ez daucala inoren bere preminaric. Ceruric edo munduric eguin ezpaleu bere, ain-gueruric edo santuric ezpalego bere, criaturaren errasturic erne, sortu edo jaijo ezpalitz bere, Jangoicua Jangoico izango zan beti. Ceruban dagozan guztiac inpernuban balegoz bere, ecer paltauco ez lichaquio Jangoicuari; ta inpernuban dagozan guztiac ceruban balegoz bere, dan edu izango litzaateque Jangoicua. Inoc bere Jangoicuari ecer gueitu ecin leiyo; ta ezda guichitu bere. Berez da, dan guztia.

Descuiduan inoc penseetan badau limosna bat eguitia, baru bat eitia⁶⁷, meza bat entzutia edo beste obra on bat eguitia, sinistuta egon bedi ez deutsala Jangoicuari mesederic eguiten, bere arimiari baño. Jangoicuac nai dau, guc obra onac eguitia ta ceruba irabaztia, gueu ameeetan gaitubalaco; baña ez gure obra oneen preminia daucalaco. Ain ondo Jangoicuaren gloria aurquituco litzaateque gu guztioc inpernuban egonagaz cein ceruban egonagaz.

Bigarrenian jaquin biar da, Jangoicuac ez deutsala inori bere ecer zor. Jangoicua da bacarric zorric ez daucana. Munduban dagozan guztiac alcarri cer edo cer zor deutsee. Guztioc gara bata bestiaren zordunac. Ezin secula cristinau batec beste bati esan leiyo eguijagaz: [78] *ez dotsut ecer zor* Jangoicua da bacarric guztiac au esan leijuena. Jangoicuac emoten daven guztia, duaric emoten dau ta inoc atcera pagauco deutsan esperantza bagaric.

Pensau eizu, bada, oan istante baten, cristinaubac, ia Jangoicua adisquide zequena ala emonzalle ugarija dan. Ta erremedio bagaric conpesauco dogu,

734 estimeetacoda *Esk* 735 ameeetanda, ta estimeetanda *Esk* 736 ia| ya *Esk* 737 merecietandaven *Esk* 738 jaquinbiardo zu *Esk* 738-739 ezdaucala *Esk* 746 limosnabateguitia *Esk* 747-748 ezdeutsala *Esk* 748 naidau *Esk* 752 biarda *Esk* | ezdeutsala inoribere *Esk* 753 ezdaucana *Esk* 755 ezdotsut *Esk* 756 emotendaven *Esk* 756-757 emotendau *Esk* 758 ia| ya *Esk* 759 conpesaucodogu *Esk*

⁶⁶ Gorago adierazi dugunez, hemen ere *eizu* (...), *cristinauac*, hau da, *eizu* pluraleko bokatiboarekin komunztaduran... (Ik. 28. oharra, 546.or.).

⁶⁷ Alternantzia agertzen du hemen bokal arteko *g* kontsonantedunaren eta haingabeakoaren artean; ia jarraian datoz *eguitia* eta *eitia*...

- 760 guztiz esquer charreacuac eta lotsa bagaac ezpagara, amau biar dogula Jangoicua beste gauza guztiac baño gueijago, emonzalle ugarija dalaco. ¿Noc emon doscu daucagun izatia? ¿Nor gaiti ez gara cristinau bacocho arri bat, zur bat, alemanija bat edo ecer bere ez? ¿Ezin eguin euquian Jangoicuac, gu eguin guinduzan lecuban, arbola bat, ach bat edo bildos bat? Bai, nai izan baleu.
- 765 ¿Gueure gorputza ta arimia pormauta bere, ezin il edo ito guenduquezan amaren sabelian guengozan lecuban? Bai, nai izan baleu. ¿Noc emon doscuz entendimentuba gauzaac ezaututeco, vorondatia ameataco, memoria goguan euquiteco, beguijac icusteco, belaarriyac entzuteco, miina esateco, oñac ibilteco, escubac biarra eguiteco ta beste sentidubac, gueure erara euquiteco? ¿Ezin ichi guenduquezan [79] Jangoicuac zoratuta, endemoniauta, itsututa, mutututa, gortuta edo errenduta, beste asco ichi dituban leez? Nai izan baleu bai. Mesede oneec beste ascori ez deutseez eguin, zor ez eutsezalaco; ta guri eguin doscuz ta eguiten doscuz duaric, berac gura davelaco. Gueijago oraindino. ¿Noc gure laboriac erneetan ditu, azten ditu ta elduten ditu? ¿Noc eguna zabalduten
- 775 doscu, euzquiya aguertuten doscu, ilarguiya emoten doscu, udiari ta negubari emoten deutsee gueure eraraco indarra ta virtutia? ¿Cer izango litzaateque beti gava balitz? ¿Cer beti udia balitz? ¿Cer beti neguba balitz? ¡Oh, ce mesede ugarijac! Ta esanda gueratu da Jangoicuac ezer zor ez doscula, ezpada⁶⁸ guztia duaric emoten doscula. Ta oraindino esan dan guztia Jangoicuac bardin emoten
- 780 deutsee onai eta dongai, pecatarrija ta justubai, adisquidiai ta arerijuai.

Ta onezaz ostian ¿cer emoten ez deutsa Jangoicuac bere adisquide bati edo cristinau eguijazco bati? ¡Oh! Emen agortuten da gueure entendimentuba. Emoten deutsa Jesucristo, Jangoico eta guizon eguijazcua, ogui pusca baten ichuraan jaateco ta ardao pusca baten ichuraan eraateco; emoten deutzaz ain-guerubac lagunduteco; emoten deutzaz sacra-[80]mentubac; emoten deutsa gracia; emoten deutzaz Espiritu Santubaren doiac; emoten deutsa, berba baten guztia esateco, bere vijotz zabal, ugari ta maitegarrija oso osoric, bera ameeetan daven cristinaubari. Daucadan guztia, Jangoicuac duaric emona da; ta Jangoicua ameeetan badot, Jangoicuac daucan guztia bere neuria da. Nauan

785 lecuti secula alderic aguingo ez neuque, Jangoicuaren escu indartsubac erain bagaric. Berba bat gueijago esango ez neuque, Jangoicuac erasoco ezpaleust. Neurez ecer bere ez nas, ez gorputzeraco ta ez arimaraco; baña Jangoicua ame-

760 lotsabagaac *Esk* | amaubiardogula *Esk* 762 Norgaiti ezgara *Esk* | arri bat] arri-bac *Esk* 762-763 zurbat, alemanijabat *Esk* 763 ecerbere *Esk* 764 ach] ahc *Esk* | bildos-bat *Esk* 765 itoguenduquezan *Esk* 769-770 ichigenduquezan *Esk* 772 ezdeutseez *Esk* | ezeutsezalaco *Esk* 776 emotendeutsee *Esk* 778 gueratuda *Esk* | ezdoscula *Esk* 779 esandan *Esk* 781 ezdeutsa *Esk* 782 eguijazcobati *Esk* 783 puscabaten *Esk* 784 puscabaten *Esk* 785 emotendeutsa *Esk* 790 ezneuque *Esk* 791 Berbabat *Esk* | ezneuque *Esk* 792 ecerbere eznas, ezgorputzeraco *Esk*

⁶⁸ Idazki honetan aldaketa fonikoaz darabil; gainerako liburuetan, oster, *ezpada*...

etan badot, Jangoico guztija ta Jangoicuac daucan guztia neuria da. ¡Oh, Jangoico zabalala! ¡Oh, Jangoico ona! ¡Oh, Jangoico emonzalle ugarija! Ameetan zaitut ta amau gura zaitut, bada, nic neure vijotz guztiagaz. Emon eidazu gracia, ceu baño beste gauzaric secula ez ameeetaco. 795

¡Oh, ce zoraquerija, ecer bere balijo ez daveen luurreco gauzaac topeetia, ameeetia ta estimeetia Jangoicuaren legue santubaren contra! ¡Oh, diru pusca bat, ondra pusca bat, estimacinoe pusca bat, araguijaren gusto loi bat jan bat edo eran bat gaiti arimia, osasuna ta cleituba arriscuban iminten dituban [81] pecatarijaren zorua! ¡Oh, Jangoicuari ichita, munduco gauceetan gustua topau gura leuquian cristinaubaren itsuba ta errucarrija! Icusico baguendu persona pobre bat, duaric emon gura deutseezan oguei escudocuac artu gura ez ditubala ta beste aldeti zurico erre bat edo maravedi urdin bat irabazteco izardija, barautsa⁶⁹ ta arrastaquia⁷⁰ darijola davilela, ¿cer esango guenduque a gaiti? Zoro garbija dala esango guenduque. Bada, beste ainbeste ta oraindino zoruago da, gauza on guztijac duaric emoten doscuzan Jangoicua ameeetan ez daven cristinauba. Ugarra ta atsa darijuen luurreco vanidadiac eta gustuac Jangoicuaren contra, ameeetan dituban cristinauba. ¿Ta au sinistuta, Jangoicua ameeetan ez davenac, pecatu eguinda Jangoicuaren leguia austen davenac edo Jangoico emonzalle ugarijaren gorrotuan vizi danac, ez dauca ondo merceduta inpernuco eternidadeco pena guztia? Duda bagaric esaten da, *baietz*. 800 805 810

Orregaiti esaten dau Jangoicuac berac Jeremias propeta santubaren aoti (60): Icaratu zaitetz cerubac eta birrindu zaitetz ceruco atiac. Gauza donga bi eguin ditubee nire gentiac, gauza donga bi eguin ditu-[82]bee cristinaubac: iza- nic neu ur vizi guztien iturri ugarija, neuri ichita juan dira pozu chistarretara⁷¹ 815

(60) C. 2.

795 amaugura *Esk* | badanic *Esk* 796 ceubaño bestegauzaric *Esk* | ezameetaco *Esk* 798-799 puscabat *Esk* 799 puscabat, estimacinoepuscabat *Esk* 799-800 loibat, janbat, edo eranbat *Esk* 800 imintendituban *Esk* 802 Icusicobaguendu *Esk* 803 pobrebat *Esk* | emongura *Esk* | ezditubala *Esk* 804 errebat *Esk* 805 barautsa *baina 1. a 1er.art.* 807 ezdaven *Esk* 809-810 ezdavenac *Esk* 810 austendavenac *Esk* 811 vizidanac *Esk* | ezdauca *Esk* 812 esatenda *Esk* 814 birrinduzaitetz *Esk* 814-815 Gauzadonga bieguinditubee *Esk* 815 gauzadonga bi eguinditubee *Esk*

⁶⁹ Idazki honetan erabiltzen du soilik *barautsa*; gainerakoetan beti *bitsa*.

⁷⁰ Hitz hau izen gisa dator hemen. Aurreko sintagmekin erara etorritz, hitz jarioan berez sortu zaion forma dirudi, baina ez dago honen lekukotasunik inongo hiztegitan... Berak ere, *arrastaca* darabil honen antzeko testuinguruetan: *aberrastutia gaiti gau ta egun arrastacabarautsa darijola osasuna galtceia pecatu da* (*Esku*, 100. orr.) // *ez ditu otseguinac erabili biar ugazabac gau ta egun beti biarrian arrastaca ta barautsa darijuela* (*Esku*, 233).

⁷¹ *Pozu chistarretara*: ur geldizko putzu txiki eta zikinetara.

ura eraaten⁷². Esango baleu leez Jangoico andijac pecatubaren asarriagaz: Neu
 820 nas gustuac, atseguinac, pozac, ondria, osasuna, ondasuna, gracia ta ceruco
 gloria daucadana, ta duaric guizonai eta emacumiai esquintcen deutseedana;
 baña eurac neuri ichita duaz munduco atseguin mingochac, epelac eta ilgari-
 jac topeetara ta ameeetara. Ta au berau eguiten dau cristinaubac, pecatu egui-
 825 ten daven bacochian. Isten deutsa gauza on guztiac duaric emoten deutzazan
 Jangoicuari; ta jarraituten deutsee arimaco quezquia, penia, gosia, egarrija ta
 inpernuba emoten deutzan guraari chaarrari. Amau daigun bada, cristinaubac,
 gueure Jangoico ona, Emonzalle ugarija dalaco ta baita parcazallia dalaco bere.

III.

Bijotz onaren aparteco senallia ta munducuen artian nequez topeetan dana
 da, neure cristinaubac, gach eguin deutzanari parcatutia ta arerijuagaz leen bai-
 830 sen adisquide izatia. Ugazabac ez dau beinguan echian ostera artzeen, sari
 dongaro portau jacon crijauba. Erregue batec ez bere palacijoti, ece⁷³ erreñuti
 bere laster quentceen dau edo urcatuten dau bere contra cerbait eguin daven
 personia. [83] Jangoicua da gauza onetan bere aparteco ontasuna eracusten
 835 doscuna. Pecatu mortala eguiten davenac opendietan dau Jangoicua, injurije-
 tan dau Jangoicua, desondreetan dau Jangoicua, saltceen dau Jangoicua ta
 adisquide eiten da Jangoicuaeren arerijoric andijenagaz, cein dan diabrubu. ¿Ta
 cer eguiten dau, bada, Jangoicuac alaco cristinau esquer chaarrecuagaz?
 Cristinauba bere gaisqui eguinagaz garbatuten danian, parcatcen deutsa
 Jangoicuac pecatuba ta gueratuten da leen baisen adisquide. Cristinaubac
 840 pecatu mortalagaz asarratuta euqui arren Jangoicua, esaten badeutsa vijotz
 osuagaz eta damu eguijazcuagaz: *pecatu eguin dot, Jauna; damu dot, Jauna;*
parcatu, Jauna; misericordija nigaz, Jauna; ez dot ostera eguingo, Jauna; con -
*peseetan dot, Jauna, neure pecatuba*⁷⁴. Au esanagaz ta eguinagaz batera aaztu-

822 auberau *Esk* | eguitendaven *Esk* 823 onguztiac *Esk* | emotendeutzazan *Esk*
 825 emotendeutzan *Esk* | Amaudaigun *Esk* 830 ezdaubeinguan *Esk* 832 quentceendau,
 edo urcatutendau *Esk* | berecontra *Esk* | eguindaven *Esk* 833 Jangoicuada *Esk* 834-
 835 injurijetandau *Esk* 835 saltceendau *Esk* 836 eitenda *Esk* 837 cereguitendau *Esk* 839
 gueratutenda *Esk* 840 pecatumortalagaz *Esk* | euquiarren *Esk* 841 damudot *Esk* 842
 ezdot *Esk* 843-844 aaztutenda *Esk*

⁷² Gainerako liburuetan beti *edan, edana...* Hemen, gaur egun Markina aldean entzuten den bezala. Bestalde, Bizkaiko mendebaldean bezala, *eraa ten* eta ez *eratera*; forma normala hau da gure idazlearengan.

⁷³ Elkarrengandik urrundurik datoz *ez (...)* eta *ece*; (palaziotik ez-eze erreinutik ere... esango genuke gaur).

⁷⁴ Ik. Lk 15,17-21... (Aitortzako sakramentuan ere honelako hitz eta pentsamenduak jasotzen dira).

ten da Jangoicua pecatarijac eguin deutzazan injuriya ta desondra guztiequin, ta artcen dau bere echian, bere palacijuan, bere maijan ta bere onduan pecatari- 845
ja a, secula ta beti bere adisquide andija izan balitz leez.

¡Oh, neure Jangoico ona ta parcatuteco presta! ¡Noc amauco ez ditu ceure erraija bigunac [84] eta misericordijazcuac? ¡Noc bere vijotza urtucó ez dau, neure Jesus maitia, ceure amodijuagaz, ceure vijotz amodijozcuari, carinosuari ta parcazalliar beguiratu ezquero? ¡Oh, cristinaubac, nos asico gara Jangoico 850
parcazalle ona ameeetan! ¡Oh, Marija Madalena⁷⁵, David erreguia⁷⁶, san Pablo apostoluba⁷⁷ ta san Agustin dichosua!⁷⁸ ¡Cer esango cenduque zubez Jangoicuaren vijotz biguna ta parcatuteco presta gaiti? Berandu asi nas, jauna, ceu ameeetan, esango leuquee ta ondo damututa nago, leenago ceu amau eza. ¡Oh, Teresa gorputzezco serapina!⁷⁹ ¡Cer dinozu, ceure vijotzian cabidu ezin 855
dozun Jesusen amodijo sutsuba gaiti? Aingueru batec suzco ezpatiagaz edegui biar dotsula ceure vijotza, Jesusen amodijuaren suba nasaitu daquizun (61). Beste ainbeste esan biar dogu, bada, geuc bere, neure cristinaubac. Acordau gaitzean ceinbat bidar pecatu eguin dogun ta sinistu daigun beste ainbeste bidar Jangoicuac etara gaitubala inpernuti. Bada, ez da mesede chiquijaua 860
pecatu mortal bat parcatutia, inpernuti etaratia baño. Ta ez dau Jangoicuac injuriyac parcatuteco denpora luceric biar. Pecatu eguin daveneti ordu lauren barru biurtuten bada Jangoicuagana, esan dan leez, bertati parcatcen deutsa [85] Jangoicuac pecatarijari, ta aaztuten da betico pecatarijac eguin deutzazan gach guztiequin. Amau daigun bada, cristinaubac, Jangoico parcazalle ona; ez 865
daigun ecetan bere ausi bere legue santuba ta euquico dogu ceruban eternidadeco gloriya. Amen.

(61) Cap. 29 de su *Vida*.

844 eguindeutzazan *Esk* 847 ezditu *Esk* 848 ezdau *Esk* 853 asinas *Esk* 854 esango-leuquee *Esk* 855 cerdinozu *Esk* 855-856 ezindozun *Esk* 857 biardotsula *Esk* 858 esan-biardogu *Esk* 858-859 Acordaudaigun *Esk* 859 sinistudaigun *Esk* 860 ezda *Esk* 861 mortalbat *Esk* | ezdau *Esk* 862 eguindaveneti *Esk* 863 esandanleez *Esk* 864 aaztutenda *Esk* 865 Amaudaigunbada *Esk*

⁷⁵ Maria Madalena, Ik. *Euscal-errijetaco...* 73.oharra (484.or.).

⁷⁶ Dabid erregea, Jaunaren barkamena hartzen: 2Sm 12,13; 2Sm 24,16; 1Kro 21,15, etab.

⁷⁷ S.Paulo, Ik. *Euscal-errijetaco...* 71.oharra (484.or.).

⁷⁸ S.Agustin, Ik. *Euscal-errijetaco...* 69.oharra (483.or.).

⁷⁹ SANTA TERESA, *Vida* 29,13. Hark "Querubines" dio, eta ez, Frai Bartolomek bezala, "serafines"; dena dela, Bññez teologoak Santaren eskuizkribua zuzendu egin zuen, orriaren ertzean "Serafines" idatzirik.

LELENGO MANDAMENTUBAREN SEIGARREN LECINOIA,

870 ceñetan eracusten dan

*Jangoicua dala adisquide biguna,
carinosua, guztien eracua ta beticua.*

Jangoicuc euqui arren esan dirian ontasun guztiac gueuc ameeaco; beste gauzaac baño gueijago beraren anditasuna; oraindino balitz aren divina
875 Magestadia bera ameeatan daveenentzaco asarria, gogorra, zitala, itzalsuba edo
inoc beragaz iraun [86] ecin daven genijo chaarrecua, ez lituquez paltaco cris-
tinaubac achequijaac Jangoicuari ichita munduco gustuac ameeaco. Baña cris-
tinaubac topau ta asmau leizan achequija guztiac atia ichita dauquee, ta nai ta
880 nai ez davela bere conpesau biar dau Jangoicua dala adisquide guztiz acabau-
ba ta guztiz maitegarrija. *Jangoicua da adisquide biguna, adisquide carinosua,
guztien eraraco adisquidia ta betico adisquidia.*

I.

Jangoicua adisquide biguna ta carinosua da. Ta izan leitequienic bigunee-
na ta carinosuena. Ezaututeco ce erraija bigunac eta vijotz maitia daucan
885 Jangoicuc bera ameeatan davenarenzat, ez dago beguiratu baño celan portee-
tan dan bere adisquideequin. Ama on batec alaba bacar bat ezin artu lei vijotz
bigunauagaz ta maitetasun andijauagaz, ceinda Jangoicuc artceen dituban ta
trateetan dituban bere adisquidiac. Ez bacarric ceruban beragaz daucazanac;
baita munduban bera serbietan daveenac eta bere gracijan daucazanac bere.
890 Iracurri bitez Espiritu Santubac Salomonen aoti arima justubari esaten deutsa-
zan cantaac, ta an topauco dau vijotz bigun batec desiau leijan gozotasun, dul-
tzura, carino ta amodijo guztia⁸⁰.

876 iraunecindaven *Esk* | ezlitequez *Esk* 879 ezdavela *Esk* | biardau *Esk* 885
davenarenzat] davenarenzan *Esk* | ezdago beguiratubaño *Esk* 885-886 porteetandan *Esk*
886 artulei *Esk* 887 ceinda *Esk* 890 Iracurribitez *Esk*

⁸⁰ *Kanturik Ederrena* -z ari da... ustez Salomonena den liburua. Kt 4,7 ("Guztiz ederra zara, ene laztana, ederra eta akatsik gabea!"); Kt 2,4; Kt 2,16 ("nire maitea eta ni harena, lilizainarena"), etab. Frai Bartolomek Cornelius a Lapide-k dioena (*Commentarius in Canticum Canticorum...*, Lugduni, 1732, 1.or.) agertzen duela dirudi... Frai Bartolomek ongi ezagutzen zuen Jainko maite

[87] Batzubetan esaten deutsa Jangoicuac arima justubari edo bera amee-
 tavenari: *Neure esposa eguijazcua; Neure alaba maitia; Neure arreba esti -*
mauba; Neure uso ederra ta beste onaco amodijo utsezco berbaac⁸¹. Beste ba- 895
 tzubetan esaten deutsa: Jagui zaite laster, neure maitia ta erdu⁸² guazan ortura
 lorac batceera. Neguco otzac irago dira, zozuac eta virigarruac cantetan asi
 dira; erdu neure maitia, laster guazan ibiltera⁸³. Beste batzubetan esaten deutsa
 Jangoicuac bere adisquidiari: Jagui zaite ta erdu neugaz ardao gozoz beteta 900
 dauan upatei edo bodega batera, jan eizu ta eraizu, neure maitia, naicua eguin
 artian⁸⁴. Beste batzubetan convideetan dau bere palacijora edo guelara beragaz
 erregalubac partietara⁸⁵. Baña ¿cer gueijago? Arrituta gueratuten dira, neure en-
 tzula onac, Elesaco santubac, Jangoicuac bera amee- tavenari daveenequin dauca-
 carinua ta vijotz biguna penseetan daveenian. Berac Escritura Sagraduban era-
 custen doscun maitetasun guztia esan bere ecin lei (62). Bada, guztia ez dau- 905
 quee estamangu bardina ta espiritu zuzena, amodijo ta carino utsezco
 Jangoicuaren cantac, Salomonec dacazan moduban, aituteco. Orregaiti esaten
 dau san Geronimoc ogueta amar [88] urtera eldu bagacuac ez ditubala iracurri
 biar canta areec⁸⁶. Ta san Gregorijoc gorputza ondo domauta, vijotza ta belaa-
 rrijac ondo garbituta dauqueezan arimaac baño bestec ez ditubala ez iracurri 910

 (62) In Cant. Cant.

893-894 amee- tavenari *Esk* 896 esatendeutsa: Jaguizaite *Esk* 899 Jaguizaite *Esk* 900
 janeizu *Esk* 900-901 eguinartian *Esk* 901 convideetandau *Esk* 902 gueratutendira *Esk* 904
 penseetandaveenian *Esk* 905-906 ezdaunquee *Esk* 908 ezditubala iracurribiar *Esk*

minduaren mintzaera, Joan Gurutzekoaren *Cántico Espiritual* liburutik, hor Bibliako *Kanturik Ederrena*-ren giro amodiozkoa biziki jasotzen baita; era berean ezaguna zitzaien Santa Teresaren iruzkina ere, *Meditaciones sobre los Cantares* deritzona...

⁸¹ Ik. Kt 2,10; 4,8-10; 5,1-2...

⁸² Liburu honetan agertzen da soilik "erdu" hitza, bizkaieraz hain normala dena.

⁸³ Ik. Kt 2,10-13...

⁸⁴ Ik. Kt 2,4; 7,9...

⁸⁵ Ik. Kt. 2,4. Frai Bartolomek, batzuetan, hitz-oldeka adierazten ditu esan beharrekoak; beste batzuetan, adierazi behar dituen pentsamenduen barnetik, sinonimoak eta baliokideak jarraian emanez; esaterako, hemen, palazio, gela etab dakartza.

⁸⁶ Ideia hau Frai Bartolomek ongi ezagutzen zuen liburuan dator: CORNELIUS A LAPIDE, *Commentarius in Canticum Canticorum...*, Lugduni, 1732, [VI.]or.: ideia hau dator: israeldarrek ezin zutela liburu hau irakurri 30 urte bete arte, Origenesek eta Jeronimok diotenez, apaiz-adina hori baitzen, eta S. Jeronimoren *Praefat. in Ezech.* liburu aipatzen da bertan; egia esan, San Jeronimoren "Commentaria in Ezechielem" (Lib. I, cap. 1) liburuan badator halako zerbait, baina ez da gauza bera, hemen, 30 urte adinik hoberena dela esaten baita, hau da, apaizek santutegian euren kargua betetzen hasten ziren adina (PL, Migne, 25, 17)

ta ez entzun biar (63). Ene ama santa Teresac dino orraitino bere, ascoc pro-
 vechu andija etara daveela Salomonen cantaac iracurrita, pensaubagaz
 Jangoicuaren amodijo neurri bagacua (64). Pensau ecin lei casic inoc bere
 915 ondo Jangoicuaren maitetasun guztizcua, beraren amodijuac beguijetati negar
 eraguin bagaric. Ez dau secula munduban inoc inor serbidu, ez esposoc espo-
 saric, ez amac alabaric, ez semec aitaric ain berba gozuequin, ain vijotz bigu-
 nagaz ta ain vorondate maitiagaz, ceinda Jangoicuac serbietan dituban bere
 adisquidiac.

920 Jangoicuaren biguntasun ta carino guztizco au ez davee aituten ta ez davee
 aituco bere, munduco gauceetan euren gogua, pensamentuba eta amodijua
 iminita dauqueenac. Munduco ondria, estimacinoia, entzutia, aberastutia, vani-
 dadia, janac, eranac, jocuac, ibilte nasaiac, olgueta pelle-[89]buruzcuac ta gor-
 putzaren gustuac eta atseguinac ameeetan dirian artian, desietan dirian artian;
 925 onaco gauceetati, dinot, gueure vijotza ta gogua aparteetan ez dogun artian, ez
 dogu jaquingo ce biguna ta gozua dan Jangoicua bere adisquidentzaco.
 Munduco ecer bere balijo ez daveen gauza oneetati apartauta, bene benetan
 Jangoicua serbietan ta ameeetan asten danac, laster probauco dau ce biguna ta
 carinosua dan Jangoicua. Ez nas espanteetan ene ama santa Teresa bat, san
 930 Agustin bat, santa Marija Madalena bat, san Ignazio Loiolaco bat eta beste santu
 ta santa asco icusten ditudanian Jangocuaren amodijo sutsubagaz, casic ordi-
 tuta edo zoratuta leez. Bada, ceinbat eurac gueijago ameeetan even Jangoicua,
 ainbat topeetan even laubago, carinosuago ta bigunago; ta desietan even
 munduban gueijago ta gueijago padecietia Jangoicuaren icenian edo iltia, las-
 935 ter Jangoico ona guztiz goceetara juateco. ¡Oh ce guichi estimeetan citubeen
 arima dichoso areec munduco gustuac! Amau daigun bada, neure cristinaubac,
 gueure Jangoico ona neurri bagaric. Jaso daiguzan gueure beguijac nos edo
 nos luurreco [90] gustuetati, ta ezautuco dogu guc bere ce adisquide biguna ta
 carinosua dan gueure Jangoicua.

940 -----
 (63) In Cant. Ser. 1. n. 3. (64) En los *Concept. de amor*, c. 1.

912 orraitinobere *Esk* 917 Ezdau *Esk* 920 ezdavee *Esk* | ezdavee *Esk* 925-926
 ezdogun artian, ezdogu *Esk* 926 cebiguna *Esk* 927 ecerbere | ezdaveen *Esk* |
 benebenetan *Esk* 928 cebiguna *Esk* 929 Eznas *Esk* 931 icustenditudanian *Esk* 936
 Amaudaigun *Esk* 937 Jaso daiguzan] Jatsodaiguzan *Esk*

II.

Jangoicua da guztien eraco adisquidia. Beto munduban dagozan ta izan dirian guizon ta emacume guztia ta esan beije celaco adisquidia nai daveen, edo ce condecinoetacua gusteean jacuen ta guztia topauco davee Jangoicuagan. Batzuc eurenez dira tristiciac; ta adisquidiac bere tristiciac gura ditubee. Beste batzuc eureenez dira alegueriac; ta alegueriac gura ditube lagunzat bere. Gacha edo penia daucanac bere najjago dau berba eiteco lagunzat, leenago gachac eta trabajubac irago ditubana edo daucazana, beste gacheen barri ez daquijen edo penaric ez daucan bat baño. Onacuac obeto alcar aituten davee, obeto alcarri sinistuten deutsee ta gueijago alcarregaz erruquitu bere eiten dira. Aberatsac bere beste aberats bat najjago dau adisquidezat, pobria baño. Andiquijac andiquija, pobriac pobria ta alan beste condecinoetacuac. Ta ez au beste gauzagaiti, ezpada bacoachac bere idiagaz⁸⁷ libertade gueijago daucalaco edocer gauza esateco edo eguiteco. Pena bagaric bere ide bati conteetan jacoz noberaren gauzaac, [91] onac edo chaarrac, ta luzaro alcarregaz egon arren bere, nequezago canseetan dira. Ta balira guizon ta emacume guztia onaco condecinoietan bardinac, guztia alcar amauco leuquee.

Ara bada, cristinaubac, Jangoicua guztien eraco adisquidia. Beguiratu beijo nai davenac naijen daven moduban, ta alanche topauco dau. Adisquide tristia nai davenac, triste topauco dau Jesus, bere Jauna ta Jangoicua; bai Jesemanico ortuban odolezco icerdija darijola⁸⁸; bai Anasen echian belaar[r]ondoco andijac emoten deutseezala⁸⁹; bai Caipasen echian paltso testimonijuac ezarten deutseezala, chistu urtica, ule tiraca⁹⁰... eiten deutseeela; bai Pilatosen echian pillar bati lotuta azoteetan daveela ta buruba arantzaz jarten deutseeela⁹¹; bai Calbarijora bidian curutzia lepuan davela; ta bai curutzian josita dauala⁹². Adisquide alegueria nai davenac, aleguere topauco dau Jesus, bai Taborco mendijan⁹³, bai

943 naidaveen *Esk* 947 najjagodau *Esk* 949 ezdaquijen *Esk* | ezdaucan *Esk* 949-950 aitutendavee *Esk* 952 alan *baina* n *ler.art.* 954 Penabagaric *Esk* 959 naidavenac, najjendaven *Esk* 960 naidavenac *Esk* 963 uletiraca... eitendeutseeela *Esk* 966 naidavenac *Esk*

⁸⁷ Frai Bartolomek forma honetan darabil beti hitz hau; haren ide gure *kide* / *kidekada*; lerro bat beherago, "*Pena bagaric bere ide bati conteetan jacoz noberaren gauzaac*" dator.

⁸⁸ Ik. Mt 26,36-46 (Mk 14,32-42; Lk 22,39-46).

⁸⁹ Ik. Jn 18,13.22-24.

⁹⁰ Ik. Mt 26,59-68; Mk 14,65.

⁹¹ Ik. Mt 27,26 "Jesus, zigorkarazi ondoren"...; Lk 23,22; Jn 19,1. Frai Bartolomek Jesus nola zigorkatu zuten agertzen digu hemen, eta ikonografian ageri denez, hark dioen bezala, zutabe bati loturik zigorkatu ere (ik. C. SCHWEICHER, *Geisselung Christi*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 2.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 127-130).

⁹² Ik. Jn 19,16-18; Mt 27,35; Mk 15,24; Lk 23,33.

⁹³ Ik. Mt 17,1-9; Mk 9,2-13; Lk 9,28-36.

ilen arteti viztu edo erresucitetan danian, bai Ama Virginiagaz ta apostolubequin berrogei egunian viztuta guero munduban davilenian⁹⁴, bai Asencinoe egunian ainguerubequin⁹⁵ cerubetara igoten davenian ta bai ceruban dauan lecuban.

970 [92] Nai badau penazco adisquidia, penazcua topauco dau Jesus ogueta amairu urtian. Bada, Aita Fr. Tome Jesusenac⁹⁶ dinuan leez (65), Ama Virginiaren sabelian sortu zaneti curutzian il zan arte guztian, beti penaz vizi izan zan Jesus. Ta ez dau inoc iragoco penaric, desondraric edo trabajuric, Jesusec leenago gueu gaiti irago ez evanic. Nai badau adisquide noblia ta entzute andicua,

975 Jesus da guztien artian nobleena ta pamaric oneenecua. Erregue guztien Erreguia ta jaun guztien Jauna da bere Aita, cein dan Aita Eternua. Abraan, Isaac, Jacob, David ta beste patriarca ta erregue andijen alabia da bere Ama, cein dan Marija Virginia. ¿Bago andiqui andijagoric edo caballero nausijagoric?

Nai badau adisquide aberatsa, Jesus baño abertsaaagoric ez dau topauco.

980 Bada, esanda guertu da, ondasun guztiac beriac ditubana. Nai badau lotsia ta errespetua dauan adisquidia, Jesusec dauca andijena. Bada, berba bategaz luurrera ezarten⁹⁷ ditu bera preso artceera duazan Judas ta soldaubac⁹⁸; beguiracune bategaz iminten dau [93] san Pedro negarrez⁹⁹; vizi dan arte guztian ta bere vorondateco *nai* bategaz erabilten ditu cerubac eta luurrac gura daven

985 (65) Tom. 1, c. 1. de los trab. de Jesús.

969 igotendavenian *Esk* 970 Naibadau *Esk* | topaucodau *Esk* 972 sortuzaneti *Esk* | ilzan *Esk* 973 ezdau *Esk* 974 gueugaiti *Esk* 978 ceindan *Esk* 979 ezdau *Esk* 980 guerratuda *Esk* 982 arteceraduazan *Esk* 983 imintendau *Esk* | vizidan *Esk* 984 erabilten-ditu *Esk* | guradaven *Esk*

⁹⁴ Frai Bartolomek orokorki hitz egiten du eta berari normalena iruditzen zitzaiona esaten du; baina ebanjelioetan ez da esaten Ama Birjinari agertu zitzaionik; bai, ostera, Maria Magdalenari (Mt 28,1-10; Mk 16,1-8; Lk 24,1-12; Jn 20,1-10), eta apostoluei agertu zitzaiona (Mk 16,12-13; Lk 24,36-49; Jn 20,19-27; 21,1-25).

⁹⁵ Ik. Mt 28,16-20; Mk 16,14-19; Lk 24,50-53; Eg 1,6-11.

⁹⁶ Fray Tomás Sánchez Dávila y Herrera, Baeza-n (Jaén) jaio zen 1564an. 1583an Salamankara joan zen zuzenbideko ikasketak egitera. Karmeldar sartu zen Valladolid-en, 1587an profesa eginenez. Karmeldarren lehenengo basamortua eraiki zuen, Bolarque-n 1593an. Espainiako karmeldarren artean kargu handiak izan ondoren, Aita Santuaren erabakiz, Italiara joan zen 1607an. 1610an Frantziara eta Flandesera jo zuen han Karmeldar teresiarren komentuak eraikitzen. Erroman hil zen 1627-V-24an. (Ik. MHC 8,569-604; *Reforma* 4,675-705); A.Tomasen bizitza laburra eta batez ere hark argitaratutako idazlanen eta haren eskuizkribuen bibliografia osoa obra honetan ikus daiteke: JOSÉ DE JESÚS CRUCIFICADO, *El P. Tomás de Jesús, escritor místico* (excerpta ex dissertatione ad lauream). Roma, 1951. Hala ere, Frai Bartolomek aipatutako idazkia (*De los trab. de Jesús*) ez dago A.Tomas Jesusenaren idazlanen artean...

⁹⁷ *Lurrera ezarri* esamoldea darabil, lurrera egotzi edo bota adierazteko.

⁹⁸ Ik. Mt 26,47; Mk 14,43-44; Lk 22,47; Jn 18,3.

⁹⁹ Ik. Mt 26,75; Mk 14,72; Lk 22,62.

moduban. Nai badau adisquide gaztia, Jesus topauco dau gaztia; nai badau zaarra, topauco dau zaarra; nai daven edadecua; bada, esanda gueratu da leen, oan, guero ta beti modu baten dauala Jangoicua. Nai badau adisquide pobria, pobria edo pobretuba topauco dau Jesus. Beguiratu beijo, celan davilen san Josepegaz ta Ama Virginiagaz, Belenen ostatuba topau ecinda¹⁰⁰, jaijo biar daven gavian. Beguiratu beijo ce lecu pobria daucan jaijoteco: corta bat, asca bat ta alemanija bi¹⁰¹. Beguiratu beijo celan jantzita davilen; jantzi bat baño ez euan euqui bere denpora guztian; a bere quendu eutseen azoteetaco ta curutzian josteco¹⁰². Ill zanian bere, limosnaz emon eutseen izara bat bere gorpuz divinu meztituteco¹⁰³. Beguiratu beijo azquenian Jesuseri, altaraco sacramentu santuban dauan lecuban, ta an bere ondo pobria topauco dau Jesus ogui pusca baten ichuraan; ta ascotan corporal zaar ta loijen gañian daucala bere gorputz eta arpegui ederra. ¿Cer gueijago [94] escatu guinaijo bada, neure entzula onac, Jesus onari, gueure vijotz guztia berari ez emoteco? Izango ete da galduco ete dogun bildurra gaiti?

III.

¡Oh neure cristinaubac! Ez. Jangoicua ez da gueugaz cansauco, gueu bera ameeetan canseetan ez bagara. Ez da gueuri ichita bigar edo etzi beste bategana juango, gueu berari ichita juaten ezpagara, luurreco gauzaac ameeetara. Esanda gueratu da, Jangoicua mudeetan ez dana. Secula ta beti Jangoicua bardin izango da. Bardin ameeetan daveenentzat ta bardin ameeetan ez daveenentzat. Beti bardin amauco ditu Jangoicuac, bera serbietan daveenac; ta beti bardin castigauco ditu bera serbidu bagaric dagozanac.

Vijotz guztiagaz ta gogo guztiagaz ameeetan davenarenzaco da Jangoicua adisquide jaquituna, adisquide zuzena, adisquide aberatsa, adisquide lauba; adisquide andija, adisquide sendua, adisquide pirmia, adisquide emonzallia, adisquide parcazallia, adisquide gracijosua, adisquide carinosua, guztiac [95]

986 Naibadau *Esk* | topaucodau *Esk* | naibadau *Esk* 987 topaucodau *Esk* | naidaven *Esk* | gueratuda *Esk* 988 modubatendaua *Esk* | Naibadau *Esk* 989 topaucodau *Esk* | celandavilen *Esk* 990 topauecinda *Esk* 990-991 biardaven *Esk* 991 celecu *Esk* 991-992 cortabat, ascabat *Esk* 992-993 jantzibat baño ezevan *Esk* 994 Illzanian *Esk* | beregorputz 995 Jesuseri| Jesusari *Esk* 996 anbere *Esk* 996-997 puscabat *Esk* 999 eteda *Esk* 999-1000 etedogun bildurragaiti *Esk* 1002 Ezda *Esk* 1003 ezbagara. Ezda *Esk* 1005 gueratuda *Esk* | ezdana *Esk* 1006 ameeetanezdaveenentzat *Esk*

¹⁰⁰ Ik. Lk 2,6-7.

¹⁰¹ "Eta abere-aska batean ezarri zuen" (Ik. Lk 2,7). Frai Bartolomek, irudimenari bidea irekita, tradizioko kontakizun zehatza eta historian zehar ikonografiak agertzen duen irudia ematen du...

¹⁰² Ik. Mt 27,28; Mk 15,20; Jn 19,23-24.

¹⁰³ Ik. Mt 27,59; Mk 15,46; Lk 23,53; Jn 19,40.

nai daveen moduco adisquidia ta betico adisquidia; Jangoico guztia gueuria (66). Ta ameean ezpadogu Jangoicua, bere asarria, gorrotua, vengancia, itzala ta betico inpernucosuba ta tormentuba guztia gueuria.

1015 ¿Cer esan lei, bada, oan cristinaubac, au guztiau pensauta, sinistuta bere, pecatu mortalian dauan triste errucarrija gati? ¿Esango da alaco cristinauba zorua dala, ala itsuba dala, ala guistua dala, ala pede bagacua dala? Ez da errez, eguija esateco, pecatu mortalian Jangoicuaren gorrotuan dauanari toqueetan

1020 jacon izena emoten. Esan daquijola, bada, san Pablo apostolubac esaten deusana (67): *Jesu Cristo gueure Jauna, Jangoico ta guizon eguijazcua, ameean ez davena izan della madaricatuba, izan della escomulgauba, izan della eterni - dade guztian condenauba*¹⁰⁴. Eta guc pensau daiguzan sarri ta astiro Jangoicuac daucazan ontasun eta prenda maitegarriac. Eurac obligauco gaitubee, casic nai ta nai ez dogula bere, Jesus divinua vijotz guztiagaz, arima guztiagaz eta poz andijagaz ameeata, beste luurreco gauza guztiac baño gueijago. [96] Ta berau da asco gu eternidade guztian ceruban dichoso izateco. Aitiaren¹⁰⁵, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

(66) Gen. c. 15. (67) 1. ad Corinth. c. 16.

1013 naidaveen *Esk* 1016 leibada *Esk* | auguztiau *Esk* 1017 errucarrijagaiti *Esk* 1018 zoruadala *Esk* | itsubadala *Esk* | Ezdaerrez *Esk* 1020 Esandaquijola *Esk* | esaten-deusana *Esk* 1021-1022 ezdavena, izandella *Esk* 1022 izandella *Esk* | izandella *Esk* 1023 pensaudaiguzan *Esk* 1025 ezdogulabere *Esk* 1026 pozandijagaz *Esk* | besteluurreco *Esk* | gueijago *baina e ler.art.* 1027 Taberau *Esk* 1029 Corinth.] Chorint. *Esk*

¹⁰⁴ Iko 16,21: "Madarikatua Jauna maite ez duena! Marana tha! (Zatoz, Jauna!)". Hauxe da bere aipamenean parafraisi gisa ematen duen testua.

¹⁰⁵ Honelako testuinguru guztietan, era mugatuan *-ia* eginez deklinatzen du; *Aitiaren* eta ez *Aitaren*...

ceñetan eracusten dan
gueure burubac celan amau biar ditugun,
ta gueure projimuac nortzuc dirian.

Esanda gueratu da, neure entzula onac, lelengo mandamentu santubac 1035
celan aguinduten doscun Jangoicua ameataco beste gauza guztiac baño guei-
jago; baita imini bere eguin dira iraitzian leez, edocein bere cristinauc, cein
asco daquijenac ta cein guichi daquijenac chito errazto ezautu leizan pensa-
men-[97]tubac, pocic eta gustoz gueure Jangoicua amau eraiten daveenac.

Onen ondoric Jesucristo gueure Jaunac esaten doscu (68) bigarren lecu- 1040
ban, gueure projimuac ameataco, gueure buruba leez. Pensau dot, bada, ondo
izango dala mandamentu onetan eracustia cristinaubac bere burubari ta proj-
muari zor deutsan amodijua, bostgarreneraco ichi bagaric. Projimua ameataco
daucagun obligacinoia chito andija da. Bada, san Pablo apostolubac dinuan
leez, adulterijoric ez eguitia, ecer ez ostutia, inor ez iltia, paltso testimonijoric 1045
ez ezartia ta beste leguiac aguinduten daven guztia encerreetan da berba one-
etan: *Amauco dozu ceure projimua ceure buruba leez*¹⁰⁶. Cristinaubac projimua
ameataco bere buruba leez, jaquin biar dau lelengo bere buruba celan amau
biar daven. Ascoc usteco davee baquijeela eureen burubac ameeetan. Baña
pusca bat examineetan bada, ez daquijee euren burubac ameeetan, ezpada 1050
euren gorputzac ameeetan. Ta ez da au Jesucristoc aguinduten doscuna. Esango
dot, bada, dotrina onetan, celan cristinaubac bere buruba [98] amau biar daven,
ta ceintzuc dirian gueure projimuac.

(68) S. Math. c. 19.

1032 eracustendan *Esk* 1033 amaubiarditugun *Esk* 1035 gueratuda *Esk* 1036 aguindi-
tendoscun *Esk* 1037 eguindira *Esk* | edoceinbere *Esk* 1039 amaueraiten *Esk* 1043 zor-
deutsan *Esk* 1045 ezeguitia *Esk* 1046 aguindutendaven guztia encerreetanda *Esk* 1048
jaquinbiardau *Esk* | amaubiardaven *Esk* 1049 ustecodavee *Esk* | puscabat *Esk* 1050
ezdaqijee *Esk* 1051-1052 Esangodot *Esk* 1052 biardaven *Esk*

¹⁰⁶ Ik. Erm 13, 9.

1055

I.

Cristinaubac amau biar dau bere buruba Jangoicua gaiti. Esan gura neuque, cristinaubac bere burubaari deutsan amodijua ordenau biar deutsala Jangoicuari. Bada, cristinaubac daucan guztia, arimia, entendimentuba, vorondatia, jaquiturija, osasuna, cleituba, ichuria, icustia, entzutia... guztia da
 1060 Jangoicuac duaric emona. Ta orregaiti dan guztia ta daucan guztia cristinaubac ordenau biar deutsa Jangoicuari. Amau biar dau bere buruba Jangoicua gaiti ta Jangoicua serbietaco. Beste noberaren burubarentzaco cristinaubac daucan amodijua ez da amodijua, ezpada gorrotua Jangoicuaren aurrian. ¡Oh, cenbat cristinau dagozan euren buruben gorrotuan vizi dirianac! Gorputzari naijac
 1065 eitia, erregalubac emotia, ondo apaindutia; icusgarrijac beguijai, entzungarrijac belarrijai, esangarrijac miinari, gauza leunac araguijari, gozuac eta dultziac auari ta sabelari, vanidadia, estimacinoia ta pamia buruco aixe arruari; dinot, cristinaubac, gauza oneec bilatutia ta nai izatia bere burubarentzaco ez da noberaren buruba ameeitia, ezpada bere burubari gorroto izatia. Jangoicuac
 1070 aguindu baleu modu onetan [99] gueure burubac ameeitaco, zoruac izango cian ainbeste penitencija icaragarri eguin evene santu ta santa guztiac. Areec ez evene beste gauzaric penseetan, arimia vizi dein, gracia vizi dein ta legue santuba gorde dein, Jesusen icenian eureen gorputzai ta sentidubai aleijen¹⁰⁷ guztia padecidu eraitia baño.

1075 Amau biar dau cristinaubac bere buruba; baño Jangoicuac aguinduten daven moduban, ez araguijac escatcen daven moduban edo mundutarrac nai daveen moduban. Amau biar dau Jangoicua serbietaco, ez bere buruba serbietaco. Amau biar dau bere vizitzia, osasuna, cleituba ta Jangoicuac emon deutsan guztia; ta baita artu bere, bere buruba gordeetaco erracoe zuzenac eracusten dituban medijuac.

1080 Jangoicuaren aparteco abisu bagaric, gorputzari padecidu erain biar deutsala edo nai bat bere emon biar ez deutsala pensauta, jan bagaric, edan bagaric edo loric eguin bagaric egotia pecatu da. Munduco gacheetati aparteetaco arrabijuagaz ta ernegacinoiagaz iltia bere burubari desietia pecatu da, bostgaren rren mandamentuban esango dan leez. Gauzia aurreratutia gaiti, miserija gaiti

1056 amaubiardau *Esk* | Jangoicuagaiti. Esanguraneuque *Esk* 1057 biardeutsala *Esk* 1058 daucanguztia *Esk* 1060 danguztia, ta daucanguztia *Esk* 1061 ordenaubiardeutsa *Esk* | Amaubiardau *Esk* 1064 vizidirianac *Esk* 1067 pamia zuzen. | aixe] aitse *Esk* 1068 tanaiizatia *Esk* | ezda *Esk* 1070 aguindubaleu *Esk* | izangocian *Esk* 1075 biardau *Esk* 1076 ezaraguijac *Esk* 1076-1077 naidaveen *Esk* 1077 Amaubiardau *Esk* 1078 Amaubiardau *Esk* 1078-1079 emondeutsan *Esk* 1079 artubere *Esk* 1081 abisubagaric *Esk* | biardeutsala *Esk* 1082 emonbiarezdeutsala *Esk* 1083 pecatuda *Esk* 1085 aurreratutiagaiti, miserijagaiti *Esk*

¹⁰⁷ Loturik idazten du / bakarrarekin *aleijen* (al leijen)...

edo guztia paltauco ete jacon bildurra gaiti, gosia padecietia [100] ta aberatstutia gaiti gau ta egun arrastaca barautsa darijola osasuna galtceia pecatu da. Ez dau eiten Jangoicuaren amodijua gaiti, ezda bere burubaren amodijua gaiti bere, ezpada edo ondasunac gaiti, edo vanidadia gaiti, edo zequenquerija gaiti. Onaco cristinaubac gaiti esaten da *diabrubaren martirijac diriala*. 1090

Jangoicua gaiti ta arimiaren ona gaiti pena chiqui bat iragoteco gogoric ez dauquee cristinau ascoc; baru bat etara biar badabee, larrituten dira; ta beste aldeti egunian egunian gorputzari padecidu eraiten deutsee munduba gaiti, vanidadia gaiti ta codicija gaiti. Oneec diabrubarenzat padecietan daveena, gauza jaquina da. Batzuc Jangoicua balitz leez trateetan davee euren gorputza; 1095 ta beste batzuc, codijijaren ta vanidadiaren crijau sobrau bat balitz leez. Oneen bijoon erdijan dago guere burubari zor deutsagun amodijua. Ta da, gueure buruba estimateia ta ameeia osasuneco ta cleituco gauceetan ta gorputzaren erruqui bagaric Jangoicuaren leguia gordeetia. Emeti ezaututen da cegaiti eta celan amau biar ditugun guere projimuac. Baña leenago da oneec ceintzuc 1100 dirian jaquitia.

[101]

II.

Munduban dagozan guizon eta emacume guztijac dira, neure entzula onac, gueure projimuac: cristinau dirianac, ereje dirianac, judegubac, moruac eta gentilac, arimia ta gorputza dauqueen guztjac, cein urrecuac, cein urrinecuac, 1105 cein adisquidiac, cein arerijuac, guztjac dira gueure projimuac. Ara emen san Agustinen berbaac. Adan eta Evaganic datoza guztjac, dino Santubac (69), dira zure projimuac. Guztjac gara bata bestiaren projimuac, baña ez guztic modu baten, ceruraco esperantziari beguiratu ezquero. Cristinaubac izan ez arren, zeure projimuac dira, bada ez daquizu Jangoicuaren aurrian cer jazoten 1110 dan. Ascotan zuc, cristinauba ez dalaco, burla eguiten deutzazuna, biurtuten da Jangoicuagana ta ameeetan dau, serbieten dau ta adoreetan dau Jangoicua, menturaz zuc baño obeto. Bagoz cristinau ez dirianen artian bere cristinau dirianac, guc jaquin ez arren nortzuc eta ceinbat dirian. Jangoicuaren aurrian

(69) Psalm. 25. Enarrat 2.

1115

1086 etejacon bildurragaiti *Esk* 1087 barautsa *baina* u *ler.art. Esk* 1087-1088 Ezdau *Esk* 1088 amodijuagaiti *Esk* | amodijuagaiti *Esk* 1090 esatenda *Esk* 1091 Jangoicuagaiti *Esk* | onagaiti *Esk* 1091-1092 ezdauquee *Esk* 1092 barubat etarabiar *Esk* 1093-1094 mundubagaiti, vanidadiagaiti *Esk* 1094 padecietandaveena *Esk* 1097 zordeutsagun *Esk* 1099 erruquibagaric *Esk* | Jangoicuaren *Esk geh.*Jangoicuaren *baina ken* | ezaututenda *Esk* 1100 amaubiarditugun *Esk* 1109 modubaten *Esk* 1110 zeure *baina 1. e ler.art.* | ezdaquizu *Esk* 1110-1111 jazoten dan] jazotendan *Esk* 1113 ezdirianen *Esk*

cer jazoco dan ez daquigun leez, guizon eta emacume guztiac euqui biar ditugu gueure projimozat. Berba oneec guztioc san Agustinenac dira.

- Dotrina onetati ezaututen da, cristinaubac: 1^o mun-[102]duban dagozan guizon eta emacume guztiac diriala gueure projimuac, ta daucagula obligacinoia guztiac ameeataco, guero esango dan modubagaz ta ordeniagaz. 2^o Ceruban dagozan guztiac (Jangoicua apartau ezquero) dira, gueure lagunzat dagozanac, ta daucagu obligacinoia areen glorijagaz ta dicha onagaz alegreetaco, ta atseguin artececo ta eurac alabeetaco. Jangoicua ez da criaturequin bat eguiten, ta orregaiti zor deutsagu Jangoicuari amodijo gueijago, alabantza gueijago ta bildur gueijago, leen esan dan leez. 3^o Pecatu mortalian il diriala zucen ez daquigunac gaiti ondo pensau biar dogu, ondo berba eguin biar dogu ta desiau biar deutseeegu arei bere arimaco salbacinoia. Bada, guc ez daquigu nor salbeetan dan ta nor condeneetan dan. Ta illac izan arren, amau biar ditugu. 4^o Pecatu mortalian il diriala, zucen daquigunac ceintzuc dirian Escritura
- 1130 SagraDubac eta Elesa Ama santiac ainzat eracusten doscuzanac, oneec bere, dinot, amau biar ditugu moduren baten (70). Ez pecatarijac dirialaco, ez condenauta dagozalaco; ezpada Jangoicuaren criaturaac dirialaco. [103] Condenaubac dongaac dira, pecatuba dala medijo; baña eurenaz gu leezco guizon edo emacumiac dira. Jangoicuac bere ichurara eguindacuac dira, ta
- 1135 peaturic ezpaleuquee, ceruban Jangoicua alabeetan egongo litzaatequezan criaturaac dira. Eguija da, ya erremedijoric ez dauquee, ya mesederic ecin guinaijue, ya condenauta dagoz betico euren erruz, ta Jangoicuaren arerijuac dirian leez, amau biar ez ditugu; baña bai Jangoicuaren criaturaac dirialaco. Augaiti, condenabei dauqueen baño pena gueijago desietia, vengau gura izatia, edo chaartuago balegoz nai izatia, pecatu da. Onaco gauceetati aparteetaco, cristinaubac eguin biar davena da, alabau Jangoicuaren justicija, sinistu inpernuban dagozanac euren erruz dagozala, ta ichi erabatera, condenaubac ceinbat pena merecietan daven esamineetiari. 5^o Beste ainbeste esaten da diabrubic gaiti (71). Bada, diabrubic izan arren, gueuri gauza gachac desietan
- 1145 doscubeezanac ta condenau gura gaitubeenac, orraitino Jangoicuaren criaturaac dira. Ta diabrubari daucan baño pena gueijago desietia, pecadu da. [104] Jangoicuac daqui, bai condenaubac, ta bai diabrubic cetaraño pecatu eguin

(70) S.Thom., 2.2, Q. 25, a. 11. (71) Id. ibid.

1116 ezdaquigun *Esk* | euqui biarditugu *Esk* 1118 ezaututenda *Esk* 1123 ezda *Esk*
1124 zordeutsagu *Esk* 1125 ildiriala *Esk* 1126 ezdaquigunac *Esk* | pensaubiardogu *Esk*
1126-1127 eguinbiardogu, tadesiau biardeutseeegu areibere *Esk* 1127 ezdaquigu *Esk* 1128 amaubiarditugu *Esk*
1129 ildiriala *Esk* 1131 amaubiarditugu *Esk* 1133 pecatudala *Esk* 1136 ya|ija *Esk* | ezdauquee *Esk* | ya|ija *Esk* 1137 ya|ija *Esk* 1138 amaubiarezditugu *Esk*
1139 vengaugura *Esk* 1140 pecatuda *Esk* 1141 biardavena *Esk* 1143 merecietandaven *Esk* | esatenda *Esk* 1145 guragaitubeenac *Esk* 1146 penagueijago *Esk*

even, ta berac emoten deutsee, merecietan daveen penia; gueijago arei desietia, Jangoicuaren justicijari neurrija imintia da. 1150

Emen aguertuten da cristinauben arteco engaño bat chito andija ta claruba. Ez daquit, eguija esateco, celan moduztau zinaijan. Cristinauric gueijenac dauquee diabrubenzat ez daquit celaco gorroto bat ta areen pena guztijagaz bere aspertu ezin bat, dauqueen baño pena gueijago merecietan balebee leez. Ta beste aldeti cristinaubac eurac vizi dira pecatu mortalian lo gozua eiten daveela, ta bapere pecatubari gorrotoric ez deutseela. Bada, cristinaubac, diabrubac baño zuben pecatubac gorroto gueijago merecietan davee. Pecaturic ezpalego, diaburric ez leoque ta condenauric bere ez leoque. Pecatubac eguin cituban diabru, ta pecatubac eguiten ditu condenaubac. ¿Cetan dago, bada, cristinaubac, diabrubac ondo castigauta ezpalego leez, ari pena gueijago desietia ta bijen bitartian nobera pecatu mortalian sosiguz egotia? Esango dozu, au bere diabrubaren engaño dala. Diabrubaren engaño da; baño noberac nai davelaco da. 1155

[105] Diabrubac nai ez davenari, ez deutsa secula gachic eguin. Ceruban santu ta santa asco dagoz, diabrubac diriala medijo coroe andijaua ta gloriya gueijago dauqueenac. Job santubari¹⁰⁸, san Anton Abatari¹⁰⁹, san Benitori¹¹⁰, ene ama santa Teresari¹¹¹, san Ignaciori¹¹² ta beste ascori diabrubac calte eguin guraan, mesede eguin eutseen. Bada, diabrubac euren tentacinoe, persecucinoe ta astucijequin emon eutseen santubai gueijago pelietaco, gueijago padecietaco ta gueijago irabazteco ocasinoia. Ta gueuc bere beste ainbeste eguin guinai, nai baguendu. Jangoicuac ez deutsa diabrubari isten, gueuc goitu edo pencidu al daigun baño gueijago tenteetan. Tentacinoiagaz emoten doscu Jangoicuac, 1160

11498 emotendutsee *Esk* 1151 aguertutenda *Esk* | engaño bat *Esk* 1152 Ezdaquit *Esk* | moduztau zinaijan *Esk* 1153 ezdaquit *Esk* | gorrotobat *Esk* 1155-1156 eitendaveela *Esk* 1156 ezdeutseela *Esk* 1158 ezleoque *Esk* | ezleoque *Esk* 1159 eguitenditu *Esk* 1160 aripena *Esk* 1161-1162 aubere *Esk* 1162 engaño bada *Esk* 1162-1163 naidavelaco *Esk* 1164 ezdavenari, ezdeutsa *Esk* 1170-1171 naibaguendu *Esk* 1171 ezdeutsa *Esk* 1171-1172 aldaigun *Esk* 1172 emotendoscu *Esk*

¹⁰⁸ Ik. Jb 1,13-22...

¹⁰⁹ San Anton, (ik. *Euscal-errijetaco...* 67 oharra, 483.or.); Frai Bartolomek S. Antonen ikonografia ospetsua, deabruak tentatzen duela, du gogoan (ik. E. SAUSER, *Antonius abbas*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 205-217.

¹¹⁰ San Benito (ik. *Euscal-errijetaco...* 72 oharra, 484.or.); Frai Bartolomek San Benitoren tentaldien ikonografia gogorazten digu hemen (ik. V. MAYR, *Benedikt von Nursia...*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 351-364.

¹¹¹ Ik. SANTA TERESA, *Vida* 5,3; 8,5; 23...

¹¹² Frai Bartolomek San Ignazio Loiolakoak jasan zituen tentaldiak gogorazten dizkigu, batez ere Manresako bakardadean jasan zituenak (Ik. SAN IGNACIO DE LOYOLA, *Obras Completas* (Edición manual: I. Iparragirre - C. de Damases), Madrid, 1963, *Autobiografía*-ko 3. kapit.).

escatu ezquero, a goituteco gracia. Ta graciaagaz balijetan bagara, tentacinoiac mesede baño eguingo ez doscu.

- 1175 Exemplu bat iminten davee Elesaco eracuslaac, diabrubac cer eguin al daijan eracusteco ta esaten davee diabrubac dala, catia sendo bategaz lotuta dauan chacur gaisto bat leez. Alaco chacurac icusten dituban guztiac jan edo ito gura lituque. Baña saunca eguin ta aguinac eta intencinoe arrabijauba eracutsi baño besteric ecin leijo ondora juaten echaconari, lotuta daualaco. Inor ondora juaten bajaco, ari las-[106]ter aguinca oratuco deutsa. Beste ainbeste jazoten da diabrubagaz ta cristinaubagaz. Jesucristo gueure Jaunaren Pasinoe santubagaz lotuta dagoz diabrubac guztiac. Saunca eguin leije, tentau leije ta perseguidu leije cristinauba edoecin bere lecutan; baña bere gustoz diabrubaren ondora ez doianari, pecatu erain ecin leijo. Ez, bada, ezarri diabrubari ceuben pecatuben
- 1180
- 1185 erru guztia, ezpada ceuben vorondate gaistuari. Esan dot au guztiau, bacochoac ezautu daijan bere buruba ta bere gaisqui eguina.

- Emeti ezaututen da, cristinaubac celan amau biar daven bere buruba ta ceintzuc dirian gueure projimuac. Escatu daijogun Jangoicuaeren Magestadiari, bere gracijaren erraijo bategaz arguitu daizala gueure entendimentubac, eguija
- 1190 oneec ondo ezaututeco, ta emon daigula bere gracia ceruco erreñuba irabazteco. Amen.

1174 ezdoscu *Esk* 1175 imintendavee *Esk* | cereguin aldaijan *Esk* 1176 esatendavee *Esk* 1177 gaistobat *Esk* | icustendituban *Esk* 1177-1178 itoguralituque *Esk* 1179-1180 juatenbajaco *Esk* 1180 jazotenda *Esk* 1183-1184 ezdoianari *Esk* 1184 Ezbada *Esk* 1185 Esandot auguztiau *Esk* 1187 ezaututenda *Esk* | amaubiardaven *Esk* 1189 erraijobategaz *Esk*

[107]

**LELENGO MANDAMENTUBAREN
ZORTZIGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
cer dan projimua ameeitia, ta ce ordenagaz amau biar dan. 1195

Icasi ezquero cristinaubac ceintzuc dirian bere projimuac, jaquin biar dau, celan amau biar dituban. Projimuen artian erabagui andija dago, ta guztiari beguiratu biar jaco projimuac ameeitan icasteco. Projimo batzuc dira senidiac, beste batzuc onguillac, beste batzuc cristinau ez dirianac, ta beste batzuc arerijuac: 1º Celan amau biar dirian gueure projimuac. 2º Ce ordenagaz amau biar dirian arerijo ez dirian projimuac. Gueroco dotrinan esango da, arerijuac celan amau biar dirian. 1200

[108]

I.

Jesucristo gueure Jaunac esan ezquero bada, neure cristinaubac, gueure buruba leez gueure projimuac ameeitaco, ya inos bere ucatu ecin lei obligacinoe au. Projimuac ameeitia ez da beste gauzaric, ezpada arimaco ta gorputzeco gauza on guztiac projimuari desietia. Inoren gauza onagaz atseguin artzeia, ta naibaguiagaz ta trabajubagaz atsecaba artceia. Cristinaubac bere buruba leez projimuarena ameeitaco, bere burubarenzat nai daven leez osasuna, nai izan biar dau projimuarenzat osasuna. Beretzaco nai daven leez baquia, nai izan biar dau projimuarenzat baquia. Berezat nai daven leez cleituba, ondria ta ondasuna, desiau biar deutsa projimuari cleituba, ondria ta ondasuna. Berezat desietan daven leez ta desiau biar daven leez arimaco gracia, erijotza ona ta ceruco gloriya, desiau biar deutsa projimuari beste munduco gauzaac baño gueijago, arimaco gracia, erijotza ona ta ceruco gloriya. 1205
1210

1195 *cerdan Esk* | *biardan Esk* 1196 *Icasiezquero Esk* | *bereprojimuac, jaquinbiardau Esk* 1197 *amaubiardituban Esk* 1198 *biarjaco Esk* 1199 *ezdirianac Esk* 1200 *amaubiardirian Esk* | *Ceordenagaz amaubiardirian Esk* 1200-1201 *ezdirian Esk* 1201 *esangoda Esk* | *amaubiardirian Esk* 1203 *esanezquero Esk* 1204 *ya] ija Esk* 1205 *ezda Esk* 1208-1209 *izanbiardau Esk* 1209 *naidaven Esk* 1210 *biardau Esk* | *naidaven Esk* 1211 *desiaubiar Esk* 1212 *biardavenleez Esk*

- 1215 Ara emen, neure entzula onac, berba guichitan, cer dan projimua ameeitia. Ondo gura deuntsagunari ta ameeitan dogunari, ez deuntsagu inos bere daquigula edo advertencijaz gauza gachic eguiten. Ez dogu [109] adisquide maitia gaiti dongaroric esaten, ez deuntsagu gauza gachic desietan, ez dogu gorrotoz joten, ez deuntsagu ecer oostuten, ta Jangoicuaren izenian ameeitan dogunari, ez deuntsagu pecatu eiteco bideric edo ocasinoric bere emoten. Ta projimo guztia alan amauco baguenduz, mundu guztia ceru bat eguinda egongo litzaateque. Oraindino gueijago: Gueuc ameeitan dogun projimuari bere pena ta trabajubetan pocic eta gustoz lagunduten deuntsagu. Triste badago, consolau gura guenduque; gose bada, copau bat baño ezpada bere emoten deuntsagu, euqui ezquero; penaz badago, paciencia presteetan deuntsagu aleguinaz, ta erruquituten gara bere peniagaz. Pecatu mortal bat eguin badau, sentietan dogu oraindino beste bere gachac baño gueijago; erregututen deuntsagu Jangoicuari projimo a gaiti ta berari bere esaten deuntsagu modu onagaz erremedijau della laster, pecatuban il ez dein.
- 1230 Au guztiau jazoten da, neure entzula onac, gueuc ameeitan ditugun cristinaubequin. ¡Oh, ce gauza ona izango litzaatequian, guztioic onan bata bestia ameeitia ta alcarri lagundutia! ¡Oh, ce envidia emoten daven onaco cristinauben vizitza bateguinac eta caridadezcuac, pensauta beste bagaric! Errazoiagaz [110] esaten dau san Pablo apostolubac, projimua biar dan moduban ameeitan davenac, ez davela gauza gach bat bere eguiten, ta gordeetan davela legue guztia (72). ¡Ez daquit celan emoten deuntsagun ainbeste lecu gueure vijotzian envidijari, gorrotuari, maldecinoiari, icusi ecinari, codicijari ta tema gaistuari, gueure projimuen contra!
- 1240 Projimua biar dan moduban ameeitaco, ez da asco auagaz esatia: *guztiac ameeitan ditut nic; ez deuntsat nic inori bere gachic gura*. Auagaz onan esatia gauza ona ta biarrecua da; baño onan berba eguin arren, euqui lei vijotzian projimuarenzat amodijuaren ta caridadiaren paltia, endamas obreequin eracusten ezpadau. Vorondatiac nai davena, auac esan biar dau; ta vorondatiac nai davena ta auac esaten davena, eguinagaz eracutsi biar da. Orregaiti esaten dau

1245 -----
(72) Ad Rom. c. 13.

1215 cerdan *Esk* 1216 guradeuntsagunari *Esk* | ameeitandogunari, ezdeuntsagu inosbere *Esk* 1217 Ezdogu *Esk* | maitiagaiti *Esk* 1218 ezdeuntsagu *Esk* | ezdogu *Esk* 1219 ezdeuntsagu *Esk* | ameeitandogunari, ezdeuntsagu *Esk* 1221 amaucobaguenduz, munduguztia Cerubat *Esk* 1222 ameeitandogun *Esk* 1224 copaubat *Esk* | emotendeuntsagu *Esk* 1225-1226 erruquitutengara *Esk* 1226 eguinbadau, sentietandogu *Esk* 1227 erregututendeuntsagu *Esk* 1228 esatendeuntsagu *Esk* 1229 ilezdein *Esk* 1230 Auguztiau jazotenda *Esk* 1231 izangolitzatequian *Esk* | batabestia *Esk* 1234 esatendau *Esk* 1234-1235 projimuabiardanmoduban ameeitandavenac, ezdavela *Esk* 1236 Ezdaquit *Esk* 1237 gaistuari] guistuari *Esk* 1239 biardan *Esk* | Ezda *Esk* 1240 ezdeuntsat *Esk* 1244 naidavena, auac esanbiardau *Esk* 1244-1245 naidavena *Esk* 1245 esatendavena *Esk* | biarda *Esk* | esatendau *Esk*

san Juanec (73), mesede eguinagaz amau biar ditugula gueure projimuac, ez berba utsagaz. Ta Santiagoc esaten dau (74): *Ceure projimua bilosic eta gosiac ilic icusita, zuc esan arren ari:* [111] *zuaz Jangoicuagaz guizaaajori; cer edo cer jan eizu ta berotu zaite al daizun moduban, ecer emoten ezpadeutsazu daucazuneti, cer balijo deutsa pobre tristiaro ondo esanac.* Bada, zure pedia ta 1250 ondoesana bere obra on bagaric illa da, dino Apostolubac. Onezaz ostian, ElesA Ama santiac eracusten doscu (75), ez dala asco auagaz, projimua amee-tan dot, esatia; ezpada vorondatiagaz amau biar dala. Ta vorondate ona obre-equin eracusten da.

San Pablo apostolubac beste ainbeste esaten doscu (76), dinuanian: 1255 Aingueruben miinagaz berba eguingo baneu bere, misterijo guztiac ezautuco banitu bere, jaquituriya guztia jadiichico baneu bere, mendijac bateti bestera iragoteco pedia ta sinistutia baneuca bere, ta neure gorputza erretaraño casti-gauco beneu bere, caridaderic ezpadeucat edo projimua amee-tan ezpadot, utsa nas, utsa balijo deuts guztiac. Ta caridadia edo projimuaren amodijua espli- 1260 quetaco, esaten dau Apostolubac berac (77): Caridadia ichan onecua da, paciencia andicua da, biguna da, envidija bagacua da, gachic eguin gura ez davena da, vanidade ta andiari bagacua da, [112] caridadia daucanac ez dau asarreric eracusten; ez dau gachic penseetan, ez deutsee bere gaucei ainbeste casu eguiten, ta inoren gauza on guztiequin alegueretan da; caridadia dauca- 1265 nac guztia supriduten dau, guztia sinistuten dau, guztia espereetan dau, ta inor gaiti bere ez dau gachic penseetan. Ara emen, cristinaubac, senalle batzuc chito aguirijac, projimua amee-tan dogun edo ez ezaututeco.

Projimuaren caridadiaren contra modu ascotara pecatu eiten da. 1º Projimuaren gauza onagaz tristetuten garianian. 2º Projimuaren gauceen envi- 1270 dija daucagunian. 3º Projimuen arteco baquia galtceen dogunian. 4º Projimuen gachagaz alegueretan garianian. 5º Necesidarian dauan projimua socorriduten ez dogunian, al daigula; edo conseju ona emonagaz, edo limosna eguinagaz, edo lagundubagaz premina daucan moduban. 6º Projimuari pecatu eraiten deutsagunian, edo pecatu eiteco vidia emoten deutsagunian. Inoc daquijela, 1275 dacusela edo dantzubela eguiten dirian pecatubac, beti dira caridadiaren con-

 (73) Epist. 1, c. 3. (74) In Epist. Can., c. 2, 15-16. (75) Prop. cond. Inoc.XI. 10.11. (76) 1 ad Cor. c. 13. (77) Id. ibid.

1246 biarditugula *Esk* 1246-1247 ezberba *Esk* 1247 esatendau *Esk* 1248 guizaaajori *zuzen*. 1249 jaineizu, ta berotuzaita aldaizun *Esk* 1252 ezdala *Esk* 1253 amaubiardala *Esk* 1254 eracusten da 1256 baneubere *Esk* 1261 esatendau *Esk* 1262-1263 ezdavenada *Esk* 1263 bagacuada *Esk* | ezdau *Esk* 1264 ezdau *Esk* | ezdeutsee *Esk* 1265 onguztie-quin alegueretanda *Esk* 1266 sinistudendau *Esk* 1267 inorgaiti *Esk* | ezdau *Esk* 1269 pecatueitenda *Esk* 1273 ezdogunian, aldaigula *Esk* 1275 emotendeutsagunian *Esk* 1276 eguiteneguitendirian *baina* 1. eguiten *ken*. | betij bedi *Esk* 1278 Cor.] Chor. *Esk*

tra, projimuari Jangoicua serbietan lagundu biarrian, pecatu eraiten jacolaco.
 1280 [113] Onan inori exemplu chaarra emoten deutseenac gaiti esaten dau
 Jesucristo gueure Jaunac (78), zorigaistocucac eta madaricatubac diriala.
 Merecietan daveela alacuac, errota arri bat samati lotuta, ichasoco ondarreeta-
 ra boteetia, eurac pecatu eitia ezer ez dala, bestiai pecatu eraiten deutseelaco.
 ¡Oh, inori pecatu eraiten deutzazunac! ¡Oh, inor pecaturaco convideetan dozu-
 1285 nac! ¡Oh, projimuari exemplu chaarra emoten deutzazunac, Jesucristoren mal-
 decinoia daucazu ceuben gañian!

Beste gauza asco dagoz projimuari zor deutzagun caridadiaren contra;
 baña zabaldua dagoz casic mandamentu guztietan, ta esango dira bacocha
 bere lecuban. Gauza onetan erreguela bat dago chito laburra, baña campo
 1290 andija daucana. Ta da, gueurezaco gura ez dogun gauzaric, inori ez eguitia; ta
 gueri bestiac eguitia gura doguna, gueuc bere aleguinagaz projimuari eguitia.
 Orduban amauco dogu projimua gueure buruba leez.

II.

Baña Salomonec aituten emoten daven leez, caridadiac dauca bere modu-
 1295 ba ta ordenia¹¹³. Ta carida-[114]diaren ordenia conciencijan obliguetan davena
 da, dino santo Thomasec (79). Gauza onetan lelengo esaten dana da, cristi-
 naubac euqui biar davela beti vijotz ona ta vorondate ona projimo guztien-
 tzaco; bada, caridadiaren estalgui zabalac ez dau inor bere batu bagaric isten.
 Bigarrenian esaten da, projimo guztiai desiau biar deutsegula arimaco gracia
 1300 ta ceruco glorija. Gauza oneec projimo guztientzaco bardin izan biar davee.
 Baña aparteco laguntasuna edo socorruba emoteco projimuari, ez dira bardi-
 nac, ez personaac, ez necesidadiac. Ta oni beguiratu biar jaco, caridadiaren
 ordenia gordeetaco. Personen artian dagoz gurasuac, senar emaztiac, seme ala-
 bac, neba arrebac, senidiac, onguillac, cristinaubac, erejiac... Necesidaden
 1305 artian dagoz arimacuac eta gorputzecuac; necesidade oneen artian, batzuc *des-
 peidengua* esaten jacuenac, ya nora ececuac, beste batzuc necesidade andijac
 ta beste batzuc ascontan oi dirianac. Escoletaco berbeeta modubari ichita,

 (78) S.Math. c. 18. (79) 2.2, Q 44, a. 8.

1280 esatendau *Esk* 1282 arribat *Esk* 1283 ezdala *Esk* 1284 eraitendeutzazunac *Esk*
 1287 zordeutzazunac *Esk* 1290 ezdogun *Esk* | ezeguitea *Esk* 1291 guradoguna *Esk* 1294
 emotendaven *Esk* 1297 euqui biardavela *Esk* 1298 ezdau inorbere batubagaric *Esk* 1299 esa-
 tenda *Esk* | biardeutsegula *Esk* 1300 biardavee *Esk* 1301 ezdira *Esk* 1302 biarjaco *Esk*
 1303-1304 semealabac *Esk* 1305 necesidaden *zuzen*. 1306 ya|ija *Esk* 1307 oidirianac *Esk*

¹¹³ Ik. Kt 2,4...

cristinaubac gauza onetan jaquin biar davena da: 1º Cein arimaco ta cein gor-
 putzeco necesidade bardinian aurquitu [115] ezquero, beste guztiac baño lee- 1310
 nago dala bere buruba socorrietia. Bada, Jangoicuac ez doscu aguinduten pro-
 jimua guere buruba baño gueiljago ameataco, ezpada gueure buruba leez ame-
 etaco. Ta caridade eguijazcua noberaganic asten da. 2º Azqueneco necesida-
 dian ezpadagoz bere gurasuac, lelengo alcar socorridu biar davee senar emaz- 1315
 tiac, guero euren umiac, guero gurasuac, guero senidiac, onguillac, adisqui-
 diac, cristinau dirianac, ta despeidengo cristinau ez dirianac. 3º Bere aita edo
 ama badagoz azqueneco necesidadian, laster socorriduten ezpadira, erremedi-
 jo bagaric galdu biar daven tertcijuan, orduban emaztia ta umiac baño leena-
 go da bere aita ta ama socorridutia. 4º Arimaco necesidadiac leenago dira, gor- 1320
 putcecuac baño. Projimuaren arimaco salbacinoiac gueiljago balijo dau gure
 vizitziac, osasunac, cleitubac eta ondasunac baño. Ta bestelan projimua salba-
 ezin baleiteque, daucagu obligacinoia guztiac galtceeco projimuaren salbaci-
 noia gaiti. 5º Gorputzeco gauceetan lelengo da vizitzia, guero osasuna, guero
 cleituba ta guero ondasunac ta munduco conveniencijac.
 [116] Ordena au iminten da bada, neure entzula onac, jaquin daijan cristinau- 1325
 bac nor, nos ta celan socorridu biar daven bere projimua, caridadian vizi iza-
 teco. Ta ordena onetati apartetia, pecatu da. Esan gura neuque, necesidade
 bardinian egon ezquero, cein arimaco ta cein gorputzeco gauceetan, gurasua-
 ri edo emaztiari edo umiari ichita, beste bat socorridutia, pecatu dala. Beste 1330
 ainbeste, projimo bat badago ilteco pelleburuban, beste bat osasuna galtceeco
 pelleburuban, ta beste bat cleituba galtceeco pelleburuban; orduban vizitzia
 galtceeco pelleburuban dauanari ichita, osasuna edo cleituba galtceeco pelle-
 buruban dauna socorridutia, pecatu da. Bada, leenago da projimuaren vizit-
 zia, osasuna ta cleituba baño. Pecatuban ilteco pelleburuban badago bat, a
 socorridutia leenago da beste bat vizitzaco ta munduco gauceetan socorridutia 1335
 baño; ta modu onetan beste esan dirian gauceetan.

Caridadiaren ordena au autsijagaz, ta baita leenago esan dirian projimua-
 ren contraco vizijuetan bere, ez da errez erreguela bat iminten pecatu mortala
 ala veniala dan jaquiteco. Gueijenaz bere esaten dana [117] da, gauza andijan 1340
 bada, izango dala pecatu mortala; ta gauza guichijan bada, pecatu veniala. Jazo
 bacoheco circunstancijac esaminau biar dira ce pecatu eguin daven ezautute-
 co. Baña jaquin biar dau cristinaubac, caridadia dala virtute guztietati andijena

1309 biardavena,da 1311 ezdoscu *Esk* 1313 astenda *Esk* 1314 biardavee *Esk* 1316
 ezdirianac *Esk* 1319 leenagoda *Esk* 1320 balijodau *Esk* 1322 ezinbaleiteque *Esk* 1322-
 1323 salbacinoiagaiti *Esk* 1325 imintendau *Esk* | jaquindaijan *Esk* 1326 socorridubiarda-
 ven *Esk* 1327 pecatuda *Esk* 1328 bardinian *zuzen.* bardirian 1336 esandirian *Esk* 1338
 ezda *Esk* 1339 esatendana *Esk* 1341 esaminaubiardira *Esk* | cepecatu eguindaven *Esk*
 1342 biardau *Esk*

ta chito laster epaija eguiten jacona. Orregaiti chito ascotan inoc uste daven
 1345 baño leenago, izango da pecatu mortala caridadiaren paltia. Ez zaitez, bada,
 aaztu, neure cristinaubac, dotrina onegaz. Acordau zaitez beti ez deutzazula
 projimuari, ez eguin, ez esan, ez desiau biar ecer, ceubei inoc eguitia, esatia
 edo desietia gura ez dozun gauzaric. Euquiizu vijotz prest bat, preminaan icusi
 1350 ezquero projimua, aleguin guztiagaz socorrietaco, bai arimaco ta bai gorputze-
 co gauceetan. Ta erregutu eijozu Jangoicuari projimo guztiac gaiti. Bada, guz-
 tiac gaiti il zan Jesus, gueure Salbadore maitia; guztioac gagoz bere odol santu-
 bagaz erosita; guztioac gara bata bestiaren anaiac ta ceruraco esperantziagaz vizi
 garianac. Jangoicuac emon daigula, bada, bere misericordija andija gaiti cari-
 dade santuba ta ceruco glorija. Amen.

[118]

1355

**LELENGO MANDAMENDUBAREN
 BERERATZIGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
gueure arerijuai zor deutsegun amodijua.

San Geronimoc esaten dau, neure entzula onac, ascoc penseetan daveela,
 Jangoicua serbietaco ta on izateco asco dala arerijuari gorrotoric ez euquitia ta
 1360 gauza gachic ez desietia; baña onezaz gañera arerijua ameataco ta maite izate-
 co aguindutia dala inoc eguin ecin leijan gaucia (80). Jaquin biar davee, bada,
 onan penseetan daveen guztiac, dino Santubac berac, Jesucristo gueure Jaunac
 ez davela aguinduten inoc ecin leijan gauzaric; ezpada Jesusec aguinduten
 daven guztia dala ona ta edoceñec eguin leijana. San Geronimoren denporaan

1365 -----
 (80) Coment. in Math., L. 1., c. 5.

1345 ezdeutzazula *Esk* 1346 ezesan, ezdesiau *Esk* 1347 ezdozun *Esk* 1350 ilzan *Esk*
 1355 emondaigula *Esk* | andijagaiti *Esk* 1356 eracustendan *Esk* 1357 zordeutsegun *Esk*
 1358 esatendau *Esk* 1360 ezdesietia *Esk* 1361 biardavee *Esk* 1363 ezdavela *Esk*

beego-[119]zan arerijuac ameeitia gauza gacha ta inoc cunplidu ecin leijana dala esaten evenac, gaurco egunian ez dira guchiago egongo, arerijuequin baque ona nequez eiten daveenac. Ez dago, bada, cristandadeco dotrinan, ecer bere gauza jaquinaagoric, salbeetaco gueure arerijuai parcatu biar deutseeguna ta amau biar dituguna baño. 1370

Secula dudaric euqui ez daizun eguija onetan, entzun eizuz, cristinaubac, Jesucristo, ceruco Maisubaren berbac (81): *Neuc aguinduten dotsut, dino Jesucristo gueure Jaunac, ceuben arerijuac ameeitaco, gaisqui eguin dotsunari parcatuteco, dongaro esan dotsuna gaiti ta perseguiduten zaitubana gaiti Jangoicuari erregututeco. Bada, neure Aita ceruciac bere onenzat eta don guenzat euzquiya aguertuten dau, ta justubenzat eta pecatarijenzat eurija bialduten dau. ¿Ceuben adisquidiac baño ameeitan ezpadituzu, ce gracija ceruraco irabatzico dozu? Bada, gentillac eta dirianic dongueenac bere euren onguillac eta adisquidiac ameeitan ditubee. Parcatcen ezpadeutsazu, bada, ceure areriju -[120]ari gaisqui eguina, neure Aita ceruciac ceuri bere ez dotsuz parcatuco ceure pecatubac. Oneec guztioac Jesucristo gueure Jaunaren berbac dira, neure entzula onac.* 1375 - 1380

Ainbeste inporta doscun gauzaan inoc bere uts eguiteric euqui ez daijan, esango dotsut, bada, dotrina onetan: 1º Celan amau biar ditugun gueure arerijuac. Ta 2º cetaraño parcatu biar deutseguzan, gueri eguin doscubeezan injurijac. Entzun eidazu cuidado guztiagaz. 1385

I.

Jangoicuari zor deuntsagun amodijuan encerretan da, arerijuac ameeitaco obligacioia. Jangoicua gauza guztiac baño gueijago ameeitan davenac, desietan dau, projimo guztiac Jangoicua adoretia, alabetia ta ameeitia. Desietan dau, projimo guztiac Jangoicuaren adisquidiac izatia; desietan dau, guztiac Jangoicuaren gracijan egotia, Jangoicuaren legue santuba gordeetia ta ceruraco vida zuzenian vizi izatia. Projimo guztiai au desietan ez deutseenac ez dau Jangoicua ameeitan, biar dan moduban. Onezaz ostian, Jangoicua ameeitan davenac, ezin gorroto izan leijo, Jangoicucac bere [121] echurara eguin daven cristinaubari, ta Jesucristo gueure Jaunac bere odol santubagaz ta erijotza 1390 - 1395

(81) S.Math. c. 5. y 18.

1366 arerijuac arerijuac *baina I.* arerijuac *ken* 1367 egunian] eguniac *Esk* | ezdira *Esk* 1368 eitendaveenac. Ezdago *Esk* 1368-1369 ecerbere *Esk* 1369 biardeutseeguna *Esk* 1370 biardituguna *Esk* 1371 ezdaizun *Esk* 1375 eta *Ier.art.* 1376 aguertutendau *Esk* 1376-1377 bialdutendau *Esk* 1380 gaisquieguina *Esk* | ceuribere ezdotsuz *Esk* 1383 doscun *zuzen.* | ezdaijan *Esk* 1384 amaubiarditugun *Esk* 1385 eguindoscubeezan *Esk* 1388 zordeutsagun *Esk* | encerretanda *Esk* 1393 audesietan ezdeutseenac, ezdau *Esk* 1394 biardan *Esk* 1394-1395 ameeitandavenac *Esk* 1395 eguindaven *Esk*

penazcuagaz erosita daucan projimuari. Onac eta dongac gaiti, adisquidiac eta arerijuac gaiti, guztiac gaiti il zan Jesus. Cristinau bacocho ta projimo bacocho da, esateco moduban, Jesucristo gueure Jaunaren odolaren precijua; ta cristinaubari edo projimuari gorroto izatia, icusi ezina euquitia edo gauza gacha desietia da, Jesucristo gueure Jaunari gorroto izatia leez. Errazoe au penseetia da asco, arerijoric andijenac bere vijotz osuagaz ameeetaco. Bada, arerijuaren gorrotua viurtuten da, Jesucristoren gorroto izatera.

1405 Baña oraindino pensau daigun obeto ce itsutasun andija dan, gueuri gach eguin doscubeenai vorondate chaarra euquitia edo gorroto izatia. ¿Nor da arerijuari gorroto deutsana? ¿Nor da arerijuari gauza gacha desietan deutsana? ¿Ez da pecatarija? ¿Ez da Jangoicua sarri opendidu davena? ¿Ez da Jesucristo bere pecatubeequin desondrau davena, ceruco ainguerubac eta [122] santubac lotsatu ditubana? ¿Edo ez da, berba baten esateco san Pablo apostolubagaz, pecatu mortala eguin daven beste bidar, Jesucristo curutzian josi davena¹¹⁴? Duda bagaric, neure cristinaubac, projimuari gorroto deutsana, Jangoicua arerijoa izan da ta da. ¿Ta naico dau, Jangoicuac bera ameeetia, arimaco gracia, osasuna, baquia, portune ona ta dichaac munduban ta ceruban berari emotia? Duda bagaric, bera sarri izan arren Jangoicua arerijua, desiauco dau, vijotz onagaz, amodijuagaz ta misericordijagaz vizitzan ta erijotzan Jangoicuac bera trateetia. Begaz, berac bere amau biar dau bere arerijua vijotz onagaz eta desio santubagaz. Bada, bestelan ez dago errazoiric, izanic bera Jangoicua arerijua, Jangoicuac bera ameeetaco. Errazoe au ondo pensau ezquero, indartsuba da, neure cristinaubac; gorrotuaren subac amatetan ditubana ta arerijoric andijenarentzaco bere Jangoicua gaiti vijotza bigunduten davena. Projimuac eguin dotsun gachagaz acordauta, [123] gorrotua ta suba vijotzian jaguiten jatzunian, acordau zaitez lelengo pecatu eguin cendubanian Jangoicuac inpernubetara bota bazinduz, ez otsula projimuac guijago gachic eguingo. Bada, 1425 Jangoicuac ceuri parcatu badotsu ainbeste bidar inpernura boteetia, ¿ez da errazoa izango, ceuc projimuari merecietan daven gach pusquia parcatutia?

Duda bagaric, neure entzula onac, arerijuac ameeetia chito errazuazco gaudia da. Ta orregaiti pecatu mortalaren beian daucagu obligacinoia: 1º Arerijoric andijenai bere desiau biar deutseegu arimaco gracia, virtutia, Jangoicua ser-

1401 ezina *Esk zuzen.* 1404 viurtutenda *Esk* 1405 pensaudaigun *Esk* 1406 eguindoscubeenai *Esk* 1407 Norda *Esk* 1407-1408 Ezda *Esk* 1408 Ezda *Esk* | Ezda *Esk* 1409-1410 lotsatuditubana *Esk* 1410 ezda, berbabaten *Esk* 1412 arerijua *Esk zuzen.* 1412-1413 arerijoaizanda, tada *Esk* 1413 naicoda *Esk* 1414-1415 Dudabagaric *Esk* 1417 amaubiardau *Esk* 1418 ezdago *Esk* 1421 Jangoicuagaiti *Esk* 1424 ezotsula *Esk* 1425 ezda *Esk* 1426 merecietandaven *Esk* 1427 Dudabagaric *Esk* 1429 andijenaibere desiaubiardeutseegu *Esk*

¹¹⁴ Frai Bartolomek San Paulori buruzko hainbat ideia laburbiltzen ditu; ik. Eg 8,1; 9,5; Erm 6,6; 1Ko 1,13; 2Ko 13,4; Ga 5,1...

bietaco gorputzian convenientan jacuna ta ceruco glorija. 2º Ez dozu euqui biar 1430
 vijotz chaarric, gorrotoric edo vengueetaco desioric. 3º Preminan icusi ezque-
 ro arerijua, prest egon biar dogu ari aleguinagaz lagunduteo. Esaten da pre-
 minan; edo osasuna, edo cleituba, edo vizitzia, edo arimia galtceeco pellebu-
 ru andijan dauanian. 4º Arerijo andija izan arren, [124] echaco ucatu biar agur 1435
 eitia (82); ta ez da beste edochein bere cristinauri eguiten jacona bere. Auzoeran
 arerijua gaisoric dauanian, ez visitetia; vidian datorrela icusita, agaz bat ez eitia-
 rren, beste aldeti juatia; berbeetan dauanian, ari ez entzutiarren, beste aldera
 beguiratutia ta beste onaco gauzaac, dino san Bernardinoc, diriala gorroto mor-
 talaren senalliac¹¹⁵. Bada, arerijuac ameeetaco obligacinoia imini ezquero
 Jesucristo gueure Jaunac, oneec guztioe projimuaren amodijuari joacazan gau- 1440
 zaac dira, ta al daijala eguiten ezpaditu, gauza jaquina da arerijuaren gorrotuan
 dauana, ta au beti da pecatu; gauza andijan bada mortala ta gauza guichijan
 bada veniala. Gauza onetan ez dago dudaric. Baña izan leiteque, cristinaubac
 dudeetia edo jaquin gura izatia ¿ia gauza gacha eguin deutsan arerijuari, guz-
 tia parcatuco deutsan edo ez? Edo ia ceteraño parcatu biar deutsan arerijuari. 1445

II.

Gauza onetan bere Jesucristo gueure Jaunari [125] entzun biar deutsagu,
 cer esaten doscun. Dino, bada, ceruco gueure Maisubac (83): *Ceubec parca -*
tcen ezpadeutseezuz vijotz guztijagaz arerijuai gach eguinac, neure Aita ceru -
cuac zeubei bere ez dotsuz parcatuco pecatubac. Ezin esan eusquegun, cristi- 1450
 naubac, Jesucristo gueure Jaunac au baño clarubago, arerijuari injurijac parca-
 tuteco daucagun obligacinoia. Modu onetan Jesucristoc berba eguin oscun, ta
 au berau bere exemplubagaz eracutsi oscun. Curutzian josita imini evenian,
 Jesusen lelengo eguin evan gaucia izan zan, bere arerijuai vijot[z] guztiagaz par-
 catuten eutseela, esatia ta Aita Eternuari eurac gaiti erregututia. David erreguiac 1455
 beste ainbeste eguin evan Saul bere arerijo andijagaz. Saulec ainbeste denpo-
 raan perseguidu evan David; sarri euqui evan David Erreguiac convenencia
 Saul galtceeco, baña beti parcatu eutsan Jangoicua gaiti¹¹⁶.

 (82) San. Bernardin., *Serm. 7. in fer. 6. post ciner.* (83) S.Math. c. 6.

1430 Ezdogu euquibiar *Esk* 1432 biardogu *Esk* | Esatenda *Esk* 1436 vidiandatorrela
Esk 1437 entzutiarren *Esk* 1441 aldaijala *Esk baina 2. a ler.art.* | jaquinada *Esk* 1442
 betida *Esk* 1443 izanleiteque *Esk* 1444 ia| ya *Esk* | eguindeutsan *Esk* 1445 ia| ya *Esk*
 | parcatu| parcatu *Esk* | biardeutsan *Esk* 1448 cerasatendoscun *Esk*

¹¹⁵ San Bernardino Sienakoa (1380-1444); frantziskotar egin zen 1402an... Italiako humanis-
 ten adiskidea zen eta estudioei indar handia eman zien; gordetzen den haren obra nagusiak bera-
 ren sermoiak ditu (ik. S. CLASEN, *Bernhardin v. Siena*, in: LThK 2 (1986) 252-253).

¹¹⁶ Ik. 2Sm 24.

- 1460 San Estevan lelengo martirijac beste ainbeste eguin evan, bera arrica il
 even arerijuequin. [126] Arrica ilten even denporaan, belaunbico jarrita,
 Santubac erregututen eutsan Jangoicuari, parcatu eijuela bere arricari guztiai¹¹⁷.
 Ta menturaz san Estevanen oracinoe ari ez deutsa guichi zor san Pabloc apos-
 tolu izatia. Ene ama santa Teresa gauza on guztietan dan leez mirarizcua, are-
 1465 rijuai parcatuten bere apartecua da. Bera gaiti dongaro esaten evenac euca-
 zan Santiac adisquidezat. Areechec, esaten evan (84), ezaututen eveela
 onduen nor zan bera; ta alaco arerijuc gaiti eguiten evan santa Teresac apar-
 teco oracinoia. Ez dago gauza ugarijagoric, neure entzula onac, evangelioco
 dotrinan ta santuben vizitzetan, arerijuai parcatutia baño. Arerijuari vijotz ona-
 1470 gaz parcatu ez deutsan arima bat bere ez dago cerubetan. Cain, Esau, A[b]salon,
 Amon, Jezabel ta beste asco gorrotuac daucaz inpernubeetan. Orregaiti esaten
 dau san Agustinec (85), arerijuari parcatuten ez deutsanac, ez davela gura
 Jangoicuac berari parcatutia. [127] Bada, cristinaubac, ceruban sartceeco guero
 bere parcatu biaco badeutsagu gueure arerijuari, ¿cetaco parcatuco ez deutsa-
 1475 gu gaurco eguneti? ¿Ez da zoraquerija andija, ordu betian bere projimuaren
 gorrotuagaz, odijuagaz ta venguetaco desiuagaz egotia? Pensau eizu, projimuac
 quendu dotsula ceure ondria miinagaz; diruba ta aciendia escubagaz, testi-
 gantza paltuagaz edo guzurrezco aucijagaz; osasuna baque chaarragaz; ta
 ceure vizi moduba bere enbusterijagaz ta ceu zagozala oan ari bidaoca, mal-
 1480 decinoeca, vengantzia desietan deutzazula ta gorrotuaren gorrotoz icusi bere
 ezin dozula projimo a. Pensau eizu, zeure arerijua ya aaztu zala zuri eguin
 otsun gachagaz ta gacha aren pena bagaric sosiguz jan, eran ta lo eguiten dave-
 la; ta zu zagozala injurija a edo persona a acordeetan jatzun guztian suartuta,
 erreetan leez, aren gorrotuagaz; ¿cein ete zara oba bijoon artian, ceu ala ceure
 1485 arerijua? Nic esango neuque, neure entzula onac, arerijuari parcatu gura ez
 deutsana, condecinoe chaarraocua dala bai munduraco ta bai arimaraco.

Parcatu biar deutsa, bada, arerijuari Jangoi-[128]cuaren aurreraco. Baña
 orraitino contu artu leijo gach eguin deutsanari, caridadian paltau bagaric.
 Cerbait oostu deutsalaco, cleituba galdu deutsalaco edo beste gachen bat eguin

- 1490 -----
 (84) In su *Vida*, c. 19. n.4. *Relación*. 2 de su *Vida*. n. 44. (85) Psalm. 58. n. 14.

1460 eguinevan *Esk* 1460-1461 ileveen *Esk* 1466 esatenevan *Esk* 1468 Ezdago *Esk*
 1470 ezdeutsan *Esk* | ezdago *Esk* 1471-1472 esatendau *Esk* 1472 parcatutenezdeutsanac,
 ezdavelagura *Esk* 1474 ezdeutsagu *Esk* 1475 Ezda *Esk* | ordubetian *Esk* 1477 quen-
 dudotsula *Esk* 1479 vizimoduba bereenbusteriagaz *Esk* 1480-1481 icusibere ezindozula *Esk*
 1481 Pensaueizu *Esk* | ya] ija *Esk* 1482 eguitendavela *Esk* 1485 esangoneuque *Esk*
 1485-1486 ezdeutsana *Esk* 1487 Parcatubiardeutsa *Esk* 1488 artuleijo *Esk* 1489 oostudeu-
 tsalaco *Esk* | galdudeutsalaco *Esk* | gachenbat eguindeutsalaco *Esk*

¹¹⁷ Ik. Eg 7,60.

deutsalaco, badeicho, juan leiteque cristinauba juezagana, ta escatu projimuari juezaren aurrian, eguin deutsan caltiaren erremedijua. Arerijuaren gorroto bagaric au eguitia, bere cleituba edo aciendia jasoteco, ez da pecatu, ta ascotan eguin biar dana da. Guraso batec ezin ichi leijo bere cleitu onari jausten bere burubaren ta ondorenguen caltian, paltso batec edo enbusteru batec nai davelaco. Beste batec ecin galdu lei eche bat, solo bat edo acienda bat, lapur batec edo codicijoso batec gura davelaco. Alacuari justicijaz atzera escatutia quendu deutsan gaucia, ez da caridadiaren contra. Bestelan dongaac gueratuco litzaatequez gauza guztiequin ta onac desondrauta, bilosic caliaren erdijan. Ez doscu Jangoicuac eedubau¹¹⁸ aguinduten. 1495 1500

Eguija da, oba da nora ezera artian juezagana ez juatia. Bada, atan asi ezquero, guichitan paltauco da gorrotua ta vengueetaco desiua, ta au beti da pecatu. [129] Projimuari calte eguin deutsanac lelengo eguin biar daven gaucia da, altaran meza esateco badago bere (86), ichi guztiari ta juan laster berac gach eguin deutsagana ta agaz baquia eguin¹¹⁹. Orduban, dino Jesucristoc, baliujo deutsalala bere oprecimentubac eta oracinoiac. Ta errazoia da, san Ambrosioc dinuan leez, gaisqui esan davena edo gaisqui eguin davena lelengo juatia bestiari parca escatutera ta baquia eguitera. Ta orduban bestiac bere obligacioia dauca, injuriya andija izan arren, parcatuteco. Bijac era batera alcar opendidu badabee, bijac dauquee obligacioia, alcar topauta, baquia eguiteco. 1505 1510

Orraitino Pouget jaquinac san Agustin eta Origenesegaz esaten daven leez (87), ascotan gauza ona da ta batzubetan biarrecua, arerijuari ta perseguietan davenari arpegui asarria eracustia ta aituten emotia eguin deutsan injuriya edo acinoe chaarra; ez dongaro esanagaz, ezpada arpeguiariagaz ta nobearen portiaz. Onetara lelengo contuban [130] jausten diriala, dino Pouget pamaubac, prestubezquerijac ta acinoe chaarrac eguiten ditubeenac ta biurtuten diriala on izatera. Dotrinau biar dan moduban aitu ezquero, provechu andicua ta segu-

(86) S.Math. c. 9. (87) Part. 2, Sect. 2, c. 4. 5. 6.

1491 jualanleiteque *Esk* 1492 eguindeutsan *Esk* 1493 ezda *Esk* 1494 eguinbiardana *Esk* 1495-1496 enbusterubatec naidavelaco *Esk* 1496 echebat, solobat, edo aciendabat lapurbatec, edo codicijosobatec guradavelaco *Esk* 1498 quendudeutsan *Esk* | ezda *Esk* 1500 Ezdoscu *Esk* 1501 obada *Esk* 1503 eguindeutsanac *Esk* | eguinbiardaven *Esk* 1507 esandavena *Esk* | eguindavena *Esk* 1511 esatendaven *Esk* 1512 onada *Esk* 1512-1513 perseguietandavenari *Esk* 1514 arpegui eriazgaz *Esk* 1516 eguitenditubeenac *Esk* 1517 biardan *Esk*

¹¹⁸ Sintagma hau, aho-hizkeraren eraginez edo, pixka bat aldaturik dago, erakuslea era enklitikoan duela, loturazko *b* horrekin... Osorik idatzita, honela litzateke: "Ez doscu Jangoicuac eredu au aguinduten". *Eedu* edo *eredu* hitzak "norma", "modelo" adierazten du hemen; hau da, Jainkoak ez digula holako araua betetzeko eskatzen.

¹¹⁹ Frai Bartolomek bere oharrean Mt 9 jartzen du, baina izatez, Mt 5,23-24 da. Hemen, ohi duenez, parafrasia egiten du gure idazleak, eta aldarea eta meza gauza bat eta bera egiten ditu...

- ruba da. Guztia eder eiten bajacue dongai, secula erremedijauco ez dira.
- 1520 Caridadia biguna da, baita gogorra bere batzubetan ta beti pecatubaren contra.
 Engañau gura davenagaz, paltsuagaz, pecatu erain gura deusnagaz ta
 pecaturaco conbidetan davenagaz, secula cristinaubac baqueric ez dau euqui
 biar. Esan gura neuque, alacuagaz ez davela euqui biar aparteco adisquideta-
 sunic, ta ez deusala eracutsi biar arpeguiera aleguereric. Alacuari becoqui
 1525 iluna imintia ta berba guichi eguitia gauza ona da, ta ascotan, preminacua.
 Asco da alacuari agur eitia (ta a bere ez ascotan) ta bera gaiti Jangoicuari erre-
 gututia, caridadian ez palteetaco. Amau daiguzan, bada, gueure projimo guz-
 tiac, neure cristinaubac. Parcatu daijoguzan arerijuai zorrac, Jangoicuac gueuri
 parcatutia desietan dogun leez. Erregutu daijogun Jangoicuari, projimo guztien
 1530 arimaco salbacinoia. Ez daigun [131] inor gaiti bere dongaroric esan. Ta imini
 daijogun biar danian, pecatu erain gura doscunari arpegui itzaltsuba ta beco-
 qui iluna, lotsatu dein, contuban jausi dein ta erremedijau dein, Jangoicua-
 ren bildurric ez daucana. Escatu daijogun Virgina santiari, Jesus gauza guztia-
 c baño gueijago ta projimuac gueure buruba leez ameeetaco gracia. Amen.

1519 bajacue *baina* ba *ler.art.* | ezdira *Esk* 1521 guradavenagaz *Esk* 1522 conbi-
 detandavenagaz *Esk* 1522-1523 ezdau euquibiar: Esanguraneuque *Esk* 1523 ezdavela euqui-
 biar *Esk* 1525 onada *Esk* 1527 ezpalteetaco. Amaudaiguzan *Esk* 1528 Parcatudaijeguzan
Esk 1529 Erregutudaijogun *Esk* 1530 Ezdaigun inorgaiti *Esk* 1531 biardanian *Esk* | erain-
 gura *Esk* 1532 lotsatudein *Esk* 1533 ezdaucana *Esk*

[BIGARREN MANDAMENTUBA]

BIGARREN MANDAMENTUCO LELENGO LECINOIA,

ceñetan eracusten dan
cer dan juramentu eguitia, juramentu nos eguin biar dan
ta juramentubaren beian aguindutaco gauzaac
celan cunplidu biar dirian.

5

Bigarren mandamentuban Jangoicuac aguinduten doscuna da, neure entzula onac, bere izen santuba erreberencijagaz auan artceia (88). Jangoi-
[132]cuaren izen santuba alperric auan artcen davena, dino Espiritu Santubac,
ez dala gueratuco castigu bagaric. Esaten da, alperric auan artcen dala 10
Jangoicuaren izen santuba, errespeto bagaric ta erreberencia bagaric edo
guero esango dirian condecinoe bagaric, edoecin bere gauzataraco
Jangoicuaren izena esaten danian ta juramentu eiten danian. Mandamentu guz-
tietan Jangoicuac aguinduten doscu cerbait eguitemo ta cerbait ez eguitemo.
Bigarren mandamentuban eguitemo aguinduten doscuna da, bere izen santuba 15
santipiquetia. Ta Jangoicuaren izena santipequetan da: 1º Oracinoe eguijaz-
cuagaz. 2º Ceruco gauzaac, Jangoicuarenac, Jesucristo gueure Jaunarenac ta
cristandadeco misterijuac devocinoez esanagaz. 3º Vizimodu zucenagaz. 4º
Jangoicuari promesac eguinagaz. 5º Biar dan moduban ta orduban juramentu
eguinagaz. 20

Jangoicuac mandamentu onetan ez eguitemo esaten doscuna da: 1º Alperric
bere izen santuba auan artceia. 2º Gauza chaarreraco promesac eguitia. 3º
Juramentu gaistuac eguitia. Au [133] guztiau eraozten dau Jangoicuac bigarren
mandamentuban. Oracinoia celan eguin biar dan ta cristinaubac celan vizi biar
daven, sarri entzuten dan gaucia da. Ta menturaz esango da beste lecu baten 25
clarubago. Mandamentu onetan bacarric esango da juramentubai, promesai
ta berba dongai jaocuen dotrinia. Ta obetuago aitu daizun, bacochoa bere

(88) Exod. c. 20.

2 mandamentuco *zuzen*. 3-4 eracustendan: ¡Cerdan *Esk* 4 biardan *Esk* 6 biardirian
Esk 7 aguindutendoscuna *Esk* 9 artcendavena *Esk* 10 ezdala *Esk* | Esatenda *Esk* |
artcendala *Esk* 13 esatendanian *Esk* | eitendanian *Esk* 14 ezeguitemo *Esk* 15 aguindutendoscuna *Esk*
18 devocinoez] dovocionoez *Esk* 19 Biardan *Esk* 24 eguinbiardan *Esk*
24-25 biardaven *Esk* 25 entzutendan *Esk* | lecubaten *Esk*

30 lecuban iminita, esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, cer dan juramentu eguitia. Bigarrenian, nos eguin biar dan juramentu. Irugarrenian, celan cumplidu biar dan, juramentubaren beian aguinduten dana. Egon zaitez atencinoiagaz.

I.

35 Juramentuba ez da beste gauzaric, neure entzula onac, ezpada gueuc eguin dogun edo esan dogun, entzun dogun edo icusi dogun gauza bat Jangoicua testiguzat ecarrita edo Jangoicua izen santuba auan artuta, onan edo alan zala edo dala, esatia. Eguija esaten davena sinistu eraiteco, ecarten dau Jangoicua testiguzat. Bada, juramentubaren izate guztia da, Jangoicua testiguzat auan artuta, baietz edo ezetz esatia, obeto sinistu eraiteco. Batzubetan eguiten da juramentu iragotaco gaucen gañian, beste batzubetan bertaticuen gañian, ta beste ascotan etorquizunen gañian. Modu [134] ascotara eguiten da juramentuba; ta premina andico gaucia da cristinaubac jaquitia, ce berba modugaz juramentubac eguiten dirian. Bada, cristinau asco vizi dira, lantzian lantzian juramentu chaarrac eguiteco ecandu inpamiagaz pecatu mortalian.

45 Lelengo eguiten da juramentu, cerbait sinistu eraiteco curutzari mun eguiten jaconian. Onetaraco edocein bere modutaco curutzia da asco: cein atzamarrequin eguina, cein zotz bi alcarren gañian iminita eguina. Curutzia izan ezquero, edocein da asco juramentu eguiteco. Curutze bagaric berba utseequin bere eguiten da juramentu, ta modu ascotara. Ta izango da, cristinaubac inori cerbait sinistu eraiteco berba oneetati bat edo bat esaten davenian:
50 *Jangoicoraco; Jangoicua testiguzat iminten dot; Jangoicuagaiti; Jangoicua dan leez; Jangoicuagan sinistuten dodan leez; evangelijoco eguija leez, Jesucristo ilzan leez; Jesucristoren izenian; curutzia dauan leez; neure pederaco; neur e arimaraco; neure salbacinoeraco; ceruba dauan leez; luurra dauan leez; vizi -*
55 *ric alde eguin ez dai- [135]dala; luurac paltau daidala; pausuric eguin ez daidala; salbacinoiac paltau daidala...* Inori cerbait obeto sinistu eraiteco, onetarico berbac esaten dirian guztian, eguiten da juramentu. Bada, guztietan edo Jangoicua edo Jangoicuaen criatura nausijenac auan artuta esaten da gauzia, obeto sinistu daijuen. Ta au beti da juramentu. ¡Beguiratu, cristinaubac,
60 ceinbat juramentu eguiten dirian, inoc asco aintzat artu bagaric. Gueroico dotri nan esango da, onaco juramentubac guzurragaz eitia ce pecatu dan.

29 cerdan *Esk* 30 biardan *Esk* 30-31 cumplidubiardan *Esk* 34 ezda *Esk* 34-35 eguin dogun, edo esandogun, entzundogun, edo icusidogun *Esk* 37 esatendavena, sinistueraiteco, ecartendau *Esk* 38 izateguztia *Esk* 39 sinistueraiteco *Esk* 39-40 eguitenda *Esk* 43 vizidira *Esk* 44 chaarrac *ler.art.* 45 eguitenda *Esk* 46 edoceinbere *Esk* 49 eguitenda *Esk* 50 esatendavenian *Esk* 51 imintendot *Esk* 52-53 ilzan *Esk* 55 ezdaidala *Esk* 57 eguitenda *Esk* 60 artubagaric *Esk*

Jangoicuaren ta criaturen icenian juramentu eguiten dana, esan dan leez, gauza jaquina da, neure entzula onac. Bada, Jesucristo gueure Jaunac esaten doscu (89), cerubaren izenian juramenturic ez eguiteco, Jangoicuaren jarlecu- 65
ba dalaco ceruba. Luurraren icenian juramenturic ez eguiteco, Jangoicuaren oñen lecuba dalaco luurra. Elesiaren icenian juramenturic ez eguiteco, erregue 70
nausijaren lecuba dalaco Elesia. Noberaren burubaren icenian juramenturic ez eguiteco, bada, bere buruco ule bati bere coloria mudau ezin leijo noberac; ceuben berbaac izan biar davee: *ez* [136] edo *bai*. Beste guztia ez da ona, dino Jesucristoc. Jangoicuarenac dira criatura guztijac ta Jangoicuaren indarra, escu- 75
bidia, justicija, misericordija ta gracija gueijen eracusten daveen criaturaac izentauta, cerbat esatia da juramentu eitia. Criatura oneec dira, leen esan dan leez, cerubac, luurra, argujia, Elesia, sacramentubac, curutzia, evangelijua, pedia, arimia, salbacinoia, ainguerubac, santubac... Ta ara emen aituta cer dan juramentu eguitia.

II.

Juramentu eguin ezquero biar dan moduban, erliginoeco gaucia da; berez ona da ta Jangoicua ondreetan davena da. Orregaiti jaquin biar dau cristinau- 80
bac, nos eguin leijan juramentu ondo dan moduban. Espiritu Santubac esaten doscu, neure entzula onac, Jeremias propeta santubaren aoti (90), juramentu eguin biar dala eguijagaz, preminiagaz ta gauza oneraco. Eguijagaz eguiten da juramentu, gauzia dana dan leez, ecer ezcutau bagaric gueitu bagaric eta gui- 85
chitu bagaric juramentubaren beian esaten danian. Entzun beeban, entzun evala; icusi beeban, icusi evala; edo [137] eguin beeban, eguin evala. Jazo zan moduban, edo noberac daquijen moduban juramentu eiten danian da eguijaz- 85
co juramentuba. Daquijen moduban edo jazo zan moduban esaten ezpadau, eguiten dau guzurrezco juramentuba. Dudiagaz daquijena, esaten badau ciar-
tuzat edo ciartu daquijena dudacozat, eguiten dau guzurrezco juramentuba.

Ascotan gauza batzuc zucen jaquin arren ta juezac juramentubaren beian esateco aguinu arren, bagoz esan biar ez dirianac. Onacuac izaten dira con- 90
pesinoeco gauzac, conseju on bat escatuteco autortuten dirianac eta beste onetaricuac. Letraubai, medicubai, barberubai, ta beste ascori bere sarritan jazo lequijozanac. Orduban erantzun leijo juezari, *edaquijela*, guzurrezco juramen-

(89) Math. c. 5. (90) C. 4.

62 esandan *Esk* 66 ezeguiteco *Esk* 67-68 ezeguiteco *Esk* 69 izanbiardavee *Esk* | ezda *Esk* 74-75 cerdan juramentueguitia *Esk* 77 biardan *Esk* 78 jaquinbiardau *Esk* 81 biardala *Esk* 82-83 guchitubagaric *Esk* 84 icusievala *Esk* | Jazozan *Esk* 86 jazozan *Esk* 87 eguitendau *Esk* 88 ciartudaquijena *Esk* 90 ezdirianac *Esk* 91 consejuonbat *Esk* 92 letraubai] letraubei *Esk*

95 turic eguin bagaric. Bada, juezac ez dauca alaco gauzaac itanduteco escubideric, ta daquijenac bere ez, erantzuteco obligacinoeric. Nos eta celan au eguin biar dan, guztioac aitu cinaijan moduban esateco, erreguela seguru bat imini ezin lei.

100 Gauza onetan dotrina pusca bat baño ez daquijeen cristinaubac eguin biar daveena da, inundi al ba-[138]daije, juramentu eitera orduco, itandu ondo daquijen bati, juramentubaren beian esan biar daveen gaucia celan daquijeen, cetaño daquijeen ta cer autortu biar daveen edo cer erantzun biar deutseen juezari.

105 Guzurragaz juramentu eguitia, beti da pecatu mortala. Onetan ez dago inos bere gauza guichiric edo pecatu venialic. Alperric izango da gauza guichi baten gañian, nai chancha baten gañian juramentuba; beti da pecatu mortala guzurrezcua. ¡Oh, ceinbat pecatu mortal eguiten ditubeen, araco berbaan berbaan, *Jangoicoraco, arguija dacustan leez, luurrac paltau daidala* ta beste onaco izcune chaarrac dauqueezan cristinaubac! Ascotan guzurragaz ta gueijenian

110 premina bagaric eguiten ditube alacuac juramentubac.

Juramentu eguiteco bigarren circustancia da, neure entzula onac, premina euquitia. Premina bagaric juramentu eguitia, beti da pecatu. Baña ez da beti pecatu mortala. Premina bagaric sarritan juramentu eiteco ecanduba, pecatu mortala da. Jangoicuaren izen santuba erreberencija bagaric eta alperric costumbrez auan artceen davelaco; ta [139] nosbait guzurragaz juramentu eiteco pelleburuban daualaco. Nosbaitaco baten edo guichitan eguijagaz, ta gauza oneraco premina bagaric juramentu eguitia ez da pecatu mortala, veniala baño.

115 Preminia edo juramentu eguiteco necesidadia nos dauan jaquiteco, iminten dira erreguela batzuc. Lelengo: Juezac aguinduten davenian. Bigarrenian: Opicijuac edo estadubac aguinduten davenian. Ta irugarrenian: Noberaren edo projimuaren vizitzia, osasuna, cleituba edo aciendia jasoteco, libreetaco edo gordeetaco biar darian. Bada, alaco calte andija, noberarena edo inorena erre-medijau ecin bada juramentu bagaric, orduban juramentu eguitia, juezac aguindu ez arren, gauza ona da ta ascotan biarrecua.

125 Juramentu ondo eguiteco irugarren condecinoia da, gauza onaren gañian juramentu eguitia. Oni esaten jaco, *justicijagaz* juramentu eguitia. Condecinoe onegaz cumpletaco, juramentubagaz esaten dan edo aguinduten dan gaudiac izan biar dau onac. [140] Juramentuz esaten badau ez evala ecer oostu, ez evala bidaoric eguin, ez evala guzurric esan; edo juramentubaren beian aguinduten

95 ezdauca *Esk* 97 biardan *Esk* | segurubat *Esk* 99 puscabat baño ezdaquijeen *Esk*
 99-100 eguinbiardaveena *Esk* 100 albadaije *Esk* 101 biardaveen *Esk* 102 biardeutseen *Esk*
 104 ezdago *Esk* 107 eguitenditubeen *Esk* 112 ezda *Esk* 117 ezda *Esk* 122 biardanian *Esk*
 124 onada *Esk* 125 condecioniada *Esk* 127 esatendan, edo aguindutendan *Esk* 128 izan-
 biardau *Esk* | ezevala *Esk* 129 ezevala *Esk*

badau meza entzutia, limosna bat emotia, jocoric ez eguitia, pecatu eiten daven 130
 echera ez juatia, pecatuco lagunagaz ostera barbaric ez eguitia, ordituten danac
 ardaoric ez eraatia edo beste onaco Jangoicuac nai daven gauzaren bat, ordu-
 ban eguiten dau gauza oneraco edo justicijazco juramentuba.

Baña juramentubagaz esaten badau gauza chaar bat eguin evala, edo jura- 135
 mentu eguiten badau pecatu eguin evala sinistu eraiteco, edo pecatu dan gau-
 zaren bat eguiteco, orduban da juramentu eguitia pecatu. Esango baleu batec:
 Jangoicozat, urlijainagaz pecatu eguin nebana; edo beso bijac igartu daquida-
 zala, vengueetan ezpanachaco; edo diabrubac eruan najjala, parcatuco neus-
 quijon baño leenago... Onaco juramentubeetan gueijenian eguiten dira pecatu 140
 mortal bi. Bata leen eguindaco pecatubac onzat daucazalaco edo projimua-
 ren desio chaarra daucalaco; ta bestia gauza chaarraren gañian juramentu egui-
 ten davelaco. ¡Beguiratu, cristinaubac, do-[141]trina onetan, ceinbat juramentu
 donga eguiten dirian, bai chanceetan, bai banidandez ta bai gorrotoz!
 Juramentu gaistua sacrilegijozco pecatuba da.

III.

145

Juramentubagaz aguinduten dan gaucia gauza ona bada, edo pecatu dan 150
 gaucia ezpada, cumplidu biar da, inundi bere al deila, ta ezpabere eguingo dau
 sacrilegijozco pecatuba. Juramentu eguiten dau limosna bat emoteco, onaco
 edo alaco echetara ez juateco; onaco edo alaco personiagaz ez egoteco; joco-
 ric ez eguiteco; ardaoric ez eraateco, echia à, persona à, jocua à¹²⁰ ta ardaua 150
 dala medijo pecatu eguiten davelaco. Bada, dauca obligacinoia cristinaubac
 pecatu mortalaren beian juramentu oneec cumpletaco. Ta onaco juramentu-
 bac austen dituban bacochian, eguingo ditu pecatu mortal bi. Bata, leengo
 pecatu eiteco ocasioian sartu dalaco ta bigarrena, sacrilegijozcua, juramentu-
 ba ausi davelaco. Gauza chaarrari isteeco eguiten dirian juramentu guztiac dau- 155
 queez esan dirian malecija bijac, austen dirianian. Juramentubagaz aguin-
 du daven gaucia bada ona, orduban ez da pecatu bat baño eguiten, [142] cumpli-
 du ez arren. Gauza andija bada cunplidu bagaric ichi davena, izango da pecatu
 mortala ta gauza guichijan bada, veniala. Gauza chaarreraco eguiten dirian
 juramentubac, ez dira cunplidu biar. Norbait ilteco, cerbait oostuteco, calte bat 160

130 eitendaven *Esk* 131 ezjuatia *Esk* | ezeguitia *Esk* 132 naidaven gauzarenbat *Esk*
 147 cumplidubiarda, inundibere aldeila *Esk* 149 ezegoteco *Esk* 150 ezeguiteco *Esk* | eze-
 raateco *Esk* 156 esandirian *Esk* 157 ezdapecatu *Esk* 158 cunplidubagaric ichidavena *Esk*
 160 ezdira *Esk* | caltebat *Esk*

¹²⁰ Hiru sintagma hauetan, gure idazleak bi mugatzaile darabiltza: bata artikulua eta bestea erakuslea. Bestalde, hitz batzuetan erabiltzen dituen azentuak guk kendu egin ditugu, sintagma hauetako erakusleetan eta honen antzeko kasu banaka batzuetan izan ezik. (Ik. 269.or.).

inori eguiteco, norbaitegaz pecatu eiteco... juramentu eitia, sacrilegijozco pecatuba da, leen esan dan leez. Ta juramentu a cumpletia, izango litzaateque bigarren pecatuba.

165 Ara emen, cristinaubac, aituten emonda berba guichitan, cer dan juramentu eguitia; nos eta celan eguin biar dan; ta baita nos eta celan cumplidu biar dirian edo ez dirian juramentubac. Escatu daijogun ceruco Jangoicuari, Ama Virgina Santissima vitaarteco iminita, bere izen santuba devocinoiagaz ta erreverencijagaz beti auan eta goguan euquiteco gracia. Amen.

[143]

170

**BIGARREN MANDAMENTUCO
BIGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan

*guzurrezco juramentubac ce injurija andija eguiten deitsan
Jangoicuari ta juezaren aurrian guzurrezco juramentuba eguin
davenac, ce obligacinoe daucan.*

175 Eracutsi esquero cristinaubari cer dan juramentu eguitia, nos eguin biar dan eta celan cumplidu biar dan; onen ondoric¹²¹ guztioac jaquin biar dozuna da, neure entzula onac, guzurrezco juramentubac daucan malecija ta bere ondoric dacarren obligacionoe estuba. [144] Ta artu daizun ceuben vijotzetan guzurrezco juramentubaren betico gorroto mortala, esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, guzurrezco juramentubagaz Jangoicuari eguiten jacon injurija. Ta

180

162 esandan *Esk* 164 cerdan *Esk* 165 eguinbiardan *Esk* 165-166 biardirian; edo ezdirian *Esk* 166 Escatudaijogun *Esk* 173-174 eguindavenac *Esk* 175 cerdan *Esk* 175-176 eguinbiardan *Esk* 176 biardan *Esk* | biardozena *Esk* 178 artudaizun *Esk*

¹²¹ Ablatibo zaharra darabil, *ondoric* eta ez *ondoren*, gaur egun ere haren eskualdean erabiltzen den era berean..

bigarrenian, guzurrezco juramentuba juezaren aurrian eguin davenac, daucan obligacinoia. Sarri jazoten dan gauzia ta gueure salbacinoia baño guichiago balijo ez davena dalaco, merecietan dau dotrina onec ceuben atencinoe guztia.

I.

Guzurrezco juramentubac Jangoicuari eguiten deutsan injurija. Pecatu 185 genero au biar dan moduban ezaututeco, lelengo jaquin biar dozu, cristinaubac, gauza gacheti edo chaarreti daucala juramentubac bere asieria. Guizonaren malecija ta sinistute chaarra dala medijo diriala juramentubac. Bada, cristinau guztiac balira eguijazcuac, zuzenac, eurac daquijen leez, gueitu, guichitu, edertu, ucatu edo estaldu bagaric gaucia esaten daquijenac, secu- 190 la ez leoque premi-[145]naric, juramentu bat eguiteco. Orduban asco izango litzateque, alcarri sinistuteco, *ez da* edo *bai da* esatia¹²², Jangoicuaren izen santuba auan artu bagaric. Baña guizon eta emacumiac dirian leez eurenez malecijotsubac, engañutsubac eta guzurtijac (91), daquijena ez jaquin eiten daveenac, ez daquijena jaquina leez esaten daveenac, ascotan erdiz erdi baño gau- 195 cia esan gura ez daveenac, beste ascotan guztia ucatuten daveenac ta inos bere euren vijotzeco tolozturaac ondo zabaldu ta icusi ecin leizanac; orregaiti bildur izaten gara, bestiac daquijena jaquin biar dogunian edo inori jaquin eraguin biar deutsagunian, engañetan ete gaitubeen edo guzurra esaten ete doscubeen. Bildur augaiti escatuten dira testigubac, esaten dana eguija dan edo ez 200 jaquiteco. Baña munduco testigu guztiac bere, guizonac edo emacumiac, guzurra esan leigubeenac dirian leez, biar da testigu bat guzurric esan ecin leijana. Ta ara emen juramentubaren necesidadia, neure entzula onac. Gaucia pirme [146] sinistuco badogu, ecarri biar da guzurric esan ezin leijan testigu bat. Guztia daquijen ta guzurric esan ecin leijan testiguba Jangoicua da. Ta 205 Jangoicuaren icenian *ez da* edo *bai da* esatia, Jangoicua testiguzat ecartia edo juramentu eguitia, guztia bat da.

(91) Psalm. 115.

181 eguindavenac *Esk* 182 jazotendan *Esk* 183 ezdavena *Esk* 186 biardan *Esk* | biardo zu *Esk* 190 estaldubagaric *Esk* | gaucia *baina* 2. a *ler.art.* 191 ezleoque *Esk* | juramentubat *Esk* 192 ezda *Esk* | baida *Esk* 192-193 santubaa uan artubagaric *Esk* 194-195 ezjaquin eitendaveenac; ezdaquijena *Esk* 196 esangura ezdaveenac *Esk* 199 biardeutsagunian *Esk* | etegaitubeen *Esk* 202 biarda testigubat *Esk* 204 biarda *Esk* | esanezinleijan testigubat *Esk* 205 esanecin *Esk* 206 ezda edo baida *Esk* 207 batda *Esk*

¹²² Ik. Mt 5,37.

210 Jangoicua testiguzat artuta esaten dan gaucia, guztia sinistu biar davee;
 bada, Jangoicuac inos bere guzurric esan ezin lei. Ta orregaiti juramentuba da,
 esaten dana sinistu eraiteco errazoe nausija. Juramentu eguiten davenac esaten
 badau gaucia zucen daquijen moduban, ecarten dau Jangoicua testigu eguijaz-
 215 cozat ta sinistuten jaco esaten davena. Baña juramentubaren beian guzurra esaten
 badau, ecarten dau guzurraren testiguzat Jangoicoa; ta sinistu arren ordu-
 ban bere esaten davena, Jangoicua testiguzat artuta esan davelaco, iminten dau
 Jangoicua testigu guzurtizat ta eguiten dau Jangoicua guzurti. Ara emen guzu-
 rrezco juramentubaren malecija guztia, neure entzula onac. Jangoico eguijaz-
 220 cua, Jangoico zucena ta gauza guztien barri daquijena, guzur bat sinistu eraite-
 co testiguzat imintia. Bera [147] paltsua ta guzurtija dan leez, Jangoicua bere
 paltsua ta guzurtija dala esatia. Ez dago luurraren gañian beste moduric gaucia
 pirme sinistu eraiteco, Jangoicua testiguzat ecartia baño. Denpora guztietan
 egon da sinistute bat, Jangoicuac guzurric esan ecin leijana ta Jangoicuaren ice-
 nian esaten dan guztia eguija dana. Denpora guztietan esan dira gauzac
 225 Jangoicua testiguzat artuta, ta dempora guztietan eguin dira juramentubac.
 Jangoicuac berac eguin ditu sarri bere icenian juramentubac, gueure argaltasu-
 nagaz acordauta, bere berba santubai pirmeza andijaua emoteco (92). San
 Pablo apostolubac gentilai prediqueetan eutsenian, Jangoicua testiguzat imin-
 ten eutseen, eguija esaten evana sinistu eraiteco (93). Ene ama santa Teresac
 eguin evan juramentu icaragarri bat, premina andico eguija bat bestelan sinis-
 230 tu erain ecin evanian (94). Zurac eta arrijac Jangoicozat euqueezan gentilac
 bere sarritan juramentu eguiten even euren Jangoico paltsuen izenian, baña
 ez ciran azartuten guzurragaz juramentu eguiten, dino san Agustinec (95).
 Bada, gentil itsubac atreviduten ezpaciran zuren ta arrijen [148] icenian jura-
 mentu paltsua eguiten, ¿celan atreviduco da, dino san Agustinec, cristinauba,
 235 Jangoico vizijaren, Jangoico eguijazcuaren ta zelotsubaren icenian guzurrezco
 juramentuba eguiten?

Guzurrezco juramentuba eguiten davenac ucatuten deutzaz Jangoicuari
 daucazan gauza on guztia. Esaten dau Jangoicua dala guzurtija ta ataraco
 240 dacar guzur bat sinistu eraiteco testiguzat. Jangoicua guzurtija balitz, ez litzaa-
 teque izango ez zuzena, ez ona, ez jaquituna, ez eguilia, ez salbazallia; ezpa-
 da oquerra, paltsua, gaistua ta engainutsuba, edochein bere guzurti leez. Orra,

 (92) Genes. 22. Psalm. 94. y 109. (93) Ad Rom. c. 1; in 2ª ad Corint. c. 1. y 11.
 (94) T.1º Cart. 20. n. 6. (95) Lib. 19 contra Faust., c. 11.

209 biardavee *Esk* 210 bada *baina* da *Ier.art.* | da *Ierro art.* 212 ecartendau *Esk*
 213-214 esatenbadau *Esk* 215 esandavelaco *Esk* 220 Ezdago *Esk* 222 egonda *Esk* 223
 esatendan *Esk* | esandira *Esk* 225 eguinditu *Esk* 229 icaragarribat *Esk* 229-230 sinis-
 tuerain *Esk* 232 ezciran *Esk* 238 Esatendau *Esk* 239 guzurbat *Esk* | guzurtija *baina* ur
Ier.art. 239-240 ezlitzaateque *Esk*

neure cristinaubac, ce injuriya andija eguiten deutsan Jangoicuari, guzurrezco juramentuba eguiten davenac. ¡Beguiratu bada, neure entzula onac, ce pecatu 245 icaragarrija daroian beragaz juramentu paltsuac!

Orregaiti esaten dau Teodoreto jaquitunac (96), ez dala auan artu biar Jangoicuaren izen santuba, oracinoe eguiteco ta premina andico gauza eguijzcoren bat erremedijetaco baño. ¿Cer izango da, bada, guzurragaz ta guzurra 250 sinistu eraiteco Jangoi-[149]co vizija auan arteia? Alperric da esatia: *echaco inori calteric etorri nic eguin neban juramentu paltsuagaz*. Guzurragaz juramentu eguin ezquero, barre eguiteco bada bere, lasto batec edu inporta ezpadau bere, beti da sacrilegijozco pecatu mortala. Ez dago onetan pecatu chiquiric. Ta ceinbat gauza guichijauaren ta utsauaren gañian eguiten dan guzurrezco juramentuba, ainbat eguiten jaco Jangoicuari injuriya andijaua. 255

Jangoicuari testigantzia emon eraitia, gauza astuna ta andija da; guzurrezcua emon eraitia, guztiz astuna ta guztiz icaragarrija da; ta gauza guichi bat gaiti, utsa gaiti, barre bat gaiti emon eraitia, milla vidar astunaua ta icaragarrija da. ¡Oh, juramentuguin tristiciac! ¡Oh, berbaan berbaan edoceinbere gauza 260 gaiti eguijagaz nai guzurragaz *arimaraco, Jangoicoraco, arguija dacustan leez* ta beste onaco, esan dirian juramentubac eguiteco izcune zoriguestocua dauqueenac! ¡Oh, ceinbat sacrilegijo icaragarri eguiten ditubeen! *Inori calteric etorri echacola, denporia iragoteco dala* esanda, uste davee alaco errucarrijac, libreetan diriala. [150] Baña ez, neure entzula onac. Ez dago chancharic eta 265 gauza guichiric guzurrezco juramentubaren gañian. Onaco juramentu paltsoguztiac eta bacocharic guzurti eiten davee Jangoicua, desondreetan davee Jangoicua ta lotsatuten davee ceru guztia. Ta ez da oraindino onetan gueratu-

II.

Guzurrezco juramentubac esan dirian calteen gañera daczac beste asco, 270 neure entzula onac, ta endamas juezaren aurrian eguiten danian. Juezac juramentu eraguiten dau, eguija jaquiteco, errazoiac noc daucan jaquiteco ta alde bijetaco errazoiac eta eguijaac ezaututa, bacochari beria emoteco. Bada, testigubac juramentubaren beian ucatuten badau, guichitu, gueitu, edertu edo toloztuten badau esaten davena, ez dau juezac eguija jaquiten, dan moduban. 275

(96) Quest. 4. in Exod.

244 eguitendeutsan *Esk* 245 eguitendavenac *Esk* 247 ezdala *Esk* 252 badabere *Esk*
253 betida *Esk* | Ezdago *Esk* 254 eguitendan *Esk* 258 barreat *Esk* 259 edoceinbere
Esk 261 esandirian *Esk* 264 Ezdago *Esk* 267 Tazda *Esk* 270 esandirian *Esk* 272 era-
guitendau *Esk* 272-273 taaldebijetaco *Esk* 275 esatendavena, ezdau *Esk*

Ta nai baleu bere, sentencija zuzena emon ecin lei. Ta ara celan urteten daven sentencijaan, culparic ez daucana castigauta ta culpa daucana libre, guzurrezco testigantzia dala medijo. ¡Oh, ceinbat bidar au jazoten dan, neure cristinaubac! Enpeñuba [151] gaiti, inoren ederra gaiti, vengueetia gaiti, cer edo cer agundu deutseelaco, edo bere contura ardura bagaric berac daquijela ta juramentu eguiteco esan deutseelaco, sarritan eguiten dira juramentubac, edo guzurrezcuac, edo guichituta ta gueituta, edo inoren esanaren gañera, noverac ez daquijela. ¿Ta cer jazoten da emeti? Sentencija oquerra. Juezac libreetan ditu erruba dauqueenac ta condeneetan ditu inocentiac. Ondraubac gueratuten dira desondrauta ta desendraubac ondriagaz. Urcatu biar leuquiiana viziric eta viziric egon biar leuquiiana urcatuta. Jaubia acienda bagaric ta lapurra inoren aciendiagaz. Au guztiau ecarten dau, neure entzula onac, guzurrezco juramentubac.

¿Cer eguin biar dau, bada, juezaren aurrian juramentu chaarra eguin davenac? Juezaren aurrian testigantzia paltsua emon davenaren obligacinoia da: 1º Sentencija jausi ezpada orduco, juan ta esan juezari *guzurrezco testigantzia emon evala, itandu eutseen gauza a oquer esan* [152] *evala ta ez davela gura balijo daijan*. Ta juezac sinistu gura ezpadeutsa, (jazo leitequian leez) dauca obligacinoia testigu aurrez autortuteco guzurra esan evana, ta escribau aurrez paper bat eguinda, toqueetan jaconari entregueetaco, guzurrezco testigantzia emon zan aucijaren edo querelliaren sentencija jausita, culpa bagacua castigau ez dein. 2º Testigantzia paltsua edo ondo jaquinbacua emon zan demandiaren setencija jausi bada, guzurrezco juramentuba eguin evanac dauca obligacinoia cleituba galdu eutsanari viurtuteco, ez bacarrian, ezpada guztiac jaquin leijen moduban. Bada, guztiac jaquin leijen moduban galdu jaco, guzurrezco juramentuba dala medijo. Onezaz ostian, pagau biar deutzaz justicijan eguin dituban castubac ta beste guzurrezco juramentuba dala medijo etorri jacozan calte guztiac. Inoren ondriaren ganian eguin dozu, justicijac aguinduta, guzurrezco juramentuba. Zure guzurra dala medijo juezac castigau dau culparic ez eucana; zure guzurra dala medijo castau dau justicijaan erruric ez eu-[153]canac. Bada, zure obligacinoia da, testigu aurrez ta guztiac jaquingo daveen moduban, cleituba galdu deutzazunari atcera bere cleituba biurtutia ta aucitan edo demandan eguin dituban castubac ta euqui dituban calte guztiac pagueetia.

Beste ainbeste: Eguin dozu guzurrezco juramentuba juezaren aurrian, solo bateco, baso bateco, eche bateco, tratu bateco edo beste aciendaco auci baten,

277 naibaleubere *Esk* | ecinlei *Esk* 278 ezdaucana *Esk* 281 ardurabagaric *Esk* 282 esandeutseelaco *Esk* 284 ezdaquijela *Esk* 285 errubadauqueenac *Esk* 286 Urcatubiarleuquiiana *Esk* 287 egonbiarleuquiiana *Esk* | aciendabagaric *Esk* 288 ecartendau *Esk* 290 biardau *Esk* 291 emondavenaren *Esk* 293 itandueutseen *Esk* | esanevala, ta ezdavela *Esk* 295 esanevana *Esk* 298 ezdein *Esk* 299 eguinevanac *Esk* 300 ezbacarrian *Esk* 301 galdujaco *Esk* 302 biardeutzaz *Esk* | eguindituban *Esk* 303 etorrijacozan *Esk* 304 eguindoza *Esk* 305 castigaudau *Esk* 306 castaudau *Esk* 310 Eguindoza *Esk*

ta zure guzurrezco testigantzia dala medijo irabaci dau aucija errazoeric ez eucanac; ta gueratuten da errazoia eucana, aucitan eguin dituban castubeequin eheco biarraren paltiagaz ta acienda bagaric. Bada, zure obligacinoa da, galdu daven aciendiaren balijua, aucitan eguin dituban castubac ta beste eheco calte guztiac pagueetia. Bestelan ez dago salbacinoeric testigantza paltsua emon davenarenzat. Ilten balego bere inoc absolvidu ezin lei, guzurrezco edo ondo jaquin bagaco testigantziagaz galdu daven cleituba ta eguin dituban caltiac erremedijau artian. Ta ara emen, neure cristinaubac, berba guichitan espli-cauta cer dan guzurrezco juramentuba ta cer eguin biar daven testigantza paltsua emon davenac. Esan daigun beti eguija [154] zucen, daquigun moduban. Ez testiguzat eruatzen gaitubanac gura daven moduban edo ari ondo juacon moduban. Ez bestiac ardura bagaric bere contura juramentu eguiteco esaten doscun moduban, ezpada daquigun moduban, entzun dogun moduban, icusi dogun moduban, esan dogun moduban edo eguin dogun moduban. Ta libre egongo gara pecatu ascotati. Alan gura izan daijala gueure Jangoico onac Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

**BIGARREN MANDAMENTUCO
IRUGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
*cer dirian votuac edo promesac, celan cunplidu biar dirian
ta celan quentceen dan euren obligacinoa.*

[155] Sarritan jazoten jatzun gaucia da, neure cristinaubac, Jangoicuari ta santubai votuac edo promesac eguitia. Gueure erliginoe santuco eguitiac dira votuac eta promesac. Ta cristinaubac jaquin biar dau ce obligacinoe dacarren

312 irabacidauaucija *Esk* 313 gueratutenda *Esk* | eguindituban *Esk* 314 aciendabagaric *Esk* 315 galdudaven *Esk* | eguindituban *Esk* 316 calteguztiac *Esk* | ezdago *Esk* 315 emondavenarenzat *Esk* 318 eguindituban *Esk* 320 cerdan *Esk* | eguinbiardaven *Esk* 321 emondavenac. Esandaigun *Esk* 322 guradaven *Esk* 325 esandogun *Esk* 326 izandaijala *Esk* 329 eracustendan *Esk* 330 biardirian *Esk* 335 jaquinbiardau *Esk*

alaco oprecimentubac. Eracutsico dotsut, bada, dotrina onetan: Lelengo: cer dan voto edo promes eguitia. Bigarren: celan cumplidu biar dirian promesac. Irugarrenian: celan quentceen dan promesen obligacinoia.

I.

340 Promes eguitia cer dan eracustera orduco¹²³, jaquin biar dau cristinaubac Jangoicuari baño besteri echacola vоторic eta promesic eguiten. Ainguerubai, santubai edo santei eguiten deutseezuzan promesac bere, ondo aitu ezquero, Jangoicuari eguiten jacozanac dira. Santu ta santai cerbait promesagaz oprecietan jacuenian, Jangoicuari promes eiten jaco; ta santuba edo santia iminten
345 da vitaartecozat, escatuten dan gaucia Jangoicuaganic erreztuago¹²⁴ jadiisteco, laugarren sacramentuban mezaco dotrinaan esango dan leez¹²⁵. Orraitino bere, ainchinaco usadijua da Elesaan, santuben icenian mezaac etaratia ta promesac egui-[156]tia, Pouget jaquitunac dinuan leez (97). Baña au guztiau eguiten da Jangoico bacarraren izenian. Asco da zubentzaco, neure cristinaubac, Elesaa
350 Ama santiaren intencinoiagaz bat eguinda, Jangoicuaeren edo santuben icenian, devocinoia daucazun moduban, promes eguitia. Jaquin ezquero, bada, nori eguin biar jacozan promesac, ez da beste gauzaric promes eguitia, ezpada *noberac obligacinoeric ez daucan gauza ona baño obia ezaubera ta liberta - de osuagaz Jangoicuari oprecietia*. Esaten da: noberac obligacinoeric ez dauca
355 can gaucia. Bada, obligacinoecuac bere promes eguin leiz nosbait; baña gueijenian ez da alan izaten. Esaten da gauza ona baño obia; bada, Jangoicuari votuagaz oprecietan jacona, obia izan biar dau isteen jacona baño, promesac balijoco badau. Verbigracija Jangoicua obeto serbietia gaiti ezcondu bagaric vizi izatia, berez oba da, ezcondutia baño. Jangoicua obeto serbietia gaiti
360 comentu baten sartceia, berez oba da ez sartceia baño. Ta modu onetan beste asco. Orregaiti ezcontzeco votuac, praile ez izateco votuac, monja ez izateco [157] votuac ta beste onaco gauza ona baño obia oprecietan ez daveen votuac,

(97) Instit. Cathol., P. 20, Sect. 3, c. 3. §. 2.

336-337 cerdan *Esk* 340 cerdan *Esk* | jaquinbiardau *Esk* 344-345 imintenda *Esk* 348 Pouget] Pouguet *Esk* | eguitenda *Esk* 349 Ascoda *Esk* 350 bateguinda *Esk* 352 eguin-biarjacozan *Esk* | ezda *Esk* 353 ezdaucan *Esk* 354 esatenda *Esk* | ezdaucan *Esk* 356 ezda *Esk* | Esatenda *Esk* 357 biardau *Esk* 358 serbietiagaiti, ezcondubagaric *Esk* 359 obada *Esk* | serbietiagaiti *Esk* 360 obada *Esk* 362 ezdaveen *Esk* 363 Cathol.] Chatol. *Esk*

¹²³ Denborazko perpaus batzuk adierazteko, *orduco* darabil. Aurrekoa aditz-partizipioa izan ohi da batzuetan, baina gure idazleak joera handia du aditz-izena *-tera* amaieraz egiteko.

¹²⁴ *Errezto* aditzondoa darabil; gaur egun pixka bat bitxi egiten zaigu, *-ki* eta *-ro* amaierako aditzondoak baitira ohikoenak.

¹²⁵ Berrito ere *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburuaz ari da, 1819an argitaratua, baina askoz lehenago prestatuak izan zuena.

eureenez ez davee balijo ta promes alperrac dira, euren gueija ona baño obia
 ez dalaco. Promesen gueijac izaten dira: Erliginoe baten sartceia, castidadia 365
 gordeetia, ezcondu bagaric vizi izatia, baru bat eta limosnaac eguitia, meza en-
 tzutia, sarri compensetia, errosarijo ta devocinoiac errecetia, jocoric ez eguitia,
 diversinuetara ez juatia ta beste onaco gauzaac. Oneec dira votuagaz edo pro-
 mesagaz Jangoicuari oprecietan jacozanac.

Ez da asco votua edo promesa eguiteco, gauza ona eguiteco ustia edo 370
 intencinoia artceia. Verbigracia, egun baten baru eguiteco gogua imintia edo
 intencinoia artceia, ez da voto eguitia. Voto edo promes eguiteco, ezaubera ta
 libertade osuagaz Jangoicuari oprecidu biar jaco gauza a, cunpliduteco uste
 osuagaz edo bere buruba atara obligueetaco goguagaz. Dotrina au ondo aitu-
 tia chito biarrecua da, neure entzula onac. Bada, ascotan vоторic eta promesic 375
 eguin ez dozun gaucetan, uste dozu promesa dala; ta beste ascotan promes
 ezagunac daucazuz, bapere cunplidu bagaric. Orregaiti icasi biar dozu eraba-
 guiten¹²⁶ ainbat onduen¹²⁷ cer dan gauza ona eguiteco [158] gogua artceia ta cer
 dan gauza ona baño obia Jangoicuari oprecietia. Lelengua ez da votua; biga-
 rrena bai. 380

Dudia daucazunian promes eguin dozun edo¹²⁸ ez, beguiratu biar deutsa-
 zu cec erain otsun, cegaiti eguin cenduban ta cer eguin cenduban. Ta orduban
 ezautuco da promesa dan ala ez. Gaiso bateti, trabaju bateti edo beste estuta-
 sun bateti ondo libreetaco Jangoicuari ta santubai eguiten jacuezan opreci-
 mentubac, gueijenian izaten dira promesac. Dudia daucazunian, itandu biar 385
 deutsazu conpesoriari edo daquijenari. Bada, gauza onetan erreguela guztizco
 bat inoc bere imini ezin lei.

II.

Votuac edo promesac eguin ezquero, cunplidu biar dira, neure entzula
 onac. Bada, Jangoicuari ta santubai eguiten jacuezan oprecimentubac dira. 390
 Promes eguin dan gauzia, al della, ez cunplidutia pecatu da; ta berez pecatu

364 ezdavee *Esk* 365 ezdalaco *Esk* 366 ezcondubagaric *Esk* | barubat *Esk* 370
 Ezda *Esk* 371 Verbi gracia *Esk* 372 ezda *Esk* 373 biarjaco *Esk* 376 ezdozun *Esk* 377
 cunplidubagaric *Esk* | icasibiardo zu *Esk* 378 cerdan *Esk* 378-379 cerdan *Esk* 381-382
 biardeutsazu *Esk* 383 ezautucoda *Esk* 385-386 biardeutsazu *Esk* 389 biardira *Esk* 391
 eguindan *Esk* | aldella *Esk*

¹²⁶ *Erabagui* hitzak, batzuetan, bata eta bestea bereizi esan nahi du harengan eta hemen ere
 hala da.

¹²⁷ Hauxe da erabili ohi duena, eta ez *aalic onduen*, *albait ondoen*...

¹²⁸ *Edo* eta *ala* lokailuen bereizketa nahiko garbia da; joera, behintzat, argi dago. Baina, iri-
 tzi batean, hark jaten dio tokia honi. Hemen, ustez bietan *ala* behar zukeenean eta biak testuin-
 guru berdintsuak izanik, edo darabil lehenengoan eta bi lerro beherago ala... (Ik. 283.or.).

mortala da. Izan leiteque ascotan pecatu veniala promesa ez cunplidutia, bai
 gauciaren parteti ta baita denporiaren parteti bere. Gauciaren [159] parteti izan-
 go da pecatu veniala, cunplidu bagaric isteen dana gauza guichija danian.
 395 Gauza andija ala chiquija dan jaquiteco, beguiratu biar jacue beste pecatu mor-
 tala edo veniala dirian gaucei. Egunian egunian avemarija bat errecetaco pro-
 mesa, gauza guichija da. Ta errezau ez arren, ez da pecatu mortala eguiten,
 veniala baño. Errosarijo bat errecetaco, meza bat entzuteco, baru bat eguiteco
 400 edo onen egunetan conpeseetaco promesa, gauza andija da. Ta al della cun-
 plietan ezpada, pecatu mortala eiten da.

Denporiaren parteti promesa ez cunplidutia izango da pecatu mortala: 1^o
 Gauza andija izan ezquero, izenteetan dan denporaan, al della cumpliduten ez
 danian. Promes eguiten dau urrengo zapatuban meza entzuteco; bada, al dai-
 jala mecia entzuten ezpadau urrengo zapatuban, eguiten dau pecatu mortala,
 405 izentauc denporaan promesa cunplidu ez davelaco. Erromerija batera santu-
 baren egunian juateco eguiten dirian promesac nos cunplidu biar dirian, esan-
 go da diversinoetaco dotrinaan. 2^o Cunplietaco denporia icentau bagaric [160]
 eguiten dirian promesac, cunplidu biar dira ainbat lasterren. Gauza guichi bat
 luzatutia izango da pecatu veniala; gauza andija bada, mortala. Meza bat eta-
 410 rateco promes eguiten davenac illebeta baño gueijago luzatutia, leenago etara
 al daijala, eguingo dau pecatu mortala. Ta modu onetan beste promesac bere.
 Baña limosna bat premina daucanari emotia promes eiten danian, denpora gui-
 chiago bere asco izango da pecatu mortala eiteco, al daijala emoten ezpadau.

Gauza onetan nic esan neizuna da, neure cristinaubac; promesa eitera
 415 orduco¹²⁹ beguiratu daizula ondo. Bein eguin ezquero, cunplidu daizula ciur
 eguin dozun moduban. Jangoicuari eguiten jacon oprecimentuba da promesa.
 Orregaiti esaten doscu Jangoicuc berac Escritura Sagraduban (98): Jangoicuari
 votua edo promesa eguiten badeutsazu, ez dozu luzatuco cunplidutia; bada,
 Jangoicuc escatuco dotsu aguindu ceuntsana ta luzatuten badozu, pecatu
 420 eguingo dozu. Pecatu genero au espliquetan dau ene ama Teresac eta dino
 (99), ceruco Jaun andijari burla eguitia dala [161] aguindu ta ez emotia, promes
 eguinda ez cunplidutia. Elesaco maisubac esaten deutsee sacrilegijozco peca-

 (98) Deuter. 23. (99) *Cam. de perfecc.*, c. 32. n. 6.

394 isteendana *Esk* 395 biarjacue *Esk* 397 guichijada *Esk* | ezarren, ezda *Esk* 398
 barubat *Esk* 402 izenteetandan | aldella *Esk* 402-403 ezdanian *Esk* 403 eguitendau *Esk*
 403-404 aldajjala *Esk* 404 eguitendau *Esk* 405 ezdavelaco *Esk* 406-407 esangoda *Esk* 407
 icentaubagaric *Esk* 408 biardira *Esk* | guichibat *Esk* 410 eguitendavenac *Esk* 411 aldai-
 jala, eguingodau *Esk* 413 izangoda *Esk* | aldajjala *Esk* 415 beguiratudaizula *Esk* |
 cunplidudaizula *Esk* 422 esatendeutsee *Esk* 423 Deuter.] Deutor. *Esk*

¹²⁹ Ik. 123. oharra (600.or.).

tuba, promesa ez cunplidutiari. Onetan palta andija dago, neure entzula onac, 425
 cristinauben artian. Buruco min bat daneco edo beste naibague bat echian edo
 aciendaan datorreneco, Jangoicuari edo santubai eiten jacuez promesac; ta
 guero denpora luceetan ez dira cunpliduten. Onaco promesic gueijenac izaten
 dira gachac jo daizanian, estu estuban arin aringa ta ondo pensau bagaric egui-
 ten dirianac. Ta aldi estuba à¹³⁰ irago deinian, ez da inor acordeetan promesa-
 gaz. Onetaraco oba litzaateque secula promesic ez eguitia. Bada, Jangoicuaren 430
 leguiac ez doscu aguinduten promesac eguiteco; ezpada eguiten badogu, ciur
 cunplietaco. Esaten doscu bai Jangoicuac (100) arin aringa ta ondo pensau
 bagaric eguiten dirian promesac echacozala gusteeetan; ez beste gauza gaiti,
 ezpada gueijenetan ondo cunpliduten ez dirialaco. Contu bada, cristinaubac,
 gauza onetan. 435

III.

Irugarren lecuban, promesaren obligacioia quentceen da modu ascotara.
 1º Promesa cunplidu [162] ecin danian. Bada, ecin davena legue guztietan libre
 dago. 2º Promesa cunplietaco denpora icentauba iragoten danian cunplidu 440
 bagaric. Santu baten devocinoia gaiti promes eguiten dozu, aren vesperaan
 baru eguiteco. Bada, egun a irago ezquero, ez daucazu obligacinoeric baru
 eguiteco. Baña ceure pecatubeetati libreetia gaiti ta conciencija garbitutia gaiti
 promes eguiten dozu urrengo domeecan conpeseetaco. Bada, domeeca atan
 conpesau ez arren, daucazu obligacioia ainbat lasterren conpeseetaco.
 Promes batzuc nai cunplidu ta nai cunplidu ez, icentautaco denporiagaz aca- 445
 beetan dira. Baña beste batzuc ez. Limosnia emoteco promesac, inori mesede
 eguiteco promesac ta nobera salbacinoeco bidera etorteco popuertza biar
 dirian gauceetan eguindaco promesac, ez dira quentcen, denpora icentauba
 irago arren. 3º Elesaco aguintarijac (ceintzuc dirian Aita Santu Erromacua, obis-
 po jaunac eta beste asco) quentceen daveenian. 4º Promes eguin daven gau- 450
 cia, conpesoriac beste gauza batera mudeetan deutsanian. [163] 5º Promesagaz
 aguindu daven gaurcia artu biar davenac parcatuten deutsanian. Beste modu
 ascotara bere quentceen da promesaren obligacioia; baña ez da ain premina

 (100) Eccl. c. 5.

425 naibaguebat *Esk* 428 jodaizanian, estuestuban arinaringa *Esk* 429 ezda *Esk* 431
 ezdoscu *Esk* 432 Esatendoscu *Esk* 433 gauzagaiti *Esk* 434 ezdirialaco. Contubada *Esk* 437
 quentceenda *Esk* 438 ecindanian | ecindavena *Esk* 439-440 cunplidubagaric *Esk* 440
 Santubaten *Esk* 441 ezdaucazu *Esk* 442 libreetiagaiti *Esk* 444 ezarren *Esk* 447-448 biardi-
 rian *Esk* 448 ezdira *Esk* 452 aguindudaven *Esk* | artubiardavenac *Esk* 453 quentce-
 enda *Esk* | ezda *Esk*

¹³⁰ Ik. 120. oharra (593.or.).

- 455 andicua zubec guztiac jaquitia. Ta dotrina au acabeetaco esango dot gauza guichi¹³¹ bat berba donguen gañian. Berba dongac esaten jacue *bidawei, maldeci - noiai* ta *blasphemijai*. Bidaua da demoninuaren, diabrubaren ta barrabasaren icena premina bagaric esatia. Nosbaitaco baten esatia ez da pecatu mortala. Berbaan berbaan demoninua, diabruba... purijaz edo chanceetan bere esatia,
- 460 guztienzat da oitura chaarra; baña gurasuenzat gueijenian pecatu mortala, (besteentzat ain laster ezpada bere) pamelijari gaisqui eracusten deutseelaco. Maldecinoia da projimuaren gacha esaten daven berbia. Verbigracija, Itoco al dala; beso bijac igartuco al jacozala; purgatan castauco al davela... Intencinoe chaar bagaric onaco berbaac esatia (escandaluric emoten ezpadau) nosbaitaco baten, izango da pecatu veniala. Intencinoe dongaric equi ez arren, onaco berbaac esateco costumbria pecatu mortala da, sarritacuac escandaluba beragaz daroialaco. [164] Intencinoiagaz onaco maldecinoia eguitia, bein baño ezpada bere, pecatu mortala da. *Blasphemija* esaten jaco Jangoicuaren edo santuben contraco berba donguiari. Esango baleu inoc: *Jangoicuac ez daqui ecer;*
- 470 *Jangoicua sinplia da; Jangoicuac ez dau inor condenau biar;* edo beste onaco Jangoicuaren ta santuben contraco berbaac, eguingo leuque pecatu mortala. Baita adrede edo chanceetan esango baleu bere. Jangoicuaren ta santuben contra izan ezquero, danic barbaric chicarrena da pecatu mortala ta esaten jaco *blasphemijaco* pecatuba.
- 475 Artu daigun bada, neure cristinaubac, onaco bidao, maldecinoe ta beste berba donga guztien gorroto andi bat. Vizitzaan sarri esaten ditugun gauzaac, erijotzaco orduban bere urtengo doscubee. ¡Oh, ce erijotza tristia bada, neure entzula onac, diabruba, barrabasa ta demoninua auan ta albuau daucazanarena! Esan daigun: Jesus, Maria ta Jose. Icen santu oneec beti gueure auan, gueure vijotzian ta gueure goguan, bai vizitzan, bai erijotzan ta bai eternidade guztian. Alan izan della. Amen.
- 480

455 esangodot *Esk* 455-456 guchibat *Esk* 462 esatendaven *Esk* 462-463 aldala *Esk* 465 izangoda *Esk* 468 esatenjaco *Esk* 469 ezdaqui *Esk* 470 ezdau *Esk* | condenau-biar *Esk* 472 baleubere *Esk* 473 esatenjaco *Esk* 475 Artudaigun *Esk* 476 andibat *Esk* | esatenditugun *Esk* 479 Esandaigun *Esk* 481 izandella *Esk*

¹³¹ Esaldi honetan *guichi* "txiki", "labur" edo antzekoen lekuan dago; hau da, izenondoa da eta ez, testuingururik gehienetan izan ohi denez, aditzondoa.

[165]

[IRUGARREN MANDAMENTUBA]

**IRUGARREN MANDAMENTUCO
LELENGO LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
ce biar eraozten doscun Jangoicuac domequeetan ta jai osuetan,
celan eraozten daven 5
ta ce necesidadegaz biarra eguin leijan egun areetan.

Jangoicuaren legueco irugarren mandamentubac aguinduten doscu, neure entzula onac piesta egunac santipiqueetaco (101). Piesta egunac esaten danian, aituten emoten da domeecac eta beste urte barruco jaijac. Urte barruco jaijac, batzuc osuac dira ta domeequetaco obligacinoe guztia dago jai osuetan. Beste batzuc dira jai erdiyac ta oneec cunplietan dira meza santuba entzunagaz. San Gregorijoc esaten dau (102), domeecac eta jaijac santipiquetan diriala [166] biarric eguin ezagaz ta obra onac eguinagaz. Gauza bi aguinduten doscuz mandatu onec: bata biarric ez eguitia ta bestia obra onac eguiten egun santu oneec iragotia. Jaijetaraco obra onen artian Elesa Ama santiac señalauta dauca (103), meza osua entzutia. Ta ara emen, neure cristinaubac, mandamentu onetan eracutsico dotsudan dotrinia. Lelengo lecinoia izango da biarric ez eguitiaren gainian¹³². Bigarrena, meza entzutiaren gañian. Irugarrena, meza osua entzutia asco dan edo¹³³ ez jaquitiaren gañian. 10 15

Astian bein edo gueijagotan pecatu mortalaren beian obliguetan gaituban gauzia da, neure Cristinaubac, jaijac gordeetia. Ta errazoia izango da chito cuidado andijagaz mandamentu onetaco dotrinia zubec icastia. Gueijago luzatu bagaric esango dotsut dotrina onetan: Lelengo, Jangoicuac jai domeequetan eraozten doscuzan biarrac ceintzuc dirian. Bigarrenian, celan eraozten doscun 20

(101) Exod. c. 20. (102) Lib. 13. epist. 1. olim Lib. 11. epist. 3. (103) Ex capit. omnes fidel. 62. 25

3 eracustendan *Esk* 6 eguinleijan *Esk* 7 aguindutendoscu *Esk* 8-9 esatendanian *Esk* 9 emotenda *Esk* | urtebarruco *Esk* 12 esatendau *Esk* 16 dauca *baina* ca *ler.art.* 19 asco-dan *Esk* 20 pecatumortalaren *Esk* 23 esangodotsut *Esk*

¹³² Hegoaldeko idazle hauengan, *-en gainian* forma da zabalduena eta ia bakarra, zerbaitez edo zerbaiti buruz hitz egin adierazteko.

¹³³ *Edo / ala* lokailuen erabileraz, ikus 128. oharra (601.or.).

jaijeguneco biar eguitia. Ta irugarrenian, nos biarra eguin leijan jaijegunetan pecaturic eguin bagaric. Entzun eizu cuidado guztiagaz.

[167]

I.

Jangoicuac jai domequeetan eraozten doscuzan biarrac ceintzuc dirian
 30 ezauteuco, jaquin biar da lelengo santo Tomasegaz (104), guc eguin al daigu-
 zan biar genero guztiac, edo dira pecatuzcuac, edo dira projimuaren ta gueu-
 re provechucuac, edo dira Jangoicuaren ondraracuac. Pecatu eguiten davenac
 eguiten dau pecatuzco biarra ta gueratuten da, dino san Juanec, pecatubaren
 35 crijadu edo pecatubaren aguinduban (105). Jai domeequetan pecatu eguiten
 davenac, dino san Antoninoc beste maisu ascogaz (106), austen ditubala legue
 bi: bata pecatu eguin davelaco ta bestia Jangoicua alabeetaco egun santuban
 eguiten davelaco. Ta conpesinoian esan biar dau jaijegunian pecatu eguin
 davenac, *domeecaan edo jaiegunian pecatu eguin evala*. Bada, jaijegun santu-
 ban eguiten dan pecatu mortala ezainaua ta andijaua da, astegunian eguiten
 40 dana baño. Ez zaitez, bada, aaztu dotrina onegaz, neure cristinaubac. Duda
 bagaric esan lei, Jangoicua serbietaco egun santubac, domeecac eta jaijac, ez
 diriala ya gueure Jangoico andija ondreetaco; ezpada vanidadia, [168] mundu-
 ba ta diabruba serbietaco.

Noberaren edo projimuaren provechuraco biarrac dira, gorputza cansau-
 45 ta, vizitzia mantenietaco escubequin eguiten dirianac. Oneec icenteetan ditu
 beste concilijo ta maisu ascoren artian Meldeco concilijuac (107) eta dino, jai
 domeequetan eragozita dagozon biarrac diriala: Soluetaco biarrac, aotzjaco,
 arguintzaco ta erreminta guintzaraco biarrac, arrain artzallen, mercatarijen, jue-
 zeen, pinturaguinen, cazaarijen, josla, eula ta gorularijen biarrac. Biar genero
 50 oneec guztioc eraotzita dagoz Elesaco erreguela ascotan, jaijeguna eta domee-
 cac gordeetia eraozten daveelaco. Contu euqui biar dau, bada, cristinaubac jai-
 jegunetaco biarragaz. Ez dau secula inoc pensau biar, jaijeguneco biarrac abe-
 ratstuco davela¹³⁴. Ez dau inoc pensau biar, gueldi dauan costuban, asco neca-
 tu bagaric eguiten dala. Jangoicuac eraotzita dauan gaucia da ta bera da asco
 55 besperaan edo bijaamonian eguin leijan biarric jai domeequetan ez eguiteco ta

 (104) *2a 2æ*, Q. 122, a. 4. ad. 3. (105) C. 8. (106) Part. 2, tit. 9, c. 7. §. 2.
 (107) ann. 845. Ill^{mo} Genet. trat. 3, c. 2, t. 3.

29 jaidomequeetan *Esk* | eraoztendoscuzan *Esk* 30 biarda *Esk* | aldaiguzan *Esk* 33-
 34 eguitendavenac, eguitendau *Esk* 34 Jaidomeequetan *Esk* 36 eguindavelaco *Esk* 38 eguine-
 vala *Esk* 39 eguitendan *Esk* 40-41 Dudabagaric *Esk* 41-42 ezdiriala *Esk* 42 ya| ija *Esk* 44 bia-
 rracdira *Esk* 49 biargenero *Esk* 51 euquibiardau *Esk* 52 Ezdau *Esk* 53 Ezdau *Esk* | pen-
 saubiar *Esk* 53-54 necatubagaric *Esk* 55 jaidomeequetan *Esk* | ezeguiteco, ta ezeraguiteco *Esk*

¹³⁴ Ezezko perpausa izan arren, *aberatstuco davela* idazten du, eta ez *aberatstuco davenic*.

ez eraguiteco. Egun santu oneetan ez dozu biarric eguingo, dino Jangoicuac (108), ez ceuc, [169] ez ceure semiac, ez crijadubac, ez ceure echian dauanac, ez ceure alemanijac. 60

Berba oneetan eraozten ditu Jangoicuac esan dirian biar guztiac ta baita beste baserritarrac eguiten dituben asco bere, ceintzuc oi dirian esijac zarratutia, aparejubac imintia, abarca jostia, biurgueijac ecartia ta zopinuac eguitia, iquetza etaratia, icaztoiraco betegarrijac presteetia, erropa zaarrac adaveetia, zorruac errotara eruatia, uruna ealguitia¹³⁵, ganadu jaatecoric gacheena batceia ta beste asco, leenago edo gueruago eguin leizanac ta eguin biar dirianac. Onaco cristinaubac vizi dira beti arrastaca ta priisaca, beti biarpian¹³⁶ ta beti preminaan. ¡Oh, ce alperric canseetan dirian desdichaubac! ¡Jangoicuaren contra nai leuquee ecer aurreratu? Ez. Bateti aurreratuten daveena, nundi ez daquijela, laster juango jacue. Baña orduba da ya jaquiteco, celan pecatu eguiten dan jai domequeetaco biarragaz. 70

II.

Peccatu mortalaren beian dago eraotzita, neure cristinaubac, jai osuetan ta domequeetan biarra eguitia. Baña ez da biarra eguiten dan guztian [170] pecatu mortal[a] eguiten. Ezaututeco nos dan mortala edo veniala, beguiratu biar jaco bai eguiten dan gauciari ta bai biarra eguiten iragoten dan denporiari. Mercatarijac denpora guichijan saldu edo erosi leije irabaci andico gaucia; ta egun eraotzijetan izan ezquero, eguingo davee pecatu mortala gauza andija saldu edo erosten daveenian, denpora guichijan izan arren. Beste ainbeste esaten da, testigantza arteciac eta setencia emotiac gaiti. Oneec guztioc eraotzita daucaz Elesa Ama santiac (109) ta echaco onaco gauceetan denporiari beguiratuten, eguiten dan gauciari baño, pecatu mortala eguiteco. 80

Beste gauceetan gueijenian denporiari beguiratuten jaco, jaijeguneco biarra pecatu mortala ala veniala dan ezaututeco. Denporiari beguiratuta bere ez

----- 85
(108) Exod. c. 20. (109) Cap. erg. omnes de feriis. Bened. XIV, *Paternae carit.* etc.

58 ezdozubiarric *Esk* 61 eraotzenditu *Esk* | esandirian *Esk* 62 oidirian *Esk* 65-66 gacheenabatceia *Esk* 66 biardirianac *Esk* 67 vizidira *Esk* 69 naileuquee *Esk* | aurreratutendaveena, nundi ezdaquijela *Esk* 70 ya| ija *Esk* | eguitendan *Esk* | jaidomequeetaco *Esk* 74 ezda *Esk* | eguitendan *Esk* 75 nosdan *Esk* 75-76 beguiratubiarjaco; baieguিতendan *Esk* 76 iragotendan *Esk* 79 erostendavenian *Esk* 79-80 esatenda *Esk* 82 pecatumortala *Esk* 83 beguiratutenjaco *Esk* 84 ezda *Esk* 85 feriis] ferijs *Esk*

¹³⁵ Bokal arteko *r* galdurik, idazki honetan ohi duenez; uruna eralgi, hau da, bahetik pasatu.

¹³⁶ Gaur egun txitean-pitean erabili ohi den "lanpetuta" esamoldearen orde, egoki dator "biarpian".

da errez erreguela seguru bat iminten. Maisu batzuc gueijago ta beste batzuc guichiago biar dala pecatu mortaleraco, eracusten davee. Orraitino bere gauza jaquina da, neure cristinaubac, jaijeguneco ordu erdico biarra ez da pecatu mortala, veniala baño. Ordubetian biarra eguitia, esaten davee gueijenac, [171]
 90 pecatu veniala dala. Baña beste maisu batzuc (ez ain errazoe chaarrequin) esaten davee, irabacija gaiti edo gaurcia aurreratutia gaiti, ta endamas ecanduz edo sarritan bada, domequeetan ta jai osuetan ordubetian biarra eguitia, pecatu mortala dala. Domequeetan ta jai osuetan ordu ta erdijan iraguago edo ordu
 95 bijan biarra eguin ezquero, bapere entzutia dauqueen maisu guztiac esaten davee pecatu mortala dala.

Cuidado andija escatuten daven dotrinia da au, neure cristinaubac. Jai domequeetan biarran asten zarianian, ez dozu guztioac erlojuba beti aldian euquico denporia neurtuteo. Ta denporia neurtu al bacina bere, ez dala errez zucen jaquiten, ceinbat minutu biar dirian pecatu mortala eiteco. Ez daquit,
 100 cristinaubac, nor izan leitequian ain atreviduba, jaijeguneco biar pusca bat gaiti, pecatu mortal[a] eguiteco arriscu andi onetan bere buruba iminten davena. Artu eizu, bada, neure entzula onac, gogo sendo bat, leenago edo guerua-go eguin leijan biarric jaijegunetan ez eguiteco, ta uste dozun baño pecatu gueijago erremedijauco dituzu.

105

III.

Ez da orraitino jaijegunetan biarra eguiten dan [172] guztian pecatu eguiten. Lau gauza dagoz pecatu bagaric jai domequeetan biarra eguiteco escubidia emoten daveenac. Lelengua, noberaren preminia. Bigarrena, projimuaren preminia. Irugarrena, aguntarijen licenciya. Laugarrena, usadijua. Noberaren
 110 preminia gaiti jai domequeetan mairaco biar dan janariya prestau lei ta presteetan da. Soluan, basuan edo aciendaa calte andi bat eguiten jaconian, bestelan ecin badau, a erremedijetaco jai domequeetan biarra eguin lei. Noberaren vizitzia edo osasuna galtceeco arriscu andija dauanian bere bai. Onaco premianaco gauzaac izaten dira, subagaz dauan carabija edo icaztoija coverneetia,
 115 galtceen dauan laboria batceia, asi daven jornada bat eguitia ta beste onaco popuertzaco gauzaac. Baña bere arijaz onaco biarrac jai domequeetan astia, jaijegunagaz aprovecheetaco, pecatu da.

86 segurubat *Esk* 87 biardala *Esk* | eracustendavee *Esk* 88 orduerdico *Esk* | ezdala *Esk* 89 esatendavee *Esk* 93-94 ordubijan *Esk* 96-97 Jaidomequeetan *Esk* 97 ezdozu *Esk* | betialdijan *Esk* 98 albacinaibere, ezda *Esk* 99 biardirian *Esk* | Ezdaquit *Esk* 100 izanleitequian *Esk* | puscabat *Esk* 103 ustedozun *Esk* 106 Ezda *Esk* 107 Jaidomequeetan *Esk* 110 preminiagaiti *Esk* | biardan *Esk* 110-111 presteetanda *Esk* 111 andibat *Esk* 112 ecinbadau *Esk* | jaidomequeetan *Esk* 115 asidaven jornadabat 116 jaidomequeetan *Esk*

Projimuaren preminia gaiti beste ainbeste esaten da. Bada, projimuaren
aciendia, osasuna, vizitzia edo cleituba gordeetaco, popuertzacua bada jai
domequeetan biarra eguitia, eguin lei pecatu bagaric. [173] Jangoico onac ez 120
dau gura, ainbeste caltegaz biarra eguin bagaric egotia.

Elesaco aguintarijen licenciagaz biarra eguiten danian jai domequeetan, ez
da pecaturic eguiten. Obispo jaunac dira, jai domequeetan biarra eguiteco
licenciya emon leijenac. Ta obispo jaunen ordeniagaz cura jaunac bere bai.
Osterancian, preminia guztizco bat ezpadago, cura jaunac ezin emon lei jai 125
domequeetan biarra eguiteco licenciya. Baña obispo jaunac curiaren escubetan
isteen davee gueijenian licenciya emoteco escubidia. Ta cristinaubac euren cura
jaunaren licenciagaz biarra eguin leije jai domequeetan conciencijaco bildur
bagaric. Usadijua da moduren baten leguia quentceen davena. Ta orregaiti, 130
aguinduta egon arren jai domequeetan biarric ez eguiteco, useetan dirian biar-
rrac eguitia ez da pecatu. Usadijua daualaco, jai domequeetan eguiten dira
biarmodu asco: Alemanijac basora eruatia, ecartia ta covernetia; echian dagoza-
nantzaco jaatecua soloti edo basoti ecartia egun atan biar daveena; (vijamone-
co ganadu jaatecua batceia jai domequeetan ez da ondo, chito preminia andija
ez dauanian). [174] Errotaac covernetia, olaguizonac asita dauqueen agoia eta- 135
ratia, edo gauerdija baño pusca bat leenago agoiari su emotia... Onaco biarrac
jai domequeetan eguitia ez da pecatu, usadijua daualaco. Eguija esateco, ez
daquit olaguizonen jai gosaldeetaco ta gaveetaco biarra eguitiac, usadijo segu-
rubaren indar guztia daucan edo ez. Baña Vizcaico ola guztietan edo gueije-
netan biarrari asi ta isten deutsen denporaan, beste edocein olaguizonen bere 140
eguin lei, conciencijaco bildur bagaric. Bada, urte ascotan alan eguiten da,
obispo ta cura jaunac dacuseela ta daquijela. Ta isten deutsee iragoten. Nic
daquidanez beintzet bai.

Ara emen, cristinaubac, berba guichitan esanda cer dan jai domequeetan
biarra eguitia, nos dan pecatu ta nos ez dan. Jai domequeetaco biarra chaarra 145
bada, milla vidar charrauac dira, neure entzula onac, egun santu oneetan
eguiten dirian dantzaac, piestaac, desonestidadiac, ordiquerijac eta jocuac.
Oneec dira, san Agustinec (110), san Carlos Milanguac (111) ta beste santu ta
maisú ascoc dinuen leez (112), jai ta domeeca santubac desondreetan [175]

(110) In Psalm. 32. (111) Conc Mediol. 3. t. 1. (112) Scoto Alex. Ales. tostad. 150
en Illmo Gen. t. 3, trat. 3, c. 2.

118 preminiagaiti *Esk* | esatenda *Esk* 119-120 jaidomequeetan *Esk* 122 jaidome-
queetan *Esk* 122-23 ezdapecuric *Esk* 125-126 emonlei, jaidomequeetan *Esk* 127 isteenda-
vee *Esk* 128 jaidomequeetan *Esk* 130 jaidomequeetan *Esk* | ezeguiteco *Esk* 131 ezda
Esk | jaidomequeetan *Esk* 133 biardaveena *Esk* 134 jaidomequeetan ezda *Esk* 135
ezdauanian *Esk* 137 jaidomequeetan *Esk* | ezda *Esk* 137-138 ezdaquit *Esk* 140 isten-
deutsen *Esk* 141 bildurbagaric *Esk* 142 istendeutsee *Esk* 144 cerdan jaidomequeetan *Esk*
145 ezdan. Jaidomequeetan *Esk* 147 eguitendirian *Esk* 149 desondreetanditubeenac *Esk*

- ditubeenac, mancheetan ditubeenac ta vanidadiari, sabelari, desonestidadiari ta pecatubari consagretan deutseezanac. Gauza onetan ce libertade andija dauan ceubec dacuszu, neure entzula onac. Esan lei domeequiaren ta jai osuaren zain dagozala cristinaubac, ta endamas gaztiac, pecatu eguiteco ta nasaitasun guztiari euren burubac entregueetaco. Jangoicuac domeeca ta jai osuac obra onac eguiten iragoteco aguindu oscun leez, aguindu baleuscu egun oneetan gueuc gura guendubana eguiteco, ¿cer dongaruago eguingo ete guenduban, eguiten doguna bano?
- 160 ¡Oh, gurasuac eta umiac! Bildur izan zaitetz Jangoicuari consagrauta dagozan egun oneec diabrubari consagrau ez daijozuzan. Baña etorrico da denporia gauza au astiruago esamineetaco, diversinoien dotrinia eracusten danian. Bijen bitartian acordau, cristinaubac, pecatu chicarraua dala domeecan nabasen soluan eitia dantzan eitia baño, dino san Agustinec (113)¹³⁷. Escatu daijogun Jangoicuari, gracijazco ta bendicinoezco egun oneetan eternidadeco gloria irabazteco dichia, cein desietan dotsudan guztioi, Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 (113) Ut supr., y Lamet. v. Chorea.

154 Esanlei *Esk* 158 Cerdongaruago *Esk* 158-159 eteguenduban, eguitendoguna *Esk* 161 ezdaijozuzan *Esk* 164-165 Escatudaijogun *Esk*

¹³⁷ Lamet-engandik hartuta dakar san Agustinen pentsamendu hau; hala ere, *Euscal-errijeta - co olgueeta ta dantzen neurrizco-gatz-ozpinduba* liburuan (141.or.) Frai Bartolomek san Agustinen pentsamendu bera edo antzekoa dakar, baina S. Tomas Akinokoa aipatuz (Ik. *Euscal-errijetaco...* 69. oharra, 483.or.).

[176]

**IRUGARREN MANDAMENTUCO
BIGARREN LECINOIA,**

170

ceñetan eracusten dan
cer dan mecia,
ceintzuc dirian meciaren parteric nauksijenac,
nortzuc dauqueen mecia entzuteco obligacinoia
ta celan entzun biar dan.

175

Entzun cenduban, neure cristinaubac, leengo dotrinaan san Gregorijogaz, irugarren mandamentubac aguinduten doscula bateti domeeca ta jai osuetan biarric ez eguiteco ta besteti egun areetan obra onac eguiteco. Jai domequeetan aguinduta dagozan obra onen artian, lelunga da meza santuba entzutia. Elesaco lelungo mandamentuban eracusten da meciari toqueetan jacon dotri- 180
 nia, baña pensau dot mandamentu onetan cerbait ceubei [177] esatia meciaren gañian, gauza ona izango dala. Orregaiti esango dotsut dotrina onetan, ainbat guichien lucetuta. Lelengo: Meciac cer esan gura daven. Bigarrenian: Meciarener parteric nauksijenac ceintzuc dirian. Irugarrenian: Nortzuc dauqueen obligacinoia mecia entzuteco. Ta laugarrenian: Celan entzun biar dan. 185

I.

Mecia ez da beste gauzaric, neure entzula onac, ezpada *sacerdotiac alta* -
raan eguiten daven Jesucristo gueure Jaunac ichi oscun oprecimentu aguirija,
ceñetan oguijaren ta ardauren izatia Jesucristo gueure Jaunaren gorputz eta 190
odol izatera aldatuta, areen ichuraan Jesucristo bera oprecietan jacon Aita
Eternuari, criatura guztien gañian daucan escubidia ta aguindutia eracuste -
co. Meza santuban Aita Eternuari eguiten jacon oprecimentuba ta Jesucristo
 gueure Jaunac curutzian il zanian eguin evana bardinac dira, bai izatian ta bai
 balijuan. Eguija da, Jesucristoc curutzian il zanian, padecidu evan. Ta esaten
 jaco curutzeco oprecimentubari odolezco *sacripicijua* edo oprecimentuba. Ta 195

171 eracustendan *Esk* 175 biardan *Esk* 177 aguindutendoscula *Esk* 178 ta *ler.art.* 178-
 179 Jaidomequeetan aguindutadagozan *Esk* 181 pensaudot *Esk* 183 keresanguradaven *Esk*
 185 biardan *Esk* 187 ezda *Esk* 188 eguitendaven *Esk* 193 ilzanian eguinevana *Esk* |
 ilzanian, padeciduevan *Esk*

meza [178] santuban Aita Eternuari oprecietan jaconian, ez dau padecietan. Onezaz ostian, guztiac ecuseen moduban, Jesucristo il zan curutzian ta ordu-
 ban eguin euan oprecimentuba da icusberia, icusten zana ta sentietan zana.
 Baña meza santuban Jesucristoc eguiten daven oprecimentuba, pediagaz sinis-
 200 tu arren ta alan dana zucen jaquin arren, ez dogu beguijequin icusten,
 Jesucristoren icenian mecia esaten daven sacerdotia ta oguijaren ta ardauaren
 ichuria baño. Baña osterantzian, Trentoco concilijuac esaten daven leez (114),
 Jesucristo gueure Jaunac curutzian bere odolagaz eta erijotziagaz Aita Eternuari
 eguin eutsan oprecimentuba barriin barri eguiten jaco meza bacoedian.
 205 Altaraco mirarizco ta amodijozco oprecimentubari esaten jaco mecia.
 Meciac esan gura dau *bialduti*, dinue santo Tomasec eta san Buenaventurac
 (115). Bada, Aita Eternuac bialduten doscu Jesucristo bere semia, altaraan
 mecia esaten danian. Ta cristinaubac, meza santuba esaten danian, oprecietan
 deutsee ta bialduten deutsee Aita Eternuari [179] Jesus bere semia ta gueure
 210 Salbadoria. Meza santuban Jangoicuari eguiten jacon oprecimentuba da guztie-
 tati andijena ta estimaubena. Jesucristo gueure Jauna, cein dan Aita Eternuaren
 vijotze[c]o poz, atseguin ta alegrija osua, oprecietan da meza santuban bere
 vizitzaco ta erijotzaco merecimentu guztiequin. Ceruco aingueru ta santuben
 oprecimentu guztiac bat eguinda, ez leusquijue Jangoicuari ainbeste gusto ta
 215 gloriya emongo, cein da meza bacochecho oprecimentubac emoten deutsan.
 Orregaiti esaten da, meza santuco orprecimentubac beragaz encerretan
 ditubala beste legue ta dempora guztietaco oprecimentubac. Meza santuba da
 Jangoicuari deusagun zorra pagueetan davena; ta oprecietan da ilac eta vizi-
 jac gaiti. Da, ceruco ondasunac ecarten doscuzana, bai arimacuac ta bai gor-
 220 putzecuac. Da, Jangoicuaren asarria bigunduten davena ta gueri mesediac
 eguitera preteetan davena. Da, gueure arimaac garbituten ditubana ta tentaci-
 noiac goituteco gracia ecarten doscuna. Aingueruben miina biar litzaateque,
 neure enzula onac, [180] meza bacocho cer dan ta cer balijo daven cristinau-
 bari aitu eraiteco. Ta eurac bere dan leez esan ezin leijee, guztizcua ta despei-
 225 da bagacua dalaco.

 (114) Sess. 22. de Sacr. Mis., c. 1. (115) 3. P., Q. 83, a. 9. S.Buen. de sacr. Missæ,
 c. 2.

196 ezdau *Esk* 199-200 sinistuarren *Esk* 200 ezdogu *Esk* 201 esatendaven *Esk* 206
 esanguradau *Esk* 207 bialdutendoscua *Esk* 208 esatendanian *Esk* | esatendanian *Esk* 211
 ceindan *Esk* 214 bateguinda, ezleusquijue *Esk* | emotendeutsan *Esk* 220 bigunduten-
 davena *Esk* 221 preteetandavena *Esk* 222 biarlitzaateque *Esk* 224 danleez, esanezinleijee
Esk

II.

Meciac parte asco daucaz. Guztiac dira misterijo andiz jantzita dagozanac. Baña bata baño bestia dira lelenguauac, nausijauac ta devocinoe gueijago esca-
tuten daveenac. Comoninoeco sacramentuban esplicauco dira astiruago, 230
meziaren parte guztiac eta bacoachac cer esan gura daveen. Bada, ez dago
meza santuban, ez berba bat, ez acinoe bat, aparteco misterijua enzerretan ez
davenic. Ta guztiac jaquitiac chito asco lagunduco leusquijue cristinaubei,
mezia biar dan moduban entzuteco.

Meziaren parte nausija edo, ascoc dinuanez, izate guztija dago consagraci- 235
noian, sacerdotiac ostiija ta calizaan dauan ardaua consagretan davenian. Baña
onezaz ostian, (ceubei toqueetan jatzuneraco) chito parte principalac dira, con-
sagrau baño leenago sacertotiac ostiijagaz ta caliziagaz eguiten daven opreci-
mentuba; [181] consagrauta guero eguiten davena; ostiija consagrauba ta cali-
zaan dauan odol santuba errecibietia; ta endamas *santuseiti* despeidengo vina- 240
geraterañoco guztia. Meza santubaren parte oneetan denpora guichi bat da
asco, neure cristinaubac, mezia uts eguiteco ta pecatu mortala eguiteco. Meza
guztian al baguinei egon biar guenduque, ainguerubac leez, chito atencinoe,
devocinoe ta modu andijagaz; baña esan dan denporeetan oraindino ascozaz
gueijago, misterijo urraocuac eta altubauac barristetan dirialaco orduban altara 245
santuban. Orduban barristetan da encarnacinoeco misterijo andija, Jesucristo
gueure Jaunaren vizitzia, apostolu santubequin egubenguren¹³⁸ gavian jan evan
aparija, Jesusen pasinoia, erijotzia, entierruba ta beste cristanadian daucagu-
zan misterijoric principalenac. ¡Oh, ceinbat gauza andi dagozan, neure cristi-
naubac, meza santuban! ¡Oh, ceinbat balijoco leusquegun atencinoe ta devoci- 250
noe guztiagaz mezia entzunac! Cristanidade guztian ez daucagu gauza bat andi-
jagoric, balijotsubagoric eta mirarizcuagoric altaraco meza santuba baño. [182]
¡Oh, ce itsubac eta errucarijac dirian nequezca, derrigorrian leez meza santu-
ba entzutera duazanac ta ainbat laburrenaren villa davizanac! Ez da, bada, gui-
chiago, neure entzula onac, meza bacocho, Jesucristo gueure Jaunac 255
Calbarijoco curutzian bere odolagaz eta vizitziagaz Aita Eternuari eguin eutsan
sacripicijua edo oprecimentuba baño.

231 keresanguradaveen. Bada ezdago *Esk* 232-233 ezdavenic *Esk* 234 biardan *Esk* 236
consagretandavenian *Esk* 238 eguitendaven *Esk* | eguitendavena *Esk* 243 albaguinei *Esk*
| biarguenduque *Esk* 244 esandan *Esk* 246 barristetanda *Esk* 247 Santubequin *baina*
Santu *ler.art.* 251 ezdaucagu gauzabat *Esk* 254 davizanac] divizanac *Esk* | Ezda *Esk* 256
eguinteutsan *Esk*

¹³⁸ Bizkaiko mendebaldean erabili ohi den hitza da; gaur egun Markina aldean ez da entzu-
ten. Haren garaian, beharbada, erabiliko zen, edota sermolari zenez gero, nonbait ikasitako hitza
izan zitekeen...

III.

- Batiatuta dagozan cristinau guztiac dauquee obligacinoia meza osua entzuteco, errazoiaren usura eldu ezquero. Errazoiaren usaba nos eltcen dan ez daqui inoc bere ain zucen. Gauza onetan esaten dana da, zazpi urtera ezquero umiac bialdu biar ditubela gurasuac elesara meza santuba entzutera. Ta gurasuac edo ugazabaac, zazpi urteti aurrera euren erruz seme alabei ta otseguinai mezia entzutia galaazoten deuten bacochian, pecatu eguiten davee.
- 265 Bada, san Antoninoc dinuan leez (116), noveraren erruz jai domequeetan meza osua entzuten ez dabenac, eguiten dau pecatu mortala. Ta noverac ez entzutia ta entzun biar davenari eraoztia edo entzuten ez istia, bardin da pecatu eguiteco.
- [183]Jai domequetan pecatu mortalaren beian meza osua entzuteco Elexa
- 270 Ama santiac aguindu arren, meziaren parte chiqui baten edo gauza guichi baten paltetia, ez da pecatu mortala; baña bere erruz bada, izango da pecatu veniala. Parte chiquizat edo gauza guichizat eracusten davee Elexaco maisubac, mecia asten daneti ta epistolia asi artecua, edo calicia estalduten daneti amaitu artecua. Nai asieran nai despedidan esan dan partera paltau arren noberraren erruz, ez da pecatu mortala eguiten veniala baño, gauza guichija dalaco.
- 275 Liburuba girau arteraño ta evangelijua esan arteraño bere erruz palteetan davenac, eguiten dau pecatu mortala dotrinaric zucenenian, meciaren parte andijan bere erruz paltetan davelaco. Mezia uts eguiteco arriscuban gueratuten danac bere paltaz, eguiten dau pecatu mortala, guero meza osua entzun arren.
- 280 gauza bat da meza osua entzutia ta beste bat noveraren gustoz uts eguiteco pelleburuban jartia. Au beti da pecatu mortala. Mezatarra juanda erdiz erdi mezia topeetan davenac, beste meza osoric entzun ezin badau, dauca [184] obligacinoia pecatu mortalaren beian meza erdija a entzuteco. Bada, zor guttija pagau ezin davenac, al daijana pagau biar dau.
- 285 Esan da, errazoiaren usura eldu dirian guztiac entzun biar daveela pecatu mortalaren beian jai domequeetan meza osua. Baña orraitino bagoz gauza batzuc, mezia entzute obligacinoia quentceen daveenac. Bada, Elexa Ama santiac ez dau gura vizitzaco, osasuneco, cleituco ta aciendaco gaucia galduteco arriscuba dauqueenian, cristinaubac meza entzutera obligueetia. Orregaiti ez dau-

290 (116) P. 2. Tit. 9, cap. 10. §. 1.

260-261 eltcendan, ezdaqui *Esk* 263 zazpiurteti *Esk* 265 jaidomequeetan *Esk* 266 ezdabenac *Esk* | ezentzutia *Esk* 267 biardavenari *Esk* | bardinda *Esk* 269 Jaidomequeetan *Esk* 270 partechiquibaten *Esk* 271 ezda *Esk* 272 eracustendavee *Esk* 273 astendaneti *Esk* | estaldutendaneti *Esk* 274 esandan *Esk* 275 ezda *Esk* 278 utseguiteco *Esk* 279 eguitendau *Esk* 281 Aubetida *Esk* | erdizerdi *Esk* 282 ezinbadau *Esk* 284 ezindavenac, aldajana *Esk* | biardau *Esk* 285 Esanda *Esk* | eldudirian *Esk* | entzunbiardaveela *Esk* 286 jaidomequeetan *Esk* 288 ezda *Esk* 289 ezdauquee *Esk*

quee meza entzuteco obligacinoeric: Lelengo, oian gaisoric dagozanac. Bigarrenian, besteric ezda, gaisuai cuidado eguin biar deutseenac. Irugarrenian, oian gaisoric egon ez arren bere, osasunaren calte bagaric elexara juan ezin dirianac, endamas zaarrac depora chaarra ta bide lucia elexaraco dauqueenac. Laugarrenian, sein chicarragaz dagozanac, ezpadauquee sein nori ichi edo eureequin elexara eruan ezin badavee. Baña oba izango da echian seinari cuidado eguitia, elexara eruanda, aren negarragaz bestiai mezia entzuten eraoztia baño. Bostga-[185]rrenian, arimaco, aciendaco edo gorputze- 295
co edocein bere pelleburu andi erremedijau biar daveenian. Mezia entzunda erremedijau ecin badavee, gueratu leitequez meza bagaric. Ta onaco ocasi- 300
noietan meza bagaric gueratuten dirianac, dino san Antoninoc (117), oracinoia edo beste mezaco obra onari jaocan gauzaren bat eguin biar daveela echian.

Usadjua leez dago, seinu eguinda dagozan emacumiac señagaz elexara juateco prestau artian, meza entzun bagaric egotia. Ta batzuc uste davee, seña- 305
gaz elexan sartu bagaric meza entzutia pecatu dala. Ez dago onaco gauzaric, cristinaubac. Señagaz elexan sartu baño leenago meza entzun lei seña eguin-
da dauan emacumiac, ta oba da al daijala entzutia, entzun bagaric egotia baño. Jesucristoren leguian devocinoeric oneena da al daijala meza santuba entzutia. Ta guero eria daucanian edo gauzaac prestau daizanian, ainbat lasterren bere sabeleco prutuba elexara eruanda, Jangoicuari oprecietia ta gracijac emotia, 310
chito gauza ona da. Baña señagaz elexan sartceia devocinoezcua da, ez obligacinoezcua (118). Nai davena sartu lei-[186]teque ta nai ez davenac ichi leiyo. Ta sartceen bada bere, ez da popuertzacua bere parroquijaco elexan sartceia, ezpada nai daven elexan, cein ermitaan, cein comentuban, cein parroquijan ta nai daven sacerdotiagaz, cein curiagaz, cein capillaubagaz, cein erreligiosuagaz 315
(119). Esan dot au guztiau, dianoc¹³⁹ jaquin daizun, gauza onetan nai davena eguitico libertadia emoten deutsalala Elexiac seña eguin daven emacumiari. Esan ezquero, bada, nortzuc eta nos dauqueen meza osua entzuteco obligacinoia, jaquin biar dau cristinaubac celan entzun biar daveen meza santuba.

(117) Ubi supra. (118) Sac. Congr. conc. trid. 2. jul. ann. 1620. (119) Cad. 3. 320
decemb. 1718. Cad. 23 aug. 1727. Cad. 19 maii 1708.

294 ezindirianac *Esk* 296 ezinbadavee *Esk* 299 biardaveenian *Esk* 300 gueratuleitequez mezabagaric *Esk* 302 obraonari *Esk* | eguinbiardaveela *Esk* 304 ustedavee *Esk* 307 obada aldaijala *Esk* 308 oneenada, aldaijala *Esk* 309 pretaudaizanian *Esk* 312 Naidavena sartuleiteque *Esk* | ezdavenac *Esk* 313 ezdapopuertzacua *Esk* 314 naidaven *Esk* 315 naidaven *Esk* 316 esandot *Esk* | jaquindaizun *Esk* | naidavena *Esk* 317 eguindaven *Esk* 319 biardau *Esk* | entzunbiardaven *Esk* 321 maii| Maij *Esk*

¹³⁹ Nahiko bitxi gertatzen zaigu forma hau: *dianoc*, hau da, *dirianoc*; gure "denok" (danok), plural hurbilaren markaz. *Dirianac* da haren forma ihartua, bestela plural hurbila *zarianoc* egin beharko zukeen, pluraleko bigarren pertsonarekin komunztadura eginez...

IV.

Ez dozu pensau biar, neure entzula onac, meza santuba entzuteco asco dala elesan egotia mezia esaten dan artian. Elexan egon biar da edo meza entzuten dagozanequin bat eguinda egon biar da; baña egon biar da atencinoiagaz, devocinoiagaz ta erreberencijagaz. Atencinoiagaz entzuten da, meza santuban gogua iminita daucanian. Devocinoiagaz entzuten da edo Jesucristo gueure Jaunaren vizitzaco edo erijotzaco pausuren bategaz, edo gueure pecatubeequin edo gueure erijotziagaz edo gueure juicijuagaz, edo gueure arimaco edo gorputzeco [187] necesidaden bategaz acordauta, Jangoicuari misericordija escatuten deusagunian edo errazuren batzuc devocinoez eguiten ditugunian, dino san Ciprianoc (120). Ta erreverencijagaz entzuten da mecia, gorputzeco egonera ona ta elexiari joacana daucanian.

Onaco atencinoiaren paltaz, elexan egon arren, ez davee mezia entzuten ta pecatu mortala eguiten davee: 1^o Mezataco denporan berbeetan ta barreca dagozanac. 2^o Eleixan sartcen dirianai, urteten davenai ta beste barruban dauan gentiari beguira banaan banaan dagozanac. Au jazoten da Vizcaico elexa ascotan. Ta onetarako, elesan lecuba nasai dauqueela, juaten dira corura edo corupeco esquillareetara mezia entzutera edo, obeto esateco, elexan dauan gentiari ta meziari burla eguitera. Cura jaunac au eraotzi leije; ta ez leusquijue mese de chiquija eguingo euren cargura dagozan arimai. Esquillareetan, ate osteetan ta coru baztarretan bere arijaz¹⁴⁰ dagozaneeti, amarreti bic mezia entzuten daveela biar dan moduban, ez neuque beinguan sinistuco. 3^o Araco ate onduan gueratuta, sacerdotia altarara artian elexan sartu gura ez daveenac ta guero priisaca ta arnasa osca duazanac [188] ia mezia epistolara elduban, guztiac belaunbico jarri orduco, pensau beije mezia entzuten daveen edo ez. Bada, nic ez daquit. Trentoco concilijuac esaten dau (121), meza entzuteco dagozanac, euren lecubeetan devocinoe eta modestijaz gueratuta dagozala esan artian, mezaric ez asteco. Onaco presteeriagaz ta devocinoigaz aguinduten dau Elexa Ama santiac meza osua entzuteco. Ta baquizu, neure cristinaubac, gauza onetan palta andija dauana. Erremedijau bedi, bada, bacocha bere aldeti ta erre-medijauco ditu pecatu asco. Alan gura izan daijala Jangoicuac Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 (120) Can. Quomodo. de consecr. dist. 1. (121) Sess. 22. de observ. etc. Miss.

323 Ezdozu *Esk* 324 biarda *Esk* 325 bateguinda, egon biarda *Esk* | biarda *Esk* 326 entzutenda *Esk* 331-332 eguitenditugunian *Esk* 332 entzutenda *Esk* 334 ezdavee *Esk* 335 eguitendavee *Esk* 337 jazotenda *Esk* 342 corubazterretan *Esk* 342-343 entzutendaveela biardan *Esk* 343 ezneque *Esk* 345 oscaduzanac *Esk* | ia| ija *Esk* 346 entzutendaveen *Esk* | ezdaquit *Esk* 347 esatendau *Esk* 349 aguindutendau *Esk* 352 izandaijala *Esk*

¹⁴⁰ Gauza jakina da gure idazleak etimologismora duen joera. Hemen *bere arijaz* darabil; gehienetan, oster, *berarjaz* idazten du. "Berariaz" eta "beren-beregi" bizkaieraz eguneroko hitzak dira.

IRUGARREN MANDAMENTUCO
IRUGARREN LECINOIA,

355

ceñetan eracusten dan
domeeca ta jai osuetan asco dan meza osoa entzutia,
biarric ez eguitia ta pecaturic [189] ez eguitia, egun santu oneec
Jangoicuac aguinduten daven moduban gordeetaco.

360

Icusi ezquero Jangoicuac eraotzi doscula bateti domequeetan eta jai osuetan biarra eguitia, ta besteti Elexa Ama santiac aguinduten doscuna (cein dan meza oso bat entzutia) ordu erdi baten cunpliduta dauala, pensau lei, neure entzula onac, ia cer eguin leijan edo cer eguin biar daven cristinaubac, mezia entzunda enparauban egun oneetan. Desiau lei jaquitia, ia meza oso bat entzun ezquero libre dagozan cristinaubac domeeca ta jai osuetan beste obra onic eguin bagaric, gura daveen gauceetan denporia iragoteco. Maisu ascoc esaminau daveen gaucia da au, neure cristinaubac, ta inoc uste daven baño gueijago inporta doscuna. Mundutarrac uste davee, domeeca ta jai osuetan meza bat esaten dan artian elexan egon ezquero, beste enparauba olgheetaco dala. Baña onetaraco lelengo esan biar da, cer dirian domeeca eta jai osuac [190] ta cetaraco ichi oscuzan Jangoicuac. Onen ondoric errezto ezautuco dozu, cer eguin biar dogun egun oneetan. Egon zaitez, bada, antencinoiagaz.

I.

Errazoiac eta naturaleciac naita nai ez dogula bere eracusten doscubee, neure entzula onac, gauza on guztiac Jangoicuac emoten doscuzana; begaz, Jangoicuari gracijac emon biar deusaguz, eguiten doscuzan mesediac gaiti;

357 eracustendan *Esk* 358 ascodan *Esk* | entzutia *Jer.art.* 359 ezeguitia *Esk* | eze-
 guitia *Esk* 360 aguindutendaven *Esk* 361 eraotzidoscula *Esk* 362 aguindutendoscuna, (cein-
 dan *Esk* 363 osobat *Esk* | erdibaten *Esk* | pensaulei *Esk* 364 ia] ya *Esk* | eguin-
 leijan *Esk* | biardaven *Esk* 365 ia] ya *Esk* | osobat *Esk* 367 guradaveen *Esk* 368
 esaminaudaveen *Esk* | ustedaven *Esk* 369 ustedavee *Esk* 370 mezabat esatendan *Esk*
 371 esanbiarda: ¿Cerdirian *Esk* 372 ichioscuzan *Esk* 373 eguinbiardogun *Esk* 375 naiezdo-
 gulabere eracustendoscubee *Esk* 376 emotendoscuzana *Esk* 377 emonbiardeusaguz, egui-
 tendoscuzan *Esk*

begaz, popuertza biar dogu denporia guichiago edo gueijago gueure Jangoico
 ona alabeetaco, serbietaco ta zor deutsaguzan gracijac emoteco. Au inoc bere
 380 ez dau ucatuten. Adan, Noe, Abraan ta beste patriarca santubac naturaleciaren
 leguian ez euqueen claru seÑallautaco denporaric Jangoicuari zor eutseezan
 graciaac emoteco ta aparteco obra onac eguiteco, ezpada eureen devocinoiac
 eta espiritubac esaten eutseen moduban ta denporaen serviduten even
 Jangoicua, beste munduco cereguin guztiai ichita. Baña Jangoicucac judegu-
 385 bentzaco leguia Moisi emon eutsanian Sinaico mendijan¹⁴¹, aguindu evan iru-
 garren lecuban zapatubac santipiquetaco edo zapatu egunac santidadian ira-
 goteco. Astian sei egun ichi cituban biarra eguiteco ta zazpigarrera [191] sena-
 llau evan Jangoicucac beretzaco. Legue atan bertan Jangoicucac aguindu eutse-
 en judegubai, berac mesederic andijenac eguin eutseezan egunac gordeetaco
 390 urte barruban, zapatubac leez (122). Ya denpora onetati senallauta euqueen
 judegubac aparteco tandia, Jangoicuari graciaac emoteco ta obra onac eguite-
 co. Ta oneec ciran zapatu egunac eta urte barruco jaijac. Zapatubac eta urte
 barruco jaijac chito cuidado andijagaz gordeetan citubeela vizi izan cian jude-
 gubac milla ta bosteun urte ta gueijauan, conturic zuceneenian, Jesucristo
 395 gueure Jaunac cerubetara igonda Pazcua maijatzecoz apostolubai Espiritu
 Santuba bialdu artian. Apostolubac, judegubequin ezetan bere bat ez eguitia-
 ren, mudau even zapatuco obligacinoe guztia domeecara. Ta onezaz ostian
 aguindu even, Jangoicucac mesederic andijenac eguin doscuzan egunac urtian
 urtian jaitzat gordeetaco. Apostoluben ondoric Elexa Ama santiac bere, Espiritu
 400 Santubac eracutsita, aguindu dau aparteco egun batzuc jai gordeetaco, edo jai
 oso edo jai erdi, ceubec esaten deutseezun leez. Au da, neure cristinaubac,
 domeeca ta urte barruco jaijen asieria. [192] Urte barruco jaijac, cein osuac eta
 cein erdijac, guichitu edo gueitu leiz Elexa Ama santiac; baña domeecac ez ditu
 ez guichitu ta ez gueitu. Astian egun bat Jangoicuari santipiquetia, Elexa Ama
 405 santiac quendu ezin leijan obligacinoia da. Gueugaz datorren zorra da.
 Jangoicucac berac aguindu doscuna da. Ta ascoc dinuenez, mundubagaz bera-
 gaz asi zan obligacinoia da (123).

Zapatuco obligacinoiac domeecara aldatuteco apostolu santubac euqueen
 errazoiac andijac eta asco dira, neure cristinaubac. Ta chito arimaco pro-

 410 (122) Exod. c. 13. (123) Cornel. a Lap., Genes., c. 2. v. 3 .

378 biardogu *Esk* 379 zordeutsaguzan *Esk* | ezdau *Esk* 382 devocinoiac] dovoci-
 niac *Esk* 385 aguinduevan *Esk* 387 ichicituban *Esk* 390 Ya] Ija *Esk* 398 eguindoscuzan
Esk 400 jaigordeetaco *Esk* 401 Auda *Esk* 403-404 ezditu ezguichitu, ta ezgueitu *Esk* 406-
 407 mundubagazberagaz asizan *Esk*

¹⁴¹ Ik. Ir 19.

vechu andijagaz edoceinec egun santu areetan, bai elexaan ta bai echian pensau leizanac. Santipicau even, bada, apostolubac zapatubaren lecuban domeequia cristinaubentzaco. Lelengo, egun guztietati lelengua *domeequia* dalaco. Bigarrenian, munduco gauza guztiai *domeecan* asieria Jangoicuac emon eutseelaco. Irugarrenian, ainguerubac *domeecan* crijadu citubalaco. Laugarrenian, 415 mana esaten jacon janari gozua *domeecan* Jangoicuac judegubai ceruti bialdu eutseelaco. Bostgarrenian, Jesucristo gueure [193] salbadore maitia *domeecan* jaijo zalaco. Seigarrenian, Jesus adoretara Belengo portalera etorri cian iru Erregue edo Maguai *domeecan* Izarra aguertu jacuelaco. Zazpigarrenian, Jesucristo gueure Jaunac bost oguigaz eta arrain bigaz bost milla guizon mendi 420 soilian¹⁴² *domeecan* mantenidu citubalaco. Zortzigarrenian, san Juan Batistac Jesus *domeecan* batiatu evalaco. Bereratzigarrenian, Jesus divinua *domeecan* illen arteti viztu zalaco. Amargarrenian, Espiritu Santuba apostolubai *domeecan* ceruti etorri jacuelaco. Dinue san Agustinec eta seigarren concilijo osuac (124). 425 ¡Oh, ce canpo andija dan au, neure cristinaubac, jai domeequetan penseetaco ta Jangoicua alabeetaco! Baña esan ezquero cer dirian domeecac eta jaijac, esaminau daigun ia cetaraco dirian.

II.

Jangoicuac ez dau alperric ecer bere eguiten. Gauza guztiac ordeneetan ditu cerbaiteraco. Bada, eraotzi ezquero Jangoicuac guri ain legue gogorragaz 430 domeequetan eta jai osuetan biarra eguitia, conpesau biar dogu erremediojo bagaric, cetaraco bit¹⁴³ eraotzi doscula. ¿Cetaraco izan leiteque, bada, Jangoicuac guri aguindutia, domeeca ta jai osuetan gau erditi gauerdi-[194]ra biarric ez eguiteco? ¿Jango ete da domeeca ta jaijegunetan alperrerijan egoteco? Ez. Alperrerijari gorroto andija deutsa Jangoicuac. Ez astian egun oso bat, ece 435 gueure viztiza guztian ordu bete bere ez doscu Jangoicuac emoten alperrerijan egoteco. Alperrerijac, dino Espiritu Santubac (125), malecija asco eracusten davela; ta malecija asco eracusten daven gauzia, ecin aguindu eusquegun

(124) Serm. 280. in App. t. 6; Conc. 6. gen. C. 8. apud Baon. (125) Ecc[les]. c. 33.

411 tabai *Esk* 414-415 emoneutseelaco *Esk* 418 etorrician *Esk* 420 bostoguigaz *Esk* | bostmilla *Esk* 426 cerdirian *Esk* 426-427 esaminaudaigun *Esk* 427 ia] ija *Esk* 429 ezdau *Esk* | ecerbere *Esk* 431 conpesaubiardogu *Esk* 432 izanleiteque *Esk* 433 gauerditi gauerdira *Esk* 434 ezeguiteco *Esk* 436 ordubete bere, ezdoscu *Esk* 438 eracustendaven *Esk*

¹⁴² "Soil" izenondoa egoki ekarrita dago; lehorra, landarerik ez ezer ez duena.

¹⁴³ "Celanbit" forma liburuetan nahiz eskuizkribuan ageri dena da. Baina *zetaraco bit*, "zerbaitetarako" esan nahi duena, idazki honetan dator soilik. Erabilera hori, Agirre Asteasukoarengan ere aurkitzen dugu: *Cergatic bait* esan zuan Jesu-Cristoc: *Jaungoicoarena danac enzuten ditu Jaungoicoaren itzac* (*Eracus*. III, 188).

440 Jangoicuac domeeca guztietan eguiteco. ¿Eraotzi ete doscu, bada, jai domee-
 quetan biarra eguitia, egun areec euqui daiguzan libre jocatoro, tabernaraco,
 dantzaraco, piestaraco, cunplimentuzco visitetaraco, pasioraco eta jan edanee-
 taraco? Cristinauric gueijenac eguiten davenari beguiratu ezquero, esan lei
 445 baietz. Baña evangelijo santubari, Escritura Sagradubari ta Elexa Ama santiaren
 dotriniari beguiratu ezquero, *blasphemija* deichon pecatuba da, onaco gauceta-
 raco denporia euqui daigun, Jangoicuac jai domeequetan biarra eguitia eraotzi
 doscula esatia. Au sinistu gura ez davenac, ez daucaz iracurri baño [195] san
 Geronimo bat (126), san Gregorijo bat (127), santo Tomas bat (128), san
 Antonino bat (129) eta Toledoco, Turongo, Biturizaco, Milango ta beste leu
 450 ascotaco concilijuac (130), ceintzuc eracusten doscuben Jangoicuaren leguia ta
 Elexa Ama santiaren espirituba. Areetan icusico dau cristinaubac, domeecac eta
 jai osuac ez diriala ez alperrerijaraco, ez jan edanetaraco, ez dantza, sarau ta
 comedijetaraco ta ez vanidadeetaraco; ta icusico dau baten baño gueijagotan,
 escomuninoe bategaz eraotzita dauala onaco gauzac domeeca ta jai osuetan
 455 eguitia.

¿Cetaraco aguinduten doscu, bada, Jangoicuac domeeca ta jai osuetan bia-
 rric ez eguiteco? Cristinaubac munduco biarrai ta cereguinai ichita, ceruco gau-
 zaac icasi daijezan, arimaco gauzaac tratau daijezan, Jangoicua alabau daijen ta
 salbacinoia irabaci daijen erreztuago, senallau doscuz Jangoicuac domeecac
 460 eta jaijac. *Santipicau evan Jangoicuac zapatuba* (131). *Santipicauco dozu*
zapatuba, dino Espiritu Santubac (132). Esango baleu leez Jangoicuac iruga-
 rren mandamentuban: Zapatuco [196] eguna neure eguna da; egun santuba da,
 neuretzaco consagrautaco eguna da; neuri graciaj emoteco eguna da; neu ser-
 bietaco eguna da; biarra eguitiari ichi ta obra onac eguiten iragoteco eguna da. Ez
 465 ordu erdijan, ez ordubetian, ez goxetijan bacarric; ezpada goxeti arratsera da
 zapatuba (oan domeequia) obra onac eguiteco eguna. Au dino Jangoicuac,
 neure critinaubac, ta onetaraco dira domeecac eta jai osuac. Domeequia egun
 bedeincatuba, egun santuba, egun consagrauba ta beste eguneti apartautaco
 470 eguna da, dino Cornelio a Lapide jaquinsubac (133). Exenplu bategaz aituco
 dozu au obetuago.

 (126) In cap. 59. Isaiae. (127) Lib. 11. epist. 3. (128) In Opusc. 7. (129) 2.
 p. tit. 9. cap. 7. (130) Conc. 3. tolet. can. Irreligiosa. De consec. dist. 3. (131) Genes.
 c. 2. (132) Exodo c. 20. Deuter. c. 5. Véase Corn. a Lapid., Deuter. c. 5. v. 12. y
 siguien. Ill^{mo} Geneto, tom, 3. tract. 3, terc. prec. c. 2, Q. 4. (133) Ut supr.

440 etedoscubada *Esk* | jaidomeequetan *Esk* 441 euquidaiguzan *Esk* 446 euquidai-
 gun *Esk* | Jangoicuac] Jangoigoicuac *Esk* | jaidomeequetan *Esk* 447 ezdavenac, ezdau-
 caz *Esk* 452 jaiosuac ezdiriala *Esk* | ezdantza *Esk* 454 escomuninoebategaz *Esk* 456
 aguindutendoscu *Esk* 457 ezeguiteco *Esk* 462 egunada *Esk* 465 ezordubetian, ezgoxetijan
Esk 469-470 aitucodozu *Esk* 472 Deuter.] Deuton. *Esk* | Deuter.] Deuton. *Esk*

Urre gorritzco plater bat, collara bat edo vaso bat edo ceinec escubetan era- 475
 bili lei, nun nai ichi lei ta edo cein bere gauza jabi ac agaz eguin lei; baña pla-
 ter, collara edo vaso urregorritzco agaz caliza bat eguinda, bedeincatu edo con-
 sagrauco balitz, caliza a Jangoicua serbietaco ta altararaco biar dan gauceetan
 baño erabili ezin lei, pecatu eguin bagaric. Ara, bada, exenplu onegaz pusca 480
 bat aituten emonda cer dirian domeecac eta jai osuac eta beste egunac.
 Astegunetan, pecaturic eguiten ez daven casuban, cristinaubac gura davena
 eguin lei: [197] Edo egon, edo ibili, edo ganiac emoten deusana, urre jabi ac
 urriagaz eguin leijan leez; baña domeequetan eta jai osuetan, pecaturic eguin
 ez arren, ezin lei nai davena, caliza jabi ac caliziagaz ezin leijan leez; ezpada
 caliza bedeincatuba altararaco ta gauza santubeetaraco dan leez, domeeca ta 485
 jai osuac dira gauza santubeetaraco, obra onac eguiteco ta, goxeric arratsera,
 domeeca guztia ta jai oso guztia da onetaraco.

Au da, neure cristinaubac, Elexaco santu guztiac Erromaco catecismuagaz
 (134) eracusten daveen dotrinia. Jangoicuari egunian egunian eguiten doscu- 490
 zan mesedi ac gaiti astiro gracijac emoteco; astegunetan biarrian priisaca diar-
 dugula eguiten ditugun palteen parcacinoia escatuteco; conpesinoeco ta como-
 ninoeco sacramentubac errecibietaco, sermoia entzuteco, altaraac visiteetaco,
 liburu onac iracurteco, dotrinia icasteco, oracinoe eguiteco, gueisuac eta pre-
 suac visiteetaco, vesperetara ta errosarijora elexara juateco, eternidadeco gau- 495
 zac: erijotzia, juicijua, ceruba, inpernuba, arimia, gracija, pecatuba, Jesucristo
 gueure Jaunaren misterijuac... penseetaco, ameeataco ta alabeetaco dira dome-
 ecac eta jai osuac. Mai-[198]raco popuertza biar dana prestauta, beste denpora
 guztia Jangoicua serbietan iragoteco, dino Theodulfo Aurelianoc.

Elexa Ama santiac icusi evanian jai domeecac santipiquetaco cristinaubac
 euqueen obligacinoe estuba erreztuago, pozaagoric eta arimaco provechu uga- 500
 rijagaz gorde eijezen jai domeecac, aguindu evan meza osua entzuteco, leen
 esan dan leez. Baña secula Elexiac meza entzuteco aguindu ezpaleu bere, beti
 eguan obligacinoia domeeca santubac obra onac eguiten iragoteco. Mezaric
 ezpalego bere, astian egun bat goxeric arrats dago senallauta obra onac egui- 505
 teco.

 (134) P. 3, c. 4. n. 10.

475 Urregorritzco platerbat, collarabat, edo vasobat *Esk* 477 calizabat *Esk* 478 biardan *Esk*
 479 erabiliezinlei *Esk* 479-480 puscabat *Esk* 480 cerdirian *Esk* | jaiosuac *Esk* 481 ezda-
 ven *Esk* 481-482 guradavena eguinlei *Esk* 484 naidavena *Esk* 485 danleez *Esk* 487 Auda
Esk 488 eracustendaveen *Esk* | eguitendoscuzan *Esk* 491 eguitenditugun *Esk* 499 jai-
 domeecac *Esk* 501 jaidomeecac *Esk* 502 esandanleez *Esk* 502-503 betieguan *Esk* 504 sena-
 llauta *baina* na *ler.art*.

III.

Deichat bada, neure cristinaubac, ya ez dala gach ezaututen, cer eguin biar
 dogun domeeca ta jai osuetan. Deichat ya erremedio bagaric conpesau biar
 510 daveela cristinaubac esan dan dotrinia sinistu ezquero, meza bat arrastaca en-
 tzunagaz beste obra onic eguin bagaric, ez dogula cunpliduten domeeca ta jai
 osuequin, Jangoicuac aguinduten doscun moduban. Egun guztija da obra onac
 eguiteco ta egun guztico biarra zor davenac ez dau pagueetan ordu erdijan edo
 515 ordu betian biarra eguinagaz. Domeeca ta jai osuac esan dirian [199] obra onac
 edo areetati batzuc, bacoachac al daizanac, eguiten irago biar dira goxeti arra-
 tsera. Jangoicuac aguindutaco zorra da au. Elexa Ama santiac bere quendu ezin
 leijan zorra, da au. Domeequetacua beintzet ecin quendu lei. ¿Celan, bada,
 pagauco da egun guztico obra oneen zorra, ordu erdi baten meza bat entzun-
 da, beste obra onic eguiten ezpada? ¿Beste jai domeequetaco denporia irago-
 520 ten bada, Jangoicuagaz edo Jangoicuari jaocazan gauceequin gueijago acordau
 bagaric?

¡Oh, neure cristinaubac! Ez da jaquiturija andiric biar jai domeecac
 Jangoicuac aguinduten daven moduban gordeetaco, meza bat devocinoez en-
 tzutia asco ez dana ezaututeco. Cer edo cer obra oneen batzuc gueijago eguin
 525 biar dira jai domeequetan, meza osua devocinoez entzun arren; ta ezpabere ez
 dira jaijac eta domeecac ondo gordeetan, dinue Elexaco maisu guztiac. Ta
 meza bategaz contentetia edo meza bat devocinoiagaz entzunda, beste obra
 onic ez eguitia bada ain gauza ezaina, Elexaco santubac eta concilijuac ain-
 beste diadarregaz condeneetan daveena, ¿cer izango da, neure cristinaubac,
 530 domeecaco ta jai santube-[200]taco egunac jocuetan, desapijuetan, jan edan
 laarreguijetan, comedijetan, saraubetan, guizon ta emacumen naasteco dantze-
 etan edo, berba baten guztia esateco, goxeti arratseraco edo gau erdirainoco
 desonestidadeetan ta pecatubetan iragotia? ¿Ez da au, Jangoicuari consagrauta-
 co egun santubac, egun bedeincatubac, mundubari, vanidadiari, desonestida-
 535 diari, pecatubari ta diabrubari consagretia? ¿Ez da au, Jesucristoren altara-
 raco dauan caliza santuban chacur bati jaaten emotia? ¿Gauza santubac alemanija
 loijei boteetia? ¿Jangoicuaeren egun santubac nasaitasunian, libertadian, aragui-
 jaren gustuetan, onestidadiaren caltian ta gentilen usu madaricatuban iragotia?

508 ya] ija *Esk* | ezdala *Esk* 508-509 biardogun *Esk* 509 ya] ija *Esk* 509-510 con-
 pesaubiardaveela *Esk* 510 esandan *Esk* 511 eguinbagaric, ezdogula *Esk* 511-512 jaiosuequin
Esk 513 zordavenac, ezdaupagueetan *Esk* 514 ordubetian *Esk* 515 aldaizanac *Esk* | ira-
 gobiardira *Esk* 516-517 quenduezinleijan *Esk* 518 mezabat *Esk* 519 jaidomeequetaco *Esk*
 522 Ezda *Esk* | jaidomeecac *Esk* 523 aguindutendaven *Esk* | mezabat *Esk* 525 biardi-
 ra *Esk* | jaidomeequetan *Esk* 525-526 ezdira *Esk* 526 Maisuguztiac *Esk* 527 mezabat
Esk 528 Elexaco Maixubac Santubac *baina* Maixubac (?) *ken* 529 condeneetandaveena *Esk*
 | izangoda *Esk* 533 Ezda *Esk* 535 Ezda *Esk*

¡Oh, neure cristinaubac! Sartu bacoachac bere escuba colcuan ta pensau ia ce obra on eguiten dozun jai domeequetan. Menturaz ez dotsu guichiago balijoco eternidadeco salbacinoia baño. Au escatu biar deutsagu Jangoicuari, secula cansau bagaric, Jesucristo gueure Jaunaren merecimentubac gaiti, Ama Virgina Santissima vitarteco iminita. Amen.

540 ia| ya *Esk* | jaidomeequetan *Esk* | ezdotsu *Esk* 541 escatubiardeutsagu *Esk*
542 cansaubagaric *Esk*

[201]

[LAUGARREN MANDAMENTUBA]

**LAUGARREN MANDAMENTUBAREN
LELENGO LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
Aita Santu Erromacuari, obispo ta cura jaunei ¹⁴⁴, 5
erreguiari ta juezai zor deutseguna.

Laugarren mandamentu santuban aguinduten doscu, neure cristinaubac, Jangoicuac, gueure gurasuac ondreetaco (135). Lelengo iru mandamentubetan eracutsi doscu Jangoicuac, beraren anditasunari zor deusagun pedia, esperantzia ta amodijua; vijotzagaz, arimiagaz ta gorputzeco sentitu edo zenzun guztiequin emon biar deusagun ondoesana, jasoeria, ondria ta erreberencija. Ta oan laugarren lecuban asten da gueure Jangoico ona, projimuari jaocazan gauceetan celan portau biar dogun eracusten. Projimo guztien artian lelengo [202] lecuba emoten deutsee gurasuai. Orregaiti aguinduten doscu mandamentu onetan aita ta ama ondreetaco. Aitaren ta amaren izenagaz, dino Pouget jaquitunac (136), izenteetan ditubala Jangoicuac mandamentu onetan inori aguinduteco escubidia ta obligazioia dauquen guztia, ceintzuc dirian Aita Santu Erromacua, obispo, cura ta sacerdote jaunac, gurasuac, erreguiac, juezac, maisubac eta edadian edo estaduban nausijago dirianac. Onei guztioi zor deutseegun erreberencija ta ondria ta oneec guztioe euren escupian edo aguinduban dagozanei zor deutseena encerreetan da laugarren mandamentuban. Elexia ta erreñuba coverneetan ditubeenai beguiratu biar deutseegu, guraso batzubei leez; ta eurac bere covernau biar gaitubee, euren seme alabac bagui-

(135) Exod. c. 20. (136) P. 2, Sect. 3, c. 5, §. 1. inst. Cathol.

4 eracustendan *Esk* 6 zordeutseguna *Esk* 9 eracutsidoscu *Esk* | zordeutsagun *Esk*
11 emonbiardeutsagun *Esk* 12 astenda *Esk* 13 portaubiardogun *Esk* 14 emotendeutsee *Esk*
| aguindutendoscu *Esk* 16 izenteetanditubala *Esk* 19 Oneiguztioi zordeutseegun *Esk* 21
zordeutseena, encerreetanda *Esk* 22 biardeutseegu *Esk* 24 covernaubiardaitubee *Esk*

¹⁴⁴ Idazki honen sarreran honako hau idatzi genuen: "Pluraleko datiboaren marka *-ai* da. Baina joera hau ez da erabatekoa. Inoiz edo behin *-ei* ere egiten du. Eskuizkribua da *-ei* formako gehien dakarrena; *-ai* baino gutxiago badakar ere, ugari dira" (ik. 250.or.). Hemen biak darabiltza esaldi berean.

25 na leez. Eguija esateco, Aita Santu Erromacua gueure gurasua da. Obispo ta
sacerdote jaunac gueure gurasuac dira. Erregue ta juezac gueure gurasuac dira.
Ugazabac eta maisubac gueure gurasuac dira. Ta ara emen, neure entzula onac,
cenbat obligacinoe andi iminten dituban, [203] bai batzubentzaco ta bai bes-
tentzaco laugarren mandamentubac, aita ta ama ondreetaco aguinduten dave-
30 nian.

Onetaraco aituten emongo dotsut dotrina onetan, laugarren mandamentu-
bagaz cunpletaco celan portau biar dogun: 1º Aita Santu Erromacuagaz. 2º
Obispo jaunagaz. 3º Cura ta sacerdote jauneequin. 4º Gueure erregue jauna-
gaz. Ta 5º gueure jueceequin. Gueroco dotrineetan esango da, gurasuai ta
35 umiai, ugazabai ta otseguinai mandamentu onetan toquetan jacuena.

I.

Aita Santu Erromacua da, neure entzula onac, Jesucristo gueure Jaunaren
ordecua luurrian, Elexa guztiaren buruba, cristandade guztiaren aguintarija,
pedeco ta salbacinoeco gauceetan cardenal, patriarca, obispo, erregue, aguin-
40 tari ta beste cristinau guztiac obeidu biar deutseena, Jesucristori berari leez.
Bere escubetan ichi ditu Jesucristoc ceruco guiltzac ta guiltz mirarizco areen
covernuba. Beti peliada baten vizi biar dau ta vizi da Aita Santu Erromacua,
inpernuco arerijuac, ereje¹⁴⁵ gaistuac ta pecatubaren oitura chaarrac pentcieta-
co¹⁴⁶ eta cristinau guztiai ta bacochari dotrina eguijazcua ta ceruraco vide zuce-
45 nac eracusteco. Ta cristinau guz-[204]tien obligacinoia da, Aita Santu
Erromacuari contu andi bategaz obeidutia; bera aitauten dogunian erreberen-
cija andijagaz berba eguitia; beraren vizitzia, osasuna, aciertuba, pedia ta sal-
bacinoia gaiti Jangoicuari sarri ta gogoz erregututia.

II.

50 Obispo Jaunac gaiti bere beste ainbeste eguin biar dogu; ta endamas gueu-
re obispo jauna gaiti. Bada, obispo Jaunac dira apostolu santuben ordecuac
luurrian. Eurac, Aita Santu Erromacuac baño urragoti coverneetan ditubee
Elexaac eta elexa guizonac. Eurac ordenau biar ditubee sacerdotiac. Eurac par-

28 imintendituban *Esk* 29-30 aguindutendavenian *Esk* 31 emongodotsut *Esk* 34 esan-
goda *Esk* 40 obeidubiardeutseena *Esk* 41 ichiditu *Esk* 42 vizibiardau, ta vizida *Esk* 43
impermuco *zuzen. co ler.art.* 45 Cristinauguztien *Esk* 46 andibategaz *Esk* | aitaturdo-
gunian *Esk* 50 biardogu *Esk* 53 ordenaubiarditubee *Esk*

¹⁴⁵ Hementxe idazten du soilik *j-z* "ereje" hitza; gainerako liburuetan "herege" edo "erege"...

¹⁴⁶ Ik. 26. oharra (546.or.).

tidu biar ditubee sacramentu santubac. Eurac examinau, ezautu ta probau biar ditubee sacerdoteen, conpesoreen, predicadoreen ta arima gordezallen jaquiturija, virtutiac eta vizi moduba, sacramentu santubac eta dotrina ona noren contura isten daven jaquiteco. Eurac dira gueure gurasuac, ardura andijac eta cargu andijac dauqueezanac; ta orregaiti amau biar ditugu, estimau biar ditugu ta jaso biar ditugu gueure obispo jaunac. Ondo berba eguin biar dogu beti eurac gaiti. Erregutu biar deutsagu Jangoicuari euren vizitzia, osasuna ta Elexaco gauceen aciertu ona gaiti ta prest egon biar [205] dogu euren aguin-dubai ciur obeiduteco.

III.

Cura jaunac eta sacerdotiac dira, oraindino Aita Santu Erromacuac eta obispo jaunac baño bere urraogoti gueure arimac zaintuten ditubeenac. Salbacinoco bideetan estropezau bagaric jua gaitazan, zucenduten gaitueenac. Jangoicuaren berbia eracusten doscubeenac. Sacramentubeen gracia zabalduten doscubeenac. Cura jaunac eta sacerdotiac dira gueure arguijac, gueure eracusaac, gueure vitartecuac, gueure arimen ispillubac, gueure concijen jaubiac, gueure graciajaren aurbideguinac, gueure arerijuen bildurgarrijac, gueure pelleburuben zelatarijac, gueure aingueru gorputzezuac edo, berba baten esateco, sacerdotiaren ezpanac eta aua dira, Malaquias propeta santubac dinuan leez (137), ceruco iturri vizijaren graciaj eta bendicinoiac gueure arimeetara iragoteco cainuba.

Sacerdotiac imini doscuz Jangoicuac bere orde, gueure arimei cuidado eguiteco. Eurac emon biaco¹⁴⁷ davee gueure arimen contuba ta errazoia. Eurei entzuten deutseenac, Jangoicuari berari entzuten deutsa (138); ta eurac des-[206]precijetan ditubanac, Jangoicua bera desprecijetan dau. Sacerdotiaren estudijetia, errecetia, meza esatia, canteetia, conpesetia, prediquetia, oracinoe eguitia, illten lagundutia, conseju onac emotia, guztija da gueure probechuraco.

Orregaiti zor deutseegu, neure entzula onac, sacerdote guztiai, cein abitudunai cein manteodunai erreberencija, erresetua, lotsa ona ta berbeeta ona,

(137) C. 2. (138) San Luc. c. 10.

54 partidubiarditubee *Esk* | ezautu *zuzen. baina ez ler.art.* 54-55 probaubiarditubee *Esk* 56 vizimoduba *Esk* 57 istendaven *Esk* 58-59 amaubiarditugu, estimaubiarditugu, ta jasobiarditugu *Esk* 60 Erregutubiardetsagu *Esk* 61 onagaiti, ta prest egonbiardogu *Esk* 65 zaintutenditubeenac *Esk* 66 estropezaubagaric *Esk* | zucendutengaitubeenac *Esk* 73 bendicinoiac | bendicinoioac *Esk* 76 emonbiacodavee *Esk baina co zuzen. ler.ar.* 77 entzuten deutseenac *Esk* 77-78 desprecijetandau *Esk* 82 zordeutseegu *Esk*

¹⁴⁷ Hauxe da idazki honetan darabilen forma nagusia; *biarco* behin edo dator...

85 bai euren aurrian ta bai aguiri ez dirian lecuban aotan artcen badira. Zor deu-
tseegu vorondate ona, amodijua ta eurac gaiti Jangoicuari oracinoe eguitia,
dauquen estadu altubagaz eta pisutsubagaz ondo cunplidu daijen. Zor deutse-
90 egu ta endamas errico cura jaunai ta beste sacerdotiai, esan danagaz gañera,
obedencija. Eguin biar dogu gueure arimiaren oneraco ta baqueraco aguindu-
ten doscubeena. Ascotan Sacerdote jaquitun baten consejubagaz ta modu ona-
gaz, escribauric escribau ta letrauric letrau vengantzia ta gorrotua darijuela ibi-
lico litzaatequezan auzi ascori samia ebaten jacue guztien esquer onagaz. Zor
deutseegu cura jaunai ta sacerdotiai, mairaco ta soineraco biar daveena, euren
95 estadubac escatzen daven moduban. Eurac emoten doscube arima-[207]co
janarija ta zor jacue gorputzecua. Onetaraco paguetan dira amarrenac, primici-
jaac ta beste elexaco useetan dirian gauzac. Berba guichitan eracusten doscu
ene ama santa Teresac elexa guizon guztiai zor deutseeguna, dinuanian (139):
Beti ondo esan religioso, sacerdote ta ermitañuac gaiti. Esango baleu leez Santa
andijac: Obispo, cura, praile, abade ta beste Elexaco serbizalle guztiac gaiti beti
100 ondo berba eguin biar dozu. Bada, beti guztiac gaiti ondo esaten badogu, bee-
quijan santa Teresac beste enparaubagaz erreztu cunpliduco doguna.

Ta ez dozu pensau biar, neure cristinaubac, sacerdoten exenplu chaarrac
emoten dotsula libertadia ta escubidia areec gaiti dongaro esateco ta errespe-
to charragaz trateetaco. Munduban gagozan artian, onen ta donguen artian vizi
105 gara, ta nai ta nai ez dogula bere vizi biaco dogu. Baquigu coroe bat buruban
edeguijac inor santu eguiten ez davena. Baquigu abitu bat edo mantio bat soi-
nian jantzi arren, pecatarija izan leitequiiana ta exenplu arin ona¹⁴⁸ cristinaubei
emon leijuena. Baña danic pecatariric andijena bada bere, beti izango da sacer-
dotia, beti izango da elexa guizona; ta au da asco guc erreberencijagaz [208] ta
110 errespetuagaz beti beguiratuteco.

Judas gaistua zan, pecatarija zan, Jesusen odol divinua judegubai salduta
eucana zan¹⁴⁹; baña Jesusec beste edocein bere apostolu baisen errespeto ta
modu onagaz tratau evan, apari santuban oñac garbitu eutsazanian. Gu don-

(139) Aviso. 2.

85 ezdirian *Esk* | artcenbadira. Zordeutseegu *Esk* 86 euracgaiti *Esk* 87 cunplidu-
daijen. Zordeutseegu *Esk* 88 esandanagaz *Esk* 89 Eguinbiardogu *Esk* 89-90 aguinduten-
doscubeena *Esk* 92 ebatenjacue *Esk* | esqueronagaz. Zordeutseegu *Esk* 93 biardavee-
na *Esk* 95 zorjacue *Esk* | paguetandira *Esk* 96 eracustendoscu *Esk* 97 zordeutseeguna
Esk 100 biardo zu *Esk* | esaten badogu] esatcenbadogu *Esk* 102 ezdozu pensaubiar *Esk*
Esk 103 emotendotsula *Esk* 104-105 vizigara *Esk* 105 ezdogulabere vizibiaco *Esk* 106
ezdavena *Esk* | mantiobat *Esk* 107 arinona *Esk* 108 emonleijuena *Esk* 109 auda *Esk*
112 edoceinbere *Esk* | baisen] baitsen *Esk*

¹⁴⁸ "Arin ona" hitzak, erdizkakoa ez-eze, txarra esan nahi dau gure idazlearen testurik gehie-
netan eta hemen ere bai.

¹⁴⁹ Ik. Mt 26,14-16; Mk 14,10-11; Lk 22,3-6.

gac izan arren, echazu zubei toqueetan gu juzqueetia ta gu gaiti dongaro esat- 115
 tia; ezpada gure pecatubai ta exenplu chaarrari alde batera ichita, guc Espiritu
 Santubaren lecuti, pulpitoti ta conpesonarijoti esaten doguna eguitia. Au da
 Jesucristo gueure Jaunac cristinau guztiai aguinduten deutseena sacerdoteen
 dotriniaren ta errespetuaren gañian. Neure leguia ta dotrinia eracusteco lecu-
 ban jarrico dira sacerdotiac, dino Jesucristoc (140). Areec esaten dotsuben guz- 120
 tia eizu; baña aren obrac onac ez badira, ez eizu eguin eurac eiten daveena.
 Ara emen, neure cristinaubac, sacerdote jaunei, dongac izanda bere, zor deu-
 tseegun obedentcija¹⁵⁰ ta errespetua, Jesucristo gueure Jaunac claru esanda.
 Gauza jaquina da edoecin bere murmuracinoe, gaisqui esate, lotsa chaar, burla
 edo acinoe gaisto sacerdotiaren contra, beti dala pecatu andija]ua. Ta conpe- 125
 sinoian esan biar da, esan evan [209] edo eguin evan gauza chaarra sacerdo-
 tiaren contra zala, inor izentau bagaric.

IV.

Esan dirian elexa guizonac dagozan leez Jangoicuac iminita pedeco dotri- 130
 nia zaintuteco ta eracusteco, sacramentu santubac partiduteco ta cristinauben
 arimaco gaucei beguiratuteco, alan dago erregue jauna, erreinu guztiaren buru-
 ba, Jangoicuaren icenian gure vizimodubac coverneetaco. Erreñu batec cein-
 bat arerijo, persecucinoe ta gach daucan esaten ez da errez, neure cristinau-
 bac. Guerrac, pestiac, laboreric ezac, lapurretaac, aucijac, bide bagaco erijotzac
 ta alper ascoren najja eguin ezinac, gau ta egun sosigu bagaric darabillez erre- 135
 gue jauna ta berari lagundu biar deutseenac. Esan lei ez dauala opicijo bat cui-
 dado gueijago, ardura gueijago, cereguin gueijago ta arimaco ta gorputzeco
 arriscu gueijago daucanic erregue jaunarena baño. Ta guztia gueure baquia,
 cleituba, aciendia, osasuna ta vizitzia gordeetaco.

Orregaiti gueure obligacinoia da erregue jauna erreberencia andijagaz tra- 140
 tetia; aleguinagaz zaintutia; bere aguindubac eguitia; ta beraren osasuna, ari-
 maco gracia, portune ona ta erreñuco dichia gaiti Jangoicuari gogoz ta sarri
 erregututia. Au da gure [210] guztion obligacinoia. Baruc propeta santubac
 Isrraeltarrei esaten beutseen (141), Nabucodonosor Babilonijaco erreguia gaiti
 Jangoicuari erregututeco; san Pedro apostolubac esaten badau (142), erregue 145

 (140) S.Math. c. 23. (141) C. 1. (142) 1 Cart. c. 2.

115 gugaiti *Esk* 116 alde batera *Esk* 117 Auda *Esk* 118 aguindutendeutseena *Esk* 120
 jarricodira *Esk* | esatendotsuben *Esk* 121 ezbadira *Esk* | eitendaveena *Esk* 122-123
 zordeutseegun *Esk* 124 jaquinada *Esk* | gaisquiesate *Esk* 126 esanbiarda; esanevan, edo
 eguinevan *Esk* 127 izentaubagaric *Esk* 133 ezdaerrez *Esk* 136 biardeutseenac *Esk* |
 Esanlei, ezdauala opicijobat *Esk* 142 dichia gaiti *Esk* 144 Erreguiagaiti *Esk*

¹⁵⁰ Hitz hau *-je-* diptongorik gabe idazten du.

150 dongai ta pede bagacuai bere obeiduteco, errazoe andija da gueure erregue ona, justuba, *catolicua* ta aita bigun baten erraijac dauczana gaiti oracinoe eguitia ta aren esanei obeidutia. Santa Teresa de Jesus, beste gauza on guztietan leez, onetan bere artu guinai gueure eracuszat. Aparteco oracinoia eguiten euan Santiac erregue jaunac gaiti (143). Ta desietan euan berari Jangoicuac eguiten eutsazan mesede gracia utsezcuac, berari quenduta, erreguei eguitia. ¡Oh, ce caridade andija!

V.

155 Erregue jaunen lecuban dagoz juezac. Oneec dira errijetaco burubac, pamelijen artian baquia ta uninoina imini biar daveenac. Errijetaco escandalubac, ocasinoinac, gaveetaco ibiltiac, ordiquerijac, lapurretac, maldecinoinac ta beste aguirico pecatubac eraotzi biar ditubeenac juezac dira. Ordena onagaz ta modu onagaz ecin badavee, castigaubagaz zaintu biar davee juezac
160 Jangoicuaren leguia. Ez daroie alperric guerrijan ezpatia, dino san Pabloc (144), ezpada [211] Jangoicuac emonda dauquee juezac escubidia, gaisqui eguiten davena castigueetaco. Escandaluben edo aguirijan eguiten dirian pecatuben contuba eurac emon biaco deutsee Jangoicuari, erremedijetan ezpaditubee. Eguija esateco, ecin euqui lei erri batec gauza dongagoric juez epel bat,
165 macal bat, edo jutzija parcatuten daven bat baño. Cura jaunac eta predicadoriac diadar eguin leije pulpitori, conpesoriac cerbait esan leije conpesonarijuan; baño gurasuac echian ta juezac errijan parcatuten badabee nasaitasun ta libertade guztia, zoriguestuan ascotan jazoten dan leez, alperric da cansetia ez da secula inor erremedijauco. Zor deutseegu bai juezai errespetua, erreberenzija,
170 ondo esatia, ta euren aguindubac eguitia. Alan gura izan daijala Jangoicuac. Amen.

(143) En su *Vid.*, c. 21. n. 1. (144) Ad Rom. c. 13.

145 eta 147 Erreguedongai, ta pedebagacuai *Esk* 148 daucazanagaiti *Esk* 149-150 onguztietan *Esk* 150 artuguinai *Esk* 156 biardaveenac *Esk* 158 biarditubeenac *Esk* 159 ecinbadavee *Esk* | castigubagaz| castigaubagaz *Esk* | zaintubiardavee *Esk* 160 Ezdaroie *Esk* 162 eguitendavena *Esk* 163 emonbiacodeutsee *Esk* 164 euquilei *Esk* | erribatec *Esk* 164-165 epelbat, macalbat *Esk* 165 parcatutendaven *Esk* 166 diadareguinleije *Esk* | esanleije *Esk* 168 alperricda *Esk* | ezda *Esk* 169 Zordeutseegu *Esk* 170 izandajala *Esk*

**LAUGARREN MANDAMENTUCO
BIGARREN LECINOIA,**

ceinetan eracusten dan

175

*ceintzuc dirian, mandamentu onen contra gurasuac,
asco aintzat artu bagaric, [212] eguin oi dituben pecatubac.*

Laugarren mandamentubac obligacinoeric estubena ta andijena iminten deutsee, neure entzula onac, gurasuai ta umiai, bacochari bere moduban. Gurasuac dauquez chito obligacinoe andijac euren seme alabentzaco; ta seme alabac gurasuentzaco. Gurasuen contura ichi dau Jangoicuac seme alaben aziera ona; ta seme alaben contura gurasuari zor jacon amodijua, lotsia, errespetua ta obedencija. Ta ara emen, neure cristinaubac, dotrina onetaco ta urrengoco salla. Gurasuac cer eguin biar daven seme alabeequin sarritan entzun deustazun gaucia da. Oan esango dotsut, bada, bacarric *ce sarritan pecatu eguiten daven gurasuac laugarren mandamentubaren contra, asco aintzat artuten ez dituben baña artu biar dituben gauceetan.* Egon zaitez, cristinaubac, atencinoe guztiagaz; ba, ez da au dotrina guztien artien guichien balijo dotsuna. [213] *Lelengo.* Pecatu mortala eguiten davee gurasuac (145), seme alabac azteco nequia ta trabajuba gaiti señic ez izatia desietan daveenian eta ataraco cerbait eguiten daveenian. 180 185 190

Bigarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, amaren sabelian dauan seña laarregui necatuta, ilteco pelleburuban iminten daveenian, dan moduban dala. Bada, cein jaijotacuari vizitzia quendu cein jaijoteco dauana galdu, bardin da, dino Tertulianoc (146). 195

Irugarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, sein chicarrac cuidado guichigaz eurequin oian eratzota, itoteco arriscuban dauqueezanian. ¡Ta ojala onaco negargarrijac guichiagotan jazoco balira! Gauza oneec bautismoco sacramentuban clarubago esango dira.

(145) Ex Deciss. Cleri Patav. año 688. (146) *Apolog.*, c. 3.

200

175 eracustendan *Esk* 177 artubagaric, eguin oidituben *Esk* 178-179 imintendeutsee *Esk* | beremoduban *Esk* 181 ichidau *Esk* | semealaben *Esk* 184 cereguinbiardaven *Esk* | entzundeustazun *Esk* 186-187 ezdituben *Esk* 187 artubiardituben *Esk* 188 ezda *Esk* 192 eguitendavee *Esk* 195 bardinda *Esk* 198 jazocobalira *Esk*

Laugarrenian. Pecatu mortala eiten davee gurasuac, seña eurac azteco nequia gaiti, beste necesidade edo premina bagaric, inori azteco emoten deusteenian. Euren errajetaco prutubac dira ta, al dajjela, euren bularretan azi biar ditubeenac dira. Usadijuac ez ditu libreetan pecatu onetati, aberatsac izan arren. Jangoicuaren leguic aberatsei ta pobriai, guztiai bardin diadar eguiten deutsee. Ta naturaleziaren leguia da amac bere umiac aztia bere bularrian. Sara aberatsa zan, Samuelen ama aberatsa zan, Macabeo santuben ama aberatsa zan, san Luis erreguiaren ama [214] aberatsa zan, baña euren bularragaz azi zituben semiac¹⁵¹. Ama baten ondraric andijena da, dino san Ambrosioc (147), bere sabeleco prutuba bere bularragaz aztia.

Bostgarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, semiac eta alabac, neba arrebac izan arren lau bost urtera eldu ezquero, alcarregaz oe baten eratzoten ditubenian. Ta baita eurequin oian eratzoten ditubenian bere. Lau urtera eldu ezquero, ascoc dauquee malecija; ta ceubenac bere zubec pensau ez arren, euqui leije. Salomonec amar urte citubaneco eucan seme bat, dino san Geronimoc (148). Beste ainbeste esaten da, euren oian izan ez arren, euren alboco oetan eratzotia gaiti. Ta baita errenta echeetan oiac aparte egoteco duina lecu eguiten ez daven ugazabaac gaiti bere. Ez da esaten oe bacocharentzaco guela bat eguiteco, ezpada cristinauben moduban gurasuac eta umiac, guizonezcuac eta andrazcuac aparte lo eguiteco duina. Au pecatu mortalaren beeco obligacinoia da, bai gurasuentzaco ta bai ugazabentzaco.

Seigarrenian. Pecatu mortala eguiten davee, seme alabei bost sei urtera eldu ditezaneti aurrera, umiac diriala ta, esaten daven ta eguiten daven guztia, parcatubagaz. Umetaco libertadiagaz esan ta eguiten ditubee gauza chaar asco; ta gurasuac, eguitade andi batzuc balira leez, parcatuten deutsee edo alabebetan deutsee guztia ta azten dira ume lotsa galdu-[215]cuac, pusca bat andijago eguin ditezarian inoc domau ezin ditubanac. ¿Lelengoti oquer azten dan lan-

(147) Lib. de Abran, c. 7. (148) In Epist. ad vital.

201 eitendavee *Esk* 203 aldajjela *Esk* 203-204 azibiarditubeenac *Esk* 204 ezditu *Esk* 208-209 azizituben *Esk* 212 oebaten *Esk* 214 elduezquero *Esk* 215 semebat *Esk* 216 esatenda *Esk* | ezarren *Esk* 218 ezdaven *Esk* | Ezda *Esk* 221 Pecatumortala eguitendavee *Esk* 224 parcatubagaz *Esk* 225 andibatuc baliraleez *Esk* 226 aztendira *Esk* | lotsagalducuac, puscabat *Esk* 227 ezinditubanac *Esk* | aztendan *Esk*

¹⁵¹ Sarak, Abrahamen emazteak, bere seme Isaak hazi zuen (Has 21,1-8); Samulen Ama Ana zen eta aita Elkana (1Sm 1,19-20); makabearren ama aipatzen duenean, martiri hil ziren zazpi semeen ama esan nahi du, ziur aski (2M 7)...

"San Luis Erreguearen ama"; beharbada, Luis IX.a (1219-1270), Frantziako erregea esan nahi izango du (ik. *Icas-II*.ko 353.oharra, 1092.or.). Honen ama D^a Blanca, Gaztelako errege Alfonso IX.aren alaba zen. Frai Bartolomek Luisi bere amak eman zion heziera ondorengo obra honetan irakur zezakeen: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, 1.t. Coloniae Agrippinae, 1700, 426. or.

daría nos zucenduten da? ¿Ceubec umetati seme alabac oquerrac azita, nai
zenduque guero zucenac izatia? Ori da milagruac Jangoicuari escatutia. Ta ez 230
ditu eguiten nasaitasuna ta lotsa chaarra gueituteo. Umetan semiari ta alabiar-
ri parcatuten badeutsazu, guero damutuco jatzu, dino Espiritu Santubac (149).

Zazpigarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei biar
dan moduban dotrinia eracusten ez deutseenian. ¡Oh, ce palta andija dauan,
neure cristinaubac, gauza onetan! Lelengo lecinoian esan da cerbait gauza 235
onen gañian. Ez da asco, neure entzula onac, gurasuarenzat, semiari ta alabiar-
ri buruz oracinoe batzuc esaten eracustia, ezpada aitu erain biar jaco pecatu
mortalaren beian oracinoe bacochecho berba areec cer esan gura daveen.
Arimiarene espirituzco izatia, graciajaren preminia ta probechubac, pecatu mor-
talaren ezaintasuna ta calte icaragarrijac, munduco gauceen iraunic eza ta bali- 240
jo laburra, ceruco ondasunen acaburic eza ta gozo neurri bagacua, Jesusen
vizitzia ta curutzeco erijotzia, Ama Virginiaren ta santuben devocinoe eguijaz-
cua, sacramentuben virtutiac ta celan prestau biar dan conpeseetaco ta comul-
gheetaco, meza santuba celan entzun biar dan, erremedio baco erijotzia ta eri-
jotziari darraicon juicijo estuba, betico ceruba edo inpernuba... oneec dira 245
[216] guraso batec pecatu mortalaren beian seme alabei eracutsi biar deutsee-
zan lelengo gauzaac. ¿Ta eracusten dira?

¡Oh, ce guichi! Aita edu eguindaco seme alabac dagoz asco, dotrinaric
bapere sustancijaz ez daquijenac. Errijan jazoten dirian enbusteriya, vanidade,
amore loi ta pecatu genero guztiac baquijez zortzi amar urte ditubeeneco ta 250
meza bat celan entzun biar dan ez daquije ezconduta guero bere. Esan lei ala-
cuen gurasuac gaiti Augusto aguintarijac Erores gaiti esaten evana (150), seme
alaben lecuban lau oñeucac jajoco balichacuez, oba leuqueela alaco gurasuac.
Bada, san Juan Crisostomoc dinuan leez, gurasuac obeto cuidado eguiten deu-
tsee echeco alemanijai, seme alaben arimiari ta salbacinoiari baño (151). 255

Zortzigarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei
lapurretaac, gauza guichijan lantzian izan arren, ontzat eruaten deutseezanian
ta areec oostutaco gaucia pocic artceen daveenian.

Bereratcigarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei
bidauac eta maldecinoiac ezarten deutseezanian. *Diabrubori*¹⁵² ta, *demoninori* 260

(149) Eccles. c. 30. (150) Macrob. Saturn. L. 2, c. 4. (151) Homil. 59. in Math.

229 zucendutenda *Esk* 229-230 naizenduque *Esk* 230 Orida *Esk* 230-231 ezditu *Esk*
233 eguitendavee *Esk* 233-234 biardan *Esk* 234 ezdeutseenian *Esk* | cepalta *Esk* 235
esanda *Esk* 236 onengañian. Ezda *Esk* 239-240 pecatumortalaren *Esk* 243 biardan *Esk* 244
entzunbiardan, erremedijobaco *Esk* 246-247 biardeutseezan *Esk* 247 eracustendira *Esk* 248
ceguichi *Esk* 249 ezdaquijenac *Esk* | jazotendirian *Esk* 251 biardan, ezdaquije *Esk* 252
gurasuacgaiti *Esk* 253 alaco *baina* co *ler.art.* 256 eguitendavee *Esk*

¹⁵² Era enklitikoan eta loturazko b eta guzti darabil bokatibo deiktiko hau.

265 *ta, itoco al as da, azquenac erango al dituc* eta, beste onaco bidauac seme alabei eguitia pecatu mortala da. Ta endamas sarritan bada. Alperric da esatia gach bagaric eguiten diriala alaco bidauac. Beti da exenplu chaarra. Beti da
 270 gaisqui eracustia ta beti da [217] guraso batenzaco pecatu. Bada, Espiritu Santubac dinuan leez, gurasuaren maldecinoiac ondatuten dau eche guztia (152). Intencinoe chaarric euquico ez euan semiari gach eguiteco, Zenobio santubac dinuan amac. Umiac ura escatu eutsan amari ta amac purijaz ura esquineta, esan eutsan umiari: *autsa, eraic diabruba*. Ta bertati sartu zan diabruba umiaren gorputzian (153).

275 *Amargarrenian*. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei meza entzutia, conpeseetia ta comulgueetia, edadia euqui ezquero, errazoe bagaric eraozten deutseenian. Zazpi urtera ezquero dauquee obligacinoia meza entzuteco ta beste Elexaco mandamentubac gordeetaco, cura jaunac beste gauzaric aguintuten ez deutseen artian. Bapere erreparau bagaric zortzi ta bereratzit urteco umiac meza entzutera ta conpeseetara eruan bagaric dauqueezan gurasuac, beguiratu beije cer eguiten daveen.

280 *Amaecagarrenian*. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei bidauac eiten, berba loijac eta desonestubac esaten ta beste edocein bere pecatu parcatuten deutseenian. Esaten da, *parcatuten deutseenian*. Alaco gauzac seme alabei entzunda, edo esan eta eguiten ditubeena jaquinda, lotsia ta bildurra ostera eguin ez daijen, emoten ez deutseenian. Bada, umetan eraozten ez bajacuez, azita nequezago erreme-[218]dijauco dira ta gurasuena izango da erruba.

285 *Amabigarrenian*. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, cein gavaz ta cein egunaz pecatu eguiteco ocasinoe urreco lecubetara juaten edo lagun pelleburuzcuequin ibiltan seme alabei isten deutseenian. Nos, celan eta ceta-raño elduten dan pecatu au, sarri entzuten dozu gurasuac. Ta esango da oraindino clarubago, diversinoeco dotrinia espliquetan danian. Artiatarano¹⁵³ ez
 290 aaztu, cristinaubac, ia noc su emoten deutseen orraco gazteen arteco ibilera nasajai, apaindu guriari, modestjaric ezari, berdequerijai, maitequerija ezainai, echian sosegau ezinari ta gurasuentzaco dauquen errespeto chaarrari.

 (152) Eccles. c. 3. (153) Surio in vita s. Zenob. Archiep. florent.

262 alas *Esk* | aldituc *Esk* 264 alaco *baina co ler.art.* | Betida *Esk* | betida *Esk* 267 ezevan *Esk* 268 escatueutsan *Esk* 269 sartuzan *Esk* 271 eguitendavee *Esk* 272-273 errazoebagaric eraoztendeutseenian. Zazpiurtera *Esk* 275 ezdeutseen *Esk* 277 beguiratubeije, cereguitendaveen *Esk* 279 edoceinbere *Esk* 280 Esatenda, parcatutendeutseenian *Esk* 282 ezdaijen, emotenezdeutseenian *Esk* 283 ez bajacuez *Esk* | izangoda *Esk* 287 istendeutseenian *Esk* 288 eldutendan *Esk* | entzutendozu *Esk* | esangoda *Esk* 289 espliquetandanian *Esk* 290 ia| ya *Esk* | emotendeutseen *Esk* 292 sosegau ezinari *Esk*

¹⁵³ Ordurarte edo bien bitartean esan nahi du; J.A. Mogelek ere badakar *artietan*...

¿Cec eraiten dau au guztiau? Jangoicuaren bildur bagaric eta libertade
 osuan seme alabac umetati ezijac. Edocein bere lecutara juaten ta edocein bere 295
 lagunegaz ibilten seme alabei ichijac; viziric edo minic artu bagaric echera
 badatoz, ece ez deutsee ardura guraso ascori, euren seme alabac pecatuzco
 lagunequin egon ta ibili arren. ¿Cer dira au baño beste gauzaric, orraco come-
 dijac, erromerijac, plazaac, saraubac eta viguiraac? Baña ez da oan denporia
 onen gañian berba eguiteco. ¡Oh, gurasuac, ceinbat pecatu mortal irunsten 300
 dituzun au ondo daquizula! Erremediojo bagaric negar eguin biaco dozu, bada.
 [219] Amairugarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, euren alabei
 besuac eta irunac edo bularrac aguirijan erabilteco soinecuac eguiten deutsee-
 zanian ta alaco jantzijagaz plazara, pasiora, elesara edo lagun artera cein
 echian ta cein canpuan urteten isten deutesenian. Useetan dala esatia alperric 305
 da. Ez dago usadjoric, Jangoicuaren leguiaren contra. Escritura Sagradubac,
 Elesaco santubac eta concilijuac, guztiac era batera condeneetan daveena da
 emacumiac alaco jantzi madaricatubagaz ibiltia. Senarrac emaztiari istia alaco
 jantzija, pecatu mortala da; senarrac aguindu arren emaztiac jantzten badau,
 pecatu mortala eguiten dau. Gurasuac umiari aguinduten badeutsee edo par- 310
 catcen badeutsee alan jantzia, pecatu mortala eguiten davee. Ta umiac, gura-
 suac aguindu arren jantzten badau ezauberiagaz, pecatu mortala eguiten dau.
 Bada, berez pecatu dan gaucia ecer gaiti bere ecin eguin lei. Ta alan jantzita
 ibiltia, berez ta beti da desonestuba (154).

Amalaugarrenian. Pecatu mortala eguiten davee gurasuac, seme alabei 315
 goguaz contraraco estaduba artu eraiten deutseenian. Ta baita semiac edo ala-
 biac gura daven estaduba artceen, al dajjela ta errazuazcua izan ezquero,
 lagunduten ez deutseenian bere. Onen gañian esango da cer-[220]bait gueij-
 go matrimonioco sacramentuban.

Ara emen, neure cristinaubac, andi andica aituten emonda cetan pecaturic 320
 gueijen eguiten daveen gurasuac euren seme alaben azieraan, asco aintzat artu
 bagaric. Baña guztien artian nequezen erremedijetan dana ta gurasoric gueij-
 nac palteetan daveena da, dotrinia azaleti baño ez eracustia, cristinau eguijaz-
 co baten obligacinoiac ez eracustia ta pelleburuzco lagunequin ardura bagaric
 ibilten istia. Ez daquizu ondo, gurasuac, ce calte andijac dacazan onec ceuben 325

 (154) Véase S. Antonino 2. P., tit. 4, c. 5. §. 3. Y Ill^{mo} Genet. t.1. trat. 1, c. 17.9. 7.

294 eraitendau *Esk* 295 Edoceinbere *Esk* | edoceinbere *Esk* 297 ezdeutsee *Esk*
 298 Cerdia au baño, bestegauzaric *Esk* 299 ezda *Esk* 301 eguinbiacodozu *Esk* 303-304
 eguitendeutseezanian *Esk* 305 istendeutseenian *Esk* 306 Ezdago *Esk* 310-311 parcatcenba-
 deutsee *Esk* 312 jantzenbadau *Esk* 313 pecatudan *Esk* | ecergaitibere *Esk* 315 egui-
 tendavee *Esk* | semealabei *Esk* 316 artueraiten *Esk* 317 guradaven *Esk* | aldajjela *Esk*
 318 ezdeutseenian *Esk* 320 andiandica *Esk* 321-322 artubagaric *Esk* 323 palteetandaveena
Esk | ezeracustia *Esk* 324 ardurabagaric *Esk* 325 Ezdaquizu *Esk*

umeen arimeetara. Baninz inori conseju emoteco duina, dino ene ama santa
 330 Teresac (155), esango neusquijue guraso guztiai; cuidado andijagaz beguiratu
 dajjela euren seme alabac umetan nogaz ibilten dirian. Orduban, amar, amabi,
 335 amalau urte inguruban, dino Santiac, dauala calte andija. Ibilten dira mutilac
 nescacheequin, gurasuac casu eguin bagaric visitiaren, pasiuaren ta olgueetia-
 ren achequijan; ta icasten davee santa Teresac bere buruba gaiti dinuana. Edo
 obeto esateco, ez santa Teresac humildadez dinuana, baña bai san Bernardoc
 340 pena andijagaz dinuana: *intrat solus ad solam ¡veh, veh lupus ad oviculam!*
 (2)¹⁵⁴. Isten jacue mutilei alabeequin bacarric egoten; edo alabei muti-[221]lee-
 tara juaten. ¡O lastimia! ¡O negargarrija! dino san Bernardoc, ¡otsuac bildotsee-
 tara bialdutia edo bildotsac otsuari emotia!
 ¡Oh, gurasuac! Erruqitu zaitez ceuben erraijetaco prutubeequin. Ez eijo-
 345 zuz ain errezo mundubari ta diabrubari entregau ceuben sabelian pormauta-
 co, ceuben bularragaz azitaco ta Jesucristoren odolagaz erositaco seme alaba
 tristiac. Ez dajjala inos Jangoicuac gura izan alaco negargarriric. Amen.

**LAUGARREN MANDAMENTUCO
 IRUGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
 345 *seme alabac gurasuai zor deutsen ondria ta obedentcija.*

Gurasuen obligacinoiac andijac badira seme alabac Jangoicuaren bildur
 santubagaz azteco, seme alabac gurasuentzaco dauqueezanac bere andijac
 dira, neure entzula onac. Gurasuac dira, Jangoicuaz ostian, gueuri [222] izatia
 emon oscubeeenac; gueure umetaco miserija guztia supridu doscubeezanac;
 350 gueu euren icerdijagaz mantenidu ta jantzi gaitubeeenac; gueuri dotrinia edo

 (155) En su *Vida*, c. 2.

328-329 beguiratudajjela *Esk* 329 semealabac *Esk* 332 icastendavee *Esk* 341 Ezdajjala
Esk 345 zordeutsen *Esk* 350 jantzigaitubeeenac *Esk*

¹⁵⁴ Frai Bartolomek bi zenbakia jarri zuen kako artean, baina gero ahaztu egin zitzaion azpi-
 ko oharrean aipamena jartzea.

escolia edo opicijua eracutsi doscubeenac; gueure negar, illeta, maña, tema ta umequerijac gau ta egun penaz lua ta sosiguba galduta, irago ditubeenac; eurac aora daroien copauba sarri emon doscubeenac; eurac lua galduta, lo erain doscubeenac; eurac biloxtuta, jantzi gaitubeenac; enpin gurasuac dira 355 gueure luurreco Jangoicuac ta zor deutseegu *amodijua, ondria ta obedencija*.

I.

Zor deutseegu gurasuai amodijua. Dinot, neure cristinaubac, amau biar ditugula gueure aita ta ama beste proximo guztiac baño gueijago. Bada, beste guztiac baño gueijago zor deutseegu eurai. Gueure gurasuac biar dan moduban ameataco: 1^o Desiau biar deutseegu gorputzeco osasuna, baquia, portune ona ta beste gauza guztiac baño gueijago arimaco gracia ta ceruco gloria. 2^o Gueure arpeguiera onagaz, berbeeta bigunagaz eta clacija¹⁵⁵ arguijagaz eracutsi biar deutseegu gurasuai, euri deutseegun amodijo pina, vijotzeco carinua ta ondo guria. 3^o Erregutu biar deusagu Jangoicuari, gueure gurasuen arimaco salbacinoia. Ta au sarritan, Jangoicuac bere escuti euqui daizan, pecaturic eguin ez daijen ta [223] salbau ditezan. Modu onetan amau biar ditugu gurasuac, cein onac eta cein arin onac, cein zaarrac eta cein gaztiac; bada, guztiac dira gurasuac ta guztiac zor deutseegu amodijo eguijazcua. Ta baita ondra ona bere. 370

II.

Laugarren mandamentubac claruben eracusten doscun gauzia da aita ta ama ondreetia. Berba oneetan aguinduten doscuz Jangoicuac chito gauza asco gueure gurasueganaco. Lelengo, beti ondo berba eguin biar dogu gueure gurasuac gaiti. Bigarrenian, gurasuac paltaac euqui arren ta dongaac izan arren, ez ditugu contaui biar areen gaisqueguinac, ezpada Jangoicuari escatu euren erre-medijua gaiti, leen esan dan leez. Irugarrenian, entzun eta artu biar ditugu gracia onagaz ta vorondate humildiagaz, aita eta amac emoten doscubeezan conseju santubac eta gueure probechuracuac. Laugarrenian, euqui biar deu-

354 emondoscubeenac *Esk* 354-355 loeraindoscubeenac *Esk* 355 jantzigaitubeenac *Esk* 356 zordeutseegu *Esk* 358 Zordeutseegu *Esk* 358-359 amaubiarditugula *Esk* 360 zordeutseegu *Esk* | biardan *Esk* 361 Desiaubiardeutseegu *Esk* 363-364 eracutsiabiardeutseegu *Esk* 365 Erregutubiardeutsagu *Esk* 366 euquidaizan *Esk* 367 ezdaijen, ta salbauditezan *Esk* | amaubiarditugu *Esk* 369 zordeutseegu *Esk* 369-370 onabere *Esk* 372 eracustendoscun *Esk* 373 aguindutendoscuz *Esk* 374 eguinbiardogu *Esk* 375 euquiarren *Esk* 375-376 ezditugu *Esk* 376-377 erremedijuagaiti *Esk* 377 esandan *Esk* | artubiarditugu *Esk* 378 emotendoscubeezan *Esk* 379 euquibiardeutseegu *Esk*

¹⁵⁵ Ahozko hizkeraren eragina nabari da hitz honetan, bokal arteko *r*-a galdurik: *clacija*.

380 tseegu errespeto ta erreverencia andija, eurac serbietaco desiuu daucaguna
 eracutsijagaz. Bostgarrenian, lagundu biar deutseegu aleguin guztijagaz aitari ta
 amari euren premina ordubeetan, bai gaisoric dagozarian, bai inoc perseguei-
 385 ditezan sacramentu santubac errecibidu bagaric, ta erijotzaco orduban cristi-
 naubac nai oi dabeen laguntasuna bagaric. Zazpigarrenian, cumplidu biar ditu-
 bee seme alabac gurasuen [224] azqueneco aguindubac edo testamentubac.

Gurasuac biar dan moduban ondreetaco, au guztiau egin biar davee seme
 alabac, beste edoecin bere proximogaz baño lasterrago, ciurrago, cintzuago,
 390 vorondate prestauagaz. Jaquin biar dozu, cristinaubac, gurasuen erreberenci-
 jaren ta ondriaren contra eguiten dirian pecatubac diriala chito casta chaarre-
 cuac. Pecatu guztia dira dongaac; baña batzuc Jangoicuaren gorroto andijaua
 dacarree beste batzuc baño. Ta oneeticuac dira seme alabac gurasuen contra
 eguiten ditubeenac. Aitari edo amari erremuscada eguitia, becoqui iluna imini-
 395 tia, arpegui astuna ta asarria eracustia, gogor berba eguitia, burla eguitia, euren
 paltaac eta descuiduac arpeguijan ezartia edo ondoric esatia, preminaan dago-
 zarian ez socorrietia edo lotsa guichigaz trateetia dira, neure entzula onac,
 pecatu batzuc Jangoicuaren vijotza, esateco moduban, erdibi eguiten daveenac
 ta Jangoicuari seme alaben contra maldecinoe andijac erasoten deutseezanac.

400 Aitari atsecabia emoten deutsan ta amari igues eraiten deutsan semia edo
 alabia, dino Espiritu Santuabac (156), izan della desondrauba ta desdichauba.
 Aitari edo amari burla eguiten deutsan umiaren beguija, dino Espiritu Santubac
 (157), picatu daijela errequeetaco belaac; edo, clarubago esateco, picatu daije-
 405 la ta jan daijela alaco ume desbergunzauba inpernuco pristijac¹⁵⁶. Aitari edo
 amari bidao eguiten deutsan umia, dino Espiritu Santubac (158), ill della, con-
 denau della ta [225] bere odola beti bere contra izan della. Maldecinoe icara-
 garri oneec jaurteiten ditu Jangoico andijac lotsa chaarreco seme alaben con-
 tra. ¡Ez daquit nori icara eraguingo ez deutseen, pusca bat pensau ezquero!

 (156) Prob. c. 19. (157) Prob. c. 30. (158) Levitic. c. 20. Exod. c. 21.

381 lagundubiardeutseegu *Esk* 383 cerjan ezdauquenian *Esk* 384 andibat euquiardogu
Esk 384-385 illezditezan *Esk* 386 oidaveen *Esk* | cunplidubiarditubee *Esk* 387 seme-
 alabac *Esk* | edotestamentubac *Esk* 388 biardan *Esk* | auguztiau eguinbiardavee *Esk*
 388-389 semealabac *Esk* 389 edoecinbere *Esk* 390 Jaquinbiardo zu *Esk* 391 eguitendirian
Esk 392 Pecatuguztiac *Esk* 393 semealabac *Esk* 394 eguitenditubeenac *Esk* 398 egui-
 tendaveenac *Esk* 400 emotendeutsan *Esk* | eraitendeutsan *Esk* 401 izandella *Esk* 402
 eguitendeutsan *Esk* 403 picatudaijela *Esk* 404 jandaijela *Esk* 405 eguitendeutsan *Esk* 405-
 406 illdella, condenuadella *Esk* 406 izandella *Esk* 407 jaurteitenditu *Esk* 408 Ezdaquit *Esk*
 | pensaezquero *Esk*

¹⁵⁶ Herri-ahoskeraren eragina salatzen du forma honek...

Esango neuque, ez dauala menturaz beste pecatu genero bat, Jangoicuaren 410
 justicija bai mundu onetan ta bai bestian obeto vengueetan jaconic, seme ala-
 bac gurasuen contra eguiten daveen pecatuba baño. Ta joh, ce pecatu ugari-
 jac dirian oneec! Beti bere izan al da, baño gaurco egunian umiac, cein atzijac
 eta cein chiquijac gurasuenzat ez lotsaric, ez bildurric, ez errespetoric ez dau-
 queena, nic esan bagaric, zeubec autor dozuna da. Alaba batac amari sinu 415
 eiten deutsa; bestiac sacatu bat emoten deutsa; bestiac arpeguiera on bat secu-
 la eracusten ez deutsa; bestiac bidao eiten deutsa; bestiac atsua edo barritsuba
 isilic egon della, esaten deutsa; bestiac gavac denporaac emonda, echeti lagun
 chaarretara¹⁵⁷ igues eiten deutsa; bestiac diadar gogor bategaz sardaquija¹⁵⁸,
 eurac esan oi daveen leez, sartceen deutsa; bestiac nai davena esan, nai dave- 420
 na erantzun ta nai davena eiten deutsa; bestiac gura daven laguneetara ta bera
 baixen lotsa galducuetara igues eguiten deutsa; bestiac, bere gorputz loija
 apainduteco, ama erdi biloxic marruxtuta, gosiac illic [226] daucala, echeco
 artua edo garija, urdaija edo gatza baño ezpada bere saltceen deutsa; bestiac 425
 laster iltia desietan deutsa (endamas aberatsa ta zaarra bada bere ama), bestiac
 esquian davilela, ospitale baten dauala edo gaixoric dauala, casuric eguiten ez
 deutsa; enpin amaric gueijenen cantia da, esquer chaarrecoco ta lotsa chaarrecoco
 alabac dauqueezana ta areequin iraun ezin daveena.

Alabac gaiti esaten dana, semiac gaiti esaten da. Bada, semiac ez dira bape-
 re obetuago porteetan gurasuequin alabac baño. Onaco seme alabac gaiti esa- 430
 ten dau, bada, Espiritu Santubac, izan ditezala desondraubac; izan ditezala
 zoriguestocuc; amatau della euren arguija; belac etara daijuezala euren
 beguiac; il ditezala ta euren odola izan della beti euren contra. ¿Cer esan
 euquian gueijago au baño gueure Jangoicuac lotsa chaarrecoco seme alaben con-
 tra? Gurasuequin alan porteetan dirian umiac euquico daveela portune ona, 435

410 ezdauala *Esk* 413 izanalda *Esk* 414-415 ezdauqueena, nic esanbagaric, zeubec autor-
 dozuna, da. Alababatac *Esk* 416 eitendeutsa *Esk* | emotendeutsa *Esk* | onbat *Esk*
 417 ezdeutsa *Esk* | eitendeutsa *Esk* 418 egondella *Esk* 419 eitendeutsa *Esk* 420 oida-
 veen *Esk* | sartceendeutsa; bestiac naidavena esan, naidavena *Esk* 421 naidavena eiten-
 deutsa *Esk* | guradaven *Esk* 422 lotsagalducuetara *Esk* 423 erdibiloxic *Esk* 424 ezpa-
 dabere *Esk* 426 ospitalebaten *Esk* 426-427 ezdeutsa *Esk* 429 esatendana *baina* na *ler.art.*
 | esatenda *Esk* | ezdirabapere *Esk* 430 semealabac *Esk* 430-431 esatendau *Esk* 431
 izan ditezala] Yzanditezala | izan ditezala] yzanditezala *Esk* 432 amataudella *Esk* 433
 ilditezala *Esk* | izandella *Esk* 435 porteetandirian *Esk* | euquicodaveela *Esk*

¹⁵⁷ "Lagun chaarretara" hauxe da tradiziozko erabilera zuzena, eta ez "lagun chaarregana",
 hau ere esaldi gramatikal zuzena izan arren.

¹⁵⁸ Batzuek diotenez, madarikaziozko esapide batetik datorren hitza da: "Contr. de Sar bala-
 kio (Deabrua sar balakio!) (...)" ([Lino AKESOLO - Manu SOTA], *Diccionario Retana de Autoridades
 de la lengua vasca*, 8.t., Bilbao, 1989, 3345.or.), izua, beldurrikara esan nahi du. Frai Bartolomeren
 garaian erabiltzen zen, dirudienez, "eurac esan oi daveen leez" dio-eta. Gaur egun gehiago en-
 tzuten dena "sarrakijua" forma da.

baque ona, dicha ona edo zaartza ona, ezin sinistu lei, neure cristinaubac. Erremedioj bagaric jadiichico ditu Jangoicuaeren azotiac bai mundu onetan ta bai bestian.

440 Eguija da, gurasuac izan leitequez dongaac, ordijac, bidaotijac, castalarijac, ocasinuetsubac, desonestubac, [227] lapurrac eta Jangoicuaeren bildurric bapere ez dauqueenac, baña echacue umiai toqueetan gurasuac juzqueetia, ezpada Jangoicuari. Gurasuac izan leitequez seme alabac gaisqui atzi ditubeenac, leengo dotrinan esan dan leez, ta seme alaben esquer chaarra, lotsaric eza ta zaartza errucarri desbenturau bat ondo meraciduten ditubeenac, baña gurasuen
445 gaisqui eguinac ez ditu chiquituco edo edertuco seme alaben esquer chaarreco, lotsagalduco ta esan dirian moduco pecatubac. Conturic zucenenian bai jazoco da: alaco gurasuac eta alaco umiac munduban gozo bagaric eta portu-
450 ne chaarragaz nequezca vizita, guero guztia inpernuban alcarri bidaoca erretan egotia. Au da, neure cristinaubac, esan ecin leijan beste gurasori ta umeri jazo jaqueena ta aurreracuei bere jazoco jacuena, bai gurasuac eta bai umiac vizi badira lotsa chaarragaz.

III.

Seme alabac gurasuen esanac eguiteco obligacinoia dauqueena, edoceñec daquijena da. Nos eta cetaño gurasuai obeidu biar jacuen da, eracutsi biar
455 dana. Berba guichitan asi ta acabetan dau santo Tomasec (159), umiac gurasuai cetan obeidu biar deutseen; ta dino, umiac gurasuari obeidu biar deustalala arimaco oneraco ta eheco covernuraco toqueetan diran gauceetan. Escritura Sagradubac eta Elexaco maisubac au berau esaten doscubee lecu ascotan.
460 [228] Dotrina onetati etaraten davee Elesaco maisubac ta esaten davee pecatu mortala eguiten daveela seme alabac: 1º Gurasuac dotrinia icasteco aguinduta edo eracutsita, icasi gura ez daveenian. 2º Gurasuac meza entzutera ta nosic beinaco batzubeetan conpeseetara juateco aguinduta, jua gura ez daveenian.
465 3º Gurasuac onaco edo alaco lagunagaz ez egoteco edo ez ibilteco aguinduta, esana eguiten ez daveenian. 4º Gurasuac comedijara, erromedijara, saraura,

(159) 2a 2æ, Q. 104, a. 5.

437 jadiichicoditu *Esk* | munduonetan *Esk* 439 Eguijada *Esk* | izanleitequez *Esk*
441 ezdauqueenac *Esk* 442 izanleitequez, semealabac *Esk* | atziditubeenac *Esk* 443
esandan *Esk* | semealaben *Esk* 444 desbenturaubat ondo meracidutenditubeenac *Esk* 445
ezditu *Esk* | esquerchaarreco *Esk* 446 esandirian *Esk* 446-447 baijazocoda *Esk* 449
Auda *Esk* | ecinleijan *Esk* 453 Semealabac *Esk* 454 obeidubiarjacuen *Esk* 454-455 biar-
dana *Esk* 460 esatendavee *Esk* 461 eguitendaveela *Esk* 462 icasigura ezdaveenian *Esk* 463
juangura ezdaveenian *Esk* 464 ezegoteco, edo ezibilteco *Esk* 465 eguitenezdaveenian *Esk*

piestara edo biguirara ez juateco esanda, jauten dirianian. (Gurasuac alaco lecura juateco esanda umiai licencia emoten deutseenian, celan pecatu eiten daveen esango da beste lecu baten). 5^o Gurasuac onaco edo alaco echetan ez sartceeco aguinduta, sartceen dirianian. 6^o Gurasuac gavian echeti ez urteteco aguinduta, urteten davenian. 7^o Gurasuac joco chaarrari ta adisquide sospechacuari isteco aguinduta, isten ez deutseenian. 8^o Gurasuac nai ez daven moduban apainduten dirianian, cein gurasuac daquijela ta cein ez daquijela. 9^o Gurasuen isilic cartaac euren adisquidiai escribidu ta errespuestac arteen ditubenian; edo nescatillac mutilequin ta mutilac nescatillequin, gurasuac nai ez daven cartazco adisquidetasuna dauquenian. 10^o Gurasuac aguindutaco ondo juacon estudijua edo opicijua icasi gura ez daveenian. 11^o Gurasuen licencia bagaric edo gurasuen vorondatiaren contra [229] ezcontzeco berbia inori emoten deutseenian.

Gauza oneetan guztietan pecatu mortala eguiten davee seme alabac, gurasuai zor deutseen obedencijaren contra. Bada, guztiac eta bacocho dira, edo eurenez pecatu mortalac, edo pecatu mortaletaraco ta saill chaarretaraco pelleburu aguirijac. Ta alaco gauceetan gurasuari ez obeidutia pecatu mortala dana, edo coinec daqui. Isilicaco ezcontzeco berbiaren gañian esango da cerbait gueijago matrimonico sacramentuban.

Dotrina onetan eta leenaocuan icusico dozu, neure cristinaubac, bai gurasuac eta bai umiac, ia gueijenoc vizi zarian moduban vizita, errez izango dan salbeetan. Ia ainbeste lecutan ta ainbeste modutara laugarren mandamentu santuba autsita, cer gueratuco dan ceuben erijotzaco orduraco. Ia guraso batzuc ilten zarianian, ce ondorenguac isteen dituzun munduban Jangoicua serbietaco ta euren ondorenguai Jangoicua serbietan eracusteco. ¡Oh, gurasuac, eta umiac! Beguiratu eizu dotrina oneetan, celan vizi zarian, Eli ainchinaco gurasuari ta aren umiai jazo jacuena jazo ez daquizun. Aita ta seme bijac, aita parcatu eutseelaco ta semiac gaisqui eguin eveelaco, il zituban Jangoicuac irurac¹⁵⁹ Jesus esateco asti bagaric. Ez daijala gura izan ceruco Jaun andijac bere ontasun eta misericordija neurri bagacua gaiti, beste ainbeste zubei jazotia. ¡Oh, Jesus, guraso [230] guztien gurasua! Entzun eizuz, bada, nire erregubac ceure Ama Virginiaren erraija bigunac gaiti. Amen.

468 emotendeutseenian *Esk* 468-469 eitendaveen, esangoda beste lecu *Esk* 471 urteten daveenian *Esk* 472 ezdeutseenian *Esk* | naiezdaven *Esk* 473 ezdaquijela *Esk* 474-475 artceenditubenian *Esk* 475-476 naiezdaven *Esk* 477 icasigura ezdaveenian *Esk* 480 pecatumortala eguitendavee *Esk* 481 zordeutseen *Esk* | bacochoadira *Esk* 483 pelleburuaguirijac *Esk* 486 icusico dozu *Esk* 487 etabai *Esk* | ia) iya *Esk* | izangodan *Esk* 486 Ia) Ija *Esk* 489 cergueratucodan *Esk* | Ia) Ija *Esk* 492 vizizarian *Esk* 493 jazojacuena, jazoezdaquizun *Esk* | semebijac *Esk* 495 astibagaric. Ezdaijala *Esk*

¹⁵⁹ Eli eta honen bi semeen (Hofni eta Pinhas) historia, ik. 1Sm 2,12-36; 4,1-11.

500

LAUGARREN MANDAMENTUCO
LAUGARREN LECINOIA,

ceñetan eracusten dan
ugazabaac celan portau biar daveen otseguinequin;
ta otseguinac euren ugazabeequin.

505 Gurasuac euren seme alabeequin ta umiac euren gurasuequin celan portau biar daveen eracusten dan leez laugarren mandamentuban, alan eracusten dira mandamentu onetan ugazaben ta otseguinen obligacinoiac. Esango dotsut, bada, dotrina onetan: 1^o Ce obligacinoe dauqueen ugazabaac euren otseguintzaco. 2^o Ce obligacinoe dauqueen otseguinac euren ugazabentzaco.

[231]

I.

510 Ugazaba guztiaac acordau biar davee, ceruban dauan Jangoicua dala guizon eta emacume guztien gazaba. Bardin costa jacoza Jangoicuari aberatsac eta pobriac. Bere escuban daucala Jangoicua andijen ta chiquijen suertia, ta gura davenian ugazabaac viurtu leizala crijadu izatera ta crijadubac ugazaba izatera. Pensamentu onegaz estimauc ditubee ugazabaac euren crijadu crijadac,
515 Jangoicuaren semiac eta euren anaiac balira leez. Otseguinac bere acordau biar davee ez ditubeela serbietan luurreco guizonac, ugazabaac serbietan ditubeenian, ezpada Jangoicua bera edo Jangoicuaren lecuban dauana. Bada, Jangoicua da condecinoe atan imini ditubana ta Jangoicua esaten deutsee crijadu-crijada guztiai san Pablo apostolubaren aoti, beguiratu daijuela ta obeidu
520 daijuela gauza guztietan euren ugazabei, Jesucristori berari leez (160).

Amam, estimau ta zaintu biar ditubee, bada, ugazabaac euren otseguinac amodijuagaz, carinuagaz eta modu onagaz. Ta onetaraco eguin biar davee ale-

(160) Ad Ephes. c. 6.

501 eracustendan *Esk* 504-505 portaubiardaveen, eracustendan *Esk* 506 eracustendira *Esk* 510 acordaubiardavee *Esk* 511 costajacoza *Esk* 512-513 guradavenian *Esk* 515-516 biardavee, ezditubeela *Esk* 516-517 serbietanditubeenian *Esk* 58 iminiditubana *Esk* | esatendutsee *Esk* 519 beguiratudaijuela *Esk baina* 3. u *ler.art.* 519-520 obeidudaijuela *Esk* 521 zaintubiarditubee *Esk* 522 eguinbiardavee *Esk*

guin guztia, euren otseguinac gorde daijen Jangoicuaren legue santuba. Arimaco gaucei toqueetan jacuenez, gurasuac umiari leez, beguiratu biar deutsa ugazabac otseguinari. Esan da leenaoco dotrinaan nos, celan eta cegaiti pecatu [232] mortala eguiten daveen gurasuac, euren seme alabei gauza onac eracutsi ezagaz eta chaarrac parcatubagaz; bada, beste ainbeste esaten da ugazabaac gaiti. Ugazabac otseguina bere echian dauan artian, guraso baten obligacinoiac daucaz ta gurasuac umiari leez contu artu biar deutsa arimiaren oneraco gauceetan; ta ezipabere gurasuentzaco pecatu dana, ugazabarentzaco bere pecatu izango da. 525 530

Baquit ugazaba ascoc esaten daveena, otseguinai eraozten asi ezquero nai daveen lagunequin ibiltan edo, berba baten guztia esateco, arimaco gauceetan nai daveena eguiten, echeti igues eguingo leusquijuela; otseguin Jangoicozco bat topau ezin leijala; bat edo bat biar daveela ta beste onaco errazoe errazoe bagacuac. Bada, esaten jacue alaco ugazabai: Lelengo, eurac Jangoicozcuac balira, otseguinac bere izango litzaatequezala. Ugazaba onac beti topeetan dau otseguin ona; ta otseguin onac ugazaba ona. Ugazaba chaarrac inos bere otseguin onic ez; ta otseguin chaarrac bere ugazaba onic ez. Esaten jacue bigarrenian alaco ugazabai, dana gaiti dala, otseguinai arimaco gauceetan cuidado eguiten ezpadeutsee ta seme alabac gaiti esan dirian pecatu generuac parcatuten badeutseez, eguiten daveela pecatu. [233] Ta ez edocein bere modutan, ezpada pecatu andija, san Pablo apostolubac dinuanez: *Ereja baño dongago da echeco pamelijaren ta otseguinen cuidadoric ez daucana*, dino Apostolu santubac (161). Lelengo ciudadua da arimaco gauceena ta salbacinoiarena. 535 540 545

Onezaz ostian, ugazabaac obligacinoe asco dauqueez otseguinentzaco. Ta *lelengo*, emon biar deutsee otseguinai echiac dacarren janarija, gosez euqui bagaric; edola bere euren jan ordubeetan. Jaateco urrija ta gosia dauan echian, otseguinai urte baño lapurreta gueijago iragoco jacue. 550

Bigarrenian, ez ditu otseguinac erabili biar ugazabac gau ta egun beti biarran arrastaca ta barautsa darijuela. Bagoz ugazaba batzuc, secula otseguinen biarragaz contenteetan ez dirianac. Inoc acijac dirian leez, beti biarpian icerdi-

(161) 1. Ad Tim. c. 5.

524 otseguinac] otseguin guztiac *Esk baina zuzen.* | gortedaijen *Esk* 524-525 biardeutsa *Esk* 527 eguitendaveen *Esk* 528 esatenda *Esk* 529 gurasobaten *Esk* 530 artubiardeutsa *Esk* 531 pecatudana *Esk* 532 izangoda *Esk* 533 esatendaveena *Esk* 533-534 naidaveen *Esk* 534 berbabaten *Esk* 535 naidaveena *Esk* | igueseguingo *Esk* 535-536 Jangoicozcobat *Esk* 536 ezinleijala *Esk* | biardaveela *Esk* 536-537 errazoebagacuac *Esk* 538 topeetandau *Esk* 539 inosbere *Esk* 541 Danagaiti *Esk* 542 esandirian *Esk* 543 eguitendaveela *Esk* | edoceinbere *Esk* 545 ezdaucana *Esk* 546 tasalbacinoiarena *Esk* 548 emonbiardeutsee *Esk* 549 edolabere *Esk* 551 erabilibiar *Esk* 553 ezdirianac *Esk* 554 Tim.] Thim. *Esk*

555 ja darijuela icusi gura lituqueenac. ¡Ce mirari andija, alaco ugazabaac otseguin
 onic ez topeetia! Ez dira otseguinac alperrerijan euquiteco; ezda beti biarrian
 ituaz erabilteco bere.

Irugarrenian, otseguinai mezia uts eraguitia, jai domeequetan biarra erai-
 tia, errazuaz escatuten daveenian, conpeseetara ta elesaco gauceetara juaten
 560 [234] ez istia pecatu da.

Laugarrenian, otseguinai berba astunac, tropiac eta injurijazcuac esatia,
 areen palta guztiac edo dirian baño gueijago canpuan conteetia ta Jangoicuac
 aaztuta daucazan edo sobrau batzuc balira leez, desprecijoz ta modu chaarra-
 gaz tratetia pecatu da. Ugazabac eguin biar davena da, otseguina chaarra bada,
 565 ondu bere paciencijagaz ta eracutsi onagaz; ta ezpabere denporia danian eche-
 ti etara ta aren paltaac isilic euqui.

Bostgarrenian, erabaguita dauan soldatiaz gañeti, emon biar jaco otsegui-
 nari denporia bere erropaac adaveetaco, soldataan ajustau cianian, ez emote-
 co irago ez beeben. Bada, edoceñec daqui, otseguina urte guztian erropa barri-
 570 jequin edo osuequin ibilico ez dana ta ibili ecin leitequiana. Ugazabac astija
 emoten ezpadeutsa, edo jaijegunian eguin biar dau edo inori eraguin biar deu-
 tsa. Bata pecatu da ta besteraco soldataric erdiya biar dau, edo oostu eguin biar
 dau. Guztijac ugazabaren erruz. Ta gueijenian jaijegunian biarra eguitia ta oos-
 tutia, bijac alaco ugazabeen echeetan dagozan otseguinac. Zor deutsee, bada,
 575 ugazabaac otseguinai euren erropaac tertcijo baten adaveetaco denporia; edo
 adabau biar deutseez euren lepoti.

Seigarrenian, otseguina denporia cunplidu [235] baño leenago echeti eta-
 ratia errazoe bagaric, pecatu da. Ta pagau biar jaco soldata guztia, edo topau
 biar jaco beste ugazaba bat. Oneec dira, neure cristinaubac, ugazabeen obli-
 580 gacinoeric nautsijenac. Biar daven baño jaateco guichiago (euquita) otseguinari
 emonagaz, errazoiac escatcen daven baño biar gueijago gau ta egun eraguina-
 gaz ta beste zor deutsana emon ezagaz otseguinari quendu deutsana, atzera
 biurtu biar deutsa ugazabac. Bada, lau errialen caltera eldu ezquero, pecatu
 mortala da. Ugazabaac estimau beijeze otseguinac, euren seme alabaac leez;
 585 eracutsi beijue dotrina santuba, conpeseetia, humilde, zintzo ta on izatia; emon
 beijue erruqui bagaric echiac dacarren janariya; berba eguin beijue ondo, cris-

555 icusiguralituqueenac *Esk* | alaco| alaca *Esk* 556 eztopeetia! Ezdira *Esk* 558 utse-
 raguitia, jaidomeequetan *Esk* 559 escatutendaveenian *Esk* 562 paltaguztiac *Esk* 564 pecat-
 tuda *Esk* | eguinbiardavena *Esk* 567 emonbiarjaco *Esk* 568 ajustaucianian, ezemoteco
Esk 569 ezbeeben *Esk* 570 ezdana *Esk* | ecinleitequiana *Esk* 571 eguinbiardau *Esk*
 | biardeutsa *Esk* 572 pecatuda *Esk* 572-573 biardau, edo oostueguinbiardau *Esk* 574
 Zordeutsee *Esk* 576 adabaubiardeutseez *Esk* 578 pecatuda. Ta pagaubiarjaco *Esk* 578-579
 topaubiarjaco *Esk* 580 Biardavenbaño *Esk* 581 biargueijago *Esk* 582 zordeutsana *Esk* |
 quendudeutsana *Esk* 583 biurtubiardeutsa *Esk* | elduezquero *Esk*

tinaubac dirian leez; ez beijuez parcatu pecatu aguirijac; esan beijue lelengo eguneti *euren echian onaco edo alaco gauzaric ez davela inoc eguiten ta eguin biaco bere ez davela*, ta orduban euquico ditubee otseguin onac. Baña beti arrastaca, beti bidaoca, beti dongaro¹⁶⁰ esaten, beti gose isquiija¹⁶¹, beti esquer chaarra, secula dotrinaric ez, secula elexarateric ez, secula exenplu onic ez, secula Jangoicuaren gauzaric entzuteric ez; onetara otseguin onic bere ez. Ta au da ugazaba ascori jazoten [236] jacona. Inoren otseguinen embidijaz beti, bera prestubeza dalaco. 590

II.

595

Otseguinac bere amau ta estimau biar ditubee euren ugazabaac ta obeidu biar deutsee, euren arimen oneraco ta ehecho covernuraco aguinduten deutseezan gauceetan. Ugazabari gorroto izatia, dongaro erantzutia ta aguinduten deutsan gaucia ez eguitia (pecatu eguiteco aguinduten ezpadeutsa), pecatu da; ta conpesinoian esan biar da, ugazabaren contra zana. Seme alabac gaiti cer esan dan acordau bitez otseguinac ta beste ainbeste obligacinoe dauquee eurac, arimaco ta ehecho covernuco gauceetan ugazabai obeiduteco. Onezaz ostian, otseguinen obligacinoia da ugazabaren gaucei beguiratutia. Au gaiti pecatu eguiten dau otseguinac: 600

Lelengo, toqueetan jacon edo al daijan biarra ugazabarenzat eguiten ez davenian. Ta gauza andira eldu ezquero, pecatu mortala. Ez dau ugazabac otseguinic biar, alperrerijan egoteco. 605

Bigarrenian, pecatu eguiten davee otseguinac euren paltaz ugazabari gauzaac galtceen jacozanian. Ugazabac aguinduta, crijadubac casuric eguin ez deusalaco, echian, ganaduban edo soluan ugazabari etorri jacon caltia crijadubac pagau biar dau, bere erruz izan ezquero. Crijada batec, biar dan baño gueijago castaubagaz edo ugazabaren gauzaac ugarijago erabilijagaz, eguiten daven [237] caltia pagau biar deutsa ugazabari. Descuido bat gaiti ez da au esaten, ezpada otseguinen errazuazco cuidadau ta arduria palta danian. 610

588 ezdavela *Esk* 589 eguinbiaco bere ezdavela *Esk* 593 auda *Esk* | jazotenjacona *Esk* 594 prestubezadalaco *Esk* 596 estimaubiarditubee *Esk* 596-597 obeidubiardeutsee *Esk* 597-598 aguindutendeutseezan *Esk* 598-599 aguindutendeutsan *Esk* 599 pecatuda *Esk* 600 esanbiarda *Esk* 600-601 ceresandan *Esk* 603 Augaiti *Esk* 605 aldaijan *Esk* 605-606 ezdavenian *Esk* 606 Ezdau *Esk* 608 eguitendaveeotseguinac *Esk* 609-610 ezdeusalaco *Esk* 611 pagaubiardau *Esk* | biardan *Esk* 612-613 eguitendaven *Esk* 613 pagaubiardeutsa *Esk* | Descuidobatgaitiezdaau *Esk*

¹⁶⁰ Eskuizkribuan *donga*, *dongatu*, *dongaro*; oraingo euskara mintzatuan ere entzuten da hitz hau, eta beti forma honetan; gainerako liburuetan *deunga* darabil beti...

¹⁶¹ Apurra esan nahi du; gose isquiija: gose pixka bat.

615 *Irugarrenian*, pecatu eguiten davee otseginac ugazabaren licenciya bagaric edo ugazabac inori ez emoteco esanda, ugazabaren gauceetati limosnia emoten daveenian. Ta gauza andira eldu ezquero, pecatu mortala, atzera viuruteco obligacinoiagaz. Eguija da ugazabaac eurac emon oi daveen edu limosna, eurac echian ez dagozarian, ateetara datorren esquecuari emotia ez da
620 pecatu, beste gauzaric ugazabaac aguinduten ezpadeutsee. Dudia daucanac itandu beijo bere conpesoriari ta arechen esana izango da segurubeena.

Laugarrenian, lapurretaco pecatuba eguiten davee otseginac ugazabai lantzian pusca bat gauzaac ostuten deutseezarian. Batian laumai¹⁶², bestian zortzi-marai ta alan, edo laboria edo jaatgaucia... Au lapurretia da ta Elexa Ama santiac condenauta daucana (162). Alperric da esatia *soldata chiquija dauca - la; biar laarregui eraiten deutseeela* ta beste onaco achequijac. Soldata erabaguiten danian, beguiratu; edo beste ugazaba bat topau ta ez oostu. Nosbait jaatbitaartian cerbait jaatia ez dau inoc beinguan pecatu mortalzat emoten. Balitz ugazabac gordeta daucan gauza guztiz estimau bat, au bere pecatu izango litzaateque beraren licenciya bagaric jaatia edo eraatia. [238] Crijadaac eurac artceeco emoten jacuen chocolatia saldu leijen edo ez, esango da zazpigarren mandamentuban.

Bostgarrenian, pecatu eguiten davee otseginac ugazabaren ta ehecuen paltaac eta descuiduac ta echian iragoten dirian gauzaac, canpocuai conteetan deutseezarian. Au inoc uste daven baño palta andijaua ta ugarijaua da. Eche baten iragoten dira ta jazoten dira milla gauza, auzuetacuac jaquin biar ez ditubeenac; ez gauza chaarrac dirialaco, ezpada eche vizitziari darraicozanac dirialaco. Alan echian cer jazoten dan, cer iragoten dan ta cer esaten dan canpuan conteetaco eanduba daucan otseginac ez dau merecietan¹⁶³ egun baten bere
640 echian inoc euquitia. Echecho gauzaac echian gueratu biar davee. Consejo on bat itanduteco baño esan biar ez dira.

(162) Inoc. XI, Prop. cond. 37.

615 eguitendavee *Esk* 616 ezemoteco *Esk* 617 emotendaveenian *Esk* 618 Eguijada *Esk*
| emonoidaveen *Esk* 619 ezdagozarian *Esk* | ezda *Esk* 621 izangoda *Esk* 622 eguitendavee *Esk*
623 puscabat *Esk* 624 zortzimarai *Esk* | edolaboria *Esk* | lapurretia-da *Esk* 628 ezdau *Esk*
629-630 estimaubat, aubere pecatu izangolitzateque *Esk* 631 salduleijen *Esk* 633 eguitendavee *Esk*
634 etadescuiduac *Esk* | iragotendirian *Esk* 635 ustadaven *Esk* 635-636 Echebaten *Esk*
636 jazotendira *Esk* 636-637 ezditubeenac *Esk* 638 jazotendan *Esk* | esatendan *Esk*
639 ezdau *Esk* 640 gueratubiardavee *Esk* 640-641 onbat *Esk* 641 esanbiarezdira *Esk*

¹⁶² Berez "lau marai" da hitza, baina forma ihartuan erabiltzen da: "zortzimarai", berriz, bokal arteko r eta guzti. Markinako esaera zaharra da, "lauzuin pupua eta laumain trapua", hau da, lau zuriren mina eta lau marairen benda edo lotura; min txikia izan eta min handia balu bezala, planta edo espantu handiak egiten dituenagatik esan ohi da.

¹⁶³ Ik. 26. oharra (546.or.).

Ara bada, cristinaubac, aituten emonda laugarren mandamentu santubac, zubei toqueetan jatzunez, aguinduten doscuna. Guztioi chito asco inporta doscun gauzia da. Errazoia izango da, bada, bacoachac bere aldeti aleguina eguitia; bai dotrina oneec ondo icasteco ta bai icasita, ondo cunpletaco. Alan jadiichico ditugu munduban bendicinoezco vizitza lucia ta guero eternidadeco glorija. Amen. 645

[239]

**Eguiliaren izenbagaco sermoe barija,
seme alaba dongadunen consuelogarija**

Curva cervicem eius (filii) in juventute, et tunde latera eius, dum infans est, ne forte induret, et non credat tibi, et erit tibi dolor animae. Eccl. Cap. 30. V. 12.

5

Eci eijozu umiari iruna gaztetan ta domau eijozuz saijetsac chiquija dan artian, guero gogortuta, ceure contra lotsagalducotu ez dedin ta arimaco penia ecarri ez dain. Eccl. ut supr.

Arimaco poz andijagaz ta vijotzeco esan ecin leijan gozo bategaz entzuten 10
dira, neure cristinaubac, seme alabaac ondo azten ditubeen gurasuen vizitza-
co, zaartzaco ta erijotzaco atseguinac, contentubac, bendicinoiac eta gracijac.
Umiac ondo azten dituban gurasua alegrauco da ta consolauco da bere semia-
gaz ta alabiagaz. Alaco guraso ona alabauco davee ta estimauco davee auzuac
eta errico gentiac bere. Gozotasunez ta pozez betea vizico da ta bere ilteco 15
orduban bere ez da penauco, seme alaba onee-[240]tan isten davelaco bere
echura zuzena, ondrauba, baquetsuba ta cristinauzcua (163). Job santuba,
Abraan patriarca andija, Tobias dichosua, santa Susana, Ana Samuelen ama,
Eleazaro, Jacob, Matatias, Sara, Rebeca, santa Monica ta beste milla dira, neure
cristinaubac, eguija onen testigubac. Guztiaac artu cituben ta artceen ditubee 20
ceruban seme alabei emon eutseen aziera onaren eta santubaren prutu ugari-
jac, bendicinoiac eta gracijaac.

Espiritu Santubac casic isildu bagaric, ez daquit ceinbat lecutan, encargue-
tan deutsee gurasuai seme alaben atziera ona, zuzena, jangoicozcua ta humil-
dia. Opa deutseez vizitza lucia, portune ona, atseguin gozua ta bendicinoiez- 25

(163) Eccl. c. 30.

8 ezdedin *Esk* 10 poz andijagaz *Esk* 13 alegraucoda *Esk* 14 alabaucodavee *Esk* 15
vizicoda, tabere *Esk* 16 ezda *Esk* | istendavelaco *Esk* 20 artudituben, ta arteenditubee
Esk 21 semealabei *Esk* 23 ez daquit *Esk*

co sarija, seme alabac ondo azten ditubeen gurasuai. Ta beste aldeti milla erra-
zoegaz ta exenplugaz eracusten deutsee, seme alabac bildur bagaric, eci baga-
ric, dotrina bagaric eta libertadian azten dituben gurasuai, guero erremedij
30 bagaric euquico dituben atsecabaac, naibaguiac, zaartza chaarra, erijotza
desondrauba ta azqueneco penia.

Ezi eizu, dino, ta domau eizu umetan, chiquitan (laubost urte ditubaneti)
ceure umia, guero gogortu ez dedin, aguinac eracutsi ez daizuzan, lotsia galdu
ez daizun ta [241] arimaco penia euqui ez daizun (164). Umetati zigorragaz lo-
35 tsia emoten badeutsazu, aren arimia inpernuti librauco dozu, dino Espiritu
Santubac (165). Ta zigorragaz lotsia emoten ez daven gurasuac gorroto deu-
tsala umiari (166). Umetati seme alabei lotsia emon biar jacuena, domau biar
diriana, temiagaz urteten ichi biar echacuena ta gauza dongaric parcatu biar
echacuena, Jangoicoric ezaututen ez even gentilac bere autor daveena da.
40 Platon, Aristoteles, Plutarco, Ciceron ta beste gentil ascoc (167) eracutsi leijuje
cristinau ascori, umetati celan atzi biar dituben euren seme alabaac. Ciceronec
dino, obligacinoeric andijena, estubena ta gueijen balijo davena, umetati seme
alabac zuzen aztia.

Au gaiti bada, neure entzula onac, ocasinoe guichi galdu ditut neure ser-
moietan, gurasuen obligacinoe andija edo nausija eracutsi bagaric. Batzubetan
45 eriac¹⁶⁴ ecarrita, beste batzubetan berarijaz topauta, sarritan ondo esanagaz ta
ascotan ecer bere parcatu bagaric, nosbait erregutubagaz ta bein batzubetan¹⁶⁵
zamaitubagaz ta calte icaragarrijac gogora ecarrijagaz, dendatu nas gurasuai
cer eguin biar daven esaten. *Insta, oportune, importune*¹⁶⁶... Sermoe onetan
50 pensau dot, beste bide bateti juan [242] biar dodala. Guraso asco icusten ditu-
dan leez zaartza errucarriATEGAZ, esquer chaarreco ta lotsa chaarreco seme
alaba atzijac dauqueezalaco, areehec consoleetaco desio vizi bat etorri jat
vijotzera. Alan sermoe onetaco cereguina izango da *seme alaba dongaac eta
esquer chaarreacuac dauqueezan guraso errucarrijac ainbat onduen console* -

55 -----
(164) Id. ibid. (165) Prov. c. 23. (166) id. c. 13. (167) Apud Corn. a Lap., in
Eccl. c. 30. v. 1.

28 eracustendeutsee, semealabac *Esk* 28-29 bildurbagaric, ecibagaric, dotrinabagaric *Esk*
29 aztendituben *Esk* 29-30 erremedijobagaric *Esk* 33 ezdedin *Esk* | ezdaizuzan *Esk* 34
ezdaizun *Esk* | ezdaizun *Esk* 35 librauco dozu *Esk* 36 ezdaven *Esk* 37 semealabei *Esk*
37-38 emonbiarjacuena, domaubiardiriana *Esk* 38 ichibiar *Esk* 39 ezeveen | autordave-
ena *Esk* 40 eracutsileijue *Esk* 41 biardituben *Esk* 42 balijodavena *Esk* 44 Augaiti *Esk* 47
ecerbere parcatubagaric *Esk* 48 dendatunas *Esk* 49 cereguinbiardaven *Esk* 50 pensaudot
Esk | juanbiardodala *Esk* 52 etorrijat *Esk* 53 semealaba *Esk*

¹⁶⁴ "Era" hitzaren ergatibo mugatu singularra; aukerak edo abaguneak ecarrita esan nahi du.

¹⁶⁵ Beste batzuetan; "ez guichitan" (*Icas-I*).

¹⁶⁶ 2Tm 4,2.

tia. Bijen bitartian seme alaba gaztiac edo ume chicarrac dauqueezan gurasuac bere icasi daiquee, tercijo atara elduten badira, ce consuelo euquico daveen. Ez nas cansauco Ciceronen ta Demostenesen berbeeta oneco erreguelac gordeetan aldija onetan, ezpada datorrena datorren eriaz esan, erremedio conso- 60
lagarrija topau artian. Inoc esaten badau sermoiaren baño conversacinoiaren traza gueijago daucala, agaz bere ez nas asarratuco. Saill oni aurrera jarraitute-
co biar dodan espiritu ta gracia escatu daijogun seme alaba guztien Aitari, gueure ceruco Jangoico onari. Ama Virginia guztiz santia vitaartecozat iminte- 65
co, esan daigun vijotzeco devocinoe guztiagaz *Ave Marija*.

Curva cervicem eius in juventute...
ut supra.

[243] Eguija esateco ez daquit, neure cristinaubac, cer egon leitequian penagarrigoric edo minberaagoric iru edo lau seme alaba edo gueijago azita daucazan guraso zaar baten vijotzarentzat, areen esquer chaarra ta lotsa chaarra 70
baño. Ya edadian jausita, zaartuta, cansauta, sepulturara bidian dauan gurasuari, icerdija darijola nequez azi dituban sabeleco prutubac, bere semiac edo alabaac, batac casuric eguiten ez deutsalac; bestiac errespuesta chaarra emoten deutsalac; bestiac beguiracune on bat eguiten ez deutsalac; bestia secula agur eitera juaten echacola; bestiac burla eguiten deutsalac; bestiac cerbait esan orduco, aoti atzera errespuestia sartceen deutsalac; bestia jaaten daven arto edo ogui copaubari asco deichola; bestiac ecetan bere obeidu gura ez deutsalac; bestiac aucijac eta endreduac echera ecarten deutsalac; bestia justicijac carcelaan dauca- 75
lac; bestiac aguiraca eguiten deutsalac; bestiac bere denporaco paltaac eta descuiduac burlaz arpeguijan esaten deutsalac; bestiac illda balego najago leuquiala; dinot, neure cristinaubac, menturaz ez dauala luurraren gañian guraso batenzat sentimentu andijagoric, penagarrizagoric ta desesperacinoe mingochagoric, berac nequez [244] azi dituban seme alabaac modu onetan portetia 80
baño.

Guraso batec desesperetaco, erneguetaco, negar eguiteco, vijotza erdibi 85
eguiteco ta bere buruba acabeetaco penia dau au. Semiac azi ditut, dino alaco guraso triste errucarijac, ta eurac dira neure zaartzaco penaric andijena. Semiac azi ditut ta eurac dira neuri beguijac etaraten deusteezanac. Ez dauca

58 icasidaique *Esk* | eldutenbadira *Esk* 61 esatenbadau *Esk* 62 eznas *Esk* 63 biardodan *Esk* | escatudaijogun *Esk* 65 esandaigun *Esk* 68 ezdaquit *Esk* | ceregon *Esk* 69 semealaba *Esk* 70 zaarbatan *Esk* 71 Ya] Ija *Esk* 72 azidituban *Esk* 73 ezdeutsalac *Esk* 74 onbat *Esk* | ezdeutsalac *Esk* 74-75 agureitera *Esk* 77-78 ezdeutsalac; bestiacaucijac *Esk* 79 eguitendeusalac *Esk* 80 illdabalego *Esk* 81 ezdauala *Esk* 82 penagarrizagoric *Esk* 83 azidituban *Esk* | moduonetan *Esk* 86 aziditut *Esk* 88 aziditut *Esk* | Ezdauca *Esk*

luurraren gañian nora beguiratu, atsecabia ta naibaguaia ez daucan lecuric. Ez
 90 nas espanteetan, alaco guraso tristiciac egunian milla bidao ta maldecinoe bere
 umiari eguinagaz. Bada, egunian egunian dauca bataganic albista chaarra, bes-
 tiaganic desprecijua, bestiaganic becoqui iluna ta guztieganic penia. Ez nas
 espanteetan, guraso ascoc euren seme alaben lotsa gaistua ta esquer chaarra
 95 icusita, areec escura ecartiagaz desesperauta, ernegacinoiagaz ta purijaz desie-
 tan daveen iltiagaz, beste munduban cer icusiric ezpaleuquee leez. Ez nas
 espanteetan, guraso asco urte gueijagotan vizico litzaatequezanac, seme alaba
 dongaac diriala medijo leenago illagaz ta, eurac esan oi daveen leez, mundu-
 co baquia eguinagaz.

¡Oh, seme alaba gaistuac eta lotsa galducuac dauqueezan guraso zaar erru-
 100 carrijac! ¡Oh, triste desventuraubac! [245] ¡Oh, ce zaartza penagarrija ta minga-
 rrija dan zubena! ¡Oh, ce caridade andija onaco gurasuen vijotz tristiciac conso-
 letia! ¡Baña celan erremedijau lei onaco gach andija? ¿Cer eguin leije, negar ta
 desesperau baño beste gauzaric alaco seme alaba gaistuac dauqueezan guraso
 edadecuac? ¿Ija eurac baño andijago dirian ume lotsagalducuac dauqueezanac?
 105 Ondo esaten badeutsee, gaisqui erantzuten deutsee. Elexara asistietaco esaten
 badeutsee, *bai zeu bere elixa zalia izan zarata* esanda, burla eiten deutsee.
 Jo gura izan arren, indarric ez dauquee, edo umiac eurac jo leije edo sacatu
 bat emon leijue. Cerbait esaten asten bajacue; *beti barriquetan jardun бага -*
 110 *ric, isilic egon zaite*, erantzuten deutsee. ¿Cer eguingo dau edo nora beguira-
 tuco dau, bada, alaco guraso errucarrijac?

Cristinaubac, eguija esateco, ez daquit ce boticatan topau leijan alaco vijotz
 baten consuelua. Baña orraitino bere ez dogu guztiz desesperau biar. Dendatu
 biar dogu aleguin guztiagaz, guraso errucari areen consuelua topeetaco.
 Medicubac esaten daveenez, gachari erremedijua imintera orduco ezautu biar
 115 da bere aseria ta sustraija. Bada, ondo ezaututen dan gacha erreztuago ta las-
 terrago erremedijetan da. Guretzaco bere bide au izango da segurubena.
 Examinau daigun lelengo, nundi datorren alaco [246] gurasuen penia. Topau
 daijoguzan sustraijac guztiac ainbat onduen ta ondoric ezarrico deusagu boti-
 caco bat, guraso triste areec artceen badavee, guztiz gozatu ta consolauco ditu-
 120 bana. Asi gaitazan, bada, bene benetan.

89 ezdaucan *Esk* 89-90 Eznas *Esk* 92 Eznas *Esk* 94-95 desietandaven *Esk* 95 Eznas
Esk 96 urtegueijagotan *Esk* 97 oidaveen *Esk* 103 desesperaubaña bestegauzaric *Esk* |
 semealaba *Esk* 104 andijago andijago *baina 2.* andijago *ezab.* 105 erantzutendeutsee *Esk*
 106 izanzarata *Esk* 107 ezdauquee *Esk* | joleije *Esk* | sacatubat *Esk* 109 egonzaite
Esk | Cereguingodau, edonora *Esk* 111 ezdaquit *Esk* 112 ezdogu *Esk* 113 biardogu
Esk 114 esatendaveenez *Esk* 114-115 ezautubiarda *Esk* 116 izangoda *Esk* 117-118 topau-
 daijogun *Esk* 119 artcenbadavee *Esk* 120 Asigaitazan *Esk*

Seme alabac esquer chaarreacuac, lotsa galduacuac ta gaistuacuac dauqueezalaco da gurasuen trabaju ta pena guztia. Examinau daigun, bada, oan, ia nundi edo celan gaistotu ta lotsagalducotu dirian seme alaba areec ¿Noc galdu ete ditu alan zuben seme alabac? ¿Galdu ete ditu Jangoicuac? Ez. Jangoicuac onac, humildiac, cintzuac, lotsa onecuac, inocentiac, isilac eta santubac entregau 125
otsuzan ceubei, batiatu cenduzanian. Ceuben sabeleti ecarri even pecatubaren manchia bere quendu eutseen. Euzquiya baño arguijago, lirijuac baño ederrago, luurra baño humildiago, aingueru santu batzuc eguinda, entregau otsuzan Jangoicuac batiatu cianian orraco seme alaba lotsa chaarreco orreec. Ta 130
bautismuan artu even gracijagaz, edertasunagaz, humildadiagaz, modestijagaz ta santidadiagaz gorde zituban Jangoicuac errazoiaren usura eldu artian. Ta aric ona bere ezin esan lei, Jangoicuac galdu ditubala zuben umiac.

¿Mundubac galdu ete ditu ceuben seme alaba gaisto areec? Ez. ¿Diabrubac lotsagalducotu ete ditu? Ez. ¿Aragui [247] donguiac ecarri ete ditu, ceubentzaco esquer chaarreacuac, gogorrac eta lotsa guichicuac izatera? Ez. Bada, munduba, 135
diabruba ta araguija ceuben seme alabentzaco ta beste guztientzaco bardinac dira. Ta orraitino guraso edadeco asco dagoz seme alaba humildiac, cintzuac, Jangoicozcuac, isilac eta estimaubac dauqueezanac. Euren zaartzan laguntasuna, poza ta atsequina emoten deutseenac. Secula, eurac esan oi daveen leez, buruco min bat emon ez deutseenac. Jangoicuaren bildur santuban ta cristinau 140
eguijazco baten moduban, bai arimaco gauceetan ta bai vizitzacuetan, ascoc enbidija deutseela vizi dirianac. Onan vizi dirian seme alaba bedecatubac eta estimaubac euqui davee ceuben seme alaba lotsabagacuac eta desvergonzauzac euqui dabeen leezco munduba, diabruba ta araguija. Begaz, mundubac, diabrubac et[a] araguijac ecin eusquijuen ceuben seme alabei calte gueijago, 145
besteenei baño. Begaz, mundubari, diabrubari ta araguijari ez deutzazu zube bere erru gueijago ezarri biar seme alaba dongaac daucazuzalaco, onac, humildiac, justubac, maitiac eta estimaubac dauqueezanac ezarten deutseen baño. Seguru egon zaite guztioac, mundubac, diabrubac edo araguijac ez ditu galdu ceuben seme alabac. 150

121 Semealabac *Esk* 122 Examinadaigun *Esk* | ia] ya *Esk* 123 semealaba *Esk* 123-124 eteditu *Esk* 124 semealabac *Esk* | eteditu *Esk* 126 ecarrieven *Esk* 128-129 entregauotsuzan *Esk* 129 batiatucianian *Esk* | semealaba *Esk* 131 gordezituban *Esk* | alduartian *Esk* 132 ezinesanlei *Esk* | galduditubala *Esk* 133 eteditu *Esk* | semealaba *Esk* 134 eteditu *Esk* | eteditu *Esk* 136 semealabentzaco *Esk* 137 semealaba *Esk* 139 emotendeutseenac *Esk* | oidaveen *Esk* 140 minbat emonezdeutseenac *Esk* 142 vizidirianac. Onan vizidirian *Esk* 143 euquidavee *Esk* 144 euquidaveen *Esk* 145 semealabei caltegueijago *Esk* 146 ezdeutzazu *Esk* 147 ezarribiar *Esk* 149 ezditu *Esk* 150 semealabac *Esk*

[248] ¿Lotsagalducotu, edo dongatu ete dira, bada, eurac euren artian, euren bacarrian? Ori bere ez. Berecauten¹⁶⁷ ez da inor dongatuten. Bacarrian bere ez. Berecauten edo bacarrian inor galdutecua izan balitz, Moises santuba, David erreguia, Elias propeta andija, san Juan Bautista, Madalena, san Anton, san Pablo ta santa Maria Egiciaca izango cian lotsagalducuenac, desvengozaubeenac, eta gaistuenac. Bada, eurac dira bacarrian ta eurenaz gueijen azi ta luzaruen vizi izan dirianac. Begaz, ez dira ceuben seme alabac bere eurenaz ta bacarrian gaistotu ta lotsagalducotu.

 bere gracia palteetan. Danic lantzeric estubeena ta ocasioeric andijena irago-
 co dau, berac nai badau, virginidadiaren ta onestidadiaren edertasuna ta mere-
 cimentuba guichitu bagaric. Subac amatauco ditu¹⁹⁰, ichasuac agortuco ditu¹⁹¹,
 otsuac mantsotuco ditu¹⁹², edo ainguerubac bialduco ditu Jangoicuac, biar
 265 bada, bera vijotz guztiagaz ameeetan daven emacume garbi bati inoc onestida-
 dia galdu ez daijon. Iracurri bitez santa Ursula ta aren lagun¹⁹³, santa Inesen¹⁹⁴,

246 eguitendaven *Esk* 247 ezdot *Esk* 248-249 naiezdaven artian, ezdau *Esk* 250 ecin-
 leijo, naiezdavenari *Esk* 250-251 erreleije, baña naiezdavenari *Esk* 251 ecinleijo *Esk* 252
 ezinleijo. Begaz ezdago *Esk* 254 ezleusquijo *Esk* 255 beracgura ezdavela *Esk* 255-256 ezin-
 leijon, ta quendu ezinleijon guztiagaiti, proximua ildavelaco *Esk* 257 garbitutiagaiti *Esk* |
 edertutiagaiti *Esk* 258 esatendaveen *Esk* | sinistubiar *Esk* | ezbalichacue *Esk* 259
 izanguradavenari *Esk* | Jesus] Jusus *Esk* 260 galdubere *Esk* | ezdeusa *Esk* 260-261
 inosbere *Esk* 262 naibadau *Esk* 263 guichitubagaric *Esk* | agortucoditu *Esk* 264 bial-
 ducoditu *Esk* 264-265 biarbada *Esk* 266 ezdaijon *Esk*

¹⁹⁰ Ik. Ik. Dn 3,46-50.

¹⁹¹ Ik. Ir 14,21-22.

¹⁹² Ik. Dn 6,20-28.

¹⁹³ Santa Urtsula. Frai Bartolomek birjina ospetsuak gogorarazten dizkigu: Urtsula eta 11.000 birjinak (izatez, Urtsula eta 11 birjinak; 11.000 hori, irakurtzean eginiko huts batetik dator). Santa hau legendako hainbat kontakizunez inguraturik dago. Legenda honen arabera, Urtsula, Britainiako errege baten alaba, Aeterius errege jentilak nahi izan zuen emaztetzat, baina hura bere barruan Jainkoari eskainita zegoen. Aeterius-ek hiru urtean itxaron behar zuen, kristau egiteko nahikoa zena. Orduan, Urtsula, beste "11.000" birjina lagun zituela, itsasontzia hartu eta atzerri-rantz abiatu zen, baina ekaitz batek arrisku handitan jarri zituen, Koloniara iritsiz eta hemen maritza jasanez. Legenda hauek alde batera utziz, kontakizun horien muina, inskripzio batzuen arabera, IV. eta V. mendeetan, barbaroen eta Hunos-en inbasioetan jarri beharko litzateke. Haren gurtzearen lehen albisteak VIII. mendeak dira; eta Koloniatik beste nazio batzuetara zabaldu zen harenganako eraspena... (Ik. V.HOPMANN, *Ursula, hl.*, in: LThK 10 (1986) 574-575.

¹⁹⁴ Santa Ines, martiri erromatarra, IV. menderako jadanik kristauen gurtza hartzen zuena. Hala ere, ez dugu ziurtasunik jasan zuen martiritza moduari dagokionez, hainbat irudi baitaude.

santa Lucijaren¹⁹⁵ ta beste doncella garbi guztien vizitzac, ta an icusico da ceinbat miraari andi eguin dituban Jangoicuac bere esposeen garbitasuna ta onestidadia zaintuteco; ta celan secula, vorondate ta vijotz garbija daucan emacumiari calteric eguin ez deutsan guizonezcoric atrebidubenac. Isildu bitez, bada, emacume lojjac, lotsatu bitez onestidadia galdu daveenac ta esan beije, eurac nai eveelaco, eurac gura eveelaco, euren vorondatez manchau eveela arimia ta galdu eveela onestidadiaren loria. Pecatu da, bada, onestidadia gaiti inor iltia. Eguija da, beragan dan guztia eguin biar dau vizitziac dirauban artian, gauza chaarric eguiten inori ez isteco. Ta ain Jangoicuac bere escuti ichtitacua balitz gaisqui eraguin gura deutsana, cein da iltera doian pecatu eguin-[277]gura ez daven emacumia, orduban nobera ill ez daijan, ill lei alaco guizon galduba, leenaoco dotrinaan esan dan leez. Baña onaco lantce estubac esan eguiten ditubee emacumiac, jazo nequez.

Dotrina onetati etaratana dana da: 1^o Nai ez davenari ez deutsala inoc pecatu eraiten. 2^o Inori erru guztia ezarrita, euren burubac garbitu gura dituben emacumei echacuela sinistu biar. 3^o Pecatu eiten ezpadau ilgo davela guizonezcuac esan arren pecatu eiten istia, pecatu dala. 4^o Virginidadia ta onestidadia dirian leez nai ez davenari inoc quendu ezin leijozanac, areec gaiti inor iltia pecatu dala.

267 icusicoda Esk 268 eguindituban Esk 270 ezdeutsan Esk | Isildubitez Esk 271 lotsatubitz Esk 271-272 galdudaveenac, ta esabeije; eurac naieveelaco, eurac guraeveelaco Esk 273 galdueveela Esk 274 eguinbiardau Esk 275 ezisteco Esk 276 guradeutsana, ceinda Esk 276-277 eguingura ezdaven Esk 277 illezdaijan, illlei Esk 278 esandan Esk | eguitenditubee Esk 280 etaratandana Esk | ezdavenari, ezdeutsala Esk 282 sinistubiar Esk 284 naiezdavenari Esk | ezinleijozanac Esk 285 pecatudala Esk

Gaztetxo zela bere bizitza eskaini zuen fedearen alde; ez dakigu ziur ezpataz hilda ala surtan erreta jasan zuen martiritza. Aurelio Prudentziok bere *Peristéfanon*-eko, 14. himnoan, haren martiritzaren tradizioetariko bat agertzen digu (*Obras Completas*, edición bilingüe perparada por A. Ortega - I. Rodríguez, Madrid, 1981, 736-743, BAC 427). Ikus hari dagokion ikonografia ere; bereziki Aines otoitzean, Kristori bere bizitza eskaintzen eta bildots batekin batera martiri agertzen den ikonografia...: K. ZIMMERMANN, *Agnes von Rom...*, in : E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 5. t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 58-63.

¹⁹⁵ Santa Luzia Sirakusakoa. Martiri honi buruz ere ez dugu datu ziurrik. Tradizio batzuen arabera, gazterik eman zituen bere ondasunak, eta Dioklezianoren jazarpen aldiaren oinaze mota batzuk jasan ondoren, ezpatapean hil zen. Dena dela, azkenengo aurkikuntzek erakusten digutenez, haren historikotasuna guztiz ziurra da, eta hari emandako gurtza ageri-agerikoa da V. mendearen hasiera ezkerro. (Ik. K. BAUS, *Lucia, hl.*, in. LThK 6 (1986) 1171-1172). Haren martiritzaren ikonografiaz honako obra hau ikus daiteke: C. SQUARR, *Lucia von Syrakus*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 7. t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 415-420.

III.

Ondasunac dira beste gauza batzuc asco estimeetan dirianac. Sarritan jazoten da, edo aldian, edo echian, edo beste lecu baten daucazan ondasunac inoc oostu gura izatia ta oostutia. Ta emeti etorten da dudia, *ia lapurretara dato -*
 290 *rrena ill leijan pecatu eguin bagaric, bere gauzaac oostu ez daijozan.* Oni erantzuteco jaquin biar da lelengo, gauza batzuc dagozala Elexa Ama santiac erabaguita ta beste batzuc Elexaco maisubac examinauta. Elexa Ama santiac erabaguita dago: 1º Jazo oi danez, urrezco escudo batgaiti inor iltia pecatu dala (180). 2º Guero euquico ditugun, baña oraindino ez daucaguzan gauzaac oostutera datorrena iltia, pecatu dala (181). Vervigracija: Baquit eun ducat neuri emoteco dauqueezana, baña oraindino ez deusteez emon; bada, areec oostu ez daizan inor iltia, pecatu da. 3º Noberari toquetan jacon aciendia edo ondasunac, auzijagaz edo osterantzian eraotzi ta atceratuten deutsana iltia, pecatu da (182). Onetan ez dago dudaric.

300 Ta onezaz ostian bere esaten da, ondasunac gaiti beste bagaric, ondasunac andijac izan arren, ecin inor ill leijala. Alan eracusten doscu san Agustinec, dinuanian (183): ¿Ce modutan pecatuti librauco da, [278] galdu biaco daveen¹⁹⁶ ondasunac gaiti inor ilten davena? Elexiaren erreguela batec bere esaten dau, ondasunac quendu ez daijuezan inor ilten davenac, erijotzia eguiten davela
 305 (184). Errazoiac eracusten doscu ta Jangoicuac aguinduten doscu, gauza guichi bat gaiti inori calte andiric ez eguiteco. Bada, munduco ondasunac gauza guichijac eta ecer ezac dira, proximuaren vizitziagaz ta salbacinoiagaz bat eguin ezquero. Ta orregaiti oostutia baño beste gachic ecin leijan lapurra, oostu ez daijan iltia, pecatu da. Escopeta ta armeequin guztiac zamaitubaz eche baten
 310 sartceen dan edo derrigorrian sartceera doian lapurra iltia, ez da ain beinguan pecatu mortalzat emoten. Bada, alaco lapurrac pelleburu bardinian iminten ditu ondasunac eta vizitzia. Ta ondasun utsac gaiti ill ezin balei bere, vizitzia

 (180) Inoc. XI, prop. cond. 31. (181) Iden. 32. (182) Iden. 33. (183) Lib. 2. de lib. arb., c. 5. (184) Cap. suscepimus, de homicidio.

287-288 jazotenda *Esk* 288 lecubaten *Esk* 289 etortenda *Esk* | ia] ya *Esk* 290 eguinbagaric *Esk* 290 ezdaijozan *Esk* 291 jaquinbiarda *Esk* 293 oidanez *Esk* | pecatudala *Esk* 294 ezdaucaguzan *Esk* 295 pecatudala *Esk* 296 ezdeusteez *Esk* 297 ezdaizan *Esk* | pecatuda *Esk* 298-299 atceratutendeutsana iltia, pecatuda *Esk* 299 ezdago *Esk* 301 eracustendoscu *Esk* 302 Cemodutan *Esk* 303 inoriltendavena *Esk* 304 ezdaijuezan, inor iltendavenac *Esk* 305 eracustendoscu *Esk* 305-306 aguindutendoscu; gauza guichibatgaiti inori calteandiric ezeguiteco 308 ecinleijan lapurra *Esk* 308-309 oostuezdaijan iltia, pecatuda *Esk* 310 ezda ainbeinguan *Esk* 311 pecatumortalzat *Esk* 311-312 imintenditu *Esk* 312 illezin *Esk*

¹⁹⁶ Bitxi gertatzen zaigu egiten duen komuntadura; *galdu biaco dituben ondasunac gaiti* egitea eskatzen digu barruak.

gaiti iltia ez da pecatu, leen esan dan leez. Dotrina onetati ezaututen da, neure 315
 cristiñaubac, pecatu mortala eguiten daveela bostgarren mandamentubaren
 contra: 1^o Proximua ilten daveenac, ilteco aguindu edo lagunduten daveenac
 eta ilteco conseju emoten daveenac. 2^o Pecatu eguiten davee proximua gaixo-
 tu edo banatuten daveenac, proximuaren osasuneco edo vizitzaco caltiagaz
 contentu arteen daveenac ta esan dan modubetan, cein desiuagaz ta cein aci- 320
 noiagaz, proximuari calte eguiten deutsanac.

Escatu daijogun Jangoicuari, eracutsi daigula proximo guztiac ameeetan ta
 estimeetan, gueure burubac leez. Orduban euquico dogu munduban baquia,
 gracia ta bendicinoia ta ceruban eternidadeco glorija. Amen.

BOSTGARREN MANDAMENTUCO
IRUGARREN LECINOIA,

325

ceñetan eracusten dan
celan pecatu eguiten daveen mandamentu onen contra,
indarrac proveetan davi-[279]zanac
ta codicija gaiti gorputzari tratu charrac emoten deutseezanac. 330

Esanda gueratu da, neure cristinaubac, bostgarren mandamentubac eraoz-
 ten davena, ez bacarric proximuari vizitzan edo osasunian calte eguitia, ece
 baita bacoachac bere burubari eguitia bere. Ta oraindino gueijago. Orregaiti
 proximua iltia baño bere buruba iltia, pecatu andijaua da. Proximuari erijotzia
 desietia baño bere burubari desietia, pecatu andijaua da. Proximua ilteco 335
 pelleburuban imintia baño bere buruba imintia, pecatu andijaua da.
 Proximuaren osasuna galtceia baño noberarena galtceia, pecatu andijaua da.

315 ezda *Esk* | esandan *Esk* | ezaututenda *Esk* 316 eguitendavela *Esk* 317
 iltendaveenac *Esk* | lagundutendaveenac *Esk* 318 emotendaveenac *Esk* | eguiten-
 davee *Esk* 319 banatutendaveenac *Esk* 320 arteendaveenac, ta esandan *Esk* 322 eracutsi-
 daigula *Esk* 327 eracustendan *Esk* 328 pecatueguiten *Esk* 330 emotendeutseezanac *Esk*
 331 gueratuda *Esk* | eraoztendavena, ezbacarric *Esk* 336 pecatuantijauada *Esk* 337 peca-
 tuantijauada *Esk*

Ta modu onetan beste gauza guztietan. Onezaz gañera, esan dot leengo dotri-
neetan, nos eta celan austen dan bostgarren mandamentuba, proximuari osa-
340 sunian edo vizitzaan calte eguinagaz. Ta dotrina onetan esango dot celan aus-
ten dan, noberaren osasunari edo vizitziari calte eguinagaz. Oneec dira: 1^o
euren indarretan pijauta, areec probeetaco desapijuac eta temaac ¹⁹⁷ *eguiten*
ditubeenac. 2^o Codicija gaiti edo gaucia aurreratutia gaiti, osasunaren caltian
345 *gorputzari tratu chaarrac emoten deutseezanac.* Eguija da, onacuac ez baccar-
ric euren vizitziaren ta osasunaren contra, ece beste gauza ascotan bere peca-
tu eguin oi davee sarritan. Bada, bere indarrequin arrotuta dauanac, eltceen
dan lecu guztian dauca ocasinoeraco vidia, beti dago prest endredoraco, beti
dauca escandaluba ta ari darraicon gorrotua, murmuracinoia ta ceresana.
Codicijosuac beti dauca dirubaren gosia ta egarrija. Ta egarri andija daucanac
350 edocein bere uri tira esaten deutsan leez, codicija daucanac beti gauciari bere-
gana tira esaten deutsa, topeetan daven lecuban topeetan davela. Aberastuteco
desio andija daucanac [280] legue guztia erabilico ditu oñazpijan, ta diruba
gaiti ez dau ecetan bere erreparauc. Baña oan icusico dogu bacarric, esan
dirianac celan austen daveen bostgarren mandamentu santuba.

355

I.

Eguija esateco, errucarri andija da, neure cristinaubac, bere indarretan
pijauta, areec proveetaco temaac eta desapijuac eguiten dituban personia.
Bada, inoc bere ez dauca indar gueijago, ez guichiago Jangoicuac emon deu-
tsan baño. Ez dago gure izatia indar asco edo guichi euqitian, ezpada
360 Jangoicuac emon doscuzan indarrequin ta errazoiagaz ondo balijet[i]jan.
Jangoicuac emon deutsan osasunagaz edo gaixuagaz, indarragaz edo argalta-
sunagaz ta errazoe zuzenagaz vizi dana da guztien artian senduena, andijena
ta estimaubena. Guizonaren izatia errazoezcua da, juicijozcua da ta
Jangoicozcua da. Ta guizonac, errazoiaren ta leguiaren contra gorputzeco inda-

338 esandot *Esk* 339 austendan *Esk* 340 calteeguinagaz *Esk* 340-341 austendan *Esk*
341 calteeguinagaz *Esk* 342-343 eguitenditubeenac *Esk* 343 aurreratutiagaiti *Esk* 344 emo-
tendeutseezanac. Eguijada *Esk* | ezbacarric *Esk* 346 oidavee *Esk* 346-347 eltceendan *Esk*
348 aridarraicon *Esk* 349 betidauca *Esk* 350 edoceinbere *Esk* | esatendeutsan *Esk* 351
esatendeutsa, topeetandaven *Esk* | topeetandavela *Esk* 352-353 dirubagaiti ezdau ecetan-
bere *Esk* 353-354 icusicodogu bacarri, esandirianac celan austendaveen *Esk* 356 errucarri-
andija *Esk* 357 etadesapijuac eguitendituban *Esk* 358 ezdauca *Esk* | ezguichiago, Jangoicuac
emondeutsan *Esk* 359 Ezdago *Esk* 360 emondoscuzan *Esk* 361 emondeusan *Esk* 362
vizidana *Esk* 364 Jangoicozcuada *Esk*

¹⁹⁷ "Tema" hitzak adiera bat baino gehiago ditu gure idazlearengan; hemen dema, proba,
erronka esan nahi du.

requin arrotuta, bere buruba eracutsi gura davenian, ucatuten dau guizonaren 365
izatia ta emoten deutsa bere burubari lotsaariric andijena.

Pensau eguizu dauala errijan guizon bat, beste guztiac baño andijaua, lodi-
jaua, indar gueijago daucana ta carga gueijago jasoten davena edo bestiac baño
jaateco ta eraateco gueijago sabelian sartcen davena. Ta guizon a davillela,
bere indarrequin arrotuta, bere lagunac desapijetan ta ocasinoe emoten. ¿Cer 370
esan biar da, bada, alacua gaiti? ¿Cer aituten emoten doscu alaco arruac?
Bestiac baño alemanija andijaua dala bera. Bada, gorputzeco indarrac ez dira
guizonarenac guizona dan leez, ezpada alemanija dan leez. Guizona dan leez
dauca entendimentuba ta vorondatia; ta alemanija dan leez dauca gorputza ta
gorputzari darraicona. Orregaiti esaten da guizona dala *errazoezco alemanija*. 375
Guizonac, bere [281] indar andijac panparrerijaz ta desapijoca eracusten ditu-
banian, esaten doscu bestiac baño alemanija andijaua dala bera.

Ara emen, cristinaubac, ce ondra andija eguiten deutsan bere burubari
alaco guizon arruac. ¿Celan isilduco dogu, bada, alaco panparroia? Ez da ente-
ro gach, neure cristinaubac, alaco desapijoca ta panparrerijetan davilen indar- 380
tsuba isilduten ta lotsatuten. Bada, mando batec eguin leijan gauzia da, berbe-
etan balequi. Jangoicuac indar asco emon badeutsa alaco guizon panparroiar,
gueijago emon deutsa manduari; gueijago emon deutsa artzari; gueijago emon
deutsa otsuari. ¿Ta ceinbat alaco goituco lituque camelu batec, cein burruca ta 385
cein cargatan? ¿Ceinbat elepante batec? ¿Ceinbat alaco guizon indartsu ta
panparroe copau baten tripan sartuco lituque balee batec edo crocodillo batec?
¿Nun dira, bada, alaco guizonaren panparrerijac eta indarrac, alemanija bat edu
ezpada? ¡Oh, indarretan arrotuten dan zoro coitauba! Artz baten onduan aoric
edegui biar ez dau. Mando baten aurrian lotsatuta gueratu biar dau. ¡Oh,
indartsubac! ¡Oh, panparroiac! ¡Oh, gorputz zati bat bestiac baño gueijago dau- 390
cazulaco, edo zan lodijauac daucazulaco, edo sabel andijaua daucazulaco,
ceuben lagunac desapijetan, ceuben indarrac probeetan ta bestiai ocasinoe
emoten zabizana! ¿Ez zara lotsatuco, bada, ceuben burubac alemanija eguiten
dituzunian? ¿Ta ceubec gueijen zariala uste dozun gauzaan, alemanija bat edu 395
ez zarianian?

¡Ojala pensauco balebee ondo erri oneetaco indartsu panparroiac, ce clei-
tu ederra euren burubai eguiten deutseen guiza [282] arteraco alaco vanida-

365 bereburuba eracutsiguradavenian, ucatutendau *Esk* 366 ta emotendeutsa *Esk* 367
Pensaueguizu *Esk* 368 jasotendavena *Esk* 369 sartcendavena *Esk* 371 esanbiarda bada ala-
cuagaiti *Esk* | emotendoscualaco *Esk* 372 ezdira *Esk* 373 alemanijadanleez.
Guizonadanleez *Esk* 375 esatenda *Esk* 376-377 eracustenditubanian, esatendoscu *Esk* 378
eguitendeutsan *Esk* 379 Ezda *Esk* 382 emonbadeutsa *Esk* 383 emondeutsa *Esk* 383-384
emondeutsa *Esk* 386 copaubaten *Esk* 387 Nundira *Esk* 388 arrotutendan *Esk* 389 bia-
rezdau *Esk* | gueratubiardau *Esk* 390 zatibat *Esk* 391 zanlodijauac *Esk* 393-394 egui-
tendituzunian *Esk* 395 ezzarianian *Esk*

dezco desapijuequin! ¡Ojala pensauco balebe, gorputzeco indarrac diriala egun
sentico lino loria leez! Oinche badira, guerochubago ez dira. Guizon asco indar
400 oneequin gavian oian etzin dira, ta bijaamon goxeco il dira. Soineco erropia
aldatuten dan leez, casic esateco, indarrac aldatu ta mudeetan dira. Ojala,
dinot, au guztiau pensauco balebe alaco indartsu oncasinoetsubac; baque guei-
jago emongo leuquee errijetan, emoten daveen baño. Ta zubez inoc inos desa-
405 *jago jasoco neuque...* esanda, ez eijozu alacuari casuric eguin ta pensau eizu
ceuben artian a gaiti: begaz, *ni baño alemanija andijaua zara. Bagoz, bada,*
zu baño andijauac bere. Auxe izango da ari emon cineijon errespuestaric one-
ena.

Onezaz ostian alaco indartsubac pecatu eiten davee bostgarren madamen-
410 tubaren contra. Inoc bere ucatu ecin lei, cein carga jasoten, cein carga eruaten,
cein jaaten ta cein eraaten, alaco indarrezco temia edo desapijua daucanac,
despeidengo punturaño probeetan ditubana bere indarrac. Ta orduban bera-
gaz darua beti, edo gorputzari eraso bat emoteco, guero biarra eguin ezin
415 daven moduban, edo zanen bat urratuteco edo errementetaco pelleburuba ta
arriscuba. Asco ta ascori jatzo jacuen leez. Bada, alan necesidad bagaric, pre-
mina bagaric, vanidadez ta panparrerijaz, bere osasunari ta gorputzari calte
andija eguiteco arriscu aguirijan jartia, beti da pecatu mortala bostgarren man-
damentubaren contra.

[283]

II.

420 Ez dira guztia vanidadez indarrac probeetan osasunari calte eguiten deu-
tseenac. Baña bagoz asco, premina bagaric ta Jangoicuac eraotzita daucazan
gauzaac gaiti osasuna galtcen daveenac ta bostgarren mandamentu santubaren
contra pecatu eguiten daveenac. Oneec dira araco aberastutiarren beti gorpu-
425 tza biarpian ta osasuna galdubaz darabileenac. Aitu biar dozu, cristinaubac,
dotrina au ondo, utseguiten bategaz gueratu ez zaitez. Ez dozu pensau biar
nic aboneetan ditudala alperrac eta buruguinac. Ori ez. Jangoicuac guztiai
aguinduten deutsee, bacochari bere estaduban, biarra eguiteco. Ez doscu ordu
erdi bat bere emoten, alperrerijan egoteco. Adan lelengo gueure gurasuari ta
aren seme alaba guztioi esan oscun Jangoicuac, gueure arpeguico icerdijagaz

399 ezdira *Esk* 400 ildira *Esk* 402 pensaucobalebe *Esk* 403 emotendaveen *Esk* 404
gueijagonas *Esk* 407 izangoda *Esk* 409 pecatueitendavee *Esk* 410 ucatuecinlei *Esk* 413
erasobat *Esk* 413-414 ezindaven *Esk* 420 Ezdira *Esk* | eguitendeutseenac *Esk* 422 gal-
tcendaveenac, tabostgarren *Esk* 424 biardoze *Esk* 425-426 Ezdoze pensaubiar, nic abonee-
tanditudala *Esk* 427 aguindutendeutsee *Esk* 427-428 Ezdoscu ordu erdibat *Esk* 429 seme-
alaba *Esk* | esanoscun *Esk*

irabatzita jan biaco guendubala oguija. Ez aberatsic, ez pobrereric ez dago libre 430
 biarra eguiteco obligacinoeti. Alperra (cein aberatsa ta cein pobria) da munduban
 sobrauba, inoren icerdijagaz mantenietan dana ta Jangoicuaren aurrian
 lapurra.

Batzubetan preminia bere egoten da, biar gueijago eguiteco. Menturaz gau 435
 ta egun copau bat jaateco asti andiric ez dauala bere bai. Ta au bere Jangoicuac
 ontzat emoten davena da, preminia dauanian. Ta alaco biar neque andicoti
 gorputzari gaixo bat etorri arren, ez da pecatu eguiten. Beste batzuc dagoz zor-
 pian ta osta manteniduten diriala ta areec, osasunari provechu andiric eguiten
 ez deutseena ascotan icusi arren, popuertza eguin biar davee arrastaca ta biar 440
 gueijago, ta gueijenian janari argalagaz edo gosiagaz. Ta onacuac bere, ezautu
 arren [284] osasuna jausijaz juacuela, ezin egon leitequez biarra eguin bagaric,
 manteniduco badira. Erreguela onetati canpora dagoz: 1º Señã eguiteco dago-
 zan emacumiac. Bada, sabelian daucan señã galtceco arriscuban, ez pobrecia
 gaiti ta ez mundu guztia gaiti bere, emacumiac ecer eguin biar ez dau, pecatu 445
 mortalaren beian. 2º Pobria izan arren ta zor andijac pagueetaco euqui arren,
 osasuna galduco deusana zucen daquijen gauzaric ez dau eguin biar cristi-
 naubac. Gauza bat da osasuna mancaubaz juatia, biarran sarri tercijsua baño
 gueijago necatuten dalaco; ta beste gauza bat da, trabaju bat edo gach bat eto-
 rrico jacona zuzen edo casic zucen daquijela, alaco gaucia edo biarra eguitia.
 Au beti da pecatu; bestia ez, preminia egon ezquero. 450

Esan dan guztia da preminiac eta necesidadiac eraguiten davena, ta osa-
 sunaren caltian ascotan izan arren, ez da errez erabaguiten pulpitoti nos dan
 pecatu ta nos ez dan. Baña errazoiac eta legue guztia erabaguita dauquena
 da, codicija gaiti, gauzia aurreratutia gaiti ta aberastutia gaiti osasuna galtceia,
 pecatu dala. Onacuac izaten dira, Jangoicuac tercijsu baten cegaz vizi emonda, 455
 euren estadubari jaocan moduban jaateco ta vizi izateco duina euqui arren,
 gordeetia gaiti ta aurreratutia gaiti, artua bere ondo neurtuta jaaten daveenac,
 euren burubac eta pamelija goseric seguiduban dauqueezanac; inoren lepoti
 edo maiti jaaten daveenian baño bestelan sabelari biar davena emoten ez deu-
 tseenac; [285] gau ta egun beti arrastaca diardubenac; gorputzari, emon al dai- 460
 jen guztia, egunian egunian emon eraiten deutseenac; ta betico nequiaren
 nequiagaz, ta esan dan gosiagaz osasuna guichitu ta vizitzia laburtuten davee-
 nac.

430 ezpobrereric ezdago *Esk* 434 egotenda, biargueijago *Esk* 435 copaubat *Esk* |
 ezdauala *Esk* 436 emotendavena *Esk* 437 ezda *Esk* 439 ezdeutseena *Esk* | icusiarren
Esk | eguinbiardave *Esk* 440-441 ezautuarren *Esk* 441 eguinbagaric *Esk* 443-444 ezpo-
 breciagaiti *Esk* 444 guztiagaiti *Esk* | eguinbiarezdau *Esk* 445 euquiarren *Esk* 446 ezdau
 eguinbiar *Esk* 451 Esandan *Esk* | eguitendavena *Esk* 452 ezda *Esk* | nosdan *Esk*
 453 ezdan *Esk* 454 aberastutiagaiti *Esk* 455 tercijsu baten *Esk* 457 aurreratutiagaiti *Esk* |
 jaatendaveenac *Esk* 459 jaatendaveenian *Esk* | biardavena emoten ezdeutseenac *Esk* 460-
 461 aldaijen *Esk* 461 eraitendautseenac *Esk* 462 esandan *Esk*

Oneec dira codicijaren crijadubac. Secula Jangoicuac emoten deutseenagaz
 465 contentu ez dirianac. Beti gueijago baño gueijago¹⁹⁸ nai leuqueenac. Gorputza
 ta osasuna bere dirubari consagreetan deutseezanac. Jaateco guztia copau
 baten iruntsi gura daven chacur gosia leez, euri ta aterri, gau ta egun icerdija
 ta barautsa darijuela, gose ta egarri echia ondasunez colpe baten bete gura leu-
 queenac. Ondasun pusca baten truque, euren osasuna galtceen daveenac.

470 Ondasunen desio laarrreguija, gorputzari onaco tratu chaarra emon baga-
 ric bere, pecatu da ta pecatu guztien asieria. ¿Cer izango da, bada, osasuna
 galdu eraiten davenian? Osasuna galtceco arriscuban meza entzuteric ez dago,
 baru eguiteric ez dago, zorrac pagueetaric ez dago, gauza onai bere ichi egui-
 ten jacue osasuna ez galtceia gaiti; ¿bada, cer izango da, codicija gaiti, diruba-
 475 ren gosia gaiti, berez gauza chaarra ta pecatu dana gaiti, osasuna galtceia?
 Jangoicua gaiti ta caridadia gaiti gorputzari errazoez padecidu eraitia, gauza
 ona ta santuba da; baña, esan dan moduban, codicija gaiti padecidu eraguitia,
 gueure burubari zor deusagun caridadiaren contraco pecatuba da.

480 Beguiratu eizu, bada, cristinaubac, codicija impamiac oratu ez daizun ceu-
 ben vijotzetan. Ez eizu gorputzaren erruqui [286] laarregui euqui. Domau eizuz
 ceuben gorputzac, mortipicau eizuz, baña Jangoicua gaiti, caridadia gaiti, legue
 santuba gordetia gaiti, pecaturic ez eguitia gaiti; ez ondasunac batceia gaiti ta
 aberastutia gaiti. Viurtu daiguzan gueure veguijac eta vijotza ceruco
 485 Maisubagana ta escatu daijogun bere legue santuba ciatz gordeetaco gracia,
 ceñegaz jadiichico dogun eternidadeco glorija. Amen.

464 emotendeutseenagaz *baina 1. a ler.art.* 465 naileuqueenac *Esk* 467 guradaven *Esk*
 469 puscabaten *Esk* 470-471 emonbagaric bere, pecatuda, ta pecatuguztien *Esk* 471
 Cerizangoda *Esk* 472 eraitendavenian *Esk* | ezdago *Esk* 473 ezdago *Esk* | ezdago
Esk 474 ezgaltceia *Esk* | izangoda *Esk* 475 danagaiti *Esk* 476 padecidueraitia *Esk* 477
 santubada; baña esandan *Esk* 478 zordeusagun *Esk* 480 Ezeizu *Esk* 481 Jangoicuagaiti,
 caridadiagaiti *Esk* 482 gordetiagaiti, pecaturic ezeguitia *Esk* 483 Viurtudaiguzan *Esk* 484
 escatudaijogun *Esk*

¹⁹⁸ Beti gehiago eta gehiago nahi izan; oso egoki esanda dago: "gueijago baño gueijago nai leuqueenac".

**BOSTGARREN MANDAMENTUCO
LAUGARREN LECINOIA,**

ceñetan eracusten dan
nos eta celan ordijac pecatu eguiten daveen.

Jan eranian dauan laarreguija da, neure cristinaubac, gauza bat, chito 490
nequez ezaututen dana ta nequezago erre[mel]dijetan dana. San Pablo
Apostolubac ainchina ezautu euan, ce calte andijac ecarten dituban cristinau-
ben arimeetara jan edan laarreguijac. Ta esaten atrevietan da apostolu santuba
(185), alaco ordijac eta jaatunac ez dauqueela sabela baño beste Jangoicoric ta
euren despedia dala condenacinoia. Ezin gueijago esan euquian ordijen contra. 495
Isaias propeta santubac dino casic beste ainbeste (186): ¡Zoriguestocuac
[287] ardaua edateco gogo onagaz beti prest dagozana! Esango baleu leez:
¡Zoriguestocuac eta desdichaubac, eria daveen guztian ordituteco prest dago-
zana! Emacume ordija, dino Espiritu Santubac (187), dala vijotzeco sugar andi-
ja edo colera andija, ta ez davela ezcutauco bere desonestidadia ta desondria. 500
Nun ordija, an diabruba; nun jaate andija, nun berba loija, an demoninua
dantzan, dino san Juan Cristostomoc (188). Orditutia, dino san Basilioc (189),
dala arimiari bere guraz ezarten jacon demoninua. *Demon voluntarius*. Eguija
esateco, ordi batec demoninuaren ichura vizija dauca. Batzubetan beguijetati
suba darijola bidaoca ta maldecinoeca. Beste batzubetan inun dirian cantaric 505
verdeenac ta barbaric loijenac esaten ditubala. Beste batzubetan beragaz dago-
zan guizon eta emacume guztiac tentetan, diabrubac berac leez; batian jocora,
bestian eraatera, bestian burrucara, bestian dantzara ta bestian pecatura. Beste
batzubetan bideetaco arbola ta ormaac albo alboca joten ditubala. Ta beste ba-
tzubetan basatza edo bide baten etzinda, aoti bitsa ta ardaua darijola ta gor- 510
putza oñen gañian euqui ezin davela. ¡Ipini lei munducoc demoninuaren ichu-
ra aguirijagoric, ordi batec alda batera¹⁹⁹ ipinten daven baño? Orregaiti esaten

(185) Ad Philip. c. 3. (186) C. 5. (187) Eccles. c. 26. (188) Ad popul. Antioch.
(189) Homil. 14. in ebriet. et luxum.

488 eracustendan *Esk* 489 pecatueguiten *Esk* 442 ezautuevan *Esk* | ecartendituban
Esk 493 atrevietanda *Esk* 494 ezdauqueela *Esk* 497 baleuleez *Esk* 500 ezdavela *Esk*
503 bereguraz *Esk* 504 demoninuaren] domoninuaren *Esk* 505 inundirian *Esk* 506 esaten-
ditubala *Esk*

¹⁹⁹ Era batera, guztia bat-batera (ik. 312.or.).

515 deutsee Elexaco santu guztiac ao bategaz orditutiari lujurijaren, [288] baque
chaarraren ta maldade guztien gueija, asieria ta ama; ta ordijari, ez guizona, ez
emacumia, ezpada alemanija edo demoninua (190).

Gauza ona izango da bada, cristinaubac, zubei eracustia jan eran laarre-
guijaren gañian: 1º Cetan dauan ordijaren pecatuba. 2º Ceintzuc dirian, guizo-
520 na edo emacumia orditu dana ezaututeco senalliac. 3º Ce pecatu eguiten dave-
en jan eran laarreguijagaz.

I.

Orditutia gauza ezaña, ichusija eta lotsaarizcua dana juicijua dauqueen
guztiac ezaututen daveena da, neure entzula onac. Ez da ezautu denporaric, ez
525 generacinoeric, orditutia ontzat emon danic. Jesucristo gueure Jaunac uragaz
naastau bagaric ez euan inos bere eran ardaoric. Ta atara bere guichitan. San
Pablo apostolubac, ardauren pusca bat eraateco licenciija emon eutsan
Timoteo bere discipulubari estomanguco gacha gaiti²⁰⁰. Senalle agurija da au,
orduco cristinaubac ardaua nequez eta guichi eraaten eveena sinistuteco.
530 Maoma erejeguín paltsuac, casic pecatu guztiac eguiteco licenciija moruai
emonda, eraotzi eutseen ardaua eraatia²⁰¹. Asco canseetan dira examineetan, ia
cegaiti eraotzi eutseen Maomac ardaua eraatia, berac emondaco leguia gorde-
etan daveen moruai. Nic esango neuque, beequijala Maoma paltso [289] mada-
ricatubac, ez gauza onac, ez chaarrac luzaro iraun ecin leijana ordijen artian.
535 Ta euren legue oquerrian ta pecatuzcuan pirme egon ditezan, eraotzi eutseela
ardaua eraatia.

Ordiquerijaren malecija guztia da, neure cristinaubac, errazoiaren usuba
galtecia. Naturaleciac guizonari emon deutsan doeric estimaubena da errazoi-

(190) Apud Lohner, v. ebriet.

514 ordibatec aldabatera *Esk* 514-515 esatendeutsee *Esk* 516 ezguizona *Esk* 518 jane-
ran *Esk* 524 ezaututen daveena *Esk* | Ezda *Esk* 525 emondanic *Esk* 526 ezevan *Esk*
529 eraateneveena *Esk* 531 canseetandira *Esk* | ia| ya *Esk* 533 esangoneuque *Esk* 534
ezgauza *Esk* | iraunecin *Esk* 535 pirmeegonditezan *Esk* 538 emondeutsan *Esk*

²⁰⁰ Ik. 1Tm 5,23.

²⁰¹ Koranak honako hau agintzen du ardoa dela eta: "Te preguntan sobre el vino y el juego de maysir: Responde: En ambas cosas hay gran pecado y utilidad para los hombres, pero su pecado es mayor que su utilidad" (2,216); "¡Oh, los que creéis! Ciertamente, el vino, el juego de maysir, los ídolos y las flechas son abominaciones procedentes de la actividad de Satanás. ¡Evitadla! Tal vez seáis los bienaventurados" (5,92), etab. (Ik. *El Coran. Introducción, traducción y notas de Juan Vernet*. Madrid, 1998, Clásicos Universales Planeta, 13). Frai Bartolomek dakarren esaldi hau "casic pecatu guztiac eguiteco licenciija moruai emonda" gehiegizkoa dirudi..., baina ziur aski, gizon bakoitzak emazte bat baino gehiago izateko askatasunaz ariko da hemen...

ren usuba. Au dala medijo erabaguiten da guizona alemanijetati. Errazoeric ez 540
 bagueunca, alemanijac edo arrijac edo beste gauza illen batzuc izango guina-
 atequez. ¿Cer eguiten dau, bada, ordijac? Jangoicuac emon deutsan entendi-
 mentuco arguija ta errazoiaren usuba illundu, ezcutau ta galdu, bere escube-
 quin orditubagaz. Guizon ordijac ez cer eguin daven daqui, ez cer eguiten 545
 daven, ez cer esaten daven. Ordija ez examinia eguiteco da, ez damuba por-
 meetaco, ez compeseetaco da; ez bere gauzen contu ta errazoia emoteco, ez
 guizonaren eguitaderic daucana da; pecatuzco alemanija bat baño ez da. Au
 gaiti da, Jangoicuac ordijari deutsan gorrotua. Au gaiti da, mundubac daucan
 ordijaren icusi ezina. Au gaiti dira, ordijen contra eguin dirian legue gogorrac.
 Au gaiti da ordijaren pecatuba; berac bere naiz, daquijela ta ezaututen davela, 550
 trago bat ardao gueijago sabelian sartceia gaiti, errazoiaren usuba galdu ta ale-
 manijaren guisaan bere [290] buruba iminten davelaco. Ara, cristinaubac, verba
 guichitan esanda, cetan dauan ordijaren pecatu eguitia. Iкуси daigun oan, cein-
 tzuc dirian cristinaubac laarregui eran davena ezaututeco senalliac.

II.

555

Ardaozialiac uste davee, eran daveen guztia sabelian coverneetan badabee,
 ez diriala ordituten, asco eran arren. Au sinistuta vizi dira ordiric gueijenac
 pecatu mortalian. Eran daveen lecuti atzera etaraten ezpadavee ardaua, ez
 davee penseetan, pecatu eguin daveenic. Baña juez chaarrac dira ordijac,
 gauza onetan eurei sinistuteco. Santo Tomasec (191) eta beste Elexaco eracus- 560
 laac esaten davee, orditutia dala biar daven baño ardao gueijago eraatia. Ta au
 edocein bere ardao generotan. Bada, guztiac dira, tertcijoti aurrera irago ezque-
 ro, juicijua galtcen daveenac. Cristinau guztiac ez dirian leez janian ta eranian
 bardinac, ecin imini lei guztientzaco neurri bat. Baña guztiac ezautu leije ta
 ezautu biar davee, nos dan laarregui. Ta jaquin daizun cristinaubac nos eraa- 565
 ten daveen biar dan baño ardao gueijago, iminten dira erreguela batzuc, cein-
 tzubetati ezaututen dan claru nos ordituten dan ardaua eran davena.

 (191) 2. 2, Q. 150.

540 Audala *Esk* | erabaguitenda *Esk* 540-541 ezbageunca *Esk* 541 illenbatzuc *Esk*
 542 Cereguitendau *Esk* | emondeutsan *Esk* 544 cereguindavendaqui *Esk* 544-545 cere-
 guitendaven *Esk* 545 cerasatendaven *Esk* | ezdamuba *Esk* 547 ezda *Esk* 547-548
 Augaiti *Esk* 548 Augaiti *Esk* 549 Augaiti *Esk* | eguindirian *Esk* 550 Augaiti *Esk* |
 ezaututendavela *Esk* 551 tragobat *Esk* | sartceiagaiti *Esk* 553 Icusidaigun *Esk* 556
 Ardao zaliac *Esk* | ustedavee: erandaveen *Esk* 557 ezdiriala *Esk* | vizidira *Esk* 558
 Erandaven *Esk* 559 eguindaveenic *Esk* 561 esatendavee, orditutiadala, biardaven *Esk* 562
 edoceinbere *Esk* 563 galtcendaveenac *Esk* | ezdirianleez *Esk* 564 iminilei *Esk* | neu-
 rribat *Esk* 565 biardavee *Esk* 565-566 eraatendaveen biardan *Esk* 566 imintendira *Esk* 567
 ezaututendanclaru *Esk* | orditutendan *Esk*

570 *Lelengo*, ardaua eran daven vijaamonian cer esan daven edo cer eguin
 daven, ardaua eran bagaric dauanian leez, [291] acordau ezin danian esaten da
 orditu dala. *Bigarrenian* esaten da orditu dala cristinauba, ardaua eran daija-
 nian, bestelan esaten ez dituban edo eguiten ez dituban gauzaac esan edo
 eguiten ditubanian. *Irugarrenian* esaten da orditu dala, eran bagaric dauanian
 leez, gauza onac eta chaarrac erabagui ecin ditubanian. Contu bat etarateco,
 575 cer eguingo daven esateco edo leenago eguindacuen errazoaia emoteco,
 ardauc juicijua laino artian leez naastauta iminten deutsanian ta burubagaz
 ondo erabagui ezin ditubala iminten davenian. *Laugarrenian* esaten da orditu
 dala, ardauc berbaac ondo erabagui ezin dituban moduban, miina laztu ta
 motelduten deutsanian. Bada, laarregui eranac ecarten dau tercijo atara.
 580 *Bostgarrenian* esaten da orditu dala, oñen gañian zuzen jua ezin dan tercijo-
 ra ta albo alboca eguitera, ardauc ecarten davenian. Ta baita icusten dituban
 gauzac, echiac eta arbolac eurecaturan balebilz leez, beguitanduten jaco-
 zanian bere. Bost erreguela oneetati ezautuco dau guizonac nai emacumiac, ia terci-
 joti aurrera ardaua eran daven edo ez; ta ia laarregui eranagaz pecatu eguin
 585 daven edo ez. Bada, guztietan eracusten da claru, nos illundu ta borreetan dan
 ardaugaz errazoiaren usuba. Ta errazoiaren usuba illundutia edo lañotutia era-
 nagaz, berez beti da pecatu mortala. Baña obetuago aitu daizun, esango do-
 tsut azquenian, celan pecatu eguiten dan jan eran laarreguijagaz.

[292]

III.

590 Inoc bere ucatu ecin lei, neure cristinaubac, orditutia pecatu dana. Ta ez
 edoecin bere pecatu, ezpada pecatu ezaina, lotsarizcua ta chito Jangoicua-
 ren gorroto andicua. San Pablo apostoluba azartuten da esaten (192), *ordijac ez*
daveela gozauc ceruco Erreñuba. Esan da ce mailecija daucan ordituti-
 ac, esan da cetan dauan orditutia. Baña orraitino bere esan biar da cerbait gueijago, nos
 595 eta celan pecatu eguiten dan ezaututeco.

Jazo leiteque, cristinaubari ardauc burura igotia ta peccaturic ez eguitia. Au
 izaten da, edo gorputzaldi chaarra daucalaco, edo jan zaarrian daualaco, edo

 (192) 1. ad Corinth. c. 6.

569-570 ceresandaven, edo cereguindaven *Esk* 570 ezindanian, esatenda *Esk* 571-572
 erandajanian *Esk* 572 ezdituban *Esk* | ezdituban *Esk* 573 Esatenda, orditudala eranba-
 garic *Esk* 574 ecinditubanian. Contubat *Esk* 575 cereguingodaven *Esk* 577 ezinditubala,
 imintendavenian *Esk* 578 ezindituban 579 ecartendau *Esk* 580 Esatenda, orditudala *Esk*
 | ezindan *Esk* 581 ecartendavenian *Esk* | icustendituban *Esk* 583 ia] ya *Esk* 584
 erandaven *Esk* | ia] ya *Esk* 584-585 eguindaven *Esk* 585 eracustenda *Esk* 587-588 aitu-
 daizun, esangodotsut *Esk* 588 eguitendan janeran *Esk* 591 edoecinbere *Esk* 592-593 ezda-
 veela *Esk* 593 Esanda *Esk* 593-594 Esanda, cetandauan *Esk* 594 esanbiarda *Esk* 595 peca-
 tueguitendan *Esk* 597 izatenda *Esk*

besteetan eraaten ez daven ardao generua dalaco. Alaco ocasinoe baten ustez
 uste bagaric eta acordau orduco ardao pusca batec guizona galtceia, ez dau 600
 inoc esaten pectu mortala dala. Ta endamas inos orditu ez oi dan personia
 bada. Beste ainbeste jazo leiteque, ardao guichi eran arren, berac gach eguitia
 ta menturaz egun bateco buruco mina ta gorputz aldi chaarra emotia. Onec
 bere, besteetan juicijua galdu bagaric eran oi daven beste eran ezpadau ta
 berac aintzat ez eucala galdu badau ardauc, ez dau pecaturic eguiten, pecatu 605
 mortalic ez beintzet. Bada, gauza bat da gorputzaldi chaarra daucalaco ardao
 pusca batec burura igotia ta gach eguitia ta beste bat da orditutia. Lelengua ez
 da pecatu, bigarrena beti. Eguija da, cristinaubac beti contuz eran biar dau
 ardaua. Ta, edo jan bagaric dauanian, edo bustita dauanian, [293] edo gorpu-
 tzaldi chaarra daucanian, edo ardao mudauba eraaten davenian, obeto begui- 610
 ratu biar deutsa bere burubari. Ta gach eguingo deutsana edo burura igongo
 deutsana daquijela eraaten badau, gauza guichija izan arren, pecatu eiten dau.

Osterantzian, cein guizonac eta cein emacumiac, leenago esan dirian bost
 erregueletati baten nai baten tercijora eldu artian eraaten badau edocein bere
 ardao genero, eguiten dau pecatu mortala. Bada, guztietan eta bacochian imin- 615
 ten dau cristinaubac bere buruba errazoiaren usu osua bagaric ta eguiten deu-
 tsa caltia osasunari. Eria daven guztian edo sarritan ordituteco oitura inpamia
 daucan guizona edo emacumia, beti dago pecatu mortalian ta inoc bere asol-
 bidu ecin lei, erremedijau artian edo orditutiari isteco berba pirmia ta senalliac
 emon artian. Ordituten danac ez deutsa gach bat bacarric ecarten bere burua- 620
 ri, ezpada asco. Galtcen dau errazoiaren usuba ta gueratuten da alemanijaren
 guisan. Galtcen dau osasuna ta iragoten dau gau chaarra ta vijamoneco buru-
 co mina ta gorputzeco aguinteric eza. Galtcen dau arimia; bada, esan dan leez,
 ordituten danac eguiten dau pecatu mortala. Galtcen dau [294] aciendia; bada,
 gauza jaquina da, ordijac premina bagaric eta modu chaarrian asco casteetan 625
 davena. Ez dago beguiratu baño, ordijac ce ichuratarara ecarri ditubeen euren
 echiac, aciendiac eta pamelija. Galtcen dau bere cleituba; bada, umeetaraño-
 co guztiaac barre ta burla eguiten deutsee ordijari. Auzuac ez davee ordiric gura
 izaten inporta daven gauzataraco. Errijac bere ez deutsa ardaucan jausten dan
 guizonari, entzutia daucan opicijoric emoten, nora ezian edo suertian baño. 630

600 puscabatec *Esk* | ezdau *Esk* 601 ordituezoidan *Esk* 602 Jazoleiteque *Esk* 603
 egunbateco 604 galdubagaric *Esk* 606 ezbeintzet *Esk* | batda *Esk* 607 puscabatec *Esk*
 607-608 ezda *Esk* 608 eranbiardau *Esk* 611 biardeutsa *Esk* 612 eitendau *Esk* 614 edo-
 ceinbere *Esk* 615 eguitendau *Esk* 615-616 imintendau *Esk* 616-617 eguitendeutsa *Esk* 620
 ezdeutsa *Esk* 621 Galtcendau *Esk* 622 Galtcendau *Esk* 623 Galtcendau *Esk* | esandan
Esk 624 orditutendanac eguitendau *Esk* | Galtcendau *Esk* 625 jaquinada *Esk* 626
 Ezdago *Esk* | ecarriditubeen *Esk* 627 Galtcendaubere *Esk* 628-629 ezdavee ordiric gura-
 izaten *Esk* 629 ezdeutsa *Esk*

Galtcen dau baquia; bada, senarra edo semia ordituta doian echian nequez pal-taco da aguiraquia ta baque charra.

Enpin contau ecin leiz guizon ordijaren pecatubac. Ardaua aora daroianian uste dau, dino san Lore[n]zo Justinianoc (193), artcen davela eztija ta sabelian
 635 sartu daijanian, bieztuna ta verenua da. ¡Oh, ordi tristiciac eta desventuraubac!
 ¡Oh, ezautuco bacendu ceinbat calte ecarten deutzazuzan ceuben arimiari, ceu-
 ben baquiari, ceuben cleitubari, ceuben aciendiari ta ceuben osasunari! Ta gui-
 zon ordijac onaco ichura charra ta lotsaarizcua badauca, emacume eraaliac
 640 milla bidar charraua dauca. [295] Emacume ardaozialiac, euqui leizan gauza on
 guztjac galduta daucaz edo galtceeco arriscu aguirijan daucaz. Orregaiti esaten
 dau Espiritu Santubac, emacume ordijac ez davela ezcutauro bere desondria ta
 desonestidadia. Berba oneetan esaten dau, emacume ordija desondrauba ta
 desonestuba dala. Ta onen gañera esaten dau, ordija izan ezquero emacumia,
 ez davela ezcutauro bere desondria ta desonestidadia; aguirico dala, ezaguna
 645 izango dala, publico izango dala emacume ordijaren desonestidadia ta deson-
 dria. San Juan Crisostomoc dino (194), ecer bere ez dauala loijagoric eta tor-
 piagoric emacume ordija baño. San Geronimoc, Clemente Alexandrinocuac eta
 beste Elexaco maisubac (195) esaten davee²⁰², guztiz dala loija, guztiz dala atsi-
 tuba, guztiz dala ziquina emacume ordija. *Nihil turpius. Nihil foedius.*
 650 *Admodum turpis.*

Erroman euqueen legue bat, echian ardaua eraaten evan emacume ezcon-
 duba, adulterazat castiguetaco aguinduten avana (196). Mecenac ill evan bere
 emaztia, ardaua eraaten evalaco ta juezac ez eutseen carguric artu, ill evalaco
 (197)²⁰³. Lucio erreguiac beste ainbeste eguin evan bere emaztiagaz, dino

 655 (193) Cap. 11. de humil. (194) Hom. 71 ad popul. (195) A Lapd., in Eccles.,
 c. 26. v. 11. (196) etc. id. ibid.

631 Galtcendau *Esk* 632 baquecharra *Esk* 634 ustedau *Esk* 639 millabidar *Esk* 640
 galdutadaucaz *Esk* 641 ezdavelaezcutauro *Esk* 642 emacume| emacumu *Esk* 644 ezdave-
 la *Esk* 646 Ecerbere ezdauala *Esk* 647 ordijabaño *Esk* 648 esatendavee *Esk* 651 legue-
 bat *Esk* | eraatenevan *Esk* 653 illevalaco *Esk*

²⁰² Frai Bartolomek Eliz Guraso batzuk aipatzen baditu ere, zeharka egiten duela uste dugu, hau da, aipu hauek, ziur aski, obra honetan aurkituko zituela: CORNELIUS A LAPIDE, *Commentaria in Ecclesiasticum...*, Ludguni, 1732, 458.or.

²⁰³ Frai Bartolomek 4 zenbakia jarri zuen kako artean, baina gero ahaztu egin zitzaion azpi-
 ko oharrean aipamena jartzea, hau da, aureko oharrean "id ibid" idatzi zuen. Izan ere, erre-
 ferentzia historikoa hark aipatutako liburuan aurkitzen dugu: CORNELIUS A LAPIDE, *Commentaria in
 Ecclesiasticum...*, Ludguni, 1732, 458.or. Frai Bartolomek "Mecena" idazten du; latinezko testuan
 Mecennius" da.

Arnadioc²⁰⁴. Guztien eichijan eguija da, emacume ordijac senarrari pedia gordeco ez deutsana; zaarra bada, verdia ta pecatu estalguilia izango dana; ta gaziata bada, galduba.

[296] ¡Oh, cristinaubac, beguiratu ceuben arimaac gaiti, vicijo inpame oni lecu 660
 emon baño leenago; bada, beragaz daczac beste pecatu genero guztiac. Emacume ordija daucan echiac edo errijac diabru baten truque emon al balei edo quendu al balei, tratu ona eguingo leuque nire eichijan. Bada, diabrubaganic apartau gueintequez erreztu; baña ecin erremedijau leiz emacume ordijaren caltiac. Ta onegaz acabetan ditut lelengo partiaeren lecinoiac. Escatcen 665
 deusac vijotz osuagaz Aita Eternuari misericordija, Seme Divinuari bere pasinoe santuco merecimentubac, Espiritu Santubari caridade vizija, Ama Virginia guztiz santiari laguntasuna, ainguerubai socorruba, santubai erregubac ta zubei guztioi ceuben oracinoe garbijac eta eguijazcuac, Elexa Ama santiaren pedia- 670
 gaz, esperantziagaz ta caridadiagaz entreguetaco Jangoicuari gueure arimaac ta equiteco ceruban eternidadeco vizitza dichosua. Amen.

Lelengo partiaeren despedia.

O. S. J. S. R. E. C. A.²⁰⁵

658 ezdeutsana *Esk* | izangodana *Esk* 662 albalei *Esk* 663 albalei *Esk*

²⁰⁴ Erreferentzia hau aurreko oharrean aipaturiko Cornelius-en liburuko orrialde berean dugu.. Baina Frai Bartolomek berak edo kopiatzaileak aldatu egin zituen izenak; esaterako, Arnodio jartzen du Arnobio-ren ordeztu eta Lucio, Lacio-ren ordeztu... Ondorengo testu hau ere ongi ezagutu zezakeen hark: "Eadem de causa fatuam Fauni regis Latii uxorem, a marito virgis caesam usque ad mortem, narrat Arnobius l.5. contra Gentes".

²⁰⁵ O. S. J. S. R. E. C. A. Esaldi honen hasierako letrak dira, ziur aski: *Omnia Sub Iudice Sanctae Romanae Ecclesiae Catholicae Apostolicae*.

[297]

Liburu onetaco dotrinen topa lecuba

I. Dotrinia. Dotrinia icasteco preminiaren gainian (p.1.)

5 II. Dotrinia, ceñetan espliketan dan mundubaren asieria, guizonaren noblecia ta cristandadiaren balijua (p. 15)

Lelengo Mandamentuba

III. Dotrinia. Mandamentubac cer dirian. Ceinbat modutacuac dirian. Jangoicuaren legueco mandamentubac zeintzuc dirian, eta nos asi cirian. (p.27)

10 IV. Dotrinia. Lelengo mandamentubac cer aguinduten doscun, ta celan biar dirian pedia ta esperantzia Jangoicua ameataco. (p.38)

V. Dotrinia. Celan dan Jangoicua guztiz maitegarrija, ta cegaiti. (p.49)

VI. Dotrinia, ceñetan eracusten dan; amau biar dala Jangoicua gauza [298] guztiac baño gueijago, Lauba, Andija ta Indartsuba dalaco (p. 62)

15 VII. Dotrinia, ceñetan eracusten dan Jangoicua dala adisquide pirmia, emonzallia ta parcazallia. (p.73)

VIII. Dotrinia, ceñetan eracusten dan, Jan[goicua] dala adisquide biguna, carinosua, guztien eracua ta beticua. (p.85)

20 IX. Dotrinia. Gueure burubac celan amau biar ditugun, ta gueure proximuac nortzuc dirian. (p.96)

X. Dotrinia. Cer dan proximua ameatia, ta ce ordenagaz amau biar dan. (p.108)

XI. Dotrinia. Gueure arerijuai zor deutsegun amodijuaren gainian (p.118)

Bigarren Mandamentuba

25 XII. Dotrinia. Cer dan juramentu [299] eguitia. Juramentu nos eguin biar dan, ta juramentubaren beian aguindutaco gauzaac, celan cunplicu biar dirian. (p.132)

30 XIII. Dotrinia. Guzurrezco juramentubac ce injurija andija eguiten deutsan Jangoicuari. Ta juezaren aurrian guzurrezco juramentuba eguin davenac, ce obligacinoe daucan. (p.143)

XIV. Dotrinia. Cer dirian votuac edo promesac. Celan cunplidu biar dirian, ta celan quentzen dan euren obligacinoia. (p.154)

8 asicirian] asicicirian *Esk* 10-11 biardirian *Esk* 21 biardan *Esk* 26 biardirian *Esk*

Iruarren Mand ^{ba}

XV. Dotrinia. Ce biar eraozten doscun Jangoicuac domequetan ta jai osuetan. Celan eraozten daven, ta ce necesidadegaz biarra eguin leijan egun areetan. (p.165) 35

XVI. Dotrinia. Cer dan mecia. Ceintzuc dirian meciaren parteric [300] nau-tsijenac. Nortzuc dauqueen mecia entzuteco obligacinoia, ta celan entzun biar dan. (p.176)

XVII. Dotrinia. Ia domeeca ta jai osuetan asco dan meza osua entzutia, biar-ric ez eguitia ta pecaturic ez eguitia, egun santu areec Jangoicuac aguinduten daven moduban gordeetaco. (p.190) 40

Laugarren Mandamentuba

XVIII. Dotrinia. Aita Santu Erromacuari, erreguiari, juezai, etc. zor deutseguna cer dan. (p.201) 45

XIX. Dotrinia. Ceintzuc dirian gurasuac, asco ainzat artu bagaric, laugarren mandamentubaren contra eguin oi dituben pecatubac. (p.211)

XX. Dotrinia. Seme alabac gurasuai zor deutseen ondria ta obediencia. (p.221)

XXI. Dotrinia. Ugazabac otseguinenzat eta otseguicac ugazabenzat dau-quezan [301] obligacinoiac. (p.230) 50

Sermoia. Guraso ume gaituac dauquezanen consolagarrija. (p.239)

Bostgarren Mandamentuba

XXII. Dotrinia. Norberaren vizitzia gaiti proximua il leijan, ta celan. Descuido-zco erijotzac pecatu dirian, ta nos. Bata bestia joteco ocasino[i]etan sartcen dirianac, celan pecatu eguiten daveen. (p.263) 55

XXIII. Dotrinia. Ia cleituba gaiti, onestidadia gaiti edo ondasunac gaiti inor ill leijan. (p.271)

XXIV. Dotrinia. Indarrac proveetan davizanac eta codicija gaiti gorputzari tratu chaarrac emoten deutseezanac, celan pecatu eguiten daveen bostgarren mandamentubaren contra. (p.278) 60

XXV. Dotrinia. Nos eta celan ordijac pe-[302]catu eguiten daveen. (p.286).

40 Ia] Ya *Esk* 41 ezeguitia *Esk* | ezeguitia *Esk* 44-45 zordeutseguna *Esk* 48 zor-deutseen *Esk* 54 Norberaren] Nobreraren *Esk* | illeijan *Esk* 57 Ia] Ya *Esk* 59 codici-jagaiti *Esk*

**JAUNGOICUAREN
AMAR AGUINDUBEETACO
LELENGO BOSTEEN
ICASIQUIZUNAC**

SARRERA

Sarrera orokorrean egina dugu liburu honen deskripzioa (*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac*, Iruñea, 1816, X - 278 - 32 or., 18'5 x 12'7 cm); Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen den eskuizkribuarekin duen zerikusia ere, bai eduki aldetik eta bai hizkuntza aldetik, argitua gelditu da (9 / 2549).

Igandeetako hitzaldi-liburu honek Jainkoaren legeko hamar aginduetariko lehenengo bosten azalpena dakar eta sermoi bat azkenean, Eskuizkribuan lau-garren aginduaren amaieran ezartzen duena. Bost aginduak, gero, hainbat Ikasiquizunetan sailkaturik daude; guztiz, 26 Icasiquizun.

Agindu bakoitzari dagokion kristau-bizitza moralaren azalpenak dira; edukia argi-argi azaltzen du, bere irakatsia Eskritura Santuan, Eliz Gurasoengan eta bere garai inguruko autoreengan oinarriturik.

Hitzaurrean argi jartzen du nori zuzendua den liburua: "Eusqueera errijeetaco eleisa-guizonai". Kristau-herriarentzat helburu pastoral eta moralaz egindako hitzaldiak dira. Eta helburu horretan hain ongi asmatuak eta hain harre-ra ona izanik, Kalahorrako apezpikuak bere eskumeneko herri euskaldunetako bikarioek pulpitutik irakurri zezatela agindu zuen 1818ko urtarrilaren 8an: "habiéndose publicado en nuestros días dos Obras impresas en lengua Basquenze, una en Bilbao, por el R.P.D.F. Pedro de Astarloa de la Orden de Sn. Francisco, y otra en Irun [Iruñea], por el R.P.F. Bartolomé de Sta. Teresa, Carmelita Descalzo, las cuales contienen Pláticas Doctrinales y Morales, en que se explican con mucha claridad y solidez las quatro partes de la Doctrina, acomodadas a el uso de los Párrocos" (KEA).

1802. urteaz gero gutxienez, Frai Bartolome Markinako Karmengo sermolaria zen. 1807ko datarako, liburu bat prest zuen argitaratzeko (Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen den eskuizkribua), hitz egiten ari garen *Icas-I* liburuaren aurrekoa zena eta idazketa desberdina zuena. Hain zuzen ere, 1816ko maiatzaren 20an jaso zuen baimena karmeldarren nagusiengandik *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburutxo argitaratzeko, eta beste idazki bat agertu zuen: "y se presentaba un escrito de pláticas doctrinales" (MBN, Esk. 1650, *Libro de los definitorios Generales...* 4.or.); ziur aski Icasiquizunac honetako hitzaldiena izango da.

Icasiquizunac I liburua 1816an argitaratu zen; 18 erreal balio zituen. Liburuaren amaieran 11 lerro datoz, inprimategiko 11 huts zuzentzeko “*Uts-eguiteen ezauberia*” jartzen duela. Baina, izatez, inprimategiko hutsak askoz ere gehiago dira, irakurleak aparatu kritikora begiratu egiazta dezakeenez; inprimategiko 117 huts garbi aurkitu ditugu.

Euscal-errijetaco olgueeta... liburutxoak hainbat argitaraldi izan baditu (1816, 1904/1914, 1978, 1986, 1987, 1995 disketean) eta, beraz, nahiko ezaguna izatera iritsi bada, *Icasiquizunac* saileko hiru liburuak, ostera, ez dira hain ezagunak izan, ezta erabiliak ere... Egia da, pertsona adituek eta hizkuntzalariek ezagutzen eta erabiltzen dituzte irakaskuntzan, baina hauek ere nahiko mugaturik izan dira haietaz baliatzeko...

Eskuizkribuari egin diogun sarreratxoan esaten denez, guk geuk testuan egindako aldaketak aparatu kritikoan adierazten ditugu, puntuazio-markak eta maiuskulak eta minuskulak... izan ezik; hitzen lotze-banatzeak ere adierazten ditugu. Aparatu kritikoan testu originalari *Ba* (Bartolome) deitzen diogu. Aldaera azpimarragarrienak edo hutsak,] ikurraz adierazten ditugu.

Ohar batzuetan, Esquizkribuko oharretara bidaltzen dugu irakurlea, kasu horretan ukitzen diren gai historiko nahiz linguistikoak berdinak direlako batean eta bestean; hau da, bien idazketak guztiz desberdinak izan arren, gauza askotan bat datoz, bai testuari dagokionez eta bai bibliografia eta abarri dagokionez.



JAUNGOICUAREN¹
AMAR AGUINDUBEETACO
LELENGO BOSTEEN
ICASIQUIZUNAC,
AITA PRAI BARTOLOME SANĀ
Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco
Predicadoriac ateraac.

I. ZATIJA

* * * * *

Biar dan ondo izatiagaz.

- - - - -

Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan.
1816 Urtean.

¹ Hemen Frai Bartolomek *Jaungoicoaren* idazten du, baina argi dago inprimategiko hutsa dela, gure idazleak ez baitu egundo *Jaungoicoa* idazten, *Jaungoicua* baizik...

JAUNAC

Ceubeen cereguin altubac ta santubac berez escatuten dau, nic, guztien artian otseguinic chicarreenac, Jaungoicuaren Amar Agundubeetaco leleengo zatijaren *Icasiquizunac* ceubeen escu jaquituneetara ta bedecatubeetara zucendutia. Eusqueera-Erri guztietan argui eguin dau ta eguiten dau ceubeen Evangelijoco zelo eguijazcuac ta iracatsi garbijac. Erri zorijoneco oneec badira chito entzute andicucac, bai Europan ta bai ezaututen dan mu[n]du zabalian eureen jaquiturijan, legue-guintzaan, asmo barrijeetan, alcar zaintzaan, guerra-guintzaan, sendotasunian, iraunzalian, odol noblian ta verbaco izatian, oraindino arguijaco, icusgarrijago ta entzunago dira ceruco sinistute zucenian, evangelijo santuco esanian, cristindadeco eracutsi garbijan, Eleisa santiaren eguinbiarrean osotasunian, arimeen oneraco oitura jaquinac ta ceruti jatsijac gordeetan ta izate bacarreco ta iru personagazco Jaungoico eguijazcua, Jesus, gueure betico dicha ona gaiti guizon eguina, onen Ama Virgina guztiz santia ta maitegarrija, ainguerubac ta santubac, guztiai ta bacochari jagocuen ta Eleisa Ama santiac beti eracutsi daven nai prestagaz, zalagaz, humildiagaz, zintzua-gaz ta [IV] esquer onecuagaz ondreetan, serviduten ta maitetuten.

Santiago zorijonecuac² ta aren ondorengo obispo santubac ordu onian gueure leenagoco gurasuai ecarri eutseen ceruco sinistute eguijazcua, gaurco egunian gordeetan da Espainaco baztar entzun onetan, leleengo sartu zanian baixen sustraitsuba, arguitsuba, zucena, egulia ta vitzija. Euscal-erri jaso onetan ez dau inos illunaren aguintarijac, sinistute gaistuaren azija ereinda, pruturic artu. Ez dau gueure erri idalgubeetan inos oinic gueratu³ ez judeguc, ez moroc, ez heregec, ez Jaungoico-bagacoc, ezda, entzute oneco ascoren erichi-

6 eguidau, ta eguitendau *Ba* 9 Asmobarrijeetan *Ba* 13 eguin biarreen 21 sartuzanian *Ba* 23 ezdau *Ba* 24 Ezdau *Ba*

² Ik. *Esku*-ko 5. oharra (510.or.).

³ Ergatibo mugagabearen erabilera behin eta berriro aipatua dugu sarrera orokorrean eta *Esku*-ren oharretan (ik. *Esku*-ko 26. oharra). Bestalde, "oinik gueratu" esamoldea ezin hobeki dator nahi duen ideia adierazteko; "gueratu" aditz iragankorra da hemen.

jan (1), Jaungoico ascodunec bere⁴. munduco baztar guichic contaucó davee aimbeste guiza alditan illun une bagaric, lausotu bagaric, naastau bagaric, beti ziatz, beti zintzoro, beti pirme, beti bardin ta beti garbiro gorde daveela Jaungoico bacarraren sinistute ta ondra eguijazcua. ¿Nori zor deutsa, bada, euscaldunac, cerubaz ostian⁵, bardin bagaco dicha Santa au cura jaunai ta eleisaguizonai baino? Ceubec, Jaungoicuaren urreengo luurreco otseginac zaintu, gorde ta jasoten dozu cristandadeco eguinbiar gracijazcua euscal-errijeetan. Ceubec Jaungoicuaren verbiagaz janarija emoten deutzazu Jesucristoren ardi aldra oni. Ceubec eracusten deutzazu Jaungoicuari, lagunari ta norberari zor
 30 deutzana. Ceubec alderatuten dozu otso deungueetati. Ceubec osatuten dozu gaixotuten da-[V]na. Iracoi⁶ dozu jausten dana. Billatuten dozu galduten dana. Sendotuten dozu argalduten dana. Aurreratuten dozu zutunic daguana. Ta caridadiaren orijuagaz igortzita, viztuta, poztuta, cansau bagaric lagunduta, presteetan dituzu guztien arimaac, ceruco eche santuban beti dichoso izateco.
 40 Nire pozic andijeena izango litzaateque, jaunac, ceubeen eguinbiar altuban, jaungoicozcuan ta pisutsuban celambit lagundutia. Icasiquizun oneetan ezagun da nire opa⁷ ona. Uste dot oni gueijago beguiratuco deutzazula eureen paltai baino. Onegaz artuco dau neurri bagaco atseguina ceubeen capillau humilde ta prestu Prai Bartolome Santa Teresa, Carmelita Ortotzac.

45 -----
 (1) Tert., *apolog*, c. 16. Manero ibid.

29-30 euscaldunac] ezcaldunac Ba 32 eguin biar Ba 37 aurrera tuten Ba 38 cansaubagaric Ba 40 andijeena Ba audijeena | ceubem Eguin biar Ba 44 Carmelita] Carmilita Ba

⁴ Frai Bartolomek apologisten iritzia jarraitzen du hemen; hau da, kristautasuna baino lehenagoko antzinako monoteismoa, Estrabonen esaldi ilun samarrak eraginda, batetik (*Geographica*, 3, 4, 16...). (Ik. J.H. OZAETA, *La Cantabria vindicada y demostrada...* Madrid, 1779). Bestetik, oinarri onik gabe zabaldu ziren iritzietatik dator; horren arabera, apostoluen garaian Santiagok, Saturninok eta abarrek ebanjelioa aldarrikatu zuten iparraldean; Tubal izan zen Kantabria eta Bizkaiko lehen bizilaguna...; Jainko bakarraren gurtza; euskara Espainia osoko hizkuntza... Ik. Antonio NAVARRO DE LARRATEGUI, *Epítome de los Señores de Vizcaya*. Turin, 1620 (Madrid, 1704); E. GARIBAY, *Los quarenta libros del compendio historial...* (Barcelona, 1628), lib.4, cap. 4, (1,76-78); Gonzalo OTALORA, *Micrología Geográfica del asiento de la noble Merindad de Durango*, Sevilla, 1634; G. de HENAO, *Averiguaciones...* 1. t, Salamanca, 1689, 2-12.

Frai Bartolomek Tertuliano aipatzen digu hemen: "Apolog. c.16". Izan ere, Tertuliano bere "Apologeticus adversus gentes pro christianis" laneko 16. kapituluan, gezurrezko jainko eta abarrez hitz egin ondoren, honako hau dio: "Siphara illa vexillorum et cantabrorum stolae cruce sunt"...; hala ere, *cantabrorum* delako horren esanahia ez da guztiz ziurra (PL, Migne, 1, 424-425).

⁵ "Cerubaz ostian" esamoldeak Jainkoaz gainera, Jainkoaren hurrengo... esan nahi du; "ceruba" hitzak, hemen, Jainkoa adierazi nahi du. (Ik. 255 eta 288.or.).

⁶ "Iracoi": jaso.

⁷ Gurari, desira (ik. 338.or.).

[VI]

IRACURLIARI

Icusiric, iracurlia, zariana zariala, ez daucazula ceure eusqueeran pulpitan esateco cer iracurriric entero guichi baino, gogoratu jatan, cristinaubaren ERA-CUTSICO lau zatijac pulpitoti esateco edo prediqueetaco Icasiquizuneetan imini biar nitubala. Adisquide ascoc aurreratu navee sail oni equitera. Esaten 50
even, chito asmo ona zala. Ta onera jaquinecua euscal errijetaco cura jaun ta eleisa-guizonentzat. Neuc bere (sinistu daiquezu, iracurlia, baderichazu) ondo nerichon eguitiari, al izan ezquero. Baina ceimbat gueijago asmaubago⁸ sail onetan, aimbat gachago ta aldatsago beguitanduten jatan. Cristandadeco eracutsijaren lau zatijac pulpitoti esateco edo prediqueetaco duinaan, tercijo 55
baten, icasiquizuneetan edo platiqueetan edo sermoetan imintia, eguiia esateco, ene alizatia baino lan andijagua da. Eurac cerbait alcarri iraatsi arren, arguitara ateratiac cereguin⁹ dauca. Asco castau biar da. Ta menturaz guichi edo bat bere ez saldu. Icasiquizunac eurac alan alanguac. Ez, urrineti bere, biar leuqueenac. Eusqueeran liburu eguitia, marquetia edo ondo letratutia¹⁰, asco 60
costata bere, sarri uts eguin. Salduteco mercatari guichi. Euscal Erriac campo laburrac. Eusqueria ez daquit celacua. Ta liburu bacocha popuertza goria¹¹. Aldats oneec guztioac era batera datoz neure burura, neure asmuaren sailari jarraituteco.

[VII] Alan bere, asi bagaric ecer eguiten ez dala sinistuta, jarri nas 65
Jaungoicuaren amar aguindubeen leleengo zatija edo partia ogueta sei icasiquizunetan arguitara ateratera. Au aintzat artuten badozu, iracurlaac, laster ateraco da bigarren zatija¹². Baita aren ondoric *sacramentubac*, *credua* ta *aita gueuria* bere. Baita guero (cerubac lagunduten badeust) Jesucristoren ta Ama Virginiaren gracijazco jazuen ondraraco, santubeen ondo esaneraco ta arimeen 70

47 ezdaucazul a *Ba* 50 aurreratu| aurretu *Ba baina* aurreratu *uts-eguite ezauberian* 53
alizan *Ba* 55 lauz atijac *Ba* 58 cer eguin *Ba* | biarda *Ba* 62 ezdaquit *Ba* 65
ezdala *Ba* | jarri nas| jarquinas *Ba* 66 Jaungoicuaren| Jaungoicoaren *Ba*

⁸ Begira konparaziozko “ceimbat gueijago asmaubago” horri. *Ceimbat ... aimbat* darabil, gaur egun, beharbada, “zenbat eta gehiago asmatu... hainbat...” idatziko genukeena. Baina gure idazleak ez du egundo egiten “zenbat *eta*” bezalakorik, ezta “arik eta” bezalakorik ere; bai, ostera, “arian da” bezalakoak...

⁹ Bitxi gertatzen zaigu hori horrela idatzirik; guk era mugatuan jarriko genuke: *...zeregina dauka / zeregin handia dauka*, edota mugagabeen izatekotan: *hainbat zeregina dauka...*

¹⁰ “Letratu”: letraz hornitu, inprimatu.

¹¹ Garestia esan nahi du; “gora” izenondoa, era mugatuan “goria”, hau da, altua.

¹² Ik. *Esku*-ko 6. oharra (511.or.).

oitura oneraco *sermoiac* bere¹³. Oneen guztion biarric gacheena eguinda daucat neure moduban. Banequi ceubeen gogoco izango litzaatequezana, ez nintzateque luzaro gueldi egongo. Zati onen azquenian imini dot sermoe bat, euqui daguizun, iracurlaac, beste ateraco nituquianen ezagun garriztat. Sermoe
75 guztiz orraztu baten zatijac ta zatijeen zatijac ez badaucaz bere, izate oin onecua, ituraco sailaren zuentasuna, errazoiaren indarra ta eracutsi elduba ez ditu palta. Cerbait luce badago, a laburrago ateraten errazago da.

Icasiquizunac berarjaz imini ditut laburchubac. Domeeca guztietan esan edo prediqueetan diriala, luce baino laburchubago oba¹⁴. Gogo prestaguagaz
80 esan, pozaagoric entzun ta erraztuago icasi. Alan esaten deutsee cura jaunai Valero, Toledoco artzobispo jaquitun¹⁵, zelotsubac (2): Ez ditezala entero luciac izan eureen *platicaac* edo icasiquizunac. Oneec dauqueen ornidurijan, esan eraan ta [VIII] eracutsijan, oba balitz, erraz luzatuco nituque bestiac. Osterantzian, palta asco dauqueena neuc dacust. Beste edoceinec gueijago
85 topauro deutseez. Ta errazoiagaz. Uste badozu, iracurlaac, verba guichigaz ta eurac ondo toloztuta, Escritura Sagraduco loraz apainduta, Eleisaco Gurasuen ta batzaarren esanez edertuta, jazo jaquineen gracijaz gozatuta, errazoe arguijaquin sendotuta, campo andico eracutsijac ta erabaguijac esan biar diriala icasiquizun labor bacoedian, nic ezin negui. Ordu lauren ta erdi edo ordu erdi
90 buruti daucan icasiquizuna, atan asi ezquero, guztia juat niri ecer eracutsi baga-

(2) Cart. Past., num. 261.

74 daguizun] daquizun *Ba* 75 ezbaducaz *Ba* 76 ezditu *Ba* 81 Ezditezala *Ba* 83 balitz, erraz] balizt, errazt *Ba* 85 guichigaz] gnchigaz *Ba*

¹³ Frai Bartolomek argitaratzeko asmoa zuen sermoi-liburuaren aipamen garbia dakar hemen; izan ere, ordurako (1816), eta ziur aski aurreko urteetarako ere, prestaturik izango zuen sermoi-liburu hau. Bila eta bila han eta hemen jardun arren ezin aurkitu izan dugu inola ere. Haren idazkietan izan den galera handietariko bat dugu hau.

¹⁴ Frai Bartolomek gaztelaniazko hainbat liburu ezagutzen zituen igandeetako hitzaldienak; haietariko batzuk berak erosiak dira, edota berak jarritako oharra dutenak, Markinako Karmengo liburutegikoak direla esanez. (Ikusi liburu horien bibliografia Sarrera orokorreko 456kooharrean, 164-165.or.). Izan ere, liburu hauetariko batzuk esku artean hartuz gero, esaterako, (P. ELISEO, *Sermones...*) 40-45 orrialde inguruko hitzaldiak direla ohartzen gara; (Luis BOURDALUE) 30 orrialdekoak gutxi gorabehera; (J.B. MURCIA) 25-30 orrialde ingurukoak...; Frai Bartolomerenak, ostera, 10 orrialde ingurukoak dira hitzaldi edo "*Icasiquizun*" bakoitza. Gure idazlea bere esateko eran ez bakarrik dugu erakargarri eta interesgarria, baita kontu handikoa ere luzeegi ez izateko, entzuleak gehiago entzuteko gogoz gera daitezen...

¹⁵ Francisco Valero y Losa, Toledoko artzapezpikua (Villanueva de la Jara 1715 - Toledo 1720). 1715ean Toledoko Artzapezpiku izendatua. Erljio-gaien ezjakintasunari buruz idatzitako gutun pastoral garrantzitsu bategatik ospetsu egin zen; sermoigintzaz edo Jainkoaren Hitza aldarrikatzeaz batez ere irakatsi ederrak eman zituen... (Ik. DHEE, IV, 2705). Hain zuzen ere, gutun horretaz dihardu Frai Bartolomek.

ric. Beste palta chicarraguac, nai esan moduban, nai eureen ornidurijaan, edo ceini entzungo neusquijoz esquer onagaz. Baita eria datorrela, bestiac obatu-teco arduria artu bere.

Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apain-dubeena, ederreena ta eztiatsubeena izan ez arren, izan leiteque, euscaldunen baztar bateti bestera eche guztietan dei eguinda, iragota, cer nai daven onduen zaarrai ta gaztia aituco deutseena ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Naparruan, Quiputzetan ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeetan. 95

Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira^{15a} gueure erruz, ervesteti etorrijac. Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc eleisa guizonoc ver-[IX]ba ascotan naastau ta ezaindu dogu eusqueria. Gueuri entzunda daquijeez baseerrijetacuac *Jaungoico omnipotentia, poderosua... Virginia clementi - simia... misericordijosa... mandamentubac... absolvicinoia... doloria... errestitucinoia...* ta beste onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ez daquijeen euscaldunac, eureen echeetan ta artu emoneetan biar daveen guztia, esaten davee eusqueera garbijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gaistuac. Ez da au eusqueeraren erruba, ez bada gueuria. Ta, ain dauqueez ya artubac erdeera edo latin verba batzuc, ece euraquin ez bada, aituten ez davee ondo dotrinia edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste verba batzuc icasiquizuneetan. Bada, cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia leenago da verbeetan eracustia baino. Aleguinaz ta derichadanez, guichitu ditut asco. Ta gueijago guichitu gura nituque, asmau¹⁶ dodan saila amaitu orduco. Oituco baguina gueu, eleisa-guizonoc, Larramendi¹⁷, Cardaveraz¹⁸, 110 115

97 naidaven Ba 99 jazozat Ba 101 ugarira| ugarida Ba 106-107 ezdaquijeen Ba 109 Ez da Ba | ya| ija Ba 110 ez bada Ba | ezdavee Ba

^{15a} Testu orijinallean “ugarida” dator, baina argi dago inprimategiko hutsa dela eta “ugarira” izan behar duela, adlatibo kasua baita.

¹⁶ “Asmau”; hainbat adiera izan ohi ditu, baina hemen “sortu”, “moldatu”, “egin”... adierazten du.

¹⁷ Manuel Larramendi (1690-1760). Euskarari buruz ari denean Larramendi aipatzen digu; honek euskarazko idazkirik gutxi baino izan ez arren (adibidez, S. Mendibururen *Euscaraz era custen duen Jesusen Bihotzaren devocioa* 1747ko liburuari hitzaurre luze bat egin zion Larramendik, eta hau L. Mitxelenak euskal prosaren eredutzat hartzen duena da, ik. Historia de la Literatura Vasca, Madrid, 1960, 94.98), euskararen gaia aztertuz asko idatzi zuen; Frai Bartolomek Larramendiren obra hauek ezagut zitzakeen batez ere: *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España...* Salamanca, 1728, 170 or.; *El imposible Vencido*. Salamanca, 1729, XXXVI-404 or.; *Diccionario trilingüe Castellano, Bascuense y Latin ...* 2 t., San Sebastian, 1745; *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria ...* Madrid, 1736, XLII-420 or.; etab., eta berari ezartzen zaien euskarazko idazkia (S. Mendibururena dela badirudi ere): *Icasbidea christauen doctrina...* Burgos, [1747]...

¹⁸ Agustin Kardaberaz (1703-1770); Frai Bartolomek Kardaberaz euskara eta haren irakatsiak goraiatzat ditu; jesulagun ospetsu honen obra ugari ezagutuko zituen ziur aski: *Christavaren bicitza ...* Iruña, 1760, 389 or.; *Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac...*, Iruña,

Mendiburu¹⁹, Moguel²⁰ ta beste euscaldun garbijac iracurtera ta areen erara gueure sinisquizunac ta eguizunac verbeeta garbijan pulpitan ta ostian cristinaubai eracustera, arin ervestetuco litzaatequez gueure eusqueera maitia ta aberatsa ezaindu ta lotsatuten daveen urrin errietaco verba banacaac.
 120 Astarloa²¹ bat, Ervas²² bat, Erro²³ bat ta beste jaquitun asco jagui ez balira gueure eusqueera jausija iracoitera, uste dot, gueuc galduco gueuntsala las-[X]ter bere ontasun ta edertasun guztia.

Eguiija da, Jesucristo, gueure Jaunagan sinistutia ta ari darraicon guztia dan leguez chito barrija eusqueriagazco, gueure cristinautzaco gauza barri ascoren
 125 icenac bere barrijac dira. Ta areetati ez guichi cristandadiagaz beragaz urrin errijetati etorrijac. Onetarico ya icen artubac, *bautismua ... conpirmacinoia ... penitencia...* guere eusqueera garbira aldatutia ondo litzaatequian edo ez,

120 ezbalira *Ba* 126 ya] ija *Ba*

1761, 347 or.; *Aita San Ignacioaren Egercicioen gañean afectoac...* Iruña, 1761, 392 or.; *Eusqueraren berri onac...* Iruña, 1761, 63 or.; *Christinauaren doctrina*, Donostia, 1760, 81 or. (Astete gipuzkeraz). 1762an ere agertu zan bizkaieraz *Doctrina Cristiana edo Cristinau doctrinea bizcaitarren eusqueraz*, Iruña, 1762, 96 or.; *Jesus Maria ta Josereren devocioa..* Iruña, 1763, 236 or.; *Justuen Ispillu arguia Santuen Erretrato bicia ...* Iruña, 1764, 159 or.; *Senar emazte santuac. Necazari ezcondu, ta beste guciac...* Iruña, 1766, VIII-141 or.; *Meza sacrificio ta Comunio sagra - duaren gañeco doctrina ta beste devocioen egercicioac..* Tolosa, 1782, 240 or.; etab.

¹⁹ Sebastian Mendiburu (1708-1782). Honen lanetatik Frai Bartolomek hauek ezagutuko zituen, beharbada: *Euscaraz eracusten duen Jesusen bihotzaren devocioa*. Donostia, 1747, 387 or.; *Icasbidea Christauen doctrina ...* Burgos, [1747], 48 or.; *Jesusen bihotzaren congregacioco reglac...* Donostia, 1747, 146 or.; *Euscaldun onaren viciera ...* Iruña, 1762, 336 or.; etab.

²⁰ Juan Antonio Moguel (1745-1804). Frai Bartolomek hurretik ezagutu zuen J.A. Mogel Markinan; eta honen lanetatik hauek ezagutuko zituen ziur aski: *Confessio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*. Iruña, 1800, XVII-255 or.; *Cristiñau dotriña bere explicacino laburragaz itaune ta eranzueracaz aita Asteteren liburuchutic aterea bizcaitar barrucuentzat*, Bilbao, 1802; *Confesino ona edo, ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo egui - ña izateco*. Gazteiz, 1803, 296 or.; *Cristinaubaren jaquinvidea*, Vitoria, 1805, 96 or.; etab.

²¹ Pablo Pedro Astarloa (1752-1806). Astarloak euskararen alde idatzitakoak ditu Frai Bartolomek gogoan: *Apología de la lengua bascongada..* Madrid, 1803, XXIV-452 or.; *Carta de Un Basongado...* Madrid, 1804, 43 or.; *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología de la lengua bascongada ...* Madrid, 1804, 119 or.

²² Lorenzo Hervás (1738-1809). Frai Bartolomek Hervásen obra hau esan nahiko du, beharbada: *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas, y numeración, división y clases de éstas, según la diversidad de sus idiomas y dialectos..* 6 t. Madrid, 1800-1805. (Euskarari buruz, V. liburukian batez ere).

²³ Juan Bautista Erro (1775-1854). Hizkuntzalari hau ere aipatzen du Frai Bartolomek, bera baino gazteagoa zena; honen lanetatik hauek ezagutuko zituen, beharbada: *Alfabeto de la lengua primitiva de España...* Madrid, 1806, 304 or.; *Observaciones filosóficas en favor del Alfabeto primitivo...* Pamplona, 1807, 195 or.; *El mundo primitivo, o examen filosófico de la antigüedad y cultura de la nación vascongada. Tomo I.* Madrid, 1815, 304 or.

Jaquitunac esango davee. Ez da ain biar gacha eusqueera garbico iceneetan imintia. Ta onenbestegaz, iracurlia, aintzat artuten banozu, zeure adisquidetzat neure buruba ezaututa, esquintzen deusut vijotz prestubagaz. Ta eguiten deusut: Agur. 130

128 Ezda *Ba* 130 prestu bagaz *Ba*

[1] **JAUNGOICUAREN LEGUECO AMAR AGUINDUBEEN ASIERACO
LELENGO ICASQUIZUNA,**

ceinetan eracusten dan
dotrinia icasteco daguan preminia.

Munduba galduba daguana ta ya inoc iraun ezin davena, Escritura 5
Sagradubac lecu ascotan esango ez baleutscu bere, gueuc sarritan esaten
dogun gaucia da, neure entzula onac. Gueuc esaten dogu, casic isildu bagaric:
cristinaubeen artian daguala pede chaarra, compijantza guichi, codicija asco,
malecija andija, munduco gauzeen amodijo itsuba, inoren ondasuneen embi-
dija, alcar icusi ezina, arrotasunezco buru erichija, vanidadia, ocasinoe prestu- 10
bezac, entzute comunac, deungaro esate asco, neurri bagaco desonestidadia,
pecatubaren bildurric eza ta conciencija arinonac. Gach oneec eta gueijago
cristinaubeen artian ugari dagozana, guztioac autor doguna da. Ya esan guinai
David erreguiagaz (3), gente guztiaac vide zucenetati alde eguin daveela ta 15
ondo eguin gura davenic, inor ez daguala. Edo san Juan Evangelistiagaz,
mundu guztia malecijaren ta gacharen artian iminita daguala. (4)

¡Oh, ceimbat estimauco litzaatequian gach oneec erremedijeetia! Ta men-
turaz ez da ascoc uste daven baixen cereguin gacha, mun-[2]duba erremedije-
etia. Bacochoac beretzat ona dan moduban, edola bere erremedijau legui. Baña 20
onetaraco ezautu biar dau cristinaubac leleengo, cegaiti daucan edo cetati
jatorcon mundubari ain echura ezaiña ta errucarrija. Ta au da dotrina onetan
leleengo eracutsico dana. Ta bigarrenian, celan erremedijau leijan bacochoac,
berari jagocana.

I.

Exodoco liburuban Espiritu Santubac eracusten davela, esan legui, mun- 25
duco gachac luzaro irauteco asipen bat. Irugarren eta laugarren belauneragui-
no, dino Jaungoicuac (5), visitauco ditubala edo castigauco ditubala, gurasuac

(3) Psalm. 13. (4) Epist. 1. c. 5. (5) C. 20.

5 ya| ija Ba | ezindavena Ba 6 ez baleutscu Ba 13 Ya| Ija Ba 15 ez daguala Ba
18 ezda Ba | cer eguin Ba 20 biardau Ba

umeen contra eguiten ditubeen pecatubac. Gurasuac umeen contra eguiten
 30 ditubeen pecatubetati andijeena dala derichat, neure entzula onac, guztiz enga-
 ñetan ez banas, umiac deungaro aztia. Seme alabaac lotsa chaarragaz, liberta-
 de osuagaz, banidade andijagaz, dotrina on bagaric ta Jaungoicuaren bildur
 santuba bagaric mundubarentzat ta munduco aixe paltsuarentzat aztia da, gura-
 35 so batec Jaungoicuaren²⁴ aurrian euquico daven palta icaragarrija. Ta guraso
 asco dirian leguez gauza onetan chito ardura bagacuac, ara emen celan daguan
 beti oinian, Jaungoicuac aimbeste gorroto deutsan pecatuba. Ta onetarico
 pecatubac beti diraubeen leguez, Jaungoicuaren castigubac bere badirau gueu-
 re contra. Izan leiteque, bada, gurasuac seme alabaac cristinau eguijazco baten
 moduban ta Jaungoicuaren bil-[3]dur santuban azten ez ditubeen artian, mun-
 40 dubac daucan baixen echura ezaina ta galduba euquitia. Ara emen mundoco
 gacheeen asiera bat.

Oraindiño esan legui Jeremias propeta santubagaz (6), pensamentu on
 baten paltiac daucala munduba galduta. Bacochoac bere artian ondo pensauco
 balitu gauzaac, erremedijauta legoquiala munduba. Eguiija esateco, guizon eta
 45 emacume guztia pensauco balebee ondo ta sarri cer dirian, cetati dirian, nor
 gaiti dirian cetaraguino dirian ta cetan azquenian gueratuco dirian, ez leuquee
 eguiten daveen beste zaata²⁵ munduban eguingo. Ta ez leuquee, emoten dave-
 en beste penagarri, cereguin ta ceresan emongo. Pensamentu on baten paltia
 gaiti uts eguiten ditugu bide zuzenac, aaztuten gara Jaungoicuagaz ta guero
 50 eguijeequin ta iminten dogu gueure vijotzeco gogua, amodijua ta desuia luu-
 rreco gauzeetan. Ta ara emen beste sustrai bat, munduco gentia beti naastau-
 ta, oquertuta, sosigu bagaric ta alcarregaz bat eguin bagaric (cer eguiten dave-
 en ta nora duazan ez daquijeen inurri aldra bat leguez) vitzi izateco prutu uga-
 rian emoten davena. Bai, cristinaubac, seme alabeen aziera chaarra ta gueu cer
 55 garian ondo ez penseetia dira asiera bi, ceintzube euquico daveen munduba
 daguan baixen ichura galducia, erremedijeetan ez dirian artian.

Baña oraindiño beste gauza bat derichat, [4] neure entzula onac, dala mun-
 ducu baque chaarrari, vitzi izateco nequiari, arimaco larrijari, ilteco peniari,
 conciençijaco nasaitasunari, pecatuco ecandubari ta vijotzeco nai baguiari ta

 60 (6) C. 12.

31 ezbanas *Ba* 34 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* 37 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren
Ba 39 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* | ezditubeen *Ba* 48 cer eguin, ta cer esan *Ba*
 53 ezdaquijeen *Ba* 56 ezdirian *Ba*

²⁴ Liburu honen izenburuan bezala, orrialde honetan hiru aldiz itzuri zaio *Jaungoicoaren* forma; garbi dago hutsa dela, haren araua *Jaungoicuaren* egitea baita.

²⁵ Bokal arteko kontsonanteak galtzeaz hitz egin dugu behin eta berriro Esquizkribuan, honen ezaugarrietariko bat horixe dela adieraziz; hala ere, hitz batzuk, bokal arteko kontsonante gabe ematen ditu beste liburuetan ere eta hauxe da horrelako bat: *zaata* idazten du beti, eta ez *zarata*...

sosiguric ezari lecuric gueijeen emoten deutsana. Au da cristinau izaten ez jaquitia. Cristinau asco dagoz; baina ez daquijee gueijeenac cer dan cristinau izatia. Ez daquijeez naturaleciac, errazoiac eta Jaungoicuac imini deutseezan eguinbiarrac ta aguindubac. Ez daquijeezan artian, ezin leguijeez²⁶. Ta baco-
chac bere eguinbiarrari erantzuten ez deutsan artian, munduba leengo bestian 65
egongo da, edo gueruago baino gueruago chaarrago izango da. Alperric da
uste ona, gogo ona ta desio ona euquitia. Ez daquijanac, descuiduan baino
acertau ezin legui. Ta gaurco egunian casuric guichien eguiten jacon gauzia da,
cristinaubaren eguinbiarrac icastia. Mundubaren usadijo paltsuac eta legue
zoriguestocuac zortzi amar urteco umiac bere baquijeez. Baña cristinaubaren 70
cereguinac edo eguinbiarrac, escolau anditzat euren burubac dauqueezanac
bere, ascoc ez. Ez dau inoc cansau gura, Jaungoicuari, proximuari ta bere buru-
bari cer zor deutsan jaquitien. Ez dau inoc dendatu gura, Jaungoicuac gueu gaiti
cer eguin daven cer eguiten daven ta gueuri cer aguinduten deustcun icasten.

Berba baten, neure cristinaubac, ez dau inoc arduraric iminten, dotrinia 75
biar dan moduban icasteco. Doctrinia biar dan moduban ez daqui-[5]janac,
Jaungoicua servidu ezin legui. Jaungoicua serviduten ez dan artian, munduba
leen daguan baixen ezaina, oquerra, naastauba ta deunguia egongo da.
Jaungoicua serviduten ez dogun artian, gueure vizitzaac izango dira penaz-
cuac, atsecabazcuac, estubac, gusto bagacuac, sosigu bagacuac, suguia leguez, 80
luurreco gauceetan tatarrasca ta arrastaca beti daviltzanac. Jaungoicua servidu-
ten ez dogun artian, gueure arimaac egongo dira pecatuz naastauta, illunduta,
loituta diabrubaren aguinduban; gueure erijotzia izango da estuba, larrija ta ica-
ragarrija; ta gueure betico azquen azquen bagacua impernucosuba. Au da
dotriniaren paltiac cristinaubari ecarten deutsan prutu mingocha. Au guztiau 85
Espiritu Santubac sarritan prediqueetan deuscu. Ta esaten azartuten nas, dotri-
na onaren paltia dala gueure arimaco ta gorputzeco gachic andijeenac dacaza-
na.

II.

Erremedijau leguiz bada, cristinaubac, gach oneec, noberac nai izan ezque- 90
ro. ¿Baña celan? Doctrinia ondo icasijagaz. Onetaraco Jaungoicuac beti eracutsi
deuscu, gueure adilia edo entendimentuba berez laburra dana, ceruco misteri-
juac ezaututeco. Beraren anditasuna etorri da ceruti luurrera, gueuri ceruco

62 ezdaquijee Ba | cerdan Ba 63 ezdaquijeez Ba 64 eguin biarrac Ba |
Ezdaquijeezan Ba 65 eguin biarrac Ba 67 Ezdaquijanac Ba 69 eguin biarrac Ba 72
Ezdau Ba 73 zordeutsan Ba | Ezdau Ba 75 Ezdau Ba 76 biardan Ba | biar-
dan Ba | ezdaquijanac Ba 77 ezdan Ba 79 ezdogun Ba 82 ezdogun Ba

²⁶ Sarri erabiltzen du *legui* adizkia aditz trinko gisa, "egin" bere baitan duela. Hemen ere hala-
xe egiten du (ezin leguijeez = ezin eguin leguijeez)...

95 bidiaç eracustera. Adan lelengo gueure gurasuari Jaungoicuac berac eracutsi
 eutsan beti dichoso izateco asco euan dotrinia²⁷. Naturaleciaren leguian
 Jaungoicuac eracutsi eutseezan patriarca santubai, gueuc orain entzuten ditu-
 gun ta sinistuten ditugun pedeco misterijuac, jazo baño as-[6]cozaz leenago.
 Moisen leguiac iraun euan artian, demporaric demporara bialduten eutseezan
 100 Jaungoicuac israeltarrai propeta santubac, bere leguia ta dotrinia eracustera.
 guizon eguin zan, ogueta amairu urtian gueure artian vitzi izan zan ta curutze
 baten josita il zan. ¿Ta cer eguin euan munduban? Bere gauza guztiz andijen
 artian bat izan zan, guizon eta emacume guztiai cer sinistu biar daveen, cer
 105 escatu biar daveen, cer eguin biar daveen ta cer errecibidu biar daveen era-
 custia. Apostolubeen, obispo ta sacerdote jauneen cereguinetati andijeen bat
 edo bacarra da, cristinau piel guztiai dotrina eguijazcua ta ceruraco bide zuze-
 na eracustia. Esan legui, Escritura Sagradubari ta Eleisa Ama santiaren espiri-
 tubari beguiratu ezquero, eleisa-guizoneen cereguinic andijeeena dala, cristi-
 naubai dotrinia eracustia. Lecuban lecuban berba gogorraquin zamaituten gaitu
 110 Jaungoicuac ta pena andijaquin Eleisiac, gauza onetan sacerdotioc daucagun
 ardura chiquija. ¿Cegaiti au guztiau? Ez beste gauza gaiti, ezbada chito gauza
 aguirija ta ezaguna dalaco doctriaren paltiac dacazan negargarrijac, bai ari-
 maraco ta bai gorputzeraco. Orregaiti ene Erliginoe sagraduba, Jaungoicuaren
 ta Eleisa Ama santiaren espiritubari jarraituta, ez da aspertuten oracinoiagaz,
 115 penitencijagaz ta beste piedade ta caridadezco obra onaquin cris-[7]tindadiari
 lagundubagaz. Ezaututen dau, dotrina onaren paltia dala munduco gach asco-
 ren sustrai indartsuba ta trabaju ascogaz baino erremedijeetan ez dana. Ta ale-
 guin guztiagaz lagunduteco cristinau pielai ta cura jaunai premina andico
 gauza onetan aguinduten dau, desiértubac ichita²⁸, beste gueure erliginoeco
 120 combentu guztietan prediqueetaco pulpitoti dotrinia domeeca arra[t]salde
 bacoçhian ordu erdijan. (7)

Gauza jaquina da, cristinaubac, dotrinia ondo daquijanac daucala
 Jaungoicuaren ezaubera gueijago. Ta ceimbat Jaungoicuaren ezaubera gueija-
 go daucan cristinaubac, aimbat urrinago dago pecatubeetati ta condeneetaco
 125 bideti. Bada, jaquin ezquero ondo Jaungoicuac gueu gaiti eguin dituban amo-
 dijozco gauzaac; Jaungoicuac gueugaz daucan ontasuna, pinecia ta paciencia

 (7) Constit. Part. 2, c. 10. n. 5.

101 eguinzan Ba | izanzan Ba 102 il zan] iltzan Ba 103 izanzan Ba 104 eguin
 biardaveen Ba 114 ezda Ba 117 ezdana Ba

²⁷ Ik. Has 2,15-17. (Ik. beste hau ere: *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita... Primera Parte, cap. 3, n. 2, Madrid, 41791).

²⁸ *Desiértubac ichita*: desiértuetan izan ezik, desiértuak alde batera utzita gainerakoetan.

neurri bagacua; gueuri ceruco erreinuba emoteco daucan desio vitzija; Jesus gueure Salbadore maitiac bere jaijotzaan, vitzit[zaan, pasinoian ta erijotzaan ta endamas altaraco sacramentu santuban eracusten deustcun biguntasuna, humildadia ta carino laarreguija; jaquin ezquero cristinaubac bere argaltasuna, miserija ta ezer eza; berba eguingo badau, pausu eguingo badau ta arnasa artuco badau, popuertza Jaungoicuaeren gracija ta socorruba biar davena; erremedio bagaric ill biarco davena; erijotza estuban bere vitzi guztico pensamentu, berba ta eguin guz-[8]tien contu zucena ta gogorra artuco deutseena; oneentzat ceruba ta deungueentzat impernuba daguana; dinot, neure entzula onac, cristinaubac jaquin ezquero ta pensau ezquero ondo eguiija oneec, ¿nos azartuco litzateque peccatu eguiten, bertan illgo dan edo ez, ez daquijala?

Onezaz ostian dotrinia biar dan moduban ez daquijana, beti dago pecatu mortalian. Nai izan arren, ondo compesau ezin leiteque, celan ez daquijalaco. Inoc asolbidu bere ezin legui ta salbau bere ezin leiteque. Dotrinia ondo ez daquijanac pecatu eguitia cer dan ez daqui. Bera da leleengo pecatuban jaus- ten dana ta nequezeen jaguiten dana, edo secula jaguiten ez dana. Bada, ez daqui pecatubaren ezaintasuna, pecatubaren caltia, Jaungoicuari eguin deutsan injurija ta pecatuti jaguiteco biar daven prestaeria. Dotriniaren paltaz dira compesinoe paltsetati gueijeena. Dotriniaren paltaz dagoz cristinaubac engai- nauta, itsututa, cerura zucen duazalacuan, impernuraco bideti pausu bat bere uts eguiten ez dabeela.

Ta ez dauca inoc cetan pensau, cristinaubac baquijeela salbeetaco duina dotrina. Gueijeen daquijenari bapere sobreetan ez jaco. Ta palta daveenac gueijago dira, ondo daquijeena baino. *Aita gueuria, avemarija, credua, mandamentubac, ni pecatarija, salvia, neure Jesucristo Jauna, sacramentubac* eta beste onaco umetan buruz icasi cirian oracinoe batzuc aoz esatia, ez da biar dan moduban [9] dotrinia jaquitia. Umeentzaco popuertzacua da, oracinoe oneec buruz icastia; baina nausijeentzaco ez da asco, oneec buruz esaten jaquitia. Aitu biar davee ta jaquin biar davee berba areec cer esan gura daveen ta cetaraco dirian, itandu ezquero edoceini contu emoteco ter[t]cijuan. ¿Ta ceimbat cristinau dira au eguingo leuqueena? Azartuten nas esaten, ezda erdiac bere. Imini daigun exemplu bat ta ez guichitan jazoten dana. Cristinauric gueijeena aoz esango ditubee ondo compesetaco bost gauzaac: *examinia, damuba, proposituba*.. ¿Ta aituten ditubee cer dirian? ¿Baquijee cer dan doloria edo damuba? ¿Baquijee cer biar dan damuba euquiteco? ¿Baquijee, damubaren paltaz compesinoia cetan gueratuten dan? ¿Baquijee jadisteco, celan prestau biar

132 ezer eza Ba 133 Jaungoicuaeren] Jaungoicoaren Ba 138 ezdaquijala Ba 139 ezdaquijana Ba 140 ezdaquijalaco Ba 141-142 ezdaquijanac Ba 142 cerdan, ezdaqui Ba 143 ezdana Ba 143-144 ezdaqui Ba 145 presta eria Ba 148 ezdabeela Ba 149 ezdauca Ba 150 ezjaco Ba 151 Ave maria Ba 153 ezda Ba 155 ezda Ba 156 jaquin biardavee Ba 161 cerdan Ba

dan? ¿Baquijee proposituba cer dan? ¿Ce premina andicua dan? ¿Euquiteco cer
 165 eguin biar dan? ¿Ta eguijazcua danian, ariman cer eguiten daven? ¡Ah!
Bigarrena doloria, *irugarrena proposituba*. Ahoz esaten guztiac edo gueijee-
 nac baquijee. Baña cer esaten daveen, erdijac bere menturaz ondo ez.

Emeti ezaututen da, neure entzula onac, dotriniaren paltiac ce echura cha-
 170 arra emoten deutsan mundubari ta dotrinia icasijagaz zelan erremedijau leizan,
 bai munduco ta bai arimaco edo eternidadeco gachac. Dendatu gaitzezan, bada,
 guztioac dotrina eguijazcua icastera. Icasteco, juaan biar dogu eracusten dan
 lecura, ezpabere secula icasico ez dogu. Escatu daijogun [10] Jaungoicuari bere
 verba santuba entzuteco ta arimeetan gordetaco gracia. Aitiaren, Semiaren ta
 Espiritu Santubaren icenian. Amen.

175 **JAUNGOICUAREN LEGUECO AGUINDUBEEN ASIERACO
 BIGARREN ICASIQUIZUNA,**

ceinetan eracusten dan
mundubaren asieria; guizonaren andi izatia;
ta cristandadiaren balijua.

180 Jaungoicuac gueu gaiti eguin dituban gauzaac euqui biar ditu cristinaubac
 beti goguan ta veguijeen aurrian, bere eguinbiarrac icasteco. Eurac dira, gueu-
 re vijotzetan Jaungoicuaaren bildur santuba ta amodijua onduen iminten dave-
 enac. Andi andica edo salto baten leguez esango deutsut bada, cristinaubac,
 dotrina onetan: 1. Mundubaren asieria. 2. Gueure izatiaren anditasuna. 3.
 185 Cristandadiaren balijua. Entzun eguidazu gogo onagaz.

164 cerdan *Ba* 165 biardan *Ba* 172 ezdogu *Ba* 175 asi eraco *Ba* 176 bigarren]
 lelengo *Ba* 181 eguin biarrac *Ba* 184 anditasuna] auditasuna *Ba baina* auditasuna *Uts-egui-*
ten ezauberian

I.

San Pablo apostolubac esan ezquero munduco gauzai beguiratuta ezaututen dala eureen Eguilia (8), chito gauza biarrecua da cristinaubac jaquitia mundubaren asieraco lan arrigarrija. Onetaraco sinistu biar dogu, neure cristinaubac, orain zazpi milla urte, Eleisiaren contubari jarraituta (9), ez eguala criatura-
 ra-[11]ren errasturic Jaungoicuaeren entendimentuti campora. Jaungoicua bera eguan bacarric berez beragan ta beste gauzaric ezer bere ez eguan. Jaungoicuac ezer bere ezeti atera cituban bere virtute edo *nai* bategaz cerubac, luurrac, ichasuac eta ceruban, luurrarian eta ichasuetan aguiuri dirian ta ez dirian gauza guztiac. 190 195

Lelengo egunian²⁹ edo instantian eguin evan Jaungoicuac arguija ta alderatu evan illunaganic. Imini eutsan *arguijari* egunaren izena ta *illunari* gavarena. Bigarren egunian edo instantian eguin cituban cerubac ta alderatu cituban cerugañeco urac cerupeco ureetati. Irugarren egunian edo instantian batu cituban Jaungoicuac cerupeco urac guztiac lecu batera ta aguertu evan *liorra*. Liorrari imini eutsan luurraren izena ta urac egozanari *ichasuarena*. Ta egun atan eguin cituban luurreco arbola ta bedar genero guztiac. Laugarren egunian edo instantian eguin cituban Jaungoicuac eguzquiija, illarguiija ta izarrac; ta imini eutseezan eureen betico ibileraraco leguiac, egunac, illac eta urtiac neurtuteco. Eguzquiija egunari argui eguiteco ta illarguiija gaveraco. Bostgarren egunian edo instantian eguin cituban Jaungoicuac uretan daviltzan arrain genero guztiac ta egaan daviltzan chori genero guztiac. Ta emon eutseen Jaungoicuac onei guztioi, baita arbola ta bedarrai bere, eureen ericuac³⁰ sortuteco ta ondorenguetara atzija iragoteco virtutia, beti munduban iraun daguijeen vitzidun guztiac. Bedein-[12]catu cituban dirianac, esanagaz: *Azi zaitez ta gueitu zaitez*. 200 205 210

Seigarren egunian edo instantian eguin cituban Jaungoicuac luurreco alemanija ta gauza vitzi guztiac ta emon eutseen arei bere euretaricuac sortuteco alizatia edo virtutia. Ainguerubac cein egunetan Jaungoicuac criadu cituban, ez davee bardin eracusten maisu guztiac. Baña pedeco eguiija da, Jaungoicuac mundubaren asieran ezer bere ezeti eguindaco espirituzco criaturaac diriana aingue[r]ubac. Areetati batzuc, san Miguel aingueruba aurrerengo zala, obeidu eutseen Jaungoicuari, errazoa zan leguez³¹. Ta dira ceruban Jaungoicua goze- 215

 (8) Ad Rom. c. 1. (9) Martirol. Rom. d. 25. Decemb.

190 ezeguala *Ba* 191 Jaungoicuaeren] Jaungoicoaren *Ba* 192 ezerbere *Ba* 193 ezerbere *Ba* 194-195 ezdirian *Ba* 198 instantian] instantiam *Ba* 202 eguinzituban *Ba* 210 esanagaz] esaganaz *Ba* 213-214 ezdavee *Ba* 218 Martirol.] Martiril. *Ba*

²⁹ Ik. Has 1,3. "Egunian edo instantian" dio Frai Bartolomek, ik. *Esku*-ko 11. oharra (521.or.).

³⁰ "eureen ericuac": euren motakoak.

³¹ Ik. Ju 9; (Ap 12,7).

220 etan dagozan aingueru onac. Beste batzuc, Luciper aurrerengo zala, eureen edertasunac arrotuta, soberbijaz beteta, ez eutseen Jaungoicuari obeidu gura izan ta Jaungoicuac soberbijazco pecatu á gaiti bota cituban impurnubetara. Ta dira ango diabrubic ta demoninuac³².

225 Luurreco criatura guztiac zucen eta artez gordetan ditubee Jaungoicuac imini eutseezan ordena, legue ta eguitade edo izate modubac. Orregaiti esan evan Jaungoicuac, criatura areec eguin citubanian, guztiac ciriala entero onac. *Et erant balde bona*³³. Alemanijaac, arrainac, chorijac, cerubic, luurac eta beste criatura guztiac dagoz beti pirme, Jaungoicuari obeiduten deutseela ta Jaungoicuaren anditasuna, jaquiturija ta providencia beti prediqueetan daveela. Au da, neure entzula onac, beti cristinaubac goguan equi biar daveena.

230 Arri mutu-[13]raguinoco guztiac Jaungoicuari obeiduta, Jaungoicuaren esana eguinda; guizonac Jaungoicuari ez obeidutia, Jaungoicuaren contra pecatu eguitia. ¡Oh, celan lotsatuco dan Jaungoicuaren aurrian pecatarija, beste criaturaac euren moduban Jaungoicua ciur serviduta, berac servidu ez davelaco!

(10)

235 II.

Seigarren egunian edo instantian bertan eguin evan Jaungoicuac guizona. Pormau evan luur zati bategaz gorputz bat (11). Criadu evan ezerbere ezeti espirituzco arima bat. Imini evan luurragaz eguin evan gorputz atan espirituzco arimia. Ta gueratu zan Jaungoicuaren echurara egindaco gorputz eta arimazco guizona, ceñi derichon *Adan*³⁴. Au da lelengo guizona, lelengo gurasua ta munduco guizon eta emacume guztiac moduren baten izatia zor deutseena. Jaungoicuac berac, leengo dotrinaam esan dan leguez, Adani emon eutsan ceruco gauzeen ezauberia, entendimentuco arguija, vorondate leijala ta zucena ta beti dichoso izateco biar evan guztija³⁵. Ichi cituban Jaungoicuac

245 -----
(10) Gen. c. 1. (11) C. 2.

229 entzula] eutzula *Ba* 233 ezdavelaco *Ba* 237 gorputz] gorpuzt *Ba* 239
Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* | gorputz] gorpuzt *Ba*

³² Luziper: Isaiasek (14,4-20) Babelgo erregearen erortzea esan nahi du; teologia profetikoan Jainkoaren aurkako indarren ezaugarria da, Israelen izatea eta salbamen-mezua arriskuan jartzen dituen. Testuak zerikusia du, Eliz Guraso batzuen arabera, Lukas (10,18) testuarekin, eta deabrua da hor adierazi nahi dena; hau, lehenengotan, Jainkoaren izaki argitsuen artekoa zen, bere harrokeriagatik zerutik egotzia izan zena. Horrela ulertzen du Ezequielek ere (28,11-19). 2P 2,4; Ju 6; Ap 9,1; 12,9 testuetatik eta apokrifoen interpretazioetatik, aingeruen erortzea eta Luzifer eta Satanen berdintzea gauzatu ahal izan ziren...

³³ Ik. Has. 1,31.

³⁴ Ik. Has 2,16. Ik. *Esku*-ko 14. oharra (523.or.).

³⁵ Salbuespena da. Hitz honen forma *guztia* da harengan, baina kasu honetan bere arau orokorrera makurtu da *-ja* eginez.

Adanen escubetan alemanija, arrain, chori ta (arbola bateco prutuba eragotzita) beste gauza guztiac³⁶. Imini evan Jaungoicuac Adan paradisuban, munduban inoc euqui leguizan gusto, atseguin, ondasun ta dicha guztien artian.

Adan bacarric egon ez cedin, bera lo eguala, atera eutsan Jaungoicuac saijetseco azur bat, minic emon bagaric. Ta Adanen saijets [14] azurragaz pormau evan emacume baten gorputza. Criadu evan arima bat ezer bere ezeti. Imini evan arimia gorputz atan. Ta eguin eban lelengo emacumia, ceñi derichon *Eva*. Au da lelengo emacumia ta beste guztien ama³⁷. Eva imini evan Jaungoicuac Adanegaz paradisuban gach bagueco³⁸ edo inocencijaco estadu dichosuan. Modu onetan izan zan, cristinaubac, gueure lelengo gurasuen asieria.

Guizona da (ta bardin da emacumia) espirituzco arimia ta luur[r]ezco gorputza bat eguindaco gaucia. Guizona da aparteco pensamentubagaz Jaungoicuac bere echurara eguina. Guizona da munduco criatura guztietati nobleena. Guizona da Jaungoicuaren zurtasun nausija beragaz daroiana. Jaungoicuac beste criatura guztiac eguin cituban guizonarentzat ta ichi cituban guizonaren escuban. Adanen pecatuba izan ez balitz, gaur bere gueure escuban eta aguinduban egongo cirian luurreco criatura guztiac.

Guizonaren izatiari imini deutsa Jaungoicuac bere naturaleciaren silluba. Guizonac bere adilliagaz edo entendimentubagaz igoten dau ceruraguino, jasten da impernuraguino ta gorputza gueldi daucala davil pensamentubagaz mundu guztian, beste criaturaac baño altubago, izatia dauqueen gauza guztiac beguiratuten dautsee guizonac. Guztiac examineetan ditu banaan banaan. Ta ez da ezegaz bere naicotuten, Jaungoicua topau artian. Vorondatiagaz ameeetan ditu urrineco gauza onac, urre-[15]cuac leguez. Ta criatura guztien ontasuna ezautu arren, gosez dago Jaungoicua vijotz guztiagaz ameeetan ez daben artian. Gomutiagaz, iragotaco guiza aldijac ecarten ditu bere aurrera. Ta juicijuagaz etorquizunai beguiratuten deutsee, jazotacuac balira leguez.

Guizonac asieria bauca beste criaturaac leguez, baña amairic ez dauca. Beste criatura guztiac amaituta, utsera viurtuta bere, guizonaren gorputza ta arimia vitzico dira beti guztian, irabazten daveen lecuban. Guizon bacocho, mundu guztiac baño gueijago balijo davena da. Jesucristo gueure Jaunaren odolagaz ta erijotziagaz erosita daguana da. Jaungoicua ezaututeco, ameeetaco ta ceruban beti gozeetaco jaijo dana da. Gauza ona edo chaarra, berac nai davena eguitaco libertadiagaz Jaungoicuac eguin davena da. ¿Cer gueijago?

253 Auda *Ba* 255 izanzan *Ba* 264-265 jastenda *Ba* 268 ezda *Ba* 270 ezdaben *Ba*
273 ezdauca *Ba* 275 betiguztian *Ba* 276 gueijago] queijago *Ba*

³⁶ Ik. Has 1,28; (2,15.19).

³⁷ Ik. Has 3,20. ik. *Esku*-ko 16. oharra (523.or.).

³⁸ *Bagueco* eta *bagaco*, biak agertzen dira gure idazlearen testuetan; azken hau sarriago.

280 Oraindino dauca guizonac gauza bat, beste criaturac ez daucana. Au da gaisqui eguinagaz garbatuteco alizatia. Ura, suba, aixia, luurra, arbola ta arrijac Jaungoicuaren criaturaac dira. Baña ez deutsee Jaungoicuac emon arei sentiduric edo sengarriric, izatia baño. Alemanijai, arrainai ta chorijai emon deutseez Jaungoicuac sengarrijac edo sentidubac eta izatia, (naturalista itsubac ucatu
 285 arren). Baña ez deutseez emon entendimentuba edo adizailia ta vorondatia. Orregaiti alemanijac ez dauquee ez ezauberaric ta ez amodijo eguijazcoric. Ainguerubai emon eutseen Jaungoicuac adizailia ta vorondatia; baña ez [16] deutsee emon ainguerubai ondo edo gaisqui eguinagaz garbatuteco alizatia edo libertadia. Au gaiti diabrubac, juicijoco egun artian condenau bagaric egon
 290 balira bere, ez cirian garbatuco bein eguin even pecatubagaz. Ta ceruco ainguerubac, juicijoco egun artian ceruban sartu ez balira bere, lelenguan amau even Jaungoicua ametiari ez eutseen ichico. Bada, ainguerubai ez jacue emon, bein ondo edo gaisqui eguinagaz garbatuteco ta erremedijetaco libertadia. Guizonaren noblecia ta condecinoia da onetan bere apartecua. Guizonac,
 295 dino san Gregorioc (12), dauca izatia arrijac eta luurac leguez; sengarrijac edo sentidugarrijac eta vicicia, alemanijac leguez; adizailia ta vorondatia, ainguerubac leguez. Ta onezaz ostian dauca gaisqui eguina erremedijetaco ta gacheti onera biurtuteco alizatia, beste criaturac ez daucana. Guizonaren libertade onetan asten da obra oneen ta deungueen merecimentuba, leguiaren biarra edo necesidadia, ta bacoachac cer eguin biar daben jaquiteco preminia. Ara emen, cristianaubac, ceinbat doe ta gracijagaz jantzita daguan gueure izate noblia. Oni darraicona da, legue santu baten ta erliginoe eguijazco baten preminia. Au icusico da, aituten emonagaz cristandadiaren balijua.

III.

305 Jaungoicuac emon arren guizonari esan dan nobleza altuba, eracutsi ez baleutsa cer eguin biar evan ta emon ez baleutsaz erregue-[17]la edo neurgarri zuzenac eta segurubac, bere pensamentubac, verbaac eta obrac errazoezcuac eta onac izateco, ez eban ezer bere eguingo. Jaungoicuaren legue edo erreguela bagaric gueratuco zan guizona, aixe guztietara gira eguiten daven cañabera bat leguez. Ez eban guizonac bere buruti bacarric secula gauza on bat eguingo, ta ez zan secula ceruban sartuco. Baña Jaungoicuaren ontasuna ta misericordija ez zan contentau, guizonari alaco doe ta mesede ugarijac natura-
 310 lezaan emonagaz, ez bada onezaz gañera, emon eutsazan legue zuzenac eta

 (12) Hom. 29. in Evang.

285 ezdauquee *Ba* 287 al izatia *Ba* 291 ezbalira *Ba* 292 ezjacue *Ba* 298 al izatia *Ba* 299 astenda *Ba* 305-306 ez baleutsa *Ba* 306 ez baleutsaz *Ba*

erreguela segurubac, arei beguiratuta, bere eguitiac eta naijac zuzendu dagui- 315
zan.

Jaungoicuaren legue edo neurgarri guztia enzerretan da amar mandamen-
tubetan. Eurac esaten deuscubee cer eguin biar dogun; ta cer eguin biar ez
dogun; cer esan biar dogun; ta cer esan biar ez dogun; ta cer desiau edo gura
biar dogun; ta cer gura edo desiau biar ez dogun. Ta Jaungoicuaren amar 320
aguindubac baño gauza zuzenagoric ta arguijagoric ezer bere ez dago, guero
esango dan leguez. Verba bigaz amaitu eban Jaungoicuac bere legue guztia,
esanagaz: *Jaungoicua amauco dozu beste gauza guztiac baño guejjago; ta
zure proximia, zeure buruba leguez*³⁹. Jaungoicua ameataco, ezautu biar da
lelengo. Bada, adizailiac edo entendimentubac ezaututen ez daben gauzaric, 325
vorondatiac amau ezin legui. Jaungoicuaren ezauberia inoc bere gui-[18]zona-
ri emon ezin leguijo, Jaungoicuac berac baño. Orregaiti Jaungoicuac berac artu
dau carguba, gueuri bera nor dan eracusteco (13).

Guizonaren cereguin nausija da, verba eguiten deutsanian, Jaungoicuari
entzutia ta sinistutia. Ta guizonaren uts eguiteric andijeena da, Jaungoicuari ez 330
entzutia ta ez sinistutia. Dempora guztietan Jaungoicuac verba eguin deutsee
guizonai. Ta dempora guztietan izan dira guizonac, Jaungoicuari entzun, sinis-
tu ta obeidu deutseenac. Ta baita entzun ez deutseenac, sinistu ez deutseenac
ta obeidu ez deutseenac bere. Orregaiti dempora guztietan izan dira onac eta
gaistuac, justubac eta pecatarijac, santubac eta condenaubac. 335

Naturaleciaren leguian Adan, Eva, Noe, Abraan ta beste asco justubac eta
santubac cirian. Escribidutaco leguian Moises, Josue, David... justubac eta san-
tubac cirian, Jaungoicuari entzun, sinistu eta obeidu eutseelaco. Ta Cain zori-
guestocuaganic asita, dempora guztietan izan dira pecatarijac eta condenaubac,
Jaungoicuaren verbia sinistu ez daveelaco, edo sinistuta, gorde ez daveelaco⁴⁰. 340

Jesus gueure Salbadore ta Eracusla maitiac eracutsi deutsu leenagoco guz-
tiac baño ezagunago, gueu salbeetaco entzun, jaquin, sinistu ta eguin biar
dogun guztia. Evangelijoco verbia da Jesucristo gueure Jaunaren verbia. Ta
evangelijuac esaten davena entzutia, sinistutia ta eguitia da, Jesucristoren dis-
[19]cipulu edo cristinau izatia, *creduaren* azqueneco verveetan esango dan 345

(13) Exodo c. 3.

319 ezdogun *Ba* 320 ezdogun *Ba* 321 ezdago *Ba* 324 biarda *Ba* 325 ezdaben
Ba 326-327 artudau *Ba* 328 nordan *Ba* 329 cer eguin *Ba* 334 izandira *Ba* 339 izan-
dira *Ba* 340 ezdaveelaco *Ba* 342-343 biardogun *Ba* 343 gueure] geuere *Ba*

³⁹ Mt 22,37 (Dt 6,5; Lb 19,18).

⁴⁰ Ik. Has 4,1-16. ik. *Esku*-ko 18. oharra (526.or.).

leguez⁴¹. Cristinau izateco biar da pede bat, bautismo bat ta Eleisa bat⁴². Pede bagaric, bautismo bagaric ta Eleisa bagaric ez dago cristinauric, ez guizonarentzat salbacinoeric⁴³. Orregaiti gentilac, judegubac, moruac eta eregiac, batzuc pederic eta bautismoric ez dauqueelaco; ta bestiac Eleisa eguijazcoric ez dauqueelaco, guztiac condenetan dira lastima gorrijan. Cristinau izatia da cerura juateco popuertzaco bidia, baña seguruba, noberac nai izan ezquero. Ta ara emen, neure entzula onac, verba guichitan aituten emonda mundubaren asieria, guizonaren anditasuna edo noblecia ta gueure sinistutiaren edo cristandadiaren balijua. Escatu daijogun Jaungoico andijari, bialdu daigula bere argui santubaren erraijo bat gueure arimeetara, evangelijoco verba gozuac vijotz onagaz entzuteco, sinistuteco ta obra eguijazcuequin⁴⁴ gordeetaco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian, Amen.

347 biarda *Ba* 348 ezdago *Ba* 450 ezdauqueelaco *Ba* 450-451 ezdauqueelaco *Ba*
451 lastimagorrijan *Ba*

⁴¹ *Credo*-aren idazkiaz ari da. Ik. *Esku*-ko 6. eta 19. oharra (511, 527.or.).

⁴² Ik. Ef 4,5. (Ik. beste hau ere *Catecismo del Santo Concilio de Fento para los Párrocos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita... Madrid, 1791, Prólogo, 3.or., Primera Parte, cap. 10, n. 7.)

⁴³ Ik. *Esku*-ko 20. oharra (527.or.).

⁴⁴ *Esku*-ko sarreran honela idatzi genuen: "Soziatibo kasua eta instrumentala ez ditu bereizten, baina singularrerako *-gaz* eta pluralerako *-aquin* egitea hutsik gabe betetzen du; egia esan, eskuizkribuan *-equin* da pluraleko marka hau, eta gainerakoetan *-aquin* nagusi dela, *-equin* ere hainbat aldiz agertzen da..." (Ik. 264.or.).

[LELENGO AGUINDUBA]

**JAUNGOICUAREN LEGUECO AMAR AGUINDUBEEN
LELENGO ICASIQUIZUNA,**

ceñetan eracusten dan:

1. *Mandamentubac cer dirian.* 5
2. *Ceimbat modutacuac dirian.*
3. *Jaungoicuaren legueco mandamentubac ceintzuc dirian.*
4. *Nos asi cirian.*

Caridadiaren ta salbacinoiaren senalle ba-[20]carra da, neure entzula onac, legue santuba gordeetia. Neure leguia icasten davenac ta gordeetan davenac, dino Jesucristo gueure Jaunac (14), ameean nau ni. Sinistu ezin legui, Jaungoicuari obeidu gura ez deutsanac ta Jaungoicuaren aguinduba eguin gura ez davenac daucala Jaungoicuaren amodijua edo caridadia. Adisquidiaren esana, errazoezcua izan ezquero, eguin gura ez davenac, galduten dau adisquidetasuna. Jaungoicuaren legue santuba guztiz da errazuazcua, zuzena, erraza ta gueure oneracua. Ta orregaiti, Jaungoicuaren adisquide danac, Jaungoicuari ondo gura deutsanac ta ameean davenac, pozic eta gustoz eguiten dau Jaungoicuaren naija. Ta eguin gura ez badau, senalle aguirija Jaungoicuaren adisquide ez dana ta caridaderic ez daucana. Caridadiaren jantzija ariman euqui gura davenac ta salbau gura davenac, gorde biar ditu, bada, Jaungoicoaren aguindubac. Pedeco articulubetati bat da, etorrico dala Jesucristo gueure Jauna juicijoco egunian, illac eta vicijac juzgheetara; onai emoteco ceruco glorija, bere mandamentubac gorde citubeelaco; ta deungai impernucio penia, bere mandamentu santubac gorde ez citubeelaco. 15

Emeti ezaututen da ceimbat balijo deutsan cristinaubari, Jaungoicuac mandamentu guztietan eta bacoichian cer aguinduten deutsan jaquitiac, guztiac eta bacocho ziatz gordeetaco. Bada, bat austen davenari, guztien erru-[21]ba ezarrico jaco, dino Santiago apostolubac (15). Onetaraco esango da, Jaungoicuac mandamentu bacoichian cer aguinduten deutescun ta cer eragozten deutescun. Ta 25

(14) Joann. c. 14. (15) Epist. c. 2.

guztai asieria emoteco, eracutsico deutsut dotrina onetan: 1. *Mandamentubac cer dirian*. 2. *Cembat modutacuac dirian*. 3. *Jaungocuaren legueco manda - mentubac cein[t]zuc dirian*. 4. *Nos asi cirian*. Prestau eguizuz, cristinaubac, ceubeen vijotzac, ondo entzuteco.

35

I.

Mandamentubac ez dira beste gauzaric, neure entzula onac, ezbada inori aguinduteco escubidia daucan eta bestiac governau biar dituban nausijac iminitaco aguindubac. Mandamentubac, leguiac, aguindubac, ordenaac edo erre-
 40 guelaac, guztiac bat esan gura davee, inori aguinduteco escubidia dauqueenac iminijac izan ezquero. Eurac eracusten deuscubee, cer eguin biar dogun ta cer eguin biar ez dogun. Aguinduten davee, gauza batzuc eguiteco ta beste batzuc ez eguiteco. Enpin, mandamentubac edo leguiac dira, gueure conciencijaco gauzaac neurtuteco erreguelac edo neurgarrijac.

II.

45 Gueuri aguinduteco escubidia dauqueenac modu ascotaracuac dirian leguez, mandamentubac edo leguiac bere modu ascotaracuac dira. Eleisia da pedeco gauceetan ta oitura oneetan cristinaubac cerura vidian imini ta zucendu biar dituban aguintari bat. Ta orregaiti dagoz Eleisiaren mandamentubac edo aguindubac. Erreguiac eta erreinuben burubac [22] dira, eureen aguinduban dagozanai, bata bestiaren arteco artu emonetan, cleituco, aciendaco ta
 50 baque oneco gauceetan cer eguin biar daveen ta cer eguin biar ez daveen aguindu biar deutseenac. Ta orregaiti dagoz erregueen ta eureen lecuban dagozaneen aguindubac eta leguiac. Onezaz ostian Jaungoicua da criatura guztien Eguillia, guztien Aguintarija ta Legueguin nausija, guztiac obeidu biar deutseena eta guztiai cer eguin biar daveen ta ez daveen, aguindu biar deutseena.
 55 Au gaiti munduco erreguiac, aguintarijac, jaunac, aberatsac eta pobriac, guztiac eguin biar davee Jaungoicuaren esana ta gorde biar davee Jaungoicuaren leguia. Ez deutsa Jaungoicuac begui bigunaguaquin beguiratuco munduco erregue bati, aguintari bati edo aberats bati, erreguia, aguintarija, jauna edo
 60 aberatsa dalaco, osterancian bere legue santuba gorde ez badau. Andijac eta chiquijac, leguia bardin austen daveenac, bardin castigauco ditu Jaungoicuac; ta bardin gordeetan daveenai bardin emongo deutsee ceruco glorija (16).

 (16) Exod. c. 20 Deut. c. 5.

36 ez bada *Ba* 37 aguin duteco *Ba* 41 ezdogun *Ba* 48 Aguintaribat *Ba*

Jaungoicua bera da asseraric eta amairic ez daucana, naturaleciari izatia ta izate modubac emon deutzazana, ta guizon eta emacume guztiac ondo edo gaisqui eguitemo libertadiagaz ta errazoiagaz pormau ditubana. Orregaiti legue batzubai esaten jacue diriala *naturaleciarenac* ; beste batzubai, *errazoiarenac* , (naturaleciagaz ta errazoiagaz bat eguinda da-[23]gozalaco). Ta beste batzubei⁴⁵, *Jaungoicuarenac* ⁴⁶. Baña guztiac dira moduren baten Jaungoicuarenac. Ta guri orain toquetan jacunez, asco da esatia, iru modutaracuac diriala leguiac edo mandamentubac: Jaungoicuarenac, Eleisa Ama santiarenac ta munduco aguintarijeenac. 65 70

III.

Jaungoicuaren legueco mandamentubac edo aguindubac dira amar. Amarrac izenteetan ditu Escritura Sagradubac⁴⁷. Lelengo dino: Neu nas ceure Jauna ta Jaungoicua, Egitoco catiguti librau zindudazana. Ez dozu euquico neu baiño beste Jaungoicoric. Neu nas ceure Jaungoico indartsuba ta celotsuba. Bigarrenian: Ez dozu ceure Jaungoicuaren icen santuba premina bagaric auan artuco; *edq* ez dozu juramentu bide bagacoric eguingo. Irugarrenian: Acordauco zara zapatubagaz. Sei egunian biarra eguingo dozu; zazpigarrena ceure Jaungoicuaren eguna da. Ez dozu zapatuco egunian (orain domeecan) biarric eguingo, ez ceuc, ez zeure semiac, ez alabiac, ez crijadubac ta ezda ceure alemanijac bere. Laugarrenian: Ondrau ezazuz⁴⁸ ceure aita ta ama, izan daguizun vicitza lucia Jaungoicuac aguinduta dagan lurrian. Bostgarrenian: Ez dozu inor ilgo. Seigarrenian: Ez dozu adulterijoco pecaturic eguingo. Zazpigarrenian: Ez dozu ezer oostuco. Zortzigarrenian: Ez dozu proximuaren contra guzurric edo testigantza paltoric esango. Bereratzigarrenian: Ez dozu proximuaren emazteric desiauco. Amargarrenian: Ez dozu inoren aciendaric desiauco. [24] Oneec dira, neure cristinaubac, Jaungoicuaren legueco amar mandamentubac. Lelengo irurac dira Jaungoicuaren ondraraco, ta beste zazpirac proximuaren ta gueure provechuraco edo oneraco. Orregaiti esaten da, Jaungoicuaren legueco mandamentubac barrututen⁴⁹ edo encerretan diriala 75 80 85 90

68 da gozalaco *Ba* 76 Ezdozu *Ba* 79 ezdozu *Ba* 92 esatenda *Ba*

⁴⁵ Hemen *batzubei* dator, baina lerro bat gorako *batzubai* ageri da bi aldiz. (Ikus honetaz 250.or.).

⁴⁶ Berrero itzuri zaio hemen *Jaungoicuaren*. Argi dago inprimategiko hutsa dela eta *Jaungoicuaren* behar duela...

⁴⁷ Ik. Ir 20,1-17. (Ik. ere: Dt 5,6-21; Mt 5,21-27; 19,17-19; Erm 7,7-13; 13,8-10; St 2,8-12).

⁴⁸ Ez dakigu nondik nora itzuri zaion adizki nahasi hau...

⁴⁹ "Barrutu": barruan hartu nahiz sartu.

95 verba bitan⁵⁰. Lelengua: *Jaungoicua ameeitia, beste gauza guztia baño gueija - ga*. Ta bigarrena: *Gueure proximuac ameeitia, gueure buruba leguez*. Ez deuts-
cu bere legue guztian Jaungoicua beste gauzaric aguinduten, dino san
Agustinec (17), caridadia baño; Jaungoicua ameeitia ta proximia ameeitia.
Jaungoicua beste gauza guztia baino gueiago; ta proximia gueure buruba
100 leguez amau ezquero, legue guztiequina egiinda dago. Escritura
Sagraduban dagozan ordenaac, propeta santubeen esanac, Eleisa Ama santia-
ren ta erregue jaunen aguindubac ta liburu guztietan iracurten dana, ez da
beste gauzataraco, ez bada Jaungoicua gauza guztia baño gueijago ta proxi-
mia gueure buruba leguez ameeitaco.

105 Alan esaten deuscu Jesucristo gueure Jaunac (18), gauza oneec bijoc egui-
ten ditubanac, gordeetan ditubala legue guztia. Ta san Pablo apostolubac dino
(19), proximia biar dan moduban ameeitan davenac, gordetan davela legue
guztia. Bada, proximia amau bagaric Jaungoicua bere amau ezin legui. Ta [25]
Jaungoicua amau bagaric, proximia bere biar dan moduban amau ezin legui.
110 Ta azqueneraco, mandamentu guztia casic gauza batera joten davee. Edo
Jaungoicua ameeitara, gauza guztia baino gueijago; edo Jaungoicua gaiti gueu-
re proximuac ameeitara, gueure burubac leguez.

¿Egon leiteque, bada, gauza errezagoric eta errazuacoric Jaungoicua
mandamentu santubac baño? ¿Jaungoicua ta gueure proximia ameeitia baño?
115 Amar mandamentubetati lelenguac, irugarrenac eta laugarrenac aguinduten
deutsabee, cerbait eguiteco. Oneec aguinduten deusabee, casic gueldi
gagozala, egiin gina. Bada, Jaungoicua ameeitaco, jajegunac gordeetaco ta
gurasuac ondreetaco, izerdi andiric cetan bota ez daucagu. Beste zazpirac ez
deutsabee aguinduten ezer eguiteco, ez bada ez eguiteco. Juramentu gaistoric
ez eguiteco; ñor ez ilteco; lapurretari ez eguiteco; ta onan beste guztia.
120 ¿Bago, bada, gauza errezagoric au baño?

Gueure Jaungoico onac beequijan, Adanen pecatubagaz guztioi etorri jacu-
na naguitasuna, alperreriya ta sosiguz egoteco desiu. Ta orregaiti errazuago ta
pozagoric gorde ginaizan bere aguindu santubac, gueijeenetan aguinduten
deuscuna da ecer ez eguitia, gueldi egotia, gueuc naijen dogun gauzia. ¿Ce
125 achequija emongo dau bada, cristinaubac, mandamentubac ez gordeetaco?
¿Oh, errazoiagaz [26] esaten dau Jesucristo gueure Jaunac (20), bere leguia
biguna dala ta bere leguiaren carguia arina dala! Esango baleu leguez:
Mandamentu santubac aguinduten daveena eguiten, erraz dala. Baña peccari-

(17) Lib. 5. contr. Faust. (18) Matth. 22. (19) Ad Rom. c. 13. (20) Matth. c. 11.

102 ez bada *Ba* 115 cer bait *Ba* 118 ez bada *Ba* 125 emongodau *Ba*

⁵⁰ Ik. Mk 12,28-34; Erm 13,8-10; St 2,8.

jaren temia⁵¹ da, Jaungoicuac eguiteco esaten daven pusquia ez eguitia; ta 130
 Jaungoicuac ez eguiteco esaten davena eguitia. Oneraco alperra; gacheraco
 biarguina. ¡Oh pecatari tristial!

IV.

Amar mandamentubac esaten daveena, naturaleciac eta errazoiac mundu-
 baren asierati amairaguino eracutsi daveen ta eracutsico daveen doctrinia da. 135
 Mandamentubac encerreetan daveen guztia da, Jaungoicuaren arguijac gueure
 arimeetan josita imini daven dotrinia ta leguia. Eguiija da, Moisen demporara
 artian ez egozan escribiduta amar mandamentubac paperian edo olian; baina
 bai guizonaren errazoian eta vijotzian. Ta orduban ez even guichiago eracus-
 ten ta escatuten orain baino. Guizoneen ta emacumeen nasaitasun laarreguijac 140
 illundu evan errazoiaren arguija; naastau evan utseguite ascogaz naturaleciaren
 legue zuzena; loitu evan, esateco moduban, mundu guztia pecatuz. Ta au icu-
 sita etorri zan Jaungoicua, leenago gueure vijotzetan naturaleciagaz josi evan
 leguia, ostera Moisi escribidu eraguitera. Baña eureenez mundubagaz beragaz
 asitacuac dira Jaungoicuaren legueco amar aguindubac. Ta iraungo davee 145
 mundubaren azqueneraguino. ¿Noc era-[27]cutsi deutsu, itanduten dau san
 Agustinec (21), inor ez illteco, ecer ez oostuteco, inori gachic ez eguiteco ta
 ceuretzaco nai dozuna proximuari eguiteco? Naturaleciaren ta errazoiaren
 leguiac eracutsi deutsu, erantzuten dau santubac berac. Jaungoicuac gueure
 vijotzetan josita imini evan leguia da aguinduten deustubeen guztia, dino san 150
 Pablo apostolubac (22). Orregaiti esaten da, bada, ez dala gauza barrija, ezba-
 da mundubagaz beragaz asi zana dala, Jaungoicuaren leguiac amar manda-
 mentubetan aguinduten deustcun guztia. Au berau gaiti inoc bere quendu ezin
 legui, guichitu ezin legui ta ausi ezin legui amar mandamentubeetaco leguia,
 pecatu eguin bagaric. Ez dago luurraren ganian escubideric, naturaleciaren 155
 leguia austeco ta inoc austen badau, erremediojo bagaric pagau biarco dau, edo
 mundu onetan edo bestian. Eguiija da, mundubaren beraren asierati euqui
 ditubee ausilarijac⁵² Jaungoicuaren aguindubac, ta dauqueez gaur bere ta
 euquico ditubee mundubaren azqueneraguino. Adanec ausi evan inocencijaco
 edo gach bagueco estaduban Jaungoicuaren aguinduba. Baina ezautu evan 160

 (21) In Psalm. 57. (22) 2. ad Corint. c. 3.

143 etorrizan *Ba* 148 naidozuna *Ba* 151-152 ez bada *Ba* 160 ezautuevan *Ba*

⁵¹ "Temia"...Ik. *Esku*-ko 17. oharra (535.or.).

⁵² "Ausilari": legeren bat edo antzeko zerbait hausten duena; (gatzelaniara "infractor" itzul-
 tzen dute).

gaisqui eguin evana, lotsatu zan, bildurtu zan ta ezcutau gura izan evan Jaungoicuaren beguijeetati⁵³, pecatu eguin evalaco. Cainec bere ausi evan Jaungoicuaren aguinduba, Abel bere anae⁵⁴ inocentia ill evanian⁵⁵. Baina ezau-
 165 tu evan deungaro eguina, erremedijau ez bazan bere. ¿Cegaz, ba-[28]da, ezau-
 tu even mundubaren asieraco guizon areec, Jaungoicuari obeidu biar jacona;
 inor ill biar ez dana; ezer oostu biar ez dana ta beste Jaungoicuaren aguindu-
 co eguinbiarrac? Jaungoicuac berac guizonaren errazoiaren imini evan arguijagaz
 ezaututen even ta ezaututen dogu, errazoiaren usuba daucagun guztio.
 170 Gueurez ezaututen dogu, Jaungoicua amau ta ondrau biar dana, beste gauza
 guztiac baino gueijago; gauza onac eguin biar dituguna; ta gueuri inoc eguitia
 gura ez doguna, inori eguin biar ez deusaguna.

¿Ta esaten bada gentilac austen eveela naturaleciaren ta errazoiaren leguia
 gauza ascotan lotsa bagaric? Erantzuten da, pecatubagaz illundu
 175 ta lainotu eveela gentil itsubac errazoiaren arguija; galdu eveela Jaungoico
 eguijazcuaren ezauberia; Eva engainau evan Satanasec⁵⁶ engainau citubala guz-
 tiz gentilac; ta naastau ciriala lotsarizco vicijo ta pecatu guztietan. Areen artian
 bere ez zirian guztiac bardinac. Platon, Aristoteles, Seneca, Ciceron ta beste
 gentil ascoc eracutsi even Jaungoicuac guizonaren errazoiaren imini evan argui-
 180 ja, ceinegaz amar aguindubeetaco eguinbiarrac ezaututen ditugun.

Emeti ezaututen dozu, neure cristinaubac, ce ainchinacuac, errazac ta
 arguijac dirian, Jaungoicuac gueuri aguindutaco eguinbiarrac. Dendatu gaite-
 zan, bada, guztioac legue santia icastera. Estimau ta amau daiguzan gogoz amar
 aguindu santubac, ceintzuc izango di-[29]rian gueure vitzi guztico pensamen-
 185 tu, verba ta eguitadeen neurgarrijac erijotzaco ordu estuban. Gorde daiguzan
 guztiac osoric eta ciatz, ceinetan daucagun seguru gueure arimaco salvacioia
 ta vetico zorijona. Alan gura izan daijala cerubac. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu
 Santubaren icenian. Amen.

168 eguin biarrac *Ba* 174 Erantzutenda *Ba* 180 eguin biarrac *Ba* 182 eguin biarrac
Ba

⁵³ Ik. Has 3.

⁵⁴ "Anae" da hitz honen forma bakarra gure idazlearengan; ez da ageri ez *anai* eta ez *anaia*.

⁵⁵ Ik. Has 4,8.

⁵⁶ Ik. Has 3,1-6. Berezkoa da Frai Bartolomek sugea eta Satan bat egitea: Satan Itun Zaharrear salataria da, iruzurrez eta amarruz tentaldian sartzen duena; horregatik, egintza horretan jarduten duenari ezartzen zaio, esaterako, Jesusek Pedrori esaten dio Satan (Ik. Mt 16,21; Mk 8, 33); San Joanek Apokalipsi liburuan bat egiten ditu sugea eta Satan (Ap 12,9).

II. ICASIQUIZUNA.

Lelengo mandamentubac aguinduten davena cer dan. 190
Ta pediaren ta esperantziaren biarra, Jaungoicua ameeaco.

I.

Jaungoicuaren legueco lelengo mandamentubac aguinduten deutcuna da, neure cristinaubac, Jaungoicua bera ameeatia, beste gauza guztiac baino guei- 195
 jago. Alan esaten deutsu Espiritu Santubac (23): Amauco dozu ceure Jauna ta Jaungoicua vjotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz. Au da, dino Jaungoicuac, ceuri orain aguinduten deutsudana. Au berau eracutsico deutse-
 ezu ceure semiai ta semeen semiai bere bai. Ta verba oneec gordeco dituzu dempora guztietan ta lecu guztietan. Jaungoicuaren amodijua escatuten deuts- 200
 cu lelengo mandamentu santubac, bai ainchinaco leguian, bai evangelijo santuban [30] ta bai beti. Judegubac itandu eutseen Jesucristo gueure Jaunari, ia cein zan aguindu guztietati nausijeena. Ta erantzun eutseen Jesus, gueure ceruco eracusla onac (24): Lelengo aguinduba ta nausijeena da, vjotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz Jaungoicua ameeatia.

Mandamentu santu onec dinuan leguez, Jaungoicua ametaco, gueure vijo- 205
 tzeco gurari guztiac, intenciñoec guztiac, ezauberazco pensamentu guztiac ta eguite guztiac popuertza zuzendu biar ditugu gueure Jaungoicuagana ta Jaungoicua serviduteco ta ondretaco gauzeetara.

Codicijotso edo laster aberastu gura daven batec, bere contu, tratu ta artu emon guztiac zucenduten dituban leguez irabazteco ustiagaz, alan lelengo 210
 mandamentu santuba ondo gordeetaco, cristinaubac ezauberiaz ta advertencijagaz eguiten daben guztia zuzendu biar deutsa Jaungoicuaren ondriari baccaric. Ez dau gura Jaungoicuac, cristinaubaren vjotza egotia ceruco gauecen ta luurrecuen artian naastauta; ez Jaungoicuaren ta criatureen artian zatituta edo 215
 zabalduta. Vjotz guztia dau beria ta vjotzeco amodijo guztia nai dau beretzat. Ez dau estimeetan gueure amodijua, osua ez danian. Orregaiti esaten dau Jesucristo gueure Jaunac (25), inoc bere amau ezin leguizala ugazaba bi.

 (23) Deut. c. 6. (24) Matth. c. 22.

Esango baleu leguez, inoc bere amau ezin leguizala Jaun-[31]goicua ta munduba. Jaungoicua ameeetan badau, ez dau munduba amauco. Ta mundoco gauzaac ameeetan baditu, vitzico da Jaungoicuaren gorrotuan. Munduco gauzeetan bere gogua ta amodijua daucanac, Jaungoicua amau ezin legui; Jaungoicuaren amodijoric ez dauca.

Jaungoicua ameeetaco gauza guztiac baino gueijago, prest egon biar dau cristinaubac, biar bada, vizitzia ta beste munduco gauza guztiac bere galdute-co, Jaungoicua opendidu baino leenago. Onaco presteera santuba bere goguan daucanian ezaututen dau cristinaubac Jaungoicua bere eguillazat, bere Jaun bacartzat ta gauza guztien burutzat.

Orduban adoreetan dau ta alaveetan dau Jaungoico guztiz ona. Ta autor-tuten dau, gauza on guztiac Jaungoicuac berac bacarric merceduten ditubana. Orduban ustuten dau cristinaubac bere vijotza luurreco gauzeetati ta emoten deutsa lecu osua Jaungoicuari bere ariman. Orduban sinistuten dau ta ezaututen dau Jaungoico bat baino ez daguana; cerubac eta munduba beriac ditubana ta bere escubetan daucazana; asieraric, ez amairic ez daucana; guztiz ona, zucena, jaquituna. misericordijosua ta guztien maitegarri bacarra dana. Orduban gordeetan ditu cristinaubac pocic eta gustoz Jaungoicuaren aguindu guztiac. Ta gura leuque, guizon eta emacume guztiac Jaungoicua bera bacarric estimeetia, servidutia, ameeetia ta alaveetia. Au da, cristinaubac, Jaungoicuac leleengo mandamentuban [32] aguinduten deutescun amodijua ta vijotzeco pres-taeria. Onetaraco popuertza euqui biar dau cristinaubac pedia ta esperantzia. Bada, pedia bagaric inoc Jaungoicua amau ezin legui, dino Apostolubac. Ta David erreguiac esaten deutescu, Jaungoicuagan imini biar dogula gueure espe-rantza guztia. Orregaiti dino san Agustinec (26), pediagaz, esperantziagaz ta caridadiagaz adoretan dala Jaungoicua ta eguiten dala leleengo mandamentu-bac aguinduten davena.

II.

Pedia da, neure entzula onac, Jaungoicuac duaric gueure adizailian edo entendimentuban iminitaco doe edo virtute bat, ceñegaz sinistuten dogun Jaungoicuagan ta Jaungoicuac Eleisa Ama santiari eracutsi deutescun guztia, beguijequin icusico baguendu baino ciurrago ta segurubago. Bautismo santu-bagaz emon eutescun Jaungoicuac pedia. Ta, bera dala medijo, daucagu ceruco esperantzia ta gara Jaungoicuaren semiac. Pedia da icusi ez doguna sinistutia,

(25) Matth. c. 6. (26) In Henchirid. ad Laur., c. 3.

223 ezdauca 233 ezdaguana *Ba* 240 popuertza] pupuertza *Ba* | biardau *Ba*

Jaungoicuac esan davelaco. Ez mundubac edo munducuac esan davelaco, ez bada Jaungoicuac berac esan davelaco. Jaungoicuac berac verba eguin deutsu. Ta Eleisa Ama santiac eracusten deutsu, Jaungoicuac esan davena cer dan ta celan dan. Bada, san Pablo apostolubac esaten daven leguez (27), Jaungoicuac guzurric esan ezin legui. Ta au gaiti sinistuten dogu Jaungoicuaren esana. [33] Ez litzateque Jaungoicua Jaungoico izango, guzur chiqui bat esan al balegui. Bada, Jaungoicuaren beraren esana da, Eleisa Ama santiari berac eracutsi deutsana; pedeco gauceetan Eleisiac engainau ezin guinaizana; ta cristinaubeen Eleisia eguijaren cimentu seguruba ta pillar sendua dana (28). Eleisiac, nai baleu bere, ezin guzur chiqui bat eracutsi leijo cristindadiari pedeco gauzeetan, Espiritu Santubac governeetan davelaco.

Promes andi au leleengo Jesucristoc eguin eutsan san Pedro apostolubari, leleengo Aita Santu Erromaco eguinda, Eleisa guztiaren arduria emon eutsanian. Imini evan luurraren gainian Jesusec san Pedro bere ordecotzat ta cristinau guztien burutzat. San Pedrori ta aren ondorengo Aita Santu Erromaco guztiai esan eutseen Jesus gueure Salvadore maitiac (29), eureen pediaren gainian jasoco evala edo eguingo evala bere Eleisia; impernuco atiac edo persecucinoiac ez eveela inos bere galduco Eleisiaren pedia ta doctrinia; Eleisiari entzuten deutsanac, Jesucristori berari entzuten deutsalac; Eleisiari obeiduten deutsanac, Jesucristori berari obeiduten deutsalac; Eleisiari sinistuten ez deutsanac, Jesucristo berari ez deutsalac sinistuten; Eleisiaren esana eguin gura ez davenac, Jesucristoren beraren esana ez davela eguin gura (30). Mundubac dirauban arte guztian, Espiritu Santuba egongo dala [34] bere Eleisiagaz (31). Oneec ta beste onaco promes andijac eguiten deutzaz, neure entzula onac, Jesucristo gueure jaunac Eleisa Ama santiari edo cristandade guztiari, gueure pedia ta esperantzia sendotuteco.

Emeti agui da, bada, cristinaubac Eleisiari sinistuteco ta obeiduteco dauqueen obligazioia. Eleisa Ama Santiac eracusten deutzuzan pedeco misterijo guztiac dira Jaungoicuac esanac. Jaungoico bacar bat baño ez daguana; naturaleciaren ta gracijaren Eguillia bera dana; Trinidadeco misterijo santuba; Jesucristoren encarnacinoe edo guizon eguitia, jaijotzia, vicitzia, curutzeco erijotzia, illen arteti viztutia, cerubetara igotia; gracijaren biarra; sacramentuben izatia; eguite oneen preminia ta balijua; pecatubaren caltia; gueure oneraco nai gacheraco al izatia; arimiaren amairic eza; araguijaren viztueria; erremedijo bagaco guztien illtia; popuertzaco juicijua; oneentzaco betico ceruba; deun-

(27) Ad Hebr. c. 6. (28) Id. ad Timoth. c. 3. (29) Matth. c. 16. (30) Luc. c. 10. (31) Joann. c. 14.

255 ez bada *Ba* 256-257 cerdan *Ba* 259-260 albalegui *Ba* 263 naibaleu *Ba* 266 eguin da *Ba* 273 ezdeutsunac *Ba*

gueentzaco betico impernuba; ta beste Eleisiac eracusten deuschuzan pedeco gauzaac, guztiac dira Jaungoicuac esanac.

Misterijo Santu oneec, Eleisiac eracusten dituban moduban sinistu bagaric, inoc Jaungoicua amau ezin legui. Orregaiti Eleisati campora dagozan guizon
 295 eta emacumiac, ceintzuc dirian judegu, gentil, moro ta erege guztiac, euren uts eguiteetan ta engainuban dagozan artian, ezin Jaungoicua amau legui-[35]jee ta ezin salbau leitequez. ¿Celan salbauco dira, salbeetaco pedia ta doctrinia sinistuten ez badavee? ¿Celan amauco davee Jaungoicua, Jaungoicuaren esana sinistuten ez badavee? ¿Celan juango dira cerura, ceruco bidia ucatuten badavee?
 300 ¡Oh, ce errucarriyac dirian Jaungoicuari ta Eleisa Ama santiari sinistu ta obeidu gura ez deutseenac! ¡Desdichadubac eta zorigaistocuac, guzzurraren videetati munduban dudaan ta quezcaan vitzita, guero impernura zuzen duazan pede bagacuac! Itsu itsuban, cristinaubac, sinistu biar ditugu pedeco misterijo guztiac, andijac eta altubac izan arren. Cegaiti edo celan ete diran jaquiteco errazoiac topeetan ibili bagaric. Jaungoicuac esatia ta Eleisa Ama santiac eracustia
 305 da asco, gueuc ciur eta pirme guztiac sinistuteco. Bestelan ezin euqui guinai gueure Jaungoico onagan, ez amodijoric, ez compijantzaric. Dudiagaz, sospechiagaz ta ezta baidaan beguiratuten badeutsat Jaungoicuaren esanari, ¿celan euquico dot compijantzia beragan? Ta, ¿celan vijotz guztiagaz amauco dot, guztiz seguru sinistuten ez deutsadan Jaungoicua? Sinistu biar dogu bai
 310 Jaungoicuaren esana. Baita esperantza oso bat euqui bere, bere promes edo esquinsari andijeetan.

III.

Esperantzia da Jaungoicuac gueuri duaric⁵⁷ emondaco virtute bat, ceinegaz
 315 vitzi garian gueure pecatubeen paracinoia ta ceruco gloriya zabala jadisteco uste osuan. Ez gueure merecimentubac edo eguite onac gaiti bacarric, [36] ez bada Jaungoicuaren misericordija gaiti, Jesusen pasinoeco ta erijotzaco merecimentubac gaiti, Ama Virgina maitia vitaarteco dala ta gueuc Jaungoicuaren gracijagaz eguin edo eguiteco ustia daucagun obra onac gaiti. Esperantza
 320 santa⁵⁸ au euquiteco eracutsi deuschu Jaungoicuac bere ontasuna ta misericordija. Jaungoicuaren Seme vitzija guizon eguiteac, doncella baten sabelian encerrauta bereratzit illian egotiac, Jesusen Belengo jaiotza pobriac, penazco vitzitziac, curutzeco erijotziac, pecatubac parcatuteco ichi deuschuzan sacramentu-

304 etediran *Ba* 312 esquin sari *Ba* 317 ez bada *Ba*

⁵⁷ Hitzaren hasierako forma *doaric* da; jakina, gure idazleak *-oa* bikoteak *-ua* egiten ditu; beraz, hasierako forma *duaric* izan balitz, *dubaric* egingo zukeen.

⁵⁸ Izenondoa, hizkuntza erromanikoetan bezala, femeninoaren genero-markaz darabil...

bac ta Ama Virginiaren erraija bigunac eta erruquiorrac ecarten gaitubee, 325
 Jaungoicuagan esperantza oso bat euquitera.
 Amodijuaren ta misericordijaren señaile aguri oneec emon ezquero,
 Jaungoicuac berac nai dau ta aguinduten deuscu beragan compijantza pirme
 bat euquiteco, gueure arimaco salbaciñoia berari escatuteco ta, gueuc gueure
 parteti mandamentubac gorde ezquero, duda bagaric ceruco glorijaren espe- 330
 rantzia euquiteco. Alan animeetan ditu Espiritu Santubac cristinau guztiac ceru-
 baren esperantzia euquitera, esaten davenian (32), egon gaitezala guztioc duda
 bagaric Jaungoicuaren promes andijeetan; sinistu daigula duda bagaric
 Jaungoicua ona, misericordijosua, zucena ta alsuba dana, esan daven guztia
 eguiteco. Eldu gariala, dino (33), ceruco ustia euquitera, ceinegaz balijeetan 335
 garian, ichasotarra ancora pirme ba-[37]tegaz leguez. Ancora batec ichasoco
 onzijagaz eguiten davena, dino san Agustinec (34), eguiten davela ceruco
 esperantziac gueugaz. Aixiac alde batera edo vestera ontzija itzuli gura dave-
 nian, boteetan deutsa ichaso guizonac ontzijari ancoria, itzuli ez dedin ta pirme
 euqui daguijan ontzija. Cristinauba bere alan euquiten dau seguru ceruraco 340
 esperantziac munduco neque, trabaju, tentacinoe ta aixe char peligruruzco⁵⁹
 guztietan, jausi bagaric. Eguiija da, cerura juateco esperantza pirmiac ez dau
 quenduten arimaco bildur guztia. Bateti Jaungoicuaren misericordijac ta
 Jesucristo gueure Jaunaren merecimentubac emoten deutsee cristinaubari, sal-
 baucodan uste osua. Ta besteti bere peccatubac ta aurrera jausico ete dan edo 345
 ez ete dan jaquin ezac, bildurtuten davee cristinaubaren arimia; salbaucodan
 edo condenuco ete dan. Ez daqui inoc bere, ceruco aparteco abisuba
 bagaric, pecatuban ala gracijan dagan, Jaungoicuaren adisquidia ala arerijua
 dan, salbaucodan ala condenuco dan. Orregaiti esaten dau san Pablo apos-
 tolubac (35), bildurragaz ta icariagaz jadiichi biar dogula gueure arimaco sal-
 bacinoia. Cerura juateco ustiagaz bildur bagaric vitzi dana, dino san Agustinec 350
 (36), ardura bagacua dala; ta ardura bagaric galduco dala. Ta bildurra gaiti
 ceruraco ustiari isten deusana, galduta daguala ta condenuco dala. Bildur
 izan biar [38] dogu, cristinaubac, pecatu eguiten, condenuco ez gaitazan peca-
 tubagaz. Baña pecatu eguin arren, biurtu biar dogu Jaungoicuagana, pecatu-
 baren parcacinoia jadisteco esperantza osuagaz. Sinistu biar dogu, Jaungoicuac 355
 parcatuco deusczuzala gueure pecatu guztiac, damu eguijazcuagaz ta espe-

 (32) Ad Rom. c. 4. (33) Ad Hebr. c. 6. (34) In Psalm. 64. (35) Ad Philip. c. 2.
 (36) Serm. 10. ad Tract.

327 naidau *Ba* 339 euquitendau *Ba* 344-345 etedan, edo ezetedan *Ba* 345-346 ete-
 dan *Ba* 346 etedan. Ezdaqui *Ba* 349 biardogula *Ba* 358 Tract.] Tuatr. *Ba*

⁵⁹ Hementxe dator soilik horrela idatzirik; gainerakoan *peligruruzco*, baina *Esku-n pelleburuz*
co da beti.

rantza osuagaz escatuten badeutsagu. Au esperantza sendua, pirmia ta erra-
 360 zuazcua da. Baña pecatuban vitzi, peccatu eguin ardura bagaric, pecatuti urte-
 teco ezer eguin ez, ta cerura juango nas pensau, alcarri ez dauza, utseguitia
 da, engainuba da, Jaungoicua tenteetia da. ¡Oh, ceimbat onetarico cristinau!
 Pecatu mortalian urte ascotan pena bagaric vitzi dira, tratu gaistuai, ecandu
 365 impamiai ta adisquide pecatuzcuai ichi gura ez deutsee ta esperantza paltso
 bategaz esaten davee: *Jaungoicuac salbauco gaitu* . Jaungoicua ona da. Baña
 ona dalaco, ez dau inoc opendidu biar. Escatu daijogun, bada, Jaungoico guz-
 tiz onari Jesusen merecimentubac gaiti, pede vitzija, esperantza oso bat ta cari-
 dade sutsu bat, vitzi garian arteco ta ceruco gloriya betico. Aitiaren, Semiaren
 ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

370 [39]

III. ICASIQUIZUNA,

ceñetan eracusten dan,
celan dan Jaungoicua guztiz maitegarrija. Ta cegaiti.

Esanda gueratu da, neure entzula onac, leengo dotrinan, lelengo manda-
 mentubac celan aguinduten deutcun cristinau guztioi, Jaungoicua ameeaco,
 375 beste gauza guztiac baino gueijago. Ta baita pedia ta esperantzia biar diriana
 bere, mandamentu onen aguinduba eguiteco. Ta esango deutsut dotrina one-
 tan, *cegaiti amau biar dogun Jaungoicua, gauza guztiac baino gueijago.*

Cristinau guztiac daquijee lelengo mandamentubac aguinduten davena,
 Jaungoicua ametaco beste gauza guztiac baino gueijago. Guztiac daquijee,
 380 Jaungoicua amau bagaric ceruric ez daguana. Baina ez ditubee guztiac eze,
 guichiagoc bere ezaututen ta penseetan, Jaungoicua ameeaco daucaguzan
 errazoe andijac eta arguijac. Ta au gaiti dagoz cristinau guichi, Jaungoicua bene
 benetan ameeetan daveenac. Gauza sicu bat, otz bat, derrigorrezco bat edo nora
 ezeco bat balitz leguez beguiratuten deutsee ascoc Jaungoicua ameeitari.
 385 Noberaren gogocua bada persona bat, a pozic eta gustoz ameeetan da. Baina
 noberaren gogocua ez bada, ez jaco casu andiric eguiten. Guei-[40]jeenaz bere

368 sutsubat *Ba* 372 maite garrija *Ba* 380 ezditubee *Ba* 385 ameeanda *Ba*

gachic ez opa izatia da, noberaren gogoco ez dan personiarentzat dagan amodijo guztia. Inori gachic ez gura izatia ta ameeitia, gauza bi dira. Ez da asco Jaungoicua ameeitaco Jaungoicuari gachic ez opa izatia, ez bada, onezaz ostian ondo gura izan biar jaco Jaungoicuari, amau biar da, alabau biar da ta maite izan biar da beste gauza guztiac baino guijago. Bada, cristinau guztiac pocic, gustoz ta errazto, berecaturan leguez, ezer bere costa bagaric ta pena bagaric amau daguijeen gueure Jaungoico guztiz ona, iminico ditut errazoe batzuc, edoceinec aitu leguizanac ta Jaungoicua ameeitara ecarten gaitubeenac. Alcarri oratuta leguez, egongo dira mandamentu onetaco dotrinaac ta ez aaztu bategaz bere, guztiac entzun artian. 390 395

Ez dago inor bere, neure cristinaubac, ain zororic, ain itsuric edo ain necijoric, ceinda gauza bat guztiz ona dana jaquin ezquero, ameeitan ez davenic. Ta ceimbat dan onagua, gogocuagua ta palta guichiago daucazana gauza a, ainbat izaten da gauza arentzat amodijua ta carinua andijagua. Ta bada esquina guztietati ona, chito guztizcua ta bat bere tacha bagacua, orduban arentzaco amodijua, carinua ta maitetasuna bere osua, guztizcua ta neurri bagacua da. 400

Pensau eguizuz bada, cristinaubac, ceubei gurarija emoten deutesubeen gauza on guztijac, ceubec nai dituzun edo onac diriala derichazun condecinoe ta maitegarri guztiac. [41] Pensau eguizuz, icusteco, esateco, entzuteco, equitico edo gozeetaco, goguan jausten jatzuzan ontasun guztiac. Ta dirianac topauco dituzu Jaungoicuagan. Dirianac daucaz Jaungoicuac berez. Ta daucaz bera ameeitan daveneentzat. Adisquide oso baten condecinoe guztiac daucaz Jaungoicuac. Bera da *jaquituna*, bera da *zuzena*, bera da *aberatsa*, bera da *lauba*, bera da *andija*, bera da *sendua*, bera da *pirmia*, bera da *emonzailia*, bera da *parcazallia*, bera da *gracjosua*, bera da *carinosua*, bera da guztien *eracua*, ta bera da *beticua*. Derichat, neure cristinaubac, on modu edo condecinoe oneec guztioac daucazan persona bat topauco bacendu, naico cenduquiala aren adisquide izatia. Ta amauco zenduquiala guztioac gustoz, pozic, carinoz ta vorondate osuagaz persona a. Bada, artu eguizu paciencia Jaungoicuaren amodijua gaiti, ta icutsico dozu arguiro, guztiac eta gueijago daucazala Jaungoicuac ceubeentzat eta niretzat, gueuc bera amau ezquero. Entzun eguizu. 405 410 415

I.

Jaquituna da Jaungoicua, ta amau biar dogu jaquituna dalaco. Jaquiturija da, neure entzula onac, munduban chito asco estimeetan dan gaucia. 420

389 ez bada *Ba* 390 biarda, alabau biarda *Ba* 391 biarda *Ba* 397 Ezdago *Ba* | ainzororic *Ba* 400 izatenda *Ba* 403 ceubei] cenbei *Ba baina* ceubei *Uts-eguiteen ezauberian* 404 naidituzun *Ba*

¿Ceinbatec eureen burubac canseetan ditubee ta aciendac casteetan ditubee,
 cerbait gueijago jaquitia gaiti? ¿Ceinbatec egunazco icasijari guichi erichita,
 425 gavac galduten ditubee liburubac iracurten, izarrac conteetan, vedarrac esami-
 neetan, ichasuac neurtuten, alemanijac zaintuten, luurrac aztertuten, cidarrac
 [42] eta metalac topeetan ta piseetan? ¿Ceinbatec osasuna ta juicijua galdu ditu-
 bee irago dan sei edo zazpi milla urtian baquian ta guerraan, osasunian ta gai-
 xuan, ceruban ta impernuban, ichasuan ta luurrian cer jazo dan ta jazoten dan
 jaquiten? Guraso baten contentu ta poz guztia da, seme edo alava jaquitun bat
 430 euquitia. Castau daven guztiac ez deutsa bapere minic emoten, seme alavaac
 cerbait gueijago icasten daveenian. Erri baten badago jaquitun andi bat, guz-
 tiac estimeetan davee, ta campuetan bere conteetan davee ce jaquitun andija
 daguan eureen errijan. Guztiac nai leuquee aren adisquide izatia. Urrineti escri-
 bidutaco carta bat baño ez bada bere, aren gaucia euquitia nai leuquee.
 435 Beragaz verba eguitia edo cerbait bere aoti entzutia estimeetan davee. Illda
 guero bere ez dira aaztuten, ez senidiac, ez adisquidiac, ezda ez ezagunac bere
 alaco jaquitunagaz. Ta esaten davee: ¡Ah, ce jaquituna zan! ¡Neure senidia zan,
 neure adisquidia zan! ¿Cegaiti, bada, au guztiau, neure entzula onac? Jaquiturija
 ta jaquituna guztiac estimeetan daveelaco, ameeetan daveelaco ta chito asco nai
 440 daveelaco.

Bada, cristinaubac, munduco jaquiturija guztia Jaungoicuaren aurrera jaso
 ezquero, zoraquerija ta ezjaquite utsa baño ez da. Jaungoicua da jaquiturija
 bacarra. Bera da jaquitun guztien jaquituna ta jaquiturija guztiaren eracusla
 bacarra. Icasten ibili bagaric daqui Jaungoicuac, ceruban, impernuban, icha-
 445 suan ta [43] luurrian jazoten dan guztia. Cansau bagaric conteetan ditu
 Jaungoicuac ceruban dagozan ainguerubac eta santubac, impernuban dagozan
 condenaubac, limbuan dagozan arimaac, ichasuan dagozan arrainac eta onda-
 rrac, lurrian dagozan bedarrac, munduban jaijo dirian ta jajoco dirian persona
 guztiac. Mundubaren asierati ona guizon eta emacume guztiac cer esan dave-
 450 en, cer eguin daveen, cer pensau daveen ta cer esan, eguin ta pensauco dave-
 en, guztia daqui Jaungoicuac. Urrinecua daqui, urrecua leguez; ainchinacua,
 oraingua leguez; ta etorquizuna, iragotacua leguez. Ez destajuban, erichijan,
 dudaan edo guzurrez naastauta, munduco jaquitunac leguez; ez bada zuzen,
 artez, arguiro ta ziatz, nos, nun, celan, ceimbat, cegaiti ta zetaraguiño dirian,
 455 guztia daqui Jaungoicuac. Munduban inoc ezer badaqui, Jaungoicuac eracutsi-
 tacco pusca bat baño ez daqui. Ta daquijana bere, (pediaz osterantzecua) utse-
 guitez naastauta baino ez daqui. Jaungoicua da jaquitun bacarra edo jaquituri-
 ja utsa. Bada, cristinaubac, munduco persona bat ainbeste ameeetan bada ta
 estimeetan bada jaquituna dalaco, ta ainbeste desietan bada aren adisquide iza-

422 canseetan] causeetan *Ba* 428 jazodan *Ba* 436 ez da *Ba* 443 guztien] gustien *Ba*
 453 ez bada *Ba* 456 ezdaqui *Ba*

tia, ¿ceinbat gueijago amau biar dogu ta estimau biar dogu gueure Jaungoicua, 460
 jaquitun guztien jaquituriya dalaco? ¿Ta ceinbat gueijago desiau biar dogu
 Jaungoicuaren adisquide izatia, gauza guztia berac daquizalaco ta daquigun
 pusquia berac eracutsita baño ez daquigulaco? [44] Ordu lauren baten edo
 istante baten gueijago eracusten deutsa Jaungoicuac arimari, munduco liburu 465
 ta maisu guztia bere denpora guztian eracutsi leguijuen baino. Pensau eguizu
 bada, cristinaubac, ia Jaungoicuac merceduten daven gueuc beste gauza guz-
 tia baino gueijago ameeitia, Jaquitun guztizcua ta amai bagacua dalaco. ¡Oh,
 neure Jaungoico on! Ameetan zaitut viotz guztiagaz, zeu guztiz jaquituna zaria-
 laco. Nire pocic andijeena da, Jauna, ceu ezaututia, ceuri entzutia, zeugaz 470
 verba eguitia ta beti ceure adisquide izatia, jaquitun bacarra zarialaco. Baita,
 Jauna, zucena zarialaco bere.

II.

Zuzena dalaco bere amau biar dogu, cristinaubac, gueure Jaungoico ona,
 beste gauza guztia baño gueijago. Zucentasuna da, munduban chito asco nai 475
 dan gaucia. Verbeetan, tratuban ta artu emonian zucena dan cristinauba, guz-
 tia estimateetan davee ta ameeitan davee. Ta guztia ondo gura deutsee alaco
 zucenari. Beste aldeti, paltsaquerijac, engainubac, naastiac ta arpeguiera bi
 lagun artian darabiltzan cristinauba, ez dau inoc icusi gura. Ta ezda agaz tra-
 turic edo artu emonic euqui bere, paltsua dalaco. Zucenari, ciurrari ta zintzua- 480
 ri beguiratuten deutsagu beti carinoz ta amodijoz. Ta beragaz nai dogu contu-
 ba ta adisquidetasuna euquitia. ¡Oh! Zucenac beragaz darua gueure bijotzeco
 amodijo guztia.

¿Cer dala derichazu bada, cristinaubac, munduco zucentasun guztia,
 Jaungoicuagana jaso [45] ezquero? Ez beste gauzaric, ez bada engainuba ta pal- 485
 tsakerija. Gueure Jaungoico ona da bacarric ta berez zuzena, arteza, ciurra ta
 eguijazcua. Guizon guztia, dino David erreguiac (37), dira guzurtijac edo
 guzorra esan leguijeenac. Jaungoicua da bacarric zuzena ta arteza bere juici-
 juan (38). Ez dago inor bere luurraren gainian ain zucenic, ceinda egunian egu-
 nian ascotan uts eguiten ez davenic. Jaungoico ona da bacarric, uts eguiteric 490
 ez daucana. ¿Celan ezautu guinai, bada, Jaungoicuaren zuzentasun neurri
 bagacua? Gomutara ecarrijagaz cer eguiten daveen gueugaz. ¿Bago inor
 Jaungoicuaren contra quexau leitequianic? Ez. Mundura etorri dirian guizon ta
 emacume guztiaquin, ceruban dagozan aingueru guztiaquin ta condenauta

 (37) Psalm. 115. (38) Psalm. 118.

461 biardogu *Ba* 466 ia| ya *Ba* 473 biardogu *Ba* 478 ezdau *Ba* 480 naidogu *Ba*
 484 ez bada *Ba*

- 495 impernuban dagozan guztiaquin contubac eguin ditu ta eguingo ditu
Jaungoicuac. Baina ez dago guztien artian bat, ta ezda izango bere,
Jaungoicuac engainau davenic. Verba on bat esaten badogu Jaungoicuaren ize-
nian ta Jaungoicuaren amodijuagaz; desio santu bat, eguitade zucen bat, conse-
500 ju on bat, limosna chiqui bat, baso bete ur caridadez emotia, Jesus vijotz ona-
gaz esate bat, cerurutz zuzpiru bat eguitia; dana dala, danic gauzaric chicarra-
na bere, Jaungoicuaren izenian ta Jaungoicuaren amodijua gaiti eguin dana ta
eguingo dana, guztia zucen ta ciatz contauc deuscu Jaungoico onac. Ta guz-
tien sarija ceruban ugari emongo deuscu, bera [46] ameeetan badagu beste
gauza guztiac baino gueijago.
- 505 Beste aldeti ez dau Jaungoicuac inor bere castigauco, bere pecatubac
merciduten daveen baino gueijago. Impernuban condenauta dagozan diabru-
bac ta arimaac ondo ezaututen davee, dauqueen pena guztia dala, eurac peca-
tubaquin irabatzi eveena. An dacutsee zoriga[i]stocuac ce zucena ta ze arteza
dan Jaungoicua, condenaubeen pecatuzco naijac, verbaac ta eguitadiac ondo
510 pisauta, bacochari bere merceduba emoten deusanian. Ez deusa Jaungoicuac
inori bere escatuco, emon deusian baino gueijago. Bost emon deusazanari,
escatuco deusa bosteen errazoia. Bi emon deusazanari, birena. Ta bat emon
deusianari, batena. Baina guztiai zuzen ta artez, inoc bere quexaric euquico ez
daven moduban.
- 515 ¡Oh, Jaungoico zuzena! ¿Noc amauc ez dau bada, neure entzula onac, ain
Jaungoico zucena ta arteza? ¿Ez dau merciduten Jaungoicuac gueure amodijo
guztia, carino guztia ta vijotz guztia, zucena ta arteza dalaco? ¿Ez deusagu
entregauco Jaungoico zucenari bildur bagaric gueure borondatia oso osoric
gueure gurari guztiaquin, sinistu ezquero bere izenian ta bere amodijua gaiti
520 ezauberaz esaten dogun, entzuten dogun, eguiten dogun ta desietan dogun
guztiaren sarija zucen emongo deuscula ceruban? Errazoiaren usura eldu gui-
naneti erijotzaco orduraguinoco ezauberazco pensamentu, verba, eguite, nai ta
gura [47] guztien contuba ta errazoia, nos, nun, cer, celan, cegaiti, ceimbat
bidar ta ceimbat mesede edo caltegaz izan dan, Jaungoicuari emon biarco
525 deusagu guztioac erremedio bagaric. Conturic nausijeñac, conturic naastau-
beenac ta conturic balijosuenac eguin biarco ditugu Jaungoicuagaz. ¡Oh, ce sail
andija! ¡Oh, ce campo andija! ¡Ceimbat estimau biar dogu bada, neure cristi-
naubac, Jaungoicua zucena ta arteza izatia, gueure contubac⁶⁰ guztiac, gomuta
ditugunac ta ez ditugunac, beragaz eguiteco! ¿Egon leiteque ezer maitegarrija-

496 ezdago *Ba* 497 onbat *Ba* 498 santubat *Ba* 499 chiquibat *Ba* 502 ciatzcon-
tauco *Ba* 508 zori gastocuac *Ba* 517 Ezdeusagu *Ba*

⁶⁰ “Guztiac” zenbatzaile orokorraren aureko izena deklinazio-markaz horniturik dago: “contubac guztiac”; hurrengo orrialdeko bigarren paragrafoan ere gauza bera: “*Basuac guztiac, soluac guztiac, echiac guztiac, palacjuac guztiac, enriac guztiac ta erreinubac guztiac beriac ditu Jaungoicuac*” .

goric ta gueure vijotza beragana gueijago daroianic, Jaungoico zucena baño? 530
 ¡Oh, neure Jaungoico ona! Beste ontasunic ez baceunca bere, ceu guztiz zuce-
 na ta arteza zarialaco, ameean zaitut nic vijotz guztiagaz ta arima guztiagaz.
 Baita aberatsa zarialaco bere.

III.

Aberatsa da Jaungoicua. Ta au gaiti bere mereciduten dau gueure amodijo 535
 osua. Erreparau eguizu pusca bat, cristinaubac, ce lecu dauqueen gueure vijo-
 tzeetan ondasunac; celan encanteetan daveen ondasunac gueure gogua.
 Ondasunac domeetan ditubee senduac, beeratuten ditubee altubac, jasoten
 ditubee baxubac, chiquituten ditubee andijac ta azten ditubee chiquijac.
 Ondasunac arguituten ditubee veguijac, poztuten davee vijotza ta, dagozan 540
 lecuban dagozala, eureetara daroie gueure amodijua. Beti izango da eguiija,
 ondasunac asco ameean diriala ta dirubari guztiac obeiduten [48] deutseela
 (39). Beti izango da eguiija, ondasunac ta diruba Jaungoico chiqui batzuc diria-
 la (40). Aberats bati guztiac ondo esaten deutsee, guztiac obeiduten deutsee ta
 guztiac naija eguiten deutsee. Ta aberats izatia baino beste paltaric ez badau- 545
 ca, guztiac estimeetan davee ta ameean davee.

Bada, cristinaubac, ondasunac ta aberatsa ainbeste ameean badira,
 Jaungoicua da ondasun guztiac daucazan aberatsa. Basuac guztiac, soluac guz-
 tiac, echiac guztiac, palaciuac guztiac, errijac guztiac ta erreinubac guztiac
 beriac ditu Jaungoicuac; ta nai davenari emoteco daucaz. Ganadubac guztiac, 550
 arrainac guztiac, choriac guztiac ta pristija genero guztiac beriac ditu
 Jaungoicuac; ta nai davenari emoteco daucaz. Cidar, urre, diamante ta perla
 genero guztiac beriac ditu Jaungoicuac; ta nai davenari emoteco daucaz.
 Indijeetaco ondasun estimau guztiac, erregueen ta andijeen echeetaco ta soi-
 neco urrerija⁶¹, seda, damasco, carmesi ta perlerija guztia beria dau 555
 Jaungoicuac; ta nai davenari emoteco dauca. Esan daigun batera, cerubac eta
 luurrac ta ceruban ta luurrian daguan guztia da Jaungoicuarena; ta nai dave-
 nari emoteco dauca. Baiña au guztiau ezer bere ez da, Jaungoicuac bera ame-
 etan daveenentzat, ceruban gordeta daucazan ondasuneeen aldian. Ez aditu, ez
 icusi ta ez entzun ezin guinaiz, san Pablo apostolubac dinuanetz (41), 560
 Jaungoicuac ceru-[49]ban gueuretzat daucazan ondasunac.

 (39) Eccles. c. 2. (40) Oseas. c. 11. (41) Corinth. c. 2.

536 Erreparau| Erraparau *Ba* 541 izangoda *Ba* 557-558 naidavenari *Ba* 558 ezerbe-
 re ezda *Ba*

⁶¹ "Urrerija": urezko gauza edo bitxi multzoa.

Bada, cristinaubac, ugarra darijon diru pusca bat ta sitsac jaaten dituban luurreco gauza batzuc ainbeste ameean baditugu, ¿ceinbat gueijago ta gueijago amau biar dogu gueure Jaungoico aberatsa? ¿Cer dira munduco ondasun guztiac, Jaungoicuagaz bat eguiteco? ¿Cegaz naicotu guinai gueure vijotza Jaungoicuagaz ostian? ¡Oh, neure Jaungoico aberatsa! Ez dot gura beste ondasunic, ceu baino. Eracutsi eguidazu, ondasun eguijazcuac ameean. Alderatu eguizu neure vijotzeta luurreco ondasun guztien amodijua, ceu bacarric eta beti amau zaidazan, beste gauza guztiac baino gueijago. Aitiaren, Semiaren ta Espiritua Santubaren izenian. Amen.

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
Jaungoicuari zor deuntsagun amodijua,
lauba, andija ta indartsuba dalaco.

Jaungoicuac merceduten badau, neure cristinaubac, gueure amodijo guztia jaquituna, zucena ta aberatsa dalaco, ez dau guichiago merceduten *lauba*, *andija* ta *indartsuba* dalaco. Egon zaitez entzute⁶² onagaz.

I.

Lauba da Jaungoicua. Ta au gaiti bere [50] escatuten deuntsu gueure vijotzeco amodijo guztia. Laubaren izenagaz esan gura dot, ceubec esan oi dozuna. Ta da euquitia personiac modu on bat ta gracioso bat guztienzat. Andija ta chiquija, pobria ta aberatsa, zaarra ta gaztia, guztiac estimetia ta guztiai carinoz beguiratutia. Buru erechi bagacua, andiari bagacua, persona bat bere desprecietan ez davena da duda bagaric *lauba*. Munduban guichi usauba da eguijazco lau izatia. Andiarija, buru erichija ta noberac edu ondasun, jaquituriya edo

567 Ezdot *Ba* 568 ceubaino *Ba* 578 Egonzaitez *Ba* 581-582 oidozuna *Ba*

⁶² “Entzute” hitzak ospe, izen ona, fama esan nahi du alde batetik, eta bestetik baita arreta, esaten dena jasotzeko adi egotea ere; (esaldi honetan “egon zaitez adi” esan nahi du).

entzute ez dauqueenai casuric ez eguitia ta ozta verba bat edo bi baino ez eguitia da, guiza artian sarrijen icusten doguna. Lau errial daucazana lotsatuten da, bi baino ez daucazan bati verba eguiten. Aberats batec uste dau, mesede andi bat eguiten deutsal pobriari, verba bat edo agur bat eguinagaz. Guraso 590
pobre baten umia descuiduan cerbaiten jaube eguiten bada, ya ez dau entzun gura aita edo ama pobriaren icena bere. Ta oraindino guichiago nai dau, bere eche aberatsian sartu daquijon guraso pobria. Andiari utsa ta sobervija utsa da au. Guztic gorroto deutseena. Baina munduban chito asco aguinduten dave-
na. Ta beste aldeti chito asco estimatean dana da lautasun eguijazcua. 595

Gogoratu daigun bada, cristinaubac, ia gueure Jaungoico ona lauba dan edo ez. ¡Oh, neure Eguila guztiz maitia! Ceu zara bacarric eguiazco lauba. Ez zara bategaz bere lotsatuten. Ez zara inogaz bere aaztuten. Ez [51] deutzazu inori bere ceure palacijoco atia isteen. Andijeentzat ta chiquijeentzat, aberatse-
entzat ta pobreentzat, ondraubeentzat ta desondraubeentzat, guztientzat dau- 600
cazu vijotza zabalic, neure Jaungoico ona, ceu amau ezquero. Ain opa onagaz erantzuten deuta Jaungoicuac curutzian josita daguan lapurrari⁶³ cein Jerusalengo juez nausijari⁶⁴. Ain pozic sartuten da Jaungoicua Lazaro, Marta ta Madalenaren eche humildian⁶⁵ cein paresijo⁶⁶ aberatsarenian⁶⁷. Ain gustoz verba eguiten deuta Jaungoicuac uretara doian Samariaco emacume pecatariari⁶⁸ 605
cein Israelgo legueguin, aguintari ta obispuai⁶⁹. Ain arpegui onagaz beguiratu- ten deuta Jaungoicuac Bera ta Eleisa guztia perseguidu dituban Saulori⁷⁰ cein da Eleisa guztiaren buru eguin daven Pedrori⁷¹. ¡Oh, Jaungoicuaren vijotz zaba-
la! ¡Oh, ceure maite guztien eraraco vijotz santuba! Ceure amodijua escatuten 610
deutzazu bacarric. Ceu amau ezquero, guztientzat zagoz prest. Moises, arzain pobriagaz verbeeta luciaguac daucaz Jaungoicuac⁷², Egitoco Faraon erreguia-
gaz baino. David, Arzaina sarrijago visiteetan dau Jaungoicuac⁷³, Saul Israelgo erreguia baino. Samuel, mutil gaztiari obeto zabalduten deutzaz ceruco jazo altubac ta santubac⁷⁴, Eli sacerdotiari baino. Enpin beste milla jazogaz era-

589 ezdaucazan *Ba* 591 ya| ija *Ba* 596 ia| Ya *Ba* 614 jazogaz| juzogaz *Ba*

⁶³ Ik. Lk 23,43.

⁶⁴ Ik. Jn 18,19-23.

⁶⁵ Ik. Lk 10,38-41; Jn 11,1-32; 12,2.

⁶⁶ Batzuetan "palacijo" idazten du eta beste batzuetan, herri-ahoskerak eraginik ziur aski, "paresijo"; bestalde, "aberatsarenian" dator, eta ez "aberatsenian"; hau da, aberatsaren palazioan esan nahi du, eta ez palazio aberatsean.

⁶⁷ Ik. Lk 14,1.

⁶⁸ Jn 4,7-26.

⁶⁹ Ik. Mt 27,11-26; Lk 22,66 - 23,5; Mk 15,1-5; Jn 18,12-14.19-24.28-38. (Ik. *Eskurko*, 37.oharra, 549.or.).

⁷⁰ Ik. Eg 9,1-16.

⁷¹ Ik. Mk 14; Jn 21,15-19.

⁷² Ik. Ir 3-11.

⁷³ Ik. 1Sm 16....

⁷⁴ Ik. 1Sm 3.

615 custen deuscu Jaungoicuac Escritura Sagraduban, guztientzat daucan ontasuna ta lautasuna.

Munduban dagozan guizon ta emacume guztiai, nai diriala entzute andi-
cuac, nai [52] baztar baten aaztuta vitzi dirianac, nai aberatsac, nai pobriac, nai
euren gach eguinac gaiti ervestetubac, nai tronu andijeetan jarrita dagozan
620 erreguiac; dan moducua dala, guztiai entzutia emoten deutsee Jaungoicuac.
Guztiai edeguiten deutseez bere misericordijaren atiac Jaungoicuac, ta esquin-
tzen deutsee vorondate onagaz gracia santia ta bere adisquidetasuna. ¿Nor arri-
tuten ez da, cristinaubac, gogoratu ezquero Jaungoicuaren lautasun neurri
bagacua? ¿Ce gauza andija, edoceinec Jaungoicuagaz verba eguin al izatia!
625 ¿Edoceinec, Jaungoicuagana juateco beti atia zabalic euquitia! ¿Enpeñu⁷⁵ baga-
ric, vitaarteco bagaric ta ate onduan zain egon bagaric, nos nai daven,
Jaungoicuari verba eguitia! ¿Oh, Jaungoico ona! ¿Oh, Jesus maitegarria!
Ameetan zaitut nic neure vijotz guztiagaz, ain ona, ain presta ta ain prestuba
zarialaco. Ta ez daquit ceinec amauco ez zaituban, gogoratu ezquero ceure
630 ontasun neurri bagacuac.

¿Cer pensau guinai, neure entzula onac, icutsi ezquero gueure Jesus,
Jaungoico ta Guizon eguijazcua ain laster ta pozic doiala, mendi arteco cha-
bola baten dagan iquezguin tristia consoleetara, cein palacijo andi baten
dagan erreguiagana? ¿Carcela atsitu, illun baten preso daganagana, cein seda
635 ta urre artian daganagana? ¿Eche zaar, jausi pobre batera, cein aberats barra-
ra? ¿Ain gogoz gavaz, cein egunaz? ¿Ain gogoz urrineria, cein urrera? ¿Cer pen-
sau guinai, ez bada, arritu, [53] humildau, adorau, alabau, jaso ta amau vijotz
guztiagaz gueure Jaungoico ona? ¿Ta cer eguiten dau Jaungoicuac altaraco
sacramentu santu atan? Mai santu atara elduten dira umiac ta nausijac, zaar ibili
640 ezin dirianac ta arpeguian edo gorputzian gacha dauqueenac, jantzi pobria
dauqueenac ta jaso onic⁷⁶ ez dauqueenac, mundubac sobrautzat daucazanac ta
castigauta daucazanac, graciaan dagozanac ta pecatuban dagozanac. Baina
guztientzat dago Jesus maitia altara santuban prest, isilic ta humilde. Ta ceinec
bere ontasuna gueijago maite dauen, á gana dua Jesus, dana dala, atseguin
645 gueijagogaz, poz andijaguagaz ta gogo obiaguagaz. ¿Oh, aingueru santubac! Ez
zaitetz cansau Jaungoico altu, humilde ta laubaren ondo esatian. ¿Oh, neure ari-
mia! Beguiratu eguijozu ceure Jaungoico onari, bai ceruban ta bai munduco
lecu guztietan. Izan arren zu orainguino bere arerijua, ameeetan badozu aurre-

618 baztarbaten *Ba* 623 ezda *Ba* 624 alizatia *Ba* 626 naidaven *Ba* 630 neurri] nue-
rri *Ba* 637 Ez bada *Ba* 638 altaraco] Altareco *Ba* 641 ezdauqueenac *Ba*

⁷⁵ "Enpeñu" hitzak, mesede egiten duen bitartekoa esan nahi du hemen; bizkaieraz egiten den eskualde batzuetan bizirik dago adiera horretan; hau da, nahi dena lortu ahal izateko goiko norbaiten bitartekotza, laguntza, ukondoa, "entxufea"...

⁷⁶ "Jaso ona": itxura ona, aire ona.

ra, pozic bere adisquidetzat artuco zaitu. Urtu zaite bada, al badaizu, neure vijotz liorra, ceure Jaungoico onaren amodijuan ta ondo esatian, ain lauba ta 650 maitegarrija dalaco. Baita andija dalaco bere.

II.

Andija da Jaungoicua. Ta au gaiti bere maitetu biar dogu, beste gauza guztiac baino gueijago. Ez dago dudaric, neure entzula onac, gauza ona izan ezquero, ceimbat andijago, aimbat naijago ta maitiago. Gauza chiquija ta guichija, ona izan arren, ecer ezian gueratuten da. Ta ez da aimbeste estimeetan. 655 Adis-[54]quide pobria, leijala izan arren, adisquide chiquija da. Urria estimauba izan arren, ain guichi bada, asco balijo ez dau. Gauzaric oneenac, guichi dirianian, gueratuten dira ecer ezian. Baina andijac dirianian, guztien auan ta vijotzian daviltz chito estimau. 660

Jaungoicua da bada, neure cristinaubac, on guztien artian bacarric ona, ta andi guztien artian bacarric andija. Andija da Jaungoicua ta chito guztiz ondo esatia meraciduten davena, dino David erreguiac (42). ¿Nora juango nas? Esaten deutsa Erregue santubac berac Jaungoicuari (43): ¿Nora juango nas ceure espiritubaganic ta nora igues eguingo dot ceure arpegui santuti? 665 Ceruraguino igoten badot, ceu an zagoz. Impernuraguino jasten banaz, an bere prest zagoz. Eguac artuta iragoten banas egun sentijan ichasuen bazterreraguino, an bere ceure escubac euquico nau. Pensau neban, menturaz illunac alde-ratuco nindubala ceu ganic ta gavac ezcutauco nindubala ceure aurreti. Baina gavac argui eguiten deutsu, illunac leguez. Gava ta eguna zuretzat bardinac 670 dira. Onan canteetan evan, neure entzula onac, David erreguiac Jaungoicuaren anditasun neurri baguia⁷⁷.

Ezin sartu leiteque guizonaren ezauberaan, ce altuba dan Jaungoicuaren anditasuna. Lecu guztietan ta dempora guztietan dago Jaungoicua guztiaquin ta bacochagaz. Jaaten bagagoz, gueugaz dago. Lo bagagoz, gueugaz dago. Es- 675 [55]naatuta bagagoz, gueugaz dago. Gaviltzan lecuban ta gagozan lecuban, beti gueugaz dago gueure Jaungoico ona. Ichasuac baino zabalago da, cerubac baino altubago da, criatura guztiac cabidu ezin daveena da. Edo obeto esateco, beste gauza guztiac ecer bere ez dira, utsa dira, Jaungoicuaren anditasunagaz bat eguin ezquero. ¿Noc neurtu dau Jaungoicua? ¿Noc ecer eracutsi deutsa? 680 ¿Noc ecer emon deutsa? ¿Nori ecer escatu deutsa? ¿Nos egon da eceren premi-

(42) Psalm. 47. (43) Psalm. 138.

649 albadaizu *Ba* 681 egonda *Ba*

naan? ¿Nundi urten dau mundu andi onec? ¿Nundi ichaso ondo luceco dunac?
 ¿Nundi eguzquiac ta izarrac? Nundi ainguerubac ta guizonac? ¿Nundi cerubac?
 685 ¡Oh! Jaungoico andijaren espiritzuco colco altsu ta santuti urten davee guztiac.
 Baina guztiac bat eguinda bere, Jaungoicuaren anditasunaren ezaungarri apur
 bat baino ez dira. Beste milla ceru, milla mundu ta milla bidar millinoiac⁷⁸ guei-
 tuta eguingo balitu bere Jaungoicuac, bere anditasun neur[r]i bagacua gueratu-
 co zan beti leguez osoric.
 690 ¡Oh Jaungoico andija! ¿Noc ameeetan ez zaitu? ¿Cer da au, cristinaubac? ¿Ez
 dogu amauco gueure Jaungoico on, andi, bacarra, beste gauza guztiac baino
 gueijago? ¿Ez dago beti gueugaz? ¿Edo, obeto esateco, ez gagoz beti beragaz?
 ¿Ez da ordu guztietan topau biar doguna, alabau biar doguna ta amau biar
 doguna? ¿Ez da zoraquerija itsuba, munduco gauza on isquijeen villa ibiltia,
 695 gauza on guztiac beragaz daucazan Jaungoico an-[56]dija gueugaz equi
 ezquero? Ameetan badogu Jaungoicua, guztia da gueuria. Ameetan ez badogu,
 dan baisen andija izan arren, beti gueugaz egon arren ta guztiz ona izan arren,
 ez da gueuria, gueue castigueetaco baino. ¡Oh, cristinaubaren itsutasuna, ain
 Jaungoico andijaren bildur ez izatia! ¡Aren legue santuba austia! ¡Pecatuban
 700 vitzi izatia! ¡Jaungoicuaren contra jaguitia! ¡Oh, Jaungoicuagaz dagozan pobre
 aberatsac! ¡Oh, pecatuban dagozan aberats pobriac! ¡Oh, neure Jaungoico guz-
 tiz andija ta guztiz bildurgarrija! Ceu ameeetan zaitut neure vijotz guztiagaz ta
 arima guztiagaz, andija zarialaco. Baita indartsuba zarialaco bere.

III.

705 Ontasun guztietan da amai bagacua gueure Jaungoicua. Ta oneen artian
 bat da *indartsuba* izatia. Ezin ucatu guinai, cristinaubac, chito asco nai oi
 dogula gueure adisquidia ezertacua⁷⁹, sendua ta indartsua izatia. Argala, epela
 ta macala bada, berac gueue zaintu biarrian, gueuc bera zaintu biar dogu.
 Orregaiti, ezertaco ez danari, coitaubari, luur jota daguanari, entzute guichi
 710 emoten deutsagu. Baina, bada gueure adisquidetzatcua⁸⁰ animosua, sendua,
 jarquiija, indartsuba, inoren bildurric ez daucana ta arerijo guztietati librau
 guinaizana, entero maite dogu. Ta agazcua ez galdutia gaiti beste bagaric, sarri-
 tan canseetan gara.

700 jaguitia] jaquitia *Ba* 706-707 oidogula *Ba* 709 ezdanari *Ba* 713 canseetan] cau-
 seetan *Ba*

⁷⁷ Ik. Sal 33 [32]; 59[58],17-18; 89[88],2-19...

⁷⁸ "Millinoe" egiten du, J.A. Mogelek bezala; era mugatuan "millinoiac".

⁷⁹ Ezezko perpausetan eta baiezkoetan darabil; ezezkoan, erlatibozko perifrasiaren agertu ohi
 da: "ezertaco ez dana" (balio ez duena); baiezkoan, ostera, izenondoa da eta edozertakoa, dene-
 rakoa, trebea esan nahi du; (antzeko adiera du *ascotaco* hitzak ere: gauza askotakoa, baliokoa).

⁸⁰ Adiskidetzat duguna (ik. 259.or.).

Jaungoicua da bada, neure entzula onac, adisquide indartsuba bacarric. Jaungoicuaren adisquidiac bagara ta Jaungoicua ameean badogu, ez daucagu 715
cetan bildurric euqui ino-[57]ren⁸¹ bere. Jaungoicuaren adisquidia banas segu-
ru nago arerijo guztietati. Alperric jaguico dira nire contra galdugarri⁸² guztiac.
Alperric munduco aguintari ta borregu guztiac impernucuo purija guztiaquin
armauco dira nire contra; ez deustee buruco ule bat quenduco, Jaungoicua 720
bada neure adisquidia. Impernubaren astuzija guztiac ta munducuen gorroto ta
alizate guztiac elcho bat bere ez dira, Jaungoico indartsubagaz pelietaco.
Jaungoicuac, bere adisquidiac zaintuteco, ichasuac liortuten ditu⁸³, eguzquija
gueratuten dau⁸⁴, laba gorijac oztuten ditu⁸⁵, artzac eta leoiac mansotuten ditu⁸⁶
ta naturaleciaren legue guztiac aldatuten ditu⁸⁷. Jonas bere adisquidia arrain 725
baten tripan dauca vitziric iru egunian ta andi aterata, bialduten dau predi-
queetara⁸⁸. Daniel artz goseen artian gordeetan dau pena bagaric⁸⁹. Babilonijaco
umiac laba ixiuau daucaz erre bagaric⁹⁰. Israeltarrai ichasua liortuten deutsee,
Faraoneganic libreetaco⁹¹. Ta mendi soilian ceruti bialduten deutsee janari
gozua, gose dirianeco⁹². Lazaro illda laugarren egunian viztuten dau⁹³. San 730
Pedro catiaz lotuta ta soldauz ingurututa daguan lecuti libreetan dau, inoc iga-
rri bagaric⁹⁴... Enpin ez munducoc, ez impernucoc, ez ezez bere ezin leique-
gu⁹⁵ ecer bere gachic, gueu Jaungoicuaren adisquidiac izan ezquero.

¡Oh, Jaungoico sendua ta indartsuba! ¡Nor azartu leiteque ceure contra ecer
eguiten? ¡Noc gach eguin leguijuee ceure adisquidiai? [58] ¡Nos ichi dozu ceu

719 deustee] deutsee *Ba* 723 gorijac] gorrijac *Ba* 729 ill da *Ba*

⁸¹ Ik. *Esku*-ko 46. oharra (552.or.).

⁸² Sarrera orokorrean esaten denez, *-gari* atzizkia oso emankorra da gure idazlearengan; gainera, tradizioirik jatorrenaren bidetik, izenak eraikitzeke erabiltzen du. (Ik. 272.or.).

⁸³ Ik. Ir 14,21-22.

⁸⁴ Ik. Jos 10,12-13.

⁸⁵ Ik. Dn 3,46-50.

⁸⁶ Ik. Dn 6,20-28.

⁸⁷ Frai Bartolome, Biblian kontatzen diren mirari ugaries, orokorrean ariko da ziur aski hemen... Berak "miraria" gehienentzat zer den agertzen digu (izadiko berezko legeak haustea); hala ere, mirariaren esanahi nagusi eta oinarrizkoa Jainkoaren esku-hartze miragarria da, batez ere Jesusengan, beraren ahalmenaren egintzak egiten dituenean (izadiko berezko legeak hausten diren ala ez begiratu gabe...).

⁸⁸ Ik. Jon 2-3,2.

⁸⁹ Ik. Dn 6,18-23.

⁹⁰ Ik. Dn 3. Frai Bartolome habla de "Babiloniaco *umiac*", se trata de los jóvenes Xadra, Maxa eta Abed-Nego.

⁹¹ Ik. Ir 14,26-29.

⁹² Ik. Ir 16,1-36.

⁹³ Ik. Jn 11,38-44.

⁹⁴ Ik. Eg 12,6-11.

⁹⁵ Adizki hau aditz trinko gisa jokatzeko du, "egin" bere baitan duela.

- 735 maite zaitubana, arerijuaren escubetan, zaintu bagaric? ¡Oh! Inos bere ez. Noe justubac ez eucan ujaleen bildurric⁹⁶. Moisec ez eucan Faraonen bildurric⁹⁷. Eliasec ez eucan Acazen bildurric⁹⁸. Apostolubac ez euqueen inoren bildurric⁹⁹. Martirijac ez euqueen inoren bildurric. Virginia santaac ez euqueen inoren bildurric, Jaungoicuaren adisquidiac zirialaco. ¿Ceimbat doncella argalec desapi-
 740 jau ditubee aguintarijac, erreguiac, verdigubac, carcelaac, laba gorijac ta penagarri guztiac bildur bagaric? ¿Cer eguin evenen santa Eulaliac¹⁰⁰, santa Inesec¹⁰¹, santa Luciac¹⁰², santa Aguedac¹⁰³ ta beste millac Jaungoicuaren laguntasunagaz bacaric? ¿Noren bildur zan ene ama santa Teresa impernuco demonino guztiac desapijetan zitubanian Santo Cristo bategaz?¹⁰⁴ Inoren bere ez.
 745 Jaungoicuaren adisquidiac cirian; ta Jaungoicuac zaintuten cituban.

Sinistu daigun bada, cristinaubac, Jaungoicuaren amodijoric ezac ta Jaungoicuaren adisquide izan ezac dacazala gueure vijotcetara bildurrac guztiac. Munduco ondasuneetan, adisquideetan ta luurreco gaucetan iminten dogu gueure gogua. Aaztuten gara Jaungoicuagaz. Bilatuten dogu gueure ondo egotia ez dagan lecuban, ta biarren dogunian, gueratuten gara utsic eta penaz beteric. Topau daigun bada, cristinaubac, Jaungoicuaren adisquidetasuna. Gorde daiguzan bere aguindu santubac. Euqui daigun beragan compijantzaz osua. Ta amau daigun gueure Jaungoico ona *lau-[59]ba, andija ta indar* -

⁹⁶ Ik. Has 7,11 - 8,18.

⁹⁷ Beldurrez ihes egin zuen, baina Jahweren aginduz, Faraoiaren aurrean beldur gabe agertzen da....: Ik. Ir 5-11.

⁹⁸ Izenak pixka bat aldaturik datoz: Akab eta Akaz. Eliasek ihes egin zuen Akab erregearen beldurrez (1Erg 19,3-4); baina Jainkoak hala aginduta, Akaben aurrean agertzen da honi zigorra iragartzeko (1Erg 21,17-28); Akazias erregearen aurrean ere ez du beldurrik (2Erg 1)...

⁹⁹ Ik. Eg 4,18-22; 5,40-41...

¹⁰⁰ Santa Eulalia, Meridako birjina eta martiria. Haren martiritza legendaz inguratutik azaldu zuen Aurelio Prudentziok (*Obras Completas* edición bilingüe preparada por A. Ortega - I. Rodríguez, Madrid, 1981,528-541, BAC 427): gaztetxo zela jasan zuen suzko martiritza (304). Ikusi honen ikonografia ere, Eulalia parrila baten gainean...: J. BOBERG, *Eulalia von Mérida*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 6.t. Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 179-180.

¹⁰¹ Santa Aines. Ik. *Esku*-ko 194.oharra (678-679.or.).

¹⁰² Santa Luzia. Ik. *Esku*-ko 195.oharra (679.or.).

¹⁰³ Santa Agata (Kataniako martiria), Dezioren jazarpenaldian hil zen martiri (249-251). Elezaharrak dioenez, gobernadoreak, haren edertasuna zela-eta, emagalduen etxera eraman zuen eta han oinazetua izan ondoren, biharamunean hil zen kartzelan: ik. B.KÖTTING, *Agatha, hl. Mart. in Catania*, in: LThK 1 (1986) 183-184. Honen martiritzaren ikonografiari dagokionez, liburu hau ikus daiteke: C. SQUARR, *Agatha von Catania*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 44-48, irudietan era askotara agertzen da: azpil batean bularrak moztuta, kartzelan edota borreguak bularrak moztzen dizkiotela...

¹⁰⁴ Ik. SANTA TERESA, *Vida* 25,14-22.

tsuba dalaco. Onegaz vitzico gara seguru gueure arerijuetati; ta jadjichico dogu ceruco betico glorija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen. 755

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

Jaungoicua dala adisquide *pirmia*, *emonzailia* ta *parcazailia*.

Jaungoicua ameean davenari gauza guztiac erraztuten jaco, gachac iruri arren, dino san Agustin gloriosuac (44). Jaungoicuari ondo gura deusnaren-tzat ez dago gauza gachic, ez agundu gogorric, ez eguin ezinic. Jarraitu daije-egun bada, neure entzula onac, vorondatezco adiera bategaz, leen esan danaren gainera, gueure Jaungoicuaren ontasunai. Gogoratu daigun oraindino, Jaungoicuaren maitetasunera gueure vijotz liorrac, sicubac, otzac ta luurrezcuac iracoiteco ta gue[ul]re gogua obeto presteetaco, ce adisquide *pirmia*, ce *emonzailia* ta ce *parcazailia* dan gueure Jaungoico ona, gueuc vijotz guztia-gaz bera bacarric ameeetaco. 760 765

I.

Adisquide *pirmia* da Jaungoicua. Ta au gaiti bere escatuten dau gueure amodijo osua. [60] Gauza jaquina da, adisquidiac, ona izateco, *pirmiac*¹⁰⁵ izan 770 biar davena. Ez da ezer esaten orain adisquide chaarrac eta pecatuzcuac gaiti. Areec ceinbat lasterrago alcarri ichijago¹⁰⁶, ainbat pecatu guichijago. Ezbada¹⁰⁷

(44) in Psalm. 68.

760 Gloriosuac] Glorioosuac *Ba* 766 Jaungoico] Jaungoicc *Ba* 769 escatutendau *Ba*
770 amodijo] omodijo *Ba* | izateco] izatico *Ba* 772 Ez bada *Ba*

¹⁰⁵ Subjektuaren ergatibo-markak eraginda jarriko zuen, agian, "pirmiac" ergatibo-marka eta guzti...

¹⁰⁶ Ik. *Icas-I* honetako 8. oharra (705.or.).

¹⁰⁷ Puntuaz bereizirik egon arren, perpaus adbertsatiboa da, "ez da ezer esaten orain (...)" delako horretan hasten dena.

esaten da au adisquide onac eta Jaungoicozcuac gaiti. Onac eta
 775 Jaungoicozcuac izan arren munduco adisquidetasunac, euraquin dauquee
 penia ta bildurra. Ta ceinbat dan alcarren amodijua ta carinua andijagua, aim-
 bat da alcar galduco ete daveen edo ez ete daveen arduria bere andijagua. Ara
 emen munduco zelo arrabijaubeen ta calteguin andijeen asieria. Asco nai iza-
 ten da ta maitetuten da adiskide pirme bat. Baina nequez topeetan da mun-
 780 duban. Au gaiti umeen adisquidetasunac ez dira estimateetan, laster galduten
 dirialaco. Ta nausijeenac bere bildurra, arduria ta celo aguincarija eureequin
 dauquee gueijenian. Ta descuiduan topeetan badira munduban adisquide bi,
 beti alcar maitiac eta pinac, David eta Jonatas leguez, bata baino bestia (oi
 danez) leenago illgo dira. Ta vitziric gueratuten danac negar eguingo dau, adis-
 785 quide ona paltau jacolaco, David erreguiac eguin evan leguez¹⁰⁸. Ta ceinbat
 adisquide andijagua, aimbat pena andijagua.

Ez dauca bada, cristinaubac, Jaungoicuaren adisquidetasunac onaco ardu-
 rarric, bildurric edo galduco ete jacun penaric, gueuc ameeetan badogu bera,
 beste gauza guztiac baino gueijago. Ez da aldatuten gueure Jaungoico onaren
 790 gogua. Atzo zana da gaur; ta gaur dana, izan da ta izan-[61]go da beti.
 Munduba baino leenago zana, mundubaren asieraan zana ta gaurco egunian
 dana, izango da beti. Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten¹⁰⁹ dau,
 ez otzac zurituten dau, ez edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau
 gueure Jaungoico ona. Munduco guiza aldijac aldatuten dira, erreinubac, ciu-
 795 dadiac ta echiac, batzuc birrindu ta beste batzuc eguin, guztiac aldatuten dira.
 Ondasunac, osasuna, edadia, opicijuac ta munduco naijac guztiac aldatuten
 dira ta mudeetan dira. Adisquidiac bere algarregaz aaztuten dira edo alcarre-
 ganic aparteetan dira. ¿Ta ceimbat bidar bata impernura ta bestia cerura? Abel
 ta Cain adisquidiac cirian; Abel ceruban dago ta Cain impernuban. Samuel ta
 800 Saul adisquidiac cirian; Samuel ceruban dago ta Saul impernuban. Jacob ta
 Esau adisquidiac cirian dempora baten; Jacob ceruban dago ta Esau impernu-
 ban¹¹⁰. Nos bait adisquide izan arren, ez dago adisquide pirmeric munduban
 Jaungoicuz ostian.

Gueuc ameeetan badogu Jaungoicua beste gauza guztiaz baino gueijago,
 805 bera da gueure adisquide pirme bacarra. Nai gaisotu nasala, nai pobretu nasa-
 la, nai zaartu nasala, nai desondrau nasala, nai carcelaan naguala, nai erriric
 erri aldatu nasala, nai ill nasala; neuc ameeetan badot Jaungoicua vijotz guztia-
 gaz, neu banas bere adisquidia, Jaungoico ona beti izango da nire adisquidia

774 esatenda *Ba* 779 maitetutenda *Ba* 781 bildurra| bilburra *Ba* 783-784 oidanez *Ba*
 790 izanda *Ba* 791 asi eraan *Ba* 798 ceimbat| ciembat *Ba*

¹⁰⁸ 2Sm 1,17-18.

¹⁰⁹ "Baltzutu": beltz bihurtu, belztu; (oraingo forma normalena "baltzitu" dugu bizkaieraz)

¹¹⁰ Ik. *Esku*-ko 18.oharra (526-527.or.).

ta ez nau inos bere bacarric ichico. ¡Oh, neure Jaungoico mai-[62]tia! ¿Ez zai-
tut, bada, nic amauco vijotz guztiagaz ta arima guztiagaz, neure adisquide beti- 810
cua ta pirmia zarialaco? Nai neuque beintzat, Jauna, ceu bacarric ameeia, *pirmia*
ta seguruba zarialaco. Baita emonzailia zarialaco bere.

II.

Jaungoicua da *emonzaille* eguijazcua. Ta au gaiti bere zor deitsagu
Jaungoicuari gueure amodijo guztia. Munduban icusten dogunez, gaucia emoten 815
dabeenac, estimaubac dira. Ta ceimbat gueijago emoten daveen, aimbat
estimaubago. Adisquidia izan arren, urrija ta zequena bada, esaten da alacua
gaiti *beretzat obia dala, inorentzat baino*. Baina gaucia ugari emoten davena
ta, endamas atzera biurtuteco escaari bagaric emoten davena, guztiac estimee-
tan davee ta ameeitan davee vorondate onagaz. 820

Guazan bada, cristinaubac, errazoe onetara. Ta icutsi daigun, ia
Jaungoicua, emonzailia dalaco, meraciduten daven gueure amodijo osua.
Onetaraco gogoratu biar dogu, Jaungoicua ez daucala inoren bere preminaric.
Ceruric eta munduric ez balego bere, aingueruric edo santuric ez balego
bere, criaturaren errasturic erne, sortu, edo jaijo ez balitz bere, Jaungoicua 825
Jaungoico¹¹¹ izango zan beti. Ceruba ustuco balitz bere, ez leuque Jaungoicua
ezer galduco. Ta condenau guztiac salbauc balira bere, ez litzaateque dan
baino gueijago izango. Berez da *dana* Jaungoicua, ez inoc emonda. Au gaiti
ez dau inoc pensau [63] biar: edo limosna bat, edo barau bat, edo beste carid-
dade bat eguiten davenian; meza bat, edo sermoe bat entzuten davenian; edo 830
beste gauza oneen bat eguiten davenian, mesede andiren bat Jaungoicuari
eguiten deitsala. Jaungoicua nai dau gu onac izatia ta eguitade on asco gueuc
eguitia, gueu ameeitan gaitubalaco ta gueuri ceruba emon gura deitsculaco, ez
gueure eguitade oneen preminia daucalaco.

Onezaz ostian gogoratu biar dogu, Jaungoicua ez deitsala inori bere ezer 835
zor. Jaungoicua da bacarric zorric ez daucana. Emoten deitscun guztia, duaric
emoten deitscu bere vorondate santia gura dabelaco. Ta emoten deitscu,
berarentzat ezer atzera escatu bagaric.

¿Cer emoten deitscu, edo cer emoten ez deitscu bada, neure cristinaubac,
gueure Jaungoico emonzailiac? ¿Noc emon deitscu daucagun izatia? ¿Nor gaiti 840
ez gara zubez guztioc eta ni arri bat, zur bat, pristija bat edo ezer bere ez? ¿Noc
eguin gaitu guizon ta emacume? ¿Noc gorde guinduzan gueure amaren sabe-
lian, ito bagaric? ¿Noc emon deitscuz ta gordeetan deitscuz adizailia, voron-

811 pirmia| primia *Ba* 811-812 pirmia| Primia *Ba* 821 ia| Ya *Ba* 826 izangozan *Ba*

¹¹¹ Begira zein egoki dioen: "Jaungoicua Jaungoico izango da beti".

- 845 datia ta gomutarija¹¹²? ¿Noc emon deutzuz beguijac, belaarriyac, miina, escubac, oinac, osasuna ta beste gorputz ondo amaitubaren zati biarrecuac? ¿Noc gaucez zoratu bagaric, itsutu bagaric, gortu bagaric, errendu edo galdu bagaric, beste asco galduta dagozan leguez? ¿Noc erneetan¹¹³ ditu gueure laboriac soluetan, azten [64] ditu ta elduten ditu? ¿Egunaz eguzquiagaz ta gavian illarguiagaz noc bisiteetan gaitu? ¿Noc eraguiten deutzaz giraac udiari ta negubari urte oro? 850 ¿Cer izango litzaateque, beti gava balitz? ¿Cer beti udia edo beti neguba balitz? ¿Oh, ceimbat mesede andi duaric orduban orduban eguiten deutzuzan gueure Jaungoico onac! Ta oneec guztioac bere adisquidiai ta arerijuai, justubai ta pecatarijai, cristinaubai ta gentilai, judegubai ta eregiai. ¿Oh, ordaina bagaco emonzaile ugarija!
- 855 ¿Ta cer emoten deutsee bere adisquidiai, edo cristinau eguijazco izan gura daveenai? Emen agortuten da guizonaren jaquituriya. Emoten deutzuz Jaungoicuac ber[e] seme maitia guizon eguinda oguijaren ta ardauaren irudijan. Emoten deutzuz ceruco ondasuneen sinistutia destierra onetan, arimaco gracia, Espiritu Santubaren doiac, gueure pecatubeen paracinoia, ceruba irabazteco 860 biar doguna, bere adisquidetasuna ta ceruban bere izate Jaungoicozcuac, gueuc bera ameeetan badogu vijotz guztiagaz. Daucadan guztia ta nasan guztia, Jaungoicuac emonda daucat. Ta neuc ameeetan badot Jaungoicua, Jaungoico guztia da neuria ta Jaungoicuagaz beste ondasun guztiac bere neuriac dira. ¿Oh, Jaungoico zabalala! ¿Jaungoico ona! ¿Jaungoico emonzaile ugarija! Ameetan 865 zaitut ta amau gura zaitut nic neure vijotz guztiagaz. Emon eguidazu gracia, Jauna, ceu baino beste gauzaric inos ez ameeetaco.
- ¿Oh ce zoraqueriya, cristinaubac, ecer [65] bere balijo ez daveen luurreco gauzaac topeetia, estimeetia ta ameeetia Jaungoicuaren legue santubaren contra! ¿Oh, Jaungoicuari ichita, munduban gustuac nai ditubanaren itsuba ta errucarrija! ¿Oh, munduco ondasuna, ondria, estimacinoia ta atseguina, Jaungoicua baino gueijago ameeetan daven cristinaubaren zorua! Icusico baguendu, esqueco bati esquintzen deutzuz erregue batec bere maija ta palacijua ondasun guztiacquin betico duaric, ta erregue jaunaren esquini ugarija nai ezda, ateric ate 870 davilela esqueco a goseric eta erdi biloxic, ¿ez guenduque esango zorua dala?
- 875 Bada, beste aimbeste edo, obeto esateco, bardin bagaric zoruago da gauza on guztiac duaric esquintzen deutzuz Jaungoicua ameeetan ez daveena. Ta au sinistuta, Jaungoicuaren gorrotuan egotia, peccatu mortalian vitzi izatia, ¿ez da izan leitequian zoraqueriaric andijeena edo negargarriric andijeena? Duda bagaric, cristinaubac.

850 neguba] negaba *Ba* 873 ez da *Ba*

¹¹² "Gomutari": oroimena, oroitzeko edo gomutatzeke ahalmena.

¹¹³ "Erne" aditza, iragankorra da hemen, "ernarazi"ren balio berekoa.

Orregaiti esaten dau Jaungoicuac Jeremias propeta santubaren aoti (45): 880
Icaratu zaitetz cerubac ta birrindu zaitetz ceruco atiac . *Gauza deunga bi eguin*
ditubee nire gentiac: neu izanic ur vitzi guztien iturri ugarija, ichi navee ta
juan dira pozu chistarretaco ur berdiac edaatera . Esango baleu leguez
 Jaungoico andijac pecatubaren contraco asarriagaz: neu nas, gustuac, atseguinac, 885
 poza, ondria, osasuna, ondasunac, vitzitzia, gracia ta ceruban betico glo-
 rija guizon ta emacume guztiai [66] duaric esquini deutseedana. Ta eurac neuri
 ichita, bilatu ditubee ta amau ditubee munduco ondasun ugardunac, ondra
 illunac, gusto atsitubac ta atseguin mingochac. Onan quexeetan da Jaungoicua
 pecatarijaren contra, neure cristinaubac. Ez gaitazan, bada, zoro izan. Amau
 daigun Jaungoicua, beste gauza guztiac baino gueijago, emonzaile ugarija dala- 890
 co. Baita parcazailia dalaco bere.

III.

Vijotz on baten aparteco senaillia da, gach eguin deutsanari parcatutia ta
 arerijo garbatubagaz leen baixen adisquide izatia. Munducuen artian au gui- 895
 chitan icusten da. Ugazaba batec ez dau beinguan ostera echian artuten, sarri
 deungaro eguin deutsan crijaduba. Erregue batec, ez bere palacijoti, ece¹¹⁴
 erreinuti bere laster quenduten dau bere contra jagui dan arerijua. Jaungoicua
 da onetan bere, aparteco ontasuna eracusten deuscuna. Pecatu mortala egui-
 ten davenac, opendiduten dau Jaungoicua, injurijeetan dau Jaungoicua, deson-
 dreetan dau Jaungoicua, salduten dau Jaungoicua ta, Jaungoicuaren arerijo 900
 nausijagaz bat eguinda, jaguiten da Jaungoicuaren beraren contra. ¿Ta cer egui-
 ten dau Jaungoicuac alaco esquer chaarreo cristinaubagaz? Cristinauba bera
 garbatuten bada bere gaisqui eguinagaz, parcatuten deutsa Jaungoicuac bere
 pecatuba ta gueratuten da leen baixen adisquide Jaungoicuagaz. Cristinaubac 905
 pecatu mortalagaz asarratuta euqui arren Jaungoicua, esaten badeutsa vijotz
 osuagaz ta damu eguijazcuagaz: *peca-[67]tu eguin dot, Jauna; damu dot,*
Jauna; parcatu, Jauna; misericordija, Jauna; ez dot ostera eguingo, Jauna;
*compeseetan dot, Jauna, neure pecatuba*¹¹⁵. Au esanagaz ta eguinagaz batera
 aaztuten da Jaungoicua, pecatarijac eguin deutsan injurijagaz. Ta artuten dau 910
 bere echian, bere palacijuan, bere maijan ta bere onduan, bere contra jagui dan
 guizon edo emacume a, beti bere adisquide izan balitz leguez.

 (45) C. 2.

893 eguindeutsanari *Ba* 895 icustenda *Ba* 906 (dot.) *Jauna*] *Juuna Ba*

¹¹⁴ Ik. *Esku*-ko 73. oharra (560.or.).

¹¹⁵ Ik. Lk 15,17-21... (Esamolde orokorrak dira, aitortzako sakramentuan ere jasotzen ditue-
 nak)...

¡Oh, neure Jaungoico ona ta parcazailia! ¿Noc amauco ez ditu zeure errai-
 ja bigunac ta misericordijosuac? ¿Noc urtucó ez dau bere vijotza, neure Jesus
 915 maitia, ceure amodijuagaz, ceure vijotz amodijozcuari, carinosuari ta parcazai-
 liari beguiratu ezquero? ¡Oh, cristinaubac, nos asico gara gueure Jaungoico
 parcazaile ona ameeetan! ¡Oh, Madalena!¹¹⁶ ¡Oh, san Pablo!¹¹⁷ ¡Oh, Erregue
 penitentia!¹¹⁸ ¡Oh san Agustin!¹¹⁹ ¡Oh, Pelagia!¹²⁰ ¿Cer esango cenduque zube
 Jaungoicuaren vijotz biguna, ta parcatuteco presta gaiti? *Berandu asi nas,*
 920 *Jauna, ceu ameeetan,* esango leuquee ta esaten evene penitente areec guztiac;
*ta ondo damututa gagoz, leenago asi eza ceu ameeetan*¹²¹. ¿Cer esango dau
 santa Teresa, gorputzezco serapinac, bere vijotzian cavidu ezin dan Jesusen
 amodijua gaiti? Aingueru batec suzco ezpatiagaz nasaitu biar deutsalala bere
 925 vijotza, esango dau Teresac¹²², caviduco badau Jesusen amodijo santuba. ¡Oh,
 ce dichosuac onan pensau daveenac! Ta baita gueu bere, cristi-[68]naubac,
 ameeetan badogu gueure Jaungoico parcazailia. Acordeetan nas bada, neure
 Jesus ona, pecatu mortala eguin dodan beste bidar izan nasala zeure arerijo
 esquer charrecua. Aimbeste bidar merecidu izan dodala ceuc ni impernuco
 930 ondarreetara condeneetia betico. Parcatu deustazun beste bidar librau nozula
 edo atera nozula impernuti, nun sartu biar nevan popuertza neure erruz, ceuc
 parcatu ez baceunst. Adorau zaijeezala, bada, cerubac eta luurrac, Jesus par-
 cazailia. Ta ill nadilla mila bidar ni, ceu osterá opendidu baino leenago ta ceure
 amodijo santuba neure vijotzeti apartau baino leenago. Alan izan dedila, Jesus.
 Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

913 ezditu *Ba* 923 suzco| suzeo *Ba baina* zuzco *Uts-eguiteen ezauberian*

¹¹⁶ Magdalena, (Ik. *Euscal-errijetaco* ..., 73.oharra, 484.or.).

¹¹⁷ S.Paulo, (Ik. *Euscal-errijetaco* ..., 71.oharra, 484.or.).

¹¹⁸ "Erregue penitentia"; argi dago Dabid erregea duela gogoan, honi dagokion Eskuizkribuko testuan argi eta garbi esaten baita "David Erreguia" (*Esku*-ko 76.oharra, 561.or.).

¹¹⁹ S.Agustin, (Ik. *Euscal-errijetaco* ..., 69.oharra, 483.or.).

¹²⁰ S.Pelagia, (Ik. *Euscal-errijetaco* ..., 74.oharra, 484.or.).

¹²¹ Ik. SAN AGUSTIN, *Obras. Texto bilingüe. Tomo II: Las Confesiones X, 27* (Edición crítica: P. Angel Custorio Vega), Madrid, 1955, 511 or. (B.A.C. 11): "Sero te amavi, pulchritudo tam antiqua et tam nova, sero te amavi!"... PL, Migne, 32, col.795.

¹²² Ik. *Esku*-ko 79. oharra (561.or.).

VL ICASIQUIZUNA,

935

ceinetan eracusten dan
Jaungoicua dala adisquide *carinosua*, guztien *eraracua*
ta *beticua*.

Jaungoicuc euqui arren esan dirian ontasun guztiac gueure vijotzeetaco amodijo osua beragana tiratuteco, balitz gueure Eguilla santuba bera amee- 940
taren[n]tzat asarria, gogorra, zitala, itzaltsuba edo arpeguiera astunecua, ez
lituquee guizonac paltaco achauqui-[69]jaac Jaungoicuari ichita munduco gau-
zaac ameeetaco. Baina ez. Gueure vorondate gaistua izango da ta gueure erru-
ba izango da, gueure Jaungoico ona beste gauza guztiac baino gueijago amee-
etan ez badogu. Bada, da bera ameeetan davenarentzat *carinosua*, *guztien era* - 945
racua ta *beticua*. Icutsi daigun celan.

I.

Ez da erraz, neure cristinaubac, mundutaar bati aituten emoten, ce carino-
sua ta ce biguna dan gueure Jaungoico ona, bera vijotz guztiagaz ta arima guz- 950
tiagaz ameeetan davenarentzat. Jaungoicuaren adisquide maite bat biar da, esa-
ten deuscu san Agustinec, Jaungoicuaren adisquide eguijazcuai cerubac egui-
ten deutseezan erregalu gozuac, atseguinezcuac ta carinosuac aituteco¹²³.
Arrituta, cer pensau ta cer esan ez daquijeela gueratuten dira Eleisiaren
Gurasuac, Salomonen aoti Jaungoicuc bere esposa eguijazcuai esaten deu- 955
tseezan verba gozuac entzunda¹²⁴. Gorputz domaubaac, arima garbijac ta
Jesusen amodijuagaz ixiota dagozan vijotzac entzun biar ditubeen verbaac
diriala areec, dino san Gregorijoc¹²⁵. Ogueta amar urtera eldu ez danec¹²⁶ ez

939 euquiarren *Ba* 957 areec| arrec *Ba*

¹²³ Aipamen hau, inolako erreferentzia garbirik eman gabe, ez da zehatza; haren idazkietan aurki daitezke horren antzeko ideiak; esaterako, haren liburu hau izan daiteke: *De Scriptura sacra Speculum* (De Libro Sapientiae): “Qui confidunt in illum, intelligent veritatem; et fideles in dilectione acquiescent illi: quia donum et pax electis illius” (PL, Migne, 34, col. 947).

¹²⁴ Ik. *Esku*-ko 80.oharra (563.or.).

¹²⁵ Frai Bartolomek hemen San Gregorio inola ere aipatzen ez badu ere, Eskuizkribuan bai egiten du (f.88); honela, aipatu ere: “In cant. Serm. 1. n. 3”. Izan ere, honetaz zerbait esaten da San Gregorioren obra honetan: *Super Cantica Canticorum expositio*, proemium, 3-4 (PL, Migne, 79, col. 473).

¹²⁶ Honelakoetan ohi duenez, ergatibo mugagabea darabil. Gaur egun, “hogeita hamar urtera heldu ez den inork (...)” idatziko genuke ziur aski.

ditubala iracurri biar, esaten eban san Geronimoc¹²⁷. ¿Cer izango ete da, bada,
 960 Jaungoico onaren carinua ta biguntasuna bere adisquideentzat, ain verba altu-
 baquin ta gozuaquin, luurrezco garianoi, aituten emoten deustcunian?

¡Oh, Jaungoico ona ta guztiz maitegarrija! Ceu zara duda bagaric aitaric
 oneena, amaric bi-[70]guneena, esposoric leijaleena, eracuslaric erruquiorree-
 na, ugazabaric mansuena, jauberic zintzueena, lagunic atseguinezcuena ta
 965 adisquideric carinosuena. ¿Noc amaucio ez zaitu bada, Jaungoico ona, ceure
 ontasuna, biguntasuna, mansotasuna ta carinua probau ezquero? ¿Cer eguin ez
 dozu ceuc ceure adisquidiac consoleetaco ta socorriduteco, biar orduban areec
 aurquitu dirianian?

¡Oh! Bela baten picuban bialduten deustazu Elias, ceure adisquidiari egu-
 nian egunian oguiia ta oquelia¹²⁸. Beste bela baten picuban bialduten deustazu
 970 Paulo ermitaino, ceure adisquide andijari ogui erdija basora irudogueti urtian,
 egun bat bere uts eguin bagaric¹²⁹. San Roque gaisuari ta zauritubari chacur
 bategaz bialduten deustazu oguiia¹³⁰. San Anton Abatari artzac bialduten deu-
 tsazuz mendi bacarrian, san Pauloren gorputza enterretaco lagunzat¹³¹. ¿Baina
 noc amaitu, Jauna, ceure adisquidiari eguin deusteezuzan pinezaac ta carinua?

961 Ceuzara *Ba* | duda] dura *Ba* 965-966 ezdozu *Ba*

¹²⁷ Ik. *Esku*-ko 86.oharra (563.or.).

¹²⁸ Ik. 1Erg 17,6.

¹²⁹ San Paulo lehen eremutarra, San Jeronimoren *Vita* liburuan esaten denez, 228an gutxi gorabehera Tebais-en jaioa; etxe oneko semea; Dezioren jazarpen aldiaren bakardadera joan zen, 90 bat urtean anakoreta-bizitza eginez; 113 urterekin hil zen. (ik. B.KÖTTING, *Paulos v. Theben* in. LThK 8 (1986) 214. 60 urtean jaten emateaz, Frai Bartolomek, oraindik Markinako Karmengo liburutegian gordetzen den liburu honetan irakur zezakeen: Petrus Ribadeneira, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 20.or.

¹³⁰ San Roke (Montpellier 1295-1327); ez dugu hartaz historiako berri ziurrik; pertsona hau legendaz inguraturik dugu eta kontakizun horiek diotenez, bere ondasunak behartsuen artean banatu eta Erromara joan zen, han izurriak jota zeuden gaixoak zaintzen jardunez...; bera ere kutsatu zen, baina aingeru batek sendatu zuen miragarriro... (Ik. J. OSWALD, *Rochus, hl.*, in. LThK 8 (1986) 1347-1348. Ikonografiari dagokionez, liburu hau ikus daiteke: K. WELKER, *Rochus (Roch) von Montpellier*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 8.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 275-278; San Roke, izurriaz jota, eta aingeru bat eta txakur bat bere ondoan dituela.

¹³¹ San Anton (ik. *Esku*-ko 67.oharra, 483.or.)... San Paulo eremutarraren hilobi "mirarizkoaz", Frai Bartolomek, oraindik Markinako Karmengo liburutegian gordetzen den liburu honetan irakur zezakeen: *Vitae Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam comple- tentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.* Lugduni, 1617,13.or.; hemen bi lehoiri buruz hitz egiten da... Ikonografiari dagokionez, liburu hau ikus daiteke: E. SAUSER, *Antonius Abas*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 205-217; y C. Weigert, *Paulus von Theben*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 8.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 149-151; irudi ezagunak dira: San Paulo eremutarra, palmondo-hostoz jantzia, bere ondoan janaria ekartzen zion bele bat eta hilobiratu zuten bi lehoi zituela...

Batari bialduten deutzazu ceruti chocolatia, bestiari musiquia, bestiari larrosac 975
 ac, bestiari ceruco ama maitia, bestiari ainguerubac, bestiari etorten zachacoz¹³²
 ceu, artuten dozu ceure esposazat, luzatuten deutzazu ceure escu santuba,
 emoten deutzazu edo ereztuna edo ulzia edo amodijo santubaren senalle agui-
 ri bat ta betico bat. ¡Oh, Jaungoicuaren adisquide eguijazcuac! ¡Oh, san Benito,
 san Bernardo, san Francisco, santo Domingo, san Ignacio, santa Teresa, santa 980
 Rosa, santa Ca-[71]talina... ta beste milla! Ceubec esan biar cenduque ce bigu-
 na, ce gozua, ce atseguinezcuca, ce presta ta ce carinosua dan gueure
 Jaungoicua, bera ameeetan davenarentzat. Amau daigun bada, cristinaubac,
 Jaungoicua, *carinosua* dalaco. Baita gueure guztion eraracua¹³³ dalaco bere.

II.

985

Jaungoicua da guztien *eraraco* adisquidia. Ta au gaiti bere amau biar dogu,
 beste gauza guztiac baino gueijago. Beto munduco guizon ta emacume guz-
 tiac ta esan beguijee, ce erataco adisquidia goguan jausten jacuen. Ta topauco
 davee gueure Jaungoicua, eurac nai daveen eracua. Batzuc eureenez dira tris-
 tiac, ta lagunac bere tristiac gura oi ditubee. Beste batzuc dira eureenez ale- 990
 gueriac, ta alegueriac nai ditubee laguntzat bere. Gacha edo penia daucanac
 naijago dau penadunagaz edo mindunagaz verba eguin, oi danez, ain baga-
 cuagaz baino. Aberatsac bere naijago dau aberatsa adisquidezat, pobria baino.
 Andiquijac andiquija; pobriac pobria; zaarrac zaarra; ta gaztiac gaztia.

Jaungoicua da bada, neure cristinaubac guztien eraraco adisquidia. 995
 Beguiratu beguijo gura davenac, naijen daven moduban; alan topauco dau
 gueure Jaungoico ona. Adisquide tristia gura davenac, triste topauco dau Jesus,
 gueure Jauna ta Jaungoicua Jesemanico ortuban, tristeciac eta larriac odolez-
 co izerdija ateraten deutsalala¹³⁴. Triste Anasen echian, belaarri-ondoco gogorrac
 emoten deutseezala¹³⁵. Tris-[72]te Caipasen echian, guzurrac ezarten deutseeza- 1000
 la, uletiraca, chistu urtica¹³⁶ ta burla minbera guztiac eguiten deutseezala¹³⁷.
 Triste, pillarrari lotuta azoteetan daveenian¹³⁸. Triste, curutzia lepuan davela. Ta
 triste curutzian josita, eseguita daguan lecuban¹³⁹. Adisquide alegueria nai dave-

990 oiditubee *Ba* 992 pena dunagaz *Ba* | oidanez *Ba*

¹³² Nor-Nori aditz-paradigma dugu, euskara batuko "zatzaizkio".

¹³³ Gure idazleak "eraracua" darabil; oraingo euskaraz "erakoa" idatziko genuke, beharbada.

¹³⁴ Ik. Mt 26,36-46 (Mk. 14,32-42; Lk 22,39-46).

¹³⁵ Ik. Jn 18,13.22-24.

¹³⁶ "Chistu urtica": txistua botatzen; "urtica" adizlaguna da eta hitz-elkarketetan bigarren osa-
 gai gisa agertzen da, esaterako, *birao-urtika*, *txinpart-urtika*, *harri-urtika* ...

¹³⁷ Ik. Mt 26,59-68; Mk 14,65.

¹³⁸ Ik. Mt 27,26 "Jesus, zigorkarazi ondoren"...; Lk. 23,22; Jn 19,1. Frai Bartolomek Jesusen
 zigokatzearen ikonografia du hemen gogoan: Kristo zutabeari loturik.

¹³⁹ Ik. Jn 19,16-18; Mt 27,35; Mk 15,24; Lk 23,33.

1005 nac, aleguere topauco dau Jesus, bai Taborco mendijan Eliassen ta Moisen erdi-
 jan apostolubaquin¹⁴⁰. Bai illeen arteti viztuta, Ama Virginiari, Madaleniari ta
 apostolu santubai aguertuten jacuenian¹⁴¹. Bai cerubetara igoten davenian¹⁴². Ta
 bai ceruban daguan lecuban.

1010 Penazcua nai badau adisquidia, penazcua topauco dau Jesus ogueta amai-
 ru urtian edo vitzi izan zan arte guztian. Bada, Ama Virginiaren sabel garbijan
 sortu zaneti curutzian ill zan arte guztian¹⁴³, beti penaz vitzi izan zan gueure
 Salbazalle maitia. Ta ez dau inoc irago penaric, desondraric edo mingarriric,
 leenago Jesusec irago ez dabenic. Nai badau adisquide odol onecua ta entzu-
 te andicua, Jesus da guztien artian odolic garbijeeneecua ta entzuteric andijee-
 necua. Erregue guztien erreguia ta jaun guztien jauna da bere Aita, cein dan
 1015 Aita Beticua. Abraan, Isaac, Jacob, David ta beste patriarca ta erregue nausije-
 en alabia da bere ama, cein dan Maria Santisimia. ¿Bago andiqui andijagoric
 edo caballero nausijagoric, Jesus gueure Jaungoico ta guizon eguijazcua baino?
 Nai badau adisquide aberatsa, Jesus da ceruco ta munduco ontasun guztien
 1020 jaubia. Aberats guztien aberatsa edo aberats [73] bacarra. Nai badau lotsa one-
 cua, inoc burlaric eguingo ez deutsana ta bere ondria zaintuco davena, Jesus
 da lotsia, itzala ta errespetua daucana. Verba bategaz luurrera ezarten ditu, bera
 preso artutera duazan Judas ta soldaubac¹⁴⁴. Ija illian daguala illunduten dau
 eguzquija¹⁴⁵, icaratuten dau luurra, zatituten ditu arrijac¹⁴⁶ ta viztuten ditu illac
 Jesusec¹⁴⁷. Ta nai bategaz erabilten ditu cerubac ta luurrac, gura daven modu-
 1025 ban¹⁴⁸.

Nai badau adisquide pobria, ondo pobretuba topauco dau Jesus, bai
 Belenen jaijo biar davenian, ostatico edo liorperic inoc emon gura ezda, corta
 batera jaijotera doianian¹⁴⁹. Ta bai alemanijeen erdijan jaijota, asca baten daga-

1009 izanzan *Ba* 1010 illzan *Ba* 1026 dau] dan *Ba* 1027 ez da *Ba*

¹⁴⁰ Ik. Mt 17,1-9; Mk 9,2-13; Lk 9,28-36.

¹⁴¹ Ik. *Esku*-ko 93. oharra (565.or.).

¹⁴² Ik. Mt 28,16-20; Mk 16,14-19; Lk 24,50-53; Eg 1,6-11.

¹⁴³ Frai Bartolomek, gutxi gorabehera ebanjelioek diotenaren arabera, gehienek Jesusen adi-
 nari buruz uste zutena agertzen digu hemen; Lukasek dioenez (3,23), Jesusek 30 urte zituen bere
 Berri-Ona aldarrikatzen hasi zenean; benetan 33 urtetik 36ra ibiliko zen, eta hil zenean, 35 urte-
 tik 38ra artean. (Ik. J. DE FRAINE - H. HAAG, *Jesus Christus* in H. HAAG [Zuz.], *Bibel-lexikon*
 Einsiedeln-Zurich-Köln, ²1968, 833-843.

¹⁴⁴ Ik. Jn 18,3-6.

¹⁴⁵ Ik. Mt 27,45; Mk 15,33; Lk 23,44-45.

¹⁴⁶ Ik. Mt 27,51-54; Mk 15, 38; Lk 23,45.

¹⁴⁷ Ik. Mt 27,54.

¹⁴⁸ Ik. Has 1.

¹⁴⁹ Ik. "eta abere-aska batean ezarri zuen" (Ik. Lk 2,7). Frai Bartolomek, irudimenari libre utzi-
 ta, tradizioko kontakizun zehatza eta historian zehar iconografiak agertzen duen irudia ematen du...

nian. Bai bere janian ta soinian; bada, san Joseperen aotzijaco irabacijagaz vitzi
 cirian Jesus, Maria ta Jose¹⁵⁰; ta jantzi bat baino euqui ez eban bere dempora 1030
 guztian. A bere quendu eutseen azoteetaco ta curutzian josteco¹⁵¹. Pobria gura
 badau adisquidia, ondo pobre dauca Jesus curutze santan josita. Penaz dago
 aberatstuta; baina munduco ondasunez ondo pobretuta. Bere gorputz illa mez-
 tituteco izaria bere inoc caridadez emonda¹⁵² dauca. Jesusec ama bere pobria
 evan. Aita ordecua bere pobria evan. Laguntzat edo discipulutzat artu cituba- 1035
 nac bere pobriac cirian; arrain arzailiac zirian¹⁵³. Orraco altaraco sacramentu
 santuban bere pobre dago Jesus maitia. Lecu ascotan argui apur bat ozta bere
 aurrian iminten jaco. Ta corporal zaar ta ascotan loi batzubeen [74] gainian
 dago Jesusen gorputz Jaungoicozcua.

¿Ce achaquija emon legui, bada, cristinaubac, gueure Jaungoico ona ez 1040
 ameataco? ¿Izango ete da inos galduco ete dogun arduria? Ez, cristinaubac.
 Beticua da gueure Jaungoicua. Ta au gaiti bere amau biar dogu, beste gauza
 guztiac baino gueijago.

III.

¡Oh, ce atseguin andija cristinaubarentzat Jaungoicua beticua izatia! Ez da 1050
 gueure Jaungoico ona gueuganic inos aldenduco, gueu beraganic aldenduten
 ez bagara. Ez deuscu inos bere ichito, gueuc berari isten ez badeutsagu. Ez
 dauca amairic Jaungoicuaren adisquidetasunac, gueuc gueure guraz ta boron-
 datez pecatu eguinda galduten ez badogu.

Vijotz guztiagaz, gogo guztiagaz, arima guztiagaz ta beti ameean badogu 1055
 gueure Jaungoico guztiz maitegarrija beste gauza guztiac baino gueijago, duda
 bagaric da guretzat Jaungoicua adisquide jaquituna, adisquide zucena, adis-
 quide aberatsa, adisquide lauba, adisquide andija, adisquide sendua, adisqui-
 de pirmia, adisquide emonzailia, adisquide parcazailia, adisquide gracijosua,
 guztien eraraco adisquidia ta betico adisquidia. Jaungoico guztia ta bere erre- 1060
 nu guztia da betico gueuria. Ta ameean ez badogu Jaungoicua beste gauza
 guztiac baino gueijago, Jaungoicuaren betico gorrotua, asarria, zamaija, ceruti
 betico erbestetutia ta impenuco betico erreeta demoninuen ta condenaubeen

1038 batzu been *Ba* 1041 eteda *Ba* 1050 Ezda *Ba* 1051 gueu ganic *Ba* 1052
 ezbagara *Ba* 1052-1053 ezbadeutsagu. Ezdauca *Ba* 1054 ezbadogu *Ba*

¹⁵⁰ Ik. "Arotzaren semea" (Mt 13,55; Mk 6,3).

¹⁵¹ Ik. Mt 27,28; Mk 15,20; Jn 19,23-24.

¹⁵² Ik. Mt 27,59; Mk 15, 46; Lk 23,53; Jn 19,40.

¹⁵³ 12 apostoluen artean (Mt 10,2; Mk 3,13-19; Lk 6,13-16) ez ziren guztiak arrantzaleak, baina haietatik lau bai gutxienez, talde hartan garrantzitsuenetarioak, hain zuzen ere: Pedro eta Andres, Santiago eta Joan.

artian, guztia da [75] gueuria. Bijeetati bat, cristinaubac. Edo betico ceruba edo
 1065 betico impernuba, guztia gueuria. Jaungoico onaren amodijo santubaren sarija
 da betico ceruba. Amodijo santu onen paltaan betico impernuba. ¿Cer esan
 legui bada, cristinaubac, pediagaz eguiija oneec sinistuta, pecatu mortalian vitzi
 dan errucarrija gaiti? ¿Jaungoicuaren gorrotuan, daquijala, daguana gaiti? ¿Pena
 bagaric legue santuba ausita, Jaungoicua betico galduten davena gaiti? ¿Pecatu
 1070 mortala eguiten davena gaiti? ¿Esango dogu, alaco cristinauba zorua dala? ¿Ala
 itsuba dala? ¿Ala gaistua dala? ¿Ala pede bagacua dala? Ez da erraz, eguiija esa-
 teco, pecatu mortalian Jaungoicuaren gorrotuan sosiguz jan ta lo eguiten dave-
 nari, ondo jagocan izen bat emoten. Esan daquijola, bada, san Paulo aposto-
 lubagaz (46): *Jesucristo gueure Jauna, Jaungoico ta guizon eguijazcua amee* -
 1075 *tan ez davena, izan dedila madaricatuba, izan dedila escomulgauba, izan*
*dedila beti condenauba*¹⁵⁴. ¡Oh, ce verba icaragarrija! Baina Espiritu Santubac
 esanac. Errazoiari darraicozanac. Ain Jaungoico ona ta maitegarrija pecatu mor-
 talagaz opendituten davenac, ondo irabatzija dauca betico condeneetia.

Esnaatu gaitezcan bada, cristinaubac, gueuri guztia balijo deuscun, betico
 1080 dichiarri beguiratuteco. Gogoratu daiguzan sarritan Jaungoicuaren ontasanac.
 Batian jaquituriya neurri bagacua, bestian bere ontasan zabalac ta uga-[76]riyac,
 bestian bere betico Erreinu baquetsuba ta dichosua, bestian gueuri deuscun
 carinua, amodijua ta vorondate ona. Beguiratu daijogun gueure arimeetaco nai
 on guztiagaz ta vijotzeetaco amodijo pin guztiagaz Jesucristo, gueure Salbazaile
 1085 maitiari. Batzubetan Belengo ganadu asca pobrian bere jaijotzaan; beste ba-
 tzubetan Ama Santisimiaren ta san Josepe bedeincatubaren altzuan ta besuetan;
 beste batzubetan Jesemanico ortu santuban auspaztuta odolezco izerdija dari-
 jola, gu gaiti oracinoe eguiten daven lecuban; nosbait, celan azoteetan daveen;
 beste baten celan curutzia lepuan davela doian Calbarijora ta daguan curutzian
 1090 eseguita. Beguiratu daijogun illeen arteti viztuten; altaraco sacramentu santu-
 ban; en fin¹⁵⁵ bere vitzizaco ta erijotzaco pausu santubeetan. Penseeta oneec
 ecarrico davee gueure vijotza Jaungoicua ameeetara, beste gauza guztiac baino
 gueijago. Ta au da asco, gu beti ceruban dichoso izateco. Aitiaren, Semiaren ta
 Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 1095 (46) Ad Corinth. c. 16.

1075 ezdavena *Ba* 1085 ganadu| ganudu *Ba* 1088 Nos bait *Ba* 1093 auda *Ba*

¹⁵⁴ 1Ko 16,21: "Madarikatua Jauna maite ez duena! Marana tha! (Zatoz, Jauna!)". Hauxe da bere aipamenean parafraisi gisa ematen duen testua.

¹⁵⁵ Erdal esapide hau euskarara guztiz egokiturik, "empin" edo "enpin" egiten du beti, hemen izan ezik...

[77]

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
cer dan novera ameeitia. Ta ceintzuc dirian gue[ul]re proximuac.

Icasi ezquero cristinaubac, lelengo aguindubac escatuten deutsalala Jaungoicua ameeitaco beste gauza guztiac baino gueijago, ta celan dan gueure 1100
 Jaungoico ona guztiz maitegarrija, onen ondoric Jesucristo, gueure Jaunaren esana ta cristinaubaren eguinbiarra da, ameeitia gueure proximua, gueure buruba leguez. Ez gaitazan, bada, engaiñau, cristinaubac. Proximua ameeitaco daucagun aguinduba, chito andija da. San Paulo apostolubac dinuanez, adulterijoric ez eguitia; ezer ez oostutia; inor ez illtia; testigantza paltsoric ez emotia, ta 1105
 beste Jaungoicuac aguinduten deitscun guztia cabiduten da verba oneetan: *amauco dozu zeure proximua*¹⁵⁶, *ceure buruba leguez*¹⁵⁷. Proximua ameeitaco gueure buruba leguez, jaquin biar dogu celan gueure buruba amau biar dogun. Ascoc usteco davee, baquijeela euren burubac ameeitan. Ta izan leiteque euren gorputzac ta gurarijac ameeitan jaquitia. Baina Jaungoicuac aguinduten 1110
 deitscun moduban euren burubac ameeitan daquijeena ez dira guztiac, eze guichijago bere. Au gaiti eracutsico deu-[78]tsut dotrina onetan: 1. *Cristinaubac celan amau biar daven bere buruba*. 2. *Nortzuc dirian gueure proximuac*. Prestau eguizu entzutia.

I.

1115

Laarreguijac ta guichijeguijac eragotzita dagoz legue guztian. Borondatezco ta ezauberazco gauza guztietan biar da moduba ta ordenia. Alan, cristinaubac, Jaungoicuac aguinduten deitscunian proximua ameeitaco, gue[ul]re buruba leguez, moduren baten aguinduten deitscu gueure burubac ameeitaco bere. 1120
 ¿Celan baina amau biar dau cristinaubac bere buruba? ¡Ah, neure entzula onac! Emen dagoz utseguite asco. Gueure buruba esaten darian, aituten emoten da

1102 eguin biarra *Ba* 1107 proximua] progimua *Ba* 1113 proximuac] progimuac *Ba*

¹⁵⁶ Hemen *progimua* idazten du. Nahi gabe itzuri zaiona dirudi *g-z* idatziriko forma hau, bere obra osoan hiru bider soilik agertzen baita horrela idatzirik (eta hirurak liburu honetan) ; gainerrako guztietan, *projimo* eta *proximo* idazten du. Guk *g-z* datozen hirurak *x-z* ematen ditugu.

¹⁵⁷ Ik. Erm 13,9.

guizon edo emacume guztia, gorputz ta arima. Arimia ta arimiari darraicozanac, ta gorputza ta gorputzari bere izatian darraicozanac da guizona edo emacumia. Ta au da bere ordeniagaz ta modubagaz bacochoac amau biar davena.

1125 ¿Baina celan? Jaungoicuac aguinduten daven moduban. Gueure arimia ta arimaco adilarija edo entendimentuba ta nailaarija edo borondatia, ta gorputza bere sentidu guztiaquin Jaungoicuac gueuri duaric emonac dira. ¿Ta cetaraco emon deuschuz Jaungoicuac gueure burubac, gorputza ta arimia? Bera ezaut-teco, bere naija eguiteco, bera ameataco ta guero beti ceruban bere ontasuna

1130 gozeetaco. Begaz, amau biar ditugu gueure burubac Jaungoicua gaiti ta Jaungoicuarentzat. Beste gauzaric esatia, ordena guztia oquertutia da. Uts eguitia da.

Amau biar dogu gueure izatia, Jaungoi-[79]cuari graciaac emonda, guizon eguin gaitubalaco. Amau biar dogu gueure arimia. Ta arimia ameatia da peccaturic ez eguitia. Bada, pecatu eguiten davena da bere arimiaren arerijua. Arimia ta gorputza betico dichoso eguiten ditubana da gracia. Ta au gura izan biar dogu, beste gauza guztiac galduta bada bere, gueure buruba Jaungoicuac aguinduten deuschun moduban ameataco. Gorputza ta arimia betico zorigues-toco eguiten ditubana da pecatuba. Ta pecatubari gorroto izan biar deuschu,

1140 beste gauza guztiai baino gueijago, gueure buruba ameataco. Amau biar dogu gueure gorputza, arimiaren crijaduba dalaco ta arimiari Jaungoicua serviduten lagundu daguijon. Amau biar ditugu gueure entendimentuba, vorondatia ta sentzailiac edo sentidubac, arimiari ta gorputzari lagundu daguijuen Jaungoicua serviduten ta ceruba irabazten. Amau biar ditugu vitzitzia, luzia edo

1145 laburra; gueure osasuna, sendua edo macala; gueure gorputzaren zatijac, osuac edo ausijac; gueure cleituba, jaquiturija ta beste gueure izatiari ta izatiaren ontasunari darraicozan ta daucaguzan gauza guztiac. Baina guztiac Jaungoicua gaiti ta Jaungoicuaren naija eguiteco. Jaungoicua serviduteco ta obeto ameataco. Pecatuti aparteetaco, biar onac eguiteco ta ceruba irabazteco. Gueure cereguin nausija ta bacarra dan leguez Jaungoicua ameatia ta gueu salbeetia, onetaraco amau biar dogu gueure buruba, garian guztia ta daucagun guztia. Ja-

1150 [80]zoten bajacu inos ordu esturic ta ain esturic, ceinda erremedio bagacua dan: edo gracia galdu edo beguija galdu; edo pecatu eguin, edo besua edo iztarra galdu; edo arimia galdu, edo vitzitzia galdu; edo Jaungoicua opendidu, edo cleituba, aciendia ta adisquidiac galdu; erabaguita dauca Jesucristo gueure Jaunac bere evangelijo santuban. ¿Ta cer? Leenago galdu biar ditugula gueure beguijac, gueure besuac, gueure iztarac, gueure cleituba, ondasunac, adisquidiac ta vitzitzia bere, gracia galdu baino, pecatu eguin baino, arimia galdu baino, Jaungoicua opendidu baino.

¿Cer balijo deutsa guizonari mundu guztiac, bere arimiaren caltian bada? 1160
 dino Jesucristo gueure Jaunac (47). Esango baleu leguez Jesus, gueure ceruco
 eracusla andijac: ¡Oh, cristinauba! Zariana zariala, aditu eguizu ta sinistu egui-
 zu, gueijago balijo davela zure arimiac, munduco ontasun, entzute andi, por-
 tuna dichoso ta atseguingarri guztiac baino. Mundu guztia irabatzi arren ceure
 arimia galduten badozu, guztia galdu dozu. Arimiaren caltia ezegaz bere erre- 1165
 medijauco ez dozu. Munduco gauza bat gaiti pecatu eguinda condeneetan ba-
 zara, impernuti inoc bere ateraco ez zaitu. Beste lecu baten esaten deustcu
 Jesucristo gueure Jaunac dotrina au berau: (48) Zeure beguija dala medijo
 pecatu eguiten badozu, atera eguizu beguija. Bada, oba dozu begui ba-
 [81]tagaz cerura juan, beguija gaiti pecatu eguin ta begui bijaquin impernura 1170
 juan baino. Ceure escubac pecatu eraguiten badeutsu, ebagui eguizu escuba.
 Bada, oba dozu escu batagaz cerura juan, escuba gaiti pecatu eguin ta escu
 bijaquin impernura juan baino. Ceure oiña dala medijo, pecatu eguiten bado-
 zu, ebagui eguizu oina. Bada, oba dozu oin batagaz cerura juan, bijaquin
 impernura baino. Verba oneetan esaten deustcu gueure Salbazaille maitiac: 1175
 Beguijac, escuba, edo oina baisen maite doguna bada bere gueuri pecatu era-
 guiten deustcuna; nai aita, nai ama, nai umia, nai senidia, nai adisquidia, nai
 gueure aciendia, nai gueure cleituba, nai beste edocein gauza; dana dala, lee-
 nago galdu biar dogula, pecatu eguin baino. Gueijago amau biar dogula gueu-
 re arimia, munduco gauza guztiac baino. Au da gueure buruba ameeitia, 1180
 Jaungoicuac gura daven moduban.

Ta inoc dudeetan badau, ia vitzitcia gordeetia gaiti pecatu eguin leguijan,
 au bere erabaguita dauca Jesucristoc bere evangelijo santuban (49), nun
 dinuan: gorputza ill baino besteric ezin deustsunari, ez eguijozu bildurric euqui;
 baina bildur izan zaquijoz, gorputza ta arimia impernura bota leguizuzan 1185
 Jaungoicuari. Emen eracusten deustcu Jesus maitiac, leenago galdu biar dogu-
 la gueure vitzitzia, Jaungoicua pecatubagaz opendidu baino. Gueijago amau
 biar dogula gueure arimia vitzitzia [82] baino. Arimia dan leguez gueure izate
 nausija ta ya beticua, Jaungoicuac bere irudira eguindacua, au gaiti gueure ari-
 mia ta arimaco salbacinoia amau biar dogu, Jaungoicuaz urrengo, beste luu- 1190
 rreco gauza guztiac baino gueijago. Onen ondoric amau biar dogu bai gueure
 vitzitzia, bai gueure osasuna, bai gueure gorputza, gueure cleituba ta
 Jaungoicuac emon deustcun guztia. Baina oneec guztioc amau biar ditugu ta
 guztiaquin balijau biar dogu Jaungoicuaren aguindubac gordeetaco,
 Jaungoicua bera ameeitaco ta gueure arimia salbeetaco. Arimiaren caltian gor- 1195

 (47) Marc. c. 8. (48) Id. c. 18. (49) Math. c. 10.

1167 bazara] batzara *Ba* 1169 obadozu *Ba* 1172 obadozu *Ba* 1174 obadozu *Ba*
 1182 ia] ija *Ba* 1186 eracusten] eracutsten *Ba* 1189 ya] ija *Ba*

putza, vitzitzia, osasuna, cleituba, ondasunac, gurasuac, adisquidiac edo luureco gauzaac ameeitia da, bere burubari ondo gura ez izatia.

- 1200 ¡Cer! ¡Naico cenduque ceure echian gauza chaarra euquitia? itanduten deutsa san Agustinec pecatarijari. Ta erantzuten deutsa: Ezer bere ez cenduque naico chaarra euquitia; ez emazia, ez semia, ez alavia, ez crijaduba, ez crijadia, ez arcondaria ta ezda oinetacuac bere. ¡Ta nai dozu euquitia vitzitza chaarra ta arima chaarra? Amau eguizu, bada, gueijago, esaten deutsa santubac, ceure arimia oinetacuac baino. ¡Oh, ceimbat cristinauri esan leguijuen beste
- 1205 aimbeste! Ameetan ditubee ¡lastima gorrija! euren burubac Jaungoicua openduteco ta diabruba serviduteco. Ameetan ditubee eureen gorputzac pecatu nasajjac beragaz eguitemo. Ameetan davee eureen osasuna Jaungoicuaren legue santuba austeco. Ameetan ditubee eureen [83] savelac, beguijac, belaarriyac, vitzitzia, ondasunac ta Jaungoicuac emonda dauqueen guztia. ¡Baina cetaraco? ¡Ah, pecatari tristici! Sabela ta gorputza Jaungoicozat artuta, eurac serviduteco, eurai gusto emoteco, pecatu eguitemo ta arima errucarija conde-
- 1210 neetaco. ¡Ta au da cristinaubac bere buruba ameeitia? ¡Esango dogu sobervijotso batec, envidijoso batec, gorrotosu batec, guleru batec, ordi batec, codicijotso batec, lujurijotso batec, pecatari batec ameeitan davela bere buruba? Ez.
- 1215 Arimiaaren arerijua ta bere burubaren arerijua da, pecatu eguiten davena. Amau daiguzan bada, cristinaubac, gueure burubac, Jaungoicuac aguinduten deuscun moduban, proximuac ameeitaco gueure burubac leguez. Baina onetaraco, jaquin biar dogu, ceintzuc dirian gueure proximuac.

II.

- 1220 Munduban dagozan guizon ta emacume guztia dira gueure proximuac. Ez equi uts eguiteric, cristinaubac, gauza onetan. Nai urrecuac ta nai urrinecuac, nai erricuac ta nai erbestecuac, nai adisquidiac ta nai arerijua, nai senidiac ta nai atziac, guztia dira gueure proximuac. Adan eta Evaganic datozan guztia, dino san Agustinec (50), dira ceure proximuac. Guztioac gara alcarren lagunac.
- 1225 Baina ez guztioac modu baten, ceruraco ustiari beguiratu ezquero. Cristinaubac izan ez arren, ceure proximuac dira. Bada, ez daquizu zuc Jaungoicuaren aurrian cer jatzoten dan. [84] Ascotan zuc, cristinau ez dalaco, burla eguiten deutzazuna biurtuten da Jaungoicuagana. Ta benturaz zuc baino obeto serviduten dau, adoreetan dau ta ameeitan dau Jaungoicua. Gueuc jaquin ez arren
- 1230 nortzuc eta ceimbat dirian, bagoz cristinau ez diriaenen artian cristinaubac. Ez daquigu Jaungoicuaren aurrian cer jatzoten dan, ez cer jazoco dan. Ez daqui-

(50) Psalm. 25. enarrat. 2.

1202 ez da *Ba* 1207 osasuna] osatsuna *Ba*

gu ceintzuc salbaucó dirian edo condenuco dirian. Orregaiti munduco guizon ta emacume guztiac euqui biar ditugu gueure laguntzat ta proximozat. Au da san Agustinen verbeetia. 1235

Emeti ateraten da contuba, cristinaubac, gorputza ta arimia dauqueen guizon ta emacume guztiac, nai diriala eregiac, nai judegubac, nai moruac, nai gentilac, nai Jaungoico bagacuac, nai beste edocein castatacuac, gueure lagunac ta proximuac dira. Ta gueure buruba leguez amau biar ditugunac dira guztiac, salbaucó bagara. Alan 1. amau biar ditugu, ceruban Jaungoicuagaz dichoso dagozan aingueru, santu ta santa guztiac. Alegrau biar dogu eureen dicha onagaz ta gloria ederragaz. Ta erregutu biar deutseequ, izan ditezala gueure lagun onac ceruban Jaungoico andijaren aurrian. 2. Amau biar ditugu purgatorijuan erreetan dagozan arima pielac, dirialaco Jaungoicuaren adisquidiac; gracia ta caridadia inos galduco ez daveenac ta ceruban santubaquin beti vitzico dirianac. Erruquitu biar dogu purgatorijoco arimaac dauqueezan pena-[85]aquin. Ta socorridu biar ditugu oracinoiagaz, barubagaz ta beste eguitade onaquin, pena areetati librauta, gueure bitarteco ceruban izan ditezan. Purgatorijoco arima pielac gaiti Eleisa Ama santiac eracusten deutcuna da 1. Jaungoicuaren graciaan ta adisquidetasunian ill dirian arimaac, baina pecatu mortal ondo compesabeen edo pecatu chicarreen zor guztia Jaungoicuaren zucentasunari munduban pagau bagaric ill zirianac, illda guero pagau biar daveela zor guztia padacidubagaz. 2. Arima errucarri areec purgatorijuan dagozan artian, erriaz ta padacidubagaz baino bestelan eureentzaco ezin leguijeela ezer. 3. Eleisa Ama santiaren ta cristinaubeen eguitade onac, limosnaac, oracinoiac, mezaac, indulgenciaac ta caridadiac, purgatorijoco arimeen izenian eguin ezquero balijo deutseela, eureen zorrac pagueetaco ta penaac arinduteco, edo guztia edo zati bat. Ta ceimbat gueijago eguiten dan eureen izenian, aimbat lasterrago urtengo daveela purgatorijoti. 4. Arima dichoso areec seguru dagozala betico. Ezin leguileela ya peccaturic. Ta zorra pagau daguijeen istantian sartuco diriala ceruco erreinuban. 1250

Au da, cristinaubac, pediac eracusten deutcuna purgatorijoco arima pielac gaiti. Padecietan ta erreetan dagozan proximuac dira. Jaungoicuac ta ainguerubac maite ditubeenac dira. Ceruco pamelija santuba gueituco daveenac dira. Premina andijan dagozanac dira. Menturaz gueure gurasuac ta senide urrecuac dira. Ez-[86]quer onecuac dira. Bada, gueuc gueure eguitade onaquin orain pena areetati libreetan baditugu, duda bagaric izango dira ceruban Jaungoico andijaren aurrian bitarteco segurubac. Socorridu daiguzan, bada, aleguin guztijagaz purgatorijoco arima errucarriac. Baita onezaz gainera amau biar ditugu munduco proximo guztiac, gueroco dotrinan esango dan modubagaz ta ordeniagaz, salbaucó bagara. 1260

1248 izanditezan *Ba* 1260 ya] ija *Ba*

Erregutu daguijogun bada, neure cristinaubac, gueure Jaungoico onari, eracutsi daigula bere anditasuna, gueure burubac ta proximuac ameeetan. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren Izenian. Amen.

1275

VIII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Arerijo ez dirian proximuac ameeitia cer dan.*
2. *Ce ordenagaz amau biar dirian.*

Icasi ezquero cristinaubac celan amau biar daven bere buruba ta ceintzuc
 1280 dirian bere proximuac, oni darraico, neure entzula onac, icastia cer dan
 gue[u]re proximuac ameeitia ta ce ordenagaz amau biar ditugun. Esango deu-
 tsut, bada, dotrina onetan: Leleengo, *celan amau biar ditugun gue[u]re proxi -*
muac. Bigarrenian, *ce ordenagaz amau biar ditugun* . Ez da dotrina [87] one-
 tan ezer esaten, arerijuai zor deutsagun amodijua gaiti. Au dan leguez sarritan
 1285 jatzoten dana ta cristinau ascoc nequez icasi oi daveena, dinot: *arerijua amee -*
etia. Gueroco dotrinaco isten dot oni jagocana eracustia. Egon zaitez, bada,
 atencinoe onagaz.

I.

Jaungoicuaren aguinduba da, neure entzula onac, proximia gueure buru-
 1290 ba leguez ameeitia. Inor bere ez dago libre cereguin santu onetati. Inoc bere
 ucatu ezin legui legue santu au. Proximuac ameeitaco neurrija bere, Jesucristo
 gueure Jaunac berac iminija da. Ezin quendu guinaijo izpiric, caridadian paltau
 bagaric. ¿Ce neurri da, bada, au? Gueure burubari deutsagun ondo guria pro-
 ximuari izatia. Gueuretzat gura guenduquiiana, proximuari gura izatia. Gueure
 1295 burubac leguez, proximia ameeitia. Ara emen neurri arguija, zabala, duda guz-
 tiac quenduten ditubana ta edoceinec bertati icasi leguijana. ¿Nai dozu ceure-

1277 cerdan *Ba* 1280 cerdan *Ba* 1285 oidaveena *Ba* 1290 cer eguin *Ba*

tzat osasuna? Bada, nai izan biar deutzazu proximuari. ¿Nai dozu ceuretzat baquia? Bada, nai izan biar deutzazu proximuari. ¿Nai dozu ceuretzat cleitu ona, ondra ona, bestiac ceu gaiti ondo esan daguijeen ta estimau zaguijeezan lecu guztietan? Bada, nai izan biar deutzazu proximuari cleitu ona, estimacinoe 1300
ona, gentiac bera gaiti ondo esan daguijan ta pensau daguijan. ¿Nai dozu ceure laboriac ondo ta ugari eldutia, ceure ganadubeetan, tratubeetan ta artu emoneetan ondo urtetia, ta inor cansau bagaric, cegaz vitzi munduban euquitia? [88] Bada, beste aimbeste opa biar deutzazu ceure proximuari bere laboreetan, aciendaan ta artu emonetan. ¿Nai dozu vitzitza lucia ta pamelija ona ceuretzat? 1305
Bada, beste aimbeste proximuarentzat.

Zeure osasunian, pamelijaan, seniqueraan edo echian gaiso bat, naibague bat, negargarri bat edo atsecaba bat jazoten jatzunian, nai cenduque ceure auzua ta lagunac ceugaz erruqitu ditezan, lastima artu daguizubeen ta aleguinaz lagundu daguizubeen gaiso edo premina atan. Bada, ceure buruba 1310
leguez proximua ameeaco, erruqitu biar dozu ceure auzuaren ta proximuaren naibagua, atsecabia ta trabajuba dacutzunian. ¿Guztiac baino gueijago gura dozu Jaungoicua parcatu daizuzan ceure pecatubac, emon daguizun arimaco gracia ta ceruco gloria? Bada, munduco guztiai opa biar deutseezu, luurreco ondasun ta atseguin guztiac baino obeto, eureen pecatubeen parcacinoia, arimaco gracia ta ceruco gloria. Ara emen proximua ameeaco neurrija. 1315

Ondo gura deutzagunari ta ameeatan dogunari ez deutzagu, daquigula, nai bagaric emoten. Ez deutzagu gachic eguiten ez osasunian, ez aciendaan ta ez cleituban. Ta Jaungoicua gaiti ameeatan badogu, ez deutzagu pecaturaco bideric bere emoten. Penaz edo triste badago gueuc benetan Jaungoicua gaiti ameeatan dogun adisquidia, pocic eta gogoz lagunduten deutzagu. Triste badago, consolee-[89]tan dogu. Gose edo egarri bada, copau bat baino ez bada bere, euqui ezquero, vorondatez emoten deutzagu. Penaz badago, erruqituten gara ta arindu gura guenduque bere penia. Pecatu mortal bat eguiten badau, ¡oh! oraindino gueijago sentiduten dogu bere pecatuba beste bere gach guztiac 1325
baino. Erregututen deutzagu Jaungoicuari gueure adisquidiaren arima errucarrija gaiti. Gogoratuten deutzagu berari bere (artia, moduba ta tertzijoric oneena artuta) eguin daven pecatuba, laster erremedijau dedin ta pecatu mortalian ill ez dedin. Ara, cristinaubac, gueure proximua ameeaco neurrija.

¡Oh, ce gauza ona izango litzaatequian guztio onan alcar ameeatia ta alcarri lagundutia! Gogoratuta beste bagaric, emoten dau embidija santu bat, cristinau guztiac onan alcar ameeatan ta alcarri lagunduten vitzi izatiac. Errazoiagaz esaten dau san Paulo apostolubac (51), Jaungoicua gaiti proximua, biar dan 1330

(51) Rom. c. 13.

1303 cansaubagaric *Ba* 1307 nai bague *Ba* 1312 nai baguia *Ba* 1317-1318 nai bagaric *Ba*

1335 leguez, ameeetan davenac gordeetan davela legue guztia. Ez daquit cec emoten deutzan aimbeste su gueure vijotzari, proximuaren contra gorrotua, icusi ezina, gaisqui esatia ta gaisqui opa izatia euquiteco.

Proximua ameeetaco ez da asco auagaz esatia: *guztiac ameeetan ditut nic; ez deutzat nic inori bere gachic gura*. Au esatia gauza ona ta biarrecua da.

1340 Baina auagaz esaten dana vorondatiagaz nai izan biar jaco; ta al izan ez-[90]quero eguinagaz aituten emon biar da. Au gaiti esaten dau san Juanec (52), mesede eguinagaz amau biar ditugula proximuac, ez verba utsagaz. Ta Santiagoc esaten deutzcu: *Dacutszunian pobre, bilos, gose, otzac irago bat, zuc esan arren ari: zuaz Jaungoicuagaz, berotu zaite ta cerbait jan eguizu; ceu* -

1345 *reti ezer emoten ez badeutzazu, ¿cer balijo deutzsa pobriari zure ondo esanac? Eguitadiac dira gueure pediaren ta caridadiaren testigubac* ¹⁵⁸. Au berau aituten emoten deutzcu san Paulo apostolubac, dinuanian (53): *Aingeruben minagaz verba eguingo baneu bere, ceruco misterijo guztiac ezautuco banitu bere, jaquiturija guztia baneuca bere, mendijac bateti bestera iragoteco sinis* -

1350 *tutiagaz banengo bere, ta neure gorputza erreetaraguino castigauco baneu bere; caridaderic ez badaucat, utsa nas ta ecer bere balijo ez deutztee*. ¡Oh, caridade santuba! ¡Oh, Jaungoicuaren ta proximuaren amodijo santuba! ¡Ceimbat gauzaren paltaac erremedijeetan dituzun!

Ta inor engainau ez dedin caridadia daucala pensaubagaz, Apostolu santubac berac banaan conteetan deutzcu caridade eguijazcuaren eguitadiac. Dino, bada (54): Caridadia ichaan andicua da, paciencia andicua da, biguna da, envidija bagacua da, gachic eguin gura ez davena da, vanidade ta andiari bagacua da. Caridadia daucanac ez dau asarrerico era-[91]custen; ez dau gachic penseetan; ez deutzsee bere gauzai aimbeste beguiratuten; ta inoren on guztiaz aleguereetan da. Caridadia daucanac guztia supriduten dau, guztia sinistuten dau, guztia esperetan dau, ta inor gaiti bere ez dau gachic penseetan. Onec dira caridade eguijazcuaren senailiac; ta emeti ezautuco dau cristinaubac ia caridadia daucan edo ez.

Proximuaren caridadiaren contra pecatu eguiten da modu ascotara: 1. Proximuari gorroto izanagaz edo gauza charra opa izanagaz, 2. Inoren gauza onaren embidijagaz. 3. Proximuaren baquia galdubagaz. 4. Proximuaren gachagaz alegrau edo onagaz tristetubagaz. 5. Al daguijala, necesidarian daguan proximua socorridu ezagaz, nai arimaco nai gorputzeco premineetan. 6. Proximuari pecatu eraguinagaz nai pecatu eguiteco vidia emonagaz. Pecatu ezaina ta Jaungoicuaren gorroto andicua da inori pecatu eraguitia nai pecatu

(52) Epist. 1. c. 3. (53) Corinth. c. 14. (54) Id. Ibid.

1339 ezdeutzat *Ba* 1341 biarda *Ba* 1354 ezdedin *Ba*

¹⁵⁸ Ik. St 2,16-17.

eguiteco bidia emotia. Zorigaistocuac eta desdichaubac esaten deutsee Jesucristo gueure Jaunac bere evangelijo santuban proximuari pecatu eraguin edo pecatu eguiteco bidia emoten deutseenai. Arri bat samati lotuta, ichasoco ondarreetara boteetia mercedu dau alaco pecatarijac, dino Jesucristoc (55). 1375
 Bere arimia galdutia ezer ez balitz leguez, proximuaren arimia, pecatu eragui-nagaz, galduten davelaco. ¡Oh, ce pecatu casta chaarrecua dan escandaluco pecatuba! ¡Inori pecatu eraguitia! ¡Pecatu eguiteco bidia [92] emotia! ¡Cristinaubac caridadez alcarri lagundu biarran Jaungoicua serviduten ta ceruba irabazten, alcarri lagundutia diabruba serviduten ta impernuba irabazten! 1380
 Icasí bada, cristinaubac, cer dan proxímua ameeetia. Baita ce ordenagaz ta modugaz amau biar dan bere.

II.

Caridadiaren ordenia ta moduba aituteco, gogoratu biar dogu, neure entzula onac, gauza on batzuc eguin guinaizala proximo guztiac gaiti. Baina beste 1385
 batzuc ezin guinaiz guztiac gaiti. Ezda guichiago gaiti bere. Guztiac gaiti eguin al daiguna, guztiai zor deutseegu. 1. Proximo guztiai opa biar deutseegu arimaco gracia ta ceruco gloria. Baita Jaungoicua serviduteco ta ceruba irabazteco munduban biar daveena bere. 2. Guztiai nai biar deutseegu vitzitzia, osasuna ta gueuretza gura doguna, leen esan dan leguez. 3. Erregutu biar deusagu Jaungoicuari proximo guztiac gaiti. Caridadiaren estalgui zabalac guztiac batuten ditu ta gueuc proximuari deusagun caridadiac bere guztietara zabaldu biar dau. Iru gauza oneec guztiac gaiti daiqueguz ta guztiai zor deutseeguz. 1390

Baina aparteco socorruba ta laguntasuna proximuari eguiteco, ez dira bardinac ez proximuac, ez areen premina ordubac. Ta oni beguiratu biar jaco caridadiaren ordenia gordeetaco. Ordena au austia pecatu da, dino santo Tomasec (56). Personeen artian dagoz gurasuac, senar emaztiac, seme alabaac, seni-[93]diac, onguillaac, cristinaubac, eregiac... Premineen artian batzuc dira arimacuac, beste batzuc gorputzecuac. Oneen artian batzuc dira bertati erremedijua escatuten daveenac; ta luzatu ezquero, erremedijau ezin leguizanac. 1400
 Beste batzuc dira, luzapen edo asti gueijago emoten dabeenac.

Esaten da, bada. Lelengo: arimaco preminaan daguana leenago socorridu biar dala, gorputzeco preminaan daguana baino. Pecatu mortalían illteco peligrú urrecuan dago persona bat. Bada, a leenago socorridu biar dogu, gorputzeco preminaan daguana baino. Arima batec gueijago balijo dau, munduco 1405
 gauza guztiac baino. Proximua salbeetaco popuertzacua bada, galdu biar dogu

 (55) Math. c. 18. (56) 2. 2, q. 44, a. 8.

- gueure vitzitzia ta daucagun gutzia bere, pecatu eguin bagaric al daigunian. Gueure arimaac salbeetia gaiti emon evan Jesus, Jaungoico ta guizon eguijaz-
 1410 cuac bere vitzitzia. Ta esaten deutsco Jesus maitiac, proximua salbeetia gaiti bere vitzitzia emoten davenac daucala caridaderic andijeena. Au gaiti arimia-
 ren oneraco eguiten dirian limosnaac eureenez gueijago valijo dabee gorpu-
 tzaren oneraco eguiten dirianac baino. Bigarrenian: Premina bardinian leenago
 1415 da gueure burubac socorridutia inorena baino. Ez deutsco Jaungoicuac aguin-
 duten gueu baino gueijago proximua ameataco, ta proximua salbeetia gaiti
 gueu condeneetaco. Irugarrenian: Gurasuac, senar emaztiac, umiac, senidiac
 eta onguillaac leenago dira, bacocho bere le-[94]cuban, beste eeduban¹⁵⁹ ez
 1420 dirianac baino, gueuc socorriduteco. Gurasua, emaztia, umiac... gosez ta bilo-
 sic dauczala, areec biar leuqueenagaz limosna eguitia ez da caridadia, ezba-
 da caridadiaren contra. Laugarrenian: Arriscu edo premina bardinian aurquitu
 ezquero, luurreco gauceetan leleengo socorridu biar da proximuaren vitcitzia,
 guero osasuna, guero cleituba, guero ondasunac, ta oneen ondoric cristinau-
 bac Jaungoicua servidubagaz munduban vitzi izateco biar davena. Ez da errez
 1425 erreguela edo neurri seguru bat iminten, ordena onen paltia nos pecatu mor-
 tala ta nos veniala dan esateco. Caridadia da virtute guztietati nausijeena; baita
 laster zaurija eguiten jacona bere. Caridadiaren paltia da, neure entzula onac,
 cristinaubeen condenagarrija. Caridadiaren paltaz topau even virgina necijuac
 ceruco atia ichita (57). Virginaac cirian, gorputzari guraarijac ucatu eutseezan,
 1430 beste obra onac bere eguingo citubeen ta usteco even, menturaz, ceruco
 Esposuac chito maite citubala. Baina eureen arimaco lamparia amatauta euque-
 en ta ixioteco orijoric ez euqueen. Ez dogu iracurten virgina necijo areec iñor
 ill evenenic. Ezda, iñori ezer oostu eutseenic bere. Ezda, inogaz auzi chaarric
 edo gorroto aguiricoric euqui evenenic bere. Ezda bidau gaistoric edo maldeci-
 noeric eguiten evenenic bere. ¿Cegaiti, bada, topau even ceruco atia ichita?
 1435 ¿Cegaiti condenau cirian virgina neci-[95]juac? Caridadia palta eveelaco, dinue
 Eleisaco Gurasuac. Mundubaren beguijetan palta andi aguiricoric euqui ez
 arren, vorondatiaren nai ona edo caridade santia ez euqueelaco, cein dan ari-
 miaren lamparia exioteco orijua. Azaleco cristinautasun bategaz gorde even
 eureen vijotzian virgina necijuac embidija, inoren onaren ecusi ezina, buru ere-
 1440 chija ta eureen gauzaac osoric euqui guria, inori caridadez emonda castau

 (57) Math. c. 15.

1408 aldaigunian *Ba* 1419-1420 ez bada *Ba* 1423 Ezda *Ba* 1424 segurubat *Ba* 1426
 laster] lastet *Ba* 1432 Ez da *Ba* | Ez da *Ba* 1433 Ez da *Ba*

¹⁵⁹ Esanahia argi dago: “leenago dira beste [eredu orretan] ez dirianac baino”; baina hitza, inprimategiko hutsen bategatik-edo, pixka bat desitxuraturik dago; “eeduban” izan behar lukeela dirudi, eta ez “eedubaa”, berak idazten duenez.

bagaric. Au gaiti topau even ichita ceruco atia. Caridade eguijazcuaren paltaz ez cituban ezautu, ceruco Esposuac bere esposatzat. Ta eureen virginidadiagaz ta azaleco santidadiagaz condenau cirian.

Caridadiaren paltia arpeguijan ezarrico deutsee Jesucristo gueure Jaunac 1445
 condenaubai juicijoco egun icaragar[r]lijian. (58). *Gose izan nitzan ta ez ceuns -*
tan jaaten emon, esango deutsee Jesucristoc. *Egarri izan nintzan ta ez ceuns -*
tan edaaten emon. Bilosic ibili nintzan ta ez ninduzun jantzi. Gaixoric egon
nintzan, carcelaan egon nintzan ta ez ninduzun visitau. Zuaz bada, mada -
ricatuboc, betico impernuco sutara. Ara Jesusen azqueneco sentencija, carida- 1450
 diaren paltia gaiti. ¡Oh, ceimbat cristinau artuten dituban azpijan sentencija bil-
 durgarri onec! Gorde guria, euqui guria, inor gaiti ez cansau guria, au da cris-
 tinau ascoren vijotceco prestaeria, proximua ameeetaco. Ascoc uste davee, pro-
 ximuari calteric eguin ez badeutsee, secula mesede chiqui bat Jaungoicua gaiti
 edo [96] caridadia gaiti eguin ez arren, santubac diriala. Ez da asco proximua- 1455
 ri calteric ez eguitia, Jaungoicuac aguinduten daven moduban proximua ame-
 etaco. Eguin biar deutsalagu mesede, premina daucanian ta al daigunian, sal-
 baucoc bagara. Bada, caridadiaren jantzija da ceruco ezteguraco popuertza biar
 doguna. Amau daigun, bada, gueure Jaungoico ona, beste gauza guztiac baino
 gueijago; ta gueure proximua, gueure buruba leguez, ceini darraicon gueure 1460
 betico dichia ceruco erreinuban. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren ize-
 nian. Amen.

IX. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
gueure arerijuari zor deutsalagun amodijua. 1465

Aparteco cristinaubaren cereguina da, arerijuac ametia. Ta ascoren erichi-
 jan cereguin gacha. San Geronimoc esaten evan bere demporacuac gaiti, ba-
 tzuc uste daveela Jaungoicua serviduteco ta on izateco, asco dala arerijuari
 gorrotoric ez euquitia ta gachic ez opa izatia; baina onezaz gainera gueuri gais-
 qui eguin deutsalagun maite izatia, inoc ezin leguijana dala. Ez dau, bada, 1470
 Jaungoicuac aguinduten inoc ezin leguijan gauzaric, dino santubac berac (59).

 (58) Math. c. 35. (59) Coment. in Math. l. I, c. 5.

Jaungoicuaren agundu guztiac dira er-[97]razac. Biguna ta arina da Jaungoicuac imini deustcun carguia, dino Jesus maitiac (60). Gauza jaquina ta arguiro esana da evangelijo santuban, arerijuac ameeaco daucagun eguinbarran. Jesus gueure ceruco eracusliac ezin esan eutsquegun aguirijago ta ezaunago guizonaren cereguin au, esan euan baino. *Neuc aguinduten deustut*, dino Jesus maitiac (61), *ameetaco ceubeen arerijuac; parcatuteco gaisqui eguin deustunari; Jaungoicuari erregututeco ceu perseguiduten zaitubana gaiti, deungaro esan deustuna gaiti*. Ara verba oneetan Jaungoicuaren aguinduba ondo ezagun, inoc dudaric euqui ez daguijan. Jesus maitiac berac verba oneen ondoric ecarten deustcu gogora, ce gaiti¹⁶⁰ amau biar ditugun gueure arerijuac. Bada, dino: neure Aita cerucuac bere onai ta deungai, guztiai arguituten deustee eguzquiija, guztientzat eguiten dau euriija. Bere arerijuai ta adisquidiai, pecatarijai ta justubai, guztiai eguiten deusteez mesediac neure Aita cerucuac. ¿Ceubeen adisquidiac ta onguillaac baino ameeatan ez badituzu, dino Jesus maitiac, ce sari ceruraco irabatzico dozu? Gentilac ta deungaac bere eureen adisquidiac ta onguillaac ameeatan ditubee. Parcatuten ez badeutsazu bada, dino gueure Salbazaille onac, ceure arerijuari gaisqui eguina, neure Aita cerucuac ceuri bere ez deustuz parcatuco ceure pecatubac. ¿Cer izan leiteque au baino verbeeta clarubagua?

Amu biar ditugu, bada, gueure arerijuac; [98] ta parcatu biar deusteeegu gaisqui eguina. Orregaiti dotrina onetaco cereguina izango da eracustia: 1. *Celan amau biar ditugun gueure arerijuac*. 2. *Cetaraguino parcatu biar deusteeegun, gaisqui eguina*. Egon zaitez guztic zur, entzuten.

I.

Jaungoicuari zor deustagun amodijuan sartuta dago, neure entzula onac, arerijuari zor deustagun amodijua. Jaungoicua gauza guztiac baino gueijago ameeatan davenac, nai dau popuertza guizon ta emacume guztiac Jaungoicua adoreetia, alabeetia ta ameeatia. Nai dau guztiac Jaungoicuaren adisquide izatia, gracijaan egotia, legue santuba gordeetia ta ceruraco vide zuzenian vitzi izatia. Proximo guztiai, nai arerijuai ta nai adisquidiai au opa ez deustanac, ez dau Jaungoicua ameeatan. Proximuari gorroto deustanac ez dau Jaungoicua ameeatan, arerijua izan arren proximua. Onezaz ostian:

1505 (60) Matth. c. 11. (61) Id. c. 5. et 18.

1475-1476 eguin biarra *Ba* 1481 daguijan] daquiija *Ba* 1493 cer eguina izangoda *Ba*
1499 emacume] emacume *Ba*

¹⁶⁰ Galdetzaille hau loturik eta bereiz idazten du; loturik obra osoan (34 bider) eta bereiz (20 bider); guk forma biak daudenean uztea erabaki dugu.

¿Zure arerijua, zuri gach eguin deusuna ta zu galdu gura cinduquezana ez da guizona edo emacumia? ¿Ez da Jaungoicuaren irudi vitzija? ¿Ez da Jesucristo gueure Jaunaren odol santubagaz diabrubari erosita daguana? ¿Ez zan Jesus maitia curutzian josita ill zugaiti, ceure arerijua gaiti ta beste guztiac gaiti? ¿Ez da zure arerijua Jesusen vitciziaren precijua? ¿Ez dauca Jaungoicuac luurraren 1510 gainian vitziric zure arerijua? ¿Nor zara, bada, zu, zariana zariala, nai erreguia, nai condia, nai obispua, nai ugazaba, nai señoia, nai la-[99]guna? ¿Nor zara zu, Jaungoicuaren irudi vitzijari gorrotua euquiteco? ¿Jesusen odol santubagaz erosita dagan guizon edo emacumiari gach opa izateco? ¿Nor zara zu luurreco ar bat baino, Jaungoicuaren arerijo bat baino, impernuban egon biar cendu- 1515 quian bat baino? ¿Ceure arerijuari bengueetaco? ¿Ari arimaan, edo osasunian, edo cleituban, edo aciendaan gacha nai izateco? ¿A gaiti deungaro esateco? ¿Ari verbaric eguin gura ezda egoteco?

¡Oh, ce itsutasun andija, neure cristinaubac, arerijuaren gorrotuan vitzi iza- 1520 tia! ¡Oh ce ezaubera chiquija, arerijuaren gorrotuan dagan cristinaubarena! Bada, izanic bera Jaungoicuaren arerijua, sarri Jaungoicua opendidu davena, injurijau davena, desondrau davena ta, san Gregorioc dinuan leguez, pecatu mortalagaz Jaungoicua bera ill gura izan davena, aaztuten da bere gaisqui eguin guztiaquin; ta proximuac berari gach bat eguin deusalaco, aren contra 1525 su artuta, gorrotua darijola dago. ¿Acordeetan ete da alaco vijotz gorrototsuba, berac bere Jaungoicuaren gorrotua irabatzi davena? ¿Naico¹⁶¹ ete dau, Jaungoicuac berari parcatutia? ¿Ta berac pecatubagaz eguin deusnan injurija aaztutia? Duda bagaric naico davena, cristinauba bada. Bera sarri izan arren Jaungoicuaren arerijua, naico dau Jaungoicuac berari parcatutia. Naico dau 1530 vitzitzaan ta erijotzaan Jesus maitiac amodijuagaz ta misericordijagaz berari beguiratutia. ¡Oh! Gogoratuco ba-[100]leu cristinaubac, proximuac naibague bat eguiten deusnanian, berac leleengo pecatu mortalagaz Jaungoicua asarratu eva- 1535 nian bota baleu Jaungoicuac irabatzi eban impernura, ez eutsala orduco gacha proximuac eguingo, oztuco leuque gorrotuaren suba. Bada, Jaungoicuac gueuri parcatu badeuscu aimbeste bidar impernura botatia, ¿ce gauza andija izan- go da, gueure lagunari eguin deusnanian gach pusquia parcatutia Jaungoicuaren izenian ta Jaungoicuac parcatu daigun?

Eguija esateco, pediaren pusca bat da asco gueure arerijuari eguin deus- 1540 cun gacha parcatuteco vorondate onagaz, ta berari ondo gura izateco. Au gaiti arerijuarentzat euqui biar dogun vijotzeco prestaeria da: 1. Opa biar deusnagu arimaco gracija. Jaungoicua serviduteco, gorputzian ta arimaan biar davena ta ceruco glorija. 2. Ez dogu euqui biar vijotz chaaric, gorrotoric, ez gachic jazo

1518 ez da *Ba* 1525 eteda *Ba* 1526 Naico| Noico *Ba* | etedau *Ba* 1531 nai bague *Ba* 1540 presta eria *Ba* 1541 gracija| gracija *Ba*

¹⁶¹ Pixka bat ilun geratzen da "naico" hau, baina "gurako" esan nahi du, eta ez "aski"...

daquijon desioric, ez gueuc berari eguiteco guraariric. 3. Arerijua preminaan icusi ezquero, euqui biar dogu vijotzeco presteera ona lagunduteco gue[ul]re
 1545 arerijuari biar orduban; nai dala arimaco preminaan, nai dala osasunian, nai dala cleituban, nai dala pamelijaan, edo aciendan. Dinot, beti euqui biar dogu-
 la gogua prest, alaco premina ordu baten icusico baguendu gueure arerijua, al
 izan ezquero, ari lagunduteco. 4. Arerijuari ez deutsalagu ucatu biar agur eguitia. Auzo eraan egon ezquero, gaisoric daguan arerijua ez visitetia; agaz verba
 1550 ez egui-[101]tia gaiti, bidia austia, ezcuteetia, arpegui ez emotia; verbaric alca-
 rri eguin gura ezda egotia; ta beste onaco cristinau arteco artu emonac, leenago alcarregaz eguiten citubeenac, bata bestiari ucatutia da gorrotuaren, icutsi
 ezinaren ta opa chaarraren senailia, dino san Bernardino Senacuac¹⁶².

Bada, Jaungoicuac aguindu ezquero arerijuac ameeaco, esan dirian gau-
 1555 zaac dira amodijo onari ta vorondate onari berecauten darraicozanac. Ta al daguijala, eguiten ez baditu, gauza aguirija da arerijuarentzat vorondate chaa-
 rra daucana ta ameeatan ez davena. Au beti da caridadiaren paltia; gauza andi-
 jan bada, palta andija ta guichijan bada, chiquija. Ezin, bada, dudaan imini gui-
 nai, cristinaubac, arerijuac gaistuac, luzarocuac ta gach andijac eguin deustcu-
 1560 beezanac izan arren, amau biar dituguna Jaungoicua gaiti ta Jaungoicuaren ize-
 nian, salbauc bagara. Baina jazo leiteque cristinaubac dudeetia, gach guztia
 parcatu biar deutsalagu edo ez. Ta au da bigarren lecuban esango deustudana:
 Cetaraguino parcatu biar deustagun gueure arerijuari.

II.

1565 Ezin ucatu guinai, (esaten da ostera bere, cristinaubac, ta sarrijagotan esan
 biar litzaateque, palta andija dagualaco) arerijuari gach eguina parcatu biar
 deustaguna. Jesus gueure ceruco Eracusliac esaten deustcu (62): Ceubec par-
 catuten ez badeustazu arerijuari gach eguina, neure Aita cerucuac ceubei bere
 ez deustuz [102] parcatuco ceubeen pecatubac. Jesusec berac eracutsi eutscun
 1570 *Aita gueuria*. Ta An bere ez zan aaztu Jesus maitia, arerijuai parcatuten gue-
 ri eracustiagaz. *Parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai par-*
catuten deutseeguzan leguez, esaten dogu Aita gueurian. Ara emen
 Jaungoicuaren aguindu aguirija, arerijuai parcatuteco, salbau gura badogu.
 Jesus maitiac esanagaz ta eguinagaz eracutsi eutscun dotrina au.
 1575 Gueure pecatubac gaiti curutzian josita eguan lecuban, leleengo Jesusec
 esan euan verbia izan zan bere Aita cerucuari erregututia, Jesus bera curutzian

 (62) Math. c. 6.

1551 ez da *Ba* 1555-1556 aldaguija *Ba* 1558-1559 iminiginai *Ba* 1562 deustu dana
Ba 1565 esatenda *Ba* 1576 izanzan *Ba*

¹⁶² Frai Bartolomek San Bernardinoren aipamena dakar *Esku*-ko ohar batean: "Serm. 7. in fer 6. post ciner." (lk. *Esku*-ko 115. oharra, 583.or.)

illten evenac gaiti. *Aita, parcatu onei*, dino Jesus maitiac, *cer eguiten daveen ez daquijee ta*. ¡Oh, ce vijotz viguna Jesusena bere arerijo andijeentzat! Saulec perseguidu evan aimbeste urtian David santuba. Sarritan ill gura izan evan. 1580 Sarritan lantzadia jaurtegui eutsan bertan illteco Davidi. Baina Davidec beti parcatu eutsan Sauli. Bein baino gueijagotan eria euqui evan Davidec, Sauli ondo vengueetaco. Ez eutsan inos bere calteric eguin. Beti amau evan ta beti parcatu eutsan David erreguiac Saul arerijuari¹⁶³. San Estevan leleengo martirija arrica ill even judegubac. Illten eguan lecuban belaunbico jarrita, Santubac 1585 Jaungoicuari erregututen eutsan bere illzaile arricarijac gaiti¹⁶⁴. ¡Oh, ce exemplubac oneec, arerijuari parcatuten icasteco! ¡Baina cer? ¡Badago ceruban santuric edo santaric, munduban arerijuac izan ez ditubanic? ¡Ta guc daucaguzan baino gaistuaguac ta mingarrijaguac [103] euqui ez ditubanic? ¡Ta bago ceruban inor, arerijuac amau ez ditubanic? ¡Arerijuac gaiti Jaungoicuari erregutu ez 1590 deutsanic? ¡Vorondate onagaz arerijuai gach eguina parcatu ez deutsanic? Ezda bat bere.

Conteetan dira bai asco, gorrotuac ta vengueetaco najjac impernura eratsi ditubanac. ¡Cain cegaiti dago impernuban? Abel bere anae inocentiaren gorrotua gaiti. Esau, Amon, Absalon, Jezabel, paresijuac ta beste milla dagoz impernuban proximuaren gorrotua gaiti. Ta egongo dira aurrera bere, arerijuari parcatu gura ez deutseen guztia. ¡Oh, ce itsutasun andija, cristinaubac, ordu betian bere proximuaren gorrotuan egotia! Contu atera daigun: Auzuac edo proximuac galdu deutsula ondria bere minagaz; oostu deutsula ceure diruba edo aciendia bere escubagaz; galdu deutsula ceure echeco edo seniqueraco 1600 baquia embusterijagaz, guzurragaz edo chismerijagaz; imini deutsula auzi oquer bat ta castau eraguin deutsula daucazun guztia. Ara emen arerijua.

¡Ta cer ateraten dozu zuc, ari bidaoca, gach opa deutzazula, aren gorrotuan ta odijuan su artuta egonagaz? ¡Erremedijeetan dozu ceure caltia? ¡Etorten jatzuz atzera arerijuac quendu deutzuzanac, ari bidao eguinda, gorroto izanda? 1605 Bat bere ez, esango dozu. ¡Oh, ce itsuba! ¡Ce penseeta chiquicua! Arerijuac zure contra pecatu eguin davelaco, zuc pecatu eguiten dozu aren contra edo Jaungoicuaaren contra. Ac austen dau aguindu bata ta zuc bestia. [104] Vijoc presteetan zara impernuraco. Parcatu daijogun, bada, arerijuari gach eguina, Jaungoicuac aguinduten deutcun moduban, Jaungoicuac gueuri parcatu dai- 1610 gun. ¡Ta parcatu biar deutzagu arerijuari eguin deutcun calte guztia? Jaungoicuaaren aurreraco bai. Esan gura neuque, ez deutzagula opa biar arerijuari, Jaungoicuaaren beguijeetan carguric euqui daguijan, gueuri eguin deutz-

1579 Jesusena] Jesusarena *Ba* 1584 arerijuari] arerijuari *Ba* 1586 ill zaile *Ba* 1591 Ez da *Ba* 1595 Amon] Aman *Ba*

¹⁶³ Ik. 2Sm 24.

¹⁶⁴ Ik. Eg 7,60.

cun caltia gaiti. Ez deusagula opa biar munduban bere gachic etorri daquijon,
 1615 gueuri gach eguin deustulaco. Osterantzian, gorroto bagaric, odijo bagaric,
 bere arimaan, osasunian, pamelijaan, cleituban edo aciendaan gachic opa
 bagaric, neuri calte eguin deustanari, escatu neguijo juezaren aurreti eguin
 deustan caltiaren erremedijua. ¿Oostu deust? Biurtu daguidala oostuba edo
 1620 pagau daguidala. ¿Quendu deust ondria edo cleituba? Biurtu daguidala. Ta
 onan beste calte eguinac. Ez da au gorroto izatia, ez bada bacoachac bere gau-
 cia escatutia. Au caridadian paltau bagaric eguin legui, ta eguin davee santu
 ascoc. Ataraco dagoz juezac, Jaungoicuac iminita.

Arerijuaren gorrotuan gagozan artian, ez ditu Jaungoicuac estimeetan
 gueure esquintzarijac. Altaraan gagozala bere, dino Jesucristoc (63), gogoratu-
 1625 ten bajacu, proximua asarre dala gueugaz, oprendia edo esquintzarija altara
 gainian ichita, proximuagaz baquia eguiteco leleengo. Au eguin ta guero
 Jaungoicuac estimauc davela gueure oracinoia edo oprendia, [105] dino
 Jesusec. Proximua injurijau davenac parca escatu biar deutsa lagunari ta bes-
 tiac parcatu biar deutsa vijotzeti eguin deustan injurija, leen esan dan modu-
 1630 ban. Arerijua izan arren ta norbait gueuri calte eguin guraric ibili arren, zor
 deustagu vorondate ona, Jaungoicuac aguinduten davelaco.

Arerijua bada pecatu eraguin gura deustana, pecaturaco combideetan
 davena ta perseguiduten davena, alaco arimia galdu gura deustan arerijuari
 arpegui asarria ta becoqui illuna eracustia, dino Pouget jaquitunac san Agustin
 1635 ta Origenesegaz (64), ez dala pecatu. Ascotan gauza ona ta biarrecua dala,
 arpeguieriagaz ta becoquico itzalagaz aituten emotia alaco pecatarijari bere
 eguitade ezaina ta pecatuzcua, contuban jausi dedin ta inocentia perseguidu-
 tiari ichi daguijon. Eguija esateco, escandaluco cazaan daviltzanac beti topee-
 tan badavee arpegui alegueria ta carinozco verbeetia, nequez escarmentauco
 1640 dira ta nequezago esperantzia galduco davee, eureen pecatuzco guraarijac
 cumpliduteco. ¡Oh! Arpegui itzalsubac pecatu asco guichituten ditu.

Amau daigun bada, cristinaubac, gueure Jaungoico ona. Amau daiguzan
 proximo guztiac bere. Parcatu daijeeguzan arerijuai gach eguinac, Jaungoicuac
 gueuri parcatutia gura dogun leguez. Erregutu daijogun Jaungoicuari proximo
 1645 guztien salbacinoia. Ez daigun inor [106]gaiti deungaroric esan. Ta igues dai-
 gun lotsiagaz, itzalagaz ta errespetuagaz, pecatu eraguin gura deustubeen are-
 rijo gaistuetati. Ta gordeco dogu leleengo mandamentuco aguinduba. Alan
 gura izan daguijala Jaungoicuac, bera dana dalaco. Aitiaren, Semiaren ta
 Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 1650 (63) Math. c. 9. (64) P. 2, sect. 2.

1621 ez bada *Ba* 1629 eguindeustan *Ba*

[106]

BIGARREN AGUINDUBA

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
cer dan juramentu eguitia. Juramentu nos eguin biar dan.
Ta juramentuco aguinduba celan cumplidu biar dan.

5

Bigarren aguinduban esaten deuscu Jaungoicuac: Ez dozu aotan artuco premina bagaric ceure Jaun eta Jaungoicuaren izen santuba. Ez da castigu bagaric gueratuco alperric Jaungoicuaren izen santuba aotan artuten davena. (65) Leleengo aguinduban esan deuscu Jaungoicuac, bera ameataco beste gauza guztiac baino [107] gueijago; ta bigarren aguinduban esaten deuscu, bere izen santuba ondreetaco. Gauza bat aguindubagaz eragozten deustcu beste bat Jaungoicuac, dino Erromaco Catecismuac (66). Edo gauza bat eragotzijagaz aguinduten deuscu beste bat. Eragotzen deut[s]cu Jaungoicuac aguindu onetan, bere izen santuba premina bagaric aotan artutia; ta aguinduten deuscu, bere izen santuba ta bedeincatuba ondreetia.

Jaungoicuaren izen santuba ondretan da, neure entzula onac, modu ascotara. Leleengo: oracinoe eguinagaz. Bigarrenian: Jaungoicuaren ontasunac ta izen santubac, ta Jesucristo gueure Jaunaren vizitzaco, erijotzaco, vitztueraco ta betico misterijo santubac amodijoz ta gogoz sarri esanagaz. Irugarrenian: votuac eta promesac Jaungoicuari eguinagaz. Laugarrenian: Biar dan moduban ta orduban juramentu eguinagaz. Bostgarrenian: Ainguerubac, santubac ta santaac alavaubagaz ta vitzitza onagaz. Aguindu onetan Jaungoicuac eragozten deuscuna da: Leleengo bere izen santuba alperric aotan artutia. Bigarrenian: votuac eta promesac gauza chaarreraco eguitia. Irugarrenian: Juramentu gaisuac eguitia. Esplicauco deuscut, bada, aguindu onetan, juramentubari, votuai ta verba deungai jaocuena. Ta guztiai asieria emoteco, dotrina onetan esango deuscut: 1. *Cer dan juramentu eguitia.* 2. *Nos juramentu eguin biar dan.* 3. *Juramentubaren veeco*¹⁶⁵ *aguinduba celan eguin biar* [108] *dan.* Egon zaitez atencinoiagaz, ascori jaocan icasiquizuna dalaco.

(65) Exod. c. 20. (66) P. 3. precept. 2. n. 2.

4 Cerdan *Ba* | biardan *Ba* 20 Biardan *Ba* 27 biardan *Ba* 28 biardan *Ba* |
Egonzaitez *Ba*

¹⁶⁵ Garai hartako idazleen artean ohikoa zen *-(r)en beeco* bezalakoak egitea; oraingo joera, berriz, *-pekoatzizkiaz* baliatzekoa da.

30

I.

Juramentuba eguitia ez da beste gauzaric, neure entzula onac, ez bada gueuc eguin dogun edo ez dogun, entzun dogun edo ez dogun, icusi dogun edo ez dogun gauza bat, Jaungoicua edo Jaungoicuaren izen santuba testigutzat aotan artuta, onan edo alan zala edo dala esatia, eguija esaten davela sinistu eraguiteco. Jaungoico eguijazcuaren izena aotan artuten dau testigutzat juramentarijac. Bada, juramentubaren izate guztia da, Jaungoico guztia daquijan zucena testigutzat artuta, ez edo bai esatia. Juramentu eguiteco modu asco dagoz. Ta cristinau asco vitzi dira casic verbaan verbaan juramentu eguiteco ecandu gaistuagaz ta pecatuzcuagaz. Cerbait inori sinistu eraguiteco curutziari mun eguitia juramentuba dana, casic cristinau guztiac daquijee. Bada, curutze santia da Jesus Jaungoico ta Guizon eguijazcuac bere erijotziagaz santutu evana. Orregaiti cristinau guztiac deutsee curutziari aparteco erreberencia. Juramentu eguiteco bere, gueijeenan curutziari mun eguiten jaco.

Beste juramentu modu batzuc dagoz, cristinau guichi jaquinac aimbeste aintzat ez dauqueezanac, ta guzurra edo eguija sinistu eraguiteco chantzaan edo benetan sarritan aotan artuten ditubeenac. Onetarico verbeeta modubac izaten dira, cerbait sinistu eraguiteco esatia: *Jaungoicoraco; Jaungoicua testi - gutzat iminten dot; Jaungoicua daguan leguez; Jaun-[109]goicuac daquijan leguez, evangelijoco eguija leguez; Jesucristo ill zan leguez Jesucristoren ize - nian; curutziaren izenian; ceruba daguan leguez; luurra daguan leguez; arguija dacustan leguez; luurrac paltau daguidala; pausuric eguin ez daguidala ...*

Inori cerbait sinistu eraguiteco, Jaungoicua edo beste criatura, Jaungoicuaren gracia aparteco arguitasuna emoten deutseenac, ceintzuc dirian *Eleisia, pedia, sacramentuac, curutzia, arimia, gracia, ceruba, luurra, arguija* ta beste asco testigutzat aotan artuta esaten danian, eguiten da juramentu. Ez da, bada, popuertzacua curutziari, evangelijuari edo beste gauza sagradu bati mun eguitia, juramentu eguiteco. ¡Oh, ceimbat juramentu chaar eguiten dirian, asco pensau bagaric! ¡O, ceimbat bidar aotan artuten dan Jaungoicuaren izen santuba alperric!

Criaturaac Jaungoicuaren izenian testigutzat artuta, cerbait esaten danian, juramentu eguiten dana, evangelijo santubac esaten deutscu san Matheoren aoti (67). Ez eguizu juramenturic eguin ezer gaiti bere, dino Espiritu Santubac. Ez ceruba gaiti, Jaungoicuaren jarlecuba dalaco. Ez luurra gaiti, Jaungoicuaren oin lecuba dalaco. Ez Jerusalem gaiti, erregue andijaren ciudadia dalaco. Ez

(67) Math. c. 5.

32 ez bada *Ba* illzan *Ba* 55 emoten] emonten *Ba* 57 eguitenda *Ba* 58 popuertzacua] porpuertzacua *Ba*

ceure buruba gaiti, ulezuritu bat ezin zinaijalaco ta ezda baltz bat bere. Izan bitez ceuben verbaac: ez edo bai. Onezaz gaineracua gacheric¹⁶⁶ datorrena da, [110] dino Jesucristo gueure Jaunac. 70

Criatura oneec eguijari eurenez ez deutsee indarric emoten; ez bada Jaungoico andijaren aparteco arguitasuna ta itzala dago eureetan, ta au gaiti dauquee juramentubari izatia emoteco indarra, eguijaren testigutzat aotan artuten dirianian. Emeti ezaututen da bada, cristinaubac, cer dan juramentu eguitia. Oni darraico icastia nos eguin biar dan. 75

II.

Biar dan demporaan ta modubagaz eguin ezquero juramentu, gauza ona da. Jaungoicua ondreetan da bere izen santuba aotan artubagaz, biar dan orduban. Au gaiti icasi biar dau cristinaubac nos eguin leguijan juramentu, ondo dan moduban. Espiritu Santubac esaten deutescu, neure entzula onac, Jeremias propeta santubaren aoti (68), Juramentu eguin biar dala eguijagaz, preminia-gaz ta gauza oneraco. Iru gauza oneec biar dira juramentuba ona izateco. Eguijagaz eguiten da juramentu, daquijana daquijan moduban, gueitu bagaric, guichitu bagaric ta ezcutau bagaric esaten danian. Entzun beeban, entzun evala; icusi beeban, icusi evala; esan beeban, esan evala; edo ez ebala... daquijan moduban edo noberac uste daven moduban juramentu eguiten danian da eguijazcua. Dudaan daucan gauzia, ondo ez daquijana, erichicua edo sospechacua esaten badau ciurtzat juramentubaren beian, eguiten dau guzurrezco juramentuba. Entzuna icusitzat ta icusija entzuntzat esaten badau, edo [111] mudeetan badau daquijen moduti, eguiten dau guzurrezco juramentuba. 80 85 90

Jazoten da ascotan, juramentubaren beian juezac itanduten deutsanian, daquijana esan biar daven edo ez, ez jaquitia. Endamas cristinau guichi daquijenari. Orduban itandu biar deutsa, al badai, dudia daucanac daquijanari, juramentu eguitera orduco; celan juramentu eguin biar daven ta cer esan biar daven. Ta au ezin davenian, edo ez eguin juramenturic, edo esan zucen daquijana, daquijan moduban. Bada, guzurrezco juramentuba beti da pecatu mortala. Onetan ez dago dudaric, cristinaubac. Alperric izango da gauza guichija juramentubagaz esaten dana. Alperric izango da gach uste bagaric edo, esan oi dan leguez, inori calteric eguin bagaric. Guzurrezco juramentuba beti da pecatu mortala Eleisaco Gurasuen esanian. ¡Oh, ceimbat pecatu mortal eguiten ditu- 95 100

(68) c. 4.

68 ez da *Ba* 72 Ez bada *Ba* 83 eguitenda *Ba* 93 albadai *Ba* 97-98 oidan *Ba*

¹⁶⁶ Sarrera orokorrean, deklinabidea azaltzerakoan, Markina inguruko idazle hauek ez zutela Bizkaiko mendebaldekoek bezain ugari erabiltzen ablatibo zaharra gogoratzen genuen, baina hemen dotore asko darabil.

been verban verbaan *Jaungoicoraco*, *arguija dactustan leguez*, *luurac paltau daguidala* ta beste onaco juramentuzco verbaac esateco oitura galduba dau-queenac! Ascotan guzurragaz, sarritan destajuban ta gueijeenan premina baga-
105 ric.

Biar da premina edo necesidadia, juramentu eguiteco. ¿Ta nos izango da preminia? Sarritan jazo lequijo cristinaubari juramentu eguin biarra. Leleengo: juezac escatuten deutsanian. Bigarrenian: opicijuac, cereguinac edo estadubac aguinduten deutsanian. Irugarrenian: noberaren edo proximuaren vitzitzia,
110 osasuna, [112] cleituba edo aciendia jasoteco, zaintuteco, gordeetaco edo galdu bide bateti libreetaco biar danian. Ta laugarrenian errazoe gueijagogaz: nobera edo norbait pecatuco ocasioeti libreetaco biar danian. Alaco gauza andija noberarena ta nai proximuarena, arimacua ta nai gorputzecua gorde, librau edo jaso ezin danian, juramentu eguin bagaric; orduban juramentu eguitia
115 eguijagaz ta gauza oneraco, juezac escatu ez arren, ez da gauza chaarra ta ascotan biarrecua, preminia dagualaco.

Irugarren lecuban, juramentubac ona izateco biar davena da, gauza oneraco izatia. Oni esaten jaco: zuzentasuna. Eguijazcua, biarrecua ta gauza oneracua izan biar da juramentuba. Zucena da juramentuba, Jaungoicuc gura daven
120 gauzaren bat eguingo davela juramentubaren beian aguinduten davenian. Edo Jaungoicuc gura ez daven gauzaren bat eguingo ez davela, juramentubaren beian aguinduten davenian. Limosna bat emotia, meza bat entzutia, ondo ta laster compeseetia, ez orditutia, joco chaarric ez eguitia, pecatu ecanduco bat ez eguitia ta beste onaco Jaungoicuc gura dituban gauzaac juramentubagaz
125 aguindutia da, juramentu zucena eguitia. Aguinduten baditu juramentubagaz gauza chaarrac: arerijuari ez parcatutia, tema gaistuagaz urtetia, pecatu eguitiari ez istia, nai beste edozein berez gauza ona ez dana; orduban da juramentuba pecatuzcua zuentasunaren paltaz. Oneetan guztietan Jaungoicua-[113]ri eguiten jaco injuria, bere izen santuba, altuba ta bedecatuba aotan artuta, testi-
130 gutzat ecarrita, edo guzurra esaten dalaco, edo premina bagaric esaten dalaco, edo gauza chaarreraco esaten dalaco. ¡Oh, ceimbat juramentu chaar entzuten dirian! Ya pamparrerijaz, ya gorrotoz, ya amodijo chaarrez, ya ecandu gaistoz. Gogoratu bada, cristinaubac, celan eguin biar dan juramentu, ona izateco. Baita icasi celan eguin biar dan bere juramentubagaz aguinduten dana.

135

III.

Esan dan leguez, izan ezquero gauza ona juramentubaren beian aguinduten dana, cumplidu biar da, al dedilla. Jaungoicuari eguiten jaco juramentu. Bere izen santuba aotan testigutzat artuta eguiten jaco. Bada, pecatuzco gau-

128-129 eguitenjaco *Ba* 137 biarda, aldedilla *Ba*

cia ez bada, aguinduba eguin biar da, al dedilla. Ardaugaz, jocuagaz, pecatucoco echera juanagaz, edo pecatucoco lagunagaz bat eguinagaz, edo beste oitura 140
galdu bategaz eguiten dozu pecatu. Dala pecatubaren carguia jaso ezin dozulaco, edo gracijaren colpe batec conturatu zaitubalaco, edo pecatubac berac lotsatuten zaitubalaco, ¿aguinduten deutzazu Jaungoicuari juramentubagaz ardaoric ez edaatia, joco gaistoric ez eguitia, eche deunga atara ez juatia edo 145
beste pecatucoco ocasinioian ez sartutia? Bada, eguin biar dozu achauquia bagaric. ¿Aguinduten dozu juramentubagaz erliginoian sartutia, castidadia gordeetia, meza bat entzutia, limosna bat eguitia edo baru bat ateratia? Oneec gauza onac dira. Baina jazo leite-[114]que juramentu eguin arren, guztiac eguin ezina. Orduban bere, al daguizuna eguin biar dozu juramentuba gaiti.

¿Aguindu dozu juramentubagaz pecatu dan gauza bat eguitia, arerijuari ez 150
parcatutia, limosnaric ez emotia edo beste gauza pecatuzco bat? Ez dozu cumplidu biar juramentubagaz aguinduba, pecatu dalaco. Alaco juramentuba eguitia pecatu da. Ta eguin da guero cumplidutia bere pecatu da. Ezin guizonac legueric imini leguijo bere burubari, pecatu eguiteco. Guraari chaarrac, amodijo gaistuac, gorrotuac edo sobervijac inos eraguiten badeutsa cristinaubari 155
juramentu, pecatu dan edo izan leitequian gaucia eguiteco, (Erodesec Erodiaren alava dantzaarijari eguin eutsan leguez ta san Juan Bautistaren sama inocentiac pagau evan leguez¹⁶⁷) ez da balijoco juramentuba, ez bada pecatuzcua ta ez da cumplidu biar. Ez aaztu bada, cristinaubac, ce erreberencijagaz ta errespetuagaz¹⁶⁸ artu biar dogun aotan Jaungoicuaren icen santuba. Gogoratu ondo nos 160
eta celan eguin biar dan juramentu. Eguiijagaz, preminiagaz, ta gauza oneraco eguin biar da juramentu. Ta bein eguin ezquero, cumplidu biar da juramentubagaz aguinduten dana, pecatu bagaric cumplidu al deinian.

Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, chito oitura galduba ta zabala 165
daguana cristinaubeen artian juramentubac eguiteco. Umetati icasten da premina bagaric juramentu eguiten. [115] Ta ascoc zaartuta bere euraquin dauquee, premina bagaric juramentu eguiteco ecandu gaistua. ¡Oh, cembat pecatu eguiten ditubeen alaco juralarijac! ¡Oh, ceimbat injuria eguiten deutseen Jaungoicuaren izen santubari! Ez dira, bada, castigu bagaric gueratucoco, dino Espiritu Santubac (69), Jaungoicuaren izen santuba alperic aotan artuten 170
daveenac. Juramentu ascoc eguiten daven miinac buruco uliai icara eraguiten deutsee ta belaarrijac gogortuten ditu, dino Eclesiasticoc (70). Dendatu biar

(69) Deut. c. 5. (70) C. 27.

139 biarda, aldedilla *Ba* 142 zaitubalaco] zaituzalaco *Ba* 149 aldaguizuna *Ba* 158
ez bada *Ba* 163 aldeinian *Ba*

¹⁶⁷ Ik. Mk 6,16-29.

¹⁶⁸ Aurretik *ce* galdetzaila duela, mugagabeen emango zuela uste genuen, baina "errespetuagaz" horrek mugatua salatzen du; "ce erreberencijagaz ta errespetogaz" beharko zuen...

dozu, dino san Agustinec (71), juramentu eguiteco ecandubaren contra, ecandu
175 chaarraren, chaarraren contra ta quendu ceubeen auetati juramentubac. Boticacua leguez da juramentuba, dino Erromaco Catecismuac (72).

¡Oh, ce eracutsi ona! Boticacua leguez juramentuba. ¿Nos artuten da boti-
cacia? ¿Celan artuten da? ¿Ceimbat artuten da? Boticacua artuten da biar
danian. Gaixo danian. Aimbagaric¹⁶⁹ osasuna jadiichi ezin danian. ¿Ta celan?
180 ¡Ah! Gacha ondo examinauta, medicubai itanduta, ac aguinduten daven moduban ta ordubeetan artuten da boticacua. ¿Ta ceimbat? Ez gueijago ta ez guichiago, gachac escatuten daven beste edo escatuten davela uste dan beste ta medicubac aguinduten daven beste baino. ¡Oh, ce ardura andijagaz gordeetan dirian gorputzaren oneraco legue oneec! [116] ¿Artuco cenduque boticacia, osasun onagaz zagozarian? ¿Artuco cenduque edo artuten dozu premina bagaric? ¿Ta premina daucazuanian edo gaixo zarianian bere, artuten dozu inori itandu bagaric? ¿Ondo jaquin bagaric? ¿Artuten dozu edocean boticaco? ¿Edocean ordutan? ¿Edocean beste neurri bagaric? ¡Ah, cristinaubac! Ez dago onaco zoric munduban.

190 Bada, boticacia leguez juramentuba. Boticacia gaisqui artubac gorputza ill legui. Baina juramentu gaisqui eguinac, arimia illten dau. Ez eguin, bada, juramenturic, premina andija bagaric. Ta orduban, ondo pensauta, ondo contuba atarata. Ez eguin juramenturic prijsaca ta arin aringa. Ez eguin juramenturic, leendanaz¹⁷⁰ ondo jaquin bagaric, ia juramentubac arimaan on eguingo deutsan edo ez? Ez eguin juramenturic edocean demporatan. Ez eguin juramentu biar dan baino gueijago. Bada, boticacuac bere ona izan arren, laarregui bada edo ordu chaarrian bada, ill eguiten dau gorputza; ta juramentubac bere eguijagaz izan arren, biar ez dan demporaan dalaco edo laarreguija dalaco, ill eguiten dau arimia. Ce guichi au penseetan dabeen orduban ordubango juralarjac.
200 Ecandu chaarra artuten davee verbaan verbaan juramentu eguiteco, ta inos ez dira dendatuten oitura pecatuzcuaren contra.

San Agustinec autor evan bere buruba gaiti, egunian egunian juramentu eguiteco oitura galduba eucana. Jaungoicuaren bildurrac quen[117]du zituban nire juramentubac, dino santubac sermoe baten (73). Ceubeen artian vitzi nas,
205 esaten eutseen, ¿ta nos entzun deustazu niri juramentuba? ¿Ez nituban leenago egunian egunian eguiten? Bai. Baina jaquin nevanian gauza chaarra zana, bil-

(71) Serm. 11. de decol. S. Joann. Baut. (72) P. 3. Precep. 2. n. 7. (73) Serm. 10. de Santis.

179 jadiichil] jadijchi *Ba* 188 bagaric] bagarric *Ba* 194 ia] ya *Ba*

¹⁶⁹ "Ainbagaric": aipatzen den hura gabe; (loturik idazten du beti, *b*-ren aurretik *n* duela nahiz *m* duela).

¹⁷⁰ "Leendanaz": aurrez, aldez aurretik; (horrelaxe loturik nahiz bereiz idazten du).

durtu nintzan ta peliau nintzan juramentu eguiteco ecandu gaistuaren contra. Erregutu neutsan Jaungoicuari ta emon eutstan gracia gueijago ez eguiteco. Ez 210
 daucat gauza errazagoric juramentu ez eguitia baino, cinuan san Agustinec. San
 Juan Crisostomoc emoten dau conseju bat, juramentu eguiteco ecandu gaistua
 galduteco. Esango dozu gacha dala, baina gach gueijago dacar ecandu galdubac. Dacutszunian, dino Santubac (74), ceuc edo ceure umiac, edo ceure emas-
 tiac, edo otseguinac daucazula juramentu eguiteco ecandu galduba, juramentu 215
 eguin dozun gavian apaldu bagaric zuaz lotara. Ta ceure ehecoc eguiten
 badau juramentu premina bagaric, ez eguijozu apariric emon, dino Santubac.
 Artu daiguzan bada, cristinaubac, conseju santu oneec gueure oneraco. Alan
 quenduco ditugu laster ecandu gaistuac, juramentu eguiteco. Orduban izango
 dira gueure juramentubac eguijazcuac, preminacuac, ondo pensaubac ta gauza 220
 oneraco. Ta bein Jaungoicuari juramentubagaz gauza ona agundu ezquero,
 cumplidu ciur ta zucen. Alan gura izan daguijala Jaungoicuac, gueuc alaveetia
 bere izen [118] santuba. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian.
 Amen.

II. ICASIQUIZUNA,

225

ceinetan eracusten dan
guzurrezco juramentubac Jaungoicuari eguiten deutsan injuria;
ta inori eguin oi deutsazan caltiac .

Juramentuba dan leguez bateti ain gauza sagraduba ta santuba; ta besteti
 icusten dan leguez cristinaubeen artian ain erraztasun andija, bapere premina 230
 bagaric juramentu verbaan verbaan eguiteco, nai guzurragaz ta nai eguijagaz,
 bai umeen artian ta bai nausijen artian; pensau dot, neure cristinaubac, dotri-
 na onetan eracutsi biar deutsudala guzurrezco juramentubac merceduten
 daven gorrotua, gurasuac eta umiac, guztioic ichi daguijozun ecandu galduba-
 ri. Jaungoicuaren aurrian chito gorroto andicua da guzurrezco juramentuba. 235

 (74) Hom. 5. ad pop.

214 galdubac] guldubac *Ba* 222 daguijala] daquijala *Ba* 228 oideutsazan *Ba*

Munducuen artian bere gauza lotsagarricua ta desondrauba da. Baita eregeen ta gentileen artian bere. Icutsi daigun, bada, *ce injuriya eguiten deutsan Jaungoico andijari. Ta ce caltiac ecarri oi dituban mundura juramentu pal tsuac. Ta celan erremedijau biar dirian.* Entzuteco gogua escatuten deutsut ceubeen arimaco ona gaiti.

I.

Pecatubaren malecija ta oitura galdubac [119] guizonen artian azi, gueitu ta zabaldu cirianian, dino san Juan Crisostomoc (75), aguertu zala mundura juramentubaren biarra. Orduban, guizonac ta emacumiac euren esaneetan guzurti aguertuten cirianian, alcarren esanari pijau¹⁷¹ ezinda, asi cirian Jaungoicuari testigutzat dei eguiten; Jaungoicua euren esanaren testigutzat ecarten. Au gaiti esaten dau Jesucristo gueure Jaunac, *ez edo bai* esateco¹⁷². Bada, onezaz gaineracua, dino, gachaganic¹⁷³ datorrela. Gueure malecijati, gueure guzurti izate-ti datorrela, dino Jesucristoc¹⁷⁴. Cristinaubac baguina eguijazcuac ta zucenac, daquiguna daquigun leguez, gueitu, guichitu, edertu, toloztu, ezaindu edo estaldu bagaric, gueure goguan dagan leguez beti esaten dogunac, ez legoque preminaric inos bere juramentu eguiteco. Orduban asco izango litzaateque, alcarri sinistuteco, esatia: onan zan edo alan zan, Jaungoicuaren izen santuba testigutzat aotan artu bagaric.

Baina guizon eta emacumiac dirian leguez eureenez malecijotsubac, engainutsubac eta guzurtijac (76), daquijeena ez jaquin eguiten daveenac; ez daquijeena, jaquina leguez esaten davenac; erichicua ta sospechacua zucentzat contee-tan daveenac; zucen jaquina erdiz erdi baino esan gura ez daveenac; edo guzurra asmauta esaten daveenac, beti dago bildurra, guizonaren edo emacumiaren verbaac eguijazcuac ala guzurrezcuac ete dirian. Bildur au [120] gaiti balijoco gaucen eguija jaquiteco artuten dira testigubac, noberaren esanaren gainera. Baina munduco testigu guztiac bere guizonac edo emacumiac dira. Ta guztiac engainau guinaijeez. Biar da, bada, testigu bat, guztia daquijana ta guzurric esan ezin leguijana. Ta ara emen juramentubaren preminia. Guizonari edo emacumiari sinistuco badeutsagu duda bagaric bere esana, ecarri biar

(75) Hom. 9. in act. Apost. (76) Psalm. 115.

239 oidituban *Ba* 261 etedirian *Ba* 264 Biarda *Ba*

¹⁷¹ Gure "fidatu" da, baina komunztadura datiboarekin eginik, eta ez inesiboarekin.

¹⁷² Ik. Mt 5,37.

¹⁷³ Ablatibo zaharra darabil, baina bizidunena. (Ik. Sarrera orokorrean deklinabidea 261-263.or.).

¹⁷⁴ Ik. Mt 15,11.16-20; Mk 7,15.20-23.

deuscu testigutzat edo, san Juan Crisostomoc¹⁷⁵ dinuan leguez, bere esanaren pijadoretzat, guztia daquijan ta guzurric esan ezin leguijan bat. Au da gueure Jaungoico zucena ta eguijazcua. 270

Guztia daqui gueure Jaungoicuac, ta inos bere guzurric esan ezin legui. Au gaiti Jaungoicua testigutzat aotan artuta esaten dana, sinistuten da. Ez bacarric cristinaubeen artian, baita eregeen, judegubeen, moruen ta gentileen artian bere. Jaungoicua testigutzat artuta esatia da, gauzia sinistu eraguiteco errazoe nausija guizoneen artian. Jaungoicua testigutzat artuta eguiija esaten bada, sinistuten jaco. Guzurra esaten bada bere, sinistuten jaco, Jaungoico eguijazcua testigutzat ecarri davelaco. ¿Baina cer eguiten dau, Jaungoicua testigutzat aotan artuta, guzurra esaten davenac? Bere partez Jaungoico eguijazcua eguiten dau guzurti. Juralari paltsuac esaten dau guzurra, inor engaineetaco. Ta ecarten dau Jaungoicua bere guzurraren testigutzat, Jaungoicuac eguijazcotzat ta ontzat emon daguijan bere testigantza paltsua ta guzur esatia. Au da verbeeta [121] onian Jaungoico eguijazcua bere guzur lagun eguitia; testigu paltsuac esan daven guzurra, eguija dala esatia. Ara emen, cristinaubac, juralari edo juramentari paltsuac Jaungoicuari eguiten deusan injuria. Bera guzurtija ta paltsua dan leguez, Jaungoicua bere guzurti ta paltso eguitia bere partez. Guzurrezco juramentuba eguiten davenac, bere partez ucatuten deusa Jaungoicuari bere izate santuba ta ontasun guztia. Esaten dau moduren baten Jaungoicua dala guzurtija. Orregaiti dacar, guzurra sinistu eraguiteco testigutzat. Jaungoicua guzurtija balitz, ez litzaateque izango ez zuzena, ez jaquituna, ez eguillia, ez ona, ez Jaungoicua; ez bada paltsua, engainutsuba, malecijotsuba ta gaistua, juralarija bera paltsua dan leguez. ¡Oh, ce injuriija! ¡Ce desprecijua! ¡Ce desondria eguiten deusan juralari paltsuac Jaungoico eguijazcuari! Pensau ta beste bagaric icaratuten dau cristinauba juramentu paltsuac. ¡Oh, juralari paltso tristiciac, ce carga pisutsuba artuten dozun ceubeen gainian, guzurragaz juramentu eguiten dozunian! Ainguerubac, santubac ta criatura guztiac armauco dira ceubeen contra. Guztiac predicauco davee, eguijazcua dala gueure Jaungoicua, zubez guzurti eguin gura izan arren. Zaintuco davee Jaungoicuaren ondria ta vengauco dira juralari paltsuaren contra. 275 280 285 290 295

Ta ez pensau, neure entzula onac, injuriija andi au Jaungoicuari eguiteco, juezaren aurrian eguin biar dala juramentu paltsua; edo [122] proximuari etorri biar jacola caltia ceubeen guzurrezco juramentubagaz. Ez. Orraco ceubeen verbaan verbaango oiturazco juramentuboc, destajuban, erichira, ondo ez daquizula, chantzaan, bada ez badaan edo barre eraguiteco esaten dituzun errazoic, 300

272 sinistutenda *Ba* 290 ez bada *Ba*

¹⁷⁵ San Joan Krisostomoren testua izan daiteke, beraren obra honetan datorrena: "Homiliae LV in Acta apostolorum" (Homiliae IX, in PG, Migne, 60, col. 82): "Tunc ergo, tun, cum increduli prorsus essent, Deum advocabant testem, quasi dignum dictorum fidejussorem dantes. Hoc enim est juramentum, fidejussio, ubi ob morum corruptionem fide non habetur".

lasto bat balijo ez deutsbeenoc, Jaungoicua testigutzat artuta esaten dituzunoc, orreec dira Jaungoico eguijazcua desondretan daveenac. Orreec dira sacrilegijozco pecatu mortalac. Cristinau ascoc dauquee ecandu madaricatuba, errazoe bacochian esateco, nai guzurra dala nai eguiija dala esaten daveena: *neure arimaraco alan dana; arguija dacutstan leguez; evangelijua dan leguez; Jaungoicoraco...* eguiija dana. Inori calteric eguin ez arren, guzurrezco juramentubac desondreetan dau ta injurijeetan dau Jaungoico eguijazcua. Quendu, quendu, cristinaubac, daucazunoc ecandu gaisto ori. Segurubago da inos bere juramenturic ez eguitia ascozaz, dino san Ambrosioc (77). Ez ondo juramentu eguitia pecatu dalaco, ez bada guzurragaz eguitia pecatu icaragarrija dalaco ta juralarijac sarri guzurragaz eguiten davelaco.

315 Eguiijagaz, preminiagaz ta gauza oneraco juramentu eguitia, gueure Jaungoico ona ondreetia da. Jaungoicua eguijazcotzat autortutia da. Jaungoicuc berac eguin dau sarri juramentu, gueure argaltasunari beguiratuta, bere verba santubai indar gueijago emoteco. Elias propeta santubac Isrraeli prediquetan eutsanian [123] Jaungoicua testigutzat ecarten eutsan, eguiijaac sinistu eraguiteco¹⁷⁶. Propeta ascoc ta san Paulo apostolubac beste aimbeste eguiten even sarritan, gentiari eureen esanac sinistu eraguiteco¹⁷⁷. Baita zurac ta arrijac Jaungoicotzat euqueezan gentilac bere, sarritan juramentu eguiten even, euren Jaungoico paltsuen izenian. Baina ez cirian azartuten, dino san Agustinec (78), guzurragaz juramentu eguiten. Bada, gentil itsubac azartuten ez

325 baciran arrijeen ta zuren icenian juramentu guzurrezcua eguiten, ¿cer izango da, pedia daucan cristinau batenzat, Jaungoico eguijazcuaren izenian guzurrezco juramentu eguitia? ¡Oh, cristinaubac! Ez da erraz aituten emoten, ce injurija andija eguiten deutsan Jaungoicuaren izen santubari, guzurragaz juramentu eguiten davenac, nai juezaren aurrian, nai osterantzian, nai adrede ta nai

330 benetan, nai gauza guichijan ta nai andijan. Baita ascotan guzurrezco juramentubac munducuai bere ecarten deutseez calte andijac. Icutsi daigun celan.

II.

Juezac dauca escubidia, eguiija jaquin biar davenian, juramentubaren beian erasoteco bere aguindupecuai sail atan daquijeena. Ta juramentubagaz esaten

335 dana, eguijatzat artuten da lecu guztietan. Juezac erabagui biar daven sail atan jazoten da egotia edo proximuaren ondria, edo cleituba, edo aciendia, edo

(77) Serm. 4. in Psalm. 118. (78) Lib. 11. contr. Faust., c. 11.

313 ez bada *Ba*

¹⁷⁶ Ik. 1Erg 18,15.21.37.

¹⁷⁷ Erm 1,9; 2Ko 1,23; 11,31; Flp 1,8; 1Ts 2,5.10.

vitzitzia. Ascotan maijorazgo oso bat, edo eche bat, edo solo bat, beneficio bat, edo [124] irabazico tratu bat. Beste ascotan guizon baten edo pamelija oso baten pamia ta cleituba. Beste batzubetan inocente bat galdutia edo gaisto bat libreetia, edo pecatari bat castigubagaz erremedijeetia, edo escandalu bat erri-
 340 ti quendutia ta beste onetarico balijo andico gauza asco jazoten dira. Juezac, zucen jaquinda, erabagui ta erremedijau biar ditubanac.

Contu eguin daigun, bada, onaco balijoco gauza bat jaquiteco, juezac escatuten deutsula zuri, juramentubaren beian daquizuna esatia. Bada, zuc eguiten badozu guzurrezco juramentuba, oquertuten dozu juzgu guztia ta juzgu guei-
 345 jaren erabaguija. Zure guzurrezco juramentuba sinistuta, (sinistu biar daven leguez, Jaungoicua testigutzat artuta esan dozulaco) juezac maijorazcua, echia, solua edo diruba quenduco deutsa jaubiari ta emongo deutsa beria ez davenari. Persona ondrauba edo pamelija gueratuco da desondrauta; ta embusteru-
 350 ba, oquerra edo lapurra ondriagaz. Urcamendijan edo destierruban egon biar leuquiana gueratuco da libre; ta inocentia urcamendijan edo destierruban. Escandaluba ta exemplu gaistua gueratuco da errijan, leen leguez; ta celo santubagaz erremedijau gura izan davena gueratuco da lotsatuta, isilduta, arpe-
 355 guija atera ezin davela. Au guztiau zuc juezaren aurrian eguin duzun guzurrezco juramentuba gaiti.

¡Ce naastiac ta oquertasunac imini leguizan ta imini dituban ascotan, neure entzula [125] onac, guzurrezco juramentu batec! ¡Noc conta leguiz bere caltiac? ¡Naico cenduque, auzuac guzurrezco juramentubagaz jueza engainauta, ceuri aciendia edo cleituba galduta, pobre edo desondrau gueratutia? ¡Naico zenduque, erruric ez daucazula, ceu destierrura bialduta, lapur bat edo gaisto bat errijan libre ta ondrau gueratutia? Ez. Beguiratu bada, cristinaubac, ceuben arimaac gaiti juramentubaren itzalari ta bere ondoric dacarren errubari. Biar dan e[r]reverencijagaz eguiten bada, Jaungoicua ondreetan da juramentubagaz. Baina guzurragaz eguiten bada, ta endamas juezaren aurrian, calte icaragarri-
 360 jac dacaz bai arimaraco ta bai munduraco. ¡Ta erremedijau biar ditu juralari guzurtijac alaco inori eguindaco caltiac?

III.

Duda bagaric, cristinaubac. Salbauco bada juralari paltsua, erremedijau biar ditu. ¡Baina celan? Bere compesoriac esaten deutsan moduban. ¡Galdu eraguin deutsa guzurrezco juramentubagaz echia, solua, diruba edo irabatzi jaquina? Bada, galdu eraguin deutsan beste ta castau eraguin deutsan beste biurtu biar deutsa juralari guzurtijac atzera, salbauco bada. ¡Galdu deutsa cleituba edo
 370

352 inocentia] inocencia *Ba* 355 eguinduzun *Ba* 361 ezdaucazula *Ba* 369 cristi-
 naubac] cristinaunbac *Ba* 372 eraguindeutsan *Ba*

ondria guzurrezco juramentubagaz? Bada, juralari paltsuac biurto biar deutsa
 375 ondria edo cleituba galdu deutsanari, salbauc bada. Nundi daucan artian jura-
 lari guzurtijac, jaso biar deutzaz juramentu paltsuagaz proximuari eguin deu-
 tsazan caltiac, nai aciendaan, nai cleituban, nai ba-[126]quian, nai osasunian,
 salbauc bada.

Gauza gacha da au. Nequez ta guichitan eguiten dana da au. Baita esan
 380 guinai, nequez ta guichitan erremedijeetaco ta salbeetaco arriscuban aurquitu-
 ten diriala juralari paltsuac. Errazago da, neure entzula onac, juramenturic ez
 eguitia, alaco lor bildurgarrijeetan gueratutia baino. Artu daigun, bada, guztio
 Erromaco Catecismuaren consejuba (79). ¿Ta cer? Sarri ta ondo pensauta ta
 385 ondo jaquinda eguin juramentu. Juramentu eguitera orduco beguiratu, dino,
 ondo ia gauza ac merceduten daven edo ez juramentu eguitia. Juramentubaren
 beian esan biar bada, demporia artuta, astija artuta, sosiguz
 pensauta prestau biar dau Jaungoico eguijazcuaren izenian juramentu eguite-
 co, ez gorrotuagaz, ez odijuagaz, ez prijsaca; ez bada centzunez ta contuz jura-
 mentu gueijari beguiratuta, ac escatuten davelaco. Cuidado andi onegaz egui-
 390 ten ez dan juramentuba, ondo pensau bagaric, priisaca ta arin aringa eguiten
 dana izango da oquerra ta necijua. Alan oi dira, edocean gauza guichiren gai-
 nian juramentubagaz *baietz* esaten daveenac. Juicijoz baino ecandu gaistuagaz
 leenago juramentu eguiten daveenac. Tratalarijac, salzailiac ta eroszailiac,
 euren gauzaac goraago saldu edo merquiago erotsi eguiteco, ardura bagaric
 395 juramentubagaz jasoten ditubee edo tacheetan ditubee erosi edo saldu biar
 ditubeen gauzaac.

[127] Gurasuac cargu andija euquico davee Jaungoicuaren aurrian. Bateti
 eurac bildur bagaric juramentubac eguiteco ecandu gaistua dauqueelaco ta
 pamelijaren aurrian sarritan eguiten ditubeelaco.

400 Ta besteti eureen umiai ta echecuai, juramentubac eguiteco oitura galduba
 artuten isteen deutseelaco. Artu daigun bada, cristinaubac, pecatu icaragarri
 onen gorroto santuba, asarratu ez daigun geure Jaungoico ona ta libre egon gai-
 tezan beste esan dirian juramentu guzurrezcuaren gacheetati. Cerubac eguin dai-
 gula onetaraco gracia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

 405 (79) Precep. 2. n. 13.

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
cer dirian votuac edo promesac.
Celan votozco aguinduba eguin biar dan.
Ta celan quenduten dan eureen eguin biarra. 410

Bigarren Jaungoicuaren aguinduban sartuten dira votoz edo promesez Jaungoicuari eguiten jacozan aguintzarijac. Cristinau asco dira chito prestac, nai baquian, gachian ta estutasunian Jaungoicuari edo santubai onaco edo alaco gauza ona edo eguitade santuba vorondatez esquintzeco. Baina ez dira guztia ain [128] prestac, alaco vorondatezco aguindu santuba bere orduban eguiteco. 415
 Emeti dator cristinau asco luzaro pecatuban vitzi izatia, eurac Jaungoicuari eguindaco aguindu santubaquin aaztuten dirialaco. Bada, san Juan Crisostomoc Ananias gaiti dinuan leguez (80), oba da votoric edo promesic inos ez eguitia, eguinda aguinduba ez gordeetia baino. Ezagutu daguijeen, bada, cristinaubac ce ardura andija escatuten deuschubeen Jaungoicuari geure 420
 naiz eguiten deutsaguzan aguindubac, esango deutsut, neure entzula onac, dotrina onetan: 1. *Cer dan voto edo promesa eguitia.* 2. *Eguin ezquero, celan gorde biar dirian.* 3. *Celan quenduten dan euren eguinbiarra.* Ceubec daquizu ceimbat bidar conciencijaco cer eguinagaz ta peniagaz aurquitu oi zarian voto ta promeseen gainian. Bera gaiti esaten deutsut, aitu daguizula doctrina 425
 au zurtasun guztiagaz.

I.

Votua edo promesa cer dan esatera orduco, jaquin biar dau cristinaubac, Jaungoicuari berari bacarric eguiten jaczala votuac edo promesac. Gueure cristindade santuco eguitadia da votua. Jaungoico andijari, criatura guztien gainian daucan escubidia ta altsutasuna autortuteco eguiten deutsaguna da votua. Alan ainguerubai, santubai ta santai eguiten jacuezan aguindubac edo votuac, Jaungoicuari berari eguiten jacozanac dira eurenerez. Santu bati edo santiari cerbait aguinduten jaconian; edo santuba ta santia izentauta aguinduten danian, [129] Jaungoicuari berari aguinduten jaco. Ta santuba edo santia iminten da 435
 vitaartecotzat, Jaungoicuaganic jadichi daigun gura guenduquian gracija, lau-

 (80) Hom. 11. in act. apost.

422 Cerdan *Ba* 423 eguin biarra *Ba* 424 cer eguinagaz *Ba* 428 cerdan *Ba* 429
 Jaungoicuari] Jaungoicuari *Ba*

garren sacramentuban meza santubaren gainian aguirijago eracutsico dan leguez¹⁷⁸. Au onan izan arren, ainchinaco devocinoia da Eleisa Ama santaan, 440 Pouget jaquintsubac dinuan leguez (81), cristinaubac Ama Virgina guztiz santiari, aingerubai ta ceruban Jaungoicuagaz dagozan santubai mezaac ateratia ta beste eguitade santubac euren ondraraco aguindutia. Alan dauca, esan oi dan leguez, bacoachac bere devocinoeco santuba edo santia. Ta eguiten jacuez aguintzarijac Jaungoicuaren izenian. Alan Eleisa Ama santiaren goguagaz bat 445 eguinda, Jaungoicua bere lecuban ta santuba eureenian ondreetaco votuac eta promesac eguitia, gauza santuba da. Gauza ona da. Gueure Erliginoeco eguitadia da.

Gueure sinistutiaren aitu era onegaz prestauta esaten da, neure entzula onac, votua edo promesa dala *noberaen ezauberiagaz ta naijagaz* 450 *Jaungoicuari gauza ona baino obia aguindutia* . Esaten da, *noberearen ezau - beriagaz*. Voto edo promes eguiten davenac, ezautu ta jaquin biar davelaco ondo cer eguiten daven. Ez jaquinaz ta destajuban eguiten dirian votuac ez dira onac. Esaten da *noberearen naijagaz* . Votuac vorondatezcuaac izan biar davelaco. Bada, santo Tomasec esaten daven leguez, izena bera bere votuac voron- 455 dateti da-[130]car. Noberaren guraz ta nai osuagaz ez dala, ez da vоторic eguiten. Esquer gaistoco ta derrigorrezco votuac ez ditu estimateetan Jaungoicua. Ezaubera osuagaz ta nai osuagaz eguin biar da votua. Esaten da *gauza ona baino obia*. Votuaren gueija edocein ez dalaco. Voto edo promes izateco, ez da asco Jaungoicuari edocein gauza on aguindutia. Izan biar dau ona baino 460 obia. Gauza ona da matrimonioco sacramentuba, baina berez ez da votuaren gueija. Obia da erliginoian sartutia, nai ezcondu bagaric castidadia Jaungoicuaren izenian gordetia. Eguin biarreco gauzaac bere edo leguepian dagozanac eureenez ez dira votuaren gueijac, ez bada gueure najaren beian dagozanac.

465 Votuen gueijac izaten dira: Erliginoian sartutia; matrimonioco estaduba artu bagaric, Jaungoicuaren izenian castidadia gordeetia; Jerusalengo, Erromaco ta Santiagoco lecu santubac visiteetia; santu edo santa bat ondreetia; limosnaac eguitia; barubac ateratia; mezaac entzutia; sarrijago compeseetia; errosarijuac erreceetia; ta beste Jaungoicua ganaco nai onac. Onetarico gueure vorondate- 470 pian dagozan ta ona baino obia dirian gauzaac dira voto gueijac eurenez. Esaten da, *Jaungoicuari aguindutia* . Aituten emoteco Jaungoicuari berari

(81) P. 2, sect. 3, c. 3. §. 2.

442-443 oidan *Ba* 463 ez bada *Ba*

¹⁷⁸ *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburuaz, sakramentuei buruzkoaz, dihardu (Iruñea, 1819). Santuak bitartekotzat hartzea ik: *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac* ... III. Zatia (Iruñea, 1619), 66, 258, 366. or.

bacarric eguiten jacoza vota, leen esan dan leguez. Baita aituten emoteco, Jaungoicuari bein alan agundu ezquero noberac ezauberaz ta naiz gauza ona baino obia, ya [131] ez daguala bere escuban agundu davena eguin bagaric 475
 istia, guero esango dan leguez. Jaungoicuac ciur ta gogoz emoten deutzuz agundu deutzuzan sarijac, agundu deutzuzan moduban. Dinot, cristinaubac, Jaungoicuac ziur gordeetan deutzuzala eguien deutzuzan promesac, gueuc ciur eguiten dogunian bere agunduba. Sinistute osoATEGAZ esaten evan san Pablo apostolubac (82): *Gordeta dago niretzat ondo eguinaren sarija, cein 480*
emongo deutstan Jaungoico zucenen neure azqueneco egunian. Bada, Jaungoico andijac esanda badauca bere verbia ondo eguinaren sarija gueuri emoteco, ta inos ucatuten ez badau, beti ciur gordeetan badau; cristinaubac bere ezauberaz ta naiz Jaungoicuari agundaco *votua* edo agunduba gorde 485
 biar dau. Esaten da, *votua* edo *agunduba*. Ez ustia edo gogua. Ta eracutsi onen paltaz cristinau asco vitzi dira utseguitagaz. Batzuc gogua edo ustia artu ezquero gauza ona baino obia eguiteco Jaungoicuaren, santu edo santa baten izenian, uste davee *votua* dala. Beste batzuc, Jaungoicuari edo santubai agundaco voto edo agundu jaquinac bere ez dauqueez vototzat.

Votuaren ta ustiaren edo goguaren artian erabagui¹⁷⁹ andija dago. Buruco 490
 mina edo beste gach bat oi dozulaco ceuc edo ceure echeucac, etorten jatzu gogua ta artuten dozu ustia alaco santu edo santa bat visiteetara juateco guei-jagoco bagaric; au ez da *votua*, ez [132] da promesa. Au uste ona da, gogo ona da. Baina eguin biarraren carga barrija burubari ezarten ez deutsuna da. Buruco mina bera gaiti edo beste gach bat gaiti, Jaungoicuac edo santubac 495
 librau zaizan, asmeetan dozu ceure buruban santu eche batera juatia, meza bat ateratia, baru bat eguitia edo beste ona baino obia dan gauza bat eguitia. Ta dinozu ceure artian gauza on ari ondo erechita, nai goguagaz bacarric ta nai verbiagaz ta goguagaz: *Egingo dot, bada, Jaungoicuaren edo santubaren ondraan*. Au *votua* da. Au Jaungoicuari agundaco ezauberazco ta bere gurazco agunduba da. Eguiteco ustiaz ta goguz gainera, ezarten deutsa onec bere burubari agunduba eguin biarra. Beste edocean jazotan au berau eracusten da voturen ta goguaren gainian. Eguiteco gogua edo ustia artuten dan gaucia eguin ez arren, ez da pecatu barric eguiten, gogozco edo ustezco gaucia eguin ez davelaco. Baina votozco edo promesezco gaucia eguiten ez bada, al 500
 dedila, pecatu eguiten da. Eguin biarra bere burubari berac ezarri deutsa. 505

 (82) Ad Tim. c. 4.

475 ya] ija *Ba* 487 ez quero *Ba* 489 ezdauqueez *Ba* 491 oidozulaco *Ba* 505-506 aldedila *Ba*

¹⁷⁹ "Erabagui" hitzak hainbat adiera ditu gure idazlearengan, baina hemen *aldea*, *ezberdintasuna*, *diferentzia* esan nahi du.

Compeseetaco biar da pecaturic ez eguiteco gogua. Ta biar da gogo sendua, gogo pirmia, pecatu eguin baino gauza guztiac leenago galduteco gogo egui-
 510 jazcua ta vorondatia, parcatuco bajacoz pecatubac. Baina ez da votua. Ta oste-
 ra pecatuban jausi arren, ez dau proposituba ausi dabelaco pecatu eguiten,
 ez bada Jaungoicuaren aguinduba ausi davelaco. Emeti aguiari da bada, cristi-
 naubac, cer di-[133]rian votuac eta promesac. Ta icasi biar dozu zelan eguin
 biar dan votozco aguinduba.

515

II.

Ta esaten da, Jaungoicuaren edo santubeen izenian eguindaco votua gorde
 biar dala. Votozco aguinduba eguin biar dala. Eracutsi onen errazoe sustraiz-
 cua da, Jaungoicuac nai izatia gueuc eguin daiguzan gauza obaac ta gorde dai-
 520 guzan bere conseju santubac. Jaungoicuaren ondra santubari jaocana da gueu
 onac baino obaac izatia. Aguinduten deutsalunian, bada, Jaungoicuari ezau-
 beraz ta naiz, gauza oba bat eguitia, aintzat artuten deuscu Jaungoicuac gueu-
 re aguinduba, ta gueratuten gara gauza atan Jaungoicuaren zordun. Au berau
 jazoten da guiza arteco promes aguijazcuetan. Aguinduten deutsalunian adisquide
 525 bati, bere izenian meza bat duaric esatia; artuten dau aintzat adisquidiac zure
 aguindu ona; bada esan edo atera biar dozu mezia. Parcatu deutsalunian, al dai-
 zula, ezauberaz ta naiz zordunari zor eutsuna. Ondo dago esanda, aintzat artu
 dau. Bada, parcatuta gueratuten da ta ez deutsalunian ostera escatu biar.

Jaungoicuari eguiten jacon aguinduba ona izan ezquero, berez indartsuba-
 gua, santubagua ta eguinbiar estubagua dacarrena da, guizonari eguiten jaco-
 530 na baino. Bada, Jaungoicuari lotsa gueijaco, leijaltasun gueijago ta ardura guei-
 jago zor deutsalunian gueure eguitadeetan, munduco guizon guztiac baino.
 Orregaiti Jaungoicuari aguinduba ez gordeetia pecatu andijagua da, guizonari
 ez gordeetia baino. ¿Ta [134] cer esaten dogu munduban, ezauberaz osuagaz ta
 535 nai guztiagaz lagunari eguindaco aguindu ona, al daguijala, gordeetan ez dave-
 na gaiti? Chacharra dala, doiloorra dala, prestubeza dala, bere verbiaren jaube
 ez dala, inor pijau ezin lequijola... ez aguindu baino ez eucala... burla eguin
 deutsalunian... Au guztiau esaten dogu alaco[a] aguindu ta ez eguin eguiten dave-
 na gaiti. Ta errazoiagaz. ¿Cer esango dau, bada, gueure Jaungoicuac ceruban,
 540 bere anditasunari ezauberaz ta vorondatez gauza oba bat aguinduta, al dagui-
 jala, eguiten ez davena gaiti?

Ceubec pensau daiquezu, cristinaubac. Asarratuco da Jaungoico ona alaco
 cristinau promesguin ta gordezaile edo eguinzaile prestubezaren contra. Lotsia,
 errespetua ta ondria galdu deusalaco bere anditasunari, votozco aguinduba, al

508 biarda *Ba* | biarda *Ba* 512 ez bada *Ba* 516 esaten da| esatenda da *Ba* |
 eguin daco *Ba* 525-526 aldaizula *Ba* 526 esan da *Ba* 529 eguin biar *Ba* 534 aldagui-
 jala *Ba* 539 aldaguijala *Ba* 543-544 aleva *Ba*

evala, eguin ezagaz. Ara emen, cristinaubac, votuac ta promesac gorde biarra, eguin ezquero. Ara emen Jaungoicuaren gorrotua, gordeetan ez badira. Ara emen pecatuba, votua edo promesa austia gaiti. Au gaiti esaten deutsu Espiritu Santubac (83): Bein ceure aoco verbiagaz (bardin da borondatiagaz) Jaungoicuari agundu deutzazuna gordeco dozu ciur, agundu dozun moduban. Oba da, dino beste lecu baten Espiritu Santubac (84), vоторic eta promesic ez eguitia, eguin ta ez gordeetia baino. Eguiteco ez deutsu Jaungoicuac agunduten. Baina eguin ezquero, gordeetaco bai. Alan zamaituten ditu Jaungoicuac, [135] promes eguina gordeetan ez davenac. Azquen chaarra, dino (85), santubai promes eguinda, guero esaneti atzera biurtuten dan guizonari. Berau gaiti cristinaubac euqui biar dau chito ardura andija, votuac eta promesac eguin dituban leguez gordeetaco.

Ta ¿ce pecatu dala uste dozu, neure entzula onac, votozco aguinduba ez eguitia? Berez pecatu mortala da, eracuslaac esaten deutsuceenez. Alan votozco edo promesezco aguinduba eguin biar da agunduten dan demporean ta agunduten dan moduban. Santu bat ondreetaco, agundu dozu visperaan meza bat entzutia edo barau bat eguitia. Bada, vesperaan. Ta mecia agundu badozu, mecia. Barauba agundu badozu, barauba. Onan beste voto ta promes guztietan. Ez dauca votoguinac edo promesguinac escubideric eguin daven promesa edo votua luzatuteco, ez beste gauza batera aldatuteco. Agundu dozu compesetia ta entzuten dozu aren orderaco mecia. Ez deutsu balijo. Agundu dozu baruba ta emoten dozu aren orderaco limosnia. Ez deutsu balijo. Agunduten dozu aste onetan baru bat eguitia; al daguizula, isteen dozu guero; eguiten dozu pecatu, al daguizula, agundutaco demporean cumplidu ez dozulaco. Ta modu onetan dira, neure entzula onac, beste imini leguizan voto genero guztia.

Ta itanduten badozu, ce pecatu eguiten dan votozco aguinduba ausijagaz. Esaten da, [136] gauza andijan bada, eguiten dala pecatu mortala edo illgarrija. Gauza guichijan bada, eguiten dala pecatu veniala edo chiquija. Votua edo promesa eguin ezquero, baru bat ateratia, meza bat entzutia, onaco egunetan compesetia, errosarijo santu bat erreceetia edo beste legue santuban gauza anditzat artuten dirian gauzaac, eguin edo cumplidu biar dira pecatu mortalaren beian. Gauza guichija da *salve* bat, *avemarija* bat, arguitaco pusca bat, limosna chiqui bat ta beste onaco gauza arinac. Orduban alaco votozco gauza guichi a ez eguitia, pecatu arina edo veniala da. Demporiaren parteti nos cumplidu izentauta eguiten bada votua, orduban cobru emon biar jaco agundu-

(83) Deut. c. 13. (84) Eccl. c. 5. (85) Prov. c. 20.

580

549 Santubac] Sautubac *Ba* 558 biarda *Ba* 566 aldaguizula *Ba* 567 aldaguizula *Ba*
570 eguitendan *Ba* 571 Esatenda *Ba*

bari. Luzatuten badau naguitasunez, eguingo dau pecatu. Dempora lucian ta gauza andijan bada, izango da pecatu illgarrija. Alan ez bada, izango da pecatu veniala. Votoguinac señaleetan ez badau votua cumpliduteco demporia, aimbat lasterreen cobru emon biar deutsa votuari. Ya dacutszu, cristinaubac, 585 celan cobru emon biar jacon votuagaz edo promesagaz Jaungoicuari eguinda-co aguinbari. Ta entzun eguizu verba bitan, celan quenduten dan euren eguinbiarra edo obligacinoia.

III.

Votuen eguinbiarra edo obligacinoia quenduten da: 1. Votozco aguinbuba 590 ezin danian. Ezin davena, legue guztietati libre dago. 2. Eleisaco aguintarijac, ceintzuc dirian Aita Santu Erromacua, obispo jaunac ta beste [137] asco, votua-ren eguinbiarra quenduten daveenian. 3. Compesore Jaunac beste gauza bate-ra aldatuten deutsanian votoco aguinbuba. 4. Votua eguin davenari, ataraco escubidia daucanac, guztia parcatuten deutsanian. Au da, neure cristinaubac, 595 voto santubeen gainian icasi biar dozuna: cer dirian ta celan cobru emon biar jacuen eguiten dirian moduban, eureen eguinbiarra edo obligacinoia quendu artian. Duda bagaric, cristinaubac, pecatu asco eguiten dira promesac cumpliduten ez dirialaco. Estutasun bategaz, naibague bategaz, buruco min bategaz, edoecin premina ordutan, nai auzi bat, nai empeñu bat, nai ganadu baten gaiso 600 bat danian, laster eguiten da promesa. Jaungoicua eta santu edo santaren batec lagundu daguijon biar ordu atan. ¿Ta cobru emoten jaco promesari? ¿Eguiten da aguinbuden dan moduban?

¡Ah! Esan guinai gaurco eguneco cristinaubac gaiti, beste dempora baten jaquitun celotso batec esaten evana (86): Guerria badator gueure echera, pes- 605 tiac edo gachac estututen bagaitu, trumoiac edo arrijac gueure laboriac zamaituten baditu, liortia edo euriric eza sentiduten badogu, subac edo urac artuten bagaitu, gosiac perseguiduten bagaitu edo beste penagarri bat bajatorcu, Jaungoicuari ta santubai aguintzari andijaquin edo promesaquin socorruba escatuten deutseegu. Orduban gomutatuten gara Jaungoicuagaz ta bere santuba-[138]quin. Premina ordu estu batec jo artian nequez elduten dira cristinaubac Jaungoicuagana edo ceruco santubeetara. Baina bildurra juan dedinian, estualdija irago dedinian, ez dauquee conturic Jaungoicuari ta santubai eguinda-co promesaquin. Ezda esquer onac emoteco bere. Cristinaubac, Jaungoicua eta santubac ez dauquee gure preminaric. Gueu gagoz orduban orduban eureen 615 preminaan. Gueuc erantzun biar deutseegu, bada, esquer onagaz,

(86) Lactant., l. 2. instit.

587 eguin biarra *Ba* 588 eguin biarra *Ba* 592 eguin biarra *Ba* 596 eguin biarra *Ba*
613 Ez da *Ba* 615 Lactant.] Lantanct. *Ba*

Jaungoicuac bere misericordija gaiti, Jesucristo gueure Jaunaren merecimentu-
 bac gaiti ta ceruco santu ta santeen vitaartecotasuna gaiti eguiten deutcuzan
 egunian eguniango mesediai. Ta gorde biar ditugu ciur, Jaungoicuari edo santu-
 tubai eguin deutseeguzan votuac. 620

Onetaraco cristinaubac eguin biar davena da: Lelengo: Ez vоторic edo pro-
 mesic eguin, ondo ta astiro pensau bagaric. Ondo pensau bagaco edo neci-
 jozco promesa ez da Jaungoicuaren gogogua. Bigarrenian: Eguinda daucazan
 votuac edo promesac gorde ta cumplidu, aguindu daven demporaan ta modu-
 ban. Icentau ez badau nos cumplidu, cumplicu aimbat lasterreen. Bada, luza- 625
 tutia pecatu da, dino Espiritu Santubac (87). Irugarrenian: Promes eguina cum-
 plidu al daguijan, edo cumplidu biar daven edo ez dudia badauca, itandu com-
 pesoriari ta eguin esaten deutsana. Gauza chaarra jadisteco eguiten dirian
 votuac ez davee balijo. Pecatuzcuac dira. Escatu daijo-[139]gun, cristinaubac,
 gueure Jaungoico onari, emon daigula gracia, bere legue santuba gordeetaco 630
 ta bere anditasunari ta ontasunari eguiten deutsaguzan aguindubac leijal ta ciur
 eguiteco, ceinegaz ondrauco dogun bere icen bedeinca tuba ta irabatzico
 dogun ceruco betico glorija. Amen.

IV. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan 635
cer dirian blasphemijaac, maldecinoiac ta bidauac.

Jaungoicuac aguinduten daven moduban juramentubac eta votuac eguiten
 dirianian, ondreetan da, neure entzula onac, Jaungoicuaren izen santuba, leen-
 go iracatsijeetan esan dan leguez. Baita votuagaz ta juramentubagaz bere
 desondreetan da ta injurijeetan da gueure Jaungoico andijaren izen bedeinca- 640
 tuba, esanda gueratu dan leguez. Baina bagoz beste verbeeta batzuc ta ez gui-
 chi cristinaubeen artian, Jaungoicuaren icen santuba desondreetan daveenac ta
 caridadari zauri andija eguiten deutseenac. Onetarico verbac dira edo
 Jaungoicuaren beraren contra ta santubeen contra. Ta oni esaten jaco *blaspe-*

 (87) Deut. c. 25. 645

619 biarditugu *Ba* 627 aldaguijan *Ba*

mija. Edo dira noberaren burubaren edo proximuaren gacheraco. Ta onei esaten jacue *maldinoiac*. Edo dira gacharen [140] izenac, ta onei esaten jacue *bidauac*, premina bagaric dirianian. Gueijago edo guichijago guztiac dira pecatubac. Ta moduren baten bigarren aguindu santubaren contra. Esango deusut, bada, dotrina onetan: 1. *Cer dan blasphemija; edo Jaungoicuaren contraco ver-*
 650 *bia*. 2. *Cer dirian maldecinoiac*. 3. *Cer dirian bidauac*. Entzun eguizu cuida-
 doz.

I.

Blasphemija esaten jaco, neure cristinaubac, Jaungoicua bera bere izatian, edo bere santubeetan, edo bere gauza sagradubetan desondreetan daven verbiari edo eguitadiari. Pecatu icaragarri au eguiten da: 1. Jaungoicuari bere izate santuban daucan ontasun bat ucatuten jaconian. Esango baleu batec, *Jaungoicuac cer eguiten daven ez daquijala*, edo *Jaungoicua simplia dala*, simplia chochaquerijatzat artuta, edo *Jaungoicuac inor condenau biar ez dave-*
 660 *la*, izango litzaateque au blasphemijaco pecatuba. 2. Jesucristo gueure Jaunari ondria quenduten deusant verbia esaten danian. Esango baleu batec, *Jesucristo illagaz guc provechuric ez daucagula*, edo *Jesucristori gu salbeetia asco costa ez jacola* edo beste onaco Jesucristoren guizatasunaren contraco verbia, izango litzaateque blasphemijaco pecatuba. 3. Blasphemijaco pecatuba da curutze santubaren contra, sacramentubeen contra, meza santubaren contra ta Escritura Sagradubaren contra esaten dirian verbaac. Curutze santiari burla eguitia, meza santia ta sacramentubac desprecijeetia ta Escritura Sagraduco eguijai sinistuteric ez emotia [141] edo guzurrac diriala esatia, blasphemijaco pecatubac dira oneec guztio. Jaungoicua bera desondreetan da, gauza sagradu onei burla eguiten jacuenian, nai eureen contra verba deungaac esaten dirianian. Ta ascotan pedia ucatuten da. 4. Blasphemijaco pecatuba da Ama Virginia guztiz santiaren contra verba eguitia. Esango baleu batec, edo *Maria Santisimia donceilia ez dala*, edo *Jaungoicuaren ama ez dala*, edo *bere devocinoiac ta bitaarte-*
 665 *cotasunac balijo ez deuscula* edo beste onaco verba chaarra Jaungoicuaren Ama Virginiaren contra. 5. Blasphemijaco pecatuba da ceruban dagozan santubeen ta eureen gorputz zati edo reliquijeen contra verba eguitia. Ceruban dagozan santubac dira, Eleisa Ama santiac aintzat eracutsten deuscutzanac. Ta eureen gorputz zatijac dira, Eleisiac berac aintzat ezaututa, adoretaco emoten deuscutzanac. Santubeen ta areen gorputz zatijeen desondraco ta desprecijoco
 670 verbaac esatia da Jaungoicua bera bere santubeetan desondretia, dino santo Tomasec (88). 6. Blasphemijaco pecatuba da curutze santiari, reliquijai ta santu-

 (88) 2. 2, q. 16, a. 2.

been edo santeen imaginai chistuba desprecijoz jaurtegitia, osticopian erabilitia, nai burla eguitia, nai injurijazco gauzaac eguitia. Jaungoicuaren, santubeen, aingueru oneen, sacramentubeen ta gauza sagradubeen contraco verbaac ta eguitade burlagarriac dira blaspemijaac. 685

¿Ta ce pe-[142]catu da blaspemijaco pecatuba? Sacrilegijo icaragarrija, dino san Bernardoc (89). Jesucristo curutzian ill eveeneen sacrilegijua baino ezainago dala esan leguijana. Ez dago ezer bere bildurgarriagoric edo ezainagoric, esaten evan san Geronimoc (90), cerubaren contra aua edeguitia baino. Beste pecatubac onegaz bat eguin ezquero, gauza guichija dira. Blaspemijaco pecatubari esaten jaco Espiritu Santubaren contraco pecatuba. Ez mundu onetan, ez bestian parcatuten ez dan pecatuba. Ez jaco esaten parcatuco ez dan pecatuba, Jaungoicuac parcatu ezin leguijalaco. Ez dago Jaungoicuac parcatu ezin leguijan pecaturic. Ezbada esaten da blaspemijaco pecatuba ez dala parcatuco ez mundo onetan ta ez bestian, pecatu ezaineen artian chito ezaina, ichusijeen artian entero guztiz ichusija ta Jaungoicuaren gorroto andicuen artian chito gorroto andicua dalaco Jaungoico Santubaren beraren contra aua edeguitia. Arrica illteco aguinduten evan Jaungoicuac leengo leguijan (91) cerubaren ta gauza sagradubeen contra verba eguiten evana. Cristindadeco aguintari jauneeen ordenaac erijotziagaz condeneetan davee, Jaungoicuaren, Jesucristo gueure Jaunaren, santubeen, sacramentubeen edo Eleisiaren contra verba deungaac esaten ditubana. Eleisa Ama santiaren erregueliac aguinduten dau, blaspemija esaten davena, zazpi domeecatan, eleisaco ateetan cam-[143]poti egoteco, barrura sartuteco licenciya bagaric. Ta aurreco zazpi barijacubeetan¹⁸⁰ ur ta ogui barau eguiteco (92). 690 695 700 705

Beguiratu bada, cristinaubac, ce pecatu ezaina dan Jaungoicuaren contra, santubeen contra ta gauza sagradubeen contra verba gaistuac esatia. Ta ez aaztu, sarritan eguiten diriala cristinaubeen artian blaspemijaco pecatubac bildur guichigaz. Orraco taberneetan, orraco jocuetan, orraco ocasinioetan, ascoc dauque izcune¹⁸¹ madaricatuba blaspemijaco verbaac esateco. Ustez uste bagaco min bat artuten davenian; gauza bat eureen naira ez jatorcuenian; escuco cartiac edo erramientiac gaisqui urteten deutsanian, nai gauza guichi bateco su aldiagaz esaten dira blaspemijaac Jaungoico Santubaren contra. Beste arima galduco batzuc burlaz, adrede, gach uste bagaric balitz leguez, Satanasen bere- 710 715

(89) Serm. de Convers. Paul. (90) In Isai. c. 18. (91) Levit. c. 24. (92) Statut. de maledict.

689 ezerbere *Ba* 694 Juan goicuac *Ba* 695 Ez bada esatenda *Ba* 697 chito] chisto *Ba*

¹⁸⁰ "Barijacu": barikua, ostirala; (ez du ezer berezirik forma honek, gaur egun ere hauxe baita inguru honetan forma ohikoena; Bizkaian zabalena, ostera, "bariku" da).

¹⁸¹ "Oitura" eta "izcune", biak darabiltza, baina hura gehiagotan agertzen da.

no guztiagaz esaten ditubee verba deungaac eta blasphemijaac meza santubaren
 720 ren contra, compesinoiaren ta comuninoiaren contra, imagineen ta reliquija
 jaquineen contra, Escritura Sagraduco verbeen ta beste gauza sagradubeen
 contra. Oneec edan davee ur mingocha ta berenotuba pediaren contraco libu-
 rubetan, ta zabalduten davee eureen arimeetaco gach iratscorra Jaungoicua,
 santubac ta sacramentubac desprecijeetaco. ¡Oh, desbenturau tristiciac!
 725 Contuban jautsi zaite ta ez eguizu aoric edegui cerubaren contra, An[t]ioco¹⁸²,
 Eroides¹⁸³, Juliano apostata¹⁸⁴, Nicanor¹⁸⁵ ta bes-[144]te blasphemio asco leguez,
 cerubac castigau ez zaizan. Ez dedilla entzun gueijago ceubeen aoti blasphemio-
 jaric. Ta ezda maldecinoeric bere, cein dan beste vicijo bat chito ezaina cristi-
 naubaren auan. Icusi daigun celan.

II.

730 Maldicinoia da, neure cristinaubac, inoren gacha escatuten daveen verba
 deungaac esatia. Izan leiteque noberaren burubaren contra edo proximuaren
 contra. Maldicinoiagaz esaten dan edo desietan dan gacha, izan leiteque ari-
 macua edo gorputcecuca edo munduco gauzai jagocuena. Arimiaren contraco
 735 maldicinoiac dira: *Diabrubac eruan daguijeela ; Jaungoicuc parcatuco ez al*
deutsala; impernuban erretan egongo al dala: ceruban sartuco ez al dala ta

725 Juliano] Jualiano Ba 727 ez da Ba 734-735 aldeutsala Ba 735 aldala Ba |
 aldala Ba

¹⁸² Seleukotarren dinastian 10 errege agertzen dira Antioko izen hau dutenak, baina Frai Bartolome Antioko IV.a Epiphanes-i buruz ari da (175-164): tirano eta nabarmena zen. Jerusalengo tenpluko altxorra arpilatu zuen, juduak greziar bihurtzeko ahaleginak egin zituen, tenplua profanatu zuen, debekatu egin zuen erdaintzua, Olinpoko Zeusen gurtza ezarri zuen, eta bere burua jainkotzat (Epiphanes) jarri zuen... Honek guztiak judu-herria bere nortasunean sendoago egitera eraman zuen, Antiokoren aurkako borrokan, guztien artean, Makabearrak gailendurik (Ik. D. SCHÖTZ, *Antiochos*, in. LThK 1 (1986) 652-655).

¹⁸³ Frai Bartolomek Herodes Agripa I.a du gogoan (10 a.C. - 44 d.C.): 37. urtean errege-titulua lortu zuen Kaligula enperadorearengandik. Saldukeria egotzi zion Herodes Antipas-i, eta horregatik hau erbesteratua izan zen. Horrela lortu zuen Judea eta Samariako lurraldeez jabetzea... Kristauak jazarri zituen. Eta ustekabeen hil zen, oinaze handien artean... Askok zigortzat hartu zuten hau, birao-ekintzei bidea libre utzi zielako (Ik. J. BLINZLER, *Herodes* in. LThK 5 (1986) 263-266).

¹⁸⁴ Juliano Apostata (Flavius Claudius Iulianus), Erromako enperadorea (361-363). Konstantinoplan jaio zen 332an; kristau-heziera hartu zuen, baina ez sendoa, horregatik, Efesoko Maximos neoplatonikoaren eraginez, 20 urte zituela erlijio kristaua utzi eta jentil bihurtu zen. Enperadore zela, jainko jentilen gurtza berrezarri zuen, eta kristautasunaren aurkako jokoera argiak izan zituen (Ik. K. GROSS, *Julian, Julianos, Julianus*, in. LThK 5 (1986) 1195-1196).

¹⁸⁵ Nicanor, Siriako militarra, juduen etsaia (1M 7,26), Makabearrek mende hartu zuten 163. urtean Kristo aurretik, Emmaus-tik hurbil (1M 3,38 - 4,15; 2M 8,8-36), eta 161. urtean azken kolpea eman zioten (1M 7,26-50; 2M 14,1 - 15,30). Haren gorpua zatikatua izan zen, eta haren burua Jerusalengo tenpluaren aurrean eseki zuten.

beste arimiaren gacha escatuten daveen verbaac. Gorputzaren edo munduco gauzeen contra maldicinoiac izan leitequez vitziziaren contra, osasunaren contra, baquiaren contra, cleitubaren contra edo aciendiaren contra: *Illgo al dala; itoco al dala; vitziric pausuric eguingo ez al davela; oeti jaguico ez al dala; voticaco gaistotan artuco al davela; miinac urtengo al deutsalala; gozo onic izango ez al davela; su gaitoc erreco al davela...* 740

Arimiaren contraco maldicinoiac pecatu andijaguac dira eureenez, gorputzaren ta munduco gauzeen contracuac baino. Gorputzeco ta munduco gauceetan bere batzuc gueijago balijo davee ta gueijago estimeetan dira beste batzuc baino. Gauza estimaubaguaren edo balijocuaguaren contra eguiten dirian maldecinoiac [145] pecatu andijaguac dira bestiac baino. Noberaren burubaren contra eguiten dirian maldecinoiac pecatu andijaguac dira eureenez, inori eguiten jacozanac baino. Ceimbat persona andijaguari edo urraaguari eguiten jacon maldecinoia, aimbat da pecatu andijagua. Au gaiti compesau biar da, ez baccaric maldecinoeco pecatuba edo maldecinoia eguin evana, ez bada baita ce gach opa izan eutsan bere maldecinoia eguin eutsanian. Ala arimaco gacha, ala illteco gacha, ala osasunecua, edo cleitucua, edo aciendacua maldecinoiagaz escatu deutsal esan biar dau compesinoian. Baita ala bere burubari, ala inori maldecinoe eguin eutsan bere. Ta inori bazan, ce condecinoetaco personiari eguin eutsan bere bai. Ala sacerdotiari, juezari, gurasuari, umiari, senarrari edo emaztiari... 745 750 755

¿Ta ce pecatu da maldedinoe bere burubari edo inori eguitia? Santo Tomasec erantzuten dau, cristinaubac, berez pecatu mortala dala inori maldedinoe eguitia. Ez gaitu pecatu mortalac baino bestec alderatuten ceruco erreinuti, dino santubac (93). Maldecinoiac aparteetan gaitu ceruti, san Paulo apostolubac dinuanez, *ez diriala maldecinoeguinac ceruban sartuco*¹⁸⁶. Begaz, maldedinoe eguitia berez pecatu mortala da. Maldecinoia da norbaiti gacha opa jaconian, a escatuteco verbeetia. Bada, proximuari nai bere burubari gacha opa izatia ta a escatutia caridadiaren contra da. [146] Ta caridadiaren contra dalaco, berez pecatu mortala da, dino santubac. Ta ceimbat gueijago amau biar dogun ta erreverencija andijagua zor deutsalagun persona bati, aren contra eguiten dogun maldecinoia aimbat da pecatu andijagua, leen esan dan leguez ta santo Tomasec berac eracusten davenez. 760 765

Orregaitino, ez dira maldedinoe guztiac pecatu mortalac izaten. Bada, jazo leiteque, dino Santubac berac (94), inoren gacha escatuten daveen verbaac 770

(93) 2. 2, q. 76, a. 3. (94) Ibid.

738-739 aldala; itoco aldala *Ba* 739 aldavela *Ba* | aldala *Ba* 740 aldavela *Ba* | aldeutsalala *Ba* 741 aldavela *Ba* | aldavela *Ba* 749 biarda *Ba* 750 Ez bada *Ba* 765 biardogun *Ba*

¹⁸⁶ 1Ko 5,11; 6,10.

pecatu chicarra izatia; edo gauza gach chiquija opa deusalaco, edo chantzaan maldecinoe eguin dabelaco, edo gacha etorri daquijon gogo bagaric maldecinoia eguin davelaco. Maldecinoia bada gauza guichijan, vorondate gaisto bagaric, adrede esaten davela, edo cer esaten daven ez daquijala ta entzuten davenac escandalizau bagaric, ez da esaten beinguan alaco maldecinoia pecatu mortala dala. Baina gauza jaquina da, maldecinoiac diriana chito bildurgarrijac. Gorrotuaren subac ta bengueetaco najac erasoten ditu maldecinoiac ta inoren gacheraco verba deungaac. Nobera bengau ezin jaconian arerijuari edo gach eguin deutsanari, escatuten deutsa Jaungoicuari bialdu daguijola ari laster gacha. Alan soseguetan davee maldecinoiagaz eureen gorrotuaren suba. ¡Oh, ce errucarrijac dirian ain vijotz galduco maldecinoeguinac! Duda bagaric eguiten ditubee pecatu mortal asco.

Oraindino gueijago arritu leiteque cristinau-[147]ba, aimbeste miin maldecinoeguin edo gach escala icusita. ¡Ceimbat gach escaera entzuten ez dira cristinaubeen artian? ¡Ez dagoz asco, bai guizonac ta bai emacumiac, edozein naitague jazoten jacuenian, gauza guichija bada bere, auan artutia merceduten ez davena bada bere, maldecinoeca luurrari icara eraguiten deutseenac? ¡Ceimbat cristinau desdichauc verba biric baten¹⁸⁷ dauque auan maldecinoia? *Lupu gaistua, boticaco gaistua, centella gaistua, besuac igartutia, tripaala gaistoc jotia, miinac urtetia, vitziric alderic ez eguitia, diabrubac airian erua -* *tia, niri emon deutstazan egunac berari jazotia ...* Oneec dira cristinau ascoren naibague bacoheco oracinoe edo gach escatze madaricatubac. Onaco maldecinoiac ezarten jacoz arerijuari, cerbait esan deutsanari, cerbait oostu deutsanari, nai lagunari. Baita¹⁸⁸ ez guichitan senarrac emaztiari ta emaztiac senarrari, gurasuac umiai ta umiac gurasuai. ¡Oh, ao madaricatubac! Luurrari icara eraguiten deutsee eureen verba bildurgarrijaquin. Aurrian dagozanac belaarrijac tapeetan ditubee, entzun ez daguijeezan maldecinoe icaragarrijac. ¡Oh, cembait gurasoc maldecinoiac esateco dotia isteen daveen eureen umeetan! Aitari edo amari maldecinoia ezarten deutsana ill dedilla, dino Jaungoicuac (95). Maldecino[e]guinac ez dira ceruban sartuco, dino san Paulo apostolubac (96). Jaungoicuac gorroto andija deutsee maldecinoeguinai ta ascotan eguin ditu gurasuen [148] ta umeen artian castigu icaragarrijac, maldecinoiari deutsan gorrotua eracusteco. Bildurtu bada, cristinaubac, izenagaz beragaz.

805 (95) Levit. c. 20. (96) Ad Corint. c. 6.

¹⁸⁷ Esapide polita, partitiboaz eraikia eta bizkaieraz oraindik bizi-bizi dagoena.

¹⁸⁸ "Baita" ia beti darabil perpausaren amaieran "bere" duela, baina hemen bakarrik dator.

III.

Bidauac dira beste cristinaubeen arteco esan era bat ezaina ta bildurgarrija. Bidaua ez da berez, ez blaspemija, ez maldecinoia; ez bada gacharen izena premina bagaric esatia. Bada, blaspemijac Jaungoicuari edo santubari quenduten deutsee ondria. Maldecinoiac noberaren edo proximuaren contra escatuten dau ta desietan dau gauza gacha. Baina bidau eguiten daveenac, gacharen izena esatia baino ez dau eguiten. Esaten da bidaua gaiti, premina bagaric oituraz, ecanduz, purijaz ta sobervijaz verbaan verbaan *demoninua* ta *diabruba*, ta ascoc ez banaca, ez bada millaca, esatia dala chito izcune galduba. Gurasuac esan biar ez daveela. Umiai esaten ichi biar ez jacuela. Ta izcune galduba daucanac, dendatu biar davela cansau bagaric, gacharen verbaac bere aoti quendutera. 810

Ez pensau, cristinaubac, demoninuac bere izena davela. Bere izena dau, ta biar danian esaten da, bai pulpitan, bai evangeliyo santuban bere, baita edonun bere. ¿Baina onegaz edertu gura cenduquez ceubeen orduban ordubango demonio esatiac? ¿Atertu bagaric ceubeen echeetan nai asarriagaz ta nai aimbagaric esaten dozun bidao teguija? Gurasuoc eguiten badituzu bidauac ta maldecinoiac ceubeen umeen aurrian, ¿cer icasico davee umiac? ¿Ta ondo derichazu guraso ta ume guztioac demo-[149]ninoca ta diabruba vitzi izatiari? Gaztetaco ecandubac zaartu artian iraun oi davee. ¿Ta naico dozu, zaartu zaitzezanian, zeuri umiac esatia sarritan, *agura diabruba* edo *atso demoninua*, ceuc orain ume diabruba edo ume demoninua esaten deutseezulaco? Icaratu eguingo zara, pensauta bere, ceure umiaren aoti onaco bidaua entzutia. Bada, gaztetaco ecandu galduba ceuc daucazun leguez zaartuta, zuri icasitaco izcune madaricatuba ez jacue juango zure umiai bere. Ta bardin eguingo deutsu- 820
bee zuri bidao, cein eureen umiai, cein beste edoceini. Ta onen gainera, vitzitzaan sarri dei eguiten badeutsazu gachari, zure erijotzaco orduban indar gueijago euquico dau ceure contra. ¡Oh, ce bildurgarrija! ¡Ceuc ecandu gaistoz millaca verbaan verbaan auan erabili dituzun demoninuetati docena bat aua zabalic illten zagozarian ceure oe baztarrian icustia, ceure arimia impernuban 825
irunsteco! ¿Ta uste dozu ez diriala an egongo? Sinistu eguizu, bidaotija ta maldecinoeguina, zariana zariala, ez diriala aaztuco demoninuac zure bidauaquin. 830

Cristinaubac, gauza jaquina da juramentu gaistuac, blaspemijaac, maldecinoiac ta bidauac alcarri dautseena¹⁸⁹. Guizon bat edo emacume bat bada bida-

808 ez bada *Ba* 809 santubari] Santuba *Ba* 810 noberaren] nobeiraren *Ba* 814 ez bada *Ba* 819 biardanian *Ba* 825 oidavee *Ba*

¹⁸⁹ Gure idazleak *Nork-Nori-Zersaileko* aditz laguntzailea orainaldian, beti egiten du *deu-* eta ez *dau-*; hau ez da Frai Bartolomerena soilik. J.A. Mogel, Añibarro, Astarloa eta bizkaierazko idazle zahar onenek hala egiten dute inolako zalantzarik gabe. Frai Bartolomek *dau-* formako adizkiak ere badarabiltza, baina hauek aditz trinkoak eta *Nor-Nori* erakoak dira beti. Bereiz-

840 otija, eguingo ditu maldecinoe asco. Maldecinoiac eguiten baditu, jausico da blaspemijeetan ta ez bein bacarric guzurrezco juramentubeetan. ¡Oh, Jesus maitia! ¡Oh, Ama Virgina gozua! ¡Oh, san Josepe [150] bedeincatuba! ¡Oh Jaungoico ona, Aita ceruco ona! ¡Ce izen gozuac, santubac ta gracijaz betiac oneec gueure auan artuteco, gueure penaac arinduteco, geuere vijotzac ale-

845 guereetaco ta Jaungoicuaren izen santuba ondreetaco, bigarren aguindubac escatuten deutcun leguez. Bijuaz, bada, guere auetati blaspemija madaricatu-bac, juramentu deungaac, maldecinoe bildurgarriac ta bidao gaistuac. Esan daigun gogo onagaz sarritan Jesusen icen santuba. Jesus vijotzian, Jesus goguan, Jesus auan; Jesus, Maria ta Jose, ta gueure Aita cerucua, gueure

850 Jaungoico ona. Oneec dira gueure pena, naibague ta estu ordu guztietan auan artu biar ditugun verba santubac ta izen gracijazcuac. Alan gura izan daguijala Jaungoicuac bere Icen Santuba gaiti. Amen.

850 Oneec| Onec *Ba* | nai bague *Ba*

keta, beraz, garbi-garbia da: aditz laguntzailea: *deu-* eta aditz trinkoa: *dau-*. Aditz trinkoa tes-tuinguru nahiko finkatu eta antzekoetan darabil, *bata besteari loturik egon, bata bestearekin zerikusia izan...* esanahia izaten dute ia beti. (Ik. Sarrera orokorra, K Adizkiak, 292.or.).

[151]

IRUGARREN AGUINDUBA

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
aguindu onetan Jaungoicuac cer eragozten deitscun;
ta celan eragozten deitscun.

5

Irugarren aguinduban esaten deitscu, neure cristinaubac, Jaungoicuac guztioi: *Sei egunian biarra eguingo dozu, ta eguingo dituzu cer eguinac. Zazpigarren eguna ceure Jaungoicuaren zapatuba da. Ez dozu biarric eguin - go egun atan, ez ceuc, ez ceure semiac, ez ceure alabiac, ez ceure crijadubac, ez ceure crijadiac, ezda ceure eche varruban daguan alemanijac ber e.* Sei 10
egunian Jaungoicuac eguin cituban cerubac, luurrac, ichasuac ta areetan dagozan gauza guztiac, ta zazpigarren egunian atseen¹⁹⁰ evan. Orregaiti Jaungoicuac bedeincatu evan ta santipicau evan zapatuco eguna. Au da Jaungoico andijaren aguinduba. Emen escatuten deitscu Jaungoicuac, berari zor deitsagun aguirico ondria. Jaungoicuari aguirico ondria emo-[152]tia da leleengo ta bigarren aguindubari darraicona, dino Erromaco Catecismuac (97). Areetan aguinduten deitscu, vijotz guztiagaz ameataco gueure Jaungoico maitegarrija, berari sinistuteco ta beragan geure betico dichiaren ustia euquiteco. Bada, errazoia da geure gogo guztiagaz maite dogunari ta gauza on guztiac emoten deitscuzanari esquer onac emotia. Ta munduco cereguinetan gogua dauqueenac Jaungoicuari esquerrac emoteco demporia jaquin daguijeen, icentauta ichi deitscuz Jaungoicuac ataraco egunac. ¿Cer eguin biar dau, bada, cristinaubac egun santu oneetan? Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiac aguinduten deitscuna. Domeecac ta jaijac gordeetia da egun oneetaco cristinaubaren cereguina. Zapatuco aguinduba celan eta ce gaiti domeecara aldatu zan esango da guero. Urte barruco jaijac batzuc dira osuac, ta areetan domequeetaco eguinbiarrac dagoz. Beste batzuc dira jai arinac edo jai erdijac. Ta areetan meza santuba en-

10

15

20

25

(97) 3. precept. n. 1.

7 cer eguinac Ba 10 ez da Ba | echevarruban Ba 14 Emen] Emeu Ba 24 cer eguina Ba 25 aldatuzan Ba 26 eguin biarrac Ba

¹⁹⁰ "Atseen" forma darabil eta ez "atseden"; bestalde, aditz iragankorra da, "eguin" / "artu" gabe. Idazle zaharregan ohikoa da erabilera hori.

30 tzun ezquero, biarra eguin legui. San Gregorijoc esaten dau (98), domeeca ta
 jaijac gordeetan diriala biarric eguin ezagaz ta obra onac eguinagaz. Gauza bi
 escatuten deutzuz, bada, Jaungoicuac aguindu onetan, domeecac ta jaijac gor-
 deetaco: Bata da, egun santu oneetan biarric ez eguitia; ta bestia da, egun
 santu oneec Jaungoicua ondreetaco eguitadeetan iragotia. Au da
 Jaungoicuaren aguinduba. Onezaz ostian Eleisa Ama santiac aguinduten deutz-
 35 cu, jaijegunetan [153] meza osua enzuteco (99). Ara emen aguindu onetaco ica-
 siquizun guztia. Eracutsico deutzut leleengo, Jaungoicuac cer eragozten deutz-
 cun irugarren aguinduban. Bigarrenian, meza santuba celan entzun biar dan;
 ta irugarrenian, jai domeequetan meza osua entzunda, cer eguin biar dan.
 40 Edola bere astian bein pecatu mortalaren beian eguin biar doguna da, cristi-
 naubac, domeecac ta jaijac gordeetia. Errazoa izango da, bada, aguindu one-
 taco icasiquizunac, ardura onagaz ceubec entzutia ta aimbat onduen goguan
 euquitia. Esango deutzut, bada, dotrina onetan: 1. *Ce biar eragozten deutzun*
Jaungoicuac jai domequeetan . 2. *Celan eragozten deutzun*. 3. *Cegaiti biarra*
 45 *eguin leguijan jai domequeetan pecatu eguin bagaric* . Artu eguizu ardura
 osua, aimbat onduen icasteco.

I.

Guizonac eguin al daguizan biarrac, dino santo Tomasec (100), edo dira
 pecatuzco biarrac, edo dira gue[uj]re ta proximuaren oneraco biarrac, edo dira
 Jaungoicuaren ondraraco biarrac. Pecatu eguitia da pecatuzco biarra, ta guera-
 50 tuten da pecatupian edo pecatubaren crijadu dino Juanec (101). Egun guztie-
 tan ta beti dago guizonari eragotzita pecatu eguitia edo pecatuco biarra. Beti
 da Jaungoicuaren gorrotocua pecatuba. Baina domeeca ta jaijegun santuban
 eguiten dan pecatuba ezainago ta itsusiago da Jaungoicuaren veguijetan.
 Jaungoicuac, bera serbiduteco, bera ondreetaco ta berari es-[154]quer onac
 55 emoteco senailau daven egunian, Jaungoicua opendidutia ta desondreetia
 pecatubagaz, ezainago ta lotsagalducuago da cristinaubarenzat. *Gordeco ditu -*
zu jaijegunac , dino Jaungoicuac (102), Isaias profeta santubaren aoti, *pecatu -*
bagaz egun santu areec manchau bagaric . Jaungoicua quexeetan jacuen jude-
 gubai beste pecatu ascoren artian Ezequiel profeta santubaren vitaartez (103)
 60 ta esaten eutsen: *Baita gueijago bere eguin deutstee niri. Manchau even egun*
atan neure santu lecuba ta ausi even zapatuba edo jai eguna .

Esango baleu leguez gueure Jaungoico onac: pecatu asco eguiten davee
 cristinaubac. Ez dira aspertuten neure contra, ta au ecer ez balitz leguez, orain-

 (98) Lib. 13. epist. 1. (99) Ex cap. omnes fid. (100) 2. 2, q. 122, a. 4, ad 3.
 65 (101) Cap. 8. (102) C. 56. (103) C. 13.

38 entzun da *Ba* 39 Edolabere *Ba* 47 aldaguizan *Ba* | Santo] Sonto *Ba* 56
 cristinaubaren zat *Ba*

dino gueijago eguiten davee. Eureen arimaac santututeco, eureen aste barruco pecatubeen parcacinoia neuri escatuteco ta neu ondreetaco emon deutseedazan egunac artuten ditubee neu opendiduteco ta pecatu eguiteco. *Gorroto deutseet ta quendu ditut neure veguijeetatic*, dino Jaungoicuac (104), *ceubeen piesta egunac pecatubari consagreetan deutzazalaco*. Modu onetan asarratuten da Jaungoicua jai domeequetaco pecatubaren contra. Egun santu areetan eguiten dan pecatuba, berez eguna gaiti ezainago dalaco. Au gaiti esaten davee san Antoninoc (105) ta beste ascoc, domecaan pecatu eguiten davenac legue bi austen ditubala: Bata pecatu eguiten davelaco, [155] ta bestia domeecan eguiten dabelaco. Eragozten dau bada, cristinaubac, pecatuzco biarrac edo pecatubac jai domeecac gordeetia. Cerbait gaiti esaten dau santo Tomasec san Agustin andijagaz (106): *Judegubac pecatu guichiago eguingo eveela zapatuban soluan nabasen edo echian gorubetan eguinagaz, danzan eguinagaz baino*¹⁹¹. judegubeentzat zapatuba zana da cristinaubeentzat domeequia ta jai osua. Ta Judegubeentzat zapatuban pecatu zan nasaitasuna, cristinaubeentzat domeecan pecatu da. 70

Ez daquit, neure entzula onac, cer esango daven Jaungoicuac gueure domeeca ta piesta egunac gaiti. Dacuscuna da, cristinau asco domeequiaren edo jai egunaren zain dagozala, pecatubaren nasaitasun guztiari jarraituteco. Nos ocasinioia, nos joco gaistua, nos ordiquerija, nos desonestidadia, nos escandaluba. Domeecan edo jai osuan. Jaungoicuari consagrautaco egunian. Egun santuban. ¡Oh, ceimbat cristinau gaiti esan leguijan, Jaungoicua serbiduteco aparteco egun santubac pecatubari ta Satanasari consagretan deutseezala. Aste guztia iragoten jacue ascori pecatu mortal bat eguin bagaric. Ta jai santuban goxeric arrats dagoz pecatu eguiten. Arguitu, bada, beguijac, cristinaubac, Jaungoicuac gorroto izan ez daguijueen gueure jai domeecai. Ez eguin pecatuzco biarric jai egunetan. Ez eguin pecaturic. Ta au izango da gueure jai santubac gordeetaco prestaeraric oneena. 75

[156] Onezaz gainera dino Jaungoicuac: ez dozu biarric eguingo ez ceuc, ez ceure semiac, ez alabiac, ez crijadubac, ez crijadiac, ez alemanijac. Verba oneequin eracusten deutsu, Jaungoicua ondreetia ta servidutia galaratzo leigubeen gauza guztiac daucaguzala eragotzita jai domeequetan. ¿Ce gaiti au? Cristinaubac, beste cer eguinai largata, eureen gogua, pensamentuba ta vorondatia libre euqui daguijeen domeequetan ta jai osuetan, Jaungoicuaren ondrraco ta arimaco salvacinoetaco gauzeetan. Onetaraco eragozten deutzuz 90 95 100

 (104) Amos c. 5. (105) Part. 2, tit. 9. (106) 2. 2, q. 122. a. 4.

70 deutzazu zalaco *Ba* 92 izangoda *Ba* 93 presta eraric *Ba* 98 cer eguinai larga ta *Ba*

¹⁹¹ Ik. *Euscal-errijetaco* ... 44. oharra (450.or.).

Jaungoicuac jai domeequeraco biarrac, dino Erromaco Catecismuac. Biar oneec dira gueure vitzitziaren edo proximuaren provechuraco eguin oi dirianac. Eleisa Ama santiaren batzarrac ta eracuslaac conteetan ditubee onetarico biar
 105 eragotzizac. Ta gueuri jagocunez, beste ascoren artian, domeca ta jai osuetan eragotcitaco biarrac dira: soloco biarrac, basocuac, arguintza, arotzija, erramientaguintza, oinetacoguintza, joste, saldu erosi ta beste gorputza necatuta vitzitziaren irabaziraco eguin oi dirianac.

Biar oneec eguiteco cristinaubac biar daven leguez arduria ta gogua escu-
 110 betaco cereguinian, ezin erabatera bere gogua ta pensamentuba equi leguiz Jaungoicuaren ondraco gauceetan ta esan dirian biar gueijetan. Agaiti esaten deutsa Jaungoicuac cristinaubari: *sei egunian eguingo dituzu ceure biarrac. Zazpigarren eguna neure eguna da*. Beste biarrac eguitiari ichita, neure ondraraco ta ceure arimara-[157]co biarrac eguiteco eguna da. Ez dozu, bada, biarric
 115 eguingo, ez ceuc, ez ceure echecuac, ez ceure alemanijac, dino Jaungoicuac. Ya gauza jaquina da, domeequetan ta jai osuetan biarra eguiten davenac austen davena Jaungoicuaren aguinduba. Icusi daigun, bada, nos eta celan pecatu eguiten dan jai domeequetaco biarragaz.

II.

120 Pecatu mortalaren beian dago eragotzita, cristinaubac, domeequetan ta jai osuetan esan dirian biarrac eguitia. Baina ez da biar eragotzija eguiten dan guztian pecatu mortala eguiten. Pecatu mortala ala veniala dan ezaututeco beguiratu biar jaco, dinue Eleisiaren eracuslaac, bai eguiten dan biarrari ta bai biarrian iragoten dan demporiari. Ascotan dempora guichijan eguin legui balijo
 125 andico edo irabatzi andico biar eragotzi bat. Ta izango da pecatu mortala dempora guichi biarrian irago arren, balijo andico biarra eguin davelaco. Mercatarijai eragotzita dago jai domeequetaco saldu erosija (aparteco libertadia ez badauquee eguneen batzubeetaraco). Bada, mercatari batec dempora guichijan izan arren, eguiten badau eragotzitaco egunian irabatzi andico saldutia
 130 edo erostia, eguingo dau pecatu mortala. Beste aimbeste esaten da, juez jaunai jai domeequetan eragotzita dagozan biarretan; ceintzubetan ez jacon beguiratuten biarra eguiten dan demporiari, ez bada biar eguinari, ce pecatu eguin daven ezaututeco.

Beste jai-domeequetaco biarretan dempo-[158]riari beguiratuten jaco guei-
 135 jeenian, biarra eguitia pecatu andija ala chiquija dan ezaututeco. Ta demporiari beguiratuta bere ez davee eracusla guztiac bardin esaten. Jai domeequetan ordu erdijan biar eragotzija eguitia, Eleisaco neurgarrijen eracutslaac dinuenez, ez da iragoten pecatu chicarreti. Ordu betian biarra eguitia, esaten davee guei-

110 cer eguinian *Ba* 116 Ya] Ija *Ba* 126 eguindavelaco *Ba* 132 ez bada *Ba*

jenac, ez dala elduten pecatu mortaler. Ordu beteco biarra gaiti beste batzuc
 esaten davee, eguiten bada jaijegunagaz aprovechetia gaiti, irabatzija gaiti edo 140
 orduco biar eguinagaz gaucia aurreratutia gaiti, izan leitequiala pecatu morta-
 la. Endamas jaijan jaijangua edo sarritacua bada. Jai domeequetaco biar era-
 gotzija elduten bada ordu bira, pecatu anditzat edo illgarritzat eracusten da
 errazoeric oneenian, gauza andira elduten dalaco.

Aitu bada, cristinaubac, ceubeen arimaco ona gaiti. Domeeca ta jai osuetan 145
 biarra eguiteco oitura galduba daucazunoc pensau ce laster eguiten dan
 pecatu mortala egun santubeetaco biarragaz. Codicijac eraguiten davena da.
 Pusca bat eguiten asi ezquero, gueijago gura dozu. Josten edo beste biar era-
 gotzijac eguiten asten zarianian, ez dozu erlojuba beti ece guichiagotan bere
 aldian euquiten. Ta sarritan gauza guichiti asita andira iragoco zara, pecatu chi 150
 quiti mortaler. ¿Ta uste dozu, domeecaco biar eragotzijagaz ezer aurreratuco
 dozula? Ez, cristinaubac. Jaungoicuaren legue santubaren contra ez da ecer
 aurreratuten, ez arimaraco ta ez gorputzeraco. Nundi ez da-[159]quizula, celan
 ez daquizula, urtiaren gueneraco¹⁹² jai domeequetaco biar eguinarena juango
 jatzu. Jaungoicuac gorroto deutsa domeecaco biarrari. Escritura Sagraduban ira 155
 curten dogu jatzo bat, guztioic icaratu biar gaitubana jai domeequetaco biar era-
 gotzijen contra (107).

Judegubac topau evene zapatuban (eureen biarreraco egun eragotzijan)
 guizon bat, basuan egurrac batuten. Eruan evene guizon tristia Moisen,
 Aaronen ta gentiaren aurrera. Ta esan eutseen guztiai celan topau evene gui- 160
 zon a zapatuban biarran. Moises, legueguin santuba gueratu zan, guizon agaz
 cer eguin ez equijala. Sartu evan carcelaan ta itandu eutsan Jaungoicuari cer
 eguingo evan guizon agaz. Erantzun eutsan Jaungoicuac Moisi: *ill eguizu*.
 Atera eguizu gente arteti campora ta an guztia arrica ill daguijeela. Atera 165
 evene gente arteti lecu bacarrera. Ta an guztia arrica ill evene Jaungoicuac
 aguindu evan moduban, jai egunian biarra eguin evalaco¹⁹³. Judeguben zapa-
 tuba guere domeequia da, cristin[a]ubac, biarric ez egui[te]lco ta Jaungoicua
 ondreetan iragoteco. Ez deutsa Jaungoicuac gorroto guichiago gueure domee-
 caco biarrari judeguben zapatucuari baino. Ez, bada, biarric eguin domeeca ta
 jai osuetan premina bagaric. ¿Ta nos egongo da preminia? Ordu ascotan egon 170
 leiteque preminia jai domeequetan biarra eguiteco. Icutsi daigun celan.

 (107) Num. c. 15.

140 aprovechetiagaiti *Ba* 149 ezdozu *Ba* 161 gueratuzan *Ba*

¹⁹² "Güena", "güena" idazkera beharko zuen, gure idazlearen logikari atxikiz. Amaiera, azke-
 na esan nahi du; hitz hau toponimian eta izen banaka batzuetan iharturik gelditu da, esaterako,
 "udaguena" ... izenean, baina Bizkaiko klasikoek nahiko normal darabilte.

¹⁹³ Ik. Ir 31,14: "Larunbata profanatzen duenak heriotz zigorra izango du; egun horretan lan egi-
 ten duena herritik bota egingo dute". 31,15: "larunbatez lan egiten duenak heriotz zigorra izango du".

III.

Jai domeequetan preminiagaz biarra eguitia ez da pecatu. Preminia dago-
 175 ala esaten da, [160] gueure arimaco gracija, gueure vitzitzia, gueure osasuna,
 edo galdutera doian aciendia gordeetaco ta zaintuteco popuertza biar danian.
 Ez euan Jaungoicuac eguin guizona zapatubarentzat, ez bada zapatuba guizo-
 narentzat, dino Jesucristo gueure Jaunac (108). Onegaz aituten emoten deuts-
 780 cu Jesus maitiac, berez biarra eguitia eragotzita egon arren jai domeequetan,
 alaco premina andija daguanian, ez davela gura Jaungoicuac gueure gracija,
 gueure vitzitzia, gueure osasuna, edo gueure euquiija galdutia, biarric ez egui-
 tia gaiti. Alan domeeca ta jai osuetan biarra eguin legui pecatu bagaric: 1.
 Noveraren vitzitzia, osasuna edo balijo andico gauza bat, laboria, ganaduba,
 185 echia edo aciendia galduteco arriscuban daguanian ta asteguneraco ichi ezin
 leguijanian. 2. Proxiuaren gauzaac, noberarenac leguez, galduteco peligruban
 dagozarian, ari lagunduteco eguin legui biarra jai domequeetan. 3. Obispo
 jaunac edo Eleisiaren burubac jai domequeetan biarra eguiteco libertadia emoten
 davenian. 4. Usadijo artuba, jaquina ta ontzat emona daguanian.

Beste biarra eguitiac guichiago edo gueijago beti dira Jaungoicuaren legue
 190 santubaren contra ta beti dira pecatu. Ez, bada, engainau, cristinaubac. Ichi
 erabatera biarra eragotzitacuai jai domeequetan. Premina andija dauczunian,
 escatu libertadia cura jaunari. Ceubeen preminia ezaututa, Jaungoicuaren ben-
 dicinoiagaz [161] ichi daguizun biarra eguiten. Jai egun santubac ondo gorde-
 etan ditubanari, sari andija esquintzen deutsa Jaungoicuac Escritura
 195 Sagraduban lecu ascotan. Jai egun santubac austen ditubana nequez ondo
 izango da. Beti biarpian, beti arrastaca, beti prisaca, sari ernegau ta beti bi-
 rretan atzera. Jai santubac ondo gordeetan ditubanari, escura Jaungoicuac ecar-
 ten deutzaz biarrac. Guichiago cansauta, gueijago eguiten dau. Ta au bada
 pecatu ez dirian biarrac gaiti, cer izango da pecatuzco biarrac gaiti?

200 ¡Oh! ¿Ceimbat cristinauc, jai domeequen goxic gueijena eragotzitaco biarra
 modu ascotan iragota, arrastei guztia ta gavaren zati bat diabruba serbiduten
 iragoten davee? ¿Ceimbat joco ordena bagaco, ibilera desonestu, ordiquerija
 nasai ta ocasinoe gaisto jai domeequetan? Oneec guztioac desondreetan davee
 Jaungoicua ta mancheetan ditubee egun santubac, dinue Eleisiaren Gurasuac
 205 (109). ¡Oh, gurasuac eta umiac! Bildur izan zaitez Jaungoicuari consagrauta
 dagozan egun santubac diabrubari consagretan. Ez daguijala gura izan
 Jaungoico andijac, bere egun santubac guc desondreetia ta bere gorrotuan vitzi
 izatia bere misericordia andija gaiti. Amen.

 (108) Marc. c. 2. (109) S.Agust., Psalm. 32. Conc. Mediol. 3. tit. 1...

177 ez bada *Ba* 196 biarra pian *Ba*

[162]

II. ICASQUIZUNA,

210

ceinetan eracusten dan
cer dan meza santuba;
ceintzuc dirian meziaren zati edo parte nausijac;
nortzuc entzun biar daveen ta celan entzun biar dan.

Jai domeequetaco cereguina da, neure entzula onac, biarric ez eguitia ta 215
domeequia edo jai osua Jaungoicuaren ondraraco ta gueure arimaco salvaci-
noeraco gauza onac eguiten iragotia. Domeeca ta jaijeetan eguin biar dirian
obra oneen artian leleengua da, meza osua entzutia. Ta meza osua entzun bia-
rra dago ez domeequetan ta jai osuetan bacarric, ez bada baita jai erdijetan edo
jai arina esaten jacuenetan bere. Eleisa Ama santiaren aguinduba da meza san- 220
tuba entzutia. Baina domeeca ta jaijeetaco eguinbiarra dan leguez, pensau dot
irugarren Jaungoicuaren aguinduban eracutsi biar deutsudala, meza santuaba-
ren gainian popuertza jaquin biar dozuna. Imini eguizu, bada, ardura ona ta
entzun eguizu doctrina onetan: 1. *Cer dan meza santuba* . 2. *Ceintzuc dirian*
meziaren zati nausijac . 3. *Nortzuc entzun biar daveen mezia* . 4. *Celan entzun* 225
biar dan .

I.

Meza santuba ez da beste gauzaric, cristinaubac, ez bada *sacerdotiac alta* -
ra ganian [163] *verba santubeen vitaartez ogujaren ta ardauaren izatia* 230
Jesucristo gueure Jaunaren gorputz ta odol vitzi izatera aldatuta, Jesucristoren
beraren icenian eta berac ichi eutscun moduban, Aita Eternuari eguiten jacon
esquinija edo oprecimentuba, criatura guztien gainian daucan escubidia ta
ala izatia Aita Beticuari autortuteco . Meza santuban sacerdotiac Jesucristoren
icenian Aita Jaungoicuari eguiten deutsan esquintzia edo oprecimentuba ta 235
Jesucristoc berac Calvarioco curutzian gueure pecatubac gaiti bere erijotza
penazcuagaz Aita Beticuari eguin eutsana, bardinac dira; edo, obeto esateco,
bat dira. Sacerdotia Jesucristoren ordecua da meza santuban. Jesucristoren ice-
nian esaten dau mezia. Jesucristoren verbaaquin consagreetan ditu oguija ta
ardaua. Ta Jesucristoren icenian eguiten deutsa Aita cerucuari meciaren esqui- 240
nija edo oprecimentuba. Orregaiti meza bacoachac balijo dau, Jesusen
Calvarioco erijotziac berac edu.

215 cer equina *Ba* 219 ez bada *Ba* 221 eguin biarra *Ba* 228 ez bada *Ba*

Iru gauza ez daucaz meza santubac, Jesusen Calvarioco erijotza penazcuac eucazanac. Leleengua da: Jesucristo penaz ta alaz¹⁹⁴ ill zan curutzian. Baina ez dau padeciduten meza santuco oprecimentuban. Bada, viztu zan Jesus maitia
 245 illeen arteti, osteraz ez illteco ta ez padeciduteco. Bigarrena: Jesusec eguin evan curutzian bere vitzitza santiaren oprecimentuba, odola erijola. Baina mezatan ez dau odolic emoten. Orregaiti esaten jaco meza santubari odol botate baga-
 250 co *sacripicijua*. Irugarrenian: Jesu-[164]cristo gueure Jauna ill zan curutzian, aurrian egonzanac veguijeequin ecutseela. Baina meza santuban ez dogu icus-
 255 ten Jesus veguijaquin, pediagaz baino. Iru gauza oneec alderatu¹⁹⁵ ezquero, esan dirian moduban, Jesucristo gueure Jaunac Calvarijoco curutzian gueure pecatubac gaiti artu evan erijotzia ta beragaz Aita Beticuari eguin eutsan esqui-
 ni amai bagacua bera barristeetan dau sacerdotiac altaraan, meza santuba esaten davenian. Ez dau guichiago balijo meza bacoachac, Jesusen erijotziac berac

Altaraco mirarizco ta amodijozco Jesusen oprecimentu oni esaten jaco mecia. Meciac esan gura dau *bialdutia*. Bai, Aita cerucuac bere Seme maitia oguijaren ta ardauaren irudijan mezatan altarara bialduten deusculaco. Ta bai Jesucristo gueure Jauna, gueure Salvazaile maitia meza santuban altarati gueuc
 260 esquini ta bialduten deusgulaco Aita Jaungoicuari. Meza santuba da, Jaungoicuari eguin guinajozan esquini edo oprecimentu guztietati estimaubena ta balijocuena. Jesus bere Seme vitzija, Aita cerucuaren poz ta atseguin bacarra, bere vitzitza ta erijotzaco ontasun guztiaquin da, mezaan Aita Jaungoicuari eguiten deusagun esquiniya. Meza bat gueijago da ceruco ain-
 265 guerubac ta justu guztiac eguin ditubeen ta egingo ditubeen eguitade santu guztiac baino, Jaungoicuaren veguijetan.

Au gaiti esaten da, meza santubac beragan cabiduten ditubala legue guztietan ta dempo-[165]ra guztietan Jaungoico andijari eguin jacozan oprecimentu edo esquini santu guztiac. Ainguerubeen amodijua, patriarqueen pedia,
 270 apostolubeen trabajubac, martirijeen penagarrijac edo tormentubac, ermitai-nuen penitencijac, virgineen edertasuna ta arima justu guztien on izatia ecer bere ez da, meza baten balijoraco. Meza santuba esquintzen jaco Jaungoicuari illac ta vitzijac gaiti, justubac ta pecatarijac gaiti. Meza santuba da, Jaungoicuagaz pecatarijaren arteco¹⁹⁶ baqueguina. Meza santuba da ceruco
 275 ondasunen ecarlia, bai arimaraco ta bai gorputzeraco, edo munduban vitzi iza-

243 illzan *Ba* 244 vitzuzan *Ba* 248 illzan *Ba* 252 erijotzia] erijotzia *Ba* 264-265 Ainguerubac] Ainguetubac *Ba*

¹⁹⁴ "Ala": mina; (asko darabilen hitza da).

¹⁹⁵ "Alderatu": apartatu, aldendu, urundu, kendu.

¹⁹⁶ Egitura hau bere-berea du gure idazleak: *-agaz -ar en arteco*; guk "Jaungoikoaren eta bekatariaren arteko" idatziko genuke, ziur aski.

teco. Meza santuba da, Jaungoicuaren asarria bigunduten davena ta gueuri mesediac eguitera bere vorondate santuba presteetan davena. Meza santuba da, ceru guztia alegreetan davena; purgatorijoco arimaac socorriduten ditubana; gueure arimaac garbituten ditubana; tentacinoiac goituteco gracia emoten deutcuna ta gueure pecatubeen zorrac pagueetan ditubana. Pensau, bada, sarri, neure cristinaubac, cer dan meza santuba ta bere balijo andija. Baita icasi pusca bat edola bere, ceintzuc dirian meciaren parte edo zati nausijac, beraren devocinoa ceuben vijotzeetan obeto gordeetaco. 280

II.

Meciac zati asco daucaz, cristinaubac. Guztiaac dagoz mirarizco ta amodijozco eracutsijagaz jantzita. Baina bata baino bestia dira gauza altubaguac adituten emoten deutcubeezanac. Comuninoeco sacramentuban esango dira astiruago meziaren zati guztiaac, ta baco-[166]chac cer esan gura daveen. Bada, ez dago meza santuban ecer bere, aparteco eracutsija ta pensauquizuna¹⁹⁷ ez daucanic. Ta guztiaac ondo jaquitiac chito asco balijo deutsa cristinaubari, biar dan provechubagaz entzuteco. 285 290

Meciaren zati nausija edo, ascoc dinuanez, izate guztija dago consagracionian. Sacerdote jaunac oguija ta ardaa consagretan ditubanian. Au meciaren izate guztia ez bada bere, popuertzacua da. Orregaiti da, atencinoe guztiagaz entzun biar dana. Onezaz gainera, meciaren zati nausitzat conteetan dira: Leleengo: Sacerdotiac consagrau baino leenago ostijagaz ta caliziagaz Jaungoicuari eguiten deutsan esquinija edo oprecimentuba. Orduban esquinitzen deutsa sacerdotiac Jaungoico andijari ostrija mancha bagacua ta caliza osasunecua, cein dan Jesus gueure Salvazaile ona gueure pecatuben parcacinoeraco. Ta erregututen deutsa, artu daguijala ontzat esquini santuba. Bigarrenian: Consagrauta guero, barriro sacerdotiac calitza consagraubagaz ta ostrija consagraubagaz Aita cerucuari eguiten deutsan esquinija. An gogoratuten ditu sacerdotiac Jesusen vitzitzaco ta erijotzaco merecimentubac. An dobleetan ditu bere erregubac. Dei eguiten deutsee aingueru santubai datozala mezaco sacripicijua Aita cerucuaeren aurrera eruatera, ta entreguetan deutsa orduban, esateco moduban, Jesusen erijotza barrija Aita Eternuari, gue[ul]re pecatuben parcacinoeraco. Irugarren meciaren zati nausija da, sacer-[167]dotiac errecibidutia edo artutia ostrija consagraduba ta calizaco ardao consagrauba. Bijac biar dira: oguija ta ardaa, mecia izateco. Bata baino ez bada, ez da mecia. Oguijaren lecuban beste gauza bat bada, ez da mecia. Oguija ta ardaa consagrau arren, sacerdotiac artuten ez baditu bijac, ez da mecia. Meza santuco esquini balijo- 300 305 310

¹⁹⁷ Frai Bartolomek, erarrietan, partizipioaren marka gordetzeko joera du. Hemen "pensauquizuna" eta beste batzuetan "icasiquizuna"...

tsuba izateco edo Jesusen erijotza odoldu bagacua altaraan barristetaco, popuertzacua da oguija ta ardaua consagretia ta sacerdotiac errecibidutia edo artutia. Laugarrenian: meciaren zati guztiz santuba da, *santuseti* asita sacerdotiac ostrija consagrauba ta calizaco ardao consagrauba artu artecua. Dempora 315 atan barristetan dira altara santuban egunian egunian Jesus, gueure Librazaille maitiaren vitzitzaco, erijotzaco ta vitzueraco mirari altubac. Orduban barristetan dira mezatan, Jaungoicuaren semia guizon eguitia, gueure artian vitzi izatia, apostolubaquin eguven santu gavian eguin evan aparija, oguija ta ardaua 320 bere verba santubaquin berac consagrauta gueuri emotia, gueure janaritzat altaretan bera gueratutia, gueu gaiti pasinoian irago cituban pena neurri bagacuac, bere erijotzia, bere enterru santuba, illen arteti eguin evan mirarizco vitzueria ta beste Jesus, Jaungoico ta guizon eguijazcuaren eguitade santubac. Au guztiau barristetan da meza bacoedian, cristinaubac.

325 ¡Oh, ceimbat gauza andi dagozan meza bacoedian! ¡Oh ce gauza ona, cristinaubac misterijo santu oneen ezaubera ta aitute arguija [168] euquitia! ¡Oh ce onera andicua gueure arimeentzat, cristandade guztiarentzat ta purgatorijoco arima pieleentzat, meza santuban Jesusen eguitade santubac humildadiagaz ta vijotz samurragaz adoretia ta maitetutia! Ez daucagu cristindade guztian eguitade bat altaraco meza santuba baino altubago, balijotsubago, arguijago ta maitegarrijago danic, ezda asco prestago daucagunic bere. ¡Oh, ce itsubac ta errucarijac dirian cristinaubac, derrigorrian, nequezca ta nora ezian leguez, meza santuba entzutera duazanac! ¡Mezaric laburrenaren villa daviltzanac! ¡Oh, ce gusto guichi dauqueen viotzetan ta arimeetan! Arguitu daguizala, bada, 330 Jaungoicuac gueure adilaac, gueure oneraco dan moduban, meza santuba entzuteco.

III.

340 ¡Baina nortzuc dira meza santuba entzun biar daveenac? Meza santuba ta osua domeeca guztietan, jai osuetan ta jai arinetan edo jai erdijetan ta errijac votoz edo osterantzian meza entzun biarrecotzat artuta daucazan egun guztietan esan edo entzun biar davee, errazoiaren usura eldu dirian cristinau guztiac, pecatu mortalaren beian, guero esango dan moduban. Au da Eleisa Ama santiaren aguinduba ta obeidu biar deutsagu. Errazoiaren usura nos elduten dirian umiac, ez dau inoc bere erabaguiten zucen. Bateti gauza gacha dalaco ezaututia, umiac nos artu daveen leleengo ezauberia gauza oneraco edo malecija 345 gauza chaarreraco. Besteti guztientzaco dem-[169]pora bardina ez dagualaco. Batzuc dira eureenez adilla arguijagocuac ta zolijagocuac umetati. Oneec goxa-

322-323 vitztu eria *Ba* 331 Ez da *Ba*

ago contuban jausten dira ta balijeetan dira errazoiagaz gauza oneraco, edo gacheraco. Beste batzuc dira adilla lodijagocuac ta lainotsubaguac umetan, ta nequezago contuban jausten dira guizonen errazoiari jagocazan gauceetan. 350
 Orregaiti ezin imini legui edade ciertu bat, umiac nos errazoiaren usura sartuten dirian esateco. ¿Cer eguin biar dabee, bada, gurasuac gauza onetan? Eracutsi umiai dotrinia chiquitati. Eracutsi meza santuba cer dan ta celan entzun biar dan. Ta guztiz zoruac edo tontuac ez badira, bialdu meza santuba entzutera, zazpi urte ditubeneti aurrera. Ez badaquijee ondo, juanagaz, icutsijagaz 355
 ta esanaz icasico davee. Au da gurasuen eguinbiarra. Bada, errazoiaren usura eldu ezquero, entzun biar davee umiac meza osua jai domeequetan. Ez daqui inoc zucen nos sartuten dirian errazoiaren usuban. Baina zazpi urte ditubee-neco, gueijenian ta gueijenac eracutsten davee ezauberia, bai gauza on batzuketaraco, bai eheco oneraco ta bai eureen paltaac ezcudetaco bere. Begaz, nai 360
 daveneraco balijetan dira errazoiagaz ta sartu dira errazoiaren usuban. Bada, eracutsi biar jacue meza entzuten ta bialdu biar dira.

¡Oh gurasuac, gurasuac! ¡Zortzi, bederatzi urteco umiac meza entzun bagaric echian daucazuzanac! Ez daquit ce contu emongo deutzazun Jaungoicuari ceuben umiaquin. Ceu-[170]bec esaten dozu ceuben umiac gaiti, sei zazpi urte 365
 ditubeneco esanac eguiteco, eheco gauzai beguiratuteco ta contu artuteco acordu onecuac diriala, ta nausi batec leeche¹⁹⁸ eguiten daveela. ¿Ta dotrinia eracusteco ta meza santura bialduteco izango dira umiac, sen bagacuac ta ecer ez daquijenac, ceubec esan oi dozun leguez? ¡Ah, gurasuac, gurasuac! Pecatu 370
 mortala da, mezia entzun biar daveen umiac entzun bagaric euquitia. Ta ceimbat bidar euquiten dituzun, aimbeste pecatu eguiten dituzu.

Errazoiaren usura eldutaco cristinau guztia esan edo entzun biar davee jai domeequetan meza osua pecatu mortalaren beian. Meciareen zati chiqui baten asieran edo amaijan palteetia ez da pecatu mortaltzat beinguan eracusten. Bere guraz mecia uts eguiteco peligruban jarten danac eguiten dau pecatu, guero 375
 mezia entzun arren. Bada, bere naiz ichi eutsan meciari, peligruban jarri zanian. Ta ausi evan leguia. Mezaric¹⁹⁹ erdija baino entzun ezin davenac, entzun biar dau al daguijana edo jadichi daven erdija. Guztia pagau ecin davenac, al daguijana pagau biar dau.

¿Ta beti izango da pecatu meza bagaric jai domeequetan gueratutia? Ez, 380
 cristinaubac. Aita biguna da gueure Jaungoicua ta Ama biguna da gueure Eleisa Ama santia. Arimaco, vitzitzaco, osasuneco, cleituco edo aciendaco noberaren edo inoren calte andi bat bagaric mecia entzun ecin danian, ez da pecatu [171]

356 eguin biarra *Ba* 369 oidozun *Ba* 374-375 Bereguraz *Ba* 378 aldaguijana *Ba* 379 aldaguijana *Ba*

¹⁹⁸ Ahozko euskaratik jasotako forma da, beharbada; bi bider darabil obra osoan: *Esku*-n behin eta beste behin hemen; gainerakoetan “moduban” edo “leguez” (*Esku*-n “leez”) idazten du.

¹⁹⁹ Oso egoki darabil partitiboa.

mecia entzun bagaric gueratutia. Alan ez dauquee meza entzun biarric:
 385 Leleengo: oian gaisoric dagozanac edo oian egon ez arren, gaiso erdi edo
 macal daviltzanac; ta osasunaren calte andi bagaric eleisara jua ecin dirianac.
 Bigarrenian: Carceletan preso dagozanac. Irugarrenian: Besteric ezda, oeco gai-
 suai jaamon biar deutseenac, ardura andico gaisua bacarric ez istia gaiti, bes-
 teric noc cuidado eguin ez daguanian. Laugarrenian: Noberaren edo inoren
 390 balijo andico gauza bat, arimacua edo gorputzecua erremedijau biar davenian.
 Ta gach a erremedijauta mecia entzun ecin davenian, jaijeguneco biarra gaiti
 esan dan leguez. Eche batec su artutia, proximo bat pecatuti ateratia, aixe edo
 su deunga bateti laboriac libreetia ta beste onaco balijo andico gauza bat erre-
 medijau ecin bada meciari ichi bagaric, ataraco meciari istia ez da pecatu.
 395 Osterantzian entzun biar da meza santuba ta osua pecatu mortalaren beian.
 Esan dirian gauzaac gaiti meza entzun bagaric gueratuten danac, dino san
 Antoninoc (110), al badai echian edo daguan lecuban eguin biar davela oraci-
 noia edo beste eguitade on bat, Jaungoicua ondretaco. Icasu ezquero cristi-
 naubac norzuc entzun biar daveen meza santuba, jaquin biar dau celan entzun
 400 biar dan. Ta aitu eguizu verba guichitan.

IV.

Ez da pensau biar, cristinaubac, mezia entzuteco asco dala eleisaan egotia,
 mecia [172] esaten dan artian. Eleisaan egon biar da, edo mecia entzuten
 405 daguan gentiagaz bat eguinda egon biar da. Baina mecia entzuten egon biar
 da atencinoiagaz ta devocinoiagaz. ¿Cer da atencinoia? Mezatan biar dan atencinoia
 da, entendimentubagaz mezaco gauza santubac, Jesusen pasinoeco ta
 erijotzaco, ta altaraco misterijo santubac penseetia edo Jaungoicuaren ondraco
 ta gueure arimiaren oneraco gauceetan gogua euquitia. ¿Cer da devocinoia?
 410 Vorondateco nai prestagaz ta vijotzeco ta arimaco gurari gogotsubagaz
 Jaungoicua adoretia, alabetia ta ametia; ta gueure arimiaren oneraco mesediac
 Jesusen merecimentubac gaiti erregututia. Au da atencinoia ta devocinoia,
 mezatan biar dana. Au da gueure adiliaren ta nailiaren mezataco cereguina. Ez
 dago, cristinaubac, devocinoe erabaguiric meza santuba entzuteco. Gue[u]re
 415 nailia edo vorondatia Jaungoicuagana ta arimaren oneraco gaucetara jasoten
 davena izan ezquero, edoecin devocinoe edo pensaquizun da ona, meza san-
 tuba entzuteco. Jesusen jaijotzia, vitzitzia, erijotzia; altaraco sacramentu santu-
 ban Jesus gueratutia; gueure erijotzia, juicijua, ceruba, impernuba, pecatubaren
 ezaintasuna edo beste onaco gauzaac penseetia; errosarijo santuba, Jesusen

 (110) P. 2, tit. 9, c. 10. §. 1.

coroia edo Ama Virginaren coroia astiro ta ondo pensaubaz erregetia; edo 420
 beste devocinoezco gauzaac erregetia; edocean da asco, vorondatia ta gogua
 Jaungoicuagana jasota euqui ezquero. Baina esan dan atencinoia ta [173] devo-
 cinoia popuertzacua da, meza santuba entzuteco.

Emeti ezautuco dozu, neure entzula onac, mecia esaten dan artian eleisa- 425
 an egon arren, ez daveela mezaric entzuten: 1. Albocuequin berveetan ta
 endreduan mezaco demporaan dagozanac. 2. Eleisaco gentiagana, nor nun
 daguan ta celan daguan icusten, gogua ta pensamentuba zabaldua mezatan
 dauqueenac. 3. Auagaz erregetan egon arren, ezauberaz ta naiz beste biar ez
 dirian gauceetan gomutia ta vorondatia dauqueenac. 4. Meciareen zati nausijan,
 edo zati chiqui ascotan meza bacochian alan dagozanac ez davee mezaric 430
 entzuten, atencinoiareen ta devocinoiareen paltaz. ¡Ah, ceimbat meza priisaca ta
 devocinoe bagaco aguertuco dirian Jaungoicuaren aurrian! ¡Endamas gazte
 teguijac!²⁰⁰ Euren pensamentuba, vorondatia ta gogua arratsaldeco ibilte galdu-
 betan ta nasajetan dauqueela, entzun gura leuquee ascoc meza santuba.
 Arguitu daiguzan veguijac. Jausi gaitazan contuban. Gorde daiguzan aguindu- 435
 bac. Endamas meza santuba ondo entzuteco daucaguna, jadichi daigun arima-
 co gracia ta ceruco glorijs. Amen.

[174]

III. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
domeeca ta jai osuetan cer eguin biar dan. 440

Entzun dozu, cristinaubac, leengo iracatsijetan, bateti Jaungoicuac aguinduten deuscula domeequetan biarric ez eguiteco; ta besteti Eleisa Ama santiac aguinduten deuscula, egun areetan meza osua, gueure gogua ta vijotza Jaungoicuaren gauceetara jasota, entzuteco. Meza santuba entzutia ordu erdi bateco cereguina da. Emeti dator, bada, pensaquizuna, ta ez guichi balijo 445
 deuscuna, gue[u]re astian astiango edo sarrijagotaco eguinbiar altu ta nausi bati cobru emoteco. ¿Ta ce pensaquizun dala au uste dozu, neure entzula onac? Ez besteric, ez bada jaquitia cristinaubac, ia domeeca egunian ta jai osue-

422 Jaungoicua gana *Ba* 443 vijotza] vitjotza *Ba* 445 cer eguina *Ba* 446 eguin biar
Ba 447 bati] beti *Ba* 448 ez bada *Ba* | ia] Ya *Ba*

²⁰⁰ Gorago ere "bidao teguija" dator, hots, bidao multzoa...

tan asco dan biarric ez eguitia ta meza osua entzutia, Jaungoicuaren irugarren
 450 aguinduba gordeetaco. Edo, ia esan dirian egunetan libre dagozan cristinaubac
 mecia entzun ezquero, pecaturic edo biarric eguin bagaric, osterantzian nai
 daveena eguiteco.

Jaungoicuaren legue santuba gordeetiari edo austiari jagocan gueija da, ira-
 catsi onetan esaten dana. Bera gaiti escatuten dau ceubeen adiera osua.
 455 Mundutarrac ta ez guichic cris-[175]tinauben artian uste davee, jai domeeque-
 tan meza bat esaten dan artian eleisan egon ezquero, beste egun santu aree-
 taco demporia ibilteco ta olguetaco dala. Esaminau daigun bada, cristinaubac,
 gauza au pusca bat, irugarren aguindu santuco eguinbiarrari cobru emoteco.
 Onetaraco eracutsico deutsut dotrina onetan: 1. Cer dirian domeecac. 2.
 460 Cetaraco Jaungoicuac ichi eutscuzan. Oneen ondoric chito errazto ezautuco
 dogu cer eguin biar dogun jai domeequetan. Prestau zaitex adieraric gogotsu-
 benagaz ondo entzuteco ta beti goguan euquiteco.

I.

Berecautan²⁰¹ ta popuertza leguez ezaututen dogu, cristinaubac, gueure ari-
 465 maco, gorputzeco ta munduban vitzi izateco biar ditugun gauza guztiac emo-
 ten deutescuzala Jaungoicuac duaric. Begaz, Jaungoicuari esquer onac ta graci-
 jac emon biar deutesaguz eguiten deutescuzan ta eguin biar deutescuzan mesede
 andijac gaiti. Jaungoicuari guizonac emon leguijozan esquer onac ta gracijac
 dira: Jaungoicua bera alabetia, adoretia, ezaututia ta vijotz guztiagaz maite ta
 470 laztan izatia. Jaungoicuac ta Jesus bere Seme bacar guizondubac gueu gaiti
 eguin ditubeen equitade santubac, amodijotzcuac ta beticuac, humildade andi
 bategaz gogoratutia, lotsa onagaz penseetia ta nai bigunagaz maitetutia;
 Jaungoicuaren ta Jesusen ondraraco ta ondo esaneraco balijo daveen gauzaac
 aleguin guztiagaz gueuc eguitia, ceinetan sartuten dirian misericordijaren, cari-
 475 dadia-[176]ren, celo santubaren ta penitencijaren eguitadiac. Au ta oni darrai-
 cona da, guizonac Jaungoicuari emon leguijozan esquer onac edo gracijac ta
 ondo esatia. Ta au bada Jaungoicuari gracijac ta esquerrac emotia, popuertza
 biar dau guizonac onetaraco demporia.

Adan, Abel, Noe, Abraan ta beste naturaleziaren legueco patriarca santu-
 480 bac ez daquigu zucen, dempora seinalauric euqueenic Jaungoicuari gracijac
 emoteco; ez bada eureen Jaungoicuaganaco gogo onac ta ceruco ondasunen ta
 betico eguijjeen najjac ta amodijuac escatuten eutseen demporan ondreetan

450 ia] Ya *Ba* 458 eguin biarrari *Ba* 481 Ez bada *Ba*

²⁰¹ "Berecautan": berez-berez; (esanahi hau du haren testuetan eta sarri dator, batez ere *legez* ondorik duela; *Esku*-n "berecauten" forman agiri da batzuetan; "de por sí", "espontáneamente" itzuliko genuke gaztelaniara).

eveela Jaun cerucua ta eguiten eutseezala escarijac, beste munduco cereguinai ichita. Baina Jaungoico andijac, Sinaico mendijan oinaztu ta trumoe artian Moisi judegubentzat leguia emon eutsanian, aguindu evan verba aguirijaquin 485
 zapatubac gordeetaco edo zapatu egunac santu eguiteco. Legue atan bertan aguindu eutsan Jaungoicuac Moisi, ta aren bitartez judegubai, cerubac mesede andijac eguin eutseezan egunac egun santutzat artuteco betico, eurentzat ta eureen ondorenguentzat (111). Ta ara emen zapatubez ostian urte barruco 490
 judeguben jaijen asieria, Jaungoicuac berac aguinduta. Zapatubac ta urte barruco jaijac gorde citubeen judegubac, escritura sagraduban iracurten dan ardurriagaz ta lotsiagaz, Jesucristo gueure Jaunac bere erijotza santiagaz judeguben legue zarra birrinduta, evangelijo santuco legue bi-[177]guna ta gracijazcua munduban azaldau edo publicau artian.

Apostolu santubac, Espiritu Santubac eracutsita, Jesus ill evenen judegubac 495
 quin ecetan bere bat ez eguitarren aldatu evenen zapatuco eguin biar edo obligacinoe guztia domeecara. Ta onezaz gainera esaten da, apostolu santubac gorde citubeela jaitzat ta aguindu eveela gordeetaco, Jaungoicuac guizonari mesederic andijeenac eguin deutzazan egunac. Apostolu gloriosuen ondoric Eleisa Ama santiac ceruco espiritubac eracutsita aguindu dau, Jaungoicuari, 500
 Jesucristo gueure jaunari, Ama Virgina Jaungoicuaren Ama garbijari, apostolu santubai ta beste ceruco Jaungoicuaren adisquide ascori esquer onac, gracijac ta ondo esatiac emoteco, euren egunac jai gordeetaco. Batzuc jai oso ta beste batzuc jai erdi. Jai osuac, domeecac leguez ta jai erdijac, mecia entzuteco domeecac leguez ta biarra eguiteco, astegunac leguez. Au da, neure cristinaubac, 505
 urtian urtiango domeequetaco ta jaijetaco asieria ta eguinbiarra. Urte barruco jaijac Eleisa Ama santiac guichitu edo gueitu leguiz. Baina domecac ez ditu ez guichitu, ez gueitu. Astian egun bat Jaungoicua ondretaco, gracijac ta esquerrac emoteco ta eguitade onequin santututeco ichi eutscun Jaungoicuac, ta ascoc dinuanez, mundubaren beraren asierati. (112). 510

San Agustin gloriosuac ta Eleisiaren bat-[178]zaar nausijac esaten davee (113), neure cristinaubac, apostolu santubac ce gaiti aldatu evenen zapatuco eguinbiar guztia domeecara. Dira pensaquizun chito onac ta domeeca egunac santututen cristinaubari asco lagundu leguijuenac. Errazoe asco dacarreez onetaraco. Ta guztiac dira domeeca eguna chito ondo gogoratuta, gueure vijotza 515
 cerurutz jasoten daveenac: 1. Domeeca eguna dalaco egun guztietati leleengua. 2. Munduco gauza guztiai asieria Jaungoicuac domecan emon eutseeelaco. 3. Ainguerubac domeecan criadu citubalaco. 4. Mana esaten jacan janari gozua, altaraco sacramentu santubaren irudi ainchinacua, judegubai Jaungoicuac

 (111) Exod. c. 13. (112) A Lap. in c. 2. Genes. (113) Serm. 280. Conc. 6. general, c. 8. apud Baron. 520

domeecan ceruti bialdu eutseelaco. 5. Jesus maitia domeecan jaijo zalaco. 6. Iru Erregue Maguac Jesus adoretara, Belengo portalera etorteco, domeecan izarra aguertu jacuelaco. 7. San Juan Bautistac Jesus domeecan batiatu evalaco. 8. Jesusec bost oguigaz ta arrain bigaz bost milla guizon mendi soilian domeecan jandu edo mantenidu citubalaco. 9. Jesus maitegarrija domeecan illeen arteti viztu zalaco. 10. Espiritu Santu pozlarija domeecan apostolu santubai ceruti jatsi jacuelaco. ¡Oh ce campo andija dan au, neure cristinaubac, domeeca santubetan penseetaco, ta Jaungoico altubari ta altsubari gracijac emoteco! Baina aitu ezquero cer dirian domeecac ta jaijac, icutsi daigun ia ceta-raco dirian.

[179]

II.

Jaungoicuac ez dau alperric ecer bere aguinduten. Bere jaquiturija amai bagacuac gauza guztiac zucenduten ditu cerbaiteraco. Bada, Jaungoicuac eragotzi ezquero ain legue estubagaz, icutsi dozun moduban, jai domeequetan biarra eguitia, autortu biar dogu cerbaiteraco eragotzi eutscula. ¿Izango ete da Jaungoicuac guri biarra eragotzia jai domeequetan, esan dan moduban, egun areetan gu alperrerijan egoteco? Ezin izan leiteque. Alperrerijari gorroto deutsa Jaungoicuac.

540 Ez astian egun bat, ece gueure vitzitza guztian ordu bete bere ez deutsu Jaungoicuac emoten alperrerijan egoteco. Alperrerijac, dino Espiritu Santubac (114), malecija asco eracusten davela. Malecija asco eracutsten daven vicijua ecin Jaungoico zucenac aguindu eutsquegun, jai domeequetan eguiteco. ¿Eragotzi ete deutsu, bada, biarra eguitia, jai domeecac libre euqui daiguzan goxeric 545 arrats jcoraco, tabernaraco, danza eragotzietaraco, mundutarren visiteetan, peligruzco pasiuetan ta ordena bagaco jan edanetan iragoteco? Cristinaubac, ta ez guichic, eguiten daveenari beguiratu ezquero esan legui, onetaraco Jaungoicuac eragotzi eutscula domeeca ta jai osuetan biarra eguitia. Baina evangelijo santubari ta Eleisa Ama santiaren eracutsijari beguiratu ezquero, 550 blaspemia derichon pecatu castia da au esatia.

Eleisa Ama santiaren catecismuac, batzaarrac ta gurasuac ao bategaz dirianac esaten [180] davee, domeeca ta jai osuac ez diriala, ez alperrerijaco, ez ordiquerijaraco, ez jaate laarreguijetaraco, ez probeetaraco, ez desapijuetaraco, ez comedijetaraco, ez saraubetaraco, ez biguiretaraco, ez olgueeta naastaubetaraco, ez munduco vanidade ta nasaitasunetan iragoteco. Ez, cristinaubac, ez.

(114) Eccl. c. 33.

522 jaijozalaco *Ba* 530 ia] ya *Ba* 536 cer baiteraco *Ba* | eteda *Ba* 543 aguindu] guindu *Ba baina* aguindu *Uts-eguiteen ezauberian* 545 mundutarrenvisiteetan *Ba*

Ez dago onaco legueric. Eguitade madaricatuizat conteetan ditu Eleisa Ama santiaren espiritubac alaco oitura oneen galdugarriac ta araguijaren nasaitasunac, ta endamas domeeca ta jai santubetan. Ascoc eguiten dau, bada. Baina ez da Jaungoico santuba guichiago desondretan ascoc eguin arren, gueijago baino. 560

¿Cetaraco eragotzi deutsu, bada, Jaungoicuac, egun santu areetan biarra eguitia? Cristinaubac, Jaungoicuac berac esan deutsu cetaraco. Ta ucatu ecin guinai. Jaungoicuac berac esan deutsu (115), santu eguin ebala edo santipicau evala zapatuba. Bedeincatu evala ta santu eguin evala zapatuba, dino ostera bere Jaungoicuac (116). Berac santu eguin evan eguna, gueuc bere santu eguin daigula edo santipicau daigula, dino Jaungoicuac (117). Acordau zaite, dino, *memento* edo goguan euqui eguizu zapatuba santututia; *ut diem sabbati sanctifices*. Jaungoicuac santipicau ta bedeincatu evan zapatuba (orain domeequia) bere eguntzat; ta aguindu eutscun gueuri bere domeeca egun santuba ta bedeincatuba gueuc bere santu eguite-[181]co ta bedeincatuteco. 565
Esango baleu leguez Jaungoicuac: Sei egun emoten deutsudaz astian, pecaturic eguin bagaric, ceubeen biarrac eguiteco, ceubeen solo, baso, tratu, artu emoneco ta vitzizaraco cereguinai cobru emoteco. Baina zazpigarren eguna, domeequia, neuria da. Egun bedeincatuba da. Egun santuba da. Neure izate altubai consagrautaco eguna da. Beste biarra ichita, neure icen santuba alabetan, adoreetan, ondreetan ta ameeetan irago biar dozun eguna da. Ez domeeca bacoheco ordu erdi bat edo ordu bete bat, ezbada astian egun bat, domeeca guztia santu eguiteco aguinduten deutsut. *Memento, ut diem sabbati sanctifices*. 570
575

Beste gauza bategaz aituco dozu au obeto, cristinaubac. Urrezco plater bat, coilara bat edo vaso bat edoceinec escuban erabili legui ta jaubiac agaz edocein gauza eguin legui. Baina jaubiac eguiten badau urrezco plater agaz caliza bat ta consagreetan bada caliza a mecia esateco altazaraco, Jaungoicuaren servicijoraco, ya caliza consagraudaba dan artian, a edoceinec escubetan erabili ecin legui ta jaubiac bere beragaz nai davena ecin legui, mezataraco consagrauta daguan caliza santuba ta bedeincatuba dalaco. Domeeca ta jai osuac dira Jaungoicuari consagrautaco egun santubac ta bedeincatubac. 580
585

Beste aste barruco egun baten edo gueijagotan guizonac eguin legui pecatubaz ostian derichona, egon edo ibili, errezau edo [182] lo eguin, urre jaubiac urriagaz eguin leguijan leguez. Baina domeeca ta jai osuetan, pecaturic eguin ez arren, nai davena ecin legui cristinaubac, caliza jaubiac caliza consegraubagaz ezin leguijan leguez. Bada, caliza consagrauba altazaraco ta meza santuraco dan leguez, domeeca ta jai osuac Jaungoicua serbiduteco dira. Ez dago onetan dudaric. 590

(115) Genes. c. 2. (116) Deut. c. 5. (117) Exod. c. 20. 595

577 ez bada *Ba* 582 eguiten] egujten *Ba*

¿Cer eguin daique, bada, cristinaubac egun santu oneec ondo gordeetaco? Domeca ta jai osuetan eguin daiquezuzan gauzac asco dira, neure enzula onac. Guztiaac ezingo dituzu bacoachac. Baina edoceinec daiquezu²⁰² areetati bat edo beste bat. Bai egun batian bat eta bestian beste bat bere, ceubeen jaquiturijac ta estadubac escatu ta aguinduten deutsun moduban. Cereguin santu oneen
 600 artian conteetan dira: 1. Meza osua vijotz onagaz ta adiera gogotsubagaz entzutia. Inundi al badedi²⁰³ meza nausija ta bacoachac bere parroquijan. Au chito gauza ona da, jai santuba gordeetaco. Cristinaubac bere parroquian daucaz leenagoco gurasuen azurrac. Bere parroquijan dauca cristinau eguin zaneco arimiaren garbi lecuba. Bere parroquijan errecibiduten ditu sacramentu santubac.
 605 Bere parroquijan daucaz arimiaren jaolaac, cura jaunac. Bere parroquijan eguiten da oracinoa errico illac ta vitzijac gaiti. Ta bere parroquijan eracusten da Jaungoicuaren verbia, Trentoco concilijuac aguinduten daven leguez, jaijetan ta meza nausitan. Errazoe oneec ta beste asco gaiti esaten jaco cristinaubari, jai
 610 [183] domeequetaco eguinbiarraren zati andi bati cobru emoten deutsalac bere parroquijan meza nausija ta Jaungoicuaren verbia entzunagaz. 2. Jai domeequetaco cereguin santuba da, Jaungoicuaren verbia entzutia; goixeti edo arratsaldian prediqueetan danian ta prediqueetan dan lecuban. Jaungoicuaren verbia edo sermoia da arimiaren janarija. 3. Sacramentu santubac prestaera onagaz artutia; conpesetia ta comulguetia. ¡Oh ce ondra andija Jaungoicuari ta onera andija bere arimiari, edola bere illian bein ondo pretauta, conpesetia ta comulguetia! 4. Jai domeequetan vesperetara juatia, eleisan errosarijo santuba errecetia ta altarac ta eleisia visitetia. Cer eguin santuba ta indulgencia edo parcacinoe ascogaz apainduba da au. 5. Edoceinentzat, ta endamas euren echeetati urten ezin davenentzat, edo meza nausitara, vesperetara edo sermoetara juan ecin dirianentzat, eguiquizun santuba ta ona da jai domeequetaraco: Jaungoicuaren dotrinia icastia edo eracustia; gaixuac visiteetia; tristiciac consoletia; al daguijan limosna eguitia; oracinoe eguitia; edo erliginoeco eguiija altubac, erijotzia, juicijua, impernuba ta ceruco gloriija astiro ta gogoz penseetia; 625 Jesucristo gueure Jaunaren vitzitzaco, peneetaco, erijotzaco ta viztu eraco pausubac vijotz bigunagaz gogoratuta, Jesus maitia ta Jaungoico andija adoretia ta maitetutia; pede santuba gaiti ta purgatorijoco arima pielac gaiti Jaungoicuari

602 albadedi *Ba* 610 eguin biarraren *Ba* 612 cer eguin *Ba* 615 Jaungoicuari] Jaugoicuari *Ba* 621 domeequetaraco] demeequetaraco *Ba* 623 aldaguijan *Ba*

²⁰² Adizki honek "egin" bere baitan du; ez da, beraz, aditz laguntzailea, aditz trinkoa baizik. Bestalde, zuka ari denean bezalako komunztadura ageri du; "edoceinec daique" izango litzateke komunztadura normala. (Ik. *Euscal-errijetaco...* 61.oharra, 474.or.).

²⁰³ Sarrera orokorrean adizkien morfologiaz ari garela, honako hau diogu: "*Albadedi*": gaur egun gure inguruneko euskaran, tamalez, galduak dira forma jaso eta euskara jantziko hauek...

erregututia; empin, aste barruban bere cer eguinetan eguin dituban palteen [184] parcacinoa ta aurrera ez eguiteco biar daven gracia Jaungoicuari escatutia.

Ara emen, cristinaubac, domeeca ta jai osuetaco cereguinac ta eguinbiarrac. Bata ez bada bestia, edoceinec eguin leguizanac. Zaarrac bere eguin leguijeez, gaztiac bere bai. Aberatsac bere bai, pobriac bere bai. Echian daguac bere bai, bidian davilenac bere bai, oian daguan gaixuac bere bai. Bata ez bada bestia, guichiago edo gueijago, errazoiaren usuba badauca, edoceinec. Au da, neure entzula onac, domeeca ta jai osuac santu eguitia edo santipique-
 630
 635
 640
 645

tia. Onetarico Jaungoicuaren ondraraco ta gueure arimen oneraco eguite santubeetan domeecac ta jai osuac iragotia da, jaijac ta domeecac gordetia. Au da irugarren aguinduban Jaungoicuac escatuten deitscuna. Pecaturic ez eguitia egun guztietaco Jaungoicuaren aguinduba da. Ta domeeca edo jai santubetan pecatu eguitia, beste egunetan eguitia baino pecatu andijagua da. Meza santuba jai domeequetan entzutia Eleisa Ama santiaren aguinduba da. Jesucristo, gueure Jaunac cerubetara igon ezquerocua da. Baina domeeca egunac santu eguitia, Jaungoicuaren beraren aguinduba da. Mundubaren asierati datorrena da. Egun santu oneec obeto, poz gueijagogaz ta arimaco onera gueijagogaz gorde guinaizan, Eleisa ama santiac aguindu eutscun meza santuba entzuteco. Baina mecia entzun biarric ez bagueunca bere, gorde biarco guenduque astian-
 650
 655

go eguna santu eguinagaz, pecatubaren beian. Ez ordu [185] erdijan, ez bada egun guztian. Egun guztia santu eguiteco aguinduten deitscu Jaungoicuac.

Dacutszu²⁰⁴, bada, cristinaubac, cer dirian domeeca ta jaijac. Baita Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiac cetaraco ichi deitscuzan bere. ¿Ta esango dozu, ordu erdijan meza bat entzunagaz ta biarric eguin ezagaz gordeetan ditubala cristinaubac domeeca ta jai osuac? ¿Ordu erdi bateco eguitade santubagaz pagueetan davela egun guztico zorra? ¿Ordu erdijan edo ordu betian baino biarra eguin ez deitsunari emoten deitsazu egun guztico alovera? Bada, Jaungoicuac escatuten deitscu domeeca ta jaijegun osuetan, goxeric arratseraco biar onac eguitia; *memento, ut diem sabbati santifices*. Egun guztia da, gueuc santu eguin biar doguna. ¿Ta derichazu ordu erdi baten meza bat prisaca entzunagaz eguingo dogula Jaungoicuagazcua²⁰⁵? Pensau eguizu ceubec, neure entzula onac, errazoe onen indarra. Ta balijau zaite beragaz, ceuben jai

628 cer eguinetan *Ba* 630 cer eguinac *Ba* | eguin biarrac *Ba* 647 ez bada *Ba* 652 santu bagaz *Ba*

²⁰⁴ Harrigarri gertatzen zaigu aditz trinko hau horrela jokatzeari, aurrean *ba-* edo beste elementuren bat ezarri gabe...

²⁰⁵ Izenlagunak egiteko erabiltzen den *-ko* genitibo hau beste kasu-marka batzuen gainean ere erakitzen da askotan. Bartolomek ere maiz darabiltza, esaterako, inesiboaren, sozietiboaren, prolatiboaren... gainean eraikitakoak; hau sozietiboaren gainean eraikitakoa da. (Ikus honetaz Sarrera orokorrean, deklinabideaz dihardugun atalean, 258-259.or.).

660 domeequetaco eguinbiarrac zuzenduteco. Baita gogoratu eguizu ce urrin
dagozan jai domeecac gordeetati, domeeca ta jai osuac tabernetan, jocuetan,
desapijo ta proveetan, olganza desonestubetan ta pecatuco lan gaistuetan ira-
goten ditubeenac. Meza bat ozta ta bera prisaca ta gaisqui entzunda, beste
665 domeequetaco ta jai osuetaco dempora santuba mundubari, araguijari ta dia-
brubari consagretan deutseenac ce urrin dagozan, dinot, jai santubac gordee-
tati. ¡Oh ceimbat cristinau nasai onetaricuac, lastima gor-[186]rijan! ¡Oh gura-
suac ta umiac, jai santuben desondragarrijac! Edegui eguizuz ceuben veguijac.
Baina ceuc gueure Jaungoico maitia, ceuc imini biar dozu gueure vijotze-
tan eguiija santu oneen amodijua. Ceuc erbestetu biar dozu gueure gogoti
670 munduco vanidade nasajetaraco naija ta zabaldu aren lecuban ceruco onda-
sunen gosia ta ceure gracia, ceinegaz jadichico dogun ceruco betico gloriya.
Amen.

LAUGARREN AGUINDUBA

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan *gurasuac umiai zor deutsen azieria.*

Jaungoicuac laugarren aguiduban esaten deutsu, neure entzula onac: 5
Ondrauco dituzu ceure aita ta ama, luzaro vitzi zaitezcan ceure Jaun eta
Jaungoicuac emongo deutsun luurrian (118). Leleengo iru aguidubetan
Jaungoicuac escatuten deutsu, bere anditasunari jagocan lotsia ta ondria; ta
beste zazpi aguidubetan [187] proximuari jagocan provechuba edo oneria.
Jaungoico onac ta guztien arduria daucanac, bere ondriaren ondoric bertati 10
beguiratuten deutsa, gueuc bata bestiaren artian euqui biar dogun ontasunari,
zuzentasunari ta maitetasunari. Ta au zintzoro gorde daigun emon deutzuz
lotute²⁰⁶ edo legue oneco aguidubac. Bada, san Juanec dinuan leguez (119),
gueure artian vitzi dirian ta gueure veguijen aurrian daucaguzan anaiac edo
lagunac ameezan ez baditugu, ¿celan amauc dogu icusten ez dogun 15
Jaungoicua? Gueure artian dagozanen edo proximo guztien artian leleengo
dira, Jaungoicuz ostian, gueuri izatia emon deutzubenac, gueure gurasuac.
Au gaiti laugarren lecuban Jaungoicuac aguiduten deutsu, *gurasuac ondr e -*
etaco.

Gurasuen edo aitaren ta amaren izenagaz sartuten dira aguidu onetan, 20
dino Erromaco Catecismoac (120), ez bacarric gueu sortu guindubezan aita ta
ama, ez bada baita gueuri animaco edo munduco gauceetan aguiduteuco escu-
bidia dauqueenac bere. Obispo jaunac, cura jaunac ta sacerdote jaunac, esaten
da, diriala gueure gurasuac; ta ez azquenengo Aita Santu Erromacua,
Jesucristoren ordecoa luurrian. Bada, san Pauloc esaten daven leguez, 25
evangelijo santuban ta Jaungoicuaren sinistutian eurac sortu gaitubee. Oneen ondo-
ric gurasotzat daucaguz gueure erregue jaunac ta areen ordian dagozan errije-
taco aguin-[188]tarijac. Alan esaten eutseen *aita* bere crijadubac Naamani (121).

(118) Exod. c. 20. (119) Epist. 1. c. 4. (120) 4. precept. 8. (121) 4.Reg. c. 5.

5 deutsu] deutsu *Ba* 10 Jaungoico] Janngoico *Ba* 22 ez bada *Ba*

²⁰⁶ "Lotute": legea, araua.

30 Azquenian, gurasuac esaten jacue edadian, cereguinian edo opicijuan ta jaqui-
 turijan nausijago dirianai, ceintzuc dirian zaarraguac, gueure eracuslac edo
 maisubac ta curadoriac edo gueure arduria artu daveenac. Onei guztioi zor
 deutseegu, bacochari bere lecuban ta moduban, ondria ta lotsia. Ta guztiac sar-
 35 tuten dira edo encerretan dira laugarren aguinduban. Baina guztien artian lele-
 engo lecuba dauca, seme alabaac euren gurasuai zor deutsen lotsa onac. Ta
 alcarri darraicozan leguez, gurasuac seme alabai zor deutsen aziera ona; ta
 seme alabaac gurasuai zor deutsen lotsa ona. Esango deusut iracatsi onetan,
gurasuac ce aziera emon biar deutseen umiai. Ta onen ondoric, beste aguin-
 du oni darraicona. Egon zaite entzute onagaz.

40 Umeen aziera ona da, neure cristinaubac, ez bacarric cristandadian, ezba-
 da baita mundu guztian ta gentilen artian bere, arduraric andijena daroiana ta
 cer eguinic gueijen emoten davena. Menturaz ez da legueguin bat ezaututen,
 gazteeria ondo azteco aguindu ez davenic. Escritura sagradubac ceimbat lecu-
 45 tan ta ce ardura estubagaz aguinduten daven esatia, laarregui lutzetutia izango
 litzaateque, guztijac²⁰⁷ daquijen gauza baten gainian. Aguintari guztien eguin-
 biarra da, gazteeria ondo aztia. Baina leleengua ta andijena gurasuena.
 Alperric cansauco dira cura jaunac, alcate jaunac, era-[189]cuslac ta conpeso-
 riac, umiac Jaungoicuaeren bildur santuban ta lotsa onian azten, gurasuac ardu-
 50 ra onagaz lagunduten ez badeutsee. Gurasuen contura ichi dau Jaungoicua
 seme alabeen aziera cristinauzcua. Cer eguin andija da. Buru auste andicua da.
 Baina gurasuac eguin biar dozuna da, Jaungoicuaeren zamai bildurgarrietati
 librauco bazara. Era batera batuta iminico deusudaz ceuben umen aziera one-
 raco eguinbiar nausijac, erreztuago²⁰⁸ goguan euqui daguizuzan:

1. Pecatu eguiten davee gurasuac seinic ez izateco gauza chaarra eguiten
 55 daveenian, seinac azteco nequia gaiti.

2. Pecatu eguiten davee amaren sabelian daguan seina ilteco peligruban
 iminten daveenian euren erruz, dan moduban dala. Bada, cein jaijoteco dagu-
 nari vitzitzia quendu ta cein jaijota daguana ill, bardin da, dino Tertulianoc
 (122).

60 3. Deungaro eguiten davee gurasuac, eurac libre egotia gaiti, euren errai-
 jetaco prutuba amaren bularrian aztiac daucan nequia gaiti edo usadijo gaisto
 bati jarraitutia gaiti, beste premina bagaric, inori azteco seina emoten deutsee-
 nian. Naturalezia bera lotsatuten dan pecatuba da au. Jaungoicuaac amari pres-

 (122) *Apolog*, c. 3.

30 jacue] rjacue *Ba baina* jacue *Uts-eguiteen ezauberian* 30-31 jakiturijan] tjakiturijan *Ba*
baina jakiturian *Uts-eguiteen ezauberian* 34 encerretan] ercerretan *Ba* 40-41 ez bada *Ba* 43
 gazte eria *Ba* 45-46 eguin biarra *Ba* 46 gazte eria *Ba* 53 eguin biar *Ba*

²⁰⁷ Ik. 35. oharra (718.or.).

²⁰⁸ Ik. *Esku*-ko 124.oharra (600.or.).

tau deutsa, seinä bere bularrian azteco biar davena. Ta amac, neque pusca bat 65
 ez artutia gaiti, sosiguzago vitzi izatia gaiti, bere gorputza munduco gustueta-
 raco libre euquitia gaiti, beste premina bagaric, inori seinä azteco emotia da,
 naturaleziac ta Eleisa Ama [190] santiaren espirituac icutsi ezin daven pecatu-
 ba. Seinora andijac cirian Sara Abraanen emaztia, Ana Samuelen ama, Rebeca
 Jacoren ama ta beste seinora ta erreguina asco, Escritura Sagradubac ta 70
 Eleisaco jazuac esaten deuschuben leguez. Baina euren bularretan azi cituben
 euren sabeleco prutubac. Ama Virgina guztiz santiac bere bular gozuetan azi
 evan Jesus bere seme bacar maitia.

Inoren bularrian azten dan umiari, nai otzagua eracusten deutsa gueijenian
 gurasuac. Baita umiac bere gurasuari. Bularragaz iraasten jacozi umiari, ez gui- 75
 chitan, azten davenaren gorputzeco gachac ta arimaco guraarijac. ¿Bularra
 emoten deutsana da gach duna, garbitu biarrecua edo ondo garbitu bagacua,
 inude asco oi dirian leguez? Bada, seinari ezarten deutsa edo ezarri leguijo bere
 gacha. ¿Seinaren azizailia da vicijo gaistuetaqua, nasaija? Bada, umiac aguirico
 dau, isten bajaco, noren bularra artu evan. ¿Ta ezin jazo leiteque seinä truque- 80
 etia? ¡Ah gurasuac! Bein baino gueijagotan jazo leitequian gauzia da. Ta orain-
 dino urte asco ez dala jazo zan Prancijaco erreinuban onelaco seinä truqueeta
 bat, inudiaren descuido bat zala medijo. Inudiac subaren onduan ichi evan
 seinä ardura guichigaz ta erre jacon²⁰⁹ arpeguija pusca bat. Seinä zan conseje- 85
 ru baten alabia. Ez zan azartu inudia gurasuai jazo tristia esaten. Quendu evan
 inutsein²¹⁰ eguijazcua, ta azi evan beste ume bat aren lecuban. Ta viurtu eutse-
 en gurasuai inoren umia, eurenä balitz leguez. Ez-[191]condu even gurasuac
 seinora andi. Ta ezconduta guero autortu evan inudiac bere descuidua ta
 engainuba. Azaldau zan trucadia, birrindu zan ezcontzia, zabaldu zan escan- 90
 daluba ta oni darraicon guztia (123). Escarmentau bada, gurasuac, inoren
 gachagaz ta azi ceuben umiac ceuben bularretan, inundi al daguizunian. Ama
 baten ondraric andijena da, dino san Ambrosioc (124), sabeleco prutuba bere
 bularrian aztia.

4. Seme alabei gurasuac zor deutsen aziera onaren contra ta chito deun- 95
 garo eguina da, lau bost urtera eldu ezquero edo leenagoti, umiac eurequin
 oian eratzotia. Baita mutilchubac eta nescachaac alcarregaz eratzotia bere.

 (123) Marchant. Candel. mist. tract. 8. Lect. X. prop. 3. (124) Lib. de Abran. c. 7.

78 oidirian *Ba* 82 jazozan *Ba* 89 azaldauzan *Ba* | birrinduzan *Ba* | zabal-
 duzan *Ba* 91 aldaguizunian *Ba*

²⁰⁹ Gaur egun bizkaiera egiten dugunoi, "erre egin jakon" idaztea, emango liguke senak; baina gure idazleak, eta orobat haren garaiko gainerakoek, ez dituzte perpausak guk adina mar-
 katzen "egin" horrekin.

²¹⁰ "Inutsein": oihaleko seinä, bularreko umea.

Baita guela baten guztientzat oiac alcarren onduan euquitia bere. Gauza onetan nasaitasun andija icusten da pamelija ascotan. Errial bat edo bi ez castetia
 100 gaiti vitzi dira gurasuac eta umiac, ta ascotan otseguinac, campocuac ta eche-
 cuac, guizonezcuac ta emacumiac, cristandadiaren lotsagarrijan. Ugazaba jau-
 nac edo echejaubiatic ez dauquee erru guichi sail onetan. Errentia osoric artu-
 ten davee ta zucen. Baquijee, erreteru pobriac ta menturaz laster echeti urte-
 105 teco bildurragaz daganac pamelija guztija casic era batera eratzoten davena,
 oe bat nun aparte imini eche barruban ez daucalaco. Ta orregaiti ez dau uga-
 zabac oe lecu apart bat eguingo bere echian.

¡Oh Gurasuac edo ugazabaac, zarianac [192] zariala! Ez daquizu ondo ta
 jaquin biar cenduque ceimbat arima inocenteri pecaturaco vidia emoten deu-
 tsezun. Ceimbat malecija sortuten dan umen goguan ta arimetan ceuben ardu-
 110 ra guichija gaiti ta conciencija nasajia gaiti. ¡Ta uste dozu ez deusula
 Jaungoicuac contu artuco bai gurasuoi ta bai ugazaboi, ume inocenten arimac
 alan gacheraco goixtartu ta arguitu dituzulaco? Pensau eguizu ceubec ce oca-
 sinoia dan. Ta ez eguizu sinistu umiac diriala. Salomon gaiti esaten da, amae-
 ca urte citubaneco aita zala (125).

115 5. Deungaro eguiten davee gurasuac, umiai bost sei urte ditubeeneti aurre-
 ra edo leenagoti verba chaarrac, gacharen icenac ta beste eurenec pecatu
 dirian gauzaac parcatutiaz. Umetati icasten danac iraungo dau zaartu artian,
 dino Espiritu Santubac. Chiquitati oquer azten dan landaria, nequez zucendu-
 ten da, sutara artian. Chiquitati gurasuen erruz gaisqui azten dan umia, sarri
 120 juan oi da impernucos sutara zucendutera edo beti erreetan oquer egotera.
 Guraso arro ascoc, umen zazpi zortzi urteco pecatubac, lotsagalducoquerijaac
 ta verba ezainac vanidadez contaui ditubee, gauza andi batzuc balira leguez.
 Ez eguijozu, bada, umiari parcatu chiquitati, guero berac eguitia edo esatia
 ondo ez dana.

125 6. Deungaro eguiten davee umiai dotrinia biar dan moduban eracutsten ez
 deutsenian. ¡Oh Guraso errucarijac ta ume desdichaubac [193] gauza onetan!
 Leleengo icasiquizunian esan da cerbait onen gainian. Baina esan al dedin guz-
 tia utsa da gurasuac contura ecarteco euren eguinbiar andi onetan. Ora-
 cinuetaco verba banaca batzuc ozta goguan euqui eraguitia ta areec bere ascot-
 130 tan oquer ta naastauta da, guraso ascoc umiai emoten deutseen cristandadeco
 eracutsi guztia. Gueu salbetaco popuertza jaquin biar ditugun eguiija santuben
 ezauberaric ez dauquee urrineti bere seme alaba ascoc, aita ta ama edu azita
 egon arren. ¡Ce mirarija da, guero gurasuac bere ez jaquitia! ¡Ce mirarija,
 guraso ta ume inos dotrinia ondo icasi bagaric vitzi izatia ta illtia! Beste auzo

135 -----
 (125) S. Geron. in epist. ad vital.

104 erabatera *Ba* 110 ustedozu *Ba* 113 esatenda *Ba* 120 oida *Ba* 121 lotsagal-
 duco querijac *Ba* 127 aldedin *Ba* 128 eguin biar *Ba*

inguruco ta errico contu guztiac, ta bai asco onac ez dirianac bere, icasten ditubee umiac ziatz ta chito laster. Jaungoicoa serviduteco ta arimac salvetaco popuertza biar doguna da, zorijonian edo zori gaistuan, icasi ecin daveena. Gurasuen betico cantia ta achaquija da, umiai doctrinia eracutsi ezin deutsee-
la. Baina obeto esan legui, gurasuac eracutsi gura ez deutsee-la. Umiai dotrinia 140
eracusten, edo ez daquijeela, edo cansau gura ez daveela. Edo arguiruago esateco, guraso ascori, umiac dotrinia jaquin nai ez jaquin, bardin deutsee-la. Guraso ascoc ardura gueijago dauquee, cinuan san Juan Crisostomoc (126), ehecho ganadubaquin, seme alaben arimaquin baino. Ariman epai garratza eguiten daven paltia da bada, cristinaubac, gurasuac chiquitati umiai doctri- 145
[194]nia sustraiz ez eracustia.

7. Chito deungaro eguiten davee gurasuac, umiai bidauac eta maldecinoiac ezartia. Exemplu edo eracutsi chaarra da au umentzat. Gurasuen maldicinoiac, dino Espiritu Santubac (127), ondatuten dabela eche guztia. Gach opa bagaric izan arren, gaisqui eracusten jacue umiai bidauagaz ta maldecinoiagaz. 150
Zenovio²¹¹ santubac dinuan amac jazo zatequian gachic ez opa izatia bere umiari. Baina ume chicarrac ura escatu eutsanian amari, amac purijaz ura esquinata, esan eutsan umiari: *Autsa, edaic diabruba*. Ta bertati sartu zan diabruba umiaren gorputzian (128).

8. Deungaro eguiten davee gurasuac, umiai meza santuba entzutia, compesetia, comulguetia ta beste arimiaren oneraco biarrac eguitia, errazoe bagaric, eragozten deutsenian. Gauza onetan gurasuen eguinbiarra da, zazpi urte ditubeneco eracutsi dotrina santuba, edade atan izan leitequian onduen. Bialdu orduti meza santuba entzutera. Ta baita Pazcuetan cura jaunagana compesetara bere. Ta andi aurrera, cura jaunac aguinduten deutsenian, sacramentubac 160
errecibidutera ta jaijan jaijan meza santuba entzutera.

9. Deungaro eguiten davee gurasuac, seme alabei²¹² isten deutsenian gura daven lecubetara juaten; nai daveen lagunaquin ibilten; nai daveen moduban jantzten; ta gura ditubeen ver-[195]ba ta canta ezainac esaten edo beste pecatubac eguiten, daquijeela. Emen sartuten da, cristinaubac, guraso ascoren pecatu pillo andi bat, ez iracatsi chiqui baten, ece liburu baten bere conta ezin leguizan beste. ¿Ta nos eragotzi biar deutseez onaco gauza chaarrac gurasuac 165

(126) Hom. 59. in Math. (127) Eccl. c. 3. (128) Surio in vit. S. Zenob.

153 sartuzan *Ba* 157 eguin biarra *Ba*

²¹¹ San Zenobio, Florentziako apezpikua (IV-V. mendeetan); haren biografia legendaz josia dago. Ama baten madarikazioari buruz esaten dena, Frai Bartolomeren aipamenean ez-eze, ondorengo obra honetan ere ikus daiteke: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gesta Sanctorum...*, 2.t., Coloniae Agrippinae, 1700, 201.or.

²¹² Ik. *Esku*-ko 144.oharra (629.or.).

umiai? ¿Nos? Beti. Umetati, chiquitati asita gurasuen aguinduban dagozan
 170 artian. Baina endamas amar, amalau, amazortzi, oguei urtian irago artian, ta
 Jaungoicuaren bildur santubac euren arimetan sustraijac eguin artian. Gaztetan
 ereiten badozu, guraso onac, ceuben seme alaben vijotzetan Jaungoicuaren bil-
 dur santuba, virtuten amodijua, Jesusen ta Ama Virgina guztiz santiaren devo-
 175 sinoe biguna, Jaungoicuaren verbia entzuteco, sarrichutan compesetaco, elei-
 teco cereguin santubetara juateco, ceruco gauzaac entzuteco, icasteco ta esa-
 teco gogo presta ta arguija; iminten badeutsezu euren arimaan erijotziaren, jui-
 cijuaren ta impernubaren vildur santuba, pecatubaren gorrotua, munduco vani-
 daden, ibilera nasaijen, jantziera erdi biloxen, olgueta pecatuzcuen edo peca-
 turaco peligrucuen empaduba ta gogo vetia²¹³, Jaungoicuac gura ez ditubalaco;
 180 empin, eracusten badeutsezu ceuben umiai chiquitati verba onac esaten ta
 lotsa ona guztiai ecarten, ya oguei ogueta bi urtera eldu ditezanian eurac zain-
 tucito ditubee euren burubac ta euren arimac edo, obeto esateco, Jaungoicuac
 gordeco ditu ceuben seme alabac ocasinoc guztietati.

Baina parcatuten badeutsezuz chiquitan [196] palta chiquijac ta, azichuba-
 185 go eguinda, andichubaguac; azten badituzu guizon izatia ta cristinau izatia cer-
 dan ez daquijeela, alemanija batzuben guisaan, izango dira ceuben zaartzaco
 desondragarrijac ta negargarrijac ta ez guichitan condenagarrijac. ¡Oh! Ez
 daquit ce arimagaz egoten dirian guraso asco, zucen daquijeela euren seme
 alabac gabaz ta egunaz escandaluba emoten daveela, adisquide chaarraquin
 190 daviltzala, eche sospechacuetan sartuten diriala, jantzi desonestubac darabile-
 zala, viguira, sarau ta pecatuzco olguetara paltetan ez daveela, tabernetaco
 jocuetati urteten ez daveela, ta beste onaco pecatu aguirijac irunsten ditubee-
 la. Ez daquit, dinot, ce arimagaz lo eguiten daveen guraso ascoc, onaco vitzi-
 tza galduba ta desondragarrija euren umiai parcatuten deutsenian. ¡O ceimbat
 195 bidar, san Bernardoc dinuan leguez²¹⁴, gurasuac echian seguru dauqueen bil-
 dotsa ataijan daguan otsuari ateraten deutsen! Seme alabai gavian echeti olgue-
 eta pecatuzcora isten deutseenian, impernucito otsuari entreguetan deutsez
 euren umen arimac. ¿Ta gurasuac juango dira pena bagaric lo eguitera? ¡Ah
 galdu biarra!

200 Aitu eguizu bada, neure entzula onac, ceuben arimen erruquija gaiti. Ta
 aitu eguizu, gurasuac, ceuben errajetaco prutuben amodijua gaiti. Jaungoicuac
 eguiten deutsun escari nausija da, seme alabaac ceruraco aztia. Escritura

175 cer eguin *Ba* 177-178 munducovanidaden *Ba* 181 ya] ija *Ba* 185-186 cerdan *Ba*
 187 negar garrijac *Ba*

²¹³ "Gogo bete": gehiegizko asebetetzea, higuina.

²¹⁴ Eskuizkribuan ere (f. 220) badakar San Bernardoren aipamena, eta latinezko testua ematen du (*intrat solus ad solam, ¡veh, veh lupus ad oviculam!*); testuan oharrari bere zenbakia jarri zion, baina gero ahaztu egin zitzaion oharrean san Bernardoren testuari zegokion erreferentzia jartzea.

Sagraduban milla bendicinoe andi esquintzen deutsez Jaungoicuac munduraco ta ceruraco, [197] seme alabaac Jaungoicuaren bildur santuban azten dituben gurasuai. ¡Oh ce dichosuac Elcana ta Ana Samuelen gurasuac!²¹⁵ ¡Ce zori|jonecua Job santuba, bere umen arimaco ona gaiti egunero oracinoia eguiten evana!²¹⁶ ¡Ce bedecatubac Abraan, Tobias aita semiac²¹⁷ ta Macabeo anaien ama santia, euren umiac pecatubac eguitia baino andaan²¹⁸ icustia naijago evenac!²¹⁹ ¡Ce ordu onecuac aimbeste erregue ta erreguina, Eleisaco jazuac esaten deuscuben leguez, euren cereguinen artian arduraric gueijen seme alabaac ceruraco azten imini evenac! ¡Oh gurasuac! Banaan banaan contau biar litza-atequez ceuben eguitadiac. 205 210

Baita Jaungoicuaren zamaijac bere, guraso ardura bagacuen contra. Zaartza desondrauba, penazcua, lotsazcua, sepulturaguino jarraituco deutsana, laugarren belauneraguino amaituco ez dan castiguba ta beste onaco zamaijac dauquez euren contra, seme alabaac dotrina onian ta Jaungoicuaren bildurrian azten ez ditubeen gurasoac. Eli baten castiguba da guztien escarmentu ona. Bere semiac castigau ez citubalaco biar zan duina, Jaungoicuac ill evan Eli seme bijaquin²²⁰. 215

¡Oh Jaungoico parcatzailia! Lotu eguizu ceure zamai bildurgarrija. Zabaldueguizu ceure ontasunaren arguija guraso guztien arimetara. Celo santu bategaz ta indar itzalsu bategaz ceure ezauberaan, ceure bildurrian, ceure lotsa onian ta ceure amodijo bigunian azi daguijezan, ceuc gracijaz ta mesedez ondo azteco ta euren [198] zaartzaco pozgarri ta ondra izateco emon deutsezuzan seme alabaac. Guraso ta ume, guztiac euqui daguijen dichia, ceu ceruban beti goceetaco. Amen. 220 225

217 ezditubeen *Ba*

²¹⁵ Ik. 1Sm 1,3 - 2,11.

²¹⁶ Ik. Jb 1,5.

²¹⁷ Abraham eta Isaak (ik. Has 22,1-14); Tobit eta Tobias (ik. Tb 11,1-14).

²¹⁸ "Anda": hilkutxa, zerraldoa.

²¹⁹ Ik. 2M 7,1-41.

²²⁰ Eli eta honen seme biak, Hofni eta Pinhas: ik. 1Sm 4,12-18.

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan *seme alabaac gurasuai zor deutseena*

- 230 Gurasuen eguinbiarrac badira andijac seme alabaac Jaungoicuaren bildur santuban azteco, oneec gurasuai zor deutseena ez da ardura guichiago biar davena, neure entzula onac. Gurasuac dira, Jaungoicuaz ostian, gueuri izatia emon deut[s]cubeenac. Eurac dira, sarritaco icerdijagaz ta nequiagaz, cer jan ta cer jantzi prestanta, emon deustcubenac. Gueure ama ona da, bere sabelian
- 235 arduraz ta contuz lutzaro erabili guinduzana. Alaz ta minez nequez arguitara atera guinduzana. Sarri lua galduta, sarri janari[a] ichita, aldatu, garbitu, isildu, berotu ta zaintu guinduzana. Gueure guraso zintzuac dira, gueure umetaco mainaac, min bagaco negarrac ta iletac, gurari ta tema ernegarri guztiac, iru edo lau urte osuetan edo gueijaguan ixilic ta carinoz, parcatu eutscubezanac.
- 240 Eurac azi gaitubee. Eurac vitzi izaten eracutsi deustcubee. Eurac Jaungoicuaren le-[199]gue santuba eracutsi deustcubee. Eurac jantzi gaitubee. Eurac emon deustcubee, edo escolia, edo opicijua, edo daucagun vitzigarrija. ¿Ceimbat nai-baga, ceimbat castu, ceimbat ardura, ceimbat lo galdute, ceimbat neque, dinot, padecidu ez ditubee guraso tristiciac gure oneraco? Baina eguno²²¹ gauza on bat
- 245 eguin ez baleustcubee bere gueure gurasuac, sortutia ta eguitia baino, gurasuac dira, ta gurasuac dirialaco zor deutseegu: 1. *Maitetasuna*. 2. *Ondria*. 3. *Obeidutia*. Ta ara emen, cristinaubac, iracaste onen gueija. Entzun eguizu gogo vitzijagaz.

I.

- 250 Zor deutsegu gueure gurasuai, dirianac diriala, nai onac ta nai arin onac, nai ondraubac ta nai desondraubac, nai ondo azi gaitubenac, nai gaisqui azi gaitubenac, gurasuac dirialaco zor deutsegu maitetasuna. Dinot, neure entzula onac, maite izan biar ditugula gueure aita ta ama, beste proximo guztiac baino
- 255 deustcuna, emon deustcubee gueure gurasuac. Ta au da naturalezan daucagun dicharic andijena. Zor deutsegu gurasuai: 1. Arpeguiera biguna, verba humil-diac ta lotsa ona. 2. Opa biar deutsegu gurasuai baquia, osasuna, vitzi izateco

230 eguin biarrac *Ba* 242 vitzi garrija *Ba*

²²¹ "Eguno" darabil, Bizkaiko mendebaldeko herri askotan erabiltzen den forma; "egundo"ren aldaera dugu eta "sekula"ren sinonimoa.

dicha ona ta zaartza lucia. Ta oneec baino gueijago, arimaco gracija, erijotza santuba ta ceruco glorija. 3. Eracutsi biar d[e]lutsegu ta aituten emon biar deutsegu aguirico seinaliagaz, gueure vijotzian ta ariman eurentzat daucagun nai maitetsuba ta opa ona, eriac ta ordubac esca-[200]tuten davenian. 4. Erregutu biar deusagu Jaungoicuari gueure gurasuen arimaco ta vitzitaco oneraac gaiti, vitzi dirian artian ta ill ditezianian euren arimac gaiti. Au da gueure gurasuai zor deutsegun maitetasuna edo amodijua. Ta onen ondoric zor deutsegu ondria. 260

II.

265

Laugarren aguinduban Jaungoicuac verba arguijaquin escatuten deuscuna da, aita ta ama ondretia. *¿Cer da, bada, ondretia?* Norbait ondretia da, estimacinoiaren, lotsa onaren, uste onaren ta opa onaren seinale aguirijac ari emotia. Alan gurasuac ondretiac gauza asco escatuten deuscuz: 1. Beti verba ondo eguin biar dogu gueure gurasuac gaiti, dagozan lecuban dagozala. 2. Gueure gurasuac equi arren paltac ta izan arren deungaac, ez ditugu euren paltac contau edo azaldau biar, ezbada Jaungoicuari erregutu eurac gaiti. 3. Entzun ta artu biar ditugu esquer onagaz ta nai humildiagaz, aitac eta amac emoten deutscubezan eracutsi onac eta conseju santubac. 4. Lagundu biar deutsegu aleguin guztijagaz aitari ta amari euren premina ordubetan. Bai gaixoric dagozianian, bai inoc perseguiduten ditubanian, edo gaisqui eguin gura deuschenian; bai cer jan edo cer jantzi ez dauquenian; ta endamas arimaco peligruban dagozianian. 5. Ardura andija zor deutsee seme alabac gurasuai gaixoric dagozianian gurasuac, sacramentu santubac errecibidu bagaric ill ez ditezan ta erijotzaco ordu estuban equi daguijezan cristinaubac nai oi ditubeen arimaco socorrubac. [201] 6. Seme alabac cobru emon biar deutsee cintzoro, euraj jagocuenez, gurasuen azqueneco najjai edo vorondatiai, ceintzuc gueratu oi dirian testamentuban edo verbaz esanda. Au guztiau eguin biar davee seme alabac, alizatiac, eriac eta preminiac escatu ta aguinduten deuschenian, gurasuac ondretaco, Jaungoicuac laugarren aguinduban escatuten daven leguez. 270 275 280 285

Sinistu biar dau cristinaubac, gurasuen contra umiac eguiten ditubeen pecatubac diriala chito Jaungoicuaren gorrotocuac. Pecatu gustiai deutsee Jaungoicuac gorroto. Baina batzuc Jaungoicuaren gorroto andijagua dacarree beste batzuc baino. Aparteco marchiagaz seinalauta dagoz Escritura Sagraduban. Ta onetariacuac dira seme alabac gurasuen contra eguiten ditubeenac. Aitari edo amari becoqui illuna imintia; arpegui asarria eracustia; verba astunac, gogorrac ta itzalsubac esatia; euren paltaac ta leenagoco descuiduac arguijan ezartia edo euren ondoric esatia; gurasuai burla eguitia; daquijeela, 290

272 ez bada *Ba* 283 esan da *Ba*

atsacabaac ta penaac emotia; gurasuen esan onac ta conseju onac ta santubac
 295 desprecijetia edo barregueitzat entzun ta contetia; errazoe minberequin, ta
 lotsa chaarragaz bildurtuta, isilduta, gurasuac imintia; preminan dagozarian,
 nai justiciaren escubetan, nai carcelan, nai gaixuan, nai ez orduban, edo pobre-
 zan, nai arerijo baten gachian edo persecucinoian, nai arimaco biar orduban;
 300 orduban, dinot, gurasuari ez lagundutia ta esan dan moduban gurasua umiac
 trateetia da, Jaun-[202]goico onari ta guraso guztien ondria zaintuten davenari,
 esateco moduban, vijotzaren erdijan icututen deutsan pecatu madaricatuba,
 maldicinoe ascogaz zamaituta daucana.

Aitari atsecaba emoten deutsan ta amari igues eraguiten deutsan semia edo
 alabia, dino Espiritu Santubac (129), izan dedila desondrauba ta descichauba.
 305 Aitari edo amari burla eguiten deutsan umiaren veguija, dino Espiritu Santubac
 (130), picau daguijeela ibaico belaac. Edo arguiruago esateco, jan daguijeela ta
 iruntsi daguijeela alaco ume lotsa gaistocua impernuco pristijaac. Aitari edo
 amari bidao eguiten deutsan umia, dino Espiritu Santubac (131), ill dedilla, con-
 denau dedilla ta bere odola bere contra izan dedilla. Gurasuac badauque seme
 310 necijo bat edo lotsa galduco bat, euren esana eguin gura ez davena, eruango
 davee juecen aurrera seme gaistua ta esango deutsee gurasuac juezari: *Gure
 seme au lotsa chaarrecua ta necijua da, gure esanac ta conseju onac despr e -
 cijetan ditu. Ez deuscu obeidu gura. Jan edan gaistuetan, luxurijetan ta bide
 galdubetan davil.* Orduban juezac aguinduta, errico gentiac arrica ill daguijee-
 315 la gurasuen esana eguin gura ez daven seme lotsa galduca. Quenduco dozu
 ceuben arteti alaco ume necijua. Ta Israelgo gentiac entzuten davenian, icara
 eguingo dau. Au eguiteco, dino Espiritu Santubac, gurasuen desondraco ta
 esquer cha-[203]arreco seme ezi bagacuaquin (132). Madaricatuba izan dedilla,
 dino azquenian Espiritu Santubac, aita ta ama ondreetan ez dituban umia. Ta
 320 gente guztiac esan daguijala: Amen (133). Maldicinoe oneec guztioc eta guei-
 jago ezarten deutseez, neure cristinaubac, Jaungoico andijac bere Escritura
 Sagraduban lotsa chaarreco, esquer chaarreco ta ezi gaistoco seme alavai.

¡Oh ce bildur izan biar daven daven bai gurasuac ta bai umiac! Gurasuac umiac
 325 ondo azteco chiquitati Jaungoico andijaren vildur santuban, zamai icaragarri
 oneetati libre egon ditezan. Ta umiac euren gurasuac amau ta ondrau daguije-
 zan carinoz, lotsa onian ta Jaungoicua gaiti, Jaungoico altubaren asarriac casti-
 gau ez daguizan. Can, Noeren semia, bere aitari erreberencija galdu eutsala-
 co²²² zan ta da madaricatuba impernuban. Ez bera bacarric, ez bada bere ondo-

 (129) Prov. c. 30. (130) Levit. c. 20. (131) Exod. c. 2. (132) Deut. c. 22.
 330 (133) Idem c. 27.

328 ez bada *Ba*

²²² Ik. Has 9,24: "Madarikatua kanaan: izan bedi bere senideen esklabuen esklabu".

renguetara, bere seme alabeetara bere eldu zan Jaungoicuaeren maldecinoia. Esau bere aitaren aguinduba eguin ez evalaco edo aitaren esanaren contra pecatu eguin evalaco²²³, galdu evan majorazgua, galdu evan ondria, galdu evan arimia ta da madaricatuba impernuban. Absalon, Daviden seme lotsa gaistocua, jagui zan aita onaren contra. Baina cerubac perseguidu evan ta azquenian iru ezpatagaz josita²²⁴ arimia entregau eutsan Satanasi. ¿Baina noc conta Jaungoicua seme alaba gaistuen contra eguin dituban castigubac? Esan legui, pecatu genero guichi dagozala Jaungoi-[204]cuac, munduti asita, prestago ta aguirijago castigau ditubanic, gurasuen contra umiac eguiten ditubenac baino. Guichitan icutsi izango da seme bat edo alaba bat bere gurasuari lotsa chaarra ecarri deutsana, naibaguiac ta atsecabaac arpeguijan emon deutzazana, ezau-bera ona ta premina orduban socorruba ucatu deutsana, modu chaarrian ta temaz justicijati justicijara erabili davena, gurasuaren abisu santubai ta conseju onai burla eguin deutsena... dinot cristinaubac, guichitan edo nequez icusi izango dala onaco seme bat edo alaba bat zaartza onian auzuac ta echeucac estimetan daveela, erijotza ona eguiten.

¡Oh, ce bildurgarrijac umiac gurasuen contra eguiten dituben pecatubac! Baina ¡oh ce ugarijac! Ez daquit, ala gurasuai Jaungoicuaac bialduten deutsen azotia dan, ala ume gaistuac eurentzat presteetan daveena dan. Baina bai guraso ascoc negar eguiten daveela vijotz mingochagaz, seme alaba gaistuac era- guinda. ¿Ez dagoz ume asco ta asco gurasoai madicinoeca? ¿Ez davee beste ascoc nai daveena eguiten echian gurasuen esquer gaistuan? ¿Ez davee urteten echeti gavaz ta egunaz nai daveen lecura, gurasuac aguiraca ta diadarca dago- zala? ¿Ez dira sartuten gura daveen echeetan? ¿Ez dira egoten escandaluco lagna- quin? ¿Ez dira ibilten pecatuco lecubetan, aita eta amac echian euqui ezin- da? ¿Ez dagoz seme alaba asco, ez gurasuac, ez cura jaunac, ez juezac ezi ezin ditubeenac? ¿Ez dagoz beste asco gu-[205]rasuai jotera eguiten deutseenac ta joten ditubeenac? ¿Ez dagoz guraso zaar asco euren echeetan sobrauta, verba bat esaten azartuten ez diriala, vaztartuta, isilduta, icaratuta euren echian, semiac edo alabiac, erreinac edo suinac, edo guztiac becoqui astunagaz ta verba gogorragaz aguinduten deutseela ta burla eguiten deutseela? Ez dagoz guraso asco, euren izerdijagaz irabacita euquen pusquia quendu artian verba labanac ta aguinzari andijac umiac eguinda, sinistuta, engainauta, euqueena

335 jaguizan *Ba* 341 nai baguiac *Ba* 346 erijotza] erijotza *Ba* 347 bildur garrijac *Ba*

²²³ Bere aita Esau baztertzea nahiko harrigarri gertatzen zaigu... Ez dakigu zer desobedien- tziatz ari den. Frai Bartolomek San Ambrosioren interpretazioen parafasia egingo du, beharbada; ondorengo obra honetan irakurriko zituen interpretazioen parafasia: CORNELIUS A LAPIDE (*Commentaria in Pentateuchum Mosis* ..., Lugduni, 1732, 171.or.). Itun Berrian Jakoben hautatzea eta Esauen baztertzea (Erm 9,10-13), esanguratsua da Jainkoaren hautatze libreari dagokionez, eta hautatze hori ez da ez jaiotzagatik, ez beste ezerगतik merezia.

²²⁴ Ik. 2Sm 18,9-17.

umiai emonda guero gosiac illten dagozanac? ¿Ceimbat onetarico? ¿Ceimbat
365 guraso zaarren quexac entzuten dira?

¡Ah guraso desdichaubac! Ceubec olan portau bacinian ceuben gurasua-
quin, ondo meraciduba edo irabatzija daucazu ceubei beste aibeste umiac
eguitia. Baina ez dira orregaiti ceuben umen pecatubac chiquijago. Erruquiric
gueijen emoten daveenac dira guraso zaar uatubac²²⁵ edo ibili ezin dirianac.
370 Euqueen guztia umiai emonda, gosia iragoten ta errazoe chaarrac entzuten
vitzi dirianac. Alaco umiac nai davee guraso zaarrac laster illtia. Bana oneen
contra dira Jaungoicuaren zamai bildurgarri, esan dirianac. Eguija da, gurasuac
izan leitequez deungac, ordijac, lapurrac, bidaotijac, ocasinuetsubac, baque
chaarreacuac, desonestubac ta errazoe gaistocuetacuac. Au gurasuac deungaro
375 eguiten davee. Espiritu Santubac esaten deutsee gurasuai bere, ez daguijuela
asarratu eraguin²²⁶ ta su artu eraguin euren umiai [206] verba deungaaquin.
Baina orregaiti ez deusa umiac lotsa ona ta vorondate ona galdu biar gura-
suari, esan dan leguez.

Jazo leiteque gurasuac euren umiac gaisqui azi ditubenac izatia. Baina
380 gurasuen pecatubac eta gaisqui eguinac ez ditubee chiquituco umen pecatu-
bac. Ta deungaac izan arren gurasuac, gurasuac dira. Ta gurasuac dirialaco
aguinduten dau Jaungoicuac ondretaco. Conturic zucenenian jazo leiteque,
alaco gurasuac eta umiac munduban alcarren gozo bagaric, poz bagaric edo,
obeto esateco, alcarren gorrotuan ta bidaoca vitzi izatia; gurasuetati umeetara
385 gach onec belauneti belaunera luzaro irautia; ta negargarri andijan guztia
guraso ta ume beste mundura euren pecatuben sari chaarra artzera juatia. ¡Oh
ceimbat onetarico jazo iracurten dirian! Ondrau daiguzan bada, cristinaubac,
gueure gurasuac, Jaungoicuac aguinduten deutscun moduban. Baita obeidu
bere, Jaungoicuac aguinduten deutscun gaucetan.

390

III.

Seme alabac gurasuai obeidu biar deusena gauza jaquina da, cristinaubac.
Nos eta cetaraguino da, icasi biar dana. Santo Tomasec dino (134) umiac gura-
suai obeidu biar deusela, arimiaren oneraco ta echeco pamelijaren oneraco ta
covernuraco biar dirian gaucetan. Alan umiac eguin biar davee gurasuen
395 aguinduba: 1. Dotrina icasteco, meza santuba entzuteco, compesatara nosic
bein edo errazoezco demporan juateco aguinduten deutsenian. 2. [207] Lagun
peligruczuaquin ez ibilteco, eche sospechacora ez juateco ta pecatuco ocasi-

(134) 2. 2, q. 104, a. 5.

370 emon da *Ba* 389 Jaungoicuacaguinduten *Ba* 391 deut sena *Ba*

²²⁵ "Uatu": oheratu; (partzipio edo izenondo gisa erabilia; gaixo delako oheratua dagoenaz esaten du).

²²⁶ Ik. Ef 6,4; Kol 3,21.

noetati aparteetaco aguinduten deutseenian. 3. Verba ta canta desonestubac ez esateco, danza peligruzcuetara ez juateco ta liburu indecentiac ez iracurteco aguinduten deutseenian. Oneec pecatuco ocasinoiac dirialaco (135). 4. Gavian echeti premina bagaric ez urteteco, joco chaarretati ta tabernetati alde eguiteco aguinduten deutseenian. 5. Escandaluco edo modu chaarreco jantzija eragozten deutseenian. Umeen vitzi moduraco ondo dan opicijua edo icastia aguinduten deutseenian. 6. Echeco biarretaco, artu emoneco ta saldu edosico²²⁷ gaucetan umiac obeidu biar deutsee gurasuai, gurasuen aguinduban dagozan artian. Gauza oneetan gurasuen esana ta aguinduba ez eguitia, beti da pecatu. Gauza andijan bada, pecatu andija ta gauza chiquijan bada, pecatu chiquija.

Ez da popuertzacua umiac gurasuai obeidutia euren estadubaren gainian. Jaungoicuac emoten deutsa escubidia cristinaubari, ceruba irabazteco onduen derichon estaduba artuteco. Ta gurasuac galarazo ezin leguijue umiari estaduco libertadia. Eguija da, Eleisiaren eracuslaac dinuenez, pecatu da umiac gurasuai contu emon bagaric, eria daucala edo euraquin vitzi dala, ezcontzia eguitia. Estaduba artutia gauza andija dalaco ta, edola bere, gurasuac jaquin biar daveelaco. Umiac ez deutsee obeidu biar gurasuai pecatu eguiteco edo pe- [208]catuco ocasinoe aguirira aguinduten deutseenian. Bada, leenago da Jaungoicuari obeidutia, gurasuai baino. Ta Jaungoicuac aguinduten dau peccaturic ez eguiteco, ez munduco guztiac gaiti, ez mundu guztia gaiti bere.

Beguiratu eguizu bada, cristinauba, celan maite izan biar ditugun gueure gurasuac; celan ondrau biar ditugun, bai vitzi dirian artian, baita ill da guero bere; ta azquenian celan obeidu biar deutsegun ta eguin biar ditugun euren aguindubac, al izan ezquero, pecatu ez dirian gauzetan. Artu daigun Jesus maitiaren exempluba, cristinaubac, gauza onetan bere. Bada, izanic ceruben ta luurren jaubia, izanic Jaungoico eguijazcua, Jesus humildiac obeidu eutseen bere amari ta aita ordeuari. San Joseperen ta Ama Virginiaren esana eguiten evan Jesusec munduban, dino evangelijo santubac. ¡Oh Jesus, guraso guztien gurasua! Eracutsi eguijezu, bada, guraso guztiai, euren umiac doctina onian, humilde ta cristinau eguijazco azten. ¡Oh Jesus, Jaungoico gueure ona gaiti umetuba! Izan zaitez ceu seme alaba guztien guraso biguna. Artu gaizuz guztioce ceure gracijaren ta bildur santubaren catiapian²²⁸. Viztu eguizu gueure gogua ceu maite izateco, ceu ondretaco ta ceuri obeidutece beste guztiai baino leenago; ta ceure ondoric, gueure gurasuai zor deutsegun maitetasuna, ondría ta ob[e]idutia pagueetaco, ta beti ceruban ceugaz vitzi izateco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

(135) Catec. Rom. 6. precep. n. 11.

414 edolabere *Ba*

²²⁷ Forma normala "erosi" da; "edosi" hiru bider dator obra osoan barrena.

²²⁸ Hitz honen -a itsatsia ez da batere ziurra tradizioan eta "kate" forman arautu dute hiztegi baturako; hala ere, gure idazleak -a itsatsi eta guzti idazten du; beste atal batzuetan ere "catia senduagaz"...

[209]

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

*Aita Santu Erromacuari, obispo jaunai... erregue jaunai...
zor deutseegun ondria ta aguindubac eguitia.*

- 440 Esanda gueratu da, cristinaubac, leengo icasiquizunian, laugarren aguindu santuban sartuten diriala ez bacarric gurasuac eta umiac, ez bada baita gueure arimen arduraraco ta vitzitziaren conturaco Jaungoicuac bere ordian imini deuscuzanac bere; ceintzuc dirian Elexa Ama santiaren serbizailaac edo sacerdotiac ta erreinuben ta errijen burubac. Erregue jaunac ta aren ordian errijac
- 445 gobernetan ditubenac. Oneec dira, leleenguac gueure aimen gurasuac ta bigarrenac gueure aciendiaren, ondriaren ta, ascotan, vitzitziaren gurasuac edo gordezailiac. Jaungoicuac aguinduten deutsu onei guztioi, jagocuen moduban ta lecuban, lotsa ona ta errespeto ona ecarteco. Eurac ondretaco, euren aguindubac eguiteco ta Jaungoicuari aparteco goguagaz eurac gaiti erregututeco.
- 450 Eguinbiar oni cerubac escatuten deutsun leguez cobru emoteco, iracatsi onetan esango deutsut, *cer zor deutsagun Aita Santu Erromacuari, cer obispo jaunari, cer cura ta sacerdote jaunai, cer erregue jaunai ta* [210] *cer juezai*. Entzun eguizu, cristinaubac, icasteco gogo onagaz.

I.

- 455 Aita Santu Erromacua da, Jesucristo gueure Jaunaren ordecua luurrian. Eleisa guztiaren buruba. Cristindade guztiaren pedeco ta oitura santubeetaco aguintarija. Gueure arimen oneraco gaucetan cardenal, patriarca, obispo, erregue, aguintari ta cristinau guztiac entzun biar deutseena. San Pedroren ta aren ondorengo Aita Santu Erromacuen escubetan ichi ditu Jesucristo gueure Jaunac
- 460 ceruco guiltz santubac. Aita Santu Erromacuari emon eutsan Jesus gueure Librazailiac, guizonai pecatubac parcatuteco edo ez parcatuteco alizatia edo *poderia*. Baita Eleisa guztien arduria bere. Aita Santu Erromacua, Eleisa guztiaren buruba dan leguez, bera da impernuco etsaijaren, erege gaistuen ta Eleisa Ama santiaren arerijuen tiroric gueijen ta andijenac artuten ditubana. Bera da
- 465 Jaungoicuaren socorruba ta Espiritu Santubaren gracia onduen ta ugarijen biar

441 ez bada *Ba* 447 gorde zailiac *Ba* 450 Eguin biar *Ba* 455 Erromacua] Erromacuaren *Ba baina* Erromacua *Uts-eguiteen ezauberian*

davena, Eleisa Ama santia covernetaco edo zaintuteco, ta cristinau piel guztiai ceruraco vide zucenac eracusteco. Au gaiti estimau, ondrau ta amau biar dogu cristinau guztioac Aita Santu Erromacua ta erregutu biar deutsagu Jaungoicuari bere osasuna, ontasuna, aciertuba ta arimaco gracia gaiti, guztien luurreco guraso nausija dalaco. 470

II.

Obispo jaunac gaiti beste aimbeste eguin biar dogu. Endamas gueure obispo jauna gaiti. Obispo jaunac dira apostoluben ordecuac [211] luurrian. Eurac imini ditu Jaungoicuac erreinubetan zabalduta Aita Santu Erromacuaren urrengo, Eleisaco pedia ta dotrinia zaintuteco, gordetaco ta cristinau pielai gorde eraguiteco. Eurac sacerdote eguin biar ditubee guizonac; beti oinian egon dedin ordiaco sacramentu santuba, ta vizi dedin guiza aldiric guiza aldira mundubaren amairaguino cristindadia edo Jesucristoren Eleisia. Obispo jaunac ezautu biar davee sacerdote, compesore, predicadore ta arima gordezailen jaquiturija, ontasuna ta vizi moduba, sacramentu santubac ta arimen eracuste ona noren escubetan isten dituben, jaquiteco. Obispo jaunac dira gueure arimen gurasuac, ardura andijac, cereguin andijac ta contu emoquizun estubac dauquezanac. Orregaiti amau biar ditugu, estimau biar ditugu ta jaso biar ditugu obispo jaunac. Ta erregutu biar deutsagu Jaungoicuari cansau bagaric eurac gaiti. Baita eguin bere eureen aguindubac chito ciur ta gogo prestagaz, gueure guraso onac dirialaco. 475 480 485

III.

Cura jaunac ta sacerdotiac, bai abadiac ta bai prailiac, oraindino urragoti zaintuten ditubee gueure arimac, impernucos etsaijac, mundu gaistuac ta aragui labanac engainau ta goitu ez daguizan ceruraco bideetan. Cura jaunac ta sacerdotiac dira gueure arimen arguijac, gueure eracuslaac, gueure graciaren bideguinac, gueure arerijuen bildurgarrijac. Eurac dira gueuri cer eguin biar dogun eracusteco ispilubac, gueure peligruben celatarijac, gueure [212] conciencijen jaubi ac ta jaolaac, gueure pecatuben parcazailiac, peccatarijagaz Jaungoicuaren arteco baqueguinac. Edo guztia verba baten esateco Malaquias propeta santubagaz (136), sacerdoten ezpanac ta aua dira ceruco iturri vitzijetaco gracijac ta ontasunac gueure arimetara iragoteco cainubac. 490 495

¿Noc prediquetan deutsu Jaungoicuaren verbia? ¿Noc eracusten deutsu Jaungoicuaren naija? ¿Noc ecarten dau verba bigaz altara santura Jesus

(136) C. 2.

500

Jaungoico vitzija? ¿Noc arinduten dau zure conciencijaco cargaia? ¿Noc parca-
tuten deutsuz ceure pecatubac? ¿Noc emoten deutsuz sacramentu santubac?
¿Noc animau, sendotu ta consoletan zaitu ceure erijotzaco ordu tristian? Cura
jaunac ta sacerdotiac. ¿Ceimbat bidar eldu zara compesoriaren oinetara, ceure
505 pecatu andijac ta ezainac larrituta, lotsatuta, bildurtuta, areen carga astuna jaso
ezin dozula, casic izerdija darijazula²²⁹ ta ceure salbacinoi[algaz dudetan asten
zariala? ¿Ta ceimbat bidar jagui zara compesoriaren beraren oinetati, vitzuta,
poztuta, consolauta, ceure pecatu andijeen carga guztia berari ezarrita, beste
bat bacina leguez, inos peccaturic eguin ez bacendu leguez, compesore jauna-
510 ren caridadia, celua, ontasuna, paciencia, moduba ta ataraco alizatia dala
medijo? ¿Ceinec munduban bestec eguin eusquezun á²³⁰ mesedia? ¿Ceinec bes-
tec emon eusquion orduban zure arima triste ta larrijari á baquia? ¿Á poza? ¿Á
atseguina? ¿Á so-[213]siguba? ¿Á segurutasuna? Munduco batec bere ez.
Compesore batec baino bestec inoc bere ez luurraren gainian.

515 Sinistu daigun bada, cristinaubac, Jaungoicuac emon deuscuazala eleisa
guizonac gueure arimen oneraco. Jaungoicuaren ordecuac diriala luurraren
gainian. Beguiratu biar deutsegula errespeto andijagaz. Amau biar ditugula,
gueure guraso onac dirialaco. Eguin biar ditugula euren aguindubac, sailari
jagocan moduban. Estimau, zaintu ta jaso biar dogula euren ondria. Sinistu biar
520 dogu, chito pecatu andija dala eleisa guizonac, nai Aita Santu Erromacua, nai
obispo jaunac, nai cura jaunac, nai beste sacerdote edo religiosuac aotan gais-
qui erabiltia; areen esanen ta aguinduben gainian burla eguitia, edo eleisa gui-
zonac desprecijetia. Jesucristo gueure Jaunac ichi cituban bere ordecozat elei-
sa guizonac ta berac esan eutseen guztiai: *zeubei entzuten deusunac, neuri*
525 *entzuten deust, ta zubez desprecijeetan zaitubanac, neu desprecijetan nau*
(137).

Jaungoicuaren aguindu santuba icusi ezquero eleisa guizonac ondretaco,
¿Cer esan legui, neure entzula onac, aimbeste verba ezain ta desondragarri en-
tzuten dirianian sacerdote jaunac gaiti? Edo dala ecandu galduba gaiti, edo dala
530 conciencia nasaijac gaiti, edo dala orraco pede gaistoco errijetati Espaina
sagradura etorri dan iracatsi madaricatuba gaiti, ya esan legui cristinauben cere-
guinetati ez dala [214]chicarrrena eleisa guizonen paltac jaquitia, esatia, entzu-
tia, gueitutia, azaldeetia ta zabaldutia. Cain madaricatuba leguez, arimaco gura-
suen descuido bat icusi daijeeneco, arin aringa, pozca ta barreca duaz, agui-
535 rianai contetara. Abade baten edo praile baten palta bat, guzurrezcua edo

(137) Luc. c. 10.

504 elduzara *Ba* 507 jaguizara *Ba* 510 al izatia *Ba* 514 luurraren] luurrarren *Ba*
531 ya] ija *Ba*

²²⁹ Aditz trinkoekin, gune horretan, berez -o- dena -a- bihurtzeko joera du.

²³⁰ Ik. *Esku*-ko 120.oharra (593.or.).

eguijazcua entzuten badavee, guztiac sarian sartuten ditubee, ez deutsee parcatuten euren miin gaistuagaz, ez zaarri ta ez gazteri, ez sendori ta ez argali. Eleisaco estadubaren contra, eleisa guizonen contra dira tiro guztiac dempora desdichau onetan. Sospechaco ta erichico paltaac, sacerdotenac izan ezquero, 540
salduten dira ta edosten dira pocic eguijazcotzat. Destajuzcuac, zucentzat. Ta aguiricoric ez badauca, intencinoia izango dau charra. Asco da eleisa guizona izatia, paltsua edo gaistua izateco munduco ascoren miinian. Orain esaten dodan au berau gaiti, pensauco dozu ascoc, neure ondria jasoten dodala. Bada, jaquin biar dozu, nagan lecuban nagualaco ta alan verba eguitia ceu- 545
ben arimen calte andijan dalaco ta eleisa guizonen ondra ona onan erabili ez daguizun, esaten deutsudala. Bestelan zuben esanac pena andiric emoten ez deustee.

Ez dogu esaten, cristinaubac, eleisa guizon guztioac gariala santubac, ezbadada eleisa guizon guztiai zor deutsegula lotsa ona, ondra ona ta maitetasuna. Au 550
Jaungoicuaren aguinduba da. Guztiac eguin biar daveena da. Ez dago estaduric paltadunac ez daucazanic. *Nire es[215]taduba aimbat oneena izan arren* , dino san Agustinec (138), *guizona nas ta guizonen artian vitzi nas. Ez nas azartuten* , dua santuba esanaz, *neure echia obia dala, esaten, Noerena baino; baina an bere bat condenau zan. Edo Abraanena baino obia dala; baina andi* 555
bere Jaungoicuac ama semiac campora bota cituban. Edo Isaac patriarca san tubarena baino obia dala; baina an bere seme bata gaistua zan. Edo Jacorena baino obia dala; baina an bere entzuten da, semiac senidiagaz pecatu eguin evala. Edo David erreguiarena baino obia dala; baina an bere seme batac arrebiagaz pecatu eguin evan. Ta bestia aita mansuaren contra armaac artu - 560
ta jagui zan. Edo Jesucristo gueure Jaunagaz vitzi zan pamelija baino obia dala; baina an bere amabiren artian Judas bat paltsua zan ta Jesus, bere Aita maitegarrija saldu eutsen judegubai. Ez nas azartuten , dino azquenian santubac, *neure echia edo estaduba obia dala esaten, ceruba baino; baina ceruti bere jausi cirian aingerubac impernura* . 565

Onaco humildadiagaz ta euren buruben ezauberriagaz verba eguiten davee Eleisiaren Gurasuac, estaduric santubeneco paltaac ta paltadunac gaiti. Ez mundutarrac leguez, sacerdote baten palta bat icusi edo entzun daguijeneco, barre, chistu, gueitu, zabaldu ta sacerdote guztiai ezarri. ¿Ezcondu batec adulterijuac eguiten ditubalaco, esaten dozu ezcondu guztiac [216] diriala adulterijo guinac? ¿Ezconduben artian ordi asco dagozalaco, lapur asco dagozalaco, drogueru asco dagozalaco, logreru asco dagozalaco, paltso asco dagozalaco, codicioso asco dagozalaco, arro asco dagozalaco, zequen asco dagozalaco, 570

(138) Marchant. Ort. Past., l. 3, trat. 3, Lect. 2.

546-547 ez daguizun] esdaguizun *Ba* 549-550 Ez bada *Ba* 561 jaguizan *Ba* 570-571 adulterijoguinaic] adulterijo guinaic *Ba*

- 575 zital asco dagozalaco, esaten dozu ezcondu guztia diriala alacuac? Ez. Ceuben
 estadubaren ondria nai dozu gorde daguizuben, gaisto asco estadu atan egon
 arren. Bada, eleisa guizonen estadubaren ondria Jaungoicuac bere contura
 artuta dauca. Ta bein baino gueijagotan castigu icaragarrijaquin aituten emon
 dau, berac zaintuco davena.
- 580 Moises sacerdotiaren contra murmurau evalaco, lepra gaisto betegaz jantzi
 evan Jaungoicuac Maria, Moisen beraren arreb²³¹. Core, Datan ta Abiron,
 Aaron sacerdotiaren contra murmurau eveelaco ta sacerdote jauna desprecijau
 eveelaco²³², lurrac iruntsi cituban vitziric impernura. Eliseo propeta santubari
 burla eguin eutseelaco, berrogueta bi mutil ito cituben era batera otsuac²³³.
- 585 Elias Jaungoicuaren sacerdotia desprecijadu ebalaco capitana batec, ceruti jatsi-
 tacio subac bertan erre eban capitana soldau guztiaquin²³⁴. ¡Ah cristinaubac!
 Jesucristo bera desprecijeetia da sacerdote jaunen contra verba eguitia. Eracutsi
 lecuban jarrico dira sacerdotiac, dino Jesucristoc (139), ta eguizu zubec, eurac
 esaten deutesubena; ta ez eguizu eguin, ona ez bada, eurac eguiten daveena.
- 590 Onegaz eracusten deutescu Jesus maitiac, eleisa guizonen paltaac [217] bere
 contura dagozala. Ta cristinaubari jagocana dala, sacerdotiac ondreetia ta euren
 eracutsija eguitia.

IV.

- Erregue Jaunai bere zor deutsegu laugarren aguinduban lotsa ona, agui-
 595 dubac eguitia ta maite izatia. Erregue jaunac dira erreinu guztiaren burubac.
 Jaungoicuaren gaucetaraco leleengua dan leguez cristindade guztian Aita Santu
 Erromacua, alan gueure vitzitzaac, aciendaac ta ondria munduban baque onian
 zaintuteco dira erregue jaunac lelenguac euren erreinuban. Erreinu batec ceim-
 bat arerijo, ceimbat gachequilla ta ceimbat arduraquizun daucazan esaten, ez
 600 da errez. Guerraac, pestiac, gose urtiac, lapurretaac, auzi gaistuac, bide baga-
 co erijotzaac, alper ascoren naija eguin ezinac ta beste gueure burubetara etor-
 ten ez dirian ta gueure oneraco dirian sail andijac gau ta egun biarrian daravi-
 lez erregue jauna ta berari urrengo lagunduten deutseenac. Esan guinai, cris-
 tinaubac, ez daguala eguinquizun bat, ardura gueijago, buru auste gueijago,
 605 naibague gueijago ta arimaraco ta gorputzeraco peligrú gueijago daucanic erre-

 (139) Math. c. 13.

599 ardura quizun *Ba* 604 eguin quizun *Ba* 605 nai bague *Ba*

²³¹ Ik. Zen 12,1-15.

²³² Ik. Zen 16,1-35.

²³³ Ik. 2Erg 2,23-24.

²³⁴ Ik. 2Erg 1,9-10.

gue jaunarena baino. Ta guztia gueure baquia, vitzitzia, osasuna, ondria ta euquiija zaintuteco.

Orregaiti guztion eguinbiarra da: 1. Gueure erregue jauna, Cristoren ungi-
duba dan leguez, beti ondreetia esquer oneco ezauberiagaz ta errespeto andi- 610
jagaz. 2. Jaungoicuari erregututia, gueure erregue jaunari lagundu daguijon
osasunagaz, ceruco arguijagaz ta er-[218]reinu guztico zucen bidiagaz. 3. Eguin
biar ditugu erregue jaunaren aguindubac. Bada, san Pedro apostolubac esaten
badau (140), erregue deungai ta pede bagacuai bere obeiduteco, ta Baruc
propheta santubac esaten beutsen Israeltarrai (141) Nabucodonosor 615
Babilonijaco erreguia gaiti Jaungoicuari erregututeco, ta Eleisiaren lelengo
guiza aldijeetaco aguintarijac Eleisiaren ta cristinauben gaisquinac edo *tira -
nuac* izan arren, cristinaubac ondretan bacitubeen, eurac gaiti oracinoia egui-
ten beeben ta pecatu ez zan gaucetan obeiduten beutsen, ¿ceimbat gueijago
gueure erregue zuzenac, cristinau eguijazcuac, Jaungoicozcuac ta Aita on baten 620
erraija bigunac dauquezanac gaiti eguin biar dogu guc?

V.

Erregue jaunaren urrengo dira ta erreguen lecuban dagoz errijetaco juezac.
Oneec dira errijetaco baque santuba, legue zuzenac ta ordena onac oinian 625
euqui eraguin biar ditubenac. Juezac dira, escandalubac, gavetaco batzaar sos-
pechacuac, ordiquerijac, lapurretac, blaspemijac, maldecinoiac, ibilte desones-
tubac ta beste aguirico pecatubac eragotzi biar ditubeenac. Caridadiagaz ta
modu onagaz, aldaguijenian, ta ezbabere castigubagaz zaintu biar davee euren
errijetaco ordena baquetsuba ta Jaungoicuaren legue santuba. Bada, san Paulo
apostolubac dinuan leguez (142), ez daravilee alperric guerrijan ezpatia, ezba- 630
da Jaungoicuac emonda dauque escubidia juezac, gais-[219]qui eguiten dave-
na castiguetaco, liburu sagradubetan sarri iracurten dan leguez.

Alan Jaungoicuaren aguinduba da, cristinaubac, bai Testamentu Zaarrijan
ta bai evangelijoco iracatsi santuban, juezac ondrau biar dituguna, amau biar 635
dituguna ta euren errijaren oneraco aguindubac eguin biar dituguna. Arima
guztiac, dino Apostolubac (143), guizon eta emacume guztiac egon biar davee
altsu nausijen aguindupian. Alizate guztia dator, bada, Jaungoicuaganic. Alan
aguintarijari gogortuten jacona, Jaungoicuaren ordeniari gogortuten jaco, dino
san Pauloc berac. Ta esaten deutsa Timoteo bere discipulubari (144), erregue 640
jaunac ta juezac edo eguintarijac gaiti erregubac ta oracinoiac eguiteco
Jaungoicuari. Ez dago gauza jaquinagoric, neure entzula onac, cristinauben

(140) 1. Epist. c. 2. (141) c. 1. (142) Rom. c. 13. (143) Ibid. c. 3. (144) [1]Tim. c. 2.

609 eguin biarra *Ba* 610 ezau beriagaz *Ba* 627 eragotzi] eragoizi *Ba* 628 ez babere
Ba 629 baquetsuba] batquetsuba *Ba* 630-631 ez bada *Ba* 642 (Tim. c.) 2] 4 *Ba*

leguian, munduco aguintarijai zor deutsegun lotsia, leijaltasuna ta obeidutia baino.

645 Oneen ondoric dira nausijaguac, ceintzuc ondrau biar ditugun Jaungoicuaren icenian. Bada, Jaungoicuac berac esaten deutsco (145), ondrau daiguzala persona zaarrac ta jagui gaitezala buru urdinaren aurrian. Onegaz aituten emoten deutsco, edadiari euqui biar deutsalotsia. Ta aparteco modubagaz ondrau biar ditugula gueu baino nausijago dirianac, edo gueuri

650 aguinduteco edo zaintuteco escubidia dauqueenac, ceintzuc oi dirian gueure eracuslac edo maisubac, gueure jaolaac edo curadoriac, gueure gurasuen gurasuac edo guraso ordecuac [220] ta zaarraguac. Oneec guztioac sartuten dira laugarren Jaungoicuaren aguinduban.

Ezautu daigun bada, cristinaubac, aguindu onen contuba artuco deustcula

655 Jaungoicuac, besteena leguez. Jaungoicuaren beraren lecuban dagozala eleisa guizon guztiaac, gueure salbacinoeco lanetan biarra eguiteco. Ta baita erregue jaunac ta juezac bere, gueuri munduban vitzi izaten lagunduteco. Ta guztiaac ondrau biar ditugula Jaungoicuaren icenian, ta guztiaac obeidu biar deutseegula, esan dan moduban. Erregutu daijogun, bada, cerubari guztiaac gaiti, emon

660 daigun bere gracia ta betico glorija. Amen.

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ugazaabac otseguinai zor deutseena,
ta otseguinac ugazabai zor deutseena.

665 Tratu baten bitartez ugazabaac ta otseguinac euren burubai ezarten deutseez, neure entzula onac, leenago ez euqueezan eguinbiarrac. Ugazaba batec otseguina echera artuten davenian, cereguin barriac ezarten deutsalots bere burubari. Ta otseguin bat ugazaba servidutera doianian, sartuten da ugazabaren aguindupian. Ta ara emen celan, gurasuac umiai zor deutsezan leguez

670 eguinbiar batzuc ta umiac gurasuai [221] beste batzuc, ugazabaac bere dauqueezan aparteco eguinbiarrac otseguinen oneraco; ta otseguinac ugazaben oneraco.

 (145) (3) Levit. c. 19.

650 oidirian *Ba* 666 eguin biarrac *Ba* 667 cer eguin *Ba* 670 eguin biar *Ba* 671 eguin biarrac *Ba*

Cereguin oneec izentetan ditu san Paulo apostolubac, bai otseguin edo crijadu crijadenac, ta bai ugazaba edo jaunenac. Ta dino Apostolu santubac (146): 675
Otseguin zarianac edo crijadu edo crijada, *obeidu eguijeezu ceuben araguiz* -
co ugazaba edo jaunai bildurragaz ta icariagaz, vijotzeco humildade ta zin -
tzotasunian, Jesucristori berari leguez. Ez aimbeste euren ederra gaiti ta eurac
icusi zaguijezan areen esanac eguinagaz, ez bada Jesucristoren crijladubac 680
leguez, Jaungoicuaren vorondatia gogoz ta vijotzeti eguinagaz. Nai otseguinac 680
ta nai bestelacuac jaquin biar dau, bada, ondo eguinaren sarija artuco davela
Jaungoicuaren escubetati. Ta zuec ugazabaac edo jaunac otseguinac daucazu-
zanoc, beste aimbeste eguin eurai, zamaijac parcatuta edo zamaica beti jardun
bagaric, gogoratubagaz ceruban daguala ceuben otseguineen Jaungoicua, guz-
tien ugazaba, inor bere munduban andija edo chiquija dalaco, goguan gueija- 685
go sartuten ez jacona. Espiritu Santubac san Paulo apostolubaren aoti esanda-
co verba oneetan aguiuri da, cristinaubac, arguiro otseguinac cer zor deutseen
euren ugazabai, ta ugazabac cer zor deutseen euren otseguinai. Alcarri dau-
tseez bitzubeen eguinbiarrac. Ta entzun eguizuz gogo onagaz ceintzuc dirian.

[222]

I.

690

Laugarren aguinduba gordeetaco, otseguinac edo crijadu crijadaac: 1.
Amau biar ditubee ta estimau biar ditubee euren ugazabaac vijotz onagaz,
humildadiagaz ta lotsiagaz Jaungoicuaren lecuban dagozalaco. Otseguin izatia
edo ez izatia noberaren escuban dago. Baina bein otseguinzara juan ezquero,
ugazabari lotsa ona, humildade ta maitetasun eguijazcua eracustia, 695
Jaungoicuaren aguinduba da. 2. Otseguinac obeidu biar deutsee ugazabai:
Bateti, echiaren oneraco biarreetan ta aguindubeetan. Bada, ugazabaren esa-
nac eguiteco ta echia serbiduteco duaz otseguinzara. Besteti, obeidu biar deu-
tsee ugazabai, euren arimeen oneraco errazoez aguinduten deutseezan gauce-
etan. Dotrinia icastia, sacramentu santubac errecibidutia, sermoetara ta leisaco 700
cereguin santubeetara juatia, errosarijo santuba erreceetia, ta beste eureen ari-
meen oneraco dirian ta erreztu eguin al daguijeezan gauzaac ugazabac aguin-
du ezquero, eguin biar ditubee otseguinac. Beste aimbeste, pecatuti alderatu-
teco aguinduten deutseenian. Edo joco gaistoric ez eguiteco, edo maldicinoe-
ric ez esateco, edo gavian echeti ez urteteo, edo pecatuzco dantzeetara, adis- 705
quide deunguetara eta eche sospechacuetara ez juateco, edo jantzi indecentiac
ez erabilteco, nai beste pecatu edo pecatuco peligruba dan gauzia ugazabac

(146) Ephes. c. 6.

679 Ez bada *Ba* 684 ots eguineen *Ba* 689 eguin biarrac *Ba* 692 biarditubee *Ba*
701 cer eguin *Ba* 702 aldaguijeezan *Ba*

710 aguinu ezquero, eguin biar dau otseguinac. Ta esan biar dau compesinoian,
 beste pecatuben gainera, ugazabaren aguindubaren contra eguin evana onaco
 edo alaco gauza. [223] 3. Otseguinac beguiratu biar deutsee ardura andijagaz
 ugazabaren gauzai, endamas bere contura ugazabac ichi ditubanai. Onen contra
 715 otseguinac eguiten davee pecatu: Leleengo: jagocuen beste biar eguin eza-
 gaz. Bigarrenian: eureen paltaz ugazabaren gauzaac galdubagaz. Irugarrenian:
 biar daveen baino gueijago castaubagaz, nai gulerijeetan, nai isilicaco asmue-
 720 tan, nai euren contura dagozan echeco gauceetan. Laugarrenian: Ugazabeen
 naija bagaric, echeco gauzaac inori emonagaz. Bostgarrenian: Echeco gauzaac
 ostubagaz. Ta erabatera asco izan ez arren, lapurreta chiquijac alcarri badau-
 tsaz, eguiten davee pecatu andija, gauza andira elduten danian. (147) Alperric
 725 da esatia, soldata chiquija emoten deutseela. Andijagua escatu baino ez dauca.
 Edo andijagua emoten deutseen lecura jua. Bost jazo oneetan, esan dan
 moduban, otseguinac calte andija eguiten badeutsa ugazabari, viurtu biar deu-
 tsa atzera quendu edo galdu deutsan beste. Bada, ugazabac, tratuba eguin
 eban leguez soldatia ta janarija emon ezquero, gueijago zor ez deuta. Ta andi
 730 gainera otseguinac bere erruz galdu eraguiten deutsana, oostuba leguez da. Ta
 jaubiari biurtu biar jacona da.

Oneec dira, cristinaubac, otseguinen cereguin nausijac euren ugazaben
 ondraraco ta oneraraco. Onezaz ostian otseguinac estimau ta maite izan biar
 davee echia ta echeco gentia, guztiac pamelija batecuac dirian leguez. [224]
 730 Euren ontasanari jagoca, echian jazoten dirian paltaac, descuiduac ta isilgau-
 zaac²³⁵, laatzac ezcutau biar ditubanac, campuan ez esatia ta ugazaben ondra
 ona ta cleitu ona gordetia. Bada, guztiac gorroto deutsen gauzia da, otseguin
 baten auan ugazaben paltaac, genijuac, descuiduac, asarriac ta echeco pameli-
 jaren arteco casic popuertzaco argaltasunac ta gueurezco miserijaac ibiltia.
 735 Otseguin humildiac, zinzuac, isilac, esan onecuac, Jaungoicozcuac eta biargui-
 nac dira cerubac eta mundubac estimetan ditubanac. Ta duda bagaric
 Jaungoicuac emongo deutsee otseguintza onaren sarija euren erijotzaco ordu-
 ban. Baita ugazabai bere, otseguinai beste aimbeste eguiten badeutsee,
 Jaungoicuac aguinduten deutsen leguez. Icusi daigun, bada, ugazabaac otse-
 740 guinai cer zor deutsen.

 (147) Prop. cond. 37. Inoc. XI.

 719 pecatu] pecata *Ba* 727 cer eguin *Ba*

²³⁵ Begira zein esapide polita! "Isilgauzaac", isilik gorde behar direnak adierazteko, *la[r]latzac ezcutau biar ditubanac* dio.

II.

Ugazaba edo jaun dirian guztiac gogoratu biar davee, leleengo, ez daguala Jaungoicuaren aurrian ya erabaguiric, andija edo chiquija dalaco, aberatsa edo pobria dalaco, jasua edo bajucua dalaco, jaquituna edo ez jaquina dalaco. 745
 Ezbada gentila ta judeguba, circuncidauba ta aimbagacua, barbarua ta escitia²³⁶, crijaduba ta ugazaba, nai dan sortuera edo vitzieracua, guztiac diriala Jaungoicuarenac, ta onac izan ezquero, guztietan daguala Cristo gure Jauna (148). Gomuta onegaz aisaatu²³⁷ daiqueez munduco jaunac, aberatsac ta ugazabaac euren burubetan vanidadiac sortu oi [225] dituban queiac, erichi arruac ta 750
 andiari irago gaistocuc²³⁸. Bada, Jaungoicuac, guztien Jaun bacarrac, Ugazaba bacarrac ta Aita onac, gueijago gura deutsa pobre zintzuari, aberats arruari baino. Gueijago crijadu leijal ta zuzenari, ugazaba aisaatubari ta vijotz gogorecuari baino. Guztioac gara Jaungoicuaren crijadubac. ¡Ta ojala baguina zintzuac! San Paulo apostolubac bere ondraric andijentzat contetan evan 755
 Jesucristoren crijadu izatia²³⁹. ¿Ta ceimbat ugazaba ta jaun viurtu dira crijadu izatera? ¿Ceimbat crijadu pobre eldu dira ugazaba ta Jaun andi izatera? ¡Ah! Murmurau begui mundu gaistuac onaco jazo ascoren gainian. Baina eurac dira Jaungoico altsuac bere jaquiturija amai bagacuan ondo neurtuta daucazan eguitadiac. Eurac dira gueure beguijen vistati quendu biar ez ditugunac. Ta 760
 endamas, edo euquijagaz, edo entzutiagaz, edo jaquiturijagaz, edo aguintutiagaz, edo inoren mesediagaz beste gentiaren arteti goraago igon daveenac. Oneec ezautu biar davee, beerago ichi ditubeenac bere, Jaungoicuarenac diriala. Ta eurac jaso ditubanac areec bere jaso euquezala, gura izan baleu. Ta munduban ichi baditu luurraren urraago crijadu crijadaac ugazaben aguintupian, 765
 ceruban goraago jasoteco ichi ditubala menturaz.

Prestaera onegaz esaten jacue ugazabai:

1. Amau ta estimau biar ditubeela euren otseguinac vijotzeta, euren umiac balira leguez.
2. Otseguinac ez badaquijee doctrinia ondo, eracutsi [226] biar deutsee 770
 ugazabaac, edo noc eracutsi imini, edo icasteco bidia emon bateti edo besteti.

 (148) Ad Colos. c. 3.

746 Ez bada *Ba* 757 crijadu] cridaju *Ba*

²³⁶ "Eszitiarrak": herri "barbaroa" (2M 4,47; Kol 3,11); Irango nomadak dira, gerora Ukranian kokatu zirenak. Herodotok dioenez, Kristo aurretiko 625. urtean gutxi gorabehera, arpilaketa handiak egin zituzten Egiptoko muga inguruan...

²³⁷ "Aisaatu": (s-z nahiz x-z idatzirik dator testuetan barrena) uxatu, haizatu, aldendu.

²³⁸ "Irago gaistoco": galtzen zaila dena, iraunkorra; ("persistente" itzultzen dute gaztelaniara).

²³⁹ San Paulok "Jesukristoren zerbitzari" izena ematen dio bere buruari (Erm 1,1-2; 1Ko 4,1; Ga 1,10), "Jainkoaren zerbitzari eta Jesukristoren apostolu" (Tt 1,1-2).

Bada, ugazaben contura dagoz otseguinac, ta ugazabaac Jaungoicuari contu emon biarco deutsee eurac gaiti.

775 3. Otseguinai emon biar deutsee ugazabaac demporia, eheco laneen ta eguinbiar oi dirianen calte bagaric, sacramentu santubac errecibiduteco, Eleisaco cereguinetara juateco ta cristinau eguijazgo baten vitzi moduba iragoteco. Bada, bere arimiaren caltian ez dua inor bere otseguintzara, ta juan bere biar ez dau.

780 4. Eragotzi biar deutzaz ugazabac otseguinari pecatu dirian gauzac. Pecatuzco esanac edo eguinac, pecatuzco ecandubac, egotiac, ibiltiac, echiac eta lagunac, guraso batec umiari leguez. Bada, ugazabac neurrija iminita, contu artuten ez badeutsa otseguinari onaco Jaungoicuaren ondraraco ta bere arimiaren oneraco eguin biarretan, bestec ez deutsa artuco. Ta gueratuco da otseguina ezi bagacua, cristinautasun bagacua, lotsa on bagacua ta Jaungoicuaren bildur bagacua. Ta au guztiau izango da ugazabaren erruba.

790 Baquit ugazaba ascoc esango daveena: ¡Lastima andijan! *Otsegunai esija iminten asi ezquero, edo euren ibiltiac galaraco ezquero, areequin baqueric ecin legujala; biarric eguin gura ez daveela; edo echeti urteten dabeela; Jaungoicozco otseguin bat topau ecin legujala...* Achequija oneec ez dave baliyo Jaungoicuaren aurrian. Ugazabaac badira Jaungoicozcuac, topauco ditubee otseguinac Jaungoicozcuac. Bai-[227]na dan moduban dala, ugazaben eguinbiarra da, otseguinac echian dauquezan artian, onei contu eguitia ta Jaungoicuaren contraco gauzaac eragotzia. Eheco pamelijaren arduria ez daucana, dino Apostolu santubac (149), gentila baino deungaago dala. ¿Ta ce pamelijaren ardura dauca, otseguinari nai daben nasaitasun ta ibilera pecatuzcuac, gabaz ta egunaz, echian ta campuan, biarra eguin daguijan, parcatuten deutzazan ugazabac? Biar madaricatuba da alacua. Ta gentilla baino oba ez dana alaco ugazaba.

800 5. Ugazabac emon biar deutsa otseguinari echiac dacarren janarija, gosez euqui bagaric. Jan urrija ta gosezco maija dagan echian, otseguinac urteric baino lapurreta gueijago eguingo dau.

805 6. Ez deutsa ugazabac otseguinari, edadiac, opicijuac ta errazoe onac aguinduten daven baino biar gueijago eraguin biar. Ez ditu ugazabac otseguinac biar alperrerijaraco, leen esan dan leguez. Baina, ezda gau ta egun etenaz, arrastaca, vitsa darijuela, biarran beti erabilteco bere. Bagoz ugazaba batzuc otseguineen biarragaz inos aspertuten ez dirianac. ¿Ce gauza andi da, bada, alaco ugazabaac inos crijadu edo crijada on bat ez euquitia? ¿Beti ituaz biarpian? ¿Beti ugazabac otseguinaren biarrari guichi derichola? ¿Nai leuque otse-

810 -----
(149) 1. ad Tim. c. 5.

776 eguin biar oidirianen Ba 778 inorbere Ba 784 gueratuco] guerataco Ba 793 eguin biarra Ba 796 naidaben Ba 805 ez da Ba 808-809 biar pian Ba 810 Tim.] Thim. Ba

guin Jaungoicozcuac echian euquitia? Ta oni ezarten bajaco gosia, orduban izango da eche ondrauba otseguin zintzuac ta Jaungoicozcuac [228] topeetaco. ¡Oh ceimbat ugazaba zequen ta codicioso dagozan, otseguinari zanetaco odola bere chupauco leusquijuenac, al balegujee! Ez dira otseguinac sobraubac. Ez dira edosijac. Cristinaubac dira. Gueure anaiac dira. Gueu edu Jesucristori costa 815
 jacozanac dira. ¿Ce pozgarri emoten deutsee, bada, alaco ugazabaac euren otseguinai, biar gueijago eraguin daguijuen? Conciencijaco libertadia. Biarra eguin ezquero eureen gustora, atiac zabalac dauqueez alaco echeetan otseguinac gavaz (nai egunaz, jaijegen santuba biarric ecin leguijana izan ezquero) vigu-
 retara, joco gaistuetara, erromediya ta piesta pecatuzcuetara, eche edo lagun 820
 sospechacuetara, edo jaquinico pecatuzcuetara juateco. ¡Oh penagarrija! Zurtu, zurtu ugazabaac. Ceuben umiac ez badira bere, ceuben umien lecuban artu dituzunac dira. Ceuben umiac balira leguez, Jaungoicuari contu emon biarco deutzazuzanac dira.

7. Ez jaco otseguinari biar eragotzitacoric eraguin biar domeeca ta jai osue- 825
 tan. Noberac eguitia leguez da otseguinari eraguitia. ¡Ceimbat otseguinec jai santubac iragoten ditubee euren erropaac adabetan, astegun baten puntada bat eurentzat eguiten isteen ez deutsee! Ugazabac zor deutsa otseguinari, beste gauzaric tratuban irago ez beeben. Otseguinzaco errazoiac au escatuten dau.

8. Erabaguita dauquen soldatia emon biar deutsee otseguinai zuzen. 830
 Azquenian, aparteco errazoeric ez dauqueela, ez ditubee [229] otseguinac echeti atera biar, urtia edo dempora icentauba eldu artian, otseguinac cleituban calteric euqui ez daguijeen. Oneec dira, cristinaubac, ugazaben eguin biar nausijac euren otseguinen gainian. Oni darraico otseguinari verba deungaric ez esatia, exemplu deungaric ez emotia, inoren gauciari, guichijan izan arren, ora-
 tuteco ta echera ecarteco ez aguindutia, arpeguiera astunic edo gorrotocoric ez 835
 eracustia. Maite izatia, carinoz ta verba bigunaquin biarra eraguitia, ta beste guraso on bati bere umentzaco jagocan guztia.

Chito gauza chaarra da, otseguinac gaiti leen esan dan leguez, ugazabaac euren otseguinen paltaac ta descuiduac azaldeetia. Bagoz ugazaba batzuc, inos 840
 otseguin chaarric izan ez daveenac. ¿Ta cegaiti? Euren cristinautasunagaz, vijotz bigunagaz, ordu oneco esan lotsa onecuagaz, paciencijagaz ta otseguinen arimaco, osasuneco ta gorputzeco ardura ona ta presta artubagaz, beguiratuten deutsee! Otseguinac ain onac izan ez arren lelunguan, dacutse-
 enian aita on bat edo ama on bat ugazabaren lecuban, artuten davee gogo 845
 barrija, echiari ta eheco gauza guztiai ondo beguiratuteco, euren ugazaba ona ta ondraduba maite izateco ta estimeetaco, guraso on bat balitz leguez. Beste batzuc inos bere ez oi davee otseguin onic. ¿Ta cegaiti? Esanda gueratu da zati

814 albalegujee *Ba* 816 euren] enreu *Ba* 847 balitz] batliz *Ba* 848 oidavee *Ba* |
 Esan da *Ba*

bat. Onen ondoric ez guichien dana, ugazabaac euren otseguinen paltaac
 850 zabaldua, ecandu galduba da. ¿Ez davee otse-[230]guinac biar euren ondria ta
 cleituba? ¿Ez davee munduban vitzi biar? ¿Ceuben umen paltaac alan azaldee-
 tan dituzu? Bada, otseguinac bere Jaungoicuarenac dira ta zor jacue ondra ona.
 Palta bagacoric inor bere ez dago. Ugazabari jagocana da, otseguinaren palta-
 855 ac aleguinaz erremedijeetia. Ondo esanagaz, paciencijagaz, lotsa onagaz ta
 itzalagaz, ta ascotan zurria emonagaz otseguina oquerra ta gaistua bada, escu-
 ratu ta ondu biar dau ugazabac, inundi al badai. Palta andijac badaucaz otse-
 guinac, lotsa gaistocua bada, obeidu gura ez badeutsa ugazabari ta zucendu
 ezin badau, demporia davenian echeti atera, edo leenago, preminiac escatuten
 badau. Baina ez otseguinaren paltaac zabaldu. Au caridadiaren contra beti da.
 860 Ta ascotan zuentasunaren contra bere bai.

Ez bada aaztu, neure entzula onac, laugarren aguinduco eguinquizune-
 quin. Gurasuac amau beguijeez seme alabaac Jaungoicuaren icenian ta azico
 ditubee ceruraco. Umiai eracutsi bequijee chiquitati Jaungoicuaren dotrinia,
 pecatubaren bildurra ta ceruco ondasunen gurarija, ta eurac izango dira ume
 865 onac, zintzuac, Jaungoicozcuac ta esanecucac. Sacerdote jaunetan gogoratu dai-
 gun Jesucristo gueure Jauna bera, ceinen crijadu urrecuac dirian sacerdote guz-
 tiac. Orduban amauco ditugu ta ondrauco ditugu sacerdote guztia, bacocho
 bere lecuban, Aita Santu Erromacua, obispo jaunac, cura jaunac ta beste guz-
 tiac. Erregue jaunai ta juezai beguiratu daijeegun gueure [231] onguila andijai
 870 leguez, eurac zaintuten daveelaco gueure erreinuco, errijeetaco ta echeetaco
 baque ona ta euquijaren zuentasuna. Orduban esquerrac emongo deutseeguz,
 lelengo Jaungoico onari ta guero gueure aguintarijai. Ontzat artuco ditugu
 euren aguindubac, ta cobru emongo deutseegu gogo onagaz. Ugazabaac sinis-
 tu beguijee, umen lecuban dauqueezala otseguinac; ta eurac estimauco ditu-
 875 bee, maitetuco ditubee ta beguiratuco deutsee otseguinai arimaco ta gorputze-
 co premineetan, eureenac balira leguez. Ta orduban euquico ditubee auque-
 raco otseguinac ta guztia gordeco davee laugarren aguinduba.

Escatu deijogun²⁴⁰ gracia andi au Ama Virgina guztiz santiari. Bera da
 Jaungoicuaren Ama, sacerdote guztien Ama, erregue ta aguintari guztien Ama,
 880 guraso ta ume guztien Ama, ugazaba ta otseguin guztien Ama. Izan zaitez ceu,
 Ama erruquiorra, Jesus ceure seme maitiaren aurrian gueure vitarteco seguru-
 ba, jadichi daigun mesede santa²⁴¹ au, ta onegaz ceure gracia ta ceruco glori-
 ja. Amen.

856 albadai *Ba*

²⁴⁰ Forma normala "escatu da ijogun" da; hauxe da *-ei-* egiten duen kasu bakarra.

²⁴¹ Inprimategiko hutsa izan daiteke, oso bitxia baita "mesede"ren izenondoa genero feme-
 ninoaren markaz agertzea.

[231]

BOSTGARREN AGUINDUBA

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
celan aitu biar dan inor ez illtia.

Nos ez dan pecatu inor illtia. Ta ce pecatu andija dan inor illtia. 5

I.

Bostgarren lecuban aguinduten deuscu, neure cristinaubac, Jaungoicuac inor ez illteco. *Non occides*²⁴². Gauza bi Jaungoicuac escatuten deutzuzala aguindu onetan, dino Erromaco Catecismuac (150): Bata da inor ez illtia. Ta bestia, arerijuac ta adisquidiac, proximo guztiac maite izatia, guztiaquin baquia euquitia ta besten paltaac paciencijagaz iragotia. Gueure lagunac edo proximuac celan maite izan biar ditugun; ta arerijui gach eguinac celan ta cetaraguino parcatu biar deutseeguzan, esanda gueratu da lelengo aguinduban. Ta aguindu onetan bacarric esango da, inor ez illtari jagocana. 10

Aguindu guztietan gogoratu biar dogu, [233] cristinaubac, gueure Jaungoicuaren ontasuna; ta bere biguntasunac gueue gordeetaco ta zaintuteco daucan arduria. Laugarren aguinduban zaintu dau gurasuai ta nausijagui equi biar deutseegun ondria, lotsa ona ta maitetasuna. Bada, eurac dira, Jaungoicuaren urrengo, gueure guizonaren ta cristinaubaren izatia emon deuscubeenac. Onen ondoric Jaungoico onac ta mansuac zaintu ta gorde gura deutsee guztiai vitzitzia. Alan aguinduten dau inor ez illteco. *Non occides*. Verba oneetan eragozten deuscu Jaungoicuac, ez bacarric inor illtia, ez bada inori osasunian edo gorputzian calte eguitia bere bai. Alan, inor illtia, banatutia, odoldutia, beso bat edo azur bat austia, berenua edo gachgarri bat emotia edo gaixotutia, guztia dago eragotzita bostgarren aguinduban. Baita gueijago bere. Bada, noberac inor ill ez arren, bestiari inor illteco, banatuteco edo gorputzian calte eguiteco aguindutia, lagundutia, conseju emotia, ataraco voticacua, erramientia edo bidia emotia, guztia dago eragotzita aguindu santu onetan. *Ez dozu illgo*, dino Jaungoico andijac. Ez deutzazu inori calteric eguingo, ez vi-

(150) 5. precept. n. 2.

13 esanda, *Ba* 22 ez bada *Ba*

²⁴² Ik. Ir 20,13.

30

tzitzaan, ez osasunian, ez gorputzian, ez ceure eguinagaz, ez inori eguiten eracutsijagaz, ez aguindubagaz, ez lagundubagaz, ta ezda ecetara bere. Jaungoicua bera da gueure vitzitzaren ta erijotziaren, osasunaren ta gaixuaren, gorputzaren ta arimiaren jaubia. Ta ez dau aren ontasun altubac gura, luurrecoc inori
35 gauza onetan icutu daguijon, bere aguindu san-[234]tuba edo alizatia bagaric.

Ez dozu inor illgo Jaungoicuac bere leguian esanagaz batuten ditu modu onian aguindupe onetara munduco guizon ta emacume guztiac. Ez ganadubac eta pristijaac edo patarijac, Erromaco Catecismuac san Agustinegaz dinuan leguez (151), dempora bateco eregeen utseguitiac urrin baino urrinago alderatuteco. Bada, Jaungoicuac ez deustcu eragozten ganadu gauzaac illtia aguindu onetan, ez bestetan bere, gauza vitzijac dirialaco. Guizonac ta emacumiac dira aguindu onetan sartuten dirianac, amaren sabelian sortuten dirianeti vitzi dirian arte guztian. Aguindu onec artuten ditu, bada, bere azpijan guizon ta emacume guztiac, bai cristinaubac, bai eregiac, bai turcubac, bai gentilac ta bai judegubac; ta baita gueure burubac bere. Izan ezquero gorputza ta arimia daucana, nai urrinecua ta nai urrecua, nai adisquidia ta nai arerijua, nai ona ta nai deunguia ezin ill guinai inor, Jaungoicuac edo Jaungoicuaren ordecuac aguindu bagaric. Ezda calteric eguin bere, leen esan dan moduban. Campo au guztiau artuten dau bostgarren aguindu santubac, inor ez illteco esanagaz. ¡Oh
45 Jaungoico guztiz ona ta mansual ¡Noc maite ez zaitu! ¿Ta beti izango da pecatu inor illtia? Ez, cristinaubac, ta icusi daigun nos ez dan pecatu.
50

II.

Modu ascotara jazo leiteque inor illtia, peccaturic eguin bagaric. Leleengo: juezac aguinduten davenian. Juezac Jaungoicuaren lecuban [235] dagoz²⁴³, leen esan dan leguez. Jaungoicuac aguindu deutsee juezai errijetaco ta echeetaco gentiaren vitzitzac, aziendac ta baque ona zaintuteco. Jaungoicuac berac emon deutsee juezai escubidia edo alizatia, gaistuac ta deungaac castiguetaco, baita ascotan illteco bere (152). Guizon bat edo emacume bat bada errijan oquerra, lotsa galducua ta ezi bagacua, lagunai calte eguiten deutseena ta ez zamaijagaz, ez ondo esanagaz, ez beste castigugaz²⁴⁴ escura ta aguindupera etorri gura
60

(151) Ubi supr. n. 3. (152) Exod. c. 22.

32 ez da *Ba* 48 Ez da *Ba*

²⁴³ Epailleak Jainkoaren ordezkioak direlako pentsamendu hau Bibliako izen bereko liburuan ere badator, hau da, epailleak edo Israelgo buruzagiak...; horrez gainera, ikus *Euscal-errijetaco* ... 3. oharrean (420.or.) esan dena.

²⁴⁴ Mugagabeen darabil, bidezko denez, "beste castigugaz".

ez dabena, bada guztien calteguina, dino santo Tomasec (153) alaco guizon edo emacumia gaiti, popuertzacua dala ta ondo dala, alacua illtia. Osalari batec edo medicu batec gorputzeco zati igartu edo usteldu bategaz eguiten davena eguiten dau juezac alaco guizon edo emacume deunguiagaz. Gorputzaren zati guztiaz dira onac ta biarrecuac, gauza badira, gorputzari lagunduteco bere biarretan. Baina gorputzaren zatija bada igarra edo ustela, bere lecuban egon gura ez davena ta gorputzari lagundu biarrian calte eguiten deusana, ebagui ta quendu eguiten jaco gorputzari alaco zati galduba. 65

Beste aibeste eguiten dau ta eguin biar dau juezac guizon ta emacume deungaaquin. Besteen caltian diriana ezautu ezquero, quendu biar ditu, ill biar ditu deungaac, leguiac aguinduten daven moduban. Alan urcatuten dira ta illten dira guizon eta emacume deungaac, juezac aguinduta, pecaturic eguin bagaric. Bi-[236]garrenian: esan dan errazoa gaiti, juezaren iguesi erriric erri edo mendiric mendi davilen gaisquina, juezaren aguindubagaz illtia ez da pecatu. Ascotan jazo oi da, juezac sarija aguindutia onaco edo alaco guizon edo emacume iguesi davilen deunga bat, vitziric edo ilda eruaten deusnari. Orduban justicijaren aguacilac edo aguinducuac vitziric artu ezinda, artu guraan illten badavee gaisquina, ez da esaten pecatu eguiten daveela. Baina inundi vitziric gorde al badaguije, gaisquin andija izan arren, ez davee eurac ill biar, ezbada artuta juezari eruan. 70 75 80

Irugarrenian: Guerra zucenian soldaubac arerijuc illtia ez da pecatu. Ez arerijuen ondasunen gurari gaistuagaz, ez guerraco eguinbiar edo ordenetati campora, ezbada erregue edo aguintari jaunari obeidutia gaiti, ta erreinu guztico ona gaiti. Erregue jaunac edo erreinubac aguinduten davenian guerria eguiteco, soldaubac obeidu biar deutsee aguintarijari. Guizonac ill bagaric guerraric ezin legui. Bada, orduban guizonac illtia da erregue jaunari obeidutia ta erreinu guztia serbidutia. Soldaubac jua jacozanian san Juan Bautistari itandutera, ia cer eguingo even, ez eutseen esan san Juan Bautistac (154) guerraric ez eguiteco, armaac isteeco ta gueldi egoteco, ezbada bide bagaric, ordena bagaric ta errazoe bagaric guerraan inor ez zauritu ta ez banatuteco; inori guzurrezco paltsaquerijaric ez ezarteco; ta [237] eurai jatorquen aloveragaz edo sarijagaz contentu izateco. Leguezco guerria Jaungoicuac ontzat emoten davena da. Baina guerriaren eztaguijagaz eguiten dira pecatu asco, Jaungoicuaren aguindu santuben contra. Ta pecatubac ez ditu Jaungoicuac ontzat emongo. Ezin ucatu guinai, guerria dala Jaungoicuac erreinu ta errijeetaco pecatubac castigueetaco bialduten deuscun azote gogorra. Icara eguiten davee oraindino 85 90 95

(153) 2. 2, q. 64, a. 2. (154) Luc. c. 3.

76 oida *Ba* 78 ezin da *Ba* 80 albadaguijee *Ba* 81 ez bada *Ba* 83 eguin biar *Ba*
84 ez bada *Ba* 89 ia] *Ya Ba*

gueure vijotzac, leengo eguneetaco gueure guerra odoltsubac gogoratuta²⁴⁵.
 100 ¡Ojala obatu balitubee gueure ecandubac! ¡Ojala bigundu balebee gueure
 Jaungoico zucenaren asarria!

Laugarrenian: Jaungoicuaren aguindubagaz inor edo norbera illtia ez da
 pecatu. Alan ill zan Sanson²⁴⁶. Alan ill zituban Phineec Zambri ta onegaz peca-
 tuban eguan Madiango alavia²⁴⁷. Alan ill zituban Eliasec Isrraelgo propeta pal-
 105 tsuac²⁴⁸. Jaungoicua dan leguez guere vitzitzeen jaubia, Jaungoicuaren aguin-
 dubagaz inor edo norbera illten danian, ez da austen Jaungoicuaren leguia.

Bostgarrenian: descuiduan inor edo norbera illtia ez da pecatu, ustez uste
 bagaric ta najjaz bestera danian. Nairic ez dagan lecuban, pecaturic ez dago.
 Bada, ezaubera bagaric, gachnai bagaric, descuido baten gueijagoco bagaric
 110 guizona illtia ez da esaten pecatu dala. Orraitino bere, dino Erromaco
 Catecismuac, descuidoazco erijotzetan modu bitara pecatu eguin leguijala. Bata
 da, inor illteco arriscuco [238] gauza chaarra eguiten davela, inor illten dave-
 nian. Orduban, inor illtia gura izan ez arren, nai dau inor illteco peligruco egui-
 tia ta andi dator inor illtia. Bada, ezarten jaco erijotziaren erruba. Joco baleu
 115 batec, dino Catecismuac berac, emacume seindun bat osticuagaz edo ucabila-
 gaz ta galduco baleutsa sabelian daucan seina, joten davenaren vorondatiaz
 edo najjaz contra izango litzateque seina galdutia. Baina eguingo leuque peca-
 tu, seina eguiteco dagan emacumia ecetara bere jo biar ez davelaco. Bestia
 da, najjaren contra izan arren, inor descuiduan illtia, biar dan ardura guztia
 120 imini ez davelaco jazo atan. Descuiduan izan arren bere, ustez uste bagaric
 izan arren bere, bere ardura bagatasunez ta osoro beguiratu ezaz eguin badau
 erijotzia, pecatu da.

Seigarrenian: Norbera ez illtia gaiti. Ez dago ecer bere munduraco vitzi-
 tzia baino gauza estimaubagoric. Beste edoecin gach iragotera, leenago etorten
 125 dira guizonac illtera baino, juicio onian dagozarian. Escubac eta oinac eba-
 guita, gorputza moztuta baino ez bada bere, vitzi gura dau guizonac. Buruco
 arinac²⁴⁹ edo etsajaren tentacinoiac ecarri legui bat bere buruba itotera edo ill-

99 gogoratuta] gogoratzuta *Ba baina* gogoratuta *Uts-eguiteen ezauberian* 103 illzan *Ba*
 119 biardan *Ba* 123 Nor bera *Ba* | ecerbere *Ba*

²⁴⁵ Frai Bartolomek European izan ziren gerrak gogorarazten dizkigu eta baita Euskal Herrian izan zirenak ere, lehenengo eta behin Frantziako iraultza, baina batez ere Napoleonen gerra handiak, Espainian eta Euskal Herrian bereziki 1808-1814. urteetan eragin zuzena izan zutenak, bai berak eta bai Markinako Karmengo gainerako fraideek komentutik alde egin beharra izan baitzuten eta Frai Bartolome atxilotua eta Etxebarrin konfinatua izan baitzen... Hondamendi eta heriotzak ugari izan ziren urteak... (Ik. eren idazlana de Frai Bartolome: *Apuntaciones...*).

²⁴⁶ Ik. Ep 16,23-30.

²⁴⁷ Ik. Zen 25,1-18. (Pinhasek Zimri eta Kozbi emakume madiandarra hil zituen).

²⁴⁸ Ik. 1Erg 18,1-40.

²⁴⁹ "Buruco arina": burua nahastea edo une bateko burua galtzea; (eskuarki *ondoeza, zora - bioa* esan nahi du hitz honek eta hiztegiek hala jaso dute, baina gure idazlearen testuan bere juicio nean ez egotea adierazten du...).

tera. Ascoc esan oi davee, arrabijoz su artuta: *Illda balegoz, itota balegoz*. Baina illteco orduba eldu daquijuenian, vitzi gura oi davee areec bere. Jaungoicuaren amodijo santubac ixiota dagozaneen batzuc, Elias batec²⁵⁰, san Paulo batec²⁵¹, 130 beste onetaricuac Jaungoico gozua ceruban laster icustia gaiti, bene-[239]tan illtia desiau davee legue onian ta errazoez. Vitzitzia da berez luurreco gauzaric estimaubena. Ta illtia da inori munduban eguin guinaijon calteric andijena.

Caridade eguijazcua asten da, bada, norberaganic. Edocein premina edo biar ordutan, nai arimacuan ta nai gorputzecuan, bijen premina ordubac bardinac izan ezquero, leenago da norberari beguiratutia proximuari baino. Alan, izan arren inor illtia berez pecatu andija, badator deunga bat neu illtera ta librau ezin badot neure vitzitzia aren escu gaistuetati bera illda baino, ez da pecatu a illtia. Esaten da: librau ezin badau bere vitzitzia. Bada, ezetara librau al badedi alaco arerijo gaistoaganic norbera vitziric, ez dau ill biar. Orregait[i] 140 aitu biar da dotrina au ardura andijagaz. Sarritan jazoten dana da. Gueijagotan jazo leitequiana da. Igues eguinda alderatu al badedi arerijuaganic, ez dau ill biar. Lagunai otseguinda, diadar eguinda librau al badedi, ez dau ill biar, nor bera illtera datorrena zucen jaquin arren. Colpe batzuc emonda apartau al badedi arerijuaganic, ez dau ill biar. Enpin, norbera ill edo arerijo illtera datorrena²⁵² ill baino beste urteeraric inundi bere ez daguanian esaten da, bere vitzitzia zaintutia gaiti, a quendu gura deutsan arerijua illtia ez dala pecatu. 145

Eguija da, orduban bere, alan norbera illtera datorrenaren estadu tristia ezaututa a illten badau, betico impemura botaten davena gogoratuta, vitziric gueratuta menturaz erre-[240]medijau dedin ichico baleutsa arerijuari norbera 150 illten bera ill bagaric, eguingo leuque Jaungoicuaren aurrian caridade andi bat. Emongo leuque bere vitzitzia proximuaren arimia gaiti. Ta duda bagaric Jaungoicuac sari andija prestauco leusquijo ceruban. Onetaraco, alan norbera illten bere arerijuari isteeco, norberac egon biar dau, bere ustez, Jaungoicuaren gracijaan. Bada, bijac badagoz pecatu mortalian, ez dau ondo eguingo arerijuari bera illten istia, dino santo Tomasec (155). 155

(155) P. 3. precept. 5.

128 oi davee *Ba* | balegoz] belegoz *Ba* 134 astenda *Ba* 139 Esatenda *Ba* 140 albadedi *Ba* | nor bera *Ba* 142 albadedi *Ba* 144 emon da *Ba* 144-145 albadedi *Ba* 145 nor bera *Ba* 148 nor bera *Ba* 150 nor bera *Ba* 153 nor bera *Ba* 154 nor berac *Ba*

²⁵⁰ 1Erg 19,14: "Jauna, Jainko ahalguztiduna, zureganako maiteminak erretzen nau".

²⁵¹ Ik. Eg 9,1-16.

²⁵² Izenaren eskuinean jartzen du izenlaguna: "arerijo illtera datorrena"; oraingo joeran ezkeraldean jartzen da gehienetan: "illtera datorren arerijua".

III.

Esan dirian sei jazuetan, eracutsi dan moduban, inor illtia odijo bagaric, gorroto bagaric, condenetaco ta gueijago venguetao opa chaar bagaric, ez da pecatu, cristinaubac. Onezaz ostian, beste inori edo norberari vitzi[t]zaan edo gorputzian calte eguitia, eragotzita dago bostgarren agundu santuban. Guztioi gorde ta zaintu deuscu Jaungoicuac gueure vitzitzia. Ainchinaco gentil ascorren utseguitiac ervestetuta, aberatsai ta pobriai, zaarrai ta gaziiai, gurasuai ta umiai, guztiai legue estu bategaz gorde deuscu cerubac gueure vitzitza estimauba. ¿Baina celan? Chito legue estubagaz ta gogorragaz. Guizona illtia da proximuaren contra eguiten dan pecaturic andijena. Au gaiti dauca legue on guztietan, inor ill davenac, ill biarra. Vitzitziaren truquian, vitzitzia; veguijaren truquian, veguija; aguinaren truquian, aguina; escubaren truquian, escuba; ta oinaren truquian, oina, dino Jaungoicuac (156). Esa-[241]teco moduban: ¿Ill dozu inor? Ceu illagaz pagauco dozu aren zorra. ¿Galdu deusazu escuba, oina, edo veguija proximuari? Ceure escubagaz, oinagaz edo beguijagaz pagauco dozu aren zorra. Guizon illzaillia zan Cain desventurauba. ¿Ta cer dino bera gaiti Escritura Sagradubac? *Zure anaiaren odolaren deijac diadar eguiten deust luurreti*²⁵³, esan eutsan Jaungoicuac Caini, Abel bere anae errubaguia ill evanian. Abel ill zan. Aren odola luurrac chupau evan ta liortu zan. Baina diadar eguiten evan ceruraguino odol illac. Cainen vengantzia escatuten evan odol inocentiac Jaungoico zucenaren aurrian. Edo Cainen guizon illzaco pecatu icaragarrija aguertu zan Jaungoicuaren aurrian ceruban ta escatu eutsan pecatu aren vengantzia. ¿Ta cer esaten deuscu Jaungoicuac Caini? *Madaricatuba zara emeti aurrera luurraren gainian, ceinec bere aua edeguita artu evan zur e escubetati ceure anaiaren odola* (157).

Aitu, cristinaubac, ce verba itzalsubac ta bildurgarrijac dirian oneec Jaungoico vitzijaren auan. Aitu, ce gorroto andija deuscu Jaungoicuac guizon illtiari. ¿Ta cer jazo jacon Cain anae illzailiari berari? Desesperau eguin evan lelengo bere burubagaz. Embidijac, codicijac ta inoren icusi ezinac ill eraguin eutsan Caini Abel bere anae errubaguia. Ill eban. Baina bertati sartu jacon vitziro bere buruban Caini pecatu ezainaren carga astuna. Ezin jaso evan. Icara eraguiten eutsan bere vijotzian, bere be-[242]launetan ta gorputz guztian guizon vitzija illac. Sinistu evan, ceruba ta lurra diadarca eucazana bere contra. Astundu ta mindu jacon bere vitzitzia, inorena galdu evalaco, ta ichi baten esan

 (156) Exod. c. 21. (157) Genes. c. 4.

173 ill zaillia *Ba* 173-174 beragaiti *Ba* 176 liortuzan *Ba* 185 ill zailiari *Ba*

²⁵³ Ik. Has 4,10.

eutsan Jaungoicuari: *Andijagua da nire pecatuba, parcatutia mercedu daven baino*²⁵⁴. ¡Oh Cainen vijotz tristia, larrija, jausija, illuna ta astuna! ¡Oh guizon illte desventurauba! Ce sail chaarrac dacazuzan ceugaz. Cain lelengo guizon illzailia, ceruba ta luurra, bere conciencija ta bere vitzitzia, guztia bere contra ditubala, marca bategaz davil baztarric baztar *vagus et profugus* guztien iguesi²⁵⁵. Baina ez da libreetan illteti. Ezda impernuti bere. 195

Ara, cristinaubac, guizon illtiaren sail bildurgarrijac lelengo guizon illzailiaren buruban. Guizona illten davenac, birrinduten dau Jaungoicuaren obra andija. Jaungoicuac ecarri gaitu guizon ta emacume guztio mundura, berac gura daven artian munduban bera jaso, alabau, serbidu ta amau daigun. Onetaraco emon deuscu bere izatiaren irudija. ¡Cer eguiten dau, bada, guizona edo emacumia illten davenac? Birrindu Jaungoicuaren eguin nausi bat. Galdu guizon bat edo emacume bat. Edo sortuta laster amaren sabelian, vitzi izaten ondo asi bagaric. Edo umetan, Jaungoico bere egulia ezaututen asten darian. Edo azita, Jaungoicua, proximuac, errija ta echia serbidu biar ditubanian. Edo zaartuta, bere eguineen prutuba batuta, cerubari bere vitzitzia ta arimia emote-[243]co presteetan daguanian. Orduban guizon illzailiac cuchilo bategaz ebaten deusa vitzitziaren arija, bialduten dau arimia beste mundura ta gorputza ar artera. Galduten deusaz, Jaungoicuari emon biar eutsan ondria ta beste eguingo zituquian biar on guztia. Ta escu artuten deusa Jaungoicuari, Jaungoicuac berac ill biar euquian guizona illagaz. 200

Icara eguin daigun, cristinaubac, guizon illtia gogoratuta beste bagaric. Escatu daijogun Jaungoicuari, emon daigula espiritu mantsua, espiritu biguna, iraun andico gogua ta vijotza, gueure arerijuen prestuequerijac ta azalquerija mingarrijac caridade santia galdu bagaric iragoteco. Escatu daijogun, amatau daguijala guere vijotzetan gorrotuaren, odijuaren, embidijaren, codicijaren ta vengantziaren su madaricatuba, gorde daigun beti gueure arimetan Jesusen mansotasuna ta gracija, ceinegaz jadichico dogun ceruco gloriya. Amen. 205

198 Ez da Ba 209 ill zailiac

²⁵⁴ Ik. Has 4,13: "Astunegia dut zigor hau, eraman ahal izateko" (Elizen arteko biblia), ("Andia benetan nire errua, neugaz eroan aal izateko!": Kerexeta). Frai Bartolomeren itzulpena Vulgatako testutik hartuta dago: "Major est iniquitas mea, quam ut veniam merear".

²⁵⁵ Has 4,12: "noraezean ibiliko haiz munduan". Vulgataren testuko esaldiak "Vagus et profugus".

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ez dala inor ill biar ondria zaintutia gaiti,
ondasunac gordeetia gaiti.

225 Cristinaubac garian leguez chito minverac ta gueure gauzac asco maite
ditugunac, inoc gach bat eguin daiguneco jaguiten da gueure [244] vijotzetan
aren contra suba, gorrotua ta venguetaco gurarija. Onaco gorrotuaren subac
amatetaco ta gueure lagunen paltaac paciencijagaz iragoteco, aguinduten
230 deutsu Jaungoicuac, neure entzula onac, bostgarren lecuban, inoren vitzitzia-
ri calteric ez eguiteco. Ta inor inos gorrotuac su emonda, azartu bada arerijua
edo gach eguin gura deutsana illtera, pagau dau bere vijotz gogorraren ta
odoltsubaren eguite pecatucua, bai mundu onetan, oi danez, ta baita bestian
bere. Cainen ondorenguc dira guizon illzailiac. Lamec, Cain bera ill evana²⁵⁶,
ascoc dinuanec (158), ez zan atseenago²⁵⁷ vitzi muduban, guizon illzailia ta
235 deunguia izan arren ill evana. Basuan bacarric eguin arren erijotzia, autortu
evan Lamequec bere pecatuba (159). Bere arimaco larriagaz ta bildurragaz esan
eutseen bere emaztiai: *Entzun eguizu ta jaquin eguizu, neuc neure gorrotua* -
gaz zauritu dodala ta ill dodala guizon bat. Zazpi bidar vengaua izango da
Cainen pecatuba ta irurogeta amazapi bidar niria . Alan guizon illzaille des-
240 venturaubac, itsututa leguez, iminten ditu eureen pecatu odoltsubac.

Ez dago menturaz arima bat larriagoric, icutsi oi danez, ta vijotz bat bil-
durgarriagoric guizona ill davenarena baino. Bere queiziac bere icara eragui-
tuten deutsalac, esan legui, guizon illzailiari. Ascotan, nai izan arren, igues egui-
teco moduric bere ez dauca. Pecatuba ezcutetaco bere ez. Alde eguiteco bere
245 ez. Aldendu [245] gura davenian dua juezaren aurrera ta escubetara sarritan
guizon illzailia. Ezcutau gura davenian bere pecatuba, berac aguertuten dau.
Ta ucatu gura davenian, autortuten dau. ¡Cegaiti au, cristinaubac? ¡Ah! Guizona
iltiac beragaz dacarrelaco itzal astuna, buruco iluntasuna, vijotzeco icaria, ari-
maco larrija ta pecatu odoltsubaren pisu crubela. Amatau, cristinaubac, gorro-
250 tuaren suba. Igues eguin, inor illteco asarre ta ocasinotati. Bada, ez da ezegaz

(158) A Lapid. in c. 4. Genes. (159) Ibid. c. 4.

223 illbiar *Ba* 225 min verac *Ba* 228 illdodala *Ba* 233 Lamec| Lamet *Ba* | ill
zailiac *Ba* 234 ill zailia *Ba* 236 Lamequec| Lametec *Ba* 241 oidanez *Ba* 241-242 bildur
garriagoric *Ba*

²⁵⁶ Ik. Has 4,23-24.

²⁵⁷ "Atseenago": lasaiago.

bere osatuten munduban guizon illzaco pecatuba. Gueijagoco bagaric guizona ill biar ez dana guztiac daquijee, ta aguindu onetan arguiro esanda dago. Baina ascoc pensau leguijee vanidadiaren uts eguite bategaz, calte andi bat eguin deutsunari, edo ondraan, edo aciendan, edo beste gauza balijocoren baten, opa izan leguijola illtia. Edo menturaz ill bere eguin leguijala alaco arerijo deunguia. 255

I.

Esaten da, bada, munduco ondria gaiti ezin inor ill leguijala. Eguija da, cristinau batec bere zuzentasunagaz ta vitzi modu zintzuagaz irabatzi daven ondria ta lagun arteco entzute ona, chito asco estimetan dau. Vitziziaren beraren urrengo dala esaten da. Bada, nai jatorrizcua ta nai norberac irabatzija, cleituba, ondria edo entzute ona galdu ezquero, ez dauca cristinaubac munduban noc jaso andiric, cegaz poztu andiric, ez cer galdu andiric. Au gaiti da gauza guztiz mingarrija, erru bagaric guzurragaz ta embusterijagaz inori ondria galdutia. Entzute onac asco balijo deutsa [246] cristinaubari. Ondria ez galdutia gaiti, lotsaari baten ez jaustia gaiti, menturaz Jaungoicua gaiti baino gueijago, ¿ceimbat bidar pecatuco bideti alde eguiten davee cristinaubac? Munduba gaiti gauza ona eguiten davenac, edo mun[du]ba gaiti bacarric gauza charra eguitiari isteen deutsanac, ez dauca sariric Jaungoicuaren aurrian. Baina dino santo Tomasec, munduba gaiti bada bere, gauza onac eguitera ta chaarrac ez eguitera oituten danac, icasico davela Jaungoicua gaiti ta caridadia gaiti gauza onac eguiten ta chaarrai isten. Ta onetaraco bere, asco balijo deutsa cristinaubari ondra onac. 260

Ez eutscun alperric esan Espiritu Santubac (160) entzute onari edo cleitu onari beguiratuteco, zaintuteco ta gordeetaco. Bein cleituba galdu ezquero cristinaubac pecatu eguintza baten nai beste baten, berecautan leguez, nasajago ta lotsa galducuago eguiten da, icutsi oi danez. Batuten badau batec ordijaren, lapurraren, desonestubaren edo nasajaren entzute aguirija ta azaldauba, botaten dau munduco esanaren arduria ta jarraituten deutsee vicijo gaistuai lotsa bagaric. ¡Oh ce bildur izan biar dogun lelengo pecatubaren²⁵⁸! ¡Oh ce maite izan biar daven, daucanac, bere entzute ona! ¿Ta jazoten bada norbaitec galdu gura izatia gueure ondra edo cleitu ona guzurragaz ta embusterijagaz, ill guinai a 265

(160) Eccl. c. 41.

254 andibat *Ba* 265 errubagaric *Ba*

²⁵⁸ Harridurazko perpaus honetan nahiko bitxi gertatzen zaigu genitibo edutezkoa amaieran ezarria; baina baditu horrelakoak gehiago ere.

285 gueure ondria galdu ez daigun? Ez, cristinaubac. Gauza andija ta esti-
[247]mauba da gueure ondria edo entzute ona, esan dan leguez. Baina andija-
gua da guizonaren vitzitzia. Erru bagaric galduten deuscubenian gueure clei-
tuba, Jesus maitiaren vidiai jarraituten deutsegu. Orduban Jaungoicuac bere
290 contura artuten dau gueure cleituba. Ta duda bagaric zaintuco dau ta gordeco
dau. Bere nai santuba bada, mundu onetan, eguiija azaldauta. Ta ezbabere
azita ta gueituta beste munduban, ceruban, bere icenian iragoten baditugu
guzurrezco desondraac. Miin gaistuac munduraco galdu leiquegubee ondria.
Baina ez Jaungoicuaren aurreraco. Jaungoicuaren aurrian aguertuco gara guz-
tiotic, garian moduban. Au gaiti santu eta santac osticopian erabilen munduba-
295 ren gaisqui esan guztia.

Pecatu da bada, cristinaubac, munduco ondria, cleituba edo pamia gaiti
inor illtia. Alan eracusten deutsu Eleisa Ama santiac (161). Ta ucatu ecin gui-
nai. Cleitu galduba cerbait jaso legui juezaren aurreti. Guizon illa viztu ezin
legui. Cleituba, ona nai arin ona, mundubagaz amaituten da. Guizonaren erijo-
300 tzia mundubaren amaija ta betijaren asieria da. Ez da bardinduten guizonaren
vitzitzia munduco gauzagaz²⁵⁹. Ta ez da galdu biar munduco ondria gaiti. ¿Ta
galdu legui munduco ondasunac gaiti?

II.

Eguiija esateco, ondasunac bere estimetan dira munduban. Ta jazo leiteque,
305 ta sarritan jazo oi da, deunga batec guztiaac edo zati batzuc echeti edo dauca-
zan lecuti eruan gu-[248]ra izatia. Penagarrija da, lapur batec gura davelaco,
norberac bere icerdijagaz irabatzita daucazan dirubac edo ondasunac galdutia.
Ta jazo leiteque, ta bein barriz jazo da, ondasunac eruan ez daguijozan lapu-
rra illtia.

310 Guizona illtiac itzal gaistua dacar beti beragaz. Bildurgarri andija da.
Orregaiti cristinau guztiaac goguan equi biar davee gauza onetan Eleisa Ama
santiaren eracutsija. Esaten da, bada: 1. Jazo oi danez, urrezco escudo bat gaiti
ez dala inor ill biar: 2. Guero euquico ditugun, baina oraindino ez daucaguzan
ondasunac gaiti, edo gueuri jatorcuzana daquigun ta guero equiteco ustia
315 daucagun ondasunac gaiti ez dala inor ill biar: 3. Ez dala ill biar, noberari jago-
can aziendia edo inoc aguindutaco artutecua beretutia, engainuz ta erruz era-
gozten deusana edo atzeratuten deusana (162). Eleisa Ama santiaren eracu-

(161) Alexand. 7, Prop. 17. 18. (162) Inoc. XI, Prop. 31. 32. 33.

290 ez babere *Ba* 307 nor berac *Ba* 310 Bildur garri *Ba*

²⁵⁹ Horrelakoetan ohi duenez, sintagma mugagabea darabil.

tsija da au, cristinaubac. Deungaac izan arren lapurrac, Jesucristo gueure
 Jaunaren mansotasuna eracutsi biar dogu gueure eguitadeetan. ¿Celan pecatu- 320
 ti librauco da, esaten evan san Agustinec (163), galdu biarco daveen ondasu-
 nac gaiti guizonari vitzitzia quenduten deusana? Esango baleu leguez Santu
 gloriosuac: Guizonaren vitzitzia ondasunac baino gueijago da. Ondasunac
 ugardunac dira, galduco dirianac dira. Lapurrac ondasunac eruan arren,
 Jaungoicuaren providencia edo arduria ez da palta. Baina guizo-[249]naren 325
 vitzitzia asco balijo davena da. Ta ondasunac ez galdutia gaiti lapurra illten
 davenac, amaituten dau guizonaren vitzitzia. ¿Ta ce arriscutan iminten dau aren
 arimia? Oi danez, pecatu mortalian dago lapurraren arimia. Bada, tiro bategaz
 edo colpe bategaz illda isten badau, ¿nora boteetan dau betico aren arima tris-
 tia? ¿Mundu guztiac baino gueijago balijo davena? ¿Jesusen vitzitziagaz erosita 330
 daguana? Au gaiti esaten da Eleisiaren ordeneetan, *ondasunac gaiti inor illtia,*
*erijotzia*²⁶⁰ *dala* (164).

Beguiratu bada, neure entzula onac, ce errespetua ta lotsia euqui biar deu-
 tsagun guizonaren vitzitziari. Ezin pensau legui, icara eguin bagaric, cristinau 335
 ascoren vijotz gogorra. Edocein gauza guichi bat gaiti edo calte chiqui bat gaiti
 esaten daveee: bereno bategaz illgo neuque; tiro bategaz illgo neuque; bertan
 oztuta ichico neuque... Ta beste onaco verba gorrototsubac ta odoltsubac
 gorrotuaren subagaz. Beste aimeste vijotzeco gogortasun ta gordintasun era-
 custen davee, gauza guichi bat gaiti lagun artian cuchiluac ta ezpatac ateraten 340
 ditubeenac; ortubetara ta soluetara guizona ill leiquen tiruac inori jaurteguiten
 deutsezanac. Nai dogu gueure gauzac inoc oostu ez daiguzan. Ta errazoia da.
 Gaisqui eguiten dau alan lapurretan davilenac. Ta eguija da. Baina ain gauza
 guichija gaiti guizonaren vitzitzia illteco peligruban imini biar ez da.

Batian ondria gaiti, bestian ondasunac gai-[250]ti, bestian andiguria gaiti,
 bestian gorroto edo vengantza gaisto bat gaiti, modu ascotan paltetan da bost- 345
 garren aguindu santubaren contra. Ta ez da errazoeti campora izango, neure
 entzula onac, sarrijen jazo oi dirian batzuc gogoratutia. Alan bostgarren aguin-
 dubaren contra pecatu da: Lelengo: Amaren sabelian dagan seiná galduteco
 cerbait eguitia. Nai amac ta nai bestec, nai edaatecuagaz ta nai osterantzian 350
 seiná galdu gura izatia edo galduteco cerbait eguitia, pecatu andija da. Ta pena
 gogorraquin Eleisa Ama santiac castiguetan davena da. Ez dauquen ondra bat
 billatuteco ta euren pecatu ezainac ta lotsarizcuac ezcuetetaco, guizonac edo
 emacumiac itsutu oi ditu diabrubac azqueneco gachera, cein dan sabelian

 (163) Lib. 2. de libr. alb. c. 5. (164) Cap. suscep. de homicid.

353 oi ditu| orditu *Ba* | ceindan *Ba*

²⁶⁰ "Erijotza": hemen, giza hiltzea, krimena esan nahi du.

355 erneta, azten dagan sein inocentia illtia edo itotia. ¡Oh, sein galzailaac!
 ¿Ceuben tratu impamiac estaldu gura dituzu errubagacuen vitzitzia galdubagaz
 ta areen arimac Jaungoico gozuaren arpeguiti betico erbestetubagaz? ¡Ah!
 Egunen batec aguertuco ditu. ¡Ez daquit, eguiija esateco, celan gau baten bere
 360 sosiguz lo eguin leguijan guizon batec edo emacume batec, bere erruz ta bere
 guraz limbo²⁶¹ ilunian betico sartuta arima bat daucana daquijala! ¡Ah! zure ven-
 gantzia escatuten deutsa limboti Jaungoico eguijazcuari. Ceure arimia edu costa
 jacón Jesus maitiari.

Bigarrenian: Pecatu eguiten davee emacume seindunac, sabelian dauque-
 en seinari aimbat onduen contu eguiten ez deutseenian. Euren ar-[251]dura
 365 bagatasunez seiná galduteco peligruban daviltzanian. Ya ez jagocuen carga
 astunaquin, ya asarre arrabijauaquin, ya dantzeetaco ibilteequin, sarritan
 galdu oi ditubee seinac. ¡Ah! ceimbat onetarico negargarri, lastima gorrijan,
 gurasuen paltaz. Legue guztiac deutsee aparteco cuidadua seiná eguitico
 dagan emacumiari, bere sabelian dagan prutu inocentia gaiti. Ama gaistua ta
 370 deunguia izan arren, ta urquia²⁶² ondo mercedu arren, seiná sabelian daucan
 artian, vitzitzia parcatuten jaco. Justicijaren escubac lotuta daucaz, esateco
 moduban, sabelian daucan seiná gaiti. ¿Ta senarrac erabilico dau emazte cati-
 guba osticoca ta colpeca, bildur gueijago bagaric? Eguitade oneec guztioac dira
 bostgarren aguindubaren contra ta mercedu davee cristinaubaren ardura guztia.

375 Irugarrenian: Aguindu onen contra pecatu eguiten davee, armaac artuta,
 bidera ta ehetara lapurretara duazanac. Bada, euraquin daroie peligruba, edo
 inor illteco, edo eurac illda gueratuteco, sarritan jazo oi dan leguez. Au gaiti
 alaco lapurrac austen ditu aguindu bi guichienaz: bostgarrena ta zazpigarrena.
 Armia artuta esan dan moduban izan ez arren bere, ortura, solora, echera edo
 280 bidera inori urtenda lapurretara doianac, sarri darua peligruba bertan illda gue-
 ratuteco. Endamas dempora triste onetan lapurrac gueitu ta lotsagalducotu, ta
 guizon illtiaren itzala ta bildurra guichituta dacusgunian.

366 arrabijau baquin *Ba* 377 oidan *Ba* 379 esandan *Ba*

²⁶¹ Teologian linboaz hitz egiten da, ez zerukoa, ez infernukoa ez den leku edo egoera dela adieraziz; *Limbus Patrum* eta *Limbus Puerorum* bereizi ohi dira; hura, kristautasunaren aurreko zintzoak dauden leku edo egoera adierazteko, eta hau, ezaugaririk gabeko haur bataiatu gabekak dauden egoera, hau da, Jainkoa aurrean ikusten ez dutenena adierazteko. Frai Bartolomek egoera honetaz dihardu hemen. Gaur egun, geroago eta gehiago jartzen da zalantzan linboaren izatea, hau da, haren betiko irautea... (ik. P. GUMPEL, *Limbus*, LThK 6 (1986) 1056-1059). Elizaren irakatsiak utzi dizkigu testu batzuk gai honetaz, batez ere jatorrizko bekatuaren pena Jainkoa ikusi gabe egon beharra dela esanez. (Ik año 385, H. DENZINGER - A. SCHÖNMETZER, *Enchiridion Symbolorum*, Barcelona-Friburgo-Roma, ³²1963, *184. zk.; año 417, Denzinger *219; año 1201, Denzinger *780); Pelagioren ideia gaitzesten du, honen arabera, ez baita beste egoerarik betiko zorionarena eta betiko zorigaitzarena baino (año 418, Denzinger *224; año 1794, Denzinger *2626)...

²⁶² "Urca", era mugatu absolutiboan "urquia", hau da, urkamendia, urkabea.

Laugarrenian: Maquilacarijac ta ocasinuetsubac austen davee bostgarren aguindu-[252]ba. Ta errazoe asco gaiti: 1. Maquilaquetan ta ocasinuietan alcar banatuteco ta ascotan illteco peligruban jarten dirialaco. 2. Burrucaco ta maquiladetaco ocasinuian eguiten daveena baino eguin gura leuqueena, gueijago dalaco. Gorrotuaren subagaz iragota, alcar illgo leuqueen tercijuan dagoz peliada desdichadu atan. 3. Alaco peliada galdubetan guerocho gorrotuac, venguetaco najjac ta luzaroco icusi ezinac ta eriarer²⁶³ zain egotiac gueijenian gurratu oi dirialaco. 4. Echeco pamelijari emoten deutsez an ardura ta atsecaba andijac gaiti, errijan emoten ditubeen escandalubac gaiti ta ocasinuac oi daczan calte chaarrac gaiti. 385 390

Alaco guizon ocasinuetsubac, baque gaistocuac, beti burruaraco edo maquilacaraco prest dagozanac, ezin esan legui ce caltegarrijac dirian echian, auzuan ta errijan. Baquia gura daveenac, ez daqujee euren aurrian cer esan edo celan verba eguin. Ondo esandaco verba bati oratuta, ateraten davee ezda baidia. ¡Oh ce lagun prestubezac, guiza artian egoteco! ¡Oh, ceibat pecatu eguin ta eraguiten daveen! Echia zorrez beteta, emaztia ta umiac biloxic ta gosez dauqueezala, gueratu bagaric davilz alaco guizon baque guichicuac erijaric erija, probaric proba, tabernaric taberna ta ocasinueric ocasinuoe, lecu guztietan atsecabia, cer esana, escandaluba ta gorrotua isteen daveela. 395 400

Bostgarrenian: Pecatu eguiten davee aguindu onen contra, gurasuai erijoztia opa deut-[253]seen umiac. Nai dala gurasuac dauqueezan aziendac edo ondasunac eueganatuteco gurarija gaiti, nai dala guraso zaarra jandu ta zaintuteco nequia gaiti. Codicija edo ondasun guriac pecatu asco eraguin oi ditu. Edo obeto esateco san Paulo apostolubagaz, ondasun guria da pecatu guztien sustraija. Umiac, gurasuac dauquen guztia guichi derichuela, laster euren escubeetan gura leuquee. Tentacinoe onegaz, ez guichitan, ume ascoc opa deutsee guraso zaarrai illtia. Baita uatuta edo ezertaco ezda dagozanai bere ascotan. Seme alaba asco dagoz vijotz gogorreacuac. Eguitia ta cerbait aurreratutia euren nai nausizat artuta dauqueenac. Noren umiac dirian aaztuta vitzi dirianac. Euren guraso errucarijac zaartzan sobrauta echian dauqueezanac. Guraso uatubac edo balijoco ez dirianac echian emoten daveen aazuba²⁶⁴ gaiti, illtia opa deutseenac. Umiac gaiti esaten dana, esaten da suinac, erreinac, lobaac ta beste edocein zaarren arduria daucan edo oneraac jatorcozana gaiti. Onec guztioac austen davee bostgarren aguindu santuba: 1. Gurasuari illtia opa iza-nagaz. 2. Emoten deuten janari copauba, asco derichuela ta esquer chaarran 405 410 415

387 dalaco] dolaco *Ba* 394 calte garrijac *Ba* 409 ez da *Ba*

²⁶³ Mendekurako erearen zain edo abagunean zain egotea esan nahi du.

²⁶⁴ Gure "arazo". Behin dator eta forma honetan, hots, bokal arteko *-r-* gabe eta *-u* bokalez amaiturik: "aazuba".

emonagaz. 3. Verba gogorrac ta errazoe chaarrac esanda, becoqui illuna ta gogo gaistua eracutsita, atsecaba astunac zaarrari emonagaz. Oneec guztio
 420 dira persona zarraren illgarriac. Au gaiti guraso edadeco ascoc, eguiijagaz esan oi davee euren umiac edo ondorenguc gaiti: *Naijago leuquee orreec illda banen*-[254]go. Pecatu ezainac ta Jaungoicuaren gorroto andicucac dira oneec, cristinaubac.

Seigarrenian: Pecatu eguiten davee aguindu onen contra, nai dala ondria
 425 gati, nai dala ondasunac gaiti, nai dala andiguria gaiti, nai dala gorrotua gaiti: 1. Inori bide bagaco erijotzia opa deutsenac. 2. Erijotzia eguiteco aguinduten daveenac, lagunduten davenac, conseju emoten daveenac, voticacua edo armaac ataraco emoten ditubeenac. 3. Proximuari osasunian, nai gorputzeco zatiren baten calte eguiten deutsenac. Edo beso bat edo azur bat ausi, edo zau-
 430 ritu, edo banatu, edo gaixotuten ditubeenac. 4. Inori gorroto deutsenac, gacha opa deutsenac ta inoren icusi ezina dauqueenac.

Bada, Jesucristo gueure Jaunac bere evangelijo santuban eracutsi euscun (165), bostgarren aguindubac eragozten davela, ez bacarric inor illtia, ez bada baita proximuari asarre gaistua euquitia ta asarre gaistuagaz edo gorrotuaren
 435 subagaz verba lotsarizcucac esatia bere. Neuc esaten deutsut, dino Jesucristoc, proximuagana asarria daucana edo proximuagaz asarratuten dana, icusico da ce asarre daucan: Asarriagaz inori verba chaarra (*Raca*) esaten deutsanari, emongo jaco mereci daven castiguba. Baina esaten badeutsa verba lotsagarrija, desondragarria (*fatue*), irabatzi dau impernuc suba. Onan erabaguiten ditu
 440 Jesucristo gueure Jaunac asarre gaistuaren ta gorrotuaren chiquitati andiraco pausubac. Aituten emoteco [255] cristinau guztiai, asarria ta gorrotua ta asarriagaz inori esaten jacozan verba deungaac, gauza andira eldu ezquero diriala pecatu illgarriac edo mortalac bostgarren aguindubaren contra.

Artu daigun bada, cristinaubac, baque santubaren amodijua. Amatau dai-
 445 guzan asarriaren ta gorrotuaren subac. Parcatu daijeguzan arerijuari²⁶⁵ gach eguinac, gueuri Jaungoicucac parcatutia nai dogun leguez. Opa izan daijegun proximo guztiai luzaroco vitzitzia, Jaungoico andija amau ta alabau daguijen munduban. Erruqitu gaitezan inoren osasuneco edo vitzizaco gach ta naibague guztiaquin. Gogoratu daigun, guztioac gariala ceruco Aita onaren semiac.
 450 Emen erveste onetan alcar artuta, alcarri parcatuta, alcarri lagunduta, alcar maitetuta caridade santuban vitzi bagara, ceruco eche santuban beti adisquide ta dichoso alcarregaz izango gariala. Zorijonecucac baquetsubac, dino Jesucristo gueure Jaunac (166), bada eurai esango jacue *Jaungoicuaren semiac*. Alan gura izan daguijala Jaungoicucac bere ontasun andija gaiti. Amen.

455 -----
 (165) Math. c. 5. (166) Ubi supr.

421 ill da *Ba* 429 azur bat *Ba* 433 ez bada *Ba*

²⁶⁵ Inprimategiko hutsa izan daiteke, "daijeguzan arerijuari" komunztadura ez baita zuzena.

[256]

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
celan paltetan dan noberaren vitziziaren edo osasunaren contra.

Esanda gueratu da, neure entzula onac, bostgarren aguindu santuban
 Jaungoicuac zaintuten davela ez bacarric besteen vitzitzia, baita norberarena 460
 bere. Ta oraindino ardura estubaguagaz. Bada, caridade eguijazcua norberaga-
 nic asten da; ta bere burubari eguiten jacon caltia, nai osasunian, nai gorpu-
 tzaren zati baten, pecatu andijagua da beste edoceini eguitia baino. Ez dago
 munduban inor escubidia daucanic bere buruba illteco, bere osasuna galdute-
 co edo bere gorputzari atzapar bat quenduteco. Aguintarijac ta juezac 465
 Jaungoicuac emonda dauquee alizatia, deungaac ta gaisquinac illteco. Baina
 eurac deungaac ta chito gaisquinac izango balira bere, ezin ill leguijez euren
 burubac. Neuc illgo dot ta neuc vitziric euquico dot, dino Jaungoicuac (167).
 Inoc bere ez bere buruba ta ez inor ill ezin legui Jaungoicuaren ordena baga-
 ric. Sansonec bere²⁶⁶, bere buruba ill beeban arerijuaquin naaste, Jaungoicuaren 470
 aparteco ordenia eucalaco [257] ill evan. Bestelan ez zan pecatuti librauco,
 dino san Agustinec (168).

Au gaiti dauca Eleisa Ama santiac eragotzita, ezauberaz, vorondatez, daqui-
 jala ta bere naiz bere buruba illten davena lecu sagraduban enterreetia. Baita 475
 a gaiti meza santuba esatia ta aguirico oracinoia eguitia bere. Meza santuba ez
 da oprecidu biar, dino Aita Santu Erromacuac (169), erijotzaco ordu artian
 pecatu eguinda, erijotzia bera bere burubari emon eutsana gaiti. ¿Ceinec, bada,
 erijotza pecatuzcuagua eguin legui, Judas gaistuari jarraituta, diabrubac eracu-
 tsita, bere buruba ill davena daquigunac baino, cein gaiti dinuan san Juanec 480
 oracinoeric ez eguiteco? Nai erramientagaz, nai urcatuta bere vitzitzia ezaube-
 raz ta bere guraz galduten davenari ez bequijo emon sepulturaric, dino beste
 Eleisiaren ordena batec (170). Bere buruba illten davena, edo dago zoratuta,
 cer eguiten daven ez daquijala, edo dago desesperauta, diabrubac indarra ari-
 man artuta. Zoratuta daguanac ez dau pecaturic eguiten. Zorotasunac pecatu-
 ban artu ez beeban, salbauco da, bere buruba berac ill arren, ezauberia palta 485

 (167) Deuter. cap. 32. (168) Lib. 1. de Civit. Dei, cap. 21. (169) 1. ad Consult.
 Bulg. c. 98. (170) Cum placuit. 23. q. 5.

469 bereburuba *Ba* 485 illarren *Ba* 486 Deuter.] Ceutor. *Ba*

²⁶⁶ Ik. Ep 16,29-30.

davelaco. Ezauberaz ta naiz bere buruba illten davenaren condenacinoia, sinistu daiquegunez, seguruba da. Onaco negargarrira diabrubac ecarten ditu peccarijac ascotan. Ez lelenguan, ez bada urte luceetan peccatuba peccatubari ezarrita, Jaungoicuaren deijai gortuta, conciendijaren col-[258]pe garratzac sarri nequez isilduta, otzta baten arimaco baque chaarrian vitzi izan dirianac. Jaungoicuaren paciencia cansetan da. Arerijuaren astucijac gueituten dira. Peccatubaren pisuba astunduten da. Arimia larrituten da. Munduco pena chiquijac andi eguiten dira. Vitzitziagaz gobait eguiten da. Vorondatia peccatu andi-jacquin ta sarritacuaquin icaratuten da ta gogortuten da. Jauncoico asarriagaz desesperetan da. Ta colpe bategaz guztia amaituteco, urcatuten da, itoten da edo illten da, ta condenetan da. Onan oi da, cristinaubac, euren burubac illten ditubenen asieria ta amai desventurauba. Bildurtu gaitezcan guztio. Ta erregutu daijogun cerubari, ondo illteco gracia.

Guichi dira, ta ojala bat bere ez balitz, euren burubac ezauberaz colpe baten illten ditubeenac. Baina bagoz cristinau asco, edo dala pamparrerija ta arroquerija bat gaiti, edo dala codicija sicu bat ta gorrotogari bat gaiti euren vitzitziari ta osasunari calte eguiten deutseenac, ta bos[t]garren aguindu santuba austen daveenac. *Lelenguac osasunari calte eguiten deutsee vanidadia gaiti. Bigarrenac cerbait aurreratutia gaiti* . Ta bitzubac peccatu eguiten davee aguindu onen contra. Icutsi daigun celan.

I.

Jaungoicuac ez gaitu bardinac eguin guztio. Gueure gorputzetan. Batari emon deuta gorputz andijagua ta bestiari chiquijagua. Batari indartsubagua, bestiari bigunagua, bere vorondate santubac gura izan daven moduban. Baina guztioi emon deutescuz Jaungoicuac gorput-[259]zac, Jaungoicua serbiduten, proximuari lagunduten ta ceruba irabazten gueure arimiagaz biarra eguiteco. Nai gorputz andija euqui, nai chiquija euqui, nai indartsuba euqui, nai argala euqui, onetaraco bacarric, Jaungoicua serbiduten ta gueu salvetan arimiari lagunduteco emon deutescuz Jaungoicuac. Indar gueijago emon deutsanari, duda bagaric, Jaungoicuac escatuten deuta biar on gueijago. Bada, ez deutescuz Jaungoicuac mesediac alperric eguiten, ez bada euraquin balijauta, bere ontasuna obeto serbidu daigun. Argal batec baino sendo batec biar gueijago eguin legui berez. Bada, gueijago eguin biar dau bere vitzi moduban, Jaungoicuari contu ona emongo badeutsa. Bost mesede eguin deutsazanari,

489 negar garrira Ba 490 Ez bada Ba 492 nequez] nequez Ba 498 illtenda Ba |
 oida Ba 503 gorroto garribat Ba 506 cer bait Ba 509 ezgaitu Ba 518 ez bada Ba 521
 Jaungoicuari] Janngoicuari Ba | Bost] Bots Ba

bosten contuba escatuco deutsa Jaungoicuac. Bi eguin deutzanari, bidena. Ta bat eguin deutzanari, batena. Alan gorputzian sendotasun gueijago indar gueijago, ta alizate gueijago Jaungoicuaren escu santubetati artu daveenac, contu gueijago Jaungoicuari emon biarco deutsee. 525

¿Cer eguiten davee, bada, alaco indartsu ta sendo ascoc? Gorputzeco sendotasunagaz balijeetan dira gorputza macalduteco, osasun onagaz osasuna galduteco, gorputzeco indarreequin gorputza argalduteco, manqueteco, uatuteco, gaixotuteco edo illteco. Ascogaz gueure errijetan icutsi doguna ta gueijago gaiti entzun doguna da au, neure cristinaubac, ceubec ondo daquizun leguez. 530
Aixe batzuc buruban sartuta, euren indarreequin ta sendotasunagaz [260] arrotuta, Jaungoicuac pecatu eguiteco emon baleutseez leguez, lagunac desapijjetan, temaac edo posturac eguiten, ezin dituben cargaac jasoten ta eruaten ta beste edo vitzitzia edo osasuna galduteco, edo gorputzaren palta bategaz, edo eraso bategaz betico gueratuteco peligru ezagunetan ta jaquineetan daviltz 535
indarsu asco, gueratu bagaric, euren gorputzac galdu artian. Alacuac euren goguan, buruban ta verbetan ez dauquee beste gauza onic, euren indarrac, euren carga jasotia, euren peliadaac, euren burrucaac, ta euren asco jaatiac ta asco edatiac baino. ¡Ah zoro coitadubac! ¡Indar gueijago euquitia ete da guizon ondraubagua izatia? Alan balitz, zaldi bat ondraubago. Mando bat oraindino ondraubago. Ta tigre bat oraindino ondraubago. ¿Sabel andijagua euquitia ta an gueijago sartu al izatia ete da guizon prestubagua ta obiagua izatia? Alan balitz, Maximo²⁶⁷ odolgalzailia ta guizatazunaren lotsagarrija izango zan prestubeenena. Bada, esaten da, egunian berroquei libra oquela ta oqueta bost libra 540
ardao irunsten citubala. 545

Ojala lotsatuco balira indardun ta jaatun vanidadetsubac onaco entzunquin. Ojala sinistuco balebee, prestuba izatia, ondrauba izatia, zucena izatia, baquetsuba izatia, esanecua izatia, humilde izatia, ta serbizailia izatia dala munduraco ta arimaraco guizonac euqui leguijan preñaric oneena ta entzuteric estimaubena. Ojala ondo buruban sartuco balichaque, orraco euren buruben ta osasunaren caltitan probeetan [261] ta desapijjetan oi davilzanoi, indarrac ez da baidacuac diriala. Gaur sendua dana, bigar gaixoric edo andaan egon leitequiala. Ta azquenian bostgarren aguindu santubaren contra pecatu eguiten daveela: 1. Vanidadez ta premina bagaric indarrac noraguino dirian proveetaco, carga astunac jasoten ta erabilten davilzanac. 2. Vanidadez edo temia eguinda, sartu al daguijen guztia, nai jana ta nai edana, sabelari emoten deutseenac. 550
3. Alaco desapijuac, temaac ta gorputzeco proba neurri bagacuac eguiten 555

542 alizatia *Ba* 556 aldaguijen *Ba*

²⁶⁷ Erromako enperadore Maximo tiranoa esan nahiko du (409-422), (edo, beharbada, Maximo Pupieno, +238).

ditubenac. Oneec guztioac euren vitzitziaren ta osasunaren caltian edo caltegarrian, gauza andijan austen davee bostgarren aguinduba. Jazo lequiyo guizonari, indar biar izatia ta premina orduban guztiaac proveetia. Baina banidadez, pamparrerijaz, arroquerijaz ta Jaungoicua opendidubaz, bere vitzitzia, gorpuzeco izanera ona galduteco peligruban imintia, gauza ezaina ta itsusija da Jaungoicuaren aurrian.

II.

565 Beste batzuc codicija gosedun bat gaiti galdu ta manqueetan davee euren osasuna ta laburtuten ditubee vitzitziaren egunac. Oneec izaten dira: Cer jan ta cegaz vitzi Jaungoicuac emonda, eurai jagocuenez, dauqueela, cerbait aurreratutia gaiti, osasunaren caltian gau ta egun biarrian diardubenac. Baita, euquita ez castetia gaiti gueijagoco bagaric, gorputzari osasunian, nai gaixuan gose tristia ta popuertzacuaren paltia emoten deutseenac bere. Laarreguijac ta guichijeguijac condenauta dagoz, neure entzula onac, gueure evangelijo santuban. Ter-[262]cijua eracusten deuscu ta aguinduten deuscu Jaungoicuac gauza guztietan. Ta da cerubac estimetan davena. Ez dozu, bada, pensau biar eracutsi onetan nic lecu emon gura deusadala alperrerijari, buru guintziari, gorputza ondo artutiari, otz beroric edo goseric ez iragotiari, edo beste onaco gorputzaren amodijo laarreguija oinian euquiteco gueijai. Ez cristinaubac. Baquit, gorputzac gueure salvacinoiaren arerijuac diriana. Baquit, arimiaren crijadubac diriana. Gorputzaren amodijo ordena bagacua gaiti asco condenauta dagozana. Gorputzac ondo ezita, domauta, escupetuta edo errazoepera ecarrita euquiteco Jaungoicuac aguinduten deuscuna. Baquit, ceruco justuben cereguin nausija, euren gorputzai gurarijac ucatutia ta padecidu eraguitia izan dana. ¡Ojala guztiaac onan ezita, domauta baleuquez euren gorputzac Jesusen amodijua gaiti ta ceruba irabaztia gaiti!

585 Beste aimbeste, gauza jaquina da, Jaungoicuac aguinduten deusala cristinaubari zintzo izateco, biarguin izateco ta bere icerdijaren sarija estimetaco. Batzubetan bialduten gaitu Jaungoicuac inurrijagana, vitzi izaten icastera, ceinec batuten daven udaan janarija neguraco chito contuz ta priisaca. Beste batzubetan erliagana, ceinec elduten dan lecu guztiti, inori calteric eguin bagaric, cerbait eruaten daven bere echera, nun daucan vitzi izteco biar davena palta bagaric, inoc oostuten ez badeutsa. Eguija da, Espiritu Santubac eracutsi oneequin jaso gura ditu gueure vijotzac ceruco on-[263]dasun eguijazcuac topeetara. Baina orraitino ez deutsa eragozten cristinaubari, munduban zintzo izatia ta bere gauzai beguiratutia. Adani esan eutsan Jaungoicuac, bere izerdijagaz irabatzita jango evala oguija. Ta Adanen seme guztioi gueure icerdijaren ta biar 595 eguinaren saritzat emoten deuscu Jaungoicuac cegaz vitzi. Apostoluben euren

artian, ez zan Jesucristo gueure Jauna aaztu cegaz vitzi euquiteco arduriaz. Ez da bada esaten, cristinaubac, eracutsi onetan, ez gorputzac laarregui maite izan biar ditugula, ez Jaungoicuac gueu vitzi izateco emon deutcuna, ardura bague egun baten castau biar dogula.

Esaten da bai, neure entzula onac: 1. Codicija gaiti, diruba edo gauzia 600
 aurretutia gaiti, aberatstutia gaiti, gau ta egun, euri ta aterri osasunaren caltian,
 ascoc eguiten daveen leguez, biarra eguitia, bostgarren aguindubaren contra
 dala. 2. Jaungoicuac emonda daucala, ez casteetia gaiti, diruba casteetaco dau-
 can erruquija gaiti gorputzari gosia emotia, edo osasunian nai gaisuan errazo-
 ez ta oi danez jagocana ucatutia, dala bostgarren aguindu santuba austia. 605
 Eracutsi onetan condenetan dana da, dirubaren gosia, ondasunen gurarija ta
 aberatstu naija, osasunaren caltian dala, cerbait aurreratutia gaiti edo leen dau-
 cana ez casteetia gaiti. ¿Ta cein leguetan ontzat emoten dau Jaungoicuac au?
 ¿Nun esan deutsu Jaungoicuac gueure vitzitzia ta osasuna baino dirubac guei-
 jago maite izateco? ¿Ta ceim-[264]bat cristinau dagoz, bai guizonac ta bai ema- 610
 cumiac, gau ta egun, ta esan legui jai ta aste, uda ta negu beti arrastaca ta beti
 priisaca izerdija darijuela, euren gorputzac naarrac balira leguez necatubaz,
 cerbait aurreratutia gaiti, ta echian biar daveena ondo dauqueela? ¿Ceimbat
 emacume sabel catigubagaz ta ascotan osasun argalagaz, auzuac escandalize-
 tan diriala, euri ta aterri biarrian etenaz, echian cegaz vitzi ondo daucala, cer- 615
 bait gueijago euquitia gaiti? ¿Ceimbat cristinau, laboria salduteco cerubac
 emonda echian dauquenac, arto puscabat erruquiz sabelari emoten deutsee-
 nac ta gose gogorrac iragoten ditubeenac, ez castetia gaiti? ¿Ceimbat gaiso,
 diruba edo euquija dauqueenac ta euren buruben jaube dirianac, codicijaren
 codicijaz errial bat ez guichitutia gaiti, illten dira popuertzacuaren paltaz? ¡Ah 620
 cristinaubac! Ceubec daquizu ondo, ceuben echeetan ta auzuetan cer iragoten
 dan. Ceubec zara eguija triste onen testigubac.

¿Ta ez da au dirubari edo, arguiruago esateco, diabrubari bere vitzitzia ta
 osasuna consagretia? Bai. Diabrubaren martirijac dira alaco cristinaubac. Euren 625
 biarra, euren nequia, euren osasuna ta vitzitzia bera bere laburtuta dirubaren
 Jaungoicuari, Satanasari gordeetan deutsee. Esan leguije alaco codiciosuac,
 umiac dauquezala, ta are[e]n oneraco eguiten daveela. ¡Ah neure entzula onac!
 Zeubei cer jan emoten deutsun Jaungoicuac, zuben umiai emongo deutsee sal-
 beetaco biar daveena. Ez da [265] Jaungoicua areentzaco pobriago, zubentza-
 co baino. Ez daucaz aaztuta Jaungoico andijac zuben umiac. Campuetaco lorac 530
 jantzten ditubanac, zuben umiac jantzico ditu. Basuetaco chorijai janarija emo-
 ten deutseenac, zuben umiai emongo deutsee. Codicija da, diru gosia da ceu-
 ben vijotzetan aguinduten davena. Osasuna galdu eraguiten deuntsuna ta vitziz-
 tia laburtuten deuntsuna.

605 oidanez *Ba* 607-608 dau cana *Ba* 617 emon da *Ba*

635 Zuben umiac biarrago davee dotrina ona. Dotrina ona ta arima ona ez badauquee, dino san Juan Crisostomoc (171), dirubac ta ondasunac umiai utsa balijo deutsee. Arima ona badauquee, ez euquijac calteric eguingo ez deutsee. Ezin umiai emon zinajue aziera peligruczagoric codicijarena baino. Ondasunen gosia umiai eracusten deutsezunian, sortuten dozu euren vijotzetan pecatu guztien sustraija. Aberatstu gura daveenac jausten dira tentacinoian ta diabrubaren lazuban, ta puscaca puscaca duaz euren azqueneco galdu mendira. ¡Oh, ce gach daven, dino Jesucristoc (172), oh ce nequez ceruban sartuco dan aberatsa! Codicijari darraiconac, dino Salomonec (173), eche guztia oquertuten dau. Laster aberatstu gura davena, dino beste lecu baten (174), ez da pecatu bagaric izango. Bago beste zoraquerija bat bere munduban, dino beste lecu baten (175), bacarric dago, nori ondasunac ichi ez dauca; ta orregaiti cansau bagaric biarran diardu; bere veguijac ez dira asetuten ondasunez. [266] Ara emen, celan cerubac beguiratuten deutseen ondasunai. Ara, cer balijo daveen Jaungoicuaeren veguijetan ¿Ta oneec gaiti galduco dogu geure osasuna? ¿Edo gueure vitzitzia? ¿Ain izango gara zoruac, ondasun galducorrac ametaco gueure burubac baino gueijago? Ez cristinaubac. Estimau daigun Jaungoicua emoten deutescun osasuna ta vitzitzia. Ez daiguzan saldu edo galdu ain merque, edo obeto esateco, ain gora. Ez daijogun lecuric emon gueure vijotzian tristeza larrijari, arimaco illunari, ta guichijago lelengo pecatubari ta pecatuco egotitari. Cerubagaz desesperauta, Judas gaistuari jarraitu ez daijogun gueure burubac illtera ta impernura. Ez daiguzan aixaatu ta arrotu gueure burubac, indar gueijago ta gorputzeco alizate gueijago daucagulaco. Balijau gaitazan Jaungoicua emon deutescuzan gorputzeco doiaquin, esquer onagaz Jaungoicua bera serbiduteco, proximuari mesede eguiteco ta arimiari salvetan lagunduteco. Quendu daigun gueure vijotzeetati ondasunen gurari sicuba, liorra, mingocha, penazcua ta asetuten ez dana. Eguin daigun biarra preminiac, errazoiac ta vitzi modubac escatuten deutescun moduban gorputzaren bildur bagaric. Baina ez codicija gaiti colpe bat bere. Domau daiguzan gueure gorputzac. Ezi daiguzan ondo. Ucatu daijegun vide bagaric escatuten deutescubena. Artu daigun gueure gorputzeen gorroto santu bat. Dendatu gaitazan gueijago baino gueijago padecidu eraguiten luurrezco gorputzai gueure compesoriaren ezaube-[267]riagaz ta naijagaz, eurac gaiti arimia galdu ez daigun. Baina ez gaitazan izan, ez osasunian ta ez gaisuan gueure vitzitziaren ta osasunaren borregubac, euqui ezquero ez casteetia gaiti. Alan gura izan daguijala gueure

670 Jaungoico onac bere misericordija andija gaiti. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 (171) Hom. 9. c. 2. (172) Math. cap. 10. (173) Prov. c. 15. (174) Id. c. 28.
 (175) Eccl. c. 4.

IV. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan *cer dan orditutia*.

675

Arimia mingochtutia da ardao asco edaatia, dino, neure entzula onac, Espiritu Santubac (176). Ardao asco edatiagaz aituten emoten deutsu, ez edo-
 celan ardaa edaatia, ez bada ardao laarregui edaatia edo orditutia. Janac ta
 edanac, laarreguira eldu ezquero, gach eguiten deutsee ta mingochtuten ditu-
 bee bai gorputzac ta bai arimaac. Janedan larreguijac gorputzari gach eguiten 680
 deusana, gulerubac ta ordijac eurac daqujee inoc baixen ondo. Arimiari gach
 eguiten deusana, san Paulo apostolubac esaten dau (177). Bada, dino, ordijac
 ez daveela ceruba gozauc. Ordijen ipoinac andijac dira. Arimiaren caltecuac
 dirianac²⁶⁸. Gorputzaren caltecuac bere bai asco. Beste asco munduraco bere
 negargarriac. Guztiac conta bere ezin leguiz, dino [268] san Basilioc (178). 685
 Noe justubaren demporati ona ez da ezaututen aldiric, ardao laarreguijaren
 eguitade chaarrac contetan ez dirianic. Escritura sagraduco testamentu bijetan
 milla verba lotsagarriac marcauta dagoz ordijac. Gentilac eurac bere ezin icu-
 tsi cituben ordijac. Erroman bein orditu zanari ez eutsen consejuban sartuten
 isten. Ogueta amar urte artian ez eutsen guizonai ardaoric edaaten isten. 690
 Emacumiai inos bere ez (179).

Neurri santu onegaz ondo aaztuta vitzi dira guizon ta emacume asco cris-
 tinauben artian dempora onetan. Penagarriric andijena da, oquerrerija impame
 onetati, bein atan icasi ezquero, guichi erremedijetia. Oquerrerija edo vicijo
 guztiac dira chaarrac. Baina areetati ordiquerija ez da oneena. Ta menturaz 695
 bera da guichien ta nequezen erremedijetan dana. San Basilioc dinuan leguez,
 ordijetati prutu onic ateraco ez badogu bere, ecandu galdu atan jausten ez
 zarianoc gorroto gueijago izan daguijozun ta urrinago egon zaitez beraganic,
 esango deusut eracutsi onetan: 1. *Cetan daguan ordijaren paltia* . 2. *Nos eza -*
gututen dan orditu dana . 3. *Ce pecatu andija dan ordijarena* . Au izango da, 700
 cristinaubac, oraingo ceuben entzunquizuna ta ez guichi balijo deusuna. Egon
 zaitez, bada, zurtasun guztiagaz.

 (176) Eccl. c. 31. (177) Corinth. c. 6. (178) Hom. in ebriet. (179) Looner. v.
 ebriet.

678 ez bada *Ba* 701 entzun quizuna *Ba* 703 Corinth.] Chorint. *Ba*

²⁶⁸ Guztiak.

705

I.

Orditutia gauza ezaina, itsusija ta lotsagarrija dana, umetaraguinoco guztiac bere ezaututen davee, neure entzula onac. Ardaua [269] berez gauza ona da. Gauza altu ta andi ascoren idurija da Escritura Sagraduban. Jaungoicuac edateco emon eutscuna da. Errazuazco neurrijagaz, bacochari jagocan moduban, 710 ardaua edatiac ez lotsaariric, ez calteric dacar. Baina ardaua dan leguez gueure sabelian sartu ezquero ain biarguin presta, sutsuba ta indartsuba, gorputceco odolac ta ur bitzigarrijac erabilteco, verotuteco ta asarratuteco, esaten jaco cristinaubari, ardaua edan biar dala voticacua leguez. Alan aguinduten eutsan san Pauloc Timoteo, bere escolaubari. Estomaguco gacha gaiti ta bere sarritaco 715 gaixuac gaiti edan daguijala ardao pusca bat, esaten deutsa (180). Adin oneco²⁶⁹ guztiac beguiratu deutsee ard[au]ari bildur santu bategaz, errazoia ta sinistute ona galdu ez daguijuezan. Baita adin gaistocuac ta deungaac bere vildurtu ditu ardauc. Maoma desventuraubac uts eguite ta nasaitasun guztien artian ichi zituban bere icasicuac. Baina eragotzi eutsen ardaua edatia. Sinistu 720 euquian eregeguin²⁷⁰ paltso ac, ardaua neurri bagaric edaten dan lecuban, ezin guizonac iraun leguijeela luzaro sen baten. Ta berac ichi eu[t]sen vitziera nasaijac, loijac ta pecatuzcuac iraun eguijuen, legue gogor bategaz eragotzi eutsen ardaua edatia²⁷¹.

Ardao laarreguijagaz guizonac eguiten daven uts eguitia da, errazoia illundutia ta galdutia. Jaungoicuac emon deutescuzan doetati nausijen bat da errazoia. Guizona guizon iza-[270]tia. Onegaz erabaguiten²⁷² gara ganadubetati. Errazoeric ez bagueunca, nos cer eguin biar dogun ez baguenqui, ona ta charra ezautuco ez baguenduz errazoiagaz, gu ta ganadubac erabatecuac izango guinatequez. ¿Cer eguiten dau, bada, ordituten dan guizonac edo emacumiac? 730 Guizonaren arguigarrija ta errazoiaren usuba illundu, lausotu ta galdu. Jaungoicuac emon deutsan doe nausija, bere guraz ta bere naiz ezcutetan dau ordituten danac, ta viurtuten da abere baten erara. Ordijac ez cer eguiten daven, ez cer esaten daven ez daqui. Ez nor dan, ez cetaraco dan daqui. Ordijac ez dauca errazoiaren usuric. Ez dauca guizonaren eguitaderic. Ordijari 735 ascotan beguijetati darijo suba, aoti juramentuba, bidaua, maldecinoia ta bitsa, endemoniadu bati leguez. Alan esaten deutsa san Basilioc ordijari: *bere guraz* -

(180) Ad Tim. c. 5.

722 iraun] iragun *Ba*

²⁶⁹ "Adin oneco": zentzu onekoa

²⁷⁰ "Eregeguin": heretikoen burua, "heresiarka" esan nahi duela dirudi.

²⁷¹ Ik. *Esku*-ko 201.oharra (688.or.).

²⁷² "Erabagui": bata eta bestea bereizi.

co demoninua (181). Ascotan canta verde, verba loi ta eguite lotsaarizcuetan
atsituta dago, ganaduba bera baino loijago ta luxurijotsubago, dino san Basilioc
berac. Beste ascotan batsatza baten, vide baten edo carcaba baten etzinda lo 740
datza edo jagui ezinda dago. Alan esaten deutsa Espiritu Santubac ordijari
(182): *¿Cui fovee?* Beste ascotan zamaica, desapijoca, burruca ta diadarca dabil,
zorua leguez. Beste ascotan... ¡Ah! Ezin esan legui, ordijac bere burubari era-
guiten deutzazan zoraquerijac, oquerrerijac ta gaistoquerijac. *¿Ta cegaiti?* Ardao 745
laarreguijagaz bere errazoaia illundu ta galdu [271] davelaco. *Fili Belial*, demo-
ninuaren semiac esaten deutsee ordijai san Geronimoc. Tercijo onetara ecarten
dau ordijac bere buruba bere naiz.

¿Ta cer eguiten dau osasunian? ¡Ah, cristinaubac! Ordijac eurac daquijee
ondo cembat tripa ala, ceimbat buruco astun, ceimbat aguinte chaar iragoten
dituben, ardao sobraubari sabelian cobru emon ezinda. Eurac daquijee, ardao 750
larreguijagaz ceimbat colpe andi artu dituben. Baita jaquin biar leuquee, ceim-
batec gorputzac gaisotu dituben, osasuna galdu daven, vitzitzaac laburtu ditu-
ben ta baita, ordi aldija irago bagaric, ceimbat ill dirian bere. Bai, cristinaubac,
arimiaren ta gorputzaren contraco pecatuba da orditutia. Baina ardaua edatia 755
ta laarregui edatia edo orditutia bat ez dirian leguez, icutsi biar dogu, celan
ezautuco daven cristinaubac, ardao laarregui edan davena.

II.

Ardao zaliac uste davee, edan daveen guztiari sabelian cobru emon ezque-
ro, asco edan arren, ez dala laarregui ta ez diriala orditu. Au sinistuta vitzi dira 760
ordiric gueijenac pecatu mortalian, menturaz euren vitzi guztian. Aoti atcera
ateraten ez badavee, gueijago ta gueijago edan arren, ez dauquee pecatuzat.
Baina ordijac juez chaarrac dira, eurai sinistuteco. Santo Tomasec aituten emo-
ten deutsu (183), ez dala popuertzacua ordituteco, edan davena aoti atzera 765
ateratia. Pecatuzco orditutia da, santo Tomasen ta beste eracusleen esanian,
daquijala, bere guraz errazoiaren usuba illunduco deutsan beste, edo illundu-
co ete deutsan bil-[272]durra daucan beste ardao edaatia. Ta au edocean bere
ardao generogaz. Bada, guztiac dira tercijoti aurrera irago ezquero, juicijuaren
galdugarrijac. Cristinau guztiac ez dirian leguez osasunian, sendotasunian,
janian ta edanian bardinac, santubac berac dinuen leguez, ezin imini legui guz- 770
tientzat neurri bat, ardao laarregui nos edan dan jaquiteco. Au ezaututeco, era-
cuslaac beguiratuten deutsee ardauc sabelian sartuta dacazan eguitiai. Ta andi
ateraten ditubee, ardao larregui edanagaz, nos pecatu eguiten dan jaquiteco
ezaungarrijac. Ta dira:

(181) Hom. de ebriet. (182) Prov. c. 23. (183) 2. 2, q. 150, a. 3. ad 3.

775 1. Edanda daguanian, cer esan daven ta cer eguin daven vijamonian gogoratu ezina. 2. Edan bagaric daguanian eguin ez oi dituban ta esan ez oi dituban gauzac esatia ta eguitia. 3. Gauza onac ta chaarrac errazoigaz erabagui ezina. 4. Miinagaz ondo verba eguin ezina. Verbaac naastauta, motelduta, erdzi erdi baino erabagui ezina. 5. Oinaquin ondo ibili ezina. Alvo alvoca juatia.

780 Echeco edo auzoco persona ezaugunac eta jaquinac ezautu ezina. Ta azque-
nian, echiac edo arbolac giraca beguitandutia. Senalle edo ezagungarri oneec
iminten ditubee, neure entzula onac, Eleisaco eracuslaac, ardao laarregui eda-
nagaz nos pecatu eguiten dan ezaututeco. Bada, ardauc ecarten badau gui-
zonia nai emacumia, edanda eguanian cer esan evan edo cer eguin evan vija-
785 monian gomutau ezin dan edura; besteetan eguin ez oi dituban zoraquerijac
edo gaistoquerijac eguitera; gauza onac ta charrac bere burubagaz ta errazoia-
gaz garbitu ta erabagui [273] ezin dituban duinara; miinagaz motelca ta
naastauta baino verba eguin ezin daven tertcijora; oinen gainian zucen egon
edo ibili ezinera; echecuac ta adisquidiac ezautu ezinera; buruba zoravijotute-
790 ra ta icusgarri ezac beguitandutera; gauza jaquina da, dinot, tertcijo onetara
ardao laarreguijac ecarri davena, orditu dana. Orduban illundu dau errazoiaren
arguija, galdu dau guizonaren arguigarrija, viurtu da bere burubaren jaube ez
izatera ta eguin dau pecatu, guero esango dan moduban. ¿Baina ce pecatu
derichazu dala orditutia? Entzun eguizu, cristinaubac, contuban jausteco.

795

III.

Santo Tomas, icasilecubetaco ainguerubac itanduten dau (184), ia orditutia
pecatu mortala dan. Ta erantzuten dau santubac, baietz. Iru modutara, dino
Santubac, jazo leitequiala orditutia. 1. Noberac uste ez davela, edo ardauc ain-
tzat ez daucala edanda ordituten dainian. Alan ardauc eraguitia, jazo leiteque
800 pecatu ez izatia, dino Santubac. Au jazo jacon Noe justubari orditu zanian,
Eleisiaren Guraso ascoc dinuenez. 2. Ardauc aintzat ez daucala, cerbait gueija-
go edanda orditu dainian. Ta orduban ardauc eraguitia, izan leiteque pecatu
chicarra, dino Santubac. 3. Ardauc eraguingo deusana ezaututa bere, ardauc
805 la da ardauc eraguitia, dino Santubac berac. Bada, berac daquijala ta nai dave-
la galduten dau ta illunduten dau errazoiaren arguija. Au da, neure cristinau-
bac, [274] santo Tomasen ta beste eracuslen dotrinia ordiquerijaco pecatubaren
gainian.

(184) Ub. supr. a. 2.

775 Edan da *Ba* 776 oidituban *Ba* 776-777 oidituban *Ba* 781 ezagun garri *Ba* 785
oidituban *Ba* 792 argui garrija *Ba* 796 ia] Ya *Ba*

Emeti esaten da: 1. Nos bait ustez uste bagaric, edo bustita dagualaco, edo 810
 janzaarian²⁷³ dagualaco, edo ezaututen ez daven ardao burutsuba²⁷⁴ dalaco,
 edanac eratsotia edo orditutia, jazo leitequiala pecatu bagaric. 2. Tercijoti
 pusca bat gueijago edatia, errazoia illundu bagaric, gorputzian ta errazoian cris-
 tinau daguala, izango dala pecatu chicarra. 3. Noberac daquijala ta ezaututen
 davela (leenago sarritan jazo jacolaco), bere guraz esan dirian tercijuetati bate- 815
 ra nai beste batera bere errazoia edo gorputza ecarteco duina ardao edaten
 davenac, eguiten davela pecatu mortala edo illgarrija. Ta au, nai dala ardao
 genero bat, nai dala beste bat, nai dala ona, nai dala comuna, nai dala bacar-
 rric, nai dala naastauba.

Eracutsi onetati ezaututen da, cristinaubac, eria daveen guztian ordituten 820
 dirianac, nai guizonac ta nai emacumiac, urte ascotan oitura galdu au dauque-
 enac ta ichi gura ez deutseenac, pecatu mortalian vitzi diriala. ¡Oh, ce penia!
 ¡Ta cer ascorena orditute lotsagarrija! Ez da verbaric topeetan, oiturazco ta
 ecanduzco ordi bat, merecidu daven moduban desondreetaco. Esatia ordijari
 galduten davela bere arimia, osasuna, cleituba ta euquiija, alperric da. 825
 Ardauren gurari zorigaistocuac itsututa, engainauta dauca ordi desventurauba.
 ¡Baina, ce trago mingochac edaten ditubeen! ¡Ce pecatu ezainac irunsten ditu-
 been!

¿Ceimbat pecatu darraicoz ordiquerijari? [275] ¿Ceimbat escandalu?
 ¿Ceimbat ocasinoe? ¿Ceimbat erijotza eraguin ditu ardao laarregui edanac? 830
 ¿Ceimbat burruca, maquilaca, tratu gaisto, joco galdu, auzi bide bagaco ta
 baque chaar imini ditu errijeetan, auzuetan ta echeetan orditutiac? ¿Ceimbat
 adulterijo, pornicacinoe ta luxuriija lotsagarritara ecarri ditu guizonac eta emac-
 umiac ardauc? ¿Nos icutsi da guizona edo emacumia, ardaun jausten dana,
 ta modestija, onestidadia ta castidadia maite ditubana ta gordetan ditubana? 835
 ¡Ah! Espiritu Santubac ta Eleisiaren Gurasuac esaten davee, ta gueuc icusten
 dogu vijotzaren peniagaz. ¿Baina cer? Ardauren eguitade nausija dala: Edo,
 suba, asarria, zamaija, desapijua, burruquia ta ocasinioia. Edo, verdetasuna,
 desonestidadia ta luxuriija. Ez zaitetz orditu, dino Espiritu Santubac (185), cei-
 netan dagan luxuriija. Ardaua da luxurijotsuba ta orditutia baque chaarguina, 840
 dino beste lecu baten (186). Alemanija guztien luxuria baino chaarrago da ordi-
 jarena, dino san Basilioc (187). Bada, alemanijaac gordetan ditubee naturale-

 (185) Prov. c. 10. (186) Eccl. c. 19. (187) Hom. de ebriet.

810 esatenda *Ba*

²⁷³ "Janzaar": jan dela denbora luzea igaro ondoren; (aditzondo gisa erabiltzen du).

²⁷⁴ Sarrera orokorreko hiztegitxoan honako hau dator: "burutsu": pertsona argia, buru one-
 koa // ohiko adiera honetaz gain, burura egiten duen ardo nahiz edari bizia adierazten du. Testu-
 atal honetan azken adiera hau du.

ciaren leguiac ta ordijac ez, dino Santubac berac. Nun ordija, an diabruba, dino
 845 san Juan Crisostomoc (188). ¡Oh, ordi desventuraubac, ceimbat pecatu irun-
 ten ete ditubee! ¡Ce estado tristian iminten dituben euren arimac, auan eztija ta
 sabelian verenua dan ardao pusca bat gaiti!

¿Ta euren ondria? ¿Baina ce ondra euquico dau, bere guraz ta daquijala,
 zoro baten [276] edo amurratu baten edo abere loi baten echuraan sarritan bere
 850 buruba iminten davenac? ¿Bide baten edo basatza baten edo taberna baztar
 baten noren seme edo alaba dan ez daquijala, ordituta datzanac? ¿Or emen
 baztarrac loituten ditubanac? ¡Ah! Umeetaraguinoco guztien barregarrija ta bur-
 lagarrija da ordija. Lecu ascotan testigutzat bere balijo ez dau. Inor bere pi-
 855 jigantza palto, desonestidade ta pecatura ecarten da ordija. Entzute au dau-
 quee ordijac lagun artian.

¿Ta aciendia? ¡Ah! ¿Ceimbat eche ta pamelija galdu ez ditubee ordijac?
 Guizon ordi gueijenac dira jocolarijac. Gueijenac, tratu chaarretan ta desones-
 tidadetan aciendac galdu ditubenac. Gueijenac, tabernetaco zorrac paguetan
 860 inos amaitu ez ditubenac. Asco, echiac concursau ditubenac. Ta ez guichi,
 emaztia ta pamilija baquee chaarrian gosez ta biloxic dauquenac. ¿Ta emacu-
 me ordija? ¡Oh! Ezin aitatu legui. Gauza guztietati ezainena, loijena, itsusijena
 ta galdubena, dinue Eleisiaren Guraso ascoc, dala emacume ordija. *Nihil tur-*
*pius, nihil fedius, ad modum turpe*²⁷⁵. ¿Cer gueratuten jaco, bada, ordi tristiari,
 865 bere arimia, osasuna, cleituba ta aciendia galdu ezquero? Sedecias erreguiari
 jazo jacona jazoten jaco ordi tristiari, dino jaquitun batec. Beguijac aterata, itsu
 itsuban nora eroien ez equijala, Babilonijara eruan even Sedecias²⁷⁶. Etsai gais-
 tuac ardaugaz itsututen ditu ordijac. Erabilten ditu munduban Babilonijati
 Babilonijara, pecatuti pecatura. Ta az-[277]quenian eruaten ditu itsu itsuban
 870 bere erreinura, cein dan impernuba. ¡Oh, ceimbat onaco jatzo negargarri ira-
 curten dirian, cristinaubac! Entzun eguizu bat ta da eracusla ascoc dacarreena
 (189).

 (188) Ad prop. Antioch. (189) Marchant.; Looner.

870 ceindan *Ba*

²⁷⁵ Esapide hau, zati bat gutxienez, san Joan Krisostomoren izan daiteke: *Hom. 27, (Commentarius in Acta Apostolorum, Hom. 27, 2* ("Nihil turpius muliere deliciis dedita, nihil turpius ebriosa", PG, Migne, 60, 207) eta *Hom. 71 ad popul*; Frai Bartolomek obra honetan aurki zezakeen: CORNELIUS A LAPIDE, *Commentaria in Ecclesiasticum ...*, Ludguni, 1732, 458.or. Hain zuzen ere, Eskuizkribuko oharrean San Joan Krisostomoren aipamena dakar: "hom. 71 ad popul.", aipatutako Kornelioren liburuko 458. orrialdean ageri denez.

²⁷⁶ (Sedekias - Sidkia) Ik. 2Erg 25,6-7.

Taverna baten ordituta egozala, asi zirian guizonac edocein modutan arimiaren gainian verba eguiten. Areetati ordi batec cinuan: *Abadiac pundamen - tu bagaric engainetan gaitubee, ill ta guero arimaac gorputz bagaric vitzi diriala esanda* . Ari barreca guztiac egozala, sartu zan tavernan echura gaistoco ezezagun bat. Escatu eutsen trago bat ta itandu eutsen, *cer iragoten even* Erantzun eutsan ordijac: *arimeen gainian gagoz verbetan; ta inoc erosi gura badeuts neuria, azumbre bat ardao gaiti emongo deusat nic neure arimia* . Pensau zeubec, cristinaubac, beste ordijac cer esango even ta ce barriac eguingo zituben, errazoe areec entzunda. Campoti sartu zana eguin jacon arimiaren mercatari, barreca. Eguin even tratuba algaraz. Atera even arimiaren balijua, azumbre ardaa. Edan even. Ta andi guerochubago intandu eutseen arima erosliac guztiai, *ia zaldija erosten davenac, cabubac* ²⁷⁷ *beriac ez dituban*. Erantzun eutseen ordijac, baietz. Bada, nic erosi dodan arima onen cabuba gorputza da esanda, gorputz ta arima, ordi tristia gustien vistan gora gora jaso ta, eruan evan demoninuac impernura.

¡Oh, ceimbat onaco amai zoriguestoco izan ditubeen ordiac! ¡Ez ete dira guizonac eta emacumiac nos edo nos contuban jausico ardauagaz! [278] Alan gura izan daguijala Jaungoico andijac. Entzun dozu bada, cristinaubac, cer dan ordituta; celan ezaututen dan; ta ce pecatu ezaina dan. Onegaz amaituten ditut leleengo bost aguinduben icasiquizunac. Amau daigun, bada, vijotz guztiagaz gueure Jaungoico ona. Ondrau daigun bere icen santuba. Santutu daiguzan domeecac ta jaijac. Prestau daiguzan gueure arimaac, gurasuen ta nausijaguen esanac pozic eta gogoz eguiteco. Opa daijeegun proximo guztiai, gueure burubai opa deutseeguna. Ta gordeco ditugu Jaungoicuaren aguindu santu oneec. ¡Oh, Jesus cerucua! ¡Oh, Virginia gozua! Entzun eguizuz, bada, gure erregubac, ta emon eguiguzu ceruco erreinuba. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen. (*)

LELEENGO PARTIAREN AMAIJA.

900

(*) Iracurlaac icusico davee icasiquizun oneetan, verba batzuc dagozala bitutaco letriagaz: *aa, ee, ii*, arimaan, deutseen, jadiichi... Beste batzubetan verbac eurac ta euretaricuac letra bacarragaz: *poltsan, dave, eguija*... Euscal erri guztietaraco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui, verbiaren luce laburra, ascotasuna ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. Menturaz ascoc erichico deutsa astun. Baina verbeeta guztien gacha da au. Urreenguan entzungo da jaquitunen erichija.

875 gaitubeeill *Ba* 876 sartuzan *Ba* 881 sartuzana *Ba* 883 guero chubago *Ba* 884 ia| *Ya Ba* | cabubac| cababac *Ba* 888 etedira *Ba* 902 ii| *ij Ba*

²⁷⁷ "Cabu": zamariaren tresnak, uhalaria; ("aparejos" itzultzen dute gaztelanaiara).

[1]

SERMOIA
GURASUEN TA UMEEN ONERACO

Curva cervicem eius (filii) in juventute, et tunde latera eius, dum infans est, ne forte induret, et non credat tibi, et erit tibi dolor animae.
Eccl. Cap. 30, v. 12.

5

Beeratu eguijotzu umiari iduna gaztetan, ta domau eguijotzuz saije tsac, chiquija dan artian, descuiduan gogortu ez dedin, ta sinistutia ucatu ez daguizun, eta arimaco penia izan ez daguizun.
Eccl. ubi sup.

Arimaco poz andijagaz ta vijotzeco esan ezin leguijan gozotasun bategaz entzuten dira, neure cristinaubac, seme alabaac ondo azten ditubeen gurasuen zaartzaco, vitzitzaco ta erijotzaco atseguinac, dicha onac, bendecinoiac ta gracijac. Umiac ondo azten dituban gurasua, atseguinduco da ta consolauco da bere semiagaz ta alaviagaz. Ondrauco davee, jasoco davee ta estimauco davee auzuetaco ta errico gentiac. Vitzico da vijotzeco alegueretasun gozoz ta pozgarrari mai-[2]tez beteta. Ta illteco orduban ez da penauco, seme alaba oneetan isteen davelaco bere echura zucena, ondrauba, zintzua, baquetsuba ta cristinauzcua. Job santuba, Abraan patriarca andija, Tobias dichosua, Susana Jaungoicozcua, Ana Samuelen ama, Eleazaro, Matatias, santa Monica ta beste milla dira, neure entzula onac, eguiija onen testigubac. Guztia artu citubeen ta artuten ditubee ugari ceruban, seme alabai emon eutseen atziera onaren prutu dichosua ta zorijonecua. Espiritu Santubac, casic isildu bagaric, ez daquit ceimbat lecutan, aguinduten deutsee ta escatuten deutsee gurasuai seme alaveen atziera ona, esanecua, humildia ta cristinauzcua. Opa deutseez vitzitza lucia, dicha ona ta zaartza ondrauba, umiac ondo aztiaren saritzat.

25

Baina beste aldeti, gogoratuten deutsee guraso guztiai ceruco espiritubac errazoe ta jazo ascogaz, umiac ondo ezi bagaric, eracutsi santuba bagaric, Jaungoicuaren bildur eguijazcua bagaric, nasaitasunian ta guraari ascatubeeetan azten baditubee, ecarrico deutseela eureen burubai naibaguezco vitzitzia, atsecabazco zaartzia, erijotza desondrauba ta azqueneco penia. Beeratu eguijotzu umiari iduna gaztetan, dino Espiritu Santubac. Gazte-[3]tan, chiquitan, lau edo

30

8 ezdaguizun Ba | ezdaguizun Ba 10 vijotzeco] vihozceco Ba 13 atseguinduco-
da Ba | consolaucoda Ba 15 vijotzeco] vijozceco Ba 16 ezda Ba 21 atzi era Ba
22 ezdaquit Ba 24 atzi era Ba

bost urte ditubaneti aurrera, *dum infans est*, domau eguijozuz saijetsac. Contu eguizu, gogortu ez daquizun ta ceuri sinistutia ucatu ez daguizun. Bada, isteen badeutsazu umiari indartuten, sendotuten ta gogortuten, ceuri entzun gura ez deutsula, ceure esana eguin gura ez davela ta ceuri entzuteri edo sinistuteri emoten ez deutsula, izango dozu arimaco penia. *Erit tibi dolor animae*. Chiquitati umiari zigorragaz lotsia emoten badeutsazu, umiaren arimia impernuti librauco dozu (190). Chiquitati zigorragaz lotsa onian azten ez badozu umia, gorroto deutsazu, gaisqui opa deutsazu umiari. (191)

Onan verba eguiten deutsee, neure entzula onac, Espiritu Santubac guraso guztiai euren seme alaveen aziera onaren gainian. Umetati seme alabai esan oneco ta errazoe oneco azieria emon biar jacueena, chiquitati ezi ta domau biar diriana, tema gaistuaquin urteten ichi biar ez jacuena ta gauza deungaric parcatu biar ez jacuena, Jaungoico eguijazcoric ezaututen ez evenen gentilac bere autor daveen gauzia da. Platon, Aristoteles, Plutarco, Ciceron ta beste gentil ascoc (192) eracutsi leguijuee cristindadeco gurasuai, ce-[4]lan chiquitati azi biar ditubeen eureen umiac. Areetati batec dino (193), umiac prenuba²⁷⁸ biar daveela gaztetati. Prenuba, lotsagarrija, lotugarrija, bildur santuba, ta eracutsi ona umiari gaztetan. Beste batec dino (194), gurasuac celacuac nai ditubeen, alacuac izango diriala umiac. Esateco moduban, gurasuen aziera ona edo arin ona dala umeen izate guztia. Beste batec dino (195), gurasuen cereguin nau-sija dala, umiac erriaren ta gentiaren oneraco aztia. Au eracusten evene gentilac. Onan verba eguiten eutseen gurasuai, Jaungoicoric ezaututen ez daveenac. ¡Oh, cristinaubac! ¿Cer esan biar ete dau, bada, Jesusen escolari²⁷⁹ batec?

Au gaiti, ceubec daquizu, neure entzula onac, era guichi galdu ditudana neure eracutsijetan, gurasuai eguinbiar andi edo nausi au gogoratu bagaric. Batzubetan atajadiac ecarrita, beste batzubetan berarijaz topauta; ascotan ondo esanagaz; sarritan ecer parcatu bagaric nos bait erregutubagaz, ta ez guichitan zamaitubagaz, ta ume gaisqui acijeen sail negargarrijac esanagaz, *insta, oportune, importune*²⁸⁰... Dendatu nasala, uste dot, gurasuai eureen ta umeen oneraco cereguin [5] santu au buruban sartuten. Pensau dot, bada, oi dirian voti-

 (190) Prov. c. 23. v. 14. (191) Id. c. 13. v. 2. 4. (192) A Lap. in c. 30. Eccl. (193) Senec. in Octav. (194) Terent. (195) Virg.

34 ezdaquizun Ba | ezdaguizun Ba 36 ezdeutsula Ba | ezdavela Ba 39 ezba-
 dozu Ba 44 ezjacuena Ba 45 ezjacuena Ba 52 cer eguin Ba 54 ezdaveenac Ba 55
 etedau Ba 57 eguin biar Ba 61 ustedot Ba 62 cer eguin Ba | Pensaudot bada,
 oidirian Ba

²⁷⁸ Frenua, galga; Frai Bartolomek ez du *frik* erabiltzen maileguzko hitzetan ere, horregatik "prenu" bitxi samar gerta dakioke haren idazkerara egin gabeko irakurleari...

²⁷⁹ "Escolari": ikaslea, eskolakoa.

²⁸⁰ Ik. 2Tm 4,2.

cacuaquin gacha osatu ecin daven medicubac edo osalarijac, barrijac asmauta, 65
gaisuari emoten deutzazan leguez, beste asmo barrico bide bat artu biar dodala
sermoe onetan gurasuen ta umeen eracutsiraco.

Guraso zaar asco icusten dira, esquer charreco, vijotz gogorreco ta lotsa
gaistoco umeen escupian ta aguindupian, asco padeciduten daveela euren 70
seme alaveetati ta erruqijia emoten daveela. Alaco guraso triste, zaar, erruca-
rijai cer eguin biar daveen esatia, conseju onac emotia ta eureen zaartzaraco
ta erijotzaco orduraco pozgarri bat eracustia ta presteetia, duda bagaric da cari-
dade andija. Au da bada, neure entzula onac, sermoe onetaco nire ustia ta ceu-
been entzun onaren gueija: *Seme alaba deungaac ta esquer charreacuac dau -*
queezan guraso zaar errucarijai pozgarri seguru bat eracustia . Uste dot, en- 75
tzungo deustazula gogo onagaz.

Sermoe onetan bertan icasi daiquee seme alabaac bere, baita ume chica-
rrac dauqueezan gurasoac bere, tercijo atara elduten badira, eureen zaartzaan
ce pozgarri euqui daiqueen. Ez nas cansauco, cristinaubac, eracutsi onetan,
Ciceron ta Demostenesen verbeetaco modubac toloztuten. Eguija aituten [6] 80
emotia da neure lanaren ta ceubeen entzutiaren gueija. Au biar dan espiritu-
bagaz ta nic guztioi opa deutzudan prutubagaz eguiteco, eldu gaitezcan guztio
vijotz garbijagaz ceruco tronu santura. Escatu daijogun seme alaba guztien Aita
onari, gueure Jaungoico bacarrari, jadiisteco uste osuagaz, nic sail oni jarraitu-
teco biar dodan gracia; garbitu daguizala nire vijotza ta ezpanac, sendotu 85
daguizala nire verbaac, zuzendu dagujala nire naija ta bigundu daguizala ceu-
been vorondatiac. Ta zucenago jadiisteco gracia santa au, imini daigun bitaarte-
cotzat cerubetaco Erreguina, Ama Virgina guztiz santia ezanagaz: AVE MARIA.

Curva cervicem eius in juventute, ut supr.

Eguija esateco, neure cristinaubac, ¿cer egon leiteque munduban penaga- 90
rijagoric edo minberagoric vijotz batenzat, iru edo lau seme alaba edo gueija-
go nequez azi dituban guraso zaar, cansau, ecertaco ez bat areen esquer cha-
rrian ta lotsa gaistuan icustia baino? Ya edadian jausita, zaartuta, cansauta,
sepulturara bidian dagan gurasua, icerdi ascogaz ta nequez azi dituban sabe-
leco prutubac, bere semiac edo alabaac gaizqui trate-[7]tia da, duda bagaric, 95
pena andijeetati ez chiquijena. Ume batac casuric eguiten ez deutzala; bestiac
lotsia ta errespetua galduten deutzala; bestiac beguiratute on bat eguiten ez
deutzala; bestia agur bat eguitera inos aguertuten ez jacola; bestiac verba bat

70 daveela| deveela Ba 73 Auda Ba 75 poz garri Ba 87 jadiisteco| jadiisteco Ba 88
Virgina| Virguina Ba 96 ezdeutzala Ba 97-98 ezdeutzala Ba 98 ezjacola Ba

100 esan orduco, erremuscadiagaz atzera sartuten deutsalaz; bestiac gurasuac jaaten
 daven copaubari asco derichola; bestiac auzijac eta naibagaac echera ecarten
 deutsalaz; bestiac aguiraca ta jotera bere eguiten deutsalaz; bestiac bere gazte-
 105 taco paltaac burlaz arpeguijan esaten deutsalaz; beste semia edo alavia justicijac
 carcelaan daucala; dinot, neure cristinaubac, menturaz ez daguala luurraren
 gainian guraso batentzat pena garratzagoric, atsecaba mingochagoric, nai-
 bague minaagoric ta vitzi izateco gobaitgarijagoric, berac nequez azi dituban
 umiac modu onetan zaartzan berari erantzutia baino.

Guraso batec erneguetaco, arimati negar eguiteco, vijotza erdi bi eguite-
 co, buruba amaituteco ta cerubari erijotzia escatuteco penia da au. Umiac azi
 110 ditut, dino alaco guraso triste errucar[r]ijac. Ta eurac dira neure zaartzaco pena-
 ric andijeena. Umiac azi ditut, neure zaartzaco pozgarrizat. Ta nire poza [8]
 viurtu da neure vijotzeco mingochtasun nausi izatera. Umiac azi ditut nequez
 ta penaz neure despeideengo eguneen arrimugarrizat. Ta eurac dira egunian
 egunian ta orduban orduban vitzitziagaz desesperau eraguiten deutsteenac.
 Eurac dira, ni baztartuta, sobrauta nauqueenac. Ez dauca guraso penaubac luu-
 115 rraren gainian nora beguiratu, bere umeetati atsecabia ta penia artu bagaric. Ez
 da gauza barrija, guraso sobraubac tertcijo atan bere buruba icusita, egunian
 milla bidao ta maldecinoe umiai ezartia. Bada, egunero dauca ume bata ganic
 alvista chaarra, bestia ganic injurija, bestia ganic gosia, ta guztietati illgarrija ta
 mingarrija. Ez da gauza barrija, guraso ascoc eureen seme alaveen lotsa gais-
 120 tua ta esquer chaarra icusita, areec escura ta errazoera ecartiagaz desesperau-
 ta, euren burubai purijaz illtia opa izatia, (beste muduban cer icusiric ez balego
 leguez). Ez da gauza barrija, ta ez da guichitan jazo oi dana bere, guraso
 asco, urte gueijagotan vitzico litzaatequezanac, seme alava deungaac diriala
 medijo, leenago illtia ta, eurac esan oi daveen leguez, munduco baquia egui-
 125 tia.

¡Oh, seme alava gaistuac ta lotsa galducuac dauqueezan guraso errucarri-
 jac! ¡Oh, triste desdichaubac! ¡Oh, ce zaartza penagar[r]ija ta garratza dan
 zubeena! ¡Nor erruquituten ez da, nori vijotza austen ez jaco berecauten, eda-
 dian jausitaco²⁸¹ aita bat edo ama bat oian, edo macal, edo ibili ezin dala, edo
 130 bere gorputz zaarra ozta jasoten davela icutsita, bere umiac edo naibaguez,
 edo errazoe charrez, edo gosez, sobrauta, ill ezinda illten dauqueela entzun
 ezquero? ¡Oh, ce eguite santuba alaco guraso tristen vijotzac consoleetia! ¡Oh,
 ce caridadia pozgarri on bat areentzat topeetia! ¡Baina celan erremedijau legui

100 nai bagaac *Ba* 103 ezdaguala *Ba* 110 poz garrizat *Ba* 111 vijotzeco| vijozceco
Ba 114 Ezdauca *Ba* 115-116 Ezda *Ba* 117 egun ero *Ba* 119 Ezda *Ba* 121-122 ezba-
 lego *Ba* 122 Ezda *Ba* | ezda *Ba* | oidana *Ba* 124 oidaveen *Ba* 128 ezda *Ba*
 | ezjaco *Ba*

²⁸¹ "Edadian jausitako": adinean aurrera eta beherantz doana.

onaco gach andija? ¿Cer eguin leguijee, negar ta uste on guztia galdu baino
 beste gauzaric? ¿Nora beguiratu leguijee guraso edadecuac eureen vijotz tristiciac 135
 nasaituteco ta consoleetaco? Umiac andijago dira gurasuac baino. Umiac indar-
 tsu ta sendo dagoz; gurasuac zaar, macal ta bigun. Umien escubeetan dagoz
 ehecho gauza guztia. Gurasuac eurac eguiten deutseenaren zain dagoz.
 Gurasuac ondo esaten badeutsee, ume lotsa galducuac gaisqui erantzuten
 deutsee. Jotera eguiten badeutsa umiari, umiac eguiten deutsa gurasuari atce- 140
 ra edo emoten deutsa sacatu bat. Cer bait altubago edo gogorrigo esaten
 badeutsa gurasuac, *beti barriquetan jardun bagaric, isilic egon dedilla* , eran-
 tzuten deutsa umiac. [10] Jaungoicua gaiti eleisara jua dedilla edo conpesau
 dedilla esaten badeutsa gurasuac, *bai, ceu bere eleisazalia izan zara ta* , esan- 145
 da, burla eguiten deutsa umiac. Cura jaunaren aurrera eruanda, lotsia emon
 gura izan arren umiari, leen bere izanda dago ta ez deutsa ardura. Chaarrago.
 Alcate aurrera eruanda, egun batzubetan carcelaan euquitia, beste aimbeste.
 Chaarrago. Gurasuen lotsia galduta daucanac, cura jauneena ta justicijarena
 bere galduta dauca. ¿Cer eguingo dau, bada, edo nora beguiratuco dau alaco
 guraso errucarriac? 150

Eguiija esateco, ez daquit, neure entzula onac, cein voticatan topau legui-
 jan alaco vijotz baten consuelua. Baina orregaiti, ez dogu guztiz galdu biar
 topeetaco ustia. Dendatu biar dogu ardura andijagaz, guraso tristen pozgari-
 jaren billa. Medicubac esaten davee, gachari asipena ta sustraija topau ezque- 155
 ro, osatuten edo osagarrija ezarten errazago dala. Jarraitu daijogun bada, cris-
 tinaubac, bide jaquin oni. Aztertu daiguzan esquina guztia. Artu daigun erra-
 zoe zucenaren arguija escubetan. Ta esaminau daiguzan, bat ichi bagaric, gura-
 so zaarren gach negargarriac euqui leguizan asipen ta sustrai guztia. Au
 topau ezquero, errazto eracutsico [11] jacue guraso guztiai voticaco bat, artu- 160
 ten badavee, eureen gacha osatuta, gozatuta, poztuta, alegrauta ichico dituba-
 na. Asi gaitazan, bada, gogoz.

Seme alavaac esquer chaarrecuac, gogorrac ta lotsa galducuac dauqueeza-
 laco dira guraso zaarren atsecaba ta pena guztia. Examinau daigun, bada,
 orain, ia nundi edo celan gogortu, lotsagalducotu ta gaistotu dirian seme alaba 165
 orreec. ¡Oh, guraso zaar, ume gaistuac gaiti negar mingoch eguiten dozun, tris-
 tiac! ¿Noc galdu ete ditu alan ceubeen erraijeetaco seme alavaac? ¿Galdu ete
 ditu Jaungoicuac? Ez. Jaungoicuac, onac, zintzuac, humildiac, lotsa onecuac ta
 santubac emon eutsuzan ceubeen umiac, batiatu zirianian. Eguzquiya baino
 arguijago, lirijuac baino ederrago, luurra baino humildiago, guztiz onduta, ain- 170
 guerututa bautismoti echera eruan cenduzan ceubeen umiac. Ta bautismuan
 artu ebeen ontasunagaz, edertasunagaz, humildadiagaz, caridadiagaz ta vijo-

144 eleisa zalia *Ba* 146 ezdeutsa *Ba* 149 eguingodau *Ba* | beguiratucodau *Ba*
 151 ezdaquit *Ba* 152 ezdogu *Ba* 153 poz garrijaren *Ba* 164 ia) *Ya Ba* 166 eteditu *Ba*
 166-167 eteditu *Ba*

tceco vigintahunagaz gorde deutzuz Jaungoicuac sei zazpi urtera artian, errazoiaren usura eldu artian. Ta andi aurrera bere seguru gagoz, Jaungoicuac galdu ez ditubana.

175 ¿Mundubac galdu ete ditu ceubeen seme alaba gaisto orreec? Ez. ¿Diabrubic lotsa gal-[12]ducotu ete ditu? Ez. ¿Aragui deunguiac ecarri ete ditu, guraso zaarrentzat esquer chaarrecuac, gogorrac ta lotsa gaistocuac izatera? Ez. Bada, munduba, diabruba ta araguija bardinac dira ceubeen seme alaveentzat ta bestientzat. Ta orregaitino guraso edadeco asco dagoz, seme alava
180 humildiac, Jaungoicozcuac, zintzuac, maitiac ta estimaubac dauqueezanac. Eureen zaartzaan laguntasuna, poza ta atseguina emoten deutseenac. Inos, eurac esan oi daveen leguez, buruco min bat, ez naibague bat emon ez deutseenac. Jaungoicuaren bildur santuban ta cristinau eguijazco baten moduban
185 deutseenac. Auzuac ta erriac embidija deutseen ume onac. Asco dagoz onetarico seme alavaac. Onaco seme alava bedeincatubac ta estimaubac euqui davee, ceubeen seme alava Jaungoicuaren bildur bagacuac ta vijotz gogorreacuac euqui daveen erico munduba, diabruba ta araguija. Begaz, ez deutseegu onei ezarri biar, zubeen seme alavaac galduteco erruba.

190 ¿Lotsagalducotu edo deungatu ete dira eurac eureen artian ta eureen bacarrian? Ori bere ez, cristinaubac. Eurecauten ez dira semiac deungatuten. Bacarrian bere ez. Bere-[13]cauten ta bacarrian deungatutecua ta gaistotutecua inor izan balitz, Moise santuba, David erreguia, Elias propeta andija, san Juan Bautista, Madalena, san Anton abata, san Paulo lelengo ermitainua ta santa
195 Maria Egiciaca izango zirian gaistuenac ta deungueenac. Bada, eurac dira bacarrian guejjeen azi ta munducuen parteti eureenez luzaruen vitzi izan dirianac. Gurasuac, begaz ez dira zubeen seme alavaac bere eureenez ta bacarrian gais-totu ta lotsagalducotu.

200 ¿Ce miraari izan da, bada, au? Jaungoicuac onac, inocentiac, santuabac ta ainguerubac emon eutsuzan. Andi ona Jaungoicuac ez ditu galdu. Mundubac bere ez. Diabrubic bere ez. Araguijac bere ez. Eurac eurecautan bere ez. ¿Cec eguin dau, bada, galdumendi andi au ceubeen seme alaveetan? *¿Quis semina - vit hic zizania?*²⁸² Leen humildiac; orain sobervijosuac. Leen zintzuac; orain ardura bagacuac. Leen ixilac; orain desvergontzaubac. Leen ceuben vijotceco
205 maitiac; orain ceubeen erravijo ta gorrotogarijac. Leen, auzoeraan zirian ume-

173 usura] ususa *Ba baina* usura *Uts-eguiteen ezauberian* 174 ezditubana *Ba* 175 ete-ditu *Ba* 176 eteditu *Ba* | eteditu *Ba* 181 emotendeutseenac *Ba* 182 oidaveen *Ba* 182-183 ezdeutseenac *Ba* 188 euquidaveen *Ba* | ezdeutseegu *Ba* 189 zubeen] zube-em *Ba* 190 etedira *Ba* 191 ezdira *Ba* 193 Juan] Juau *Ba* 197 ezdira *Ba* 199 izanda *Ba* 200 ezditu *Ba* 202 eguindau *Ba* 205 gorroto garrijac *Ba*

²⁸² Ik. Mt 13,1-9.18-23; Mk 4,1-9.13-20; Lk 8,4-8.11-15.

ric esanecuenac, ecertacuenac, Jaungoicozcuenac ta carinosuenac ceubeen umiac. Alan esaten cenduban ceubec, zortzi amar urte areec zitubeenian. Ta orain dirianez, ta ceubec dinozunez, [14] guztien artian deungueenac, gogorreeneac ta esquer gaistocuenac, ¿cec, bada, allaguina engainau ta itsutu ditu ceubeen umiac? ¿Ceubeen maijan ta alboan azi dituzunac? Bildur nas, gurasuac, ceubec galdu ete dituzun ceubeen umiac. Ceubec erein ete dozun azi chaarra eureen arimeetan. Baina ez nas azartuten *baietz* esaten, ondo pensau bagaric. Gogoratu daigun, bada, pusca bat sustraiz; ia, iru, lau, zortzi, amar, amabi, amalau urte ingurura artian edo gueijaguan ascoc, orain andi eguinda ceure penagarritzat ta illgarritzat daucazuan ume lotsagalduco orrei: 1^o *Cer esan deutseezun*. 2^o *Cer eracutsi deutseezun*. 3^o *Cer aguindu deutseezun*. 4^o *Cer parcatu deutseezun*. 5^o *Cer entzun deutesubeen*. 6^o *Cer icutsi deutesubeen* Prestau entzutia, gurasuac. 210

1^o ¿*Cer esan deutseezu?* Urte bi edo iru zitubeeneti amalau amasei urtera artian, dala nai chaarragaz, dala ainbagaric, casic egunian egunian ta ascotan egun bacoedian sarri esan deutseezu ceure umiai: *plaguiaren icena, barraba - sa, arrajua, diabruba, vitziric etorrigo ez al dala, itoco al dala ...* batian asarriagaz ta purijagaz ta bestian ecandu chaarragaz. Lagun batec descuiduan chopin [15] bat eguinda negarrez icusi badozu ceubeen umia, altzuan artuta, palagauta, esan deutsazu: *ia arri bat artuta, musturac cetaco ausi ez deutesazan lotsa galducuari*. Auzoco persona nausi batec belaari ondoco bat emoten badeutsa ceure umiari, ondo merecidu evalaco, persona aren ta aren leenagoco guztien contra ez zara isilduten gaineco eguneetan, umiac entzuten deutsula. Sei urteti aurrera edo leenagoti ceure umiaren paltaac ta pecatubac guichitutia, edertutia, ezcuteetia, eurac palagueetia ta aboneetia izan da, zuc esan deutseezuna. Guztia daquijeen ta escutau ezin dozun pecatu bat eguiten badau ceure semiac edo alaviac, aren erruba bere inori ezarten deutesazu. Mutil deungaren batec galdu izango dau ceure alaviaren onestidadia. Ordi jocolariaren batec engainau izango dau ceure semia. Bestelan eureenez ez daquijee zure umiac gauza chaarric eguiten. Enpin, bidauac, icen gaistuac, errazoe chaarrac, palagu aixetsubac, guzurrezco abonubac, zamai gorrotozcuac ta eracutsi pecatuzcuac dira, zuri seme alavaac umetati entzun deutesubeezan verbaac. Umiac arrotuteco, gaistotuteco ta lotsa galducotuteco erdijac bere asco dirianac. 220

2^o ¿*Cer eracutsi deutseezu?* Gauza onic bat bere ez. Gauza deungaac asco. Zubeen [16] umiac zortzi, amar, amavi urtegaz dotrinaric ez equijeen, compe- 225

210 Bildurnas Ba 211 etedituzun Ba | etedozun Ba 212 eznas azar tuten Ba 221 esandeutseezu Ba 222 aldala, itoco aldala Ba 225 ia| ya Ba | ezdeutesazan Ba 230 izanda Ba 231 ezindozun Ba 233 izangodau Ba 234 izangodau Ba | ezdaquijee Ba

- seetan ez equijeen, meza bat Eleisiac aguinduten daven moduban entzuten ez equijeen, cristinau izatia cer dan ez equijeen. Ta oraindino bere, echuria dauqueenez, ez dauqujee. Arimaan on eguingo deutseen ta salveetaco balijoco
- 245 deutseen gauza bat sustraiz eracutsi ez deutseezu ceubeen umiai. Beste aldeti bost sei urteti aurrera, coloria mudau bagaric esaten zitubeen zure umiac aitarren ta amaren aurrian, auzuetan ta errijan jazoten dirian ezdabaidaac, demandaac, ocasinoiac ta nauscontu guztiac. Baita canta desonestubac ta verba ezainac bere bost urte citubeeneti aurrera. ¿Celan au? Ceubec eracutsita. Ez beraarrijaz, ezbada umeen aurrian ceubec ardura bagaric sarritan esanda. Eurac esaten ditubeenian, ceubec aua zabalac eurai gustoz entzunda. Ceubec esaten dozuna ta eguiten dozuna, umiac icasten davee. Au gaiti esaten evan gentil batec: Gurasuac, ez eguizu verba desonestu bat esan inos ceubeen umen aurrian. Ez daguizula inos umiac ez entzun ta ez icutsi, onestidadia ta modestija ez dan gauzaric. Beguiratu biar jacue umiai ta eureen aurrian ibili biar da chito ardura andijagaz. Gaztiac izan arren umiac, ez euqui euren vistaan ardurra guichiago. Umeen [17] arduriac gueratu zaguizala gauza chaar guztietati. Gentil baten consejuba da au. ¡Oh, ce ona guraso cristinaubentzat, dino jaquitun batec.
- 260 3º *Cer aguindu deutseezu?* On izateco esaten deutseeegu, dinozu gurasuac. Ori bada ceubec umiai eguiten deutseezun aguindute guztia, turcubac bere ori eguingo davee. ¿Baina, celan aguinduten deutseezu on izateco? Aguindutia ta parcatutia gurasuarentzat an an dira. Aguinduten deutseezu gueijeenoc, nos edo nos bederatzi edo amar urte ditubeenian, mezatara eleisara juateco, mezia
- 265 entzuten iracatsi bagaric. Baita dotrinia icasteco bere, iracasten cansau bagaric. Baita compesetara juan biarco daveela bere, compesetia cer dan ez dauqujeela, ta ceubec juaten urtian bein edo birritan baino icusten ez zaitubeela. Ara emen, cristinaubac, alaco gurasuen aguinduteri oneena ta biarra eguitia. ¿Baina, cer gueijago aguinduten deutseezu? Aztertu daigun sail au. Aguinduten
- 270 deutseezu, bost, sei, zazpi urte ditubeeneti, esanac ondo eguitia gaiti ta biar asco eguitia gaiti, *apainduta, piestara eruatia edo bialdulia*. Guraso ascoc ez dauquee edo ez dauqujee beste pozgarriric, ume inocentiac, gach bagacuac, malecija bagacuac, aingueru di-[18]rianac poztuteco, isilic euquiteco, esanac ta biarra eraguiteco; ez dauquee, dinot, edo ez dauqujee beste pozgarriric edo
- 275 sariric, piesta batera, erromedija batera, sarau batera, viguira batera edo dantzaco ibilte batera aguindutia baino. ¡Ah, guraso pobriac! Ez daucazu beste gauzaric, cer aguindu. ¡Ah, guraso ez jaquinac! Ezin asmau dozu beste sari bat.

242 aguindutendaven *Ba* 243 cerdan *Ba* 245 ezdeutseezu *Ba* 247 ezda baidaac *Ba*
 251-252 esatendozuna *Ba* 255 ezdan *Ba* | biarda *Ba* 260 3º 4º *Ba* 266 cerdan
 ezdauqujeela *Ba* 271-272 ezdauquee, edo ezdauqujee *Ba* 274 ezdauquee *Ba* | ezdauqujee *Ba*

Gauza^{282a} buru guichicuac zara. Ondo eguinaren pagutzat ta saritzat aguinduten deutzazu umiari sei zortzi urte ditubaneti amasei edo amazortziraguino pecatuco escolia, pecatuco lagunac, pecatuco vidiac ta pecatuco ocasinoiac. 280

Esaten deutzazu ume chiquijari edo azijaguari: Esanac ondo eguiten badi-tuzu, neuc eruango zaitut edo bialduco zaitut piestara, edo saraura, edo viguirara, edo erromedijara, apainduta. An icasico dozu munduba, diabruba ta araguija serbiduten. An icasico dozu, an eracutsico deutzabee, bautismo santuban eguin cenduzan promes andijac ta santubac ucatuten. An icasico dozu 285 Jaungoicua salduten, Jesucristo desondretan, aingerubac tristetuten, santubac lotsatuten, arimia mancheetan ta ceruba galduten. Eguizuz ia, umia, esanac ondo ondo, neuc aguinduco deutzut piestara. An icasico dozu [19] zeure gorpu[t]za apainduten, guzurac esaten, eheco gauzaac oostuten, adisquide chaarrac eguiten, celo arrabijaubac artuten, onestidadia galduten, embidijaz 290 igartuten, codicijaz sicututen, gorrotoz ixioten, luxurijaz atsituten. An icasico dozu cristinau izatia aaztuten, Jaungoicuaren bildurra boteetan, pecatubac pena bagaric irunsten, nasai izaten, inocentiac engainetan, embusterijaz zabal-duten, inoren ondria galduten, arrotuten, naustuten, lotsa galducotuten, Jaungoicua opendiduten ta diabruba serbiduten. Aguinduco deutzut, umia, 295 piestara, ceindan virtute guztien ondամendija edo galdu lecuba ta vicijo guztien edo pecatu guztien escolia edo icasi lecuba. Bai, gurasuac. Au da Eleisiaren santubac ta eracusaac orraco ceuben piestoi ta dantzoi eguiten deutseen ondra ederra. Aguinduco deutzut piestara umiari esatia da, esatia: Aguinduco deutzut pecatu eguiten; aguinduco deutzut Jaungoicua opendiduten; 300 aguinduco deutzut diabruba serbiduten; aguinduco deutzut condenetan. ¿Ta ez ete deutseezu inos aguindu ceuben umiai, sagarra, gaztainia, egurra, azia, indiababia, quipulia ta beste inoren gauzaac oostuteco ta echera ecarteco? ¡Ah Gurasuac! Ori ceubec jaguingo dozu. ¡cutsi daigun cer parcatu deutseezun ceuben umiai. 305

[20] 4º ¿*Cer parcatu deutseezu?* Esan eguizu, gurasuac, ¿cer parcatu deutseezu ceubeen umiai? Parcatu deutseezu, ta ezin ucatu zinai: 1º Amaren bularran egozan artian, aitari ta amari chopinga eguitia, jotera eguitia, sinu eguitia ta zamaitutia; menturaz aitac amaren contra ta amac aitaren contra eracutsita ta 310 lagunduta. Amac joten evanian, aitac abonau umia; aitac lotsia emon gura deutzanian, amac beste aimbeste. 2º Parcatu deutseezu umetati, chiquitati demoninua, diabruba, barrabasa ta beste bidao ta maldecinoiac esaten, ceubec entzuten deutseezuzala. 3º Parcatu deutseezu, auzuetaco persona nausijai lotsia galduten ta deungaro erantzuten. Baita ceubeen adisquide ez dirian auzuai,

283 munduba] munduda Ba 302 etedeutseezu Ba 314 ezdirian Ba

^{282a} “Gauza ezerezak zaree” bezalakoak erraz aurki daitezke literaturan, baina “gauza buru guichicuac” nekez.

- 315 edo soluan, edo esijan, edo ganaduban, edo osterantzian vengueetan ta calte eguiten bere. Ceubeen auzo arerijuai umiac calte eguin arren, ceubec ontzat emon. 4^o Parcatuten deutseezu chiqui chiquitati auzo inguruban dirian nausicon-
 320 contu guztiac, gorrotuac, quereilaac, cer esanac, escandalubac, nesca mutileen arteco adisquidetasunac, amoriac, jazotiac ta beste secula umiac entzun biar ez ditubeen saltsa guztiac, ceuben aurrian conteetan. Zortzi amar urteco umiac
 325 diri-[21]anac esaten ditubee ziatz ta sustraiz, gurasuac barreca eurai entzuten dagozala. ¡Lastimial! *Dotrina icasten dira atcerachubac, ce g[u]leure umiac baino acordaubaagoric ta gauzaac polituago esaten ditubanic, eureen edade - coric bat bere ez dago.* Au esaten dozu, gurasuac, arro arro eguinda, ceuben
 330 umiac gaiti edade atan. 5^o Parcatuten deutseezu, ceuben euquijari ta vitzi modubari ez jagocan moduban jantzten. Balitz Jaungoicuaren echeraco, Jesusen mai santura edo aurrera arimaco ta gorpuzceco jantzi ederragaz aguer-
 335 tuteco, Jesusen vegui garbijac ondo erichi daguijuen, aleguin guztia da guichi asco²⁸³. Baina ez, malpecau²⁸⁴. Zubeen umeen apaindurija ta jantzi neurriti cam-
 340 poracua, ta ez guichitan onestidade bagacua, da piestaraco, plazaraco, sarauraco, visitaraco, munduba, diabrubac ta araguija serbiduteco. ¿Ceimbat gurasoc, endamas amaac, eurac eleisaraco jantzi jaso bat ez dauqueela, arrastaca ta gosiagaz batuta edo zorrian apainduten ditubee umiac, ez jagocuen moduban ta eureen escubaquin jantzita guero, zuaz esanda, lotsa gaistuan bialduten ditube
 345 pecatuco ibilte nasaijeetara? ¿Ta au nosti? Umetati, zazpi, amar urteti aurre-
 ra. Baita parcatuten deutseezu ceuben seme ala-[22]ba gaztiaai nai daveen lagunaquin, juan, etorri, egon ta ibili, gura daveen orduban ta gura daveen moduban eguiten. Alan davilz zuben umiac, ceubec daquizula ta areen peligruba ezaututen dozula, mutilac nescachaquin ta nescachaac mutilaquin, gavac demporaac emonda. 6^o Parcatuten deutseezu pecatu mortalian egoten. Baquizu zucen, ceure semiac edo alaviac pecatu mortala eguin davena. Jaungoicuaren aguindu santu bat gauza andijan ausi davena. Baquizu pecatu mortal bat edo asco eguin ditubaneti, gaineco ill bijan, lauban edo gueijaguan compesau ez dana. Baquizu diabrubagaz lo eguin davena. Ta ez deutzazu casuric eguiten.
 345 ¡Oh, vijot[z] gordineco gurasuac umeentzaco! Parcatuten deutzazu... Ecer bere

317 Parcatuten] Parcacuten *Ba baina* Parcatuten *Uts-eguiteen ezauberian* 319-320 ezditubeen *Ba* 320 urteco] urreco *Ba* 324 ezdago *Ba* 326 ezjagocan *Ba* 332 ezdauqueela *Ba* 333 ezjagocuen *Ba* 336 naidaveen *Ba* 337 guradaveen *Ba* | guradaveen *Ba* 341 eguindavena *Ba* 343 eguinditubaneti *Ba* 343-344 ezdana *Ba*

²⁸³ "Guichi asco": gutxi samar; ("gehiago edo gutxiago" adieran erabili ohi dugu gaur egun, baina testu honetan "gutxi samar", "gutxitxo" edo antzeko esanahia du).

²⁸⁴ "Malpecau": zoritxarrez, zorigaitzez; (lau aldiz dakar Frai Bartolomek, bere obra osoan barrena, gaztelaniazko testu zaharretan datorren harridura-hitza: «Desde tan común dolor todas somos ¡mal pecado!, maestras», *Celestina*, I, 251, 50.- ¡Mal pecado! s. XIII. Exclamación de Berceo: *Milagros*», in Martin ALONSO, *Diccionario Medieval Español*, Salamanca, 1986, 1480.or.).

gauza gachic parcatu biar ez ceuntsala, au guztiau parcatu deutzazu ceure umiari. ¿Ta cer entzun deutzabee? Icusi daigun.

5° ¿*Cer entzun deutzabee?* ¡Ah cristinaubac! Lotsa izan leiteque, guraso ascori umiac chiquitati entzuten deutseena esaten. Entzun deutzabeez ceure umiac ceure aoti: Bidauac, maldecinoe icaragarriyac, suzco ta purijazco zamai bildurgarriyac, vanidadezco ta arroquerijazco verba aixetsubac, ceuben [23] gazetaco desapijuac, peliadaac, burrucaac, orditutiac, piquerdijaac, vengantzaac, errondaac, desonestidadiac, cortejubac... Entzun deutzabee: Eleisaco gauza santubai, sermoiai, abade jaunai ta religiosuai burla eguiten, barre eguiten ta desprecijeetan. Entzun deutzabeez: ipoin verdiac, verba zatarrac, contu loijac, errazoe bajubac, prestuezac ta guizatasunaren lotsagarriyac. Entzun deutzabeez: verba galdu ta errazoe chachar asco ceure gurasuen contra, senideen contra, lagunaren contra ta umeen eureen contra, auac ecarri deutzun guztia, cristinaubac ez bazina leguez. Au guztiau entzun davee sarritan ceure umiac ceure aoti. ¿Ta cer icutsi deutzabee? Gogoratu daigun au bere asco luzatu bagaric.

6° ¿*Cer icutsi deutzabee?* Azartuten nas, gurasuac, esaten gauza on asco ez deutzubela ceubeen umiac icutsi. Jai domeequetan celan bait mecia entzutia. A bere beti ez. Errosarajo bat erdi luan edo erdi aguidaca ta priisaca erreceetia. A bere zubeetati ascoc guichitan edo inos bere ez. Beste ascoc negu partian, udaan ez. Ama Virginia guztiz santiaren devocinoia udaan mingochago balitz leguez. Ta urtian bein edo birritan ozta baten compesetara juatia. Ara emen, cristina-[24]ubac, ceuben umiac icutsi deutzabeezan gauza onic nausijeena. ¿Ta gauza chaaric icutsi ete deutzabee? ¡Ah! Au ceubec daquizu. ¿Ceimbat bidar icutsi zaitubee ordituta? ¿Ceimbat bidar, gurasooc alcarri aguidaca, alcarri bidaoca ta alcar joca? ¿Ceimbat bidar joco gaistueta? ¿Ceimbat bidar auzuquin asarratuta, alcarren gorrotuan, verbaric eguin gura ezda, zamaica? ¿Ceimbat bidar adisquide gaistuaquin, eche sospechacuetan, ibilte nasaijeetan ta pecatuzcuetan? ¿Ce[i]mbat vanidade? ¿Ceimbat codicija? ¿Ceimbat engainu? ¿Ceimbat lapurreta chiqui ta andi? ¿Ceimbat moda indecente? ¿Ceimbat desonestidade? ¿Ceimbat pecatu icutsi deutzabee ceure umiac chiquitati asi ta andi eguin arte guztian? Ceubec daquizu, gurasuac, ceuben vitzitzia cer izan dan. Baita ceuben umiac bere baquijee. Baita ceuben auzuac bere.

¡Oh, guraso zaarrac! ¡Oh, seme alava gaistuac daucazuzan errucarriyac! Ez quendu inos ispilu onetati ceubeen veguijac. Euqui beti goguan, ia ceubeen umiai cer esan deutseezun. Cer eracutsi deutseezun. Cer agundu deutseezun. Cer parcatu deutseezun. Cer entzun deutzubeen. Ta cer icutsi deutzubeen? Ez bein bacarric, ez egun [25] baten, ez urte betian, ez bada eureen dempora guztian. Amaren bularrari tiraca egozaneti, ceubec baino andijago ta senduago eguin artian. Eureen burubeen jaube izatera eldu artian. Ogei edo ogueta bi

359 entzundavee Ba 360 luzatu] lozatu Ba 361-362 ezdeutzubela Ba 362 Jaidomeequetan Ba 363 priisacal] priisaca Ba 368 etedeutzubee Ba 371 eguingura Ba 379 ia] ija Ba

- 385 urtera artian. Jaungoicuac emon eutsuzan ume santubac ceruraco azteco dem-
porean. Landara chiqui ta bigun areec zucenduteco, ceubeen escubeetan ego-
zan edadian. Orduban ceubec umiai esan deutseezun, eracutsi deutseezun,
aguindu deutseezun, parcatu deutseezun, entzun deustubeen ta icutsi deustu-
been guztia, esan daiquegu, izan dala, ceubeen ume inocentiac, gach baga-
390 cuac, gracijazcuac, santubac, ainguerubac, arguizai biguna leguez edochein era-
tara ecarten chito errez cirianac, galduteco, deungatuteco, nasaituteco, vijotz
gogortuteco, lotsa gaistotuteco ta pecatarituteco²⁸⁵. Esan daiquegu, ceubec
dinozun moduco ume gaistuac euquitia, ceubeen erruba dala. Ceubec galdu
dituzula ceubeen umiac.
- 395 ¿Ce erremedio, bada, orain? Jesucristo gueure Jaunac, Lazaro viztu eva-
nac²⁸⁶, Jairoren alavia viztu evanac²⁸⁷, gaisuac osatu citubanac²⁸⁸, itsubai vistia
emon eutseenac²⁸⁹ ta beste mirari andijac eguin citubanac, erremedijau leguiz,
nai izan ezquero, ceubeen seme alavaac bere. Baina onaco milagro guichi icus-
[26]ten dogu, guraso deungueen ume gaistuac onduteco. Osteranzian ¿cer
400 eguin daiquezu ceubeen ume deungaaquin guraso zaar tristiciac? Ceubec baino
senduago dira. Carcelaan egun batzubetan egon arren, ardura ez deutsee.
Compesoriac asolvidu ez arren, ardura ez deutsee. Sermoetara juaten badira
descuiduan, sermoiari ta sermoeguinari burla eguiten deutsee. ¿Cer eguingo
davee, bada, guraso zaar errucarijac?
- 405 Ez dago, cristinaubac, nic daquidanez, erremedio bat baino. ¿Cer, bada?
Isilic egon ta padecidu. Seme alavac deungaro azi dituzulaco, guztia ta gueija-
go ceubec mercedu dituzula sinistu, ta *isilic egon ta padecidu*. Seme edo alava
gaistuac bidao bat eguiten badeutsu, *isilic egon ta padecidu*. Sorguina edo
barritsuba esaten badeutsu, *isilic egon ta padecidu*. Burla edo sinu eguiten
410 badeutsu, *isilic egon ta padecidu*. Ceure gaztetaco paltac ta lotsaarijac arpe-
guijan esaten badeutsuz, *isilic egon ta padecidu*. Purijaz sacatu bat edo bota-
cada bat emoten badeutsu, *isilic egon ta padecidu*. Oian macal zagozan lecu-
ra, arto pusca bat nequez gogo bagaric jaurteguiten badeutsu, *isilic egon ta
padecidu*. Verba gogorrac ta errazoe citalac ta minveraac becoqui illunagaz ta
415 a-[27]sarriagaz esaten badeutsuz orduban orduban, edo belaarri ondoco bat
esquintcen badeutsu, *isilic egon ta padecidu*. Eureen moduco lagun gaisqui
azitacoz echia beteta, gau guztian ceure aurrean milla desonestidade ta peca-
tu eguiten baditubee, *isilic egon ta padecidu*.

387 esandutseezun *Ba* 397 Jairoren] Jaijoren *Ba* 401 ezdeutsee *Ba* 402 ezdeutsee
Ba 403 sermoe guinari *Ba* 405 Ezdago *Ba*

²⁸⁵ "Pecatarituteco": bekatari bihurtzeko.

²⁸⁶ Ik. Jn 11,43-44.

²⁸⁷ Ik. Mt 9,18-26; Mk 5,21-42; Lk 8,40-56.

²⁸⁸ Ik. Mt 8,16-17; Mk 1,32-34; Lk 4,40-41...

²⁸⁹ Ik. Jn 9,1-12.

Ceure semiac edo alaviac, ezcondu baino leenago seinac azteco echera
 ecarten badeutsuz, edo campuan ceure patricarati azi biar badituzu, *isilic egon* 420
ta irago. Auzuac ta errico gentia, ceure umiaren gach eguinac, lotsa chaarra ta
 escandalu caltegarriac areen gorrotoz esaten icutsten badituzu, *isilic egon ta*
irago. Justicija etorten bajatzu gavaz edo egunaz ceure umia preso artutera ta
 carcelara eruatera, *isilic egon ta irago*. Ceure umiac inori eguin deutzazan cal-
 tiac ta atsecabaac gaiti, escribau batec echian dozuna embargauta eruaten 425
 badeutsu, *isilic egon ta irago*. Ceure umia, edo erriti atera daveela, edo carce-
 laan dauqueela, edo galereetara ervestetu daveela, edo urcatu daveela entzu-
 ten badozu, *isilic egon ta irago*. Ceure semia edo alavia condenau dala sinis-
 tuten badozu ta impernucio demoninuen laguntzat conteetan badozu, san
 Dionisioc dinuan gurasuac leguez, *isilic egon [28] ta irago*. Ta ceu, leenago 430
 illda, impernura juaten bazara umiac gaisqui azi dituzulaco, santa Brigidac icu-
 tsi evan ama zori gaistoco bat leguez²⁹⁰, edo ceure umiac eta ceu, alcarri peca-
 tu eraguinda, alcar betico galdu dozulaco, ceu umiai ta umiac zeuri madarica-
 tuca impernuban beti egon biar badozu, Granadaco Aita Prai Luis veneragarri-
 jac²⁹¹ dinuan gurasua ta umia leguez, *padecidu ta irago, irago ta padecidu*. 435

Ez dago, neure entzula onac, beste voticacoric. Ez dago beste pozgarriric,
 ume lotsa gaistocuac ta vijotz gogorreacuac daucazuzan guraso zaar tristiontzat.
 Jaungoicuac zucenac, humildiac, esanecuac, maitetsubac ta chito onac emon
 eutsuzan, batiatu zirianian. Ceubeen contura egon dira. Ceubec azi dituzu. Ta
 ceubec galdu dituzu. Alperric dira ceubeen oraingo negarrac. Alperric dira 440
 quexaac. Alperric da, criatura guztiai diadarca ta bidaoca umeen contra orain
 egotia. Alperric da erijotciari dei eguitia. Alperric da desespereetia. Lau urte, sei
 urte, zortzi urte, amar urte, amalau, amasei urte citubeenian, edadiari jagocan
 moduban, bajau baceuntseez ceubeen umiai idunac, *curva cervicem filii in*
juventute; domau bacenduz, ezi bazenduz, chiquijac cirianian, *dum infans est*, 445
carinu-[29]agaz, maitetasunagaz, ondo esanagaz ta obeto eracutsijagaz, exem-
 plu onagaz, gauza chaar bat secula umeen aurrian eguin ezagaz; ta au asco ez
 bazan, gastigubagaz, zurriagaz, saijetsac berotubagaz edo domauba-
 gaz, *tunde latera eius*, jah! beste egun batzuc icutsico cenduzan ceure zaartzaan mundu-
 ban. Beste dicha bat euquico cenduban ceure erijotzaan ta ceruban. Baina esan 450
 legui, oi danez, ceure umiac gaisqui azijagaz, ceuretzat ta ceure umeenzat amai

436 Ezdago Ba | entzula] eutzula Ba 451 oidanez Ba

²⁹⁰ Pasarte honetan barrena Antonio Arbiol-en aipua dator. Izan ere, santa Brigitari egindako erreferentzia obra honetan aurkitzen da: Antonio ARBIOL, *Estragos de la luxuria y sus remedios* Barcelona [1726], 20-21. or.

²⁹¹ Frai Luis Granadakoak, Mendekoste ondorengo zortzigarren igandeko sermoian darabil gai hau: *Concionum de tempore...* 5.t., Valentiae, 1767, 264-266.

negargarri bat prestau dozula. Orain zaartzaan umiac emoten deutesubeezan pena, atsecaba ta naibague orreec diriala, eurac eta ceuc amai bagaric beste munduban irago ta padeciduco dituzuneen asieria.

455 Gauza bi dira gurasuac umiari ondo goguan sartu biar deutesazanac: Bata, maite davela. Bestia, gauza gachic parcatuco ez deutesala. Umiac sinistuten badau, iru urte ditubaneti amazortzi ogueiraguino, bateti, aitac eta amac maite daveela, ondo gura deutseela, zaintuco daveela ta jagocana, carinoz emongo deutseela; ta besteti, gauza chaarric, pecaturic, lotsa chaarric, ezauberazco pal-
460 taric, ez chiquiric ta ez andiric parcatuco ez deutseela, nequez atsecaba emongo deutsa alaco umiac guraso zaarrai. Umiac icusten ba-[30]dau, gurasuac diriala cristinaubac, Jaungoicozcuac, pecatubaren gorroto andicucac, nequez izango da cristinau deunguia ta lotsa chaarrecua alaco umia.

¡Oh, gurasuac ta umiac! ¡Ceimbat jazo andi iracurten dirian, guztion eracutsiraco! Arguitu, bada, ceubeen veguijac. Auqueratu oraindixe, naijago dozun aldia. Edo ume lotsagalducucac, zaartza chaarra ta ari darraicon erijotza desdichauba. Edo bendicinoezco umiac, zaartza ondrauba ta zorijoneco erijotzia. ¡Oh, Jaun ceruco! ¡Oh, Guraso nausija! ¡Oh, guztien Aita bedecatuba! Ceugana viurtuten gara vijotz osuagaz. Ceuri erregututen deutesugu arima ari-
470 mati, eracutsi daguijeezula guraso guztiai, eureen seme alavaac ceruraco azteco jaquiturija balijotsuba, ta ume guztiai, eureen gurasuac maitetuteco ta ondre-
475 etaco eguinbiar estuba ta gracijotsua. Escatu daguijogun, cristinaubac, mesede au Aita cerucuari bere misericordija neurri bagacua gaiti, Jesusen pasinoe santuba ta erijotza penazcua gaiti, ta Ama Virginia maitegarrijaren erraija bigunac gaiti. Ta onen ondoric gueure arimaco gracija ta ceruco betico dicha andija, cein opa deutsudan guztioi. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. AMEN.

456 ezdeutsala *Ba* 460 ezdeutseela *Ba* 462-463 izangoda *Ba* 465 orain dixte *Ba*
472 eguin biar *Ba* 473 bagacuagaiti *Ba*

- [31] TOPA-LECUBA
- I. Icasiquizuna. Dotrinia icasteco preminia aldia (1) 480
- II. Icasiq. Mundubaren asieria. Guizonaren andi izatia. Ta cristinautziaren balijua. (2)
- I. AGUINDUBA
- III. Icasiq. Aguindubac cer dirian. Ceimbat modutacuac dirian. Jaungoicuaren Amar Aguindubac ceintzuc dirian. Ta nos asi zirian. (19) 485
- IV. Icasiq. Jaungoicuaren lelengo aguindubac cer escatuten deuscun. Ta pediaren ta esperantziaren biarra, Jaungoicua ameeaco. (29)
- V. Icasiq. Celan dan Jaungoicua guztiz maitegarrija. ¿Ta cegaiti? (39)
- VI. Icasiq. Jaungoicuari zor deutsagun amodijua, lauba, andija ta indartsu-
ba dalaco (49) 490
- VII. Icasq. Jaungoicua dala adisquide pirmia, emonzaillia ta parcazaillia (59)
- VIII. Icasq. Jaungoicua dala adisquide carinosua, guztien eracua ta beticua (68)
- IX. Icasiq. Cer dan norbera ameeitia. Ta zeintzuc dirian gueure proximuac. (77)
- X. Icasiq. Arerijo ez dirian proximuac ameeitia cer dan. Ce ordenagaz amau
biar dirian (86) 495
- XI. Icasiq. Gueure arerijuai zor deutsegun amodijua. (96)
- II. AGUINDUBA
- XII. Icasiq. Juramentu eguitia cer dan. Nos eguin biar dan. Ta juramentuco
aguinduba celan cumplidu biar dan. (106)
- XIII. Icasiq. Guzurrezco juramentubac Jaungoicuari eguiten deusan injuria. 500
Ta inori eguin oi deutzazan caltiac (118)
- XIV. Icasiq. Cer dirian votuac edo promesas. Celan eguin biar dan votoz-
co aguinduba. Ta celan qu[endu]lten dan euren eguinbiarra. (127)
- XV. Icasiq. Cer dirian blasphemijaac, maldecinojac ta bidauac (139)
- [32] III. AGUINDUBA 505
- XVI. Icasiq. Aguindu onetan Jaungoicuac cer eragozten deuscun. Ta celan
eragozten deuscun (151)
- XVII. Icasiq. Cer dan meza santuba. Zeintzuc dirian meziaren zati edo parte
nausijac. Nortzuc entzun biar daven ta celan entzun biar dan (162)
- XVIII. Icasiq. Domeeca ta jai osuetan cer eguin biar dan. (174) 510

488 zordeutsagun *Ba* | amodijua] amadijua *Ba* 498 cerdan *Ba* | biardan *Ba*
499 biardan *Ba* 501 oideutsazan *Ba* 504 Cer] Cer endut *Ba* 509 biardaven *Ba* | biar-
dan *Ba* 510 biardan *Ba*

IV. AGUINDUBA

XIX. Icasiq. Gurasuac umiai zor deutseen azieria (186)

XX. Icasiq. Seme alavaac gurasuai cer zor deutseen. (198)

515 XXI. Icasq. Aita Santu Erromacuari, obispo jaunai... erregue jaunai... zor deutsegun ondria ta aguindubac eguitia. (209)

XXII. Icasq. Ugazabaac otseguinai zor deutseena; ta otseguinac ugazabai zor deutseena. (220)

V. AGUINDUBA

520 XXIII. Icasiq. Celan aitu biar dan, inor ez illtia. Nos ez dan pecatu, inor illtia. Ta ce pecatu andija dan, inor illtia. (232)

XXIV. Icasiq. Ez dala inor ill biar, ondria zaitutia gaiti; ez ondasunac gordetia gaiti (243)

XXV. Icasq. Celan palteetan dan noberaren vitzitziaren edo osasunaren contra (256)

525 XXVI. Icas. Orditutia pecatu nos dan; ta ce pecatu dan (267)

SERMOIA. Gurasuen ta umeen icasi oneraco

UTS-EGUITEEN EZAUBERIA

Nun. VI. lin. 7. Aurretu. *Léase* aurreratu.

Fol 10. Lin. 18. Auditasuna. *Léase* anditasuna.

530 Fol 40.lin. 39, cen. *Léase* ceu

Fol 67 lin. 28. suzeo. *Léase* suzco.

Fol 179. lin. 17. guindu. *Léase* aguindu.

Fol 188. lin. 3. rjacue. *Léase* jacue.

Fol id. lin.4. tjaquiturijan. *Léase* jaquiturijan.

535 Fol 210. lin.3. Erromacuaren. *Léase* erromacua.

Fol 237. lin. 11. gogorzatuta. *Léase* gogoratuta.

SERMON. Fol. 11. lin.25. ususa. *Léase* usura.

Fol 20. lin. 22. Parcacuten. *Léase* Parcatuten.

512 azi eria *Ba* 516 zordeutseena *Ba* 519 biardan *Ba* | ezdan *Ba* 523 nobe-
raren] nobezaren *Ba*

**JAUNGOICUAREN
AMAR AGUINDUBEETACO
AZQUENECO BOSTEEN
ICASIQUIZUNAC**

SARRERA

Sarrera orokorrean liburu honetaz egindako deskripzioaz gain (*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac...*, II. Zatiya, Iruñea, 1817, IV - 301 or., 18'5 x 12'5 cm), beren-beregi *Icasiquizunac* saileko bigarren liburuki honi dagozkionak gehitu behar ditugu.

Hamar aginduei buruzko hitzaldi kateketikoetan aurrera egiten du liburuki honetan, hau da, hamar aginduetariko azken bostak azaltzen ditu; lehenengo liburukian egin zuen era eta estilo berean, azaldu ere. Idazki honen hartzailea ere lehen liburukiarena bera da.

Liburuki hau argitaratzeko baimenen albisteei dagokienez, *Icas-1* liburuaz ditugun berri urriak eta haren sarreran agertu ditugunak, honentzat ere badi-rela pentsa daiteke, liburuki hau haren jarraipena baita; hau da, hamar aginduen iruzkina da bi liburukietako gaia...

Liburua Iruñean inprimatu zen 1817an, baina ez dakigu zehazki zein hiletan; eta hau jakitea on litzaiguke, Frai Bartolome 1817ko apirilean izan baitzen Markinako Karmengo priore izendatua; eta kargu hau hartzean, dirudienez, ez zuen bere liburuaren argitalpenaz arduratzerik, 1817ko maiatzean idazle-tituluz jarraitzeko baimena eskatzen duenean, Ordenako nagusiek idazle-ofizioa priore karguarekin bateraezina dela uste baitute: "se suspende el uso de dicha patente, valiéndose por lo que respecta a las impresiones de algún religioso inteligente que haga sus vezez" (MBN, Esk. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*, 20^o). Hortik ateratzen denez, inprimategiko lana, hau da, probak zuzentzea etab. beste fraideren batek egin beharko zuen.

Frai Bartolomek, *Icasiquizunac* saileko bigarren liburuki honen aurkezpenean, lehen liburukiak izan zuen harrera onagatik bere poza agertu ondoren, bere kezka ere erakusten ditu, hark jasotako kritikengatik sortuak gehienbat. Alde batetik, hizkuntzari dagozkion kezka dira, euskarazko eta idazkerazko forma batzuei eta inprimategiko hutsei buruzkoak; batez ere, *p* kontsonantea *f*-ren ordeaz erabiltzeaz. Irakurle batzuen gogoia ere agertzen du, batzuek hitzaldi hauek igandeetako irakurgetekin loturik egotea nahi luketela esanez; Frai Bartolomek, Elizak bere irakatsian agertzen duen jokaera eta aholkuekin erantzuten die, eta era berean esaten die, laster argitaratzekotan zela, ordurako argitaraturik ez bazen, era horretako argitalpen bat. Ziur aski, 1816an argitaratu zen Pedro Astarloaren liburuaren zuzentzea (*Urteco domeca gustijetaraco*

verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan erromaco Catecismua ...
Bilbo, 1816, LXII – 275 - [5] or.).

Liburuaren azken orrialdean, 301.ean, liburuan dauden inprimategiko hutsen 21 zuzenketa jarri ditu; hala ere, askoz ere gehiago dira; lehen liburukian baino gehiago, inprimategiko 182 huts kontatu baititugu.

Hizkuntza aldetik, ñabardura txiki batzuk gorabehera, berdintsu jarraitzen du liburuki honetan ere. Grafian, bokal bikoitzak erabiltzean, etimologi arrastoei eustean, hitzen lotze-banatze kontuan eta abarretan nahiko aldakorra da gure idazlea; morfosintaxian eta lexikoan, ordea, arau finko eta zehatzak ditu. Sarrera orokorrean, luze hitz egin dugu hitz batzuk, normalean kontsonante frikariak egin ohi direnak, afrikariak idazteko duen joeraz; esaterako, *vitzi*; *Icas-I* liburukian da ugariena afrikariak egiteko joera. *Icas-II*-an asko gutxitzen da eta *Icas-III*-an ia guztiz galtzen da...

Liburuki honen oraingo ezagutze eta erabiltzeaz, eta orobat, oharretan eta aparatu kritikoa erabilitako metodoaz, lehen liburukiaren sarrera berezian esandakoa bera esan beharko litzateke.



JAUNGOICUAREN
AMAR AGUINDUBEETACO
AZQUENECO BOSTEEN
ICASIQUIZUNAC,
AITA PRAI BARTOLOME SANĀ
Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco
Predicadoriac aterac.

II. ZATIJA

* * * * *

Biar dan ondo izatiagaz.

- - - - -

Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan.
1817 Urtean.

Bildurrezco ardura bategaz asi nevan cristinaubaren *Icasiquizunac* arguitara aterateco sailla. Baina dacustanian, 1. t. ez daucauzala ain comuntzat, aurreratu nas 2. aibat arinen zure escubetaraco prestetara. Leenguen ormidurija, luce laburra ta esaeria daroie oneec. Dirautsut bene benetan, iracurlia. Ez nas neure jaquinagaz asco pijetan. Baina ezin ucatu negui, aparteco poza artu davena nire vijotzac, eleisa gu[l]zonac ene neque pusquia ontzat emon daveenian. 5

Ez nas aaztu jaquitunai itandutiagaz, *gogoratu daguidezala 2. zati oneta - raco*, 1. *zati jan topau euqueezan uts, nic guichitu neguizanac* ¹... Onen gainian artu ditudan erantzunac, [II] izan dira esker onecuac. Au zor deutset gueijago. Eguijia da, erantzun eustan batec, *p. iminten nevala f lecuban*; baina, jaquitunac dinuenez ta euscaldun utsai entzuten jacuenez, ez dauca f cer eguinic gueure eusqueran. 10

Batzuc gura leuquee, *Icasiquizun* oneec urte barruco domeequetaco evangelijuagaz catiatuta egotia. Ez dinot gaisquijago egongo litzaatequezala. Baina, ene ustez, ez leuquee onera gueijago euquico au gaiti. Erromaco Catecismua cura jaunentzat ta eleisa-guizonentzat cristinauben eracutsi osoraco eguin zan. Elisaco Batzaar ta jaquitun nausijen ondo esatez jantzita, jasota dago, besteric ez eduban². Trentoco Batzaar santubaren aguinuz urten evan arguitara³. Baina orregaiti ez dago Catecismo aren eracutsija domeequetaco evangelijuagaz lotu- 15 20

¹ Argitaratutako *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian dauden hutsez ari da hemen, batez ere inprimategikoez; liburuko azken orrialdean huts batzuk seinalatzen baditu ere, askoz ere gehiago daude liburuan barrena, irakurleak orrialde barrenean jarri dugun aparatu kritikoa ikus dezakeenez..

² Besterik ez bezala, esan nahi du.

³ Trentoko Kontzilioak eginarazi zuen kristau-ikasbideaz ari da; ikus, adibidez, gaztelaniazko itzulpenean: *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos...*, *traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita...* Primera Parte, cap. 3, n. 2, Madrid, 1791). Ik. *Sacrosanctum, oecumenicum Concilium Tridentinum, additis declarationibus cardinalium* ... (I. Gallemart - A. Barbosa - Cardinalis de Luca), Matriti, 1762, Sessio XXV, Decretum de Reformatione, cap. 21, Die IV. Decembris, de Indice Librorum, et Catechismo, Breviario, et Missali, (404)...

Izan ere, hitzaldi kateketikoez ez zuten, nahitaez, igandeetako irakurraiekin loturik zertan egon... (Ik. *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos...*, *traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita...* Prólogo, Madrid, 1791).

ta. [III] Bai, cristinaubac sinistu, eguin, escatu ta artu biar daven guztia, arri-
garrizco esaeriagaz, naustasunagaz ta indarragaz eracutsita. Trentoco Batzaar
santubac bere ez deutsee escatuten (1) eleisa guizonai ta cura Jaunai nai ta nai
25 ezian domeeca ta jai andijetan egun ataco evangelijua eracusteco, ez bada
Escritura Sagradubac ta Jaungoicuaaren leguia edo *Jaungoicuaaren verbia* era-
custeco. Beste catecismo nausijac bere ez dira lotuten domeeca ta jai andijeta-
co evangelijuen saillagaz⁴.

Cristinautzaco sinisquizunac, eguizunac, escaquizunac ta artuquizunac
30 dira eleisa guizonen lelengo eracusquizunac ta cristinauben icasiquizunac. Au
izan da nire lana. Ez deust eguno goguac emon, neure *eracutsija* oba euque-
ela, urte barruco domeequetaco evangelijuaren [IV] verba edo iragoategaz
bacocho catiatuta egotia. Atara emon ezquero, cereguin erraza da. Evangelio
bacochari ezarri leguijuz iru edo lau icasiquizun, buruba asco necatu bagaric.
35 Baina cerubac prestau davela, esan legui, cristinautzaco eracutsija gueure pul-
pituetaraco guztien erara. Ene *eracusquizunac* baduaz, domeequetaco evan-
gelijuagaz lotu bagaric; beste batenac urtengo davee laster arguitara, edo orain-
go urten davee, evangelijuaquin⁵. Cerubari esquerrac.

Izan leiteque, iracurlia, zuc *Icasiquizun* onei goraac eristia. Baina nire ale-
40 guina ezin eldu da asco mercatuteco vidia eguitera. Beti dago gacha oinian.
Asco costa ta merque emon, ezin legui⁶. Agur.

(1) Sess. 24, cap. 4. de Reform.

25 ez bada *Ba* 33 cer eguin *Ba* 36 domeequetcco *Ba* 39-40 al eguina *Ba*

⁴ Frai Bartolomek oso ongi ezagutzen zituen sermoi-bildumak, berak erosi baitzituen, edota behintzat, Markinako Karmengo liburutegikoak direla esanez, bere eskuz idatzitako oharra jarri baitzien (ikus liburu horiek sarrera orokorreko 160-167. orrialdeetan). Beraz, igandeetako irakur-
gaiekin lotu gabe egindako hitzaldi-liburuak zeuden, baina ezagutzen zituen igandeetako irakur-
gaiekin batera zihoazenak ere. Esaterako, A. Eliseoren sermoiak ez zeuden igandeetako irakur-
gaiekin loturik; bai, ostera, Frai Bartolomek berak esku-eskura zituen L.Bourdalue-ren liburukiak,
hainbat gai desberdin eskaintzen bazituzten ere...

⁵ Ageri denez, Frai Bartolome ondo jakitun zegoen bere garaiko euskal liburuez, hauek argi-
taratu baino lehenagotik ere. Horrela, Astarloak prestatu zuenaren eta 1816an argitaratuko zue-
naren berri ere bazekien; Frai Bartolomek liburu hau 1817an argitaratu arren, urte batzuk lehe-
nago idatzita zeukan. Hark esan nahi duen liburua hau da: Pedro ASTARLOA, *Urteco Domeca gus-
tijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua. Eurretan
aurquituco dabe Arimazain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu biar deutsen
icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen*, Bilbao, 1816.

⁶ Zorionez, *Icasiquizunac II* liburuki honen ale bat (Markinako Karmeldarren biblioteka, 1-
M/43-f) bere salneurri eta guzti aurkitu dugu; hau da, 18 erreal zen; liburuaeren hasieran honela
dio eskuz idatzirik: "Este libro es de Josef Antonio Mariano de Ansotegui, vicino de la Anteyg^a de
Zenarruza, resid^{te} en la villa de Motrico, compró en el comvento de los Carmelitas de Marquina
a 18 r^s cada tomo y es el seg^{do}. Año de 1818. Ansotegui".

[3]

VI. AGUINDUBA.

NON MŒCHABERIS. *Exod. Cap. 20. Deut. 5.*

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer eragozten daven Jaungoicuac aguindu onetan.* 5
2. *Ce premia andicua dan, cristinaubac ondo jaquitia aguindu onetaco eracutsija.*

Matrimonioco⁷ sacramentuba dan leguez senar emazten lotugarri estuba, esaten deuscu, neure en[t]zula onac, Erromaco Catecismuac (2), ezin jazo lequijue senar emaztiari dicha obaric, alcar estimau ta maite daveela aitutia baino. Ta ezda beste aldeti gauza mingochagoric ta penagarrijagoric bere, alcarri zor deutseen amodijua ta carinua inori emoten deutseela batac edo bestiac icustia baino. 10

Errazoez, bada, dino ta bide zucenian bostgarren aguinduban Jangoicuac *inor illtia* eragotzita, aren urreengo eragozten dau adulterijoco peca[tu]ba; inor azartu ez dedin, caridadiaren indar andija oi dacarren matrimonioco bat eguite santuba ta ondrauba urratuten. Asiera onegaz jarraituten deutsa cura jaunen catecismuac seigarren aguinduco eracutsijari. Gogoratuten [4] dau, aguindu santu onetan eracustiac gorde biar daven verbetaco moduba ta garbitasuna; christinaubai dotrina au ondo aituten emon biar jacuena; onestidadia gordeetaco cer eguin biar dan ta ce contu atera biar dan; celan austen dan ta cec ausi eraguin oi daven seigarren aguindu santuba; ce ezaina ta ichusija dan araguizco pecatuba; ce castigubac oi dituban bere contra pecatu loijac... ta, beste aguindu onetan esan al dedin ta jaquin biar dan guztia gogoratuten deuscu Erromaco icentau dan, Catecismuac, Escritura Sagradubagaz ta Eleisiaren Gurasuaquin, cristinau pielai eracusteco. 15 20 25

Christinaubaren eguin biar guztien artian ez dago menturaz beste bat, seigarren aguindu santubac baino eracusten arriscu gueijago daucanic. Ondo aitu-

(2) De 6. precepto n. 1.

16 ezdedin *Ba* | oidacarren *Ba* 17 Asi era *Ba* 19 gordebiar *Ba* 21 biardan *Ba*
| biardan *Ba* 22 oidaven *Ba* 23 oidituban *Ba* 24 aldedin *Ba* 27 menturaz] mentu-
naz *Ba*

⁷ Mailegu hau dagoen-dagoenean, bere erara egokitu gabe jaso du, bestela, "matrimonijoco" idatziko zukeen.

30 ten, gachaago danic. Ondo icasijaren premina gueijago daucanic. Ondo icastia
 gueijagori jagocanic. Ez jaquinagaz arima gueijago galduten davenic. Espiritu
 Santubac sarrijago ta zamai gueijagogaz aotan artu davenic. Eleisiaren
 Gurasuac bildurrago izan jacozanic. Ta cristandadeco oitura santubai lotsaari
 35 gueijago emoten deutsanic. Castidadiaren edertasuna ta garbitasuna aguindu-
 ten dau Jaungoicuac seigarren lecuban. *Non mœchaveris* Ta luxurijac, cein
 dan castidadiaren arerijua, illundu ta galduten dau castidadia. Luxurijac, san
 Ambrosioc dinuan leguez (3), amairic ez daucan oquerreriya impamiac.
 Luxurijac, legue santubagaz conturic ez daucanac ta vicijo guztiai ernia emo-
 ten deutseenac. Luxurijac, santubaren esanian, [5] ez beste oquerreriya guztien,
 40 ece codicijaren beraren bere ama edo sortulia danac. Onec lotsatu, ezaindu ta
 galduten dau gorputceco onestidadiaren ta garbitasunaren edertasuna, cein
 zaintu ta gordeetan daven Jaungoicuac seigarren aguinduban, adulterijoco
 pecatuba eragotzijagaz. *Non mœchaveris*.

Eguuija esateco, ez da errez, neure entzula onac, seigarren aguindu santu-
 45 co eguinbiarrac eracusten cristinaubari. Esanquizunac dirian leguez eureenez
 bai esateco ta bai entzuteco lotsarizcuac; inos aotan bere artu biar ez litzaate-
 quezanac, san Paulo apostolubaren aguinduban⁸, euraquin dacarree lotsarizco
 gachtasun bat, esateco. Beste aldeti, seigarren aguinduco eguinbiarrac ta era-
 gotzijac zabalduta dagozan leguez esquina guztietara, edade guztietara ta esta-
 50 du guztietara naaste andijan bapere ordena bagaric, ez da errez aguindu one-
 taco icasiquizunai sallaren echuria emoten. Beste aguindubetan sail bat asi ta
 amaitu legui ordena apur bategaz, entzulaac aitu ta buruban cerbaitaan, den-
 datu ezquero, euqui leguijen tercijuan. Baina, san Ambrosioc dinuan leguez,
 aguindu onetaco pecatubac, ez neuriric, ez amairic, ez ordenaric dauquee. Ta
 55 eracutsija, aituteco erara ecartiac lana dauca niretzat beintzet.

Baina alan bere, Espiritu Santubari gracia escatuta, Ama Virginia guztiz gar-
 bija vitaartecotzat artuta, vijotceco uste ta gogua aimbat onduen zucenduta ta
 garbituta, lotsaarizco gauzaac esateco ta eracusteco verbaac aimbat on-[6]duen
 neurtuta ta moduztauta, ceuben, Jangoicuaren verba santuba entzuteco ta
 60 eguinbiarrac icasteco gurari vitcijan, ezagunian ta santuban, neure indarretan
 baino gueijago pijauta, esquintcen deutsut, cristinaubac, seigarren aguinduco
 eracutsi biarrecua ta lan andicua.

Nai neuque, al balitz, ez belaari garbijac tristetutia; ez viotz garbijai quez-
 caac ta luurrezco gurarijac iraastia; ez arima santai ta zucenai galdu bidiaac era-

65 -----
 (3) Lib. De Helia, et jejunio, c. 19.

33 oitura| aitura *Ba* 37 ezdaucan *Ba* 38 ezdaucanac *Ba* 45 eguin biarrac *Ba* 48
 eguin biarrac *Ba* 50 ezda *Ba* 60 eguin biarrac *Ba* 63 albalitz *Ba* | garbijac| gaubijac
Ba (301.or.: garbija)

⁸ Ef 5,3.

custia; ez ez-jaquin zorijonecuai gacheraco ezauberia ta jausmoduben arguija emotia. Ez, ez neuque gura arimac garbituteco ta osatuteco balsamo onaren lecuban, vereno illgarrija zabaldutia. Nai neuque bai, entzula guztien vijlotce-etan sortutia, erneetia, jajota, sustrai senduaquin icustia castidadiaren, onestidadiaren ta modestijaren, edo gorputceco ta arimaco garbitasunaren amodijo sutsuba, vitzija ta gogotsuba. 70

Nai neuque, cristinau guztiac artu daguijen pecatu loijaren gorroto mortala, ta ezautu daguijezan aren calte icaragarriac ta negargarriac, bai ariman ta bai gorputzian. Nai neuque, gueure gorputzac ta arimac izatia Espiritu Santubaren eche garbi, vizi, santubac. 75

Alan gura izan daguijala cerubac. Alan gura izan daguijala Jesus maitiac. Alan gura izan daguijala Ama Virgina guztiz garbijac. Jaungoico Altsubac, Isaias propeta santubari ceruco su santubagaz ezpanac garbitu eutsazanac⁹, garbitu daguizala, bada, bere amodijo santubaren su vitzijagaz nire arimia, nire vijotza, nire gogua, ni-[7]re miina, nire ezpanac ta nire verbaac. Bialdu daguijala bere jaquiturija neurri bagacuaren erraijo arguigarri bat nire adinera edo adillara, seigarren egundu santuco nire eracutsijac ta verbaac, guztiac izan ditezan Jaungoico andijaren ondraraco ta gueure arimen onetaraco. Prestaera onegaz guztiai asipena emoteco, esango deusut orain: 1. Cer eragozten deuscuten Jaungoicuac seigarren aguinduban. 2. Ce premina andicua dan agundu onetaco eracutsija cristinaubac ondo jaquitia. 80 85

I.

¿Cer eragozten deusca, bada, Jaungoicuac seigarren agundu santuban cristinaubari? Eragozten deusca *leleengo* adulterijoco pecatuba. Senarrac edo emaztiac, bere laguna vitzi daven artian, bestegaz araguizco pecatu eguitia. Zazpi malecija edo legue auste conteetan ditu santo Tomasec adulterijoco pecatu bacoedian¹⁰. Austen dau naturaleciaren leguia. Austen dau Jaungoicoaren ordenia. Austen dau matrimonioco sacramentubaren erreverencia ta zuentasuna. Austen dau lagunari emondaco verbia ta leijaltasuna. Austen dau pamelijaco umen erabagui arguija ta ezauberia balijocua. Austen dau umiai zor jacuen aziera ona. Ta austen dau aldulterijoguinac bere euquija 90 95

69 jαιο ta *Ba* 76 izandaguila Jesus *Ba* 77 izandaguila *Ba*

⁹ Ik. Is 6,5-7.

¹⁰ Frai Bartolomek bere 8. orrialdean Cornelio a Lapide aipatzen du (*Commentaria in Pentateuchum Mosis...*, Lugduni, 1732), eta hain zuzen ere, *Commentaria ...* liburu honetako 735. orrialdean dator S. Tomasen aipua, ezkon-nahaste bakoitzean 5 lege-hauste daudela dioena (Frai Bartolomek 7 jartzen ditu); ziur aski Bartolomek Cornelio a Lapide-ren bidez aipatzen du S. Tomas, hark "S.Thomam in opusc. 7" aipatzen baitu.

pecatuban ez casteetaco leguia. Pecatu impame au eragozten dau Jaungoicuac verba agurijaquin lelengo seigarren aguindu santuban.

Eragozten dau *bigarrenian* : matrimonio santuti campora, gorputza edo arimia araguzco guztuagaz loitu leguijan guztia. Alan esaten deus-[8]cu Erromaco Catecismuac (4). Alan esaten deuscu san Agustinec (5). Alan eracusten deus-cubee Eleisiaren Gurasuac (6). Adulterijuaren icenagaz eragozten ditubala Jaungoicuac seigarren aguinduban, gorputza edo arimia loitu leguijen matrimonio santuti camporaco luxurijaren gusto bide bagaco guztiac. Oneec dira: 1. Noberaren burubagaz edo inogaz, cristinau danagaz edo ez danagaz, luxurijazco gauza loijac eguitia. 2. Canta ta verba desonestubac esatia. 3. Ezauberaz ta bere naiz gauza loijac gogoratuta, areetan gusto artutia. 4. Gauza desonestubac eguiteco edo eraguiteco vorondatia euquitia. Berba baten esaten da guztia. Jaungoicuac eragozten ditu seigarren aguindu santuban: matrimonio santuti campora, arimaco ta gorputceco castidadia ta garbitasuna loitu, manchau ta ezaindu leguijezan eguite, verba, desio ta penseeta guztiac. Gueroco icasi-quizunetan esango da oneen eracutsi biarrecua. Guztiz garbija ta santuba da gueure Jaungoicua. Ta garbijac ta santubac gura ditu gueure arimac ta gorputzac bere echetzat ta egonlecutzat. Gracijaren edertasuna ta obrac gura ditu Espiritu Santubac bere templu vitzijan, cein dirian cristinauben gorputzac. Araguijaren obrac luurrezcuac, ezainac ta loijac dira. Ta a gaiti daucaz Jaungoicuac guztiac eragotzita bere legue santuban. Eguitade lotsaarizco oneec cer dirian ta celan dirian, Es-[9]critura Sagradubac esaten dau, bai testamentu zaarrian (7) ta bai barrijan (8). Esaminau daigun, bada, pusca bat, ia cristinaubari ceimbat balijo deutsan, aguindu santu onetaco dotrinia ondo icastia.

II.

Ez dago dudaric, neure entzula onac. Seigarren aguindu santuba da, errazoiaren usura eldu dirian guizon ta emacume guztiaquin verba eguiten davena. Guztiai aguinduten deutsee Jaungoico zucenac ta itzaltsubac, gorputzac ondo ezteco, araguija dometaco ta lotsaarizco guraarijai berac imini daven neurriti campora urteten ez isteeco. Guizonac luurrezcuac gara; ta gure gurarijac eurenaz beti duaz luurrezco gusto eragotcijetara. Espirituba pelietan da araguijaren contra; ta araguija espiritubaren contra. ¡Oh, ce guerra andija jaguiten dan bijen artian! ¡Oh, ceimbat bidar araguijac goituten daven espirituba! ¡Oh,

 130 (4) 6. praec. n. 2. (5) Lib. 2. sup. Exod., q. 11. (6) A Lap. in c. 5. Deuterom. (7) Tob. c. 4. Eccl. c. 41. Deut. c. 23. Eccl. c. 9. Job c. 3. Isai. c. 13. (8) Matth. c. 5. 1.Cor. c. 6. Ephes. c. 5. 1.Cor. c. 15.

99-100 arimia| erimia *Ba* 112 eracutsibiarrecua *Ba* 113 guraditu *Ba* 114 egon lecutzat *Ba* 116 agaiti *Ba* 119 puscabat *Ba* | ia| Ya *Ba*

ceimbat bidar (batera esateco) luxurijac galduten daven arimia! Gogoratuta beste bagaric, icara eguiten dau vijotzac.

Azartu zan san Bernardo esaten (9), *diabrubic arima gueijago beretuten ditubala luxurijagaz, beste oquerrerijequin*¹¹ baino. Luxuriya da, dino santubac, impernuba alegreetan davena ta casic mundu guztia condeneetan davena. Ta san Remigio esaten evan *ume chi-[10]carrac apartau ezquero, nausijeetati guichi salvetan diriala luxuriya gaiti*¹². ¡Oh, achac eurac birrinduteco verbac! ¡Ez dau, bada, cristinaubac pensauco ondo cer dan, edo celan ete dan, impernuba alegretan daven, munduric gueijena condenetan daven ta bestiac baino ezainago ta caltegarrijago dan pecatuba edo legue austia! Izanic luxuriya Jaungoicuac eta naturaleciac eragotcija ta pecatu illgarrijaren beian eragotzija, guero esango dan leguez, nai pensamentuz, nai verbaz, nai eguitadez, nai bacarrian, nai lagunagaz, nai gatzetan, nai edade elduban, nai zaartuta, nai ezcondubac ta nai libriac, nai aberatsac ta nai pobriac, nai gaisuac ta nai osasuntsuac eguin leguijeena, gorputza ta araguiya beti beragaz daucalaco edoceinec, ¿ez da chito gauza biarrecua, cristinau guztia eta bacoachac ondo jaquitia, ain arriscu andico ta orduban ordubango eguinbiarrian, cer dan ta cetaraguino dan Jaungoicuaren aguindu santuba?

Seigarren aguindu santuba da bada, cristinaubac, guztioic irago biar dogun zubi bat, jausi bagaric pausu eguiteco chito gacha. Zubi atan umiac labanduten dira. Naustubac colpe andijac artuten ditubee. Ta zaarrac pausu uts asco eguiten davee. Ta gazte, eldu ta zaar asco bertan betico galduten dira. ¿Ceimbat balijo deutsa, bada, zubija irago biar davenari, celan juan biar daven, nun oina imini biar daven ta celan pausu eguin biar daven jaqui-[11]tiac? ¿Nortzuc eta celan, zubi laban, guztiz gach atan jausi bagaric irago dirian ondo ezaututiac? ¿Jausi dirianac celan jagui dirian, ta ostera ez jausteco cer eguin daveen icasti- tiac? Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, chito balijo andicua ta premina andicua dala au cristinaubarentzat.

(9) T.4. serm. 21. de luxur.

140 Ezdau *Ba* | etedan *Ba* 148 Ezda *Ba* 149 eguin biarrian *Ba*

¹¹ Ik. *Icas-I*-eko 44.oharra (722.or).

¹² Frai Bartolomek egilearengandik eta honen liburutik jasoko zuen aipu hau, ezaguna baitzitzaien; guk geroagoko argitalpen batekoa aipatzen dugu: Tobias LOHNER, *Bibliotheca manus- lis concinatoria ordine alphabetico digesta*, 2.t., Paris, 1887, 759. ("Demptis parvulis, ex adultis propter carnis vitium pauci salvantur": S. Remigius Rhemensis Episc., in *Ep. ad Rom.*).

San Remigio (c.436-533), Reims-ko apezpikua; honen egintza ospetsuena Clodovigo I.aren bataioa izan zen 498/499ko Gabonetan, eta Frankoak ebanjelizatzen burutu zuen lana... Haren lau gutun eta testamentua gordetzen dira (ik. É. BROUETTE, *Remigius, Bisch. v. Reims* in. LThK 8 (1986) 1226-1227).

Hala ere, obra hori ez dago S. Remigio Reims-koaren obren artean (PL, Migne, 65); hari egozten zaion arren, ez da S. Remigiorena, Migne-k Remigio Auxerre-koarena izan daitekeela baitio (PL, Migne, 65, 964).

Ta ez da beste gauzaric seigarren aguindu santuco eracutsija. Garbitasunaren ta castidadiaren leguia ta legue austiaren penia edo castiguba cristinaubari aituten emotia da, aguindu onetaco eracutsi guztia. Escritura
 165 Sagraduban ta Eleisa Ama santiaren Gurasuetan ez dago menturaz beste cristi-
 naubaren eguinbjarretaco aguindu bat, sarrijago, arguiruago ta itzaltsubago
 eracutsita, castidadia gorde biarra ta gordetan ez davenaren castiguba baino.
 Ezaututen even eracusla cerutar areec, luxurijac sustrai andijac daucazana.
 Arima asco illten ditubana. Iraasten erraza dana. Osatuten gacha dana.
 170 Santubai eurai cereguin asco emon deutseena. Andijac eta senduac bere goitu
 ditubana. Cristandadia desondreetan davena. Cerubari burla eguiten deutsana.
 Guizonac ganadututen ditubana. Munduba ezanduten davena. Jaungoicuac
 chito gorroto deutsana. Ta pena bildurgarrijequin castigatu davena. Ezaututen
 even Jaungoicozco guizon areec, engañu asco ta uts eguite andijac erein ditu-
 175 bala diabrubic guizonen vijotzetan seigarren aguinduco dotrina santubaren
 contra. Luxurijaren sare gaistuetan sartuta, itsututa, daucazala etsaijac arima
 asco, [12] pecatu loijagaz beretuta. Orregaiti zelo santu bategaz eracutsi even
 castidadiaren dotrinia cansau bagaric, ta diadar eguin even luxurijaren contra
 isildu bagaric.

180 Batzuc uste davee, araguzco pecatubac, eguiten errezac dirian leguez, par-
 catuten bere errezac diriala ta Jaungoicuac aimbeste gorroto ez deusala peca-
 tu loijari. Au dotrinaco utseguitia da. Beste batzuc, castidadiaren contraco peca-
 tu mortalzat Eleisiac erabaguita daucazanac ez dauqueez casic pecatutzat bere.
 Ta engainu onegaz vitzi dira itsu itsuban pecatu mortalian. Beste ascoc, peca-
 185 tu loija aintzac equi arren, pecatuco ocasinoiai ez deutsee casuric eguiten. Au
 da sutan, berotu bagaric egon gura izatia. Alan dagoz beste uts eguite andi ta
 lodi asco arimen calte agurijan seigarren aguindubaren contra.

Bada, cristinaubac, utseguite ta engainu bildurgarri onei aurria artuteco,
 esango deusut seigarren aguindu onetan: *Luxurijaren echia celacua dan;*
 190 *Jaungoicuac pecatu ezain oni celan beguiratuten deusan; impernubac ce esti -*
macinoe emoten deusan; pecatu loijac berac mundubari ce echura emon
deusan; santubac celan beguiratu deutseen berari; ceintzuc dirian aguindu
onec eragozten dituban eguitezco pecatubac; ceintzuc dirian verbazco peca -
tuba; ceintzuc dirian goguan lecu emondaco edo pensamentuzco pecatubac;
 195 *ta azquenian virginidadiaren ta castidadiaren balijua* . Au izango da, ceruba
 lagun dogula, aguindu onetaco [13] nire eracutsijen ta ceuben icasiquizunen
 gueija. Escatu daijogun Jaungoico onari bere gracia Jesusen erijotza penazcua
 ta graciazco irabacijac gaiti, guztia jazo dedin Trinitade Guztiz Santiaren
 ondraraco ta gueure arimen oneraco. Amen.

162 ezda Ba 166 eguin biarretaco Ba 167 ezdavenaren Ba 170 cer eguin Ba 173
 bildurgarrijequin Ba 181 ezdeusala Ba 183 mortalzat] mortazac Ba 185 ezdeutsee Ba

II. ICASIQUIZUNA,

200

ceinetan eracusten dan
ce ondotsuba, zabala, lucia ta altuba dan
castidadiaren contraco pecatubaren echia.

Castidadiaren contraco pecatuba da, neure cristinaubac, guizonaren sor-
 tueraco biarretan errazoiaren ta Jaungoicuaren leguiaren contra gorputzari 205
 gusto emotia. Esaten da *sortueraco biarretan* . Bada, janagaz ta edanagaz gor-
 putzari gusto emonda pecatu eguin arren, ez da castidadiaren contra. Esaten
 da *errazoiaren ta Jaungoicuaren leguiaren contra* . Bada, matrimonio santuco
 estaduba ez da ez errazoiaren ta ez Jaungoicuaren leguiaren contra. Esaten da
gorputzari gusto emotia. Bada, beste pecatubac ez dira aimbeste gorputzare- 210
 nac, ez bada vorondatiarenac. Castidadiaren contraco pecatubari esaten jaco,
araguzco pecatuba, araguijan asi ta amaituten dalaco. Esaten jaco *pecatu loija*,
 guztiz loija dalaco. Esaten jaco *luxurijazco pecatuba* , alaco gaucetan gogua
 olguetan dalaco. Esaten jaco *pecatu desonestuba*, arimaco ta gorputceco gar-
 bitasuna ta osotasuna gal-[14]duten davelaco. Esaten jaco *lotsarizco pecatuba*, 215
 danic deungueenac bere, lotsatu bagaric eguiten ez davelaco.

Icen one|e|c guztioz emoten jaco castidadiaren contraco pecatubari.
 Seigarren aguindu santuba austen daven pecatubari. Bera ezaina dan leguez,
 icenac bere ezainac dira; aotan bere cristinaubac artu biar ez lituquianac dira.
 Baina pecatuba bera dan leguez ain campo andija daucana ta aimbeste arima 220
 itsu itsuban impernura daroiazana, icen bategaz edo beste bategaz eracutsi biar
 jaco cristinaubari pecatu loijaren vereno iraascorra. Esan daijogun, bada, *lotsa -*
arizco pectuba, beste icen ezainagoric preminiac eraso¹³ eraguiten ez davenian.
 Ta cristinaubac leleengoti artu daguijan *lotsarizco pecatu* madaricatubaren
 gorroto santuba ta itzal vildurgarrija, esaminau daigun *ce ondotsuba*¹⁴, *ce zaba -* 225
la, ce luzia ta ce altuba dan bere erreinu impamia . Entzun eguizu, cristinau-
 bac, gogo onagaz ta artu eguizu ceuben oneraco dotrina santa au. Menturaz ez
 deutsu guchiago balijoco, ceuben betico salvacinoia baino.

204-205 sortu eraco *Ba* 206 sortu eraco *Ba* 207 emon da *Ba* | ezda *Ba* 209
 ezda *Ba* 210 ezdira *Ba* 211 ez bada *Ba* 216 lotsatubagaric *Ba* 223 ezdavenian *Ba*

¹³ "Eraso": esanarazi; aditz faktitibo ihartu gisa darabil, beste faktitibo bat ondorik duela: "era-
 guiten".

¹⁴ "Ondotsuba": sakona.

I.

230 Impernuraguino elduten da lotsarizco pecatubaren cimentuba. Alan esaten
 deutsu Espiritu Santubac lecu ascotan. *Leza andija ta ondotsuba dala ema -*
cume loija, dino Salomec (10), *ta bere oinac elduten diriala impernuraguino.*
Impernuraco vidia dala, dino beste lecu baten (11), *pecatu lotsarizcuaren*
 235 *echia*. ¿Baina nungua izan leiteque edo nun euqui legui sus-[15]traija edo
 cimentuba lotsarizco pecatubac, impernuban baino? Impernuba bada illuna,
 astuna, loija ta atsituba, lotsarizco pecatuba beste aimbeste da. ¡Oh, ce vildur-
 garrija, impernuraguinoco sustraijac daucazan oquerrerija! ¿Ta bere zabaleria?

II.

¿Batuco ete da lecu chiqui baten pecatu ezain au? ¿Gueratuco ete da erri
 240 baten, provincia baten edo erreinu baten lotsarizco pecatubaren pestia? Ez,
 cristinaubac. Mundubac dauca edu zabalera dauca pecatubac berac.
 Noraguino elduten dirian guizonac eta emacumiac munduban, araguino eldu-
 ten da lotsarizco pecatuba. Izan arren Adanen seme alaba mundu guztian
 245 zabaldubac, euren sinistute, penseeta ta oituretan apartecuac ta alcar artuten
 ez daveenac: Batzuc gentilac, beste batzuc judegubac, beste batzuc moruac
 edo Jaungoico bagacuac edo eregiac ta beste asco cristinaubac, guztietara
 zabalduten da lotsarizco pecatuba. Alperric euquico ditubee guizonac aparte-
 co leguiac, eandubac, azieria ta usadijuac euren governuraco beste eguinbia-
 rretan. Lecu guztietan aguinduco dau ta topauco dau noc lecu emon, pecatu
 250 loijac. Ez da batubago¹⁵ bere erreinuba edo egonlecuba mundu guztia baino.
 ¡Oh, lotsarizco pecatubaren peste zabala ta irazcorra! ¿Ta noraguino elduco
 ete da?

III.

255 Dempora guichicua balitz alaco gach vildurgarrija, pena guichiago emon-
 go leuque. Baina ez. Mundubaren asierati ona badirau. [16] Adanen loba bat
 galdu evan lelengo pecatu lotsarizco onec¹⁶. Ta aric ona zaartu edo cansau bia-

 (10) Prov. c. 22. (11) C. 7.

232 impernura guino *Ba* 233 lecubaten *Ba* 239 eteda *Ba* | eteda *Ba* 242 Ezda
Ba 248-249 eguin biarretan *Ba* 250 egon lecuba *Ba* 252 eteda *Ba* 254 vildur garrija *Ba*

¹⁵ “Batubago”: leku txikiagoa hartzen duena.

¹⁶ Beharbada, Noeren seme Kam du gogoan testu honetan, honek, mozkorturik biluzik zegoen aitari, iseka egin baitzion... Frai Bartolomek *Adanen loba bat* dio; Has 5ean esaten denez, Kam Adamen ondorengo zuzena zen, baina bien artean 10 belaunaldi zeuden (Adam, Set, Enox, Kenan, Mahalalel, Jered, Henok, Matusalen, Lamek, Noe, Kam).

rrian, egunian baino egunian dauca indar gueijago, campo gueijago, crijadu ta crijada gueijago. Guiza aldiric guiza aldira sendotuten da ta boteetan ditu sus-trai barrijac. Pecatu zoriguesto[co] onen contra propeta santubac, apostolu santubac ta Eleisiaren Gurasuac predicau davee, diadar eguin davee ta bere gach negargarriac contau ditubee dempora guztietan. Baina gaur eguna¹⁷ ez dau guichiago aguinduten ta ez dau calte guichiago eguiten arimetan. ¡Oh, impernuco pozuti urtendaco pecatu madaricatuba, demporiac amaituten ez davena! ¡Ta noraguino jasoco ete dau bere echia edo egonlecuba? 260 265

IV.

Eguija esateco, ez da lotsarizco pecatubaren alturia ain andija. Luurrezcua da ta luurraren urrian davil. Baina luurreco palacijuen ta eche andijen puntaraguino igoten dau. Bai, cristinaubac. Pecatu loi lotsarizco onen gorrotua ceuben vijotcetan artuteco, gogoratu eguizu noraguino igoten daven ta nori aguinduten deutsan. Luxurijac aguinduten deutsa aberatsari ta bestec quendu ezin deutsan diruba quenduten deutsa. Aguinduten deutsa jaquitunari luxurijac; ta isten dau tontotuta, choratuta, lelotuta jaquitunic andijena. Aguinduten deutsa ondraubari; ta ondria quenduta ecarten dau guztien burlagarri izatera. Aguinduten deutsa indartsubari; ta isten dau macalduta, gaisotuta, orituta, ija illainian. Esposo baten dicha ta [17] poza da esposa leijala; ta a salduten dau esposuac, luxuriya serbidutia gaiti. Beste aimbeste eraguiten deutsa luxurijac emaztiari bere esposuaren contra. Caballeruac ta señoraac osticopetuten dave euren ondria ta pamia. Damaac ta nescatillaac euren onestidadia ta cleituba. Erreguiac euren coroiac ta alizate altuba. Ta andi beeracuac ez deutsee guichiago obeiduten lotsarizco pecatu gaistuari. Ez dago estaduric, ez condecinoric luxurijari incensuba emoten ez deutsanic. Ta, bere vijotzian altara bat eguinda, adoretan ez davenic. ¡Oh, pecatu alsuba! ¡Oh, pecatu atrebiduba! ¿Nor librauco da bereganic? Impernuraguinoco sustraijac daucaz. Munduba edu zabal da. Guizaaldi guztiac edu luzetuten da. Ta guizon ta emacumen jaquiturija, euquiya, ondria, cleituba ta osasuna baino altubago ta aguintarijago da. ¡Oh luxuriya, impernuco basilisco bildurgarrija! 270 275 280 285

¿Nai dozu, cristinaubac, entzun, lotsarizco pecatu ezainac daucan echiaren, erreinubaren edo aguindutiaren irudi ezagun bat? Gogoratu, bada, ez burutacinoe ustzat, ez bada gueure oituretaco jazo eguijazcotzat penseta au. 290

262 negar garriac *Ba* | ezdau *Ba* 263 ezdau 264 ezdavena *Ba* 265 etedau *Ba*
 | egon lecuba *Ba* 267 ezda *Ba* 273 istendau *Ba* 275 istendau *Ba* 281 Ezdago *Ba*
 283 eguin da *Ba* | ezdavenic *Ba* 290 ez bada *Ba*

¹⁷ Nahiko harrigarri gertatzen zaigu "gaur eguna" era mugatu absolutiboan. Hementxe soilik idatzi du horrela. Gainerakoetan "gaur" eta batez ere "gaurco egunian", "gaurco eguneco"... idazten du.

Adanec pecatu eguin evanian, etorri zirian impernuti mundura zazpi aguintari. Zazpirac zirian deungaac ta oquerrac. Zeinec baino ceinec najago even aguintu mundu guztian. Ecarri cituben aguintari areec bacoachac bere tropaac, soldaubac, crijaubac ta crijadac. Impernuti pecatubagaz mundura etorri zirian aguin-[18]tarijen icenac dira: 1. *Sovervija*. 2. *Codicija*. 3. *Lujurija*. 4. *Envidia*. 5. *Gulerija*. 6. *Gorroto sutsuba*. 7. *Naguitasuna*. Ezin alcar artu even; ta asi cirian guerran alcarren contra¹⁸.

Sovervijac mundu guztia imini gura euquian andituta, aixaatuta, arrotuta. Codicijac nai euquian, bestiai odolac eta munac, uzanac leguez, chupauta, bali-jo guztia bere poltsaan euquitia. Luxurijac guztiac icusi gura cituquian loituta, atsituta, aragui artian lizunduten. Envidijac gura evan, dirianac¹⁹ orituta, sicatuta, igartuta egotia. Gulerijac, eztaarriraguino beteta, aseta guztiac egotia. Su-gorrotuac guztiac icutsi gura cituquian ixiota, alcar erreetan. Ta naguitasunac, guztiac etzinda luurrera beguira egotia. Sovervijac ezin icutsi zituban asiac; ezda luurrera veguira etzinda egozanac bere, ta ain guichi, guztia chupau gura evenac. Alan sovervijac imini eutsen guerria gulerijari, codicijari ta naguitasunari.

Gulerijac ta naguitasunac ez even alcar galdu gura. Baina ezin icutsi even inor orituta, igartuta ta ixiota egotia. Ta ain guichi diruba gordetia gaiti, gosia iragotia ta gorputza arro ta sabela zimur euquitia. Alan gulerijac ta naguitasunac iracoi even guerria sobervijaren, codicijaren, embidijaren ta su-gorrotuaren contra. Baina gulerija aseta eguan leguez ta naguitasuna alperra dan leguez, bertati cansau cirian ta ichi eutsen guerriari.

Luxurija zan guerraric guichien eucana. Besten guerriari beguira eguan. Ta esaten evan [19] bere artian: *Guero bere oneen baquiác neuc eguin biarcoditut*. Alan bere sovervijac ta codicijac imini eutsen guerria luxurijari. Sobervijac ez evan bat eguin gura luxurijaren ezaintasun lotsarizcuaquin. Ta codicijac ez evan emon gura luxurijarentzat diruba. Luxurija dan leguez lelenguan arpeguiera onecua, alegueria ta convitontsuba²⁰, sobervijagaz ta codicijagaz guerria

300 guracituquian *Ba* 302-303 Su gorrotuac *Ba* 303 guracituquian *Ba*

¹⁸ Kontakizun bizi-bizi eta interesgarri hau ez dakigu nondik nora jaso zuen Frai Bartolomek, ezta berberak asmatua den ere... Dena dela, pentsamendu bat edo beste Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen den liburu honetatik har zezakeen: Joseph de NIEVES AVENDAÑO, *Pláticas doctrinales, y discursos morales...*, Valencia, 1729, 343; bekatuburuez eta batez ere luxuriaz ari dela honako hau esaten da: "Tu supergressa es universas. Tu eres la que excedes a las demás cabezas, o capitales vicios"... "De manera, Fieles, que si la soberbia alcanza a muchos, porque es principio de todo pecado; si la avaricia tiene a no pocos, porque es raiz de todos los males; la luxuria tiene a sobervios, y avarientos, y a otros muchos más, por averse en este siglo, como e los pasados, corrompido toda carne".

¹⁹ "Dirianac": guztiak.

²⁰ Hitz adierazgarria eta indar handikoa, baina inongo hiztegitan ez datorrena; berak asmatua izan liteke...

eucan artian, bera visitetara juaten cirianac chito ondo eristen eutsen aren ver- 320
beta labanari, alegueriari ta guztiai naija eguiteco eucan modubari. Eguiija da,
batzuc esaten even *atsa eucala*. Beste batzuc *ostia eucala loija*. Beste batzuc
liquina erijola. Beste batzuc *verenua iraasten evala*. Baina onaco esanei bere
ez eutsen gueijenac entzute andiric emon. Ta zabaldu zan erri guztietan, zazpi 325
aguintarijen artian, luxurija zala aleguerena, bigunena, ugarijena ta gustuac
guztiai esquintcen eutsezana. Gueijago bagaric, erri ta erreinu guztiaac juan
cirian prisaca, luxurijari escuban mun eguitera ta obeidutera.

Orduban beste aguintari chaarrac sinistu even edo igues eguitia edo illtia.
Sovervija asi zan arin aringa pavo-errialac mutilduten, aren lumaquin arrotu- 330
ta, aixaatuta, beste mun[du]betara iragoteco. Codicijac itanduten evan, ia nun
eguan *Potosí*²¹, ango urria ta zidarra poltsaan ondo gordetaco. Su-gorrotua ixio-
ta joian errijac guztiaac erretara. Envidijac topau gura euquian bidia, urtarrilgo
ipar otzac urteten daven lecura; agaz bat eguinda, mundu guztia oritu-[20]teco
ta igartuteco. Gulerija evilen carnacerija baten villa, sabela bein ondo beteta,
guero biar bazan illteco. Naguitasuna sartu zan corta illun baten ta an gueratu 335
zan etzinda, luurrera beguira. Tercijo onetan aurquituten zirian imperniti
urtendaco sei aguintariac, ya euren izatiagaz desesperauta.

Baina luxurija dan leguez señora andija, crijadu ta crijada asco biar ditu-
bana, pensau evan, aguintari chaar areec galduta ez eucala provechuric. Oba 340
evala, bere palacijora eruanda, guztiaquin balijau. Abisau eutseen guztiai, juan
zitezala beregana ta ez eutseela gachic eguingo. Juan cirian dirianac luxurija-
ren aurrera ta aguindu eutsen, berari obeiduco eutseela beti. Icutsi citubanian
guztiaac luxurijac bere mendian ta esanian, entero verba leunaquin ta gera²²
bigunagaz esan eutsen guztiai ta bacochari celan bera servidu biar even.

Luxurijac esan eutsan *sobervijari*: Zu juango zara beti neure aurrian. 345
Prestauco deustazuz vidiac. Ta edeguico deustazuz neuc sartu biar dodan
echeco atiac. Esan eutsan *codicijari*: Nai irabazita, nai logrerijan, nai oostuta,
biar dodan diruba beti prest euquico deustazu. Codicijac leleenguan burubari
eraguiten eutsan. Baina laster erantzun eutsan *baietz*. Esan eutsan *gulerijari*:
Sarri gosetu oi zala ta beti maija prest euqui eguijola. Esan eutsan *embidijari*: 350
Zuc jarraituco deustazu beti neure orpuetan. Esan eutsan *su-gorrotuari*: Zuc

324 zabalduzan *Ba* 329 asizan *Ba* 330 ia] ya *Ba* 333 eguin da *Ba* 335 sartuzan *Ba*
335-336 gueratuzan *Ba* 337 ya] ija *Ba* 340 eruan da *Ba* 346 biardodan *Ba* 350 oizala *Ba*

²¹ *Potosí*, Bolibiako hegoaldeko eskualdea, gutxi gorabehera milioi bat biztanle dituena. Mineraletan nazioko eskualderik aberatsena da (eztainua, zilarra, bismutoa, urrea, kobrea, beruna, etab.). *Potosí*, eskualdeko hiriburua, 200.000 biztanle inguru dituena, entzute handikoa bere zilarrezko meategiengatik; XIX. mendean guztiz behera etorria zen.

²² "Gera": txera, harrera, abegia; ("jera" ahoskatzen da; aurpegiko onginahizko keinua esan nahi du gehinetan; oraindik Markina inguruan bizirik dagoen hitza da).

jarraituco deutzazu neure ondoric datorren embi-[21]jari. Esan eutsan azque-
nian *naguitasunari* luxurijac: Zu cansetan ez nas gura, ta egongo zara beti
neugaz. Pozaren pozez erantzun eutsan naguitasunac *baietz*.

- 355 Ara emen, cristinaubac, zazpi pecatu buru edo capitalen asieria, guerria ta
baquia, luxurija guztien aguintari dala. Ez da au, neure entzula onac, burutaci-
noe sutsu bategaz asmauba. Ez da urrin errijetan jazoten dana, ez bada gueure
artian, cristinauben artian egunero negarragaz ta peniagaz icusten doguna da.
Sovervija da andiguria, buru erichija, urten guria, apaindu guria ta arrotasuna.
360 Ta oni jaoco luxurijari bidiac prestetia ta atiac edeguitia. Sobervijaren orpuetan
dabil beti luxurija. Ez da icutsico panparroe, buru erichiric ta urten guraric,
luxurijaren atsa ondoric ez darraiconic. Codiciac dauca carguba, luxurijari diru-
ba emoteco. Bada, pobre bilox bati gaisqui esan bagaric, lauzuri emongo ez
bajaco bere, luxurijarentzat ez da inos diruba palta, edo norberarena, edo ino-
365 rena, edo oostuba, edo ainbagacua. Gulerijac dauca carguba luxurijari maija
presteetaco. Orregaiti, gulerijazco jan edana davilen lecuban, inos luxurija pal-
tau ez, dinue Eleisiaren Gurasuac. Envidijac dauca carguba luxurijaren orpue-
tan ibilteco; ta su-gorrotuac embidijaren orpuetan. Bada, luxurijari orpuetan
370 darraico beti bildurra, celua, sospechia, icutsi ezina, cer esana, gorrotua, ven-
gantzia, penia, tristecia ta larrija, ceintzuc dirian embidijaren ta su-gorrotuaren
seme alabaac.

- [22] Orain esaten dan naguitasuna da, cristinaubac Jaungoicua gauceta-
raco daucan atcerapena, gogo illa ta vijotz otza. Alan esan eutsan luxurijac
naguitasunari, beragaz egon cedilla beti. Bada, beti dago luxurijagaz naguita-
375 suna. Lotsarizco pecatubetan sartua daguan cristinaubac, nequez ceruru[t]z
beguiratuten dau. Nequez espirituba viztuten dau. Pecatubari ta ocasinoiari
istia, vitzitza deunguia mudetia, compesinoe on bat eguitia ta Jaungoicua ser-
bidutuari gogoz equitia, gauza astuna ta gacha da luxurijotsuarentzat.
Gueijenian gueratu oi jaco luxurijotsubari onaco gauza onac gueroco ta beti
380 gueroco, pecatu loijac beragaz darabilelaco Jaungoicua serbiduteco naguitasu-
na.

- ¿Ez da bada, neure entzula onac, guztiz vildurgarrija ta icaragarrija, beste
pecatu guztia ta vicijo edo oquerreriya guztia beragaz naastuta daraviltzan
luxurija edo lotsarizco pecatuba? Gogoratu bada, cristinaubac, ce eche edo
385 egonlecu ondotsuba, zabala, lucia ta altuba daucan munduban castidadiaren
contraco pecatubac. Ez aaztu bere erreinu edo aguindute madaricatubagaz.
Bildurtu ta icaratu urineti bere pecatu lotsarizcuaren zaatiagaz, bere sarepian
sartuta betico galdu ez zaizan. Escatu daijogun Jaungoicuari bere misericordi-

356 Ezda *Ba* 357 Ezda *Ba* | Ez bada *Ba* 361 Ezda *Ba* 362 ezdarraiconic *Ba*
363-364 ez bajaco *Ba* 364 ezda *Ba* 368 su gorrotuac *Ba* 372 esatendan *Ba* 373 atcera
pena *Ba* 379 oijacoz *Ba* 382 Ezda *Ba* 383 dara-viltzan *Ba* 385 egon lecu *Ba*

ja, eguiija santuben ezauberia ta castidade santiaren doe garbija, munduban gogoz bere legue santuba gordetaco ta ceruban beti gocetaco. Amen. 390

[23]

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

Jaungoicuac lotsarizco pecatubari celan beguiratuten deutsan.

Pecatuba esaten danian aitu biar da, cristinaubac, pecatarija edo pecatu dana. Lapurretiagaz aituten da, celacua dan lapurra. Humildadiagaz, celacua dan humildia. Jaquiturijagaz, celacua dan jaquituna. Castidadiagaz ta virginidadiagaz, celacua dan gorputz ta arima garbiduna. Ta lotsarizco pecatubagaz, celacua dan verba loijac, eguite loijac ta bidebagaco gurari loijac daucazan guizona edo emacumia. Ezauberazco eguitadiac celacuac dirian, alacua da Jaungoicoaren veguijetan cristinauba. Ezauberazco eguitade oneec, nai onac ta nai chaarrac, beragaz daruaz cristinaubac beste munduraguino. Onac badira, ceruraguino. Chaarrac badira, ta erremedijetan ez badira, impernuraguino. Ez dago erremedijoric. Icusi ezquero, bada, leengo eracutsijan lotsarizco pecatubac munduban daucan lecu andija ta estimauba, ez da errazoeti campora izango cristinaubari, ceruban edo impernuban beti egon biarco davena sinistuten davenari, esatia, ia Jaungoicuac ceruti celan beguiratuten deutsan lotsarizco pecatudunari. Baita ia impernuban celan beguiratuten deutsen bere. Orain esango da [24] leleengua, ta gueroico icasiquizunian bigarrena. Entzun eguizu gogoz. 395

Modu bitara portetan da Jaungoico zucena ta santuba bere ordenetan. Baita Jaungoicuaren antzera beste legueguinac bere. Bateti, legue santuba austen davenac ta gaisqui eguiten davenac zamaituten ditu ta castiguetan ditu. Ta besteti, eracusten deuscu ontasun neurri bagaco bategaz, celan alderatu biar dogun legue austeti ta esquintcen deuscu ondo eguinaren sarija. Esango deustut bada, cristinaubac, dotrina onetan: 1. *Jaungoicuac celan zamaituten dituban lotsarizco pecatudunac*. 2. *Ce gogogaz eracusten deuscun Jaungoicuac pecatu loijaganic aparteetaco*. Prestau eguizu, cristinaubac, entzutia aimbat gogoric zurrenagaz. 400

394 biarda *Ba* 404 Ezda *Ba* 406 ia] *Ya Ba* 407 pecatu-dunari *Ba* | ia] *Ya Ba* 410 bere ordenetan] beordenetan *Ba* (301.or.: bere ondenetan) 413-414 biardogun *Ba* 402 pecatu dunac *Ba*

I.

420 Edoceinec daqui, Jaungoicuaren maldecinoiac ce itzala ta erruba daroian beregaz. Jaungoicuac cerbaiti maldecinoia ezarten deutsanian, bere vijotceco gorroto ta asarre nautsija eracusten dau. Alan eracusten deuschubee Escritura Sagraduco jazo ascogaz Eleisiaren Gurasuac. Entzun eguizu, bada, orain, neure cristinaubac, ceimbat maldecinoe jaurteguiten dituban Jaungoico itzaltsubac

425 araguizco pecatudunen contra (12). *Madaricatubac* guizon eta emacumiac, lotsaarizco pecatu nasaijaquin munduba loituta, Jaungoico andija uxalagaz guztia itotera ecarri evenenac. Lotsaarizco pecatuba gaiti, luurreco gauza vitzi guztia ondatutera Jaungoicua obligau evenenac. *Madari*-[25]*catuba* Can erichon Noeren seme lotsagalducua, lotsarizco pecatuba gaiti²³. *Madaricatuba* Sodoma,

430 Gomorra ta ingurubeetaco gentia lotsarizco pecatubac gaiti²⁴. *Madaricatuba* Her ta Onan lotsarizco pecatubac gaiti²⁵. *Madaricatuba* Siquengo gentia lotsarizco pecatuba gaiti²⁶. *Madaricatubac* israeltarrac, Moabgo alabaaquin pecatu eguin evenac, lotsarizco pecatuba gaiti²⁷. *Madaricatubac* Zambri ta Madiango alabia lotsarizco pecatuba gaiti²⁸. *Madaricatuba* Amon lotsarizco pecatuba

435 gaiti²⁹. *Madaricatuba* Absalon lotsarizco pecatuba gaiti³⁰. *Madaricatubac* santa Susana garbijari pecatu eraguin gura eutsen agura zaarrac, lotsarizco pecatuba gaiti³¹. *Madaricatuba* Gavaongo gentia lotsarizco pecatuba gaiti³².

(12) Marchant. Tub. Sacerd. trat. 3, lect. 11.

420 Edo ceinec *Ba* 421 cer baiti *Ba* 424 itzaltsubac] itsaltsubac *Ba* 427 pecatubagaiti *Ba* 432 Moabgo] Moatgo *Ba*

²³ Kam, ik. Has 9,22: hemen begirunerik eza ageri da soilik...

²⁴ Ik. Has 18,20-21; 19,4-8.

²⁵ Her eta Onan, Juda eta Tamar-en semeak, ik. Has 38,3.6: Her-ek "oker jokatu zuen Jainkoaren begi aurrean eta hilarazi egin zuen Jaunak". "Baina bazekien Onanek semea ez zuela berea izango. Horregatik, koinatarekin etzaten zen bakoitzean, lurrera isurtzen zuen hazia, bere anaiari ondorengorik ez emateko. Jaunak ez zuen atsegin izan hark egin zuena, eta hilarazi egin zuen hura ere" (38,9-10). Frai Bartolomek "lotsarizco pecatua" dio Onanek egin zuenagatik, hau da, hazia lurrera egotzi, emakumeak ondorengorik izan ez zezan; hortik dator *Onanen bekatua* edo *onanismoa*. Hala ere, exegesiaren arabera, bekatua lehenengo eta behin emakume harekin egindako zuzengabekeria eta gizarteko legea haustean datza, eta bigarren maila batean hazia alferrik galtzean...

²⁶ Ik. Has 34,20-24.

²⁷ Ik. Zen 25,1.

²⁸ Ik. Zen 25,1-18. (Pinhasek Zimri eta Kozbi emakume madiandarra hil zituen).

²⁹ Amnon, ik. 2Sm 13,1-29.

³⁰ Ik. Absalonek bere anaia Amon hil zuen, bere arrebarekin etzan zelako... ik. 2Sm 13.

³¹ Ik. Dn 13,1-64.

³² Ik. Jos 9. Ez dirudi zuzen dabilenik Frai Bartolome "Madaricatuba Gavaongo gentia lotsarizco pecatuba gaiti" dioenean, Bibliako testuan (Jos 9) gezurra eta iruzurra baitira haiei egozten zaizkien bekatuak.

Madaricatuba legue zaarrian edochein emacume adulterijoguin lotsarizko peka-
tuba gaiti³³. *Madarikatuba* Corintoco luxurijotsuba, san Paulo apostolubac 440
lotsarizco pecatuba gaiti diabruari entregau eutsana³⁴. *Madaricatuba* Erodes lo-
tsarizco pecatuba gaiti³⁵. *Madaricatuba* Erodias emacume dantzarija ta loija, San
Juan Bautistaren samia dantziaren saritzat escatu evana izotz gainian iragoten
evilela, izotza ausita samaraguino uretan sartuta, oinaquin dantzan evilela
buruba urcatu evana, lotsarizco pecatuba gaiti³⁶. *Madaricatuba* Nicolas 445
Antioquiagua lotsarizco pecatuba gaiti³⁷. *Madaricatuba* Apocalisico Jesabel
emacume loija ta agaz pecatu eguin even guztia, lotsarizco pecatuba gaiti³⁸.
Azquenian *madaricatubac* san Pedro apostolubac bigarren cartiaren bi-
[26]garren capituluban icentetan ditubanac, lotsarizco pecatuba gaiti.

Ara, neure entzula onac, Jaungoicuac ceruti celan beguiratuten deutesen 450
lotsarizco pecatudunai edo seigarren aguindu santuba austen daveenai. Eurac
gorputzari ta araguijari gusto loijac emon eutseezanac, batzuc batera ta bestiac
bestera jagui dira Jaungoicuaren legue santubaren contra. Baina Jaungoicuac
araguiuzco pecatubari deutesan gorroto mortala jausi zan euren arimen gainera.
¡Oh, desdichaubac, Jaungoicuaren madaricatubac! ¡Oh, zoriguestocuac, pecatu 455
loija gaiti demoninuari betico entregauta dagozan guizon eta emacumiac! ¡Ce
guichi pensauco even arima condenau areec, munduban vitzi zirianian,
Jaungoicuac aimbeste gorroto eutsela eurac eguiten cituben luxurijazco peca-
tubai! Baina munduban izan arren pecatu lotsarizcua guizon eta emacumiac
encantauta, itsututa, zoratuta daravilzana, cerutarren veguijetan beste bat da. 460
Ceruti beguiratuta, guztiz da ichusija, ezaina, illuna, atsituba ta gorrotogarrija
lotsarizco pecatuba, gorputzac usteldu ta arimaac condenetan ditubana.
Cerubac eta cerutarrac entzun bere gura ez davee pecatu loijaren icena.

439 leguezaarrian *Ba* 451 pecatu dunai *Ba* 454 jausizan *Ba* 458-459 pecatu bai *Ba*
461 gorroto garrija *Ba* 463 ezdavee *Ba*

³³ Ik. Dt 22,22;

³⁴ Ik. 1Ko 5,1-5.

³⁵ Ik. Mt 14,3-4; Mk 6,17-18; Lk 3,19-20.

³⁶ Ik. Mt 14,5-11; Mk 6,19-28.

³⁷ Ik. Ap 2,6.15. Nicolaitak aipatzen dira hemen, hau da, sekta gnostiko-anarkista baten alderdikoak Efeso eta Pergamoko kristau-komunitateetan; izena, nor den garbi ez dakigun Nikolas batengandik hartu zuen; batzuek Antiokiako Nikolas dela uste dute, behartsuei laguntzeko apostoluek hautaturiko zazpi diakonoetariko bat (Eg 6,5).

³⁸ Ik. Ap 2,20: Jezabel. S. Joanek era sinbolikoan darabil izen hau; hala ere, Biblian eta errabinoengan ez da sinbolismo hori agertzen. Beste Jezabel bat gezurrezko jainkoetara makurtzeaz salatua izan zen Itun Zaharrea (ik. 1Erg 16,31-32; 2Erg 9,22): hemen sinbolismoaren eta errealtatearen artean, ezkon-nahastea eta prostituzioa sartzen dira idolatriaren ezaugarritzat. Hala eta guztiz ere, "Jezabel", Apokalipsian, emakume-profeta aizun kristaua izango zen, beharbada, pixka bat librea eta kristau-elkartearekin ongi etortzen ez zena.

Alan esaten deutsu san Paulo Apostolubac (13), *aotan bere artu biar ez*
 465 *dala luxurijazco pecatubaren icena* . San Paulo apostolubac, castidadiaren
 contraco pecatuba aitauten davenian, dino santo Tomas Villanuebacuac (14),
 beti [27] ecarten ditubala gogora Jaungoicuac lotsarizco pecatubari deutsan
 gorrotua ta bera gaiti eguin dituban castigubac. Engainauta vitzi dira cristinau-
 bac. Jaungoicuac errezto parcatuten davela pensauta, pecatu loijai ariman lecu
 470 emoten deutsenac. Diabrubac bere sarepian segurubago euquiteco emoten
 deutsen itsutasuna da au. ¡Oh, ceimbat onaco zoriguestoco errucarri dagozan,
 urte ascotan lotsarizco pecatubetan iguiri edo ugar eguiten daveela! ¿Ez leu-
 quee pensauco oneec, ceruco santuben, aingue[ru]ben, Virginia guztiz garbija-
 ren ta Jesus ederraren amodijua, carinua ta vijotzac irabazteco, guztiz luurrez-
 475 cua, araguizcua ta lotsarizcua dala luxurija?

Luurrezcua da pecatu lotsagarri au. Ta luurreco gaucetan daucaz bere gus-
 tuac. Araguizcua da. Ta araguia, arimia apartau ezquero, luurra da. ¡Ce pren-
 da ederra izango dan, bada, cristinaubaren gorputza, berezco luurtasunaren
 480 gainera lotsarizco pecabaquin loituta daguana, Jaungoico guztiz santubari ta
 garbijari aurrera presentetaco edo esquintceco. ¿Ez dira acordaucoc cristinau loi-
 jac, euren gorputzac diriana edo izan biar davena Espiritu Santubaren templu
 edo egonlecu vitzijac? ¿Espiritu Santubaren egonlecubac eguingo ditubee,
 bada, pecatu loijaren ontzi? ¿Ta ez da aserratuco Jaungoicua alaco eguitade loi-
 jaren contra? ¿Bere eche santuba luxurijagaz manchau ta loitu davenaren con-
 485 tra? ¿Jesucristoren gorputz garbijaren zatijari, cein dan cristinaubaren gorpu-
 t[28]za, luurrego lizuna ta atsa bere guraz imini deutsanaren contra? ¡Oh, cris-
 tinaubac! Jaungoicua ez litzaate Espiritu garbija izango, aparteco gorrotua ez
 baleutsa lotsarizco pecatubari. Ainguerubac, Ama Virgina guztiz santiac, santu-
 bac eta santac, cerutar guztiac deutsee gorroto ixigua araguizco pecatu ezaina-
 490 ri.

Sinistu bada, cristinaubac, sinistu, munduban dala lotsarizco pecatuba laba-
 na, leuna, zabala, ugarija ta maitetuba. Sinistu arima arimati, cerubac beti izan
 deutsala ta izango deutsala gorroto; beti zamaitu davela, madaricatu davela ta
 castigau davela Jaungoicuac aparteco celuagaz lotsarizco pecatuba. Baita era-
 495 cutsi bere guztiai celan apartau biar dogun pecatu impame atati.

II.

Aita on batec seme batari, gaisqui eguin davelaco, asarre vitzijagaz zurra
 andija emonda, beste semiari, alaco gachic eguin ez daguijan amodijoz ta cari-

 (13) Ephes. c. 5. (14) Fer. 4. post Dom. 1. quadrag.

464-465 ezdala *Ba* 468 dituban] dutuban *Ba* 471 zoriguestoco] zoxigu estoco *Ba*
 (301.or.: zoriguestoco) 474 carinua] carina *Ba* (301.or.; carinua) 482 egon lecu *Ba* |
 egon lecubac *Ba* 487-488 ezba leutsa *Ba* 498 emon da *Ba*

noz conseju onac emoten deutsa[za]n leguez, alan Jaungoico onac bere, lotsarizco pecatudunac maldecinoe icaragarrijaquin impernuco satanasari entregautau guero, eracusten deutsee amodijo ta carino andijagaz cristinau guztiai, celan apartau biar daven pecatu loijetati. Lecu ascotan gauza onen gainian Espiritu Santubac eracutsi deuscu gueure cereguina. Guztia ezin esan leguiz dotrina labur baten. Banaca batzuc ecarrico ditut ceuben gogora. Ta areetati aituco dozu gueure Aita cerucuaren opa ona. Dirauscu, bada, Espiritu Santubac Escritura Sagraduban lecu ascotan. 500 505

[29] Ez eguijozu emon emacumiari ceure goguan lecuric, galduta gueratu ez zaitez (15). Ez eguijozu emon emacume loijari compijantzaric; ta ez zaitez izan aren adisquide, zeu ta daucazun guztia galdu ez daguizun (16). Espiritu Santubaren egonlecuba da ceure gorputza; ez, eguin bada loitu lotsarizco pecatubagaz (17). Emacume loija osticopian darabee guztia, simaurra edo satsa leguez (18). Contu eguizu, ene semia, araguzco pecatuban jausi ez zaitez (19). Leza andi baten moducua da emacume verdia; lapurra leguez davil, inocentiai pecatu eraguiteco; ta pecatubagaz illten ditu arimac (20). Luxurijotsubagaz bat eguiten dana, galduba da; aarrac ta usteltasuna baino ez jaco gueratuco (21). Inoren emaztiagaz ez zaitez jarrita egon; ez eguizu agaz ardaozco convitic euqui; ceure gogua bereganatu ez daguizun ta galdu ez zaguizan (22). Igues eguizu pecatu loijeetati. Beste guztia baino ezainagua da, araguzcua dalaco (23). Zaldi sutsubac leguez duaz pecatu loijetara; ¿ta ez nas asarratuco aren contra? (24) Luxurijari lecu emoten deutseenac, ez davee pen- seetan Jaungoicuagana viurtutia (25). Ez eguijozu entzuteric emon emacumia- ren leunquerijari (26). Lelenguan verba eguingo deutsu chito laban; baina azqueneraco, suguiac leguez, aguinca eguinda ichico zaitu (27). Luxu- rijotsubaren [30] veguijac illunduta dagoz; ta esaten dau bere artian: *ez nau innocusten* (28). Ardauc eta emacumiac jaquitun asco condenau ditubee (29). Emacume leunaren echia da impernuraco vidia; ez zaitez juan aren vide- ti. Illuntzietan plaza esquinetan ta vide vaztarretan ichaanda, lavan verba eguinda, engainauco zaitu; bada, virtute andicucac bere engainau ta condenau ditubee emacume leunac (30). Nescatiliari ez eiguijozu beguiratu; bere ederta- sunagaz engainauta, galdu ez zaitez (31). Lau gauza dagoz inos aseetan ez dirianac: Impernuba, luurra, suba ta luxuriya (32). Mortipicau eguizuz ceuben gorputzac, lotsarizco pecatuban jausi ez zaitez (33). Luxurijotsubac ez davee ceruco erreinuba artuco (34). 510 515 520 525 530

 (15) Eccl. 5. (16) Ibid. (17) 1.Corint. 6. (18) Eccl. 9. (19) Tob. 4. (20) 535
 Prov. 23. (21) Eccl. 19. (22) Id. 9. (23) 1. Cor. 18. (24) Jerem. 5. (25) Oseas
 c. 5. (26) Prov. 5. (27) Id. 23. (28) Job 14. (29) Eccl. 19. (30) Prov. 7. (31)
 Eccl. 9. (32) Prov. 30. (33) Colos. 3. (34) 1.Corint. 6.

501 pecatu dunac *Ba* 504 cer eguina *Ba* 511 egon lecuba *Ba* 516-517 ezjaco *Ba* 518
 bere ganatu *Ba* 520 eznas *Ba* 530 Nescatiliari| Nescatiliari *Ba* 531 galdu| ta galdu *Ba* 538
 Colos.] Tesalon. *Ba*

540 ¿Baina ceimbat onaco conseju on ta gueure ondo gurazco abisu emoten
ceruco Espiritu Santubac, lotsarizco pecatubetati gu apartetaco? ¡Oh, gueure
ceruco Aita ona ta biguna! Ezin baquiac eguin leguiz pecatubagaz Jaungoicuac.
Castigau biar dau, penitencijagaz birrinduten ez dan peca[tu]ba erremedio
545 bagaric Jaungoicuaren justicija zucenac. Berac ezaututen dau pecatu guztien ta
bacocharen ezaintasuna ta malecija. Ez gueuc uste dogun moduban, ezbadu
550 dan moduban. Baqui cristinauben pecatubeetati lotsarizcuena ta gorrotagarrie-
na dana. Baqui cerubac gogor castigueetan davena. Baqui satanasac pecatu
agaz gueijen engainee-[31]tan davena. Baqui, cristinaubac pecatu lotsarizcuan
jausteco ocasinoe asco dauquezana. Ta au guztiau jaquinda, esaten deuschuz
Jaungoicuac bere Escritura Sagraduban, pecatu ezainari deutsan gorrotua ta
550 aganic aparteetaco moduba.

555 ¿Cer guraco dau, bada, cristinaubac gueijago gauza onen gainian? ¿Ucatu
legui Jaungoicuaren vorondatia? ¿Dudau legui cerubac luxurijari deutsan gorro-
tua, aimbeste zamaigaz ta maldecinoegaz pecatu loidunac satanasari entregau
ezquero? Ez, cristinaubac. Ezin ucatu guinai. Ta ez dogu ucatu biar. Sinistu biar
560 dogu bene benetan, aparteco gorrotuagaz Jaungoicuac castiguetan davela lo-
tsarizco pecatuba.

565 Dempora guztietan izan da lotsarizco pecatuba cerubaren gorrotocua.
Baina Jaungoicuaren seme vitzija guizon eguin zan ezquero, oraindino ceru-
baren gorrotocuagua da. ¿Cegaiti, bada, au? Jaungoicuaren semia guizon egui-
570 nagaz, guizonaren naturalecia leen baino santubago ta Jaungoigotubago gue-
ratu zalaco. Ama Virginiaren sabel santan artu evan Jaungoicuaren semiac
gueure erico³⁹ gorputza edo araguija ta odola beragana. Ta gueratu zan Jesusen
gorputz santuba Jaungoicotuta. Gure gorputzac dira Jesusen gorputzaren eri-
575 cuac. Ta gueratuten dira bautismo santuban garbituta, santututa, moduren
baten Jaungoicotuta. Orregaiti gara cristinau guztioac Jaungoicuaren semiac ta
ceruco erederubac. Edo obeto esateco san Paulo apostolubagaz (35), gueure
gorputzac dira [32] Jesusen gorputz santubaren zatijac ta Espiritu Santubaren
580 egonlecu vitzijac. ¿Cer izango da, bada? ¿Edocelan beguiratuco deutsa Espiritu
Santubac bere egonlecu vitzijari, cristinaubaren gorputzari, lotsarizco pecatu-
585 bagaz loituta dacutsanian? ¡Oh, cristinaubac! Edoceinec dacuts, gogoratuta
beste bagaric, icara eraguiten davena pecatu ezain onec. Tristetuten dau

(35) 1.Corint. c. 6.

542 biar dau] biar dan *Ba* 544 ustedogun *Ba* 546 gogor] gogox *Ba* 551-552 Ucatu
legui] Ucatu leguija *Ba* 554 ezdogu *Ba* 557 izanda *Ba* 558 eguinzan *Ba* 562 guera-
tuzan *Ba* 565 guztioac] gustioac *Ba* 568 egon lecu *Ba* 569 egon lecu *Ba* 570 Edo cei-
nec *Ba* 571 dau] dan *Ba*

³⁹ "Eri": mota, izaera; ("clase", "especie", "género" itzultzen dute).

Espiritu Santuba. Ta aparteco injurija eguiten deutsa Jesucristoren gorputz santubari ta garbijari. Au gaiti esaten dau san Agustinec (36): *¡O ce maldade andi - ja! ¡O ce pecatu negargarrija, Jesus maitiac bere odol santubagaz irabaci ta garbitu evan arimia, istanteco gustua gaiti luxurijagaz loitutia! Impernubaren echuracua da luxurija* , dino san Buenaventurac (37). Inpernuban dago su ixiua, ar aguincarija ta atsa. Alan lotsarizco pecatudunac dauca araguijaren suba, conciençijaco arra ta luxurijaren atsa. Orregaiti, dino eracusla santubac, ya celanvit⁴⁰ beragaz daucala pecatu loidunac impernucio penia. 575 580

Gorrototu⁴¹, bada, cristinaubac, lotsarizco pecatubaren contra. Artu baco-chac beretzat Jaungoicuaren esan zintzuac ta opa oneco abisubac, pecatu ezainetan inos jausi ez gaitezcan. Berac esaten deutsu chito arguiro, ia lagun gaisuac eta araguiçuac, endamas emacumiac celan engainetan dituben ta pecatu deunguiaren sarian sartuten dituben arimac; celan ardaozco convitac ta jan edan laarreguijac dago-[33]zan lecuban artuten daven indarra pecatu ezainac; celan ocasinoc lecubetati alde eguin biar dan; celan gueure veguijac, mijna ta sentidubac edo zuzmaarijac gorde biar ditugun, arimia ta gorputza loitu leguijeen gaucetati. 585

Escatu daijogun, bada, gueure Aita cerucuari, bialdu daigula bere gracia. Ya dichia daucagun ezquero bere aoti entzuteco garbitasuna gordetaco bide zucena ta biarrecua, gorde daigun gueure vijotcetan, arimetan ta gorputzian castidadia. Au galduta, gueure gainera etorri ez ditezan Jaungoicuaren beraren maldecinoc icaragarijac. Jesucristo gueure Jaunac eguin daigula mesede au bere odol santubaren balijua gaiti. Amen. 590 595

(36) Serm. 250. Temp. (37) 1. C.

574 dau] dan Ba 578 aguin caria Ba 580 ya] ija Ba | loi dunac Ba 583 ia] ya Ba

⁴⁰ Hainbat eratara idazten du hitz hau: *celanvit, celanbit, celambit, zelan bait* . Guk azken hau ere lotzea erabaki dugu. (Ik. *Esku*-ko sarreran 503-504.or.).

⁴¹ "Gorrototu" (da): norbaiti nahiz zerbaiti gorrotoa hartu; ("gorroto izan" forma sarri-sarri dator, baina testu honetan "-ren kontra gorrototu" dator *enemistarse contra alguien o contra algo*

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan,
lotsarizco pecatubari celan beguiratuten jacon impernuban.

600 Eleisa Ama santiaren Guraso ascoc esaten deutsee, neure cristinaubac,
 pecatu loijaren gurari eragotzijari impernucosuba. *Ignis infernalis*⁴². Aitu dozu,
 bada, leengo dotrineetan, munduban aguindute andija daucala, ta cerubac
 chito gorroto deutsalara; impernuba alegretan daven pecatuba dala; ta munduric
 gueijena ara daroiala. Uste dot bada, neure entzula onac, gueure arimen one-
 605 raco izango dala gogoratu-[34]tia, ia ce artuera eguiten deutesen, edo celan
 beguiratuten deutesen impernuban lotsarizco pecatubari. Onetaraco aituten
 emongo deutesen eracutsi onetan: 1. *Condenaubac gorroto deutesela pecatu loi-
 jari*. 2. *Inoc eguitia nai daveela*. Prestatu zaitez, cristinaubac, aibat entzune-
 raric oneenagaz.

610

I.

Condenauta dagozanac, edo dira diabrubac, edo dira guizon eta emacu-
 men arima condenaubac. Batzuc bere ez davee gura pecatu loija impernu-
 ban eureentzat. Ez diabrubac, euren izatiari ez jaocolaco. Ez condenaubac,
 euren erregarrija dalaco. Icusi daigun celan.

615 *Leleengo* Diabrubac gorroto deutsee luxurijari, euren izatiari ez jaocolaco.
 Diabrubac gorputzic ez dauquee. Dira espiritubac. Naturalezaz izate altuba ta
 noblia dauquenac. Sobervijac, vorondate gaistuac ta pecatubac ezaindu ta
 madaricatutu cituban diabrubac. Condenauta dagoz betico espiritu zoriguesto-
 620 co areec. Ta gura leuquee, arima guztiac bere condenetia, euraquin beti erre-
 tan impernuban euquiteco. Baina diabru madaricatu areen izate espirituzcuari
 guichien jagocan pecatuba da luxurijazco pecatuba, araguizcua ta loija dalaco.
 Au gaiti esaten dau Aita Burdalue zelo oneco jesuita jaquitunac (38), diabru
 guztiac izan arren gueure arerijuac ta guri pecatubac eraguiteco ondo denda-
 625 tuten dirianac, ez diriala edochein modutan. Batzuc eraguiten ditubee erijotza-
 ac. Beste batzuc gorrotuac ta odijuac. Beste ba-[35]tzuc andiguraac, lapurreta-
 ac, embidijaac... Baina luxurijari suba ta indarra emoteco daguan aguintarija da
Asmodeo esaten jacon diabrubac (39). Au da diabru guztietati baxubena. Au

 (38) T. 3. Serm. sob. Torp. (39) Tob. 3.

605 ia| ya Ba 608 naidaveela Ba 608-609 entzun eraric Ba 612 ezdavee Ba 627
 Auda Ba

⁴² Ik. *Esku*-ko 18. oharra (526.or.).

gaiti esaten deutsa Jesucristo gueure Jaunac evangelijo santuban, espiritu loija
 (40). Guztiac izan arren gacheracuac, ez dau aretati edoceinec gura bere izate 630
 espirituzcua gaiti, guizonari pecatu loijac eraguiteco eguinbiar impamia bere
 contura artutia. Borregutzaco ta pregonerutzaco eguinbiarra artuten daveen
 leguez errijetan guizonic baxubenac; alan araguzco pecatubac eraguiteco car-
 guba artuten davee espiritu condenauroic baxubenac.

Aita Looner, jesuita piedadezcuaac esaten dau (41), guizon etziceru batec, 635
 araguzco pecatu bat eguinda andi laster dei eguiten eutsala demoninuari,
 gauza bat itanduteco. Baina ez jacon aguertuten espiritu galduba besteetan
 leguez. Dei eguiten eutsan bigarrenian. Baita irugarrenian bere. Azquenan,
 nequezco baten aguertu jacon espiritu illuna. Baina ez evan etzicerubaren
 ondora eldu gura. Contu artu eutsan etzicerubac etsaijari, ia cegaiti leenago 640
 aguertu ez jacon. Ta cegaiti ondora juaten ez jacon. Erantzun eutsan diabrubac
 etzicerubari: ¡E! Zure luxurijaren atsa ezin irago izan dot . Beste aimbeste, dino
 Jose Claus jaquitunac (42), jazo jacola emacume lotsarizco [36] pecatudun bati.
 Esan eutsan diabrubac emacume loijari: *Alde eguizu orti, atsa darijazu ta* .
 Beguiratu bada, cristinaubac, impenuco espiritu madaricatubac bere gorroto 645
 deutseela lotsarizco pecatubari, euren izatiari ez jagocolaco. Baita arima con-
 denaubac bere, euren erregarrija dalaco. Icusi daigun celan.

Bigarrenian . Arima condenaubac bere gorroto deutsee pecatu loijari,
 euren erregarrija dalaco. Bada, arima guichi egongo dira condenauta, castida-
 diaren legue santubac ausi bagaric. Ez dinot, beste pecatubac gaiti ez diriala 650
 condenetan arimac. Sinistuten dogu, edocein pecatu mortalegaz irabazten dala
 impernuba. Icusten dogu, malpecau, beste pecatubac bere sustrai andijac ta
 aguinute zabala dauqueela gueure vijotcetan. Baita, Escritura Sagradubac ta
 Eleisiaren Gurasuac dinuenez castidade santia gaiti ta aren arerijo pecatu loija
 gaiti, sinistu daiquegu arima condenau guichi egongo diriala impernuban, casti- 655
 tidadiaren contraco pecatu ezaina gaiti aparteco suba, aparteco penia ta apar-
 teco arrabijua ez dauquenac. Ta noberaren erregarriric ta penagarriric inoc
 gura ez daven leguez, condenaubac bere beti gorroto izango deutsee, eurac
 beti erretan ta penetan euquico dituban pecatu loijari. Amurrubaren amurruz 660
 naico ditubee zatitu ta apurtu euren gorputzac, araguzco pecatubac eguin zitu-
 belaco. Onan esaten da bada, cristinaubac, bai diabrubac ta bai condenaubac
 impernuban gorroto izango deutsela pecatu loijari. ¡Oh, gach [37] negargarrija!
 ¡Guero aimbeste gorroto izango jacona, orain ain maite izatia!

 (40) Matth. 12. (41) Bibliot. Conc. v. Luxurijs. (42) T. 2. Spicileg. univ. l.7. de
 Luxuria. 665

631 eguin biar *Ba* 632 eguin biarra *Ba* 635 etzicerubatec *Ba* 636 pecatubat eguin
 da *Ba* 638 irugarrenian] irugarrenian *Ba* 640 eldugura *Ba* | ia] ya *Ba* | ce gaiti
Ba 641 ce gaiti *Ba* 642 izandot *Ba* 644 darijazuta *Ba*

II.

Baina beste aldeti san Bernardoc esaten deuscu, *impernu guztia alegretan davela luxurijac* . ¿Ta cegaiti? Santubac berac esaten dau: Casic mundu guztia condeneetan davelaco. *Quasi totum mundum trait ad supplitium* . Au gaiti, bai
 670 diabrubic ta bai condenaubac nai davee bestiac pecatu loijac eguitia. Aita Looner, leen izentau dan jesuita jaquitun zelotsubac esaten dau, (43) munduban zabalduta egozan espiritu gachguinac batu ziriala lecu batera. Contetan citubela euren gach eguinac ta pecatu eraguinac guztia. Ta zurretan citubee-
 675 batec esan evan batzaar impernuco atan, *berroquei urtian jardun evala praile bati luxurijazco burutacinoiac ta gurarijac gogora eruaten* . Ta Luciperrec coroe bat imini eutsala espiritu deunga ari, ondo portau zalaco. ¡Ceimbat pecatu andi eraguingo zitubeen berroquei urtian mundu zabalian beste diabrubic!
 Orregaiti bere izan zirian zurraubac, Luciperrec gura evan beste eguin ez eve-
 680 elaco. Bacarric irabatci evan impernuco coroa, berroquei urtian praile bati araguijaren tentacinoe loija ta bildurgarrija imini eutsanac. ¡Oh, ceimbat gura litu-
 quen impernuban pecatu loidunac!

¿Cegaiti baina, esan legui, impernuco espiritu deungaac nai daveela aim-
 685 beste, cristinau-[38]bac pecatu loijac eguitia? Errazoe asco gaiti, neure entzula onac. Pediac eracusten deuscu diabrubic gueure arerijuac diriana; guri pecatu eraguiteco ta gu pecatuban illteco aleguin guztia cansau bagaric eguiten daveena; guizon eta emacume guztia impernuban eurequin beti erretan euqui gura lituqueena. Ta euren gurari gorrotozco madaricatu au jadiisteco, ondo ezaututen davee espiritu condenaubac: 1. Oi danez, lotsarizco pecatuba dala
 690 lasterren iraaften dana ta nequezen erremedijeetan dana. 2. Lotsarizco pecatu baten bein jausi ezquero cristinauba, oi danez, beste pecatu ascotan bere jausico dala. 3. Ezaututen davee diabrubic, pecatu loijac escubide gueijago emoten deutsela eurai condenauben arimac ta gorputzac impernuban peneetaco, beste pecatubac baino. Au gaiti, ez dira inos bere aspertuten espiritu zorigais-
 695 tocuac munduban luxurijari su ta indar emoten.

Lotsarizco pecatuba laster iraaften dana, nequez erremedijetan dana, edo inos bere ascoc erremedijau ez oi davena, ta bere ondoric beste pecatu asco, Jaungoicua ucatuteraguinoco, eraguin oi ditubana, guztia autor daveen eguija da, neure cristinaubac. Beste pecatubac baino escubide gueijago lotsarizco pecatubac berez diabrubic emoten deutseena bere, impernuban condenauben arimac ta gorputzac penetaco, gauza aguirija da. Bada, Espiritu Santubac esa-

 (43) Ubi supr. v. Luxuria. §. 3, n. 25.

668 ce gaiti Ba 673 gach guinac Ba | lecubatera Ba 677 coroebat Ba 683 Ce
 gaiti Ba 689 Oidanez Ba 691 oidanez Ba 697 ezoidavena Ba 698 oiditubana Ba

ten dau, pecatu cegaz eguiten dan, agan penaric gueijen. Miin gaistocuari miinian emongo [39] deutsee penaric gueijen. Gulerubari auan ta sabelian penaric gueijen. Gorrototsubari vorondatian ta vijotzian penaric gueijen. Alan beste vicijo edo pecatubetan. Ce arimaco ta gorputceco sentidu ta zentzungarrigaz eguiten daven cristinaubac pecatu, sentidu ta alizate atan bertan condenaubac pena gueijago. Ta an diabrubic condenauba peneetaco escubide gueijago. *Per ea, quae quis peccat, per haec et torquetur* Castidadiaren contraco pecatuba eguiten da, entendimentubagaz pensauta, vorondatiagaz nai izanda, gomutiagaz acordauta, vijotzagaz amauta, veguijaquin, miinagaz, belaarrijaquin, escubaquin, pausu chaarraquin... gorputz guztiagaz ta arimaco alizate guztiaquin. Orregaiti pecatu madaricatu onec escubide gueijago emoten deutsee diabrubic gorputzac ta arimac peneetaco, bestiac baino. Ta izan zatequian au gaiti esatia san Bernardoc, impenu guztia alegretan davela luxurijac.

Beguitanduten jat, cristinaubac, castidadiaren contraco pecatudun bati jazotzen jacola impernuban diabrubaquin, basuan illdaco ardi bati mirubaquin jazoten jacona. Batac colpe eguiten deuta veguije[ta]ti, bestiac samati, bestiac tripati, bestiac bularreti, bestiac buruti edo anqueetati ta guztia era batera picatu ta zulotuten deutsee, zatijac quendubaz, gorputz guztia. Beste aimbeste demoninuac impernuban luxurijotsubagaz. ¡Oh, gorputz ta arima, garbitasunaren contraco pecatuz loituta zagozana! ¡Pensau ete dozu inos impernuban demoninuac [40] celan erabilico dituben ceure vegui loijac, miin loija, escu, oin, vijotz, matreila, ezpan, belaarri, empin gorputz ta arima guztia, euli gosiac eztijari leguez, gorrotoz ta amurruz eldu daguijueñian!

¡Ah, cristinaubac! Gogoratuco baguendu, goputz ta arima desonestubac bere zati guztietan impernuban daucan aparteco penia ta padecieta moduba. Pensauco baguendu pusca bat astiruago, pecatu ezainac ta loijac impernuco espiritu deungai emoten deutseen aparteco indarra ta alizatia condenau loijen contra. Aaztuco ez baguina inos sarritan entzuten dogunagaz ta lecu ascotan iracurten dogunagaz. Luxurijotsubac bai guizonac ta bai emacumiac, bai ezcondubac ta bai libriac euren pecatuco adisquequin sartuten ditubela oe ixiiuetan, laba gorijetan ta galdara iraaquinetan, nun egon biarco daveen condenau loijac demoninuen burlagarritzat, alcar zatituten ta alcar erretan. ¡Oh, lotsarizco pecatu madaricatuba! ¡Ce vengaua ta ce castigauba impernuban! Veguijac andituta, gorrituta, su artuta, materija atsituba darijuela. Belaarrijetan sierpe deungaac, eztenac sartuta. Matrelletan zapo mortalac erpiaquin ta aguinaquin oratuta. Ezpanac sarnatuta, baltztuta. Miina aterata, ixiota, suba darijola... ¡Oh! ¿Ta celan beste pecatu loi lecubac? ¡Ah, neure entzula onac! Liburu ascotan iracurten dana gogoratuta beste bagaric, icara eguiten dau vijotzac ta araguijac.

704 Gorrototsubari] Gorrotosutbari Ba 706 zentzun garrigaz Ba 712 al izate Ba 716 Beguitandutenjat Ba 719 erabatera Ba 722 etedozu Ba 723 loija] loisa Ba 729 al izatia Ba 733 labagorijetan Ba

¿Ta au ondo pensau ezquero, euquico leuque aimbeste lecu lotsarizco [41] pecatubac cristinauben gorputzcetan ta arimetan? Etzetz uste dot, cristinaubac.

745 Ez, bada, aaztu inos, neure entzula onac, impernucio leza icaragarri atan daguala penia pecatubagaz ta errubagaz neurtuta. Cegaz cristinaubac ausi daven Jaungoicuaeren leguia, an izango davela pena gueijago. Luxurijac loitu, ezaindu ta pecatututen⁴³ davela gorputz ta arima guizon guztia bere zati guztietan. Impernuban dagozala ondar erriac, azupre ixuia, pica iraaquina, ar aguincarijac, ats astuna, su gorija ta illun galdaubac (44). Ez aaztu, lotsarizco pecatu araguzcuac, luurrezcuac, baxubac, ezainac ta loijac guztiz diabrubaren escuperatuten⁴⁴ davela gorputza ta arimia impernuban. Ango penagarri guztiaquin balijetan diriala etsaijac, pecatu loidunac gorputzian ta ariman castigueta-co. Ta au gaiti nai davela entero diabrubac, lotsarizco pecatubac guc eguitia.

750 ¿Ta naico ete davee impernuban dagozan arima condenaubac pecatu loijac guc eguitia? Bai, cristinaubac. Eurentzat gorroto deutsee araguzco pecatubari. Baina bestentzat nai davee. ¿Celan, bada, au? Santo Tomasen eracutsijan, arima condenaubac gura leuquee beste guztia bere condenetia. Eurac impernuban erretan dagozan leguez, bestiac bere ainche erretan egotia. Jaungoicuaeren gorrotuan dago arima condenauba. Baita Jaungoicuaeren adisquide guztien gorrotuan bere. Gorroto onetati jator-[42]co inoren ona icusi ezina, gustiai gacha opa izatia ta guztia condenau ditezan nai izatia. Baquijee eurai jazo jacuenagaz, lotsarizco pecatubac arimaric gueijen itsututen ditubana, engainetan ditubana, Jaungoicuaeren gaucetati ustu ta liortuten ditubana ta condenetan ditubana. Au gaiti, impernucio arima condenaubac bere estimateetan davee ta chito nai davee inorentzat pecatu loija.

765 Ara bada, cristinaubac, ce echuria, ce lecuba ta estimacinoia daucan impernuban castidadiaren contraco pecatu ezainac ta bildurgarrijac. Diabruben espirituzco izate nobliari ez jagoco; ta au gaiti ez davee nai. Condenauben erregarrija da; ta au gaiti condenau guztia gorroto deutsee. Baina bitzubac nai davee, inor pecatu loi lotsarizcuetan jaustia. Impernuban dagozan guztia alegretan dira, munduban eguiten dirian luxurijazco pecatubaquin. Pecatu arec gaiti egunen baten euren laguntzat ta mendian gorputz ta arima erretan ta penetan equiteco.

770 ¡Oh, Virgina cerucua! ¡Oh, Jesusen Ama garbija! Erregutu eguijozu, bada, gu gaiti ceure seme vijotcecuari, emon daigula castidade santiaren doe zorijo-

775 (44) Isaia. c. 30. 34. et 66. Psalm. 10. et 139. Job c. 10.

748 aguin carijac *Ba* | aituta| astuta *Ba*, (301.or.: aytuta) 752 naidavela *Ba* 753 etedavee *Ba* 768-769 naidavee *Ba*

⁴³ "Pecatutu": bekatuz bete.

⁴⁴ "Escuperatu": norbaiten mende jarri.

necua. Libratu gaizala pecatu ezainaren bide guztietati. Ebagui daiguzala pecatubaren ocasinoe guztiac. Seillatu dagujala gueure ariman ta vijotzian, cerubac lotsarizco pecatubari deutsan gorrotua ta impernuban espiritu madaricatubac emoten deutsen sugarrezco paguba. Onan gordeco dogu gueure ari-[43]man ta gorputzian garbitasuna ta castidadia. Jarraituco deutseegu Espiritu Santubaren gracijagaz Virgina ederraren pausu garbijai. Izango dira gueure gorputzac ta arimac Espiritubaren beraren templu edo egonlecu vitzijac, vitzi garian artian. Ta guero ceruban beti glorijaz jantzijac ta dichosuac. Alan gura izan dagujala Trinitade guztiz altubac, Aitiac eta Semiace eta Espiritu Santubac. Amen

V. ICASIQUIZUNA,

785

ceinetan eracusten dan
pecatu loijac mundubari ce echuria emon deutsan.

Icasi ezquero cristinaubac castidadiaren contraco pecatu ezainac munduban daucan aguindutia, Jaungoicuac ceruti deutsan gorrotua, ta impernuban daucan sari suzcua ta beticua, pecatu zorigaistoco oni beguiratuteco mereci daven gorroto ta odijuagaz, biurtu daiquee cristinau piel guztiac euren gogua ta gomutia, luxurijac mundubari berari edo mun[du]ban bertan, bera maite izan daveenai emon deutseen echuria icustera. Au obeto aituteco gogoratu biar dozu lelengo, neure entzula onac, Escritura Sagradubac ta Eleisa Ama santia- ren Gurasuac, alaco jazo dirian eguitade negargarrijen erruba, batzubetan ezar- ten deutseela gorputzaren gustuai, beste batzubetan aragujari ta [44] beste ascotan emacumiai. Baina guztiac lotsaarizco peca[tu]ba gaiti, castidadiaren contraco pecatuba gaiti, luxurijazco pecatuba gaiti, orain espliqueetan dan pecatu madaricatuba gaiti. Mundubari pecatu zorigaistoco onec emon deutsan (ta emoten deutsan) echuria guztiz da galduba, ezaina ta bildurgarrija. Dotrina labur baten aitatu baino besteric ezin leguijo. Ta ez dira luxurijaren eguitade oneec guiza aldi batecuac, ez bada dempora guztietacuac. Ez erri edo erreinu batecuac, ez bada mundu guztian zabaldu dirianac. Leenagoco guiza aldijac sal- toca iraguaz gogoratuco ditut batzuc, nundi ezautuco dozun pecatu loijaren erru madaricatuba. Prestau zaitez guztioc, entzuteco gogo onagaz.

782 egon lecu *Ba* | vitzigarian *Ba* 790-791 mercedaven *Ba* 793-794 biardozu *Ba*

1. Mundubari pecatu loijac emon eutsan echura ezaina icusten da lelengo *dilubijo* edo mundu guztico usaletan⁴⁵. Ezin ucatu guinai, cristinaubac, Escritura Sagradubac ta Eleisiaren Gurasuac esan ezquero, luxurijaren castiguraco berrogeui eguneco ta gaveco eurijagaz mundu guztia urez estaldu zana; 810 ezda, zortzi persona Noeren uchaan vitziric gueratuta⁴⁶, beste munduco guizon ta emacume guztia orduban ito ziriana bere. ¡Oh, egunac! ¡Oh, gavaac! ¡Oh, lotsarizco pecatubaren eguitade gomutagarrija ta negargarrija! Berrogeui egunen barruban or duaz sustraiti echiac eta palaciuac, erriac eta ciudadiac, guizonac eta emacumiac, ganadubac eta pristijaac, guztia. ¡Ce icusgarri icaragarrija izango 815 go zan, guizonac eta emacumiac, al eguijenac, uraren iguesi ta ura euren [45] ondoric achituten⁴⁷. Batzuc igongo even teilaatubetara; an bere achitu luxurijaren zigorrac. Beste batzuc arbola altubetara; an bere achitu. Beste batzuc torren puntara; an bere achitu. Beste batzuc mendi gaineetara; an bere achitu. Batzuc igoten ta beste batzuc igon ezinda. Batzuc bidian ta beste batzuc goi- 820 jan, guztia, atsuac eta aguraac, ume chiquijac eta nausijac diadar baten, uluba baten, negarrez ta socorru esque, dirianac achitu luxurijaren zigorrac ta ito urac berrogeui egunian. ¡Oh, larriac eta penaac! ¡Oh, pecatu madaricatuba! ¡Oh, mundubaren echura ezaina! ¡Cer gueratuten da munduban Noeren uchaco zortzi lagunentzat? Guizon ituen, andra ituen, ume ituen ta zaar ituen gorputz 825 ustelac lecu guztietan urac ichita. Alemanija ta pristija ituen ta eche birrinduben zatijac alcarren artian. ¡Oh pecatu gaisquina! ¡Noc ez deutsa gorroto? ¡Ta amaitu zan luxurija, berac alan munduba amaitubagaz? Ez, cristinaubac. Noeren ondoric laster zabaldu zirian Jebuseotarrac, Amorreetarrac, Heveotarrac, Cananeotarrac, Moabitaarrac, Caldeotarrac ta Egitoarrac⁴⁸. Casta 830 oneec guztioac lecu emon eutseen pecatu loijari euren vijotcetan ta gorputcet- tan. Ta iracurten dogu eurac gaiti, ceinbat lotsarizco gauza bildurgarri eguiten citubeen. Eurac illundu even errazoia, lotsatu even naturalecia, desondrau even guizatasuna, ucatu even Jaun cerucua, ausi zitubeen gueurezco argui- jaren legue ezagunac, condenau zitubeen euren arimaac ta ez eutseen [46] ichi 835 ondorenguai, cegaz lotsatu ta cegaiti negar eguin baino beste onic munduban. ¡Cer gueijago eguin euqueen munduban zorigaistoco luxurijotsu areec, Jupiter, Marte, Apolo, Ceres, Baco, Venus⁴⁹ ta beste guizon ta emacumeric galdubeenai

806 l] I *Ba* | icustenda *Ba* 813 orduaz *Ba* 815 aleguijenac *Ba* 825-826 echebi-
rinduben *Ba* 826 ezdeutsa *Ba* 827 amaituzan *Ba* 836 zori gaistoco *Ba*

⁴⁵ Usal / uxa: uholdea, uriola.

⁴⁶ Ik. Has 7,13.

⁴⁷ "Achitu": hartu, harrapatu.

⁴⁸ Ik. Has 10,1-32.

⁴⁹ Ik. *Euscal-errijetaco*.... 59.oharra (471.or.). Frai Bartolomek, luxuria dela-eta, mitologiako jainkoetariko sei aipatzen ditu hemen: *Jupiter*, erromatarren jainko gorena, Saturno eta Zibeleren semea, Junonen neba eta senarra; *Marte*, gerraren jainko erromatarra, Jupiter eta Junonen semea;

ta nasaijenari Eleisac jasota, Jaun cerucotzat adoretia baino? ¿Zapuai, suguiari, ugaasijuai, sierpiei, oillaarrai ta beracatzai incensuba emonda, Jaungoicotzat euquitia baino? ¡Oh, luxurijaren munduco eguitade itsubac eta negargarriac! 840

2. Noeren ondoric bere semen artian laster icusten dira osteria bere luxurijaren negargarri barrijac, lengo munduban ecer eguin ez baleu leguez. Sodoma, Gomorra, Adama ta Seboin Pentapolico ciudadiac, oguetaz legua vidiac luce euquezanac⁵⁰ (45), dira testigu onac. ¿Cer jazo zan? Lot justuba ta aren pameli-ja ciudadeetati campora aterata, ainguerubac ceruco subagaz beguijaren ichi edegui baten erre citubeen lau ciudadiac gente guztiagaz. Ez zan gorputz bat erre bagaric gueratu. Ezda eche bat bere. Ezda gauza vitziren edo eguinen errasturic bere. ¿Ta cegaiti? Lotsaarizco pecatuba gaiti, esaten deuscu Espiritu Santubac. ¿Ta gueratu zan onetan Sodomaco luxurijaren errastu madaricatuba? Iracurten danez, ondatu cirian ciudade loi areec. Aguertu zan ur arria euren lecuban. Baina ain atsituba ta pestetsuba, ce eguno ez arrainic, ez gauza vitziric emon dau. Ezda bertara bota dirianac vitziric eu-[47]qui bere. Alan gueratu zirian luxurijotsuben icasgarritzat lecu impame areec ur arre ill gueldico ichasobaltz. ¡Oh, ce gomutagarrija, cristinaubac! Errazoiaren pusca bat bagueunca, berau litzaateque asco lotsarizco pectubac guztioi icara eraguiteco. 855

3. Egiton imini evan beste echura bat ondo tristia ta errucarrija luxurijac, casic dempora areetan vertan. ¿Baina celan? An icusi zirian catigu egozan andraac, illac beteta bere, seinac eguiteco traza bagaric penaz, alaz ta minez. An icusi zirian sein bagaco andraac era batera soilduta⁵¹, ama izateco ustiac galduta. ¡Ce luxurijaren eguitadia au! Ez dago seinic jaijoteri. Sortuta dagozanac sabelian egon biar davee ta sortu leguizan sabelic ez dago, Abraanen erregubac gach bildurgarri ta penagarri a erremedijau artian⁵². Echura onetan Egiton imini evan Abimelec erreguiaren lotsarisco pecatubac bere palacijoco gente 860

(45) A Lapid. in Genes., c. 19.

841 icustendira *Ba* 844 jazozan *Ba* 847 errebagaric *Ba* | Ez da *Ba* | Ez da *Ba*
849 gueratuzan *Ba* 850 Aguertuzan *Ba* 852 Ez da *Ba* 854 gomuta garrija *Ba* 857 are-
etan] aeretan *Ba* 861 biardavee *Ba*

iragarpenen, gaztetasunaren, edertasunaren, arteen... jainkoa...; *Zeres* jainkosa erromatarra, Saturno eta Zibeleren alaba; *Bako*, ardoaren jainko erromatarra, Jupiter eta Semeleren semea; *Venus*, maitasun eta edertasunaren jainkosa, Marterekin izan zituen maite-harremenetatik sortu zen Cupido (maitasunaren jainkoa)...

⁵⁰ Pentapoli edo bost hiriak: Sodoma, Gomorra, Adma, Tzeboin eta Bela (Loar)... Ik. Has 10,19; 14,2. Dt 29,22: "A zer hondamendia, Jaunak bere haserre-suminean erraustu zituen Sodoma eta Gomorra, Adma eta Tzeboin hiriena bezalako hondamendia!". Jkd 10,6: "... bost hirien gainera eroritako sutik ihesi zebilela". Ik. Os 11,8...ere.

⁵¹ "Soildu": lehortu, antzutu.

⁵² Ik. Has 18,22-33.

865 guztia. Cananeaco ciudade nausijan, erregue lecuban eguan gente guztija⁵³, chi-
qui ta andi, gueijeena ill ta bestiac preso eruan cituban ta ciudadia erreta ichi
evan Siquenen pecatu loijac (46). Setingo ciudadian ogueta lau milla isrraeltar
ill cituban beste egun baten (47). ¿Ce odol errecaac? ¿Ce lorrotz carinosuac
870 edo casta osua galdu evan gau bateco luxurijac (48). Ta ill cirian pecatu a zala
vitaarte iru edo lau egun barru eun ta [48] aimbeste milla guizon. ¡Oh, pecatu
impamiaren eguitade negargarriac! ¿Ta nun dira Can, Ruben, Juda, Aner, Onan,
Absalon, Amon, Zambri ta beste ascoc ainchinaco legueco demporeetan luxu-
rija gaiti eraguin zituben negarrac ta euren errijetara ecarri zitubeen naibagaac?
875 ¡Ah, cristinaubac! Ez dauquee conturic.

4. Jesucristo gueure Jaunac guizatasuna artuta, gueure naturalecia edo gor-
putzac santutu zituban ezquero, ezainagua ta erru gaistuagocua da luxurijaco
pecatuba leenago baino, ta endamas cristinaubetan. Baina au onan izan arren,
legue barrico demporan edo Jesus maitia, arimac ta gorputzac Espiritu
880 Santubaren egonlecutzat garbitutera ta santu eguitera etorri zan ezquero, ez
deutsa lotsarizco pecatubac mundubari asco echura obia emon. Bada, san
Geronimoren esanian (49), gentiltasuna ta eregija edo Jaungoicua ta evangeli-
jua ucatutia, luxurijac ecarri ditu mundura. Luxurijac ixiota, luxurijac itsututa,
zorautata pecatu loiz zetacatuta, ucatu davee guizonac Jaun cerucua. Batzuc
885 guztiz ta beste batzuc erdiz erdi euren ustez. Baina balijoraco dirianac guztiz.
Ezin bat eguin zituben araguijaren lotsarizco gusto eragotzijac ta Jaungoicua
legue santuba ta garbija. Itsutu zituban diabrubic, engainau citubeen ema-
cumiac, goitu citubeen araguijaren gusto loijac ta naijago izan even, luu-
rezco gusto ezainai larga baino, Jaungoico eguijazcua ta aren legue santuba
890 ucatu, cerubagaz [49] desesperau ta arimaac condenau. Ez dago contau
baino, cer zirian Simon Mago⁵⁴, Nicolas Antioquiaca⁵⁵, Marcion⁵⁶, Cerdonio⁵⁷,

(46) Gen. 34. (47) Num. 25. (48) Judic. 20. (49) Lib. Cont. Pelag.

872 Juda| Judas *Ba* 880 etorrizan *Ba* 880-881 ezdeutsa *Ba* 890 Ezdago *Ba*

⁵³ Ik. Has 20,1-5.

⁵⁴ Simon, Samariako aztiak, Felipe apostoluaren predikuek eraginda kristau-erlijiora bihurtu zenak (ik. Eg 8,9), geroago diruz erosi nahi izan zuen apostoluek eskuak gainean ezarrita Espiritu Santua emateko zuten ahalmena, eta S. Pedrok gaitzetsi egin zuen (Eg 8,18-24: hemendik dator *simonia* izena).

⁵⁵ Nicolas Antiokiarrak. San Ireneok, S.Klemente Alexandriakoak eta beste batzuek Antiokiako Nikolaos proselitoa dela uste dute (Eg 6,5), Jerusalemko kristau-elkartean behartsuen ardura zuen zazpi diakonoetarikoa. Honengandik datorrela dirudi Nikolaitak taldearen izena (Ap 2,6.15), Efeso eta Pergamo-ko kristau-komunitateetan sorturiko sekta gnostiko-anarkista baten izena. Hauetaz hitz egiten dela dirudi Eg 2,2.14.20.24 testuetan ere. Sekta honetakoei, Balaan-ek bezala, gezurrezko jainkoei sakrifizioak eskaintzea eta eragabeko jarduera sexualera eragitea egozten

Arrio⁵⁸, Eutiques⁵⁹, Nestorio⁶⁰, Phocio⁶¹... ¿Baina ceimbat? ¿Ta cer zirian eurac ta

zaie (Eg 2,4.20). Badira, Jezabel bezala, Nikolas ere izen sinbolokoa izan litekeela uste dutenak (ik. 37.oharra, 925.or.).

⁵⁶ Markion (c.85-160), II. mendeko heretikorik ospetsuena, Sinope apezpikuaren semea, diruduna eta asko ikasia. Kristau-elkartetik bota egin zuen bere aitak, doktrina faltsuak irakasten zituelako. 139. urtean Erromara joan eta bere irakatsietan aurrera egin zuen. Han ere Erromako kristau-elkartetik egotzia izan zen, eta Eliza katolikoarentzat benetako arrisku bihurtu zen egiten zuen propagandagatik. Haren doktrinaren oinarria gehiegizko paulinismoan datza (Ebanjelioa legeari kontrajarria), Itun Zaharra zeharo baztertzeko du eta Itun Berria judu-izaeratik askatzen du. Markionek (Kerdon edo Zerdonioren gnostizismoaren eraginez) bi "jainkoen" dialektikaren gainean oinarritzen du bere irakaskuntza... Itun Zaharreko Jainkoa "ezaguna" da, materiaren, espirituaren eta gaitzaren kreatora. Itun Berriko Jainkoa, ostera, "ezezaguna" da, maitasunaren Jainko onbera da bakarrik, Jesusengan agertzen dena... Jesusek itxura hutsezko gorputza zuen, jaiotzarik gabe agertu zen adin helduan... Haren doktrina jarraitu zutenen elkarteari Markoniten eliza deritzo: aszesi gogorra irakasten zuten eta barau latzak egiten zituzten, harreman sexualen aurka zeuden eta ezkongabatasunaren alde (Ik. K. RAHNER, *Markion*, LThK 7 (1986) 92-93).

⁵⁷ Zerdonio o Kerdon: Siriako gnostikoa, Simon aztiaren jarraitzailea; 139-142. urteetan gutxi gorabehera Erromara joan zen. Jainko Kreatora, legean eta profetengan agertzen dena, ezaguna eta zuzena alde batetik, eta bestetik Jesukristoren Aita zen Jainkoa, ezezaguna eta ona bereizten zituen. Elizak ezarrirako penitetzia egitera makurtu zen, baina isilean bere doktrina faltsuak irakasteari ekin zion, Markionek jarraitu ziolarik (ik. P.-Th. CAMELOT, *Kerdon* LThK 6 (1986) 119).

⁵⁸ Arrio, Alexandriako apaiza, 315-317. urteetan hasi zen gutxi gorabehera bere doktrina faltsua irakasten, IV. mendean agertu zen indarrean arrianismoa zeritzon mugimendu heretikoa. Alexandriako apezpikuak sinodora deitu zuen (318-319. urteetan gutxi gorabehera), 100 apezpiku bildurik eta Arrioren doktrina gaitzetsirik. Honek apezpiku batzuk bere alde jartzea lortu zuen, esaterako, Nikomediako Eusebio apezpikua eta baita enperadore Konstantino Handia ere. Baina gero honek, erreinuaren batasunari begiraturik, sinodora deitu zuen Nizean (325): Arrioren doktrina gaitzetsia izan zen; hau eta Theonas eta Sekundos apezpikuak eskumikatuak izan ziren eta enperadorearen aginduz erbesterratuak. Gaitzetsitako doktrinak Jesuskristo ez zela Aitaren izate berekoa irakasten zuen; sinodoak, ostera, Jesukristo Aitaren izate berekoa, izaeraz Aitaren berdinduberdina zela berresten zuen. Arrioren mugimenduak oihartzun handia izan zuen, apezpiku batzuk, enperadorea etab. alde izanik, erlijio katolikoa arrisku larrian jarri zuen... (Ik. L. UEDING - J. LIÉBAERT, *Arianismus*, LThK 1 (1986) 842-847).

⁵⁹ Eutikes, Konstantinoplan 378. urte inguruan jaioa, hiritik hurbileko monasterio bateko burua zen, enperadorearen gortean eragin handia zuena. Kristok izaera bakarra zuela aldarrikatzen zuen, jainko-izaera soilik (haren gorputza itxura hutsezkoa zen). Konstantinoplako sinodona gaitzetsia izan zen (448ko azaroan) (Ik. P.Th. CAMELOT, *Eutyches* LThK 3 (1986) 1213-1214).

⁶⁰ Nestorio (c.381-451), Konstantinoplako patriarka (428-431). θεοτόκος izena dela eta sortutako eztabaidan izen hori biguntzea nahi zuen eta horretarako beste izen bat proposatu zuen: χριστοτόκος. Haren predikua ez zen onartua izan, formulatzeko eragatik. (Jesukristorengan bi pertsona zeuden haren arabera, jainkozkoa eta gizonezkoa: Ama Birjinagandik jaio, nekaldia jasan eta piztu zena gizonezkoa zen; beraz, Maria Kristo gizonaren ama zen soilik (χριστοτόκος), eta ez Jainkoaren ama (θεοτόκος)). S.Zirilo Alexandriakoa jaiki zitzaion aurrez aurre. Efesoko sinodora dei egin zen (431). (Ik. H. DENZINGER - A. SCHÖNMEYER, *Enchiridion Symbolorum*, Barcelona-Friburgo-Roma, 1963, 250-264.zk.). Nestorio bere kargutik kendua izan zen; Antiokiako monasteriora itzultzen utzi zitzaion; 436an erbesteratu egin zuten. Bere buruaren alde egiteko, *Tragoedia* eta *Liber Heraclidis* liburuak idatzi zituen. Haren jarraitzailean artean beraren izena duen mugimendua sortu zen: Nestorianismoa (Ik. L. ABRAMOWSKI, *Nestorios* LThK 7 (1986) 888-889).

895 eurac engainau zitubeen guizon ta emacume desdichaubac? Eregeen burubac, nasaitasunaren eracuslaac, castidadiaren arerijuac, emacume deunguen adisquidiac, araguijaren otseguinac, gorputceco gustuen crijladubac... Enpin luxurijac galdubac. Origenes⁶² ta Tertuliano⁶³ topeetan dira, pedian uts eguin eveenac, onaco tacha aguiiri bagacuac. Ta euren salvacinoia dago dudaan jaquitunen artian⁶⁴. Beste erege buru ta Jaungoico-ucazaleen asieria da lotsarizco

⁶¹ Phozio (c.820-891). Konstantinoplan jaio zen, etxe oneko semea, Tarasios patriarkaren iloba. Bere anaia Sergios Eirenerekin, enperatrizaren ahizpa gaztearekin, ezkontzean ireki zitzaion Phoziori Gortean zerbitzari sartzeko bidea. Ignatios Konstantinoplako patriarka-kargutik kendu zutenean (858), haren lekuan jarri zuten Phozio. Ignatiosen aldekoak gogor jarki zitzaizkion aurrean... 863. urtean Aita Santuak eskumikatu egin zuen Phozio, eta berriro lehengo patriarkakarguan jarri Ignatios, legez zegokionez. Enperadoreak ez zuen onartu Aita Santuaren erabaki hau, Erromarekin gataska oso larrian sartuz. Politikak eragin handia izan zuen. Phozioak eta enperadoreak elkar harturik, Konstantinoplako sinodora dei egin zuten (867), eta han Aita Santuarekin hautsi egin zuten... Phozio kultura handikotzat zeukaten; bere liburuan, Μυριόβιβλον (Bibliotheca) izenekoan, idazle klasiko grekoen, teologoien eta abarren atalak bildu zituen. Haren hitzaldi batzuk eta 280 gutun inguru gordetzen dira... Ik. F. DVORNIK, *Photios* LThK 8 (1986) 484-488).

⁶² Origenes (c.185-254); kristau-familia bateko semea, heziera biblikoa eta grekoa hartu zuen. Bere aita martiri hil ondoren (c.202), Origenesek gramatika irakasten zuen. Gehiegizko garrak eraginda eta Mat 19,12ko testua hitzez hitz harturik, irendu egin zuen bere burua. Apezpiku Theoktistos Kaisareiaiko eta Alexandros Jerusalemgoak, 280. urte inguruan, Origenes apaiz egin zutenean Demetrios jakin gabe, honek Alexandriako elizatik bota egin zuen. Origenesek eskola bat sortu zuen Kaisareian, entzute handiko ikasleak izanik, esaterako, Gregorio Mirarigilea. Dezioren jazarpen aldiak kartzelan sartua eta oinazetua izan zen, bere fedea adoretu aitortuz; askatua izanik, handik laster hil zen. Asko eta asko idatzi zuen, baina lan ugari haizetatik parte txiki bat baino ez da gordetzen: Bibliako liburuen iruzkin garrantzitsuak (Τόμοι); era askotako lanak (Contra Celsum - Κατὰ Κέλσου), de Principiis (Ἀληθῆς λόγος) De Oraciones (Περὶ ὀρχῶν), Exhortatio ad martyrium (Ἐπιτροπικὸς), etab. Exegesi eta teologiako eztabaida askotan esku hartu zuen... Haren doktrinaren zenbait aldetan errakuntzak aurkitu izan ziren, baina eztabaida giroan, haren esaera batzuk ez ziren ongi interpretatu... Zenbait Eliz Gurasok benetan miresten zuten Origenes eta haren doktrinatik asko hartu zuten. (Ik. H. CROUZEL, *Origenes* LThK 7 (1986) 1230-1235).

⁶³ Tertuliano (c.160-220...). Latinezko lehenengo idazle kristaua, oso garrantzitsua. Kartagon jaio zen; heziera ona hartu zuen erretorikan eta kultura grekoan batez ere, zuzenbidean ere ongi jantzia, lege aldetik Estatutik zetozen erasoan aurka kristau-erlijioa zaintzeko moduan zen. Luzaro bizi izan zen Erroman; berberak dio gutun batean, lizunkerian nahasita bizi zela azkenera arte. 193. urte inguruan kristau egin zen. Maisu eta idazle zen aldetik, Elizaren zerbitzuan jarri zen. Ez zen apaiz izan, S. Jeronimok hori badio ere. Bere izaeraz bizimodu latz eta aszetismorako joera zuen...205. urtean gutxi gorabehera, alde egin zuen Eliza katolikotik; montanismoaren jarraitzaile sutsuenetarikoa egin zen.... Haren 31 idazki gordetzen dira. Lan apologetikoak, dogmatikoak, aszetikoak... idatzi zituen... (Ik. B. KÖTTING, *Tertulianus* LThK 9 (1986) 1370-1374).

⁶⁴ Frai Bartolomek, beste batzuen iritzia jasoz, Origenes eta Tertulianoaren salbamenaz dioena (ik. aurreko oharra), harritzekoa gertatzen zaigu, batez ere Origenesi dagokionez. Ikus 62. oharra.

pecatuba ta amaija impernuba. ¿Ta ceimbat onaco itsu, errucarri, zoro, zori- 900
gaistoco mundu zabalían?

5. Apricaco erreinu zabaletan casic alcoran loijaren sinistutia baino ez
dago. Asiaco ta Europaco erreinu ascotan bere ez. ¿Cegaiti aimbeste gente alan
itsututa? Maoma madaricatubac ta desonestubac onestidadia, modestija ta cas- 905
tidadia gordetati librau zitubalaco bere escolaubac. Maomaren legue impamian
ez dauca inoc cer cansau luxuriya goituten, gorputza dometan, araguijari gura-
ri gaistuac ucatuten, penitencia eguiten ta castidadia gordetan⁶⁵. ¡Oh, naastau
desventuraubac! ¡Oh, errucarri tristici! ¡Oh, impernuti urtendaco luxurijaren su
madaricatuba! ¡Aimbeste arima, Jesucristoren erijotziagaz ta odol santubagaz
irabatzitaco⁶⁶, daucaz vendetuta, luurtuta, loituta, impernuraco [50] pretauta, 910
irago dirian amabi guiza alditan! Eurac edo euretati ascoc esaten ei davee, *cas-
tidadia gordetaco aguinduco ez baleu evangelijo santubac, viurtuco litzaate -
quezela Jesucristo gueure Jaunaren Eleisara ta sinistute eguijazcora*. ¡Ah, lasti-
ma gorrija! Erregutu, cristinaubac, Jaungoicuari, gueure lagun edo proximo tris-
te areec arimaco veguijac edegui daguijezan ta pede santura viurtu ditezan. 915

¿Ta cer jazo zan gueure España dichosuan ta ceruco ortuban? ¡Oh, cristi-
naubac! Vijotza tristetu bagaric ta negarragaz veguijac busti bagaric, ezin gogo-
ratu guinaiz bosteun, edo seideun urteco gueure erreinuco jazo tristici. Adios
pedia, adios eleisac, adios sacramentubac, adios sacerdotiac, adios cristinau-
tzia, adios virginac, adios castidadia Españan. Vizcaico, Guipuzcuaco ta 920
Montaineetaco baso artetan sartuta ezcutau ez zirianac, galdu zirian. Moro loi
ta odoltsuz estaldu zan gueure erreinu guztia bertatico baten⁶⁷. ¿Ceimbat gue-
rra? ¿Ceimbat guizon illte?⁶⁸ ¿Ceimbat odol erreca? ¿Ceimbat errija su emote?
¿Ceimbat matrimonio galdute? ¿Ceimbat Virginen negar triste? ¡Oh, ezin pensau
legui! ¿Ta cegaiti aimbeste urtetaco negargarri oneec guztioe Espainan? Luxuriya 925
gaiti. Lotsarizco pecatubaren eguitadiac dira, cristinaubac, oneec guztioe
Espainan. ¡Oh, ceimbat gauza icaragarri, lotsagarri, ta arrigarri eguin dirian
munduban vicijo edo oquerreriya impame au gaiti!

900-901 zori gaistoco *Ba* 902-903 ezdago *Ba* 906 ezdaucan *Ba* 911 eidavee *Ba* 922
estalduzan *Ba*

⁶⁵ Frai Bartolomek, emazte bat baino gehiago izan ahal izateaz dihardu hemen; hala ere *Coranak*, sexualitate arloan, modu onez eta neurritz ibiltzeko arauak ere ematen ditu (ik. 4,19; 4,23-30; 24,30, etab. : *El Coran. Introducción, traducción y notas de Juan Vernet*. Madrid, 1998, Clásicos Universales Planeta, 13).

⁶⁶ Sintagma mugagabeko honen izenlaguna, idazle zaharrengan ohikoa denez, izenaren eskuinaldean, sintagmaren amaieran jartzen du. Oraingo joera bestera da, hau da, izenaren ezkerrean jartzekoa.

⁶⁷ "Bertatiko baten": bat-batean, une batean.

⁶⁸ Bizi-bizi adierazten du egoera lazarri hori, aditz-izenak erabiliz: *guizon illte / errija su emote / matrimonio galdute...*

6. Beguiratu daijogun Lutero bati. Ezin esan [51] guinai garbija zala. Ez bera
 930 ta ezda bere lagunac bere. Bada, euren castidadiaren contraco pecatubac escan-
 dalizau even Eleisa guztia. Luteroc urratu zituban lotsa onaren leguiac, eten
 cituban onestidadiaren catiac, ucatu cituban castidadeco voto santubac, idegui
 eutsazan luxurijari atiac, atera cituban prailiac ta monjaac euren echeetati,
 935 birrindu edo erre cituban eleisac eta conventubac, eragotzi zituban mecia ta
 sacramentu santubac, artu evan demoninua bere maisu edo eracuslatzat, eza-
 rri eutsazan Jaungoico santubari pecatubac ta iracoi evan Europaric gueijenian
 oraindino amatau ez dan guerria. Ta bera condenauta, ichi zituban bere esco-
 laubac edo ondorenguc aimbeste erreinutan araguijaren gustuetan, guerra
 odoltsubetan ta impernuco ateetan⁶⁹.

⁶⁹ Hemen ere, Frai Bartolomek, Luterori buruz zabal zebilen iritzia eta XV. mendeko Europa erdialdeko gertaera historikoen oihartzuna jasotzen ditu; gertaera historiko guztiz larriengatik, Eliza katolikoaren historialariek iritzi gogorra agertzen dute Luterori buruz eta garai hartako gehiegikeriei buruz; ezkongabetasunari dagokionez ere bai, nahaste-borraste handi hartan, erlijioso askok, euren botoak hautsita, lurralde germaniarretan batez ere, komentuetatik irten eta mugimendu berriari jarraitu baitzioten... (honela, Lutero bera ere zistertar lekaiame Katalina de Bora-rekin ezkondu zen 1525ean). Honetaz guztiaz baliatu egin ziren, gehienbat, mugimendu sozio-politikoak... era bateko eta besteko nazionalismoek ere horretan parte-hartze garrantzitsua izanez... Frai Bartolomek, gatazka sozial, nazional eta erlijiosoetatik sortu ziren hainbeste gerra gogorarazten dizkigu...

Martin Lutero (1483-1546). Erfurcht-eko unibertsitatean, nominalismoa nagusi zen horretan, ikasi zuen filosofia (1501). 1505ean Magister titulua lortu zuen. Bere aitaren gogoari men eginez, zuzenbidea ikasteari ekin zion. 1505. urtean, arrisku larrian zela, botoak egin zituen; Agustindarren Ordenan sartu zen fraide. 1507an apaiz egin ondoren, irakasle izan zen bere Ordena barruan. 1512an doktoradutza lortzen du Wittenberg-en. Harrezkero Eskritura Santua ikasteari eta irakasteari eman zion. Ez da ahaztu behar, Luterorengan bere arazo pertsonalak eta teologiak duten lotura estua... Elizaren doktrina barkamenei buruz ez zuen onartzen eta horren aurka bere 95 tesiak aldarrikatu zituen (1517). 1520an hautsi zuen Eliza Katolikoarekin. Doktrina aldetik zituen iritzi desberdinez gain, oso oldarkorra agertzen zen Aita Santuaren aurka, bai eduki aldetik eta bai modu aldetik... Aspalditik litiasiak eta gogoaren beheraldi latzek asko sufriarazten zioten... baina, azkenez, bihotzekoaz hil zen Eisleben-en... Historiako pertsona handietarikoa dugu: Erlijiorako berezko joerak, hizkuntza aldetik zituen dohain handiak (idazle bikaina izan zen), langile aspergaitza izanak...eta batez ere Eliza katolikoarekin hautsi izanak azken 5 mendeotako eragin handienetarikoa izan duen gizon bihurtu dute... Haren ilununeen artean, hauek aipatu behar ditugu: oso suminkorra eta eztabaidazale izatea, batez ere Aita Santuaren aurka, apaltasunik eta maitasunik eza, bere egitekoaren kontzientzia argiak, neurri batean, ilunune horiek ulergarri egiten baditu ere... Bere lan nagusiaz gainera, hau da, Biblia alemanera itzultzeaz gainera, beste lan asko ere idatzi zituen: *Operationes in Psalmos* (1518...), *An den christlichen Adel deutscher Nation* (1520), *De captivitate Babylonica ecclesiae* (1520), *Von der Freiheit eines Christenmenschen* (1520), *Assertio omnium articulorum... damnatorum* (1521), *De abroganda missa privata* (1521), *De servo arbitrio* (1525), *Vom Abendmahl Christi, Bekenntnis* (1528), *Der kleine Katechismus* eta *Der grosse Katechismus* (1529), *Von den Conciliis (?) und Kirchen* (1539), *Wider das Papstum zu Rom, vom Teuffel gestiftet* (1544), *Grossen Selbstzeugnis* (1545)... (Ik. H. JEDIN, *Luther*, LThK 6 (1986) 1223-1230).

¿Nun da Ingalaterraco Jaungoicozco sinistute eguijazcua? ¿Nun dira santu 940
 erreinu ataco eleisac, altaraac, mezia, sacramentubac, coruco Jaungoico alave-
 tia, castidadiaren ta cristinautza eguijazcuaren esquinu santubac Jaun cerucuari
 eguitia? ¡Ah, cristinaubac! Guizon baten⁷⁰ ta emacume baten luxurijac ondatu
 zituban dirianac. Ta vitzi dira Inglesac, ya irago dirian iru guiza aldijetan Eleisa
 bagaric, pede bagaric, sacramentu bagaric ta Jaungoico bagaric, impernuraco 945
 vide jaquinian luxurija gaiti. Onezaz gainera Espainian bertan, erreinu oneetan,
 iracoi dituban naibagaac ez dauquee neurriric. Contetan dira peliadaac
 Espainian bertan, eun milla moro guerraan era batera ill dirianac⁷¹. Bai-[52]ta
 Espainaren urrian irudeun ta irudogueta amabost milla egun baten ill zitube-
 nac bere⁷². Bada, luxurijaren asieria izan arren amodijo loija, amaija ta azque- 950
 na gueijenian oi da gorrotua, suba, guizon illtia ta odol boteetia. ¡Oh, ce illu-
 na, naastauba, larrija ta bildurgarrija imini daven lotsarizco onec Europaric
 gueijena bera!

7. ¿Cer eguin ez dau Prancijan? ¿Ceimbat zoraquerija negargarri icusi ez 955
 ditugu gueuc egun oneetan Prancija tristian ta alvo erreinubetan? Oraindino
 Pranzas odolezco errecac ta pozubac casic lurruna darijuela dagoz orreetan⁷³.

940 Nunda *Ba* 944 ya| ija *Ba* 948 erabatera *Ba* 950 asi eria *Ba* 951 oida *Ba* |
 odolboteetia *Ba*

⁷⁰ Ingalaterrako Enrike VIII.az ari da (1509-1547); fededun ona eta Eliza katolikoaren barruan zintzoa zen garaian, Aragoako Katalinarekiko ezkon-lotura hautsi nahi zuen, baina Elizak ez zion horretarako baimenik eman; hala ere, berriro ezkondu zen Anne Boleyn-ekin, eta geroago beste batzuekin ere bai... Eliza katolikoarekin hautsiz. 1536an Thomas More eta J. Fisher santuak hiltzeko agindu zuen... (Ik. H. O. EVENNETT, *Heinrich VIII*, LThK 5 (1986) 185-186).

⁷¹ Errekonkistako gerra latzak dituela gogoan, dirudi, eta batez ere Navas de Tolosako gudua, 1212ko uztailaren 16an izan zena. Gudu horretan kristauen armadak aurre egin zien 600.000 musulmani, kroniketan datorrenez, eta batzuek diotenez, musulmanek 200.000 gizon galdu zituzten (?). Frai Bartolomek historiako hainbat liburutan datozen datu hauek jasotzen ditu. Hala ere, oraingo historialariek ez datoz bat zenbaki horiekin, gehigizkotzat jorik bai guduan esku hartu zutenen kopurua, eta bai hil zireneka (ik. Miguel Angel LADERO QUESADA, *I. Castilla y León*, in: *La reconquista y el proceso de diferenciación política (1035-1217)*, Madrid, 1998, 540-554 (Historia de España. Menéndez Pidal), IX).

⁷² Ez dago argi zertaz ari den, Frantziako iraultzako garaiaz (Frantziako hainbat probintzian biztanleak gutxitu zirenean; ik. 73.oharra) eta geroko Napoleonen gerrateaz, ala XVI. mendeaz. Frai Bartolomek hilketa hauek ondorengotza eta ezkontza kontuekin nahasten dituen gero, eta gainera, egun batean egindako hilketak aipatzen dituen gero, "San Bartolome" gauekoaz ari dela dirudi, 1572ko abuztuaren 23-24koaz. Parisen kalbindar buruetariko asko hil zituzten gau horretan. Sarraski odoltsu hau beste herrialde batzuetara ere zabaldu zen: abuztuaren 26an Orléans-era, 27an Troyes-era, 29an Lyon-era..., eta horren guztiorren ondorioz, laugarren erlijio-gerra sortu zen (1572-1573); dirudienaz, Frai Bartolomek, bere erretorikaren beroan, egun berean jartzen ditu gertakari guztiok eta baita hauen aurrekoak ere.

⁷³ Hemen, Frai Bartolomek, bere garaian izan ziren Frantziako Iraultza eta gerrak ditu gogoan: Frantziako Iraultza, nazio barruan eta nazioartean izan zituen ondorioekin, eta Napoleonen gerra handiak, gure idazleak hur-hurretik ikusi eta jasan zituenak. Frai Bartolomek aipatzen duen

¿Ce gaiti negargarri oneec? ¡Ah! Gauza jaquina da. ¡Ta ujala jaquin ez baguendu! Orraco Voltaire⁷⁴, Espinosa⁷⁵... ta beste Prancijaco jaquitun cantauboc barristau ditubee ainchinaco Epicuro⁷⁶, Zenon⁷⁷, Pirro⁷⁸... ta beste guizon loi, desonestu guztien arima bagaco ta espiritu bagaco aragui utsezco legue madarica-

Iraultzaren ondorioz hil zirenekin bakarrik Frantziako biztanleak asko gutxitzen dira. Datu demografikoek argi erakusten digute zein egoera larria zen. 1792 eta 1815. urteen arteko gudetan izandako galerak, nahiko zehazki, gutxienez 1.300.000ren bat pertsonatan kalkula daitezke. Parisek, Iraultzaren hasieran, 1789. urtean 650.000 biztanle inguru zituen, 1806. urtean, 580.000. Benetan larriena mendebaldean izan zen, Normandiatik Poitouaraino, batez ere Vendée-n egin zen genozidioa; anaien arteko errukirik gabeko gerrak, "odol-husketa demokratikoa" deitu izan zena bulztatu zuen. Bolada iraultzaileak 25 urtean, Aintzinako Erregimenak hiru mendetan baino pertsona gehiago hil zituen (J. TULARD - J.-E.FAYARD - A. FIERRO, *Histoire et dictionnaire de la Révolution française, 1789-1799* . Paris, 1987, 1213 or.).

⁷⁴ Voltaire (François Marie Arouet, 1694-1778), idazle eta filosofoa. Jesulagunen ikastetxean hartu zuen giza heziera; zuzenbidea ikasi zuen... Ingalaterrara ihes egin behar izan zuen (1726-1729). Frantziara berriro itzulirik, *Lettres Philosophiques* argitaratu zuen, Ingalaterrako joera liberala aldarrikatuz. 1746an *Académie française*-n sartzen da. Ilustrazioko idazlerik garrantzitsuenetarikoa izan zen... , bere pentsamenduaren originaltasunagatik baino gehiago, ideiak argi eta ulean uneko egokitasunez aurkezten zekiela. Metafisikaren etsaia zen eta erlijioaren aurka ere gogor egin zuen. Haren pentsaera *Dictionnaire Philosophique* liburuan dator. Frantziako Iraultzan erangin handia izan zuen (Ik. H. BECKER, *Voltaire*, LThK 10 (1986) 869).

⁷⁵ Benedictus (Baruch) Spinoza (1632-1677). Filosofo razionalista zen, Amsterdam-en jaioa. Jatorriz familia judu-portugaldarrekoa, Biblia eta Talmud ongi ezagutzen zituen, baita Erdi Aroko filosofia judua ere. Bere garaiko filosofian aurkitu zuen bere aberri espirituala (beranduko escolastikan, pizkundeko Platonismoan, Kartesianismoan, Th. Hobbes-en Naturalismoan) eta kalbindar sekten ingurumarian. Nahiko bazterturik eta pobre bizi izan zen, bere filosofiako lanetara emana. Haren filosofiak salbamenaren doktrina razionalista du oinarrian, ideia judu-mistikoak eta neoplatonikoak metodo kartesiarrarekin bat eginda, sistema monistiko itxia eraikiz (Ik. P. HEINRICH, *Spinoza*, LThK 9 (1986) 970-971). Haren obrarik garrantzitsuenak hauek dira: *Renati Descartes principia philosophica* (1663), *Tractatus theologico-politicus* (1670), *Ethica*... (1677), etab.

⁷⁶ Epikuro (filosofo grekoa, 341-271/270 a.C.) 307-306. urteetan gutxi gorabehera, eskola bat sortu zuen Atenasen. Logica, Fisica eta Etika irakasten zituen. Harentzat, Logika eta Fisika, gizakia jainkoen eta haien zigorren sineskeriazko beldurretik askatzeko dira, eta honela hedonismoarekin bat egiten duen etikarako bidea prestatzeko. Harentzat berezpenaren bidez bertuteak lortzea zen garrantzia zuena, horrela gorengo mailako atsegina erdiesteko, gorengo helburua sufrimendurik eza izanik. (Ik. H. KUHN, *Epikuro*, LThK 3 (1986) 937-938). Frai Bartolomek nolabaiteko lotura ikusten du Voltaire eta Epikuroren artean; izan ere, garai batean Voltaire Epikurozale agertu zen (ik. *Le Mondain*).

⁷⁷ Zenon izeneko filosofo bat baino gehiago dira: 1. Zenon Kitio-koa (c.336-264 K.a.), estoi-zismoaren sortzailea. 2. Zenon Elea-koa (c.490-430 K.a.), filosofo grekoa, Italiako hegoaldean jaioa, Parmenidesen ikaslea, Eleatikoen eskola sortu zuena. 3. Zenon Sidon-goa (c.150-78 K.a.). Frai Bartolomek, lehenengoa du, ziur asko, gogoan: Zenon Kitio-koa.

⁷⁸ Diruenez, Pyrrhon-i buruz ari da (360-270 K.a.). Filosofo grekoa zen, Aristoteleren ondorengo hirugarren eskolaren, antzinako eskola eszeptikoaren sortzailea. Haren ustez, ezer ez zen berez ederra edo itsusia, zuzena edo zuzengabe, berez guztia baitzen berdina. Praktikan etika erlatiboa agertzen duen Pyrrhon-en doktrinari Pyrrhonismoa deritzo, eszeptizismoarekin bat datoarena (Ik. H. SCHMIDT - G. SCHISCHKOFF, *Philosophisches Wörterbuch* Stuttgart, ²²1991, 593. or.).

tubac ta escola atsituba Prancijaren erdijan lotsa bagaric. Ta atzo cristinau zan erreinuba, imini dau gaurco, esateco moduban, luxurijac ta libertadiaren amodijuac eleisa bagaric, altara bagaric, sacerdote bagaric, Jaungoico bagaric, luurtuta, araguituta, odoltuta, icusi leguijanic tristeena, errucarriena, lotsarizcuena ta negargarriena.

965

¿Ez dituzu icusi prancesac pede bagaric, Jaungoico bagaric, erregue bagaric, legue bagaric, alemanijen guisaan alcarregaz naastuta? ¿Ez dituzu icusi, ardi artian sartutaco otso go-[53]siac leguez, alcar zatituten, illten ta amaituten? ¿Ez ditugu icusi, abadiac, prailiac eta monjaac Prancijaco libertadiaren iguesi erreinuti campora esquian, euren burubac librau ezinda edo ezcutau ezinda? ¿Ez dozu icusi, albo erreinubetan cer eguin daveen?⁷⁹ ¿Izan da arri gaistoric edo elementuric prancesac edu negar errijetan eraguin davenic? ¿Ceimbat guraso ume bagaric? ¿Ceimbat ume guraso bagaric? ¿Ceimbat emazte senar bagaric? ¿Ceimbat matrimonio loituta? ¿Ceimbat virgina galduta? ¿Ceimbat palacijo ta eche inor bagaric? ¿Ceimbat pamelija eche bagaric? ¿Ceimbat eche, erri, eleisa oostuta, saqueatuta, erreta, birrinduta? ¿Ceimbat porma consagrau (joh, Jesus!) osticopetuta, zapalduta, eleisetan ta caletan zabaliduta? ¿Ceimbat urte bi edo iruco girabiraco ezcontza loi uts? ¿Ceimbat erru bagaco guizon illte? ¿Noc eucan seguru prancesetati ez aita ta ez ama, ez senarra ta ez emaztia, ez semia ta ez alavia, ez echia ta ez vitzitzia? ¿Nor oian sartu da, irago dirian urtetan, prancesen bildurrac icara eraguin bagaric? ¿Noc ames eguin dau beste gauzaric? ¿Nor gueratu da negargarri bagaric? ¿Cer eguingo even prances orreec eguin daven baino oquer ezain gueijago, impenuco purija utsac izan balira bere?

970

975

980

Ta guztia lotsarizco gusto eragotzijac gaiti, araguija nai erara servidutia gaiti, concienziac libertadia gaiti, luxurija gaiti. Oneec dira, neure entzula onac, luxurijaren eguitadiac guiza aldi guztietan ta mundubaren baztar guz-[54]tietan. Au da pecatu ezainac mundubari emon deutsan echuria. Egunero

985

968 alcar] alcan Ba 971 Izanda Ba 977 ostico petuta Ba 980 sartuda Ba 982-983 eguindaven Ba 987 Auda Ba | egun ero Ba

⁷⁹ Ik. 70.72.73. oharrak, 943-944.or. Baina hemen Frai Bartolomek, iraultza ostean, Frantziatik ihes egin behar izan zuten hainbeste apaiz eta erlijiosoren egoeraz aipamen zehatza egiten digu; gai honetaz bibliografia ugaria dago Euskal Herria soilik kontuan hartzen dela ere: V. PIERRE, *Le clergé français en Espagne, 1791-1802*; RQH 31 (1904) 473-538; J. CONTRASTY, *La déportation révolutionnaire du clergé français en Espagne*, Toulouse, 1910; V. DUBARAT, *Les Prêtres déportés di Diocèse de Bayonne sous la terreur* RHAB 2 (1911) 433-434; J. ANNAT, *Le Clergé Basque e Bearnais émigré en Espagne, 1792-1802*, BHAB 2 (1911) 280-284; L. SIERRA, *La emigración del clero francés en España (1791-1800)...*, Hispania 28 (1968) 393-421; Idem, *Mil abates franceses fugitivos de la Revolución, huéspedes del Señorío (1792-1798)*, EV 1 (1970) 79-133; L. M^a ARETA, *Los eclesiásticos franceses emigrados en la Diócesis de Calahorra...*, BISS 17 (1973) 155-206; L.A. GETINO, *Eso hicimos nosotros y eso somos: la emigración de los eclesiásticos franceses en España durante la gran Revolución*, LCT 57 (1938) 253-280; J. GOÑI GAZTAMBIDE, *La inmigración del clero francés en la diócesis de Pamplona (1790-1801)*, PV 49 (1988,9.ghegig.) 335-348.

erri bacochian ta lecuban lecuban casic iminten ditu pecatu loijac, auzijac, escandalubac, celuac, matrimonio galtceiac, derrigorreco ta pecatuzco ezcon-
 990 tzac, gorrotuac, vengantzaac, erijotzaac, gaisuac, cer esanac, baque chaarrac ta
 condenaubac. ¡Oh, pecatu madaricatuba! ¡Oh, desondrauba! ¡Oh, atsituba! ¡Oh,
 mundu-galtzailia, guizon-illzaila, arima-galtzailia, ceru ustuzailia, impenu
 betezailia! ¡Noc ez deutsa gorroto!

¡Oh, Jesusen Ama garbija! ¡Oh, cerubetaco Erreguina! Jadiichi eguiguzu
 995 ceure Seme maitia ganic onestidadiaren ta castidadiaren amodijo santuba.
 Gorputceco ta arimaco garbitasuna escatuten deutsugu ceure erraija bigunac ta
 erruquizcuac gaiti, Ama cerucua. Arguitu eguizu gueure itsutasuna, viztu egui-
 zu gueure sinistute otza, jaso eguizuz gueure vijotzac luurreco gurarijetati ceru-
 cuetara, urrin igues eguin daigun castidadia galduteco peligrú guztietati.
 1000 Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

VI. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Lotsarizco pecatubac goitu ditubeneen exemplubac.*
2. *Pecatuba bera goitu daveneneen exemplubac.*

1005 Inoren jazuac, bai onac ta bai chaarac dira, neure entzula onac, icasi gura
 davenaren eracuslaric oneenac. Ta esan oi dan leguez, galdu gura ez davena-
 ren *escarmentubac*. Leenagocuen jazuac eracusten deustcube cer eguin biar
 dogun peligruzco lecubetan. Bata celan galdu zan; bestia celan escapau zan;
 ta, bestiari cer jaso jacon entzunda, contubac ateraten ditugu peligrubac irago-
 1010 teco. Neure contura, mendi luce, astun, lapur lecu bat diru ascogaz irago biar
 davenac, zur entzuten dau mendi atan lapurrac nor galdu daveen ta celan
 galdu daveen; nor lapurreetati librau dan. Guztioac galdu gura gaituban, balijo-
 co ondasunac oostu gura deuscuzan ta popuertza irago biar dogun portuba
 edo peligruba da araguija ta aren eraco luxuriya. Ez da bada, cristinaubac, erra-
 1015 zoeti campora izango eracutsi onetan zubei aituten emotia: 1. *Ce senduac ta
 indartsubac goitu ditubeen emacumiac edo luxurijac* 2. *Cer eguin daveen,
 aragujaren galdu bideti jausi bagaric irago dirianac.* Banaca bazuc ecarrico
 deustsudaz gogora, areetati beste asco aitu daizuzan. Prestau [56] eguizu gogua,
 aimbat onduen entzuteco.

992-993 impernubetezailia *Ba* | 993 ezdeutsa *Ba* | 1006 oidan *Ba* | 1007-1008 biar-
 dogun *Ba* | 1008 galduzan *Ba* | escapauzan *Ba* | 1012 librauzan *Ba* | 1014 Ezda *Ba*

I.

1020

Emacumiac engainautaco guizon senduen artian, Adan leleengua, neure cristinaubac. Ta ez colperic chicarrena artu evana ta bere ondorenguai emon eutsena. Pecatu eguitia escatuten eutsan Eva ez tristetutia gaiti ta emacumiari penia ez emotia gaiti eguin evan Adanec emacumiaren naija ta pecatuba paradisuban⁸⁰. Naijago izan evan Adanec Espiritu Santuba tristetu, Jaungoicuari 1025 obeidutia ucatu, pruta eragotzija jan, bere arimia galdu ta ari darraicon guztia, pecatu eguitia escatuten eutsan emacumiari ezetz esan ta lotsia emon baino. ¡Oh, emacumiaren arte artetsuba, guizonaren vijotza ta naija beretuteco! Adan justuba, Adan jaquituna, Adan oquer bagacua, Adan lelengo paradisutarra 1030 ervestetuten dau emacumiac, dino san Geronimoc, paradisu dichosoti negarrezco errijeetara⁸¹. ¡Nor bildur izango ez da emacumiaren lavanquerijen ta carinuen!⁸²

Sanson, santu andija, espiritu andicua, indar andicua, philisteo, Jaungoicuaren arerijo guztiac goituta, burlagarritzat eucazana. Leoiac goituten citubana⁸³. Catiac eta carcelaac, atiac eta pillarrac escubaquin birrinduten cituban santuba⁸⁴. Sanson goitu evan emacumiac. Maitetu evan Sansonec Dalida, 1035 biar dan baino gueijago. Engainu evan Dalidac Sanson. Irabatzi eutsan Dalidac vijotzeco carino ez garbija Sansoni. Coitautu⁸⁵ evan ta macaldu evan carino charragaz Dalidac Sanson. Entregau eutseen bere arerijuari. Atera eutseezan oneec begui bijac Sansoni. Ta [57] gueratu zan Sanson itsututa, macalduta, 1040 emacumen ta philisteo bere arerijuen burlagarritzat⁸⁶.

Lot justubac ta juicijo andicuaac ondo ezautu evan ardauc eta emacumiac guizona cetara ecarri leguijen, aita izan arren. Arrigarritzua ta bildurgarrija da bere jazua⁸⁷.

David erreguia, santuba ta santuben ispiluba. Emacume bati cuidadoz ta 1045 carino charrez beguiratu eutsalaco itzuli zan David santuba ta Jaungoicuaren vijotzaren neurrira eguina pecatuban. Eguin evan adulterijoco pecatuba Bersabegaz ta ill evan Urias, aren senar inocentia erru bagaric David erreguiac⁸⁸. ¿Cer ete da luxurija, santubac onan itsututen ditubanian?

1027 ezetz] etez *Ba* 1031 ezda *Ba* 1037 biardan *Ba* 1040 gueratuzan *Ba*

⁸⁰ Ik. Has 3,1-13.

⁸¹ Ik. Has 3,23-24.

⁸² Hemen ere, *-en* genitibo-marka duen izenlaguna sintagmaren amaieran jarri du, eta ez, orain ohi dugunez, izenaren ezkerrean.

⁸³ Ik. Ep 14,5-6.

⁸⁴ Ik. Ep 16.

⁸⁵ "Coitautu": makaldu, adore gabe utzi.

⁸⁶ Ik. Ep 16,14-21.

⁸⁷ Ik. Has 19,30-38.

⁸⁸ Ik. 2Sm 11.

1050 Salomon, guztiz jaquituna, guztiz zucena, guztiz ona ta oneracua, Jaungoicuagaz beragaz verba eguiten evana ta chito Jaungoicozcua. Au, Salomon jaquitun au goitu even emacumiac eta luxurijac, guzonec eguin leguizan chochaquerijaric ta picaerdijaric lotsarizcuenac eguitera. Ucatu evan bere Jaungoico eguijazcua; galdu evan lotsa ta vildur guztia; ta entregau eutseen bere vijotza contau ezin leguizan beste emacumeri, edoecin bere modutan. Ta adorau evan Jaungoicotzat edoecin gauza⁸⁹. ¡Oh, emacume galdubac! ¡Oh, luxurija! ¡Ce ascotacuac dirian! San Geronimoc, san Gregorijoc ta beste batzuc esaten davee, Salomon azquenian bere pecatubac ezaututa, garbatuta, penitencija eguinda salvau zala. San Agustinec, san Juan Crisostomoc ta san Cigu[58]prianoc beste ascogaz dinue, condenau zala. Jaungoicuac librau gaguizala gueu onaco dudetati.

Jazo oneetan dacuszu, cristinaubac, jausi zirianac ez ziriala edoecin, ez bada santu andijac. Ta jagui ziriala Jaungoicuaren gracijagaz guztia, Salomon dudaan ichita. ¿Ta ceimbat beste, urte ascotan Jaungoicua gogoz serbidu daveen, itzuli ez ditu ta galdu ez ditu betico luxurijac? Iracurri bitez *Gurasuen Vitzitzaac* derichon liburu estimauba⁹⁰, san Geronimo, san Juan Climaco ta beste onaco jazo negargarriren eracuslaac. Ta an aurquituten dira ta juicijoco egunian icusico dira, ceimbat sendo, ceimbat jaquitun ta ceimbat virtute andico goitu ta galdu dituban diabrubic emacumen ta lotsarizco pecatubaren vitaritez. San Agustin baten verbac icara eraguin leguijue cristinaubari gauza onetan. *Sinistu eguijozu, ondo daquijanari*, dino Santubac; *Jaungoicua testigutzat artuta esaten dot. Santutasunic andijenian ta penitencijaric gogorreanian ego zana galdu ditubee emacumiac eta luxurijac. Ez nevan sinistuco areec pecatu loijan jausico ziriala, san Ambrosio bat edo san Geronimo bat jausico ciriala baino gueijago* (50)⁹¹. Onaco jazo icaragarriac entzunda, ¿celan vitzi ete dira cristinaubac ardura bagaric ta pena bagaric pecatuco ocasinoe ta peligru jaqui-

(50) Looner. Bibl. v. Mulier. §. 3, n. 13.

1055 edo cein *Ba* 1063 jaguil jaqui *Ba* | Salomon] zalomon *Ba* 1064 dudaan] duduan *Ba* 1065 ezditu *Ba* 1071 eguijozu] eguijoz *Ba* (301.or.: eguijozu) 1072 esatendot *Ba* 1075 etedira *Ba*

⁸⁹ Ik. 1Erg 11,1-8.

⁹⁰ Ziur asko *Vitæ Patrum* esan nahiko du hemen... (ik. *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617). Hala ere, orrialde hauetan dauden aipu batzuk liburu honetatik hartuak izan zitezkeen: Tobias LOHNER (*Bibliotheca manualis concinatoria ordine alphabetico digesta*, "Mulier" idazlana), berariaz aipatzen baitu autore hau 58. orrialdean.

⁹¹ T. LOHNER, *Bibliotheca...* Parisko argitalpenean, 1887, 3.t., 374. or.: Frai Bartolomek, ohi duenez, itzulpen librea egiten du. Hark san Agustinen testutzat dakar hau, baina aipatutako edizioan ez da hori agertzen.

netan? ¡Oh, ce itsutasun andija! ¡Oh, ce gach icaragarrija! ¡Illten egon ta gachic daucanic sinistu ez! Ez daiguzan bada aaztu, neure entzula onac, ara-[59]gui loijac goitu dituban gomutagarri ta escarmentugarri jaquin oneec. Baita gogoratu daigun beste asco celan librau dirian arerijo muquer, zal, iraascor, lotsa gaistoco onetati. 1080

II.

Jaungoicuaren gracijac ta castidadiaren amodijuac mirari andijac eguin ditu munduban dempora guztietan, neure entzula onac. ¡Ojala ispillu chiqui baten aurrian guztia vitziro pintauta imini al baleguiz! Baina ez dago lecuric icasi-quizun labor baten onetaraco. Banaca batzuben echura erdi bat esan baino ezin legui. 1085

Job anchinacua, guztiz aberatsa ta munduco era on guztien jaubia zan⁹². ¿Cer eguin evan castidadia gordetaco? Inos bere nescatillari beguiratu ez. Tratu bat bere beguijaquin eguin evala Job santubac, inos nescatillari ez beguiratuteco, dino Espiritu Santubac⁹³. Jacob patriarca santubac ce modestija ta garbitasuna gorde evan Labanen echian zazpi urtian, gauza jaquina da⁹⁴. Jacoren seme Jose anchinacuac, ugazaba andra señora andijac pecatu eraguin gura eutsanian, emacume lotsa baguearen escu loijetan bere soinecuac etenda ichita, igues eguin eutsan; emacume galdubac guzur andija jaso, cleituba galdu ta preso sartuco evana beequijan bere⁹⁵. San Benitoc, erdi biloxic arantza artian sartuta, arantza puntaz gorputza orraztuta, odolduta, goituten evan luxurijaren tentacinoia⁹⁶. San Agustinec, Jaungoicuagana viurtu zan ezquero, ez evan emacume bat bere bere echian euqui. Bere ar[r]ebia bere ez evan icusi gura izaten san Agustinec. Arrevia izan [60] arren, emacumia zala esaten evan Santubac⁹⁷. San Simon Estilitac, Jaungoicuagana viurtu zan ezquero, ez eutsan emacumeri aurpeguira zucen beguiratu. Ezda bere amari bere azqueneco urtetan⁹⁸. Ursino 1090

1084 eguinditu *Ba* 1085 chiquibaten *Ba* 1086 alba leguiz *Ba* | ezdago *Ba* 1095
bague aren *Ba*

⁹² Ik. Jb 1,1-3.

⁹³ Ik. Jb 31,1.

⁹⁴ Ik. Has 29,16-30.

⁹⁵ Ik. Has 39,7-19.

⁹⁶ S. Benito, ik. *Euscal-errijetaco*... 72.oharra (484.or.); *Esku*-ko 110. oharra (573.or.). Frai Bartolomek hemen kontatzen duena liburu honetan irakur zezakeen: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum*..., 2. t., Coloniae Agrippinae, 1700, 164. or.

⁹⁷ S. Agustin, *Euscal-errijetaco*. 69.oharra (483.or.). Hemen dakarrena Frai Bartolomek liburu honetan irakur zezakeen: T. LOHNER, *Bibliotheca*... Parisko argitalpenean, 1887, 3.t., 374. or.; edo beste honetan: Antonio ARBIOL, *Estragos de la luxuria y sus remedios* Barcelona [1726 ?], 186. or.

⁹⁸ Frai Bartolomek lan honen bidez jakin zitzakeen datu hauek: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*,

1105 santubac inos bere ez euan emacumegaz verbetaric euqui. Agonijan ija ill
ainian eguanian juan jacon santubari emacume bat bere aurrera, ondo biarrez
mesede eguitera. Ta esan eutsan santubac: *Quendu zaite veguijeetati, oraindi -
no vitziric nagota*⁹⁹.

1110 Amiano¹⁰⁰ obispo jaunari, emacume bat verba eguitera juan jaconian,
aguertu jacon ventanan erijotziaren echuria. Aituten emoteco, emacumia ta eri-
jotzija bardinac diriala guizonentzaco. Pacomio¹⁰¹ anchinaco praileen aguintari-
jac, ez euan gura izan endemoniauta eguan emacumia bere aurrera eruan egui-
juen, oracinoiagaz demoninuetati libretaco. Bildur zan Pacomio, ain gauza
oneraco izan arren, emacumiaren echuria icusten. Emacumearen soineco bat,
esan euan, eruan eguijuela, ez emacumia bera. Soinecuaren aurrian oracinoia
1115 eguinda librau euan endemoniadia. Nicetas¹⁰² martirija imini eueen biloxic ortu
edo jardin lorazco ta usain gozozco chito aleguere baten, luma bigunezco oe
eder apainduban, sedazco soquiagaz nasai baina ondo escubac eta oinac lotu-
ta. Bialdu eutseen berarrijaz emacume galdu bat, lora presco ederren, luma

1113 Emacumearen *Ba* 1118 galdubat *Ba*

Lugduni, 1617, 133,136.or. Beste honetan ere irakur zezakeen: T. LOHNER, *Bibliotheca...* Parisko argitalpenean, 1887, 3.t., 374. or.

Simeon Stylita (+ 459), Siriako aszeta, umetan bere guraoen ardiak jagoten zituen; eskola gutxikoa zen; 403. urte inguruan Teledako Eusebonako monasterioan sartu zen; 412an alde egin behar izan zuen, eta eremutar egin zen; lehenengo stylita eta hauen artean ospetsuena izan zen; zutabe gainean eman ohi zituen ordu luzeak; lagun asko joan ohi zitzaizkion, eta egunean bi bider-eta egiten zituen predikua. Askoren aholkulari izan zen eta misiolari. Kaltzedoniako Kontzilioaren aldekoa izan zen (Ik. T. WARE, *Symeon Stylites d. Á.*, LThK 9 (1986) 1216).

⁹⁹ Frai Bartolomek liburu honetan irakurriko zuen, beharbada, hemen dioena: T. LOHNER, *Bibliotheca...* (Parisko argitalpenean, 1887, 2.t., 761. or.); honek, era berean, S. Gregorio Handia aipatzen du (Diálogos). Testu honetan "S. Ursinus Presbyter" delakoaz hitz egiten da, baina izen honetako santurik ez da S. Ursino apezpikua baino besterik, 300. urte inguruan bizi izan zena eta Bourges-ko lehenengo apezpikua. Geroko legendazko *vita* (X. edo XI. mendekoa) Tours-ko S. Gregoriorengan oinarritzen da, (ala san Ursino ote da, bada?).

¹⁰⁰ Amiano; ez dakigu nor den apezpiku hau; hutsa izan liteke, Aniano edo beste izenen bat izan liteke.

¹⁰¹ Frai Bartolomek obra honetan irakur zezakeen: *Vitae Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 97. or. S. Pacomio (287-347). Pakomio, Egipto Garaian jaio zen, nekazari jentil baten semea. Soldadutzaren ondoren, bataioa hartu zuen; 308. urte inguruan eremutar egin zen; Tabennisin monasterio handi bat eraiki zuen, hil zen arte hango abadea izanik. 9 komentutan 9000 monje inguru bizi izan ziren. Haren erregela garrantzitsua izan zen ondorengo mendeetarako. (Ik. J. GRIBOMONT, *Pachomius der Ältere, hl.*, in. LThK 7 (1986) 1330-1331).

¹⁰² Ziur aski Frai Bartolomek ondorengo obra honetan irakurriko zuen hori: T. LOHNER, *Bibliotheca*. (Parisko argitalpenean, 1887, 2.t., 761. or.); honek, era berean, S. Jeronimo aipatzen du.

S. Nizetas izan daiteke, 300. urte inguruan martiri hil zena; ez dugu hartaz albiste ziurrik, baina Greziako elezaharretan Maximiano enperadorearen semetzat hartzen da; edo, beharbada, S. Nicetas Megalomartir (370-372. urte inguruan hila), beste batzuekin batera martiri hila (ik. LThK 7 (1986) 973-974).

bigunen ta usain gozuen artian sedaz lotuta min bagaric eguan Nicetas mutil
 gaziari, pecatu eraguitera. ¿Ce tentasinoia? Esan eta eguin eutsazan emacume 1120
 [61] gaistuac, aotan artu biar ez dirian gauzaac. ¿Cer eguiten dau Nicetas gar-
 bijac? Besteric ezinda, aguinaquin bere miina ebaguita, jaurtegui eutsan emacume
 lojari odol ta naaste arpeguira. Onan goitu zituban luxurijaren suba ta
 emacume galduba. Beste monge edo praile batec, emacume gaistuac tentau
 evanian, su andijaren erdira salto eguin evan. Gorputza erriaz goitu evan ara- 1125
 guijaren tentacinoia. Beste monge batec, pensamentu loija gogoratuten jaco-
 nian, atzamarra eruaten evan su garretara tentacinoia goituteco¹⁰³. Arsenio¹⁰⁴
 monge santubari esan eutsan emacume batec: *Acordau nigaz bere, Jaungoicuari erregututeco*. Erantzun eutsan Arsenioc: *Erregutuco deusats*
Jaungoicuari zugaz ez acordetaco . 1130

Aita san Pranciscuba¹⁰⁵ gaiti esaten da, emacume bat bere ez evala arpeguiz
 ezaututen, verbaz baino. San Andres Corsinocua¹⁰⁶ ta san Luis Gonzagacua¹⁰⁷
 gaiti beste aimbeste esaten da. Santo Tomas Aquinocua, carcelara, pecatu era-

1131 esatenda Ba

¹⁰³ Frai Bartolomek, ziur aski, kasu hauek eta antzekoak berak beste toki batean aipatzen duen eta ezaguna zuen obra honetan irakurriko zituen: Josephus MANSI, *Bibliotheca moralis praedicabilis...* Venetiis, 1537, 543.or.

¹⁰⁴ Frai Bartolomek istorio hori obra honetan irakur zezakeen: *Vitae Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 429. or. Ik. *Euscal-errietaco...* 70.oharra (484.or.).

¹⁰⁵ Beharbada, Frai Bartolomek obra honetan irakurriko zuen kasu hau: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 497. or.; edo beste honetan: T. LOHNER, *Bibliotheca...* Parisko argitalpenean, 1887, 3.t., 374. or., edo ondorengo honetan: Antonio ARBIOL, *Estragos de la luxuria y sus remedios* Barcelona [1726], 186. or.

S. Frantzisko Asiskoa (1181/1182-1226), frantziskotarren eta klaratarren fundatzailea. Haren Jainkoagana bihurtzea, urteetan zehar, bi etapatan egin zen batez ere: 1) Jainko-Aitaren handitasun eta gorentasunaz jabetzea (1205); bakardadera joan zen eta kaperak eraiki zituen... 2) Jainkoaren Semea gizon egitean beheratu eta ia ezereztu egin zela jabetzea (ik. Flp 2, 6-8) (1209). Inozentzio III.ari aurkeztu zion lehenengo frantziskotarrentzako erregela, hark hitzez bere onespena emanaz (1210); jentilak bihurtu eta Jainkoaganatzeko elizak duen egitekoari indar berri bat eman zitzaion san Frantziskorekin... Haren eragina eta munduan zehar izan duen oihartzuna harrigarria izan da mendeetan zehar... (ik. W. BRAUNFELS, *Franziskus v. Assisi*, LThK 4 (1986) 231-234).

¹⁰⁶ Beharbada, S. Andres Korsinoren zertzelada hau obra honetan irakurriko zuen Frai Bartolomek: T. LOHNER, *Bibliotheca...* Parisko argitalpenean, 1887, 3.t., 374. or. Ik. *Euscal-errietaco...* 79. oharra (488.or.).

¹⁰⁷ Kasu hauek, ziur aski, Markinako Karmengo bibliotekako liburu honetan irakurriko zituen Frai Bartolomek: Virgilio CEPARI, *Vida de S.Luis Gonzaga de la Compañía de Jesús* Pamplona, 1753, 14. or., (edo beste honetan: T. LOHNER, *Bibliotheca...*, Paris 1887, 3.t., 375. or.).

S. Luis Gonzagakoa (1568-1591), Ferrante markesaren (Gonzagarekin zeharbidez lotua) seme nagusia. Florentziako gorteko mutila izanik, 1578an, kastitateko botoa egin zuen; 1583an Jesulagunen Ordenan sartu zen; debozio handikoa zen eta penitetzari bizitza egin zuen (ik. Ch. GREINZ, *Aloysius v. Gonzaga*, LThK 1 (1986) 364-365).

guitera bialdu eutseen emacume galduba, sutaco iletjagaz arin quendu evan bere aurreti¹⁰⁸. San Ignacio Lojolacua ez zan inos azartu emacumegaz bacarrian verba eguiten¹⁰⁹. Ezda san Francisco Xavier bere¹¹⁰. Ta au conseju ichi eutsen¹¹¹

¹⁰⁸ Gai honetaz Frai Bartolomek Markinako Karmengo bibliotekako bi liburutan irakur zeza-keen: pixka bat honetan: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 132-133. or.), baina zehazkiago beste honetan: Antonio TOURON, *Vida histórica de Santo Tomás de Aquino de la Orden de Predicadores, Doctor de la Iglesia, con exposición de su doctrina y de sus obras* 1.t., Madrid, 1792, 66-68.

S.Tomas Akinokoa (1225-1274), Lonbardiako etxe on bateko laugarren semea. 1239an Napolesko unibertsitatean izan zen eta han Aristoteleren filosofia ikasi zuen. Bere gurasoen gogoz kontra Domingotarren Ordenan sartu zen (1243); Erromara joan zen eta gero Bolognara; bere anaiek bahitu egin zuten eta hala eduki bi urtean. 1245ean askatu zuten. Aurrera egin zuen bere ikasketetan, esaterako, Kolonian Alberto Handiaren ikasle izan zen. Parisen ere ikasi zuen... Teologiako irakasle izan zen, eta liburu ugari idatzi zituen, batez ere filosofia, teologia eta Eskritura Santuari dagozkionak, haren obrarik ospetsuena eta ezagunena *Summa theologiae* izan zen (ik. H.-F. DONDAINE - D. SCHÜTER - O.H. PESCH, *Thomas v. Aquin*, LThK 10 (1986) 119-134).

Markinako Karmengo bibliotekan, S.Tomasen idazlanen edizioen artean, Summaren bi liburu-ruki handi daude, gure idazleak erabili zituenak, beronek eskuz idatzitako seinaleak dituztelako, Markinako Karmengo liburutegiakok direla adieraziz: S.THOMAS AQUINATIS, *Prima secundae partis summae sacrae theologiae...* Antwerpiae, 1576, (2-Cx / 17); S.THOMAS AQUINATIS, *Secunda secundae partis summae sacrae theologiae...* Antwerpiae, 1576, (2-Cx / 17-b). Frantsestean, fraideak komentuetatik kanporatuak izan zirenean, Eliz Gurasoen antzinako beste liburu batzuekin batera berberak salbatu zituen liburutakoak dira...

¹⁰⁹ Zertzelada hau, Frai Bartolomek liburu honetan irakur zezakeen: T. LOHNER, *Bibliotheca...*, Paris 1887, 3.t., 375. or.; hain zuzen ere, Frai Bartolomek kontatzen duen antzera hitz egiten da liburu horretan bai San Ignaziori buruz eta bai San Frantzisko Xabierkoari buruz ere.

San Ignazio Loiolakoa (1491-1556), Loiolako dorretxean jaio zen; Nafarroako erregeordeari zerbitzen hasi zen 1517ko urtearen amaieran. 1521ean zauritua izan zen Iruñean. Sendatzen ari zela, santuen bizitzak irakurritz hasi zen Jainkoagana bihurtzen; Manresako koba batean, era berean grazia espiritualak eta tentaldi larriak izan zituen; hantxe idatzi zuen bere *Ejercicios* liburua- ren muina, hainbeste pertsona Jainkoagana bihurtzeko bitartekoa izango zena... Bartzelonan latin ikasteari ekin zion (1524-1526); Ikasten ziharduen bitartean apostolutza-lana egiten ahalegindu zen Alkalan eta Salamankan (1526-1527); "argjeginak" taldeko kidea izateaz salatu eta auzitara eraman zuten. Parisen filosofia eta teologia ikasi zituen (1528-1535), filosofian maisu-titulua lortuz. 1537an apaiz egin zen. Urte horretan, bere lagunekin batera, Aita Santuaren aurrean agertzen da, beronen zerbitzura daudela adieraziz. Horrela eman zitzaion hasiera Jesusen Lagundiari. Harrezkero buru eta bihotz jarri zen Lagundia osatze-lanean; unibertsitateak sortzen ditu, apostolu-lanari ekiten dio batez ere gogo-jardunen bitartez eta baita maisio-ekintzari ere... Haren garrantzia eta eragina Elizan historia osoan handienetarikoa izan da (ik. H. RAHNER, *Ignatius v. Loyola*, LThK 5 (1986) 613-615).

¹¹⁰ S. Frantzisko Xabierkoa (1506-1552), Xabierko (Zangotza) gazteluan jaio zen, erreinuko kontseilu-buruaren semea. 1525ean hasita Parisen ikasi zuen, eta hemen S. Ignazioaren asmoekin bat egiten du oso-osoa (1533); 1537an apaiz egin zen Venezian. 1541ean Aita Santuaren mandatarari legez eta Portugalko erregearen aginduz, Indiara joan zen. 10 urtean atsedetik gabe lan eta lan jardun zuen; milaka pertsona bataiatu zituen; misio-laneko aitzindaria eta eratzaila izan zen. Japonian ere misio-lana eginik, Txinara sartzeko zela hango ateetan hil zen (ik. G. SCHURHAMMER, *Franz Xaver*, LThK 4 (1986) 248-249).

¹¹¹ Begira esaldi honen egiturari: *au conseju ichi eutsen...* Beharbada, gaur egun honela egin- gogon genuke: "kontseju hau itxi eutsen"..., baina azken perpaus honek ez du jasotzen hark duen

euren semiai. Esaten evenen, emacumiagaz ez diriala eguin biar puerpuertzaco verbaac baino gueijago.

Emacumen artian iracurten dira arrigarrizco jazuac, virginidadia ta castidadia gordetaco. Susana batec eracusten deutsa mundu guz-[62]tiari, celan gorde 1140 biar dan castidadia. Pecatu ez eguitia gaiti iminten dau bere buruba erri guztia- ren gorrotuan ta lotsarijan ta bere vizitzia arricadaz illteco arriscuban. *Obeago dotesan* evan Susana garbijac, guizon bic alan estu artu evenian, *oba dot, pecatu bagaric zuben escu gaistueta imini neure ondria ta neure vitzi - tzia, Jaungoicuac dacusela, pecatu eguin baino* ¹¹². Santa Maria Madalenac¹¹³, 1145 santa Maria Egiciacuac¹¹⁴, santa Pelagiac¹¹⁵, Tarsoco Maria pecatarijac¹¹⁶, Coma Porphira beste pecatarijac¹¹⁷, san Epreneac Jaungoicuagana viurtu evan emacume pecatarijac¹¹⁸, Phanucio abatac viurtu evanac¹¹⁹ ta Vitalioc viurtu zitubanac¹²⁰, emacume oneec guztioac, dinot, Jaungoicuagana viurtu zirianian, sartu zirian laster guizonezcoric icusico ez even mendi astunetara edo conventubetara, 1150

1143 Obeago] Oboago *Ba*

ñabardura, hau da, ez du esaten, kontseju hau itxi eutsela, hau itxi eutsela kontseju legez baik.

¹¹² Ik. Dn 13,23.

¹¹³ S.Maria Madalena, Ik. *Euscal-errijetaco...* 73.oharra (484.or.).

¹¹⁴ S.Maria Egiciaca, Ik. *Euscal-errijetaco...* 77.oharra (487.or.).

¹¹⁵ S.Pelagia, Ik. *Euscal-errijetaco...*, 74.oharra (484.or.).

¹¹⁶ Tarsoko Maria; Frai Bartolomek ondorengo liburu honetatik jakin zezakeen Maria honen berri: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 654.or.; hemen haren Jainkoagana bihurtzea kontatzen da (*Conversio eta vita Mariæ meretricis*).

¹¹⁷ Frai Bartolomek ondorengo liburu honetatik jakin zezakeen Jainkoagana bihurtutako bekatarari honen berri: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 155.or.; kontakizun honetan "Domna Porphyria" emagalduez hitz egiten da. Dirudienez, Frai Bartolomek gaizki irakurriko zuen edota inprimategian egingo zuten okerra, "Coma Porphira" baitator gure idazlearen testuan.

¹¹⁸ Liburu honetan datorrenaz diharduela dirudi: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 129-130.or..

S.Efren, Siriakoa (+373), familia kristau bateko semea; gaztetan Jakob aszeta eta apezpikua- ren eraginpean bizi izan zen (303-338); Efren ospetsu egin zen bere hiri Nisibis-ko eskolan. Diakonoa zen. Kantuak idatzi zituen (antzinako beste batzuk ere bildu zituen), baita sermoiak, idazki exegetikoak eta abar ere. (Ik. E. BECK, *Ephrân der Syrer*, LThK 3 (1986) 926-929).

¹¹⁹ Paphnutius abbas (+ c.380); honen Jainkoagana bihurtzeaz, liburu honetan dator: *De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriber Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 286, 361, 372. Onbideratu zena, legendak dakarrenez, Thais izan zen (ik. *Euscal-errijetaco...* 75.oharra) (484.or.).

¹²⁰ Vitalius abbas; emagalduen Jainkoagana bihurtzeaz ondorengo liburu honetan irakur dai- teke: *De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studi Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 151-152.

penitencija eguitera. Santa Euprosina¹²¹, dama aberatsa, aitac ezcontzia eguin eutsan gavian echeti igues eguinda, guizon jantzita, praile conventu batera juanda, abituba artuta, ogueta amazortzi urtian inoc ezautu bagaric, praile izanda ill zan. Santa Eupemiac casic beste aimbeste eguin evan, edo moduren baten gueijago¹²². Ladiceaco doncella edo nescatilla batzuc, gaistuen escubetan jausteco peligruban euren burubac icusi zitubedian, secreta loijan euren gorputzac ezcutauta, garbitasunaren loria osoric gorde even¹²³. Alexandrijaco nescatilla batec, icusi evanian bere veguijen edertasunac carinotuta eucala mutil gazte bat, bere beguijac atera ta (ez zan izango ceruco aparteco ar-[63]gui bagaric) bialdu eutsazan mutilari. Ta abisau eutsan: *Aor, zeuc maite dituzunac, ta ichi eguidazu* baquian¹²⁴. Santa Rosac¹²⁵ ta leengo urtian altaretan ipini zan Maria Ana¹²⁶ Virginia veneragarri Mercedeco mongiac euren burubac mutildu ta arpeguijac ezaindu zitubeen, guizonezcoren beguic ondo erichi ez eguijuen ta

1165 gogoz beguiratu ez eguijuen.
 ¿Baina ceimbat onaco jazo pozgarri iracurten ez dira virgina ederren lorazco ortu santuban? Bada, contaucos baguenduz Catalina¹²⁷, Barbara¹²⁸, Cecilia¹²⁹,

1115 illzan *Ba* 1161 maitedituzunac *Ba* 1162 ipinizan *Ba* 1166 ezdira *Ba*

¹²¹ Santa Eufrosina; legendaz jantzitako zertzelada hauek liburu honetan datoz: *De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 278-281.

¹²² Beharbada, santa Eufemia, birjina eta martiria (+ 303) izango da hemen esan nahi duena; honen berri ondorengo liburu honetatik jakin zezakeen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 463-464. or.

¹²³ Ziur aski ondorengo liburu honetan irakurriko zuen zertzelada hau: T. LOHNER, *Bibliotheca...*, (Paris 1887, 2.t., 761. or.).

¹²⁴ Beharbada, liburu honetan irakurriko zuen zertzelada hau: T. LOHNER, *Bibliotheca...*, (Paris 1887, 2.t., 761. or.).

¹²⁵ Ez da erraz Santa Arrosa hau nor den jakitea, Frai Bartolomek agertzen dituen argibideak ez baitatoz bat Santa Arrosa Limakoarekin (1586-1617). Santa Rosalia izan liteke (+ c. 1160), Palermoko birjina eremutarra; ez dugu haren bizitzaz albiste ziurrik, eta legendaz jantzirik ageri zaigu... (Ik. W. SCHATZ, *Rosalía*, LThK 9 (1986) 43).

¹²⁶ Zail gertatzen zaigu Maria Ana edo Mariana hau nor den garbi jakitea, Frai Bartolomek dioena ez baitator bat Santa Mariana Jesusena, "Paredes" deiturakoarekin (Quito 1618-1645; bertuteen aitormena 1776an eta 1853an dohatsu egina)... Beharbada, Mariana Jesusena izan liteke (Madril, 1565-1624); Mesedetako hirugarren ordenakoa, eta 1783an dohatsu izendatua (datu hau ez dator bat Frai Bartolomek dioenarekin).

¹²⁷ Santa Katalina, ustez Alexandriako martiria. Historiaren arabera ez dakigu nor den Katalina hau... Katalina izenak berak ere birjintasuna dakarkigu gogora. (Aecaterina, Katalina = beti garbia). Dakiguna da, VIII. mendeaz gero jadanik gurtzen zelako ezaugarriak daudela. Bestalde, haren bizitza eta martiritza legendaz jantzirik agertzen zaizkigu... Parisko Unibertsitateko zaindaria da, eta baita teologo, filosofo eta abokatuen zaindaria ere. (Ik. A.P. FRUTAZ, *Katharina*, LThK 6 (1986) 61-62). Haren bizitza, liburu honetan irakur zezakeen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 609-613. or. Ikonografian, erregearen alaba birjina legez agertzen da, buruan koroa eta ilea askaturik dituela, bai ezkontza mistikoan, eta baita eskuan gurutzeta duela ere, etab. (P. ASSION, *Katharina*

Ines¹³⁰, Agueda¹³¹, Martina¹³², Liberata¹³³, Eulalia¹³⁴, Lucia¹³⁵ ta beste virgina ta martiri ederren eguitadiac virginidadia ta castidadia gordeetaco, ¿ce mirari andijac aguertuco ez litzaatequez virtute santa onen jasoraco?

1170

¿Cegaiti derichazu bada, neure entzula onac, bai guizonezcuac ta bai emacumiac, ceuben ustez, ain gauza gachac ta andijac eguiten citubeela? ¿Alan euren burubac zaintuten citubeela? ¿Alan ocasinoe urrinecuetati bere igues eguiten eveela? ¡Oh, neure cristinaubac! Ezaututen evenen diabbrubaren astucija, mundubaren engainuba ta araguijaren argaltasuna. Beequijeen, erre bagaric,

1175

von *Alexandrien*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 289-297).

¹²⁸ Santa Barbara Nikomediakoa; santa honen bizitza ere elezaharrez inguratua da; kontaktuzun hauek diotenez, bere aita jentilak dorre batean itxi zuen; geroago Maximiano Daja enperadorearen garaian bere aitarengandik martiritza jasaten du (Ik. H. BENDER, *Barbara*, *hl.*, LThK 1 (1986) 1235-1236). Haren bizitza liburu honetan irakurriko zuen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 630-634. or. Santa hau ere oso ezaguna da ikonografian: dorrea da agertzen den ikur nagusia; gehienetan jantzi luzeekin agertzen da, beste batzuetan zuzi batekin, kaliza batekin... (L. PETZOLDT, *Barbara*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 304-311).

¹²⁹ Santa Zezilia, III. mendeko martiri erromatarra; honen martiritzaren legenda mendealdeko zabalduenetarikoa da. Hagiografian dugun kasurik zailenetarikoa da. Honen *Passio* delako birjintasunaren gorespena da. Bere senargai Valeriano eta honen anaia Tiburtziorekin batera lepoa moztuta hil zen. (Ik. B. KÖTTING, *Cæcilia*, *hl.*, LThK 2 (1986) 864-865). Haren bizitza liburu honetan irakur zezakeen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 602-604. or. Oso ezaguna da ikonografian: Zezilia zeruko musika entzuten, Zezilia hilik bere gorpua 1599an Erroman aurkitu zen eran, marmolezko estatua katakunbetan, etab. (F. WERNER, *Cæcilia von Rom*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 457-463).

¹³⁰ Santa Ines, ik. *Esku*-ko 194.oharra (678-679.or.).

¹³¹ Santa Agata, ik. *Icas-I*-eko 103.oharra (748.or.).

¹³² Santa Martina; santa honetaz ere ez dugu albiste ziurrik; VII. mendeko legendako Passio delakoaren arabera (Passio Tatianæ-ren egokitzapena dirudiena), Kontsul izandako baten alaba zen, diakonisa eta martiri Alexandro Severoren agintaldian, 250. urte inguruan. VII. mendeaz gero gurtzen zelako seinaleak daude (A.P. FRUTAZ, *Martina*, *hl.*, LThK 7 (1986) 121). Ikonografian palma-adarra eskuetan duela agertzen da (S. KIMPEL, *Martina von Rom*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 580-581).

¹³³ *Kümmernis* izan liteke (hainbat izenekin agertzen da: Liberata, Eutropia, Caritas, etab.); ez dugu hartaz inolako albiste historikorik; germaniarren artean legendazko pertsonaia herritarra da: Portugaleko errege baten alabatza hartzen da, Kristori bere bizitza eskaini zion eta oihanean bertan behera utzia izan zen edota gurutzean josia... Harenganako debozioa ia galdua da XX. mendean (A. DÖRRER, *Kümmernis*, in: LThK 6 (1986) 678). Ikonografian jantzi luzeekin eta gurutzean josia agertzen da. (A. WECKWERTH, *Kümmernis*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 353-355).

¹³⁴ Santa Eulalia, ik. *Icas-I*-ko 100.oharra (748.or.).

¹³⁵ Santa Luzia, ik. *Esku*-ko 195.oharra (679.or.).

- suba colcuan inoc eruaten ez davena. Beequijen pecatu loija laster iraasten dana ta nequez quenduten dana. Beequijen san Agustinegaz, cerubaren urerra igon eveen andijac¹³⁶ ta santubac bere luxurijac itzuli ta goitu ditubana¹³⁷. Beequijen san Isidorogaz, beste pecatu guztiac baino arima gueijago luxurijac impemura eruaten davena. Emacumiac gui-[64]zon ascori pedia ta arimia galdu eraguin deutseena¹³⁸. Beequijeen, guizonezcuac emacumentzat ta emacumiac guizonezcuentzat, chito bildur santubagaz, lotsa onagaz ta modestija andijagaz ez badabiltz alcarren arteco artu emonetan, alcar illteco verenua dauqueena. Endamas emacume urten gura, ibiltari, apaindubac, cein gaiti dinuan san
- 1180
- 1185 Ambrosioc, *impenuco demonino guztien echia dala*¹³⁹.
- Au guztiau equijen. Ta au gaiti eguin citubeen entzun dituzun mirarijac, arimaco garbitasuna ta gorputzeco castidadia gordetaco. ¿Engainau ete zirian areec? Ta areec engainau ez bacirian ta eguin even guztia cerubac ontzat emon badeutsee ta sari andijagaz pagau badeutsee Jesusec euren castidadiaren amodijo altuba, ¿cer esango dogu, gorputzari naijac eguitia, araguija viztutia ta luxurijari su emotia baino beste gogoric eracusten ez daveenac gaiti? ¿Cer, onestidadia galduteco ocasinoe urrecuetan ta jaquinetan sartuta, pena bagaric daviltzanac gaiti? ¿Cer, emacumen veguijetati ta arpeguiti euren vijotza ta gogua eseguita dauqueen pracadunac gaiti? ¿Cer, guizon escuric guizon escu olgueeta naastaubetan ta desonestubetan gau ta egun gueratu bagaric daviltzan emacumiac gaiti?
- 1190
- 1195

1183 bada biltz *Ba* 1187 etezirian *Ba* 1191 ezdaveenac *Ba*

¹³⁶ San Pauloren aipua dirudi, zeruaz ari denekoa (2Ko 12, 2-4), eta haragiaren kontra borroka egiten duenekoa (2Ko 12,7-9); oraingo exegesiaren arabera, San Paulok aipatzen duen borroka hori ez da sexu-kontukoa; gaixotasunen bat izan behar du (Gal 4,13-15), beharbada, malaria...

¹³⁷ S. Agustin, *Confessiones* II, 1,1; 2,1 (PL, Migne, 32, col. 675)... (ik. *Euscal-errijetaco*... 69.oharra, 483.or.).

¹³⁸ Beharbada, Frai Bartolomek liburu honetan irakurriko zuen aipu hau: T. LOHNER, *Bibliotheca.*, (Paris 1887, 2.t., 761.or.); honek, era berean, San Isidoro Sevillakoaren *Sententiarum Libri*; hala ere Frai Bartolomek aipamen horren parafrasia egiten duela dirudi...

San Isidoro Sevillakoa (560-633 inguruan); 600. urtean gutxi gorabehera, Sevillako elizbarrutiko zuzendaritza hartu zuen bere gain; haren bizitzaren ezaugarriak hauek dira: ikuspegi zabal, lan pastoral eragingarria, eta beraren lan literarioa; ardura handia izan zuen apaizak zientzi bideetan eta aszetikan ongi prestatuak irten zitezten. Asko eta asko idatzi zuen (ik. PL 81-84); haren teologiako lan nagusia *Sententiarum Libri tres* izan zen. Baina osperik handiena eman ziona bere *Etymologiae* lana izan zen (ik. K. BAUS, *Isidor*, LThK 5 (1986) 786-787).

¹³⁹ S. Ambrosio (339-397), prefektuaren semea; aitaren heriotza goiztiarraren ondoren, Erroman hartu zuen heziera; Emilia eta Liguriako kontsul izan zen. 374an, Milango apezpiku arriotarra Auxentius hil zenean, apezpiku hautatu zuten, oraindik kristaugaia zela. Bere izaera eta jakinduria osoa elizaren zerbitzuan jarri zituen, elizako batasunaren eta garbitasunaren alde egiteko. Sermoi asko idatzi zituen, baita Eskritura Santuko, dogmatikako, moral eta aszetikako, espiritualitateko eta abarreko gaiak ere. Eliza latinoaren lau doktore handietariko bat dugu bera (ik. J. HUHN, *Ambrosius*, *hL*, LThK 1 (1986) 427-430).

¿Ete dauquee onaco pracadunac David erregue santubac baino gracia gueijago? ¿Ete dira Salomon baino jaquitunago? ¿Sanson baino senduago? ¿Ete dauquee alaco emacumiac, Dinac¹⁴⁰ baino aziera obia ta lotsa obaco gura- [65]suac? Oneec guztioac ta beste onaco asco jausi cirian pecatu lotsarizcuan. 1200
 ¿Ete dagoz segurubago, onaco ocasinieric ocasinoe luxuriya artian davilzanac, irudogueti urtian mendi artian cilicijoz gorputza lotuta euqui evan san Ilarion¹⁴¹ baino? Bada, zaartuta guero esaten evan ac bere gorputza ta araguiya gaiti: *Asto macal onen saltuac eta muquerquerijaac oraindino ezin ondo ezi ditut* . ¿Eguin ete davee orraco mundutarroc, san Geronimoc baino penitencia gueijago araguiya goituteco? Bada, san Geronimoc, azotez, alambre zorrotzez ta gosez gau ta egun erdi biloxtuta, uda ta negu basoco luur gainian urte luceetan eziten evan gorputza ta araguiya gaiti dino: *Erroman gaztetan icusi cituban dantza ac eta dantzaarrijac gogora ecarrita, cereguinic asco emoten eutsala berari luxurijaren subac* ¹⁴². 1210

Cristinaubac, inos amaitu ezin leguijan saila da au. Gogoratu daiguzan luxurijac goitu zituban senduac, areequin escarmenteetaco. Baita, luxuriya goitu eveen senduac ta garbijac bere, areen bide santubai jarraituteco. Alan gura izan daguijala Jaungoicua bere misericordia amai bagacua gaiti. Amen.

1197 Etedauquee *Ba* 1198 Etedira *Ba* 1198-1199 Etedauquee *Ba* 1205 etedavee *Ba*
 1209 cer eguinic *Ba*

¹⁴⁰ Ik. Has 30,19-21; 34,1-5.25-26.

¹⁴¹ San Hilarion Gazakoaz dihardu (291-371); honen bizitza San Jeronimok idatzi zuen; San Antonen ikaslea izan zen eta Majuma-ko basamortuan bizi izan zen eremutar legez. Geroago, Txipreko Pahos-ko basamortura joan zen; Palestinako monakotzaren sortzailetzat hartzen da... (B. KÖTTING, *Hilarion v. Gaza*, in LThK 5 (1986) 334). Frai Bartolomek liburu honetan irauriko zuen, beharbada, haren bizitza: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 57-71.or. (Ikonoografiari dagokionez, ik. G. KASTER, *Hilarion von Gaza*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 6.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 531-532).

¹⁴² Frai Bartolomek San Jeronimoren bizitzako gertakari hauek liburu honetan irakur zeza- keen: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 480. or. Oso ezaguna da alde hau, San Jeronimoren ikonografian: R. MIEHE, *Hieronymus*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 6.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 519-529). Ik. *Euscal-errietaco...* 78.oharra (483.or.).

1215

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ceintzuc dirian castidadiaren contraco eguitezco pecatubac.

1220 Jaquin arren cristinaubac, lotsarizco pecatubac bai ceruban, bai impernu-
 ban ta munduban daucan echura ezaina, bildurgarrija ta gorrotogarrija, ez
 badaqui nos jausten dan pecatu gaisto atan, palta dau biarreena. Ta ara emen,
 neure entzulac, icasiquizuna, nos eta celan pecatu eguiten dan castidadiaren
 1225 contra. Onetarico pecatu batzuc dira eguitezcuac edo obrazcuac. Beste batzuc
 verbazcuac. Ta beste batzuc nai utsezcuac. Eguite, esate ta nai izate loi oneen
 artian batzuc dira guztiac pecatutzat dauqueezanac ta errazto ezaututen diria-
 1230 nac. Oneen gainian ez dago asco cer esan. Baina beste batzuc ta ez guichi dira
 eurenz seigarren aguindubaren contraco pecatu mortalac. Ta cristinau ascoc
 aintzat ez dauquezanac, cristinautzaco eracutsija edo dotrinia ez daquijelaco.
 Ezjaquin onec euqui leguiz sustrai asco. Gueijenian izango da, edo *cristinau* -
bac euren jaquin biarrac icasten dendatuten ez dirialaco, edo *biar litzaate* -
 1235 *quian arguijagaz ta erabaguijagaz eracusten ez jacuelaco* . Seigarren aguindu-
 duco pecatubac dirianac¹⁴³ leguez lotsarizcuac bai esateco ta bai entzuteco,
 jazoten da ascotan, beste cristinautzaco jaquin biarrac cura [67] jaunac ta pre-
 dicadoriac ziatz ta arguiro pulpitori predicauta, castidadiaren contraco pecatu-
 bac cristinau pielai eracusteco atzerapena edo lotsia euquitia. Edo gauza naas-
 1240 taubac dirialaco, edo verba ezainen batec aoti urten ez daguijuen bildurragaz,
 edo Erromaco Catecismuac dinuan leguez (51), erremedijuaren lecuban vere-
 nua zabaldu ez daquijen arduraz.

Dan moduban dala, ezin ucatu guinai, aguindu onetan chito ezjaquin¹⁴⁴
 andija daguana cristinauben artian. Au gaiti, conpesinoe asco barristau biar oi
 1240 dira. Ez umeenac bacarric. Baita nausijenac bere. Baita zaarreenac bere. Baita
 gauza jaquina da, onetarico ezjaquinac gueijenac diriala Jaungoicuaeren vegui
 arguijetan pecatuzcuac. Erromaco Catecismuac berac eracusten deuscu celan
 austen dan seigarren aguindu santuba. Ta da eguinagaz, esanagaz ta nai iza-

 (51) P. 3, c. 7, n.1.

1219-1220 ezbadaiqui <i>Ba</i>	1225 ezdago <i>Ba</i>	1227 ezdauquezanac <i>Ba</i>		ezdaquije-
laco <i>Ba</i>	1228 izangoda <i>Ba</i>	1229 ezdirialaco <i>Ba</i>	1234 pielai] pialai <i>Ba</i>	1237 ezdaqui-
jen <i>Ba</i>	1238 ez jaquin <i>Ba</i>	1239-1240 oidira <i>Ba</i>	1243 austendan <i>Ba</i>	

¹⁴³ Harrigarri gertatu zaigu egitura hau; inprimategiko hutsa...? Era zuzena hau litzateke, gure ustez: ...*dirian* leguez lotsarizcuac bai esateco ta bai entzuteco...

¹⁴⁴ "Ezjaquin", hemen, ez da izenondoa, izena baizik, gaztelaniazko "ignorancia", eta ez "ignorante".

nagaz. Edo, esan oi dan leguez, seigarren aguindubaren contraco pecatubac 1245
 dira obrazcuac, verbazcuac ta consentimentuzcuac. Dotrina onetan esango
 deutsut, *ceintzuc dirian castidadiaren contraco eguitezco pecatubac* . Ta gue-
 roco eracutsietan, verbazcuac ta naizcuac. Escatuten deutsut oster bere, cris-
 tinaubac, ceuben oracinoia, entzuteco presta eta garbija ta uste zucena, biar
 dan modestijagaz ta osotasunagaz eracutsi daguizudan ta icasi daguizun, *cer* 1250
dan castidadiaren contraco adulterijua, pornicacinoia, sacrilegijua, senique -
raco pecatuba ta naturaleciaren contracua .

Adulterijua : Adulterijua da, ezconduta da-[68]guanac beste bategaz ara-
 guizco pecatuba eguitia. Bijac badira ezcondubac, guizonezcua ta emacumia,
 orduban dira adulterijo bi. Adulterijoco pecatubac injurietan ditu Jaungoicua, 1255
 matrimonioco sacramentuba ta laguna. Castidadiaren contraco pecatuben
 artian ez da chiquijena adulterijoco pecatuba. Seigarren aguinduban
 Jaungoicua leleengo eragotzi evana da. Lapurretia baino andijagotzat ta ezai-
 nagotzat emoten davee eracuslaac. Beragaz dacaz adulterijoco pecatubac guei-
 jenian escandalubac, zeluac, vitzita galduba ta umiac aita nor daveen ez jaqui- 1260
 tia. Orregaiti legueguinac beguiratu deutsee beti lotsarizco pecatu oni gorroto
 mortalagaz. Jaungoicua aguindu evan bere leguian, guizon edo emacume
 adulterijoguina illteco (52). Cristinautza barrijan, evangelijo santubaren asiera-
 an ez jacon eleisan sartuten isten adulterijoguinari, dino Bona¹⁴⁵ cardenal
 jaquintsubac (53). Aureliano¹⁴⁶ aguindu evan, adulterijoco pecatuba eguiten 1265
 even guizona ta emacumia, alcarri caderetati lotuta, arbola bateti eseguita,
 bijac buruz bera illteco (54). Saxonian emacume adulterijoguina ito eguiten
 even leleengo. Ta guero erre gorputz itua. Ta guero gorputz erriaren gainian
 urcatuten even agaz pecatu eguin evan guizona (55). Egiton azotau eguiten
 even emacume adulterijoguina. Ta guero suurra ebaten eutseen, ezagun izan 1270
 [69] cedin (56). Jaungoicua legue barrijan verba guichiagogaz amaitu evan san
 Paulo apostolubaren aoti adulterijoguinen sailla esanagaz (57), *adulterijogui* -
nac ez diriala ceruban sartuco . Au gaiti veguiratu biar deutsee cristinaubac
 ezcontzaco sacramentu santubari, jagocan garbitasunagaz ta lotsiagaz.

Pornicacinoia . Pornicacinoia esaten jaco, guizonezcua eta emacumiac 1275
 alcarregaz eguiten daveen araguzco pecatu loijari, bijac libriac dirianian...

 (52) Levit. c. 20. (53) Bened. XIV. Sin. Dioc. l. 10, c.1, n. 6. (54) Celio Rodrig. lib.
 10, c. 6. (55) March. Hort. Past. l. 3, trat. 4, Lect. 9. (56) Diod. l.1, c. 6. (57) 1.Cor. c. 6.

1245 oidan *Ba* 1250-1251 Cerdan *Ba* 1257 ezda *Ba* 1263 adulterijo guina *Ba* 1264
 adulterijo guinari *Ba* 1267 adulterijo guina *Ba* 1270 adulterijo guina *Ba* | suurra] susu-
 rra *Ba* 1272 adulterijo guinen *Ba* 1273 ezdiriala *Ba*

¹⁴⁵ Giovanni Bona, zistertarra (bere jaioterri Mondovi-ko monasterioko abadea) eta kardina-
 la 1647. urteaz gero (1609-1674); idazle garrantzitsua izan zen liturgia eta aszetikako gaietan (K.
 SPAHR, *Bona, Giovanni*, in LThK 2 (1986) 579).

¹⁴⁶ Aureliano (Luzio Domizio Aureliano), Erromako enperadorea (270-275).

1280 Persona libriac alcarregaz araguzco gauza loijac eguitia pecatu mortala dana, pedeco erabaguija da. Espiritu Santubac esaten dau lecu ascotan, emacume galdubetati alde eguiteco, pornicacinoeric ez eguiteco. Ta san Paulo apostolubac dino (58), *pornicadoriac ez diriala ceruban sartuco*, ceinegaz eracusten daven pecatu onen anditasuna ta ezaintasuna. Igues, bada, urrin, cristinaubac, Apostolubac dinuan leguez, pornicacinoeco pecatu loijetati.

1285 *Sacrilegijua*. Castidadiaren contraco sacrilegijua da, garbitasunaren esquinija edo votua Jaungoicuari eguinda daucan personiagaz araguzco pecatuba eguitia, nai dala guizona nai dala emacumia votoduna. Baita sacrilegijozco pecatuba da edoceinentzac, eleisan edo lecu sagraduban araguzco pecatuba eguitia bere. Cerubac eta luurac gorroto deutsee sacrilegijozco pecatu loijari.

1290 Bada, bein Jaungoicuari bere naiz esqui[ni]taco gorputceco garbitasuna edo castidadia galdutia ta austia, chito gauza ezai-[70]na ta lotsari andicua da Jaungoicuaren aurrian. Baita munducuen aurrian bere. Ez dago verbaric alaco guizonac nai emacumiac Jesus, virginen Esposo garbijari eguiten deusan injurija ta aintzat eza¹⁴⁷ aitu eraguiteco. Beste aimbeste, eleisaan, Jaungoicuaren

1295 eche bedecatuban, lecu sagraduban pecatu loijac eguitia da guztiz ezaina ta ceru guztiaeren gorrotocua.

Ez daquit au dan lecuba cerbait esateco, orraco eleisapetan ta ermintapetan piesta egunetan ta beste ascotan guizon ta emacume naaste eguiten dituben dantza desonestubac gaiti. Gauza bat esan neique, lecu ascotan eguiten

1300 diriala lotsa guichigaz. Cura jaunac eta errijetaco burubac quendu leguijee Jaungoicuari bere eche santuban eguiten jacon desondra andi au. Castidadiaren contraco sacrilegijo oneec autortu biar dira compesinoeco sacramentuban. Bada, eguite bategaz austen dira legue asco; edo lecu sagraduban pecatu loija eguin davelaco, edo consagrautaco personiagaz eguin davelaco,

1305 edo castidadeco votodunagaz eguin davelaco. Ta eguite bat izan arren pecatuzcua, ceimbat legue austen dituban eguite agaz, aimbeste pecatu eguiten ditu. Ta esan biar dira compesinoian, inor icentau bagaric. Beste aimbeste esaten da adulterijoco ta seniqueraco pecatu loijac gaiti. Oneec bere compesau biar dira, ala ezcondubagaz edo senidiagaz edo senide ezcondubagaz eguin

1310 ziriana.

Seniqueracua. Castidadiaren contraco seniquerazco pecatuba da senidiac alcarregaz ara-[71]guizco pecatuba eguitia. Seniqueria izan leiteque edo berez etorrija edo iraatsija. Berez etorrija da gurasuetati umetara datorrena. Aita ala-

(58) Id. ib.

1287 naidala *Ba* | guizona| guizonia *Ba* 1292 Ezdago *Ba* 1293 Esposo| Espoco *Ba*
1296 gorrotocual| gorrotacoa *Ba* 1297 Ezdaquit *Ba* 1301 eche| echa *Ba* 1304 eguindavelaco *Ba*

¹⁴⁷ "Aintzat eza": gutxiespena, mespretxua.

bac, ama semiac, neva arrebac, lova osabac edo izecuac, leengusu leengusi- 1315
 nac, ta alan beste ondorenguc laugarren gradu edo belauneraguino. Iraatsija
 esaten jaco ezcontzati datorren seniquerari. Coinatu coinatac senide dira. Baita
 coinatiaren berezco senidiac bere coinatubaren senide dira. Ta coinatubaren
 senidiac dira coinatiaren senide iraatsitaco seniqueran. Norberaren odolari jao- 1320
 can lotsa ona edo errespetua gaiti eragotzita dago, seigarren aguindubaren gai-
 nera, senidiac alcarregaz pecatu eguitia. Bautismo santuti dator beste senique-
 ra bat batiatuten danaren, aren gurasuen ta aita ta ama besuetacuen artian jai-
 jua. Oni esaten jaco espirituzco seniqueria. Seniden arteco araguizco pecatu-
 bac autortu biar dira, bada, compesinoian. Ez bacarric pecatu eguin dana,
 ezbada baita senidiagaz ta ce gradutacuagaz eguin dan bere. Araguizco peca- 1325
 tuba noberagaz eguin davenaren bigarren graduraguinoco senidiagaz ezin inor
 ezcondu leguiteque, ezcontziac balijo davela, Eleisiac seniqueraco catiguba
 quendu bagaric. Cura jaunac euren eracutsijetan ta compesore jaunac euren
 erabaguijetan au goguan euquijagaz, uste dot, balijo bagaco ezcontza ascori 1330
 atia ichico leusquijuela.

Naturaleciaren contracuac . Naturaleziaren contraco pecatubac esaten
 jacue beste castidadiaren contraco pecatu batzubei. Ta dira iru [72] moduta-
 cuac: 1. Noberac bacarric bere gorputzian eguiten ditubanac. 2. Ganadubagaz
 eguiten dirianac. 3. Sodomatarren pecatuba esaten jacuenac.

1. Noberac bacarrian gusto loijac gorputzari emotia bere naiz pecatu morta- 1335
 tala da, bai ezcondubentzat ta bai libreentzat. Ta ceimbat bidar eguin daven,
 aibeste pecatu mortal eguin ditu. Ta gogora ecarri al daguizan guztiac com-
 pesau biar ditu. Onaco naturaleciaren contraco pecatu ezainen gorrotua era-
 cutsi euan Jaungoicuac, Her eta Onan¹⁴⁸, anae bi alaco pecatubac gaiti ill ta 1340
 impurnura bota citubanian (59). San Paulo apostolubac beste pecatu andi ezain-
 nen artian contetan dau noberaren gorputzagaz eguindaco pecatu loija ta alde-
 ratuten dau ceruti (60).

2. Ganadubagaz pecatu eguitia da guztiz gauza deunguia. Pedia ucatutia- 1345
 ren urrera elduten dana, esaten davee eracusla batzuc, errazoezco arima bago-
 co ganadubagaz bat eguiten dalaco. Asco da gogoratutia, legue guztiac agu-
 duten daveela, ganadubagaz pecatu eguiten daven guizona edo emacumia ill-
 teco. Baita legueguin batzuc, ganadubagaz beragaz plazaan vitziric erreetaco
 bere.

 (59) Genes. 38. (60) 1. Corint. c. 6.

1315 izecuac| izacuac *Ba* 1325 ez bada *Ba* 1329 ustedot *Ba* 1337 eguinditu *Ba* |
 aldaguizan *Ba*

¹⁴⁸ Ik. Has 38,6-10. Ik. 25.oharra (924.or.).

1350 3. Sodomatarrena esaten jacon pecatu loija da, guizonezcuac guizonezcua-
 gaz ta emacumiac emacumiagaz lotsarizco pecatuba eguitia. Esaten jaco *sodo-*
matarrena, erri madaricatu areetaco gentiac alan pecatu eguiten eveelaco¹⁴⁹.
 Jaungoicuac onetarico pecatubac gaiti erri zorigaistoco areetan eguin [73] zitu-
 1355 ban castigubac ta ichaso ill arre eguinda erri areec gueratu ziriana, esan da
 bostgarren icasiqizunian. Pecatu andija ta chito ezaina da guizonezcuac gui-
 zonezcuagaz ta emacumiac emacumiagaz gusto loijac artutia. San Paulo apos-
 tolubac, beste esan dirianac leguez, alderatuten ditu ceruti alaco errazoiaren ta
 naturaleciaren contraco pecatari loijac¹⁵⁰.

Castidadiaren contraco eguitaden artian contetan dira, neure entzula onac,
 1360 esan dirian pecatuben gainera, mosuca loijac, escuca loijac, oratute loijac ta
 beste araguijari gusto emoteco azalquerija loijac. Onaco eguite laban, loi ta
 ezainac gaiti esaten da, cristinaubac, ezauberaz ta naiz araguijaren gusto loija
 gaiti izan ezquero, nai eguitia ta nai eguiten istia pecatu diriala (61).
 Adisquidetasunaren ta usadijuaren icenagaz cristinau ascoc garbitu gura oi
 1365 ditubee onetarico pecatu mortalac. Baina engainetan dira. Natureleziaren le-
 guiac ta seigarren aguindu santubac eragotzita dauquez ezcontzati camporaco
 ta noberaren ezauberazco ta naizco araguijaren gusto loi guztiac. Legue santu
 oneen contra ez dago adisquidetasunic. Ez dago usadijoric ta ez dago estal-
 guiric, mosuca, escuca, oratute ta beste azalquerija desonestubac pecatuti libre-
 1370 tan ditubanic. Ez engainau, bada, cristinaubac.

Esan dirian castidadiaren contraco pecatu modu guztietan contuba equi
 biar da compesinoian autortuteco ezconduba dan, senidia [74] dan, persona
 consagrauba dan, edo garbitasuneco promesduna dan ta lecu sagraduban dan
 edo ez dan. Bada, leen aitatu dan leguez, onacuen pecatu loijac ta oneequin
 1375 eguindacuac beti daroie euraquin aparteco legue austia, luxurijazco pecatubaz
 ostian, edo encontziaren contra, edo seniqueraco odolaren contra, edo ordia
 sagracubaren contra, edo erliginoeco ontasunaren contra, edo lecu sagraduco
 santidadiaren contra. Au berau esaten da nai utsezco pecatu loijac gaiti. Bada,
 nai utsezcuca edo consentimentuzcuca izan arren, pecatarija ceimbat leguegaz
 1380 catiatuta dagan, aibeste pecatu eguiten ditu, nai bategaz guztiac austen ditu-
 banian. Ta esan biar dau compesinoian ceimbat legue ausi dituban edo ceim-
 bat leguegaz catiatuta eguan, ondo conpesauco bada.

 (61) Alexand. VII, prop. 40.

1353 zori gaistoco *Ba* 1354 esanda *Ba* 1355 chito] chico *Ba* 1364-1365 oiditubee *Ba*
 1365-1366 leguiac] leguijac *Ba* 1368 ezdago *Ba* | Ezdago *Ba* | ezdago *Ba* 1372
 biarda *Ba* 1374 ezdan *Ba* 1375 luxurijazco] luluxuriazco *Ba*

¹⁴⁹ Ik. Has 19,1-9.

¹⁵⁰ Ik. 1Ko 5,1-5; etab.

Jaso daiguzan, cristinaubac, luurrezco gauza oneetati cerurutz gueure
 veguijac. Eldu gaitazan Ama Virginia guztiz garbijaren oinetara. Escatu daijogun 1385
 cerubetaco Erreguinari espirituzco atseguinen ta gustuen gosia, luurreco gusto
 ezain oneen gogobetia ta arimaco ta gorputceco garbitasuna ta beti bere crija-
 du ta crijada leijal ta garbi izateco gracia. ¡Oh, Virginia ederra! ¡Oh, Virginen
 Erreguina ta Ama! Jadiichi eguiguzu bardin bagaco mesede au Jesus ceure
 Seme matiaganic, ceure ta beraren naijan mundu onetan vitzi gaitazan. Ta 1390
 guero beti ceruban maitetu daigun ceugaz Jaungoico beticua, Aitia, Semia ta
 Espiritu Santuba. Amen.

[75]

VIII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Verbaz nos austen dan seigarren aguinduba.* 1395
2. *Nai utsez edo consentimentuz nos austen dan.*

I.

Lotsarizco pecatuba eguitari darraico gueijeenan, neure cristinaubac, lee-
 nago edo gueruago verba nasaijac ta indecentiac esatia. Alan eguiten dira peca-
 tu mortal asco verbaz castidadiaren contra. Verba desonestubac euraquin 1400
 daroie beti escandaluco pecatuba. Ta ceimbat¹⁵¹ lagun gueijagoren aurrian esa-
 ten dirian, aimbat eguiten dira pecatu gueijago. Ezin ucatu guinai, ta lastima
 gorrijan edo negargarri andijan laarregui dacusgu, cristinauben auetan atertu
 bagaric davilela lotsarizco pecatubaren verbia. Zaar ta gazte, ezcondu ta
 ezcontzaca, guizon ta emacume asco, zein garbijago dirian esan ecin legui, 1405
 euren miin loijai beguiratu ezquero. Batac dino, *barre eraguitiarren esan
 evala*. Bestiac, *gach bagaric esan evala*. Bestiac, *chantzan esan evala* ... Baina

1385 gaitazan] gaitetan *Ba* | garbijaren] garbijarren *Ba* 1389 Jadiichi] Jadjichi *Ba* 1390
 maitiaganic] Mantiaganic *Ba* 1331 Semia ta] ta Semia *Ba* 1395 austendan *Ba* 1396 aus-
 tandan *Ba* 1398 darraico] darriaco *Ba*

¹⁵¹ Frai Bartolomek honelako egitura erabili ohi du konparatibo hauetan: *ceimbat lagun guei
 jagoren aurrian... aimbat...*, eta ez orain bizkaieraz zabalago dabilen, "zenbat eta lagun gehia-
 goren aurrean egon, hainbat... Erreparatu joskerari ere: ... *aimbat eguiten dira pecatu gueijago*;
 eta ez, beharbada, orain idatziko genukeen: "... hainbat pekatu gehiago egiten dira".

- beti berdequerija ta verba lotsarizcuac auan. Baina beti amodijo loizco jazuac, adisquidetasun lotsarizcuac, ipoin verdiac, burla desonestubac, chantza edo
 1410 iten¹⁵² araguizcua ta castidadiaren contraco panparrerijac auan. ¿Esango dogu oneec gaiti vijotz garbijac dauqueezala? ¿Cristinau garbijac diriala? ¿Castidadia maite da-[76]veela? Ezin esan guinai. Vijotceti urteten davee verba desonestubac. Ta sarritaco verbac eracusten davee celacua dan vijotza. Verba garbijac eracusten davee vijotz garbija. Ta verba loijac vijotz loija.
- 1415 ¿Ta compesetan ete ditubee cristinaubac euren verba loizco pecatu mortallac? ¿Ceimbat bidar esan ditubeen? ¿Ceimbat lagunuen aurrian esan ditubeen? ¿Umen aurrian esan ditubeen? ¿Gazteen aurrian esan ditubeen? ¿Ceimbat urtian verba loijac esateco ecandu galduba dauqueen? ¿Gogoratu ete jacue, dinot, alaco cristinau ao loidunai compesinoeco sacramentu santuban euren conciencijac azaldetia ta verba loizco pecatubaz ziatz ta sustraiz autortutia? Eurac jaquingo davee. ¡Oh! Ez ditezala jua, Jaungoicua dana dalaco, betico subagaz ta negarragaz impurnuban autortutera. Nic san Paulo apostolubagaz esan neguijuena da (62), *euren verba loijaquin cristinauben arteco oitura garbijac ezaindu ta galdu eguiten ditubeela*. Nic esan neguijuena da san Basiliogaz
 1420 (63), *pozura arri bat botetan davenac pozuco ur guztiari eraguiten deusant leguez, verba loija edo desonestuba esaten davenac, entzuten daveen arima guztiac berez loituten ditubala*. Alaco ao loija daucanari nic esan neguijona da, diabruben opicijua eguiten davela. Diabruben cereguina da inor pecatuban jausteco eria prestetia. Bada, verba loijac esaten ditubanac, aurrian daucazan
 1430 guztiai emoten [77] deutsee era presta, gauza desonestubac gogora ecarrijaz, castidadiaren contra pecatu eguiteco. Verba loija entzun davenac pecatu eguin ez badau, ez esquerri a esan davenari, ez bada Jaungoicuaren gracijari, ceinegaz goitu daven ao loijac imini deusant tentacinoia edo pecatuco eria. Au gaiti esaten dau Aita Burdalue jesuita zelotsubac (64), *verba loijac esaten dituban*
 1435 *cristinauba, deungago dala eche baten edo erri baten, impurnuco demoninua baino*.

Verben artian sartuten dira cantac. Cantac batzuc dira onac. Beste batzuc ez deungac. Ta beste batzuc chaarrac eta pecatuzcuac. Jaungoicuaren, Jesus maitiaren, Ama Virginiaren, santuben ta Eleisiaren cantac onac, gozuac ta gracijosuac dira. Ceruban bere cantetan dira. Eleisan bere bai. Belengo Portalian edo ganadu lecuban bere cantau zituben ainguerubac Jesusen jaijotzan¹⁵³. Cantau, bada, zubez bere, cristinaubac, onaco cantac, nai dozunian. ¡Ojala,

 (62) 1.Corint. 15. (63) Lib. de virgin. (64) Tom. Serm. de la torp.

1415 eteditubee *Ba* 1428 Diabruben] Dlabruben *Ba* | cer eguina *Ba* 1432 ez bada
Ba 1442 naidozunian *Ba*

¹⁵² "Iten": broma, txantxa.

¹⁵³ Ik. Lk 2,8-13.

ceuben miinac onetan cansauco balira! Canta, euren ez on ta ez deunga
dirianac esatia edo cantetia, inor gachera ecarteco uste bagaric, ez dago era- 1445
gotzita. Ta ascotan izan leiteque gauza ona. Onen gainian ez dago cer esanic.

Baina canta ezainac, eragotzizac ta pecatuginac dira, araco amodijo ta cari-
no loizco verbac dauquezanac. Adiera ascotaco esanez, ipoin ta jazo loiz, bera-
rijaz asmauta ta jantzita dagozanac. Onetarico verbaz ta esanez, [78] luxurija- 1450
ren ixiogarriz ta arimen illgarriz gaixotuta dagoz dempora triste onetan cristi-
nau ascoren vijotzac eta miinac. Impernuco espiritu loijac aguertu dituban astu-
cijac dira oraingo gentiaren cantaric gueijenac, pecatuco sarian asco igarri
bagaric arimac sartuteco. *Canta loijac esaten dituban auac*, dino san
Ciprianoc, *basilisco verenotsu batec baino vereno gueijago zabalduten davela*,
entzuten daveenen vijotzetara. Pecatu andija ta ascori pecatu eraguiteco vidia 1455
da, neure cristinaubac, canta desonestubac cantetia. ¿Ta onen ondoric ez da
lotsari andija izango, avemarija ez daquijen ume conduai canta indecentiac eta
loijac entzutia? ¿gurasuac esaten istia euren umiai? ¿Edo eurac pena bagaric,
barre eguinda, cantetia? Au guztiau jazoten da. Onan su emoten jaco luxurija 1460
impamari. Ta onan lotsatuten da lecuban lecuban gueure sinistute ta cristi-
nautza garbija ta santuba. Jaquin bada, cristinaubac, sarri pecatu mortala egui-
ten dala verbaz ta cantaz castidadiaren contra. Baita nai utsez edo pensamen-
tuz bere. Icusi daigun celan.

II.

Pensamentuba edo burutacinoia edo gogoracinoia guztia da bat. Gogora 1465
edo burura edo pensamentura jatorcon gauzia ona bada, a goguan euquitia,
pensetia ta nai izatia bere ona da. Baina bada gauza eragotzija, chaarra ta peca-
tuzcua gogora jatorcona, a pensetan ta agaz gusto artuten ezauberaz ta bere
naiz [79] egotia bere, chaarra da ta pecatu da. Ara emen pensamentuzco edo 1470
consentimentuzco pecatu guztien sustraija. Ara emen milla concienziaco duda
ta quezcaren asipena. Adanen ume, pecatu eguin davenec, munduban ondo
ezaututez amaitu ez daven gacha da au, neure cristinaubac. Burutacinoia dan
leguez guztiz arina, ain laster ceruban nai impernuban, etorquizunian nai ira-
guan, aguinduban nai eragotzijan, gauza onian nai chaarrian davilena, ino-
bere guztiz esiric imini ezin leguijo burutacinoiari edo pensamentubari. 1475
Ascotan, gueu contuban jausi orduco dua gure pensamentuba uste ez dogun
lecura. Beste ascotan, nai ez dogun lecura. Ta ez guichitan, biar ez dan lecura
ta pecatu dirian gaucetara. Ta au jazoten jacu edoecin aguinduren contra.
Emeti dator cristinau ascoren penia ta arduria, ia pecatuzco pensamentu edo 1480
burutacinoe ari ezauberaz goguan lecu emon deutsan eta nai izan daven; ala

1447 pecatu guinac Ba 1456 ezda Ba 1457 ezdaquijen Ba 1476 ezdogun Ba 1477
ezdogun Ba | ezdan Ba 1479 ia| Ya Ba

contuban jausi danian, quenduteco aleguina eguin daven. Bada, ezauberaz nai izan badau pecatuzco pensamentuba, eguin dau pecatu. Ta contuban jausi danian quenduteco aleguina eguin badau, ez dau eguin pecatu. ¿Celan ezautuco dogu, bada, alaco lasterreco burutacinoe pecatuzco bat ezauberaz nai izan dan ala ez dan? ¿Goguan noberaren naiz lecu emon jacon ala ez jacon? ¿Consentidu dan ala ez dan? ¿Celan jaquingo dogu nai utsezco pensamentuz nos pecatu eguin dogun edo ez dogun?

[80] Oni erantzuteco esaten da, neure cristinaubac, castidadiaren contraco pensamentu edo burutacinoetan gauza batzuc dagozala erabaguijac, ta beste batzuc dudacuac edo destajucuac. Erabaguijac dira:

Leleengo pensamentu edo burutacinoe loijac gogora etortia ez daguala ascotan noberaren escuban. Nai ez davela bere etorri leguijozala cristinaubari gogora.

Bigarrenian : alaco pensamentu ta castidadiaren contraco tentacinoiac sarri etorri arren gogora, jazo leitequiala pecatu mortalic ez eguitia Jaungoicuaeren gracijagaz ta laguntasunagaz, santu ta santa ascoren vitzizetan iracurten dan leguez.

Irugarrenian : Noberac ascotan berarjaz ecarri oi ditubala gogora gauza desonestubac, eurac pensetan ta gusto artuten egoteco. Beste batzubetan, noberac erruba daucala ta noberac etorbida emonda oi diriala alaco penseta ezainac ta araguijaren tentacinoiac. Araguizco gauza ezainac goguan erabiltia gaiti ta areetan gusto artutia gaiti beste bagaric, nobelac, comedijac ta liburu loijac iracurten ditubanac; onestidadia manchetaco icusgarrijetan ardura bagaric veguijac zabalac daucazanac; canta ta verba desonestubac gustoz esan ta pozic entzuten ditubanac; comedija ta nasteco dantcetara bere guraz doianac; apaindurija laarreguija ta decencija guichicua bere gorputzari iminten deutzanac; onaco cristinaubac, dinot, nai andiquijac, nai nequezarijac, nai ezcondubac ta nai libriac, berac dacaz bere burura pensaquizun loi guztia. Be-[81]rac dauca guztien erruba. Berac etorbida emon deutsee. Berac nai ditu dirianac.

Laugarrenian esaten da, dirurijanez ta teologija sagradubac Eleisaco Gurasuaquin esaten davenez (65), alaco cristinau nasaijac, castidadia galduteco ocasinoe jaquinetan premina bagaric ta pena bagaric gorputzaren gustoz ta atseguinez davilenac, bere bacarreco pensamentu ta burutacinoe desonestubetan edo, eurac esan oi daveen leguez, araguijaren tentacinoetan eguingo davela pensamentuzco edo consentimentuzco pecatuba castidadiaren contra. Alaco

(65) S. Juan Crisos., Hom. 17. in Math. S.Agustin., de Trinit. l.12., c.12, n.18. S.Thom., 1. 2, q. 74, a 6.

crisinaubac ez davee diabruric biar, tentacinoe loijac gogora ecarteco. Eurac 1520
 dira euren aragujaren viztugarrijac ta arimiaren illgarrijac. Beti nai davee ala-
 cuac, luxurijaren maija prest egon dedin, lotsarizco gauzac edo esateco edo
 entzuteco edo eguiteco edo penseetaco. Orregaiti dauquez eguitezco, verbaz-
 co ta nai utsezco pecatu mortal asco castidadiaren contra. Beguiratu, cristinau-
 bac, celan eguiten dozun examina concienziacua. Ta celan compesetan zarian.
 Edertuta, guichituta, dudacotuta¹⁵⁴, apainduta, nai ez dituzun tentacinoe batzuc 1525
 balira leguez compensau oi dituzu ceuben pensamentu ezauberazco ta naizco
 pecatu loi ezainac. Ta ez guichitan, izango dira egunian asco. ¡Oh, zorigaisto-
 co desventuraubac! ¡Su [82] onduan gura zenduque egon berotu bagaric?
 ¡Basatzen sartuta loitu bagaric? ¡Ibaijan sartuta busti bagaric? Au ezin leiteque.
 Ezda zubez bere alaco pensaquizun loi jaquinetan gogoagaz ibili, pecatu 1530
 eguin bagaric.

Bostgarrenian esaten da beste arima batzuben consueloraco, cristinauba
 vizi bada Jaungoicuaren bildur santubagaz, pecatubaren gorrotuagaz ta arimia
 salvetaco ardura andijagaz; gordetan baditu beste aguindubac aimbat ziatzen;
 descuiduan pecatu mortal baten jausten darian laster badua compesetara, ari- 1535
 mia garbituta Jaungoicuagaz baquiac eguitera; pena gueijago ta bildur gueija-
 go emoten badeutsa vijotzian pecatu mortalian egotiac, munduco gauzac gal-
 dutiac baino; ta bada bere verbetan, jantzijan, egotian ta lagun arteco ibili ere-
 tan garbija, jasua, modestijazcua ta ocasinoe gaistuetati alde eguiten davena,
 sinistu daiquegu au gaiti, pensamendu loi ta ichusi asco ta sarri etorri arren 1540
 gogora, ez dala beinguan pensamentuzco pecatu mortalian jausico. Ta descui-
 duan jausten bada, jaguico dala laster. Alaco arimac Jaungoicuac bere escuti
 daucaz. Tentacinoiagaz emoten deutsee bere gracia a goituteco. Ta bestiac gal-
 duten dirian lecuban, alaco arima Jaungoicozcuac ta pecatubaren bildurtijac
 irabatzi eguiten davee. Onei esaten jacue, ez daguijezala ichi inos bere com- 1545
 pesau bagaric euren burutacinoe edo tentacinoe desonestubac. Ez ditezala
 sartu pecatuco ocasinoetan euren guraz premina andi ba-[83]garic. Ta escatu
 daguijuela Jesus maitiari ta Ama Virgina guztiz garbijari tentacinoiac goituteco
 gracia.

Seigarrenian esaten da: Pensamentu loijac noberac berarijaz burura ecarri 1550
 ez arren ta etorbideric noberac emon ez arren, etorten jacozanian contuban
 jausita, ya pecatuco tentacinoia dana ezaututa bere naiz badago gauza loijac
 pensetan, aragujari gusto emoten ta atseguin artuten, dempora guichijan izan

1519 ezdavee *Ba* 1520 viztu garrijac *Ba* | naidavee *Ba* 1525 ezdituzun *Ba* 1526
 oidituzu *Ba* 1527-1528 zori gaistoco *Ba* 1528 gurazenduque *Ba* 1530 Ez da *Ba* 1532
 esatenda *Ba* 1541 ezdala bein guan *Ba* 1545 ezdaguijezala *Ba* 1546 Ezditezala *Ba* 1552
 ya] ija *Ba*

¹⁵⁴ "Dudacotu": dudan edo zalantzan jarri.

1555 arren, eguin dau pecatu. Tentacinoe gaistua etorri jacola ezautu davenian, laster Jaungoicuari, Ama Virginiari, aingueru onari edo santuben bati escatu badeutsa gracia ta socorruba; edo eguin badau beste gauzaren bat buruti a quenduteco ta tentacinoia goituteo, esaten da ez davela pecaturic eguin izango. Baina oneec guztioe dirian leguez chito laster vijotzian irago leitequezanac ta irago oi dirianac, esaten jacue cristinau piel guztiai, autortu daguijezala

1560 arguiro compesoriaren oinetan castidadiaren contra etorri jacuezan burutacinoe ta tentacinoe guztia. Isten baditubee compesau bagaric, edo lotsaz edo pecatu ez dirialacuan, sarri engainuco ditu etsaijac alaco cristinaubac. Bada, eracusla ascoc dinuen leguez, eguija bada seigarren aguindu santubaren contra berez pecatu venialic edo gauza guichiric ez daguana, edo ceinec dacuts ce

1565 arriscu andijan dagan gueure arimaco gracia pensamentuzco pecatubetan bertan. Ta au asco izan dedilla oneen gainian.

Erromaco Catecismuac iminten ditu aguin-[84]du onen azquenian luxurijaren sugarrijac. Ta dira: Alperrerija, ardao laarreguija, veguijetaco libertadia, emacumen apaindurija armatuba, verba ta canta desonestubac, dantzaac, pintura indecentiac ta iracurte loijac. Baco chac *eracutsi* bana biar leuquee oneec, cristinaubari aituten emoteco ondo castidadiaren contra eurac dauquen indarra ta verenua. Baina ya orduba da lotsarizco sail oni guiltza emoteco. Jaungoicuac zucendu daguizala aguindu onetaco verba ta esan guztia bere ondraraco ta gueure arimen oneraco. Au escatu biar deutsagu, neure entzula

1575 onac, Jesus gueure Salvatzaille maitiari, bere Ama eguijazcuaren, garvijaren, virginiaren ta santiaren erraija bigunac ta amodijo santuba gaiti. Emon daigula castidadiaren doia. Emon daigula garbitasunaren gurari sutsuba. Emon daigula pecatu ezainaren, lotsarizcuaren, loijaren, araguizcuaren, cerubac gorroto nausija deusanaren, impenuco erregarri nausijaren ta mundu ondazaillaren,

1580 luxurijaren gorroto biarrecua. Emon daigula miineco, veguijetaco, jantzico, escubetaco, gorputzeco ta vijotceco onestidadia, cristinautasuna, eldutasuna ta garbitasuna. Emon daigula, castidadia galduteco ocasinoc impametati, ordiquerijetati, emacume dantzaarijetati, cantarijetati, nasaijetati, comedijetati, dantza naastaubetati, iracurte desonestubetati, jantzi indecentetati ta lagun chaarreti alde eguiteco gracia. Au gura izan daguijala cerubac. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

1554 eguindau *Ba* 1557 esatenda *Ba* 1559 oidirianac *Ba* 1564 edo ceinec *Ba* 1569-1570 pintura] pintutura *Ba* 1572 ya] ija *Ba*

[85]

IX. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Virginidadiaren edertasuna.* 2. *Castidadiaren balijua.*

Ya urten dogu, neure cristinaubac, leengo egunetaco izungura¹⁵⁵ atsitubetati. Ya ez dauque belaarri garbijac verba ezainac ta lotsarizcuac entzun biar dituben penaric. Ya ez dauquee cetan cansau gueure adilliaren veguijac, luurreco gauza naastaubai ta ichusijai beguira. Ya estalgui baten azpijan ezcutautata gueratuten dira araguzcuentzat, seigarren aguindu santubac eragozten dituban ustelgarri, esaten ta entzuten gachac. Ya ez dauca miinac nequeric, araguzco eguite lotsagarrijen ta esan zatarren ezaubera biarrecua cristinaubari emoteco, verba ez ezainac billatuten. Ya ichi ditugu atcera lengo *eracutsijetan*, patari guztiac edatera juanda, loitu dituben pozu verdiac; ganadu guztiac sartuta, muchicauta, zapalduta, ziquinduta ichi dituben ortubac; ta araguijaren preso guztiac lo eguinda, atsituta dagozan lezaac. 1590

Zabaldu veguijac, zurtu belaarijac, alegrau vijotza, poztu gogua ta veguiratu cerurutz, neure cristinaubac, chaloca, virgineen canta barrijac entzutera. Lora eder utsezco ta usain gozoco jardin edo ortu ichi bat da virginen echia. Ez da cale aldetan, erreca aldetan edo erverreetan¹⁵⁶ iminija. Ez da virginen hortuba [86] gentiaren arnasiac, bidetaco autsac edo basiac edo ur onduetaco lausuac eta laino astunac zetacatuba, zimelduba edo orri igartuba. Siongo mendijaren gainian (66), eguzqui ederrac ta aise prescuac esquina guztietati joten davela dago virginen ortu aleguere, eder, encantagarrija. Ceruco euri gozua ta iruntz biguna baino beste erragarijoric ez dauquee virginen loraac. Campo santu gracijoso onetara jaso biar dogu bada, neure cristinaubac, gueure gogua eracutsi onetan. Ojala baneuca nic san Ambrosio baten, san Geronimo baten, san Basilio baten, Crisostomo baten edo Agustín baten ceruco espirituba, arguija ta gracija, gorputzetzco aingueruben andiarijac ta ondo esanquizunac zubei aitu- 1595 1600 1605 1610

(66) Apocal. 14.

1590 Ya] Ija Ba 1590-1591 atsitu betati Ba 1591 Ya] Ija Ba | ezdauque Ba 1592
Ya] Ija Ba | ezdauquee Ba 1593 Ya] Ija Ba 1595 Ya] Ija Ba | ezdauca Ba 1597
Ya] Ija Ba 1603 Ezda Ba

¹⁵⁵ "Izungura": ur geldituzko urtegia, aintzira; (hemen, leku zikin eta higuingarria esan nahi du batez ere).

¹⁵⁶ "Erbera": herriaren behealdea, ibarra, batez ere erreka ondoan dagoena; (gaur egun ere Etxebarrin eta inguruetan asko erabiltzen den hitza da).

1615 ten emoteco. Liburu andijac escribidu cituben areetati bacoachac, virginidade
 santa ederraren ondo esatez aspertu ezinda. Aingueruben miinac biar litzate-
 quez gorputzezco aingueruben, virgina eguijazcuen eguitadiac esateco.
 Pensaquizun batzuc gogoratuco deutsudaz bada, neure entzula onac, eracutsi
 onetan virginidade santiaren gainian neure moduban, alabau daguizun Jesus,
 1620 ceruco Erregue Jauna bere esposa garbijetan. Prestau zaitez entzunera onagaz.

1. Leleengo jaquin biar da, cer dan virginidadia. Virginidade eguijazcua ta
 ondo esatia mereci davena da, neure cristinaubac, *Jaungoico Santubaren ice -*
nian ta ondran gorputza osoric ta garbiric gordetia; arimaco ta gor -[87]putce -
 1625 *co garbitasunaren ta osotasunaren amodijua gaiti beti virgina iragoteco ta vizi*
izateco uste osuagaz. Ez da orain aita dogun virgina eguijazcua, bere aldeti
 gorputza osoric gordetan ez davena. Ez da virgina eguijazcua, gorputceco oso-
 tasuna gorde arren, gogo garbija ta arima garbija ez daucana. Ezda gorputz ta
 arima oso ta garbi vitzi dan artian gordetaco gogo edo uste betia ez daucana
 bere. Ezda Jesus virginen Esposo eguijazcuaren ondria ta amodijua gaiti bacar-
 1630 rric virgina ez dana bere. Au da virginidade eguijazcuaren ezaungarri edo izate
 noraececia, bai emacumentzat ta bai guizonezcuentzat.

2. Virginidadia gordetaco aguinduric edo legueric ez deuscu imini
 Jaungoicua. Au gauza jaquina da evangelio santuban¹⁵⁷, san Pauloren cartetan¹⁵⁸
 1635 maitiac virginidadia gordetia. Convidau gaitu Jesusec virgina izatera. Esan
 deuscu, gueu atara dendatu ezquero izan gueintequezana. Baina ez gaitu ain
 lan gacheco leguepian imini. Estimetan dau Cerubac virginidadia. Nai dau guc
 gordetia. Baina ez berac aguinduta, ez bada bere amodijua gaiti gueuc nai
 dogula. Gueuc auqueratuta.

1640 3. Jaungoicuaen naijagocua da virginen vicieria edo estaduba, ezcondu-
 bena ta alargunena baino. Au bere gauza erabaguija da Joviniano¹⁵⁹ ta beste

1620 entzun era *Ba* 1621 biarda: ¿Cerdan *Ba* 1625 izateco] ezateco *Ba* | Ezda *Ba*
 1626 ezdavena. Ezda *Ba* 1628 vitzidan *Ba* 1632 ezdeuscu *Ba* 1636 ezgaitu *Ba* 1638-
 1639 naidogula *Ba* 1640 naijagocua] naijogocua *Ba*

¹⁵⁷ Ik. Mt 19,10-12.

¹⁵⁸ Ik. 1Ko 7.

¹⁵⁹ Joviniano (406. urtea baino lehenago hila); hasieran aszeta izan zen, 385. urtean Erromara joan zen, eta bere ideiak zabaltzeari ekin zion: ezkontza, alarguntza eta birjintasuna balio berekoak dira Jainkoaren aurrean; bataioan fede osoz berpiztu direnak ezin dezakete gehiago bekatu egin; Jainkoaren aurrean egiten diren merituei dagokienez, berdin da barau egitea nahiz Jainkoari eskerrak emanez janariaz gozatzea; bataioan irauten duten guztiek sari berbera izango dute zeruan. Ambrosiok, 390eko Milango sinodoan gaitzetsi zituen Jovinianoaren adierazpenetarikoa batzuk; gauza bera egin zuen Erromako sinodo batek Siricius Aita Santuaren ardurapean. Honorio enperadoreak erbesteratu egin zuen 398ko martxoan. S. Jeronimok ere "Adversus Iovinianum" izeneko lana idatzi zuen 393an (H. ERHARTER, *Jovinianus*, LThK 5 (1986) 1147-1148).

eregen contra. Gorputzeco ta arimaco osotasunagaz ta garbitasunagaz vi-[88]zi dan artian, Jaungoicua gogoz ta vijotz osoz serbidutia da cristinautzaco viziera edo estaduric altubena, lelengua, ederrena, estimaubena, gracijotsuena ta ceruco Erreguiaren gogocuen. 1645

4. Virginidade eguijazcua ez da topetan cristinautzati edo Eleisa santati campora. Gentilac, moruac, ateistac edo Jaungoico bagacuac ta eregiac ez davee ezaututen ta ez davee gordetan virginidade eguijazcoric. Eguija da, gentilen artian topetan dira asco, gorputceco osotasuna edo virginidadia empeinu ta estimacinoe andijagaz gorde daveenac. San Geronimoc contetan ditu onetario guizon eta emacume asco arrigarrizco jazuquin (67). Baina oneen virginidadia edo zan naturaleza utsezcua edo zan puntuzcua edo zan mundubac aguinduba. Palta evenen Jaungoico eguijazcuaren sinistutia. Ta ez evan euren virginidadiac cerurutz igoten. Arritu evenen munduba, euren gorputzai naturaleciaren gustuac ucatubagaz. Baina ez evenen irabazi ceruco amodijua, cer gaiti edo nor gaiti gorde biar evenen ez equijelaco. Au gaiti esaten da, Eleisa eguijazcuaren ezagungarri aguiari bat dala virgina eguijazcuac euquitia Jesusen ondra ta amodijua gaiti. Ez da, bada, gauza andija, eregiac ta Eleisa santiaren arerijuac virginidade eguijazcuaren arerijuac izatia. Loijac dira gorputzian ta ariman Eleisa santati campora dagozanac. Ta loitu gura lituquee guztia. Baina Jaungoicuaren se-[89]miac, guizon eguitera mundura etorri zanian, dino san Geronimoc (68), ornidu evan munduban pamelija barrija, ceruban ainguerubac adoretan daveen leguez, bere anditasuna luurrian adorau daguijen. Oneec dira Jesusen virgina ederrac, munduco gorputzeco ainguerubac. 1650

¿Baina cer da virginidadia? ¿Edo, cer da virgina izatia? San Paulo apostolubac esaten deuscu, neure cristinaubac (69), *virginen ardua ta contu guztia dala, celan ceruco Esposuaren, ceruco Erreguiaren, Jesus maitiaren naija eguingo daveen gorputz ta arima garbi ta santu beti izateco*. ¡Oh, ce pensaquizun maitegarrija! ¡Oh, virginen eguiquizun zorijonecua ta beticua! ¿Cer gueijago eguiten davee ainguerubac ceruban? Beguiratu bequijo virgina eguijazcuari luurraren gainian. Ta guztia da garbija, guztia santia, guztia cerutarra. Arimia Jesusen escubetan ichi dau bere nai ta adiera guztien guiltzagaz. Penetan bada, Jesus bere Esposo maitiarentzat gauza guichi daucalaco penetan da. Nai lituque euqui milla vijotz garbi ta vijotz bacoheraco milla lore eder, guztiaquin usain gozoco sorta bat eguinda, Jesuseri escura emoteco. Tristetuten bada, bere Esposo cerucuari nai leuquian nai guztia eguiten ez deutsalaco tristetuten da. Pensetan badau, Jesus nor dan, Jesusec cer esan daven, cer 1655

(67) Lib. 1. contr. Jovinian. (68) Epist. ad Eustoch. (69) 1. Corint. 7.

1641-1642 vizidan Ba 1643 osoz] osotz Ba 1646 ezda Ba 1646-1647 ezdavee Ba 1647 ezdavee Ba 1657 ezagun garri Ba 1658 Ezda Ba 1664 gorputzeco] gorputzeco Ba 1665 cerda Ba | cerda Ba 1669 maite garrija Ba 1672 ichidau Ba 1675 Jesuseri] Jesusari Ba

1680 eguin daven, cer eracutsi daven, cer aguindu daven, cer esqui-[90]ni daven ta cer escatuten daven pensetan dau. Jesusegaz ta Jesusec esan, eguin, eracutsi, aguindu, esquini ta escatuten davenagaz, uda ta negu, gau ta egun beti bere arima gosia janduteco, adin lausotsuba arguituteco, Jesusentzat daucan nai gogotsuba edo vorondate presta gueitutecho ta Jesusen jazo ta eguite gozuaquin bere vijotza indartuteco, zolituteco ta amodijo santubagaz urtuteco.

1685 Jesus ceruco Jaun andija da virginen pensaquizuna, maitequizuna ta gomutaquizuna. Jesusec daucaz lotuta virginen vijotzac ta arimac amodijo santu, garbi, gozo baten catia senduagaz. Euren gurarijac, euren zuzpirubac, euren naijac, euren erregubac ta euren quexa carinosuac guztiac duaz zucen Jesusen Vijotz Sagradura. Celan Jesusen naija obeto eguingo daveen ta arimia ta gorputza santu ta garbi gordecho deutseezan da virginen ardura guztia.

1690 Beguiratuten badeutsagu, bada, virgina eguijazco bati bere aguirico eguitadetan, joh, ce guichi oratuten jacozan munduco aixe gaixuaren autsac eta lausuac! Ariman ta vijotzian daucan amodijo santu ta garbijaren ispillu arguija da bere aguirico eguite guztia. Jesusen virginiac miina isilic. Verba guichi ta eurac ondo pensaubac, zuzenac, goguagaz batecuac, Jesusen ondraracuac ta arimaac santututecuac. Veguijac sosiguz, gueijenian luurrerutz. Ta beti onestidadiaren ta modestijaren aixe lotsa oneco gracijotso bategaz. Belaarriac zur ta prest Jesusen verbac, jatzuac ta naijac entzuteco [91] arpeguico poz ta atseguin argui aguiri bategaz. Baina tapauta edo gortuta, Jesusec nai ez dituban ta caridadiari min emoten deutseen verbac entzuteco becoqui triste, illun, itzaltsu bategaz. Arpeguijan berezco lotsia, ontasuna, eldutasuna, gracia ta moduba, guztiac embidija deusena ta adisquidetzat gura leuqueena. Soinian prestaera andi bagaco jasotasuna, asetasuna¹⁶⁰, zintzotasuna ta bere goguan ta vijotzian daucan virginidadia ta Jesusen amodijua berecauten autor davena. Pausubetan zucena, beguiratuba, bildurtija, contuzcua, pisutsuba. Caletan nequez, placetan nequezago, ventanan guichitan, ta orduban bere Jesusen billa edo Jesusen ondoric. Zaata ta vuilletan¹⁶¹, barre ta algara andijetan inos bere ez, aixe charraren gaixua oratu¹⁶² ez daquijon. Bacarran sarri, eleisetan ez guichitan. Escubaquin biarrian, berac biar ez badau, gose tristiciac janduteco ta bilox pobriac janz[t]lecho ta espiritubagaz, arimiagaz, vijotzagaz ta goguagaz Jesus ala-

1680 Jesusegaz] Jesusagaz *Ba* 1702 presta era *Ba* 1708 ezdaquijon *Ba*

¹⁶⁰ Testuinguru honetan, modu ona, gehiegikeriarik gabea esan nahi du.

¹⁶¹ Frai bartolomek "vuilletan" idatzi du hemen (gaztelaniezko "bulla"), baina nahiko harri-garria da 301. orrialdean, "Uts-eguiteen ezauberia" datorren orrialdean, hiz hori zuzendurik, "ivilletan" ematea. Hor ikusten denez, zuzentzaileak ez du testua ulertu, eta horrek sendotu egiten gaitu, probak Frai Bartolomek barik beste norbaitek zuzendu zituelako susmoan...

¹⁶² "Oratu": kutsatu, itsatsi; (ohiko esanahiaz gain, hots, "heldu", "atxiki" adieraz gain, zerbait kutsatu edo itsatsi esan nahi du eta aditz iragangaitz gisa darabil).

vetan ta guztiac gaiti Jesus bere Esposo maitiari erregututen. Au da virginen ezaungarrija.

¿Baina cer da edo cer aituten dogu virgina eguijazcuac gaiti, dirurijela, ceruti beguiratuta? Ez daquit, cristinaubac, onetan cer esan. Gauza bat esan neguizu: Luurrezco gustoric gura ezda, ceruco Erreguiagaz escubac emon ditubeela virginac. Jesus da virginen Esposua. Jesusen munduco pamelija barrija dira. Virginac Jesusec zaintuten ditu, gordetan ditu, jantz-[92]ten ditu, apainduten ditu ta, bere ortu santuban sartuta, atseguinez ta pozez naicotuten ditu virgina bere esposa leijalac. Jesusec jorratuten dau ta erragarijetan dau virginen ortu samurra ta loratsuba. Batian, bere jaijotza gozoco negarragaz. Bestian, bidetan cansauta gu gaiti emon euan icerdijagaz. Bestian, bere arantza, azote, curutze ta ultzezco jorrajagaz¹⁶³. Bestian, bere viztueraco eguzqui alegueriaren verotasunagaz. Bestian, Espiritu Santubaren su indartsu, arguitsu, azigarri gozuagaz. Bestian, altaraco mana vitzijagaz. Bestian, ceruco eztegu santubeta-co convit ugarijagaz ta beticuagaz.

¿Ce lora ederrac jaijoten dirian ta azten dirian virginen ortuban gau ta egun, uda ta negu! An humildade, orriac beerutz ta sustraijac gorutz daucazan, ondotsuba. An, guztiac lo balegoz leguezco isiltasun, asco dinuana. An, vijotza beti esnaatuta daucan, Jesus galduco ete daven vildur gozo arduratsuba. An, sarri beguijac negar gozoz bustiten dituban ta vijotza urtuten daven Jesusen amodijo samur, itsu, lotsa oneco, amatau bagaric beti ixiota daguana. An, vedar chaarrai jaijoten isten ez deutseen modestija, onestidadia ta garbitasuna. An, orri igar guztiac viztu, prescotu ta loratuten dituban penitencija gozatsuba. An, odeijac iragota, ceruraguino igoten daven oracinoe ta erregu garbijen prutu bedeincatuba. An, vijotz guztiac atseguinez daucazan ta ortu guztia aleguere-tan daven *baque* pozgarri zorijonecua. An, ceruco iruntz ederraren zain [93] cansau bagaric ta asarratu bagaric, beti zur ta leijal egoteco paciencija. An... ¿Baina cer? Cerubac maite dituban lora eder guztiac topetan ditu virginen vijotcetan Jesusec. Euren amodijo garbizco, humildezco ta prestezco lamparaac orijo santubagaz ixiota, arimaco garbitasunaren ta gorputceco osotasunaren lora ederraquin apainduta dagoz beti virginac prest, Jesus, ceruco Esposo maitiaren deijaren zain, betico eztegubetara beragaz juateco.

Icusi ezquero araguija, odola ta jausgarriac bestiac leguez dauquezan, ta munduco autsaren ta basiaren artian bestiac leguez vizi dirian virginen irudi santia, bai munducuen ta bai cerucuen veguijetan, ez da gauza andija Jesusec

1714 Ezdaquit *Ba* 1720 Batian] Baitian *Ba* 1722 viztu eraco *Ba* 1729 etedaven *Ba*
1732 chaarrai] chaarri *Ba* (301.or.: chaarrai) 1745 Ezda *Ba*

¹⁶³ "Jorrajia":barazkien oina jorratzeko erabiltzen den aitzur txikia; (hitz hau oraindik bizi-bizi dago Bizkaiko euskaran).

esatia (70), *ezcontzaric gogoratuten ez jacuen ceruco ainguerubac leguez diriala virginac munduban*. Ez da asco, san Juanec esatia (71), *inoc bere bes-tec ceruban cantau ezin evan canta barrija, virginac bacarric cantau eutsee - la Jesus Bildots manso, garbijari*. Ez da asco Jesusec berac virgina bere esp-
 1750 sac zaintuteco ta osoric gordetaco, legue guztiac urratutia ta mundubari ta impernubari burla eguitia. Catiac eten dira, caltzaidubac bigundu dira, subac oztu dira, otsuac mansotu dira, aguintarijac goitu dira, borregubac cansau dira, orijo ta verun urtu gorijac iruntz prescotu dira, ta laba ixiuac bainu epeldutu
 1755 dira, virginen gorputz garbi osuac ausi ezinda, zatitu ezinda, penau ezinda, galdu ezinda. Ez da as-[94]co Jesus maitiac virgina argalai, bigunai, azal mee-cuai, eurenz bildurtijai, ta ascotan umiai ta gaztai, indarra ta espirituba emo-tia, mundu guztia ta penagarri guztiac goituteo ta iragoteco, tristetu bagaric. ¡Oh, Jesusen virgina argal senduac! ¿Ceimbat bidar egon zara pozez ta atsegui-
 1760 nez vijotzac zabaldua, arpegui alegueriagaz Jesusen canta barrijac esaten lava ixietan, carcela illunetan, galdautaco burdina saretan, orijo urtuzco galdare-tan, candela garretan erretan, azotez eratzita¹⁶⁴, alambrezco orrazi zorrotzez urratuta ta catiaz estuta? ¿Ceimbat bidar ichi deutsezu, virgina ederrac, verdi-gubai pozic eta gustoz Jesus gaiti, ceuben bularra ebaten, veguijac ateraten, aguinac austen ta birrinduten, gorputza erretan ta samaac ebaten? ¡Oh! Conturic
 1765 ez dauquee¹⁶⁵ virginen lora oneec.

Ez da asco Eleisiaren Gurasuac ta eracuslac verbaric topau ezinda ibiltia, virginen edertasuna ta balijua jasoteco. Virginidade eguijazcua esaten da dala seinoren artian errequina, dameen artian lelengua, izarren artian eguzquiya, metalen artian urria, perlen artian *rubies*, chorijen artian usua, aberen artian bil-dotsa, loren artian lirijua, zaarren ondria, gazten edertasuna, vijotcen alegriya, arimaco baquia, Eleisiaren ama, apostoluguina, martirijoguina, santuguina. Munduco mirariya ta gorputzezco aingueruba da virginia. Amaitu daigun esa-nagaz: *Ceruban bere virgina ederrac jarraituten deutseela Jesus Esposo maitia - ri*, [95] *doian lecu guztira* (72). Ecer bere esan bagaric luzatu jat, cristinaubac,
 1775 dotrina onetan, oi dodan baino gueijago. Ez daquit celan.

 (70) Matth. 22. (71) Apocalip. 14. (72) Apocalip. c. 14.

1749 Ezda *Ba* 1755 Ezda *Ba* 1765 ezdauquee *Ba* 1766 Ezda *Ba* 1771 martirijo
 guina, santu guina *Ba* 1772 gorputzezco] groputetzco *Ba* 1775 oidodan *Ba* | Ezdaquit
Ba

¹⁶⁴ "Eratzi": larruazala askatu nahiz urratu.

¹⁶⁵ Ezin kontatuzkoak direla esan nahi du "conturic ez dauquee" horrek.

II.

Castidadiaren gainian asco luzatu bagaric verba bi esango deutsudaz. Castidadia izan leiteque ezcondu bagacuen edo ezcondubena edo alargunena. Ezcondu bagacuen castidadiac, Jaungoicuaren veguijetan balijocua izateco, 1780
 euqui biar dau uste osua, aurrera vizi dan artian gorputz ta arima garbi vizi izateco, nai dala votozcua, nai dala ain bagacua. Ta au viziera edo estadu obia da Jaungoicua serbiduteco, ezcondubena ta alargunena baino. Ezconduben castidadia da euren vizieraan garbi iragotia. Au da cristinautzaco estadu edo viziera guztietati atcerengua, guichien balijo davena. Alargunena da, alarguntzan 1785
 gorputz ta arima garbi vizi izatia. Ezcontzan vizieraz beeratu zana alarguntzan jaguiten da pusca bat, Jesusen amodijua gaiti alan beti bere naiz vizi bada.

Escatu daijogun, cristinaubac, Jesus maitiari ta bere Ama beti Virginari, bacochar bere estaduco edo vizieraco garbitasunaren ta castidadiaren doia. 1790
 Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

1781 biardau *Ba* | 1784 vizi eraan *Ba* | 1784-1785 vizi era *Ba* | 1786 vizi eraz *Ba* | 1787 jaguiten] jaquiten *Ba* | puscabat *Ba* | 1789 vizi eraco *Ba*

VII. AGUINDUBA

I. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan lapurretia.*
2. *Ceibat modutacua dan.* 3. *Ce pecatu dan* 5

Non furtum facies. Exod. 20

Inoc bere ucatu ezin legui, neure cristinaubac, gueure Jaungoico andijaren ontasuna ta zucentasuna, bere aguindu santubai pusca bat beguiratu ezquero. Zaintu dau bere ondra santuba ta altuba. Zaintu dau guraso ta nauksijen lotsa ona. Zaintu dau guizonen vitzitzia. Zaintu dau guizonaren sortuera ta azi biarredua onestidadiaren ta garbitasunaren leguiagaz. Ta orain zazpigarren lecutan edo aguinduban zaintuten dau gueure euquiya edo aciendia, lapurretia eragotzizagaz. *Non furtum facies.* Guztioe daquiguna da edo jaquin biar doguna, lapurretia Jaungoicuac eragotzita daguana. Baina lapurreta modu asco dagoz; edo inoc aintzat ez daucazanac; edo, aintzat euqui arren, lapurretac ez balira leguez ontzat emoten dirianac. Codicijac sustrai andijac daucaz, neure entzula onac. Dirubaren edo euquijaren gurari andija dago cristinauben vijotzetan. [97] Ta topetan dira eguijaren echuraco guezurrac, inoren gauziagaz gueratuteo, atzera jaubiari ez viurtuteo eta ostuteo. Nire eracutsiquizuna ta zuben icasquizuna da bada, cristinaubac, zazpigarren aguindu santuba austen daveen lapurreta moduba aituten emotia. 10 15 20

Onetaraco esango deusut aguindu santu onetan: 1. *Cer dan lapurretia ...* 2. *Ceintzuc dirian Logrerubac .* 3. *Ceintzuc dirian lapurretaco tratubac .* 4. *Ceintzuc dirian neurri ta pisuco lapurretac .* 5. *Ceintzuc dirian gurasuen, umeen ta otseguinen lapurreta modubac.* Guztiai asipena emoteco, aitu egui zu dotrina onetan, oi dozun prestaera zintzuagaz ta icasteco gogo onagaz: 1. *Cer dan lapurretia.* 2. *Ceibat modutacua dan.* 3. *Ce pecatu dan.* Nai daquijola Jaungoicuari, nic zubei ondo adituten emotia. 25

4 Cerdan *Ba* 10 sortu era *Ba* 15-16 ezbalira *Ba* 22 Cerdan *Ba* 26 oidozun *Ba*
| Cerdan *Ba*

I.

30 Lapurretia ez da beste gauzaric, neure entzula onac, ezpada, *jaubiaren errazuazco najaren contra ta ez jagocala, inoren gauzia artutia* . Diruba, laboria, ganaduba, soinecua edo beste balijoco gauzaren bat artuten darian jaubiaren errazozco najaren edo vorondatiaren contra, eguiten da lapurretan. Ta ez bacarric inoren gaucia artuten darian, ezpada baita eguiten da lapurretan, 35 nai inori emon biar jacona emoten ez jaconian, nai jatorcona quenduten jaconian, nai irabazi biar leuquiana, deungaro edo bide bague eragozten [98] jaconian bere. Emen sartuten dira, nai juezac, nai letraubac, nai escribaubac, nai auzilari bide bagacuac, nai testigu paltsuac, nai zor pagazaile atzerac, nai 40 beste edoceinec, daquijeela edo jaquin biar leuqueela, inori aciendan eguiten deutseezan caltiac. Oneec guztioic, nai modu batera ta nai bestera, inori euren erruz calte eguiten deutseenian austen davee zazpigarren agundu santuba. Ta dira Jaungoicuaaren aurrian lapurrac, munduban achequija ascogaz ezcutau arren euren pecatubac ta lapurretac.

II.

45 Modu ascotaracua da lapurretia. Viziera guztietan casic bat topetan ez da, lapurretiaaren verenua iratsita ez daucanic, dino Pouget jaquitunac (73). Itsumendi andija da, cristinaubac, lapurretiaaren zabaltasuna. Ta penagarri andija da gueijenac ez pensetia lapurrac dirianic. Milla lapurreta modu guero cerbait esango dirianai ichita, orain zubei jagotzunez, iru modutacua da lapurretia: 50 1. Ostuten bada jaubiatic ez daquijala, esaten jaco *lapurretia* . Menditi ganadu bat ostuten darian leguez. 2. Ostuten bada jaubiatic dacusela edo ostuten bajaco derrigorrian patricarati edo echeti edo nunnai, esaten jaco *atzamarr e-tatico-ostutia* edo *rapina* . Lapurrac orduban eguiten ditu pecatu bi: Bata ostutia ta bestia, derrigorrian jaubia injurijaubaz ostutia. Ta esan biar dau compesinoian, celan oostu evan. 3. Ostuten bada eleisan edo eleisati campora gauza 55 sagradu-[99]ba, esaten jaco *sacriligijozco lapurretia* . Ta esan biar dau compesinoian eleisan lapurretan eguin beevan edo eleisan edo eleisati campora gauza sagraduba ostu beevan, zan moduban. Bada, orduban lapurretiaz ostian eguiten dau pecatu erliginoiaren contra, edo bat edo gueijago.

60 -----
(73) Inst. Cathol., Sect. 3, c. 8, §. 1.

30 ezda Ba 31 ezjacolacala Ba 34 Ez bada Ba 38 zorpagazaile Ba 45 Vizi era Ba
| ezda Ba 50 ezdaquijala Ba 51 dacusela] decusela Ba 52 nun nai Ba 54 biardau
Ba

III.

Lapurretia pecatu da. Ta berez pecatu mortala. Alan eracusten deuschubee Eleisiaren Gurasuac san Paulo apostolubagaz (74), ceinec esaten daven, *lapu - rrac ez diriala ceruco erreinuban sartuco* . Jaungoicuac ez deutsa ucatuten inori ceruba, pecatu mortala edo illagarrija gaiti baino. Jesucristo gueure Jaunac beste aibeste esan eutsan, cerura juateco cer eguingo evan itandu eutsanari. Beste eguinbiarreen artian esan eutsan Jesus maitiac (75), *lapurretaric ez egui - teco*, ceinegaz eracutsi evan Jesucristoc, lapurretia pecatu andija edo illgarrija dana. Lapurrari contuba artuco jacola ta condenauc dala, lenago esanda daguan leguez, dino Zacarias propeta santubac (76). *Etorrico dala lapurraren echera maldecinoia ta ondatuco davela lapurraren echia, baita echiaren zurac eta arrijac ber e.*

¡Oh, ceimbat bidar au jazoten jacuen lapur desdichaubai mundu onetan bere! Gueijenian munduban bertan bere provetan davee lapurrac, Jaungoicuac euren pecatubai deutseen gorrotua. Bada, guichica gaucia ostuten daveen lapurrac badira, vizi dira triste errucarrija bildur-[100]rez ta icaraz. Euren lapurretac gentiac aotan darabiltzana daquijeela. Beti zorpian. Gueijenian erdi biloxic. Sarri gosez. Sarri lua galdu. Inoc errial bat pijau gura ez deutseela. Ta beti ostuteco usijan¹⁶⁶. Ta azquenian, edo esquian edo carcelan, inoc asco erruqui ez ditubala. Au oi da munduban lapur chiqui chaarren amaija. Badira lapur andijac. Seguruti (munduraco) colpe onac eguin ditubeenac. Guizon ondrauben echuran inorenagaz aberatstuta dagozanac. Izan leiteque urte batzubetan cer jan ondo euquitia, evangelijoco aberats zorigaistocuc leguez (77). Baina ostutaco ondasunac andijac eta ugarijac ta isilac izan arren, lapurrari edo ondorenguai despeida errucarrija emoten deutsee munduban bertan bere. ¡Oh, ceimbat laster aberatstutaco eche, laster pobretuta icusi oi dirian!

Acan lapurraren jazo tristia da asco, Jaun[goi]cuac lapurretiri deutsan gorrotua ta lapur tristen amai bildurgarrija ezauteuco. Eguin evan Acan erichuen guizon batec lapurreta andi bat Israelen (78). Ta lapurreta a gaiti, Jaungoicuac aguinduta, errico edo Israelgo gentiac arrica ill evene Acan. Ta guztiz erre cituben subagaz bere emaztia, umiac eta ganadubac. ¡Celan jausten dan maldecinoia lenago edo gueruago lapurraren echera! ¡Cer atera evan Acac erreguiac, Navot guizon garbijari solua ostubagaz?¹⁶⁷ ¡Antiococ cer atera evan,

(74) 1. Corint. 6. (75) S.Matth. 19. (76) C. 5. (77) Lucas 12. (78) Josue c. 7.

67 eguin biarren 80 oida *Ba* 83 zori gaistocuc *Ba* 86 oidirian *Ba*

¹⁶⁶ Ik. Sarrera orokorrean lexikoari dagokiona (343.or.).

¹⁶⁷ Ik. 1Erg 21. *Ik.* Icas-I.ko 98.oharra (748.or.). Frai Bartolomek *Akab* izena darabil (Vulgata *Achab*) Aca (Acan [Akaben], Acac [Akabek] beste testu-atal batzuetan..).

95 Jerusalengo eleisati ondasunac ostubagaz?¹⁶⁸ ¿Cer, [101] Judasec bere lapurreta chiqui ta andijaquin?¹⁶⁹ Entzute chaarra ondoric; vizitza larrija, bildurrezcua ta penazcua munduban; erijotza impamia ta desesperauba azquenian; ta betico impernuba orain. Au oi da lapurren azquena ta euren lapurreten prutuba.

100 Jaungoicua guttiz zucena ta arteza da. Berac daqui nos nori ondasunac emon biar deutzazan ta ez deutzazan. Nos nori quendu biar deutzazan edo ez deutzazan. Ta ez dau gura Jaungoico santubac ordena onetan inoc escu artu daguijon, ez bada nai dau Jaungoicuac, bide oneti emoten deutzanagaz contentu izan dedin mundu guztia ta inoenari osoric gueldi ichi daguijon. ¿Cer eguinten dau, bada, lapurrac? Guztioac daquizuna. Jaungoicuac bere ordena
105 santubagaz bati emon deutzan ondasuna, ari quendu ta beretu. Ausi Jaungoico zucenaren ta jaquitunaren aguinduba. Oquertu ta naastau euquijaren edo ondasunen ordena errazuazcua. Ta galdu guiza arteco leijaltasuna, zuzentasuna. Au da lapurraren pecatuba. Ez da miraari andija, guztiac lapurrari gorroto izatia. Escritura Sagradubac ceruti ervestetuten ditu lapurrac. (Aitu biar da, erre-
110 medijeetan ez bada). Errazoiac ta naturaleciaren leguiac gorroto deutsee lapurrai. Erreinubetaco leguiac castiguetan ditubee lapurrac, provau ezquero lapurretia. Batzuc carceliagaz. Beste batzuc destierrubagaz. Baita ascotan urcatubagaz bere. Ta beti, desondriagaz. Au da lapurraren prutu impamia, ez cerubac, ez luurrac [102] icusi ezin davena. ¡Oh ce casta gaistoco pecatuba!

115 Pecatu onetati ez dira libretan lapurrac, aberatsai ostu deutseela esanagaz. Achequija au chaarra da. Uts eguite asco daucazana ta arimac galdutecua dala dino Erromaco Catecismuac (79): *Misera sane, et pestifera defensio* Ostu ezquero, nai aberatsari ta nai danari dala, beti da lapurretia ta beti da pecatu. *Inos bere limosnaric eguiten ez daven aberatsari ostuta, bere ostu guztia*
120 *pobriari emongo baleutsa bere, beti da pecatu lapurretia* dino san Agustinec (80). Diabrubaren astucijac gogoratuten ditu onaco lapurretaraco asmuac, dino Santubac. Ez dago, bada, achequijaric, neure entzula onac, jaubiaren errazuazco naijaren edo vorondatiaren contra inori ecer quenduteco, edo aciendan calte eguiteco. Isrraeltarrac egitoarrei artu beutsezan euren gauzac atzera ez
125 biurtuteco ustiagaz pecatu bagaric, Jaungoicuaren aguindubagaz izan zan. Ta Jaungoicuac, acienda edo euqui guztien jaubiac emon ezquero, edoceinec beretuten dau gaucia, inoren escubetan egon arren.

(79) P. 3, c. 8, n. 23. (80) Can. forte. 14, q. 5^{169a}.

98 oida *Ba* 102 ez bada| Ez daba (301.or.: Ez bada) 126 edo ceinec *Ba* 129 ezda *Ba*
| eguitendan *Ba*

¹⁶⁸ Ik. 1M 1,21-24; (2M 1,13-16).

¹⁶⁹ Jn 12,4-6; Mt 27,3-5.

^{169a} Frai Bartolomek san Agustinen aipamena honela dakar: "Can. forte [furto] 14, q. 5.", eta urrengo orrialdean san Jeronimo aipatzen du era berdintsuan: "Can. fur. [furto] 14, q. 6". Argi dago santu bi hauen aipamenak liburu beretik hartu zituela eta ez santo bien hauen liburuetatik. San Agustinen aipamena hau da: *Epistola ad Macedonium*, CLIII (Migne, 33, 664); eta san Jeronimorena, beste hau: *Commentarius in Epistolam ad Titum* (Migne, 26, 620).

Lapurretaco pecatuba izan arren pecatu impamia ta berez andija edo illgarrija, ez da lapurretan eguiten dan guztian pecatu mortala edo illgarrija eguiten. Lapurretaco pecatuba ezaututeco, veguiratuten jaco, oi danez, gauza ostubari. Ta izan leiteque gauza guichi bat ostutia ta calte andiric agaz ez eguitia. Or-[103]duban izango da lapurreta chicarra ta pecatu chicarra edo veniala. Baina, gauza guichija bera bada jaubiac asco maite davena edo jaubiari palta andija eguiten deutsana, daquijala edo jaquin biar leuquiala a ostutia, izan leiteque ta ascotan izango da pecatu mortala. Beste aimbeste esaten da, gauza guichi bat baino ostu ez arren, gueijago ostuteco gogua lapurrac daucanian. Orduban ez jaco beguiratuten lapurretiari, dino san Geronimoc (81), ez bada lapurrac ostuteco daucan goguari. Gogua andija bada, ostuba chiquija izan arren, eguingo dau pecatu andija. Errial bat edo aren balijua ostubagaz, ascotan eguin leguijo jaubiari calte andija. Bada, daquijala a artutia da pecatu andija. Ostu leguiz batec lau quarto ta gueijago ez ostu. Baina ez gueijago ostu gura ez leuquialaco, ez bada gueijago cer ostu ez daucalaco. Bada, orduban lapurraren ustia ta gogua cetaraguino dan, araguino izango da lapurretaco pecatuba. 130 135 140 145

Bardin esaten da, ta guero arguiruago esango da, puscaca gauza guichija lantzian ostuten daveenac gaiti. Lapurreta bacochoa chiquija izan arren ta bacochoian gueijago ostuteco nairic euqui ez arren bere, pusca asco ostuteco ustia badauquee ta pusca guztia alcarri ezarrita andira elduten badira, eguiten davee pecatu andija. Bada, oneen gogua ta naija da, lapurreta chiqui ascogaz gauza andija ostutia. Ta au pecatu andija da. Ezin imini legui, [104] cristinaubac, onaco eracutsi chiqui baten erreguela edo ezaungarri guztiraco bat, lapurretiagaz pecatu andija eguiteco nos ceimbat biar dan ordu guztietaraco eracusten davena. Asco da jaquitia, arimiari ondo gura deutsan cristinaubac beti contuz ibilteco ta inoren gauciari inos ez icututeco: 1. *jauviac errazuaz nai ez davela, gauza guichija bere inoc ostu daguijon* . 2. *Sarritan eguin leguijala ta eguiten dala pecatu andija, gauza guichija ostubagaz* . Baquizu zure auzuac aza bat nai porru bat ostu deutseelaco, eguingo ditubana luurrari icara eraguiteco bidauac ta maldecinoiac. Au daquizula ostuten deutzazu. ¿Bada, esango dogu ez dozula eguiten pecatu andija? Ez, aza bat edo porru bat gauza andija dalaco. Baina bai, daquizula, gauza guichija ostubagaz, bidao andijac eraguin deutzazulaco. Onegaz aituten dira, neure entzula onac, beste onetarico eguitade asco. 150 155 160

Eguiija esateco, penagarrija da noberac nequez bere icerdijagaz irabatzita edo eguinda Jaungoicoz daucan gauzia, alper batec, buruguin batec edo codicijoso batec artuta eruatia. Codicijac ta alperrierijac dacaz lapurrac. Codicijosuac 165

(81) Can. fur. 14, q. 6.

131 oidanez Ba 136 esaten da Ba 137 gueijago] gueijo Ba (301.or.: gueijago) 138 ez bada Ba 143 ez bada Ba 152 ezaun garri Ba 154 Ascoda Ba 155-156 ezdavela Ba 160 ezdozula Ba 164 pena garrija Ba

ezin ase edo naicotu dira inos diruz edo ondasunez. Baina oneen contra da
 Espiritu Santuba Escritura Sagraduban, casic isildu bagaric, ez daquit ceimbat
 170 gachegaz ta zamaigaz. Tentacinoe asco, ardura asco, provechu bagaco gurari
 asco, diabrubaren engainu asco, pecatu asco ta azquen edo illte desdi-
 [105]chauba dira, Espiritu Santubac dinuanez, codicijosuaren irabatzu guztia.
Errazago da camelu bat orratzaren zuloti iragoten , dino Jesucristoc, *codicijo -*
 175 *so aberats bat ceruban sartuten baino*¹⁷⁰. ¡Ce poza, pobriaren odola chupetan
 diarduben lapur aberatsentzat! Alperreriya da besteti gach ta oquerreriya guztien
 ama. Alperra jaalia, alperra edaalia, alperra jocolariya, alperra asmotsuba, alpe-
 rra castalariya, alperra buruguina ta alperra zorpagazaile chaarra. Au guztiau
 estalduteco, alperrac asco biar. Ta beria castau edo galdu daguijianian, inoene-
 ra, lapurretara. Bai, cristinaubac, codicija ta alperreriya dira lapurretiaren ama.
 180 Gogoratu bada, neure entzula onac, cer dan lapurretia, ceimbat modutacua
 dan ta ce pecatu ezaina ta desondragarriya dan, bai munduraco ta bai
 Jaungoicuaren aurreraco. Artu asmo sendo bat, inoren gauciari, ez guichijan ta
 ez ascuan, inos icuturic ez eguiteco. Euqui compijantza osua Jesusen verbetan,
 ceinec aguindu deutescun vizitzaraco biar doguna, bere aguindu santubac gor-
 185 detan baditugu. Naicotu edo contentau, Jaungoicuac bide zucenetu emoten
 deutescunagaz. Dendatu biarra eguiten bacocho bere estaduban edo vizieraan,
 cer jan ta cer jantzi euquiteco. Ta erregutu Jaungoicuari, emon daigula ceruba
 irabazteco biar doguna munduban vizi izateco. Au eguinagaz urrinduco da
 cristinauba lapurreta desondraubetati. Alan gura izan daguijala Jaungoico onac
 190 [106] eta zucenac, bera dana dalaco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren
 icenian. Amen.

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
cetan dagan logrerijaco lapurretia.

195 Ez dago inor bere, neure cristinaubac, biar daven guztia beti prest echian
 daucanic. Aberatsa izan arren, ardura andicua izan arren, guichigaz iragoten
 icasija izan arren, nosbait izango dau preminia cerbait edosteco edo salduteco
 edo inori escatuteco. Gueurezco premina onetati dator gauzac saldutia, edos-

169 ezdaquit *Ba* 186 vizi eraan *Ba* 197 nos bait *Ba*

¹⁷⁰ Ik. Mt 19,24; Mk 10,25; Lk 18,25.

tia, emotia, truquetia, aurras ichaanian inori prestetia, lagunari pijetia ta beste
 tratu ta artu emon guztia. Onaco tratu ta artu emonetan inor engainu bagaric, 200
 evangelio santubac aguinduten daven leguez, bacochari jagocana zucen emo-
 tia da zazpigarren aguinduba gordetia. Baina, oi dirian lagun arteco tratu,
 saldu, edosi ta artu emonetan, nai isilic ta nai aguirijan, nai bestiac daquijala
 edo igarrita, nai estalgui guzurrezco bategaz engainauta quenduten badeutsa
 cerbait, eguiten dau lapurretan ta austen dau zazpigarren aguinduba. Onetara 205
 oi dirian lapurreta modu guztiac esaten amaitu ezin leguiz, neure entzula onac.
 Neurri bagaric ta chito asco dira lapurretac lagun arteco [107] artu emonetan.
 Guztien artian *logrerija* esaten jaconac dauca jarlecu nausija. Au da lapurreta
 jasua, ondo jantzija ta apainduba azaleti. Baina desondrauba ta condenauba
 bere izatian, azal ederragaz lapurreta andijac eguiten ditubalaco. Esango deu- 210
 tsut, bada, dotrina onetan: 1. *Cer dan, inori gauzia aurras emotia* . 2. *Aurras*
emotia gaiti emon dan baino gueijago artu leguijan edo escatu leguijan . 3.
Cegaiti ta ceimbat artu leguijan . Entzun eguizu gogoz ta zuzen. Menturaz bali-
 joco deutsu, cristinaubac.

I.

215

Itaunduten dau Pouget jaquitun pamaubac (82), *ia cetan gueijen lapurr e -*
tan eguin daroien ¹⁷¹ *aberatsac ta euquijan ondochu vizi dirianac*. Ta erantzuten
 dau berac: Leleengo, pobriac larregui cansaubagaz. Aberatsac uste dau,
 pobriac zor deutsalala berari mandatubac eguitia; echeco biar chiquiac eguitia;
 erbeste batera nosbait juatia; ta onaco, andijac esan oi daveen leguez, ezaube- 220
 razco ta mesedezco biarrac duaric eguitia. Ara emen trago bat ardao nosbait
 edo bazcari bat urtian emonagaz, betico crijaduba edo crijadia erosita abera-
 tsen echian. Errenteruba bada, ¡oh! errenta andija pagau arren, bera, emaztia,
 umiac ta ganadubac bere euren aparejubagaz prest egon biar davee beti uga-
 zaba ascoren crijadutzat. ¿Trucauco ete ditu Jaungoicuac egunen baten abera- 225
 tsen ta pobren era edo suerte oneec? Eurac icusico davee. Au da aberatsac
 pobria larregui cansaubagazco lapurretia.

[108] Aberatsen bigarren lapurretac, dino icentau dan eracusliac, diriala, edo
 diruba, edo laboria, edo soineco gueija, edo artubaz castetan dirian gauzac

 (82) Instit. Cath. P. 2, Sect. 3, c. 8, §. 2.

230

202 oidirian *Ba* 211 Cerdan *Ba* 212 emondan *Ba* 218 ustedau *Ba* 219 zordeu-
 tsala *Ba* 220 nos bait *Ba* | oidaveen *Ba* 221 nos bait *Ba* 223 bazcaribat *Ba*

¹⁷¹ Aditzaren ohikotasuna adierazteko *oi* partikula darabil. Nekez itzurtzen zaio lumatik J.A. Mogelengan ia normala den *darua* edo antzeko adizkirik; *Esku*-n aurkitu diogu behin eta hementxe beste behin.

aurraz inori emon deutsezalaco, emon daveen baino gueijago escatubagaz ta quendubagaz. Au da *logrerijaco* lapurretia, Erromaco Catecismuac dinuan leguez (83), chito sustrai andijac ta zabalac daucazana. Jesucristo gueure Jaunac esandaco caridadia ta mesedia da, preminan daguanari edo escatuten
 235 davenari biar orduban, edo diruba, edo laboria, edo soineco gueija, edo beste gauza bat plazuban edo ordiazcuan aurriz emotia. Au lagun arteco eguinbiarra da. Au proximuari mesede eguitia da. Errazoiari, guizatasunari ta evangeli-
 240 jo santubari darraicono da. Esan oi dan leguez, *gaur zuri ta bigar neur* jazoten da, edo ogueico bat, edo eun ducac, edo anega bat labore, edo beste preminaco gauza bat proximuari plazura emonda, mesede eguitia. Au da cristinaubac biar orduban alcar estaldutia, alcarri lagundutia ta alcar maitetutia, evangelijuac aguinduten deutescun leguez. Itanduten da, bada, *ia alan proximuari diruba edo beste gauzaren bat aurriz emonagaz eguin deutescun mese -*
 245 *dia gaiti, emon deutescun baino cerbait gueijago escatu leguijon edo artu leguijon.*

II.

Erantzuten jaco bada, cristinaubac, itaune oni sicu sicuban, *ezetz* Aurriz emon deutescun, ezin escatu leguijola ta ezin artu leguijola emon deutescun baino gueijago. ¿Emon [109] deutescun ichanian eun ducac proximuari? Eun ducacac atcera artuta, quitu. ¿Emon deutescun anega batzuc labore? Areen bali-
 250 jua edo ordia atcera artuta, quitu. Plazura emon jacolaco edo mesede eguin jacolaco gueijago escatutia edo artutia, lapurretia da. Birritan gauza bat pagau eraguitia da. Edo ez dan gaucia saldutia da, dino Erromaco Catecismuac (84).

Ez engainau, cristinaubac. Onaco emonaren gaineraco irabatzijari, aurriz
 255 emonaz lagunari mesede eguin jacolaco, mundubaren asierati ona beti beguiratu jaco lapurreta utsari leguez. Guiza aldi guztietaco eracuslac ta ainchinaco gentilac, Platonec, Aristotelec, Plutarco ta beste Jaungoicuaren ezaubera bagaco ascoc bere eragotzi gura izan even logrerijaco irabatzitristia ta desondrauba. Jaungoicuaren legue santubac beti ta guztiai eragotzi deutsee. Dino
 260 Jaungoicuac lecu baten (85): *Ez deutescun ceure lagunari edo anaiari emongo ez diruba, ez laboria, ez beste gauzari logrerijan*. Dino beste lecu baten (86): *¿Nor sartuco da ceruban? Bere diruba edo gaucia logrerijan emon ez davena*. Dino beste lecu baten (87): *Logrerijan ezer emon ez davena ta emon daven baino gueijago atcera artuten ez davena justuba da ta vizico da ceruban; vita*
 265 *vivet* Jesucristo gueure Jaunac dino (88): *Emon eguijozu lagunari edo proximuari*

 (83) P. 3, c. 8, n. 11. (84) Ubi supr. (85) Deuter. 23. (86) Psalm. 14. (87) Ezeq. 18. 88 Luc. 6.

236-237 eguin biarra *Ba* 238 oidan *Ba* 242 ia| *Ya Ba* 244 cer bait *Ba* 264 vizico-
 da *Ba* 266 Deuter.] Deuton. *Ba*

*muari aurraz, [110] emon deutzazun baino gueijago atcera artuteco uste baga -
ric. Jesusen verba oneen gainian dino santo Tomasec (89): Ez da noraeceua,
proximuari escatuten davena ichanian edo plazuban beti emotia. Baina nora - 270
ececua da, ichanian emon jacolaco, emon jacon baino gueijago ez artutia .
Jazoco da edo jazo leiteque, pecatu eguin bagaric, ichanian escatuten davena-
ri ez emotia; baina ez da jazoco, lapurreta bagaric, aurraz ichanian emon jaco-
laco, emon jacon baino gueijago quendutia. Eleisaren batzaarrac eta gurasoac
ta erregue jaunen leguiac guztiac era batera diadar eguiten davee logrerija 275
desondraubaren contra. Ta eragozten davee arimaco ta gorputceco pena andi-
jen beian.*

*¿Ta cer biar da inoc esatia, neure entzula onac, logrerijaren lapurretia ezau-
tuteco? ¿Ez da berez guztiz aguirija? Auzo bat dacar jan biarrac edo preminiac
zu gana, diru zati baten esque ichanian¹⁷². Ez deutzazu emoten, cerbait gueija- 280
go atcera artuteco ez dala. Bada, zure zorra paguetaco plazuba danian beste
bati escatu biar badeutsa, oi dan leguez, zuri paguetaco, ac bere cerbait eruan
daguijola emonaren gainera, zuc leguez. Urrengo plazuban bestiac bere bai. Ta
onan, emoten deutsen guztiac. Ara emen, dempora guichi barru pobriaren
euquiija nun daroian, ez zor garbijac, ez bada logrerijaco irabatzi ostubac. 285*

*Logreru guztiac lotsatu ditezan, (lotsatu-[111]tecuac badira) iminico deutzat
neure escubetati iragotaco contu bat, lelengoti azquenera euren pirmiagaz
sillututa daguana. Onetarico guizon batec emon eutsazan aldizca bost ogueico
beste preminaco guizon bati. Bost ogueicuen alderaco artu zituban logrerubac
zatica, lelengo plazuti asita bi milla ta oguei errial. Lelengo ogueicua emon eu- 290
tsaneti bostgarren urtian batu cirian contubac eguitera. Contu areetan bost
ogueico utsac gaiti artuben gainera, logrerubac artceco eguin eutsan bestiari iru
milla zazpireun ta larogueti errial. Bost ogueicogaz bost urte baino guichiaguan
ostu zituban logrerubac irureun ta berrogueta iru ducac ta lau errial ta bost
ogueicucac osoric. Bijac cirian nequezarijac. Ara emen logreruben mesedia. 295
Oneen gainian dino san Ambrosioc (90): ¡Oh, aberatsac! Oneec dira, zube
pobriari eguiten deutzazun mesediac. Pusca bat emoten deutzazu; ta gueijago
quenduten deutzazu. Jantzten dozunian, biloxtuten dozu... Erremedijua esca -
tuten deutzazu; ta verenua emoten deutzazu. Libretan dozulacuan, catiatuten
dozu. Oguija escatuten deutzazu; ta ezpatia jaurteguiten deutzazu. ¿Cer izan 300
leguiteque, au baino deungago? dino santubac.*

(89) 2. 2, q. 78, a.1. (90) Lib. de Tobia c. 2. n. 7.

269 Ezda Ba 270 proximuari] prozimuari Ba 280 esque] ezque Ba 282 oidan Ba
285 ez bada Ba 286 iminico] ininico Ba 291 bost garren Ba 293 ogueico gaz Ba 297
deutzazun] deutzazan Ba

¹⁷² "Ichanian": epeka.

Esango dozu: *Jauna nic ez dot aimbeste e[r]juaten*. Bada, nai aimbeste ta
 305 nai guichiago, logrerijan eruaten dozuna lapurretia da. *Jauna, mesede andija*
eguin neutsan emonagaz, dino beste batec. *Justicijac echian eucana jan biar*
 [112] *eutsala ta negarrez etorri jatan esque*: *Berac esan eutstan cerbait gueija* -
gogaz erantzungo eustala Bada, nai mesede andija eguin ceuntsala, nai chi-
 310 quija eguin ceuntsala. Nai justicijac jan daguijola guztia, nai ez da[gui]jola. Nai
 berac esquini deutsula, nai ceuc escatu deutzazula, emon deutzazunaren gai-
 nera aurrax prestetia gaiti artuten dozuna, ostuba da, lapurretia da. Zuc ezin
 mudau zinai evangelijoco leguia. Codicija naicotuteco achequijac dira orreec.
 Aberatsa aberatsago eguiteco modubac dira orreec. Apapuban vizi¹⁷³ dana
 esquera bialduteco vidiac dira orreec. Inorena ostuta arimac condenetaco
 leguiac dira orreec. ¡Oh, logrerubac! Ez daucazu mendi bacarretara juan biarric
 315 lapurretaraco.

Baina, jauna, dino beste batec, *menturaz ez deust pagauco*. *Ta inori emo* -
nagaz, guztia galduteco arriscuban jarten nas. *Edo cobrau ezinda ibili biarco*
dot. Bada, ez eguijozu emon. Ez emotia pecatu dan edo ez, esango deutzubee
 compesoriac. Baina, aurrax ichaarian emotera ezquero, emon biar deutzazu
 320 gueijago artute bagaric. ¿Ta ari emon deutzazun dirubac edo laboriac edo den-
 dacuac.... ez dauca ceure echian arriscuric? ¿Ez dago lapurric zuri a ostuteco?
 ¿Ez dago suric zure echia edo euquija erreetaco? ¿Ez daucazu escubidia jueza-
 ren aurreti escatuteco? ¿Ez deutzazu pijadoria aguinduten? ¿Cer nai dozu, bada,
 325 gueijago arriscuba quenduteco? Jauna, baina isilic nai dau. Bada, ez emon, gui-
 zon ondrauben aurrian nai ez davenari. Ordu-[113]ban quenduten da arriscu-
 baren bildurra. Gauzia aurrax emonac berez beti dacarren arriscuba gaiti, mara-
 veri bere eruan ezin legui, emon dan baino gueijago. Ez dago achequijaric
 evangelijuaren contra. Logreruben asmuac dira oneec. Euren logrerija edo
 330 lapurreta desondrauba edertuteco asmetan ditubee alacuac. Oguei ducat baino
 emon bagaric, ogueta lau emon dituben papera eguin ta... beste onetarico
 lapurretaco asmuac.

III.

Baina, Jauna, neuri calte eguiten jatala emon neutsan. *Ta au gaiti cerbait*
 335 *gueijago eruan leguijala esaten davee*, dino beste batec. Oni erantzuteco,
 jaquin biar da caltia celacua dan ta ceimbat dan. Eguija da, noberac popuer-
 tza escubetan biar davena emoteco ez dau Jaungoicuac aguinduten, ez bada

303 ezdot *Ba* 306 cer bait *Ba* 307 erantzungo| erantzungo *Ba* 309 deutzazula| deu-
 tsazala *Ba* 323 naidozu *Ba* 324 naidau *Ba* 327 emondan *Ba* | Ezdago *Ba* 336
 ez bada *Ba*

¹⁷³ "Apapuban bizi": ozta-ozta bizi, pobretasunean bizi; (oraindik Markina inguruan erabil-
 tzen den esapidea da).

orduban nobera aimbaric irago leitequiana. Neuc centsuan iminteco neucan diruba emon neutsan, dino batec. Traturaco neucana emon neutsan, dino beste batec. Echeraco neucan laboria emon neutsan ta guero gueijago pagau biar izan neban, dino beste batec. Centso bat aterateco neucan diruba emon neutsan; ta a gaiti egon zan neure contra centsua.... 340

Onetara joten davee, cristinaubac, proximuari cerbait ichanian emonagaz euqui zinaizan calte guztiac. Edo da *irabatzico cenduquiana ez irabatzitia* . Edo da *galduco ez zenduquiana galdutia* . Beste achequiya gaiti ezin artu legui emoten dana baino gueijago, lapurretan eguitiaren beian. Baina noberac es- 345
[114]cubetan biar daven gauzia inori ichanian emon deutsalaco badauca calte jaquina, ciartuba ta zucena, orduban cerbait eruan legui emonaren gainera. Dinot, *badauca calte jaquina, ziartuba ta zucena* . Ustezco caltiac, menturaz- 350
co caltiac, cer eguingo nevan ez daquidaneco caltiac ez dira, ez calte jaquinac, ez ciartubac, ez zucenac. Logrerubac esatia: Ari emon neutsan diruba, menturaz centsuan iminico nevan. Menturaz tratu pusca bat artuco neban. Menturaz beste conveniencia bat izango neban; ta beste onetarico menturazco irabatzijac edo caltiac, ez dira, ez calte jaquinac, ez ciartubac, ez zuzenac. Erichicuac, 355
destajucuac, menturazcuac edo galdu gordecuac dira. Ta onaco menturazco caltiac edo irabatzijac gaiti ezin eruan legui ecer bere emonaz gainera, lapurretiaren beian. 355

Esan legui logrerubac: Ari emon neutsanagaz centso bat ateraco neban, edo echian palta neban laboria merquiago erosico neban, edo solo barri bat ausico neban... ta onetan calte jaquina daucat ari emonagaz. ¿Ta baceuncan beste diruric centsua atarateco, laboria erosteco edo solo barrija austeco? Bai, 360
jauna, aimbeste modu baucac. Bada, ari emonaz ostian badaucazu cegaz erremedijau orreec caltioc, ez da proximuari emon deutsalaco. Ta orregaiti ez da ari emoneti zucen datorren caltia. Ta ezin eruan zinaguijo ecer bere, emonaz gainera. Echazu ari emonagaz calteric etorri, asmo orreec cegaz erremedijau ostian daucazu-[115]nian. Esan legui logrerubac: Jauna, tratuban edo cetan edo 365
atan irabatzico nevan ari emon neutsan dirubagaz, emon ez baneutsa. Baina onec bere lenago diruba daucala traturic eguin ez badau, tratuco arriscubetan sartu bagaric echian edo campuan diruba gordeta gueldi euqui oi badau, casic ezagun da ustezco caltia dala onena, menturazcuca dala. Ez calte ciartuba. Preminaco bat esque etorri ez balichaco negarrez erreguca cerbait gueijo 370
aguindubaz, traturic gogoratu bagaric ari emon eutsan diruba gordeta euquico evan. Bada, onan izan ezquero, ezin eruan leguijo emon deutsan baino gueijago, lapurretiaren beian.

Baina, Jauna, calte jaquina neucala emon neutsan. Escubetan palta eguiten eustan diruba emon neutsan. Neuc guero echian biar neban laboria erruquitu- 375

349 ezdaquidaneco *Ba* 362 ezda *Ba* 363 ecerbere *Ba* 367 ezbadau *Ba* 369 eza-
gunda *Ba*

ta emon neutsan. Ta calte andija daucat, *zucen irabatzico nevana irabatziz eza gaz*. Ta *galduco ez nevana galdubagaz*, ari emon neutsalaco. Eguiija esateco, dirautsut, neure entzula onac, icara eguiten dodala azqueneco oni erantzuteco. Irabatziz biar neuquiiana ez irabatzia: *lucro cesante*. Ta galduco ez nevana galdutia: *damno emergente*, dira verba batzuc, esan ecin leguijan beste logreruren arima impernura eruan ditubeenac, dino juicijozco Aita Jose Francisco Isla jesuita jaquitunac (91). Esaten jaco, bada, voticaco onegaz, alan calte jaquina-gaz ta zucenagaz inori ichanian cerbait emon deutsanari, artu [116] leguijola atcera cerbait gueijago emon deutsan baino, daucan calte jaquina ta zucena gaiti. Ez, aurraz emotia gaiti. Ez, eguin deutsan mesedia gaiti. Ez, alan emonac galduteco berez daucan arriscuba gaiti. Ez, atcera cobretiac berez dacarren cereguina gaiti. Ezbada zucen ta eguijaz, illgo danian leguez, daucan caltia gaiti. Ta orduban condecinoe bigaz: Bata da esatia aurraz gauziaren esque juaconari, ari emonaz daucan caltia gura badau bere contura artu daguijan edo ichi daguijon. Bigarrena da, emonaren gainera ez artutia calte jaquina ta zucena baino gueijago. Eleisiaren edo erregue jaunen leguiac iminita badago ceimbat eruan leguijan emonaz gainera, aimbeste. Ta ez gueijago. Ez badago leguez senailauta ceimbat eruan leguijan, juicijozco ta conciencijazco compesore edo jaquitun batec esaten davena. Ta ez gueijago. Beste eruate guztiac, emonaz gainera, lapurretac dira. Logrerijac dira. Escatu daijogun, cristinaubac, Jaungoicuari, eguiija oneec ezaututeco arguija ta arimaco gracia, ceinegaz jadiichico dogun ceruco ondasun beticua. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian, Amen.

[117]

III. ICASIQUIZUNA,

400

ceinetan eracusten dan
tratubetan oi dan lapurretia.

Saldu-erosija edo tratuba da, neure cristinaubac, lapurretac gueijen barrututen davena. Tratuba lapurren estalgui zabala da. Baina Jaungoicuaeren veguijetan urratuco dira estalguijac ta aguertuco dira lapurrac, dirian moduban. Iru modutaco tratalarijac contetan ditu santo Tomasec (92). Batzuc, echian palta

(91) Serm. Dom. 2. Quadrag. (92) 2. 2, q. 77, a.4.

daveena erosi ta sobretan jacuena salduten daveenac. Beste batzuc, erosten daveen gauria mudau edo obatuta salduten davenac. Linua erosi ta euna saldu. Ola erosi ta uchua saldu. Ta alan beste gauza batzuc obatuta edo biarra eguinda salduten ditubee. Irugarren tratularijac dira, artuten daveen moduban sal- 410
duteco gauzia erosten daveenac. Dendacua erosi ta dendacua saldu; garija erosi ta garija saldu... Lelengo tratu modu bijac garbijac dira eurenez. Irugarrenari ez deutsee Eleisiaren Gurasuac ondo esate andiric emoten. Sarri peccatu eguitemo vizi moduba da. Cristinau batec bere ez eguitia oba dana da (93). Ez da niri jaotana saldu-erosi utseco tratuba, irabaztia gaiti beste bagaric, 415
nos pecatu dan ta nos ez dan zubei eracustia.

[118]Tratu guztietaco lapurretac ezin eracutsi leguiz, neure entzula onac, dotrina labor baten. Tratarijac alcar artuta eguiten dira lapurretaco tratubac. Gauziaren balijua gaiti eguiten dira lapurretaco tratubac. Engainubagaz eguiten dira lapurretaco tratubac. Ta inoren preminiagaz balijauta eguiten dira lapurre- 420
taco tratubac. Esango deusut, bada, dotrina onetan: 1. *Ceintzuc dirian alcar artutaco tratu gaistuac*. 2. *Precijo gaistoco tratubac*. 3. *Engainuzco tratubac*. 4. *Inoren preminaco tratu gaistuac*. Entzun eguizu contuz, bat edo bat ascori oratuco jatzu ta.

I.

425

Alcar artutaco tratu gaistuac. Oneec dira, neure cristinaubac, mercatarijac edo tratarijac sarritan eguiten ditubeenac. Esaten jaco onetarico tratubari latinez edo griegoz, *mono polium*. Au da, lagun bic edo gueijagoc alcar artutia, eurac bacarric salduteco dauqueen gauzia onenbeste baino merquiago batec bere ez salduteco. Edo da alcar artutia, eurac bacarric erosico daveen gauzia 430
onenbeste baino goraago batec bere ez erosteco. Alan salzailac edo eroslac alcar artuten davenian, eurac iminten davee saldu erosijaren leguia ta precijua. Ta ecarten ditubee bestiac derrigorrian eurac iminten daveen precijuan gauzac salduera ta erostera. Au aparteco personac¹⁷⁴ ezin legui. Aguintarijaren escubidia da bacarric. Batoz lagun bi, iru edo lau errijan biar dan gauza bat salduera. Alcar artuten davee guztiac, lau balijo baditu, sei baino merquiago, ez emote- 435
teco; [119] gora nai merque, salduco daveena daquijelaco. Ta ecarten davee erosi biar davena, balijua baino gueijago paguetara. Au lapurretia da. Ola jaun bic edo iruc edo gueijagoc baquijee euren oleetara inguruco iquetzic gueijee-

(93) Id. ibid.

440

411 dendacua] deudacua *Ba* 412 ta garija] ta gurija *Ba* 413 emoten] amoten *Ba* 415
Ezda *Ba*

¹⁷⁴ "Aparteco persona": pertsona pribatua, agintaria ez dena.

nac edo guztiac eruan biar ditubeena, beste olaac urrin dagozalaco. Olajaun
 oneec alcar artuten vadavee, zortzi errial balijo deutsen carga iquetzari sei
 baino ez emoteco, eguiten davee lapurretan. Bardin da cein garija cein artua
 edo beste edocein gauza. Errotarijac eguin oi davee au sarri. Eurac dira lecu
 445 ascotan labore sobriaren ta endamas garijaren eroslaac. Baquijee daucanac
 saldu biar davena, ta eurac baino noc erosi ez daguana. Balijo dau ogueta amar
 errial aneguiac. Ta, alcar artuta, ez deutsee batec bere emon gura ogueta sei
 edo zortzi baino. Au lapurretia da. Baita beste onetarico balijoti camporaco ta
 450 alcar artutaco tratu guztiac bere. Oneen urrengo dagoz precijo oquerreco tra-
 tubac.

II.

Precijo oquerreco tratubac. Tratalarijac ez guichic uste davee, cerbait sal-
 datera duazanian, aimbat goreen saldu arren ta cerbait eroatera duazanian,
 aimbat merqueen erosi arren, ez daveela pecaturic eguiten. Bada, cristinaubac,
 455 ez da au tratu guztietaraco contu zucena. Eguiija da, eurijac edo liortiac,
 baquiac edo guerriac, ez urtiac¹⁷⁵ edo ugaritasunac, salzaila guichi edo asco
 egonac, erosla gueijago edo guichiago egonac goratu edo beeratu leguije gau-
 cen balijua ta precijua. Baina salzailiaren nai-[120]ja edo vorondatia ez da guei-
 jenian erreguela zucena, gauzai precijua iminteco. Erreguela edo neurri zucen
 460 bat artu bagaric, aimbat goren saldu ta aimbat merquen erosi beti eguiteco
 ustia daucan tratalarijac, milla lapurreta eguingo ditu. *Tratubac izan biar dau*
zucena, errazoezcua ta tratalari bijen oneracua, esaten deuscu santo Tomasec
 (94). Bada, balijua baino gorago salduten danian, calte eguiten jaco erosliari.
 Ta balijua baino merquiago erosten danian, calte eguiten jaco salzailiari.
 465 Erreguen edo aguintarijen aguinduz precijua iminita dauquen gauzac gora-
 go saldutia, lapurretia da. Precijo eguinic leguez ez dauquen gauzac salduteco
 edo erosteco, beguiratu biar jaco aituten jacuen¹⁷⁶ guizon eldubac ce balijo
 emoten deutsen guichi gora bera. Dinot, *guichi gora bera. Bada, ez dago gau -*
cen balijua, dino santo Tomasec (95), zatitu ezin leguijan puntu baten. Ta apur
 470 bat guichitu edo gueitubac ez dau quenduten zuentasunaren bardina. Baina
 apur bat gueijago edo guichiago onec beti izan biar dau neurrijaren esquinati

 (94) 2. 2, q. 77, a. 1. (95) Ubi supr. ad. 1.

442 deutsen] dentsen *Ba* 444 edo cein *Ba* | oidavee *Ba* 446 saldubiar *Ba* 455
 au] dau *Ba* 456 ugaritasunac] ugaritasusac *Ba* (301. or.: ugaritasuna) 468 ezdago *Ba* 470
 ezdau *Ba*

¹⁷⁵ "Ez urte": urte urria, txarra, uzta kaskarrekoa.

¹⁷⁶ Esapide horrekin *aditua, jakintsua* esan nahi du; (aditz iragangaitzez eta *nori* komunztaduraz adierazten du ideia hori eta sarri agertzen da haren obran barrena).

campora urteten ez davena. Bide baten doiana jua leiteque bidiaren erditi, baita vidiaren esquina bateti edo besteti bere. Baina, nai esquina bateti, nai besteti nai erditi jua, beti dua a bideti. A gaiti ezin esan legui oquer doiala. 475
Baina bideti urteten badau, ez dua zucen. Lapurrac ibiltan dira bideti alden-duta. Beste aimbeste. Tratuco preci-[121]jua pusca bat gorago saldu edo merquiago erosi, *ac pusquiac* ez dau urten biar beste concienzia oneco tratalarijac duazan bidiaren esquinati. Andi aurrecua lapurretia da, dino santo 480
Tomasec.

Onaco precijo moduban lapur tratu asco eguiten dira, cristinaubac. Batian, diruba aurraz emon deusalaco. Bestian, laboria, ganaduba, dendacua edo biar evana plazura emon deusalaco. Bestian, menturaz cobrauco ez deusalaco. Bestian, tratu batian galdu davena aterateco. *Beriagaz urteteco*, eurac esan oi daveen leguez. Onaco achequijac gaiti balijua baino gorago saldutia ta merquiago erostia, gueijenian izango da lapurretia. Cerbait ondo vizi dirianen poltsac betetaco, pobrechu daguan gentia esqueratuteco¹⁷⁷, logrererjac gueituteco ta arimac condenetaco dira alaco tratubac ta asmuac. Amar escudoco bat edo ogueico bat emongo deustut; baina onen beste burdi icatz botaco deustazuz aurten olara. Anega bat edo bi arto emongo deustudaz; baina abuztuban pagau 490
biarco deustazuz. Eutsi orain dendacua; baina abuztuban popuertza biarco dot nic paguba. ¿Cegaiti au? Diruba aurraz emonda, iquetza merque artuteco. Artua abuztu arteco ichanian gora salduta, aren pagutzat garija merque artuteco. Dendacua plazura nai daven precijuan emonda, abuztuban nai daveen precijuan garija ecarri eraguiteco. Mesede eguiten deusalacuan, pobre tristiari odola 495
chupeetaco. ¡Ah, tratalarijac! ¿Ceimbat onaco tratu precijo oquerreco?¹⁷⁸ [122] Ez dira obac engainuzcuac.

III.

Engainuzco tratubac. Codicijac esquina guztiac aztertuten ditu, neure cristinaubac. Ta modu guztiac villatuten ditu diruba gueituteco, oquerrac izan 500
arren. Tratalarijari gueijenian jazoten jacona da, diru asco poltsan sartuten daven eguna, egun ona. Bere gustora tratu asco eguiten dituban eguna, egun dichosua, egun alegueria. Celan illgo dan pensetan daven eguna, egun tristia. Tratuban zuzen ibili dan edo ez gogoratuten daven orduba, ordu penazcua. Sermoetati, liburu on bat iracurteti ta compesetati ateraten daven prutuba, guz- 505

484-485 oidaveen *Ba* 491 dendacua] deudacua *Ba* 494 naidaven *Ba* | naidaven *Ba*

¹⁷⁷ "Esqueratu": norbait eskale izatera eraman, eskeko edo eskale bihurtu; (guk dakigula, Frai Bartolomek bakarrik darabil; "esquera bialdu" dakar beste toki batean...).

¹⁷⁸ Ik. 66.oharra (941.or.).

tia dudia, larrija, quezquia, conciencijaco arantzia ta naaste illuna. ¿Cegaiti? Dirubaren gosia daucalaco. Saldu erosijan, al daguijan guztian, (beriaz urtetiarren, dinue) cer edo cer bere aldera gueijago eruatzen davelaco. Beti conciencija bere contra diadarca daucalaco. Pulpitoti, liburuti edo compesinoeti bere lapurretac entzuten dibubalaco ta guichituten ez ditubalaco.

510 Tratu asco dagoz engainuzcuac. Guztia ezin esan leguiz. Neurrico ta pisucucac esango dira gueroco icasiquizunian. Engainuzco tratuba da, gauza charra ontzat saldutia. Aguri ez daven paltia daucan ganaduba, paltia bagacuaren balijuan, ona balitz leguez, daquijala, saldutia lapurretia da. Jauna, neuri bere, 515 esan bagaric, onaren balijuan emon eusten. Ori da zuc ta zuri emon eutsunac, bijoc lapurretan eguitia. Jauna, perija errialian¹⁷⁹ saldu nevan. Ta an libre dala esaten davee. Perija errialac ez dau [123] obatuten zaldi gaixua, mula paltsua edo idi lamparoeduna. Ta charra gaiti onaren precijua, daquijala, inoc artu ezin legui concijencijan. Eguija da, legueguinac libretan ditubee perija batzuc, 520 tratu bacoheco auzi bat izan ez dedin. Baina ez davee quenduten conciencijaco zorra.

Engainuzco tratuba da, lenagoco urteco arto edo gari arinduba¹⁸⁰ ta iragua, urte ataco ona balitz leguez edo urte atacuagaz naastauta, esan bagaric, saldutia. Ascoc euquiten davee laboria saldu bagaric urteetan, eurac nai leuquen 525 precijora eldu ez dalaco. ¡Ah, coitaubac! Ta labore zaar arinduba ta erdi irotuba onagaz nastauta salduten deutsee pobriari onaren precijuan. Au lapurretia da. Jauna, zaarra zan baina ona eguan dino codicijosuac. Esaten jaco, ona egongo zala laster echeti quenduteco, baina ez uruna eguiteco. ¿Ona beguan, cetaco naastau dozu urte barrucuagaz lengo urtecuac? Codicijosuentzat, saldu- 530 teco dauquen guztia da ona; ta erosi biar daven guztia achequijaz betia. ¿Nos aseco ete dira diruz?

Engainuzco tratuba da, dendaco ustela, erria edo galduba, ona balitz leguez, ez daquijanari emotia. Icusi baino ez eucan, esanac ez dau quenduten engainuba ta lapurretia. Icusita bere guztia ezautuco ez davee ojalac edo dendacuac 535 daucan paltia. Ta ceuc saldu baceuntsan, zenquijala, onaren balijuan edo balijua baino goraago, eguin cenduban [124] lapurretan. ¡Ceimbat onaco lapurreta, cristinaubac! ¿Nos pagauco ete dira? Engainuba da, amar costa jacona gaiti, amavi costa jacola guzurra esanda, balijo daven baino gueijago pagau eraguitia. Au jazoten jacue ascotan baserrietaco ez jaquin pobriai. Ez 540 daquije, ez ce precijo daucan, ez celacua dan erosi biar daveen gauria. Orduban salzailiac engainetan dau erosla ez jaquina milla guzurregaz (ta ez

507 aldaguijan *Ba* 518 lamparoe duna *Ba* 519 legue guinac *Ba* 538 costajacola *Ba*

¹⁷⁹ Maileguzko hitza da; "feria real" gaztelaniaz; (beste toki batzuetan "erija" darabil).

¹⁸⁰ "Arindu": (hemen izenondo edo adjektibo gisa dator); andeatua, bere izaera pixka bat galdua duena, erdi irotua, iragoa, pasatua.

guichitan juramentu eguinda) ta verba labanaquin ta eraguiten deutsa engainuzco tratuba, edo gauza charra ontzat saldubagaz, edo balijo daven baino gorago emonagaz. Au ostutia da. Baita inoren preminiagaz balijauta eguiten dirian tratubetacuac bere. 545

IV.

Inoren preminazco tratu galdubac. Campo andija daucan sailla da au, neure cristinaubac. Ta Jesucristo, gueure Jaunaren caridadeti urrinen aldenduten dana. Zorrac eta jan biarrac asco eraguiten dau. Noraezecuac ez dauca ichaanic¹⁸¹. Emeti jazoten da ta ez guichitan, edo laboria, edo ganaduba, edo soinecua, edo tresnia, edo beste gauzaren bat jaubiari preminiac, danian dala¹⁸², saldu eraguitia. Baita noraezian biar daven gauzia gora nai merque erostia bere. Bigarcua baino gaurcua leenago dalaco, esan oi dan leguez. Orduban, inoren preminia icusita, ari balijo daven baino gorago saldutia edo merquiago erostia da orain esaten dan lapurretaco tratuba. Exemplu bategaz aituco dozu obetuago. 555

Baquizu auzuac diruba biar davena po-[125]puertza. Preminiac zaldi bat saldutera dacar jaubia. Baliyo ditu guztien erichijan ta zeuretzaco bere bai berroguei ducat. Eguiten zachacoz mercatari. Ta saldu biar davena icusita, esquintcen deutsazuz ogueta amalau ducat. Ez deutsazu gueijago emon gura milla achequijagaz. Ta ecarten dozu aren jaubia lau edo bost ducat galdubagaz zaldija ceuri saldutera, premina daucalaco. Au inoren preminaco tratu charra ta lapurretacua da. Au bide esquinati camporaco tratuba da. *Aimbeste bere noc emon ez eucan*, esanac ta beste achequijac ez davee balijoco Jaungoicuauren aurrian. Biar ez bazenduban, ez artu. Edo guztien erichico balijua emon erosi biar dozun gauzari. 560

Beste aimbeste. Labore pusca bat buruban artuta dua nequezari bat a saldutera, zorra paguetaco. Baquizu diruba biar davena ta, nai gora ta nai merque, saldu biar davena. Esquintcen deutsazu ez balijua. Ta dacarzu atan emotera. Bada, ostu deutsazu. Beste aimbeste, soineco bat edo echian biar daven tresna bat preminiac saldu eraguiten deutsanagaz. Beste aimbeste, jan biarran edo nora ezian imina bat edo anega bat artoren esque jatorzunagaz. Beste aimbeste milla tratutan. Erremediojo bagaric saldu edo erosi biar davena ezaututa, ari guztien erichico balijua baino merquiago erostia edo gorago saldutia da inoren preminazco lapurretaco tratuba. Au da lagunaren pobrecia, premina ordu- 570

553 oidan *Ba* 572 jatorzun agaz *Ba*

¹⁸¹ "Noraezecuac", hau da, ezinbestekoak ez du itxaroterik.

¹⁸² Dena delako preziotan, dena delakoan, ahal den eran (ik. hiztegitxoa 321.or.).

ba edo ez unia diru truque saldutia. Au da pobreen odola [126] chupetia. Au da era davenian ostutia, mendira jua bagaric bere atetan sosiguz. Orregaiti alacuac oi dira, euren erichijan, mesedeguinac ta guizon ondraubac. Esan bequijue, bada, emeti aurrera: *Lapur ondraubac*. Alperric da esatia: *Ez nintzan aren billa ibili. Bera etorri jatan. Ez eucan ez emon baino. Mesede gueijago eguin neutsan. Alacuan gauzac merquiago oi dira. Justicija atetan eucan ... ta beste onaco errazoe errazoe bagacuac. Estalgui arinac dira oneec, neure cristinaubac, esan dirian lapurretac ontzat emoteco. Alaco tratalarjac topetan badi-tubee pobriac ta preminan dagozanac, ostera bere laster ibili biarco davee*

580
585

oneec esquian, dauquen pusquia galdubaz.

Gogoratu bada, neure cristinaubac, ce astucijagaz lapurretan eguiten dan alcar artutaco, ez balijoco, engainuzco ta inoren preminazco tratubetan. Jaungoico altubac emon daigula guztioi zuentasunaren vidia ta gueureztat nai doguna proximuari beti opa izateco ta eguiteco gracia, ceinegaz gordeco

590

[127]

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
pisu ta neurri gaistoco lapurretia.

San Agustinec esaten deutsco, neure entzula onac, impernubaren moducua dala codicijotsuba. Impernubac inos esaten ez daven legu[e]z *naicua eguin dot* edo *asco da*, ezbada beti dagan leguez esque ta tiraca, alan, dino santubac, daguala codicijotsubaren vijotza inos diruz naicotu bagaric, beti esque ta beti tiraca. Salomonec lenago codicijotsubari emon eutsan marquia bere berau da (96). Impernuba baino gueijago ez naicotutia. Beti gueijago euquijaren gosez egotia. Codicija naicotu ezin dan onec topetan ditu milla asmo, oquer edo

595
600

(96) Prov. 27.

578 oidira *Ba* | mesede guinac *Ba* 580 eucan] aucan *Ba* 581 oidira *Ba* 596 ez bada *Ba* 602 aldaguijan *Ba*

davee. Ta onetarico lapur lapurrac dempora guichijan iraun oi davee bacoach. 605
 Seguruti ta esquer onian ostuten daveenac dira lapur jaquitunac, obeto irauten
 daveenac ta ez chiquijenac. Oneec, inori seguru ostuteco queizgarrizat equi-
 ten deutsee tratubari. Batac andijaguari, bestiac chiquijaguari, ta al daguijanac
 [128] bere duinari. Alan icusten dira erriric chicarrenac bere tratalariz beteta.
 Batzuc, erriyac ondo dituban tratu edo opicijuetan. Beste asco, euren buruti 610
 artutaco ta nai utsezco tratubetan. Tratu utsa bere, lagundu bagaric, sobre da
 liorra lapurrari naicua eraguiteco. Lagundu biar jaco, bada, tratubari, lapurre-
 tan seguru ta luzaro eguiteco. ¿Baina celan? Verbetaco modubagaz. Tratubac
 gueitufia ta verbeta eder echura oneco paltsuac bere orduban esaten jaquitia,
 tratalariyac lapurretan seguru ta luzaro errijetan eguiteco campo andija. 615

Bijac dira, neure cristinaubac, Espiritu Santubac esanac. Alaco tratubac ta
 traturaco asmo barriyac gueituten ditubenei esaten deutse Espiritu Santubac
 (97) cer eguiten daveen. Baita euren tratu chaarretan larregui pijau ez ditezan,
 azquenian cer jazoco jacuen bere. *Ceruban izarric daguan baino tratu guei ja -*
go eguin dozu, esaten deutsee Jaungoicuac. Esango baleutsee leguez: Tratubaren 620
 asmo ta arte guztiaquin balijau zara zubec, diruba batuteco; baina elchua edo
 arbolaco cocua leguez egaa eguinda, laster ezcutauro da zuben irabatziya.
*Bruchus expansus est, et avolavit*¹⁸³. Tratalarijaren verbetaco modu labana ta
 paltsua gaiti dino Jaungoicuac (98), *euren miinac ez diriala garbi egongo peca -*
tubetati. Au da guzurra ta engainuba sarri miinian darabilelaco tratalariyac. 625
 Berau gaiti esaten dau Ezequiel propeta santubac (99) arima tratu gaistocuen
 gainian: Tratu [129] ascoren artian ceure vijotza pecatuz beteta daucazu. *In*
multitudine negotiationis tua plena sunt ceteriora tua iniquitate .

Au jazoten jacue araco neurrijan ta pisuban gauza guichijan edo tratu chi-
 quijetan artu emona dauquenai. Ta oneen lapurretac dira nic dotrina onetan 630
 azaldau gura deusudazanac. Neurri paltsoco ta pisu gaistoco lapurretac. *Pisu*
paltsua Jaungoicuaren gorrotocua da, dino Espiritu Santubac, ta neurri zuce -
na bere gustocua (100). Pisu paltsua da arina euquitia, gaucia emoteco; ta astu-
 na, artuteco. Neurrijari beste aimbeste jazoten jaco. Au gaiti esaten dau Espiritu
 Santubac berac (101): *Ez dituzu euquico ceure echian pisu bi, bata andijagua* 635
ta bestia chiquijagua edo arinagua. Ezda neurri bi bere. Bata andijagua ta
bestia chicarragua. Non erit in domo tua modius major, et minor . Neurri ta
 pisu paltsuagaz casic igarri bagaric eguiten dira lapurreta asco. Ta gauza gui-
 chijan izan arren aldi bacoachian, sarritacuac dirian leguez, laster iragoten dira

 (97) Naun. 2. (98) Eccl. 26. (99) Ezeq. 28. (100) Prov. c. 11. (101) Deut. c. 25. 640

605 oidavee *Ba* 608 aldaguijanac *Ba* 631 deusudazanac *Ba*

¹⁸³ Ik. Na 3,16.

lapurreta andira ta pecatu mortaler. Alan, duda bagaric lapurretan eguiten davee ta pecatu mortalian vizi dira:

Lelengo Dendacuac salduten ditubeenac canaca ta ontzaca gauza guichica, lantzian pusca bat pisuban edo neurrijan guichiago emoten daveela. Onec
645 neurri edo pisu aldi bacoichian eguiten davee lapurretan. Ta lapurreta bacoicha gauza guichija izan arren, egunian egu-[130]niangua edo sarritacua dan leguez, alcarri dautsez¹⁸⁴ lapurreta chiqui areec. Ta guztia alcarri iraatsita gauza andira eldu ditezarian, eguiten dau lapurretazco pecatu andija. Oraindino gueijago: Alaco tratalarijac badauca gogua lantzian pusca bat neurri edo pisu bacoichian ostuteco, ostuteco uste edo gogo galduba bera da pecatu mortala. Bada,
650 cein era batera ta bati izan, cein puscaca ta ascori izan, gauza andija ostuteco ustia edo gogua daucana, vorondatez lapurra da ta pecatu mortalian dago.

Ez daquit celan dan, cristinaubac. Errial pusca batzuben balijua dendacotan artuta sartuten dira asco cale zulo baten. Tratu pusca arena baino beste irabazi bagaric mantenidu edo janduten dira, apainduten dira, dendaac gueituten ditubee, tratu andijaguetan sartuten dira ta guztiai cobru emoten deutsee. Ez daquit, tratalarijac, cetan daguan au. Baserrico biar garbijagaz ez dot nic inor alan aberatstuten icusten. Bildur nas, ceuben pisubac ta neurrijac asco balijo ete deustuben. Esan da lengo dotrinan, engainuzco tratubac, precijo oquerreco tratubac ta logrerijaco tratubac cer dirian. Baina gueijago ta gueijago esan
660 arren eurac gaiti, ez da inos bere larregui izango. Bildur nas, dinot, alaco tratalari laster aberatstu gura daveenac, codicijac itsututa ete daucazan ta modu guztietara lapurretan eguiten ete daveen. Batian, plazura dendaco pusquia emoten daveelaco; bestian, cobrauco ezin daveelaco. Batari salduten deutsee
665 precijuan gorago ta bes-[131]tiari neurrijan ta pisuban guichiago. Beste bati emoten deutsee dendacua, abuztuban garijagaz paguetaco ta corriduten daven precijuan garija izateco. Bestiari eguiten deutsee nai daveen contuba, pagazaille charra dalaco. Ta onan, casic euren tratu guztietan.

Ara emen, cristinaubac, ate asco zabalac alaco tratalarijac lapurretan eguiteco, casic eurac aintzat artu bagaric. Pobria dalaco ta ezin davelaco bada
670 pagazaille chaarra, ezin ari emon zinaguijo guichiago ez pisuban ta ez neurrijan. Ezda precijuan bere gorago. Ardura bagacua dalaco bada pagazaille chaarra, ari ez emon plazura, arduria artuten ta zorra paguetan icasi daguijan. ¿Baina cer jazoten da? ¡Ah! Tratalarijac ondo daquijee. Gaucia saldu biar daveenian, ez da pagazaille chaarric. Chito bigun ta gozo verba eguiten deutsa salzailliac erosliari, tratuba eguin artian. Plazura bere emoten deutsa, ain paga-

661 ezda *Ba* 672 Ez da *Ba*

¹⁸⁴ "Eutsi" aditzaren forma trinkoa "alcarri dautsez", "alcarri dautsala"... esapidea osatuz maiz darabil; (adierazi dugu sarrera orokorrean Nork-Nori-Zer erako aditz laguntzaileak eta honek duten aldea, bai forma aldetik eta bai esanahi aldetik).

zaille ciurra ez dana jaquin arren. Ta orduban engainetan dau onduen erolia. Pagatzaille charra dalaco emoten deutsa precijuan gorago ta neurrijan edo pisuban guichiago. Abutztuba oi da alaco zorric gueijenen plazuba. Orduban biarco dau salzailliac popuertza diruba edo garija. Garitan oi da alaco zorren paguba. ¿Ta ce precijotan? Baliyo daven baino merquiago. Ara emen tratu asco. Ta guztietan lapurretia. Orregaiti tratalari ascoc naijago davee nequezarijari plazura gaucia saldu diru escucora baino. Campo zabalagua dauque ta achequiya gueijago dau-[132]quez orduban, lapurretan eguiteco. 680

Ya aitatu dan ezquero laboriaren precijua, esan biar jacue tratalarijai, ez bacarric errijetan dendaco puscaac dauquezanai, ezpada zorraren aldera laboria artuten daveen guztiai. Esan biar jacue, condenau ez ditezan. Ez dala, eurac uste daveen leguez, laboriaren precijo corrientia. Preminiac edo vicijo gaistuac imina bat labore saldu eraguiten daven precijua ez da corriduten daven edo corridu biar daven precijua, zor aldera laboria artuteco. Emacume ordi batec eruango dau, echian ostuta, gari pusca bat saldutera. Amar baliyo baditu, ichico dau zortzijan edo zazpijan. Beste batec salduco dau beste aimbestian, zorrac estututen davelaco. ¿Ta areec saldu daveen precijua izango da corriduten daven precijua? ¿Ez jaco gueijago contu eguingo, zorra paguetaco garija edo artua dacarrenari? Tratalari ascoc ez. Verba ederraquin leen gaucia saldu eutsanac esango deutsa orain, *laboria precijo atan artuten davela; ta gura badau, atan ichi daguijala, ta ezbabere diruba ecarri daguijola* . ¿Cer eguingo dau, cegaz diruba eguin ez daucan zordun tristiciac? Larga labore zati bat zorraren alderaco emacume ordi batec imilaun bat saldu daven precijuan, tratalari paltuac atara ecarri davelaco. Ta ez daguijala gura izan Jaungoicuac alaco tratalarijac compesinoian esatia, *pagazaille charra bere bazala ta pusca bat gora chuago saldu eutsala; ta laboria corriduten evan precijua contu eguin eutsala*. Au alde [133] guztietati ostutia da. Ta ojala guichiago balira onetarico lapurrac. Ta endamas erri chiquijetan, gentiac nora ezian leguez euretara, gauzac eroatera, juaan biar daven lecuban. Pisuba ta neurrija, precijua ta verbetia, guztia da engainuzcua alaco tratalarijen echian. 685 690 695 700 705

Bigarrenian : Pisuban ta neurrijan ostuten davee, popuertzaco edo lelengo biarreco gauzac salduten ditubeenac, ceintzuc dirian oguija, oquelia, orijua, ardaua ta beste premina nausicuac. Ta ez modu batera, ezpada ascotara: 1. Neurrijan edo pisuban guichiago emoten davenian. Au gaiti eutzun dozu leen, pisu aldi edo neurri aldi bacochian guichi izan arren, alcarri dautseela egunian egunianguac edo sarritacuac dirianian alaco lapurreta chiquijac. Ta puscac bat eguinda gauza andira eldu ditezarian, eguiten dala pecatu illgarrija dan beste lapurreta. Ogui bacochari quenduten jaco ontza erdi bat. Libra oqueliari beste 710

679 oida *Ba* 680 oida *Ba* 686 ez bada *Ba* 697 ez babere *Ba* 699 imi laun *Ba*
709 ez bada *Ba* 711 neurri] ueurri *Ba*

715 ontza erdi bat. Libra orijuari beste pusca bat. Quartillu ardauari edo azumbre ardauari beste pusca bat. Bada, nai ontza laurenac, nai erdijac, nai pusca chiquijac, guztiaec lecu batera duaz. Ta, nai oguijan, nai oquelan, nai beste edo cein pisuco edo neurrico gauzan guchiago bada, ostuba da.

Onetarico tratalarijac, euren concijien zotinac ta diadarrac isilduteco, nos bait ateraten davee meza bat edo beste. Baita emoten deutsee arimai arguitacua bere. Baita, cerbait gueichubago daquijenac, composicinoc *bulda*-[134]*chu bat* nosbait artu bere euren buruti, eurac esan oi daveen leguez. Alan vizi dira urte ascotan lapurretaco tratuban. Bada, jaquin biar davee desdichaubac, ez euren buruti ataraco edo ostu alderaco mezaac ateriac, ez arguitacuac, ez buldiagaz erremedijetaco ustian ostuta guero buldia artubac ez ditubala libretan pecatuti ta lapurretan eguiteti, alan vizi dirian artian. Edo saldutiari ichi edo neurrian ta pisuban emon bacochari beria. Gaineracua lapurretia da.

Baita lapurretia da, errico aguntari. edo nausi batzubei neurri ona, pisu ona ta acienda ona emonda, bestiai comuna ta neurri chaarra emotia bere. 730 Araguiric oneena ta pisu ona errijan aguinduten davenen echera; ta oquelaric comunena ta pisu arina, pobren echera. Orijo ona ta neurri ona, abacerubac¹⁸⁵ nai davenarentzat. Orijo comuna ta neurri arinona bestentzat. Ogui salzailliac ta ardao salzailliac erregalu lodijaquin juezagazcua eguinda, bestiai nai daveen pisu ta neurricua emonda, burla eguin. Au guztiau lapurretia da. Ta sarri gueure errijetan jazoten dana.

Oneec esatia, *galdu eguiten dogu; gueuriagaz ezin urten dogu; ascoc pagau bagaric, igues eguiten deutchubee; gueuri bere ostu eguiten deutchubee*. ta beste naco achequijac bapere ez deutsee balijo Jaungoicuaren aurrian. Ez deutsa Jaungoicuac inori aguinduten tratubagaz vizi izateco. Baina bai, tratubagaz vizi arren, ez ostuteco. Orregaiti salvau gura daven tratalari-[135]jac eguin biar davena da, tratuban zucen ibilita galduten badau, ichi tratubari ta artu beste vizi modu bat.

Irugarrenian : Lapurretan eguiten davee, ez bacarric esan dirian opicijuetacuac, ez bada baita beste edoceinec bere, neurri ta pisu oquerrac dauquezanac. Cana laburragua, pisu arinagua ta endamas imina chiquijagua laboria emoteco ta andijagua artuteco. Onaco neurrico engainubac andi echetan bere badira. Baserrijetan bere bai. Oleetan bere bai. Errotetan bere bai... Esaten jacue guztiai, neurrian edo pisuban inori ecer quenduten deutsenian, lapurretan eguiten daveela. Ta aintzat Jaungoicuac juzgauco ditubala.

750 Beguiratu, bada, neure cristinaubac. Gueijago edo guchiago guztioi jazotenzatuna da, nosbait neurtuta edo pisauta gaucia saldutia. Sinistu, pisuba ta

722 nos bait *Ba* | oidaveen *Ba* 744 Ez bada *Ba*

¹⁸⁵ Maileguzko hitza da: “*abacera*: persona que tiene abacería” (*ik.* Real Academia Española, *Diccionario de la Lengua Española*, Madrid, 1984, 1).

neurrija zorrecuac diriala ta osoric emon biar diriala. Gorroto deutsa Jaungoicuac pisu paltsuari. *Statera dolosa abominatio est apud Deum*, dino Salomonec (102). Oraindino aguirijago eracusten dau Jaungoicuac, neurri paltsuari deutsan gorrotua Miqueas propeta santubaren aoti (103). *Suba dago*, diadar eguiten dau Jaungoicuac, *lapurraren echian*. ¿Baina ce su? Neurri chicarra gorrotoz beteta. *Mensura minor iræ plena*¹⁸⁶. ¿Ta ontzat emongo dot, dino Jaungoicuac, neurri oquerra ta pisu paltsua? *¿Nunquid justificabo stateram impiam?*¹⁸⁷ Esango baleu leguez Jaungoicuac be-[136]re asarriaren subagaz neurri ta pisu paltsoco tratalarijen contra: Miin labanagaz, *lingua fraudulenta*, embusterijagaz ta guzurrac esanagaz, *loquebantur mendacium*¹⁸⁸, pisu ta neurri paltsuagaz batu dituzu pecatuzco ondasunac, *thesauri iniquitatis*. Orrelaco lapurretaquin aberastu zara diruz ta pecatuz, *in quibus divites ejus repleti sunt iniquitate*¹⁸⁹.... Bai, au guztiau eguin dozu tratalari gaistuac, dino Jaungoicuac. Baina asi nevan ceuben pecatuben castiguba. Jango dozu ta ez zara aseco; batuco dozu ta ez dozu gordeco; ta gordetan dozuna, ceuri gach eguiteco izango da; ereingo dozu ta ez jatzu elduco. *Tu seminabis, et non metes*¹⁹⁰. Ta azquenian izango zara gentiaren burlagarria. *Opprobium populi mei*¹.

Ara cristinaubac, cer dirian ta cetan gueratu oi dirian neurri ta pisu paltsoco lapurrac. Beti ostuten ta inos aspertu ez. Beti lapurretan ta beti gueijagoren guran. Beti inorenari tiraca ta beti inorenaren biarran, inos medrau bagaric. Urte baten edo bijan tratu paltsuaquin dirubac batuten ditubee. Ta beste aimbestian, nundi ta celan ez daquijela, queia leguez, guztia ezcutetan jacue. Ta gueratuten dira azquenian pobre ta desondrau gentiaren barregarri. Au oi da lapur guztien azquena, Jaungoicuaren ordena nausijan. Eguiija da, tratalari logreru, paltsu, lapur batzuc ichi oi ditubee ondorenguentzat ondasunac munduban. Baina areec bere oi dira euren ta ondorenguen gache-[137]raco; *quos salvaveris, in gladium dabo* (104). Lapurraren ondasunac aucitan ta alcarren gorrotuan castau oi ditubee umiac edo senidiac. Norbera illteco ezpatia dira ostutaco ondasunac.

 (102) Prov. 11. (103) Cap. 6. (104) Miqueas c. 6.

763 aberastu] aberatstu *Ba* 764 eguindo zu *Ba* 766-767 izangoda *Ba* 768 izangozara *Ba* 769 oidirian *Ba* 775 oida *Ba* 776 oiditubee ondoren guentzat *Ba* 777 oidira *Ba* 779 oiditubee *Ba* 781 Miqueas] Miqueas *Ba*

¹⁸⁶ Ik. Mi 6,10.

¹⁸⁷ Ik. Mi 6,11.

¹⁸⁸ Ik. Mi 6,12.

¹⁸⁹ Ik. Mi 6,12.

¹⁹⁰ Ik. Mi 6,15.

¹⁹¹ Ik. Mi 6,16.

Artu bada, cristinaubac, gogo santu bat, inor engainau bagaric ta inori ecer ostu bagaric, pisu zucenagaz, neurri zucenagaz ta contu zucenagaz beti vizi izateco. Orduban Jaungoicuac emongo deutsco mundu onetan biar doguna ta guero betico ceruba. Alan gura izan daguijala bere ontasun amai bagacua gaiti.
785 Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
*nos eta celan pecatu eguiten daveen aguindu onen contra
gurasuac, umiac ta otseguinac.*

790 Jaungoicuac emoten deutsco, neure entzula onac, munduban vizi izateco biar doguna. Onen artian contetan da ondasuna edo euquiya. Jaungoicuac emon deuscun ondasuna bacochari zucen gordetaco da zazpigarren aguinduba, ceinec eragozten daven lapurreta guztia. ¿Ta emon deutscoz Jaungoicuac ondasunac, euraquin jaubiac gura davena eguiteco? Ez, cristinaubac.
795 Ondasunac jaubiarenac izan arren, ez dira alperric galduteco. Ez dira vorondate gaistuari [138] ta gurari charrai naicua eraguiteco. Ez dira Jaungoicuac emondaco ondasunac, Jaungoicuaren ondriaren contra pecatubetan castetaco. Uts eguite bi dagoz gauza onetan. Bata, ondasunac larregui maitetutia. Au codicijotsubena da. Bestia, Jaungoicuac eragotzitaco gaucetan ondasunac castetia. Au ardura bagaco castalarijena da. Bijac dira pecatu, guichiago edo gueijago. Ta gueijenian bitzubac austen davee zazpigarren aguindu santuba. Areec, inorena ostubaz. Ta oneec, inori emon biar deutseena eurac gaisqui castaubaz. Lelenguen lapurretac cerbait esanda gueratu dira lengo eracutsijetan. Bigarrenac dira orain azalduco dirianac. Aituten emongo deutsut bada, cristinaubac, dotrina onetan: 1. *Gurasuac nos pecatu eguiten daveen, euren pamelijaren caltian ondasunac castaubagaz* . 2. *Umiac celan pecatu eguiten daveen echeco euquijaren contra*. 3. *Otseguinac celan paltetan daveen aguindu onen contra*. Entzun eguidazu aimbat gogoric oneenagaz.

798 larregui] larragui *Ba* (301.or.: larregui) 803 cer bait *Ba*

I.

Guraso baten cereguinac bere seme alavetaraco andijac ta asco dira, neure entzula onac. Gurasuac umiari zor deutseena amaren sabelian sortuten dirianeti, euren aguinduban dagozan artian, bai vizitzari jagocazan gaucetan ta bai arimacuetan, eracutsita gueratu da laugarren aguindu santuban zati bat. Beste zati bat esango da bautismoco sacramentuban. Ta orain bacarric esango deutsut, gurasuac cer eguin biar daveen euren umiai emoteco munduban cegaz vizi izan. 810 815

[139] Sinistu biar davee, bada, guraso guztiac euren cereguina dala, ez bacarric seme alavai exemplu ona, dotrina ona ta conseju onac emotia ceruraco vizi ditezan, ez bada baita euren euquijac ta aleguinac escatuten daven eduban, cegaz vizi izan umiai emotia bere. Naturaleciac berac escatuten davena da au. Orregaiti esaten da umiac zor deutseela gurasuai obeidutia; ta gurasuac umiai cegaz vizi emotia. Berau gaiti gurasuac artu biar dau arduria ta equi biar dau contu ona, biarra eguiteco, bere echiai, soluai ta basuai edo aciendiari beguiratuteco, Jaungoicuac emon deutzazan ondasunac alperric ez galduteco ta berac, errazoez ta Jaungoicuaren leguia ta consejubac gordeta, irabatzi al daguijana aurreratuteco. Au umiac daucazan guraso guztien zorra da. Eguinbiar onen contra pecatu eguiten davee gurasuac. 820 825

1. Alperrerijan demporia iragota irabatzi biar leuqueena irabatzi ezagaz, pamelijac caltia daucanian. Nequezarijac nequezarijaren moduban, opicijocuac opicijocuaren moduban ta caballeruac berari jaocan moduban, guztiac biarra eguin biar davee, euren echiac janduteco, soinac janzteco ta pamelijari cegaz vitzi emoteco. 2. Pecatu eguiten davee gurasuac, (batez bere emacumiac ta baita guizonac bere emaztiari edo umiai parcatuten deutseelaco) egunian eguniango modetan ta eheco euquijari ez jaocazan jantzijetan, pamelijarentzat biar leuqueena castetan daveenian. Dendan zorra, compiteri-[140]jan zorra, zapataricuan zorra, lecu guztietan zorra, areec paguetaco moduric ez ta beti moda barrija ta ez jagocan jantzija soinian. Au pecatu da. 3. Pecatu eguiten davee gurasuac, alperrac izan ez arren, ordiquerijetan, joco larreguijatan, pecatuco adisquidetasunetan ta bide bagaco auzijetan euren dirubac castetan ditubenian. 830 835 840

Evangelijoco seme castalarijac leguez¹⁹², lagun gaistuaquin ta luxurijan castetan davee, seme alabentzat gorde biar leuquena ascoc. ¡Ceimbat onaco ehegalzaille nasai! Beste batzuc gau bateco jocuan galduten davee urte guztico irabatzi edo errentia. Beste ascoc ordiquerijan ta tratu gaistueta jaaten ditubee

810 cer eguinac *Ba* 813 gueratuda *Ba* 817 cer eguina *Ba* 819 Ez bada *Ba* 825-826 aldaguijana *Ba* 826 Eguin biar *Ba* 836 paguetaco] peguetaco *Ba*

¹⁹² Lk 15,11-31 testuaren aipua.

845 euren echiac. Ta ez guichic temazco ta vide bagaco aucijetan. ¿Ceimbat caba-
llero, oquerrerijetan pobretuta, zorrez beteta, arpeguja guiza artera ateraten
lotsa biar leuqueela? ¿Ceimbat opicijoco, alover ona irabazten daveela ta osa-
suna dauqueela, beti arlote ta beti nequez, peseta bat daveeneco joculari emo-
ten deutseela ta emaztia ta umiac gosez ta biloxic dauqueezala? ¿Ceimbat echa-
850 gun ordi, echiac *concurssauta*, umiac esqueraco bidian isten ditubeela? Gueure
errijetan onetaricuac diriana edoceinec daqui. Bada, esaten jacue guztiai, zaz-
pigarren aguindu santuba austen daveela, alperrerijan, jocuan ta oquerrerija
gaistuetan pamelijac biar leuquiiana castetan daveenian. Ta ez dauquee cetan
pensau, ondasunac eurenac ditubeela nai daveena euraquin eguitemo.
855 Ondasunac nai gu-[141]rasuetati etorrijac, nai inoc emonac, nai norberac ira-
batzizac, ez dira pecatuco bidetan ta gaisqui eguinetan castetaco, ez bada erra-
zoiac ta evangelijo santubac aguinduten daven moduban zabalduteco. Echia ta
echeco pamelija jagocan moduban serbiduta, gaineracua pobriari emoteco. Ta
umiac daucazan gurasuac, bere eguinbiarrai cobru emonda, errazoezco ta
860 euquijagazco aguinzarijac ta limosnac eguinda, gaineracua umiai zor deutsee.
Jaquin bada, cristinaubac, alaco gurasuac austen daveela zazpigarren aguindu-
ba ta eguiten daveela pecatu mortala, gauza andira elduten dirianian. Baita
seme alavac bere austen davee zazpigarren aguindu santuba. Icusi daigun
celan.

865

II.

Gurasuaquin ta gurasuen aguinduban vizi diran seme alavac modu ascota-
ra pecatu eguin leguijee zazpigarren aguindubaren contra. *Lelengo*
Alperrerijari emonda, gurasuai biarrian ta euren lanetan lagunduten ez deutse-
nian. Gurasuac etenaz biarrian, umiac azteco; ta ume azizac alperrerijan, gura-
870 suen odola chupetan. ¿Ceimbat seme ta alava alper ta buruguin icusten dira
azita orreetan? ¿Celan ta nundi vizi dirian inoc asco ez daquijala? ¿Ta auzuac
deungaro esaten daveela? Izan leiteque au gurasuen erruba ta umen pecatuba.
Baina gurasuen erruba ez bada bere, umen pecatuba da. Ta ez sustrai chiqui-
cua. *Bigarrenian* : Pecatu eguiten davee seme alavac, gurasuac aguindu deu-
875 tsen opicijuan edo icastian aleguinaz ta errazoez dendatuten ez [142] dirianian.
Gueijago icasi leguijela ta icasi biar leuquela, icasten ez daveenian. Castau era-
guiten deutsee gurasuai euren naguitasuna ta ardura guichija gaiti, biar leu-
queen baño gueijago. Ta au gurasuai ostutia leguez da. *Irugarrenian* : Pecatu
eguiten davee seme alavac, jan edan larreguijetan, joco gaistuetan ta pecatuco
880 ibiltetan ta lagunaquin castetan daveenian. *Laugarrenian* : Gurasoen ixilic,
echeti laboria, diruba edo beste gauzac ostuten ditubeenian. Gauza jaquina da,

853 ezdauquee *Ba* 859 eguin biarrai *Ba* 871 ezdaquijala *Ba*

crisinaubac. Gurasoen ixilic edo gurasuaren errazuazco najjaren contra umiac
 eheco gauzac artu edo castetan ditubanian, eguiten dau lapurretan. Ta gauza
 andira eldu ezquero, atzera biurtu biar dau. Aitari eta amari cerbait ostuta pecatu
 ez dala esaten davenac, illten dau bere arimia. *Particeps est homicidae*, dino 885
 Espiritu Santubac (105). Beste aimbeste esaten da, senarraren errazuazco nai-
 jaren contra gulerijetan, joco charretan, moda gaistuetan ta pecatuzco tratube-
 tan castetan daven emaztia gaiti.

Eguiija esateco, penagarija da ta ez eche guichitan jazoten dana. Aita bat
 icerdija darijola dabil bere vizi moduban cerbait irabazten, emaztia ta umiac 890
 jandu, jantzi, jaso ta lagun artian vizi izaten iminteco. ¿Ta menturaz, erosita eca-
 rri daven laboreti, edo zorra paguetaco ozta batu daven diruti, edo urteraco
 nequez eguin daven oquela puscati ostu daguijola emaztiac edo umiac buru-
 guintzara-[143]co, gulerijaraco, tabernaraco edo jocaraco? ¿Oostu daguijuela 895
 plazaraco ta piestaraco ta sarauraco soineco barrijac eguiteco, echian daucan
 laboria, diruba edo irabatziya? ¿Ez da au guizon bati jazo lequijon penagarriric
 andijena? Asco dira bada, crisinaubac, alaco seme alava lapurrac. Ta ez guichi
 emazte buruguinac ta eche galzaillac. Sitsac soina jaten daven leguez, casic
 sentidu bagaric, echia pobretuten daveen amaac ta umiac. Lapurrac dira oneec
 guztioac Jaungoicuaren veguijetan. 900

¿Ta ezaututen ete ditubee eurac euren pecatubac? Ez daquit. Gauza bat
 esan negui. Ta da, guraso alperrac ta ordijac, jocolarijac, tratu gaistuetan ema-
 cumequin urte ascotan ibili dirianac ta oquerrerija impametan echia saldu,
 aciendac zorpetu ta umiac pobretu ditubeenac; premina bagaco chocolate,
 ardao, merijenda, mizquinerija, adisquidetasun ondo pagau ta jantzi sobraubac 905
 gaiti echiar luur jo eraguin deutsen edo castu andijac eguin deutseezan emaz-
 tiac; ta gurasuen najjaren contra, edo ostuta, edo alperrerijan, edo beste maina
 charretan gurasuai castau eraguin deutseen umiac; oneec, dinot, nequez com-
 pesau oi daveela eheco aciendiari ta euquijari eguin deutseen caltia.
 Jocolarijac ez dau compesauco pamelija pobretu davena. Emacume ordijac ez 910
 dau esango, echian ostuta edaaten davena. Semiac edo alaviac ez dau esango,
 urtia ecer icasi bagaric irago jacona ta gurasuai alperric castau eraguin deutsee-
 na. Ta ezda echian ostutaco jan gau-[144]ciagaz, adisquide ez onari merijan-
 dia sarri emon eutsana bere. Bada, jaquin, neure entzula onac, (onaco gauza-
 ric jazo bajatzu, nai aitari, nai amari ta nai umiai) aparteco pecatuba dala zaz- 915
 pigarren aguindu santubaren contra, esan dan moduban eheco ondasunac
 castetia. Pecatu mortala nos dan ta cetaraguino dan ta celan erremedijau biar
 dozun, esango deustubee ceuben compesore jaunac.

 (105) Prov. c. 28.

901 Ezdaquit *Ba* 909 oidaveela *Ba* 915 bajatzu] batjazu *Ba*

Seme alaven ondoric dira otseguinac ugazabai eguin oi deutseezan lapurretac ta caltiac. Otseguinen ordecuac leguez dira aloberecuac. Baita moduren baten errenterubac bere. Guztientzat balijo daique dotrina onec. Bada, bata gaiti esaten dana jaoco bestiai bere. Otseguinen lapurretac aitatu zirian laugarren aguinduban. Baina ez da errazoeti campora izango orain barriro esatia.

Onetaraco pensau biar dozu, neure entzula onac, begui illunac eta vista laburra daucaguzala, gueure paltaac icusteco. Ta chito zolijac ta arguijac, inorenac icusteco. Itsutasun au gaiti uste dogu bestiac obeto vizi diriala gueu baino. Ta artu emona badaucagu inogaz, uste dogu gueuc mesede gueijago eguiten deutzagula ari gueure tratubetan ta artu emonetan, berac gueuri baino. Alan, otseguinac uste dau ugazaba obeto vizi dala, bera baino. Ta bere otseguintzaco biarragaz ugazabari obeto juacola, soldatiagaz berari baino. Besteti, ugazabac uste dau mesede eguiten deutzala otseguinari, echian euquijagaz. Ta bere echian leguez, [145] ez aurreratu ta ez vizi eguingo leuquiala beste lecu baten otseguinac. Aloverecuac uste dau, biar gueijago eguiten davela alovera emoten deutseen baino. Ta aloverecuac daucazanac uste dau, aloveric erdija bere irabazten ez daveela. Errenterubac uste dau, errenta andijeguija daucala; ta errentiaz gainera bere ugazabac sarri cansetan davela. Ta ugazabac uste dau, echia merque daucala; ta bere errenterubac ondo vizi diriala edo vizi leitezazala ondo, biarra eguin ezquero.

Ara emen, cristinaubac, ugazaba, errenteru, alovereco ta otseguinen lapurreta ascoren asieria. Ta ez casta onecua. Bada, gueijenian ostuten deutsee alcarri concienjijaco pena bagaric. A baino gueijago berari eruaten deutzalaco. Alan aloverecuac ta otseguinac pecatu eguiten davee zazpigarren aguindubaren contra: 1. Jagocuen beste biar eguiten ez davenian. *¿Ta jagocuena* izango da, eurac derichuena? Ez, ez bada euren echian eurentzat eguingo leuquen edo eguin biar leuquen tercijua. Au da errazuazco *jagocona*. Urtiaren asierati amaira otseguinac ta aloverecuac lapurreta andija eguin leguijee onetan. 2. Lapurretan eguiten davee, soldatiaz ta aloveraz gainera echeti ixilic gauzac artuten ditubenian, soldata edo alover chiquijaren achequijan. 3. Pecatu eguiten davee otseguinac, echian euren contura dagozan gauzac euren paltaz galduten dirianian. Edo ardura bagaric laarregui castaubagaz, edo ugazabaren najaren contra inori emonagaz, edo [146] inori ostuten ichijagaz. Maiordomo edo echeco gaucen contuba daucan otseguinac calte andijac eguin leguijoz onetan ugazabari. Ta bere erruz eguin jacozanac jaso biar deutzaz otseguinac.

Ugazabac pecatu eguiten dau zazpigarren aguindubaren contra: 1. Echiac mercedu daven baino errenta andijagua errenterubari pagau eraguiten deu-

921 oideutseezan *Ba* 925 ezda *Ba* 937 ezdaveela *Ba* 938 gainera] guinera *Ba* 942 asi eria *Ba* 945-946 izangoda *Ba*

tsanian. ¿Ta noc daqui echiac ceimbat balijo daven? Daquijeenac esango deusee eche jaubiai, errenterubaren icerdija ostu gura ez badavee. Luurrac neur-
tuten ta mojiac ezaututen jaquitia edo gueure errijetaco *peritu* izatia uste dot 960
ez dala asco, baseerrijetan echiai errentac iminteco. Eche batec luur modu
asco daucaz, oi danez. Biar bardinagaz ta onera bardinagaz bere prutu bardina
emongo ez daveenac. Oneec zeintzuc dirian ta ceta[ra]guinocuac dirian
peritubac ez daqui, oi danez. Auzuan luzaro vizi izan dan nequezari on aitu-
bac obeto daqui. Dinot au, cristinaubac, ugazaba ascoc conciencija baquetuten 965
daveelaco, peritubac echia tasau edo balijotu davela esanagaz. Ta auzetaco
nequezari jaquitun guztiac dinue, *errenta gorra daucala ac echiac* . Bada, bali-
joti gaineracua ez da ugazabarena. ¡Oh, ceimbat ugazaba, errenteruben odola
chupetan daveenac. Bada, egunen baten pagau biarco da. 2. Ugazabac pecatu 970
eguiten davee, errenteruba errentiaz gainera ta alober bagaric biarrian ta beste
balijo gaucetan cansetan daveenian. Errenteruba ez da escatuten azartuten. Ta
[147] ugazabac, sarri cansau arren, ez deutsa emoten. Ugazaba ascoc uste
davee, Apricati erosita ecarriyac diriala euren errenterubac. 3. Pecatu eguiten
davee ugazabaac, errentia pagau ta echiari beguiratuten deutsan errenteru ona 975
errazoe edo premina andi bat bagaric echeti ateraten davenian. Calte andija
eguiten jaco errenterubari. Ta calte andija eguiteco, echia beria izan arren, erra-
zoe edo premina andija biar da. Ugazaben prestuezquerija oneetati dator erren-
terubac ugazabai lapurretan eguitia gueijenian.

Eguiija da, bein tratuba eguin ezquero, errenterubac pagau biar dau erren-
tia zucen. Ta ez deutsa ugazabari ezer ostu biar. Alan, lapurretan eguiten dau 980
errenterubac: 1. Tratubetan ta ugazabagaz beraren arteco artu emonetan uga-
zaba engainetan davenian. 2. Ugazabaren basoti iquetza, materijala edo egurra
salduteco edo inori emoteco artuten daveenian. 3. Echiari, soluai, basuai, arbo-
lai ta beste ugazabac errenterubaren contura daucazan gauzai, beriac balira 985
leguez, beguiratuten ez deutsenian. Onan ugazabai eguindaco caltiac jaso biar
deutsaz errenterubac. Errenteru asco dira chito ardura baguecuac ugazabaren
gaucetan. Soluac guijau¹⁹³ ez, pruta arbola bat imini ez, leen dagozanac galdu,
basuac triscau, iquezgueijac ta materijalgueijac erre edo saldu ta eche barruba
birrindu eguin oi davee errenteru ascoc conciencijaco pena bagaric. Alaco 990
errenterubac ez davee echeric merecietan. Alcarri eguin oi deut-[148]see sarri
lapurretan ugazabac ta errenterubac. Batac modu batera ta bestiac bestera.
Baina Jaungoicuac batarenac bere ez ditu ontzac emongo.

Gogoratu bada, cristinaubac, dotrina onetan entzun dozuna. Ez aaztu,
gurasuac, ce ardura andijagaz contu eguin biar deutsezun ceuben umentzat

960 ustedot *Ba* 962 oidanez *Ba* 964 oidanez *Ba* | luzaro| luzuro *Ba* | izan-
dan *Ba* 966 auzetaco] azuetaco *Ba* 977 biarda *Ba* 989 oidavee *Ba*

¹⁹³ "Guijau": soroak landu.

995 Jaungoicuac emon deusun euquijari. Ez da emen esaten codicijoso izateco, (bostgarren aguinduban esan cirian onen caltiac) ez bada esaten da, alper ta castalari ez izateco. Beguiratu, umiac, celan lagundu biar deutseezun gurasuai, alpererijan ta vide gaistuetan areec dauquena castau bagaric. Icasí, ugasaba, errenteru, alovereco ta otseguinac, ceubenagaz naicotuten, zintzo izaten, inoren gaucijari beguiratuten, biarra eguiten ta inoren icerdijaren bildur izaten. 1000 Orduban gordeco dozu guztioz zazpigarren aguindu santuba. Escatu daijogun Jaungoico zucenari emon daigula guztioi bere gracia santia, erijotzaco orduban bere aurrian aguertu guraco dogun zuentasunagaz munduban vizi izateco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

1005

VI ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
celan erremedijau biar dan inori aciendaan eguindaco caltia.

Ez da asco, neure cristinaubac, nos eta celan lapurretan eguin dan ta inori euquijan calte eguiten jacon cristinaubari eracustia, zazpigarren aguindu santuba osoz gordetaco. Bada, onezaz ostian noraeeceua da salvetaco, ostuba atcera biurtutia, ta inori euquijan edo aciendaan eguin jacon caltia jasotia. Casic esan ezin leguizan beste dira lapurreta ta inori calte eguite modubac, ta beste aimbeste izan biar davee calte jasote modubac. Dotrina labur bateraco au campo andija dana bacuszu, cristinaubac. Aitatu baino besteric ezin leguijue. 1015 Ostuba atzera viurtu bagaric ta inori euquijan eguin jacon caltia jaso bagaric, inundi al dedilla, pecatuba parcatuten ez dana ta lapurra ta calteguina conde-nauco diriana, Eleisa guztiaren sinistutia ta eracutsija da, neure entzula onac. Nundi pagau ecelan bere ez daucanian, (orduban bere inundi al davenian paguetaco najagaz ta gogo osuagaz) edo jaubiac bere guraz ostuba edo caltia 1020 parcatuten deusanian dago libre lapurra edo calteguina jaubiari ostuba atcera viurtuteti edo calte eguina jasoteti. Bestelan ez. *Ez da parcatu* -[150] *ten pecatu* -*ba*, dino san Agustinec (106), *atcera viurtu bagaric ostuba edo quenduba*.

 (106) In epist. 54. ad Maced.

996 Ez bada *Ba* 999 otseguinac] ost eguinac *Ba* 1008 Ezda *Ba* 1015 aldedilla *Ba* |
 calte guina *Ba* 1018 aldavenian *Ba* 1020 calte guina *Ba* 1021 Ezda *Ba* 123 epist.] episs *Ba*

Berau gaiti dino san Pauloc (107), *lapurrac ez diriala ceruban sartuco* . Ostuba viurtuta erremedijetan ez badira, ez dira ceruban sartuco. 1025

Contu bada, cristinaubac, inos diabrubic tentauta ecer ostu badozu edo inori calteric eguin badeutsazu, guichitu lua, guichitu jana, guichitu soina, guichitu castuba, gueitu biarra ta erremedijau munduban ostuba, impernuraco ichi bagaric. Guztia ezin badozu, erdiya edo laurena edo al daguizuna. Au da lapurretiagaz edo inori calte eguinagaz cristinaubac bere vizcarrari ezarten deutsan cargaia. Carga onetati compesorec ascatu ezin legui lapurra, ez calteguina. Onetaraco esango deutsut icasiquizun onetan: 1. *Lapurrac edo calteguinac nos daucan ostuba atcera viurtu biarra edo jaubiari calte eguina jaso biarra* . 2. *Celan viurtu biar daven ostuba ta jaso viar daven calte eguina* . Zurtu eguizuz, cristinaubac, ceuben zentzunac. Entzun eguidazu gogoti. Ta icasi eguizu ascotan biar oi dozun eracutsija. 1030 1035

I.

Cristinaubari aituten emoteco nos jaso viar daven inori ostubaz edo ostian eguindaco caltia, icentetan ditu Erromaco Catecismuac zortzi calteguin modu edo lapur modu (108). Ta dira: 1. Lapurretia aguindu daveenac. 2. Conseju emon daveenac. 3. Lapurretia ontzat emon daveenac. 4. Lapurretaan oneria edo pro-[151]vechuba euqui davenac. 5. Lapurretia eragotzi biarrian, eragotzi ez daveenac. 6. Lapurrac azaldau biarrian, azaldetan ez ditubeenac. 7. Lapur estalzaillac. 8. Inorena ostu davelaco lapurra alaveetan edo abonetan daveenac. Oneec guztio, bacochoac bere moduban, ezarten deutsee euren burubai ostuba viurtuteco zorra. Ostu davena bera da lelengo atcera ostuba viurtu biar davena. Ta aren urrengo dira beste esan dirianac. Calte eguite edo lapurreta modu bacochoa esanagaz aituco dozu, cristinaubac, obeto dotrina au. 1040 1045

Lapurretan eguiteco aguinduten davenac . Aguinduten deutsa aitac umiari, senarrac emaztiari, ugazabac otseguinari nai edozeinec bere aguindupian daguanari lapurretan eguiteco. Bada, ostu davenaren paltan, aguindu deutsanac pagau biar dau ostuba. 1050

Conseju emoten daveenac. Lapurretan eguiteco aguindu ez arren, conseju emoten badeutsa inori ostuteco edo eraguiten badeutsa lapurretan, ostu davenaren paltan, conseju emon deutsanac edo eraguin deutsanac viurtu biar dau ostuba bere jaubiagana. 1055

Lapurretia ontzat emoten daveenac. Baquizu zuc inoren calteco gauza bat eguitera duazana edo lapurretara duazana beste batzuc. Areen artian bat egui-

(107) 1. ad Corint. 6. (108) De Septim. praecep., n. 15.

1029 aldaguizuna Ba 1033 2] II Ba 1035 zentzunac] zentzuac Ba (301.or.: zentzunac)
1036 oidozun Ba 1050 otseguinari] otsegunari Ba (301.or.: otseguinari) | aguindu pian Ba

1060 ten zara zu bere. ¿Ta, edo ceure esanagaz, edo ceure erichijagaz, edo verba eguinda, inoren caltia eragotzi biar cenduban lecuban ixilic egonagaz ontzat emon cenduban besteen calte eguitia edo lapurretia? Bada, areen paltan, ceuc viurtu biar deutzazu jaubiari edo jaso biar deutzazu calte eguina.

[152] *Ostutaco gauzetan parte izanagaz* . Ecarten deutzabee gauza ostuba. Ta
1065 erosten dozu ostuba dana daquizula. Bada, lapurraren paltan, ceuc pagau biar deutzazu jaubiari edo biurtu atcera bere gaucia. Zaintuten dozu atia, echia edo vidia, inoc icusi bagaric bestiac lapurretan eguin daguijen. Bada, nai pagau deutzabeela ta nai ez deutzabeela ceure nequia lapurrac, zuc pagau biar dozu areen lapurretaco caltia, parte izan zarialaco lapurretaan.

1070 *Lapurretia eragozten ez davenac* . Oneec dira lapurretaac eragozteco carguba dauquenac, al izan ezquero. Juezac, gurasuac, ugazabaac ta aloverian inoren gauzac zaintuteco arduria artu daveenac. Juezaren ardura ta lotsa chiquija gaiti, erremedijau leguizala, jazoten dira errijan lapurretaac. Bada, juezaren paltia da ta berac zorco¹⁹⁴ ditu. Gurasuen edo ugazaben paltaz eguiten ditubee seme alavac edo otseguinac lapurretaac. Bada, areen paltan, gurasuac ta
1075 ugazabaac pagau biar ditubee. Letraubac, escribaubac, procuradoriac, medicubac edo barberac^{194a} euren eguinbarrretan zor daveena eguin ezaz lucetuten da edo galduten da aucija ta gueituten dira castubac, lucetuten da gaixua ta gueituten dira caltiac ta castubac. Bada, icentau dirian opicijuetaacuac, bacoach
1080 noberari jagocana, pagau biar davee inori eguin deutseen caltia.

Lapurretia azaldetan ez daveenac . Oneec dira lapurrac nun dagozan ta gauza ostubac nun dagozan daquijeela, juezac juramentuba-[153]ren beian itanduta, ucatuten daveenac edo autortuten ez ditubeenac. Oneec, lapurrac orduban azaldau ez ditubeelaco juezaren aurrian, pagau biar davee lapurreta-
1085 co caltia. Otseguinac ugazabari contu emon biar deutsa lapurretan eguiten deutseena, jaquin ezquero. Baita beste edocean, inoren gauzac gordeetaco carguba bere contura artuta daucanac bere. Ta eguiten ez badau, lapurraren paltan, berac pagau biar dau calte eguina.

Lapur estatzailliac . Oneec dira lapurrai egon lecuba, armac, janarija edo
1090 socorruba emoten deutseenac. Justicija lapurren ondoric davilenian, echian edo campuan lapurrac ta gauza ostubac ezcutetan ditubeenac. Gauza ostubac, daquijeela, erosi edo salduten ditubeenac. Logrerijaco tratuben escriturac edo paperac eguiten ditubeenac. Guzurrezco testigantziagaz inori calte eguiten deutseenac. Ta beste edocean esanagaz edo eguinagaz inori lapurretaraco vidia

1070 ezdavenac *Ba* 1083 itanduta] ltanduta *Ba*

¹⁹⁴ Honela eraikitako aditz multzoetan, esaterako, *nahi izan*, *zor izan*, *bizi izan* ... gaur egun, “nahi izango”, “zor izango”, “bizi izango” formak erabili ohi dira eskuarki; gure idazle zaharregan, oster, ez da joera hori somatzen.

^{194a} Gehienetan “barberu” forma darabil, baina hemen “barber” (ik. 317.or.).

emoten deutseenac. Oneec guztioac, lapurraren paltan, jaso biar dibubee areec 1095
 eguindaco calte guztiaac.

Lapurrac alabetan ditubeenac . One[e]c dira, nai dala laurretia, nai dala inori
 beste calte bat eguitia, eguitadetzat ta ecertacotzat nor baiti alabauta a calte
 eguitera ecarten daveenac. Edo inori calte eguiten ez deusalaco coitautzat ta
 ezertacoeztzat burla eguinda, calte eguitera inor gireetan daveenac. Bacuszu 1100
 auzuac daucala bildots on bat ortu on bat edo beste alaco gauza on bat. Ta
 esaten deut-[154]sazu bati, *ezertaco danac, axe ostu biar leusquiola*. Ostuten
 dau zure esanaren gainera. Bada, zuc oneraric euqui ez arren lapurreta atati,
 pagau biar dozu, lapurraren paltan, ac ostuba. Bacuszu eguitade doiloor bat
 ceure lagun bati beste batec eguin deutsana. Ta esaten deutsalaco *ezertaco eza* 1105
dala, coitau epela dala, alaco prestu ezari alan isten badeutsa . Bestelan eguin-
 go ez evala, zure esana edo burlia dala medijo, banatuten dau bere arerijua.
 Bada, jo davenaren paltan, zuc jaso biar dozu aren caltia.

Ara emen, cristinaubac, esanda noc daucan ostuba atcera biurtu biarra. Ta
 inori eguin jacon caltia jaso biarra. Lelengo da ostu davena edo caltia bere 1110
 escubaquin eguin davena. Baita gauza ostuba daucana bere. Oneen paltan
 dira, lapurretan eguiteco edo calte eguiteco aguindu daveenac; conseju emon
 daveenac; eragotzi biarrian, galarazo ez daveenac; azaldau biarrian, azaldau ez
 daveenac; atzeratu biarrian, aurreratu ditubeenac; zaintu biarrian, larga ditube-
 enac; aguertu biarrian, ezcutau ditubeenac; ta, dan moduban dala, lapurretiari 1115
 ta inoren caltiari aurrera bidia ta lagunatasuna emon deutseenac. Onegaz aaztu
 bagaric aitu eguizu, neure entzula onac, celan eguin biar dan calte jasote au
 edo ceubec *errestitucinoia* esaten deutsalaco.

II.

Entzun dozu leen, cristinaubac, al dedilla, ostuba viurtu bagaric edo inori 1120
 alan eguindaco caltia jaso bagaric ez daguala pecatuben par-[155]cacinoeric, ez
 arimaco salvacinoeric. Onen ondoric verba guichitan esaten da, bada, celan
 jaso biar dan calte eguina. Lagunari aciendaan edo euquijan eguin jacon caltia
 jaso biar jaco osoric. Ez jaco bacarric atzera biurtu biar ostuba, ez bada baita
 ostubagaz eguin jacozan caltiac bere. Ostu deutsalaco norbaiti zaldi bat. Zaldi 1125
 aren villa jaubiaco castau ditu eun errial. Bada, zaldija ta eun errialac biurtu biar
 deutsalaco jaubiari. Zuc conseju emonda artu dau batec, bestelan artuco ez
 evan auzi vide bagacua. Castau dau auzitan asco ta castau eraguin deutsa bere
 auzi lagunari. Bada, aucilari bijen castubac ta caltiac jaso biar dituzu zuc. Zuc
 guzurrezco testigantzia emonagaz galdu dau batec auzija ta aucijagaz solua edo 1130

1098 nor baiti *Ba* 1100 ezertaco ezetzat *Ba* | eguin da *Ba* 1101 ortu on] ortu an *Ba* 1108
 jodavenaren *Ba* 1109 esan da *Ba* 1120 aldedilla *Ba* 1124 Ez bada *Ba* 1125 nor baiti *Ba*

basua edo echia edo diruba. Bada, guzurrezco testigantzia emon cendubalaco jaso biar deutzazuz aucija galdu evanari, daucazan calte guztiac. Zuc ostu deutzazu auzuari anega bat arto soloti, artuac berroquei errial balijo zitubanian. Aren jaubiac pagau biar dau anega arto aren ordia echeraco irudogueti errial.
 1135 Bada, irudogueti errial pagau biar deutzazuz, ostu ceuntsan anega artua gaiti. Zuc ostuta urrinera eruan dozu inoren gauza bat. Bada, bere echian edo artu cenduban lecuban imini biar deutzazu jaubiari, berari ecer costa bagaric. Onan, cristinaubac, beste lapurreta ta calteguintza guztietan. Esan dan modu batera nai bestera, ezauberaz ta naiz lagunari calte eguin deutzanac aciendan edo
 1140 euquijan, [156] berac dauca erruba. Ta bereti adabau biar dau eguin daven calte guztia, salvauco bada.

Topautaco gauzac ez dira topau ditubarenac, ez bada galdu ditubarenac. Alan, cerbait topau davenac dendatu biar dau jaubia topetaco. Aguertuten bada jaubia, emon biar deutsa jaubiari osoric. Topau ezin badau jaubia, compesoriac esango deutsa gauza topaubagaz cer eguin biar daven. Bada, beretzat gueraturuten¹⁹⁵ badau gauza topauba, gueijagoco bagaric, ostuba leguez da. Edo ostuba da, dino san Agustinec (109). Topau badozu ta biurtu ez badozu, ostu dozu. *Si invenisti, et non redidisti, rapuisti*. Topautaco gauza batzuben gainian erreinuco leguiac gorde biar dira concienjian.

1150 Basuetan eguiten dirian lapurretac ta caltiac gaiti dotrina luce bat imini legui, neure entzula onac. Ta menturaz euscal errijetaraco ez litzateque izango errazoeti campora. Baina onaco baso caltiac errazoezco zucentasunac escatuten daven leguez erabaguiteco, nire aitutia chiquija da. Jaquituriya gueijago dauqueenac esango davee zietzago ta arguiruago.

1155 Uts eguite bi, derichat, alderatu biar diriala gauza onen gainian, errazoezco zucentasunari jarraituteco. Bata da *estubegui izatia*. Ta *bestia da nasajegui izatia*. Baso jaube batzuc ta *monteru* esaten jacuen baso-jaole batzuc chito dira estubac. Oneec zotz baten paltia arbola bati icusi orduco, multa gogor-[157]rac ezarten deutseez bati edo bati; al daguijenari. Vizcayco basuai ta gentiaren guizatasun prestubari beguiratu ezquero esan legui, alaco baso jaube ta baso jaolac vijotz gogorra ta codicija sicuba aituten emoten daveela. Carga bat orri edo biurgueti bi basuan palta ditubalaco, urren danari ezarri bost escudoco bat edo

 (109) Lib. 50. Hom. 9.

1138 calte guintza *Ba* 1139 deutzanac] dautzanac *Ba* 1140 adabau, *301. orrialdian* albadau 1143 cer bait *Ba* 1145 topau bagaz *Ba* 1159 aldaguijenari *Ba* 1162 urren] ureen *Ba*

¹⁹⁵ "Gueratu": beretzat hartu ("retener" itzultzen dute gaztelaniara; aditz iragankor gisa darabil testu honetan).

amarreco bat multa. Eurai ain legue estuba ta contu estuba artuten badeutsee Jaungoicuac, ez daquit celan ibilico dirian azqueneco contuban. 1165

Bigarrenac dira conciencia nasaicuac. Euren echeetan edo basuetan zotz bat ez dauqueela, urte guztian echian biar daveen egurra, orrija ta materijala inoren basuetati ostuta dauqueenac. Onetarico baso lapur asco dagoz. Ta menturaz compesaquizuntzat bere artuten ez ditubee onetarico lapurretaac. Uste dot, bitzubac uts eguiten daveela. Ez dala ain estu izan biar basoco egurraren gainian, baso jaube ta baso-jaole asco dirian leguez. Ta ezda ain nasai bere, beti inoren basoti ostuta echian biar dana ecarteco. 1170

Gauza batzuc dagoz casic jaquinac sail onetan: 1. Larria gueituteco, basuari su emotia eragotzita dago Vizcayco leguian. Ta subac eguiten daven calte guztia jaso biar dau su emailiac¹⁹⁶ edo aren lagunac. 2. Inoren basoti ostutia egurra, iquetza edo materijala inori salduteco, lapurretia da, oi danez. Baita egurra ostutia bere, agaz iquetza eguinda iquetza salduteco. 3. Lapurretatzat contetan da, echeta-[158]raco izan arren, asco balijo daven ta auzo guztia saldu oi daveen erico materijala ostutia inoren basoti. Zura, ola, latia... ta beste materijal nausitzat baserritar ondraubac contetan ditubeenac. 4. Lapurretia leguez da, nai egurra, nai orrija, nai beste gauza bat quendubagaz, inoren arbolac galdutia edo arboletan calte jaquina eguitia. Onezaz gaineracua erabaguico davee basoco lapurreta ta calten gainian, obeto aituten jacuenac¹⁹⁷. 1175

Gogoratu eguizu bada, cristinaubac, zazpigarren aguinduco eguinbiar santua. Ceimbat arte ta modu asmau dituban alperrerijac, gulerijac ta codicijac, inorena ostuteco. Ce legue gogorragaz ta zamai asarriagaz eragozten daven Jaungoicuac inori ostutia ta inori aciendan calte eguitia. Ta ce carga astuna ta pisutsuba ezarten deutsan bere burubari, inorena ostuten davenac edo inori calte eguiten deutsanac. Au da, atcera viurtu biarra. Caltia osoric jaso biarra, salvauc bada. Bildurtu ta icaratu zaite bada, cristinaubac, lapurretiaren bera- ren icenagaz. Ez inori eguin ceubei inoc eguitia gura ez dozunic¹⁹⁸. Ez galdu ceuben icerdija; ta ez tiratu inorena. Estimau ceuben euquija; baina ez chupau inoren odola. Alan izango dira zucenac ceuben tratubac, artu emonac ta pausubac. Ta Jaungoicuac emongo deutsu ceuben icerdijaren ta biar zintzubaren sari ugarija vizitzan ta betico dichia ceruban. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen. 1180 1190 1195

1165 ezdaquit *Ba* 1170 ezdala *Ba* 1172 basotij besoti *Ba* 1176 oidanez *Ba* 1179 oidaveen *Ba* 1184 eguin biar *Ba*

¹⁹⁶ Dirudienez, forma ihartuan jaso du hitz hau, *su emailiac* baitio, eta ez *semoilliac*.

¹⁹⁷ Ik. 176. oharra (992.or.).

¹⁹⁸ Ik. Mt 7,12; Lk 6,31.

VIII. AGUINDUBA.

Non loqueris contra proximum tuum falsum testimonium. Exod. 20.

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

5

1. *Ce ezaina dan testigantza palsa.*
2. *Ce zuzenac izan biar daveen juezac.*
3. *Cer eguin biar daveen letraubac, escribaubac eta procuradoriac.*

Santiago apostolubaren verbac eracusten deuschubee dino, neure cristi-
naubac, Erromaco Catecismuac (110) ce premina andicua dan, ez bacarric ona 10
dalaco, ez bada baita biarrecua dalaco bere, zortzigarren agundu santuco era-
cutsija. *Miinagaz pecaturic eguiten ez davena santuba da* , dino Santiago apos-
tolubac (111). Baina Apostolubac berac dino miina gaiti (112): *Miina da gor -*
putzaren zati chiqui bat, gauza andijac iracoiten ditubana. ¡Oh, ce su andi -
ja! ¡Oh ce mendi andija ixioten daven! Izanic bada, neure entzula onac, miina, 15
guztien esanian, cein gauza oneraco cein charreraco prest daguana,
Jaungoicuaren zortzigarren agunduba da miina ondo erabiltia. Leengo aguin-
dubetan zaintu dau Jaungoicuac, entzun dozun [160] leguez, bere amodijo ta
ondra santubari jagocana; gurasuen ondriari ta inoren vizitziari jagocana; ta
gorputceco ta arimaco garbitasunari ta inoren euquijari edo aciendiari jagoca- 20
na. Bada, orain zortzigarren lecuban zaintuten dau Jaungoicuac proximuaren
ondria. Ta agunduten dau (113): *Ez dozu ceure proximuaren edo lagunaren*
contra testigantza guzurrezcoric emongo . Gauza bi Jaungoicuac escatuten
deuschuzala agundu onetan, beste agundubetan leguez, dino Erromaco 25
Catecismuac berac (114). Bata da guzurric ez esatia. Ta bestia, oni darraicona,
eguija esatia. Arrigarizco jaquiturija ta zuentasunagaz alcarri dautsala¹⁹⁹ dago
Jaungoicuaren legue guztia. Guztia da zucena ta garbija, cerurutz gueure gogua
ta arimac jasoten ditubana ta humildiai zentzun andija emoten deutseena, dino
David erreguiac.

Aguindu guztien artian camporic chicarrena daucana ez da zortzigarren 30
agunduba. Balijo andico gaudia da, Jaungoicuac emen gorde ta zaintuten

(110) De octav., praecept. n.1. (111) C. 3. (112) Ibid. (113) Exod. (114)
Ibid. n. 2.

¹⁹⁹ Ik. 184. oharra (998.or.).

35 deitscuna. Gueure ondria, gueure pamia. Casic vizitzia bera baino gueijago
 maite doguna. Ta beste aldeti, inoren cleituba, ondria edo pamia galduteco
 dagozan leguez aibeste arte ta moda gaisto, noraeceua da zortzigarren
 aguindubac campo andija euquitia. Juezaren aurrian esandaco guzurragaz gal-
 40 duten jaco gueijen proximuari cleituba. Ta au da, lelengo, aguindu onec era-
 gozten davena, dino Erromaco Catecismuac. Baita galduten jaco pro-
 [161]ximuari pamia, juezaren aurrian ez ece ostian bere. Batzubetan, proximia
 gaiti guzorra esanda. Beste batzubetan, bera gaiti deungaro esanda. Beste asco-
 tan, bera gaiti deungaro entzunda. Ta ez guichitan, gaisqui proximia gaiti juz-
 gauta. Oneec guztioac eragozten ditu, bada, Jaungoicuac aguindu onetan.
 Eragozten dau proximuaren contra testigantza paltsua. Eragozten dau proxi-
 45 muaren contra guzorra esatia. Proximua gaiti deungaro esatia. Proximua gaiti
 deungaro entzutia. Ta proximua gaiti gaisqui juzgueetia. Au guztiau da aguin-
 du onetan eracutsi biar dana. Ta baita proximuari ondria edo cleituba galdu-
 ten jaconian, celan biurtu biar jacon bere. Guztiai asipena emoteco esango
 deitsut eracutsi onetan: 1. *Ce ezaina dan testigantza palsua* . 2. *Ce zucenac*
 50 *izan biar daveen juezac* . 3. *Cer eguin biar daveen letraubac, escribaubac, pr o -*
curadoriac ... Ez pensau, cristinaubac, ez dala ceubai juazun²⁰⁰ dotrinia au.
 Bada, ceubec izan ez arren eguinbiar areetacuac, ondo izango da zubeac jaqui-
 tia areec cer eguin biar daveen ta cer eguin biar ez daveen. Endamas gueure
 55 errijetan. Bai, gueure errijetan, vide bagaco ta balijo andi bagaco milla auzi
 gorroto ta castu andico egunero icusten dirian lecubetan. Ez daquit au cegaiti.
 Ala gentia berez auzilaria dalaco, ala inoren auzijagaz ondo vizi gura leuque-
 en laarregui dagozalaco. Izan leiteque bijac gaiti. Prestau eguizu, bada, ceuben
 gogua entzuteco.

I.

60 Guzurrezco juramentuba juezaren aurrian [162] eguiten davenac ce pecatu
 andija eguiten daven ta calte andijac ecarri oi dituban esan zan, neure cristi-
 naubac, bigarren aguindu santuban. An esan zanaren gainera, aitauten da
 barriro emen, artu daguizun guztioac gorroto santu bat testigantza paltsuaren
 65 contra. Testigantza paltsuaren ezaintasuna ta Jaungoicuac deitsan gorrotua
 aguiari da arguiro, neure entzula onac, Jaungoicuaren beraren legueti. Bada,

48 jacon] jocon *Ba* 52 ezarren eguin biar *Ba* 61 oidituban, esanzan *Ba*

²⁰⁰ Ageri denez, datibo plurala *-ai* dator, baina erakusle eta izenordain pertsonaletan *-ei* egin ohi du gehienetan; bestalde, "ceubai juazun" komunztadura egiteko era, ondare zaharretik datorrena adituen ustez, bere-berea du Frai Bartolomek eta sarrera orokorrean eta beste hainbat tokitan agertu dugu; gaur egun "zeuei joatzuen", "zeuei jagotzuen" esango genuke, edota era berriagoan, "zeuei dagokizuen".

dino Jaungoicuac (115): *Jaquiten bada inos testigantza paltsua emon davela batec bere lagunaren contra, eguin bequijo berari berac inori eguin gura eu - tsana. Castigau eguizu, bestiac bildurtu ditezan. Ez eguizu erruqui izan. Vizitzia galdu gura izan badeutsa inori, quendu berari vizitzia; beguija galdu gura izan badeutsa, beguija; aguina, escuba edo oina galdu gura izan badeu - 70 tsa, galdu berari aguina, escuba edo oina. Au dino Jaungoicuac eguiteco, testigantza guzurrezcua emoten davenagaz. Alan jazo jacuen Susanari guzurrezco pecatuba jaso eutseen agura zaarrai. Ezarri eutseen Susanari guzurragaz arrica illtia mercedu evan pecatuba. Ta jazo zan, Danielec testigantza paltsua aguertuta, agura guzurti bijac gentiac arrica illtia²⁰¹. Beste aimbeste jazo jacon Aman guzurti, paltso, sobervijosuari. Mardoqueo gach baguecuarentzat guzurrez ta embusterijaz prestanta eucan urcaan, bera urcatu even²⁰².*

Modu ascotara Jaungoicuac eracutsi dau testigantza paltsuari deutsan gorrotua. Sarritan [163] illac viztu ditu, gach baguecuac libretaco ta guzurti paltsuac castiguetaco, san Estanislaoen vizitzan iracurten dan leguez²⁰³. Baita sarri 80 testigu paltsuac castigau bere. San Narciso Jerusalengo obispuari jaso eutseen guzur desondragarri bat. Artu citubeen iru testigu paltso. Lelenguac esan evan: *Au eguija ez bada, Jaungoicuac erre nagujala* . Bigarrenac esan evan: *Eguija esaten ez badot, egun onic izan ez daguidala* . Irugarrenac esan evan: *Vistiac paltau daguidala* . Onan juramentu guzurrezcua eguin even iru testigu paltsuac. Lelengua, gau baten echiac su artuta, pamelija guztiagaz erre zan. Bigarrena, biatzetati bururaguinoco gach triste batec artuta, galdu zan. Irugarrenac, lagunuen castiguba icusita, garbatuta, autortu evan bere guzurrezco testigantzia ta eguin evan penitencija. Baina ac bere negarraren negarragaz galdu evan veguijetaco vistia ta gueratu zan itsututa (116). Pecatuba damututa, 90 compesauta bere jadiichi jacon²⁰⁴ testigantza paltsuaren castiguba.

(115) Deuter. c. 19. (116) Baron. an. 116. T. 2.

84 ezbadot *Ba* 86 errezan *Ba* 87 galduzan *Ba* 90 gueratuzan *Ba*

²⁰¹ Ik. Dn 13,61-62.

²⁰² Ik. Est 7,10.

²⁰³ Frai Bartolomek liburu honetan irakur zitzakeen gertakari hauek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 229. or.

San Estanislao (1030-1079), Krakoviako apezpikua da; lan handia egin zuen ohitura onak ezarri eta beharrezko berrikuntzak sartzearen; hainbat gorabehera izan zituen Poloniako errege Boleslau II.aren; hark eskumikatu egin zuen, baina honek, meza ematen ziharduela, hil egin zuen San Migel elizan (Ik. G. SPAHR, *Stanislaus, hl.*, LThK 9 (1986) 1018). (Aipaturiko hilen piztuera, santu honi dagokionez, ezaguna da ikonografian ere: ik. F. TSCHOCHNER, *Stanislaus von Krakau*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 8.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 390-392.).

²⁰⁴ "Jadichi": heldu, iritsi; (aditz iragangaitza da testuinguru honetan).

Gogoratu, cristinaubac, pecatu ezaina dala testigantza paltsua. Chito gorro-
to andija deutsalala Jaungoicuac. Testigu paltsuac desondretan davela
95 Jaungoicua, beste lecu baten esan zan leguez. Engainetan davela jueza, guzu-
rra sinistu eraguinda, juzgu oquerra emotera dacarrelaco. Calte eguiten deu-
tsala proximuari, cleituba edo aciendia edo vizitzia galdu eraguiten deutsalaco.
Baita erri guztiari bere, gach [164] bagueco erritar on bat, deungatzat castigau
eraguiten davelaco. Jesucristo gueure Jauna illteco bere testigu paltsuac biar
100 izan cirian²⁰⁵. ¡Oh, ezautuco balebee cristinaubac ondo ce pecatu andija dan
testigantza guzurrezcu! Baina icusi daigun juezac ce zucenac izan biar dave-
en.

II.

Ez da orain nire ustia, cristinaubac, errico buru edo juez baten eguinbiar
105 guztiac esatia, ez bada bacarric zortzigarren aguindubari jagocana. Jueza dan
leguez ta lagun artian oi dirian *ezdabaidaac* erabagui biar dituban leguez, cer
eguin biar daven esatia da oraingo saila.

Esaten jacue, bada, Espiritu Santubagaz (117) juez guztiari, norbait juzgue-
tan daveenian ez daveela guizonaren eguinquizuna eguiten, ez bada
110 Jaungoicuarena berarena. *Videte, quid faciatis, non enim hominis exercetis
judicium, sed Domini*. ¡Ez dau, bada, euqui biar, Jaungoicuaren lecuban edo tro-
nuban jarrita lagunaren vizitziaren, ondriaren edo aciendiaren gainian eraba-
guija emotera doian guizonac adilla edo entendimentu arguija ta zurra, voron-
date edo nailla arteza ta ondraubaa, vijotz garbija, irabatzi gura bagacua ta celo
115 santucua, errazoiaren ta leguiaren maitetasun vizija ta, dan moduban dala,
eguijari, errazoiari ta leguiari jarraituteco opa ona! Baietz esan legui, cristinau-
bac.

Orregaiti, Jetroc esan eutsanian Moisi juezac iminteco, gogoratu eutsan
celaco guizo-[165]nac artu biar zituban jueztzat. *Imini eguizuz jueztzat*, esaten
120 deutsa (118), *gente guztien artian billatuta, codicijaric ez dauqueen, diruba -
ren guraric ez dauqueen, eguiija maite daveen ta Jaungoicuaren bildur san -
tuba dauqueen guizon jaquitunac, juzgau edo erabagui daguijezan genten
arteco ezdabaidaac*. Zentzun ona edo jaquiturija, codicija usainic eza, eguiija-
ren amodijua ta Jaungoicuaren bildur santuba biar ditu juezac, erabaguija ondo

125 (117) 2. Paralip. c. 19. (118) Exod. c. 18.

104 eguin biar *Ba* 105 Ez bada *Ba* 106 lagun] lugun *Ba* | oidirian ez da baida-
ac *Ba* 109 ez bada *Ba* 123 ezda baidaac *Ba*

²⁰⁵ Ik. Mt 26,60; Mk 14,56.

emoteco. Au gaiti aguinduten deutsee Salomonec juezai (119), icasi daguijeela zucentasuna, erriac juzguetaco. Entzun eguizu, juezac, dino, Jaungoicuac emon deutsu bestiac juzguetaco escubidia. Bada, berac artuco deutsu ceuben erabaguijen contuba. Berac aztertucotu ditu ceuben vijotcetaco naijac. Bada, izan-
 nic bere ordecuac gentia zucenduteco, ez dozu zucen juzgau, ez dozu legue
 santuba gorde ta ez dozu Jaungoicuaren vorondatia eguin. Orregaiti dino
 Salomonec berac, *munduban andi dirianac, pena andijac irago biarco ditu* -
beela. Esango baleu leguez: Juezac jaso ditu Jaungoicuac bere lecuraguino.
 Eguin ditu beste guizonen artian chito andi. Baina ez badira juez zucenac ta
 onac, guero irago biarco ditubee pena andijac. *Potentes potenter tormenta*
*patientur*²⁰⁶. Entero contu gogorra, dino, artuco jacuela juezai. *Judittium duris* -
*simum*²⁰⁷. Ta Isaias propeta santubac esaten deutsee juez oquerrai (120):
Zorigaistocuac ta madaricatubac zara diruba gaiti gaisquina as -[166]*catu*
dozunoc ta erru baguia catiatu dozunoc. Zorigaistocuac ta madaricatubac zara
 pobria, alarguna ta ume zurtza estututeco ta necatuteco legue gaistuac edo era-
 bagui oquerrac emon dituzunoc. Onan Jaungoico, guztien Juezac, verba egui-
 ten deutsee luurreco juezai.

Lau gauzac juezac oquertuten ditubala, esaten evan san Isidoroc²⁰⁸. Edo
 codicijac, edo bildurrac, edo amodijuac, edo gorrotuac, edo guztia. Codicijac
 edo diruba artuteco ustiac luzatu ta oquertu eraguin eutsan Felix juezari san
 Paulo erru baguiaren gaineco erabaguija (121). Bildurrac oquertu evan Pilatos
 jueza. Ta ill evan Jesus errubaguija²⁰⁹. Amodijuac oquertu evan Herores. Ta eba-
 gui eutsan samia san Juan Bautistari²¹⁰. Gorrotuac oquetu cituban Anas, Caipas
 ta beste Judeaco juezac. Ta condenau even Jesus²¹¹, Bildots mansua. ¡Ceimbat
 onetarico juez oquer aguertuco ete dira, guztien erabaguija Jaungoicuac emo-
 ten davenian! Esaten jacue, bada, juez guztiai Moisec beriai esaten eutseena
 (122): *Eguijezu guztiai erabagui edo juzgu zucena*. Nai dala ervestecua²¹², nai
 dala erricua. Nai dala senidia, nai dala atcia²¹³. Nai dala adisquidia, nai dala are-

 (119) Sapient. c. 1. (120) C. 5. (121) Act. Apost. c. 24. (122) Deuteron. c. 1.

138 Zori gaistocuac *Ba* 139 Zori gaistocuac *Ba*

²⁰⁶ Ik. Jkd 6,7.

²⁰⁷ Ik. Jkd 6,6.

²⁰⁸ ISIDORUS HISPALENSIS, *Opera* 2.t., Matriti, 1778, 133-134.or. (*Sententiarum Lib. III*, cap. 54, 7). (Ik. 138.oharra, 956.or.).

²⁰⁹ Ik. Jn 18,38 - 19,16; Mt 27,20-26; Mk 15,10-15; Lk 23,20-25.

²¹⁰ Ik. Mt 14,3-11; Mk 6,17-28; Lk 3,19-20.

²¹¹ Ik. Mt 26,57-67; Mk 14,53-65; Lk 22,66-71; Jn 18,13-14.19-24.

²¹² "Erbeste": norbere herritik at dagoen beste edozein herriz esaten da; (*atzerri* ere esan nahi du testuinguru batzuetan, baina gehienetan ez).

²¹³ "Atze" hitzak, aurrearen kontrako tokiaz gain, etxekoa edo senidea ez dena esan nahi du, eta, hain zuzen ere, senide hitzari kontrajarria agertzen da Frai Bartolomerengan.

155 rijua. Nai dala pobria, nai dala aberatsa. Juzgau eguizuz guztiac leguiagaz bar-
din. Ez eguijozu beguiratu sentencija emoteco, noren aucija dan edo nor catia-
tutera edo ascaturera zuazan, ez bada noc errazoa daucan ta leguiac cer
dinuan. Orduban eguingo dozu, juezac, Jaungoicuaeren jui-[167]cijua. *Quia Dei*
160 *judicium est*²¹⁴. Juecen urrengo dira letraubac, escribaubac, procuradoriac ta
baita ez guichitan vitartecuac bere. Icusi daigun cer eguin biar daveen.

III.

Juezac aucijaren erabaguija emoteco jaquin biar dau noc daucan errazoa.
Au jaquiteco balijetan da testigubaquin. Areec cer dinuen jaquiteco, escribau-
baquin. Ta areen esanac leguiagaz neurtuteco letraubaquin. Aucilarijac artuten
165 dau bere laguntzat norbait. Ta oni esaten jaco *procuradoria*. Onec, aleguin
guztiagaz beguiratuta, zaintu biar dau bere partiaren errazoa juezaren aurrian.
Onei darraicuez, oi danez, auzi guztietan empeñubac²¹⁵ ta vitaartecuac alde
bijetati. Ez, gueijenian, errazoa aguertuteco ta zucenduteco, ez bada dan modu-
ban dala, aucija irabazteco. Ara emen, cristinaubac, ce mendi gacha, altuba ta
170 aldapatsuba irago biar daven ceuben aucijaren errazoiac, juezac erabaguija
emotera orduco. *Errazoa daucat ta ezin atan ichi neguijo*, esaten dozu, auci-
larija. Baina zure errazoiac esi asco irago biar ditu. Buru ascotan sartu ta urten
eguin biar dau. Ta bacochian zati bat quenduten badeutsee, ¿ce echuragaz
elduco da juezagana? ¿Ta agan beste zati bat galduten badau, cetan gueratuco
175 da zure errazoa sentencijara orduco?

¡Ah, aucilarijac! ¿Ceimbat bidar, letraubac edo escribaubac errazoa ceunca-
cala esan eutsun aucija galdu dozu? ¿Ez eutsun esan errazoa ceuncala? ¿Ez
ceuntsan pagau alovera? [168] ¿Ez cenduzan topau empeinubac erregaluba-
quin? ¿Celan, bada, galdu dozu errazoezco aucija? ¡Ah, cristinaubac! Zuri, auzi-
180 tan asteco, errazoa ceuncala esan eutsubeenac izan leitequez ez guichitan,
zure aucija galdutera eguin daveenac. Eurac dira, ez guichitan, zuri auzitaraco
gogua emon deutsubeenac. Ta bein auzitan zu imini ezquero, cein[t]zuc auci-
ja irabaci cein galdu ardura ez deutseenac. ¡Ojala onan ez balitz auzilari asco-
gaz!

185 ¿Baina cer eguin biar davee, icentau dirianac euren eguinbarrretan utsic ez
eguiteco? *Lelengo* eguin biar daveena da: Errazoe bagaco, tema utsezco ta

167 oidanez *Ba* 168 Ez bada *Ba* 174 Jueza gana *Ba* 185 eguin biarretan *Ba*

²¹⁴ Ik. Erm 2,2.

²¹⁵ "Enpeinu" hitza, norbaiten aldeko bitartekoa dela diote hiztegi batzuek; adiera hori duela dirudi testu honetan, baina hurrengo paragrafoan datorrenak badu ñabardurarik: nahi dena lortu ahal izateko goiko norbaiten laguntza, ukondoa, "entxufea"; hitz hau, Bizkaiko zenbait lekutan, bizirik dago adiera honetan, eta hala ikasi genuen txikitan.

gorrotozco quereillaric edo auciric ez artu bere contura. Baqui letraubac, escribaubac, procuradoriac edo empeinuba escatuten deutseenac vengaiç edo gorrotoz errazoe bagaric auzitara doiana. Bada, au daquijala ari aurrera bidia emoten badeutsa ta aren saila artuten badau bere contura, sail ataco calte ta pecatu guztiac duaz bere gainera. *Bigarrenian* : Itandu ezquero inoc, onaco edo alaco gauzatan escubidia edo errazoia daucan edo ez, erantzun biar deuta letraubac edo atarico opicijocuac daquijan moduban, bere saila balitz leguez, zucen. Edo esan, itandu daguijola obeto daquijanari. Au eguiten ez davenian emoten dau testigantza paltsua ta calte andicua. *Irugarrenian* : Bein errazoezco inoren aucija bere contura artu ezquero, zaintu biar dau aleguin guztiagaz ta leguiac esquintcen dituban mediyo guztiaquin. *Laugar-[169]renian*: Ez letrauc, ez escribauc, ez procuradorec ez deutsee entzuteric emon biar ez empeinubari, ez vitartecuari, ez erregalubari, ez dirubari euren contura daguan auzi zaintzaan bigunduteco, laututeco edo errazoiaren indarra macalduteco, aucija jaocanaren nai aguirija bagaric. *Bostgarrenian*: Ez davee escatu biar ez artu biar, leguez jagocuen baino alover gueijago.

Oneec dira, cristinaubac, cereguin ataricuen noraecoco eguinbiarrac. Ostian austen ditubee zazpigarren ta zortcigarren aguindu santubac. Ta ascotan gueijago bere bai. Ez daquit, codicijac lecu larregui ez ete daucan euren vijotcetan. San Bernardoc esaten beeban letrau, escribau ta procuradoriac gaiti, *eurac diriala miinai guzurra esaten eracutsi deutseenac; chito zurrac, justici ja austeco; chito jaquitunac, guzurrari eguijaren echuria emoteco ta gach eguiteco*. Casiodoroc esaten badau, *eurac diriala bein quereiliagaz doianaren poltsiari usain eguin ezquero, Argoc baino begui gueijago dauqueezanac; Brearioren escu teguija ta tripa teguija dauqueenac; Simonen embusterija darabileenac; Laomedonen juramentu paltsuac eguiten ditubeenac; Polimestoren codicija ta verba salceiac²¹⁶ dauqueezanac; Ulisen astucijac dau queezanac; Pimalionen sacrileguijuac eguiten ditubeenac... Euren isilic egotia bere, dino, pagau biar dala; ta euren miinac bere caltegarrijac diriala, zida rrezco arijagaz lotuten ez badira (123).*

[170] Onetaricuac izan ezquero letrau escribaubac, ceimbat calte eguin leguijen errijetan esaten ez da errez. Alperric errijac ta pamelijac naico davee baquia. Eurac iracoico davee guerria, aucija ta naastia. Jazo leiteque, cristinau-

(123) S.Bern. ad Eugen. Casiod. sup. Psalm. 73.

220

201 Bostgarrenian] Laugarrenian *Ba* 203 cer eguin *Ba* 204 santubac] santubec *Ba* 206 beeban] beenan *Ba* (301.or.: beeban) 210 poltsiari] postsiari *Ba* 211 Simonen] Sinonen *Ba* 218 ezda *Ba*

²¹⁶ Hitz-elkarketa sortzen du hemen, bigarren osagaia "salceiac" aditz-izena dela. Honelako formak normalak dira *Esku*-n, baina ez gainerako liburuetan; hauetan *-tute / -dute*; "verba saldu-tiac" izango litzateke haren liburuetako ohiko forma, hau da, hitz-jarioa...

225 bac, gueure errijetan alaco paperguintzaco oquerric ez egotia. Baina nic esaten deutsudana da, letraubaquin ta escribaubaquin balijetaco, araco ill edo vizico voticacuagaz medicuba edo osalaria balijetan dan leguez. Beste erremedijoric ez daucanian, nora ezian emoten jaco gaixuari ill edo vizico voticacua, esan oi danez. Beste aimbeste, cristinaubac. Ceuben vizitzia, aciendia edo cleituba jasoteco, (ta oneec bere gauza andija danian) beste medijoric ez daucazunian, nora ezian, azquenengo azquenengo escribaubaren echera, auzitan asteco. Ta orduban bere videti echera viurtuta, contubac obeto ateraten badituzu auzitan atera orduco, nequez garbatuco jatzu.

230 Escatu daijogun Jaungoicuari, bialdu daigula ceruco espiritubagaz gueure arimetara zuentasuna, prestutasuna ta eguijaren amodijua. Bialdu daguijuela juez guztiai bere argui santuba, errazoia ezaututeco, ta celo santuba, leguia gordetaco. Bialdu daguijuela auziguinzaco paperdunai bere bildur santubaren golpe oso bat, verbac zucenac, atzamar oscolac laburrac ta vijotza
235 Jaungoicozcua erabili daijen euren arriscu andico eguinbarrretan. Alan gura izan daguijala cerubac bere misericordija andija gaiti. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

[171]

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

240 1. *Cer dan guzurra esatia.* 2. *Ce pecatu dan.*

I.

Zortcigarren aguindu santuban eragozten deutsu, neure entzula onac, Jaungoicuac guzurra esatia. Guzurra esatia, dan moduban dala, beti da testigantza paltsua emotia. Ta au eragotzita dago Jaungoicuaren leguien. ¿Cer da, bada, guzurra esatia? Guzurra esatia da, dino san Agustinec (124), *inor engai -*
245 *netaco ustiagaz, goguaz bestera gaucia esatia* . Cerbait oquer esatia ta guzurra esatia ez dira bat. Gaucia oquer esan arren, esaten bada noberac derichon edo uste daven moduban, ez da guzurra esaten. Baina gaucia esaten acertau arren,

(124) Enchir. c. 22, n. 7.

202 deutsu dana Ba 224-225 oidanez Ba 233 Auzi guinzaco Ba 235 eguin biarretan Ba 236 daguijala] daquijala Ba 244 Cerda Ba 248 ezda Ba

goguaz bestera edo noberac derichonaz bestera esaten badau, guzurra esaten 250
dau Jaungoicuaren aurreraco. Verbia ta gogua edo jaquina bat eguiten ez diria-
nian izaten da guzurra. Baina ez, verbac ta ustia bat eguiten dirianian. Au ondo
ezaututa euqui biar davee cristinau guichi jaquinac. Bada, ascotan guzurric
esan bagaric, uste davee, guzurra esan daveela. Gaucia oquer esan ezquero,
pensetan davee beti dala guzurra. Uste dau batec gaur jai eguna dala. Ta esa- 255
ten dau: *Gaur meza entzuteco eguna da*. Bada, aste eguna izan arren gaurcua,
ez dau [172] ac pecatuzco guzurric esan, bere orduco jaquinagaz ta ustiagaz
verbac bat eguin ditubalaco. Ta verbiagaz zucen esan arren gauzia, erichijaz ta
goguaz bestera esaten badau, guzurra esaten dau. Uste dau batec gaur meza
entzuteco eguna dala. Ta berac ainzat euqui arren, esaten deutsa beste bati ez 260
dala meza entzuteco eguna. Bada, aste eguna izan arren gaurcua, esaten dau
guzurra, goguaz ta ustiaz bestera verba eguin davelaco inor engainetia gaiti.
Eguiija da, alan ez jaquinez gaucia orquer esaten danian, balijoco gaucia bada,
jaquin ezquero, atera biar da laguna uts eguiteti. Esan deutzazu ez jaquinez ta
uste onian lagunari meza egunian, ez dala meza eguna. Ez dozu pecaturic 265
eguin. Baina contuban jausten bazara meza eguna dana, bestiac mezia entzun
leguijan tertcijuan, atera biar dozu uts eguiteti, meza eguna dala esanda. Onan
beste balijoco gauza guztietan, erremedijau al dedin artian, contuban jausi
ezquero oquer esan evana.

Iru guzur casta erabaguiten²¹⁷ ditubee eraculac. Ta dira: *Lelenga Barre* 270
eguiteco edo eraguiteco guzurrac. Beste atsecabaric edo calteric inori ecarten
ez deutseenac. *Bigarrenian* : Noberari edo inori mesede eguitia gaiti beste gach
bagaric esaten dirianac. Echeco baquia gaiti, inoren palta bat escutetia gaiti,
norberaren premina ordu bat ez autortutia gaiti, daucan gauza bat ez emotia
gaiti... ta onan beste guzur asco esaten dira cerbaiten oneraco, inoren calte 275
bagaric. *Irugarrenian* : Inoren cal-[173]tiagaz esaten dirian guzurrac. Edo clei-
tuban, edo ondran, edo aciendan, edo caridadian lagunari caltia eguiten jaco-
la ta gacha baino ez daucala esaten dirian guzurrac dira irugarren castacuac.
Ez aaztu bada, cristinaubac, iru guzur casta oneequin, guzurra ce pecatu dan
ezaututeco. Ta entzun eguidazu gogo onagaz. 280

II.

Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, guzurra dala errijetaco ta lagun arte-
co sinistute ona galduten davena. Sospecha gaistuac gueituten ditubana. Guiza

261 eguna] uguna *Ba* | dau] dan *Ba* 266 bazara] batzara *Ba* 268 aldedin *Ba* 276
Edo] Eds *Ba*

²¹⁷ “(...) erabaguiten ditubee”: bereizten dituzte.

arteco artu emonai cleituba ta prestutasuna quenduten deutseena. Esan guztiac
 285 dudana ta erichijan iminten ditubana. Gorrotuac ernetan ditubana. Ta gente guz-
 tia naastetan daven oquerreriya da guzurra. Au gaiti dino Espiritu Santubac
 (125), *desondra ezaina dala guzurra cristinaubaren auan* . Aoco verbiaren
 vitartez alcarri aituten emoten deutsagu gueure goguan daucaguna, gueuc
 290 daquiguna edo ez daquiguna, nai guenduquiana edo nai ez guenduquiana.
 Bada, gueure laguna engainauco ez badogu ta testigantza paltsua lagunari
 emongo ez badeutsagu, nai ta nai ez esan biar dogu gaucia daquigun moduban.
 Edo ez badaquigu, ez daquigun moduban. Nai dogun moduban. Edo nai
 ez badogu, nai ez dogun moduban. Onan gueure ariman, gueure goguan edo
 295 vijotcian daguan moduban gaucia esaten ez deutsagunian lagunari, engainetan
 dogu laguna.

Ara emen guzurraren malecija edo gach guz-[174]tia. Ta ceimbat gueijago
 esaten dirian guzurrac, aimbat engainu gueijago lagun artian. Ta guztiac esaten
 badavee guzurra, guztiac dagoz engainauta ta guztiac alcar engainetan.
 300 Orduban vizi dira guizonac eta emacumiac, alcarren verbac eta goguac inos bat
 eguiten ez diriala. Inos alcar aitu ezin daveela. Ara guzurragaz ce injuriya eguiten
 deutsagun, verbia emon eutscun Jaungoicuari. Ta celan engainetan dogun
 laguna. Au gaiti Jaungoicuac eragozten dau guzurra esatia. Baita errazoiaren
 arguijac berac bere. Bada, bere aguiriz da oba izango zala guizonac eta emacumiac
 305 verbetan ez jaquitia, verbetan jaquinda verbiagaz alcar engainetia
 baino. Berbetan ez baguenqui, ez guenduquez gueure lagunac verbazco guzurragaz
 engainauco. Esan biar dogu bada, cristinaubac, verba eguiten dogun
 guztian eguiija.

¿Badaquizu, neure entzula onac, nundi datorren guzurra? ¿Ta cein dan
 guzurraren aita? Bada, san Juanec esaten deutsu (126), diabruba dala guzurtija
 310 ja ta guzurraren aita: *Diabolus es mendax, et pater ejus* Diabruba da guzurtija
 beti guzurra esaten ta inor engainetan diardubalaco. Diabruba da guzurraren
 aita, lelengo guzurra berac esan evalaco. Diabrubic esan euan lelengo guzurra.
 Esan eutsan Eva, guztion amari: *Jaungoicuac paradisuban Adani ta berari eragotzi*
 315 *eutseen prutia jan arren, ez ziriala illgo*²¹⁸. ¿Ta ez zirian ill? Bai.
 Bijac jan eueen prutia. Ta bijac ill cirian. Dia-[175]brubaren escolacuac dira,
 bada, guzurti guztiac. Diabruba da guzurraren ta guzurtijen aita. Escola mada-
 ricatu atari urten dau guiza artera guzurraren azi gachsubac. Ta zabaldu da
 mundubaren baztar guztietara. Ya esan legui Oseas propeta santubagaz (127),

 (125) Eccl. c. 20. (126) C. 8. (127) C. 4.

290 ezbadogu Ba 318 Ya] lia Ba

²¹⁸ Ik. Has 3,4-5.

ez daguala luurraren gainian eguijaric. *Non est veritas in terra.* Verba deungac 320
 ac ta guzurrac ondatu daveela guztia. *Maledictum, et mendacium[...]* inunda -
*verunt*²¹⁹. Aberatsac ta pobriac, andijac ta chiquijac, gurasuac eta umiac, zaarrac
 ta gaztiac, jaun dirianac ta ez dirianac, ume conduetaraguinoco guztia, esan
 legui, lelengo icasten daveena dala guzurra esatia ta inor engainetia. *A pro -*
*pheta usque ad sacerdotem cuncti faciunt mendacium*²²⁰. ¡Oh, oquerrerija impa 325
 mia! ¡Ce gorrotua izan biar deutsagun!

Ta itanduten badau inoc, ia beti dan pecatu guzurra esatia, erantzuten da
 baietz. Ez davela inoc inos guzurric esan, Jaungoicuaren ta naturaleciaren
 leguia ausi bagaric. Berez da gauza chaarra guzurra esatia. Ta beti da pecatu. 330
 Ezin guzurra esan legui pecatu eguin bagaric, ez cleituba gaiti, ez ondasunac
 gaiti, ez vizitzia gaiti. Ezda erru bagaco bat urcati libreetia gaiti bere. Ezda con-
 denau guztiac salvetia gaiti bere. Ecer gaiti bere ezin esan legui guzurra, peca-
 tu eguin bagaric Eleisa Ama santiaren sinistutian ta santuben eracutsijan. Emeti
 aguirri da, cristinaubac, orraco verban verbango guzurteguijori guztioac ta baco-
 cha di-[176]riala pecatubac. Alperric da esatia: *Guzur chiquijac esan nituban;* 335
ez zirian inoren caltecuac; baquia gaiti esan neban; barre eguiteco esan
neban; chantzaan esan nevan Dan moduban dala, ¿guzurra da? Bada, peca-
 tu da. ¿Baina ce pecatu da guzurra esatia?

Guichienaz pecatu chicarra edo veniala beti. Ta sarritan pecatu andija edo
 illgarrija. Izango da guzurra pecatu chicarra edo veniala: 1. Jaungoicuari ta 340
 pedeco gauzai injurijaric eguin bagaric ta lagunari edo proximuari ecetara bere
 calteric eguin bagaric ta eguiteco uste bagaric esaten danian. 2. Guzurragaz
 lagunari eguiten jacon calte aguirrija esquina guztietati chicarra edo guichija
 danian. Dinot, *esquina guztietati beguiratuta gauza chicarra danian* . Bada, 345
 guzurrac gauza guichija iruri arren, emon leguijo guzur chiquijagaz lagunari
 lotsari andija edo susto andija edo nai bague andija. Orduban izango da chi-
 qui dirudijan guzurra pecatu andija, ezauberaz bada.

Alan, chantzan ta barre eguiteco izan arren bere, pecatu mortala da, guei-
 jenian, guzurra esatia pedeco eguijen contra, Jaungoicuaren, Jesucristo gueure 350
 Jaunaren ta Ama Virginia guztiz santiaren ontasunen contra, meza santubaren,
 comunioeco ta compesinoeco sacramentuben, cerubaren, arimiaren ta beste
 gauza santuben contra. Onaco gauza altuben ta sagraduben contra guzurra
 esatia, inor engainetaco edo gauza santubai barre eguiteco, Jaungoicuari bera-
 ri injurija andija egui-[177]tia da. *Bigarrenian* : pecatu mortala da guzurra esa- 355
 tia, proximuari nai aciendan, nai cleituban, nai ondran, nai baquian, nai adis-

321 maledictum] Meledictum Ba 324-325 propheta] prefeta Ba 331 Ez da Ba | Ez
 da Ba 334 guzur teguijori Ba 340 Izangoda Ba

²¹⁹ Ik. Os 4,2.

²²⁰ Ik. Jr 8,10.

quidetasunian, nai osterantzian calte andija edo atsecaba andija eguiten jaco-
nian. Calte andija inori etorri leguijon guzurra esan ezquero ezauberaz, guero
calte a jazo ez arren, izan leiteque guzurra pecatu mortala. Ezcontza bat egui-
tia jazoten da. Esaten dozu zuc ezauberaz guzur bat novijo edo novija gaiti,
360 cein dan asco escontzia galduteco, juaconac jaquin edo entzun ezquero. Bada,
ezcontza a galdu ez arren, eguin dozu pecatu mortala. Zure partez galdu zan
ezcontza a. Ta eguin ceuntsan calte andija lagunari guzurra esanagaz.

Irugarrenian : Guzurra berez gauza andija izan ez arren, izan leiteque
pecatu mortala, edo personiaren parteti, edo guzur gueijaren parteti. Juez
365 ondrau baten, cura jaun baten, sacerdote baten edo religioso baten cleitu ona-
ren contra guzur bat esatia berez andija irudi ez arren, izan leiteque pecatu
mortala. Bada, alaco persona sagraduben ta ondraduben pamia guzur guichia-
guagaz gauza andijan galduten da, beste edocheinena baino. Ta lasterrago guzu-
rragaz pecatu eguiten da, alaco personen contra esaten danian. Beste aimbese-
370 te, asco lotsatuteco guzurra esaten bajaco arpeguijan persona lotsa ta cleitu
oneco bati, chiquija iruri arren, izan leiteque pecatu mortala, lotsari andija
emon jacolaco guzurragaz. Onestidadiagaz ta cleitu onian vizi dan emacume
edo nescatilla bat [178] gaiti esatia guzurragaz coloriac arpeguira ateraten deu-
tseezan azalquerijaac ta lotsagarrijac, burlaz ta chantzan izan arren, ascotan
375 izango dira pecatu mortaleco guzurrac, lotsari andija emoten jacolaco guzurra-
gaz persona ondraubari.

Alan oi dira lagun artian guizon ta emacume cleitu andi bagaco asco.
Alcarri quinu eguinda, aurrian dagozan persona ondraubai guzur minberac ta
lotsarizcuac esaten deutseezanac. Gueijenian eurac dira verdiac ta eltzacac²²¹.
380 Eurac dira alaco palta aguirijac dauqueezanac. Ta badago euren artian norbait,
euren palta jaquinac ez daucazanic, ari equiten deutsee milla lotsarizco guzu-
rregaz, gentiari barre eraguiteco. Onaco gentia ez da bacarric conciencija nasai-
cua, ez bada baita vijotz doilorrecua ta erne²²² prestu ececua bere. ¡Oh, ceimbat
onetarico, lagun artian egotia merecidu ez daveen daucazan luurrac bere gai-
385 nian! Endamas dempora triste oneetan. Asco da cristinau batec zucen bide
pusca bat artutia, pecatubari ta pecatuco lagunai ta ocasinoiari largatia, nos-
baitaco baten sarrijago compesetara, sermoetara edo eleisaruz juatia, lagun arte
baten milla guzur lotsarizco ta burla minbera ari esateco ta ezarteco. ¡Cegaiti
au? Larga daguijon salvetaco biditari ta viurtu dedin guzurtijen vide ta viciera
390 nasaira. ¡Ez da au diabrubaren beraren cereguina? Duda bagaric, cristinaubac.

360 ceindan *Ba* 368 lasterrago] Irsterrago *Ba* (301.or.: lasterrago) 377 oidira *Ba* 382
ezda *Ba* 383 Ez bada *Ba* | doilorrecua] doilerrecua *Ba* 385 Ascoda *Ba* 386-387 nos
baiteco *Ba* 388 Ce gaiti *Ba* 389 vici era *Ba* 390 Ezda *Ba* | cer eguina *Ba*

²²¹ "Eltzaca": heldugabea.

²²² "Erne": izaki bizia sortzeko hasiera, ernamuina...; (hemen izena da, izenondoa lagun duela).

Jaquin bada, neure entzula onac, zeubec gauza guichitzat daucazuzan guzurrac ascotan izango diriala pecatu mortalac. Ez pensau bar-[179]re eguiteco dala. Ez dau Jaungoicuac ontzat emoten lagunaren lotsarizco ta santidadiaren contraco barreric. *Guzurra esaten daven auac illten dau arimia* , dino Espiritu Santubac (128). *Guzurtijai gorroto deutseela Jaungoicuac* (129). 395 *Guzurtijen amaija azuprezco laba gorija izango dala* (130). Oneec ta beste onaco esanera asco dagoz Escritura Sagraduban guzurraren ta guzurtijen contra. Pecatu mortalezco guzurrac gaiti dira oneec. Baina entzun dozu, danic guzurric chicarrena bere pecatu dala. Ta ecer gaiti bere esan biar ez dala.

¿Begaz, esango dozu, beti esan biar dogu eguija? ¿Begaz, esan biar ez dan gauza bat inoc itanduten badeuscu bere, esan biar deusagu? Ez, neure entzula onac. Ez dozu olan aitu biar dotrina au. Gauza bat da guzurra esatia. Ta beste bat da eguija ez esatia. Guzurra esatia beti da peccatu. Eguija ez esatia ascotan da biarrecua. Cristinau asco dira chito jaquin gurac. Ecer bere ez juacuen gauzac jaquin artian, beti itanduten dagozanac. Alaco ez juacon itaunliari ez guzurric erantzun; baina ezda eguijaric bere, berac nai leuquian moduban. Daquiguna daquigun moduban beti esateco legueric ez daucagu. Ascotan ixilic euqui biar dogu daquigun gauzia. Orduban inoc itanduten badeuscu alago gauzia, ez erantzun. Jesucristo, gueure Jaunari gauza asco itandu eutseezan Anasec, Caipasec ta Pilatosec. Baina ez [180] eutseen erantzun areen itaune guztiai²²³. Samuelec, David erregue eguitera jua zanian, cer eguitera joian itandu eutseenai ez eutseen erantzun, David erregue eguitera joianic, ez bada Jaungoicuari sacripiketara joiala²²⁴. David Erregue eguitia zan orduco Samuelen cereguin nausija. Baina a ixilic euquita, bidezco cereguina eguitera joiala esan eutseen. Moij]sec ez eutsan inos esan Paraoni, Egitoti gentia aterata atcera biurtuco ez zanic, bere uste ta lan guztia ataraco izan arren. Iru eguneco vidian jua biar evala bere gente guztiagaz Jaungoicuari mendijan esquinija eguitera, esaten eutsan Paraoni²²⁵. Ta atcera biurtuco ez zana ixilic euqui. Juditec beste aimeste eguin evan Olopermesagaz²²⁶. Oneec guztioc eguija erantzuten even. Baina ez batec bere itaunlac jaquin gura euqueena. Areec 420 jaquin gura euqueena ixilic euqui; ta arei balijo ez eutseena erantzun, eguin even Moisec, Davidec, Samuelec, Juditec ta beste ascoc.

(128) Sapient. c. 2. (129) Prov. c. 12. (130) Apocal. c. 21.

397 esan era *Ba* 412 Ez bada *Ba* 414 cer eguin *Ba* | cer eguina *Ba*

²²³ Ik. Mt 27,14; Mk 14,60; 15,3; Jn 19,9-11.

²²⁴ Ik. 1Sm 16,2-5.

²²⁵ Ik. Jr 3,11-12; 5,3.

²²⁶ Ik. Jdt 10,8-9; 11,5-19.

Au berau esaten da bada, cristinaubac, eguin biar dala alaco ordu estube-
 425 tan. Guzurric esan ez, eguijari bere ez, ez juaconac nai leuquian moduban
 edo eguiija esaneti gacha etorrico dan orduban. Erantzun orduban beste gauza
 bat, eguiija dana ta gachic ez dacarrena. Ta ez guzurric esan ecer gaiti bere.
Nec prodam, nec mentiar, dino san Agustinec (131). Juezac itandu ezquero,
 430 beti esan biar da eguiija daquijan moduban, bigarren agundu santuban [181]
 eracutsi zan leguez. Gogoratu bada, neure entzula onac, cer dan guzurra esat-
 tia ta ce casta gaistoco pecatuba dan. Artu ceuben vijotcetan guzuraren gorro-
 tua ta eguijaren amodijo vizija. Oitu beti eguiija esatera, ceuben contra bada
 bere. Eragotzi chiquitati ceuben umiai ta otseguinai guzurra esateco ecandu
 435 galduba. Ez barre eguinda ontzat emon lagunen burlazco ta lotsarizco guzu-
 rrac. Gomutatu, vijotz ondraubaren ta prestubaren senailia dala beti eguiija esat-
 tia. Ta vijotz erquindubaren, luurtubaren ta ondra bagacuarena dala guzurra
 esatia. Gomutatu diabruba dala lelengo guzurra esan evana ta guzuraren aita.
 Ez aaztu, guzurragaz etsajac atera citubala paradisuti gueure gurasuac. Ta
 guzuraren arerijua dala eguiija, cein artu evan Jesus gueure Salvazaille maitiac
 440 bere icentzat. Neu nas *eguiija*, dino Jesucristoc. *Ego sunt veritas*²²⁷. Izan gait-
 zan, bada, guztioz Jesusen semiac, bautismoz garian leguez, eguiija esaten
 bere. Eracutsi daigun gueure verba guztietan, eguijaren semiac gariana.
 Orduban duda bagaric librauco gara pecatu ascotati, bai chiquijetati ta bai astu-
 netati. Orduban maitetuco gaitu Jaungoicuac gueure verbetaco zuzentasuna
 445 gaiti ta bialduco deutzuz bere gracia ugarijac. Orduban Jesusec ezautu ta
 autortuco gaitu bere semetzat Aita cerucuaren aurrian. Orduban gueure lagu-
 nac emongo deutzubee entzute ona ta sinistute ona guiza artian. Orduban,
 azquenic, miinagaz peaturic eguiten ez dogunian izango gara santubac, san
 [182] Juanec dinuanez²²⁸. Alan gura izan daguijala Jaungoicuac bere zuzentasun
 450 neurri bagacua gaiti. Amen.

 (131) De mendac. c. 13, n. 22.

424 esatenda *Ba* 425 ezjuaconac *Ba* 427 ezdacarrena *Ba* 430 entzula] eutla *Ba*
 437 lelengo] legengo *Ba* 444 maitetuco] maitetaco *Ba*

²²⁷ Ik. Jn 14,6.

²²⁸ Beharbada, Santiago aipatu nahi izango zuen (ik. St 1,26; 3,5.6.8).

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Celan pecatu eguiten dan inoren paltac esanagaz edo inor gaiti deungaro esanagaz.* 455
2. *Nos ez dan pecatu inoren paltac esatia.*

Salomonec esaten dau, neure cristinaubac, erijotzia ta vizitzia dagozala miinaren escuban (132). *Mors, et vita in manu linguae*. Esan gura dau, miinagaz emon leguijola guizonari vizitzia ta baita erijotzia bere. Miina onguilla andija da, ondo erabili ezquero. Baita gaisquin andija bere, gaisqui erabili ezquero. 460
 Asciori mesede andijac ecarri deutzaz miina ondo erabilijac. Apostolu santuben miinac duda bagaric izango dira ceruban glorijaz apaindubac. Beste asciori ecarri deutzaz calte andijac. *Lingua imprudentis subversio illius* (133). Esan beguije impernuban dagozan herege ta gaisqui esalac, ce sarija ecarri deutseen miinac. 465
 Juezaren aurrian testigantza paltsua emotiac ta guzurra esatiac ce echura ezaina daqueen entzun dozu, cristinaubac, leengo eracutsijetan. Bada, orain esango deutzut: 1. *Celan pecatu eguiten dan inor gaiti deungaro esanagaz* . 2. *Nos ez dan pecatu inoren paltac* [183] *esatia*. Ez dago inor bere, cristinaubac, muturen bat ez bada, miina erabilten ez davenic. Berau gaiti, ezda dotrina onen icasi biarra ez daucanic bere. Alan escatuten deutzut guztioi, imini daguizula aimbat eutzuneraric oneena zortzigarren aguinduco eracutsi oneetan. 470
 Batez bere gaurcuan ta gueroco domeecacuan, ceintzubetan verba eguingo deutzudan zeubec murmuracinoia esan oi deutzazun pecatu impamiaren gainian.

I. 475

San Juan Crisostomoc esaten deutzcu, neure entzula onac, *ate bigaz ichita emon eutscula Jaungoicuac miina, lasterregui edeguita, verbaren bat gaisqui esan ez daigun*. Veguijac zabalic emon eutscuzan Jaungoicuac, icusteco. Belaarijac bere bai, entzuteco. Suurra bere bai, usain eguiteco. Escubac ta oinac bere bai, oratuteco ta pausu eguiteco. Ta izanic miina aimbeste bidar biar 480

 (132) [Prov.] c. 18. (133) Eccl. c. 5.

456 ezdan Ba 468 ezdan Ba 469 ez da Ba 471 entzuneraric] entzum eraric Ba 473
 oideutzazun Ba 477 edeguita] edequita Ba 478 ezdaigun Ba 480 aimbeste] aimbestc Ba

doguna, au emon eutscun ate bigaz ichita, aguinaquin ta ezpanaquin barrututa. Ate bijac edegui biar davee lelengo, miinac verba eguingo badau. ¡Ojala au asco balitz, miina ondo erabilteco!

485 Miinaren eguite charretati bat da, ta ez oneena, lagunari pamia galdutia. Inor gaiti deungaro esatia. Pama onac eta cleitu onac asco balijo daveena edoceinec daqui bere burubagaz. Ta cerbait esan zan onen gainian bostgarren aguindu santuban. Lagunaren edo proximuaren pamia galduten da, bada, miinagaz, inor gaiti deungaro esaten danian. Ta au jazo leiteque modu ascotara.

490 *Lelenga* Lagunaren clei-[184]tubaren contraco guzurra norberac asmauta esaten davenian. Esaten dozu inor gaiti (guzurra dana daquizula edo ceuc edo bestiac asmautacua) *ostu evala, orditu zala, zorra ucatu evala, lagun chaa - rrequin icusi cendubala* ... Bada, orduban galduten deutzazu proximuari miinagaz pamia.

495 *Bigarrenian* : Lagunaren paltia eguiija izan arren, ixilic eguaneti ceuc azaldau dozunian, edo ceu zariala mediyo azaldau danian. Eguin dau batec erijotza bat. Baina ez daquije chito guichic baino, noc eguin daven. Ta ixilic dagoz. Esaten deutzazu zuc bati, noc eguin daven erijotza a. Ta zabalduten da zure esaneti. Bada, zuc ceure miinagaz galdu deutzazu ondria. Ta jaquin, neure entzula onac, edocein lagunaren paltatan dala au. Nai lapurreta baten, nai orditute baten, nai joco eragotzi baten, bai juramentu paltso edo blasphemija baten, nai logrerijaco tratu char baten, nai castidadiaren contraco pecatu ezain baten, nai beste edocein pecatuzco errutan. Nai dala guizona, nai dala andria, nai dala mutilla, nai dala nescatillia, nai dala jueza, nai sacerdotia, nai religiosua, nai gurasua, nai senidia ezcutuban gaisqui eguin davena. Aren ezcutuco paltia ceure miinagaz ceuc azaldetan badozu, lagunaren ondria ceuc galdu dozu. Ta ez pensau, cristinaubac, lagun batec edo bic jaquin ezquero, ez dala ezcutuco paltia. Ez pensau aopian bati edo biri esan ezquero, pecatu azaldauba ta jaquina dala. Ez dago onaco legueric, proximuaren cleituba aotan erabil-[185]teco.

500 Gogoratu ceubec cer naico cenduquian, descuido bat edo lotsagarri bat jazoten jatzunian. Eguiija da, bagoz gach eguite batzuc ezcutucac izan arren, aguertu biar dirianac. Ez edocein modutan, ez bada gach eguinaren sailari jagocan moduban, ondo pensauta, azaldau biar da gaisquina, gacha erremedijetaco, al dedin moduban. Onaco gach eguite andijac ceintzuc dirian esango deutzut laster.

515

Irugarrenian : Inoren paltac gueituta esaten dirianian galduten da proximuaren ondria. Icusten dozu auzo bat jai baten meza entzun bagaric daguala bere guraz. Ta esaten dozu, *a ez dala eleisara bere juaten*. Au inoren paltia gueituta esatia da. Ta ondria galdutia da. Icusten dozu eleisa guizon bat bein

486-487 edo ceinec *Ba* 488 galdutenda *Ba* 489 modu| moda 512 ez bada *Ba* 514 aldedin *Ba* 516 galdutenda *Ba* 518 ezdala *Ba*

bere estadubari ez jagocan moduban. Ta esaten dozu, *a beti davilela oquerre* - 520
rijetan. Au gueituta esatia da.

Laugarrenian : Proximuaeren esan onac edo eguite onac chartzat juzgauta
contetan dirianian, galduten jaco lagunari ondria. Judegubac alan galdu gura
izan epeen Jesusen ondra santuba²²⁹. Icusten da guizon bat, bere echiari contu
eguiten deusana, tabernetan ez osterancian castu alperricacoric eguiten ez 525
davena. Ta esaten da a gaiti, *zequenquerijac eraguiten deusala*. Icusten da
persona bat, mundutarren ocasinotati alde eguiten davena ta biar dan ondo
izatiagaz eleisara sarrijago juaten dana. Ta esaten da a gaiti, *mundubac san* -
tutzat euqui daguijan eguiten davela. Au inoren ondria galdutia da.

Bostgarrenian : Pro-[186]ximuaeren ondria galduten da inoren ona bestiai 530
entzunda, noberac ontzat emon biarrian, gaistoz entzuteric ta sinistuteric emo-
ten ez deusanian.

Proximuari ondria galduteco, bost modu oneec eracusten ditubee
Eleisiaren Gurasuac santo Tomasegaz (134). Ondria galdu ezquero, atcera biur-
tu biar jaco proximuari, al dedin moduban. Bestelan ez dago salvetaric. Celan 535
biurtu biar dan ondra galduba esango deusna compesoriac galdu davenari.
Onezaz ostian, lagunaren paltac aguirijac, jaquinac ta azaldubac izan arren
bere, premina bagaric inor gaiti esatia beti da pecatu. ¿Baina nos egongo da
preminia inoren paltac esateco, pecatu eguin bagaric? Sarritan egon leitequez,
cristinaubac, ataraco premina ordubac. Ta entzun eguizuz batzuc. 540

II.

Gauza bitaraco, dino san Basilioc (135), *esan leguizala inoren paltac*,
pecatu eguin bagaric. Bata da, norberac cer eguin biar daven jaquiteco. Ta bes-
tia, erru bagaco ez jaquina galdu ez dedin. Santo Tomasec gueituten deutsee
onei bijoi bere ordu bat. Ta da, paltia eguin davenaren oneraco danian. Alan 545
esaten da, neure entzula onac, ez dala pecatu inoren paltia esatia: 1. Evangelijo
santubac aguinduten davenian. Bestelan erremedijetan ez bada gaisquina, jue-
zari edo aguintarijari aren paltac esanda erremedijau dedin²³⁰. Au beraren one-
raco [187] da. 2. Noberac cer eguin biar daven jaquiteco. Baquizu lagun batec
gauza deunga bat eguin davena edo eguitera doiana; edo pedeco gauzen contra 550
contra, edo erregue jaunaren contra, edo errijetaco baquiaren contra, edo erru

(134) 2. 2, q. 73, a. 1. (135) Reg. brev. interrog. 25.

535 aldedin *Ba* | ezdago *Ba* 547 erremedijetan] erremedijatan *Ba*

²²⁹ Ik. Jn 18,21-23.

²³⁰ THOMAS AQUINATIS, *Summa theologica*, secunda secundæ, quæstio LXXIII, articulus 2.

bagaco baten contra. Ta ez daquizu cer eguin. Bada, orduban esan zinaguijo
 ta esan biar deutzazu aren pecatuba ta gach eguina compesore bati edo gui-
 555 zon eldu bati, sail atan cer eguin biar dozun jaquiteco. 3. Erru bagaco ez jaquin
 bat galdu ez dedin. Baquizu deunga batec inocente edo ez jaquin bat engai-
 netan davena. Ta ariman edo vizitzan caltiac ecarteco sailentan sartuten davena
 edo sartu gura leuquiana. Bada, orduban deunguiaren paltac ez jaquin erru
 560 bagacuari esatia, aren engainubetan ta pecatubetan sartu ez dedin, ez da pecatu.
 Au gaiti, gurasuai esatia umen oquerrijac, ocasinoiac ta adisquidetasun peli-
 gruzcuac; ugazabai esatia otseguinen lapurretac ta condecinoe impamiac; erri-
 jaren burubai esatia gavetaco guizonen batzar charrac; cura jaunari esatia
 pamelijetaco escandalubac; otseguin ez jaquinai esatia lagunen ta ugazaben
 pecatu-guintzac ta pecatu-eraguintzac... Onaco paltac esatia, dinot, jaquinac ta
 565 ciertubac izan ezquero, erremedijau leguizanari ta erremediju biar ditubanari
 edo juaconari bacarric, ez gaisquinaren gorrotoz ta vengai, ez bada nai onagaz
 ta uste zintzuagaz paltac gueitu bagaric, erru baguiac galdu ez ditezan, oi
 danez, ez da pecatu. Ta ascotan aguertu biar dira gaisquinac, norberac baino
 570 [188] bestec jaquin ez arren pectubac. Batez bere pedeco gaucen caltian, Eleisa
 santiaren caltian, erlignoe santuben caltian, erregue jaunen caltian, erreinu-
 baren ta errijen caltian, guztien onaren caltian.... eguin dirian edo eguin gura
 dirian pecatubac eta paltac azaldau biar dira, conseju ona artuta, batec baino
 jaquin ez arren. Alaco ordubetan ez dauca gaisquinac escubideric, inoc guztiz
 bere pecatu ezcutucua ixilic euqui daguijon. Alan bere, cristinaubac, gauza
 575 astunac dira onetaricuac. Ta inos jazoten jazunian edo gacha erremedijetaco
 cer eguin ez daquizunian, itandu laster compesore bati edo aituten jacon bati.
 Ta aren esana eguinagaz ez dozu utsic eguingo.

Onezaz gaineraco inoren deungaro esatia edo inor gaiti murmuretia, nai
 dala guzurra, nai dala eguiija, nai dala ixilicacua, nai dala azaldauba edo publi-
 580 cua esaten dana, beti da pecatu, cristinaubac. Beti da, edo caridadiaren contra,
 edo zucentasunaren contra. Ta ez guichitan bijen contra. ¡Ojala demporiac
 lagunduco baleust, inoren gaisqui esate madaricatubaren ezaintasuna ceubei
 ondo aditu eraguiteco! ¡Ojala pecatu impame ta desondragarri onen zabaltasu-
 na, erreztasuna ta gach verentuba ceuben vijotzetan sustraiz sartu al vanei!
 585 Artu daguizun beraren gorroto mortala. Ta inos aoric edegui ez daquizun lagu-
 na gaiti gaisqui esateco. ¿Baina cer esan leguijo murmuradoriari edo *gaisqui
 esaliari*? ¿Batian gorrotuac, bestian embidijac, bestian vengantziac, bestian [189]
 buru erichijac, bestian esanguriac, inor gaiti deungaro esateco baino aua ede-
 gui eraguiten ez deutzanari? ¿Cer esan guinaijo gaisqui esaliari, miina zucen
 590 erabilten icasi daguijan?

563 pamelijetaco] pemelijetaco *Ba* 566 ez bada *Ba* 567-568 oidanez *Ba* 576 ezda-
 quizunian *Ba* 584 alvanei *Ba*

¿Esango deutsalagu, bere aua gaisqui esatiaren atsa darijon sepultura edegui bat dala? ¿Esango deutsalagu, gaisqui esaliaren castia Jaungoicuaren veguijetan gorrotocua dala? *Detractores Deo odibiles surit*²¹ ¿Esango deutsalagu, Espiritu Santubaren esanian, gaisqui esaliagaz ez davela inoc bere bat eguin biar? ¿Esango deutsalagu, otso batec arteguijan baino calte gueijago eguiten davela 595 gaisqui esaliac erri guztico gentiaren ondraan? *Gach andija da*, dino san Juan Crisostomoc (136), *miin gaisqui esalia. Demonino oquerguin bat da. Guizonari baquetan inos bere isten ez deutsalana da. Miin gaisqui esaliac ira - coiten ditu asarriac, sortuten ditu gorrotuac, gueituten ditu auzijac, galduten ditu baquiac, oquertuten ditu vijotzac, zabalduten ditu sospechac, eguiten ditu 600 erijotzac, orainche adisquide dirianac puntuco iminten ditu arerijo, nastetan ditu pamelijac ta urratuten dau errijetaco baquiaren ta battasunaren lotuga - rrija, cein dan caridadia. Gaisqui esaliac diabruba serbiduten dau. Ta orr e - gaiti guzurtizat ta lapurtzat ervestetu biar da. Tamquam mendax, et fur est propellendus* Au guztiau da san Juan Crisostomoc. Miin gaisqui esalia, dino 605 san Bernardoc (137), dala suga vivoriaren eztena. *¿Nunquid non vipera est lin- [190]gua ista?* ¿Cer eguiten dau suguiac? Inor acordau orduco, ixilic eztena sartu, verenua ezarri ta gaisotu edo ill.

¿Ta cer eguiten dau miin gaisqui esaliac? Suguiaren beraren eguin eguina. Batian, *au entzun davena*; bestian, *au ei dinuela*; bestian, *alan ei zala*; bes- 610 tian, *zanac emon eutsal*; ta bestian, *alan dala* esanda, beti inoren paltac, guzurrac edo eguijac esaten ta bere miin zitalagaz inoren cleituba gaisotuten edo illten diardu gaisqui esaliac. Odol aterazailliarena edo barberubarena, dino Aita Prai Luis veneragarri Granadacuac, eguiten davela gaisqui esaliac²². ¿Cer, bada? Barberubac gaisuari odola aterateco, lelengo ondo igortzi, labandu ta 615 leundu eguiten deutsal besua. Ta guero sartu lantcetia erruqui bagaric ta odola atera. ¡Ah, miin gaisqui esala madarictubac! ¿Ceimbat bidar au eguiten dozu? Asten zara norbait gaiti lelengo ondo esaten. Jasoten dozu ceruraguino. Igorztuten dozu, labanduten dozu ta leunduten dozu chito ederto. Ta andi las- 620 ter, ez daquit celaco erruqui bat edo ondo gura bat baceuntsa leguez, asten zara daquizun ta ez daquizun, entzun dozun ta sospecha eguin dozun guztia ceuben aoti miin zorrotzagaz aren contra esaten. Ordu erdijan edo ortu betian

(136) Sup. psalm. 100. (137) Serm. de tripl. cust.

601 orainche] orainhc Ba 610 eidinuela Ba | eizala Ba

²¹ Ik. Erm 1,30.

²² Frai Bartolomek, ziur aski, haren *Doctrina christiana* liburuaren bigarren parteko IX. kapitulu-
tulan irakurriko zuen esamolde hori (ik. *Obras del venerable P. Maestro Fr. Luis de Granada de la Orden de Santo Domingo. Tomo séptimo, que contiene la explicación de la doctrina chística...*, Madrid, 1770, p.198-206).

625 proximuaren azur guztiai, odol guztiai, laugarren belauneraguinoco seniquera
 guztiai eraguinda, guztiaic gaiti gaisqui esanda, aren cleitu guztia osticopetuta,
 azquenian ceure gaisqui esaaldijari ezarten deutzazu *chaplatia* barberac
 [191] sangriari leguez, proximuaren pamiari eguin deutzazun epaija²³³ osatute-
 630 *co, esanagaz: Neuri mesede baino ez deust eguin. Neureztat persona ondrau-*
bac izan dira. Eurac jaquingo davee cer eguiten daveen. Ni baino cristinau
obia da. Ez daigun inor gaiti murmurau. Emen esan dodana, emen gueratu
co da...

Ara emen, cristianubac, gaisqui esaliaren azqueneco chaplata osagarriac.
 ¿Ta ez da onen miina suga vivoriarena baino gaistuago? ¿Verenotsubago?
 ¿Caltegarriago? ¿Bildurgarriago? ¿Ez dago ordu guztietan miin zorrotsagaz lagu-
 635 nari calte eguiten gaisqui esalia? ¿*Tota die injustitiam cogitavit lingua tua ?*
 (138) ¿Nori parcatuten deutsa gaisqui esaliac? ¿Noc dauca ondria seguru bere
 ao atsituti? Inoc bere ez. Gaisqui esaliac bere echia covernetaco ez bada bere,
 esaminetan dau erreguia, juzquetan dau obispua, tachtetan ditu abadiac, deun-
 640 gatuten ditu prailiac, lapurtuten²³⁴ ditu juezac, logrerututen ditu caballeruac,
 guzurtituten ditu predicadoriac, zequenduten ditu ugarijac, zitalduten ditu
 baquetsubac, zelotsotuten ditu ezcondubac ta lotsagarriac estalduten ditu
 libriac. Ez ordenautacoc, ez andic ta ez chiquic, ez erricoc ta ez auzoc, ezda
 bere celdan edo coru baztarrian belaunbico daguan mongiac bere, ez dauca
 seguru bere ondria errico gaisqui esala baten ao galduban.

645 ¿Ta ceimbat onetarico ao gaistoco? Ceubec daquizu, neure entzula onac, ce
 ugarija dan [192] inor gaiti gaisqui esatia. Lagun bi edo iru alcarregana batu
 ezquero, verba aldi guichi izaten dira lagunari guichi edo asco ondran icutu
 bagaric. Eurac gaiti inoc esatia guraco ez leuqueen edu norbait gaiti esan baga-
 650 ric. Errazto chito gaisqui esaten da. Ta nequez gaisqui esanaren epaija osatu-
 ten da. Laster ta sarri inoren cleitubari luur jo eraguiten jaco. Ta gueijenian ez
 da inos bere odo jasoten. Ez da ondra galduba atcera batuten beinguan. Au
 gaiti esan eutsquijon miin gaisqui esaliari Jeremias propeta santubac (139)
saeta zaurilarija. Sagitta vulnerans . ¿Cegaiti au? Saetiaren epaija osatuten chito
 gacha dalaco. Gueijenian ondo osatu bagaric ill oi dalaco saetiaz zaurituba.
 655 Beste aimbeste. Miin gaisqui esaliac eguiten daven epaija osatu bagaric ill oi

 (138) Psalm. 51. (139) C. 9.

630 esandodana *Ba* 633 ezda *Ba* 634 Calte garriago? ¿Bildur garriago? ¿Ezdago *Ba*
 642 chiquic] chiquit *Ba* 650-651 ezda *Ba* 651 Ezda *Ba* 653 Ce gaiti *Ba* 654 oidalaco
Ba 655, 657 oida *Ba*

²³³ "Epaija": ebakia; (irudiz darabil hemen).

²³⁴ "Lapurtu": lapur egin, lapurtzat jo; (era berean darabil, hurrengo sintagman "logrerututen
 ditu caballeruac").

da. Bein galdutaco ondria, galduba oi da. Gueijenian miin gaisqui esalaac beste mundura joan oi dira, emen inoren ondran ta cleituban eguin citubeen epaijac osatutera edo paguetara.

Baquigu Escritura Sagraduti, Jaungoicuac gorroto deusana inoren contra- 660
 co gaisqui esatiari. Ta iracurten dogu ce castigu icaragarrijac eguin dituban,
 gaisqui esalaac castiguetaco. Maria Moisen arrevia, bere nevia gaiti gaisqui esan
 evalaco, lepra loi astun batec estaldu evan gorputz guztian²³⁵. Iracurten da (140)
 gaisqui esalia erijotzaco ordu tristian compesau gura ezda, daguala. Esan compes- 665
 soriac, dei eguin [193] daguijola Jaungoicuaren misericordijari ta compesau
 dedilla. Ta erantzun gaisqui esaliac: *Ezin dot*. Esan ostera bere, jaso daguizala
 veguijac Jesus curutcecuagana ta damu eguijazco bategaz compesau dedilla. Ta
 erantzun gaisqui esaliac: *Miin deunga onec condenauta nauca ta ezin negui* . 670
 Ta compesau bagaric ill. Iracurten da (141), gaisqui esala bat impernuti aguer-
 tu jacola bere lagun bati ta eracutsi eutsala ce sarija eucan impernuban bere
 gaisqui esatiac gaiti. Miina eucan sututa, aoti lurreraguino luzatuten evala. Ta
 condenaubac berac zulutu ta zatituten evala bere miina. Baita atcera sartu bere
 bere lecura. Ta esan eutsala azquenian: *Miin onegaz ascoren ondria galdu*
neban. Ta pena au irabatzi neban betico . Baita iracurten da, miin gaisqui esa- 675
 lac arrac jan ditubeena ta usteldu diriana bere. Baita nesca gaisqui esalaac ta
 guzur ezarlac, seinic eguin ezinda luzaro egonda, eguin bagaric errebentau
 daveena bere. Panucio²³⁶ monge inocentiari erruba ezarri eutsan nesquia egun
 ascotan seinia eguin ezinda egon zana baquigu. Azquenian, ala seinia eguin
 evan, ala inoren cleitu galdubaren sarija artutera eguin bagaric, beste mundu- 680
 ra juan zan ez daquigu.

¡Oh, Jaungoico zucena! ¡Ceimbat castigu eguin dituzu miin gaistuac erre-
 medijetaco? Euqui eguizu, bada, gugaz erruquija. Ta eracutsi eguiguzu gueure
 miinac zucen erabilten, ceu [194] munduban alavetaco ta beti ceruban gozeta-
 co. Amen.

 (140) Marchant., Hort. Past., Tract. 4, l.3. de Detract. (141) Id. Ibid.

685

657 oida Ba 658 oidira Ba 660 gorroto] gorrotu Ba 663 astun] astum Ba 664 ez
 da Ba 667 Curutzecua gana Ba 678 egonzana Ba 680 juanzan Ba

²³⁵ Ik. Zen 12,1-15.

²³⁶ Zaila da "Panucio" hau nor den jakitea; lehenago Paphnutius abadea aipatu dugu ema-
 kume bekatari baten Jainkoagana bihurtzea dela-eta (ik. 119.oharra, 953.or.), Frai Bartolomek
 liburu honetan irakur zezakeena: *Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studii*
Heriberti Rosweydi..., Lugduni, 1617. 286.or (ik. ere 361 eta 372.or.).

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan gaisqui esaliari entzutia.*
2. *Gaisqui esatiaren entzunlarijac cer eguin biar daven.*

690 Gauza ezaina ta caltegarrija bada, neure entzula onac, inor gaiti deungaro esatia, leengo dotrinan entzun cenduban leguez, ez da asco obia inoren verbeta desondragarrija bere guraz entzutia. Pena bategaz castiguetan ditu leguiac pecatu eguiten daveenac. Lapurretia gaiti esan oi da, estalzaileric ez balego, lapurric izango ez litzatequiala. Bada, errazoe gueijagogaz esaten da, gaisqui
695 entzularic ez balego, gaisqui-esalaric izango ez litzatequiala. Chito alcarri dautsee, cristinaubac, inor gaiti deungaro esatiac ta inoren deungaro esana entzutiac. Baina ascotan jazoten dan leguez norberac nai ez davela gaisqui esaliari entzutia, eracutsi biar jaco cristinaubari ceimbat modutara jazo leitequian gaisqui-esaliari entzunagaz pecatu eguitia; ta alaco orduban cer eguin biar
700 daven. Esango deusut bada, neure entzula onac, dotrina onetan: 1. *Nos dan pecatu gaisqui esaliari entzutia* . 2. *Cer eguin biar daven gaisqui-esatia entzuten davenac*. Prestau zaitex ent-[195]zuteco gogo onagaz. Bada, guztioi balijo deuscuten eracutsija da au.

I.

705 Iru modutara jazo leiteque, inoren gaisqui esana norberac entzutia. *Lelenga* Norberac inor laguna edo proximua gaiti gaisqui esaten iminita. Baquizu persona bat beste bategaz asarre dana. Ta ceuc persona a aitatu ezquero, a gaiti deungaro esango davena. Au daquizula aitaututen deusazu bere arerijua, a gaiti deungaro esan daguijan ta entzuten deusazu laguna gaiti
710 gaisqui esaten. Bada, ac edu pecatu edo gueijago zuc eguiten dozu, ceuc proximua gaiti deungaroric esan ez arren. Deungaro esaten imini dozulaco ta deungaro esana entzun deusazulaco. *Bigarrenian* : Zeuc destajuban edo sospechan daquizun inoren palta bat obeto jaquiteco edo barriro entzuteco, cerbait bazenqui leguez edo andijgua balitz leguez, verba uts batzubequin aitautu
715 ta bestia inoren paltac esaten iminten dozunian. Orduban, ceu zariala medijo da aren murmuracinoia edo gaisqui esatia. Zeuc eraso ta ceuc entzun inoren paltac. Bada, ceuc eguin dozu pecatu, esan ditubanac leguez. Badira errijetan ta auzuetan alaco guizon ta emacume vijotz galducuac, inoren vizitzac jaqui-

688 Cerdan *Ba* | esaliari] ezaliari *Ba* 690 calte garrija *Ba* 691 Ezda *Ba* 715 ceuzariala *Ba*

ten ta banatuten, ecer ez juacueta, davilzanac. *Irugarrenian* : Norberac gaisqui esaten inor [i]mini ez arren, bestiaren murmuracinoia edo gaisqui esana gogoz entzuten davenian. Bada, zeuc emon ez arren bideric gaisqui esateco, bestiac gaisqui esaten diardubanian pozic eta [196] gustoz entzuten badituzu inoren paltac, bat eguiten dozu ceure buruba gaisqui esaliagaz. Ta bijoc pecatu eguiten dozu. Ac esaten davelaco. Ta zuc entzuten dozulaco. *Ac dauca demoni - nua miinian* , dino san Bernardoc²³⁷ *ta zuc daucazu belaarrian* . Onaco gaisqui esatiac ta entzutiac erasoten ditu gueijenian, cristinaubac: Batzubetan, *jaquin guriac* . Beste batzubetan, *embidijac*. Inoren ona entzun ezinac ta icusi ezinac. Norberac paltac daucazanac, inoren paltac entzun gura, esan gura ta zabaldu gura. Norbera baino aurrerago inor bada cetan edo atan, ari paltac topau gura, arenac entzun gura ta esan gura, bestia andijagotzat edo gueijagotzat inoc euqui ez daguijan. Emen dator araco embidijati urten evan esaneria: *¿Nor da zure arerijua? ¿Nor da zure gaisqui esalia? Zure opicijocua* .

Ara emen, neure cristinaubac, milla gaisqui esate ta gaisqui entzutereren sustriaja. Andiquijac andiquijaren contra, nequezarijac nequezarijaren contra, letraubac letraubaren contra, escribaubac escribaubaren contra, guerraguinac guerraguinaren contra, tratalarijac tratalarijaren contra, medicu, barberu, voticarijo, zapataguin, jostun, errotari... gueijenac bacochoac bere opicijo edo condecinoecuaren contra gogoz gaisqui esaten davee ta ain gustoz entzuten davee. Embidijaren prutu mingocha, verentuba ta ugarija da au, neure entzula onac. ¡Ojala guichiago balitz! Beste batzubetan gaisqui esatiari ta entzutiari su emoten deutsa [197] gorrotuac. Gaisqui eguin deutcuna gaiti errazto gaisqui esaten da. Ta pozagoric entzuten da aren contraco gaisqui esatia. *Ezdabaida* bat auzuac edo erricuac izatia da asco areen leenagoco ta gueroco palta guztiac esateco ta bestiac bere esan daguijezan nai izateco. Oneen miinac eta belarriac beti dagoz prest, arerijuen paltac esateco ta entzuteco. Au gorrotuac eraguiten davena da. Proximuarentzat vijotz charra daucan senaile aguirija da. Ta menturaz bere buruba garbituteco esango dau alacuac compe-sinoian, *ez deutsal gachic opa*.

¿Gachic opa ez badeutsazu, celan a gaiti gaisqui esaten dozu? ¿Celan aren paltac ta gachac gustoz entzuten dituzu? ¿Ta ceimbat gueijagori entzuten deutsazu[n] gaisqui esaten edo murmuretan ceure gogoco ez dan personia gaiti, ez dozu pozagoric entzuten? ¿Ez deutsezu ceuc bere lagunduten? ¿Bada, inoren paltac ta pama charra entzunda gogua alegueretuten jatzunian, celan esaten

731-732 esaneria] esan aria *Ba* (301.or.: esan eria) 743 Ezda baida *Ba*

²³⁷ S. BERNARDUS, *Liber de modo bene vivendi, ad sororem* XLVII: "De murmuracione": "Quare a serpentibus perierunt, nisi quia serpens venenosus est, et omnis qui murmurat, venenum diaboli habet in lingua?" (PL, Migne, 184, 1269).

- dozu ez deutzazula gachic gura? ¿Entzungo cenduquez alan gogoz ta gustoz
 755 ceure aitaren paltac? ¿Naico cenduque ceure ama gaiti alan inoc verba eguitia
 ceure aurrian? ¿Naico cenduque ceure senidiaren edo adisquidiaren ondria alan
 inoc aotan erabiltia, ceuc entzuten dozula? *Ezetz* esango dozu. ¿Cegaiti, bada?
 Ceure aita ta ama, senidiac ta adisquidiac maite dituzulaco. Bada, ceure areri-
 jua bere maite izan biar dozu. Zeure gogoco ez dana bere maite izan biar dozu.
 760 Zeuri gach eguin deutzuna bere ta ceu [198] gaiti deungaro esan davena bere
 maite izan biar dozu, salvaucó bazara. Ta areen contrato gaisqui esanac edo
 murmuracinoiac bere ceure guraz entzun biar ez dituzu. Ta entzuten badituzu
 gustoz inoren paltac, sinistu daiquezu duda bagaric etsajac engainauta, itsutu-
 ta zaucazala, ari gachic gura ez deutzazula esaten dozunian.
 765 *Laugarrenian* : Jazo leiteque ta ascotan jazoten da, norberac gura ez dave-
 la, inoren gachac ta paltac entzutia. Ezin beti egon gueintequez bacarrian. Ezda
 belarrijac tapauta bere. Ta sarri egon leitequez murmuradoriac edo gaisqui esa-
 lac gueu gagozan lecuban. ¿Cer eguin biar dau, bada, orduban cristinaubac,
 gaisqui esaliagaz bat ez eguiteco? Ara cer eguin biar daven.

770

II.

- Al izan ezquero, eragotzi biar dogu caridadez lagunari jatorcan caltia.
 Ucatu ezin guinai, gaisqui esanagaz proximuari ondran ta paman calte eguiten
 jacona. Ta ez edocein modutan calte, ezbada calte andija ta minveria. Bada,
 ondria, ondasunac eurac baino gueijago estimetan dana, galduten da gaisqui
 775 esanagaz. Au gaiti esanda puntuban, inor murmuretan iminten davenac; inori
 lagunaren gachac eta paltac erasoten deutzazanac; ta inoren paltac pocic ta ale-
 guere entzuten ditubanac, nai jaquin guraz, nai embidijaz ta nai gorrotoz, gal-
 duten davela lagunaren pamia ta eguiten davela pecatu, gaisqui esaliac berac
 leguez. ¿Ta norberac inor gaisqui esaten imini [199] ez davenian? ¿Gaisqui esa-
 780 teco bideric emon ez deutzanian? ¿Ta inoren paltaac entzun baino ez entzun
 naijago leuquianian? ¿Ta bera daguan lecuban ta egon biar davenian, bestiac
 inor gaiti deungaro esaten daveenian? ¿Cer eguin biar dau gaisqui esana en-
 tzunagaz pecaturic ez eguiteco?

- Orduban cristinaubac caridadez eguin biar davena da, neure entzula onac:
 785 *Lelenga* inundi al badai, eragotzi bere aurrian inor gaiti gaisqui esatia. Alan
 eguiten evan David erreguiac. *Inor gaiti ixilic deungaro esaten evana, perse-*
guiduten evala, dino (142). *Hunc persequebar*. Alan eguiten evan san
 Agustinec. Ez eucan inoc escubideric san Agustinen aurrian inor gaiti deunga-

 (142) Psalm. 100.

757 Ce gaiti *Ba* 766 Ez da *Ba* 773 Ez bada *Ba* 785 albadai *Ba*

ro esateco²³⁸. Alan eguiten evan Aita san Pranciscubac²³⁹. Alan ene Ama santa 790
 Teresac²⁴⁰. Alan beste millac. Lotsatu eguin biar da gaisqui esalia, bere paltia ta
 gaisqui esaneco pecatuba berari arpeguijan ezarrijagaz. Esaten jaco san
 Bernardogaz (143) alaco gaisqui esaliari: *Zuc esaten dituzun proximuaren*
palta orreec guzurac ala eguijac dirian ez daquigu; baina ceu murmurado -
ria ta gaisqui esalia zariana, zucen dacusgu . Ta esaten badeutsu murmura- 795
 doriac, *inoren palta areec nun esaten dituban baquijala; edo arren inori esan*
ez daguijozula, compesinoian leguez esaten deutsuzala... erantzun eguijozu
 gaisqui esaliari san Juan Crisostomogaz (144), *ia zorua ala gais* -[200]*tua dan.*
Berac obeto ixilic euqui biar leuquian ta euqui ezin daven inoren paltia, ceuc
ixilic euquico dozula pensetaco. Onan portauco baguina, neure entzula onac, 800
 norbait gueure aurrian inoren paltac esaten asten darian, laster amatauco
 guenduque murmurazinoiaren suba. ¡Baina ez zara azartuten alan arguiro ta
 artez verba eguiten murmuretan davenari, edo persona andi bat dalaco, edo
 ceu umia zarialaco, edo gaisqui esaliaren aguindupian zagozalaco, edo ordu-
 ban gueijago ta chartuago verba eguingo leuquialaco, ascotan jazo oi dan 805
 leguez?

Orduban *bigarren* erremedijua, Espiritu Santubac dinuana (145). ¿Ta cer?
 Arantzazco esi bat eguin belaarrijai. Ta miin gaistuari ez entzutera eguin. *Sepi*
ares tuas, et linguam nequam noli audire. Bestia asten darian inor gaiti deun-
 garo esaten, ceu ixildu, mututu, oztu, tristetu ta becoquija illundu. Ez aren ver- 810
 bai jaube eguin. Ez ari arpeguira beguiratu. Ez ari casuric eguin, bapere en-

 (143) Serm. 24. in Cant. (144) Hom. 3. ad Popul. (145) Eccl. c. 28.

798 ia] Ya Ba 805 oidan Ba

²³⁸ San Agustinen bizitzako gertakari hau, ziur aski, liburu honetan irakurriko zuen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 442. or.

²³⁹ San Frantzisko Asiskoaren albiste hau ere liburu honetan irakurriko zuen: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 499. or.

²⁴⁰ Frai Bartolomek ongi ezagutzen zuen zertzelada hau, Santa Teresaren bizitza osoa beza-la; hala ere kasu zehatz hau liburu honetan irakur zezakeen: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 525.or. Izan ere, Frai Bartolomek hemen dioena sendotzera datoz kasu asko, baina aipa dezagun Santa Teresaren bizitzako azken kasuetariko bat: Burgosko lekaike karmeldarren fundazioan zailtasunez beterik ari zela, apezpikuak ez ziola berehalakoan baimenik ematen eta gero ere ez ziola emango zirudienean, lekaike batzuk keaxaten hasi ziren, baina gure Santak moztu zien Kristobal de Vela apezpikuaz oso ongi hitz eginez. Horren guztiorren lekuko Teresaren idazkari eta gaixozain izan zen Ana San Bartolome dohatsua dugu eta hark esanda dakigu (*Ultimos años de la madre Teresa de Jesús* II, 9. 20, en *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 20-23.or.). *Ik.* obra hau ere: SANTA TERESA, *Fundaciones* 31.

tzuten ez bacendu baino gueijago. Au edoceanec eguin legui inor murmuretan
 asten danian noberaren aurrian. Nai lagun ascoren artian izan, nai bacarrian
 815 izan; nai persona andija ta lotsa ona zor jacona izan gaisqui inor gaiti esaten
 davena; nai beste edocean murmurore izan, edoceanec eguin leguijo gaisqui
 esaliari arpegui illuna imini ta casuric eguin ez. Au da inoren paltac ez entzu-
 teco belarrijai esija eguitia. Gueuc arpeguija [201] illundu edo tristetuta beste
 820 bagaric, ixilduco guenduquez, cristinaubac, gueure aurrian dagozan miin gais-
 qui esalac. *Egoiac eurijac ta lainuac quenduten dituban leguez* , dino Espiritu
 Santubac (1), *arpegui tristiac quenduten ditubala gaisqui esatiac* .

¡Oh, ce erremedio erraza ta seguruba miin galdubac ta gaisqui esalac ixil-
 duteco! Murmuradoriac ez badauca aurrian noc belarrijac zabaldu, noc entzu-
 tia emon, noc barre eguin edo nor jaube eguin bere gaisqui esanari, berecau-
 825 ten ixilduco da. Ta onezaz gainera, icusten badau gaisqui esaliac bere mur-
 muracinoia entzunda gaineuac ixildu diriala, mututu diriala, tristetu diriala ta
 arpeguijac illundu ditubeela, berecauten ezautuco dau areec inoren gachic ent-
 zun gura ez daveena. Nai ta ez lotsatuco da, danic lotsa galducuenta bere. Ta
 areen aurrian ez da osterasico inor gaiti deungaro esaten. Espiritu Santubaren
 830 esana da au. Baita, oi danez, gueuc icusten doguna ta errazto aituten doguna
 bere. Alan, neure cristinaubac, mesede asco eguin guinaiz gaisqui esaleen
 aurrian becoqui illuna ta arpegui tristia eracutsijagaz. Isildu guinai miin gaisqui
 esalia. Ta ari eguiten deusagu mesede, pecatu eguiten ichi ezagaz. Jaso guinai
 835 lagunaren ondria, murmuradoriari gaisqui esatia eragotzijagaz. Ta lagunari
 eguiten deusagu mesede. Baita gueure burubari bere. Bateti, caridadezco bia-
 rra eguiten dogulaco. Besteti, pecatuban jausten ez garialaco, inoren paltac
 gueure naiz entzunagaz. [202] Ta azquenian, gueure ondra ona zaintubagaz.

Bada, ez dozu pensau biar, cristinaubac, ceuben aurrian inor gaiti deunga-
 ro esaten daven murmuradoriac, ceuben cleitubari erruqui gueijago izango
 840 deusala. Gueijenian zubei esango deusuz inoren paltac gueituta; ta zubenac
 esango deusaz beste bati edo beste amarri. Ez, dirian leguez, ez bada gueitu-
 ta, ezainduta, berac derichon leguez, gogo obiagaz entzun daguijuezan bestiac
 zuben paltac. Miin gaisqui esaliac beti daucaz palta barrijac cer conta, noc
 entzun topau ezquero. Verbeta bacoichian isten dau carga zati bat inoren clei-
 845 tubaren contra; ta jasoten dau beste zati bat, urrengo lecuban contetaco. Alan
 davil gaisqui esalia, beti bere aoti atsa darijola edo verenua darijola suga vivo-
 ra baten miin zitalagaz, lagunaren ondra ta cleitubari epaijac eguiten. ¡Ce erre-
 medijo, bada, alaco miin gaistua ganic norberaren ondria zaintuteco? Ez beste-
 850 ric, ez bada gaisqui esaliaren aurrian astundu, ixildu ta tristetu. Ez daguijala
 euqui ceure ondriari nundi oratu, zuri verba bat entzunda. Belarrijac zabaldu-

813 edo ceinec *Ba* 824-825 bere cauten ixilducoda *Ba* 830 oidanez *Ba* 833 ezagaz]
 esagaz *Ba* 841 ez bada *Ba* 849 Ez bada *Ba*

ta entzunda verba eguiten badeutsazu gaisqui esaliari, verbaric esaten deutzazu beste cer esan emongo deutzazu, ceure ondriaren contra beste bati contacto. Au onan jazoten dana guztio daquigu. Ez, bada, entzuteri emon. Ez ecer erantzun gaisqui esaliari, lotsatuteua bada lotsatu dedin ta erremedijau dedin miin gaistuaren jaubia. ¿Baina ceu isilic ta triste zagozan lecuban badiar-
dubee murmuretan bes-[203]te bic edo iruc edo gueijagoc, atertu bagaric, ta 855
zure inoren gacha entzuteco gogo charrari, isiltasunari ta arpeguico astuntasunari casuric eguin bagaric, sarri lagun gaisqui esaleen artian jazoco jatzun leguez? Orduban bere oraindino erremedijua daucazu, lagunaren ondria jasote-
teco ta miin gaistuac isilduteco. Ta da: 860

Irugarrenian : Alaco orduban cristinaubac eguin biar davena da, tercijsua artuta, contubac aterata, verbac pensauta, beste sail bat edo palta bagueco verbeta bat norberac aitatu, bestelan edo berez balitz leguez. Bestiac inor gaiti deungaro esaten dagozarian, aitatu noberac edo *egubaldija*, edo *laboria*, edo *gaisuac*, edo *guerrac*, edo beste inoren gach bagueco ta gaisqui esaleen
goguari dei eguiteco esangari bat. Ta agaz aaztu eraguin murmuracinoia. 865
Onetarico modubagaz ta juicjuagaz ascoc gaisqui esalac isildu ditubee. Aldatu verbetia beste sail batera, inori cergaiti dan igarri eraguin bagaric. Caridadia chito artetsuba da. Proximuaen ondria benetan maite dogunian, gauza asco asmauco ditugu a jasoteco, bata ez bada bestia. Tomas Moro, juicijo ta carida-
de andico Inglateraco canceller nausijac gueijagoco bagaric bere aurreco mur- 870
muracinoiac quendu oi zituban. Inor gaisqui esaten asten zanian, asmetan evan beste esanquizun bat verbetia aldatuteco ta gaisqui esatia ixilduteco²⁴¹.

Alderatu bada, cristinaubac, inoren gaisqui esatiac ceuben aurrian jazoten dirianian. *Ez zaitez bat eguin gaisqui esaliagaz*, dino [204] Espiritu Santubac 875
(146). *Bada, usteric guichien danian izango da euren azquena*. Bertati jaguico da gaisqui esaliaren gainera castiguba. *Cum Detractoribus non commiscea* -

(146) Prov. c. 24.

866 esan garri *Ba* 868 cer gaiti *Ba*

²⁴¹ S.Tomas Moro (1427-1535), Oxford-eko Canterbury-ko College-n hezia. 1494an hasi zen zuzenbidea ikasten, eta lau urtean Londresko kartusiarekin bizi izan zen. Giza zientziak ikasteari ekin zion gogotsu eta Erasmoren adiskide egin zen 1504an, diputatu zela, zergen legearen aurka agertu zen, errege Enrike VII.a nahigabetuz. Utzi egin zuen politikako bizitza. 1517an erreinuko kontseiluan esku hartu zuen. Errege Enrike VIII.aren konfiantzakoa eta beraren aholkularia izatera heldu zen. Elizako gehiegikeriez eta sineskeriez kexu zen, baina indarra hartuz zihoazen antikerikalismoak eta heresiek ere kezka bizia sorrarazten zioten. Erregeak bere ezkontza baliogabe uzteko zuen asmoaren aurka jaiki zen, Aita Santuaren alde eginez. Horregatik kartzelan sartu zuten, eta lekukotasun faltsuekin epaileen aurrera eramani, martirioa jasanarazi zioten. Bere bizitzan zehar hainbat idatzi zuen, lanik ospetsuena *Utopia* izanik. (Ik. H.O. EVENNETT, *More, Sir Thomas, hl.*, LThK 7 (1986)627-628); euskarazko itzulpena ere badugu Piarres Charriton-ek egina (Tomas MORO, *Utopia* Bilbo, 1992, 313 or., Klasikoak).

880 *ris, quoniam repente consurget perditio eorum* Bildur izan beti, inoren cleitubari icutu eguiten. Ceubena inoc gordetia ta zaintutia gura dozun leguez, gorde zeubec inoren ondria. ¡Ce laster penetan zarian, inoc ceuben contra cerbait esaten davenian!. Bada, bestiac ez davee guichiago estimetan euren ondria.

885 Ez, bada, inor imini, neure entzula onac, laguna gaiti deungaro esaten. Ez entzun inos gogoz ta arpegui alegueriagaz lagunaren paltaric. Ta ceuben
 890 aurrian inor azartuten danian murmuretan, esan bildur bagaric ce gaisqui eguiten daven. Ta alan esaten azartuten ez bazara, illundu arpeguija, ichi belarri-jac ta ez jaube eguin aren esan charrai. Edo aldatu verba gueija beste gauza batera. Onan jasoco dozu proximuaren cleituba. Osatuco dozu gaisqui esalia. Guichituco dituzu pecatu asco. Ta gordeco dozu caridade santuba, ceinegaz
 890 jadichico dozun ceruco betico dichia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen. [205]

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ce gauza charra dan,

895 *miinagaz lagun arteco baquia ta adisquidetasuna galdutia.*

Zorroztu zitubeen euren miinac sierpiarena leguez; ta euren ezpanpian dauquee aspijaren edo eruviaren verenua, dino David erreguiac gaisqui esalac gaiti (147). *Acuerunt linguas suas, sicut Serpentis; venenum aspidum sub labiis eorum.* Menturaz gueijago ezin esan euquian verba guichiagotan miin
 900 deunguen contra. Zorroztu, dino, miina, sierpiarena baixen zorro[t]z eguin artian; *sicut serpentis*. ¡Ta zetaco? Proximuaren pama ona, cleitu ona ta ondra ona ebaguiteco, ezainduteco ta osticopetuteco. Onetaraco biar davee gaisqui esalac sierpiaren miin zorrotza. Ta *aspijaren* verenua ezpanpian edo miinian. Aspija da pristija chito vereno gaistocua, guc eruvia esango baguendu leguez.
 905 Aspijaren verenuac ez dauca osatuteric, eruviarenac ez daucan leguez. Entzun dozu bada, cristinaubac, miin gaistuaren verenuac ceimbat calte eguiten daven

 (147) Psalm. 56.

lagunaren cleituban, ondran ta paman. Ta ce nequez osatuten dan miinagaz lagunari cleituban eguiten jacon epaija. Baina oraindino san Agustinec eracusten deuscu beste miinaren verenuac iraaften daven gach [206] bat, leen esan 910 dirianen aazgarrija. Ta da, miin gaistua izatia adisquidetasunaren ta baque onaren galzaillia. *Venenum amitittiae* (148). Adisquidetasuna ta baque ona galdutaco ta ilteco, verenuac daucaz miin gaistuac ezpanpian. *Venenum aspidum sub labiis eorum*. Beguiratu daijogun bada, neure entzula onac, miin gaistuari aldia²⁴² onetati. Ta icusi daigun ce echuria daucan. Onetaraco esango deutsut: 915
 1. *Cer dan adisquidetasuna* . 2. *Celan galduten daven miin gaistuac* . ¡Ojala dempora pusca bat gueijago baneuca, sail onei jagocuen eracutsija sustraiz zuben burubetan sartuteco! Entzun eguizu, bada, aimbat gogoric oneenagaz.

I.

Adisquidetasuna da, santo Tomasec dinuanez (149), leen danazco²⁴³ bata 920 bestiaren ezauberati urteten daven alcarri ondo gura izate pirmia. Edo da, san Agustinec dinuanez (150), arimaco ta gorputceco edo ceruraco ta munduraco gauza guztietan alcarri ondo gura izatia ta beti alcar artutia caridadez. Adisquidetasunac zabaltasun andija dauca berez. Munduco guztiac adisquide izan biar ditugu edo maite izan biar ditugu Jaungoicua gaiti ta caridadez. Baina 925 ez da aimbeste zabalduten orain aita²⁴⁴ dogun adisquidetasuna. Ezagunen artian ta alcarregaz artu emona dauquenen artian edo euqui davenen artian batuten da eracutsi onetan aita dan adisquidetasuna ta andi dator[r]en baque ona. Auzuen artecua, seniden artecua, pamelijaren [207] artecua ta artu emona dauquenen artecua da orain esaten dan adisquidetasuna. Au bere ez adisqui- 930 detasun charra, alcar galdutecua, pecatuzcua, edo pecatu eraguitecua. Bada, pecatuzco ta pecaturaco adisquidetasunac ta alcar artutiac galdutia gauza ona da. ¡Ta ojala aimbat lasterren guztiac galduco balira! Esaten da, bada, adisqui-

 (148) De amicit., c. 13. (149) 2. 2, q. 23, a.1. (150) Epist. 45.

928 batuten] baduten *Ba*

²⁴² "Aldia onetati": alde honetatik; (beste testuinguru batzuetan "aldia bateti"; Bartolomek "a" eta guzti darabiltza esapide hauek; berez "aldea" da, bestela "aldija" egingo bailuke). "Aldea: Lado, parte, sitio, lugar. Aldea *guztietan*, en todas partes. En muchas partes de Vizcaya se dice así lo que en otras partes del País Vasco es simplemente *alde*" (Lino AKESOLO – Manu SOTA), *Diccionario Retana de Autoridades de la lengua Vasca*, Bilbao, 1976, vol. I, 202. or.).

²⁴³ "Leen danazco": aurrekoa, aurretiazkoa, aldez aurretikoa (ik. *Icas-Ieko* 170.oharra, 784.or.).

²⁴⁴ Testuinguru edo esapide batzuetan aditz-oina darabil eta ez partizipioa; honelako esapideetan, adibidez: *orain aita dogun / eracutsi onetan aita dan / orain aita ditugun / pecatuben paracinoia aita danian / ezcontzia aita danian...*

935 detasun ona, Jaungoicua serbiduteco ta alcarri munduban lagunduteco balijo daven adisquidetasun zintzua, leijala, pirmia ta Jaungoicozcua dala eguijazco adisquidetasuna.

Onetarico adisquide alcar artubac, guztiac dauqueez guichiago edo gueijago errijetan, auzoeretan, senidetan edo pamelijetan. Alaco adisquidiac alcar maite davee, alcar zaintuten davee, alcar jasoten davee ta alcarri lagunduten deutsee. Ez deutsee, daquijela, inos alcarri atsecabaric emoten, ez eguinagaz ta ez miinagaz. Preminan icusi ezquero adisquidia, inoc esan bagaric dua lagundutera, asco costata bada bere. Alcarregaz luzaro egon arren, ez dira cansetan. Alcarregaz dagozarian, ez davee verba gueija inos bere palta. Batac daucan gaucia, bijac dauquee. Bataren onac, bijeenac dira. Batac daucan gachian, bijac artuten davee penia. Ez dago gauza zatituric adisquide eguijazco biren artian. Ez dago engainuric euren verbetan alcarrentzaco. Ezda toluzturatic bere euren vijotcetan. Batac daquijana, bestiac bere baqui. Batac entzun gura davena, bestiac esaten dau. Ta alcarri pena emongo deusana, batac bere [208] aitatuten ez dau. Leguiac edo Jaungoicuac eragozten daven gauzaric alcarri escatuten ez deutsee, ez esateco ta ez eguiteco. Batac descuiduan esaten badau edo eguiten badau pecatu dan gaucia, bestiac penia artuten dau. Ta gogoratuten deutsa caridadez bere pecatuba, erremedijau dedin ta ostera eguin ez daguijan. Ara emen, cristinaubac, adisquide eguijazco bi. Bijac dauquee nai bat, bijac uste bat, bijac asmo bat, bijac gogo bat. Edo, esan legui, bijac dauqueela vijotz bat ta arima bat. ¡Ce gauza ona au! ¡Ce poz andija vijotzarentzat alaco adisquide bat edo gueijago euquitia! ¡Ceimbat estimetan dan!

¿Baina cegaiti ez dira alan adisquide alcarregaz, edola bere auzoeraco guztiac? ¿Edola bere senide guztiac? ¿Edola bere eche bateco guztiac? ¿Edola bere gurasuac ta umiac? Ez dira, bada, cristinaubac. Ta izango bere ez dira guztiac ez senide artian, ez auzo artian, ez pamelijan alaco adisquide alcar artu, bat eguinac. Ama izango da alava bataren adisquidiago, bestiaren baino. Aita izango da seme bataren adisquidiago, bestiaren baino. Senarra izango da auzo baten adisquidiago, emaztiaren baino. Ta onan beste guztiac, oi danez. ¿Cec eguiten dau, bada, au? Ez beste gauzac, ez bada gueure erichijac, gueure ustiac, gueure goguac, gueure aitutiac, gueure umoriac edo genijuac bardinac ez dirialaco. Orregaiti nequez topetan dira bi, alaco gaucetan alcar bat eguinac. Ta bic alcar topetan daveenian, berez leguez al-[209]car maite davee. Alcarri verba guichigaz goguac aituten deutseez. Ta errazoiaren ta caridadiaren neurrijagaz errazto adisquidetuten dira, casic celan ez daquijela. ¿Ez dogu ascotan topetan gueure carga astunen arintasuna ta peneen consuelua obeto atze bati contaubagaz, gueure senidiai edo echeuai contaubagaz baino, guztiaquin ondo egon

947 Ez da *Ba* 957 ce gaiti *Ba* 958 edolabere *Ba* 959 Edolabere *Ba* | Edolabere *Ba* | Edolabere *Ba* 964 oidanez *Ba* 965 ez bada *Ba* 970 Ezdogu *Ba*

arren ta guztiac maite izan arren? Edoceinec esango dau baietz. Au gaiti esaten dau san Ambrosioc (151), *adisque bagaco pensetia tristecia dala; adisquia de bagaco biar genero guztia penia dala; echia bere adisquide bagaric erves - 975 tia dala; vizitzia bere adisquide bagaric tormentuba dala; ta adisquiden laguntasuna bagaric vizi izatia bera bere illtia dala.* Au gaiti esaten dau Salomonec bere (152), *adisquide on bat topetan davena dichosua dala... Adisquide on bat topau davenac, ondasun andija topau davela. Ecer bere ez daguala adisquide onaren balijocoric* (153). Adisquidetasun onac beragaz 980 dacar baque ona. ¿Cer eguiten dau, bada, miin gaistuac? Adisquidetasuna ta adisquiden arteco baquia, bijac galdu. Ta leen adisquide zirianac arerijo eguin. Icusi daigun celan.

II.

Miinaren eguitadiac andijac dira, neure cristinaubac. Cerbait gaiti esaten 985 dau Espiritu Santubac (154), *cuchiluac asco ill ditubala; baina miinac gueija - go galdu ditubala. Miina erabilten ez daquijanaren sinistutia, alperriacua [210] dala* (155). *Alemanija casta guztiac ezi ta dometan diriala, baina miina inoc bere ondo dometan ez davela*(156). Ta beste onaco verbeta asco, ceinegaz aituten emoten deuscun Jaungoicuac miinazco pecatubai deutseen gorrotua. Pecatu guichi eguingo dira munduban, leenago edo gueruago, asieran edo amaijan miina parte ez dala. Gaisqui esatiaren edo murmuracinoiaren gaineco caltiac cerbait esan dira leengo icasiquizunetan. Au oi da cleitubaren ta pama onaren contra. Baina cleitubaz ta pamiaz ostian galduten dau ascotan miinac 990 adisquidetasuna ta baque ona zortzigarren agundu santubaren contra. 995

Alaco adisquidetasuna ta gentiaren arteco baque ona galdutiari esaten jaco *embusterija*. Ta a darabilenai, *embusteruba* edo *embusteria*. Esan leguijo verbeeta onian alaco miin galdubari, *adisquide on galzailia, baque on galzailia*. ¿Ta cetan dago oquerrerija impame desondragarri au? Ez beste gauzatan, ezbada 1000 batari ondo gura baleutsa leguez, bestiagaz erruquituten balitz leguez, bestia contuban imini gura baleu leguez, bestiari conseju on bat emoten baleutsa leguez, adisquiden, auzuen ta seniden artian noc cer esan daven ta cer eguin daven alcarren contraco verbac edo eguitiac esatian. Au da embusterija. Au da miin verenotsuba. Au da adisquide galtze madaricatuba. Ezer bere ez juacola, baztarretaco guzur ta saltsa guztiac batuta, areec bacochari bere erara, [211] ta 1005

 (151) Lib. 3. de offic. (152) Eccl. c. 25. (153) Id. c. 6. (154) Eccl. 28. (155) S. Jacob. c. 1. (156) Id. c. 3.

973 Edo ceinec *Ba* 985 Cer bait *Ba* 993 oida *Ba* 999 desondra garri *Ba* 999-1000 ez bada *Ba* 1004 Ezerbere *Ba*

guztai min emongo deutseen modura contetia da, adisquidetasun ta baque on guztia galdutia. Batari esaten deutsa alaco embusterubac edo embusteriac: *Zu gaiti urlijainac* ²⁴⁵ *au zinuán* . Bestiari: *¡Zure lepoti celan olgau zan urlijaina!*
 1010 Beste bati esango deutsa: *Zure senarra* (edo emazia) *urlijainagaz egon zan atzo*. Beste batzubetan esango dau: *Ona daucazu urlijaina... Oraindino ez ei deutsu atan ichico... Jesus, ce miina daucan... Neu lotsatuta egon nintzan, ac zubec gaiti esan citubanac entzunda... Jesus, gauza* ^{245a} *arima gaistuaren jau* -
 1015 *bia da... Nic alacuari axe eguingo neusquijo...*

Ara emen, cristinaubac, embusterubaren, adisquide galzailliaren ta baque on galzailliaren verbetia. Guztia verenez betia. Batzubetan esango deutsuz onaco verba minverac ceure senarraren contra. Beste batzubetan emaztiaren contra. Beste ascotan, edo otseguinaren contra, edo ugazabaren contra, edo
 1020 senidiaren contra, edo auzo ondrau baten contra. Ceuc artu emona edo ezauberia edo compijantzia daucazun ta aintzat ez ceuncan baten contra. Ascotan izango dira alaco embusterubaren verbac asmaubac. Ez guichitan erdi entzunan. Ta beti gueitubac ta echura guztia galdubac, adisquidia gueijago penetaco. Onaco embusterac ta embusterubac izaten dira, edo inoren adisquidetasuna icusi ezin daveelaco embidijaz, edo batari edo bestiari edo bijai ezcutuco gorrotua deutseelaco vengantzaz, edo guztien ederra euquiteco vanidarez, ta ez guichitan, cerbait [212] emon daguijuen euren miin gaistuaren ta embusterijaren saritzat. Zuri esango deutsuz ceure adisquidiaren contra gorrotua iracoi-
 1025 co deutsubeen gauzac. Ta zu aren gorrotuan iminita zuri entzuten deutsuzanac, laster esango deutsaz bestiari. Ez esan dituzun leguez, ez bada gueituta, ezainduta, dauquen echura guztia galduta, obeto sinistu daguijozan ta sari barija emon daguijon.

¿Ta ceimbat onetarico embusteru ta embustera? ¿Endamas erri chiquijetan? ¿Noc dauca echian baquia seguru euren miin gaistuetati? ¿Ceimbat matrimonio
 1035 alcarren gorrotuan iminten ez ditubee otseguin embusteru batec edo auzo miin gaistodun batec? ¿Batian senarrari emaztiaren contra ta bestian emazteari senarraren contra milla guzur contacta? ¿Ceimbat ezcontza galduten ditubee miin gaistuac, Jaungoicoz eguingo zirianac? ¿Noc dauca seguru embusteruben erri-
 1040 jan edo auzuan adisquide bat? ¿Nor azartuten da eche baten sartuten embusterubac celatari ez diriala? ¿Euren sospechac leenac ta gueroacuac aotan artuta, laster adisquidiari edo juaconari arin contetan ez deutseezala? ¿Ceimbat demporan ta ceimbat, leen adisquide zirianac egon oi dira alcarren gorrotuan, embusteru baten miin gaistua dala medijo? ¿Batac descuiduan esan evan verba

1002-1003 eideutsu *Ba* 1014 entzun da *Ba* 1020 ondrabaten *Ba* 1030 ez bada *Ba*
 1033 Endamas] Emdamas *Ba* 1039 azartutenda *Ba* 1042 oidira *Ba*

²⁴⁵ "Urlijaina": urlia; (honen aldaera omen da; guk Frai Bartolomerengan aurkitu dugu soilik, baina Markina inguruan ezagutzen dute).

^{245a} Ik. *Icas-Iko* 282^a oharra (892.or.).

bat, edo ondo pensau bagaric esan evan bat, edo chanzan esan evan bat, embusterubac gueituta, verenotuta bestiari belarrietara eruan deutsalaco? [213] 1045
 ¡Oh, miin embusterubaren esan ezin leguizan caltiac! San Basilioc esaten beeban, gaisqui esaliac ta gaisqui entzuliac, bijac merecidu daveela errietati ta gente arteti ervestetutia (157): *Exterminandi sunt a reliquorum societate ambo*, ¿ceimbat gueijago merecidu davee embusterubac ta embusterac? Gaisqui esaliac ta gaisqui entzuliac galduten davee lagunaren cleituba. Baina embusterubac, cleituba ta ondria lagunari galdu, ta areen gainera galduten deutsa adisquide ona ta baque ona. Diabrubaren beraren opicijua eguiten dau embusterubac. Luciperrec berac galdu evan lelengo Jaungoicuagaz aingueruben arteco adisquidetasuna ta baquia²⁴⁶. Berac galdu evan Abel ta Cain anae bijen arteco baquia²⁴⁷. Baita Jacob ta Esau anae bijena bere²⁴⁸. Baita Jacoren semeena bere²⁴⁹. 1055
 Baita David ta Absalon aita semeena bere²⁵⁰. Baita beste millarena bere. Bada, beste aibeste eguiten dau embusterubac edo embusteriac. Berac galduten dau laster aita semen, senar emazten, neva arriben, auzuen, cura jaunen, religiosuen, edoceinen, guztien adisquidetasuna ta baque ona. ¿Cer esan guinaijo, bada, embusterubari edo embusteriari? Bere venenozco miin zorrotzagaz, labanagaz ta epelagaz galdu davela ascoren ondria ta cleituba. Galdu davela ascoren adisquidetasun ondrauba ta artu emon onecua. Galdu davela eche ascotaco, pamelija ascotaco ta auzo ascotaco baque santuba. Ta leen Jaungoicua ta alcar maite evenac imi-[214]ni ditubala Jaungoicuaren ta alcarren gorrotuan. Esaten jaco embusterubari, dana dala, eguin ditubala bere miinagaz asprijaren 1060
 verenozco epai andi illgarri asco. Nequez edo inos ondo osatuco ez ditubanac. Embusterubaren verbac eztiya dirurijela ta saeta zorrotz illgarrijac diriala. Au esaten jaco embusterubari, jaquinda egon dedin.

¿Ta gueratuco dira bere pecatubac castigu bagaric? Ez. *Goroto deutsalaco*, dino Jaungoicuac (158), *miin embusterubari; eum, qui seminat discordia inter fratres*. Ta ez edocein modutan goroto, ez bada aparteco gorrotua deutsalaco. Bada, ez da gueratuco castigu bagaric. Embusterubaren castiguba bera bere Espiritu Santubac esaten deutsco. Ez bacarric guerocua, impernuban euquico davena, ez bada baita munduban izango davena bere. ¿Ta ce castigu? Embusteruba edo embusteria artu daguijela guztiac gorrotuan, euqui daguijela 1075

 (157) Regul. brev. inter 26. (158) Prov. c. 6.

1048 Ex terminandi *Ba* 1071 Ez bada *Ba* 1072 ezda *Ba* 1074 Ez bada *Ba*

²⁴⁶ Ik. Is 14,12; Jb 11,17; Ap 8,10...

²⁴⁷ Ik. Has 4,2-7.

²⁴⁸ Ik. Has 25,27-33; 27,1-45.

²⁴⁹ Ik. Has 37,1-25.

²⁵⁰ Ik. 2Sm 13-15.

arerijotzat ta izan dedilla desondrauba edo desondradia, dino Espiritu Santubac (159). *Susurratori odium, et inimicitia, et contumelia* . Alan oi dira embusterubac ta embusterac munduban. Ez dago bat, eurai ondo gura deutseenic. Ez
 1080 dago inor, embusterijaren contra vijotzian suba ta celo santuba jaguiten ez jaco-
 nic. Ez dago inor, embusterija desondragarritzat ez daucanic. Quendu, bada,
 urrin ceuben miinetati embusterijac.

Ta zubeac, echian seniqueran ta auzoeran baque ona daucazunoc, alcar
 jasoteco ta alcar-[215]rri lagunduteco adisquide leijalac daucazuzanoc, ¿inos
 1085 etorten bajatzu ez juacona, ondo gura baleutsu leguez, miin zorrotzagaz ta
 verba labanaquin embusterijac contetara? ¿Edo senarrac, edo emaztiac, edo
 aitac, edo umiac, edo senidiac, edo auzuac, edo adisquidiac, edo artu emona
 ceugaz daucanac, au edo bestia zure contra esan davela edo eguin davela?
 1090 Alaco embusterijac, dinot, belarrijetara dacarzuanian, ez eguijozu entzuteri-
 c emon. Lotsatu eguizu. Esan *eguijozu embusteru bat dala ta beguijen aurreti
 juan dedilla* . Ez eguijozu sinistuteri-
 c emon. Ezbabere illgo zaitu bere miineco
 verenuagaz. Bada, gueijenian guzurra da esaten deutsuna. Ta beti gueituba. Ta
 eguiija balitz bere, ari ez juacona. Ta esan biar ez deutsuna. Embusterubari en-
 1095 tzuteri-
 c emon ezagaz ta sinistu ezagaz gordeco duzu baque santuba ta adis-
 quidetasunaren legue sagraduba. Alan gura izan daguijala Jaungoicuac bere
 neurri bagaco ontasuna gaiti ta gueuri deuscun amodijo santuba gaiti. Aitiaren,
 Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

[216]

VI ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

1100 *cer dan juzgu gaistua edo inor gaiti deungaro pensetia.*

Zortzigarren aguindu santubac eragozten dau, neure cristinaubac, ez bacar-
 rric testigantza paltsua emotia, miinagaz inoren cleituba, adisquidetasun ta
 baque ona galdutia; ezba[da] baita errazoe bagaric inor deungatzat euquitia
 bere. Bada, errazoe bagaric inor gaiti gaisqui pensetia da, norberari testigantza

1105 -----
 (159) Eccl. c. 5.

1078 oidira *Ba* 1090 eguijozu] eguiizu *Ba*

paltsua a gaiti emotia. Laguna edo proximia deunguia dala noberaren burubari esatia da, inor deungatzat euquitia. Ez dago ecer bere gauza errazagoric, inor juzquetia baino. Ezda asco asco ugarijagoric bere. Chito icuste laburra ta begui illunac daucaguz gueure paltai beguiratuteco ta areec ezaututeco. Baina entero icuste lucia ta begui arguijac, inorenai beguiratuteco ta areec juzgueta- 1110
co. Bada, bateti gueuc gauza bat icusi edo entzun ezquero, casic noraezecua da aren gainian pensetia ta ondo edo charto juzquetia. Ta besteti, alaco juzgu asco dira pecatu. Ta ascotan pecatu illgarrijac edo mortalac. Eracutsi biar jaco, bada, cristinaubari: 1. *Ceimbat modutara izan leitequian inor juzguetia* . 2. *Nos dan pecatu juzgu gaistua* . 3. *Ce pecatu ezaina ta zabala dan* . Entzun eguizu 1115
gogoz.

[217]

I.

Juzguba da, gueure adilliac edo entendimentubac cerbait icusijaren, entzunaren edo iraguaren gainera, onan edo alan dala beragan sinistuteco, ateraten daven contu amaituba. *Contu amaituba* ez bada, ez da juzguba, ez bada izango da dudia edo sospechia. Alan ete dan bildurra. Juzguba izateco, duda bagaric aintzat euqui biar dau gauzia. Ta orain esaten dan juzguba da, gueure laguna edo proximia ontzat edo deungatzat euquitia. Ta au izan leiteque modu ascotara. *Lelenga* Euqui guinaiz lagun guztiac ontzat. Au juzgu ona da; Jaungoicuac aguinduten deuscuna da. *Onetara ez dogu ecer bere galduten*, 1125
dino san Agustinec²⁵¹. *Bigarrenian* : Juezac, aguintarijac, gurasuac ta ugazabac, euren aguindupian dagozanac gaiti, areen paltac erremedijetaco caridadez ta zucentasunez, begui arguijac euqui biar ditubee. Ta paltiaren sustraija sentidu ezquero, juzgau daiquee erremedijua imini biar daveela, guztiz galdu ez ditezan euren aguindupecuac. *Irugarrenian* : Aguirico pecatarija gaiti deunguia 1130
dala juzquetia ez da pecatu. Icusten badot nic edo badaquit ciur logreruba dala, lapurra dala, ordija dala, loija dala, maldecinoeguina dala, gaisqui esalia dala, engainutsuba edo baque charrecua dala, a gaiti ezin ondo juzgau negui, pecatari aguirija dan artian. Caridadiac aguinduten deust aren paltac ez esateco ta Jaungoicuari a gaiti erregututeco. Baina ez a ontzat euquiteco, aguirico 1135
pecatarija ta Jaungoicuaren arerijo ezaguna [218] dan artian. *Laugarrenian* : Aguirico pecatarija izan ez arren, badaquit zucen batec eguin davela gauza deunga bat, edo lapurreta bat, edo testigantza paltso bat, edo erijotza bat, ezin

1120 ezda *Ba* | Ez bada *Ba* 1121 etedan *Ba* 1135 Jaungoicuari] Jaungoicoari *Ba*

²⁵¹ S. Agustin, *Enarrationes in Psalmos* (Enarratio in Psalmum 147), 16: Quid perdo si credo quia bonus est? Si incertum est, licet ut caveas, ne forte verum sit; non tamen damnes, tanquam verum sit. Hoc pax jubet" (PL, Migne, 37, col. 1924).

1140 a gaiti sinistu negui gauza deunga a eguin ez davela. Ez dira, bada, oneec bide bagaco juzgubac, ezbada bidezcuac ta errazoezcuac. Deunguiac berac bere gach eguinagaz emoten deutsu orduban bidia ta sinisgarrija, bera gaiti ondo ez juzguetaco ta gachguintza atan bera ontzat ez euquiteco. Lau juzgueta modu oneec ez dira pecatuzcuac. Baina bai orain esango dirianac.

1145 1. Pecatuzco juzguba da: Izanic proximuac eguin daven gaucia berez bardina nai oneraco ta nai gacheraco, gueijagoco bagaric juzguetia gacheraco eguin davela. Bada, eguin euquian oneraco. Icusten dozu sacerdote bat emacume cleitu arinoneco²⁵² baten echian sartuten. Gueijagoco bagaric juzguetan dozu, agaz pecatu eguitera doiala. Au juzgu gaistua da. Bada, jua zatequian eche atara gauza on bat eguitera. Ta bide gueijago bagaric ez da inor deungatzat euqui biar.

1155 2. Pecatuzco juzguba da: Arpeguico edo gorputceco echurati edo daucan opicijoti beste bagaric, inor deungatzat euquitia. Beguijac gorrijac daucalaco, edaaliala edo ordija dala. Beguijac zolijac edo urdinac daucalaco, patsua dala. Miina labana daucalaco, embusteruba edo embusteria dala. Escribauba dalaco, *drogueruba* ta oquerra dala. Alan juzguetan even [219] Socrates gaiti, ordija zala, arpeguija ta beguijac gorrijac oi zitubalaco. Santa Maria Madalena gaiti juzgau evan Simon paresijuac²⁵³, Jesus engainetara jua zala, Jesusen oinetan auspaztuta negarrez icusi evalaco. Alan juzgau oi da opicijo batzubetaco gentia gaiti bere. Baina gueijagoco bagaric inor deungatzat euquitia, bidebagaco juzgu gaistua da.

1160 3. Pecatuzco juzguba da, gauza on bat inoc eguiten davenian, nai charragaz edo gauza charreraco eguin davela juzguetia. Alan juzgau evan Samuelen ama Eli sacerdotiac²⁵⁴. Eleisan luzaro oracinoian egualaco, juzgau evan ordituta eguala. Onetaricuac izaten dira juzgu gaistoric gueijenac. Icusten dozu bat limosnia eguiten. Ta juzguetan dozu vanidadez eguiten davela. Icusten dozu bat bere gauzetan beguiratuba. Ta dinozu zequena dala. Icusten dozu juez bat, alcate bat edo piel bat errico paltac castiguetan ditubana. Ta juzguetan dozu andiguria ta sobervijotsuba dala. Ta onan beste milla juzgu gaisto, lagunaren eguite onac charrera botata.

1170 4. Pecatuzco juzguba da, gauza deunga bat batec bein eguin davelaco, beti alan eguingo davela juzguetia. Icusten da bat, bein lapurretan eguiten. Beste bat bein ordituten. Beste bat bein bere guraz meza entzun bagaric gueratuten.

1140 Ez bada *Ba* 1142 gach guintza *Ba* 1156 oizitubalaco *Ba* 1158 oida *Ba* 1167 ditubana] dtubana *Ba* (301.or.: ditubana) 1168 andi guria *Ba* | onanbeste *Ba*

²⁵² Ez tamainuz edo kalitatez erdi-mailakoa, hiztegi batzuetan datorrenez, badaezpadakoa, txarra esan nahi du Frai Bartolomerengan.

²⁵³ Ik. Lk 7,36-50.

²⁵⁴ Ik. 1Sm 1,12-15.

Bada, gueijagoco bagaric ez da sinistu biar areec gaiti, beti lapurretan, edo ordituten, edo meza entzun bagaric vitzi diriala.

5. Pecatzuco juzguba da, pamelija bateco edo estadu bateco persona bat 1175
 gais-[220]qui eguiten icusita, pamelija ataco edo estadu ataco persona guztiac
 deungac diriala juzguetia. Icusten dozu eche bateco persona bat dala lapurra.
 Ta juzguetan dozu eche atan guztiac diriala lapurrac. Au pecatu da. Icusten
 dozu abade bat dala zequena edo ordija edo pausu charretan vizi dana. Ta juz-
 guetan dozu, abadiac guztiac diriala deungac. Au pecatu da. Icusten dozu, 1180
 praile bat dala edaalia edo jocolarija edo aleguereguija edo adisquide ez jago-
 cazanequin davilena edo lapurra edo embusteruba. Ta juzguetan dozu praile
 guztiac edo gueijenac diriala alacoxiac. Au pecatu da. Oneec dira, cristinaubac,
 aibat verbaric guichienagaz, juzgu gaistua ta pecatuzcua nos dan ezaututeco
 erreguela edo neurgarriac. ¿Ta ce pecatu da juzgu gaistua? 1185

II.

Inor deungatzat euquitia errazoe ta bide on bagaric, beti da pecatu, neure
 cristinaubac. Gauza andijan badaucazu bide bagaric deungatzat, izango da
 pecatu andija, illgarrija edo mortala. Gauza chiquijan edo guichijan badaucazu 1190
 deungatzat, izango da pecatu chiquija edo arina. Juzgu gaistua bada erregue
 jaunaren, obispo jaunaren, cura jaunen, sacerdoten, religiosuen, juecen, caba-
 llero edo beste persona ondrauben ta pama onecuen contra, orduban, alaco
 personac deungatzat euquitia errazoe ta bide seguru bagaric, gauza guichijan
 dala uste izan arren bere, sarri ta laster izango da pecatu mortala. Euren esta-
 du altubari ta ondrautasunari guichiagogaz egui-[221]ten jaco injurija andija, 1195
 gaisqui juzguetan dirianian. Ta ez pensau, cristinaubac, ceuben²⁵⁵ inor gaiti
 eguin dozun juzgu gaistua inori esaten ez deutzazunian, ez dozula peaturic
 eguiten. Bada, inori aoti atera ez arren, noberac deungatzat proximua euquitia
 bide seguru bagaric, pecatu da. Norberac gaisqui juzgaubaz gainera, inori esa-
 ten bajaco juzgu gaistua, orduban gaisqui esalia da. Ta juzgu gaistuagaz ta a 1200
 inori esanagaz galdutaco ondria atcera viurtu biar da. ¡Oh, ceibat onetarico
 pecatu erremedijau bagaric gueratuten dirian beste munduraco! Campo andija
 dauca juzgu gaistuac. Ta chito pecatu casta ezaina da. Entzun eguizu, bada,
 onen gainian cerbait.

1173 ezda *Ba* 1181-1182 ezjacozonequin *Ba*

²⁵⁵ Begira perpaus honen egitura: “ceuben” izenlaguna dagokion izenetik urrundua dago; baina gure idazleak maiz egin ohi hori, batez ere “beste” hitza tartean dela..

1205

III.

San Agustinec esaten dau (160), *genteric gueijena daguala prest, inor gais - qui juzguetaco*. Genteric gueijena vitzi da inoren gachagaz. Norbera baino bestiac deungauago diriala pensaubagaz ta sinistubagaz. Lapurrac ez dericho ain deungaro bere lapurretiari. Baina bai inoren gaisqui esatiari. Logrerubac ez
 1210 derichue ain deungaro bere tratu engainuzcuari ta codicijari. Baina bai bestiac trago bat gueijago edaatiari. Zequenac ez dericho deungaro bere diru gordetiari ta inoren erruquiric ezari. Baina bai bestiaren castu alperricacuai. Desonestubac ez dau gauza ezainic topetan bere ao ta tratu loijetan. Baina chito deungaro dericho, biarra eguin leguijen gentiac egunian meza bat entzutiari.
 1215 Onan dira beste oquerreriya guztiac. [222] Norberarenac ecer bere ez dira. Ta lagunarenac chito palta andijac. Gueure beguijetaco zura bere icusi ezin dogu; ta inoren beguico lasto chiquija bere entero zur anditzat daucagu. Onaco juzgu oquerrac eraguiten deuscuz, gueu baino obaric icusi ezinac. Gueure sobervijac. Gueure andijen izan guriac. Onec eratsi evan Luciper ceruti impernura. Ta beronec erasten ditu aren ondoric beste asco.

¿Ceimbat cristinau dagoz, auzua, laguna edo proximua, santuba bada bere, cetan edo atan deungatzat ez dauquenac? ¿Gueijago edo guichiago gaisqui juzguetan ez daveenac? ¿Goiijan edo beian paltia topetan ez deutseenac? Etorri zan Juan, dino Jesucristoc (161), *ez jan ta ez edan eguiten evala*, penitencia eguitera ta pecatarijai prediquetara. Ta a bere gaisqui juzgau davee ta dinue: *demoninua dauca* . *Etorri da Cristo jaten davena ta edaten davena* . Ta a bere gaisqui juzgau davee ta dinue: *jaalia ta edaalia da. Vorax est potator vini* . ¿Cer icusi eutseen gauza deunguia san Juan Bautistari, demoninua eucala juzguetaco²⁵⁶? ¿Cer Jesucristori, ardao zalia ta edaalia zala juzguetaco²⁵⁷? Ecer bere ez.
 1230 Baina deunguiac beti, danic santuric andijena gaiti bere, deungaro juzgau ta deungaro sinistu. Cain deunguiac gaisqui juzgau Abel bere anae erru baguia²⁵⁸. Esau gulerubac gaisqui juzgau Jacob²⁵⁹ bere anae santuba. Maria Moisen arreviac, emacumiaren burutacinoe arinac, aixetsubac ta zelotsubac gai-[223]ti gaisqui juzgau bere neva caridadetsuba ta zucena²⁶⁰. Jacoren seme gaistuac, oquerrac ta pecatu andiguinac gaisqui juzgau euren anae Joseren garbitasuna, eguija ta leijaltasun pina²⁶¹. Eli ardura guichicuac ta ume gaisqui azizailliac gaisqui

 (160) Serm. 101 de temp. (161) Matth. c. 11.

²⁵⁶ Ik. Mt 11,18; Lk 7,33.

²⁵⁷ Ik. Mt 11,19; Lk 7,34.

²⁵⁸ Ik. Has 4,3-8.

²⁵⁹ Ik. Has 27,41-43; 33,21-22.

²⁶⁰ Ik. Zen 12,1-2.

²⁶¹ Ik. Has 37,1-24.

juzgau Anaren oracinoe santia ta prutu andicua²⁶². Saul deunguiac gaisqui juzgau David inocentia²⁶³. Paresijo sobervijotsubac, embidijotsubac ta pecatuz betiac gaisqui juzgau san Juanen barubac, penitencijac ta sermoe itzaltsubac²⁶⁴. Baita Jesucristo gueure Jaunaren verba santubac, milagruac ta vizitza cerucua bere²⁶⁵. 1240

Onan dira, cristinaubac, deunguen juzgubac. Deunguiaren goguan ez da inos proximuaren eguitaderic, ez verbaric, danic zintzuena ta errialena izan da bere, garbiro sartuten. Ezaindu ta loituten dau bere juzgu gaistuagaz esanic ondraubena ta eguitaderic santubena. Humildia gaiti dino bere artian gaistuac, simple bat dala. Urtenchubagua gaiti, sobervijotsua dala. Bere gaucetan batu-bagua ta beguiratu onecua gaiti, ezertaco eza dala. Itzaltsubagua ta chanza guichiren zalia gaiti, gogorra ta odol charreco vijotza daucana dala. Irago onecua ta mansua gaiti, ardura baguecua dala. Castu guichicua gaiti, codicijotsuba dala. Verbetan beguiratuba ta gueratuba gaiti, zaipecua²⁶⁶ ta zitala dala edo buru erichija ta dotoria dala. Pusca bat verba ugarijagocua gaiti barritsu bat dala. Premina bagaric lagun arteetan sartuten ez dana gaiti, prestu ez cequena dala. Guztiaquin [224] verba eguiten ta edoceanegaz bat eguiten dan gach baguecua gaiti, chaal batec baino sustancija gueijago ez daucana dala. Erruquiorra ta emonzaillia gaiti, eche galzaillia dala. Emonian beguiratuba gaiti, queia bere gorde gura leuquiana dala. Murmuretan ez badau, ocasinuetara jua-ten ez bada, lagun gaistuetati igues eguiten badau, sarrichubago compesetan bada, inoren gaisqui esanac ta aguirico pecatubac ontzat emoten ez baditu, johl *ipocrita* paltso bat dala. Santutzat guztiac euqui daguijen, eguiten ditubala areec. 1245 1250 1255 1260

Ara emen, cristinaubac, proximia gaiti eguiten dirian juzgu gaistuac ta penseta charrac. Gueijenac alan alcar juzquetan davee. Batac ezarten deutsa paltta bat batari. Ta ac ezarten deutzaz bi bestiari. Nequez pensetan da ondo inor gaiti. Au guztiau dino san Juan Crisostomoc (162): *Paciencia onecua bada bat, bildurti coitautzat dauca deunguiac. Humildia bada, paltsoztat ta arpegui bico cristinautzat. Alegueria bada, nasaitzat. Zucena ta arteza bada, sutsunzat ta ernegautzat. Guztia sinistuten daven on, aingueru bat bada, sen* 1265

(162) Marc. Hort. Past. l.3. tract. 4. Lect.15.

1246 Urten chubagua *Ba* 1248 onecua] onecua *Ba* 1253 sartuten] sortuten *Ba* 1254 edo ceinegaz *Ba*

²⁶² Ik. 1Sm 1,12-15.

²⁶³ Ik. 1Sm 18,7-12.

²⁶⁴ Ik. Mt 11,18; Lk 7,33.

²⁶⁵ Ik. Mt 12,22-24; Mk 3,20-22; Lk 11,14-16.

²⁶⁶ "Zaipeco": maltzurra.

1270 *bagacotzat. Contu onecua ta adin onecua bada, malecijotsotzat edo ascotaco*
gaistotzat. Sosigu onecua bada, buruguintzat. Barubari ta oracinoiari jarrai -
tuten badeutsa, modu baguecotzat. Prediquetiari, compesetiari ta lagunen ari -
mac cerura vidian imintiari equiten badeutsa, estimacinoe zaletzat. Bere con -
 1275 *emoten ez deutsan alpertzat. Gentiagaz ondo equiteco gracia badauca, miin*
labanecotzat. Inoren labanquerijac ta embusterijac entzun gura ez baditu,
andiustecotzat. Au guztiau da san Juan Crisostomoren. Emen aguiri da ce sus
 1280 *traí andijac daucazan juzgu gaistuac. Ez dago lagunaren eguitade bat ez verba*
bat, aibat zuzenena ta santubena izanda bere, alde charrera juzguetan ez
danic.

¿Ta ez da au, neure entzula onac, pecatu ezaina? ¿Nai dozu ain errazto ta
 ain bide bagaric ceure esana edo eguina deungatzat inoc equitia? ¿Ceure
 verba ta eguite guztiac beti alde charrera ta gachera inoc juzguetia? Ezetz esan-
 go dozu. Inoc juzgu gaisto bat ceu gaiti eguin davela entzun orduco, vijotcian
 1285 gorrotuaren suba jaguiten ja[t]zu aren contra. Ta graciajaren indar guztia biar
 dozu a amatetaco. Beste aibeste gorroto deutsa, cristinaubac, juzgu gaistuari
 Jaungoicuac. Bera da cristinau guztien jueza. Ta ez dau gura bere ordeco ez
 danec, juez ez danec inor juzgau daguijan munduban. Juzgau daguijala baco-
 chac bere buruba. Baina ez inorena. Jaungoicuari berari escu artutia da, gueu-
 1290 re lagunen esanac ta eguinac gueuc juzguetia. *Ez eguizu inor juzgau*, dino
 Jesucristoc (163), *zebec juzgau ez zaguijezan. ¡Oh, ceure laguna juzguetan*
dozuna! Achequiya bagaric galduco zara. Inor gaiti eguiten dozun juzgu gais -
tuagaz ceure bu-[226]ruba condenetan dozu, dino san Paulo apostolubac
 (164). ¿Nai dozu entzun, cristinaubac, Jaungoicuac celan juzguetan dituban
 1295 inoren gach juzgalarijac? Bada, Escritura Sagraduban castigu guichi iracurten
 dira erru gogorragoric ta bildurgarrijagoric juzgu gaistuarena baino. Core,
 Datan ta Abiron, irurac juzgau even gaisqui Moises ta Aaron gaiti. Errazoe
 bagaric ta bide bagaric, eurac deungac cirialaco, juzgau even, sinistu even ta
 esan even deungaro Moisen ta Aaronen contra. ¿Ta cer derichazu Jaungoicuac
 1300 eguin evala euraquin? ¿Celan derichazu juzgau ditubala? Israelgo gente guztia-
 ren aurrian Core, Datan ta Abiron egozan lecuban, luurac edegui evan aua
 impurnuraguino. Ta subaren ta queiaren artian viziric iruntsi zituban luurac
 irurac impurnuco ondarretara (165). Ara Jaungoicuac ce gorrotua deutsan juzgu
 gaistuari. Ara ce pecatu ezaina ta bildurgarrija dan laguna gaisqui juzguetia.
 1305 ¡Oh Jaungoico Santuba! Emon eiguzu ceure gracia, ezaututeco cer dan
 juzgu gaistua ta ce pecatu zabala ta ezaina dan. Artu daigun juzgu gaistuaren

 (163) Matth. c. 7. (164) Ad Rom. c. 2. (165) Num. c. 16.

1273 equiten| oquiten *Ba* (301.or.: equiten) 1274 eguin biarrari *Ba* 1296 bildur garri-
 jagoric *Ba*

gorroto santuba ta gorde daigun ceure caridadia, ceinegaz irabatcico dogun betico ceruco glorija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

[227]

VII. ICASQUIZUNA,

1310

ceinetan eracusten dan
cer eguin biar daven cristinaubac inor gaisqui ez juzguetaco.

Santo Tomasec eracusten dau, neure cristinaubac, juzgu gaistua dala lagunaren contraco deungaro esate ta cleitu galtceen ama. Ta juzgu deunguiaren ama oi da gueijenian, edo embidija, edo andiguria, edo gorrotua. Oquerrerija edo vicijo impame oneen lelengo umia da, inor gaiti deungaro juzguetia. Ta juzgu gaistuaren umia da laster barruban daucan verenua, nai guzurra ta nai eguija, nai ziertuba ta nai dudacua, nai entzuna ta nai icutsija, nai asmauba ta nai erichicua, lagunaren paltia inori esatia. Proxiuaren cleituco gaucia bada, *zanic emon deus* esanda, beriala contau lagunari. Ara emen, cristinaubac, lagun bic edo iruc edo batec, cleituban eurai ez juacuenac, bein jaquin edo sospecha eguindaco proximuaren paltia cegaiti edo inos bere ez edo chito guichitan gueratuten dan azaldau bagaric. Lastima gorrijan, nequez topetan da persona ixil bat edo saiatu bat, lagunaren paltac ezcutetaco. Berau gaiti eracutsico deusut dotrina onetan, *cer gogoratu edo pensau biar daven cristinau - 1325 bac, inor deungaro ez juzguetaco. Ta oni darraicona, inor gaiti deungaro ez esateca* Uste dot, balijoco deusun eracutsija da-[228]la. Ta escatuten deusut entzuteco gogo ona. 1320

Lelenga Inor gaisqui juzguetara orduco, gogoratu daique cristinaubac san Juan Crisostomoc dinuana. Ta da (166), *cristinau onac nequez inor gaiti gais - 1330 qui juzguetan davela; ta cristinau deunguiac nequez inor gaiti ondo juzgue - tan davela.* Emeti ezautuco dituzu, neure entzula onac, ceuben burubac: ¿Ontzat daucazuz ceure proximuac edo lagunac? ¿Ez aoz esanda bacarric, ascoc sobervija pin bategaz esan oi daveen leguez: *Neu baino obia da mundu guz -*

(166) Serm. sup. Matt.

1335

1315 oida *Ba* 1322 ce gaiti *Ba* 1334 oidaveen *Ba*

tia, ez bada ceuc alan sinistuta ta guztiac ontzat ceure goguan euquita? Bada, cristinau ona zara. ¿Ceure goguan ta ceure vijotzian, inori esan ez arren, deungatzat daucazuz lagunac? Bada, seguru seguru ceu cristinau deunguia zara. Ta euqui daiquezu ceure buruba lelengo deungatzat. Ez dozu au guraco. Bada, ez
1340 inor juzgau.

San Gregorijoc esaten dau (167), *gaisqui esalia* (ta bardin da gaisqui juzgalia) *dala autsari auagaz aixe emoten deutsana leguez*. ¿Ta cer eguiten dau autsari auagaz aixe emoten deutsanac? Bere beguijetara autsa bota. Onegaz esaten deutsu Santubac, gaisqui esaten davenac ta gaisqui juzguetan davenac,
1345 min emoten deutseela bere beguijai. Au da arimaco caltia. Ta itsututen ditubala bere beguijac. Au da eguija ez acertetia. Au da bere juzgu charrac ta esan gaistuac uts eguitia. Au da guzurrian ibiltia, itsututa dagualaco. Ta autsez betetaco be-[229]gui illunaquin besten burlagarri gueratutia. Gogoratu bada, cristinaubac, inor juzgau baino leenago, juzgu charginac deungac diriala, itsubac
1350 diriala, guzurrian davilzala ta arimaco beguijac autsez beteta dauquezala, eguija ezaututeco.

Bigarrenian: Gogoratu, inor juzgau baino leenago san Buenaventurac dinuana, ta da (168), *inoren gogoco barri jaquin ezina*. Inoren vijotzian ta goguan ce uste ta cer nai daguan Jaungoicuaac berac baino bestec ez daqui. Ezda ainguerubac bere. Ez badaqui, bada, cristinaubac lagunaren goguan cer
1355 daguan, ¿celan juzgauco dau laguna deunguia dan ala ona dan? ¿Ez badaquizu inoren goguan cer daguan onaco edo alaco gauza esaten davenian edo eguiten davenian lagunac, celan azartuten zara aren esana edo eguina deunguia dala juzguetara? ¿Ta zuc deungatzat daucazuna bada ona Jaungoicuaaren beguijetan, cetan gueratuten da zure juzgu gaistua? Gueure vijotzian, gueure najan edo vorondatian dago, bada, gure on izate ta deunga izate guztia. Au ezaututen ez dogun artian, ezin juzgau guinai errazuaz gueure laguna ona ala deunguia dan. Ceruban aguertuco dira arguiro guztion vorondatiac, guztion najac ta guztion vijotzac, dirian moduban. An icusico dozu nor dan ona ta nor dan
1360 deunguia. Ordu artian, ezin inor zucen juzgau guinai. Oquer juzguetaco, oba da ez juzgau.

¿Ta esaten badozu, jaquinaren gainera juz-[230]guetan dozula? ¿Seinalle aguirijac daucazuzala laguna gaiti gaisqui pensetaco? Ez sinistu, cristinaubac, goguac esaten deutsun guztia. Uts eguite asco jazoten dira gauza onetan. ¿Nos
1370 oi dira senaille aguirijaguac inor deungatzat euquiteco, Jose Jacoren seme erru baguiaren contra azaldau zirianac baino? Egitoco señora guztiz nausi bat zan,

(167) Hom. sup. Ezequiel. (168) Tom. 7. de prof. Relig. c. 1.

1336 Ez bada *Ba* 1355 Ez da *Ba* 1362 ezdogun *Ba* 1370 oidira *Ba* 1371 zirianac|
zirianae *Ba*

Joseren pecatutzatcua azaldau evana. Seinoriac berac esan eutsan bere senarrari, derrigorrian berari pecatu eraguin gura izan eutsala Josec. Nequez, capiarren zati bat atzamarraquin urratuta librau zala guizon gaistuaren escubetati. 1375
 Eracutsi eutsan seinoriac senarrari Joseren capa zati urratuba. Quexau jacozan juezari Joseren contra. Jose sartu even carcelan. Ta azaldau zan bere pecatutzacua²⁶⁷. ¿Noc juzgauco ez evan Jose deungatzat? ¿Noc sinistuco evan Joseri jaso eutseen guztia guzurra zala? Bada, guzurra zan. Joseri alaco gauza deungaric gogoratu bere ez jacon. Seinoriac berac gura euquian pecatu eguin 1380
 Josegaz. Ta Josec pecatu eguin gura ez evalaco gorrotoz ta vengai z seinoriac, andijac ta nobliac jaso eutsan Joseri guzurra, quendu eutsan ondria ta sartu evan carcelan. *Ez, bada, inor juzgau demporia baino leenago*²⁶⁸.

¿Nos senalle segurubaguac inor deungaro juzguetaco, Susanaren contra jagui zirianac baino? Errijaren buru ta juez cirian guizon bic, ez umiac, ez gazte 1385
 buru arinac, ez bada edadecuac ta zaartubac esan even bijac batera gente guztieren aurrian. ¿Ta cer esan even? Esan [231] even, *eurac topau eveela Susana guizon bategaz pecatu eguiten*. ¿Noc sinistuco ez eutsen edadeco juez arei? ¿Noc juzgauco ez evan deungatzat Susana? Guztiac juzgau even, Daniel santubaz bestiac. Bada, Danielec acertau evan ta beste guztiac uts eguin even. 1390
 Susana deungatzat equi evan erri guztiac. Ta juez zaarrac guizon ondraztat, eldutzat ta zuzentzat. Bada, oquer pensau even dirianac, Danielez bestiac. Susana zan ona ta garbija. Ta agura zaar errico juezac cirian loijac, Susanagaz pecatu eguin gura evenac. Ta Susanac areequin pecatu eguin gura ez evanian, guzur andija jaso eutseenac ta erri guztiari Susana santia arrica ill eraguin gura 1395
 eutseenac²⁶⁹. *Ez, bada, inor juzgau demporia baino leenago*. ¿Egon leitequez senalle aguirijaguac inor deungatzat equiteco, Santa Marinaren contra egozanan baino? Bere Aitac eruan evan Marina, nescacha chiquija, mutil jantzita bergaz praile combentu batera. Aita ta alavia bijac guertu zirian combentuban praile. Marinari ataraco imini eutsan *Marino* izen. Marino zan chiquitati praile 1400
 zintzo bat. Ta ceimbat azijago, aimbat zintzuago, esanecuago ta humildiago. Bere ontasuna gaiti combentuco nausijac bialduten evan uri urrinera, aguin-dubac eguitera. Ta guertuten zan gavetan lo eguiten uri ondoco eche baten. Eche ataco nesquiac batu evan seina norbaiteganic. Ta ezarri eutsan erruba 1405
 Prai Marinori. Nesquiaren aita asarre ta gogor quexau jacon combentuco nau-sijari Marinoren contra. [232] Contu artu eutsan nausijac Marinori. Onec ez ucatu eguin eutsan nausijari ez autortu, ezda bere buruba aguertu bere, ezba-

1377 azaldauzan *Ba* 1378 jaso] jazo *Ba* 1406-1407 Ez bada *Ba*

²⁶⁷ Ik. Has 39-41.

²⁶⁸ Ik. 1Ko 4,5

²⁶⁹ Ik. Dn 13,5-41.

- da ixilic egon. Juzgau euan nausijac Prai Marino erruduna zala. Azaldau zan beriala campuan ta cobentuban Marinoren escandalu andija. Ta Marino ixilic eguan. Quendu eutseen abitu santuba ta bota even combentuti campora. 1410 Baina ez euan esaten Marinoc sein beria ez euanic. ¿Noc sinistuco euan ez evala? Nesquiac, sein eguinda, bialdu eutsan sein gueroco baten Marinori, beria evala ta atzteco. Ta artu euan isilic sein. ¿Noc juzgauco ez euan Prai Marino seinaren aitatzat?
- 1415 Gueijago uts eguin even oraindino alan juzgau evenac. Prai Marino errubagua urte ascotan vizi izan zan combentuban ta ingurubetan emoten eutseen limosniagaz sein atzten evala, combentuco ateetan parauta prailiai parca escatuten. Ta leen baino aurrera oba izango zala aguinduta, barriro negarrez abitu santuba escatuten eutseela. ¿Noc pensauco euan beragaz erabilen sein 1420 ez evala beria? Ez zan, bada. Erruquitu zirian prailiac Marinoren bost edo sei urteco ate ondoco negarraquin ta erregubaquin. Milla aurrera on izateco zamai-gaz ta contu gogorregaz artu even barriro combentuban. Ez eutseen ostera combentuti urteten isten, leen leguez lotsatu ez eguizan. Ill zan Prai Marino combentuban. Ta meztituten²⁷⁰ ezautu even, emacumia zana. Errubagua zana. 1425 Santia zana. ¿Cer esango dogu au [233] gaiti?²⁷¹ *Ez, bada, inor juzgau dempo - ria baino leenago, Jaungoicua guztioz juzguetara datorren artian* .
- ¿Baina ceimbat onaco uts eguite ta juzgu jazo ez dira ta jazoten ez dira egu-nero cristinauben artian? Eleisiaren jazuac beteta dagoz onaco onac deungatzat juzgautaco uts eguitez. Aita san Pranciscuba bere aitac eucan deungatzat ta 1430 eche galzailletzat²⁷². San Ignacio Loijolacua carcelan euqui even²⁷³; ez heregiac ta gentilac, ez bada euren burubac zucentzat ta cristinau ontzat euqueezanac.

1423 Illzan *Ba* 1427 jazoten] jozoten *Ba* 1427-1428 egun ero *Ba*

²⁷⁰ "Meztitu": hila jantzi.

²⁷¹ Frai Bartolomek, Marina Marino balitz bezala agertzen den kontakizun hau liburu honetan irakurriko zuen, ziur aski: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 300-301.or.

Santa Marina (V. mendekoa ?); honen *Vita* legendaz oso jantzia agertzen zaigu, grekoz, latinez, sirieraz, arabieraz, koptoz eta beste hizkuntza batzuetan idatzia; kontakizun horietan Eugenios-en alaba zela esaten da eta aitak mutil-arropaz jantzi zuela; horrela jantzita, monasterio batera joan ziren, hark *Marinos* izango zuen izena. (Ik. A.M. ZIMMERMANN, *Marina*, LThK 7 (1986) 81). Haren ikonografiaz liburu hau ikus daiteke: G. KASTER, *Marina (Maria)-Marinus* , in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 545-546).

²⁷² Zertzelada hau ondorengo liburu honetan irakurriko zenuke: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum..*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 494. or. Ik. 105.oharra (951.or.).

²⁷³ Beharbada, Frai Bartolomek liburu honetan irakurriko zuen zertzelada hau: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum..*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 355. or. Ik. 109.oharra (952.or.).

Ene Ama santa Teresari ta ene Aita san Juan Curutceuari beste aibeste jazo jacuen²⁷⁴. Euren lagunac ta anaiac juzgau citubeen oneec deungatzat. Uste even senalle aguirijac euqueezala alan juzguetaco. Baina engainau zirian. *Ez, bada, inor juzgau demporia baino leenago, Jaungoicua guztioac juzguetara datorren artian* . 1435

Esango dozu menturaz: *Jauna nic ondo daquit a deunguia dana. Neuri ostu deust. Neuri ucatu deust. Neuri erruba guzurragaz ezarri deust. Neuri calte andijac eguin deustaz. Neuc entzun deustat. Neuc icusi nevan. Guztiaac dinue a deunguia dala...* Oneec oi dira, cristinaubac, ceuben errazoe nausijac inor deungatzat euquiteco ta gaisqui juzguetaco. Ta izan dedilla alan. Baina gogoratu: 1440

Irugarrenian : *¿Nor zara zu, ceure laguna edo proximia juzguetan dozu - na? esaten deustu san Paulo apostolubac ¿Tu quis es, qui iudicas alienum ser - vum?* Gogoratu eguizu ceu nor [234] zarian. Aztertu eguizu ceure vijotza. Examinatu eguizu ceure concienzia. Conturatu²⁷⁵ eguizuz ceure vizico egun guztiaac. Pisau eguizuz ceure verbac, ceure gurarijac, ceure ustiaac, ceure asmuac, ceure burutacinoiac ta ceure naijac. Bai aguirira atera dituzunac ta bai ceure vijotzian barruban ezcutauta Jaungoicua ta ceuc baino bestec jaquin bagaric euqui dituzunac. *¿Ta cer icusico dozu? ¿Nor zara zu? ¿Tu quis es?* *¿Ceimbat lepra edo ezcabi, ceimbat sarna, ceimbat materija atsitu, ceimbat usteltasun, ceimbat ur berde ta mingoch ta ceimbat lizuntasun ez dascusuz or ceure ariman, ceure concienjian ta ceure vijotzian? ¿Ceimbat suga ta zaporilecu emon deutseezu ta, menturaz ceure laguna juzguetan dozunian, emoten deutseezu ceure vijotzian? ¿Noc contaucoditu zure pensamentu lotsarizcuac? ¿Noc zure intencioe prestu ezac? ¿Noc zure andi gura aixetsuba? ¿Noc zure verba desondragarrijac? ¿Noc zure eguite engainuzcuac? ¿Noc contaucoditu,* 1455

1440 oidira *Ba*

²⁷⁴ Frai Bartolome Plasentzian 1575eko maiatzetik ekainera artean izan zen Kapitulu Jeneralaz ari da; kapitulu horrek fundazio berriak egitera ez irteteko agindua eman zion Santa Teresari. Honek bete nahi zuen agindu hori, baina A. Grazian zen bisitari apostolikoa eta ez zion utzi betetzen. Hala ere, Teresa luzaro egon zen Toledoko komentuan (julio1576-julio1577) (SANTA TERESA, *Fundaciones* 27,19; ik. *Carta* a Teutonio de Braganza ere, 1578-I-16. Ikus baita haren idazkari Ana San Bartolome dohatsuak dioena ere: (*Noticias sobre los comienzos del Carmel Teresiano*, en *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 61.or.).

S.Joan Gurutzekoaren kartzelan sartzea eta Toledoko Karmeldar zaharren kartzelan egotea (1577ko abendutik 1578ko abuztura arte) Ana San Bartolome dohatsuak, Santa Teresaren idazkariak, kontatzen digu, orain arte dugun kontakizunik antzinakoenean. (Ik. *Noticias sobre los comienzos del Carmelo Teresiano* in *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 62-65.or.).

²⁷⁵ "Conturatu" (du): gogora ekarri; (aditz iragankor gisa darabil testu honetan; "recordar", "traer a la memoria" itzultzen dute).

dinot, zure pecatubac? ¿Nor zara zu, ceure laguna gaisqui juzguetan dozuna?
¿Tu quis es? (169)

- 1460 Lagunac eguin deutsu lapurretan ta zuc diarduzu murmuretan. Ac quendu
 deutsu aciendia. Ta zuc quendu deutsazu lagunari ondria edo cleituba. Bada,
 zu deungago a baino. Lagunac quendu deutsu miinagaz cleituba. Zuc quendu
 gura ceunsequijo gorrotoz vizitzia. Zu deungago a baino. Laguna da lapurra,
 1465 echetan, soluetan ta basuetan al daguijana ostuten dave-[235]na. Zu zara logre-
 ruba, engainuzco tratubac al daguizunian eguiten dituzuna. Zu zara pobren
 contra beti deungaro esaten diarduzuna, arei limosna chiqui bat ez emotia
 arren. Zu zara zequenquerijaz ta codicijaz vijotza liortuta daucazuna. Bada, zu
 ez obia lapurra baino. Zuc juzguetan dozu laguna, bidaotija dalaco ta miin
 gaistuaren jaubia dalaco. Ta zu juzgauco zaitu Jaungoicuac, alperra edo joco-
 1470 larija edo castalarija zarialaco. Zuc juzguetan dozu proximua, ordija dalaco. Ta
 zu juzgauco zaitu Jaungoicuac, desonestuba, loija ta atsituba zarialaco. Zuc juz-
 guetan dozu laguna, zitala dalaco, patsua dalaco, zor pagazaille charra dalaco,
 ardura baguia dalaco, aguindu guria dalaco, vijotz gogorreca dalaco, embidi-
 josua dalaco, batu guria dalaco, esquer charreca dalaco.... Ta zu juzgauco
 1475 zaitu Jaungoicuac, pecatu areec guztiac daucazuzalaco, zeuc ezautu bagaric. Ta
 areen gainera, juzgazaille gaistua zarialaco. ¿Nor zara, bada, zu, laguna juz-
 guetan dozuna, aren paltaac jaquinac ta aguirijac izan arren? ¿Obia zara ceu
 ceuc deungueentzat daucazuna baino? *¿Tu quis est?*

- Ainchinacuac *lamia* esaten eutseen emacume bat pintau edo irudituten
 1480 eveen begui ascogaz. ¿Baina celan? Bere echian sartuten zanian, beguijac artu
 buruti ta cuchaan sartuten citubala. Ta bere eheti urteten evanian, beguijac
 artu cuchati ta buruban iminten citubala. Ez evan gura bere echeraco beguiric.
 Camporaco nai zituban dirianac²⁷⁶. Ez evan icu-[236]si gura bere echian cer ira-
 goten zan. Ta campocuac guztiac icusi gura zituquian. Gaisqui juzgalarijac ta
 1485 gaisqui esatiac dira lamiaren moducuac. Euren paltac ta pecatubac, aguiricuac
 ta ezcutucuac icusteco, ez davee gura beguiric. Ta inorenac icusteco juzgueta-
 co ta esateco, milla begui gura lituquee. Emeti dator gueure burubac ontzat
 euquitia. Ta bestiac deungatzat juzguetia. Ta gueijenian, gueuc deungatzat dau-
 cagunac dauca bere buruba ontzat ta gueu gaucaz deungatzat. Alan dagoz
 1490 engainauta cristinaubac negargarri andijan, euren burubac santutzat ta bestiac
 deungatzat sinistuta.

 (169) Ad Rom. c. 14.

1460 diar duzu *Ba* 1464 aldaguijana *Ba* 1465 aldaguizunian *Ba* 1490 negar garri *Ba*

²⁷⁶ Ik. "Dirianac": guztiak.

¡Oh! Inor juzgueta bacoedian esango baleutsa cristinaubac bere burubari
 san Paulo Apostolubac dinuana: *¿Nor zara zu, laguna juzguetaco?* juzgu gaisto
 guichiago eguingo litzatequez. Jesucristoren aurrera eruan even judegubac 1495
 adulterijoco pecatuban topau even emacume bat. Leguiac aguinduten evan,
 alaco emacumia arrica illteco. Judegubac esan eutseen Jesucristori, *arrica a ill
 biar zala, leguia gordetaco*. Jesucristoc esan eutseen judebugai, *pecaturic ez
 daucanac jaurtegui daguijola, bada, lelengo arrija* . Au esanda, atzamarragaz
 luurrian escribiduten evan Jesucristoc. Emacume pecatarijari arrica asi biarrian, 1500
 zaarrenetati asita, banaca ta binaca ixil ixilic gente guztiac alde eguin evan
 andi. Gueratu zirian Jesucristo ta Emacumia, bijac bacarric. *¿Nun dira,* esan
 eutsan Jesucristoc, *zu acusau edo [237] juzgau zaitubeenac? ¿Ez zaitu inor
 castigau edo condenau? Bada, nic bere ez zaitut condeneetan. Zuaz ta ez*
*eguizu gueijago pecaturic eguin*²⁷⁷. Pecaturic ez daucazunoc juzgau eguizuz, 1505
 bada, lagunac deungatzat. Ez pecatu eguin dozunoc. Gaisqui esan dot.
 Pecaturic eguin ez dozunoc ta aurrera bere eguingo ez dozuna daquizunoc,
 juzgau eguizuz gaisqui lagunac. Bestec ezin juzgau zinai ceuben proximua.
 ¡Oh, Jaungoico juez zucena! ¡Deungaro inos inor juzguetan ez dozuna!
 Ceuc ezaututen gaituzu nor celacuac garian. Emon eguiguzu bada, Jauna, gra- 1510
 cija, gueure burubac ondo ezaututeco ta proximo guztiac gueu baino obatzat
 euquiteco. Orduban birrinduco ditugu negarragaz gueure pecatubac.
 Erruquituco gara inoren paltiagaz. Maitetuco ditugu lagun guztiac. Ta irabatci-
 co dogu ceruba. Alan izan dedilla Jaungoico ona gaiti. Amen.

1512 negarragaz] negarrazaz *Ba*

²⁷⁷ Ik. Jn 8,1-11.

[238]

IX. TA X. AGUINDUBAC

Non concupisces usorem proximi tui: non Domum.
Deuter. c. 5.

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

5

1. *Bederatzi ta amar garren aguindubac cer escatuten deuscubeen.*
2. *Celan aguindu oneec bat ez dirian zazpigarren ta zortcigarrenagaz.*
3. *Celan bat ez dirian alcarren artian.*

Leengo eracutsijetan esanda gueratu da, neure entzula onac, cristinaubac 10
Jaungoicuari, lagunari ta bere burubari eguinian ta esanian zor deutsana.
Escatuten deuscu Jaungoicuac lelengo zortzi aguindubetan, Bera maitetuteco,
ondreetaco ta serbiduteco, beste gauza guztiac baino gueijago; Bere icen san-
tuba alperric auan ez artuteco; Berac santu eguindaco egunac, gueuc bere
santututeco; gueure gurasuac ta nausijaguac ondretaco; lagunari ez gueure 15
burubai, ez osasunian ta ez vizitzan calteric ez eguiteco; gueure gorputcetan ta
miinetan garbitasuna ta castidadia gordetaco; inori diruban, euquijan edo
aciendaan calteric ez eguiteco, ta ezda cleituban, pamaan edo ondraan bere.
Onan Jaungoicuac imini dau ceru altuti le-[239]gue zucena, mundura etorri
dirian ta etorrico dirian guizon ta emacume guztiontzat. Jaquiturija neurri baga- 20
co bategaz eracutsi deuscu, esan biar dogun ta eguin biar dogun guztia. Bera
lelengo ta gueijen; ta guero beste lagun guztiac gueure burubac leguez maite-
tuta, guztioac irabatzi daigun ceruco erreinu dichosua. ¿Cer biar zan, bada, guei-
jago, mundu guztia bardin, zuzen ta beti alcar artuta vitzi izateco? Gueure vijo-
tzeco gurarijac zucendutia ta, neurriti campora urten ez daguijen, arei esija 25
imintia. Ta au da beredatzi ta amargarren aguindubetan Jaungoicuac eguiten
davena. Icusi daigun, bada: 1. *Aguindu oneetan Jaungoicuac cer escatuten
deuscun.* 2. *Celan erabaguiten*²⁷⁸ *dirian besteetati.* 3. *Celan erabaguiten dirian
alcarren artian .*

3 Deuter.] Deutor. *Ba* 10 esan da *Ba* 21 deuscu] deustcu *Ba*

²⁷⁸ Ik. 217.oharra (1025.or.).

30

I.

Azqueneco aguindu bijetan Jaungoicuac escatuten deuscuna da, neure entzula onac, gurari deungai gueure vijotzian lecuric ez emotia. *Non concupisces*²⁷⁹. Gueure vijotcian jaijo edo sortu leitequezan gurarijac cer dirian ta ceimbat modutacuac dirian, esango da gueroeco eracutsijan. Vijotceti edo vorondateti campora urten bagaric gueratuten dan guraari edo nai bide bagacua da azqueneco aguindu bijac eragozten daveena. Gauza charra nai izateti eguitera, bide andija dago. Ez da popuertzacua pecatu eguiteco, gauza eragotzija esatia edo eguitia. Asco da ezauberaz gura izatia. Ez dau esaten san Paulo apostolubac (170), *aberastu di-[240]rianac jausten diriala tentacinoian ta diabrubaren lotugarrijan; ta erijotzia ta betico galdutia guizonarentzat dauqueen desio onera bagaco ta caltegarrijac dacazala aberastutiac, ez bada aberastu guriac*, aberastuteco naijac edo aberastuteco gurarijac. *Qui volunt divites fieri* Alan amaituten dau Apostolu santubac berac esanagaz, gach guztien sustraija dala guraarija. *Radix omnium malorum cupiditas*²⁸⁰.

Vijotceco gurari edo nai deunguiac bere azierac daucaz, san Gregorijoc esaten deuscunez (171). Lau modutara, dino Santubac, pecatu eguiten dala gurariz: Lelengua da tentacinoezcua. Bigarrena, noberaren gustozcua. Irugarrena, noveraren naizcua edo consentimentuzcua. Ta laugarrena, pecatu eguina ontzat zaintutezcua. *Suggestione, delectatione, consensu, et defensionis audacia*. Diabrubac tentetan dau gauza charrera; ta vorondatiac ez deutsa ecetz esaten tentacionoiari. Orduban da tentacinoezco pecatuba. Araguijac escatuten deutsa gauza eragotzija; ta vorondatiac ez deutsa ucatuten araguijari escaarija. Orduban da vijotzian guztzoco pecatuba. Gogoratuten jaco gauza deunga bat, lapurreta bat edo beste pecatu bat eguitia; ta vorondatiac nai dau edo consentiduten dau lapurretia. Orduban da naizco pecatuba, ostu baino leenago. Pecatu eguinda ez dau ezautu gura pecatutzat, ez dau autortu gura. Orduban da pecatu barrija, pecatu eguina ontzat zaintutia. Lau gauza oneec iminten ditu gueure lelengo [241] pecatuban san Gregorijoc berac. Diabrubac tentau evan Eva. Eva poztu ta alegrau zan tentacinoiagaz. Adanec nai izan evan edo consentidu evan. Ta pecatubaren gainian contu artu eutseenian, ez evan pecatutzat ezautu edo autortu gura izan. Au gaiti esaten dau Jesucristo gueure Jaunac bere evangelijo santuban (172), *vijotceti urteten daveela burutacinoe deungac, guizon illtiac, adulterijuac, pornicacinoiac, lapurretac, testigantza*

 (170) 1. ad Timoth. c. 6. (171) Lib. 4. moral. in Job. c. 25. (172) Matt. c. 15.

37 Ezda Ba 41 calte garrijac Ba | Ez bada Ba 59 alegrauzan Ba

²⁷⁹ Ik. Ir 20,17; Dt 5,21.

²⁸⁰ Ik. 1Tm 6,10.

guzurrezcuac, blaspemijac ta beste pecatubac. Oneec guztioe vijotceti urten 65
baino leenago dira gurarizco pecatubac vijotcian edo ariman bertan. Pecatu-
gurarari deungu oneec eragozten deuscuz, bada, Jaungoicuac beredatzi ta amar-
garren aguinduban. Ta au errazoe asco gaiti.

II.

Lelengo Eragotci euscuzan Jaungoicuac azqueneco aguindu bijetan gurari 70
charrac, bere legue santuba aituten inoc uts eguiteric euqui ez daguijan. Bada,
judegu ascoc uste even, castidadiaren contra peccaturic eguin ezagaz ta inori
ecer ostu ezagaz gordetan eveela leguia, seigarren ta zazpigarren aguinduben
contra gurari charrac euqui arren. Bada, seigarren aguindubac dinuana da ara-
guizco peccaturic ez eguitia. Ez, araguzco peccaturic ez nai izatia. Ta zazpiga- 75
rrenac ecer ez oostutia. Ez, ecer ostuteco gurariric ez euquitia. Orregaiti uste
even judeguben artian ascoc, araguijari gusto emoteco ta ostuteco gurarijac
libre ziriala, araguzco peccaturic edo lapurretaric eguiten ez zanian. [242] Uts
eguite oni aurria artuteco ta vijotceco gurari gaistuai esija iminteco aguindu
evan Jaungoicuac verba aguirijaquin, gurari charric ez euquiteco. *Non concu* - 80
piscis Leengo zortci aguinduben ta eragotcien gainera, sustraiti duda guztiac
ta achequiya guztiac peccatarijari quenduteco gueitu cituban Jaungoicuac azque-
neco aguindu bijac. Areetan zucendu cituban Jaungoicuac gueure esanac ta
eguinac. Ta oneetan gueure naijac ta gurarijac. Areetan lotu cituban
Jaungoicuac gueure miina, escubac ta oinac. Ta oneetan lotuten ditu gueure 85
vijotzac ta vorondatiac. Areetan aguinduten deuscu eguin biar doguna; ta era-
gozten deuscu eguin biar ez doguna. Ta oneetan escatuten deuscu euqui biar
dogun naija; ta eragozten deuscu euqui [biar] ez dogun gurarija. Alan, ez dira
bat eguinac azqueneco aguindu bi oneec bestiaquin.

Bigarrenian : Beste aguindubac obeto ta ziurrago gorde daiguzan emon 90
euscuzan Jaungoicuac beredatzi ta amargarrena. Bada, Erromano Catecismuac
dinuan leguez (173), vijotcian nai gaistuai ta gurari deungai lecuric emoten ez
deutseenac, errazto ta seguru gordetan ditu beste aguindubac. Gurari charric
edo bide bagacoric ez daucanac, ez dauca inoenaren desioric. Contentu da
berriagaz. Poztuten da inoren onagaz. Esquerrac emoten deusaz Jaungoicuari. 95
Baquia dauca bere vijotcian. Gordetan ditu jaijac. Ondretan ditu nagusijaguac.
Ta ez [243]deutsa inori calteric eguiten ez esanagaz, ez eguinagaz, ez osteran-
tcian, dino catecismuac berac. Bada, leen esan dan leguez, peccatu guztien sus-
traija ta ama da gurari deunguia. Esan guinai, beste aguindu santubac gorde-
taco guiltzat emon euscuzala Jaungoicuac azqueneco aguindu bijac. Guiltza 100

(173) De 9, et 10. praecept. n. 1.

gordetan dan artian, guiltzpeco gauzac gordeta dagoz. Bada, beredatci ta amar-
garren aguindubac gordetan ditugun artian, beste zortzirac gordeta daucaguz.
Gueure vijotcian pecatuco gurarijari, pecatuco naijari edo goguari lecuric emo-
105 ten ez deutsagun artian, ez daucagu ariman pecaturic. Ta gordetan dogu legue
guztia.

Irugarrenian : Emon euscuzan Jaungoicuac azqueneco aguindu bijac bes-
ten gainera, aituten emoteco cristinaubari, dino Erromaco Catecismuac (174),
ez dala asco Jaungoicuaren legue santuba gordetaco, leguiac edo aguindubac
110 dinuana azaleti edo aguirijan eguitia, ez bada leguiac dinuana eguin biar dala
vijotceti, gogoz, vorondate ta nai onagaz. Au escatuten deuscu Jaungoicuac
bere legue santuban. Au gaiti Jaungoicuaren aguindubac ta munduco leguegui-
nenac ez dira bat. Munduco legueguinac, euren aguinduba eguin ezquero nai
gogo onagaz ta nai charragaz, ez deutsee inori gueijago escatuten. Aguinduten
115 davee *armaric ez erabilteco; gavaz echeti ez urteteco*. Bada, arma bagaric ibili
ezquero ta gavian echian egon ezquero, nai vorondate onagaz ta nai charra-
[244]gaz eguiten davela, ez deutsa munduco aguintarijac conturic artuco. Baina
bai Jaungoicuac. Jaungoicuaren leguiac escatuten deuscu ez bacarric aguindu-
ba eguitia, ez bada baita gogoz, vijotceti ta nai onagaz eguitia bere. Au gaiti
120 Jaungoicuaren legue santuban, garbijan ta zucenian eguitia pecatu dana, nai
izatia bere pecatu da. Esatia pecatu dana, gura izatia bere pecatu da. Beredatci
ta amargarren aguinduban eragozten deuscu Jaungoicuac pecatuzco gura izate
edo nai izate guztia. Onan erabagui edo bacartuten dira aguindu bi oneec
beste zortciretati. Ta eurac bijac alcarren artian bere bacartuten dira. Bada,
125 batac eragozten ditu gurari batzuc ta bestiac beste batzuc.

III.

Pecatubac bacartuten dirian leguez alcarreganic, alan pecatubaren gurari-
jac bere bacartuten dira. Lapurretia ta inor illtia pecatu bacartubac dira.
Orditutia ta gaisqui esatia bere bai. Maldecinoia ta adulterijua bere bai. Ta alan
130 beste asco. Bada, pecatuco gurarijac bere ez dira ez bat ta ez bardinac, ezba-
da bacartubac ta bata bestiac ez dirianac. Alan, gorroto bategaz edo gaistoz
lagunari gura baceunsa quendu daucan diruba, ondria ta vicitcia, eguingo zen-
duquez gurari charreco iru pecatu. Ta esan biarco cenduque compesinoian,
aciendia, ondria ta vicitcia galdutia opa izan ceunsala lagunari. Bada, vicitcia
135 galduteco guraari pecatuzcua ez da bat eguiten ondria galdutecuagaz. Ezda
oneec bere aciendia galdutecuagaz.

(174) Ibid. n. 5.

110 Ez bada *Ba* 119 Ez bada *Ba* 130-131 ez bada *Ba* 135 Ez da *Ba*

[245] Au berau gaiti, beredatci ta amargarren aguindubac bijac eragotci arren gurarizco pecatubac, ez dira bijac bat. Bada, eragozten ditubee aparteco gurarijac. Beredatcigarrenac eragozten dau, inoren emazteric ez desietia edo nai izatia. *Non concupisces uxorem proximi tui*²⁸¹. Eragozten ditu aguindu santu onec castidadiaren contraco gurari bide bagaco char ta loi guztiac. Ta amargarrenac eragozten dau, inoren echeric, crijauric, crijadaric, ganaduric, soloric eta basoric ez desietia edo nai izatia. *Non concupisces domum, servum... bovem, proximi tui*²⁸². Aguindu onec eragozten dau, inoren diruba, aciendia edo balijoco gaucia, dana dala, jaubiaren errazuazco najjaren contra noberarentzat gura izatia. 140

Icentetan ditu Jaungoicuac aguindu bi oneetan castidadiaren ta zucentasunaren contraco gurarijac. Ez beste virtute ta on izateen contraco gurarijac legue onetan eragozten edo barrututen ez dirialaco, ez bada castidadiaren ta zucentasunaren contraco gurarijac icentau ta eragotci ezquero, beste gurari char guztiac bere icentautzat ta eragotcizat aituten dirialaco. Ta baita, gurari char guztien artian camporic andijena ta pecatu gueiric zabalena eurac dauqueelaco bere. Luxurija ta codicija dira, duda bagaric, pecaturic gueijen eraguiten davenac. Ta oneen gurarijac icentetan ditu Jaungoicuac aguindu bi one[e]tan. Pensamentu loijac bere guraz daucazana, ez dago urrin verba loijetati. Gusto loijai bere artian goguan lecu emo-[246]ten deutseena, ez da urrin eguite loijetati. Lagunaren senarra edo emaztia desietan davena, ez dago urrin adulterijoti. ¿Cer, bada? Ez deutzazu pensamentu loiri lecuric emongo ceure vijotcian, dino Jaungoicuac. *Non concupisces* Ez zara araguijaren gauza loijac gogoratu ta, areetan gusto artuten egongo. Ez dozu castidadiaren contraco gurari edo desio deungaric zeure vijotcian euquico. *Non concupisces* 150

Inoren bejjaren, idijaren edo astuaren desiuari vijotcian lecu emon deutzana, ez dago urrin, era seguruba ta ixila euqui ezquero, ardiya edo bildotsa, idija edo astua ostuteti. ¿Cer, bada? Ez dozu desiauco lagunaren idiric, ez astoric, dino Jaungoicuac. *Non concupisces bovem, non asinam proximi tui* Inoren echia, solua edo basua ostutiari vijotcian lecu emon deutzanac, asmo asco topetan ditu inorena beretuteco. Batzubetan, Acac ta Jezabelec leguez, jaubia illda²⁸³. Beste batzubetan, auzi char bat, solua, echia edo irabacija quenduteco iminita, aucija irabazteco testigu paltsuac ta vitartecuac topauta noberaganatuten da inoren aciendia. Beste batzubetan, gurarija eguin jacon gauciaren mercatari norbera eguinda. Engainuz gauza a saldutera jaubia ecarrita noberaga- 160 165 170

140 Bederatci garrenac *Ba* 150 Ez bada *Ba* 163 astuaren] artuaren *Ba*

²⁸¹ Ik. Dt 5,21.

²⁸² Ik. Dt 5,21.

²⁸³ Ik. 1Erg 21,16. ik. 167.oharra (981.or.).

- natuten da inoren aciendia, edo erramientia, edo laboria, edo jantcija, edo
 beste gauza balijocoren bat. Baquizu ceure auzuac zorra daucana. Ta etorten
 175 jatzu aren gauza baten gurarija. Ezin ceuretu dozu gauza a bide oneti.
 Artutecua daucana gana juanda esaten deutzazu, *laster co-[247]brau edo bere -
 tuten ez badau agan daucan artutecua, menturaz guztia galduco davela* .
 Escatuten deutsa zordunari. Ez dauca cegaz pagau. Eguiten zachacoz (au guz-
 tia jaquinic) gauza aren mercatari zorra paguetaco, diruba escuban esquinia.
 180 Ta ecarten dozu echian biar euquian ta equi euquian gaucia ceuri emotera.
 Ta menturaz balijua baino merquiago. Ara, zuc inoren gauciaren gurarijari
 vijotcian lecu emonac ceimbat oquer ecarri dituban. ¿Cer, bada? Ez naitu²⁸⁴, ez
 desiau, ez vijotcian lecuric emon inoren gauciaren gurarijari. *Non concupisces
 rem proximi tui.*
 185 Onan ichi zituban, neure entzula onac, Jaungoicuac pecatuben atiac bere
 legue santuban gurari deungac eragotcijagaz. Bederatcigarrenian castidadiaren
 contracuac ta amargarrenian zucentasunaren contracuac. Berau gaiti, Erromaco
 Catecismuac esaten daven leguez (175), emon biar deutzaguz Jaungoicuari
 esquer andijac, azqueneco aguindubetan gueure gurari sarritacuen zucenbidia
 190 ain arguiro ta ain arimaco onera andijagaz eracutsi ta aguindu eusculaco. Bada,
 beste aguindubetaco eguinbiar nausija ta ituba da, inori calteric ez eguitia.
 Baina aguindu bi oneetaco ituba²⁸⁵ ta Legueguin santubaren gogua da, gurari
 gaistuaquin gueure burubai edo arimai calteric ez eguitia. Guraari charrac
 bacarric, ez deutsa noberari baino besteri calteric eguiten. Zure araguizco peca-
 195 tu guriac, gueijagoco bagaric, ez deutsa inori [248] castidadia galdu eraguiten.
 Zure lapurreta guriac, gueijagoco bagaric, ez deutsa inori ecer quenduten.
 Baina illten davee zure arimia. Ez dago pecatu chacharragoric, ez zoruagoric
 gurari utsezco pecatuba baino. Gueure burubai bacarric calte eguin ez daijo-
 gun gurari pecatuzcuaquin emon deut[s]cuz, bada, Jaungoicuac azqueneco
 200 aguindu bijac.
 Ondo ezautu ta maitetu daguijela, bada, ceruban ainguerubac gueure
 Jaungoico ona. Jaso daguijela ta entzun daguijuela bere esana cerubac ta luu-
 rrac. Emen guztioac bere legue santuba zucen, ziatz ta gogoz gordeta, equi
 daigun bardin bagaco dichia ceru ederrian beti vizi izateco Aitiagaz, Semiagaz
 205 ta Espiritu santubagaz. Amen.

 (175) N. 4.

189 zucen bidia *Ba* 191 eguin biar *Ba* 201 ezautu] esautu *Ba*

²⁸⁴ "Naitu": nahi izan, guraria izan; (nahiko normal darabil...).

²⁸⁵ "Itu": xedea, helburua esan nahi du hemen.

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer aituten dan gurarijaren icenagaz.*
2. *Ceimbat modutaracuac dirian gurarijac.* 210
3. *Nos dirian onac eta nos charrac*

Erromaco Catecismuac beredatci ta amargarren aguindubetaco eracutsijan chito contu andija dauca, neure cristinaubac, gueuri aituten emoteco cer dan, ceimbat modutacua dan ta ceticaricia oi dan guizonaren gurarija. Au gaiti pulti-tuetati ta ostian bere entzun oi dozu [249] sarritan, gurari charrac, apetito gais- 215 tuac, inclinacinoe deungac, antoju impamiac ta beste onaco gueure gogoco gach betico bat edo sustraizco bat esan gura daven verbetia. Ez ain arguija ta erreza bere, dotrina pusca bat ozta baino gueijago ez daquijan cristinaubac aituteco. Au gaiti pensau dot eracutsi onetan ceubei aituten emotia: 1. *Cer esan gura daven gurarijac* . 2. *Ceimbat modutacuac dirian*. 3. *Celacuac dirian* . 220

I.

Gurarija ez da beste gauzaric, neure entzula onac, orain esaten danez, ezbada *guizonaren edo emacumiaren goguan sortuten dan edo jaijoten dan ez daucazan ta ondo derichuen gauceen esquia edo naija* . Gurarijac izan biar 225 dau, ez daucazan gauceena ta ondo derichuen gauceena. Alaco gauceen naija edo esquia sortu daquijonian guizonari edo emacumiari bere goguan, berecauten dua guizona edo emacumia gauza aren ondoric, jadiichi aldaguijana bada goguac escatu deutsan gaucia ta errazoiagaz atcera eraguiten ez badeu- 230 tsa gurarijari. Gurarija berez ez da amodijua, dino santo Tomasec (176), *ezba - da amodijuac ateraten daven, ez daucagun ta ondo derichagun gauziaren esquia edo naija*. Gurarija ez da gauza onac gueure gogora dacarren poza bere. Bada, pozac urteten dau gogoti, nai daven gaucia ya beragaz daucanian, dino santubac berac. Baina gurarijaren izatia da, ez daucanaren naija edo ez daucanaren gogoco esquia. Alan, gui-[250]zonaren edo emacumiaren gogua, 235 ez daucan ta ondo derichon gauziaren esque eta najjan, tiraca leguez, viztuta leguez edo abijetara leguez iminten davelaco gurarijac, esaten deutsa Aquilles

(176) 1. 2, q. 30, a.2.

212 Erromaco] I. Erromaco *Ba* 214 oidan *Ba* 215 oidozu *Ba* 223 ez bada *Ba* 229-230 Ez bada *Ba* 232 ya] ija *Ba*

abatac²⁸⁶ gurarijari diabrubaren aztia. *Manubrium dæmonis*. Bada, gurarijac bagaric etsaijac ecer bere ezin legui munduban. Gurarijetati oratuten deutsa
240 diabrubac guizonari edo emacumiari. Berac iracoi edo sortuten ditu gueure goguan gurari deungaac, batian bata ta bestian bestia. Ta andi oratuten deutsa guero arima tristiari, zaldijari cabuti oratuten jacon leguez.

Gurarija amai bagacua da, dino santo Tomasec (177). Bada, gueure adilliaren edo entendimentubaren asmuac eldu leguitequezan²⁸⁷ lecuraguino eldu
245 leguitequez gueure gurarijac. Guizonaren asmuac ta pensetac ez dauquee amairic, ez neurric. Beti jua leitequez gueitubaz ta zabaldubaz. Bada, alan dira guizonaren gurarijac bere, dino Santubac berac. Au goguan euqui biar davee cristinaubac beti, euren gurari gaistuai neurrija iminteco. ¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? Ill dedinian ¿Nos esango ete dau aguinduguriac, *orainche ondo nago?* Inos bere ez. Alexandro Andijac negar eguiten eijeban mundu bat baino ez egualaco. Guizonac illaz ta luurra odoldubaz, erreinu asco irabatzi zituban. Munduco guztiac irabazteco ustia evan. Ta guichi erichon mundu guztiari bere aguindu lecutzat. ¿Nos aspertuco ete da araguizcua [251] gorputzaren gustoz? Zaaartuta bere ez. Agura zaarrac ta juezac, lotsa pusca bat euqui biar
255 eveenac, cirian santa Susana garbija galdu gura euqueen guizon bijac. Baina zaartuta bere gurari loijac ixiota eucazan euren goguac. *Nos in concupiscentia tui sumus* (178). Zugaz pecatu eguiteco amodijo loijac erreetan gaucaz, esan eutseen juez zaar biac santa Susana garbijari²⁸⁸. Ta eguiten ez badozu gueugaz pecatu, gueuc esango dogu beste bategaz pecatu eguiten topau zaitugula ta
260 arrica illgo zaitubee gente guztiaren aurrian.

¡Oh gurari itsubac, neurri edo amai bagacuac ta caltegarrijac! Bildurtu, cristinaubac, bildurtu erne charreco gurarijaquin. Bein jorratuten badituzu edo erregarijetan badituzu ezauberiagaz ceuben goguan, laster acico dira. Laster artuco davee campo andija. Laster itsutuco zaitubee. Ta laster izango dira amai
265 bagacuac. Edo ceubec betico amaituco zaitubee. Baina, aurrerago irago bagaric, icasi biar dozu, neure entzula onac, ceimbat modutacuac dirian gurarijac. Bada, ez dira guztiac deungac.

(177) Ubi sup. a. 4. (178) Dan. c. 13.

248-249 eteda *Ba* 250 ondonago *Ba* 253 eteda *Ba* 261 calte garrijac *Ba*

²⁸⁶ Ezin dugu jakin nor den Akiles abade hau; beharbada, izenaren transkripzio okerra izan liteke.

²⁸⁷ Ez da normala aditz laguntzaile irangaitza bokal arteko *-g-* eta guzti idaztea; hala egiten du *legui*, baina hau iragankorra izan ohi da (batzuetan "egin"en forma trinkoa...) edo inpertsonala; kasu honetan, aditz laguntzaile irangaitza da eta bi aldiz jarraian dator bokal arteko *-g-* eta guzti; bi lerro beheerago, ostera, *juan leitequez* idazten du. Forma hau da normala.

²⁸⁸ Ik. Dn 13,20.

II.

Izan leitequez bada, cristinaubac, gueure gurarijac modu ascotaracuac. 270

Lelenga Izan leitequez gurarijac gueure izatiac berez escatuten ditubanac. Berez gura dau gose danac janarija, egarri danac edatecua, biloxic daguanac jantcija, otz danac berotutia, lotuta daguanac ascaturia, gaixuac osaturia, itsubac icustia. Ta beste onetarico gurari asco dira, gueure izatia-[252]ri berez noracian darraicozanac. Onaco naturalezazco gurarijetan, dino santo Tomasec 275 (179), ganadubac eta gueu bardinac gariala. Gueuri gueurez etorten jacuzan leguez gurari oneec premina orduban, alan etorten jacuez ganadubai euren premina ordubetan. Eguiija da, ganadubac errazoeric ez dauqueen leguez, areen gurarijac beti dira naturaleza utsezcuac. Baina gure gurarijac, santo Tomasec berac esaten daven leguez, errazoian ta naturalezan bijetan dauquee 280 sortueria. Orregaiti, gueure naturaleciari berez jagocazan gurarijac bere, errazoiac neurtu ta zucendu biar ditu.

Bigarrenian : Izan leitequez gurarijac, gueure izatiac berez escatuten ez ditubanac; baina gueure ustiac ontzat daucazanac. Ta gueure goguan on ustecotzat sartuta dagozan gauceenac. Alan gura ditugun gauzac ez dira guztiz biarreacuac. Ta ezda guichiago bere, gueure izatia gordetaco edo gueu vici izateco. Bada, asco vici dira ain bagaric. Baina dira gueure burutacinoiac, baleucac, ontzat artuten ditubanac. Ta burutacinoiaren ondo eristetegi jaguiten da goguan euren gurarija edo baleucazco naija. Emen asten da, san Paulo apostolubac dinuan araguijaren ta espiriubaren guerria. *Caro enim concupiscit adversus spiritum: spiritus autem adversus carnem: haec autem sibi invicem adversantur* (180). Araguijac daucaz bere gurarijac espiriubaren edo arimiaren contra. Ta espiriubac edo arimiac daucaz bere gurarijac ara-[253]guijaren contra. Gueure gorputza ta arimia beti dagoz guerrian euren gurarijetan. *Haec sibi invicem adversantur*. Bada, arimiac edo espiriubac berez beti gura ditu, 295 Tertulianoc esaten daven leguez, gauza onac, zucenac, garbijac, errazuazcuac ta santubac. *Anima christiana est*. Baina gorputzac berez, beti gura ditu luurrezco gauzac, ustelcorrac ta errazoeti camporacuac. Au gaiti dino Apostolu santubac berac (181), *jaquinac diriala araguijaren gurarijac ta eguitiac*. ¿Ta ceintzuc? Pornicacinoia, loiquerija, verdequerija, luxurija... *fornicatio, immunditia, impudicitia, luxuria* ... ¿Ta ceintzuc dira espiriubaren prutubac? Caridadia, gracijazco poza, baquia, paciencia.... *Caritas, pax, gaudium, patientia*. 300

(179) Ib. a. 3. (180) Ad Galat. c. 5. (181) Galat. 5.

270 leitequez] leitequee *Ba* 281 sortu eria *Ba* 286 ez da *Ba*

305 Emeti ezaututen da, neure entzula onac, cer dirian edo cer izan leiteque-
 zan, alaco gueure izateraco ez dirian ta gueure burutacinoiac aintzat artuten
 dituban gurarijac. Onetaricuac dira dirubaren gurarija, edertasunaren gurarija,
 jantci apaindubaren gurarija, entzute altubaren gurarija, janari ugarijaren ta
 gozuaren gurarija, edateco gozuen ta usain gozuen gurarija, soinu ederren
 310 gurarija, gorputceraco gauza leunen ta labanen gurarija, atseeta²⁸⁹ onaren ta
 sarritacuaren gurarija, lagun maiten gurarija, olgueeta oneen gurarija ta beste
 milla onaco, gueure goguan burutacinoiagaz sartuten dirianac ta gueur ain
 bagaric vici gueintequezanac. Bada, munduban asco vizi izan dira, vici dira ta
 [254] vicico dira ain bagaric. Ta gu bere vici gueintequez areec bagaric, nai
 315 baguendu. Gose danac jan nai izatia, berezcua ta gueure izatiac escatuten
 davena da. Baina janarija edo edaarija gozua baino gozuagua gura izatia, buru-
 tacinioiaren asmua da. Janari gozua pozagoric jaatia, gueurezcua²⁹⁰ da. Baina
 osasunezco janari tercijocua euquita, aren gainera edo ari ichita, gueijago ta
 gozuagua nai izatia ez da naturaleza utsaren gurarija, ez bada burutacinoiarena.
 320 Biloxic daguanac cer jantci euqui gura izatia, berezco gurarija da. Baina jan-
 tcija ederra baino ederragua, apainduba baino apaindubagua ta modaric barri-
 jena baino barrijagocua gura izatia, ez da gueure izatiaren escarija, ez bada
 burutacinoiarena. Ta onan beste guztietan.

Beredatci ta amargarren aguindubetaco eracutsija aituteco, erabagui edo
 325 apartau biar ditugu bada, neure entzula onac, alcarreganic, gueu vici izateco
 biar ditugun gaucen gurarijac ta, ain bagaric irago gueintequezala, aintzacotzat
 burutacinoian sartuten jacuzan gaucen gurarijac. Lelenguac eurenez erru baga-
 cuac edo pecatu bagacuac dira. Baina bigarrenac, vorondatiac errazoiagaz ta
 Jaungoicuaeren legue santubagaz neurtu ta legueperatuten ez baditu, pecatu
 330 dira. Esango neuque, cristinaubac, onetarico burutacinoezco gurarijaquin dau-
 cala diabrubac itsututa munduric gueijena. Lelengo beguiratuban ez dirudijen
 leguez legue aguirijaren contra, uste davee cristinaubac atarico buru-[255]taci-
 noezco gurarijac ez dauqueela neurriric; ta libre dala nai davenac nai davena,
 edo al daguijanac al daguijana gura izatia. Ara emen celan cristinau ascoc, baita
 335 euren burubac ontzat dauqueezanac bere, baita sarri compesetan dirianac
 bere, baita pecatu mortaletati urrin dagozala uste daveenac bere; ara emen,
 dinot, cegaiti aseetan ez dirian cristinau ascoren gurarijac. Cegaiti dauqueen

319 ez bada *Ba* 321 apaindu bagua *Ba* 322 ezda *Ba* | ez bada *Ba* 327 gura-
 rijac] gurarijan *Ba* 334 aldaguijanac aldaguijana *Ba* 337 Ce gaiti *Ba* | Ce gaiti *Ba*

²⁸⁹ "Atseeta": atsedena; ("atsedeta" formaz dator OEHn. Bartolomek aditz-izena "atseete" egi-
 ten du "atseetia", "atseden" aditzetik datorrena, *d* bokal artekoa galdurik).

²⁹⁰ Forma ihartua *berezkoa* da, baina gure idazleak singularreko hirugarren pertsonari barik
 pluraleko lehen pertsonari dagokionean, *gueurezco* egiten du.

amatau bagaric euren goguan, sarri compesau ta comulgau arren, ondasun gueiljagoren gurarija, apaindurija gueiljagoren gurarija, jan edan gueiljagoren gurarija, entzute andijaguaren gurarija, olgueeta gueiljagoren gurarija... inos 340
asetu bagaric ta compesaquizuntzat bere artu bagaric. Beguiratu bada, cristinaubac, ceticaricac dirian ceuben gurarijac. Examinau ta aztertu ceuben goguac. Itsu itsuban engainauta galdu ez zaitezcan betico.

Irugarrenian . Izan leitequez gueure gurarijac zucen zucen leguiaren contra. Oneec dira ostuteco gurarija, inor illteco edo banatuteco gurarija, ordituteco gurarija, castidadiaren contraco gurarijac ta beste guztiac legue santubaren contra dirianian. Leguia austeco gurarija bada gauza andijan, izango da pecatu andija. Bada gauza guichijan, izango da pecatu chiquija. Lau errial ostuteco gurarija pecatu anditzat emoten da. Errial bat ostuteco gurarija berez pecatu chiquitzat emoten da. Alan beste guztietan. 345 350

Laugarrenian: Izan leitequez gueure gurarijac gauza oneracuac. Jaungoicua obeto serbiduteco, [256] legue santuba ciatz baino ciatzago gordetaco ta gueure arimac salvetaco gurarija ona ta santuba da. Norberarentzat vizi izateco ta Jaungoicua obeto serbiduteco berez ondo dirian gaucen gurarija ona da. Erliginoian sartuteco gurarija, castidadiaren amodijua gaiti ezcondu bagaric vici izateco gurarija, estadu santubagua dalaco sacerdote eguiteco gurarija ta beste onetarico guztiac onac dira. Ta guztia erabaguiteco, esaten da verba guichitan. 355

III.

Leguia austia dan leguez gauza charra, leguia austeco gurarija bere charra 360
da. Leguia gordetia dan leguez gauza ona, leguia gordetaco gurarija bere ona da. Leguia austeco ocasinioian edo bidian sartutia dan leguez gauza deunguia, leguia austeco ocasinioian edo bidiaren gurarija bere deunguia da. Vicicia zaintuteco ta gordetaco medijuac artutia gauza ona dan leguez, vici izateco biar ditugun gaucen gurarija bere ona da. Au gaiti esaten dau Erromaco 365
Catecismuac (182), ez diriala gueure gogoco gurari guztiac deungatzat equi biar. *Ez da, bada, gauza charra, dino, janarija edo edarija gura izatia; otz danian berotu nai izatia; edo bero danian prescotu nai izatia* . Bada, onaco gurarijen indarra Jaungoicucac berac emon euscun gueure izatiagaz. Baina, lelengo gueure gurasuen pecatubagaz jazo zan, gueurezco gurari oneec sarri 370
escatutia errazoiac eta espiriutubac ontzat emoten ez ditubeen gauzac. *Quae spiritui, ac rationi repugnant* .

[257] Erromaco Catecismuaren errazoe onetati ezaututen da, cristinaubac, leen esan dan guztia. Gaixuac osasuna, gosiac jana, otzac berua, bilotxac jan-

(182) IX. et X. praecep. n. 6.

tcija, lotubac ascatutia, tristiciac poza ta pobriac vicigarrija gura izatia gueurezcu
 da, naturalezazcu da, Jaungoicuac emona da, erru baguecu da ta berez pecatu
 ez da. Baina, gueroco icasiquizunian esango dan leguez, Adanen pecatubac
 380 azcortu ta lotsa gaistocotu cituban gueurezco gurari errubaga ta garbi oneec. Au
 gaiti sarritan ta sarritan gueurezco gurarijac escatuten deuscubez, errazoiac ta
 leguiac eragotcita daucazan gauzac. Ta bein naija emoten bajaco gurari charrari,
 ceimbat gueijago, aimbat naijago. Inos ez da aspertuten. Illunduten dau errazoi,
 macalduten dau vorondatia, eguiten da ehecho nausi ta darua guizona edo emacumia
 gurari charrac berac nai daven edo escatuten daven lecura.

385 Ez da ecegaz bere obeto aituten emoten gurari deungac gueure goguan cer
 eguiten daveen, Jose Langioc ataraco dacarren mutil gazte baten jazuagaz
 baino. Prenubari bere obeidu gura ez eutsan zaldi ezi bague batec eroian gairian
 mutilla abijada baten, nun gueratuco zan ez equijala. Itandu eutsan bidezco
 batec, ia nora joian alan. Ta erantzun eutsan zaldi gaineti: *Zaldijonec nai*
 390 *daven lecura*. Beste aimbete dira gurarijac, neure cristinaubac. Zaldi ezi baga
 co sutsubac dira. Bein artuten badavee vendian²⁹¹ guizona edo emacumia,
 eruango ditubee, ez arrazoiac dan lecura, ez vorondatiac [258] jua viar daven
 lecura, ez bada gurari charrac eurac gura daveen lecura. Ez deutsee gurari gaisu
 tuac orduban obeiduten, ez errazoiaren prenubari, ez vorondatiaren aguindu
 395 bari, ez bada daroia guizona edo emacumia eurac gura daveen lecura. ¡Oh,
 ceimbat lotsarizco gauzatar! ¡Oh, ceimbat pecatu ezainetara!

Gogoratu bada, cristinaubac, cer dirian gurarijac; ceimbat modutacuac oi
 dirian; ta onac eta deungaac celan oi dirian. Au icasi ezquero, erraztuago aitu
 co dozu cetati datoza gurari gaisuac, cegaiti dagozan eragotzita, ta celan
 400 goitu biar dirian, cein dan urrengo icasiquizunaren prestaeria. Erregutu daijo
 gun Jaungoicuari, ez daguigula inos bere paltau bere gracija santuba, erra
 zoiaren arguijagaz ta leguiaren neurrijagaz, gueure gurari guztiac zucenduteco,
 bere bildur santuban vizi izateco ta ceruban beti gocetaco. Aitiaren, Semiaren
 ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

382 ezda *Ba* 385 Ezda *Ba* 386 ataraco] ateraco *Ba* 389 ia] Ya *Ba* 393 ez bada *Ba*
 395 Ez bada *Ba* 397-398 oidirian *Ba* 398 oidirian *Ba* 399 Ce gaiti *Ba* 400 pretae eria
Ba

²⁹¹ "Vendian": mendean.

[259]

III. ICASIQUIZUNA,

405

ceinetan eracusten dan:

1. *Cetati datozan gueure gogora gurari charrac.*
2. *Cegaiti dirian deungac edo eragotzizac.*

Campo andija ta illuna dauqueenac dira, neure entzula onac, gurari charrac edo pecatuzcuac. Eurac gaiti oi dira gueure conciencijaco duda asco. 410 Vilotcian mina ta arduria sarri emoten deuscubeenac. Berevicico esanac eta eguinac cerbait gogoratu ta ezaututen ditu cristinaubac, astiro bere arimari beguiratuten asten danian. ¿Baina gurari utsezco pecatubac noc ezautu cer diran ta ceimbat dirian? ¿*Delicta quis intelligit?* Onaco gurarizco, ondo ezaututen ez cituban pecatubaren parcacinoia, esan legui, escatuten eutsala David erre- 415 gue santubac Jaungoicuari, esaten eutsanian: Ez eguizuz gogoratu, Jauna, neure ez jaquinac. *Ignorantias meas ne memineras*²⁹². Garbitu naguizu, Jauna, neure ezcutuco pecatubetati. *Ab occultis meis munda me, Domine*²⁹³. Bada, David erregue santubac ta Jaungoicuaren vijotzaren neurrira eguiniacuac, ondo ezautu ezin bacituban bere gogoco ta conciencijaco gurarijac, ¿celan guc sinistu 420 guinai, errazto ezaututen ditugula? David santubarentzat bacirian beriac ez jaquinac ta ezcutucuac, ¿nos izango dira guretzat gueure gurarijac ezagunac ta jaquinac? Du-[260]da bagaric, chito bildur izan biar dogu, cristinaubac, gurari gaistuac ta oquerrac betico galdu ez gaijezan. Berau gaiti, gauza onetan cristinaubari emon al daquijon eracutsi guztia, uste dot, ez dala inos bere larregui. 425 Alan, bildur santu bategaz esaminatu daizuzan ceuben goguac ta beguiratu daguijezun gurari deungai, esango deusut eracutsi onetan: 1. *Nundi dacarren gurari deunguiac sustraija* . 2. *Celan dirian deungaac* . 3. *Celan goitu biar diran* . Entzun eguizu aimbat gogoric oneenagaz.

I.

430

Onetaraco gogoratu biar dozu, cristinaubac, leen esan dana. Gurari gais-
tuetati datozala pecatubac guztia. ¿*Nundi guerrac?* ¿*Nundi baque charrac?*
¿*Nundi auzizac,* dino Santiago apostolubac, *ezbada ceuben gorputz zatijetan*

410 oidira *Ba* 423 bagaric] bagarie *Ba* 425 aldaguijon *Ba* 427 daguijezun] daguije-
zan *Ba* 433 ez bada *Ba*

²⁹² Sal 24,7 [25,7].

²⁹³ Sal 18,13 [19,13].

435 *dagozan gurarijetati?* (183) *Vijotceco gurarijetati urteten davee*, dino Jesucristo
 gueure Jaunac (184), *pensamentu charrac, guizon illtiac, adulterijuac, porni -*
cacinoiac, lapurretac, paltsu testimonijuac ta blaspemijaac. Gurarija da peca -
 440 *tu guztien sustraija*, dino san Pauloc (185). Ta gurarijaren edo araguijaren egui-
 tadiac contetan ditu Apostolubac berac modu onetan: *pornicacinoiac, deso -*
nestidadiac, Jaungoico paltsuac serbidutiac, gachguintzac, asarriac, gorr o -
 445 *tuac, odijuac, ordiquerijac, jaate andijac ta onetaricuac* (186). Au gaiti esaten
 dau Santiago apostolubac bere (187), *Jaungoicuac ez davela inor tentetan;*
bacocha bere gurarijac tentetan da -[261]vela. Gurarijari gacha sortu daquijo -
nian, pecatuba jaijoten dala; ta pecatu jaijuac betico erijotzia erneetan dave -
 450 *la*. Onan verba eguiten dau, neure entzula onac, Espiritu Santubac gueure
 gurari gaisto, beredatzi ta amargarren aguinduban eragotzita dagozanac gaiti.
 ¿Ta nun dauquee gurari gaisto oneec euren asipena edo sustraija? ¿Ete dago
 inor libre gurari galduben sail deungueetati? Ez, neure cristinaubac. Euren azija
 vijotz guztietan ereinda dago. Euren sustraijac gogo guztietan erneta dagoz.

Adanen pecatuban dauquee asipena ta sustraija gueure gurari pecatuzcuac.
 450 Adanen pecatuba zabaldu zan leguez guizon eta emacume guztietara, alan
 zabaldu zirian gurari gaistuac guizon eta emacume guztien vijotcetara. Leenago
 araguija ta araguijaren gurari guztiac egozan vorondatiaren esanian ziur ta zin-
 tzoro. Beguijac obeiduten eutsan vorondatiari. Velarrijac obeiduten eutsan
 vorondatiari. Miinac, escubac eta oinac obeiduten eutseen vorondatiari. Esaten
 455 da, Adanec pecatu eguin baino leenago, gueure gogua, gueure burutacinoiac,
 gueure asmuac, gueure ustiac ta gueure gurarijac, bai asarrezcuac ta bai naiz-
 cuac, guztiac egozala ziur, zintzoro ta prest gueure vorondatiaren edo naillia-
 ren esanian ta aguinduban. Ez eguan orduban, san Pauloc dinuan guerraric
 araguijagaz²⁹⁴ espiritubaren artian²⁹⁵. Vorondatiari obeiduten eutseen zucen gor-
 460 putzac ta arimiac ta gorputzeco ta arimaco alzailla ta sentizailla guztiac. Ta
 vorondatiac zucen ta [262] ziur obeiduten eutsan Jaungoicuari berari. An eguan
 baque santu baten guizona bere gogoco gauza guztietan.

¿Baina cer jazo zan? ¡Ah negargarrija! Adanen vorondatiac urten evan
 Jaungoicuaaren esaneti pecatu eguin evanian²⁹⁶. Baita Adanen araguijaren gura-
 465 laac ta asarrelaac²⁹⁷ bere urten even bere vorondatiaren aguinduti. Adanen

 (183) C. 4. (184) Matth. c. 15. (185) 1. Tim. c. 6. (186) Galat. c. 5. (187) C. 1.

439 gach guintzac *Ba* 446 Etedago *Ba* 461 An] aau *Ba*

²⁹⁴ Ik. Erm 7,14-25.

²⁹⁵ Egitura hau bere-berea du: *araguijagaz espiritubaren artian*; gaur egun "haragiaren eta espirituaren artean" / "haragia eta espirituaren artean"... egingo genuke.

²⁹⁶ Ik. Has 3,1-7.

²⁹⁷ Arimaren ahalmenak eta barne-eraginak adierazteko hitz bereziak erabili ohi ditu, ziur aski berberak asmatuak...: *guralaac* (gurariak, "apetitos"), *asarrelac* (grinak, "pasiones").

vorondatiac ez eutsan obeidu Jaungoicuaren vorondatiari. Ezda Adanen gura-
 rijac bere Adanen vorondatiari. Adanen vorondatia jagui zan pecatubagaz
 Jaungoicuaren vorondatiaren contra. Ta Adanen asarrelaco ta guralaco zati edo
 parte bijac, nundi urteten daveen pecatuzco asarre ta gurari guztiac, jagui cirian 470
 Adanen vorondatiaren contra. Adanec ez euan eguin Jaungoicuaren aguindu-
 ba edo naija. Bada, Adanen gorputz zatico asarreguinac ta gurariguinac bere
 ez dau eguingo Adanen espiritubaren ta vorondatiaren aguinduba edo naija,
 vorondatiac edo espiritubac peliauta, goituten ez badau araguija. Ara emen,
 cristinaubac, nundi datorren espiritubagaz araguijaren arteco guerria ta alcar 475
 artu ecina. Ara emen gueure gurari char guztien sustraija ta asipena. Ara, gueuc
 gueure araguijagaz inos amaitu ezin dogun, ta vici garian artian, guztiz amai-
 tucoco bere ez dogun guerria. Ara, araguijaren asarreen ta gurarijen contra beti
 contuban ta beti peliadan egon biarra. Ara, Jesucristo gueure Jaunac eracutsi
 euscun, ta salbaucoco bagara, beti eguin biar dogun guerra santuba. Ara, gueure 480
 salva-[263]cino[.]aren arerijo nausija. Ara, gueure aragui ustelcorra, gurari
 pecatuzco ta lotsarizcoz beteta, espiritubari obeidu gura ezda, beti gacheraco
 edo pecaturaco gogua zabalico ta eragotzijen esquia diadarca daucala. *¡Oh, nire*
desdichauba! diadar eguiten euan san Paulo apostolubac bere buruba gaiti,
 araguijaren gachguintza bildurgarri oni beguiratuta. *¡Oh, nire desdichauba!* 485
¿Noc librauco nau erijotza onen gorputceti? (188)

Sustrai onetati bertati sortuten dira, araco zazpi pecatu *capitalac* esaten
 deutseezun gurari galdubac. Ta ez dira beste gauzaric, ez bada zazpi pecatu
 aldra andiren burubac edo amaac. *Andiguria* ta oni darraicon gurari aldra
 aixetsuba. *Ondasun guria* ta oni darraicon gurari aldra oquerra. *Araguizco* 490
gusto guria ta oni darraicon gurari aldra loija. *Inoren onaren naija* ta oni
 darraicon gurari aldra sicuba. *Neurribagaco asarrija* ta oni darraicon gurari
 aldra sutsuba. *Jan edan guria* ta oni darraicon gurari aldra coipetsuba ta ezti-
 tsuba. *Arimaco naguitasuna* ta oni darraicon cerurutz igon ezineco gurari aldra
 luurtsuba. Oneec dira zazpi pecatu burubac, Adanen pecatuba zala medijo, 495
 gueure goguan sartu zirianac. Oneec dira pecatuzco gurariguinac ta asarregui-
 nac: Sobervija, codicija, luxurija, embidija, asarre gaistua, gulerija ta naguitasu-
 na Jaungoicua serbiduteco. Esaten jacue onei pecatuben *burubac*. Pamelija
 andija edo gente andija bere aguindu- [264]pian daucanari esaten jacen leguez
 pamelijaren buruba, alan zazpi pecatu oneec, bacoachac bere aldran pecatute- 500
 gui andija ta guraritegui andija dauqueelaco imini jacuen *pecatu buruben*

 (188) Rom. c. 7.

467 Ez da Ba 472 gurari guinac Ba 475 datorren] darorren Ba 479 peliadan] pilia-
 dan Ba 482 ez da Ba 485 gach guintza Ba 488 Ez bada Ba 489 oni] onei Ba 496
 gurariguinac] gurariquinac Ba 500-501 pecatu tegui Ba 501 gurari tegui Ba

izena. Beguiratu bada, cristinaubac, ce guerraguintza andija jausi zan gueure gainera Adanen pecatubagaz.

505 ¿Nor dago libre guerraguintza onetati? ¿Nor da gurari deungaguinac ta pecatuguinac ez daucazana? ¿Nor da gurari deungac ta pecaturacuac araguijaren naijac escatuten ez deutzazana? ¿Nor da, dinot, gurari gaistuen ta araguijaren contra peliau biar ez davena? Inor bere ez, cristinaubac. Adanen semia edo alavia izatia da asco, araguijac ta gurari charrac pecatu dirian gauzac escatute-
510 co. Ez deutsa araguijac lotsaric ecarten ez zaarrari ta ez gaztiari, ez aberatsari ta ez pobriari, ez andijari ta ez chiquijari, ez guizonari ta ez emacumiari. Aman erregueen seme gaztiari ez eutsan parcatu²⁹⁸. Dina Jacoren alava nescatilla gaztiari bere ez²⁹⁹. David santubari bere ez³⁰⁰. Sanson indartsubari bere ez³⁰¹. Judas apostolubari bere ez³⁰². Jezabel erreguinari bere ez³⁰³. Giezi, Eliseo propeta santubaren esolaubari bere ez³⁰⁴. Bati bere ez. Dagan lecuban daguala guizona
515 nai emacumia, araguija ta gurari charren gacha beragaz darabil beti. Ta guichien uste davenian iracoiten deutsa espirituari guerra.

Alan, cereguin andija emoten eu[t]seen san Geronimori, Palestinaco mendijan cilicijoz, azotez, gosez ta otzez gau ta egun cansauta eu-[265]can araguijac iracoiten eutsazan, gaztetan Erromaco comedijetan icusi ta entzun zituban gauza deunguen gurarijac³⁰⁵. Alan, Egitoco mendi astunetan bere vizitzaric gueijena irago evan san Anton abatari, araguijaren gurari gaistuac cereguin andija emon eutseen aimbeste urtian³⁰⁶. Alan, santa Clara³⁰⁷ ta santa Maria

503 jausizan *Ba* 506 pecatu guinac *Ba* 511 Amon| Aman *Ba* 518 cer eguin *Ba* 522 cer eguin *Ba*

²⁹⁸ Ik. Est 7,10. Haman errege-semea zela diosku Frai Bartolomek; Pertiako erregearen gortean aginte goren zuena zen; Agag-eko Hammadaha-ren semea zen; beraz, amalekita errege-familiakoa.

²⁹⁹ Ik. Has 30,19-21; 34,1-5.25-26.

³⁰⁰ Ik. 2Sm 12,13-14; 24,15-17.

³⁰¹ Ik. Ep 16,16-30.

³⁰² Ik. Mt 27,3-10; Eg 1,18-19.

³⁰³ Ik. 1Erg 21,17-28.

³⁰⁴ Gehazi. Ik. 2Erg 5,19-27.

³⁰⁵ Ik. 142. oharra (957.or.).

³⁰⁶ S.Anton. (ik. Euscal-Errijetaco...67.oharra, 483.or.)... Frai Bartolomek hemen kontatzen dituen kasuak, beharbada, liburu honetik jasoko zituen: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 26.or.

³⁰⁷ Beharbada, Santa Klararen bizitzaz ondorengo liburu honetan irakurritakoa izango du gogoan: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 394-395. or.

Santa Klara Asiskoa (1194-1253), klaratarren fundatzailea S. Frantzisko Asiskoarekin batera. Pobretasunezko bizitza egiteko S. Frantziskok gogoa beroturik, etxetik ihes egin zuen 1212an, eta bizitza berria hasteko eran jantzirik joan zen; bere ahizpa Inesekin batera bizitza berriari hasiera eman zion S. Damian-en; euren ama Hortulana eta ahizpa Beatriz gehitu zitzaizkien. 1253an kla-

Madalena Paziscuari³⁰⁸, virgina ta santa andi bijai aimbeste urteco guerria iracoi eutseen araguijac, combentu estubetan egozan lecuban, pecatuzco gurarijac 525
 escatuta. Alan.... ¿Baina ceimbat onaco? ¿Noc negar eguin ez dau aragui deun-
 guiairen guerria? ¿Noc sentidu ez ditu gurari deunguen caltiac bere ariman? ¿San
 Paulo apostoluba bildur bajacon bere araguijaren aculu ganari³⁰⁹, nor bildur
 izango ez jaco beriarenari? Bildur izan bada, cristinaubac, bildur izan araguija- 530
 ren ta gurari gaistuen. Baina esango dozu, ia cegaiti dirian ain deungac ara-
 guijaren gurarijac. Endamas gogoti campora urteten ez davenac. Errazoe asco
 gaiti, dino santo Tomasec.

II.

Ara eracusla santubaren beraren verbac, cegaiti dagan eragotzita *gurari*
 chaarra. Gurarija eragotzita dago, dino Santubac (189). *Lelenga* Neurri baga- 535
 cua dalaco. Bada, gurarija bere moduban amai bagacua da. Ta zentzuna dau-
 can cristinaubac neurrijagaz vici biar dau bere gaucetan. Espiritu Santubac
 dino, bada, *codicijosuba ez dala diruz aseco*³¹⁰. Ta Isaias propeta santubac:
 ¿Oh, zori gaistocua! *Echiac* [266] *echiai ta basuac basuai gueituten deutsezu -*
*zanac*³¹¹; nun aguri dan gurarijac ez daucala neurric. Au gaiti guizonaren 540

 (189) Opusc. 7.

530 ia| ya *Ba* 534 ce gaiti *Ba*

ratarren erregela onetsia izan zen. Pobretasuneko bizitza indarra hartuz zihola ikusi zuen hainbeste komentutan. (Ik. L. HARDICK, *Klara v. Assisi*, LThK 6 (1986) 314). Ikonografian ezagunenetakoa, ziboria edo ekisaindua eskuetan duela, sarrazenoengandik komentua salbatzen agertzen denekoa. (E. WEIS - F. TSCHOCHNER, *Klara (Chiara) von Assisi*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 314-318).

³⁰⁸ Maria Magdalena Pazzi-koaren tentaldiez, oraindik Markinako Karmengo bibliotekan dagoen liburu ezagunean irakurriko zuen, ziur aski, Frai Bartolomek: DANIELIS A VIRGINE MARIA, *Speculum Carmelitanum ...* 2. t., Antverpiæ, 1680,452-455. or.

S.Maria Magdalena Pazzi-koa (1566-1607); 1582an sartu zen bere jaioterri Florentziako Aingeruen Santa Maria deritzon karmeldarren komentuan. 1585-1590. urteetan sufrimendu handiak jasan zituen, bai gorputzean eta bai ariman... horrela gogo-garbikuntza harrigarria iritsiz eta Jainkoarekin elkartze mistikoa lortuz. Ikuskariak eta Kristorekin hizketak izan zituen (Ik. G. MESTERS, *Maria Maddalena de' Pazzi, hl.*, LThK 7 (1986) 39).

³⁰⁹ Ik. 2Ko 12,7. Testu hori Frai Bartolomek adierazten duen eran ulertu izan da historian zehar urte luzeetan; hau da, haragiaren grina esan nahi duela uste izan da, baina gaur egun ez da onartzen interpretazio hori, eta gaixotasun kronikoren bat izango zela uste da, beharbada, malaria, bere apostolu-lana bete-betean egiten uzten ez ziona. (Ik. baita Ga 4,13-15 ere).

"Aculu gan": akuiluaren muturreko eztena edo burdinazko ziri zorrotza; (umetan ikasi genuen betiko hitza da).

³¹⁰ Ik. Koh 5,9.

³¹¹ Ik. Is 5,8.

gogua ta gurarijac Jaungoicuac berac baino bestec naicotu ezin legui. Alan esaten eutsan san Agustinec Jaungoicuari: *Zeuretzat eguin guinduzuzan, Jauna; ta nire vijotza gosez dago ceugaz naicotu artian*³¹².

545 *Bigarrenian* : Eragotcita dago gurarija, gueure gogoco baquia ta sosiguba galduten ditubalaco, ceintzuc dirian chito balijo andicuaac. Guraridunac beti dagoz sosigu bagaric, dauqueena gordeetaco ta ez dauqueena euquiteco. Alan dino Ecclesiasticoc: *Aberatsari euquijac ez deutsa isten lo eguiten*³¹³. Ta Jesucristoc dino: *Nun daguan zure poltsia, an dago zure vijotza*³¹⁴. Orregaiti

550 esaten deutsee san Lucasec ondasunai *eztacaac*³¹⁵.

Irugarrenian : Eragotcija dago gurarija, euquija alperricacotuten davelaco. Bada, equi utsac ez norberari ta ez inori mesede eguiten deutsa. Ez dau beste balijoric ateraten, gordeetia baino. Au gaiti dino Ecclesiasticoc, *diruzaliac ta zequenac alperric dauqueela gauzia*³¹⁶.

555 *Laugarrenian* : Eragotcita dago gurarija, zuentasuna oquertuten davelaco. Au gaiti dino Espiritu Santubac Exodoco liburuban: *Ez eguizu artu erregaluric. Bada, zentzundunac bere itsutu eguiten ditubee ta zucenaren verbac ber e oquertu*³¹⁷. Ta Ecclesiasticoc dino, *urriaren gurarija daucana ez dala zucena izango*³¹⁸.

560 *Bostgarrenian* : Eragotcita dago gurarija, Jaungoicuaren ta proximuaren caridadia illten dave-[267]laco. Au gaiti dino san Agustinec, *ceimbat caridade gueijago daucan cristinaubac, aibat daucala gurari guichiago. Ta ceimbat gurari gueijago, aibat caridade guichiago*³¹⁹. Ta Ecclesiasticoc esaten dau: *Ez eguizu urria gaiti desprecijau ceure lagun estimauba*³²⁰. Bada, urriaren gurarijac illten dau Jaungoicuaren caridadia. Ezin inoc bere serbidu leguiz ugazaba

565 bi, Jaungoicua ta dirubac, dino san Matio apostolubac³²¹.
Seigarrenian : Eragotcita dago gurarija, pecatu guztien ama dalaco. Bada, da gach guztien sustraija. Orregaiti vijotcian jarten bada gurarija, guizon illte, lapurreta ta beste pecatu guztiac eraguiten ditu³²². Au gaiti esan evan

553 Diru zaliac *Ba*

³¹² S. AGUSTIN, *Confesiones*I, 1,1 (PL, Migne, 32, col. 661).

³¹³ Ik. Koh 5,11.

³¹⁴ Ik. Mt 6,21; Lk 12,34.

³¹⁵ Ik. Lk 6,24; 18,24-27.

“Eztaca”: landare arantzatsua, gaztelaniaz “abrojo”.

³¹⁶ Ik. Koh 5,9.

³¹⁷ Ik. Ir 23,8 (Dt 16,19; Si 20,29[31]).

³¹⁸ Ik. Si 31,5.

³¹⁹ *Contra Julianum* , Lib. VI, cap. XIV, 41: “Neque enim ipsa in sanctitate non proficit, cum magis magisque minuit eas, quibus non consentit, carnales cupiditates” (PL, Migne, 44, col. 843).

³²⁰ Ik. Si 7,18 [20].

³²¹ Ik. Mt 6,24; (Lk 16,13).

³²² Ik. Mt 15,19; Mk 7,20-23.

Apostolubac, *aberatstu gura daveenac, diabrubaren sare ta tentacinoe asco* - 570
tan jausten diriala; caltezco ta mesede bagaco gurari asco etorten jacuela; ta
gurari areec erijotzia ta betico desdichia guizonai ecarten deutseela ³²³.

Errazoe oneec guztioac dira, neure entzula onac, santo Tomas escoletaco ainguerubarenac, aituten emoteco guri ceimbat errazoe andi gaiti Jaungoicuac eragotci eutschuzan gurari deungac azqueneco aguindu bijetan. Gurari chaar 575
 guztiaac iru ordenatan sartuten ditu san Juan evangelistiac. Ta eureetara batuten ditu munduco gach guztiaac. Alan esaten dau Apostolu santubac (190): *Ez egui -*
zu amau munduba; ezda munduban daguan gauzaric bere. Bada, mundu -
ban daguan guztia da araguijaren gurarija, veguijen gurarija ta vizitzaco
soverbija. [268] Araguijaren gurarija esanagaz, aituten emoten ditu Apostolu 580
 santubac, luxurijari darraicozan pecatu guztiaac, dino san Agustinec. Veguijen gurarija esanagaz aituten emoten ditu, codicijari edo ondasun guriari darraicozan pecatu guztiaac, dino Santubac berac. Ta vizitzaco sobervija esanagaz aituten emoten ditu, vanidadiari edo andiguriari darraicozan pecatubac, dino san 585
 Agustinec berac (191).

Iru gurari oneec icentetan ditu san Juanec, munduco pecatu guztien buruztat. Ez beste asco ez dagozalaco, leen esan dan leguez, ezpada eurac dirialaco pecatu buru guztietati nausijenac ta zabalenac. Andiguria, aberastu guria ta luxurija dira, edo leenago edo gueruago, gueijenian edo beti munduco pecatubac eraguiten ditubeenac. Au gaiti ez ditu eurac irurac baino icentetan san 590
 Juanec munduco gachguintzat³²⁴. Santo Tomasec imini dituban errazoiac, Jaungoicuac gurarijac cer gaiti eragotci deuschuzan aituten emoteco, gurari char guztienac izan arren, gueijen dira codicijarenac, vorondate luurtsubarenac ta andi guriarenac. Emeti ezaututen da, neure entzula onac:

1. Beredatzi ta amargarren aguinduban eragotcita dagozala gurari deunga 595
 guztiaac.

2. Gurari char guztietati nausijenac, zabalenac, sustraitsubenac ta pecaturic gueijen eraguiten daveenac diriala *andiguria*, *ondasunguria* ta *araguzco gusto guria*.

3. Aparteco leguiagaz eragotci euschuzala Jaungoicuac beredatcigarren 600
 aguinduban [269] araguijaren gurarijac edo castidadiaren contraco gurari loijac, esanagaz: *Ez dozu inoren emazteric desiauco*³²⁵.

 (190) 1. Epist. c. 2. (191) In 1. Joan. c. 2, trac. 2, n. 13.

578 ez da Ba 587 da gozalaco Ba | Ez bada Ba 591 gach guintzat Ba 601
 aguinduban] aguindubac Ba

³²³ Ik. 1Tm 6,9.

³²⁴ Ik. 1Jn 2,16:

³²⁵ Ik. Ir 20,17; Dt 5,21.

4. Legue onetan sartuten diriala, ez bacarric inoren emazteric edo senarric
 605 ez desietia, ez bada baita pornicacinoeco, seniqueraco, noberagazco, naturale-
 ciaren contraco, sodomijaco, ganadubagazco, verbazco ta cantazco pecatu loi
 guztien desiuia ta gurarija bere. Seigarren aguindu santuban pecatutzat eracu-
 tsi zirian gauza loi guztien gurarija dago beredatzigarrenian eragotcita.

5. Amargarren aguindubac eragozten deuscula, zazpigarren aguindu san-
 610 tuban pecatutzat eracutsi cirian gauza guztien gurarija, esanagaz: *Ez dozu
 desiauco inoren echeric, ez basoric, ez crijauric, ez crijadaric, ez idiric, ez
 astoric, ezda beste inoren gauzaric bere*³²⁶. Inoren calteco gurari edo desio
 oneec cristinau guztiai eragotcita dagoz. Baina Erromaco Catecismuac onaco
 gurari gaistueta arriscuric gueijen dauqueentzat contetan ditu: 1. Jocalarijac. 2.
 615 Tratalarijac. 3. Soldaubac. 4. Medicubac edo osaarijac, nun sartuten dirian bar-
 berubac bere. 5. Letraubac ta escribaubac. 6. Opicialiac. Ta azquenian *embidi -
 joso* guztia. Oneetati gueijenoc edo guztioe dauqueen leguez echian oguija
 sarri inoren negarragaz ta caltiagaz, sarrijagotan jausten dira, desventuraubac,
 amargarren aguindubac eragotzitaco guraarijetan.

620 Gogoratu bada, cristinaubac, bacochari juatzun moduban, cetati datoza
 gurari gaistuac ta celan dagozan eragotcita. Ez sinistu libre [270] zagozala eure-
 tati. Sinistu bai, indartsubac, lotsa gaistocua ta oquerrac diriala. Bein vijotcian
 lecu emon ezquero, guizon nai emacume guztia darabilela airian, eurac gura
 daveen lecura ta beti pecatuco lecura. ¡Oh, Jaun cerucua! Arguitu eguizuz
 625 gueure adillac, ezautu daigun gueure gachguin nausija, cein dan gueure ara-
 guija. Bada, gacha ondo ezautu ezquero, lasterrago ta zucenago artuco ditugu
 a osatuteco medijuac. Bialdu eguizu, Jesus maitia, gueure vijotcetara ceure bil-
 dur santubaren colpe indartsuba, ceinegaz goituco ditugun gurari chaar guz-
 630 tiac, gordeco dogun ceure aguindu santuba, gueituco dogun caridadia ta ira-
 batcico dogun betico ceruba. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu santubaren icenian.
 Amen.

605 Ez bada *Ba* 612 ez da *Ba* 615 Tratalarijac| Traltalarijac *Ba* 625 ceindan *Ba*

³²⁶ Ik. Ir 20,17; Dt 5,21.

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
gurari deungac goituteco cer eguin biar dogun.

Osalarriac aguertu ta ezautu eraguin arren gaixuari gacha, osagarriric emoten ez badeutsa, isten dau leengo eduban³²⁷. Beste aimbeste bada, neure cristinaubac, jazoco litzateque nigaz, leengo eracutsijetan zeubei aguertu ta ezautu eraguin arren gueure galdubiden gacha ta sustraija, aren osagarriac edo erremedijuac iminico ez baneutsuz. Aditu dozu ce indar an-[271]dija dauqueen gurari gaistuac gueure vijotcetan. Celan bein lecu emon ezquero eurai goguan, itsututa davileen³²⁸ guizona nai emacumia, zaldi ezi bagaco batec gainecua leguez. Celan inor bere ez daguan libre gurari deunguetati. Ta celan eurac dirian pecatu guztien sustraijac edo amaac. Oni darraico, bada, evangelijo santuco errazoian, Erromaco Catecismuac eguiten davena. ¿Ta cer? Arimaco zaurija edo illgarrija ezautu eraguin ezquero cristinaubari, aren osagarriac eracustia. Bacuszu, neure cristinaubac, asco balijo deutsuna eracutsi onetaco dotrianiac. Bada, erregututen deusut guztioi arima arimati artu daguizula inos baino ardura gueijago, aimbat gogoric onenagaz ta usteric zintzuenagaz entzuteco. Erromaco Catecismuac iminten ditu lau pensaquizun edo errazoe, gurari gaisuac goituteco (192). Ta santo Tomasec iminten ditu beste lau (193). Ac dacaz gogora, gurari deungac goitu ezac dacazan caltiac. Ta onec dacaz veguijen aurrera, gurari deungai vijotcian lecuric ez emoteco vidiac. Bitzubenac iminico ditut, bada, aimbat arguiruen aituco dituzun moduban. Leleengo Erromaco Catecismuarenac ta guero santo Tomasenac.

1. Gurari deungac goitu ezaren lelengo caltia da, norbera gurari charren aguindupian gueratutia. Bada, gurari deunguiac goituten bagaitu, pecatuba dago gueure ariman. Ta pecatupian gagoz gueu. Au gaiti dino san Pauloc (194): *Ez dagujala aguindu pecatubac ceuben gorputcetan, gurari deun-[272]gai obeidu ez daguijezun*. Gurari charrai gogortuten gachacozanian, pecatubaren indarrac jausten dira. Ta gurari charrari lecu emoten deusagunian, Jaungoicua botetan dogu gueure echeti campora ta aren lecuban sartuten dogu

(192) N. 22. (193) Opusc. 7. (194) Rom. c. 6.

657 gagoz] gogoz *Ba* 659 gachaco zanian *Ba*

³²⁷ "(...) leengo eduban": lehengo moduan.

³²⁸ Gure ustez "daravileen" eskatzen du testuinguruak, baina dagoenean utzi dugu, badaezpada.

665 pecatuba ta demoninua. Aren aguinduban dago gurari charra goitu ez daven guizona nai emacumia. ¡Cer lotsari andijagua, guizon bat edo emacume bat gurari chachar baten aguinduban egotia baino!

670 2. Bigarren caltiaren pensaquizuna da, gurari deunguetati urtetia pecatu guztiac. Iturri bateti urac urteten daven leguez, gurari charrezco vijotceti pecatubac urteten davee. Esanda gueratu da san Juanegaz, araguijaren gurarijac, veguijen gurarijac ta andinaijac daucazala munduco gach guztiac. ¿Ta ichico deusatz beriaz urteten gach guztiac neuri dacardazan bati, goitu al izan ezquero? ¿Ichico neusquijo, goitu al daidala, echeco guztiac illgo gaitubana daquidan arerijo bati, atian barrura sartuten? Ez. Bada, beste aimbete da gurari deunguari gueure goguan sartuten istia. Goguan edo vijotzian sartuten bada, gauza on guztiac illten ditu.

675 3. Irugarren caltia da, gurari charrac guizonari juicijua oquertutia ta adina illundutia. ¿Ceimbat gorroto izango gueunsqiijo auzo bati, gueure aita edo ama juicijua oquertuta ta itsututa iminico baleuscuz? ¿Ta ceimbat gueijago, gueure alan iminico baguinduz? ¡Oh! Chito asco esango guenduque a gaiti. Beguiratu, bada, gurari charrari goguan lecu emonda, ino-[273]ren emaztiagaz pecatu eguitera doianari. Ia zucenaren ala oquerraren eguitadia dan a. Ia itsubarena ala arguijarena dan a. Bere emaztiagaz inoc alan eguingo baleu, ¿cer esango ete leuque? ¿Oquertzat ala zucentzat euquico ete leuque alaco adulterijoguina? Bada, a gaiti pensauco leuquiana pensau biar leuque bere buruba gaiti, gurari gaistuac inoren emaztiagana daroianac. Baina ez da alan pensetan.

685 Noberaren pecatubac, ezainac ta ichusijac izan arren, ez daucaz deungatzat, gurari charra goguan sartuta dauca artian. Oquertuta dauca bere juicijua. Ta illunduta bere adina. Lapurac ez dau ezaintasunic ezaututen bere lapurretan, gueijago eguin ezina baino. Ta batec ostuten badeutsa berari gauza guichi bat, orduban dira guztiac oquerrac. Baina bere lapurretac, ostuteco gurarijagaz

690 daguan artian, chito ederrac. Gurari charrac bere vijotzian sartuta daucazanac, gauzaric ezainenac ta peccaturic icaragarrijenac eguinda bere, esango dau pena bagaric: ¿Ce gach eguin dot, bada? ¿*Quid mali feci?* Edo adrede eguin dot; chantzan eguin dot. *Ludens feci* (195).

695 4. Laugarren caltia da, Jaungoicuac gueure vijtotzetan erein gura daven verba santubari erneetan ez istia. Gurari gaistuac ito eguiten davee Jaungoicuaren verba santuba ta edocein pensamentu on. Gurari gaistuac ezta-catu³²⁹ ta liortu eguiten davee gueure vijotza, ceruco verba ta avisubac an jar-

(195) Prov. c. 26.

668 Esan da Ba 670 alizan Ba 671 aldaidala Ba 672 sartuten| sortuten Ba 680 Ia|
Ya Ba | Ia| Ya Ba 682 adulterijo guina Ba 692 eguindot Ba 693 eguindot Ba

³²⁹ "Eztacatu": eztakaz bete, gogortu, lakartu; (dirudienez, hitz honek arazoak sortu dizkie lexikografoei... OEHan honako hau dator: "*eztaka, eztakatu* figuran en f. Bartolomé; proba-

teco. Ta a gaiti ez da-[274]vee pruturic emoten, dino san Marcos evangelistiac
 (196). ¡Ce estadu tristia gurari charrezco vijotzarena! ¡Ceimbat calte ta gach dau- 700
 cazan bere contra, gurari gaistuai lecu emoten deutseelaco! Gurari deunguen
 euren esanian dago; itsututa dago; pecatu guztiai lecu emoteco zabaldua
 dago; ta ceruco verbac, arguija ta gracia artuteo, ichita dago gurari charrezco
 vijotza. Ez daquit guizon edo emacume batec cer euqui leguijan ce galdu,
 gurari deungai bere goguan lecu emon ezquero. Calte bildurgarri oneec gogo- 705
 ratuten deutzuz bada, neure cristinaubac, Erromaco Catecismuac, gueure
 gogua ta vijotza gurari deungueetati alderatuteo. Entzun daijogun, bada, santo
 Tomasi, cer eguin biar dogun onaco arimiaren ta gorputzaren carga astuneti ta
 calte andicoti libretaco, cein dan eracutsi onen bigarren zatija.

1. Guraarijac goituteo errazoe bat dacar santo Tomasec beria leguezcua ta 710
 ezin obeto gaucia eracusten davena. Dino, bada: Bic burruca badiardubee ta
 batari lagundu gura badeutsazu, ¿cer eguingo dozu? Lagundu gura deutzazu-
 nari indarra emon ta bestiari indarra guichitu, aleguinaz. Lagundu gura deu-
 tsazunari bere burrucaco colpe bacochian aurrera eraguin ta bestiari atcera.
 Orduban ezautuco da, ceinec burruquia irabaztia nai dozun. Entzun dozu 715
 bada, cristinauba, gueure betico burrucarijac diriala espirituba ta araguija.
 ¿Nai [275] dozu espiritubac goitu daguijan araguija? Bada, espiritubari indarra
 emon ta araguijari quendu. Espiritubari beti aurrera eraguin ta araguijari beti
 atcera eraguin. Au zucengarri seguruba da, neure cristinaubac. Ta biarrecua,
 gurarijac goituco baditugu. ¿Baina celan goituco ditugu? Santo Tomasec dino 720
 lelengo lecuban: Ocasinoetati alde eguinagaz. *Primo, ocasiones exteriores*
fugiendo. Ocasinoiac dira lagun deungac, pecatuco lecubac, ibilte nasaijac ta
 pecaturaco vidia campoti emoten deutzan guztia. Orregaiti dino Espiritu
 Santubac, *nescatillari ez beguiratuteo, bere edertasunagaz galdu ez dagui -*
*jan*³³⁰. Job santubac inos bere ez eutseen beguiratu³³¹. David erreguiac begui- 725
 ratu eutsan Bersaberi ta beragaz jausi zan³³². Salomonec beguiratu eutseen ema-
 cumiai. Lecu emon eutseen bere echian. Ta lotsari andijan jausi zan³³³. Ta ez
 daquigu jagui zan. *Emacumeen edertasunac asco galdu ditu*, dino Espiritu
 Santubac. Dina nescatilla gaztia, bere aita onaren echian eguan artian, seguru

 (196) C. 4.

730

705 bildur garri Ba 709 zatija] zatiga Ba 719 zucen garri Ba

blemente erratas por *zetaka* y *zetakatu* (q.v.). Azkue da el *eztakatu* de f. Bartolomé con el sentido de "endurecer"; guk testuak aztertuz -eta *eztacaren* esanahia argi dago- Azkueren aldera egin dugu).

³³⁰ Ik. Si 9,5.

³³¹ Ik Jb 31, 1.

³³² Ik. 2Sm 11.

³³³ Ik. 1Erg 11,1-8.

egon zan³³⁴. Urten evan erriac icustera, laster bera ta beste asco galduta, eche-
 ra viurtu zan. Au gaiti dino Espiritu Santubac: *Ez zaitez giraca ibili erri alde* -
tan, angu placetan galdu ez zaitez ³³⁵. Ezin inoc euqui legui suba colcuan
 735 soinecua erre bagaric, ezda ocasinioetan bere guraz inor ibilli bere, jausi baga-
 ric. Bidaoliarentzat jocua ocasioia da. Ordijarentzat ardaa ocasioia da.
 Aberastu guriarentzat tratuba ocasioia da. Andiguriarentzat diruba ocasioia
 da. Oneec ta [276] beste onetarico asco ez dira guztientzat ocasioiac, ez bada
 areetan jausi oi dirianentzat. Beste ocasioe batzuc guztientzat dira ocasioiac.
 740 Lagun charra, esateco moduban, ordijac, jocolarijac, lapurrac, baque charre-
 cuac, desonestubac ta beste onetaricuac, edocein cristinaurentzat dira ocasi-
 noiac. Areetati guztiac igues eguin biar davee. Esan eguidazu nogaz zabilzan
 ta esango deusut nor zarian. Emacumiac guizonezcuentzat ta guizonezcua
 emacumeentzat, sarrico alcarregaz ibiltian ta carinuan, edocein da guztien oca-
 sinoia. Amonentzat Tamar bere arrevia izan zan ocasioia³³⁶. Absalonentzat
 745 bere aitaren emazia³³⁷. Putibarren emaziarentzat Jose bere crijaduba³³⁸. Lot izan
 zan ocasioia bere alaba bijentzat³³⁹. Ta onan beste asco. Goitu gura baditu,
 bada, cristinaubac bere gurari gaistuac, alde eguin biar dau ocasinioetati. Alde
 eguin biar dau pecatuban jausi oi dan edo jausi dan lecuti, echeti, tratuti, ibil-
 teti ta laguna ganic. Bada, *ocasioia nai davena, ocasioian galduco da* .
 750 Pecatuco lecuba nai davena, pecatuco lecuban jausico da. Pecatuco lagunagaz
 egon gura davenac, pecatuco lagunagaz eguingo dau pecatu. *Qui amat peri -*
*culum, in illo peribit*³⁴⁰.

2. Pensamentu edo burutacinoe gaistuai atia ichijaz goitu biar dira gurari
 deungac. *Secundo, cogitationibus aditum non praebendo*. Ta au eguiten da
 755 gorputzari najjac emon ezagaz. San Paulo apostoluba santu andija zan.
 Ocasinoe guztietati alderatuta eguan. Ceru altura jasota, [277] Jaungoicuac bere
 gracia santan ontzat ezaututa eucan. Ta orregaiti esaten evan Apostolu andijac
 (197): Castiguetan dot neure gorputza. *Castigo corpus meum* Dometan dot
 gorputz au, ezten dot ta ecarten dot neure aguindupera. *Et te serbitutem redi-*

760 -----
 (197) 1. Corint. c. 9.

732 viurtuzan Ba 737 ez dira Ba | ez bada Ba 738 oidirianentzat Ba 744
 Amonentzat| Amanentzat Ba 748 oidan Ba | jausi| ausi Ba (301.or.: jausi)

³³⁴ Ik. Has 30,19-21; 34,1-5.25-26.

³³⁵ Ik. Si 9,7.

³³⁶ Ik. 2Sm 13: Amnon-ek bortxatu egin zuen bere arreba Tamar (David-en alaba), eta haren anaia eta honen neba Absalon-ek mendekua hartu zuen, Amnon hilez.

³³⁷ Ik. 2Sm 16,21-22.

³³⁸ Ik. Has 39,6-19.

³³⁹ Ik. Has 19,8.

³⁴⁰ Ik. Si 3,27.

ga. ¿Ta cegaiti castiguetan eban Apostolu santubac bere gorputza? ¿Cegaiti
 zurriagaz, peniagaz ta nequiagaz ezten eban, dometan eban ta bere esanera
 ecarten eban san Pauloc bere gorputza? ¡Ah, cristinaubac! Berac esaten deuscu
 cegaiti. Bestiai prediquetan deutsedan artian neu condenau ez nadin, dino. 765
 Bestiai cerura bidia eracusten diardudan artian, neure araguijaren gurarijac neu
 condenau ez naguijen³⁴¹. Au gaiti castiguetan dot neure gorputza. Bada, san
 Pauloc uste beeban, zurrau ta castigau biar evala bere gorputz argal, necatu,
 cansau, zaar santuba, araguijaren gurarijac goituteco; araguijaren gurarijac con-
 denau ez eguijen; *ne forte ... ipse reprobis efficiar* ¿celan goitu gura guendu-
 quez guc gueure araguijaren gurari deungac, gorputzac ezi, domau ta castigau 770
 bagaric? ¿Ta onen ondoric esango dogu, euren gorputzac Jaungoicotzat artuta
 areen naijac topau ezinda davilzanac, dauqueela gogua gurari deungac goitu-
 teco? ¿Icusgarriric ederrenen, soinuric maiteen, usainic gozuenen, janariric
 gozatubenen, edanariric ezitsubenen, jantziric leunenen ta sengarriric labane-
 nen villa davilzanac, nai daveela, espiritubari lagundutia ta araguija goitutia? 775
 ¿Vegui-[278]jai, belarriai, auari, sabelari ta luurrezco gorputz ustelcorrai aleguin
 guztiagaz gusto emonda? ¿Aixe otz pusca batec, icerdi batec, gose apur batec,
 janari otzaago edo motelago batec edo gau bateco loric ezac bildurtuten ditu-
 bala, edo illgo ete dirian arduratan iminten ditubala? ¿Ichasuac, luurac ta axiac
 erre ta azten dituban erregalubac soineraco ta sabeleraco guichiegui ditube- 780
 la? ¿Euren vizi edo demporaric gueijena plazaric plaza, piestatic piesta, dan-
 tzaric danza, comedijaric comedija, sarauric sarau, biguiraric biguira, zeceneta-
 tic cecenetara, joricoric joco ta maitequeric³⁴² maitequerijara iragoten daveela?
 Dinot, cristinaubac, ¿onan? ¿onan vizi? ¿Ta gurari deungac goitu? Ez deuscu inoc
 sinistuco. Ez dau inoc eguin. Olan vizi zarian guztioc autor dozu zeubec nai 785
 dituzula ceuben gurari charrac. Arei darraicuezan caltiac ta pecatubac bere bai.
 Ta pecatubai darraicuen impernuba bere bai.

Gurari deungac goitu gura ditubeenac, ocasinoc gaistuetati alde eguiten
 davee aldaguijen guztian. Batzuc guztiz, euren erriai ta senidiai ichita,
 Abraanec³⁴³, Eliasec³⁴⁴, Eliseoc³⁴⁵ ta areen ondoric beste contau ezin leguizan 790
 edu praile[c] leguez. Beste batzuc palacijuetan vizi izanda, alde eguin davee

764 ce gaiti *Ba* 765 artian] arrian *Ba* 779 etedirian *Ba* 791 izan da, aldeeguin *Ba*

³⁴¹ Ik. 1Ko 9,27.

³⁴² Esaldi honetan, partitiboa eta ablatibo zaharra nahasten dira pixka bat; batetik: *plazaric plaza, piestatic piesta, dantzaric danza, comedijaric comedija, sarauric sarau, biguiraric biguira...* eta bestetik: *zecenetatic cecenetara, (...) maitequeric maitequerijara*; "maitequeric" hau inprimategiko hutsa izan liteke. Koherentziaz jokatzekotan, *zezenic zezen, joricoric joco, maitequeriaric maitequerija* beharko zukeela dirudi...

³⁴³ Ik. Has 12,1-4.

³⁴⁴ Ik. 1Erg 17,1-5.

³⁴⁵ Ik. 1Erg 19,19-21.

ocasinuetati. Jose Jacoren semiac³⁴⁶, Mardoqueoc³⁴⁷, Jonatasec³⁴⁸ ta millac alan. Beste batzuc, coroiā buruban ta cetrua escuban daveela, erriac ta erreinubac convernaubaz, alde eguin davee ocasinoetati. David³⁴⁹, Ezequias³⁵⁰, san Enrique³⁵¹, san Fernando³⁵², san Luis³⁵³ ta bes-[279]te asco dira onan. ¿Baina ceta-
 795 co da cansetia guztioc daquizun guztia sinistu eraguiten? Edade guztietan, lecu guztietan ta viziera guztietan iracurten dira erreguiac, erreguinac, caballeruac, seinorac, zaldunac, damac, soldaubac, nequezarijac ta opicijuetacuac, euren oguija irabaztiari ichi bagaric, ocasinuetati alde eguin daveenac. ¿Ta alan, gura-
 800 ri charrac goitutia gaiti ocasinoetati alde eguin daveenac, celan tratau ditubee euren gorputzac? ¡Ah, cristinaubac! Guztiac gogor. Guztiac penaz. Guztiac bildurrez. Guztiac zurrauta. Emen gogoratu biar litzateque Judit baten penitencia³⁵⁴, Jeremias batena³⁵⁵, Isaias batena³⁵⁶, Maria Egiciaca batena³⁵⁷, Tais batena³⁵⁸,

797 vizi eraguztietan *Ba*

³⁴⁶ Ik. Has 39.

³⁴⁷ Ik. Est 4,1-2.

³⁴⁸ Ik. 1Sm 20.

³⁴⁹ Ik. 2Sm 15.

³⁵⁰ Ez dago argi Ezekias erregearen zein egoera esan nahi duen; beharbada, ondorengo testu hauetan datorren zerbait esan nahi izango du: 2Erg 18-19 y 2Kro 32: Jainkoarengan uste osoa jarritz, Ezekiassek berea baino armada handiagoari aurre egin zion.

³⁵¹ Alemaniako San Enrike II.a esan nahi duela dirudi (973-1024); 1002an alemaniako errege izendatu zuten, Oton III.aren ondoren; 1014an, bere emazte Luxenburgoko Kuningunde-rekin batera, enperadore koroatu zuten Aita Santu Benedikto VIII.ak. (Ik. R. KLAUSER, *Heinrich II*, LThK 5 (1986) 179-180).

³⁵² San Fernando III.a (1199-1252), Leongo Alfonso IX.a eta Gaztelako Berengaria-ren semea; Beatriz Schwaben-goarekin ezkondu zen. 1230ean behin betiko elkartu zituen Leon eta Gaztelako erreinuak. Musulmanen kontra borrokatu zuen, Kordoba, Murztia, Jaen eta Sevilla haiengandik berriro eskuratu. (Beharbada, erreinu hauek berriro eskuratzeko egin zituen irterak esan nahiko ditu Frai Bartolomek). Burgosko katedrala eraiki zuen, Salamankako unibertsitatea indartu zuen (ik. I. VINCKE, *Ferdinand III der Heilige*, LThK 4 (1986) 81).

³⁵³ Luis erregea, bere erreinua utzita Palestinara gurutzada batean joan zenekoa, liburu honetan irakurriko zuen, beharbada, Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 428. or.

San Luis IX.a (1219-1270; 11 urte zituela errege koroatua; 1234an Margaritarekin ezkondu zen; zuzena zen, borondate sendokoa, Erdi Aroko bizitza aszetikoaren eredia. Parisko parlamentua sortu zuen, beregaineko auzitegi legez; debekatu egin zuen dueloa; aurrerakuntza ekonomiko handia eragiten du nazioan, Europako naziorik indartsuena eginez. Eskeko Ordenak eta Sorbona babestu zituen; gogor egin zuen gehiegikerien aurka. Luisek itzal handia lortu zuen. 1248an erreinua utziz gurutzadan parte hartu zuen; 1250-1254. urteetan Palestinan izan zen. Tunez-en hil zen (ik. H. LAHRKAMP, *Ludwig IX del Heilige* LThK 6 (1986) 1190-1191). Frai Bartolomeri oso ezagun egingo zitzaion haren ikonografia (Ik. G. KIESEL, *Ludwig IX. der Heilige* in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 426-442).

³⁵⁴ Ik. Jdt 9,1-2.

³⁵⁵ Ik. Jr 16,1 (?). Jeremias-en bizitza osoa, zailtasunez beterikoa du gehienbat gogoan (adibidez, Jr 26,8-11; 38,1-13...).

Pelagia batena³⁵⁹, Arsenio batena³⁶⁰, Macario batena³⁶¹... ¿Baina noc conta? ¿Ta cegaiti eguin epeen aimbeste penitencija? Gorputzaren gurarijac goitutia gaiti. 805
Diabrubari euren arimac artuteo aztia quendutia gaiti. Bestiac salvau arren eurac condenau ez citezan, *castigo corpus meum* esaten epeen. Zurretan dot neure gorputza, neure araguijac condenau ez naguijan. Beequijen Jesucristoc esan evana, *gurari charrezco demonino castia ez dala goituten barubagaz ta oracinoiagaz baino* (198). Alan Santo Tomasec irugarren lecuban escatuten 810
dau gurari charrac goituteo *oracinoia*.

3. *Orationibus insistendo*. Bai, cristinaubac. Ocasinoetati alde eguitia ta gorputzari padecidu eraguitia noraecua da, gurari charrac goituteo. Baina erregutu biar deusagu Jaungoi-[280]cuari cansau bagaric vijotz umildiagaz bialdu daigula ceru altuti bere gracia, gueure araguija ta araguijaren gurari deungac goituteo. Banequijan, dino Salomonec (199), *Jaungoicuc ceruti lagundu bagaric ona izan ezin neintequiana*. Ceruco gracia bagaric, gurari chiqui bat bere goitu ezin guinai. ¿Ta etorrico jacu ceruco gracia ta laguntasuna escatu bagaric? ¡Ah! Escatu eguizu ta artuco dozu, dino Jesucristoc. *Petite, et accipietis*³⁶². Prest dago Jaungoicua bere gracia ugarijac ta indartsubagaz guri lagunduteo, biar orduban. Baina nai dau Jaungoico zucenac, gueuc berari erregututia. Gueure erreguben ta oracinoien truquian daucaz Jaungoicuc aguinduta bere gracijac ta misericordijac. Au gaiti esaten eutseen Jesus maitiac bere apostolubai (200): *Esnaatuta zur egon zaite ta eguizu oracinoe, tentacinoian jausi ez zaitez*. Bada, cristinaubac, alperric bada gueure echia gueuc gorde gura 825
izatia Jaungoicuc gordetan ez davenian³⁶³, ta Jaungoicuc gueure echia gor-

(198) Matth. c. 17. (199) Sapient. c. 18. (200) Matth. c. 2.

³⁵⁶ Jeremias-i buruz esan berri duguna esan daiteke honetaz ere. Tradizio juduaren arabera (Talmud), eta antzinako kristau-idazle batzuek, esaterako, Justino eta Tertulianok diotenez, Isaias martiri hilko zen, beharbada. (Horrelako aipua izan liteke testu honetakoa: Jr 2,30; 2Erg 21,16).

³⁵⁷ Ik. *Euscal-errijetaco*... 77.oharra (487.or.).

³⁵⁸ Ik. *Euscal-errijetaco*... 75.oharra (484.or.).

³⁵⁹ Ik. *Euscal-errijetaco*... 74.oharra (484.or.).

³⁶⁰ Ik. *Euscal-errijetaco*... 70.oharra (484.or.).

³⁶¹ Aipamen hau hain orokorra izanik, zaila da jakiten nortaz ari den, San Makarios egiptoarraz (c.300-390; monje ospetsua) ala Makarios Alexandriakoaz. Beharbada, azkenengo hau esan nahi izango du. San Makarios Alexandriakoa (+ 394), monjea eta apaiza. 40 urte zituela basamortura joan zen, eta bertan bizi izan zen eremutar legez, bizimodurik latzenetarikoa eginez, etengabeko otoitzean; Gaixotasun eta deabruen kontrako ahalmen berezia zuen; Makarios egiptoarraren adiskidea zen eta honekin batera erbeste garratza jasan zuen (ik. B. KOTTER, *Makarios der Alexandriner*, hl., LThK 6 (1986) 1310). Frai Bartolomek liburu honetatik jakingo zuen haren berri: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi.*, Lugduni, 1617, 366-367.or.

³⁶² Ik. Mt 7,7; Mk 11,24; Lk. 11,9; Jn 14,13.

³⁶³ Ik. Sal 127 [126],1.

detaco, gueure arimia salvetaco ta gueure gurarijac goituteco bere gracia ta
laguntasuna santuba emoten badeuscu oracinoiaren ta erregubaren saritzat, ya
830 gauza agurija da, gurari galdubac goituteco, Jaungoicuari erregutu biar deu-
tsaguna edo oracinoa eguin biar doguna.

Esango dozu ascoc, ez daucazula astiric oracinoe eguiteco. Bada, esaten
deutsut nic, gogua badaucazu, astija artuco dozula. Gogua [281] euqui daveen
guztiac astija artu davee oracinoe eguiteco, euren eguinbiarrai ondo cobru
835 emonagaz. Esaten deutsut nic, zaarrac eta gaztiac, aberatsac eta pobriac,
ezcondubac ta ezcontzagac, osasunecuac ta gaixuac, guztiac oracinoe eguin
leguijela nai izan ezquero, euren cereguinetan lasto baten balijua atceratu
bagaric. Bat edo bat balego munduban guztien artian oracinoe eguiteco astiric
euquico ezin evana, ez euscun Jaungoicuac guztioi, bat ichi bagaric, aguindu-
840 co oracinoe eguiteco. Guztioi Jaungoicuac aguindu euscuna da. Guztioic eguin
guinaijana da. Ta guztioic eguin biar doguna da, gurarijac goituco baditugu ta
salvaucio bagara.

4. Goitu biar ditugu gurari deungac, pecatu ez dan biarran cetan edo atan
demporia iraguagaz. *Quarto, licitis occupationibus insistendo*. Gachguin andi-
845 ja da alperreriya, dino Salomonec (201). Alperrari nai ta ez etorrico jacoz buru-
tacionoe charrac ta gurari deungac. Ez dogu iracurten alperric santuric ez san-
taric. Ez dogu iracurten alperrerijan vizi izateco legueric. Ordena oneco legue
guztietan dago eragotzita alperreriya. Iracurten dogu bai Sodomaco pecatu ica-
ragarrijac³⁶⁴ ta lotsarizcuac andiguriac, euquijac, gulerijac ta alperrerijac ecarri
850 citubala. *Haec fuit iniquitas Sodoma; superbia, saturitas, abundantia, et otium*
(202).

Alde bada, cristinaubac, ocasinoetati; ichi vijotceco atiac pensamentu cha-
rrai; erregutu [282] Jaungoicuari gogo onagaz; ta equin beti cerbait gauza ona
eguitiari, gurari deungac goituteco ta beredatci ta amargarren aguinduco esa-
855 nac eguiteco. Orduban topauco dogu ceruco atia zabalic, beti an dichoso ta
zorijoneco izateco.

Amar aguindubetan Jaungoicuac escatuten deuscuna da caridadia.
Jaungoicua maitetubagaz beste gauza gustiac baino gueijago; ta gueure lagu-
nac amaubagaz gueure burubac leguez, gordetan dogu legue guztia³⁶⁵. ¡Oh,
860 gueure Jaungoico guztiz ona! ¡Oh guztiz maitegarrija! Legue guztiz laburra ta

(201) Eccl. c. 3. (202) Ezech. c. 16.

832 astiric] asteric *Ba* 834 eguin biarra *Ba* 837 cer eguinetan *Ba* 853 cer bait *Ba*

³⁶⁴ Ik. Has 19,4-9.

³⁶⁵ Mt 22,37 (Dt 6,5; Lb 19,18).

arina emon deuscuzun leguez, emon eguiguzu, Jauna, ceure gracia indartsu-
ba, erveste onetan guztia ziatz ta zucen gorde daigun ta ceruban ceure arpe-
gui santuba icusteco dichia euqui daigun. Alan izan dedilla, Jauna. Aitiaren,
Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

¿Mulierem fortem quis inveniet? Prov. Cap. 31.

¿Emacume indartsu bat noc topauco dau? Ibid.

¿Nor irago ta arrituten ez da, neure cristinaubac, Espiritu Santubari entzun 5
 ezquero Salomonen aoti, ia emacume indartsu bat noc topauco daven?
*¿Mulierem fortem quis inveniet?*³⁶⁷ ¿Cer pensau guinai edo norutz beguiratu gu-
 nai emacume indartsu baten billa, Espiritu Santubac aimbeste jaso ta ondretan
 ditubanaz gainera, itanduten badau ia noc topauco daven? ¿Ez dago Debora 10
 bat, Moisen lecuban jarrita, Israeli leguiac emoten? (203) ¿Ez zituban Judit
 batec, Olopernesi samia ebaguita, asiriotarren soldau guztiac goitu? (204) ¿Ez
 evan Jaelec Sisara guerraguina escuperatu ta [284] amaitu? (205) ¿Ez dago Ester
 bat, bere vizitziagaz aaztuta, Asueroren vijotza escuratu, soldauben ta Amanen
 colpe odoltsuac gueratu ta bere gentia salvau evana? (206) ¿Ez da contetan

 (203) Judic. c. 4. (204) Judit. c. 13. (205) Judic. c. 4. (206) Esth. c. 5. 15

6 ia| ya *Ba* 9 ia| ya *Ba*

³⁶⁶ Santa Teresa Jesusena (1515-1582), Alonso de Cepeda eta Beatriz de Ahumada-ren alaba; bere hiri Avilako Santa Maria de Gracia ikastetxean ikasi zuen barneko ikasle gisa (1531), baina hurrengo urtean gaixotu egin zen eta irten beharra izan zuen. 1535ean, Avilako karmeldarren La Encarnación komentuan sartu zen; 1538an gaixo oso larria izan zuen. La Encarnación komentuan, 1554an, oso zauritua zen Kristoren irudi baten aurrean Jainkoarengana bihurtzen da guztiz. Ikuskariak eta esperientzia mistikoak izaten hasten da... 1562an Avilako San Jose komentua sortzen du, karmeldar bizitza berrituan; hauxe izango da Teresak fundatuko dituen lekaima karmeldarren 17 komentuetatik lehenengoa, Burgoskoa azkenengoa izanik (1582); handik laster hilko da Alba de Tormesen. Teresa pertsona bikain eta dohain onez osatua zen; handia emakume legez eta santa legez, itzal handikoa eta antolatze-kontuan berebizikoa. Otoitzaz, esperientzia mistikoez eta kontenplazio-bizitzaz asko idatzi zuen, bai mistikan eta bai gaztelaniazko literaturan goigoiko maila lorturik. Bere aubiografiako eta doktrinazko idazkien artean, Kristo berbertan somatzen delarik, hauek aipatu behar ditugu: *Libro de la Vida* (1562-1563), *Camino de Perfección* (1566-1567), *Libro de Fundaciones* (1573, 1576, 1580, 1582), *Conceptos del amor de Dios* (1577a baino lehenago), *Castillo interior* o *Las Moradas* (1577), etab.

³⁶⁷ Ik. Es 31,10.

Ana bat, bere oracinoiaren indarragaz Israeli Samuel, propeta, juez ta erre-
 gueguina emon eutsana? (207) En fin, ¿ezin conta leguiz emacume indartsu-
 tzat, jaquituntzat ta ecertacotzat³⁶⁸ Abigail bat³⁶⁹, Rut bat³⁷⁰, Sunamitis bat³⁷¹,
 Salome bat³⁷² ta beste asco? Duda bagaric esan legui baietz. Orraitino bere ez
 20 daquit cer gaiti azartuten da[n] Salomon itandutera ia emacume sendo bat noc
 topauro daven. *¿Mulierem fortem quis inveniet?*

Esango baleu leguez Espiritu Santubac, dinue Eleisiaren eracuslac (208), ez
 da errez emacume sendo bat, indartsu bat ta ascotaco bat topetan. Nequezca
 baten, guichitan, otzta baten ta urrineti aguertuten dana da emacume pirmia,
 25 zucena, zala, iraun andicua³⁷³, burutsuba ta ecertacua. Ez da beinguan ta urre-
 etan topeetan alaco emacumia. Urrin errijetati nos baitacoren baten aguertuten
 da alaco joija edo margarita balijotsuba. *A ultimis finibus praetium ejus*³⁷⁴.
 Onaco verbeta altubagaz ta jasuagaz echuratuten dau Espiritu Santubac emac-
 ume amaitu ta indartsu baten balijua.

30 Bada, neure entzula onac, beste guztien ondo esangarrijai era batera ichi-
 ta, azartuten nas gaurco egunian ceuben veguijen aurrian [285] iminten emac-
 ume bat, Espiritu Santubac esan dirian verbetan opa davena. Emacume bat,
 indarretan inos paltaric euqui ez evana. Iraunzalian³⁷⁵, inos oinic atcera biurtu
 ez evana. Zuzentasunian legueric egon ez balitz, barrijac bere exemplubagaz
 35 eguingo zitubana. Jaquiturijan, eracuslac bardindu edo irago zitubana.
 Burutacinoian, asmo altubac ta santubac topau citubana. Eguitadetan, bardinic
 ez daucana. Ta vijotceco anditasunian, mundu guztiari cer pensau ta cer icasi
 emon eutsana.

Au da ene Ama santa Teresa. *Ecce, mulierem fortem*. Santa Teresa
 40 Jesusena, ceinen onizatiari ta glorijari consagretan deutsan Eleisa Ama santiac
 gaurco eguna, Jesusen esposa eguijazcua ta maitetuba, Eleisiaren alava pina ta
 jaolia, jaquiturijan querubinen laguna, amodijuan serapinena, guiza aldijetaco
 zuzentasunaren ta ontasunaren ispillu arguija, bere eracuslen eracuslia,

 (207) 1. Reg. c. 1. (208) A Lap. in prov. c. 31.

19-20 ezdaquit Ba 20 ia] Ya Ba 23 indartsubat Ba 25 Ezda Ba 30 esan garrijai
 Ba 33 Iraun zalian Ba 39 ene] Eme Ba

³⁶⁸ "Ecertaco": edozertakoa, denerakoa, trebea; (antzeko esanahia du lerro batzuk beherago datorren *ascotaco* hitzak ere: gauza askotakoa, baliokoa).

³⁶⁹ Ik. 1Sm 25,14-42.

³⁷⁰ Ik. Rt 1-4.

³⁷¹ 1Erg 1,3-40.

³⁷² Ik. Mk 15,40; 16,1.

³⁷³ "Iraun andico": iraunkorra.

³⁷⁴ Es 31,10.

³⁷⁵ "Iraunzale": hasitako egintza edo bide onean aurrera egin eta irateko bertutea; ("fidelidad", "perseverancia" itzultzen dute).

Carmengo Mendi santuco loraric ederrena, ene erliginoe ortotzaren ama, buru- 45
 ba ta barristarija, oracinoe eguijazcuaren bide arguizaillia, ceruco sinisgarri
 andijen zabalzaillia, erege guztien lotsagarrija, pecatarijen esnaagarrija, imper-
 nubaren bildurgarrija, zucenen lagun seguruba, bide oneco guztien vitzugarri-
 ja ta espirituaba ta charreco guztien azotia. *Ecce mulierem fortem* Ara, cristi-
 naubac, emacume bat indartsuba ta andija. Andija pensamentubetan ta andija 50
 eguitadetan. Bai, cristinaubac; andijac Teresac, Jesusegaz bat eguiteco dauca-
 zan pensamentubac ta andijac Te-[286]resaren eguitiac Jesus gaiti. Au izango
 da ceuben entzunquiza. ¿Baina celan nic esan, Espiritu Santubac bere graci-
 jagaz visitetan ez badau nire arimia? ¡Oh, Espiritu Arguillarrija! Ceuc vitzu, azi ta
 sendotu cenduban ene Ama santa Teresaren espiritu altuba. Ceure ondraraco 55
 ta bera alavetaco escatuten deusugu, bada, bialdu daguidazula niri ceure gra-
 cijia, santuben arguija ta amodijuaren suba. Onetaraco iminten dogu vitarteco-
 tzat Virgina guztiz santia cerubetaco Erreguina, ceini esaten deusagun aingue-
 rubagaz: AVE MARIJA.

¿Mulierem fortem quis inveniet?

60

Jaungoicua da berez bacarric andija, neure cristinaubac. Ta Jaungoicuagan
 ta Jaungoicua gaiti ez dan anditasunac, zaatatsuba izan arren munduban, ez
 dauca entzuteric, ez balioric ceruco arguijaren aurrian. Mundubac contetan
 ditu andi asco, bai bere jaquiturijan, bere legueguintzan, bere guerraguintzan,
 bere euquijan, bere entzutian ta aguintutian. Platon³⁷⁶, Licurgo³⁷⁷, Alexandro³⁷⁸, 65

47 esnaagarrija] eznaagarrija *Ba* 58-59 aingueru bagaz *Ba* 64 legue guintzan *Ba*

³⁷⁶ Frai Bartolomek, hemen, jakintsuak, legegileak, gerrariak, pertsona aberatsak, ospetsuak eta ahaltzuak aipatzen ditu; eta lehenbizi aipatzen duena Platon da, jakintsu handia. Platon (428/427-348/347 K.a.) Atenasko nobleziakoa, bizitza espiritual eta politikoa izan zituena. Filosofia oinarritzat harturik, pertsonaren eta Estatuaren garapena zuen helburu. Gizakiak egia eta ona behar ditu. Ideiak azaltzeko baliabide artistikoak erabiltzen (elkarrizketa, ironia, simboloa, mitoa...) maisua zen, eta horrek guztiorrek gehiago laguntzen zion gaiak sakontzen definizioek eta silogismoek baino. Platonen egiaren, izatearen, balioen, arimaren, pertsonaren, Estatuaren, munduaren, Jainkoaren... bilaketak hain sakonak izanik, mendebaldeko filosofia berak jarritako oinarri gainean eraiki izan zen. Haren idazkiak oso ugariak izan ziren (Ik. J. HIRSCHBERGER, *Platon*, LThK 8 (1986) 553-554).

³⁷⁷ Likurgo, Espartako legegilea (IX. mendea K. a.).

³⁷⁸ Alexandro Handia esan nahiko du, ziur aski (356-323 a.C.); Mazedoniako erregea; Aristotelek hezi zuen; 336an hartu zuen errege-kargua. Babilonian hil zen, 33 urte zituela. Historiako gerrari eta konkistatzaile handienetakoa izan zen. (Ik. H. E. STIER, *Alexander der Grosse*, LThK 1 (1986) 310).

Creso³⁷⁹, Bruto³⁸⁰, Dario³⁸¹, ta beste milla dira andijac mundubarentzat. Baina onen anditasuna, ariazco sustraijac eucazan leguez, lelengo aixiac itzuli evan luurrera ta austu evan³⁸². Sinistute eguijazco baten, uste garbi ta zucen baten, caridade manso ta guztiraco baten edo Jesucristoren amodijo santu baten asieria ta ituba ez daucan an-[287]ditasuna utsa da, dino san Paulo apostolubac (209). *Nihil sum*. Ene Ama santa Teresaren anditasunac ez evan beste asieraric, ez ituric euqui, Jesusen amodijo santuba baino. Jesusen amodijuac asmau eraguin eutsazan pensamentu altubac eta santubac. Ta Jesusen amodijuac sendotu evan bere vijotza, asmo andijai cobru emoteco. Au da Teresaren anditasun sendua. *Ecce mulierem fortem*.

I.

Pensamentu andijac. Bai. Pensamentu andijac dira Teresarenac. ¿Baina noc dauca miina eurac jadisteco ta esateco? Zazpi urte ditubaneco oratuten deutsa Jesusen amodijo itsubac ta ixiuac Teresari bere vijotzian. Ta ezin cabidu da munduban. Salto eguin gura leuque laster cerura, Jesusagaz bat eguitera. Baina vizitziac eragozten deutsa. ¿Cer, bada? ¡Oh! Iracurten dau ta entzuten dau Teresa chiquijac, Teresa umiac, Aprican moruac cristinaubac illten ditubela Jesusen gorrotoz. Ta alan Jesusen amodijua gaiti vizitzia emoten daveenac bertati zuzen duazala cerura, Jesusegaz bat eguitera. ¡Oh, ce dichia! dino Teresac bere artian. Ez dot au galdu biar. Isilic eta contuz, neure aitac ez amac igarri bagaric urten biar dot echeti ta jua biar dot Apricara, Jesusen icenian illtera. ¡Oh, sei zazpi urteco Teresa chiquijaren ta umiaren pensamentu andija, sendua ta elduba! Apricaruz dua ixilic eta arin, bere echeti igues eguinda, zazpi urte cumplidu bagaric, moruen escu gogorretan Jesus gaiti [288] vizitzia emotera. Ta bere poz ta dicha andija celanbit zabalduteco, artuten dau laguntzat bere anae edo neva gaztechuba³⁸³.

(209) 1. Ad Corinth. c. 13.

73 amodijuac] amoidijuac *Ba* 84 Jesusegaz] Jesusagaz *Ba* 92 Corinth.] Chorint. *Ba*

³⁷⁹ Creso (595-546 K.a.), Lidiako azken erregea; entzute handikoa izan zen bere aberastasun ikaragarriengatik.

³⁸⁰ Pertsona ospetsuen artean Frai Bartolomek Marko Junio Bruto aipatzen du (c.85-42 K.a.); politikari erromatarra; Zesarren kontrako konspirazioan esku hartu zutenen buru izan zen. Azkenean bere burua hil zuen.

³⁸¹ Dario I.a esan nahi du (Dario Handia), Pertiako erregea (c.558-486 K.a.), konkistatzaile handia.

³⁸² Ik. Mt 7,24-27; Lk 6,47-49.

³⁸³ Ik. SANTA TERESA, *Vida* 1, 5. Hor aipatzen duen neba Errodrigo da.

¡Oh Teresaren pensamentu santuba! ¡Celan beguiratuco ete deutsee ceruco Serapinac! Aprica nun dagan ez daqui. Erreinu andijac ta ichaso zabalac iragoteco daucaz. Oraindino verbetan ondo ez daqui. Ez bidiac noc eracutsi, ez cer jan dauca. Ta Apricaruz dua vicitzia emotera Jesus gaiti. Colpiac artuteco gorputzic ez dauca. Ta moruen caltzaidubac ta catiac desapijetara dua. Munduban orain sartuten da; ta ya mundubagaz cansau da. Vizi izaten orain asten da; ta ya vitzia emon gura leuque Jesus gaiti. Ara, cristinaubac, Teresa zazpi urteco nescatillia³⁸⁴ andija ta sendua. *Ecce mulierem fortem.*

¡Oh Jesus, arima zintzuen esoso gozua! ¿ez dozu aintzat artuco Teresaren esquini pina ta maitetsuba? ¡Ah, cristinaubac! Jesusec aintzat artu ta estimau evan duda bagaric Teresaren vijotz presta, goixtarra ta animosia. Baina ez deutsa orain naija emongo. Ez deutsa vitzia quenduco moruen ezpatiac, ez bada Jesusen amodijuac berac. Teresac gau ta egun negar eguingo dau, dicha andi a galdu eraguin deutseelaco. Ceruti ervestetuta vizi biar davelaco. Gorputzaren pisuba espiritu bagaz jaso biar dauelaco. Jesusegaz guztiz bat eguitia luzatu biar jacolaco. Baina alperric. Ez da Apricara juango. Beste vizi modu bat pensau biarco dau.

Pensamentu altubac. ¿Cer eguingo dau, ba-[289] da, Jesusen amodijo garbijagaz ixiota dagan Teresaren vijotzac? Apricara juaten isten ez deutsee. Espainian Jesusen arerijoric ez dago orduban, beste demporetan leguez, Teresaren gorputza Jesus gaiti martirijetaco. Bere echian erregalubac ta gustuac emoten deutseez. ¿Cer asmauco dau, bada, Teresac bere vijotza beti Jesusegaz bat eguinta euquiteco? ¡Oh! Arritu bitez cerubac, ixildu bedi luurra ta icaratu bedi impernuba emacume onen pensamentu altubagaz. Asmetan dau luurrian ceruba eguitia. Bacust, dino Teresac, viziric Jaungoicuaren arpegui santuba icusi ezin neguijana. Bacust, Luteroc ta luterotarrac Prancijan, Olandan, Alemanian ta Inglaterran Jesusen pedia ucatuten daveena; sacramentu santubac oinazpituten ditubeena; eleisac ta altarac birrinduten ditubeena; sacerdotiac ervestetu edo illten ditubeena; Jesus garbijari consagrauta dagozan espasac, combentubetati aterata, galduten ditubeena; ta religiosuac argalduten ditubeena, euren guzur deunguetara ta vide gaistueta viurtuteco³⁸⁵. Bacust, Israel negarrez daguana, Siongo virginac lutuz jantzita dagozana ta santulecu nausiraguino oitura galduba, nasaitasuna ta pecatuba sortu dana.

¡Oh, Jesus vijotcecu! dino Teresac. ¡Oh, neure arimiaren poz bacarra! Ya ez daucazu noc ostatuba emon luurraren gainian. Birrindu deutsubez ceure

97 ya] ija *Ba* 98 ya] ija *Ba* 101 ezdozu *Ba* 104 ez bada *Ba* 114 Jesusegaz] Jesusagaz *Ba*

³⁸⁴ Sintagma mugatuaren marka, ohi denez, izenondoari soilik jarri beharrean, izenari eta bieie jartzen die; beste testuinguru batzuetan ere agertu dira horrelakoak.

³⁸⁵ Ik. 69.oharra (942.or.). Santa Teresarengan eragin handia izan zuten Alemania, Frantzia eta beste lurralde batzuetako gertakariok: ik. S.TERESA, *Vida* 32,6; *Camino* 1,2; *Fundaciones* 3,10; 18,5...

echiac ta egonlecu santubac. Loitu ditubee ceure esposac. Ta atera zaitubee
 euren errijetati. ¡Cer eguin negui, bada, nic, Je-[290]sus neure vijotzaren Jauvia,
 130 ceu topetaco ta zeugaz egoteco? ¡Oh! Baquit cer eguin. Diadar eguingo dot
 ceruraguino. Esango deusac mundu guztiari, bedar ustelac baino gueijago bali-
 jo ez davela luurrian daguan guztiac. *Omnis caro faenum*³⁸⁶. Ta basoco loria
 baixen galducorra dala munduco dicha ta atseguin guztia. *Omnis gloria ejus,*
 135 *quasi flos agri* (210)³⁸⁷. Zaata andi bategaz esnaatuco dot munduba. Iracoico
 ditut luurrian datzazanac³⁸⁸ cerurutz. Aixaatuco ditut pecatari itsubaren veguije-
 taco lausuac. Topauco ditut Jesusen crij]ladu biarguinac. Eguingo ditut eleisa
 barriac, Jesusen egonlecutzat. Jasoco deusadaz altarac. Orniduco ditut combentubac.
 Poztu, viztu ta animauco ditut virginac, Jesus maitiari euren vijotzac,
 gorputzac ta arimac osoric consagrauta, munduti ervestuta, combentubetaco
 140 jardin edo ortu gozuan Jesusegaz bacarric vizi ditezan. Alan, pecatarijac viur-
 tuta, cristinaubac onduta, Jaungoicua ezaututa, Jesucristo maitetuta, erliginoiac
 barristautac, combentubac gueituta, predicadoriac zabalduta, nescatilla ederrez
 Jesusen echiac beteta, gau ta egun Jesus euren Esposo maitiaren ontasunac ta
 pinezac cantetan ta alavetan dagozala euquico dot, dino Teresac, dichia erri
 145 bacochian eleiseric edu ceru ta combentu bacochian monjaric edu aingueru
 icusteco ta euren artian Jesusegaz vizi izateco³⁸⁹. Ara, cristinaubac, echura chi-

 (210) Isai. c. 4.

134 flos] flos *Ba* 137 egon lecutzat *Ba* | Jasoco] Jausoco *Ba* 138 animauco] ari-
 mauco *Ba*

³⁸⁶ Ik. Is 40,6.

³⁸⁷ Ik. Is 40,6. Frai Bartolomeren liburuan, inprimategiko huts bategatik, 4 jarri zen 40 jarri beharean.

³⁸⁸ "Etzan" aditzaren forma trinkoa: datza (hura), datzaz (haiek); *iracoico ditut luurrian datzazanac* : jasoko ditut lurrean datzazanac.

³⁸⁹ Ik. SANTA TERESA, *Vida*, 35,12: "¡Oh grandeza de Dios!, muchas veces me espanta cuando lo considero y veo cuán particularmente quería Su Majestad ayudarme para que se efectuase este rincón de Dios, que yo creo lo es, y morada en que Su Majestad se deleita, como una vez estando en oración me dijo, *que era esta casa paraíso de su deleite* Y así parece ha Su Majestad escogido las almas que ha traído a él". Gauza ezaguna da Santa Teresaren bizitzan, behin aldarean Gure Jauna jarri gero, fundazioa egin zela harentzat (ik. adibidez: *Fundaciones* 3,9; 20,44; 21,5; 27,9; 28,37; 29,29...); Kristorekin bizitzea, hura gorestea eta hari atsegin ematea zen, izan ere, fundazio guztien helburua (ik. *Fundaciones* 18,5); Salamankan egin zuen lehen fundazioa Gure Jauna aldarean jarri gabe, pixka bat geroago jarriko zela aginduta baitzegoen; horrela, San Migel egunez jarri zen handikiro (ik. *Fundaciones* 19,3.6.9-10)... Jainkoak agintzen fundazioak egiteko (ik. *Fundaciones* 29,6; 31,4...). Teresak kometu berriei, "palomarcitos" deitzen zien, Jainkoari atsegin ematen zitzaion lekuak zirelako (*Fundaciones* 4,5: "Pues comenzando a poblarse estos palomarcitos de la Virgen nuestra Señora, comenzó la divina Majestad a mostrar sus grandezas en estas mujercitas flacas, aunque fuertes en los deseos y en el desearse de todo lo criado, que debe ser lo que más junta el alma con su Criador, yendo con limpia conciencia").

qui baten Teresaren pensamentu altubac ta animosuc³⁹⁰. *Ecce mulierem fortem*.

[291] ¿Baina cer asmetan davela, esan legui, emacume onec? ¿Nor da 150
Teresa, asmo altu ta zabal one[e]c bere buruban sartuten jacozanian? ¿Ce erren-
ta dauca? ¿Ce indar? ¿Ce soldautegui? ¿Ce entzute? ¿Ce adisquide? ¿Cer eguitera
dua? ¡Oh! monja pobre bat da Teresa, pensamentu eguingacheco oneec asme-
tan ditubanian. Goijan ceruba ta beian luurra baino besteric ez dauca. ¿Cer
esan legui, bada, alaco emacumia gaiti? ¿Ez daqui impernu guztia bere contra 155
izango davena? ¿Ez daqui gauza barriac, onac izan arren, arerijuac oi ditube-
na? ¿Ez daqui castidadeco votuen ta doncellatasunaren contra pluma asco
zorrozuta jagui diriana? ¿Ez daqui mundu guztia contra jaguico jacona? ¿Cer
pensetan davela, esan guinai, Teresa monja tristiciac? ¡Oh, Jesusen amodijo 160
indartsuba! ¿Ce sustrai senduac imini dituzun Teresaren vijotzian! Au guztiau
ezaututen evan Teresac bere bacarrian. Baina ez zan bildurtu. Asmo barri bate-
gaz, dino Teresac, goituco ditubala arerijo guztia³⁹¹.

Pensamentu santubac. Teresac asmetan dau beste sail bat, Eleisaco jazue-
tan bardinic ez daucana. Ta da, voto andi bategaz esquintzia edo oprecidutia
Jesuseri, *beti Jesusec naijen davena aituten davena edo uste davena, eguite* - 165
*co*³⁹². Ya voto onen vitartez Teresa beti da Jesusena. Teresac esaten davena,

156-157 oiditubeena *Ba* 164 andibategaz *Ba*

Haren idazkaria zen Ana San Bartolomek ere ematen du horren lekukotasuna, esaterako, Frantzian: "Nuestra santa madre y gran Fundadora, que así me lo ha mostrado ella misma con grande gozo y alegría, que tiene ella como siempre y mejor de cada convento que se hace de nuevo, en particular el día que se pone el Santísimo Sacramento" (*Origenes* 36, in *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 188. or.). Hala gogorarazten die Ana San Bartolome dohatsuak Flandesko eta Frantziako nobiziei "que Nuestro Señor dijo a la Santa, nuestra bienaventurada Madre, que estos conventos serían jardines de sus deleites" (*Conferencias A²* 7, 11, en *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 611. or.; ik. ere 627-628, 640. Ik. era *Carta* 486, II, 773. or.).

³⁹⁰ SANTA TERESA, *Fundaciones* 18,5: "Nunca dejé fundación por miedo de trabajo (...) considerando que en aquella casa se había de alabar el Señor y haber Santísimo Sacramento". Santa Teresaren ausardia eta adoreari buruz eman diren lekukotasun ugarien artean, haren idazkari Ana San Bartolomek honela dio: "Si yo hubiera de decir los trabajos que padeció los años que anduve con ella, no acabaría, que no es nada lo que se cuenta en sus libros" (*Autobiografía A* 6, 8, en *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 303. or.; ik. I, 6, 306-306, 447, 478, 507, 681, 745. or.; 2.t., *Carta* ("tan valerosa amiga de Cristo"), etab.

³⁹¹ *Ik.* aurreko oharra. *Ik.* *Fundaciones* 29, 6; 31,11-12, etab. Santa Teresaren bizitzan, gutu-netan, fundazioetan eta gainerako idazkietan behin eta berriro agertzen da Frai Bartolomek dakarren ideia hori. Ez zen beldurtzen egundo ere eragozpenen aurrean bere asmoak aurrera eraman nahi zituenean, batez ere fundazioetan, eta hori gauza normalizat zuen... Inoiz laikoak, apaizak, fraideak eta apezpikuak kontra egitera bazetorkion, hark laster eramaten zituen iritiz aldatzera bere kemenaz, bere maitasunaz; horrela, haietariko asko santaren aldeko eta ongile bihurtu ohi ziren. Ospetsua da haren esaldi hau: "Importa mucho, y el todo, una grande y muy determinada determinación"...(Camino 21,2; ik. ere *Vida* 4,12-13).

³⁹² Santa Teresak *Camino de Perfección* (1,2) liburuan idatzi zuen testuaz ari dela dirudi: "Determiné a hacer eso poquito que era en mí, que es seguir los consejos evangélicos con toda

Teresac pensetan davena, Teresac eguiten davena, Teresac nai davena da, Jesusec naijen davena. ¡Oh Teresaren asmo santuba, beti Jesusegaz egotecol
 ¡Oh Teresaren [292] pensamentu jaquituna, Jesusen naijagaz ta vijotzagaz bat
 170 eguiteco! ¿Ez da au, cristinaubac, bere vijotzian ceru barri bat eguitia? ¿Ez da
 au arerijo guztiac goituitia? ¿Cer eguingo deutsa impernubac, beti Jesusegaz
 dagan Teresari? ¿Cer eguingo deutsa mundubac, Jesusganic inos aldenduten
 ez dan Teresari? ¿Cer deutsa, beti Jesusec nai davena esaten daven, eguiten
 175 daven, pensetan daven ta desietan daven Teresari, mundubaren esanac, gorro-
 tuac, persecucinoiac ta penagarri guztiac gaiti? Ecer bere ez. Pensamentu santu
 onegaz icaratu zituban Teresac impernubac. Isildu zituban eregiac. Lotsatu
 zituban pecatarijac. Animau zituban onac eta oneracuac. Arguitu zituban itsu-
 bac. Arritu zituban jaquitunac. Ta desapijau zituban ainguerubac Jesus ameta-
 ra. *Ecce mulierem fortem* Ara emen, cristinaubac, Teresa andija ta sendua,
 180 Jesusegaz bat eguiteco pensamentubetan. Baita ez guchiago Jesusen iceneco
 eguitadetan, cein dan nire bigarren esaquizuna.

II.

Teresac, cer pensau, cegaz arritu ta cer icasi emon beutsan mundubari bere
 Jesusaganaco pensamentu andi, altu ta santubaquin, ez eutsan guchiago emon
 185 bere Jesusen iceneco eguitade bardin bagacuaquin. Jesusen amodijo sutsubac
 ta indartsubac ixio ezquero bere vijotz leijala ta ezertacua, ¿celan sosegauco da
 Teresa, bacarrian ornidu dituban asmo santubac ta pensamentu altubac
 Jesusen amodijua gaiti mundubari eracutsi bagaric? ¿Cer? zinuan Teresac. Bein
 buruban sartu jatan pensamentuba [293] Jesusen maitetasuneracua izan ezque-
 190 ro, ¿celan euquico dot eguinagaz Jesus maitiari ta mundu guztiari aituten emon
 bagaric? *¿Conceptum Sermonem tenere, quis poterit?*(211). Ez. Ez nas gueldi
 egongo. Asico dot pensau dodan sailla. *Incipiam*. Ta costaco jatana costetan
 jatala, ez nas gueratuco amaitu artian. *Et complebo illud*(212). Ara Teresaren
 195 gogo eguilla sendua. *Ecce mulierem fortem* Ia betoz Teresaren aurrera ezin al
 guztiac. Saill andija, gacha ta lucia izatia asten davena. Zurico bat nun izango
 daven ez jaquitia. Bera monja pobre, triste, lau ormaren artian sartuta inoren

 (211) Job. c. 4. (212) 1. Reg. c. 3.

170 Ezda Ba | barribat Ba | Ezda Ba 189 sartujatan Ba 194 Ija] Ya Ba

la perfección que yo pudiese [...] y podría yo contentar en algo al Señor, y que todas ocupadas en oración por los que son defensores de la Iglesia"... Baina, beharbada, Teresak, Jaunari atsegin ematearren, A. Grazian-i beti esana egiteko eta bere barrua oso-osoan zabaltzeko egin zuen botoa esan nahiko du (*Cuentas de Conciencia* 30^a).

aguinduban daguana izatia. Entzuteric ez euquitia. Adisquide lagundu leguijonic ez euquitia.... Ez da ardura. Guztia eguingo davela dino Teresac, bere vijotzian daucan Jesusen amodijo santubagaz. *Omnia possum in eo, qui me confortat* (213). 200

Betoz Teresaren gainera, asten daven saill santuba eragotci leguijuen gach guztia. Visitau beguijee bere gorputza sequeriac, umore chaarrac edo reumatismo zolijac, urte lucetaco colicuac edo errevesetiac, vijotceco minac, eraitecuac³⁹³, alborenguac, palta bagaco buruco alaac³⁹⁴, jan ezinac, loric ezinac ta beste asmau leguizan gorputceco gachac³⁹⁵. Ez da ardura Teresarentzat. Ez davee gachac atceratuco pausu bat bere eguitade andijetan. Guztia daiquet, esango dau Teresac, Jesusen amodijuagaz. *Omnia possum in eo, qui me confortat*. Ez dago Te-[294]resaren goguan ez gorputceco gachen ta ez munducuen bildurric. Jesus maitetutia ta Jesus gaiti gachac iragotia da vere vijotceco poz ta atseguin guztia. Edo Jesusen icenian padecidu, edo Jesus icustia gaiti ill, da Teresaren betico cantia. *Aut pati, aut mori*³⁹⁶. ¿Cer eguingo ez dau, alan Jesusen amodijo ixuagaz sendotuta dagan vijotzac? Guztia daiquet, esango dau. *Omnia possum*. Ara, cristinaubac, Teresa, emacume bat eguitian sendua ta animosua. *Ecce mulierem fortem*. 205 210 215

Alperric armauco da impernu guztia Teresaren contra, asi daven saila era-gozteco. Asmauco deutseez guzur astunac. Desondrauco davee embusteratzat, echiceratzat, endemoniadatzat edo zorotzat. Zamaituco davee inquisicinioagaz³⁹⁷. Sartuco davee carcelan³⁹⁸. Largaco deutsee compesoriac. Castigauco 220

(213) Philip. c. 4.

109 Ezda Ba

³⁹³ "Eraiteco": sukar mota bat, hiru egunik behin berriro ematen duena, gaztelaniaz "terciana".

³⁹⁴ "Buruco alaac": buruko minak.

³⁹⁵ Izan ere, santa Teresa sufrimenduz eta gaixotasunez beterik zegoen, batez ere azken urteetan. Gaixotasun hauetaz berberak ematen dizkigu noizbehinka albiste batzuk (*Vida* 3,3; 5,2; 13,7; 32,7.10; *Carta* 1574 mediados de junio; 1581-VII-14, etab.), esaterako, sarri-sarri izaten zituen odol-botakak (*Vida* 40,20). Teresaren azken urteetako gaixotasun eta minei buruz beraren idazkari eta gaixozaina izan zen Ana San Bartolomek hitz egiten digu; hau miretsirik zegoen, guztia hain adoretu eta hain pozik nola eramaten zuen ikusirik (ik. *Obras completas*, I.t., Roma, 1981, 6, 671, 306-307, 447, 507, 681, 745. or., etab.).

³⁹⁶ Frai Bartolomek latinezko esaera darabil; Ordena barruan hain ezaguna den esaera, santa Teresa berak honela adierazten du: "Señor, o morir o padeder; no os pido otra cosa para mí" (*Vida* 40,20).

³⁹⁷ Frai Bartolomek inkisizioaz hitz egiten du hemen, eta puntuaren ondoren kartzelan sartu zutela dio. Baina esaldi batak ez du bestearekin zerikusirik, gertakari guztiz desberdinak baitira. Egia esan, santa Teresak izan zituen gorabehera batzuk inkisizioarekin, betiere salaketa faltsuengatik, eta horren guztiorren azpian bere bizitzaren eskuizkribua zegoen. Lehenengo ikaraldia 1574an izan zuen; Cordoba-ko inkisizioa, ikuskariak zituzten Avilako Joan maisuaren ikasle ba-

davee bere aguintari nausijac³⁹⁹. Jaguico dira bere contra erri osuac. Perseguiduco davee bere aiztaac, bere nevac, bere gurasuac ta bere adisquidiac. Birrinduco deutseez combentu barrico asi dituban ormaac. Aguinduco deutsee, pena andijen beian, ostera ez aitatuteco emacumen bururaco ez dirian
 225 asmo areec. En pin, escomulgauco davee Teresa⁴⁰⁰, pensamentu santu arei ichi daguijuen. Baina alperric. Ez davee bildurtuco bere vijotz sendua ta indartsuba. Ez navee icaratuco, dino, ez impernubac, ez erijotciac, ez carcelac, ez desondriac, ez zamaijac, ez nire contra jagui aldedinec, millaca badira bere. *Non time-[295]bo millia populi circundantis me* (214). *Ecce mulierem fortem*.
 230 Aimbeste ezinen ta eragozlaren contra sendotuten da Teresa Jesusen amodijo santubagaz ta oracinoiagaz, bere pensamentu andijac mundubari eguinaz eracusteco. Urte lucetaco cerubari erregutubagaz; Jesus maitetubagaz ta oracinoe eguiazuagaz; gorputceco gachai casuric eguin ezagaz; mundubari nai evana esaten ichijagaz; humildadiagaz, paciencijagaz ta ixilic egonagaz; guztiai mesede eguinagaz; ta ene erlignioia barristetari egunian baino egunian gogo gueijagogaz ta animo senduaguagaz batian cartaz, bestian esanez, bestian errazoez, bestian millagroz ta beti eguinaz equinda, lautu cituban Teresak bere asmo santu, altu ta andijen ezeguintzaco mendi guztia. Isildu evan impernuba. Arguitu cituban uts eguitez illunduta egozanac. Bereganatu cituban, leen bere contra cirianac. Irabatci cituban arerijuen vijotzac. Ta equi evan dichia, berac pensau evan leguez, Carmengo erlignioe zabala barristauta
 235
 240

 (214) Psalm. 3.

tzuk aztetzen ari zela, ama Teresaren liburu aipatu zen, eta liburu hori eskuratu nahirik, Madrileko inkisizioarekin harremanetan jarri zen. Honetaz hainbat adierazpen daude Teresaren kanonizazio-prozesuetako aitopenetan. Ziur aski gertakari hau du gogoan Alvaro de Mendoza apezpikuari ondorengo hau idazten dionean: "Cada día entiendo más la merced que me hace nuestro Señor en tener entendido el bien que hay en padecer" (*Carta* 1575-V-11). Bigarrenez ere Andaluzian izan zen; salaketa faltsua, oraingoan, Maria del Corro-rengandik zetorren; emakume buruarina zen eta karmeldar teresiarren komentuan sartzea nahi izan zuen (*Carta* 1576-IV-29)... Gauzek oraindik larriagora jo zuten, inkisizioak Ama Teresaren bizitza-liburuaren eskuizkribua eskatu zuenean. Inkisidoreak laster ohartu ziren salatariaren irudimen gaixotiaz; hala ere, Ama Teresa zorrozki aztertu zuten epaileek eta hauentzat gauza batzuk, kontzientziako kontu-ematekoak idatzi behar izan zituen (*Cuentas de Conciencia*, 53^a y 54^a). 1580an, inkisidore nagusi eta Toledoko artzapezpiku Gaspar Quiroga kardinalak esan zien Ama Teresari eta Aita Graziani, jaso zezaketela inkisizioan zegoen bizitza-liburu, hango doktrina zuzena eta mesedegaria zela-eta... Egia esan, Teresak ez zuen agertu inkisizioaren inolako beldurrik, bere nagusi eta adiskide Aita Grazianek dioskunez.

³⁹⁸ Ik. 397.oharra (1105-1106.or.).

³⁹⁹ Ik. 397.oharra (1105-1106.or.).

⁴⁰⁰ Garai hartan ohitura zen, gauza batzuk eskumikupean betetzeko agintzea (*ik. SANTA TERESA, Fundaciones* 15,12; *Carta* 1578-I-16; 1578-X-4; etc.). Eskumikua hurragotik ikusi zuen 1576an batez ere (*Carta* 1576-I: "aunque el padre fray Angel ha dicho que vine apóstata y que estaba descomulgada. Dios le perdone"); eta 1577an ere bai, La Encarnación komentuko lekai-meen arazoan (*Carta* 1577-XII-4; 1577-XII-7; 1577-XII-10).

icusteco. Ogueta amabi combentu⁴⁰¹ ta eleisa barri Jesus maitiari bere egonlecutzat ta jardin loratsutzat⁴⁰² Teresac berac eguiteco. Jesus maitetubari aimbeste esposo ta esposa ortuztu combentu barrijetan sartuta esquintceco. *Ecce mulierem fortem.* 245

Barristetan dau Teresac Espainia dichosuan Elias, gueure patriarca santubaren espiritu, celua, pobrecia ta penitencija. Zabalduten di-[296]tu Palestina, Tebaida ta Egitoco ermitaino santuben barubac, ixiltasuna, ortoztasuna, latztasuna, azotiac ta gorputzaren penagarrijac. Baita apostolubere eracutsija ta aingueruben coru ederrac ta garbitasun encantagarrijac bere. ¿Baina ceimbat lecutan? ¡Ah! Abilan, Medinan, Malagon, Vailladolicen, Toledon, Pastranan, Salamancan, Alvan, Segovijan, Veasen, Sevillan, Carabacan, Villanueban, Palencian⁴⁰³, Sorian, Granadan ta Burgosen Monja bere alaventzat. Ta casic errijetan euretan ta beste ascotan Carmen Ortoceco prailentzat. Teresac combentu barri oneec guztioe Espainian ta Portugalen berac eguinda⁴⁰⁴, bialdu cituban bere semiac eta alavac Prancijara ta beste erreinubetara Carmen Ortoceco erliginoe barristauba zabalduera⁴⁰⁵. ¡Oh, santiaren vijotz andija ta eguilia! 250 255

⁴⁰¹ Frai Bartolomek ongi ezagutzen zuen Santa Teresaren historia eta bere Ordenakoa; izan ere, Santa Teresak fundazioak egiten ziharduen urteetan, 1562-1582, honek eta honen laguntzailuek 32 komentu fundatu zituzten. *17 komentu lekaiemeenak*, Bartolomek berak kontatzen digunez: Avila (1562), Medina del Campo (1567), Malagón (1568), Valladolid (1568), Toledo (1569), Pastrana (1569), Salamanca (1570), Alba de Tormes (1571), Segovia (1574), Beas (1575), Sevilla (1575), Caravaca (1576), Villanueva de la Jara (1580), Palencia (1580), Soria (1581), Granada (1582) eta Burgos (1582). Eta 15 komentu fraideenak: Duruelo (1568), Pastrana (1569), Mancera (1570), Alcalá de Henares (1570), Altomira (1571), La Roda (1572), San Juan del Puerto (1572), Granada (1573), La Peñuela (1573), Sevilla (Los Remedios, 1574), Almodóvar del Campo (1575), El Calvario (1576), Baeza (1579), Valladolid (1581), Lisboa (Los Remedios, 1582).

⁴⁰² Ik. 389.oharra (1102-1103.or.).

⁴⁰³ *Placencian* idatzi zuen.

⁴⁰⁴ Argi dago bera ez zela Portugalen izan; horregatik Lisboako fraideen fundazioa fraide karmeldarrek egin zuten; hala ere, Teresak fundazio guztien kontua zehatz-mehatz zeraman...

⁴⁰⁵ Frai Bartolomek hemen handi-handika dioenak pixka bat argitu beharra du.

a) Frantziako XVI. mendeko gertakari sozio-politikoengatik zeharo kezkatuak zebilen Teresa eta honela dio: "lloraba con el Señor y le suplicaba raemediase tanto mal. Parecíame que mil vidas pusiera yo para remedio de un alma de las muchas que allí se perdían"; zerbait egin nahi zuen, baina bere burua makala eta "emakume" txikia ikusirik, bere esku zegoen guztia egitea erabaki zuen: ebanjelioko aholkuak alabait zintzoen bete, lekaime taldetxo bat bizitza hori egiteko elkaturik (SANTA TERESA, *Camino de perfección* 1,2). Behin eta berriro aipatzen ditu luterotarrak, Elizan gertatu zen hausturagatik asko sufrituz (*Vida*, 32,6; *Camino de Perfección* 35,3; *Fundaciones* 18,5; *Cuentas de Conciencia* 3,8; *Moradas*, Conclusión 4;).

b) Bera bizi zela joan ziren fraide karmeldar teresiarrak Kongora... A. Gracián Probintziala zela (1581-1585) izan ziren karmeldar misiolarien lehen hiru espedizioak Kongora, hauetariko lehenengoa oraindik Ama Teresa bizi zela (Kongora joan zen lehenengo espedizioa 1582ko apirilaren 6an irten zen, bigarrena 1583ko apirilean eta hirugarrena 1584ko apirilean), eta Mexikora joan zena 1585eko uztailaren 11n. Kongora zihoazen misiolarien agrietan data hau agertzen da: 19.3.1582, MHCT 3, 260 eta Mexikora zihoazen misiolarien agrietan, berriz, beste hau: 17.5.1585, MHCT 3, 277.).

260 ¡Celan beguiratu guinaijo berari! ¡Nogaz bat eguin guinai bere anditasuna ta
 eguite ecertacua? ¡Nor arrituten ez da icusi ezquero emacume bat, zubez cho-
 chatzat, simpletztat ta ecertaco eztat edo alperricacotztat daucazun monja bat,
 beti gaisoric, beti minez, beti alaz, inos bere gach bat edo beste bat bagaric,
 berrogueta aimbeste urtian loric eguin ez daven monja pobre bat, impenu
 265 guztia, ta esateco, mundu guztia bere contra ditubala; icusi ezquero, dinot,
 onaco emacume bat, aimbeste lani ta sail andiri cobru emoten deutseela? ¡Ta
 impernubaz beste arerijo guztia bere adisquide andi eguiten ditubala? Au
 eguin evan bada Teresac Jesus gaiti. *Ecce mulierem fortem.*

[297] Derichat, icusten dodala ene Ama santa Teresa matia celan ibilico zan.
 Ain laster coruban ta ain laster voticacua artuten. Ain laster legue barrijac egui-
 270 ten ta ain laster ordenac emoten. Ain laster echiac erosten ta ain laster ezca-
 tceco cereguinac eguiten. Ain laster eleisa barrijac ta combentubac orniduten
 ta ain laster monjai conciencijaco dudac quenduten. Ain laster Erromaraco car-
 tac escribiduten ta ain laster aloverecuac topeetan. Ain laster... ¡Baina nos
 275 amaitu? Egunero cobru emoten eutseen santa Teresac calenturiari, gaixuari,
 oracinoiari, barubari, disciplinari, cilicijuari, erreguiari, obispuai, juezai, com-
 pensoriai, prailiai, monjai, combentuguintzai, eleisaguintzai, opicialiai, alovere-
 cuai, zordunai ta beste duque, marques, conde, caballero, seinora ta santia
 280 cerbaitetaraco topau even guztiai. Au da, cristinaubac, santa Teresaren carta
 ta liburu cerucuetan ondo iracurten dan mirarija. Santa Teresaren eguitade andi
 guztietati ez da chicarrena, aimbestegaz ta aimbeste sail andi ta chiquitan
 tratauta, Santa Teresaren quexa chiqui bat bere artu emonetan inoc ez euqui-
 tia. *Ecce mulierem fortem.*

Moises bat dirudi Teresac, legue barrijac eguinda, Egipto munducoti atera
 daven Carmengo gentia governetan. Elias bat diruri, zelo santubagaz Jesusen
 285 ondria zaintuten ta pecatari gogorrac zamaituten. Samuel bat dirudi, erreguiari,

268 ibilicozan Ba 271 cer eguinac Ba

c) Oso garrantzitsua izan zen karmeldar lekaima talde bat, 1604an, Frantziara joatea eta beste talde bat Europako beste toki batzuetara joatea. Horretan protagonistetariko bat Ana San Bartolome dugu, Santa Teresaren idazkari eta gaixozaina izan zena; honek, ama fundatzailearen eragin apostolikoak jarraitu zituen, eta argi eta garbi adierazten du Ama Teresac esan ziola Frantziara joateko fundazioak egitera. ("Por lo que pregunta V.R. si la Santa me dijo que viniese a la Francia en su vida bien me mostraba deseos que viniésemos, mas después de muerta me dijo un día: *Es menester trabajar y hacer lo que yo había de hacer* Y una vez o dos me parece que fueron as que me puso en el camino y venía conmigo" (*Autobiografía B* 12, 11, ik. *Obras completas* 1.t., Roma, 1981, 473. or.. Ikusi Frantziako Karmeldarren lehen fundazioei buruzko kontakizunak: 1.t., 171-189.or.). Ana San Bartolome izan zen pertsona berebizikoa eta Jainkoak bidalia, Frantziara egin zen espedizioak emaitza ona izan zezan.

ta andijai cer eguin biar daveen eracusten. Daniel bat diruri, ceruco misterijo san-[298]tubac, altubac ta ezcutucuac arguitara ateraten. Bautista bat dirudi, bacartasunac santututa, penitencija ta Jesusen amodijua prediquetan. San Paulo bat diruri, Eleisa barrijac eguiten, obispo jaunai, sacerdotiai ta compesoriai eracutsija ta consejubac emoten. Serapin bat diruri... Baina ez daquit, neure entzula onac, cein aldetara beguiratu, nun topetan ez dituban Teresaren eguite santubac ta mirarizcuac. Ta guztiac Jesusen amodijo santubaren icenian. Esan daigun, bada, andijac diriala Jesus bere Esposuarentzat santa Teresac eucazan pensamentubac ta Jesus gaiti eguin cituban biarrac. *Ecce mulierem fortem*

¡Oh, ene Ama santa Teresa Jesusena! Ceu zara Jerusalengo alava eguijazuca. Ceu zara Israelgo alegrija ta poza. Ceu zara Espaina guztiaren ondria. Ceu zara Eleisa guztiaren pillar sendua ta eracusla arguija. Ceu zara san Josepe bedeincatubaren devocinoe eguijazcuca cristandade guztico vijotcetara zabaldu cendubana⁴⁰⁶. Ceu zara Jesusen esposa maitetuba ta ceruco joija ederrez apainduba. Ceugana gatoz, bada, guztioc, santa Teresa vijotcecuca, ceu Jesus matia-
ren aurrian vitarteco imintera, jadiichi daiguzun Eleisa guztiarentzat, gueure erregue jaunentzat ta Espainaco pamelija guztientzat arimaco gracia ta guero ceruco glorijs. Amen.

300 Ceu gana *Ba*

⁴⁰⁶ Hau nahiko zabaldurik dagoen iritzia da, batez ere Ordena barruan, san Joserenganako jaierei egundoko indarra eman ziola santa Teresak (ik. SANTA TERESA, *Vida* 6; 32,11; etab.); bere idazkari eta gaixozain Ana San Bartolome dohatsuak jaso zuen, horretan ere, Ama Teresaren leku-koa (ik. Julen URKIZA, *Beata Ana de San Bartolome, heredera del josefinismo teresiano* Estudios Josefinos 51 (1997) 223-242), eta gero Karmeldar Teresiarren Ordena osoan bizi eta zabaldu izan da san Joserenganako jaiera hori. Guretzat oso interesgarria da Higinio Gandariasek egindako idazlana. Idazlan horretan san Joserenganako debozioa Markinan aztertzen du; karmeldarrek, eta hauen artean Frai Bartolomek, zabaldu zuten debozio hau (HIGINIO DE SANTA TERESA, *Devoción al Patriarca San José en la Villa de Marquina (Vizcaya)*, Estudios Josefinos 23 (1969) 231-262.

[299]

TOPA-LECUBA

305 VI AGUINDUBA

I. Icasiquizuna. Ceinetan eracusten dan, cer eragosten daven Jaungoicuac aguindu onetan; ce premina andicua dan, cristinaubac ondo jaquitia aguindu onetaco eracutsija. (3)

310 II. Icasiq. Ce ondotsuba, zabala, lucia ta altuba dan castidadiaren contraco pecatubaren echia. (13)

III. Icasiq. Juangoicuac lotsarizco pecatubari celan beguiratuten deutsan. (23)

IV. Icasiq. Lotsarizco pecatubari celan beguiratuten jacon impernuban. (33)

V. Icasiq. Pecatu loijac mundubari ce echuria emon deutsan. (43)

315 VI. Icasiq. Lotsarizco pecatubac goitu ditubeneen exemplubac ta pecatuba goitu daveneneen exemplubac. (55)

VII. Icasiq. Ceintzuc dirian castidadiaren contraco eguitezco pecatubac. (66)

320 VIII. Icasiq. Verbaz nos austen dan seigarren aguinduba; nai ustez edo consentimentuz noz austen dan. (75)

IX. Icasiq. Virginidadiaren edertasuna ta castidadiaren valijua. (85)

VII. AGUINDUBA

I. Icasiq. Cer dan lapurretia. Ceimbat modutacua. Ta ce pecatu dan. (96)

II. Icasiq. Cetan dagan logrerijaco lapurretia. (106)

325 III. Icasiq. Tratubetan oi dan lapurretia. (117)

II. Zatiya. [300]

IV. Icasiq. Pisu ta neurri gaistoco lapurretia. (127)

V. Icasiq. Nos eta celan pecatu eguiten daveen aguindu onen contra gurasuac, umiac ta otsegina. (137)

330 VI. Icasiq. Celan erremedijau biar dan inori aciendan eguindaco caltia. (149)

VIII. AGUINDUBA

I. Icasiq. Ce ezaina dan testigantza palsua. Ce zuzenac izan biar daveen juezac. Cer eguin biar daven letraubac, escribaubac eta procuradoriac. (159)

335 II. Icasiq. Cer dan guzurra esatia. Ta ce pecatu dan. (171)

III. Icasiq. Celan pecatu eguiten dan inoren paltac esanagaz edo inor gaiti deungaro esanagaz. Ta nos ez dan pecatu inoren paltac esatia. (182)

306 Cereragosten *Ba* 311 deutsan] deutzan *Ba* 325 oidan *Ba*

- IV. Icasiq. Cer dan gaisqui esaliari entzutia ta gaisqui esatiaren entzunlari-
jac cer eguin biar daveen. (194)
- V. Icasiq. Ce gauza chaarra dan miinagaz lagun arteco baquia ta adisqui- 340
detasuna galdutia. (205)
- VI. Icasiq. Cer dan juzgu gaistua edo inor gaiti deungaro pensetia. (216)
- VII. Icasiq. Cer eguin biar daven cristinaubac, inor gaisqui ez juzguetaco.
(227)
- IX. ta X AGUINDUBA (238) 345
- I. Icasiq. Beredatzi eta amargarren aguindubac cer escatuten deuscluben,
celan aguindu oneec bat ez dirian zazpigarren ta zortcigarrenagaz; celan bat ez
dirian alcarren artian. [301] (238)
- II. Icasiq. Cer aituten dan gurarijaren icenagaz. Ceimbat modutacuac dirian
gurarijac. Nos dirian onac eta nos charrac. (248) 350
- III. Icasiq. Cetati datoazan gueure gogora gurari charrac. Cegaiti dirian deun-
gac, edo eragotcijac. (259)
- IV. Icasiq. Gurari deungac goituteco, cer eguin biar dogun. (270)
- Sermoia: Neure Ama santa Teresaren ondraraco ta alabanzaraco.
- UTS EGUITEEN EZAUBERIA 355
- Fol. 6. lin. 7. goubijac. *Léase:* garbija.
- Fol. 24 . lin. 4. beordenetan. *Léase:* bere ondenetan.
- Fol. 27. lin. 8. zoxiguestoco. *Léase:* zoriguestoco.
- Fol. id. lin. 12. carina. *Léase:* carinua.
- Fol. 41. lin. 11. astuta. *Léase:* aytuna. 360
- Fol. 58. lin. 17. eguijzoz. *Léase:* eguijozu.
- Fol. 91. lin. 16. vUILLETAN. *Léase:* ivilletan.
- Fol. 92. lin. 24. chaarri. *Léase:* chaarrai.
- Fol. 101. lin. 12. daba. *Léase:* bada.
- Fol. 103. lin. 8. gueijo. *Léase:* geuijago. 365
- Fol. 119. lin. 29. ugaritasusac. *Léase:* ugaritasuna.
- Fol. 138. lin. 5. larraguei. *Léase:* larregui.
- Fol. 150. lin. 22. zentzuac. *Léase:* zentzunac.
- Fol. 151. lin. 54. otsegunari. *Léase:* otseguinari.
- Fol. 156. lin. 1. abadau. *Léase:* albadau. 370
- Fol. 169. lin. 14. beenan. *Léase:* beeban.
- Fol. 177. lin. 25. Irsterrago. *Léase:* lasterrago.

338 esaliari] ezaliari *Ba* 343 cristinau bac *Ba* 351 datoazan] datosan *Ba* 354 ondra-
raco] honrraraco *Ba* 358 27] 22 *Ba*

Fol. 196. lin. 16. aria. *Léase:* eria.

Fol. 219. lin 20. dtubana. *Léase:* ditubana.

Fol. 224. lin. 30. oquiten.. *Léase:* equiten.

Fol. 276. lin. 20. ausi. *Léase:* jausi.

ELEISACO ZAZPI

SACRAMENTUBEN

ICASIQUIZUNAC

SARRERA

Sarrera orokorrean egin dugu liburu honen deskripzio laburra (*Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac...*, III. *Zatija*, Iruñea, 1819, VI - 376 orr., 20 x 14 cm); orain *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburuki honen berezitasun batzuk agertzea dagokigu.

Lehen bi liburukietan hamar aginduak azaldu baditu, hirugarrenean Elizako zazpi sakramentuei buruzko hitzaldi kateketikoak agertuko ditu, 36 *icasiquizunetan* banaturik. Liburu honen hartzailea ere lehen liburukiarena bera da.

1818ko azaroaren 26an, Palentzian egin zen Ordenako kapitulu jeneralean Frai Bartolomereren gutun bat irakurri zen, doktrina kateketikoen liburu bat argitaratzeko baimena eskatzen zuela; batzarrak liburu bi karmeldarren esku utzi zuen zentsurarako; hauek ziren: A. Damian Santa Teresarena, Lazkaoko komentukoa eta A. Manuel Jesusena, Iruñeko komentukoa (MBN, Esk. 1650, *Libro de los Definitorios generales* 81.or.). Ziur aski, agiri horrek hurrengo urtean agertuko zen *Icasiquizunac* saileko hirugarren liburuaz dihardu. Eta Frai Bartolome oraindik Markinako Karmengo priore zenez gero, inprimatze-lanak, probak zuzentzea etab., beste karmeldar baten gain izango ziren; beharbada, Iruñeko fraideren batek egingo zituen lan horiek; A. Manuel Jesusena bera izatea ere ez litzateke harritzekoa.

Hirugarren liburuki honek, aipatzea merezi duen berezitasun bat du. Liburuak lau orrialdeko hitzaurre edo aurkezpen bat dakar gaztelaniaz, Kalahorrako apezpiku Atanasio Puyal Poveda-ri zuzendua. Beharbada, honen zergatia, apezpikuak 1818ko urtarrilaren 8an apaiz euskaldunei egindako gutuna izan liteke; pulpitutik Frai Bartolomereren idazki kateketikoak (*Icasiquizunac*) irakurtzeko esaten zien haiei, igandeetako moraleko hitzaldi horiek argi eta oinarri sendoaz agertzen baitziren (“aparecían con mucha claridad y solidez”).

Liburuaren azken orrialdean, 380.ean, inprimategiko 16 hutsen zuzenketa dator, baina hutsak askoz ere gehiago dira; 142 bat kontatu ditugu.

Oharretan eta aparatu kritikoa erabilitako metodoaz, lehen liburukiaren sarrera berezian esandakoa bera esan beharko litzateke.




ELEISACO ZAZPI
SACRAMENTUBEN
ICASIQUIZUNAC,

AITA PRAI BARTOLOME

Santa Teresac Marquinaco Carmen

Ortoceco Prioriac ateraac.

III ZATIJA.



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ



Iruñean: Rada Alargunaren liburuguillaan.
1819 Urtean.

AL ILUSTRISIMO SEÑOR D. D. Atanasio de Puyal y Poveda, Obispo de Calahorra y la Calzada, del Consejo de S. M. Señor de Arnedillo...

ILUSTRISIMO SEÑOR.

Es más que justo que yo el menor de sus reconocidos capellanes consagre a V.S.I., Cabeza visible de esta grande diócesi, las pláticas catequísticas en el idioma bascongado sobre los siete sacramentos de la santa Madre Iglesia. Habiendo pues dedicado las del Decálogo al V. Clero del País Bascongado, en cuya gracia se dieron a luz y merecido particular atención de él y de V.S.I.

5

¹ Frai Bartolomek Kalahorrako bere apezpikuari idazten dio eskaintza hau. Beharbada, apezpikuak, 1818ko urtarrilaren 8an, Frai Bartolomeren liburua (eta Pedro Astarloarena) pulpituetan erabiltzeko agindu izanak eragingo zion eskaintza hau idaztera: "Y por lo que mira a las Parroquias de las Provincias Bascongadas, en que se usa su propio idioma, para las quales no habia hasta ahora publicados tales Cathecismos, en atención a que ya se ha socorrido esta falta, con no pequeño consulo nuestro, habiéndose publicado en nuestros días, dos obras impresas en lengua Basquenze, una en Bilbao, por el R.P.D. F. Pedro de Astarloa de la Orden de Sⁿ Fran^{co} y otra en Irun[a], por el R.P.F. Bartolomé de S^a Teresa, Carmelita Descalzo, las quales contienen Pláticas Doctrinales y Morales, en que se explican con mucha claridad y solidez, las quatro partes de la Doctrina, acomodadas a el uso de los párrocos, con cuyo auxilio quedan desvanecidas todas las excusas, que han podido alegar estos, para omitir dha explicación, por tanto encargamos y ordenamos a todos, que procuren proveerse de alguna de dhas obras, para que quando les falta tiempo, o disposición para tomarlas de memoria, las lean por el Libro a el pueblo; pero con sentido, con claridad, y despacio; y quando alguna plática fuese demasiado larga, la dividen en dos, para que de esta manera, no sea molesta a el Pueblo, y antes les sea más provechosa, pues por esta razón encarga el S. Concilio de Trento, que las pláticas de los Párrocos en medio de la misa, sean sencillas, claras y breves" (ik. KEA, originala ezin aurkitu izan dugu; beste paperean artean galdua izango da, agian; fotokopia gordetzen da).

Atanasio Puyal Poveda (1751-1827), Alpera-ko semea (Murtzia); Murtziako San Fulgentzio seminarioan egin zituen ikasketak (1762) eta geroago Cartagenako seminarioko irakasle eta errektore izan zen (1780). Eliz hizlari bikaina izanik, Madrileko San Isidron egin zen lehiaketan kalonje-maila lortu zuen. Frai Bartolomek dioen bezala, Lorenzana kardinalaren aholkulari izan zen eta Madrileko kalonjea (1805). 1814az gero Toledoko apezpiku laguntzailea zen, baina handik hil batzuetara (1814-IX-1) Kalahorrako apezpiku izendatu zuten, 1815eko urtarrilaren 15ean kargua harturik. Ardura handia agertu zuen gerra osteko garai zailtan elizgizonek zuten egoera negargarriaz. Elizaren eskubideak tiranoen boterearen aurrean babesten oso adoretzu agertu izan zen beti. Gutun pastoralak idatzi zituen: *Cartas Pastorales* (Calahorra, 1825). (Ik. Eliseo SÁINZ RIPA, *Sedes episcopales de La Rioja. Siglos XVIII-XIX* Logroño, 1997, 269-286).

10 aquellas (1), con la más rendida sumi-[III]sión y sincero reconocimiento pre-
sento éstas a V.S.I., seguro de que la pastoral sombra de V.S.I. les sobrar , para
que el p blico disimule sus defectos y produzcan los frutos que de ellas se
esperan.

15 No Dudamos, Ilustr simo Se or, la elecci n de la divina Providencia en
V.S.I. no s lo para arrancar y destruir los vicios y falsas preocupaciones que el
enemigo de las tinieblas ha sembrado en la era pasada de horrores y de liber-
tinage aun en el jard n m s santo y cat lico, sino tambi n para edificar y plan-
tar las santas y s lidas virtudes en los corazones de sus obejas con la leche de
la sana y evang lica doctrina. Esto es puntualmente, Ilustr simo Se or, lo que
los fieles, sus verdaderas obejas, esperan del ministerio pastoral de V.S.I.

20 Ni esperaba menos seguramente de los progresos superiores, con que
V.S.I. se distingui  en el estudio de la sagrada teolog a, madre de las verdade-
ras ciencias entre los alumnos y entre los maestros catedr ticos de San
Fulgencio de Murcia: El eminent simo cardenal Lorenzana, Primado de las
Espa as² y grande apreciador de la s lida virtud y de las letras [III] cuando le
25 eligi  a V.S.I. para te logo consultor suyo. El desinter s y exemplar edificaci n
con que sirvi  V.S.I. despu s el canonicato de San Isidro Real de Madrid; el
infatigable celo y la alta prudencia con que desempe  V.S.I. los sagrados
deveres de teniente capellan mayor y auxiliar de nuestra Corte en tantos y tan
climat ricos³ a os para los ministros del santuario; y la constante y apost lica
30 magnanimidad con que ha sostenido V.S.I. los sagrados derechos de los pas-
tores de Jesucristo y la Religi n de nuestros padres en el tiempo y circunstan-
cias m s temibles de su absoluta abolic n con la dignidad y autoridad de
gobernador del Arzobispo de Toledo, durante la mansi n de la regencia del

35 (1) Orden  S.I. por una carta circular, que los Se ores Curas bascongados de su
Opispado leiesen del p lpito al pueblo las pl ticas del Autor...

² Francisco Antonio de Lorenzana (Leon 1722 - Erroma 1804); gaztetxo zela jesulagun eta beneditarretan ikasi zuen; teologia eta zuzenbide bietako ikasketak egin zituen Valladolid eta Avilako unibertsitateetan... Mexikoko artzapezikua (1766); ekintza pastoral eta sozio-kultural bizi-bizia izan zuen. Garrantzi handikoa izan zen berak bildu zuen eta bera buru zela egin zen IV. kontzilio probintziala (1771). Toledoko artzapezikua (1772); 1789an kardinal izendatua. Lan ugari idatzi zituen (Ik. L. SIERRA, *Lorenzana, Francisco Antonio de*, in DHEE 2 (1972)1346-1348.

³ Bizi izan zituen urte larriez ari da: 1790. urteaz gero Toledoko apezpiku laguntzailea izan zen Madrilerako; frantsestean Borb n kardinalak Toledoko artzapezikutegiko gobernari izenda-
tu zuen, eta hori zela eta hainbat buruhauste eta nahigabe jasan behar izan zituen.

1810eko ekainaren 13an, Jose Bonaparteren gobenuko Errege Dekretu batez, Astorgako apezpiku titular izendatu zuten, lehendik zegoena kendurik; Puyal-ek ez zuen onartu izendapen hori, legezko apezpikua bizi zelako; adoretzu erantzun zuen, atzerria eta heriotza bera ere nahia-
go zituela Elizan zisma sortzea baino. (Ik. Eliseo S AINZ RIPA, *Sedes episcopales de La Rioja. Siglos XVIII-XIX*, Logro o, 1997, 272-273).

reyno en la ciudad de Cádiz; bien acreditan el alto concepto que formó el eminentísimo Lorenzana de la sólida virtud y consumada sabiduría de V.S.I.

Nosotros, ¡gracias al Todo Poderoso! somos los que inmediatamente disfrutamos de los beneficios y paternales desvelos de V.S.I. ¿Qué otra cosa son las Stas. Misiones, que por mandato de V.S.I. se han predicado en toda la diócesis, has-[IV]ta en las aldeas muy reducidas, sino el saludable pasto espiritual que el vigilante pastor dispensa a sus ovejas? ¿Qué otra cosa son tantas y tan eficaces cartas pastorales que V.S.I. ha dirigido desde el momento de su ministerio apostólico en esta diócesis, ya al V. Clero en particular e ya a todos los fieles en común, sino luz, medicina y alimento de nuestras almas para corregir la relajación, mejorar las costumbres y poner el debido orden en la casa del Señor, y los frutos de la justicia y caridad en la tierra de los santos? ¿Qué otra cosa es lo que experimentan los fieles de este vasto obispado en las santas e incansables visitas de V.S.I. con tan quebrada salud, sino silvos amorosos de su pastor, enseñanza evangélica de su maestro, voces caritativas de su padre, limosnas liberales de su bienhechor y justos mandatos de su vigilante prelado? Se oye con justo agradecimiento a V.S.I. que muchas doncellas han abrazado el claustro con las limosnas de V.S.I., que las viudas y los huérfanos le tienen por su amparo, que los pobres y los mendigos por su refugio, que las comunidades religiosas por [V] su devoto bienhechor, y que todos por su justo y benéfico padre y pastor⁴.

¿A dónde pues yo, pobre de mí, puedo acogerme con mis pláticas bascongadas, corto trabajo de mis verdaderos anhelos, en obsequio de los señores curas y de los fieles bascongados, compuestas para la necesaria y fundamental instrucción de todo fiel cristiano, sino a la sombra de V.S.I.? Yo no he hecho, Ilustrísimo Señor, en estas pláticas más que reunir a un orden predicable analítico, claro y breve, en cuanto le es permitido al catequista, lo que es propio, urgente y necesario a la gente de mi País, que casi toda ella vive de trabajo de manos en las montañas, como V.S.I. la ha visto en sus santas visitas, teniendo siempre a la mano el dogma de la sagrada teología y el Catecismo Romano. Me he desviado con todo estudio de las materias abstraídas y opinables. He cargado la mano sobre los abusos, ignorancias o relajaciones más com[u]nes y más difíciles de corregir, después de explicar la verdadera doctrina de cada materia. Sólo resta, Ilustrísimo Señor, para que el cielo bendiga

⁴ Egin-eginean ere, Frai Bartolomek hemen esaten dituenak, Puyal apezpikuak berak ere agertzen ditu elizbarrutiaren egoeraz ari denean, 1819ko *ad limina* bisitan. Ia elizbarruti osoa bisitatu zuela dio; ebanjelioa iragarri zedin arduratu zela, ongi prestaturiko erlijioso misiolariak bidaliz hiri, hiribildu eta herri gehienetan Jainkoaren hitza aldarrikatzera... (Ik. J. Ignacio TELLECHEA IDIGORAS, *Diócesis de Calahorra y Santo Domingo. Las relaciones de visitas "ad limina" (1598-189)*. Roma, 1991, 126.or.).

70 estas sencillas pláticas, [VI] las riegue y fecunde la divina gracia, y produzcan copiosos frutos en las almas de sus oyentes, las admita V.S.I. bajo su apostólica protección.

Carmen Descalzo de Marquina 13 de Agosto de 1819.

B.L.M. de V.S.I.

75 su humilde y rendido Capellán

Fr. Bartolomé de Santa Teresa.

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dirian Sacramentubac.*
2. *Noc ichi euscuzan.*
3. *Ceimbat dirian Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuzan sacramentubac.*
4. *Cetaraco ichi euscuzan.*

5

Erromaco Catecismuac sacramentu santuben eracutsija asten davenian, esaten deuscu, neure cristinaubac, "cristinautzaco icasijaren zati guztia escatuten deuscubeela chito ardura andija, aimbat onduen ta ziatcen guztia icasteco ta ezaututeco. Baina sacramentu santuben dotrinia izanic Jaungoicuac aguinduta noraececua gueu salvetaco ta ain onera andicua gueure arimetaraco, berac 10
escatuten davela cura jaunen aparteco arduria ta contuba, aimbat arguiruen, zucenen ta sarrijen cristinau piel guztiai eracusteco. Cristinaubac jaquinda egon ditezan celan prestau biar daveen sacramentu santubac errecibiduteco ta ce gracia ugarijac ceruti artuten ditubeen sacramentu santubaquin; ta sacerdote jaunac gorde daguijen Jesucristo gueure Jaunaren esana, ceinec dinuan (2): *Ez 15
eguijezu chacurrai bota gauza santuba, ezda joija ederrac bota bere lau oine -
cuen artera*".

Emeti ezaututen da, neure entzula onac, ce bierrecua ta premina andicua dan cristinaubarentzat, sacramentu guztiai ta bacochari jago-[4]can doctrinia ondo icastia. Sacramentubac dira ceruco graciajac gueure arimetara erasteco 20
vidiac. Eurac dira Jaungoicuaren ontasunac, Jesucristo gueure Jaunaren guizatasunaren ta erijotza penazcuaren vitartez, guizonetara dacarreezanac. Eurac dira Eleisa Ama santiari Jesus bere Esposo maitiac ichi eutsan jantzi barrija ta graciajzcua. Eurac dira, vizitzaco ura beti darijuen iturri ugarijac ta garvijac. 25
Eurac dira, ceruco jaquiturijac Eleisa santiari ichi eutsazan zazpi pillar mirarizcuac. Leendanaz, anchinati Jaungoicuac guizonai aitu emon gura izan eutseen celanbait⁵ sacramentu santuben ezauberia, euren gracia ta ontasun esan ezin

(2) Matth. c. 7.

12-13 egonditezan *Ba* 16 ez da *Ba* 27 celan bait *Ba*

⁵ Ik. *Icas-II*-ko 40. oharra (929.or.).

leguizanac. Alan sinistu daiquegu, cristinaubac, zazpi sacramentu santub
 30 ezaungarriac edo irudijac diriala Escritura Sagraduban, Jesucristo gueure
 Jaunaren etorrieria ta sacramentubac baino oscozaz leenagoti iracurten ditugun
 aimbeste *zazpico* gauza. Mundubaren *zazpi* edadiac⁶. Espiritu Santubaren
zazpi doiac⁷. Abraanen *zazpi* bildotsac⁸. Garbituteco *zazpi* egunac⁹. Ogui
 jaguigarri¹⁰ bagacuen *zazpi* egunac¹¹. Zacariasen *zazpi* egunac¹². Bere mira-
 35 co arrijaren *zazpi* beguijac¹³. Altariaren *zazpi* inutzutiac¹⁴. Sagrarijoco atiar
 eguin biar oi jacozan atzamarragazco *zazpi* odoldutiac¹⁵. Naaman garbituteco,
 Jordango ibaico *zazpi* muxac¹⁶. Egitoco *zazpi* urte ugarijac¹⁷. *Zazpi* virtute nau-
 sijac¹⁸. Ta beste onaco asco, ceintzubetan Jaungoicuac legue zaarrian marcauta
 ichi euscuzan *zazpi* sacramentu santubac.

40 Sacramentu santuberen onerac ta gracijac neurri bagacuac dira, neure entzu-
 la onac. Bera gaiti cristinaubac imini biar davee chito ardura an-[5]dija,
 Sacramentuberen dotrinia edo eracutsija ondo baino obeto icasteco.
 Sacramentubetan bagoz gauza asco, eleisa guizonai bacarric jagocuezanac.
 Oneec zubei eracusten ni cansetia, alperricuaz gainera, izango litzaateque azar-
 45 tu lotsa arin onecua. Bada, zuben arimen jaola jaunac ta eleisa guizonac ez
 davee ene esanaren biarric, euren eguin biarra ondo cobru emoteco. Cristinau
 piel guztiai jagocuen, guztia icasi biar daveena, guztia ondo jaquin biar

31 Etorri eria *Ba* 36 oijacozan *Ba* 44 cansetia|causetia *Ba* (380.or.: cansetia) 46
 eguin biarra *Ba*

⁶ Historiaren banaketa hau nahiko arbitrarioa bada ere, Frai Bartolomek orduan ohikoa zen zazpi aroko historiaren banaketa zeukan gogoan, esaterako, Harri Aroa, Brontze Aroa, Burdina Aroa, Antzin Aroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

⁷ Ik. Is 11,2-3.

⁸ Ik. Has 21,28-30.

⁹ Lb 14,23; 15,19.

¹⁰ "Jaguigarri": legamia

¹¹ Ik. Ir 12,19.

¹² Ik. Lk 1,23: "Tenpluko bere zerbitzu-egunak amaitu zituenean, etxera itzuli zen". Ebanjelioan ez da esaten zazpi egun igaro zituenean. Zakarias Aaronengandik jatorria zuen apaiz-familiakoa zen; eta Aaronen jatorritik zetozenak asko ziren, 24 taldetan eratuak (ik. IKro 24); talde bakoitzak tenpluaren ardura hartu behar zuen urtean bi aldiz astebetean. Apaizaren sagaratzeak ere 7 egun irauten zuen (Ir 29,35).

¹³ Ik. Za 3,9.

¹⁴ Lb 8,11.

"Inuztu": ihinzatu, ziprztindu; ("asperjar" itzultzen dute gaztelaniara; *inuztute*: "aspersión").

¹⁵ Ik. Lb 16,14. (ik. ere Lb 4,6)...

¹⁶ Ik. 2Erg 5,10,14.

"Mux": uretan murgiltzea; (inguru honetan, bereziki Ondarroan, ezaguna da hitz hau; *Jordango ibaico zazpi muxak*: Jordan ibaiko zazpi murgiltzeak).

¹⁷ Ik. Has 41,1-36.

¹⁸ Frai Bartolomek hiru bertute teologalak (fedea, esperantza, karitatea) eta lau bertute kardinalak (zuhurtasuna, zuzentasuna, sendotasuna, neurritasuna) ditu gogoan.

daveena ta sacramentu santubac errecibiduteco edo bere ariman lecu emoteco guztiac biar daveena da, sacramentu bacoedian ta guztietan esango deutsudana. Baina sacramentu bacoedian izatia ta eguitiac eracustera orduco, esango deutsut icasiqizun onetan sacramentu guztiai jagocuena: 1. *Sacramentubac cer dirian*. 2. *Noc ichi euscuzan*. 3. *Ceimbat dirian Eleisa Ama santiaren sacramentubac*. 4. *Cetaraco dirian*. Entzun eguizu gogo onagaz. 50

I.

Sacramentubac cer dirian aituteco jaquin biar dau cristinaubac, sacramentubaren icenagaz gauza asco aituten emoten diriala. Batzubetan esaten jaco *sacramentuba* edoecin gauza santuri, santuba dalaco beste bagaric (3). Beste batzubetan ixilic euqui biar dan gauciari esaten jaco *sacramentuba* (4). Baita beste ascotan *juramentubari* bere (5). Baina, ez juramentuba, ez isilic euqui biar dan gaucia, ez edoecin gauza santu dira Jesucristo gueure Jaunac Eleisa Ama santiari ichitaco sacramentubac. Sacramentu oneec dira, Erromaco Catecismuac dinuan [6] leguez (6), *aguiri ez dan gracijaren senaile aguirijac, gueu salbetaco, Jesucristo gueure Jaunac ichijac. Invisibilis gratiae visibile signum, ad nostram justificationem*. Esaten da, *aguiri ez dan gracijaren*. Bada, sacramentubac ariman iminten deuscuben gracia ez dogu icusten. Ta icusi bere ezin guinai, espirituzcua dalaco. Baina pediagaz sinistuten dogu. Esaten da, *senaile agurija*. Eleisaco sacramentu guztiac aguirico gaucetan dagozalaco. Batiuan icusten da seina uragaz garbituten ta entzuten dira bautismoco verbac. Compirmacinoian icusten da orijo santubagaz igorzten ta entzuten dira verbac. Compesinoian ta beste sacramentu guztietan aguirico gauzia edo entzun edo icusi edo sentidu leguijana da, sacramentuba eguiteco popuertza biar dana. Au gaiti da sacramentuba *aguiri ez dan gracijaren senaile agurija*. 55
60
65
70

Esaten da, sacramentubac diriala *gueu salbetaco* Jesucristo gueure Jaunac ichijac. *Ad nostram justificationem*. Bada, guero esango dan leguez, sacramentu guztiac eta bacocho ichi euscuzan Jesus maitiac, gueu salbetaco. Senaile ezagun ta agurijetan ichi euscun Jaungoicuaaren Semiac, gueu salbetaco popuertza biar dogun aguiri ez dan gracia. Senailia da san Agustinen esanian, aguiri davenaz gainera, beste gauza bat aituten emoten davena. Senaile batzuc euren izatez aitu eraguiten davee aguiri daveenaz gainera cerbait. Queia da subaren senaile agurija ta berezcua. Beste senaile batzuc, eurenez ez davee 75
80

(3) Ephes. c. 2. (4) Tob. c. 2. (5) Can. Sacram., 2. q. 4. (6) P. 2, c.1, n. 4.

58 biardan Ba 60 biardan Ba 62 ezdan Ba 64 ezdan Ba 66 ezinguinai Ba 69 icustenda Ba 77 ezdan Ba

aguiri daveenaz gainera ecer aitu eraguiten. Baina bai guizonac aintzat artuta [7] dauqueezalaco. Ontzizaren puntaco senailiac esaten dau, ontzi a ce erreinutacua dan. Prailiaren abitubac esaten dau, praile a ce erliginoetacua dan. Ta
 85 alan beste senaile aintzat artu asco. Onetarico Jesucristo gueure Jaunac aintzat artutaco senaile aguirijac dira sacramentu santubac. Jesus Jaungoicuaren Seme guizon eguinac aintzat artu cituban bere sacramentu santuben guezat ura, orijo santu balsamotuba, pecatuben damu aguertuba, oguija ta ardaa, obispo jaunen escu imintia, guizon eta emacumen gorputzac... Ta Jesus gueure
 90 Salbatzaile onac berac izentauta ichi zituban, sacramentuben guei onei esatia gura izan evan verbac bere, ceintzubetan emon euscuzan sacramentu santubac, aguiri ez dan gracijaren senaile aguirijac, gueu salbetaco. Onetan dago, cristinaubac, sacramentuben izate guztia.

II.

95 Jesucristo gure jaunac berac ichi euscuzana sacramentu santubac, inoc bere ucatu ezin legui, pedian faltau bagaric. Bada, Jaungoicuari berari edo Jesucristo Jaungoico ta guizon eguiazcuari jagoco bacarric sacramentubac pundetia¹⁹ edo eguitia. Jaungoicua da bacarric guztia daiquiana. Ta Jaungoico guztiz alsubac emon eu[t]san Jesus bere Seme guizon eguinari ceruco ta lureco
 100 alizate guztia. Alan esaten eutseen Jesucristoc bere apostolubai, gentiai prediquetara ta sacramentubac eguitera bialduten citubanian. *Ceruco ta lureco escubide guztia neuri emon jat*, esaten deutse (7). *Ta juanda, eracultsi egui - jozu mundu guztuari neure leguia ta batiatu eguizuz guztiac* . Emen aituten emoten deuscu Jesucristo gueure Jaunac, [8] bera dala sacramentuguina bacarric. Berac ichi deuscuzala sacramentu santubac. Ta Jesucristoren beraren ice-
 105 nian ta bere virtutiagaz eguiten diriala sacramentu guztia. Augaiti dino san Agustinec (8), cein batac batiatu, cein bestiac batiatu, bardin emoten jacola arimiari sacramentubaren gracija. San Pedroc batiatuten badau bere, Jesucristoc

 (7) S.Matth. c. 28. (8) Tract. 6 in Joan.

82 gainera] gainara Ba 83-84 ceerreinuta cua Ba (380.or.: ce erreinutacua) 89 escuimintia Ba 92 ezdan Ba 95 euscuzanaSacramentu Ba 96 Jaungoicuari] Jaungoicoari Ba 97 guizon] Guison Ba 98 Jaungoicua] Jaungoicoa Ba | Jaungoico] Janngoico Ba 102 emonjat Ba | deutse] deutse Ba 92-93 eguijozu] eguijosu Ba 104 Sacramentu guina Ba

¹⁹ Gure idazleak darabilen fonetika berezia dela eta, batzuetan ez da erraz gertatzen hitzak identifikatzea, batez ere beste euskalkietako irakurleentzat. Hitz hau, *pundau* (fundatu) da; hone-la litzateke partizipiotik aditz-izenerako bilakabidea: *pundau* > *pundaetea* > *pundeetia*; forma hau litzateke harengan normalena, baina bokal bikoitzak, lehen liburuetan ugari sartzen dituenak, asko gutxitzen dira *Icas-III* honetan batez ere.

batiatuten dau. Ta Judasec batiatuten badau bere, Jesucristoc batiatuten dau, 110
 dino san Agustinec. Jesucristo gueure Jaunarenac dira sacramentu guztiac ta
 bacochoa. Ez ceruco aingeru guztiac, ez patriarca ta propeta guztiac, ez apos-
 tolu ta beste arima on guztiac bat eguinda bere, ezin euqueen ta ezin leguije
 gueuri pecatubac parcatutecho ta gracia emoteco duinaco sacramentu bat.
 Orregaiti sinistu biar dogu, neure entzula onac, gueure cristinautzaco sacra- 115
 mentu guztiac eta bacochoa diriala Jesucristo gueure Jaunac gheu salbetaco ichi-
 jac. Alan aguinduten deuscu Eleisa Ama santiac Trentoco bere batzarrian²⁰.

III.

Baita Eleisa Ama santiac berac eracusten deuscu (9) erege gaistuen²¹ con- 120
 tra, Jesucristo gueure Jaunac gueuri ichi euscuzan sacramentubac, *zazpi* diria-
 na bere. Zazpirac contetan ditu Eleisa Ama santiac banaan banaan Trentoco
 batzaar santuban (10). Ta dira: Bautismua, compirmacioia, comunioia, peni-
 tencia, estrema uncinoia, ordia ta escontzia. *Inoc esaten badau, dino Eleisa*
Ama santiac, legue barrico edo evangelijoco sacramentubac, guztiac eta baco -
cha ez diriala Jesucristo gueure Jaunac ichijac; edo zazpi baino guichiago edo 125
gueijago diriala; [9] edo areetati bat edo bat ez dala sacramentu egujazcua,
au esaten davena izan dedilla escomulgauba, izan dedilla madaricatuba, ez
daguijala Jaungoicuagaz parteric izan . Anatema sit.

Zazpi sacramentubetati lelengo bostac preminacuac dira, guizona salbeta- 130
 co. Esan gura dot onegaz, guizonac isten baditu desprijoz lelengo bost sacra-
 mentubac edo areetati bat nai bat, eguingo davela pecatu. Sacramentu baco-
 charen eracutsijan esango da cetaraguino dan euren preminia. Ta celan dirian
 lelengo bostac guztiz biarrecuac, gheu salbetaco. Beste bijac ez dira popuer-
 tzacuac, ez bada gueure escuban Jesucristo gueure Jaunac ichi evan eurac erre-
 cibidutia edo ez erricibidutia. Alan eleisaguizon eguitia ta ezcondutia ez dira 135

 (9) Sess. 7, can. 1. (10) Trid. Sess. 7, can. 1.

110 batiatuten] biatiatuten *Ba* 115 biardogu *Ba* 120 zazpi] zasp *Ba* 126 ezdala *Ba*
 130 Esanguradot *Ba* 135 ezdira *Ba*

²⁰ Ik. *Sacrosanctum, oecumenicum Concilium Tridentinum, additis declarationibus carde -*
nalium ... (I. Gallemart - A. Barbosa - Cardinalis de Luca), Matriti, 1762, Sessio VII (3-III-1547), De
 sacramentis in genere, Canon 1, (51. or.). (Ik. H. DENZINGER - A. SCHÖNMETZER, *Enchiridion*
Symbolorum, Barcelona-Friburgo-Roma, ³²1963, 1600-1601.zk., 381-382.or.).

²¹ Frai Bartolomek *gaiztuen* jartzen zuen hemen; beraz, zuzen zegoen; hala ere, guk *gais -*
tuen jarri dugu, hark ia beti *gaisto* idazten duelako. Hiru bider bakarrik dator *gaizto* obra osoan
 barrena, hain zuzen ere, *Icas-III* honetan; *gaisto*, berriz, sarri-sarri. Sarrera orokorrean hitz egiten
 da, gainerako euskalkietan *-iz* egiten dena, bizkaieraz *-x* edo *-is* egiteko dagoen joeraz (Ik.
 224.or.).

popuertzacuac batenzat bere eurenez, salbetaco. Sacramentu santubai celan ariman lecu emon biar jacuen edo celan errecibidu biar dirian; nos lecu emon biar jacuen; celan cristinaubac prestau biar daven bere parteti, sacramentubai
 140 lecu emoteco; cer eguiten daveen ariman, biar dan prestaera onagaz lecu emoten jacuenian; ceintzuc dirian barristau ezin leguizanac ta betico marquia ariman iraasten daveenac; ta cristinaubac cetan faltau oi daveen sacramentu santuben gainian; one[e]c gauza guztioac eracutsico dira sacramentu bacoedian. Bada, guztiac era batera ezin esan leguiz ondo adituteco moduban. Inun bere
 145 ez da obetuago ezaututen, neure cristinaubac, Jaungoicuaren jaquituriya altuba ta gueuri deuscun maitetasun neurri bagacua, sacramentu santubetan baino. Emen zabalduten dira ceruco ondasun andijen atiac ta Jaungoicuaren misericordijac. Au ondo ezaututeco, gogoratu biar dau [10] cristinaubac sarri, zetaraco Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuzan sacramentu santubac, biar dan pres-
 150 taeriagaz euraquin balijetaco ta esquer onagaz Jaungoicuari erantzuteco.

IV.

¿Cetaraco derichazu bada, cristinaubac, ichi euscuzala Eleisa santan Jesus maitiac sacramentubac? ¡Ah, neure entzula onac! Ondo ezautu al baguinai au, berau ascoco litzaateque gueure vijotzac Jesusen amodijo santubagaz ixioteco.
 155 Guizonen ta aingueruben jaquituriya bere ez da elduten gauza au ondo ezaututera. Pensau daigun, bada, al daigun moduban, gueure ceruco Aita mansuaren ontasuna sacramentu santubetan. Gueu salbetaco Jesucristoc ichi euscuzala sacramentubac, dino Erromaco Catecismuac Trentoco concilijuagaz. *Ad nos - tram justificationem* ²². Baina au esan arren, ez da erraz ondo adituten sacramentubetan Jaungoicuac deuscun amodijua ta opa ona. Bada, Jaungoicuac modu ascotara salbau guinduquezan. Salbau guinduquezan bere Seme bacarra guizon eguin bagaric. Baita guizon eguinda bere, erijotza gogorra curutzian artu bagaric. Baita Jesucristoc erijotzia artuta bere, gu salbetaco vidia ich[i] euquian beste modu ascotara. Ichi euquian gueure salvacinoia sacramentu
 165 baten, zazpitan ichi euan leguez. Baita ichi euquian sacramentu bacar a mundu baztar baten. Ta aguindu gente guztiai ara juateco, salbau gura beeben. Ichi euquian mundu guztian persona bat bacarric, batiatuteco. Beste bat bacarric, compesetaco. Beste bat bacarric, comulguetaco. Ta onan beste sacramentuben

142 oidaveen *Ba* 144 erabatera *Ba* 144-145 Ynunbere ezda *Ba* 145 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* 147 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* 148 biardau *Ba* | sarri] zarri *Ba* 150 Jaungoicuri] Jaungoicoari *Ba* 153 albaguinai *Ba* 155 ezda *Ba* 156 aldaigun *Ba* 159 ezda *Ba*

²² Ik. baita *Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita... Prólogo, Madrid, 1791, segunda parte, I. kap., 23 zk., 90. or.

emonzaillac. Ta agiundu eusquegun Jesucristoc, gueure salvazailiac, persona
 bacar [11] areetara juateco sacramentubac artuten²³, salvau gura davena. 170

¿Ceimbat onaco ta gachagoco modu ez eucazan Jaungoicuaren jaquiturijac
 gu salbetaco? ¿Ta cer izango zan gugaz orduban? ¡Oh ce larriyac ta penaac, ain
 bide gachac ichi baleuscuz gueu salvetaco! ¿Cer izango zan gueugaz, ain urrin,
 ain gora ichi baleuscube gueure pecatuben parcacinoia? Batio biar bacoichian,
 compesau biar bacoichian, comulgau biar bacoichian ta ordendu biar bacoichian 175
 juan biar izan baguendu Erromara, Jerusalem edo lecu urrinago batera, peca-
 tuben parcacinoiaren esque. ¿Cer izango zan gugaz? Ta urrin atara juanda an
 egon biar izan baguendu sacramentubaren zain ogueta amazortzi urtian gueu-
 re arimac garbituteco, piscina ondoco guizon banatuba edo tulliduba pozu
 onduan egon zan leguez (11), ¿ce nequiac izango cirian guriac? ¡Oh, ce gacha 180
 gure salvacinoia! ¿Nor juango ete zan bigarrenian Erromaraguino compesetara?
 ¿Ta ce guichi irugarrenian, pecatu eguin arren? ¿Ta ceimbat pecatari inos bere
 juan bagaric illgo cirian? Ta orregaitino bere esquer andijac zorco gueuntsazan
 Jesus gueure Salvazaille maitiari, zan moduban zala, costetan zana costetan zala
 ta bere, salvetaco vidiac prestau euscuzalaco ta ceruco ate santubac edegui 185
 euscuzalaco.

Baina ez, cristinaubac, Jesus gueure arimen Erosia bigunac, amodijozco
 erraijen jauve onac, beretzat gura izan cituban penaac, gachac ta azquen baga-
 co erremedio gogorrac. Ta guretzat era ona, neque bagacua, presta ta seguru-
 ba, [12] gueure arimac salvetaco. Diru bagaric, icerdiric bota bagaric ta cansau 190
 bagaric emon gura deuscu Jaun cerucuac sacramentubetan gure pecatuben
 parcacinoia ta ceruco gloriya. Gueuri onduen jagocuzan, gueuc naijen oi ditu-
 gun ta gueuretzat errecen dirian gaucetan ichi deuscu Jesucristoc sacramen-
 tubac.

Lelenga Jesucristoc ichi euscuzan zazpi sacramentu ta ez gueijago ta ez 195
 guichiago. Ta au, zazpi modu jagocalalaco onduen guizonaren vitzi aldijari.
 Guizonari lelenga jagoco jaijotia. Ta jaijotiac emoten deuscu leguez guizonari
 arguitaraco edo munduraco izatia, alan batiuac emoten deuscu cristinaubari
 lelenga graciara edo ceruraco izatia. Augaiti da batiua gracijazco jaijotzia.

 (11) Joann. c. 5. 200

171 ezeucazan *Ba* | Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* 177 izangozan *Ba* 180
 egonzan *Ba* 181 etezan *Ba* 183 illgo cirian] illgocinian *Ba* 191 cerucuac] Cerucoac *Ba*
 192-193 oiditugun *Ba*

²³ Sarrera orokorrean honako hau idatzi genuen: "Mugimendua adierazten duten aditzen mendeko aditz-izena adlatibo-markaz dakar ia beti, ekialdeko bizkaieran ohi denez, baina mendebaldeko bizkaieran bezala inesiboan dauden esaldi bakan batzuk ere aurkitu ditugu". Hauxe da horrelako bat.

Jaijo danari jagoco sendotutia ta indartutia. Alan *compirmacinoeco* sacramentubac sendotu ta indartuten dau pedian, batiatuta daguana. Sendotuta indartsu egon arren, janarija biar dau guizonac, argaldu ta jausico ez bada. Beste aimbeste cristinautzaan. Alan ichi euscun Jesucristoc bere gorputz vizija *comuni* -
 205 *noeco* sacramentuban gueure arimen janaritzat, espirituba argaldu ta jausi ez daquigun. Sendo egon arren, ta ondo jan arren jazo lequijo guizonari gaisotutia ta biar dau osagarrija. Alan ichi euscun Jesucristoc, arimia gaixotuten dane-co osagarritzat, *compesinoecosacramentuba*.

Osatu arren, gach onduan biar da sendogarrija, gach ondoquinac quenduteco ta leengo osasunera guizona viurtuteco. Alan ichi euscun Jesucristoc
 210 *extrema uncinoia* erijotzaco orduraco, pecatuben ondoquinac parcatuteco ta arimia osasun onera viurtuteco. Guizonac vizi iza-[13]teco biar dau noc eracutsi ta noc convernau. Alan ceruraco videtan. Onetaraco ichi euscun Jesucristoc
 215 *ordiac*²⁴ sacramentuba, equi daiguzan obispo ta sacerdote jaunac gueuri cerura vidia eracutsi eiguben. Azquenian guizonari jagocana da, cerubac emoten deutsan pamelija aztia. Ataraco ichi euscun Jesucristoc ezcontzaco sacramentuba, seme alavac ceruraco azteco. ¡Oh, ce jaquiturija andija ta ontasan neurri bagacua eracusten deuscun Jesus maitiac bere ta gueure sacramentu santubetan! Ain merque, ain erraz ta ain ugari ichi euscun gueure pecatu guztien parcacinoia ta arimaco salvacinoia.

Bigarrenian : Ichi euscuzan sacramentubac aguirico gaucetan, gheu gorputzezcuac garialaco. *Izan bacina ceu espirituzcua* , dino S. Juan Crisostomoc (11a)^{24a}, *emongo eutsuzan Jaungoicua bere doiac espirituco gaucetan. Baina ceu zarian leguez gorputzezcua, alan emon eutsuzan bere gracijac eta doiac*
 225 *aguirico senailletan* .

Iruugarrenian : Ichi euscuzan Jesucristoc sacramentu santubac cristinau pie-len marca edo ezagungarritzat. Sacramentu santubac autortutian ta aintzat artutian ezaututen dira cristinaubac. Sacramentubac eguiten gaitube cristinau ta Jaungoicuaren seme. Eurac parcatuten deuscubez pecatubac. Emoten deuscu-bee gracija, arimiaren arerijuac goituteco indarra ta azquenian ceruco betico glorija, cein opa deutsudan guztioi Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 205-206 ezdaquigun *Ba* 207 biardau *Ba* 209 biarda sendo garrija *Ba* 222 espirituzcua] espirituzcoa *Ba* 227 ezagun garriztat *Ba*

²⁴ Hemen *ordeaco* zetorren; baina gure idazleak *ordia*, *ordiac*... idazten du beti, bokalen harmoniagatik, hementxe izan ezik. Horregatik zuzendu egin dugu, beraren araua kontuan hartuz.

^{24a} Zenbakia jarri du testuan, baina gero ahaztu egin zaio orri barrenean oharra jartzea.

Lerro bat gorago, *espirituzcoa* zetorren eta honen aurreko bi orrialdeetan *Jaungoicoaren, Jaungoicoac, cerucoac*... Frai Bartolomek ez luke bere kabuz *-oa* egingo sekula, *-ua* baizik; argi dago beste norbaiten eskua dagoela hor, *Icas-II*-ko "uts eguiteen ezauberia"n ageri denez...

[14]

BAUTISMOCO SACRAMENTUBA

*Nisi quis renatus fuerit ex aqua, et Spiritu Santo, non
potest introire in regnum Dei Joan. 3.*

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

5

1. *Adanec celan pecatu eguin evan.*
2. *Ce caltiac ecarri zituban Adanen pecatubac.*
3. *Celan erremedijau zan.*

Adanen pecatubac ecarri ditu, neure entzula onac, gueure gainera arimaco ta gorputceco naibague, pena ta atsecabe guztiac. Adanen pecatuba da cerubari, Jaungoicuari ta guizonari cereguinic gueijen emon deutseena ta emoten deutseena. Jaungoicuac ornidu zituban Adan eta Eva, gueure lelengo gurasoac, beste eracutsi baten entzun zeunstan gracia, doe ta zorijontasun andijagaz. Ta imini cituban luurreco *paradisuba* derichon lecuban. An eguin even bijac pecatu. Ta zabaldu zan euren pecatuba Adanen belaneti datoza guztietara. Pecatu au dan leguez guztioc gueure sortueran madaricatuten gaitubana ta Jaungoicuaren gorrotoco eguiten gaitubana, derichot ondo izango dala, bautismoco sacramentuaren asieran ceu-[15]bei eracustia: 1. *Adanec celan pecatu eguin evan.* 2. *Adanen pecatubac ce caltiac ecarri cituban .* 3. *Celan erremedijau zan .* Prestau zaitetz entzuteco gogo onagaz.

I.

20

Vizi zaatequezan, bada, Adan eta Eva paradisuban, eurac gura izan balebee, gach bagaric, neque bagaric, eceren bere premina bagaric ta gaiztoquerija bagaric, beti on, beti zucen, beti Jaungoicuaren esanian ta beti dichoso. An euqueezan guizonac munduban biar cituban ta euqui euquezan atseguin ta pozgarri guztiac. Emon eutseen Jaungoicuac lecu zorijoneco atan gosetu bagaric, necatu bagaric, gaisotu bagaric ta ill bagaric vizi izateco biar even guztia. Baita Jaungoicuac berac dei eguiten eutseenian cerura zucen juateco gracia bere. Bacarric eragotzi eutseen Jaungoicuac Adan eta Evari, paradisubaren

10 cer eguinic *Ba* 12 entzun] eutzun 15 guztioc] goztioc *Ba* | sortu eraan *Ba* 19 Prestauzaitetz *Ba* 21 paradisuban] Paradusuban *Ba* 23 Jaungoicuaren] Jaungoicoaren *Ba* 28 paradisubaren] Paradisu baten *Ba* (380.or.: Paradisubaren)

erdijan eguan arbolari prutuba jaatia. *Beste pruta guztietati jango dozu²⁵, esan*
 30 *eutsan Jaungoicuac Adani. Baina onaren ta gacharen jaquitia daucan arbo* -
liari, ez deutzazu prutia jango. Ta jaaten badeutzazu, ari jaaten deutzazunian
illgo zara. In quoquaque die comederis ex eo, morte morieris(12). Au baino
 beste gauzaric ez eutsan Jaungoicuac eragotsi Adani paradisuban.

Satanasa edo diabruba aguertu jacon suguiaren echuriagaz Evari paradisu
 35 *bastarran campoti. Ta itandu eutsan modu onetan: ¿Cetaraco eragotzi deutsu*
Jaungoicuac arbola ari prutia jaatia? Erantzun eutsan Evac: *Beste guztietati*
jaaten dogu, baina ari erdico arbolari ez jaateco ta icuturic ez eguiteco esan
deutsu Jaun-[16]goicuac, ill ez gaitazan. Inundi bere ez zara illgo ari jan
 40 *arren, esan eutsan suguiac Evari. Baqui, bada, Jaungoicuac, dirautsa suguiac* -
 40 *Evari, zubez arbola ari jango baceuntsa, zuben veguijac edeguico litzaate* -
quezana; jaquingo cendunque orduban gauza ona ta charra cer dan; ta izan -
go zinatequez Jaungoicuac leguez. Eritis, sicut Dii. Au entzun evanian, etorri
 jacon Evari gauza ona ta charra jaquiteco gurarija. Icusi evan pruta eragotzi]lac
 echura ederra eucana. Baita jaateco ona cirurijana bere. Artu evan, bada, Evac
 45 pruta eragotzija ta jan evan. Emon eutsan, berac janda guero, Adan bere senar-
 rari. Ta ac bere jan evan. Orduban bertati edegui cirian bijeen veguijac, gauza
 ona ta charra icusteco. Leenago bijac biloxic egon arren, ez cirian lotsatuten,
 veguijac ichita euquezalaco gauza gacheraco. Baina pruta eragotzija jan evee-
 nian, bertati lotsatu zirian, alcar biloxic icusita. Pico orri batzubequin, al egui-
 50 jen moduban, laster estaldu citubeen euren guerrijac. Ta ezcutau cirian arbo-
 lapian.

Aguertu zan Jaungoicua paradisura. Ta dei eguin eutsan Adani: *¿Nun zara?*
 Erantzun eutsan Adanec Jaungoicuari: *Jauna, ceure verbia entzunda lotsatu*
eguin nas, biloxic nengualaco. Ta ezcutau eguin nas. ¿Noc eracutsi deutsu,
 55 *bada, biloxic cengozana, Neuc ez jaateco esandaco prutia janac baino?* esan
 eutsan Jaungoicuac Adani. *Jauna, Ceuc laguntzat emon ceunstan emaztiac,*
emonda jan dot, esan eutsan Adanec Jaungoicuari. *¿Cetaraco ori eguin dozu?*
 esan eutsan Jaungoicuac Evari. Ta erantzun eutsan Evac: *Jauna, diabrubic*
engainauta jan- [17]do²⁶. Adanec ezarri eutsan bere pecatubaren erruba Evari.
 60 Ta Evac suguiari edo diabrubari. Ta Jaungoicuac ezarri eutseen bere maldeci-
 noia guztiai.

 (12) Genes. c. 3.

29 dozu] dezu *Ba* 34 suguiaren] suguianen *Ba* 36 guztietati] gustietati *Ba* 38 ezza-
 ra *Ba* 41 cerdan *Ba* 49-50 aleguijen *Ba* 57 jandot *Ba* 59 jan dot] jand et *Ba*

²⁵ Ik. Has 3,3.

²⁶ Ik. Has 3,9-13.

Lelengo ezarri eutsan suguiari, suguiaren echuria diabbrubac artu evalaco Eva engainetaco. Ta esan eutsan Jaungoicuac: *Luurreco gauza guztien artian izango zara madaricatuba, emacumia engainauta pecatu eraguin deutzazu laco. Luurra janda, tripiaren gainian tatarasca ibilico zara. Baque gaistua iminico dot zure ta emacumiaren artian. Baita zure ta aren ondorenguen artian bere. Emacumiac zapaldu ta birrinduco deutzazu ceure buruba. Ta zuc engainubac ta jausgarrijac iminico deutzazuz aren orpuari²⁷. Onen ondoric esan eutsan Jaungoicuac Evari: *Gueitu ta ascotuco ditut zure penac ta gachac. Minagaz ta aliagaz²⁸ seinac eguin biarco dituzu. Ta vizico zara guizonaren aguidupian*. Esan eutsan azquenian Jaungoicuac Adani: *Emacumiaren esana eguin dozulaco ta neuc eragotzitaco prutia jan dozulaco, madaricatuba izan go da luurra zure biarretan. Eztacac²⁹, arantzac ta larrac emongo deutzuz. Icerdijagaz ta nequiagaz jango dozu oguija, ill ta luur biurtu artian. Bada, luurra zara ta luur izatera biurtuco zara*. Ara emen, cristinaubac, Adanen pecatuba ta pecatu ari Jaungoicuac ezarri eutsazan gachac. Orduban atera zituban Jaungoicuac Adan eta Eva paradisuti negarrezco errijetara. Ta imini evan querubin bat suzco ezpatiagaz paradisuba zaintuten, an osteria inor sartu ez cedin³⁰. Aitu ezquero bada, neure entzula onac, celan pecatu eguin evan Adanec, entzun egui-[18]zu orain ce caltiac ecarri zituban gueure gainera Adanen pecatubac.*

II.

Pecatu eguin even orduban atera zituban Jaungoicuac paradisuti gueure lelengo gurasuac. Ta ara nun gagozan eurac ta euren ondorengo guztioac negarrezco ta penazco erri edo valle onetan³¹. Orduban jausi zirian utseguite guz-

73 eguindoazolaco Ba 73-74 izangoda Ba 77-78 aterazituban Ba 85 gurasuac| gurasoac Ba

²⁷ Ik. Has 3,14-15.

Frai Bartolomek honela dio: "Baita zure ta aren ondorenguen artian bere. *Emacumiac* zapaldu ta birrinduco deutzazu ceure buruba". Bartolomeren itzulpena, pixka bat parafraasi antzera egina, Vulgatari dagokiona da: "et semen tuum et semen ilius: *ipsa* conteret caput tuum". *Ipsa* - Emacumea. Hala ere, hizkuntza desberdinetako itzulpen modernoetan hobeki dator (hebreerari jarraituz), eta genero maskulinoa darabilte; *ipsa* barik *ipse* jartzen dute (*semen illius*, hau da, *ondorengoa, semea*...). Frai Bartolomek arazo hau Cornelio a Lapidereen liburuan aztertuko zuen ziur aski (*Commentaria in Pentateuchum Mosis* ..., Lugduni, 1732, 66.or.); baterako eta besterako arrazoiak ikusi ondoren, eta Bibliako antzinako hainbat liburu (hebreerazkoak, grekoak, latinezkoak) aztertu ondoren, joko zuen *ipsa* jartzera.

²⁸ "Ala": mina; (asko darabilen hitza da; *aliagaz* : minagaz, oinazeagaz).

²⁹ Ik. *Icas-II*-ko 315.oharra (1084.or.).

³⁰ Ik. Has 3,24.

³¹ "Negarrezco ta penazco erri edo valle onetan"; Mariari egin ohi zaion otoitzaren edo *Salbearen* erreferentzia argia da. Haren garaiko, hau da, 1828ko euskarazko eskuliburu batean

tiac, gach guztiac ta neque guztiac gueure gainera. Adanen pecatuba zala vitar-
 te gueratu zirian gueure gorputzac ta arimac gaixotuta, macalduta, luurrera jau-
 90 sita, guraari gaistuen azpijan. Adina ta nailia, edo entendimentuba ta voronda-
 tia dira guizonaren alguin edo potencija nausijac. One|e|c emon biar deutsee
 gueure arimaco ta gorputceco gauza guztiai cobru, guizatasunez vicico baga-
 ra. Bada, beste gach ascoren artian, Adanen pecatubac ezarri eutseezan gueu-
 re adinari ta nailiari, bacochari lau gach edo zauri, inos bere ondo osatuten ez
 dirianac. Gueure adinari Adanen pecatubac ezarri eutsazan lau zaurijac dira:
 95 *Lelenga Vizi* izateco biar ditugun gauzac ez jaquitia. Adanec guztia equijan,
 pecatu eguin baino leenago. Ta guc bere jaquingo guenduban, ac pecatu eguin
 ez baleu. Baina orain ez daquigu utsian betian³² baino, ez cec gach eguin gui-
 naigun, ez cec galdu guinaizan. *Bigarrenian*: Adanen pecatubac ecarri eutscun
 100 gacha da adineco illuntasuna, motztasuna, sortasuna ta gauzac arguiro aitu
 ezina. Beguiratu bategaz adituten zituban Adanec gauza guztiac arguiro, zirian
 moduban. Ta guc bere adituco guenduzan, ac pecatu eguin ez baleu. Baina
 orain illunezco esi lodi bat daucagu gueure adillaan, gauzac adituteco. [19]
Irugarrenian : Adanen pecatubac ecarri eutscun icasi ezina. Adanec gauza guz-
 105 tiac equizan, icasten ibili bagaric. Ta guc bere jaquingo guenduzan, ac pecatu
 eguin ez baleu. Baina orain, luzaro icasten ibilita bere ecer ez daquigu, uts
 eguite ascogaz ta naastian edo ezdabaidan baino. Cristinautzaco edo pedeco
 gauzac daquiguz zucen, Jaungoicuac esan deuscuzalaco. Baina icasten luzaro
 ibilita, buruba sarri cansauta ta jaquitunago ascori itanduta bere, Eleisa Ama
 110 santiac eracusten deuscunaz ostian, gure jaquituriya guztia da, edo utseguitez,
 edo dudaz, edo ezdabaidaz betia. Beti icasten, beti icasi guraan ta beti icasi
 biarran da guizonaren vizitzia. Au jazoten jacu eguinbiar ta opicijo guztietan.
 Emeti dator gueure penseta modubac alcar ez artutia ta gauzai bardin ez eris-
 tia. *Laugarrenian* : Adanen pecatubac gueure adinera ecarri euscun gacha da,
 gueure pensamentuba gauza baten euqui ezina. Adanec pecatu eguin baino
 115 leenago, nai evana pensetan evan. Ta berac nai ez evan gauzaric ez jacen
 burura etorten. Ta gu bere alan izango guinian, Adanec pecatu eguin ez baleu.
 Baina orain, gura ez dogula bere, milla burutacinoe gogora etorten jacuz. Ezin
 egon gara, nai izan arren, gauza bat pensetan luzaro. Ezin ezi dogu, edo nai

93 inosbere *Ba* 105 ezbaleu *Ba* 106 ezda baidan *Ba* 110 ezda baidaz *Ba* 111
 jazoten] jasoten *Ba* | eguin biar *Ba* 118 egongara *Ba*

honela dakar: “llantu ta negar eguiten dogula negarrezco erri onetan” (*Cristiñau doctrinia Aita Gaspar Astetec erderaz escribidua eta guero D. Gabriel Menendez de Luarcac gauza asco eran - tzita etera ebana ...* Bilbo, 1828, 6.or.). Frai Bartolomek, ohi duenez, parafraasia egiten du eta latinezko testuaren sinonimoa sartzen du (lacrimarum valle): penazco *erri edo valle* onetan”.

³² Esapide honen gaztelaniazko itzulpena “al fin” dela irakurri dugu hiztegi batean, baina argi dago gure idazlearengan ez duela hori esan nahi, “gutxi gorabehera” baizik.

dogun moduban ezin escuratu dogu gueure pensamentuba. Lau zauri oneec
 etorri jacozan gueure adinari Adanen pecatuba ganic. Baita nailiari bere beste 120
 lau, ceintzuc dirian:

Lelenga Gueure nailiari edo vorondatiari Adanen pecatubac ecarri eutsan
 zaurija da, gueure burubac laarregui maitetutia ta estimetia. Eme-[20]ti dator,
 guizon ta emacume guztiac euren burubac jasoteco ta estimacinoia topeetaco 125
 dauqueen gogo presta ta aurreratuba. Ta gueure buruben neurri bagaco ta
 ordena bagaco amodijo ta estimacinoe laarreguiti dator, alcarren artian ta bata
 bestiaganaco daucaguzan bildurrac, ardurac, engainubac, embidijac, ecusi ezi-
 nac, zequenquerijac, asarriac, ezdabaidac ta beste esan ezin leguizan beste
 gach. *Bigarrenian* : Jaungoicuaren esana eguiteco ta gauza oneetaraco atzera-
 pena ta gogo muquerra³³. Ta gauza chaarreraco ta pecaturaco gogo presta. 130
 Umetati gara oquerreraco prestago, oneraco baino. Ta au Adanen pecatubac
 ecarri euscun erru zitala da. *Irugarrenian* : Ecarri euscun Adanen pecatubac
 nairic naira laster aldatutia. Orainche nai dogu gauza bat ta guerochubago
 beste bat. Ta andi laster, ez bata ta ez bestia. Ezin iraun dau gueure goguac nai
 baten. *Nai dot eta ez dot; ondo derichat ta ez derichat; eguin baneu ta eguin* 135
ez baneu da, Adanen pecatubac guizonari ecarri eutsan betico cantia edo ille-
 tia. *Laugarrenian* : Pecatu zorigaistoco ac ecarri eutscun gacha ta ez chicar-
 na da, Jaungoicuaren ondriari ta gueure arimaco onari jagocazan biarrac egui-
 teco, indarrac guichitutia. Ez zan guttiz galdu Adanen pecatubagaz guizonaren
 oneraco ta gacheraco libertadia edo alizatia, eregiac pediaren contra esaten 140
 daveen leguez³⁴. Baina gueratu zan gueure oneraco ta gacheraco alizate andi
 au, gauza oneraco, cristinautza zuceneraco, Jaungoicua ondretaco, gaixotuta,
 argalduta, macalduta, leen baino oztaago³⁵ Jaungoicuaren ta errazoiaren vidiai
 jarrai-[21]tuten deutseela. Ta gauza gacheraco gueratu zan Adanen pecatuba-
 gaz gueure libertadia vizcortuta, azcortuta, leen baino prestago ta sutsubago. 145

Ara, neure entzula onac, celan gueratu guinian guztioac Adanen pecatuba-
 gaz. Paradisu santuti negarrezco erri oneetara ervestetuta, jausi guinian guztioac
 pecatubaren azpira, Jaungoicuaren gorrotora ta diabrubaren escupera. Adineco
 illuntasuna, naillaco oquertasuna, arimaco ta gorputzeco gaixua, zaurijac ta eri-

128 ezda baidac *Ba* 129-130 atzera pena *Ba* 133 naidogu *Ba* 135 Naidot *Ba* 144
 gueratuzan *Ba*

³³ "Muquer": testu honetan txarra esan nahi du; *gogo muquerra*: gogo txarra.

³⁴ Hain zuzen ere, Frai Bartolomek dioenez, askatasun horren alde jokatu izan da historian zehar errakuntza guztien kontra; ik. H. DENZINGER - A. SCHÖNMEITZER, *Enchiridion Symbolorum*, Barcelona-Friburgo-Roma, ³²1963, *1486, *1555, *1939, *1941, *1966, *2003, *2812, *3245.zk., ik. lehenagoko garaietan ere: *330-342, *397, *596, *621-622, *626-633, *685, *964. zk., etab.

³⁵ "Ozta" aditzondoia, konparazio-morfemaz; azpimarratzekoa da, orain nekez erabiltzen baitira horrelakoak.

150 jotzia ta betico condenetaco vidia, guztia ecarri euscun Adanen pecatubac, Trentoco batzaar santubac esaten daven leguez (13). Gorputzian ta ariman iragoten ditugun gach guztiac Adanen pecatuban dauquee euren sustraija ta vizi-garrija. Ama Virginia guztiz garvija alderatu ezquero, beste Adanen seme ta alava guztioc sortuten gara pecatuban. Ta guztioc dacargu gueugaz amaren

155 sabeleti araco *fomes* esaten jacon arimiaren contraco guerraguin andija³⁶. Beti gueugaz davilena ta inos bere ondo domau ezin doguna. Era triste ta negargarri onegaz gatoz guztioc mundura. Gueure sortueraan lotuten gaitu pecatubaren catiac. Ta cateia au gueurez inos bere urratu ezin guinai. Ezin ascatu zaatequian guizona bere aleguinagaz Adanen pecatubaren cateiati. Oinaz ez

160 daquijan sein chicar bat leza ondotsu batera jausi ezquero inoc ateraten ez badau popuerza illgo dan leguez, alan gueratu zan guizona Adanen pecatubagaz, inos berez jaguico ez zan moduban, Jaungoicuac bere ontasun neurri baguia gaiti iracoi ta jaso ez baleu pecatubaren lezati. Ta orduban erremedio bagacia izan-[22]go zan gu guztioc condenetia impernura. Ez gentilac euren

165 aleguinagaz, ez judegubac Moisen leguiagaz, ez beste guizonic naturaleciaren indarragaz ta arguijagaz ceruban sartuco zan inos, Jaungoicuac Adanen pecatuti ascatu edo librau ez baguinduz, dino Trentoco batzaar santubac (14).

¡Ce vizitza errucarija, neure cristinaubac! ¡Penaz, nequez ta negarrez mundu triste onetan vizita, guero betico impernuba! ¡Celan estimau ta maitetu

170 biar dogu bada, neure entzula onac, gach oneen erremedio ta osagarri santuba! ¡Oh, ce esquer andijac emon biar deuntsaguzan Jaungoicuari, Adanen pecatuti, jatorrizco pecatuti, sortueraco pecatuti, edo pecatu originaleti ascatu guinduzalaco! Entzun eguizu, bada, cegaz Jaungoicuac erremedijau evan Adanen pecatuba.

175

III.

Adanec pecatu eguin evan orduti senailau evan Jaungoicuac pecatuaren osagarrija edo erremedijua. Bada, san Paulo apostolubac dinuan leguez (15), Jaungoicuac nai dau mundura datozaan guizon ta emacume guztiac cerura jua-tia. *Ez dogu, bada, sinistu biar*, dino S. Agustinec (16), *Jaungoicuac ez eutsa* -

 (13) Sess. 5, c. 5. (14) Ubi sup., c. 1. (15) 1. ad Tim. c. 4. (16) L. 5. cont. Julian. c. 9.

152-153 vizi garrija *Ba* 157 sortu eraan *Ba* 161 gueratuzan *Ba* 172 sortu eraco *Ba*
 172-173 guindu zalaco *Ba* 178 naidau *Ba* 179 Ezdogu *Ba* | ezeutsala *Ba*

³⁶ *Fomes* (zirika daukaguna, zerbaitetara eragiten diguna, indar berezi bat etab. .) Ik. *Sacrosanctum, oecumenicum Concilium Tridendum, additis declarationibus cardinalium* ... (I. Gallemart - A. Barbosa - Cardinalis de Luca), Matrii, 1762, Sessio V (17-VI-1546), Decretum de Peccato originali (9. or.). Kontzilioko dokumentuak "concupiscentiam, vel fomitem" esaten du.

*la emon guizonari Adanen pecatubaren erremedijua circuncisinoia baino lee -
nagoti, Escritura Sagradubac esan ez arren cegaz parcatuten zan . Emeti ezau-* 185
tuten dogu, cristinaubac, Adanec pecatu eguin arren, misericordijaren atiac beti
zabaldu deuscuzala Jaungoicuac. Abraan justuba ta aren circuncisinoia baino
leenagoti Jaungoicuac emon eutsan guizonari Adanen pecatubaren osagarrija,
[23] arima bat bere inos galdu ez dedin erremedijuaren paltaz. Naturaleciaren
ta judeguben leguian cegaz jatorrizco pecatuba parcatuten zan jaquitia, ez da
premina osocua gueure cristinautzaraco.

Baina jaquin biar dogu ta sinistu biar dogu popuertza, evangelijo santuco 190
leguian *bautismoco sacramentuba* dala bacarric, jatorrizco pecatuba gueuri
parcatuten deuscuna. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz batiatu bagaric inor ber e*
salvauc ez da, dino Jesucristo gueure Jaunac (17). Bautismo santuba da gueure
arimac lelengo pecatuti gracijara, illuneti arguitara, Jaungoicuaren gorrototi
bere adisquidetasunera ta galdu bideti gorde videra aldatuten dituban sacra- 195
mentuba. Bautismo santubac ez deuscuz quenduten Adanen pecatubac ecarri
euscuzan gach guztiac. Batiatuta egon arren, gueugaz dagoz oraindino *ez*
jaquina , arimaco *sortasuna* , gauza oneraco *muquertasuna* , gauza oquerrera-
co *prestasuna* , gueure buruben *nai laarreguija* , luurreco ta gorputceco gus-
tuen *gurarija* , *gaixocortzia* , *illcortzia* ta beste onaco asco. Baina bautismo san- 200
tubac partatuten deuscuz arimaco pecatu guztiac, erru ta pena. Berac eguiten
gaitu Jaungoicuaren seme, Jesucristoren icaslari, Eleisiaren ume ta ceruco echa-
gun. Berac emoten deuscu Jaungoicuaren verbiaren ta betico eguijen sinistuta;
ceruco ondasunac jadisteco ustia; Jaungoicuagaz beragaz verba eguiteco,
Jaungoicua bera ezaututeco ta eguijazco espiritubagaz maitetuteco alizatia. 205
Bautismuac eguiten gaitu beste sacramentubac artuteco duina. Ta berac quen-
du ez arren gueu ganic Adanen pecatubaren gach [24] guztiac sustraiti, emo-
ten deuscu ceruco gracia ta laguntasuna, ceinegaz errazto goitu daiqueguzan
etsaijaren tentacinoiac ta araguijaren guraari gaistuac, gueuc gura izan ezque-
ro. Bautismo santuban emoten jaco cristinaubari Jesusen erijotza santaco ira- 210
batzi neurri baguiaren virtutia, cristinautza eguijazcuari ondo cobru emoteco.
Au gaiti esaten da bada, neure cristinaubac, bautismoco sacramentuban ichi
euscula Jesucristo gueure Jaunac Adanen pecatubaren osagarri erraza ta segu-
ruba.

Bautismo santuba da sacramentu guztietati lelengua ta cristinautziaren asie- 215
ria. Orregaiti esaten dau Erromaco Catecismuac (18), sarritan cristinaubai era-
cutsi arren bautismo santuco icasiquizunac, ez dabeela pensau biar cura jau-

(17) Joann. c. 3. (18) De Bautismo, n. 1.

220 nac inos bere laarregui eguiten daveela. Gogoratu bada, neure entzula onac,
 Adan eta Eva lelengo gueure gurasuen pecatu negargarrija ta negarlarija.
 Gogoratu pecatu zori gaisto ac ecarri euscuzan caltiac. Baita Jaungoicuac pecatubari deutsan gorrotua bere, aimbeste negargarrigaz mindu zitubanian pecatu bat gaiti Adanen ondorengo guztiac. Baita Jaungoicuaren ontasuna ta misericordija bere, beti baina batez bere Evangelijo santuban, Adanen pecatubaren
 225 edo jatorrizco pecatubaren osagarri ezaguna, seguruba ta erraza ichi eusculaco bautismoco sacramentuban. Bildurtu gaitazan, bada, pecatubagaz. Ta maitetu daigun vijotz osuagaz gueure Jaungoico guztiz ona. Escatu daijogun arima arimati bere gracia santuba, ceinegaz irabatzico dogun betico ceruco gloriija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

230 [25]

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan bautismua.*

2. *Ceimbat modutacua dan.* 3. *Ce preminatacua dan.*

235 Bautismoco sacramentuba da, neure entzula onac, cristinautziaren sustraija, ta gueure ceruraco ustiari asipena ta eldu bidia emoten deutsana. Berau gaiti escatuten dau cristinaubaren ardura guztia ta aleguin guztia, sacramentu santu onen eracutsija ondo baino obeto icasteco. Esango deusut, bada, icasiquizun onetan: 1. *Cer dan bautismoco sacramentuba.* 2. *Ceimbat modutacua dan.* 3. *Ce premina andicua dan.* Prestau zaitez guztioç gogo vizijagaz, aibat onduen entzuteco.
 240

I.

245 Bautismuac berac berez esan gura davena da, neure cristinaubac, *garbitutia*. Garbitutia izan leiteque modu ascotaracua, bai arimaco gaucetan ta bai gorputcecuetan. Baina ez jaco edocein garbituteri esaten *bautismua*, ez bada Jesusec ataraco ichi euscuzan verbac esanaz, cristinau gueijari ura ezarrita,

222 negar garrigaz minduzitubanian *Ba* 242 esangura *Ba*

lelengo eguiten jacon garbitutiari esaten jaco bautismua edo bautismoco sacramentuba. Esaten jaco bautismuari sinistutiaren edo pediaren sacramentuba. Batiatuten danac, cristinautzaco sinistute osua orduban lelengo artu ta autortuten davelaco. Esaten jaco arguituteo sacramentuba, bautismuac ateraten gaitubalaco lelengo pecatubaren illuneti gracijaren argui ederrera. Esaten jaco sepultura, batiatu baino leenagoco pecatu guztiac quen-[26]duten ditubalaco; ta illda aaztuta leguez betico ezcutetan ditubalaco bautismo santubac. Esaten jaco bautismuari Jesucristoren curutzia, batiatuten dana orduban asten dalaco curutzia jarraituten ta mundubari, diabrubari ta araguijari guerra eguiten. Esaten jaco vizitza barrijaren aseria, baustismoagaz gracijaren vizitza asten dalaco. Esaten jaco Eleisaco atia, bautismuagaz lelengo Eleisan sartuten gari-laco. Baita esaten jaco ceruco atia bere, ceruban sartuteo bautismua popuertzacua dalaco, guero esango dan leguez. Icen santa oneec guztioac emoten deutzeez Eleisiaren Gurasuac bautismoco sacramentubari, berac daucazan graci-jazco ontasunac gaiti.

Bautismoco sacramentuba ez da, bada, beste gauzaric, neure cristinaubac, ezbada *arimiari gracijazco lelengo jaijotzia emoteco, Jesucristo gueure jaunac ataraco ichi cituban verbac esanda, cristinau gueijaren gorputzari ura ezar - tia*. Ce verba esan biar dirian batiatuteo; ce ur biar dan ta celan ezarri biar jacon cristinau gueijari, esango da gueroico icasiquizunetan. Bautismoco sacramentubaren irudija ta ezauberia ainchinati Jaungoicuac cerbaitaan guizonai emon eutseen: 1. Diluvijoco uxalequin munduco pecatubac garbitu citubanian³⁷. 2. Naamanec Jordango ibaijan ezcavija³⁸ garbitu evanian³⁹. 3. Jerusalemco pozu edo piscina gaixo ta gach guztien osalarijagaz⁴⁰. 4. San Juan Bautistaren Jordango ur utsezco bautismuagaz⁴¹. 5. Jesusec itsubari icustia emon eutsan Siloeco iturrijagaz⁴². Onan cerubac leendanaz aituten emon evan gueuc dauca-gun bautismoco sacramentu eguijazcua. Ala-[27]bau biar dogu ta adoraui biar dogu, bada, esquer onagaz gueure Jaungoico guztiz maitegarrija. Bautismo santubaren vitartez bere semetzat ta ceruco echaguntzat ezaututen gaitubalaco. Ta icasi biar dogu ceimbat modutacua dan bautismua.

261 ezda *Ba* 262 ez bada *Ba* 263 esan da *Ba* 271 leen danaz *Ba*

³⁷ Ik. Has 7,11 - 8,22.

³⁸ "Ezcabi": azaleko eritasuna, legena.

³⁹ Ik. 2Erg 5,1-15.

⁴⁰ Ik. Jn 5,2-9.

⁴¹ Ik. Mt 3,13-17; Mk 1,9-11; Lk 3,21-22; Jn 1,29-34.

⁴² Ik. Jn 9,1-8.

II.

Bautismoco sacramentuba bacarra da, neure cristinaubac. *Ez dago gueu salvetaco Eleisa bat, sinistute bat ta bautismo bat baino*, dino san Paulo apostolubac (19). Au onan izan arren esaten da, iru modu dagozala amaren sabeletari dacargun pecatuba ta beste edocein pecatu batiatu baino leenagoco gueuri parcatuteco ta gueure arimac salvetaco. Oneec dira: Lelengo: *Urezco bautismua*. Bigarrenian: *Odolezco bautismua*. Irugarrenian: *Amodijozco ta naizco edo desiozco bautismua*. Baina santo Tomasec esaten daven leguez (20), irurac joten davee batera. Bada, odolezco ta amodijozco bautismua sartuten dira urezco bautismuan. Urezco bautismua celan eguiten dan, leen esanaren gainera, esango da guero. Bada, bera da bacarric bautismoco sacramentuaba. Au gaiti bacarric esango deutsut orain, cer aituten dan odolezco ta amodijozco bautismuagaz.

Odolezco bautismua da, batiatu bagaric daguan guizonac nai emacumiac, pede santuba gaiti ta Jesucristo autortutia gaiti, vizitzia galdutia. Au da urezco bautismuaren ordecea. Bautismo urezcuac parcatuten dituban leguez bera artu arteraguinoco pecatu guztiac, alan Jesus gaiti ta pede santuba gaiti vizitzia emoten davenari parcatuten deutzaz Jaungoicuac pecatu guztiac, batiatu bagaric egon arren. *¿Cer bau-[28]tismo obia*, dino san Ciprianoc (21), *Jesusen ice-nian penaac iragotia baino? ¿Guztien aurrian Jesus Jaungoicotzat autortuta, Jesus ez ucatutia gaiti vizitzia emonda, norberaren odolagaz batiatutia baino?* Odolezco bautismuaren balijua Jesucristoc berac esanda ichi euscun evangeli-jo santuban. Berac dino (22): *Guizonen aurrian neu gaiti arpeguija ateraten davena ta neu autortuten navena, neuc bere autortuco dot ta zaintuco dot neure Aita Cerucuren aurrian* . *¿Ceinec, bada, obeto autortuten dau Jesus, Jesus gaiti vizitzia galduten davenac baino? Baita esan evan Jesusec berac (23): Neure amodijua gaiti vizitzia emoten davenac, gordeco dau bere arimia* .

Alan, cristinaubac, batiatu bagaric inor ceruban sartuco ez dala esaten danian, dino san Agustinec (24), *aitu biar dala urezco edo odolezco bautismo bagaric illten danian guizona edo emacumia* . Odolezco bautismo onec bardin balijo deutsee persona nausijai ta umiai. Alan santa Emerencianac, uragazco bautismua artu bagaric irago evan martirijua⁴³. Ta da ceruban santa andija.

 (19) Ad Ephes. c. 4. (20) 3. p., q. 66, a. 11. ad 1. (21) Epist. 37. (22) Matth. c. 10. (23) Id. Ibid. (24) L. 13. de Civit. Dei, c. 7.

297 esan da *Ba*

⁴³ Santa Emerentziana, martiri erromatarra; legendazko *Passio* delakoak (Santa Inesen legendaren luzapena) Santa Inesen ahizpa egiten du; kristaugaia zela harrika hil zuten, horrela odolezko bataioa hartuz (ik. P. WIERTZ, *Emerentiane*, LThK 3 (1986) 845).

Beste aimbeste esaten da san Philemon martirija gaiti⁴⁴. Baita santa Catalina Alexandrijacuac⁴⁵, Jesusen sinistutera viurtuta, pede santuba gaiti martirija irago evenen jaquitunac gaiti bere. Oneec guztioac ta beste onaco ascoc ez even lecuric equi urezco bautismua artuteco. Ill citubeen verdugubac Jesusen gorrotoz, pedia ucatu gura ez eveelaco. Ta garbitu citubeen euren arimac euren odolagaz ta Jesus gaiti vi-[29]zitzia emonagaz. Erodesez Jesusen gorrotoz ill zituban sein inocente edo erru baguiac gaiti⁴⁶ beste aimbeste esaten da. Ta Eleisiac cantetan dau, eurac diriala martirijen loraac. Sinistu biar dogu bada, cristinaubac, odolezco bautismuac parcatuten ditubala pecatubac guztiac, urezco bautismuac berac leguez. Baita naizco edo desiozco bautismuac bere.

Naizco bautismua esaten da *dala, guizonac edo emacumiac urezco bautismua artuteco gogo osua ta nai eguijazcua daucanian ta inundi bere artu ezin davenian*. Onetaraco equi biar da: 1. Jaungoicuaren ezauberia ta sinistutia. 2. Jaungoicuaren amodijua. 3. Pecaturic eguin badau, pecatubaren damu vizija, Jaungoicua injurijau davelaco pecatubagaz. 4. Inundi al daguijanian, urezco bautismua artuteco nai eguijazcua. Gauza oneec guztiz preminacuac dira, *naizco bautismuac* balijo izateco. Au gaiti, errazoiaren usura eldu ez dirianac ezin balijau leitequez naizco bautismuagaz. Baina bai edocein persona nausi, esan dirian lau gauzaac iminten baditu bere aldeti. Bada, urezco bautismua artu ezin davenari, al balei artuteco daucan nai eguijazcua gaiti, Jaungoicuagana daucan maitetasuna gaiti ta bere pecatuben damu vizija gaiti parcatuten deutzaz Jaungoicuac pecatubac guztiac, uragaz ta Espiritu Santubagaz batiatu balitz leguez. Ta orduban illgo balitz, juango litzaateque zucen cerura. Alan dino san Agustinec (25), *naizco bautismuagaz batiatu zala, Jesusegaz curutzian ill zan lapur ona*. Beste aim-[30]beste dino san Ambrosioco (26), Valentiniano gaztia gaiti. Au gaiti esaten dau Eleisa Ama santiaren Trentoco batzaar osuac (27): Evangelijoco sinistutian ez dabela inoc pecatuben parcacinoia jadichico batiatu bagaric edo bautismuaren *nai* eguijazcua bagaric.

 (25) De Bautism. cont. Don. l. 4, c. 22. (26) De obit. Valent., n. 75. (27) Sess. 6, c. 4.

313 verdugubac] verdigubac Ba 322 biarda Ba | Jaungoicuaren] Jaungoicoaren Ba
 324 aldaguijanian Ba 329 albalei Ba 334 illzan Ba

⁴⁴ San Filemon, Martiri hil zen Egipton, Diokleziano enperadorearen agindupean; grekoz, latinez eta beste zenbait hizkuntzaz heldu zaigun legendazko Passio delakoak dienez, Filemon aktore (artista) jentila zen; preso zegoen Apolonio diakonoak, iruzurrez, sakrifizio paganoak bere jantziekin eskaintzera eraman nahi zuenean, hark Kristoren fedea aitortu zuen, eta Apolonio damuturrekin batera, martiritza jasan zuen... (Ik. B. KOTTER, *Philemon, hl.*, LThK 8 (1986) 446).

⁴⁵ Santa Katalina Alexandriakoa, ik. *Icas-Ilko* 127. oharra (954-955.or.).

⁴⁶ Ik. Mt 2,16-18.

Emeti ezaututen da, neure cristinaubac, bautismoco sacramentuba bacarra izan arren, iru modu ichi euscuzala Jesucristo gueure Jaunac, amaren sabeleti dacargun pecatuba parcatutecho. Ta baita beste edochein pecatu batiatu baino leenagoco bere. Bata ezin danian, bestiagaz balijauta gueure arimac salvau dai-
 345 guzan. ¡Ce ona dan gueure Jaungoicua! Celan beguiratuten deutseen gueure oneraco esquina guztiai! ¡Celan prestetan deuscuzan vidiac, batera ez bada bestera, gheu cerura eruateco! ¡Oh, ce maite izan biar dogun gueure Jaungoico ona!

III.

350 ¿Ta inor salvau ete leiteque batiatu bagaric? Ez, neure cristinaubac. Pedeco sinistquizuna edo *articuluba* da, edo urezco, edo odolezco, edo amodijozco ta naizco, esan dan bautismo bagaric ez dala inor ceruban sartuco. Jesucristo gueure Jaunaren evangelijo santuba azaldau ta predicau zan ezquero, erremedijo bagacua, popuertzacua, nora ezequa edo naita ezequa da batiatutia, sal-
 355 vetaco. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz barriro jaijoten ez dana ezin ceruban sartu leiteque*, dino Jesus gueure Salvazaille maitegarrijac (28). Uragaz ta Espiritu Santubagaz barriro jaijotia da, pecatubaren illuneti bautismuagaz gracijaren arguitara [31] iragotia. Onan aituten ditubee ta eracusten ditubee Jesusen verba are[*e*]c Eleisa Ama santiaren batzaarrac ta Gurasoac. Berau gaiti
 360 esaten dau Eleisiaren Trentoco batzaar nausijac eregen contra Espiritu Santubaren icenian (29), *inoc esaten badau bautismo bagaric salvau leite - quiala edo ez dala nora ezequa bautismo santuba salvetaco, izan dedilla escomulgauba*. Ez dagujala cer icusiric euqui alan verba eguiten daven eregiac ceruco gaucetan, dino Eleisa Ama santiac. Sinistu biar dogu bada, cristinaubac,
 365 pedeco eguitzat bautismoco sacramentuba, edo urezcua, edo odolezcua, edo amodijozcua, leen esan dan leguez, popuertzacua dala arimac salveetaco. Sinistu biar dogu, nai modu batera ta nai bestera, nai bere erruz ta nai erru bagaric, nai amaren sabelian galduten dala, nai jaijo ta bertati galduten dala, nai azita, nausi eguinda illten dala, batiatu bagaric beste mundura doian arimia
 370 ez dala inos bere ceruban sartuco.

Eracutsi onetati sinistu biar dogu, neure cristinaubac, *leleengo* Amaren sabelian galduten dirian seinac, bautismo santubaren paltaz duazala limbora. *Bigarrenian* : Jaijota batiatu bagaric illten dirian seinac, errazoiaren usura eldu ez dirianac ta jatorrizco pecatuba baino beste pecaturic ez dauquenac, nai

375 -----
 (28) Joan. c. 3. (29) Sess. 7, can. 5.

341 neure] nuere *Ba* 355 ezdana *Ba* 362 ezdala *Ba* 369 eguinda *Ba*

diriala cristinauben umiac, nai diriala judegubenac, nai gentilenac, nai turcubenac, nai eregenac, guztia duazala betico limbora. *Irugarrenian*: Sinistu biar dogu, errazoiaren usura elduta jatorrizco pecatubaren gainera eurac pecatu mortalac eguin ditubeenac, bautismo santuba bagaric illten di-[32]rianac, duazala betico impernura. Beguiratu, neure entzula onac, ce premina andicua dan bautismoco sacramentu santuba. Baita ce itsutasun andijan dagozan bere aimbeste guizon ta emacume mundu zabalian, Jaungoicuari ta Jesucristo gueure Jaunaren Eleisari sinistu gura ez deutseela ta bautismoco sacramentu santuba ucatuten daveela. Oneec dira judegubac, gentilac, eregiac ta gueure Eleisa Ama santa, bacar, Erromacuaren ta apostolu santubac zabaldubaren sinistuteti campora dagozan guztia. 380 385

¡Oh, ce esquer andijac emon biar deusaguzan gueure Jaungoicuari, bere Eleisa bacar santara dei eguin deusculaco, bautismo santubaren vitartez! ¡Oh! Ezautuco baguendu ondo ceimbat balijo deuscun cristinau izatiac, estimaucoguenduque obetuago Jaungoicuaren doe bardin bagaco au, ta erantzungo gueunsequijo zintzoruago ceruraco dejari, bautismo santuban eguin guenduban esquini santubari. ¿Pensau ete dozu inos ondo, cristinaubac, ceimbat balijo deuscun cristinau izatiac? ¿Pensau ete dozu ceimbat dagozan munduban, andi eguinda, zaartuta, cristinau izateco videric ez dauqueenac? ¿Cer dira aimbeste judegu? ¿Aimbeste gentil? ¿Aimbeste moro? ¿Aimbeste *ateista* edo Jaungoicuaren burleari? ¿Aimbeste herege ta sacramentuben ucalari? ¿Cetan dagoz ta cetan gueratuco dira areen arima tristiac ta gorputzac, batiatuta cristinau eguiten ez badira? Duda bagaric dirianac dagoz errucarri tristian, impernuraco vide jaquinian. ¿Cer gueijago zor eutsun, bada, zuri Jaungoicuac, arei baino? ¿Cer eguin cenduban zuc, cristinau izateco? ¿Batiatuta egoteco? [33] ¿Jaungoicuac bere aparteco semetzat artuteco? ¿Salvetaco vide segurura ta bacarrera, arei ichita, zuri Jaungoicuac dei eguiteco? ¿Cer zenquijan zuc jaijo zinianian? ¿Cer sortu zinianian? Ecer bere ez. Zu ta moro bat, edo judegu bat, edo herege bat bardin sortu ta bardin jaijo zinian. Ta areec euren utseguitetan ichita, zugana bere vegui bigunac Jaungoicuac itzuli zituban. Zu beste ascoren artian bere semetzat ta servizaritzat artu zinduzan Jaungoicuac bautismuagaz. 390 395 400 415

¿Ta ceimbat ill edo itoten dira batiatu bagaric cristinauben euren artian? Menturaz neure anae edo arrebac limbuan dagoz betico, bautismuaren paltaz. Neu sortu nintzan amaren sabelian sortu cirian areec bere. Neu gordetaco euqui evan beste ardura euqui evan areec gordetaco bere. Areec limbuan dagoz betico ta ni bautismo santubagaz ceruco vide seguruban nago. Ta neuc Jaungoicuaren dejari erantzuten badeutsat neure aldeti, egongo nas beti ceruban duda bagaric. ¿Cer eguin nevan, bada, nic areec baino gueijago, viziric jaijoteco ta bautismo santubaren gracia artuteco? Ecer bere ez. Ill nintzaatequian edo ito nintzaatequian jaijo baino leenago. Ta egon nintzaatequian betico 415

limbo illunian. Baina ez dau gura izan Jaungoicuaeren ontasun neurri baguiac. Berac bacarric viziric euqui ninduban amaren sabelian. Berac azi ninduban ta arguitara atera ninduban. Ta berac, bautismo santubagaz garbituta, artu ninduban bere semetzat.

420 ¡Oh, neure Jaungoico ona! ¡ceimbat maite izan biar zaitudan, bautismo santubagaz eguin [34] ceunstazan mesediac gaiti! ¡Oh nire tristia, judeguba izan banintz! ¡Oh nire errucarrija, morua izan banintz! ¡Oh nire zori gaistocua, heregen leguian jaijo ta azi banintz! ¡Oh nire galduba, Jaungoicuari, Jesucristori, evangelijo santubari, sacramentubai, cerubari, arimiari ta Eleisiari jaramonic ez eguiten edo barre ta burla eguiten eracutsi baleustee umetati neure gurasuac, neure eraculac, neure lagunac ta neure auzuac! ¡Cer izango zan nigaz, Jaun Cerucua, cer izango zan! Baina, ¿cer izango zan? ¡Ah! Diabrubac, mundubac ta araguijac goituta; egunian egunian pecatubari pecatuba ezarrita; ceure esan santubac ta betico eguijac ¡oh Jesus maitia! burlagarritzat artuta vizico nintzan munduban, ganadu baten guisaan. Ta ill nendinian⁴⁷, juango nintzan zucen impernucio ondarretara betico. ¡Oh, neure entzula onac! Au izan zaatequian zuben guztion ta nire azquen penagarrija ta bildurgarrija. Edo Jaungoico gozuaeren arpegui santuba icusi bagaric beti limbo illunian egotia, ito baguina gueure amaren sabelian bautismo bagaric.

435 Baina ez dau gura izan gueure Jaungoico onac gu alaco galdu bidian istia. Ainchinati zabaldu zituban bere vegui misericordijacuac gueugana. Beste millari ta gueijagori ichita, ecarri gaitu bere eche santara, bere Eleisa santara, urrian bertan beragaz bere maijan vizi gaitezan. Bautismoco iturri santuban gueure arimaac garbituta, bere semetzac batiuan marcauta, gracijagaz apainduta, ceruco sinistutiagaz ta eracutsijagaz arguituta, bere odol santubaren balijua sacramentubetan gueuri emonda, emen gaucaz [35] cerura eruateco prestetan, gueuc nai badogu. Au da Jesucristo gueure Jaunac bautismo santubagaz eguin deuscun mesede neurri baguia.

445 Alabau deguijela, bada, gueure Jesus mategarrija criatura guztiac. Cantau daguijezala ceruban ainguerubac bere misericordija zabalac. Amau daguijela, adarau daguijela ta jaso daguijela cristinau guztiac Jaungoico eguijazcuaren ontasun neurri baguia. Ta urtu dedilla nire vijotza bere Jaun andi, bacarraren amodijo santuban. Ez nadilla cansau inos esquer onac ta gracijac neure Jaun cerucuari emoten; bautismo santubagaz ta cristinau eguinagaz eracutsi deustan 450 maitetasun andijari celanbait neure aldeti erantzuteco. Onetan amaitu dedilla nire vizitzia.

416 ezdau *Ba* 425 gurasuac] gurasoac *Ba* 436 gueu gana *Ba* 450 celan bait *Ba*

⁴⁷ Denbora adierazten duten aditzekin, subjuntibo forma darabil egitez gertatu ez dena, baina lehen gerta zitekeena nahiz gero gerta daitekeena denean; forma aldetik, berriz, bizkaieraz ohikoa den *neintenean* / *naitenean...* erakoak erabili beharrean, *nendinean* / *nadinean* erakoak erabiliko ditu, hau da, gainerako euskalkietan ohikoak diren formak.

Bai, neure entzula onac, ez dogu aaztu biar bautismoco mesede andija, erantzun biar deusagu esquer onagaz ta humildiagaz Jaungoicuaren deijari. Ez dogu lotsatu biar pecatubagaz cristinaubaren icen santuba. Ez dogu loitu biar pecatubagaz bautismuan emon euscuben gracijazco jantzi ederra. Bada, Jaungoicuaren mesede apartecua dan leguez gu cerura eruateco, gueuc galduten badogu ceruba gueure erruz, Jaungoicuaren asarria bere apartecua izango da gu peneetaco. Au gaiti, gueu bagara lotsa gaistocuac Jaungoicuarentzat, izanic gueu Jaungoicuac bere echera, bere Eleisara ta bere mai santura deitubac, an zintzoro bere esanac guztiac eguin daiguzan ta bere esanac ta aguindubac eguin biarrian, lotsia galduten badeusagu ta asarratuten badogu gueure Jaungoicua, errazoe andijagaz bere echera eruan ez ditubanac baino gueijago castigauco gaitu.

[36] ¡Oh Jesus neure gordezaille maitia! Amaitu eguizu, bada, nigan, bautismuagaz asi dozun saill santuba ceure gracia indartsubagaz. Emon deustazu ceure sinistutia ta ceure seme izatia bautismuagaz; bada, emon eguidazu, ceu bacarric maitetu[te]co atseguina ta ceruban beti gocetaco zori ona. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan: 470

1. *Cegaz eguiten dan bautismoco sacramentuba.*
2. *Celan eguiten dan.* 3. *Noc eguin leguijan.*

Aituten emon ezquero cristinaubari Adanen pecatubac celan gaixotu evan gueure sortueria, ce era negargarricora ecarri guinduzan guztioac ac pecatubac ta celan pecatu aren osagarritzat ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac bautismoco sacramentuba bacarric, nora ececuca leguez da, neure entzula onac, cristinaubari eracustia sustraiz: 1. *Cegaz eguiten dan bautismoco sacramentu santuba.* 2. *Celan eguiten dan.* 3. *Ceinek eguin leguijan.* Ara emen, eracutsi onetaco icasiquizuna. Ezin ucatu guinai, bautismo santuba gueu salvetaco nora

453 Jaungoicuaren] Janugoicuaren *Ba* 453-454 Ezdogu *Ba* 454 Ezdogu *Ba* 460 zintzoro] zintzore *Ba*

480 eceua dana, ezda ustez uste bagaric seinac batiatu biarra sarri jazoten dana bere. Ta ain guichi, errazoiaren usura eldu dirian guizon eta emacume guztia dauqueela chito premina andija, cegaz, celan eta noc batiatu leguijan jaquiteco. Au gaiti erregututen deusut guztioi, imini daguizula aimbat arduraric andijena bautismo santuco eracutsijac ondo entzuteco ta icasteco.

485 [37]

I.

Jesucristo gueure Jaunac berac aguindu evan batiatutia, gueu salvetaco⁴⁸. Baita Jesus maitiac esan euscun bautismua cegaz eguin bere. Ya ez dago gueure escuban bautismo gueija autortutia edo aldatutia. Ura ichi euscun Jesucristoc bautismo gueitzat. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz barriro jaijo bagaric ez da*
 490 *inor ceruban sartuco*, esan eutsan ceruco Eracusliac Nicodemusi (30). *Ura ezarten jaco batiatuten danari*, dino san Gregorijoc (31); *ta uragaz seinari gorputza garbituten jaconian, Espiritu Santubac garbituten deutsa arimia pecatubetati. Gauza bat da sacramentubaren ura ta beste bat da Espiritu Santubaren ura*, dino san Isidoroc (32). *Sacramentubaren ura icusten dana*
 495 *da. Espiritu Santubaren ura icusten ez dana da. Sacramentubaren urac garbituten dau gorputza ta aituten emoten dau, arimia garbituten dana. T a Espiritu Santubaren gracijac garbituten dau arimia*, dirauscu Santubac berac.

Au da, neure cristinaubac, Jesucristo gueure Jaunac ichi euscun bautismoco jaijotza barrija. Pecatuzco vizitzari gracijazco vizitzara urezco sacramentubagaz iragotia. Bautismoco sacramentuba eguiteco, nai ta eceua da ura. Au gaiti esaten deuscu san Paulo apostolubac (33), *uragaz garbitu evala Jesucristoc Eleisa guztia, pecatubaren izurtura*⁴⁹, *loi edo mancha bagaric guztia santia, ederra, garbija ta gracijaz apainduba eracusteco*. Uragaz batiatuten danian, Espiritu Santubaren gracijac emoten deutsa arimiari jantzi garbi, eder
 505 au. Orduban gueratu-[38]ten da cristinau barrijaren arimia pecatubaren zetaca bagaric, illun edo arretasun bagaric, guztia gracijaz zurituta, loratuta, arguituta, santa eguinda. Ta batiatutaco arimac dirian leguez Eleisa Ama santia pormau edo orniduten daveenac, orregaiti esaten dau Apostolu santubac, uragaz garbitu evala Jesucristoc Eleisa guztia.

510 Gauza bi eracusten deuscu emen Apostolu santubac. Bata da, batiatuten dana guztiz garbija ta santutuba gueratuten dana. Ta bestia da, bautismo santutuba uragaz eguiten dana. Alan Eleisa Ama santiac Trentoco batzaar santuban

 (30) Joan. c. 3. (31) Exp. in 7. Psalm. poenit. n. 9. (32) Orig. l. 7, c. 3. (33) Ephes. c. 5^{49a}.

507 eguin da Ba 487 Ya| Ija Ba

⁴⁸ Ik. Mt 28,19; Mk 16,15-16.

⁴⁹ "Izurtura": izurra, zimurra.

^{49a} Ohar hauek ordena okerrean jarri zituen argitaratzaileak.

condenetan ditu heregetzat esaten daveenac (34), *ez dala uragaz eguiten bautismoco sacramentuba; edo batiatuteco, ura ez dala nora ezequa*. Sinistu biar dogu bada, neure entzula onac, pedeco gauzatzat, nora ezequa dala ura batiatuteco. Ura dala bautismuaren gueija. Ur bagaric ezin legujala bautismoco sacramenturic. ¿Taasco ete da ura bera bacarric, seinabatiatuteco? Ez, cristinaubac. Ura seinari ezarten jaconian, esan biar jacoze Jesucristoc orduban esateco ichi euscuzan verbac. *Verbia elduten da uragana ta eguiten da bautismoco sacramentuba*, esaten deuscu san Agustinegaz Erromaco Catecismuac (35). Alan ura ta verbac, bitzubac biar dira batiatuteco. Au gaiti jaquin biar daucristinaubac ondo *lelengo*, ce ur biar dan batiatuteco. *Bigarrenian*, ce verba biar dan.

¿Ce ur biar da, bada, batiatuteco? Berezco ura izan ezquero, edocein ur daasco batiatuteco. [39] Baina eleisan batiatuteco, bautismoco sacramentubari jaocan osotasunagaz, etsaibotetiagaz ta batiatute aldi nausijagaz, biar da urte atanbedeincatutaco ura, dino san Carlos Millanguac (36). Ez, bautismo santuba bedeincatu bagaco uragaz eguingo ez litzaatequialaco, ezbada sacramentubaren erreberencia gaiti Eleisiac alan aguinduten davelaco. Onezaz ostian, edocein ur berezco daasco ta da ona seinabatiatuteco. Au da zubece jaquin biar dozuna, premina orduban eche bautismua seinari emoteco ta aren arimia pecatuti ascatuta, ceruraco prestetaco. Esaten da biar dala *berezco ura*; au da, beste gauzagaz naastau bagaric daguana. Alan, nai errecacua, nai iturricua, nai pozucua, nai ituxurecua, nai ichasocua, nai izunguraan⁵⁰ edo bidian gueratuta daguana, nai otza ta nai berua, nai garbija ta nai arria⁵¹, edocein ur berezco daasco ta da ona biar orduban batiatuteco. Eguija da, escura euqui ezquero, oba da ur bedeincatubagaz batiatutia. Baina alaco ordu estuban, seina ondo ta bali-joz batiatutiaceuqui biar dau ardura nausija.

Oi dira jaquitun batzuc, edo *andra-maestra* esaten jacuen batzuc, guztia daquijelacuan ecer bere ondo ez daquijenac. Alaco seinguintzetan edo seingaltzetan euren utseguitezco jaquiturijagaz arrotuta, biar ez dirian burutacinoiac prestetan diarduveen artian, seinabatiatu bagaric escubetan illten jacuenac. Esaten da, bada, osterabere, cristinaubac, *edocoin berezco ur dala ascuestu orduban seinabatiatuteco*. Ez da *berezco* ura, cerbaitegaz naastauta [40] daguana. Ez da *berezco* ura, bedarraquin edo loraquin egositaco ura. Ez da

(34) Sess. 7, Can. 2. de Batism. (35) De Bautism., n. 6. (36) Actor. p. 4. de Baut. administ.

518 eteda *Ba* 520 ura gana *Ba* 523 biardan *Ba* 524 biardan *Ba* 525 biarda *Ba*
529 Ez bada *Ba* 533 biardala *Ba* 544 edo cein *Ba*

⁵⁰ "Izungura": ur geldituzko urtegia, aintzira.

⁵¹ Berez, hitza "arre" da, baina bokalen harmoniagatik, absolutibo mugatuan "arria" egiten du, hau da, zikina, lohia, aratza ez dena; (uraz hitz egiterakoan darabil).

550 *berezco* ura, ardaugaz edo saardaugaz naastautaco ura. Ez da *berezco* ura, saldiagaz edo beste bustigarriren bategaz naastautaco ura. Urac izan biar dau, bada, berezcuac. Naturaleciac eguin daven eracuac, ez naastaubac edo aldatubac, batiatuteco. Au jaquinda euqui biar davee dotrina pusca bat baino ez daquijen cristinaubac, ur naastauba berezcuaren lecuban inos ezarri ez daguijuein seinari. Alan esaten deuscu san Carlos Millanguac, eracusteco cristinaubari, naastautaco uragaz eguindaco bautismuac ez davela balijo. Au da batiatuteco uraren gainian cristinaubac jaquin biar davena.

570 ¿Ta ce verba esan biar jacoz seinari, batiatuteco, ura ezarten jaconian? Jesucristo gueure Jaunac berac esateco aguindu euscuzanac. Ez gueijago ta ez guichiago. Eurac bacarric, Eleisa Ama santiac eracusten deuscuzan moduban. Ez naastauta, ez birrinduta. Ez beste aitu emote batera ecarrita, ez bada eurac bacarric ta zucen. Jesusec berac eracutsi eutseen apostolu santubai, cer verbagaz eguin biar evene bautismoco sacramentuba. Ta aguindu eutseen: *Juanda, eracutsi eguijezu gente guztiai evangelijoco esana; ta batiatu eguizuz Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian* (37). Ara emen Jesucristoren beraren ao santuti, sein a batiatuteco verbac. Guztia dira biarrecuac edo popuertzacuac. Popuertzacua da Jaungoicuaren iru personac, AITIA ta SEMIA ta ESPIRITU SANTUBA icentetia. Popuertzacua [41] da, batiatuten davenaren ta batiatuten danaren personac icentetia. Baita batiatuten davena aituten emotia bere. Au guztiau eguiten da esanagaz: NIC BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN ta SEMIAREN ta ESPIRITU SANTUBAREN ICENIAN. Amen. Verba oneec dira, sein a batiatuteco esan biar dirianac, orain zubei jagotzunez. Ez dira guchitu biar. Ez dira gueitu biar. Ezda naastau edo oquertu bere. Bada, oquertu edo naastetan badira dauqueen esaneti, ez dau balijoco bautismuac. Artu eguizuz, cristinaubac, ondo buruban verba santu oneec, biar orduban sein a batiatuten ondo jaquiteco. Ta entzun eguizu uragaz ta esan dirian verbaquin celan batiatu biar dan sein a.

II.

590 Ez da emen ecer esaten, eleisan sein a batiatutiaren gainian. Au eleisa guizonai jagocuena da. Nic eracutsi biar deusudana da, sein bat jaijota laster illteco peligruban daguanian ta eleisara eruateco lecuric emoten ez davenian, celan batiatu biar dozun. Onetaraco jaquin biar da *lelengo*, orain aita ditugun seinac diriala jaijota dagozanac. Bada, jaijo ezinda dagozanac edo demporia baino leenago galduten dirianac celan batiatu biar dirian, esango da gueroco

(37) Matth. c. 28

552 puscabat *Ba* 570 Ez bada *Ba* 582 Ez da *Ba* 586 biardan *Ba* 588 Ezda *Ba*

eracutsijan. *Bigarrenian* : Eche bautismua emoteco seinari, ez da biar ez aita 595
 besuetacoric ez ama besuetacoric. *Irugarrenian* : Edocein guizon nai emacu-
 mec batiatu legui seinara premina orduban, batiatuten jaquin ezquero.
Laugarrenian : Eleisara eruan al dedilla ta laster illteco peligruric ez daucala,
 ez jaco seinari eche bautismua emon biar. *Bostgarrenian* : [42] Gurasuac aim-
 bat lasterren eruan biar davee seinara eleisara batiatutera. Bada, Erromaco 600
 Catecismuac dinuan leguez, pecatu andija izango litzaateque, popuertza biar
 dan baino luzaruago seinara batiatu bagaric euquitia. Seinac bautismua baino
 beste medijoric ez dauca salvetaco. Ta jaijo barrijan chito peligru asco daucaz
 illteco. Bost gauza oneec goguan diriala esaten da, bada, nora ezian edo ordu
 popuertzacuan seinari eche bautismua emoten jacola. ¿Baina celan? Seinara 605
 biloxtuta, buruti edo gorputzaren zati nausi bateti edo gorputz guztiti ura eza-
 rrita, ura ezarten jaconian esanagaz: *Nic batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren*
ta Espiritu Santubaren icenian. Amen . Ura ezarten jaconian esan biar dira
 verba oneec. Bada, ura ezartiac ta verbac esatiac bat eguin biar davee. Ura eza-
 rri baino cerbait leenago edo ura ezarrita cerbait gueruago esaten badira ver- 610
 bac, ez dau balijo bautismuac. Batiatuten davenac equi biar dau ustia edo
 gogua, seinara batiatuteco. Ura ezarten deusnac berac esan biar deusnac seinari
 bautismo verbac. Bada, batat ura ezarri ta bestiac verbac esan, ez dau bali-
 jo bautismuac. Ara eracutsita, celan eguin biar dan eche bautismua premina
 orduban. Ta oni darraico eracustia, noc batiatu leguijan seinara premina ordu- 615
 ban.

III.

Bautismoco sacramentuba gauza santuba ta andija da, neure entzula onac.
 Orregaiti ez da edocein modutan eguiten dana ta eguin biar dana. Eleisa Ama
 santiac imini dau moduba gauza onetan bere. Ta Eleisiaren aguinduba eguin 620
 biar dogu. Bautismo santuba noc eguin biar [43] daven eracusteco esaten da,
 bada: 1. Obispo jaunen cereguina da batiatutia. Obispo jaunen urreengo cura
 jaunen cereguina da. Oneen ondoric sacerdote jaunena. Oneen ondoric dia-
 cunubena. Guero sudiacunubena. Guero edocein eleisa guizonena. Eleisa gui-
 zonen paltaan, leenago dira guizonezcuac emacumiac baino. Beste cristinau 625
 batiatuten daquijanaren paltaan, dira gurasuac, seinaren aita edo ama. Ordena
 au gorde biar da seinac batiatuten. Ta austen bada premina bagaric, seinara
 batiatuteco aurrerago danari eguiten jaco injurija. Ta au pecatu da, dinue santo
 Tomasec ta san Carlos Millanguac beste ascogaz (38). Sacerdote baten aurrian

 (38) P. 3, q. 67, a. 3. ad 1. S. Carol. de Minist. Baut.

630

595 ez da Ba 598 aldedilla Ba 604 esatenda Ba 610 cer bait Ba 614 biardan Ba
 622 cer eguina Ba 623 cer eguina Ba

batiatuco baleu seina beste abade ez dan batec, abade jaunac ontzat emon bagaric, eguingo leuque pecatu seina abadiaren aurrian batiatuten davenac. Gurasuac batiatuco baleu bere umia, beste daquijanac noc batiatu daguala, eguingo leuque pecatu ta ecarrico leusquiyo bere burubari beste carga astun bat, cein irago biarco leuquian bere compesoriagaz.

Esaten da 2. alaco seina echian edo jaijoten dan lecuban batiatuteco, ordu estuba danian edo eleisa guizonic ez badago aurrian, onduen daquijanac batiatu biar davela seina. Beste lagun asco aurrian egon arren, ez badaquiye seina batiatuten ondo ta seguru ta seinaren aitac edo amac badaqui batiatuten ondo, orduban aitac nai amac obeto daquijanac batiatu biar dau seina. Bada, alaco nora ezian ta estu orduban gueijen balijo davena ta biarren dana da, [44] seina ondo batiatutia ta aren arimia salvetaco vidian imintia. Alacuan, ez inori injurija andiric eguiten jaco, ez gurasuac eguiten dau paltaric seina batiatubagaz.

Esaten da 3. besten paltaan, edocein guizon nai emacumec batiatu leguijala seina biar orduban, Eleisa Ama santiac bautismuan eguiten davena eguiteco ustia equi ezquero. Dinot, *edoceinec* Nai dala judeguba, nai dala gentila, nai dala morua, nai dala heregia batiatuten davena, seinari ura ezarrijagaz leen icentau dirian verbac esan badeutsaz batiatuteco ustiagaz edo Eleisiac bautismuan eguiten davena eguiteco ustiagaz, batiatuta gueratuco da seina, dino Trentoco concilijuac (39).

Ez, bada, aaztu, neure entzula onac, cegaz eguiten dan bautismoco sacramentu santuba; celan eguiten dan; ta ceinec eguin leguijan, bai eleisan jagocan naustasun guztiagaz ta bai biar orduban edocein lecutan. Sacramentu biarreca ta nora ececa ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac bautismoco sacramentuba, salvetaco. Baina sacramentu merquia, erraza ta presta. ¿Cer gauza escuragua, sein bat batiatutia baino? Ez da diruric biar. Ez da icerdiric bota biar. Ez da nequeric artu biar, seina batiatuteco. Ur pusca bategaz ta verba bigaz batiatuten da seina edonun ta edonos. ¿Cer gauza errazagua au baino? ¿Cer gauza ugarijagua ura baino? ¿Cer leenago eguin guinai verba bi edo iru esatia baino? ¿Cer leenago icasi guinai, Aitiaren eguitia ta *nic batiatuten zaitut* esatia baino? Bada, *nic batiatuten zaitut Aitiaren ta* [45] *Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian* esanagaz ta ur pusca bat ezarrijagaz seina batiatuta dago. Ceruraco pretauta dago. Illtia palta dau, ceruban beti aingueruben lagunquidian biciteco.

¡Oh, Jesus maitegarrija! ¡Ce jaquituna, ce ona, ce artetsuba zarian gueure oneraco! Ez cenduban gura izan, gueu batiatuteco ura ichaso urrineti ecartia.

(39) Sess. 7, can. 4

636 jaijotenda *Ba* 637 ezbadago *Ba* 643 eguitendau *Ba* 652 eguin| egnin *Ba* (380.or.: eguin) 653 edo cein *Ba* 662 puscabat *Ba*

Ez cenduban gura izan, Erroman bedeincatu biarrecua izatia. Ezda diru ascogaz erositacua izatia bere, ez bada edocean berezco ur, nai errecacua, nai pozucua, nai ituxurecua... ichi cencuban bautismo gueitzat. Edocein gentil, judegu, 670
 nai heregeri emon ceuntsan escubidia seinac batiatuteco. Edocein lecu, nai echia, nai solua, nai basua, nai bidia, prestau cenduban biar orduco bautismo lecutzat. ¡Oh, cristinaubac! ¡Ez da au Jaungoicuaren misericordija zabala ta presta, gueu salvetaco? ¡Ta ez dogu maitetuco, alabauco, adorauco ta bedeincatuco Jaungoicuaren icen santuba gueure vijotz guztiagaz, gogo guztiagaz ta 675
 arima guztiagaz? ¡Adanen pecatu gaistoti ascatuteco ain modu seguruba, erraza, presta, merquia ta ugarija emon deusculaco? Bai, Jesus ona, ametan zaitugu, adoretan zaitugu ta alavetan zaitugu gogoti guztio. Ta erregututen deusugu ceure gracija indartsuba, aguindu onei cobru emoteco ta onen sarija, ceu ceruban gocetaco. Amen. 680

[46]

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Arimia gaiti cer sinistu biar dogun;
 ta celan pensau daiquegun bere asieriaren gainian.*
2. *Ce gaiti galdu oi dirian ascotan seinac amaren sabelian.* 685

Arimiaren betico onari urreti jagocazan gaucetan ez dogu ecer bere ichi biar, neure cristinaubac, aimbat onduen icasi bagaric. Eracutsi arren, bada, cristinaubari bautismo santuba cegaz eta celan eguiten dan, bagoz beste gauza batzuc, moduren baten sacramentu oni jagocazanac ta cristinaubac jaquitia chito ondo dirianac. Seinac guztiac jaijoco balira amaren sabeleti ondo ta 690
 sendo, ez legoque esan dana baino gueijago cer icasi bautismo eguitiaren gainian. Baina sarritan jazoten dan leguez seinac demporia baino leenago jaijotia edo galdutia, emeti dator arima triste areen erruquija. Baita aleguin guztiagaz arei lagunduteco naija bere. Batzubetan galduten dira seinac amaren sabelian gurasuen erruz. Beste batzubetan, gurasuac erruric ez dauqueela, eurecauten. 695
 Gurasuen erruz bere batzubetan, gurasuac berarjaz berac seinaga galduta. Beste

673 Ezda *Ba* 674 ezdogu *Ba* 685 oidirian *Ba*

ascotan, berarjaz izan ez arren, gurasuaren beraren erruz. Baita seinac bere galdu oi dira amaren sabelian, batzuc leenago ta beste batzuc gueruago. Batzubetan, sortuta laster. Ta beste batzubetan, sortuta nequezago.

- 700 Beste aldeti, batiatu bagaric gueratuten dirian seinentzat ez dago salvetic. Amaren sabelian arimia gorputzagaz bat eguinda bertati [47] izan arren, batiatu bagaric galduten bada, ez dago arentzat ya ceruric. Ez dau inos Jaungoicuaren arpeguiric icusico. Ezda ordu betian baino gorputzagaz bat eguin ez bada bere. Bautismo bagaric beste mundura doian sein, beti egongo da limbuan. ¿Ez da, bada, gauza ona ta biarrecua izango, neure entzula onac, guraso guztiai eracustia aibat onduen ta seguruben? *Lelenga* Arimen asieria. Ezautu daguijen arimiaren balijua. *Bigarrenian* : Sabelian celan seinac galdu oi dirian. Erruquitu ditezan ta contu eguin daguijen sabelian daguan seinari. *Irugarrenian* : Inos sein galdute bat jazoten danian, celan batiatu biar dan. Duda bagaric premina andico gauzia da au. Arimiaren balijua ezaututa, sein sortuben erruquija artuta, jaijo artian ondo zaintuta, ustez uste bagaco sein galdu ordu bat jazoten bajacue, jaquingo davee orduban cer eguin biar daveen. Uste dot, cristinaubac, gueure neque guztiac ta ardura guztiac utsac diriala, ez alan galduten dirian arima guztiac, ez bada areetati bat bacarric salvauco
- 715 balitz gueure partez. ¿Ce poza, ce atseguina, erru bagaco arima bat gueure aldeti ceruban euquitia! Onetaraco esango deusut, bada, eracutsi onetan: 1. *Arimac gaiti cer sinistu biar dogun; ta celan pensau daiquegun arimen gorputzagazco bat eguitia gaiti* . 2. *Celan galdu oi dirian seinac amaren sabelian* . Entzun eguizu gogoz. Ta dendatu zaite ondo icasten.
- 720 Eguiija esateco, arimiaren gainian zoraquerija asco eracutsi edo esan ditubee guizonac. Ceruco arguija bagaric ta Jaungoicuaren laguntasuna bagaric gueure arimen gainian verba eguin [48] daveenac, jausi dira uts eguite andi ascotan. Baina Eleisa Ama santiaren eracutsijari ta Jaungoicuaren deijari gogoz ta gustoz jarraitu deusenc, bide illunetan bere ez davee utsic eguin. Arimiaren gainian bere, Eleisa Ama santiari ta Jaungoicuari berari entzun biar deusagu bada, neure cristinaubac. Eleisiac aguinduten deuscu, bada, sinistuteco. *Lelenga* Gueure arimac diriala, Jaungoicuac ecer bere ezeti eguindaco edo aterataco espiriutubac. *Bigarrenian* : Gueure arimac dauqueezala aituteco ta nai izateco alarijac edo potencijac, ceintzuc dirian *adina* ta *naillia* . Adina, Jaungoicua ta beste gauzac aituteco. Ta naillia, Jaungoicua bera ta beste gauza onac maitetuteco, deungac gorrototuteco. Baita dauca arimiac *gomutia* bere, iragotaco gauzac gogoratuteco. *Irugarrenian* : Arimac dirian leguez espiriutucac, ez diriala inos amaituco. Asieria badauquee gueure arimac, baina amairic ez dauquee. Nora ececu da ya, gueure arimac edo ceruco glorijan, edo

698 oidira *Ba* | 702 ya| ija *Ba* 703 Ez da *Ba* 708 oidirian *Ba* 714 ez bada *Ba* 718 eguitiagaiti *Ba* | oidirian *Ba* 733 ezdiriala *Ba* 734 ya| ija *Ba*

impernuco sugarretan, edo limbo illunian beti beti egotia. Au eracusten deus- 735
cu, neure entzula onac, Eleisa Ama santiac gueure arimen izatiaren gainian. Ta
arimac gorputzagaz bat eguitiaren gainian eracusten deuscu Eleisa Ama santi-
tiac berac (40):

Lelenga Guizon bacoherentzat ta emacume bacoherentzat Jaungoicuac 740
ecer bere eceti ateraten davela edo eguiten davela arima bat. Alan, ceimbat
guizon ta emacume sortu dirian guztitan mundubaren asierati amaira, aimbese-
te arima izango dira betico. *Bigarrenian* : Sinistu biar dogu, guizona nai emacumia
viziric da-[49]guan artian, arimia bere gorputzagaz daguala. *Irugarrenian* :
Guizona edo emacumia illten danian doiala arimia Jaungoicuac 745
aguinduten deuscu lecura: Edo cerura, edo purgatorijora, edo limbora, edo
impernura. Ta azqueneco egunian ostera gorputza viztu dedinian, bat eguingo
dala arimia bere gorputzagaz. *Laugarrenian* : Sabelian sortuteco dagozan gor-
putzentzat ez ditubala Jaungoicuac leendanaz arimac ecer bere eceti eguiten,
ezbada gorputz gueija arimia beragaz bat eguiteco amaren sabelian prestetan
dan orduban, Jaungoicuac ecer bere eceti aterata, iminten davela arimia an. 750
Bostgarrenian: Seina jaijo baino leenago daguala arimia gorputzian. Au sinis-
tuten dogu, neure cristinaubac, arimia gorputzagaz bat eguitiaren gainian
Eleisa Ama santiaren eracutsiti ta Escritura Sagraduco jazuetai.

Baina, seina amaren sabelian sortuten daneti ceimbat dempora barru ari-
miagaz bat eguiten dan, ez dago guztiz erabaguita. Ez dago guztiz erabaguita, 755
sortutaco gorputz guei atan Jaungoicuac nos iminten daven lelengo arima espi-
rituzcua. Baina ascoc eracusten davee, ta ascoren artian Cangiamila Palermoco
canonigu jaquitunac, cein alaveetan daven Benedicto XIV. bere zelo santuzco
ta jaquiturijazco eracutsija gaiti (41), eracusten dau beste ascogaz, san Basilio
ta san Cesario testigutzat artuta (42), *amaren sabelian seina sortuten daneti* 760
laster edo dempora guichi barru Jaungoicuac arimia iminten davela gorputz
guei sortuban. Aspaldijetaco eracusla ascoc edo gueijenac esaten daveena da
[50] au, neure cristinaubac. Au berau sinistu eraguiteco dacarreez errazoe sen-
duac ta jazo azaldaubac, jaquitunic andijenen ontzat emotia merecidu izan
daveenac. Ez da, bada, izango ez evangelijo santubaren, ez gueure cristinaut- 765
zaco eracutsi garbijaren caltian esatia, amaren sabelian seina sortuten daneti
laster edo dempora guichi barru, Jaungoico Andijac bere governu altubagaz
ecer bere ezeti aterata, iminten davela espiritzuco arimia gorputz guei atan.
Espirituzco arima a izango dala edo zori onian edo zori gaistuan beti iraungo
davena. Ta orduti ill artian, gorputzari vizitzia ta guizonaren izatia emoten 770

(40) Prop. cond. 35. Innoc. XI. (41) Sinod. Diœc., lib. 11, c. 7, §. 13. (42)
Embriol. Sagr. lib. 1. cap. 6.

deutsana. Ta azqueneco egunian barriro gorputzagaz betico bat eguingo dana. Emeti dator gorputz gueija a, amaren sabelian arimiagaz azten daguana galduten bada batiatu bagaric, an daguan arimiac ez davela inos Jaungoicuaren arpeguiric icusico.

Au da, neure cristinaubac, guraso guztiac jaquin biar daveena ta beti goguan euquitia ondo dana, euren erraijetan sortuten dirian seinai lelengo eguneetati contu eguiteco. Bada, errazoiac ta eracuslaac esaten daveenez, sortuta lasterreti edo dempora guichiti dago gorputz gueijan espirituzco arimia, gorputza azten, ari vizitzia emoten ta guizonaren izate osora ecarten. Ta gorputz sortu barrija galduten bada amaren sabelian bautismo bagaric gurasuen erruz, ¿cetan gueratuten da an daguan arimia? ¡Ah, cristinaubac! ¡Baquizu betico limbora doiana! ¡Ta bere gurasuen erruz! Ez dago beguiric, arima galdu aren gainian biar dan negarra eguiteco. Ez aaztu bada, cristinaubac, sortuta las-[51]ter, esaten danez, edo dempora guichi barru daguala gorputz erne barrijan mundu guztiac baino gueijago balijo daven arima bat. Ta entzun eguizu onen ondoric, cegaiti galdu oi dirian ascotan seinac amaren sabelian.

II.

Egunian eguniango jazuac eracusten deuscubee, malpecau⁵², Eleisa Ama santiaren atsecaba andijan, amaren sabelian jaijo baino leenago sein asco galduten diriana. Alan gueratuten dira gurasuac ume bagaric, erriac guizon bagaric ta ez guichitan ceruba arima bagaric. Ta baita erru bagaco arimac bere Jaungoicuaren arpegui maitegarrija icusi bagaric. ¡Oh, cristinaubaren vijotza erdibi eguiteco penagarrija! *Andija ta bildurgarrija zan* , dino arzobispo Jaun batec (43), *Erodesec Jesusen gorrotoz sein erru bagacuetan eguin evan illtia edo illquetia. Baina andijagua ta negargarrijagua da, ta ascozaz gueijago dira, egun ero Satanasac amaren sabeletan bautismo bagaric galduten dituban seinetan eguiten davena. ¡Gauza tristia ta mingarrija da ameen sabeletan aimbeste sein galdutia!*

Seinac galduten dira batzubetan amaren sabelian, gurasuac eurac atara⁵³ eguinda. Alaco gurasuac dira euren gurazco sein *illzaillac* . Ez da errez, cristinaubac, esaten guraso one[e]c ce pecatu andija eguiten daveen, ta Jaungoicuac

(43) Archiep. Palerm. in Embr. Sagr., t. 2, lib. 4, art. 13.

785 biardan *Ba* 788 oidirian *Ba* 802 Ezda *Ba*

⁵² Ik. *Icas-I*-eko 284. oharra (894.or.).

⁵³ Esapide egokia dugu hau: *gurasuac eurac atara eguinda* , hau da, gurasoek eurek hartara eginda, gurasoek hartara eraginda, nahita eginda. Ondorengo lerroan *euren gurazco sein illzaillac* direla dio.

ta Eleisa Ama santiac, baita guizatasunaren izate guztiac bere, ce gorroto andi- 805
 ja deutseen guraso vijotz gordineco arei, euren sabeleco guizon gueija galduten daveelaco edo galdutia gura leuqueelaco [52] edo galduteco ustez cerbait eguiten daveelaco. Jaungoicuaren, Eleisiaren, guizonaren ta naturaleciaren contraco pecatuba da ta pena andijaquin eragotzija da, sabelian azten daguan sein a galdutia. Onestidadia luurrera bota daveen emacumiac, edo euren buruti, edo lagun gaistuac eracutsita, edo diabrubic guztiz itsututa, galdu daveen ondria topau edo jaso guraz, eguin oi ditubee euren sabeletaco sein erru bagacuaquin alaco negargarijac. ¡Oh, ce vide oquerra, galdu daveen ondria jasoteco ta euren pecatuba ta lotsarija ezcutetaco!

¿Ta cer jadiichi oi davee alaco sein sortuben borregubac? Sarri entzun oi 815
 danez ta jazo oi danez, eurac nai leuquenec ez. Emacumeasco dendatu dira euren sabeleco sein sortu barrijac galduten; baina ezin galdu izan ditubee. Artu ditubee boticacuac, agortu ditubee edateacuac, estutu ditubee euren sabelac... ill nai izan ditubee sabelian euren umiac; baina Jaungoicuac zaintu ditu ascotan sein sortubac ama gogorraren escubetati. Alaco ama gaistuen prutu mingocha oi da, pecatuasco eguin, besteasco inori eraguin, euren osasunac galdu ta macaldu, euren lotsarija gueitu, euren pecatubac azalduabago eguin ta azquenian besteen burlagarri osuan ta aguirijan sein a eguin. Au iracurten da liburu ascotan. Ta au berau entzuten da sarritan, jazo jacuela atarico emacume ascoti ta ascoti. Conturatu bitez, bada, beste emacume guztiac, aimbeste calte 825
 euren arimai, euren osasunai, euren cleitubari ta euren sabeleco sein errubaguiac ecarri bagaric.

Ez dira guraso guztiac, euren naiz sabeleco seinac galduten ditubeenac. Baina baiasco biar [53] dan arduriaren paltaz, sein a galduteco gauzaac pena bagaric eguiten ditubeenac. Ascotan gurasuac eguiten ditubee gauza batzuc 830
 gach uste bagaric, celan ez daquijela ta jaquin biar leuqueela, sabeleco seinari vizitzia quenduteco duinacuac. Ez davee guraso ascoc ondo goguan, ce gauza biguna, ursuba, ececreza ta alcarri ondo ez dautsana⁵⁴ dan amaren sabelian daguan sein a. ¡Ojala erruquituco balira, bai aita ta bai ama, ta endamas ama, bere erraijetan sortuta Jaungoicuac emon deutan bendicinoezco seinagaz ta aren arima tristiagaz! Ezautuco balebee gurasuac ondo seme bat edo 835
 alaba bat Jaungoicuac emon deutseela dacuseenian, ceimbat balijo daven aren arimiac ta celan Jaungoicuac ichi daven euren contura sortu jacuen sein a, ez litzaatequez descuiduan leguez aimbeste sein a sabelian galduco. Entzun eguizu bada, cristinaubac, gurasuen naiz izan ez arren, ce gaiti galdu oi diran ascotan 840

812 oiditubee *Ba* 815 jadiichi| jadijchi *Ba* | oidavee *Ba* 815-816 oidanez *Ba* 816
 oidanez *Ba* 821 oida *Ba* 828 sabeleco| sasabeleco *Ba* 832 Ezdavee *Ba* 833 ecer eza
Ba | ezdautsana *Ba* 840 oidiran *Ba*

⁵⁴ Ik *Icas-Ieko* 189.oharra (803-804.or.).

sabelian seinac. *Lelenga* Senarrac emaztiari seindun daguanian emon oi deus-
 tsan baque chaarra, vizitza gaistua ta colpiac gaiti. Au edoceinec daquijana da.
 Ta ez guichitan jazo oi dan negargarrija. *Bigarrenian* : Emacume seindunaren
 asarre sutsubac gaiti, gorrotozco purijaac gaiti inoren gacheraco guraari vizi-
 845 jac gaiti, ta tristeza astunac gaiti. Gauza jaquina da, alaco guraari sutsubari
 indarra artuten isten jaconian, odolac sututen diriana, zana tiratuten diriana, ta
 gorputz guztiari neque andija emoten jacona. Alan, asarre aldi baten ondoric,
 sarritan emacumiac seinac galdu oi ditubee. *Irugarrenian* : Biar neque andi-
 cuac eguinagaz. Edo, neque andicuac izan ez arren, sein [54] galduteco dui-
 850 nacuac eguinagaz. Artzuquetia, carga andijac erabiltia edo buruba jaso ezin da
 necatutia..... asco dira,abelian daguan sein [54] galduteco. *Laugarrenian* :
 Gorputza laarregui estututa erabilijagaz. Au jazo oi da gorputzari echura obia
 emotia gaiti. Baina laarreguijagaz, ta endamas sarritacuagaz, gueijagoco baga-
 ric galdu legui sein. *Bostgarrenian* : Dantzan edo pandangan ibilijagaz.
 855 Gauza aguirija da, chito ezaina ta sein galduteco peligru andicua dala, alan
 daguan emacumiac dantzan edo pandangan eguitia, nai bacarric ta nai lagu-
 naquin. Ez leusquijo senarrac ichi biar. Ezda juezac bere.

Eracusla ta medicu jaquitun ascoren erichijan (44) oneec dira, neure cristi-
 naubac, sabeleco seinen descuidoizco edo gurasuen nai bagaco galdugarrijac.
 860 Ta pensau dot ez dala errazoeti campora izango, aimbeste balijo daven sailian,
 ceubei dirianac esatia. Bacoachac, jagocan leguez, jaquin daguizan ta gorde
 daguizan. Bada, ez dago dudaric, gurasuen bai aitaren ta bai amaren eguinbiar
 andija daabelian daguan seinari ondo contu eguitia, bere demporan jaijo
 dedin, batiatu dedin ta Jaungoico andija maitetuteco ta goceetaco izan dedin.
 865 ¿Ce contu emongo deutsee, bada, gurasuac Jaungoicuari, euren paltaz guizon
 guei batabelian ill ta arima bat galduten bada?

Euqui, bada, beti goguan, cristinaubac, arimiaren balijua, gorputzagaz dau-
 can bat eguitia ta ce gaiti galdu oi dirian seinac amarenabelian jaijo baino lee-
 nago, biar orduban, ezaubera san-[55]ta onegaz seinen gorputzac ta arimac
 870 gordetaco. Alan gura izan dagujala gueure Jaungoico Eguillac bere ontasan
 amai baguia gaiti. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

 (44) Embr. Sagr., t. 1, l. 1, c. 1.

841-842 oideutsan *Ba* 843 oidan *Ba* 844 asarre| atsarre *Ba* 847 asarre| assarre *Ba*
 848 oiditubee *Ba* 852 oida *Ba* 857 Ez da *Ba* 860 ezdala *Ba* 862 ezdago *Ba* |
 eguin biar *Ba* 868 oidirian *Ba*

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Demporia baino leenago jaijoten dirian edo galduten dirian seinai, celan lagundu biar jacuen bautismo santubagaz.* 875
2. *Ce gauza biarrecua dan cristinaubac ondo jaquitia, seinari eche bautismua emoten.*

Arimac salbetia gaiti Jaungoico vizijaren Semia guizon eguin zan. Arimac salbetia gaiti, munduban asco iragota, curutzian josita ill zan. Arimac salbetia gaiti dira sacramentubac, Eleisia, sacerdotiac, sermoiac ta beste cristinautzaco eguinbiar guztia. Bai, neure entzula onac. Espirituzco arimaac munduban Jaungoicua serbidu ta maitetu daguijen ta ceruban beti gozau daguijen dira eguijazco asmo on ta zucen guztia. Munduco arima guztien artian ez dira preminaric guichien dauqueenac, amaren sabelian dagozanac. Areec euren ez bere ezin leguijee. Ta gauza guichi bat da asco, leengo eracutsijan esan dan leguez, euren gorputz gueijac galduteco ta eurac ceru santuti betico ervestetuteco. Au gaiti aztertu biar ditugu esquina guztia, asmau biar era al guztia ta artu biar ditugu errazoiac ta cristinautzaco eracutsijac prestetan deuscuzan vide guztia, demporia bai-[56]no leenago amaren sabelian galduten dirian seinai ceruratuten lagunduco. Ez dogu inos bere sinistu biar, arimen oneraco darian, laarreguija dala eguiten doguna. Zelo santu bategaz sail au ondo pensauta, cristandadeco jaquitunac eracutsi deuscuben vidiari jarraitubaz, ez jaco eceri bere zor jacen lotsa ona galduten. Ta beste aldeti, erru bagaco arima asco cerura eruateco eguinquizuna da. Berau gaiti esango deusut, cristinaubac, icasiquizun onetan, sail onetaco jaquitunen ta eracuslen esanai jarraituta: 1. *Alan amaren sabelian galduten dirian seinai, celan lagundu biar deutseegun bautismo santubagaz.* 2. *Ce gauza biarrecua dan cristinaubac ondo jaquitia, seinari eche bautismua emoten.* Prestau zaitez guztioac ondo aituteco, inos baino gogo obiagaz. 880 885 890 895 900

I.

¿Celan batiatu biar da, bada, demporia baino leenago jaijoten dan edo galduten dan seinai? Itaune oni erantzuteco gogoratu biar ditugu, neure entzula onac, gauza batzuc, leen cerbait esanda gueratu arren. Ta dira: *Leleengq sein galdu batiatu bagacoric ez dala ceruratuten. Bigarrenian, emacume seindun bat illten bada seinai sabelian daucala, ama ill ezquero, atera biar jacola seinai* 905

882 eguin biar *Ba*

aimbat lasterren sabeleti ama illari ta viziric ateraten bada, batiatu biar dala sein, dino Eleisiaren neurgarriac (45). Ta au eguiteco, ez dau icentetan Eleisiaren aguindubac ceimbat demporacuac izan biar daven sein sabeleti ateriac, ez bada dino, *sein ateria viziric badago, batiatuteco*. Emeti aguiari da ziur, emacume illari ateraten jacon sein, dan dem-[57]poracua dala, viziric daguanian batiatu biar dala; emacume vizijac galduten daven sein bere, dan demporacua dala, viziric daguanian batiatu biar dala. Bijen preminia bardina da. Ta bijac batiatuteco errazoia bere bardina da. *Irugarrenian*, Eleisiaren neurgarriac edo erregueliac berac dino (46), *sein eguiteco ustian daguan emacumiac galduten davena edo arguitara ateraten davena bada dudacua, edo dan guizona edo ez dan, edo dan cristinau gueija edo ez dan; orduban batiatuteco, dino, esanagaz*: Guizona edo cristinau gueija bazara, nic batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen. *Laugarrenian*, sabelian daguan seinac, sortuten daneti ta jaijo arte guztian daucala peligruba galduteco. Alan galdu oi dira seinac amaren sabelian bederatzii ileen barruban edocean demporatan. *Bostgarrenian*, ez daquijala inoc zucen, amaren sabelian arimia gorputzagaz nos bat eguiten dan. Baina jaquitunic oneenac ta errazoiac aituten emoten davenez, sein sortuten daneti laster edo dempora guichi barru bat eguiten dala arimia gorputz gueijagaz, leen esan dan leguez.

Onec guztionec dauca eguijaren indarra gueure izatiaren leguian, Eleisiaren neurgarrietan, cristinautzaco eracutsijan ta jaquitun ezagunen esanian. Ta escatuten dau diadarca sein galdu tristen socorruba, ixildu bagaric. ¿Celan eremedijau edo socorridu guinai, bada, alaco arimia? ¿Endamas sortuta laster edo egun g[ul]ichi barru galduten dana? Eleisa Ama santiaren eracutsiurten bagaric, Eleisa barruco edo cristandadeco [58] sail alaco jaquitunic oneenac esaten daveen moduban, sein galdubac batiatubagaz. Ez dauca galduten dan seinac au baino beste erremedijoric edo laguntasunic. Alaco sein galdute demporan eguin biar dana da, bada: *Lelenga* Emacumiac galduten daven sein edo seinaren ernia viziric badago, batiatu ura ezarrita, beste edocean sein ondo jaijotaco leguez. Ta au, dan demporacua dala. Asco da guizon gueijaren edo seinaren erne vizija izatia, ardura bagaric ura ezarrita, batiatuteco. *Bigarrenian*: Igarri ezin bajaco ondo galdu dan seinari, ala viziric daguan ala illda daguan, ala cristinau gueija dan ala beste gauzaren bat dan, ala bat dan ala bi dirian, orduban bere, ondo ezautu ezin danian bere, dudia dagualaco ta menturaz arima bat oraindino gorputz guei atan egon leitequialaco, URA EZARRI TA BATIATU. Baina orduban esan biar jaco ura ezarten jaconian: CRISTINAU GUEIJA BAZARA, NIC BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN TA SEMIAREN TA

 (45) Ritual. Rom. de Baptism. parv. (46) Id. Ibid.

ESPIRITU SANTUBAREN ICENIAN. AMEN. *Cristinau gueija bazara* esanagaz 945
 gordetan jaco sacramentubari zor jacon lotsia edo erreverencija ta bautismua-
 gaz ceruratuten da arimia, orduban an badago. Galduten dan sein vizija bada,
 baina bat ala bi dan dudacua bada, orduban bata batiatuten da, edochein sein
 ondo jaijo leguez. Ta guero beste dudacua, esanagaz: *Batituta ez bazagoz,*
nic batiatuten zaitut ... Azquenia esaten da, emacumiac alaco gachagaz argui- 950
 tara ateraten davena bada sein illa ezagunez ta duda bagaric, edo seinaren
 erneric ez dau-[59]cana, orduban ez dago cer eguinic agaz, ezagun dalaco cris-
 tinau gueija ez dana. Entzun dozu bada, cristinaubac, celan lagundu biar jacon
 sein galdubari bautismuagaz ceruratuten.

Onetaraco biar da zentzun elduba, arima triste aren erruquiya ta 955
 Jaungoicuaren bildur santuba. Ez pensau, cristinaubac, sein galdu atan topau
 biar dituzula gorputz osuaren echuria ta zatijac, escubac, oinac, buruba... Ez.
 Au ezin jazo leiteque seinaren lelengo egunetan. Sein sortu barri darian.
 Baina jazo leiteque ta, dirurijenez, jazoten da sortuta lasterreti gorputz gueijan
 arimia egotia, viziric dagan artian ernia. Beste erneta azten dirian gauza vizi- 960
 jac leguez, puscaca azten da amaren sabelian sein, sortuten daneti jaijotera
 artian. Ta puscaca ta gueldi gueldi aguertuten jaco gorputzaren zatijac bere.
 Au gaiti biar da chito contu andija, alaco emacumiaren gachian sein galduba
 topetaco, ezaututeco ta batiatuteco. *¡Oh ceimbat sein sortu barri,* dino eracus-
 la jaquitun batec (47), *botetan dirian carcabetara ta secretetara, batiatuco* 965
balira areen arimac cerura bialduta, gorputzac, ezainac izan arren, eleisara
eruan da enterrau leguizana! *¡Baina noc dauca onaco gauzaac cristinaubai*
eracutsiquizuna, cura jaunac baino? dino eracusliac berac. Lelengo barrija⁵⁵
 ez dauca seinac *ar* chiqui baten echuria baino besteric. Ta alan dua puscaca
 azijaz gorputz oso eguin artian. Euqui, bada, au goguan, cristinaubac, alaco 970
 ordubetan ta lagundu seinari bautismuagaz, esan dan moduban.

[60] Baita gogoratu bere, cristinaubac, andiustiari buruba birrinduteco, gueure
 guztion asieria. Alaco lecu humildian ta lotsazcuan sortu guinian. Alaco echu-
 ra ezaina ta samurra artu even lelengo gure gorputzac amaren sabelian. Ez
 davee beste asieraric euqui ez erreguiac, ez erreguinac, ez guerraguinac, ez 975
 caballeruac, ezda beste Adanen semec edo alabec bere. Andi ta chiqui, guztio
 gator asiera humilde onetati mundura (48). ¡Oh ce icaslecuba, gueure buruco
 aixiac ta andiarjac quenduteco! ¡Ce ecereceti etorrijac garian! ¡Ce ecerezian
 gueratuco garian! Gogoratu daigun, cristinaubac, gueure asieria ta gueure

 (47) Roucaglio. Embr. Sagr., l.1, c. 5. (48) Sap. c. 7. 980

949 guero] gueuro *Ba* 952 ezdaucana *Ba* 959 jazotenda *Ba* 976 ez da *Ba* 978
 ecer eceti *Ba* | ecer ezian *Ba*

⁵⁵ Esapide adierazgarria da: *lelengo barrija*, hau da, lehen unean, sein sortu berri denean.

- amaija. Ta ez ditugu aibeste adorauco gueure gorputzac. *¿Quid fuisti? ¿Quid es? ¿Quid eris?* itanduten deutsa san Bernardoc cristinaubari. Ta erantzuten deutsa Santubac berac, esanagaz: *¿Cer cinian?* Gauza atsitu bat. *Sperma foetidum*. *¿Cer zara?* Loiz betetaco ontzi bat. *Vas stercorum*. *¿Cer izango zara?*
- 985 Arreen janarija. *Esca vermium*. .. Ez dau, bada, pijau biar edo arrotu biar guizonac, ez errenta andijetan, ez icen altubetan, ez jaquiturijan, ez beste munduco portunetan, pobriac ta beetubac oimpetuteco. Pobreen ta aberatsen sortueria ta jaijotia bardinac dira. Pobreen arimac bere costa jacozan Jaungoicuari, aberatsenac edu. Pobreen gorputzac bere ez dira loijago, aberatsenac baino.
- 990 Ta azquenian bardin jango ditubee luurreco arrac aberatsen ta andijen gorputzac, zein da probreenac ta munduban beetuta vizi dirianenac. ¡Oh ce pensaquizunac! Baina viurtu gaitazan sailera.
- [61]⁵⁶ Gauza bat gueitu biar jaco emen leen esan danari. Ta da, emacume batec badaqui illteco peligruban daguala seindun dana, berac baino bestec jaquin ez
- 995 arren ta bide oquerrecua izan arren bere seiná, esan biar dau compesinoeti campora seiná eguiteco daguana. Orduban illten bada, seiná sabeleti atera daguijuen ta batiatu daguijen, leen esan dan leguez. Oi danez, bestec baino leenago daqui amac sabelian seiná daucana. Autortuten ez badau compesinoeti campora, ama illagaz galduten da aren seiná betico bautismuaren paltaz.
- 1000 Orregaiti autortu biar deutsa amac illteco peligruban compesinoeti campora cura jaunari edo adin oneco persona bati seiná eguiteco daguana, edo alan uste davena, dempora guichicua edo sortu barrija izan arren seiná. Biar dan centzunagaz ta isiltasunagaz, ama illten bada sabeleti atera ta batiatuteco. Bestelan ez dago ondo illteco alaco emacumia, dana dala. *¿Ta izango ete da*
- 1005 *biarrecua cristinaubac ondo jaquitia seinari eche bautismo bat emoten? Icusi daigun.*

II.

- Uste davee ascoc, seinari eche bautismo bat ondo emoten icastia chito dala cereguin andija. Ta ez dala edoctrinec jaquin leguijana edo jaquin biar davena.
- 1010 Baina icasiqizun oneetan esan danari beguiratu ezquero, aguiri da icastia erraza dana ta jaquitia chito biarrecua dana. Gueure cristinautzaco gauza ascori ez deutsagu beguiratuten azaleti baino. Ta onec dacaz guero utseguite asco gueure burubetara. *¿Cegaiti Jaungoicuc emon deuscu escubidia edo alizatia*

984 izangozara *Ba* 987-988 sortu eria *Ba* 991 zeinda *Ba* 997 Oidanez *Ba* 1002 Biardan *Ba* 1004 ezdago *Ba* | eteda *Ba* 1009 cer eguin *Ba* 1013 burubetara] burubetaro *Ba* (380.or.: burubetara)

⁵⁶ Frai Bartolomeren liburuan, inprimategiko huts egitez, orrialdearen zenbakia falta da goialdean (61).

glu]izon eta emacume guztioi, bat ichi bagaric, ura ezarrita sein a batiatuteco
 biar or-[62]duban? ¿Cegaiti errazoiaren usuba daucanac, nai zaarrac ta nai gaz- 1015
 tiac, nai guizonac ta nai emacumiac, jaquin ezquero celan batiatu leguijan sein
 bat, eguin legui bautismoco sacramentu santuba ta Jesus baten cerura bialdu
 legui betico limbora doian arima bat? Ez beste gauza gaiti, neure entzula onac,
 ez bada bautismua nora eceua dan leguez seinac salveetaco, ta naturaleza jau- 1020
 sijaren eraan seinac sarritan illten dirian leguez ta illgo dirian leguez jaijota,
 eleisara eruateco asti bagaric, orduban urreengo daguanac edo edoceinec
 batiatu daguijan sein a ta salvau dedin aren arimia. Onetaraco Jaungoicuac
 emon deuscu guztioi, seinac batiatuteco alizatia. Onetaraco ichi euscuzan
 batiatuteco verba jaquinac ta icasten errazac. Onetaraco ichi euscun bautismo- 1025
 gueitzat ur ugarija ta lecuban lecubangua. Bautismuaren paltaz arima bat baca-
 rric galdu ez dedin, erreztu deuscu Jaungoicuac alde guztietati bautismoco
 sacramentuba. Ta au onan izan ezquero, ¿ez dau icasi biar cristinaubac ondo
 biar orduban eche bautismo bat emoten seinari? ¿Ain icasten erraza? ¿Ain costu
 guichicua? ¿Ain sarritan biar oi dana? ¿Ain balijo andicua? ¿arima bat edo guei- 1030
 jago salvetiac edu balijo leguijana? ¿Ta norberac ez badaqui, inoc ordu estu
 atan erremedijau ezin leguijona? ¿Ez dau jaquingo cristinaubac seinari eche
 bautismo bat emoten?

Contu daigun. Lau lagun dagozan eche baten edo lecu baten paltetan jaco
 sein a emacume bati. Laurac dacusee viziric daguana. Baita luzaro iraun ezin
 leguijana bere. Lau lagunetati batec bere ez daquijee⁵⁷ sein a batiatuten. [63] Ta 1035
 illten jacue sein a escubetan, ura albuac dauqueela batiatu bagaric, celan bati-
 tu batec bere ez daquijelaco. Ara, cristinaubac, negargarri bat. Ez guichitan jazo
 dana. Ta oster a bere jazoco dana, celan sein a batiatu icasten ez bada. Endamas
 echiac banaca dagozan Euscal errijetan, nun davilzan ta ibili biar daveen ema- 1040
 cume seindunac soluetan, basuetan ta bideetan bacarric edo lagun guichiagaz.
 Baita batez bere lelengo illeetan, nos galdu oi dirian sein gueijago, emacume
 catigubac biar gachac eguin oi ditubeelaco, catigu ez balegoz leguez.

¿Cer esango dogu, bada, sein a batiatu bagaric escubetan ill jacuen lau lagu-
 nac gaiti? Jaquin balebee batiatuten, arima a ceruban eguan. Viziric jaijo zan. 1045
 Ta viziric ecuseela euqui even escubetan. Ur pusca bat ezarrita, bautismoco
 verbac esanagaz bialdu euqueen betico cerura. Baina eche bautismo bat egui-
 ten ez equijelaco, arima a juan zan betico limbora. An egongo da beti
 Jaungoicuaren gorrotuan, ceruban egon zaatequian arimia⁵⁸. ¿Ez da au, neure
 cristinaubac, lastima andija? ¿Ez dau escatuten onec gueure cuidado ta ardura

1024-1025 bautismo gueitzat *Ba* 1029 oidana *Ba* 1041 oidirian *Ba* 1042 oiditube-
 elaco *Ba* 1044 jaijozan *Ba* 1047 juanzan *Ba*

⁵⁷ (...) *batec bere ez daqui* beharko zuela dirudi...

⁵⁸ Ik. *Icas-Ieko* 261. oharra (1163.or.).

1050 guztia? ¡Ah! Ecin ucatu guinai cerubac eta luurac diadar eguiten daveela, *icasi daguijela cristinau guztia chiquitati, biar orduban eche bautismo bat seinari ondo emoten*. Usteric guichien dan lecuban ta orduban jazo leiteque ta jazo oi da ascotan sein jaijotzia edo sein galtzeia, batez bere baseerrietaco emacumen artian. Bada, ez badaquiye celan batiatu edo celan socorridu illtera doian sein

1055 jaijo barrija edo galdu barrija an dagozanac, ¿nori Jaungoicuac escatuco deutsa [64] arima aren contuba? Ceubec pensau, neure entzula onac.

Cristinau bat balego illten compesinoe esque, lau sacerdote dagozan lecuban ta lauretati batec bere ez daquizalaco compesinoeco sacramentuba eguitemco verbac illgo balitz a compesau bagaric, ¿cer esango guenduque sacerdote areec gaiti? Bada, ez da premina chicarragua illtera doian sein jaijo barrijarena, illtera doian persona nausijarena baino. Au compesau ez arren, damu eguijazco bategaz salvau leiteque, gueijo ezin davenian. Baina bautismo bagaric seinainundi bere salvau ezin leiteque. Ta, Jaungoicuac ichi dituban leguez sacerdotiac compesinoeco sacramentuguintzat; alan ichi ditu cristinau guztia biar

1065 orduco bautismoguintzat.

¡Oh, cura jaunac! ¡Compesore jaunac! ¡Sacerdote jaunac! ¡Oh, gurasuaac! ¡Oh, escoletaco eracuslac! Eracutsi, bada, guztiai chiquitati, bautismo santuba eguitemco verbac ta ura ezartia, biar orduban sein ondo batiatuteco ta arimacerura bialduteco. Entzun daguijala Jaungoicuac nire erreguba ta zabaldu

1070 daguijala gueure arimetara bere ontasuna ta gracia, ceinegaz jadichico dogun ceruban betico zorijona. Amen.

VI. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cetaraco dirian batioco eguite santubac edo ceremonijac.*
- 1075 2. *Celan gorde biar ditugun bautismoco aguidubac.*

Bautismoco graciajaz jantzten gaitu, neure [65] entzula onac, Jaungoicuac, bere semetzat gueu artutera orduco. Gracia onegaz pretauta, isten deuscu bere Eleisa santan sartuten. Entzun dozu leenagoco eracutsijan, ce mesede andija eguin deuscun gueure Aita cerucuac bautismo santubagaz. Impernuco

1080 etsaijaren escu gaistuetati atera guinduzan bautismo santubagaz. Ecarri guin-

1064 Sacramentu guintzat *Ba* 1065 Bautismo guintzat *Ba*

duzan bere Eleisa santara ta garbira. Artu guinduzan bere eche era onecuan ta bere mai santuban bere semetzat ta servizaritzat. Ta esquintcen deuscu betico ceru ondasunez betia, bere esana eguiten badogu. Au gaiti bada, neure entzula onac, dendatu biar dogu gueuc bere gueure Aita cerucuaaren ondria zaintuten ta jasoten. Seme onari jagoco aita onaren esana eguitia. Ta biar ordu guztian bere aitaren ondria gaiti arpeguija ateratia. Seme batec dacusenian bere aita inoc zurreetan davela, desondretan davela ta oimpetuta daravillela, aitaren onera urteten ez badau, al daguijala, seme doilloorra da. Ez dau mercedu aitac semetzat artutia. Bautismuagaz gara Jaungoicuaren semiac. Ta gueuri jagocu semetza altu ta ondrau oni esquer onagaz ta leijaltasun pinagaz erantzutia. Au aguindu guenduban bautismuan. Ta berau da cristinaubac sarri goguan equi biar davena. Onetaraco esango deusut icasiquizun onetan: 1. *Cer esan gura daveen batioco eguite santubac edo ceremonijac*. 2. *Cer aguindu gueuntsan Jaungoicuari bautismuan*. Prestau zaitetz guztio, ceuben cristinautziaren asieraco pausubac aimbat onduen gogoratuteco.

I.

Seina batiatuten eleisara eruaten danian, sacerdotiac edo bautismoguina urteten dau [66] eleisaco atera. Ta seinu campuan daguala, itanduten deuscu: *¿Cer escatuten deusazu Eleisiari?* Ta erantzuten deutsee seinaren orde: *Pedia. ¿Cer emongo deuscu pedia?* dirautsa bautismoguina. Ta erantzuten deutsee: *Betico vizitzia*. Bada, nai badozu ceruban betico vizitzia, esaten deuscu seinari bautismoguina, *gorde eguizuz aguindubac. Maitetuco dozu Jaungoicua arima guztiagaz, vijotz guztiagaz ta gogo guztiagaz; ta ceure laguna, ceur e buruba leguez*⁵⁹. Oneec dira, neure cristinaubac, seinari eleisaco ateetan leleno esaten jacozan verbac. Ta Jaungoicuac cristinau barri gueijari leleno eguiten deuscu escaarija bere berau da.

Iminten jaco seinari icena, batiatutera orduco. Ta izan biar dau *icenac* aingueru, santu edo santaren batena (49). Cristinaubac equi daguijan vitartecotzat ceruban bere iceneco santuba ta poz gueijagogaz jarraitu daguijuen arentasunari, iminten jaco cristinau barrijari santubaren icena.

Bautismoguina auagaz aixe emoten deuscu edo arnasia botaten deuscu seinari arpeguira bertati, satanasa aterateco seinaren arimati. Guero eguiten

(49) De Baut. n.75. Catec. Rom.

1087 daravillelaj daravillela Ba (380.or.: daravillela) 1088 aldaguijala Ba

⁵⁹ Mt 22,37 (Dt 6,5; Lb 19,18). Frai Bartolomek ongi ezagutzen zituen haurren bataioko erri-toaren hasierako testu hauek; oraindik gordetzen da Markinako Karmengo Bibliotekan liburu hau: *Rituale Romanum Pauli V. Pont. Max. jussu editum ...* Matriti, 1775, 17. or.

- deutsa curutzia becoquijan ta bularrian. Sartuten deutsa gatza auan. Ta igortzen deutsaz belarrijac ta suurra chistubagaz. curutzia da cristinau barrijaren senailia ta osasuneco senailia. Eguiten jaco becoquijan curutzia, lotsatu ez dedin inos Jesusen escolau izatiagaz. Ta eguiten jaco bularrian, Jesusen curutzeco erijotziac emon daguijon indarra cristinau ona izateco. Auan sartuten jacon gatzac esan gura dau, bau-[67]tismuac emoten deutsala ceruco gaucen ezauberia ta jaquituriya. Chistubagaz belarrijac ta suurra igorztiac esan gura dau, Jesusec chistuzco basiagaz igortzita itsubaren veguijac arguitu zituban leguez (50), arguitu ta zurtuten ditubala bautismuac cristinaubaren belarrijac, Jaungoicuaaren esquinijac ta verbac entzuteco. Ta suurra, ceruco virtuten ta gauza oneen usain gozua artuteco.
- 1125 Onen ondoric asten da bautismoguina, seinaren ariman daguan Satanasaren contra Eleisaco conjurabaquin. *Urten espiritu loja. Urten diabruba sein onen arimati*, esaten deutsa bautismoguinac satanasari, *ta emon lecu Espiritu Santubari. Ezautu biar dozu, diabruba, ceure contra daguan maldecinoia. T a emon biar deutsazu Jaungoico eguijaco vizijari ta aren Seme Jesucristo gueu -*
- 1130 *re Jaunari ta Espiritu Santubari euren ondria. Aldendu zaite, bada, satanas madaricatuba, sein onen arimati. Jesucristo gueure Jaunac artuten dau ber e naiz bautismo santuco iturrira ta bere gracijara. Ez zaitez azartu inos, dia - bruba, nic orain becoquijan eguiten deutsadan curutze santia oni galdu era - guiten.*
- 1135 Itanduten jaco guero seinari, *ia isten deutseen satanasari ta aren eguite chaar guztiai*. Ia isten deutseen diabrubari, mundubari ta diabrubaren ta mundubaren pompa ta vanidadiai. Ta erantzuten dau, *baietz. Abrenuntio*. Batiatu baino leenago itanduten deutsau bautismoguinac seinari iru bidar. Bada, nora ececu da diabrubari ta aren asmo chaar guztiai istia, Jesucristogaz bat eguiteco. Onen ondoric eruaten da seinu bautis-[68]mo lecura. Ta an barriro itanduten jaco, *ia sinistuten dituban gueure pedeco eguijac. ¿Sinistuten dozu, itanduten deutsau, Aita Jaungoico bacar, guztia daguijenagan?* Erantzuten deutsau, *baietz. Credo. ¿Sinistuten dozu aren Seme Bacar Jesucristo gueure Jaunagan?* Ta erantzuten deutsau, *baietz, credo*. Onan autortuten ditu seinac cristinautzaco
- 1145 sinisquizun guztia, batiatu baino leenago.
- Modu onetan prestetan da seinu edo batiatutera doiana, cristinau eguitera orduco, sarri curutzia becoquijan ta bularrian eguinda. Gatz bedeincatubagaz ceruco gaucen ezauberia arguituta. Belarrijac ta suurra Jaungoicuaaren deija ta naija eguiteco chistubagaz zurtuta. Sacerdotiaren escu sagradubac buru gainian
- 1150 bein ta birritan iminita. Mundubari, diabrubari ta mundubaren ta diabrubaren

 (50) Joan. c. 7.

eguite char guztiai betico largaco⁶⁰ deutseela erasota. Jaungoicuaren erreguco ta Satanasaren bildurreco verba santu ta indartsubaquin etsaija aren arimati uxaatuta. Batoraco orijo santubagaz bularra ta espaldia igortzita. Etsaijaren contra pelietaco, orijo santubagaz prestau ta indartuta. Pedeco articulu edo sinisquizon guztia autortu eraguinda. Barriro itanduten deutsa bautismoguinac seinari edo bautismotutecuari, *ia nai daven artu bautismoco sacramentuba*. Ta erantzuten dau, *baietz, vola* Itanduten jaco au aituten emoteco, ez Jesucristo[c], ez Eleisa Ama santia ez daveela gura euren echian nora ececoric. Ez daveela gura artu semetzat edo alavatzat, nai ez davenic. Orregaiti itanduten jaco: *¿Nai dozu, batiatu zaidazan?* Ta arian da berac edo bere ordecuac [69] erantzun artian *baietz, vola* ez da batiatuten cristinaugueija. Baina baietz erantzun daguijanian, bertati batiatuten dau bautismoguinac ura ezarrita, esanagaz: *Nic batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen* .

Emoten jaco guero bautismotubari zapi garbi bat, aituten emoteco, bautismuagaz arimiac artu daven edertasuna ta garbitasuna. Ta baita, batioco aguin-dubai jarraituten badeutsee zucen, ceruban euquico daven glorija ederra bere. Guero emoten jaco candela ixuia escura, aituten emoteco, bautismuan artu daven sinistutia edo pedia, caridadiaren subagaz xiota euqui biar davela. Cristinautzaco eguite onac eracutsi biar ditubala. Bada, sinistute utsa edo pede utsa eguite onac bagaric, utsa da Jaungoicuaren aurreraco. Salvetaco biar da sinistutia ta biar dira caridadeco eguitiac. Maitetu biar da Jaungoicua, gauza guztia baino gueijago; ta maitetu biar ditugu gueure lagunac, gueure burubac leguez, salvauc bagara. Au esan gura dau candela ixuiac.

Ara emen, cristinaubac, ce gauza santubac ta ontasunez betiac barrututen dituban eleisan eguiten dan batio santubac. Ez dago verba bat, ez eguite bat bautismuan aparteco eracutsija ta artuquizon cerucua ta arimiaren oneracua ez daucanic. Emeti ezautuco dozu, ce aldatza⁶¹ andija ta arrigarrija eguiten daven arimiac batiatu bagaric daguaneti ta batiatutacora. Batiatu baino leenago eguan arima tristia, guztia illuna, ezaina, loija, pecatuzcua, ceruben ta luurren gorrotocua ta demoninuen aguin-duban ta escupian eguana. Batiatuta guero dago guztia ar-[70]guija, ederra, zurija, apainduba, ainguerubac, santubac ta Jaungoicuac maite daveena, Espiritu Santubaren egonlecu vicija, Jaungoicuaren semia, Eleisiaren semia ta ceruco echaguna. Cerutar baten gracijazco jantcijagaz apainduta gueratuten da arimia bautismo santuban. Gracijazco jaijotza ta aldatza zorijone[co] au eguiten dau batiuagaz arimiac.

1156 eraguin da *Ba* | Bautismo guinac *Ba* 1157 ia| *Ya Ba* 1160-1161 *Naidozu Ba*
1162 *cristinau gueija Ba* 1171 *biarda Ba* 1172 *biardira Ba* 1183 *Egon lecu Ba*

⁶⁰ Forma horretan idazten du: *largaco, largatia, larga...* eta ez, oraingo euskaran ohikoak diren "lagako", "lagatzea", "laga"...

⁶¹ "Aldatza": aldaketa.

Bautismo santuba ez da bein baino artuten. Bada, beinguac⁶² parcatuten ditu leenagoco pecatu guztiac. Beinguac emoten dau cristinau izatia, arimaco gracia ta ceruraco escubidia. Baita Bautismuac eguiten dau ariman marca bat, inos bere galduco ez dana. Bautismuaren marca onegaz ezagun izango dira 1190 beti, nai ceruban ta nai impernuban cristinau guztiac. Erreguen soldaubac darabilezan leguez seinale aguirijac, cein ce erregueren soldau dirian ezaututeco, alan Jesucristoc marcau ta seinaletan ditu ariman bere soldau cristinaubac bautismuagaz, beti dagozan lecuban dagozala, ezagun izan ditezan. Bautismuaren 1195 marca quendu ezinecua izango da onentzat ceruban poza ta gloria. Ta deunguentzat impernuban penia ta lotsarija. Au gaiti, eurenz, cristinau condenaubac euquico davee impernuban pena gueijago, batiatu bagacuac baino. Beguiratu, bada, cristinaubac. Bautismoco gracia ta mesedia andija da. Baita bautismuan Jaungoicuari eguin gueuntsan aguinduba bere andija ta santuba 1200 da. Gogoratu daigun, bada, cer aguindu gueuntsan Jaungoicuari bautismuan.

II.

Bautismo santuban Jaungoicuari verbia emon gueuntsan, diabrubari ta aren eguitade deungai betico isteco. Santuben ta altaren aur-[71]rian iru bidar aguindu gueuntsan Jaungoicuari batiara orduco, diabrubari, mundubari ta araguijari ta aren pecaturaco vide deunga guztiai istia. Orduban eguin guenduban, esateco moduban, tratu bat Jaungoico onagaz ta mesedez berezat artu gura guinduzanagaz. Jaun Cerucuac guri emoteco ceruco sinistutia, ceruraco ustia ta cerubaren naija bere maitetasunagaz ta beste arimiac salbetaco munduban biar dituban ta guero ceruban euquico dituban ontasun guztiaquin. Ta 1205 guc, Jaungoicuagan sinistuteco, Jesucristo gueure Jaunaren ondria zaintuteco ta Jaungoicuaren ta Eleisa Ama santiaren aguindubac gordetaco, dino san Agustinec (51). Jaungoicuac aguindu deuscu ceruba ta gueuc Jaungoicuari, mundubari, diabrubari ta araguijari guerra eguitia. Au gaiti dino san Eprenecc 1215 (52), verbati artuco gaitubala Jaungoicuac, gueure vizi modubac erantzuten ez badeutsa bautismuan eguin guenduban esquinijari. *Ex verbis tuis condemna - beris*. Ta gueure vizi moduba bada Jaungoicozcua ta Jaungoicuaren aguindubagaz bat eguina, gueure esaneti salvaucogariala. *Ex verbis tuis justificaberis*.

(51) In Psalm. 75. (52) De Abrenunt. t. 6.

1195 izangoda *Ba* 1217 salvaucogariala *Ba*

⁶² "Beingo" izenlaguna da. Erabilera egokia eta lexikografiako testuetan nekez aurki dezakeguna. Hauetan adizlagun eran agertzen dira: behingoan, behingoz, behingo batean... Baina hemen ergatiboa da, "behin hartzen den bataioak" esan nahi du.

Diabrubari larguetaco, maitetu biar da Jaungoicua vijotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz. Jaungoicua maitetuteco, eguin biar da 1220
 Jaungoicuaren esana. ¿Ta cer da Jaungoicuaren esana? Amar aguindubac dinue-
 na. Guztiac dira Jaungoicuaren esanac ta guztiac gorde biar dira. Amarretati bat
 austen bada, ez da orduban eguiten Jaungoicuaren esana, ez bada diabrubare-
 na. Ez guenduban, bada, aguindu bau-[72]tismuan diabrubaren esana eguitia,
 ez bada Jaungoicuaren esana eguitia. ¿Cer dira mundubaren edo diabrubaren 1225
 pompa esaten jacuenac? Dira pecatuzco gurari chaarren prutubac. Dira andi
 guria, ondasun guria, gorputzaren gusto guria, lagunac bera edutzat⁶³ ez euqui-
 tia, inoren onac aintzat ez artutia, inoren naibaguiagaz ez erruquitutia, dauca-
 nagaz contentu ez izatia, munduco gustuetaraco ta olguetaraco gogo presta
 euquitia, dotorerija, apaindurija, jan edan ugarija, alperreriya, dantzia ta gor- 1230
 putzaren jolatsac maite izatia. Oneec ta onei darraicuezan envidijac, zeluac,
 gorrotuac, inoren ona icusi ezinac, gaisqui esatiac, lapurretac, logrerijac, adul-
 terijuac, pornicacinoiac, esate ta eguite loijac, Jaungoicuaren, santuben ta
 Eleisiaren contraco verbac, sacrilegiuac, juramentu guzurrezcuac, ordiquerijac,
 joco laarreguijac... guztiac dira mundubaren pompa ta vanidadiac. Oneec guz- 1235
 tioc dira diabrubaren, mundubaren ta araguijaren esanac ta naijac. Guztioac dira
 ez eguiteco Jaungoicuac esanac. Onei istia aguindu guenduban bautismo san-
 tuban.

Jesucristo gueure Jaunac esan evan (53), *ugazaba bi inoc serbidu ezin leguizala*. Ugazaba oneec bijoc dira Jaungoicua ta diabruba. Jaungoicua serbi- 1240
 duten davenac, ezin serbidu legui diabruba. Ta diabruba serbiduten davenac,
 ezin serbidu legui Jaungoicua. Au gaiti esan evan Jesucristoc berac (54): *Neure bando ez dana, neure contra da*. Ez dago bitaarteric, cristinaubac. Edo gara
 diabrubaren contra, edo gara Jaungoicuaren contra. Bautismo santuco esquini-
 jai jarrai-[73]tuten badeutseegu, Jaungoicuaren aldeco gara ta diabrubaren con- 1245
 tra gara. Baina bautismo santuco esquini andijaquin aaztuta araguijaren gurari-
 jai, mundubaren era arruai ta diabrubaren escaari galdubai jarraituten badeu-
 tseegu, diabrubaren aldeco gara ta Jaungoicuaren contra gara. Au gaiti esaten
 dau san Paulo apostolubac (55), *arguijac eta illunac, gracijac eta pecatubac, Cristoc eta diabrubac ez dauqueela bat eguiteric*. Pecatuco bide illuneti ta dia- 1250
 brubaganic aldendu biar dau, ceruco arguijagaz gracijaren bideti Jesucristori
 jarraituco deutsanac.

Gogoratu bada, cristinaubac, ceimbat arte ta modugaz gueure Eleisa Ama
 santiac batiuan gracijazco jaijotzara aldatu guinduzan. Ceimbat curutcegaz

 (53) Matth. c. 6. (54) Luc. c. 11. (55) 2. ad Cor. c. 6. 1255

1221 cerda *Ba* 1223 ez bada *Ba* 1225 ez bada *Ba* 1228 nai baguiagaz *Ba* 1255
 Cor.] Chor. *Ba*

⁶³ *bera edutzat*: bera bestekotzat, bera adinakotzat.

armau guinduzan. Ce gauza ondugarrijaquin⁶⁴ gueure aua, suurrac ta belaarri-
 jac santutu ta ceruruztu⁶⁵ zituban. Celan Orijo santubagaz sendotu ta indartu
 guinduzan, diabrubaren contra pelietaco. Celan eraso euscun iru bidar, batia-
 tuta orduco, diabrubari ta aren eguitiai largatia. *Abrenuntio*. Celan eraso euscun
 1260 eucuzan cristinaubaren sinisquizunac batioraco. *Credo*. Baita celan eraso euscun
 bere, gueuc gueure guraz nai guendubala batiatutia, cristinau izatia ta
 Jesucristori jarraitutia. *¿Vis baptizari? Volo*. Gogoratu, cristinaubac, ce prestaera
 santubaz, itzalsubagaz ta verbati artutecuagaz emon euscubeen bautismoco jai-
 jotza gracijazcua. Ta aren ondoric zapi zurija ta candela ixiaua. Zapi zurijan aitu-
 1265 ten da arimiaren edertasuna ta ceruco gloriya, leen esan dan leguez. Jesus ille-
 en arteti viztu zanian, ainguerubac zuriz jantzita aguertu [74] zirian⁶⁶. Jesusec
 Taborco mendijan bere glorijagaz jantzi zurija apostolubai eracutsi eutseen⁶⁷.
 Ceruco jantzija jantzi zurija ta guztiz garbija da. Onen gogoraco emoten jaco,
 bada, batiuan cristinaubari zapi zurija. Esan deusut leen, candela ixiuagaz aitu-
 1270 ten dala pedia, esperantzia ta caridadia. Pedia arguitasunian, esperantzia
 ceruruz beguira zucen egotian ta caridadia berotasunian. Alan gorde biar ditu
 cristinaubac bere vizi guztian pedia, esperantzia ta caridadia. Bada, pecatu ill-
 garrija eguiten dan bacochean amatetan da bautismoco candela ixiaua ta loitu-
 ten da zapi zurija ta austen da bautismoco aguindu santuba.
 1275 Igues, bada, urrin, cristinaubac, pecatubetati, gorde daigun gueure arimiac
 bautismo santuban artu evan jantzi zurija ta gracijazcua, ceinegaz irabazico
 dogun erijotza ona ta betico ceruba. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren
 icenian. Amen.

1262 presta era *Ba* 1271 biarditu *Ba*

⁶⁴ Aurreko esaldietan “ceimbat” galdetzailearen ondoko izena mugagabeen darabil: *ceimbat arte ta modugaz*. Ondorengoan, *ceimbat curutcegaz*. Hemen, berriz, egitura bereko esaldia izanik, plurala darabil: *Ce gauza ondugarrijaquin...*

⁶⁵ “Ceruruztu”: zerurantz zuzendu.

⁶⁶ Ik. Mt 28,2-3; Mk 16,5; Lk 24,4.

⁶⁷ Ik. Mt 17,1-13; Mk 9,2-13; Lk 9,28-36. Hala ere, testu hauetan ez da esaten mendi hori Tabor zenik (588 m zituena). *Juduen Ebanjelioa* deritzonaren arabera, Tabor Jaunaren Antzaldatzearen mendizat agertzen da. (Ik. A. VAN DEN BORN, *Tabor*, in: H. HAAG [Zuz.], *Bibel-lexikon*, Einsiedeln-Zurich-Köln, 1968, 1697).

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1280

1. *Cetaraco batiuan emoten jacozan seinari aita ta ama besuetaco.*
2. *Ceintzuc dirian oneen eguinbiarrac.*

Erromaco Catecismuac itanduten dau, neure cristinaubac, *ia bautismogui - naz ostian, cetaraco emoten jacozan batiuan cristinaubari aita ta ama besue - taco derichuenac*, (56) Eleisiaren chito anchinaco oitura dan leguez, bada, 1285 catecismuaren beraren esanian, cristinau barrijari bau-[75]tismuan noc besuetan artu edo garbillaco iturriti noc atera emotia, pensatu dot ondo izango dala, onen gaineco icasiquizuna ceubei eracustia. Esango deusut, bada, bautismoco azqueneco eracutsi onetan: 1. *Cer aituten dan cristinaubaren aita ta ama besuetacogaz.* 2. *Cer eguin biar daveen cristinaubagaz.* Artu eguizu, bada, 1290 gogua, aimbat onduen entzuteco.

I.

Jaijoten dan seinac biar daven leguez noc contu eguin ta bularra emon, azi dedin, alan biar dau, dino catecismuac, batiatuten danac bere cristinautzaco ta arimaco gauzac noc eracutsi ta ceruba irabazteco bideetan noc contu eguin. 1295 Oneec dira cristinau barrijaren aita ta ama besuetaco esaten deutsegunac. Eleisiaren lelengo Gurasuetati dator, cristinau barrijari espirituzco jaolaac emotia bautismuan. Leenagoco demporetan cristinau barri bacochari emoten jaco- zan jaola asco. Baina Eleisiaren Trentoco batzaar santubac guichitu zituban jaola bat izatera, edo gueijenaz bi. Bata guizona ta bestia emacumia (57). Alan 1300 useetan da guizonezco bat ta emacume bat emotia seinari, batiatuten danian jaolatzat edo aita ta ama besuetacotzat. Esaten jacue onei seinaren *arzailac* ; cristinauba batiatuten danian euren escubetan edo besuetan artuten daveelaco. Baita esaten jacue, cristinau barrijaren ordeco *esquinzailac*, seinaren icenian eurac esquintcen deutseelaco Jaungoicuari ta Eleisa Ama santiari, Jesucristori ta 1305 cristinautza eguijazcuari jarraitutia. Baita esaten jacue, cristinau barrijaren *pija - doriac*, eurac gue-[76]ratuten dirialaco, sein arec Jaungoicua serbiduco daven

 (56) De Bapt., n. 26. (57) Sess. 24. de Reform., c. 2.

1282 eguin biarrac *Ba* 1283 ia| ya *Ba* | bautismo guinaz *Ba* 1284 cetaraco| ceta-
 ra *Ba* (380.or.: cetaraco)

1310 pijadore. Baita esaten jacue, *aita ordecuac*, gurasuen paltaan, eurac contu eguin biar deutseelaco seinari arimiaren oneraco gaucetan. Azquenic esaten jacue, *seinaren aita ta ama besuetaco*, eurac escuban dauqueela batiatuten dalaco seinu.

1315 Ez da, neure entzula onac, edocein imini biar seinu besuetan artuteco, ez bada eguizun ataco biarrai ondo cobru emongo deutseena, edo nai badau, emon daicuen. Au gaiti ez jacue emon biar seinu besuetara, ez eregiai, ez judegubai, ez moruai, ez cristinautza bagacuai. Ezda ez jaco emon biar gura ez davenari bere, edo seinari biar orduban lagunduco ez deusanari bere, dino Erromaco Catecismuac (58). Seinu besuetara emon biar jacue dotrinia ondo daquijenai, cristinau pielai, al badedi, conpirmauta dagozanai, ecandu ta cristinautza onac dauquezanai ta umetaco demporia iragotacuai (59). Seinaren beraren ez aitac, ta ez amac artu leguije bautismuan euren umia besuetan. Bada, araguzco sortutia emon deutseenac, ez deutsee emon biar gracijazco jaijotzia. Batiatuten dana aitaren ta amaren parteti da Adanen seme. Ta besteren parteti izan biar dau Jaungoicuaeren seme.

1325 Baita onezaz ostian, gogoratu biar da, bautismoco sacramentubac sortuten daven *espirituzco seniqueria* bere, ceinec utseratuten daven ezcontzia onetario seniden artian, aldunac leendanaz quenduten ez badeutsee catigu au. Espirituzco senide eguiten dira bautismuan, *bautismoguina ta aita besuetaco ta ama besueta-[77]co batiatuten danagaz. Baita seinaren gurasuac bere, bautismoguina ta aita ta ama besuetacogaz senide eguiten dira*. Aldunac edo ataraco Eleisa santan escubidia daucanac quendu artian espirituzco seniquera au, ezin ezcondu leitequez alcarregaz esan dirian senidiac. Ta ez jaquinez ezconduco balira bere, seniqueraco catiguba quendu bagaric, ez leusquijue ezcontziac balijoco. Au jaquinda euqui biar davee aita besuetaco ta Ama besuetaco guztiac. Baliyo bagaco ezcontzaren bat eguin ez daguijen eurac bautismuan besuetan artu daveenagaz edo aren gurasuaquin. Espirituzco seniquera au ez da oratuten edo ez da sortuten, echian seinu batiatuta eleisara eruat danian, ez batiatutera, ez bada bautismo nausiguintzaco beste gauza sagradubac seinari eguitera. Orduban bere juan oi dira aita ta ama besuetaco. Baina ez jacue oratuten seniqueraric, batiatuten seinu euqui ez daveelaco. Bada, seniquera au ecarteco nora ececu da eleisan seinu batiatuten danian, ura ezarrita verbac esaten jacozanian, seinu escubetan euquitia.

1340 San Dionisioc esaten dau (60) leenagoco demporetan aita ta ama besuetacoc verbaz aguinduten eveela, euren besuetaco seinari cuidado eguitia. Ta esa-

1345 -----
(58) N. 29. (59) Poug., p. 3, sect. 1, c. 1. §.4. (60) March. De suscept. Bapt. lect. 6. prop. 1.

1313 Ezda Ba 1314 Ez bada Ba 1317 Ez da Ba 1319 albededi Ba 1328 Bautismo guina Ba 1329-1330 bautismo guinagaz Ba 1338 ez bada Ba 1339 oidira Ba

ten eveela: *Aguinduten dot, sein au errazoiaren usura eldu dedinian, esango deusadala sarritan ta eguingo dodala aleguina, diabrubaganic ta pecatuba ganic alde eguin daguijan ta orain aguindu daven guztiari cobru emon daguijon*. Au esaten even ta aguinduten even aita ta ama besuetacoc, sein besuetan [78] artuten evenian. Ezautu ezquero bada, neure cristinaubac, cer aituten dan seinaren aita ordecuac gaiti, ceintzuc izan biar daveen, ta ce seniquera dacarren sein besuetan artuten daveenac ta bautismoguinac, icasi biar dogu, ia cer eguin biar daveen aita ta ama besuetacoc. 1350

II.

Ascoc uste daveen baino estubaguac ta andijaguac dira, bada, oneen eguinbiarrac. *Balequijee cristinaubac*, dino eracusla batec (61), *ce carga andija dan sein besuetan batiuan artutia, ez leuque inoc aimbeste naico, ta gurasuac bere ez leusquijue sein besuetara emongo edocein lelengo aguiiri dani* Au gaiti, Erromaco Catecismuac esaten dau (62), eracutsi biar jacuela cristinaubai sein besuetan artutiac dacazan eguinbiarrac. *Ain ardura guichigaz beguiratuten jaco eguiquizun santu oni cristandadian, ce ya aita ta ama besuetacoren icen utsa baino beneric ez da gueratu*, dino Catecismuac. Eguiquizun oneetati batzuc dira, sein batiatuten danian eguin biar dirianac. Ta beste batzuc, guero eguin biar dirianac. 1355

Aita ordecuen sein batiatuten daneco eguinbiarrac dira: *Lelenga* Aita ta ama besuetacoc esquini edo oprecidu biar deutsee sein batiuan Jaungoicuari ta Eleisa Ama santiari. Alan, eurac erantzuten davee seinaren orde batiuan ta Jaungoicuc artuten dau sein batiatuba euren escubetati bere semetzat. *Bigarrenian*: Gurasuen ta baustismoguinaren paltan, besuetan artuten daveenac imini biar deutsee seinari icena bautismuan. Leen esan dan leguez, ceruban Jaun-[79]goicucagaz daguan aingueru, santu edo santaren baten icena da, seinari imini biar jacona. *Irugarrenian*: Besuetan sein artuten daveenac erantzun biar deutsee, badaquije, bautismoguinac seinari eguiten deusazan itaunia⁶⁸. *Laugarrenian*: Euqui biar davee sein escubetan edo egon seinari oratuta, baustismoguinac ura ezarrita batiatuten davenian. Baita erreccetan davee credua bere besteequin; ta erregututen deutsee Jaungoicuari seinaren cristi- 1360 1370 1375

(61) Collec. de Bapt., c. 5, q. 2. (62) N. 28.

1352 bautismo guinac *Ba* 1353 ia] *Ya Ba* 1356 eguin biarrac *Ba* 1358 ezleusquijue *Ba* 1360 eguin biarrac *Ba* 1361 ya] *ija Ba* 1365 eguin biarrac *Ba*

⁶⁸ Hitza Frai Bartolomerentzat "itaune" da; beraz, pluraleko datiboa "itaunia" egin behar, bere bokalen harmoniako araua betetzekotan.

nautza ona gaiti. Oneec dira, sein a batiatuten daneco aita ta ama besuetacoren eguinbiarrac.

1380 Seina batiatuta guero eguin biar daveena da: *Lelenga* Goguan euqui beti, bautismo santuban seinagaz ta seinaren gurasuaquin oratu jacuen espirituozco seniqueria. Balijo bagaco ezcontzaren bat eguin ez daguijen inos alcarren artian.

1385 *Bigarrenian* : Aita ta ama besuetacoren eguinbiarra da, eurac bautismoco iturri santuti atera even cristinauba aparteco leguiagaz maite izatia. Bada, eurac erantzunda, eurac lagunduta ta eurac escubetan artuta jaijo zan a sein a bautismuan gracijara. Orregaiti dira aita ordecuac, aren pijadorijac Jaungoicuaren aurreraco ta eguijazco espirituozco gurasuac. Au gaiti zor deusee euren besuetaco umiai aparteco maitetasuna ta nai ona.

1390 *Irugarrenian* : Euqui biar davee contuba, euren besuetaco seinac artu daguijen, demporia danian conpirmacinoeco sacramentuba (63).

1395 *Laugarrenian* : Aita ta ama besuetacoren cereguin nausija da, eurac besuetan artu daveenari cristinau on izaten eracustia. Gurasuen paltan, edo [80] gurasuac euqui arren areec eracusten ez badeutsee, aleguina eguin biar davee besuetan sein a artu evenac, seinac dotrinia icasi daguijan, edadia davenian; Jaungoicuari ta Eleisiari obeidu daguijon; bautismoco bere aguindubac gorde daguizan; ta ceruraco vidian vizi dedin. *Esaten deusut*, cirautseen san Agustinec beste dempora baten aita ordeco guztiai (64), *esaten deusut, bautismoco umiac daucazuzan guizon ta emacume guztioi, ezautu daguizula ondo, bautismoco iturrijan besuetan artu cenduzanen pijadoriac zariala Jaungoicuaren veguijetan. Orregaiti, dino Santubac, gogoratu eguijezu sarri ta esan eguijezu gogoz, gorde daguijela castidadia, maite izan daguijela zucen - tasuna ta euqui daguijela caridadia. Eracutsi leलगoti, dino, ceuben besuetaco umiai Credua, Aitagueuria, Jaungoicuaren aguindubac ta cristinautzan jaquin biar daveena .*

1405 Onan verba eguiten davee Eleisiaren Gurasuac aita ordecuen eguinbiarrac gaiti. Eracusla batec artuten daven leguez bere contura icasliari eracusteco sail atan jaquin biar davena, alan aita ta ama besuetacoc bere artuten davee euren contura, seinari cristinautzan jaquin biar davena eracusteco. Besuetan artuten daveenac dira espirituozco gurasuac, dino san Dionisioc (65). Bada, guraso on baten arduragaz beguiratu biar deusee, euren besuetaco cristinaubaren arimaco gauzai ta salvetiari. Gurasuac edo gurasuen lecuban dagozanac contu eguiten badeutsee euren besuetaco umiari, ez dauquee aita ta ama ordecuac

1415 (63) Poug., p. 3, sect. 1, c. 2. §.4. (64) March. ubi sup. (65) Catec. Rom. n. 26.

1379 eguin biarrac *Ba* 1384 eguin biarra *Ba* 1388-1389 zordeutsee *Ba* 1392 cer eguin *Ba*
1406 eguin biarrac *Ba*

eguinbiarric. Baina icus-[81]ten badabee euren besuetaco cristinauba errazoiaren ezauberara elduta dotrinaric ez daquijala, Jaungoicuaren ezauberaric ez daucala, sacramentubac artuten ez ditubala, artuteco celan prestau ez daquijala ta cristinautzaco bideti urrin davilela, eguin biar davee aita ta ama besuetacoc euregan dana, jaquin biar davena eracusteco ta cristinau eguijazco baten 1420 vizi modura ecarteco.

¿Ta asco izango da curaac ta abadiac ataraco dagozala, ta orreec eracutsi biar deutseela esatia? Ez, cristinaubac. Cura jaunac ta abade jaunac egozala Eleisiac ordenau euan, aita ta ama besuetaco seinari batiuan emotia. Apostolu santubetati datorren usadijua dala au, esaten dau san Dionisioc (66). Eleisiaren 1425 lelengo guiza aldijetaco cura jaunac ta abade jaunac beequijezan euren eguinbiarrac. Ta ziatz cobru emoten eutseen euren cereguin santubai. Baina orduti ona beti icusten da, cristinau barrijari espirituazco gurasuac emotia. ¿Cegaiti, bada, au? Cura jaunez ostian cristinau barrijac euqui daguijen, gurasuen paltan, cristinau izaten ta ceruba irabazten noc eracutsi ta noc lagundu. Ez da, bada, 1430 asco izango aita ta ama besuetacuentzat, cura jaunac eracutsi biar deutseela esatia. Eureena da a eguinbiarra. Ta euren eguinbiarrari ez deutsee cobru emongo, inoc eguitecuagaz.

Bostgarrenian : Chito gauza ona ta eurai jagocuena da, aita ta ama besuetacoc, eurac bautismuan artu daveen umiari, errazoiaren usura eldu dedinian, 1435 esatia ta gogoratu eraguitia, bautismo santuban bere ordez cer erant-[82]zun eutseen Jaungoicuari ta Eleisiari; ce promes edo esquini santubac ta jasuac eguin zituban orduban Jaungoicuaren ta altaren aurrian; celan aguindu euan diabrubari, mundubari ta araguijari guerra eguitia; Jesus maitiaren curutziari jarraitutia; Jaungoicuaren aguindubac gordetia; Eleisa santiari obeidutia; ta cristinautzaco sinistutia caridadiaren subagaz ixiota beti ariman euquitia. Au jagocue aita ta ama besuetacori gurasuen paltan. Batez bere icusten badabee euren besuetaco umia Jaungoicuaren vide santuti aldenduta. Edo davilela munduco vanidadetan, edo escandaluco tratubetan, edo pecatu aguirijetan, edo bere arimia galduteco bideetan; orduban gogoratu biar deutseez bere bautismoco 1445 aguindu santubac.

Seigarrenian : Aita ta ama besuetacoc erregutu biar deutsee Jaungoicuari, eurac batiuan artu daveen cristinauba gaiti. Bada, modu guztietara lagundu biar deutsee, aleguinaz, cristinau eguiten lagundu eutseenari Jaungoicua serbiduteco ta ceruraco izan dedin. Ta modu oneen artian ez da guichien balijo 1450 deusana aita ordecten sarritaco oracinoia.

Ara emen, cristinaubac, aita ta ama besuetacoren eguinbiarrac, Eleisiaren Gurasuac ta Catecismuac dinuenez. Ez dira aaztuta euquitecuac, ez bada baco-

(66) Id. ibid.

1416 eguin biarric Ba 1426-1427 eguin biarrac Ba 1427 cer eguin Ba 1432 eguin biarra Ba | eguin biarrari Ba 1452 eguin biarrac Ba 1453 Ez bada Ba

1455 chac, jagocanez ta preminiac escatuten deutsanez, aimbat ciurren cobru emon
 biar deutseenac. Duda bagaric, contu artuco deutsee Jaungoicuac aita ta ama
 besuetacori, ia ceren pijadore jarqui zirian, seinu euren besuetan batiatu
 zanian. Ta icusiric eurac batiuan artutaco seinu bautismoco esquini san-
 [83]tubaquin aaztuta, Jaungoicuaren ta cerubaren ezaubera bagaric, diabrubari
 1460 ta galdu bidiari jarraituten deutsalara, aleguinaz contu eguiten ez badeutsee cris-
 tinauz vici dedin, ¿cer erantzungo deutsee Jaungoico zucenari? ¡Ah! Eurac pen-
 sau daiquee errazago dala seinu besuetan artuten, ari darraicozan eguinbiar
 santubai cobru emoten baino.

Baita beste aldeti, cristinau guztiai jagocue euren aita ta ama besuetacori
 1465 lotsa ona artutia; arimiaren oneraco emoten deutseezan icasiquizunac ta conse-
 seu onac esquer onagaz entzutia; euren esan santubai ta cristinautza zucene-
 cuai pocic eta gogo pretagaz obeidutia; aita ta ama besuetacori aparteco
 leguia ta maitetasuna eracustia; ta eurac gaiti Jaungoicuari gogoz erregutia.
 Au jagocue cristinau guztiai euren aita ta ama besuetacoren ondraraco ta
 1470 esquer oneraco. Aitu dozu bada, neure entzula onac, cetaraco seinari emoten
 jacozan batiuan aita ta ama besuetaco. Baita ceintzuc dirian oneen sail ataco
 eguinbiarrac bere.

Derichat eracutsi deutsudala icasiquizun oneetan, bautismoco sacramentu
 santubaren gainian zeubec jaquin biar dozuna. Esan deutsut, ce izate daucan
 1475 bautismuac; noc ichi euscun sacramentu santu au; ce biarrecua dan gueure ari-
 mac salvetaco; cegaz eguiten dan; celan eguiten dan; premina orduban ceinec
 eguin leguijan; bautismuac gueure ariman cer eguiten daven; demporia baino
 leenago galduten dirian seinu celan bautismuagaz lagundu biar jacuen... ta
 azquenic, aita ta ama besuetacori jagocuen eracutsija. Oni darraico, neure en-
 1480 tzula onac, leen esan deutsudana: 1. Jaungoicuari esquer onac [84] emotia, cris-
 tinau eguin guinduzalaco. 2. Sarri edo beti goguan euquitia, batiuan
 Jaungoicuari eguin gueuntsazan esquini santubac ta altubac. 3. Cristinautza
 eguinbiarrac ta jaquinquizunac ondo icastia. 4. Cristinaubaren icen santuba
 inos lotsatuco ez dan vici moduba beti euquitia. Onegaz izango gara duda
 1485 bagaric guztio ceruco betico echagunac.

¡Oh, Jesus, gueure Salvazaille maitia! Zeuc artu guinduzuan bautismo san-
 tuban zeure semetzat ta zeure ondriaren jaolatzat. Ceuri escatuten deutsugu,
 bada, amaitu daguizula gudan asi dozun gracijazco biarra. Ez zinduguzan zeu
 ezautuco, ceuc ceure Eleisara eruanda, batiatu ez baguinduzuz. Emon eguigu-
 1490 zu, bada, Jauna, gracija eguilia, cristinau izateco ondria ceu ganic daucagun
 leguez, equi daigun ceruban beti ceugaz vizi izateco ta ceure ontasunac can-
 tetaco dichia. Amen.

1457 ia] ya *Ba* 1460 ezbadeutsee *Ba* 1462 eguin biar *Ba* 1472 eguin biarrac *Ba*
 1483 eguin biarrac *Ba*

COMPIRMACINOECO SACRAMENTUBA

*Tunc imponebat manus super illos, et accipiebant Spiritum
San[c]tum. Act. Apost. c.[8, 17]*

ICASIQUIZUN BACARRA,

ceinetan eracusten dan 5
bigarren sacramentubaren izatiari ta eguitiari jagocana.

Jesucristo gueure Jaunac bigarren lecuban ichi [85] euscun sacramentu santuba da, neure entzula onac, *compirmacinoia* esaten jacona. Sacramentu au gaiti dino Erromaco Catecismuac (67): *Cura jaunac beti izan badavee compir -*
macinoeco sacramentuba eracutsi biarra, orain duda bagaric inos baino guei - 10
jago dendatu biar davee cristinaubai eracusten sacramentu santu onen izatia
ta gracijac. Bateti, cristinau ascoc jaamonic eguiten ez deutseelaco sacramen -
tu oni. Ta besteti, guichi dirialaco sacramentu onec daucazan prutu gracijaz -
cuaquin balijetara dendatuten dirianac . Eracutsi biar jaco, bada, cristinaubari, sacramentu oni jagocan icasiquizuna. Orduba danian, ezaubera osuagaz ta 15
prestaera onagaz artu daguijan compirmacinoeco sacramentu santuba ta aren gracija ugarijac. Onetaraco, esango deutsut dotrina onetan: 1. *Sacramentuba -*
ren izatiari ta eguitiari jagocana . 2. *Celan artu biar dan* . 3. *Cer eguiten daven*

I.

Lelengo eracutsi biar jaco cristinaubari, *compirmacinoiac* cer esan gura 20
daven. Ez da, bada, beste gauzaric aituten *compirmacinoiagaz* , ez bada leen sendo daguana, senduago eguitia; leen pirme daguana, piriago eguitia; edo leen indar onian daganari, indar gueijago emotia. Au berau eguiten dau, bada, Eleisiaren bigarren sacramentubac cristinaubagaz. Bautismuac emoten deutsa gracijaren vizitzia, gracijaren indarra ta sendotasuna. Ta onen gainera 25
compirmacinoeco sacramentubac emoten deutsa cristinaubari aparteco indarra, pirmezia ta sendotasuna, Jesucristoren soldautzan pelietaco. Alan, esan guinaijo compirmacinoeco sacramentubari *sendotuteco* [86] sacramentuba. Bada, sacramentu onen eguite nausija da, gracijan dagan arimiari indar barrija ta 30
sendotasun barrija emotia, Jesucristoren ondria cristinautzan bildur bagaric zaintuteco.

(67) De Confirm., n. 1.

14 biarjaco *Ba* 16 presta era *Ba* 21 Ezda *Ba*

II.

Baita sinistu biar dau cristinaubac, arimiaren sendogarrico sacramentu au ichi euscula Jesucristo gueure Jaunac berac. Baita Jesucristo gueure Jaunac
 35 berac ichi euscun, Erromaco Catecismuac esaten daven leguez (68), compirmacinoeco sacramentubaren gueija ta eguite moduba bere. Bada, Jaungoicuac berac ez bada, bestec ezin emon leguijo munduco gauza bati, pecatubren par-cagarri ta gracijaren gueigarri izateco virtutia. Au gaiti, Eleisiaren zazpi sacramentubac dira Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcuac berac ichijac, leen
 40 esan dan leguez.

III.

¿Cer da, bada, compirmacinoeco sacramentuba? Oni erantzuteco esaten da:
 1. Obispo jauna dala berez compirmacinoeco sacramentuguina. Apostolu santubai ta areen ordeco obispo jaunai emon eutseen Jesucristoc, cristinaubac
 45 compirmeetaco alizatia. 2. Sinistu biar dogu, batiatu bagaric daguana ezin compirmau leitequiala. Bada, nora ececu da batiatutia, beste sacramentubac artuteco. 3. Jaquin biar da, compirmacinoeco sacramentuba ez jacola cristinaubari bein baino emoten. Batiua, ordia ta compirmacinoia ez dira barristetan, beste sacramentubac leguez. Au ezautu ezquero esaten da bada, neure entzula onac,
 50 compirmacinoeco sacramentuba dala, *batiatuta dagan cristinaubari balsa muagaz naastautaco ta obispo jaunac consagrautaco orijuagaz becoquijan obispuac cu-[87]rutzia eguitia*, esanagaz: *Marqueetan zaitut curutziar en senailiagaz ta compirmetan zaitut osasuneco crismagaz Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen* . Au da compirmacinoeco sacramentubaren gueijari, izatiari ta eguitiari jagocana. Baina gauza ona da cristinaubari
 55 aituten emotia, oneec guztioac cer esan gura daveen.

IV.

¿Cer esan gura dau, bada, crismac edo sacramentu onen gueijac? Gauza asco esan gura ditu, neure entzula onac. Ta guztia dira sacramentu onen eguitadiai jagocuezanac. Crisma da balsamuagaz naastautaco orijo consagrauba. Orijuac sendotu ta zalduten⁶⁹ ditu gorputzac. Orijua da vijotceco alegrijaren senailia. Orijua da arguigarrija ta pozgarrija. Orijua da baque onaren senailia.

 (68) N. 6.

⁶⁹ "Zaldu": gogortu, sendotu.

Orijua da nai burdiniari, nai zurari, nai arrijari, nai beste edocein gauzari echuria edertuten deutsana, zaltasuna ta pirmecia gordetan deutsana. Orijua da gauzac usteldu bagaric, ugartu bagaric, sistu⁷⁰ edo irotu⁷¹ bagaric gordetan ditubana. Alan, osasuna ta indarrac gorputzian gordetaco, esaten evan Salomonec: *Zeure buruban ez daquizula paltau orijua* (69). Arguitasuna, edertasuna, gozotasuna, zaltasuna, sendotasuna ta osotasuna emoten deutsee orijuac, ezarten jacuen gauza guztiai. Orregaiti Escritura Sagraduban aimbeste bidar Espiritu Santubac aitatuten dau orijua ta arbola orijoguina edo *olibua*, alaco esan dirian ontasunetati bat edo bat aituten emon gura deuscunian. Berau gaiti, ainchinaco burrucarijac bere orijuagaz gorputzac igortzita, juan oi cirian alcarregaz pelietara.

[88] Orijua balsamuagaz naastetan da, compirmacinoeco sacramentuba eguiteco. Balsamuac bere, beste ascoren artian, eguitade bi daucaz chito ezagunac: Bata da usain gozua. Espiritu Santubac aintzat artuta, chito jaso andija emoten deutsa bere esposiaren icenian esaten davenian: *Balsamo usaintsu baten moduban, emon dot usaina* (70). Bestia da, balsamua izatia pasmuaren⁷² contractua. Gorputzac pasmua ganic libretaco ta usteldu bagaric gordetaco, balsamotuten dira. Izan ezquero, bada, compirmacinoe gueija orijua ta balsamua, alaco eguitade ta ontasun aguirijac dauqueezanac, berecautan leguez ezaututen da compirmacinoeco sacramentubac gueure arimetan cer eguiten daven. Onegaz aituten da, compirmacinoeco sacramentubac sendotu, edertu, osotu ta zaldu eguiten davela gueure arimetaco gracia. Impernuco etsaijaren tentacinoiac ta asmo galdubac inos goitu ez daguijen. Pecatubaren usteltasunagaz ezaindu ez dedin. Ta gracijaren usain gozua ta estimauba galdu ez daguijan. Baita obispo jaunac consagrautacua izan biar dau orijo-balsamuac edo crismac bere. Bada, san Pavian Aita Santu martirijac eracusten dau⁷³, Erromaco

(69) Eccl. c. 9. (70) Eccl. c.24.

73 oicirian *Ba*

⁷⁰ "Sistu": sitsak jo.

⁷¹ "Irotu": usteldu, andeatu, galdu.

⁷² "Pasmo": gangrena; ("pasmoa", "pasmo-bedarra" etab. hitz ezagunak dira Markina inguruan).

⁷³ Izan ere, aipu hori obra honetan dator: *Catecismo del Santo Concilio de Ffento para los Párrocos...*, traducido en lengua castellana por el P. M. Agustín Zorita... Bigarren Parte, 3. kap., 10. zk., Madrid, 1791, 119. or.

San Fabian, martiria, 236-250. urteetan Aita Santua. Erromatarra zen. Garai larriak igaro ondoren, Fabianek Eliza ongi zuzentzea eta sendotzea lortu zuen bake aldian, batez ere Gordiano III.a enperadorearen garaian, 238-244. urteetan, eta Felipe Arabiarra enperadorearen garaian, 244-249. urteetan; bake aldi honek Dezioren jazarpena berriro hasi arte iraun zuen. Dezioren jazarpen aldian martiritza jasan zuen lehenengoetarikoa izan zen bera eta Kalistoren katakunban ehortzi zuten. (J.N.D., KELLY, *Diccionario des Papes*, Brepols 1994, 26-28. or.).

Catecismuac dinuanez (71), Jesucristo gueure Jaunac alan eguiteco aguindu eutseela apostolu santubai Eguben Santu gaveco aparijan. Obispo jaunaren consagracinoiac prestetan ditu orijo ta balsamo bat eguina, sacramentubaren guei izatera. Bada, consagrau bagaric ezin legui euraquin sacramenturic.

95

V.

Compirmacinoia eguiteco verbac bere, guztiac dira peliadaraco cristinauba prestau ta az-[89]cortuten daveenac. *Marqueetan zaitut curutziaren senailia* -
gaz, esaten deutsa obispo jaunac, crismagaz becoquijan curutzia eguinda. Curutzia ta curutziaren senailia da cristinaubaren arma sendua ta seguruba.
 100 Curutciagaz goitu cituban Jesucristo gueure Jaunac arimen arerijo guztiac. Ta curutzia ichi euscun arma nausitzat, munduba, diabrubu ta araguija goituteco. *Ta compirmetan zaitut osasunaren crismagaz* , dirautsa obispo jaunac compirmacinoian. Verba oneec ta crismagaz becoquijan igorztiac edo ungidutiac, guztiac esan gura dau cristinaubari sacramentu onetan emoten jacon espirituzco
 105 alizate sendua ta indartsuba. ¿Ta noren icenian? *Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian* . ¿Cer izan leiteque, bada, gauza ataracuagua⁷⁴ sacramentu santu onec arimiari emoten deutsan sendotasuna eracusteco, balsamozco orijo consagrauba, agaz becoquijan curutzia eguitia ta esan dirian verba santubac baino? Becoquijan eguiten da curutzia bere. Becoquijan, lotsa
 115 lecuban⁷⁵. ¿Ta cetaraco? Inos lagun aurrian lotsatu ez dedin cristinautziagaz. Inos lotsatu ez dedin Jesusen ondria zaintuten ta curutze santiari jarraituten. Onetaraco eguiten jaco becoquijan curutzia, compirmetan danari.

Baita emoten deutsa obispo jaunac compirmetan danari escubagaz matrellaco bat bere. Onegaz aituten emoten da, compirmauta daguana ya dala
 120 Jesucristoren soldauba. Ez bestiac joteco. Ez lagunari min emoteco, ez bada, Jesusen icenian, lagunac emoten deutseezan gachac ta eguiten deutseezan nai bagaac onian eruateco. Jesucristo ez zan mundura etorri ino-[90]ri gach eguitera. Baina bai inoc eguin eutsazan gachac paciencijaz iragotera. Beste aimbeste eguin biar dau compirmauta daguan cristinaubac.

 125 (71) N. 10.

91 Catecismuac] Catecismuac *Ba* 104 guradau *Ba* 119 ya] ija *Ba* 120 Ez bada *Ba*

⁷⁴ "Ataraco" > "ataracuagua": euskara batuan, "hartarakoagoa"; (*más adecuado, más a propósito* esan nahi du gaztelaniaz).

⁷⁵ Gure idazleak bekokia lotsarekin zerikusia duen gorputz-ataltzat jotzen du. Hainbat herri-esaera ere bat etor daitezke ideia horrekin, esaterako, "horrek dauka bekokia!", "horrek du kope-ta!"...

VI.

Baina gogora etorrigo jatzu benturaz, cristinaubac: ¿Ez guinduzan, bada, bautismo santubac eguin guztioac Jesucristoren soldau? ¿Cetaraco da, bada, compirmacinoia, batiatuta egon ezquero? Esaten da bada, neure entzula onac, vitaarte andija daguala bautismuaren ta compirmacinoiaren artian. Bautismua da gracijaren vicitzara jaijoteco. Ta compirmacinoia da jaijotaco gracija sendotuteco. Bautismuac eguiten gaitu Jesucristoren seme. Ta compirmacinoiac Jesucristoren soldau. Au eracusten deuscu san Melquiades Aita Santu Erromacuac, edoceinec aituco daven moduban. Dino bada (72): Aguintarijac soldautzat norbait artuten davenian, ez deutsa soldautzaco senailia edo ezagungarrija emoten bacarric, ez bada ezagungarrijaren gainera, emoten deutzaz armaac, soldautzan pelietaco. Alan jazoten jaco cristinaubari bautismuan ta compirmacinoian. Espiritu Santubac, ceruti jatsita, bautismoco iturrijan emoten deutsa arimiari gracija; ta compirmacinoian, gracija gordetaco indarra ta armia. Ta munduban beti vici biar dogun leguez arimiaren etsaijen contra peliadan, bautismua da vici izateco ta compirmacinoia pelietaco. Bautismuac garbituten gaitu ta compirmacinoiac sendotuten gaitu. Asco da bautismua, gueu salvetaco. Baina bautismuaren gainera da compirmacinoia, arerijuac goituteco. Onan eracusten deuscu, cristinaubac, Melquiades santubac, bautismuagaz compirmacino-[91]iaren artian daguan vitaarte gracijazcua. *Bautismuan emoten da Espiritu Santuba, pecatubac parcatuteco; ta compirmacinoian, pecatuban jausi ez dedin pelietaco*, dino san Pedro Damianoc (73). Icaso ezquero, bada, cristinaubac compirmacinoeco sacramentubari jagocana, jaquin biar dau celan p[re]stau biar daven sacramentu santu au artuteco.

VII.

Onetaraco esaten da aurraz batiatu bagacuac ezin artu leguijala compirmacinoeco sacramentuba. Baina cristinau batiatubac artu legui compirmacinoia. *Ta Eleisa Ama santiac chito nai dau, bautismuagaz ber e semetzat artu dituban cristinau guztia, compirmacinoiagaz cristinaubaren izate osora eldutia*, dino Erromaco Catecismuac (74). Alan, al izan ezquero, artu biar dau cristinaubac compirmacinoeco sacramentu santuba. Esaten da, ez dala ece-reztzat edo balijo guichicotzat euquita ichi biar compirmacinoia, ez bada estimau biar dala, gauza balijo andicotzat euqui biar dala ta ordu onian al izan ezquero artu biar dala. *¿Ez daquizu*, esaten eutsan san Geronimoc Luciperiano

 (72) March. De Confirm. Lect. 5. (73) Serm. 1. Dedic. (74) Num. 17.

160

135 nor bait *Ba* 136 ez bada *Ba* | ezagun garrijaren *Ba* 153 naidau *Ba* 156-157 ecer ezizat *Ba* 156 Ez bada *Ba*

heregiari⁷⁶, *Eleisiaren usadijua dana, batiatubai obispo jaunac escubac imin -
tia ta Espiritu Santubari dei eguitia? ¿Dinozu, nun escribiduta dagan?*
Apostolubun Eguitetan. Ta Escrituriaren esanic ez balego bere, cristandade
165 *guztiac alan eguitia edo compirmetia, aguindu baten tercijocua da .* Modu
onetan eracusten euan san Geronimoc Escritura Sagradubagaz ta Eleisiaren
betico usadijuagaz compirmacinoeco sacramentubaren preminia.
[92] Compirmacinoeco sacramentuba artuteco, prestau biar dau cristinaubac
(errazoiaren usura eldu dana bada) pecatubun damu eguijazcuagaz. Esaten da,
170 pecatu mortalian daganac compesau biar davela, compirmetara orduco. Bada,
pecatu illgarrijagaz compirmauco balitz, eguingo leuque sacrilegijozco pecatu
andija, sacramentu santuba pecatuban artu davelaco. Onezaz gainera, dino
Erromaco Catecismuac (75), compirmacinoeco sacramentuba artuteco dempo-
ran gauza ona dala, barubagaz, limosniagaz ta beste eguitade santubaquin cris-
tinaubac prestetia. Au eracutsico deutsee cura jaunac cristinau pielai ta gura-
175 suac euren umiai. Onetaraco gogoratuco deutseez, compirmacinoeco sacra-
mentu santubac gueure arimetara dacazan gracia ta mesede santubac ta uga-
rijac. Ta artuco davee cristinaubac sacramentu santu au aimbat ondun
prestauta, sinistute eguijazco bategaz, Jaungoicuaganaco gogo vicijagaz, peca-
tubun damu osuagaz ta arima garbijagaz. Espiritu Santubari dei eguinda artu
180 biar da compirmacinoeco sacramentuba. Ez dago dempora erabaguiric cristi-
nauba compirmetaco. Errazoiaren usura cristinauba eldu dedinian da tercijo-
ric oneena compirmeetaco, dinue Erromaco Catecismuac, san Carlos
Millanguac ta beste ascoc. Orduban asten dira arimiaren arerijuac cristinauba-
ren contra. Ta orduban dau biarren gracia sendotutia ta sacramentubaren vir-
185 tutiagaz vizcortutia, arimaco etsajiac goituteco ta Jesusen ondria zaintuteco.
Baina obispo jaunari derichonian errazoiaren usuba baino leenago seinac [93]

(75) N. 17.

⁷⁶ San Jeronimoren aipatutako idazki hori *Diagolus contra luciferianos* da: "An nescis etiam Ecclesiarum hunc esse morem, ut baptizatis postea manus imponantur, et ita invocetur Spiritus sanctus? Exigis ubi scriptum sit? In Actibus apostolorum. Etiam si Scripturae auctoritas non subeset, totius orbis in hanc partem consensus instar praecepti obtineret" (PL, Migne, 23, col. 172).

Luzifer, Cagliari-ko apezpikua (+ 370). Milango sinodoan, 355ean, Aita Santuaren ordezkaria izan zen; Nizeako Kontzilioaren aldeko porrokatua izan zen beti; Konstantzio enperadorearen aurka jaitzeagatik erbesteratua. Erbestean bere lehengo jarreraren gehiago gogortu zen. Bere erbesteratze bidegabeagatik sumindurik, enperadorearen aurka eta Nizeako Kontzilioaren doktrinatik urrundu zirenen aurka idazki eztabaidagarri batzuk egin zituen. 362ko enperadorearen ediktu batek itzultzeko bidea zabalik uzten bazion ere, berak ez zuen nahi izan, eta Nizeako Kontzilioaren kontrakoekin bakeak egin nahi izan zituen. Paulino apezpiku sagaratu zuen, honela Antioquiako (Melezianoen) zisma gehiago luzaturik. Haren ikasleek talde bat osatu zuten, luziferianoak, baina laster galdu zen haien entzutea. (Ik. K. BAUS, *Lucifer Bisch. v. Calaris*, LThK 6 (1986) 1173-1174).

compirmetia, ez dago eragotzita, dino san Carlos Millanguac (76). Icusi daigun, bada, ia cer eguiten deutsan cristinaubari compirmacinoeco sacramentubac.

VIII.

190

Esan dot, cristinaubac, dotrina onetan, cer eguiten daven sacramentu onec gueure arimetan. Baina oraindino obetuago aitu daguizun beronen virtute mirarizcua, jaquin biar dozu: 1. Compirmacinoeco sacramentubac, beste sacramentu guztiac leguez, parcatuten ditubala berez pecatubac, ondo pretauta artuten danian. 2. Iminten davela marca bat gueure ariman, inos bere castau edo galduco ez dana. Soldaubac soldau dan artian darabilen leguez soldautzaco ezagungarrija, alan cristinaubac euquico ditu beti beragaz bautismuan ta compirmacinoian artu zituban marcac edo cristinautzaco ezagungarrijac, Jaungoicua Jaungoico dan artian. Ondo balijetan bada, ceruban glorija gueijago euquiteco. Gaisqui pelietan bada, impernuban gueijago peneetaco. Gueure ariman isten daven ezagungarri au gaiti, ez da bein baino artuten compirmacinoeco sacramentuba. 3. Compirmacinoeco sacramentubac iraaften dau edo iminten dau espirituzco seniqueria, bautismoco seniqueria gaiti esan zan leguez. Bada, bautismuan emoten jacozan leguez seinari cristinautzaraco pijadoriac ta lagunac, alan emoten jacoz compirmacinoeco sacramentuban. Ta bautismuac dacarren espirituzco seniqueria, dacar compirmacinoiac. 4. Compirmacinoeco sacramentubac ariman eguiten daven aparteco mesedia da, leen esan dan leguez, graci-[94]ja sendotutia, tentacinoiac goituteco. Sacramentubaren gracia indarrezco au ez da berez ezaututen ain ondo. Baina bai ezaututen da bere eguitadetan. Au aituteco esaten deuscu Erromaco Catecismuac (77), gogoratu daigula apostolu santubai cer jazo jacuen.

Bada, gauza jaquina da apostolubac bildurtijac ta arpegui guichicuac ziriana Jesusegaz ebilzarian, Jesusen pasinoian ta baita gaineco egunetan bere, Espiritu Santuba ceruti euretara jatsi artian. Judegubac Jesus preso artu eveenian, apostolubac bildurrez igues eguin even. San Pedroc, guztien artian indartsubenac ta azartubenac, emacume condo⁷⁷ baten verbiac bildurtuta, iru bidar ucatu evan Jesus bere Jauna⁷⁸. Jesus illen arteti viztuta guero bere, judeguben bildurrez eche baten sartuta ezcutauta leguez egon cirian; Espiritu

 (76) Conc. Mediol. Can. 5. (77) N. 22.

189 ia| ya *Ba* 191 Esandot *Ba*

⁷⁷ "Kondo" hitza bizkaieraz oso erabilia da; zenbait gauzaren hondakina esan nahi du, erabili ondoren geratzen dena: zigarro kondoa, kandela kondoa... Pertsonekin mespretxuzko adiera du, txikia, kaskarra: ume kondoa... (hemen, *emacume condo* esatean, gaztelaniazko "mujerzuela" izan zezakeen gogoan).

⁷⁸ Ik. Mt 26,69-75; Mk 14,66-72; Lk 22,56-62; Jn 18,15-18.

220 Santuba euretara etorri artian⁷⁹, ¿cegaiti, bada, au? ¿Celan ain bildurtijac ta animo guichicuac apostolubac? Ez beste gauza gaiti, ez bada compirmacinoeco sacramentubaren gracia osua artu ez daveelaco. Oraindino palta even Espiritubaren etortia, cein jazoten dan aparteco modubagaz ta graciajagaz, compirmacinoeco sacramentuba biar dan prestaeriagaz artuten danian.

225 Bada, apostolubac eurac, Espiritu Santuba artu evenian Pazcua maijetzeco⁸⁰ ez cirurijen leenguac. Judegubac ta mundu guztia baino senduago, indartuago ta azartubago zirian. Judegubai plaza betian arpeguijan ezarten eutseen euren Jaungoico illtzaco pecatu erru gaistocua. Ta gentil ecandu nasaicuen artian bildur [95] bagaric prediquetan even gueure Jaungoicotzat ta Salvazaille bacartzat Jesucristo curutzian illa. Ez zituban bildurtuten apostolu santubac Espiritu Santuba artu even ezquero, ez aguintarijac, ez soldaubac, ez ezpatac, ez carcelac, ez narru eraztiac, ez samia ebatiac, ez beste penagarriac. Ez zirurijen ya guizonac, ez bada eceren bildur bagaco cerutar azartu batzuc.

235 ¿Cec derichazu, alan sendotu zitubala? Compirmacinoeco sacramentuban emoten dan Espiritu Santubaren graciajac. Onegaz goituten ditu cristinaubac arimiaren arerijuac, munduba, diabrubta ta araguija. Gracia santa ta sendo onegaz aimbete guizon ta emacumec, bai edadecuac ta bai gaztiac autortu davee Jesusen icen santuba ta zaintu davee Jesusen ondria, bildur bagaric, aguintari gogorren aurrian, penagarriac andijenetan. ¿Ceimbat guizon edadecoc goitu ditubee laba gorijac ta calzaidu zorrotzac bildurtu bagaric, Jesus ez ucatutia gaiti? ¿Ceimbat nescatilla gaztec burla eguin deutsee borregubai, batzuc artcen ta otsuen artian, beste batzuc orijo iraquinezco galdaretan, beste batzuc azote gogorretan ta beste ascoc lotsarizco milla pena garratzen artian, vicitcia galduteraguino Jesucristoren icen bedecatuba, amodijo garbija ta verbia zaintutia gaiti? ¿Oh, cristinaubac! Ez dauquee ceimbatec onetarico Espiritu Santubaren eguitade arrigarriac. Ta oneen gracia ta sendogarrija emoten jaco cristinaubari compirmacinoeco sacramentuban.

Gogoratu bada, neure entzula onac, sacramentu santu onen izatiari ta eguitiari jagocana; celan prestauta artu biar dan; ta cer eguiten [96] daven gueure arimetan. Escatu daijogun Espiritu Santubari, gueitu daguijala gueure sinistutia, sendotu daguijala gueure gracia, arguitu daguijala gueure adina, sutu daguijala bere amodijo santubagaz gueure nailla muquerra, igartu daguizala gueure vijotzetaco guraari luurrezcuac, barristau daguijala gueugan orijo santubaren espirituzco igortzija, balsamo santubaren usain gozua ta curutce santiaren indarra, inos lotsatu bagaric beti jaso daigun ta zaintu daigun Jesusen leguia ta ondria munduban ta gozau daigun ceruban. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

221 ez bada *Ba* 224 presta eriagaz *Ba* 223 ya| ija *Ba* | ez bada *Ba* 243-244 galdutera guino *Ba*

⁷⁹ Jn 20,19; Eg 2.

⁸⁰ Ik. Eg 2. "Pascua maijetzeco", Mendekoste edo Espiritu Santuaren jaija esan nahi du, gehienetan maiatzean gertatu ohi zena.

PENITENCIACO SACRAMENTUBA

*Si impius egerit poenitentiam ab omnibus peccatis suis,
quæ operatus est, et custodierit omnia præcepta mea, et fecerit
judicium, et justitiam, vita vivet. Ezequiel. Cap. 18*

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan penitencia. 2. Ceimbat modutacua dan.*
3. *Ce preminatacua dan.*

Trentoco batzaar santubac ta beste Eleisiaren Eracuslac iminten davee, neure cristinaubac, compirmacinoeco sacramentubaren ondoric co-[97]muni- 10
noeco sacramentuba. Baina bateti gueure errijetaco gazteeriari eracusten jacon leguez compirmacinoiaren urrengo *penitencia*, ta besteti comulguetara orduco oi dan leguez compesetia, uste dot ez dala errazoeti campora izango, comuni-
noeco sacramentuba baino leenago eracustia compesinoecua edo penitencija- 15
cua.

Gauza guichi izango dira cristinautzaco eracutsi santuban ondo icasteco ta aituteco premina gueijago dauqueenac, penitencia eguijazco bati darraicoza-
nac baino. Duda bagaric, chito cristinau asco vici dira, neure entzula onac, urte luceetan pecatubaren besuetan lo eguiten daveela, *penitencia eguijazcuaren*
azaleco ezaubera illun bat baino ez dauqueelaco. Eleisa Ama santiac pena andi 20
bategaz negar eguiten dau bere semen gach triste au. Bada, esaten dau bere batzaar oso baten (78), *penitencia paltua dala beste naibaguen artian Eleisa*
Ama santia chito asco peneetan davena. Berau gaiti contu estuba iminten deu-
tsee Eleisa santiac obispo jaunai, cura ta sacerdote jaunai, eracutsi daguijuen
cristinau pielai, inos cansau bagaric, penitencia eguijazcuaren izatia ta premi- 25
nia. Euren eracutsijaren paltaz, dino (79), cristinauben arimac penitencia pal-
tsuagaz engainauta, impernura jua ez ditezan. *Ne falsis poenitentiis laicorum*
animas decipi, et in infernum detrahi, patiantur .

Eleisa Ama santiaren aguindu ta opa on au neure eguiquizuntzat artuta, gogo onagaz eracutsico deutsut, cristinaubac, sacramentu onetan aimbat labu- 30
rren ta arguiruen penitencia eguijazcuari ta compesinoeco sacramentubari [98]
nora ezian jagocana. Baquit sail onec chito campo andija daucana. Baquit era-
cutsi labur batzubetan gauza andiric esan ezin neguijana. Baita sacramentu

(78) Con. Later. (79) Id.

11 gazte eriari *Ba* 13 oidan *Ba* 22 artian] artiam *Ba*

35 santu onetan zuben burubetaraco ez dirian gauza asco dagozana bere. Alderatuco ditut oneec guztioac aleguinaz neure eracutsijetati. Ta bacarric esango deutsut aimbat ziatzen, zeubec jaquin biar dozuna. Guztiai asipena emote-
 40 Guztioac dacuszu, ondo entzutiac ta icastiac asco balijo deutsuna. Prestau zaitetz, bada, aimbat gogoric oneenagaz entzuteco.

I.

Ez da menturaz⁸¹ ecer bere sarrijago aitatuten, neure cristinaubac, ez eracutsi oneco liburubetan, ez pulpitueta, ez compesalecubetan, penitencija eguijazcua eguitia baino. Ta benturaz gueu salvetaco nora ececo gaucetan ez dago beste bat, sustrai guchiagogaz cristinaubac daquijeenic. Ta au jazo leiteque, dino Aita Burdalue jesuita zelotsubac (80), biar dan arguitasunagaz cristinaubai eracusten ez jacuelaco penitencijaren izatia ta preminia. ¿Cer da, bada, penitencija? ¿Edo cer esan gura dau penitencijac? Ez da, bada, beste gauzaric, neure entzula onac, penitencija, ez bada *penia artutia* edo vijotza peneetia. Cerbait jazo jacolaco edo jazo ez jacolaco noberac vijotzian artuten daven penia, damuba edo garbajia da penitencija. Onaco penia edo damuba izan leiteque modu ascotacua. Izan leiteque damututia ta penetia Jaungoicua [99] gaiti. Izan leiteque ceruba edo impernuba gaiti. Baita cleituba, osasuna edo euquija galdu davelaco bere. Baita adisquide bategazcua galdu davelaco bere. Leenago nai izan daven gauzia, damututen jaconian ta garbatuten jaconian dauca vijotzac penia. Ta au da berez penitencija. Ascotan izaten da pena au munduco gauzac gaiti. Ta orduban da munduco penitencija. Penitencija onec erijotzia dacar, dino san Paulo apostolubac (81). *Sæculi autem tristitia mortem operatur.*

Orain aita⁸² dogun penitencija da, Jaungoicua gaiti artuten dana. Jaungoicuaren aguinduba ausi daveelaco vijotzian artuten daven penia da cristinauba salvetan daven penitencija. *Onec*, dino Apostolu santubac, *dacarrela arimaco osasuna* (82). Alan, Espiritu Santubac lecu ascotan esaten deuscunian penitencija eguiteco ta penitencijaren preminia, batian: *Eguizu penitencija,*

 (80) Instr. de Confes. (81) 2. Cor. 1. (82) Ibid.

36 guztioac] guztioz Ba 39 3.] 3. 3. Ba 50 ez bada Ba 66 Cor.] Chor. Ba

⁸¹ "Menturaz" sarri darabilen hitza da; gehienetan honela idatzirik: 58 bider obra osoan barrena; paragrafo honetan bertan, bi lerro beherago, "benturaz" dator, baina 4 bider baino ez da agertzen honela idatzirik.

⁸² Ik. *Icas-Ilko* 244. oharra (1045.or.).

ceruco erreinuba urreratu da ta (83); *bestian* (84): *Penitencia eguiten ez badozu, guztioz era batera galduco zara*. *Lecu baten* (85): *Penitencia eguiten ez badogu, jausico gara Jaungoicuaren escubetan ta ez guizonen escubetan*. *Beste baten* (86): *Pecatarijac eguiten badau bere pecatu guztien penitencia... vizico da ceruban. Ez da illgo... Viurtu zaite vijotz guztiagaz Jaungoicuagana ta salvauc zara...* Jaungoicuac onaco verba ascogaz escatuten deuscunian penitencia, dinot, neure cristinaubac, escatuten deuscula pecatubagaz Jaungoicua bera injurijau dogulaco vijotceco penia ta damuba. Pecatu egui- [100]na garbatutia ta ostera pecaturic ez eguiteco asmo vizija artutia, pecatuba Jaungoicuaren contra dalaco da penitencijaren eguinquizuna. 70 75

Pecatu eguin davenac ezin ucatu legui Jaungoicuaren aguiduba ausi davena. Ezin ucatu legui, Jaungoicuaren esana eguin baino bere guraarija eguin najjago izan davena. Ezin ucatu legui, Jaungoico andijari ta santubari lotsia galdu deutsana. Bada, penitencia eguiteco, ezautu biar dau bere gaisqui eguina. Damutu biar dau vijotzian pecatu eguinagaz, Jaungoico santubari lotsia ta ondria galdu deutsalaco. Escatu biar deutsa Jaungoicuari bere pecatubaren parcacinoia. Artu biar dau vijotzian gogo osua, ostera pecaturic ez eguiteco. Aldatu biar dau pecatuco videti ta ocasinoeti. Ta prestau biar dau pecatuba autortuteco compesinoian, al daguijan parcacinoia Jaungoicuaganic jaldiiteco uste osu[a]gaz. Au da penitencia eguijazcuaren eguitadia. Pecatu eguin evanian gueijago gura eutsan pecatu gueijari, Jaungoicuari baino. Bada, penitencia eguijazcua eguiteco, gueijago gura biar deutsa Jaungoicuari beste gauza guztiai baino. Au da penitencijagaz Jaungoicuagana vijotza viurtutia. Pecatu eguin evanian, luurreco gurari bat gaiti ichi eutsan betico Jaungoicuari. Bere nai oquer baten truque saldu evan Jaungoicua. Gueijago maitetu evan pecatu guei bat, Jaungoicua baino. Bada, penitencia eguiteco, luurreco gurari eragotzi guztiai ichi biar deutsee Jaungoicua gaiti. Munduco gauza guztiac, osasuna, cleituba, euquija, ondasunac, adisquidiac ta vizitcia bera bere trucau biar ditu ta galdu biar ditu, biar badira, Jaungoicua ez galdutia gaiti. Maitetu biar [101] dau Jaungoicua vijotz vijotceti, beste gauza guztiac baino gueijago; ta gorrotua artu biar deutsa eguin daven pecatubari. Au da penitencia eguijazcuagaz pecatarija Jaungoicuagana viurtutia. 80 85 90 95

Benetan Jaungoicua gaiti pecatubagaz garbatuta daganac, beti dauca vijotcian penia ta naibaguia Jaungoico Santuba ta Altsuba pecatubagaz asarratu ta galdu davelaco. Baina pecatubaren garbajac bateti emoten badeutsa mina ta penia vijotcian ta tristecia ariman Jaungoicuaren contra pecatu eguin davelaco, besteti emoten deutsa uste oso bat, Jaungoico onaganic bere pecatuba-

 (83) Matth. 3. (84) Luc. 13. (85) Eccl. 2. (86) Ezeq. 10.

- 105 ren ta gaisqui eguinaren parcacinoia jadisteco. Baita penazco ta damuzco amodijo garratz gozo bat bere, Jaungoico on, parcazaillia maitetuteco ta ostera pecatubagaz ez asarratuteco. Au da penitencijac pecatarijaren vijotcian eguiten daven aldatzia. Pecatu eguin evanian, ondo erichon pecatubari ta gorroto eutsan Jaungoicuari. Orain gorroto deutsa pecatubari ta ondo gura deutsa
- 110 Jaungoicuari. Orduban bere ezauberaz ta naiz ichi eutsan Jaungoicuari ta cerubari gurari gaisto bat gaiti. Orain gurari chaar guztiac ta gorputza penau ta mindu gura lituque, Jaungoicuaren naija eguitia gaiti ta ceruba ez galdutia gaiti. Orduban nai equian Jaungoicoric ez egotia, beti pecatu eguiten egoteco. Orain nai leuque peccaturic ez egotia, beti Jaungoicuagaz egoteco. Orduban
- 115 pecatubaren pisubac erasten eutsan bere gogua luurreco atseguinetara, beste cer maiteturic ez balego leguez. Orain pecatubaren damubac emoten deutsa luurreco atseguin guztien gogo betia⁸³ ta icusi ezina, ta jasoten deutsa bere gogua ta vijotza [102] espirituzco atseguin gozuetara. Orduban, pecatu eguin evanian, beguiratuten eutsan Jaungoicuari *izate* andi, astun, illun, gogor, zelotsu bati leguez; ta pecatu eguitiari, gauza eder, bigun, gozo, ecer gaiti bere ichi ezin leguijonari leguez. Ta orain, pecatubagaz damututa daguanian, Jaungoicuari beguiratuten deutsa Aita on, bigun, parcazaille, guztiz maitegarri, berac bere erruz asarratuta daucanari leguez; ta pecatubari, gauza deunga guztietati deunguenari, ezainenari ta gorrotogarrijenari leguez.
- 125 Au da penitencija eguijazcuac pecatarijaren vijotzian ta ariman eguiten daven aldatza santuba ta espirituzcua. Aldatza santa onec erasoten deutsa pecatarijari arima arimati pecatubaren minagaz ta damubagaz: *¡Oh, ce gaisqui eguin dodan! ¡Oh, ce azartu deungacua izan nasan, Jaungoicuari lotsia galduteco! ¡Jaungoicua desondretaco! ¡Oh, ce berandu ezautu zaitudazan, neur e*
- 130 *Jaungoico ona ta parcazaille maitia! ¡Oh, pecatu madaricatuba! ¡Oh, milla vidar leenago ill banintz, Jauna, ceure legue santuba ausi baino! ¡Oh Jesus, ceu besuac zabalíc biloxic ill zinian curuzian josita ni gaiti, ta nic pecatu eguin dot ceure contra! ¡Cec itsutu ninduban ni alan, neure Jauna ta Jaungoicua, ceure contra pecatu eguiteco? Misericordija, Jauna, nigaz. Parcatu, Jauna, niri*
- 135 *neure pecatubac. Damu dot, Jauna, vijotz guztiric, pecatu eguina. Ez dot, Jauna, ostera eguingo ceure gracijaren laguntasunagaz. Betoz, Jauna, nir ganera emen gachac ta mingarriac, neure pecatuben castiguraco. Penau naguizu, Jauna, emen ta parcatu eguidazu guero ceruban*
- 140 [103] Ara emen, cristinaubac, aituten emonda cerbait, cer dan penitencija eguijazcua. Penitencija eguijazcuac iminten dau ariman pecatubaren damuba ta

117 gogobetia Ba 124 gorroto garrijenari Ba 140 dau] dan Ba

⁸³ Ik. *Icas-I*-eko 213. oharra (834.or.).

gorrotua; vildurrezco ta lotsa oneco amodijua Jaungoicuaganaco; pecaturic ostera ez eguiteco asmo sendua; pecatubaren paracinoia Jaungoicuaganic jadisteco uste osua; ta pecatuba compesetaco gogo eguijazcua.

II.

Modu bitara, dino santo Tomasec (87), aitu leguijala penitencia. Batera, 145
 pecatubaren damuba dan leguez. Ta bestera, compesinoeco sacramentuba dan
 leguez. Ez da esaten au gaiti penitencia bi diriala, ez bada dira penitencia egui-
 jazcuaren era bi. Bata da vijotzian edo ariman artuten dan pecatubaren damu
 vicija ta eguijazcua Jaungoicuaren contra pecatu eguin davelaco, leen esan dan
 leguez. Bestia da vijotcian daucan pecatubaren damu eguijazcua, compesinoe- 150
 co sacramentuban seinale ezagunaquin aguertutia. Lelengo modubaren edo
 vijotceco damu eguijazcuaren gainera, bigarrenac gueituten deutsa damubaren
 ezagungarrija aguirira compesinoian aguertutia. Lelengo damubaren moduba
 edo eria beti izan da nora ececu pecatarija salvetaco, laster esango dan
 leguez. Baina bigarrena, Jesucristo gueure Jaunac compesinoeco sacramentu- 155
 ban ichi euscuna da. Jesucristo gueure Jaunac aguindu euscun, batiatu ezque-
 ro eguinico pecatu illgarrijac vijotceco damu eguijazcuagaz guztiac compese-
 taco. Au da penitencijaco edo compesinoeco sacramentuba.

Erromaco Catecismuac esaten deuscu, Jesu-[104]cristo gueure Jaunac ceta-
 raco jaso evan penitencia eguijazcua sacramentubaren izatera. ¿Cetaraco, 160
 bada? Ciurrago ta segurubago egon gaitazan gueure pecatubaren paracinoia-
 ren gainian. Jaungoicuac aguindu deutsa pecatarijari pecatuben paracinoia,
 damutu ta garbatuten bada pecatubagaz. Damu eguijazco au dan leguez ari-
 macua ta vijotcecu, icusten ez dana ta oratuten ez jacona, dudiagaz ta bildur-
 rragaz vizico zan beti pecatarija, ia damutu zan edo ez pecatubaren paraci- 165
 noia jadisteco duinaan. *Bada, gueure arimaco bildur zoli ta triste au cerbaitan
 osatuteco Jesucristo gueure Jaunac ichi euscun compesinoeco sacramentuba.
 Gueure pecatubac damu eguijazcuagaz compesinoian autortuta, sacerdotiac
 pecatuti ascatuten gaitubanian sinistu daigun edo uste segurubagua equi
 daigun, Jaungoicuac sacramentubaren vitaartez parcatu deuscuazala gueur e* 170
pecatubac (88). Alan etorten jaco cristinaubari bere arimara, pecatari andija
 izan arren, ez daquit celaco sosigu bat ta pecatubac parcatu jacozan uste oso
 bat, beragan dan guztia eguinda damu eguijazco bategaz compesetan danian.

Emeti ezaututen da, neure cristinaubac, compesinoeco penitencijac ez ditu-
 bala pecatubac parcatuten vijotceco penitencia bagaric. Azaleco penitencia 175

 (87) P. 3, q. 84. (88) N. 10.

147 Ez bada *Ba* 165 ia] ya *Ba* 166 cer baitan *Ba*

paltsua da. Ao utsezco penitencija paltsua da. Vijotza aldatu ta onduten ez daven penitencija, pecatubaren damubac ariman min emoten ez deutsan penitencija, pecatubaren gorrotua ta Jaungoico zucenaren ta parcazailliaren vildur
 180 oneco amodijua ez dacarren penitencija, pe-[105]nitencija palsuac dira. Vizitzia obaturten ez daven penitencija, pecatubari ta pecatuco vidiari alde eraguiten ez deutsan penitencija, penitencija palsuac dira. ¡Oh, ceimbat onetarico penitencija paltso cristinauben artian! Sinistute sicu ta soil bategaz vici dira cristinau asco urte luceetan. Pecatubac autortu ezquero compesinoian uste davee parcatuta dagozala, pecatuba gaiti vijotza damutu, ta pecatuti gogua aldatu bagarric. Ez dau, bada, Jaungoicuac, ariman ondo damutu ta garbatu bagaco pecatu illgarriric parcatu. Ta ez dau aguinduten, parcatuco davela bere. Au gaiti da nora ecina penitencija eguijazcua, pecatarija salvetaco.

III.

190 Bai, neure entzula onac. Ez zaitex engainau gauza onetan. Bide bi baino ez dagoz ceruraco. Edo erru bagueco vidia. Edo penitencijazco vidia. Erru bagueco vidia da pecaturic eguin ez davenarena. ¿Baina nortzuc dira oneec, ondo esatez jantzi daiguzan? Gaistoquerijan sartu ez dirian umiac. Baita beste arima asco bere daucaz Jesusec bere Eleisan, Baal gaistuari belauna macurtu
 195 ez deutseenac⁸⁴. Pecatu illgarriric eguin ez daveen arimac. Cerubac gueitu daguizala. Oneec duaz erru bagaco edo inocencijaco videti cerura.

¿Baina eguin dozu pecatu illgarrija? Bada, ez dago zuretzat ceruraco beste videric, ez bada penitencija. Pecatubaren damubac, pecatubaren garbaijac, pecatubaren peniac, pecatubaren negarrac, pecatubaren gorrotuac, pecatubari
 200 ichijac, pecatuba Jaungoicuaren contra dalaco, eruan biarco zaitu cerura. Osterantzian zucen condenuco zara. Jesus gueure ceruco Eracusliac alan [106] esaten deutsee pecatari guztiai (89): *Penitencija eguiten ez badozu, guztio modu batera galduco zara* . Duda guztia erabaguiten ditubee Jesusen verba itzaltsu oneec. Au gaiti esaten dau san Juan Climacoc (90): *Inun dan vizi moduric altubena ta santubena artuten badozu bere, sinistu eguizu ez deus*
 205 *tsula balijo, pecatubaren damu eguijazcua ez badaucazu* . Berau gaiti dino san Geronimoc (91), *salvetaco bigarren ola dala penitencija* . ¿Galdu dozu tentacinoiaren olatubagaz gracijaren ontzija? Bada, edo ito pecatubaren uretan betico, edo oratu ontzi galdubaren olari, cein dan salvetaco penitencija eguijazcua.
 210 Au berau eracusten deuscu Eleisa Ama santiac Trentoco batzaar santuban.

 (89) Luc. 13. (90) C. 7. de luct. (91) Epist. ad Demetr.

198 ez bada *Ba* 201 condenucozara *Ba*

⁸⁴ Ik. 1Erg 18.

*Pecatu illgarrija eguin daveen guztientzat, beti izan dala nora ececuia peni -
tencija eguijazcuia salvetaco , dino concilijuac (92).*

Ta ez da, neure entzula onac, penitencijaren premina au oraingua pecata-
rija salvetaco, ez bada beticua. Mundubaren asierati amairainocua. 215
Penitencijagaz salvau zan Adan, gueure lelengo gurasua. Baita Eva bere⁸⁵. Baita
David erreguia bere⁸⁶. Baita lapur ona bere⁸⁷. Baita beste asco bere, compesi-
noeco sacramentuba Jesucristoc ichi euscun baino leenago. Ta Jesucristo gue-
re Jaunac compesinoeco sacramentuba ichi euscun ezquero bere, pecatarija
salvetaco ez dago beste videric, pecatubagaz benetan garbatuta, vijotz osuagaz 220
Jaungoicuagana viurtutia baino, pecatuba compesetaco ta aren zorra pagueta-
co gogo osuagaz.

[107] Ez, bada, aaztu, neure cristinaubac, cer esan gura daven penitencijac.
Ceimbat modutacua dan ta ce premina andicua dan, pecatarija salvetaco. Oin
onetati erraztuago aituco dituzu compesinoeco sacramentuco icasiqizunac. 225
Guztiaz izango dira penitencija eguijazcuari edo compesinoeco sacramentuba-
ri darraicozanac. Escatu daijogun Jaun cerucuari, bialdu daigula arimaco argui-
tasuna, gueure pecatubaren gacha ezaututeco. Bigundu daguizala bere amodijo
santubaren espiritubagaz gueure vijotz pecatubagaz liortubac. Sortu daguijala
gueure arimetan pecatubaren gorrotua ta Jesusen amodijo garbija. ¡Oh, 230
Jaungoico maitia! Ascatu gaizuz pecatubetati ta viurtu gaizuz zeugana, beti ceu-
gaz vizi gaitezcan ceruban. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian.
Amen.

II. ICASIQIZUNA,

ceinetan eracusten dan 235
celan pecatubac gogoratu biar dirian, compesinoian autortuteco.

*Jaungoicuari esquer onac emonda gordeco balebee cristinaubac batiuan
artu even ontasuna ta gracia, ez zan pecatubaren parcacinoeraco bautismua*

(92) Sess. 14, c. 1.

215 Ez bada *Ba* 216 salvauzan *Ba* 237 emon da *Ba*

⁸⁵ Ik. Has 3,16-19.

⁸⁶ Ik. 2Sm 12,13-23; 24,10-17.

⁸⁷ Ik. Lk 23,39-43.

240 *baino beste sacramenturen preminaric egongo*, dino neure entzula onac, Eleisa Ama santiac Trentoco batzaarian (93). *Baina ontasunian ta miserijordijan aberatsa dan Jaungoicuac ezautu evan luurrezcuac gariana; ta batiatu ezquero pecatuban jausita diabrubaren [108] vendian euren arimac imini ditubenai bere, ichi deutsee compesinoeco sacramentuba, ceinetan emoten*

245 *jacon cristinaubari batiatu ezqueroco pecatuben parcacinoia Jesucristoren eri - jotziaren mesediagaz*. Eleisa Ama santiaren eracutsi onetati dacuscu, cristinaubac, gueure Aita Jaungoicuaren ontasuna, gueure pecatubac parcatuteco ta gueu cerura eruateco. Viztu eguizu, bada, ceuben sinistutia. Maitetu eguizu vijotz guztiagaz Jaungoico parcazaillia. Ta jaso eguizu ondo esatez bere misericordija amai baguia.

250 Sinistuten dogu, Jesucristoc ichi euscuna compesinoeco sacramentuba. Baita batiatu ezquero eguinoico pecatu guztiac compesinoe eguijazcuaz parcatuten jacuzana bere. ¡Oh, pecatarijaren pozgarrico sacramentu santuba! ¿Pecatu guztiac parcatuten ditu compesinoe eguijazcuac? Bai, cristinaubac, guztiac.

255 ¿Eregijaco pecatubac bere bai? Baita. ¿Jaungoicuaren edo santuben gorrotocuac bere bai? Baita. ¿Adulterijuac, guizonilltzac ta lapurretac badira bere bai? Baita. ¿Asco, ezainac ta guztiz lotsaarizcuac badira bere bai? Baita. Ichasuan areiaric ta luurrian vedarric daguan beste badira bere, guztiac parcatuten ditu compesinoe eguijazcuac. *Pecatarija garbatuten bada vijotceti Jaungoicuaren contra eguin dituban pecatu guztiaquin, aaztuco nas aren pecatu guztiaquin*, dino Jaungoicuac Ezequiel propeta santubaren aoti (94). ¿Ta ascotan pecatuban jausten bada bere bai? Baita. Zeimbat vidar pecatuban jausten dan, aimbeste vidar compesinoe eguijazcuac parcatuten ditu pecatubac. ¿*Milla vidar pecatu eguin dozu? Bada, [109] compesau zaitez milla vidar*, dino san Juan Crisostomoc

260 (95). Ta Jesucristoc san Pedrori esan eutsan (96): *Ez zazpi vidar, ezbada ir o - dogueta amazapi vidar*. Edo pecatarija damututa, garbatuta, ondo pretauta compesetan dan guztian, parcatuco deutzazuz bere pecatubac neure icenian. Ez dago, bada, dudaric onetan, cristinaubac. Pecatu andijac, asco ta ascotan izan arren, eguin dirian guztiac parcatuten ditu compesinoe bacoachac Jesusen erijotzaco irabatziac gaiti. Cereguina daucana ta nequez ascoc eguiten davena da, compesinoe eguijazcua cer dan jaquitia ta guero ondo compesetia.

270 Alan, bagoz compesinoeco sacramentubaren gainian gauza batzuc, guztioc daquizuzanac. Ta oneec eracusten ez dago cetan emon demporia. Oneec dira: 1. Compesinoeco sacramentuba Jesucristoc ichi euscuna, batiatu ezqueroco pecatubac parcatuteco. 2. Ondo compesautaco pecatubac, betico parcatuta

(93) Sess. 14, c. 1. (94) C. 18. (95) In Psalm. 150. (96) Matth. 18.

263-264 eguindo zu Ba 265 ez bada Ba 270 Cer eguina Ba 271 jaquitia] aquitia Ba (380.or.: jaquitia)

gueratuten diriana. 3. Sacerdote jaunac baino bestec, compesinoian pecatubac parcatuteco alic ez daucana. 4. Pecatarija pecatuben damubagaz ondo prestantan dan beste vidar compesau leitequiana. 5. Goguan daucan pecatu illgarrija, al daguijala, compesau bagaric inor cerura jua ezin leitequiana. 6. Azquenian, pecatuba compesau ezin danian, Jaungoico ona pecatubagaz injurijau ta desondrau davelaco damu eguijazcuac, al daguijanian compesetaco ustiagaz, balijo deutsal pecatarijari salvetaco. Oni esaten jaco *acto contricinoecua* (97). 280

Compesinoeco sacramentubaren gainian ba-[110]goz beste icasquizun asco. Baina ez dira aibeste cristinau guztiai jagocazenac, ceinda eleisa guizonai. Berau gaiti ez deusut alaco gauzen gainian ecer esango, ez bada cristinaubac compesetara orduco, compesetan danian ta compesauta guero cer eguin biar daven eracustia izango da sacramentu onetaco ene lana ta ceuben icasiquizuna. Pecatarijac compesetara orduco gogoratu biar ditu bere pecatubac. Ta oni esaten jaco, pecatuben *gomutatzia* edo examina conciencijacua. 285
Artu biar dau pecatubaren garbaija. Ta oni esaten jaco, pecatubaren vijotzeco *damuba* edo doloria. Imini biar dau gogo sendo bat bere ariman, ostera peaturic ez eguiteco. Ta oni esaten jaco, peaturic ez eguiteco gogo eguijazcu edo proposituba. Esan biar deusaz pecatubac guztia compesoriari. Ta oni esaten jaco, pecatubac *autortzia* edo aozco compesinoia. Ta eguin biar dau 295
compesoriaren aguinduba. Ta oni esaten jaco, pecatubaren zorrari *cobru* emotia edo penitencija cumplidutia. Ara emen, cristinaubac, compesinoe on bat eguiteco umiai eracutsi oi jacuezan bost gauzac: 1. Examinia. 2. Doloria. 3. Proposituba. 4. Compesinoia. Ta 5. penitencija cumplidutia. Ta euren sailla da, gueure moduban esateco: Pecatubac guztia gogora ecarri, damutu ta garbatu 300
vijotceti euraquin, artu asmo sendo bat ostera gueijago ez eguiteco, autortu dirianac⁸⁸ compesoriari parcacinoiaren ustiagaz, ta cobru emon aren aguindubari. Au da compesinoe on bat eguitia. Ta berau izango da nire eracutsiquizunen gueija ta zuben icasquizuna. Guztiai asipena emoteco, esango deusut: 1. *Cer dan pecatubac* [111] *gogoratutia, ondo compesetaco* 2. *Celan gogoratu* 305
biar dirian. Ezin ucatu cinai, cristinaubac, premina andico icasquizuna dana. Entzun, bada, zur ta gogoti. Ta etorri guero domeequetan bere, guraso ta ume, al daguizun guztio, sacramentu onetaco eracutsija entzutera.

I.

Compesinoe edo autortce onaren asipena da, pecatubac guztia gogora ecartia. Bai, cristinaubac, Jesucristo gueure Jaunac ichi euscun *autortzaco* 310

(97) Sess. 14, cap. 4.

286 Ez bada *Ba*

⁸⁸ "Dirianac": guztiak; ("los que son").

sacramentu santuba, ceinetan parcatuten dirian pecatu guztiac. Baina ez edo-
 cein modutan, ez bada gueu gueure aldeti ataraco prestauta. *Jaungoicuac eguin*
 315 *guinduzan gueu bagaric; baina ez gaitu salvauco gueu bagaric*, dino san
 Agustinec⁸⁹. Jaungoicuac aguinduten deuscun moduban gueuc gueugan dana
 eguinda, parcatuco jacuz gueure pecatubac. Jaungoicuaren aguindu oneetati
 bat da, pecatubac guztiac ziatz, bat bere ichi bagaric, compesoriari autortutia.
 Au da evangelijo santubaren asierati onaco Jesucristo gueure Jaunaren aguin-
 320 duba. Pecatubac guztiac ziatz esateco autortzaco sacramentuban, ziatz guztiac
 gomutatu biar dira. Ara, bada, Jaungoicuaren aguinduz pecatu guztiac gogo-
 ratzeco⁹⁰ preminia edo examinia eguin biarra.

¿Cer da, bada, compesoriari esateco pecatubac gogora ecartia edo *exami* -
nia eguitia? Ara, cristinaubac. Ez engainau gauza onetan. Zubec ascoc uste
 325 dozun baino ardura andijagocua da. Pecatubac ziatz gogora ecarteco, jaquin
 biar dau pecatarijac cristinautzaco eracutsija ondo. Ez azaleti, ez bada sustraiz
 ta ondo. ¿Celan gogora ecarrico ditu ezaututen ez dituban pecatubac? ¿Aintzat
 ez daucazan pecatubac? ¿Pecatutzat eu-[112]qui biar dituban ta pecatutzat ez
 330 daucazan pecatubac? ¿Celan gogoratuco dau pecatarijac compesinoe gaistua
 ceimbat vidar eguin dituban, ez badaqui nos dan compesinoe ona ta nos dan
 gaistua? ¿Celan gogoratuco dau gurasuac umiai ceimbat bidar parcatu deutsee-
 zan pecatu dirian gauzac, ez badaqui umiai areec parcatutia pecatu dana?
 ¿Celan gogoratuco dau cristinaubac lagunari ceimbat bidar pecaturaco bidia
 335 edo *escandaluba* emon deuscan, ez badaqui inoren aurrian gaisqui eguitia edo
escandaluba emotia aparteco pecatuba dana? ¿Celan...? Baina ¿ceimbat oneta-
 rico ezjaquin, neure entzula onac, cristinauben artian? Cristinaubaren lelengo
 eguiquizuna da ondo pecatubac gogora ecarteco, dotrinia ondo ta sustraiz icas-
 tia.

Cristinautzaco *dotrinia* edo eracutsija ondo icasi ezquero, *examinia* egui-
 340 tia edo pecatubac gogora ecartia ez da beste gauzaric, ez bada leenago ondo
 compesau zaneti orduraguinoco pecatu illgarri guztiac ziatz gomutatutia, com-
 pesoriari esateco. *Pecatu-autortzia* edo compesetia bada bere vizi guzticua,
 gogoratu biar ditu bere vizico pecatu illgarri guztiac. Bada urte bicua edo lau-
 345 autortzia bada il bi edo irucua, gogoratu biar ditu dempora atan eguin dituban

314 Ez bada *Ba* 326 Ez bada *Ba* 336 ez jaquin *Ba* 340 ez bada *Ba* 344 amarrecua
 amerrecua *Ba* 345 ilbi *Ba*

⁸⁹ San Agustin, Sermo 169, 11, 13: "Qui ergo fecit te sine te, non te justificat sine te" (PL, Migne, 38, col. 923).

⁹⁰ Haren berezko forma, honelakoetan, *-tuteco* da, baina hemen *-tzece* egin du... Markina inguruan, gaur egun, *-tzen*, *-tzeke* formak entzuten dira. Garai hartan ez dakigu zeintzuk erabiliko ziren ahoz, baina idatziz bat datoz Mogeldarak, Frai Bartolome, Astarloa etab. *-tuten*, *-tuteco* egitean.

pecatubac. Verba baten esateco, azqueneco pecatu-autortza ona compesoriari
 eguin eutsaneti, orduraguinoco pecatu guztiac gogoratu biar ditu cristinaubac,
 ondo compesetaco. *Pecatubac ziatz gogora ecarteco*, beguiratu biar deutsa
 cristinaubac astiro bere arimiari ta Jaungoicuaren [113] aguindubari, bijac bate-
 ratuta, nun goi beia dauqueen gogoan artuteco. *Pecatubac gogoratuteco* 350
 artu biar ditu pecatarijac vere vijotzaren baztar guztiac. Ta zabaldu, bere naijen
 edo nai ezeen, eguiteen edo ez eguiteen, egonen edo ibilijen, artuben edo
 emonen, adisquiden edo arerijuen gainian euqui dituban asmo chaar, gurari
 oquer, uste gaisto ta eguitade deunga guztiac. *Pecatubac gogoratuteco*
 Jaungoicuari ta Ama Virginia guztiz santiari ataraco gracia escatuta, bere ari- 355
 miaren esan ciurra ta Jaungoicuaren aguinduba ispillutzat edo zucengarritzat
 artuta dendatu biar dau pecatarijac chito contu andi bategaz, pecatubac guz-
 tiac gogora ecarten. Irago biar dau astiro bere goguan *ce estadu edo viziera*
daucan; ce cereguin edo opicijo daucan; ce pecatutan sarrijen jausi oi dan;
ceren gainian compesoriac conturic gueijen artu eutsan; cer aguindu eutsan 360
ac; aren aguindubari celan cobru emon eutsan; ce saldu erosi edo artu emon
euqui daven; ce arerijo edo adisquide deunga izan daven; ce auzi edo ezda -
baida inogaz erabili daven; nundi nora ibili dan; ce oitura oi daven; ce gura -
ari goitu oi daven... Ta beste onaco pecatuben gomutatza oso ta ziatceraco biar
 daven guztia. 365

Ez dago dempora erabaquiric pecatuben gogorataraco. Conciencia naas-
 tauba ta compesinoe vitarte lucia daucanac, dempora gueijago biar dau duda
 bagaric. Sarrichutan ta aimbat onduen compesetan danac, guichiago biar dau.
 Saldu erosi, artu emon ta eguinbiar asco ta andijetan davilenac, dempora guei-
 jago biar dau. Bere echeco eguinbiarrac baino ez darabilenac, [114] oi danez, 370
 dempora guichiago biar dau. Ta alan beste guztiac. Au da bada, cristinaubac,
 pecatubac gogora ecarteco vidia. Baina icusi daigun arguiruago, celan eguin
 biar dan.

II.

Chito ardura ta contu andijagaz pecatubac gogoratu biar diriala , dino 375
 Trentoco batzaar santubac (98). ¿Baina ce ardura edo ce contu imini biar da
 onetaraco? Ara, cristinaubac. Ardura andija imini biar da, pecatubac gogoratu-
 teco. Aleguin osuagaz ziatz pecatu guztiac gogoratu biar dira, compesetara
 orduco. ¿Baina ce aleguinagaz? ¿Baquizu ce aleguinagaz? ¿Ce ardura artuten

 (98) Sess. 14, cap.5. 380

359 cer eguin Ba | oidan Ba 362-363 ezda baida Ba 363 oitura| aitura Ba |
 oidaven Ba 364 oidaven Ba 369 eguin biar Ba 370 eguin biarrac Ba | oidanez Ba

dozu ta ce aleguin eguiten dozu, asco balijo deutsun auci bat irabazteco?
 ¿Artzeecodunai ceure zor andi zati ascotacuen contuba emoteco? ¿Gaixo illgarri bateti osatuteco? ¿Cer eguiten dozu? ¿Ce ziatz ceure zorren zati chiquijac bere gogoratuten dituzun, gueijago contu eguin ez daguizun artzeecodunac!
 385 ¿Celan, gavaz bere luari ichita, conturatuten⁹¹ dituzun juezari esateco verbac ta aucija irabatzi eraguin leizuben errazoiac! ¿Ce contuz gomutatuten dituzun ceure gaixuaren asipenac, nos nunguac ta gueitu guichitutiac, osalarijari ziatz esateco! Bada, beste aimbeste ardura ta aleguin, neure entzula onac, pecatubac guztiac ziatz gogora ecarteco.

390 Pecatu eguiten da Jaungoicuaren amar aguinduben, bost Eleisacuen, *obra misericordiazcuen* edo eguinbiar nai onecuen ta bacoachac bere vicieraco edo *estaduco* eguinquizunen contra. Pecatuba da esatia, eguitia edo nai izatia cerbait, esan dirian aguinduben ta eguinbiarren contra. [115] Irago biar ditu, bada, pecatarijac ziatz ta astiro goguan Jaungoicuaren amar aguindubac, Eleisiaren
 395 bost aguindubac, *nai oneco* edo *vijotz erruquiorreco* eguinbiarrac ta bere vizieraco eguiquizunac. Ia esanagaz, eguinagaz, edo naijagaz areetati bat edo bat ausi daven, edo ceimbat bidar ausi daven gogoratuteco. Gueure pecatubetan ez dauquee lecuric guichien gueure sengarrijac. Areec dira pecatubeten atiac. Ta eurac aratu⁹² biar dira, pecatubac ezaututeco.

400 Aztertu bada, cristinaubac, ta erabildu⁹³ ondo goguan: *Lelenga* Ceuben pausubac. *Oinetan dagoz loijac*, dino Jeremias propeta santubac (99). Gogoratu, ceuben oinac nun erabili dituzun, nun sartu dituzun ta ceuben gaveetaco ta egunazco pausu chaarraquin ceimbat sospecha ta ceresan emon dozun.

405 *Bigarrenian* : Gogoratu ceuben escubaquin ceri oratu deutzazun. *Piquiari icututen deutzana, beragaz loituten da*, dino Salomonec (100). ¿Nun erabili dituzu ceure escubac? ¿Cer artu dozu? ¿Ceuria ala inorena? ¿Ceimbat vidar? ¿Nori luzatu deutzazu escuba? ¿Cetaraco? ¿Ceimbat vidar? ¿Ceimbaten aurrian cristinaubaren lotsa ona, eldutasuna ta onestidadia aaztu ta lotsatu eraguiten daven escuca orreec? ¿Ceimbat vidar viarra eguiten egon biar leuqueen escu orreec erabili dituzu jocuan ta asmo pecatuzcuetan?

Irugarrenian . Gogoratu ceuben aoco pecatubac. Auan dago miina. Baita jan gauzen ta edan gaucen sengarrija edo gustua bere. *Miinian dago arimia* -

 (99) Thren. 1. (100) Eccl. 13.

384 artzeeco dunac *Ba* 388 al eguin *Ba* 391 eguin biar *Ba* | vizi eraco *Ba* 393 eguin biarren *Ba* | biarditu *Ba* 395 eguin biarrac *Ba* 396 Ia] *Ya Ba* 403 cer esan *Ba*

⁹¹ "Conturatu" (du): gogora ekarri; (aditz iragankor gisa darabil testu honetan; "recordar", "traer a la memoria" itzultzen dute).

⁹² "Aratu": arakatu, aztertu; (forma hau dakar eta ez "aracatu").

⁹³ "Erabildu": erabili behin eta berriro.

ren vizitzia edo erijotzia, dino Salomonec (101). ¿Cer emon deutzazu arimiari 415
miinagaz? ¿Vizitzia ala erijotzia? [116] ¿Ceimbat gaisqui esate? ¿Noren contra?
¿Eleisa guizonen contra? ¿Aguintarijen contra? ¿Gurasuen contra? Gogoratu.
¿Ceimbat maldecinoe? ¿Ceimbat bidao? ¿Ceimbat verba loi edo desonestu?
¿Ceimbaten aurrian? Gogoratu, ceimbat premina bagaco gauza sabelarentzat
auan sartu dituzun. *Ara, oraindino oquelaac aguietan euqueezan... Sabel* 420
*vetiaquin asarratu even Jaungoicua ta etorri zan euren gainera chito castigu
andi bat*, dino Espiritu Santubac gulerubac gaiti (102). ¿Ceimbat gozogarri aua-
rentzat? ¿Ceimbat ordiquerija? ¿Ceimbat jaate ta edaate neurri bagaco? ¿Ceimbat
umen ta zarren caltian? Gogoratu ondo.

Laugarrenian: Gogoratu nora zabaldu dituzun ceure veguijac. 425
Ventaneetati sartuten da erijotzia, dino Jeremiasec (103). Gueure veguijac dira
arimiaren ventanaac. *Emacumiari beguiratuten deutzanac beraganaco gurari
charragaz, eguin dau vijotzian pecatu*, dino Jesucristo gueure Jaunac (104).
¿Ceimbat veguiracune arima illzaille, bada? ¿Ceimbat eleisetan, Jaungoicua
eche santuban? Gogoratu ondo. 430

Bostgarrenian: Aztetu ta aratu ondo ceuben vijotcen izurturaac⁹⁴. Vijotza
da pecatu toquija, pecatu lecuba ta pecatuben ernelarija. Vijotceti urteten
davee adulterijuac, pornicacinoiac, lapurretac, verba deungac ta gurari chaar-
rrac. Vijotzian erneetan da gorrotua, buru erichija, ondasun guria, gozo guria,
aguindu guria ta pecatu guztien azija⁹⁵. Gogoratu bada, cristinaubac, aibat 435
ziatcen ceuben vijotcetaco pecatubac, guztiaac compesetaco. Ta ez aaztu orra-
co burutaci-[117]noe aixetsu ta arruaquin. Ez aaztu, ia gogora etorri jatzuzan
gauza pecatuzcuac nai izan dituzun edo⁹⁶ ez, ia lecu emon deutseezun edo ez,
ia burutacinoe areec euquico cenduzan lecura ta lagunetara, premina bagaric
ceure guraz juan zarian edo ez. Gogoratu oneec guztioac ondo. Batez bere 440
castidadiaren contraco pecatubetan, ceintzuc oi dirian comedijetan, saraubetan,
naasteco dantcetan ta olgueta nasajetan.

Ez cansau, neure entzula onac, compesetara orduco pecatubac ondo ta
ciatz gogora ecarten. Bada, noberaren paltaz, gogoratuta esaten ez dan peca-
tuba ez da compesinoian parcatuten. Ta bat isten bada esan bagaric noberaren 445
erruz, esaten dirianac bere ez dira parcatuten. Ta au onan izan ezquero, ¿cer
esango dogu cristinau ascoren compesinoiac gaiti? ¿compesoriaren oinetan cer

(101) Prov. 18. (102) Num. 11. (103) Cap. 9. (104) Matth. 5.

421 etorrizan *Ba* 424 zarren] zorren *Ba* 429 veguiracune] veguiratune *Ba* 437 ia] ya
Ba 438 ia] ya *Ba* 439 ia] ya *Ba* 441 oidirian *Ba*

⁹⁴ "Izurtura": izurra, zimurra.

⁹⁵ Ik. Mt 15,10-20; Mk 7,14-23.

⁹⁶ *Edo* eta *ala* lokailuen bereizketa nahiko garbia da; joera, behintzat, argi dago. Baina, iritzi
batean, hark jaten dio tokia honi.

erantzun, erichi baten baino ez daukijenen gaiti? ¿Ceimbat vidar onaco edo
 450 alaco gauza *esan* edo *eguin* edo *naitu*⁹⁷ dozu itanduten jacuenian, buruba
 gora jasota contubac ateraten asten dirianac gaiti? ¿Ta ceimbat onetarico cris-
 tinau? ¿Batez bere urtian bein edo birritan baino compesetan ez dirianac?
 Oneec gaiti esan legui, mecia entzutera juateco edu prestetan diriala compe-
 setara juateco. Baita esan legui, alaco compesinoietan ez davela cristinaubac
 455 pijau biar bere pecatubaren parcacinoia. Icas bada, neure cristinaubac, cer dan
 ondo compesetaco pecatubac gogora ecartia. Ta celan ecarri biar dirian.
 Compesinoe onaren nora ececo asipena da pecatubac gogoratcia. Escatu dai-
 jogun Jaungoicuari bialdu daigula ceruti bere argui santuba, gueure gaisqui
 eguinac, gaisqui esa-[118]nac ta gach naijac ondo ezaututeco, guztiac ziatz
 460 gogoratuteco ta compesinoian biar dan damubagaz autortuteco. Escatu dai-
 jogun David erreguiaren espiritu garbatuba ta damutuba, gueure urte guztie-
 taco pecatubac arimaco peniagaz ta min garratzagaz goguan ondo iragoteco.
 Alan gura izan dagujala cerubac Jesucristo guere Jaunaren minezco iragua⁹⁸
 ta erijotcia gaiti. Amen.

465

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan pecatubaren damu eguijazcua.*
2. *Ceimbat modutacua dan.* 3. *Celacuac izan biar daven.*

Leengo eracutsijan esan dan arduriagaz ta contubagaz, pecatubac ziatz
 470 gogora ecartiari darraico, neure entzula onac, ondo compesetaco pecatubaren
 damu eguijazcua. Alperric da pecatubac guztiac banaan banaan gogora ecartia
 ta bat ichi bagaric guztiac compesinoian artortutia, ez badago vijotcian peca-
 tubaren garbai minduna. Ez gaitezcan engainau, cristinaubac. Leengo icasi-
 quizunian esan neutsun cerbait onen gainian. Ta barriro esaten deusut orain.

474 cer bait *Ba*

⁹⁷ Ik. *Icas-II*-ko 284. oharra (1072.or.).

⁹⁸ Hitz honi hainbat adiera ematen dizkio; hemen nekaldia, pasioa esan nahi du.

Sinistu biar dogu ez davela Jaungoicuac pecatu mortalic parcatu inos ta ez 475
 davela parcatuco bere, pecatarija garbatu ta damutu artian pecatu eguinagaz.
 Au eracusten da. Au esaten da. Ta au sinistuten da cristinautzan. Baina ez
 daquit ceimbat dirian, pecatubagaz biar dan moduban garbatuten dirianac.
 ¡Ojala, cristinaubac, ni engainauco baninz! ¡Ojala, dinot, chito cristinau [119]
 ascoc eguingo ez balitubee compesinoe deungac damu eguijazcuaren paltaz! 480
 Baina bildur nas. Ta esaten deusut, neure entzula onac, damu eguijazcuaren
 paltaz oi diriala compesinoe deungaric gueijen. Examiniaren paltia cerbaitan
 erremedijau legui. Edo pecatu gueijago gogoratu ez jacolaco. Edo compesoriac
 gogoratu eraguin deusazalaco. Edo descuiduan bat edo beste aztu jacolaco.
 Lotsaz pecatubac compesau bagaric isteen ditubeenac bere ez oi dira asco. 485
 Compesoriaren aguinduba bere celanbait eguin oi da. Damubaz gaineco com-
 pesinoiaren zatijac gueijenian iminten diriala esan legui. Baina pecatubaren
 damu eguijazcua da compesinoe ascotan palta oi dana. Ta berau gaiti compe-
 sinoe deunga asco.

Aituten emongo deusut bada, cristinaubac, eracutsi onetan: 1. *Cer dan* 490
compesetaco biar dan pecatubaren damuba. 2. *Ceimbat modutacua dan*. 3.
Celacuac izan biar daven. Erregututen deusut guztioi, imini daguizula chito
 ardura andija dotrina oneec aibat onduen entzuteco ta icasteco.

I.

¡Cer da, bada, compesinoe ona eguiteco nai ta ez biar dan pecatubaren 500
 damu eguijazcua? Ez da au, neure cristinaubac, gorputceco mina, alia edo nai-
 baguia. Ez da au osasuna, cleituba edo aciendia galdu davelaco damuba edo
 garbaija. Pecatubaren damuba ez da veguijaquin icusten dana, belarrijaquin
 entzuten dana, ez escubaquin oratuten jacona. Ez da onetaricua pecatubaren
 damu eguijazcua. Pecatubaren damu eguijazcua ta compesetaco biar dana da, 505
 pecatu eguinagaz Jaungoicuaren aguinduba ausi da-[120]velaco cristinaubac
 bere vijotzian artuten daven penia, damuba ta garbaija, ostera peaturic ez
 eguiteco gogo osuagaz. Iru gauza daucaz pecatubaren damu eguijazcuac.
 Lelengua da: Eguin daven pecatubaren damuba. Bigarrena da: Pecatubaren
 beraren gorrotua. Ta irugarrena: Ostera peaturic ez eguiteco ta pecatuco oca- 510
 sinoeti alde eguiteco gogo osua. Irurac esaten deuscu Trentoco batzaar san-
 tubac, dinuanian: *animi dolor, et detestatio est de peccato comisso cum propo-
 sito non peccandi de caetero* (105).

 (105) Sess. 14, cap. 4.

475 davela davala <i>Ba</i>	482 oidiriala <i>Ba</i>	cer baitan <i>Ba</i>	485 oidira <i>Ba</i>	486
celan bait eguin oida <i>Ba</i>	488 oidana <i>Ba</i>	500 biardan <i>Ba</i>	501-502 nai baguia <i>Ba</i>	502
Ezda <i>Ba</i>	503 ezda <i>Ba</i>	504 Ezda <i>Ba</i>		

- 515 Ez da asco damu eguijazcua euquiteco, aoz esatia *damu dot*. Edo *bai, bau -*
cat damuba . Au guztiac esaten davee compesinoian. Ez da damu eguijazcua-
 ren señaile ciurra, compesoriaren oinetan negar eguitia. Ascoc eguin oi davee,
 pecatubaren lotsiac ta compesau biarrac eraguinda. Ez da damu eguijazcuaren
 senaile ziurra bularra jotia. Guztiac compesinoian jo oi davee. Eguiija da, *damu*
 520 *dot* esatia, bularra jotia ta negar eguitia pecatu eguin davelaco, gauza onac dira
 ta aintzat artuten dira. Baina biar da, cristinaubac, *damu dot* esanagaz, bularra
 juagaz ta negar eguinagaz aituten emon gura dana. Au da pecatubagaz
 Jaungoicua asarratu davelaco vijotcian artu biar daven damuba ta garbaija,
 pecatubaren contra artu biar daven gorrotua ta ostera ez eguiteco gogo sen-
 525 dua. Au ez badauca bere vijotcian bene benetan, ez *damu dot* esanac, ez negar
 eguinac, ez bularra juac, ez pecatubac compesaubac, ez deutsa balijo peca-
 tarijari pecatubac parcatuteco. Gogoratu eguizu cer jazoten jacon bide zati bat
 uts eguinda contu-[121]ban jausten danari. Damu dau bide oquerreti juana.
 Peneetan da uts eguitiagaz. Viurtuten da arin atzera bide zucenera. Ta artuten
 530 dau gogua, ostera bide oquerreti ez juateco. Beste aibeste eguiten dau peca-
 tubaren damu eguijazcua daucanac. Damu dau pecatubaren bideti juana.
 Garbatuten da pecatubaren uts eguitiagaz. Pecatubaren bidiari ichita, viurtuten
 da Jaungoicuaren vide zucenera. Ta artuten dau asmo sendo bat ostera peca-
 tubaren videra ez juateco.
- 535 Au da damu eguijazcuac gueure vijotcian eguiten daven aldatzia ta vijo-
 tzari berari emoten deutsan penia ta garbaija. Au gaiti esaten deuscu
 Jaungoicuac Joel propeta santubaren aoti (106): *Urratu eguizuz ceuben vijo -*
tzac, ez ceuben erropac. Ta beste lecu baten esaten deuscu Espiritu Santubac
 (107): *Barristau eguizuz edo eguin eguizuz ceubentzat vijotz barrijac. Viurtu*
 540 *zaitte pecatarijac ceuben vijotzetara* , esaten deuscu beste lecu baten (108).
 Oneetan guztietan ta beste onaco lecu ascotan escatuten deutsa Jaungoicuac
 pecatarijari, penau daguijala, mindu daguijala ta atsecabatu daguijala bere vijo-
 tza pecatubaren damubagaz ta garbajagaz. Onetan dago, cristinaubac, damu
 eguijazcuaren izatia. Baina icusi daigun ceimbat modutacua dan damu egui-
 545 jazcua ondo compesetaco, naita ez biar dana.

II.

Modu bitacua da, bada, pecatubaren damuba. Batari esaten jaco, *contrici -*
noia. Ta bestiari *atricinoia* . Edo batari esaten jaco, amodijozco damuba. Ta

 (106) Cap. 2. (107) Ezeq. c. 8. (108) Isai. c. 46.

515 damudot *Ba* 516 Ezda *Ba* 517 oidavee *Ba* 518 Ezda *Ba* 519 oidavee *Ba*
 519-520 damudot *Ba* 529 Viurtutenda *Ba* 545 biardana *Ba*

bestiari, bildurrezco damuba. Amodijozco damuba da, pecatubagaz Jaungoico 550
 ona opendidu davelaco, cristinaubac vijotcian [122] artuten daven penia ta gar-
 baija, pecatuba compesetaco ta ostera pecaturic ez eguiteco gogo vizijagaz.
 Amodijozco damubac ez deutsa aibeste beguiratuten, ez gracia galdubari, ez
 ceruba galdubari, ez impernuba irabazijari, ez bada ceruco Aita ona ta guztiz
 maitegarrija pecatu mortalagaz injurijau davelaco. Ezaututen dau Jaungoicua 555
 dana aita on guztiaz baino obia; ama bigun guztiaz baino bigunagua; zucen
 guztiaz baino zucenagua; ta maitegarri guztiaz baino maitegarrijagua. Bada,
 ezaubera santa onec ta Jaungoico onaren amodijuac emoten deutsa pecatarija-
 ri vijotcian damu vicija, bere ceruco Aita onari lotsia galdu deutsalaco, pecatu-
 bagaz Jaungoico maitia asarratu davelaco edo bere aguinduba ausi davelaco. 560
 Au da pecatarijaren amodijozco damuba.

Bildurrezco damuba da pecatu mortala edo ilgarrija eguin davelaco penia,
 compesetaco ustiagaz ta ostera ez eguiteco goguagaz. ¡Baina cer? ¡Ah!
 Pecatubaren beraren ezaintasuna gaiti. Pecatubagaz galdu davelaco arimaco 565
 gracia ta ceruraco escubidia ta irabaci davelaco impernuco suba. Pecatubaren
 calte icaragarri oneec bildurtuten davee pecatarija. Baqui Jaungoico zucenac
 parcatuten ditubana, ondo damutu ta compesautaco pecatubac. Alan prestetan
 da pe[ca]ltuduna pecatubac compesetaco, pecatu eguinaren damubagaz,
 Jaungoico zucenaren amodijuagaz ta ostera pecaturic ez eguiteco uste osuagaz.
 Au da pecatarijaren vildurrezco damuba. 570

Amodijozco damuba ta bildurrezco damuba bardin dira gauza batzubetan.
 Baina beste batzubetan ez. Bijac dira Jaungoicuaren graciaz-[123]cuac ta
 Espiritu Santubaren doia. Bijac dauquee, eguijazcuac badira, ostera pecaturic
 ez eguiteco asmo sendua ta pecatuco ocasinoeti alde eguiteco gogo vicija. 575
 Baita pecatu eguinac ciatz compesetaco gogua bere. Iru gauza onetan bat izan
 arren amodijozco ta bildurrezco damuba, beste ascotan ez dira bat. Bada, amo-
 dijozco damuba caridadiagaz dago. Baina ez bildurrezco damuba. Amodijozco
 damubac bertati iminten dau pecatarija Jaungoicuaren graciajan. Baina ez bil-
 durrezco damubac compesau bagaric edo sacramentubac bagaric. Bildurrezco
 damubac berac bacarric ez ditu parcatuten pecatubac, amodijozco damubac 580
 leguez. Baina prestetan dau pecatarija, ondo compesetaco. Ta bildurrezco
 damu eguijazcuagaz ta compesinoeco sacramentubagaz parcatuten dira pecatubac.
 Amodijozco edo bildurrezco damuba nai ta ececu da, neure cristinaubac,
 Jaungoicuac pecatubac parcatuteco. Pecatu eguina ondo damutu ta garbatu
 bagaric, ez deutsa inos Jaungoicuac pecatu andiric edo illgarriric parcatu 585
 inori, leen esan dan leguez. Artu biar da pecatubaren gorrotua. Artu biar da
 pecatubaren damuba. Artu biar da pecaturic ostera ez eguiteco asmo sendua.
 Ta biar da pecatuba compesetaco gogo osua, Jaungoicuac parcatuco badau

590 pecatuba. ¿Baina celacuac izan biar dau pecatubaren damu nai ta ececo esan dan onec?

III.

595 Damubac izan biar dau, neure cristinaubac, nai amodijozcuac ta nai bildurrezcuac, compesetaco ta pecatubac parcatuteco balijoco badau. *Lelenga* Jaungoicua gaiti ta arimiaren ona gaiti artuba. *Bigarrenian* : Damu guztietati an-
[124]dijena. *Irugarrenian* : Pecatu guztiena.

600 1. Jaungoicua gaiti ta gueure arimiaren ona gaiti garbatu biar jacu pecatu eguina. Onec esan gura dau, ceruco sinistutiagaz balijauta, Jaungoicua asarratu dogulaco, gracia ta ceruba galdu ditugulaco ta impernuba irabatci dogulaco garbatu biar dogula pecatubagaz. Ez pecatubac munduraco gachen bat ecarri deusculaco. ¿Ceimbat garbatuten dira ta garbatu leitequez, lapurretan eguinagaz carcelara edo erbestera lapurretia gaiti daruazalaco? ¿Ceimbat emacume libre garbatuten dira ta garbatu leitequez, euren pecatu naijac azaldau dirialaco, cleituba galdu daveelaco ta beste leengo lagunac burla eguiten deutseelaco? Asco. Baita negar andijac eguin bere. ¿Ceimbat gaisqui esala ta miin luce-
605 dun garbatu oi dira ta garbatu leitequez, inor gaiti deungaro esanagaz jueza-
ren aurrian guzurti eguin ditubelaco? Asco. ¿Ta balijo deutsee arei guztiai onaco damubac compesetaco ta pecatubaren parcacinoia jadisteco? Ez, cristinaubac. Pecatubac mundura daczan gachac gaiti dira onetarico damubac. Ta ez davee balijo compesetaco ta Jaungoicuagaz baquiac eguiteco. Jaquinda egon, bada, cristinaubac. Zuben pecatubaren damuba ta penia bada, edo osasuna galdu dozulaco, edo adisquidia galdu dozulaco, edo cleituba edo ondria galdu dozulaco, edo aciendia nai diruba galdu dozulaco, edo carcelan egon biar dozulaco, edo beste munduban iragoten dan gach edo calte bat ceure burubari pecatu eguinagaz ecarri deutzazulaco, ez deutsu ecer bere balijo damutubac ta
615 garbatubac, pecatuba parcatuteco. Gueratuco zara damu a gaiti damu-
[125]bagaz, garbajagaz, peniagaz, pecatubaren caltiagaz ta pecatubagaz bera-
gaz Jaungoicuaren gorrotuan, compesau arren. Damubac izan biar dau ceruti jatsijac ta Jaungoicua gaiti ta arimiaren erremedijua gaiti artubac, leen esan dan leguez, balijoco badau compesetaco ta pecatuba parcatuteco.

620 ¿Oh ceimbat damu balijo bagaco, neure cristinaubac! ¿Oh, ceimbat negar paltso compesoriaren oinetan! Damubac eta peniac ateraac. Baina ez, Jaungoico ona pecatubagaz openditu davelaco; ez, ceruco Aita Jaunaren aguin-
duba lotsa bagaric ausi davelaco; ez, arimaco gracia ederra pecatubagaz galdu davelaco; ez, ceruba betico galdu davelaco ta impernuba betico irabaci dave-

609 Jaquin da *Ba* 613 ceure] ceue *Ba* (380.or.: ceure) 614 ecerbere *Ba*

laco. Ez dira pecatari ascoren compesinoeco damubac eta negarrac 625
 Jaungoicua, ceruba ta arimia gaiti, ez bada, pecatubagaz euren gainera ecarri
 dituben gachac eta caltiac gaiti; edo pecatuba compesau biarrac emoten deu-
 tseen larrija, penia ta lotsarija gaiti. Sinistu biar dogu bada, cristinaubac, damu
 eguijazco ta ceruti jatsitaco onen paltaz diriala compesinoe deungaric gueije-
 nac. Biar da, bada, pecatubaren damuba Jaungoicua gaiti ta arimaco ona gaiti 630
 artuba, compesetaco. Baita izan biar dau pecatubaren damubac damu guztie-
 tati andijenac bere.

2. Bai, cristinaubac. ¿Nai dozu ondo compesau? ¿Nai dozu Jaungoicuagaz
 baquia eguin ta adisquide izan? ¿Nai dozu Jaungoicuac parcatu daizuzan ceu-
 ben pecatubac? Bada, damutu biar jatzu ta garbatu biar jatzu vijotz vijotceti 635
 pecatu eguina. ¿Baina celaco damuba? Beste munduco gach guztia ta calte
 guztia emon legui-[126]zuben baino damu andijagua. Au da ondo compese-
 taco biar dan damuba. Damu guztietati andijena. Pecatu mortalagaz galdu dozu
 Jaungoicua, galdu dozu ceruba ta irabaci dozu impernuba. Galdu dozu gauza-
 ric oneena ta irabaci dozu gauzaric charrena. Bada, pecatu eguin dozulaco 640
 peniac bere izan biar dau, ceure euqui al daguizun penaric andijena. ¿Emoten
 deustu ceure vijotcian pecatu mortala eguinac lastima gueijago, atsecaba guei-
 jago, pena gueijago ta damu gueijago, Jaungoicua, ceruba ta arimia galdu ditu-
 zulaco ta impernuba irabatci dozulaco, beste ecarri leusquezuzan calte guztia
 gaiti baino? Bada, prest zagoz ondo compesetaco. ¿Gueijago veguiratuten deu- 645
 tsazu ceure gogoan cleituba jasotari, osasuna gordetari, euquiya ez galdutiari,
 vici izatiari ta adisquidiagazgua euquitiari, pecatu mortalac arimara ecarri deu-
 tsuzan caltai baino? Bada, ez zagoz prest ondo compesetaco. Ez daucazu biar
 dan damuric. Ez da zure pecatubaren damuba damu guztietati andijena.

¡Oh, celan itsututen dirian pecatarijac gauza onetan! Damu erdi bategaz, 650
 pecatu eguin ez baleu oba zalaco bategaz, uste davee cristinau ascoc parcatu-
 ten jacuezala compesetan dituben pecatubac. Abere bat edo ganadu bat gal-
 duten jacuenian, peniaren penaz euren buruben jaube ez dira. Zor bat inoc
 ucatuten badeutsee, atsecabiaren atsecabaz loric eguiten ez dabee. Eche bat 655
 erretan bajacue, gaineco urte betian edo gueijaguan negarrez dagoz aitatuten
 dan guztian. Onaco penia ta damuba emoten dautsee cristinaubai munduco
 caltiac ta gachac. Baina nequez [127] icusten da, pecatu eguinac emoten deu-
 tsala inori alaco damu vicija ta andija. ¿Cec eguiten dau au, cristinaubac?
 Pecatubaren caltiac ondo gogoratu ezac. ¿Bada, cer dauquee cer icusi mundu- 660
 co calte ta gach guztia pecatu illgarri baten calte amai bagacuaquin? Damutu
 bada, cristinaubac, damutu pecatubagaz, beste munduco gach guztiaquin
 baino gueijago. Izan dedilla ceuben pecatubaren damuba damu guztietati andi-
 jena. Baita pecatu illgarri guztiena bere.

626 Ez bada *Ba* 641 aldaguizun *Ba* 651 obazalaco *Ba*

3. Alperric da pecatu bategaz edo beste bategaz damututia, guztiaquin
 665 damututen ez bada. Pecatu illgarri edo mortal guztiaquin damutu biar dau
 pecatarijac, compesinoian pecatubac parcatuco bajacoz. Bada, pecatu illgarri
 guztiaquin eta bacocho dira asco Jaungoico andija asarratuteco, ainguerubac triste-
 tuteco, santubac desondretaco, Espiritu Santubaren gracia galduteco, demoni-
 nuari arimia entreguetaco ta impernuba irabazteco. Calte oneec guztioec ecar-
 670 ten ditu pecatarijac bere gainera pecatu illgarri bacochochagaz. Bada, guztiaquin
 damutu biar dau, parcatuco bajacoz. Pecatu guztiaquin eta bacocho compesau biar
 dira, parcatuco badira. Bada, ceimbat pecatu compesau biar dirian, aimbeste-
 gaz garbatu biar da. Alan, garbatu arren pecatarija lapurretan eguinagaz, gar-
 batuten ez bada orditubagaz, ez deutsa balijo damubac. Garbatu arren jura-
 675 mentu guzurrezcua eguinagaz, garbatuten ez bada mecia entzun ezagaz, ez
 deutsa balijo damubac. Garbatu arren emacume bategaz pecatu eguina, gar-
 batuten ez bada beste bategaz eguina, ez deutsa damubac eta garbajac balijo.
 Modu onetan, cristinaubac, beste pecatu illgarri guz-[128]tiaquin. Bada, guztiaquin
 eta bacocho dira Jaungoicuaren arerijuac. Ta guztiaquin ta bacochari gorroto izan
 680 biar deutseegu.

Eracutsi onetati ezaütuten da, compesinoe palsuac eguiten ditubeela ascoc,
 pecatu guztien damu eguijazcua artu ezagaz. Norbait damututen da mecia bere
 erruz uts eguin davelaco. Ta compesoriac itanduta, compesau arren umiai ta
 685 otseguinai gavaz ta egunaz or emen ardura bagaric ibilten ichi deutseena, ez
 da damututen au gaiti. Bada, ez dau aren compesinoiac balijo. Beste bat damu-
 tuten da cerbait ostu davelaco. Ta ez da damututen verba chaarra, bidaua ta
 maldecinoia ta juramentuba isildu bagaric auan darabilzalaco. Bada, ez dau
 aren compesinoiac balijo. Beste bat damututen da araguzco pecatu bat eguin
 davelaco. Ta ez da damututen auzuagaz verbaric eguin gura ezda, icusi ecinian
 690 ta gorrotuan luzaro vici dalaco. Bada, aren compesinoiac ez dau balijo. Beste
 bat damututen da inor gaiti bide bague deungaro esan davelaco. Ta ez da
 damututen, eria davenian, zaraguija leguez ardaoz beteten dalaco. Bada, aren
 compesinoiac ez dau balijo. Onan dira chito compesinoe asco paltsuac ta sacri-
 legijozcuac, pecatu guztien ta bacocharen damuba palta daveelaco.

Gogoratu bada, neure entzula onac, cer dan pecatubaren damu eguijazcua;
 ceimbat modutacua dan; ta celacuac izan biar daven. Ez aspertu aoz esaten ica-
 sijagaz. Irago buruban sarri ta batez bere compesau biar dozunian cer dan
 pecatu illgarrija; cer irabaci dozun pecatubagaz; cer galdu dozun; ce gorroto
 700 deutsan Jaungoicuac; ta damutu vijotz vijo[t]ceti pecatu [129] guztiaquin ta baco-
 chagaz. Orduban parcatuco jatuz pecatu guztiaquin compesinoeco sacramentu-
 ban. Alan gura izan daguijala cerubac Jesusen erijotza santia gaiti ta Maria
 Santisimiaren erraija erruquiorrac gaiti. Amen.

682 Nor bait *Ba* 687 isildubagaric *Ba* 689 ez da *Ba* 691 damututenda *Ba*

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Celacuac izan biar daven ostera pecaturic ez eguiteco proposi - 705*
tubac edo goguac. [2.] Celan ezautuco dan noc daucan, ostera
pecaturic ez eguiteco propositu edo asmo eguijazcua.

Compesinoe ona eguiteco biar dirian bost gaucetan, irugarren lecuban iminten da, neure cristinaubac, ostera pecaturic ez eguiteco *proposituba* Proposituba darraico damu eguijazcuari. Damuba bada eguijazcua, benetacua, 710 vijotceua, Jaungoicua ta arimia gaiti artuba, pecatu guztiena ta damu guztietati andijena, leengo dotrinan esan dan leguez, neure contura⁹⁹, iminico dau pecatarijac compesinoeraco *propositu* eguijazcua. Artuco dau asmo sendo bat edo gogo oso bat, ostera gueijago pecaturic ez eguiteco. Au gaiti, *propositu - baren* gainian eracutsi barrija imintia ez da beste gauzaric, ez bada cristinaubari 715 gueijago ta gueijago aituten emotia ce biarrecua dan pecatu eguinagaz ondo garbatutia compesetaco. Espirituzco gauzac dirian leguez bai damu eguijazcua ta bai ostera pecaturic ez eguiteco asmo ona, ez dira veguijaquin icusten ta ez jacue escubaquin oratuten. Au gaiti, ez dogu zucen ezaututen nos daucagun pecatuba-[130]ren damu eguijazcua edo pecaturic ez eguiteco asmo ona, orainche 720 badaucat ta orainche ez daucat esateco. Orregaiti iminten jaco cristinaubari ezagungarri edo senaile batzuc, guztiz ciur ez bada bere cerbaitan aitu eraguiteco nos daucan pecatubaren damu eguijazcua ta pecaturic ez eguiteco asmo biarrecua. Ezagungarri onetati icusico dau pecatarijac, ceimbat engainetan dirian gauza onetan ta ceimbat vici dirian sarri compesau arren, pecatu 725 mortalian, impernuraco vidian. Au obeto aituteco gogoratu eguizu, cristinaubac, leengo dotrinan damubaren gainian esan dan guztia. Ta azaz gainera, aitu eguizu aimbat gogoric oneenagaz: 1. *Celacuac izan biar daven compesetaco biar dan pecaturic ez eguiteco asmuac*. 2. *Celan ezautuco dozun, munduban ezautu guinaijan tertijuan, nos dauczun edo ez dauczun pecaturic ez egui - 730 teco asmo eguijazcua*. ¡Ojala, verba bat bere ondo aitu bagaric ichico ez bacendu! Entzun eguizu, bada, aimbat gogoric oneenagaz.

715 ez bada *Ba* 719 dogu] dogo *Ba*

⁹⁹ Esapide horrek adiera berezia du Bartolomeren testu honetan eta gaur egun ere hala izan ohi du Markina eta inguruko askoren ahotan: "ziur egon", "utzi neure kontura" edo antzeko zer bait esan nahi du.

I.

735 *Proposituba* edo pecaturic ostera ez eguiteco asmo ona ez da beste gau-
zaric, neure cristinaubac, ez bada artutia pecatarijac bere vijotcian gogo sendo
bat, Jaungoicuaaren ondria gaiti ta bere arimaco ona gaiti ostera inos bere peca-
turic ez eguiteco. Au da asmo sendo ta compesetaco biarreco onen izatia.
Guztioc daquizu au aoz esaten. Guztioc esaten dozu: *Irugarrena proposituba*.
740 Baina ez daquit, verba oneec cer esan gura daveen guztioc aituten dozun
ondo. Verba oneec esan gura daveena da, bada, pecatarijac ezaututen dave-
nian eguin davela pecatu illgarrija ta pecatu agaz jausi dala Jaungoi-[131]co
onaren gorrotuan; galdu davela bere erruz ceruco glorija andija; emon deutsa-
la lecu etsai gaistuari bere ariman ta irabazi davela pecatubagaz betico imper-
nu sutsuba. Au astiro gogoratuten davenian pecatari tristiciac, Espiritu
745 Santubaren gracijac lagunduta, asten da bere artian contubac ateraten: ¡Ce
gauza deunguia ta vildurgarrija eguin daven pecatuba! ¡Celan lotsia galdu deu-
tsan bere aguindu santuba ausijagaz ceruco Aita onari! ¡Celan imini daven bere
buruba beti betico galduteco arriscu jaquinian.

Pensamentu santu onegaz damututen da, garbatuten da ta peneetan da
750 pecatarija bere artian, ain gauza deunguia eguin davelaco. Naijago leuque ill
balitz edo pausuric eguin ezinda gueratu balitz, pecatu eguin euquian baino.
Ez daqui cer eguin edo celan vengau bere burubagaz, ain gauza deunguia ta
calte andicua eguin davelaco Jaungoico santubaren contra ta bere burubaren
contra. Pecatu eguin davelaco peniaren peniac ta damubaren damubac, triste-
755 ciaren tristeciac ta atsecabiaren atsecabiac lotsa andi bategaz eraasten¹⁰⁰ deutsa
bere vijotza luurreraguino. Baina ceruco sinistutiagaz animauta, parcacinoiaren
uste osua artuta igoten dau Jaungoicuaaren misericordijagana, pecatubaren par-
cacinoa escatutera. Baina oraindino ez da azartuten Jaungoicuari bere pecatu-
ben parcacinoa escatuten, arian da vijotz vijotceti esan artian: *Jauna, ez dot*
760 *gueijago pecaturic eguingo; Jauna, leenago galduco ditut beste gauza guztiac,*
oster a pecatu eguin baino; Jauna, ez nas gueijago pecatuco ocasinoe atara, ez
lecu atara juan- [132]go; *Jauna, ez nic gueijago pecaturic eguin.*

Ara emen, cristinaubac, pecaturic oster a ez eguiteco gogo sendua, asmo
osua, eguijazcua, vijotcecu ta achequiya bagacua, ta, nai ta nai ez pecatarijac
765 bene benetan artu biar davena, compesinoiac balijoco badeutsa. Berau gaiti
esaten da, pecaturic oster a ez eguiteco goguac izan biar davela: 1. *Eguilia*. 2.
Zala. 3. *Indartsuba*. 4. *Pecatu guztiena*.

1. ¿Nos izango da pecaturic ez eguiteco asmua eguilia? Eguilia da gogua-
gaz esaten davena eguinagaz eracusten davenian. Gogo eguilia da,

735 ez bada *Ba* 745 astenda *Ba* 759 arian da| arienda *Ba*

¹⁰⁰ "Eraatsi": eraitsi, beheratu.

Jaungoicuari emon deutsan pecaturic ez eguiteco verbia, ondrautasun bategaz 770
 ta leijal gordetan davena. Verba utsetan gueratuten bada, ascoren pecaturic ez
 eguiteco asmuac gueratu oi dirian leguez, ez da eguilia ta ez dau balijo.
 Beguiratu, cristinaubac. Compesoriaren oinetan emoten dozun verbia,
 Jaungoicuari berari emoten deutzazu. Ez dedilla, bada, izan ao utsetzcua. Ez
 dedilla izan compesoria engainetacua. Ez dozu Jaungoicua engainauco. 775
 Pecatarija ondo compesetaco ez da asco, ascoc esan oi daveen leguez, esatia:
Nai neuque, bada, pecaturic ez eguitia; nai neuque on izatia; nai neuque oca -
sinoe onetati urtetia; nai neuque ecandu chaar oni istia ... ta beste onaco nai
 eguite bagacuac. ¿Nai cenduque? Bada, eguizu. Ez eguizu pecaturic eguin. On
 izan zaite. ¿Noc eragozten deutsu on izatia? ¿Cer eguiten dozu pecaturic ez 780
 eguiteco? ¿On izateco? Ecer bere ez. Vits macala gainian daucan ur guertuba
 leguez egon pecatuban. Vici pecatuco ocasinoian. Vici pecatuco oituran. Vici
 pecatuban. Au da pecatari ascoren pecaturic ez [133] eguitia. ¿Ta uste dozu,
 pecatari tristia, *nai neuque* otz bategaz, desio ill bategaz ta vorondate gueldi
 bategaz, pecaturic ez eguiteco gogo sendo bat ta eguindun¹⁰¹ bat bene bene- 785
 tan artu bagaric, compesauco zariala ondo, ta parcatuco jatzuzala pecatubac?
 ¡Ah! Engainauta vizi zara.

Impernuban dagozanac bere euqui even on izateco *nai neuque bat*.
 Baina ez eutseen balijo izan *nai neuque* utsac. Pilatosec bere nai euquian Jesus
 ascatu judeguben escubetati ta erijotzati. Baita artu evan gogua bere ascatureco 790
 edo libretaco. Baina ez evan eguin biar evana¹⁰². ¿Ta balijo izan eutsan
 Jaungoicuaren aurrian nai izate otzac ta gogo eguite on bagacuac? Ez. Pilatos
 condenau zan. Erodesecc bere nai euquian ta artu evan proposituba edo ustia,
 san Juan Bautista carcelati aterateco ta ez illteco. Baina bere uste ta gogo guz- 795
 tia jausi zan luurrera laster, dama batec dantziaren saritzat san Juanen samia
 escatu eutsanian ta bertati agundu evan santubari samia evateco¹⁰³. ¿Ta balijo
 izan eutsan *nai neuque* eguite bagacuac ta gogo otzac Erodesi? Ez. Condenau
 zan. ¡Oh, ceimbat onaco pecaturic ez eguiteco propositu edo gogo gueldi egui-
 te sendo bagaco dagozan impernuban erreetan! Ez da asco, cristinaubac, peca- 800
 tarija ondo compesetaco, pecaturic ez eguitia *nai neuque* esatia edo pecatu-
 bari isteco gogo motel bat artutia. Biar da, compesinoia ona izango bada ta
 pecatuba parcatuco bajaco, pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua ta egui-
 lia. Baita zala ta pirmia bere.

772 oidirian *Ba* 776 oidaveen *Ba* 781 Ecerbere *Ba* 784 naineuque *Ba* 787 vizi-
 zara *Ba* 789 naineuque *Ba* 793 condenauzan *Ba* 795 jausizan *Ba* 797 naineuque *Ba*
 797-798 Condenauzan *Ba* 800 naineuque *Ba*

¹⁰¹ Hitz honek berak asmatua dirudi; eragingarri edo horrelako zerbait esan nahi du; ("eficaz" itzuliko genuke gatzelaniara).

¹⁰² Ik. Mt 27,15-26; Mk 15,6-15; Lk 23,13-25.

¹⁰³ Ik. Mt 14,1-11; Mk 6,14-28.

2. ¿Cetan dago, bada, pecaturic ostera ez eguiteco gogua *zala* izatia?
 805 Zeubec daquizu, cris-[134]tinaubac. Zala da nequez paltetan davena. Zala da
 nequez ucatu¹⁰⁴ edo cinca¹⁰⁵ eguiten davena. Zala da ondo irauten davena. Zala
 da bere lecuba gogor ta zucen gordetan davena. Zalac izan biar dau, bada,
 pecaturic ez eguiteco artuten dan goguac. Izan biar dau, ecer gaiti bere peca-
 810 pecatu eguin edo cleituba galdu? Galdu cleituba ta pecaturic ez eguin, santa
 Susanac eguin evan leguez¹⁰⁶. Jazoco balichaco, ¿edo daucan guztia galdu ta
 carcelara juan, nos arteco ez daquijala, edo pecatu eguin? Galdu daucan guz-
 tia ta juan betico carcelara erru bagaric ta pecaturic ez eguin, Jose ainchina-
 cuac eguin evan leguez¹⁰⁷. Jazoco balichaco, ¿edo ill edo pecatu eguin? Ill, biar
 815 bada, ta ez pecatu eguin, Eleazaroc¹⁰⁸ ta beste martirijac eguin even leguez.

Ara, cristinaubac, pecaturic ostera ez eguiteco gogo zala ta sendua.
 ¿Artuten dozu compesinoian onaco gogo sendua ta zala ceuben ariman, ecer
 gaiti bere pecaturic ostera ez eguiteco? ¡Hai! Ori andija ta gogorra da, esango
 dozu ascoc. Bada, nic esaten deutsut, gogorragua dala impernuba; ta andija-
 820 gua dala ceubec pecaturic ez eguiteco verbia compesoriaren oinetan emoten
 deutzazun Jaungoicua. Berau gaiti, cristinaubac pecaturic ostera ez eguiteco
 artu biar daven goguac, izan biar dau arima arimati ataria¹⁰⁹, eguijazcua, egui-
 lia ta zala. Baita indartsuba bere, balijoco badeutsa compesinoiac.

3. ¿Ta nos izango da indartsuba, pecaturic ostera ez eguiteco gogua?
 825 Indartsuba izango da, pecatarijac ezaututen ditubanian arimiaren ta [135] gra-
 cijaren contra daucazan arerijuac, ceintzuc dirian munduba, diabrubta ta ara-
 guija. Arerijo senduac ta indartsubac dira oneec. Chito arima asco goituten
 davee. Gueuc bere sarritan sentiduten dogu euren guerria. Ta ez guichitan, mal-
 pecau, eguiten deuschubten caltia. Bada, arerijo indartsubagaz pelietaco nai ta
 830 nai ececuca da gogo indartsuba. Gogo epelagaz asten bada peliadan arerijo
 indartsubaquin, bertati dago goituta. Pecaturic ostera ez eguiteco gogo erdi ill,
 ezdabaidaco bategaz urteten badau batec compesinoeti, lelengo eraan dago
 pecatuban jausita. Baina gogo senduagaz asten bada pelietan, indar guichi
 daucala uste izan arren, goitu eguiten dau arerijua. Ta pecatubaren contraco
 835 peliadetan Jaungoicua emoten dau indarra arerijuac goituteco, norbera gogo

817-818 ecergaiti *Ba* 832 ez da baidaco *Ba* 833 indarguichi *Ba*

¹⁰⁴ "Ucatu": hartutako asmo edo erabakietan atzera egin edo bide erdian pot egin, helburua lortu gabe.

¹⁰⁵ "Cinca eguin": huts egin, atzera egin, etsi.

¹⁰⁶ Ik. Dn 13.

¹⁰⁷ Ik. Has 39,6-20.

¹⁰⁸ Ik. 2M 6,18-31.

¹⁰⁹ (...) *arima arimati ataria* : arima-arimatik aterea.

onagaz asi ezquero. Alan aguinduten deuscu Jaungoicuac, artu daigula gogo sendua ta indartsuba, inos ostera pecaturic ez eguiteco. Baita izan biar dau gogo onec pecatu guztiena bere.

4. Esan da leen, ez dala asco compesetaco, pecatu bategaz edo beste bategaz damututia. Damutu biar dala pecatu guztiaquin. Bada, beste aimbeste esaten da, pecaturic ez eguiteco gogo biarrecuaren gainian. Pecatu guztiai ta pecatu eguiteco era urrecua edo ocasinoe urrecua emoten deutseen gauza guztiai isteco gogo sendua ez daucan artian, ez da pecatarija ondo compesauco. Zuc daucazu sarri pecatu eraguiten deusun adisquide bat auzuan; baita sarri ordituten zarian tabernia bere. Bada, ez da asco zu ondo compesetaco, adisquide deunguiaren echera ostera ez juateco gogua artutia, taberna atara [136] ez juateco gogua artu bagaric. Zu zara lapurra ta juralar paltsua. Bada, ez da asco zu ondo compesetaco, juramentu guzurrezcoric ez eguiteco gogua artutia, lapurretaric ez eguiteco gogua artu bagaric. Ta onan beste pecatu guztietan. Beguiratu bada, cristinaubac, ia ceuben pecaturic ez eguiteco gogua edo proposituba dan edo ez eguilia, zala, indartsuba ta pecatu guztiena. Ta entzun orain celan ezautu zinaijan nos daucazun pecaturic ez eguiteco gogo biarrecua. 840 845 820

II.

¿Baina celan ezautu guinai pecaturic ostera ez eguiteco gogo sendua noc daucan? Jaungoicuac esan bagaric, guztiz ciur ta zucen ezin jaquin guinai, neure entzula onac, nos daucan pecatarijac pecatubaren damu eguijazcua ta pecaturic ostera ez eguiteco gogo eguijazcua. Au eguiija da. Bada, Jaungoicuac berac esan bagaric, ezin jaquin guinai Jaungoicuaren adisquidiac ala arerijuac garian. Baita eguiija da, pecatarijac artu arren bere ariman ostera pecaturic ez eguiteco gogo eguijazcua ta ondo compesetaco biar dana, jausi leiteque ostera bere pecatuban. David bere jausi zan¹¹⁰. San Pedro bere jausi zan¹¹¹. Ta beste edocein jausi leiteque, munduban vici dan artian. Ezin atera legui, bada, seinale edo ezagungarri seguru bat alaco nosbaitaco ta ustez uste bagaric leguezo pecatuban jausteti ezaututeco zucen, noc daucan edo euqui daven pecaturic ostera ez eguiteco gogo eguijazcua. Baina orregaitino bere esaten davee Eleisaco Eracuslac (109), cristinaubaren vici modubari beguiratuta ezaututen 855 860 865

(109) Poug., p. 3, Sect. 1, c. 5. §. 5.

820 ia| ya *Ba* 862 jausizan *Ba* | jausizan *Ba* 864 nos baitaco *Ba*

¹¹⁰ Ik. 2Sm 11.

¹¹¹ Ik. Mt 26,69-75; Mk 14,66-72; Lk 22,56-62; Jn 18,15-18.25-27.

dala cerbaitan, noc daucan edo euqui daven pecaturic ostera ez eguiteco gogo
870 [137] eguijazcua. Azaldau daigun pusca bat au celan dan.

Ecarri eguizu, bada, gogora, neure entzula onac, ecanduzco juralari bat,
baque galzaile bat, gorrototsu bat, ordi bat, luxurijotsu bat, logreru bat, lapur
bat, gaisqui esala bat, lotsagalduco bat, jocolari alper bat nai beste edocein
875 Autortuten ditubala compesinoian bere pecatubac. Esaten deutsal compesoriari compesinoe bacochian, *badaucala gogua edo proposituba, ostera guei-
jago pecaturic ez eguiteca* Au compesinoe bacochian Jaungoicuari edo compesoriari edo bijai esan da jausten dala leengo pecatubetan. Ordija ordituten
880 dala, leenago leguez. Lapurrac ostuten davela, leenago leguez. Gaisqui esaliac
murmuretan davela, leenago leguez. Loija loi dala, leenago leguez. Ta modu
onetan, pecatubac guichitu bagaric, pecatuco ecandu gaistua quendu bagaric,
pecatuco lagunari, pecatuco lecubari, pecatuzco opicijuari, pecatuzco esanai ta
pecatuzco eguitiai ichi bagaric vici diriala urtetan ta urtetan. Pecatubac com-
885 pesau ta pecatubac barristau. Goixian compesetan ta arrasteijan edo andi las-
ter, urrengo eria davenian, leengo pecatubetan. Beti leenian. Ordija ordi.
Jocolarija jocolari. Alperra alper. Logreruba logreru. Eche galzailia galzaile.
Tematicua tematico. Guraso nasaija ta ardura bagacua nasai ta ardura bagaco.
Verdia verde. Desonestuba desonestu.... Alan pecatu zarrai barrijac gueitubaz
iragoten jacuela gazte demporia, edadian sartuba ta zaartcia.

890 [138] ¿Cer derichazu, cristinaubac? ¿Nun da onen pecaturic ez eguiteco gogua?
¿Cetan gueratu dira oneec Jaungoicuari ta compesoriari emon deutseezan *oste-
ra pecaturic ez eguiteco, pecatuco lagunari isteco, pecatuco videra ez juate-
co... verbac?* ¿Esango dogu euqui daveela oneec euren compesinoetan pecaturic ostera ez eguiteco gogo benetacua, eguilia, zala, indartsuba ta pecatu guz-
895 tiena? Ez, cristinaubac. ¿Esango dogu chito min emoten eutseela pecatu egui-
nac ariman, pecatubagaz Jaungoico andijari lotsia galdu eutseelaco, gracia ta
ceruba galdu ditubeelaco ta betico impernuba merecidu daveelaco? Ez, cristi-
naubac. Ezin au esan guinai. Bada, ez dira necatu pecatubari isteco. ¿Esango
900 dogu compesinoe bacochian damu eguijazcuaren ta pecaturic ez eguiteco
gogo onaren paltaz Jaungoicuari ta sacramentubari burla eguin deutseela? Au
izango da eguija, cristinaubac. Au izango da cristinau ascori compesinoe asco-
gaz jazoco jacuena.

Beguiratu, neure entzula onac, ceuben compesinoiai ispilu onetan. Emeti
cerbaitan ezautuco dozu, celacuac izan dirian. Bildur nas asco vici ete dirian
905 itsu itsuban edo zoro zororic condenetaco vidian. Uste davee sinistute gaisto
bategaz, asco dala pecatubac compesoriari esatia ta ostera pecaturic eguingo

ez daveela esatia, Jaungoicuac euren pecatubac parcatuteco. Ez da, bada, asco, neure entzula onac, leen aitu dozun leguez, pecatubac aoz esatia edo compe-
setia. Cainec bere autortu cituban bere pecatubac¹¹². Saulec bere bai¹¹³. Antiococ 910
bere bai¹¹⁴. Judasec bere bai¹¹⁵. Baina oneec guztioac condenau zirian. David er-
[139]reguiac bere autortu cituban bere pecatubac¹¹⁶. Ta parcatu jacozan. San 915
Pedrori bere bai¹¹⁷. Madalenari bere bai¹¹⁸. Ta oneec salvau cirian. ¿Cegaiti?
Areec, damu eguijazco bagaric pecatubac autortu citubelaco, condenau cirian.
Ta oneec, damu eguijazcuagaz ta pecaturic ostera ez eguiteco gogo osuagaz
pecatubac compesau citubeelaco, parcatu jacuezan pecatubac guztia ta salvau 915
cirian. Escatu daijogun, bada, Jaungoico onari, bialdu daigula ceruti gueure
pecatuben damu eguijazcua ta ostera pecatuban ez jausteco gogo biarrecua ta
gracija, cein guztioi opa deutsudan. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren
icenian. Amen.

V. ICASIQUIZUNA,

920

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan aozco compesinoia ta ce biarrecua dan.*
2. *Ce pecatu compesau biar dirian.*

Iru gauza biar ditu pecatarijac, penitencijaco sacramentuba artuteco. Ta
dira pecatubaren damu eguijazcua, pecatubac guztia ciatz compesoriari esatia 925
ta pecatubaren zorra paguetia. Pecatubaren damuba ta pecaturic ez eguiteco
gogua alcarregaz davilz. Ta esanda gueratu da cer dirian. Pecatubac gogora
ciatz ecartia ta compesoriari dirianac esatia alcarregaz davilz. Bada, pecatubac
gogoratuten dira compesinoian autortuteco. Pecatubaren zorra paguetan da,
compesoriaren aguinduba eguinagaz. Au celan eguin biar dan, esango da gue- 930

924 biarditu *Ba*

¹¹² Ik. Has 4,10-15.

¹¹³ Ik. 1Sm 24,17-22; 28,20.

¹¹⁴ Ik. 1M 6,8-13.

¹¹⁵ Ik. Mt 27,3-5.

¹¹⁶ Ik. 2Sm 12,13; 24,10.

¹¹⁷ Ik. Mt 26,75; Mk 14,72; Lk 22,61-62; Jn 21,15-19.

¹¹⁸ Ik. Lk 7,48-50.

roco dotrinan. Pecatubac gogora celan ecarri biar dirian esan da leen. Ba-
 [140]da, sail oni orain jagocana da nic zubei eracustia, pecatubac celan autor-
 tu biar dirian compesoriaren oinetan. Onetaraco esango deutsut: 1. *Aozco com-*
pesinoia cer dan ta ce biarrecua dan. 2. *Ce pecatu compesau biar dirian...*
 935 Prestau zaite, cristinaubac, aimbat gogoric zurrenagaz, guztioi arimaco osasu-
 na ecarri daiquegun icasiquizuna entzuteco. Ez sinistu baquizula dotrina one-
 tan jaquin biar dozuna. Bada, gueijen daquizunoi bere ez deutsu gachic eguingo.
 Ta gueijago izango zara ondo dana ez daquizunac¹¹⁹, biar dana daquizunac
 940 baino. Prestaera onegaz aitu eguizu, bada, cer dan aozco compesinoia ta ce
 biarrecua dan.

I.

Aozco compesinoia da, neure entzula onac, *pecatarijac autortutia bere*
ariman daucazan ta gogora ecarri dituban pecatu guztiac compesinoiac en -
tzuteco escubidia daucan sacerdotiari, guztien parcacinoia artuteco ustiagaz.
 945 Esan da *aozcua*. Norberac, ez cartaz edo mandatariz, ez bada verbaz esan biar
 deutzazalaco compesoriari bere pecatubac. Mutubac autortu biar ditu bere
 pecatubac, al daguijan moduban. Esaten da, *compesinoiac entzuteco licencia*
daucan sacerdotiari. Bada, sacerdote ez danac ezin inori pecatubac parcatu
 950 leguijoz. Sacerdote jaunai emon eutseen Jesucristo gueure Jaunac ataraco escu-
 bidia. Ta sacerdote jaunac bere, erijotzaco ordubaz ostian, inoren compesi-
 noiac entzuteco biar davee euren aguintarijen escubidia. Esaten da, *pecatuben*
parcacinoia artuteco ustiagaz. Bada, compesonarijuan edo pecatu autor lecu-
 ban peca[tu]bac esan arren compesoriari, compesetan danac ez badauca ustia
 955 compesonarijoco esanac edo verbetiatic compesinoiaren cargac ez compesoria-
 rentzat ta ez compesetan danarentzat. Esan biar ditu pecatubac compesoriaren
 oinetan sacramentuba ta pecatuben parcacinoia artuteco ustiagaz, edo ordu-
 ban, edo compesoriac ostera juateco esaten deutsanian. Onan eracusten deus-
 cu Eleisa Ama santiac compesinoiaren izatia.
 960 ¿Ta biarrecua da salveetaco alan pecatubac aoz compesoriari esatia? Bai,
 cristinaubac. Inundi al dedinian, nora ezecua ta biarrecua da pecatubac aoz
 compesetia, salveetaco. Ez dago onetan cer esanic. Jesucristo gueure Jaunac

939 Presta era *Ba* 945 ez bada *Ba* 947 aldaguijan *Ba* 956 biarditu *Ba* 961 alde-
 dinian *Ba*

¹¹⁹ *Zu / zuek* pertsonen dagokien adizkia, zenbait kasutan, forma berberaz eman ohi duela-
 ko, ulergaitz gerta daiteke esaldi hau: *gueijago izango zara ondo dana ez daquizunac, biar dana*
daquizunac baino; hau da: gehiago izango zarete komeni dena (ondo dana) ez dakizuenak,
 behar dena dakizuenak baino.

aguindu eutsan pecatarijari pecatuben parcacinoia, compesetaco carguiagaz. Compesau al dedilla, compesau bagaric ill dan pecatariric ez da salvau. Ta ez da salvauco bere. Guiza aldiric guiza aldiraco Eleisa Ama santiaren eracutsija da nora ececo compesinoia, batiatu ezquero pecatu illgarrija eguin davena salveetaco. *Omnibus post baptismum lapsis jure divino necessariam* (110), dino Trentoco batzaar santubac. ¿Batiatu ezquero eguin dozu pecatu illgarrija edo mortala? Bada, edo compesau, edo condenau. Ez dago vitarteric. Ecelan bere compesau al dedin pecatuba, ez dau Jaungoicuac parcatuco compesau bagaric. Ecelan bere compesau ezin danari, edo nogaz ez daucalaco, edo verbaric ezin davelaco, edo osteranzian, artuten badau bere vijotzian pecatubaren damu eguijazcua ta Jaungoicuaren amodijo santuba, parcatuten deutzaz Jaungoicuac pecatubac. Baina compesau al dedinari ez, com-[142]pesau bagaric. Guztiz biarredua da, bada, neure cristinaubac, pecatubac compesetia, al izan ezquero.

Beguiratu, bada, neure entzula onac, ce vide erraza ta seguruba ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac gueure pecatubaren parcacinoeraco. Juezac aguinduco baleutsa gaisguinari, ¿ce lapur, ce guizon illzaille, ce gaisquin izango litzateque, guztiac esango ez lituquiara? Bat bere ez. Baina munduco leguiac ta Jaungoicuarenac ez duaz bardin gauza onetan. Gach eguina autortuten davena castigau eguiten davee munduco juezac. Ta pecatu eguinac compesinoian autortuten ditubana, librau eguiten dau Jaungoicuac pecatubetati. ¿Nor izango da, bada, ain zorua, ceinda bere pecatubac guztiac compesauco ez dituban? Compesetan baditu, andijac, ezainac ta asco izan arren, baqui parcatuten jaczana ta inos bere lotsatuco ez daveena. Compesetan ez baditu, baqui parcatuten ez jaczana ta beti lotsatuco daveena ta erreco daveena impernuban. ¿Ez da, bada, zoraquerija edo lastima andija, cristinaubac bere pecatubac compesinoian ez autortutia guizon bati? ¿Ta guizon bati? ¿Jaungoicuaren ordez ataraco daguan bati? ¿Compesinoian entzun davena esan ezin leguijan bati? ¿Guizon bati? ¿Adanen semeen argaltasuna ezaututen daven bati? ¿Berac bere pecatubac baquin beste aimbeste, salvauco bada, eguin biar daven bati? ¿Ez da lastima andija, dinot, ostera bere pecatubac, nai lotsaz ta nai bildurrez compesau bagaric istia, al izan ezquero? ¿Oh, pecatubac lotsaz ichita vici zarian erru-[143]carri tristiac! Sinistu eguizu arima arimati, compesetan ez badituzu ceuben pecatubac guztiac ziatz, nai isten badozu pecatu bat bacarric lotsaz compesau bagaric, guztiac euquico dituzula aguirijan beti impernuban Jaungoicuaren, aingueruben, santubaren, condenauben ta demoninuen vistan. ¿Oh, ce negargarrija! Bota, bada, lotsia. Quendu bildurra. Ta compesau pecatubac guztiac. Baita icasi bere ce pecatu compesau biar dirian.

(110) Sess. 14. c. 5.

964 aldedilla *Ba* 968 eguindo zu *Ba* 970 aldedin *Ba* 974 aldedinari *Ba*

1000

II.

Compesau biar dira, neure cristinaubac, batiatu ezquero eguin dirian pecatu illgarri edo mortal guztiac. Jaquinaz ta ezauberaz bat isten badau esan bagaric, bat bere esan ez baleu leguez da, dino Eleisa Ama santiac Trentoco batzarriarri (111). Orregaiti compesau biar dira *pecatu ciartubac*, *pecatu dudacuac*, *leenago aaztutacuac*, *lotsaz ichitacuac*, *norberac bacarric eguinac*, *inori era guinac*, *ez eguineco pecatubac*, *pecatubac eucazan gueigarrijac* edo circustancija pecatu barrijac dauquezanac, nai pecatuba ascozaz azten daveenac; baita *pecatuco ocasinoia* bere, compesoriac itandu ezquero. *Pecatu ciartubac* compesau biar dira, dirian moduban ta dirian beste. Lau badira, lau. Amar badira, amar. Milla badira, milla. Ez aguindu guztietacuac contu baten, ez bada bacocho bere lecuban. Lau lapurreta, maldecinoe bi ta orditute bat daucana ez da ondo compesauco, zazpi pecatu eguin ditut esanagaz bacarric. *Pecatu dudacuac* compesau biar dira. Izan leiteque dudia, ia pecatu eguin evan edo ez evan. Baita pecatu chiquija ala illgarrija eguin evan bere. Baita pecatu [144] eguin evana jaquinda, compesau ete evan edo ez ete evan bere. Bada, compesau biar dira dudaco pecatu oneec. Baquizu pecatu eguin cendubana; ¿baina dudia daucazu compesau cenduban edo ez? Bada, compesau biar dozu dudaan. ¿Dudaan zagoz pecatu eguin cenduban edo ez cenduban? Bada, compesau biar dozu dudaan. ¿Dudaan zagoz pecatu chicarra ala illgarrija eguin cenduban? Bada, compesau biar dozu dudaan. Ta onan beste conciencijaco duda guztiac.

Leen aaztutaco pecatubac compesau biar dira: ¿Aaztu jatzuz compesinoe baten edo ascotan pecatu bat edo gueijago? Ceure erruz ez bazan, onac cirian compesinoe areec. Baina gogoratu jatzuzanian, compesau biar dituzu leen aaztutaco pecatubac. Baita aaztubac ciriana bere. *Gaisqui compesautaco pecatubac* compesau biar dira. Modu bitara jazo leiteque pecatubac gaisqui compe-setia: Edo biar dan moduban prestau bagaric, examinia ondo eguin bagaric, pecatubagaz damutu bagaric edo pecatubari isteco gogo bagaric compesau dalaco. Orduban eguiten dau compesinoe gaistua. Ez jaco parcatuten pecatubac, compesau arren. Ta barriro compesau biar ditu dirianac. Edo pecaturen bat lotsaz ichita compesau dalaco. Orduban bere ez jaco parcatuten pecatubac. Ta barriro compesau biar ditu, ez bacarric lotsaz ichi evan pecatuba; baita beste compesinoe atan esan citubanac bere. *Norberac bacarric eguindaco pecatubac* compesau biar dira. Bada, Jaungoicuaarentzat ez dago bacarric ez ezcuturic. Guztia dauca Jaungoicuac vistaan.

(111) Ubi supr.

1011 Ez bada *Ba* 1014 ia] Ya *Ba* 1016 jaquin da *Ba* 1035 biardira *Ba*

[145] *Inori eraguindaco pecatubac* compesau biar dira. Ta emen esaten dira escandaluco pecatubac. Oneec bere izaten dira modu bitara. ¿Eguin dozu pecatu, bestiac dacuseela, entzuten daveela edo daquijela? Bada, compesau biar dozu, al badaizu, ceimbat lagunuen aurrian edo equijeela izan zan. ¿Ceuc esanda, edo convidautea, edo aguinduta, eguin dau batec edo gueijagoc pecatu? Bada, compesau biar dozu ceimbat laguni pecatu eraguin ceuntseen edo ceimbat lagunegaz balijau zinian pecatu eguiteco. ¿Convidau cenduban, pecatu eguiteco edo aguindu ceuntsan? Bada, bestiac pecatu eguin ez arren, ceuc eguin cenduban pecatu ta compesau biar dozu. Oneetan guztietan inori emoten jaco pecatu eguiteco vidia. Ta bestiac eguin ez arren, beti da pecatu inori pecaturaco vidia emotia. Ta compesau biar da. Baita compesau biar dira erabaguita¹²⁰ eguitezco pecatubac eguinac leguez, esanezco pecatubac esanac leguez, ta pensamentuzco edo burutacinoezco pecatubac burutacinoezcuac leguez. Bada, eguitia, esatia ta nai izatia ez dira bardinac. Ta autortu biar dira compesinoian, dirian leguez.

*Ez eguineco*¹²¹ *pecatubac* compesau biar dira. Onetarico batzuc guztiz dira jaquinac: Mecia ez entzutia, barau ez eguitia, amarrena ez paguetia... Baina beste batzuc, ta ez guichi, ez dira aimbeste aintzat artuten. Gurasuac, juezac, ugazabac, joh, ceimbat ez eguineco pecatu! ¡Ta ce guichi compesau! Gurasuen ta ugazaben celo santubaren, ardura onaren, cuidado andijaren, cansau bagaco equinaren ta jardun itsalubaren paltaz, umiac ta otseguinac dotrinaric ez da-[146]quijee; umiac ta otseguinac compesetan ez dira; umiac ta otseguinac eleisaraco gogoric ez dauquee; umiac ta otseguinac pecatu mortalian vici dira, echecuac daquijeela; umiac ta otseguinac gau ta egun gura daveen moduban davilz; umiac ta otseguinac lotsa gaiztoacuac dira... Ta gurasuac ta ugazabac onaco ez eguineco pecatu andijac compesetan ez ditubee. Bada, compesau biar dira. Mecia ez entzutia baino pecatu andijaguac dira. Juezac, errijen burubac ta arimen gordezailac gaiti beste aimbeste esaten da. ¡Ceimbat baque chaar, ceimbat joco vide bagaco, ceimbat ordiquerija, ceimbat adisquide pecatuzco, ceimbat emacume galdu errijetan ta pamelijetan juezen ta beste galarazo biar ditubeenen paltaz! Bada, compesau biar dira eguin ececo pecatu oneec. Barau ez eguitia baino andijaguac dira. Dan moduban dala, pecatu andijaren beian eguin biar dana ez eguitia, beti da pecatu andija. Ta compesau biar da. Agurra ucatutia, zorra ez paguetia, conseju ona ez emotia, limosnia ez emotia, exemplu ona ez emotia, guztia dira ez eguineco pecatubac. Ta gauza andira eldu ezquero, compesau biar dira.

1041 albadaizu *Ba* 1048 biardira *Ba*

¹²⁰ Bereizita, banatuta bakoitza bere motakoen artean.

¹²¹ Eginbeharrak egin gabe utziz egin diren bekatuak; ("pecados de omisión").

1075 *Pecatu gueigarriac* compesau biar dira. Pecatu gueigarriac edo *circus - ta[n]cijac* esaten jacue, pecatuco eguitiac beragaz euqui leguizan gachgarriai. Oneec batzubetan gueitu eguiten ditubee pecatubac. Ta beste batzubetan azi. Alacuan eguite bategaz austen dira aguindu bi edo gueijago; edo austen da aguindu bat colpe andijaguagaz ¿Oostu dozu eleisan? Ara eguite bategaz pecatu bi: Bata, lapurretia dalaco. Ta bestia, eleisan dalaco. ¿Oostu dozu caliza bat
 1080 [147] eleisan? Ara eguite bategaz iru pecatu. Caliza sagraduba eleisan oostu dozula. ¿Eguin dozu pecatu ezcondu bategaz? Ara pecatu bi: Bata castidadiaren contra ta bestia ezcontziaren contra. ¿Ceu bere ezconduba zara ta zugaz pecatu eguin daven ezconduba ceure senidia da? Ara pecatu gueijago eguite bategaz. Autortu biar dira, bada, compesinoian alaco pecatubac beragaz daucazan gueigarriac. Baita pecatubac azten ditubeenac bere, ezautu ezquero. Bada, aparteco modubagaz ezaindu ta azi eguiten davee pecatubaren gacha. Oostu dituzu oguei errial; baina oostu gura cenduquezan milla, al izan bacendu. Bada, compesau biar dozu oostuba, baita gueijagoren oostu guria bere. Lagun bat gaiti edo norberaren ide bat gaiti gaisqui esatia deungaro da. Baina ascozaz chaarrago da gurasuac gaiti, sacerdote jaunac ta juezac gaiti deungaro esatia. Deungaro da maldecinoiac esatia. Baina chaarrago da umeen aurrian esatia. Inor bide bagaric banatutia¹²² deungaro da. Baina deungago da gorrotuaren gorrotoz ill gura leuquiala, jotez aspertu ezinda banatutia. Deungaro da inori gorroto izatia. Baina deungago da gorrotuaren suba amatau bagaric egun
 1095 osuan euquitia. Deungago oraindino ille betian euquitia. Ta chaarrago urte betian edo gueijaguan euquitia. Deungaro da edoecin pecatu illgarri eguitia. Baina deungago domeeca santuban edo comulgau dan egunian eguitia. Ara emen, cristinaubac, pecatubaren azigarri ta ezaingarri batzuc. Oneec ta onetaricuac gaiti esaten da Erromaco Catecismuagaz, autortu biar ditubala pecatarijac compesinoian, ezautu ta aintzat artu ezquero.
 1100 [148] *Pecatu eraguingarrija edo pecatuco oasinoe urr ecua*. Compesau biar da, compesoriac itandu ezquero. Baita pecatu eguiteco ecanduba bere. Bada, norberaren naizco pecatu eraguingarrija arimiaren aparteco gacha da. Ta biar dau compesoriaren ezauberia, parcatuco badau. Baita aparteco osagarrija bere,
 1105 quenduco bada. Echian edo auzuan bere naiz daucan lagun bategaz pecatuban jaustia milla vidar chaarrago da arimiarentzat, beste ustez uste bagaco bategaz jaustia baino. Bada, esan biar dau compesinoian, nai dala opicijua, nai dala tabernia, nai dala comedija, nai dala sarauba, nai dala dantzia, nai dala jocua, nai dala guizona, nai dala emacumia pecatu sarri eraguiten deutsana ta
 1110 bere guraz daucana. Beste aimbeste da pecatuco ecandu edo oitura galduba.

1087 guracenduquezan *Ba* 1093 ezin da *Ba* 1098 ezain garri *Ba*

¹²² Ik. *Esku*-ko 185. oharra (672.or.).

Ecandu charrez pecatu eguitia ascozaz da chaarrago arimiarentzat, nosbait pecatuban jaustia baino. Au gaiti autortu biar dira compesinoian norberaren naizco pecatu eraguingarriac ta pecatuco ecandubac.

Sinistu biar dozu, neure entzula onac, dotrina labur baten ezin erabagui leguizala sail zabal andi oni darraicozan gauza guztiac. Esaten deusut bene benetan, gogoratu daguizula ondo, ia celan aituten emoten deusazuzan edo autortuten deusazuzan osalari edo medicu bati gorputceco gachac, gaixoric zagozarian. ¡Oh, ce ziatz! Nos sentidu cenduban, nun sentidu cenduban, ceta-ti sentidu cenduban, celan gueitubaz edo guichitubaz gacha juan zan... guztiac banaan banaan bein ta gueijagotan esaten deusazuz gorputzaren osalarijari. Cerbait aaztuten bajatzu, bigarrenian dei eguinda, oe aur-[149]rera eruanda, obeto esaten deusazu ceuben gacharen saila. ¿Cegaiti au? Gorputza osatu daguizun. Osagarri zucenac ta segurubac emon daguijozan ceuben gachari. Ceuben gacharen barri ondo jaquin daguijan. Ta jaquinaren gainera, ondo ta laster osatu zaguizan. Bada, cristinaubac, compesoria da ceuben arimen osalarija. Compesoria da ceuben arimen eracuslia. Compesoria da ceuben pecatubac juzgau biar ditubana. Eguizu, bada, edola bere ceuben arimen osalarijagaz gorputcen osalarijagaz eguiten dozuna. Aguertu eguijozuz compesoriari ceuben arimaco gachac guztiac, bat bere ichi bagaric.

Ez da inor icentau biar compesinoian, aimbagaric pecatuba compesau al dedilla. Baina esan biar dira pecatubac guztiac, conciencijan dagozan moduban. Ez edertuta, ez apainduta, ez guichituta, ez gueituta, ez inori erruba ezarrita, ez bere buruba garbituta, ez bada Jaungoicuaren veguijetan dagozan moduban. Aibat ziatcen gogora ecarrita, ondo damututa, Jaungoicuari parca escatuta, ostera ez eguiteco verbia gogoti Jaungoicuari berari emonda, guztien parcacinoia jadisteco ustiagaz. Ascatu ceuben conciencija ta autortu compesoriari pecatubac guztiac, lotsia ta bildurra quenduta. Orduban, neure entzula onac, entzungo dozu Jaungoicuaren ordez compesoriaren aoti, Madalenac leguez: *parcatu jatuz ceure pecatubac*¹²³. Alan gura izan daguijala ceruco Jaunac, bera dana dalaco. Amen.

1111 nos bait *Ba* 1116 ia] ya *Ba* 1119 juanzan *Ba* 1121 eguin da *Ba* 1130-1131 aldedilla *Ba* 1133 Ez bada *Ba* 1139 izandaguijala *Ba*

¹²³ Ik. Lk 7,48.

[150]

VI. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cetaraco dan compesoriac emoten daven penitencija.*
2. *Celan cobru emon biar jacon penitencijari.*

1145 Compesinoeco sacramentuban parcacinoia artuteco prestau biar dau pecatarijac, leen esan dan leguez. Pecatu guztiac gogora ecarrita, euraquin ondo damututa, ostera ez eguiteco gogo osua artuta, guztiac ziatz compesoriari autortubagaz. Orduban compesoriac Jaungoicuaren partez esaten deutsa pecatarijari: *Neuc ascatuten zaitut ceure pecatubetati*. Ta compesoriac au esanagaz
 1150 batera parcatuta dagoz ceruban pecatu guztiac, andijac, ezainac ta asco izan arren. Au da Jaungoicuaren beraren esana. Au da Jesucristo gueure Jaunaren ordenia. Au da penitencijaco sacramentubaren eguitia. Baina pecatarija Jaungoicuaren zordun eguiten da pecatu eguiten davenian. Ta pecatu illgarrijaren zorra da, Jaungoicuaganic betico aldenduta impernuban erreetan egotia.
 1155 Compesinoeco sacramentuban parcatuten dau Jaungoicuac pecatu illgarrijari darraicon betico zorra; pecatarijac impernuban pagau biar leuquian zorra. Ta zor aren alderaco escatuten dau Jaungoicuac, edo munduban penitencija eguitia, edo purgatorijuan pecatubaren zorra paguetia. Orregaiti esaten da, compesinoe ona eguiteco biarreco gaucen artian bostgarrena dala compesoriac emondaco penitencija cumplidutia. Aitu daguizun bada, cristinaubac, sail onetan icasi ta eguin biar dozuna, esango deusut dotrina [151] onetan: 1. *Cetaraco compesoriac emoten daven penitencija* 2. *Celan cobru emon biar jacon com -*
 1160 *pesoriac emondaco penagarrijari* . Entzun eguizu guztioac aimbat gogoric oneenagaz. Bada, ez jaco guichiagori eraguiten emen, pecatubac parcatutiari
 1165 baino. ¡Oh, ce gauza andija!

I.

Jaungoicuaren escuban dago, neure entzula onac, pecatubac parcatutia. Bestec inoc bere, ez cerucoc, ez luurrecoc parcatu ezin legui pecatu chiqui baten zorra bere. Orregaiti, pecatuben parcacinoia aita danian, beti gogora ecarri biar dogu Jaungoicuaren beraren eguiquizuna dala au. Baita sinistu biar dogu, ez jacuzala inos bere pecatubac parcatuco, Jaungoicuac berac nai daven moduban baino. Modu ascotara parcatu eusqueguzan Jaungoicuac gueure

pecatubac. Baina ya Berac eracutsita dauca Eleisa santiari celan gura izan daven guri pecatubac parcatutia. Ta au eguin biar davee pecatari guztia. 1175
 ¿Celan, bada, gura izan dau Jaungoicuac guri pecatubac parcatutia? Ara, cristinaubac. Batiatu baino leenagoco pecatubac, parcatuten deuscuz Jaungoico onac bautismoco sacramentubagaz. ¿Baina celan? Guztiz. Batiatuten danari leenagoco pecatubaren zorrice bere gueratuten ez jacola. Au da bautismoco sacramentubaren eguitadia.

Baina batiatu ezqueroco pecatubac ez ditu parcatuten guztiz compesinoeco sacramentubac. Parcatuten dau impernuban pagau biar zan zorra. Baina ez dau parcatuten norberac emen pagau al daguijana. ¿Cegaiti, bada, compesinoeco sacramentuban parcatuten ez ditu Jaungoicuac pecatubac guztiz, bautismoco sacramentuban leguez? [152] ¡Ah, cristinaubac! Trentoco batzaar santubac esaten deuscu cegaiti (112). Batiatu baino leenago pecatu eguin davenac, ez 1180
 jaquinez eguin dau; Jaungoicuaren seme izan baino leenago eguin dau; Jaungoicuari pecaturic ez eguitemo verbia emon baino leenago eguin dau. Ta arei euren pecatubaren damu eguijazcoATEGAZ parcatuten deutseez bautismo santuban pecatubaren zor guztia, gach guztia ta erru guztia oraingo ta betico.

Baina batiatu ezquero pecatu illgarrija eguin davenac, daquijala, ezauberaz 1190
 ta bere guraz saldu dau Jaungoicua, ucatu dau Jesus, tristetu ditu ainguerubac ta desondrau ditu bere partez cerutar guztia. Esquer charreco seme galduba leguez, armac artuta jagui da cristinau pecatarija, etsaijen aldraan sartuta, ceruco Aita onaren contra. Bada, errazoia da ez jaquinez ta ondo ezautu bagaric pecatu eguin davenari erreztuago bere gach eguina parcatutia, daquijala ta 1195
 ezauberaz bere Aita onaren contra pecatu eguin davenari baino. Au gaiti, bada, Jaungoico onac ta parcazailiac parcatuten deutzaz cristinaubari pecatubac compesinoeco sacramentuban. Baina pecatarijari berac bere al daguijana paguetiaren beian parcatuten jacoz compesinoian pecatubac. Cristinau pecatarijac pagau biar dau, bada, pecatubaren zorra, edo munduban penitencija eguinagaz, edo purgatorijuan erreetan egonagaz. Ara emen, cristinaubac, penitencijaren edo pecatubaren zorreraco penagarrijaren preminia. 1200

Compesore jaunai emon eutseen Jaungoicuac escubidia, pecatubari jagocan penitencija edo pe-[153]nagarrija neurtuteco. Alan esan eutseen Jesucristo gueure Jaunac san Mateoren aoti compesore guztiai (113): *Ceubec munduban pecatuti ascatuten dozuna, ascatuba izango da ceruban. Ta ceubec munduban pecatubagaz lotuten dozuna, lotuba izango da ceruban*. Verba oneetan emon eutseen Jesusec escubidia compesore guztiai. *Lelenga* Pecatarijen pecatubac compesinoian entzuteco. *Bigarrenian* : Pecatubaren andi chiquija ta alca-

 (112) Sess. 14, c. 8. (113) C. 18. 1210

1173 ya] ija Ba 1176 deuscuz] deustcuz Ba 1181 biarzan Ba 1182 aldaguijana Ba
 1198 aldaguijana Ba

reza¹²⁴ juzguetaco. *Irugarrenian* : Ondo prestauta, garbatuta daguan pecatarija pecatu guztietati ascaturteco. *Laugarrenian* : Pecatubaren paracinoia pecatarijari emoten deusarian, pecatubari jaocan penitencia edo penagarrija senailautu pecatarijari emoteco. *Bosgarrenian* ta azquenan: Ondo prestau bagaric dato-
 1215 rren pecatarija, bere pecatubaquin lotuta atcera bialduteco. Au da Jaungoicuaren aguinduba. Emeti dator pecatu guztiac compesau biarra ta compesoriac jaquin biarra, arei jagocuen penitencia iminteco.

Au gaiti compesoriac nora ecian imini biar deutsa pecatarijari penitencia, pecatubari ta pecatarijari jagocana. Pecatu gueijagori, gueijago. Pecatu guichiagori, guichiago. Pecatu andijaguari, andijagua. Chiquijaguari, chiquijagua.
 1220 Sarritaco pecatubari, ecanduzco pecatubari ta ocasinoco pecatubari, eurai jagocuena. Baita pecatarijari jagocana bere. Zarra bada, gaztia bada, ezconduba bada, ascatura bada, gurasua bada, umia bada, aberatsa bada, pobria bada, gaixua bada, osasunecua bada, andiquija bada, nequezarija bada, ecandu charrecua bada, pecatuco [154] jauslecuban daguana bada... bacochari jagocan ta
 1225 al daguijan penitencia iminteco.

Pecatubaren zorreraco cristinaubac artu al daguizan penagarriac, iru eratan iminten ditu santo Tomasec (114). Ta dira, edo arimacuac, edo gorputcecuac, edo euquijarenac. Ariman euqui guinaizan penagarriac dira *oracinoia* ta
 1230 oracinoiari darraicon guztiagaz Jaungoicua ondretia. Gorputcian euqui guinaizan penagarriac dira *barauba* ta beste gorputzari penia emon leguijuen mingarri guztiac. Euquijagaz eguin guinaijan penitencia da *limosnia*, nai illeentzat ta nai vicijentzat. *Oracinoiagaz* aituten dira compesetia, comulguetia, meza entzutia, altaraac ta eleisia visitetia, errosarijua errecetia, belaunbico
 1235 Jaungoicuaren aurrian egotia, liburu onac iracurtia ta beste onetaricuac. *Baraubagaz* aituten dira ez jaatia, ez edaatia, ez loric eguitia, miina isilic euquitia, olgalecura ez juatia, gorputza azotetia, cilicijuagaz lotutia ta beste gorputzaren nequegarriac. *Limosniagaz* aituten dira, pobriai, elisai, coventubai, hospitalai, purgatorijoco arimai ta beste preminacuai dirubagaz edo euquijagaz
 1240 eguiten jacuezan mesediac. Onetarico penagarriac dira, neure entzula onac, compesoriac pecatarijari bere pecatubaren zorreraco imini biar deusazanac. ¿Ta celan cobru emon biar deutsa pecatariac compesoriac emondaco penagarriari? Orain artuco dozu.

 (114) 4. Sent. dist. 15, q. 1, a.4.

1226 aldaguian *Ba* 1227 aldaguian *Ba* 1229 euquiguinaizan *Ba* 1232 eguinginaijan *Ba*

¹²⁴ Gaur egun "alkar eza" idatziko genuke, beharbada.

II.

1245

Baina au entzutera orduco, jaquin biar dozu, cristinaubac. *Leleengo* Pecatarijac compesetara doianian edo compesoriac penitencija emoten deutsanian ez badauca ustia compeso-[155]riaren aguinduba eguitemo, ez deutsalabalijo compesinoiac, compesauta guero penitencija cumplidu arren. *Bigarrenian* : Jaquin biar dozu, pecatarija badua bere ariz compesore bere 1250 ustezco nasajetara, erreztuago, penitencija guichigaz ta pecatarijaren beraren naira irago daguijon ta pena guichigaz pecatubetati ascatutzacua eguin daguijon, ez daucala cetan pijau alaco compesinoiagaz. Compesore nasaijen villa bere ariz davilen pecatarija, nequez ondo compesauco da. Jazoco jacue evangelijo santubac dinuana: *Itsuba bada itsubaren zuzenzailia, bijac lezaan sar - 1255 tuco dira* (115).

Onen ondoric esaten jaco cristinaubari, compesoriac emon deutsan penitencija edo penagarrija eguin biar davela, compesoriac aguindu deutsan moduban ta demporaan. ¿Aguindu deutsu compesoriac illian bein compesetaco? Bada, compesau biar dozu illian bein. ¿Aguindu deutsu illian birritan compesetaco? Bada, compesau biar dozu illian birritan. ¿Aguindu deutsu onaco personagaz ez egoteco? ¿Eche atan ez sartuteco? ¿Alaco pecatu bat eguiten dozun bacochian barau bat eguitemo, edo errial bat pobriai emoteco? Bada, eguin biar dozu, aguindu deutsun moduban. ¿Aguinduten deutsu barijacuban barau eguitemo? ¿Santu egun baten vesperan araguiric ez jateco? ¿Iru aste barru compesetara juateco? Bada, eguin biar dozu, aguindu eutsun demporan. 1260 1265

¿Ta ce pecatu da compesoriaren aguinduba ez eguitia? Batzubetan izango da pecatu andija ta beste batzubetan pecatu chiquija. Ce aguindu [156] austen daven, alan izango da pecatuba. Compesoriac emoten daven penagarrija izan leiteque gauza andija, baita chiquija bere. Gauza anditzat artuten dira meza bat 1270 entzutia, compesetia, comulguetia, barau bat eguitia, lau errialera elduten dan limosna bat eguitia, errosarijo bat erregetia... ta beste asco. Gauza guichitzat artuten dira avemarija bat, *sinistuten dot* bat edo *credo* bat, *salve* bat, nai beste errazu chiqui bat, nai limosna chiqui bat. Baita izan leiteque compesoriaren aguinduba zatitu leguijana ta zatitu ezin leguijana. Meza bat entzutia ezin zati- 1275 tu legui. Barau bat ateratia ezin zatitu legui. Baina meza bi entzutia bai. Bata entzun ta bestia ichi. Birritan compesetia bere bai. Batian compesau ta bestian ez. Alan dagoz compesoriac emondaco penagarrijac, zatitu ezin leguizanac ta zatitu leguizanac. Esaten da bada, cristinaubac. *Lelenga* Compesoriac aguidutaco penagarrija gauza andijan isten davenac, nai osuan ta nai zatijan, eguiten 1280 davela pecatu mortala edo illgarrija. ¿Aguinduten deutsuz lau barau ta ez

(115) Matth. c. 5.

- dozu bat bere ateraten? Eguin dozu pecatu bat, penitencija gauza andijan ichi
 dozulaco. ¿Atera dituzu iru barau, baina ichi dozu bat? Eguin dozu pecatu ill-
 1285 garri bat (ez lau baraubac ichita baisen andija), penitencijaren zati andi bat ichi
 dozulaco. *Bigarrenian* : Isten badau penitencijaren zati chiqui bat, eguiten dau
 pecatu arina edo veniala. Aguinduten deutsuz iru *avemarija* ta ichi dituzu bi.
 Eguin dozu pecatu chicarra. Isten danian penitencija osua, gauza guichijan
 izanda bere, esaten davee batzuc eguiten dala pecatu illgarrija, sacramentuba-
 1290 ren osotasun guztia [157] isten dalaco. Beste batzuc esaten davee, ez dala pecatu
 illgarrija penitencija chiquija istia, osua izan arren. *Irugarrenian* esaten da,
 penitencija bada *osagarrija* ta isten bajaco cobru emon bagaric, eguiten diria-
 la pecatu bi. Gauza andijan bada, pecatu mortalac. Ta gauza guichijan bada,
 pecatu chicarrac. Penitencija *osagarrija* dira, ostera pecaturic eguin ez dagui-
 1295 jan pecataritari iminten jacozanac. Sarritaco pecatubac gaiti, oiturazco pecatu-
 bac gaiti ta pecatuco ocasinoiac gaiti emoten jaco pecataritari osatuteco pena-
 garrija. Bidaio eguiteco oituria daucanari aguinduten deutsa compesoriac,
 eguiten daven bacochean luurrari mun eguiteco. Au ecandu galduba osatuteco
 da. Adisquide deunguia auzuan daucanari aguinduten deutsa compesoriac,
 1300 eche atara ez juateco; ta inos juaten bada, doian bacocheo barau bat eguite-
 co. Au adisquide deunguiagana juan ez dedin da. Aguinduten deutsa ordijari
 tabernara ez juateco; ta inos juaten bada, bacocheo lau errial pobriai emoteco.
 Au ordijaren gacha osatuteco da. Onetarico penagarri guztiac dira, ostera
 pecatuban jausi ez dein¹²⁵. Penitencijaren edo penagarri bacocheuaren vildu-
 1305 rrez, pecatuco oituriari edo ocasinoiari ichi daguijon. Ta ascotan pecataritari
 eguiten ditu pecatu bi, alaco pecatu bacocheo penitencija isten davenian. Bata
 pecatuco ocasinoetara barriro juan dalaco, ta bestia compesoriaren aguinduba
 eguin ez davelaco. Modu onetan aituten da bada, cristinaubac, eguin biar dala
 compesoriaren aguinduba.
- 1310 Ta itanduten badozu, ia beti dan pecatu [158] compesoren aguinduba ez
 eguitia, esango deusut, al izan ezquero eguin biar dala compesoriaren aguinduba.
 Bada, Jaungoicuaren beraren aguinduba leguez da. Ezin danian, ez dago
 eguiquizunic. Compesoriac aguindu arren, ez daucanac diruric emon ecin
 legui. Gaixoric daguanac, baruric ezin legui. Preso daguanac, mezaric entzun
 1315 ecin legui. Ta modu onetan beste ecin eguijazco asco. Vicitziaren, osasunaren
 ta cleitubaren calte jaquin andijan nequez izango da compesoriaren gogua,
 pecataritari alaco calte andico penitencija pian imintia.

1283 Eguindo zu *Ba* 1287 ichidituzu *Ba* 1310 ia] ya *Ba*

¹²⁵ Forma hauek *Esku*-n maiz agertzen dira, baina gainerakoetan bakanak dira; hauetan *dedin* agertzea da normala

Gauza bat esan neguizu, neure entzula onac, compesoriaren penitenciaren gainian. Ta da, ezin ondo eracutsi leguizala dotrina labur baten sail onetaco milla jazoera. Nos pecatu dan ta nos ez dan; nos pecatu bi edo guijago dirian, edo bat dan; nos pecatu illgarrija dan edo pecatu chicarra dan ta beste onaco jazoera guztiac dempora luci ac biar ditubee, arguiro aituten emoteco. Pecatarijac sail onetan eguin biar davena da: *Lelenga* Artu uste osua, compesoriaren aguinduba ziur eguiteco. *Bigarrenian* : Aitu ondo, compesoriac emoten deutsan penagarrija. Ez dira bat compesoriac emoten dituban consejubac ta penitencijac. Consejubac ez dacarree eurenez eguinbiarriac. Baina penitencijac bai. Au gaiti pecatarijac aitu biar dau ondo compesoriac esaten deutsana ala dan consejuba, ala dan penitencija. Bada, compesoriac consejutzat emon arren, berac artuten badau penitencijatzat ta cobru emoten ez badeutsa, bardin eguingo dau pecatu. *Irugarrenian* : Dendatu aleguin guztiagaz, compesoriac penagarritzat emon deutsan [159] guztia (nai dala arimia osatuteco, nai dala zorra paguetaco) aibat ziurren ta osoruen eguitera. *Laugarrenian* : Inos isten badau compesoriaren aguinduba osua edo zatija, esan urrengo compesinoian cer ichi evan ta cer gaiti ichi evan. Onan eguingo dau compesinoe ona. Au da, cristinaubac, nic zubei esan neguizuna ta esan biar deutsudana compesoriac emondaco penitencijaren gainian.

Baina sinistu biar dozu guztioc, chito uts eguite asco ta ez chiquijac dagozala cristinauben artian penitencijaren gainian. Pecatari ascoc errosarijo bat edo bigaz gura leuquee, euren pecatuban zor andijai cobru emotia. Compesetan ditubee iru edo lau, edo amar, edo oguei eurac eguinac. Ta menturaz beste aibeste ta gueijago inori eraguinac. Ta areetati ez guichi ecanduzcuac, escandaluzcuac ta leen sarri eguinac ta compesaubac. ¿Cer dira onentzaco errosarijo bi ta lau ta amar? ¿Cer da onentzaco altarc visitetia ta *ostera ez eguizu eguin* esatia? Ez da au, alaco pecatu suztraizcuari, pecatu sarritacuai ta pecatu oituzacuai jagocuen penitencija. Onaco penagari arinaquin, ez arimia osatuten da, ez pecatu andi suztraizsuben zorra paguetan da. ¿Ta aguinduten badeutsa compesoriac alaco pecatarijari, edo illian bein compesetaco, edo astian barau bat aterateco, edo pecatuban jausten dan baco chian peseta bat pobriai emoteco, edo beste onaco guijarran icututen deutsan penagari bat? ¿Alaco echetan¹²⁶ ez sartuteco? ¿Alaco pecatu lecura ez juateco? ¿Alaco adisquidiagaz ez egoteco...? ¡Ah! Orduban dira gachac guztiac ta larrijac guztiac. Batac [160] osasunic ez dauca, barau eguiteco. Bestiac astiric ez dauca, compesetaco. Bestiac modu-

1320 jazo era *Ba* 1322 jazo era *Ba* 1326 eguin biarriac *Ba* 1349 icututen] icututen *Ba*

¹²⁶ "Alaco", ondoko izena mugagabeen duela dator hemen: *alaco echetan*; baina hurrengo esaldietan, izena mugatuan dela: *alaco pecatu lecura...* / *alaco adisquidiagaz...*

ric ez dauca, pesetia emoteco. Bestia bildur da mundubac cer esango daven, leengo echera, leengo adisquidiagana, leengo pecatu lecura ta lagun chaarretara juaten ez bada. Ta gura leuquee errosarijo batzuquin gueijagoco bagaric bialdutia. Oneec guztioac astija, diruba, osasuna ta guztia dauquee pecatu eguiteco. Oneec guztioac mundubaren cer esanagaz ta cleituba galdubagaz dauquee pecatuco laguna echian edo auzuan edo bijetan. Cleituba galdubaz juaten dira gavaz ta egunaz pecatuco lecubetara. Juaten dira tabernara, jocora ta orditutera. Juaten dira lapurretara. Juaten dira... ¿Baina ce pecatutara¹²⁷ ez? Pecatu eguiteco ez jaco beguiratuten, ez cleitubari, ez mundubaren cer esanari, ez osasunari, ez astijari. Baina penitencia eguiteco guztia palta da.

Ara, cristinaubac, compesoriagaz pecatarijaren artian iragoten dan gacha. Ara, cristinaubac, celacuac izan oi dirian compesinoe asco. Dinot *asco*, gueijenac ez esatiarren. Gogoratu bada, neure entzula onac, celan pecatubac gomutatu biar dirian; celan euraquin damutu biar dan; celan pecaturic osteria ez eguiteco gogo sendua biar dan; celan compesinoian autortu biar dirian; ta celan compesinoiaren aguinduba eguin biar dan. Escatu daijogun Jaungoicuari, bialdu daigun bere gracia compesinoe onac eguiteco ta euren vitartez ceruco glorija jadisteco. Amen

[161]

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Norentzat dan biarrecua ta nora ececu pecatu guztia era batera compesetia edo compesinoe generala.*
2. *Norentzat dan gauza ona.*
3. *Norentzat dan chaarra.*

Ez dago, neure entzula onac, vicitziac dirauban artian ateric ichita ceruban pecatarijarentzat. Ez dau gura Jaungoicuac inor condenau dedin, ez bada guztioac salvau gaitezana¹²⁸. ¿Celan, bada, salvau leiteque, compesinoe chaarrac eguin dituban pecatarija? ¿Celan salvau leiteque, pecatubac lotsaz compesau

1359 jocora] jacora *Ba* 1364 oidirian *Ba* 1377 ez bada *Ba*

¹²⁷ Begira, esaldi horren indarra, *pecatutara* mugagabeen dela.

¹²⁸ Ik. Jn 3,17; Erm 11,25; 1Tm 2,4, etab.

bagaric ichi ditubana ta pecatubac sarri gaisqui compesau ditubana, pecatu 1380
 guztiac ciatz ta ondo compesau biar badira salveetaco? Ezequias Judeaco erre-
 guec eguiten evana¹²⁹ eguinagaz salvauc da. ¿Celan, bada? Bere urte guztietaco
 pecatubac barriro gogora ecarrita, vijotceco damu ta pena mingoch bategaz
 ostera guztiac compesaubagaz. Gogoratuco deutsudaz, Jauna, ta esango deu-
 tsudaz neure dempora guztico gacheguinac neure arimaco damu mingochagaz, 1385
 esaten evan propeta damutubac. *Recogitabo tibi omnes annos meos in amari-
 tudine animae meae* (116). Ez da au beste gauzaric, ezbada, leenago compe-
 sau ez balitz leguez, pecatu guztiac gogora ecarrita era batera compesetia. Ez
 da au beste gauzaric, ezbada leen gaisqui jorratu dirian landarac barriro ondo
 ta ziatz jorratutia. Ez da au beste [162] gauzaric, ezbada leenago gaisqui eguin- 1390
 daco sailac barriro ondo eguitia. Au da compesinoe *general*a eguitia. Orduban
 pecatarijac zucenduten ditu leenagoco compesinoietaco colpe uts guztiac. Ta
 gueratuten dira bere vicico pecatu guztiac compesinoe on baten azpijan. Alaco
 compesinoiari esaten jaco, *pecatu guztien compesinoia*. Izan leiteque vizitza
 guzticua. Baita urte batzubetacua bere. Vizitza guzticua izango da, errazoiaren 1395
 usura eldu zaneti araguinoco pecatu guztiac era batera compesetan ditubanian.
 Urte batzubetacua izango da, leenago nosbait pecatu guztiac era batera com-
 pesauta, andi aurreraco urtetaco guztiac ostera batera compesetan ditubanian.
 Eguin dau batec oguei edo ogueta amar urtegaz bere vici guztico pecatuben
 compesinoia. Baita eguin gura dau iruroguei urte edo gueijago daucazanian, 1400
 ogueta amar citubaneti araguinocua. Au da urte batzubetaco pecatu guztien
 compesinoia.

Pecatu guztien compesinoiac balijoco badau, euqui biar ditu beragaz leen
 esan dirian bost gauzac. Pecatubac gogora ecarri ziatz, damutu euraquin, artu
 gogua ostera ez eguiteco, autortu compesoriari, ta eguin aren esana. *Pecatu* 1405
guztien compesinoia batera eguin ez arren, ez da ardura. Lelengo eguinian edo
 aldiijan esan leguiz gogora ecarri ditubanac edo aguindu batzubetacuac edo
 urte batzubetacuac. Ta bigarren aldiijan edo irugarrenian edo laugarrenian, bes-
 tiac. Arian da compesoriaren ta beraren erichijan, guztiac ziatz esan artian.
 Compesinoe au dan leguez leenagoco gachen ta uts eguiten osagarrija, ez da 1410
 guztientzat bardin. Ari-[163]maco gachac ta gach modubac bere ez dira bardi-
 nac. Alan *pecatu guztien compesinoia* eguitia bere, batzubentzaco nora eze-
 cua da. Beste batzubentzat nora ececua ez da, baina gauza ona da. Ta beste
 ascorentzat caltegarrija da. Esango deutsut bada, cristinaubac, eracutsi onetan:

 (116) Cap. 38.

1415

1387 ez bada *Ba* 1389 ez bada *Ba* 1390 ez bada *Ba* 1392 compesinoietaco] com-
 pesinoietaco *Ba* 1397 nos bait *Ba* | erabatera *Ba* 1414 calte garrija *Ba*

¹²⁹ Ik. 2Kro 32,24-26.

1. *Norentzat dan biarrecua ta nora ececuca pecatu guztien compesinoia* . 2. *No -
rentzat dan gauza ona, baina ez nora ececuca* . 3. *Norentzat dan caltegarrija* .
Ez cansau, cristinaubac, inos bere ondo compesetiari jagocan dotrinia icasten.
Verba bacochoa ta dirianac¹³⁰ aitu biar dituzu aimbat onduen. 1. Dinot, bada,
1420 ascorentzat nora ececuca ta biarrecua dala, eguin dituban pecatu guztiac era
batera, ondo ta ziatz compesetia. Oneetati batzuc esango deutsudaz. Ta andi
ateraco dozu besten contuba. Nora ececuca ta biarrecua da, nai dala modu bate-
ra nai dala bestera, leenago compesinoe charrac eguin ditubanarentzat.
Esquina ascotati jazoten da compesinoe chaarrac eguitia.
1425 *Lelenga* Dotrinia ez jaquinagaz. Doctrinia ez daquijanac compesinoe onic
ezin legui, sarri entzun dozun leguez. Asco dagoz, bai gurasuac ta bai umiac,
ondo compesetaco biar dan dotrinia ez daquijenac. Ez da asco ondo compe-
setaco, oracinoe batzuc buruz esaten jaquitia. Aitu biar dira sustraiz umetan
buruz icasitaco oracinoiac. Aitu biar dira sustraiz, Jaungoicuaren aguindu san-
1430 tubac escatuten dituben ta eragozten dituben gauzac. Aitu biar dira sustraiz,
compesinoe oneraco nai ta ez biar dirianac. Aitu biar dira sustraiz, bacochoac
bere estaduban daucazanac. ¿Ta ceimbat, neure entzula onac, [164] casic ecer
bere onaco gauzaric aituten ez daveenac? ¿Ceimbat guraso? ¿Ceimbat persona
nausi? Bada, dotriniaren paltaz onan destajuban leguez eguindaco compesi-
1435 noiac, barristau biar ditubee, salvauc badira.

- Bigarrenian* : Pecatubac ondo gogora ecarri bagaric compesau dirianac.
Iraiz baten¹³¹, bertatico baten, edo ondo conciencija aztertuta pecatubac gogo-
ra aimbat ciatzen ecarri bagaric compesau dirianac, eguin ditubee compesinoe
chaarrac. Asco batez bere dotrina guichi daquijenac juaten dira compesoriaren
1440 oinetara, bapere prestau bagaric. Cerbait itandu daquijuenian asten dira con-
tubac ateraten, ta pecatubac gogora ecarten, burubari eraguinda. Ascoc ez
daroie prestaera gueijago compesetara, mecia entzutera edo sermoetara baino.
Oneec eguiten ditubee compesinoe chaarrac. Ta barristau biar ditubee, sal-
vauc badira. Urte guztian edo dempora lucian vici dira, aoti, veguijetati, mii-
1445 netati, escubetati, oinetati ta vijotceti pecatuba darijuela. Vici dira,
Jaungoicuaren aguindu santubac lotsa bagaric austen ditubeela. Ta compese-
tara juateco ustia artu baino beste contu aterate bagaric, nai leuquee zortci,
amar edo urte osoco pecatu pillua banaan gogora ecarrita, ziatz compesau.
1450 Alan vici dira itsu itsuban estadu zori gaistocuan ta condenetaco vidian. Oneec
barristau biar ditubee euren compesinoiac, salvauc badira.

1442 presta era *Ba*

¹³⁰ "Dirianac": guztiak, diren guztiak.

¹³¹ "Iraiz baten": lipar batean, instant batean.

Irugarrenian : Damutu bagaric compesau dirianac. Oneec dira pecatuti compesinoera ta compesinoeti pecatura vici izan dirianac. Betibee¹³² compesau. Baina inos ez erremedijau. Oneen [165] artian contetan dira, usurerubac, logrerubac, opicijuetaco lapurrac, ardao salzalle, aragui salzalle, errotari, dendari, escribau ta beste euren opicijuan ecanduz oostuten daveenac. Baita jocolarijac, 1455 maquilarijac, ordijac, ocasinoetsubac, casic beti gauza chaarreraco prest dagozanac. Baita auzilarijac, oquer nai zucen ataraco prest dagozanac, aucitan luzarero ibili dirianac. Baita alcarren gorrotuan urtetan egon dirianac bere. Baita seme alavac dotrina bagaric nasai aci ditubeenac bere. Comedijetara, sarau ta viguir nasaijetara, dantza galdubetara ta beste pecatuco ocasinoe jaquinetara 1460 gavaz ta egunaz umiai juaten ichi deusen gurasuac eguin ditubee compesinoe chaarrac. Baita gurasuai lotsia galduta, esquer gaistuan alaco lecubetara juan dirian umiac bere. Baita cristinau loijac bere, batian batagaz ta bestian bestiaz, edo ascotan ascogaz castidadiaren contra pecatu loijac eguin ditubeenac. Urteetan alan verbaz naiz ta eguitez loi izan dirianac. Ta compesa aldiric guei- 1465 jenetan pecatu loijac autortu ditubeenac.

Esan dirianetati batec bere ez dau pijau biar bere alaco demporaco compesinoiaquin. Nai dala dotrinia ondo ez daquijelaco, nai dala Jaungoicuaeren ezauberaric ta bildurric bapere sustraiz ez dauquelaco, nai dala pecatubaren caltai beguiratuten ez deutseeelaco, nai dala guztiac gaiti, ez davee artu euren 1470 vijotcian pecatubaren damu eguijazcua, echuriac dinuanez. Ez davee artu ostera pecaturic ez eguiteco gogo osua. Ta ez deutsee balijo dempora areetaco compesinoiac. Autortu biar ditubee, bada, pecatu guztiac barrero compesinoe baten, salvauc badira.

[166] *Laugarrenian* : Pecatubac lotsaz esan bagaric ichi ditubeenac. Modu bitara 1475 jazoten da au bere. Edo zucen daquijala, pecatuba lotsaz ichijagaz. Au chito ezaguna ta umiac bere daguijena da. ¿Ichi dituzu pecatu bat edo gueijago lotsaz compesau bagaric lau, zortci edo ogei urtian? Bada, urte areetaco pecatu guztiac, compesaubac ta compesau bagacuac, barrero esan biar dituzu compesinoian. Pecatubac esan bagaric isteco bigarren moduba da, edertuta, apainduta, inori erruric gueijena ezarrita, bere buruba garbitubaz pecatubac competia. Au da diabbrubaren astucija bat, (azartuten nas esaten) compesinoeric 1480 gueijenac edo beintzat chito asco *sacrilegijotuten* ditubana. ¡Oh, ceimbat peccatariri entzuten deusaguzan compesinoian pectubac; izan beriac, berac eguinac, berac najjac, ta inorenac balira leguez! Senarrac bere pecatuben erruba ezarten 1485 deutsa emaztiari. Emaztiac senarrari. Gurasuac ume gaistuai. Umiac gurasuac

1453 contetan] contentau *Ba* 1458 egondirianac *Ba* 1483 beintzat] beintzac *Ba*

¹³² Bost bider agertzen da *betibee* *Icas-III* honetan soilik eta honela idatzirik beti; "bere" bokal arteko *r* eta guzti darabil partikula soila denean, baina esamolde honetan, bokal arteko *r* gabe.

aguindubari edo gurasuac ichijari. Ordijac ardauc edateco eriarri edo trago bat edaatera convidaueveenai. Emacume loijac pracadun lotsa galducuai. Ugazabac errenterubari, errenterubac ugazabari. Auzilarijac juezai, escribaubai ta letraubai. Oneec auzilari oquerrai. Tratalarijac pagazalle chaarrari. Pagazalle chaarrac tratalarijari... ¿Cer gueijago? Onan irago guinaiz chito pecatari ascoren compesinoiac. ¡Ceimbat bidar datorren gogora Adanen ta Evaren jazua! Evac eguin evan pecatu, berac nai izan evalaco. Ta diabrubari ezarri eutsan erruba. *Serpens deceptit me* Adanec eguin evan pecatu, berac gura evalaco. Ta Evari ezarri eutsan erruba. *Mu-[167]lier, quam dedisti mihi...*¹³³ ¿Ta parcatu eutseen Jaungoicuac Evari ta Adani, inori erruba ezarrita autortu even pecatuba? Batari bere ez; arian da euren pecatutzat ezaututa, ondo garbatuta, barriro obeto autortu artian.

Beste aimbete dira, cristinaubac, inori erruba ezarrita, noberaren buruba garbitubaz ta pecatubac edertubaz eguiten dirian compesinoiac. Orregaiti guztia barriro compesau biar dira era batera. Atera, bada, contubac ceuben artian, neure entzula onac, ta beguiratu ia edo dotrinia ondo jaquin ezagaz, edo pecatubac ondo gogoratu ezagaz, edo pecatubaquin damutu ezagaz, edo pecatubac compesinoian ondo autortu ezagaz compesinoe chaarric eguin dozun. Bada, ez dago beste videric alacua salvetaco, pecatu guztia era batera ondo compesauta vicitcia obaturia baino. Atarico guztientzaco nora eceua ta preminacua da compesinoe generala.

II.

Beste batzubentzat ez da nora eceua, baina gauza ona da bere vici guztico pecatubac era batera compesetia. Oneec dira: *Lelenga* Inos leenago eguin ez daveenac. Guraso onen arduriagaz ta eracutsi santubagaz vici arren cristinauba chiquitati ta sarrichutan ta aimbat onduen compesau arren umetati, orraitino bere umetaco compesinoiac umetacuac dira. Jaungoicuaren ezauberria, pecatubaren caltiac ta arimiaren balijua ez dira colpe baten sartuten gueurre ariman biar litzatequian arguitasunagaz. Au gaiti jazoten da umetan ta gaztetan eguitia gauza batzuc, orduban ondo ezautu bagaric, ondo ez dirianac ta guero norbera lotsatuten daveenac. Ezautu biar zirian edo ez, ala peca-[168]turaco duina ezauberria eguan edo ez, au da dudia. Compesau cirian edo ez, ta biar zan damubagaz compesau cirian edo ez, au da dudia. Duda onetan gueratuten dira umetaco ta gaztetaco gaistoquerija asco ta compesinoe asco. Au gaiti erregututen eutsan David erreguiac Jaungoicuari: *Neure gaztetaco*

1497 arianda *Ba* 1502 ia] ya *Ba* 1505 ezdago *Ba*

¹³³ Ik. Has 3,12.

pecatubaquin ta ez jaquinaquin ez zaitez gomutatu, Jauna (117). ¿Ce vide, bada, onaco dudaac ta arimaco ar aguincarijac quenduteco? Ez besteric, ezbada edadian sartu dedinian, contuban obeto jausi dedinian, eguin pecatu guztien compesinoia, leenago eguin ez davenac. Alan cristinau guztientzat da chito gauza ona edade elduban sartu ezquero, bere pecatu guztiaac era batera compesetia. 1525

Bigarrenian : Baita gauza ona da barriro eguitia pecatu guztien compesinoia, leenago umetan eguin evenentzat bere. Amabi, amalau, amasei urte aldia oraindino umetaco demporia leguez da, alaco gauza andija ta baliyo andicua betico eguiteco. Gauza ona ta eracutsi ona da umiai chiquitati, dinot, edade atara eldu ezquero, pecatu guztiaac era batera compesetaco esatia. Baita gauza ona da, guero naustubago ta edadian sartubago eguin ditezarian, guztiaac era batera ostera barristetia bere. 1530

Irugarrenian : Gauza ona ta arimiaren baque andicua da pecatu guztiaac batera compesetia cristinaubac, viciera aldatuteco, edo estadu barrija artuteco. Leenagoco pecatu guztiaic compesinoe baten azpijan guiltza emonda, Jaungoicuagaz baque osua eguinda prestatu biar dau cristinaubac, viciera [169] barrija artuteco, nai dala prailetzia, nai dala abadetzia, nai dala ezcontzia. 1535

Laugarrenian : Gauza ona da urtian bein edo urte biric baten edo alan dempora ataco pecatubac guztiaac era batera compesetia. Au arimiaren onera andico gaucia da, biar dan espiritubagaz ta prestaeriagaz eguin ezquero. Orduban gogo barriagaz asten da cristinauba paltaac guichituten ta gauza onac eguiten. Esan dirianentzat ta beste ascorentzat, ceintzubai esango deutseen euren compesore jaunac, da gauza ona compesinoe *general*a, guztiz preminacua izan ez arren. Baina beste batzubenentzat caltegarrija da. Ta entzun eguizu norentzat. 1540

III.

Eguzqui batec arguizarija bigundu eguiten dau, ta buztina liortu. Alan compesinoe *general*ac bere arima batzuc gozatuten ditu, bigunduten ditu ta ceruco gracijaren iruntz ederragaz samurtuten ditu, amodijo garbijaren prutubac aurrera emon daguijezan. Esanda gueratu da, nori onaco mesediac eguiten deutzazan compesinoe bateracuac. Baina beste arima batzubai, eguzquijac buztiniari eguiten deutzana, eguiten deutsee pecatu guztien era bateraco compesinoiac. Liortuten ditu, sicututen ditu ta leen dauquen gozo ta devocinoe pusquia bere quendu eguiten deutsee. 1550

(117) psalm. 24.

1423-1424 ez bada *Ba* 1536 vici eria *Ba* 1537 emon da *Ba* 1538 vici era *Ba* 1542
presta eria *Ba*

- Onacuac izaten dira, leenago pecatu guztien compesinoia batera euren ustez ondo eguin evenac, baina barriro dudaac ta quezcac compesinoien gainian artuten ditubeenac. ¿Eguin dozu bein edo birritan edo gueijagotan ceure vici guztico pecatuben compesinoia batera? ¿Juan zinian orduban compesetara, ceure arimia ondo [170] garbituteco ustiagaz ta aurrera pecatuti alde eguiteco gogo osuagaz? ¿Esan cenduzan pecatu guztia aibat ziatzen? ¿Amaitu cenduban compesinoe guztia ceure ta compesore jaunaren erichijan ondo?
- 1565 ¿Gueratu zinian ceure ustez arimaco baquiagaz? ¿Ez jatzun gaineco compesinoe batzubetan ecer gogoratu orduban esan bagaco pecaturic? ¿Edo gogoratu bajatzun, compesau cenduban barriro? ¿Ichi ceuntsen leenagoco pecatu lagunai, pecatuco ocasinoiai ta pecatuco ecandubai? Bada, au onan izan ezquero, ceindan compesinoe onaren senailia, ez da zuretzat ondo barriro vicitza guztico
- 1570 pecatubac compesetan ibiltia, dudaac eta quezcac etorri arren leengo compesinoiaren gainian. Zure dudaac dira: *Zeure pecatubac ondo compesau ete cenduzan edo ez cenduzan; compesoriac aitu ete eutsun, edo ez ete eutsun; damutu ete cinian edo ez ete cinian...* Bada, beste milla bidar eguingo bacendu bere, beste aibeste duda edo gueijago aguertuco lichaquezuz. Sinistu biar dozu
- 1575 etsajaren tentacinoiac diriala duda orreec; Jaungoicuac ez davela gura zu condenetia; zeugan zana leen eguin ezquero, gueijago ez deutsula escatuco; ta zuc compesoriariitsu itsuban obeidutia gura davela Jaungoico onac ta parcaizaliac. Au da Jaungoicuac aguinduten deuscuna. Onegaz gainera, compesinoe *generalac* eguiten ibiltia, norberaren baque charreraco ta calteraco da.
- 1580 Onetaricuen gacha da guztiz seguru jaquin gura izatia, ia pecatubac parcatu jacuezan edo ez. Au etsajaren tentacinoia da. Esaten jacue, bada, entzun daguijuela compesore jaquitun bati. Ta ac esaten deutseenagaz larga daguijuela [171] era batera leenagoco pecatu zaar parcatuta dagozanac compesetiari, nai badabee euren arimen baquia Bestelan ceibat gueijago erainago, aibat
- 1585 gueratuco dira dempora guichi barru naastubago, estubago ta chaarrago euren arimaco gaucetan. Beste uts eguite bat bere oi davee onetaricua. Ta da, leenago pecatubac ondo compesauta ete dagozan chito ardura andija ta barriro compesau guria bateti. Ta besteti, vicitcia obatuteco ta pecatubac guichituteco ardura guichi. Au chito gach andija da ta osatuten gacha. Larga, bada,
- 1590 leenguai Jaungoicuaren misericordijaren ta compesinoe eguindacuen azpijan. Ta contu orain pecatu chicarric bere ez eguiteco ezauberaz ta ecanduz. Miina ixilago, veguijac ichijago, belarrijac batubago, pausubac zucenago, escubac biartsubago ta pobrentzat zabalago, vijotza zintzuago, samurrago ta Jaungoicuagana prestago. Au da alaco cristinaubac eguin biar daveena.
- 1595 Gogoratu bada, neure entzula onac, norentzat dan biarrecua ta nora ececuca pecatu guztia era batera compesetia; norentzat dan gauza ona; ta noren-

tzat caltegarrija. Escatu daijogun Jesus maitiari bialdu daigula bere gracia santuba, compesinoeco sacramentu santuban gueure arimac garbituteco. Emon daigula bere vicitza ta erijotza penazcua gaiti, gueure pecatuben ezauberia ta damu eguijazcua. Baita ondo compesetaco laguntasuna bere. Eguin daigun 1600 gueugan dana, cristinaubac. Ta ez deuscu ucatuco Jesusec bere gracia, ceinegaz jadichico dogun betico ceruco glorija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

[172]

VIII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan: 1605

1. *Ce premina andicua dan gueure gorputzac peneetia.*
2. *Celan penau dituben cristinau ascoc.*

Penitencijaco sacramentubaren amaijan eracutsi gura deuscut, neure entzula onac, aguirico pena artutiari jagocana. Oni esaten jaco, *aguirico penitencia* - ja. Ezin ucatu guinai, uts eguite asco daucaguzana gueure arimaco gaucetan. 1610 Jaungoicuac aguinduten deuscu arimiari contu eguiteco. Ta gorputzaren aimbeste ardura ez artuteco. Baina bestera Jaungoicuac esan baleuscu bere, eguiten dogun baino asco gueijago eguingo ez guenduque. ¿Cer eguiten dogu gueure arimia gaiti? ¿Ta cer eguiten ez dogu guere gorputzac ondo euquiteco? Au ceubec daquizu, nic esan bagaric. Icusi daigun, bada: 1. *Ce preminia dau* - 1615 *cagun gueure gorputzac peniagaz ondo eziteco.* 2. *Celan ezi dituben cristinau ascoc.* Emeti ezautuco dogu gueu cer garian edo cer ez garian. Zurtu zaitte, cristinaubac, aimbat gogoric oneenagaz entzuteco verba bat bere uts eguin bagaric.

I.

1620

Jesucristo gueure Jaunac esaten deuscu, neure entzula onac, bere evangelijo santuban (118): *Inoc etorri gura badau nire ondoric, artu begui bere curu - tzia ta jarraitu beit* . Curutziaaren ta peniaren videti dei eguiten deuscu Jesusec

(118) Luc. c. 9.

- 1625 beragana. *San Juan Bautistaren demporati* , dino Jesucristoc beste lecu baten (119), *ceruban sartu* -[173]*co danac peliau biar dau* . Peliau biar dogu gueure gorputceco gurarijen contra. Peliau biar dogu ta goitu biar ditugu gueure beguijac, gauza deungaric icusi ez daguijen. Goitu biar dogu guere miina, gauza chaaric esan ez daguijan. Baita belaarrijac bere, pecatu dan gauzaric
- 1630 atseguinez entzun ez daguijen. Baita aua ta sabela bere, jan edan gozuaquin ta laarreguijac arimiari calte eguin ez daguijuen. Baita gueure gorputza bere, araguijac espirituba goitu ez daigun. Onetaraco armac dira bacartasuna, jantzi latza, cilicijua, azotia, baruba, lo guichija, oe gogorra, janari mingocha, gosia ta egarrija. Ta guztia Jesusen icenian. Miina isilic, veguijac luurrian, gogua ceruban edo bildurrez impernuban, vijotza Jaungoicuagan, pecatubac gomutan, erijotcia goguan ta aleguinaz norbera bacarrian. Oneec dira gorputza eziteco ta neurri santura ecarteco arma eguijazcuac. Eurac emoten davee Jaungoicuaren amodijua, pecatubaren gorrotua, impernubaren bildurra, munduba aintzat ez euquitia ta gorputza arerijotzat artutia.
- 1640 Pena iragote au escatuten deutsa pecataritari Jaungoicuac Joel propeta santubaren aoti¹³⁴. Au berau ninivetarren jazuagaz¹³⁵. Au berau Nabucodo[no]soren pena iragotiagaz¹³⁶ ta beste onaco millagaz. Diabruba, munduba ta arag[ul]ija dira arimiaren arerijua. Iruretati leunena, lavenena, lotsa gaistocuena, gue[ul]gaz beti daguana, pecatuzco escaari gueijen eguiten deuscuna, pecatuzco escaari
- 1645 gueijen eguiten deuscuna, sarrijen goituten gaitubana ta inos bere ondo goitu ezin doguna da araguija edo gorputza. Gorputzari¹³⁷ naija eguitia da arerijua echian aztia. Gorputzari naijac eguitia da arimia gorputzaren [174] crijadu eguitia. Gorputza luurra da ta arimia espirituba. Gorputza illcorra da ta arimia vizzorra¹³⁸. Bada, gorputzac egon biar dau beti arimiaren aguinduban. Gorputza
- 1650 ecarri biar dogu, nai ezian bada bere, arimiaren naija eguitera. Alan ecarten evan san Paulo apostolubac. Ta dino (120): *Castiguetan dot neure gorputza, ezten dot peniagaz ta nai davena eguiten ichi ezagaz ta ecarten dot neur e escupera ta aguindura* . *Et in servidutem redigo* Gorputza maite davena ta gorputzari naijac beti eguiteco gogua daucana, ez da inos bere izango
- 1655 Jaungoicuaren adisquidia. Dinot, veguijai, belarriaji, miinari, sabelari, auari ta

 (119) Matth. c. 11. (120) 1. Cor. c. 9.

1640 Penairagote *Ba* 1642 penairagotiagaz *Ba* 1652 ezteidot *Ba*

¹³⁴ Ik. Jl 1,13-14.

¹³⁵ Ik. Jon 3,1-10.

¹³⁶ Dn 3,24-30eko testuaz ariko da, beharbada..

¹³⁷ "Gorputzari naija eguitia" dio, eta ez "gorputzaren naija eguitia"...

¹³⁸ "Viczor": bere izaeraz bizitzekoa dena, heriotzaren mende ez dena; ("hilkor" hitzaren antonimoa da).

araguijari naijac eguiteco contu andija daucana, ez dala Jesusen esolauba. Dinot, gorputzari pena chiqui bat bere Jesusen icenian emon gura ez deustana, ez dala Jesusen adisquide andija. Ez dago, bada, dudaric, neure cristinaubac, goituco badogu aragui gaisto ta lotsa guichico au, peniagaz ta penagarri- 1660 jagaz ezi biar dogu, arimiaren aguindura ecarri artian. Alan eguin davee ascoc. Ta entzun eguizu, cetaraguino.

II.

Bai, cristinaubac. Ez daquit celan bat eguingo ditugun gueure epeltasuna ta gueure gorputzen ondo gura laarreguija, cristinau ascoren euren naizco 1665 penitencija icaragarrijaquin. Entzun ta beste bagaric icara eraguiten deutsee gueure vijotz macalari ta penia iragoteco gogo chiquijari. Ez dot ecer esango araco ceubec gauza guichitzat ta descuidotzat daucazuzan ta sarri eguiten dituzun pecatubac gaiti Eleisiac pecatarijai iminten eutsezan penitencija [175] lucen ta garratzen gainian. Araco eleisaco atetan, barrura sartutia eragotzita, auspaz 1670 luurrian jarrita, soca bat samati lotuta, urte ascotan egotiac. Ur ta ogui iru, lau, sei ta zazpi urtian barau eguitiac. Autsez buruba estalduta, erropa zaarrac jantzita, negarrez gentiari parcacinoia escatuten lecu aguirijan urte luceetan egotiac. Onetarico aguirico penitencijac edo penagarrijac iminten jacuezan leen pecatarijai. Ta ez euan inoc uste laarregui zanic, gueure pecatuben zorra 1675 paguetaco. ¡Oh, ce urrin gagozan areetati!

Beste guztien artian, Jesus maitiac eracutsi euscun curutce santan ta vizitza guztian gueure gorputzac penetan. Ama Virginia guztiz onac ez euan pecatu chiqui bat bere eguin. Baina peniaren ta curutziaren videti juan zan cerura. Adan guztion aitac bederatzireun urteco peniagaz pagau euan bere pecatubaren zorra¹³⁹. David penadunac autzagaz buruba estalduta, cilicjuagaz gorputza 1680 lotuta, negarragaz oe baztarra bustita, escatuten eutsan Jaungoicuari bere pecatubaren parcacinoia¹⁴⁰. San Pedro apostolubac bein eguin euan pecatu¹⁴¹. Ta

1667 Ezdot *Ba* 1679 juanzan *Ba*

¹³⁹ Ik. Has 5,3-5: Adamek 130 zituen Set jaio zenean, eta gero beste 800 urtean bizi izan zen, hau da, guztiz 930 urte... Honela dator Vulgatan eta oraintsuko hainbat itzulpenetan; hala ere euskarazko *Elizen arteko Bibliak* kontu hauek egiten ditu: 130 + 800, "guztira bederatziehun urte". Jakina denez, Biblian zenbakiak hainbat arazo sortzen dizkigute: alde batetik, zenbakiak letrak dira hebreeraz, eta bestetik, kontatzeko sistema ere nahiko berezia da, zenbaki batzuk sinbolismoz beterik daudelako hebreeraz... Honek guztionek eragozpenak dakartza gauzak izatez nola diren zehatz jakiteko. Gaur egun ere, zenbakien arazo exegetikoa oraindik argitu gabe dago... Ikusi, adibidez, Cornelio a Lapide-ren iruzkin bitxiak, Bartolomerentzat ezagunak izango zirenak (*Commentaria in Pentateuchum Mosis* ..., Lugduni, 1732, 78-79. or.).

¹⁴⁰ Ik. 2Sm 12,13-17; 24,10-17.

¹⁴¹ Ik. Mt 26,69-75; Mk 14,66-72; Lk 22,56-62; Jn 18,15-18.25-27.

1685 vizitza guztian penau euan bere gorputza penagarri guztiaquin ta negar min-
gochaquin. Jaquina da Madalenac¹⁴², san Pauloc¹⁴³ ta beste pecatari ascoc cer
irago eueen Jesusen icenian.

1690 ¡Ah, pecatarijac!, engainauta vizi zara, gorputzaren naijetati ta era onetati
cerura juango zariala uste dozunian. Ez zan amaitu penitencija aguiricua apos-
tolubun demporiagaz. Jesusec beti daucaz curutziaren adisquidiac bere Eleisa
santan. Dei eguin daguijogun san Juan [176] Climacori. Ta entzun daguijogun,
ia cer esaten deuscun bere demporaco penadunac gaiti. Esnaatu zaitte, cristi-
naubac, entzuteco edola bere. Ez deusat verba bat bere gueituco. Dino, bada,
Santubac (121):

1695 “Etorri zaitte lecu batera pecatu eguin dozun guztio. Ta entzun eguizu.
Neuc contauc deusudaz ceuben oneraco, Jaungoicuac nire arimiari eracutsi
deutsazan gauza andijac. Imini daiguzan lecuric ondraubenian ta onenian,
euren naiz ta gustoz Jesusen crijadu humilden vizi moduba artu eueen guizon
veneragarrijen penazco eguitiac. Entzun daigun, veguiratu daijegun. Ta denda-
tu gaitzezan pecatu eguin dogunoc, euren penazco vizitziari jarraitutera. Jagui
1700 zaitte ta jarri zaitte, pecatubun jausita zagozan guztio. Jaungoicuagana benetan
viurtu gura dozun guztio, entzun eguizuz ene verbac chito contu andijagaz.

1705 Bada nic, ontasun bagaco pobri onec, entzun nevanian *carcelia* esaten
jacion comentuco prailiac eguiten zitubeela arrigarrizco penitencijac, erregutu
neutsan aren urrian eguan beste comentuco *nausi* veneragarri bati, eruan nen-
guijala *carcelia* erichon comentura, an cer iragoten zan icustera. Ta nire naija
eguitiarren eruan ninduban. Bada, ni eldu nintzanian comentu atara, edo obeto
esateco, negar lecura, icusi nituban bene benetan, onan esatia ondo bada,
alperren veguijac inos icusi ez ditubeenac; buruguinen belarriac inos entzun ez
ditubeenac; ta naguijen vijotzera inos eldu ez dirian gauzaac. Entzun nituban,
1710 dinot, Jaun-[177]goicuari indarra eguiteco, ta bere misericordija laster ecarteco
asco dirian verbaac, eguitiac ta gauza indartsubac. Bada, icusi nituban an, ba-
tzuc gau guztian iruntcetan egozala, loric eguin bagaric. Loguria jatorcuenian,
armetan cirian luaren contra, gorputzari atseetan ichi bagaric. Asarratuten cirian
gorpuzaren contra, zutinduten cirian ta pena andijagaz ceruruz beguiratuta,
1715 lagunac esnaatuteco terciujoco *aijaquin* Jaungoicuari parcacinoia escatuten eu-
tseen.

Beste batzuc icusi nituban, presuac leguez escubac espaldetara lotuta,
euren arpegui sicubac ta oritubac luurrera botata, oracinoian egozala. Ta esa-

(121) Escal espirit., Escal., 5. de penit.

1691 ia] ya *Ba* 1699-1700 Jaguizaitte *Ba* | jarrizaitte *Ba* 1706 eldunintzanian *Ba*

¹⁴² Ik. *Euscal-errijetaco*... 73.oharra (484.or.).

¹⁴³ Ik. *Euscal-errijetaco*... 71.oharra (484.or.).

ten eveela diadarca, ez eveela merecietan ez cerura beguiratutia, ez Jaungoicua- 1720
 cuagaz verba eguitia; ez equijela ez cetati asi, ez celan Jaungoicuari erregutu
 euren concienzia naastauba gaiti. Beste batzuc icusi nituban luurraren gainian
 jarrita, arpeguijac autsez estalduta, gorputzac cilicijoz lotuta, burubac belaun
 artian sartuta, becoquijagaz luurra jotene eveela. Beste batzuc icusi nituban zuz- 1725
 piruca beti bularrac jotene ciardubeela, arimia gorputceti ateraten eveela esan
 euquian tercijuan. Oneen artian batzuc beegozan, negar malcuaquin luurra
 bustiten evenenac. Beste batzuc, negarric eguiten ez eveelaco, zainga¹⁴⁴ ta penaz
 egozanac. Oneetati ascoc negar andijac eguiten citubeen, vijotceco penia cabi-
 du ezinda, adisquide baten enterruban eguin oi dirian leguez.

Beste batzuc egozan peniaren penaz ta damubaren damuz, betibee ustez 1730
 uste bagaco [178] zuzpiru ta diadar andijac eguiten zitubeenac. Euren vijotz
 tristia ondo eracusten evenenac. Iкуси nituban an batzuc, euren vici modubari
 beguiratu ezquero, vici ciriala baino illda egozala ta senic ez euquela obeto
 cirurijenac. Humildadez luurra jota, negarrez sicutata, tristetuta egozanac. Beste
 batzuc icusi nituban, luurrian jarrita, veguijac beera eratsita, burubari gora ta 1735
 beera eraguiten eutseela ta betibee leoiaren moduco orroe tristiciac vijotzaren
 erdi erditi ateraten citubeela. Oneen artian batzuc uste osuagaz escatuten eu-
 tseen Jaungoicuari euren pecatuben parcacinoia. Beste batzuc esaten even
 eguijazco ezauberiagaz, ez eveela merecietan pecatuben parcacinoia ta ez
 ciriala asco Jaungoicuari contu emoteco. Beste batzuc escatuten eutseen 1740
 Jaungoicuari, penau ta castigau eguzala emen ta parcatu eguijuela guero.
 Beste batzuc beegozan euren pecatuben damubac ta gomutiac erasoten eutse-
 enac, asco zala eurentzat impurnura ez juatia, cerura juan ez arren, izan al
 baleiteque. An icusi nituban arima asco damututa, garbatuta, peniaren pisuba-
 gaz achac ta arrijac bigunduteco verbac Jaungoicuari esaten... 1745

An icusico cenduzan, neure entzula maitiac, David erreguiaren verbac
 oinian iminita. Icusico cenduzan guizon batzuc penaz ta penagarriz estalduta,
 beti macurtuta lurrera beguira evizala. Euren gorputcetati atsa botetan eveela.
 Araguijac casic erdi ustelduta euqueezala. Ta gorputzaren onari beguiratuten 1750
 ez eutseela. Batzubetan aaztuten jacuen ogui copau bat jatia. Beste ascotan au-
 tsagaz naastetan [179] even jaten even copauban; ta negar malcuaquin goza-
 tuten even edaarija, cein zan ur utsa. Azalac azurrai oratuta euqueezan ta
 eurac bere sicutata euqueezan, elbitza leguez. Ez cenduban an entzungo verba
 oneec baino besteric: ¡Ai! ¡Ai! ¡Ai! ¡Nire errucarrija! ¡Nire errucarrija! ¡Neuc mere-
 cidu! ¡Neuc mercedu! ¡Parcatu, Jauna! ¡Parcatu, Jauna! Areen artian asco icusi- 1755

1729 oidirian *Ba* 1743-1744 albaleiteque *Ba*

¹⁴⁴ "Zainga": intzirika.

co cenduzan miina campora aterata, chacur egarrija leguez. Beste batzuc eguz-
 quijaren galdaan erreetan, alde eguin gura ezda. Beste batzuc otzac iragota,
 izoztuta. Beste batzuc guztiz ez sicutia gaiti, nosbait ur tanta bat artuten eve-
 1760 eela ta probau orduco egarriagaz edaatiari isten eutseela. Beste batzuc sartuten
 evene auan ogui copauba ta ez evene jaten, ganaduba leguez vici izan zanc
 guizonen janarija artu biar ez evala, esanda.

¿Oneen artian ce lecu euquico evan barriac, verba premina baguiac, gorro-
 tuac eta odijuac?... ¿Nun eguan an errietia ta propijia¹⁴⁵? ¿Nun olguetia? ¿Nun
 uste alperra? ¿Nun gorputzaren arduria ta erregaluba? ¿Nun munduco gusto ta
 1765 atseguinen naija? ¿Nun ardauren gomutia? ¿Nun lapico egosija? ¡Ah! onaco
 gauzac ondo aaztuta vici cirian. Inos gogoratuteuco usteric bere ez euqueen.
 ¿Baina ardura emogo ete deutsee munduco contubac? ¿Ete daquije comentu
 atan, lagunac deungatzat euquitia cer dan? ¡Ah! ez da bapere onaco gauzaric.
 Ez cenduban an icusico oracinoia ta Jaungoicuari dei eguitia baino. Batzuc
 1770 beegozan, ya ceruco ateetan balegoz leguez, Jaun-[180]goicuari esaten eutsee-
 nac: *Edegui eguiguzu, Jaun erruquiorra, gueuc gueure pecatubaquin ichi
 guenduban ate au*. Beste batzuc esaten evene: *Aguertu, Jauna, erijotziaren
 illunian dagozan triste onei*. Beste batzuc: *¡Euquico ete dau Jaungoicuac
 gugaz misericordija! ¡Viurtuco ete gaitu bere argui santura! ¡Cer izango ete da*
 1775 *gugaz! ¡Ce sentencija entzungo ete dogu bere aoti! ¡Aurreraturen ete dogu ecer
 onan! ¡Entzungo ete deuscu Jaungoicuac! ¡Noc daqui, bada*, erantzuten eutse-
 en bestiac, *ninivetarrac esan evene leguez, Jaungoicuac aldatuco badau ber e
 setencija, ta gueratuco badau gure contra daucan azotia. Eguin daigun gueu
 gan dana... Parcazailia ta ona da Jaungoicua... Gueu ez gaitezcan descuidau
 1780 vici garian artian... Ta ceruco atia edeten ¹⁴⁶ badeuscu, izan dedilla ordu
 onian. Ta edeten ez badeuscu bere, izan dedilla ondo esana, jasua ta bedein
 catuba bere icen santuba....*

Onan alcar animetan evene penadun¹⁴⁷ areec. Betico belaunvico egonagaz,
 gaillubac eguinda euquezan belaunetan. Betico negarragaz veguijac euquezan
 1785 barrura sartuta, vetuliac jausita, matrellac gorrituta, erreta negarragaz, arpegui-
 jac sicutata, orituta ta bularrac colpeca zaurituta. Batzuc aoti chistubagaz odola
 botetan eveela. ¿Nun eguan emen oe bigunaren ta jantzi leunaren arduria ta
 naija? Guztia zan urratuba, zatituba, loituba, zorriz betia ta pobria...”

Ara, neure entzula onac, san Juan Climacoc iminten deuscun penadun
 1790 eguijazcuen ispilluba. Berac icusija ta berac entzuna. Mon-[181]ge edo praile

1757 ez da *Ba* 1758 nos bait *Ba* 1760 izanzanac *Ba* 1770 ya| ija *Ba* 1771-1772
 ichigenduban *Ba*

¹⁴⁵ “Propijia”: lehia, gaztelaniazko “porfia”.

¹⁴⁶ Partizipioa *edegui* baina aditz-izena *edete*

¹⁴⁷ “Penadun”: penitentea, penitentzia egiten duena.

aretati asco zirian, gaztetan combentuban sartu cirianac. Menturaz inos bere pecatu illgarri bat eguin ez evenac. Beste asco ogueta amar, berrogueta amar edo irudogueta amar urtian edo gueijaguan alan vici cirianac. Ta guztiac gueuc baino pecatu guichiago eguingo evenac. Alan bere entzun dozu ce penagarrijac emoten eutseezan euren gorputzai. Ta ez sinistu euraquin amatau zala peneen ta penagarrijen naija. Bada, beticua da pecatarijarentzat penia artu bira. Santa Pelagiaren toqui atsituba¹⁴⁸, santa Maria Egitocuaren baso bacarra¹⁴⁹, santa Taisen orma arte estuba¹⁵⁰, santa Babilasen torria¹⁵¹, san Agustinen negarezco *aijac*¹⁵², san Geronimoren bularreco arrizco colpiac¹⁵³, san Pranciscubaren autsac ta cilicijuc¹⁵⁴, santa Madalena Paciscuaren¹⁵⁵ ta san Luis

1795

1800

¹⁴⁸ Santa Pelagia, (Ik. *Euscal-errijetaco...*, 74.oharra (484.or.).

Pelagiaren penitentzi bizitzako gorabeherak, Frai Bartolomek, Petrus Ribadeneiraren liburuan irakurriko zituen, beharbada: *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2.t. Coloniae Agrippinae, 1700, 306.or.

¹⁴⁹ Santa Maria Egipciana, Ik. *Euscal-errijetaco...* 77.oharra (487.or.). Honek 47 urte baino gehiagoan egin zuen eremutar-bizitza, ondorengo liburu honetan irakurri zezakeen Frai Bartolomek: *Vitæ Patrum.. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 296.or. Bakardadeko bizitza honi dagokion ikonografia, batez ere S. Zosimas abadearekin, honako liburu honetan ikus daiteke: K. KUNZE, *Maria Agyptiaca*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie*, 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 507-511).

¹⁵⁰ Santa Thais, Ik. *Euscal-errijetaco...* 75.oharra (484.or.). Gela bateko horma artean itxita egoteaz dakarren zertzelada hori, Frai Bartolomek, liburu honetan irakurri zezakeen: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi...*, Lugduni, 1617, 286.or.

¹⁵¹ "Santa Babilasen torria"; ez dakigu ez nortaz, ez zertaz ari den. *Basila* izango da *Babilaren* ordeztu? Hala balitz, obra honetan kontatzen den martiritza izan liteke: *Vitæ Patrum. (De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam completentes... opera et studio Heriberti Rosweydi...*, Lugduni, 1617, 264-265); Santa Eugenia eta Santa Basilaren martiritza dator; kontakizun horretan Santa Eugenia kartzelan egon zen; burua moztu zieten bie.

Edota Antioquiako apezpiku "San Babilas" martiriaren ari ote da, bada?

¹⁵² San Agustín (Ik. *Euscal-errijetaco...*, 62.oharra, 483.or.). Beharbada, Frai Bartolomek, *Confesiones* liburu kapitulu bat baino gehiago izango du gogoan, esaterako, lehen liburuaren hasierako kapituluak (PL, Migne, 32, 661-665).

¹⁵³ San Jeronimo (Ik. *Euscal-errijetaco...*, 78.oharra, 483.or.).

San Jeronimoren penitentzi bizitzako zertzelada hori, Frai Bartolomek, Petrus Ribadeneiraren liburu honetan irakurri zezakeen: *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 480.or. Baina herrian hain ezaguna zen haren ikonografia ere gogoan izango zuen, beharbada (esaterako, esku batean gurutzeta eta bestean harria dueneko, berarekin bularra jotzera balihoa bezala), obra honetan ikusten denez: R. MIEHE, *Hieronymus*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 6.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 519-530).

¹⁵⁴ San Frantzisko Asiskoa (Ik. *Icas-Iko* 105. oharra, 951.or.). Honen penitentzi bizitzari buruzkoa (ez Frai Bartolomek dakarren bezala, berezitasunez betea) Petrus Ribadeneiraren liburu honetan irakurri zezakeen: *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 495-496.or. Baina Frai Bartolomek gogoan izango zuen, beharbada, San Frantzisko penitentearen ikonografia ere (San Frantzisko estigmatizatuarena ezagunagoa bada ere), liburu honetan irakurri

Gonzagacuaren barubac¹⁵⁶, san Pedro Alcantaracuaren otz, beruac ta gose egarriac¹⁵⁷ ta ene Ama santa Teresaren¹⁵⁸ ta Aita san Juan Curutcecuaren *ill edo penau*, ta *penau ta vildu*¹⁵⁹, astiro goguan iragoten ditubanac ezautuco dau,

daitekeenez: Gerlach van 's-HERTOGENBOSCH, *Franz (Franziskus) von Assisi*, in: O. SCHMUCKI - E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 6.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 259-315).

¹⁵⁵ Santa Maria Magdalena de Pazzi (Ik. *Icas-II*-ko 308. oharra, 1083.or.). Liburu honetan irakur zitzakeen Frai Bartolomek Maria Magdalena Pazzikoaren baraualdia: DANIELIS A VIRGINE MARIA, *Speculum Carmelitanum* ... 2. t., Antverpiæ, 1680, 446. or.

¹⁵⁶ San Luis Gonzagakoa (Ik. *Icas-II*-ko 107. oharra, 951.or.). Santuaren baraualdiei buruz, Frai Bartolomek, liburu honetan irakur zezakeen: Virgilio CEPARI, *Vida de S.Luis Gonzaga de la Compañía de Jesús*, Pamplona, 1753, 48. or.

¹⁵⁷ San Pedro Alcantarakoa (1499-1562); ikasketak egin ondoren (1513-1515) Los Majarete-n sartu zen, eta han komentuko nagusi zen 1519an. 1524an apaiz egin zen; 1525. urteaz gero hainbat komentutako nagusi izan zen. 1532tik 1538ra bitartean bakardadean bizi izan zen; 1538an probintzial hautatu zuten. Eta 1542 inguruan bere Ordena erreformatzeari ekin zion, bakardadean zela; lehen komentu berriztatua fundatu zuen Pedroson; eta 1556an, erreformaturiko komentu guztien komisari jenerala izan zen... Penitentziatzko gizona izan zen, pobretasuna benetan maite zuena eta otoitzari eta kontenplazioari emana. Oso ospetsua izan zen *Tratado de la oración y meditación* izeneko haren lana eta hainbeste argitaraldi izan zituen (ik. R. BÄUMER, *Petrus v. Alcántara*, LThK 8 (1986) 330-331).

Frai Bartolomek ongi ezagutzen zituen haren penitentzia handiak santa Teresaren testuetatik (*Vida* 27, 16-19), honek pasarte bikainak baititu san Pedro Alcantarakoari buruz; honako hau, adibidez: "Este santo hombre de este mundo era; estaba grueso el espíritu como en los otros tiempos, y así tenía el mundo debajo de los pies; que, aunque no anden desnudos ni hagan tan áspera penitencia como él (...) parecemos fueron cuarenta años los que me dijo había dormido sola hora y media entre noche y día, y que éste era el mayor trabajo de penitencia que había tenido en los principios de vencer el sueño, y para esto estaba siempre o de rodillas o en pie. Lo que dormía era sentado, y la cabeza arrimada a un maderillo que tenía hincado en la pared. Echado, aunque quisiera, no podía, porque su celda -como se sabe-, no era más larga de cuatro pies y medio. En todos estos años jamás se puso la capilla, por grandes soles y aguas que hiciese, ni cosa en los pies, ni vestido sino un hábito de sayal, sin ninguna otra cosa sobre las carnes, y éste tan angosto como se podía sufrir, y un mantillo de lo mismo encima. Decíame que en los grandes fríos se le quitaba, y dejaba la puerta y ventanilla abierta de la celda para, con ponerse después el manto y cerrar la puerta, contentaba el cuerpo, para que sosegase con más abrigo. Comer a tercer día era muy ordinario. (...) Mas era muy viejo cuando le vine a conocer y tan extrema su flaqueza, que no parecía sino hecho de raíces de árboles".

¹⁵⁸ Ik. *Icas-II*ko 366, 395-397.oharrak (1097, 1105-1106.or.).

¹⁵⁹ San Joan Gurutzekoak Kristori zuzendutako esaldi ospetsua hauxe zen: *padercer y ser despreciado por tí* San Joan Gurutzekoaren gaztelaniazko esaldi hori *penau ta vildu* itzuli du Frai Bartolomek; pixka bat harritzen gaitu *vildu* idatzi izanak, ustez ez baitu horrek adierazten Avilako santuaren pentsamendua; "umildu" izan zitekeela pentsatu genuen, baina bere horretan utzi dugu...

San Joan Gurutzekoa (1542-1591), Gonzalo de Yepes eta Catalina Alvarez-en semea; bi urte zituala hil zitzaion aita, eta haurtzaroan eta gaztaroan pobretasun gorrian bizi izan zen; hala ere, Medina del Campoko Jesulagunetan ikasteko aukera izan zuen. Joanen ezaugarri berarizkoa Jainkoaren bilaketa etengabea izan zen. Batetik eta bestetik dei ugari izan arren, 1563an, Medina

Jesusen icenian gorputzari guerra eguitia ta penagarriac emotia dala ceruraco vidia. 1805

Lotsatu bedi, bada, pecatari alperra, naguija ta buruguina. Lotsatu bedi pecatu andi ascogaz sengarri guztiac loituta, atsituta, ustelduta daucazan gorputz luurrezcuari naijac eguiten ta gustuac emoten davilen pecatarija. Lotsatu bedi, icaratu bedi ta bildurtu bedi, esan dirian penadunen albuan bere burubari beguiratuta. ¡Oh, ce urrin dagozan onaco pecatarijac ceruraco vide zuceneti! Oneen ardura nausija da, pecatu asco eguin daven gorputzari aleguinaz ondo [182] contu eguitia; aimbat penaric guchienagaz euquitia; ta aimbat bigunen euren gorputzac artutia. Esan legui san Paulo apostolubagaz (122), pecatari ascoren Jaungoicua gorputza ta sabela dala. Bigar edo etzi eguin biar daveen baru batec, gaurti bildurtuten ditu. Gau bat inori mesede eguiteco galdu biar badavee, uste davee gacha sartuco jacuela. Janarija badago gazijago edo gaza- go, goxago edo berandubago, echeco gente guztia airian darabilee. Barre eguiteco gauzac esaten ez badira, verba aldiac cantsetan ditu. Olgueta bagaco egun bat iragoten bajacue, urte bete eguiten jacue. Aixé otz bat sentiduten badavee, edo jantzija gueitu, edo su ondora, edo eguzquiya artutera. Bero badago, queizara, aleguiinaz. Icusgarri edo entzungarri aleguere bat edo jan edan on bat iragoten bajacue eurac parte izan bagaric, gaineco egunetaco penia edo inoren gorrotua, gusto axe veguijai edo belaarrijai edo sabelari emon ez eutseelaco. Demporia ondo iragoco badavee, cantia edo soinuba, dantzia edo pandangua, jana edo edana, adisquide maitia edo pasia biar davee. Gach bat Jaungoicuc bialduten badeutsee euren oneraco, purijia, asarria ta suba darijue. Soluan, basuan edo echian biar cansau bat edo nequedun bat eguiten badabee, nora ecian ta besteric ezin daveelaco. Gosiaren edo egarrijaren pusca bat iragoten badavee, edo ez dauquelaco edo gorde gura daveelaco penaz dagoz gorputzari gusto axe emon ez deuselaco edo ezin deutselaco... 1810 1815 1820 1825 1830

 (122) Philip. c. 3.

del Campoko Santa Anako karmeldarren nobiziaduan sartu zen. Salamancako unibertsitatean egin zituen filosofia eta teologiako ikasketak. 1567an egin zen apaiz. 1568an santa Teresak bere karmeldar fraideen fundazio berriei hasiera emateko hartu zuen. Harrezkero, haren bizitza santa Teresak hasi zuen karmeldar biziera berriari loturik izango da oso-osoan... Erreforma teresiarrak izan zituen une larri batzuetan gorriak ikusi zituen, kartzela eta jazarpenak igaro beharra izanik... (1577-1578). Karmeldar teresiarren artean kargu garrantzitsuak izan zituen, baina haren berarizko jarduera lekaike nahiz fraideen komunitateetan gidari espirituala izatea zen... eta otoitz-bizitzari emanda bizi izatea... Ubedan hil zen, Ameriketara joatekotan zela. Liburu miresgarriak idatzituen, bai literatura edo arte aldetik (poesia lirikoaren gailurra lortuz) eta bai teologia eta mistika aldetik ere: *Subida del Monte Carmela*, *Noche oscura*, *Cántico Espiritual*; *Llama de amor viva*, etab.

1835 ¿Nos amaitu baina sail au, cristinaubac? [183] Pecatarijen gogua, pecatarijen
 naija bada gauza ederrac icustia, alegueriac entzutia, gozuac jaatia ta edaatia,
 bigunac janztia, leunac erabiltia, sabela betetia, egarriric ez euquitia, lo ondo
 eguitia, otzac ez icututia, beruac ez iragotia, minic ez artutia, nequeric ez ira-
 1840 gotia, olgueta asco euquitia, adisquide maitiaquin ibiltia, ondo atseenda ego-
 tia... edo verba baten esateco, inos penau bagaric beti bere erara gorputz peca-
 tuguina ta ustelcorra gordetia. Au eguin ezquero uste davee pecatarijac, beste
 1845 ¿celan bat eguingo davee araguzco vicitza au, naita ececo penitencijagaz?
 ¿Celan bat eguingo davee arguija illunagaz? ¿Guzurra eguijagaz? ¿Gracija peca-
 tubagaz? ¿Vicitza araguzcua olgantzazcua ta gustozcua penitencijazcuagaz,
 1850 damuzcuagaz, penazcuagaz ta negarrezcuagaz? Ecelan bere ez. Bata da vide
 1855 nasajja, zabala, pecatuzcua ta impurnuracua. Ta bestia zucena, penazcua,
 curutcezcua, ta ceruracua.

Beguiratu daigun bada, cristinaubac, cein videtati guazan. Bildurtu ta ica-
 ratu gaitazan gueure pecatuben zor andijaquin ta penitencija chiquijagaz edo
 bapere ezagaz. Artu daigun gueure gorputzen gorroto santuba. Esan daigun
 1850 san Luis Beltranegaz edo san Juan Climacoc icusi cituban praile santubaquin:
hic seca, hic ure. Hic non parcas, ut in æternum parcas. Betoz nigana, Jauna,
 gach eta penagarri guztiac emen. Ez eguidazu, Jauna, emen parcatu ta parca-
 tu eguidazu guero. ¡Oh Jesus, penadun nausija, emon eguiguzu, bada, ceure
 argui santuba, eguin [184] daiguzan penitencija eguijazcuaren prutu gozuac,
 1855 ceinen sarija dan betico ceruco gloriija. Nic zubei opa deutsudana. Aitiaren,
 Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

COMUNINOECO SACRAMENTUBA

Accipite, et manducate: hoc est Corpus meum... Hic calix novum testamentum est in meo Sanguine: Hoc facite, quotiescumque bibetis...

S. Paulo I. ad Corint c. II.

5

*Artu eguizu ta jan eguizu; neure gorputza da au.... Caliza one -
tan dago neure odola; neugaz gomutauco zara, au edaten dozun
guztian.*

Id. ibid.

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan comuninoeco sacramentuba.*
2. *Ce icenegaz aituten emoten dan.*
3. *Nos ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac sacramentu au.*

Eleisaco sacramentu santuben artian batzuc contetan davee comuninoeco sacramentuba irugarren lecuban. Baina comulguetara orduco dan leguez pecatubagaz garbatutia ta al dedinian compesetia, au gaiti imini dot irugarren lecuban compesinoeco sacramentuba. Ta ari darrai-[185]co laugarren lecuban comuninoeco sacramentuba eracustia. 15

Sacramentu santu onetan guztia da chito altuba, chito andija ta chito ezcutucia. Veguijac ichi biar ditugu, adina lotu biar dogu ta belaarriyac zurtu biar ditugu, comuninoeco sacramentu santubaren gainian verba eguiteco ta entzuteco. Bada, veguijaquin icusi ezin guinaiz sacramentu onetan Jaungoicuac ichi deuscuzan ondasunac. Adinagaz bere aitu ezin guinaiz. Bada, dira guizonaren aitute guztia baino goragocuac. Belaarriyac zurtuta, Jaungoicuari entzunda daquizuz, gueuc icusita ta gueuc aituta baino ciurrago, arguiruago ta zalago. Jesucristo gueure Jaunac esaten deuscu, bada, comuninoeco sacramentubaren gainian: *Artu eguizu ta jan eguizu; au da neure gorputza... Artu eguizu ta edan eguizu; au da neure odola; edaten dozun guztian, gogoratuco dozu neure erijotzia*. Au da sacramentu nausija. Au da ontasun, gracia ta doe guztien iturri vizija. Sacramentu onetan dago JESUCRISTO Jaungoico ta guizon eguijazcua viziric. Aita Beticuaren Seme eguijazcua, gu salvetia gaiti, Ama virginiaren erraia garbijetan guizon eguin zana, gueure artian munduban vizi izan zana, curutce santan josita ill zana ta illen arteti viztuta cerubetan bere Aitiaren alde escuman¹⁶⁰ jarrita daguana da, comuninoeco sacramentuban janaritzat ta edaritzat emoten jacuna. ¡Oh, ceimbat mirari arrigarri mirari baten! *Esaten azar* - 20 25 30 35

17 aldedinian *Ba* | iminidot *Ba* 19 sacramentuba] Sacramenruba *Ba* 25 entzun da *Ba*

¹⁶⁰ "Eskumaldean" litzateke erabiliagoa oraingo usadioan, baina Frai Bartolomeren testuan "escuma" izenondo gisa erabilia da.

tuten nas, dino san Agustinec (123), *izanic Jaungoicua guztia al daiquiiana, ezin legui guei*-[186]jago, *bere seme vicija janaritzat ta edaritzat sacramentu - ban gueuri emotia baino. Izanic guztia daquijana, ez daqui gueijago cer emon gueuri. Ta izanic guztia daucana, ez dauca gueijago cer emon ber e.* Au dino san Agustinec. Emon deuscu sacramentu onetan Jaungoicucac, daucan guztia, daquijan guztia ta al daguijan guztia.

Sacramentu santu onetan dagoz gauza batzuc, cristinaubac jaquin biar ditubanac. Beste batzuc, sinistu biar ditubanac. Ta beste batzuc, eguin biar ditubanac. Comuninoeco sacramentubaren gainian jaquin biar dau cristinaubac: Cer dan, cer esan gura daven, cegaz eguiten dan, nos eta celan eguiten dan ta cetaraco dan. Beraren gainian sinistu biar dau cristinaubac, pediac eracusten deuscuna. Ta eguin biar dau comunioe santuba artuteo, Jesucristo gueure Jaunac ta Eleisa Ama santiac aguinduten davena. Ara emen, neure entzula onac, sacramentu santu onetaco icasquizunac. Guztia izango da, altaraco sacramentu santubaren izatiari, sinistutiari, ondo edo gaisqui artutiari, meza santubari ta eleisaco egote lotsa onecuari jagocana. Guztiai asipena emoteco esango deusut eracutsi onetan: 1. *Cer dan comuninoeco sacramentuba* . 2. *Ce icenegaz aituten emoten dan* . 3. *Nos ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac sacramentu au* . Compesinoeco sacramentuco icasquizunac baciran premina andicucac, ez dira guchiago sacramentu santu onetacucac. Au gaiti escatuten deusut barrero, neure entzula onac, artu daguizula aparteco gogua ta poza, Jesus Altaracuaren jazo gozuac eta maitegarrijac ondo entzuteco ta icasteco. Asi gaitezcan, bada, bere izate santuti.

60 [187]

I.

Comuninoeco sacramentuba da Jesucristo gueure Jaunaren gorputz ta odol vicija oguijaren ta ardauaren irudijan. Sacramentu onetan dago Jesus, Jaungoico ta guizon eguijazcua osoric eta viciric. Jaungoicua dan aldeti, an dago Aita Beticua, Seme Jaungoicua ta Espiritu Santuba. Guizona dan aldeti, an dago Jesusen arimia ta gorputza osoric eta viciric. Beste sacramentubetan artuten dogu Jaungoicuaen gracia. Baina sacramentu onetan artuten dogu Jaungoico guizonduba bera. Sacramentu onetan jaten dogu Jesusen aragui vicija ta edaten bere odol vicija. Bat eguiten da Jesucristo gueugaz ta gueu bera-gaz. Gueratuten da Jesucristo gueugan ta gueu Beragan, esaten deuscu san Juanec (124). Au da comuninoeco sacramentuba.

(123) Trat. 48. in Joan. (124) C. 6.

37 aldaiquiiana Ba 38 gueijago] gueijaog Ba 40 Guztia-daucana Ba 42 daguijan Ba

II.

Ceruco gracia guztiac ta graciaen jaubia bera daguan leguez sacramentu onetan, icen graciajzco ascogaz aituten emoten deuscubee Eleisiaren Gurasuac, eta Eracuslac altaraco sacramentubaren izatia. Esaten jaco comuninoeco sacramentubari *Eucaristia* . Onec esan gura dau *gracia* ona. Jesus maitiac, sacramentu onetan gueratu zanian, Aita cerucuari graciajac emon eutsazalaco esaten jaco au. Baita sacramentu onec gracia guztiac beragaz daucazalaco bere. Baita comulguetan garianian Jaunari graciaj ta esquer onac emoten deusaguzalaco bere. Alan da altaraco sacramentuba *gracia* ona. Esaten jaco, *sacramentu gutiz santuba* . Beste sacramentubac santubac dira. Baina au guttiz santuba da. Santutasun edo ontasun guztia bertan dagualaco. Esaten jaco, *altaraco sacramentuba* . Jesucristo gueure Jauna altaran viziric consagretan dalaco. Ta cristinaubac viziric artuten daveelaco. Esaten jaco, *ostija sagraduba* . Jesus gueure arimen Salvazailia dalaco sacramentu onetan Aita Beticuari esquintzen jacon *ostija* eguijazcua. Esaten jaco, *comuninoeco sacramentuba* . Jesusen gorputz *santubagaz ta odolagaz parte oneco cristinau* guztiac bat eguiten dirialaco comuninoeco sacramentuban. Baita esaten jaco au, Jesus guztion janaritzat dagualaco altara santuban. Guztion janarija da Jesus. Ta guztioac gara beriac. Esaten jaco, *mai sagraduba* . Jesusec bere gorputz ta odol vizijagaz prestetan deusculaco gueure janarija comuninoian. Guztioac convidetan gaitu Jesusec mai santu atara bere gorputz vizija jaatera ta odol vizija edaatera. Esaten jaco, *Cristoren aparija* . Cristoc azqueneco apari santuban apostolubai bere gorputza ta odola lelengo jaten ta edaten emon eutseezalaco. Azqueneco aparija janda guero beriala comulgau zituban Jesusec apostolubac bere gorputz ta odol santubagaz.

Esaten jaco *viaticua* edo *videlaguna* . Mundu onetati urtenda bestera juan biar daveenian, cristinaubari bideraco laguntzat emoten jacuelaco. Erijotzaco orduban Jaungoicuaren aurrera juateco ta orduco arerijo bildurgarrijai arpegui emoteco laguntzat da Jesus sacramentuban *videlagun* ona. Emoten deusa arimari aparteco gracia, sendotasuna ta animua pausu triste, larri ta ez jaquin areetan arerijuac goituteco ta era onaren uste oso bategaz Jaungoicuaren aurrera juateco. Au gaiti esan evan Je-[189]susec berac (125): *Neure araguija jaten davena ta neure odola edaten davena, ez da illgo*. Ez da illgo ariman. Vizico da ceruban. Esaten jaco, *umeen* edo *chiquichuben oguija* . Onec esan gura dau, gach bagacuai, malecija bagacuai ta pecatu bagacuai emoten jacuen oguija dala comuninoia. Umiac ta chiquichubac dira gach baguiac, garbijac eta onac, bapere engainu bagacuac. Bada, umeen moduban, garbi ta gach bague

(125) Joann. 6.

- 110 egon biar dau comulgau dan arimiac, guero esango dan leguez. Au gaiti aguindu evan Jesusec berac (126), *ez jacuela ogui santuba chacurrai emon biar* . Chacurren icenagaz aituten dira eregiac, judegubac, moruac ta pecatu illgarri-jan dagozanac. Ez dira oneec, alan dagozan artian, ceruco Aita onaren echeco umiac, ez bada impenuco etsajaren echecuac. Cristinau eldubac eta zaarrac
- 115 izan arren, badauquee umen gachic eza, engainuric eza ta arimaco garbitasuna, Jaungoicuaren echeco ume onac dira, ceintzubentzat dan Jesus sacramentuban *janarija* . Esaten jaco, *ceruco oguija*. Jesus ceruti mundura etorrita oguijaren irudijan gueure janaritzat gueratu zalaco. Esaten jaco, *aingueruben oguija*. Aingueruben betico poza ta dichia guizonaren janarija dalaco. Alan esaten
- 120 dau David erreguiac (127): *Aingueruben oguija jango dau guizonac* . Ta Salomonec esaten Jaungoicuari (128): *Aingueruben janarijagaz jandu cenduban, Jauna, ceure errija. Ta emon ceuntsan gentiari ogui prestauba jateco* .
- Icen santu ta gracijazco oneequin ta bes-[190]te milla emon leguijezenagaz aituten da bada, neure entzula onac, comuninoeco sacramentubaren izatia ta
- 125 gracija ona. Ainchinati Jaungoicuac guizonai aitu eraguin eutseen, oguijaren ta ard[al]uaren irudijan Jaungoicuac emongo euscuna ceruco janari gracijazcua. Melquisedec erreguiac Abraan justubaren demporan Jaun cerucuari esquerrac emoteco esquinu eutsan oguija ta ardaua, Jesus altaracuaren irudi eguijazco ta ogui bat zan (129). Israeltarrai mendijan Jaungoicuac ceruti bialdu eutseen
- 130 *mana* , beste aimbeste zan (130). Mana zan leguez ceruti etorrija, Jesus altarcua bere ceruti etorrija da. Mana zan leguez guztia duaric ta necatu bagaric euqueen janarija, Jesus bere altara santuban duaric eta neque bagaric guztientzat prest daguan janari gozua da. Mana zan leguez egunian eguniangua, Jesus bere altara santuban egunerocua da. Mana zan leguez jaten evanaren
- 135 gusto eracua, comuninoe santuba bere alan da. Celan artuten dan, alan izaten da. Batzubentzat gozua ta beste batzubentzat mingocha. Au gaiti cantetan dau Eleisa Ama santiac, comuninoe santuba onentzat vicitcia dala ta deunguentzat erijotcia: *Vita bonis, mors est malis* Baita aituten emon evan Jaungoicuac comuninoeco sacramentuba, Elias propeta santubari Jaungoicuac prestau eutsan ogui mirarizcuagaz bere (131). Levadura bagaric auspian erretaco oguija
- 140 emon eutsan mendijan Jaungoicuac Eliasi jateco. Ta janari agaz beste bagaric ibili zan propeta santuba sendo berrogei egunian ta ber-[191]rogei gavian, Horebco mendi santura igon artian. ¿Cer eguiten dau guichiago comuninoe santubac, ondo artu ezquero? Cansau bagaric ta gosetu bagaric eruaten gaitu
- 145 Horebco mendi eguijazcora, cein dan ceruba. Baita judegubac jan biar even

 (126) S.Matt. c. 7. (127) Psalm. 77. (128) [Sapient.] C. 16. Cant. (129) Gen. c. 14. (130) Exod. c. 16. (131) 3. Regum. c. 19.

110 comulgaudan *Ba* 114 Ez bada *Ba* | Cristinau] Ctistinau *Ba* (380.or.: cristinaubac) 142 ibilizan *Ba* 143 Horebco] Horetco *Ba* 145 Horebco] Horetco *Ba*

pazcuaco bildots garbijagaz bere (132). Bada, Jesus da bere amodijo santubac prestauta comunioian daucagun bildots garbija, mansua ta gozua, gueuc jan biar doguna. Oneec eta beste onaco gauza ascogaz testamentu zaarian ta naturaleciaren leguian cerubac aituten emon eutseen espirituzco guizonai altaraco sacramentu santu andija. 150

III.

¿Nos baina, derichazu cristinaubac, gueratu zala Jesus comuninoeco sacramentuban? Eguben Santu gavian. Munduti bere Aita cerucuagana juan biar evanian. Guizonac esquerric chaarrenagaz bere mesediai erantzuten deutseenian. Gueu gaiti illtera daroienian. Gau dichoso ta zorioneco¹⁶¹ atan gueratu zan Jesus altaraco sacramentuban. ¿Cetaraguino eldu ete zan berac gueuri euscun amodijo ixuia? ¿Ez zan asco, Jesus maitia ta neure vijotzaren jaubia, gueuri zeunscun amodijo itsuba eracusteco ceu mundura etorrita, guizon eguinda, 155
gueu gaiti curutzian josita illtia? ¿Ez zan asco ceuc Adanen semiai deutsezun nai zintzua eracusteco, gracijazco legue erraza iminita, leenagoco legue zaar, astun, araguizcua quenduta, cerura vidiac mundu guztiari eracutsita, ceure erijotzan Aita cerucuagaz ta pecatarijagaz baquiac eguinda, nai daven guztiarentzat ceruco atiac zabaldutia? Ez, dino Jesus maitiac. Neuc gueratu biar dot guizonaquin [192] munduba mundu dan artian. *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consumationem sæculi* (133). Baquit, dino Jesus gueure arimen jaoliac. Baquit guizonac gaisqui erantzungo deusteena. Nire mesede andijac ezautuco ez ditubeena. Ascoc altaran bertan penaucos naveena. Baquit, nic guizonai deutseedan ondo guria ez da aspertuten. Ta euraquin egongo nas beti 160
comunioe santuban. Neure poza ta atsequina da guizonaquin egotia. *Delitiæ meæ esse cum filiis hominum* (134). 170

¿Baina nos, Jesus ona, eracusten deuscuzu amodijo itsu laarregui ori? Eguben Santu gavian¹⁶². Ez, ceu errijetaco gentiac ondo esatez ta bendicinoez jasoten zaitubedian¹⁶³. Ez, euren aguintaritzat ta erreguetzat nai zaitubedian¹⁶⁴. Ez, gente pillua ceuri entzutera, adoretara ta ceu serbietara prisaca datoza- 175

(132) Exod. c. 12. (133) Matth. c. 28. (134) Prov. c. 28.

154 gueratuzala Ba 157 gueratuzan Ba 158 etezan Ba 165 biardot Ba

¹⁶¹ "Zorijoneco" da haren idazteko era, hamasei bat bider agertzen dena. Honela, *zorioneco*, idatzirik hiru bider dator obra osoan barrena.

¹⁶² Ik. Mt 26,26-29; Mk 14,22-25; Lk 22,15-20; 1Ko 11,23-25.

¹⁶³ Ik. Mt 14,13; Mk 6,33; Lk 9,11.

¹⁶⁴ IK. Ir 6,14-15.

nian¹⁶⁵. Ez, ceuri ondo guria ta esquer ona eracusten deustubenia¹⁶⁶. Ez zinian, Jesus neuria, alaco ordubetan gueratu altaraco sacramentuban nire janaritzat.
 180 Eguben Santu gavian gueratu zinian. Judas, ceure apostolubetati batec, ceu sal-
 duteco tratuba eguiten davenian. Judas, ceure apostolubac berac, lelengo
 comunioian pecatu mortalian daucan ariman satanasagaz artuco zaitubanian.
 Judegubac, ceu preso artuteco, galduteco ta illteco vidiac asmetan davilza-
 nian¹⁶⁷. Guizonen escubetati inos entzun dirian ta entzungo dirian penaric tris-
 185 tenac, desondraric astunenac, ta erijotzaric lotsagarrijena ta errucarrijena irago
 biar dozunian gueratuten zara comunioe santuban guizonen janaritzat.
 Mundu guztia ceure [193] contra jaguiten danian. Beste amaeca apostolubac
 bere, ceure adisquide andi areec bere, batzuc ceu ucatuta ta bestiac doilorrez
 ceuri largata igues eguiten daveenian¹⁶⁸. Inor munduban icusi dan bacarren,
 190 tristen¹⁶⁹, larrijen ta minduben guizonac gaiti ceure buruba icusi biar dozunian
 gueratuten zara, Jesus, arima galduben villazailia, comunioeco sacramentuban
 arimen janaritzat.

Eguben Santu gavian, Gesemanico ortura odolezco icerdi otz larrija bota-
 tera juateco jaguiten zarianian, emoten deutsezu ceu illtera duazan guizonai
 195 ceure aragui vizija jaten ta odol vizija edaten. ¡Oh, JESUS Ona! ¿Noc neurtu
 ceure amodijo santuba? ¿Noc ezautu ceuc deuscuzun nai eguijazcua? ¿Noc
 erantzun ceuri esquer onagaz? ¿Cer da, Jesus, ceuc eguiten dozun ori? ¿Nun eta
 celan gueratuten zara? ¿Norentzat eta cetaraco? ¿Oguijaren ta ard[al]uaren irudi
 pusca baten Jaungoico guztia? ¿Cerubac eta luurrac cabidu ezin daveena?
 200 ¿Pecadari baten escupian, guilzpe baten preso ceruben ta luurren Eguilia?
 ¿Aingueruben Erreguia? ¿Ta guizonaren janaritzat? ¿Nor da guizona, Jaungoico
 vizijari altaria bere ariman eguiteco? ¿Nor da guizona, Jesusen gorputz garbija-
 ri, arima garbijari ta odol garbijari egon lecuba vijotzian prestetaco? ¡Oh, Jesus
 guztiz maitegarrija! ¿Nun dira vijotzac, ceure amodijuaren zintzotasun onei
 205 erantzuteco? ¿Ceuri esquer onac cansau bagaric emoteco? ¿Ceu baino beste
 gauzaric lurraren gainian ez maitetuteco?

Bai, cristinaubac, onetara convidetan gaitu Jesusen maitetasunac altaraco
 sacramentuti. Bere [194] azqueneco Eguben Santu gavian apaldu evan amavi
 apostolubaquin bildotsa. Apalduta bertati garbitu eutsezan apostolubai oinac.

188 doilorrez] coilorrez *Ba* 198 gueratutenzara *Ba*

¹⁶⁵ Lk 4,42; 6,17-18, etab.. Mt 2,11, etab. Lk 8,2-3, etab.

¹⁶⁶ Ik. adibidez Lk 17,15-16.

¹⁶⁷ Ik. Jn 13,21-30; Mt 26,14-16.20-25; Mk 14,10-11.17-21; Lk 22,3-6.21-23.

¹⁶⁸ Ik. Mt 26,56.69-75; Mk 14,50-52.66-72; Lk 22,56-62; Jn 18,15-18.25-27.

¹⁶⁹ Sarrera orokorrean luze hitz egin dugu bokal bikoitzak direla eta. Hala ere, gai horretan bere zalantzak izan zituen eta *Icas-III* honetan asko murrizten ditu bokal bikoitzak; behar ez denean ez-eze, behar denean ere ez erabiltzeraino batzuetan, hemen egiten duenez.

Baita Judasi bere. Oinac garbituta, guztiac maijan egozala, artu eban Jesusec 210
 escubetan oguija. Esquer onac emon eutsazan Aita cerucuari. Bedeincatu eban
 escubetan eucan oguija. Zaitu eban. Ta emon eutsen apostolubai, esanagaz:
Artu eguizu ta jan eguizu; au da neure gorputza . Artuta jan eueen apostolu-
 bac Jesusen gorputz vizija oguijaren irudijan. Baita Judasec bere. Artu eban
 Jesusec guero calizan ardaua. Esquer onac emon eutsazan Aita Beticuari. 215
 Bedeincatu eban calizan eguan ardaua. Ta emon eutsen apostolobai, esanagaz:
Artu eguizu ta edan eguizu; au da legue barijan betico isten deutsudan
NEURE ODOLAREN calicia; ceubec salvetia gaiti laster emongo dodan odol
 vicija. Au artuten dozun guztian, gogoratuco dozu neure erijotcia. Apostolubac
 artu eueen ta edan eueen Jesusen odol vicija calizati. Ta jaguita jua cirian 220
 Jesusegaz, Judasez bestiac Gesemanico orturuz¹⁷⁰.

Ara, cristinaubac, nos eta celan ichi euscun Jesus maitiac bere gorputz ta
 odol vicija ostija ta caliza consagrauban. Ceubec pensauco dozu ce esquer
 andijac zor deutsaguzan. Gogoratu bein comunioe santubaren asieraan, cer
 dan comunioeco sacramentuba; ceimbat icen gracijazco ta mirarizcogaz era- 225
 custen deuscuben bere izate cerucua; baita nos gueratu zan bere guizonaren
 janarizat altaraco sacramentu santuban. Beti, baina orain inos baino gueijago
 erregutu biar deutsagu Jesus maitiari bera-[195]ri, bialdu daigula ceruti bere
 gracijaren argui santuba. Urratu daguizala gueure luurreco maitetasunen catiac.
 Ixio daguizala gueure vijotcetan bere amodijo garbijaren suba. ¡Oh, Jesus ona! 230
 Baquigu ceu bagaric ecer ezin guinajana. Gosia daucagu, Jauna, ta egarri gara.
 Jandu eguizuz, bada, gueure arimac ceruco oguijagaz, ceure gorputz santuba-
 gaz, inos gosetu ez gaitezan. Emon eguiguzu ceure caliza santuba, ill daigun
 betico gueure arimen egarri sicuba. Baita viztu eguizu, Jauna, gueure gogua,
 sacramentu altaracuan ichi ceuscuzan cintzotasun neurri baguiac ondo pense- 235
 etaco ta icasteco bere. Euraquin orain balijauta, guero ceruban ainguerubaquin
 ta santubaquin ceure ontasun ta anditasun amai baguiac beti cantetaco.
 Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

226 gueratuzan *Ba*

¹⁷⁰ Ik. Mt 26; Mk 14; Lk 22; Jn 11.

II. ICASIQUIZUNA,

240

ceinetan eracusten dan,
comuninoeco sacramentubaren gainian
cristinaubac sinistu biar davena.

Erraztuago bat eguiten dira, neure entzula onac, cristinaubaren sinistzaco gauza batzuc gueure errazoiaren ezauberiaz, beste batzuc baino. Nequezago ta guichiago aituten ditugu gueure sinistuquizun batzuc, beste batzuc baino. Lecu gueijago dauca gueure adinian, Jaungoicuac bere aguinduba eguiten davenari sari ona ceruban emongo deusala sinistutiac, Jaungoico bacar bat iru persona bata bestia ez dirianetan daguala, sinistutiac baino. Lasterrago [196] dator guere errazoiaren erara, Jaungoico onac ta santubac pecaturic gura ez davena, Jaungoico Espiritu utsac Virginia eder baten sabelian sortua, gorputza ta arimia beragana artu ditubana baino.

Guichiago costata sinistuten dogu, pecatari garbatubari Jaungoicuac pecatuba parcatuco deusana, Jaungoico guztia daiquiana, cerubac eta luurrac cabidu ezin daveena, ostija chiqui baten osoric eta viziric barrututa daguana baino. 255 ¿Noc aitu legui celan dagan Jaungoico guztia ostijan? ¿Celan calizan? ¿Celan aimbeste ostijatan, izanic JESUCRISTO bat? ¿Celan guizonari emon ain alizate andija, verba bategaz JESUCRISTO Jaungoico ta Guizon eguijazcua ostijan iminteco? ¿Oguijaren ta ardauren izatia JESUCRISTOREN izate eguijazcora viurtuteco, nai daven guztian? ¡Ah, cristinaubac! Cerubac eta luurrac arrituten 260 dituben sinisquizunac dira onetarico asco. Jaungoicuaren anditasunac ezcutau eutsan guizonari euren ezauberia urrinecua bere. Orregaiti ez dira, guichiago sinistu biar ditugunac. Ez dira eguija guichiagocua. Jaungoicuac berac esanac dira. Gueure adin laburra lotuta, buruba macurtuta, lotsa santu bategaz itsu itsuban sinistu biar ditugunac dira. Cerbait gaiti esaten eutsan Isaias propeta 265 santubac Jaungoicuari (135): Zu zara bene benetan Jaungoico ezcutauba. *Vere tu es Deus absconditus* Escutauba da Jaungoicua, veguijaquin icusteco. Ezcutauba da, guizonaren errazoe laburrac achituteco¹⁷¹. Ezcutauba da, andius-tiac ta aixez burubac beteta dauquezanac ezaututeco. [197] *Abscondisti hæc a*

 (135) C. 45.

¹⁷¹ "Achitu": hartu, harrapatu.

Sapientibus, et prudentibus (136). Baina aguirija da guichi ustecuentzat, humil- 270
dentzat¹⁷² ta Jaungoico eguijazcuari bere esana entzuteco belarrijac zur ta prest
dauquezanentzat. *Apparuit benignitas, et humanitas Salvatoris nostri Dei...*
(137)

Alan, neure entzula onac, ezcutucua izan arren ta gueuc aitu ezin doguna 275
izan arren, sinistu biar dogu itsu itsuban Jaungoicuaren esana, Eleisa Ama san-
tiac eracusten deuscun moduban. Au gaiti, bada, comuninoeco sacramentuban
dagozan leguez gauza batzuc cristinaubac nora ezian sinistu biar ditubanac,
salbauco bada, esango deusut dotrina onetan, *comuninoeco sacramentubaren*
gainian cristinau guztiac sinistu biar daveena. Entzun eguizu guztioc zurta- 280
sun guztiagaz, ecer bere oquer aitu ez daguizun.

Sinistu biar dogu bada, neure cristinaubac, comuninoeco sacramentu san-
tubaren gainian: *Lelenga* Jesucristo gueure Jaunac Eguben Santu gavian azque-
neco aparija apostolu santubaquin jan evanian, consagrau evala escubetan
eucan oguija ta viurtu evala bere gorputz izatera. Baita calizan artu evan ardaue 285
bere viurtu evan bere odol izatera.

Bigarrenian : Sinistu biar dogu gau dichoso atan comulgau¹⁷³ citubala
Jesusec apostolubac bere gorputz ta odol vicijagaz, cein izan zan lelengo
comuninoia.

Irugarrenian : Sinistu biar dogu Jesucristo gueure Jaunac emon eutseela
apostolubai ta areen ondorengo sacerdote guztiai alizatia edo *potestadia*, ogui- 290
ja ta ardaue Jesucristoren beraren gorputz ta odol vici izatera viurtuteco.

Laugar-[198]renian : Sinistu biar dogu edocein sacerdote eguijzcoc, guztiz
gaistua ta deunguia izan arren, eregia nai excomulgauba izan arren, comuni-
noeco sacramentuba eguiteco ustiagaz esaten baditu oguijaren nai ardauren 295
gainian Jesucristoc ataraco ichi cituban verbac, oguija ta ardaue viurtuten diria-
la Jesusen gorputz ta odol vici izatera. Oguijaren ta ardauren gainian sacer-
dotiac verba santubac esaten dituban orduban bertan edo, erabaguijago¹⁷⁴ esa-
teco, verba santubac esatez amaitu daguizan instantian dala, leen ogui zana ta
ardao zana, JESUCRISTO Jaungoico ta guizon eguijazcua, Ama Virginiaren 300
sabel garbijan sortu zana. Gueure artian munduban vici izan zana; gueu ceru-
ra eruatia gaiti, curutcian josita, bere guraz ill zana; illda irugarren egunian illen

(136) Matth. c. 11. (137) Ad Tit. c. 3.

270 ustecuentzat] astecuentzat *Ba* (380.or.: ustecuentzat)

¹⁷² Ik. 169. oharra (1252.or.).

¹⁷³ "Comulgau" (du): Gure Jauna eman, komunioa eman; (aditz iragankor gisa darabil testu honetan).

¹⁷⁴ "Erabaguijago esateco": zehatzago esateko.

arteti viztu zana; andi berrogeigarren egunian cerubetara igon evana; Aita Beticuaren alde escumati jarrita daguana; azqueneco egunian illac eta vicijac
 305 juzguetara barriro mundura etorrico dana; onai betico ceruba ta deungai betico impernuba emongo deutseena; azquenic, Jaungoicuaren Seme vici guizon eguina dala, leen ogui ta ardao zana.

Bostgarrenian: Sinistu biar dogu ostijan ta calizaco ardauan, sacerdotiac verba santubac esan ezquero euren gainian, ez daguala ez oguijaren ta ez
 310 ardauren izateric, ezbada leen ogui zana ta ardao zana dala orain Jesucristo, Jaungoico ta Guizon eguijzcua.

Seigarrenian: Sinistu biar dogu oguijaren ta ardauren izate guztia viurtu arren Jesusen gorputz ta odol vici izatera, gueratuten dira bai ostijan ta bai calizaco ardauan oguijaren ta ard[al]uaren [199] idurija, pisuba, coloria, echuria
 315 ta gustua. Oneec dira oguijaren ta ardauren izatiari berez darraicozanac. Oneec gueratuten dira, bada, ogui bagaric ta ardao bagaric, mirari andi baten vitartez, nun egon ez dauqueela, comuninoeco sacramentuba artuten dogunian sinistutiac edo pediac lecuba euqui daguijan, dino santo Tomasec (138).
 320 Icusten dogu, comulguetara guazanian, emoten deuscubeela oguijaren echuraco, oguijaren coloreco, oguijaren pisuco ta oguijaren gusto eguin eguineco gauza bat. Ta beste aimbeste calizaco ardauan. Baina sinistuten dogu, comulguetan garianian, oguiric artuten ez doguna, ezbada oguijaren ta ardauren echuran Jesucristo, Jaungoico ta guizon eguijzcua dala orduban artuten doguna.
 325 Baita sinistuten dogu ta sinistu biar dogu, consagrautaco ostijan ta calizan ez daguala ez oguiric, ez ardaoric; baina bai oguijaren ta ard[al]uaren acidenteac, ceinac diran coloria, pisuba, usaina, gustua ta echuria, leen esan dan leguez.

Zazpigarrenian: Sinistu biar dogu ostija santuban daguala ez bacarric Jesucristo gueure Jaunaren gorputza, ezbada Jesucristo Jaungoico ta guizon
 330 eguijzcua osoric ta viziric. Gorputz odol, arima ta Jaungoico guztia dago ostija santuban. Beste aimbeste esaten da calizaco ardao santuba edo consagrauba gaiti. Bada, ez dago Jesucristoren odola bacarric calizan, ezbada an dago Jesusen gorputza, odola, arimia ta Jaungoicotasuna, ceruban daguana osoric ta viziric. Au gaiti esaten da, meza esaliac Jesusen gorputza ta odola oguijaren
 335 [200] ta ardauren idurijan artuten ditubanian; ta cristinaubac porma chiqui bat comuninoian artuten davenian, bijac artuten daveela Jesucristo osoric eta viciric. Bijac artuten davee Jesucristo, Jaungoico ta guizon eguijzcua; batac mezaan ta bestiac comuninoian. Ta Jesucristo gueure Jauna ez da batian andijago bestian baino.

 340 (138) Opusc. 57.

303 berroguei garren *Ba* 310 Ez bada *Ba* 322 Ez bada *Ba* 329 ez bada *Ba* 332
 ez bada *Ba* 335 chiquibat *Ba*

Zortcigarrenian : Sinistu biar dogu ostija santuba zatitu ta puscatu arren, ez dala zatituten, ez puscatuten Jesucristoren gorputza. Ta caliza santuban daguan odola lecu ascotara zabaldu arren, ez dala zabalдутen, chiquituten edo puscatuten Jesusen gorputz ta odol santuba. Bada, ostija osuan dago Jesucristo osoric ta viciric. Ta ostijaren zati bacochian dago Jesucristo osoric ta viciric. Calizaco odol santuban dago Jesucristo osoric ta viciric. Ta odolaren tanta bacochian dago Jesucristo osoric ta viciric. Ostijaren apur bacochian Jesucristo bat osoric ta viciric. Ta ostija guztietan Jesucristo bat osoric ta viciric. Calizaco odol santubaren tanta bacochian Jesucristo bat osoric ta viziric. Ta caliza guztietan Jesucristo bat osoric ta viciric.

Beredatcigarrenian : Sinistu biar dogu aimbeste ostijatan ta calizatan egon arren Jesucristo osoric ta viciric, aimbeste meza esan arren egunoro mundu zabalían ta meza bacochian imini arren Jesucristo osoric ta viciric ostijan ta calizatan, ez daguala Jesucristo bat baino. Ostija guztietan Jesucristo bat osoric ta viciric. Ta ostija bacochian Jesucristo bat osoric ta viciric. Ta orregaiti ostija guztietan, caliza guztietan, elexa guztietan, ceruban ta luur-[201]rian Jesucristo bat, Salvazaile bat ta Jaungoico bat baino ez dago. ¿Celan izan leiteque au? Celan ez daguigu. Baina alan dana baquigu. Celan jaquiteco gurarija etorten bajatzu, erantzungo deutsu san Juan Damascenoc (139), *Jaungoicuaren esana eguiija dala, indartsuba dala, guztia daiquiana dala; ta Espiritu Santubaren gracijaz beste mirarijac eguin dituban leguez, au bere Jaungoicuac berac eguina dala. Celan eguiten dan, guc jaquin ezin guinaijana dala ...* Au da cristinaubari esaten jacona, alaco gauza altu Jaungoicozcuac aztertu ta jaquin gura ditubanian. Jaungoicuac ceruco glorijaren arguitasunagaz gueure errazoiaren lainuac quendu daguiguzanian; Jaun cerucua Bera dan leguez icusi daigunian; arimia gorputzaren catietati ta araguizco estalguijetati ascatu dedinian; ceru zabalían sartu gaitezanian, dinot, cristinaubac, icusico dogu ta jaquingo dogu celan dirian comuninoeco sacramentu santubaren mirari andi ta arrigarri oneec.

Ordu artian sinistu biar dogu, chiquijac ta guichiracuac gariana. Ta guc achitu al daiguzan baino altubaguac ta ezcutubagocuac diriana. Alaco Jaungoicuaren gauza goitsubac ta estaldubac errazoiagaz ondotu¹⁷⁵ ta neurtu gura izan ditubeenac, urten davee errazoeti campora ta jausi dira Jaungoicuaren contraco utseguite andi ta negargarrijetan. Jazo triste ta negargarri oneec eracusten deuscubez aimbeste eregec. Nai cituquen ezautu, neurtu ta escupetu euren errazoe laburragaz Jesucristoren amodijozco mirari andijac ta

(139) Lib. 4. c. 14.

368 arri garri *Ba* 370 aldaiguzan *Ba*

¹⁷⁵ "Ondotu": sakondu.

380 batu ecinecuac. Ta uts egui-[202]te bateti bestera, gueruago illunago ta gueruago oquerrago, azquenian ucatu ditubee Jaungoicuaren esanac, desondrau davee Jesucristo, ichi deutsee comuninoeco sacramentu santubari ta prestau dira eurac ta euren ondorenguc impernuraco. Iracurri bedi Lutero¹⁷⁶, Calvino¹⁷⁷, Zuinglio¹⁷⁸, Melanton¹⁷⁹, ta beste ascoren vicitza dudazcua ta erijotza

¹⁷⁶ Lutero, ik. *Icas-Iko* 69. oharra (942.or.).

¹⁷⁷ Joan Kalbin (1509-1564), 1523. urteaz gero, filosofia eta teologia ikasi zituen Parisen, eta 1529an hasita, zuzenbidea Orléans-en eta Bourges-en... Laster jarri zen Luteroren idazkiekin eta protestantismoarekin harremanetan. 1534an Basel-era joan zen; han *Institutio religionis Christianae* lana idatzi zuen, kristau-fedearen laburpen antzekoa dena, Luteroren kristau-bidean oinarritua; egilearen izenik gabe agertu zen 1536an. Baina Genf-en izan zuen bere lehen ekintza garrantzitsua: herritarrei *Confession de foidelakoari* zin egitea eskatzen zien; agintari politikoen aurrez aurre jarririk, 1538an erbestera egin zuten. Strasburg-era joan zen eta han ere bere doktrina zabaltzeari ekin zion. 1540an ezkondu egin zen. Erlijioari buruzko jardunaldi garrantzitsuetan esku hartu zuen... 1541ean Genf-era itzuli zen. Diziplina zorrotza ezarri nahi zuen ohituretan... Bere elizaren arauak ez betetzea gogorki zigortzen zuen (56 heriotz zigor, etab.). Antzerkiak, gutunak, etab. ere zigor gogorrez eragozten ziren. Larderiazko jokabide honen kontra talde bat eratu zen 1545ean. Gizartean berebiziko eragina izan zuen. Migel Servet tuterarra, fedeko dogmarik garrantzitsuenak ukatzen zituela-eta, hilaraz zezatela lortu zuen... Etengabeko lanean aritzen zen diziplina eta kemen handiz; sarri izan ohi zen gaixorik ere; Kalbin 55 urterekin hil zen (ik. E.W. ZEEDEEN, *Calvin, Johannes*, LThK 2 (1986) 887-891).

¹⁷⁸ Huldrych Zwingli (1484-1531), erreformatzaile suitzarra; Weesen am Walensee-n, Berna-n, Viena-n, Basel-en... egin zituen ikasketak. Glarus-ko errektore izendaturik, 1506an apaiz egin zen Konstantzan. Erasmoren eragina izan zuen, harekin izan baitzen Basel-en 1515eko udaberrian. Erasmoren helburu humanistekin bat egin zuen, haren bakezaletasuna ere bereganaturik; harrezkero, bere komunitateetan neutraltasuna eskatu ohi zuen zorrotz, inolako talde politiko-militarretan sartu gabe. Bere kargua bertan behera utzi eta Einsiedeln-era joan zen (1516-1518). Hemen berrikuntza aldarrikatzen zuen, Eskritura Santura eta Eliz Gurasoengana itzuliz. Zurich-era joan zen (1519). 1519-1520. urteetan izurriak jota gaixotu egin zen; gaixotasun horren esperientzia izan zuen, beraz; barruko krisiak ere jo zuen eta horregatik guztiagatik (Erasmoren berrikuntzak uste baino emaitza urriagoak zekartzala ikusirik, bekatuaren esperientziak eraginik...) utzi egin zuen lehengo bidea, Luteroengana hurreraturik (gizakiari buruz iritzi ezkorra, borondate liberrik ez dela defendatzea, Eskritura Santuaren ikuspegiak baino ez duela balio...); era berean, ebanjelioaren alde praktikoa eta soziala azpimarratu nahi zituen (hamarrenak eta zergak). Elizarekiko gatazkan sartu zen haragi-uztea eta ezkongabetasuna tarteko zirela; isilpean ezkondu zen 1524an, eta Zurich-eko erreformaren mugimenduari eman zion hasiera. Zailtasun politikoei ihes egitearren, urratsez urrats eta tentuz zihoan aurrera (irudiak kentzea, 1524an; meza kentzea, 1525ean). Era berean komentuak ere kenduak dira etab. Bibliako eskola bat sortu zuen, *Zurich-eko Biblia* eskola horren emaitza izanik (1529). Zwinglik bere teologiaren laburpena *De vera et falsa religione Commentarius* (1525) liburuan eman zuen. Komunitateak bere erreforma-bidean biltzea lortu zuenean, erabakia baliabide politiko-militarrez ezar zitekeela uste izan zuen. Baina ustea oker irten zitzaion, tropei hitz egiten ziharduela erori baitzen Kappel am Albis-ko guduan (ik. J.V. POLLET, *Zwingli, Huldrych*, LThK 10 (1986) 1433-1441).

¹⁷⁹ Philipp Melanchthon (1497-1560), teologo erreformatzailea. Heidelberg-eko unibertsitatean (1512. urteaz gero) eta Tübingen-eko unibertsitatean (1512. urteaz gero) egin zituen ikasketak; hemen *Magister artium* delako titulua lortu zuen (1514). Erasmo Rotterdam-ekoarekin harremanetan jarri zen; eta laster ikusiko dugu Luteroren ondoan; hau Leipzig-eko jardunaldietara joan zenean lagun izan zuen (1519); urte berean Bibliako lizenziadun izatea lortu zuen. 1521ean argi-

uste gaistocua edo desesperauba¹⁸⁰. Ta an icusico da cer dacarren, Jaungoicuaren esana Eleisa Ama santiari ez sinistutiac itsu itsuban.

Amargarrenian : Sinistu biar dogu Jesucristo daguala ostijan ta calizan, sacramentubac dirauban artian. Esan gura neuque, Jesucristo daguala ostija ta caliza consagrauban, oguijaren ta ardauaren usaina, iduriya, gustua, coloria ta beste oguijari ta ardauari berez darraicozanac galdu artian. Bada, oguijari ta ardauari berez darraicozan gauzac galdu ezquero, nai dala ustelduta, nai dala lizunduta, edo urdinduta, nai beste modutan, ez dago ostija edo caliza atan sacramenturic. Ta ez dago an Jesucristo. Jesucristo dago, sacramentuba daguan artian. Sacramentuba dago oguijari ta ard[au]ari berez dar[r]aicozanac euren izatasun eguijazcuagaz dagozan artian. Oneec galdu ezquero, nai modu batera ta nai bestera, ez dago sacramenturic. Baina oguijaren ta ardauaren colore, usain, gusto, pisu ta irudi eguijazcua daguan artian, nai ostijan ta nai calizaco odol santuban, an dago Jesucristo osoric ta viciric comuninoeco sacramentu santuban. Ta egongo da munduba mundu dan artian. *Ecce ego vobiscum sum, usque ad consumationem sæculi* (140).

(140) Matth. c. 28.

392 izatasun] izetasun *Ba*

taratu zuen *Loci communes rerum theologicarum*, liburu honek Luterorengandik oso hurbil zegoela eta Erasmorengandik urrunduz zihola erakusten du. Hala ere, 1523an, fede bidezko justifikazioaren doktrinarekin ez datorrela guztiz bat agertzen du. 1530ean, *Augsburgoko Aitorpena* ospetsua formulatu zuen; katolikoekin onezkoak egin nahirik, fede aldetik elkargunearen bila ahalegindu zen. Fede aldetiko batasunari eutsi nahi zitzaion batasun politikoa salbatu ahal izateko... Ez zuen ondorio onik lortu. Kristikak jaso zituen eta eraso egin zioten alde askotatik. Erljioari buruzko Worms-eko (1540-1541) eta Regensburg-eko (1541) elkarrizketetan ez zen agertu amore emateko hain gertu. Haren amore emateko joeragatik, mezaren eta justifikazioaren aurrean zituen zalantzegatik hoztu egin zen pixka bat Luterorekin. Hala ere, hil arte jarraitu zuen haren adiskide izaten. Bere izaera ireki eta leunarekin luteranismoari bidea erraztu zion eta Luteroren pentsamenduan argi handia egitea lortu zuen... Bere bizitzaren amaiera nahiko ilundu zitzaion "rabies theologorum" zela-eta. Garrazturik hil zen. Hil ondoren ere, Melanchthon eta honen doktrinari buruz eztabaidak biziki jarraitu zuen (ik. F. ZOEPFL, *Melanchthon*, LThK 7 (1986) 247-249).

¹⁸⁰ Frai Bartolomek, aipatutako hauen eta beste batzuen heriotza "txarraz" hitz egiten du. Frai Bartolomek historialari batzuen artean, batez ere katolikoaren artean, zabal zebilen oinarri gabeko iritzia jasotzen du hemen... Aipatutako horien azken suerteaz zegoen eztabaidan, erdi egia, egia ez direnak eta gezur beltzak direnak nahasten dira egiazko gertaera batzuekin... Dirudienez, gertaera egiazkoak hotz-hotzean kontatu beharrean, haien interpretazioak egiten dira; esaterako, Elizan XVI. mendean gertatu zen haustura eta gerra sozio-politiko-erlijiosoaren hondamenak ikusita, hauen guztien erudunek ezin izango zutelako ongi amaitu pentsatu zuten askok. Izan ere, Lutero hilda 20 urtera, hark bere buruaz beste egin zuelako albiste faltsua zabaldu zen; baina badakigu jakin bihotzekoak emanda hil zela. Zwingli-ren heriotza pixka bat gogorragoa izan zitekeen, gerran hil baitzen; Melanchthon orduko egoeragatik haserre samar hil zela dirudi, beraz, nahiko garrazturik, etab.

[203] Azquenian sinistu biar dogu, Jesucristo gueratu zala comuninoeco sacramentuban gauza ascotaraco ta guztiac gueure oneraco. Gueratu zan sacerdote jaunac Aita cerucuari mezaan egunoro esquini daguijuen barriro Jesus bere Seme guizon eguinaren erijotza osasuntsuba. Au gaiti, egunaren ordu guztietan esaten dira mezaac mundubaren esquina batian edo bestian. Alan urte guztietan, egun guztietan ta ordu guztietan esquintcen jaco Aita Beticuari altaretan bere Seme maitiaren vicicia guizonen osasuna gaiti. Gueratu zan Jesus altaraco sacramentuban gueure arimen janarizat ta edarizat. Ta ain modutan gueratu zan, ce gau ta egun dago gueugaz; gau ta egun egongo da gueugaz. Ta gau ta egun esquintcen jaco Aita cerucuari gueure arimetaco osasuna gaiti, leen esan dan ta arguiruago guero esango dan leguez.

410 Gauza oneec guztioc sinistu biar ditu cristinaubac comuninoeco sacramentubaren gainian. Baita onezaz ostian, Jesucristoc berac aguindu euscun comulguetaco. Au da, comuninoe santuban bere gorputza ta odola artuteco. Alan esaten deuscu san Juan Evangelistiaren aotic (141): *Jaten ez badozu neure gorputza ta edaten ez badozu neure odola, ez zara vicico*. Esan gura dau, sal-
 415 *vauc*o bagara, artu biar dogula comuninoian Jesusen gorputz santuba. *Jesusen gorputza jaten davena ta odola edaten davena, Jesusegaz beragaz daguala ta Jesus bera bere bai jaten davenagaz* (142). Jesusen gorputz santuba comuni-
 noian celan artu biar dogun bere esaten deuscu san Paulo apostolubac, dinua-
 nian (143), [204] *gaisqui comulguetan danac, berac jaten davela betico galdu -*
 420 *tia beretzat. Juditium sibi manducat* . Onezaz ostian, Eleisa Ama santiac eracusten deuscu nos eta celan comulgau biar dogun.

Gogoratu bada, cristinaubac, ceinbat gauza andi ta arrigarri daucaguzan ta sinistuten ditugun comuninoeco sacramentu santuban. Guztia da andija baino andijagua ta illuna baino illunagua, gueuc aituteco. Baina ez, sinistuteco.
 425 Escritura Sagradubac iminten deuscu comuninoeco sacramentubaren iduri bat Sansonen jazo bategaz (144). Eztegora vidian joiala urten eutsan Sansoni leocume batec murruzaca jan guraic edo ito guraic. Oratu eutsan Sansonec leoiari ta puscatu evan leoia, bildots bat balitz leguez. Andi egun guichi barru jua zan Sanson leoe illa icustera. Ta topau eutsan bere auan erlia¹⁸¹ ezti abauagaz¹⁸².

430 -----
 (141) C. 6. (142) Id. ibid. (143) 1. Cor. c. 11. (144) Judic. c. 14.

400 Gueratuzan Ba 405 Gueratuzan Ba 411 Jesucristoc] Jesncristoc Ba 424 baino] baina Ba 427 janguraic Ba 428-429 juanzan Ba

¹⁸¹ Izatez, erle asko dira, baina euskaraz "erlea" esaten da gaztelaniazko "enjambre de abejas".

¹⁸² Harentzat *abao* da hitz honen forma, *abauagaz* egiten baitu, bestela *abaubagaz* egingo zukeen.

Artuta jan evan Sansonec eztiya, vidian joiala. Ezteguna jua da guero imini eutseen Sansonec philisteotarre azertaquizun illun au: *Jaaten davena ganic urten dau janarijac ta sendua ganic urten dau gozotasunac. De comedente exivit cibus, et de forti egressa est dulcedo* Ecin acertau evenen philisteotarrac Sansonen itaune illunac cer esan gura evan, arian da Sansonen beraren esposiac esan artian. Ezin acertau evenen ez cein zan *jaaten davena*, ez cer zan *janarija*, ez nor zan *sendua*, ez ce *gozotasun zan*. Baina Sansonec esan eutsan bere esposiari ta ac philisteotarrari¹⁸³. Ta orduban acertau evenen ta aitu evenen errazto Sansonen mirari illuna. 435

Contu eguizu bada, neure entzula onac, au [205] guztiau zala comuninoeco sacramentubaren iduri bat. JESUS da *jaaten davena*. JESUS da *janarija*. JESUS da *jaaten* emoten davena. JESUS da *sendua*. Ta JESUS da *gozua*. Jesusen aoti, azqueneco aparija apostolubaquin jaten evanian, urten evan gueure arimaco janarijac. Ta janari au berau da Jesus. Jesus bera da *sendua*. Bera da Isrraelgo judatarren leoe *sendua. Leo de Tribu Juda* Bera da Sanson eguijazcua, bere buruba illagaz arerijuac goitu citubana. Ta Jesus bera da sacramentu santuban gozotasun guztietati gozuena. Sanson leoiaren aoco eztiyac ezteguraco gozatu evan leguez vidian pozic eta gogoz juateco, alan Jesusen gorputz santubac comuninoian artuta, gozatu, poztu, sendotu ta vizcortuten ditu arimac munduban, ceruco eztegubetara juateco. Au gaiti convidetan ditu ceruco esposuac arima santac, berac bere ezti gozua jan davela esanda, *comedi favum cum melle meo* (145), beragaz janari ta edaari gozua naicua artutera. *Comedite amici, et bibite, et inebriamini charissimi.* 440 445 450

¿Baina noc acertau comuninoe santubac daucazan mirari ezcutuco illun oneec? ¿Celan guc, philisteotarrac leguez, luurreco illuntasunian ta gorputzaren cartcelan arimia daucagunoc, celan aitu ta acertau Sanson eguijazcuaren, Jesus maitiaren amodijozco acertaquizun gach ezcutuco oneec? Ecelan bere ez gueuc gueurez. Ez evenen inos aituco philisteotarrac Sansonen verbetia, Sansonen beraren esposiac esan ez baleutsee. Ta ez guenduban guc bere inos aituco Jesusen verbetia comuninoeco sacramentubaren [206] ganian, Jesusec berac eracutsita, Jesusen esposiac Eleisa Ama santiac esan ez baleuscu. *Durus est hic sermo* esango guenduban, leenagoco discipulubac leguez. Verbeta gogorra, illuna ta aituten gacha edo aitu ezin leguijana da au, esango guenduban, *Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcua dala guizonaren janarija*. Baina Jesusec berac esan ezquero ta Jesusen esposa eguijazcuac, Eleisa Ama santiac 460 465

(145) Cant. Cant. c. 5.

451 esan da *Ba*

¹⁸³ Ik. Ep 16,16-18.

eracutsi ezquero, sinistuten dogu comuninoeco sacramentubaren gainian eracusten deuscun guztia, gueuc icusita ta aituta baino ciurrago, zalago ta senduago.

470 ¡Oh, Jesus Sacramentauba! ¡Oh Jesus, arimen janari eguijazcua! Zeuc gura izan dozu, bada, gueugaz altaretan gueratutia. Gueuri deuscuzun nai ona gaiti eguin deuscuzu, Jauna, mesede neurri bagaco ori. Zeuri bacarric gogoratu jatzun, Jesus, gueure janari izatia. ¡Nori besteri gogoratuco jacon Jaungoico guizondubac bere gorputzagaz ta odolagaz janduco citubala guizonac? ¡Ta nor azartuco zan inos mesede au zuri escatutera? ¡Oh Jesus andija ta humildia!

475 Andija ceruban ta humildia ogui pusca baten echuran. Andija ceure eguitadetan: Cerubac ta luurra covernetan, ainguerubac ta santubac alegueretan, diabrubic ta deungac impernuban penetan ta onac guztiac munduban gordetan ta zaintuten. Baita ondo chiqui erichicua¹⁸⁴ ta ondo batuba zara, Jesus maitia,

480 ni leguezco pecatari baten miinaren gainian, eztarrijan ta bularrian zagozarian. Maitetu zaguijezala bada, Jesus ona, arima guztiac ta espiritu guztiac ceruban, luurrian, lecu guztietan ta beti. Amen.

[207]

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

- 485 1. *Celan prestau biar dan comulguetaco, arimiaren parteti.*
 2. *Celan, gorputzaren parteti.*

Ez da asco, neure cristinaubac, comuninoeco sacramentubaren gainian Jaungoicuac esaten deuscuna ta Eleisa Ama santiac eracusten deuscuna sinistutia. Bada, sinistute onagaz ta zalagaz ostian, Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiac eurac aguinduten deuscubee, comuninoe santuban Jesus artuteco gueure ariman. *Jaten ez badozu Guizonaren Semiaren araguija ta edaten ez badozu bere odola, ez zara vizico*, dino Jesucristoc berac (146). Baita Eleisa Ama san-

 (146) Joan. 6.

475 azartucozan *Ba* 492 Jesucristoc] Jesusucristoc *Ba*

¹⁸⁴ "Chiqui erichico": apala, handikeriarik gabea; (honen antonimotzat "andi erichicua" darabil).

tiac bere aguinduten deuscu guichienaz urtian bein comulguetaco. Ezin ucatu
 guinai bada, neure entzula onac, gauza andija ta andija baino andijagua dana 495
 Jesus Jaungoico ta guizon eguijazcuari gueure echian ostatuba emotia. ¡Oh!
 pensauta beste bagaric icara eguiten dau gueure vijotz pobriac, Jaungoico
 andija, jaun guztien jauna, erregue guztien erreguia, ceruben ta luurren jaubia,
 Jesus santuba, Jesus ona, Jesus garbija gueure echera etortiaz. ¿Cer eguin biar
 ete dau, bada, cristinaubac Jesus maitiari egon lecuba bere vijotcian presteta- 500
 co? Au da, neure entzula onac, nic zubei icasquizun onetan eracutsi biar deu-
 tsudana: 1. *Celan prestau biar daven cristinaubac comulguetaco, arimiaren*
parteti. 2. *Celan prestau biar daven, gorputzaren [208] parteti.* Uste dot guztion
 premina andico dotrinia dala. Berau gaiti ta Jesusen amodijo santuba gaiti erre-
 gututen deusut entzuteri oneena. 505

I.

¿Cer eguin biar dau bada, cristinaubac, Jesus bere ariman artuteco? ¿Cer?
 Gogoratu bere artian astiro, Jonas propeta santubari ichaso-guizonac itandu
 eutseena. ¿*Cein erritacua zara zu?* itandu eutseen. ¿*Ex quo populo es tu?* ¿*Nora*
zuaz? ¿*Quo vadis?* (147). Itandu beguijo, bada, cristinaubac bere artian 510
 Jaungoicuari, comulguetara doianian: ¿*Cein erritacua zara, Jauna?* ¿*Nora zuaz,*
Jauna? ¿Cer eguitera zatoz nigana, Jauna? Itandu begui au edo pensau begui au
 astiro cristinaubac, comulguetara doianian. Ta gueratuco da arnasa bagaric, cer
 esan, ez cer eguin ez daquijala. ¿*Cein erritacua da Jesus?* ¡Ah! ceruba baino
 goragocua. Munduba baino leenagocua. Aingueru santu ederrac jarlecutzat 515
 daucazana. Jaungoico ta guizon eguijazcua. ¿*Ta nora dator Jesus, ni comul-*
guetan nasanian? ¡Ah! nigana, pecatari triste onegana. Gauza onic bat bere ez
 daucadan onegana. Milla gurari lotsarizco chiqui ta andi daucadazan onegana.
 ¡Oh, Jesus! ¿*Ceu nigana?* ¿*Ta cer eguitera?* Neugaz egotera. Neure ariman jarle-
 cuba artuta, neugaz verbetan egotera. 520

Conturatu bada, cristinaubac, ce arimaco garbitasunagaz ta apaindurijagaz
 eldu biar dogun Jesus ceruco Erregue vicija gueure echian artutera. Arimia da
 Jesusen egon lecuba. Ta arimia nai dau Jesusec euqui daigun ondo garbituta,
 bere anditasuna ta ontasuna pocic an egoteco. Arimia da Jesus gordetaco caxia.
 Bada, [209] errazoia da Jesusen gorde lecuba garbija ta ederra egotia. Leengo 525
 leguian aguindu evan Jaungoicuac (148) caxa bat eguiteco, nun gorde biar zan
 israeltarren mana (149), Jesus comunioecuaren irudija. Jaungoicuac berac
 esan eutsan Moisi, mana gordetaco caxiac celacuac izan biar evan ta celan

 (147) C. 1. (148) Exod. c. 25. (149) Ib. c. 16.

512 ni gana *Ba* 515 jar lecutzat *Ba* 519-520 jar lecuba *Ba* 523 naidau *Ba*

530 pretaubac izan biar evan. Barruti ta campoti urre garbijagaz doretaco caxia
aguindu evan Jaungoicuac. Leen esan dan leguez, Jesus da mana eguijzcua
Altaraco sacramentu santuban. Ta gueure arimac dira, mana ceruco au gorde-
taco caxac edo ontcijac. Orregaiti dorau biar dau cristinaubac bere arimia urre
535 garbijagaz barruti ta campoti, ceinegaz aituten dan arimaco ta gorputceco pres-
taera ona Jesus comunioian artuteco. Arimiaren parteti biar da Jesusen *amo -
dijua*, Jesus artuteco *gosesantuba* ta *humildade* eguijzcua.

Ondo comulguetaco biar da *lelengo* Jesusen amodijua. Bera maite davee-
nac ta bere adisquidiac convidetan ditu Jesusec comunioeco mai santura.
Adisquidiai esaten deustsee ceruco Esposuac (150), jaateco bere araguija ta
540 edaateco bere odola. *Comedite amici, et bibite, et inebriamini charissimi*.
Naitaezeco pretaeria da au, cristinaubac, comunioiac on eguingo badeuscu.
Alcar maite ez daveen bic ez davee alcar ondo artuten. Laster gobaituten dira
alcarregaz egoten. Ez deutsee batac besteari mesede andiric eguiten.
Comulguetan danac maite ez badau Jesus ta Jesusec maite ez badau comul-
545 guetan dana, izango da comunioe otza, si-[210]cuba, liorra ta, esan oi dan
leguez, cumplimentuzcua. Arerijo bic bere nosbait alcar visitau oi davee cum-
plimentuz. Baina nora ezian, gogo bagaric ta laster amaitu visitia. Bada, beste
aimbeste comunioe santubagaz. Amodijo bagaric ta caridade bagaric juan lei-
teque cristinauba comulguetara, cumplimentuz leguez. Baita Jesus bere etorri
550 alaco arimara bere verbiagaz cumplidutiarren, Judasenera juan zan leguez.
Baina gueijago ezinian. Gogo bagaric ta carino bagaric alcarreganatuten dira
orduban Jesus ta comulguetan dana. ¡Oh, ceimbat onaco comunioe! ¡Oh,
ceimbat amodijo bagaco ta caridade bagaco comunioe! ¡Oh, ceimbat peca-
tuzco comunioe, neure cristinaubac!

555 Naita ececu da, bada, ondo comulguetaco, Jesusen amodijo santuba,
Jesus adisquide ta maite izatia, *Jaungoicuaren gracijan egotia*. Alan eracusten
deuscu Eleisa Ama santiac Trentoco batzar osuan. Dino bada (151): *Inoc esa -
ten badau, asco dala sinistutia bacarric comunioe santuba artuteco, izan
dedilla escomulgauba a esaten davena... Ta comunioeco sacramentuba inoc*
560 *bere artu ez daguijan gaisqui bere arimiaren erijotzaraco ta condenacinoera -
co, erabagui dau ta esan dau concilijo santubac, pecatu illgarrijan daguanac,
ondo garbatuta daguala uste izan arren, ez davela juan biar comulguetara
bere pecatubac ondo compesau bagaric, nogaz compesau euqui ezquero. ¶*
565 *azartuten bada inor, au onan ez dala edo izan biar ez davela esaten, eracus -
ten edo prediquetan, a esaten davena, eracusten davena edo prediquetan[211]
davena, izan dedilla escomulgauba*, dino Concilijuac. Pecatu mortala edo ill-

(150) Cant. cant., c. 5. (151) Sess. 13, Can. 2.

534-535 presta era *Ba* 541 Naita ezeco presta eria *Ba* 545 oidan *Ba* 546 nos bait *Ba*
| oidavee *Ba* 550 Judas enera *Ba*

garrija ariman ezaututen daven cristinaubac, compesinoe eguijazco bategaz prestau biar dau comulguetara juateco. Compesinoe on baten pecatubagaz garbatuta, pecatubaren gorrotua artuta, Jaungoicuagaz baquiac eguinda, Jesus maitetuta, amodijo santubaren urriagaz bere arimia dorauta, edertuta eldu biar dau cristinaubac comulguetara. 570

Bigarrenian : Comulguetara juaan biar da Jesus artuteco gose santu bategaz. Gosez ta gurariz artuten dan janarijac, gorputzian bere oba eguiten dau. Gogo betian¹⁸⁵ jaten danac ez deutsa gorputzari on andiric eguiten. Ascotan bai gach. Bada, moduren baten, beste aimbeste jazoten da arimiaren janarijac, cein dan Jesus comuninoeco sacramentuban. Eldu biar dau cristinaubac comulguetara, Jesucristo gueure Jaunagaz bat eguiteco ta Jesusen gracia ugarijac bere ariman artuteco gurari ta nai vici bategaz. Orduban aberatstuten dau Jesusec gueure arimia ceruco ontasun andijaquin. Gueituten dau ceruraco uste eguijazcua ta errazoezcua. Gueituten dau Jaungoicuaren esanaren sinistutia. Gueituten dau Jaungoicuaren ta ceruco echiaren maitetasuna. Baita pecatuben damuba, erijotciaren gomutia, juicijuaren bildurra, pecatarijen erruquija, santuben devocinoia ta beste virtute edo arimaco ontasun guztiac bere. ¡Ce gose santubagaz ta nai vicijagaz elduten cirian comulguetara ene Ama santa Teresa, santa Catalina, santa Isabel, santa Maria Madalena Paciscua ta beste milla! ¡Oh! euren vijotzac ixiota egozan gose santu bategaz, Jesusen gorputza [212] comuninoian artuteco. Visperan ez euquen casic beste gauzaric goguan, vijamoneco comuninoia baino. Luce erichuela egozan, Jesus Esposo garbijagaz euren arimac bat eguin artian. Comulguetan cirian egunai labur erichuen, euren preminac ta carinuac Jesusegaz iragoteco. Ascotan gavac demporac emonda, luagaz aztuta egozan Jesusegaz verbetan. Alan urteten even comuninoeti, cerutar batzuc balira leguez, amodijuaren subac ixiota, mundubac estimetan daven guztia oin azpijan eveela. Ez da bada, cristinaubac, Jaungoicua guretzat ez urrijago, ez zequenago, ez pobriago. Areec leguezco gose santubagaz elduco baguina comulguetara, artuco guenduquez gueure arimetan comuninoiagaz eurac artu oi cituben amodijozco ontasun cerucuac. 575 580 585 590 595

Chito nai izan dot, esaten evan Jesusec (152), au aparijau ceubequin jatia. *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum* Bada, ain gogo andija badauca Jesusec gueuc bera artu daigun comuninoe santuban, ¿ceimbat nai izan biar dogu gueuc bera artutia? Prestau bada, neure entzula onac, comulguetaco, Jesusen amodijo santubagaz ta Jesusegaz bat eguiteco gurari edo gose vici bategaz. Baita humildade eguijazco bategaz bere, cein dan irugarren arimiaren prestaeria. 600

(152) Luc. c. 22.

605

596-597 oicituben *Ba* 598 izandot *Ba* 604 presta eria *Ba*

¹⁸⁵ Ik. *Icas-Jeko* 213. oharra (834.or.).

Irugarrenian : Ezautu biar dau cristinaubac bere buruba ta bere pecatari-
 tcia, Jesus ariman artuteco, cein dan humildade eguijazcua. ¿Nor nas ni,
 Jesucristo gueure Jaunari neure echian ostatuba emoteco? ¿Neure vijotcian
 ceruco Er-[213]reguia artuteco? ¿Aingeru ederrac beragaz dacazan Jaun andi-
 610 jari jarlecuba neure ariman eguiteco? ¡Oh ce eche pobria, Jauna, nire vijotza
 ceu artuteco! ¡Utsa da, Jesus maitia, pobria egotia garbija balego! ¡Baina ceim-
 bat samar, ceimbat luurreco auts, ceimbat amaraun icusten ditut neure ariman,
 Jesus garbija, ceuri egon lecuba emoteco! ¡Oh, Jesus! ¿Celan azartuco nas ni
 ceure mai santura elduten, neure vicitza pecatuzcuari beguiratu ezquero?
 615 ¿Neure andiguriari, neure buru erichijari, neure codicija edo diru gura goses-
 cuari, neure asarre sutsubai, neure gurari lotsarizcuari, neure burubaren amo-
 dijo itsubari ta laarreguijari, neure pecatu andijai...? ¿Celan, Jauna, azartuco nas
 ni ceu neure vijotcian artuten, neure pecatu aldra lotsarizcuari, ezainari ta ichu-
 sijari beguiratu ezquero? ¿Neu aimbeste bidar ceure arerijua izan ezquero?
 620 ¿Neuc pecatubagaz zeu sarritan saldu ezquero? ¡O Jesus! ¿Celan jarrico zara,
 aimbeste verba deunga esan dituban nire miinaren gainian? ¿Celan egongo
 zara, aimbeste pecatu loi, aimbeste lapurreta, aimbeste gorroto, aimbeste gais-
 qui esate, aimbeste ordiquerija ta aimbeste engainu lotsa bagaric ceure contra
 gura izan dituban vijotcian?

625 Onan pensau biar dau, neure entzula onac, cristinaubac, bere vicitza ezai-
 na ta pecatuzcua, comulguetara orduco. Imini beguiz alcarren parian bere
 pecatuzco pensamentubac, gurarijac ta eguite gaistuac Jesus maitiaren ontasu-
 nagaz, zucentasunagaz, garbitasunagaz ta anditasunagaz; ta gueratuco da cris-
 tinauba lotsatuta, buruba macurtuta, comulguetan azartu ezinda. [214] Esango
 630 dau Centurion evangelijocuagaz (153): *Jauna, ez zaitez sartu neure echian* .
 Edo Publicanuagaz (154), Jaungoicuaaren aurrera juaten lotsatuta, beguijac luu-
 rreti gora jasoten azartu ezinda, urrineti esango deutsa Jesus onari ta parcazai-
 liari, bularra juaz: *Jauna, misericordija pecatari onegaz; Jauna, erruquitu zai* -
tez nigaz; Jauna, mesede eguidazu parcatutia. Deus propitius esto mihi peca-
 635 *tori*. Onaco pecatuben ta bere burubaren ezauberiagaz chiquituta, Jaungoicuari
 vijotza jasota, parcacinoia escatuta, elduten danian cristinauba comulguetara,
 pretauta dauca bere arimia Jesus artuteco. Dendatu bada, cristinaubac, ceruco
 Erregue andija bere naizco ta pocezco arima garbijan artuteco maite izate-
 640 raz, bera artuteco gurari santu ixio bat euquitera ta humildade eguijazco bate-
 gaz comulguetaco ceuben arimac prestetara. Orduban egongo da Jesusen on-
 tcija edo caxia barruti urre garbijagaz dorauta. Baina campoti bere dorauba zan

 (153) Matth. c. 8. (154) Luc. c. 18.

610 jar lecuba *Ba* 632 ezin da *Ba*

mana gordetaco caxia. Alan, Jesus, mana eguijzcua artuteco, cristinaubac prestau biar dau ez bacarric bere arimia, ez bada baita gorputza bere. Aitu egizu, bada, celan prestau biar daven cristinaubac comulguetaco, gorputzaren parteti. 645

II.

Gorputcian eruan biar dan prestaeria comulguetaco da baruric egotia. Au da lelengo biar dana. *Baruric* esaten danian, aituten da ez davela ecer bere irago biar eztaarrijan beera gau erdico amavijetati comulgau artian. Auan sartutaco gauzaric ecer bere ez. Ez janariric, ez edaariric, ez beste gauza agui- 650
 auan sarturic. Oni [215] esaten jaco baru utsa edo baru *naturala*. Au biar da comulguetaco. Alan aguinduten deuscu Eleisa Ama santiac. Ta duda bagaric, eracuslac dinuenez (155), Espiritu Santubac apostolubai eracutsi eutseen baruric comulguetia. Eleisiaren lelengo asieran Eguben Santu gavian bacarric artu- 655
 ten zan comunioe santuba apalduta guero, Jesusen azqueneco apari santubaren gomutan. Baina onezaz ostian, osasuna dauquen guztiac comulgau biar izan davee ta comulgau biar davee baruric. Bada, orain Eguben Santu gavian bere osasundunic comulgau ezin leiteque, baruric ez dala.

Au aguinduten deuscu Eleisiac, Jesus onaren erreberencia gaiti. 660
 Comulguetan dan egunian baruric artuta, Jesus maitiari lelengo lecu emoten jaco gueure bularrian. Onegaz eracusten dogu, lelengo lecuba ta estimacinoe nausija daucala Jesusec gueure ariman. Eguiija da, gaixoric daguanac illteco arriscuban daguanian, baruric egon ez arren, artuten dau gure jauna, comunioeco sacramentu santubaren gracia ta laguntasuna bagaric erijotzaco ordu 665
 estubac artu ez daguijan. Baina osterantcian ez da inor comulguetan, baruba ausita.

Gorputzaren prestaeriari jagoco bigarren lecuban, comulguetaco escubac ta arpeguija garbituta, soina modu onagaz jantcita, gorputceco era guztiagaz buruti oinetara modestija, humildadia ta lotsa ona eracusten davela Jesus artu- 670
 tera eldutia. Comulguetara doian cristinaubac, bere beguijetan, bere pausuban, bere jantcijan ta bere egoneraan eracutsi biar dau, ariman [216] daucan garbitasuna, jasotasuna, humildadia, Jesusen amodijua ta lotsa ona. Ez dau jua biar guizonezcoc comulguetara, dino san Carlos Milanguac (156), ez sariagaz, ez birretiagaz, ez ezpatia edo armia guerrijan davela. Ezda emacumiac bere, dino 675
 Santubac berac, jantci arruaquin edo vanidadetsubaquin. Ezda ule oquertubac

 (155) Poug., Inst. Cath., p.3, sec. 1, c. 4, L.F. (156) Actor. p. 4. de Sac. Euch.

644 ez bada *Ba* 648 presta eria *Ba* 659 osasundunic *Ba* 668 presta eriari *Ba* 672 egon eraan *Ba* 676 Cath.] Ch. *Ba* 674 Milanguac] Milanguac *Ba* 675 Ez da *Ba* 676 Ez da *Ba*

veguijetan ditubela bere; *non crinibus inaniter intortis* . Ezda arpeguija berari-
 jaz coloretuta bere; *non fisco, aut pigmentis vultu illito*. Ezda bularrac aguirijan
 680 bere, edo guztiz aguirijan ez arren, gasa arguijagaz tapauta bere, ez[badal] arpe-
 guijaz beste guztia ondo estalduta. *Non pectore nudo, aut tenui velo obtecto;*
sed ita vestito, ut en præter faciem quidquam nudum cernatur.

Modu onetan prestau biar dau cristinaubac comuninoe santuba artuteco,
 gorputzaren parteti. Uts eguiten davee ascoc ta ez davee eracusten cristinautza
 685 eguijazcuaren senailaric. Batzuc edocein modutan, jaso on¹⁸⁶ bagaric, soinac
 moduztau¹⁸⁷ bagaric, botoiac euren lecuban lotu bagaric, chito nasai juaten dira
 comuninoe santuba artutera, bai guizonezcuac ta bai emacumiac. Beste batzuc
 Jesusen mai santuraguino daroie euren arrotasuna ta vanidadia soinian. Batez
 bere dempora onetaco emacume ascoc. Cocotac aguirijan ditubela. Irunac eta
 690 bularra ondo estari¹⁸⁸ bagaric. Sare mordo bat becoquijan beera aua tapau
 artian darijuela. Ez guichitan, ez bada ascotan, comuninoe santuba auan imin-
 ten sacerdotiari eragozten deutsalac ezpanac joten deutzazan sariac. Beste ba-
 tzuc [217] euren ule molsuac adartuta, paper zaar batzuguin lotuta, becoquijan
 695 armatuta dauquezala duaz ¿baina ceren echuriagaz comulguetara? Ez da, bada,
 ori, neure entzula onac, Jesusec nai daven soina comuninoeco maira juateco.
 Soin jasua, soin garbija, soin ona, (daucanac) soin ondrauba Jesusen mai san-
 turaco. Bai[na] ez soin nasaija. Ez soin jausija ta edeguija. Ez soin arrua ta aixe-
 tsuba. Ez soin armatuba ta biloxtuba. Ez soin barregarrija. Ez monuen soina.
 Ez egunian eguniango moden soina.

700 Gogoratu bada, cristinaubac, ce prestaeriagaz eldu biar dan comuninoe
 santuba artutera, bai arimiaren parteti ta bai gorputzaren parteti. Gogoratu,
 Jaun andi batec edo luurreco erregue batec etorri gura baleu ceuben echetara,
 ceubec visitetara, ceubequin egun batzubetan egotera ta ceubec beragaz celan
 portetan zarian, alan ceubei mesediac eguitera. Ta entzungo bacendu chito
 705 prestuba dala ceubenera etorri gura leuquian jaun andija. Leen bere beste eche
 batera alanche juan zala. Ta eche atan ondo artu eveelaco, echeco guztiai beti-
 co ondo izatia echi eutseela. ¿Cer eguingo cenduque? Edo obeto esateco, ¿cer
 eguingo ez cenduque, caballero ari naijac eguitero? ¿Celan garbituco cenduque
 ceuben echia? ¿Celan bere egon lecuba, jar lecuba, jan lecuba? ¿Celan moduz-
 710 tauco cenduquez ceuben verbac ta escaarijac, berari esateco? ¿Celan egongo
 cinaatequez bere aurrian ta bere onduan, echian daucazun artian? Pensau asti-
 ro ceubec, neure cristinaubac. Ta pensau, ia cer dirian luurreco andi ta aberats

678 Ez da Ba 679 Ez da Ba 691 ez bada Ba 700 presta eriagaz Ba 712 ia] Ya Ba

¹⁸⁶ "Jaso on": itxura ona, aire ona.

¹⁸⁷ "Moduztau": txukundu.

¹⁸⁸ Sarrera orokorrean, fonetika aztertzerakoan, ikusi dugu *r* / *l*kontsonanteen alternantzia. Gehienetan *estaldu* darabil, baina hemen *estari*, eta ez *estali*.

guztiac Jesus ceruco Erreguiagazco. ¡Ah, las-[218]timial ¡Ain zurrac munduco irabatciraco! ¡Ta ain sorrac Jesusentzaco ta gueure arimentzaco! ¡Oh Jesus! Erremedijau eguizu gach andi au ceure merecimentu andijac gaiti. Amen. 715

IV. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ondo comulgaubac arimara dacarren mesedia.

Comuninoeco sacramentu santuban Eleisa Ama santiari, ta arima on baco-
chari Jaungoicuac ichi deuscuzan ontasunac eta gracijac ez dauquee neurriric, 720
neure entzula onac. Comuninoeco sacramentuban dago vicitzaco *arbolia*, cei-
nen prutiac eucan beste pruta on guztien gozotasuna ta gustua. Paradisubaren
erdijan eguan leguez vizitzaco arbolia¹⁸⁹, alan dago Eleisiaren erdijan Jesucristo
altara santuban, arima on guztiai espirituco vicitcia emoten deutseela.
Paradisuban bertan urteten evan leguez iturri ugari batec, lau erreca anditara 725
zabalduta¹⁹⁰, lecu zori on ataco arbola, vedar ta lora guztiac erregarijetan citu-
bana, alan Jesus altaraco sacramentu santuban, Virgina ederraren luur edo gor-
putz garbiti urtenda, bere ortu guztietaco arbolac, lorac ta bedar usain gozoco
guztiac erregarijetan ditubala dago, ceintzuc dirian arima garbi guztien virtute 730
edo ontasunac. Contetan badira guiza aldijetan Jaun cerucuari cerbaitegaz nai-
jac eguin jacoza munduban ta eurac gaiti Jaungoicuac mesediac eguin deu-
tsezala guizonai, eguitade areec guztiac ez dira beste gauzaric izan comunino-
eco sacramentubaren irudi bat baino. [219] Abel justubac Jaun cerucuari eguin
eutsan esquin bedecatuba¹⁹¹, Noec eguin eutsan usain gozocua¹⁹², Abraanec
eguin eutsan esquin gacha ta penazcua¹⁹³, Melchisedec eguin eutsan jan edan 735

728 urten da *Ba*

¹⁸⁹ Ik. Has 2,9. "Vizitzaco arbolia" dio Frai Bartolomek; Hasierako testuan, ezaguna zitzaion Vulgatan, "lignum vitae" dator (Has 2,9; 3,22.24; ik. ere Ap 2,7; 22,2.14). Esdras IV 8, 52an "arbor vitae" ageri da. (Esdras IV apokrifoa da, testu apokaliptikoa, Trentoko Kontzilioak, 1546ko apirilaren 8an, IV. bilkuran, liburu kanonikoen artetik kendu zuena; dena dela, gerora ere Vulgataren edizio askotan agertu izan da, baina eranskin gisa).

¹⁹⁰ Ik. Has 2,10.

¹⁹¹ Ik. Has 4,4.

¹⁹² Ik. Has 8,20-21.

¹⁹³ Ik. Has 22,1-14.

sendocua¹⁹⁴ ta beste Jacoren semiac eguin oi cituben esquinu edo *sacripicijo* guztiac¹⁹⁵, nai ciriala pecatuben zorrac paguetacuac nai ciriala arimaco gachac garbituteacuac, nai ciriala Jaungoicua gueure pavore euquiteacuac, nai ciriala ceruco gracijac jadistecuac, guztiac daucaz beragaz Jesusec altaraco sacramentu santuban. Legue zaarrecu ta barricu eguite santu ta Jaungoicuaren gogoco guztiac daucaz Jesusec comuninoeco sacramentuban. Ta guztiac daucaz gueuretatzat, gueuc nai izan ezquero. Comuninoiac gueure arimetara dacazan milla mesede andi ta gracijazcuai ichita, esango deusut bacarric dotrina onetan: 1. *Comuninoiac bat eguiten gaitubala Jesucristogaz*. 2. *Sendotuten ditubala gueure arimaco virtute edo ontasunac*. 3. *Parcatuten ditubala pecatu chica - irrac*. 4. *Ceruco Erreinubaren doia dala*.

I.

Comuninoiac bat eguiten gaitu Jesucristo gueure Jaunagaz. Ojala aitu al bacinai, cristinaubac, au celan dan. Nic esan ezin neguizu beintzet. Baquit alan dana. Baina ez daquit celan dan. Jesusen amodijo santubagaz ta garbijagaz vijotzac pretauta daucazuzanoc aitu daiquezu *bat eguite* zori oneco au. Ez dauquee onegaz ce icusiric vijotza luurreco gaucetan iminita dauqueenac. Munduco amodijuetati ta luurreco gurarijetati ustuta nai ditu Jesusec gueure vijotzac, beragaz bat eguiteco. Espirituzcua ta gracijazcua da bada, neure entzula onac, Jesu-[220]segazco *bat eguite* arimaco au. ¿Celan, bada, bat eguiten da comuninoe santuban gueure arimia Jesusegaz? *Arguizai zati bi eguzkitan berotuta, alcarri ezarrita bat eguiten dirian leguez*, dino san Cirilo Alexandrijacuac (157), *bat eguiten diriala gure arimia ta Jesus comuninoeco sacramentuban*. Bat eguiten da Jesus arimiagaz. Ez izatez. Bada, Jesus ta gueue ez gara *bat* izatez. Baina bai gogoz, naiz ta gurari onaquin. *Ez bacarric caridadez*, dino san Juan Crisostomoc (158). Bada, gracijan dagan arimia beti dago caridadiagaz. Ta beti dago Jaungoicuagaz bat eguinda. Baina comulguetan danian onezaz ostian, aparteco modubagaz bat eguiten da arimia Jesusegaz. Artuten dau arimiac comulguetan danian Jesusen espirituba, Jesusen

765 -----
(157) Com. in Joan. L. 4. (158) Hom. 61. ad Popul. Antioq.

736 oicituben *Ba* 748-749 albacinai *Ba*

¹⁹⁴ Ik. Has 14,18.

¹⁹⁵ Ez dago argi zertaz ari den hemen (Has 31,54an Jakobek bere semeekin eskaintzen duen sakrifizioaz hitz egiten da. Beharbada, Irteera garaiaren ondorengoak esan nahi izango ditu: Moisesekin, israeldarrek, euren Jainkoari sakrifizioak eskaintzera irten behar izaten zuten (ik. Ir 7,26; 8,17; 9,1.13; 10,3.25...).

vicitcia ta Jesusen naija. Jana ta edana dira gosia ta egarrija quenduteco, dino san Agustinec (159). Ez dau, bada, beste janaric ez edaaric gosia ta egarrija ondo quenduten, Jesusen gorputz ta odol satubac comunioian baino, dino Santubac berac. Gorputz santu au jaten dogunian, artuten dogu betico espiri-
tuba ta betico vicitcia; au da ceruco santuben lagun izatia. Jesus dan leguez 770
gueure arimaco ontasun guztien emalia ta vicigarrija, Jesus artuten davenac beragaz dauca ceruco vicitcia ta ceruco ontasuna.

Biar dan moduban pretauta comulguetan danac, cerbait pensetan badau, Jesus pensetan dau. Cerbait nai badau, Jesus nai dau. Cerbaitec ardura emoten badeutsa, Jesus maitetutiac ardura emoten deutsa. Luurreco gaucetati gora [221] 775
igonda, Jaungoicotuta leguez gueratuten da arimia comunioiagaz. Jesusen amodijo santubagaz ta cerutar baten pensamentubaquin, comunioe santuba artuta, esaten dau arimiac san Paulo apostolubagaz (160): *Yá ez nas neu vici, ezbada Jesus vici da nigaz*. Neu nago Jesusegaz ta Jesus dago neugaz. Nire naija, nire gogua ta nire uste guztia da Jesusen naija, Jesusen esana ta Jesusen 780
aguinduba eguitia. Jesuseganic inos ez aldentutia. Au da vijotz maitetsu biren bat eguitia, dino san Juan Crisostomoc. Ta onan comunioe santubac bat eguiten dau arimia Jesucristo gueure Jaunagaz.

II.

Baita comunioe santubac sendotu ta azi bere eguiten ditu gueure arima- 785
co ontasunac edo virtutiac. Sacramentu guztiac eguiten davee au. Baina aparteco modubagaz comunioe santubac. Bada, beste sacramentubetan emoten jaco arimiari gracia. Baina comunioeco sacramentuban gracia guztien ta ontasun guztien jaubia, ceindan Jesucristo gueure Jauna. Au gaiti esaten dau Jesusec berac (161): *Neu jaten navena vicico da neu gaiti* edo neugaz. Ondo 790
comulguetan darian, berez leguez sentiduten dau arimiac bere vijotcian Jesusenganaco ta ceruco gaucetaraco tiria. Arguiruago ta erraztuago sinistuten ditu Jaungoicuaren eguijac. Berecaturan leguez sortuten jaco ariman ceruraco ustia. Ta casic duda bagaric sinistuten dau, parcatuco deutzazala Jaungoicuac bere pecatubac ta emongo deutzazala ceruco gloria. Comulguetan darian, peca- 795
tubaren icena entzunda beste bagaric, icara eguiten dau arimiac. Gorrotuago deutsa ta ezai-[222]nago dericho pecatubari orduban, bestetan baino. Ta maiti- tiago dau Jesus ona. Alan, casic celan ez daquijala, bere ariman sentiduten ditu cristinaubac ondo comulguetan darian, indar barriac gogo barri bategaz

(159) Trat. 26. in Joan. (160) Gal. c. 2. (161) Joan. c. 6.

Jaungoicuagan sinistuteco, Jaungoicuagan uste seguru bat equiteco ta Jaungoicua maitetuteco ontasunac edo virtutiac. Gose danari jan onac indarrac eta gogua vizcortuten deutzan leguez barriro biarrari edo vidiari equiteco, alan comuninoe santubac arimaco virtutiac vizcortu ta sendotuten ditu, barriro arimiaren oneraco biarra equiteco ta Jaungoicuaren vidiari jarraituteco. Pedia, 805 esperantzia ta caridadia onan sendotuten baditu, ez dau guichiago eguiten beste virtutequin.

Beguiratu eguijozu cristinau eguijazco bati, comulguetan dan egunian. Nai eleisan, nai campuan ta nai echian. Ta icusico dozu eleisan luzaruago, batu- 810 bago, humiliadiago ta Jaungoicuari ta santubai escarijac ta erregubac eguiten gogotsubago. Campuan lagun artian isilago, modutsubago ta dempora guichiaguan. Echian baquetsubago, echecuaquin ta auzuaquin bat eguinago ta guztientzaco prestubago ta esanecuago. Au guztiau icusten dogu cristinauben artian, comulguetan dirian egunian. ¿Cegaiti? Comuninoe santuban arimiari 815 gueitu ta sendotuten jacozalaco humildadia, paciencija, isiltasuna, baquia, caridadia, prestutasuna, bere burubaren ezauberia, laguneren erruquija ta beste cristinaubaren ontasunac. Ta onaco arimaco indarra ta gogo santuba emoten ez badeutsa comuninoiac; urteten badau comuninoeti leen baisen zaatatsu, leen baisen cital, leen baisen gozo gaisto-[223]co, leen baisen arro ta panparroe, 820 leen baisen asarre ta ernegau, leen baisen vanidadetsu ta ibilgura; bildur izan zaite comuninoiagaz artu davela ariman diabruba. Contu, ceruco copaubagaz verenua sartu ete jatzun. Entzuten da persona batzuc gaiti: Nos echian edo campuan zitalen, nos baqueric guichien, nos inoc acertau ezinen, comulguetan dirian egunian. Jesus artu daven egunian. Bada, bildur izan aren comuni- 825 noiaquin, astian astianguac badira bere. Baita astian birritacuac ta gueijagocuac badira bere. Chaarrago. Beste aimbeste esaten da araco sarri compesau oi dirian cristinau batzuc gaiti. Comuninoe ascotacuac edo sarritacuac ez badeutseez gueituten ta sendotuten cristinautzaco ontasun, esan dirianac, bildurtu beitez comuninuaquin.

830 Inor esaminetan, inoren paltac contetan, inoren barriac jaquiten ta ez juacon¹⁹⁶ saltsetan sartuten ta sarri comulguetan, ez da cristinaucia ondo bat eguiten. Inori ecer bere parcatu ez; norbera gaiti verba erdi bat inoc esan daguijan gura ez; lasto baten contra sierpia leguez jagui; santu bat balitz baino gueijago inoc ucutu¹⁹⁷ biar ez; auaz pecatari andija dala esanda, bestiac baino obatzat

826-827 oidirian *Ba* 834 esan da *Ba*

¹⁹⁶ Argi dator: ez juacon saltsetan; komuntadura pluralean beharko zuela dirudi: "ez juacozan saltsetan".

¹⁹⁷ Hementxe bakarrik dator *ucutu*; gainerakoetan beti *icutu*. Sermolaria zen eta Bizkaiko herri askotan zehar ibiliz, ez da harritzekoa noizbehinka beste eskualde batzuetako formak ere itsastea.

euqui bere buruba; zequen ta gogor artu bere escupian dagozanac; pobriari 835
 arpegui asarria eracutsi; bestiac ecertaco eztat edo pecataritzat ta gaistotzat
 euqui ta sarri comulgau, ez da cristinautza eguijazcuagaz bat eguiten.
 Diabrubic engainauta daucaz alaco cristinaubac. Eleisara osteras asco eguina-
 gaz ta sarri comulgaubaz uste davee santu batzuc edo santa batzuc diriala. Ta
 paciencijaco, [224] humildadeco, caridadeco ta buru ezaubera oneco gauzan 840
 bein edo birritan provetan badira, topauco da euretan soverbija altuba, lagu-
 nari parcatu ezina, bestiac ontzac euqui ecina, bere burubari gach chiqui bat
 bere emon ecina ta compesoren esanera bere etorri ecina ta beste onaco vici-
 jo edo gach zaar impernuco batzuc ariman sustraituta dauquezala. Ez da errez
 onacuac osatuten. Ez deutsee onei comuninoe santubac onic eguiten. 845
 Comuninoe santubac berez dauca arimaco virtute edo ontasunac gueitutia ta
 sendotutia. Baita pecatu chicarrac parcatutia bere.

III.

Irugarren lecuban comuninoe santubac gueure arimiari eguiten deusnan
 mesedia da, pecatu arinac parcatutia. Ez dago inor bere pecatu bagaric. Onac 850
 eta zucenac bere jausten dira egunian zazpi bidar¹⁹⁸. Ta aimbeste ez dirianac
 jausico dira gueijagotan. Pecatu andijetan ta illgarrijetan jausi bagaric asco vici
 izan dira munduban. Baina pecatu chicarretan ta arinetan jausi ez danic ez
 daquigu, Jesus ona pecaturic ezin euquiara ta Ama Virginia maitia pecaturic ez
 chiquiric ta ez andiric eguin ez evana baino besteric. Beste mundura etorri 855
 dirian guizon eta emacume guztiac dira pecatarijac ta pecatu ascotan sarri jaus-
 ten dirianac. Baita arimanic garbijenac ta conturic andijenagaz vici dirianac
 bere, dino san Leonc (162). Araguijaren argaltasunac ta vicitzaco artu emonac
 ta eguinbiarrac nai ta ez ezarten deutsee arimiari munduco autsa ta loigarrija,
 dino santubac. *Necesse est de mundano pulvere etiam religiosa corda sor[225]* 860
descere. Sinistu biar dogu, cristinaubac, gauza ascotan paltetan dogula; sarri
 jausten gariala; gueure vijotceco gurarijetan ta gorputceco sengarrijetan peca-
 tubaren erijo¹⁹⁹ asco daucaguzala; gauza guichijan bada bere, sarri goituten gai-
 tubeela; ta egunian egunian arimaco zorrac eguiten ditugula.

Pecatu arinen zorrac paguetaco modu asco dagoz Eleisan, ceubec ondo 865
 daquizun leguez. Baina, Erromaco Catecismuac esaten deuscun leguez (163),
 aparteco gracija ta berezco indarra dauca comuninoe santubac pecatu arinac
 parcatuteco. Jesusec nai dituban leguez arimac garbi ta ascatu, bera bacarric

 (162) Serm. 4. Quadrag. (163) De Sacr. Euch. n.52.

659 eguin biarrac *Ba*

¹⁹⁸ Ik. Es 24,16.

¹⁹⁹ "Erijo": jarioa, itogina, likidoaren iragaztea...

870 maite izan daguijen, vijotz garbatubac ta humildiac artuten davenian comuni-
noian Jesus, parcatuten deutzaz pecatu arinen zorrac cristinaubari. Edo guztiac
edo zati batzuc. Pecatubun damubagaz ta Jesusen amodijuagaz guztiz prestau-
ta badua comulguetara, parcatuco deutzaz guztiac. Aimbete damu ta amodijo
ez badarua, zati batzuc. Baina gracijan comulguetan danari, beti parcatuten
875 deutzaz comunioe santubac pecatu chicarrac edo gueijago edo guichiago edo
guztiac. Gracija bi eguiten deuscu comunioiac, dino san Bernardoc (164):
Bata da, pecaturaco ta gauza gacheraco daucagun gogo gaistua ta gueugaz sor-
tuba guichitutia ta argaldutia. Ta bestia da, pecaturaco eraac gueuri quendutia
ta pecatu arinen zorra parcatutia. Comunioe santubac quenduten deutzaz
880 indarrac gueure pecaturaco goguari. Guichituten deuscu pecaturaco [226]
eraac ta ocasinioiac. Emoten deuscu indarra ta laguntasuna, tentacinoiac goitu-
teco. Ta parcatuten deuscu pecatu arinac. Gracija oneec guztioac osoz artute-
co prestau biar dau cristinaubac aimbat pecatubaren damuric andijenagaz,
Jesusen amodijo santubagaz ta arimia obatuteco gurari vicijagaz. Orduban izan-
885 go da comunioe santuba beste gracija guztiaquin ceruco dichieren doia.

IV.

Sacramentu guztiac dira gueu cerura juateco doiac. Baita Jaungoicuac gueu
gaiti eguin dituban ontasun utsezco mirarijac bere. Baina guztien artian apar-
teco eria ta escubidia emoten deuscu ceruraco Jesusec, comunioeco sacra-
890 mentuban artuten dogunian. Au gaiti esan evan Jesusec berac (165): *Neu nas
ceruti jatsi nintzan ogui vicija. Ogui au jaten davenac, euquico dau betico
vicitzia ta nic emongo dodan oguija da neure araguija... Zuben gurasuac jan
even mendi utsian mana ta ill zirian... Nic emoten dodan oguija jaten dave -*
900 *na, ez da illgo, vizico da...* Ezagun da bada, cristinaubac, Jesucristo gueure
Jaunac verba oneetan ez illtiagaz ta betico vizitziagaz esan gura deuscula ceru-
co erreinuba. Bada, Jesusen araguija jaten davenac badauca beragaz betico
VIZITZIA, comunioe santuba izango da gueuc ceruba irabazteco daucagun
aparteco doia.

Gueijago esan legui oraindino vijotz garbijagaz ta prestaera onagaz Jesus
900 comunioian artuten davena gaiti. Esan legui, beragaz daucala ceruco erreinu-
ba. Erregue²⁰⁰ dagan lecuban dago erreguiaren palacijua. Erregue da-

(164) Serm. in Cœna. Dñi. (165) S.Joann. c. 6.

899 presta era *Ba*

²⁰⁰ *Erregue* mugagabean dator hemen eta gero mugatuan, eskuinean osagarria duela; honen
harian, hona zer dioen OEHk: a) "Cuando *errege*, con sentido singular, no tiene complementos
a derecha o izquierda, el uso más frecuente en todas las épocas y dialectos -al menos hasta fina-

[227]guan lecuban dago Erreguiaren erreinuba. Bada, comulguetan danac, bere vijotcian, bere ariman, bere bularrian dauca ceruco Erregue vizija. ¿Cer palta dau, bada, ceruco erreinuba euquiteco? Comulguetan danac beria dau ceruco Erreguia, Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcua, bera bada benetan ta amodijoz ceruco Erreguiarena, Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcuarena. ¿Cer biar dau, bada, gueijago comuninoe santuba artuten davenac, ceruco Erreguia ta erreinuba beragaz euquiteco? *Esango dozu, dino san Juan Crisostomoc (166), icusi gura cenduqiala Jesusen beraren echuria, bere jantzija ta ber e soina. Ara bada, dino santubac, bera icusten dozu, berari icutu eguiten deusazu ta bera jaten dozu. Ecce eum vides, ipsum tangis, ipsum manducas. Zuc bere jantcija icusi gura cenduque; baina berac ez deus bacarric emoten icustia, ezbada baita bera jaatia, artutia ta ceure barruban euquitia bere. Manducare, et tangere, et intra te sumer e.* Comuninoe santuban emoten deuscu Jesusec bere araguija, odola ta Jaungoicotasuna, daucan guztia. Ta esquinccen deuscu beragaz betico ceruco vizitzia. Au da ceruraco doe nausija.

Ez, bada, aztu, neure entzula onac, ondo artutaco comuninoiac gueure arimara dacazan mesede andijaquin. Bat eguiten gaitu Jesucristo gueure Jaunagaz; sendotu ta gueituten ditu gueure arimaco ontasunac edo virtutiac; parcatuten deuscu pecatu arinac; ta emoten deuscu ceruraco aparteco gracia ta doia. Biztu daigun, bada, gueure sinistutia. Quendu daigun na-[228]guitasuna. Prestau gaitazan aimbat vijotzic garbijenagaz, Jesus gueure ariman artute-co. ¿Cer eguingo cenduque erregue batec ceure echera etorri gura baleu ceugaz egotera ta bere ondasunac ceuri ecartera? ¿Celan garbituco cenduque egon lecuba, lo lecuba, jar lecuba ta maija berarentzat? ¿Celan verba eguingo ceunsqiijo, ceure echian sartu dedinian? ¿Ce carino eracutsico ceunsqiijo? ¡Ah! ceubec pensau. ¿Cer dira, bada, munduco erregue guztia ta ondasun guztia Jesus Erreguiaren ta aren ondasunen aldian? Ecer bere ez. Utsac guztia. ¡Oh, Jesus maitia! Zeuc prestau biar dituzu gure arimac, ceu comuninoe santuban gueuc artute-co. Emon eguiguzu, Jesus gueure vijotcen jaube ona, gueure pecatuben damu eguijazcua, ceure amodijo ixuia ta ceu sarri artute-co gose santuba ta comuninoeco sacramentubagaz ceruco betico vicitcia. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

(166) Hom. 60. ad pop. Antioch.

914 ez bada *Ba* 924 baleu| balen *Ba* 929 Ecerbere *Ba*

les del s. XIX- es sin artículo. b) Cuando *erregeva* seguido de adjetivo -o bien de adnominal (-ko, -ren) pospuesto- se emplea siempre determinado (con artículo u otro determinante). También aparece determinado si está precedido de un ordinal o de *bestē* (135. or.).

935

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan,
ce erru andico pecatuba dan gaisqui comulguetia.

Comuninoe sacramentuba bada, neure entzula onac, chito gracia ugarijac
 940 ta mesede andijac gueure arimetara dacarzana, ondo prestauta artuten danian,
 bildurgarrijago, caltegarrijago ta ezainago da pecatuzco ariman artuten danian.
 Comuninoe santuba vizitzia da onentzat ta erijotzia deunguentzat. Esan ezque-
 ro leengo icasiquizunian ce mesediac dacarguzan comuninoe [229] onac, era-
 cutsi biar jaco cristinaubari ce caltiac dacazan comuninoe chaarrac edo pecatu
 945 illgarricuac. Ez da erraz pecatarijari aitu eraguiten, ce ezaina ta lotsa guichicua
 dan gaisqui comulguetia. Au pusca bat aituteo, gogoratu eguizu, bada, neu-
 gaz: 1. Nor dan Jesucristo gueure Jauna. 2. Cer opa deuscun Jesusec comuni-
 noeco sacramentuban. 3. Cer dan pecatu illgarrijagaz daguan arimia. 4. Ce lotsa
 950 galducua dan alan comulguetan dana. Prestau zaitez guztio, oi dozun gogo
 onagaz entzuteo ta dotrina onetati nic opa deusudan prutuba aterateo.

I.

¿Nor da Jesucristo? Jesucristo da Aita Beticuaren Seme vizija, Jaungoico
 eguijazcua, ontasun utsa, zucentasun utsa, garbitasun utsa ta edertasun utsa.
 Jesucristo da Jaungoicuaren Seme guizon eguina, aingueruben poza, ceruben
 955 arguitasuna, santuben alegrija ta Aita Beticuaren atseguin osua. Jesucristo da
 ainguerubac egonlecutzat, apostolubac crijadutzat, virginac esposatzat ta ceru
 andijac jarlecutzat guichiegui ditubana. Jesucristo da pecatu bagaco odol gar-
 bijagaz sortu zana, pecatu bagaco sabel garbijan azi zana, amaren osotasuna
 ausi bagaric jaijo zana ta pecatu bagaric beti vici izan zana. Jesucristo da ceru-
 960 ben ta luurren eguilia, aingueruben ta guizonen jaubia, munduco erregue ta
 jaunen aguintarija, guc guztio entzun biar deusaguna, sinistu biar deusagu-
 na ta chitic eguin bagaric obeidu biar deusaguna. Jesucristo da inori bere ecer
 zor ez deusana, guztio zor deusaguna, guztion vicitcia nai erijotcia, osasuna
 nai gacha, ceruba nai impernuba bere escuban daucana. Au da Jesucristo.

941 Bildur garrijago, calte garrijago *Ba* 949 oidozun *Ba* 959 izanzana *Ba*

[230]

II.

965

¿Cer opa deuscu, bada, Jesusec? ¿Edo cetaraco gueratu zan comuninoeco sacramentuban Jesus oguijaren ta ardauaren irudijan? ¡Oh, cristinaubac! Ezautuco baguenduz Jesusec deuscuzan opa onac. Ezautuco baguendu cetaraco gueratu jacun Jesus altara santuban, maitiango izango guenduque ta sarrijago artuco guenduque. ¿Cer nai deuscu, bada, Jesusec comunioian? Nai deuscu bera gueugaz bat eguitia; gueure vijotzac beretzat irabaztia; gueure goguac luurreco gaucetati ceruco poceetara jasotia. Bere gorputz ta odol vicijagaz gueure arimai janari gozua ta beticua emotia. Nai dau gueure arimac beretzat irabaztia. Nai dau bere neurri bagaco ondasun ugarijac, ceruco arguitasuna, ceruco gozotasuna, ceruco poza, ceruco baquia ta ceruco atseguina, emen euqui al daigun tercijuan, gueure arimetan imintia. Nai deuscu Jesusec comunioe santuban gue[u] santututia ta celanbait gheu Jaungoicotutia. Nai dau gueure najjac, gueure aitutiac, gueure asmuac, gueure goguac ta gueure gurarijac, guztiaac Jesusenac berarenac izatia, Bera guztia gueuria izateco. Gheu guztiz baguina Beriac, Bera guztiz izango litzaateque gueuria. Au gaiti esaten deuscu: *Ecazu ceure vijotza ta artu eguizu neuria* (167). Oneec dira Jesusen opa onac. ¿Cer opa eusquegun, bada, gueijago Jesusec, gheu on, zucen, bigun, garbi, baquetsu, maitetsu, santutu ta cerutartutia baino? ¿Ta cer eguin euquian onetaraco gueijago, Bera gueure arimen janari comunioian gueratutia baino? Ecer bere ez. Gogoratu daigun, bada, orain ia celacua dan pecatu-[231]ban daguan arimia, Jesus maitegarrijari ostatuba emoteco.

970

975

980

985

III.

¿Celacua da baina pecatuban daguan arimia? ¡Ah, cristinaubac! Gomutatuta beste bagaric, icara eguiten dau vijotzac, azcortuten dira buruco uliac ta zane-taco odola bere oztuten da. Pecatuban daguan arimia guztia da illuna, ezaina ta ichusija. Arima galduba, arima illa, arima luurtuba ta arima loituba da pecatuban daguana. Demoninuen toquiija da, pecatuban daguan arimia. Ez dago lecu bat ez munduban ta ez impernuban ezainagoric ta ichusijagoric, pecatuban daguan espirituba baino. Ez da ecer bere Jaungoicuac gorroto gueijago deusanic ta guichiago icusi gura davenic, pecatuban daguan arimia baino. Luciper bada gauza guztietati deungueena ta ezaineena, pecatuban dagualaco da. Impernuba bada lecu atsituba ta larrija, pecatuben lecuba ta toquiija dalaco

990

995

(167) Joan. 14.

971 vijotzac] vijotzat *Ba* 976 aldaigun *Ba* 977 celan bait *Ba* 985 Ecerbere *Ba* |
ia] ya *Ba*

1000 da. Quendu al balequijo pecatuba Luciperri, aingueru eder viurtuco litzaateque. Quendu al baleiz pecatubac impernuti, guztia arguituco litzaateque. Sartu al baledi pecatu bat ceruban, ez litzaateque ceru izango.

1005 Pecatuban dagan arimiari Jaungoicuac gorroto deutsa; Jesucristoc gorroto deutsa; Ama Virginiac gorroto deutsa; ainguerubac gorroto deutsee; santubac eta santac gorroto deutsee; mundubac gorroto deutsa; ta impernubac berac bere gorroto deutsa. Pecatuban dagan ariman ez dago ecer bere gogoz beguiratu leguijonic. Guizonaren izatia, bautismuaren silluba, cristinaubaren icen sicuba ta vizitza bagaco sinistute illa; oneec gueratuten jacob bacarric. Ta [232] euroc bere desondretaco ta gueijago ezainduteco. Pecatuban daganac illunduta dauca bere adina. Pecatubaren carguiac azpiratuta, muquertuta, oquertuta 1010 ta dauca vorondatia edo naillia. Pecatubagaz loituta, atsa darijola dauca bere vijotza. Gorputz ta arima dago luurreco gauceetan naastauta, lizunduta ta galduta. Leza baten galduta, euliz beteta dagan abere bat beguitanduten jat, pecatuban dagan arimia. Oratuten deutsee impernucoc eulijac, ceintzuc dirian demoninuac. Pecatubaren leza loijan sartuta dauque euren vendian, inoc bere 1015 ondo beguiratu ezin deutsan tercijuan.

IV.

1020 ¿Ce lecutan derichazu bada, cristinaubac, sartuten davela Jesus pecatuban comulguetan danac? ¡Jesus, Jaungoico vizija, Jesus santuba, Jesus erru baguia, Jesus garbija arima loijan! ¡Aingueruben Erreguia, Ama Virginaren Semia, Jesusen gorputz ta arima santia ta bedeincatuba demoninuen toquijan! ¡Gauzaric balijocuena lecuric galdubengan! ¡Gauzaric arguijena lecuric illunenian! ¡Gauzaric garbijena lecuric loijenian! ¡Gauzaric oneena ta ederrena lecuric ezainenian ta chaarrenian! ¡Oh, pecatuban comulguetan dan zori gaistocual Pecatubagaz batuten dau gracia; illunagaz arguija; impernubagaz ceruba; ta 1025 diabrubagaz Jesucristo. Deungaro eguin evan Judasec Jesus saldutia. Baina ez evan obeto eguin pecatuban comulguetia²⁰¹. Deungaro eguin evene judegubac

999 albalequijo *Ba* 1000 albaleiz *Ba*

²⁰¹ Ik. Jn 13,28-31; 18,2-3; Mt 26,26-29.47-50; Mk 14,10-25.43-45; Lk 22,14-23.47-48. Lau ebanjelarietarikoa batek ere ez du ez ukatzen ez baieztatzen Judasek azken afariko lehen euskaristia hartan esku hartu zuela. Mt y Mk ebanjelarien esanetatik ezezkoa ateratzen dugu, hau da, Judasek ez zuela eukaristi mahaiaren parte hartuko. Lukasek, ostera, eukaristiaren kontakizuna dakar lehenengo eta Judasen saldukeria gero; ordena honek, lehen testuan, ez zuen nahitaez horrela izan beharrik, baina testu horretatik ateratzen denez, ebanjelari hau baiezkotan dagoela dirudi, hau da, Judasek parte hartu zuela eukaristi afarian (Lk 22,20). San Joanen ebanjelioan berariaz pasatzen da aipatu gabe eukaristiaren sorrera. Hala ere Jn 13,18an (41,10. salmoaren aipua datorren horretan) argi eta garbi Judasi buruz ari dela dirudi. Eta testu honen grekozko itzulpenean datozen esaera batzuek badute zerikusirik Joanek bizitzako ogiaren hitzaldian dara-

Jesus illtia. Baina pozagoric juan zan Jesus curutzian illtera, pecatuzco arimara doian baino. Judasec Jesus saldubagaz ta judegubac Jesus illagaz jazo zan guizonaren erremedijua; eguin zan Aita ceru-[233]cuaren esana; pagau zan pecatubaren zorra; emon jacon cerubari glorija ta mundubari arguija. Baina guizona nai emacumia pecatuban comulgaubagaz, ez dator on gauzaric ecer bere. 1030

¿Cegaz eguin leguijo, bada, cristinaubac injurija andijagua Jesus maitiari, Berac guichien gura daven lecuban sartutia²⁰² baino? ¿Nun egongo da gogo guichiagogaz Jesus, demoninuaren vendian daganan pecatuzco ariman baino? ¿Jesusen Beraren gorrotoco vijotz ta bular loijan baino? ¡Oh, Jesus vijotcecu! ¿Nun sartuten zaitu pecatuban comulguetan danac? ¿Ce egon lecu emoten deutsee ceure vegui arguijai? ¿Ceure arpegui ederrari? ¿Ceure escu santubai? ¿Ceure gorputz bedecatubari? ¿Ceure arima gracijazcuari? ¿Ceure vijotz amodijo garbiz ixiota daganari? ¿Ce lecu? ¡Oh! arima loija, vijotz loija, bular loija, demoninuen egon lecuba. ¡Oh, aingueru santubac! ¿Nun dacuszu Jesus, ceuben Egulia ta Erreguia? ¿Celan adorauco dozu Jesus demoninuagaz daganan ariman? ¡Oh, Virginia ederra! ¿Celan beguiratuco deusazu Jesus ceure erraija garbijetaco Seme garbijari, pecatubac loitutaco ariman daganian? ¡Oh, cerubac! ¿Nora eruan dau ceuben arguija, ceuben poza, ceuben alegrija ta ceuben vijotceco maitia guizonen amodijuac? Pecatu mortalian daganan arimara. Lecuric ezainenera, illunenera, loijenera ta atsitubenera. An dago Jesucristo, pecatarijac nai davelaco. An egon biar dau Jesucristoc, pecatarijac nai davelaco. An icusi biar davee ainguerubac eta cerubac Jesus, nai ez daveela bere, pecatarijac nai davelaco. Cristinaubac pecatuban comulgau nai davelaco. 1035 1040 1045

[234] ¿Cer derichazu, neure entzula onac, pecatuban comulguetan danari? ¿Cer eguin leguijo deungaruago Jesusen gorputz ta odol garbijari? ¡Ah, desdichauba! ¡Ah, desventurauba! ¡Ah, Judas bigarrena! *Judasen lagunac dira pecatuban comulguetan dirianac*, dino san Dionisioc (168), *cein gaiti dinuan san Juanec, comuninoiagaz sartu jacola diabrubac. Ez leenago ez eucalaco, ezbada pecatuban comulgaubagaz leen baino obeto diabrubac oratu eutsala* - 1055
co. Santo Tomas Villanuebacuac esaten deutsa alan comulguetan danari (169): Gogoratu eguizu ce pecatu andija dan, ceure bular loico secreta²⁰³ ziquinera

(168) De indigna com. (169) C. 3. de Sacram.

1028 jazonan Ba 1029 pagauzan Ba 1031 ecerbere Ba 1053 cein gaiti] ceine gaiti Ba
1055 ez bada Ba

biltzanekin (Jn 6,53.58). Hori guztiori kontuan harturik, badirudi Judasec eukaristia hartu zuela-koa aditzera ematen duela Joanek.

²⁰² ¿Cegaz (...) *sartutia baino?* dator testu honetan; “¿Cegaz (...) sartutiagaz baino? beharko zuela dirudi...”

²⁰³ “Secreta”: komuna.

edo carcabara Jesusen odol santuba botetia. *Quantum flagitium sit in spurcis -*
 1060 *siman pectoris tui cloacam Sacratum Cristi Sanguinem funder e.* Pecatuban
 comulguetia da, dino Santubac berac, Cristo illtia ta bere odol santuba saldutia
 leguez. Judegu erruqui baguiac gorputzian Jesucristori emon eutseezan pena-
 ac, naibaguiac ta mingarrijac, espirituz ta bere partez bariro emotia. Onan
 1065 verba eguiten davee, neure entzula onac, Eleisiaren Gurasuac pecatuban
 comulguetan danaren lotsa galduba ta eguitade bildurgarrija gaiti.

Ez da ondo ogui santuba chacurrai emotia, esan euscun Jesucristoc berac
 (170). Ez eguijezu gauza santuba chacurrai emon; ez[da] gauza estimaubac lau
 oinecuai bota bere. Emen Jesucristoc esaten deuscun *gauza santuba ta esti -*
mauba da comunioe santuba. ¿Cer santubago bera baino? ¿Cer estimaubago
 1070 bera baino? Ecer [235] bere ez. Alan aitu bere eguiten davee san Agustinec ta
 san Juan Crisostomoc (171). Ta chacurraren ta lau oinecuaren icenagaz aituten
 da, pecatuban comulguetan dana. Esan daigun bada, cristinaubac, abere loi
 oneequin bat eguiten ditubala Jesucristo gueure Jaunac pecatuban comulgue-
 tan dirianac.

1075 Chacurren icenagaz aituten dira: Lelengo: Luxurijotsubac. Bigarrenian:
 Codicijotsubac. Irugarrenian: Embidijotsubac. Chacurrac dira alemanija loijac ta
 luxurijotsubac. Bada, areen irudicuac dira guizon eta emacume loijac. Au gaiti
 dino san Geronimoc: Chacurra ta emacume loija bat dira. Bada, bijac dagoz
 prest luxurijaraco. *Canis, et meretrix copulantur, quia utrumque primum est*
 1080 *ad libidinem.* Codicijotsubac bere chacurren moducuac dira. Bada chacurra
 dan leguez gosetsuba, codicijotsuba bere gosetsuba da. Beti dauca codicijo-
 tsubac dirubaren ta euquijaren gosia. Chacurrac oi davilzan leguez ate ondoric
 ate ondo ta baztarric baztar gosez, jan utsijaren²⁰⁴ ondoric, alan davil codicijo-
 tsuba gueijagoren gosez, dirubaren usaina sentidu ezquero, aren ondoric,
 1085 oquer edo zucen a beretu artian. Au gaiti esan evan David erreguiac (172),
 gosia padeciduco daveela chacurrac leguez ta ingurutuco daveela errija edo
 ciudadia. *Famem patientur, ut canes, et circuibunt civitatem.* Envidijotsubac
 bere chacurrac leguez dira. Chacurrac oi davilz, alcarri aguinca, sauncaca ta
 gorrotoz aguinac eracusten. Beste aimbeste dira embidijotsubac. Alcar icusi
 1090 ezinda, alcarri deungaro esaca, inoren ona eurent-[236]zat gura leuqueela, cha-
 currac leguez aoco copaubac bere bestiari quenduco leusquijuela, alcarren
 gorrotoz vici dira embidijotsubac. Embidijotsubai jazoten jacue apostolubac
 dinuana: Alcarri aguinca badiarduzu ta alcar jaten badozu, contu, alcar amai-

 (170) Matth. c. 7. (171) A Lap. in cap. 7. Matth. (172) Psalm. 58.

1065 comulguetan] comulgueten *Ba* 1082 oidavilzan *Ba* 1088 oidavilz *Ba*

²⁰⁴ Ik. Sarrera orokorrean lexikoari dagokiona (343.or.).

tuco dozu. *Si mordetis, et comeditis invicem, videte, ne consumemini ab invicem* (173). Iru oquerreriya oneec dirian leguez beste oquerreriya edo pecatuban sustrai zabalac, luxurijotsubac, codicijotsubac ta embidijotsubac gaiti esaten dana, esan legui beste pecatudunac gaiti. Pecatuban dagozan guztiai esan leguijue moduren baten san Juan Evangelistiagaz: *Foris canes* (174). Campora chacurac comuninoeco mai santuti. Campora, pecatuban dagozanac. Ez sartu ain lecu loijan Jesus garbija. Ezda iruntsi bere comunioe chaarragaz, ceubec condenetaco sententia. 1095 1100

Au da beste guztien gainera bildurtu biar gaitubana. Ta ez da guchiago, Espiritu Santubac esana baino. Pecatuban comulguetan danac, berac condentan dau bere buruba. *Judithium sibi manducat* ²⁰⁵. Judas zan lelengo gaisqui comulgau zana. Ta comulgau zaneti laster sartu zan impernuban. Cristogaz ta apostolubaquin comulgau zan. Comuninoeti jaguita Cristo saltcera juan zan. Saldu evan. Desesperau evan. Bere buruba urcatu evan²⁰⁶. Tripac urten eutseen esegui zan lecuban gorputz loiti luurrera ta arimiac impernura. Biar oneec guztioe eguin cituban Judasec ordu guchiren barruban. ¡Ce arin daravilzan demoninuac gaisqui comulguetan dirianac pecaturic pecatura! Ta pecatuban comul-[237]gau dirian guztiai au jazo ez arren bertati, ez pijau, cristinaubac. Jazo triste ta negargarri asco iracurten dira gaisqui comulgau dirian arimen castiguraco. 1105 1110

San Ciprianoc dino (175), *berac mecia emoten evala artu evala batec comunioian ez arimiaren janariya, ez bada bera illteco ezpatia. Eguin eutsa la eztarriyan epai andi bat, nundi botetan evan odola. Ta bertan illda edo itota gueratu zala aoti odola erijola. Munducuac engainau zitubala, baina Jaungoicuaren castiguba sentidu evala* . Au da comunioe pecatuzcuaren sariya. Beste emacume pecatuban comulgau zan bat gaiti, dino Santubac berac (176), *comulgauta bertati demoninua sartu jacola, jausi zala luurrera ta berac bere aguinaquin miina zatitu evala. Bera izan zala bere burubaren verdiguba. Tripetaco minac eta aliac emonda, ezin iraun izan evala* . San Juan Crisostomoc eta beste ascoc esaten deuscubee, ce castigubac eguin dituban Jaungoicuac pecatuzco comunioiac gaiti (177). Batzuc gueratu dira endemoniauta. Beste batzuc gaixotuta. Beste batzuc andituta. Ta beste asco comunioe santuba eztaarriyan beera irago ezinda. Onaco bildurgarriyan artian bat esa- 1115 1120 1125

 (173) Gal. c. 5. (174) Apocal. c. 22. (175) Serm. de Laps. (176) Ubi supr. (177) Marc. de Euchar.

1098 pecatu dunac Ba 1101 ain] aim Ba | Ez da Ba 1107 comulgauzan Ba 1109 eseguizan Ba 1116 ez bada Ba 1120 comulgauzan Ba

²⁰⁵ Ik. 1Ko 11,29.

²⁰⁶ Ik. Mt 27,3-5; Eg 1,18-19. Eukaristian esku-hartzeaz, ik. 201. oharra (1278-1279.or.).

- 1130 ten da, edoceini icara eraguin biar deusana (178): *Sarri pecatuban comulgau zan guizon bati illten eguanian aguertu jacon demoninua, pormac edo ostijac patena baten citubala. Ta esan eutsan: Sarri pecatuban comulgau zarialaco, gaur neure escuti artu biar dozu comuninoia . ¿Ce poza euquico evan gaisto tristiciac alaco lagunagaz, ondo illteco?*
- 1135 [238] Sinistu bada, neure entzula onac, san Paulo apostolubac dinuana (179). Asco dagozala arimac argalduta ta gaisotuta pecatuzco comuninoiac gaiti. *Ideo inter vos multi imbecilles, et infirmi*. Ta asco illten diriala betico. *Et dormiunt multi*. Comuninoe pecatuzcuaren arimaco gacha, gaixua ta erijotcia ez da gorputzian ezaututen. Espirituco gacha da, espirituco erijotcia da. Ez azartu bada,
- 1140 cristinaubac, inos pecatuban comulguetara. Bildurtu ta icaratu pecatu ezain andi onegaz. Ez chacurrai emon ceruco ogui santuba. Ez arima loijan sartu Jesus garbijaren gorputz bedeincatuba. Ez lotsatu cerubac eta luurrac, euren Erregue Jauna demoninuen toquijan iminajagaz. ¡Oh, Jesus! Ceure amodijo santuba gaiti, ez daguizula equi inos pecatuzco arimatan sartuteric. Garbitu egui-
- 1145 zuz, Jauna, arima guztiac ta batez bere niria ta neure entzulenac, ceu comunioe santuban artutera orduco ceugaz artu daigun gueure betico vicitcia, lelen-go emen munduban ta guero ceruban. Amen.

VI ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

- 1150 *sacerdotiaren mezataco eguizunac cer esan gura daveen.*

- Jaungoicuaren irugarren aguinuban esan zan meza santuba cer dan ta celan entzun biar dan. An esan zanaren gainera derichat, neure cristinaubac, ondo izango dala comuninoeco sacramentubaren icasiqizunen ondoric ceubei eracustia andi andica baten baino ez bada bere [239] *mezaco sacerdotia -*
- 1155 *ren eguizunac cer esan gura daveen.* Oneec ondo jaquinac lagunduco deusana cristinaubari, meza santuba ondo entzuten. Astian bein ta ascotan gueijagotan mezia entzun biar dogu, al izan ezquero. Ta ezipabere pecatu illgarrija

 (178) Lohon. v. Com. (179) 1. Cor. 1.

1137 infirmi] infirmi Ba

eguiten dogu. Ez da asco mezia entzuteco edocein modutan eleisan egotia, mezia esaten dan artian. Egon biar da mezatan vijotza ta gogua Jaungoicuaren gaucetara jasota aleguinaz. Edo oracinoiac vijotceti esanaz; edo Jaungoicua alavetaco ta arimac onduteco eguijac pensaubaz. Guztiraco balijoco deutsee cristinaubari meza santuco eguiquzunac. Bada, Erromaco Catecismuac dinuan leguez (180), sacerdotiaren mezataco eguite bat bere ez da utsian edo alperric. Guztiac dira gueuri gauza oneen bat aitu edo gomutau eraguiteco. Prestau zaitetz bada, neure entzula onac, arimaco zurtasun onagaz sacerdotiaren meza santuco eguiquzunac entzuteco. Ta obetuago aitu daguizun ta goguan euqui daguizun, mecia esateco biar dirian jantciti asita, iminico deutsut icasquizun au itaune ta erantzutetan.

¿Cer esan gura davee meza esaliaren soineco jantcijac? Lelengo iruneti guerrira iminten daven zapijac edo *amitubac* esan gura dau, Jesus maitiari, preso artu even gavian, veguijac tapetaco ta burla eguiteco imini eutseezan trapubac. *Albiac* esan gura dau, Erodeseen echian Jesus maitiari zorotzat imini eutseen jantci zurija. Guerrija lotuteco *cingulubac*, escuturreti beera daucan *manipulubac* ta samati beera curutce daucan *estoliac* esan gura davee, Jesus maitiari [240] samati, escubetati ta guerriti imini eutseezan socac eta catiac edo lotugarrijac. *Casuiliac* esan gura dau, azotauta guero Jesus maitiari erregue paltsoztat imini eutseen jantci gorri burlazcua. *Coroiac* esan gura dau, Jesus maitiari buru sagraduban josi eutseen arantzazco coroia. Altariac esan gura dau, Jesus maitia ill zan lecuba, cein zan curutcia.

Onan jantcita dua sacerdotia altarara mecia esatera. Baina altara aurrian gueratuten da lelengo, nun esaten daven, *Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian* sartuco dala altaraan. An esaten dau macurtuta ni pecatarija, bularra juaz. Onegaz aituten emoten deuscu, Jesus maitia celan egon zan auspaztuta Gesemanico ortuban, preso artu even aurrian. Ta baita gueuc bere bularrac jota, humildauta, damutu biar dogula pecatubaquin meciaren asieraan. Altarara igonda mun eguiten deutsa altariari, aituteco Jesus maitiac ceruti ecarri euscun *baque* santuba. Liburu edo misalera juanda, iracurten dau *introituba*. Onec esan gura dau, Jesus maitia mundura etorri baino leenago, patriarca santubac erregututen eutseela sarri cerubari bialdu eguijala mundura bialduteco eguana, cein zan Jesus gueure Salvazaille maitia. Onen ondoric esaten dau *Kyrie eleison* ta *Christe eleison*; bata sei bidar ta bestia iru bidar. Orduban escatuten deutsa Jaungoicuari misericordija. Aitiari iru bidar, Semiari iru bidar ta Espiritu Santubari beste iru bidar. Onen ondoric esaten dau guero *Gloria in Excelsis*.

(180) De Eucar. n. 81.

1180 illzan *Ba* 1184 egonzan *Ba* 1187 igon da *Ba* 1192 Kyrieeleison *Ba* | *Christe eleison Ba*

1200 ¿Cer esan gura dau onec? Poztu ta alegretan gariala guztioe Jesusen mundura etor[r]eriaz. [241] Onetaraco cantetan dau edo esaten dau ainguerubac Jesusen jaijotzan cantau eueen cantia, *Gloria in Excelsis Dea.* Ta guero erre-
 gututen dau sacerdotiac, *Oremus* esanda, Eleisan dagozan guztia gaiti edo
 1205 parte oneco guztia gaiti. Ta oracinoeco escaari guztia eguiten ditu Jesucristo gueure Jaunaren mercedubac gaiti, azquenian esanagaz: *Per Dominum nostrum Jesum Cristum...* Ta bertati asten da *Epistolia*. ¿Cer esan gura dau
 1210 *Epistolia*? Onec esan gura dau Jesus mundura etorri baino leenagoco Moisen leguia ta san Juan Bautistaren penitencijazco sermoia, ceintzuc prestau zitubeben vidia Jesusen etor[r]eriaraco. Ta orduco leguia zan leguez astuna, gueldija ta gracia guichicua, alan epistolia iracurri edo cantetan dan artian, gentia jarrita egoten da mezatan. Ez alan evangelijuan, ez bada zutunic.

1210 ¿Cer esan gura dau *evangelijua*? Evangelijua esan gura dau Jesucristoc eracutsi euscun ta emon euscun legue barrija, arina, erraza ta gracia betia. Onec amaitu euan legue zaar astuna. Onec eguiten gaitu Jaungoicuaren seme ta ceruco echagun. Jesusen legue bigunac emoten deuscuz sacramentu santubac ta cerura errazto juateco biar dogun guztia prest, gueuc nai izan ezquero. Au gaiti evangelijua asten danian eguiten davee cristinaubac curutzia becoquijan, auan ta bularrian. Onegaz esaten davee, ez diriala lotsatuten evangelijoco dotriagaz; aurtortuco daveela beti auagaz ta gordeco daveela zal vijotzagaz. *Credua* da pede santubagaz sinistuten dogun guztia ta Jesucristo gueure Jaunac eracutsi deuscun guztia autortuteo. Onen [242] ondoric meza esalic ostija patenan iminita esquintcen deutsa Aita cerucuari. Baita arda bere calizan ur tanta bategaz naastautu. Onec esan gura dau, Jesusec bere gorputzaren, odolaren ta vicitciaren esquinija celan eguin eutsan Aita Beticuari Gesemanico ortu santuban, preso artu eueen aurrian. Onan prestetan da sacerdotia meziaren zati nausira elduteo. Baina oraindino palta ditu gauza bi. ¿Ta ceintzuc dira? Bata da altariaren albora alderatuta atzamar puntac garbitutia. Onec esan gura
 1225 dau, meza santuba esateco guztiz garbi egon biar davela; pecatu chicarrac bere aleguinaz garbitu biar ditubala. Au aitu eraguiteco garbituten ditu atzamar puntac bacarric. Bestia da eleisan dagozanai esatia, erregutu daguijuela Jaungoicuari. Onetaraco esaten dau girauta: *Orate fratres*, guztia oracinoia eguin daguijen. Ta berac bere eguiten dau isilic.

1230 Alan oracinoe eguinda guero asten dau verba altubaguagaz *Prepacijua*. Ta esaten deutsee meza entzuten dagozanai, jaso daguijezala vijotzac gora. *Sursum corda*. Ta erantzuten deutsee meza esaliari: Jaungoicuagana jasota daucaguz vijotzac. *Habemus ad Dominum*. Meza esalia ta entzulac onan pretauta, ceruco aingueru ta espiritu on guztia convidautea, guztia dantzubela ta guztien izenian gracia emoten deutzaz Trinitate guztiz Santubari

Jesucristo gueure Jauna gaiti. *Prepacijua* amaituta ez dau gueijago verbaric eguiten paternosterrera artian, isilic baino. Onec esan gura dau, Jesusen erijotcia gogoratuta, vijotceco lotsa andijagaz ta errespeto guztiagaz entzun biar dogula meziaren [243] zati nausi au. Baita Jesusen erijotza penazcuac gueure gogora ecarri biar daven penia ta tristecia bere. Isiltasuna pensaquizun andijen ta tristeziaren ezagungarrija da. Meza santuba dan leguez, bada, pensaquizun andija ta Jesusen erijotcia dan leguez tristezagarri andija, meza santubaren zati nausija isilic esaten da, cristinaubac vijotz guztiagaz isilic adorau daguijen Jesus maitia bere penazco erijotcia gaiti. 1240

Prepacijua esanda, andi aurrera meza esaliac ostijaren ta caliciaren gainian eguiten dituban curutziac, ceinatutiac, bularra jotiac, buruba ta espaldac macurtutiac ta beti bee veguijac gorutz jasotiac, guztiac dira Jesusen penazco iraguac ta erijotza tristia guri aitu eraguiteco. Modu ascotara ta asco ganic pade-cidu evan leguez Jesu maitiac bere pasinoe santuban, alan barristetan dira mezaan zelanbait Jesusen jaustiatic, colpiac, curutcia lepuan eruatia, gorputcian eguin eutseezan zaurijac ta Aita cerucuari vijotza jasota, pena guztiaquin eguin eutsazan esquinijac gueure pecatuben zorra paguetaco. ¡Ah, cristinaubac! Goguan iragoco baguendu pusca bat ceimbat gauza on ta andi daucazan meza santubac gueure arimetaraco, ez litzateque gureztat meza luceric izango. Sentidu bagaric iragoco lichaquegu mezaric luceena, Jesusen penagarri bat, nai bat adoretan asico baguina vijotceti meza baco-chian. Ez, bada, alperric galdu, neure entzula onac, mezataco aimbeste arimiaren ondasun. Chito asco costata irabaci euscuzan Jesus maitiac. Ta guztiac ichi euscuzan gueureztat meza santuban. 1250

Consagrauta bertati jasoten ditu gora sacer-[244]dotiac ostija ta calizia. Au eguiten dau, Jesusen gorputz ta odol consagrauba cristinaubai eracusteco, guztiac adorau daguijen Jesus. Baita aituten emoteco bere celan Jesus maitiac curutcian eseguita guztien vistan ill gura izan evan odola erijola, pecatarijac salbetia gaiti. Meza esaliac eguiten ditu guero bost curutce ostija ta caliza consagraubaren gainian. Oneec esan gura davee, Jesus maitiac bere gorputz santuban irago cituban bost *llagaac* edo zaurijac. Ta eurac esquintcen deusaguz Aita cerucuari, gueure contra daucan asarria bigunduteco. Laster eguiten ditu ostera beste iru curutce ostijaren ta caliciaren gainian. Oneec esan gura davee, meza santubaren prutubac balijo deutseela parte oneco guztiac. Ceruban dagozanai, glorijaraco; purgatorijuan dagozanai, euren penac arinduteco; ta munduban dagozan cristinaubai, euren arimaco ta vicitzaco ona Jaungoicuaganic jadisteco. Alan esaten da mecia illac eta vicijac gaiti. Cerubari emoten deusta glorija, purgatorijuari poza ta Eleisa guztiari laguntasuna. 1260

1242 tristeza garri *Ba* 1250 zelan bait *Ba* | curutcia] cutzutcia *Ba*

Sacerdotiac erregututen deutsa barriro Jaungoicuari illac gaiti. Onetaraco
 1275 eguiten dau escubac batuta oracinoa, consagretara aurrian vicijac gaiti eguin
 evan leguez. Bularra jota erregututen deutsa guero gu pecatarijoc gaiti parca-
 cinoa, guri gogoratu eraguiteco lapur onac curutcian Jesus maitiari eguin eu-
 tsan escarija. Ac jadjichi evan leguez pecatuben parcacinoa ta arimaco salvaci-
 1280 aurrera sacerdotiac eguiten dituban curutciac, [245] guztiac aituten emoten
 deuscubez Jesusec curutce santan iru orduban irago cituban pena modubac.
 Ostija santubagaz eguiten ditu guero curutciac caliciaren gainian ta aurrian. Ta
 isten dau ostija corporalen gainian. Ta estalduten dau caliziaren aua. Onec
 aituten emoten deuscubee, Jesusen gorputz illa curutcian egon zana, bere albo
 1285 santuti odola ta ura emon evana, ta curutceti eratsita gorputz santuba sepultu-
 ran imini eveena.

Sacerdotiac esaten dau guero *Aita gueuria*. Ta erregututen deutsa gueure
 Aita cerucuari, oracinoe agaz Jesusec eracutsi euscuna. Oracinoe au eguiten
 dau meza esaliac guztiac entzun leguijen tercijuan. Ta ostera bere isilduten da.
 1290 Gomutau eraguiteco celan isilic eta triste egon cirian Ama Virginia ta beste
 Marijaac, Jesus ill zaneti ta viztu artian. Guero emoten deutsee sacerdotiac guz-
 tiai Jesusen baquia, esanagaz *Pax Domini sit...* Onec esan gura dau, Jesusen
 viztueran Ama Virginiac, apostolubac ta beste Jesusen adisquidiac artu even
 poza ta atseguina. Ostija sagraduba iru zati eguitiac esan gura ditu meza san-
 1295 tuban parte dauqueen leen icentau dirian iru estadubac, cerucuac, purgatorijo-
 cuac ta munduban dagozan Eleisa Ama santiaren semiac. Iru zati areetati bat
 sartuten dau meza esaliac calizan ta bat eguiten da calizaco odol santubagaz.
 Onec esan gura dau, Jesus illen arteti viztu zanian, bere gorputza, odola ta ari-
 mia bat eguin ciriala ostera bere betico.

1300 *Agnus Dei..* esaten da guero mezaan. Onegaz gogoratuten dogu, Jesus
 maitiac, Bildots [246] mansuac bere erijotziagaz gueure pecatubac quendu citu-
 bana, ta viztuta, Aita cerucuagana igonda, bere erijotzaco zauri nausijac gor-
 putzian aguirijan daucazala, Jaungoicuagaz pecatarijaren arteco baquia jadisten
 davena. Comulguetara orduco emoten dau guero meza esaliac *paza* edo
 1305 baquia. Onec esan gura dau, meza santuban parte dauqueenac baque onagaz
 ta caridadiagaz bat eguinda euqui biar ditubeela vijotzac. Gorputzaren zatijac
 alcar zaintu ta alcarri lagunduten deutseen leguez beti bat eguinic alcarregaz
 izateco, alan Jesusec eta cristinau guztiac alcar zaintu ta jaso biar davee, alcar
 maite izanagaz ta alcarri lagundubagaz. Au da Jesusec ceruti ecarri euscun cari-
 1310 dade ta baque santuba. Ta au berau da Jesusen icenian mezatan emoten dan
paza edo baquia. Baque santu onegaz ta caridadiagaz artuten ditu guero sacer-

dotiac Jesusen gorputz ta odol vicija mezatan. Gracijan dagozan cristinaubac bere orduban comulgau leitequez espirituz edo arimaco nai osuagaz. Ta Jesus euren ariman artu balebee leguez, graciaj emon ceruco Jaunari. Cristinau ascoc eguiten davee meza santuban espirituzco comuninoa arimaco onera andijagaz. 1315

Comulgauta guero sacerdotiac esaten dituban oracinoiac dira, mezataco comunioe santuba gaiti Jaugoicuari graciaj emoteco. Meza entzuten dagozan guztiac orduban esquerrac emon biar deutsez Jaungoicuari meza esaliagaz batera, meciagaz artu dituben mesede ta dichac gaiti. Azquenian esaten dau sacerdotiac girauta: *Ite, missa est* Esan gura dau, amaitu dala mezataco esquini santuba ta jua leitequiala gen-[247]tia eleisati. Ta emoten deutsee bendicinoia Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. 1320

Esan daneti ezautuco dozu, neure cristinaubac, ce gauza altubac ta andijac daucazan meciac. Aingueruben arrigarrija bada Jaungoicuaren Seme vicija guizon eguitia pecatarijac salvetia gaiti, ¿cer izango da, egunian egunian Jesus maitiac altaran bere guizon-eguintzaco jazo bedeincatuba ta maitetsuba barristeta? Inoc ondo aitu ezin leguijana bada guizonac padecidu ez daguijan, Jaungoicuac padecidutia; guizona vici dedin, Jaungoicua illtia, ¿cer izango da, Jaungoico-guizondu-ill-viztubac mezatan egunero ta orduero bere vizitzia ta vizitzaco min, ala, naibague ta lotsari guztiac gueu gaiti barriro Aita cerucuari esquintzia? ¿Celan egongo dira aingueru santubac altaran, mecia esaten dan artian, Jesus adoretan? ¡Oh! euren egochubac batuta, chito lotsa ta errespeto andijagaz. ¿Ta celan egon biar davee mezatan cristinaubac? ¡Ah! ez zan Jesus altaran gueratu aingueruben janaritzat, ez bada gueure janaritzat. Gueijago eguin euan Jesus maitiac guizonac gaiti ainguerubac gaiti baino. Bada, ainguerubac humildade osuagaz adoretan badavee Jesus mezaan, ¿celan adarau biar davee guizonac? Esango neuque nic, gueure aleguin guztia ecer bere ez dala, meza santuban Jesus maitiari zor deusaguneraco. Egon biar da mezatan gogua Jaungoicuagana jasota, gorputceco sentidubac edo zaatarijac²⁰⁷ batuta, soina moduz jantcita, vijotzagaz Jesusen jazo santubac maitetuten ta adoretan ditubala. 1330

An gogoratu legui Jesusen jaijotza pobria, [248] isila ta otza. Neguco gau illunian abereen artian cortaan jaijo zan Jesus. Ta abere asca bat izan zan bere lelengo cumia. An adarau legui Jesusen vicitza pobria ta nequetsuba. Aimbeste urtian ez naicua jan, ez naicua edan, ez naicua lo eguin. Beti gorputzac berez escatuten eutsan baino guichiago. An, mecia entzuten dan artian, jarraitu leguijo Jesus maitiari cristinaubac vijotceco erruquijagaz ta amodijuagaz aparilecuti 1335

1330 ordu ero *Ba* 1335 ez bada *Ba* 1344 jaozan *Ba* 1348 aparilecuti *Ba*

²⁰⁷ "Zaatar": sentimenak adierazteko darabil.

1350 Gesemanico ortu tristera; andi²⁰⁸ Anas ta Caifasen echera; andi Pilatosen ta
 1355 Erodosen aurrera curutce santan ill zan artian; curutceti sepulturara ta illen arte-
 ti viztuta cerubetara igon artian²⁰⁹. Au eguin legui cristinaubac mezatan, gogua
 artu ezquero. Beste guztien artian biarrecua da, mecia ondo entzuteco, isilta-
 suna. Zaatia ta otsa daguan lecuban ez da vijotza ta gogua ondo batuten, gauza
 bat penseetan egoteco. Alan san Ambrosioc, evangelijua iracurri edo cant[alu
 1365 ce[d]lineti-auurrera, eleisaco gentiari esaten eutseen, *isilic egoteco; eztulic, ez
 beste zaataric aleguinaz mezatan ez eguiteco*.

Sinistu bada, cristinaubac, besteric ez bada bere, sacerdotiaren mezataco
 eguiquizunac guztiac diriala Jesucristo gueure Jaunaren vicitzaco, erijotzaco ta
 viztuta gueroco jazo santubac guri gogora ecarteco, adorau ta amau daiguzan;
 1360 ta Aita cerucuari esquintceco mezatan, gueure pecatuben parcacinoeraco ta ari-
 men oneraco. Entzun dozu, ezin guinajola Jaungoicuari esquini andijagoric ta
 balijotsubagoric meza santuba baino. Escatu daijogun, bada, Jesus maitiari,
 mecia ondo entzuteco ta mezatan Jaungoicua adoretaco biar dogun gogua ta
 gracia. Baita, [249] meza ondo entzunac gueure arimetara dacazan onerac
 1365 bere. Onan cobru emongo deusagu gueure jaijetaco ta domequetaco cereguin
 nausijari. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan

Eleisari cristinaubac zor deusan erreberencia ta moduba.

1370 Eracutsi ezquero cristinaubari comuninoeco sacramentubaren gainian sinis-
 tu, icasi ta eguin biar davena, esan biar jaco azquenian cer dan eleisia ta celan
 egon biar daven eleisan. Eleisaren icenagaz aitu legui ta aituten da, cristinau
 sinistute oneco guztiac alcarregaz dauquen battasuna. Guztiac dauquee buru
 bat, cein dan Jesucristo ceruban ta Aita Santu Erromacua, Jesusen ordecua luu-
 1375 rrian. Guztiac dauquee sinistute bat ta ceruraco uste bat. Guztiac dauquez
 sacramentu batzuc ta evangelijo bat. Onetara aitu ezquero, Eleisia zabalduta

1350 illzan *Ba* 1364 entzunac] eutzunac *Ba* 1365 cer eguin *Ba* 1372 eleisan] Eleisa
Ba (380.or.: Eleisan)

²⁰⁸ "Andi": handik.

²⁰⁹ Ik. Mt 26-28; Mk 14-16; Lk 22-24; Jn 13-21.

dago mundu guztian. Ta parte oneco guztioac eguiten dogu Eleisa bat. Beste modu baten aituten da Eleisia. Ta da, Jaungoicuac ta Berac ceruraco auquertu dituban guztia dauqueen battasuna. Ta onan aitu ezquero, iru egonera edo aldi daucaz Eleisiac. Lelengua da ceruban dagozan guztiena. Areec dauquee 1380 egonera edo aldi betico zorijonecua. Oni esaten jaco *Eleisa glorijosua*. Bigarrena da purgatorijuan dagozan arimena. Areec dira Jaungoicuaren adisquidiac ta beti ceruban egongo dirianac. Baina purgatorijuan erretan ta zorrac [250] paguetan dagoz. Ta esaten jaco purgatorijuari *Eleisa garbilarija*, arimac an garbituten dirialaco. Irugarrena da munduban dagozan cristinau eguijazcuen. Oneec bere Jaungoicuaren semiac dira. Baina vici dira munduban arerijuen artian, ceruba irabazten. Ceruba (cein dan gueure errija) irabazteco peliau biar davee cristinaubac araguijaren, impernuco etsaijaren ta mundubaren contra. Ta au gaiti esaten jaco Eleisiaren egonera edo aldi oni *Eleisa peliarrija*, etsaijen contra espirituco armiagaz beti burruca diardubana. Baita esaten 1390 deitsagu eleisia, sacramentubac artutece, Jaungoicuaren verbia eracusteco, meza santuba esateco ta Jaungoicuari erregu aguirijac eguiteco errijetan dagozan eche edo tempubai bere. Ta oneec dira dotrina onetaco zuben icasquizuna²¹⁰ emongo daveenac. Gueijago luzatu bagaric esango deitsut, *cristinaubac zor deitsala eleisiari arimaco ta gorputceco moduric humildena ta erreberen* - 1395 *cijaric andijena* : 1. *Jaungoicuaren echia dalaco*. 2. *Gueure arimen osasun lecuba dalaco*. Entzun eguizu gogo onagaz.

I.

Dinot, neure entzula onac, gueugaz daucaguzan ormazco eleisa onei zor deutsegula guztioac arimaco ta gorputceco lotsaric oneena, humildaderic andijena ta errespetoric altubena, dirialaco luurrian daucaguzan Jaungoicuaren echiac. 1400

Ez pensau au gaiti, Jaungoicua ez daguala lecu guztietan edo Jaungoicua batuten dala gueure ormazco eleisetan. Lecu guztietan dago Jaungoicua. Cerubac eta luurrac bere egon lecutzat guchiegui ditu. Ta nai dau gueure ce- 1405 [251]ruco Jaun andijac dempora guztietan ta lecu guztietan guc bere icen santuba jasotia, alavetia ta adoretia. *¡Oh, neure arimia!* esaten evan David erregue santubac: *Bedeincatu eguizu ceure Jauna ta Jaungoicua, berac aguinduten daven lecu guztietan* (181). Jaungoicuac berac aguinduten daven lecu guztie-

(181) Psalm. 102.

1410

1381 egon era *Ba* 1405 naidau *Ba*

²¹⁰ *Icasquizuna* da forma normala, baina *icasquizuna* ere zortzi bat bider agertzen da.

tan, dino. *In omni loco dominationis ejus*. Echeetan, soluetan, basuetan, bide-
 etan ta eleisetan, lecu guztietan maitetu, jaso ta bedeincatu biar dogu
 Jaungoicuaren icena. *Etorri da ya demporia*, esaten eutsan Jesus onac (182)
 1415 Samariaco emacumiari, *ez mendi onetara, ez Jerusalem juaquizunic izango*
ez dana, espiritubagaz ta eguijagaz Jaungoicua adoretaco . Gaixuac oian
 daguan lecuban, lotubac carcelan daguan lecuban, erreguiac bere tronuban,
 nequezarijac soluan ta opicialiac bere lanian eguin leguijuez Jaungoicuari erre-
 gubac, emon leguijuez ondo esanac²¹¹ ta jaso leguijuez gogoz euren vijotzac
 1420 cerurutz. Au edocein lecutan eguin legui cristinaubac. Ta Jaungoicuari zor
 deutzaguna da.

Baina orregaiti, esaten da cristinau errijetan daucaguzan ormazco eleisa
 consagrau edo bedeincatu oneec diriala, munduban Jaungoicua ondretaco
 dagozan echiac. Erreinu guztia da erreguiarena. Baina erreinuban daucaz erre-
 guiac aparteco egon lecubac edo palaciuac. Areetan entzuten ditu erreguiac
 1425 gentiaren escarijac. Andi zabalduen ditu bere mesediac. Ta an gordetan jaco
 erregue jaunari lotsaric oneena, entzuteric isileena ta errespetoric humildeena.
 Moduren baten beste aibeste esaten da bada, neu-[252]re entzula onac, gue-
 re eleisac gaiti. Mundu guztia da Jaungoicuarena. Baina Jaungoicuaren mun-
 duco aparteco egon lecuba eleisia da. Eleisan dago Jesucristo Jaungoico ta gui-
 1430 zon eguijazcua altaraco sacramentu santuban. Eleisia da Sinaico mendi egui-
 jazcua. Ara jasten da Jaungoicua bere anditasun ta gloriagaz. An eracusten ditu
 bere naijac. An entzuten ditu gogoz gure escari humildiac. An artuten ditu
 pocic, guc emoten deutzaguzan incensubac ta vijotcetaco maitetasuna. Andi
 zabalduen ditu bere ondasun ta gracia ugarijac gueure echeetara ta arimeeta-
 1435 ra. Eleisan dauca Jaungoicuac bere tronu edo jarlecu santuba, aingueru ede-
 rrac ta apaindubac ingurututen daveela.

Patriarca santubac jasoten cituben altarac, Jaungoicuac mesede ezagunac
 eguiten eutseezan lecubetan. Abraani aparteco lecuba eracutsi eutsan
 Jaungoicuac, Isaac bere seme errubagui sacripiquetaco (183). Jacob patriarca
 1440 santubac, ainguerubac cerura igoten ta ceruti jasten icusi zituban lecuban jaso
 evan arrija ezagungarritzat. Ezarri eutsan arrijari orijua. Ta ichi evan moduren
 baten lecu santu a Jaungoico echetzat consagrauta. Ta esan evan lecu a gaiti:
Bene benetan Jaungoicua dago emen. Ta nic ez nequijan. Ez da au beste gau -
zatic, Jaungoicuaren echia ta ceruco atia baino (184). Ez eutsan Jaungoicuac
 1445 ichi Moisi Horebco mendijan, Bera aguertu jacon lecura juaten, ezda eguan

 (182) Joan. c. 4. (183) Gen. 22. (184) Id. c. 28.

14138 ya| ija Ba 1445 Ez da Ba

²¹¹ "Ondo esanac": goraipamenak, gorespenak, laudorioak.

lecuban egoten bere, oinetacuac erantzi bagaric. *Ortoztu zaitez, Moises*, esan eutsan Jaungoicuac (185), *bada zu zagozan lecuba luur santu-* [253]*ba da*. Carmengo mendi santura eruan cituban Eliasec Isrraelgo erreguia ta isrraeltarrac, Jaungoico eguijazcuari sacripiquetaco, Jerusalengo eleisia loituta, 1450 Jaungoicuari ucatuta eguanian (186). Isrraeltarrac Jerusalengo eleisia euqui eeven aimbeste urtian euren Jaungoico-echetzat. Baina areec guztiac ez cirian beste gauzaric, ezbada gueure eleisa eguijazco oneen irudijac. Bada, areec bacirian lecu santubac, lecu consagraubac ta luurreco Jaungoicuaren echiac, ¿ceimbat errazoe gueijagogaz dira gueure eleisiac Jaungoicuaren echiac? Ta 1455 lecu areetan, gueure eleisen queicia baino ez cirianetan, patriarca santubac ain errespeto ta erreberencia andijagaz sartuten bacirian ta egoten bacirian, bata belaubico, bestia ortoztuta, bestia vijotza ta veguijac ceruruz jasota ta guztiac arimiaco ta gorputceco moduric jasuenagaz ta humildeenagaz, ¿celan sartu biar dau cristinaubac eleisa eguijazcuan? ¿Ta celan egon biar dau Jesucristo 1460 Jaungoico ta guizon eguijazcuaren egon lecuban? ¿Celan, ceruco ta luurreco aguintari nausijaren aurrian? Ceubec pensau, neure cristinaubac, ia errazoaia dan edo ez eleisa santan, Jaungoico andijaren aurrian, aingueru santuben aurrian cristinaubac errespeto ta humildaderic andijenagaz egotia. Ta Jaungoico vicijaren egon lecuba edo echia dalaco zor badeutsagu eleisiari lotsa 1465 on ta errespeto osua, ez deutsagu guichiago zor gueure arimen osasun lecuba dalaco. Icusi daigun cer gaiti.

II.

Bai, cristinaubac. Ez aaztu nundi jatorcuzan gueure arimaco dicha ta gracijac. Elei-[254]san batiatu guindubezan. Eleisan, impernuco etsaijaren escubetati aterata, Jaungoicuac artu guinduzan bere semetzat. Eleisan entzuten dogu ta icasten dogu Jaungoicuaren verba santuba. Eleisan artuten ditugu sacramentu santubac, gueure arimen vicigarrijac. Eleisara guaz gueure arimac osatutera, pecatubaren loijac garbitutera ta pecatuben parcacinoaia Jaungoicuaren beraren aoti entzutera. Eleisan daucagu gau ta egun beti prest arimen janarija, 1475 ceruti jatsitaco ogui vicija, Jesus maitiaren gorputz ta odol vicija. Eleisan altara gainian barristetan dau Jesus maitiac egunian ta egun bacoichian sarritan ta lecu ascotan Calvarijoco curutce santan artu evan erijotcia gueure arimen erremedijoraco. Gach bat jatorcunian, naibague bat sentiduten dogunian, cerbait jadichi gura dogunian, ¿nora guaz Jaungoicuari erregututera? Eleisara. Buruco min bat 1480

 (185) Exod. c. 3. (186) Reg. 3. c. 18.

1453 ez bada *Ba* 1469 Ezaaztu *Ba* 1479 cer bait *Ba*

dogunian, alemanija bat palta dogunian edo gaixotuten jacunian, auci bat irabazteco ustia edo galduteco bildurra daucagunian, eurija edo egunaldi ona gura dogunian, eleisara juaten gara, Jaungoicuari mesede a erregututera. 1485 Arimaraco ta gorputceraco edo munduban vici izateco biar ditugun gracia ta meseden billa eleisara juaten gara. ¿Cegaiti? Eleisia dalaco Jaungoicuaren echia, Jaungoicuari erregubac eguiteco ta ceruco mesediac gueure echeetara eraste-co lecuba.

Alan esan eutsan Jaungoicuac berac Salomoni, Jerusalengo eleisia eguin 1490 evanian (187): *Eleisa onetan neuri erregututen deustanaren escarijac entzute - co, zabalac euquico ditut veguijac ta zur [255] belaarrijac* . Salomonec eleisa barrija eguin evanian, gente guztia araxe batuta, asi zan Eleisan bere espiritu-co sinistute ta devocinoeric andijenagaz gente guztiaren aurrian Jaungoicuari esaten ta erregututen: ¿Cerubac eta luurrac cabidu ezin bazaitube, Jauna, ceimbat guichiago cabiduco zaitu nic eguin dodan eche onec? Ez, Jauna. Ez da zeu cabiduteco eleisa au, ez bada ceuc lecu onetan ene erregubac ta Isrraelen escarijac entzun daguizuzan. Eleisa onetan erregututen deustunari entzun, Jauna, ceure ceruco tronuti ta lagundu bere premia orduban... Norbaitec pecatu eguiten badau ceure contra ta etorten bada eleisa onetara ceuri parcacinoia 1500 escatutera, ceuc entzungo deustazu ceruti, Jauna, ta parcatuco deustazuz pecatubac... Baque charric edo guerraric inoc iminten badeutsa nire errijetaco gentiari... Cerubac euriric eguin gura ezda, liortiac joten baditu... Arrac laboriac galduten badeutseez... Gose urtiac etorten bajacuez... Gaixua edo gacha euren echetan sartuten bajacue... Ta eleisa onetara etorrira, pecatuben damubagaz ta 1505 vijotceco uste onagaz ceuri escatuten badeutsube laguntasuna ta gracia arimaco edo gorputceco premia orduban, ceuc entzungo deutsezu, Jauna, ceruco jarlecu altuti euren erreguba ta escarija (188).

Onan erregutu eutsan Salomonec Jaungoicuari, Jerusalengo eleisia eguin evanian. Ta Espiritu Santubac escribiduta echi euscun bere liburu santubetan, 1510 celan dan eleisa, ceruco graciaj ta ondasunac gueure arimetara ta echera ecarteco lecuba. ¿Cer zor ete deutsa, bada, cris-[256]tinaubac Eleisa santiari? ¿Celan egon biar ete davee cristinaubac eleisan? Egon biar dogu bada, neure entzula onac, eleisan gueure arimaco ta gorputceco moduric andijenagaz. Ez bacarric meza santuba entzuten dogun artian. Bada, mecia entzun arteco eguiquizuna 1515 ta pensaquizuna esan zan irugarren Jaungoicuaren aguinduban. Nosnai ta eleisan gagozan guztian zor deustagu Jaungoicuaren eche santubari: *Lelenga* Gorputceco jasua, garbitasuna ta moduba. Gorputceco jasua dauca, bere jantcija aimbat onduen iminita soinian daroianac. Garbitasuna dauca, jantcija

(187) 2. Paral. c. 6. (188) 2. Paral. c. 6.

1492 asizan *Ba* 1496 Ez bada *Ba* 1502 ez da *Ba* 1503 euren] euren *Ba* 1515 Nos nai *Ba*

pobria izan arren, garbija daroianac ta arpeguija ondo garbituta daucanac. Ez 1520
 diruri ondo goisian eleisan aste guztian soinian erabili daven jantcijagaz, jantci
 mascalagaz ta lisiba biarrecuagaz ceruco Erregue andijaren ta aingeru santu-
 ben aurrian, ta arrasteguijan pasiuana ta lagun artian olguetan jantci zuri ede-
 rragaz ta soineco galantagaz. Au Jaungoicuari bere echian burla eguitia dala 1525
 esan legui. ¿Ta ceibat guizon ta emacume onetarico? ¡Ah, lastimia! ¡Ce lotsia
 Jaungoicuari! Gorputceco moduba dauca eleisan, soineco jantcija bacocho bere
 lecuban iminita, ez lepoti eseguita guizonezco ascoc iminten dituben leguez,
 ez bada besuetan sartuta ta buruba aguertuta guizonezcuac. Ez besuac biloxic,
 emacume ascoc leguez, ez bada besuac eta gorputz guztia estalduta, arpeguijaz
 ta escubez bestia emacumiac; onan gorputzac jantcita guero, egon biar davee 1530
 cristinaubac eleisan, edo belaunbico, edo zutunic, edo jarrita, ordubac ta osa-
 sunac escatuten daven leguez. Baina aleguin guztiagaz veguijac ba-[257]tuta. Ez
 eleisaco gentiari veguira, nor, nun, celan daguan icusteco, ez bada, edo luurre-
 ra veguira, edo altararaco sacramentu santura, edo pensamentu on bat emon-
 go deutsen gauzai veguira, gogua Jaungoicuagana jasoten lagundu daguijuen 1535
 veguijac. Baita euqui biar da miina bere isilic eleisan edo errecetan, cer esaten
 daven goguan iraguaz. Beste contubac ta sailac contetan eleisan egotia,
 Jaungoico andijari bere echian lotsia galdutia da.

¿Ta celan euqui biar ditu cristinaubac eleisan bere naijac, bere gogua ta
 pensamentubac? ¡Ah, neure cristinaubac! Gorputceco modu ona biarrecua bada 1540
 Jaungoicuaren eche santuban egoteco, oraindino biarragocua da arimacua.
 Eleisan dagozanen vijotzai beguira dago Jesus altaraco sacramentu santuti. Ez
 ditu bildurtuten cristinaubac orain gueure eleisetan trumoe, oinaztu ta erraijo
 icaragarrijaquin, dempora baten Sinaico mendijan israeltarrac leguez²¹². Baina 1545
 icusten ditu arguiro gueure vijotcetaco naijac eta gurarijac. Ez ditu ateraten
 orain eleisati campora Jesusec arpegui asarriagaz ta azote gogorragaz eleisan
 lotsa guichigaz contubac ta tratubac iragoten ditubeenac, dempora baten
 Jerusalengo eleisati atera cituban leguez²¹³. Baina ez derichue obeto Jesusec
 gueure eleisetan euren gogua ta pensamentubac munduco tratubetan ta saile-
 tan dauquezanai, Jerusalengo eleisia desondretan ebeenai baino. Gueu gaixuac 1550
 gara ta Jesus gueure arimaco gachen osalarija. Escatu biar deutsagu, bada, elei-
 san gueure arimen osasuna. Gueu pobriac gara ta Jesus gueure Aita aberatsa.
 Escatu biar deutsagu, bada, eleisan salvetaco biar [258] ditugun gracijac ta
 ondasunac. Gueu ez jaquinac ta itsubac gara ta Jesus gueure arimen arguija ta
 eracuslia. Escatu biar deutsagu, bada, bere nai santubac ezaututeco arguija ta 1555

1528 ez bada *Ba* 1529 ez bada *Ba* 1533 Ez bada *Ba* 1539 biarditu *Ba*

²¹² Ik. Ir 19,16-19.

²¹³ Ik. Mt 21,12-14; Mk 11,15-17; Lk 19,45-46; Jn 2,13-16.

eracutsija. Gueure adina, gueure naillia, gueure gomutia, gueure vijotza ta arim-
mia guztia jaso biar dogu eleisa santuban Jaungoicuagana, Jaungoicua adorea-
tara, alavetara ta maitetutera.

Lecu icaragarrija da eleisia, dino san Bernardoc (189). Eleisan daucaguz
1560 Jaungoico vicija, ainguerubac, sacramentubac, Espiritu Santubaren doiac, mar-
tirijen irabacijac, santuben ondo eguinac, gueure gurasuen oracinoiac ta beste
gueu santu eguiteco asco dirian gauzac, dino san Juan Crisostomoc (190). ¿Cer
eguiten dozu, bada, eleisan, cristinauba? dino Santubac berac (191). *¿Quid facis*
1565 *homo?* ¿Cetan iragoten jatzu eleisan zagozan demporia? ¿Ce devocinoegaz erre-
cetan dozu eleisan? ¿Ce gogogaz escatuten deutzazu Jaungoicuari ceure peca-
tuben parcacinoia? ¿Ce espiritugaz entzuten dozu mecia, vesperac ta sermoia?
¿Cer eguiten dozu eleisan? *¿Quid facis homo?*

¡Ah! ascorentzat eleisia ta placia bardinac dira. Bada, eleisan dagoz verbe-
tan, barreca ta baztar guztietara beguira, plazaan leguez. Ascorentzat eleisia
1570 carcela bat da. Bada, nora ezian ta derrigorrian leguez duaz meza bat entzute-
ra. ¿Cer da besteric, mecia altarara artian, eleisan ez sartu gura izatia? ¿Mecia
esan orduco arin aringa, chacurac leguez, eleisati urtetia? ¿Mecia pusca bat
luciago bada, erneguetia? ¿Cer da [259] besteric, errazto al daguijela, sermoeta-
ra, vesperetara, errosarijora ta beste eleisaco eguiquizun santubetara ez juatia?
1575 ¿Cer da besteric, Jaungoicuaren verbia pulpitoti esaten dan artian eleisa ataira
urtenda verbetan egotia? ¡Neure entzula onac! Beste lotsagaz, gogogaz ta
modugaz egoten dira gentilac euren eleisa paltsuetan, guzurrezco Jaungoicuac
adoretan, cristinau asco gueure eleisetan Jaungoico santubaren aurrian egoten
dirian baino.

1580 Batu bada, cristinaubac, ceuben vijotcetaco eguac eleisa santan. Gogoratu
nor zarian ta noren aurrian zagozan. Auspaztu vijotzagaz luurreraguino Jesusen
altara aurrian. Escatu humildadiagaz mesediac Jaun cerucuari. Lelengo arima-
cuac ta guero, ondo bada, munduracuac. Artu vitartecotzat eleisan Ama Virginia
1585 bagaric Jaungoicuac entzungo ditu ceruban gure erregubac ta emongo deuscu
bere gracia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

(189) Dom. 9. post Pent. (190) Hom. 69. (191) Id. ibid.

1561 irabacijac] irabicijac *Ba* 1573 aldaguijela *Ba* 1576 urten da *Ba*

[260]

EXTREMA-UNCINOECO SACRAMENTUBA

Infirmatur quis in vobis? Inducat presbiteros Ecclesiae, et orent super eum, ungentes cum Oleo in nomine Domini, et oratio fidei salvabit infirmum, et alleviabit eum Dominus, et si in peccatis sit, remittentur ei. Jacob. c. 5. 5

Norbait gaixotuten danian, dei eguijezu eleiza-guizonai; Jaungoicuaeren icenian gaixua orijuagaz igortcita, erregutu daguijuen Jaungoicuari gaixua gaiti ta Eleisiaren oracinoiac gordeco dau gaixua ta Jaungoicuac arinduco dau, ta pecatubetan badago, parcatuco jaco 10 pecatubac.

5 infirmum] infirmum *Ba* 7 Nor bait *Ba*

I. ICASQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cegaiti Jaungoicuac bialduten deuscuzan gorputzeco gachac.*

2. *Celan irago biar ditugun.*

15

Bostgarren Eleisa Ama santiaren sacramentuba da. Ill orduraco gaixuai emoten jacuen *orijo-igortcizcua* Oni esaten jaco *extrema-uncinoia* Azqueneco orduban orijuagaz igortcita emoten jacolaco gaixuari. Bautismuan igortci guindubezan crismagaz buruban ta orijuagaz bularran ta espaldetan. Conpirmacinoian igortci guindubezan orijuagaz becoquijan. Ta extrema-uncinoian igorzten da veguijetan, belarrijetan, suurrian, auan [261] edo espanetan, escubetan ta oinetan. Areetan, cristinau eguijazco baten indarra ta sendotasuna emoteco. Ta emen, gorputzaren sentidubaquin eguin dituban pecatu guztia parcatuteco. Gaixuen edo illteco arriscuban dagozanen sacramentuba dan leguez au, esaten deuscu Erromaco Catecismuac (192), sacramentu onegaz daviellela erijotciaren gomutia. Ta au eracusten jacuenian cristinaubai, gogoratu biar jacuela erijotcia. Berau gaiti dotrina au izango da gorputceco gachen gainian, ceintzubei darraicuen erijotcia. Ta urengua, sacramentubaren beraren gainian. Esango deuscu dotrina onetan: 1. *Cegaiti Jaungoicuac bialduten deuscuzan gorputceco gachac.* 2. *Celan irago biar ditugun*. Entzun eguizu, cristinaubac, aibat gogoric oneenagaz. Bada, guichiago edo gueijago, leenago edo gueruago guztioi jagocun icasquizuna da.

I.

Veguijequin dacuscu ta ucatu ezin guinai, neure entzula onac, gueure gorputzac naibagatuteco, argalduteco, minduteco ta illteco, milla gach modu dagozana. Osalarijac eurac bere conta ezin ditubee, ceibat modutara gaixotu oi dirian gueure gorputzac. Ta ez guichitan laster ill bere, cein gaztia, cein edade nausicua, cein zarra, cein jaijo barrija. Eguija da, gacharen icenagaz aitu-

(192) De Extremaunt. n. 2.

40 ten dira, ez bacarric gorputzaren gaixuac, ez bada baita gorputcian edo ariman iragoten ditugun naibaguiac eta mingarriac bere. Guztiac dira guichiago edo gueijago gorputza necatuten daveenac ta illteco prestetan daveenac. Guztiac dira gueure mundu onetaco amaija edo erijotzia gogoratuten deuscubenac. Nai alboren-[262]go bategaz ill, nai atsecaba bategaz gaixotuta ill, guztia da illtia.

45 Nai sequeriagaz uatuta ill, nai arerijo baten gorrotozco cuchiladiac ill, guztia da illtia.

Baita sinistu biar dogu, munduban iragoten ditugun gach oneec, Jaungoicuaren escu santubac bialduten deuscuzanac diriala. Gueuc eguindaco pecatubetan ez dauca Jaungoicuac parteric. Ta euqui bere ezin legui. Baina

50 beste gueure burubaren gainera jatorcuzan arimaco edo gorputceco atseguin eta naibaga, pozgarri eta mingarri, vicigarri eta illgarri guztiac, Jaungoicuaren escu santubac eta jaquitunac bialduten deuscuzanac dira. Alan esaten evan Salomonec (193): ¡Oh, Aita cerucua, ceuc gauza guztiac covernetan dituzu ceure buru jaquitunagaz. *Tu autem, Pater, omnia tua providentia gubernas*.

55 San Agustinec dino onen gainian: *Jaungoicuaren naija da gorputceco ta espi - rituco gira guztien lelengo ta azqueneco eraguilla nausija. Ez da, bada, ecer bere jazoten, ez eguiten inun, aguiri dan edo sentidu leguijan gauzaric, ceru - co Aguintari nausijac aguindu bagaric edo eguiten ichi bagaric* ²¹⁴. Sinistu biar dogu, bada, gueure arimeetara edo gorputcetara jatorcuzan gachac guztiac

60 diriala Jaungoicuac bialduten deus[cu]zanac.

¿Ta cetaraco bialduten deuscuz Jaungoicuac gachac eta naibagac²¹⁵? Gauza ascotaraco. Ta guztiac gueure oneraco, gueuc gura izan ezquero. *Lelengo Bialduten deuscuz Jaungoicuac gachac, gueure al guichija ezautu eraguiteco*. ¿Nos uste dogu ecer ez gariana? ¿Ta ecertaco ez garia-[263]na? Atzamar punta-

65 co min bat, aguineco min bat edo buruco min bat quendu ezin dogunian. Orduban ezaututen dogu arguiro gueurez ezerezac gariala. Ta Jaungoicua bagaric ezer ezin guinajana. *Sine me nihil potestis facere*²¹⁶. ¿Ta ez da gauza ona ta biarrecua, cristinaubac bere alic eza ta gauza on chiqui bateraco bere

(193) Sapient. 14.

40 ez bada *Ba* 45 sequeriagaz] atsecabiagaz *Ba* (380.or.: sequeriagaz) 66 ezer ezac *Ba*

²¹⁴ Aipamen hau argia bada ere, Frai Bartolomek bere erara eta askatasunez, parafasiak sartuz, itzultzen duenez gero, zail da san Agustinen testu zehatza aurkitzen; hala ere horrelako pentsamenduak san Agustinen hainbat liburutan datoz: *Enarrationes in Psalmos* (Enarratio in Psalmum 134, 10), PL, Migne, 37, col. 1745; *Epistola* 205, 3, 17 (PL, Migne, 33, col. 948).

²¹⁵ Bokal bikoitzak asko murriztu dira batez ere liburu honetan. Bere joera jarraituz *naiba - gaac* egin beharko zuen.

²¹⁶ 1k. Jn 15,5.

eza ezaututia? ¿Jaungoicuari gauza on guztiac escatuteco ta guztiac gaiti esquer gozuac emoteco? Bai. 70

Bigarrenian : Bialduten deuscuz Jaungoicuac gachac, *gueure vijotza ta gogua luurreco gaucetan laarregui imini ez daigun* . ¿Nos ezaututen dogu, entzute andijac, ondasun andijac ta gustozco vicierac asco balijo ez daveena? Entzute andico bat, guztia galduta, penaz ta desondraz carcelara daroienian; aberats batec, era charrac jota, daucana galduten davenian; nai erara daguan bat, gentiaren gorrotora etorrita, penaz daguanian... Orduban ezaututen dogu, munduco andiari²¹⁷, aguindute, euqui ta olgantzta edo atseguintza guztiac badaezbadacuac diriala. Areec euqui arren, ez bagueuncaz leguez vici biar dogula. *Nihil habentes, et omnia possidentes*³⁸. 80

Iruugarrenian : Bialduten deuscuz Jaungoicuac gachac, *erijotciagaz gomuta gaitazan* . ¿Nos vicijago gogoratuten jacu erijotcia, bataren agonijacua, bestiaren eleisacuac eraguitia²¹⁹, bestiaren seina eguin ecina, bestiaren bularreco gacha, bestiaren torre bateti jaustia, edo tiro bat emotia entzuten dogunian edo icusten dogunian baino? ¿Nos guichiago pijauco gara vicitciagaz, gazte, sendo, osasuntsu bat urac edo subac, calenturiac edo naibaguiac ordu bete garreneco illda, luurperatuten davenian baino? Orduban dacus-[264]cu, gau ta egun beti daguala gure vicitcia ari baten. Ta usteric guichien dogunian dei eguingo deuscubeela Jaungoicuaren aurrera. *Qua hora non putatis, filius hominis veniet*²²⁰. 85

Laugarrenian : Bialduten deuscuz Jaungoicuac gachac, *gueure gorputzac domeetaco* Arimiaren arerijo nausija ta bildurgarrijena da gueure gorputza. Da arerijo muquerra, eci gaistocua, osticarija, sutsuba ta zala. Arerijo au domau biar dogu, salbauco bagara. Erruquijegui dogu gueuc gueure gorputza, biar dan moduban ezteco ta escuratuteco²²¹. Au jaquinic, bada, gueure ceruco Aita onac, gorputz gaisto onec eci baguiaren paltaz galdu ez gaizan betico, bialduten deuscuz gachac, nequegarrijac ta mingarrijac. Gueuc gueurez ez badauca-gu animoric gorputzac ezteco, edola bere domau ta eci daiguzan ceruti jatorcuzan gachaquin. Au da Aita cerucuac gueu emen castiguetia, guero parcatu daigun. *Arguam eum in virga virorum, et in plagis filiorum Israel. Misericordiam autem meam non auferam ab eo* (194). Onetaraco dira ez gui- 100

(194) 2. Reg. c. 7.

78-79 bada ez badacuac *Ba* 97 gorputzac] porputzac *Ba* (380.or.: gorputzac)

²¹⁷ "Andiari": handikeria.

²¹⁸ Ik. 2Ko 6,10.

²¹⁹ "Eleisacoac eraguin": heriotz arriskuan dagoenari elizakoak edo azken sakramentuak eman; (esapide hau dator eta ez gaur egun zabalago dabilen "eleisacoak emon / artu"...).

²²⁰ Ik. Mt 24,44; Lk 12,40.

²²¹ "Escuratu": otzandu, hezi, mantsotu, baretu.

chitan liortiac, gose urtiac, pestiac, guerrac eta beste gueuc iragoten ditugun gach modubac; balduten deuscuz Aita Jaungoicuac ceruti.

Bostgarrenian ta azquenian balduten deuscuz gachac, gueure pecatubaren zorra pagau daigun. Guztioac gara Jaungoicuaren zordunac. Guztioac gara pecatarijac. Ta pecatubaren irabatcija da arimiaren zorra. ¿Celan, bada, pagau Jaungoicuari gueure pecatubaren zorrac? Ara celan. Urreguinac edo cidarguinac sutan ugar guztiac quenduten deutzazan leguez urriari ta cidarrari [265] echura ederra euqui daguijen, alan Jaungoicuac gachagaz, penagarrijagaz ta naibaguiagaz garbituten ditu bere adisquiden arimac pecatubac ezarritaco ugarretati, dino san Juan Crisostomoc. Subac urriari eguiten deutzana eguiten deutsee arimiari, gorputcian Jaungoicuaren icenian iragoten ditugun gachac. Quenduten deutseez arimiari pecatubac ezarri deutzazan ugarrac eta cetacac. Gogoz iragotaco gach areec artuten ditu Jaungoicuac gueure pecatubaren zorraco. Garbituten davee arimia. Ta prestetan davee ceruban sartuteco. Bada, gauza jaquina da, ez dala ceruban sartuco pecatubaren ugarric ez guichiric ta ez ascoric. Gogora bada, neure entzula onac, Jaungoicuac balduten deuscuzala gaixuac eta beste gorputceco gachac, gueure aleguin chiquija ezaututeco, gueure vijotza munduco gaucetati cerurutz jasoteco, erijotciagaz gomutetaco, gueure gorputz ezi gaistocuac dometaco, ta gueure pecatubaren zorra paguetaco. ¡Oh, ceimbat gauza on daucaguzan gach oneetan, gheu euraquin balijau ezquero Jaungoicuac berac nai daven moduban! ¿Ta celan balijau biar dogu? ¿Edo celan irago biar ditugu gueure gainera datoza gaixuac eta beste gachac? Entzun eguizu celan.

125

II.

Gaixoric daguanac lelengo beguiratu biar deutsa arimaco osasunari. Pecatuban badago, topau biar dau laster arimaco gracia compesinoe on baten bitartez. Zoraquerija edo negargarrija da pecatubagaz arimia illda daucala, gorputceco gaixuaren osagarrijen billa ibiltia. Arimiaren osagarrijac, sacramentu santubac, segurubac dira. Gorputzarenac sarritan dira onera bagacuac. [266] Osatu, bada, lelengo arimia. Ta guero gorputza, al badedi. ¡Oh ceimbat gaixo, medicuric medicu ta boticaric botica davilzan artian, arimia osatu bagaric illten dirian ta betico condenetan dirian!

Bere aleguinagaz arimia osatuta oian gaixoric daguanac, irago biar dau gacha esquer oneco goguagaz. Gogoratu biar dau gaixuac, Jaungoicuac ceruti bialdu deutzala daucan gacha, penia edo illgarrija; Jaungoicua dala ceruco Aita biguna; inori bere gachic opa ez deutzana; gueuri cegaz onduen juacun

onduen daquijana; ta au gaiti, gorputzian daucan gacha dala orduban biarren
 davena. Au gogoratubagaz, artuco dau gaixuac esquer onagaz ta vijotz presta-
 gaz gacha. Alan artu evan Ezequias erreguiac Jaungoicuac bialdu eutsan gacha 140
 arimaco ta vijotceco ezaubera ta humildade guztiagaz. Ta icusi evanian
 Jaungoicuac Ezequiasen prestaera naizcua berac bialdutaco gacha iragoteco,
 osatu evan gacheti ta luzatu eutsan amabost urteco vicitcia (195). Beste aim-
 beste jazo jacon Job santubari moduren baten. Bialdu eutsazan Jaungoicuac
 chito gach andijac ta mingarrijac Job santubari. Izanic aberatsa, pobretu zan. 145
 Izanic entzute andicua ta estimauba, galdu jacon entzute ona ta jausi zan bere
 emaztiaren burlagarri izatera. Izanic osasuntsuba, usteldu jacon bere gorputza.
 Bere umiac, bere ondasunac, bere cleituba, bere osasuna ta eucan guztia gal-
 duta, carcaba baten eguan Job gorputz usteleti teila zatiATEGAZ arrac quen-
 duten citubala ta emaztia berari burletan eguala (196). 150
 [267] ¿Celan derichazu, neure cristinaubac, irago citubala Job[ec] gach oneec?
 ¿Cer esango dau, ain aberats, ain pamau ta ain ondo bere buruba icusi dave-
 nac, colpe baten guztia galduta, gorputz ustel ardundubagaz²²² carcaba loijan
 daguanian? Esaten evan, bada, Job santubac, oian dagozan gaixo guztiac esan 155
 biar daveena. ¿Ta cer esaten evan? *Biloxic jaijo nintzan ta biloxic viurtuco nas*
atcera, Jaungoicuac nai davena da au. Bedeincatuba izan dedilla
Jaungoicuaren icen santuba. Jaungoicuac emon ditu nire gauza guztiac ta
Jaungoicuac quendu ditu... Gauza onac artu baditugu Jaungoicuaren escuti,
*¿cegaiti artuco ez ditugu gachac bere?*²²³ Ara, Job santubac celan iragoten citu-
 ban bere gachac. Ta gach andijac. Tobias santubaren gaixuan, itsututian²²⁴ ta 160
 gachetan iracurten dogu urrian urrian dotrina onetan esaten dan guztia; cegai-
 ti Jaungoicuac gachac bialduten deuscuzan ta celan irago biar ditugun jatorcu-
 zan gachac. Alaco vijotz onagaz artuten davenian cristinaubac ceruti etorri
 jacon gaixua, erruquituten dau Jaungoicuaren vijotz biguna ta mesedeguina.
 Emoten deutsa Jaungoicuac gaixuari paciencia gueijago, bere buru pecatarija- 165
 ren ta arimaco gaucen ezaubera gueijago, ceruco glorijaren nai ta uste gueija-
 go, bere pecatuben damu gueijago ta Jaungoico onaren beraren amodijo guei-
 jago.

 (195) 4.Reg. 20. (196) Job c. 1. et 2.

142 presta era *Ba* 145 pobretuzan *Ba* 146 jausizan *Ba* 149 gorputz] gorputz *Ba*
 159 ce gaiti *Ba*

²²² "Ardundu": hardun bihurtu, harrez bete; (partizipio edo adjetibo gisa darabil).

²²³ Hemen Frai Bartolomek bat egiten ditu Joben bi testu: Jb 1,21 eta Jb 2,10.

²²⁴ Tb 2,9-10. Izenak pixka bat nahastatu egin dira hemen (Tobit aita zen, itu gelditu zena; eta Tobias semea). Vulgatan biak Tobias izenez agertzen direnez gero, Frai Bartolomek ere hala-
 xe egiten du.

170 Gaixoric daguanac gogoratu biar ditu Jesusen ta Ama Virgina gozuaren
penac. Bada, Jesus erru baguiac ta bere Ama pecatu baguiac aimbeste pena
ta mingarri irago bacituben euren vici guztian ta batez bere Jesusen pasinoian
ta erijotzan, ¿ce gauza andija, neure entzula [268] onac, gach pusca bat edo
175 gueure arimen oneraco? Duda bagaric gomuta onegaz gozatu ta arinduco
ditu gaixuac bere gorputceco minac ta alaac. Baita consolau ta alegrau bere
Jesusen penetan ta Ama Virginiaren vijotz erruquiorrian bere arimaco espiri-
tuba. Ez, bada, aztu, cristinaubac, gaixo demporan Jesus maitiagaz ta Ama
Virgina gozuagaz.

180 Gaixo orduban ez dau luzatu biar cristinaubac testamentuba eguitiagaz,
eguinquizuna badauca. Aibat onduen compesauta, comunioeco sacra-
mentuba artuta, munduco artu emonai ta daucazan gauzai guero izatia gura
daven vidia testamentuz emonda, ya Jaungoicuaren escubetan bere osasuna
edo gacha ichita, munduco ardura guztietati vijotza alderatuta, prestau biar
185 dau cristinaubac extrema-uncinoeco sacramentuba artuteco. Erijotzaco ordu-
ban gauza guztiac dira larriac eta bildurgarriac. Isten bada gaixo orduban
compesetia, comulguetia, testamentuba eguitia ta beste eguinbiarrac autortu-
tia edo azaldetia goisian arrats aldeco ta arrats aldian vijamoneco, gueijenian
jazoco da bat bere ondo eguin bagaric illtia. Prisaco compesinoia, prisaco
190 viaticua, prisaco testamentutzia, prisaco oleacinoia ta bertatico illtia ez dira
segurubac, Jaungoicuaren aurrera arimia juateco. Eguiquizun bacarra da,
eguiquizun nausija da, illteco ondo prestetia. Ez, bada, engainau, cristinau-
bac, mundubaren amodijo laarreguijagaz edo vicitciaren nai andijeguijagaz.
Sinistu arimati ill biarco dogula leenago edo gueruago; ez gariala illgo baco-
195 cha bein baino; beingo erijot-[269]zaco utseguitia betico utseguitia dala; ta
ceruba edo impernuba baino guichiago ez deuscula balijo ondo edo gaisqui
illtiac.

Gaixoric daguanac ichi biar dau Jaungoicuaren escubetan vicitcia ta nai
erijotcia. Esaten da, prestau biar davela gaixuac Eleisa Ama santiac aguindu-
200 ten daven leguez ondo illteco. Alan prestauta guero, ez laarregui nai izan
osasuna edo vici izatia, ez bada ichi Jaungoicuaren escu santuban. Bat eguin
aleguinaz Jaungoicuaren naijagaz ta esquini sarri Jaungoicuari bere arimia ta
vicitzia. ¿Cer emon guinaijo Jaungoicuari vicitcia baino beste gauzaric, alan
gaixo andijagaz illteco arriscuban gagozarian? Ezer bere ez. Bada, orduban
205 beste munduco gauza guztiac nai ta nai ez ichi biar deutsugu. Erijotzaco ordu
triste atan, extrema-uncinoeco sacramentuba gueure villa davilenian, mun-
duban euqui dogun guztiari agur eguiten asico gara. Agur gurasuac, agur
umiac, agur senidiac, agur adisquidiac, agur dirubac, agur aciendac, agur

183 ya] ija *Ba* 184-185 biardau *Ba* 187 eguin biarrac *Ba* 201 Ez bada *Ba*

gustuac, agur neure gauza guztiac. Ta agur betico. Illtera doianac, munduco
 gauzac ya ez ditu beriac. Bada areec Jaungoicuari esquintceco ez davee aim- 210
 beste balijo orduban. Nora ececo esquinija da. Laster ichi biar deutseen gau-
 cen esquinija da. ¿Cer da, bada, beste gauzaquin aztu bagaric, Jaungoicuari
 eguin leguijon esquiniric oneena? Bere vicitziarena. Bere vicija, bere espiri-
 tuba ta arimia compijantza oso bategaz Jaungoicuari pocic eta vijotceti
 esquintcia da, orduban gaixuac eguin leguijan irabaciric oneeneco esquinija. 215
 Esan biar dau alaco orduban gaixuac, san Martin glorijosuac esaten eva-
 [270]na: *Jauna, gura badozu ni vici izatia, vici nailla. Emen nago, mundu -*
co neque ta naibagac iragoteco ceure icenian. Ta, Jauna, nai badozu ni ill -
tia, ill nailla. Ceure escubetan isten dot neure vizitzia ta erijotzia. Ceuri
entreguetan deusut neure gorputza ta arimia ²²⁵. 220

Gogoratu bada, neure cristinaubac, sarri ta astiro, cetaraco jatorcuzan
 gachac gueure gainera, ta celan artu ta irago biar ditugun. Alan prestaucio gara
 extrema-uncinoeco sacramentuba artuteco ta Jaungoicuaren gracijan illteco. Au
 da, cristinaubac, biar doguna ta guztioi opa deusudana. Aitiaren, Semiaren ta
 Espiritu Santubaren icenian. Amen. 225

210 ya] ija *Ba* 224 biardoguna *Ba*

225 Hain ezaguna den esaldi hau obra honetan irakur zezakeen Frai Bartolomek: Petrus RIBADENEIRA, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 585.or.

San Martin Tours-koa (316/317-397). Tribuno erromatar baten semea. Pavian hartu zuen heziera; 15 urte zituela erromako armadan sartu zen Konstantzioren esanera, eta geroago, Julian enperadorearen esanera. Bataioa hartu zuen 18 urterekin eta Worms inguruan (356) utzi egin zuen armada. San Hilario Poitiers-koaren ikaslea izan zen. Ligugé-n Frantziako lehen monasterioa sortu zuen (361). Berak ez zuen nahi baina, Tours-ko apezpiku izendatu zuten (371); handik hurbil Marmoutier-ko monasterioa sortu zuen, ingurune espiritual eta kultural garrantzitsu bihurturik. Misio-lanari ere gogoz eman zion jentilen artean, bere elizbarrutitik urrun ere bai. Ospetsua izan zen mirariak egiteko dohainengatik eta bere penitentzi bizitzagatik... Bere artzain-laneko bidaia batean hil zen. Haren hiletetara milaka monje eta birjina etorri ziren eta jendetza ikaragarria herritarren partetik (ik. J. FONTAINE, *Martin, hl.*, LThK 7 (1986) 118-119). Ikonografian ospetsua da bere kapa erdi bi egin eta txiro bati ematen agertzen denekoa, ik. S. KIMPEL, *Martin von Tours*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 572-579.

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan oleacinoeco sacramentu santuba.*
2. *Cetaraco dan.* 3. *Celan artu biar dan.*

230 Sacramentu santubai jagocuen dotrinia ondo icasijaz ezaututen da, neure
 cristinaubac, Jaungoicuac gueuri deuscun ondo gura neurri baguia. Sacramentubetan
 ichi deuscuz Jesus maitiac, ez bacarric gueure arimaco gach guztien erremedijuac,
 ez bada baita premina ordu bacochecho eta gach bacochecho erremedijuac bere.
 235 Leen eracutsi dirian lau sacramentubetan, entzun dozu celan jaijoten garian
 orduti cristinau ta Jaungoicuaren seme eguinda, emoten deuscuben gueu beti
 Jaungoicuaren adisquide izateco gracija. Bada, bostgarren sacramentuban
 emoten deuscu Jaungoicuac gueure erijotzaco ordu es-[271]turaco pozezco ta
 indarrezco gracija. Sacramentu santu onen gainian cristinaubac jaquin biar
 240 davena da: 1. *Cer dan extrema uncinoeco sacramentu* - *tuba.* 2. *Cetaraco dan.*
 3. *Celan artu biar dan.* Iru gauza oneec esango deutsudaz dotrina onetan,
 ceubec jaquitia ondo dan tercijuan. Escatuten deutsut oi dozun entzute ona.

I.

Extrema uncinoeco sacramentuba da, evangelijoco legue santuban
 245 Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuna gaixoric illteco arriscuban dagozan
 cristinaubai emoteco, pecatubac ariman ichi dituban errastu chaarrac ta ondarrac
 quendutecho ta gorputzari osasuna emoteco, bajatorco. Onetaraco gaxoric alan
 dagozan cristinaubac sacerdotiac igorzten ditu orijo bedeincatubagaz gorputcecho
 250 sentidubetan. Esaten jaco *extrema-uncinoia*, azquenengo gaixuari emoten
 jacon orijo-igortzizco edo *uncinoeco* sacramentuba dalaco. Bada, ordiaco
 sacramentuba izan arren *uncinoezcua* ta sacerdote guztiac izan arren ungidu-
 bac, sacerdote ta ungidu guztiac bere *extrema-uncinoia* emoten jacue, gaixoric
 255 illteco peligruban dagozania. Baita esaten jaco sacramentu oni *gaixuen orijozco*
sacramentuba, gaixoric dagozanai baino emoten ez jacuelaco. Illteco peligruban
 egon arren, ez jacue emoten sacramentu au gorputcecho gaixuagaz edo
 gachagaz peligru atan ez dagozanai. Baita esaten jaco illtera duazanen

233 ez bada *Ba* 241-242 oidozun *Ba*

sacramentuba (197), aituten emoteco ez dala asco edocein gaixo cristinauba olietaco, ez bada biar da sacramentu au artuteco, cristinauba illteco arriscuban iminteco gaixua, aituten jacueneren²²⁶ erichijan. Eleisiac era-[272]custen deuscu (198), extrema-uncinoia Jesucristo gueure Jaunac ichitaco sacramentuba dana ta, beste sacramentubac leguez, berari jagocan gracia arimiari emoten deutsana. 260

Errazoiaren usura eldu ez dirian umiai ez jacue emoten orijozco sacramentu au, gaixoric illteco arriscuban egon arren. Bada, errazoiaren ezauberaric ez dauquen umiac peccaturic ez dauquee. Ta peccatubac ichitaco gachac garbituteco da sacramentu au. Guztiz zorata vici izan dirianai bere ez jacue emoten, cer artuten daveen ta celan artu biar daveen jaquin ezin leguijelaco (199). Compesau gura ezda dagozan peccatu mortaldunai bere ez, illten egon arren. Bada, extrema-uncinoeco sacramentuba da moduren baten penitencijaco sacramentubaren guiltza edo amaigarrija (200). Penitencijac emoten deutsa arimiari osasuna. Penitencijac quenduten deutsa gacharen colpe nausija. Baina gacha juan arren, gueratuten dirian leguez gorputcian gach ondoco argaltasuna, jaustasuna ta macaltasuna, alan peccatuba quendu arren arimati compesinoeco sacramentubagaz, gueratuten da arimia peccatubac ichitaco ondarragaz ta macaltasunagaz. Oneec quenduten ditu arimati extrema-uncinoeco sacramentubac ta emoten deutsa osasun senduagua bere graciajagaz arimiari. Obetuago aituco dozu au entzunagaz, cetaraco ichi euscun Jesucristoc extrema-uncinoeco sacramentuba. 265 270 275

II.

Onetaraco gogoratu eguizu, cristinaubac, barriro ta obetuago, cer jazoten jacon gach andi bat goituta guero gueure gorputzari. Gach [273] onduan gueratuten da gorputza coloria zurituta, aguintia²²⁷ juanda, jaateco gogo bagaric. Azurac minveratuta daucaz. Jaguita ozta davil. Jarrita egoten cansetan da. Ez jaateco, ez lo eguiteco, ez egoteco, ez ibilteco, ez verba eguiteco, ez barre eguiteco arguituten jaco gogua gaixuari, gachac ichita lasterreco egunetan. ¿Cegaiti au? Gachac gorputz guztia aguinteti aterata, argalduta, macalduta ichi deutsalaco. ¿Cer eguiten deutsa, bada, medicubac edo osalarjac alaco gorputz jausijari? Aguinduten deutsaz janariric ta edariric indartsubenac ta osasuntsu- 280 285

 (197) Catec. Rom., n. 2. (198) Trid. Sess, 14. cap. 1. (199) Catec. Rom., de Extr. Unt. (200) Ibid. 290

258 Ez bada *Ba* 268 ez da *Ba* | mortal dunari *Ba*

²²⁶ Ik. *Icas-II*-ko 176. oharra (992.or.).

²²⁷ "Aguinte": indarra, adorea, kementa; (esanahi onekin dakar soilik).

benac, leengo vizcortasunera, osasunera ta indarrera etorri dedin gorputza ta garbitu dedin gachac ichi deutzazan errastu deunguetati. Au icusten dozu ta au berau eguiten dozu, neure entzula onac, gach onduan ceuben echeetaco gaxuaquin.

- 295 Contu eguizu, bada, beste aimbeste eguiten davela Jesucristo gueure arimen eguijazco medicu edo osalarijac. Pecatuba da arimiaren gacha. Gach illgarri onen colpe nausija osatuten dau Jesucristo gueure Jaunac compesinoeco sacramentubagaz. Baina oraindino gueratuten da arima tristia pecatu onduan gacharen errastu gaistuagaz. Ta ceimbat sarrijagotan pecatu illgarrijaren gach
- 300 deunguia irago daven arimiac, aibat gueratuten da, compesinoian gacha osatuta bere, macalago, epelago, astunago ta jausijago, Jaungoico ona maitetute-co ta ceruco eguijetara gogua jasoteco. Compesinoian pecatuba parcatu arren, pecatarijaren gogua ez da guztiz indartuten, luurreco naijetati cerucuetara igoteco. ¿Ez dozu icusten logreru bat edo diruzalegui²²⁸ bat, sarri compesau arren,
- 305 leengo gachagaz gue-[274]ratuten dala ta ostera bere logrerijetan ta lapur trabetan jausten dala? ¿Ez dozu icusten loi bat, nosbait compesau arren, leengo verdetasunac ta araguijaren eraco pecatubac eracusten ditubala? ¿Ez dozu icusten beste aimbeste jazoten jacola ordijari, lapurrari, arruari, andiguriari, gaisquiesaliari, gorrotarijari ta beste pecatarijai? ¿Ceimbat Zaqueo topetan dira, logrerijaren ta lapurretiaren pecatuba bein ondo osatu ezquero, ostera eguin ez daveenac?²²⁹ ¿Ceimbat Madalena, bein Jesusen oinetan pecaturic ostera ez eguiteco verbia emon ezquero, betico araguijaren labanquerijai, pecatuco jantcijai, pecatuco lagunai ta ibiltiai larga deutseenac?²³⁰ ¿Ceimbat san Pedro?²³¹ ¿Ceimbat Pelagia?²³² ¿Ceimbat Tais?²³³ ¿Ceimbat, bein Jaungoicuagana viurtu arren gracia-
- 315 ren colpe indartsu bategaz, ariman guztiz osatuta gueratu dirianac? Ez daquit, cristinaubac. Ceubec conta dauqueuz, al badaizu. Egitoco catiguti Jaungoicuac ascatu arren arimac ta ceruco mana gozua jaten emon arren, isrraeltarac giretan even euren gogua ta gurarija Egitoco quipula ta beracatz berdetara²³⁴.
- 320 ¿Cegaiti, bada, gusto gueijago edo poz gueijago artuten ez deutsee isrraeltarrac, Jaungoicuac ceruti bialdu eutseen mana gozuari? Isrraeltarren gogua, vijotza ta espirituba luurrezcua zalaco. Jaungoicuaren mesediac estimetaco,

304 diru zalegui *Ba* 306 nos bait *Ba* 316 alba daizu *Ba*

²²⁸ Gure idazkeraz "diruzaleegi".

²²⁹ Ik. Lk 19,1-10.

²³⁰ Ik. Lk 7,36-50. Ik. *Euscal-errijetaco* ... 73.oharra (484.or.).

²³¹ Ik. Mt 26,57-58.69-75; Mk 14,53-54.66-72; Lk 22,54-65; Jn 18,15-18.25-27.

²³² Santa Pelagia, ik. *Euscal-errijetaco*... 74.oharra (484.or.).

²³³ Santa Thais, ik. *Euscal-errijetaco*... 75.oharra (484.or.).

²³⁴ Ik. Zen 11,5.

ceruco gauzai gustua artuteco ta gracijaren vide santubai jarraituteco, luur jota, macalduta, aguinte bagaric egozan israeltarrac. Au gaiti naijago cituben pecatu arteco beracatz berdiac ta quipula garratzac, ceruco mana gracijazcua baino. Au da pecatu illgarrijac gueure ariman isten daven [275] espiritu macalaren ta jausijaren irudi eguijazcua. 325

¿Ta ce erremedio, onaco gachetati arimia sendotuteco? Uncinoeco sacramentuba. Au da Jesucristo gueure Jaunac ataraco ichi euscun erremedijua. Erremedio jaquin andicua²³⁵ ta erremedio seguruba. Jaquin andico erremedijua. Bada, nundi jatorcon arimiari gacha, an iminten dau sacramentu onec arimiaren osagarrija. Gorputzaren senac edo sentidubac dira arimaco gachen atiac, vidiac edo sartulecubac. Bada, pecatubac oi datoz arimara, edo icusijagaz, edo entzunagaz, edo usain eguinagaz, edo esanagaz, edo jan edanagaz, edo pausubagaz, edo oratubagaz. Beguijac, belaarrijac, suurrac, miina, aua, escubac ta oinac dira pecatuben vidiac. Ta eurac dira, pecatubac gaixotuta isten ditubanac. Emeti datoz araco pecatu azi ugarijac ta sustrai verentubac. Entzun guria, esan guria, icus guria, gozo guria ta leun guria, gorputzari bere sengarri guztietan naija emoteco. Pecatubac viztu ta ascortuten ditube gorputzaren eraco gurari gaisto oneec. Ta ceimbat indar ta aguindute gueijago dauqueen oneec gorputzian, aibat dago macalago, jausijago ta argalago espiritu-ba ceruco gaugetaraco. Pecatubac ichtaco erru gaisto oneec osatuteco ta arimiari gracijaren sendotasuna emoteco daucagu bada, neure cristinaubac, extrema-uncinoeco sacramentu santuba. 330 335 340

Alan igorzten deutzaz sacerdotiac orijo santubagaz gaixuari beguijac ta esaten deutsa: *Uncinoe santa au gaiti ta bere misericordija chito biguna gaiti parcatu daguizula Jaungoicuac beguijaquin eguin dozun palta guztia* . Banaan banaan igorzten deutzaz gaixuari sacerdotiac [276] orijo santubagaz belaarrijac, suurra, ezpanac, escubac eta oinac. Ta sentidu bacochian esaten deutsa: *Uncinoe santa au gaiti ta bere misericordija chito biguna gaiti parcatu dagui zuzala Jaungoicuac entzunagaz... usainagaz... esanagaz... pausu eguina gaz... icutu eguinagaz... gusto artubagaz eguin dituzun pecatu guztiac* . Ara emen, guizonaren sentidu guztiac pecatuti garbituteco ta osatuteco sacramentuba. Gorputzaren sentidubac orijo santubagaz igorzten jacozanian gaixuari, sacramentubac ariman eguiten deutsa gracia, gaixuac azqueneco ordu triste atan biarren davena. 345 350 355

Lelenga Extrema-uncinoiac parcatuten deutzaz gaixuari pecatubac ta emoten deutsa arimaco gracia, dino Santiagoc.

Bigarrenian : Gaixuac compesetaco ta comulguetaco lecuric euqui ez

²³⁵ "Jaquin andico": oso zuhurra, egokia.

360 arren, artuten badau extrema uncinoeco sacramentuba jagocan prestaeriagaz, parcatuten jaco pecatubac, guztiac andijac eta chiquijac.

Irugarrenian : Garbituten dau arimia extrema uncinoeco sacramentubac, leenagoco pecatubac ichi deutseezan zetaca, ondoquin ta errastu gaistuetati. Ta au da sacramentu onen lelengo eguizuna. Gracijan dagan arimiari,
365 Jaungoicuaren aurrera jua biar daven aurrian, pecatubac ichi deutseezan ondoquin chaarrac parcatuia.

Laugarrenian : Extrema uncinoeco sacramentubac emoten deusa arimiari erijotzaco ordu estuban ta larrian aparteco indarra, espirituba ta sendotasuna, impenuco etsaijac goituteo. Ezin ucatu guinai, erijotzaco orduban cristinaubac izaten ditubala tentacinoeric andijenac, Jaungoicua galduteo. Orduban ecarten deusaz diabru-[277]bac gogora viziuro cristinaubari bere vicico pecatu guztiac; baita Jaungoicuaren justicija asarria bere; baita on izateo eraac sarri euqui ditubana ta alperric galdu ditubana bere. Illten dagan gaixuari colpe baten ecarten deusaz etsaijac gogora eguin dituban pecatubac, entzun dituban
375 sermoiac, gaisqui eguin dituban ta ondo eguin euquezan compesinoiac ta comunioiac, impernuba sarri irabaci davena, Jaungoicua asarratuta daucana... ta beste gaixo tristia illundu, larritu ta parcacinoiaren ustia guztiz galdu eraguiteo asco dirian gomuta bildurgarrijac. ¿Cer biarrago, bada, orduban gaixo errucarrijac adineco arguija ta espirituco indarra baino, etsaijaren tentacinoiac
380 goituteo, vijotza Jaungoicuari jasoteco ta ceruco atetara gogua viurtuteo? Onetaraco da, bada, extrema-uncinoeco sacramentuba; erijotzaco ordu estuban arimiari indarra ta animua emoteco, Jaungoicuagan uste ona ta compijantzia galdu bagaric irago daguizan gorputzeco gacha ta etsaijaren tentacinoiac.

Bostgarrenian : Extrema-uncinoeco sacramentuba da gorputzari osasuna
385 emoteco, ariman alan jagocanian. Bada, gorputzaren osasunac izan biar dau arimiaren oneraco. Ta ariman ondo ez bajuaco, ez dau extrema-uncinoiac emoten gorputzaren osasuna. Alan esaten deuscu santo Tomasec (201), edo biar dan moduban escatuten ez dalaco, edo ariman conveni ez jacolaco, ez davela extremauncinoiac beti emoten gorputceco osasuna. Baina beste esan
390 dirian mesediac beti eguiten ditu ariman sacramentu santu onec, biar [278] dan prestaeriagaz artu ezquero. ¿Baina celan prestau biar dau gaixuac extrema-uncinoeco sacramentuba artuteo? entzun eguizu celan.

(201) In 4. Sent. dist. 23, q. 1, a. 2.

III.

Ecec bere ez dau gueijago eragozten sacramentuben gracia ta prutu uga - 495
rija pecatu illgarrjac baino , dino san Carlos Milango obispo jaunac (202).
 Berau gaiti, extrema-uncinoeco sacramentuba artutera orduco, compesau biar
 dau gaixuac, ecelan bere al badaí. Compesau ecin bada, damutu biar dau vijotz
 vijotceti bere pecatu guztiaquin, al daguijarian compesetaco uste osuagaz.
Bigarrenian : Al badaí ta eguinquizuna badauca, eguin biar dau testamentuba 500
 ungidutera orduco. Munduco ardurai ichita, arimaco gauzai bacarric contu
 eguiteco ordu balijo andico atan. *Irugarrenian* : Prestau biar dau sinistute oso
 ATEGAZ. Ta emon Jaungoicuari esquerrac, cristinau eguin davelaco, Eleisa san-
 tan sacramentubaquin gorde davelaco ta azquenian ill aureco sacramentuba
 artuteco gracia eguiten deusalaco. Parcacinoiaren uste osoATEGAZ escatu biar 505
 deutsa Jaungoicuari gracia, uncinoe santuba artutera doianian. Dei eguin biar
 deutsa Maria Santisima pecatarijen Ama erruquiorrari, Aita san Josepe bedein-
 catubari, aingueru gordezailiari ta bere devocinoeco santubai, lagundu dagui-
 juen ordu estu atan Jesus maitiaren aurrera juaten. Gogoratu biar ditu Jesus
 maitiaren erijotcia ta misericordija andijac. Eurac gaiti parcatu daguijozan 510
 Jesusec bere pecatubac. Esan biar dau gaixuac ordu atan: ¡Oh, Jesus parcazaí-
 lia! Ez cinian ceruti etorri oneen villa, ez bada ni leguezco gaistuen ta pecata-
 [279]rijen villa. Ceuc parcatu zeuntsan lapur onari²³⁶. Ceuc parcatu ceuntsan
 Madalenari²³⁷. Ceuc parcatu ceuntsan David, erregue pecatarijari²³⁸. Ceuc, Jauna,
 parcatu deutsezu beste millari ceure erijotzaco irabaci amai baguiac gaiti ta 515
 daucazuz ceugaz ceruco eche dichosuan. Parcatu bada, Jauna, niri bere neure
 pecatu guztiaac. Damu dot, Jauna. Maite zaitut, Jesus ona, beste gauza guztiaac
 baino gueijago. Ceure escu santubetan isten dot, neure Jesus maitia, neure osa-
 suna, neure vicitzia ta neure arimia...

Onan prestau biar dau gaixuac extrema uncinoeco sacramentuba artuteco. 520
 Baita parcatu biar deutsee arima arimati bere arerijo guztiai ta gach eguin deu-
 tseen guztiai, berari Jesusec parcatutia gura daven leguez. Baita parca escatu
 bere berac gach eguin deutenai. Orduban artuco dau illaurreco sacramentu
 santuba sinistute osuagaz, ceruco uste vizijagaz ta Jaungoicuaren ta proximo
 edo lagun guztien amodijuagaz. ¡Ce dichosua ta zorijonecua, alan prestauta,

 (202) P. 4. Inst. Extr. Unct.

498 albadai *Ba* 499 aldaguijarian *Ba* 500 Albadai *Ba* 512 Ez bada *Ba*

²³⁶ Ik. Lk 23,40-43.

²³⁷ Ik. Lk 7,36-50. Ik. *Euscal-errijetaco*... 73.oharra (484.or.).

²³⁸ Ik. 2Sm 12,13; 24,10.17.25.

uncinoe santubagaz animauta, sendotuta, impernuco etsaijen vildur bagaric, gacharen alaac ta vicitzia Jaungoicuari esquinita, vijotceco pozagaz ta arimaco baque santubagaz illten dana!

530 Au da bada, neure cristinaubac, sacramentu santuben eguiquizuna. Onetaraco ichi euscuzan Jesus maitiac lelengo bost sacramentubac, euren ica-siquizunetan entzun dozun leguez. Oneec bostoc, cristinau guztiai jagocuezanac dira. Ta bacocho bere demporan artu biar dirianac, al izan ezquero. Beste bijac, estadubari edo vici modubari jagocazanac dira. Orregaiti, gura ez [280]

535 davenac ez dauca areec artuquizunic, guero esango dan leguez. Emon daijoguzan Jaungoicuari esquer onac, gueure arimaco salvacinoia, gueure pecatubenen parcacinoia, gueure utseguiten erremedijua ta gueure arimaco gach guztien osagarrijac sacramentu santubetan prest ta seguru ichi deuscuzalaco. Izan dedilla, bada, bedeincatuba ta ondo esana Trinite gultiz Altuba, Aitia, Semia

540 ta Espiritu Santuba. Amen.

ORDIACO

EDO SACERDOTETZACO SACRAMENTUBA

Accipite Spiritum Sanctum, quorum remiseritis peccata, remittuntur eis, et quorum retinueritis, retenta sunt. Joan. 20.

Artu eguizu Espiritu Santuba; ceubec pecatubac parcatuten deutseezuzanai, parcatutzat iragoco jacuez, ta ceubec parcatuten ez deutseezuzanai, parcatu bagaric gueratuco jacuez. *id. ibid.* 5

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Cer dan sacerdotetzaco sacramentuba.* 10
2. *Ceintzuc dirian sacramentu onen gradubac edo mallac.*

Jesucristo gueure Jaunac ichi eutsan Eleisa [281] Ama santa bere esposa garbijari seigarren lecuban ordiaco sacramentuba. Sacramentu onegaz eguiten dira eleisa-guizonac. Eleisa-guizonen cereguina da Jaungoicuaren beraren urrengo otseguinac edo crijadubac izatia luurrian. Balijau zatequian Jaungoicua onetaraco ainguerubaquin. Baina bere jaquituriya altubac ez evan au gura izan, ez bada aparteco sacramentu bat ichi euscun, guizonac consagretaco, santututeco ta luurrian bere ordeco izateco. Alan esan eutseen Jesus maitiac apostolubai: Artu eguizu Espiritu Santuba ta parcatu eguijezuz pecatubac cristinaubai. Ceubec jaquingo dozu nori parcatu ta nori ez parcatu. Ceubec parcatuten dituzun pecatubac, parcatubac izango dira. Ta ceubec parcatuten ez dituzunac, ez dira izango parcatubac. Au esan eutseen Jesusec apostolubai ta areen ondorengo eleisa guizonai: *Accipite Spiritum Sanctum, quorum remisistis peccata, remittuntur eis, et quorum retinueritis, retenta sunt.* Jesusec eguin cituban eleisa guizon, sacerdote, obispo ta apostolu amavi guizon arrain arzaile; ta eurai emon eutseen alizatia ordiaco sacramentubagaz eleisa guizonac, sacerdotiac ta obispuac eguiteco, mundubac dirauban artian iraun daguijan Eleisa santan sacerdotetciac. Ez da sacramentu au guztiac artu biar daveena, ez bada, Aaroni leguez, Jaungoicua ataraco dei eguiten deutseenac. 15 20 25

Ordiaco sacramentuba chito santuba ta jaungoicozcua da , dino Trentoco batzaarrac (203). Beste sacramentubac eguiteco sacramentuba da, guero esango dan leguez. Au gaiti, dino Erroma-[282]co Catecismuac (204), chito contu andijagaz eracutsi biar deutseela cura jaunac cristinaubai sacramentu onen izatia ta mesediac. Guztien oneraco izango da au, dino Catecismuac. Cura jaunentzat bere bai. Euren estaduco edo vicieraco eguiquizunac iracurrijagaz, ez davee ecer bere galduco. Beste eleisa guizonac bere, euren vicieraco ceregui-

(203) De Sacr. Ord., cap. 2. (204) P. 2, c.7, n. 1.

40 nac entzunagaz, obeto goguan euquico ditubee ta prestago cobru emongo deutsee. Baita biarrecua da ordiaco sacramentuba eracustia, beste cristinau guztientzat bere. Bateti, jaquin daguijen cer zor deutseen Jaungoicuaren orde-
co eleisa-guizonai. Ta besteti, eurac ordenau gura badabee, jaquin daguijen ce viciera santuba artuten daveen. Guztientzat da, bada, chito biarrecua ordiaco sacramentubaren dotrinia.

45 Berau gaiti eracutsico deusut sacramentu onetan, cer dan; ce escubide altuba guizonai emoten deutseen; ta ce mesede andicua dan. Bagoz beste gauza asco ordiaco sacramentuban. Baina areec jaquitia gueijago jagocue elei-
sa-guizonai beste cristinaubai baino. Orregaiti ez deusut esango guztiac jaquitia ondo dana baino gueijago. Prestau zaite bada, neure entzula onac, aimbat gogoric zurrenagaz ta conturic andijenagaz entzuteco: 1. *Cer dan ordiaco*
50 *sacramentuba*. 2. *Ceintzuc dirian sacramentu onen gradubac edo mailaac*.

I.

Ordiaco sacramentuba da, *Jesucristo gueure Jaunac Eleisa Ama santiari ichitaco senaile aguiri bat, ceinetan emoten jacon ordenetan danari meza santubari edo comuninoeco sacra-* [283] *mentubari jagocan espirituzco alizatia* .
55 Sacerdotetzia edo ordia sacramentuba dana ta Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuna Trentoco batzaar santubac eracusten deuscu (205), neure entzula onac. Ta sinistu biar dogu, beste cristinautzaco sinisquizunac leguez. Esaten da dala *senaile aguirija* . Bada, sacramentu guztiac dira aguirico gauzaquin ta verbaquin eguiten dirianac. Ta baita au bere. Esaten da, *Eleisari ichija* . Bada,
60 sacramentu guztiac ichi eutsazan Jesucristoc Eleisa Ama santiari. Esaten da, *ordenetan danari emoten jacola espirituzco alizatia* . Bada, sacramentu au da ceruco alizate bat guizonari emoteco. Ordenau bagaric inundi bere guizonac ezin leguizan gauzac eguiteco. Ez da alizate au ez indarrezcua, ez jaquiturijaz-
cua, ez diruzcua, ez munducoc emon leguijona. Baina da ordiaco sacramentu-
65 bac guizonari emoten deusana da espirituzcua ta ceruti jatsija. Esaten da, *meza santubari edo comuninoeco sacramentubari jagocana* . Bada, sacramentu onec emoten daven espirituzco alizatia, escubidia edo *potestadia* izan arren gauza ascotaraco, bere eguizun nausija edo lelengua da meza santuba esatia, oguijaren ta ardauaren izatia Jesucristo gueure Jaunaren gorputz ta odol vici izate-
70 ra viurtutia.

Ordiaco sacramentubaren alizate au guztiz santuba ta altuba dan leguez, zatica edo pausua emoten jaco guizonari. Beerengo mailati asita, astiro ta pau-

(205) Sess. 23, c.1, et can. 3.

suca, ondo pensauta ta ondo prestauta eldu dedin ordia bateti bestera ta andi goragocora, maila edo gradu nausira. [284] Au gaiti daucaz zazpi maila edo gradu ordiaco sacramentubac. Lau chiquijaguac ta iru nausijaguac. Lelengo laurac dira. *Ate-jaolia, iracurlia, etsai-bildurzailia* ta *meza-lagunzailia*. Edo esango deutsegu: Ostiarijua, lectoria, exorcistia ta acolituba. Euren eguiquizunac esanagaz aituco dozu obeto ordiaco maila edo gradu oneec cer dirian. 75

II.

80

Eleisa-guizon izateco asipena da obispo jaunac buruco ulia moztuta, coroiu eguitia ordenau gura davenari. Ez da au ordenetia. Ez jaco emen alizate espirituzcoric emoten guizonari, ez bada da ordiaco sacramentuba artuteco pretaera bat. Ordiaco lelengo mailiari esaten jaco ate-zaintzia edo *ostiarijua*. Orduban emoten jaco guizonari espirituzco alizatia, eleisaco atiac isteco ta edeguiteco; eleisan egotia mercedu ez davenai atiac isteco; ta mercedu davenai edeguiteco. *Ate-jaoliaren* cereguina da eregiac, escomulgaubac ta aguirico pecatari impamiac eleisati (sartuten badira) ateratia. Ta eleisaco ate²³⁹ contu eguitia. Ataraco emoten deutzaz obispo jaunac guiltzac, ordenetan davenian. 85

Bigarren mailia da iracurlia edo *lectoria*. Orduban emoten jaco guizonari, leenaren gainera, alizate espirituzcua eleisan iracurteco Jaungoicuaren verbia altu ta guztiac dantzubela. Baita sacramentu onegaz emoten jaco iracurlari gracia bere, espiritu onagaz ta zur iracurteco Escritura Sagraduba, bai testamentu zaarrecua, baita barricua bere. Onen eguinquizuna da eleisan, guztiac entzun leguijen lecuti, Escritura Sagraduba iracurtia ta cristinaubai dotrinia eracustia. 90

[285] Irugarren mailia da etsai-bildurzailia edo *exorcistia*. Ordia onetan emoten jaco guizonari alizatia, endemoniauben gainian Jaungoicuaren icen santubari dei eguiteco ta escubac iminteco, demoninua bildurtu dedin ta aldendu dedin cristinauba ganic. Onetaraco dagoz Eleisan guiza aldiric guiza aldiraco sinistutiagaz etsaijac conjuretaco liburubac. Atarico liburuba emoten deutsa obispo jaunac etsai-bildurzaile ordenetan davenari ta esaten deutsa: *Artu eguizu ta buruz icasi eguizu. Alizatia edo escubidia daucazu batiatu nai batiatuteco prestetan dagozan endemoniadubai escubac iminteco*. Eleisa santan beti ezautu da, guizon gorputzetaco demoninuac conjuretaco, bildurtuteco edo quenduteco alizatia. Jesusec berac bota cituban demoninuac gorputz ascotati (206). Apostolu santubai bere emon eutseen alizatia, bere icenian endemoniadubac ascaturteco 95 100 105

(206) Matth. 17.

77 Ate-jaolia| Ate-jaotia Ba 83 Ez bada Ba 87 cer eguina Ba

²³⁹ Haren idazteko araei jarraituz, *ateai* beharko luke.

(207). Ta gueratu zan Eleisan ordiaren irugarren maila au, ceinegaz eleisa-guizonac artuten daven cristinaubac ta cristinaugueijac etsajetati ascatuteuco edo libretaco espirituzco alizatia. Au gaiti esan leguijo sacramentu oni, *exorcista* esaten jacon leguez, *etsai-bildurzailia* nai *etsai-quenzailia*. Ez dago gueure Eleisa eguijazcoti campora onaco alizateric. Moruac, gentilac ta eregiac ez davee guizon bat edo emacume bat demoninuetati ascatu. Jesusen, apostoluben ta gueure eleisa guizonen eguiquizuna da au.

115 Laugarren mailia da meza lagunzailia edo *acolituba*. Esaten jaco *meza-lagunzailia*. Ez be-[286]rac mezaco laguntasun guztia beti meza esaliari eguiten deusalaco, ez bada bere eguiquizun guztia dalaco meziaren laguntasuneraco. Oni emoten jaco espirituzco alizatia. *Lelengo* Sacerdotiari mezia erasoteuco. *Bigarrenian* : Sacerdotiac lagun jantzijac daucazarian mezia cantetaco, 120 orduban meza-lagunzaliliac emon biar deutseez arei escubetara vinagerac ta beste mezatan biar dirian gauzac. *Irugarrenian* : Evangelijua cantetan darian, *meza-lagunzailiac* edo acolitubac eruan biar ditubee candela ixiuac candelerebetan (ceintzubai esaten jacuen *cirjalac*) evangelijua cantetan davenaren albo bijetara. Au da meza-lagunzailen eguiquizuna. Onetaraco emoten jacue 125 espirituco alizatia.

Ordiaco sacramentubaren lau maila edo gradu oneec artuten ditu lelengo eleisa-guizonac. Euraquin prestetan da guizona ordia sagradubac artuteuco. Bada, lau maila esan dirian oneec ez dira ordia sagradubac. Leenagoco guiza aldijetan chito ciur ta cintzoro gordetan cituben bacoachac bere eguiquizunac, 130 esan dirian lau maila edo gradubetacuac. *Ate-zainac* zaintu biar cituban nai ta nai ez eleisaco atiac. *Iracurliac* eguin biar cituban eleisan meza cantauco epistoliaz ta evangelijuz gaineraco Jaungoicuaren verba iracurtiac. *Etsai-quenzailiac* eguin biar cituban eleisaco conjurubac. Ta *meza-lagunzailiac* berari jagocazan biarrac.

135 Oneen urrengo dira beste iru ordia sagradubac. Onei esaten jacue subdiaconuba, diaconuba ta sacerdotia; edo *subdiconutzia*, *diaconutzia ta sacerdotetzia*. Subdiconutzia da diaconubari lagundutia. Ta diaconutzia da sacerdotiari lagundutia. Subdiconutzia da ordia sagraduba. Onen eguiquizuna da meza cantauca sacerdotiac esaten davenian lagun jantzijaquin, diaconubari altaran lagundutia. Ostija, calicia, ardaia ta ura ta beste mezatan biar dirian gauzac diaconubari escura emotia, ac sacerdotiari prest equi daguijozan, 140 biar orduban. Baita subdiaconubaren cereguina da orain mezatan epistolia cantetia bere. Baita bere cereguina da, meza esaten daguan sacerdotia inoc azorau ez daguijan, contu euquitia bere.

145 (207) Marc. 16.

108 gueratuzan *Ba* 109 cristinau gueijac *Ba*

Ordiaco sacramentubaren maila onetan artuten dau guizonac, esan dan guztia eguiteco ta eleisaco ontzi sagradubac escubetan erabilteco alizate espirituzcua. Ordia au sagraduba da, leen esan dan leguez. Alan gueratuten da *sub-diaconuba* eleisa guizon santututa. Ordia sagradu au artuteco escatuten jaco eleisa guizonari *voto castidadecua* edo gorputzeco ta arimaco garbitasunaren esquinija Jaungoicuari eguitia. Berau gaiti subdiaconuba guizon sagraduba da. Ta agaz araguzco pecatuba eguiten davenac austen ditu guichienaz aguindu santu bi ta eguiten ditu pecatu bi. 150

Diaconutzia da sacerdotetziaren urrengo mailia. Alan emoten jaco guizonari ordiaco maila onetan alizate gueijago, leengo maileetan baino. Diaconubaren cereguinac dira: *Lelenga* Obispo jaunari jarraitutia; sermoia eguitera doianian obispo jauna zaintutia ta contu eguitia; ta meza santuban ta beste sacramentu eguitetan obispuari ta sacerdotiai lagundutia. *Bigarrenian* : Meza cantauban evangelijua cantetia. *Irugarrenian* : Obispo jaunaren ezau-beraraco, be-[288]guiratutia ta contu eguitia errijan nor celan vici dan, aguirico pecatuba ta escandalubac erremedijau ditezan. *Laugarrenian* : Evangelijua prediquetia. *Bostgarrenian* : Comuninoe santuba cristinaubai emotia. Cereguin oneec ta beste asco bere emoten jaco diaconubari, ordenetan darian. Baina obispo jaunaren aparteco aguinduba bagaric, ez ditubee guztia orain eguiten. Diaconubac euren ordian artuten daven alizate espirituzcuaren, eguizun altuben ta eurac euqui biar even ontasunaren ta zuentasunaren ezauberia daucagu Escritura Sagraduban (208). Baita san Estevan ta san Lorenzo martiri diaconuben vizitcetan bere. 160

Sacerdotia edo *sacerdotetzia* da ordiaco sacramentubaren maila nausija. Baina aitu biar dau cristinaubac sacerdotetzia dala modu bitaracua. Bata da arimacua edo cristinaubaren espirituban daguana. Ta bestia, ordiaco sacramentubari jagocana ta aguirico gauzetan eguiten dana. Batiatuta dagozan cristinau guztia, ta batez bere gracijan dagozanac, moduren baten sacerdotiac dira. Oneec Jaungoicuaren adisquidiac dira Jaungoicua maite davee vijotceti. Ta gorputz ta arima dira Espiritu Santubaren egonlecubac ta Jesusen espirituzco gorputzaren zati vicijac. Oneec ondra andija eguiten deutsee Jaungoicuari. Ta egun oro eguiten deutseez Jaun cerucuari euren vijotzen ta nai zucenen esquinia santubac. Au gaiti esaten deuscu san Pedroc bere cartaan cristinau guztioi, *Jesucristoc, bere odolagaz gueure pecatubetati garbituta, eguin [289] guindu -zala bere Aita Jaungoicuaren sacerdote* (209). 175

Onezaz gainera ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac ordiaco sacramentuba aguirico *sacerdotetzaraco*. Aguirico sacerdotetza onec ainchinaco Legue Zaarian euqui euan asipena, orduban izan zaatequian moduban. Orduco 180

(208) Num. 3. Lev. 8. Act. Apost. 6. (209) Epist. 1, c. 2.

185 sacerdoten eguinbiarrac aguindu eutseezan Jaungoicuaq banaan banaan Moisi
 ta Aaroni (210). Jesucristo gueure Jaunac ichi euscun sacerdotetza aguiricua da
 Eleisa guztia zaintu ta gordetan davena. Sacerdotetcia berez bacarra da. Baina
 onec bere iru maila edo gradu daucaz. *Lelengua* da sacerdote utseena. Onei
 190 emoten jacue ordiaco sacramentuban alizate espirituazcua mecia esateco, cristi-
 naubai pecatubac parcatuteo ta baustismoco sacramentuba, comunioecua ta
 extrema-uncinoecua emoteco. Baita beste escubide asco bere emoten jacoz
 sacerdotiari, ordenetan danian. *Bigarren* mailia da *obispotzia*. Obispo jaunac
 dira gueure arimen jaolaac, gueure arzainac, gueure arimen gurasuac. Oneen
 eguiquizunac chito dira altubac ta pisutsubac. Eurac dauquee alizatia, beste
 195 sacerdotiac ezin leguijezan sacramentubac eguiteco, ceintzuc dirian compir-
 macinoeco ta ordiaco Sacramentuba. *Irugarren* mailia da *artzobispotzia*.
 Artzobispuac dira beste obispo, sacerdote ta cristinauben gurasuac leguez.
 Patriarcac beste aimbete leguez dira. Dira cristandadeco guraso nausijac.
 Baina guztien buruba luurrian, obispo nausija, artzobispo nausija, patriarca
 200 nausija, Jesucristoren ordecua da Aita Santu Erromacua. [290] Onei guztioi zor
 deutsegu, laugarren aguinduban esan zana.

Beguiratu bada, cristinaubac, Jesucristo gueure Jaunac celan gura izan evan
 guizonac prestetia, sacerdotetza santuba artuteo. Gueijago luzatu bagaric
 emon daijoguzan Jesus maitiari esquerrac, gueure gachen erremedijoraco
 205 vidiac alan prestau deusczalaco. Baina dotrina onetan entzun dozunagaz ez
 dozu sacerdotetziaren ezaubera andiric artu izango, leen ceuncan baino guei-
 jago. Nora ececu da orainguinocua esatia, bere ezaubera pusca bat artuteo.
 Prestau zaitte oraindino obeto, sacerdotetziaren beraren alizate cerucua entzu-
 teco gueroco dotrinan. Orduban alabauco dozu ainguerubaquin gueure
 210 Jaungoico maitegarrija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian.
 Amen.

 (210) Exod. 28. 29. 40.

II ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ce andija ta zabala dan ordiaco sacramentuban 215
guizonari emoten jacon alizate espirituzcua.

Autortu biar dogu, neure entzula onac, sinistute santu bategaz, Jaungoicuaganic daucaguzala munduban dagozan aguiari dirian ta aguiari ez dirian espirituzco ta gorputzezco gauza on guztiac. *Maitetasuna escatuten daveen doe guztiac jasten dira andi goiti, Aita cerucuaeren escubetati*, esaten 220 deuscu Santiago apostolubac (211). Jaquiturijaric badago munduban, Jaungoicuac emona da. Ondasunic badago mun-[291]duban, Jaungoicuac emonac dira. Alizateric badago munduban, Jaungoico andijaren escu santubetati etorrija. Bere amai bagaco ontasunaren ta jaquiturijaren emonac dira ceruban ta luurrian dagozan ontasun guztiac. Jaungoicua bera da berez bacarric 225 ona. Bera da jaquituna. Ta bera da guztiz alsuba. Argui eguiten davee guiza aldi guztietan ta lecu guztietan Jaungoicuaren ontasunac, jaquiturijac ta alizatiac. Orraco cerubei ta ceruco izarrai beguiratuta, itandu guinaijue: ¿Noc eguin zaitu? ¿Ta noc giretan zaitu? Ta esango deuscube: Gueure Jaungoicuac. Ichasuai, mendijai ta campuai itandu guinaijue: ¿Nundi izan dozu ceuben izatia? ¿Ta noc zaucaz oinian aimbeste urtian? Ta esango deuscube: Gueure 230 Jaungoicuac eguin gaitu. Ta berac seguru gordetan gaitu. Aingueru santubai itanduten badeutsegu noc emon deutseen euren izate altuba, arguija ta dichosua, esango deuscube: Gueure Jaun eta Jaungoico cerucuaac... Alan, neure entzula onac, aguiari dirian gauza vizidun ta vizi bagaco guztiac. 235

Batzubetan Jaungoicuac berac berez eguiten ditu gauza arrigarriac. Beste batzubetan balijetan da ainguerubaquin ta guizonaquin, bere najjac eguiteco. Jaungoicuac berac eguin zituban ainguerubac. Baita lelengo gueure gurasuac bere. Baita beste eguite andi asco bere, inorgaz balijau bagaric. Ainguerubaquin balijauta gobernetan ditu Jaungoicuac cerubac ta ceruben 240 aldearac. Baita propeta santuben espiritubac bere. Baita munduco erreinubac bere. Ainguerubac dira Jaungoicuaren najja eguiteco chito mandatarari prestac. Guizonequin balijauta eguin [292] ditu Jaungoicuac ez mirari chiquijac. San Paulo apostolubac contetan ditu ceimbat gauza andi ta arrigarri eguin dituban Jaungoicuac guiza aldi guztietan, guizonaquin balijauta (212). Mendijac aldatu- 245

 (211) Epist. c. 1. (212) Ad Hebr. c. 11.

218 Jaungoicua ganic *Ba* 230 izandozu *Ba* 240 Jaungoicuac] Jaungoicocua *Ba*

tia, illac viztutia, eguzquiya gueratutia, ichasuac agortutia, cerubac zarratutia, subac oztutia, otsuac mansotutia, endemoniadubac ascatutia... guizonen eguitadiac dira. Guizonai Jaungoicuac emon deutsee ataraco alizatia. Judegubac
 250 eurac bere ezin ucatu even, Jesusen mirari andijac icusita ta arrituta gueratuten cirian, dino san Mateoc (213), ain alizate andija guizonari emon jacolaco. *Timuerunt, et glorificaverunt Deum, qui dedit potestatem talem hominibus* Jaungoicuac guizonari emon deutzazan alizate guztien artian ez da, bada, chicarrena sacerdote batena. Ta au da dotrina onetan icusi biar doguna. Bateti,
 255 Jaungoicuari esquer onac emoteco. Ta besteti, sacerdote guztiai lotsa ona ecarteco. Nai dot, cristinaubac, zurtasun pusca bat gueijagogaz entzun daguizun entzunquizun au.

Onetaraco jaquin biar dozu, cristinaubac, sacerdotetziac beragaz barrututen ditubala eleisa-guizon guztia. Aita Santu Erromacua, cardenalac, patriarcac, artzobispuac, obispuac, abade ta praile, meza esala guztia dira sacerdotiac. *Ta oneen espirituzco alizatia da Jaungoicuagaz beragaz ostian ezaututen dan andijena ...* Iкуси даигун целан: 1. *Sacerdotia dalaco meza esalia* . 2. *Dalaco pecatu parcazailia* .

I.

265 Guztioac gara cerbait daiquegunac munduban. Guztioac artu dogu Jaungoicuaren escu san-[293]tubetati cerbaiteraco alizatia, guichiago edo gueijago. Erreguiac ta aguintarijac escubide andija dauquee luurraren gainian. Aguinduten deutsee errijai ta erreinuco gente guztia. Euren esanian dago mundu guztia. Eurac eguiten ditubee viciciaren ta erijotciaren leguiac. Baina
 270 euren aguinte ta escubide guztia ez da iragoten luurreco gaucetati. Aguintari batec, erregue batec, guerraguin batec emon leguijoz bati entzute andico cereguinac, icen altubac ta ondasunac, Paraonec Jose ainchinacuari emon eutsazan leguez²⁴⁰. Baina Jaungoicuaren gaucetan, Eleisiaren gaucetan, sacramentubaren gaucetan ezin parcatu leguijue guizonari pecatu chicar bat munduco aguintari,
 275 erregue, guerraguin, aberats ta indartsu guztia bat eguinda atan cansauco balira bere. Munduco alsubac vendetu²⁴¹ leguijez guizonac, lotu ta carcelatu leguijez, Erodesecc san Pedro eguin evan leguez²⁴²; ill leguijez guizonac, aguintari

 (213) C. 9.

256 puscabat *Ba* 259 Cardenalac] Carrdenalac *Ba* 261 ostian] ostijan *Ba* 266 cerbaiteraco *Ba* 275 eguin da *Ba*

²⁴⁰ Ik. Has 41,37-44.

²⁴¹ "Vendetu": menderatu, mende hartu.

²⁴² Ik. Eg 12,1-5.

odolzale ascoc erruqui bagaric ta euren artian Bonapartec gueure egunetan ill dituban leguez²⁴³. Baina munduco altsu guztiac bat eguinda, euren *alizate* 280
osuac alcarri iraatsita, guztiac nai balebe bere, meza bat esan ezin leguije.

Munduco altsubac estaldu leguijez ichasuac ontziz, armaz ta guizonez, alcar illteco; bete leguijez erriyac soldauz, polvoraz, cainoez ta alcautzez²⁴⁴, alcarren contra pelietaco; birrindu leguijez gaztelu senduac, torre andijac ta anchineta 285
co echiac, erre leguijez echiac, eleisac, erriyac ta erreinubac; ichi leguijez campuac soilduta, guztiz galduta, gatz emonda, noc negar eguin ez dauque-ela, guerraguin ascoc, esa-[294]ten danez, alcarren gorrotoz eguin daveen leguez. Baina onen guztion *alizatia* gueratuten [da] zuretan, arrijetan, burdi-
neetan ta gueijen bere guizonen gorputcetan. Guztiac bat eguinda bere ezin 290
conjurau leguije endemoniada bat. Ezin *bedeincatu* leguije ur tanta bat. Ecin leguije eleisaco *procesinoe*bat. Munduco alizate guztia gueratuten [da] luurreco autsaren gainian. Au gaiti esan euan Jesucristoc (214), *gorputcian baino gach ecin leiquegubena*, *bildurric ez euquiteco*. Ta san Juan Crisostomoc (215), *urria ta veruna alcarreganic urrin dagozan leguez balijuan, alan diriala sacerdoten alizatia ta munduco erregue ta aguintari guztiena* . Sacerdoten *ali* - 295
zatia urrezcua ta munduco andi guztien *alizatia* verunezcua da, santubaren esanian.

¿Noraguino elduten da, bada, sacerdote baten *alizatia* ? Ceruraguino bertaraguino, dino san Juan Crisostomoc. *Ad Caelos usque pervadit* (216). Sacerdotiari emoten jacon alizatia ceruti jatsija da ta ceruraguino bertaraguino 300
elduten da. Munduban jazo dan gauzaric andijen ta arrigarriena da Jaungoicuaren Semia guizon eguitia. Bada, sacerdoten escubetan egun oro Jaungoicuaren Semia guizon eguiten da barriro moduren baten, dino san Agustinec: *Vere veneranda Sacerdotum dignitas, in quorum manibus Dei filius, velut in utero Matris, incarnatur* (217). Verba bigaz sacerdotiac edegui- 305
ten ditu cerubac ta dacar Jaungoicuaren Semia altara gainera. Verba bigaz oguijaren ta ardauren izatia viurtuten ditu sacerdotiac Jesucristo Jaungoico [295] ta guizon eguijazco izatera. Ta jazo mirarizco, aingueruben arrigari au ez dau sacerdotiac eguiten bere aldijan bein, ez urtian bein, ez illian bein. ¿Nos, bada? 310
Egun guztietan. Egunian vici dan arte guztian. Egunian egunian Jaungoico guztia²⁴⁵ obeiduten deutsa sacerdotiaren verbiari. ¿Ta alan Jaungoicuac obeidute-

(214) Matth. c. 10. (215) De Sacerd., l. 3. (216) Ubi sup. (217) Hom. 2. Psalm. 37.

279 odol zale *Ba* 285 erriyac] Erreijac *Ba* 301 jazodan *Ba*

²⁴³ Napoleonek Europa osoan eta batez ere Euskal Herrian eragin zituen gerrak esan nahi ditu; bera izan zen Markinan, bere komentuan, erlijiosoak kanporaturik zeudela 1809-1813an, egin zituzten triskantzen lekuko (ik. *Apuntaciones*). Ik. baita *Icas-Iko*. 73. oharra (943-944.or.).

²⁴⁴ "Alcautz": suzko arma bat.

²⁴⁵ Esapide hau irakurtzean, gaztelaniazko "todo un Dios" datorkigu gogora...

co sacerdotiaren verbiari ta sacerdotiaren esana bertati Jaungoicuac eguiteco, izan biar dau sacerdotiac ona, zucena, santuba ta Jaungoicuaren beraren adisquidia? Ez, cristinaubac.

315 Au gauza ona izango litzaateque. Baina ez da biarrecua, sacerdotiac verba bigaz Jesucristo ceruti eratsita altaran iminteco. Nai ona izan nai pecatarija izan sacerdotia, nai Jaungoicuaren adisquidia izan nai aredijua izan, nai sinistute onecua izan nai eregia izan, dana dala dan moducua dala, mezaz ordenauba
320 bada, mundura aguertu dan guizonic deunguena izan arren sacerdotia, ceruban Jaungoicuac obeiduco deutsa aren esanari, oguija ta ardaua consagretan ditubanian ta beste sacramentubac eguiten ditubanian. Illac viztuteco, gaixuac osatuteco, mutubai verbia emoteco, etorquizonac jaquiteco... doia edo alizatia ez deutsee, oi danez, Jaungoicuac emoten bere adisquidei baino. Alan milagro
325 eguijazcuac eguin dituben guizonac eta emacumiac izan dira Jaungoicuaren adisquide andijac, ceintzuc contetan dituban Escritura Sagradubac ta Eleisa Ama santiac. Oneec dira, orain esan leguijanez, ceruco santubac eta santac. Onei bere, bere adisquide andijac eta chito maitiac izan arren, ez eutseen Jaungoicuac emoten *alizatia* eurac gura even guztian [296] ta orduban oquer
330 edo zucen milagruac eguiteco, ez bada Jaunaren beraren nai santuba zanian. Baina sacerdotiari ordia santuban Jesucristo gueure Jaunaren gorputz ta odol santuba consagretaco, Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcua bera consagrauta jateco edo inori emoteco edo gordetaco emoten jacon alizate altubac ta santubac, ez dauca neurric, ez dauca esquina baturic, ez dauca ordu jaquinic.

335 Sacerdotiac mecia esan ezquero, esaten daven moduban esaten davela, esaten daven lecuban esaten davela, ta esaten daven beste esaten davela, beti da mecia meza. Ta beti sacerdotiac verba consagretacuac esan daguizan orduban, JESUCRISTO Jaungoico ta guizon eguijazcua osoric eta viciric bere aurrian. Beti Jaungoicuac obeidu sacerdotiaren consagretaco verbiari, ataraco ustez
340 oguijaren ta ardauaren gainian esan ezquero. Eguija da, sacerdotiac eguingo dau pecatu andija, Jaungoicuac berac ta Eleisa Ama santiac agiinduten daven orduban ta moduban mecia esaten ez badau. Baina au gaiti ez da guichituten sacerdotiaren alizate santuba. “¡Oh, Sacerdote Jaungoicuarena! *dino Casianoc*, beguiratuten badeutsazu cerubari, ceu altubago zara; beguiratuten badeutsazu eguzquijaren, illarguijaren ta izarren arguijari ta edertasunari, ceu arguijago ta ederrago zara; beguiratuten badeutsazu aingueruben izate jasuari ta banacatubari, zeu jasuago ta banacatubago zara; beguiratuten badeutsazu Jaun andi ta altu guztien altasun jaguijari, zeure altasun espirituazcua altsubagua ta jaguijagua da; [297] Jaungoicua, gauza guztien Eguilia da bacarric zu baino

andijago. *Solo Deo, et creatore tu inferior es*²⁴⁶ Ecer bere ez dago luurraren gainian gauza ondraubagoric... Ta ezda Jaungoicuaren aurrian bere dichosuagoric sacerdotetzia bai]no, dino san Agustinec. *Hoc honore nihil in hac vita presentantius... nihilque etiam apud Deum beatius*²⁴⁷. Beguiratu bada, cristinaubac, ce jasua ta neurri bagacua dan sacerdotiaren alizate espirituzcua, *meza esalia dalaco*. ¿Ta cer, pecatuben parcazailia edo compesoria dalaco? 355

II.

Pecatubac parcatutia Jaungoicuari berari jagoco. Judeguben eracuslac bere ezautu even, Jaungoicuac berac baino bestec guizonari pecatubac parcatu ezin leguijozana. Ainguerubac bere ez. Santubac bere ez. Erreguiac bere ez. Jaun andijac bere ez. Jaquitun andijac bere ez. Aberats aberatsac bere ez. Inoc bere ezin parcatu leguijoz guizonari pecatubac, Jaungoicuac berac baino. *Quis potest dimittere peccata, nisi soluc Deus?*(218). Bestec inoc bere ezin leguijan gauza andi au eguiteco alizatia ta escubidia emon deutsa, bada, Jaungoicuac sacerdotiari. Sacerdotiai esaten deutsee Jesucristoc ta obispo jaunac meزاز ordenetan ditubanian: *Artu eguizu Espiritu Santuba; ta ceubec luurrian parcatuten dituzun pecatubac izango dira ceruban parcatubac; ta ceubec parcatuten ez dituzun pecatubac, ez dira ceruban izango parcatubac* . ¡Oh, alizate santuba! ¡Oh, escubide Jaungoicozcua! ¡Oh, sacerdote Jaungoicotuba! ¿Begaz, ceure zain dagoz munduco pecatu guztien parcacinoiac? ¿Begaz, ez dau Jaungoicuac ceruban parcatuco, [298] sacerdotiac munduban parcatuten ez daven pecaturic? Ez, cristinaubac. Sacerdotiari esan bagaco edo esateco ustia artu bagaco pecaturic, ez dau Jaungoicuac ceruban parcatuco. Au da sacerdote jaunai Jaungoicuac emon deutseen escubidia. 360 - 370

Berau gaiti munduco pecatari guztiac, dirianac diriala, esan biar deutsez euren pecatubac sacerdotiari, salvauco badira. Munduco erreguiac, aguintarijac, jaunac, obispo ta eleisa guizon guztiac bere, pecatu eguin badabee, Jaungoicuari parca escatuta, sacerdotiaren aurrian auspaztuta, autortu biar deutsez euren pecatu guztiac ta zain egon biar davee sacerdotiaren oinetan 375

(218) Marc. c. 2.

351 ez da Ba

²⁴⁶ Frai Bartolomek honako liburu honetan irakur zezakeen Casianoren aipamen hau: Tobias LOHNER, *Bibliotheca manualis concinatoria ordine alphabetico digesta* (Bartolomeren garaia baino geroagoko argitalpenean 4. liburukian dator, Paris, 1887, 174).

²⁴⁷ Frai Bartolomek honako liburu honetan irakur zezakeen san Agustinen aipamen hau: Tobias LOHNER, *Bibliotheca manualis concinatoria ordine alphabetico digesta* (Bartolomeren garaia baino geroagoko argitalpenean 4. liburukian dator, Paris, 1887, 174).

380 entzuteco bere aoti: NEUC ASCATUTEN ZAITUT CEURE PECATUBETATI. *Ego te absolvo a peccatis tuis*. Bada, sacerdotiac ascatuten badau pecatubetati, ascatuba izango da ceruban. Baina sacerdotiac ascatuten ez badau, gueratuco da pecatarija bere pecatubaquin ta ez deutzaz Jaungoicuac parcatuco. Sacerdotia eguin dau Jaungoicuac bere ordeco pecatuberen parcazaile.

385 ¿Cer izan leiteque, bada, munduban gauza andijagua, Jaungoicuaren beraren eguiquizuna eguitia baino? ¿Guizonari bere pecatubac parcatutia baino? ¿Jaungoicuagaz guizonaren artian baquiac eguitia baino? Sacerdotiac ascatuten badau pecatubetati, ascatuta dago guizona, munduban dan pecatariric andijena izan arren. Ta sacerdotiac lotuten badau pecatuban, gueratuco da pecatuban ta ez da inos ascatuco pecatuti. *Quorum retinueritis, retenta erunt*.

390 ¿Cer esango guenduque, dino san Juan Cri-[299]sostomoc (219), icusico baguendu erregue batec emoten deutzala bere aguinduco bati alizatia ta escubidia, berac nai ditubanac carcelan sartuteco ta ostera carcelati aterataco? ¿Ce andija, esango guenduque, dala alaco guizonaren escubidia, bere escuban ichi ezquero erreguiac nai ditubanac carcelati atera ta nai ditubanac carcelan sartu eguitico? ¿Baina cer dauca cer icusi, dino santubac berac, onec, Jesucristoc sacerdotiari emon deutzan pecatubac parcatuteco ta lotuteco escubide ta alizatiagaz? Cerubac eta luurra leguez, gorputzac ta arimac leguez dira onec. Erreguiac emon al daguijena luurrecua, araguizcua. Jesucristoc sacerdotiei
400 emon deutseena cerucua, espirituzcua, arimacua. *Quanto Caelum terra pretio -sius est, quanto etiam animae corporibus praestant*.

Esan daigun bada, cristinaubac, sacerdotiari ordiaco sacramentu santuban emoten jacon espirituzco alizatia, Jaungoicuaren beraren urrengua da. ¡Oh ezautuco baguendu ceimbat mesede daucaguzan ordiaco sacramentu santuti!
405 Esango deutzat, bada, au gueroco icasiquizunian. Esquer onac emon daijoguzan Jaungoicuari mesede onec gaiti. Ta beguiratu daijegun sacerdote guztiai luurreco Jaungoicuai leguez edo ceruco ainguerubai leguez. ¡Oh ce lotsa ona, ce gera²⁴⁸ ona, ce amodijo ona zor deutsegun sacercote guztiai! Nai izan daguijala, bada, cerubac, eguiquizun santu oni guc cobru emotia. Aitiaren, Semiaren
410 ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

(219) Ut sup.

399 aldaguijena *Ba*

²⁴⁸ "Gera": txera, harrera, abegia; ("jera" ahoskatzen da; aurpegiko onginahizko keinua esan nahi du gehinetan).

[300]

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ceintzuc dirian ordiaco sacramentubac dacarguzan mesediac.

Jesucristo gueure Jaunac eguin cituban ta irago cituban pausu ta pena guztia 415
 tiac dira, neure entzula onac, gueure mesederaco. Jesusen sortutia, jajotzia,
 vizitzia, verbac, penac ta erijotzia, guztia da gueu cerura eruateco. Sacramentu
 guztia bere onetarako ichi euscuzan Jesus maitiac, orainguinoco bacocharen
 eracutsijetan entzun dozun leguez. Baina sacramentu guztien artian, aparteco
 pensaquizunac ta Jesus maitiari zor deutsagun maitetasunaren viztugarrijac 420
 daucaz ordiaco sacramentu santubac. Beste sacramentubac gaiti esan legui,
 artuten ditubanaren mesederaco diriala bacarric. Baustismua da batiatuten
 danaren mesederaco. Compesinoia ondo compesetan danaren mesederaco.
 Comuninoia ondo comulguetan danaren mesederaco. Alan beste sacramentu-
 bac. Baina ordiaco sacramentuba da artuten davenaren mesederaco ta baita 425
 cristinau guztien mesederaco bere. Iru mesede eguiten deutzaz ordiaco sacra-
 mentubac sacerdotiari: 1. *Emoten deutsa gracia* . 2. *Emoten deutsa laguntasu -*
na, sacerdote ona izateco . 3. *Eguiten deutsa ariman inos galduco ez jacon*
espirituzco marquia . Beste iru mesede eguiten deutseez ordiaco sacramentu-
 bac batiatuta dagozan cristinau guztiai: 1. *Sacerdotiac eguitia* . 2. *Ain prest ta* 430
ordu oneraco eguitia . 3. *Eleisa guztuari edertasuna emotia* . Mesede bacochar-
 en [301] gainian cerbait entzuteco prestau zaite, cristinaubac, sinistute oso
 bategaz. Ta eurac girauco zaitubee barriro, Jesus onari esquerrac emotera ta
 sacerdote jaunac ondretara.

I. Sacramentu guztien eguitadia da, biar dan moduban pretauta artu 435
 ezquero, arimiari gracia emotia. Ta leen gracia badago arimia, gracia aztia ta
 gueitutia. Ordiaco sacramentubac bere au eguiten dau. Emoten deutsa edo
 gueitututen deutsa arimaco gracia, ordenetan danari. Parcatuten deutzaz pecatu
 chicarrac. Sendotuten deutsa arimia etsaijaren tentacinoiac goituteco ta viztu-
 ten deutsa gogua Jaungoicuaaren naija beti ziur eguiteco. Baita onezaz ostian 440
 emoten deutsa ordiaco sacramentubac artuten davenari, sacerdote ona izateco
 laguntasuna bere, cein dan bigarren mesedia.

II. Gauza bat da cristinau ona izatia ta beste bat sacerdote ona izatia.
 Gueijago biar da sacerdote ona izateco, cristinau ona izateco baino.
 Sacerdotetzia dan leguez viziera altuba, aingueruben parecua, Jaungoicuaaren 445

urrecua ta espirituzcua, bere eguinbiarrac ta cereguinac chito dira andijac, astu-
 nac ta araguzco gorputz vizijarentzat gachac. *Jesus vizija egunian egunian*
escubetan erabilia ta ezarrijan beera irunstia... Munduco pecatu guztien juez
 450 *izatia... Jesusen odolagaz erositaco inoren arimen contuba emotia... Aingueru*
baten garbitasuna ta ontasuna gorputzian ta ariman gordetia... Munduban
vizi ta cerutar izatia... Oneec dira, neure entzula onac, sacerdotiaren eguin-
biarrac. Ta oneec dira, aingueruben euren indarrari icara eraguiten deutseenac.
 [302] Carga astun oneec jasoteco ta sacerdotetzaco eguinbiar santubai ta gachai
 455 ondo cobru emoteco, ordiaco sacramentu santubac emoten deutsee aparteco
 gracia, arguija ta laguntasuna eleisa guizonai. Ordiaco sacramentubaren graci-
 jagaz ta laguntasunagaz eracusten dave sacerdotiac Jaungoicuaren leguia; ent-
 zuten ditube compesinoiac; lagunduten deutsee illten dagozan tristiai; erruqui-
 tuten dira pecatarijagaz; dendatuten dira cansau bagaric deungac onduten; esa-
 460 ten davee meza santuba devocinoez; erregututen deutsee Jaungoicuari eguno-
 ro onac eta deungac gaiti; alde eguiten dave pecatu lecubetati; emoten deu-
 tseez cristinaubai conseju onac, exemplu onac ta betico eguijen ezauberac;
 gordetan davee aingueruben garbitasuna luurreco auts ustelaren artian; ta egui-
 ten davee cerutar batzuben vicicia. Ezin leguijez guizonac sacerdotetzaco
 eguizun santubac ordiaco sacramentubaren aparteco gracia ta laguntasuna
 465 bagaric. Baita eguiten deutsa sacramentu onec sacerdotiari ariman inos galdu-
 co ez jacon marquia bere, cein dan irugarren mesedia.

III. Erreguiac euren soldaubai imini oi deutseez marcac edo ezagungarriac
 jantcijan. Batari bat, bestiari bi ta bestiari iru edo gueijago ceimbat nausijago,
 470 aibat gueijago, ezagun izan dedin euren alizatia ta mailia. Jaungoicuac, gueu-
 re Erregue eguijazcuac bere iminten deutsee bere soldaubai marquia ariman,
 beti ezagun izan ditezan. Bautismuan iminten deutsee cristinau guztiai lelen-
 go ta guero compirmacinoeco sacramentuban. Marca oneec cristinau guztienac
 475 dira. Onezaz gainera, aparteco mar-[303]quia eguiten deutsee sacerdotiai ordia-
 co sacramentuban. Marca onegaz ezautuco dira sacerdotiac beti Jaungoicuaren
 urrengo guizontzat. Sacerdotetziari ondo erantzuten badeutsee, arimaco marca
 ac emongo deutsee ceruban Jaungoicuaren ta aingueruben aurrian ondra andi-
 ja, aparteco arguitasuna ta gloriya. Baina sacerdotiac erantzuten ez badeutsee
 euren viciera santubari ta jaungoicozcuari, ordiaco sacramentubac eguin deu-
 480 tsen arimaco marquia bera izango da impernuban sacerdoten lotsagarri ta erre-
 garri beticua.

Au gaiti santubac beguiratu deutsee beti sacerdotetziari chito bildur andi-
 jagaz. Areetati ascoc ez evenen ordenau gura izan sacerdote, sacerdoteciaren
 carga andija jasoteco bildurra gaiti. Aita san Franciscuba ordenau zan diaconu.

446 eguin biarrac, ta cer eguinac *Ba* 451-452 eguin biarrac *Ba* 453 eguin biar *Ba* 467
 oideutseez *Ba* | ezagun garrijac *Ba* 478 vici era *Ba*

Baina ez zan azartu mezaz ordenetara, inoc eguin eutsan aleguin gaiti. 485
 Jaquinac dira Eleisaco jazueta san Juan Crisostomoren ta san Basilioren atze-
 rapenac ta aleguinac, obispotcia ez artuteco. Baita euren negarrac ta atsecabac,
 ustez uste bagaric obispo eguin citubelaco. Baina guztien azgarrija²⁴⁹ da
 Amonimo veneragarriagaz jazo zana (220). Guizon santu au ordenau gura
 eueen sacerdote ta obispo bere jaquiturija, ontasun ta celo aguirija gaiti. 490
 Bestelan eragotci ezin evanian Amonimoc sacerdotetcia, jaquinic belarri baga-
 co guizona ordenau ezin leitequiana Eleisaco erreguelac aguinduten daveenez,
 ebagui evan bere belarrija ordenau ez eguijen²⁵⁰. Ez eutsan balijo izan onec.
 Bada, jadiichi eueen patriarca jaunaganic Amonimo ordenetaco, be-[304]laari
 bagaric egon arren. Ta beeroien nai ta nai ez sacerdote ta obispo ordenetara. 495
 Besteric ezin evanian, esan eutseen Amonimoc alan bera eroian gentiari: *Neure*
verbac diriala medijo naruzau ordenetara. Bada, isten ez badeustazu, agui
nequin ebaguico dot neure miina ta orduban ichi biarco deustazu. Onan
 librau zan Amonimo guizon santuba sacerdotetzai. Onan beguiratu biar jaco,
 cristinaubac, sacerdoten viziera edo estadu altsu, santu ta altubari. Ta erregutu 500
 biar deutsagu Jaungoicuari, zabaldu daguijuezala sacerdote jaunai ordiaco
 sacramentu santubaren gracia ta mesede guztia, euren cereguin pisutsubai
 cobru emoteco ta sacramentu onen mesediac cristinauben arimetara iragoteco.
 Icusi daigun, bada, ceintzuc dirian ordiaco sacramentubac cristinau guztientzat
 dacazan mesediac. Oneec dira, leen esan dan leguez: *Sacerdotiac eguitia;* 505
orduban ordubango prest euqitia; ta Eleisiari aparteco edertasuna emotia .

I. Sacerdotetcia da, neure entzula onac, Eleisa Ama santiaren seme ta alava
 guztia gaiti. Alan esaten deuscu san Paulo apostolubac (221). Guizonen arte-
 ti artuten diriala obispo guztia; ta guizonac Jaungoicuagaz daucazan gauceta-
 raco, guizonac gaiti eguiten diriala obispo. *Omnis Pontifex ex hominibus* 510
assumptus, pro hominibus constituitur in iis, quæ sunt ad Deum. Eleisa guztia
 ta cristinau guztia dagoz ordiaco sacramentubaren zain, beste sacramentuben
 gracia artuteco. Sacramentu guztia eta bacocho dira ceruco gracia iturri
 ugarijac. Baina guztien guiltza dala, esan legui, ordiaco sacra-[305]mentuba.
 Quendu bediz sacerdotiac Eleisati ;ta cer gueratuten da? Quendu bedi ordiaco 515

 (220) Pet. Bles. Epist. 123. (221) Ad Hebr. 5.

499 librauzan Ba 500 vizi era Ba 502 cer eguin Ba

²⁴⁹ Azgarri / aazcarri: ahantzarazten duena; gainerako guztiak txiki uzten dituen; (*Euscal-errijetaco...* liburuan *guztien aazcarrija* dator).

²⁵⁰ Ammonius dugu hau, IV. mendeko eremutarra. Frai Bartolomek orriaren behealdean zer-tzelada hau jaso zuen erreferentzia bibliografikoa jarri zuen; gertakari ezagun hau liburu honetan ere irakur zezakeen: *Vitæ Patrum. De vita et verbis seniorum. Libri X. historiam eremiticam com-pletentes... opera et studio Heriberti Rosweydi*, Lugduni, 1617, 543-544. 713. or.

sacramentu santuba. ¿Ta noc eguingo ditu beste sacramentubac? ¿Noc parcatuco ditu pecatubac? ¿Noc esango ditu mezac? ¿Noc iminico dau JESUS altaraco sacramentu santuban? ¿Noc sendotuco gaitu sinistutian compirmacinoiagaz? 520 ¿Noc igortzico ditu gaixo illainecuac orijo santubagaz? Sacerdotetcia quendu ezquero, inoc bere ez. Nora ezian bautismo bat eguin leguije cristinaubac ordiaco sacramentuba bagaric. Bada, ezcontziac bere sacramentuba izateco, ascoren erichijan, sacerdotetzia biar dau.

¿Ceimbat esquer on emon biar deutsalaguz bada, neure cristinaubac, Jesus 525 maitiari sacerdotetzaco sacramentuba gaitil! ¿Ceimbat maite izan biar dogu Jesus ona, Berac cerura igon da guero bere ordecuac munduban ichi euscuzalaco! Munduban daugagu, Jesus ceruban egon arren, noc gueure pecatubac parcatu, noc meza santuba esan, noc gueu comulgau, noc gueuri sacramentubac emon, noc gueuri Jeusen verbac esan, noc gueu gaiti eguin Jesusec berac 530 eguingo evan guztia. Ordiaco sacramentu santubagaz prestanta ichi euscuzan Jesucristo gueure salvazaile Jaunac sacerdotetan, gueu salvetaco biar dogun guztia. Au da ordiaco sacramentubac cristinau guztiai eguiten deutseen lelen go mesedia. Baita onezaz gainera edo oni beroni darraicona, *orduban ordu - bango sacerdotiac prest euquitia bere.*

II. ¿Ce dicha andija, neure cristinaubac, orduban orduban ta lecuban lecuban sacerdote jaunac prest euquitia, gueure arimaco gachac [306] eta quezcac erremedijetaco! Eguzquijac gira eguiten daven lecu guztietan dagoz sacerdotiac. Lecu guztietan dagoz prest sacramentu santubac ta Eleisa Ama santiaren gracia ugarijac. Ez dago Jerusalengo piscinara jua biaric ta ainguerubaren 540 etor[r]eriaren zain urte ascotan egon biaric gueure arimac garbituteco, pecatubac parcatuteco ta ceruco eztegubetaco prestataco. Errijan errijan daucaguz eleisac, sacerdotiac, sacramentubac, ta eleisetan, sacerdotetan ta sacramentubetan curutzeco arbola santubaren gracia ta ondasun ugarijac, gueuc nai izan ezquero. ¡Oh ce mesede andija au, dinot oster bere! Onen gainian cerbait esan 545 zan bautismoco sacramentuban. Baina cristinaubac sarri gogoratu biar daven mesedia da au, Jesus maitiari amai baga esquer onac emoteco. ¿Sacerdote bat baino mundu guztian izan ez balitz? ¿Amavi baino izan ez balira? ¿Chito banacac ta contaubac baino izan ez balira? ¿Cer esan guinaijon Jaungoicuari? Ecer bere ez. Esquerrac emon, bat bacarric ichi eusculaco bere. ¿Baina ceimbat 550 neque ta gach andi, meza bat entzuteco? ¿Pecatubac compesetaco? ¿Jaungoicuaeren verbia entzuteco? ¿Cer sinistu, cer escatu, cer eguin ta cer artu biar dogun jaquiteco...? ¡Oh, neure entzula onac! Ceubec dacuszu ce gach izango guenduban orduban sacramentubac artuten. Esan daigun, bada; autortu daigun, bada, chito mesede andija eguin euscula Jesus onac, lecuban lecuban ta 555 orduban ordubango sacerdotiac ichijagaz. Maitetu daguijela, jaso daguijela ta

ondo esandu²⁵⁰ daguijela Jesus maitegarrija ceruban ainguerubac ta santubac. Baita munduco [307] vijotz guztiac bere, ordiaco sacramentu santubagaz aimbeste mesede eguin eusculaco. ¿Ta Eleisiari sacramentu onec emoten deutsan edertasuna?

III. Vijuaz urrin, neure entzula onac, Eleisa Ama santiaren aguirico edertasunari begui oquerraquin beguiratuten deutseen guztiac. Vijuaz urrin gueure eleisetati orraco luurrezco ta araguzco vijotz lizundubac. Orreec, araguijaren umiac, euroc ta inoc daucan guztia nai davee sabelarentzat, araguijarentzat ta lotsarizco gurarijenzat. Orreec batu al daguijen guztia guichijegui davee soineraco, sarauraco, jororaco ta *comediantiac* paguetaco. Jaungoicua ondretaco Eleisa Ama santiac prestetan daven guztia bere chupau gura leuquee, uzanac odola leguez. Icusten badabee Eleisa santan cerbait obetuago, osotubago ta edertuago, diadar eguiten davee Judas saltzailiagaz: *¿Ad quid hæc perditio?*²⁵² ¿Cetaco da eleisaraco aimbeste castu eguitia? Onan pensau davee erege guztiac Eleisiaren ondasun puscac gaiti, Eleisiari eguiten jacozan limosnac gaiti, eleisetaco abade jaunac gaiti ta comentubetaco prailiac gaiti. Impernuco etsaijac su emonda guerra eguiten deutsee Jaungoicuari bere Eleisan. Birrindu ditubee eleisac ta altarac, ucatu ditubee sacramentubac ta ill edo erbestetu ditubee euren errijetati abadiac ta prailiac. Au da, neure cristinaubac, egun oneetaco jaquitun barrijen eguizun nausija: Sacerdotetzia galdutia ta guztiac aberen guisaan vici izatia. 560
565
570
575

Baina guizonac ta impertu guztiac bere ez dave balijo Jaungoicuaeren contra. Ordiaco sacramentu santubagaz gorde dau ta gordetan [308] dau Jaungoicua bere Eleisiaren aguirico edertasuna. Ezpabere beguiratu orraco eleisetara ta eleisaco corubetara, nun dagozan abadiac eta prailiac gau ta egun Jaungoicuaeren ontasanac, mirarijac ta misericordijac cantetan. An dago praile aldra bat coruban egunaz ta gau erdijan, bestiac lo dagozarian, Jaungoicua espiritubagaz ta gorputzagaz alavetan. Beste aldian dago abadetegui bat, euren ordubetan cansau bagaric beste aimbeste eguiten. Arutzago dago beste sacerdote bat, meza santuba esaten, Jesusen erijotzia barristetan. Beste asco oracinoian, Jaungoicuari pecatari tristiciac gaiti erregututen. Beste asco Espiritu Santubaren escolan Jaungoicuaeren leguia eracusten... ¿Baina cer dirudije beste gauzaric gueure eleisetaco corubac eta eleisac edo corubetaco ta eleisetaco gau ta eguneco abade ta praile errezcadac, ceru bat baino? 580
585

¿Ta ez da au, sinistute pusca bat daucan cristinaubarentzat, chito mesede andija, bere espirituba ta vijotza Jaungoicuagana ta ceruco gaucetara jasoteco? 590

564 aldaguijen *Ba* 583 Abade tegui *Ba*

²⁵¹ "Ondo esandu": goratu, goraipatu.

²⁵² Ik. Mt 26,8; Mk 14,4; Jn 12,4.

595 Icusiric aimbeste guizon eleisetan ta combentubetan Jaungoicuari consagrauta, Jaungoicua alavetan ta Jaungoicuaren vidiac cristinaubai eracusten, gorputzez-
co aingerubac dirurijela, ¿nor animauco ez da Jaungoicuaren naija obeto egui-
600 tera ta ceruba irabaztera? Santu ta santa asco eguin dira, neure entzula onac, eleisetaco ta combentubetaco sacerdoten aguirico exemplu ona ta ordena ceru-
cua gaiti. Cristinauben espirituba cerurutz jasoteco, ordiaco sacramentu santu-
bagaz Jesucristo gueure Jaunac bere Eleisiari ichi [309] eutsan mesedia da
605 sacerdotiac Jaungoicuari emoten deutsen aguirico ondria. Ta au da Jesucristoc
etsai guztien contra bere Eleisan gordetan davena. Guiza aldijac irago dira, are-
rijo indartsu asco jagui dira ta asmo barri asco artu dira abadiac ta prailiac gal-
duteco. Baina ez da galdu, ez illundu san Pedroren pediac Eleisiari emon eu-
tsan edertasuna. San Pedroren semiac, Elias propeta santubaren semiac, san
Benitoren, san Agustinen, san Bernardoren, santo Domingoren, san
610 Pranciscubaren... semiac, ceruban izarrac leguez, argui eguiten dave Eleisa
santan ta ondretan davee Jaungoicua gau ta egun, lelengo asi cirianian leguez.

Gauza bat esango deutsut, cristinaubac, onen gainian. Ta da sacerdote
jaunai zor deutsezun ondria ta erreberencija. ¿Baquizu cer esaten evan Aita
san Pranciscubac sacerdotiac gaiti? Esaten evan, bada (222), *ceruti jatsitaco*
615 *santu bat ta sacerdote bat aurrera etorrico balichacoz batera, lelengo escuban*
mun eguingo leusquijola viziric daguan sacerdotiari ta guero adorauco leu -
quiala ceruti etorri jacon santuba . Onan beguiratuten eutseen Aita san
Pranciscubac sacerdote jaunai. Baina esango dozu, oraingo sacerdotiac deung-
gac diriala ta ez daveela merecietan alan ondretia. Ez da ardura. Deunguia izan
620 arren, sacerdotia sacerdote da. Sacerdoten pecatubac Jesucristoren contura
dagoz. Deungac cirian Jesus condenau even sacerdotiac, Anas ta Caipas²⁵³.
Baina ez eutseen Jesus onac lotsaric galdu. Ez evan Jesusec ecer bere esan
euren contra. Eguin evan isil isilic areec aguindu eutseen [310] guztia. Beste
aimbeste eguin biar dau cristinaubac sacerdote jaunaquin, eurac deungac izan
625 arren. ¿Baquizu cer esaten evan Constancio aguintarijac? *Sacerdote bat topau -*
co baleu pecatu eguiten, bere soineco jantzijagaz estalduco euquiala laster,
inoc icusi ez eguijan (223).

Emon, bada, esquerrac, cristinaubac, Jesus maitiari, ordiaco sacramentu
santuba ta sacramentubagaz aimbeste mesede andi ichi euscuzalaco. Ondrau
625 sacerdote jaunac ta eleisa-guizonac, Jaungoicuaren urrengo guizonac ta gueu-
re arimetaco gurasuac dirialaco. Onan eguingo dogu Jaungoicuaren naija, ira-
bazico dogu arimaco gracia ta betico ceruco glorija. Aitiaren, Semiaren ta
Espiritu Santubaren icenian. Amen.

(222) S.Bonav. in vita c. 4. (223) Lohon. V. Sacerdos.

608 zordeutsezun *Ba* 617 ecerbere *Ba*

²⁵³ Ik. Mt 26,65-66; Mk 14,61-64; Lk 22,66-71; Jn 18,12-14.24.

EZCONTZACO SACRAMENTUBA

Dimittet homo patrem, et matrem, et adhærevit uxori suæ, et erunt duo in carne una . Matth. 19.

Ichico ditu guizonac aita ta ama, ta arrimauco da bere emazti-gana...

I. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Celan prestau biar daven cristinaubac viziera barrija artuteco.*

2. *Ez jagocan vizieria artubac oi dacazan caltiac.*

Jesucristo gure Jaunac Eleisa Ama santiari ichi eutsan zazpigarren ta azque- 10
neco sacramentuba da, neure cristinaubac, ezcondutecua. Sacramentu santu
onen asipena dator paradisuti, mundubaren asierati. Orduban esan evan
Jaungoicuac: *Ez da ondo guizona bacarric izatia. Eguin dajogun bere erico* ²⁵⁴
laguna ²⁵⁵. Alan emon eutsan Adani Eva laguntzat. Oneec dira gueure lelengo 15
gurasuac ta munduco lelengo senar emaztiac. Andi ona beti iraun dau ta iraun-
go dau, munduba mundu dan artian, ezcontziac. Jesucristo gueure Jaunac lee-
nagoco guiza aldijetaco ezcontzia jaso evan sacramentu santu izatera. Gauza
onetan sinistu biar doguna da, ez dala ezcontzia guizonac asmauba, ezbada
[312] mundubaren asieran bertan Jaungoicuac berac ichita, Jesucristoc ontzat 20
emonda, sacramentu eguin evana. Au da Eleisa Ama santiac eracusten deus-
cuna Trentoco batzaar santuban. Dino, bada (224): *Inoc esaten badau*
Jesucristo gueure Jaunac ichitaco evangelijoco legueco zazpi sacramentubetati
eguijazco sacramentu bat ez dala matrimoniua edo ezcontzia, ezbada dala
Eleisiac asmauba ta gracijaric bere emoten ez davela, izan dedilla escomul -
gauba a esaten davena . 25

Sinistute onegaz verba eguin biar dogu bada, neure entzula onac, ezcon-
tziaren gainian. Ta aimbat arguiruen ceubei aituten emoteco sail onetan jaquin
biar dozuna, esango deusut sacramentu onen eracutsijetan: 1. *Viziera barrija*
artuteco prestaeria. 2. *Ezcontziaren gainian celan pensau biar dan .* 3. 30
Ezconduteco celan prestau biar daven cristinaubac; ta ezteguco eguna celan
irago biar dan . 4. *ezcontza onaren prutubac .* 5. *Cegaiti uts eguin oi dan*

(224) Sess. 24. Can.

8 vizi era *Ba* 9 vizi eria *Ba* | oidacazan *Ba* 18 ez bada *Ba* 20 emon da *Ba*
23 ez bada *Ba* 28 vizi era *Ba* 31 oidan *Ba*

²⁵⁴ Ik. *Icas-II*-ko 39. oharra (928.or.).

²⁵⁵ Ik. Has 2,18.

ezcontzaco vizieria artuten . 6. *Celan vizi biar daven ezcondubac* . Ara, cristinaubac, guztioac jaquitia ondo dana ezcontzaco sacramentubaren gainian.
 35 Baquizu, ascori jagocazan icasiquizunac diriana oneec. Berau gaiti escatuten deusut guztioi, sacramentu santu onen eracutsijac amaitu artian, etorri zaitzala guztioac entzutera. Bateti, viziera au artuten uts eguin badozu norbaitec, jaquin daguizun aurrera cer eguin biar dozun. Ta besteti, oraindino uts eguin ez dozunoc edo ezcondu bagaric zagozanoc, icasita egon zaitezcan ezcontzaco
 40 viciera barrijaren gainian. Gaur-[313]co eracutsija izango da edochein estadu edo viziera cristinaubac artuteco prestaeriaren gainian. Esango deusut: 1. *Viciera barrija artuteco celan prestau biar daven cristinaubac* . 2. *Ez jagocan vicieria artubac oi dacazan caltiac* . Au izango da oraingo ceuben entzunquizuna. Escatu daijogun cerubari, nic esateco ta zubez ondo entzuteco biar dogun gracia.
 45 cija.

I.

Ez euan gura izan Jaungoicuac, neure entzula onac, munduco guizon ta emacume guztiaac euren viziera edo estaduban legue baten azpijan imintia. Ez euan gura izan, guztiaac vide bateti cerura eruatia. Baqui Jaungoico onac, baco-
 50 chac bere najjac ta gogoeraac daucaguzana, vizi moduba artuteco. Au gaiti imini cituban ceruban egon lecu asco. *Mansiones multae sunt in Domo Patris mei* (225). Ceruban egon lecu asco badagoz, cerura juateco vidiaac edo vizieraac bere asco dira, dino san Juan Crisostomoc.

Cerura juateco vide edo vizi modu oneec dira, Eleisa Ama santiaac eracusten deuscunez: Edo ezcondubena, edo ezcondu bagaric Jaungoicua obeto serbidutia gaiti gueratuten dirianena. Lelengo guztiena vide bacarra da. Bada, ez dago ezcontzaco sacramentu bat baino. Nai aberatsa izan ta nai pobria izan, nai entzute andicua izan ta nai guichicua izan, ezconduba bada, ezcondubaren cargac jaso biarco ditu cerura juateco. Jaungoicua obeto serbidutia gaiti ezcon-
 60 du bagaric gueratuten dirianac, ez duaz guztiaac vide bateti cerura, ez bada baco-chac onduen derichuen bideti. Oneec dira: [314] Edo erlijinoe baten sartuta voto sagradubaquin Jaungoicuari consagretan jacozanac, ceintzuc dirian prailiac eta monjaac. Edo ordiaco sacramentuba artuta eleisa guizon eguiten dirianac, ceintzuc dirian sacerdote jaunac. Edo gorputceco ta vijotceco osotasunaren *esquini* santuba (cein dan virginidadeco votua) Jaungoicuari eguinda,
 65 -----

(225) Joan. 14.

37 vizi era *Ba* 40 vici era *Ba* 41 vizi era *Ba* | presta eriaren *Ba* | Vici era
Ba 42 vici eria *Ba* 43 oidacazan *Ba* 48 vizi era *Ba* 50 gogo eraac *Ba* 52-53 vizi
eraac *Ba* 60 Ez bada *Ba* 65 eguin da *Ba*

gorputz ta arima oso ta garbi, erliginoetan sartu bagaric, Jesus maitiari entre-
guetan deutseenac. Oneec dira virginidadeco votuagaz euren echeetan vizi
diran guizon eta emacumiac. Edo dira virginidadeco osotasuna galduta, aurre-
ra beti garbi izateco esquinija Jaungoicuari eguinda, ezcondu bagaric euren 70
echeetan vici dirianac. Oneec dira castidadeco votodunac. Edo dira azque-
nian, garbitasunaren vоторic edo esquiniric Jaungoicuari eguin bagaric, Jesusen
amodijo santuba gaiti ezcondu bagaric ta garbi euren echeetan vizi dirian gui-
zonac ta emacumiac.

Ara emen, cristinaubac, ceimbat vide edo viziera ichi deuscuzan 75
Jaungoicuac, ceruba irabazteco. Bacochar artu daique gureen davena. Batari
gacha badeicho²⁵⁶, bestia. Ari astuna badeicho, au. Gura davenac gura davena.
Bada, bide onetati guztietari jua dira cristinaubac cerura. Ta aurrera bere juan-
go dira ta irabazico davee ceruban dagozan egon lecu ascotati, bacochar bere
eguite onai jagocuena. ¿Celan prestau biar dau, bada, cristinaubac, nor berari 80
jagocan vicieria artuteco? Aitu eguizu, bada, celan.

Sinistu biar dogu onetaraco, Jaungoico onac ta jaquitunac nai davela gu
guztioc salvetia, *vult omnes homines salvos fieri*²⁵⁷, ta gueuc baino [315] obeto
ezaututen davela gueure guztion argaltasuna ta jauscortasuna. *Ipse cognovit fig-
mentum nostrum*²⁵⁸. Baqui Jaungoicuac ceinec cetan daucagun ceruba galduteco 85
gach nausija. Guere sortuerati ta leenagoti daqui Jaungoicuac ce gurari
gaistoc emongo deuscun lana ta cereguina, Jaungoicuaren leguia gordetaco ta
ceruba irabazteco. Ta ezauturic Jaungoicuac gueure gach-eraguina nausijac, dei
eguiten deuscu bacochari areec goituteco estadura edo vizierara. Batari sober-
vijac eta andi guriac galdu eraguigo leusquijo ceruba. Bada, ari dei eguiten 90
deutsa Jaungoicuac humilde ta chiqui izateco lecura ta vicierara. Bestiari codi-
cijac ta ondasun guriac galdu eraguigo leusquijo ceruba. Bada, ari dei egui-
ten deutsa Jaungoicuac ondasunen ardura bagaric pobre izateco vicierara.
Beste bati vijotecoco muquertasunac, gogortasunac ta ezi gachac ausi eraguigo
leusquijo leguia, eguingo leuque buru gaistoco, temotsu ta baque chaarreco. 95
Bada, oni dei eguiten deutsa Jaungoicuac inoren aguindupera, an ezi ta man-
sotu daguijen. Modu onetan, ecetan bere paltaric ez daucan Jaungoicuac dei
eguiten deutsee cristinaubai ceruba irabazteco onduen juacuen estadura edo
vicierara.

¿Celan jaquingo dau baina cristinaubac, Jaungoicuac ce estadutara dei 100
eguiten deutan? Ez pensau Jaungoicuac aingueru bat bialduco davela au esa-

75 vizi era *Ba* 81 vizi eria *Ba* 86 sortu erati *Ba* 87 cer eguina *Ba* 89 vizi erara
Ba 91 deutsa] deussa *Ba* | vici erara *Ba* 99 vici erara *Ba*

²⁵⁶ Bokal arteko *r* gabe hemen; bietara idazten du; *r* eta guzti sarriago.

²⁵⁷ Ik. 1Tm 2,4.

²⁵⁸ Ik. Sal 103[102],14.

tera. Ascogaz eguin dau au. Ascori aingueru baten vitartez esan deutsee Jaungoicuac, onaco edo alaco erliginoian sartuteco; onaco edo alaco viziera artuteco. Baina ez da au oi dana. Oi dana da Jaungoicuaren aparteco esan [316] 105 aguiari bagaric, estaduba artutia. Au ezaututeco ta jagocana acertetaco sinistu biar dau, Jaungoicuac aingueruric bialdu ez arren ta aguirico esanagaz dei eguin ez arren onaco edo alaco vizierara, sarritan bere vijotzian ta goguan cristinaubari aituten emongo deutsalara cein dan, ceruba irabazteco onduen juacon estaduba. Iragoco jaco bere vijotzian ez guichitan *viziera batari ondo eristia;* 110 *ainche ceruba erreztuago irabazten dalaco arguija ta ezauberia; ainche Jaungoicua ondo serbiduco leuquiala pensauta, vijotza poztutia; viziera axe berecautan leguez sarri gogora etortia edo gogoti quendu ezin izatia...* Oneec oi dira Jaungoicuac ixilic estaduraco eguin oi dituban deijac. Batez bere, edo ondo comepesetan danian, edo comulgauta guero, edo arimaco gaucetan astiruago pensetan danian. Beste aldeti, onaco edo alaco estadubari badeutsa cristinaubac vijotceco gogo illuna, astuna ta nequezcua; a estaduba gogoratu arren, poztuten ez bajaco bere vijotza, casic ezagun da Jaungoicuac atara dei eguiten ez deusana.

Sinistu biar dau cristinaubac onezaz gainera, viziera barrija artuteco demporan ez dala lo egongo impernucos etsaija. Araguijagaz ta mundubagaz edo munduco adisquidequin ta senidequin balijauta eguingo davela diabrubicaleguin guztia, cristinaubari uts eraguiteco estaduba artuten. Au gaiti dira mutil edo nescatila batec combentu batera Jaungoicua serbidutera jua gura davenian jagui oi jacozan tentacinoiac, bildurrac eta larrija, uts eguiten ete daven. 125 Baita senidiac, auzuac ta ezagunac milla duda, milla ardura ta milla bildurgarri esatia bere, [317] combentuban sartu ez dedin ta galdu ez dedin. ¿Cer? ¿Jaungoicuagana zucen baino zucenago jua gura davena ta doiana galdu? Ez. Ez dago olacoric. Diabrubicale irundaco matasa naastauba da, erliginoe baten sartu gura davenari senidiac, adisquidiac, ezagunac ta araguijac iracoiten deutseen dudazco, ardurazco ta bildurrezco guerra illuna ta astuna. Oneec guztico 130 goituteco, viciera barrija artutia pensetan davenian cristinaubac eguin biar davena da:

Lelenga Garbitu bere gogua ta vijotza aimbat onduen araguijaco poztgarrijetati ta ez beste gauzari beguiratu estaduba auqueratuteco, Jaungoicua serbidutiari ta arimia salbetiari baino. *Bigarrenian*. Escatu bene benetan Jaungoicuari ta Ama Virginia guztiz santiari ceruco arguija ta vijotceco gogua, onduen ariman juacon vizieria auqueratuteco ta artuteco. *Irugarrenian* : Eguin aparteco erregubac cerubari, estaduba artuteco edadia danian; edo comepesi-

102 eguindau *Ba* 103 vici era *Ba* 104 oidana. Oidana *Ba* 107 vizi erara *Ba* 109 vizi era *Ba* 111 vizi era *Ba* 113 oidira *Ba* | oidituban *Ba* 119 Vizi era *Ba* 124 oijacozan *Ba* 131 vici era *Ba* 137 vizi eria *Ba*

noiac ta comuninoiac, edo baraubac, edo limosnac, edo santuren bati bederatzi eguneco meza entzutia, estacinoia... Jaungoicuac prestatu daguijon gogua ta eria, jagocan estaduba artuteco. *Laugarrenian* : Aguertu arguiro compesore bati edo guizon aitu Jaungoicozco bati ce viciera escatuten deutsan bere goguac, ta escatu uste onagaz bere erichija edo consejuba. *Bostgarrenian* : Gurasuac badaucaz edo guraso ordecu nausijac, contu emon demporaz arei bere, berac artuteco ustia daucan estaduba, ta escatu euren ontzat eruatia ta bendicinoia. Onan prestetan bada cristinauba Jaungoicuac nai daven ta berari ariman ondo juacon estaduba acertetaco uste ona-[318]gaz, ez deutsa cerubac ucatuco biar daven arguija, ezauberia ta gracia. 140

¿Baina cer jazoten da? ¡Ah! ceubec daquizu ondo. Estaduba artutia danian, gueijenian, ez Jaungoicuari erregututen jaco bere naija cein dan ezaututeco, ez arimia ceruratutiari beguiratuten jaco, ez bere vijotzian ta goguan sarri irago jaczan estaduba artutiaren gaineco isilicaco deijai ta abisu santubai entzuten jacue, ez arimaraco eguiija eguijazcua esango leusquijuenai itanduten jacue. Mundubaren erichijan vici izateco ona bada artutera doian vicieria, norberaren arimiari jagocana ta Jaungoicuac dei eguiten deutsana izan ez arren, itsu itsuban artuten da. ¿Baina pensetan ete davee ce uts-eguite andija dan au bai gorputzeraco ta bai arimaraco? Icusi daigun. 150 155

II.

Estaduco uts-eguitia ez da edocein uts-eguite, ez bada da cimentuban edo oinian uts eguitia. Cimentu oquerra daucan echia apiauta baino ezin egon da. Ta apiuai bultzaca dago beti. Oina oquerra daucana beti davil errenga. Ta beti penaz. Contu eguizu bada, cristinaubac, viziera barrija edo estaduba dala echieren cimentuba edo gorputza erabilteco oina leguez, nor bera munduban contentuz izateco ta ceruba irabazteco. Uts eguiten badau vizieria edo estaduba, iminten deutsa asieran errena munduco vicitziari ta arriscu andija ceruba irabaztiari. Euqui legui echian biar davena ugari. Euqui legui osasuna. Euqui legui aguirico baquia. Baina ¿cer balijo deutsee oneec contentuz egoteco, vicieraco errena vijotzian daucanari ta artu daven estadubaren contra bere gogua beti bultzaca daucanari? 160 165

[319] Dei eguiten deutsa Jaungoicuac ta bere goguac bati ezcontzaco estadura. Ta edo gurasuac edo senidiac edo ez daquit noc sartuten davee conventu baten a. ¿Celan vizico da contentuz, soinian ta sabelian biar davena ugari euqui arren, alan conventura doian errucarija? ¿Ta ce arriscutan gueratuten da aren ceruba irabazia? Ceubec pensau. Dei eguiten deutsa beste bati Jaungoicuac ta 170

142 vici era *Ba* 154 vici eria *Ba* 159 Ez bada *Ba* 160 egonda *Ba* 162 vizi era *Ba*
164 vizi eria *Ba* 167-168 vici eraco *Ba*

175 bere goguac munduco vizierara. Ta edo gurasuac edo senidiac edo ez daquit
 noc viurtuten davee a abade izatera. ¿Celan vicico da contentuz, errenta andi-
 ja euqui arren, alaco eleisa guizona? ¿Ta ce arriscutan gueratuten da bere ari-
 maco salvacinoia? Ceubec pensau. Dei eguiten deutsa beste bati Jaungoicuac
 eta bere goguac, conventu baten sartuta, ondo baino obeto gorputz ta arima
 180 garbiro Jesus serbidutera. Ta gurasuac edo senidiac edo ez daquit noc ecarten
 davee ezcondutera. ¿Celan contentuz vicico da goguaz contrato estaduban?
 ¿Celan iragoco ditu bere vicitzaco egunac? Jaungoicuac eta bere goguac esca-
 tuten deutsee bacartasuna, Jesusen vicitzaco ta erijotzaco jazuac pensetaco asti-
 ja, bere vijotza, arimia, espirituba ta gorputza Jesus maitiari osoric emotia edo
 185 cerutar baten moduban Jaungoicuagaz vici izatia. Ta daucan vicieraan guztia
 da luurreco gaucen arduria, cereguina, priisia ta araguizcua. ¿Celan euquico
 dau poza? ¿Ta ce arriscuban iminten dau alan ezconduten danac bere arimaco
 salvacinoia? Ceubec pensau.

Beguiratu bada, neure entzula onac, estaduco uts-eguitia ez dala beinguan
 190 adavetan²⁵⁹. Beste [320] uts eguitiac, lapurreta batec, aldulteriyo batec, guizon
 illte batec erremedio jaquinac dauquez, norberac nai izan ezquero. Baina esta-
 duco uts eguitia dan leguez vici guztico uts eguitia, beragaz dauca beti gan²⁶⁰
 zorroz bat vijotzaren erdijan, ceinec esaten deutsan gau ta egun urtiac iragota
 bere: *Oquer nua. Ezin ni onan salvau neinteque*. ¡Ah! ¿Ceimbati entzun oi
 195 deutsegun verba triste, errucarri ta bildurgarri au? Estaduco uts eguitiac eraba-
 guiten dau guejenian gueure ceruraco edo impurnuraco vidia. Munduco eraac
 gaiti, aragujaren engainubac gaiti, etsajaren esquini paltsuac gaiti, edo inoren
 erregubac gaiti artuten da nor berari ez jagocan estaduba, Jaungoicuac dei
 eguiten ez deutsan estaduba, itsu itsuban arimiaren onari beguiratu bagaric ta
 200 pensau bagaric. Ta guero celan artu, alan vizi ta alan ill.

Jaungoicuac librau gaizala alaco viziera penazco ta arriscucuetati bere neu-
 rri bagaco ontasuna ta erraija bigunac gaiti. Munduban egunac naibaguez ta
 triste iragota, guero betico pena lecura eruan ez gaizan. Alan gura izan dagui-
 jala Jaun cerucuac, bera dana dalaco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren
 205 icenian. Amen.

175 vizi erara *Ba* 185 vizi eraan *Ba* 186 cer eguina *Ba* 194-195 oideutsegun *Ba*
 201 vizi era *Ba*

²⁵⁹ "Adabau": urraturik dagoena, batez ere arropak konpondu; (irudiz ere badarabil, eginda-
 ko kalteak ordaindu esan nahi du halakoan; hemen horrela dator).

²⁶⁰ Gehienetan *aculu gan* sintagma osatuz agertzen da eta herriko euskaran ere hala erabil-
 tzen da, baina hemen bakarrik dator, eskuinean *zorrotza* izenondoa duela. (Ik. *Icas-II*-ko 308.
 oharra).

II. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
celan pensau biar dan ezcontzaco vizieriaren gainian.

Aitu cenduban, neure entzula onac, leengo eracutsijan, ceimbat balijo deus-
 tsan cristinaubari [321] estaduba artuteco prestaera onac. Gurasuac chito contu 210
 andija euqui biar davee, euren seme alavai nai daveen vicieria artuten isteco.
 Bada, norberaren gogo bagaco estadubac guichitan oi ditu prutu onac. Umiac
 gura daven estaduba artuten lagundu al badaguijue gurasuac, lagundu biar
 deutsee. Baina lagundu ezin izan arren umiari berac gura leuquian estaduba
 artuten, ez davee esanagaz, erregubagaz, edo zamaijagaz ecarri biar gurasuac 215
 umia gogoric ez daucan estadubac artutera. Contu onetan gurasuac. Ez zaiza-
 la diabrubic inos engainau, ceuben irabacija edo munduco ustezco era ona
 gaiti umia ez jagocan ta atcerapena daucan estaduban imintera. Bada, orduban
 iminten dozu ceuben partez umia impernuco vidian.

Au aituten emon ezquero, gauza ona da cristinaubari aituten emotia 220
 ezcontziaren gaineco pensaquizun batzuc. Bada, Jeremias propeta santubac
 dinuanez (226), munduco gachic gueijenac datoz gauzac ondo ez pensetati.
 Bada, gachac erremedijetaco gauza ona bada ondo pensetia, bere duinan ez
 da izango guichien balijo davena ezcontziaren gainian leendanaz ondo pense-
 tia, ezcondubac ondo izateco. Berau gaiti gogoratuco deusudaz eracutsi one-
 tan pensaquizun batzuc, eurai beguiratuta contu obiagaz artu daguijan cristi-
 naubac ezcontzaco estadu santuba. Entzun eguidazu gogoti. 225

Lelenga Pensau ta sinistu biar dogu, neure entzula onac, ezcontzia
 Jaungoicuac berac ichija dala, leen esan dan leguez. Adan eta Eva gueure
 lelengo gurasuac criadu edo eguin ci-[322]tubanian asi zan ezcontzia bere 230
 Jaungoicuaren ordenaz²⁶¹. Adan eta Eva dira munduco lelengo senar emaztiac.
 Andi ta Jesucristo gueure Jaunaren etorrierara ezcontzia zan guizonac eta ema-
 cumiac eguiten evenen tratu bat, alcarregaz beti izateco ta bata bestiaren gor-
 putcen escubidia alcarri emoteco, Jaungoicuac ta errazoic aguiduten daven
 leguian. Ainchinaco dempora areetan ez evan ezcontziac berez arimia santu-
 tuten. Ez evan arimaco gracia berez emoten. Ez zan orduco ezcontzia egui- 235

 (226) C. 12.

208 vizi eriazen *Ba* 210 presta era *Ba* 211 naidaveen vici eria *Ba* 212 oiditu *Ba*
 213 albadaguijue *Ba* 218 atcera pena *Ba* 224 leen danaz *Ba* 230 asizan *Ba* 232 eto-
 rri erara *Ba*

²⁶¹ Ik. Has 2,4-24.

jazco ta benetaco sacramentuba, ez bada zan pecatu bagaric seme alavac equi-
teco ta senar emaztiac alcarregaz vici izateco tratuba edo bateguitia. Baina
240 Jesucristo gueure Jaunac jaso evan sacramentu izatera ezcontzia. Ta da zazpi-
garren sacramentuba, leen esan dan leguez. Jesusec berac ondrau evan ezcon-
tzia bere Ama guztiz garbijagaz Canaango eztegubetara juan zanian, nun eguin
evan Ama Virginiaren erreguz lelengo milagrua, ura ardao viurtuta²⁶².

Bigarrenian : Pensau ta sinistu biar dogu, ezcontzia ichi evala Jaungoicua
245 munduban izan ditezan guizonac eta emacumiac, berac senailauta dauca
juici[j]loco egun artian. Baita Adanen pecatubaganic jatorcun gurariric indartsu-
benaren ta gaistuenaren erremedioraco bere, dino san Paulo apostolubac
(227).

Iruugarrenian : Pensau ta sinistu biar dau cristinaubac ezcontzia ez dala
250 pecatu, erege batzuc eracutsi daveen leguez. Ezcontzaco vizieria edo estaduba
ona da, santuba da ta santu izan leitequiana da, norberac gura izan ezquero.
[323] Dempora guztietan ezautu dira santu ta santa andijac ezcontzaco vizieran.
Naturaleciaren leguian ezcontzaco estaduban Jaungoicua serbidu even ta eldu
cirian ontasunaren altura andira Noe²⁶³, Abraan²⁶⁴, Isaac²⁶⁵, Jacob²⁶⁶ ta beste asco.
255 Moisen leguiaren demporan, ¿ce ontasun ta santutasun andira eldu ez cirian
beste ascoren artian, Moises bera²⁶⁷, Samuel²⁶⁸, Tobias²⁶⁹, Judit²⁷⁰, Susana²⁷¹, san
Joaquin, santa Ana²⁷², Zacarias, santa Isabel²⁷³ ta beste milla? Jesucristo
sacramentu izatera jaso evan ezquero, ugarijaguac dira ascozaz ezcontziaren
gracijazco prutubac. Erreguiac eta erreguinac, caballeruac eta señorac, neque-

260 (227) 1. ad Cor. c. 7.

238 Ez bada *Ba* 244 biardogu *Ba* 250 vizi eria *Ba* 252 vizi eran *Ba*

²⁶² Ik. Jn 2,1-12.

²⁶³ Ik. Has 5,29-32; 6,10; 8,18.

²⁶⁴ Ik. Has 16-17. (Emaztea: Sarai).

²⁶⁵ Ik. Has 24. (Emaztea: Rebeka).

²⁶⁶ Ik. Has 29. (Emazteak: Raket eta Lea).

²⁶⁷ Ik. Ir 2,21-22. (Emaztea: Tzipora)

²⁶⁸ Ik. 1Sm 8,1-3. (Emaztearen izena ez da agertzen, bai, ostera, bi semeen izenak: Joel eta Abias).

²⁶⁹ Ik. Tb 1, 3-22 (Tobiten emaztea: Ana). Tobiasen (semea) emaztea: Sara (Tb 7,12; 11,17).

²⁷⁰ Ik. Jdt 8,2; 16,21-25. (Senarra: Manases).

²⁷¹ Ik. Dn 13,1-2. (Senarra: Joakim).

²⁷² Andre Mariaren gurasoak: Joakim eta Ana. Itun Berrian ez dira agertzen Andre Mariaren gurasoen izenak. Haien izenak eta bizitzako zertzeladak Santiagoren protoebanjelioan datoz. Eta ikonografiak ospetsu egin ditu: ik. M. LECHNER, *Anna Mutter Mariens*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 5.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 168-184; eta G. KASTER, *Joachim Vater der Gottesmutter Maria*, in: E. KIRSCHBAUM - W. BRAUNFELS [Zuz.], *Lexikon der christlichen Ikonographie* 7.t., Rom-Freiburg-Basel-Wien, 1990, 60-66).

²⁷³ Ik. Lk 1,5-7.

zarijac eta opicijo guztietacuac dagoz, ezcontzaco estaduban legue santuba ziatz gorde daveenac, vijotz garbijagaz Jaungoicua maite izan daveenac ta ezcontzaco carga astunai ta gachai caridadiagaz ta paciencijagaz cobru ondo emon deutseenac. Seme alavac azi ditubee celo santu bategaz eracutsi onian ta Jaungoicuaren vildurrian. Imini davee euren uste guztia ceruco ondasunetan ta ichi deutseez ondorengo ezcondu guztiai cer icasi ta nori jarraitu. 265

Ezcondu santubren artian ez dauquee lecuric chicarrena ez ceruban ta ez Eleisa Ama santiaren altaretan san Hermenegildo erregue martirijac²⁷⁴, san Fernando²⁷⁵, san Luis²⁷⁶ ta san Estevan erreguiac²⁷⁷, san Enrique aguintarijac²⁷⁸, santa Margaritac²⁷⁹ ta santa Isabel erreguiac²⁸⁰, santa Monicac²⁸¹, santa Paulac²⁸² 270

²⁷⁴ San Hermenegildo (+ 585), printze bisigodoa, Leovijildoren semea. 579an Ingundarekin, Austrasiako errege Sigebertoren alabarekin, ezkondu zen. Hermenegildok, bere emazteak eta San Leandrok hartara eraginik, arrianismoari uko egin eta katoliko egin zen. Hala ere, aitak Betikako parte handi bateko agintea eman zion. Bizantziorekin ituna egiteagatik, Leovijildok kartzelan sartu eta hil egin zuen. Horregatik martiritzat hartzen da. Frai Bartolomek liburu honetan irakur zezakeen haren bizitza: Petrus Ribadeneira, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, Coloniae Agrippinae, 1700, 182-184. or.

²⁷⁵ San Fernando, ik. *Icas-Iko* 352. oharra (1092.or.).

²⁷⁶ San Luis, ik. *Icas-Iko* 353. oharra (1092.or.).

²⁷⁷ San Esteban, Hungariako erregea (c. 969-1038); Giselarekin, Enrike II.a enperadorearen arrebarekin, ezkondua zen; bere lurraldeko printze izatera iritsi zen bere aitaren ondoren, 997an. Bere lurraldea kristautzen ahalegin handiak egin zituen; eta geroago, Aita Santuaren laguntza izan zuen errege koroatua izateko. Frai Bartolomek historia hau liburu honetan irakurriko zuen behar-bada: Petrus Ribadeneira, *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, 2.t., Coloniae Agrippinae, 1700, 273-276. or.

²⁷⁸ San Enrike, ik. *Icas-Iko* 351.oharra (1092.or.).

²⁷⁹ Santa Margarita Eskoziakoa (c. 1046-1093); Hungarian jaio zen, erbesteratua zen Ingalaterrako Eduardo Atheling eta Hungariako Agataren alaba. 1070ean Eskoziako errege Malcom III.aren ezkondu zen; lan handia egin zuen eliz bizitzaren berrikuntzarako; Dumferlineko Hirutasunaren monasterioa sortu zuen; kultura eta heziera indartzen ahalegindu zen; txirown ongile handia, otoitzari eta penitentziari emanda bizi zen (ik. L. MACFARLANE, *Margareta, Königin v. Schottland, hl.*, LThK 7 (1986) 22).

Frai Bartolomek, ekainaren 10ean, testu hau entzuten zuen bere komunitatean martirologioa irakurtzean: "In Scotia sanctae Margaritae Reginae, amore in pauperes, et voluntaria paupertate celebris"; horrez gain, Markinako Karmengo bibliotekan ere bada liburu hau, lehen orrialdean Frai Bartolomek idatzita, "Carmen de Marquina" duena: *Martyrologium romanum... Moguntiae*, 1631, 357. or.

²⁸⁰ Santa Isabel, Portugalko erregina (1270-1336); Aragoako Pedro III.aren alaba; 1282an Portugalko errege Dionisioarekin ezkondu zen; seme bi izan zituen. Coimbra, Almoester, Lisboa eta abarretan komentu eta elizak eraikitzea bultzatu zuen; ume eta txirownentzat ospitaleak sortu zituen Santarém eta Leiria-n. 1325ean alargun gelditu ondoren, frantziskotarren abitua hartu zuen. Estremoz-en hil zen, bere semearen eta Gaztelako erregearen artean bakeak egin nahirik ziharduela (ik. M. DE OLIVEIRA, *Elisabeth, Königin v. Portugal, hl.*, LThK 3 (1986) 818). Frai Bartolomek Petrus Ribadeneiraren liburu honetan irakur zezakeen haren bizitza: *Flos Sanctorum seu Vitae et res Gestae Sanctorum...*, 2.t., Coloniae Agrippinae, 1700, 232-235. or.

Baina hemen aipatzen den "santa Isabel erregina" izan liteke Ungariako printzesa Isabel (ik. 425.or.: "santa Isabel Ungarijaco erregina"), Isabel Turingiakoa (Ludwig IV.aren ezkondua); eta santa honen birloba izan zen santa Isabel, Portugalko erregina.

²⁸¹ Santa Monika (c. 332-387); Tagasten jaio zen guraso kristauengandik; Patritius jentil gaztearekin ezkondu zen; senarra kristau hil zen 371n; hiru seme-alaba izan zituen gutxienez (hauen

ta santa Pranciscac²⁸³ ta gueure san Isidro nequezarriac²⁸⁴. Oneec eta beste conta ezin guinaizan educ, ezcontzaco estaduban jadichi evene santu izatia ta Eleisa Ama santiac altaretan iminita ondretia. Ona da [324] bada, cristinaubac, ezcontzaco estaduba. Ta ezconduten danac ondo eguiten dau, dino san Paulo apostolubac. *Qui matrimonio jungit virginem suam, bene facit* (228).

275 *Laugarrenian* : Pensau biar dogu, ez daguala guizon edo emacume baco-charentzat nai ta nai ez ezconduteco legueric. Nor beraren escuban ichi dau Jaungoicuac, naijen daven estaduba artutia. Nai badau ezcondu. Nai badau ain bagaric. Nai badau erlijinioian²⁸⁵. Nai badau campuan. Estadubaren gainian
280 baco-chac gura davena eguin daijala, dino san Paulo apostolubac (229). *Quod vult, faciat*. Onaco ate zabala ta bide zabala ichi euscun Jaungoicuac gueu salvetaco. Emon, bada esquer onac Jaungoico Santubari.

Bostgarrenian : Pensau ta sinistu biar dogu, estadu guztietati beerengua dala ezcontzia. Esan gura neuque, cristinaubac, ezcontzia baino beste edocein

285 (228) [1.Cor.] Cap. 7. (229) Ibid.

283 biardogu *Ba* 284 guraneuque *Ba*

artean, San Agustin); semearekin batera joan zen Erromara eta Milanera. Ostian hil zen, Afrikarako itzuleran. (ikusi san Agustinen *Confesiones* liburua, Frai Bartolomek hain ongi ezagutuko zuena). Hark irakur zezakeen historia hau Petrus Ribadeneiraren liburu honetan ere: *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, Coloniae Agrippinæ, 1700, 224-228. or.

²⁸² Santa Paula Erromakoa (347-404), familia noble eta kristau bateko alaba; 15 urte zituela Toxotius jentilaren emaztea zen; bost seme-alabaren ama. 31 urte zituela alargun gelditu zen. Harrezkero bizitza asztetikoari eman zion, eta San Jeronimok sortutako emakume erromatarren elkarte espiritualeko kide izan zen. Palestinara joan zen harekin eta Belenen jarri zen bizitzen; erromesentzat lehen ostatu-etxea eraiki zuen hemen, lehen monasterioa San Jeronimo eta honen laguntzat, eta lehen monasterioa emakumeentzat; hementxe bizi izan zen bera ere, otoitzari, penitentziari eta Eskritura Santua ikasteari emanda. Frai Bartolomek Petrus Ribadeneiraren liburu honetan irakur zezakeen haren bizitza: *Flos Sanctorum seu Vitæ et res Gestæ Sanctorum...*, 2.t., Coloniae Agrippinæ, 1700, 62-68. or.

²⁸³ Santa Frantziska Chantal, fundatzailea (1572-1641); Frémyot de Chantal parlamentuko buruaren alaba; 1592an Christoph de Chantal baroiarekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Bere senarra ustekabeen hil zitzaionean (1601), oso-osoan Jainkoari eskaini zion bere bizitza eta otoitzari, karitate-lanei eta seme-alaben hazierari emanda bizi izan zen. 1604an San Frantzisko Saleskoarekin harremanetan jarri zen, bien artean adiskidetasun espiritual sakona izanik. Harekin batera fundatu zuen Bisitazioko Ordena (1610) Annecy-n; bera bizi zela Frantzian 81 komentu eraiki ziren. Grazia mistiko ugari izan zituen. Bere bizitzako azken aldian barne-sufri-mendu biziak jasan zituen... (ik. H. WAACH, *Chantal, Jeanne-Françoise Frémyot de, hl.*, LThK 2 (1986) 1013-1014).

²⁸⁴ San Isidro (c. 1070-1130); nekazaria izan zen Madrilen, Maria Toribiarekin ezkondua; bere lanean, otoitzean eta karitate-egintzetan eman zuen bizitza. Frai Bartolomek "gueure San Isidro" dio eta horrek, santu hau, Markina inguruan eta Euskal Herrian oso ezaguna zela esan nahi du... Haren bizitza, oraindik Markinako Karmengo bibliotekan dauden hainbat liburutan irakur zezakeen...

²⁸⁵ "Erljiniioian": erlijioso-bizitzan; (*erlijinioian* eta *campuan* bata besteari kontrajarririk: erlijioso-bizitzan eta laiko-bizitzan...).

estadu Eleisa Ama santiac eracusten dituban ta leen esan dirian oba dala berez, pecatuban ez jausteco, Jaungoicuaren naija eguiteco ta ceruba irabazteco. Esan gura neuque, beste edocein estadutacuac baino ezcondubac era gueijago daucazala berez, Jaungoicuaren legue santuba austeco, betico eguiijaquin aztuteco, munduco gaucetan vijotza ta gogua laarregui iminteco, pecatu eguiteco ta ceruba galduteco. Esan gura neuque, ezcondubena estaduba, bateti munduco arduratsubena dalaco ta besteti araguijaren eracuenala dalaco, dala Jaungoicuaren naija eguiteco gacheena ta arimaco irabaciric guichien berez dauca-na. 290

[325] Alan esaten deuscu Eleisa Ama santiac Trentoco batzaar santuban. *Esaten badau inoc*, dino (230), *ezcondubena vizieria obia dala virginena baino edo ezcondubena bagacuena baino, ta ez dala obiago virginidarian edo ezcondubena bagaric vizi izatia ezcondubena vizi izatia baino, izan dedilla escomulgauba ta madaricatuba a esaten davena*. Jesucristo gueure Jaunac ez deusa inori imintean, esan dan leguez, ezcondubena bagaric vici izateco legueric. Baina convidetan ditu cristinaubac ezcondubena bagaric vici izatera garbitasunaren amodijua gaiti ta ceruco erreinuba irabaztia gaiti (231), ceinegaz eracusten deuscun Jesus maitiac, erliginoeco estaduba, virginen estaduba ta librean estaduba obiac diriala ceruba irabazteco, ezcondubena baino. 295

San Paulo apostolubac esaten deuscu cer gaiti dan au. Dino, bada (232), virginen ta Jesusen amodijo garbija gaiti ezcondubena bagaric gueratuten dirianen gogua ta naija dala Jaungoicuaren celan gusto emongo deutseen. *Quomodo placeat Dea* Ezcondubena gogua daguala munduco gaucetan ta euren arduria dala celan lagunari gusto emongo deutseen. *Quomodo placeat viro*. Virginen ardurara nausija da Jesus maitiari naija eguitia. Ataraco dauquee osoric Jesusentzat euren gorputza ta vijotza. Baina ezcondubena ardura nausija edo guztia da mundubarena ta lagunarena, Jesusentzat ecer gorde bagaric; edo da zati bi eguina, bata lagunarentzat ta mundubarentzat, ta bestia Jesusentzat. *Et divisus est* Ara ezcondubac celan emoten ez deutsan Je-[326]sus garbijari bere vijotza ta gorputza osoric eta garvi, virginac leguez. Esan daigun, bada, estadu guztietati beerengua dala ezcondubena, Jaungoicua serbiduteco ta ceruba irabazteco. *Virginen estaduba urria, ezcondubena bagacuena cidarra ta ezcondubena burdinia dala*, dino obispo santu batec (233). *Virginen estadubac argui eguiten davela, eguzquijac leguez; ezcondubena bagacuenac, ixiotaco arguija leguez; ta ezcondubena dala illuna. Virginidadecua dala errequina; ezcondubena bagacua seinoria; ta ezcondubena crijadia. Virginia ondasun ugaritsuba, ezcondubena* 300 305 310 315 320

 (230) Sess. 24. can. 1. (231) Matth. c. 19. (232) 1. ad Cor. c. 7. (233) S. Alldhesm. Corn. a Lap., com. ad Epist. 1. Cor.

325 *tzaquia*²⁸⁶ *biarreco duina ozta daucana ta ezconduba pobria dala. Virginen vizitzia dala baque osocua; ezcontzaquena guerran irabacitaco baquezcua; ta ezcondubena presuen baquezcua.*

330 Modu onetan virginen estaduba bat eguiten davee urriagaz, eguzquijagaz, erreguinagaz, ugaritasunagaz ta pozezco baque onagaz. Virginidade galduba, baina garbatuba ta Jesusen amodijua gaiti ezcondu bagaric vizi danarena bat eguiten davee zidarragaz, candela ixiuagaz, seinoriagaz, arerijuac urrian daucazan guerraco baque irabacijagaz ta nora ezecua baino gueijago ez daucanagaz. Ezcondubena vizitzia bat eguiten davee burdiniagaz, laino arteco illunagaz, crijada baten viciera bajubagaz, cate lotuzco baquiagaz ta ezeuqui tristiagaz. Ez da ezcontzaco sacramentubari berez jatorcana au, ez bada ezcontziaren cereguinai ta eguinbiarrai jatorcuena. Ezcontzia ona da, dino san Gregorijoc (234).
335 *Bonum est conjugium.* Baina ez dira [327] onac ezcontziari darraicozan eguinquizunac, araguijaren argaltasunari ta munduco ardurai ta gachai beguiratu ezquero, dino Santu andijac. *Sed mala sunt, quae circo ilud ex hujus mundi cura succrescunt...* Bide onian juan arren, bide ondoco laarrac urratu leguijez
340 gueure jantzijac, dino Santubac. Beste aimbeste: Ezcontzia ona izan arren, ceruraco vide ona izan arren, oratuten jacuez gueijenian ezcondubai araguijaren gurari gaistuen ta munduco arduren laarrac, ceintzuc catiatu ta atzeratuten daveen ezcondubaren arimia ceruraco videtan. Esan daigun, bada, barriro ta sinistu daigun, neure entzula onac, estadu guztietati bajubena dala ezcontzia.

345 *Seigarrenian* : Pensau ta gogoratu biar da sarri, (ezconduten danac, ce sailetan bere buruba sartuten daven jaquiteco) Eleisaco jazuai beguiratu ezquero, ezcontziac berac bacarric cereguin gueijago emon deutsalala ta emoten deutsalala Eleisa Ama santiari, beste estadu guztia baino. Au bere ezin ucatu guinai, cristinaubac. Guiza aldi guztietan ta lecu guztietan entzuten dira negargarrijac
350 edo ezcondubena artian edo ezcontzia vitarte dala. Batian jagui dira ezcontzia gaiti guerra odoltsuac. Bestian bera gaiti galdu dira erreinu osuac. Baita ez guichitan erreinu ta erri ascotaco Jaungoicuaren ta Eleisa Ama santiaren sinistute santuba bere. Ta gueratu dira triste errucarri areec pede bagaric ta Jaungoico bagaric, ezcontzia dala medijo. ¿Baina ceimbat onaco gach negargarri zabaldu dira guiza aldijetan asitaco ezcontza bat edo eguindaco bat dala medijo? ¡Oh! Ez da errez, cristinaubac, sail onen naibagaac contetan. An [328] entzuten da, emaztiac senarra ill davena. Bestian, senarrac emaztia ill davela. Beste aldian, senar-emaztiac auzitan davizala. Guerochuago, alcarregaz izan

(234) March. Matrim. Lect. 2. prop. 1.

333 vici era *Ba* 334 Ez bada *Ba* 335 eguin biarrai *Ba* 336-337 eguin quizunac *Ba*
347 cer eguin *Ba* 355 guizaaldirjetan *Ba* 356 An] Au *Ba* (380.or.: An)

²⁸⁶ "Ezcontzaca": ezkongabea; (*virginia*, *ezcontzaquia* eta *ezconduba* bereizten ditu).

ezinda apartau diriala. Bata, lagunari burla eguinda, adisque deunguequin 360
 adulterijotzan sacramentubaren lotsagarrijan vici dala. Bestiac emaztia saltcen
 tratu loijan imini davena. Or icusten dira senar emaztiac alcarri bidaoca,
 imper[n]ju chiqui bat eguinic euren echiac. An davilz nesca mutilac aucitan,
 daveena ta ez daveena castetan alcarren gorrotuan, verba emona ucatu deu-
 tsalaco. Bestia dago carcelan dempora lucetan, ezcondu nai ez davelaco. Areec 365
 dagoz pecatuban lotsa bagaric erri guztiaren jaquinian ta cer esanian, alcarre-
 gaz ezcontceco achequijagaz. Beste batzuc... ¿Baina ceimbat onetarico naiba-
 gue, escandalu ta negargarri, ezcontcia dala vitarte? Ezin contau leguiz, neure
 entzula onac.

¿Cegaiti derichazu au? ¿Ezcontzaco sacramentuba ta estaduba ona ez dala- 370
 co? Ez, neure cristinaubac. Jaungoicuari erruba ezartia izango litzaateque au.
 ¿Cegaiti da, bada? ¿Cegaiti? Jaungoicuac aguinduten daven ta ezcontzaco sacra-
 mentubac escatuten daven gogo onagaz, garbijagaz ta zucenagaz ezcontzaco
 estaduba artuten ez dalaco. Au gaiti dira, neure cristinaubac, ezcontzaco 375
 gachac. Iкуси arren egunoro ezcontza bide bagacuac, errazoe bagacuac ta
 onian irauteco echurac ez dauqueenac; icusi arren ezcondu asco celan ezcon-
 du, alan vici, baque charra, gozo gaistua, celo minverac, alcarren gorrotua ta
 cer esana naicua echian dauqueela; icusi arren ta entzun arren sarri bide [329]
 bagaco ezcontcen sail negargarrijac, ez dau inoc sinistu gura ezcontzaco esta- 380
 duba dala uts eguiten erraza ta erremedijetan gacha, ta orregaiti ondo, astiro
 pensauta artu biar dana. Ez dau inoc penseetan, ezcontzia eguin biar danian,
 jazo chaarrecua ala ona izateco bidia daroian edo ez. Ta alan jazoten dira
 guero aimbeste ezcontza cer esaneco.

Ez daquit nic, cristinaubac, celan dan au. Seme edo alava batec artuten 385
 badau asmo santuba praile edo monja izateco edo Jaungoicua serbiduteco
 viciera obago bat artuteco, bertati bildurtuten dira gurasuac, senidiac, baita
 auzuac bere, estaduba artuten uts eguin ez daguijan ta galdu ez dedin. Guztiac
 esaten deutsee, ¿ta ceimbat bidar? praile edo monja Jaungoicuac dei eguiten
 deusnari, *ondo pensau daguijala; beguiratu daguijala; estaduba artutia* 390
gauza astuna dala; garbatu lequijola; guero erremedijoric ez daucala; ez
daquit nor baiti bere garbatu eijacola ... Atertu bagaric esesten²⁸⁷ deutsee jua-
 cuenac ta ez juacuenac conventu batera Jaungoicua serbidutera juan gura
 davenari, axe buruti quendu eraitiarren. Ez dinot gaisqui eguina dala, praile
 edo monja guei bati juaconac esatia, *ondo pensau daguijala cer eguitera*
doian. Au gauza ona ta biarrecua da. Baina aimbeste bildur ta ardura, inor 395
 prailtzan edo monjatzan galdu ez dedin; ta ain guichi, semia edo alavia, nevía

360 ezin da Ba | eguin da Ba 370 Ce gaiti Ba 372 Ce gaiti da Ba 386 vici era Ba

²⁸⁷ "Esetsi": eraso // eraso; (aditz eta izen gisa darabil).

edo arrevia edo juacona ezcontzan galdu ez dedin, ez dautsa alcarri²⁸⁸. Praile edo monja garbatu bacochecho eun ezcondu garbatu ta gueijago izan arren, euren vici modubac dinuanez, ez dau inoc uste ez-[330]contzia aita danian, ezcondu ezquero, gachac joco ditubanic. Asco da ezcondutia, ezcondubac
400 ondo izateco munducuen erichijan. Nequez esaten jaco ezcongueijari: *Contu, cer eguiten dozun; contu, nogaz bat eguiten zarian ...*

Beguiratu bada, cristinaubac, ezcontzaco sacramentuba sacramentu santuba, garbija ta zucena dala. Baina estadu guztietati bajubena dala. Ezcontceco,
405 beste edocean estadu artuteco baixen contu ta ardura andija biar dala. Ezcontcetan chito uts eguite asco ta andijac oi diriala. Ta berac cer eguinic ta atsecabaric gueijen Eleisiari ta juezai emoten deutseela. ¡Oh, ceimbat dagozan ezconduta, edo inoren esana ta erreguba gaiti, edo euquija gaiti, edo gurasuen najja ta oneria gaiti, edo edertasuna gaiti, edo pecatuzco amodijua gaiti, ondo
410 garbatuta, buztarripien ez balegoz nai leuqueela! ¡Oh, Jaungoico Santuba! Emon eguiguzu ceure arguija ta gracia, ceruba irabazteco biar doguna eguiteco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

III. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

- 415
1. *Cer eguin biar daven cristinaubac ezcontzaco sacramentuba artuteco.*
 2. *Celan irago biar dan escubac emoteco eguna.*

Iru gauzataraco ichi euan Jaungoicuac, neure entzula onac, ezcontzaco sacramentuba. Aretati bat da, senar emaztiac baque santuban ta eguite onetan
420 alcarregaz vicita, legue santuba [331] gordetan ta Jaungoicuaren najja eguiten alcarri lagunduta, ceruba irabaci daguijen. Alan esan euan Jaungoicuac Adan gaiti: *Ez da ondo guizona bacarric izatia. Eguin daijogun bere erico laguna* ²⁸⁹. Beste bat da, Jaungoicuac emoten deutseezan seme alabac, eracutsi onian ta Jaungoicuaren bildurrian ceruraco aztia. Alan esaten deutsee Espiritu Santubac

404 Ezcontzeco] Eztcontceco *Ba* 406 oidiriala *Ba*

²⁸⁸ Ik. *Icas-Itko* 184. oharra (998.or.).

²⁸⁹ Ik. Has 2,18.

Salomonen aoti gurasuai: *Umiac badaucazuz, azi eguizuz dotrina onian ta Jaunaren vildurrian* ²⁹⁰. Irugarrena da, *Adanen pecatubac ichi euscun gach nausija erremedijetaco*. Alan dino san Paulo apostolubac (235): *Propter fornicationem autem unusquisque suam uxorem habeat, et unaquaeque suum virum habeat*. Iru gauza oneec chito dira cereguin andicua ta ezcondubari entero asco edo guztia balijo deutseenac. Berau gaiti da biarrecua esatia cristinaubari: 1. *Ezcontzia asmetan davenian leendanaz celan prestau biar daven ezconduteco*. 2. *Celan irago biar daven escubac emondaco eguna*. Bacuszu, cristinaubac, ascori jagocan eracutsija dana au. Ondo etorrigo jacue ezcondubai. Edo euren ezcontzaco uts eguitiac ezaututeco ta damututeco, edo uts eguin ez beeben, Jaungoicuari esquerrac emoteco. Baita ezcondubagacuai bere, jaquinda egon ditezan ezcondutera orduco. Entzun bada, cristinaubac, aimbat gogoric zuurrenagaz cer eguin biar daven cristinaubac, ezcontcia asmetan davenian edo tratetan davenian. 425 430 435

Dinot, bada, ya erabagui ezquero cristinaubac bere goguan, leenagoco eracutsijan esan dan prestaerriagaz, legue santuba gordetaco ta ce-[332]ruba irabazteco onduen berari juacon estaduba dala ezcontcia, eguin biar davena da: 440

Lelenga Erregutu Jaungoicuari vijotceti aimbat gogoric oneenagaz ta humildiaz, bialdu dagujola ceruti bere argui santuba ta laguntasuna, ariman ondo dan moduban ezcontzaco sacramentu santuba artuteco. Premina ordu guztietan escatu biar deusagu Jaungoicuari aparteco goguagaz bere gracia. ¿Bada, nos preminago cristinaubac ceruco laguntasuna, vici dan arteco estaduba artutera doianian baino? ¿Beste lagun bategaz betico bat eguitera doianian baino? ¿Jaquitun edo ez jaquin bic, zucen uste edo oquer uste bic, ondo erichi edo gaisqui erichi bic, aziera bic, aituera bic, naiera bic, empin guizon batec eta emacume batec beti alcarregaz aragui baten izateco buztarri astuna ta sacramentu ausi ezin leguijana artutera duazanian baino? ¿Nos preminago Jaungoicuari ondo erregutu biarra? ¿Nos preminago ta biarrago ceruco arguija, nor berari jaocan lagun bategaz bat eguiteco? Au gaiti erregutu biar deutsa cristinaubac Jaungoicuari, ezconduteco ustia artuten davenian. Au aituten emoten deuscu Espiritu Santubac Salomonen aoti esaten davenian (236), *gurasuac emon leguijuezala umiari ondasunac; baina emazte ona Jaungoicuac baino bestec emon ezin leguijola* Jaungoicua da bacarric ezcondu gura davenari lagun on bat emon leguijona. Jaungoicuari escatu biar deutsa, bada. 445 450 455

(235) 1. ad Cor. c. 7. (236) Prov. 19.

429 cer eguin *Ba* 431 leendanaz *Ba* 440 presta erriagaz *Ba* 449 azi era bic, aitu era bic, nai era *Ba*

²⁹⁰ Frai Bartolomek dakarren aipamen hau Itun Zaharreko hainbat liburutan aurkitzen diren laburpena izan daiteke: Ik. Si 7,23-24.29; Es 1,3-7.23-24[25-26]; 10; 14,26-27; 15,33; 29,17...

460 *Bigarrenian* : Imini biar dau cristinaubac ar-[333]dura ona, berari onduen
 juacon laguna auqueratuteco. Contu euqui biar dau, berac laguntzat nai leu-
 quiana edo ataraco erara jatorcona ce ecandutacua, ce azieracua ta ce genijo-
 tacua²⁹¹ dan. Ascotan onaco gauzaric pensau ta jaquin bagaric itsu itsuban egui-
 465 tuten dira ezcontzac. Ta guero erremediojo bagaco negarragaz ezaututen dira alca-
 rren *paltaac*. *Gueijenian*, dino san Geronimoc (237), *ez jaco casuric eguiten*
ezcontcetan emazte gueija ce oituratacua dan beguiratutiari, ezbada eria
dana artuten da emaztezat. Ez da casuric eguiten ia sobervijosia dan, ia neci -
jua dan, ia erua dan, ia andiguria dan, ia beste tacharic daucan. Ezconduta
 470 *guero jaquiten dira onaco emaztiaren edo senarraren paltac ta tachac. Zaldi*
bat echera ecarri biar bada, asto bat, idi bat edo crialjdu bat echera ecarri biar
bada, itanduten da ta jaquiten da contu andijagaz celacuac dirian ta palta -
ric dauquen edo ez. Ta emaztia ecarten da echera, celacua dan jaquin baga -
 475 *ric. Au guztiau da san Geronimoren esana, ceinegaz eracusten deuscun leen*
esan deutsudan guztia. San Juan Crisostomo quexetan da oraindino arguirua-
go gach onen gainian. Ta dino (238): ¿Noc contu eguiten dau ce condicinoe ta
vici modutacua dan ezcongueija? Inoc bere ez. Nullus omnino. Ce diru ta
ondasun daucan da itanduten dana ta jaquiten dana , dino Santubac.

Munduco gaucetati cerurutz gogua jasota, aibat usteric garbijenagaz ta
 zucenenagaz beguiratu biar dau cristinaubac celan Jaungoicua [334] serbiduco
 480 daven artutera doian lagunagaz. Beguiratu biar deutsa lagun gueijaren edadia-
 ri, euquijari, azieriari ta beste ezcondubac alcar artuteco ta onian vizi izateco
 asco balijo daven gauzai. Zaarra gaztiagaz ezcondutia; aberatsa pobriagaz
 ezcondutia; nequezarija andiquijagaz edo andiqui usainecuagaz ezcondutia;
 485 estu bat edo ernegau bat²⁹² nasai bategaz edo ardura guichico bategaz ezcon-
 dutia; euqui gura ta batu gura zal bat castalari buruguin bategaz ezcondutia...
 beti da arriscu andico ezcontzia, edo norberac ez daucan paltia lagunari arpe-
 guijan ezarri leguijolaco, edo bataren erichijagaz ta vicieriagaz bestia bat eguin-
 go ez dalaco. Onetarico ezcontzac gaiti dino Eleisaco batzaar batec (239), *ente* -
 490 *sarritan entzun diriala arimen calteco negargarijac; gentilac eurac ber e*
eguin ez oi cituben araguizco pecatubac. Gauza guztietan da entero ona ta
 ederto dirudijana bardintasuna. Baina ezcondubentzat nai ta ezecua leguez da.

 (237) March. trat. 8. Lect. 3. prop. 1. (238) Hom. 74. in Matth. (239) Poug.,
 Sect. 1. c. 8.

462 erara] erada *Ba* 466 ez bada *Ba* 467 artutenda *Ba* | ia] ya *Ba* | ia] ya *Ba*
 468 ia] ya *Ba* | ia] ya *Ba* | ia] ya *Ba* 481 azi eriarri *Ba* 485 zal bat] zal bategaz *Ba*
 487 vici eria] ya *Ba* 490 oicituben *Ba* 493 Sect.] Sect. *Ba*

²⁹¹ "Genijo": izaera, berezko izateko era; (adiera honetan dakar ia beti).

²⁹² *Bategaz* jartzen du testuak, baina *bat* izan behar du, aurreko esaldietan bezala.

Bijac badira aziera onecuac, Jaungoicuaren bildurrecuac ta seme alaven naija gaiti amodijo garbijagaz ezconduten dirianac; bijac badira andi ustiari, euqui najari, alperrerijari ta pecatubari bardin beguiratuten deutseenac; bijac badira odol bardinecuac, guichi gora beera euqui bardinecuac, cleitu bardinecuac, viciera bardinecuac, dinot, alarguna alargunaz ta ascatuba ascatubagaz; bijac badira Eleisa Ama santiac ta ezcontzaco leguiac aguinduten daven moduban estadu barrija artuten daveenac, euren aldeti aimbat onduen prestauta, esan legui ta esan biar da, cris-[335]tinaubac, onaco ezcontziac Jaungoicuaren deijaren echura guztia daucala ta cerubac bere gracia paltauco ez deutseela alaco senar emaztia.

Esango dozu benturaz, Eleisiac libre emoten davela bacocho gura davenagaz ezconduteco. Ta arriscucuac balira ezbardinen ezcontzac, eragotcico lituquiala Eleisa Ama santiac. Erantzuten jaco oni, Eleisa Ama santiac ez ditubala legue gogorragaz eragozten ondo baino obeto ez dirian gauza guztia. Baina aituten emoten dau cein dan ceruraco vide segurubagua, cein dan seguruba ta cein dan peligrucua. Eleisiac ez dau eragozten atso zaar bat mutil gazte bategaz ezcondutia. Ta bijac nai badavee, ezconduco dira. Baina jazo leiteque ta jazo oi da, alaco ezcontzai cristinaubac barre eguitia ta arimaraco batari bere ondo ez urtetia. Eleisiac ez dau eragozten palta asco daucazan emacume bat bai garbitasunian ta bai gorputceco echuran, diru gaisqui irabacija ugari daucalaco, mutil cleitu oneco bategaz ezcondutia. Baina jazo leiteque ta jazo oi da, dirubac juanda, ondo beguiratu ecin deusantachaz betetaco emaztia echian gueratutia. Jazo leiteque ta jazo oi da, orduban orduban emaztiac senarraren aoti bere lotsari guztia entzun biarra. Eleisiac ez dau eragozten... ¿Baina ceta-co da luzatutia? Guztio daquizu, cristinaubac, Eleisiac eragotci ez arren, onaco bardin bagaco ezcontzac arriscu andicuac diriana. Berau gaiti artu biar da chito ardura andija ezcondutera orduco.

Irugarrenian : Ezcontcia iragoten danian, ez dau ecetan bere engainau biar lagun gueija. [336] Senar emazten vicitcia astunago ta penazcuago (jaquin ezquero) eguin leguijen paltac ta tachac (badaucaz) azaldau biar deusaz lagun gueijari, palta areec guero aguertuta, vicitza gaistua eguin ez daguijen. Ezcontcia da sacramentuzco tratuba. Sacramentuba izan arren, ez deusa isten tratuba izatiari. Tratu baten bere ez da inor engainau biar. Bada, guichiago ezcontzaco tratuban, cein dan urratu ecin leguijan bi bat eguiteco betico tratuba. Ezcongueijac alcar engainetan badavee ezcontzaco tratuban ezcontza onari jagocazan gaucetan, ez davee guero guzur asco esan arren erraz izango engainuba adavetan. Gueratuco jaco lagunari zauri bat vijotzaren erdijan, inos bere ondo osatuco ez jacona. Ta bera izango da asco, senar emaztiac alcarren carino eguijzco bagaric vizi izateco. ¿Cer pena andijagua berau baino? Eguin

498 vici era *Ba* 505 ez bardinen *Ba* 511 oida *Ba* 514 oida *Ba* 516 oida *Ba* 519 biarda *Ba*

bada, cristinaubac, Raquelec Tobiasegaz eguin evana. Raquelec Sara bere alav
 535 via Tobiasi emon gura eutsanian emaztetzat, banaan banaan esan eutsazan
 bere alaviaren jazo guztiac (240). Beste aimbeste eguin biar dau cristinaubac,
 ezcontzia eguiten danian.

Laugarrenian : Ezcontcia eguin ezquero, ez davee ezcongueijac edo novi
 540 jo novijac eche baten egon biar. Ezda alcarregaz bacarric bere, ezda alcar icus
 teco alcarren ondoric ibili bere. Alaco novijo novijen alcar icustetati ta alcarre
 545 gaz egotetati ceimbat calte datorren euren arimetara, ecin esan legui. Andi oi
 datoz gentiaren gaisqui esatiac ta murmuretiac gurasuac gaiti, ehecuac gaiti ta
 curac gaiti, eragozten [337] ez davelaco. Andi pecatu eguitemo arriscubac, edo
 550 esanaz, edo eguinaz, edo guztira. Andi, Jaungoicuagaz aztutia, oracinoeric ez
 eguitia, araguijaren gustuetan euren gogua euquitia, Jaungoicua asarratutia ta
 555 ezcontzaco sacramentubaren gracijac ta bendicinoiac galdutia. Ezcontzia
 eguinda, alan alcarren ondoric gentiaren esanagaz davilzan ezcongueijac gaiti
 esan legui, aingueru san Rapaelec Tobias santubari esan eutsana (241), *Jaun -*
*goicua*ren *vildurra galduta luxurija gaiti ezconduten dirianac*, *Asmodeo*
demoninua dauqueela euraquin . ¿Ceimbat novijo novija gaiti esan ete legui
 560 beste aimbeste? ¿Ceimbat ezcongueic, alcar jasoteco queiciagaz, onestidadia
 galdu ta asarratuten ete davee Jaungoico Santuba, eurai gracia emon biar deu
 tseena? ¡Ah, cristinaubac! Asmodeo demoninuac, Sararen lelengo zazpi senar
 rac ito citubanac, dauca escubidia alaco ezconqueijen vijotcetan ta arimetan.
 Diadar eguiten jacue gurasuai ta juacuen guztiai alderatu daguijezala ezcon
 555 gueijac alcarreganic urrin, ezcontzia bein eguin ezquero. Ezcontcia eguindaco
 cristinaubaren cereguina da, bestetan baino oracinoe gueijago eguitia; cristi
 nautasun ta asetasun²⁹³ gueijago gordetia; bere buruba leen baino ezcutubago
 euquitia; bere vici guztico pecatubaren compesinoe damuzcua eguitia; limosna
 560 bat edo beste al badai eguitia; ta aibat lasterren escubac emotia. Onan pres
 tau biar dau cristinaubac leendanaz, ezcontzaco sacramentuba artuteco. ¿Ta cer
 eguin biar dau escu emoteco egunian?

II.

¡Oh, neure cristinaubac! Gracijazco sacra-[338]mentuba ta estadu barrija
 565 artuten dan eguna da ezcontzaco eguna. Ez da Jaungoicua opendiduteco
 eguna. Ez da cerutarrac lotsatuteco eguna. Ez da, eztegubaren achequijagaz,

 (240) Tob. c. 7. (241) Tob. c. 6.

538 Ez da *Ba* | ez da *Ba* 540-541 oidatoz *Ba* 556 cer eguina *Ba* 559 albadai
Ba 560 leen danaz *Ba*

²⁹³ "Asetasun": neurria, nahikotzea, konforme izatea; (*templanza, conformidad, satisfacción* itzuli ohi dute hiztegiek adiera honetan).

nasaitasunari, ordiquerijari ta berdequerijari lecu emoteco eguna. Ez da, Jaungoico bagaco gentilac leguez, verba lotsagarrijetan, jan edan laarreguijetan, dantza desonestubetan ta olgueta zatarretan iragoteco eguna. *Ez dogu entzu - ten*, dino san Juan Crisostomoc (242), *anchinaco patriarca santuben eztegu - 570 betan, orain leguezco arroquerijaric, pamparrerijaric ta nasaitasunic. Ez dogu entzuten orduco eztegubetan ez gauza sobrauric, ez biar ez zanic. Diabrubaren pomparic eta vanidaderic, inos bere ez. Soinuric, tambolinic ta dantzaric, inos bere ez. Satanasaren jan edan laarreguiric, inos bere ez. Luxurijaz ta nasaitasunez betetaco verbaric eta chanzaric, inos bere ez. 575 Guztia onestidadia, guztia asetazuna ta guztia juicijozcua*, dino Santubac, ta amaituten dau bere saila esanagaz: *Au eguin biar davee cristinaubac, escubac emoten dituben egunian.*

Aingueru san Rapaelec eracutsi eutsan Tobiasi, ezcombarrijac cer eguin biar daveen escubac emoten dituben egunian ta gaineco bijetan. Esan eutsan, bada, Ainguerubac Tobiasi, Saragaz ezcontcia asmau evanian: *Gorputzaren gustuac gaiti ta luurreco gurarijac gaiti ezconduten dirianac, gueratuten dira Asmodeo demoninuaren aguinupian. Au gaiti zure emazteguei Sarari, zazpi bidar ezcondu da, ta zazpi senarrac ill deutzaz Asmodeoc ezcondu izan dan [339] zazpi gabetan. Zuc ez dozu alacuen moduban izan biar, ez bada escu - 585 bac emon daguizuzanian, aparteco lecu baten sartuta, ceure emaztiagaz bacarric eguingo dozu oracinoia bijoc iru egunian... Guero Jaungoicuaren vil - dur santubagaz ta seme alaven najagaz vicico zara ceure emaztiagaz, Abraanen belauneti jadichi daguizun Jaungoicuaren bendicinoia ceure seme alaveetan (243). Oneec izan cirian, neure entzula onac, ainguerubac Tobias 590 gaztiari, escubac emotera Saragaz joianian, esan eutsazan verbac ta consejubac.*

Onen beste eguingo ez badavee bere esaten jacue, ez daguijela arren Jaungoicua asarratu escubac emondaco egun santuban, eztegubetan oi dirian verba, chanza, escuca, dantza ta pandango nasai ta lotsagarrijaquin ta jan edan laarreguijaquin. Esaten jacue gorde daguijela egun atan, vici guztico sacra - 595 mentuba artu daven egunian, gorde daguijela lotsa ona, centzun ona, cristinautasuna ta Jaungoicuaren vildur santuba. Sinistu, neure entzula onac, ezte - guban ezconbarrijac ta convidaubac eguin oi dituben pecatu nasaijac gaiti sarri castigau ditu Jaungoicuac ezcondubac.

Ez da esaten, ezteguco egunian senide bat edo adisquide bat convidau biar ez dala. Au eguitia ez dau inoc eragozten. Jesus bere juan zan bere Ama guz - 600 tiz santiagaz Canaango eztegubetara. Ta bedeincatu evan ango ezcontcia, mila-

(242) Hom. 66. in Gen. (243) Tob. c. 6.

571 Ezdogu Ba 583 emazte guei Ba 585 Ez bada Ba 593 oidirian Ba 598 oidi - tuben Ba 601 juanzan Ba

605 gro bat eguinagaz. Eguin, bada, ezteguna, biar bada. Baina cristinau usainagaz, esate ta gogo garbijagaz; baina nasaitasun bagaric, zora-[340]querija lotsarizco ta pecatuzco bagaric; baina edan neurri bagaco edo castu alperricaco bagaric. Orduban Jesusec bedecincatuco ditu ceuben ezcontzac. Alan gura izan daguijala cerubac bere neurri bagaco ontasuna ta misericordija gaiti. Amen.

IV. ICASIQUIZUNA,

610 ceinetan eracusten dan
ceintzuc dirian ezcontzaco sacramentubaren onerac.

Ezcontzaco sacramentubac carga andijac ta astunac daucaz beragaz, neure entzula onac. Baina biar dan gogo garbijagaz ta prestaera santubagaz artu ezquero ezcontzaco vicieria, beragaz daucaz sacramentu santubac onera edo
 615 prutu batzuc, ceintzuc arinduten dituben ezconduben carga astunac, dino Erromaco Catecismuac (244). Ez ditubee guztiz guchituten edo quenduten ezconduben ardurac eta naibaguiac, ez bada arindu pusca bat, senar emaztiac erreztuago jaso daguijezan. Bada, Jaungoicuaeren videti artu arren ezcontzaco sacramentuba, ta senar emaztiac vici arren alcar estimetan daveela, oraindino
 620 euquico ditubee ezcontzaco vicieran gachac eta naibagac, atsecabac ta araguijaren guerria, dino san Paulo apostolubac. *Tribulationem tamen carnis habebunt hujusmodi* (245). Au sinistuta vizi biar davee senar emazte guztiac. Euren cargac arinduteco ta vicitcia pena guchiagogaz iragoteco. Ezcontzaco sacramentubac daucazan ontasunac ta prutubac dira: 1. *Sacramentum daven gracia*. 2. *Sacramentubaren irauna*. 3. *Senar emazteen leijaltasuna*. 4. *Seme alavac Eleisiari emotia*. Entzun eguidazu gogoz.

I.

Ya icasita zagoz, neure cristinaubac, Eleisa Ama santiaren sacramentubac emoten deutseela arimiari gracia. Bada, ezcontzaco sacramentu santubaren
 630 lelengo mesedia bere, arimiari gracia emotia da. Ez dago onetan dudaric. Baita

 (244) De matrim. n. 23. (245) 1. ad Cor. c. 7.

611 ceintzuc] Ceentzuc *Ba* 613 presta era *Ba* 614 vici eria *Ba* 617 ez bada *Ba* 618
 daguijezan] daquijezan *Ba* 620 vici eran *Ba*

entzun dozu sarritan, sacramentu bacoachac emoten deutzazala arzailiari edo artuten davenari gracia bi. Bata, arimia santututeco; ta bestia, sacramentu bacoacharen eguiquizunai cobru emoteco. Bautismuac emoten ditu gracia bi. Bata, sortueraco pecatuba parcatuteco ta arimia santututeco; ta bestia, cristinautzaco sinistutia beti zal gordetaco ta Jesucristori jarraituteco. Compirmacinoiac emoten ditu gracia bi. Bata, arimia santu eguiteco; ta bestia, bautismoco sinistutiari indarra ta sendotasuna emoteco. Onan emoten ditubee gracia bi beste sacramentu guztiac. Bata, arimiaren oneraco; ta bestia, sacramentubari jagocan saillari cobru emoteco. 635 640

Sacramentu bacoacharen lelengo gracia, cein dan arimia santu eguitia, galdu legui cristinaubac. Ta galduten da edochein pecatu andi edo illgarrigaz. Pecatuba daguan ariman ez dago santutasunic, ez dago gracijaric. Baina sacramentu bacoacharen bigarren gracijac, sacramentubac bere saillari cobru emoteco cristinaubari emoten deutzan gracijac, bein artu ezquero, irauten dau cristinaubagan moduren baten. Emeti ezautuco dozu, cristinaubac, ezcontzaco sacramentubac ce gracia emoten deutseen ezcondubai, biar dan [342] presta-eriagaz artuten daveenian. ¿Ezconduten dira bijac ondo compesauta, Jaungoicuaren vildur santuban ta gracijan? Bada, bijai gueituten jacue arimaco gracia; parcatuten jacuez pecatu chicarrac; ta emoten jacue indarra, gracijaren contraco etsaijac goituteo. Au da arimia santututeco gracia. Ta onezaz gainerra emoten jacue bijai aparteco gracia, senar emaztiac alcar maite izateco, ceruba irabazten alcarri lagunduteo, baque santuban vici izateco ta seme alavac ceruraco azteco. Au da ezcontzaco sacramentubaren cargai cobru emoteco gracia. Bijac artuten ditubee senar emaztiac, gracijan ezconduten dirianian. 645 650 655

¿Ezconduten dira bijac edo bata pecatuban dagozala? Bada, pecatu illgarri-
jan ezconduten danari ez deutsa ezcontzaco sacramentubac emoten arimaco
gracia. Ta ascoren esanian, ezda ezcontzaco cargai cobru emoteco gracia
bere, ez orduban ta ez guero. Ara, cristinaubac, gracijan ezconduten dirianac
ceimbat onera artuten daveen sacramentu santubagaz. Ta pecatuban ezcondu-
ten dirianac cer galduten daveen. Balijau bada, neure cristinaubac, estadu a
artu gura dozunoc sacramentu santubaren gracia osuagaz. Au da ezcontciaren
lelengo oneria. Bigarrena da irauntsuba²⁹⁴ izatia. 660

II.

Onec esan gura dau, ezcontzaco lotugarrija edo buztarrija beticua dala. ¿Jaungoicuari erregututa, ondo pensauta, ezcontzaco vicieria onduen jaotzula 665

635 sortu eraco *Ba* 641 ceindan *Ba* 647-648 presta eriagaz *Ba* 658 ez da *Ba* 666 vici eria *Ba*

²⁹⁴ "Trauntsu": iraupen handikoa.

aleguinaz jaquinda, ezcondu zara ceure gogoco lagun on, maite bategaz? Bada, erijotciac baino bestec ecin quendu leguizu lagun ori. ¿Ceuc auqueratu dozu, berari ceu-[343]retzat ondo erichita, beste ascoren artian? Bada, bera edo ceu
 670 ill artian ceuria izango da beti ta ceu izango zara beria. Au da ezcontzaco sacramentubaren iraun santuba, senarra edo emaztia ill artecua. Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececua²⁹⁵. Ez da urteca eguiten dan tratuba. Ez da nai danian artu ta nai danian ichi eguiten jacona ezcontzaco bat eguitia. Jaungoicua bat eguin ditu ezcondubac. Bada, munducoc ascatu ecin leguiz
 675 eurac alcarri escubac emonda imini deutseen lotugarriti. *Quod Deus conjunxit, homo non separet* dino san Mateo apostolubac (246). ¡Oh, ce gauza ona ta pozgarrija alcar maite daveen senar emazteentzat, beti alcarregaz vicico diriana jaquitia! ¡Inoc bere alcarreganic ecin bacartu izatia! Seguru egon biar davee, bada, senar emaztiac ez ditubala inoc ascatuco, eurac lotu daveen buztarriti.
 680 Au da ezcontzaco sacramentubaren irauna. Atseguin andicua, Jaungoicuaren vildur santuban ta alcarren legue onian vici dirian senar emaztentzat. Baita pena andicua bere, garbatuta vici dirian ezcondubentzat. Emeti ezautuco dozu, cristinaubac, nosbait entzun edo icusi badozu dempora triste oneetan, urte beteco, bico edo orren beste urtetaco ezcondu diriala, aren ezcontciac ez davela balijo. Ez dala a sacramentuzco ezcontcia, ez bada pecatuzco bat eguitia.
 685 Araguijaren ta diabrubaren eguitiac dira alaco ezcontzac. Baita beste herege ascorenac bere.

Onetarico ezcontza iceneco ta araguijen naasteco pecatu loijen contra dauca Jesucristo gueure Jaunac bere Eleisan ezcontzaco sacramentu [344] santu
 690 garbija, ezcondubaren vicitza guztian dirauba. Ezcondubaren bat eguitia da Jesucristoc bere Eleisiagaz daucan bat eguitiaren irudija, dino san Paulo apostolubac (247). Jesusec Eleisa santa bere esposiari ichico ez deutsan leguez, senarrac bere ez deutsa ichi biar bere emaztiari. Eleisiac bere ez deutsa ichico Jesus bere Esposo onari; bada, emaztiac bere ez deutsa ichi biar bere senarrari.
 695 Jesusec maite dau bere Eleisia; ta Eleisiac maite dau Jesus. Bada, senarrac bere maite izan biar dau bere emaztia; ta emaztiac bere bai bere senarra. Jesusec gordeetan deutsa ta gordeco deutsa beti ciur Eleisiari, emon eutsan verbia; ta Eleisiac bere gordetan deutsa ta gordeco deutsa beti Jesus onari ciur ta zal bein emon eutsan verbia. Alan senar emaztiac bere alcarri gorde biar
 700 deutsee beti, sacramentu santuba, ceinetan ichi euan Jesucristoc senar emazten battasuna, maitetasuna, ascatu ecina ta leijaltasuna, dino Trentoco concilijo santubac (248).

 (246) Cap. 19. (247) Ad Ephes. c. 5. (248) Sess. 24.

667 jaquin da *Ba* 683 nos bait *Ba* 685 ez bada *Ba*

²⁹⁵ "Gaur baicua ta bijar ececua": gaur bai esatekoa eta bihar ez esatekoa, hau da, zalantzan eta ez-mezean ibiltzekoa, gaur eman den hitza bihar jatekoa...

III.

Alcarri darraicoz ezcontzaco sacramentubaren onerac. Lelengua da gracia
 ona ezcondubai emotia. Bigarrena da iraun onecua izatia; senar emaztiac alca- 705
 rri ichi ezina. Irugarrena da senar emaztiac alcarri legue ona gordetia. Ta lau-
 garrena Eleisiarentzat seme alavac aztia. Baina icusi daigun lelengo, cetan
 daguan ezcondubac alcarri legue ona gordetia. ¿Baquizu bada, cristinaubac,
 cetan daguan au? Ezcondubac escu emotian aguinduten deutsee batac bestiar
 bijac alcar senar emaztezat betico artu-[345]tia. Au eguin davee senar emaztiac 710
 Jaungoicuaren, Eleisiaren ta testiguben aurrian. Bada, oni darraico, bai sena-
 rrac ta bai emaztiac alcarri emon deutseen verbia beti ciur ta cintzoro gorde-
 tia. Zor andija da au, neure cristinaubac, senar emaztentzat. Baina ondo gorde
 ezquero, chito atseguin andicua. Ez dabee inos pensau biar senar emaztiac, bat 715
 diriala baino. Bere aitari ta amari ichita, emaztiagaz bat eguinda, bijac vicico
 dira aragui baten, dino Jesucristoc senar emaztiac gaiti (249). Ya ez dira bi,
 ez bada aragui bat. *Jam non sunt duo, sed una caro*. Senar emazten bat izate
 au gaiti dino san Paulo apostolubac (250): *Inoc bere ez deutsa gaisqui gura*
bere gorputzari; ez deutsa inoc gachic eguiten bere burubari. Bada, senarrac 720
bere ez deutsa guichiago gura izan biar bere emaztiari. Au gaiti esaten jacue
 senar emaztiari, euren gorputzac leguez maite izan biar ditubela euren lagunac.
 ¡Oh, ce gauza ona ezcondubentzat! Bataren pozac bijenac izatia; bataren
 atseguina bijac euquitia; bataren naibagac bijac artutia; bataren penaac bijac
 bardin iragotia; batac daucanian, bijac euquitia... ¡Oh ce gauza ona, dinot, onan 725
 senar emaztiac gauza guztietan alcar artutia, alcarri lagundutia ta alcar maite
 izatia, gorputz baten zatijac alcar artuten daveen leguez ta alcar jasoten dave-
 en leguez! Orduban ez dira aimbeste sentiduten estaduco berezco cargac,
 ardurac eta penac. Senar emaztiac alcar erruqui badabee, alcar maite badavee,
 alcar jasoten badabee, alcarri ecer ezcutetan ez badeutsee ta alcarri escu emo- 730
 teco verbia ciur gordetan badeut-[346]see, orduban erreztuago iragoten ditubee
 ez euquiya, gaixua, naibaguia ta beste ezcondubai etorri oi jacuezan gachac.
 Baina galduten badavee senar emaztiac alcarri zor deutseen leijaltasuna, sartu-
 ten bada euren vijotcetan lagunarentzat gogo vetia, artuten badeutsa batac edo
 bestiac inori carinua, asten badira alcarri lotsa ona galduten ta gaisqui esaten, 735
 laster diabrubac ecarrico deutseez beste burutacinoe asco alcarren contra. Baita
 laster oi da alaco alcarri leijaltasuna ta legue ona galdu deutseen senar emaz-
 ten echia impernu chiqui bat dirudijana bere, alcarri bidaoca ta alcar joca.
 Gorde, bada, senar emaztiac alcarri, ezcontzan emondaco verbia ta leijaltasu-

 (249) Matth. c. 19. (250) Eph. 5.

717 ez bada Ba 731 oijacuezan Ba 733 gogovetia Ba 736 oida Ba

740 na. Adulterijoco pecatu ezainaren gorrotua ta penac entzun cenduzan beste eracutsi baten.

IV.

Ezcontzaco sacramentubac laugarren lecuban emoten daven prutuba da, seme alavac Eleisiarentzat ta Jaungoicuarentzat aztia. Alan esan eutseen
 745 Jaungoicuac Adan eta Evari: *Crescite, et multiplicamini*²⁹⁶. Ezcontzati campora seme alavac sortutia pecatu da. Seigarren aguindu santuban eragotcita dauca Jaungoicuac. Ezcontzaco sacramentuba da seme alavac azteco. Eguiija da, ez deutseez Jaungoicuac ezcondu guztiai umiac emoten. Batzubei bat bere ez. Beste batzubei, nai leuquen baino gueijago. Jaun andijac berac daqui au cer
 750 gaiti eguiten daven. Baina ezin ucatu guinai, seme alava onac diriana ezcontciaren prutu estimauba, Jaungoicuac emoten ditubanian. Ondo acitaco seme alavac Jaungoicuari emoten deutsee gloriya, cerubari atsequina, Eleisiari ondria, errijari laguntasuna ta [347] gurasuai poza ta gozotasuna osasunian ta gaixuan, vicitzan ta erijotzan. Gaisqui acitaco umiac bestera. Gurasuai atsecabac ta lo-
 755 tsarizco zaarza chaarra, errijari desondria, Eleisiari ta juezai naibagac ta cerubari esquer chaarra. Au da gaisqui acitaco umeen amaija.

Gogoratu bada, cristinaubac, ezcontzaco sacramentubaren prutubac diriala, arimaco gracia ta estaduco gracia; ezcontciaren beraren irauna; alcarri gorde biar deutseen leijaltasuna ta seme alavac ceruraco aztia. Escatu daijogun
 760 Jaungoicuari, bere gracia, baquia ta bendicinoia ezarri daguijuen ezcondu guztiai. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

V. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan:

1. *Arriscu andicuac diriala diruba gaiti eguiten dirian ezcontzac.*
- 765 2. *Baita inoren ederra ta empeinuba gaiti eguiten dirianac bere.*

Eracutsi ezquero cristinaubari cer dan ezcontzaco sacramentuba; celan artu biar dan; ta ce onera santubac daucazan biar dan leguez artu ezquero, bai cristandade guztiarentzat ta bai cerubarentzat, ez da errazoeti campora izango,

²⁹⁶ Ik. Has 1,28.

neure entzula onac, nic zubei eracustia, cegaiti oi dirian ezcontza chaarrac. Ecin ucatu guinai, senar emazte asco vici diriana alcarren gorrotuan. Batzuc alcarregaz ta beste asco bacartuta, senarra lecu baten ta emaztia beste baten errico cer esanagaz ta Eleisiaren naibaguiagaz. Au gach andija da. Eurentzat andijena. Baita euren [348] umeentzat ta beste ascorentzat bere ez chiquija. Onaco senar emazten arteco vicitza gaistua ta alcar artu ecinecua gueijenian da, dirudijanez, eurac gura daveelaco. Bada, senar emaztiac benetan nai balebee, alcarren paltac iragoco lituque paciencijagaz, Jaungoicuari gracia escatuta ta vicico litzatequez baque santuban, cein dan ezcontzaco sacramentubaren prutu estimauba.

Alan bere, ezconduben vici gaistuac ta baque charrac sarritan oi dau sustraijan gacha. Ta gach a ez da osatuten ain erraza. Sustraijan gacha daucan landaria beti izango da erquina²⁹⁷, luur onian egon arren. Cimentuban paltia daucan ormia, beti dago jarquera²⁹⁸ chaarragaz, jausteco arriscuban, azaleti echura ona euqui arren. Beste aimbete jazoten da ezcontzaco vicieriagaz. Uts eguiten da asieran, paltetan da cimentuban, gaixotuten jaco sustraija ezcontciari; ta gueratuten dira ezcondubac lelengo lelengoti alcarren arteco gachagaz ta atseguin bagaric ta baque on bagaric vici izateco gaixuagaz. ¡Ce mirari da, bada, guero alcar ez artutial Eguiten dira ezcontzac, laster aaztu edo amaituten dirian luurreco gauzac gaiti, edo ezcondubac Jaungoicuaren vildur santuban vici izateco balijo ez daveen gauzac gaiti, bestelan eguingo ez litzatezanac edo eguin biar ez leuquenac. Esan gura neuque, ascotan laguna bere gogocua ez dala ta a baino beste bat bere laguntzat goguan obeto jausten jacola, eguiten diriala ezcontzac *munduco gauzaren bat gaiti*, bestelan eguingo ez litzatequezanac.

Esaten da bada, neure entzula onac, luur-[349]reco gauzac gaiti ezcondutia ostian eguingo ez litzatequian lagunagaz, arriscuco ezcontcia dala; Jaungoicuaren videti ta Eleisa Ama santiaren erreguela edo neurgarri santubetati ez dan ezcontcia, arriscuco ezcontcia dala. Lelenguac oi dira, diruba gaiti eguiten dirian ezcontzac. Inoren ederra edo empeinuba gaiti eguiten dirian ezcontzac. Ta juez aurreti eguiten dirian ezcontzac. Bigarrenac oi dira, Jaungoicua opendiduta eguiten dirian ezcontzac. Ta baita seniden ezcontzac bere ascotan. Eracutsi onetan esango deusut bacarric, ce arriscutacuac dirian *diruba gaiti eguiten dirian ezcontzac, ta inoren ederra edo empeinuba gaiti eguiten dirianac*. Entzun eguizu, cristinaubac, uste dozun baino gueijago balijo daven eracutsi au aimbat gogoric oneenagaz.

769 Ce gaiti oidirian Ba 779 oidau Ba 783 vici eria gaz Ba 796 oidira Ba 798 oidira Ba

²⁹⁷ "Erquin": kaskarra, txiki geratutako gorputza duena.

²⁹⁸ "Jarquera": jarrera.

I.

805 *Arriscu andicua da, bestelan eguingo ez litzatequian ezcontzia diruba gaiti*
bacarric eguitia. Ez da onegaz esaten, cristinaubac, ezcondubac ez davela esti-
 mau biar dote ona edo cegaz vici euquitia euren estadu barrijan. Bada, erra-
 zoiac escatuten dau ta Escritura Sagradubac esaten dau, gurasuac umiai dotia
 810 emotia, al izan ezquero, ezconduten dirianian. Au mundubaren asierati onacua
 da. Errazoiac, Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiac ontzat emoten daveena da. Ta,
 al daguijela, jagocuen ezcontcia eguiteco umiai ecer emon gura ez deutsen
 gurasuac, zamai²⁹⁹ andijac mereci ditubee. Ezconduteco laguna dote onecua
 izatia, cerbait gueijago daucana edo aberatsa nai izatia ez dau inoc deungatzat
 815 emoten, jagocuen balijua dirubai ta euquijari emon ezquero. Bide bagacua ta
 sail gais-[350]tocua da norberaren gogoco ez danagaz ezcondutia, aberatsa
 dalaco. Alaco ezcontciac asiera errena darua beragaz. Ecarri eguizu gogora,
 ezconguei bat dala, edo ordija, edo ocasinoetsuba, edo jocolarija, edo aixetsu-
 ba ta maina gaistuetan acija, edo oitura nasaijetacua ta cristinau usain guichi-
 cua, edo alperra ta buruguina, edo odol cer esanecua, edo osasun guichicua.
 820 Baquizu ac ezcongueijac, onaco ceuri gogua illten deutsun palta bat edo bi edo
 gueijago daucazana. Baina dote ona daucalaco, dirubac daucazalaco edo abe-
 ratsa dalaco ezconduten zara agaz, ezcongueijari carinoric ez deutsazula ta
 bere paltac gaiti goguan jausten ez jatzula. Au, dinot, neure entzula onac, dala
 arriscu andico ezcontcia.

825 Bateti, dirubac eta ondasunac aixe bat leguez dira. Ascotan bapere igarri
 bagaric, queia leguez, ezcutetan dira. Au sarritan esaten deuscu Escritura
 Sagradubac. Ta egun oro icusten dogun gaucia da. Guizon bat nai emacume
 bat da asco eche aberats bat pobretuteco ta acienda osuac galduteco. Diruba
 gaiti gogoco ez dan lagunagaz ezconduten dana, gueijago ezconduten dala,
 830 esan legui, dirubagaz, lagunagaz baino. Laguna gura ez leuque ta diruba gura
 leuque. Ta laguna bagaric diruba ecin davenian, artuten dau gura ez daven
 laguna, gura daven diruba gaiti. ¿Ta cer jazo oi jacue alaco dirunaico ezcon-
 dubai? Ez guichitan jazo oi jacue, maite daven diruba jua ta maite ez daveen
 lagunagaz gueratu. Au oi da, dirubac ta euquija gaiti ezcondu dirian ascoren
 835 negargueija.

Baina dirubac ta ondasunac iraungo balebee [351] bere, ¿cetan gueratuten
 da goguaz contraco lagunagaz ezconduten dana? ¿Ceimbat senar emazte abe-
 rats ta baque charreco icusten dira? Esango neuque, baque gaistua eguiten

809 al izan *Ba* 811 aldaguijela *Ba* 813 cer bait *Ba* 829 lagunagaz] laganagaz *Ba*
 (380.or.: lagunagaz) 832 oijacue *Ba* 833 oijacue *Ba* 834 oida *Ba*

²⁹⁹ "Zamai": gehienetan mehatxua esan nahi du, baina hemen "zigorra", "kastigua" esan nahi du.

daveen senar emazteric gueijenac diriala, cerbait modu onian euquijan dago-
 zana. Pobrechu edo mee vici dirian senar emaztiac, baque gueijago oi davee 840
 euren artian. Ez da, bada, contu seguruba senar emazten baqueraco, diru asco
 euquitia edo aberats izatia. Diruba gaiti ezcondu danari, diabrubac laster aaztu
 eraguiten deutzaz lagunac ecarri cituban dirubac; ta gogoratuten deutzaz vici-
 ro lagunac daucazan paltac. Leen diruba gaiti artu evan laguna. Orain dirubac
 emongo lituque pocic, laguna ez euquitia gaiti. Onan pensau eraguiten deutsa 845
 diabrubac, diruba ta euquija gaiti gogoco ez dan lagunagaz ezcondu danari.
 ¿Ta dirubac eucazanari? ¿Aberats eguanari? ¡Oh! milla tacha ta palta euqui arren,
 aixaatuten deutsa buruba diabrubac. Ta uste dau, bera maite izan biar davela,
 ta adarau biar davela lagunac. Berac eucalaco daguala echian cer jan; ta beste
 palta guztiac parcatu biar deutzazala lagunac... 850

Ara, neure entzula onac, bestelan eguingo ez zan ezcontcia eguiteco bali-
 jo izan even dirubac ta ondasunac celan giretan dituban orain diabrubac,
 senar emazten baquia galduteco ta vicitza penazcua iragoteco.

Ez da gach ezaututen alaco senar emaztiac, alcarren amodijo bagaric, erru-
 qui bagaric ta poz bagaric, celan iragoco dituben urtiac, egunac eta ordubac. 855
 Errucarija da duda bagaric euren vicitcia. Alcarri citalquerijac ta errazoe [352]
 minverac esaten deutseezala. Bata bestiaren lotsagarrijac ta paltac arpequira
 ateraten deutsezala. Ta inos bere gozo onic alcarrentzat ez dauquela. ¿Ceimbat
 onaco ezcondu triste? ¿Ceimbat senar emazte gozo gaistoco? ¡Ojala inoren
 gachagaz contuban jausico balira bestiac! ¡Ojala, ezcondu gura davenac guei- 860
 jen beguiratuco baleutsa, ez dirubari, ez euquijari, ez bada lagun gueijaren
 ecandu onari, cintzotasunari ta cristinautasunari! Baina ez jaco oni casu andiric
 eguiten, ezcontcia eguiten danian. Esan oi da orduban: *Dote ona dauca ta;*
eche ona dauca ta; aberatsa da ta; alcar artuco davee ... Onan dirubari ta
 euquijari poztuta³⁰⁰ eguin oi dira, bestelan eguingo ez litzatequezan ezcontza 865
 asco. Endamas dempora triste oneetan. Esan guinai san Juan Crisostomogaz
 (251), saldubaz leguez eguiten diriala ezcontzac. Beste tratubetan baino codi-
 cija gueijago ta asmo³⁰¹ gueijago dagozala ezcontcetac; ez jacola beguiratuten
 ce ontasuneco lagunagaz bat eguiten dan, ez bada ce dote edo aciendagaz bat
 eguiten dan ta ezconduten dan. Alan desprecietan davee sacramentubaren gra- 870
 cija ta Jaungoicuaren doia. *Ita donun dei vituperant*, dino Santubac.

 (251) Hom. 74 in Matt.

840 oidavee *Ba* 857 lotsa garrijac *Ba* 863 oida *Ba* 865 oidira *Ba* 869 ez bada *Ba*

³⁰⁰ Esapide hau ez zaigu ezagun egiten; *noti* sintagmaz ez genuen itxaroten, orain ez baitu-
 gu horrela erabiltzen; orain "diruaren eta eukiaren pozean" idatziko genueke...

³⁰¹ "Asmo": hitz honek adiera makurra du hemen, batzuetan, "asmotsu" hitzak izaten duenez;
 hau da, maltzurkeria, amarrua... esan nahi du.

Sinistu bada, neure entzula onac, ondasunac onac diriala, baque santuba ta alcarren amodijua dauquen senar emaztentzat, euraquin evangelijo santubac
 875 esaten daven moduban balijauta Jaungoicua obeto serbiduteco. Baina senar emaztiac alcar maite ez badabee, alcarren gogocuac ez badira lelengoti, beguija betetan ez deutsan lagunagaz ezconduten bada dirubac daucazala-[353]co, dirubac eurac ta aciendia izango dira orduban eche ataco guerraguinac. Sinistu, bada, arriscu andijan gueratuten dala ezcondubren baque santuba, bestelan
 880 gogoco ez dan lagunagaz dirubac gaiti ezconduten danian.

II.

Baita inoren ederra gaiti edo empeinuba gaiti eguiten dirianac ber e. Dinot, *inoren ederra edo empeinuba gaiti*, bide bagaric, modu bagaric ta errazoe bagaric erreguca, edo empeinuz, edo zamaica gogo bagaco lagunagaz
 885 ezcontcera norbait giretan danian. Au jazo leiteque modu ascotara. Guraso batec esango baleutsa umiari: *Urlijagaz ezconduten ez bazara, ez dotsut*³⁰² *aciendia emongo; edo ez deutsut doteric emongo.* Ugazaba batec bere esan leguijo otseginari edo errenterubari: *Urlijagaz ezcondu biar dozu;* edo, *urli - jagaz ezconduten ez bazara, echeti ateraco zaitut* , edo, *ez dozu ene echian cer*
 890 *eguinic izango*. Baita jazo leiteque au senide bategaz edo beste aguindute isquiija³⁰³ daucanagaz bere. Bada, guztiac gaiti esaten da, onaco inoren empeinuba edo ederra gaiti noberaren gogoco ez dan lagunagaz ezcondutia, arriscu andicua dala. Ez dinot ezcontza oneec diriala Eleisiac balijua quenduta daucazan bildurrezco ezcontzac. Tercijo atara eldu ez arren, gauza jaquina da, gurasuaren, senidiaren, ugazabaren edo nausi baten erregubac, empeinubac ta
 895 zamai erdijac giretan daveela asco, aguindupian daganaren gogua. Ta ecarten daveela, vorondate guztia edo libertadia quendu ez arren osoz, bestelan eguingo ez leuquiana eguitera. Baita inos goguan sartu ez jacan lagunagaz ezcondutera bere, ascotan jazo oi dan leguez. Au da sus-[354]traiz gaixoco ezcontzia.
 900 Au da arriscu andico ezcontcia.

Eguiija da, seme alabac ez davee ezcontzaco verbia emon biar (al izan ezquero) gurasuen naija bagaric edo gurasuen lecuban dagozanai esan bagaric ta euren errazoezco najjaren contra (252). Asco balijo dau gurasuen najjac

 (252) Catecism. Rom. n. 32.

878 guerra guinac *Ba* 895 senidiaren] senidiaren *Ba* 899 oidan *Ba*

³⁰² *Esku*-n adizki-forma hauek normalak dira, baina ez gainerako liburuetan. *Esku*-n eta hemen, herritar arrunt baten ahotan jarrita, agertu izanak salatzen duenez, herriko ahozko formak hauek izango ziren, eta *deutsut* eta gainerakoak bizkaierazko idazkeran nagusitu zirenak...

³⁰³ "Isqui": gauza arina, balio gutxikoa, txikia.

ta bendicinoiac, seme alavac euren ezcontzaco estaduban dicha ona ta baque 905
santuba euquiteco. Gueijenian, gurasuac obeto daquije seme alava gaztiac
baino, cein dan eurai onduen juacuen laguna. Gurasuac Jaungoicuaren lecuban dagoz. Seme alaven ona nai davee. Seme alavac baino buruban pisu gueijago dauquee. Errazoe zucenagua ta ezaubera arguijagua dauquee. Ta gueijenian, edo oi danez, umiaren ezcontciari ta ezcongueijari obeto beguiratuco 910
deutsa guraso eldubac ta Jaungoicozcuac, umiac berac baino. Au gaiti esaten jacue seme alavei: *Lelenga* Gurasuari contu emon bagaric ezcontcia eguitia, al izan ezquero, pecatu dala. *Bigarrenian* : Guraso elduben ta Jaungoicozcuen escubetan ichi daiquela umiac euren estaduco laguna auqueratutia ta ezcontcia eguitia. Dinot, *guraso elduben ta Jaungoicozcuen*. Bada, oi dira guraso 915
berdesca batzuc, umiac euren ezcongueijequin echian ta campuan ibili arren, penaric artuten ez daveenac. Alaco guraso eltzaquiac edoceinegaz ta edocein modutan ezconduco dau umia. Ta ez da nai ta ececuca alaco gurasuaren esana umiac eguitia bere ezcontzan. *Irugarrenian* : Esaten jacue umiai, guraso eldubaren naija eguinagaz ezcontzan, eguiten dau mo-[355]duren baten 920
Jaungoicuaren beraren naija. Ta darua beragaz ezcontciac asiera bat ona. Gurasuen errazoezco najjaren contra eguiten dirian ezcontzac cer icusi andija dauquee ta oi dira, ez guichitan, amai gaistocuac.

Ez da, bada, ondo, gurasuen errazuazco najjaren contra ezcondutia. Ezda, gurasuac, ez bestec bere, empeinubagaz ta zamai erdijagaz inor ecartia ezcondutera gogoco ez dan lagunagaz. Jaungoicuac emondaco libertade osua dauquee umiac, nai daveen estaduba edo vicieria artuteco. Baita ezcondu gura badabee, euri arimaraco ta munduraco onduen juacuen laguna artuteco bere. Errazuazco ta Jaungoicuac umiai emondaco escubide onen contra da, gurasuac nai beste edoceinec, euren aparteco irabacija gaiti, empeinuba edo temia gaiti, 930
eurac derichuenagaz edo euren ederrecuagaz inor ezcontcera ecartia, aren gogocua ez dana ezautu arren. Au duda bagaric pecatu andija da. Ta ez guichitan jazoten dana. Ecarten ditubee ezcontcera, batzubetan gurasuac euren ume tristiciac, beste batzubetan ugazabac euren errenteruben umiac, beste batzubetan otseguinac, batez bere andi echeetacuac; ecarten ditubee ezcontcera, 935
dinot, euren gogoco ez dirian lagunaquin. Iкуси bere gura ez lituquen lagunaquin. Gogo betia ta empaduba emoten deutesen lagunaquin. Dotia ez galdutia gaiti, ugazabagazcua ez galdutia gaiti, andiquijagazcua ez galdutia gaiti ezconduten da inos maite izango davela sinistu ezin daven, lagunagaz.

¿Ta ceimbat calte, neure entzula onac, alaco ezcontzati? ¿Celan gueratuten 940
dira alaco se-[356]nar emaztiac? ¿Ce vizitza eguingo davee, alcarri gozoric eta legueric ez deutseenac? Esango davee alaco ezcontzaguinac, *odol onecua dala*;

910 oidanez *Ba* 915 oidira *Ba* 923 oidira *Ba* 924 (ezcondutia.) Ez da *Ba* 927 vicia *Ba* 942 ezcontza guinac *Ba*

*Guraso onen umia dala; gaucia ondo daucala; ta alcar artu baino ez dau -
 queela...* ¿Baina cer balijo deutsa ceure semiari edo alaviari, ceure otseguinari
 945 edo errenterubari zuc emon deutzazun ezcongueijaren odol garbijac, ezcon-
 gueija bera icusi ecin badau? ¿Cer, guraso onen umia izanac edo gaucia euqui-
 jac, bere ezcongueija, bere laguna, beragaz vici biar davena bere gustocua ez
 bada, inos goguan sartu ez jacona bada? ¿Nos edo celan oneec alcar estimau-
 950 co davee ta amauco davee, ezcontzaco sacramentu santubac aguinduten deu-
 tseen moduban? ¿Celan eguingo davee vicitza baquetsuba, alcar artuba ta
 Jaungoicozcua, alcarri vorondateric ez deutseen senar emaztiac? Ceubec pen-
 sau astiro, neure entzula onac.

Baina esaten deutsut bai gurasuai, bai senidiai, bai ugazabai ta bai beste
 guztioi, ez daguijozula inos ezcontzaric aiatatu inori, bere nai osoco, gogo
 955 osoco ta ezaubera errazuazco lagunagaz ez dala; ez daguijozula inos inori, ez
 umeri, ez otseguini, ez errenteruri, ez besteri, esiric edo munaric imini dotia
 edo echia edo adisquidetasuna ucatuta, urlijagaz ezconduten ez bada, ceuben
 arimac ta areenac impernura bota ez daguizuzan. Baita esaten deutsut ezcon-
 960 duteco zagozan guztiai, ez zaitezala inos ezcondu inoren empeinuba, erregu-
 ba edo ederra gaiti, ceuben gogoco ez dan lagunagaz; ceugaz vici izateco ondo
 ez derichazun lagunagaz. Ezda ecer gaiti bere. Munduban impertu chiqui bat
 [357] ta guero betico andi bat irabaci ez daguizun. Au jazo oi jacue ascori, edo
 munduco euquija gaiti, edo inoren ederra gaiti noberaren gogoco ez dan lagu-
 nagaz ezconduten darian. Emen gozo gaistoco vicitcia ta guero Jaungoicuaren
 965 aurrian cer icusi andija. Ezcontzaco sacramentu santuba ichi euscun
 Jaungoicuac emon daigula guztioi bere gracia ta laguntasuna, baque santuban
 caridade santuban ta Jaun andijaren beraren bildur santuban vici izateco ta
 ceruban ainguerubaquin beti bera maitetuteco. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu
 Santubaren icenian. Amen.

VI ICASIQUIZUNA,

970

ceinetan eracusten dan:

1. *Ce arriscutacuac dirian juezaren aurreti eguiten dirian ezcontzac.*
2. *Celacuac oi dirian Jaungoicua opendiduta eguiten dirianac.*
3. *Celacuac oi dirian senide ezcontzac.*

Gauza pisutsuba ta ardura andicua da, neure entzula onac, aldatu ecin 975
 leguijan estaduba edo vicieria artutia. Beste tratubetaco uts eguitiac celanbait
 erremedijau oi dira. Baina ezcontzaco uts eguitia nequez. Tratu guichitan oi
 dira engainugarri ta utsgarri gueijago, ezcontcetan baino. Ez daquit ce aixec
 jota, baina itsututa leguez gueratu oi dira cristinaubac, ezcontcia eguiten
 danian edo eguin biar danian. Uste davee ascoc, oquer edo zucen asmau edo 980
 asi dan ezcontcia, eguin ezquero, ondo daguala guztia. Au gaiti jazo oi dira
 guero leen esan dirian naibagac ta escandalubac. Berau gaiti, [358] ecer bere
 gueratu ez dedin esan bagaric ta jaquina egon zaitezcan ezcontcen utsgarri
 nausijen ta sarrijenecuen ganian, esango deusut eracutsi onetan: 1.
Arriscucuac diriala, juezaren aurreti nequezca eguiten dirian ezcontzac . 2. 985
Arriscucuac diriala, Jaungoicua opendiduta eguiten dirianac . 3. *Cer icusi*
andija dauqueela senideenac. Entzun eguizu gogo onagaz.

I.

Juezaren aurreti nequezca eguiten dirian ezcontzac . Onacuac oi dira, edo
 ezcontzaco verbia emonda, edo beste calteren bat eguinda, ezcontcia aguin- 990
 duba garbatu jacuenen artian. Orduban dira alcarren quexac. Orduban dira
 alcarren paltac esatia. Orduban da ondria jasotia ta beste sarri entzun oi dirian
 zaatac. Emeti oi dator ezcongueija guzurragaz edo eguijagaz justicijagaz zamai-
 tuta juez aurrera eruatia, carcelan sartutia, bestegaz ezconduten ez istia edo
 emon ecin daven beste dote escatutia ta beste onaco sailac. Oneen gainian esa- 995
 ten da: *Lelenga* Ezconduteco verbia ez dala emon biar ondo pensau bagaric.
Bigarrenian : Bein emon ezquero inori ezconduteco verbia, cobru emon biar
 jacola aguindubari, aparteco errazoe pisutsu bat aguertuten ez bada edo jazot-
 ten ez bada ezcongueijen artian, ceinec eragotci leguijan jaquitunen erichijan

973 oidirian *Ba* 974 oidirian *Ba* 976 vici eria *Ba* | celan bait *Ba* 977 oidira *Ba*
 977-978 oidira *Ba* 979 oidira *Ba* 983 egonzaitzezan *Ba* 989 oidira *Ba* 990 eguin da *Ba*
 992 oidirian *Ba* 993 oidator *Ba*

1000 verba emonari cobru emotia. Alaco palta ez jaquin, jaquin biar zan pisutsu bat
 aguertuten danian edo ezcontzaco verbia emonda guero jazoten danian, nai
 badau ezcondu daiteque verbia emon deutsanagaz ta nai ez badau, ez. Baina
 osterancian, ezcontzaco verbia ta aguinduba gauza andija ta astuna da. Eleisa
 Ama santiac eracusten daven edadiagaz, ezauberiagaz [359] ta alizatiagaz ta
 1005 beste aintzaz artuta dagozan leguen calte bagaric emon ezquero ezcontzaco
 verbia, zorra da ta zor andija da. Bada, cobru emon biar jaco verbiari.
Irugarrenian : Esaten da bein alan ezcontzaco verbia emon ezquero lagunari,
 Eleisiaren ta erregue jaunen legue artubac ontzat emoten daven moduban, ver-
 bati urteten davena ta garbatuten jacona juecez ecarri leguijala ezcondutera,
 1010 beste edocein zordun zorra paguetara ecarri leguijan leguez.

Ez da, bada, esaten errazoe bagaric burutacinoe bat gaiti garbatuta, verba-
 ti urten davena ecin ecarri leguijala juez aurreti, carcelati, nai edonundi ezcon-
 tcera. Ataraco dagoz Juezac. Ta au ez da pecatu. Beste gauza bat izango litza-
 atequé, guzurragaz, engainubagaz edo paltsaquerijaz ezcontzaco verbia emon
 1015 deutsalaco ta edo caltiac eguin deutsalaco ta, erru bague bat juez aurreti ezcon-
 tcera ecarrico baleu. Au pecatu andija da. Au eguiten davenac jaso biar deu-
 tsaz erru baguiari, euqui dituban calte guztiac. Viurtu biar deutsalaco atcera ondria.
 Ta, testigu paltsuaquin nai guzurrezco edo engainuzco paperagaz juez aurreti
 ecarri arren ezcontcera, ecin ezcondu leiteque concienjian erru baguiagaz. Ta
 1020 ezconduten bada, ya edoceinec daqui alaco ezcontzac cetan gueratu oi dirian.
 Ez da orain esan gura neusquezuna onaco guzurrezco ta engainuzco derrigo-
 rreco ezcontzac gaiti. Alaco ezcondu nai embusterai Eleisa guztiac ta mundu
 guztiac deutse gorroto.

Esaten deutsalaco da, cristinaubac, errazoiagaz izanda bere, juezaren
 1025 aguinduz derrigorrian eguiten dirian ezcontzac arriscu andicua [360] diriala. Ez
 da gach, neure entzula onac, au ezaututen. Juezagana bagaric ezconduten ez
 dana, gogo bagaric dua ezcondutera. Damututa dago, garbatuta dago verbia
 emona. Leen cerbait gaiti bere laguntzat ondo erichanari, orain ez dericho
 ondo. Ta juez aurrian ta mundubaren aotan daravillelaco, gorroto deutsalaco. Ez
 1030 dau agaz ezcondu gura. Ascatu edo librau gura leuque bere buruba a ganic.
 Beste gach andi baten jausi ez dedin, edo bestegaz ezconduten ichico ez deu-
 tsalaco, *baitez* esaten dau ta ezconduten da. Beguiratu bada, cristinaubac, car-
 celati edo nora ecian leguez escubac emon ditubanac celan estimaucó daven
 ezconduta guero bere laguna. Emacumiac oi dira gueijenian, ezcontzaco verba
 1035 emonaren villa, juez aurreti davilzanac. ¿Celan beguiratuco deutsalaco, bada,
 goguz contrara gura ez euquianagaz derrigorrian ezcondu dan senarrac, atara
 betico juez aurreti ecarri daven emaztiari? Ceubec pensau, cristinaubac. Esango

1000 biarzan *Ba* 1012 edo nundi *Ba* 1020 ya|ija *Ba* | oidirian *Ba* 1034 oidi-
 ra *Ba*

dozu: *Ez dauca errazoeric; zor dau ezcondutia; ez eucan verbia ez emon baino...* Au contu ona da juez batentzat. Baita auzo batentzat bere, barre eguinda esateco. ¿Baina ain contu ona izango ete da agaz ezconduten dan emaztiarentzat? ¿Au esanac, maitetu, bigundu ta carinotuco ete dau senarraren vijotza bere alaco emaztia ganaco? ¿Ez dira gauza asco eguiten errazoiaren ta zorraren contra? ¿Ez oi derichagu ondo, oquer nai zucen, gueuc eguiten dogunari? ¿Ez gara zaliac gueure temiagaz urteten, errazoe guichigaz izan arren? ¿Nos aaztucoco jaco, bada, senarrari, goguz contrara, juez aurreti ta zamaijaquin emaztiac ezcondutera ecar-[361]ri ebana? ¿Nos iruntsico ete dau guztiz, bere temiagaz urten ez euan penia? ¿Nai ez euquian emaztia artu eraguin eutseena? ¡Ah! onec dira, neure cristinaubac, diabrubac alaco senarrari beti viciro gogora ecarrico deutzazan penac eta minac. Ez bada, cristinaubac, ezcontzatic eguin juez aurreti. Ez ibili nai ez davenaren ondoric ezconduteco. Errazoia ceubec euqui arren ta bestiac ceubei ezcontcia zor izan arren, gogo osuagaz nai ez badau, ichi pocic. Bestelan, vicitza gaisto bat beti euquiteco arriscu andijan jarten zara. Au oi dacarree juez aurreti eguiten dirian ezcontzac. Baita, ez guichitan, Jaungoicua opendidubaz eguiten dirianac bere. Icusi daigun celan.

II.

Jaungoicua opendiduta eguiten dirian ezcontzac . Onec dira, neure cristinaubac, ezcontza guztien artian Jaungoicua gueijen asarratuten daveenac, ezcontzaco sacramentubari ondraric chaarrena emoten deutseenac ta Jaungoicuaren azotia euretara edo euren umeetara lasterren ecarten daveenac. Beste esan dirian ezcontzaco uts eguitetaraco oi dira ez jaquinac, oi dira ez ustiac, oi dira inoren esana eguin gurac ta beste achequija asco, ezcontcia sustraijan gaixotuten daveenac ta ain erru aguirija ez dauqueenac. Baina cristinau errijetan ez dago ezcongueiric, pecatu eguinda eguiten dan ezcontciac oin charra, asiera charra ta Jaungoicuaren gorrotua beragaz daroiana ez daquizanic. Au onan izanda bere, negargarrija da, neure entzula onac, sail onetan daguan itsutasuna ta pecatubaren vildur chiquija. ¿Ez deutsa, cristinaubac, Jaungoicuac gorroto pecatubari? ¿Ez [362] euan Jaungoicuac mundu guztia ito pecatuba gaiti? ¿Ez cituban ciudade osuac erre ceruco subagaz pecatuba gaiti? ¿Ez euan impernuba eguin, pecatarijac erreetan an beti euquiteco? ¿Ez cituban demoninuac ta diabrubac betico impernura bota pecatu mortal edo illgarri bat gaiti? Bada, cristinaubac, aimbeste gorroto badeutsa Jaungoicuac pecatu andi bacochari ta alan castiguetan badau edocean pecatu illgarri edo mortal, ¿celan beguiratuco deutsa ezconduteco eguiten dan pecatubari? Dinot, *aimbeste*

1043 oiderichagu *Ba* 1053 oidacarree *Ba* 1060 oidira *Ba* | oidira *Ba* 1061
oidira *Ba* 1063 eguin da *Ba* 1065 izan da *Ba*

gorroto badeutsa edocean pecatu andiri; ez euquijac eraguiten daven lapurreta
 1075 bati; caltiaren peniac ateraten daven gorroto bati; gosiac ausi eraguiten daven
 barau bati; vildurrac eraguiten daven guzurrezco juramentu bati... ¿ceimbat
 gorroto gueijago izango ez deutsa, ceimbat gueijago castigauco ez dau sacra-
 mentu santubaren queiciagaz eguiten dan pecatu loijari? ¿Ezcontzaco sacra-
 1080 mentuba estalguitat artuta eguiten dan pecatubari? Ezconduco diriala ta vici
 dira pecatuban lotsa bagaric, vildur bagaric ta cer esana auzuetan ta errijan
 emoten daveela. Ezcontceco verbia escatuten da, pecatu eguiteco. Sacramentu
 santubaren estalguija biar da, sacramentubac emon euscuzan Jesus maitia ta
 garbija desondretaco. ¡Oh, cerubac! Ez daquit celan beguiratuco deutzazun,
 guizonac eta emacumiac, nescac eta mutillac araguiuzco pecatubac eguiteco dia-
 1085 brubac asmau daven astucija madaricatu oni.

¿Baina celan beguiratuco deutsee? Chito gorroto mortalagaz. Jaungoicua
 bedeincatu ta santutu biarrian ezcontcia eurentzat ta ondorenguentzat, alaco
 pecatubaquin loituta ezcondu-[363]duten dirianai ucatuten deutsee bere graci-
 ja ta sacramentu santubaren virtutia. Ta ezarten deutsee vicitzaco ur mingochac
 1090 daucazan vedar gaistua. Oneec gaiti esan legui, ainguerubac Tobiasi esan eu-
 tsana, *luxurijaren Asmodeo demoninuagaz ezconduten diriala alacuac* ³⁰⁴. Ez
 daucazu cetan cansau pecatu eguinda ezcondu zarienoc, cer gaiti ete dan
 jaquitzen, era chaarra edo nai baguia ceuben vicitzan dacuszunian. Senarrac
 estimetan ez bazaitu, zurria ta colpiac emoten badeutsuz, inogaz verba bat
 1095 eguiten isten ez badeutsu, celo arrabijauz erretan badago, ceuri baino beste
 emacumiai carino gueijago badeutsee, sinistu daiquezu ceuc ezcondu orduco
 beragaz eguin cenduzan pecatubaren castiguba dala guztia. Badaucazu emazte
 barritsuba, citala, temosia, alperra, buruguina, ardura baguia, errazoe minverac
 arpeguijan esaten deutzuzana, bere adisquidiai zuri baino arpegui arguijagua
 1100 eracusten deutseena... sinistu daiquezu ceuc ezcondu orduco beragaz eguin
 cenduzan pecatu loijen castiguba dala. Etorten bajatzu ceuben echera, seme
 alavetara edo ondorenguetara baque chaarra, lotsa chaarra, naibaguia, gacha
 edo atsecabia, sinistu daiquezu ezcondu orduco pecatu eguin cenduban senar
 emaztiac, ceuben orduco pecatubaren sari mingocha dala ceubei ta ondorenguai
 1105 negar eraguiten deutseena. Ez da gure Jaungoicua zurezcuca. Castigauco ditu
 gurasuen pecatubac laugarren belauneraguino. Gurasuac ez oi davee erru gui-
 chi gauza onetan. Seme alabac ezcontza achaquijagaz gaisqui vici diriana
 daquijela, lo eguin oi davee ardura bagaric. ¡Oh, gurasuac eta umiac! Ce gui-
 chi nai [364] dozun ceuben ona. Bildurtu, bada, Jaungoicua opendituta eguiten
 1110 dirian ezcontzaquin ta entzun cerbait seniden ezcontcen gainian.

1092 zarienoc] zarionoc *Ba* 1106 oidavee *Ba* 1108 oidavee *Ba*

³⁰⁴ Ik. Tb 3,8; 8,7. Ez dago argi, Bartolomek hemen aditzera ematen duenez, Sararen zazpi senarrak (3,8) euren lizunkeriatatik hil zirenik, baina argi dator, bere grinak asetzeko asmorik gabe ezkondu zela Tobias (8,7).

III.

Cer icusi andija dauquee seniden ezcontzac . Ez da nire eguizuna, sail au daucan zabaltasun guztiagaz zubei esatia. Bacarric esango deusut guztioz jaquin biar dozuna edo jaquitia ondo dana, Eleisiaren ordenetati ta Guraso Santuben eracutsiti urten bagaric. Iru gauza gaiti eragotcita dagoz laugarren 1115 belauneraguinoco seniden ezcontzac, ezcontciac balijo ez daven tercijuan (253). Eragotcita dagoz seniden ezcontzac: *Lelenga* Senide arteco odolari jagocan lotsa ona gaiti. *Bigarrenian* : Ezcontza onen ta santuben vitartez zabaldu dedin cristinau artera ta leen senide ez cirianen artera ezauberia, adisquidetasuna ta alcar maite izatia. *Irugarrenian* : Senidiai pecatuco ocasinoiac quendutia 1120 gaiti. Au gaiti errazoiaren arguijac ta Eleisa Ama santiac eragotci ditubee anchinaco demporetati seniden ezcontzac. ¿Ta ecin inor inos ezconduco da senidiagaz? Asco senidegaz³⁰⁵ ez. Beste ascogaz bai, Eleisiac libretan badau. Seniquera batzuc ez ditu Eleisiac bere inos libretan. Beste batzuc bai. Gauza onetan esaten dana da: *Lelenga* Eleisa Ama santiac ta Aita Santu Erromacuac 1125 dauqueela escubidia edo alizatia, senidiac alcarregaz ezconguei eguiteco. *Bigarrenian* : Ez deutseela Eleisiac edo Aita Santu Erromacuac quenduten senidiai (oi danez) ezcondu ecina, aparteco ta ataraco duinaco preminia bagaric (254). *Irugarrenian* : Senidiac escatuten deutseenian [365] Eleisiari alcar ezconguei eguiteco mesedia, esan biar daveela ce premina dauqueen alcarregaz 1130 ezconduteco. *Laugarrenian* : Iminten badabee edo esaten badabee guzurrezco preminia ezcontceco libertadia escatuten daveenian, Erromati alizatia etorri arren, ez davela balijo ezcontziac (255).

Eracutsi onetati esaten jacue cristinau guztiai, nora ecian leguez ezcondu biar daveela senidiac. Chito premina andi bat jazoten danian. Beti da gauza 1135 ona Eleisa Ama santiaren espirituari ta najari jarraitutia. Au da bideric segurubena gauza guztietan. Baita ez guichien ezcontcetan. Jaungoicuaren najia ta Eleisiaren najia bardinac dira. Bada, Eleisiaren najari ezcontzan jarraituten deusnac, beragaz darua asiera ona, baita Jaungoicuaren ta sacramentubaren gracia bere. Eguija da, preminia egon ezquero ta eguijagaz licencia escatu 1140 ezquero, senidiac ezcondutia ez da gauza chaarra. Baina sarritan jazo leiteque, ezcondu najiac engainetia; gurari uts bati premina andijaren vistia emotia; ta biar dan baisen premina andicua ez izatia senide areec ezconduteco. ¿Ta ordu-

 (253) Conc. Lat. IV. cap. non devet. (254) Trid., Sess. 24, c. 5. (255) Id., Sess. 1145 25, c. 18.

1121 eragotci| iragotci *Ba* 1128 oidanez *Ba* 1132 al izatia *Ba*

³⁰⁵ Pixka bat harrigarri gertatu zaigu esapide hau hurrenkera horretan ikustea..., *senide asco-gaz* baita bizkaieraz beti erabili izan dena.

ban cetan gueratuten da ezcontcia, Erromaco libertadiagaz eguin arren? Ez aita-
tu edola bere, cristinaubac, senide arteco ezcontzaric, eguiija ondo esango
deutsun jaquitun bategaz leenago astiro irago bagaric. Gauza astunac dira
oneec. Ta buru astuna, pisutsuba ta elduba escatuten davee, baita jaquituna
1150 bere saila aстера orduco. Uts eguiten chito da errez. Uts eguina erremedijetan
gach da. Endamas ezcontzaco uts eguitia.

Gogoratu bada, neure entzula onac, ce ar-[366]riscutacuac dirian diruba
gaiti eguiten dirian ezcontzac; inoren empeinuba gaiti eguiten dirianac; jueza-
ren aurreti eguiten dirianac; Jaungoicua opendiduta eguiten dirianac; ta ez
1155 aaztu azquenian, seniden ezcontzac onac izateco cer icusi andija dauqueela.
Gaixo oneetati bat edo bat oi davee ascotan ezcontzac. Ta bera gaiti oi dira
aimbeste ezcontza edo ezcondu garbatu. Aimbeste senar emazte vicitza chaa-
rreco. Aimbeste seme alava lotsa chaarreco ta esquer chaarreco; aimbeste au-
ci, naibaga ta cer esan senar emazten ta umen arteco. Entzun dozu, bada, cein-
1160 tzuc oi dirian gach onen sustraijac. Ta zeubei jagozuna da alde eguitia areetati.

Beste gauza asco dagoz ezcontzaco sacramentu santubaren gainian.
Oneetati batzuc esanda gueratu dira laugarren ta seigarren aguindu santubetan
ta lelengo sacramentuban. Beste senar emaztiac jaquin biar ditubenac, icasico
ditubee euren compesoretati. Escatu daijogun Jaungoicuari bere arguija, ezau-
1165 tu daiguzan eguiija oneec mereci daven indar guztiagaz. Alderatu gaitazan uts
eguiteco ta pecatuban jausteco era guztietati. Jarraitu daijegun beti bere bide
santubai ta Eleisa Ama santiaren nai onari ta espiritubari. Imini daigun vitarte-
cotzat Ama Virginia guztiz garbija, berari cerubac esposo ona, cintzua ta garbi-
ja emon eutsan leguez, ezconduten dirian guztiai jadiichi daguijuen ceruti
1170 lagun ona, baquetsuba, jaungoicozcua ta bacochari ceruba irabazteco jagoca-
na. ¡Oh, Virginia cerucua! Mesede au escatuten deutsut Adanen seme alava
ezcondu guztientzat ta ezconduteco dagozanentzat, ceuc san Josepe maitiari ta
Alan gura izan daguijala Aitiac, Semiac ta Espiritu Santubac, iru personataco
1175 Jaungoico Bacarrac. Amen.

VII. ICASIQUIZUNA,

ceinetan eracusten dan
ezcontzan uts eguin eveenac, cer eguin biar daveen.

Pensau dot, neure entzula onac, sacramentu onen azquenian eracutsi biar deutsudala, ezcontzan uts eguin daveenac celan portau biar daveen euren esta- 1180 duban. Ta baita euren vicieriagaz contentu dirianai bere, Jaungoicuaren gracia obeto ezautu daguijen ta gorde daguijen. Batzuc dira euren vicieriagaz ta lagunagaz contentu dirianac. Beste batzuc, ezcondu baino ascatu naijago eveenac ta ezconduba garbatuta dagozanac. Beste batzuc, artu eveen lagunagaz contentu ez dirianac. Ez da, bada, errazoeti campora izango, onei guztioi cer- 1185 bait esatia, dauquen estaduban Jaungoicua serbidu daguijen ta alcarregaz baque santuban vici ditezan, cein dan Jaungoicuac ta Eleisa Ama santiac ezcondu guztiai opa deutseena.

I.

Ezcontzaco estaduban contentuz dagozanac . Onei esaten jacue, chito 1190 asco estimau biar daveela Jaungoicuac eguiten dautseen mesedia. Alaco senar emazte suerte onecuac ez davee arrotu ta buru erichitu³⁰⁶ biar, eureenez dicha a dauqueela sinistuta. Jaungoicuac emoten deutseen doia da. Jaungoicuari esquer onac emon biar deutseez ta Jaungoicuaren legue santuba gorde [368] biar davee aibat ciatcen ta cintzoruen. Ez davee viurtu biar Jesus maitiari zor 1195 deuten amodijo nausija ta samurra luurreco maitegarrijetara. Icasi biar ditubee euren vicieraco cereguinac, compesore bati itanduta. Ta bein jaquin ezquero Jaungoicuaren naija ta euren eguinbiarra, ez ausi inos ecer gaiti bere. Parcatu biar deutsez alcarri bata bestiaren vicitzaco palta chicarrac baque santuba gaiti. Ardura nausija artu biar davee, euren echecoc inos pecaturic eguin ez dagui- 1200 jan. Umiac eta otseguinac Jaungoicuaren vildur santuba euqui daguijen, Jesus maitiaren, Ama Virgina gozuaren ta san Josepe bedeincatubaren devocinoe eguijazcuac ta bigunac argui eguin biar dau ezcondu guztien echecuetan. Errosarijo santuba errezau bagaco egunac izan biar dau egun tristiciac senar emazteentzat. Illian beingo compesetia artu biar davee zor santu bat balitz 1205 leguez.

1179 neure] nenure *Ba* 1180 deutsu dala *Ba* 1181 vici eriaz *Ba* 1181-1182 gracia] graciaja *Ba* 1182 vici eriaz *Ba* 1197 vici eraco *Ba* | cer eguinac *Ba* 1198 eguin biarra *Ba*

³⁰⁶ "Buru erichitu": harrotu, harropuztu.

Sinistu biar davee contentuz vici dirian senar emaztiac, diabrua ez daguala lo. Ezconduben vicitza gaistua iminten davenian, arima asco beraganatuten ditubala. Alcarren amodijo laarreguijac Jaungoicuaren gracijac atceratuten ditubala. Dirubaren gurarijac pamelija asco galdu ditubala. Ta eurac euqui arren orain vicitza baquetsuba ta jaungoicozcua, galdu leguijela guztia ta etorri Jaungoicua opendidutera. Saulec chito asiera ona evan ta amai gaistua ta zori gaistocua³⁰⁷. Salomonec asiera santuba ta jaungoicozcua evan. Baina guero jausi zan milla pecatu ezainetan³⁰⁸. Judasec estadu ta asiera ona cituban. Baina impernuban dago³⁰⁹. Contu, bada, asiera onagaz vici zarian senar emaztiac, vicit-[369]za gaistua eguitera eldu ez zaitezcan.

II.

Ezcondu bagaric gueratu gura euquen ezcondubac. Asco izaten dira ezconduben artian, edo gurasuen, edo seniden, edo adisquiden erreguba gaiti, bat bere gogo bagaric ezcondu cirianac. Duda bagaric onei gogora ecarrico deutsez etsaijac euren estutasunetan, *ezcondu ez balira, obeto Jaungoicua serbiduco eveena; ezcontzacac dichosuac ta zorijonecuac diriana; suerte chaarra jazo jacuena; nai izanda bere Jaungoicua serbidu ezin leguijena; eurac baino chaartuago inor vici ez dana ...* ta beste onaco calte andico ta provechu bagaco pensamentubac.

Onei esaten jacue: *Lelenga* contu atera daguijela astiro, ez dauqueela ya erremedijoric ames areequin. Eleisa Ama santiac berac bere ascatu ezin leguiz ezcontzaco buztarriti.

Bigarrenian : Escatu biar deutsee Jaungoicuari vijotz vijotceti gracia, duncan vicieran bere anditasuna serbiduteco ta ceruba irabazteco. Bada, Jaungoicuac ez dau gura inor galdu dedin³¹⁰. Beti dago prest gueure erregubac entzuteco. Ta gueugan dana eguin ezquero, salvaucos gara edocein estadutan. Jaungoicuac bacarric consolau legui alaco ezcondu garbatubaren vijotza. Aldatu legui bere naija. Ta ecarri legui bere estaduba ta laguna estimetara. Au gaiti erregutu biar deusta Jaungoicuari gogo onagaz.

1214 jausizan *Ba* 1226 ya] ija *Ba* 1230 vici eran *Ba*

³⁰⁷ Ik. 1Sm 9,14 - 10,27; 31.

³⁰⁸ Ik. 1Erg 3; 11.

³⁰⁹ Bai, Judas apostoluen artean agertzen da (Mt 10,40; Mk 3,19; Lk 6,16); gero saltzaile bihurtzen da (Mt 26,48; Mk 14,44-45; Lk 22,47-48; Jn 18,2-3); eta azken negargarria izango zuen gero (Mt 27,3-8). Frai Bartolomek Judas infemura joan zela diosku (ikus honetaz *Esku*-ko 13. oharrean esan dena.); esaera honek ebanjelarien beste esaera batzuetan du oinarria, esaterako, Joanek (17,12) "hondamen semea" deitzen dio (Vulgata: "filius perditionis").

³¹⁰ Ik. Jn 3,17; Erm 11,25; 1Tm 2,4, etab.

Irugarrenian : Alaco ezcondu garbatubac ez dau egon biar pensetan, abade eguin balitz, praile eguin balitz, monja izan balitz, ce errazubac eguin - go cituban ta ce ondo Jaungoicua serbiduco evan... Bera gueijago penetaco ta pecatu gueijago eraguiteco diabrubac ecarten deut-[370]sazan gomutac dira oneec. *Balitzco* sail chaar areec quendu biar ditu buruti aleguin guztiagaz. 1240 Zoraquerija izango litzateque, gaixo batec bere gacharen erremedijuan ta gorputzaren onian pensau biarrian paciencia onagaz, osasundunac celan dagozan gogoratuta, bera alan ez dagualaco gau ta egun negarrez egotia. Beste aimbeste esan guinai, alaco izan *banintzco* pensamentu zoruquin bere buruba penetan daguan ezcondu garbatuba gaiti. 1245

Laugarrenian. Sini[s]tu biar dau ezcondu garbatubac, berez dan baino astunago ta penatsubago beguitandu eraguingo deusala diabrubac, daucan estaduba. Ta besteena, dan baino arinago ta dichosuago. Diabrubaren astucija da, guc inoren carguiari arinago ta errezago eristia. Gueijenian uste dogu, bestiac obeto vici diriala gueu baino. Bestera viurtu biar dau diabrubaren astucija au 1250 bere vicieran contentuz vici nai davenac. Besteen vicitzai azaleti beguiratuten badeutsegu, entero onac, gozuac ta errazac erichico deutsegu. Baina pusca bat barrurago iragota aztertuten baditugu estadu bacocharen cereguinac, guztietan dago curutcia. Guztietan dago cegaz poza artu ta cegaz penau. Ezcondubac daucaz naibagac ta carga astunac. Abadiac daucaz beriac, prailiac bere estaduciac ta monjiac bere erliginoe santuciac. Ez dago inor bere curutce bagaric ta ezda egongo bere. Ez ditu, bada, ezcondu garbatubac bat eguin biar bere gachac besteen onagaz, ez bada bere onac besten onagaz ta bere gachac besteen gachagaz. Onan arinduco dau cerbait daucan penia. Edola bere ez dau astunago eguin-[371]go. Au esaten jacue ezcondu bagaric gueratu gura even 1260 ezcondubai.

III.

Artu evan lagunagaz contentu ez dirian ezcondubac . Ezconduteco vicierara Jaungoicuc dei eguin arren cristinaubari ta artu arren a estaduba, jazo leiteque ta sarritan jazo oi da, edo berac gura euquianagaz ezcondu ez 1265 zalaco, edo artu evan laguna berac uste evan moducua ez dalaco, ezconduba garbatuta penaz vizi izatia. Nai dala batera, nai dala bestera, goguan jausten ez jacon laguna badauca echian, beti dago penaz ta naibaguez ezconduba. Esan dot leen cegaiti oi dirian ezconduben artian alaco uts eguitiac. Errazago ta oba da, ezcondu baino leenago lagun on bat Jaungoicuari erregututia; lagunaren 1270

1242 osasun dunac *Ba* 1251 vici eran *Ba* 1253 cer eguinac *Ba* 1257 ez da *Ba* 1258 ez bada *Ba* 1259 cer bait *Ba* 1264 vici erara *Ba* 1265 oida *Ba* 1268-1269 Esandot leen ce gaiti oidirian *Ba* 1269-1270 obada *Ba*

oitura onai, cintzotasunari ta cristinautasunari beguiratutia, guero alperric negar eguitia baino. ¡Oh, ceimbat ezconguei pagauta gueratu³¹¹ oi dirian lagunaren edertasunagaz, plazacua³¹² izatiagaz, dantzan jaquitiagaz, verba eguiteco modu gatztsuba euquitiagaz, diru pusca batzuc euquitiagaz ta beste onaco azaleco on echurazco gauzaquin! Onaco, lino loria leguez, aguertu orduco ezcutetan dirian on echura azaleco batzuc icusten badeutsez bati, euraquin choratuta leguez gueratuten dira ezcongueijac ta bertati gueijagori beguiratu bagaric eguiten da ezcontcia. Ez da pensetan alacuan bere ezcongueija gaiti, edo isila dan, edo humildia dan, edo osasuntsuba dan, edo jaungoicozcua dan, edo viarguina dan, edo lotsaorra dan, edo bacartasun zalia dan, edo modestija ta garbitasun onecua dan ta beste onaco laguna betico maite eguiten daveen ari-
 1275 [372]maco gracijac ta doiac daucazan edo ez. Oneec ecer bere balijo ez bale-
 1280 bee leguez, itsu itsuban azaleco gracia ezdabaidaco bati beguiratuta, bertati ezcontzaco verbia emoten da. Ta guero echian laster aguertuten dira laguna-
 1285 ren paltac. Orduban dira damubac. Orduban dira asarriac. Orduban dira alcar artu ecinac ta baque charra.

Onei esaten jacue bada, neure entzula onac, nai diabrubic ta nai mundu-
 bac ta nai araguijac engainauta artu badavee eurei ez juacuen edo artu biar ez
 euquen laguna, ya ecin ichi leguijuela. Nai ona izan ta nai arin ona izan, nai
 1290 gogocua izan ta nai gorrotocua izan, nai asarre izan ta nai aleguere izan, nai
 nasaija izan ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan modu-
 cua dala, ¿bat eguin cinian ceure lagunagaz? bada, agaz vici biarco dozu, bato-
 ri edo bestiori ill artian. ¿Cer eguingo dau, bada, alaco errucarijac?
 ¿Desesperau? Ez. ¿Cer, bada? Ezautu aibat onduen lagunaren gogua eta lagu-
 1295 nac cer nai daven. Ta pecatu ez dan gaucetan eguin beti aleguinaz bere naija.
 Lagunac sentiduco daven ta euren baquia galdu eraguingo daven gauzaric ez
 esan ta ez eguin. Gogoratu bere pecatubac ta sinistu, daucan baino lagun gais-
 tuaguaquin impernuban egotia irabaci evala pecatubagaz. Gogoratu, bera
 baino gaisquijago vici dirian ezcondu asco dagozala ta areec bere euren gachac
 1300 iragoten ditubeela. Gogoratu, beste bategaz ezcondu balitz, arc bere paltac
 euquico citubala. Ez da au alacuentzat voticaco charra. Guztioac daucaguz pal-
 tac. Bata bada temosua, bestia da ordija. [373] Bata bada alperra, bestia da gal-
 zailia. Bata bada gogorra, bestia da ardura baguia. Bata bada buruguina, bes-

1272 oidirian *Ba* 1280 lotsa orra *Ba* 1282 ecerbere *Ba* 1283 ez da baidaco *Ba* 1289
 ya] ija *Ba* 1299 areec] arrec *Ba*

³¹¹ "Pagauta gueratu": gatzelaniatik jaso; *quedar pagado, ufano, satisfecho...*

³¹² "Plazacua izan": plazan, hau da, dantza, jolas eta jendaurreko jardueretan trebea, ongi moldatzen dena, gustagarria izatea; (Bizkaiko eskualde batean, guk dakigula, *mutil plazakoa* eta *neskatila plazakoa* esapideak erabiltzen dira, senargai-emaztegai bezala elkarrekin harremanetan hasteko adinekoak direla adierazteko).

tia da miin citalecua. Bata bada adisquide barri zalia, bestia da celotsuba. Bata bada necijua ta sen bagacua, bestia da buru erichija ta aisetsuba. Bata bada gaxua edo ecertaco eza, bestia da leguetsuba ta astucija gaistueta. Gogoratu biar dau alan gogo bagaco lagunagaz ezconduta vici danac, ez evala topaucu palta bagacoric inor bere. Bere lagunarenac, ac uste daven baisen andijac izango ez diriala. Berac bere paltac daucazala...

Onan pensauta, sinistuta, Jaungoicuari erregututa, irago biar dau cristinaubac gogoco ez dan lagunagaz vicitcia, baque santuba galdu bagaric. Senar emazten artian bata edo bestia badira Jaungoicozcuac, centzun onecua ta baque santuba nai daveenac, lagunaren palta asco estalduco ditubee, baquia galdu bagaric. Emazte juicijozco isil, zintzo, jaungoicozco batec, oracinoiagaz, paciencijagaz ta iraguagaz³¹³ guizon gogor, sutsu, ordi, gaisto bat ecarrico dau bildots manso, bigun, maitegarri bat izatera, santa Monicac bere senarra ecarri evan leguez³¹⁴. Baita andra juicijozco batec erremedijauco ditu echian guizonaren palta asco bere, Abigailec bere senarrarenac erremedijau cituban leguez (256). Beste aldeti, juicijozco ta jaungoicozco guizon eldu batec, ¿bere emaztiaren ceimbat palta iragoco ez ditu, inoc igarri bagaric ta baque santuba galdu bagaric? ¿Cer esan citalac ta minverac irago ez eutsazan Job[ec] bere emaztiari (257)? ¿David [374] erreguiac Micol bere emaztiari (258)? ¿Tobias zaarrac Ana berari (259)? Onec irago cituben euren emazten esan citalac, burla minverac, errazoe chaarrac ta desprecijo astunac paciencija santuba ta echeco baque ona galdu bagaric. ¿Cer gaiti, bada, eguin ecin leguije beste senarrac bere euren emaztequin? Esango dozu areec santubac ciriala.

¿Nai dozu, bada, entzun, santu ez zanaren jazo bat senar ernegau, baque chaarreco ascoren lotsagarrija? Entzun, bada, Senecari cer jazo jacon³¹⁵. Ac gui-

 (256) Reg. 1. c. 25. (257) Reg. 2. c. 6. (258) Tob. c. 2. (259) Job c. 2.

1305 senbagacua *Ba* 1327 Naidozu *Ba*

³¹³ "Irago": eroapena, egonaria, pazientzia.

³¹⁴ Santa Monika, ik. 281. oharra (1341-1342.or.).

³¹⁵ Luzio Aneo Seneka, filosofoa (c.4 K.a.- 65 K.o.), Cordobako idazle latindarra. Erroman hartu zuen heziera oso gazte zela. Inperioaren garaiko estoizismoaren adierazgarri garrantzitsua zen, literatura espainiar-latindarreko lehenengo idazle nagusietarikoa. Klaudio enperadoreak Korsikara erbesteratu zuen zortzi urterako, eta itzultzerakoan, Neron hezitzeako ardura eman zioten. Pison-en konspirazioan nahastu zelako Neronek bere burua hiltzeko agindu zion eta Senekak halaxe egin zuen. Esklaboak espiritualki libreak zirela irakasten zuen, gizon eta emakumeak, eginbeharrei dagokienez, berdinak direla. Senekarentzat Jainkoa unibertsoaren Kreatzailea eta *prima et generalis causa* da; inmanentea eta transzendentea, giza gorputzean dago. Lan ugari idatzi zituen: *De motu terrarum*; *De situ et sacris Aegyptorum*; *De consolatione ad Helviam*; *De brevitae vitae*; *De clementia*; *De constantia sapientis*; *De vita beata*; *De Otio*; *De Tranquillitate animi*; *Naturales quaestiones*; *De providentia*, etab. (ik. E. ELORDUY, *Seneca, Licius Annaeus*, LThK 9 (1986) 664-665). Markinako Karmengo bibliotekan oraindik bada Senekaren liburu bat (2-E / 560), 800 orrialdetik gorakoa (izenburua puskaturik, izenburudun orria falta du): *Epistolae*

1330 zonac eucan emaztia citala, miin gaistocua, buruguina ta aguindunaicua. Ordu
 guichi eucazan senarrac echian, emaztiaren jarduna ta esetsi³¹⁶ lotsa chaarrecua
 entzuten ez citubanac. Ez eutsan Senecac emaztiaren miin gaisto ascaturari
 eulijaren brunadiari³¹⁷ baino gueijago jaamoten³¹⁸. Senarraren paciencia elduba
 1335 gaiti citalago, sutsubago ta lotsa galducuago eguiten zan emaztia. Ernegau era-
 guin gura eusquijon ta asarratuta icusi gura evan bere senarra. Alan emoten
 eutsan egunero baque chaarra senar erru baguari. Bein batian esetsi eutsan
 senarrari inos baino errazoe guichiagogaz ta gana gueijagogaz. Emazte lotsa
 baguiaren jardun aldi andi a iragoteco paciencia galdu bagaric, urten evan
 1340 echeti Senecac ta gueratu zan jarrita bere ate aurrian, emaztiari chitic esan
 bagaric. Errazoe bagaco equinaren equinagaz ta jardunaren jardunagaz sutu ta
 asarratu ecin evanian bere senar baquetsuba, ¿cer eguiten davela, derichazu,
 emaztiac? Oepian eucan loi-ontcija artuta, ventanara urtenda, ango loijac jaur-
 tegui eutsa-[375]zan purijaz senarrari buruti beera. Ara, cristinaubac, cetaragui-
 no dan emazte baten vijotza. ¿Ta cer, dirichazu, eguin evala Senecac orduban
 1345 bere emaztiagaz? Ecer bere ez. Bere buruba ta arpeguija garbituten ciardubala
 gueldi gueldi, esan evan: *Banequijan ain trumoe andijac eurija ecarrico
 evana*. Onegaz amaitu zan areen orduco jarduna. Seneca batec, gentil batec,
 Jaungoico bagaco batec iragoten eutsazan emazte deunguiari, echeco baquia
 galdu bagaric, alaco esate ta eguite mingochac. ¿Cer eguin biar dau, bada, gui-
 1350 zon eldu, cristinau batec bere lagunagaz, baque santuba ez galdutia gaiti, ceru-
 ba ez galdutia gaiti?

Senarra edo emaztia, bata edo bestia badira centzun onecucac ta jaungoi-
 cozcuac, laster baquetuco dira. Nequez eche ataco asarriac campuan jaungo
 dira. Zentzun ona ta Jaungoicuaren vildur santuba daucan senarrac nai emaz-
 1355 tiac laster ezautuco ditu bere lagunaren zalequerijac. Ta berac aurria artuco
 deutsee, laguna asarratu baino leenago. Entzuten danian senar emazten baque
 chaarra ta alcar artu ecina, sinistu daiquegu gueijenian bijac diriala alcarren
 moducuac. Bijac diriala errudunac. Bijac diriala centzun guichicuac. Bijac diria-
 la Jaungoicuaren vildur bagacuac. Edo bijac diriala, euren pecatubac gaiti

1336 egun ero *Ba* | errubaguiari *Ba* 1339 gueratusan *Ba* 1342 urten da *Ba*

1602. Eta hasieran ohartxo hau dakar, Frai Bartolomek bere eskuz idatzia: “De la libreria del Carmen de Marquina”.

Frai Bartolomek, *Anti-Plauto poligloto* (9. or.) idazkian, Senekak bere emaztearekin izan zuen gorabehera horren aipamena dakar; baina Arantzazun dagoen liburu honetan beste esku batek, orrialdearen ertzean, “Socrates” idatzi zuen.

³¹⁶ “Esetsi”: eraso; (hemen izena da).

³¹⁷ “Brunada”: burrunba, burrundada.

³¹⁸ “Jaamon” forma darabil eta ez “jaramon”; bestalde, idazle zahar hauengan ageri denez, bakarrik darabil eta ez “egin” ondoan duela.

Jaungoicuac baque chaarragaz castiguetan ditubanac. Eguin beguije ezcondu 1360
 guztiac san Juan Crisostomoc esaten deutseena ta asarre ascori aurria artuco
 deutsee. Senarra asarre bada ta asarriagaz cer bait esaten asten bada, emaztiac
 ez aoric edegui senarrari asarria irago artian. Emaztia asarre bada [376] ta ecer
 esaten asten bada asarriagaz, senarra isilic egon emaztiari aldija irago artian.
 Ate bi alcarren parian zabalic dagozan artian, aisia dago, dino Santubac. Ate 1365
 bata isten bada, aisia gueratuten da. Beste aimbeste. Senarra aguidaca asten
 danian emaztiac isten badau aoco atia, bertati juango da asarriaren aisia.
 Emaztiac cerbait esaten davenian subagaz isilic badago senarra, bertati ezcu-
 tauco da emaztiaren asarre aisia.

Alan euquico davee senar emaztiac euren echeetan baque santuba ta 1370
 guero ceruban betico gloria. Onegaz amaituten ditut, neure entzula onac,
 sacramentu santubetaco *icasiquizunac* . Escatu daijogun Jesus maitiari, emon
 daguijola indarra ta ceruco gracijaren iruntza bere verba santubari, gueure
 vijotcetan erne dedin, aci dedin ta prutu ugarijac emon daguizan. Aitiaren,
 Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Amen. 1375

AMAIJA.

[377]

TOPA=LECUBA

I. Icasiquizuna. Cer dirian sacramentubac. Noc ichi euscuzan. Ceimbat dirian Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuzan sacramentubac. Cetaraco ichi euscuzan. (3)

Bautismua

II. Icasiq. Adanec celan pecatu eguin evan. Ce caltiac ecarri cituban Adanen pecatubac. Celan erremedijau zan. (14)

1385 III. Icasiq. Cer dan bautismua. Ceimbat modutacua dan. Ce preminatacua dan. (25)

IV. Icasiq. Cegaz eguiten dan bautismoco sacramentuba. Celan eguiten dan. Noc eguin leguijan. (36)

V. Icasiq. Arimia gaiti cer sinistu biar dogun; ta celan pensau daiquegun bere asieriaren gainian. Cegaiti galdu oi dirian ascotan seinac amaren sabelian. (46)

1390 VI. Icasiq. Demporia baino leenago jaijoten edo galduten dirian seinai celan lagundu biar jacuen bautismo santubagaz. Ce gauza biarrecua [dan] cristinaubac ondo jaquitia, seinari eche bautismua emoten. (55)

VII. Icasiq. Cetaraco dirian batioco eguite santubac edo *ceremonjac*. Celan gorde biar ditugun bautismoco aguindubac. (64)

1395 VIII. Icasiq. Cetaraco batiuan emoten jacozan seinari aita ta ama besueta-co. Ceintzuc dirian oneen eguinbiarrac. (74)

Compimacinoia

IX. Icasiq. Bigarren sacramentubaren izatiari ta eguitiari jagocana. (84)

1400 [378] X. Icasiq. Cer dan penitencija. Ceimbat modutacua dan. Ce preminatacua dan. (96)

XI. Icasiq. Celan pecatubac gogoratu biar dirian compesinoian autortuteco. (107)

XII. Icasiq. Cer dan pecatubaren damu eguijazcua. Ceimbat modutacua dan. Celacuac izan biar daven. (118)

1405 XIII. Icasiq. Celacuac izan biar daven ostera pecaturic ez eguiteco propositubac edo goguac. Celan ezautuco dan noc daucan, ostera pecaturic ez eguiteco propositu edo asmo eguijazcua. (129)

XIV. Icasiq. Cer dan aozco compesinoia ta ce biarrecua dan. Ce pecatu compesau biar dirian. (139)

1410 XV. Icasiq. Cetaraco dan compesoriac emoten daven penitencija. Celan cobru emon biar jacon penitencijari. (150)

1389 Ce gaiti galdu oidirian *Ba*

XVI. Icasiq. Norentzat dan biarrecua ta nora ececuca pecatu guztiac era batera compesetia edo compesinoe generala. Norentzat dan gauza ona. Norentzat dan chaarra. (161)

XVII. Icasiq. Ce premina andicua dan gueure gorputzac peneetia. Celan 1415 penau ditubeen cristinau ascoc. (172)

Comuninoia

XVIII. Icasiq. Cer dan comuninoeco sacramentuba. Ce icenegaz aituten emoten dan. Nos ichi euscun Jesucristo gueure Jaunac sacramentu au. (184)

XIX. Icasiq. Comuninoeco sacramentubaren [379] gainian cristinaubac 1420 sinistu biar dabena. (195)

XX. Icasiq. Celan prestau biar dan comulguetaco arimiaren parteti. Celan gorputzaren parteti. (207)

XXI. Icasiq. Ondo comulgaubac arimara dacarren mesedia. (218)

XXII. Icasiq. Ce erru andico pecatuba dan gaisqui comulguetia. (228) 1425

XXIII. Icasiq. Sacerdotiaren mezataco eguiquizunac cer esan gura daveen. (238)

XXIV. Icasiq. Eleisiari cristinaubac zor deutsan erreberencija ta moduba. (249)

Extrema -Uncinoia

1430

XXV. Icasiq. Cegaiti Jaungoicuc bialduten deuscuzan gorputceco gachac. Celan irago biar ditugun. (260)

XXVI. Icasiq. Cer dan oleacinoeco sacramentu santuba. Cetaraco dan. Celan artu biar dan. (270)

Ordia

1435

XXVII. Icasiq. Cer dan sacerdotetzaco sacramentuba. Ceintzuc dirian sacramentu onen gradubac edo mallac. (280)

XXVIII. Icasiq. Ce andija ta zabala dan ordiaco sacramentuban guizonari emoten jacon alizate espiritzcua. (290)

XXIX. Icasiq. Ceintzuc dirian ordiaco sacramentubac dacarguzan mesediac. 1440 (300)

Ezcontzia

XXX. Icasiq. Celan prestau biar daven cristinaubac viciera barrija artuteco. Ez jagocan vicieria artubac oi dacazan caltiac. (311)

1443 vici era *Ba* 1444 jagocan] dagocan *Ba* | vici eria artubac oidacazan *Ba*

- 1445 XXXI. Icasiq. Celan prestau biar dan ezcontzaco vicieriaren gainian. (320)
 [380] XXXII. Icasiq. Cer eguin biar daven cristinaubac ezcontzaco sacramentuba artuteo. Celan irago biar daven escubac emoteco eguna. (330)
 XXXIII. Icasiq. Ceintzuc dirian ezcontzaco sacramentubaren onerac. (340)
 XXXIV. Icasiq. Arriscu andicucac diriala diruba gaiti eguiten dirian ezcontzac. Baita inoren ederra ta empeinuba gaiti eguiten dirianac bere. (347)
- 1450 XXXV. Icasiq. Ce arriscutacuac dirian juezaren aurreti eguiten dirian ezcontzac. Celacuac oi dirian Jaungoicua opendiduta eguiten dirianac. Celacuac senide ezcontzac. (357)
 XXXVI. Icasiq. Ezcontzan uts eguin evenac, cer eguin biar daveen. (367)
- 1455 *Uts-eguiten ezauberia.*
 Folio 5. lin. 4. causetia. *Léase* cansetia.
 Fol. 7. lin. 2. ceerreinu tacua. *Léase* ce erreinutacua.
 Fol. 15. lin. 18. Paradisu baten. *Léase* Paradisubaren.
 Fol. 44. egnin. *Léase* eguin.
- 1460 Fol. 61. lin. 31. burubataro. *Léase* burubetara.
 Fol. 65. lin. 19. darabilella. *Léase* darabilella.
 Fol. 74. lin. 26. cetara. *Léase* cetaraco.
 Fol. 109. lin. 19. aquitia. *Léase* jaquitia.
 Fol. 124. lin. 31. ceue. *Léase* ceure.
- 1465 Fol. 189. lin. 17. cristinaubat. *Léase* cristinaubac.
 Fol. 197. lin. 2. astecuentzat. *Léase* ustecuentzat.
 Fol. 249. Eleisa. *Léase* Eleisan.
 Fol. 262. atsecabiagaz. *Léase* sequeriagaz.
 Fol. 264. lin. 16. porputzac. *Léase* gorputzac.
- 1470 Fol. 328. lin. 34. Au. *Léase* An.
 Fol. 350. lin. 24. laganagaz. *Léase* lagunagaz.

SERMOIAK

1

Maria Virginiaren jaijotzia

SARRERA

Sarrera orokorrean, Frai Bartolomeren bizitzan sermolari izatearen garrantzia azpimarraturik, ekintza horren ondorio izan zela adierazten genuen, neurri batean behintzat, haren idazle-lana. Han aipatzen genuen baita nola galduak diren haren sermoirik gehienak eta argitaratzekotan zen hainbat eskuizkribu ere...

Badakigu sermolari handia izan zela eta Euskal Herriko eliza askotan izana zela predikuak egiten, batez ere Bizkaikoetan. Haren izenak ospe handia hartu zuen, eta handik eta hemendik dei ugari izan ohi zituen jaietan sermoiak egitera, misioak ematera... joateko. Baina, predikari legez, bere lanik handiena Markinako Karmenen egin zuen. Era askotako predikuak izan ohi ziren: Elizaren eta Karmengo Ordenaren jaietan egiten zirenak, igandeetako hitzaldi kateketikoak, herrietan ematen ziren misioak etab....

Haren sermoien galera handi horretatik bi salbatu izan dira, berberak *Icas-I* eta *Icas-II* liburukietan argitaratu zituen biak, eta beste bat errepikaturik, baina idazketa pixka bat desberdinekoa *Esku*-n dagoena.

Esana dugu zerbait 1999an Donostiako Elizbarrutiko artxiboan aurkitu izan den Frai Bartolomek bere eskuz idatzitako sermoiaz.

Sermoi honen dataz ere hitz egin dugu pixka bat, baina orain gai hau gehiago azaltzea komeni da eta haren beste idazkiren batekin izan dezakeen zerikusia ere aztertuko dugu.

Idazkerak nahiko ziur eta sendoa dirudi, letra txiki samarra da eta orrialdeak oso beteak... Honek guztionek, predikari eta idazle izan zen lehenengo urtetakoa izan litekeela esan nahi du. Sarrera orokorrean, 1805. urtea jartzen genuen sermoi honen gutxi gorabeherako datatzat. Gainera, sermoi honen edukia aztertutik, sendotu egiten gara urte horretakoa izan litekeelako ustean. Bi zertzeladatan erreparatu dugu batez ere: sermoiarene zatitxo baten gaian eta erabiltzen dituen Eliz Gurasoen aipamenetan.

Hasieran, Andre Mariaren jaiotzaz sarrera antzeko bat egin eta 139. salmoren txatal bat aipatu ondoren, "Verba bi" dio berak eta igande eta jaiak gor-

detzeaz eta dantzez dihardu sermoiaren parte horretan...; eskuizkribu osoaren hiru orrialde hartzen ditu. Egin-eginean ere, garai horretan idazten ari zen eta 1816an argitaratu zen *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuxoan darabilen gai berbera da hemengo.

Argi dagoela dirudi, sermoi honek baduela nolabaiteko zerikusia *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuxoarekin, sermoi honen parte honetako testua eta liburuxo honetako 79-80 orrialdeak antz-antzekoak baitira; eta hau oraindik argiago ikusten da, bi idazkietan erabili dituen aipamenak aztertuz gero; aipamen berdinak edo antzeko agertzen dira: san Agustin eta san Tomasenak, san Antonino, san Basilio, san Karlos Borromeorenak, etab.

Tartekatutako zati honen ondoren, Frai Bartolomek Andre Mariaren jaiotzako hariari, haren garrantzi eta esanahiari heltzen dio, bide batez Biblian esanguratsuak diren emakume batzuen izenak gogoratuz (Sara, Raket, Sunamitis [Xunemekoa], Judit, Debora)...

Bibliako aipamenei dagokionez, Kantarik Ederrena darabil batez ere; eta aipatutako autoreen artean, hauek agertzen dira batez ere: S. Epifanio Paviakoa, S. Ildefonso Toledoko apezpikua, Ruperto abadea etab.

Sermoiaren izenburuari dagokionez, Frai Bartolomek ezagunak diren XIX. mendeko predikari askoren joerari eusten diola esan behar dugu, hau da, sermoiak oso-osorik euskarazkoak izan arren, gaztelaniazko izenburua jartzeari. Horrela, Frai Bartolomek izenburu hau jarri zion sermoi honi: "Sermón de la Na^d de N. S^a". Hala ere guk, euskarazko izenburua gehitu diogu: *Ama Virginiaren jaiotzia*, eskuizkribuaren lehenengo orrialdeko azken lerrotik eta bigarreneko lehen lerrotik harturik: "Ama Virginiaren.... bere jaiotzia".

Sermoi norako edo nortzuentzat egina den zehaztea zaila da... baita nondik eta nola etorri zen honaino argitzea ere; bada, dirudienez, Tolosa aldeko sermoinen artean aurkitua izan da... Badakigu Frai Bartolome Lazkaon bizi izan zela bere bizitzako azken urteetan (1832-1835); baina sermoia, gutxi gorabehera, 1805ekoa izanik, azkenez aurkitua izan den tokirarte nola iritsi den eta zer bide egin duen... ilunpean gelditzen zaizkigu. Bestalde, fraideak komentuetatik egotziak izan ziren laster, eta bai haren anaia (Jose San Migelena) eta bai ilobak (Jose San Antonioren, Antselmo San Kristobalena) kapilau eta erretores izan ziren Beasainen, Lazkaon, Olaberrian, Zabaldikan, Larrasoñan... Horregatik berezkoa dirudi Frai Bartolomearen sermoiak inguru honetako artxibo-ondareen artean egotea...

Hizkuntzari dagokionez, oro har, bat dator bere liburuetako euskararekin; hala ere, xehetasunei begiratuta, bi edo hiru gauzatxo antzeman ditugu hemen:

- Lexikoaren arloan, ez dugu gauza berezirik aurkitu, “embra” hitza izan ezik: *San Agustinec eta S[anto] Tomasec dinue, pecatu andijagua dala guizo - nac eta embrac naaste dantzan eguitia, domeecan soluan navasen edo echian gorubetan eguitia baño.*

Bizkaiko erdialde eta mendebaldean nahiko normala da hitz hau “andra” hitzaren sinonimotzat erabiltzea, eta ez du konnotazio txarrik. Markina aldean itsusi eta onartzina litzateke... Beraz, gizon eta emakume nahaste dantza egitea, entzuleen aurrean zeharo itsusi agertzearren sartzen ez badu, Bizkaiko mendebaldeko edo erdialdeko herriren baterako idatzitako sermoia izan liteke...

- Zenbait hitzen formari begiratu, “Jangoicua” darabilela ohartzen gara, eta ez “Jaungoicua”. Xehetasun honek berak erakusten digu *Esku* edo *Euscal-erri - jetaco...* idatzi zituen garaikoa izan litekeela sermoi hau. *Euscal-errijetaco...* liburuxoan forma biak agertzen dira; lehen partean “Jangoico” dator batez ere, eta azkenerantz “Jaungoico” forma hobesten du; *Icas-I*, *Icas-II* eta *Icas-III* liburuetan, “Jaungoico” da forma bakarra eta *Esku*-n “Jangoico” baino ez da agertzen...

Beste ñabardura txiki batzuk ere aurkitu ditugu, *Esku*-rekin bat datozenak; esaterako, *Esku*-n “donga” egiten du eta sermoi honetan ere bai; gainerako liburuetan, *Euscal-errijetaco...* barne dela, “deunga” da forma bakarra.

- Fonetikan, sermoi honetan ez dira galtzen bokal arteko kontsonante ahostunak; bai, oster, *Esku*-n; baina juntagailu adbertsatiboa *Esku*-n “ezpada” egiten du eta sermoi honetan ere bai; inprimaturiko liburueta, oster, “ezpada” egiten du beti, bereiz nahiz loturik...

[1]

†

SERMON DE LA NA[TIVIDA]D DE N[UESTRA] S[E]ÑORJA

[Maria Virginiaren jaijotzia]

Sicut tenebrae eius, ita et lumen eius Psalm. 138.

Jangoicuaren aurrian argui illunac eta gau egunac bardinac diriala aituten 5
 emoteco esaten deuscu, neure cristinaubac, Espiritu Santubac: *Sicut tenebræ*
eius, ita et lumen eius. Il[l]una dagan moduban daguala arguija bere
 Jangoicuaren veguijetan. Jangoicuari ta Jesucristo gueure Jaunari jaocazan mis-
 tirijuai alde batera ichi ezquero, Maria Santissima da gueure atencinoe ta devo-
 cinoe guztia daroiana, ta berari toquetan jacoze modu ascotara Espiritu 10
 Santubaren bervac, *sicut tenebræ eius, ita et lumen eius*. Jangoicuari toquetan
 jacoze illuna ta arguija, altuba ta bajuba, euquiija ta ez euquiija, dana ta ez dana,
 guztiac modu baten dagozalaco Jangoicuagan. Baña Ama Virginiari toquetan
 jacoze verba santu areec beste modu batera: Maria S[anti]s[sim]ia[c] ichura bigaz 15
 irago evan bere vizitza guztia. Munducuen beguijetan eucan ichura bat ta
 Jangoicuaren beguijetan beste bat. Mundubac penseetan evan Ama Virginia
 gaiti zala beste emacumiac leguez pecatarija, pecatuban sortuba ta pecatuban
 jaijua, beste asco baño portuna charragocua, pobriagua ta estimacinoeric mere-
 ciduten ez evana. *Tenebræ eius*. Baña Jangoicuaren veguijetan zan arguija, 20
 ederra ta estimauba. *Lumen eius*.

Ama Virginiaren pausu ta vizitza guztia gaiti au [2] esan balei, bere jaijotzia
 gaiti obeto esaten da. Esaten da Maria S[anti]s[sim]iare[n] jaijotzia dala mundu-
 baren erichijan echura andi bagacua edo illuna ta Jangoicuaren aurrian guztiz
 glorijosua. *Sicut tenebræ eius, ita et lumen eius*. Verba bitan iminico deuscu
 ceuben atencinoiaren gueija esanagaz Ama Virginiaren jaijotzia, jaijotza humil- 25
 dia ta jaijotza glorijosua. Humildia mundubarenzatco ta glorijosua cerubaren-
 zatco.

12 ezeuquiija *Ba* | ezdana *Ba* 13 modubaten *Ba* 16-17 Virginiagaiti *Ba* 21-22
 jaiotziagaiti *Ba* 23 andibagacua *Ba*

¹ Sal 139,12. (Fra Bartolome zuzen dabil 138. salmoa dela esatean, aipamenak *Vulgata* ren arabera egiten dituelako).

Baña leenago esango deutsudaz verba bi jai domeecac gordetiaren gañian. Escritura Sagradubac ta Elexaco santu guztiac dinue ao bategaz, Jangoicuac
 30 bera ondretaco, serbiduteco ta ameataco dempora apartecua señaillauti ichi euscuna. Ez dempora guztietan amau ta serbidu biar ez dogulaco gueure Jangoico ona, ezpada berac aguindutaco dempora a, beste cereguinai ichita, obra onac eguiten irago biar dogulaco. Onetaraco demporac dira: 1º Domeecac. 2º Jai osuac. Ta 3º jai erdijac. Jai erdijetan meza osua enzunda bia-
 35 rra eguin legui, baña, Jangoicuac eta Elexiac aguinduten davenez, domeecac eta jai osuac bardinac dira; domeequetan eguiten dana jai osuetan eguin biar da, ta domeequetan eguiten ez dana jai osuetan eguin biar ez da. Egun oneetan eragotzita dago biarra eguitia, ta ordu bira eldu ezquero edo ordu ta erdira, ascoc dinuanez, biarrian premina bagaric edo cura jaunen licenciya bagaric,
 40 eguiten da pecatu mortala, guichijago bada, pecatu veniala.

Biarric eguin ez arren, obra onic eguiten ez davenac ez dau cumpliduten obligacinoe onegaz. Egun oneetan eguin biar dirian obra onac dira: Meza entzutia, altarac visite[3]tia, conpesetia, comulguetia, errosarijua errecetia, dotrinia icastia, liburu onac iracurtia, gaisuac visitetia, tristiciac consoletia, oracinoe eguitia, Jesucristo gueure Jaunaren ta Ama Virgliniare[n] vizitzaco ta pasinoeco gauzac goguan iragotia ta pecatu mortalian dagozanac gaiti, purgatorijoco arimac gaiti ta pede santuba gaiti Jangoicuari vijotz osuagaz erregututia. Egun santubac dira ta santu izaten irago viar dira. ¡Oh neure cristinaubac! ¡Ce obligacinoe andija dan au ta ce urrin zagozan emeti jai domeecac meza bat prisaca entzunda gueijago Jangoicuagaz acordau bagaric iragoten dituzunoc! ¡Domeecac eta jaijac jacoraco, tavernaraco ta ibilte galdubetaraco artuta daucazuzanoc? Ceubenzat, cristinaubac, ceuben ogui mingoch ori. Ta oraindino charrago egun santu oneetan pecatuzco ibilte nasaijetan davilzanac. Bai, pecatuzco ibilte nasaijetan davilzanac, dinot. San Agustinec eta S[anto] Tomasec² dinue pecatu andijagua dala guizonac eta embrac naaste dantzán eguitia, domeecan soluan navasen edo echian gorubetan eguitia baño, ta orraitino domeequetan ta santubeten egunetan au eguiten dozu ta vereno au jaaten dozu lotsa guichigaz guztiac dacuseela. ¡Ah! Beti esango dau S. Epreneac, dantzán naaste davilena demoninuagaz davilela³. Beti esango dau S. Antoninoc, dantzia davilen lecuban diabruba davilela⁴. Beti esango dau S. Agust[ine]c, dantzán naaste davilena dia-

31 ezdogulaco *Ba* 32 cer eguinai *Ba* 34 Jaierdijac *Ba* | Jaierdijetan *Ba* 37
 ezdana *Ba* | osuetan *Ba geh* eguiten [eginten ?] *baina ezab* . | ezda *Ba* 41 ezdave-
 nac ezdau *Ba* 43 conpesetia, comulguetia *Ba geh ler. gain*.

² Ik. *Euscal-errijetaco*..., 44. oharra (450.or.).

³ *Euscal-errijetaco*... liburuan (79-80.or.), S. Efirenen aipamena dator eta honen zein liburutatik hartzen duen ere berak esaten digu: "De Ludis fugiend."

⁴ *Euscal-errijetaco*... liburuan (83.or.) Frai Bartolomek zehatzago agertzen digu S. Antoninoren aipamena, eta liburu horretan honela dakar aipua: "P. 2. tit. 6. c. 6."

brubaren umia dala. Beti esango dau S. Ambrosioc, dantzara apainduta doian emacumia inpernuco demonino guztien echia dala⁵; ta S. Basilioc, emacume loija dala, gorputceco edo arimaco castidadia galduta daucana dala⁶. Beti esango dau S. Carlos Milanguac, alaco ibilte naisaijetara duazanac pecatu mortala eguiten daveela⁷. ¡A gurasuac! ¡A umiac! ¡A errijaac! ¡A conpesoriac! Leidu egui- 65
zuz [4] Escritura Sagraduba, Elexaco santubac eta maisubac, ta topauco dozu orraco placeetan naaste eguiten dituzun dantza madaricatuboc pecatu mortala diriala, atan ez ibilteco verbia emon artian conpesorec absolvidu ezin leizala, absolvidu dituben ta eguin daveen asco inpernuban dagozala. Ez dira, bada, 70
neure entzula onac, jai domeecac gordetan diabrubic najien daven opicijua- gaz, ezpada leen esan dirian obra onac eguinagaz. Escatu daijogun Ama Virginia guztiz garbijari arimaco gach oneen erremedijua ta nic orain biar dodan gracija ainguerubac ecarri eutsazan barri onac esanda: *Avemarija*.

¡Ce itsuba dan munduba bere pensamentu ta juicijuetan! Dinot, neure crista- 75
nabac, itsuba ta chito engañetan erraza dala munduba bere pensamentube- tan, ez deusagu inos bere gauciari bere balijua emoten: Gauza onac daucaguz dongazat ta dongac onzat, gachac errezzat ta errezac gachzat, humildiac gal- duzat ta soberbijosuac dichosozat, munduba desprecijetan daveenac coitadu- zat ta ondasuna ugari batuten ditubeenac portuna andicozat. Au da munduba- 80
ren penseeta moduba, baña ez Jangoicuarena ez cerubarena.

Gaurco egunian Elexa Ama santiac celebretan dau Israelgo alaba baten jai- 85
jotzia, ceru guztia consolau ta alegretan davena ta ceubec guztioic bere pediac eracutsita devocinoe osuagaz adoretan dozuna. Au da Ama Virginia Santissimiaren jaijotza ederra, gracijazcua, consolagarrija ta glorijosua, mundu- cuen erichijan beste edocein alabaren jaijotziac baño andiari gueijago ez euca- 85
na; ta onegaz eracusten deuscu cerubac humildade eguijaz[5]cua.

68 diriala *Ba geh* ta [?] *baina ezab*. 69 *Ezdira Ba* 76 *ezdeutsagu Ba* 81 celebretan] celebratan *Ba*

⁵ Frai Bartolomek, *Icas-II* liburuan (30. or.), pentsamendu hau zabalago azalduz, Bibliako "Prov. 7" (Es 7) aipamena dakar. Gogoan izan behar dugu Frai Bartolomenen aipamenak nahiko libreak direla eta batzuetan parafra-sien bidez egiten dituela aipamen horiek.

⁶ Aipamen bera aurkitzen dugu, baina pixka bat zehatzagoa *Euscal-errijetaco...* liburuan (81-82. or.) eta liburutxo horretan Bartolomek oharrean aipu hau dakar: "Orat. 8. de tenparant. et lib. de Elia, et Jejun. c. 18". Pixka bat desberdina den beste aipamen batean (*Esku*, 287.or.) honela dakar Basilioren aipua: "Homil. 14. in ebriet. et luxum." *Icas-I* liburuan (268.or.), Basilioren aipu hau dakar: "Hom. in ebriet.", eta beste horrenbeste 270 eta 275. orrialdeetan...

⁷ Aipamen berbera aurkitzen dugu, baina zehatzago *Euscal-errijetaco...* liburuan (84. or.) eta liburutxo honetan oharrean aipu hau dakar Bartolomek: "De Choreis. c. 16". Ia aipamen berdi-na *Euscal-errijetaco...* liburutxoan 132. orrialdean, honela dakar: "Ubi supra c. 7" (De choreis). Jolasei eta bekatuari buruz *Euscal-errijetaco...* liburuan, 31. orrialdean, S. Karlos Borromeoren irakaspnenak aipatzen ditu: "Instrut. §. 31."

Cerubarentzaco ta arimentzaco, Jesucristorena apartau ezquero, jaijotza guztien artian dichosuena ta gracijosuena; ta onegaz eracusten deuscu Ama Virginia S[anti]s[simial]ri euqui biar deutsagun devocinoia.

90 1º Dinot, lelengo, Maria S[anti]s[simiare]n jaijotzia zala mundubaren erichijan beste edochein bere alabarenac baño estimacinoe gueijago ez eucana. Ta eguija esateco: ¿Cer pensauco even ingurubetacuac Nazaren Ama Virginia jaijo zanian? Ez beste gauzaric, ezpada zala Joaquin eta Ana guraso pobre ta zaar batzuben alabia⁸. Penseetan even bestiac leguez pecatu originalian sortuba zala, pecatubaren manchiagaz jaijo zala, munduco miserijac, naibagac eta peligrubac bestiai leguez toquetan jacoza, etsaijaren astucijac, araguijaren tentacinoiac ta munduco esquini paltsuac bestiai leguez aguinduco eutseela. Ibili ezina, negar eguitia, zaintu biarra, escatu ezina, barbaric eguin ezina, enpin, beste edocheñen aguirico miserijaquin jaijo zan Ama Virginia

100 S[anti]s[simi]ja.

Au gaiti ez euan mundubac orduban ezaututen mirarizco gauza andiric jaijotza atan. ¡Oh Jangoicuaren juicijo altubac! ¡Oh humildadiaren balijua! ¡Oh mundu arrua ta soberbijosua! ¡Ce guichi estimetan dozun gueijen balijo daven virtutia! Zubec laster campora ateraten dozu ceuben andiari puscac: Nai dala ceuben euquiya, nai dala ceuben seniqueria, nai dala ceuben edo leenagocuen jaqui[6]turija, nai dala guero izateco daucazun esperanzia. Seme bat edo alaba bat jaijo deineco edo sortu deineco daravilzu auan, bapere bada, aren portunia, aren dichia ta aren andiariya ta vanidadia. Ta orduban uste dozu zariala dichosuac, cerbait cer contaun munduban daucazunian. Baña gure Jangoicuac,

110 humildadia cristinau guztiai eracusteco, munduco estimacinoia ta andiariya oñazpijan euqui daigun, arimaco ta ceruco gaucetan gue[ur]e poz eta dicha guztia imini daigun, Marija Virg[ini]ja bere alaba maitiaren jaijotza guztiz glorijosua, guztiz gracijosua ta guztiz mirarizcua bapere arguitasun bagaric, bapere andiari bagaric mundura ecarten dau. ¡Oh Virgina humildia! ¡Oh Jangoico

115 humildiaren alaba humildia! Ez da mirari andija munducuac ceure jaijotza gracijosuari estimacinoe andiric ez emotia. Itsubac dira munducuac ceruco mirarijac icusteco ta ezaututeco. Cerbait gaiti esaten dozu eguzquijac galdu deusula ceure ichuria. *Decoloravit me sol*. Ta azala ezaina dauczula. *Nigra sum*¹⁰. Bada, munducuen erichijan ta penseeta moduban bestiac edu baño ez zara; ta

91 estimacionoegueijago *Ba* 99 jaijozan *Ba* 104 dozu *Ba geh ler. artian* | naidala *Ba* 106 naidala *Ba* 107 bapere bada *Ba geh ler. artian* 112 Virg[ini]ja *Ba geh ler. artian* 114 ecartendau *Ba* 115 Ezda *Ba*

⁸ Joakim eta Ana, tradizioaren arabera Andre Mariaren gurasoak... (Ik. *Icas-III*ko 272.oharra, 1340.or.).

⁹ Kt 1, 6.

¹⁰ Kt 1,5.

menturaz beste asco baño guichiago ceure jaijotza pobria, humildia ta zaata 120
 guichicua gaiti. Baña ceure jaijotza bedeincatubac munducuen erichijan dau-
 can illuntasuna jasoten badogu Jangoicuaren veguijen aurrera, guztia izango da
 argui[7]ja, ederra ta gracijazcua. *Sicut tenebræ eius ita et lumen eius.*
 Mundubaren erichijan humildia ta bajuba zan Maria S[anti]s[simiare]n jaijotzia,
 baña cerubaren vistan arguija ta glorijsua. *Ita et lumen eius.* 125

2º ¡Oh, neure cristinaubac, berecautan leguez nasaitu ta gozatuten da
 gueure vijotza doncella eder guztizco onen jaijotziagaz acordeetan danian! Au
 da eguna patriarca santubac ainbeste desiau eveena. Au da eguna propeta san-
 tubac milla mirarizco verba gozogaz senallau eveena. Au da eguna guiza aldiric
 guiza aldira gente guztia desietan eveena. Au da eguna ainchinaco Sara¹¹, 130
 Raquel¹², Sunamitis¹³, Judit¹⁴, Devora¹⁵ ta beste emacume indarsu, eder ta graci-
 josuaquin prestanta eguana. Au da eguna lau edo bost milla urtian egunero
 zuzpiruz ta negarrezco vijotzagaz Isrraelgo alaba guztia Jangoicuari erregutu-
 ten eutseena. Au da eguna gau triste luce illun baten ondoric egunsenti ederra
 jaijoten dana. Au da eguna ichasoco olatu icaragarrijetan luzaro bidia galduta 135
 ibili da[n] marinerubari argui izar ederra ta seguruba aguertu jacona. Enpin, au
 da eguna, neure enzula onac, cerubac baño ederrago, eguzquiya baño arguija-
 go, lirijuac baño zurijago ta ainguerubac baño garbijago ta santuago dan
 Isrraelgo lora bacarra ta estimau[8]ba jaijo dana.

Ya ascatu bitez vijotzac, sicatu bitez beguijac, alegrau bedi arimia, animau 140
 bedi gentila, consolau bedi Isrrael ta Juda, poztu bedi mundu guztia, quendu

120 guichiago *Ba gehzara [?] baina ezab.* 121 gaiti *Ba geh* Baña munduco illuntasun *baina ezab.* 126 berecautan] beracautan *Ba* 127-128 Auda *Ba* 128 Auda *Ba* 129 Auda *Ba* 130 Auda *Ba* 132 Auda *Ba* 134 Auda *Ba* 135 Auda *Ba* 136-137 auda *Ba* 140 Ya ascatu] Ija escatu *Ba*

¹¹ Sara, Abrahamen emaztea eta Isaaken ama (Has 11, 29-31; 21,1-8); hemen, nahi izan den semea, agintzarien semea, Jainkoagandik hartzearen grazia azpimarratzen da (Erm 9,9), horrela Israelen ama bihurturik (Is 51,2).

¹² Rakel, Jakoberen emaztea eta Jose (Has 30,22-24) eta Benjaminen ama; hau jaiotzean ama hil zen (Has 35,16-18).

¹³ Bi emakume ditugu batez ere izen hau dutenak: bata, Xunemekoa, Abixag familiakoa; David erregearen azken egunetako laguntza izan zena (1Erg 1,3; 1,13; 2,17). Eta bestea, Eliseo profetaren bizitzan agertzen dena; emakume honek ez zuen seme-alabarik, eta profeta honek, hain harrera ona egiten ziolako esker onez, hurrengo urterako semea bat izango zuela iragartzen dio; hau hil egin zen, baina Eliseok berpiztu egin zuen (2Erg 4,12.22.36). Ziur aski Frai Bartolomek bigarren emakume hau izango du gogoan.

¹⁴ Judit, Manases-en alarguna (Jdt 8,1-2), bere herriaren salbatzaile agertzen da Biblian, Holofernes jeneralaren ondora joan eta honi lepoa mozteko ausardia izan zuelako (Jdt 10-14).

¹⁵ Lapidoten emazte Debora profetesak gobernatzen zuen Israel (Ep 4,4); honek garaipen handia iragarri zuen bere herriarentzat eta halaxe gertatu zen; hortik "Deboraren kantua" gelditu zaigu, garaipenaren kantua; kanturik zaharren eta ederrenetarikoa (Ep 5,2-31).

bedi pecatubaren lutu tristia ta artu bedi¹⁶ caridade gozuaren jantzi apainduba
 Ama V[irgina] S[anti]s[simi]a guiza aldi guztien esperantzia, vijotz guztien poza,
 Aita Eternuaren alabia, seme guizon eguinaren ama, Espiritu Santubaren espo-
 145 sia ta criatura guztien errequina jaijoten danian. ¡Oh sein ederra! ¡Oh san
 Joaq[ui]n ta santa Anaren alava maitia! Ordu onian etorrija izan deilla ceure jai-
 jotza gracijazcua ta desiauba. Alabau zaijezala cerubac ta imini daijezala euren
 izarrac eta arguigarriac ceure oinetan. *Luna sub pedibus eius*⁷. Alabau zaijeza-
 150 la ainguerubac ta cantau daijela ceure jaijotza grazijazcuan, Adanen alabia izan-
 nic pecatu bagaric sortuba zarialaco, luurrezcua izanic gracia utsa zarialaco,
 mancharen errasturic ceure arimiac ez daucalaco, araco cerutar guztiaac arritu,
 consolau ta alegretan dituban cantia: *¿Quæ est ista quæ progreditur quasi*
*aurora consurgens?*¹⁸ Alabau zaijezala criaturac ta prestau daizubela euren
 155 moduban udabarri ederreco chorijen canta ta lora usain gozoco jantzi gracijo-
 sua. *Vox turturis audita est in [9] terra nostra*¹⁹. *Flores dederunt odorem suum*²⁰.
 ¡Oh Isrraelgo sein ederra! ¡Oh Virgina gozua! Ordu onian izan deilla gaur-
 co egun bedeincatuba ta zorijonecua. Entzun eguijozu Aita Eternuari ceruben
 ta luurren Erreguiari ceu zariala criatura guztien artian lelengo sortuba ta lelen-
 go jaijua. *Ego primogenita ante omnem creaturam*²¹. Entzun eguijozu Seme
 160 Divinuari san Epifanioren aoti²², ceu zariala bere ama ta ceruban ta luurrian vizi
 dirianen Ama. *Maria Mater viventium*²³. Entzun eguijozu Espiritu Santubari ce
 priesiagaz esaten deusun laster aguertuteco, laster jaijoteco, zatozan eriaz
 coronau zaizan. *Veni, sponsa, veni de Libano. Coronaveris*⁴.
 ¡Oh Virgina gracijosua! Ceuri ichaaten dago Trinitade guztia, inos entzun
 165 dirian, pensau dirian ta esan leguizan obraric andijenac ceure sabel bedeinca-

151 ezdaucalaco *Ba* 157 Entzuneguijozu *Ba* 158 artian *baina* tian *ler. artian* 159
 omnem] ommem *Ba, baina* 2. m *ler. artian* 162 zatozan] jatozan *Ba*

¹⁶ Era inpersonalean jokatuak daude “quendu bedi” eta “artu bedi” adizki bi hauek, bestela *quendu begui* eta *artu begui* egingo zukeen ergatibodun subjektuarekin.

¹⁷ Ap 12,1.

¹⁸ Kt 6,10.

¹⁹ Kt 2,12.

²⁰ Kt 2,13: “vineae florentes dederunt odorem suum”.

²¹ Si 24,5.

²² S. Epifanio Pavia-koa (438-496). San Epifanioren pentsamendu honen aipua sermoi-liburu batzuetan aurki zezakeen Bartolomek; horrelako liburu batzuk oraindik gordetzen dira Markinako Karmeldarren bibliotekan eta hari ezagun izango zitzaizkion beharbada; esaterako: Matthias FABRI, *Concionum opus tripartitum...*, Coloniae, 1693, 641.or.; honela dator: “Unde S. Epiphani. haeresi 78. *Mariae*, inquit, *per Evam significatur, quæ per ænigma accepit, ut mater viventium vocetur*”.

²³ Aipamen hauxe da: Has 3,20 (*Vulgata*: “Heva: ego quod mater esset cunctorum viventium”).

²⁴ Kt 4,8: “veni de Libano sponsa mea, veni de Libano, veni: coronaberis”...

tuban eguiteco. Ceure errajetaco odol garbijagaz pormatu biar dau Espiritu Santubac mundu guztico Salbadoriaren gorputza ta izango zara Jangoicuaeren beraren Ama, cerubetaco erreguina, mundubaren erremedijua, diabrubaren burubaren zapalzallia ta arima guztien osasuna.

Bai, neure cristinaubac, ara emen ce ichu[10]ria daucan Ama Virginiaren jaijotziac ceruti beguiratuta, pediagaz beguiratuta, Jangoicuaeren providencijsara ta veguijetara jasota. Ara emen munduban izan dan ta izan leitequian jaijotzaric estimaubena, altubeena, gracijazcuena ta desiaubena, Jesucristo gueure Jaunarena apartau ezquero. Ta oraindino Jesucristoren jaijotziac bere Ama Virginiaren jaijotzan euqui euan bere asieria, san Ildefonsoc esaten daven leguez, *in nativitate Virginis felix, Cristi incoata est nativitas*²⁵. Ama Virginiaren jaijotziac encerretan ditu Jesusen vizitzaco ta mundu guztiaren erremedijoco misterijo santubac eta altubac. Bai, neure entzula onac, Virgina eder onen jaijotzia ceinbat humildiagua dan munducuen veguijetan, aimbat da jasuagua ta estimaubagua Jangoicuaeren veguijetan. *Sicut tenebræ eius, ita et lumen eius.*

Bada, Juan Crisostomoc dinuan leguez, Ama Virginiaren jaijotza humildiarri ta Jesusen munduco gurasuen chiquitasunari beguiratutia asco bada gueure vijotzetaco arrotasuna ta soberbija quenduteco, Ama Virginiaren beraren jaijotza gracijazcua da asco pena guztiai amaija ta consuelo guztiai asieria emoteco, dino Ruperto jaquitunac²⁶. Au gaiti cantetan dau gaurco egu[11]nian Alexa Ama santiac: ¡Oh Jangoicuaeren Ama Virginia!, ceure jaijotziac ecarri deutsa mundu

166 biardau *Ba* 182 munduco *Ba ler. artian*

²⁵ S. Ildefonso, Toledoko apezpikua (+667). Oso ezaguna da *De virginitate perpetua S. Mariæ contra tres infides* izeneko haren obra.

²⁶ Rupert, Deutz monasterioko abadea; XI. mendeko azken hamarkadetan eta XII.eko lehenengoetako gizon entzutetsua dugu; monasterioetako teologiaren ordezkaria; honen mariologiak amatasun espirituala azpimarratzen du eta Kanturik Ederreneko Emaztea Mariaren irudizat hartzen du.

Rupertoren pentsamenduaren aipua, Bartolomek sermoi-liburu batzuetan aurki zezakeen; liburu horiek oraindik gordetzen dira Markinako Karmeldarren bibliotekan eta hark erabiliak dira, esaterako, berak 1819an erosi zuena (frantsestean galdu ondoren?): THOMAS MADALENA, *Año evangélico, panegyrico, y moral..* Zaragoza, 1735, 342.or.; honela dator Rupertoren testua: "Quia sicut Aurora quotidiana finis præteritæ noctis est, et initium diei sequentis; sic Nativitas Virginis finis dolorum, consolationis fuit initium, finis tristitiæ, et lætitiæ nobis extitit principium". Aipamen bera aurkitzen dugu gorago aipatutako Matthias Fabri-ren liburuan ere (*Concionum opus tripartitum...*, Coloniae, 1693, 632.or.). Honela dator Rupertoren liburuko *Commentaria in Cantica Canticorum* izenekoan: "Quia sicut aurora quotidiana finis præteritæ noctis, et initium diei sequentis, sic nativitas tua, nativitas ex semine Abrahae, clara ex stirpe David, ad quos cum juramento Dei facta es re promissio benedictionis, finis dolorum et consolationis fuit initium, finis tristitiæ et lætitiæ nobis extitit principium" (PL, Migne, 168, 936-937).

guztiari alegria ta consuelua. *Nativitas tua, Dei genitrix Virgo, gaudium anun - tiavit uniberso mundo*²⁷.

190 Alegrau gaitezana, bada, guztioe egun santu eta zorijoneco onetan. Esquer
 onac emon daijoguzan Trinitate Santubari: Aitiari, Semiari ta Espiritu
 Santubari, alaco Ama misericordijazcua prestatu eusculaco ta mundura zorijon-
 nian ecarri eusculaco. Erregutu daijogun Virgina guztizco oni ecarri daguijan
 gueure arimetara ceruco bendicinoiac eta gracijac. Artu daigun gogo oso bat
 195 Ama Virgina guztiz santia alabetaco ta bere egun santubac bera serbiduten ira-
 goteco, ez mundubaren obretan, ezpada Ama Virginiaren ondraco gaucetan:
 Baquia, caridadia, errosarijua, ondo conpesetia, devocinoez comulguetia, Ama
 Virginiaren vizitzaco ta doloretaco gauzac pensetia ta gueure arimaco ta gor-
 putzeco necesidaden erremedijua escatutia, modu onetan alcanzetaco arimaco
 gracija ta ceruco glorija. Amen.

193 osobat *Ba*

²⁷ Andre Mariaren Jaiotza eguneko bigarren bezperetako Magnificat antifonaren testu-zati bat da, XIX. mendeko orduen liturgiako Elizaren liburu ofizialean eta mende bereko "Antiphonarium Romanum" delakoan aurkitzen dena.

2

Sermoia gurasuen ta umeen oneraco

Sermoi hau *Jaungoicuaren legueco lelengo bost aguinduben ogueta bost Lecinoe ta sermoe bat... Mandamentuben I. Partia. 1807* izenez lehen aldiz oraintxe argitaratzen dugun eskuizkribuan agertzen da; eskuizkribuko 239. orrialdetik 262.era bitartean.

Ikus liburu honetan, 653-666. or.

3

Sermoia gurasuen ta umeen oneraco

Sermoi hau 1816an argitaratutako Bartolomeren liburu honetan dator: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac... I. Zatiya*, Iruñea, 1816; sermoia liburuaren amaieran dago, orrialdeen zenbaketa berria, 1etik 30era ezartzen diola.

Ikus liburu honetan, 885-898. or.

4

Ama Santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia

Sermoi hau 1817an argitaratutako Bartolomeren liburu honetan dator: *Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac... , II. Zatiya*. Iruñea, 1817; sermoia liburuaren amaieran dago, 283. orrialdetik 298.era bitartean.

Ikus liburu honetan, 1097-1109. or.

APUNTACIONES

SARRERA

Sarrera orokorrean egin dugu, eduki historikoa duten Frai Bartolomeren eskuizkribuen deskripzioa.

Hemen berezitasun batzuk gehitzea dagokigu.

Azalduta dagoenez, kontakizun honek Espainiako Kongregazioko Karmeldar Teresiarren Nagusiak emandako agindu batean du sorrera (1815eko apirilera arte Antonio Jesus Mariarena zen bikario nagusia, eta esandako data horretan A. Antonio Bakardadekoa izendatu zuten Jeneral); agindu horren arabera, komentu bakoitzari eskatzen zitzaion frantsestean komentuan gertatutakoaren berri ematea. Frai Bartolomek kontakizun orijinala bidali zuen, Markinako Karmengo Prioreak, Frantzisko Jainkoaren Amarenak, baina Frai Bartolomek berak sinatua eta testifikatua; orijinal hau Burgosko Artxibo Silverianon gordetzen da (BAS, 52,i). Testu osoki autografoa Markinako Karmeldarren artxiboan gordetzen da (MKA, A-I-70).

Argitalpen honetan guk testu autografoa ematen dugu (A), testu orijinalarekin (B) dituen desberdintasunak aparatu kritikoan adieraziz. Bien arteko desberdintasunak gutxi dira, eta hitz batzuen ordez beste batzuk sartzean egin diren aldaketa txikiak dira (acaecidos – sucedidos; que – según; podríamos – pudiéramos; ni una – ni aun; etab.) edo batean zerbait ezabatu edo kentzean egin diren aldaketak etab., irakurleak aparatu kritikora begiratuz egiazta dezakeenez.

Testu autografoan dauden ukitu edo zuzenketa txikiak, gehienbat, A. Frantzisko Jainkoaren Amarenak dira. Baina, batzuetan, beste eskuren batena izango ote den zalantzan egon ohi gara. Argi dagoena da, askoz geroago, norbaitek osatu zituela, hezetasunagatik edo, ia ezabaturik gelditu ziren lerro batzuk; folioen goialdeko lerroak dira nahiko galduak zeudenak. Dirudenez, testu orijinala (*B*) kontuan izanik osatu ziren.

Euskarazko testuetako sistema bera erabili dugu hauetan ere, lerroei zenbakia jarritz eta testuen arteko desberdintasunak aparatu kritikoan adieraziz. Hala ere, gaztelaniazko testu hauetan ez dugu ohar historikorik edo azalpenekorik gehitzen...

Aparatu kritikoan A, B testuak eta Aita Frantzisko Jainkoaren Amarenak egingako zuzenketa bereizten ditugu, hauek *Frantzisko* izenez adieraziz.

1815ean idatzitako testu hau 1992an argitaratu zen lehen aldiz: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea - Zornotza, 1992, 752-768.

**APUNTACIONES DE LO OCURRIDO EN EL COMBENTO
DE LOS CARMELITAS DESCALZOS DE LA VILLA DE MARQUINA
DESDE EL AÑO 1808 HASTA EL DE 1815.**

[1]

Relación de los sucesos acaecidos en el convento de los 5 Carmelitas Descalzos de la villa de Marquina en el M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya, Obispado de Calahorra y La Calzada, desde el año de 1808 hasta el de 1815, escrita por orden de N.M.R.P. General por el P. Fr. Bartolomé de S^a Teresa, Predicador de dicho convento.

La comunidad de los Carmelitas Descalzos de la villa de Marquina en medio 10
de la revolución y turbación general de toda la Europa mantenía su obserbancia
regular con tesón por los años de 1808, y gozaba en su seno tal qual paz que per-
mitía aquella deplorable época, siendo una de las más ajustadas y laboriosas de la
provincia en beneficio de su profesión y de la caridad. Se componía esta religiosa
casa de 22 conventuales coristas y de 4 hermanos de vida activa, cuos nombres 15
son:

R.P. Fr. José de los Dolores prior; R.P. Fr. Juan de la Cruz superior; el P. Fr. Domingo de S^a Millán presidente; el P. Fr. Bartolomé de S^a Teresa predicador; el P. Fr. Ignacio de la Concepción; el P. Domingo de S^a Cirilo; el P. Fr. Francisco de la Madre de Dios; el P. Fr. Francisco de la Cruz; el P. Fr. Miguel de S. Francisco; el P. Fr. Gabriel de S. Juan Bautista; el P. Fr. Angel de S^a María; el P. Fr. José de S. Antonio; el P. Fr. José de los Dolores; el P. Fr. Joaquín de S^a Bárbara; el P. Fr. Juan de la Purificación; el P. Fr. Tomás de [2] S^a Teresa; el P. Fr. Joaquín de S. José; el P. Fr. Martín del Santísimo; el P. Fr. Juan Antonio de San José; el P. Fr. Manuel de S^a María; el H^o Fr. Fernando de S^a Teresa amente y el H^o Fr. Formerio de S^a Teresa. Hermanos de vida activa: H^o Diego de S. José; H^o Miguel de S^a Teresa; H^o Félix de la Virgen y el H^o Gregorio de S^a Teresa. 20
25

Por el mes de mayo del mismo año de 1808, por orden de N.R.P. Provincial Fr. Joaquín de la Ascensión vino a este convento el colegio de theología que estaba 30

1-3 Apuntaciones - 1815 B ez-aip. 4 acaecidos] sucedidos B 12 que] según B 26 Formerio] Formorio B

en Pamplona con 17 colegiales y tres lectores, por haver ocupado las tropas del *Colegio en Marquina*. Intruso aquel colegio, y permaneció en éste hasta la supresión general de los combentos de religiosos en España.

A últimos de septiembre del mismo año arribaron las tropas nacionales a la Vizcaya, y antes de mediados de octubre ocuparon al mando del general Blaque *La comunidad en riesgo de perderse* Larrabezua, Galdacano y Arratia; y las tropas francesas ocupaban Durango y Zornoza, cuya corta legua de distancia había entre los dos exércitos. Por momentos se esperaba el último estermínio de los usurpadores y entera libertad de nuestra amada patria; pero nos engañábamos. Aún no era tiempo de que tubiésemos esta gran dicha. Dios por su alta providencia dispuso que lloviese sin cesar casi todo aquel mes de octubre y no pudiese abanzar nuestro exér[c]ito por esta ala, que seguramente hubiera entrado a las manos de las furias infernales con que venía Napoleón precipitadamente a nuestra España con las fuerzas que se sabe; y el día 1 de noviembre atacó a nuestro exército entre Durango y Zornoza a las órdenes del general Lefebre duque de Dantzic.

Después de haver hecho en el combento muchas novenas a N.M. Santísima, al glorioso Sⁿ José, a N.M. S^a Teresa y a Cristo crucificado en su capilla por todo aquel verano por las necesidades del reino y de nuestro amado Rey, empezó la comunidad la rogativa diaria en el coro por la tarde con la letanía y salve cantadas, tomando por pretexto la indicada aguada del mes de octubre para [ponernos a] cubierto de [los] espiones, que ya abundaban en la comarca. Duró esta piadosa rogativa de la comunidad con mucha asistencia y edificación del pueblo hasta Navidades del mismo año, sin que se trasluciese cosa alguna del gobierno intruso contra la comunidad.

El 25 de diciembre del mismo año, el S^r Alcalde de la villa de Marquina, Dⁿ José Joaquín de Gaytán y Barroeta se presentó al prelado de casa y le manifestó su merced reservadamente al dicho prelado para su gobierno una carta-orden de J.J. Abril comandante general y gobernador de Vizcaya, escrita en francés, en que le decía al S^r Alcalde:

«Que era noticioso de que los frayles del combento de Marquina eran perturbadores [4] del orden público, enemigos de la paz, peores que los salvajes..., y que a la menor nobedad que notase en ellos, atados los condujese a todos a la billa de Bilbao bajo toda responsabilidad».

Después se supo con certeza que esta carta-orden suplió la falta de fuerza, que a tenerla, la 1^a orden de Abril fue el de destacar una partida de soldados, arrestarnos a todos los frayles y conducirnos a Bilbao. Agradeciendo el Prelado al Sr. Alcalde el abiso de tanto interés (qual tiene muy presente toda esta comunidad, y deven tener siempre gravado en su corazón los benideros en loor de la casa de Barroeta, que siempre ha protegido a esta comunidad con particular afecto), parti-

32 en A en en 51 aguada] agua B 51 ponernos a geh. *Frantziskok* 52 los geh. *Frantziskok*

ció a sus religiosos del riesgo que les amenazaba, sin poder adivinar de dónde venía el mal.

La comunidad viéndose en el riesgo que se deja conocer, el día 2 de enero de 1809 embió al padre predicador Fr. Bartolomé de S^{ta} Teresa a la villa de Bilbao para el efecto de averiguar el enemigo que nos perseguía y de disipar aquella tenpes- 75
 tad que amenazaba nuestra ruina, con todo lo demás del caso para salvar la comunidad. Quiso Dios que el resultado de sus primeras diligencias fuese el hacerse con una carta que el impostor escribía a [5] Abril antes que llegase a manos de éste; la que abrió con cautela, y en ella descubrió el autor principal de nuestra persecu- 80
 ción. Cerrada la carta y puesta en su curso el dicho P. Predicador, en virtud de sus memoriales y otras diligencias consiguió del gobernador Abril de que viniese a esta villa de Marquina un informante de la conducta de los religiosos.

En efecto, el día 11 de enero del mismo año llegó a esta villa Dⁿ Lino de Zaroa capellán del duque de Dantzic, religioso de S. Francisco de Vitoria (que, según se *Dⁿ Lino de Zaroa se informa* decía, por fuerza sacó de su convento aquel 85
de la conducta de la comunidad. General para capellán suio, y por lo que toca a este asunto no desmintió que era religioso, pues se conduxo como nosotros podíamos desear), escoltado por una partida de soldados a informarse de nuestra conducta por orden del general Abril. El informante convocó el día 12 de dicho mes el ayun- 90
 tamiento de esta Villa y resultó el decreto siguiente que para perpetua memoria de agradecimiento a esta N. Villa se estampa aquí:

En la sala consistorial y de aiuntamiento de esta noble villa de Marquina a 12 de enero de 1809, ante mí el infraescrito Secretario, se juntaron a concejo, según *Decreto de la Villa* costumbre los señores Dⁿ José de Goixazcoechea 95
de Marquina. alcalde y juez ordinario de esta Villa; Dⁿ José de Alzaa, Dⁿ José Ipólito de [6] Alcibar, regidores; Dⁿ José M^a de Lamadrid, diputado del común; Dⁿ Juan de Aguirreamalloa, síndico; Dⁿ José de Aranguren, personero; Dⁿ José de Donestebe; Dⁿ Agustín Jainaga; Dⁿ José Domingo de Gaviola; Dⁿ José Joaquín de Gaytán y Barroeta; Dⁿ Xavier Ignacio de Astarloa; Dⁿ José de Acha; Dⁿ Manuel Joaquín de Ecenarro; Dⁿ Martín de Ibaseta; Dⁿ Cristóbal de Balenciaga; Dⁿ 100
 José de Egurbide, todos vecinos de ella; y así estando juntos y congregados acordaron lo siguiente:

A este n[oble] congreso se sirbió asistir el Sr. Dⁿ Lino Zaroa, capellán de su Excelencia el Exc^{mo} S^r Juan José de Abril, caballero del imperio, comandante de Legión y gobernador del Ill^{mo} Señorío, que viene con la comisión de arreglar y com- 105
 poner las desabenenencias del convento de PP. Carmelitas Descalzos de esta nuestra Villa, a informarse de las cosas que hubiesen dicho en las actuales circunstancias y para lo mismo que quería, que este Aiuntamiento le informase sobre los capítulos siguientes:

83 Zaroa *beste esku batek zuzen*Tavoa 87 podíamos| pudiéramos B 92 y B *ez-aip.* 112
 Zaroa *beste esku batek zuzen* Tavoa

110 *1º Si dichos religiosos han hablado mal de Napoleón y de su hermano José Iº, rey de España.*

2º Si han aconsejado a las gentes de estos pueblos de Vizcaya que no recd[7]nozcan por rey a José y que no le obedezcan en nada.

115 *3º Si hacen rogativas públicas para que Napoleón y su hermano José con todos sus ministros, oficiales, generales, grandes y todos sus exércitos perezcan en la p[er]sente guerra.*

